

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eibar



Aurkibidea

Udalerria: Eibar

Sarrera



Gipuzkoako udalerria, Bizkaiko mugan dago (Markina eta Ermuko udalerriekin egiten du muga) eta Debabarrena eskualdeko herririk garrantzitsuenak da. 27.600 biztanle ditu (%52,5 euskaldunak). Bizkaieraz egiten da berba, eta berezia da Agiñaga auzoa, Markinako hizkeraren eragin nabarmena daukalako. Herri hizkeren azterketan eta bilketan aitzindari izan da Eibar, eta horren lekuko "eibarrera" biltzen duten hamaika liburu, ikerlan eta proiektu.

Argazkia: Dantzan.eus.

- **Biztanleak:** 27.393
- **Euskaldunak:** %52,6

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **214**
- Zintak: **842**
- Pasarteak: **5.463**
- Transkribatutakoak: **518**
- Audioak: **358**
- Bideoak: **4.485**

Proiektuak

- 101L - Aniztasuna Ikasgai
- 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- Ahaztuen Oroimena
- Berriz 1936 gogoratzen
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Dialektologia-EHU
- Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- Eibarko ahozko ondarea
- Eibarko antzinako jolas eta kantuak
- Eibarko ermitak
- Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea
- Eibarko gerrako umeak
- Eibarko mendi-toponimia
- Eibarko ondare industrialak
- EibarOrg blog komunitateak 10 urte
- Erditzea erdigunera: begirunea eta indarkeria gorpuzten dituzten bizipenak
- Ermua eta Eitzako euskara

- Ermuko Ahozko Ondarea
- Ermuko eta Mallabiko "Drogeteniturrri" aldizkaria
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Gazte gara gazte
- Guk. Nosotros
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Hainbat hizlari 'Matrallako Irratia' (Eibar)

Eibarko *Matrallako Irratia* zenbait programaren grabazioa. Eibarko zenbait gazte agertzen dira berbetan: Dani Astarloa, Silbia Hernandez eta Leire Narbaiza.



Keli .

Jatorriz nigeriarra da. Eibarren bizi da eta Mogel ikastolako gurasoa da. Alabarekin batera egin genion elkarrizketa, "Aniztasuna ikasgai" proiekturako.

Pakita Abendibar Areitiourtena (1911-1996)

Jesus Mari Agirre Arriola (1947)



Eibarko Errekatxu kalean jaioa da. Armeria eskolan ikasi zuen eta bertako irakasle izanez urte asko eman ditu. Organozalea da eta zehatz ezagutzen ditu Helmholtz organogileen historia eta musika tresna horren sekretuak. Eibarko alkate izandakoa da.

Mari Carmen Agirre Berezibar (1924-2023)



Gurasoak Elorrio ingurukoak zituen, baina gazterik etorri ziren Eibarrera eta bertan jaio ziren Mari Carmen eta bere anai-arrebak. Untzagan jaio zen eta bertan bizi izan da beti, Txoko taberna gaineko etxeetan. Untzaga ingurua eta bertan gertatutakoak ondo baino hobeto ezagutzen ditu. Aitak, Eugenio "Elorrixok", ile-apaindegia zuen Untzagan bertan. 13 urte eskas zituela harrapatu zuen gerrak eta lanean hasi behar izan zuen: umezain, BH lantegian, dendari... Elkarrizketa egiteko orduan [Julita Arregi Etxeberria](#) izan zuen lagun Mari Carmenek (eskuinekoa).



Maria Arrate Agirre Unceta (1938)



Maria Elena Agirre Unceta (1941)



Maria Jesus Agirre Unceta (1944)

**Bitorio Agirregomezkorta Agirregomezkorta
Arizmendi** (1921)

Arizmendi baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti. 2003. urtean, 82 urte zituela, elkarrizketa egin zitzaion Eibarko mendi-toponimia jasotzeko. Une horretan bera zen Arrate auzoko lekukorik nagusienetakoa. Elkarrizketan bere alaba (Nerea Agirregomezkorta) eta iloba (Izaskun Alberdi) ere agertzen dira.

Petra Aguirregomezkorta (1926)



Otaola-Kiñarraga bailarako Egiguren ("Eguren") baserrian jaiotakoa 1926an. Ezkondu ondoren Eizkoaga baserrira joan zen bizi izatera. Landare eta sendabelarren inguruko kontu asko ezagutzen ditu.

Emilio Aiastui Garcia (1947)



Emilio Aiastui Garcia 1947an jaio zen Elgetan. Emiliok bi urte zituenean familia Eibarrera etorri zen bizi izatera Carlos Larrañaga auzora (gaur egun Juan Antonio Mogel). Han bizi izan da beti. Frontoi Zaharrean eta Olano Akademian ikasi zuen. Hamalau urterekin lanean hasi zen eta klase-kontzientzia garatu zuen, langile mugimenduetan murgilduz. Bost hilabetez egon zen deserriratu Medinacelin. 1983tik 1999ra, Eibarko Udaleko HB-ko zinegotzi izan zen, ALFAn lan egiten zuen bitartean.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Roberto Aizpurua Legaristi (1940)



Roberto Eibarren jaio zen 1940an. Hamalau urterekin, gubilista-mutil bezala hasi zen eta langileria eta klase-kontzientzia hartzen hasi zen. Hamazortzi urterekin UGT sindikatura afiliatu zen eta frankismo garaian klandestinoki nola biltzen ziren, zein ekintza egiten zituzten, propaganda nola banatzen zuten eta hainbat konturi buruz hitz egin du. Trantsizio garaian, lehen udal hauteskundeetako zinegotzia izan zen PSOE alderdiarekin batera. Garaiko erronka, zailtasun eta ilusioz hitz egin du.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Txomin Alberdi Arrizabalaga Beña (1913)

Eibarko Gorostabeña baserrian jaio zen (Gorosta auzoa). Baserrian jaio eta bizi guztian baserriko lanetan aritua. Gerran miliziano izan zen, eta preso egin zutenez, "Batallón de trabajadoresen" ibili zen zenbait urtez. Elkarrizketan bere emaztea eta alaba ere agertzen dira.

Jose Antonio Albizu Agirrebeña (1940)

Eibarko Ardantza kalean jaio zen 1940. urteko otsailaren 5ean. Lau senidetan gazteena eta mutil bakarra izanik, mutilaren jaiotzaren albistea aitak pozarren hartu zuela kontatzen du. Isasi kalean zegoen "Sagrado Corazón" ikastetxean burutu zituen oinarrizko ikasketak eta Lucas Alberdirekin ikasi zuen marrazten udaletxeko marrazketa- eskolan. Hamalau urterekin hasi zen Eibarko "Aguirre y Aranzabal" (AYA) lantegian grabatzaile moduan. Aprendiz bezala jardun zuen Jose Rodriguez Aday, "Errekalde", grabatzailearen kargura lehenengo urteetan zehar. 1985. urtera bitartean jardun zuen AYAn. Armagintza sektoreak jasan zuen gainbehera nabarmenak eraginda, urte horretan bertan desagertuko da AYA, SORESKO (Itziar, Deba) zeritzon enpresa multzoko partaide bihurtuko delarik. Nahiz eta Jose Antoniok bertan jarraitzeko aukera izan, bere kontura lanean jarduteko erabakia hartu zuen eta horrela jardun zuen, etxeko sukaldean grabatzaile lanetan, erretiroa hartu zuenera bitartean.



María Isabel Albizu Lluvia (1966)

1966an jaiotakoa, elkarrizketa egin zitzaionean Historia irakaslea zen Aldatzeko Ikastetxean.

Angel Albizuri Ormaetxea (1921-2015)

Abadeekin ikasitakoa; monagilo ere izan zen. 14 urterekin aprendiz moduan sartu zen Orbeaneko fabrian, mekaniko eta ajustadore lanak egiten. Aita, Orbeako enkargatua zen, pistola kontuan. Gerra garaian, Orbea lantegiak Eibarren jarraitu zuen eta Francoren tropak sartu zirenean obusak egiten hasi ziren bertan. Angelek betidanik izan du mendirako zaletasun handia eta oso ondo ezagutzen ditu inguruko txori eta perretxikoak. Eibarko Hiztegi Etnografikoa burutzeko ere lekuko garrantzitsua izan zen.



Rosario Alcerreca Azconaga (1911-2006)

1911. urtean jaiotakoa, Muzategi kalean. Alhondigara joan zen lehenengo ikasketak egitera eta Dña Paca izan zuen irakasle.

Ana Mari Aldazabal Guridi (1924)



Eibarren jaio zen, Ibarkurutzean. Hantxe bizi izan da 40 urtez eta beste 40 urtez Bidebarrieta kalean. Gurasoak eibartarrak ziren eta zazpi anai-arreba izan zituen. Ibarkurutzeko eskolan ikasi zuen (Alondeggi zaharrean) eta gerora Jardinetako eskolak inauguratu zituen Errepublikako sasoian. Oso ondo gogoratzen ditu Ibarkurutzeko eta Bidebarrieta inguruko kontuak, baita Matxariko zelaiak eta erreka ere.

Roberto Altuna Iriondo (1930)



1930eko azaroaren 30ean jaio zen Isasi kalean. Gerra garaian Eibartik atzerrira joandako "gerrako umeen" artean egon zen. Frantzian egon zen familia batekin gerrak iraun zuen bitartean. Beti izan du hartu emana hangoekin. Itzuli zenean Armeria Eskolan ikasi zuen, aurrenik, Victor Sarasquetan eta GACan egin zuen lan. Gero, Alfan, erretiroa hartu arte.

Gaspar Alvarez Lucio (1918-2012)



Aita Gallartatik etorri zen Eibarrera lanera. Umetatik Eibarko giroa zuzenean ezagutu zuen eta ekonomia eta politika arloan garai gogorrak etorri zirenean berak parte hartze zuzena izan zuen. 14 urterekin, Secretario de los Pioneros Rojos izendatu zuten eta geroago Juventud Rojako kide ere izan zen. 1934ko urriko iraultza eta 1936ko Gerra Zibileko urte latzak ere gertutik bizi izan zituen.



Izaskun Angoitia Goikoetxea (1958)

Dantzaria. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, *Soka* proiekturako.

Asun Anguera Illarramendi (1928-2011)



Gerra Zibilaren aurreko urteetan hain ezaguna eta berezia zen Arraindegi kalean jaiotako emakumea. Gerra sasoiaren umea bazen ere, ondo gogoratzen zituen orduko hainbat pasarte. Antzinako Eibar ondo ezagutzen zuen, berez entzun eta ikusitakoaz gainera, etxean gurasoengandik ere hainbat konturen berri izan zuelako. Aita bezala, musikarako zaletasun handikoa eta ahots ederrekoa, kantuzale handia. Eibarko udalak kaleratutako Eibarko kanten liburuxkan, laguntzaile ezinbestekoa gertatu zen. Azken urteetan "Voces y cuerdas" taldeko abeslari ere izan zen.

Jose Francisco Anitua Astigarraga Patxi (1936)



Jose Francisco "Patxi" Anitua Astigarraga Munitibarren jaio zen baina hilabetera Eibarrera bueltatu zen aita. Aita, Felipe Anitua injenieri industrialia eta GACko Jose Francisco Anitua sortzailearen semeetako bat izan zen. Ama ordea, Iburgain baserriko eta tabernako alaba. Estaziño kalean pasatu zuen bere haurtzaroa eta zortzi urterekin Tuterara joan zen ikastera osasun arazoak zirela eta. Ondoren, eta aitaren pausuak jarraituz, injenieritza industrialia ikasi zuen Patxik. 1963an ikasketak GAC-an sartu eta bertan lanean egon zen hau itxi zuten arte, 1995ean. Ondoren, urte batzuk egin zituen Nafarroan lanean. Eibarko Industria Ondareko proiekturako parte hartu du, GAC-ko kontuak gertutik ezagutu dituelako eta bere aita Felipe Anituaren ikuspegi orokor bat eskeintzeko asmotan.

Carmen Apellaniz Aizpitarte (1931)



Carmen Apellaniz Aizpitarte 1931n jaio zen Eibarren. Aita garraiolaria zen eta ama etxeko andrea; lau seme-alaba izan zituzten. Gerra aurretik Arraindi kalean bizi ziren, baina bonbardeaketek kalea suntsitu ondoren, Bidebarrietara joan ziren. Carmenek, Mercedes Kareagarekin eta [Tere Gantxegi](#)rekin batera, Goi-Argi emakumeen elkarte sortu zuen 1951n.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Agustin Arana Barinaga (1913-2013)



Eibartar "peto-pettoa", gerra aurrean herria nolakoa zen ondo gogoratzen du. Gerra garaian frontean borrokatu zuen eta gerora preso egon zen luzaroan. Hiztun ona, kontu interesgarri asko aipatzen ditu. Elkarrizketak "Zatixa" elkartean egin zaizkio, [Bartolo Arriola](#) lagun duelarik.

Edurne Aranberri Agirrebeña *Sanjuantxonekoa* (1921-2018)



Eibarren jaio zen, "Sanjuantxoneko" etxean, Barrenkalean. Aita, Gumer Aranberri, armagin familiako zen, baina tindategia ipini zuen. Ama, berriz, baserri ingurukoa (ama Elgetako Sanjuan baserrikoa eta aita Arratebaileko Sanjuangua baserrikoa). Edurneren familiak estankoa izan zuen parrokia parean, Mallea jauregia izandako eraikinean. Gerran herritik alde egin behar izan zuten eta 18 urte zituenetik Edurne Zarautzen bizi izan da. Hala ere, ez ditu batere galdu Eibarko euskara eta herriko oroitzapenak.

Luis Alberto Aranberri Mendizabal *Amatiño* (1945)



Luis Alberto Aranberri "Amatiño" Eibarko Bidebarrieta kalean jaio zen 1945. urtean. Eibarko eskola nazionalean hasi zituen ikasketak eta Isasi kaleko Corazonisten ikastetxean jarraitu. Geroago, hiru urtez, Bilbon eta Oronozen jarraitu zituen ikasketak. 18 urterekin Eibarrera itzuli eta bere aitaren lantegian hasi zen lanean; bertan aritu zen 13 urte inguruan. Tarte horretan, baina, bere benetako zaletasuna ondo errotuta zuen eta lantegiko lanarekin batera kazetaritzan hasi zen, Zeruko Argia aldizkarian. Horrekin batera, Eibarko kulturaleko kide egin zen eta 60. hamarkadako Eibarko mugimendu euskaltzalean zeresan zuzena izan zuen. 1976an hasi eta zazpi urtez Deia egunkarian aritu zen Euskara eta Kultura sailean lanean. 80. hamarkadatik aurrera ETBn zuzendari kargua izan zuen bi aldiz eta kazetari lanetan ere aritu zen bertan. Eusko Jaurlaritzako hainbat sailletako idazkari zein zuzendari izan da, baita komunikazio arduradun ere. Urte luzez, artikuluak idazten aritu da komunikabide askotan.

Maritxu Aranberri Villabella (1912-2010)

Koldo Ormaetxea gudari-komandantearekin ezkondu, gerran alde egin behar izan zuten eta 1940. urte inguruan Buenos Airesera heldu ziren. Hantxe bizi izan zen harrezkero, 70 urtez, 4 seme-alaba, 13 iloba eta beste hainbat birbilobarekin batera. Baina sekula ez zituen ahaztu ez Eibar, ez bere familia eibartarra, ezta Eibarko euskara ere.

Maria Luisa Aranzabal Bustinduy (1936-2024)



Maria Luisa Aranzabal Bustinduy Bilbon jaio zen 1936an. Gerra garaian Zaldibarren bizi izan zen amarekin eta bukatutakoan Eibarrera itzuli ziren. Nicolas Aranzabal bere aitona zenak eta Miguel Agirrek, AYA eskopetagintzako enpresa sortu zuten 1915ean eta familiak beti lan egin du AYA-ren inguruan. Maria Luisak, Berrizen, Aldatzen eta gero Ingalaterran ikasi zuen. AYA-n lan egin zuen urte batzuetan, itzultzaile bezala. "Eibarko Industria Ondarea"-ren proiekturako elkarrizketatua izan zen.

Maribi Aranzeta (1954)

Maribi emagina izan da eta jubilatuta berria dago. Bera jardueraz aritzen da eta artatzeak nola aldatu diren denboran zehar aipatzen du.

Jesusa Aranzeta Gisasola (1938)



Jesusetan Aranzeta Eibarko Aginaga auzoko Oregi Zar baserrian jaio zen eta bizitza guztian bizi izan da baserri berdinean. Egoibarrako "Eibarko Ermitak" proiektuan parte hartu zuen, baserri ondoan duten San Migel Txiki edo San Migel Oregizar santutxuarengatik. Bere senar [Juan Agirregomezkortak](#) ere parte hartu zuen elkarrizketan.

Luis Aranzeta Korta (1923)



Luis Aranzeta Eibarren jaio zen 1923. urtean, Arragueta kalean. Etxe berean denda izan zuen bere izebak eta tailerra bere aitxixak. Aitxixak (elgetarra jaiotzez) ferreteriako lanabesak egiteko lantegia jarri zuen lehenbizi eta ondoren autoentzako enbrage-fabrika. Hantxe egin izan zuen lan Luisek bere bizi guztian zehar. Eskola publikoan ikasi ondoren, Armeria eskolan ere ikasi zuen, Luis Ormaetxea irakasle izan zuela. [Arantza Arriola](#)rekin (Eibar, 1926) ezkondu zen (berori ere Ahotsak proiekturako elkarrizketatua) eta Eibarren bizi izan da beti.

Felisa Areta

“Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea” proiektuko lekuko izan zen.

Maria Dolores Areta Lazpiur

Eibarko Arrate auzoan jaiotakoa, “Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea” proiektuan parte hartu zuen.

Carmen Areta Lezeta

Eibarko Arrate auzoan jaio zen eta “Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea” proiektuko lekuko izan zen.

Vicente Areta Lezeta (1938)



Arrate bailarako Mendigoiti baserrian jaiotakoa 1938an. Baserriko lan eta bizimoduarekin lotura duten gaiak asko interesatzen zaizkio eta oso hitzun egokia da baserriko gaietaz azalpenak emateko. “Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea” proiektuko lekuko ere izan zen.

Juan Arizmendiarieta Larrañaga (1929-2014)

Bizkaiko mugan dagoen Aginaga auzoko Abuaga baserrikoa.

Olga Arizmendiarieta Urriategi (1932)

Julita Arregi Etxeberria (1924)



Arragueta kalean jaio zen eta hantxe bizi izan zen ezkondu arte. Gurasoak elgoibartarrak zituen, baserritarrak. Sei anai-arreba ziren. Amak abarketak josten zituen etxean, Azkoitirako. Gerran Bilbora joan ziren eta ondoren Santanderrera eta Lleidara. Etxera itzuli eta berehala hasi zen lanean, 16 urte ingururekin, "Beisteginean" (BH bizikleta fabrika), sopletearekin lanean. Elkarrizketa egiteko orduan, [Mari Carmen Agirre Berezibar](#) izan zuen lagun Julitak (ezkerrekoa).

Miren Begoña Arriaga Leniz (1921)



Eibarko Maria Angela kaleko etxe batean jaio zen Miren, kartutxoak saltzen zituen denda baten gainean. Dendariak deskuidua izan eta su hartu zuen eraikin osoak. Bost urte zituen etxerik gabe geratu eta Txontara lekualdatu behar izan zirenean. Bizkaitarrak zituen gurasoak: Berrizkoa aita, Ispasterkoa ama. Jardiñetako eskolan egin zituen ikasketak. II. Errepublika eta 1934. urteko erreboluzioko oroitzapen garbiak dauzka. Neska koskorra zen gerra zibilak eztanda egin zuenean. Ondo gogoratzen du hura ere. Ispasterko baserrian eta Ereñon pasa zuen sasoi hura, babesean, baina hurbil zuten Gernika eta pasarte zirrargarriak kontaktzen ditu.

Gerraostean Eibarrera itzuli eta administrazio ikasketak egin zituen bertako akademia batean. 23 urte zituen El Reno eskopeta lantegiko ofizinan hartu zutenean. Bertan jardun zuen erretiroa hartu zuenera bitartean. Garaiko lanketa prozesua eta lan-baldintzei buruz dihardu elkarrizketa honetan.

Mercedes Kareagarekin batera, Eibarko Goi Argi emakume Elkarteko fundatzaileetako bat izan zen Miren. Elkartearen hastapenak, honen antolaketa, finantzaketa eta ekintzei buruz hitz egiten digu bere ahizpa Arrate Arriaga Lenizekin batera.

Tomasa Arrieta



Eibarko Amezabalegiabeletxe baserrian jaioa, bertan bizi izan da beti. Artzain ibilitakoa, Urko inguruko lurrak eta baserri lanak zoragarri ezagutzen ditu. Jubilatu ondoren kalera jaitsi zen, 70 urte bete ondoren.

Juana Arrieta Leceta (1923-2006)



Juanitaren aita 1923an sartu zen Eibarko arma probalekuan lanera. Eskopeten kainoiak aztertzen zituen desajustea zegoen ala ez baieztatzeko. Juanita ere gaztetxo zela bertako ofizinan hasi zen lanean. Herria oso ongi ezagutzen zuen eta oso azalpen interesgarriak eman zizkigun antzinako bizimoduari buruz.

Dominga Arrillaga Arrillaga (1931)



Elgoibarren jaio zen Goikoetxe baserrian. 13 urte zituenean Idotorbe (San Pedro) auzoko Armasio baserrira joan zen neskame, Elgoibarrera bertara. Gero 19 urterekin Eibarko Mandiolaazpikoa baserrira joan zen neskame eta bertako seme batekin ezkondu zen, 21 urte zituenean. Bertan bizi izan da harrezkero. Batez ere Eibarko kontuak aipatzen ditu, baina Elgoibarko hizkera gorde du.

Bartolo Arriola Garate (1912-2012)



Mendaron jaio arren, zazpi urte besterik ez zituela etorri zen Eibarrera bere familia guztiarekin batera. Eibarko euskara darabil. Gerra aurreko kontuak oso ondo gogoratzen ditu: Eibarko kaleak, presak, errotak, eskolak, jolasak, kirolak eta abar. Buru argia du eta hizlari bikaina da; Eibarko historia eta hizkera jasotzeko hainbat proiektutan hartu du parte: "Eibarrera jatorraren bidetik", "Eibartarren Ahotan" eta abar. 1962. urtean "Zatixa" elkarte gastronomikoa sortu zuten. Elkarrizketarik gehienak elkartean bertan egin izan zaizkio. Elkarrizketa gehienetan [Agustin Arana](#) dauka lagun.

Amaya Arriola Ormaechea (1933)



Alfan lan egindakoa. Josteko makinak egiteaz gainera, bordatzen ikasteko eskola bat ere bazuen Alfa lantegiak. Amaia izan zen bertako irakasleetako bat. Sasoi batean inguruko herrietan ere jardun zuen josten irakasten.

Arantza Arriola Tolosa (1926)



Eibarren jaio zen, Plaza Berrian. Ama oso gazterik hil zitzaion (Arantzak 6 urte zituela) eta izeko eta lehengusuekin hazi eta bizi izan zen. Untzagako eskolan ikasi zuen, baina ez oso luze, 10 urte zituela gerra zibila hasi baitzen. Santander aldean igaro zuten gerraren zatirik handiena, batez ere Ramales de la Victoria izeneko herrian. Bitartean, aita Bilbon egon zen, arma-lantegietan lanean. Arantzaren aita oso ezaguna izan zen Eibarren gerra aurretik, Satur Arriola "Txirloia". Pilotaria, futbolaria eta aurrekulari aparta. [Luis Aranzeta](#)rekin ezkondu zen eta Eibarren bizi izan dira beti.

Pedro Arrizabalaga Iriondo Zozua (1906-2007)



Estazio Kanean jaioa. Izen handiko eskopetagina. Artamendi eta Zulaika-rekin ikasi zuen marrazten. 14 urterekin hasi zen lanbidea ikasten, Albisteginean. Ugartetxearen tailerrean ere lan egin zuen baina denbora gutxira bere izena daraman eskopeta tailerra ipini zuen: Pedro Arrizabalaga. Gaztetan, dantza eta kantuan egitea asko gustatzen zitzaion, baita gitarra jotzea ere. Oraindik trikitia oso gustoko du. Gerra garaian familia osoak Axpe-Arrazolako baserri batera alde egin zuen, eibartik ihes eginda. Ehiztari amorratua izandakoa.

Felix Arroitauregi Altuna (1940)



Felix Arroitauregi Altuna Eibarko Txiriokalean jaio zen 1940. urtean. Hamalau urterekin hasi zen lanean BH lantegian eta gero ALFAra joan zen; han, orduko sindikatu bertikaleko bitartekaria izan zen. TEFISO (Teologia, filosofia eta soziologia) taldean sartu zen gaztetan. Eibarko Juan XXIII kooperatibaren (Eroskiren ernamuintako bat), sortzaile, Eibarko Arrate Kultur Elkarteko zineforumaren arduradun eta Klub Deportiboko diruzain izandakoa dugu.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Agustina Askasibar Lauzirika (1929-2018)



Agustina Askasibar Lauzirika Eibarren jaio zen, 1929ko abuztuaren 28an. Isasi kaleko 10. zenbakian jaio eta bizi izan zen 2000. urtera bitartean. Bertan izan zuten "ultramarios" denda. "Maria Txaltxaneko" izenez ezagutzen zuten denda. Ahizpa Apoloniarekin egin zuen lan bertan jubilatu artean.

Felisa Atxa-orbea Uriarte Orbe

Eibarko Arrate auzoan jaiotakoa, "Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea" proiektuko lekuko izan zen.

Francisca Atxalbizuri

Gorosta-azpi baserrikoa. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1983an, Antonia Iriondo, Paulina Ugarteburu, Juanita Gurrutxaga eta Seguna San Martinekin batera.

Benjamin Azpilikueta Antunez (1926)

Orbaizetan (Nafarroa) jaioa 1926an, arma ola zaharraren aurrean. Gurasoak Lizarraldekoak zituen: aita, Marcelino, Lezaungoa, eta ama, Emilia, Abartzutzakoa. Sei seme-alaba izan zituzten. Aita "monteroa" zen eta Orbaizeta inguruko basoak kudeatzen zituen. Bera gaztetatik hasi zen beharrean; hasieran, laguntzaile moduan, baina laster konturatu zen mekaniko lanbidea gustatu egiten zitzaiola, eta hango basoak ustiatzen zituen enpresaren makinak eta kamioiak konpontzen hasi zen. 25 urte zituela, 1951n, Eibarrera etorri zen, eta bertan bizi izan da harrezkero. Bere lehenengo lana Marpen izan zen, eta gero Irazola lantegian, dornuan. 30 urte inguru zituela, Alfan hasi zen lanean, eta han jardun zuen erretiroa hartu arte. Hasiera batean dornuan, baina handik "Transfer" makinara pasatu zen. 1956an Alicia Albizu eibartarrarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituen. Pelotazale amorratua izan da beti; eskuz eta palaz urte askoan jokatu izan du. Mendian ibiltzea ere beti gustatu izan zaio. Eibarko Sostoa Abesbatzan hamalau urte egin eta gero, San Andres parroko koruan kantatzera pasa zen. Jubilatu zenetik egurra lantzen ibili da, eta hainbat erloju eta armarri egin ditu Eibarko Artisten Elkartean. Esan daiteke euskara amarengandik jaso zuela, zaletasuna behintzat. Gurasoak erdaldunak ziren, baina ama neskame egon zen Iruñeko familia batekin. Haiek urtero Donostiara joaten ziren uda pasatzera, eta Benjaminen amak han berba asko ikasi zituen. Gero berak Eibarren ikasi zuen euskaraz; Klub Deportiboan ere ibili zen ikasten. Eibarreraz egiten du, baina hango berbak ere sartzen ditu.



Mari Asun Azpiri Mandiola (1946)

Eibarko Aginaga auzoko Larrañeta baserrian jaio zen 1946an. Arrate bailarako Mendigoitxi baserriko Bizente Aretarekin ezkondu zen eta bertara joan zen bizitzera. Landare-izen ugari dakizki eta horiek jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Emilio Azurmendi Agirre *Sagarbitza* (1936-2013)



Gorosta bailarako Sagarbitza (Sagarbieta) baserrian eman zuen bizi osoa. Etnografia gaiak oso gustuko izan zituen eta interes handia izan zuen baserrietako antzinako bizimoduarekin zerikusia duten tresnak, lexikoa, eta abarrak zaindu eta gordetzeko. Eibarko baserritarren alkate ere izan zen hainbat urtetan eta oso ondo ezagutzen zituen, bai Eibarko mendi-basoak, bai Eibarko baserritarren gorabeherak. Eibarko euskara, toponimia eta etnografia jasotzeko hainbat proiektutarako lekukotasuna eman zuen.

Dora Barrenetxea

Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau.

Felix Barrutia Iriondo (1934)



Eibarren jaio zen, Arragueta kalean; gerra ondoren Jardinetza kalera joan zen familia osoa. Zortzi urte inguru zituela Ardantza kalera joan ziren bizitzera eta inguru hori ondo gogoratzen du. Gurasoak eta emaztea ere eibartarrak ditu. Armeria eskolan ikasi ostean, Alfan hasi zen lanean eta bertan jubilatua zen (urtebetez Lambrettan ere jardun zuen). Mendizale amorratua, aitarekin hasi zen mendian ibiltzen 6-7 urte besterik ez zituela. Harrezkero horixe izan da bere zaletasun handiena. Futbolean ere ibili zen Txantxazelaiko txapelketetan, eta gerora Urko eta Arrate taldeetan.

Serafin Basauri Arteaga (1935)

Gurasoak bizkaitarrak zituen, Atxondo ingurukoak, baina Eibarrera ezkondukoak. Serafin eta anai-arrebak Eibarren jaio ziren eta bertan bizi izan da beti. Frontoizarreko eskola nazionaletan ikasten hasi ondoren, fraideetan eta Armeria Eskolan jarraitu zuen. 17 urterekin GAC lantegian hasi zen lanean eta, geroago, hainbat urtez Alfan. Frankismo garaian erabat murgildu zen Eibarren izan zen mugimendu klandestinoan eta euskalgintzan. 1955-1970 bitartean, Imanol Laspiur eta Juan San Martin lagun zituela, Eibarren euskararen eta euskal kulturaren inguruan izandako eragile nagusietakoa izan zen: Klub Deportiboko euskarako klaseak, ikastolak, Ekin eta abar. Baita gerora ere, HBn, Aralarren eta Elkarrin. Franco osteko lehenengo legegintzaldian zinegotzi izan zen Eibarko Udalean. 1990. urteaz geroztik Eibarko euskara jaso eta aztertzeko saioetan ere lan handia egin du, batzuetan zuzenean lanean eta beste batzuetan lekuko bezala. Euskaltzain urgazle da.



Ladislao Basauri Arzuaga (1917-2009)

Bittor Sarasketa kalean jaiotakoa; aitak harategia izan zuen bertan. La Salle ikastetxean egin zituen ikasketak eta gazte-gaztetatik abertzaletasuna barru-barrutik bizi izan zuen. Ongi ezagutzen du gerra aurreko eta ondorengo giro politikoa; zer esanik ez abertzaletasunak herrian izan duen garapena.



Aurora Bascaran Martínez (1933)

1933an jaio zen Eibarren. Aita, Benigno Baskaran eibartar sozialista ezaguna. Ume txikia zenean Gerra Zibila hasi eta Frantziara joan zen familiakoekin batera. Bertan, beste errefuxiatu batzuekin batera egon ziren. Gerra amaitu zenean Eibarrera itzuli eta orduan ezagutu zuen sakonago aitona, Marcelino Baskaran (Eibarko lehenengo abade laikoa). Aurora, 80. hamarkadan politikan parte-hartze zuzena izan zuen eta herriko alkate eta Espainiako Gorteetan senatari izatera iritsi zen.



Victoria Baskaran

"Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1983an, Julia Valenciaga eta Candida Egurenekin batera.

Benigno Baskaran Guridi (1908-1984)

Marcelino Baskaran sozialista eibartar ezagunaren semea. Umetan eta gaztaroan, irakurtzeko zaletasun handia. Baskarandarren etxean, "El Socialista" egunkaria irakurtzen zen egunero eta astero, "La Lucha de clases". Politika liburuak ere sarri irakurtzen zituen Benignok. 13-14 urterekin Armeria Eskolara joan zen ikasketak burutzera. Tornero, ajustadore lanetan aritu zen eta ondoren aitaren tailerrean hasi zen lanean. Eibarko eta inguruko politika giroa zuzen-zuzenean bizi izan zuen eta berarengan politikarako zaletasun hori ere laister suspertu zen. Aita sozialista ezaguna izan zuen eta gainera lehenengo "abade laikoa" izan zen Eibarren. Aita hiltzean, Benignok hartu zituen ardura horiek bere gain.



Marina Basterra Iturbe (1916-2003)

Errebal kalean jaiotakoa, Basterraneko etxean. Aita, Mateo Basterra; aitona, notario izandakoa. Gerra aurreko bizimodua nolakoa zen oso ongi gogoratzen zuen.



Iraitz Beitia Ugarteburu *Beití* (1987)

Mandiola auzoko Mandiolaazpikoa baserrikoa. Bi anaietan gazteena. Aurretik udara batzuetan lanean aritu bazen ere, 20 urterekin hasi zen lanean lantegi batean, mantentze-lanetan. Krisiaren ondorioz lantegia itxi ostean Elgoibarko Danobat lantegian hasi zen lanean, makinaren muntaiari. Eibar Rugby Taldeko jokalaria izan zen zenbait urtez, baina lesio baten ondorioz utzi beharra izan zuen. Hala ere, Taldeari lotuta jarraitu zuen, zuzendaritzan, delegatu moduan edo nesken taldeari laguntzen. Herri kiroletan ere aritu izan da, txingak eramaten. Motorzalea eta rallyzalea da. Auzoko Santa Kurutz jaiak antolatzekeo batzordeko kide ere bada.



Dolores Berasaluze Unamuno *Txopengua*

Otaola-Kiñarraga bailarako Arrazola baserrian bizi izan ziren, baina gerora Azitainera jaitsi ziren. Dolores "Txopengua" izenarekin ezaguna. Azitaingo jatetxean lan egin zuen 40 urte baino gehiagoan eta bertako elizako serora izan zen urte luzez. Senarra, Bizente Zabala, soinu-jotzailea zen.

Jose Bergara Baskaran *Agarrazpi* (1928-2017)



Jose Bergara Baskaran "Agarrazpi" Gorosta bailarako Agarre Azpikoa baserrian jaio eta bizi izan da. Gerra garaian, baserriatik ihes egin behar izan zuten. Arotza ofizioz eta afizioz, gazte-gaztetatik ekin zion egurra lantzeari. Baserriko lan guztiak zehatz-mehatz ezagutzen ditu eta haien berri ematerako orduan abilezia izugarria erakusten du.

Enrike Bernedo Elkoro-Iribe (1926-2012)



Enrike Bernedo Elkoroiribe Eibarren jaio zen, 1926ko apirilaren 7an. Sansaburu, Errekatxu eta Txantxa-zelai inguruak oso ondo ezagutzen zituen bertan bizi izan zelako haurtzaroa. Antzinako Eibar eta iragandako garaiak bizi-bizi izan ditu beti gogoan. Kontalari on eta trebea.

Genoveva Billar Eleizpuru (1907)



San Joan erreka izalde baserrian jaio zen 1907an, Bergaran. Bost bat urterekin, Elgetako Egoetxeaga baserrira joan zen bizitzera. Eibarrera ezkondu zen eta bertan eman ditu azken 78 urteak. Harategian egin zuen lan 40 urtez. Hala ere, Elgeta ez du ahaztu.

Arnaldo Bolunburu Inza (1933-2005)



Eibarko Urkizu kalean jaiotakoa, 1933an. Aita, oso gubilista ona zen. Gerra hasi zenean, Frantziara joan ziren. 1940an Eibarrera bueltatu zenean, gosea, estraperloa, errazionamendua, e.a. ezagutu zituen. 1946-49 bitartean, Armeria Eskolan ikasi zuen eta ondoren Udaletxean hasi zen lanean, 1952rarte. Eibarko berreraiketa zuzen-zuzenean ezagutu zuen. Urte horretan Amuategiren lantegian hasi zen lanean eta 1957an GAC-an ekin zion, 1985.urterarte. Luis Bolunburu atletaren senide.

Jose Mari Cruceta Alberdi (1930-2002)



Eibarko Estaziño kalean jaiotakoa, Kruzetaneke etxean. Oraindik ume txikia zela Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko ospakizunak bete-betean bizi izan zituen (garaiko argazki ezagun batean agertzen da). Familia kontuak asko interesatzen zitzaizkion eta, ondorioz, oso ondo ezagutzen zituen: jatorria, Kruzetaneke etxearen sorrera, Kafearen hastapenak, aita Perikok martxan jarri zuen Kruzetaneke zinea... Artean umea zela tokatu zitzaion Gerra Zibila bizitzea; Eibarren lehenengo, Toledon geroxeago. Gerra osteko Eibar haustuta ikusi zuen Toledotik bueltan, eta berreraikitze lanak gertutik jarraitu zituen. Ikasle bikaina, Armeria Eskola amaitu eta, eibartarren izaera ekintzaileari eutsiz, enpresa munduan lan izugarria egin zuen. Eibartar peto-petoa, 'Eibar' aldizkariaren arduradun nagusia izan zen urte askoan. Eibarren zendu zen 2002ko urrian.

Herminia De la Torre (1900-1994)

Juan Echaniz Urruzuno (1912-2003)



Elgoibartarra, ume-umetatik bibolina gustoko zuen eta aitak bat erosi zion. Musika Bandan jotzen zuen. Lehenengo, Ángel Garate "Beltxi"-rekin ikasi zuen bibolina jotzen; gero, Salón Teatroan zegoen orkestra batekin ere ikasi zuen. Elgoibartik, astean 3 bider etortzen zen Eibarrera, bibolin klaseak hartzera. "Fomento"an hasi zen bibolinista moduan; ondoren, Rialtoan, jai egunetan. Casino Artistan ere jo izan zuen eta udan Debara joaten zen sarritan. 1931-36 bitartean, Rialtuan jotzen zuen neguko hilabeteetan. Musikaz gain, Elgoibarko futbol taldean ere jolastu zuen. Gerra Zibilak, dena hankaz gora jarri zuen. Santoñan entregatu zen; handik Gasteizera eraman zuten, eta gero Burgosera. Irunen, Kaputxinoen konbentuan egon zen interno ejerzitoarekin, Real Unión futbol taldean sartzeko. Hainbat tokitan bibolina jotzen jardun ondoren, partikular moduan ere ekin zion, ezkontzatan e.a. beste musikari batzuekin batera.

Fernando Echebarría Unamuno Urreduna (1927)



Fernando Etxeberria, "Urredunanekea". Aitonak (Mateo Etxebarriak) sortu zuen urre-fabrika; gero aitak, osabak, Fernandok berak, eta senitarteko mordoak jardun izan dute bertan lanean. Horixe zen damaskinaturako urre-haria egiten zuen lantegi bakarra, eta bertan erosten zuten grabadore-damaskinadore guztiek. Lantegia 1900 inguruan sortu zuten eta 1980 inguruan itxi zen, damaskinatuaren beherakada nabarmenak atzera-bueltarik ez zuenean.

Jose Echeverría Ayerbe *Querido* (1912-2001)



Eibarren jaio zen 1912. urtean. Aita, Beisteginean akabatzailea zen. Josék Eskola munizipaletan egin zituen lehenengo ikasketak eta ondoren Armeria Eskola amaitu zuen. 17 urterekin "Izar"-era joan zen lan egitera, Zornotzara. Handik urte batzuetara Alfan hasi zen lanean eta 50 urte egin zituen bertan. Errepublika garaia eta 1934ko urriko iraultza bete-betean ezagutu zituen. Gerra sasoiari, Amuategi Batailoian egon zen. Indalecio Prietok Armeria Eskolako gazteak eskatu zituen eta beste eibartar askorekin batera "Los Alcázares"-era (abiazio akademiara) joan zen 3 hilabeteko ikastaro bat egitera.

Julian Echeverría Oruna *Ubitxa* (1913-2005)



Otaola-Kiñarraga bailarako Ubitxa baserrian jaiotakoa. Aita eta aitita ere baserri hortakoak ziren. Ama, Jobita Oruna, Aramaiokoa. 14 urterekin Eizagarenera joan zen lanera, baskulagintzan ikastera; 20 urterekin Bittor Sarasketarenera. 65 urte bete arte jardun zuen bertan lanean.

Pedro Eguiguren Larrañaga *Izkua* (1927-2014)



Pedro Eguiguren: Otaola-Kiñarraga bailarako Eizkoaga ("Izkua") baserrian jaio eta bertan bizi da. Gaztetan, aizkolari ona izan zen eta inguruan oso ezaguna egin zen. Zerrategia ireki zuen bere kontura eta baserriko lanetaz gain bertako ardura nagusia eraman zuen.

Candida Eguren

"Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1982an, Julia Valenciaga eta Victoria Baskaranekin batera.

Candido Eguren Zabarte *Oka Txiki* (1906-2002)



Aita, Benito Eguren; Angiozarren jaiotakoa, eta okina ogibidez. Ama, Modesta Zabarte; Elorrion jaiotakoa. Bergarako seminarioan merkataritza ikasketak egin zituen. Indalecio Prieto, Toribio Etxebarria eta beste hainbat intelektualen eragin handia izan zuen. Primo de Riveraren diktaduran kartzelara eraman zuten lehenengo komunista eibartarra izan zen. Errepublikaren aldarrikapenean eta ondoren 1934ko urriko iraultzan ere parte-hartze zuzena izan zuen. Gerra garaian, hainbat eginkizun izan zituen. Beste askoren antzera, Batallón de Trabajadores, kartzela eta exilioa ezagutu zituen. 2002ko otsailean zendu zen Eibarren.

Sabino Errasti Elgoibar

Timotea Etxaniz San Martin (1930-2020)



Egiguren baserrian jaioa. Ama bertakoa zuen, hamar senidetan gazteena. Aita, berriz, Elgoibarkoa. Baserritik ateratzen zuten bizimodua. Hiru ahizpa ziren Timotea eta. 13 urtera arte herri eskolan ibili zen. Astoarekin eta marmitekin joaten zen goizero, eta esnea banatzen zuen eskolara joan aurretik. Gerora ahizparekin batera denda jarri zuen Eibar herrigunean. Elgoibartar batekin ezkondu zen, etxera, eta seme bat izan zuten.



Ignacio Etxebarria Aranzabal (1945)

Javier Etxeberria Eguren (1927-2000)

1927ko urriaren 17an jaio zen San Andres Pasialekuko 3. zenbakian. Aita, Eulogio Echeverria ["Querido"](#) eta ama Josefa Eguren. Mendizale sutsua, ume-umetatik Klub Deportiboko kide izan zen. 5 urte besterik ez zituela, 20 mendi egin zituen eta 18 urterekin 100 mendiko txapelketa egina zuen. Gerra Zibila irten zenean, gerrako umeak zeramatzen eta Santandertik abiatu zen itsasontzi batean, Belgikarako bidea hartu zuen amarekin batera. 2 urtean zehar Liejatik gertu bizi izan zen eta tropa alemandarrak II. Mundu Gerran Belgika hartu zutenean itzuli zen Eibarrera. Armeria Eskolan ikasi zuen eta Alfa lantegiko ofizina teknikoan lan egin zuen. Lan kontuak zirela eta 5 urte pasa zituen Mejikon. Armeria Eskolako ikasle ohien Elkarteko kide izan zen. Mendia eta arrantza izan ziren bere bi zaletasun handiak. Eibarren zendu zen 2000ko ekainaren 19an.

Nahia Fernandez Amorrosta (1994)

Nahia Bergaran jaio zen, gurasoak eibartarrak izan arren. Eibarrera etorri zen bizitzera bost urterekin eta bi ahizpetan zaharrena da. Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan graduatua, elkarrizketa garaian ingeleseko irakasle bezala ari zen lanean. Eibarko Kezka dantza taldean, futboleko zein eskubaloian aritu izan da, besteak beste. Elkarrizketa aurreko urteetan Eibarko emakumezkoen errugbi taldean jokatu zuen. Taldekide izandako [Maria Ormaetxea](#)ekin batera egin zitzaion elkarrizketa [Gazte Gara Gazte](#) proiekturako.



Enrique Franco Albizuri (1925)

Enrique Franco Albizuri Eibarren jaio zen 1925eko azaroaren 4ean. Bere aitak Tejidos Franco tela-denda ireki zuen eta umetan bertan ibiltzen zen lanean. Armeria Eskolan ikasketak bukatu eta 16 urterekin lanean hasi zen. Alfan lanean zegoen bitartean DEJ enpresa sortu zuen beste 3 lagunekin batera. Tailerraren inguruko gauzak kontatzen ditu.



Oswaldo Gabilondo Iñarrairaegi (1935-2018)

Eibarko Ardantza kalean jaio zen 1935. urtean. Ikasketak eta tailerreko lana bateratzeko aukera izan zuen gaztetatik. Eibarko armagile ospetsua izan zen aitona eta txikitan, hari tailerrean laguntzen orduak ematen zituela kontatzen du. Urteak aurrera joan ahala ordea, lantegiaren betiko jarduna (pertsiana elementuen fabrikazio eta salmenta) aldatu eta "Vicente Gabilondo e hijos" lantegia ireki zuen aitak Oswaldo eta anaiarekin batera. Lantegiaren antolaketaz zein produkzioaren antolaketaz arduratu zen erretiroa hartu zuen arte.



Migel Gallastegi Ariznabarreta (1918-2019)

Migel Gallastegi Eibarko Asoliartza baserrian jaio zen, Amaña auzoan. Bere garaiko umerik gehienak bezala, txiki-txikitatik hasi zen pilotan jokatzeko, baina berehala ikusi zen profesional izateko gaitasun apartak zituela. 14-15 urte zituela Isasi kaleko "Kiputxanekua" pilotalekuan hasi zen jokatzeko eta entrenatzeko; berehala, Astelenan ere hasi zen entrenatzeko. Hemezortzi urte zituela debutatu zuen 1936. urtean, baina gerrak harrapatu zuen. Gerra amaituta eta sasoi betean, 1940. eta 1950. hamarkadetan nagusi izan zen Euskal Herri osoan. Buruz buruko hiru txapelketa irabazi zituen (1948, 1950 eta 1951) eta dozenaka partida jokatu (eta irabazi) zituen bikoteen eta hirukoteen aurka.



Irene Gandarias Narzabal

"Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea" proiektuko lekuko izan zen.

Mari Tere Gantxegi Juaristi (1923-2019)

Eibarren jaio zen Bidebarrieta kalean eta, bost urte zituela, Grabadores kalera joan zen bizi izatera. Ikasketak Kontzeju Zaharrean egin zituen. Martina Muruaren akademian sekretaria izateko prestatu ostean, Victor Sarasquetaren tailerrean hasi zen beharrean eta 31 urtez jardun zuen bertan, 1941-1972 bitartean. Victor Sarasqueta-n gustora egon arren, 1972an "Patronato Eibarrés de Beneficiencia"ren (baliabide gutxi zituzten eibartarrei laguntza emateko zentrua) buru jartzea eskaini zioten eta bertan hasi zen. Jubilatuta egon arren, elkarrizketa egin zitzaionean oraindik ere egunero joaten zen hara lanera, laguntzera. Eibarren egin izan ziren gizarte-lan guztiakin lotura handia izan zuen. Acción Católica-n egon zen gaztetan eta Mercedes Careagak gidatu zuen Goi Argi Elkartearen (Eibarko Sociedad Femenina) sorreran ere parte hartu zuen 1951n. Tonbolak, seminarista eguna... herriaren alde egin izan ziren hainbat eta hainbat ekitaldiren atzean egon zen beti. Elkarrizketa egin zitzaionean, Mari Tere zen Goi Argi elkartearen presidentea.



Josu Garate Suinaga (1975)

Eibartarra. Aita Elgetakoa zuen eta ama, berriz, Eibarkoa bertakoa. Hiru anai-arrebatan gazteena. 20 urte ingururekin Kezka Dantza Taldean hasi zen eta dantza munduari lotuta jarraitzen du. Arkitektura ikasketak egin zituen eta lanbide horretan jardun zuen dantza lanbide bihurtu zuen arte. Gaur egun Dantzan.eus proiektuan eta Aiko Taldearekin dihardu lanean. Horretaz gain, dantza taldeko zenbait kideren artean sortu zuten eMePebo5t musika taldean ere aritzen da, abeslari moduan. Zenbait musika tresna ere jotzen ditu: alboka, gitarra...



Txomin Garcia (1920)

Gaztea zela ofizioa ikasten hasi zen Eibarko gazteek egiten zuten moduan, baina gerra hasi zenean frontera joan behar izan zuen. Teruel eta Castellon inguruan ibili zen eta Castellón zegoela gaixotu egin zen. Emaztea Eibarren ezagutu zuen eta Soraluzera ezkondu ziren.

Gari-jotzea



Gorosta bailarako Sagarbitza (Sagarbieta) baserrian, bertan jaiotako Emilio Azurmendi Agirrerekin elkartu ginen, duela urte asko gure baserrietatik ezkutatu zen gari-jotzearen gaia lantzeko. Grabazioetako batean aspaldiko gari-jotzearen ezaugarriak eta bere bilakaeraren berri ematen du Emiliok. Beste grabazioan, Emiliok ondo zainduta gordetzen dituen gari-jotzeko “matxaka”, eta garia jo eta gero erabiltzen zen gari-garbitzeko makina erakusten dizkigu. Makina biak lanean ikus daitezke grabazioan, garia jotzen bata eta garbitzen bestea, garai batean baserri gehienetan erabiltzen ziren erara. Eta, irudiaren lagungarri, Emilioren zuzeneko azalpenek gari-jotzearen gorabehera guztiak argitzen dizkigute. Bertan jo zen garia Sagarbitzako soroetan hazitakoa zen.

Tomas Gerrikagoitia *Besi*

“Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea” proiektuko lekuko izan zen.

Euxebi Gisasola Aldazabal (1922-2008)



Aginagako Zumaran baserrian jaiotakoa. Ama Arrate Mugitzaberri baserrikoa zuen. 8 urte zituela, Aginagako eskola egin zuten eta bertan egin zituen ikasketak Gerra Zibila hasi zen arte. Sasoi hartan Euxebik 14 urte zituen. Garai gogorra zen, baina Gisasolatarrak baserrian gelditu ziren. Ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. Eibarko euskararen gaineko hainbat ikerketa eta liburutarako eman du bere lekukotasuna.



Garbiñe Gisasola Berrio-otxoa (1934-2010)

Gerra ondorengo urte gogorak oso ongi gogoratzen ditu. Abertzaletasuna barne-barnetik bizi duen emakumea; Eibarko lehenengo abertzaleak gertutik ezagutu zituen.

Alberto González Acha (1935)



Eibarren, Isasi kalean jaio zen 1935an. Amak "Arma Probaderoan" egiten zuen lan eta gerrate garaian herritik alde egin behar izan zuten, "Probaderoarekin" batera. Itzuli zirenean, euren etxean beste batzuk bizitzen zeudenez, Ermura alde egin behar izan zuten. Hantxe ezkondu zen Higinia Solozabal bolibartarrekin eta lau seme-alaben aita da. Ziortza-Bolibarko andrearen "Anittu-Goiko" baserrian bizi zen elkarrizketa sasoian. Ermua zein Eibarkoak dira bere ume eta gaztetako gogorapenak.

Ernesto Gorosabel Amuategui (1928-2019)



Otola-barrena baserrian jaioa, Akilino Amuategi mitinlari sozialistaren biloba da Ernesto. Musikariz osatutako familian hazitakoa da. Aitita Akilinok sortutako lantegian jardun du beharrean urte askoan.

Oier Gorosabel Larrañaga Txikillana (1972)



Eibartarra jaiotzez, Lekeition bizi da. Fisioterapeuta eta espeleologoa, historia eta genealogia kontuetan zaletu. Sarean ere oso pertsona aktiboa, [bere blogetan](#) ez ezik, baita sare sozialetan edo beste ekimen batzuetan ere.

Mateo Guilabert Lopetegui (1929)

Mateo Guilabert Lopetegui Gironan jaio zen 1929an. Aita kataluniarra zen eta ama nafarra. Gerra Zibila hasi baino egun batzuk lehenago aita hil zen; gerra amaitu zenean familia Nafarroara joan zen bizi izatera, Mendigorriara. Bertan musika ikasi zuen. Zarautzera joan zen bizitzera, eta musika ikasketak egiteaz gain, musika-kaxen eta harmoniken zorroztaile bezala egin zuen lan Enrique Keller-ekin. Lagun baten bitartez Eibarrera etorri zen bizitzera. Ayra Durex-en bi urtez jardun zuen lanean eta ondoren Alfa 25 urtez. Eibarren zegoela, *El Diario Vasco* egunkarian eta *Radio Juventud* irratian parte hartzen hasi zen laguntzaile gisa. Handik urte batzuetara Alfa utzi eta irratigintzan aritu zen, Eibarko *Radio Nacionalen*. Urte askoan izan zen Eibarko futbol-taldearen partiduetako berriemaile.



Mateo Guilabert Lopetegui nació en Girona en 1929. De padre catalán y madre navarra, días antes del comienzo de la Guerra Civil falleció su padre. Al finalizar la contienda la familia se trasladó a vivir a Navarra, a Mendigorriá. Allí estudió música. Años más tarde se mudó a Zarautz, y además de estudiar música, trabajó con Enrique Keller afinando cajas de música y armónicas. Posteriormente, vino a Eibar. Trabajó en Ayra Durex durante dos años y después en Alfa durante 25 años. Ya en Eibar comenzó a colaborar en *El Diario Vasco* y en Radio Juventud. Años más tarde abandonó Alfa para dedicarse profesionalmente a la radio en la emisora de Radio Nacional en Eibar. Durante muchos años fue corresponsal de los partidos de la SD Eibar.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Juan Guisasola Ariznabarreta Txoko (1917-2002)



Juanito Gisasola "Txoko", CDE-ko kide zen. Arrateko Igoeraren antolatzailea; Frantziako Tour-eko antolaketan 9 urtetan parte hartutakoa; eta abar. Kirol munduan lan asko egindakoa. 2002ko ekainean zendu zen.

María Paz Guisasola Cisnal (1907-2002)



Gurasoak, José Gisasola eta Petra Cisnal. Aita, Alfonso XIII.aren sasoian, zinegotzi sozialista izan zen. Marcelino Bascaran, Toribio Etxebarria, Jacinto Galarraga, Erkiaga eta Julián Etxebarriarekin batera Eibarko sozialismoaren sortzaileetako bat. Paz-ek Jacinto Olaberekin marrazten ikasi ondoren, aitarekin hasi zen lanean, grabadore moduan. Gubilean ere ikasi zuen.

Juanita Gurrutxaga Ansola

Barrenkalekoa. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuk" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1983an, Antonia Iriondo, Francisca Atxalbizuri, Paulina Ugarteburu eta Segunda San Martinekin batera.

Josu Ibargutxi San Pedro (1949)

Josu Ibargutxi San Pedro Eibarren jaio zen 1949an. Ama Eibarkoa zuen, eta aita Ubidekoa; hiru seme-alaba izan zituzten eta Aldatzen bizi izan ziren. Hamasei urte ingururekin ezker abertzalearen inguruan militatzen hasi zen, propaganda sortzen eta banatzen, pintadak egiten eta abar. 1968an, aldean zeraman lehergailu batek eztanda egin zion, zauri larriak jasan zituen eta espetxeratua izan zen. 1976an, Segoviako ihesaldian parte hartu zuen presoetako bat izan zen. 1977an amnistia eman zioten.



Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Tomasa Idarraga Zulaica (1914-2008)



Arragueta kalean jaio zen, baina artean umea zela Txontako Telleria kale-baserrira joan ziren bizitzera. Ama elgoibartarra zuen; aita, berriz, eibartarra, Urkuzei baserrikoa. Txonta eta Urkizu ingurua oso ondo ezagutzen zituen eta azalpen interesgarriak ematen ditu bertako toponimia, baserri, eraikuntza eta lantegien inguruan.

Jaione Iraeta Santa Ageda (1921)



Aita grabadore ezaguna, grabatu tailer ezagun bat izan zuten Grabadores kalean bertan. Abertzaletasuna ume-umetatik bizi izan zuen bere etxean; Jaione bera ere abertzale amorratua. Lehenengo eibartar abertzaleen artean bere sendiko hainbat kide topatu daitezke. José Antonio Aguirre lehendakaria ere etxean ezagutu zuen.

Antonia Iriondo

Partxuango baserrikoa. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1983an, Francisca Atxalbizuri, Paulina Ugarteburu, Juanita Gurrutxaga eta Segunda San Martinekin batera.



Pedro Iriondo Muguera (1944)

Roberto Isasi Jayo Cayón (1935-2009)



Urkizun jaio zen 1935ean. Ehiztari eta arrantzale amorratua; perretxikotarako afizioa ere ume-umetatik izan zuen, aitarekin hasi eta ondoren bere kabuz lantzen joan zena. Naturarekin zerikusia duten gaiak oso ondo ezagutzen zituen eta bere azalpenak ezinbesteko izan ziren Eibarren egindako hainbat bilketa-lanetan, bereziki "Eibarko Hiztegi Etnografikoan".

Jose Kareaga Guridi (1930-2008)



Eibarren jaio zen 1930. urtean Errebal kalean; gurasoak ere eibartarrak zituen. Aita grabatzailea zuen, Mateo Kareaga, Errepublika garaian Eibarko udaletxean zinegotzi izandakoa (errepublikazalea). Aitita ere grabatzaile eta damaskinatzaile ezaguna izan zen, Kaietano Kareaga. Jose bera ere gazterik hasi zen marrazkigintzan eta grabatzaile lanetan. Margolaria ere izan da.

Gregorio Kortaberria (1916-2004)



Antzuolako baserri batean jaiotakoa, 13-14 urte zituenean Eibarko tio bat joan zitzaion bila, berarekin lanera eramateko. Tio pasteleroa zen eta ogibide hori ikasi zuen Gregoriok. Gerra Zibila hasi zenean, berak 20 urte zituen. Eibartik irten ziren eta herriz herri ibili ondoren, Bilbora heltzea lortu zuten. Handik, Asturiasera. Batetik bestera ihesi, sasoi illunak izan ziren haiek (konzentrazio esparrua, "Batallón de Trabajadores"...).

Odile Kruzeta Olañeta (1957)



Eibarren jaioa, Estazio kalean bizi ziren lau senide eta gurasoak: ama Ermukoa zen, Margarita Olañeta, eta aita eibartarra, Jose Mari Kruzeta. Ikastolan ibili zen 8 urte bete arte, eta ondoren Aldatze ikastetxean, mojekin. Fisika ikasi zuen Donostian, eta matematika irakasle moduan ari zen lanean, Euskadi Irrati sortu berritik deitu ziotenean ([Joxe Mari Oteminek](#)), lan eskaintza batekin. Aurretik Zeruko Argian aritu zen kazetari gisa, kolaborazioak egiten. Izukaitz musika taldekoa ere bazen ordurako. Euskadi Irratiko zuzendari izatera iritsi zen 1999an eta 2013tik aurrera EITBko zuzendari bihurtu zen.

Elena Laka Muñoz (1966)



Eibarko Urki auzoan jaiotakoa eta hazitakoa, garaiko ikastola hasi berrian hezitakoa. Lehengo berbetan esanda, Bergarara ezkondu zen eta han bizi da familian. Abokatua lanbidez eta lanaz kanpoko lanetarako afizioduna. Eibar.org-en interneteko konexioa telefono dei baten tonoarekin egiten zen denboratik, hau da, hasieratik. [Izan eta Esan](#) blogeko idazlea da Laka.

Igone Lamarain Cobo (1980)



Eibarren jaioa, familia-ereduei buruzko elkarrizketa egin diogu. Ama bakarra da, eta bikiak ditu. Elkarrizketaren zati bat Ander Mayora lagunarekin batera egin diogu (Ander harreran hartutako bi umerekin bizi da).

Esteban Justo Larrañaga Argarate *Simonanekua*
(1913-2004)



Justok Santanderren egin zituen bere ikasketak eta bertako futbol taldean jokatu zuen sasoi batean. Gerra garaian, Batallón Avellanedan egon zen. Justoren amona, Simona, Arraindegi kalean zegoen okindegi baten jabea zen. Justok bertan egin zuen lan eta hortik datorkio gaitzizena, "Simonanekua". 20 urterekin ekin zion okin lanari, eta 65 urte izan arte jarraitu zuen bertan. Migel Gallastegi pilotariaren lagun eta entrenatzaile ere izan zen.

Leonor Larrañaga Azurza (1913-2002)



Gerra garaian Eibartik Durangora joan ziren ihesi ama-alabak. Bertan, bonbardaketak bete-bete harrapatu zituen. Asturias aldera jo zuten ondoren eta bertatik Valentziara eraman zituzten, Alberiquera. Han arma-lantegi batean hasi zen lanean Leonor. Eibarrera itzulitakoan, kartzelara sartu zuten. Bizimodu gogorra ezagutu bazuen ere, emakume oso alaia eta bizia zen. Herriko hainbat ekitalditan parte zuzena hartzen zuen eta oso maitatua zen.

Ramiro Larrañaga Fdez. de Arenzana (1924-2005)

Soraluzen jaiotakoa. Gerra Zibila eta ondorengo urteak zuzenenan bizi izan zituen. Kulturaren arlo desberdinetan gogor lan egin zuen bizi guztian zehar, eta emaitza aldetik gizon oparoa izan da.

Paulino Larrañaga Longarte (1918-2011)



Paulinok ume-umetatik marrazteko zuen gaitasuna ikusirik, Jesús Berezibar "Txopa"-rengana bidali zuten ikas zezan; gero, Cayetano Careagarekin ikasi zuen grabatzen. 18 urte zituela gerra hasi eta boluntario bezala aurkeztu zen. San Andrés Batailoian egon zen baina preso hartu zuten eta León-era eraman zuten lehenik, gero Batallón de Trabajadores-ekin Nafarroara. Handik Teruel-eko frentera eta bertatik Bartzelonara. Han, Gobernu Militarrean egon zen marrazkilari bezala. Gerra amaitutakoan, mobilizazioa etorri zen eta soldadutza egin behar izan zuen. 1941ean, Gernikara joan zen lanera, trokel artistikoak egitera. 24 urte zituenean, Eibarrera itzuli zen. Irakurtzeko zaletasun handia izan du beti. Gehienbat egurra izan da landu duena.

Mikel Larrañaga Mandiola (1946)

Mikel Larrañaga Mandiola Eibarren jaio zen 1946an. Gurasoak eibartarrak ziren eta okindegi bat zuten Estaziño kalean; hiru anai-arreba dira. Ikasketak Eibarren eta Lekarozen egin zituen eta, ikasketak amaitu ondoren, banketxe batean hasi zen lanean. 1979an, 32 urte zituela, demokrazia sasoiko Eibarko lehenengo alkate izendatu zuten eta 1983. urtera arte egon zen Alkatetzan. Udal-gobernu hartako helburu nagusia kultura demokratiko bat sortzea izan zen.



Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa.

Faustino Larrañaga Ugarteburu Arando (1904-2007)

Aita Barinagakoa (Markina) zuen eta ama Gerrikaizkoa. Aginagara ezkondu ziren, eliza ondora, eta bertan jaio zen Faustino 1904an. Zortzi anai-arrebatatik zaharrena, urte bi zituela "Arando Aurtena" baserrira joan ziren bizitzera, eta hantxe bizi izan da 80 urtean. Auzo bereko Josefa Ugarteburu Azpiazurekin ezkondu, alaba bakarra izan zuten. 80 urte inguru zituela, alargunduta, alabaren etxera jaitsi zen bizi izatera; hala ere, egunero igo izan da baserrira (oinez) 90 urte bete arte. Baserritarra ogibidez, egur-ikatz eramaten zuen Eibarko tailerretara sua egin eta pistolaginak burdina tenplean ipintzeko. "Drogetenitturrin", Ermua eta Mallabiko herri aldizkarian, bere 100. urtebetetzearen aitzakiarekin elkarrizketa egin zitzaion "Danerako lain urte dakat" izenburuarekin. Ermuan hil zen 102 urteak beteta.



Ignacia Larrarte

"Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1982an, Margarita Murgizu, Vicenta Unanue eta Cleto Unzuetaekin batera.

Asunción Larraza Zubiria (1914-2002)

Jose Mari Larraza eta Juana Zubiriaren alaba. Gerra aurrean Kalbetoi kalean bizi zen eta bere aitaren tabernan (Jose Mari Taberna) egiten zuen beharra. Jose Mariaren Taberna Frontoi Zaharraren alboan zegoen eta oso ezaguna zen. Ama, ahizpa eta bera aritzen ziren tabernan.





Rosa Larrea Aldecoa (1927)

Usansoloko baserri batean jaioa. Eibarko Aldatze Ikastetxera moja etorri zen. Perura joan zen misiolari gisa (Lima-San Juan del Oro) Aldatzeko beste moja batzuekin batera.

Juan Larreategi Agirregomezkorta



Juan Larreategi Agirregomezkorta Eibarren jaio zen 1958an. Ofizioz argazkilaria da eta 2011. urtean hasi zen ermitei argazkiak ateratzen. Webgune bat dauka Bizkaiko ermiten gainean egindako ikerketarekin. Eibarko ermitak ere jorratu ditu eta Egoibarra "Eibarko Ermitak" proiektuan parte hartu zuen.

Luciana Larreategui Arizaga (1912-2003)



1912an jaio zen Ardantza kalean. Aita, Esteban Larreategi "Errotatxo" eta ama "Euzkiñekua". Umetan, udaletxeko eskolara joan zen ikastera. Jacinto Olaberekin grabatzen ikasi zuen eta 1931an Eibarko Udalak Errepublikako presidentea zen Niceto Alcalá Zamorari oparitu zion pistola damaskinatua, bien artean egindakoa zen. Aita bezala, Luciana ere mendizale amorratua izan zen gazte denboran, Errepublika sasoiaren Eibarko Club Deportivo-ko Juntan bokal izatera iritsi arte. Grabadore lanarekin jarraitu zuen luzaroan baina ezkondu eta urte batzutara, Alfan hasi zen lanean. Errepublika sasoiaren eta Gerra Zibila zuzen-zuzenean ezagutu zituen.



Lucía Larreategui San Martín (1909-2002)

Zuloagarren etxean jaiotakoa. Gerra aurreko Eibar oso ongi ezagutu zuen.

Miren Lorea Lasa Aranburu (1930-2020)



Miren Lorea Lasa Aranburu Eibarren jaio zen, 1930eko otsailaren 19an. Ibarkurutze kalean bizi izan zen ezkondu arte. Bere osabarekin hasi zen lanean Norman eta gero familiako Zubizarreta zapata-dendan. Goi-Argi Emakumeen Elkartearen lehenengo bazkideetako izan da. Mercedes Kareaga eta elkarteari buruzko hainbat kontu dakartza gogora. Lorenzo Zabala senarrarekin batera elkarrizketatu genuen.

Jose Antonio Laskurain Ugalde (1930)



Gerra aurrean jaioa, Frantziara ihesi joan behar izan zuen amarekin altxamendu militarra gertatu zenean. Gaztetxotan, Armeria Eskolan ikasi zuen eta aseguratzaile moduan lan egin izan du urte askoan. Arratera Igoera kotxe lasterketaren hasierako antolatzaileetako bat izan zen.

Kontxa Laspiur Zabala (1924)



Bergaran jaio zen, baina 4 urterekin etorri zen familia osoa Eibarrera eta eibartar sentitzen da (hizkeraz ere eibartarra da). Aita txistularia izan zen Eibarren errepublika garaian. Concharen anaia, Imanol Laspiur, euskaltzale ezaguna izan da. Concha ere euskaltzale amorratua izan da beti, eta 1963tik aurrera, euskarako irakaslea izan da. 1963an klaseak ematen hasi zen, erdi ezkutuan, Eibarko Kulturala elkartean; gerora, hainbat urtez, AEK-ko irakasle izan da.

Victor Lecumberri Arana *Otxabiña* (1913-2005)



1913an jaio zen Barakaldo kalean. Ama, Bernardina Arana eta aita Rufino Lekunberri. Errepublika heldu zenean hasi zen politikaz arduratzen. Lehenengo errepublikarra zen, "azañista". Berehala konturatu zen bera ezkertia goa zela eta komunista egin zen. 1934an soldadutza egitera joan zen. 1936ko altxamendua izan zenean, bera soldadutzatik itzuli berri zegoen eta konpainia bat gertatzeko agindua eman zioten. Gerra hasi eta Tolosa-Irun-Donostia inguruan egon ziren pare bat astean. Han egin zuten teniente. Frentea Deba Arrora mugitu zenean, beraiek ere Eibarrera etorri ziren. Orduan antolatu zen Amuategi Batailoia. Víctor Santanderren hartu zuten preso, baina ihes egin eta Legioan sartu zen, frentera heldu eta alde egiteko asmoarekin.

Juan Leturiondo

Eibarko Arrateballeko Gaztelu baserriko semea. Bertan bizi izan da beti.

Pedro Leturiondo Zigorraga (1932-2013)

Aginaga auzoan jaioa. Gurasoak ere eibartarrak ziren, Arrate ingurukoak. 7 senide ziren familian. Barinagako (Markina-Xemein) Oriatxiki baserrian bizi izan zen.

Alejandro Lizarriturri Barrutia (1914-2009)



Aita Astelena frontoiko txartel-saltzailea zen eta ondorioz Alejandrok ume-umetatik ezagutu ditu bertan egiten ziren oilar-borrokak, dantzaldiak eta bestelakoak. Gerra Zibilean parte zuzena hartu zuen: txofer bezala lehenik, gerrako parteak batera eta bestera eramaten geroago. "Batallón de Trabajadores" en egondakoa. Urteak pasa eta orduko gazi-goak zertxobait arindu zirenean, garai gogor hartan bizitakoak liburuxka batean idaztea erabaki zuen.

Gloria Lizundia Echaluze (1912-2007)



Gloriaren familian denak liberalak, errepublikarrak ziren. Ama, Benigna Victoria, Madridera joan zen Azañaren hitzaldia entzutera, "azañista" zen. Tomas Etxaluze kazetaria Gloriaren osaba zen. Astigarraga tenorea ere osaba zuen. Alcalá Zamora Eibarrera etorri zenean, Gloria kalez-kale joan zen berarekin. Gerra Zibila hasi zenean, ama kartzelara sartu zuten, lau urtez. Santanderren egon ziren sasoi hartan. Ama, rekadista bezela lan egiten zuen; ondoren Gloria hasi zen eginkizun horretan.

Secundino Loidi Erquizia Panpo (1919-2010)



Secundino Eibarren jaio zen, hobeto esanda: Eibarko udaletxean, bere aita udaletxeko atezaina izan baitzen. II. Errepublika aldarrikatu zen eguna gertutik bizi izan zuen: Secundino umea izan zen, bere aitak hala egiteko aginduta, Errepublikaren bandera bila zentro errepublikanora joan zena. Beharbada, Secundinori, aurrerantzean politikarekiko izan zuen konpromisoa gertaera horrek esnatu zion. Une latzak bizi izan zituen gerratean: frontean zegoela, nazionalak Eibarren sartu zirela eta bere aita eraman zutela jakin zuen; ez zuen gehiago bere aitaren berri izan. Armeria Eskolak izan zuen maestriako lehen promozio edo ikasle-taldeko kidea izan zen. Victor Sarasqueta lantegian jardun zuen beharrez eta gero bere tailerra sortu zuen. Txirrindularitza gustukoa zuen eta "Bicicleta Eibarresa" ren sorrerarekin zerikusi handia izan zuen. Club Ciclista-ren presidente izan zen eta baita Armeria Eskolako ikasle ohien elkarteko lehendakari ere. Esparru askotan lan ugari egin zuen Eibarren Secundinok.

Jose Mari Loiola Gisasola (1942)




Jose Mari Loiola Gisasola, 1942ko azaroaren 19an jaio zen Eibarren. Bederatzi anai-arrebetako zaharrena. San Roman baserrian bizi izan da bizitza guztian. Agiñako eskolan ikasi zuen eta bertako elizako akolitua izan zen. San Romango ermitari lotua, bertako maiordomoa da. "Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea" eta "Eibarko Ermitak" proiektuetan parte hartu zuen.

Faustina Lopez Larrea (1908-2008)



Elgetakalean jaio zen 1908. urtean. Aita nafarra zen, baina euskaraz ikasi zuen. Ama "Ermuarretakua", Elgetakalean bertan zegoen okindegiko alaba. Eibarko kale zaharrak eta Elgetarako bidea ondo gogoratzen ditu Faustinak, eta batez ere Urki ingurua nolakoa zen gerra aurrean, horixe baitzen beren jolaslekua.

Juana Josefa Loyola Vergara (1916-2005)



Asua baserrian jaio eta bertan bizi izan zen ezkondu arte. Eskolara 7 urterekin joan zen eta 14 urterarte joaten jarraitu zuen; ondoren klase partikularrak hartu zituen. Ofizinan lan egiteko ikasketak amaitu eta 17 urte zituenerako prest zegoen lanean hasteko. Lehenengo, jostundegi batean hasi zen lanean baina berehala Matsarian ekin zion lanari, Thieme & Edeler enpresan. Gerra Zibila hasi zenean, Thieme eta Edeler Alemaniara joan ziren. II Mundu Gerra hasi eta berehala galdu zen enpresa.

Maria Luisa Maître Jean Gorosabel (1920-2020)



Eibarren jaio zen, 1920an, Arragueta kalean. 10 urte izan arte Arraguetan bizi izan zen, baina gero, amona hil ondoren, Otaola baserrira joan zen bizi izatera. Eibartar jatorra, Eibarko herriak bizi izan duen eraldaketa sozial eta urbanistikoaren lekuko zuzena da.

Juliana Mandiola Maguregi

"Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea" proiektuko lekuko izan zen.

Niceto Marcano Muguerza (1932)



Aita, Luis Marcano. Aitaren anaiak, besteak beste, Ángel eta Santiago. Guztiak oso ezagunak herritarren artean. Niceto 1952an hasi zen Alfán lanean, ofizina teknikoan. Marrazteko oso esku ona du; familiarik datorkio doai hau. Alfa lantegiak armagintzatik josteko makinara egindako jauzia eta ondorengo urratsak bereziki, oso ondo ezagutzen ditu. Hizlari oso ona, azalpen zehatz bezain sakonak ematen ditu antzinako Eibar eta Alfako lantegiaren inguruan.

Concepción Martínez Fuldain (1908-2002)



1908an jaio zen Eibarren. Aita, Aquilino Martínez, grabadorea zen. Concha aitarekin ikasi zuen grabatzen baina gazterik umezurtz geratu zen eta laister joan behar izan zen kriada Bilbora. Benigno Baskaran eibartar sozialista ezagunarekin ezkondu zen.

Nieves Marzana Amuategui (1919-2002)



Sozialista eta errepublikazale amorratua, Aquilino Amuategi sozialista historikoaren iloba zen. Gerra Zibilean, senarra fusilatu zuten.

Salvador Marzana Amuategui (1918-2010)



Salvador Marzana, 1918an jaio zen Eibarren. Aquilino Amuategi eibartar sozialista ezaguna aitona zuen. Ume-umetatik musikazale amorratua izan da Salvador, eta hainbat musika bandatan parte hartu izan du: "La Romeral"; Musika Banda Munizipala"; "Los Rebeldes"; "La Lira". Eibartar jatorra, hainbat gertaera historiko zuzen-zuzenean ezagutu ditu eta bizitasun eta zehaztasun handiz kontatu dizkigu.

Ander Mayora Agirreazaldegi (1985)



Eibartarra da, irakaslea. Bi ume dauzka harreran hartuta, eta familia-ereduei buruz elkarrizketatu dugu. Elkarrizketaren zati bat Igone Lamarain lagunarekin batera egin diogu.



Aurea Mendizabal Gorospe (1917-2008)



Rosario Milikua (1915)

Mallabian jaioa, 9 senide izan zituen. 33 urterekin Eibarko Kaskarrain baserrira ezkondu zen. Azokara saltzera joan ohi zen eta geroago mertzeria bat jarri zuen. Kaskarrain baserri inguruko toponimia ondo ezagutzen zuen eta Mallabiko hainbat ipuin ere ederki kontatu zituen.

Faustino Mugica Ibarlucea (1915-2001)

Jose Mari Muguruza Ibarzabal (1929-2015)

Eibarko Gorosta auzoko Txabolapagola ("Txabola") baserrikoa. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2014an.

Maria Elena Mujika Igartua (1944)



Maria Elena Mujika Igartua, Eibarren jaio zen 1944an. 1974. urtetik aurrera Eibarko Ikastolako irakaslea izan da eta hainbat lekutan eman ditu klaseak: Urkiko elizako sakristian, Karmeldarretan, Markeskua jauregian, Iturburun, Alfan... Eibarko ikastolak izan zuen sorrera eta garapena nolakoa izan zen kontatu du.

Ego Ibarra Batzordeko (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren barruan.

Jose Muñoa Zabaleta (1921-2011)



Aita Elorriotik etorri zen Eibarrera lan egitera. Ama Eibarren bizi zen jadanik eta ezkontzekotan zeudela Bidebarrieta kalean zegoen Hotel Julián hartu zute. Hotelak aurrera egin zuen eta poliki-poliki negozioa handitzen joan zen: taxiak, gasolindegia, e.a. José txikitatik hasi zen lanean aitari eta amari laguntzen. Garai batean Batzokia Muñoaneko etxean egon zen eta Josék gertutik bizi izan zituen alderdi desberdinen arteko eztabaidak.

Margarita Murguizu Azurmendi (1910-2004)



Aldatzeko ikastetxean ikasi eta irakasle egin zen. Maltzagako auzo-eskolan jardun zuen 1920ko hamarkadan umeei klaseak ematen. Ondoren Bilbon jardun zuen lanean. Ikastolen sorrera bertatik bertara ezagutu zuen, eta orduz kanpo euskaraz irakasten zuen Bilboko ikastolan. Bertan harrapatu zuen gerra zibilak, eta Belgikara egin zuen ihes ume mordoarekin. Eibarrera itzulitakoan klase partikularrak ematen hasi zen bere etxean, eta urte batzuk geroago Chilera joan zen misiolari. Eibarko ikastolaren hastapenetan ere parte zuzena hartu zuen, eta hainbat gazteren euskara irakaslea izan zen.

Dunixi Murua Sarasqueta (1931-2021)



Eibartar grabatzaile ezaguna. Udaletxeko grabatu-damaskinatu eskolan ikasi zuen ogibidea. Ama ere damaskinatzailea zuen (Cayetano Kareagarekin lan egiten zuen). 17 urterekin hasi zen lanean; hasieran damaskinatu lanak egiten zituen, baina 24 urte zituela damaskinatzeari utzi eta grabatugintzan buru-belarri sartu zen. Jende ospetsuarentzat lan asko egin izan ditu: Luis Mariano; Perón...



Leire Narbaiza Arizmendi Txargain (1968)

Eibartarra, bertan jaio eta bizi izandakoa. Euskara irakaslea ofizioz, "[Kalamuatik Txargainera](#)" blogeko idazlea ere bada Narbaiza.



Dominga Narbaiza Iriondo (1900-1998)

19 urterekin Uretara (Ermua) ezkondu zen.



Vicente Olabe Etxebarria (1911-2006)

Eibarren jaioa Bitor Sarasketa kalean. Jacinto Olabe artistaren semea. Ingeniaritza ikasi zuen Bilbon eta Alfako zuzendari izan zen urte askoan. Azken urteotan Bilbon bizi izan da. Toribio Etxebarria osabaren hiztegia aztertu eta landu du.

Maritxu Olarra Olazagirre (1928-2017)



Eibarko Arrate auzoan azken 60 urteotan gertatutakoaren lekukorik handiena da Maritxu. 1928. urtean jaio zen Donostian, Zabalegi baserrian (Aieten), baina hamabost urte besterik ez zituela, 1943an, Eibarrera joan zen zerbitzatzera Arrateko abadetxera, Don Pedro Gorostidi ezagunaren etxera. Don Pedro eta bere senideak zaindu zituen, Arrateko ostatuan zerbitzatu zuen, Arrateko elizako serora izan zen hainbat urtez, eliza alboko dendako arduraduna izan zen, Arrate Irratiaren sorrera ezagutu zuen, eta Arraten azken 60 urteotan izan diren aldaketa guztiak bizi izan ditu. Don Pedoren iloba batekin ezkondu zen 1957an, Andres Egidazurekin, eta 3 alaba izan ditu. Bere hizkeran, Eibarko, Elgoibarko eta Donostiako euskararen eragina nabari da, nahiz eta elgoibartarra nagusitu (Don Pedro eta bere senarra elgoibartarrak baitira).

Dimas Ormaetxea



Eibarko Kiñarra auzoko Iraegi baserrian jaioa, hantxe bizi izan da beti. Eibarko toponimia biltzeko lanean parte hartu zuen. Baserritarra eta artzaina.

Maria Ormaetxea Zubillaga Mery (1989)



Eibartarra jaiotzez, guraso eibartarrak ditu eta hiru ahizpetatik zaharrena da. Irakasle izateko ikasketak egin arren, elkarrizketa egin zitzaion garaian, umeekin ziharduen lanean jangelan zein entrenatzaile gisa. Futbola asko gustatu arren, Eibarko emakumezkoen errugbi taldeko jokalaria zen grabazio hau egin zen sasoian. Elkarrizketa taldekide izandako [Nahia Fernandezekin](#) egin zitzaion.

Imanol Ortíz de Zárate Arrinda (1921-2010)



Aita eta ama Abadiñoakoak ziren baina aitak Eibarren egiten zuen lan. Imanolek 7 urte zituenean familia osoa Eibarrera etorri zen bizi izatera, Errebal kalera. Gaztetan, boxeoan egiten zuen eta Eibartik kanpo hainbat plazatan erakutsi zuen bere gaitasuna. Gerra sasoian, gudariekin batera borrokatu zuen fronte desberdinetan. Pelotazale amorratua.

Ziriako Ortiz de Zarate Arrinda (1928-2013)



Eibarko Maria Angela kalean jaio zen 1928an, baina "Elorreta" baserrian hazitakoa zen, Urko mendiaren magalean. Han emandako urteak ganadu eta baserriaren mundua ondo ezagutzeko beta eman zioten. Eskolara joateko aukera eza bere irakurtzeko zaletasun apartarekin orekatu zuen. Bertsolaritzaren, pilotaren eta batez ere herri-kirolen gaineko artxibo bizia izan da, data eta datu kontuetarako fidagarria oso. Eibarko "Arrate Irratiko" esatari 1982tik geroztik, herri-kirolak komunikabideetan duten hutsunea betetzea lortu zuen bere eguneroko agerraldiekin. Ermura ezkondu eta bertan bizi izan zen azken urteetan.

Maritxu Osa Unamuno (1921)



Eibarko Ariatzan jaio zen (gaur egun desagertuta dagoen kalea), "Sanjuantxoneko" etxean. Bost urterekin Jardinetara joan zen bizitzera. Aita Goimendikoa zuen (Bergara), ama Arrazola baserrikoa (Otaola-Kiñarra auzoa). Maritxuk ere egun asko pasa zituen Arrazolan. Baserri ezaguna zen Eibarren; taberna eta bolatokia ere bazituen eta erromeriak egiten ziren jaiegunetan. Kiñarra, Goimendi eta Azurtza inguruko baserriarren bilgunea zen. Eibarko kaletik ere hainbat lagun joaten zen jaiegunetan dantzara eta afaltzera. Gerra garaia ere baserrian igaro zuen, bala eta kanoi hotsak buru gainean zituztela.

Felisa Pascual Ucín (1907-2002)



Ama Azpeitikoa. Aita Gasteiz ingurukoa. Azpeititik Bergarara joan ziren bizi izatera lehenengo eta, ondoren, Eibarrera. Felisa Barakaldo kalean jaio zen. Alhondigara joan zen hasierako ikasketak egitera. Umetan, antzerki eta dibujorako zaletasun handia zuen. Jacinto Olaberekin egin zituen bere marrazketa ikasketak. Gaztetan jostuna izandakoa. Republika sasoia eta Gerra Zibila bete-betean bizi izan zituen.

Carmen Retenaga Eraña (1938)



Carmen Retenaga Eraña 1938an jaio zen Gironan. Aita milizianoa zen. Carmen jaio eta 27 egunera hil zen aita; ama-alabak Bartzelonara joan ziren. Frantziara pasatzeko baimena bideratu zien Toribio Etxeberriak eta han egon ziren bizitzen, Carmenek 5 urte bete zituen arte. Eibarrera itzuli ziren eta Isasi kalean bizi izan da beti. PSOEko zinegotzia izan zen Eibarko Udalean eta UGT-ko ordezkari sindikala ALFAn.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Juan Luis Rodriguez Txatua

"Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea" proiektuan parte hartu zuen.

Maria Luisa Ruiz Arana (1934)



Maria Luisa Ruiz Arana Donostian jaio zen 1934an. Hemeretzi urterekin Eibarrera bizitzera joan zen eta Mercedes Kareagaren bitartez lagunak eta kuadrila egin zituen herrian. Lantegi batean lan egiten zuen bitartean, akademiara joan zen bulegoko-lanak ikastera eta hauek bukatzean, Eibarko Caritaseko arduradun izendatu zuten. ETAko laguntzailea izan zen eta Parisen exiliatu zen 1968tik 1976ra. Bertan, mugimendu komunistaren militante bihurtu zen eta Eibarrera bueltatu zenean, EMK-rekin (Euskadiko Mugimendu Komunista) jarraitu zuen. Egoibarra Batzordeko (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren barruan elkarrizketatua izan da.

Miguel Sagastume Narbaiza *Urkiko magoa*

(1931-2021)



Urkiko baserri bateko semea. Aitak trikitia jotzen zuen eta Miguel gazte-gazterik hasi zen soinua jotzen. Solfeo, piano eta filarmonika ikasketak ere egin zituen. Bergarara joan zen ikastera. "Mago de Urki" gaitzizenaz ere ezaguna, zenbait txapelketatan parte hartu zuen. Benetako aukera ezkontza batean etorri zitzaion. Cubara joateko eskaintza egin zioten eta birritan pentsatu gabe bertarako bidea hartu zuen, amarekin batera. "Tropicana"n jotzen jardun zuen, baina ama gaixotu eta 4 urte Cuban egin ondoren, Eibarrera itzuli ziren. Bolera amerikanoa martxan ipini zenean Eibarren, Miguel kontratatu zuten. Hortik aurrera, "Orquesta Urki"rekin, Jai Alai dantzalekuan, inguruko herrietan, eta beste hainbat lekutan jotzen hasi ziren.

Antonia Salaverria Azcarate (1906-2000)



Gaztetatik izan zuen pilotan jokatzeko zaletasuna, eta lehenengo neska eibartarrak raketa jokoan ezagunak egin zirenean, berak ere bide horri eutsi zion. Hasi bezain laster oso ezaguna bilakatu zen inguruan eta baita Madrid eta atzerriko beste hainbat tokitan ere. Eibarko raketista gazteei laguntzeko prest zegoen beti. Bartzelonan bizi izan zen urte askotan eta ezaguna da oso gerra garaian Antonia eta bere senarra izan zen Ildefonso Arrietaren jarrera eskuzabala hemendik Bartzelona aldera ihesi zihoan jendearekiko.

Juan San Martin Ortiz de Zarate *Otsalar* (1922-2005)



1922ko ekainaren 23an jaio zen Eibarren, San Juan bezperan. Jaio eta hurrengo egunean, Primo de Rivera-ren diktadura ezarri zen. Gerra Zibila irten zenean, Juanitok 14 urte zituen. Gazte-gaztetatik, irakurtzeko zaletasun handia izan du. Euskalduna eta euskaltzalea. Toribio Etxebarriak eragin handia izan zuen Juanitoren pentsakeran. Euskaltzain osoa, Ararteko ere izandakoa, kulturaren arlo desberdinetan gogor lan egin zuen bizi guztian zehar, eta emaitza aldetik gizon oparoa izan da.

Maria Luisa San Martin Urriategi

Otaola auzoko Eguren baserrikoa. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuk" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1982an.

Segunda San Martin Urriategi

Eguren baserrikoa. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1983an, Antonia Iriondo, Francisca Atxalbizuri, Paulina Ugarteburu eta Juanita Gurrutxagarekin batera.

Antonio Sarasketa Errasti (1917-2013)

Gurasoak Eibarkoak izan arren, Gernikan jaio zen Antonio, aita bertako Astra lantegira lanera joana zelako. Denbora gutxi egin zuten bertan, Antoniok 2 urte zituela aita hil egin baitzen. Ama laugarren semearekin haurdun zegoen eta Eibarrera itzuli ziren. Antoniok 9 urte zituela ama ere hil egin zitzaion eta amamak hazi zituen gaur egun Urkizu kalea dagoen inguruan zegoen Errasti baserrian. Ibarkurutzeko eskolan ibili zen lehenbizi, baina eskola mordoa pasa zituen: Ibarkurutzetik Goardia Zibilen kuartela dagoen lekura pasa ziren; gero Jardinetako eskolara; handik Orbeako eskolara eta, azkenik, Isasiko fraideen bukatu zituen ikasketak. 14 urterekin Elgezua maisuarekin apendiz moduan hasi zen. Elgezuaren lantegia itxi zenean, arotzerian ibili zen Martin Errastiren arotzerian. Gerra ostean, berriz, forjan lan egin zuen urte askoan eta azken urteak Alfa lantegian egin zituen. 14 urterekin EAJn afiliatu zen eta alderdi honi lotuta pasa du bizia. Gerra Zibila hasi zenean boluntario aurkeztu zen babeslekuak egiteko eta Urkizuko babeslekua egiteko lanetan ibili zen. Bide-bazterrak zaintzen ere ibili zen, goardia moduan, eta baita Eibarko lantegietako makinak kamioietan kargatu eta Zamudiora eramaten ere. Soldaduak Eibarrera iritsi baino lehen Bilbora alde egin zuen. Bertan Aralar batailoian izena eman zuen. Frankistek harrapatu ostean Castro Urdialesen egon zen preso. Jarrera onagatik libre utzi zuten, baina Francoren tropekin Espainian zehar bidali zuten orduan *America 23* konpainiarekin. Betidanik izan da kirolzalea eta denetarik probatu du. Mutikotatik pilotan jokatzen zuen eta bere lehengusuarekin binakaka txapelketaren bat ere irabazi zuen. Erremontean ere aritzen ziren. Boxeoan ere ibilitakoa da, Frantziatik etorritako boxeo jokalarari baten gidaritzapean. Baina ibilbide luzeena futbolearen egin zuen. 1935ean hasi zen jokatzen "Unión Deportiva Eibarresa" taldean. Gerra garaian Castelloneko taldearekin ere izan zuen fitxa, nahiz eta partidurik ez jokatu, eta geroago, Iruñeara bidali zutenean, Chantrea taldean ere jokatu zuen. Ezkondu ostean Arrate taldeko entrenatzaile gisa hasi zen eta urte asko egin zituen lan horretan ere.

Benigna Sarasketa Maiztegi (1922-2018)



Eibarko Jardineta kalean jaio zen 1924. urtean eta han egin du bizi guztia. Jardineta kalean 4 etxe besterik ez zeuden garai hartan. Bere osaba Kruzetaneko zineko langilea zen, eta ondo gogoratzen ditu antzokia eta gerra aurreko pelikulak. Gerra garaian Bilbora eta Valentziara joan behar izan zuen bere familiarekin. Albericen pasa zituen 2 urte inguru, errepublikazaleen arma-fabriketan lanean, beste hainbat eibartarrekin batera.



Ane Sarasua Aranberri (1971)

Zuzenbide ekonomikoan lizentziaduna, UEUko kudeatzailea eta 2000. urteaz geroztik, UEUko Idazkari Nagusia.

Asier Sarasua Aranberri (1969)



Eibarren jaioa, Aldatze kalean. Gurasoak eta aitxitxamamak ere eibartarrak izan ditu. Nerea Aretak Eibarko euskararen morfologia aztertzeke egindako doktore-tesian, Asier Sarasua ere lekuko izan zen. Auzorik auzo egindako laginketan, gazte kaletar baten hizkeraren lekukotasuna eman zuen. Asier Sarasuak, bere aldetik ere, Eibarko hizkera eta ohiturak jasotzeko hainbat lan egin ditu, besteak beste, "Eibarko euskara" (2005), "Eibarko hiztegi etnografikoa" (2003), "Eibarko baserriak" (1998), "Eibarko mapa toponimikoa" (2005) eta abar. Eibartarren Ahotan bilketa-proiektuko arduraduna ere izan zen eta Eibarko hiztegi digitalean ere parte hartu zuen (www.eibarko-euskara.com).

Antonio Sarasua Gisasola (1912-2002)

Eibarren jaio zen, Estaziño kalean, 1912an. Gurasoak eta aitxixa-amamak ere eibartarrak zituen. Administrazioa ikasketak egin zituen eta Aurrera lantegiko bulegoetan egin zuen beharra. Herriko hainbat ekintza antolatzen eta gidatzen jardun zuen bere bizitza osoan. Besteak beste, Club Ciclistako presidente izan zen 1950eko hamarkadan eta baita Eibar Kirol Elkarteko idazkari ere, garai berean. Kirolaz gain, musika zen beste guztien artean bere zaletasun nagusia. Juan Bautista Gisasola musikari eta konposatzailearen iloba zen eta musikarako zaletasuna txiki-txikitatik jaso zuen etxean. Piano-jole, organista eta hainbat korutako zuzendari izan zen bizitzan zehar (besteak beste, Coral Eibarresa eta Parrokiako korua). Bere lehenengo soldatarekin argazki-kamera bat erosi zuen; gerra ostean baita Super 8 kamera bat ere. Musikarekin, kirolekin eta Eibarko eguneroko bizitzarekin lotutako ehunka argazki eta pelikula grabatu zituen bizitzan zehar. Pelikula guztiak Euskal Filmetegian laga zituen hil baino urte batzuk lehenago. Bere grabazioen artean daude, besteak beste, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren hileta, Migel Gallastegi pilotariaren finalak, Eibarko I. Euskal Jaia (1965) eta hainbat kirol norgehiagoka (futbola, pilota, txirrindularitza, ziklokrosa...).



Julio Sarasua Gisasola (1917-2001)

Grabatzaile eta musikari familian jaioa, Ramon Sarasuaren anaia bikia. Aita (Pablo Sarasua) eta aitona (Donato Sarasua) grabatzaile ezagunak izan ziren. Amaren aldetik, berriz, Gisasolatarren familiakoa zen, 'Organistianekua', Juan Bautista Gisasola musikariaren loba. Euskalduna eta euskaltzalea, 'Lauaxeta'rekin batera aritu zen gaztetan lanean "Gudari" aldizkarian. Kazetari bezala, artikulua ugari irten ziren bere luma zorrotzetik. Gerra Zibilean preso hartu zuten eta heriotz-zigorra ezarri zioten. 18-19 hilabete kartzelan pasa ondoren, "Heraldo de Aragón"eko kazetariekin trukea egin eta aske geratu zen.



Ramon Sarasua Gisasola (1917-1997)

Gonzalo Sarasua Gorrochategui (1913)

Eibarko Bidebarrieta kaleko 42. zenbakian jaio zen. Bere anaia Josérekin batera egin zitzaion elkarrizketa 2000. urtea.



Jose Sarasua Gorrochategui (1923-2019)



Eibartar peto-pettoa. Giro berezia zuen herri txiki industrialala bertatik bertara ezagutu zuen. Garai hartan zabaldua zegoen musikarako zaletasuna gaztetatik izan zuen Josék. Kale giroan zein Parrokiako koruan zaletasun hau sendotzen joan zen. Gerra Zibileko urte gogorrek gertutik ezagutu zituen. Aitari jarraituz Valencia-ra joan zen eta bertan lanean hasi zen bereziki gerrarako gertatutako lantegian. Gerra ostean Eibarko berreraikitze lanak zuzenean bizi izan zituen eta berak ezagutzen zuen nortasun handiko herri txikia zeharo aldatu zen, boom industrialak ekarri zituen aldaketak zirela medio.

Mari Carmen Sarasua Muguerza (1925)



Ama Mendarokoa zuen; aita eibartarra. Umetan, Pagei kalean bizi izandakoa. Gerra Zibila hasi zenean 11 urte besterik ez zituen baina hala ere oso ondo gogoratzen du Eibar nolakoa zen. Gerra garaian lehenik Frantziara joan ziren ihesi, eta handik Valentziara. Eibarrera itzuli zirenean, herria suntsituta aurkitu zuten, eta beraien etxea lur jota. Ondorengo urteak ere gogorrek izan ziren beraientzat.

Felisa Solozabal Arriaga (1923)



Eibarren jaio zen, Ibarkurutzean, 1923an. Gurasoak Etxebarrikoak ziren, baina Eibarrera ezkondu ziren eta bertan jaio zen Felisa. Aita gazterik hil zen eta ez zuen asko ezagutu. Amak, bizimodua aurrera ateratzeko, apopiloak izaten zituen etxean. 15 urterekin neskame joan zen Felisa. 18 urte bete orduko, berriz, Cil bizikleta lantegian hasi zen lanean. Bizikletak paketatzea zen bere egitekoa. Sei urte egin zituen han, argi baitzeukan ezkondu ostean ez zela lantegira joango. Bi alaba hazi zituen. 96 urte zeuzkan elkarrizketa egin zitzaionean. Euskara ahaztua zuela esan arren, ongi moldatu zen, nahiz eta gaztelaniarako joera izan.

Jesusa Sustaeta Abendibar Cayetanosia

Eibarko Arrate auzoan jaioa, "Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea" proiektuko lekuko izan zen.



Adela Telleria Gallastegui (1924)

Mercedes Telleria Izaguirre (1913-2008)

Eibarren jaiotakoa, Bidebarrieta kalean. Ama, María Eizagirre eta aita, Lorenzo Telleria (1890), biak ermuatarrak. Aita "Ermittanua" gaitzizenarekin ezagunagoa zen lagun artean (Sallabenteko ermita zaintzen zuelako); ama "Konbentukua", bertakoa zelako. Ama, Madridera joan zen kriada 17 urterekin. Mercedesen etxean 6 anai-arreba ziren eta Mercedesek 5 urte zituenean, Plaza Barrira joan ziren bizi izatera; harrezkero bertan bizi da. II. Errepublikaren aldarrikapena eta 1934ko iraultza zuzenean bizi izan zituen. Gerra Zibilean, Ermuan egon ziren lehenengotik, Oletzeko baserrian. Gerra ostean Eibarrera itzuli eta hurrengo urteak bete-betean bizi izan zituen.



Dolores Tolosa Lariz (1911-2003)

Plaza Berrian jaiotakoa, eibartar peto-petoa. Eibarko herriaren nortasuna eta izaera barne-barnetik bizi eta sentitzen zituen.



Mertxe Ugarte Atxotegi (1927)

Eibarren jaio zen, Elgetakalean, 1927. urtean. Aita Amorebietakoa zuen, ama eibartarra. Oso ondo gogoratzen ditu umetako Eibar eta gerra aurreko kale zaharrak: Arraindegi, Birjiñape, Barrenkale, Elgetakale, Piparkale (Ifarkale) eta abar. Elgetakale inguruko taberna eta dendei buruzko informazio asko ere eman du elkarrizketan: Badeteneko taberna, Ermuarrareneko okindegia, Buruneko sagardotegia... Sinfo denda ezaguna ere gertu-gertutik ezagutu izan du, bere amama baitzen Sinforsa "Sinfo" oihal eta bordatuen denda ezaguneko ugazaba.



Hipoli Ugarteburu Lizarralde (1921-2013)

Eibarko Bidebarrixetan jaio eta hantxe joan zen eskolara ere, doña Felisa maistrarekin; hark erakutsitakoak ahaztu barik ditu. Gerrate denboran hainbat bizileku eta bizipen gogor ezagutu ostean, Eibarren etxerik ez eta 18 urte egin berri zituela, gurasoekin batera Ermuko Kaltxangora etorri zen. Josten egiten zuen etxerako zein kanporako, eta ederto gogoratzen ditu orduko moda eta oihalen mundu hori. Etxekoei josten ikasi nahi zuela esan zienean, aita Justok Dibujora bidali zuen Eibarko Akademia batera, jostun ona izateko beharrezko izango zuela erizten zion eta. "Erromadetako" Andoni Areitioaurtenarekin ezkondu eta 8 seme-alaba izan zituzten. Hizkera: eibartarra.



Marixabel Ugarteburu Arrillaga (1955)



Eibarko Pagaegi kaleko "maternidadean" (amaetxean) jaio zen Marixabel 1955ean. Mandiola bailarako Mandiolaazpikoa baserrikoa da eta bertan bizi izan da beti. Santa Kurutzeko eskolan ikasi zuen umetan eta gero Eibarko Komertzio Eskolara joan zen. Bi seme ditu. Santa Kurutzeko ermitari oso lotuta dago. Egun, jaiak antolatzen laguntzen ibiltzen da, nahiz eta ardua gehiena bailarako gazteek duten. Santa Kurutzeko ermitaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Martin Ugarteburu Eizaguirre (1925)



1925ean jaio zen Markinan eta 12 urterekin Eibarrera etorri zen. Bidarteren Tailerrean hasi zen lanean eta ikasten. Grabatzaiile ofizioa ikasi eta lantegi txiki bat zabaldu zuen bere kontura.

Paulina Ugarteburu Iriondo

Nebera baserrikoa. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuek" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1983an, Antonia Iriondo, Francisca Atxalbizuri, Seguna San Martin eta Juanita Gurrutxagarekin batera.

Inazio Ugartechea Aulestiarte (1929-2019)

Inazio
Ugartechea

Ardantza kaleko 9. zenbakian jaio zen 1929. urtean. Inazio Ugartechea Ugarteburu zuen aita; 35 urterekin gerra garaian gaisorik hil zen. Ugartechea markako armak ezagunak ziren ordurako. Armeria Eskolan burutu zituen Inaziok goi-mailako ikasketak eta aitak sortutako lantegian jardungo du baskulak egiten zuzendaritzako kide bihurtuko dena arte. Ugartechea lantegiaren hastapenei buruz dihardu eta baita bere ehizarako zaletasunaz ere.

Emilia Unamuno Zamakola (1915-2009)



Eibarko Arraindegi kalean jaio zen. Oso gazterik joan zen Calbetón kalera bizitzera, baina Arraindegi kaleko sentitzen da. Gerrak eraman zuen Arraindegi kalea eta, elkarrizketa egiteko unean, Emilia da kale horretan jaiotakoen artean edadetuena. Kaleari buruzko hainbat azalpen eman dizkigu. Aita Soraluzekoa zuen, baina gazterik etorritakoa Eibarrera; ama oso gazterik hil zitzaion. Eskolara udaletxera joan zen doña Petra irakaslearekin, baina denbora gutxian: ez zitzaion gustatzen eta etxean lan asko izaten zuen egiteko (amaren faltan). Familia guztia sozialista zen; anaia nagusiek 1934ko matxinadan hartu zuten parte. Bere senarra gerran zauritu zuten.

Vicenta Unanue

"Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1982an, Margarita Murgizu, Ignacia Larrarte eta Cleto Unzuetaekin batera.

Adelina Unanue Muñoz (1923)



Adelina Unanue, 1923an jaio zen. Aita, Lucio Unanue; Plazentzian jaio zen errementari familia batean, baina gazterik Eibarrera etorri zen bizi izatera. Betidanik Ortuostetarrekin harreman handia izan zuten Unanuetarrak. Lucio Unanue, Victoria Ortuosteren senide egiten zen eta Adelina gazte-gaztetatik ezagutu zuen Ortuoste familia eta hauek zuten argazkilaritza estudioa. 1936ko gerran, Unanue eta Ortuoste-Castrillo sendiak elkarrekin egin zuten ihes Bilbora.

Jesusa Unzetabarrenetxea Epelde (1918-2012)

Barrenetxe baserrian jaioa, azken urteak kalean igaro zituen. Hala ere, ia egunero igotzen ziren baserrira bera eta bere ahizpak. Baserriko tresna guztiak ondo gordeta izan dituzte, ia-ia museo baten itxurarekin. 1998an antolatutako "Eibarko basarrixak" erakusketarako laguntzaile handiena izan zen.

Mari Jose Unzetabarrenetxea Lizarralde (1956)



Mari Jose Unzetabarrenetxea 1956an jaio zen Eibarren. Barrundi baserriko alaba bakarra, bizitza guztia bertan eman du. Bi seme-alaba ditu. Egunero plazara jaisten da baserriko produktuak saltzera. Maltzagan zegoen eta gaur egun desagertuta dagoen eskolan ikasi zuen eta bertako San Rafael ermitan egin zuen lehen jaunartzea. Ermita horren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Cleto Unzueta

"Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1982an, Margarita Murgizu, Vicenta Unanue eta Ignacia Larrarterekin batera.

Doroteo Urkia Lasuen (1938)



Doroteo Urkia Lasuen Zaldibarren jaio zen 1938an. Bi urterekin Eibarrera etorri ziren bizitzera, Arrate Balle-ra. Maltzagako eskolan ikasi zuen 14 urterarte eta ondoren, bi urte egin zituen Armeria Eskolan. AGME n egin du lan bizitza guztian. Azitaineko Ermitarekin oso lotuta egon da.

Josean Urkia Zuloaga (1965)



Jose Andres (Josean) Urkia Zuloaga Eibarren jaio zen 1965ean. Azitainen eman du bizitza guztia eta Andra Mariko parrokiarekin eta auzoko jaiekin lotura handia izan du betidanik. "Eibarko Ermitak" proiektuan parte hartu zuen, auzoko elizari, jaiei eta Felix Bergara abadeari buruzko kontuez hitz eginez.

Nicolasa Urtiaga Irusta (1910-2003)



Gerra aurreko Eibar nolakoa zen oso ongi gogoratzen zuen. Eibarko bonbardaketa ere zuzen-zuzenean bizi izan zuen. Solac lantegian jardun zuen gaztetan.

Jose Luis Urzuriaga Lete

Eibarko Arrate auzoan jaioa, "Eibarko euskara: izen sintagmaren deklinabidea" proiektuko lekuko izan zen.

Felisa Urzuriaga Ugarteburu (1928)



Eibarko Gorosta auzoko Nebera baserrian jaio zen 1928an. Santakuruzko eskolan ibili zen. Gerra garaian "Itturruazpikua" (Iturraobekoa) baserrian pasa zituzten 6 hilabete.

Mikel Usobiaga Iriondo (1950)



Mikel Usobiaga Elgoibarren jaio zen 1950ean. San Roke auzoko Beko Etxe baserrian bizi izan zen eta bost urterekin Eibarrera bizitzera joan zen, aitak ALFAn lan egiten zuelako. Hamasei urterekin, Eibarko Klub Deportiboan sartu zen eta gizarte-mugimenduetan inplikatzeko hasi zen. Herri-mailan bizilagunen elkarteak falta zirela eta, Gure Herria elkarteak sortu zuen 1973an. Elkartetik, izen bereko auzokako aldizkari txiki bat eta herri-mailako orokor bat argitaratzen zuten.

Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Julia Valenciaga Lasuen

"Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1982an, Candida Eguren eta Victoria Baskaranekin batera.

Lorenzo Zabala Suinaga (1927-2020)



Lorenzo Zabala Suinaga Eibarren jaio zen 1927ko irailean. Jardiñeta kalean bizi izan zen ezkondu arte. 17 urterekin bi motor sortu zituen. Hori izan zen Motobic-en hastapena. Miren Lorea Lasa emaztearekin elkarrizketatu genuen.

Roberto Zabaleta Ozamiz *Katillu* (1934-2022)



Eibarko Isasi kalean jaioa, bere izen-abizenetatik baino gaitzizenetik ezagunagoa: `Katillu`, bere amandarearen Markinako baserriaren gomutaz. Aita Pedroren egur eta ikatz jarduerari jarraipena emanez, anaia Jose Mari eta beste pare bat sozioarekin garraio eta garabien "*Grúas Katillu*" enpresa jarri zuten, Isasi barrenean lehenengo eta Olaerreagan gero; bertan jardun zuen harik eta erretiroa hartu zuen arte.

Begoña Zaldibar Oianguren (1926-2016)



Otxandion jaio arren, Bilbon bizi izan zen. Gerra Zibilean, Ingalaterrara La Habana barkuan ihes egin zuten umeetako bat izan zen. Southamptoneko kanpalekuan eta Madres Misioneras del Sagrado Corazón de Jesús eskolan egon zen. 1938an itzuli zen handik eta 1948an Eibarrera joan zen bizitzera, aita eta anaia Star fabrikari baitzebiltzan lanean.

Maite Zanguitu Arana (1945)



Bidebarrieta kaleko 56. zenbakian jaio zen eta hantxe bizi izan da beti. Aita, Zesareo Zanguitu (osintxuarra) eta ama Maria Arana (1912) eibartarra. Maitek idazkari-ikasketak egin zituen Aldatze Ikastetxean eta 14 urterekin lanean hasi zen SIMES lantegian. Handik berehala SOLAC lantegira pasa zen eta bertan lan egin zuen urte askoan.

Danel Zenarrutzabeitia Badiola (1927-2018)



Eibarren jaio zen 1927an, hiru anaiaren artean gazteena. Gerratea zabaldu zenean, familia osoak Eibartik alde egin behar izan zuen Elgoibarko baserri batera lehenengo eta Ermura gero, senideen babesera kasu bietan. Ermuan hiru urtez bizi ondoren, Eibarrera itzuli eta Armeria eskolan ikasi zuen, harik eta lanean hasi arte. El Casco tailerrean lanean zegoen bitartean, DEJ enpresa sortu zuen beste 4 lagunekin batera. Ordutik aurrera, beti ibili izan zen Eibarri eta enpresa munduari lotuta. Politikagintza gustukoa izan zuen bizi guztian: bere gurasoen ildoari jarraituz EAJ-PNV eta Batzokiko kide izan zen gaztetatik, EAJ eta EAren arteko bereizketan EAren alde egin eta Eibarren alderdi horren lehendakari kargua izan zuen; azkenik, Hamaikabat-en aukera hartu zuen. Itziar Alberdi eibartarrarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Luis Mari Zendoia Elorza (1924-2020)



Eibarren jaioa. Ama ere eibartarra zuen; aita, berriz, elgoibartarra. Hala ere, bi aldeetako aitona-amonak kanpotik etorriak ziren.

Timoteo Zubiate

1931n, Primo de Riveraren diktadura garaian Eibarko alkate izan zen hilabete batzuetan. "Eibarko antxiñako jolas eta kantuak" proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa 1982an.

Eduardo Zubiaurre Ariznabarreta (1972)



Eduardo Zubiarre Ariznabarreta Eibarren jaio zen 1972an. Bere aitona zenak, JAZ lantegia sortu zuen 1924. urtean Arragueta kaleko tailer txiki batean. Javier Zubiaurrek, Eduardoren aitak, lantegia Asua-Errekan kokatu zuen eta bertan 27 urte egon ondoren, Azitaingo industri-poligonoan dago orain. "Eibarko Industria Ondarea" proiekturako elkarrizketatua izan da.

Juana Zugasti Bilbao (1923)



1923an jaiotakoa. 9 urterekin, Aldatzera joan zen ikastera. 1948an, 24 urterekin, moja sartu eta hasiera batean Frantziara joan zen, Kongregaziora. Bueltatu zenean, lehenengo Basauri eta gero Igorrera bidali zuten klaseak ematera. Eibarren 7 urte egin bazituen ere, azkenik Igorrera itzuli zen.

Ekhi Zugasti Uriguen (1985)



Eibartarra. Gurasoak ere bertakoak ditu. Bi anai-arrebatan gazteena. Ingeniaritza zibilean doktorea. Kezka Dantza Taldeko kidea da urte askoan. Eta, horretaz gain, dantza taldeko zenbait kideren artean sortu zuten eMePebo5t musika taldean saxofoia jotzen du.

Jose Zuloaga (1925)

Industria gizona. Gaztetatik hasi zen beharreen eta, aldi berean, Armeria eskolan ikasten. 1953an, Tomas Arteagarekin batera, Eibarko Carmen kalean (gaur egun, Barrena 34) industria-errodamenduen tailerra jarri zuten, Rodamientos Industriales SA; horretarako, Alemaniako patente bat hartu eta ordaindu egin zuten, INA marka, Schaeffler enpresa-multzoarena. 1968an Elgoibarrera joan ziren, eta han, autobidearen ondoan, tailer berria ipini zuten. Gerora, tailerra, alemanen eskuetan geratu zen, aurrenik Arteagak eta hurrenik Zuloagak, euren zatia alemanei salduta. Horrez gain, Eibarko Armeria Eskolaren urterik onenak eta haren garapena gertutik ezagutu eta bizi izan du.

Maria Luisa Zuloaga Garitaonandia (1939)



Maria Luisa Zuloaga Garitaonandia Eibarren jaio zen eta Mirafloresen bizi izan zen gaztetan. Neskame bezala jardun zuen Eibarko familia dirudun baten etxean ezkondu zen arte. Geroztik, Barrena kalean bizi izan da. Azitaineko ermitarekin lotura estua du eta beste bi emakumerekin batera, serora lanak egiten ditu.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. "Markanokin Ameriketara"

- **Hizlaria(k):** Mugica Ibarlucea, Faustino
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa - Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia
- **Erref:** AB-022/009
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:24:17. **Bukatu:** 00:25:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Markanokin Ameriketara" deritzon kantaren pare bat bertso abesten ditu. Ihauterietarako sortu eta konpartsek abesten zituela dio. Gerraostean debekatuta egon ziren aratusteak Eibarren.

Transkripzioa

- Beste bat da, bat Angel Markano, ta abiadore jantzitta abioi batekin

"Angel Marcano jauna
degu pilotua,
gazte-gaztetatikan
estudiatua.
Harek hartzen duenian
buelo direktua
laster izango gera
Amerikatuak".

- ...Ta gero besta bat:

"Polo Norten ei daude
hain paraje baltzak,
harako egin ditugu
aproposko galtzak.
Eskuetan harturik
galtzairuzko lantzak
galdu ez gaitezen han
hotzak edo hartzak"

- Hor.

- Ze kantu polittak, zu.

- Horrek kantatzen zittuen.
- Karnabaletan kantatzen zittuen horrek?
- Karnabaletan kantatzen zittuen, konparsiak.
- Ze polittak.
- Eta karnabalak, ze ziran? Gerra aurrian izan ziran?
- Bai
- Gerraostian debekatuta egon zan. Tolosan eitten eben "Fiestas de Primavera" ta Francon denporan, ba, orduantxe harek...
- Tapau eitten zan pixkat.

1.2. Erropak aldatzeko ohitura

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa - Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia
- **Erref:** AB-023/020
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:40:30. **Bukatu:** 00:42:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Benigno Baskaranen kuadrillako baten inguruko anekdota bat kontatzen du, lanetik atera eta arropaz aldatzeko ohituran ingurukoa.

Transkripzioa

- Eibarren hamabixetan drauna jotzen zan. Drauna zan kanpai haundi bat. "Boum!... Boum!..."

- Ta menditik entzuten zan?

- Karo! Entzungo ez zan ba? Bai, bai. Ta "boum!" entzuten gendunian hasten giñan goittik behera mendixan aintxixiketan. Bidetik ez, e? Martxia hartzen gendunian ezin geratu ta "bau!" eskua ipiñi arbolan ta geratzen giñan. Hurrengo beste arbolan, ta drauna jo orduko ya Txontan geozen. Aittak urten, Beistegiñetik etxera etortzen ta gu Salbadoretik, mahaira batera etortzen giñan. Bazkaldu, igari ein lehenengo Txontan ta atzera Salbadorrera.

1.3. Familiako anekdotak

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa - Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia
- **Erref:** AB-023/021
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:42:02. **Bukatu:** 00:45:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Birraitoina harakina zuen eta oso bromazalea zen. Haren, aitonaren eta aitaren anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Bazkaldu, igari ein lehenengo Txontan ta atzera Salbadorrera. Bidian sagarrak ostu, keixa sasoian keixak ostu... nahiz ta jan ez. Sagarrak... ostu. Intxaurrik ez zeskuen lagatzen osten, intxaurra saldu eitten eben, baiña gaztaiña nahi genduana, e? Poltsakada gaztaiña. Ta perretxikua euan edozein lekutan orduan, hongua ta, sasoian, ezta? Etxera eruan gaztaiñak ta ama pozik, perretxikuak eruan ta hasarre. Zegaittik pentsatzen dozue zala?
- Enbenenau eingo dialakuan...
- Gaztaiñak ura ta gatza bakarrik bihar dabe ta perretxikuak olixua.

1.4. Aitak nahi arren, Juanitok armagintzarako zaletasunik ez

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/003
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:05:12. **Bukatu**: 00:08:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
 - Iritziak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Familia kontuak. Gerra garaian, aita armagin-maisu bezala joan zen Valentziara arma lantegi bat abian jartzera. Juanitoren aitak semea armagin izateko ilusioa zuen, baina Juanitok nahiago zuen mekanikaren mundua. Armak inoiz ez zaizkio gustatu, hala ere haien historia ikertu izan du. Historia kontuetan egin ohi diren hanka-sartzeak. Erljioarekin zerikusia duten hainbat kontu.

Transkripzioa

- Baina hori izan da... Lehen aipatu duzu, bidenabar, eta esanez irakurtzeko zaletasun hori, baina zure destinoa zen lantegia eta teknika. Etxetik.
- Bueno, hori destinua zen etxetik. Nerea ez, ordea. Bueno, destinua [izaten da] etxetik. Gerra bukatzeaz, ba, aita lehendabizi, ba, bueno, espexian egon behar izan zen, ze, klaro, Republika garaian, maisu armeru bezala Valenziaraiño jua zen, armeriak montatzera, beste batzuekin batian. Eta gero zigorra izan zuan, bere partia. Eta irten ta gero bera enpeñaturik zeguan ni armero egitia. Baiña nik ordurako ya tornerotza eta nahiko ondo dominatzen neban eta nahiago neban mekanika. Gaiñera, egia esan, arma ez nuan maite.
- Hori sekula ez duzu maite izan.
- Sekula ez. Nik naturaleza maite izan dut eta hori: ni txori bat hiltzeko gauza ez naiz izan. Eta txoria hilgo duanarekin edo hilgo duana egiteko ere ez. Hala ere, historiazale ere banaiz eta, historiazale bezala, nik armen ikerketak edo estudioak estudiantu ditut, historian zehar egon dan eboluzioa. Horregaitik [bakarrik] gertatzen zaigu... Egon ziran orain dala - ez dakit- sei urte edo, holako erreportai batzuk Espaiñiako Telebistan: Carlos III.a agertzen zen eta Carlos III.a agertzen zen txispadun fusil batekin. Eta nik ikusi orduko: "Baiña nola? Ez zan txispadunik orduan! Hori Napoleonen bukaeran, Napoleonen ondotik sortua da!". Eta orduanguak ziren e... Geizki esan dut: pistoidunakin agertzen zen. Txispadunak ziren,

baiña pistoidunakin agertzen zen. Eta pistoiduna sortu zen Napoleonen bukaeretan. Eta hori, ba, guri begira -begi golpera- salto egiten digu. Eta: "Zelan hori disparatiori? Iñor ez da hor informatzeko garai haietan arma zer zen?". Hortik ikusten dugu historiako gauza asko agertzen diranian -nik uste-, soiñekuetatik erabiltzen ditugun tresnetara arte, zenbat oker egiten diran.

- Bueno, hori jaiotzen historia ikusi besterik ez dago: Jesus jaio zenetik eta pintatu dutenera zer datorren.

-A, bai. Beti. Europak bere erara egin du. Monoteismua Europak nahastatu du bertako lehengo beste siniskera askorekin. Hori bizitzaren zera da.

Bueno, ez dut uste kaltegarri izango denik, baiña ez da Jesusek emandako mensajia soila gaur kristautasunak eramaten duana ere. Ze, euki kontua, ebanjelioak ziran oiñarri. Eta hortik urten bihar du. Baiña gero teologia zientziak, ba, beste gauza asko... Eta, bueno, aldakuntzak etortzen dira, batez be Aita Santu Julio I.akin, IV. mendetik, hasi zanian, ba... lehengo pluriteismuari jartzen diotenian, ba, bueno, ba, halakoren ordaiñez, ba, santuak jartzen hasi. Eta horrek aldaketak ditu.

- Festa egunak batik bat.

- Hori da. Eta bete, bestieri terrenua kenduaz.

1.5. Gerra aurreko Eibar, herri guztiz euskalduna

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/004
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:08:36. **Bukatu**: 00:11:59
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
 - Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Primo de Riveraren diktadura. Gerra aurreko Eibar, herri erabat euskalduna; horren inguruko aipamenak. Doktrina euskaraz ikasten zuten. Euskararen, euskalkien inguruko aipamenak. On Juan Ibar gutxi abadea.

Transkripzioa

- Bueno. Primo de Rivera. Baina Primo de Riveraren diktadurak izan zuen eragin oso inportante bat: euskara debekaturik geratu zen.

- Bai, ta horrek piztu, nunbait, egin zuan.

- Piztu...

- E? Euskararen zera, euskalzaletasuna...

- Eibarren hori ez zen asko igerriko kalean. Eibar oso-oso euskalduna izan da.

- Bai. Berez zen euskalduna. Eibar, zalantzarik gabe, 1936. urtian, Euskal Herriko hiri nagusiena zen... Hau da, hiri nagusietan euskera hutsa egiten zen bakarra izango zen. Ez zegoan hainbeste biztanle zituan herri bat... E? 15.000 biztanle eta 15.000ak euskaldunak.

- Eta kanpotik etorritakoak eta denak.

- Bai, bai, bai, bai! Kanpotik etortzen zenak ez zeukan beste erremediorik ikasi baiño! Lehenago edo geruago! Eta batzuk nik ezagutu ditut, nik zaharrak ezagutu ditut Eibarren, ba, erdera ahaztu ere bai eta erdera

gaizki egiten zutenak: hainbeste euskera beti egiten, beti egiten, ba, erdera moteldu. Gurekin mendian ibileretan, bueno, bat `Camarro´ deitzen geniona zan, Molinero zeukan deitura. Baiña `Camarro´. Harek erderaz desastria egiten zuan eta Guadalajaratik etorria zen. Baiña Eibarren beti euskeraz, euskeraz, euskeraz, ba...

- Bestea atzendu?

- ... euskeraz normal egiten zuan, baiña erderaz...

- Beraz, horrek esan nahi du ikasketa guztiak gaztelerakoak zirela normalean.

- Bai, bai. Nik... doktrinan ibili nintzen gerra aurrian, ba, euskeran.

Doktrinan ibili nintzen gerra aurrian, doktrinan euskera. Baiña euskera hain garbia eta hain zera, ba, nik ez nuan ulertzen eta ez nuan nahi. Eta erderaz nekienez, ba, esaten nien: "Nik erderazkua nahi dut". Eta: "Ez". Behartzen ginduen, apezak behartzen giñuzen euskerara.

- Euskarara. Orduan justu izango zen zerarena, Manuel Lekuonaren...

- Han Jangoikozale taldekoak zeuden batzuk eta hori: gaztien doktrinan arduraduna zena zan Don Juan Ibargutxi. Oso ezaguna euskal idazle bezala.

- Bai, bai, bai. Eta...

- Gero lagun handiak egin giñan. Gero ni, gero... Bera exilioan egon zen Inglaterran. Etorri eta gero oso lagunak.

- Baina, diot, Gasteizko seminarioan Lekuonak-eta prestatu zuten doktrina...

- Bai, batez ere hoiak egi zuten: Barandiaran eta zera eta... Baiña doktrina hori guri bizkaieraz erakutsi ziguten. Eta erakutsi ziguten bizkaiera guregandik urrutiko samarrekoa zen. Ez zuten hartu... Bizkaiera... Zein da... Gipuzkuak izan du halako batasun bat, nolabaitekoa. Bizkaierak ez du hori izan. Bizkaian, esan, bai, egin dute: Markiñaldekoa onena, Markiñaldekoa. Baiña gero doktrinak-eta egiterakoan, ba, nahastatzen zuten eta igual Arratia aldekoa erabiltzen zen han garaian. Eta guretzat urrutiago zena. Eta Markiñaldekoa erakutsi balute, ba, gurea bezalakua da.

- Ez zen arazorik izango.

- Ez genduan arazorik izango.

1.6. Eibarko lehenengo institutua

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/005
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:11:59. **Bukatu**: 00:13:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Juan San Martinen irakasleak. Lehenengo maisua: don Jaime. Maistra: señorita G&ocute;mez. Eibarko lehenengo Institutua. Odon Apraiz, Eibarko Institutuko irakasle.

Transkripzioa

- Hor... Kolpetik hola galdetuta: gogoan al daukazu zeure lehen maisuaren izena?

- Maisua?

- Edo maistra.

- Bai, don Jaime [izenez]. Maestra bai: señorita Gómez zen lehenengokoa, maistra. Harekin dana erderaz egiten genuen eta zera. Eta ez dakit: neri amak maiz esan dit, eta aitak ere bai, han esaten zuala harek sartu eta laster, ba, ez dakit, ondo hartzen nituala berak emandako esplikaziñoak, belaxe. Eta esaten ziola: "Zure seme honek talentua dauka. Badu zer bait. Badu gauzak ondo asimilatu eta ondo konprenditzeko zentzun bat eta hori inportantia da. Eta horrek luzerora emongo dau beria". Ez dakit: hori beti esaten zidan amak, beti señorita Gomezekin gogoratzen zen, harek hori esaten zuala eta. Bueno, gero, ba, baita ere maixuen artian gero, guk hain zuzen... Gu geunden azken mailletan eta Institutuan onduan, edifizio berian. Eta ematen zituzten klaseak, Institutuan sartzeko, ba, ematen zituzten klasiak. Orduan ezagutu nuen nik Odon Apraiz.

- Honbre!

- Katedratiko egon zen Eibarko Institutuan. Astian bi aldiz-edo etortzen zen. Guretzat, ba, gizon inportantia zen, baiña euskerarekin ez giñan gu gogoratzen ezertarako ere.

1.7. Juan San Martin eta etnografia

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-084/009
- **Iraupena**: 0:14:04. **Hasi**: 00:22:34. **Bukatu**: 00:36:38
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Juan San Martin eta etnografia lanak. 1966an Luis Pedro Peña Santiagok eta berak 'Estudio etnográfico del valle de Urraul Alto' argitaratu zuten. Peña Santiago nola ezagutu zuen, ikerketa etnografiko hori egitea nola bururatu zitzaien eta nola eraman zuten aurrera. Bertako euskararen inguruko ikerketa.

Transkripzioa

- Bueno, guzti honetan, zuk azkenean, azkenean diot etnografia eta arkeologia eta guzti horien artean, 1966an, Luis Pedro Peña Santiagorekin batera argitaratzen duzu 'Estudio etnográfico de Urraul Alto'.

- Ja, ja! Hori be beste zer bat da! Hortaz, bera hil danian eskatu ziguten, ba hor ez dakit norek antolatuta, baiña Donostiako Aurrezki Kutxan hitzaldi batzuk eta eman nuan. Eta gero nik idatzita eranan nuan eta gero arreglau egin dot gehitxuago eta luzatu. Eta, hain zuzen, lan bat bialdu dut Luis Urantzun argitaratzeko, anuario bat egiten dute zerian, Irunen, hamen inguruko gaiena. Eta horra bialdu dut, ze hor jaiua zen eta, Irunen jaioa. Ba, hori izan zen oso kuriosua, ze horren esplikaziñoa eman nuan, ze hori eskatu zidaten: nolan okurridu zitzaigun eta zelan egin genduan. Bueno, ba, hori behin... Luis Pedro ni baiña bastante gaztiagua. Aita be ni baiña zaharragua, baiña ni bitartekua nintzen. Aita laguna nuan, baiña semia aitan bidez eta gero etnografiara dedikatu zan hau. Barandiaran etorri zanian hau hasi zan sekretario bezala laguntzen. Lehelengo Karmele Goñi eta gero hau. Eta horrek laguntzen zuan. Eta zeguan, ba, bueno, iñoiz Donostiara juaten nintzanean, beti horrekin hartzen nuan okasiñoa hitzaldi bat egiteko, alkarrekin hitz egiteko, ba, zeozer. Eta honek: "Zeozer egin bihar dugu berezia. Zeozer egin bihar dugu berezia". Eta: "Bueno, ba, zer?". "Estudio orokor bat etnografiakua, baiña toki ezezagun batekua".

Eta, orduan, ba, egin gendun pixkat plana eta gero lekua, ze hautatu. Eta hartu gendun Euskal Herriko mapa. Ibili giñen mugaz handikua be pentsatzen, hemengua be bai, baiña gutxien ezagutzen zan toki bat. Eta guretzat etara gendun kontuetatik hori zen: Urraul Alto. "Ba horrax juango gara". Eta plana egin genduan, ba, Luis Pedro Peña, Fermin Leizaola eta ni. Banatu be bai lana -bueno, batzuk, gauza batzuk-: esate baterako, nik nere zaletasunagaitik-eta arte kontua nere esku. Arte elixakuak eta horrek. Gero, bestetik, artiazen klasifikaziñua. Eta, bestetik, euskera konturik ezer balego, ba, hori, bokabularioa jaso eta plan bat eraman. Eta bestiak: bata artzaintza eta artzaintzan ingurukua -ganaderia eta zera-; bestiak gehiago tradiziñoko zerak, erromeria giroko zerak. Holan jua giñan. Bueno, juateko giñan. Preparau gendun plana eta gertatu zen Fermin Leizaola soldautzara jua biharra. Eta orduan Luis Pedro eta biok. Baiña sartu giñen, ostaturen bat egongo zala eta beste gabe. Urten gendun etxetik biok zortzi egun pasatzera hara, jakin gabe zer aurkituko genuan.

- Non zegoen bakarrik jakinda.

- Bai. Eta gertatzen zan, ba, bueno, erdira arte karretera bat zeguan. Kotxez jua giñen. Eta ostatu bat ez balle guztian. Orduan... Ta hori gero halako toki baten oso arrarotzat hartuko giñuezela eta -1965ian zen-, egin gendun alkatiagana jua giñan, lehendabizi alkatiagana. Eta alkatiari esan: "Bueno, halako ikerketa bat egitera gatoz eta, en fin, hemen ibiliko gara. Eta besterik ez dugu nahi, jakiñian zu jarri ez gabiltzela gauza raro bat egiten. Aranzadikuak gera: halako zera, etnografiako estudio bat". "A, bueno, ondo da". "Bueno ta guk nahi dugu ostatu bat". Eta zera ta "Hamen ez dago, ostaturik, ezta pentsatu ere". "Bueno, ba, familiaren bat edo". "O, kostako da hori!". Eta bueno. Gero bigarrena zen parrokoa. Ze elizako gauzetan be egon bihar giñen eta, gaiñera, bere laguntza biharko gendun elizetan sartzeko eta zera. Parrokuagana. Parrokoa gertatzen da nere apellidokua, napar bat: Felix San Martin. Eta jua giñan parrokoagana eta horrek, ba, formazioz eta, ikusten zan bestia baiño gehiago. Eta horrek... Esplikatu genion zertara giñoiazzen eta ostatua bihar genduala. "Ba ez dago hamen". Orduan, ba, "bueno, enkuetak-eta preparatuta ditugu eta gu hamen gelditzekotan. Jo, hau jakiñian, kanpin bat ekarriko genduan! Baiña ez dugu ekarri eta zera. Hara, beharbada etxeren baten ez gaitue hartuko?". "Bueno, neu nagon zerian hitz egingo dot, ia zelan". Eta bera zeguan, bera egoten zan etxian hartu giñuzten. Eta, bueno, ba, lehelengo eurentzat be nobedadia. Eta, bueno, hasten giñan -goixeko zortzi eta erdietarako ya gosalduta- zortzi eta erdietan ya lanian geunden. Eta gero juaten giñen, ba, esaten genion: "Guk ordainduko dugu eta bokadillo bat edo zeozer". Eta horrekin pasatzen genduan eguna. Eta afaltzera. Afal onduan, hamaika eta erdiak arte ez gendun bukatzen, azkenengo apuntiak eta zerak hartzen. Jo, ikusi ginduzen holan bigarren egunerako, bueno, emozionatu zan eta parrokoa be gurekin etortzen zan! Ahal zuanian behintzat gurekin etortzen zan. Emozionatuta.

- Laguntzaile txarra ez zen!

-Bai, bai. Emozionatuta, ba, zera. Ba, bueno, ba, holan egin gendun. Gogoratzen naiz hogetaka ez dakit zenbat herrixka ziren eta ixa erdiak zeuden hustuta, ruinan. Erorita eta zera. Baiña haiek ere bisitatu. Ya plano bat egin eta nun kokatzen diran jarri eta nahi gendun. Eta gero bertako arkitektura, modua etxe tipikuena eta zenbait eliza eta ze irudi eta zer zeuden, estiluak. Eta bueno, igarri gabe, beti halako tokietan sartzen zarenian, deskubritzen dituzu zenbait gauza. Esate barerako, hillarri biribillak aurkitu genituen, baiña Erdi Arokuak batzuk. Eta estilotik ikusten gendun, ba, gotikoak eta orduan batzuk Erdi Arokoak. Baiña aurkitu genitun, baita ere, bi... bat patio baten eta bestea kalostre batean aurkitu genituen horreoak ere, garaiak. Bi garai ezagutzen ez ziranak: bata

erromanikotzat –nik ez dut sinisten erromanikua denik–, baiña dagona da erromaniko kalostre baten onduan. Kalostrea dobla da, bat erromanikua da, baiña gero gehitura bat du eta nik gehitura hori geroztikua uste dot dala. Da hango zerbitzuko patiuen barnea. Eta hori, nunbait, izan da peregrinuen ostatu edo erabilitakua. Eta eliza erromanikua, bere kalostriekin, oso polita. Eta haren onduan. Hori, gaiñera, errestauratu egin du Diputaziñuak, Naparruakuak. Eta ez ziran ezagutzen. Bueno, horrek bezela... Gero, ba, hori, Pirineoko tximinia tipikuak daude. Horrek be zenbait eredugarri dibujatu eta fotografia pilla bat atara gendun, danak ezin gendun publikatu eta, bueno, egin gendun lan hori, ba, ikaragarria. Gero, gaiñera, bete... Falta zan partia, ba, jua giñen betetzera. Eta nik euskera kontuan, ba, bokabulario bat egitetik aparte, han erabiltzen ziran euskerazko hitzak, oraindik ere erderan erabiltzen dituztenak, hori egitetik aparte, hartu nuan pista, ba... Esaten nien, galdetzen nien: “Hamen badaukazu aztarnarik hamen euskeraz iñork?”. Eta “Ba, ez!”. Eta apezak be esaten zidan: “Aquí, aquí, no. Aquí si se habla... igual mucha antigüedad, pero no. Aquí –esaten zidan– no voy a decir nunca; igual, nunca”. Esaten nion: “Nunca, ez. Porque los nombres dan el testimonio. Son nombres euskéricos, todos los nombres de estos pueblos”. “Ah, ¿sí?”. Eta holan. Eta, klaro, berantzat...

– Dana berria zan...

– Eta izenak esaten digute, baiña, bestetik, jasotzen genduan bokabluak ere bai. Baiña noiz galdu zen edo noiz ziran azken euskaldunak? Eta lehelengo billatu nuana izan zen milla seirehun eta ez dakit zenbatgarrenian –Trentoko ondorengo zera izango zen–, bisita pastoral batian, jarrita zeguan bisita pastoralaren memoria, jarrita, eta ordena eman zuana, predikua, igndetako zera...

– Sermoia.

–Sermoietan euskeraz egin bihar zala herriak ulertzeko. Ze ezin dala egin hizkuntza bat ulertuko ez dutena. Eta predikuak euskeraz egitia. Aiba! Horri fotokopia atara nion –bueno, fotografia, orduan ez zan fotokopiarik–. Atara nion lente aproximazioarekin fotografa bat. Eta: “Ze casualidade eta ze casualidade!”. A! Ba hau... Beste gauza bat egingo dot: beste herri baten, beste aldeko muturrian aztertu eta ia... fetxa berian elizako liburuetan aurkitu nuan beste baten ere. Orduan, esan nahi du hemen ibili danak hori ordenatu du. Baiña gero, casualidadez, gaiñera, beherengo herrian, gitxien uste genduan zerian, batek esan, ba: “¡Sí, mi padre, cuando venían los leñadores de la sierra de Areta, hablaba en vascuence con ellos!”. “¿Cómo?”. Eta nik... Lehelengo neu be txokauta: “Pero, ¿cuándo? ¿Su padre cuándo?”. Eta holan. Eta, bueno, mende honetan bizi, hil zan pertsona bat, baiña mende honen –ez dakit– 1920 inguruan edo. “Aiba!”. Apuntatu, hartu izenak, apellidua, noiz hil zen eta datuak. Baiña herrietan hasi nintzen hori egiten eta pilla bat herrietan “tapa, tapa”. Apaiza ere harritura gelditu zen. Eta esaten zuen: “Bah, sí, porque hablaba vascuence tal. Fulano con vengano hablaban ellos, los viejos”. Atara neban. Mende honetan, mende honen hasieran, zeguan guk Erronkari ezagutu dugun bezala: azken euskaldunak, 80 urte ingurukuak, euskeraz egiten zutenak. Beren artian edo menditik etortzen ziranekin, ifarralderagotik etortzen zirenekin. Eta, bueno, bat hori izan zen. Gero hortik ikusten nuan Bonapartek hori ez zuan ikutu. Eta Bonaparteri eranskin bat eginda daukat, zer tipologia, horkua zer dialekto zen. Lan bat, hain zuzen, Aingeru Iriagarairen omenaldiko liburuan, RIEVen, publikatu nuan nere bersiñua: noiz arte egin dan euskera eta ze euskera zen hori, alto-navarro, alto-navarro occidental. Eta hori zan euskalkietan, Bonaparte egon zenean, euskalkirik zabalena, hain zuzen, Lizarragarena, Elkanokoarena. Hori zan horren bariante bat. Hori hor barruan sartzen zen. Hori, area hori. Zegaitik?

Zaraitzuraiñok hurbiltzen zalako. Eta harek ez du ematen horren berririk. Baiña euskeraz egiten zan testimonioak aurkitu genitun. Eta ez hori bakarrik: gero, personaje bat, bertan ballekoa, bertan jaio, haurtzaroan nunbait euskeraz zekiana, gero estudiuetan galdu, baiña kaputxino egin zen, eta exkluustraziñua dala-eta, Ameriketan edo, etorrira, eta karlisten gerratian, bigarrengo karlisten gerratian etorrira, hasi zan -zela da? Zela esaten da?- berrido restauraziñua egiten ordenarena. Eta hasi zen Lapurdin. Eta orduan berak, hango semia -Esteban de Adoain, Adoaingua, Marcuello zeukan apellidua baiña Adoain erabiltzen zuan erlijioso bezala-, orduan Lapurdin hasi zen eta etorri zan Ameriketatik ilusiño horrekin. Eta ordenari esan zion: "Euskal herrietan nik egingo dut, ze nik nere euskera hobetuko dut orain, ze ni oindiok gogoratzen naiz nik umetan egiten nuan euskera". Eta hori hasi zen juan zan mendean predikua... Eta gero predikatzaile inportantia izan zen. Baditu zenbait biografia. Nik neuk hiru biografia ditut horrenak.

- Begira...

- Eta horren azterketa egin nuan hortik biografietatik eta horrek zer egin zuan eta zera. Eta baita ere -gero hor lanian ez nuan publikatu ze dana ezin nuan zertu eta-, baiña eranskin bezala egin ditut beste lan batzuk horkuak eta bat da horrek egindako bokabulario bat: 'Vocabulario inédito del padre Esteban de Adoain'. Eginda daukat zerian, 'Fontes Linguae Vasconum' en egin nuan. Eta horrek egin zuan, erabili zuan Larramendiren hiztegia, baiña han falta ziranak edo berak ezagutzen zituanak eskuz gehitu zituan. Eta hori Iruñako kaputxinuetatik lortu nuan eta hori gero, bokabulario hori, publikatu nuan.

- Hori da lehendabiziko lana, ze beste lan bat ere badago, baina mendiarekin zerikusia duena. Eta...

- Bai, etnografia gaiak beti dute mendiarekin zerikusi handia.

1.8. Arestiren hiletan abade laikoarena egin zuen

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-085/006
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:31:26. **Bukatu**: 00:32:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- **Laburpena**: Arestiren hiletan abade laikoarena egin zuen

Transkripzioa

- Baina nik hemen daukat: argazkia, etnografia, artea, alpinismoa, espeleologia, euskera: literatura-itzulpena-ikerketa, arkeologia, literatura, antropologia, 'Egan'eko zuzendari, literatoen edo idazleen animatzaile, apez laiko hori ere tokatu zaizu inoiz .

- A, bai. Hori Eibarren esaten dan kura laikua, hori be egin dot. Egin dot, ba, Arestiren entiarruan hain zuzen. Eskatu esten, eta...

1.9. Isasiko fraideekin eskolan

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/004
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena:** Eskolan bi urtean egon zen fraideekin. Frantses pixka bat ikasi zuen. 13 urterekin lanean hasi zen. Gero frantsesa ikasten jarraitzea erabaki zuen.

Transkripzioa

- Eibartarra, benetako eibartarra.
- Bai, eibartarra.
- Ikasi ere, hementxe ikasi zenuen, ezta?
- Bai, hamen izan dira neure oiñarrixak, Eibarren.
- Badakit frantses ikasi zenuela. Nolatan izan zen hori?
- Ba, txikittan frailliekiñ apur bat, hasiera bat emon genduan, eta urte bi besterik ez nittuanetik egin fraillietan, gero lanian hasi nintzan hamahiru urterako, eta akabo! Holaxe. Baiña gero sartu jatan, ba, "Joño!, frantsesa..." eta, etxian benga, bata, bestia, eta gero profesora bat edo beste euki neban hamen, Eibarren. Eta azkenengo etxetik hurrian, eta harekin moldatu nintzan eta, tira! Behintzat ez dot ardurarik eukitzen Frantzian zihar han bakarrik ibiltzeko.

1.10. Baskarandarrak eta sozialismoa

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/014
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:46:44. **Bukatu:** 00:49:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- **Laburpena:** Marcelino eta Benigno Bascaran. Abade "laikua". Hileta zibila. Anekdotak (mojak eta abadeak hileta zibil batean).

Transkripzioa

- Gero beste izen bat, hemen ahotan erabili duguna, Benigno Baskaran. Hau gazteagoa da.
- Bueno hori... Aurretik egon zan beraren aitta, lehelengo "cura laico" esaten zetsena, lehelengo entierruetan eta hitz batzuek egitten zittuana. Aitta izan zan ekin zetsana. Gero hori Benignok hartu zeban haren zerian, hori posiziñuori. Agertu zan Benigno momentu baten, diktaduran. Eta orduan harek esaten zittuan hitzak eta, entierruetan... Esango detsut neri pasau jatana: Franzian neguan ni eta anai bat hil jatan; etorri nintzan eta entierro bat egon zan Prietona uste dot zala, Julian Prieto. Haren entierro laikua izan zan eta egin zeban hitz Benignok; eta orduan egunian ikusi nittuan Ospittaleko abadia eta monjak entierro zibillera juaten. Eta entzun nittuan Benignoren hitzak: diktaduriaren kontra eta, "sobre todo, contra la

burguesía vasca". Horixe aprobetxatzen zeban.

- Kanposantuan hori?

- Kanposantuan. Ni jua nintzan Benignoren etxera eta esan netsan: "Hi, Benigno, Franzian hastera najoiak atzera eta emongo destak kopixa bat egin dittuan hitzena?". Eta emon zestan kopixa bat. Juan nintzan Franzia eta han nere laguneri esan netsen: "Hauxe eta hauxe ikusi juat: entierro zibil baten abade bat eta monja bi. Eta gure lagunak, Benignok, hónetxek hitzok egin jittuan". Ez zesten siñisten! Ezin leikiala izan hori! Esan netsen: "Mutillak, neuk ikusittakua dok hori. Neuk ikusi juat eta neuk entzun jittuat hórrek hitzok [...], asi ke ez dittuk hórrek ipuiñak". Ez zesten siñisten orduan momentuan izan leikianik. Eta, naturalmente, horrek ekarri zeban, holan, gizon batek entierro zibilletan holako hitzak esaten zittuanian, ez diktaduriaren kontra direktamente, baiña geure pentsaketak defenditzen. Esan zeben: "Ezin leikek, baiña, hori izan". "Ba, bai, holantxe dok ba. Eta Eibarren holantxe gauzak pasatzen dittuk. Ez jakixat beste leku batzutan, baiña Eibarren holantxe pasau dittuk".

- Bai, bai, bai. Eta hori tradizio bihurtu da.

- Bai, tradiziñua. Baiña orduan ez zan fazilla. Lehelengo entierrua zibilla egin zanian diktaduriaren denporan, neri esan desten moduan, bastante larrixa izan zan. Alde batzuetatik hor, Eibar kanpotik, kanposantura eta, zaratarik barik.

1.11. Urkiko soinujolea; "Mago de Urki"

- **Hizlaria(k)**: Sagastume Narbaiza, Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-091/001
- **Iraupena**: 0:09:59. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:09:59
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: 12-13 urterekin hasi zen soinua jotzen. Aitak trikitia jotzen zuen. Berak ere musika oso gustukoa zuen (pianoa, solfeoa, soinua, filarmonika) eta aitak soinua erosi zion. Baserrian bizi ziren; benta bat zuten. "Mago de Urki" gaitzizena zergatik ipini zioten.

Transkripzioa

- "Gitarra zahartxo bat det nik nere laguna" kantatu zuen Iparragirrek. Hark kitarra erabili zuen munduan zehar ibiltzeko. Bestelako tresnak, instrumentuak, erabili dituzte hainbat euskaldunek, munduan zehar ibiltzeko, noski. Ahotsa erabili duenik eta erabiltzen duenik ere bada. Akordeoia lagun ona izan daiteke munduan zehar ibiltzeko: akordeoia eskuan eta ibili munduan. Zu hala ibili zara, ezta?

- Bai, jauna.

- Lagun ona al da akordeoia?

- Oiñ artian beti izan da pixkat laguntzekua, bai.

- Lagun ona, infernuko hauspoa?

- Holan esaten zeben lehen, infernukua zala.

- Baina zuk ez duzu infernuko...

- Ez dot ezagutzen oindiok.

- Migel Sagastume, eibartarra...

- Eibartarra.

- ... akordeoijolea, soinujolea.

- Bai, pixkat afizionadillua.

- Noizdanik akordeoia eskuetan?

- Noiztik?

- Noiz hasi zinen?

- Nik hamahiru bat urtekiñ, hamabi-hamahiru bat urtekiñ.

- Baserritarra izanda?

- Bai, basarrikua. Gure aittak joten zeban, nere aittak joten zeban binarixua eta gustau egitten jakon. Eta basarrixan badakizu zer pasatzen dan. Aittak orduan nahi izaten zittuan seme bakarra eta ofizio asko erakustia: bai filarmonikia, bestian bata, "ikasi bihar dok mekaniko", "ikasi bihar dok karnizero..." Eta leku baten zer asko. Eta buru txikixan gauza asko ezin leike sartu. Eta onduen etorri jatana filarmonikia izan zan. Gero okasiñua euki neban, ba...

- Baina zer motatakoa zen? Hauspo txikia, hauspo handia... esan nahi dut...

- Aittak, trikitixa; aittak, trikitixa. Bai, trikitixa.

- Eta zurea ez. Zurea handia.

- Haundixa, bai. Nik egin nittuan... Lau urte egin nittuan, pianua... solfeua ikastera juaten nintzan. Amada Mugerza zeguan bat, [klasiak] emoten zittuana. Eta hara juaten nintzan. Eta pianuakin lagundu egitten zestan berak. Badakizu, solfeua emoten zanian en general pianuan lagundu egitten zetsuen zerak lekziñua hartzeko eta. Han zerian eta esan zestan: "Zegaittik ez dogu egitten batera pianua zerakin [solfeuakin]?" Solfeuan bastante, pixkat, moldatzen neban eta esan zestan. Orduan, ez dakitt, durua-edo kobratzen zebe hillian. Eta harek be, irabaztiarren, durua solfeuagaittik eta beste duro bat...

- Bi duro..

- Bi duro. Zerian. Bueno. Eta aittak esan zestan: "Ba ikasi, pagauko deuat eta". Eta hantxe ibilli nintzan. Eta gero lau urte pasau nittuanian, gure aittak nahi zeban soiñua. Urkin basarrixan zelan eukiko giñuan pianua... Eta soiñua. Bueno.

- Baina zu pianoarekin teklatura ohitu zinen.

- Klaro. Klaro, bai. Porke gero numeraziñuak eta, badakizu, beste bentaja bat eukitzen dau. Eta gero pianuak dakana bentaja bat da, ba, solfeuan... eta filarmonikia joteko akordiak ezagutzeko ze notatzukin, ze akorde egitten dozun eta dana. Bentaja haundixa daka. Haundixa. Ezkerrian ez, baiña musikia leitzeko eta bentaja haundixa. Bueno, ba, holaxen zera eta aittak ez desta ba erosi soiñua Larrinaga y Guerrini! Orduan: 3.600 pezeta balio zittuan. Orduan, e! Eta 3.600 pezeta pagau zittuan eta basarritarrak, beste beheko basarrikuak, esan zetsan gure aittari: "'Baiña —Vitoriano jakon izena eta—, hi, Vitoriano, hori dok astokerixia egin duana!", "Zer ba?", "Semiar... behi batek balio jittuk 3.600 pezeta... eta filarmonikia! Eta ez dakik ze ikasiko daben", "Ba ez jetsak ardura, hamen egongo dok, filarmonikiak ez jok bai jaten, eta hamen egongo dok. Nahi dabena egingo jok". Gero filarmonikia erosi neban eta erakustaillerik ez Eibarren. Eta nundik nora ekingo eta Bergaran zeguala. Eta nik nahi neban kromatikua ikastia. Han zeguan filarmonikista bat, pelukerua zan eta kromatikua joten zeban. Eta haixe ikastia eta etorri nintzan hona, Bergarara. Zeguan hamen Miguel Gonzalez Bastida.

- Hombre! Fanatiko! Gonzalez Bastida!

- Bera, bera, Miguel!

- Bai, musiko handia.

- Haundixa. Danak hónek. Danak. Eta Bergarara. Bueno. Etortzen gara. Orduan hamar errial kostatzen zan autobusa Eibartik hona. Eta etortzen giñan hiru, etortzen giñan eibartarrak hiru. Hamen... Eta esan zestan berorrek kromatikua ez zekixala. Eta ezin zebala emon, zelan ez zeban ezagutzen numeraziñorik eta zerik. Eta orduan zela ez zeguan metodorik

be, oin badakazuz, oin bai, badakazuz.

- Bakarka ikasteko.

- Bai ba... Ez, bakarrik ez, beronek erakusteko! Metodua euki bazeban numeraziñuetarako eta, ez dakizu? Eskubixan, ba, bale. Eta ezkerre bazekixan: beste anai bat zekan honek, Jesus, hil zana, difuntua, Zumarragakua, joten zebana eta beronek be joten zeban pixkat pianotxua. Eta hona etorri giñan. Hamentxe, segidu neban hamentxe. Eta gero hamendik, ba, Kubarako bidiak urten zestan eta hara juan nintzan.

- Beraz, aitag bultzatuta ikasi zenuen.

- Bai. Gero neri be gustau egitten jatan. Neuri be bai. Bai ba. Gero basarrixan ze dibersiño: ganauak, bi ganau, bi behi. Gure basarrixa pobrietakua zan ha.

- Baina aitag ikusi behar zuen, zuri hainbeste gauza eta halako gauzak erakutsi ezkerre, baserrian...

- Jai zeguana?

- Klaro!

- Ba gero hori resultauori euki zeban.

- Klaro, hori edukiko zuen.

- Baiña kitto! Handik alde egin neban Kubara eta kitto! Hortxe akabau zan basarriko zeregiña eta eskerrak horri, e? Batzuetan jangoikuak laguntzen dau, beste batzuetan sakatu be egingo detsu. Baiña orduan, behintzat, lagundu egin zeskun. Bestela terrenuak pobre-pobriak ziran, dana buziña. Oin buziñak prezio ona daka. Oiñ, e? Han dake Urkin basarrixa, buziñ asko dakana: nahi dabenak juan eta erreumendako. Ez dabe esaten buziña ona dala?

- Bai, bai, bai. Baina garai hartan ez zen batere ona. Eta, gainera, beste gauza bat: dena partikular.

- Bai, bai, bai.

- Hori pentsatu behar da ari garela duela berrogeita hamar urteko historiak kontatzen. Berrogeita hamar eta gehiago.

- Bai. Eta gero neri —parkatu—, neri ipiñi zesten izena `Mago de Urki´.

- Bai, hori banekien.

- Bazenkixan?

- Bai

- Eta badakizu nundik datorren hori?

-Ez.

- Bueno. Eibarren zeguan teatro bat. [...] Behiñ etorri zan zirko bat Eibarrera, ez dakit Circo Hervas edo ez zan. Eta ipiñi zebe konkursua, "para noveles" edo zerian. Eta esaten desta hango batek guk kantiña genkan, taberna txiki bat, hónek basarrikuak... basarrixak ez zeban urtetzen eta...

- Bai, lagundu.

- Bai, hori da, bai. Aittak egitten zeban lana Ocamica-nian, Ocamica Hermanos fabrikan. Eta, bueno, handik sueldua eta amak handik bestetik. Eta nik ganaua mantendu eta zerian. Eta gero eskolara eta eskola partikularrian... Lehelengo ibilli nintzan fraillietan: Sagrado Corazon de Jesus. Baiña han bedratziretatik hamabixetara edo hamabi eta erdietara egitten zan. Eta gero ordu bixetatik seiretara. Eta hárek orduak kendu ezkerre, ba, basarrixan ezin zeikian egiñ. Eta amandako karga haundixa eta ba... Batian, orduan eskola partikularrian ekiñ eta basarrixan egitten neban; eta filarmonikia bestetik; eta dana. Hor ibiltzen giñan. Bueno, ba, juan nintzan eta konkursuan 'Comparsita' jo neban. Bai, hamalau urtekin: 'Comparsita' jo neban. Emon zesten hamar duro: lehelengo premixua. Jolin! Pentsaizu zer zan haura! [...] Txapelduna. Eta handik eta, koño, orduan, ba, omenajiak egitten ziran: bata tuberkuloso petxutik zeguala eta "koño, honi zera egin bihar detsagu". Eta ekartzen zittuen... hamen Villar,

Muniain y Caballero zegozen, kantantiak, Donostian, onak. Villar zan dentista bat eta tenorra zan. Eta Caballero... Eta Muniain zan bajua. Eta Caballero zan baritonua. Eta hórrek "Coro Easo"n kantatzen zeben. Baiña hortara ba... solbentia ziran eta etortzen ziran holako zerak eta...

- Bai, bai.

- Beste bat zeguan, tolosar bat zeguan, zera, Pello `Kerten´en estilora ibiltzen zana, hónek zerak egitten: Pello `Kerten´...

- Sketch-ak eta egiten.

- Hori da! Bai. Beo... Beorlegi. Beorlegi. Ona zan, e? Ona. Harek esaten zetsen eibartarrerri —Eibarren asko zeguan Gisasola—: "Qué suerte tienen aquí, porque guisa sola". Bai, bai, esaten zeban holako zerak eta. Ibiltzen zala, ba, zerian eta, ba, bueno. Deittu zestan... Etorri ziran Juanito Etxaniz eta Juanito `Txoko´ gurera behin, batendako omenajia egin bihar zala "Salón Teatro" hundi du zan, ba, Eibarren ...

- Bai, bai, bai.

- ... hantxe egitten ziran eta. Etorri ziran eta esan esten: "Hi, gazte, etorriko hintzake? Hauxe omenajiau dagok eta", "Bai, nik zer joko dot ba?". Eta: "Hi, hi ez hari estutu. Hi eta gero badatuaz beste kantante batzuk eta bittartian batzeko". Orduan zegozen triuak eta kuartetuak eta asko: Tropicales eta Ea eta Ego, Trio Ego, Lazpita eta hónek zerok orduan... Eta asko zan holako konjuntua eta otxotiak be bai, herrixetan. Orduan, gaiñera, otxotien konkursuak be egitten ziran.

- Bai, asko egiten ziren.

- Bai, eta plaentxiatar onak zegozen, plaentxiatarak eta zerian. Bueno: etorri ziran eta baietza emon netsen. Eta, bidian doiazela, programia egitteko, batak bestieri esan etsen: "Hi, baietz esan jeskuk. Eta, oin, zelan ez jakixagu izenik eta apellidorik honenik?". Eta: "Ba ez jetsak ardura: `Mago de Urki´ ipiñiko jetsagu". Eta hortxe geldittu zan. Se acabó. Hortxe seillua.

- Eta, harrezkero, gaur arte.

- Gaur arte. Bai. Ni, Eibarren, Migel Sagastume gitxik ezagutzen nabe. Bai. Baiña gehixenak `Mago de Urki´.

1.12. Fraideen etorrera; Armeria Eskola

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/006
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:07:42. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena:** Eskola Munizipalak. "Hermanos del Sagrado Corazón"; zuzendaria frantsesa zen (Hermano Luis). Fraideak Eibarrera etorri zirenean, umeen janzkeran ere eragin nabarmena izan zuten. Eskola munizipalera tunikarekin eta abarketekin joaten ziren, baina fraideak etorri zirenetik, umeak dotoreago hasi ziren eskolara joaten. Armeria Eskolara joan zen ikastera eta handik Izarrera lanera. Izarretik Alfara.

Transkripzioa

- Zuk, ze karrera egin zenuen? Zenbat estudiatu zenuen haurretan?

- Zenbat...?

- Estudiatu. Eskolan eta, zenbat ibili zinen?
 - Bueno ni lehelengotik...
 - Beno, garai hartan oso gutxi ibiltzen zan!
 - Eskola munizipalian lehelengo. Han tokatzen jatan.
 - Bai, bai, bai, baina...
 - Gero frailliak etorri ziran. Hárek asko aldatu eben zera... Eibarko ohitturak umien artian. Lehen esan detsudan moduan, gu, Bidebarrixetakuok, juaten giñan Bidebarrixetara.
 - Bai, bertakook.
 - Estaziño aldekuak Estaziño kalia, alondigan; Untzagan Untzagakuak... Eta frailliak etorri ziranian, orduan juntau giñan bai behe aldekuak, bai erdikuak, kale guztietako mutikuak juntau giñan. "Hermanos del Sagrado Corazón" zan eskolia. Eta hárek jarri eben e... franse... bai, maixuak, hamenguak ziran, españolak ziran, baiña direktoria fransesa zan: Hermano Luis. Franes erakutsi eskuen.
 - Bai, bai, bai.
 - Eta orduan, e... Eibarko gaztiak, gauza ona be, alkarri pegau gentsagun, baiña gauza txarrak be bai, e!
 - Elkarrekin denak nahastean, nahastu egin zen.
 - Zelan, zelan influidu leike! Influenzia, zerak, eskola batek, umien jantzixan! Gu ume giñanian —umiak, eskola munizipalian—, tunikiakin juaten giñan. Tunikia zan!
 - Bai, bai, bai.
 - Gure jantzixa zan tunikia. Eta neguan jersixa barruan. Baiña... gure amak, frailliak etorri ziranian, pixkat dotoriago hasi ziran...
 - ... janzten.
 - Janzten. Konpletamente kanbixau zan gure jantzixa, eta zera...
 - Oinetakoak lehen, zer izaten ziren? Espartzinak?
 - Abarketia.
 - Abarketia.
 - Abarketia. Gero etorri ziran zapatillak. Sandaliak...
 - Ba hori, moda handia zan. Geroagoko kontuak dira.
 - Tunikia be desagertu egin zan. Edo jersixa —dotoriagua— edo marinerua, edo... en fin!
 - Bai, bai, bai, bai. Beraz, Eibarren, berriketa guztia zeuk egin duzu.
 - Bai... Kanbixau egin zan.
 - Bai, bai, bai. Eta horietan ere, zu ibili zinen ikasten.
 - Nik fraillietan egin nittuan hiru urte, Hermano Luisegaz, eta gero, ba, Eskola Armerixan sartu nintzan. Eskola Armerixan hiru urte egiñ eta lehelengotikan Amorebietara juan nintzan biharrera.
 - Lanera.
 - Bai. Izarrera. Eta Izarretik Alfara.

1.13. Pilotan irabazitako diruarekin autoa; gida-baimena gero

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-093/012
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:33:54. **Bukatu**: 00:35:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Pilotan irabazitako diruarekin autoa erosi zuen, baina gidatzeko baimenik ez zuen artean.

Transkripzioa

- Oker ez baldin banago, orduan, zure lehenengo partidu bategatik hamabost pezeta kobratu zenituen, debutekoarengatik. Baina pixkanaka-pixkanaka diruekin aurrera joan zinen eta leitu dut ere Austin bat erosi zenuela, hori izan zela zure lehenengo kotxea. Karnetik gabe erosi zenuen, ezta?
- Karnetik ez neukan. Lagun bat neukan karneta eukana, Jesus Ugalde, eta bixok fan giñan Bilbora eta pagau genduan kotxia eta berak ekarri niñuan Durangoraiño. Eta Durangon emon estan kotxia. Pixkat zeozer banekixan, ezta? Eta, klaro, hartu neban hantxe Durangon kotxia eta hurrengo domekan Vitorixan jokatzan neban. Eta nere kotxiakin jua nintzan Vitorixara. Neu txofer, e!
- Baina ez omen zinen oso txofer ona.
- Bueno, danerakuak...
- Hasieran. Igual horrexegatik izango da, horrexegatik ez zenuen karnetik izango.
- Ez, ez. Han lagun bat neukan Trafikokua. Eta harek esan estan: "Neuk etarako deuat segiduan karneta". Eta handik zortzi-hamar egunera edo bera etorri zan nerekin kotxian eta pixkat ebali ninduan zerian eta da emon estan karneta eta...
- Examinik egin zenuen orduan?
- Berak ein eban papel guztia. Emon esten karneta eta aurrera.

1.14. Eskolara joan beharrean, ardi edo ganaduak zaintzen

- **Hizlaria(k):** Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-094/002
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Baserritik eskolara oinez. Eskolara joateko aukera bai, baina sarritan ardi-zain edo ganadu-zain geratu behar. Ez dakiela guztira urtebete osatuko ote zuen dio.

Transkripzioa

- Gauza bat: Antzuolara eskolara joateko, Alutz-Txikitik, bide luze xamarra, ezta?
- Ez, gaztiak bizkor egitten dau. Han, goittik behera, tiki-taka, segiduan zertzen da. Gorakua izaten da... baiña gorakuan ya amaittuta juaten da eta sosiguz juaten giñan.
- Aukerarik izan zenuten, beraz, eskolara juateko.
- Bai! Sarritan ardi-zain eta hurrenguan ganau-zain eta hurrenguan ez dakit zer, eta hiru urte egin banittuan, behintzat, urtebete ez zan osatuko danera.

1.15. II. Errepublikan hartutako lehenengo neurriak; hileta zibilak

- **Hizlaria(k):** Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-106/006
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Lehenengo legeak. 1931ko urritik aurrera eman ziren aldaketarik handienak. Azañaren, Errepublikaren lehendakari. Hilerrien sekularizazioaren inguruko azalpena. Frankismoarekin berriz egin zen atzerantz. Hileta zibilak.

Transkripzioa

- Problema guzti haien barruan, ezin askoren artean, neurri berriak, aurrerapausoak eman zittuen bigarren Errepublikak.
- Bai...
- Eta aurrerapauso horien artean, ba, -31tik 36ra bitarteko bost urte haietan ez?- horietako bat izan zen sinismen, kreentzia eta kultoen askatasuna, askatasun indibiduala gehitzea, eta abar eta abar, ez? Aldaketa, gainera, aldaketa gehien eman ziren 31ko urritik, oktubretik aurrera Azaña presidente jarri zenean.
- Bai.
- Ejerzito barruko erreforma, dibortzio legea, jesuitak kanpora, irakaskuntza erlijioso guztia laiko bihurtzea, laiko bihurtu nahia, instrukzio publikoaren gehitze edo zabaltze hura, reforma agrariaren legea onartu ere orduantxe egin zen... Eta tartean, neurri berri guzti horien tartean puntu bat dago, nik oso ondo entenditzen ez detena, eta da, kanposantuen sekularizatzea. Zer izan zan hori?
- Kanposantuak sekularizaziñua da: hiltzen diran pertsona guztiak, enterrau egin bihar dabe; herri bakotxak bere kanposantua eukitzen dau, ta danok deretxo igualian ta lege igualian sartu geinkezela kanposantura. Pentsau barik, lehen, kanposantuandako geto bat egitten zan zibillendako...
- Hori bigarren Republika aurretik?
- Bai, bigarren Republika aurretik. Ta gero, horrekin legiorrekin, ba, danak juaten ziran kanposantu batera.
- Frankismo garaian zer gertatu zen kanposantuen sekularizazioarekin?
- Frankismuak horrek kendu eskuzen ta getuak ipini eskuzen atzera.
- Berriz, ez?
- Bai.
- Une honetan nola dauden zuk jakingo duzu...
- E?
- Une honetan lege hori nola dagoen zuk jakingo dezu..
- Bai.
- Nola dago?
- Hor, gaur egunian ez dago problemarik, zegaittik eze Elixia ez da enfrentatzen ya horrekin problemiorrekin, zegaittik eze hori, erderaz esanda: "es un hecho consumado". Aitzen dozu? Baiña gaur egunian -ta gu hasi giñanian entierro zibillak egitten- ba, atzera be, konsegiru dogu behintzat salbatzia. Kanposantuak sekularizauta atzera buelta egittia. Eibarren, han bota zan -eta beste herri guztietan- hormia edo pareta -nahi dozun moruan esanda- dibididu egitten dittuana horrek kanposantuok. Oin

badago judixuendako eta protestantiendako eta katolikuendako eta agnostikuendako ta guretako!...

- Zer esan nahi duzu? Orain..

- "Laicistas".

- ... orain badagoela?

- Badago.

- Pareta?

- Pareta ez! Botata pareta!

- A! Pareta botata... Bai, bai.

1.16. Azitaingo eliza; serora lanak

- **Hizlaria(k):** Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref:** AB-109/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:03:43. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Lehen egunero egoten ziren mezak Azitaingo elizan, orain larunbatetan eta igandetan bakarrik, hiletaren bat ez badago behintzat. Arrazola baserrian bizi izan zen, baina azken 35 urteetan Azitainen bizi da. Seroraren lanak: argitakoak batu, kanpaiak jo...

Transkripzioa

- Hainbeste urte hor, e?

- Hainbeste urtian badakizu zenbat gauza pasauko jatan? Baiña ez jata akordatzen!

- Adibidez, elixan zer egitten dozu? Egunero juaten zara elixara?

- Egunero ez. Oin egoten da, ba... Lehen egoten zan mezia ixa egunero eta oin zapatuetan eta domeketan.

- Gehixago ez dago ezer?

- Eta gehixago ez da egoten entierria ez badago, [holan] ez badao, ez da egoten. Eta holan entierriak edo baten batek zertzen badau, ba, hona esaten dabe. Ta gero hamendik nik dirijitzen dot, ba, abadia.

Entiarrugaittik edo batagaittik edo bestiagaittik.

- Eta zu zer bizi izan zara, beti Azitaiñen?

- Hamentxe.

- Hamen beti?

- Bai. Lehen zerian bizi giñan, Arrazolan, Salbadorretik behera, bestekaldera. Txontatik juan eta bestekaldera.

- Baiña hori zer, basarriren batian edo...?

- Basarri batian. Eta oin hogeta hamabost urtian-edo hamentxe. Ni beheian eta semia eta honek goixan.

- Ta oin kanbixua barrixuak, ez? Dana barriztuta dago. Zelan hobeto, lehen ala oin?

- Ba, ez dakit ba, e! Lehen trankillago eta oin, ba... oin gehixago eta argixak be ipinita eta, ba, hobeto oin, ezta? Baiña lehen, ba, trankil-trankil, ez dakizu? Lehen trankil-trankil, bai.

- Eta, orduan, elizan ze gauza egitten dittuzu?

- E?

- Elizako egun baten ze ekintza egitten dittuzu?
- Elixan?
- Bai, ze gauza egitten dittuzu?
- Ba argittakua batu eta jentia datorrenari atendidu, ta atia zabaldu eta itxi, eta argixak emendau, eta kanpaiak jo eta, ba, holakotxe gauzak, holakotxe gauzak.
- (senidea): Sakristana.
- E?
- (senidea): Sakristana.
- Bai. Bateron batek egin bihar dau eta...
- (senidea2): La celebridad [del barrio].
- Neu ipini niñuen ta neu!

1.17. Gaztetan, inguruko herrietako jaietara joaten ziren

- **Hizlaria(k)**: Pascual Ucin, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-156/008
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:20:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: Gaztetan lagunak Untzagara joaten hasi ziren dantzara eta bera ere animatu zen pixkanaka. Baina etxera goiz itzuli behar izaten ziren ("ha izaten zan hanka-jokua...!"). San Roke egunean Debara joaten ziren trenez. Elgoibarrera eta Ermura oinez joaten ziren. Ermuan Juanito Lesarrik jotzen zuen pianoa. Gaztetako ibilerak.

Transkripzioa

- Felisa: Halaxen. Ta gero, bueno, pixkat hazitxuao, hazi giñanian, ene! orduan, ba, lagunak be: "ba, neska, danak juaten dittun-ta Untzagara dantzara" ta geuk be juan in bihar giñuala, ta "ni ez najoian", neu be pixkat timidatxua nitzan ta.
- Alaba: Kablea, ama.
- Elkarrizketatzailea: Bueno, lasai.
- F.: Halaxen, egun baten, ba, harek behin juan zian ta ederto ibili ziala ta "neu be banajoian ba hurrengo". Ta halaxen juan bai, ta... Baiña etxera goixau etorri bihar izaten zan, hamarrak aldera, hamarrak larenetarako etxian etorri bihar, etxera etorri bihar. Ta Untzagan ibiltzen giñan han harutz ta honutz ta bueltaka ta beti be begira, musikuok noiz juango zian. Ta "horrek musikeruok! -esaten genduan- bueltaka ibiltzen dittun ta juan barik berriro". Bai ba: lelengo pasodoblia, gero polkia, mazurkia, gero txotisa, gero habaneria. Ta gero, jotian hurrengo pasodoblia azkena emoten eben. Ta harrapatzia nahi danak! Ta ha izaten zan hanka-jokua! Halako maratoirik! Untzagan hasi bai ta jo-ta herri guztia pasatzen genduan. Ene! gure prisia! Gero lau piso igo bihar! Ez zeuan oingo moruan aszensoria ta ipoiñik. Ta harek lau pisuak... bueno...! itto biharrian urten ta. Gero ama esna baeuan, bueno, hasarriak.
- Alaba: Ta Debara be egun baten bakarrik, ezta?
- F.: Bai, Debara San Roke egunian, bazkalostian juan eta gabian zazpiretan buelta. Bai.
- E.: Zelan juaten ziñazien orduan?
- F.: Debara.

- E.: Baiña zelan, zelan juaten ziñazien?
 - F.: Trenian. Ta Elgoibarrera ta zerera, Ermura, oiñaz. Egun batian juaten giñan Elgoibarrera, musikia euanian, dantzan eittera Elgoibarrera, han, frontoi edo zerian hantxe eitten genduan dantzan. Ta Ermura juaten giñan ta Ostatukuan edo Herreronian. Ta pianua joten eben, Lesarri zera... hau... ez dakit zuk ezautzen dozun Danel Zenarruzabeitia. Ba, horren, Danelen andria Itziarren...
 - Alaba: Itziar Alberdi.
 - F.: ... zera...
 - Alaba: Itziar Alberdi da ha be. Honen izena be Itziar Alberdi ta ha be Itziar Alberdi.
 - F.: Bai, Itziar Alberdi, bai. Ta esaten detsut... bueno...
 - Alaba: Eta harena zer zan, ba, pianua joten ebana?
 - F.: Ba, zera, tio, Juanito Lesarri. Ta, bueno, ha pianua joten eban harek eta guk dantzan. Ta gero, ez dakit lau txakur haundi edo errial bi, holakotxe txorixua ta ogixa egoten zan eta bateronbatek konbidatzen baginduzen, pozik. Ta trena, ahal bada, duan. Bai. Duan. Ta behin sartu giñan danok duan ta "[Pakomio]" euan han -hil zan ha be. Jesus! noiz hil zan? urtiak dia!- ta ez zala etorri interbentoria. Lehenengo begiratzen genduan nun ete ebillen, Eibarrera segiduan llogatzen zan trena ta. Honutzian. Baiña oiñaz be sarri etortzen giñan, baiña pixkat illundu-edo eitten bazan, ez.

1.18. Etxeko ekonomia

- **Hizlaria(k):** Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-160/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:25:30. **Bukatu:** 00:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
 Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena:** Casa del Puebloan kafe osoa hartzen zuten askok (kafea, kopa eta purua). Etxeko ekonomia. Erropa kontuak: zapatuetan abarketa berriak jantzen zituen, fraka "milrayas"-ekin. Astegunetan, oinetako zaharrak (abarketa urdinak, gorriak...).

Transkripzioa

- Kafe konpletua hartzen juen zerian —akordatzen nok—, Casa del Pebluan. Casa del Pebluan jente askok eguardixan kafe konpletua hartzen juen. Baiña hiru [...] zuan: kafia, kopia eta kopia. "75 céntimos". Zigarro-purua. Bueno, batzuek egunero be bai, ezautzen nittuan nik. Gu bertan zelan bizi giñan, ba, beti bertan geuzen, ta ezaunak. Danera be... Ba, hiru errial, zu. Baiña hiru errial irabazi ein bihar zian, e!
 - Zuk bazekizun zenbat kostatzen zan hiru errial irabazia.
 - Onbre! Nik sei errial irabazten nittuan. Nik. Sei errial. Errekadista. Sei errial... sei errialian, ba, litro bat olixo euan. Litro bat olixo. Zortzi txakurrian lentejia, arroza, babia... zortzi txakurreaz. Ta abarketak be, zapatuetan barrixak abarketak. Fraka milraiasak edo, ta abarketa zurixak. Jente guztia. Zapatarik-eta ez zuan usatzen orduan. Ez zan usatzen.
 - Domeketan zurixak, eta aste barruan?
 - Aste barruan, ba, zaharrak, bihetza igual bistan [zeketenak].
 - Ta ze koloretakuak?

- Orduan, ba, zerau, azulau izaten zuan. Azula. Zurixa zuan ez jakixat nik...
- Bai, berezixa...
- Zurixa...
- Eta kolorietakuak, holan, gorrixak edo berdiak ezautu zenduazek zuk?
- Orduan... orduan bai, gorrixak bai. Gorrixak, zurixak eta... berdiak be
igual, e! Ez nok akordatzen baiña... gitxi ikusten zuan.

1.19. Aratusteetan kaldereroekin kantuan

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-164/012
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:32:20. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Aratusteetan kaldereroekin irten ziren behin baino gehiagotan, gitarra jotzen. Kaldereroen kanta abesten du. "Orquesta Bretaña".

Transkripzioa

- Gu hamen sasoi baten zera be bai... zelan da... kauen diez...
- Orkestaren bat edo?
- Bai, ba, orkestia urten genduan, zera, honek... zelan esaten jakuek? Dios!
Ezin jatak akordau! Bueno, zerak arreglatzen dittuenak, ontzixak eta
gauzak...
- Kaldereruak?
- "Caldereros". Hori. Kaldereruen izena jekan harek, "caldereros". Hantxe
urten najuan nik bi edo hiru bidar, orkestan, kalera. Hauraxe ensaiatzen
genduan hamentxe, bar baten, zer baten, ta orkestiak jotzen jua ta geuk
gitarreaz [aurraz] ensaiatu ta gitarrista. Izango giñuan hamar bat edo
gehixau igual gitarristak orkestan. Ta han be ibili giñuazek.
- Hori ze izaten zan Aratustietan?
- Bai, bai, Aratustietan. "Los Caldereros". "Caldereros de la Hungria".
- Kantua be bazekan horrek, ezta?
- Bai, ba, karo, karo...

"Caldereros somos de la Hungria
que venimos en tren especial,
a pasar en vuestra compañía
los tres días de este carnaval.
A pasar y a divertirnos
en esta noche sin igual.
¡Ay! Cuántas noches vamos a pasar!..."

Gero, zerei, emakumieri deitzen:

"Componemos bien y pronto,
caldereros, chocolateras..."

Gero, "kobrau ez dou eitten, geñera! Duan...". Bueno, aitzu jataz oin
kanziñuak eta horrek, baiña... duan zelan konpontzen douzen ta hortaraxe
zuan hori kaldereruen kantziñuok. Orkesta politta ta kantoriak be bai,

grupo ona jeuan. Ta jolin! jentiari gustau jakuan haura orduan.
- "Orquesta Bretón" edo be bazeuan, ez?
- A! Baitta! Bai. Ha orkestia zuan bakarrikan. "Bretón". Bai, orduantxe epokan bajeuan. Ta horretako musikuak-eta, orduan, jesus! Musikuak be onak jeuzen! En fin, holaxen ointxe arte.

1.20. Eskean egiteko abesten zen kanta

- **Hizlaria(k):** Anguera Illarramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-169/002
- **Iraupena:** 0:00:11. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:00:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena:** Eskean egiteko abesten zen kanta: "Gabon-gabonete".

Transkripzioa

Gabon Gabonete
errez errezete
Jesus jaio da ta
jo daigun krixkete.

1.21. Aratusteetako konparsa batek abestutako kanta

- **Hizlaria(k):** Anguera Illarramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-169/008
- **Iraupena:** 0:00:19. **Hasi:** 00:05:58. **Bukatu:** 00:06:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Aratusteetako konparsa batek abestu zuen kanta. "Ardurabakuen Aeroplanua" abestiaren pasarte bat abesten dute (abiadoreen konpartsakoa).

Transkripzioa

"Anjel Markano jauna
Degu pilotua,
Gazte-gaztetatikan
Estudiatua;
Harek hartzen duanian
Martxa diretua
Laster izango gera
Amerikatuak."

1.22. Aratusteetako konparsa batek abestutako kanta

- **Hizlaria(k):** Anguera Illarramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-169/010
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:06:56. **Bukatu:** 00:07:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena:** Aratusteetako konparsa batek abestutako kanta. "Ardurabakuen Aeroplanua" kantuaren pasarte bat abesten dute (Benito Regil hizpide duena).

Transkripzioa

Benito Rejil jauna,
Gizona justua,
oserbariotzeko
dago nonbratua,
Austin Etxeberria
Mekanikakua,
Serafin Esnaola
Koziñarakua.

-Asun: Luego repetidu eitten da gero.

Serafin Es...Hau bi bider esaten da.

-A, azkena errepikau.

-Jose: Bai azkena errepikau.

-Eta zuek kantatzen zenduezen honek? Ero, ero zuen aurrekuak...

-J: Ez, gure aurrekuak.

-A: Bai, baina guk entzunda, gure aitxari ta entzunda. Bai, gu zuek baino gaztiauak giñanian, horrek gure aitxak eta danak kantatzen zitxuen horrek kantuok Eibar guztian kalietan.

1.23. Eibarko herria goraiatzan duen abestia

- **Hizlaria(k):** Anguera Illarramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-169/012
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena:** Eibarko herria goraiatzan duen abestia: "Ven y ver´s".

Transkripzioa

"Eibar esta situado a dos palmas de la carretera
San Sebastian por Elgoibar y Bilbao por Ermua.
Es una villa industrial, comercial y mercantil
tiene vía con su túnel y mucha Guardia Civil. (bis)

Venid, venid y verán, venid, venid, venid y verán, Eibar, es un pequeño, es

un pequeño, es un pequeño pueblo industrial!

Hay Banda Municipal y también tanbolintxeros
el carrito para la basura y "Oxabia" de barrendero
Y en la plaza del Mercado por la mañana temprano
la popular "Maria Ondarru" para vender el pescado. (bis)

Venid, venid....

La Calle Elgeta-kale, camino para el cementerio
donde se construyen casas de dos pisos y medio.
La Calle de Barrenkale, otro punto principal,
donde no puede pasarse la gente sin resbalar. (bis)

Venid, venid.....

La Calle Bilbao la Vieja, otro punto muy comentado,
donde el Gobierno alemán ha puesto su consulado.
La Calle de Ardanza, otro punto principal,
para todas las personas que se quieren suicidar. (bis)

Venid, venid...."

1.24. Euskaraz egindako abanera

- **Hizlaria(k)**: Anguera Illarramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-169/015
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:19:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena**: "Ezkonduta eta alargun geratu nintzan" izenburua daraman abanera.

Transkripzioa

-Asun: "Agur ein ta banoa ni" hau be abaneria, Eibarkoa.
Agur ein ta banua ni
Zuk nahi badezu etorri
Amoriozko begi ederrak
Erakustera alkarri.
Gaur hamarretan soltera nintzan
Hamabietan senartu
Ordubi santu goizekoetan
Gelditu nintzan alargun. (bis)

1.25. "Ez dizut irikiko" kanta

- **Hizlaria(k)**: Anguera Illarramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-169/025
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:34:37. **Bukatu**: 00:37:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Ez dizut irikiko" kanta.

Transkripzioa

Ez dizut irikiko
 Gau illunian aterik,
 Barrengiak ez daki
 Kanpokuaren berririk,
 Zatoz eguna argitzen danian
 Egongo gera alkarrekin. (bis)

Lau, lau ta lau
 giñan hasi,
 Gehien zanak
 irabazi,
 galtzaillio hobe gendu
 hobeto ikasi. (bis)

Zatoz Debara
 ikusi dezagun bandera,
 Bilborretatik ekarri degu
 erregalua ederra,
 txikilla izan arren ezalaikela mila
 ez diok ikututzen arraunakin hilla (bis)

1.26. "Arragueta kalia" kanta ezaguna

- **Hizlaria(k)**: Anguera Illaramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-169/029
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:44:50. **Bukatu**: 00:47:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Arragueta kalia" kanta ezaguna.

Transkripzioa

Arragueta kalia
 Merianda haundixa
 bost atsoren artian
 sei azunbre ixa,
 Jarri ziradenian
 Mozkortuta ixa
 Alkarri erakusten, maittia
 Tutulu mendixa.

Batak beltza zuala
Bestiak txurixa
Jarrittako tokian
Egin zuten txixa.
Harek formatu zuen
Egoko ibaixa
Atzeruzka jausitta, maittia
Itto ziran ixa.

1.27. "Hiru gizon ilustre" kanta

- **Hizlaria(k)**: Anguera Illaramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-169/031
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:50:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena**: "Hiru gizon ilustre" kanta ezaguna.

Transkripzioa

Hiru gizon ilustre itturri bidetik
Mozkor-mozkor eginda Elgeta kaletik,
Aulestik heltzen zion Loperi lepotik
Ez muzturrez aurrera ez eroriagatik.

La esposa decía egin gaittikan:
-No le puedo sacarle Tocayonetikan.
Porque le gusta mucho napar beltzetikan
No le gustará tanto Urkusuko urikan.

Urkusuko itturrixak baleki berbetan
Zerbait esango leuke astelehen goizetan. (bis)
-Politxa kantua.

1.28. Eibartarrak gerran ihesi irten zireneko abestia

- **Hizlaria(k)**: Anguera Illaramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-169/036
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:57:16. **Bukatu**: 00:57:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- **Laburpena**: Gerra sasoiko abesti bat: "Gerrako gure ibillerak" kantaren pasarte bat abesten dute.

Transkripzioa

Eibar aldetik urten genduan

antxitxiketan Deustora,
Deustotikan estu ta larri
joan giñan Cabezónera
Cabezóndik Borinesera
Borinestik Navara,
Navatik Avilesera ta
gero danok barrura.

1.29. "Bart arratsian" kanta

- **Hizlaria(k):** Anguera Illaramendi, Asun; Sarasua Gorrochategui, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-169/044
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:01:57. **Bukatu:** 01:03:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Bart arratsian" kanta.

Transkripzioa

Bart arratsian tabernatikan
Berandu xamar juanda
Neure andria hasarre zeguan
Neuri atzia emanda.
Konprenituko dezute, noski
Hainbesterañok ez zala,
Bakar-bakarrik lo egin nuen,
Beste ohera juanda!

Goizeko laurak ingurua zan
Oso tenploso nenguan,
Neure andriak galdetu zidan
Aber orduan nahi nuan.
Errespuesta eman nion nik,
Tokatzen zaidan moduan:
-Nere pisuak behia jo du ta,
Lehen eman bihar zenduan!

1.30. Exiliotik itzulera: hutsetik hasi beharra

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:30:50. **Bukatu:** 00:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eibarrera itzuli zirenean (1939ko urrian), berriz ere hutsetik hasi behar. Etxean ekin zion klaseak emateari. Ikastolan

egotea nahikoa zen "zerrenda beltzean" egoteko. Eskolarik ez zegoenez, gurasoek beraien umeak zerbait ikastea nahi izaten zuten. Baserrietako umeak ere joaten zitzaizkion klase partikularretara.

Transkripzioa

- Belgikatik bueltau eta dana berriz hutsetik hasi bihar izan zenduan, ez?
- A bai, handik etorri nintzarian... Kalkulau e(g)in bihar dot...
- (Juanita Arrieta) Gerria amaitxuta etorri ziñan?. Ala amaitzeko?
- Europeaia hasitxa, hasitxa...
- (Dolores Tolosa) El dieciocho. No, el catorce; el catorce...
- (Juanita Arrieta) No treintainueve...
- Treintainueve ta octubrian ...
- (Juanita Arrieta)...ésta terminó en abril del treintainueve eta bestia ekin zan....
- Eta zer hasi ziñan, klasiak emoten berriz?
- Ardantzan, la Academia de Ardanza; etxian, etxian, etxian...
- Ez zetzuen lagatzen eskolan klasiak emoten?
- Pentsau be ez! Ta eskatu be ez permisoriak...
- Ez zetzuen emongo?
- Ez ta!...ez...
- Rebeldia ziñan zu?
- Ez, rebeldia ez...
- Listan zenden?
- (Juanita Arrieta) En la lista negra? Estabas en la lista negra?
- Danok genden; Ikastolan e(g)otia nahikua zan...
- Eta zer zan? Akademixia zan?
- Eez...Eskolia; partikularra. Ta modan e(g)on zan orduan, e?; gerra ostian partikularra, oso modan e(g)on zan. Ze(g)aikitik zelan umiak hainbeste denporan e(g)on zi(r)an eskolara jua barik, jentia nahi zebe umiak ikastia... Asko... Basarritxarrak be asko etortzen zi(r)an, asko... Basarritxarrak goizian etorri, astuakin, esnia partidu ta eskolara. Ta gero ba, arratsaldian atzera eskolara etorri biharrik ez, ta partikularrian. Asko baserritxarrak be...
- Orduan partikularrian zebizenak ez ziran juaten eskolara bestela? Ez zan goixez eskolara eta arratsaldian partikularrera?
- Ez, ez...
- (Juanita Arrieta) Berrero be esniekin bueltau e(g)in bihar; eguardirako bueltau e(g)in bihar etxera! (...).
- Anaiak esaten zestan neri: "Demokrazia hementxe da(g)on! Demokrazia hementxe da(g)on!". Eskolara etortzen zan ba baserri batekuak -oiñ ez dakitt izenik baserrixanak, da danak ahaztu dittut-. Baserri batekua etortzen zan ta maiorazgua ezta, mutikua?, ta morroia. Bixak nere eskolara etortzen ziran; holaxek oratuta. Esaten eban : "Horrek ugazabarrok (ugazabak) morroia be bere semiakin matrikulau dau, ta alkarrekin".

1.31. San Juan bezperan gustuko zapatak lortzeko egin zituenak

- **Hizlaria(k)**: Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-202/015
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:22:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Lanbideak » Negozioak, dendak
Aisia » Jai-giroa » San Juan

- **Laburpena:** Umetako kontuak. San Juan bezperan orfeoian abesteko zapatak behar zituen. Gustuko zapatak ikusi zituen denda baten, baina amak garestiak zirela eta "Maria zapaterianian" zeuden zapata merkeagoak erosi nahi. Azkenean nahi zituenak lortu zituen. San Juan egunean soineko eta zapata berriekin, pozik!

Transkripzioa

- Neri akordatzen jatan... zapatak! Orfeoian kantau bihar San Juan bizperan ta zapatak gustatzen neri, "seis cincuenta". Zapatak, e? "Seis cincuenta". Zapata batzuk polittauak...! Eskaparatian. Amak: "Hi, zapatak noiz erosi bihar dittun?", "A! Neri gustatzen jataz holako lekuan daozenak, hau preziuu dake ta haretzek gustatzen jataz! ". Ta "Ez, ez, ez, ez... Pentsau be ez! Tres cincuenta-kuak daonaz Maria zapaterianian ta haretzek dittun hiretako modukuak" ta "A! Ba neri haretzek, seis cincuenta balio dabe, bai? Ta harek ez badozu nahi erosterik nik ez dot nahi zapatarik, nik ez dot ez dot erosiko zapatarik!", "Ba horrek karuak dittun ta horrek ez dao erosterik! Tres cincuenta Maria zapaterianian apartau!", "Ez noia ni Maria zapaterianera, ze neri ez jataz gustatzen ta!". Ta San Juan bizperia llegau ta zapatak erosi barik oindiokan. Orfeoian ensaiua atsaldeko seiretan, San Juan bizperan, gabian kantatzeko. Ta zapatarik ez etxian probatzeko. Ta bai? "Ba ez non ba juango neu be..." Hartuta amorrua amari, e? "Ez ba, harek zapatak erosten ez badestazuez, ez jittuat ba beste pare bat erosiko!" Ta seiretan ensaiora ta zapatarik ez! Erosi barik oindiokan. San Juan bizperia ta atsaldeko seirak! Ensaiotik juan etxera afaltzera ta... gero, ba, aittakin enbolaura juateko, aittakin ta amakin. Ensaiotik juan etxera ta "Ene!" Zapatak etxian! Ta neuk nahi nittuanak! Ha zuan poza...! Ha zuan poza...! Numerua ta dana jakiñian ama! Neuk nahi nittuan zapatak! "Behin edo behin... Nere gustua ein dabenian behin edo behin...!" Gero, San Juan egunian, ba, soiñoko barrixa ta zapata barrixekin! "Oo!"
- F: Abarketa zurixak, plantxauta zinttak. Akordatzen haiz? Plantxauta zinttak be!
- Hobeto juateko! Akordauta be... "Seis cincuenta"-ko zapatak, karuenak orduan! Ta dantzara eurekin! Dantzara eurekin! Hankako miñik be ez, zapatak be miñik be ez ta ezebez orduan sasoiñ! Horreaittik esaten jonat ba nik: "¡Quién te ha visto y quién te ve! Luziana, ¡quién te ha visto y quién te ve!"

1.32. Errekara edo garbi-tokira hankak garbitzera

- **Hizlaria(k):** Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-202/023
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:39:16. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena:** Arraindi kalean bainuetxea zegoen. Hara joaten zen jendea garbitzera, eta baita errekkara ere. Ardantzako errekkatxora edo garbi-tokira joaten ziren, hankak eta izterrak garbitzera.

Transkripzioa

- Orduan baiñuetxia be bai zeuan Eibarren, ezta?
- Bai, Arraindi kalia, Arraindi kalia euan.
- Hara juaten zan jentia garbitzera?
- Bai, jente asko. Jente asko.
- Felisa: Matsarira be bai.
- Errekara?
- F.: Errekara.
- Baiña errekara mutillak-eta juango zian, ez? Neskak ez...
- Geu be juaten giñan Errekatxura, Ardantzan.
- F.: Ezkutuan...
- Ta labaderora be bai, iñor ez baeuan labaderuan. Hankak eta iztarrak-eta garbitzera... Honbre! Ahal ebanak ahal eban lekura!

1.33. Eskola, irakaslearen bizileku

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/004
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:05:51. **Bukatu**: 00:06:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskolako maistra. Eskolak sukaldetxo bat zuen eta goian gela. Maistra bertan bizi zen. Ikasle batzuek ere bertan bazkaltzen zuten noizean behin.

Transkripzioa

- Eta eskolan zuen maistría euskalduna izango zan...
- Euskalduna, euskaldun-euskalduna zan. Lehenengo zan horixe, Purificación Iturrioz, ta gero zan eibartar bat. Etorri zan Isabel Gabilondo. Bai, ba... ez dakit... oiñ horrek ya... horrek Kalbetoi kalia denda bat euki eben, Gabilondo, baiña oiñ... Antxiñako gauzak. Ta gero, hori... hemen ein zittuen urte mordoska bat eta juen zan Reinosara. Ta gero atzetik etorri zien beste batzuk eta, bueno, ixa ahaztu be ein jataz, baiña harek urte mordua eiñ eban. Ta gero eskoliek eukan sukaldetxo bat eta goixan habitaziño bat, ezta? Ta bertan bizi izan zien! Bai, beran ahizta edo beran zeoze etortzen zan ta hantxe jan ta... Ta hemendik zelan urriñ e(g)uan, badakizu, guretik Agiñara... Txokolate ontza bat janda be, ba, [...] eguardixan [...], baiña hobeto [...] ta nik eta beste batzuk jaten genduan bertan, bazkaltzen genduan, bai, jeneralmente. Beti ez, baiña jeneralmente. Eta bertan bazkaltzen genduan ta, ba, gero segi.

1.34. Eskola berria noiz eta zelan ireki zen; jaunartzea, ospakizun handia

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/006
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:10:18. **Bukatu**: 00:11:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Eskola estreinatuta zutenean ilusio handia. Eskolan hasi eta martxoan Jaunartzea egin zuten. Ospakizun handia.

Transkripzioa

- Estreñau ein baldin bazenduen zuek eskolia, ilusiñua eingo zetsuen, ez?
- Bueno...! Jesus, Maria ta Jose! Guk, bueno...! Guk estreñau genduan, [esaten detsut], urrixan, ezta? Eta gero etorri zan abade bat, Don Julian Eguren edo..., plazentziatar bat. Eske aurretik e(g)uen beste bat, baiña... gerra ostien, ba, gizajua zaharra be bazan, ta kitto. Eta... Eez! Oker esan dot! Ha gero etorri zan! Don Julian Eguren zan gerra denporan egon zana eta gu eskolara hasi giñanien ez zoskun handik ba... martxua edo ez dakit zer izango zan... "Bueno, komulgau ein bihar dogu!" Jaiko erropia daukanak, jaikua, ta ez daukanak, garbittu ta daguenakiñ, ezta? Ta halaxe, ipiñi eskun egun bat, [jun giñan] ume pilla bat, danak komulgau giñan, gero eskolan... Nik hori lehenago [sarri esan] dot, emon eskuen txokolatia ta gailleta surtidua! Ta hemen ikusi barik papelezko gailletak. Egongo zien igual nunbaiten, baiña... Basarrixetan ta behintzat ez zan egoten orduan! Badakizu, oiñ... oiñ... hainbeste urte e! Oiñ hirurogeta hamabi urte, zer? Eta halaxen ta guk... bueno...! Guk zelebrau genduan, guk ein genduan banketia ta gure pozak eta... "pff!" Bueno, bueno, oiñ ipiñizuz langostia ta ez dakit zer ta halako ilusiñorik ez dago. Egixe e? Ez dago, ez dago. Ez, ez, ez, ez! Eta, ba, holan. Hori zan, hori abadiori egon zan.

1.35. Eskolara joateko bidea zelakoa zen

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/011
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Eskolara goizean goiz. Ingurua zelakoa zen; bide txarrak eta oinez joan behar. Oraingoekin alderatuz, orduko neguak gogorak izaten ziren.

Transkripzioa

- Eskolara oiñez juango ziñazien, jakiña.
- Biheko! Jesus!
- Ta noiz juaten ziñazien, goixian goixo, ala...?
- Goixian goixao, bai. Ba pentsatzen dot izeten zala ordua bederatzirek, uste dot. Bederatziretatik hamabixetara izeten zan ta gero uste dot zala ordu bi tt'erdietatik bostak edo bost et'erdia artekue, edo... Baiña, eguardixen denpora gitxi geratzen zan ta handik hona etorri, ordu erdi bizkor ibilitta e! Oin balitza... ez dakit zenbat... Baiña gero, bide txarrak danak.

- Nundik juaten ziñazien? Ez zan oingo bidia izango, ez?

- Eeez! Gorostixa, ez dozu jakingo zuk baiña... ta gero, zonak esaten jakozenak... hiru basarri badagoz hor kamiño ertz baten... ez dakit... Handik behera ta gero beste etxe zahar bat dago, Agarre edo... Handik eta, bueno, "pff!" Ta gero zan Agiña-erreka esaten jakona, ez dakit zelan esplikauko dotsuten, Bariñara... bueno, Bizkeixan sartu orduko dago hori ta hemendik goititik behera holan juten giñen ta gero Agiñara, zerera juteko, behetik gora, azkeneko tramua. Ta han berotzen giñan. Agiñara [...] lehenengo behera ta gero gora. Bai, bizkor, edozein sasoikok ordu erdi bihar eban orduan hemendik hara juteko. Etortzeko iguel gehixago!

- Eta neguan?

- Neguan be haxe, iguala. Neguan be haxe ta udan be haxe ta edurrakin be haxe ta kitto! Ta orduan halaxe zalakuen...

- Orduan gaiñera, negua gogorragua izango zan, ezta?

- Bai, oingo aldien edur haundixak eitten zittuen lehen e! Oiñ, edur haundi-haundixek e(g)uezenien, ba, ez giñen urteten porke urriñ e(g)uen ta... Baiña ostian, edur pixkagaittik eta bai. Gaiñera, bertan bazkaltzia izen ezkerro, gustora! Bestelan... ez, handik etxera etorri orduko, egarrixa... ta jateko gogorik be ez da egoten, kantsauta egoten giñan! Ta ezebez! Ta atzera buelta ein ta "tzz", derrepente. Ta esan be bai eitten zoskuen guri amak eta, "Hara, ontza bat txokolate ta ogixa", egixa da, "ontza bat txokolate ta ogixa janda be bertan hobe". Askoz hobeto e! Bai. Ta, bueno, holan, holantxek ein genduan gure eskoliori.

1.36. Kaletarrak baserrira gaztaina erreka jatera

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/015
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:30:57. **Bukatu**: 00:33:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Eibar inguruko mendi guztiak basoz beteta zeuden: gaztainak, pagoak... Gaztaina mordoia zituzten etxean. Gaztainak saltzen zituzten eta kaletarrak baserrira gaztaina erreka jatera joaten ziren.

Transkripzioa

- Basuak egongo ziran edarrak.

- Bai. Lehen pagoz beteta eguazen honek danok!

- Zelakuak ziran lehengo mendixak?

- Dana pagua ta zera, gaztaiña zeguan lehen dana! Hau Ubitxa aldia, danori, hasi hor kanpofubolian... badakizu nun daguan kanpofubola, hasi hor Kaskarraingua ta horrek... zinia badago ba? Hasi bai hor, e? Ta Urki, Galdaramiño... hori falda guztiori dana gaztaiña zan. Gaztaiña, e? Ta hamen oktubrian -gaztaiña oktubrian heltzen da- holaxen egoten zian horrek. Gaztaiña batzen? Zerekin hazitta gaozela pentsatzen dozu ba? Gaztaiña ta esnia. Besterik ez genduan eukitzen ta! Ta gaztaiña batzen zan gurian... Bueno! Gaztañadixak kristonak ekazen gaztañadixak, e! Ta gaztaiñak heltzen zianian, oskola? Gaztain-oskola badakizu zelakua dan. Ha heldutakuan zabaldu eitten da. Ta gu haga batekin, haga luzia, igo

arbolari ta “di-da, di-da!” behera bota bat ta behian batu ta ganbarara. Zakua bete... Guk eitten genduan... holako altura baten gaztaiñak botatzen genduan, honen lokalonen... ba, bi bai behintzat! Ta honenbestian lodi bota gaztaiña. Fijate zenbat gaztaiña egoten zan! Holako lokalak bi! Esajerau barik hori, e! Ez pentsau “Honek esajerau ein jok!”. Esajerau barik. Igual gehixago, e! Honek lokalok bi, holako alturan botata gaztaiña!

- Ta nun gordetzen zenduen hori guztiori?

- Ganbaran! Ganbaran botatzen gendun gaztaiña! Gaztaiña oskolian konserbau eitten da!

- A! Oskolian gordetzen zenduen.

- Oskolian, bai, bestela ez dau balio!

- Osea, arbolatik zeuek botatzen zenduen, ez?

- Bai ba! Ta oskolak konserbau eitten dau gaztaiña, e! Bestela gaztaiña segiduan galtzen da.

- Ta gero bestiekin ze eitten zenduen, saldu?

- E?

- Hainbeste...

- Saldu asko ta gero gaztaiñak erre be bai. Erre-galdarak baeguazen ta jatera, gaztaiñak jatera asko etortzen zan gurera. Gure amak kobrau eitten etsen, igual e... Danboliña erretzeko hori "ran, ran" ta beheko suan erre ta gero, ba, batzuk jaten eben, ba, gaztaiñak eta gero talua ta esnia. Talua badakizue zer dan, ezta? Urunakin ein ta gero palan erre!

- Hori etxian sarrittan jango zenduen, ez?

- Bai, honbre! Ta talua ta gero [...] talua ta esnia gaiñian jaten eben! Gaztaiñak ta talua ta esnia. Gero amak, ba, kobrau eitten etsen. Asko etortzen zan gure etxera jatera!

- Basarrira juaten ziran, zuen basarrira?

- Geure etxera, bai ba! Geure amak gaztaiñak erretzen etsezen ta gero talua ta esnia emoten etsen holako palakada haundi bat ta holaxen, bete-bete einda juaten zian, gaztaiña ta taloz.

1.37. Ogia eta artoberoa

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/031
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:10:36. **Bukatu**: 01:12:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Ogia eta artoa. Beraiek ogi gutxi egiten zuten; artoa bai, saldu egiten zuen eta. Egunero Frontoi Zarreko eskolatik irtenda Isasira joaten zen ogitara.

Transkripzioa

- Zeuen etxian ogirik gitxi eitten zan, ez?

- Ba, eitten eban gure amak, baiña artua gehixao. Artua asko, “buu!”, gure amak arto asko eitten eban, Baiña...! Ogixa be eitten eban lantzian behin, baiña gutxi, ogixa gutxi. Guk erosi eitten [dogu] ogixa, ogixa erosi. Lau librako ogixak. Badakizu, zortzi lagun giñazen gu, e? Ta kuadrilla ona! Ta ni gaztena etxian! Neu bizi naiz bakarrik oin. Ta Onaindia, zera, sasixan zeguan errota, Onaindia. Harek be [... ibilli zittun] semiak. Bueno, harek

danak hil zian antxiña. Bat ez dakit ez dan bizi ondio e? Ointxe dala urte bi-
edo Eibarren egon zan gaztena, hor [Habanan] edo hor dago ezkontuta.
Ogixak hartu, lau librako ogixak, “dos kilos” . Bai, kilo bi bakotxak. Bi!
Hartu albo banatan -granujia ni- ta etxera! Egunero haxe biharra eitten
neban nik! Eskolatik ogittara, ogi bi hartu ta etxera! Pagau sekula be ez! Ez
dakit zela arreglatzen zian. Nik ez neban dirurik eruaten da...!

- Zuk jaso.

- Nik ekarri! Bi lauko, etxera! Egunero, eskolara faten nitzan, Frontoi
Zaharrian eskolan, Frontoi Zaharra, badakizu, oin obria egin dabena? Ha
eskolia oindio ez da denpora asko bota dabela. Ez da denpora asko. Zenbat
urte izango da, ba?

- Bai, bai, 5-6 urte.

- Haintxe eskolan ibilita nago ni! Ta handik, handik laseira, hartu ogixak
eta etxera! Ta zeretik, Abontzatik zihar, [...] ta korrida plaza azpittik, gure
etxera.

- Osake, etxian ez zeban eitten zuen amak?

- Gitxi, gitxi. Lantzian behin eitten zittuan! Iñoiz-iñoiz eitten eban, baiña
ogixak gitxi, artua asko. Saldu eitten eban artua ta! Asko saltzen eban
artua!

- Bai, bestela, bihar larregi, ez?

- Bai, gure ama koittauak [makiña bat] bihar eitten eban, dirurik ez
eukitzeko. Alperrik.

1.38. Garizuman musika jotzeagatik Eibarko bandako kideak eskumikatuta

- **Hizlaria(k):** Zanguitu Arana, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-320/014
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:16:43. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Urteren baten, garizuma sasoian, Eibarko bandak Elgetan
jo omen zuen, eta apezpikuak kide guztiak eskumikatu zituen. Ordutik
bere etxeko gizonak ez omen ziren joaten elizara. Aitita errepublikanoa
zen.

Transkripzioa

- Historixia, ba, hori. Ba, esaten zeben etxian... ez dakit [zan]... kuaresma
baten jo zeban bandiak Elgetan musikia jo zeban, ta obispuak eskomulgau
zittuen danak, banda guztia. Ta, orduan, eurak ya... nere etxian gizonak ya
ez ziran juaten elizara. Andrak bai, baiña gizonak ya... Osea, aittitta... Ez
dakit hori izango zan, vamos, “coartada” edo zer, ez? Baiña, bueno. Hori
bai. Hori bai.

- Esan dozu republikanua zala, ez?

- Bai, bera bai.

- Oso gogorra?

- Ez dakit. Ez dakit. Eske... Baiña itxuria konbikizifuekin ta hori bai, e! Bai,
bai. Eske orduan, ba, igual kuaresman holan jotia bandiak eta... Batzuk.
Danak itxuria ez ziran jua, e! Baiña batzuk jua zirala jotera. Orduan ya
obispuak, ba... ala! Danak eskomulgautu.

- Eibarko bandia beti rebeldia, ez?
- Bai, itxuria!

1.39. Maria eta Polonia irakasleak Alondegian

- **Hizlaria(k):** Idarraga Zulaica, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-325/022
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Alondegiko eskolan ume asko ibili ziren. Doña Maria eta Polonia irakasleak.

Transkripzioa

- Eta maistrarian izenik-edo goguan dakazu?
- Bai, doña Maria zan bat eta beste bat doña Polonia. Doña Polonia zan prinzipalaua doña Maria baiño. Hareri aindu eitten zetsan.
- Eta ume asko egoten ziñazien klasian?
- Jesuuus! Dana bete-bete einda. Ha eskola haundixa zan, gaiñera. Batzuk doña Marianak eta beste batzuk doña Polonianak.
- Eta zelakua zan doña Maria?
- Haundi bat. Haudixa zan. Eta doña Polonia txikixaua.
- Eta asko ikasten zenduen ala...?
- E?
- Asko ikasten zenduen?
- Ahal dana!
- Gustora juaten ziñan zu?
- Bai, eskolara gustora. Errekreua bai, han atzian edarra euan.
- Bai?
- Baai! Haren atzian euan edarra. Oin dana diferentia dao. Oin... dana diferentia.

1.40. 17 urterekin Alfa lantegira, brodatzaile moduan

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/003
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:03:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarrenereko lantegiak
- **Laburpena:** Aitak eta anaiak ALFA lantegian lan egiten zuten eta bera ere han hasi zen. 17 urte zituen. Hasieratik dendan egon zen lanean, brodatzaile moduan. Bi irakasle egoten ziren beti. Bederatzi urtez jardun zuen bertan, ezkondu arte.

Transkripzioa

- Eta zelan hasi ziñan Alfa-n biharrian?
- Bueno, nere aitta be biharrian... Alfan eitten zeban biharra. Nere anaiak be bai. Oseake, binkulauta Alfa-kin geuan danok. Ta ni lehelengo, ba, ikasten ibili nitzan dendan, bordaua ikasten, ta gero, ba... Beti egon garaz bi erakus... andereño edo. Bi. Ta, ba, ni sartu nitzanian biharrian, bata taillarrera pasau zeben, nausixa, ta geratu giñan Maite ta ni. Bi.
- Eta zuzenian sartu ziñan, orduan, eskolara. Alfa-n sartu ziñanian biharra eittera, zuzenian klasiak emotera?
- Bai, bai, beti egon naiz dendan. Beti. Osea... Ezkondu arte.
- Eta zenbat urtekin esan dozu?
- Ba hamazazpi urtekin.
- Gazte, ez?
- Bai. Lehen... Bueno, jentiaik estudixatzen eban, baiña gitxiao oin baiño. Asko gitxiao!
- Bai, lehen hamalaura arte ya asko zan.
- Horretxeaittik. Ibiltzen ziñazen eskolan ta gero partikular be [hemen baten], ta gero, ba, biharrera!
- Ta andren kasuan, askotan hori, ez? Bordaua edo jostera edo...
- Bai. Bueno, Alfa-n eitten zeben andrak be bai biharra, e! Baiña nik beti in neban dendan, bordauan. Beti. Ezkondu arte.
- Eta zenbat urtekin?
- Ba bederatzi urtian egon nitzan.

1.41. Batzar egunean tailerrean biltzen ziren denak

- **Hizlaria(k)**: Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: AB-332/006
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:04:58. **Bukatu**: 00:05:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Alfa lantegian sartu zenean, zuzenean dendan hasi zen lanean, San Agustin kalean. Baina "asamblea" zutenean denak tailerrera joaten ziren.

Transkripzioa

- Eta sartu ziñanian, zuzenian, orduan, dendara.
- Bai.
- Zuk bertan, ofizinetan edo...
- Ez, taillarran ez.
- Oseake, Alfa-ko taillarran ez zenduan biharrik itten.
- Sekula be ez. Ez, sekula be ez. San Agustiñen zan denda, ta hantxe. Hantxe beti.
- Dana dala, ezautuko zendun, ez, taillarra?
- Bai, ezautu bai! Asamble...
- Alfa, barrutik pixkat eta...
- Bai, asko; ofizinak eta. Gauzaren bat eitteko, ba, igual ofizinaran jua bihar edo. Ta gero, asamblea egunian be danak juaten giñan asambleara.
- Eta ze izaten zan hori, asamblea eguna?

- Ba, asanblean izaten zan, ba, direktibo danak, konsejeruak eta danak eta, ba, zer... aber zelan esaten da? Ba urte guztian ze egon zan edo ze; eta batzuek, ba, propuesta batzuek bihargiñak eta horretzek gauzok.
- Eta horretara danok juaten ziñazien.
- Bai, danak, danak.

1.42. Alfa-tik irten eta ez du gehiago inoiz brodatu

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/012
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:10:27. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Alfa lantegian brodatzaile moduan hasi zen lanean eta ezkondu arte lan horretan jardun zuen. Handik irten eta sekula gehiago ez omen du brodatu.

Transkripzioa

- Orduan, bordatzen hasi...
- Ta bordatzen amaittu. Ta badakizu gauza bat? Urten handik eta ez dot bordau sekula be ez gehixao.
- Ez dot sinisten.
- Bai, egixa da ba.
- Jolin... ya... ohittuta edo...
- Ez, ohittuta ez. Ba, ezkontzen zaraz, umiak eukitzen dozuz ta beste bizimodu bat ekintzen zaraz eitten ta... laga eitten dozu. Ta holaxen.

1.43. Alfa-ren brodatzen irakasteko eskola

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Alfa-ren brodatzen irakasteko eskolan zuten ordutegia. Hiru txanda egoten ziren josten ikasteko, goizean bat eta arratsaldean bi. Txanda bakoitzean hamabi ikasle. Bi irakasle egoten ziren beti. 1950ean hasi zen bera eta ordurako bazeramatzan urte batzuk eskolak. Nortzuk ibili ziren irakasle moduan. Makinak saldu ere egiten zituzten bertan. San Agustin kalean zegoen.

Transkripzioa

- Eta ze ordutegi eukitzen zenduen?

- Ba, goixetik bederatzixetik hamabi ta erdietara edo. Hamabixak, hamabixak. Hamabi ta erdiak ez, hamabixak. Eta gero, hirutik zortzira, arrasaldian.

- Luzetxo, ez?

- Bai. Egoten ziazten, ba, hiru turno neskak, ikasteko: goixian bat eta arrasaldian bi.

- Eta orduan horrerri atendidu ein bihar.

- Bai. Eta gero han makiñak be saldu eitten genduen.

- Saldu be bai?

- Bai, geuk, geuk. Bai.

- Eta zuk badakizu noiz hasi zian eskola horrek, ze urtetan ipini zian martxan?

- Bordaua?

- Bai.

- Ez, baiña... Ez naiz akordatzen fetxia, baiña ez dakit ba...

- Gitxi gorabehera ez?

- Onbre, ni sartu nitzan 1950. Ta bazeuan. Bazeuan, ba, igual e... ez dakit zenbat urte esan. Eske ez naiz akordatzen. Ez, ez naiz akordatzen.

- Eta komentatzen zenduan Eibarren bat bakarra ala zenbat zeren?

- Bi maestra.

- Bi maestra, eta zenbat eskola?

- A! Bat, bat, Eibarren bat.

- Bat, San Agustiñen zeuana, ez?

- Bai, San Agustiñen zeuana.

- Bi maestra eta... esan dozu bestia Maite edo.

- Bai, ni egon nitzan Maite... Maite Gorriti. Gero ha Vitorixara ezkondu zan, ta ya... Ta lehenao izan zan Maria Luisa —bizi da ondio Maria Luisa, residenzian dao— Maria Luisa Azkoaga. Ta Maitekin zeuan. Ta gero Maria Luisa taillarrera, ez dakit ze... ofizinara edo, eruan zeuben, ta ni sartu nitzan, ta Maitekin egon nitzan ni. Gero Maite ezkondata egon nitzan pixkatxo baten Sole Zamakolakin, baiña gitxi ya. Segiduan ya ezkondu ein nitzan, ta gero... Baiña beti egon garaz bi.

- Eta zenbat... komentatzen dozu zenbat ikasle-edo juaten jatzuezen?

- Ba, egun guzti... Turnuak hiru. Ta... lau, zortzi, hamabi... hamabi...

- Osea, hamabi turno bakoitzian.

- Bai. Lau makiña ileran, hiru ilera.

1.44. Inguruko herrietako neskak josten ikastera Alfa-ren eskolara

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/015
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:14:13. **Bukatu:** 00:15:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Inguruko herrietako neska gazteak joaten ziren Alfa-ko eskolara josten ikastera. Ezkontzako arreo prestatzearren joaten ziren batez ere. Josteko makinak asko saltzen ziren orduan; etxe bakoitzean bat. Jostunak ere asko ziren.

Transkripzioa

- Ba, normalian gaztiak. Ezkondutakuak be bai, baiña normalian... Han denporan, badakizu, arreua-ta eitten zan.
- Bai, ez? Ohittura haundixa egoten zan.
- Buenoo! Izaten zan, ba... Ta, jeneralmente, ba, neska gaztiak, arreua eitteko ta.
- Hori, ez? Prpearauta egoteko ta...
- Bai, bai, gehixenak. Ezkonduak be bai etortzen ziazan, e! Baiña gehixenak gaztiak. Eta etortzen ziazan herri guzti... inguruko herri guztietatik.
- Eta ze herrittatik edo...?
- Ba, Bergaratik be asko, Debatik, Elgoibartik, Ermutik... en fin. Ondarruatik... Ni akordatzen... Asko, e! Zekan auje bat "terrible". Bai.
- Eta orduan makiñak asko saltzen zian inguruan?
- Bai! Orduan bai. Fájate! Oin makiñia zer dan bez gaztiak.
- Ta orduan bai?
- Bai, asko! Asko. Jostunak be asko ziazan orduan. Josteko be asko, ez bordatzeko bakarrik. Badakizu zenbat jostun zeuazen? Hainbeste denda oin erropekin ta... Lehen ez zeuazen! Oseake... Asko, asko saltzen zan. Asko.
- Ixa etxe bakoitzian egongo zan, ez?
- Bai, segurutik! Segurutik etxe guztietan! Segurutik!
- Ta orduan, lehenengotik hori, josten ikasi pixkat eta gero ya bakotxak...
- Bai. Asko.

1.45. Alfa-ren brodatzen irakasteko eskolak Espainia osoan

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/016
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:15:34. **Bukatu:** 00:18:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 - Debarrenereko lantegiak
- **Laburpena:** Alfaren brodatzen ikasteko eskolak Espainia osora zabaldu ziren, Alfak hiriburuetan zituen denda guztietara. Bera erakustaldiak egiten ere ibili izan zen, propaganda gisa, inguruko herri batzuetan. Espainiako hirietan brodatzaile onak zeuden. San Juanetan Eibarko dendan egiten zen erakusketan jartzen zituzten haiek egindako brodatuak.

Transkripzioa

- Eta, gaiñera, komentatzen zenduan lehengunian hori, ez? Hasieran bai Eibarren eskolia, baiña gero inguruko herrixetan be ipini ziala, ez?
- Bai. Eta gero, kapitale guztietan, Espaiña guztietan zeuazen, e! Eske Alfak zekan...
- Eta hemen inguruan?
- Inguruan... Donostian, Bilbon. Kapitalian. Representantia zeken dendak, ta ixa guztietan zeuan taillar bordaua. Ixa guzti... nik uste dot guztietan egongo zala, Espaiña guztian.
- Eta zu be kanpora jua izan zara, ez?

- Bueno, azkenengo urtietan, hori automatikiori urten zebanian, ba, propagandia eitten, ba, kursilluak. Egon nitzan Bergaran, Mondragon... Gero esposiziñuak igual, ta Vitorixan be egon nitzan esposiziño baten, ba, demostraziñuak eitten ta horrek gauzok.

- Gaiñera zu Eibarko zentraletik juaten ziñan ta...

- Bai, ba. Bai, ba. Donostian... Holaxen. Hamen inguruan. Ni kanpora ez nitzan urten. Inguruan bai.

- Eta komentau dozu Espaiñan be bazerela...

- Bai, ta onak! Onak gaiñera, e! Bordadora onak, on-onak! Bai.

- Oseake denda bat zeuan tokixan...

- Bai, ta zeuazen danian zeuazen dendak. Danian, kapitale guztietan. Danian. Ta nik usten dot danian eingo ziazela... Ni akordatzen naiz Sevillan, Madriden... ta bordadora —Barzelonan— on-onak.

- Eta ze... zeoze erakusten zetsuezen gero, eurak eindako...?

- Gero hamen San Juanetan egoten zan esposiziñua dendan, ta igual euren biharra bialdu eitten zebeu hamen esposiziñuan ikusteko. Ta zelan dendia egoten zan zabalik, ba, nahi zebanak ikusi... Labore ederrak izaten ziazten, ederrak.

- Hor, Castrillo-Ortuoste fonduan, badare, badakizu, kapotiak...

- Kapotiak eta mantillak eta...

- Hori, mantoiak eta halako...

- Bai. Horrek... hamen ni ez naiz akordatzen eittia ez mantoirik eta ez kapoterik.

- Kanpokuak, ezta?

- Kanpokuak, horrek danak kanpokuak. Baiña oso polittak, e! Ta biharra, bilddurgarrixa! Bilddurgarrixa! Bai.

1.46. Alfa-ren eskolan egiten ziren brodatuak

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/017
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:18:06. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Alfaren brodatzen ikasteko eskolan, Eibarren, mantelak eta oheko arropa brodatzen zituzten gehienbat. Klub Deportiborako banderatxoak ere egiten zituzten. Batzuetan sukurtsal batetik bestera bidaltzen zituzten brodatuak, erakusketan jartzeko. Baina inoiz ez ziren izaten saltzeko.

Transkripzioa

- Eta zeuek ze eitten zenduen?

- Guk gehixena mantelak, oheko izarak eta... mantelak. Gehixenak mantelak eta horretxek gauzok. Eitten genduen igual Klub Deportiborakota banderiñak. Orduan bordauta izaten ziazten. Baiña horrek ziazten, ba, noixian behin. Baiña gure biharra normalian zan, ba, mantelak eta izarak eta horretxek gauzok guk gehixenak.

- Eta, holan, tapete edo...?

- Bai, tapetia eta... bai, bai, tapetia be bai, horrek be bai. Horrek gauzok

guk hamen. Ta gero, ba, esto... alumneri, ba, erakutsi eitten gauzak. Erakutsi, ba, muestrarixua zer nahi zebe, ba, haretzek. Lagundu.

- Eta zein da gogoratzen dozun biharrik gatxena edo bordaurik tokau jatzuen espezialena edo? Badao holan batenbat...?

- Ba, bihar espeziala ez, lan gehixao edo gitxiao, bihar gehixao edo gitxiao. Bestela espeziala-espeziala ez.

- [...] eta ez zenduen eukitzen, ez?

- Ez, ez.

- ... Klub Deportibuak [...]...

- Bai, horrek ziazan, baiña... ez, ez, ez, ez. Dana zan, e...

- Bai, zeuek eindakuak. Bueno...

- Gero guk ba igual ein mantel bat, biharra bilddurgarrixa igual, —buenoo! — ta bialdu, ba, beste sukursale batera esposiziñuan ikusteko. Ta eurok geuri. Ta holaxen.

- Osea, pixkat rotatzen juaten ziñazien.

- Bestela saltzeko-ta horrek ez, e! ez ziazan. Sekula. Ez. Zan beti e... etxeko, edo nahi dozuna esatia.

- Bai, bai, bai.

1.47. Josteko makinentzat ordezeko piezak saltzen zituzten

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/018
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:20:02. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Alfa-ren eskolan josteko makinentzat ordezeko pieza txikiak (jostorratza edo bobina, esaterako) ere saltzen zituzten. Beraiek josteko makina automatikoa gutxi erabili zuten; bastidorearekin egiten zuten. Josteko makinak nolakoak izaten ziren. Makina automatikoak zuen diferentzia.

Transkripzioa

- Eta bertan, orduan, mobimentua be egongo zan, ez? Hor eskolan. Dendia be bazan...

- Bai. Jostorratzak-eta geuk saltzen gendun. Jostorratzak apurtu eitten diraz asko makiñan, ta horrek pieza txikixok dendan saltzen ziazan.

- Eta makiñan pieza txikiren batzuk be bai, osea, jostorratzak eta...

- Bai, bobinia eta... danak, horrek pieza txikixok danak.

- Zu, gaiñera, hasi ziñan bordatzen makiña... lehenengo...

- Modeluakin esaten dozu?

- Bai. Ta gero automatikia ya geruao etorri zan.

- Ez, ez. Ta automatikiakin, gaiñera, guk erakutsi-ta bai, baiña bihar gitxi. Guk ez gendun ein, guk dana bastidorian.

- Eta esplikau zeinke pixkat josteko makiñiak ze pieza dakazen edo... edo pixkat, ba, hori, ez? Bobinia esplikau dozu. Ba, izenak edo...

- Bai. Bueno...

- Jeneralian juaten zian muebletxo baten.

- Bai, pedalakin. Korreia ta pedalakin. Ta gero, kabezala. Ta kabezala, ba, zer? Eske pieziak ez dakit zelan... Bobinia, bai... Bobinia ez. Aber... zelan da? Behetik juaten dala harixa, ez dakizu? Bueno, zuk igual ez dozu jakingo.

- Bai, ikusitta dakaraz.

- Bobinia usten dot dala, e? Usten dot dala. Ta bestela, jostorratza ta...

- Oseake, ez daka konplikaziño...

- Ez, ez, eske ez daka.

- Eta gero etorri zan automatikiak gitxiao ondiokan, ez?

- Bai, ba. Harek eurak eitten zeben dibujua, festoia ta... dibujo batzuek. Eta gero posterior gehixao urten zeben. Nik ya...

- Bai, hor gaiñera modeluak aldatzen juaten dia, ez?

- Bai, asko, asko. Baiña nik gero ya azkenengua, ba, ez neban ezautu. Ya ez neuan.

1.48. Eskuz edo makinaz brodatzearen ezberdintasuna

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/019
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debabarreneko lantegiak
 Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- **Laburpena:** Brodatzeko lana nola egiten zen eskuz eta automatikoarekin. Berari gehiago gustatzen zitzaion eskuz egindakoa.

Transkripzioa

- Eta zeuek bordaua zelan eitten zenduen? Hori, automatikiak berak eitten dau eta...

- Bai. Ba, igual izaria, enbozuan, festoia ta dibujo batzuek, eta zelan makiñiak eitten zeban, ba, sartu izaria... Ez bastidoriakin! Guk bestela dana bordatzen gendun bastidoriakin. Baiña horrek zelan berak buruak eitten zeban, ba, ipini dibujua —zekan lau edo bost dibujo—, ta sartu izaria edo mantela edo nahi dozuna ta ein. Berak eitten zeban.

- Horrek ez zekan merito haundirik.

- Ez, ez, ez. Berak eitten zeban. Neretako asko zatarraua, e!

- Bai?

- Onbre! Bestia artesiania zan. Diferentia. Diferentia. Baiña politta! Ta komodua., “rrrr...” ta listo.

1.49. Itxaron-zerrenda Alfa-ren eskolan josten ikasteko

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/021
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:24:34. **Bukatu:** 00:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarrenen lantegiak

- **Laburpena:** Ikasle asko pasa ziren Alfa-ren brodatzen ikasteko eskolatik. Beteta zegoenean, izena eman eta itxaron egin behar izaten zuten. Trenez etortzen ziren asko. Hiru hilabete inguruan ikasten zuten normalean, baina ezberdintasun handia egoten zen ikasle batetik bestera. Zein izaten zen ikasteko prozesua.

Transkripzioa

- Ez jatzu etortzen izenik edo...?

- Izenik? Eske hainbeste ziazen!

- Askok, ez?

- Enee! Askok. Eibartarrak asko eta ingurukuak be asko. Askok baiña, e!

- Bai, gaiñera, esan dozu inguruko herrixetatik eta...

- Bai, askok, askok. Itxein itten zebe lekua eukitzeko. Eske beti zeuan konpleto.

- Eta hori zelan izaten zan? Bertara juaten zian dendara ta [...] eskatu edo...?

- Bai, bai, hori. "Nahi dou ikastia", ba, igual konpleto zeuan, "Ba, itxein in bihar dozu. Laga telefonua edo izena, edo hamendik hillebetera etorri ta aber...". Porke batzuek ikasten zebe bixkor edo... bueno; baiña beste batzuek ez. Hori badakizu, danena da. Ta itxein itten zebe. Ta gero, ba, etortzen ziazen ta... Trenian! Edo... Gehixenak trenian. Autobusian be bai, baiña trenian gehixenak.

- Eta, holan, medixia, gitxi gorabehera, zenbat denpora egoten zan neska bakoitza? Hori, ez? Batzuk gehixao, beste batzuk gitxiao, baiña...

- Bueno, ba, hiru hillebete edo... holakoren bat. Bai, hiru hillebete edo. Ya urtetzen zebe ya laboriak eitten. Ya... Lehenengo trapu baten. Trapu bat... bai, hantxe... Eske, esan detsut, batzuek etortzen ziazen, ez zekixen ezta jostorratza be enebratzen. Ezta... ta pedalari emoten be ez. Oseake horrekin ekin bihar zaraz, ba...

- Bai, pazientzia askok ta...

-... ikasten, ba, pedalari emoten aurrerutz. Bestela, atzerutz ta aurrerutz ta... Bai, ta, ba, horrekin... horrek atzerau juaten diraz dana. Beste batzuek ya badakixe enebratzen ta horrek gauzok ta trapu baten eitten ziazen, ba... ekitzen ziazen lehenengo, ba, puntada batzuek. Ta handik, ba, gero bainikia, ta gero festoia ta gero ya ekartzen zebe filigranak eta danetik, eta ya gero, ba, laborak. Eurak ekartzen zebe mantela edo tapetia —esan dozuna—, edo izaria edo... ta ya eitten zebe, ba, holaxen.

1.50. Brodatu motak

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya

- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref:** AB-332/022

- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:26:53. **Bukatu:** 00:28:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

- **Laburpena:** Brodatu motak; "sobrepuestua" zer zen. "Bainiak", "festoia", "filigranak"... Zein izaten zen lanik zailena.

Transkripzioa

- Eta ze bordau tipo zeren? Ze zare esaten, festoia, bainikia...
- Bai, normalian... Bueno, eitten gendun danetik, baiña sobrepuestuak be bai. Sobrepuestua da igual mantela zurixa ta gero lorak eta gauzak kolorian. Ta tela... igual, ba, gorrixa, ta bordau, ein dibujua, ta borde guztietan bordau, ta gero ha sobrepuestua geratzen zan kolorietan. Ta bestela, ba, matizau, bordau, kolorietan bordau krabeliñak edo... bueno, danetik, danetik.
- Bai, gero bainikak...
- Bai. Festoiak, bodokiak, filigranak... Filigranak ziazen... ebaitta; ta unitzeko, ba, eitten zan kalauak. E? Filigrania esaten gendun.
- Eta konplikauena zein?
- Onbre, konplikauena, ba... horrek lorok...
- [...]
- Ez, baiña horrek lorok ondo... igual lau edo bost kolore matizatzen danak eta fin-fin fin urtetzeko eta ondo urtetzeko, ba, ez ziazen... horrek ziazen igual gatxenak.
- Bai, ez? Bihar gatxa ta, gaiñera, denpora asko bihako zan, ez?
- Bai, beti gehixao. Ta bestiak, ba, behin ikasittakuan badakizu ze pasatzen dan, fazillau urtetzen dau dana.
- Bai, ez? Azkenian praktikiak emoten dau...
- Bai. Holaxen. Normalian horretzek gauzok.

1.51. San Juanetan brodatuen erakusketa

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/024
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:29:28. **Bukatu:** 00:30:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Alfa-ren brodatzen ikasteko eskola. San Juanetan makina guztiak kendu eta egindako brodatuak jartzen ziren erakusgai, San Agustin kaleko lokalean. Egiten zituzten brodatuak erakusteko katalogoa ere bazuten.

Transkripzioa

- Eta erakusketak-eta esan dozu San Juanetan eitten ziala.
- Esposiziñuak bai. Bai, San Juanetan.
- Eta beste... urtian, bakarrik orduan?
- Erakusten.
- San Juanetan.
- San Juanetan denda guztia ipintzen zan, kendu makiña guztiak eta —da lokal eder bat ha, San Agustiñekua— ta dana, ba, laboriekin, jentia sartzeko eta ikusteko.
- Eta, orduan, katalogorik-eta eitten zan zeuek eindako bordauekin edo?
- Bai, eitten zan, bai. Hori, ba, igual taillarrian, Alfa, igual egongo dira. Ez dakit. Bueno, oin ya... han oin ya ez dakit [esistiduko] dan, porke Alfa ya... gure denporako Alfa ya ez dao ezetarako be ya, oseake...

1.52. Tuberkulosoentzat ospitalea

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-022/002
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena:** "Jardin de Convalecientes" deituriko gaixoentzako erresidentzia aipatzen du. Tuberkulosia zuen jende ugari zegoen eta haiantzako ospitale berezia zegoen.

Transkripzioa

-Hau eitten ezagutu zendun zuk? Ospittala-edo bazeuan han...

-Ez, ez, ez, ez! Ospittala ez, oiñ dao residentzia, ha zan ospittala, beheko residentzia.

-Legarren?

-Legarren, han ez euan. A!, ez! Baiña han egon zan "Jardín de Convalecientes". "Jardín de Convalecientes", ipiñi eben han Don Ziriako medikuak eta zerak ipiñi eben "Jardín de Convalecientes" ipiñi eben han. Ta gaixuak zerera joaten zian hara eta eozen butakak eta zerak eta gaiñian euen terraza bat. Eta eskolia gero ei(n) eskuen guri hantxe bertan, oiñ institutua dauen lekuan. Eta hantxe, ha euan "Jardín de Convalecientes".

-Orduan Eibarko gaixuak eta ia pixkat osatzen hasittakuak...

-Bai, hantxe, haraxe joaten zian. Bai hantxe eta euki (...) tunbonak etaratzeko-eta. Orduan tuberkuloso asko egoten zan-da. Gero tuberkuloso..., oiñ Eibarko residentzia behian, haren onduan ein eben "Hospital para los tuberculosos". Hantxe egon zan, bai. Oiñ dauen ospittala ta oin beste residentzia goikua, beherao, ospitalan onduan egon zan, "Hospital antituberculoso". Asko euan orduan tuberkulosisa. Asko euazen.

1.53. Eskolan neskak eta mutilak banatuta

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-022/003
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetako jolasak Jardinetan auzoan egiten zituzten. Eskolak nola egin zituzten eta beraiek eskolara hasi zirenekoa aipatzen ditu. Eskolako irakasle ezberdinak izendatzen ditu. Eskolan, neskak bakarrik egoten ziren goiko pisuan. Eskola atarian pilotan aritzen ziren.

Transkripzioa

-Zuek Jardinetan-eta egiten zenduen jolasian?

-Bueno! Kalera joaten giñanian ustez zerera goiazela!

-Kapitalera?

-Bai, bai, bai. Jardinetan beti. Gure jolastia hantxe zan. Ta gero eskolia ta danak pe hantxe izan zian-ta.

-Institutua egiten ezagutuko zenduan orduan?

-Bai, ez dot ba... Eskolak eitten be akordatzen nai ni. Behian lehenao, han eskolak eiñ baiño lehenao, alhondigia euan, oin Banko Gipuzkuanua dauan lekuan alhondigia zan han. Eta hantxe atzeko zerian eskolako zerak eozen, eskolia ein baiño lehen. Hantxe behian egon giñan. Eta gero eskolia akordatzen naiz ni noiz ei'ben.

-Alhondigan Doña Paca eta zeintzuk?

-Bai, bai. Han pixkat harutzatxua Doña Paca eta Doña Maria eta. Ta zeran ama, Markiegin ama eta harek zian maistrak.

-Eta zuri tokau jatzun orduan...

-Gora. Gero gora. Eskola berrixak geuk inagurau genduzen.

-Gogoratzen dozu eguna, inaguraziñua-ta?

-Bueno. Akordatzen nai gaiñera arbolak pe sartu genduzen, pentsaizu zela daozen oiñ arbolak, harek arbolak geuk -bueno, nik ez dakit, ez nai akordatzen neu prezisamente nintzan-, baiña orduantxe ipiñi zian arbolak eta danak, eta pentsaizu zelan daozen harek arbolak. Pentsaizu zenbat urte dakadazen.

-“Día del Árbol”-eta eitten zan orduan?

-Bai, bai. Baiña orduan bai ba, ha itteko arbolak ipiñi zian-ta.

-Eskola hori izango zan orduan modernua.

-Honbre! Goixan, lelengo planta bikua zan. Lelengo plantan zian mutillak eta bigarrego plantan zian neskak. Eta han eozen parbuluak. Parbuluak Doña Paca ez, Doña Paca behekoa zan. Hara gora ez zan joan. Baiña parbuluak. Da gero euan bat, bi... Doña Paca. Ez, Doña Paca ez, Doña Paca behekoa zan. Ez nai akordatzen parbuluetan zein zan maistría. Baiña gero lelenguan zan Doña Maria; andra... ha beheko doña Maria ez, beste Doña Maria bat. Ta gero Pako Markiegin ama, Doña Catalina, eta gero etorri zan Doña Petra Txueka, etorri zan, azkenengo kursua haretzek emote(n) eskun, Doña Petra Txuekak.

-Eta? Neskak bakarrik, ez?

-Neskak, neskak, neskak. Mutillak beheko pisuan.

-Eta? Ze rekuerdo dakazu? Ondo pasatzen zenduen?

-Ederto! Pelotan, esku-pelotan eta danian itten genduan. Gero jardiñ handixa daka han aurrian. Leku ederra gekan guk han ibiltzeko, ederra. Bai-bai-bai-bai. Ta pelotan itten genduan paretan kontran eta danian. Ez euan han oin esaten dan moduan golpiak-eta; nik sekula be ez dot entzun; sekula be ez dot entzun.

-Maistrak eta gogorak izango zian?

-Bai, Doña Petra gogorra zan eta bihar be bai, e. On-on-ona zan, maistrarik Eibarren euan maistrarik onena zan. Doña Petra Txueka. Baiña estrordinarixia zan, e, estrordinarixia.

-Eta gitxi gora behera noiz inaugurau zan hau eskola barrixa, zuk zenbat urte eukiko zenduzen, zortzi-hamar bat urte? Republikan izan zan edo...?

-Primo de Rivera euki eban izena, Escuelas Primo de Rivera euki eban izena.

-Orduan lehenago igual.

-Bai, bai. Ez dakitt. Primo(s) de Rivera be euki eban harek izena. Ez dakit noiz izango zan.

-Orduan beintiotxuan-edo izan leike.

-Ez dakitt, ez dakitt.

1.54. Hezurak apurtu eta Hipolita hezur-konpontzailea

- **Hizlaria(k):** Basauri Arteaga, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-027/004
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:07:56. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena:** Armeria Eskolan ikasi zuen. Etxetik eskolara korrika jaisten zen, saltoka, eta bost minutuan jaisten zen, Legarre gainetik behera. Behin eskumuturra apurtu zuen eta Hipolita hezur-konpontzaileak osatu zion. Eibarko ezagunena bera zen, Isasi kalean bizi zen.

Transkripzioa

-Nere etxetik eskolara bost miñutuan itten najuan nik, nere etxetik Eskola Armerixara. Bost miñutuan. Saltoka, bueno, goittik behera, bo! Sasoia be sekulakua orduan-ta, bueno, bueno! Eta trenbidia pasau, han salto behetik holako horma bat jeuan ta; horma gaiñera igo, salto ta bueno. Hantxe apurtu najuan; apurtu ez, eskubixurra soltau jatan. Etera, eskumuturra etara, ta gero zerana Hipolitagana, haxe zuan hazur-konpontzaillia. Harek krik-krak!, halako indar batzuek ein, sartu ta bueno. Aurrera.

-Hipolita esan dozu?

-Hipolita.

-Hazur-konpontzaillia zan?

-Bai. Oso. Isasikua. Isasixa. Hipolita. Ha emakume gogorra zuan, eskuak eta gogorak... Unguento batzuek arduakin-ta eitten jittuan. Oin nik ez jakixat nik, ez jakat nik goguan. Baiña haretxekin konpontzen giñuan.

-Medikuakin baiño gehixago?

-Bai, hazurra etarata euanian-ta Hipolitagana. Bestela ba...

-Besterik holakorik bazeuan? Sasi-mediku ta...

-Ez. Hipolita zuan famosia Eibarren.

-Eibartarra?

-Bai, bai, eibartarra. Isasixan jekan. Ni beste bi bider egonda naok eta horretxeaittik jakat nik goguan Hipolita. Joe, bai gizona!

1.55. Frontoizarreko eskola

- **Hizlaria(k):** Basauri Arteaga, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-027/007
- **Iraupena:** 0:06:23. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:20:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Politika » Euskara eta politika

- **Laburpena:** Ume-umetan ikasi zuen irakurtzen, amaren laguntzarekin, etxean. Lehenengo eskola Udaletxeko mojetan izan zen. Gero zazpi-bederatzi urte bitartean, Frontoizarreko eskolan ibili zen, eskola nazionalean. Horixe zen Eibarko eskola nagusia 1940 hamarkadan. Maisuetako bat, mantxu bat, falangista zen eta instrukzioak egiten zituzten jolastokian. Gerraosteko sasoirik gogorrena bizi izan zuen eskolan. Oso diru gutxi zegoen. Arropa zahar-zaharrekin ume guztiak. Hotz ere izugarri egiten zuen, kandelak edonon.

Transkripzioa

-Eskolan ibili nintzuan lelengo-lelengo mojetan. Bueno, amak erakutsi estan neri irakurtzen eskolara joan baiño lehen. Letrak eta ezautu ta horrek banekixazan-da. Eskolan ba lelengo udaletxian jeuan mojak, honek ospitaleko mojak eken klasia ta haratxe, haratxe lelengo. Eta gero zazpi-zortzi bat urtekin ero Fronto Zaharrera. Ero lehenao, sei bat urtekin igual. Eta Fronto Zaharrian beratzi urtera arte, ta gero fraillietan. Eta Fronto Zaharreko rekuerdutak eta jakaraz, bueno. Orduan sasoi zuan Fumanchun pelikulena zuan. Eta Jose Kareagak eta, artistia zuan, Jose Kareaga be ibili zuan frontoi zaharrian, ta ultze batekin Fumanchuren dibujak eitten jittuan losetan, Fronto Zaharreko losetan, eta makiña bat halako dibujo eta egongo zittuan han, bai.

-Frontoi Zaharra zan Eibarko eskola nazionala?

-Bai. Eskola nazionala, bai.

-Besterik ez euan gerraostian?

-Ez. Haxe. Igual behealdian egongo zuan igual besteren bat baiña. Ni Eibar eta nere barrixua zuan hau goi partia ta behian ze pasatzen zan idearik pe ez. Benetan, e!

-Eta Fronto Zaharrian zer zeuan, eskolak bakarrik ala zeozer gehixago zeuan?

-Frontoi zaharrian? Frontoia edarra ta eskolia. Hori be ezautuko zeuan?

-Hutsik bai.

-Ba hantxe. Ta gero ba maixuak bat jeuan mantxua, akordatzen jatak ha, falangistia zuan, eta ibiltzen giñuan errekreuan-ta instruziñua ez baiña bai, halako zeoze. Nik goguan dakatena dok eta hau etxatak sekula ahaztuko: "Venga, el que hace la instrucción Jefe de Centuria". Nik ez nekixan zer zan be, boluntarixoa han joan nintzuan instruziñua eittera. "Tú no vales, tú no tienes espíritu militar, tú fuera!" Bota ein ninduan, bueno, bale. Horretarako be etxuatu... Bai, halako giruan bizi giñuan.

-Zuri tokau jatzun eskolia sasoirik txarrenian, ez?

-Bai. Gu ibiltzen giñuan, benetan, e!, oso... Eibar eta eibartarrok giñuan oso jente pobria giñuak. Gu akordautu bakarrik zela ibiltzen giñan jantzitta ta, pelikula italianuak, posgerrako pelikula italianuak, halatxe, jota... Bueno, abarketa zarrekin, edozein modutan. Eta hotza, kandelak eitten zittuan orduan, kandelak baiña zelakuak, e! Zelakuak baiña! Gaur egunian izotzik ikusi be etxuau eitten. Orduan bai, e! Jo!

-Eskolan eta etxian eta...

-Danian izotz-kandelak. Negua ta gogorra izaten zuan. Baiña bueno, ondo.

-Eta bestela gainñera ez bakarrik hotza eta diru faltia; bestela be egoera politiko eta soziala be gogorra, justo berrogeta bi-berrogeta hiru...

-Bai, bai, bai. Gogorra zuan bai.

-Sasoirik gogorrena.

-Akordatzen jatak, ni hortikan sekula ez nok ibili, holan falangisten, batzuek ibili zittuan baiña gorrixen semiak pe, falangista jantzitta etxakixat ze

kanpamentora ta. Sekula ez nok joan halako festetara. Baiña gero etxian be aitta ta oso..., halako haizerik emon be ez, e.

-Eskolan esan dozu maixua be falangistia zala, ez?

-Bai. Bat. Bat zuan halakua, horrek istruziñuak eta eitten zittuana.

-Edukaziñua be bide horretatik joaten zan?

-Bai zera. Orduan ez, ez. Frontoi Zaharrian? Edukaziñua ta gehixao fraillietan bai. Han be bajeauzen falangistak, e. Baiña ez. Pazientzia bako maixuak bai. Neri batek, ez najetsan ulertzen, ezin najuan entendidu eta hi!, desespereuta jota belarrittik pe haginka ein jestan desesperauta gizonak. Bueno hi, ze eingo dotsak /eingotsak/ ba. Pazientzia bako jentia bai baiña bestela ez. Bat jeuan ha falangistia ta beti be istruziñua eraitten-ta ibiltzen zana, ezta. Baiña bestela ez.

-Zeintzuk zian frontoi zaharreko maixuak? Izenak eta gogoratzen dozuz?

-Ni bat, Berasategi, "Zegama". Baiña eibartarra zuan ha, eibartarra ta euskalduna. Bueno, etxakixat eibartarra ala zegamarra zan, "Zegama" esaten [jetsen]. Baiña ha ez zuan halakua, e, tipo lasaia ta bueno.

-Eta eskolia zelakua zan, ume guztiak batera edo adiñaren arabera?

-Danetik.

-Dexente izango ziñazien.

-Bai, bai, bai. Nik, akordatzen jatak Tito, Tito Ormaetxea, mutil bizixa zuan eta maixo batekin hasarretu zuan ta "cabrón!" esan jetsan da harek hartu jua blastikua harek. Joe, blastikua baiña sekulakua. Eta hori zuan gure... Frontoi Zaharreko ideak edo. Nik dakaten rekuertuak horretxek dittuk, bai.

1.56. Isasiko Corazonistak

- **Hizlaria(k)**: Basauri Arteaga, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-027/008
- **Iraupena**: 0:04:11. **Hasi**: 00:20:51. **Bukatu**: 00:25:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Frontoizarran 2 urtez ikasi ondoren, amak fraideetara bidali zuen, Isasiko Corazonisten ikastetxera (gaur egun La Salle). Eskola nazionalekin alderatuta, fraideetan irakasle hobeak zeuden eta gehiago ikasten zen. Diziplina gehiago zegoen. Eibarko ume asko joaten ziren bertara, gurasoek sakrifizio txikia eginda. Legarren bizi zenez, zuzen-zuzenean jaisten zen eskolara.

Transkripzioa

-Eta gero ba handikan gurasuak-eta Frontoi Zaharrian baiño fraillietan gehixao ikasiko dozu ta, bueno, fraillietara.

-Ze fraille zien orduan?

-"Sagrado Corazón".

-Korazonistak?

-Bai. Korazonistak ez zittuan, "del Sagrado Corazón". Korazonistak "Corazón de María" eta hainbeste bihotz daoak hor tartian, ez jakixat ba nik zeñenak zian. "Sagrado Corazón; de Jesús" izango zuan.

-Gustora joaten ziñan hara?

-Bai, bai. Eta, hombre, mutil saiatua nitzuan, eta ondo, gustora. Baiña han lelengo don Jesus jeuan bat, fraille; ha beti ibiltzen zuan normal jantzitta,

ez jekan sotanarik eta. Gorputz nahiko deformia jekan, txikitxo bat. Don Jesus, sinpatikua zuan. Eta lelengo harekin, eta gero bigarren klase batera don Bernardino edo zuan, jo, ha zuan falangistia! Buuu! Akordatzen jatak, ez jakixat nik ze poesia ikasi bihar zan edo ta, España ta "La Patria" ta nok daki zertzuek. Eta, jo, bueno, demaseko notia ipini jestan. Ni pozago joan nintzuan etxera ta ixa matraillakua aittak: "Zer darabik baiña, zer, zer dok hori!? Ze erakusten detsue baiña zueri!?" Bai, bai, bai. Eta ni, ene! Gauza on bat ein nebalakuan, poesiak ikasi ta, joe, errezitau najetsan aittari ta, joe, bueno, hasarre, hasarre jarri jatan, bai. Girua zuan halakua, eta girua zuan edozein fraille kolegixotan zeuana; halakua zuan.

-Alde haundixa zeuan Frontoi Zaharretik frailletara?

-Bai, bai. Eskolan eta benetan ganora gehixao jeuan fraillietan bestian baiño. Disziplina...

-Eta ikasliak be...

-Bai, bai. Honbre, nere gurasuak be orduan seguru asko sakrifiziotxo bat einda bialduko nindduen hara. Seguru. Eta gero jente klasia be diferentia zuan. Han fraillietan ba danetik, e, danetik, baiña bueno, Eibarko burgeskumak eta danak joaten zittuan haratxe, ez jeuan besterik. Danetik. Oso popularra zuan ha. Bai.

-Oingo edifizio berdiña zan?

-Bai. Jose Antonio Gisasola zuan hori ein ebana.

-Indianoren bat edo?

-Indianoren bat, bai. Baiña nik beti ezautu izan juat hori halatxe. Etxetikan fraillietara trenbidia pasau ta Makalarrotik taka-taka-taka kaskara bat. Bai. Ez jeuan beste biderik, hi, bueltia emoten ez hitzan ibiliko, hortitxikan ras!, zuzen-zuzenian.

-Zubixa nun zeuan? Errekia nun pasatzen zenduen?

-Ez jakat akorduan.

-Makalarro inguruan izango zan?

-Bai, bai.

-Bestela Torrekuan edo.

-Gero pasatzen dana dok Alfak pe ordurako in jittuan bere zerak eta nik ez jakixat zubirik... Bai, egongo zuan hor, hor zubixa egongo zuan. Ta gero Alfa errekian terrenuak irabazten joan ahala, ba ia zubixan ideia galduta.

1.57. Botak eta zapatak aberatsentzat

- **Hizlaria(k):** Agirre Berezibar, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-033/006
- **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:09:22. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Botak eta zapatak aberatsek bakarrik izaten zituzten, gainontzekoek alpargatak janzten zituzten. Carmenek bere lagun erremontista baten anekdotak kontaktzen ditu alpargatak zirela eta.

Transkripzioa

-Orduan oiñetakorik eta botarik eta ixa ez zan egongo?

-Bai, baeuan, bauean. Oingo morukuak, hainbeste ez, e. Lehen-lehen-lehen euazen "borceguís" esaten etsen, "borseguís". Baina abarketia dana, zapatillak eta aberatsak. Domeketarako ba zurixa gorde ta gero "el día de labor" baltzak. Baltzak, ez zikintzeko.

-Umetan-eta zaindu ein bihar izaten zian abarketak.

-Honbre, honbre, honbre.

-Domeketakuak.

-Gehixenbat gizonetzkuai eta entzun detset pelotan eta fobaillian eitten eta ortozik.

-Nik nekan anai bat pelotari, zesta-punta. Hamabost urtekin jun zan Peru, Lima. Joan leike "al Perú, a Lima" hamabost urtekin, e.

-Julita: "Era guapo-guapo, guapísimo".

-"El año treinta y uno. Qué guapo era! Alto, majo!" Eta harek, klaro, ibiltzen zian, Frontoi Zaharra esaten genduan, ezautuko zenduan, eta Frontoi Zaharrian ibiltzen zian ba ikasten, beren zestokin ikasten. Baiña gero hasi zian Fronton Astelenan, eta klaro, etxera etortzen zan abarketa barik eta gure amak, balio eben "sesenta céntimos", sei perro, "pero"... Ta beti bronkia. Zer eitten eban? Akordau naiz ointxe, ortozik. Ortozik, ortozik ibiltzen zan. Ta maitte eben, Eibarko gizon guztiak maitte etsen gure mutikuari. Beste batzueri be bai baiña hari be bai. Ta juten zian hara, ointxe juten dien moduan batzuek, ejerzizua ittera, ez dakizu, palistak eta, han jolastera zerera, ordua hartu ta Astelenara. "Ze habil hi ortozik?" eta. "Bai, apurtzen juat eta gero amak bronkia". "Bueno-bueno-bueno, autso gure abarketak" Eta bere zapatilla zarrak eta abarketak eta emon eitten etsen honek, Irustas zan bat eta Balenziaganekuak eta honek pixkat, ez dakizu? Ta ekan lekutxo bat, frontoia diferentia zan lehen, da han ostian lekutxo bat ekan ta hantxe gordetzen eban beran zapatillok. Ta behin, harek gordetzen ebana frontoia, jun bihar ziñan haren andriana: "bixar bihar dou /bihou/ zazpiretan, edo zortziretan", ez dakizu?, "Baratesia" edo zela deitzen detse horrerri? Ez dakit. Eurek ekan arduria...

-Bidarte eta ez zien lehenago?

-Ez. Bidarte ta zian, baiña han andria egoten zana Salomé ekan izena, famosia zan eibartarra, Salomé. Ta harek gizonakin ekan hatxe biharra, garbittu ta pelotak eruan ta ekarri eta halaxe. Behin ez detsa ba topau zapatillok nere anaiari, ta: "Hi, Fernando, honek zapatillok nori ostu etsak!?" "Neriak dia, neri emon deste Fulanok eta Benganok". "Guzurra! Hik ostu in dok, lapurra haiz hi!" ta. Andra zoro bat zan, pixkat, ez dakizu? Ta ipiñi eban ba lotsatuta danen aurrein. Bronkia. Ta ze ein etsan nere anaiak, matraillekua emon andriari. Hori ezin leike ein, ezta. Daaa!, matraillekua eta urten ein eban frontoittik, porke lapurra ta lapurra esaten etsan eta ez zan, ez zan; emon ein etsan harek, ta andriak baakizu ze ein eban? Pelukerixara etorri. Baakixan: "Joango nok aittaana". Etorri zan aittaana. Ta beteta pelukerixia. Ta "hauxe ta hauxe ein jestak hire semiak, matraillekua emon jestak". Batzuek: "ondo ein deun, batzuek, hik mereziko ebanan". Bestia etxian euan, etorri etxera aitta, zintturoiakin paliza bat... Ene..!

-Julita: Gizajua.

-Gizajua ba.

1.58. Marino pilotari eibartarra

- **Hizlaria(k)**: Arregi Etxeberria, Julita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-033/007

- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:13:58. **Bukatu:** 00:14:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Eibarko Marino pilotari ezagunaren anekdota bat aipatzen du Julitak.

Transkripzioa

-Gero pelotari ona ein zan. Badakat nik erretratua hori noiz...
 -Zuk entzunda daukazu Marino Eibarren?
 -Marino pelotarixa?
 -Bai. Famosua, famosua.
 -Julita: Da gerria-ta pasau ta gero etorri zan Eibarrera, da joan zan frontoira, da danari begira, holan danari begira. "Zer darabik, Marino?". "Kuardro bat gehixao daok hemen!". "Kuardro bat gehixao?". "Hori". Franco euan.
 -Famosua Marino.
 -Semiari be esaten etsan: "Hi, hasi hari goittik behera, e, hire karrera hoixe dok eta; ibilli hari hamen goittik behera antxintxiketan, nik ez deuat beste karrerarik emongo eta".
 (lehengoa errepikatzen du).
 -Salaua zan.

1.59. Arrateko abade-etxea barrutik

- **Hizlaria(k):** Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-043/016
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:19:44. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Arrateko abade-etxea nolakoa zen orduan azaltzen du. Bertan bizi ziren osaba don Pedro abadea eta Maritxu Olarra.

Transkripzioa

-Esan dozu zuek bizi ziñaziela abadetxian.
 -Bai. Hara joan biha zanian han, ezta, danok, eta gero abadetxian, negua ta abadetxian.
 -Abadetxia zelakua zan?
 -Abadetxia ba ointxe dauan morukua kanpotik, ezta. Ba zan sukaldia, osea pasillo luze bat, sartzen ziñan eskaillaretan gora; ez zara sekula egon han sakristixan, ez? Bueno ba ha kanpoko atia badao ba Ama Birjiñia dakana; bueno, handik sartu da holan joaten za sakristixara eta hemendik eskailleratik gora. Han eskaillaran jausi nintzan ez dakit zenbat bider. Oin horrek golpiok be etorriko dia artrosisantzako ondo. Eta joaten giñan gora ta pasillo luze bat sukaldereiño; gero zaozen ba han eskaillera batzuk han barrarako, ganbaran ba trastiak eta eukitzeko. Eta gero zeuren ba sala txiki

bat, eta bat, bi, hiru kuarto. Matrimonixuak eitten zaban erdikuan umiak eta bestian tiok eitten zaban "en el siguiente"; eta han sala txikixan gero amama ipiñi zebe, amama etorri zan gero basarritik, bai, ta ni atzenenguan egoten nintzan.

-Amama don Pedron ama?

-Ama. Don Pedron ama gaizki zeuan bihotzetik edo jarri zan... Basarrixan bizi zan.

1.60. Arrateko eta inguruko auzo eskolak

- **Hizlaria(k)**: Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-043/032
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:36:54. **Bukatu**: 00:38:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Arriola, Aitane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Arrate bailarako umeak joaten ziren Arrateko eskolara. Gaueko eskola ere eman zuen Don Pedrok. Mandiola bailara, Arrate bailara... San Pedrokoak ez ziren etortzen San Pedron bertan bazutelako eskola. Agina aldekoak etorriko ote ziren aipatzen du. Santa Kurutzeko eskola gerora izan zela dio.

Transkripzioa

- Eskolia ze zan, Arrate balleko umiak-eta bertara juten ziran?

- Bai, bai, danak, neska ta mutil, ta haundixau ta txikitxuauak. Eta gero, aurretik, ni jun aurretik, gabeko eskolia emoten ei zaban tiok eta Andres guria be etortzen ei zan eskolara.

- Orduan Arrate ballekuak eta San Pedro ballekuak be bai?

- Ez, San Pedro ballekorik ez dakit. Mandiola ballia, Arrate ballia... porke San Pedron be bazeuan. San Pedron be bazeuan, porke nere gizona be ibilita zeuan San Pedron. Arratera etortzen zian gabian, "pues como..." aparte, zezer ikastera. Ta gero hasi zan Andres gabian Maristetara Elgoibarrera juaten basarritik. Eta egualdi txarra zeuanian bialtzen zebe ta egualdi ona zeuanian "ezin lei jun, e, egualdi ona daok eta gaur biharra". Gero jun, por ejemplo, iluntzixan jun gabeko turnora ta "domiñuan eingo juau?" zera, maristiorrek, ta, ba, domiñuan. Eurok pozik; domiñuan "adiós escuela". Ta halaxen. Ordungo bizimodua, ba, barregarrixa.

- Eskola horretan orduan, alkartzen ziran Arrate ballekuak eta Mandiola ballekuak. Ume asko? Orduan dexente izango zan.

-Bai, ta Agiña aldetik be ez dakit etorriko zan, baña Agiñan be bazan eskolia, baiña...

-Eta Santa Kurutzen ez zeuan?

-Bai Santa Kuruzkuak be Arratera, Mandiola ballia-ta dia horrek.

-A Santa Kuruzko eskolia ya...?

-A, bueno, bazeuan baiña uste dot ez zeuala /etzeuala/ maisurik orduan oindio. Gero igual bai, gero ematen zan zerian, Santa Kurutzen.

1.61. Arrateko goizeko meza 9etan

- **Hizlaria(k):** Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-044/002
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:00:26. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zubeldia, Xabi
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Goizeko lehenengo meza goizeko 9etan izaten zen, jenderik egon ez arren. Meza aurretik oiloak gobernatzen zituen Maritxuk. Meza latinez izaten zen.

Transkripzioa

-Lehen kontau destazu, mezak eta, zelakuak izaten ziran mezak? Baiña lehen, e?

-Aaa ni han neuanian, ba, bueno, egunerokua, ba, hori, bederatzietan. Badakizu, baten bat igual basarrikon bat etortzen bazan. Porke basarrixetan, osea, beti egoten zan batenbat hil dala edo... mezia enkargatzen zabana ta, bueno, ba, batenbat etorri bihar bazaban edo ez bazaban, behintzat bederatzietan ordua zan ta emoten zaban beatzitan.

-Eta egunero egoten zan jendia?

-Ez, bixok bakarrik askotan. Bueno...! Bai, ta egualdi txarrakin...

-Orduan jendia egon ez egon...

-Jendia egon ez egon, mezia. Bai, bai, mezia. Ni, ba, beti ez nitzan juaten, baiña igual meza aurretik, ba, klaro, gure jauna be hartu bihar ta —hori sagraua izaten zan— armosauta ezin hartu ta lehenengo ortura bueltatxo bat... ez, oillueri emon jaten, ta horrek. Ba, ortuan pixkat, eta bueno, bederatzietako elizara. Elizakua ein ta gero armosau ta etxia jaso ta bazkarixa ta bueno... “sin terminar”.

-Eta mezia latinez?

-Bai, latinez. Latinez. Ta kontestatzen gendun zeozelan. Nik banakixen dana, lo ke pasa es ke oin denboriak in ahaiztu eitten da, baiña..

-Orduan, gaiñera, kurutzera begira eitten zan, ez? Bizkarra emonda.

-Bai, bizkarra emonda, altarera begira. Bai. Lehen, badakizu, behian zeuan altaria. Bueno, ta goixan beste bat. Akordatzen zara goixan? Eskilleria zeuan ixotzeko ta gero Santo Kristua zeuan han.

1.62. Jendeak ikuskizunetarako joerarik ez; arazoa hezkuntzan

- **Hizlaria(k):** Garate Suinaga, Josu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-647/009
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:12:56. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Aisia » Kultura
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- **Laburpena:** European horretarako ohitura gehiago dagoen arren, hemen asko kostatzen zaio jendeari ikuskizunetara joatea. Ekitaldia moda bihurtzen denean bakarrik izaten du arrakasta, Eibarko Antzerki

Jardunaldiekin gertatzen den antzera. Arazoa hezkuntzatik datorrela uste du, dantza edo musika bezalako arloak jorrazteko hezkuntza paralelo bat eraman behar izaten delako. Eta hezkuntza horrekin ere ez dago guztiz ados, norbere burua erakusteko hezten duelako jendea, ez besteenak ikusteko edo besteek egiten dutenarekin gozatzeko.

Transkripzioa

Nik uste dot, bai plazan edo bai eszenarixora eruaten dounian be, ba... arte... arte eszenikuak izan edo ez, baiña, ba antzerkixakin edo beste batzuekin alderauta igual hartu-emon gitxien edo, edo ikusle gitxien jasotzen dabena izango dala. Bai. Ba Coliseuan ikusten dogu ze ekartzen dan ta... Eta beste batzuetara be jendia hurreratzia kostatzen da, ez dakagu ohitturarik. Ba igual European beste ohitura gehixau dake, ba, teatrorra juateko, edo ikuskizunetara edo. Hamen kostatzen jaku / kostatzeaku/, ez bada, ez badakagu, ez bodogu modan jartzen. Ba Eibarren teatro jardunaldixak dian moduan. Ta, orduan, jardunaldixetara juaten gara, baiña gero hortik aparte ya ez, ze modan dau horretxetara juatia, gustau edo ez gustau, baiña modan dau. Azkenian akto sozial bihurtzen da. Eta dantziakin be antzerako zezoer pasatzen da. Eta... eta arazua nun datorren? Bueno, ba, hasteko, arazo haundi bat dator -nik uste dot- hezkuntzatik. Hezkuntzan, hezkuntzan beste garrantzi haundixa emoten jakue ba beste... beste edozein disziplina, baiña gorputz-adierazpenak eta, ba, ba, bueno, ez dira lantzen. Edo marginalki sartzen da: gorputz-adierazpenak ba mugatzen dia normalian gorputz-heziketa danera, ginasia ta kirolak eta... Eta, orduan, ba, beste hoiak... Eta, inkluso, ba, musikak eta be bai, ba, bueno, ba hezkuntza paralelo bat eruan bihar dozu. Eta, orduan, ba, ez dakau ohitturarik. Eta hezkuntza paralelo horretan be ni oso kritiko naiz -geure buruetatik hasitta, e!- hezitzen doulako geure burua erakusteko, baiña ez bestien buruak ikusteko eta ikasteko. Orduan nahi izaten dogu geure burua erakutsi, baiña gero ez gara gai ondokuan burua ikustera juateko, edo ze itten ete daberen edo zelan itten daberen edo. Eta orduan... Baiña ez juatjarren edo kunplitziarren, baizik hor be gozamina topatzeko. Eta, bueno, ba, ez gara ohittu, ez gaittu ohittu hor gozatzen, ba, ez gaittuen ohittu moduan seguramente, ba, ez dakit zer quadro moderno gozatzen. Ezta? Ez dakagu... Ohittura kontuak dira. Pixkat... Ohittura eta heziketa kontuak dira. Eta arte mundua [...] badao... ba ez daka heziketarik, ez da ohitzen. Ez da hezten edo ohitzen edo ez dakit zelan esplika. Eta, bueno, anai-arreba txikixena, dantza, eta dantza tradizionala baldin bada, ba, oindiok eta... ba ez dakit zelan esan, baiña, ba, burruka gehixuau ein bihar dogu guk geure burua erakusteko. Baiña, bueno, azkenian funtzionatzen badau, egingo dau aurrera, euskeriak moduan. Hizkuntzak eta eibartarrerak eta... Hau da, funtzionatzen dau, balio baldin badau zer bat transmititzeko, gozatzeko eta gozarazteko, ba, eingo dau aurrera.

1.63. Lehengo eta gaurko irakaskuntza

- **Hizlaria(k)**: Fernandez Amorrosta, Nahia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gisasola, Jaione
- **Erref**: EIB-664/012
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:20:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- **Laburpena:** Metodologia, proiektuak, pentsamoldea... gauza asko aldatu dira Nahia umea zenetik hona.

Transkripzioa

Honbre, proiektu eta... Egixa esan, indarra daken proiektu asko sartu diraz, metodologia berritzaile pillat bat, pentsa... pentsakera desberdiñak, ez? Korrante pillat bat. Baiña oraindik, nik uste, finkatu barik daozela. O sea, daoz pentsalari asko, daoz ikuspegi asko; baiña oindiokan lekua topatuko ez balute moduan, ez? Poliki-poliki txertatzen diazenak. Baiña, karo, egun batetik bestera aldaketa guztiak ezin diraz emon. Egixa da jente askok siñisten dabela -ez?-, bueno, hezkuntza-planteamentu berri baten, eta hori da, nik uste, hezkuntzak gaur egun dakan indarra. Ez? Ba jente berrixak, belaunaldi berrixek jaso dittuzten ideia berri hoiak -ez?- moldatze aldera eitten dutela. Baiña... baiña, bueno, poliki-poliki emango dan zeozer dala, ez? Iraultza ez da emoten halako egun baten bezperaz antolatuta daolako. Hori, bueno, ba, lanketa baten ondorioz eta denpora baten... Ba denpora da beti lagun, ez? Denporakin hartu bihar diraz gauzak, lasai eta... eta bueno, ba pausoz pauso. Ezin da izan igande baten altzau eta astelehen arratsaldian mundua hankaz gora jartzia, ze, bueno, hori ez da erreala, ez? Iñork ez luke onartuko eta norberantzat be kaltegarria izango litzateke. Baiña... Baiña, bueno, bai, nik uste, jende gaztiak siñisten dau eta gaur egun irakaskuntzan aktiboki daozenen kopuru handi batek be bai horregaittik eitten dabela apostu. Orduan, ba, nik uste, hezkuntza -ez?- dan tresna garrantzitsu horrekin gauzak, behintzat, bueno, aldatu ahal diazela.

1.64. Hezkuntzan egin beharreko aldaketak

- **Hizlaria(k):** Fernandez Amorrosta, Nahia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gisasola, Jaione
- **Erref:** EIB-664/014
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:22:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- **Laburpena:** Nahiaren iritiz, irakasleak euren ukitua ematen ari dira lanari, aniztasuna bultzatuz. Inprobisazioari lekua eman behar zaio.

Transkripzioa

Honbre, zer egon beharko zan edo zer egon behar ez dan -osea-, ez naiz ni iñor hori erabakitzeko. Ez? Eta norberak bere -bueno- esparruan landuko dau berantzako aproposena izango dana. Osea, ez daoz bi irakasle berdin eta, nahiz ta errezeta liburu berdiña euki -ez?-, gero bakoitzak dilistak bere modura eingo dauz eta bakoitzak jarriko dotsaz bere ingredientiak, eta... eta bueno, eta gatza izango zan, ba, norbera. Ez? Norberan izaera. Ez daozenez bi pertsona berdin, ba, bueno, bakoitzak erabakiko dau zer izango dan onena zer txarrena. Egixa da nahiko zahartuta dakagula -ez?- ointxe bertan hezkuntza, oiñarriko hezkuntza, baiña... baiña, bueno, poliki-poliki badirudi -ez?- bakoitzak bere errezeta liburu hori hartu eta

dilistak bere erara eitten... eitteko joeria dauela. Ez? Ba ikusi izan dittut Lehen Hezkuntzako gelak txokoka antolatuta, nun testuliburuak igual ez dakan horrenbesteko garrantzirik, edo, bueno, ba, joera desberdiñak. aAzkenerako, aniztasun baten. Ez? Mundu guztiari ezin detsa funtzionau berdiñak. Eta igual jente bati talde... taldia aztertuta, testuliburu erabiltzia ta mahai baten egotia da hoberen funtzionatzen detsana. Osea, horrek ez dau esan nahi: hau ein bihar da beste emaitz hau lortzeko. Osea, bat gehi bat ez da bi irakaskuntzan. Hori zentzu... beno, zentzugabekerixa da, ez? Ezin dozu ein gauza berdiña ikasle-talde desberdiñekin edo kontestu desberdiñetan. Dana hartu bihar da kontutan. Eta.. eta hori da gehixenbat baloratzekua, ez? moldatzeko abilezixa edo... edo gaittasuna gehixenbat. Bai, bai. Inprobisau in bihar da asko. Gauzak pentsatuta eraman, asko pentsatu... argi dao baiño momentua da balixo dabena. Igual egun baten gauzak atarako diaz, hurrenguan ez. Orduan, momentuan momentua bizi bihar da eta... eta hori, horrekin geratu. Eta inprobisatzeko gaittasuna euki be bai. Bai.

1.65. Familia ereduak ere aldatzen

- **Hizlaria(k):** Fernandez Amorrosta, Nahia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gisasola, Jaione
- **Erref:** EIB-664/016
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:23:10. **Bukatu:** 00:25:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- **Laburpena:** Praktikaldian jazotako anekdota bat kontatzen du Nahiak pasarte honetan. Familia eredu tradizionala aldatzen ari da eta ikasle bakoitzaren egoera pertsonala kontuan izan behar dute irakasleek.

Transkripzioa

- Ba, beittu, anekdota bat kontauko dot honekin, ezta? Eta gertau jatan, praktikaldixan neuala, ba, hori, bi urteko gelan eta bi urteko ikasliekin, ba, halako baten ume bati esan netsan: "Ta gaur nor etorriko da zure bila, maittia, aitatxo edo amatxo etorriko da?" ta "Ama edo amatxo, ez dakit". Eta orduantxe, karo, nik euren berri euki barik. Nahi dot esan... "Ama eta amatxo etorriko dira". Ta orduantxe esan neban: "Egixa da", ez? Eta beste ume batek ama bakarrik daka; ama bakarra da eta ama bakarrik daka. Eta irakasliak oso... oso modu naturalian -ezta? ein bihar dan bezela- lantzen zeban gaixa. Ta ume danek oso onartuta zeken, bueno, ba, ikasle horren gurasuak ama bakarrik zala, gero aittitta eta amama zittula, baiña ama bakarrik zekala. Eta danek, hori, naturaltasun haundixakin hitz egiten zuten, ez? Eta jo, igual, helduok jartzen dittuguz pega gehixau zentzu hortan, ez? ze umiek oso natural eitten dabe... diñot, ez dake iñolako aurreiritzirik. Osea, edozein dala be gaixa. Ta gustau jatan, gustau jatan zelako trataeria ematen jakon ikasgelan eta umiek eurek zelan erantzuten zuten. Ez? Ba holako... "bueno ba nik aita dakat, berak ama bakarrik daka, berak ama eta amatxo ditu eta... " eta ez da ezer gertatzen, ez? Hori. Hori da gehixen gustau jatana. Eta... ya, galderia ahaztu jata.

- Ez, eredu... aniztasun horrek ia eragiten daben, ez?

- Bai.

- Edo ez dakaten aurreiritzirik.

- Hori da. Bai. Eta ikusten diraz -ezta?- geroz ta familia-eredu gehixau. Eta nik uste, ba, ipuiñak prestatuta dauzela... Poliki-poliki, bueno, ba, ingurua be bai hortara moldatzen dabil, ez? Ze oin arte guretzako arrotza izan dana, desberdiña izan dana, ba bueno, bapatian positibo. Orduan, ba, zegaittik ez dogu ba danok umiek bezela normaltasun batekin hartuko? Ta nik uste, ba, ikasgelatik kanporantz eitten dala lan, bai.

1.66. Maltzagaren kokapen estrategikoa

- **Hizlaria(k):** Unzetabarrenetxea Lizarralde, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Erref:** EIB-697/003
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
Lanbideak » Trenbideko langileak
- **Laburpena:** Maltzagako San Rafael ermita desagertuaren kokapena. Trenbideko-langileek eraiki zituzten ermita eta eskola. 80 bat ikasle zeuden, gehienak trenbideko langileen seme-alabak. Extremaduratik, Gaztelatik... etorri ziren.

Transkripzioa

- Orduan, San Rafael, ezta?
- San Rafael.
- Nun zeguan?
- Zeguan, eeee...
- Ze "zeguan" esaten dot...
- Zeguan, bai, bai, orain ez dago ezer.
- Zeguan.
- Zeguan, hamendik Plaentxiara zoiazela, eskubitara, pasatzen dozu Delteco dago orain, errekoa, ta errekiari aldamenian Estaziñora jueteko eskillarak eta ranpa bat zeguan ta haretxen azpikaldian, errekiari kontrara, kamiñuan azpikaldian.
- Zeiñek egin zeban edo zuk horren berririk bai?
- Nik uste dot, nik uste dot, ferrobixuak egingo zebela, porke Maltzagan bizi zian ferrobixuak pilla bat. Pilla bat bizi ziran, pilla bat familixa. Ein eben /eiben/ etxia, ez dakit ni zenbat bibienda eukiko zittuan, baiña pilla bat. Bertan Estaziñuan. Aldamenian eguan etxe haundi bat, gero aurrerao juanda beste... errekoa pasauta beste etxe bat eta... Orduan ferrobixuak bizi ziran baserrietan be bai.
- Hainbeste ferrobixuak eguan?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Gu juaten giñan eskolara Maltzagan 40 bat neska eta 40 bat mutil, ta baserrietan oso gutxi, ferrobixuak zian gehixenak.
- Eta zegaittik kontzentratzen ziran Maltzagan edo?
- Eske Maltzaga orduan oso inportatia zan. Gasteizera trena, Donostiara, Bilbokua... hortxe eitten eben kruzia danak, ta inportantia zan.
- Eta horrek ferrobixuak zer zian, bertako [...] ... zer motako...?
- Horrek etorri zian, ba, kanpotikan, eeee... buff, Extremaduratikan, Castilatikan... Etorri zian hona, etxia emon etsen /emotzen/ hor eta gero ba...
- Eta lanbide bat, ez?
- Lanbide bat. Bai. Batzuk e... Klaro Maltzagan ez eguan ezer. Eguan trena

ta eguan hori ta eurak eren, baiña ostian dendarikan ta ezer ez eguan. Eta batek eruaten eban ogixa euren eta, nahi baeban batenbatek erosi, ba... Adibidez, gure maistria izan zanak ogixa Maltzagan erosten eban. Eta gero, ba, uste dot periodikua be eruaten ebala iñoiz ta... Euretako batek.

- Euren artian pixkat...
- Bai, bai, bai, bai.
- Komunala egiten zebe, ezta, zeoze, alkarri laguntzeko. Bai, bai, bai.
- Esaten detsut: nik hamalau urtekin laga neban eskolia eta dia aurretiko gauzak, porke gu eskol... eskolia kendu ebenerako ya bastante zertuta eguan ferrobarraxuen zera.
- Ferrobarraxuen...
- Bai.
- ... harutz-honutz hori [...] esan nahi dozu.
- Bai, bai. Porke ya trena kendu zuten, ez dakit noiz kenduko zebe, Gasteizerako trena eta hori asko... kentzen hasi zian hortikan.
- Klaro, horrek bajau erain pixkatxo bat, ez? Horren, Maltzagan, garrantzixa be bai, ezta?
- Bai, bai. Ya laga zotsan izatiari kruze inportante bat eta...

1.67. Doktrina eskolan jasotzen zuten

- **Hizlaria(k):** Unzetabarrenetxea Lizarralde, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Erref:** EIB-697/008
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:19:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Abadea eskolara joaten zen doktrina ematera. Liburua nolakoa zen deskribatzen du. Ostegun arratsaldetan konfesatu egiten ziren.

Transkripzioa

- Guk eskola... zelan eskolara joaten zen abadia dotrinia ematera, erderaz, erderaz. Nik erderaz ikasi neban. Jope, ikasi neban gaiñera ixa buruz. "Catecismo" ta gogoratzen naiz zelan zan holan liburu txikitxo bat, zelan ikasi gendun.

- Akordatzen zara, ez dakit zelan zan, ez? zelan zan? Bai, liburutxo batzuk zian...

- Liburutxo bat zan. Hau baiño asko haundixaua ez zan, holakotxe bat eta holakotxe bat zabala ta holakotxe tamaiñokua.

- Misal modukua edo orazio...?

- Bai, liburu... igual kuaderno potolo baten bezelakua zan.

- Eta ze izaten zan eskola amaittu ta gero?

- Eee... etortzen zan, normalian, izaten zan ostegun arratsaldetan ordu bete edo edukitzen gendun abadiakin. Maistriak be erakusten oskun / erakustezkun/, eee! "Historia sagrada y Religión"... buo! hori zan asignatura bat. Baiña gero katezismua uste dot arratsaldetan etortzen zala abadia. Ta konfesatzera juaten giñan. "Primer viernes"ak eitten genduzen ta ostegunian konfesatzera.

- Pekatu mordo bat egongo zian, ezta?

- Pila bat, pila bat, buenoo!

- Ileran, ezta?
- Illaran, illaran. Beti berdiñak, porke...
- Asmau in bihar zeoze, ezta?
- Bai, bai bai, bai. "Zer in dozu?" ta ba. Juan in bihar ziñan ta, klar, desiatzen egoten ziñan juateko be bai.
- Bai?
- Bai, porke, klaro, eskolatikan urten itten zenduan ta juaten ziñan... kamiñua bat pasatzen zenduan ta bestekaldera, ta bueno.
- Eskursiñotxua, ezta?
- Eskursiñotxua, eskursiñotxua.
- Ta gauza diferentia.
- Diferentia, bai.
- Ze etxera etorri ta hamen zeregintxuak egongo ziran zain, ez?
- Hamen baeren zeregintxuak, beti egoten zan. Basarrixan beti dao. Edo lagatzen dozu edo segi eitten detsazu, ta beti dao.

1.68. Haurdunaldian, bakardadea sentimendu handia

- **Hizlaria(k):** Lamarain Cobo, Igone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** EIB-732/010
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:17:31. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- **Laburpena:** Guraso bakarra izatearen bakardade sentimenduaz, batez ere haurrak jaioberriak direnean. Erabakiak bakarrik hartu beharra, beldurrak... gehienbat haurdunaldian izan ditu.

Transkripzioa

- Batzuk esaten daue ama bakarrak eta, bueno, pentsaitten dot aitta bakarrak dianak be berdin izango dala, lehenengo urtetan, umiak oso txikixak diranian, bakardade sentsaziñua... Gero ya umiak berbetan hasten diranian-eta ba... Ez?

- Bai.

- Ez? Gaiñera, [birekin]...

- Bai, bai...

- Ba... igual neri hori esan nontan batek, ama bakarra danak, hori: benetako gogorrena hasierako bakardede hori...

- Bai, nik uste dot bakardade gogorra badala, eta txikixak... edo jaioberrixak diranian zalantza asko badauzkazula. Askotan zalantza dakazu edo bildurra dakazu jendiakin konpartitzeko, erabaki asko hartu bihar dittuzu oso txikitatikan eta nik uste dot ez jakitia zeñekin konpartidu edo etxian denbora asko egotia, ba, horrek sortu ahal detsu bakardadia. Nik, igual, gero, umiak jaio osteko guztia neretako oso erritmo bizixan jua da; osea, jaio eta dana oso bizi-bizi jua da. Nik bakardade sentsaziño hori euki neban gehixau haurdunaldixan. Gero, jaio diranian, egixa da, txikixauak ziranian oin baiño, bai euki dotela, euki nebala, sentsaziño hori momentu batzutan: "Ze itten dot nik hamen etxian bi ume honekin?" eta. Ez? Osea, dana zan eurak, normala dan moduan. Baiña nik dakat sentsaziñua jaio osteko guztia oso bizi jua dala, arin jua dala. Arin denboran, e? bizkor

juan dala denboran. Momentu kritikuak egon dira tartian, ba, bakardadia eta beldurrak...; nik uste beldurrek be bakardadian eragiten dabela asko.

- Eta pandemian, gaiñera...
- Eta pand... Bai, pandemia be bai. Bai. Pandemian justu bakardadia ez da sentidu nebala. Baiña... Beste gauza batzuk sentidu nittuala ba pandemian; oso gogorra izan zan, e, konfinamendua. Baiña nik esango nuke haurdunaldixan gehixau. Ba igual haurdunaldixa, bueno..., bueno, pixkat delikatua izan zan, denbora asko ein bihar izan neban etxian bakarrik, nere burua zaindu bihar nebalako... eta nik uste dot euki nebala bakardade sesaziño gehixau haurdunaldixan, denbora larregi pentsatzeko zer datorren, ya banekixanian bi etorriko zirala eta hori guztia, gero baiño. Egixa da jaioberrixak txiki-txikiak ziranian euki nittuala momentuak, baiña aldi berian dakat sensaziñua dana juan dala holan, oso arin.
- Bai gehixau da... Gehixau dala aurretik dakotzun bildurra: "Ai ama, ze ingo dot honekin...? Ze ingo dot?"
- Bai, bai, ni holan neuan, bai. Bai, bai, bai.

2. Familia eta harremanak

2.1. Ingurukoak Eibarrera dantzara

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa - Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia
- **Erref**: AB-023/017
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:34:12. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Inguruko herrietatik jende asko etortzen zen Eibarrera dantzan egitera eta beraiek Bergarara joaten ziren sarritan ere. Bergararrak, "mokoluak". Eibarren diru asko zegoen. Soraluzekoek eibartarrei buruz esaten zuten: "Eibarko txitxia, oiloa".

Transkripzioa

- Mendirako zaletasuna noiz sartu jatzun?
- Hori berezkua da eibartarretan. [...] bertan euan. Eske, hortxe daoz mendixak. Mendixak hortxe daoz [...] Lehenengo egunian ilusiñua, mutil koskorak giñanian, ze zan? Ba, Galdaramiñora igotzia. Salbadorrera konforme [...] ta Galdaramiñora. Gero Urkora ta Urkotik ikusten genduan Eguarbitza ta Eguarbitzara. Ta gero, ba, gurasuekin igual Izarraitzera.

2.2. Tailerretik atera eta dantzara; afalordua

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa - Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia
- **Erref**: AB-023/018
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:37:00. **Bukatu**: 00:38:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Taberna giroa

- **Laburpena:** Gaztea zenean, tailerretik irten eta zertxobait txukuntzeko ohitura hartzen hasi ziren eibartarrak, Untzagara dantzara joan aurretik. Txikiteo Bilbotarrek eraman zuten Eibarrera. Aurretik, gizonak mahai batean jarri eta edan egiten zuten, bertatik mugitu gabe. Egunero lanetik atera, etxera arropaz aldatzera joan eta kalera joaten ziren 19:00ak arte. Afalostean, 20:00ak inguru, berriz ere kalera irteten eta 21:30etarako etxera bueltatzen ziren. Neguan musika 16:30etan hasten zen; udan, 20:30etan. 8 pieza jotzen zituzten eta 22:00etarako etxera itzultzen ziren.

Transkripzioa

- Ta gero, ba, gurasuekin igual Izarraitzera ta haunditzen [...] giñazengan, ba, Klub Deportibuan sartu ta medaillia etaratzia zan zerori.

- Mendixak eginda, ezta?

- Bai, ba! Mendixak eginda. Berez, hamentxe daoz ta!

2.3. Garai bateko nobioak; familia giroa

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose

- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa
- Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia

- **Erref:** AB-023/019

- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:38:47. **Bukatu:** 00:40:30

- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Zinea 18:30 etan hasten zen Kiputxanien. Nobiotan, etxera juateko ordua zaindu egin behar zen eta gurasoek asko kontrolatzen zuten. Gaur egun ez dago antzinako familia girorik. Orduan afaldu eta bazkaldu batera egiten zuten guztiek.

Transkripzioa

- Jolastu be igual zuek, umiak izanda, mendixan, ezta?

- Ene! Gure jolasteko lekua badakizu zer [...] Orduan giñan Arana...

zerakiñ ezkondata daona, Legazpiñekin ezkondata daona... [...] ... Bueno,

kustiñua da, gure jolas tokia zan Salvador! Goizian urten Salvadorrera,

arbola gaiñian txabolía ein. Bai, ba! Bakotxak bere txabolak eukitzen

genduzen. Goizian juaten giñan ta orduan ez zeuan piñadirik, zian

pagadixak edo gaztañadixak , mendixa [...] Bueno, juaten giñan hara.

Erlojurik ez genkaun ta ez genduan ikasi euzkixakin be ibiltzerik!

2.4. Baskaran, Eibarko abade laikoa

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi

- **Erref:** AB-083/008

- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:17:03. **Bukatu:** 00:18:47

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Benigno Baskaran, Eibarko abade laikoa. Aurretik haren aitak, Marcelinok, izan zuen ardura hori. Hileta zibilak nolakoak izaten ziren. Marcelino Baskaran: “gizon betea”.

Transkripzioa

- Hor zegoen beste bat: Benigno Baskaran.
- Bai, hori gerokoa da. Benigno Baskaran. Interesantia bere aita zen, Marcelino. Guretako, `Sumendixa´. Ze jatorriz hórrek Sumendia basarrikoak ziren, Eibarren bertan. Eta Benigno Baskaranen aita zen Eibarren esaten geniona "cura laico". Ni jaio nintzen Elgeta Kalian. Eta Elgeta Kaletik zan Elgetarako bidia, kalzada zaharra, Erdi Arokotikan. Eta hilerrira be handik pasau bihar zen: nahi elizatik, nahi edozein tokitatik, ba, kale horretatik. Eta gu han, ba, ohituta geunden noixik behiñian, ez asko, baiña maiz egiten ziran entierruak, zibilak. Eta "cura laico" horrek... Eta gu sarri curiosidadez juaten giñen. Harek egiten zituan diskursuak oroitzen naiz ze eratakuak ziren. Berak egiten zuan holako panejiriko bat hildakuarena, haren izakera eta zera. Beti ikutzen zuan baita ere, bueno, ba, zintzilizka uzten zuan Jangoikorik izango dan ala ez. Baiña ziurtasunan eza bera ere ba: "Ba, bueno, badago ere, gizon hau ona izan da". Eta holako zer bat egiten zuan.
- Rekomendazioa.
- Oso kuriosua zen. Eta persona bat oso errespetatua zena. Holako, gaiñera, berez, naturalezaz, holako pazifista erako zer bat zen, baketsua, serioa, langilea. Eta persona bat herrian errespetua zeukana.
- Gizon betea, esaten den bezala.
- Bai.
- Gizon betea, esaten den bezala.

2.5. Gerra aurreko giro politiko-intelektuala Eibarren

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/009
- **Iraupena:** 0:05:28. **Hasi:** 00:18:47. **Bukatu:** 00:24:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Giro politikoa Batzokian eta "Casa del Pueblo"an gerra aurreko urteetan. Liburutegiak; tertuliak. Juan San Martinek gerraosteko tertuliak ezagutu zituen. Santi Arizmendiarieta eibartar jatorra; esperantoko irakasle eta, era berean, Jose Mari Arizmendiarietaren lehengusua. Fernando Zuloaga mediku eta intelektuala.

Transkripzioa

- Toribio Etxebarria zer esanik ere ez. Toribio Etxebarriak intelektual bezala asko irakurtzen zuan eta, bueno. Gero nik ikusten nuana da, esate baterako, nere aita ez zegoen iñungo partidotan afiliaturik; baiña bai sindikatuan, UGTn. Eta aitaren aldekuak, denak botuetara-eta sozialistetara jotzen zuten. Amaren aldetik nituan parientiak batzuk baziran

karlistak ere, baiña abertzaletara pasatzen ziren. Eta Batzokian iñoiz egoten nintzen, ba, bueno, lehengusu batekin edo osabaren batekin Batzokira. Ba "Casa del Pueblo"ra bezala. Eta "Casa del Pueblo"ra... Eta nik obserbatzen dudana -eta gero hori ikusten dut- biblioteka bietan zeuden, oso inportantea da, jentia egoten zen, ba, holako mahaietan eseri eta irakurtzen, zeozer hartuaz, ba, irakurtzen. Eta jentiak irakurri egiten zuan. Orain ez.

- Hori, uste dut, dela ezaugarri oso inportantea.

- Eta tertuliak. Nik gero ezagutu ditut... tertulien ondorena bizi izan naiz. Bi toki zeuden Eibarren tertuliak egiten ziranak gerra onduan eta ni haietara... batera ixa astero juaten nintzen. Eta, gaiñera, nere senidia zen bat, hain zuzen, Arizmendiarieta: kooperatibak sortu zituana Mondragoen, haren lehengusua. Haren lehengusu bat nere pariente egiten zan beran emaztian aldetik. Harekin. Eta bera zan irakasle esperantokoa.

- Hara!

- Esperanto. Hartu-emonen zeukan toki askotakuekin. Santi Arizmendi, esaten genion guk. Santi horrek, ba, zera... Eta oso gizon kuriosua: irakurtzen zuana zen, kultura zeukana, eta hortik kezkatuta. Gero hain umilde bizi zen, ba askok badakit nik ez ziotena... pentsatzen dute... Eibarren sartu zan giro bat gerra ondoren, dirua egiteko ez bazen gauza - ueno, lehen be zerbait egongo zen, baiña gizon balio ez duana balitz bezala. Eta nik ez neukan kriterio hori. Santi holako gizon umilla zen. Eta haregandik asko ikasi gendun. Harekin eta haren lagunak: inguruan pare bat beti etortzen ziren eta gu, gaztiaguak, batzen giñen edo irakurtzera zaletasuna geunkagunok, pinturara, eta musikara, eta danetarik. Danetik. Guk eukitzen genduzen elkarriketak era guztietakuak. Era guztietako zerak. Eta hori izaten zen... Eta hori beti zertzen zidan honek, Santik, Arizmendik, eske beran ideala zen, ba: "Ez, guk euskera bihar dugu hemen". Hau zen bat esaten zuana: "Euskeraz. Eta esperantuakin beste guztiekin harremana izango dugu". Eta hau ez zeguan beste sozialistekin be hain zera. Oin, erdera be berak maite zuan eta ondo, gaiñera, zekien. Eta asko. Esate baterako, Quijotia ezagutzen zuan buruz punta batetik bestera. Eta oso gauza kuriosua. Gero, intelektual bezala nik beste bat ezagutu nuan eta, hori bai, beti estimatu dut bere kontseilua eta berari entzutia eta berak emandako bidiak eta autoriak ezagutu eta irakurtzia. Hau zan medikua, Ignacio Zuloaga pintoriaren iloba bat, Fernando Zuloaga. Eta hau oso kuriosua zen, ze bere zaletasuna zen astronomia. Bazeukan etxian teleskopio bat izarrak ikusteko eta beran zerak zertzeko. Hortik aparte, bere aita minetako ingiñero zenez, alde horretatik bazekin geologia gauzak ere; eta, bestetik, baita ere, bazekin arte kontuan. Eta zan gizon bat oso...

- Entziklopedikoa.

- Enziklopedikua. Bai, bai. Gaiñera berak doktoradutza zerian egin zuan, Filburgon, Alemanian. Han doktoradutza egiña zen. Eta, beraz, alemanan hartuera... Bueno, ni honi esker hasi nintzen Kant eta irakurtzen.

"Ilustraziñoko alemanak irakurri itzazu", esaten zidan. Eta, bueno, Austral-eko liburuak ez ziran hain garestiak eta bilatu eta irakurri.

- Haiekin.

- Eta han Kant-ek esaten du... Galaxieri buruzko teoriak ematen dituanian, iñork ez zion konprenditzen. Eta gaur, bai. "Gaur be, zuk, baiña besteok zer dakigu galaxiena?". Oiñ oso korriente jarri da estratosferara eta juatiarekin. Eta garai haretan esaten zan: "Gizona iritsiko da ilargira". Eta nik esaten nion: "Zelan? Ba Alex Carrelek 'La incógnita del hombre-n' esaten du ezetz. Ze grabedadia galtzen dan momentutik gizona ezin dala bizi, buruz behera egotia bezala dala". Eta esaten zidan: "Ba! Harek hori esan arren...". Eta medikua zan hori ere, mediku frantses bat da. Berak

esaten zidan: "Ez, ez, ez. Gizonak lortuko du teknikan bidez "vacío" bat eta "vacío" horren barruan ez dago buruz behera egoterik". Pentsaizu zer: astronautak eta sortu baiño lehen! Hori esaten zidan neri honek, Fernando Zuloagak.

- Eta Julio Verne irakurri gabe.
- Julio Verne nik umetan irakurri nuan.
- Horregatik diot, horregatik diot.

2.6. Juan San Martin gerra garaian

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/018
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:50:56. **Bukatu**: 00:52:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Gerrako urteak. Tailer batean hasi zen lanean; gauez eskolara joaten zen, mekanika ikastera. Tailerrean, gerrarako gauzak egiten zituzten, bonbentzako ojibak, adibidez. Sasoi gogorrak izan ziren haiek. Bizimodua guztiz aldatu zitzaion.

Transkripzioa

- Eta, ba, ni lanian hasi nitzen, ez zegoen beste erremediorik, ta lanian hasi, lantegi baten, eta hori zen aitaren eta, bueno, familiaren oso ezaguna zen. Eta haiek interesakin hartu zuten eta laguntzen zidaten gauean eskolara juaten eta lantegian lana egiten. Eta jarri zidan, ba, ikasle aprendiz bezala, ba, bertako enkargadutza edo "jefe de taller" egiten zuanari laguntzen. Eta hor hasi nitzen, ba, mekanika ikasten. Eta nik hortan, ba, bueno, ba, alde batetik, suertia izan nuen. Baiña momentuak gogorrak. Gero, gaiñera, lantegian, han, lantegi guztietan Eibarren egiten zana, gerrarako gauzak. Eta gogoratzen naiz abiaziño bonbentzat ojibak egiten genduzen. Ta sarri, ojiba bat egiten, nik zenbat aldiz esaten nuen: "Nork daki -nik hainbeste bonbardeo pasau dut Bizkaia aldiaren eta Santanderren ta-, nork daki...

- Norentzat izango ote den.

-... nere aitari ez [zaion] eroriko hoietako bat". Eta horrek pentsamentuok izaten ziren, baiña gaztiak giñan ta... Baiña neretzat bizimodua aldakuntza ikaragarria izan zen. Ze nik hartu nuan orduan beste konziencia bat. Ordura arte trabiesua nintzan. Irakurtzen-ta bai, baiña... Orduan ni pertsona serioa bihurtu nintzen. Segi egin nuan irakurtzen eskuetan hartzen nuan guztia. Eta, egia esan, ba, oso... ez dakit, konstruktibista eta etxiari laguntzeko espiritu hori sartu zitzaidan. Eta, gaiñera, noberak superatzen gauzak, ez bakarrik pasatutako txarrak, baita ere aurrera begira zeozer izateko formaziño aldetik, eta ahalegindu nintzen. Eta hortik juan nintzen. Hortik aurrera, poliki-poliki, lehen esan dizut, soldadutzan, ba...

2.7. Antzinako Eibar

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Longarte, Paulino

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-086/005
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Antzinako Eibar. Orduan lana ez zen falta; 10-11 ordu sartzen zituzten egunean.

Transkripzioa

- Lanean hasi zinela diozu hamahiru urterekin?
- Bai.
- Eibar orduan erabat beste Eibar zen. Ez zen gaurkoa.
- Bai! Danak lanian... Orduan ez zeguan parorik! Holakorik ez zan entzuten. Golfo batzuk izan ezik hamen parorik ez zeguan!
- Lanean gainera, amorratzen.
- Hombre! Orduak sartzen jendia! Orduak sartzen, bai, bai! Gure aittak eta, beti, e... bueno! Hamar-hamaika ordu, hamabi be igual, eta holaxe zan! Eibar horixe izan da! Eibar, eta nere ustez inguruak be holan izango ziran!

2.8. Kontzientzia politikoaren sorrera

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-088/001
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: 18 urtera arte katolikoa; beti eramaten zuen arrosarioa poltsikoan. Irakurzaletasuna. Zalantza asko zituen, eta "marxismo reboluzionarixora" pasatu zen, baina ez zen Alderdi Komunistan egon. Gero, Sobietar Batasunean gertatutakoa ikusita, sozialismo demokratikoaren alde egin zuen.

Transkripzioa

- Gizonak bere komentzimentuei eutsi egin behar die. Nekea da horrela eustea; beharrezko da, ordea. Gizontasuna irmotasun horren bidez neurtu ohi dugu. Gure gaurko gizona txikia da garaieraz, altueraz. Baina burua zut eraman du bitzta osoan zehar: Candido Eguren, zure bitzta guztian zu sozialista izan zara.
- Ez! Ez naiz izan izan beti sozialistia. Lehelengo, hamazortzi bat urtera bittartian, katolikua izan nintzan. Eta egunero nere errosarixua, bai goiz eta bai illuntzian be, errezatzen neban. Eta nere boltsilluan egoten zan egun guztian errosarixua: hamazortzi bat urtera bittartian. Orduan [...] pixkat duda batzuek [...] eta irakurtzen eta ekin netsan gauza batzuek eta pasau nintzan "al marxismo revolucionario". Ezta? O sea ke, komunista, esate baterako, baiña ez nintzan egon partiduan, komunistan. O sea ke, "como marxismo revolucionario". Eta gero pasau ziranak Kruschev-egaz eta Rusian eruan ninduen sozialismo demokratikora. Eta gaur egunian ez dot uste marxista purua naizenik, ezta gitxiagorik be. Gaur egunian, pentsatzen dot indar ona eta indar txarra geure barruan dagola, egoismuan.

2.9. Eibar liberala

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/007
- **Iraupena:** 0:06:29. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:20:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa
 - Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Eibar liberala. O'Donell jenerala. Liberalismoa vs. Karlismoa. Ondoren etorri ziren errepublikanismoa eta sozialismoa. Eibar Karlistadetan. Inguruko herriak (Bergara, Durango) eta Eibar. Nondik datorren Eibarrek duen izen txarra. Candidoren bataioan, aita besoetakoak ume txikiari esan ziona: "ai, ume; ze leku txarretan lagatzen haut!". Eibar, Sodoma eta Gomorra.

Transkripzioa

- Eibarko eta sozialista esan dugu. "Eibartarra"...
- Ez. "Eibartarra" zelan izango zan ba? "Eibartarrak" fama hartu zeban, bai. Hori badakigu. Baiña hórrek datoz... Liberalismua agertu zanian Eibar liberala izan zan. Zergaittik izan zan? Batetik esango genduke hórrek "Caballeritos"...
- Azkoitikoak.
- ... Azkoitikuak, Oñatiko Unibersitatia, Bergarako seminarixua... Eta orduan, Zabala, bat, Rousseau-gaz laguna zan...
- Altuna.
- Altuna, Altuna, Altuna. Zabala esan dot. Altuna. Bai holan ekarri destazu nere burura. Hárek liberalismua ekarri zeben. Hárek geretxarrez juan ziran eta desaparezidu ziran Oñate eta Seminarixua Bergarakua eta desaparezidu ziran. Hórrek egon baziran eta laguntasuna eukin bazeben, Salamancak eta euki egin zeben moduan, ze modutan ikusiko genduan [...] Euskadi orduan? Alde handi bat egon zan... Galanta egongo zan.
- Dударik ez.
- Hórrek ekarri zittuen haixiak Eibarren hartu ziran itxuria. Baiña beste gauza bat dago: Gobierno liberalak, eta O'Donell generalak, kale bat daka Eibarren. Eta zegaittik? Ba hárek emon zittuen laguntasunak eta legiak hamen Eibarko armerixia eta lanak laguntzekuak. Liberalismua burgesiak ekarrittakua da, ezta?
- Burgesia ilustratuak.
- Bai, ba, burgesia ilustratuak, baiña burgesiak ekarrittakua. Eske eze nobleziaren eta elixiaren kontra; libertadiak eskatzen zittuen eta hortitxik etorri zan liberalismuori. Eta hamen, guretako, Eibarrendako, liberalismuak esaten detsuten moduan, zelan O'Donellek kalia daukan euki zittuan hórrek ontasunok. En cambio, lehengo jauntxuak eta karlistak pixkat gogorak ziran. Eurena bakarrik [...], eurak agindu. Lagundu bai bestieri, baiña eurak agindu, euren zerakin. Eta hori albo batera lagatzeko, eibartarrak, nik uste dot, hartu zebela liberalismua, komerziuan, lantasanian... En fin. Eta horregaittik izango zirala nik uste dot lehelengo sustraixak liberalismuanak Eibarren. Hórrek izango zirala. Eta gero etorri zan republikanismoa eta sozialismoa eta geroko zerak dira hórrek, gero etorri ziranak.
- Bai, horiek gero beste seme batzuk dira.

- Horregaittik. Liberalak ez ziranak, karlistak, Eibarri fama txarra emon zetsen. Eske eze Eibar zan punto bat Donostiagaz eta Bilbogaz eta, ez dakitt, Irunegaz, ziran ez ziranak karlistak; mordo bat zeguazen han liberalak. Lehelengo gerran asko resistidu zeben Eibartarrak, baiña gero Zumalakarregik irabazi zeban batailliori eta Eibar hartu zeben. Baiña borroka haundixa eginda. Eta bigarren Karlistadan zientuka gizonak iges egin zeben Donostiara Aiuntamientu guztiagaz. O sea ke, Eibarrek ez zetsan emon laguntasunik karlismuari. Eta hórrek ekin zetsen eibartarrak gaiztuak giñala, madarikatuak giñala.

- "Eibartxarrak".

- Eibartarrak. Hórrek ekin zetsen. Eta esango detsut: bat, nere aitta besuetakua, Elorrixoarra, ez dakitt kabua ala sargentua izan zan karlistegaz; eta harek, ni bautizau ninduanian, despedidia izaterakuan, "Ai, ume, ze leku txarretan lagatzen haut".

- Eibarregaittik.

- Eibarregaittik. Hori amak eta tiak neri kontatzen... sarrixan esaten zesten hori: "Hire aitta besuetakuak hauxe esan zeuan". Bai, bai, "eibartxarra". Eibarrek fama txarra euki zeban, madarikatua zan Eibar.

- Beltzak.

- Hori beste bat da. Fama txar bat euki genduan. Nik ezagutu dittut Bergaran dominikuak. Han egon nintzan urte bixan komerziua ikasten. Eta zelan zeuken Bergara bertan dago ba, dominikuak ez dira zer batzuek ez dakixenak irakurtzen-, hárek zeuken Eibarregaittik txarrak giñazela, jente txarra zeguala Eibarren. Eta gu ikusten ginduzen han, sei bat eibartar gebizen han kolegixuan. Eta ni egunero komulgatzen nintzan. Baiña eibartar danak txarrak euren dako. Eta behin etorri ziran, eskursiño baten etorri giñazen, eta hamengo jentiagaz egin zeben hitz eta etorri ziranian kolegixora esan zeben: "Bueno, eibartarrak bestien modukuak dittuk: onak eta txarrak".

- Gogoan hartu behar da, Candido, bada liburu bat, mende bukaerakoa. Titulua hauxe dauka: 'Liberalismoa pekatu da'.

- Ez dot hori... hori ez daukat aittu biharrik! Esaten detsut herri madarikatua giñala. Nik euki dittut lagunak Bergaran eta Durangon, aittak esaten zetsezena eibarrera ez etortzeko! Hau Sodoma eta Gomorra zala!

- Jesus, Maria!

- Kriadak morduak etorri dira hamen, Azkoittitik eta Azpeittitik eta hor aldetik, eta ez zetsenak lagatzen, esate baterako, Eibarrera etortzen. Eta gero Eibar ikusi zebeñian zer zan, "Ene, baiña ez dok hau Eibar, gure aittak eta gure senidiak esaten zeskuena! Hau beste Eibar bat dok!". Asi ke, hortitxik dator Eibar txarra izatia.

- Gizakiok beti izan dugu joera bera. Ezezaguna, ezagutzen ez duguna, hori kondenatu eta, gainera, ezagutu nahi ez.

- Bai, hori da. Hori umetatik ikusten da: lehelengo kalera urtetzen dozunian edo herri batera juaten zaranian, herri batera, neri pasau jatana, neri pasau jatazenak dira, lehelengo laguna ikubilkadaka, burruka bat egiñ eta gero.

- Egitten dala?

- Así ke, hor badakagu hori famiori.

2.10. Elkartasun handia Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-088/008

- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:22:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Eibar, herri solidarioa, nahiz eta fama txarra izan. Laguntasuna; diru-batzeak ospitalerako, etab.

Transkripzioa

- Baiña ez garazenak txarrak Eibarrek ejemplo asko euki dittu, asko eta asko. Bat, esango neuke, hamen egon danian Ospitalerako egin bihar dala edo zeozertarako egon bihar dala dirubatzia, musikiak urtetzen zeban, banda osuak, eta izara haundixegaz laurak hartuta iskiñetatik, kalerik kale juaten zan eta diru mordua batzen zan. Edozer espektakulo benefizientiarako, Ospitalerako zala, diru mordua batzen zan. Herri batzuek hamen... Bat akordatzen jata, bueno entzuna hobeto esanda: Ondarruan behiñ itto ziran hamazazpi gizon. Eta Eibarrek lagundu zetsen háleri herri baten eta bestian dirua batu eta bialtzen. Gero, eurak ondarruatarrak be guri asko lagundu zeskuen, iñoiz hamen krisiak egon ziranian geuri bialtzen euren arraiñak. Bilbon egon zanian huelga haundi bat, minetan, hamen berrogetak mutillak egon ziran Eibarko etxietan, denpora askuan, ez egun bat eta bi. Amaituta be oindiokan huelgia, hamen segidu zeben eta mordo bat geldittu ziran betiko. Eta Madriden be egon zan, 34 inguruan, huelga bat eta handik be berrogetak etorri ziran eta hamen famelixak Eibarkuak hartu zittuen hárek umiak eta hamen egon ziran. Eta han be, madrittar batzuk hamen geldittu ziran. Eta hori egitten daben herri bat zelan izango da txarra!

- Nik esango dizut Valdepeñasen uholdeak izan ziren eta han dago jarrita letrero bat "Eibarri eskerrak emanez", eibartarrek lagundu zitelako.
- Ez nekixan nik hori. Baiña esaten detsut, gauza mordo bat esaten detsut, eibartarrak famia eukin dogula, baiña alde batetik etorritako famia, euron kontra egin gendualako, euronak ez giñalako.

2.11. Krisialdi larriak 1914-1920 inguruan

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/015
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:49:43. **Bukatu:** 00:54:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Eibar herri solidarioa. Herri-sukaldeak 1914 eta 1920an. 1914an Arrateko bidea egin zen. Timoteo Zubiate. Wenceslao Orbea.

Transkripzioa

- Lehen Toribio Etxebarria aipatu dugu. Alfa aipatu dugu eta beste gauza bat ere aipatu nahi nuen: herri sukaldeak antolatu zuela eta "Casa del Pueblo"a.

- Bai. Hórrek bixok be ondo daukadaz buruan. [...] "Cocinas populares", hori agertu zan 1914an, gerría etorri zanian. Erdi edo hiru laren behintzat, geldittu ziran lanik barik Eibarren. Frontería itxi zebanian Franzia ez zoian grabaurik, damaskinaurik, Franziarutz eta armarik be ez. Eta geldittu zan lanik barik Eibar. Danak kalia edo gehixenak behintzat.

- Esportazio dena itxita zegoen.

- Biharbada eskopeta batzuek egingo ziran Espaiña barrurako, baiña kanporako bat be ez, dana zerrautak zeguan eta. Eta gose galantak pasau ziran. Orduan pentsau zan hórrek "cocina popular"ok ipintzia. Eta sozialistak hiru zeguazen orduan. Uste dot hiru bai behintzat: Bernedo, Amuategi, Urrejola. Hórrek behintzat bazeguazen orduan Aiuntamientuan. Eta hórrek pentsau zebe horixe "cocina popular"ori ipintzia. Eta han, hutsa diruagaittik, bai bazkarixa eta bai afarixa lapikukadaka saltzen zan, merke-merke, danendako. Ez zan bakarrik ha biharra ez zeukenendako; eske eze herri guztiandako zan. Eta batzuek, aberatsak be, irakustiarren eurak be herrixan dagozela erosten zebe hori jatekuori. Hori bi aldiz pasau da: bat hortxe egunotan horixe krisisori, 1914kuori, eta gero 1920xan, huelgia egon zanian, bardiña egin zan, orduan be "cocina popular" ipiñi zan eta lanik ez zekanak horixe rantxuori jaten zeban, hutsa diruagaz. Jateko onak, e!

- Bai, bai.

- Ondo ipiñitta eta ondo eginda. Eta abundante, gaiñera. Hori bi aldiz egon da hamen.

- Horrek esan nahi du kontzientzia gogorra zegoela.

- Bai. Laguntasunerako, lehen esan dogun moduan, ez da Eibar txarra izan: Eibar bihotz onekua da, izan zan behintzat.

- Eta gero "Casa del Pueblo".

- Bueno [...], hor zerian, 1914an egin zan hau bidia Arraterakua. Bueno, hobeto esanda, Ixurakua. Sozialistak presentau zebe moziño bat esaten eze juntau bihar dirala dirua zeken guztiak: fabrikantiak eta komerziantiak eta danak, laguntzeko Eibarren lanik barik zeguazen gizoneri. Eta orduan Timoteo Zubiategi hori konserbadoria eta asko egitten zebana berba Orbeagaz, Wenceslao Orbea orduan diputaua zan Gipuzkuakua presentau zebebian hori sozialistak, fabrikantiak eta danak, harek ekarri zeban proposiziño bat: "Zergaittik ez obra batzuek egiñ?". Eta sozialistak, koño, ikusi zebebian konserbadorien laguntasuna zekela, etara zebe proiektuori. Proiekto bat zeguan, Eibar-Markiña, zeguan bide bat egittekua. Eta haixe atara zan kanpora. Eta handik egun batzuetara hori aprobau da Aiuntamientuan eta handik egun batzuetara 400 persona zeguazen lanian, "pico y pala" [...]. Orduan jua ziran lanera limia edo martillo txikixori [hartuta], makullu txikixori, martillo txikixori erabiltzen zebebak grabadoriak danak han jua ziran euren eskuak kalluz beteta eukitzera. Eta 400 bat jua ziran lanera orduan. Hori be kontuan hartu bihar da. Gerria... pixkat zabaldu zanian frontierak, orduantxe aillegau zan... zeguan bidiori Ixuraiñok eta hantxe geldittu zan.

2.12. 1936ko Gerra Zibilaren ostean exiliora

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-089/008
- **Iraupena**: 0:20:46. **Hasi**: 00:42:55. **Bukatu**: 01:03:41
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
 Aisia » Kultura » Irakurtzea
 Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
 Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

- **Laburpena:** Gerraosteko kontuak. Kartzelatik irten eta Ormaiztegiara joan zen. Frantziarako bidea: Legazpira joan zen "Juventudes Socialistas"eko batzuekin elkartzera, baina Guardia Zibilek ezagutu egin zuten. Frantziara joatea erabaki zuen urte gutxi batzuetarako; azkenean 30 urte igaro zituen bertan. Pentsaera guztietako lagunak zituen. Komunismoa; Alderdi Sozialista. Demokraziaren aldekoa.

Transkripzioa

- Gerra amaitu zen, kartzelako urteak ere amaitu ziren, eta Candido Eguren, Eibarrera ezin, eta Ormaiztegiara.

- Bai.

- Baina Ormaiztegin ere, ba... santu fama ez!

- Ez neukan santu famarik, ez neukan! Neukan, pixkat gaiztua nitzala. Bueno, o sea ke, reboluzionarixua nitzala!

- Eta hor izaten zenituen... Zuk, barrutik, zeure komunismoa zeneraman!

- Bai! Baiña ni horregaittik ez naiz gaiztua! Komunistia izatigaittik! Nik danen ontasuna nahi dot! Ez dot nahi kalterik iñondako be!

- Bai, baina hori orduan ez zen hala.

- Halan ez zebela hartzen? Baiña nik halan hartzen neban! Eta nik uste dot —lehen esan detsudan moduan— danok barruan dakagula, nahittasun ona danandako. Ondasuna euki nahi dogula danok! Eta bai reboluzionarixuak eta bai relijiosuak, hori barru-barrutik dakagu!

- Baina, orduan, Candido, Frantziarako bidea hartu behar izan zenuen. Nolatan gertatu zen hori, Frantziako hori?

- Ba, Frantziakua —esan detsuten moduan— ba, ikusi ninduen, kartzelatik urten nebanian, nere lanak egitten nebillela ondiokan, geure "Juventudes Socialista"ko jentia gaz eta harrapau ninduen, ba, Legazpitan. Legazpin, ezagutu ninduen, Guardia Zibillak izen eta apellido eta gatzizenak emon zittuan neriak...

- Baina, noiz, nola izan zen Legazpikoa? Zertara joan zinen zu Legazpira?

- Hara jua nintzan, nere lanera; partidoko lanera! Baiña, kamufleta, segurosko asuntua neroiala eskuan! Eta jua nintzan ni, esatera hari mutillari zelan reunidu bihar giñazen Zumarragan hango inguruko batzuek. Ni jua nintzan, geure lana egittera! Francoren kontra, ondiokan kanpua giñazen! Ez giñazen gu Francogana jarri! Eske eze kartzelatik urten eta lehenagoko gerria pasau arren, ondiokan geure ideak segitzen zeban!

- Eta hor izan zenuen... guardia zibillak atzetik zebiltzala.

- [...] Segidu egin zesten, ezagutu egin ninduen, eta zelan, nik falta bat egitten baneban, zelan galtzen nittuan lehen irabazi nittuan deretxo guztiak, nik nere lanian, [...] sei urte gehixago egin nittuan. O sea ke, premixu moduan! Eta orduantxe ez baneban igesik egiñ, oktubrian libre neguan danetik; baiña zelan ondiokan ez zan hori oktubriori aillegau oktubria baiña lehenagotik ba, falta baten hartu ninduanian, hórrek sei urtiok irabazi nittuanak, danak galtzen nittuan. Eta atzera preso sartu bihar neban! Eta gaiñera, zelan ikusi ninduen sozialista batzuegaz —bazekixen hori gaztiori sozialistia zana. Guardia zibillak bazekixen Legazpiko hori zerori zelan sozialistia zan, responsablia gaiñera Juventudekua— ba, ikusi zeben ni lanian nebillela ondiokan euren kontra.

-Nola izan zen abentura hori Legazpin?

-Nik bi aldittan ikusi nittuan guardia zibillen trikornixuak, begiratzen, zeretik, kale eskiñatik! Begiratzen ikusi nittuan eta: "Ene! Ezagutu najuek! Ikusi najuek!". Eta hori pasau jatan hor e, kale haundi baten, bide bat. Han ikusi ninduen lehelengotik. Eta gero, elixan. Arkupia badago ba, elixan? Ba han, alde batetik agertu zan, trikornixua lehelengotik eta gero etorri zan hori apaizori. Nere liburua eskuetatik kendu zestan hori! Eta galderak egin

zestazena, aber zein naizen, nungua nintzan, zer neukan eskuetan irakurtzeko liburu hori , eta danok harek egin zestazen. Baiña zelan ikusi neban nik, guardia zibil bat aurretik pasau zala han, pentsau neban: “Hau bialdu jok aber zetara etorri naizen jakitzera”. Eta —esan doten moduan— ikusi nebanian hori, ba, nere bildurra hartu neban eta anaiari esan netsan: “Hanka egin biharko juat. Harrapau najuek nere lanetan, eta hanka egin biharko juat hamen”. Eta hurrengo egunian, jua giñazentian Zumarragara nere anaia foballista amorratua zan eta haregaz jua nintzan Zumarragako partido bat ikustera lagun batek —Balerdi, uste dot holako apellido bat zala — esan zestan: “Eguren, zelan habill hamen?” , “Partido bat ikustera etorri gaittuk”. “Hik ez dakik, hik han etxetik urten ebanian, guardia zibillak jua zirala hire izen, abizen eta gatxizenegaz? Hire preguntez, aber zetara jua haizen eta papelak ikusi zittuenak han etxian?”. Baiña nik laga netsazen hari papel batzuek, seguruetako papel batzuek laga netsazen. Baiña nahikua abiso izan zan, guardia zibillak bazekixela ni nebillela lanetan. Eta aurreko egunian, precisamente, egon nintzan Beasaiñen; deittu zesten, nik kanpora urtetzen dotela. Eta: “Bai, nik egunero liburu bategaz pasiora urtetzen dot bai Zumarragarutz edo bai Beasain alderutz, baiña etxera juaten naiz illuntzietan”. Eta, hartuta zeken: “Bai, bertako andra batek esaten desku zelan sartzen haizen etxian gaba guztietan”. “Bai, ni pasio bat hartziagaittk!”. Eta ni juaten nintzan Donostiara edo Zumarragarako partera, nere lagunak ikustera. Nik ez neban laga nire lana, kontra, Francondako. Nik ondiokan, karzelatik urtenda be, han segitzen neban, firme! Eta hari esan netsan hori, eta aurreragoko egunian guardia zibillak hartu zebe haren notizia eta bestian notizia, ba, kontradikziñua zeguan!: “Zelan dok hau! Hau alde guztietan dabik eta ez dabillela ezertan?” Orduan pentsau neban, hobe izango zala, hórrek urtiok galdu eta karzellan sartu barik, Franzian egun batzuk edo urte batzuek egiñ eta etxera etorriko nintzala gero. Eta holantxik, pasau egin neban narrutsik, bildotsik, febrero baten —edo martixan lehelenguetan?— Bidasoako errekoa, kontrabandista batzuegaz. Euron pakete bat hartu buruan eta han pasau ninduen Franzia!

- Eta bai, urte gutxi batzuk izango zirela, eta zenbat urte egin zenituen orduan?

- Ba, nik esaten neban orduan —pixkat pesimistia izaten nintzan alde guztietan— bai 34an eta bai 36an esaten neban, lau bat bost bat urte egin biharko [nittuala] estranjeruan. Ixa jan egitten ninduen lagunak: “Zelan! Pesimista! Hi derrotista bat haiz!”. Eta: “Nik pentsatzen juat horrenbeste urte egingo dittugula hamen, estranjeruan”. Eta, 30. 30 urte egin nittuan Franzian.

- 30 urte ez da...

- Ez da txantxetakua, ezta?

- Ez. Urte asko dira. Egun asko dira Frantzian egoteko.

- 30 urte egin nittuan han, Franzian.

- Eta gainera, denetik tokatu zitzaizun! Era guztietako lanak egin behar izan dituzu.

- Danak! Lehelengotik egon nintzan... Nere lagun batek eruan ninduan beraren etxera, eta hárek —andra bategaz bizi zan— egitten zebe pakete batzuek. Zerrautsa batu pakete baten, eta harek saltzen zittuan zeretan, restauranetan eta, barretan eta, hoteletan eta saltzen zebe, neguan badakizu botatzeko lurrera.

- Lurrera eta botatzeko.

- Eta juaten giñazen zerrautsa batzera karro bategaz. Nik hartu hamendik soka bat eta zer guztiok, eta kaballo baten moduan, han juaten nintzan haregaz karromatuagaz zerrauts billa. Eta gero, saltzera be, haretxegaz, Toulouseko kalietan ibiltzen nintzan.

- Toulousen?

-Toulousen. Egunaldi txarregaz. Negua zan, eta egualdi txarregaz gabian zera saltzen, zerrautsa saltzen. Hori lehelengotik! Gero billau neban, zerian: kontrukziñua. O sea ke, "pico y pala"!

- Bai, pioi bezala.

- Pioi bezela. Hango pikatxoia eta hango [falokan] erabilli nittuan, eta han eguraldi txar bat egin zebanian laguneri esan netsen: "Nik ez jaukat janztekorik hamen ezer be eta, zelan juango nok ba, eurixagaz lanera? Gero zer egin bihar juat ba, busti-busti eginda zer egin bihar juat ba?". Eta, konbenzidu nittuan eta egin genduan huelga modoko bat, ezta? Nere lagunak be, ez zebeñ lanik egiñ. Eta kastigu moduan, nere ugezabak, arrasaldian, bestieri ipini zetsen euren lana etxietan eta ni kaliañ laga ninduan. Hori ikusi nebanian, beste lan bat billau bihar neban. Eta billau neban, zerrerixa baten. Han, egurrak ebaten, eta bateri laguntzen eta en fín! Eta, al mismo tiempo, egitten genduan, zelan zan konstrukziñoko materixalen almazen bat, ladrilluak, eta [bastenak], hónek egurrok haundixok, eta...

- Baina, begira, barkatu. Golpetik egin behar dizut galdera bat: badakit zeure bizitzan, irakurtzea izan dela zeure zaletasunik handiena.

- Bai.

- Eta orain ere, bista galduta edo oso baju daukazula, ONCEk eman dizu modua zerbait irakurtzeko.

- Zerbait irakurtzeko, bai.

- Bai, baina hala ere, zeure zaletasun hori, jakiteko zaletasun hori, amorratua da, eta zintak ere entzuten dituzu, denak.

- Bai.

- Bueno. Baina galdera hau da: zure irakurtzeko amorru hori ikusi, eta pioi lan egin ondoren, etxera ailegatu eta irakurtzeko gogorik izaten zenuen?

- Ba, gramatika frantsesa, memorixaz ikasi neban!

- Ez ezazula esan!

- [Parker...]

- [Parker...], bai, bai, bai. Behar du, buruz!

- Ez bakarrik hori! Lekziñuetan laguntzen netsen nere lagunak alaberi eta semieri! Fransezeko temak eta egitten, eta inglesekuak, laguntzen netsen. Ordu mordua pasau dittut nik Franzian lekziñuak laguntzen nere lagunak seme eta alaberi.

- Lana bukatu ondoren!

- Lana bukatu ondoren. Eta sarrittan, afaldu barik ondiñok. Igual gabeko hamabixetan afaltzen neban batzuetan!

- Borondatea izan behar da izugarria, lan egin ondoren eta nekatuta bueltatu eta zera, liburuen artean sartzeko!

- Bai. Anekdotak moduan esango detsut hau: nere lagunak baten alabiak — gaur Korzegana bizi da— inbitauta nago zer batera! Hango, beraren biloba ezkontzen jako eta hara juateko. Baiña ez noia hara. Urrin da Korzega. (Zarata bat entzuten da eta Candido isildu egiten da)

- Segi, segi.

- Ba, oin juañ jata pixkat, zera, hilobalia.

- Korsikako lagun hura...

- Ba, harek ikasten zeban, hamengo batxilleratua, ezta? Holako bat. Baiña, klasikua. Eta klasikuetan eskatzen zetsen ikasteko, latin. Ba, egitten neban, zapatuetan eta domeketan hárek lekziñuak astekuak ikasi neuk, eta gero hari neskatxuari neuk lagundu beraren lekziño latiñekuetan. Urtebetian jardun neban holantxek.

- Eta azkenean zeuk latina ikasi zenuen.

- Latin, edo! Orduan bai baiña gaur ahaztuta daukaraz. "Homo, hominus

lupus” edo, holakotxe bat gelditu jaku! En fin, urtebetian egin neban, zapatu eta domeka guztietan, nere lekziñuak ikasi, hari laguntzeko. Anekdotak moduan!

- Bai, bai, bai. Ez da anekdota txarra! Hain zuzen ere, zuk... kasik, esan dezagun, lan probisonalak egin behar izan zenituela hasiera batean!

- Ez dakit nik! Nik egin dituden gauzak, neure ontasunian egin dituden eta pentsaurik bestieri lagundu bihar [detsetela]. Nik gauza bat ikasi neban han —eta hau zan karzelan neguala, Santanderren— Madame Blavatsky, hori e... [teosafa] bat! Harek esaten zeban: “Gizonaren ontasuna ikusteko, bihar dala, bestiak ez daben nahi lana, noberak hartu noberandako”.

- Bai, bai, bai. Besteek nahi ez duten lana, noberak hartu.

- Noberak hartu noberandako.

- Ba, denetik egin zenuen, ze nik hemen daukat, barrendero ere ibili zirela.

- Bai! Han Franzian, barrendero be bai! Lehelengotik, zerrerixan, eta hori aurretik, zerak... garbitzen azerak eta...

- Bai, kale garbitzen.

- Ha be egin genduan! Tximiñixak garbitzen be bai! Eta gero, zerak, elektrodomestikuak montatzen be bai! Eta gero almagazian egon nintzan jefe: "de jefe de recepción" egon nintzan gero almagazian azkenengoz.

- Tailerretan ere ibili zinen!

- Tailerretan ez! Tailerretan, ez.

- Tailerretan ez?

- Ez, tailerretan ez. Almagazian.

- Bitarte guzti horretan, bertako sozialistekin, komunistekin eta, harremanak?

- Nik, bat danegaz. Ni, orduan, komunistia nintzan ondiñokan! Nere ideia kanbixau zan, hantxe, Franzian! Ikusi nebanian Rusian zer pasau zan! Bueno, banekixazen, e? Kruschew-ek esan zittuan guztiak, ordurako irakurritan nenguan ni harek esan zittuan guztiak Stalin-engaittik. Nik irakurri dituden: 'J'ai choisi la liberté', Kravchenko-na; hau... Koestler-en beste liburu batzuek [...] kontra, eta, irakurri nittuan Rusiaren kontrako liburu... nere eskuetan jauste ziran guztiak. Eta bat, hori: 'J'ai choisi la liberté' "Yo escogí la libertad" Kravchenko-na, patronu batek emon zezan!

- A hor ba!

- Patrono batek esan zezan: “¡Tú eres comunista! ¡Lee esto!”

- Irakurri hau.

- Refugiau moduan emon zezan hori zerori (Barre egiten dau). Baiña ordurako banekixazen. Ni ez ninduan e...

- Bapatean, ustekabean harrapatu.

- Pentsau nebanian "Partido Socialista"ra pasatzen, ba, ikusi nittuan —[...] be irakurritan eta— hango Rusian ze pasau ziranak, hórrek be banekixazen. Baiña ez zezten meillarik egiten. Ez ninduen mudatzen nere pentsamentuegaz. Esaten neban: “Gerran be egin jittuagu gauza zikin mordo bat gerrira irabazteko”. Orduantxe sartu nintzan ba, ni... Gerra ixa bukatzera Asturiasen, etorri jatan: “Ni ez nok sartu komunistetan ez nebalako hartzen ontzat ‘El fin justifica los medios’, Jesuiten: ‘A mayor gloria de Dios. A mayor honra y gloria’”. Hori ez neban zertzen. Baiña gerran, zelan ikusi nittuan zenbat txarrikerixa egin ziran, eta zelakuak giñazen, orduantxe esan neban: “Hori ez dok nahikua batek noberari debekatzeko ideia baten sartiaz.” Eta holantxe sartu nintzan! Baiña hori, lehelengotik, gerran ikusi nittuan gauzegaz. Ni, ez bazan izan gerrira, biharbada, beti egongo nintzan... ez nintzan egongo fabore: “El fin justifica los medios”. Horren kontra egongo nintzan! Hantxe gerran azertau neban eta orduantxe, hórrek irakurri arren, Rusiakuanak, ni ez nenguan Rusian kontra. Baiña eruan ninduan Kruschew-en kontra eta komunismuaren kontra, engañau zittualako beste komunistak guztiak, munduko guztiak. Han

egon ziran, lehelengotik, internazionala -"Reunión Internacional de los Comunistas"- eta han, Kruschev-ek ez zeban hitz txiki bat be esan zeraren gaiñian, Stalin-en gaiñian. Eta hónek gizonok jua ziranian euren herrixetara, burgesiako periodikuetan irakurri zebe zer esan zeban Kruschev-ek . Eta orduan atzera reunidu ziran, bai Belgika, eta bai Frantziako, eta bai Inghaterrako, eta italianuak, eta danak juntu ziran, prinzipalok, komunistok, eta atzera jua ziran Rusiara. Zer esan zetsen, ez dakit. Baiña hárek engaiñau egin zittuen, eta nik esan neban: "Zelan dok hau? Noberan laguneri esan ez, zer esan bihar zeban handik egun bat edo bira?". Horixe hartu neban txarto. Horixe hartu neban txarto-txarto, eta orduantxe esan neban: "Bueno, hamen ez dagok nere lekua, beste leku batera jua bihar nok". Eta hori lekuori, pentsau neban, Partido Sozialistia izan lekiala. Eske eze, ideak, ba, pixkat lagunak, ezta? Behintzat, kritika-ekonomika marxismuan. Eta orduantxe pentsau neban, ba: "Zerera jua bihar nok". Baiña zelan pentsatzen neban, gerraz ez giñazela sartuko gu, Reboluziñua eta ez dala egongo Españan; sartu bihar giñazela, esan deigun, "por la puerta falsa". Eta "por la puerta falsa" sartzeko, danok egin bat bai monarkikuak, bai komunistak, bai sozialistak eta holantxe sartu bihar giñazela, baiña ez Reboluziñuagaz, baizik demokraziagaz. O sea ke, gure armia, hamendik aurrera, izan bihar zala demokrazia. Fernando de Los Ríos-ek esaten zeban bezela beran idatzizan.

- Hor, Frantzian, zuk ezagutuko zenuen Frantziako komunisten buru, Thorez.

- Thorez, bai.

- Eta gero, Marchais.

- Bai. Ez da denpora asko hil dala Marchais.

- Bai, duela gutxi hil da. Baiña, Thorez, nor zen Frantzian?

- Thorez, gizon... langille bat zan! Baiña buru haundiko gizon bat. Eta haren komunismua zan, orduangotxe komunismua. Ondiño, pentsatzen zan, ez zittuala hórek gauzok egitten Stalin-ek! Pentsatzen zan Partido Komunistiak ondo funzionatzen zebala. Eta ondo funzionatzen bazeban, ba, gauzak ondo eginda egongo zirala! Gero agertu ziran jentandako, gehixenendako, ba, gero agertu zan zer egitten zeban Stalinek. Berak gerrak egin zittuan gauza guztiak! "Proceso de Moscú" eta harek egin zittuan guztiak. Teoriko guztiak, Reboluziñuanak izan ziranak, hárek danak garbittu zittuan!

- Europako gerran ibili ziren soldadu guztiak bidali zituen gero.

- Bai, Trotski be, Ameriketean, beran ordenagaz hil zebe! Hórek jakin ziranian, mordo bat, ba, zerian... Baiña, orduan, Thorez-en denporan eta, komunismua, Frantziako... intelektual, %75a ziran komunistak!

- Asko ziren, asko ziren! Sartre eta, izen handikoak! Camus bera ere bertan ibili zen, eta...

- Asko! Ha ideologixia, poetak eta... beste mundu barri bat! Ha zan! Prieto kontrarixua izan zan ba, beti, komunistiena, baiña irakurritta nago liburu baten: "Puede ser el crisol de la nueva humanidad". Indalecio Prietok eskribidutakua da hori. Eta Toribio Etxebarriak, beraren liburu baten, esaten dau: biharbada, Grezia izan zan moduan zibilizaziño baten ama, hau be izan leikek —komunismua be izan leikek— beste zibilizaziño baten ama. O sea ke, orduan zekiguna, Rusiakua, engaño bat izan zan, Partido Komunistiak egin zeban informaziño guztia —danak onerakuak, eta danak zererakuak— ez genduan ikuste benetan, zer pasatzen zan han.

- Aizu, zuk zer irrati entzuten zenuen, Toulousetik, `Pirenaica´ ala `Paris´?

- Orduan, `Pirenaica´ zeguanian, lehelengotik, `Pirenaica´. Han entzutzen genduzen, naturalmente, Españarako zer guztiak eta! Hori entzutzen

genduan! `Pirenaica´. Generalmente, españolok, `Pirenaica´ genduan gehixenok hartzen genduana.

2.13. Exiliotik Eibarrera itzulera

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-089/010
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 01:07:40. **Bukatu**: 01:11:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Exiliotik itzulera. Franco oraindik bizirik zegoen. Bere asmoak zeintzuk ziren. Eibar guztiz aldatuta ikusi zuen. Berreraikuntza.

Transkripzioa

- Azkenean etorri zinen etxera. Zer urte zen bueltatu zinenean, Candido?
- Ba, 1975ian, abruillan [...]. Ondiñokan bazeguan Franco.
- Franco. Bai, azkenengo urtea, Francoren azkenengo urtea.
- Nere pentsamentua zan beti, nik Eibarrera etorri bihar nebala, ahal nebanik bixkorren. Eske eze, hamen ni zelan izan nintzan responsablia —"como comisario"— baneukala responsabilidadia hango pensionistak izan leikiazenak —hango geixuak eta—, háreri lagundu egin bihar jakuela. Eta etorri nintzan horretxetara, horixe lanori egitteko asmuetan —háretxeri laguntzeko asmuetan— eta Partido Sozialistia matxan ipintzeko moduetan [...] etorri nintzan. Hamen esan zestan batek: "Baiña zetara hator? Hi, entzun juat... —Eibarrera etorri nintzan egun baten. Ez dakit, bateronbat [hildakua egitten jatan] eta etorri nintzan eta kafe baten esan zestan— Hi, Oka, entzun juat, Partido Sozialistan Benignok esanda, Partido Sozialistara hatorrela". Eta: "Bai, Eibarren, etortzen naizen momentuan, Partido Sozilistan egongo nok". "Zertara hator? Zer pentsatzen dok?". "Ba ni, kontablia nok, eta kontuak eruateko eta listak egitteko, eta idatzi bihar dan kartaren bat egitteko; ofizinista moduan nator ni. Ni ez natok karguen billa!", esan netsan. Eta holantxe neukan neure buruan sartuta, halantxek egin bihar nebala, laguntasuna emon bihar netsela geure gudarixeri, ya ke eta eurak agindu nittuan gerran, gerra ostian be, lagundu egin bihar netsela. Horretxegaz ideiorregaz etorri nintzan. Eta lehelengo mometua hartu nebanian, lehelengo pasaportia emon zestenian, hamen agertu nintzan. Baiña ondiokan, ez zeguan e... Franco bizi zan, ondiñok.
- Zuk pasaporte Frantsesa zenuen.
- Frantsesa hartu neban; baiña lehelengotik, etorri nintzan lehelengo bisittan, arreba bat hil jatan eta haregaz etorri nintzan —nere emaztiari, hil zanari — emaztia bialdu entierrora eta ni, Hendaian gelditzekua. Hendaian billau neban andra bat —Donostiarra zala uste dot — laguna zana, Hendaiaiko konsul españolaren laguna bera! Kartetan, eta holako gauzetan, euren ipuiñetan... Eta esan zestan: "Koño! Ba neuk egingo euat pasatzeko!". "Eta eruan ninduan hara konsulaura, Hendaiaikora, eta han egon nintzan goixe guztian; deittu zeban Madridera, deittu zeban Eibarrera, deittu zeban alde bata eta bestera, eta halako baten, papel bat emon zestan, hamar egunerako permisua, Eibarrera etortzeko —arrebia hil jatanian —. Eta etorri nintzan, haretxegaz papelagaz etorri nintzan. Eta haruzkuan, ordu bete inguru han fronteran euki ginduazen geldirik, horixe papeleri dala eta ez dala.

- Hara! Bueltatzen zera, eta zuk ezagutu zenuen Eibar eta aurkitu zenuen Eibar, bi Eibar diferente ziren!

- Bo! Eibar ikusi nebanian nik, ba, lehelengotik dana apurtuta ikusi neban azkenengo! Hamen... esan detsuten moduan, errekan lanian jardun neban —["como.... penado"]— sei hillebetian, hor jardun neban lanian. Azittaiñen eukitzen ginduezen presuok eta gero etortzen giñazen formauta geure lan lekura, eta hor egin nittuan sei hillabete! Eta ezagutzen neban haixe, Eibar apurtutakua ezagutzen neban. Eta etorri nintzarian, ba, dana barriztuta: kaliak eta etxiak eta dana, barriztuta. Eta jentia, ez detsut esaten! Gu, hamahiru bat hamalau bat milla izango giñazen gerra aurrian eta gero berrogeta lau edo berrogeta bostegaz millagaz etorri nintzan! Ba, ikusi egizu zelako aldia dagon batetik bestera!

- Baina, ilusioarekin ere bai!

- Ilusiñua? Ba, hori ba! Esaten detsut: ni etorri nintzan, lanera! Eta lana egin neban, ikustia, eze UGTiak, nere lanagaittik, plaka bat dakat nik! Nere lanagaittik agradezitzen haixe!

2.14. Eibar eta sozialismoa

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/001
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: Pello Zabaletak Eibarko herriaren gorazarre egiten du. Eibarko sozialistek historia luzea dutela herrian dio. Jose Etxeberria `Querido´, eibartar sozialista. Gaitzizenaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Eibar: herri berezia, lehenago eta gaur. Historia bizia du. Bizitasunez egindako historia. Eibarren, sozialistek ere, historia luzea dute. Izen inportanteak badira Eibarren eta eibartar sozialisten artean: Toribio Etxebarria bat, edo Benigno Baskaran bat, eta beste hainbat eta hainbat. Gaur sozialista bat dut solaskide, baina eibartarra.

- Zer zara zu gehiago, eibartarra ala sozialista?

- Eibarko sozialistia; eibartar sozialistia.

- Gero ikusi beharko dugu hori zer den, ezta? Jose Etxeberria. Hala esan behar da ala Jose `Querido´?

- Zuk Eibarren galdetzen badozu "Jose Etxeberria", igual ez detsue emongo erantzunik. "Jose `Querido´"? Jose `Querido´, askok pentsatzen dabe, kanpotik etorri dan... nere abizena dala zera...

- `Querido´ hori.

- ... `Querido´. Eta ez; da gatxizena esaten dabena. Nere [iriatonari] jarritako gatxizena da. Asieske... bastante urte askoko zera...

- Historia da hori.

- ... historia.

- Ze, zuk, ia laurogeita sei edo, zenbat egin dituzu?

- Larogeta sei urte egin dittut.

2.15. Eibar, izaera berezia duen herri txikia

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/002
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:01:18. **Bukatu:** 00:02:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena:** 86 urte dituela dio `Querido´k. Antzinako Eibar nolakoa zen aipatzen du. Herri txikia zen, baina inguruko herririk handienetakoa. Izaera berezia zuen herri txikia: tenperamentuz, politika aldetik; etab. Armeria Eskola.

Transkripzioa

- Beraz, hemengo historia —Eibarko historia eta— nahiko ondo ezagutzen duzu. Bertako mugimendu guzti horiek... Larogeita sei urte dituzula esanda, ia... mendearen lehenengo urteetara goaz. Hor, lehendabiziko hamarkada horietara. Gogoan al daukazu zure haurretako Eibar nolakoa zen?
- Bueno, Eibar orduan zan, herri txiki bat; txikixa zan. Guk pentsatzen genduan haundixa zala. Eske eze, inguruan herririk haundiñetakua zan ta...
- Eta gero, gainera, industria ere bazeukan!
- Bai, ba. Ekan, erderaz esaten da: "personalidad propia".
- ... zeukan.
- Bai. Por tempera... tenperamentuz, idea politikuetan, eta gauza asko ekazen alboko herrixak ez ekena. Por ejemplo, Eibarrek, —harro gara— ekan Eskola Armerixia.
- Baina hori geroagokoa da.
- Bueno...

2.16. Armeria Eskolaren hastapenak; irakasleak

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:02:22. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena:** Armeria Eskolaren hastapenak (1912). Frontoi Zaharrear egon zen hasiera batean Armeria Eskola, gerora ezagutu dugun eraikina egin arte. Irakasle ezagunak: Julian Etxeberria; Pio Zulaika; `Ondarru´. Maisu batzuk bertako ikasleak izandakoak: Galarraga, Ormaetxea, etab. Inguruko herrietatik jende asko etortzen zen. Jacinto Galarraga, Urresti.

Transkripzioa

- Ni umia nintzanian, Eskola Armerixia sortu zan, 1912xan. Oin dagon tokixan ez; Frontoi Zaharrian. Gero jua zan Isasira. Eta, klaro, maixuak, danak Eibartarrak ziran: Julian Etxeberria zan direktoria, Toribio Zulaika zan dibujoko maixua, Jose `Ondarru´ —Ondarrutarra zan; Eibarren ofiziuia ikasi eban—. Hórrek ziran, `Ondarru´-eta ziran... Pio Zulaika, liman... ajustadore

erakusten ebenak. Gero, Eskola Armerixan baeguazen beste maixo batzuk, bertako alumnuak izandakuak: Galarraga, Ormaetxea... Eta, klaro, inguruan zelan ez eguan zera... beste eskolarik ofiziua erakusten ebenik, alboko herrixetatik etortzen ziran Eibarrera: Elgoibartik, Ermutik... Hónek, patronotxuak, euren taillarra ekenak, euren semiak be, —bixar edo etzi taillarran jabe, nagusi egin deixazen— ba etortzen ziran Eskola Armerixara. Orduan gaur perito industrial izatia beste izango zan Eskola Armerixia.

- Edo gehiago, gerora ere!
- Bai, ba! Handik sortu ziran, ba... "directores de empresa". Por ejemplo, ba: Jazinto Galarraga, Urresti... en fin, mordua, euren taillarretan, e...

2.17. Eibarko herriak izaera berezia; lagun taldeak

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Eibartar guztiek familia handi bat osatzen zuten. Eskola munizipalak. Lagun taldeak auzoen arabera egituratzen ziren. Estazió kalekoak geltokian lapurretan egiten trebeenak ziren; Untzagakoek dantzan lehenago ikasten zuten; Errebalekoek Merkatu Plaza dominatzen zuten. Behetarrak arrantzan ondo moldatzen ziren. Erreka aberatsa.

Transkripzioa

- Baina, garai hartako Eibar... Zuek guztiok, zeuen artean, denok ezagunak izango zineten.

- Bueno, orduan pentsatzen genduan danok, e... famelixa bat, famelixa haundi bat giñala. Baiña zelan eskolak munizipalak ziran, por ejemplo: Bidebarrixetako mutikuak danok eskola batera juaten giñan; Estaziókuak beste eskola batera; Untzagakuak beste batera... Eta ohitturetan pixkat bagenkagun; guk ohitturak diferente genkaguzen.

- Eskolak markatzen zuen, orduan.

- Bai, ba... Estazió kalekuak Estazió dominatzen eben. Orduan errezagua zan bagoietatik eta...

- Zerbait ekartzia.

- ... zerbait ekartzia. Hamen plaza ingurukuak plazan egitten eben lapurretan. Untzagakuak ziran pillu... intelijentienak. Zelan musikia egoten zan, ba, hárek guk baiño —behe aldekuak baino—lehenago ikasi eben zera: neskekin dantzan egiñ eta neskengana [arrimatzer]. Gu, berriz, behetarrak, peskarixak giñan onak. Maltzaga zelan genkagun hurrian, ba... gure dibersiñua zan: txirrinboliakin Maltzagara juan, igari egiñ eta loiñak harrapau.

- Orduan bazegoen eta...

- Bai, ba!

- Eta erreka garbiago orain baino.

- Hombre! Orduan e... ezkaillua eta kangrejua eta...

- Beste Eibar bat, orduan, hura!

- Hombre! Konpletamente diferente.

2.18. Sozialismoaren hastapenak Eibarren

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/005
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:07:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Sozialismoaren sorrera Eibarren. Tira-birak karlista eta liberalen artean. Eibar liberala zen. Liberalismoak edo industriak ekarri zuen sozialismoa? Gremioen inguruko azalpenak. Sindikatuek gero eta indar handiagoa (UGT). Bilboko sozialisten eragina: Indalecio Prieto, Madinabeitia, etab. Meabe.

Transkripzioa

- Baina, beste Eibar bat esaten dugu, eta tira-birak ere baziren. Ze... zu hazten, eta orduantxe ari zan, esaterako, Eusko Alderdi Jeltzalea hazten.
- Bai...
- Sozialistak lehentxoago mugitu ziren Eibarren.
- Bai.
- Eta beren artean... tira-birak eta, baziren. Hemen, Eibarren, Karlistak alde batetik, eta gero liberalak...
- Liberalak, konserbadoriak...
- Denetik.
- Danetik, bai. Eibarren, e... Eibar, Eibar liberala zan gu umiak giñanian. Liberala zan. Sozialismua jaixotzen. E... liberalismuak ekarri eban sozialismua, ala industriak ekarri eban sozialismua?
- Hori zuek jakingo duzue; eibartarrok.
- Zegaittik eze, industriak hamen gremixuak ziran. Sindikatuetan, gremixuak. Bat zan famosua: kanpotarrerri, "pistoleros".
- Eta, zergatik zan?
- Euren e...banderrikin! "Pistoleros". Pistolia, eta "Primero de mayo" egunian, hárek urtetzen eben, akabatzailliak... Orduan e... sindikatua zan UGT; bat. UGT zan, ezta? Baiña bakotzak bere... aparte: akabatzailliak alde batetik, baskulagiñak beste aldetik... euren grupuak ekezen. Klaro! Sidikatuetan hasi ziranian lutzan, ba, Bilbo eguan hurrian. Bilbo eguan hurrian, eta Eibarko "Casa del Pueblo"ak hartu eban influencia Bilboko sozialistak.
- Bai, Bilbok markatu zuen... Nahiz eta Meabe nahiko inportantea izan!
- Bai, ba!
- Baina... Bilbotik Indalecio Prieto ere, bera etorri zen...
- Eske guk ez genduan pentsatzen, e...
- Madinabeitia...
- Madinabeitia, asko Eibarrera etortzen zan itxuria!
- Hori lehenago, lehenago.
- Bai, ba. Toribio lagun haundixa zan.
- Beraz, hor dago beste zera bat, beste Eibar bat. E... zuk esaten duzun bezala: bata hemengo, bestea hango, bestea alde guztietako.

2.19. Alfa lantegiaren filosofia; Omega kolektiboa

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/008
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:13:00. **Bukatu**: 00:14:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena**: Alfaren filosofia; lantegi esanguratsua Eibarren. Omega kolektiboa. Inguruko herrietan ez zegoen horrelako esperientziarik.

Transkripzioa

- Bai, bai, bai. Hori da Alfa. Baina Alfa, filosofia oso bat zen. Esan nahi da, akzioen bidez... Eta sozialisten edo UGTren espiritua hor barruan zegoen. Eta gero, gainera, ez da ahaztu behar: zu, jaiotzez, hamabikoa zara eta hamazazpian Errusiako Erreboluzioa izan zen! Eta horrek itxaropen asko piztu zituen bazterretan! Eta hemen bazeneukaten... nola zen? Lehen kontatu didazu mikrofonotik aparte... kolektiboa?
- Omega. Hori gerra europeia baino lehenagokua da. Ha be akziñuekiñ egin zan.
- Eta hor, filosofia oso bat bazegoen —esan nahi da: sozialistena, dena ona, eta abar— inguruetan ez zegoena.
- Sozialistarik ez eguan.
- Ez. Esan nahi dut, gainerako fabriketan eta, izpiritu hori eta... ez zegoen.
- Ez eguan inkietude hori, zera, sindikatorik ez zan. Baeken zera, esaten gentsagun guk: “Sindicato Amarillo”.
- Horiek gaiztoak ziren!
- Katolikuak ziran. En general, ugezabak ondo ikusittakuak.
- Eta zuena ez zan...
- Ez.

2.20. Errepublikaren eragina nesken izenetan

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/013
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:22:10. **Bukatu**: 00:23:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Errepublikaren eragina nesken izenetan. Guraso batzuek ez zituzten euren umeak bataiatu eta, horregatik, ez zieten santu edo santaren izena jarri, bestelakoak baizik: Paz, Nieves, Aurora... edo lore izenak (Rosa, Jacinta..).

Transkripzioa

- Errepublika garaiko gauza bat, fenomeno bat, Eibarkoa da. Oso-oso bitxia omen da eta Eibarko propioa da: nesken izenak. Garai hartan jaio ziren neskek, landare izenak dittuzte: Hortensia, Rosa, Jacinta... eta horrelakoak. Nola esplikatzen da hori?
- Eibarren baziran umiak, ez ziranak izan bautizauta. Eta orduan gurasuak, santu izena ez etsen ipintzen: Aurora, Nieves...

- Bai, lehen esan ditudanak: Rosa edo Hortensia... Eta horiek e... bolada bat izan zan, e?

- Bai... Izen politak ziran.

- Hala ere, neskak oso politak baldin baziren...

- Nik, lehengusiña bi nekazen: bata Paz eta bestia Nieves.

- Ha hor ba! Libertad ere bazan!

- Libertad be bai! Eta Aurora...

- Baskaranena.

- Baskaranena. Eta beste batzuk be bai... Hori, Aurora, itxuria, Franziatik edo, Reboluziñotik asmautako izena zan.

- Bueno! Horiek guzti horiek dauzkagu...

2.21. Irakurzaletasuna Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/016
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:27:37. **Bukatu**: 00:30:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena**: Irakurzaletasuna Eibarren; liburutegiak. Eibarren asko irakurtzen zen; egunkari asko saltzen ziren. Cayetano Kareagaren anekdota polita gai honen inguruan.

Transkripzioa

- Hor gauza bat aipatu duzu, eta hori ere eibartarren ezaugarria da: jende asko zegoela asko irakurtzen zuena, asko leitzen zuena. Eta biblioteka zerbaitetarako zala.

- Libreruak Eibarren... Baeguazen librerixak, ezta? Baiña Eibarren askok liburua erosten eban, ba, Eibarren eguazen representantiak, e... Labor eta [...] eta leku askotakuak eguazen! Eta Eibarren asko irakurtzen zan. Asko, e!

- Gaurko aldean, gehiago esaten dute.

- Seguramente. Seguramente. Neuk be etxian biblioteka polita neban. Beti, etxian, demandia izaten zan amakin, liburuak erostia. Eta oktubrian, kartzelan sartu ninduenian —ez dakit nundik nora enterau ziran—, guardia zibillak juan ziran gure etxera eta liburuak kendu eta erre egin zittuen.

- Hori pena da, e?

- Bai. Ni kartzelan neguan oktubrian —Pamplonan— eta amak bialdu estan notizia, liburuak, e...

- Eraman dituztela.

- Periodikua, esango detsut: periodiko asko saltzen zan Eibarren. "Otra anécdota": Eibarren zan gizon famoso bat: Cayetano Kareaga. Republikanua zan. Total e... jatorrixa gizona... Esaten dabe, egun baten Azkoittixan lagunak zittuan eta bazkarixa. Eta, badakizu, pixka bat edaten zanian, ba, pentsau, itxuria, adarra jotia zera...

- Cayetanori.

- Eta esan etsen eze: "Hi, Cayetano! Zuek euskaldunak zarie, eta bata eta bestia, baiña zuek ez dozue ondo egitten zera, euskeraz", "Bueno. Euskeraz ez, baiña eibartar bai", "Zelan dok hori? Eske eze, zuek hitz asko dakazuez, zera, erdeldunak". Esan etsan, eze: "Hi, Azkoittixan zenbat periodiko saltzen dittuk egunian?". Honek bestiak: "Ba, honebeste". "Eske

eze Eibarren hori baiño ehun bidar gehiago saltzen dok. Eta ikusiko dok Azkoittixan be horrenbeste periodiko saltzera aillegatzen danian, zelan Azkoittiko euskeran sartuko dozuezen berba erdeldunak”.

2.22. Dantzaldiak Untzaga plazan

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:31:27. **Bukatu:** 00:33:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Gaztetan dantzan egiten zuten Untzaga plazan. Korro handia / txikia dantzan egiteko. Korro txikian 18 urtera arte egiten zuten dantzan mutilek. Neskatan-mutiletan. Musika amaitu eta paseatzera joaten ziren.

Transkripzioa

- Lehen aipatu didazu beste gauza bat! Grazia egin dit! Untzagakoak, hau da: herrikoak, plazakoak, horiek dantzan eta neskatan, gainerakoak baino azkarrago ikasten zutela.

- Bai.

- Hori, nolatan da hori? Batez ere, garai hartan. Mutil eta neska oso aparte ibiltzen ziran eta... Edo Eibarren bestela zan hori? Eibarren ez zegoen gainerako herrietan zegoen legea: emakumeak hemendik, neskak hemendik, eta mutillak hemendik?

- Ez, ez, ez, ez, ez. Sokasaltuan alkarregaz egitten genduan!

- Baina zenbat urtera arte egiten zenuten? Hamabi urtekin egingo zenuten baina hamabostekin igual ez!

- Bueno, baiña dantzan alkarregaz egitten genduan. Zelan egoten zan musikia Untzagan! Es más, Candido be gogoratuko da! Korruak ziran Untzagan: korro haundixa eta korro txikixa. Korro txikixan egitten genduan neskak eta mutillak alkarregaz dantzan, ba, hamasei bat urtera arte edo. Gero neskak, gu baiño lehenago zelan nagusitzen ziran, hamasei urtekin, neskak orduan lagatzen eben korro txikixa eta juaten ziran korro haundira. Eta ez zan...; naturala zan! Baiña gu egon bihar izaten giñan beste pare bat urtian edo, ondiok, korro haundira juateko. Eta klaro! Untzagakuek han, ba, musikia amaitzen zan eta gero alkarregaz pasiora urtetzen genduan, eta ez genduan galtzen hori, umetako laguntasun hori.

- Bai, ze gero hemen izango zen —gainerako herrietan bezala—, ba, neska-laguntzak izango ziren, eta...

2.23. Antzuolako baserri batetik Eibarrera lanera

- **Hizlaria(k):** Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-094/001
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Baserritik kalera. Antzuolako baserri txiki batean jaio zen. Zer jaten zuten: gaztaina, baratxuri-zopa, esnea... Ardi-zain zegoela, 13 urterekin, osaba bila joan zitzaion. Eibarrera joan zen lanera eta mundua guztiz aldatu zitzaion. Gregorioren lana: gozotegian osabari laguntzea. Osabak ofizioa nola ikasi zuen.

Transkripzioa

- Bizitzaren gozotasuna, hara haurren eta helduen ametsa! Gozotasunari laguntzen dion jendea ere bada. Beharbada ez dute bizitza bera errazago egiten, baina bai disimulatzen laguntzen. Gozogile bat daukat gaur nirekin. Berak ere izan ditu une nahikoa garratzak bizitzan eta horrek lagun egingo zion, beharbada, gozokiak egiten. Gregorio Kortaberria. Antzuolakoa zara zu, ezta?

- Bai.

- Antzuolako baserri batekoa.

- Bai, Arlutz-Txikikua.

- Zuek Arlutz-Txikin kuadrilatxoan zineten denak etxean.

- Bai, mordua.

- Eta garai haietan, gainera, jateko eta, ez zen...

- Bai, ez zan gauza haundirik izaten, baiña, ba! Ondo bizi giñan.

- Oliva (emaztea): Zazpi-zortzi bat bai.

- Nik entzuna daukat, garai haietan afaltzeko, sarri, intxaurrak, gaztainak, eta halako gauzak izaten zirela.

- Bai, gaztaiña, eta gero, ba, berakatz-zopia edo. Gero esne pixkat gaiñetik eta aurrera! Holan!

- Hau gogoratzea inportantea da, zeren, zuk hamahiru urte zenituela utzi behar izan zenuen zure jaiotetxea, Arlutz-Txiki.

- Bai, eske etorri jatan nere osaba, ni eruateko Eibarrera. Eta deittu estan. Bixok, ni eta anaia gaztiagua, Pedro, genguazen ardizain, han goixan, mendixan. Eta: "Gregorio, etortzeko etxera". Eta, Gregorio, neu nintzan eta bajatu nintzan eta, ba: "Hi, Eibarrera nahi dok etortzia? Guk pastelak egiten jittuagu, eta han ondo, eta ez dakit zer, eta holan...". Engaiñau ninduen eta hurrengo domekan, ha, nere aittakin jua nintzan Eibarrera. Eta hortan. Nere kontuori hori da. Handik hasi nintzan.

- Beraz, mundua kolpetik aldatu.

- Bai, basarritik kalera.

- Kalera, eta Eibarrera. Eta Eibarren zein zan zure lana?

- Nere lana, ba.. tiori laguntzia. Eta hantxe ikasi neban ofiziua, tiokin.

- Tio zan pastelero.

- Bai, pastelerua zan. Ona, e!

- O.: Badakizu nun ikasi eban? Esango detsut.

- Eta, non ikasia?

- Zeiñek, nik?

- Osabak.

- Osabak, ba, bastante nagusittan, ibillita zeguan haura, zerian...

-O.: Lekeittion.

- Bai, Lekeittion ikasi eban, baiña aurretik ibili zan trenbidietan biharrian eta zerian be bai, esto... minetan-eta ibilitakua. Baiña aspertu zanian, pentsau eban Lekeittiora jua eta pastelero ikastia. Eta ondo ikasi eban. Gero Donostian be egon zan. Eta ya hortxe amaittu eban, ikasi eban, eta ona. Pastelero ona, e!

- Izan ere, gauza bat esan behar da: garai haietan maisurik ez zegoen. Eskolarik eta, ez zegoen.
- Ez, ez. Hori, ba... egon, bai. Barzelonara edo, urrin urten bihar eban.
- Baina hemen inguruetan?
- Hamen ez, hamen ez zeguan.
- Eta orduan...
- Ikasten zan, ba, ofizio bat zekan batekin. Harekin jarri, lehelengo pioi moduan; bai, pintxe moduan, eta gero, ba, politto-politto juaten zan ikasten. Neuk egin nebana!

2.24. Marcelino Baskaran eta hileta zibilak

- **Hizlaria(k)**: Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-106/007
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:13:54. **Bukatu**: 00:15:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena**: Benigno, Marcelino Baskaranen semea da (II. Errepublikan alkateorde sozialista izandakoa). Marcelino izan zen lehenengo abade laikoa. Hileta zibilak zelakoak ziren. 1952tik aurrera Benignok hartu zuen ardura hori.

Transkripzioa

- Zenbaitten ustetan, zenbaittek dionez, Benigno Baskaran sozialisten apaiza da. Benigno Baskaran, ba, familia... betiko familia sozialista eta laiko bateko semea da eta bere aita Marcelino, Eibarko teniente-alkate izan zen gainera, teniente-alkate sozialista bigarren Errepublikan. Ta Marcelinok hitz egiten zuen lur emate edo entierro zibiletan, eta lan horretan bere semeak, Benignok, zuk, jarraitu zenion 1952. urtetik aurrera edo?
- Bai, hamabigarrena.
- Zer izaten da entierro zibil bat?
- Bueno, lehelengo eukitzen dau erderaz esanda, "un valor cívico", ez? Orduan denporan, gaur berrogei urte edo gaur berrogeta hamar urte. Ta frankismuan denporan, nere aitta hil zanian, lehelengo entiarrua egin gendunian...
- 52an?
- ... 52an, bandera bat jasotzia zan. "Gu holan giñuan ta oin be holan izango gaittuk ta holan nahi juau izatia". Ta guk egin gendun orduan; esan be egin neban nik bertan kanposantuan, nik obligaziño bi nekazela: bat, semiana ta beste bat sozialistiana ta laizistiana.
- Eta zure aittak egiten zuen lan hura egiten jarraitu duzu duela denbora gutxi arte. Gaur egun ere bai?
- Ba, gaixuak erretirauta nago.
- Orain jarraitzen al du norbaitek?
- Bai, beti dago bateron bat egitteko.

2.25. Toribio Etxebarria eta bakea

- **Hizlaria(k):** Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-106/031
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:48:12. **Bukatu:** 00:49:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena:** Toribio Etxebarriak Iruñeko kartzelan esan ziona gogoratzen du: azkenean bakea munduan berez etorriko dela; ez dagoela beste erremediorik.

Transkripzioa

- Gero, sekula be ez jata ahaztutzen Toribio Etxebarriak esan zestean argumentu...

- Toribio Etxebarria izan zen sozialisten artean "número uno", ez?

- Numero unua, bai. Toribio Etxebarriak esan zestana Pamplonako kartzelan pasian gabizela: "Gu, bagabixak hamen. Guk bajihardua burrukan geure ideologixia defenditzen, baiña dudarik be ez daok munduan sozialismua ta baketasuna aillegauko dala nahi ta etxian sartuta geratu danok. Berez etorri bihar jok! Gizonak ez jakak beste erremediorik, bertara errendidu ta bere ideak sanuak etara flaterera, esaten dan moduan.

2.26. Lauaxeta, langile nekaezina

- **Hizlaria(k):** Sarasua Gisasola, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-107/007
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:14:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena:** Lauaxeta nolakoa zen: gizon langilea; zintzoa...

Transkripzioa

- Orduan Lauaxetaren garaiko oroitzapenak gogor samarrak dira guztiak ere, baina gizon haundi bezela gogoratzen duzu orduan hura, ez?

- Gizona, gaiñera, espillo bat. Espillo bat danondako. Neretako izan zan ha... Sakramentuak esaten dabe "inprime carácter". Ez dakizu? Berakin tratua horixe zan. Nik... Neretako maixorik haundiña euki dotena bera izan da.

- Langile haundia.

- Langille haundia, langille haundia! Sarri gelditzen giñan berandura arte edo, ezta? Eta inprentara, Grijelmo-neko inprentara jun eta buelta ein eta beti argixakin han, lanian. Beti, beti, beti. Danak hartzen zittuan, bisitta guztiak. Daneri laguntza: preso eguazeneri be bai, faxisteri be, famelixak etortzen jakozen eta. Zelan famia ekan gizon onana, ba, danak beragana jotzen eben. Danak beragana.

- Eta hala ere, gainera, denbora zeukan poesia idazteko eta nola!

- Honbre! Orduan izaten zan... Zegonik be ez, e! Sarri egoten zan... zu,

halan zegonian, "en trance poético" deitzen netsan nik, e! Egun bixan "egunon" eta "egunon" ta gehixago ez estan esaten. Eta ekagun mahai haundi bat, erdixan huekuakin, bata bestian aurrian egoten giñan lanian. Aitzen dozu? Horrek mahaixok erdixan zulu dakenak?

- Bai.

- Ba bata alde baten eta bestia bestian. Sarri pare bat egunian, "en trance poético" eguanian, "egunon" eta "agur" bakarrik.

- Besterik ez zuen esaten?

- Ez. Ha beste mundu baten zeon. Beste mundu baten zeon. Eta gero, horixe. Neretako izaten zan erregalorik haundiña: "Julio, guaziak kalera bueltatxo bat egittera". Eta orduan zan "la hora de las confidencias". E? Orduan bai. Orduan izaten zan... Gaiñera, beran... erderaz "pudor" esaten dana be holan egitten [...]. Gauza intimuak-eta kontatzen zittuan. Neretako, lehenago agertzen ziran, ba, [...] "mi personaje inolvidable", haxe izan da neretako ha, Lauaxeta.

- Oraindik ere gogoan daukazu.

- Beti, beti.

- Oroimenean daukazu.

- Beti, beti.

- Ikusten dugu. Orduan zuk hemeretzi urte. Eta berak, Julio?

- Berak eukiko zittuan orduan 32 edo. Ez?

- 32 urte?

- Ez dakitt, e!

- Egia esan, ez ditut kontuak atera eta ez dut begiratu noiz izan zen fusilatua, egia esan. Bainan jakiteko, gutxi gorabehera. 32 urte edo hola.

- Nik emoten netsazen, e! ez dakitt, e. Neretako nausixa zan. Akaso 29 ekazen, baiña neretako hortxe, hogeta hamar pasauak eukiko zittuan. Neretako, e.

- Ya, ya. Ba oso interesgarria izan da, e!

- E?

-Julio, oso interesgarria dela hau, e!

- Bai, bai, bai. Neretako bai behintzat, izan zan.

- Bai, bai.

2.27. Jose "Kerido"rekin harremana

- **Hizlaria(k)**: Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref**: AB-109/004
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:02:38. **Bukatu**: 00:03:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Jose "Kerido" asko ezagutzen duela kontatzen du Doloresek, biak ere mendizaleak izanak dira eta.

Transkripzioa

- Bai, harek asko ezagutzen dittut nik. Paulino eta Jose be bai, Jose "Kerido" be asko. Ene! Gu zelan alkarrekin asko ibiltzen giñan Jose "Kerido" eta. Ha juaten da, ba, mendira beti asko, eta ni be mendizalia naiz. Eta mendixan beti, edo Arraten edo Salbadorren edo... Salbador, ba, Txontatik gora juanda...

- Bai, bai, bai.

- Bai. Han eta Asurtzan eta... Jose "Keridokin" ba asko ibilittakuak gara.
Asko, asko. Bai.

2.28. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Pascual Ucín, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-156/014
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:33:15. **Bukatu**: 00:36:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Urkizun zertan jolasten zuten. Umetako jolasak: sokasaltuan; diabolua; txingor-gainean; tortolosak; txalupeta; matraka; etab. Tortolosean nola egiten zuten.

Transkripzioa

- Elkarrizketatzailea: Esan dozu afariketan-eta eitten zenduela txikitan hor Urkuzu inguruan.

- Felisa: Bai.

- E.: Eta ze, ze gehixau eitten ziñuen, ze jolas gehixao?

- F.: Sokasaltuan, ta zera, diaboluetan; horretan artistia nitzan, e.

- E.: Diaboluan zelan jolasten zan?

- F.: Diaboluan, ba, palo bi holan, ta sokia eukitzen eban holan. Ta diabolua zan... oin ez dakit zelan esplikau.

- Alaba1: Bai, "como si fueran unidas dos trompas" edo...

- F.: Bai, bai, holan balitzan...

- Alaba1: Lehengunian ikusi neban "en todo a cien"...

- F.: Sí, ¿eh?

- Alaba1: Bai, holan soka... holan botatzeko.

- F.: Bai, ta hartzen zan holan ta "ra-ra-ra", han soka ibiltzen zan diaboluan, ta gero, neuk gogua nekanian "ra!" ta gora bota, ta halan hartu ta "da!", diabolua sokara sartzen zan ta berriro be soka erabili.

- Alaba2: Ta zuek ama ez zenduen itten hori, han burdixa eta "Kukurruku, ze bihozu..."?

- F.: "Abaria abariari..."

- Alaba2: ..."Zeini?" Hori jokutzen zenduan? Eske guk jokatu dou hori!

- F.: Bai, baiña guk hori ez, hainbeste ez.

[...]

- E.: Ba hori jende nausixak-eta bai ikusi izan dau, bai.

- F.: Bai. Ta txingor gaiñian be bai.

- E.: Kontaidazu txingor gaiñian zelan jolasten zendun.

- F.: Bai, ba batzuetan eitten genduan biribillian, txingor gainian, zerak, markak eitten zian bai, ta gero erreixak. Ta "bi" ta "da!" ta salto hanka batekin, ta "lau" ta "sei" ta,... Gero gelditzen ziñan ta ikutzen bazenduan erreixia, galdu eitten zenduen. Ta berriro gero, beste bat, eta txandaka, ta holaxen. Ta sokasaltuan esaten detsut, e...

- E.: Tortolosean be eingo zenduen, ez?

- F.: Bai, tortolosean be bai.

- Alaba1: Zer da tortolos?

- F.: Tabas.

- E.: Zelan jolasten zenduen horretara?

- F.: Ba tortolosean azkenengua ez jata akordatzen zelan. Bueltia emoten

jakon: "baat" eta "ra" ta...

- Alaba: "Hiruna, [erregiena]"...

- F.: "Erregiena" bai. Ta, zera, bota zera, pelotia, ta gero, bueltia emon bittartian zerari, tortolosari. Bueltea emon. Ta ez bazenduan hartzen, ba, galdu. Baiña nik euki nittuan tortolosak be, zerak, adarixanak. Harek estimauak izaten zian!

- E.: Haundixauak.

- F.: Haundixak. Ta pinttauta eukitzen nittuan. Ez dakitt anaiak-edo pinttatzen estazen ta gorrixak eta kolorietan. Ta ene! Baiña zenbat jolas ta...

- E.: Eta zuk gogoratzen dozu txalupetia ta matrakia ta, gogoratzen dozuz zer ziran?

-F.: Ikusitta bai, baiña neuk ez dot euki.

- E.: Zer ziran?

- F.: Holan, bueltaka-bueltaka eitten zan zerak, holako marka batzuk zittuan, errobera bat balitza moduan.

2.29. 20 urterekin Melillako gerrara joatea egokitu zitzaion

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-164/005
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:06:40. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena**: Melillako gerrara joatea egokitu zitzaion 20 urterekin (1927 inguruan). Bera libratu egin zen; dirua ordaindu eta Donostiara bidali zuten. Loiolan zoragarri egon zen. Armategira destinatuta egon zen, armagina zen eta.

Transkripzioa

Orduan tokau zuan, zerian, Melillan ta hor Afrikan gerria egon zuan ta hamendik eruanda mordua hil be ein zittuen hamen. Gure gurasuak billurtuta, ta gurien moduan beste askok be bai. Ta ipiñi juen, ba, nahi dabenak pagau ta, bederatziz hillebete edo zuan eitten genduana bertan, geure kontura zera, lo ta jan ta horrek geure kontura, kuarteletik fuera, baiña kuartelian goxian bertako kuartelekuen moduan, lehenengo zererako, vamos, listia pasatzen [erenian] soldaueri, ba, bederatzirak edo dana dala, " ra!" ta hantxe bestiekin. Gero, jatera be geure etxera juaten giñuan. Loiolan, "en Loiola". Bai. Ondo bota najuan nik. Bai ba, jan ta eran ein ta... gure serbiziua, ostian, serbiziua ezebe ez dok ha eittia. Ta geiñera han be, armerixako ofiziua zelan [gekaun] guk deklarauta eibartarrok... " ¿Y qué oficio tiene usted?" ta, "Armero, ajustador." Ta, joño! Honek halako serbiziua eitten jok ta han be armerixan destinau niñuen. Ta geuzak arreglau ta geuzak eitten be bai. Ta suzedidu jatzen geuzak, armeruak zittuan harek, baiña armeruak fusillanak eta horrek amatralladoranak eta geuzak, jakingo jittuezen geuzak ze modutan maestro armeruak, e! Tenientia ta kapitana, ez jakixat ze graduak ekezen eurak eta! Harekin, ta... Harek igarri esten neri liman ta geuzetan, "hau ofiziala dok", igarri esten. Taillarra be bajeken zerian, Donostian, eurak sotano baten, taillarra, trokelajeko taillarra. Ta baten haraxe eruan niñuen, ajustatzeko gauza batzuetan ta limia ta aprobatzera. Ikusi niñuen ta, nik berari, eskopeta bat

arreglatzen jiharduan, eskopeta bat ajustatzeko arreglatzen, ta totaleko aldrebes jiharduan, ta barre ein najetsan diharduala. Ta “¿Te ríes? —esan están—, ¿Te ríes? ¿Y por qué te ríes?”, “Porque andas mal, porque estás trabajando mal ahí para ajustar eso...”, “A ver, a ver, a ver tú... coge tú...” Hartu najetsan ta “di-da!” Bolio baten ipini najetsan zirixa eta geuzak eta “grak” eta ajustau najetsan ta: “Ahí tiene”. “¡Ay! ¡Por dónde andamos! — eitten estan berak— ¡Por dónde andamos!” Bai ba, harek ez zittuan...

2.30. 'Basarri' bertsolaria Eibarren, Lucas Alberdiri egindako omenaldian

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-164/008
- **Iraupena**: 0:05:50. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Bertsolari mordoa ezagutu zituen Astigarraga inguruan: 'Txirrita', 'Basarri'... 'Basarri' bertsolaria Eibarren. Lucas Alberdi artistari omenaldia egin zioten Eibarren, Txaltxanean, eta 'Basarri' ekarri zuten. 'Zozua'k berak botatako bertsoa; 'Basarri'ren erantzuna.

Transkripzioa

- Sasoi horretan, gaiñera, bertsolari mordua egongo zan Astigarragan, ezta?

- Bai, 'Txirrita' ta, horren epokia [eken horrek]. 'Txirrita' ta... Harek gu baiño zahartxuauak zittuan, baiña.. Gero, bertsolarixak... bueno! Harrezkero be nere kinta ingurukuak eta... Oin zenbat urte ekazen honek 'Basarri' hil danak? Ni baiño gaztiaua zuan hori!

- Bai, gaztiaua.

- Ni baiño gaztiao zan hori. Horrekin be eukitta naok, 'Basarri'kin.

- Bai? Zelan izan zan?

- Ez, pasau zuan... Lukas Alberdi —hik ez jakixat entzungo heban—, artista zuan hori, Lukas Alberdi, gure kuadrillakua zuan. Bai. Horrek premixua etara juan, lehenengo premixua. Konkurso bat artistena egon zuan Donostian, ta lehenengua etara juan. Ta gure kuadrillia Txaltxanera juaten giñuazen orduan. Han lokal bat jeuan, hau danau baiño haundixaoko zer bat, luziaua baiña... hantxe, “Peña Patxiko” jekan izena ipinitta, Patxiko zuan ta... pixkat urtena zuan gureandik eta haren izena ipinitta geuk, “Peña Patxiko”. Ta hantxe egoten giñuan. Hori Lukas be bai ta danok; hau, Benigno Baskaran ta be... zera, aiuntamentuan ta... Haren alabia be alkaldesa egon zuan, Baskaran. Haren aitta ta horrek danok. Han egoten giñuazen. Ta horrek lehelena etara ebanian Donostian pentsau eben han kuadrillan zer bat ein bihar zitzakola, omenaje bat, merezi dabela hori premixuori etara dabenak eta. Bueno! Holaxen. Pentsau juen ta, bueno, pentsau juen eguna ta dana. Ta han zeren batzuk Zarautzen asko egoten zianak zittuan gurekin ta han grupuan gendezenak Txaltxanian ta horrekin berba ein juen, 'Basarrikin', halako egunetan ia etorriko litzateken, ez dakala ezebe gasturik. “Geuk eruango zaittuu, bertan lo eingo dozu Eibarren, t ajan ta eran ein besterik ez dakazu zerian, geurekin, omenajian. Hor Lukas Alberdin omenaje bat dao ta haretxeaittik. Ta “A bai? Bueno, ba etorriko gara ba”. Etorri zuan. Ta ein genduan. Ta nik be orduan epokan,

epoka baten gitarria-ta be asko joten genduan Emete Kojua esaten etsaun batekin. Nik kantuak, euskerazko kantuak, auskalo ze kantatzen genduzen kitarriakin. Kitarria bastante ondo ikasi genduan. Plaentxiatarrenak eta holako berso zerok, Jesus, barbaridadia jotzen genduazen. Ta, holaxen. Esan najuan "Lukas Alberdin omenajia dok gaur ba..." Bersuak, berriz, kanta edo bersuen liburuak-eta najekazen nik bersolarixenak-eta, ta ein najuan nere modura. Zegaittik eze alkatia, Alkate Txikixa, Orbea, Orbeaneko Alkate txikixa —hik ez jakixat ezautzen heban. Hil zuan oindio ez dok denpora asko. Alkate Txikixa izan zana— ta Martiniano ta bi-hiru konzejal be bai etorri zittuazen azken orduan, harek kafietara etorri zittuazen. Ta hantxe momentuan, ba, nik neuk be borrador bate in ta bersua eruan najuan. Berso modoko bat. Oindio goguan jakat. Lehenguan alabiak eskatu jestan, galdu ein zitzakola ta mesedez eingo netsan, Lukas Alberdin alabiak. Eta baietz ba, ta holaxen. Hauxe zuan bersua bota netsana. Ezebez, e. Ezebez, baiña pixkat txokauta geratu zittuan, bera 'Basarri' be bai.

Peña Patxikon degu lagun bat
Eibarren oso ezaguna
Donostiako zertamen hortan
aurrena atera diguna
omenaje bat merezi zuan
ta aillegatua da eguna
lagun guztiok berakin gaude
bai konzejal eta alkate jauna
artista hau da Lukas Alberdi
Eibar onratzen diguna.

Jo-ta sekulako obaziñua jo esten. Horixe botata, beste barik. 'Basarri' albuhan jeuan, ba. 'Basarri' jaiki zuan laster ta bota jua berso bat edarra harek be: ia bertan halako bersolarixa euki ta Zarauztikan honaiño zetara ekarri nabon ni. Horixe esan gura eban bersuak dana. Horixe bersuori bota jua. Ia zela ekarri dabon bera, halako bersolarixa bertan eukitta. Ta "Ni ez nok bersolarixa, nik asmau jittuat, ba, bersuetara ta kantura afiziñua ta, ba, gauza asko jakixaraz, ba, bersolari onenak be bai, 'Txirrita'nak eta honen... 'Pello Errota'nak eta horren bersuak... Jesus! Zenbat ikasi genduzen guk...! Bueno...!

2.31. Bertsozalea; bertsotan lagun artean

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-164/010
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:29:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Beti gustatu izan zaio bertsolaritza. Lagun guztiak bertsolari edo kantariak. Elgoibarko jaietan gertatutako anekdota. 'Emete kojua' eta 'Zozua'ren arteko bertsoak.

Transkripzioa

- Donostian ibili ziñanian, 'Txirrita' ikusten zenduan han sardandegixetan-eta?
- Ez, ez, neuk ez najuan ikusten.

- Eta beste bertsolariren bat bai?

- E?

- Beste bertsolariren bat?

- Bai, bai, bersolarixak-eta han takian-takian be [bazeren]. Bersolarixak... Baiña neuk ez najuan han figuratzen bersuetan. Kitarria jo ta kantau eitten bai.

- Baina zuri gustau izan jatzu, ez? Bertsuak-eta gustau izan jatzuz, ezta?

- Bai, enee... Ointxe be hantxe jakaraz nik 'Uztapide', 'Basarri', Lasarte... ez jakixat zenbaten liburuak etxian. Hantxe jakaraz danak, holakotxe liburuak, ilaran, berso mordua dittuenak. Bai. Horrek be hantxe egongo dittuk seguramente. Baiña, bo... bersuetia ta kantua asko gustatzen jatak. Gero, alkarri bota be bai, e! Enee! Baten, goguan jakat, Elgoibarko jaixak zittuan, San Bartolomiak. Gure kuadrillia jua giñuan ta kuadrillia kantoriak giñuazen, e! Holan, orfeoiko kantuak be 'Goizeko izar' edo, ta 'Ilunabarra' ta... Horrek kantu mordua dotore kantatzen genduazen kuadrilliak. Ta Elgoibarko San Bartolomietan jua giñuazen ta danok txikiteuan pixkat ikututa, kanturako amorratzen, ta kantau eitten genduan, danok kantau. Han Elgoibarren euan, Azkoittirako salidan, basarri bat, urten ta segiduan goittik behera sartu ta basarri zabal haundi bat zuan, zeñena zan be... bueno, aiztuta dakat izena-ta be. Dana beteta jeuan haura! Emoten juen, zera emoten juen, tortillak eta geuza rapiduak [...]. Beteta jeuan basarritarrez, meriendatzen. Jua giñuan geu be, ba, ederto, dotore, ta geu be tortilla bana edo zeoze jatera. Bageuazen hantxe ta... 'Emete Kojua' esaten jetsen nerekin lagun eitten ebana kantuan-ta asko. "Hi, hauxe bota bihar deuat —esan jestan—, ta hik gaiñerakua botaidak". "Zozua..." Gure familixiari 'Zozua' esaten jetsen ba, 'Zozua'. Ta neri orduan 'Zozua' botatzen jesten. Ta "Nik botako deuat hiri ta hik botaidak gero bestiori, hau gustauko jakuek eta!". Ta harek bota jestan neri:

Zozua dago hamen
kantuari poztuta
esan leike daguala
hortatik aberastuta
lehengorik ez daki eta
oinguak ahaztuta
laster utzi bihar det
heguak moztuta.

Jo!... 'Zozua' nitzan... ta "heguak moztuta". Ta nik zelan nekixan horren kontestaziñua... "Ixi! Ixi! Ixi! —basarritar danak— Ixi! Ixi!". Harek geuk asmatzen genduzela edo ez dakit ba ze pentsatzen eben. Nik bota najetsan horren kontestaziñua:

Kantuan hasi zaitetz
umil eta prestu
hasi orduko biok
ez gaitezen nahastu
lehenik ez dakitela
ta ez gehiegi poztu
bertatik nahi zenduke
neri heguak moztu
Emetek hortarako
bigoterik ez du.

Jo-ta... Jesus! Jo-ta danak... haura zuan txalokia! Segi! Gero be bota

genduazen halakotxe geuk ikasitta gekauzen bersuak. Gaztetan halaxe ibiltzen giñuazen gu! Harek kantau ta gitarrak... Gero plaentxiarren kantuak eta... Nik gitarria bastante ondo manejatzen najuan.

2.32. Domekako pagarekin pirulia erosten zuten

- **Hizlaria(k):** Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-203/006
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena:** Piruli saltzailea igandero etortzen zen, kalerik kale. Domeketako pagarekin ("txikita" batekin) pirulia erosten zuten. Piruliaren paperean "1" zenbakia azaltzen bazen, beste bat doan. Saltzaileak nola kantatzen zuen: "A perra chica el pirulé..."

Transkripzioa

Txikitia. Domeka goizetan txikitia, pagia. Ta badakizu zetarako? Etortzen zan gizon bat, rubixo bat, bigotiekin, uste ule zurixa ekala ekartzen eban, ta ekartzen eban palo haundi baten, holan, piruli. Ez dakit zuk ezautuko zenduan. Piruli. Ta zuloz beteta. Egurrezkua ekartzen eban, baiña zuloz beteta zelan ekan, pirulixak haintxe sartuta. Ta txikia piruli bakotxa. Haxe pirulixa erosteko, txikitia, domeka goixetan. Domeka guzti-guztietan etortzen zan, kalerik kale. Ardantzara etortzen zan ta kantau eitten eban. Ha kantua entzutzen genduanian... bueno...! Gure aintxitxiketia... pirulixori eroatera! Ta papelakin batuta egoten zan pirulixa, ta han papelan barruan begiratu ein bihar zenduan premixua dauan, ta premixua zan "uno" bat urtetzia haintxe papelan barruan. Ta ha "unua" bazekan harek papelak, beste bat emoten zetsun duan, baiña "bi"-rik eta sekula bez e! Ta "bat" be... "de pascuas San Juan". Ta kantau eitten eban harek. Ta kantatzen eban: "A perra chica el pirulé, de piña, plátano, menta, limón y alé, de la Habana el pirulé, a quién se le olvida, a quién se le olvida el pirulí, que quita el catarro y mata la lombriz, el piruliiiiii" eitten eban orrua bat azkenian ta gero "¡Allá voy!" esaten eban. Ta domeka guztietan zelan juaten giñan, ba, ikasi ein genduan kantua be guk!

2.33. Aginaga bailaran jaio eta bertan bizitakoa

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/002
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:01:32. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Eusebia Gisasola Aldazabal, 78 urte. Aginaga bailarako Zumaran baserrian jaiotakoa, 1922ko martxoaren 5ean. Aginagakoak ezjakinak zirela esaten omen zen garai batean.

Transkripzioa

-Ni naiz Eusebia Gisasola Aldazabal. Jaixo nitzan Zumaran basarrixan, martixan bostian, 1922xan, Agiñako barrixuan. Ta nere bizitzia hemen doia: hemen jaixo nitzan, hemen bataillatu, hemen [be] ikasi eskolan, hemen ezkondu, hemen nere seme-alabak eta aurrera! Holan noia, harik eta ahal doten arte. Dana Agiñakua! Oso-oso-osorik. Kariñua dotsagu Agiñari!

- Agiña gaiñera pixkat espeziala da, ez?

- Bueno, ointxe pixkat... Oiñ arte ez, baiña oiñ ya badoia pixkat gorutz! Abadia [...] halakua ta bueno. Lehen esaten eben, ba, azkeneko zera zala, azkenengo mundua, baiña ez jauna! Tamaiña horretaraiñok ez, ezta?

- Ta zegaittik esaten eben ba?

- Bueno, ba, ezjakiñak giñalako edo... Ez dakit ba! E? Horigaittik izango zan.

2.34. Auzoko neska eta mutilen arteko jolasak

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/012
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzoko en arteko harremana
- **Laburpena:** Ume asko auzoan. Jolasak: pilotan, harrapatzen, ezkututzen... "oin baiño be traste gitxiagokin..." Kaniketan, aponak (tortolosak). Mutilak eta neskak denak batera: jolasean, eskolan... "Horrek ziran gure ibilixak!"

Transkripzioa

- Hainbeste ume izanda, jolasian eingo zenduen, ezta?

- Baaai! Ene! Jolasian...! Pelotan ta harrapatzen ta ezkututzen ta... Oin baiño traste gitxiagokiñ. Zera, kaniketan ta... kaniketan be bai ta gero aponiak esaten jakon, bildotsan... eztakit, zuk ez dozu jakingo... Badakizu zer dan aponiak?

- Bai, tortolosak?

- Tortolosak. Harekin, aponeketan ta...

- Zelan eitten zan aponetan?

- Ba, bota holan ta zeifiek... zeretara, ezta? Lau zer dakaz harek ta haretxetara. Ba...

- Izena zeken? Alde bakotxak izen bat? Edo...

- Baietz uste dot baiña oiñ ezin neiketzu esan [...] ta igual da, baiña badakit aponeketan eitten genduana [...] Kaniketara potxolotxua ein ta hara zeifiek kanikak sartu ta...

- Ta neskak eta mutillak batera? Ez zeguan...

- Batera! Batera! Ke ba! Danok batera orduan!

- Ez zeguan mutillen jolasak eta nesken jolasak eta holakorik?

- Ke ba! Oin, mutillak, ba, jeneralmente, pelotan gehixago eitten ebela guk

baiño... baiña... Ez, ez... Ez, ez... danak igual orduan! Bueno! Eskolan be igual ta... danian!
- Pelotan be eitten zenduen orduan?
- Zeoze bai, zeoze ibiltzen giñan...
- Ta, ondo?
- Ba, ondo ez baiña... denporia emon! Halaxen, gure zerak horretzek zian, gure ibilixak.

2.35. Herritik urrun egon arren, eibartartzat dute euren burua

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/014
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:27:07. **Bukatu**: 00:28:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena**: Barinaga auzokoekin harreman handia zuten, baina Eibarkoekin gehiago. "Beti honuzkuak".

Transkripzioa

- Zuek relaziño gehixago zekazuen Eibarkuekiñ ala Bariñagakuekiñ ala... ala zuek pixkat aparte bizi izan ziñazien?
- Bueno, bai, Eibarkuekin beti gehixago e! Beti Eibarrekin gehixago. Ta... Bariñakuekin be bai, baiña... ez dakit ba, Bizkai... beti honuzkua e! Hori bai, beti honuzkua euki dogu.
- Nik entzun izan dot Agiñakuak aparte bizi izan zariela...
- Bueno, eske, lehen esan dotena, nik ez dakit ba, izengo giñen ezjakiñak edo nik ez dakit [zegaittik...] , pixkat, holan, eztakizu? "marginaos" edo pixkat... [Nik ez dakit zegaittik... guri]. Nere ustietan e!
- Osake, ez ziñazien zuek apartatzen ziñazienak, eibartarrak lagatzen...
- Bai, bai, hori bai. Baiña, bueno, aurrera!

2.36. Gaztagintza: tresnak, prozesua, eta abar

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/018
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:34:24. **Bukatu**: 00:37:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Gaztagintza. Gazta egitea emakumeen lana izaten zen. Gazta zelan egiten zuten. Gaztanontzia zelakoa zen. Aginaga auzoan denek egiten zuten gazta.

Transkripzioa

- Gaztaia eittia, zeñen biharra izaten zan? Andrena edo gizonena edo...?
- Andrena. Bueno, iñoiz [...] estutzia izeten da. Orduan guk ez genkan

prensarik , oin prensak eta [egongo dia, ta], ba. Ha sakatu ein bihar dozu, ezta? Urak etaratzeko ta, ba, iñoiz holan egon ta “Sakatu hau gaztaiau!” Baiña eiñ, andrak.

- Zailla da?

- Ez. Ez da zailla e? Oiñ [...] adelantuz [...]

- Zelan eitten da?

- Ba, gaztaia izeten da, jaitxi ardi-esnia, ezta? Ta gabekua ta goizekua edo... batera. Eske gabian ta goizian.. [eske eitten] zian, ba, jeneralmente, baten bixek. Gabekua hoztuta egoten da, ta goizekua epeltxuagua, baiña pixkat epela, larregi barik e! Tamaiñotxo bat, eskuakiñ edo [hatzartxua] edo zeozekin igarten jako tamaiñua, ezta? Ta gero emoten jakon liarra. Liarra badakizu zer dan? Eta harek [bihar] zittun ordu erdi-ordu bete edo zertzen, gogortzen, ezta? Ta gero gogortutakuan, apurtu. Ta gero apurtutakuan, ba, ipintzen jakon zeozer... zeozer, pisudun gauza bat, ezta? gaiñian, ta bajatu eitten zan behera. Bajatzen zan, ba, total bajatzen zan. Ta haxe bajatutakuan, urdaittu edo... ze esango dotsut ba? Gogor eitten zanian, ba, ebagi kutxilluakin trontzuek eta bota zerera, gaztanontzira ta danak etara, ahal dien danak etara! Ta gero azkenian, trapuak be ipiñitta eukitzen genduzen, trapu fiñak, ta trapuetan zertu, ba, sartu gaztanontzixan ta hantxe, ba, egun bat... edo holako baten euki. Gero etara ta gero siketu. Gaztaiak siketzeko zerak eukitzen genduzen, ta kitto.

- A, toki bat eukitzen zenduen ala...?

- Bai, ipiñitta zera... gaztanontzi esaten [jakon], ba, einda aproposko zerak... siketzeko.

- Goixan edo...

- Bai, goixan eukitzen gendun, sukaldian beroegi egoten zan. Gaiñera beheko sua ta orduen... ta, baiña... ez, ez... Euki genduen ganbaran ipiñitta egurrakiñ eindako, zera, barilla edo zer estu-estuekin ta hantxe siketzen zian. Ta koloria hartzen ebenian, saldu ta kitto! Ta haxe [...]

- Normala zan orduan... Jente askok eitten zeban gaztaia?

- Bai, hemen danak, saillian. Hemen ardirik... Agiñan ez dakit etxerik egongo zan ardirik ez daukenik. Asko edo... geuk asko ez genduan eukitzen e! Eukitzen genduzen iguel hogeta hamar edo berrogei, ezta? Baiña zeozebako etxerik ez dakitt egongo zan. Ez dot uste iñor be egongo zaniken! Batzuk gehixago, beste batzuk gutxiago, baiña... danok! Danok geunkezen ardixek.

- Ardixak eta ganauak...

- Ardixak eta ganauak. Hortik bizi giñen ta... nunbaittetik [biher] zan ta...ez dago hemen bueltarik.

- Ta txarririk be ez zan faltako...

- Txarrixa bai, txarrixa etxerako beti.

2.37. Txerri-hiltzearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/021
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:46:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoan arteko harremana
Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena:** Txerri hiltzea. Urtero-urtero Gabon inguruan hiltzen zuten txerria. Odolosteak nola egiten zituzten. Azalpen zehatzak.

Transkripzioa

- Eta hori ze eitten zan, urtero?

- Urtero-urtero eitten genduan bai. Gabon inguruan, jeneralmente, Gabon inguruan izeten zan. Eitten genduan ta... Badakizu, solomua ta saiheskixa ta...

- Hori! Lehelengo hil eta odola batu ta... ze gehixago eitten zan?

- Eitten zan... erre ule... zerak... erre eitten zan.

- Uliak?

- Bai. Iria ta lastazauak egoten zien orduan, garixen lastazauak, ta ipintzen zan ire mordo bat, erueten zan haraxe, ta lastazauekin dana zihetz erretzen zan. Ta gero, erretakuen, atzera ekartzen zan; ta gero kutxilluekin dana zihetz arraskatzen zan ur bero irakiñakin ta gelditzen zan holaxen, dana garbi-garbi-garbi einda. [...] ondo jateko moduen, dana zuri-zuri einda. Gero egoten zan, zer bat, egur bat, holan... egur... zer bat, ta haintxe esegitzen zan txarrix. Ta gurien kostunbria e(g)uen behintzet, lepozazurrien holan "rrrrrrr" ebagi ta holan bi parte eitteko moduen. Eta gero, ba, barrun... Bueno, ez dot esan, baiña barrukuek etara bihar. Lehelengo, kanpotik datorrenien, barrukuek etara. Barrukuek izeten zien, ba, hestiek eta... Bueno! Barruko gauza danak, ezta? Solomo ta gibel ta horrek. Bueno, ba, [horrek eindakuen], ta gero, ba [beste...] lehen esan dotena: txarrixari eusten egoten zien. Ta kostunbria e(g)uan, gibela, ekarri andrazkuei, ta gibela ipiñi. Ta gero, ba, gibela preparautakuen, ba, danok jan! Gibelori eitten genduan...

- Zelan preparatzen zan gibela?

- Gibela, ba, gibela eitten da onduen neretako gibela txehe-txehe eiñ, [...] ta kipula mordo bat eiñ, olixua erreta, [hoztuta?] ipiñi ta bota haraxe ta bueltan-bueltan, ereiñ-ereiñ eiñ, ta ardau zurixa bota pixkat, eta gatza. Ta ha geratzen da, kipulia - kipulia esan dot ezta? - desaparezidu eitten da, ta geratzen da saltsia, ustez ogi-erreillaua [edo moduen] sendo-sendo-sendue. Edarra e! Ointxe be nik neuretako, neuk halaxe nahi izeten dot gibela. Ta halaxen. Jaten zan ta kriston zartainkadia! Ta ardaue eran, ta kontuek esan... ta bueno! Ta andrazkuek ez! Andrazkuek jan eitten genduen pixkat, baiña guk hestiek garbitzen eukitzen genduen biharra! Heste danak garbittu bihar...!

- Zailena hori zan, gogorrena?

- Ba... zikiña behintzet! Ta gero odolostiak, odolostiak eittia. Ta odolostiak eitten zien, ba, odola ta hara zerak, gantzak esaten jakozenak, gantzak eta zerak apartau, txiki-txiki-txiki ein ta zartaiñan eitten zien... A! Ez dot esan, kipulie ta porrua, ta zerak, gantzak, eitten zien danak alkarrekin zertu, bigun-bigun-bigun eiñ, ondo egosi, ta gero odolari bota. Ta haxe izeten zan odolostia. Haxe zan odolostiori, bai. Ta gero, einddakuen, ba, bete! Hatzaparrakin, [ale!] danak "ras! ras! ras!"

- Biharra, e?

- Bai, biharra zan. Eindakuen, ba, lotu ta barriro beste galdara haundi bat ta egosi. Inportantia da ondo egostia, e! Hor... bertan, galdaran, bai. Ta errementau ez deixen, ba, beti zainttu, irakiñ ez deixen ta haintxe ño...! Ta... Ta, bueno, gero esegi ta...

- Hori andrazkuena zan...

- Bai, hori andrazkuena zan.

2.38. Txerri-hiltzea: txorizoak zelan egiten diren

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/022
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:46:35. **Bukatu:** 00:49:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Txorizoak zelan egiten zituzten. Txerriaren koipea ere urtu eta gorde egiten zen. Olorik ez zen ia erabiltzen, koipea erabiltzen zen. Okela ere gatzetan ipintzen zuten, urte guztirako.

Transkripzioa

- Ta gizonak ze eitten zebeñ bitten bittartian?

- Bueno, ba, gizonak hortik zihar! Harek beste zeozer, baiña... hortik harek libre! Eta gero, txorixuek be eitten zien. Bueno, hori biharrori gizonezkuek eitten eben. Txikitzen zanian, ba, gixarrak apartau eitten jakozen. Ta gixarrak txikittu, zertu, triturau... ta zerak, piparrak. Pipar-hautsa ez, e! Oin pipar-hautsakin be eitten dabe, baiña [... esango hori]... Pipar naturalak, ba, eukitzen genduzen hiru bat egunian edo beratzen ta gero, harek estutu ta harek kaldo sendo-sendo-sendua! Harek bai bazien txorixuek, ez oinguek! Eta zertutakuan, txorixuek... okelak txikittutakuan, pasautakuen zerian, ba, harek botatzen zian ta gatza, gure ama zanan kostunbria zan... Zelan zan...? Hamasei kiloko libra bat gatz! Uste dot... Bai, hori zan neurrixa. Kozinera ona zan, e, ama. Hori bota, ta hiru bat egunien egoten zien bueltak emon ta bueltak emon, hartu deixen, ezta? zera, gustua. Ta gero bete harek be. Hatzaparrakin bete ta lotu ta esegi ta... Ta harek ez, harek sukaldian ipintz... .. ta beheko sutan, "ño!" erre hantxe ta ogibittartian hartu ta txarra ezin da izan!

- Ez, ezta?

- Ez, gozua!

- Ordukuak bai txorixuak!

- Txorixuak harek zien e! Urte guztien eukitzen genduzen! Gero siketutakuan ipiñi olixotan... urte darian egoten zien e! Baiña txorixuek harek zien e!

- Zelan gordetzen ziran gero, olixotan?

- Olixotan, guk olixotan gordetzen genduzen.

- Ta, zelan... ontzi haundi baten... edo...?

- Bai, bai, lurrezko ontzi batzuetan, bai. Ta, a! Ez dot esan, txarrixan koipiek be, ba, urtu eitten zien orduen, ta gorde. Ta koipiek... Orduan olixo gitxi gastatzen zan; koipia egoten zan, ta koipiakin! Ta ha koipia... harek estutzen zian, holan... trapu garbi baten estutu ta harek txitxarruak? Txitxarruak esaten jakuen... Harek urdai-erretakuak, ta gure aittak "Hau dok gauzia edarra izan!" Ta neri gustatzen jatan, e? garbi esanda. Neri gustau eitten jatan! Urdaixa zan, ezta? Ba, estutu danak ein ta ariñ-ariña! Dana aprobeztatzen zan, e! Ta ez zan alperrik galtzen... Kolesterolik bez orduan!

- Eta txarrixakin, okeliakin-ta, zer eitten zan, gatzetan ipiñi edo jan edo...?

- Gatzetan, gatzetan. Urte guztirako, e? Bai, bai. Esan dotsut, ba, "puetak" esaten jakozen zatixeri, ezta? Ta harek eitten zien, emon gatza, hiru egunien euki, buelta emon, barriro emon ta gero ipintzen jakozen harri bi, losa haundi batzuk, saka ta, ba, iguel hillebetien edo egoten zien han.

Ta gero esegi eitten zien. Ta gero urte guztirako! Edo bera erreta jateko, edo babak eitteko edo... bueno, zuk bihar dozunerako, harek esegitta egoten zien ta...

2.39. Maltzaga, Matsaria, Barrena zaharra eta beste presa askotan igerian

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-212/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:49. **Bukatu**: 00:02:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Umetako kontuak; Maltzaga, Matsaria, Barrena zaharra eta beste presa askotan igerian.

Transkripzioa

- Kontauko deskuzue zelan ibiltzen ziñazien zuek igarixan ta nun ta...
- Agustin: Nun?
- Bartolo: Ahal dan lekuan! Ura, potzua zeuan lekuan!
- A.: Eibarren, esango detsut, ba, bakotxak, batzuk , igarixan ondo ta jakiñian zertzen dabenak Maltzagara faten zian.
- B.: Maltzagara igarira, Maltzaga zuan zerori.
- A.: Ta Maltzagako trenbidako zeretik eitten eben salto be. Baiña...
- B.: Trenbidako barandatik batzuek! Beste batzuek pillarretikan, pillarren ertzetik...
- Baiña hor alturia egongo zan, ez?
- A.: Bai, ya lo creo!
- B.: Asko egon bihar...
- A.: Baliaientia izan bihar zan handik salto eitteko!
- B.: Gaiñera, barandatik salto eitten zeбенak , pillarrak holan jeukan, ba, barandia hemen, ta hau be pasau ein bihar uretara juateko.
- A.: Ostian, hurrao ibiltzeko, Txontan zan presia. Txontako presia izaten zan. Txontan euan presa bat. Haintxe eitten genduan beste kuadrilla batek. Ta beste batzuk...
- B.: Matsarixan be bai!
- A.: Matsarixan be bai! Ta baitta oin Gabilondok taillarra dakan lekuan be...
- B.: Han, Barrena...
- A.: Barrena Zaharra. Presia euan, ba, han.
- B.: Han errozia euan han! Ta errotarako presan.
- A.: Haintxe. Ostian...
- B.: Ta zerian be bai, presa-gaiña esaten jakon lekuan...
- A.: Baitta!
- B.: Otolardiko basarrixan aurrian be bai...! Haintxe daok presia ondiokan. Apurtuta! Baiña presia han daok ! Eregixa ein erdixan ta presia apurtu barik, total kendu barik daok. Han be bai. Ta zerian be bai, hemen, oin hotela daon aurrian be presia euan, ba, hona 'Cacho'nerako...

2.40. Klean jolasten zuten; abarketak zaindu egin behar

- **Hizlaria(k):** Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-212/008
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:10:32. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Abarketa zaharrekin jokatzeko zuten futboleko, berriak ez apurtzarren. Euria ari zuenean, abarketak kendu egiten zituzten eskolatik etxera joateko. Klean egiten zuten jolas, bai futboleko edo bai beste edozertan.

Transkripzioa

- Orduan foballa gogorraua izango zan, ez?
- Agustin: Bai, bueno, gogorraua... Gaiñera, sarritan guk jokatzeko genduanian, nik ez neban foballian asko zertu, baiña abarketekin-edo sarritan! Ez oingo moduan zapatak eta! Abarketa zaharrekin!
- Bartolo: Abarketekin. [...] abarketak bestela onak apurtu eitten zittuan, ta zaharrekin!
- A.: Abarketa zaharrak edo zapata zaharrak edo...
- B.: Orduan ez jeuan dirurik eta...
- Nik entzunda dakat ya ez kanpo foballian-eta ez, baiña kalia-eta jokatzeko zenduanian, batzueri amak ez zetsela lagatzen abarketekin jokatzeko eta ortozik jokatzeko zebela.
- B.: Ez jakixat, hainbesteraño ez juat ezautu nik. Baiña izan leike hori egotia be.
- A.: Bai, bai... Bueno, hori pixkat... Gu eskolatik eta eurixa bazan, abarketak ez estropeatziarren, abarketak lepuan hartu eta etxera faten giñan gu.
- B.: Bai, lotu alkarri ta bota bizkarrera ta... Hori bai. Hori bai.
- A.: Oingo modoko zerik ez zeuan orduan.
- Kalia be bai, umetan, gaztiauak zifazienian, holan, ume koskorak, kalia jokatzeko zenduen, ezta, foballian?
- B.: Kalia? Pentsaik! Esan neuan, ba, Bidebarrixetako automobillana? Galloko parian, Rialto parian, ipini zer bi, harri bi edo zapatak edo zeoze ipini, [...] bi ta porterua han. Ta bestia han, zubixa badaok, ba, Arikittanetik behera? Aranerako... Arabne esaten detsau guk, Fundidoreseko zera? Han beste bi. Ta foballian domeka arratsaldian hantxe. Ta automobilla noizian behin etortzen zanian, gelditu, ta automobilla juandakuan, segi!
- A.: Oingo zerik ez geKaun guk gaztetan, oingo joko zerik... dibersiñotarako lekurik ez zeuan orduan.
- B.: Ez, ez. Bakoitxak asmau bihar juan beran dibersiñua.
- A.: Norberak asmau bihar!

2.41. Eibar eta marrazketa; arteari lotutako hiria

- **Hizlaria(k):** Basauri Arteaga, Serafin; Murua Sarasqueta, Dunixi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Basauri Arteaga, Serafin
- Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** AB-269/011
- **Iraupena:** 0:06:13. **Hasi:** 00:31:21. **Bukatu:** 00:37:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena:** Damaskinatuaren lanengatik zarata entzuten zen kalean. Eibarren beti marrazkirako zaletasuna izan da. Marrazkilari onak, artista onak egon dira Eibarren. Eibartarra izateko marrazten ikasi behar zen. Esku ona derrigorrezkoa zen. Baskulagintzan ere esku ona behar zen. Eibar artisauen herria izan da. Ez zegoen ez ordurik eta ez egunik lanerako.

Transkripzioa

- Hor Eibarren jente nausixak kontatzen dau, zuek be ezautuko ziñuen, ez? Ba, kalia-eta zaratia...
- Bai! Danietan, etxe guztietan jeuan zaratia! Matiana : "ta, ta, ta, ta, ta!"
- Serafin: Matia... kolpeka...
- Bai, kolpeka.
- Horrena ?
- Bai.
- S.: Zaratia baiño gehixao, zarata...
- Ez, baiña haxe: "ti,ti, ti, ti..."
- S.: Eibarren jentia ohittuta jeuan zaratara! Txomoneko [...ren] taunbadak be bai! Eta jentia, ha kendu ezker, lorik ein ezin! Ze pentsatzen dok, ba?
- Bai, ba!
- S.: Jentia ohittuta jeuan! Han Urkusu ingurutikan, Txomo paretikan ta "dounba! dounba!" [...], normala! Haxe zuan Eibar!
- Ta domekan ezin lorik ein, ezta?
- S.: Domekan lorik ein barik! Bueno, baiña... Eta bestia,"ta, ta, ta" hori ba...
- Bueno, baiña zentzu onian, e? Jentia gogoratzen dau gauza on...
- Bai, bai, bai, bai, etxe guztietan jeuan bateren bat.
- S.: Eta dibujua... Eibarren beti egon izan dok afiziñua.
- Danak ikasten juen dibujua, baita dibujua ikastiarren be bai, e!
- S.: Akordatzen jatak, ni Fronto Zaharrian ibili nitzanian, orduan zuan sasoia Fu Manchu-ren pelikulak eta. Fu Manchu-n... Ultze batekin, ultzia ta harrixa.
- Bai, ni be ibiltzen nitzuan!
- S.: Eta losetan, Fronto Zaharreko losetan, Fu Manchu-ren dibujak eitten...
- Baita Txirixo kalia be bai!
- S.: Ni be einda naok!
- Txirixo kalia be bai!
- S.: Bai, ezta? Losak. Tallia! "Taka-taka-taka..."
- Lurrian! Lurrian, bai, bai, bai... losetan!
- S.: Lurrian, losan... Frontoiko losetan!
- Mallukia hartu ta "Ta-ta-...", bai.
- S.: Bai. Fu Manchu akordatzen jatak neri, sasoi haretako... Orduan, modia. Bueno! Fu Manchu-ren pelikulak,"Fu Manchu ataca" ta... Serie bat zuan! Ez jakixat zenbat pelikula emon zittuen Fu Manchu-renak!
- Ta, orduan, hainbeste egoteko eibartarren artian artista asko zeuan edo... ?
- S.: Bai...
- Dibujantia onak [urtetzen eben], bai.
- S.: Ointxe be bai oindiok! Serrano berak eta... Serrano berak eta, horrek

dakazen kuadruak eta... Hori... [Ikusten dok] dibujua badakixala! Hemen? Artista asko daok Eibarren, e! Beste gauza bat dok...

- Ta dibujua danak ikasten juen, e! Danak, e!

- S.: Dibujua danak. Beste gauza bat dok, koloria ta hori pintturako artiori dominatzia, baiña dibujua? Eibarren jente [pila bat].

- Ba, Aiuntamentuan eskolan, nere lagun bat izan zuan `Canicas` futbolista. Ta harek sekula ez juan ein dibujua... dibujorako, baiña dibujua ikastiarren zuan.

- Eibartarra izateko jakin ein bihar, ez?

- Bai, bai, bai. Bai, dibujua ikasi bihar juan! [...] zuan! Ez dakik, "gustua dakak, baiña dibujua dakak eta"... , dibujua...

- S.: Esku ona! Esku ona! Esku ona, dibujorako, ta "esku ona jakak", liman eitteko be bai, esku ona bihar.

- Bai, esku ona.

- S.: Orduan baskulak eitteko...

- Ez zuan "buru ona", zuan "esku ona" zuan.

- S.: Esku ona, eskua ona...

- Bai, eskua ona.

- S.: Baskulagiñan be, baskulak lehen eitten zian moduan... Jo! Artia? Hori be artia dok, gero, hori, e! Harek mekanismo guztiak eta harek alojamientoak-eta zinzelakin zabaldu ein bihar dittuk, e! Ointxe enterau nok ni! Brotxak, brotxak deitzen jetsek! Hik sekula entzun dok hori?

- Ez. Ez, ez...

- Berba hori... Klaro, hi ez haiz baskulagiñan ibili. Baiña baskulekin ibiltzen dianak, hor daoza, brotxak. Dittuk zinzal modoko batzuek eta horretzekin zabaltzen zittuen kanalak eta zerak eta. Oin, ba, horrek, ba, fresan, fresadoran eitten dittuk. Ta brotxak deitzen jetsek horri. Ta... txokautu : "Brotxia, baiña ze... ze ete dok hori?" ta zinzela!

- Zinzalak zittuazen, neurrikuak, jo-ta etaratzeko.

- Neurrikuak, neurrikuak, diferentia! Forma diferentia, kanala eitteko ta... bueno. Ta benetan, esku ona. Esku ona bihar zuan, bai!

- Ona ta azkarra izan bihar zuan!

- S.: Ona ta azkarra! Ta zinzelakin... Ni biharra einda naok ni zerakin, zinzelakin, Eskola Armerixan, baiña bo! Gubi zabal batekin desbasteko horrek biharrok eitten ta zenbat kolpe hemen, mailluakin, asmau ezinda... ! "Danba!" ta eskua, ta "kauen...!". Baiña zinzelakin, hemen, bihar asko...

- Gero limia be ondo [...] zuan. Joe...! [Baeuazen] artistak liman! Artistak!

- S.: Hemen horixe izan dok, Eibar izan dok, ba, hori, artesauen herrixa: dibujua..., eskulania benetan jente artistia egon dok. Artistia! Jente ona. Maixu onak be bai! Hemen jentia gero hamahiru urtekin hasten zuan biharrian! Hamahiru urtekin errekauek ein ta, ofiziua ikaste aldera, ba, maixuari ikusi ta... Erakutsi gauza askorik ez juen erakutsiko, baiña emongo jetsan lantzian behin bihar bat eta eitten juan ta ikasi! Ta urtien puruan, ba, horixe, ofiziua ikasi!

- Normalian ez zan larregi kobrauko, ez?

- Ez... bai zera!

- S.: Kobrau? Berotze aldera -do ingo juen han biharra... ba... zeoze emongo jetsen, pagaren bat edo emongo jetsen gaztiari ta...

- Gero ez jeuan ordurik eta egunik be biharrerako, e?, porke honek, Kareagak, Mateo Kareagak, dakan eskopetia, hori zapatuetan ta domeketan eindakua dok, ordutik, taillarreko ordutik kanpora eindakua. Aber zelako biharra dan! Ez eguan ordurik eta egunik eta ezebez! Igual juan `Casino Amistad`era ta hartu kafia ta gero taillarrera igual, domeketan. Ta hantxe "tar, tar, tar, tar...". Bai. Ez jeuan telebisiñorik eta... ze...?

- S.: Gustua be bai biharrerako. Afiziñua, gustau lana eta lana eitten

disfrutau!

- Bai, bai, bai, bai...

- S.: Disfrutau!

2.42. Urre-lantegiaren hastapenak

- **Hizlaria(k):** Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-270/002
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:02:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Jatorriaren berri. Mateo Etxebarria (aitona) Markinarra zen eta Eibarrera etorri zen lanera, eta bertan ezkondu zen. Damaskinatua indartzen hasi zen garai hartan eta urre-lantegi bat jartzea erabaki zuen.

Transkripzioa

- Esan dozu urrekunak-eta, familixia, aittitta...

- Aittitta hasi zan, Mateo Etxebarria. Uste dot zala Markiña aldekoa zan.

Hona etorri zan, Eibarrera, arman, eskopetan ofiziuia ikastera. Ezkondu zan Maria Luisa Agirregomezkorta, orduan `Irustanekua´ deitzen zetsen horri familixiorri. Eta itxuria ziran herrixan, pixkat honek, "señorito" edo zera.

Eta ezkondu zan horrekin, Maria Luisa Agirregomezkorta. Ta eskopetan uste dot jardun ebal ikasten nunbaiten. Hori ez dakit nik, nere anaiak gehixago ekixan horrek gauzok. Ta, ba, orduantxe hasi zan damaskinaua, itxuria, Eibarren, ta pentsau eban, ba, urria preparatzen hasi, edo zelan.

Oin, ez dakit nun ikasi eban be eta zera. Txirixokalian, Txiriokale 6, hor bizi zian, eta hortxe ipin eben taillarra planta bajaran. Bai. Eta nik entzunda dakaten moduan, ba, orduan... zelan deitzen jako "yunkiari" euskeraz? Bueno, orduan, zera, ba, kalian joten ei eben. Bihar erdixa, itxuria, kalian eitten eben, Txirixokalian. Eta hor be jaixo ziran, hor etxian, ba, hori, ta gero, Toribio Etxebarria, Blas Etxebarria... horrek danok hor jaixuak dia.

- Osea, danak, familixakuak dia?

- Bai. Ba hor urte askuan itxuria egon zian.

2.43. Bittor Sarasketa, Errege Etxearen hornitzaile

- **Hizlaria(k):** Basauri Arzuaga, Ladislao; Gisasola Berrio-otxoa, Garbiñe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-272/004
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:02:39. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena:** Bittor Sarasketa Errege Etxearen hornitzailea zen, eskopetei zegokienez. Erregeari "tú" esaten omen zion, ez zekielako besterik. Espainia osoko noblezia etortzen zen. Eskopetak probatzen ibiltzen ziren. Probaleku handia zegoen.

Transkripzioa

- Erregiari "tú" eitten zetsan?

- E?

- Erregiari...

- "Tú"! ez [ekixan] besterik eta. Eta zera zan ha, "Provedor de la Real Casa" eskopetena. Eta horreaitek etortzen zian han... Espainia guztiko aberatsak. Badakizu ze pasatzen zan, Erregia etortzen zanian Donostiara, danak zetozen horra, markesok eta kondiok eta... Ni... Ni gaztia orduan, ta txoferrak bai, bi etortzen zian. Ta bata bajatu ta atia zabaldu urtetzeko ta sonbrerua kendu ta... Ta gero han egoten zian, ba, ixa goiz guztian. Ta han ibiltzen zian, tiroka. Hau, Urkijon semia be bai. Hamen ezkondata zeuan zera, Isasixan, ta ez zekan, ba, nora juan, ta goizetan, ba, haraxe. Egun guztian tiroka. Boom! Jarri [...] behera ta blankuori.

- Eskupetak probatzen.

- Pruebak eitten. Probadero haundixa zeuan. Metruekin ta danakin. Ta gero etortzen zian, ba, plomeua esaten dana eurak, haundixa dakala ta txikixa dakala ta, holako katxarro bat ipintzen etsen, ta jartzen zian ta "ra-ra-ra-ra" ta buu! "Coño, pero esto está...". Egun guztia pasau.

2.44. "Victor Sarasqueta" lantegia; Sarasketatarrak

- **Hizlaria(k)**: Basauri Arzuaga, Ladislao; Gisasola Berrio-otxoa, Garbiñe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-272/005
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:03:45. **Bukatu**: 00:05:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Ondo ezagutzen zuen "Victor Sarasqueta" lantegia. Bertan eraikinean jaio zen, lehenengo pisuan. Behean harategia. Gainontzeko etxeetan Sarasketatarrak bizi ziren. Sarasketatarren familia.

Transkripzioa

- Zuk orduan ondo ezautuko zenduan fabrikia, ez?

- Puu! Fabrikia? Bai!

- Nun jaixo ziñan zu, parian?

- Bertan, bertan etxian.

- Bertan?

- Gu lehenengo pisuan. Ta sotanuan karnazerixia. Beste guztia... Gero, bigarrenian zera zeuan, Boni Sarasketa, Milagrosen-ta aitta, matrimonixua. Ta eskuman zeuan zera, hau, Bitor Sarasketa zaharra. Ta haren gaiñian zeuan...

- Garbiñe: Bai. Leonor... Leonor ez.

- Juli zaharrena, Irigoienekin ezkondu zana. Ha hirugarrenian. Bitorrek zekazen... Bi bider ezkondata zeuan Bitor zaharra. Ta lehenengua zan Boni.

- G.: Boni lehenengo semea.

- Seme bakarra. Ha ezkondu zan zerakin, Milagrosen... Consuelo Sarasketakin. Ez, Consuelo...

- G.: Consuelo Oiarzabal.

- Consuelo Oiarzabal. Aitta ez zan izan abogaua?

- G.: Bai, Lasturren uste det. Ezta? Lastur edo... hortxe.

- Sekretarixia izan zan aiuntamentukua.
- G.: Lasturkoa uste det zala.
- Ta gero bestiak euki zittuan familixia Juli, Leonor, Cristina ta Beatriz, ta Bitor.
- G.: Beatriz gaztena. Bitor gaztena.
- Ez.
- G.: Beatriz gaztena.
- Beatriz gaztena. Bitor, Juli... bestia, Critina, zerakin Aranzibiakin ezkondu zan, enpleaua zerekua, zoroetxekua edo, Zaldibarren.
- G.: A, bai. Sendagilea zan ala?
- E?
- G.: Sendagilea zan ala? Ez, administradorea.
- Administradorian... Durangoar bat.

2.45. Bittor Sarasketa basurdetara joaten zen

- **Hizlaria(k):** Basauri Arzuaga, Ladislao; Gisasola Berrio-otxo, Garbiñe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-272/006
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Bittor Sarasketak sortu zuen eskopeta lantegia. Azpiri baserrikoa zen. Agustin anaia bizi zen berarekin. Ehiztariak ziren eta txakurrentzat jateko bila joaten ziren harategira. Basurdetara joaten ziren. Basurdeak nola ekartzen zituzten kotxean. Orduan beraiek bakarrik zuten kotxea.

Transkripzioa

- Eta enpresia zeinnek fundau zeban?
- Bitor Sarasketak, basarrikua, Azpirikuak, hor Matsari gaiñekuak. Ta gero berakin bizi zian, zera, Agustin, anaia berana Bitorrena, mutilzaharra.
- Garbiñe: Nik ez nun ezautu.
- A! Ni etxeko nitzan. Karnazerixia, ta txakurrak zekezen ba, ta txakurreri jatekua emotera, ba, karnazerixatikan, tripakixak garbitzen zianian-ta, txakurrendako.
- Bera kazarixa izango zan, ez?
- Buu! Basurdatara-ta ibiltzen zian orduan. Ta ekartzen zittuenian, ekartzen zittuen zerian, kotxian zerian, guardabarrosan onduan holan ipinitta zerak. Gogorak zian orduan denporetan! Kotxia eurak bakarrik, e!
- Bai, Eibarren gitxik eukiko zeben, ez?

2.46. Garo-sailak eta garo-batzeak

- **Hizlaria(k):** Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-294/022
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:52:34. **Bukatu:** 00:54:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Garo-batzea. Non, noiz eta zelan jarduten zuten ira ebakitzen. Azpelak. Garo-sail onenak Kalamua-Akondia inguruan zeuden.

Transkripzioa

- Eta garua edo iria ta... nun batzen zan?
- Joe, benetan? Ba mendixan! Ira ebaten... zerakin, igitaixa badakizu zer dan? "Hoz". Igitaixakin ebagi ta batu ta azpelak ein hamen galtzarpera ta "ra!" ta "ra!" ta "ra!" laga ta egun guztian. Etxera, basarrira jua ta babak jan, amak ekartzen zittuan babak, ta urdaixakin jan ta ala! Barriro atsalde guztian. Ta gero azpelak ein ta gero, egualdixa ona etortzen zanian, batu ta ipintzen genduan egur haundi bat, goittik behera, aldaparia danak hemen ta aldapia ipini ta aitta jartzen zan gaiñian ta guk garua eruan ta aittak tolostu. Ta gero behera sokiakin tiratu. Horrek egixak dia gero, e! Ez pentsau gero inbentau dotenik bape e! Ta behera ta gero, ba, ganauekin edo idixekin behian burdixa kargau ta etxera. Aitta izaten zan jefiori, guk biharra. Aitta izaten zan burdixa kargatzen ebanori, preparatzen ebana zerori.
- Eta noiz eitten zan ira-ebatia?
- Oktubrian! Iria oktubrian ebaten da.
- Eta nun zeren ira-saillak?
- Danian! Danian! Kalamua be... Kalamuan ira-saillak... Kalamuan iria...! Joe! Nobera [hainbatekua]. Hazten zan iria...! Bai, ba, ardixak zebizen han ta ardixak irarik ez dau jaten. Zatarra da ta! Ta gero harek txixa ta kaka ta, badakizu... Ta mendixak, ba, alimentua nahi izaten dau ta... Han garua hazten zan...! Bueno...! Baiña zoragarrixa gero, e! Han parejak-eta garotzan-ta han ibiltzen zian! Garo artian sartuta ta. Baiña garua asko, ta demasa baiña garua, e! Hor Arrate baillako guztiak handik ekartzen eben garua! Kalamuatik!
- Oseake, han ezkututzen zian parejak eta.
- Bai, honbre!

2.47. Aita lanbidez akabatzailea, baina kulturari lotua

- **Hizlaria(k):** Zanguitu Arana, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-320/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:21:47. **Bukatu:** 00:23:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aita akabatzailea zen. Aitaren lanbideagatik herri desberdinetan bizi izan ziren, eta azkenean Eibarren gelditu. Orbea lantegian lan egina zen akabatzaile moduan; baita bere kontura eta Solac-en ere. Euskal gaietarako eta kulturarako sentsibiltatea zuen. Flauta jotzen zuen, eta antzerkiak egiten zituen euskaraz. Asko irakurtzen omen zuen. Berak 18 urte zituela hil zen.

Transkripzioa

- Ta, bueno, ba... Bueno, aitta ibili zan, igual beran aitta... Bueno,

akabatzaillia zan, e? Ta, bueno, ba, ez dakit Eibarren etorri zan lanera edo... Baiña beste herri batzuetan be bizittakua zan beran aittan ofiziuagaittik edo. Aittittan... Ta, bueno, ez dakit zelan ezautuko zian edo zer, baiña bueno, behintzat...

- Bai, hamen amaittu zeбен.

- Bai, bai, bai, hamen geratu zan.

- Eta lehengunian aittatu zenduan biharrian Orbeanian egon zala?

- Bai. Akabatzaillia zan ta Orbeanian egon zan. Baiña gero bere kontura be ibili zan, ta gero Solac-en be, ni sartu nitzanian, bera be han zeuan, e, akabatzaillie. Osea, beti izan zan akabatzaillia. Ta, bueno, musikia be... flauta edo joten zeбан. Baiña... Eske, karo, aitta zan... pixkat... teatruak be euskeraz eitten zittuan. Osea, ya beste... aittak beste giro bat zekan; osea, beste kultura bat, euskal gauzekin ta holan beste sesnsibilidade bat edo zekan, desberdina. Osea... Ta, bueno, ba, ez dakit, nik hamazortzi urte nekazen bera hil zanian. Ta asko irakortzen zeбан ta... Osea ya, ez dakit, pixkat beste...

- Bai, sasoi horretan arrarua zan, ez?

- Bai, bai, bai, zekan beste...

2.48. Osaba Jose Zangituren akademia

- **Hizlaria(k):** Zanguitu Arana, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-320/021
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:23:07. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Aitaren anaia, Jose Zangitu, maisua zen. Gerra garaian nazionalistei ez zieten uzten irakasle izaten eta akademia zabaldu zuen bere kontura. Gerboles maisuaren akademia ere ezaguna zen. Gazte asko prestatu zituen osabak Armeria Eskolara joateko. Hura ikasia zen, baina Maiteren aitak ez zuen izan zorte hori. Jaunartzea egiterako lanean ei ziharduen.

Transkripzioa

- Anai bat zekan maisua izandakua. Hamen preparau zittuan mutil mordua Eskola Armerixara juateko ta. Jose zan, Zangitu. Ta akademixa bat zekan. Orduan... Karo, maisua zan ta gerran ya nazionalisteri ta holan ez zetsen laga ya ejerzitzen. Ta, orduan, berak hamen ipini zeбан akademixia. Gerbolesen moduan ta... Ez dakizu, Gerboles? Han, profesore bat calle del Carmenen? Han be... Gure sasoi oso ezauna. Ta tio Josek be bai, euki zeбан akademixa bat. Holan, jentia preparatzen zeбан. Jente asko. Ya oin ya nausixak diranak danak, ez? Baiña Eskola Armerixara juateko hantxe preparatzen ziran tio Josekin. Ta harek estudixau eban, baiña nere aittak ez. Berak esaten eban komuniua in baiño...

- Baiña gustatzen jakon behintzat, ez?

- Bai, bai. Komuniua in baiño lehen bera ya lanian zeuala esaten eban. Bai.

2.49. Arragueta kaletik Txontako Telleria baserrira

- **Hizlaria(k):** Idarraga Zulaica, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-325/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Arragueta kalean jaio zen Tomasa. Gero Txontara joan ziren bizitzera, Telleria kale-baserrira, gurasoak ez zirelako kalean moldatzen. Ama elgoibartarra zen eta aita eibartarra. Telleria baserria bakarrik zen garai hartan.

Transkripzioa

- Eta esan dozu zu jaixo Arragueta kalia jaixo ziñala?
- Bai.
- Eta zelakua zan orduan Arragueta kalia?
- Iguala?
- Bai?
- Bai, iguala.
- Ez da kanbixau hori?
- Ez, ez da kanbixau.
- Txontan aitzia jaixo zan.
- Eta zelan? Gero jua ziñazien Txontara?
- Bai. Gero jua zian... basarri modoko bat zan nere zera, ortuak eta euazen ta. Kalia ez zian zertzen, moldatzen, ta haraxe jua zian. Ta hantxe bizi izan zian.
- Gurasuak?
- Bai. Ta geu be hantxe.
- Karo, eurak basarrikuak ziran.
- Bai, bai, bai. Elgoibarkua bata, ama. Ama Elgoibarkua, ta aitta hangotxia, Urkuzeikua.
- Eta nahixau zebe basarrixan bizi izatia eurak.
- Bai, erregular! Kalia aspertu zian.
- Eta Tellerixa ze zan, basarri-basarrixa zan?
- Bakarrik... Bera bakarrik zan, ta ortuak ekazen aldamenian. Ta, zera, gero egon zan zera, Remigion taillarra. Ta lehenao ez zan haura. Ha zan dana basarrixa, hasi behetikan ta goraiño, zereraño, eee... zelan esango dotsut?
- Pisu dana... edifizio guztia basarrixa.
- Bai, bakarrik zan. Gero zan bestiak ein zittuena.

2.50. Era askotako fruta-arbolak Telleria kale-baserrian

- **Hizlaria(k):** Idarraga Zulaica, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-325/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- **Laburpena:** Bera txikia zela joan ziren Arragueta kaletik Txontako Telleria kale-baserrira. Bidearen ondo-ondoan zegoen. Txerriak eta oiloak izaten zituzten. Baita baratzea eta fruta-arbolak ere. Ze fruta-klase izaten zuten.

Transkripzioa

- Eta zu Arraguetan jaixo eta zenbat urtekin jua ziñan Tellerixara?
- Ez dakit nik.
- Baiña umetan, ez?
- Umetan, umetan.
- Eta, orduan, kanbixua ze, onerako? Igarri zenduan kanbixorik kaletik basarrira?
- Ez. Ha zan basarrixa... ha kalia ezkiñan euan. Bertan bidian ezkiñan euan.
- Osea, kaleko basarrixa, ez?
- Bai, kale-basarrixa.
- Ta ganaurik-eta bazekazuen?
- Ez, zera, txarrixak eta oilluak.
- Eta gero ortuak?
- Gero ortuak. Ostian ez.
- Eta ortuak asko?
- Ortuak? Bai, aldamenian be bai ta goixan be bai. Frutia. Oin be egongo dia edarrak han!
- A bai?
- Bai!
- Ze eukitzen zenduen? Ze fruta?
- Dana. Sagarra, melokotoiak, frixkuak, ta zerak... madarixak. Ta gero edifizio bat euan ederra, zera, oilluak eukitzekua.
- Oillotokixa edo?
- Bai, oillotokixa.
- Eta asko eukitzen zenduezen?
- Bai, bastante, bastante egoten zian. Gero zera in zan, Remigion taillarra.

2.51. Neskak eta mutilak kalean elkarrekin jolasean

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/038
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Dantzatik sortzen ziren garai batean bikoteak. Eskolan aparte ibili arren, neskak eta mutilak kalean elkarrekin ibiltzen ziren jolasean. Orduko jolasak; antxintxiketan (korrika) ibiltzen ziren asko.

Transkripzioa

- Eta hor, imaginatzen dot, nobixo pareja asko urtengo ziala halako dantzetatik, ez?
- Bai, hortixik. Nundik ba? Hortixik.
- Bestela aukera gitxi neskak eta mutillak...

- Bueno, neska-mutillak ibiltzeko ta, hori beti, umetatik. Jolasten ta eso, beti hori... Eskolak-eta ez ziazten mistuak, baiña lagunak kaliaz igual-igual neska-mutillak ibiltzen giñan, e!

- Bai?

- Bai, bai, bai.

- Jolasian?

- Bai, bai, bai, bai.

- Ta zetara jolasten zenduen holan elkarrekin?

- Onbre, oin ez da jolasten holan. Gu antxixiketean beti. "Al ocho", ta "al cero" ta "a katekas" y... Horretzek ziazten jolasak. Horretzek. Normalian beti antxixiketean.

- Gero bazeren jolas batzuk neskenak espezialak eta beste batzuk mutillenak izango zianak, ez? Edo?

- Bueno, neskenak eta mutillenak, ba...

- Ba, tortolosak edo...

- Bai, hori bai. Bai. Baiña horrek, antxixiketean, neska-mutillak, e! Bai, bai, bai.

- Eta hori, esan dozuna, "al ocho", hori ze zan?

- "Al ocho" zan... Aber, "al ocho" zan aiuntamentuari buelta emoten. Ta gero... "al ocho" [haxe] zan. "A katekas" gero, punta batetik bestera. Ta bestia zein esan detsut?

- "Al cero" edo...

- A! "Al cero" zan aiuntamentutik bueltan. "Al cero". Ta "al ocho", ez naiz akordatzten ondo, aiuntamentura, ta gero hona aldera etortzen giñan, kioskua zeuan lekuan holatzen "ocho" bat eittera. Holaxen.

2.52. Legarre auzoa nolakoa zen

- **Hizlaria(k)**: Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: AB-332/041
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:52:09. **Bukatu**: 00:53:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: San Andres kalean jaio zen bera. Untzaga eta Legarre inguruan ibiltzen zen beti, auzoko lagunekin. Legarre auzoa nolakoa zen eta nola aldatu den. Etxebarri baserria. Bertan jaioa zen bere aita.

Transkripzioa

- Eta zu, gaiñera, nun jaiotakua zara?

- San Andres kaliaz.

- San Andres kaliaz. Orduan, Untzaga, gaiñera zure jolas leku...

- Bai, bai. Untzaga ta Legarre ta hor inguruan beti.

- Ta ze izaten zan, gehixenetan kuadrillak izaten zian inguru...

- Barriokuak. Bai, bertakuak, bai.

- Eta asko aldatu da Legarre ingurua ta hori?

- Bai, total. Total. Ez zeuzaten hainbeste etxe! Han basarrixa ta... lau etxe. Oin badakizu...? Oin, enee, total diferentia.

- Zelan gogoratzen dozu zuk?

- Legarre? Ba, Legarre... lehelengo etxiak... oin lehelengo-lehelengua ez

dao ya, botata dao. Ya ez dao. Ha zan zera... aber... etxe txiki bat zan lehelengua. Ya oin ez dao, e! Ta gero, ba, beste bi edo hiru segido, ta gero ez zeuan ezebez. Ta ya gero ospitaleko kamiñua ta ezebez gehixao. Ta gero kurbatik gorutz horrek etxe guztiok ez zeuazen. Ezta bat be, e! Zan, ba, mendixa. Basarrixa zeuan, Etxebarri basarrixa, ta gero, ba, mendixa.

- Eta zelakua zan basarri hori? Gogoratzen dozu?

- Bai, ez naiz gogoratuko ba? Asko.

- Bai?

- Bai. Basarri bat... Nere aitta hortxe jaixo zan.

- Ene!

- Bai, oseake...

2.53. Aita "Arraindi" kalean jaioa

- **Hizlaria(k)**: Olabe Etxebarria, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-002/004
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:06:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Gurasoak eibartarrak zituen. Aita "Arraindi" kalean jaio zen. "Arraindi" kalea non zegoen; inguruko eraikinak eta kaleak nolakoak ziren. Kale horretan arrandegiren bat egongo zela uste du kaleak izen hori izateko.

Transkripzioa

- Nik aitta ta ama Eibarkuak nittuan. Aitta jaixo zan, ez dozue eukiko, seguru, kalia izena be, "Arraindi" kalia. "Arraindi" kalia, ez dakitt entzun dozuen sekula be. "Arraindi" kalia zan, "calle pescadería, Arraindegi", baiña "Arraindi", kalia esaten zetsan jentiak. Ta ha zan kale bat izen euskalduna eukana, "Arraindi" kalia. Ta hori euan ba, parroixia, San Andres, harek oin daukan e, ha esplanadatxua, zerian sartu ta... haren parian euan etxe bat, Godoiena esaten eben, eskudo haundi batekin, ta gero haren etxian albuana, ba, barrenkalia, barrenkalia zan. Ta hantxe euan, hori etxiori, esan doguna, "Godoi". Ba, haren atzekaldian euan elizarutz paralelo, ba, "Arraindi" kalia. Ez dakitt aittu dozun, gitxi gorabehera.

-Bai, oiñ parkia dauan tokixan, ez? Parroixia pareko parkia dauan tokixan.

-Bai, bai, bai, parkia-edo.

-Bai, justu, oin [...] justu...

-Bai, bueno, hantxe, bai.

-Eta esan dozu "Arraindi" kalia zala

- "Arraindi" kalia.

-Zegaittik zekan izen hori, badakizu?

-"Calle de la pescadería".

-Arraindegixak-edo zeren edo holakoren bat?

-Horrek, seguru, horrek eukiko ebana hori, dendaren bat edo beste egongo ziran "pescadería" esaten dana, arraiña saltzen ebenak. "Arraindegi" kalia horretxegaittik izango zan, zegaittik eze... Hantxe jaixua zan nere aitta "Arraindi" kalia.

2.54. Toribio Etxebarriaren 'Lexicón' lanaren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Olabe Etxebarria, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-002/008
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:11:55. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Toribioren Lexicón lanaren inguruko azalpenak. Toribiok lana buruz eta emaztearekin batera egin zuela dio, eta horregatik igartzen direla zenbait huts. Toribioren emaztea, Claudia Arrizabalaga, "Ertzil" deitzen zitzaion familiakoa zen. Izen honen jatorria Aginaga auzoko izen bereko baseritik dator. Toribioren lanean nabaritutako hutsak betetzen ibili da bera astia zuenean.

Transkripzioa

- Eta zuk badakizu Toribio zelan hasi zan lexikoia eitten eta zegaittik?
- Bueno, bai, berak esplikatzen dau hamen, ta igartzen jako zela ein daben, burutz eindakua da hau, burutz, ta horretxegaittik daukaz falluak, berba batzuk ez daukaz ipinitta. Ta burutz eindda dauka, bere andrian laguntasunakin, tia Claudia, Eibarkua ha be, Arrizabalaga, Arrizabalaga. Horrek ziran beste familixa bat, Arrizabalagak, ba, "Ertzil" esaten zetsen haren familixiari, zegaittik eze, haren jatorrixa etorren, basarri bat, "Ertzil" dabena izena. Hori basarrixori egon bihar dau, ez dot ezagutzen, baiña, Ixutik bera Bariñara juaten, hantxe parajian egon bihar da, hantxe dao itxuria ha basarrixa. Handittik-edo datoz horrek. Bueno, hartzen dao, ezta?
- Bai, bai. Ta orduan bixen artian ein zebe Toribio eta...
- Bai bixen artian ein eben, ta horretxegaittik dakaz hemen fallo batzuk. Ta, gaiñera, ezaun dau zela dakazen fallo batzuk, zegaittik eze, hau eitteko ondo euan ba, naturalmente, alfabetuakin ein bihar da, alfabetuakin ta, sarrittan, ez da izeten erreza, jarraitzia alfabetuari e, zuzen-zuzen, ta horretxegaittik daukaz, horrek e, fallo batzuk. Ta gero zela eitten daben berba bakoitxakin, frase bat, ejemplo moduan, ezta, e? Aitzen dozu, ezta? Ejemplo moduan bera berbia zela usatzen dan e, zela erabiltzen dan bera berbia, ba, han ejenpluetan gero agertzen da, ha berbia, ahaztu jakona. Ta horrek berbok nik jaso ein nittuan ta hemen liburuan, neuretako honek ez zekan pretensiñorik ezebe, neure kuriosidadiagaittik, neure kuriosidadiagaittik, ha berbia ba, sartu eitten neban alfabetikamente barruan sartzen neban, ta gero ejemplo batzuetan agertu eitten zan. Nik goguan daukat, por ejemplo, nere amak "aurka" esaten eban "kontra", "kontra" "aurka", baiña gitxi usatzen da hori e, orduan be gutxi, ixa — euren sasoian be— aurka ixa juanda euan berba hori, "kontra", "kontra". Ta aitzen dozu, ezta ze esan gura dodan e? Ba, hori berbiori "aurka" gero ejemplo baten agertzen da, ta orduantxe hasi nitzan ba sartzen zela, ha, ez zeukan zerik e, azkenengo sartu neban berbia... Zer?
- Sekulako biharra hartu dozula orduan?
- Bai, bueno, denpora libria neukanian-ta, gustora... gustora irakurten neban ba, haren euskeria ederra zan.

2.55. Aurrekoek euskara hobea; Toribio Etxebarriaren ama

- **Hizlaria(k):** Olabe Etxebarria, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-002/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Euskara » Euskararen egoera
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Bere aurrekoek euskara hobea egiten zutela dio, eta Toribio Etxebarriak ere bere aitak euskara hobea egiten zuela zioen. Toribioren ama Gasteiztarra zen eta ez zekien euskaraz, gurasoak euskaldunak izan arren. Aita, Ibarbia abizenekoa, Errezilgoa zen eta ama Azkoaga, Aramaikoa.

Transkripzioa

-Ta gustora irakurten neban, ba, haren euskeria ederra zan, ederra euskeria! Gure aldian, gure aldian hobeto eitten eben euskeraz. Ta berak, tio Toribiok, esaten dau bere gurasuak hobeto eitten ebela. Bere gurasuak, bueno, bere aittak, bere aittak, zegaittik eze amak ez zekixan euskeraz, ama Vittorixakua zan, bai, ama Gasteizkua, ta, baiña euskalduna, aitta Errejilgua zan aitta, Ibarbia. Horrek Ibarbiok Errejilen dare, "Los Ibarbia Cincunegui". Ta ama Aramaixokua zan; Aramiakokua ama. Ta haregandik, ba nik eukiko dittut apelliduak Ibarbia, Zinkunegi ta Aramaixotik Azkoaga.

-Eta amak ez zeban ikasi e, euskerarik ez zeban ikasi Eibarren, Toribion amak?

-Ez, ez, ez, baiña aittu bai eitten eban, aittu. Hainbeste urte ein zittuan eze Eibarren, entzuten, entzuten, aittu eitten eban, bai.

2.56. Euren senide Irustatarrak kanoiginak ziren

- **Hizlaria(k):** Olabe Etxebarria, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-002/010
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena:** Bera mutikoa zela sarritan osaba Toribioren etxera joaten zen bazkaltzera. Toribioren amama Irustatarra zen. Irustatarrek sutegi batean lan egiten zuten kanoiak egiten. Toribiok ere ematen omen ditu kanoigintzaren inguruko azalpenak, baina ez berak zuzenean bere aurrekoei ikusita. Kanoiak nola egiten diren azaltzen du.

Transkripzioa

-Baiña, neu, precisamente, umia nintzarian neukan ohitturia bere etxera juaten nitzan inbitau barik bazkaltzera domeketan. Bai, bai, han agertzen nitzan bere etxian

-Garbantzuk jatera ?

-E?

-Garbantzuk edo...

-Ez, arrozakin, paellia ez, baiña ondo ipinita, ondiok be gustua be goguan daukat zelako gustua eukan harek arrozak, bai, bai, bai. Arroza lelengo platua ta gero beste zertxo bat, eta hantxe egoten giñan... Hor e, ba, gure horrek antepasauok, horrek e, Irustatarren etxia. Oin Irustatarren jote dot berriz, e! Toribion aitta ta amandria, amandria zan Irusta, amandria Irusta. Horrek Irustatarrok ziran, liburu baten esaten dau Toribiok kaiñoigintzak, kaiñoigintzak. Aitzen dozu? Kaiñoigintzak, ezta? Horrek eitten eben biharra sutegi batekin, e! Sua, ba, "fragua" esaten jakona, sutegi euskeraz, ez da usatzen asko Eibarren berba hori sutegi, baiña, baiña... sutegi da. Han e, burdiña, tio Toribiok esaten dau zela eitten diran kañoiak, berak, ez e, gure, bere aurreraokuak, bere antepasaueri ikusitta ez, beste taillar baten ikusi ebala, hor itxi ein eben guriak, ta beste taillar bat ikusi ebala. Ta esaten dau tio Toribiok liburu baten txiste moduan esaten dala zulu eitten dala, ba, haixia hartu ta haxe, bueltak, bueltak emon hari. Haixia hartu e! Zirkularra, ezta? Haixia zirkularra ta bueltak emon hari. Aitzen dozu? Ta esaten eban e, eittez, errealidadian, ba, holaxe dala, zegaittik eze, hartzen dabela barilla bat, barilla bat, kalibria ba, emoten jako, kañoia zenbatekua ein bihar daben hamabikua-edo izango dana, barilla bat. Ta han sutegixan berotzen dabe, ba seguru ba, berotuko dabe mila ta egun-edo, mila ta berregun gradura-edo. Ta hari barilliari bueltak emoten jakoz, erdixan daukan e... bueltak, ta maillukiakin, mailluka fuertiakin, gizona be fuertia izan bihar, ez nere modokua! Ta ha, holaxek eitten zittuela kañoiak.

2.57. Umetako jolasak: txirikila, tortolosak eta kanikak

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-022/008
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetan "txirikiletan", "tortoloxetan" eta kaniketan jolasten zuten, besteak beste. Jokoen nondik norakoa azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta gerra aurreko kontuetara bueltauta, zeuen umetako jolasak-eta?

-Neskak eta mutillak danok junto.

-Zeintzuk izaten zian jolasak?

-Danak. Ba mutillen moduan. Txirikillakin, txirikilla ta danak, tortolosak-eta, kanikak-eta, estanpak paretian-ta. Baiña neska ta mutil, e.

-Bai e?

-Bai-ba-bai. Neska ta mutil.

-Kaniketan zela egiten zenduen? Potxolua...

-Potxolua eiñ eta gero urriñetik bota potxolara eta zeñek sartze'eban ba

bestiari hartu, halaxe itten genduan. Eta estanpetan ba paretan kontran itten genduan. Gero (buelta ematen). Guk ez, guk paretan kontran itten genduan. Paretan ipiñi nora jausten zan, ikusi nun euan eta harutzao edo honutzao ipiñi ta hiltzen bazendun batu-ta.

-Zeuretako.

-Bai. Beti jolasian. Eskolatik urten, merienda txokolatia ta ogixa hartu ta kalera. Ta jolastera, jolastera.

-Jolastu Jardiñetan?

-Bertan, bertan, bertan, bertan Jardiñetan.

-Eta esan dozu txirikilletan be bai.

-Bai, txirikilla.

-Zela eitten zan txirikilletan?

-Palo bat, palo haundi bat, ta txirikilla zan palo txiki bat baiña punta bixak zorrotuta, punta bixak zorrotuta, ta palo haundixakin jotzen zenduan puntan eta salto eitten eban txirikillak, salto itten eban eta gero ta!, joten zenduan paluakin eta zeñek urriñago botatze'eban ba...

-Harek irabazi. Eta tortolosak be aittatu dittuzu.

-Baitta. Tortolosak pe bai, zeranak, "de oveja, de carnero".

-Adarixanak?

-Adarixanak haundixauak izaten zian.

-Hanketako zeoze.

-Bai-bai. "La rótula", pentsatzen dot rotulia zala. Ta gero pinttau ta itten genduan eta ipini-tta lau...

-(...)

Bai. Gaiñera "asajiak" esaten (zizkixon) gure amamak eta guk tortolosak esaten genduan baiña. "Asajetan eitten dou", gure amak esate'eban. Eta zan, alde batetan ekan karia eta gero bueltan atzia eta gero buelta bat; ta lau-lau-lau punta eukitzen zittuan. Oiñ ez nai akordatzen baiña lau punta eukitzen zittuan zerak.

-Eta zela jolasten zan, danak bardiñ ipintzera?

-Ez dakitt zela itten genduan. Danak bota, baiña eskuakin gero eskuakin itten genduan buelta-buelta emon-ta. Oiñ gehixegi ez nai akordatzen, baiña eskuakin emuten genduan buelta edo lisora edo ezkiñara-edo ez dakitt. Seguru-seguru ez dakitt zelán zan.

2.58. Agorra eginez arrantzan; "txingia" eta "esparbela"

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-026/002
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Gerra aurrean Eibarko umerik gehienak errekan bainatzen ziren. Amuarrainak ere baziren eta asko harrapatzen ziren. Erreka garbi-garbi zetorren. Gerraostean zikintzen joan zen. Bartolo eta Agustin ez dira arrantzaleak izan, baina agorra egin eta ezkailuak harrapatzen ibilitakoak dira. Harriekin presa modukoa egin, erreka agortu eta handik ezkailuak eta loinak harrapatu. Lekurik onena Plazentzia-Maltzaga ingurua zen. Ibaiaren alde batetik bestera sarea bota eta asko

harrapatzen zen. Sare horri "txingia" deitzen zitzaion. Esparbelarekin ere aritzen ziren. Horretan ezagunena "Ferruel" zen.

Transkripzioa

- Eta zuek, orduan, errekoa ezautuko zenduen dana libre eta...
- Bartolo: Oin badaok, ba, bozeria? Han bozerian kontra joian errekoa lehen.
- Agustin: Indianokuan zerian eitten juan pare, tope.
- B: Gu gaztiak igarixan be einda gauazak hor gaztiak giñanian. Bozerian aurrian, bai.
- Bai, e? Ur asko zeuan?
- B: Errekoa pasatzen zuan, ta [gerua gehixao] pixkat geldiunia eitten [juan] ta potzua jeuan han.
- Ariatzen?
- B: Ariatza esaten jakuan hari.
- A: Zelan dok hau, zera, Danelen-ta soziua...?
- B: Zera, Enrike? Franko?
- A: Ez, bestia.
- B: Bestia Sologaiztua.
- A: Sologaiztuak hor amorrañak mordua hartzen jittuan. Gogorra zan ha peskan. Ointxe be bai, itsasuan be ibiltzen dok, baiña... Gaztetan ha gogorra. Ta amorrañak hor...!
- B: Gerraostian harrapatuko jittuan.
- A: Gerra aurrian be bai.
- B: Gerra aurrian be bai, e?
- A: Gerra aurrian be bai. Mutikua ta gerra aurrian be bai.
- B: Gerra aurrian hau garbixa zuan ba errekoa hemen.
- A: Bueno! Hemen zarbo-ezkailluak [...].
- B: Bai, bai, arraiña asko euan hemen. Gero zikintzen juan zuan errekoa. Zikiña botatzen ta...
- A: Bai, gerraostian be amorrañak oindio egongo zittuan.
- B: Hemen amorrañak gerraostian badakik nun zian mordua? [...aneko] zubixa baeuan ba? Han zubixan potzua eitten zuan. Amorrañak. Gerra denporan iñok be ez juan /etxuan/ peskan ein ta amorrañak gehitu ein zittuan errekan!
- A: Bai, bai, fabrikarik be ez zuan egon [...].
- Ez, ez, garbi errekoa, garbi-garbi-garbi.
- Eta zuek peskan-eta eitten zenduen?
- B: Guk ez, gu ez giñuan horko maillakuak.
- Baiña mutikotan...?
- A: Bai, Txontan zarbu-ezkailluak edo Txontan...
- B: "Agorra eittia" esaten jakuan. Agorra. Agorra izaten zuan ezkailluak-eta harrapatzeko , ba, ura albora bota eta potzuan preso hartu ezkaillu mordua ta gero haretzek harrapau gero sariakin hantxe potzua einda. Agorra ein, ura etaratzen juan gero. Potzua ein ta gero ura etaratzen juan ta gero arraiña harrapau. "Agorrian" esaten jakuan horri.
- Zarbo-ezkailluak harrapatzeko zan hori?
- B: Ta loiñak be bai. Amorrañak-eta, amorrañak-eta harek ospa eitten juen, bizkorrauak zittuan, baiña bestiak inguruan ibiltzen zittuan. Barguak izaten zittuan, ba, haundixauak; barguak honenbeste ingurukuak be bai. Ta loiñak, ba, holakotxiak. Ezkailluak eurak izango zittuan harek haundi einda. "Loiñak" esaten jakuen; izaten zittuan honenbeste ingurukuak, gaurko sardiñen tamaiño ingurukuak edo. Baiña "loiñak" esaten jakuen.
- Nun harrapatzen zian horrek?
- B: Horrek...
- A: Hamen danian. Ta Plaentxiako errekoa [...].

- B: Hori Plaentxiatik Maltzagara bittartian...

- A: Erreka baztarretik bestekaldera "txingia" esaten jakon zer bat...

- B: Saria ipini batetik bestera.

- A: ... batetik bestera. Ta gero aldia bixetatik harrixa bota ta...

- B: Astindu, mobidu ta arraiñari juan erain hara.

- A: ... bota ta xertu ta han sartuta gelditzen danian...

- B: Sare estua zela izaten dan, sartzen zittuan ta "trak!" bertan geratu engantxauta.

- Eta hori zeintzuk eitten zeбен, plaentxiarrak? Hala hamendik be bai?

- A: Ba, hamenguak be bai. Saria ekanak.

- B: Bai, Eibarren be baeuazen.

- Eta esan dozue "txngia" zala hori?

- A: "Txingia" esaten jakon, bai.

- Sariari esaten jakon?

- A: Bai, sariari "txingia" esaten [getsau], punta batetik bestera.

- B: Ta esprabela zuan beste bat.

- A: Asko juaten zuan eta eurak be dedikatzen zittuan harrapatzera Maltzagako tabernia, han taberna bat egon zuan Maltzagan zubixa pasau ta gero eskumatara...

- B: Plaentzia alderako trenbide onduan.

- A: Oin [ez jakixat /etxakixat/] egongo dan ha tabernia, etxia egongo dok, seguramente, zubixa pasau ta eskumatara. Ta holan zer bat. Erromerixia be eitten zuan, gaiñera.

- B: Bai, domeketan erromerixia.

- A: Eitten zuan loiña-jana enjeneral hantxe. Han beti egoten zuan.

- B: Ta esprabelakin hori, "Ferruel" zuan gogorra. Harek... arraiña asko, ezta? Zera eitten juan harek: sare bat botatzen juan, "braaa!", ta "brra!" batu gero, itxi gero, ta barruan arrain mordua ekarten juan harek. Maixua zuan ha, "Ferruel":

- "Ferruel"?

- "Ferruel" jekan gaitzizena.

2.59. Eibarren jaio zen, gurasoak Durangaldekoak zituen

- **Hizlaria(k)**: Basauri Arteaga, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-027/001
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aurkezpena. Eibarren jaio zen, 1935eko apirilean. Gurasoak kanpotarrak zituen. Aita Axpekoa zen, Irure baserrikoa. Eta ama Apatamonasteriokoa. Aita mutikotan etorri zen Eibarrera eta hemen ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Aitak eta osabak 'Mirasol' etxea eraiki zuten Legarreko ospitale gainean. Hantxe jaio zen Serafin, eta hantxe egin zituen bere bizitzako lehenengo 17 urteak. Ondoren Zuloagatarren kalean bizi izan ziren.

Transkripzioa

-Hasteko hasteko, lelengo gauzia zure izena, bi apeillido eta noiz jaxotakua zaran.

-Bai, bai. Serafin Basauri Arteaga nok. Milla beratzirehun eta hogeta hamabostian jaixua. Gerria, gerra aurrian, gerria urten baiño urtebete lehenao.

-Eguna?

-Eguna aprillan hogeta beratzixan.

-Eta jaixo Eibarren.

-Jaixo Eibarren, Eibarren ein nintzuan, bai.

-Eta familixia be bai.

-Familixia, anai-arrebak eibartarrak baiña aitta ta ama ez. Aitta Axpekua. Axpe gaur egunian, e, Atxondoko auzo bat, Axpe. Hangua zuan, Irure basarikua, eta ama Apatakua. Apatamonasterio. Aldamenekua. Ha be Atxondo gaur egunian, bai. Eta aitta ba gaztetan, gaztetan ero mutikotan etorri zuan Eibarrera zera ikastera, ofiziuia ikastera eta, bueno ba, hementxe geratu zuan da gero ba amakin ezkondu zittuan. Eta bueno ba lau seme-alaba.

-Eta gurasuak hamen ezautu zien alkar edo?

-Ez, ez, bestela. Ez jakixat ba nik, nun ezautu zian idearik be ez jakat.

-Ama gero etorri zan?

-Ama gero, gero etorri zan, bai. Eta bueno ba ni hantxe jaixo nintzuan; aitta ta tiokin, Tio Luzio, etxia ein juen, Mirasol. Badakik nun dauan? Amaña gaiñian, ospittal gaiñian daok etxe bat, da nere aittak eta tiok eindako etxia dok. Eta haintxe jaixo giñuan danok eta. Hamazazpi urtera arte edo, hamazazpi, hamezortzi urtekin edo jetxiko giñuan behera. Ta gero hemen Zuloaga kalian edo erosi genduan etxia. Hor aldapia ta zera jekan harek eta bueno, ni erreiz ibiltzen nintzuan han, baiña ama kejau eitten zuan, hamen aldapia eta abar.

-Nahiko goixan dago, ez?

-Bai, bai. Aldapia ta bueno.

-Eurak jasotako etxia zan?

-Bueno, eurak edo igeltsero batzuekin edo.

-Terrenua erosi ta bertan egin?

-Bai, bai, bai.

-Zergaittik han? Lurren bat zeken han edo?

-Ez. Erosi eingo juen han lurren batzuk edo ez jakixat ba nik. Nik horren barri, zela sortu zan asmua idearik be ez jakat. Ni hangua nok, hantxe jaixo nintzuan eta umealdixa, umezarua hantxe ein najuan umezarua ta gazte ein arte, hamasei-hamazazpi urtera arte behintzat hantxe.

2.60. Umetan Legarren eta Amañako presan jolasean

- **Hizlaria(k):** Basauri Arteaga, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-027/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:13. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Umetan Legarre ingurua zen euren jolaslekua. Putsezko baloiekin eta Urkotik behera datorren errekan jolasean. Behin koskortuz gero, Amañako presapera ere joaten ziren igeri egitera. Hantxe ikasi zuen igeri egiten.

Transkripzioa

-Kontauko dostazu zelakua zan Amaña?

-Bueno, Amañako barri askorik ez jakak nik.

-Bueno, zuen ingurua.

-Legarre ingurua, Mirasol eta Legarre, hortxe ibiltzen giñuan gu umiak giñanian. Jolas be eitten genduan Legarren. Kamioiren bat banakaren bat etortzen zanian erretiratzen giñuan, baiña bestela fubolian be kalian eitten genduan. Putzezko pelotak edo papelakin einddako pelotak soka batekin lotuta. Bueno, halaxe ibiltzen giñuan. Ta gero errekoa be, Abauntza errekoa, Urkotik behera jeisten dana, han be bajauzazen potzu batzuek eta ibiltzen giñuan han. Bueno, gure jolasak eta hantxe eitten genduan. Ta gero nausitxuak einda Amañan, Amañako presapian, nik hantxe ikasi najuan igarixan. Amañako presapian. Igari... flotau, flotau. Flotau, ze bestela igari askorik ezin heikian ein han.

-Txikitxua zan?

-Klaro ba, presapia. Bakarrik salto ein ta, salto ein ta... Baiña ez zuan haundixa, ez.

2.61. Arto-bizarra erretzen 12 urterekin

- **Hizlaria(k)**: Basauri Arteaga, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-027/006
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:12:33. **Bukatu**: 00:14:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- **Laburpena**: Legarre inguruan ibiltzen ziren jolasean, askotan txapekin karrerak egiten. Arto-bizarra erretzera ere joaten ziren. 10-12 urtetik aurrera, umeak erretzen hasten ziren: arto-bizarrak, Caliqueñoak, Idealak... Arto-bizarra hartu, ahal bazen lehortu, paperean jarri eta erre.

Transkripzioa

-Tabernia jeuan hor eta etxiak be bai, Legarre gaiñian ia hasitta jeuazen. Bat lelengo etxia ta haren ataixan eitten genduan jolas, han ibiltzen giñuan jolasian karrerak eitten. Tapak, botilla-tapekin, txapekin. Ipiñi han masilliakin, kristalakin-da Berrendero-ta, orduko ziklistak. Nik irabazitta, metak eta ipinitta ta, bueno. Denpora... luzaruan, hantxe ibiltzen giñuan. Arto-bizarra erre ta. Arto-bizarra. Arto-bizarra erre ein biha dok hori, e, jo! Ene-ene-ene! Bai, ba.

-Orduan behin hamabi urtekin edo ze izaten zan, ia puxkat koskortzen hasitta jentia erretzen hasten zan?

-Bai, bai, bai. Hamabi bat urtekin-da bai. Hoixe. Erre be... Ta baitta kalikaiñuak be bai, eta Idealak, Idealak, tabako negargarri bat, eta hari be txupada batzuk einddakuak gaittuk, bai. Ba ni hantxe Legarren.

-Arto-bizarra bertan hartu eta zelan izaten zan?

-Ze esango deuat ba nik, mutil, zelakua zan be. Zigarro-papelakin batu ta arto-bizarra. Hik badakik arto-bizarra zelakua dan.

-Zuzenian hartu ta...

-Ta erre.

-Ez dauka sikatu biharrik?

-Honbre, sikatuta hobe, sikatuta hobe umela baiño.

2.62. Paseatu, josi eta dantza

- **Hizlaria(k)**: Unamuno Zamakola, Emilia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-030/006
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:10:35. **Bukatu**: 00:12:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Kultura » Musika
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Paseora asko joaten ziren; tailerretan ez zebilen andre askorik, gerra aurretik. Egunero jostera joaten zen arratsaldetan. Bergarara joaten zen udan. Untzagan eguenetan eta domeketan musika egoten zen, gauean. Jende asko joaten zen Bergaratik eta Durangotik. Neska asko ezkondu ziren kanpokoekin.

Transkripzioa

- Eta, bestela, esan dozu zapatu arratsalde eta domeketan pasiora?

- Pasiora asko. Pasiora... Orduan taillarrera ez zan juaten andrazkorik, ez zan juaten; gerra ostian zan taillarrera hasi zana jentia, gerra ostian taillarrera.

- Eta zuek gazte-denporan, 16-18 urtekin eta, ze eitten zenduen? Zapatu-domeketan ze eitten zenduen?

- Jostera, egunero jostera arratsaldetan. Ni neu egunero jostera arratsaldetan.

- Eta jai zanian?

- Jai zanian ba "a lo que llegaba".

- Bailerik-eta egongo zan?

- E?

- Baiiak-eta izango ziran, ez?

- Ba... Debara-ta udia zanian, eta... Bueno, bai, gazte-denporia bastante

politta pasau neban nik.

- Eta Untzagan dantzak eta?
- Honbre! a bai, eguena eta domekan.
- Eguenetan be bai, e?
- Eguenetan musikia egoten zan.
- Arratsaldian?
- Gabian.
- Gabian?
- Gabian. Eguen gabian musikia ta domekan be gabian.
- Eta jende asko juaten zan?
- Asko. Ta Durango ta Bergara ta etorten ziran Eibarrera. Eibar... Eibar izan zan kapitala.
- Bai, e?
- Buuu... Eibar kapitala. Eibartik Durangora ta Bergarara ta, jende... "chicas muy seleccionadas" juan zian.
- A bai? Bergaratik etorri eta hara ezkondu neskak?
- Bai, bai, bai. Bergarako mutillak neska zerak asko eruan zittuen. Durangora be bai ta Bergarara be bai.
- Famia zekazuen?
- E?
- Famia Eibarko neskak?
- Uuu...!, "Eibar era Eibar, Eibar era mucho, Y a la tarde hacia Kalamua y hacia Arrate se iba mucho".

2.63. Gasteizera erdara ikastera, Eibarrera etortzeko

- **Hizlaria(k)**: Agirre Berezibar, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-033/001
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Euskara » Euskararen egoera
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Aita Elorrioko baserri batekoa zen eta ile-apaintzaile eta abarketagile ofizioak ikasi zituen. Eibarrera lanera joan behar zuela jakin zutenean lagunek gaztelania ikasi gabe ez joateko esaten zioten, Eibarren gaztelaniaz egiten zela eta. Eta Gasteizko baserri batera joan zen gaztelania ikastera.

Transkripzioa

-Ze esango dotsut ba?

-Interesantia egin jata aitta abarketagiña zala.

-Aitta zan Elorrixokua, basarrikua, ta zian ba hiru neska ta mutillak be sei edo. Basarrixan batzuek harutz eta bestiak honutz, ta nire aittak pa, jun zan, eruan eben, ikasi eban ofiziuia, pelukero da alpargatero. Derrigor bihar zan abarkatero, esan detsut zegaittik lehen: zabaldu pelukerixia da, ene, juten zan da gero zapatuetan igual zortzi ta, badakizu. Eta halan ez egotiarren, ba abarketero. Ta etorri zan Eibarrera, etorri biha zan Eibarrera. Berak ekan Eibarko, ez dakizu, gogua etortzeko. Eta han preguntau ei etsen: "Hi, Eibarrera hoia, e?", ta "Bai". "Ta badakik erderaz -lehen esan

dot baiña barriro-, badakik erderaz?”. “Ez”. “Ta ze pentsatzen dok, Eibarrera jakin barik erderaz, ala? Han jente dotoria daok, e. Jolin, han erregia-ta joaten dok eta presidentiak-eta”. Badakizu lehen. Eta halaxen esan eban etxian, da bueno ba, Vitorixara. Eta ez eban esaten sekula be ez zelan, baiña kolegixora ez eben bialduko, ez euan hainbeste diru; eta tripa-truke basarri batera erderaz ikastera.

2.64. Aitaren ile-apaindegia Untzagan

- **Hizlaria(k):** Agirre Berezibar, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-033/002
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:01:41. **Bukatu:** 00:03:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Aita, erdaraz ikasi ostean, Eibarrera bueltatu zen. Untzaga plazan jauregia egon zen tokian etxea egin eta aitak hartu zuen, goian etxea eta behean ile-apaindegia zituen. Bertan ezkondu eta bizitzen jarri zen eta 5 seme-alaba izan zituen. Aita eta bere ile-apaindegiaren inguruko kontuak.

Transkripzioa

-Zeoze ikasi eban, lehen baiño hobeto behintzat, eta etorri zan gero Eibarrera eta ibilli zan hamen eta gustau jakon hantxe Untzagan arkupietan, etxe barri-barrixa oindiokan. Etorri zan, euskeraz ezin dot esan, "mil novecientas seis".

-Etxiak orduan eginda?

-Orduan einda hori etxiori. Hor euan etxe haundi bat, honek Zuloagak ataratzen dau bat, haxe palaziua. Ha bota ein eben da hantxe ein eben hori etxiori. Eta gure aittak ixa estrenau ein eban hori etxiori. Ipiñi eban behian eta goixan etxia hartu eban. Eta hori beran arrebía, hori labadoriak-eta esan etsuetena, nobixua ekan hamen eta hamentxe euan krixada, da esan etsan: "Hi, nahi bon nere etxera etorri", porke soltero etorri zan nere aitta, "nere etxera etorri ta [egidan?] bazkarixa eta biharrak eta, gizon ta guzti, e, ta etxia gratis". A, pozik bera, hala ez eben pagau bihar errentarik. Gure etxia etxe haundixa da, oin be haundixa da, pentsa eizu lehen, haundixaua lehen porke sukaldian eitten zan bizi guztia. Ta halaxe ba gero topau ebanian nobixia nere aittak, esan etsan: "Hi, Teresa, laster ezkondu biha non eta hamendik urten ein bihar don /bihon/". Eta orduan etorri zian horraxa, horraxa etxera, Calbetoirá. Ta nere aittak ba ekarri eban andriori etxera eta hortxe bost seme-alaba.

-Eta orduan zer zekan, etxia goixan...

-Etxia goixan eta behian pelukerixia eta alpargaterixia.

-Izena zela jakon?

-Eugenio Agirre.

-Eta pelukerixiak bazekan izenik?

-Ez. Elorriko pelukeria, Eugenio, Eugenio pelukerua edo, ez dakizu?

2.65. Lehengusuek emandako erraketekin frontoira

- **Hizlaria(k):** Agirre Berezibar, Mari Carmen; Arregi Etxeberria, Julita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-033/011
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:20:08. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Carmeni lehengusuek eramaten zizkioten erraketak eta frontoi zaharrean "Tximinua" maisu zuela ibili zen. Pilotari batzuk izendatzen dituzte, tartean Carmenen anaia, pilotari ezaguna.

Transkripzioa

-Zeuek ez ziñazien ibilli pelotan?

-Julita: Ni ez.

-Ni bai.

-Julita: Ni akordatzen naiz jente asko joan zala-eta, hemen eitten eban soplelian, haura en Sabadell estuvo de pelotari..

Ba honek lehengusiñok, raketak-eta bihar zian, ekarri eitten esten neri, eta ibilli naiz ni Frontoi Zaharrian da, con hora, Tximiñua, ta Nievesekin, Rusiara joan zonan ba gerra denporan. Nieves Etxeberria. Bai. Nere edadekua zonan. Rusian daon oiñ koittaua. Bai, bialdu jonen umetan da hantxe daon. Gustavon-ta arrebía.

-Julita: A, si!, La Nieves y la Paz. Bestia Mejikon. Nieves hil zonan, ruso batekin ezkondu zonan eta haura hil zonan. Eta gero Paz haura be raketista joan zan Mejikora ta harek italiano batekin, txarkuterua-edo, harek suertia ein eban eta oindio bizi da. Ta gero Gustavo zonan, Gustavo pelotarixa.

-Gustavo be pelotarixa. Hamen asko pelotarixak.

-Julita: [...] eta baitta [...] hojalaterua be bai.

-Mordua. Nere anaia gero handik etorri zanian jun zan Valenziara, al Frontón Valenciano. Eta han ein zan famosua, famosua. Reseñas de periódico-ta baukat nik, famosua.

2.66. Soldatarik gabe, herritarrei laguntzen

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Juaristi, Mari Tere
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-052/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zubeldia, Gorka
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Eibarko Victor Sarasketa lantegian 31 urte egin zituen lanean eta ondoren Patronato Eibarres errehabilitazio-zentrura joan zen. Erabakia hartzea kosta zitzaion, baina lan "humanoagoa" zelakoan aukeratu zuen bigarren hau. Jubilatuta egon arren, oraindik egunero joaten da lanera, bere borondatez, jendeari laguntzarren.

Transkripzioa

-Ni sartu nitzan han. Ni neuan Bitor Sarasketanian. Hogeta hamaika urte ein nittuzen Bitor Sarasketanian eta karta bat bialdu zesten esanaz ia hona etorriko nitzakian. Kosta jatan. Ya Sarasketanian etxeko einda ta kosta jatan, baiña pentsau neban hemen humanidade gehixau zeuala, premiña ekan jendiandako alkartasuna edo laguntasuna edo zeeze hemen gehixau, ta bueno, oso lagun amaittu nitzan Bitor Sarasketanian. Oindiok be, esaten detsut, Bitor Sarasketan billobak felizititzen nabe nere egunian. Ez dira / eztira/ asko gelditzen e, ya Sarasketatarrak. Bitor Sarasketan, nausixan, aittan umerik ya ez da /ezta/ gelditzen. Danak hil dira, baiña haren seme-alabak eta jarraitzen dabe, bai. Danekin dakat, esaten detsut, hartu-emon haundixa. Bueno, ba, azeptau neban hau puestuau. Gero be eurokin hartu-emon haundixa euki dot. Eta hillan... esto... ni etorri nitzan hona milla bederatzirehun ta hirurogeta hamabixan. Hori da, Bitor Sarasketanian milla bederatzirehun ta batian hasi nitzan, berrogeta batian. Oseake hogeta hamaika urte ein nittuzen ta justo hemen marzuan aurrenien sartu nitzan. Gero larri gebizen diruakin ta ni larogeta hamahiruan jubilau nitzan. Jubilau nitzan ta hementxe jarraitzen dot lanian lehen bezela, kobrau barik. Gaiñera, akordau be ez jata /etxata/ eitten kobrau bihar dotenikan. Bestieri pagatzen detsut eta ni trankil-trankil gelditzen nai, ni nere jubilaziñuakin ondo.

- Eta jarraitzen dozu egunero-egunero...

- Jarraitzen dot egunero ta gaiñera orduak zainduaz, e. Nik obligaziñua baneuka moduan etortzen naiz.

2.67. Gipuzkoarrak eta bizkaitarrak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/011
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Baserria mugan zegoen eta futbol kontuak nolakoak ziren kontatzen ditu. Donostiarrak eta Bilbotarrak futboleak aurkariak ziren. Eibar tartean gelditzen zen.

Transkripzioa

Ta horregaittik esango detsut [kontu bat]. Nik orduan Donostia ta bilbotarrak eta zera eukitzen eben pixkat fubolian-da pixkat pikia eukitzen eben. Da nik frontoian Grosian jokatzen nebanian, han esaten esten: "A Bilbao, a Bilbao!". Erdixan nenguan ni eta pentsatzen eben ni Bilbora gehixao... Klaro, Bilbon be jokatzen neban eta Bilbora gehixao tiratzen nebala. Ta esaten netsen: "Hara! Eibartarrak dakau tokia iñok ez dakana; eibartarrak Bilbora faten dia dirua irabaztera, eta gero hori diruori gastatzera etortzen dia Donostiara." Hor egoten zien eta ixiltzen zien danak.

2.68. Markesen ibilaldiak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/013
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Madrilen bizi ziren markesa batzuk Eibarrera etortzen ziren oportretan. Asoliartza baserritik pasatzen ziren pasiatzen.

Transkripzioa

-Baiña beste gauza bat esangotsut, ondio han han dago horren markesen etxia Isasixan. Bueno, horrek markesok orduan beraneatzera Eibarrera etortzen zian. Eta hartzen eben bai, tta bero eitten ebanian da faten zian Olerriara, eta Olerrian zubixa euan trenan gaiñetik pasatzeko; da trenan gaiñetik pasauta gure basarritik bidia euan, bide basarrikua; pasatzen zien da gu ganauak eta zaintzen, eta eurak elegante sonbrilliakin-da etortzen zian da, saludau, saludatzen giñuzen da edukaziño haundixakin. Jentia beraniatzera Eibarrera etortzen zan orduan. Bai, bai. Eta han dao markesa. -Markeskua.

2.69. Umetako jolasak kalean

- **Hizlaria(k):** Askasibar Lauzirika, Agustina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane
- **Erref:** EIB-084/009
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:16:23. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Rios, Paula
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena:** Udaletxeko eskola nolakoa zen aipatzen du. Gela handiak ziren, antzinako egurrezko mahaiak... Sartzerakoan "¡Viva Franco!" esaten zuten eta zerrenda pasatzen zutenean berriz "¡Viva Jesus!" erantzun. Neskak eta mutilak banatuta egoten ziren eskolan. Orduko jolasak. Uda partean, zezen plazara joaten ziren bertan "parraparra" (txirrista) zegoelako. Bertako buztina hartu eta Isasi kalean zegoen petrilean jolasten zuten. Baserritarren astoen gainean jartzen ziren eta Isasin gora eta behera ibiltzen ziren jolasean.

Transkripzioa

- Eskolan esan dozu aiuntamentuan ibili ziñala, ez?
- Bai [lehengo] aiuntamentuan.
- Zelakua zan eskolia, akordatzen zara?
- Bai, gela haundixak ziazen. Ba... genkaun honek, e... taburetiak mahaixakin; ta gero jasotzen gendun ta hantxe gordetzen gendun gure gauzak. Eta sartu...tzen giñazen, ta sartzetakuan besua jaso ta "Viva

Franco” esaten gendun ta jarri. Ta, bueno, ba, listia: “Fulana de tal” ta zutintzen gendun ta “Viva Jesus” esaten gendun. Ta holantxek.

- Neska ta mutil edo neskak?

- Ez, neskak, neskak. Oin ezta... Oingo moduan ez; mutillak aparte ta neskak. Ta gero eukitzen gendun [...] rekreua. Goiz erdixan urtetzen gendun rekreora ta jolasten gendun, ba, sokara, txingor-gain edo... zelan zan hori...? Bueno... zelan da hori...?

- Tabetan?

- Tabet...akin, bai. Ta bestelan, bueno, horixe. Ta gabetan udan juaten giñazen esto... korrida plazan euan parraparra, ta hartzen gendun buztiña ta gero gure etxiak ekan petril bat eta han harekin buztiñakin eitten gendun, ba, jolastu.

- Petrillian?

- Petrillian.

- Isasin zeuan petrilla?

- Petrilla euan han, petrilla. Ta neguan danok esto... bai amak-eta urtetzen gendun ta hantxe kamiñuan jolasten gendun. Kotxerik ez zebizen. Astuak be kaletikan. Ta gurdixak, ta askotan gurdi gaiñian jarri, Eskola Armerixaraiño juan, han bajatu... zera. Ta beste batzuetan, ba, petrillian lotzen eben astuak baserrittarrak ta han asto gaiñian zestuak ekazen astuak ta han zestuan sartu ta ze ilusiño! Ta asto gaiñian juan, ta gero Eskola Armerixan euan petril bat eta berak baserrittarrak hartzen eskun, laga han petrillian ta berriz etxeraiñok edo petrillerañok.

2.70. Eskolatik piper egin zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Arrillaga Arrillaga, Dominga
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane
- **Erref:** EIB-093/032
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:01:31. **Bukatu:** 01:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Urizar Ibargutxi, Maialen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Behin egin zuten piper eskolatik. Gertaera kontatzen du. Eskolara etxean zegoen lanaren arabera joaten ziren. Lan asko bazegoen baserrian, eskolarik ez.

Transkripzioa

-Trastotxuak izandakuak zarie orduan, ez?

-Bueno...! Umia, nik beti esan dot, danian ume. Baiña oingo aldian... lehen badakizu ze zan? Dana billurra. Etxian be hasarre eitten zeuben, eskolara juanda... beti hasarrian billurra. Guk sekula baten ein genduan piper, bueno piperrik ez genduan ein. Han egoten zan etxetik harutz zelai bat, ta egoten zian mallabi txiki-txiki-txiki horrek gorrixok, dana beteta, ta pentsau genduan “Eskolaruzkuan hortxe batzuk jan ein bihar dittugu”. Jun giñan ta igarri be denporia pasau jakun. Ta Arrateko erlojuak jotzen zaban orduan, dana kanpai guztiak, ta eskolia pasauta ta eskolara juteko billurretan. Ta gero han, ezin jun eskolara, ta han harutzauko txabola baten eon giñan eskolako ordua pasau arte ta gero etxera.

-Amaittu arte?

-Amaittu arte. Guk ez genduan kontau piper ein genduanik. Bestela

billurra.

-Ta ez zian, e...

-Ez giñan jun eskolara. Baten sekula horixe ein genduan ta berian igarri barik mallabi batzen denporia pasau jakulako.

-Baiña orduan ez zian gurasuak enteratzen?

-Ez zian enterau. Iñobe ez zan enterau.

-Ez zan izaten oingo moduan...

-Oingo moduan eskolia falta izan ta etxera papelik eta ez zan izaten, e. Oker gogorra eitten bazenduan bai, zeozer txarra eitten bazenduan.

-Eta beti juaten ziñazien edo...?

-Eskolara? Goixian ittulia bazeuan ganauan aurrian, haura, ta bestela ardi zaintzia neguan, ta atsaldian eskolara, hurrenguan goixian, ta halaxe. Edo umia zaintzia txikixaua edo beti zeozer.

-Bai, gitxitan, ez?

-Gitxittan eskolara.

-Beti biharra etxian?

-Beti biharra etxian.

- Hona esan dozu zenbat urtekin etorri ziñala? Hemeretzikin ez?

-Hemeretzikin, bai. Baiña aurretik be kriada egonda nenguan Armasion ta.

-Ta orduan be juaten ziñan eskolara?

-Bai kriada eskolara... keba! Eskolatik erten hamahiru urte inguruin guk, komuniua ein ta handik laster. Baiña oingo moduko maestrarik eta, bueno, bueno... Nik esaten dot: oingo moduan eskolan ibili bagiña, bueno...! Oin dabizen moduan umiak hogeta urtiak arte eskolan ta? Bueno...!

-Edo gehixau ez?

-Hoixe ba, gehixau, esan dot ba, karrerak eta...

2.71. Timoteo Zubiatek eta Toribio Etxebarriak harreman estua

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/003
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:05:20
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Timoteo Zubiaterean eta Toribio Etxebarriaren arteko harremana oso estua zela gogoratzen du. Timoteoren seme gazteenarekin ezkondu zen Adela, Felix Zubiaterekin, alegia.

Transkripzioa

Ondo, ondo. Gaiñera, nere suegrua oso ondo konpontzen zan Toribio Etxebarriakin. Harekin euki eban korrespondentzia. Ni ezkondu nintzan Timoteon seme gaztienakin. Hari hil jakozen gerran bat, 23 urtekin eta gero gripiakin, el año 51, gripiakin beste seme bat 37 urtekin. Bata Conrado ta bestia Felipe.

2.72. Pantaleonen zakurraren beldur

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela

- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/011
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:15:35
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Ardantzako baserriaren izena ez du gogoratzen baina jabeak Pantaleon izena zuela ondo gogoan dauka. Zakurra askatzen omen zuen inguruan haurrak jolasean zebiltzala sumatzen bazuen. Bertako ortuetan afariketetan (gaztelerazko "cocinitas") jolasean aritzen zirela dio Adelak.

Transkripzioa

Basarrixa eguan einda han, Ardantz eguan bat, zelan zan... Pantaleon zan aitta, Bizente semia eta alabia zan, katalanakin ezkondu zana, Maria Pilar. Itturrixan gaiñian, ortu guztiak eguazanak danak, horretxen Pantaleonenak ziran. Juten giñazen haraxe, afariketan ibiltzera ortu onduan eta beti "Pantaleon!" han etorri eta antxixiketan. Handik pasatzen giñan, hanka-puntetan beti, ze bestela txakurrak askatzen ebazen.

2.73. Guraso bakarra izatearen erabakia; kontziliazioa

- **Hizlaria(k):** Lamarain Cobo, Igone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** EIB-732/002
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:00:51. **Bukatu:** 00:02:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- **Laburpena:** Ama izatearen nahia gaztetatik izan du. Guraso bakarra izatea erabakia hartu aurretik, gertukoekin hitz egin zuen. Sare bat izatea oso garrantzitsua da. Ama da bere zutabe nagusia kontziliaziorako, eta gero gertuko lagunak.

Transkripzioa

- Familia-eredu desberdiñak... Zelakua da zure familia?
- Bueno, nere familixia igual zehazki zelakua dan ez dakit oso ondo esaten. Gu etxian bizi gara ni eta nere bi umiak.
- Eta zuk zela... nolatan erabaki zebe guraso izatia?
- Ba da... nik argi euki dot beti ama izatia nahi nebala, beti euki dot oso argi, bikotia/bikotekidea euki zein ez euki argi... nik uste dot oso gaztetatikan argi euki doten gauza bat izan dala ama izan nahi... osea, nahi nebala ama izan. Eta, bueno, heldu zan momentua bikotekiderik ez nekala eta halan da be aurrera ittia erabaki nebala. Egixa da ez nebala hartu erabakixa nik bakarrik. Osea, ni konsziente naiz e... gurasuak be bat baiño gehixau diranian, bi diranian, ez dala erreza ume bat hezitzia, kontziliatzia ta hori guztia. Orduan, erabakixa hartzeko, in neban berba nere aiztiekin, batez be nere amakin eta beranduau nere aittakin, baiña lelengo nere amakin eta nere gertuko-gertuko lagunekin be bai. Ez neban hartu bakarrik erabakixa. Igual erabakixa bai hartu neban bakarrik, baiña

ittera beste batzuk animau ninduten.

- E... ama bakarra zara.

- Bai.

- Eta sare bat eukittia komeni, ez?

- Bai.

- Gaiñera bizkixak.

- Bikixak dira, bai. Bost urte dakez. Bai. Bai inportantia da. Nik uste dot kontziliaziñuan inguruan askotan itten dogula berba eta badala... e... ez dakit... gizarte honen erronketa... erronka nagusixetako bat dala kontziliaziñua eta, teorian, inguruan asko itten dogula berba, baiña gero praktika oso-oso zaila da. Orduan, saria oso inportantia da. Nere saria nere oso gertuan hasten da: nere -ez dakit- zutabe nagusixa nere ama da kontziliaziñorako eta gero ba hortik aurrera ba batez be gertuko lagunak. Bai.

2.74. Kuadrilan, familia eredu ezberdinak daude

- **Hizlaria(k)**: Lamarain Cobo, Igone
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: EIB-732/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:02:54. **Bukatu**: 00:05:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- **Laburpena**: Beti egon dira familia-eredu ezberdinak baina ez zaie ikusgarritasunik eman.

Transkripzioa

- Bueno, familia-ereduak azkenengo urtetan asko aldatu dia, ez? Ze lehen zan ama, aitta, eta umiak...

- Bai.

- Eta oin, ez dakit, zure inguruan eta... ez dakotzu izenik-eta esan biharrik, baiña badauz.. badau familia-eredu aniztasuna?

- Bai. Bueno nik uste dot familia-eredu desberdiñak beti egon dirala. Igual sekula ez jakue holako ikusgarritasunik emon, edo igual gutxiau ziran, baiña nik uste dot ama bakarrak, edo aitta bakarrak, edo umiak aitona-amonekin edo beste batzuekin bizi dianak beti egon dirala arrazoi batengaittik edo bestiengaittik. Oin, igual, ez dakit dan bisibliaua, edo gehixau dauzen, baiña nik uste dot egon beti egon dirala. Egixa da, ez dakitt, guk askotan kuadrillan berba itten dogu, gure kuadrilla zentzu horretan ez dakit dan oso berezixa, edo... edo aniztasun haundixa dauan gure kuadrillan. Baiña nik uste dot gure kuadrilla zentzu horretan oso anitza dala, osea, bai pertsonetan, eta bai gero pertsona bakoitzak osatzen daben familietan. Eta, orduan, ba bueno, nik uste dot kuadrillan aniztasun hori egotia bultzada bat be badala norberandako.

- Eta ze familia-eredu...?

- Kuadrillan?

- Bai.

- Bueno, ba, dauz familia-eredu ohikuak, igual gure kuadrillan gutxienekuak diranak; badau beste lagun min eta haundi bat harreran bi ume dauzkana;

nere kuadrillan badauz bi emakume oin hiru ume dittuenak, bi emakume bikote dianak eta hiru emakume dittuenak; badauz... badau bikotekiderik ez daken pertsonak, hori be badala, eta... eta nik uste dot esan in bihar dala; badau seme-alabarik ez daken pertsonak... Bueno, nik uste dot zentzu horretan nahiko anitza dala gure kuadrilla. Eta gero anitza be igual, e... izendapenik ez eitteko garaixan be bai. Osea, gu bagara garana, baiña nik uste dot ez dogula berbarik itten zehazki bi emakumek seme-alabak dauzkela edo honen bikotekidia emakumia da, gizona da... Nik uste dot gure kuadrillan era... beste era batian berba itten dogula, ta igual ez dogula horrenbeste izendatzen; osea, beste barik, holan da eta punto.

- Etiketa barik edo ez...?

- Bai, bai.

- Naturaltasunez, azkenian...

- Bai, bai.

2.75. Ama bakarra izatearen beldurrak

- **Hizlaria(k):** Lamarain Cobo, Igone
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** EIB-732/004
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:05:09. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- **Laburpena:** Ama bakarra izatearen beldurrak. Seme-alabei buruzko erabakiak bakarrik hartzea. Ama bakarra izatearen erabakia hartu zuenean, inguruan eman zizkioten iritziak. Animo asko jaso zituen.

Transkripzioa

- Bildurrik piztu xatzun ama bakarria izateko... izatia erabaki zebenian?
- Bai! Ta oindiok badittut, bai, etengabe. Bai, bildurra gauza askok emoten deste bildurra, baiña ya beste pertsona batzuk sartzen diranian tartian ta beste pertsona batzuk zaintzia -gaiñera nere buruan bakarria eukitzia zeuan, hori holan da-, ba, bai, bildurrak erabakixa hartzeko garaixan, haurdun geratzen diranian, haurdunal.. naiz.. nitzanian, haurdunaldixan, etorri ostian... Bildurrak etengabe dittut eta bildur asko emoten deste erabakixek. Ba kasu hontan nik hartu bihar dittudalako umieri eragiten detsen erabaki asko eta neri nik bakarrik hartu bihar izatiak bildur asko emoten desta. Horrek emoten desta. Baiña, bueno, inguruan berba itten dot, horretarako arazorik ez dakat, eta badakat konfiantzazko jendia inguruan, horren inguruan, berba itteko. Eta, bueno, ba, eskerrak horri.
- Eta erabakixa hartu zebenian, bueno, esan dozu lehen, ez zebela zuk bakarrik hartu, ez? ingurukuekin e... ingurukuen iritzixa eskatu zebela eta... hor... jaso zebe kontrako hola... "bai, baiña zelan ingo dozu hori", ala...?
- Ke ba, bapez! Kontrakua! Larrei animau nindutela pentsatzen dot askotan. Ba... lelengua, esan dot, holan gertuko... gertutikan, ba... nere aiztiekin eta nere amakin, eta esan zesten in nahi baneban aurrera, hor egongo zirala, eta egixa da hor egon dirala beti. Eta nere lagunek onartu ez, osea... ez dakit, animau in ninduten aurrera ittera. Bai. Eta asko eskertzen detset, e.

3. Politika

3.1. Eibarko Aratusteak Errepublika aurretik I

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Laspiur, Kontxa - Muruamendiaraz, Amaia - Ugarteburu, Mireia
- **Erref:** AB-023/022
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:46:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena:** Errepublika aurretik aratusteak asko ospatzen ziren, baina gero beherakada egon zen. Aratusteen egun bakoitzean toki batean antolatzen zen dantzaldia: Casino Artista, Casino Musical Bretón, Casino Amistad, Rialto...

Transkripzioa

- Ta kuadrilla haundixa ibiltzen ziñazien?
- Bueno, orduan, ba, 12-14 lagun ta ibiltzen giñan urte biren barruan, eztakizu? Urte bete edo gaztiaguak, igual gaztiaguak... Txontan, porrejenplo, grupua haundixagua zan baiña edadian, sasoian alde haundixagua, zegaittik eze, zelan lagun gitxi zian, jente gitxi zan, ba, kuadrilla... Gu gehixuago . Ta, pentseizu, frailliak etorri arte, hau morduak [...] ez daki, zelan Bidebarrixetakuak juaten giñan kuarteleko eskolara, Jardiñekuak-eta beste eskola batera, hamenguak Frontoi Zaharrera, bestiak... Ez giñan nahastatzen! Bidebarrixetakuak Bidebarrixetakuekiñ ibiltzen giñan, Isasikuak Isasikuekin ta Estaziño kalekuak... Kale bakotxak

bere espezialidadia ekan: gu Txontakuok eta [matadero] ta Barakaldokuak peskan giñan gogorak, zegaittik eze, horrek ez zian juaten Maltzara ta gu Maltzan, behe-aldekuok, [...] egitten genduan loiñatan, loiñak hartzen, [...] egitten genduzen.

- Zerekiñ?

- Eskuekiñ! [...] peskia e(g)uan! Estaziño kalekuak artistak zian estaziñoko bagoietan, [abillena rapeatzen?]. Honek plaza ingurukuok, M^a Angela ta, plazan. Inteligentienak. Guk, porejenplo, nik ekin netzan dantzan hamazortzi urtekiñ edo, baiña Untzagakuak? Asko lehenau! Zegaittik? Musikia hor zeken ta! Guk haraiño jua bihar giñan ta gu, ba, ez giñan etortzen. Ta pikardixia be bai. Orduan zelan e(g)uazen andraetxiak bi, Korrida Plaza aldamenian, Isasikuak eta honek Untzagakuok eta Frontoi Zaharrekuak eta ha ikusten eben han mobimentua ta harek baekixen ze zan ta guk ez! Baiña prailliak etorri zianian, Isasira, orduan [Bide...] mutil batzuk, Barakaldoko batzuek, kale bakotxetikan jua giñan Isasiko fraillietara ta orduan hasi zan nahastia. Ta neri lehenengo-lehenengo , nik badakit zeifiek esplika estan. Foallera zeretik, Korrida Plaza gaiñian e(g)uan leku bat foallerako... Ta urten fraillietatik ta Korrida Plaza gaiñera foallera ta zeretik juaten giñan, frontoian ostetik, Onaindianeko ha kalia zan, ta etxien parian pasatzen... bihar giñan ta atenziñua, eztakizu? "Ene! Horrek neskak ze dittuk?" Ta Isasiko mutil batek esplika estan ze dian harek. Harek guk baiño lehenau ekixen horrek .

3.2. Juan San Martinen jatorria

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/001
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra aurrea » 1923-1931: Primo de Rivera
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Elkarrizketatzaileak egiten duen aurkezpena. Juan San Martinen jatorria. Eibarren, 1922ko ekainaren 22an jaiotakoa, armagin familia batean. Primo de Rivera-ren diktadura.

Transkripzioa

- Baldin jakintza balitz arbola, gaurko gure gizonak goitik beheraino eta behetik goraino aztertuko luke, erroak ahaztu gabe, adarrez adar, bakar bat ahaztu gabe, gainera. Banan-banan ikertuko lituzke guztiak eta arbola osoa. Adar bakoitza kuidaduz, lehengo lekuan utziz, aldrebeskeriarik egiteke. Hara, Juan San Martin, kulturak izan ditzakeen arlo guztietan sarturik. Eta guk ere hazi den bezalaxe hartuko dugu arbola: zein garaia eta zein zabala den ikusiz, oparotasunaren ateetara hurbilduz. Juan San Martin, zenbat pauso eman duzu zuk zure bizitzan?

- Bo! Ez da erreza. Ez da erreza neurtzen, ze, jakiña, era askotakua, gaiñera, eta toki askotan.

- Eta zenbat orrialde idatzi duzu gaur arte? Eta, azkenik, oraindik idatzi gabe daukazunak?

- Hori, nik egin dodana, biharbada pixuz edo neurrixan emon ez dakit: kilometruak eta kilometruak idatziko nituan nere izenez eta nere izenik gabe. Ordezkuak[kin] be bai, baiña gehiena nere izenez.

- Juan San Martin Ortiz de Zarate Eibarren jaioa da 1922ko ekainaren 23an, San Juan bezperan.
- Bai.
- Eta horregatik...
- Horregatik naiz Juan.
- Juan. Garai hartan, gainera, ohitura horixe zen: jaio eta hurrengo egunekoa, edo bataio eguneko Santuaren izena jartzea. Eta kalendariora begiratu eta hor badago istorio polita, Nerea izenarekin, gainera, baina hori geroago izan zen, Arestiren Nerearekin.
- A bai! Nerea eta Gurea. [...] bi alabak.
- Baina han Nerea onartzen ez ziotela eta kalendariora joan eta Nereo bilatu zuen, bai, martiri bat, Erromako Martiri bat. Armagin familia batean jaioa: hori ere inportantea da. Beraz, Eibarko tradizio zaharrekoa.
- Ba bai, neurri baten bai. Edo gutxienez lehengo tradiziño zaharretik gerora lotura bat. Nik oroitzapen asko dut, nahiz ta justu orduantxe beteta nituan hamalau urte, gerra atera zanian. Baiña bizi-bizirik ditut gerra aurreko oroitzapenak.
- Jaio eta ezin esan liteke suerte haundiegirik izan duzunik zure bizitzan politikarekin: jaio eta hurrengo egunean, Primo de Riveraren diktadura.
- Bai, horrekin ez naiz oroitzen. Errepublika, bai.
- Geroago ezagutuko zenituen Francoren diktaturakoak.

3.3. II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren Juan San Martinen ikuspuntutik

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/006
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:13:44. **Bukatu**: 00:15:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Eibarren beste inon baino lehenago aldarrikatu zen II. Errepublika. Juan San Martinek 9 urte zituen orduan. Errepublikaren aldarrikapena ume baten ikuspegitik.

Transkripzioa

- Eibarren bada gertakari bat, inportantea, uste dut apirilaren 13a izango zen, 1931a. Gainerako estatu guztian 14an izan zen. Baina Eibar ez zen egun bat aurreratu?

- Egun erdi edo gehiago. Bueno, ez dakit. Esaten dutenez, 13an kontaktuan jarri zirela eta Bilbotik edo Madrildik eman zutela "ba, bueno, bihar egingo da". Gaizki ulertu edo zera eta Eibarren goixeko bostetarako ohetik jaiki eta, ba... republikanuak orduan ziran, republikanuak, eta batez ere republikanuak eta sozialistak. Ba horrek proklamatu zuten Errepublika. Eta abertzaliak ere bereri lotu ziran horretan. Nik uste reakziño bat zeguala Primo de Riveraren kontra. Eta gehiago: goixeko zazpiretan edo sei eta erdietan edo juan kuartelera, bandera Errepublikakua eman zioten kuartelian jartzeko eta formau guardia zibil guztiak eta [bai-eza] eta hantxe. Eta ni gogoratzen naiz, ba, bueno, ba, ez dakit, goizeko seiretan edo esnatu giñuzen, kalian zarata eta zera. Eta amak... Anaiak eta biok -ni baiño bi urte zaharragua anaia-, anaiak eta biok toki berian egiten gendun lo, gela berian. Sartu zan ama eta: "Errepublika etorri da". Eta nik anaiari

esaten: "Zein da Errepublika?". Personajeren bat edo! Hortik ikusi nik orduan zer konzepto neukan politikan!
- Gainera zuk bederatzi urte zenituen orduan, Errepublika hots egin zutenean.

3.4. Giro kulturala Eibarren; tertuliak

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/010
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:24:15. **Bukatu**: 00:26:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Tertuliak, giro kulturala, lehenagoko zaharren espiritua... galdu egin da. Juan San Martini asko kosta zaio alderdi politiko desberdinekiko independentzia lortzea. Demokrazia; komunismoa; etab. Filosofia politikoa.

Transkripzioa

- Giroa, beraz -hori azpimarratu nahi nuke-, giroa erabat bestelakoa zela. Eta zuk aipatzen zenuen oraintxe puntuan, azpimarratzen zenuen, azpimarratu, gainera, Batzokian bezala "Casa del Pueblo"n bibliotekak... - Bibliotekak, irakurri, jente formaua. Eta kulturako gauzak tratatzen zituen, ba, historia dala, bestia dala... Ta hori galdu egin da. Oin danak taberna bihurtu dira. Neri ez zait emoten gogorik iñungo zentro politikotan sartzea, hain zuzen horregaitik: taberna besterik ez dago. Konbersaziño tontua, fooballa, diskutitzen eta politika ere modu txarrian; politika ere beste bandokua etsaia balitz bezala... Oindiok frankismoko tarak ditugu. Independientia izatia neri kostatzen zait. Gauza bategaitik: nere independenziaren barruan nik baditut nere ideak eta sinpatia gehiago edo gutxiago bestiarri. Eta batan ona eta bestian ona, nahi ta etsaiak euren artian izan, bakoitzak dituan alderdi onak ikusten ditut. Nere espiritua konstruktibista izan da. Gauzak egin eta aurrera bota, hobetzeko. Ikusten ditut holan konpondu eziñak eta ez bazagoz batakin edo bestiakin sospetxa dute arrarua. Eta neri... Telebistara juan eta alkarrizketa egin bihar gendun. Eta batek, bera alderdi batekua zen, eta ez dakit zer ikastolei buruz; eta esaten zidan bera ez zeguala publikuaren alde. Eta: "Bueno, publikua, gurasuak nahi dutenak, ondo dago". Euskera toki guztietan sartu bihar da: publikuan eta pribauan. Pribauan nahi duanak jarraitzea dauka eta hortan ibili giñen preparatzeko elkarrizketa. Eta han esan zidan: "Klaro, zuk holan pentsatzen duzu Euskadiko Ezkerrakua zera eta". Eta esan nion: "Bien, hombre! Ni Euskadiko Ezkerrakua eta neu oraindik jakin gabe?". Hortik ikusten da: nahi zaituzte kokatu nungua zaran edo zer zaran. Neri nazka ematen dit, ze frankismoan be hori egiten ziguten. Eta nik esaten dizut: komunista [ete naizen...]. Eta nik zenbat aldiz esan dioten askori: "Esan duzue neregaitik? Komunismuak etsairik badauka, ni naiz bat". Nik diktadurarik iñoiz ez dot onartuko, demokrata naiz. Demokraziak bere defektuak izango ditu? A! Baiña bere zigorrak ere bai! Ze gaizki portatzen danak hurrenguan elekziñuak galduko ditu eta ondo portatu biharko da. Eta gero doktrinak: bakoitzak ematen duan, ba, zer eskeintzen du? Bueno, ba hortik jokatu bihar dala. Baiña hori galdu egin da. Ez dago, neretzat, lehengo zaharren espiritua, zelan ikusten zuten haiek politika kontua.

3.5. Giro politikoa Eibarren: Toribio Etxebarria eta Edorta Alberdi

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/011
- **Iraupena**: 0:04:52. **Hasi**: 00:26:56. **Bukatu**: 00:31:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Toribio Etxebarria erbestealdian zegoela, harekin izan zuen harreman estua. Alderdi politiko desberdinen arteko erlazioa gerra aurreko urteetan. Toribio Etxebarria nola ezagutu zuen. Edorta Alberdi, Eibarko abertzaleen buruzagia. Sozialista eta abertzaleen arteko harremana. Candido Arrizabalaga, eibartar jatorra. Erromantikoak ziren, idealistak.

Transkripzioa

- Gero gehiago: nik adiñan diferentziagatik ez nuan... Toribio ezagutzen nuan gutunez. Ze behin berak galdetu egin zuan nor zan hori gaztiori, horrek gauzok idazten zituana, neregaitik. Erderaz idazten nituan gauzak. Eta zerbait euskeraz be bai, baiña batez ere erderaz, Eibarko Club Deportivokuan edo 'Eibar' rebistan. "Nor da hori gaztiori? Ze nik ezagutzen ditut San Martinak Eibarren!". Eta baten batek esan [zion]: "Ba, hori halakona". Eta honekin zeukan, Santikin, harreman haundia, Santi Arizmendiarrietakin. Eta esan zion: "Hori halako da". Eta: "A, bai?". Gu Eibarren gera Egurentarrak. Eguren baserria da eta hango jatorrikuak . "Egurentarra! Ene, orduan nik ezagutzen ditut!". Eta nerekin hartu zuan, ba, idaztez, ba... holako gutun batzuk zertu gendun, senzillo batzuk. Bera Venezuelan zan exiliaturik. Eta ilobak etorri ziren, nunbait, inglesa praktikatzeko edo ikasteko, udara pasatzen zuten, zenbait udara, Inglaterran. Eta hárek ekartzen zituania, bera egoten zan Inglaterran eta gero etortzen zen Hendaia eta Hendaian egoten zen, nunbait. Eta Hendaian zeguan baten, deitu zidan Eibarren batek telefonoz: "Hi, Toribio Etxebarriak hi personalki ezagutzeko gogo haundia dik. Hendaian zegok eta, nahi badek, larunbatean edo hartu eta biok juango gaituk, nik eramango haut kotxian. Nik eramango haut kotxian eta berakin zertuko haiz". Baiña hori esaten zidana badakizu nor zen? Edorta Alberdi. Edorta Alberdi zen beste Eibarko holako patriarka bat, baiña abertzalia, PNVkua. Gehiago: "pena de muerte"kin egondakua karzelan, alderdiko burua izan zelako Eibarren. Alderdiko buru. Bestela, gizon on bat. Horrekin be pariente egiten nintzen, distantziakin, baiña zerbait pariente egiten nintzen eta bageunkan harremana. Nik asko neukan berakin harremana. Gaiñera ni euskera kontuetan sartuta nenguan ordurako eta berak laguntzen zidan. Eta berakin jua nintzen, etorri nintzen, Hendaia. Eta Hendaian, ba, bueno, alkarrekin bazkaldu: konbersaziñua ta... Eta ni harrituta gelditu nintzen zelako harreman estua eta ze adiskide ziren elkarren artian.

- Bata sozialista eta bestea...

- Bai, bai. Eta nik galderak egindakuan esaten zidaten: "Eske gu, badakik, alkarren artian, ba, gure gaztiak egiten zituen trabesurak-eta konpontzeko, alkarren artian relaziño ona beti izan diagu. Eta alkarri errespetua". Ni, egia esan, halako... gogoratzen nintzen, ba, bai, gazte rebeldiak bazeudela, baiña baita ere gizon oso zentzundunak eta bazekitenak orekan gauzak jartzen. Gehiago: honek, Toribiok, bazeukan bere koiñatua gurekin mendian asko ibiltzen zana, beste zahar bat, oso zelebria guretzat. Mote batekin ezagutzen gendun. Candido Arrizabalaga zan. Arrizabalaga zan, haren arreba zan Toribio Etxebarriaren emaztia. Eta Candido Arrizabalaga horri deitzen genion 'Apotxiano'. Mendizalia zen. Eta asko ibili giñen alkarrekin mendian. Eta honekin parre egiten gendun. Gaiñera oso umore ona zeukan eta ondo pasatzen gendun berakin. Eta gizon ona. Gizon bat zen ba oso humanista. Eta honi galdetzen genion: "Zu, zer da -adarra josten- aberri egun baten, Eibartik pasatzerakuan, Bilbotik zetozen autobusak ikurriñekin Eibarren gelditu eta bolkatzia nahi autobusak eta ibili ziñatela eta entzunda". "Ez!", guk bagenekien zera. "Ez dok hori horrela. Gure gaztiak nahi zuten abertzalien zera dala-eta bolkatzia!". Eta burrukan, plazan bertan, zaharrak eusten autobusari eta gaztiak bolkatu nahirik, ikurriña zabaldu zutela autobusekuak eta! Eta Eibarren, adarra josten bezala, ikurriña erakusten. Eta esaten: "Guk esaten genien gaztieri: zer? libertadia danentzat dek, ez guretzat bakarrik. Eta honek libertade osua ditek beren ikurriñakin juateko". Eta horrek ziran anekdotak kontatzen zigutenak honek, Candido Arrizabalaga honek.

- Horrek esan nahi du, nolabait, guzti horiek erromantikoak zirela.

- Bai, dudarik gabe!
- Horiak idealetan sinisten zuten. Kasik esan liteke...
- Bai, bai, bai, bai! Nik euskal mobimientua be beti esan dut, euskaldunon mobimientua, erromantikua dala. Erromantiko garaiko holako herri goraipatze bat. Romantizismoa ona da. Nahi dutena esango daute, baiña romantizismoa ona da. Romantizismoa behar da, humanisoak berez behar duen gauza bat da-eta.
- Derrigor gainera.

3.6. Eibar, herri bizia; gizatasuna nagusi

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/012
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:31:48. **Bukatu**: 00:34:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Eibar, herri bizi-bizia; gizatasuna nagusi. Elkarrekiko errespetua: politikan, erlijioan...

Transkripzioa

- Beraz, Eibar herri bizi-bizi-bizia zen. Hor ez dago dudarik.
- Halan [nik uste dut]. Bai, ta... Gerra onduan... gerra onduan danetik zeguan. Beti ixilik eta ibili bihar ziñan. Gerra aurrian ba bueno: ni ba oindiok umia nintzen eta ez nituan kaptatzen ideal kontuak eta zerak. Baiña ikusten nuan ba bueno: noixik behiñian, ba, hori, esan dizuten bezala, berdin juaten nintzan "Casa del Pueblo"ra, berdin juaten nintzan... Eta nik gero hori: gure familian ez zuten iñoiz hasarrerik izaten batekua izan, bestekua izan. Bazeguan horien. Rebelde esaten zan, ezta? Nere amaren pena haundiarekin. Baiña nik ez dakit aitzak eta amak zelan egingo zuten gauzak. Dana dala, ni trabiesua nintzen eta, trabiesua nintzalako edo, begitan hartu eta doktrinan ez ninduten ondo tratatzen. Eta orduan ni bihurtu nintzen ez juatera: Eta amarentzat hori disgusto haundia zen. Baiña aitzak esaten zion: "Ez, beren bidia". Aitan teoria zen: "Relijiñua zer dan jakin bihar du, ezautu bihar du. Baiña gero berak bidia, berak libre hartu bihar du zer egin".
- "Berak erabaki".
- "Beran bidia berak erabagi bihar dau". Eta hori amaren buruan gutxiago sartzen zen. Gero gerran sufritu zuanagatik aldatu egin zen horretan eta konprenditzen zuan. Baiña hori izan da. Nik uste hori kriteriuori bastante orokorra zela Eibarren: berdin relijiño kontuan, berdin politika kontuan. Eta horrek ekartzen zuala oreka alkar errespetatzekua. Eta gero -hori bai- esate baterako Eibarren kalia ez esan hamen iñoiz, nun-nahi, errez entzunda guk, mutikuok, igarri barik entzuten genduana: igual "mecagüen dios" esan eta sozialista ateorik gogorrenak be atenziñua deittu, hori ez dala esan bihar, halakorik ez dala esan bihar. Horrek... hor aldetik zan, ba, bueno, berba ondo egitia; hitzak ondo egin, garbia izan eta konzepto hoiek...
- Bai, bai, gizatasuna.
- Bai, horrek danen gaiñetik zeuden. Eta hori zan girua.

3.7. Gaztetako kezka pertsonalak

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/013
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:34:10. **Bukatu:** 00:35:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Gerraosteko giroa; gauzak egiteko gogo. Gaztetan oso kritikoa zen, kezka asko zituen. Alfa. Soldadutzan benetako euskaltzale bihurtu zen.

Transkripzioa

Gero, gerra ostekua, ba, zer esango dizut? Gerra ostean nik ezagutu dudan partea da zerbait egin nahi duenak kezkatuta. Obserbatzetik edo nik nere kezkak nituan; nere kezkak nituan bezala, ba, nun kokatu. Eta, bueno, Unamuno irakurtzen nuan eta beste asko. Eta horrek kezka bat sortzen du. Eta ni ibili nintzen sozialista ideadun jente gaztiarekin, soldadu Juan aurretik: hamazortzi bat urte, hemeretzi... Eta motelduta baiño gehiago ikusten nituan, ba... ez dakit, Alfa ondo zihoan martxan. Eta Alfa izan zen hoiek sortutako kooperatiba bat -bueno, hoiek eta gure gurasuak-. eta pixkat usteldu egin zirala. Eta nik ez nuan... Ni akziñoko gizona nintzan horretan: nahi nuan zerbait egin. Ez... konstruktibua, baiña zerbait egin. Eta ezin nintzen... Eta gero soldadutzan hartu nuan egizko euskalzaletasuna.

3.8. Juan San Martin mendizale

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/015
- **Iraupena:** 0:06:55. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gerra hasi aurretik Eibarko Klub Deportiboarekin joaten zen mendira. Garai hartan liberalak joaten ziren batez ere mendira (abertzaleak eta sozialistak). Mendia eta politika. Mendigoizaleak. Gerra garaian, herri askotako geltokietan zaintzaileak egoten ziren eta askotan mendizaleak preso sartzen zituzten, besterik gabe. Gorbeiarra edo beste mendi batzuetara joaten zirenean, baserritar eta artzainekin hartu-eman handia izaten zuten. Euskaltzaletasunaren hastapenak.

Transkripzioa

- Mendiak garai haietan bi eginkizun zituen, dudarik gabe: bata kirola zen eta askatasun leku bigarrena. Askatasun leku eta doktrina leku ere bai. Hau da, ideak eta transmititzeko, emateko, pasatzeko eta abar. Eta erakundeak zeuden propio, mendigoizale erakundeak, alderdietakoak eta abar.

- Bai. Hori guk... Ni gerra onduan mendian hasi eta geruago sortzen da hori. Baiña mendizale jentea, guk... han... klub bat izan zen zaharra. Ni gerra aurretik afiliatu nintzen: Club Deportivo Eibar. Hor deporte

amateurrak egiten ziren eta, bueno, ta egiten dira. Eta hor zenbait deporte egiten ziren eta mendizalien saila zeguan. Eta hor, mendizalietan, gerra onduan ere mobitu genduan hori. Bueno, hasi zanian, belaxe hasi nintzen ni hor. Eta hor kolaboratzen nuan. Gero, mendira juaten giñanian, dena liberal jentea zen: abertzaliak eta sozialistak. Besterik arrarua zen. Ta, klaro, giro horretan. Gu juaten giñanian mendira, elkarrizketak eta danak izaten ziren... Ba bueno, garai haretan gogoratzen naiz gerran pasatutako gauzak kontatzen hasten ziran zaharraguak; zertzuk pasatu zituzten, nundik nora eta beren abenturak, gerrakuak. Baiña beti zera. Gero baita ere persekuziñua eukitzen genduan, ze herri askotan, Bizkaia aldi batez ere, abertzalia zen... Mendizalia berez abertzalia zen bezela. Bazan mobimiento bat, Bilbo aldetik sortua, mendizaleena, mendigoizaleena. Eta harekin nunbait konfunditzen giñuzten eta ez giñan horrela. Eta toki askotan, ba, bueno, kaso asko izan ditugu konta eziñezkuak: Villaron , Zornotzan eta, batez ere Mañarin. Mañari karlista herria zen, karlistaz beteta. Nik ez dakit gehiengua izango zen, baiña han orduan momentuan bai beste iñor [geldik ez zeguan]. Eta gu pasatzen giñanian Mañaritik morralekin, burua makurtu eta azkar pasatu, hitzik ere egin gabe eta iñora begiratu gabe. Hori izaten zen gure... Han konpromisua zen hitz egitia. Danak zeuden nundik salatuko zerbait.

- Zelatan.

- Eta zuk... Nornahik zeukan eskubidia denunziatzeko eta zera. Eta ni gogoratzen naiz -ezin izan nintzen jua ni- Gorbeara jua eta guk Villarotik hartzen genduan. Villarora. Lemonaraiño trenez eta han hartzen gendun tranbia eta tranbian. Eta gero gaua egin, zera. Eta goixian goiz urten, goixian bostetan edo bost eta erdietan Gorbeara. Buelta egin eta gaberako Eibarrera, bide beretik. Eta zenbait aldiz jua giñen. Han be mendi asko, diferentziak, ta, gaiñera, gustau mendi altuak eta mendi ederrak. Parajiak ederrak. Gogoratzen naiz behin, ni ez nintzan jua, ezin izan nuan, eta lagunak -zazpi lagun edo- hartu, tranbiatik jetsi eta beste gabe preso sartu zituzten. Gau guztia preso egin eta biharamonian hartu eta bueltako tranbia hartu eragin, hartuarazi, eta buelta egiteko. Eta insultuz beteta hartu zituzten. Ba batek zinturoia zeukan kolorietakua, baiña, bueno, eukingo zua gorria, zuria eta berdia, baiña beste kolore batzuk be bai. Baiña ezetz, disimulatuta zituala zerak. Eta hain zuzen hori zan pertsona bat oso sozialista, ez zan abertzalia. Ba hori zinturoiagaitik zazpirak preso sartu zituzten eta gau guztia kartzelan egin eta gero Villaron, hurrengo egunian etxera. Horrek gauzok pasatzen ziren.

- Hori gerra ondorengo...

- Gero bazuten gerra onduan beti, errelebuak egiten zituzten zenbait estaziotan. zaintzailia: obserbatzen mobimientuak, zerak, klandestinidadeko... [bat ibiltzen zan] nunbait. Baiña guk momentu hartan halakorik pentsatu be ez. Eta izaten zan bat Zornotzan, Amorebietan. Boo! Han egoten zan [bera]. Ezagutzen genduan. Egoten zan begira-begira. Gaiñera aurrian jarri, eskuak kurutzaturik eta begira-begira-begira egoten zan gure mobimiento guztiak, zer esaten genduan ta dena. Eta euskaldunak ziran. Eta halan, beste nundik falta bat hartuko bere abentura bat egiteko. [Ta badakit] euki zituztela disgusto asko mendizale askok. Eta gu hor ixilik ibiltzen giñen. Eta hoiek batetik reakziño bat sortzen dizu eta injustizia baten azpian ikusten duzu zure burua eta gero zerbait egin nahi duzu. Eta, bueno, ni ba lehelengo, esan dizudana: sozialistekin hasi nintzen, baiña gero soldadutzara jua nintzanian, ba, gauza asko aldatu nituan. Ze ni oso adiskide... egin nituan batez ere Aralarren eta Gorbeian... Ze horrek egunetarako juateko... Egun baten nekezak ziran. Gaua pasatzeko eta, artzain batekin eta, bueno, beti erregalotxoren bat eraman eta lagun egin eta bertsuetan egin eta ipuin zaharrak entzun ta. Eta halako

ezagukerak. Gero basarrietan berdin. Guk edozein tokitan iturririk ez zekigun nun zeguan eta basarri batetik pasatzen giñan: ura eskatu edo zeozer eta beti ondo hartu izan naute. Izan dut holako zer bat, kariño bat, jente nekazariari eta zereri, artzaiñeri. Bueno, guk, egoismoz geuk be bihar genduzelako, ezta? Baiña oso ondo tratatuak. Ta beti euskeraz. Gero horrek, baita ere, erakusten zidan lehelengotik nekezak, ba... Eibarko euskeratik Gipuzkoan -Bizkaian ez, baiña Gipuzkoan-, beti kostau egiten zan, baiña gero juaten giñan ulertzen hitzak eta konprenditzen genuen eta bueno. Eta alkar hurbiltze bat. Eta, egia esan, banuan holako kariño bat sartua jente umil horri. Eta gero soldadutzara jua eta ikusi hoiiek erderaz ez zekitelako zelako zigorrak eramaten zituzten eta zelan burla egiten zioten jenteak, tontua balitz bezala. Nik hori ezin nuan sufritu. Orduan kezka horrek eraman niñun -lehelengo bultzada gogorra- euskaltzaletasunera. Eta gero irakurtzetik.

3.9. Gerra Zibila Eibarren; handik ihesi

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/016
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:43:35. **Bukatu**: 00:46:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra Zibila Eibarren Juan San Martinen ikuspegitik. Frontea zazpi hilabeteen egon zen Eibarren. San Martin sendia Eibartik Arratiara joan zen. Durangoko bonbardaketa. Handik egun batzuetara, Gernikako bonbardaketa. Arratiatik Zallara, beste senide baten etxera ihesi. Aitak Valentzian arma-lantegi bat montatzeko baimena eskatu zuen.

Transkripzioa

- Horra allegatuko gara, baina oraindik gerra daukagu pasatzeko.
- Bof...
- Hamalau urte zenituen gerra piztu zenean eta orduan dena -hori bai esan litekeela-, dan-dana, herri bat, oso-osorik, irauli zela. Hankaz gora gelditzen da Eibar.
- Bai.
- Eibar bezala herri asko, baiña hango bake eta istoria guzti horiek akabo.
- Bai. Esate baterako, gu soiñeko erropekin gelditu giñan. Ez etxe eta ez ezer. Gerran dena desegin zen. Nola frentia Eibarren gelditu zan zazpi hillabetez, urten biharra izan gendun eta gu jua giñan Bilbora izeba bategana. Eta izeba honek Arratian, Arantzazu herrian, zeukan etxe bat udara pasatzeko erabiltzen zuana. Eta esan zigun: "Zuek hemen bonbardeuak-eta hasi dira eta onena duzue jua zerera eta ematen dizuet etxea eta han egon". Ta jua giñan Arratiara. Eta Arratian, ba, bueno, han arratiar egiten nuan hango mutikuekin. Bueno, ni han mobitzen nintzan batera eta bestera eta handik, ba, ez ziurki nun zanik, baiña bai handik, Durangoko bonbardeua egin zanian, ba, muino batera igo eta ikusten egon giñan abioiak eta gutxi gorabehera pentsatzen gendun Durangon ari zirela. Eta handik bi edo hiru egunera, Gernikakua. Eta hura izan zun izugarria.

Zenbat hegazkin? Mendi gain batera igo eta iluntzen, ilundu zanian, iluntzen ya, esan gendun: "Etxera". Jetsitzen hasi eta: "Nun ete da? Nun ete da?". Eta zerua gorri ikusten gendun.

- Sutearena?

- Iritsi etxera eta irratitik entzun gendunian Gernika zala eta hildakuak eta ikaragarriko tragedia, neri hori ez zat borratu iñoiz nere burutik!

- Ikusi ez, baina sentitu bai. Hurbil-hurbiletik.

- Eta gero, gaiñera, bonbardeuak asko hartu genduzen, bai bertan Bilbon, bai zerian, Arratian, berriro Bilbon. Gero handik jua giñen -beste izeba bat zeukagun gure moduan exiliauta- bere beste senide bategana juanda Zallara. Zallara jua giñen eta ahal gendun bezala -gela baten igual zortzi edo bedratzi lagunek egiten gendun lo- alkarri laguntzen genion.

Ikaragarriko laguntzak izaten ziren. Jua giñan beste izebagana eta haren etxian. Gero, ba, bueno, ba, aitak orduan eskatu zuan -Deustuan zeguan armeriako zera, eibartarrak egin zutena; eta okasiñua: deiak egin zituzten-Valenzian armeria montatzeko. Eta jua zen eta lortu zuan. Eta guk usterik... Bilbo erori zanian... Harek hori eskatu zuan eta guk pentsatu aitari jarraitzeko eskatu gendun salbokontuktua eta Santanderren lortu gendun, baiña han ez zan enbarkatzerik. Eta handik jua giñan, pentsaizu, Gijonera, Muselera. Eta Muselen enbarkatu giñen eta aitakin bat egiteko asmuan.

3.10. Juan San Martin gerratik ihesi

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/017
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:46:51. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Juan San Martin gerratik ihesi. Bordeletik Frantziara joateko asmoa. Armadako itsasontziak (Cerverak) harrapatu eta zuzenean Ferrolera eraman zituzten. Handik Pasaiara, eta berriz Eibarrera.

Transkripzioa

- Baiña amak esaten zigun: "Guk egingo duguna da gelditu Frantzian. Bordelera jua bihar gara". [...] Eta Bordeletik, han gelditu ezker, beharbada hona, Euskal Herrira, etorri eta hor egon, gerria bukatu arte. Gerria bukatu eta gero, etxeratzeko. Baiña alta marren Cerverak hartu giñuzen eta harek...

- Harek ez zuen barkatzen!

- Eta harek eraman giñuzen Ferrolera. Eta Ferrolen -ez dakit- hamar egun edo hamabost egun egin genitun, han, navaleko halako nabe haundi batean. Eta han bai gertatu ziten gauza bat polita. Han langile bat pasatzerakuan, guri, lehengusuari eta neri euskeraz entzun ta etorri zen eta euskeraz egin zigun. Eta esan zigun ia nunguak giñan. Eta esan genion. Eta bera Bizkaikua zela, ez zigun besterik esan lehendabizi. Eta gero hizketan, ba, gauza batzuk galdetu nahiko leukiala eta zera. Baiña berak obserbatzen zuan guk ez genduala ezer esaterik nahi, ze agindu bat geunkan amarena, ixilik egoteko galdetzen badigute zerbait. Baiña honek egunero uzten zigun frutia edo gailletak edo zera. Eta oso sinpatikua eta

zera. Eta egun baten esan zigun: “Bueno, etorri nerekin, inporta ez bazaizue”. Sartu giñen kamioi baten kabinan. Eta lehengusua eta ni gizon horrekin. Eta, bueno, gizona, ba, euskeran ta konfiantza eman zigun ta... Eta orduan galdetu zigun: “Nik gauza bat nahi dut jakin. Badakit zuek ez dozuela [...], baiña Gernikan zer pasatu zan? Zeiñek erre du Gernika? Nahi nuke jakin. Eta esan e. Ni... euki konfiantzia, ba, nik ez dut besterik nahi, ni gernikarra naiz eta”. “A, bai?”. “Ba, hara, -lehengusuak esan zion-, ba honek ikusi zuan bonbardeua”. “Bai, nik halako tokitatik, ba bueno, mendien beste aldera, herria ez nuen ikusten, baiña...”. Esplikatu nion, ba, zelan hainbeste aeroplano kontatu genduzen: ez naiz gogoratzen; ba asko. Esan nion: “Hirurogeita piku hegazkin bai baziran kontatzen genduzenak”. Eta gero etxera iritsi giñanian bonbardeatu egin zutela. Eta bueno, “hilketak asko egon dira eta hau eta bestia”, kontau nion. Eta, klaro, gu kabinan aurrera begira genden. Eta gizonak ez zuan ezer esaten, baiña halako zintz edo zer gauza raro bat obserbatu nuen. Behatu nion eta kokotsetik behera negar tantak eroritzen. Gizona negarrez.

- Bere herria.

- Eta esaten zuen: “Pentsatzen nuan nik. Esaten zuen gorriak erre zutela. Eta nolan beraiek beren familiak erreko dituzte herri baten, hainbeste hiltze egon badira!”. “Ba ez, hegazkin alemanak ziren”. Eta, jo, gelditu zan gizona oso... inpresioño ikaragarria egin zidan. Bueno, gero handik ekarri giñuzen Pasaiara. Eta Pasaiatik juan giñen, ba, etxera ez, etxerik ez geunkagun. Baiña nolan diran laguntze kontuak: han eraman giñuzen Eibarren eskola baten bildu giñuzen juandako guztiak. Eta, bueno, haur eta emakumieri-eta ez zioten... Gizonen bat bazeguan, hari deklaraziñuak eta zerak. Baiña gaiñerakueri ez. Eta etorri zan osaba bat eta bere etxera eraman giñuzen eta holan hasi giñen...

- Berriro bizitzen.

- Berriro bizitzen.

- Eta aita Valentzian.

- Aita Valentzian. Eta haren barri Cruz Rojaren bidez bi aldiz-edo izan gendun, baiña gerria bukatu arte berririk gabe.

3.11. Juan San Martin euskaltzalea

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-084/014
- **Iraupena**: 0:10:49. **Hasi**: 01:03:59. **Bukatu**: 01:14:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Euskara eta politika
 - Euskara » Euskararen historia
 - Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena**: Euskaltzaletasuna; euskara. 20 urterekin, injustiziaren aurrean euskaltzaletu egin zen. Euskaraz erraztasun gehiago idazteko; poesia, ipuinak sortzeko... Idazteko erabili dituen gaitzizenak: `Otsalar´, `Auñamendi´, `Egigurendarra´; etab. 1960ko hamarkadan, zentsura nagusi zen. Poesiagintzan gai berriak jorratzen hasi ziren, ordura arteko gaiekin apurketa bat egin nahian. Bide berriak zabaltzea nahi: Aresti, Joxe Azurmendi, Mikel Lasa, Juan Mari Lekuona... 1957an Euskaltzaindian urgazle eta 1964 inguruan euskaltzain oso izendatu zuten.

Transkripzioa

- Lehen ere aipatu dugu: 20 urte zenituela euskaltzaletu. Hain zuzen ere, injustiziaren aurrean eta, baita ere, Suitzako historia irakurriz.
- Hori da. Orduan begiak iriki zizkidan Suizako konstituziñuak. Harek esaten zuen bezala, danak dira Suizakuak, lau hizkuntzak. Orduan ikusi nuan "ni be unibersala izateko, Europakoa banaiz, Europa neregandik, nere herritik hasten da eta European kontra ari naiz hizkuntza bazterten badut. Beraz, hizkuntza neuria hartu bihar dut. Eta erdera berdin estimatu bihar dut, ze hori da nere... gehien irakurri dudana, estudiatzeko gehien balio izan didana eta nik hori ezin dut inoiz despreziatu, gaztelera". Eta nik gaztelera maite dut, baiña, klaro, hizkuntza euskera da nerea. Eta, gero, beste bat martxan, konturatzen naiz hor lehen -oin ez da hainbeste erabiltzen "el genio idiomático"-, lehen esan dudan ejemplo hoiekin baliotzen dana: bakoitzak baditu erabileragatik edo haurtzarotik nundik edan duan, haren zerak betiko gelditzen dira.
- Ez dela igual 'madre' eta 'ama'.
- Hori. Eta orduan, "genio idiomático" nik hizkuntzarena euskeran dut. Borondatez aldatu leike, Arestik egin zuan bezala. Posible da. Baiña nik "genio idiomático" horretan ikusten dut neri errezago zait euskeraz idaztea. Errezago zaidan bezela euskeraz mintzatzea, erderaz baiño.
- Batez ere sentimentuen eta mundu hori.
- Bai, jakiña! Horregaitik, hain zuzen, nik esaten dut: nik posible dut zein hizkuntza batian, zein bestian idatzi. A! Baiña sorketarako, poesia egiteko edo narrazio literario egoki bat egiteko, behar dut nere hizkuntza, euskara. Euskeran konfiantza hobia dut. Hobeto adieraziko naiz, nahiz ta gutxiagok irakurri, hori bost ajola zait! Ajola zaidana da... ze nik badakit itzulpen ona egiten badu beste batek, [... nik erderaz egin] nik baiño hobeto [egingo] duala neretik ere. Eta, orduan, sorketarako, nahi poesiagintzarako, nahi ipuiñak edo narratiba idazteko, nahiago dut nere hizkuntza, euskara. Gero, beste edozer adierazteko, ba, orduan berdin zait erderaz eginda ere. Horregaitik erderaz asko idatzi dut: historia gaiak edo arte gaiak ere bai... Baiña gauza adierazgarriak; baiña sortzekoak, ez. Nik poesia euskeraz egin dut, ipuiak eta zerak idatzi ditut euskaraz. Zegatik? Ba, hor hobeto aurkitzen dudalako nere adierazpena. Gehiago esango dizut. Nik jakin gabe, ez dakit zenbatgarrengo tomua dan, baiña 'Auñamendi'k badauka hor literatura bost tomo edo -eta ez dakit nun nagon, laugarrenian edo, han agertzen naiz-, ta nik ikusi nituanian itzulpenak nere poemenak han eginak, han agertzen direnak...! Eta hori narratiban ez dute zenbait, ez dakitelako nere... zera, izenordia narratiban zertzuk erabili ditudan .
- `Egigurendarra´ eta `Auñamendi´ eta halakoak...
- Eta orduan, ba, hoiek hori ez zekiten eta poesia hartu zuten `Otsalar´ekin eta egin dituzte itzulpenak. Nik irakurri nuanean erderaz nere poemak...
- Arrotz?
- Ez, marabillatuta gelditu nintzen! Ni ez nintzan posible horrek erderaz egiteko! Itzulpenak erakusten dit. Horrek itzulita... Eta itzuli zituan Gazteluk. Eta...
- Itzultzaile fina zen, gainera, Gaztelu.
- Oso itzultzaile fiña. Eta nik, lehelengo-lehelengo ikusi nituanian, gutun bat egin nion eskerrak emanaz, ze egin zuala lan bat nik ezta hurbildik ere ezin nezakeala egin. Berak erdera oso ondo erabiltzen zuan, euskera ere bai. Neretako idazle eredugarri hoietako bat zen. Eta eskerrak berari, ba, hor daude poemak.
- Aurki, igual, etorriko dira gehiago!
- Bueno, ba ez dakit. Eskatzen didate hor, ba, antologia bat edo neria,

zerbait egiteko. Eta beharbada... Baiña oin ez daukat denporarik. Geruago, akaso. Eta, baita ere, badut gogoia berriz poesia egiteko. Beste era batekua egingo nuke. Garaia ez da alperrik pasatzen eta, denpora pasatu eta gero, beste idea batzuk, beste zer batzuk aurkitzen dituzu. Oin, euskera aldetik, hobeto egingo nuke neuk ere lehen baiña.

- Izan ere, esan behar da badela poeta bat: 'Otsalar'. 'Otsalar', Juan San Martin. Guretzako -eta orain nere adina aipatuko dut-, 50 urteren bueltan gaudenontzako, maixu eta bide erakusle izan zen.

- Bueno! Nik ez dut uste maixu. Nik han gizon haundiak agertzen ditut. Gauza... Beharbada...

- Gaien aldetik eta.

- Gaien aldetik erabiltzen ez ziren gauza batzuk -Euskal poesian edo euskal literaturan-, erabiltzen ditut. Nere kezka.

- Eta hori zen existentzialismoa batetik.

- Bai.

- Eta gero, han eta hemen, poesiak oso gutxitan ezagutu duen ironia.

- Baita. Bai hori, zelan zan? "25 urte, pake urte" egin zuten. "25 años de paz", frankismoak. Eta guk esaten gendun: "Claro, pa que hurte. Han tenido 25 años para hurtar". Lapurretekin.

-Eta 'La codorniz'-ek egin zuena, "paz y ciencia", "y" txiki hori jarrita irakurtzen zen "paciencia". "25 años de pazciencia".

- Eta orduan, ba, hori zala eta, zerbait, ta ebelatziarren atera nuan... poema bat egin nuan, ba, nik ikusten nituan gauzetan, baiña ironiaz egin nuan hori. Ironia ere bihar da, poesian ere. Han gauza bat: nik salatzen ditut nun dauden... kalte edo diktadura zerekin baliatu dan gehien eta horrek salatzen ditut.

- Elizaren prozesioa eta aberatsak?

- Bai, baiña gero beste bat badago han, elizarekin sartzen naizena. Berakin eleizarekin ere, goikoekin behintzat. Eta hura kendu egin zidaten. Ez nuan nun argitaratu. Ez zaidaten nahi batak argitaratu, bestiak ez, bestiak ere ez. Eta hiru edo lau lekutan ibilli nintzen eta azkenian, ba, bueno, Aita Onaindiak esan zidan: "Bueno, nik argitaratuko dut hori 'Olerti'n" ta "Bueno, bueno" eman nion. "Baiña hau kendu bihar dugu" ta harek kendu zion. Beraz, handik eta hamendik zensura bat badu, baiña bueno.

- Esan nahi dut gai hura eta mugimendu hura eta mugimendu garai hura, berrogeta hamar... Ez, 60a, 60aren buelta hura. Nere ustez, euskal poesiak gerra aurrean Lizardik markatu zuen bidea hausteko unea huraxe izan zen. Ez dakit, 1960. urte buelta hura. Zaude zu, 'Otsalar', dago Aresti, dago Joxe Azurmendi, Mikel Lasa. Horiek aipatuko nituzke hola bapatean. Lehentxoago Gandiagak argitaratu du berea, baina Gandiaga eskola zaharrekoa da, nahiz eta euskeraren aldetik eta tajukeraren aldetik oso modernoa izan, gaitegia-eta oraindik zaharrak dira.

- Gero Juan Mari Lekuona.

- Eta gero Mikel Zarate.

- Baita. Hori izan leike hori. Gehiago esango dizut: antologia bat egin genduan laurona, esan dituzun lehelengo laurona antologia bat egin genduan. Eta antologia horri, ba, ez dakit nor gelditu zan hitzaurria egiteko.

- Oteiza.

- A, bai, Oteiza. Iñork ez zuan nahi argitaratu. Epilogoia egin zion Blas de Oterok. Eta pentsatzen zuten epilogo hori galdua zala eta nik kopia bat neukan garai haretatik. Eta, bueno, ez dakit, Arartekotzan egon naizenian, eman nion Marañari eta besteren bati kopia. Eta oso polita da. Laburra, baiña polia da. Guk nahi gendun orduan golpe bat eman poesiaren, poesia berri baten edo bide berriak irikitzeke, beste batzueri bultza egiteko. Baiña ez zigun nahi iñork argitaratu.

- Nere ustez momentu benetan interesgarria da.
- Bilingue egin gendun, ba, nahi euskeraz, nahi erderaz. Edo euskera hutsian atara edo bietara atera eta ezin gendun. Orduan zeuden, liburugintzan ari ziraneri, banan-banan jarraitu gendun eta ez ziran ausartzen. Ez dot uste hain konprometigarriak ziranik. Gehiago zan gure konpromisua, literaturako ekintza batena, eta hizkuntza berarena. Besterik ez zan. Baiña han esaten diran zerek ez det uste politika halako... politika kutsu zer bat dutenik. Gero ikusi da lau pertsona hoiak nun gelditu geran. Bueno, bat hil zen. Baiña ez gera izan halako politika konkretu baten lotzekoak. Hori, pasatzen diran gauzak historian.
- Euskararen arloan, 1957an euskaltzain zara. Orduan egiten zaituzte euskaltzain.
- Zelan? Milla bedratzirehun eta?
- Berrogeita hamazazpian.
- Urgazle.
- Urgazle orduan?
- Euskaltzaindian urgazle. Numeroko, nik uste, 1963 edo 64], neuk be ez dakit gerru. 1964 izango da numeroko... Euskaltzaindiakua.

3.12. Euskaren egoera gerraostean; Mogel idazleari omenaldia; Ikastolen mugimendua

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-084/015
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 01:14:48. **Bukatu**: 01:17:53
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Euskara eta politika
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena**: Juan San Martin eta Mogel. 1959an lehenengo liburua argitaratu zuen: `Mogel. Bere bizitza eta lanak´; Mogeli omenaldia udaletxean. Euskararen presentzia gerra ondoren udaletxean bertan. Javier Egurenen jarrera, goraipatzekoa. Ikastolen mugimenduaren hasiera. Elvira Zipitria.

Transkripzioa

- Zuk lehenengo argitaratzen duzuna liburu bezala, 1959an argitaratzen duzu, hain zuzen ere, zerarena, Mogelen liburua, bizitza eta obrak. Bere omenaldiko eta Eibarkoa zelako eta...

- Hitzaldi bat zen. Bueno, orduan motibaziñoak beti nik izan ditut, beti. Libururik... Batzuk behintzat dute motibo berezi bat. Eta Mogelen hori egin nuan... Ba orduan genbiltzan gu ikastolak irikitze hasten, lehelengo ensaiuak egiten. Eta nahi genitun ikastolak irikita egin, ze Elvira Zipitriak esan zidan klandestino bezala, nahiz eta toleratuta, jakingo zuten, baiña hor... Eta guk nahi gendun publikoki iriki, eta koraje guztiarekin, euskera... Klandestinitate kutsua atera, eta hori egin. Orduan, ba, pentsatu gendun, jentiarri morala emateko, ba, bueno, Mogeli omenaldi bat egitia. Euskaltzaindiak onartu zuan. Alkatia konbenzidu genduan hango bi edo hiru lagunek, orduan alkate zena Eibarren, ba, udaletxian egiteko. Udaletxian egin [...] eta, gaiñera, alkatiaren diskurso batekin. Eta euskeraren presentzia han, lehelengo aldiz gerra onduan, udaletxian bertan, era hortan, ba, hauste bat zan, lehengo, orain arte gerratik zeguan

bidiaarena. Eta, era berian, harek ez zekin... ba, bahi genituen, bere inguruan aprobetxaturik... Hari esaten genion: "Etorriko dira gizon inportantiak hitzaldiak emotera". Personaje hau elgoibartarra zan. Eta horrekin lortu genduan, bueno, esaten genion zer personajetzuk, ba, bueno, linguistak eta... Esate baterako, nik esaten nion: "Etorriko da Gorostiaga, especialista en lenguas orientales", eta holakuak esan [genion] eta harek dana tragatu zuan. Eta, bueno, neurri baten egia zen. Eta, orduan, enbarkatu genduan eta, bueno, oso ondo portatu zan alkatia gurekin, Javier Eguren. Eta eman genduzen gure hitzaldiok. Eta orduan, ba, nik nahi nuan Eibarren... zelan ikastola orduantxe genbiltzan desarrollatzen eta publikoki, ba, oindiok bultza egiteko, zelan aste egunian eman genduzen hitzaldiak, goiz eta arratsalde, ba, jente askok ez zeukan juaterik. Okurridu [zidan] nere hitzaldia, bibliografia gehituaz, liburutxo bezala, publikatu. Nere poltsikotik publikatu nuan. Publikatu eta, Eibarren behintzat, ezagutu zezaten nor zen Mogel, Eibarko semea. Eta beti denok dugu... Esaten da: "No sé qué del campanario", baiña kanpapean, toki bakoitzeko kanpaiak bere hotsa du, hots berezia, bere parrokiarako,edo bere ingururako. Eta nik hori nahi nuan. Eibartarrak ere, ikutu ezkeru zera, "hau da gure hizkuntza", gogoratzia. Errezoia hori izan zen.

3.13. Eliza eta euskara Frankismo garaian

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-085/002
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:04:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Politika eta Franco
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Eliza eta euskara Frankismo garaian. Salvatore Mitxelena eta Aita Agirretxe Eibarren sermoiak ematen. Gai sozialak, euskara, etab. Abade batek Mitxelena denuntziatu zuen.

Transkripzioa

- Eibartik joan zen beste bat misioetara, Eibarren sermoiak egin ondoren. Poeta handi bat: Salvatore Mitxelena.

- Bai, bai. Salvatore Mitxelenak eta Aita Agirretxek Eibarren emon zittuezen sermoiak baiña han [Eibarren] gaur esan leike han zan abade bat gaztiak domiñatzen zittuana. Esaten etsen gaztieri... neregaittik jarduten eben: "Ba, harek ideak eta zerak dittu...". O sea, igual nere lagunari esaten etsan: "Eh, cuidado, que ahí hay desviacionismo!", neregaittik esaten eban. Eta baekixan gaiñera euskeraz, eta ez eban egitten, erderaz bakarrik egitten eban. Eta bera abadia, bera. Eta honek, ba, denunziau egiñ eban gobernadoriagana[Eibarren zeguan abadiak Mitxelena], eta euki zittuan disgustuak. Eta orduan, ba, sarri juaten giñan elixara juaten ez giñanak be hara juaten giñan entzutziarren, ba, joño, zerbait arnasia zana, haize freskua guretzat esaten zittuan gauzak.

- Gainera biak nahiko konprometituak ziren. Agirretxe bezela, Salvatore Mitxelena, gizarte mailan eta gai sozialak eta...

- Bai, bai, bai. Oso idea barrixak, eta horrek ekarri eban, ba, ez bakarrik euskeria, euskeria eta geixak. Baiña denunziau [egiiñ] zittuezen. Gehixago

da! Nik lagun bat neukan oso... Esaten netsan berari: "Hik falta dok bakarrik, horrena berarena [gaztiak domiñatzen ebazen abadiana] monagillo izatia". Beti harena zan, engañauta eguan. Ba, hau pasau eta: "Egixa dok hori?", eta esan estan berak: "Hi, ba nik hori aklarau nahi juat nere zererako!". Eta: "Zertarako ba aklarau? Pixkat intelijentia bahaiz konturatu bihar haiz hori izan leikela : ba, esan detsela harek sartu dabela denunzia". Ba, hori enpeñau zan nik lagunduta Mitxelenagana [juatia]eta Salbatore Mitxelenari galdetu ia egixa dan denunziau ebena. Eta esaten netsan: "Bueno, baiña zirkunstanzian gauzak daren moduan hik ez dakak personia zertan horretan sartu. Sinistu edo ez sinistu. Nik sinisten juat, beste gauza batzuk bajakixaraz eta! Zuek neregandik ez kontaktorik eukitzian ahalegiñak egin jittuk heuk esanda . Eta nik ez jaukat benenorik, ni ez nok persona pozoindu bat, eta hik badakik horrenbeste. Ba, hórrekin berdiñ". Eta azkenian, ba, hórrek disgustuok eruan eben; harek disgusto batzuk eruan zittuan. Eta, bueno, neretako beste gogozko poeta bat izan zan! Nik hareri asko irakorri netsan, ba, hasi Arantzazuko...

- 'Ama-semeak'.

- 'Ama-semeak', baiña baitta be 'Arantzazu...', zelan da?

- 'Euskal Poema'.

- 'Euskal Poema'! 'Arantzazu, Euskal Poema' da ikaragarrixa. Gaiñera...

- Garai hartan.

- ...Orixeren 'Euskaldunak' baiño urtebete lehenago argittarautakua. Oso irudi polittekin. Nik estimo ikaragarrixan daukat liburu hori.

3.14. Gerra Zibilean, San Andres batailoian

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-086/013
- **Iraupena**: 0:14:41. **Hasi**: 00:15:53. **Bukatu**: 00:30:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Gerrara boluntario 18 urterekin. San Andres batailoia. Beasainera lehenengo. Frontea Eibarren; Otxandio, Bilbo, Laredo... Leonera preso eraman zuten. "Batallón de Trabajadores"ekin Nafarroara joan zen; gero, Terueleko frontera. Handik Bartzelonara eraman zuten eta Gobernu Militarrean marrazkilari bezala egon zen. Gerra amaitu zenean, mobilizazioa etorri zen eta soldadutza egin behar izan zuen.

Transkripzioa

- Eta gerra. Hori beste kontu bat da. Bestelako tristura bat, bestelako mundu bat, ordura arteko ilusio guztiak hankaz gora...

- Bai, famelixak apurtu, eta... bai!

- Zuk hamazortzi urte zenituen.

- Bai, ni hamazortzi eginda. Abrillekua naizenetik, gerriak urten zeban eta lehelengo egunetik hasi giñan gu hor zihar.

- Baina zeure borondatez joan zinen? Boluntario?

- Bai, bai, boluntarixo. Orduan, bueno, jaten eta emoten zebela eta hau eta bestia, eta txanpon batzuk eta... Bueno, aurrera! Trintxerak egiñ eta

benga! Ez zeguan danontzat lain fusillik, baiña egoten zan fusil bat lau edo bost lagunentzat ezer estuasunik baldin bazan jaurtitzeko eta zera, eta bestela trintxerak egin, zakuak bete, telefonuak e...

- Hariak.

- ...harixok erabili trintxera batetik bestera eta holan. Horixe zan gure lana. Bai.

- Orduan armamentu, instrukzio eta horiek guztiak?

- Orduan instrukziñua neri ez jatan tokau. Francoren denporan instrukziñua, orduantxe ikasi!

- Gerra pasatu eta gero?

- Gerria pasau eta gero. Orduan ez neukan nik bildurrik! Hor konpon! Orduan, jolin!: “¡Ahora sois soldados de España!”. Eta han danak firme eta: “Ahora no sois prisioneros, ahora sois soldados de España”. Hori entzun nebanian: “Ahora decid lo que queráis”, gure artian. Hamen ez jagok tirorik eta hor konpon!

- Bale, konforme. Lehenengo egunetik beraz, ze ibilbide egin zenuen zuk? Zu —lehen esan didazu—San Andres batailoikoa izan zinen.

- Bai, baiña hori gero etorri ziran. San Andres batailloia, "zarpadores". Eibartar bat zan —eibartar kubano bat zan— zera, Sarasketa. Eta harek erabiltzen ginduzen gu. Ez dakit ba nik, injenierua ala zer zan edo, eta ha gizon majua zan eta ha ibilli zan frentiak guriak zertzen: frentiak erakutsi, eta zela gorde bihar giñan eta atakia baldin bazatorren zertu, eta en fin! Han ofizial bat edo beste be egoten ziran. Ofizialak be, zer? Geure modukuak, ez estudixo... Soldautzia eginda eukenak eta, batzuk sargentoraiño igotakuak eta, hórrek gero ba...

- Kapitan gutxienez izango ziren horiek!

- Bai ba! Haundixak, bai jauna! Eta hamengo basarritarrak ziran. Basarritarrak, igeltsero eta holakuak! Eta hárekin, benga, aurrera eta atzera.

- Aurrera eta atzera, zu non hasi zinen lehenego?

- Ni Beasaiñen.

- Beasainen hasi.

- Beasaiñen. Han, lehelengo reketiak handik sartzen ari ziran eta Eibartik hara, benga! Ba, kamioikada bat... Por ejemplo, kamioikada bat, ezta? Eta igual juaten giñan hogeit lagun edo hogeta bost, eta ez ziran juango sei fusill. Jo, háren kontra! Hárek instrukziñua, ofizialak eta... zer? Eta gaiñera noixian behiñ artillerixiak, daunba! Jo! Háren kontra! Baiña gaztiak ez dau orduan peligrorik ikusten beste batzuk albuak eta ikusi ezkerro, eta bai, kaiñonazo bat edo beste inguruan, eta makurtu eta braust!, eta azpitan! Horixe zan gerria! Erromerixa bat bezelakua! Noixian behiñ ikusten genduan bat heriduta edo, eta hartu haura eta lagundu zerian, eta beste bat: fulano hil dala, eta ha emozíñua eta, háretxek ziran lehelengo eguneko zerak. Baiña... e! Jolasian! Lehelengo egunak jolasak bezelakuak ziran!

- Gero etorriko zen gogorra!

- Gero, gero, bai: “E! Zerkua datorrela!, ¡Cercos!, E, eta kontuz!”. Eta erderaz eta euskeraz ofizialak eta bestia eta: “Atzera egin bihar dala!”. Eta, joder! Zumarragan zihar, benga!

- Atzeraka?

- Atzeraka! Eta Eibarren geratu zan: Eibar eta Kalamua eta... Bai, hórretxek ziran nere lehenengo egunak. Gero Otxandixon be ibilli giñan!

- Otxandiox gogorra izan zan, ezta?

- Bai, Otxandiox gogorra. Lehelengo bonbardeua hantxe ezagutu genduan, Otxandiox. Bai, ni ez nenguan herrixan. Kanpuan nenguan, ezta? Baiña herrixan, e... bai!

- Gero handik atzeraka, Bilbora.

- Atzeraka, ba, atzeraka-atzeraka, Bilbora! Gero, e, Bilbotik be, atzera eta atzera-atzera eta Laredon, e, ba...

- Barrura.

- ...barrura. Italianuak harrapau ginduezen, eta, en fin!

- Eta oraindik, kasik esan liteke... Bueno garai hartan hemeretzi urteko mutila, mutila zan!

- Bai!

- Nor ba zan. Hemeretzi-hogei urteko...

- Bai! Esperienzia gitxi, ezta? Herrittik urten barik eta esperienzia gitxi gerrarako eta edozertarako! Klaro, gu lanian bakarrik... Besterik ez geunkan guk! Lan puxkat egiñ eta haxe zan gure bizimodua! Guk, e, zer? Gerran, bateron batek agindu biharra: "Hau egiñ eik", edo "Bestia egiñ eik", edo "Makurtu hari!" eta...

- Baina kasik esan liteke... Nik esan dut: Mutila zen bat hogei urterekin, hogeita bat urterekin, hemeretzi urterekin, baina hala ere, oraindik zuk esaten duzuna esperientzia gutxi, gaztetxo gerra egiteko!

- Bai, bai, bai. Gaztetxo. Gaiñera instrukziñorik egin bage, manejourik be ez fusillanik, han bertan erakusten zebena, frentian. Baiña esaten doguna, fusil bat sei lagunentzat! Bat jausten bazan ba, bestiak hartu eta holaxe!

- Zu telefonoarekin ibili zinen gehienbat.

- Bai.

- Nahiko peligr osoa ez da hori, telefonoarena? Haria tiratu behar izatea eta? Batetik bestera eta?

- Peligr osua, peligr osua! Baiña, hor sasoi horretan peligr orik ikusten da ala? Hor, peligr ua, albu an bateron bat jausten baldin bazan, orduan ikusten zan: "Joño! Hi! Hau eta bestia, eta hau heriduta, eta benga hi, hartu eta benga behera!". Horixe izaten zan! Baiña peligr hori, dinbi eta danba!... Hantxe ibiltzen zan jendia!

- Paulino, Laredo.

- Bai, Laredo.

- Eta han barrura, preso. Handik nora joan zineten preso?

- Handik, zerera, León. "Batallón de trabajadores" formatzen ari ziran prisioneruekiñ. Eta hantxe, gero formau ziranian "Batallón de trabajadores", "destinos". Bueno, da, eta bestia! Naparruara tokau jatan. Han e, Andosilla inguruan edo, Carcar eta hórrek herri txikixok eta. Ofizial bat, —hau esatekua da— falangistia zan, bere zerekiñ eta, e! Baiña gizon majua! Alfereza zan, alfer ez Rufino edo. Eta harek gu defenditzen ginduezen gizon moduan. Berak eukiko zeban igual bere falangismua barruan edo, ezta? Baiña han ibilli ziran Tolosako —esan leike?— reketiak, gipuzkuakuak eta, enteratzen ziranian gipuzkuarrak zegozela gure batailloietan, billa etortzen ziran, billa etortzen ziran. Eta bildurtu egin zan. Gure lagunak —bi edo hiru— eta esan zeben: "Hórrek bazetozek", eta... danok gaztiak! Baiña bat musikua zan gaiñera, eta zera, eta zeragana juan zan, alfer ezagana. Alfereza ona zan ba! Gurekiñ ondo portatzen zan! Bai, bai, juaten zan Carcar-en hara eta pagatzen zeban han, tak!, —orduan dirua zan— hiru duro igual eta: "Los chavales que entren en este bar que tomen vino". E, holan! Ona, gizon ona!

- Bai, bai, gizon jator horietako bat.

- Bai. Eta harengana juan ziran eta: "Mi alfer ez: aquí andan algunos que nos quieren y nosotros —ya puede pedir informes nuestros— en el pueblo nos hemos portado como unos ciudadanos corrientes. No nos hemos metido en política ni nada, pero sabemos que andan buscando". "¡Coño! Buscando, ¿eh? Muy bien". Pistolia ipiñi zeban eta: "A ver si me indicáis quiénes son".

- Berak hori?

- "A ver si me indicáis quiénes son. ¡No se van a mover!". Jolin! Tira,

nasaittuta geratu ziran mutillak. Beti bide onduan ibiltzen zan eta zera, baiña harek pistolia gertu zeukan, kargauta. "A ver si me indicáis quiénes son. A ver si veo".

- Edozer gertatuta ere, bera prest.

- Bera prest defenditzeko. Hórretxek dira guardixak eta "tengo responsabilidad", e! Presuak giñan, baiña...

- Bera nor zan!

- Bai.

- Zu, beraz, Nafarroan egon zinen eta gero berriro soldadu bialdu zintuzten gerrara edo...

- Bai, trintxerak egitten berriro zerera, Teruel-ko frentera.

- Negu guzti hura pasatu zenuten!

- Negua, bai. Negua, jo, gogorra! Baiña, zer? Eguzkixak urtetzen zeban eta dana zorriz beteta genguazen eta kendu geure erropa zaharrok, uretan sartu narru gorririk, han jo-eta emon garbittua gorputzari. Garbittu bat ez, ura pasau, ez geunkan jaboirik eta ezer. Hamazazpi gradu!

- Zeropetik.

- Bai, azpittik.

- Bai, bai, bai.

- Han, jo-eta garbitzen zertu, sikatu zela edo halan eta jantzi. Zorrixak kendu ezin! Jertsixak ondiokan barri samarrak, onak, ezta? Baiña, bueno, hárek egosi egin bihar ziran! Benga!

- Hor hotzak hildakorik ere izan omen zan, e!

- Bai, egongo ziran. Bai, bai, bai.

- Teruelgo hortan...

- Bai, hotzak hildakuak, bai!

- Eta gero, gainera, frente oso gogorra izan zan hori. Hildako asko eta...

- Gogorra! Bai, atzera eta aurrera ibilli zan eta! Kapitala —Teruel— hartzen zeбен batak eta gero bestiak. Eta buelta bi edo emon zeбен han eta, en fin! Bai, gogorra izan zan haura! Nere osaba bat hantxe hil zan. Nere aittaren anai bat, bai.

- Eta handik Barzelonara izan zan?

- Handik gero, ba, gerria amaitzen zoian eta Barzelonara be, ba preso oindio. Baiña Barzelonan, ba, hor, martxuaren azkenerutz: "Se ha terminado la guerra y esto y lo otro". Eta, "Joño! Si se ha terminado, pues ¡está bien!", danok han zertzen genduan, bai. Eta, bueno, amaittu zala gerria, Francok: "Tal, esto, lo otro, el primero de abril...". Bere triunfo eta bere guztiok eta: "Bueno esan genduan danok pozik". Bueno, gerria galduta, baiña danok pozik. Eta gero han espezialidade billa hasi ziran, eta: "¿Usted qué oficio tiene?". "Yo, pues dibujar, grabar, y tal y cual". O sea ke ofiziuak aparte. "Bueno, usted a Barcelona". Barzelonan, zerian, "Gobierno Militar"ian.

- Ofizinista edo.

- Dibujante! Hango arkitektueri-eta zubixak eta etxiak han jausi ziranak-eta, hari zera, háleri kopixak egiñ eta háleri laguntzen. Háleri laguntzen.

- Lan nahiko lasaia, orduan!

- Bai. Eta gero, ba, denpora...

- Baiña...

- Zelan?

- Ez, zerbait pagatzen al zizuten lan horrengatik?

- Bai, sei errial egunian, soldauak baiño gehitxuago. Esplotauak giñan baiña, esplotauak! Bueno, en fin! Isillik egon bihar! Nundik e, gure etorrixa edo gure jatorrixa... jatorrera, ba, "Estos son presos", y...

- Bai, bai, bai. Baina oraindik preso zeundeten, soldadu eta dana ibili eta gero?

- Ez, ez. Behin soldau egiñ ezkerok, ez. Ke ba! Oiñ: "Hori handik etorri da".

- Klaro, nondik zentozen, hori...

- Bai, horixe! Horixe zan. Baiña ofizial batzuk katalanak eta hárek ondo portatzen ziran. Eta euren etxerako... Bai ba!, hárek be, ba, gerria amaittu zanian, ba, falta ziran arkitektuak euren herrixetan. Hárek be, gu bezela, bata falta, bestia hil dala, bestia Frantziara jua dala... Kataluña be zeguan Euskal Herrixa bezela, dana zertuta, deseginduta, akabo! Eta háleri laguntzen ni. Kopixak egiñ eta zera, eta... Batian juaten nintzan euren etxietara eta hantxe beren ofiziñan kopixa batzuk egiñ, eta bueno! "¡Alguna propina me daban!" Holaxe, bizi!

- Bueno, kejaxeko behintzat ez.

- Keja? Ez, keja ez. Jaungoikuari eskerrak dana ondo urten jatan neri! Batzueri ez, beste batzueri bai!

- Baina hor okerrena-okerrena azkenean etorri zan, ezta? Dana bukatu eta gero, soldadutza egin behar!

- A, bai! Gero etorri zan mobilizaziñua. Hasi ziran amerikanoak Italian sartzen: "Invasión de Europa". Bueno, hasi ziran eta berriro mobilizatu ginduezen. Bueno, beste... ez dakit nik, gerria amaittu arte, ba akabo! Jo! Bueno, amerikanoak eurak zertu ziranetik eta, bueno, beste urte bi pasau ziran etxetik kanpora.

- Total, hamazortzi urtekin irten...

- Eta hogeta laukiñ edo, buelta.

3.15. Sozialista intelektualak

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/012
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:41:38. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena:** Meabe (poeta), Madinabeitia (medikua), etab. Sozialismo intelektualak, poetikoa.

Transkripzioa

- Lehen aipatu ditugu Meabe eta...

- Meabe eta Madinabeitia. Hórrek Eibarren.

- Madinabeitia hori da!

- Madinabeitia, Jose Madinabeitia. Horrek ekarri zeban Eibarrera beste haixe bat. Toribiori, Etxebarriari, sarrixan entzun detsat: kartzelan junto egon giñazen ordu mordo baten hizketan eta harek esaten zetan hórrek ekarri zebela beste sozialismo bat: "socialismo intelectual" esan deigun. Hárek ekarri zebela.

- Esan egin behar da: Madinabeitia medikua zen.

- Bai. Medikua zan, mediko gogorra zan. Oñatiarra. Hamen haren entierua... pasau zan hamen trena beraren gorputzagaz eta hamen banda musikalak urtenda; jo zeben jo Chopin-en martxiori. Hori akordatzen jata [...]. Ha mediku haundi bat zan eta Meabe zan poeta bat, poeta bat, mistiko bat zan. Eta hárek bixak ekarri zeben beste modu bat sozialismuana. Eta haixe sartu zan Eibarren lehengo zaharretan: Toribio Etxebarria eta Baskaran eta Erkiaga eta Bueno eta hor mordo bat, ezta? Háleri irakutsi zetsen ze sozialismo izan bihar dan. Sozialismo intelektual bat, sozialismo poetiko bat.

3.16. "Casa del Pueblo"aren inaugurazioa

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/016
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:54:04. **Bukatu:** 00:57:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
 - Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena:** "Casa del Pueblo"a. Lehenengo Txirixo kalean egon zen; gero, Bidebarrietan. Galarragak esandakoa: "Bai mutillak, Casa del Pueblua egin bihar juau, baiña elixia baiño hobia, e? hobia!". Inaugurazioa 1916an: Prieto, Amuategi, etab. Hitzaldiak frantsesez, euskaraz eta gaztelaniaz egin ziren. Ospakizun handiak.

Transkripzioa

- Hor dago eta orain bai aipatu behar dugu "Casa del Pueblo".
- "Casa del Pueblua". Zeguazen lehelengotik hamentxe, Txirixo Kalian, gaur republikanuen sed... Bueno gaur dago han Dardai, "sociedad Dardai". Geruago republikanuak egon ziran. Baiña aurrez egon ziran han sozialistak. Baiña txikixa zan eta gehixago, haundixagua nahi zebe eta hartu zebe lehelengo piso bat Bidebarrixetan. Eta hantxe euki zebe soziedadia. Han ikusten zebe eurak indar gehixago zekela eta ha lekua baiño haundixagua egin bihar zala. Eta euki zittuen reunixo mordo bat eta batek, Galarragak, esan zebe: "Bai, mutillak, Casa del Pueblua egin bihar juagu, baiña elixia baiño hobia e! Hobia! Elixirik onena baiño hobia egin bihar juagu, jentia pozik juan deiñ". Bueno, egin zan "Casa del Pueblua"; bueno, parte bat egin zan bakarrik. Eske eze Casa del Puebluak zeukazen piso bi: ha behia eta piso bi. Baiña ikusgarrixa, e! Ederra. Ederra. Han juan bihar zan teatro bat eta reunixuetarako salak eta en fin. Baiña behia bakarrik geldittu zan. Eta kafe haundi bat geldittu zan alde batetik besteraiño. Kafe edar bat, haundixa: poste barik, e! Dana, oso-osua. Lau metroko altuerako zer bat: ederra geldittu zan. Baiña halantxik pentsau zan reunixo batzuek eginda - ez bat bakarrik-, reunixo mordo bat eginda, 1916xan egin zan hori. Bueno, inaugurau zan. Inaugurau zan denporan jentia pozik zeguan hamen. "Egin juagu behintzat lehelengua eta gero segiduko detsagu aurrera". Inauguraziñora etorri zan lehelengotik lehelengo harrixa ipiñi zebe gizonak. Eta egin zebe hitz orduan: León Jouhaux, hori zan "secretario de la UGT de Francia" —orduan bat zeguan bakarrik eta—, Franziako sindikatuko burua zan, harek frantses egin zebe hitz; bestia zan Indalecio Prieto, harek erderaz egin zebe; eta hirugarrena zan Amuategi eta harek, euskeraz. Hor gure internazionalismua, Eibarko gure euskeria, hor, bat eginda: frantses, erderaz eta euskeraz. Eta jentia [...] han bertan? Danok internazionalak eta egitten genduan bat zerian. Eta festejo haundixak egin ziran orduan, 1916xan. Baiña ez, diskutidu barik ez zan egin. Baiña gero dirurik gehixagorik ez zan agertu, gerria etorri zan eta harek pixkat modifikau zittuan pixkat Eibarko gauza mordo bat: lehelengo gerriak, 1914tik 1918ra artekuak.

3.17. Politika giroa gerra aurretik

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/017
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:57:08. **Bukatu:** 01:01:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** Sozialismoa eta eliza. Toribio Etxebarria. Gabriel Manterola. Alderdi politikoen arteko liskarrak. Orfeoia.

Transkripzioa

- Ari gara lehendabiziko momentuko sozialismoaz. Hemen bai tokatzen da esatea elizaren oso kontrakoa zela hura.

- Ez. Hori ez da egixa.

- Lehendabizikoa...

- Batzuek bazeguazena ez dot esaten. Baiña Toribio Etxebarria [...] ez zan halakua. Eta gero gero beraren idatzixetan erakutsi dau kristianismora inklinaziño haundixa zekala.

- Hori egia da. Zuek denok, irakurri asko irakurri duzuen Eibarko sozialistok, ebanjelioa eskuetan erabili duzue beti.

- Nik birritan edo hiru bidar irakurri dot nik ebanjelixua. Eta nere moduan beste batzuek be. Neri ebanjelixua saldu zezana beste bihargin bat zan. Harek emon zezan. "Hi, hauxe daukat eta nahi dok erostia?". Eta: "Bai". O sea ke hamen irakurtzen zan eta haren ebanjelixoko zitak eta askok esaten zittuen. Eta, desde luego, geuk danok, geure lehelengo edukaziñua zerian izan zan, relijiño kristianuan izan zan.

- Baina hemen Eibarren aurreko batean ere aipatu genuen badira beren semeak bataiatu ez zituztenak. Nolabait, errespetoa bai, baina "hi hor eta ni hemen".

- Bueno, bai ba. Batzuk bazeguazena. Ez dot nik esaten ez zeguazena.

Baiña danak ez, esaten dot. Nik neuk be beti errespetau izan dot siñismena. Eske eze ni zelan siñistaillia izan nintzan gaztetan, ze modutan ez dot ba pentsauko beste batzuek be neure sinzeridadiagaz dirala kristianuak edo katolikuak? Hamen batzuk bazeguazena [...]. Behiñ ikusi ninduen Gabrielelegaz, Manterolagaz. Hiru bat egunian etorri jatan nere billa hor zerian, Jadiñetan esaten zetsagun lekuan, bidian, Arraterako bidian, han goixan. Irakurtzen nenguan akordatzen jata liburu franses bat, filosofo bat, eta: "Zer irakurtzen hago?". Eta: "Hauxe". Eta: "Bueno, bai" [...]. Eta ekin gentsan. Eta hiru egunetan etorri zan. Eta egin genduazena goixak eta behiak astindu. Eta etorri jatan bat eta esan zezan: "Hi! Eske hi elixatarra haiz ala! Ez dakik horregaz ez danik hitzik egin bihar?". Esan netsan: "Hi, mutilla, heure modoko laguna juat nik hori be, e!".

- Bai, bai, bai.

- Eta zerian be, hamen orfeoian be, bat etorri jatan eta esan zezan:

"Karlistegaz eta karkegaz eta [...gaz] habill hor orfeoian?". "Hi, mutill, hor danerakuak gauaz. Asi ke ni najoiak hórrengana beste kafe batera juango nintzaken bezela. O sea ke hórrek pasau jataz eta badakit batzuek zeguazena itsuak eta fanatikuak. Baiña ze aldetan ez dago hori? Ze aldetan ez dago? Ez zan halako zera. Erdeldunak eta gehixago etorri dira hori amorrui zetsena elixiari, euren herrixetako persekuziñuegaittik eta barriketegaittik. Eske eze zuk jakingo dozu, asko irakurri dozu eta, zelan Espaiñian, denpora baten, herri txikixetan abadiak agintzen zeban: abadiak, jauntxuak eta sarjentuak guardia zibillena. Eta elixiari gorroto

haundixa zetsen. Baiña hori gorrotuori gehixago izan da anarkisten artian sozilsten artian baiño.

3.18. Sozialistak, beharginak eta ugazabak

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/018
- **Iraupena:** 0:10:18. **Hasi:** 01:01:06. **Bukatu:** 01:11:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Langileak eta nagusiak. Grebak. Eibarren langile asko, oso ondo prestatutakoak; asko irakurritakoak. Armeria Eskola. Meabe, Madinabeitia. Eibarren sozialismo moderatua. Amuategi, Mendiguren, Erkiaga, etab. sozialistak ziren eta, era berean, ugazabak. Eibarko sozialismoa vs. Bilboko sozialismoa. 1900-1914 bitartean greba asko.

Transkripzioa

- Eibar. Badakit Eibarren industria haundi-haundirik ez dela izan. Izan dira tailer txikiagoak eta, gainera, 25-30 langileko tailerra nahikoa tailer zen. Beraz, nagusiak ere ez ziren oso haundiak. Langileak ere nahiko ondo bizi ziren, batez ere Eskola Armeriatik pasatutakoak, horiek nahiko ondo. Zer moduz konpontzen ziren elkarren artean horiek? Esan nahi dut: "la lucha de clases" esaten duzue, klase borroka.

- [...] Batek kooperatiba bat formau zeban, Peli Larrañagak : Orbea, Bicletas Orbea. Orbea zertu zanian, kiebria egin zebanian, horrek hartu zeban eta euren artian kooperatibia egin zan. Eta gero hori kooperatibiori eruan dabe, oin Mallabixan dago hori kooperatibiori. Eta harek beraren interviu baten esan zeban: "Bai, kooperatibistak. Baiña hónek kooperatibistok jaukek beraren barruan lucha de clasesa eruateko barrura be, geure taillarrera be lucha de clasesa eruateko euren barruan". "Lucha de clases"a da gitxi daukanak asko nahixan; eta asko daukanak, ez emon nahixan. Hori da "lucha de clases"a. Klasia zelan izango da, ba? Gizonak gara barren! Ez garala diferentiak! Batak aberatsaguak eta bestiak pobriak. Pobriak eskatu egitten dau eta aberatsak ez dau nahi soltatzia beraren dirua.

- Baina, Candido, hori zuk esaten duzu pake-pake eta lasai-lasai eta ondo. Guapo-guapo gelditzen da. Baina duela 60 urte "lucha de clases" zen benetako borroka.

- Benetako burrukia egoten zan. Burrukan, ikubillegaz barik, ezta? Baiña lutzia zeguan, naturalmente, patronuak orduanguak ez ziran gaurko patronuen bezelakuak. Gaurko patronuak pixkat ikusi gehixago egitten dabe. Ez dot esaten ez dagozenik gaur be patrono batzuek holakuak. Eta aprobetxatzen dabela bihar eza, precisamente, euren fetxorixak egitteko gaur be. Eta orduan pentsatzen zeban patronuak bihargiña zala beraren esklabo baten modokua . Beraren bizimoduan sartzia eta, en fin, "hau ez ekiñ" eta "hau egik" eta "horra juan hari" eta "hona etorri hari" eta "botua neretako" eta, en fin. Zeguan... kizkurtuta zeguan bihargiña. Pixkat libertadia, pixkat askatasuna ikusten zebanian holako ideetan... Ba hor ideetara emon zan. Eta hórek ideok be danaren barruan ondo hartu

zittuan. Eta beraren ontasunagaittik gogor jartzen zan patronuen kontra. Patronuak, euren interesak zertzeko, eurak gogor egitten zeben eta bihargiñak gogor egitten zeban. Eta huelgak. Eta huelgetan agertzen ziran batzuek —"amarillos" esaten zetsegunak— huelgen kontra juaten ziranak. Eta háren kontrán juaten ziran huelgan zeguazen bihargiñak eta burruka batzuek egoten ziran taillar aurrian edo taillar barruan edo edozein lekutan egoten ziran burrukak. Baiña "lucha de clases" a, zer da "lucha de clases" a? Zure interesen kontra ni nabill, baiña zu nere interesen kontra zabiz. Han ez zeguan pistolarik eta... Eibarren sekula pistolarik ez da agertu kalian holako burruketan. "Lucha de clases" esaera bat da, ezkerak eta eskumak esaten dogun moduan esaera bat da "lucha de clases" a. Bai egon zan, baiña egon zan "lucha de intereses". Bihargiñak gehixago irabaztia nahi eta patronuak nahi ez emotia. Horixe zan kontra-kontriori.

- Orduan, Candido, horrek esan nahi du Eibarren nahiko gizalegezko jokatu zenuela, nahiko zibilizatuak zinetela. Beste leku askotan odoletaraino joan dira...

- Bai. Beste leku batzuetan huelgak... odoletara, bai, odoletara. Baiña horixe esango leuke... Generalmente juaten ziranian hónek manifestaziñuok eta fabriken aurrietara eta ikusten zittuenian atiak itxitta zeguazela, hárek zabaltzera juaten ziran eta orduan agertzen zan Guardia Zibilla edo soldauak. Eta tiroka. Eurak, patronuak eta zerak, bihargiñak... Barzelonan egon da hori lutziori. Barzelonan egon zan hori lutziori. CNTiak eta FAIxak patronuaren, katalan patronen kontra. Hildako mordua egon zan. Horixe zan errezo bat etorri zana bat Primo de Rivera diktadurara. Han, orduan, baiña han egon ziran hildakuak. Han lutzia bat egon zan. Eske eze patronuak benzitzia nahi zeben FAIxa eta CNTia. Eta CNTiak, patronuak porrot egittia. Eta alkar ekin zetsen hiltzen. Han bai benetako zera egon zan, lutzia bat egon zan.

- Gero, gainera, Eibarren bada beste gauza bat. Gauzak moderatu bezala egiten dituen edo baretu bezala egiten dituen. Langileen artean ondo prestatutako jende asko zegoela.

- Bai.

- Askok irakurtzen zuena. Beste herri askotan partiduen etxeak eta baziren Casa del Pueblo bezala Batzokia edo bazen baina Eibarren biblioteka zegoen etxe horietan. Eta gaur, esaterako, tabernak inportantzia gehiago dauka, bibliotekak baino. Baina zuen garaian, ez. Zuen garaian bibliotekak oso inportantzia handia zuen.

- Bai. Han Casa del Puebluan biblioteka edarra zeguan.

- Eta horregatik diot ondo prestatutako jendea zegoela.

- Osaba bat euki zeban Toribiok... Beraren etxian, ganbaran billau zittuan beraren liburu mordo bat. Han eta Casa del Puebloko bibliotekan irakurri egitten zittuan Toribio Etxebarriak .

- Eta gero, gainera, Eskola Armeriak jende asko formatu zuen. Esan nahi dut ondo hezitako jendea zela. Horrek nolabait gauzak baretu bezala egiten ditu: hitzera jotzen du gehiago, borrokara baino.

- Bai, bai, bai. Baiña gero beste gauza bat egon zan. Eta esan detsut bat: zelan Meabek eta Madinabeitiak emon zetsen beste itxura bat zerari. Baiña beste gauza bat dago: patronuak be baziran sozialistak.

- Hara!

- Eta kontzejal. Eibarren zeguazen Amuategi —beraren fabrikia ipiñi zeban —, Mendiguren —Mendiguren y Zarraua beraren fabrikia zan—, Erkiaga —hamen fabrikia zeguan—: hiruk, bastante haundik, beren fabrikia zeuken. Eta beste mordo bat, artesano moduan, euren langille onak, asko irabazten zebenak, ziran sozialistak. O sea ke, ez ziran minero batzuek edo "aparceros" batzuek —hónek, mendiko lanak egitten dittuenok—, ez ziran hórek. Hamen pixkat, zuk esan dozun bezala, irakurritakua eta

instrukziño gehixagokua eta beste edukaziño bat hartutako jentia zan Eibarren.

- Eta horrek esan nahi du idealismo gehiago zeukala.

- Bai. O sea ke, ondo bizi ziranak. Hamengo bihargiña, Eibarko bihargiña, bastante altura haundixaguan zeguan ekonomikamente beste herri guztietan baiño. Hamen jornalak haundixak ziran. Hamen jornalak haundixak ziran beste herrixegaz konparauta. Eta ez bakarrik hori. Artesano asko eta asko zeguan; sobre todo eskopetagintzan gehixago ziran artesianak fabrikak baiño: Sarasketa anaiak eta baiño, edo AYA baiño gehixago ziran artesianak.

- Bai, bai, bai.

- Eta hórrek artesianuok zeuken lehen esan doten moduan bizimodu bat bastante aparte herri guztiagaz be. Danak ziran pixkat intelektualak, e! Danak ziran irakurritakuak eta, en fin, pixkat burua argixa zeukenak.

- Ideal humanista zeukan jendea.

- Hamen idea humanista bat sartu zan Eibarren. Eta horrexegaittik gu asko desberdiñaguak gara Bilboko sozialismuagaz. Bilboko sozialismuan...

- Baina fabrika handia dago Bilbon.

- ... fabrika haundixak eta lanak be gogorraguak eta gitxiago irabazi. Gero Altos Hornos-etan eta bai, asko irabazten zeuben. Baiña hárek aurretik, gitxi irabazten zeubenak eta, en fin, han gehixago egon zan hori "lucha de clases"ori, esan dozunori. Eibarren "lucha de clases"a... bai: egon ziran huelgak; hamen egon ziran huelgak lehelengotik. Aurrera eta Estrella fundiziñuak, Sarasketa eskopeta egintzaillia, GACia, Miravella —"fábrica de limas"—... Mordo bat, huelga mordo bat egon ziran hor, 1900etik 1914ra bittartian, huelga mordo bat egon ziran Eibarren. Eta danak irabazi zeuben. Eta horregaittik zeguazen patronuak Eibarren kontra. Eta hori "Eibartxarori" beste batzuek izan ziran —patronuak— zabaldu zebena. Eta hori Castell-ek beraren liburu baten esaten dau: zelan patronuak erabili zeuben hori "como arma de lucha contra Eibar": Eibar gaiztua zala, Eibarko jentia.

- Eta ez zen hain gaiztoa...

3.19. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-088/020
- **Iraupena**: 0:06:17. **Hasi**: 01:19:29. **Bukatu**: 01:25:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
 - Politika » Hauteskundeak
- **Laburpena**: Hauteskundeak. 1931ko apirilaren 12an bertan, gaueko 10:00etatik, gazteentzat errepublika aldarrikatuta zegoen. Astelena frontoian, dantzaldia "Romeral" bandarekin. Aldarrikapenaren inguruan interpretazio desberdina. Alejandro Telleria zen alkate. Timoteo Zubiateren jarrera. Arratsaldera arte estu eta larri ibili ziren. Egiaztapena iritsi zenean, manifestazio handia.

Transkripzioa

- Egin zanian botaziñua, 1931an, hillaren 12xan egin zan, ba Espaiñiak, herri haundixak, kapital haundixak, botau zeuben replublikanua. Herri

txikixak eta zerok, ez. Eta botaziñuan ez zan izan maioritarixua republikanua, ez. Mobimiento maioritarixua zan monarkikua, gitxigaittik e! Zientu bat millagaittik edo izan zan diferentzia. Baiña ez giñazen izan maiorixia. Hor etorri zan berba bat Azañak esan zebana: “Los votos de los Burgos podridos”; hor herri txikixogaittik, eske ez hor jauntxuak agintzen zeben eta han ez zan etorri Republikarik, baiña beste herri guztietan danian. Kapitaletan, uste dot, Vallalodid izan zala uste dot, ez zebana republikano bota, baiña beste guztiak bota zeben behintzat, edo gehixenak. Eta Eibarren abillian, bertan egunian, 12xan, hamarrak ingurutik geuretako gartziondako Republikia eginda zeguan. Casa del Pueblotik gazte mordo batek urten genduan, juan giñazen Fronton Astelenara baile bat zeguan han eta geldittu genduan. Eta han banda txiki bat zeguan, Romerala, eta hari esan zetsagun: “Bueno, oiñ Republikanuen zera jo” . Han kantau genduzen Internacionala, Primero de Mayua, Marsellesia eta, en fin, holako kantu mordo bat egin genduzen eta “Viva la República”-k eta esan genduzen eta laga egin genduan hori bailiori aurrera segitzen. Baiña orduan gu, gaztiok , hartuta zekagun ustia Republikan sartuta geuzela.

- Bai, bai, bai, oraindik emaitza jakin gabe.

- Astelehenian ezer be ez zan pasau hemen. Eta bildurretan danok: “Ene, Republikia etara juagu eta ez jagok Republikarik”. Bueno. Orduan egon zan errekau bat, Donostiatik Bilbora juaten zan arraintzaille bat —bueno transportista bat, arraiña eruaten zebana—, errekaua emon zetsen hari. Horri errekauori zelan izan zan ez dakigu eta interpretaziño bi dagoz. Bat: Manolo Andres —gero gobernadore izan zana eta hil zebena faxistak— eta beste Doctor Vago —ez jata... Doctor Vago— , hárek asmau ete zeben zeozer makiaveliko bat, Eibar bota aurretik eta gero Republikia, aber zer pasatzen dan. Eta bestetik, eta hau Toribio Etxebarriak idatzitta dauka eta nere hizketan be esanda dauka: hartu zebanak errekau hori pixkat burua juan jakola, ez zebala ondo hartuko errekaua Republikia proklamatzeko esaterik; zeozer preparatzeko bai, baiña proklamatzekorik ez zebala pentsatzen berak. Ba hori errekauori etorri zanian, Toyos izan bihar zan hartu zebana. Indalecio Prietok beraren idatzi batzuetan pentsatzen dot [esaten dabela] haixe, Toyos, izango dala errekauori hartu zebana. Bueno, edozein modutan be ha juan zan republikanuen billa eta juntau egin ziran, Aiuntamientora. Eta deittu zetsen kontzejal guztieri, republikano eta sozialisteri: hamasei ziran. O sea ke, hamazazpi ziran konzejalak eta hamasei, republikanuak eta sozialistak, erdibittuta. Bueno, hamazazpigarrena Juan Errastittarra zan, nazionalistia izan zan hamazazpigarrena. Bueno. Hórrek juntau ziran aiuntamientuan eta han egin zeben euren hizketaldi bat eta pentsau zeben Republika... “Esan deste neri harek esango zeban Republikia proklamatzeko hemen”. Eta esan zeben... Bueno, lehelengotik egin zan Aiuntamientua, nombrau zeben alkatia, Alejandro Telleria, banderiori ipiñi zeben goixeko zazpirak edo seirak inguruan, seiretatik zazpiretara bittartian. Eta gobernadoriagaz be hitz batzuek egin zittuen. Gobernadoriak, amenazatzen: “Ez egitteko halakorik, kastigo galanta etorriko dala Eibarrera” eta zerian. Eta hau garbi esanda dauka Timoteo Zubiatek, orduandik ondiñok alkate zanak, bertan zeguan eta. Beragaz eukin neban hizketaldi bat honen asuntuaren gaiñian eta esan zestan halantxik eta halantxik, gobernadoriak ze amenaza eukin zittuan. Eta zelan esan zetsazen bai berak eta bai bestiak Eibarren ez dala ezer be pasauko, dana ondo doiala, hamen ez dagola alteraziñorik. Baiña jakin genduan guardia zibil batzuek kanpotik etorri zirala. Baiña indarrik, ostian, ejerzitorik, holakorik ez zan etorri. Seiretan... seiretatik zazpiretara proklamau zan Republikiori, orduak pasau, orduak etorri, telefonua alde batetik, telefonua bestetik, alde batera deittu, bestera deittu, danian “ez”,

“ez”, “ez”. Dana ezetza zan.

- Eibar bakarrik zegoen.

- Eibar bakarrik! Baiña hamen punto bat esango dot. Egon zan herri txiki bat —ez dakit Ciudad Realekua— , han zeguan generala Segundo Garcia eta hárek be orduantxe egunian proklamau zeban Republikia eta harek be Ciudad Privilegiada moduan dauka titulua. Bueno. Ba orduak pasau eta arrasaldia be agertu zan eta “danian ezetza dago” eta ez bakarrik aiuntamentoko jentia, kalia geuzenak be hamentxe geunkazen” (hau esatean, atzamarrak eztarrian jarri ditu Candidok).

- Estu eta larri.

- Bildurtuta. “Zer egin bihar dok hamen?”. Eta badakitt esandakua: konzejalak ze modutan pentsatzen zeguazen iges egittia be estranjerora. Baiña aillegau ziran lauretatik bostak bittartian, Madridek proklamau zebala Republikia, Barzelonak proklamau zebala Republikia... eta “Eibarrek proklamau dau Republikia!” Kalera! Manifestaziño galanta egin genduan, gero afari batzuek egon ziran eta gau guztia dantzan pasau genduan eta egun alegre bat izan da, egun eder bat; udabarriko egun bat, eguzkitsua, ederra, geure bihotzian zeukagun moduan kanpoko eguzkixa... Halantxik pasau zan hori egunori, bildur baten, baiña gero poz baten.

3.20. 1934ko iraultza eta kartzela

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-089/004
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:11:18. **Bukatu**: 00:15:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
 - Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena**: 1934an 25 urteko kartzela zigorra ezarri zioten. 1936an "Frente Popular"ak irabazi zuen. "Unión Hermanos Proletarios" (UHP). Eibarren 5-6 hildako egon ziren 1934an. Candidoren ustean denak batera joan behar ziren eskubikoen aurka (sozialistak, UHP, etab.).

Transkripzioa

- Bai, eta gero, 36an dator "Frente Popular"a...

- 36xan ba, hori! Pentsaizu! Juan giñazen eta —ni kartzelan nenguan orduan —...

- Kartzelan al zeunden?

- Bai, 34an hamalau-hamabost bat hillabete egin nittuan. "¡Veinticinco años de prisión!"

- Bai. Hor nik banekien —zurea ez nekien— Toribio egon zela.

- Bai, Toribio egon zan. Hogei urte bota zetsezen Toribiori. Neri baiño bost gitxiago hari. Bueno! Ba, hori 36ori , naturalmente Besteirok ikusi zeban! Ba, orduan, e, gelditxu ziran "derecha"-ko jentia. Aurretik be bazeguan, e! Republikia montau zanerako, agertu zanako, hurrengo egunian Goikoetxea eta, zerian zeguazen, Italian zeguazen faxistegaz hizketan! Hamen eurak zeozer egitteko! Republikia igo zaben momentutik jua ziran hárek Italiara. Aurretik zebizen kontra! Batzuek, danak ez. Baiña, mobimentuak, Asturiasekua zelan jua zan zer bategaz: "Hermanos Proletarios" —HP,

"Hermanos Proletarios"— ba pentsau zebeñ, patronuak, dirudunak, elixiak, en fin, militarrek eta danak ikusi zebeñ, ba, zer batera goiazela; Reboluziño estilo bat, Rusiakora goiazela! Eta bildurtu egin ziran eta unidu ziran, eta egin zittuen euren arregluok; danen artian, "derechen" artian, egin zebeñ, ba, eurek emon bihar zebela golpe bat! Eta hori jakin zebeñ Prietok! Eta baten baiño gehixagotan aittatu zebeñ: "Gaizki dagok España eta espuesto gauaz golpe militar bat egun batetik bestera etortzekua." Eta esaten gentsagun kobarde bat zala: "¡Eres un cobarde... y tal y cual!" Bueno, geure gaztetasunian! Baiña, halantxek agertu zan! Eta ikusi zebeñian guk galdu genduala Reboluziñoa oktubrekoa —Eibarren bost-sei bat hildako egon ziran, e! Eta Mondragon beste pare bat hiru bat! Eta Asturiasen ez detsut esaten zenbat!— ba, bestekaldia, "derechia" sustatzia gauza normala zan. Hárek preparau zebeñ euren mobimentua. Eta esan detsuten moduan, Prietok eta, mordua bazekixen ze modutan zebizen militarrek eta, "derecha"ko jentia preparatzen golpe bat. Eta harek abixatu jeskun sarrittan! Baiña geuk ez genduan siñisten, ez genduan nahi siñisterik. Geuk pentsautakua zan, Rusia batera juañ bihar giñazela, Reboluziño bat egin bihar zala. Ni neu, partikularmente, ez nintzan halakua; ez neban pentsatzen halan. Eta hille pare bategaittik, hirugaittik, [Dimetrovi...] neuk abanzau netsan. Lehenagotik esan neban nik, harek baiño, zera: "Frente Popular" a. Orduan, egon nintzan, hille baten edo, ezkutauta etxian, eta irakurri nittuan Marx-en liburu batzuk eta zerian... sobre todo beraren bizimodua. Eta handik etara neban konklusioa ez giñazela de repente, hola, baten galduta lutzua bat, ez giñazela atzera juañ bihar billa gure kontrarixuak. Pixkat preparau egin bihar giñala. Eta ekin netsan esaten, prezisamente: "Ez: 'Bihargiñak bakarrik!', 'UHP bakarrik!', 'Bestiekiñ iñor be ez!', 'Geu bakarrik juntu, geuk benzidu bihar jittuagu horrek!'" Horixe zan, bai Largo Caballerok eta bai Peñak eta, esaten ebena. Eta nik ekin netsan esaten danegaz juntu bihar giñazela, "pequeña burguesia" gaz be bai eta "campesiniagaz" be bai, eta, en fin, danok juntu bihar giñazela! Eta bazeguan han karzelan bat esaten zezana: "Tú eres un topo, tú eres un topo". Bai, bai. "¡Si yo pienso así, de esta forma!", esaten netsan. Eta agertu zanian Dimitrov-en manifiestuori eta esan zanian "Frente Popular" a egin bihar zala, etorri jatan eta esan zezan: "¡Te has salido con la tuya! Euriagaz urten dok! " "Ez mutil, ni neuriagaz ez! Zelan jakixek ba nik zer pentsatzen doten ! Hik eta nik, bai, bajakixagu baiña beste mordo batek ez jakixek nik zer esaten doten!" Eta, holantxek izan zan. "Frente Popular" a etorri zan, bildurtu ziran "derecha" k, eta euren golpia emon zebeñ. Harrapau ginduezen, ba, koittadu-koittadu, ezer be barik besuetan.

3.21. 1934ko urriko iraultza; 1936ko Gerra Zibila

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-089/005
- **Iraupena**: 0:14:05. **Hasi**: 00:15:48. **Bukatu**: 00:29:53
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublikak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: 1934ko urriko iraultza. 1934an Candido bere pistolatxoarekin Untzagara irten zen, "reboluziñoa eittera". Eskubikoek gorrotoa erakutsi zuten, gerra nahi izateraino. Gerra tragedia handia izan zen. Amuategi batailoian, komisario politiko bezala

egon zen Candido. EAJren jarrera. Jose Antonio Agirre. Batailoietan diziplinarik ez. Eibar jausi arte Toribio Etxebarria eta bera Udaletxean egon ziren. Karlistak eta anarkistak, politikako poetak.

Transkripzioa

- Candido, kartzelan, hamasei hilabete esan duzu...
- Hamabost bat hillebete.
- Hamabost bat egin zenituen. Zergatik?
- Ba, urten nebalako kalera neure pistolatxuagaz eta reboluziñua egittera! Neure reboluziñua egittera urten neban! Haixe be... gaur ikuste dot nere burua, han, Untzaga plazan, harutz eta honutz nere pistolatxuagaz zelan... bueno, bueno! Nere buruari galdetu bihar detsat: zelan euki najuan nik hori buruan, orduan? Halantxe giñazen orduango gaztiak!
- Bai. Zuk, edozein modutan, esplikatzen duzu nola iritsi zen gorroto hori gerra izateraino?
- Gerra izateraiño? Ba horretxegaittik! Bildurra hartu zebe eta hor bildurrian euren pribilejixuak eta euren diruak eta euren fabrikak eta galtzeko, aurretik, ba, kontra urten zebe! Gure kontra! Eta guk zekagun buruan sartuta, ez bertan e... por ejemplo, Eibarko esplotaziñua bihargiñena! Geunkazen buruan, ze modutan zebizen Andaluziako jentia eta, Kastillako jentia eta... gosiak eta zerian, nezesidade baten zeguazela hori jentiori! Eta nahi genduan itxultzia Gobierno Burguesa eta Gobierno Reboluzionarixo bat ipini...
- Casas Viejas ere han zegoen!
- ... gaztien artian. Eta hórrek hitzok eta hórrek "hechuok" ekarri zebe horixe gogortasunori eta lutziori.
- Eta zuk esaten duzun bezala, bilutsik harrapatu zintuzteten!
- Bai, Bai! Bildutsik hartu ginduzen, ezer be ez zekagun. Ez zekagun preparauta ezer be.
- Eta zu, gerrara! Pistola txikia hartu eta... edo handiago batekin? Gerrara!
- Bai, juan giñazen.
- Hori ez zan broma, e!
- Haiñ ez zan bromia eze, gaur ikusitxa, euskeraz ez, erderaz: "tragedia" ikusten dot nik, izan zala ha. Esku hutsian! Pistola txiki batzuek repartidu ziran moduan. Eibarren! Armerixa guztiak eta "Banco de Pruebas" a eta danak hustu ziran, baiña pistola batzuk, bala rekargaezag! —O sea ke bala rekargauak, hamendixik horraixe be ez dau botatzen! Bertan gelditzen da balia indarririk barik eta direkziño barik, ondo kargau bariko balia!— Eta holakotxe zer batzuegaz urten genduan. Eskuan, hiru edo lau fusil! Zer, ba, Mikeletienak! Eta guardia zibil batzuek, grazia guardia zibillak. Donostia guardia zibillegaittik hartu zan, e! Guardia zibil gaztiak, orduantxe Republikan urtendakuak, háretxek hartu zebe zera: Donostiako zer hori, bai Hotel Maria Cristina eta bai Udala, Udaletxia.
- Hor, segituan antolatzen dira unitateak...
- Zertzuk?
- Unitateak, taldeak sortzen dira: batailoiak eta, sortzen dira.
- Bai, bai.
- Zu... Amuategixa da zurea.
- Bai.
- Eta, "Comisario Político".
- Bai. Gero, baiña. Gerotxuago. Ni "Comisario Político" zerian nonbrau ninduen, Santanderren nonbrau ninduen. O sea ke, bukaeran, ezta? Orduan, atzenengo papelak neuk hasi nittuan. Ba... hortarako, batailloiena eta, lehelengotik egon giñazen egun batzuetan, ezkerak bakarrik orduan ez zeguan partido... PNVia ez zan lehelengo egunetik egon guregaz, e!

Pixkat alboratuta egon zan [...], badakigu egon zirana diskreziñuak, Jose Antonio Agirrek eta gazterixiak geuregaz urtetzeko, zera... horren, "movimiento nacionalista"ren kontra, Francoren kontra. Baiña beste burukide batzuek zeguaz ez zebeak nahi ezer be: "Hori Españaiko problemia dok eta eurak arreglau deixazela!". Hori... hizketok egon ziran, hórrek konparaziñuok egon ziran "Partido Nacionalista"n. Baiña Bilbon gazterixiak kalera urten zeban. Eusko... hónek, "Acción Vasca"kuak urten zeben eta háregaz mendigoizaliak, eta PNVko jente gaztiak! Eta, sobre todo, Jose Antonio de Agirre. Haretzek, bultzakadia emon zeban geuregaz juntatzeko, eta hori izan zan, bastante egun batzuek geruago izan zan, hárek etorri zirana. Eta hartu genduan Donostia, baiña ikusi genduan segiduan ez zeguala Vitorixa [...], eta hara Vitorixara jua bihar giñazela. Han egon giñazen, ba, esan doten moduan, pistoliagaz eta ahal zan danagaz, eta bittartian jaiki jakuzen Donostiako militarrek. Eta buelta zeretik! Eta agertu giñazen baten eta bestian, ez genkala disziplina bat, ez genkazela ... unidade militarrek ez genkazela , geuk geure aldetik: "Hi, kapitana! Hi, tenientia! Hi, sargentua!". Holantzek, geure artian ipiñittako... urten genduan burrukara! Eta ikusi zan... naturalmente, segiduan ikusi zeben beste gauza bat egin bihar zala. Eta han, pake hutsuna bat egon zanian —hor, Aiako...hor, zeran, Oiartzunen eta Renterixan eta...— .

- Aiako harri hortan, bai.

- Bai; hor jardun zebenian burrukan, ba, pixkat, geldiuna bat egon zan eta orduantxe Bilbon ekin zetsen batailloiak formatzen. Eta holantxe, batzuek ziran sozialista gaztiak —"Juventudes Socialistas"—, beste batzuek UGT, beste batzuek CNT, beste batzuek FAI, beste batzuek "Acción Republicana", eta gero, PNVia eta "Acción Vasca". Hórrek be, formau zittuen euren batailloiak.

- Hor, batailoietan —nik entzundakoa esango dizut— zuen zera... ez zeukan fama ona, e? UGTko batailloiak ez omen zeukan oso fama on-ona ere. Ez omen zan batailloi oso fuertea, esaten dute.

- Bai, onak egon ziran eta onenetakuak gipuzkuatarrak izan ziran, ez UGTkuak! Renterixako eta hor inguruko jentia! Donostiakuak ! Batailloi onak egon ziran! Onenetakuak izan ziran! Eta UGTia, ba, disziplina gehixagoko jentia izan zan. Baiña, beste batzuek be bai, PNVian be egon ziran... Asturiasen erakutsi zan ze modutako gizontasunak han... Kapitan famoso bat be izan zan be, hil zana, zerian, PNVian! Han zer haundixa egin zeben, inpresiño haundixa egin zeben Asturiasen "Batallón Vascuak" be!

- Edozein modutan, zuk gerra Eibarren hasiko zenuen!

- Bai, Eibarren eta... Eibarren, ba, Eibar jausi arte! Baiña gerran neu ez nintzan sartu, eske eze, deittu zeben: soldautzia serbidu zebenak. Eta nik, zelan ez neban soldautzia serbidu, ba ofizinetan, aiuntamentuan geldittu nintzan. Baiña illuntzi baten, bueno, goizalderutz —Toribio Etxebarria eta neu genguaz bakarrrik aiuntamentuan, udaletxian— eta dei bat egon zan telefonotik. Eta esan netsan: "Zer, Toribio, zer dago?", "Hamen Plazenziakuak! Bateronbat bialtzeko hara, fabrikia ipini bihar dala martxan edo zezer. Hamen ez dago iñor eta zer egingo juat?", "Emoidazu neri permisua eta neu juango naiz". Egin zestan papel bat eta Plaentxiako fabrikia neuk ipiñi neban martxan. Deittu netsen bihargiñeri, jua nintzan "Frente Popular"era, hartu neban plazenziatar bat, eta geure pistolak albuana-albuana, jua giñazen Plaentxiako fabrikara eta: "Hau zabaldu egin bihar dok!", "Zelan zabaldu?", "Zabaldu egin bihar dok hau, ale!. Hamen lanian ekin bihar jakok". Sartu ziran bihargiñok, langillioek sartu ziran Plazenzian eta direktoria falta! Eta han etorri zan telegrama bat, esaten eze, ezin leikiala etorri; ez zetsela lagatzen permisori ez zekalako. Eta idatzi netsan neuk telegrama bat: "Etorri zaittez eta hauxe telegramiau da zure pasaportia". Halantxik etorri zan! Eta fabrikan egon nintzan

lehelengotik egun batzuetan, han esaten jentiari! Deittu neban Eibarrera, bialtzeko langilliak, han, zerak, auto blindauak egin bihar genduazela. Eta hango txapa batzuegaz egin genduazen auto blindauak eta nik neuk urten neban "al frente de los cañones antiaereos".

- Jesus!

- Toribio Etxebarriak, beraren liburu baten esaten dau: "Las armas psicológicas". Hori ziran zerak, kañoi antiaereuak. Bi atara nittuan, grupo bi formau ziran eta háretxegaz ibili nintzan, hor, Lasarte eta Donostia eta Tolosa eta inguruetan! Tiro batzuek botatzen genduzen —ez zan kañoi haundixa baiña, en fín— [...] egitten genduan, gero zarata apur bat, eta haregaz ibilli nintzan lehenengotik. Eta galdu genduanian Donostia, Eibarren. Eta nik jakin neban, ha kañoiak gutxi balio zebala antiaereuendako ez zeguan preparauta ondo, ez zeukan, ez polborarik eta ez... ez zeguan amaittuta bihar zan moduan . Eta orduan ba... "Zeozer nahi neukek, ba, egittia nik", eta "Bai? Bueno!", eta hemen, sekretarixo juzgaukua ipini ninduen. Eta hamentxe, ba, hildakuak erregistratzen eta, han ibilli nintzan kaposantuan harik eta Eibar galdu arte. Eta gero, handik orduan bai orduantxe sartu nintzan batailloian, eta orduan batailloian jua nintzan harik eta Santanderren nombrau ninduen arte komisarixo.

- Komisario.

- "Comisario Político".

- Gauza bat esango dizut, Nere aurreiritzia izango da, nere pentsamendua izango da, baina nik batere sinpatiarik ez diet komisario politikoei. Fama txarra. Nik irakurri ditudan liburuetan, fama txarra. Nik ez dakit zer ziran, edo ideologia zaintzen zutenak edo eta soldaduek ihes egin ez zezaten eta, pistoloi handi batekin han atzean egoten zana...?

- Bai, bai, bai, bai. Komisarixo barik, hori egin zeskuen Asturiasen. Behin atzeruzka etorri nintzan bueno, beste erreka batzuetara eta ikusi neban mendi txiki baten, tontor txiki baten, ametralladora bat eta jua nintzan eta: "¿Quiénes sois?", eta asturianuak zirala, eta: "¿Qué haceis con esto?", "Para que no se escapen". Ez ziran hárek komisarixuak! Asturiasko jentia bialdu zittuan hárek, gure atzian ipintzeko, guk ez deigun igesik egin. Komisarixo politikuaren zera hori zan... Rusian urten zeban.

- Bai, horregatik.

- Rusian urten zeban, ba... han ez zeguan preparaziño politikorik, e! Hárek, irakurtzen be ez zekixan jentia, gehixena, maiorixia; eta háreri erakuste zegaittik gerria zan. Eta gero, egitten zeban hori papelori: "el duro", ezta? Harek geldittu bihar zittuan, hónek bildutixak, igesi zoiazanak eta, zerian. Eta, ez da ba hori fazilla gelditzia. Hori badakit, personalmente dakitt ez dala, hola, jentia igesi doianian gelditzia! Eske eze, Asturiasen pasau jatan, mendi baten: igesi, nere jentia! Eta igo neban eta pistola atara neban: "Aurrera! Hemen ez dok hankarik egin bihar!", eta bata eta bestia, baiña ni pasau ninduen eta ez nintzan atrebidu tirorik botatzerik eta halkorik! Pentsaurik be ez! Eta gabian deittu zesten eta: "Hi! Mutil on bat haizelako hago bizirik, e! Bestela garbittuta heguan. Guk ez jaukaguk pistola biharrik! Guk honetxek jaroiguz!" Bonbak, eskuko bonbak "Guk honetxek jaroiguz. Eta gaur ez hago zeruan, ontzat hartu haugulako , bestela, zeruan heguan oingo!" Así ke badakit nik, zein modutan jentia ezin leikian geldittu behin igesi doianian. Eta komisarixo politikuak ziran, gogorrenak pentsatzen ziranak zirala...

- Ideologiaren aldetik.

- Bai, ideologiaren... Fanatikuak ziranak eta hiltzian aurretik haixe egin bihar zebenak, háretxek ziran. Eta naturalmente han mordua hilgo zittuen eta euren ordenak horretan, gogorrak izango ziran. Baiña, zeínek ez dau egin... ejerzitetan, zeínek ez dau egiñ hori! Jaso deixela eskua! Ejerzitua lutxa baten dagonian zeínek ez dittu hil jente mordo bat, etxietan

zeguazena, soldau bat hil dala han edo bestia, eta, "como represalia".

Zeiñ ejerzitok esango dau ez dabela egiñ hori?

- Bai, bai, bai.

- Eta komisarixuak fama zatarrak zeken. Gaur goixian por ejemplo: famia da, sarrixan, gehixenian, zeuek, medixuok informatibuok —periodikuetan eta— esaten dozue: "Hárek gaiztuak dittuk eta..." Lehen esan dozun moduan, elixatarrak zelan esaten zebeu liberalagaittik, e...

- Pekatua da!

- Bai, ba holan agertzen da. Eta gaur goizian batek esan desta: "Hi, anarkistak gizon txarrak zittuan?" Eta esan detsat: "Anarkista mordo bategaz izan nok laguna. Neretako, politikan, háretxek eta karlistak dittuk poetak. Politikako poetak, karlistak eta anarkistak dittuk... Gizon onak ikusi ditturaz nik, on! Tiro bat emon bihar jakola patrono bati? Edo, obispo bati? Edo zerian? Ba han izango ziran anarkistak. Edo asalto bat egin bihar zala banko bati? Han izango ziran anarkistak. Baiña egitten zebeu, on biharrez! Eurak pentsauta on egitten zala han bihariñendako! Ez; eurak gaiztuak ziralako ez. Ez, ez, ez. Idealistak. Nik ezagutu dittuten danak eta mordia ezagutu izan dittut idealistak".

3.22. 1936ko Gerra Zibila eta kartzela; epaiketa

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-089/006
- **Iraupena**: 0:10:32. **Hasi**: 00:29:53. **Bukatu**: 00:40:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Asturiasko herri txiki batean harrapatu zuten urrian, eta abenduan heriotza zigorrera kondenatu zuten. Handik Donostiara bidali zuten. 34 hilabete egin zituen Santanderren, 4 urte eta erdi Donostian eta 6 hilabete Eibarren lanean. Epaietak zelakoak izan ziren. Kartzelatik irtendakoan, Ormaiztegira joan zen lehenengo, gero Bartzelonara. Anekdotak polita kontatzen du: afari bat egiteko zortzi lagun elkartu zirenekoa (karlista bat, sozialistak, errepublikanoak, komunistak...).

Transkripzioa

- Candido, zu ere nahiko idealista joan zinen baina, gerra bukatu, eta non harrapatu zintuzten zu?

- Ba, ni, hamentxe: Asturiasen. Bueno, hobeto esanda, Asturiasen eta Santanderko herri txiki baten: Corios o Lorios. Holakotxia zan izena, herri txiki bat mendixan. Guk Asturiastik —Oviedon neguan ni, zerian, orduan momentuan. Nere batalloiaz, han; Aranda eta, han onduan— ... ba, han harrapau genduzan eta igesik urten genduan, aber mendiz mendi aillegatzen garazen Franzia. Santanderren geldittu giñazen, [...]
Santanderren sartu ginduaz. Gero, kondenau ninduen han, Santanderren. Oktubrian... kondena, ez. Harrapau, oktubrian eta kondenau, dizienbrian. Santanderren kondenau ninduen, "a la pena de muerte".

- Non, ze lekutan?

- Bertan, kapitalian.

- Kapitalean bertan.

- Eta 34 hillebete, "pena de muertia" gaz egon nintzan.

- Hori bai, hori bai. Heriotz zigorra, hiltzeko zigorra; orduan, hiltzera kondenatu, jendetza izugarria kondenatu zuten.

- Pentsau egizu, ba! Esango detsut; ipuin batzuek esan leikez hor! Lehenengotik han kondenau ninduen, eta gero bialdu ninduen Donostiara. Hamen beste prozesu bat neukalako eta, en fin, hona bialdu ninduen. Eta nik pentsatzen neban afusillatzera bialdu ninduela! Eske eze, orduan, Santanderren eta, afusilamento asko zeguan baiña Gipuzkuan, afusilamentuak eta, bajatuta zeguazen. Gero neuk ikusi nittuan, neure lagun batzuk hil zittuen afusilauta Donostian, baiña orduan ez zeguan. Eta pentsatzen genduan danok, ba, ni ekarri ninduela "como fusilable".

- Bai, bai, bai, bai.

- Horretxegaz buruan etorri nintzan: hamen afusilatzera etorri giñazela. Baiña 34 hillebete egin nittuan...

- Ondarretan.

- Hamentxe. Ondarretan. Urtebete Santanderren; eta beste lau urte eta erdi Donostian. Eta sei hillebete Eibarren, errekan, "pico y pala"n lanian.

- Hori beste kontu bat zen. Baina nik ulertzen ez dudana, eta sarri askori entzun diot, epaiketak nola izaten ziren, juizioak nola izaten ziren.

- Esango detsut, bueno. Bat: Santanderren egon giñazen, 32 bat. Danak leku diferentetakuak, eta prozesu baten.

- Denak batera?

- Danak batera. Bat agertu zan, eta esaten zetsen oradoria zala, ezkerrekua, propaganda haundixa egitten zebala... Eta nik pentsatzen neban, ba, en fin, gizon zeren bat izango zala... Eta gertatzen da, ha oradoria tartamutua zala!

- Totel egiten zuela!

- Eta oradoria zala hori! Bueno, hori harena. Neria: Hori jakin izan baneu, ekarriko netsuan nere kondenia, "La pena de muertia" emon zesten. Ba, ez nintzan komunista ondio; ez neguan... bueno, bai. Orduan bai, sartuta neguan, gerran sartu nintzan, Asturiasen sartu nintzan "Partido Comunista"n. Baiña gerra denporan ez nintzan komunista; esan doten moduan, "marxista extremista". Baiña, ez nintzan. "Comunista"n ez neguan sartuta ondiok, Asturiasen sartu nintzan. Ba, nintzala, "un hombre peligroso, amigo del Comisario Político". Eske eze, nik nire defenza egin neban, ez nintzala neu komisarixua, komisarixo txikixa esaten zestela, "el pequeño comisario" esaten zestela batailloian. Eske eze nik mendiko barri eta zelan nekixan, komisarixuak beragaz eruaten ninduala eta horregeittik jentia ipini zestala hori. Eta batzuk hartuko zeben ni komisarixo nintzan moduan. Eta horixe da dagona zerian, papelian: "Amigo del Comisario" O sea ke: "Hombre peligroso de sus ideas, amigo del Comisario. Pena de muerte."

- Bai, bai, bai, bai. Abokaturik eta, bat ere ez.

- Ha defensoriak egin zestan zera, hitzak. Erderaz esan biharko dittut: "El procesado, mi defendido Cándido Eguren, es un muchacho romántico, que se ha dado a sus ideas con puro romanticismo. Al cual no se le puede acusar de persecución ni de sacrilegios contra la Iglesia, ni de persecuciones a ninguna parte, ni de robos. Y por lo tanto, pido la pena inmediata inferior: treinta años". Defensoriak.

- Bai, bai, bai.

- Bakarra, defendidu ninduala, e! Beste iñok ez zeban euki defensorerik; hitz bat egingo zeban iñoren fabore. Danak: "Ene! Zer dakak hik, gero? Zein sartu dok hor barruan hire alde zertzera?". Defensoriak egin zetsena:

ezer gaittik ez ninduen akusatzen, ze [...] ona nintzan, defensoriorrek, eta hala eta guztiz be, "pena de muerte" emon zesten. Halantxe ziran kondenak orduan. Eta hori baiño gehixagokua da bat, hórrek pasauta, ba, urtebete Santanderren Donostian urte bat edo bi neroiazela agertu zan periodiko baten, esaten eze: zelan... —ez, "Pena de muertia" gaz neguala etorri zan hau. O sea ke, ba, handik e... ixa urtebetera bai. Ba, urte pare bat edo hiru bat Donostian neroiala— Hauxe etorri zan periodiko baten: "Ordenamos que todos los procesos ocurridos antes de diciembre del año treinta y siete, sean revisados, porque los juicios se hicieron sin garantías para los acusados".

- Hori periodikoan etorri zan?

- Periodikuan etorritakua da hori. Ez dakizu kontua? Zein modutan hiltzen zan orduan jentia!

- Bai, bai, bai.

- Batek, karneta zekala PNVkua, bestiak solidarixotakua, bestiak CNTkua, bestiak UGTkua, eta hor bai ekin, zeretik, Naparruatik eta Madrid bittartian mordo bat garbittu zittuen holantzek. Karneta edo, zeukalako, beste leku batekua. Orduan hiltziak ez zeukan balorerik!

- Bai, bai, bai, bai. Baina bizirk ateratzea ere!

- Suertia euki neban, suertia! Hamen esan zestan, etorri nintzanian —libre etorri nintzanian—, zerak, "jefe de Los Requetés" hamen egon zanak, [Tantana]. Harek esan zestan: "Aitta etortzen jatan ba, sarrittan etortzen jatan ba, hire notizien barri eta aber zeoze egitten genduan hire alde eta zerian. Eta esaten netsan baietz baiña nere barruan ez nekixan hurrengo egunian hilda egongo hitzanik be. Hire bizitzagaittik ez najuan emongo lamaiko bat be." Hori "Jefe de Requetiak" esandakua da, e!

- Bai, bai. Sei urte egin zenituen.

- Sei urte eta hille bi.

- Eta bueltan Eibarrera.

- Gero, bueltan, bai, Eibarrera. Ez, hobeto esanda, Ormaiztegiara. Nere aitta eta anai-arrebak han nittuan. Hamen ez zekuala lanik zerian, eta hara juan ziran, eta han neguan ni. Baiña beti, urtetzeko zeozter egittera, eta gero Barzelonara juan nintzan sei hillebetian, "como viajante", hemengo artikuluak saltzen. Baiña, hara juan nintzan, bai. Eibarrera etorri nintzan egun baten —hau anekdotiau kontauko biharko detsut— billau neban karlista lagun bat.

- Hara! Gerra irabazi zutenetakoa!

- Bai, eta hortxe agertu giñazenian plaza barrixan gaur Dardaiko soziedadia dagon han inguruan: "Akordatzen haiz?". Eta: "Bai". Eta: "Egingo juagu?". Eta: "Bai". Eta lagunak esan zeban: "Zer darabizue hor, bai eta bai?". Eta: "Ba, pasau jakuan, nik karzelatik urten nebanian —maiatzian edo juniuan— 36an, hamen egon giñuazen kafe bat eta kopa bat hartzen. Eta handik, urten genduanian, Valentinek —hori karlistiorrek— esan jestan: 'Zuen asturianuak abentura gogorra egin juek, baiña gure reketiak agertzen diranian hamendik bera, ikusiko dok hárek zer egitten daben!' Eta esan netsan: 'E! Horretara, gerra bat juagu!', eta 'Bai!', 'Aber zeifiek hobeto afinatzen dogun geure tirua, fusillekua. Baiña bizirik bagauaz, orduan afari bat edo bazkari bat egingo juagu junto', eta 'Bai!'". Eta handik zazpi bat, zortzi bat urtera, horixe agertu zan eta egin genduan afari bat. Baiña han afarixan —esan netsun lehengo egunian— zortzi lagun juntau giñazen, eta zortziretatik bat karlistia, beste bat sozialistia, beste bat republikanua, bi komunista eta hiru PNVko. Zer esan gura detsu horrek? Zortzi lagunen artian, bost ideologixa.

- Eta etsairik ez!

- Eta ez giñuan alkarri, ezer be, ezer be esan. Danak gure kantuo izan

ziran, geure zerok, eta akabo! Ez giñan aittatu bata be; ezer, geure ipoñik, gerrakorik eta ez politikakorik. Danok lagun-lagun izan giñazen.

3.23. Primo de Riveraren diktadura

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/010
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:16:17. **Bukatu**: 00:18:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Primo de Riveraren diktadura; "diktablanda" izan zela esan daiteke: "Casa del Pueblo"a, Batzokia zabalik jarraitu zuten; UGT; Agrupazio Sozialistek martxan jarraitu zuten; etab. Sozialistentzat ez zen hain gogorra izan; komunistentzat zorrotzagoa izango zen ziur aski.

Transkripzioa

- Eibar. Zuk gogoan edukiko duzu diktadura, Primo de Riverarena?
- Bai! Ezagutu neban!
- Zer moduz pasatu zenuten hemen?
- Ene! Ez dakit ba nik ze diktadura klase zan ha!
- "Dictablanda"-eta esaten zuten. Izen asko ditu.
- Zegaittik eze "Casa del Pueblo" zabalik eguan, UGT-k funtzionatzen eban, agrupaziño sozialistak funtzionatzen eban... Baiña egingo zittuan gauza txarrak be: monopoliua eta. En fin! "Monopolio de petroleos", "Compañía de telefónica", eta gauza asko. Baiña, por ejemplo, igual, komunistendako eta, txarra izango zan, baiña Eibarren, represalixarik ez dakitt egon zan, zera, diktadura denporan. Guk ez genduan, behintzat, notatzen. "Primero de Mayo" eguna zelebratzen zan. Igual Candidok-eta, bai, baiña sozialistak... Es más, pentsatzen dot, e... entzunda dakat Largo Caballerok —gero ministra izan zana sozialistekin— Primo de Riveraren denporan kargu haundi bat euki ebalu Gobiernuan. Mitin sozialistak be ezagutu nittuan Primo de Riveraren denporan! Ez dakitt, izango zan "Cincuenta aniversario de La Casa del Pueblo, de la fundación de la agrupación socialista"; frontoian izan zan zera, mitiña. Horrekiñ esan gura dot, e...
- Bai, baziran bestelako gauzak, bazituen e...
- Es más, Eibarren Batzokixa be zabalik egon zan denpora guztian, ze...

3.24. Errepublikaren aldarrikapena; ordu batzuetan estu

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/012
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:19:32. **Bukatu**: 00:22:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren. Hauteskundeak apirilaren 12an izan ziren. Hurrengo egunean lanera joan gabe gelditu ziren; erromeria egon zen; etab. Apirilaren 14an Errepublika aldarrikatu

zuten. Galán eta García Hernández-en argazkiak jarri zituzten udaletxean, erregearena kendu ostean. Ordu batzuetan estu ibili ziren. 16:30ak inguruan heldu zen baieztapena. Jai handia egin zuten. Errepublikak itxaropen handia ekarri zuen.

Transkripzioa

- Beste gauza bat! Errepublika: gogoan daukazu noiz hots egin zan Eibarren?
- Zelan?
- Errepublika noiz hots egin zan Eibarren, gogoan al daukazu?
- Zelan? Noiz agertu zan?
- Bai. Errepublika noiz hots egin zan. Bandera jarri eta...!
- Hantxe nenguan ni! Treinta y uno. Elekziñuak izan ziran hillaren hamabixan; bai, hillaren hamabixan elekziñuak izan ziran, eta hurrengo eguna zelebrau genduan! Lanera jua ez, eta gero lanetik urten eta erromerixia. Hillaren hamalauan, goixian, junta giñan aiuntamentuan, eta jarri genduan Galán y García Hernández-en erretrato bat erregia kenduta, jarri genduan bandera, y... Republika proklamau.
- Eibarko Errepublika.
- Bai... Jai haundi bat izan zan.
- Hemen?
- Honbre! Goixian, lehelengotikan, manifestaziño txiki bat; arrasaldian manifestaziño haundi bat... Egon zan momentu bat, pixkat dudosa eta zera... Bazkalostian Madriddik ez eguan notiziarik eta... Guardia zibil batzuk be ekarri zittuen itxuria Eibarrera eta... estu! Eta halako baten, lau eta erdiak inguruan, etorri zan notizia Eibarren, e... Madriddin e... proklamau zala Republika.
- Eta hortik aurrera, libre.
- Libre.
- Baina, herri osoak hartu zuen parte hortan!
- Ene! Pentsaizu! Ez eban hartuko? Elekziñuak egon ziran, derecha batek ez eban urten! Ez dakit zenbat konzejal izango ziran, hamazazpi ala hemeretzi. Nazionalista bat, eta beste guztiak republikanuak eta sozialistak izan ziran. Así ke... herri guztia. Eske... Eibarren, mentalidadia eguan, itxuria, republikanua.
- Zuk orduan edukiko zenituen... hogeitun urte.
- Hemeretzi urte.
- Hemeretzi urte, oraindik hogeitun bete gabe. Ez da ahazteko eguna, ezta? Ez da ahazteko eguna, hura, Errepublika proklamatu zenutena.
- Ahaztu?
- Ahaztu diot, burutik...
- Ez, ez, ez! Egun haundixa izan zan! Eske eze Republikiakiñ esperanza haundixak agertu ziran, e? Egon ziran, bai... Gero gauzak enredau egin ziran, baiña !

3.25. Indalecio Prieto Eibarren; Eibarko sozialistak, euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/014
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:23:34. **Bukatu**: 00:26:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

- **Laburpena:** Indalecio Prieto eta eibartar sozialisten arteko harremana oso estua zen; Toribio Etxebarriarekin ere oso harreman ona izan zuen; "Delegado del Gobierno en CAMPSA" ere izendatu zuen. Errepublika aldarrikatu eta gero Indalecio Prieto Eibarrera etorri zenean, `Gernikako Arbola´ jotzea eskatu zuen. Eibartar sozialistak, euskaldunak.

Transkripzioa

- Bueno, gero, izen batzuk aipatu behar dira, ze gerra arrimatzen dago. Hori hogeita hamabitik aurrera, mugimendu hau oso azeleratu zan, azkar etorri zan. Baina hor izen batzuk aipatu behar dira, dudarik gabe: Prieto bat.

- Prieto.

- Hona etortzen zana.

- Indalecio Prieto.

- Indalecio. Hori zuentzat norbait bazan! Eibartarrentzat! Pablo Iglesias. Hemen ibilitakoa hori ere.

- Indalecio Prietok Eibarko zer sozialistekin relaziño haundixa ekan, sobre todo, Toribio Etxebarriekin. Toribio Etxebarria seguramante izango zan, hamen inguruan, Prietok konfianzarik gehixen ekan gizona. Es más, ministro egin zanian Prieto, —Toribio Etxebarria Madriden gerentia zan Alfakua— eruan eban Madridera, “delegado del Gobierno Español en la CAMPSA”. Gero, gerra denporan, izan zan gerentia zerekua, [G.K.]. Indalecio Prieto sozialistekin, Eibarkuekin, "carne y uña" zan. Zegaittik eze, seguramante, gehixago gustatzen jakon Eibarko sozialistia —sozialismua— beraren ingurukua baiño.

- Bilbokoa baino.

- Bai. O sea, asturianua zan; baiña, itxuria, Euskal Herrixa maitte eban Prietok. Ni txabalitua nintzan, Eibarrera, Republikia proklamau eta etorri zanian zerera, Eibarrera; Eibar bisittatzera. Eta Eibarko aiuntamentotikan hitz egiñ eban. Eta egiñ eban berba, eta amaittu eban. Bandia eguan Eibarkua! `Gernikako Arbola´ eskatu...

- Eskatu eban.

- Eta... ene! Guk pentsatzen genduan `Gernikako Arbola´ nazionalistiena zala! Txokauta geratu giñan ! Baiña bagenkigun!

- Bai, bai, kanta ezaguna zenuten.

- Gero Eibarko nazionalistak esaten eben, eze: “Zelan dok hori? ‘Gernikako Arbola´ kantuan Eibarko sozialistia, Prietok eskatuta!”. Eta gero ikusi zan estatutuan alde zenbat lan egiñ eban zerak, Prietok. Eske eze, gu barruan bagiñan zerak... euskaldunak giñan!

3.26. Gerra Zibila; exilioa; "Batallón de Trabajadores"

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose

• **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi

• **Erref:** AB-092/021

• **Iraupena:** 0:05:45. **Hasi:** 00:34:15. **Bukatu:** 00:40:00

• **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Gerra Zibila. Amuategi batailoian martxora arte. Handik Murtziara, abiazioko armerotzara. Gero exilioa Frantzian; ondoren, "Batallón de Trabajadores"era. Frantzian hasiera batean kontzentrazio esparru batean egon zen; gerora, Eusko Jaurlaritzak ipinitako babeslekuetara pasatu zuten. II. Mundu Gerra. "Batallón de Trabajadores"en "Maestranza de Artillería"n egon zen. Orduko kontuak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eibar. Alegia, gerra etorri zen. Harek bai hondatu zituela hemengo bazter guztiak! Eta gerran ere, arazoak izan ziren: batzuk joan ziren republikanoekin, sozialistekin, beren batailoiak egin zituzten; beste batzuk nazionalistekin... Eibarkoa horrek hondatu zuen, ala?

- Eibarkua Amuategixan.

- Hura izan zen izugarria Eibarko asko eta askorentzat, ze, horren ondoren etorri zen... lehenengo gerra: zuri non tokatu zitzaizun gerra?

- Gerra Zibilla?

- Bai, Gerra Zibila.

- Eibarren. Amuategixan emon netsan hasieria. Batailloia, Amuategixa. Batailloi haren hasieria zan Amuategixan "Juventudes Socialistas Unificadas". Ez giñan eibartarrak bakarrik, e?

- Bai. Kanpotik eta, asko zegoen. Bilbotarrak ere baziran.

- Gehixen be, bilbotarrak, baiño, ba: Mutriku, Mendaro, Deba, Ormaiztegi... Hórrek mutillok euren herrittikan ihesixan edo: ba, nazionalistak Gernikara, eta beste... pixkat ezkerria sentitzen zana Eibarrera.

- Hor hasi, eta nora joan zinen gerrara?

- Ni marzura arte egon nintzan zerian: Amuategixan. Eta marzuan Prietok Eibarko Eskola Armerixara eskatu zittuan mutillak abiaziñorako, armerotzarako. Eta hogeta hamar lagun edo apartau ginduezen eta ni jua nintzan Murziara.

- Abiazioko...

- Abiaziño... Armerotzara. Hogeta zortzi. Ikusi eben guk zelako resultaua emongo genduan eta segiduan eskatu zittuen beste hogeta hamar. Baiña norteko ofensibia etorri zan eta orduan, "Gobierno Vasco"ak ez eban emon permisoriak gehixago juateko. Asi es ke..., nik e... suertia esango dogu. Rusuak eguazen pilotuak, interpretiak, eta... Ikusi eben hasieran guk ez genduala ezagutzen ha armamentua, abiaziñokua. Baiña segiduan konturatu ziran biharrian bagenkigula, konozimentua, prinzipixuak onak genkaguzela, eta segiduan egin ginduezen "jefe de escuadrilla", "jefe de tal"... Ixa danok, e... jefe izan gintzan. Ni Plana Mayor-era pasau ninduen abiaziñuan; kazetan. Egin ginduezen sargento...; pasau genduan, ba, gerria... Konturau giñan rusuak "ingineri" esaten eskuela.

- "Ingenieri", injeniero.

- Injeniero. Esaten dan bezela: "Ze cojones, ze injeniero eta ze puñetas!". Oin badago ha zera, "Ingeniero técnico" edo, titulua. Horrax asimilatzen ginduezen, itxuria.

- Bai. Edozein modutan, lehen, ikasketa luzeagorik ere, apenas zegoen!

- Bai, ba. Konturatu ziran, gaiñera, guk bai armamentua kanbixau eta arreglau eta ipiñi eta sinkronizau, dana egitten gendula. Baiña mekanikuak baekan lana egiñ ezinda eta, ba, mekanikuakin be hasten giñala: motorrak kanbixatzen eta, zerekin!

- Bai ,bai ,bai. Ez zinetela bakoitza bere mailan gelditzen.

- Ez, ez, ez. Eta, ba, abiaziñuan pasau genduan. Suertia euki genduan!

- Baina hura ere bukatu zen, eta kartzela!

- Bueno, ni Franzia lehelengo eta gero trabajadorietara.

- Frantziara nola alde egin zenuen?

- Ni, lehelengotikan, kanpo konzentraziñora. Baiña gero "Gobierno Vasco"ak ipini zittuan —pixkat [...] nahi eben herrixetan— refujixuak. Ni [...en] egon nintzan "Gobierno Vasco"akin . Eta gero, gerriak urten ebanian, "Gobierno Frances"ak fabriketan sartu ginduezen, "previo examen", e?

- Bai, bai, bai.

- Gero nik bentajia nekan, franses egitten neban, zera, hara juan orduko. Eibarren...

- Bai, bai, bai. Eskolan ikasita.

- Hori, ba! Eta gero, handik etorri nintzanian, alemanak sartu eta gerria amaittu ebanian franziakueri, Madriden trabajadorietara. Lehelengotikan, "pico y pala". Baiña han be "Maestranza de Artillería", zerian, Madriden, segiduan hasi zian zera...

- Konturatu! Tontoak ez ziren izango!

- Eeeee... billa! "Maestranza de Artillería"n egon nintzan.

- Itxura baten!

- Bai, ba! Zelan ziran gauzak, e! "Maestranza de Artillería"n komandantia zan Gil Quiñones; Gil Robles-en lehengusu karnala. Gil Roblesen lehengusu karnala. Handik urte batzuetara Eibarrera etorri zan: probaderora subdirektore, hori Quiñonesori. Klaro, eibartarregaz alternatzen eban, hamen, [Campos Altunanen] tabernan. Ha ez zan gogoratzen Etxeberria, zera, apellidua; baiña `Querido´ bai!

- `Querido´ bai!

- Eta galdetu eban: "Hamen ezta eibartar bat, e... halan eta halan `Querido´ esaten detsena?", "Bai! — nere osaba bat beran onduan— Bai, nere loibia da". Eta geure etxera etorri zan bizi izatera.

3.27. Gerraostea Eibarren: lana aurkitzeko arazorik ez

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/022
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:40:00. **Bukatu**: 00:41:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Gerraostea Eibarren. Errepresio gogorra hasierako urteetan.

Transkripzioa

- Orduan, ez ziren garai oso politak, e? Gaur urrutitik begiratzen ditugu eta bueno, erdi lausoan, erdi lainotan, hor ikusten ditugu. Bai, baiña...

- Klaro! Represiñua hasieran izan zan gogorra. Gogorra ez, eskandalua izan zan! Baiña itto bihar ziran "entre cadáveres" esaten dana. Eta gero, pixka-pixkaka, eurak nahi ez dabela, pixkat biguntzen hasi ziran. Karzelan be ezin leikian horrenbeste jente euki! Bateron batzuk etara bihar zittuen! O sea, represalixia juan zan, pixkat-pixkat, pixkat-pixkat biguntzen. Baiña eurentzat peligrua ez zanakiñ, e!

- Bai, bai, bai, bai. Bestelakoekin...

- Eurak pentsatzen eben: "Ba, hori dirijentia izan leikek" eta, "horrek organizau leikek" eta horrek ez, e! Horrendako ez zan egon barkamenik.

3.28. Gerra ostean industrian lana aurkitzeko arazorik ez

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/024
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:42:38. **Bukatu:** 00:44:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Eibarrera itzuli eta lana topatzeko arazorik ez. Langile gutxi eta lan asko zegoen garai hartan. Gainera, industria kontuetan zerbait zekiena erraz hasten zen lanean.

Transkripzioa

- Guzti horiek gerrakoak dira. Eta Eibarrera bueltatu eta... lan egiteko modurik eta? Nola izan zen hori?

- Ene! Sobre eguan zera... Falta haundixa eguan, ba, jentiana, lanekua! Sobre todo, biharrian ekixana, e! Zegaittik eze hortik etorri ziranak, labradoriak ziran danak eta! Eibarren, orduan, trokelistak eta, torneruak eta, pixkat ofiziala zanak eta, estimaziñua eken! Etorri Eibarrera eta hurrengo egunian lanian ekitzen jakon. Edo lehengo taillarrian, edo barrixan.

- Orduan, problemarik eta zuretzako ez zen?

- Ez, ez, ez, ez.

- Sozialista izanda, markatuta izango ziñeten?

- Bai, baiña...

- Esan nahi det... Fitxatuta, esaten den bezela. Poliziak, e...

- Baiña eibartarrak ugezabak ziran eta ez eguan hori zerori! Zegaittik eze, gaiñera euki bihar da kontuan, gerria urten ebanian, Eibarren e... —bai, egon ziran "paseo" esaten jakonak— Baina ugezaberi bakian laga jakuen. Ugezaba moduan iñor ez zan izan deteniduta, persegiduta... ez, ez! Eibarren ugezabak taillarretakuak, edo euren taillarrian geratu ziran, edo taillarra...

- Ez zen inor...

- Iñor ez zan egon karzelan. Orbeatarrak... ez zan iñor egon karzelan.

Beistegittarrak... en fín, iñor ez zan egon zera... Eta klaro! Horrek ez eben gero inkonbenienterik euren bihargiñak barriro hartzeko. Ez zan egon problemarik!

3.29. Euskararen erabilera gerra ostean; emakumeen jarrera

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/026
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:44:38. **Bukatu:** 00:47:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Eibarko euskara. Gerra aurreko urteetan, eibartarrek Asturias aldean euskarazko berbak sartu zituzten bertakoen artean. Gerra ondorengo egoera, oso desberdina. Gerra aurreko eta gerra osteko euskara; beherakada handia izan zuen euskararen erabilerak. Emakumeen jarrera euskararekiko.

Transkripzioa

- Jose, lehen kontatu didazu, anekdota eta guzti, zeuen euskara txarra: euskara txarra zenutela eta, ona dala eta, azkoitiarrei periodikoa leitzen hasteko, eta guzti hori. Begira: gerra aurretik, Eibarko euskara zabaldu ere egin zen. Nik kontatu nezake, esaterako, Asturiasen —hemendik joandako ofizialek eta— euskarazko hitzak sartu zituztela. Eta oraindik han esaten dira hitz horiek eta hemen ia galduta daude. Eta izan zen mugimendu bat lehenengo momentu hartan; baina gero, gerra ostean, hor, 50aren inguruan, hasten da jendea Eibarrera etortzen, Eibar txiki hau hasten da izugarri hazten, mendietan gora igotzen, eta mendietan gora igo ahala euskara galdu egiten da. Bueno galdu, kasik. Zer pasatu zen hor?
- Ba, desde luego nik e... kulpia guria begittantzen jata. Gu e... lehenago, Eibarrera etortzen ziran... etortzen zan jentia Eibarrera...
- Bai, bai. Etortzen zen, bai. Bueno, asko etortzen ziren, inguruko herrietakoak: Plaentxi, Elgoibar...
- Bai, baiña erdeldunak be etortzen ziran. Orduan, hárek sartzen ziran Eibarko kuadrilletara. Eta zelan guk edo gure gurasuak ez eben lagatzen euskeraz [egittera], ba, hórrek danok ez eken beste erremedixorik, euskeraz ikasi bihar eben. Eta eurentzako errezagua zan Eibarko euskeran erderazko hitzak sartu. Hórrek izan ziran, lehelengo Eibarko euskeria kastellanizau ebenak. Guardia zibillen andrak Eibarko andregaz egitten ziran lagun; danek ikasten eben zera, euskeria. Guardia zibillen semiak —Escribano anaiak, Nuñez anaiak— hórrek be euskeraz ikasi eben. Euren euskeria, e?
- Bai, bai, baina euskeria.
- Kanpoko jentia erderizau eban. Gero gauza bat egon zan txarra: itxuria, andrakumiak pentsatzen eban erderaz egittia elegantiagua zala. Mutillak euskeraz egitten genduan eta neskak egitten eben erderaz. Dantzara juaten giñanian erderaz egitten genduan. O sea, neskia obligau biharrian euskera egittera, guk egitten genduan erderaz...
- Burua makurtu eta...
- Bai, eta nahaistu, e! Eta neskak egitten eben erderaz eta guk euskeraz.

3.30. Gerra Zibila: Eibartik ihesi; Bilbotik Asturiasera

- **Hizlaria(k):** Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-094/006
- **Iraupena:** 0:08:30. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:17:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gerrara gazterik joan zen, 20 urte zituela. Eibar bonbardatzen hasi zirenean, irten egin behar. Jeneroa konfiskatu zioten. Eibartik Bolibarrera, Ziortzara, Munitibarrera ihesi. Gero Gernikara eta handik Bilbora. Bilboko Bidebarrieta kalean Antzuolako Udala zegoen. Bertan aurkeztu eta handik Asturiasera eraman zituzten. Gerrako kontuak.

Transkripzioa

- Baina, begira, gu pastel artean oso goxo-goxo-goxo gaude hemen, baina bat-batean, non datorren gerra.
- A, bai. Haxe txarra.

- Haxe txarra.

- Haxe txarra.

- Ze urte zenituen zuk gerra iritsi zenean?

- Ba, hogei urte.

- Mutil jatorra.

- Ez dakit.

- Baina, garratza.

- Bai, hogei urte.

- Oliva (emaztea): Eta eskapau egin eban!

- Eta zer pasatu zen?

- Zer pasatu zan? Ba, urten egin bihar! Eibar bonbardeatzen ekin etsen eta gure osabari-ta danak kendu etsezen, jenero guztiak erreki-sau zetsen. Eta gizajuak geratu ziran norabaitt urtetzeko, eta Abadiñora-edo jua n ziran. Gero handik, Abadiñotik, Larrabezuara jua n ziran, eta hantxe ya amaittu zan harena. Eta ni nun nintzan be ez zekixen, eta ni nebillen gerran.

- Gerran. Tiroak bota zenituen?

- Honbre!

- Ze, zure gerra gehientsuena sukaldean egin zenuen.

- Ez, baiña, geruago zan hori. Lehelengo eruan ninduen, e... jua n giñan... Gernikan egon giñan.

- Bonbardeoa-eta gertatu zenean ez.

- Ez, ez.

- Lehenago.

- Lehenago. Gernikatik jua n giñan gero Bilbora... Ez zekixen ni nun nenguan be! Bueno, lehelengo-lehelengo, Eibartik urten genduan eta mendiz jua n giñan zerera...

- O.: Bolibar.

- ... kuadrilla bat, Bolibarrera. Eta gero Bolibarretik -han, beste zer baten-Munittibarrera gero han jua n giñan. Eta han: "Gizajuori, gizajuori!" eta berakatz zopia emon zeskuen arrautza banakin eta gero zapaixan lo egin genduan orduan! Eta gero, ba, etorri giñan Bolibarrera. Ziortzara, "mejor dicho", Ziortzara. Hantxe egon giñan ba, zenbat? hillebete bat edo, bi edo, igual egingo genduzen hantxe. Baiña ya kintua eskatzen zeguazen eta...

- Mogittu egin behar.

- Mobittu giñan. Eta jua n giñan Bilbora eta presentau nitzan, Bidebarrieta, ez dakit zer numero, Bilbon. Han zeguan Anzuolako aiuntamentua.

- Hara!

- O.: Bidebarrieta? Calle? En el Hotel Carlton ez zan ba?

- Hotel Carlton, gobernua zegoen.

- Bai, Bidebarrieta ez dakit zer numero.

- O.: "Allí estaba el de Markina, el ayuntamiento de Markina".

- Bai...

- Eta gero: "Ene! Hi Arlutz-Txikikua? Ez gintzuan akordatzen hirekin! E?"

- Bai, bai, bai.

- Pasau neikian jua n barik be, pentsatzen jata. Baiña geuk bildurra gehixago eta presentau giñan, eta gero, ba, handik Gernikara. Eta han zertu giñan, ingresau giñan, eta halan hasi giñan. Gero hadik zerera... nora jua n giñan? Esto...

- Bilbo aldera, atzeraka poliki-poliki?

- Ez, ez. E... nora? Izenak ahaztu egitten jataz.

- Gernikatik... Hori oraindik, Gernika bonbardeatu baino askoz ere lehenago zen.

- Bai, bai.

- Hori orduan, izango zen Ulibarri aldera edo? Arrasate aldera?

- Ez, ez. Mondragotik... ez, beste...

- Kanpazar aldera? Hor gora?

- Hor egon giñan, zer baten.

- Legutiano. Hor izan zen Legutianon bat.

- O.: Kanpazar ez... [...]

- Kruzeta esaten etsen. Kruzeta zer bat. Egon giñan han, zerak egin zittuen han, kuartelak egin zittuen; honek, egurrezko zerak, eta hantxe! Eta gero handik eruan ginduezen Asturiasera. Zuzenian, "al choque". Amaiurkuak giñan gu!

- Amaiurkoak?

- Asturiasera!

- Eta Asturiasetik bueltan?

- Gogorrek pasau giñutzen Asturiasen! Juan giñan eta atakerako preparau giñan eta, bueno, hankak batu giñutzen zakuekin eta, botakin zaratarik ez atartzeko. Pasau bihar genduan, burdiñezko zubi baten pasau bihar giñan eta han zaratarik ez atartzearren, enemiguak ez entzutzeko ! Eta juaten gara, eta billau ezin!

- Zubi hori!

- Zubi hori!

- Ha ze nolako jenerala zeneukaten zuek!

- Bai. Ipiñi ebenak, eurak pasau eta kendu!

- Egin zutela!

- Egin zutela, bai. Gero txalupetan pasau bihar izan genduan. Eta txalupetan, lau pasatzen baziran, bi edo hiru hilda edo heriduta behintzat! Eta holan. Gero ametralladora bat edo bi pasau ziran eta han etxetxo baten zeguazen aurrekaldian, harek ekin zetsen tiroka eta bildurtu ziran, eta hárek iges egin eben. Orduantxe ya danak pasau genduan. Eta gero, ba, atakerako genguazen, Oviedo hartu bihar genduala, Oviedoko gain bat hartu bihar genduala, mendi bat. Eta jua giñan, ba, herri txiki bat: Faxo edo. Premoño zan bata eta bestia Faxo. Eta Faxora jua bihar giñuan. Eta hurrengo jua giñan, eta trintxerak egitten geu! Ba, atakia edo etortzen bada, trintxerak egitten ibilli giñan, eta egin giñuan , zakuekin-eta bete eta zeozer, eta: "Bueno ba, oin deskantsau egin bihar dittuk batzuek, txanda!". Eta zapai batera jua, eta han lo. Eta ekin etsen goizaldian, tipi-tapa, tipi-tapa, tipi-tapa! Eta: "Ene ba! Zer pasatzen dok hamen?". Eta ni be esnatu nintzan eta hartu armamentuok eta goittik behera, eta: "Zer?". "Erretiradia daok!". Eta: "Bueno!". Zelai haundi bat zan eta ordurako kontrarixuak preparau eben, holan zuan, "en oblicuo, así" eta hamendik pasau giñan danak, e? Derrigorrez pasau bihar, eta lokatziakiñ ipiñi zebeñ haura. Urakin lokatza haundixa eginda.

- Eta handik derrigor pasatu behar.

- Handixik derrigor pasau bihar.

- Estugune hartatik!

- Bai, handixik pasau bihar. Eta, ene! Danak zelaixan behera, antxintxiketan danak, bat... han hiltzen ziran, eta bateri oratu halan eta "Aaaaa!". Bueno, hango berba txarra alkarreri, eta bueno!

- Bai, izugarria behintzat.

- Izugarria, tristia. Ha batalloetik konpañia galdu genduan guk, e?

- Horrelako zeratan?

- Bai, gogorra zan.

- Eta inor konturatu ez behean beste zera hori egiten ari zirela?

- Ez, gu goixan genguazen.

- O.: Sanotes, sanotes!

- Zerak euki eban... Komunistak euki eben fallua, hárek frakasau zebeñ, hárek ez zebeñ hartu mendixa bihar zan moduan! Eta, gero hartu ginduezen, ba, erdixak.

- Total, handik ihes egin zenuten behintzat.

- Bai, bizi! Gero, beste batekin juntau nintzan, han, Premoñora aillegau

giñanian. Esan estan batek: “Gregorio, bizi haiz?”, eta “Bai”. Ha zan egarrixa! Ha zan egarrixa! Bueno! Bai ba, gure antxintxiketiak ez zekan akaberarik! Eta ur zikin-zikin bat han. Haxe hartu eta ahua busti behintzat, eta bueno! Gero, hurrengo, egin eben ha pasua pasatzeko atzera; zubixa egin eben.

- Beraz, hori benetan gogorra, esperientzia gogorra.

- Gogor-gogor-gogorra. Eta gero handik etorri eta zerera, Sollubera.

Solluben be, demasa; haundixa zan. Eta gero, Artxandara. Artxandan

besuan heridu ninduen. Balazua; horrek bala esplosibuak, pa! Eta graziak azalian edo mamiñian izan zana, dzast sartu eta aurreko paretian pla! egin eban. Ha besuan hazurrian izaten bazan...

- Bai, besoa bertan galtzeko!

- ... besua bertan galdu! Bai, bai, seguru!

- Suerte!

- Bai.

3.31. Soldadutza Frankismo garaian

- **Hizlaria(k)**: Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-094/008
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:25:59. **Bukatu**: 00:27:47
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Frankismo garaia. Aurretik egindako soldadutzak baliorik ez zuela eta Frankorekin berriz egin behar.

Transkripzioa

- Bueno, azkenean behintzat, hori guztiori bukatu eta...

- Esan eben, Francoren zerera jartzeko: “Militarrak nahi dogu ba Francoren e...”. Eta orduan gerria amaitzen zeguan ixa-ixa eta esan genduan: “Zertzen, apuntatzen ez bagaittuk, kartzelara atzera goiazak”. Eta apuntau giñazen gehixenok. Hiru edo lau ez, eta harek juan ziran kartzelara. Bai; nik, sindikalistak edo, ez dakit zer ziran!

- Eta gainerakoak, e...

- Bai, bestiok, danak soldau egin eta ya, tokatzen jakunian, etxera.

Permisuakin etxera.

- Baina etxera etorri eta danak ez diala... zoriona ez dela osokoa!

- Honbre! Ez, zoriona sekula be ez.

- Berriro, buelta.

- Buelta, bai.

- Soldadu. Orduan, soldaduska egitera.

- Bai, handik denpora gutxira, zeozer biharrian hasi etxian eta ene!

presentatzeko zerera, Donostiara, ez dakit nora. Eta juan giñan Donostiara eta harek esan eskuen -Vitorixarako destinau giñuezen- lehen gorrixekin egin genduan soldautzia atzera nazionalekin egin bihar genduala. Total, neri, partiduta laga niñuen. Baiña halaxe zan eta egin egin bihar.

- Hala ere, hala ere!

- Hala be, suertetxo bat euki neban -batekin, lagun on batekin- eta lehentxuago etorri nitzan beste batzuek baiño.

- Baina urte pila eginda!

- Bai.

- Zenbat guztira? Hogei urtekin hasi eta etxera azkenean...
- 23-24ra. Ixa 24ra.
- Oliva (emaztea): Ixa 25.
- Ez, 24kin ezkondu giñan.
- O.: 24 ez, 26.
- Ez.
- O.: Ba! Bueno!
- Bai, bai, bai.
- A hor ba, a hor ba, a hor ba.

3.32. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-106/002
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:03:01. **Bukatu**: 00:04:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Goizeko 6:30-7:00ak inguruan jarri zen udaletxean bandera errepublikanoa. 10-15 minutu lehenago "Casa del Pueblo"an batzar bat egon zen eta bertan apirilak 12an aukeratuak izan ziren zinegotziak elkartu ziren. Orduan erabaki zen Errepublika aldarrikatzea Eibarren.

Transkripzioa

- Apirillaren 14a, Benigno Baskaran, apirillaren 14a gaiñean dugu eta joan gaittezen lehen esaten genuen horretara. Espaiña osoan, lehenbiziko bandera republikanoa jarri zen lekua Eibar da. Zein lekutan jarri zenuten? Zu tartean izango ziñen...

- Udaletxian! Aiuntamentuan, beti Eibarren esan dan moruan. Gaur egunian gauza batzuetan gehixago ikasten gare euskeraz: udaletxian.

- Aiuntamentuan, beraz.

- Udaletxian. Baiña aurrerago, aurreragoko ordu launian edo hamar minutuan, ba, Eibarko "Casa del Pueblo"an egin zan batzar bat, abriilian 12xan urten eben konzejal guztiena, ta hantxe akordau zan Republika inplantatzia udaletxetik. Ta goixeko sei t'erdia-zazpirak inguruan harekin freskuriakin, ha freskuria zan ideia be, idea barrixa zan -ideia ez barrixa, "hechu"ak ziran barrixak- ta guk euskeraz eginda ta erderaz eginda, guk Republikian atzetik gebizen ta Republikako banderia jaso gendun Republika inplantatzeko.

3.33. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-106/003
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:04:27. **Bukatu**: 00:06:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

- **Laburpena:** Odol tanta bat ere isuri gabe aldarrikatu zen Errepublika Eibarren. Apirilaren 12an hartutako erabakien artean, kaleetan zaintzaileak jartzea izan zen bat. Eguna luze joan zen, arratsaldeko 16:00etan Madriletik etaartzelonaatik baieztapena jaso arte.

Transkripzioa

- Ta gero guk ez gendun nahi odolik, ta ez zan bota odolik.
- Odolik ez zala bota... Hauteskundeak apirilaren 12an ospatu ziren, botoak ikusi zenittuzten Eibarren bloke republikano-sozialistak irabazi zittuela, eta apirilaren 14ean goizeko zazprietan jarri zenuten bandera Eibarren.
- Bai.
- Eta esaten duzu odolik ixuri gabe egin zela botereen transmisioa. Erregeak, Alfonso XIII.ak orduantxe egin zuen ihes, ez? Hanka Espaiñiatik.
- Bai, hanka.
- Ze gauza dauzkazu gogoan egun hartakoak? Goizeko zazprietako bandera jartze hura... beste ze gauza dauzkazu gogoan?
- Ba, bakian aldekuak zela izan garan, ba, guardixa bat nonbrau zan kalietan ta plazetan zaindu deixen iñor badator...
- Lapurretak eta...
- ... lapurretak edo -en fin!- honek gauzok aprobetxatzen dittuenak. Lehelengo bat biharra haxe izan zan. Ta gero, eguna geruago ta luziagua egitten jakun, ez zan etortzen konfirmaziñuori arratsaldeko laurak arte Barzelonakua ta Madrikua.

3.34. Baldintza egokiak II. Errepublika aldarrikatzeko

- **Hizlaria(k):** Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-106/004
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:08:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Eibar herri liberala; errepublikaren aldeko saiakerak 1930eko abendutik martxan zeuden. 1930eko abenduan, Jacan, Galacuna eta Hernandez altxatu egin ziren eta Eibarren greba orokorra egin zen hiru egunez. Errepublika aldarrikatzeko baldintza egokiak ematen ziren Eibarren: "Casa del Pueblo" a, sindikatuak, "Agrupaciñ Socialista", "Juventud Socialista"... herriak garbi zuen bere nahia zein zen. Liburutegi garrantzitsua. Bandera errepublikanoaren ondoan, Galacuna eta Hernandez-en argazkiak jarri zituzten.

Transkripzioa

- Hori ba, ze goizeko zazprietan, Eibarkoak guztiz ausartak, balienteak izan ziñeten eta Republika jarri zenuten. Ta oker ez baldin banago, "Casa del Pueblo" ra joan ziren Toribio Etxebarria eta zure lagun bat -Lukas Alberdi- ta Bilbora hots egin zuen Toribio Etxebarriak eta esan zuen: "Bueno, zer pasatzen da Bilbon?". Ta Bilbotik: "Ba hemen ez da ezer pasatzen". Ta: "Nola ezetz?", hori nola..., konta ezazu nola izan zen. Gogoratzen zera?
- Bueno, hori holaxe da, baiña baloria eukitzeko Republika baten alde

banderia etartzeko, motibuak egoten dia. Ta Eibar izan da herri bat, ba, dizienbrian ya Republikian atzetik asko ebizen Espaiñian, baiña dizienbrian 13an Jacan Galán ta García Hernández sublebau zian ta Eibarren huelga jenerala egon zan. Hiru egunian egon giñan huelga jeneralian! Ta gero, horregandik aparte, indarra eukitzeko halako dei batek, ba, zera egon bihar da, historixan, herriko historixa barruan, herrixak ze desio euki leikian egon bihar da, ta Eibarrek ekan "Casa del Pueblo" haundi bat, ekan sindikatuak, ekazen agrupaziño sozialistia, juventud sozialistia, eta beste entidade deportibo batzuek "Casa del Pueblo" barruan. Horrekin esan gura dot, ba, herrixak, ondo definiduta eguan ze gogo ekan ta ze organizaziñotzuk aberasten zittuan bere bultziakin. Bibliotekia be, 2000 bolumenekua ekan.

- Apirillaren 14ean, goizeko zazpitan, gainera, bandera republikanoaren ondoan, oker ez banago, García Hernández eta Fermín Galán, Jacan fusilatutakoen bi argazkiak ere jarri zenittuzten, ez, Benigno?

- Bai.

- Eta bandera zer zan, momentuan fabrikatutakoa, momentuan jositakoa ala aurrez preparatuta zegoena?

- Bueno, batzuk aurrez preparauta egongo ziran, dudarik be ez dago! Baiña horrek trapuok preparatzia ez da gatxa. Horrek trapuok aurrera eruatia izaten da gatxa, preparatzia ez.

3.35. Errepublikaren erronka nagusiak

- **Hizlaria(k):** Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-106/005
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:08:58. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Errepublikaren erronka nagusiak. Organizazio sindikal eta politikoek zeregin handia. Partidu Sozialistaren antolaketa Espainian; organigrama.

Transkripzioa

- Republika, bigarren Errepublika, martxan jarri zenean, arazo asko zituen esku artean: reboluzio burgesia egin gabe, reforma agrariarik ez, burgesia industrialak monarkiarekin eta kapital haundiarekin paktoa egiña zuen, ezkerren zatiketa ere hantxe zegoen... Ta zure iritziz, Benigno, bigarren Republikak esku artean -martxan jartzerakoan- zuen problemarik latzena zein zen?

- Ba, latzenak ziran, hainbeste denporan ta hainbeste urtian egon barik, graziak tente erena organizaziño sindikalak ta politikuak, harenik eutsi bihar etsen etorren reformiari ta transformaziñuari. Ta guk Espaiña guztian genkaguzen sindikatuak eta partiduak eta Casa del Puebluak partiduta.

- Baiña hori mantentzea zuen Republikak... horiek mantentzea eta indartzea gauzarik inportanteena, problemarik latzena?

- Problema da zerekiñ emon leikian frente zerari, Republikari ta lege barrixerri. Ta gero, urnetara juateko be, indarra euki, euki gendun moruan! 115 diputau ekazen constituyentietan zerak, ez banago ekibokauta -hiru edo laugaittik egon neike ekibokauta-, Partido Sozialistiak. Ta hari konstituziñuari, burua, bere jatorrixa, Partido Sozialistiak emon etsan

orduan be. Zegaittik guk, beti egon gara partido barruan estuktura batzuk dakaguzelako zertzen dabenak, bizixa emoten detsenak: federaziño nazionalak, federaziño probinzialak, komite lokalak... Hori danori bizirik dagola, hori indar haundixa emoten daben gorputza da.

3.36. Manuel Azañaren gobernuak hartutako zenbait erabaki

- **Hizlaria(k):** Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-106/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:20:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublikak
- **Laburpena:** Errepublikaren inguruko azalpenak. Manuel Azañaren gobernuak hartutako zenbait erabaki. Eliza, armada, kontserbadoreak, anarkistak, etab. Guztiak Errepublikaren aurka agertu ziren. Eskumakoek indar handia zuten garai hartan. Momentu gogorak bizi izan zituzten.

Transkripzioa

- Joan gaitezen berriro Errepublika garaiko lanetara, historiatar. Azañaren garaiko zenbait neurriekin, gizarte sail batzuk ez ziren batere konforme geratu, konforme geratu ez baiño, oso haserre jarri. Eliza bera, ejerzitoko zenbait sektore eta kontserbadoreak ere bai. Eta hori gertatzen den bitartean, Errepublikaren neurriekin konforme ez daude, ezta ere, anarkistak eta sindikalistak. Huelgak eta istiluak datoz, Gobernu republikanoak represioa kalera ateratzen du zera -ze izen zuen harek?- guardia de asalto edo holako zelakoarekin, langabezia ere inportantea zen, ordena publikoaren legea ezarri zen, eta ez dakit... Gaurtik begiratuta, Benigno Baskaraneke ze inpresio dauka orduan gertatu zen guzti haiena? - Gaurtik begiratuta, betiko moruan, gauza bat ikusten da, bertan gaur egunian Gobierno Sozialistia dakagu ta hala ta guzti be, guk frente emon bihar izaten detsagu horri gauza guztiori. Gobierno Sozialistia, gaur egunekuak, indar haundixagua daka orduan denporako Azañanak baiño. Orduan derechak -ikusitako gero- indar haundixa eken. Ta dudarik be ez, gaur be dakena euren indarra. Derechak indar haundixa eken orduan ta horregaittik Azaña jausi zan, ta gero Ejerzitua jausi zan gaiñera, herrixaren gaiñera, Republika botatzeko.

3.37. Errepublikaren akatsak

- **Hizlaria(k):** Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-106/022
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:36:01. **Bukatu:** 00:37:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
Politika » Hauteskundeak

- **Laburpena:** 1936ko otsailean hauteskundeak egon ziren; "Frente Popular"ak irabazi zuen. Kartzelan zeudenak libre gelditu ziren, baina ezkerreko alderdien banaketa nabarmena zen. Errepublikak ezin izan zituen armada eta administrazioko postu garrantzitsuenetatik faxistak kendu. Militarren altxamendua eta Gerra Zibila.

Transkripzioa

- Suerte pixka bat izan zenutela esan duzu, eta suertea gaiñera zuek kartzelan zeundetenean, ze elezioak gertatu ziren 36ko -eta saltatu egiten dittugu azkeneko urte horiek- hogeita hamaseiko... noiz? apirilean ala otsailean?

- Treinta seisian, febrero.

- Febreroan, bai. Eta handik pixka batera zuek kartzelatik atera zineten. Berriz ere, pentsatzen dut, borrokan eta organizaziotan segituko zenutela, Republika salbatu nahirik...

- Republika salbatu nahirik.

- Baina ez zen posible izan.

- Ez zan posible izan. Republika gero, gero... etorri zan sublehaziñua! O sea, dieciocho de julia gure treinta y seiseko... digo, febreroko...

- Treinta y seisean Frente Popularrak irabazi zuen, zuek kalera ateratzen zerate, ahaleginak egin, baina ezkerrearen zatiketa handia zen...

- Bai.

- Azkenik hontara noa: zein izan zen Benigno Baskaranen iritziz, Republika abortatzeko, Republika ez mantentzeko arrazoirik inportanteena? Bueno, ba, gertatu zena hor dago, ez? Franco atera zela jeneral Mola hil ondoren, fusilatu ondoren, baiño arrazoi politikoa zein zen Republika ez mantentzeko?

- Arrazoi politikua da, Republikiak ezin izan eban ejerzitan puesto prinzipaletatik ta administraziñoko puesto prinzipaletatik faxistak bialdu. Horixe ezin izan eban konsegiru. Ta gero, atzenian be gero, eurak sublebau ziran ta eurak eruan eben aurrera gerra zibilla.

3.38. Exiliotik klandestinitatera

- **Hizlaria(k):** Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-106/023
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:37:46. **Bukatu:** 00:39:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Politika eta Franco
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Exiliotik itzuli zenean, klandestinitatean aritu zen lanean Errepublikaren alde.

Transkripzioa

- Gerra zibilla dator eta Benigno Baskaran, bere lagun guztiekin, bueno, ba, Republikaren alde, Republikaren aldeko filatan borrokan ari da. Gerra bukatzen da eta Republikanoak eta ezkerreko indarrak galdu egiten dute, Franco garaille ateratzen da eta zer pasatzen da hor? Korrika exiliora joaten da Benigno Baskaran?

- Bai, exiliora ahal dabenak, kartzelara ez ebena sartu. Baiña guretako inportantiena izan da, lehen ta oin, meritua daka exilixotik etorri edo

karzelatik urten ta klandestinidadera segiduan, trenetik klandestinidateko ofiziñara esateko baten. Ta horretzek daka merito haundixa. Guk -erderaz esanda, "los pioneros", ezta?- sozialistok izan giñan gerria... gerriari alde eginda karzelatik urten gendunian edo kanpo konzentraziñotik edo exilixotik etorri, gu geure partidora, geure sindikatora joaten giñan, tente eukitzeko geure banderiori.

3.39. Julio Sarasuaren atxiloketa; kazetari-trukea

- **Hizlaria(k):** Sarasua Gisasola, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-107/006
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:08:52. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena:** Gerra zibila Euskal Herrian. Julio noiz harrapatu zuten. Preso egon zen 16 hilabete inguru, heriotza-zigorrekin. Puerto de Santamaría; Sevilla... Heraldo de Aragón-eko kazetariekin trukea egin zenean askatu zuten. Alemanen okupazioa. Gerra ondorengo urteak. Martutene. 19 urte zituen eta beharbada horregatik onik irten zen guzti hartatik.

Transkripzioa

- Eta gero gu erori giñan. Duesuan...
- Gero zuek?
- Gu gero. Duesuan. Eta hango penak ez zekan akaburik. Eta nik petiziñua euki neban "pena de muerte", baiña gero hogeta hamar urtera jetxi esten. Han egon nintzan urtebete pasau, han egin neban hamasei-hamazazpi hillabete. Eta handik Puerto de Santamariara. Gero handik Sevillara, handik Ondarretara eta atzenengo kanjia, kazetarixena, izan zan guria, eneruan 4an, 1939xan. Eta zelan... Franzian geuazela, ba, Barzelona erori zan, hartu zuten faxistok. Bestela Barzelonan bigarren aldiz hartuko giñuezen prisionero!
- Eta zenbat urte egin zenituen kartzelan azkenean?
- Azkenian nik egin nittuan, ba, hamazortzi hillebete edo hemeretzi hillebete. Eta eskerrak. Eskerrak gure agintarixeri kanjia euki genduan. Guk bederatzi hamenguak atera giñan eta faxistak, 'Heraldo de Aragon'kuak beste bederatzi.
- Bestela, auskalo zer pasako zen, ezta?
- E?
- Bestela, auskalo zer pasako zen.
- Ba pentsau [...]. Eta gero, handik pixkatera, Alemanak sartu ziran. Eta haren okupazio guztia be han pasau neban. O sea ke...
- Ze historak, e!
- Historia luziak. Gero hona etorri eta takian-potian Martutenera. Bai.
- Baina, bueno, behintzat, "pena de muerte"tik libratu zinen.
- Ba. Hori segiduan, segiduan.
- Segituan lortu zenun.
- Hori zan "petición fiscal", zan hori. Eta gero jetxi esten sententzia, "30 años y un día". Hogeta hamar urte.
- Eta hori dena kazetari lanak egiteagatik?

- Bai. Nik uste dot ni salbau nintzala gaztia nintzalako, hemeretzi urte nekazelako. Aitzen dozu? Eta gero herriko informiak be... Oindiokan urte gehixago euki banittuan, gehixago maleauta edo -ez dakizu?-, batzuetan. Baiña suertia euki neban.

3.40. `Gudari´ aldizkaria; Eusko Jaurlaritzako kontseilariak

- **Hizlaria(k):** Sarasua Gisasola, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-107/008
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:14:14. **Bukatu:** 00:16:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra Zibila Euskal Herrian. Espinosa (Osasun Kontseilaria) nola harrapatu zuten. Jose Antonio Agirre; Pedro Basaldua (Agirrerren idazkaria). Carlton hotelean zegoen Eusko Jaurlaritzaren egoitza. Beste kontseilari batzuk: Toyos...

Transkripzioa

- Eta Espinosaren inguruko berririk baduzu zuk?
- Aiba! Espinosa gizajua! Joe... Traiziñua egiñ etsen Zarautzen abioiak. Jolin! Ha zan "Consejero de Sanidad", zan "Consejero de Sanidad". Eta jun zan Iparraldera -bueno, Frantziara jun zan-. Eta beran gestiñuak egiñ eta gero, hartu zuen abioi hori berriz eta pilotuak traiziñua egiñ etsan eta Zarauzko plaian aterrizau zan. Afusilau eben.
- Eta hor harrapatu zuten, ezta?
- Hor harrapatu zuten, bai, bai.
- Izan zenuen berarekin kontakturik?
- Nik ikusitta bai, porke ni juten nintzan gero... Lauaxeta erori zanian, honek Ajuriagerrak esan estan nere zuzendari berria Periko Basaldua izango zala; zan Jose Antonio Agirren "secretario particular", Pedro Basaldua. Eta ha Carlton-ian eguan, klaro, Jose Antoniokin. Eta nik zenbakiko kolaborazio guztiak eta danak nekazentian juaten nintzan, maketia egindda, honegana, Pedrogana. Eta [joten neban] astian bi aldiz. Carltonian. Eta han egoten ziran konsejeruak. Batzuetan izaten zan, ba, Toyos, edo bestian Espinosa, eta asko, asko.
- Eta han ezagutu zenuen zuk?
- Ba [...] ta agurtu bai, baiña berakin ez nun euki hartu-emonik.
- Harreman handirik ez zenuen eduki.
- Ez, ez neban euki, ez. Banekixan gizon on-ona zana. On-ona. Perikok neri, konsejeruen gaiñian, Pedro Basalduak esaten estazen gehixen. Harek danekin ekan hartu-emonia, Jose Antonioren sekretarixoa partikularra zan ta. Eta horrek danok ezagutzen zittuan. Haretzek emon estan neri izparra lehenbizi, Espinosa nolan erori zan.

3.41. Lehenengo urratsak bizikleta gainean

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi

- **Erref:** AB-108/002
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:02:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Aitak bizikleta nola erregalatu zion azaltzen du Juanitok eta Untzagan bizikletarekin okerkeriak nola egiten zituen gogoratzen du. Jendeak "xemeikua" (garaiko txanpona) ematen zion. Gerora Gerra Zibila etorri zen eta Eibartik kanpo joan behar izan ziren, Hendaiara.

Transkripzioa

- Eibarren jaio zen 1917ko irailaren 13an eta horrek esan nahi du Juanito Gisasola "Juanito Txoko" jada urtetan aurrera doan laguna dugula eta 76 urte eginak dituela. Gaur, batez ere, bizikleta kontuez hitz egin behar dugu, Juanito. Eta lehenengotik esaidazu, zure gazte denbora eta zure txikitako kontuak hemen, Eibar aldean, nolakoak izan ziren. Zertaz akordatzen zara?

- Ni akordatzen naiz... Granujia nintzan eta pixkat okerra. Baiña bizikletia aittak erregalau estan eta harekin bizikletiañiñ hasi nintzan hónek zirkoko gauzak egitten. Untzaga plazan egitten nittuan bizikleta gaiñian: bizikletia bota eta jaiki. Egitten nittuan eta jentia, pozik. Eta batak xemeiko bat emoten estan eta bestiak perrotxo bat, baiña ni, pozik. Aittak beti bronkia, hórek gauzok egitten nittualako, baiña ni pozik. Eta gero, holan denporia etorri zan eta gerriak urten eban. Ibili nintzan gerran eta han Gijonetik, ba, hanka egin bihar. Eta Gijonetik Franziaara jun nintzan eta han arrebria nekan, Hendaian. Pistola fabrikia zeken. Eta egon zan fabrikia, Ollagarena, fabrika haundixa. Eta han egon nintzan, ba, urte batzuetan.

3.42. Hileta zibilak Eibarren

- **Hizlaria(k):** Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-160/015
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:36:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** Hileta zibilak goizeko seiretan edo gauez egin behar izaten ziren. Marcelino Baskaran, "cura laico" a, 1952an hil zen. "Sumendixa" baserrikoa zen jatorriz. Hil zenean, diktaturak hileta zibila egiteko baimena eman zuen. Burgos-ko epaiketak. Eibarren arazoak egon ziren eta Jauregi hil zuten.

Transkripzioa

- Hamen lehen... bueno, entierro zibila... Entierro zibila zuan, entierro zibila, osea ke — neu be juanda naok—, entierro zibila, ba, gabaz ein bihar zuan. Osea, goixeko seiretan be bai. Akordatzen nok hamentxe Calbeton-ian bat, andrakume bat edo zuan, ez juen lagatzen [gaiñera] poliziakuok eta Guardia Zibilak egoten zittuan [zertuta], ez dakik? hantxe bildurra sartzen edo, [ta bestia]. Ta hor egoten zuan hau, Marzelino Baskaran, Benignon aitta. Benigno Baskaran. Horren alabia alkatia izan zuan. Bueno. Ta hori zuan, ba, zera, "cura laico" edo esaten dana. Horrek eitten juan

diskursua: “hau gizonau, hau esan jok eta hau ein jok eta merezi jok...”, euren zera. Bueno, ba, kuestiñua dok zeoze eitten zana. Ta 52ian hil zuan berau, 52ian. “[...] en clandestinidad y rigurosamente prohibido por la dictadura. El primer ser autorizado que se [... furtivo] fue al de Marcelino Bascaran “Sumendixa” —hor basarrikua zerekua zuan hori, Sumendixakua —. El primer cura... [llamado] cura. A ver si entonces [...] pronunciar [al coche] fúnebre en los actos. Dicho acto cívico fue el único que se efectuó de madrugada — osea, diktadurak permisua emon etsan eitteko, egunaz — fue el primero de la dictadura que se efectuó de madrugada y portando el cadaver en una camilla”. Osea, [zera eindako]... kajarik zertu barik, kamillan eruanda zera. Zan “como... como una cosa...”, ez dakik? Kentzen, baloria kentzen. Klaro, ba, kajan “más respeto o más esto y tal y cual”. Bueno. Hau hor liburuan, zerian, Eibarko... atzo erakutsi neuan hantxe dao. Gero dakak hori: “muerte de Jauregi”. Jauregi hamen... Hor, “juicio de Burgos” egon zuan hamen zera: “Hubo en Eibar violencia como [refuerzo público]. Uno de los resultados heridos por arma de fuego, Roberto Jauregi, 21 años. Murió a los cuatro días. Entierro civil. Fue un sentido homenaje en el que apenas puo participar por estar materialmente ocupado por la Guardia Civil”. Esan gura juat hor entierro zibilan zera.

- Entierro zibilak, orduan, gerraostian be, klandestinidarian, baiña jarraitu zeben.

-Bai, bai, bai. Bestelan, ba ... ze ein bihar da? Osea, esan gura juat, zelan... Gero, el año... ez jakixat ze urtetan zertu zuan hori, bat ein zibila ta...

- Lehen pareta bat zeuan bixak banatzeko, ez?

- Bai, bat azpittik sartzen zan ta bestia goittik. Bueno, goittik be ikusi dot nik sartzen. Ez jakixat behia itxitta zeualako edo, goittik egon nok ni.

Goixan [...] ein ta gero behera bajatu edo. Baiña eskatzen juen, zera... eskatzen juen bat eitteko, ez dakik? Zera, hau, diferenzia ein barik, ba, “somos humanos dentro del pecado. Despues de muertos” danak berdiñak dia. Ez dakik, hori zerori? Igual, zerian, bat hiltzen bada, eta entierro zibilla ein, goixan be enterrau leikek igual-igual. Osea, dana [batendako] da.

3.43. 1936ko altxamendu militarra

- **Hizlaria(k)**: Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-160/017
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:38:25. **Bukatu**: 00:42:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: 1936an hauteskundeak egon ziren; ezkerak irabazi zuen. Uztailaren 18an, Francoren altxamendua. Jendea berehala hasi zen mugitzen: armak lortu; etab. Hala ere dena oso bapatekoa izan zen; ez zen antolaketarik egon.

Transkripzioa

-Zuk e... Kontau deskue, 36xan elekziñuak izan zian febreruan edo, ez?

- Bai.

- Eta ezkerak irabazi zebala, Frente Popular-ak irabazi zebala.

- Bai.

- Eta hor ya hasi zala igartzen holan pixkat militarren sublebaziño bat egon leikiala...

- Bai, bai, bai.

- Zuek igartzen zenduen egon leikiala zeozer?

- Bai, bai, bai. Zera... osea, ambientia zertzen zuan... ezkerak aurrerapenik ez jua emoten. Ta gero, ba, lio asko. Lio asko egoten zuan, osea, huelgia edo hau edo bestia, ez dakik? Malestarra armatzen dok, ezta? Osea ke, bai, zeoze zertzen zuan, "Bai, kontuz ibili bihar dok, hamen zertuko juek eta". Eta efektibamente.

- Sublebaziñua.

- Bai, sublebaziñua. Ta...

- Eta bera sublebaziñuan eguna, julixuan 18xa, Eibarren ya igarri zan gerria zala edo oso urriñeko gauza bat zala pentsatzen zan hasieran?

- Ez... Bai, zerak, horretara zeuzenak, zerak, segiduan mobidu zittuan. Osea... Igual radixuak esaten jua "No se apuren, porque esto es una banda de mafiosos que se ha esto... pero ya se está dominando todo y tal y cual". Ta gero, ba, hamen Vitorixan be, ba, pasau zuan... bueno, engaño jittuen. Preparauta jeuazen. Militarrek Partido Nacionalista-ra jua zittuan ta "No se molesten ustedes, eh, porque nosotros estamos con la República y no se muevan pa nada". Eutsi zuan, hogeta lau ordu edo... zortzi... osea, egun bi edo, hortxe eutsi [hari]. Bueno, hor behintzat. Ta guk segiduan "benga!" armak-eta partidu zuan ta... Bizkaittik-eta, bueno, hurrengo egunetan etorri zua kamioiak eta jentia arma bila. Unzagan, aiuntamentu azpitan, partitzen zittuan armak, pistolak. Eta Vitorixara.

- Hori guztiori espontaneua izan zan?

- Bai.

- Herrixa jaiki zan berihala edo pixkat organizauta zeuan aiuntamentuak esanda zeoze edo?

- Ez, ez, hori derrepente izan zua. Osea, espero zan, baiña ez "bueno, ba, hi, preparau ein bihar juau hori". [Militarren kontra ezin leikek preparau!] Pentsaik, estadiak be baekixan hori! Lizenziatzen ekin etsan soldau guztiak. Mordua lizenziak jittuen. Azañak eta honek zerok. Igarri etsen ba, eurak be igarri etsen, ta "benga!" permisuk emon ta permisuk emon. Ta bestiak sostenitzen. Kentziarren, soldauak kentziarren. Zegaittik eze hor geldittu zianak Francoaz-ta harek, ba, nazionalistak eta gorrixak eta dan... Baiña militarrek... ez dakik? Zera sartzen jok. Guk ez jekaun ordenarik eta batak nehi dabena esaten jua ta bestian... Esan gura dot, gure... klaro, ez jeuan preparauta militarmente. Baiña bestiak, mililitarrak... Ta honeri, ba, Vitorixakueri-ta, ba, engaño jittuen ta. Gu [gero] Vitorixara goiazan, Vitorixara goiazan, ta alto de Arlaban. Hamen [jeuazen] zer batzuek, estudiante batzuk, Eskola Armerixan Guardia Zibillen semiak. Bai, Giputxanian jeuazen apopillo. Zera, Eskola Armerixan ikasten. Ta harek be etorri zittuan gureaz. Batak kornetia jotan jua; akordatzen nok, kornetia jotan, allegau giñanian hara. Ta abioi bat pasau zua Vitorixa aldetik Donostiara.

3.44. Gidatzen nola ikasi zuen

- **Hizlaria(k)**: Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-160/020
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:50:40. **Bukatu**: 00:54:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

- **Laburpena:** Gerra garaian txoferrak behar zituzten eta bera ibili zen lan horretan. Gidatzen nola ikasi zuen kontatzen du.

Transkripzioa

- Zu nahiko hasieratik kamioi batekin ibili zifan, ez?

- E...

- Kamioi haundi batekin edo gero kotxe batekin, ez?

- Hori pasau zanian gero, ba, hamen zerian, ba, txoferrak bihar jittuen.

Txoferra, ba... nik ikasitta nekan zeozer, zeozer... Kontatzera najoiak zelan ikasi neban. Ba, hamen Pardo... Pardo zera, dentistia; Pagaegi kalia, Pagaegin jeuan. Pardo. Ba, harek ekan Balilla bat, Balilla bat, Fiat-a, Fiat-a. 6000 pezeta balio eban orduan. 6000 pezeta. Ta hor Isasixan garaje bat; han sartzen jua. Ta enkargaua zuan harena "Txiron", Sarasketa, Gregorio Sarasketa. Ointxe hil dok. Gregorio Sarasketa famosua dok, ba, "Txiron". Ta [horretxeaittik], txofer... osea, zer... autuak saldu eitten jittuan ta hau ta bestia ta. Ta horrek garbittu eitten etsan zera, kotxia, ta preparau ta zera. Ta, orduan,[nobixaorrek —nobixia ekan horrek eta, ...]— neri esan jestan "Hi, etorri hari hona! Neuk erakutsiko deuat zerian, txofer, ta hau ta bestia ta. Baiña garbittu ein bihar dok kotxia", ta garbitzen najuan. "Bueno, ba, noiz erakutsi bihar destak, ba?", aurrerao hori, aurreraotxua, "Noiz erakutsi bihar destak, ba?" ta "Lehelengo ondo garbitzen ikasi bihar dok". Eta atzeratzen, atzeratzen. Baiña zera, giltza ekan zera, txapa bat. Txapa bat zuan, mueska batzueaz, zera. Ta nik orduan be biharra eitten najuan baskulagintzan eitten najuan, ta ein najuan berdiña, trak-trak, giltza [...] emoten. Ta "ra!" emon zerari ta "ra!" martxan ipintzen najuan, ta harutz ta honutz kotxiori barruan, ta. Halakon baten, ba, "Banajoiak kanpora". Ta goixian, ba, seirak inguruan, ezta? Bueno, orduan ez jeuan kotxerik. Geuria bakarrik. Ta urten zaldixan moduan, txaka-txaka-txaka, ta "Mekauen diez! Ba! Bagoiaz aurrera ta". Llegau Isasi gaiñian ta beherutz. Ta igual kotxia, ba, harutz ta honutz, ezin... ezin jua zuzen. Ta "ra!" ta geldittu ta frenua. Ta arrankau atzera be ta "rraaa" keia ta kotxia geldirik! Frenua emonda. Hori morduari pasauko jako, e! Zera, ikasten diharduanari. Ta "Kauen diez! keia etarako ez jok, ba?" ta "ra". Harutz ta honutz. Hurrengo baten Ermura [llegau...] kurba haundixak euazen —oin ez daok, baiña—, kurba haundixak euazen ta eurixa zuan. Eurixa zuan. Ta bastante bixkor edo, bai, bixkor. "Ra!" ta kurbia. Kotxia ekin etsan mobitzen ta nik... azertau be [...], azeleratzen, azeleratzen ni. Frenau baneu, ba, jo-ta ortuak euazen han, ta erreikia be bai. Ta azeleratzen. Ta erroberak "rrrrr" ta hantxe, "dza!" jo-ta urten jua gero pixkat sikatu zanian zera, erroberok, bidiori. Justu-justuan, e. Bueno, ba, kustiñua dok, halako baten "Bueno, hi noiz zertu bihar juau?" ta "Bai, gaur juango gaittuk". Jua giñuan Isasi gaiñera ta "Jarri hari. Aber, primeria hauxe dok" eta "Bai", "Segundia hauxe. Aber, ekixok", ta "ra!" sartu najuan ta "rrr" "tast" ta "rrrr" ta "tak" eta... "Ai, mekauen diez! Zenbat bidar erabili dok hau kotxiu?" ta "Askotan, mutil! Ze ba, hire zain egongo nitzuan?". Bai, ba, igarri etsan harek "Honek bajakik hau ibiltzen". Holaxen.

- Holaxen ikasi zenduan orduan.

- Bai. Hauxe zuan zera.

3.45. Batailoiak; Peña Lemonako sarraskia

- **Hizlaria(k):** Ortíz de Zárate Arrinda, Imanol
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** AB-170/011
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- **Laburpena:** Batailoietan hildako asko. Peña Lemonako sarraskia; euskaldunak euskaldunen aurka.

Transkripzioa

- Peña Lemonan, Peña Lemonan Amuategikuek asko hil zi(r)en. Etortzen zi(r)en ta egunez jota apurtzen eben abioiekin ta hartu...Gero gabien atzera baioneta(...) ta... a quitarles eta holantxeik eta... Ta Peña Lemonan barriz Amuategixa ta beste aldetik, hemendik, frankistak ibili zi(r)en tercio San Ignacio y azpeittiarak, Azpeittia, Azkoitia y tercio San Ignacio, o sea que danak euskaldunak elkarren kontra hor...

3.46. Bilboko bonbardeoa zuzenean bizi izan zuten; exiliora joan beharra

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/005
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Bilboko bonbardaketak ikastolan harrapatu zituen. Lehelengo Frantziara joan ziren ihesi, La Rochelle-ra; gero Belgikara.

Transkripzioa

- Eta gerria hasi zanian orduan han zenden zu? Bilbon...
 - Bibon ne(n)guan ta gero ba, orduan esan eskuen umiekin estrangerora.
 - Hori gerria hasi zan momentuan? Julixuan, edo...?
 - Hasi ta segiduan ez! Lehenego bonbardeuak eta Bilbon pasau genduzen, ikastolan ge(u)ndela, bonbardeuak...Ume guztiekin sartu sala baten ta hantxe pasau.
 - Klasiak jarraitxu zebeu orduan?
 - Bai, pixkat bai, pixkaten e? Baiña gero ya, danak mobidu zi(r)an...
 - Belgikara jua ziñazien zuek?
 - Ni Belgika, lehenego hilla Fran(t)zian ta gero Belgika.
 - Orduan barkoz Frantziara jua ziñazien?
 - Fran(t)ziara, La Rochelera ta han e(g)on giñan hillebete. Ni e(g)on nitzan Sallabenteko batekin juntau nitzan ta bixok e(g)on giñan, hantxe. Baiña alkarrekin ez giñan e(g)on; gu leku baten ta ha ez daki(g)u nun, ez giñan enterau be e(g)in nun e(g)on giñan.

3.47. Exiliorako bidea bakarrik egin beharra

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-178/006
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:14:55. **Bukatu**: 00:16:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Exiliorako bidea. Lagun bi agertu zitzaizkion Margaritari etxean, Holandarako itsasontzia hartu behar zutela esanez. Azkenean lekurik ez eta Margarita bakarrik joan zen atzerrira.

Transkripzioa

- Gaiñera, Fran(t)ziara juatia neria izan zan... gure amak nahi zeban bat kanpora urtetzeko; ahizta bi ge(u)nden etxian ezta? ta anaia ba... frentian edo ebillen. Bat, estrangerora juateko, harek sartuta ekan Bilbon hill e(g)in biha(r) giñala; eske ipiñi zeskuen refugixo batzuk, kale horrek estuok Someratik eta da(g)ozenak..., zaku haundi batzuk hariakin... jausi bazan, ba bonbia ta zakua gaiñera, bonbia ta zakua. Ta batek urten e(g)in bihar genduala, ta ez genduan nahi batak be; ta etorri jatazen lagun bi: "Margarita, Holandarako apuntatzera goiaz"; gure amak: "Bai, hau be apuntaizue". Ta holaxek, bueno, apuntau ninduela ta etorri zan e(g)una, ta Margarita Murgizukin akabau zan listia barkua betetzeko, ta eurak kanpuan geratu zi(r)an, bakarrik ni.

- Azkenian zu bai ta bestiak...

- Bakarrik; ta gero barkuan billau neban ho(r)ixe Sallabentekua.

- Ta barkua ta zeinek ipintzen zeban? Gobernuak?

- Gobernuak bai, gobernuak...Cerverari iges e(g)itten...

- Zer zan Cervera?

- (...) Harrapatzen zittuana barkuak, hor zebizenak...

3.48. Exiliorako bidea: Frantzian egindako egonaldia

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-178/007
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:17:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Frantziako egonaldia. Colegio de Huérfanos de Agricultores. Margaritarekin geratu ziren umeak Algorta ingurukoak ziren. Ume frantsesekin batera egiten zuten bizimodua.

Transkripzioa

- Frantziara heldu eta Frantziatik zelan Belgikara?

- Gero Fran(t)ziatik, ya gobernuak e(g)in zeban Belgikakin kontratua hango arzobispuakin; (bisque.. basques kinder work), pro-niños vascos, e?. Belgikan e(g)itten zeben ba, eskatu, konparaziño baterako, batek "una niña de unos 8 años", bestiak "un chico de tal"; eskatu ta....Ya Fran(t)zian esan zeskuenian "etorri trenera", trenerako ya etorri zi(r)an papelokin. Umiak ikusten ebenian [ume] bat: "tra" bati, ezta? "una niña", ba una niña. Orduan, preparau zittuen ya trenian.

- Ta bitxarte horretan... heldu ta trenera juan bitxarte horretan, nun egon

ziñazien? Refugixoren baten edo?

- Zerian, Fran(t)zian?

- Bai

- Colegixo baten; Colegio de Huérfanos de Agricultores; gizonzkuena.

- (Juanita Arrieta) Ze zonan, La Rochelle (...)?

- Gradignan, e(g)on giñan lekua Gradignan, colegixo eder bat; baiña horixe, umezurtzak.

- Eta ume gehixenak zer zi(r)an, Bilbo ingurukuak esan dozu?

- Bai. Nerekin geratu zi(r)anak zi(r)an Algorta ingurukuak danak. Euskerarik ez zekixen, ez zekixen euskeraz. Ta gero hor, uste dot esan netsuela, umiak e(g)on zi(r)an fran(t)sesekin batera.

3.49. Exilioa: umeekin izandako gertaerak

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/008
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):** Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Anekdotak bat kontatzen du (San Pedro egunean, bazkaltzera joan eta ume euskaldunak ezer jatea nahi... Gaizki-ulertua egon zen, okela beharrean, katua zelakoan).

Transkripzioa

- [Aurreko egunian]...anekdotak kontau ziñuaz oso, oso onak. Zelan zan? Bata, ogixana edo...

- Atzera esan bihar dot?

- Bazkaltzen edo...bai eurak [bixak be] entzuteko!

- Bueno ba, umiak eren -ez dakit- hamabi edo hamahiru edo holaxe zi(r)an.

Ta ze(g)uan frailien artian ze(g)uan, batek txapurreatzen eban pixkat erderia ta ha etortzen zan beti umietara berba e(g)ittera, eurekin berba e(g)ittera. Ta alle(g)au zan San Pedro e(g)una ta bazkarixa eken ederra, ezta?; hasi zi(r)an danak jaten, ta umiak jaten eben ba fran(t)sesekin, nahastian...nahastian... ta hasi zi(r)an partitzen ta aille(g)atzen zi(r)anian euskaldun batera... Bueno, lehelengo jan zebe zopia, ta danak...; gero hurrengokua okelia zan, ta euskaldune(g)ana allegau zanian: "Nik ez dot nahi..."; "Baiña, ederra da(g)o baiña gaur, ta jaizu!"; "Ez, ez, ez...ez dot nahi". ...Kitto!; fran(t)sesak hartzen eben eta atzera euskaldun batera alle(g)au ta: "Nik ez dot nahi, ez jata gustatzen"; "Zela ez jatzula gustatzen, beti jaten dozu ta?"; "Ez, ez, ez...ez dot nahi". Atzera beste bat eta bardiña; euskaldun bat batek be ez zeban jan okelarik, ta fran(t)sesak danak. Orduan, zerbitzen ebena mahaixa jua zan frailiangana... bueno, abadia(ren)gana, gure euskaldun abadia(ren)gana ta esan etsan " Zuen umiak huelgan dare, e? ez dakit zer pasatzen dan, baiña iñork be ez dau nahi jan, ta ez dau jan iñork be" ; ta txokau e(g)in jakon ta jua ta esan eban: "Bueno, zegaittik ez dozue jaten hau?" ta, "Badakigulako zer dan"; "Zer dan?, okelia!". Ta, "Bai, baiña zerena? katuana!"; "Nundik etara dozue katuana dala hori?; zeinek esan (d)etsue?". Ta, "Fulanok...", frailiak, eurekin e(g)oten zanak. Etorri zan frailia ta esan etsen "¿Qué les ha dicho usted a éstos de la comida de hoy?", "Yo nada, que tienen gató (gateau)

en el postre, que tienen gató (gateau) en la comida". Eta bai ba, gató zan ba pastel; pastela eken ta, esan gentsen, "Bixartik aurrera fran(t)sesa ikastera e?".

3.50. Exiliorako bidea: Belgika; bertakoen harrera

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/009
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:21:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):** Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Umeek ez zuten kontakturik etxekoekin. Belgikara joan zirenean, umeak etxeetan banatu zituzten. Bertako ikastetxeetara joaten ziren ikastera eta segituan flamenco ikasi zuten.

Transkripzioa

- Eta umiak eta bazeken barririk gurasuak eta zelan zeren edo?
- Eze(r) be ez, eze(r) be ez... Nik be ez neban jakin, hillebete Franzian e(g)in nebana eze(r) be ez; periodikuetan ikusten gendua, "Bilbao bombardeao" ta hortik aurrera eze(r) be ez.
- Orduan umiak nahiko..., umientzat oso gogorra izango zan?
- Bai...Gero Belgikara jua zi(r)anian ya umiekin ez genduan lan haundirik esateko e(g)in; ze(g)aitek umiak eruan zittuen etxietara danak, ta etxe onetara, ta danak e(g)on zi(r)an han ikusgarri!...Belgikan egon zi(r)anak. Ta lehelengo esaten zeskuen bueno: "Emon bihar dozue egun bi astian doktriña, ze(g)aitek komuniua e(g)itteko sasoian dare umiak eta gertau e(g)in bihar di(r)a". Baiña hille bira edo, danak ekixen flamenko; zela danak (...) kolegixuetara, guk ez gentsen eureri entenditzen eta eurak be ez guri...
- (DoloresTolosa) El valón y el flamenco...
- Si, el francés y el flamenco, pero allí era flamenco, en Amberes era flamenco. Ta jua zi(r)an danak etxietara.
- Eta han hobeto e(g)on zi(r)an orduan umiak?
- Bai, danak ondo.
- Han be ez zebe jakingo...euren etxian...
- Bai, baiña gero bai, bai...

3.51. Belgikako exilioa: familietan eta "La Concordia" ofizinan lanean

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/010
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:09. **Bukatu:** 00:23:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):** Politika » Gerra zibila (1936-1939)

- **Laburpena:** Euskal Herritik joandako maixu-maistrek ez zuten orduan umeekin zeregin handirik eta bulego batean egoten ziren, "La Concordia"-n: kartak itzuli, umeen-familien jarraipena egin, e.a. Ume asko bertan gelditu ziren, Belgikan.

Transkripzioa

- Bai...gu e(g)oten giñan, umiekin zelan ez genkan zer e(g)iñik ya, egoten giñan ofiziña baten "Concordia", ta hamendik bialtzen zittuenian kartak, gurasuak umieri, ba etortzen zi(r)an ofiziñara. Ta han e(g)uan gazte bat, (...) e(g)itten ebana, flamenkuetan, ta e(g)itten zan ba traduzidu; harek flamenko ta frantsez bazekixan, ta guk español ta euskaria.... Bueno, e(g)in tradukziñua ta familixakuekin...; ta gero handik e(g)itten ebenian umiak eta, bueltarako be bardiña; gero gurasuak, hangyak, e(g)itten ebenian, bardiña...

- Umieri orduan ahaztu e(g)in jakuen erderia?

- Segiduan! Segiduan!

- (Juanita Arrieta) Bai, bai, bai....

- Txokatzekua, zu!

- (Juanita Arrieta) Andoni Gisasolak be ekazen 9 urte ta ha gera(t)u zan Gorlizen, gaixorik e(g)uan hezurretatik. Handik, lehelengotik, eruan zittuen horrek gaixuok eta; etorri zanian Jardiñera, tautik be ez!

- Ez, ez, ez....segiduan...

- Tautik be ez baiña, e?

- Segiduan...; hasten giñan pregunta bat e(g)iñ eta, ta...eta erdixa flamenkoz ta...ta ez daki(g)u ba zer esan eskun be. Baiña segiduan laga genduan....

- Orduan gero mantendu zan umien eta zeuen artian relaziñua?

- Bai...; bai, bai, bai....

- (...)

- Sarri etortzen zi(r)an etxe batekuak eta: "Zu juan zaittie gurera zegaittik egun guztian negarrez da(g)o ta zelan ezin daben esplikau, ez daki(g)u zer pasatzen jakon, ta mesedez..."; ta juan ta enteratzen giñan zegaittik zan ta; ba lehelenguan jakiña zan, ez zebeñ aitzen ezer ta negar e(g)ittia be... Beste batzuk segiduan...

- ...Bai, gero norberan...

- Ze edade zeken umiak orduan?. Sei, zortzi, hamar urte?

- A danekuak, danekuak...; bat alle(g)au zan -ez zan jakin sekula be zein zan- ume txiki bat, txikixena danetatik; ta izena geuk ipiñi bihar izan gentzan. Han batenbat barkura eruan eban ta ez daki(g)u gero bitxartian gurasuekin edo zer..

- Eta ha Belgikan gelditxu zan?

- Bai... geratu zi(r)an beste batzuk be bai.

- A bai?

- Ta askok, ya relaziñua... Bueno, Plazen(t)ziako batzuek dakit nik; hiru anaitxo, anai-arreba, zi(r)an bai?, ta e(g)on zi(r)an, harek ipiñi zittuen hiru anai-arreba, ta ipiñi zittuen hiru familixatan, baiña hiru anai zi(r)an harek [guraso hartzaileak]; gurasuak hiru anai. Así que "mi padre" oin esaten dabe ta "mi padre" ta "mi tio" ta haren notiziak; ta oin be harek etortzen di(r)a hona, ta honek juaten di(r)a hara ta jarraitzen dabe, baiña oso oso familixako...

3.52. Gerrako umeak: exiliotik etxerako bidea

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/012
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Herrietako egoera hobera egin ahala, gurasoek seme-alaben itzulera eskatzen zuten. Guztira 2 urte eta 3 hillabete egon ziren Euskal Herritik kanpo.

Transkripzioa

- Zelan gogoratzen dozu orduan zuk Belgikan pasautakua?
- Ederra, ederra, eder-ederra. Gero hasi nitzan ba notiziak eukitzen familixakuak, ba ya ez zan falta... Gero, kolonia bat preparatzen zanian ekartzeko...Bueno, hamendik Espaiñiatik abixatzen zan ba eskatzen bakoitxak, ba(d)akizu herrixa liberatzen zanian, ba gurasuak umia eskatu e(g)itten eben; ta listak, lista bat e(g)indakuan hartu ta ekarri e(g)itten zittuen. Etorri giñan..., behin tokau jatan etortzia frontierara la(g)untzera, baiña sartzerik ez ze(g)uan. Apuntatzen giñan danetarako ta pentsauta: "Bueno, laster goiaz etxera", ta e(g)un batzuk aurretik "Denegado el permiso, denegado el permiso".... kitto!; ta atzera bertan geratu bihar...
- Bueltatzeko gogua zekazun zuk?
- Baai...Danok!, danok!; etxeko zeozer jakin ta!. Baiña ondo gendela bai, e? Ikusgarri.
- Ta zenbat denpora azkenian Belgikan?
- Bi urte eta hiru hillabete.
- (Juanita Arrieta) Jesus..! ¡Mucho!
- Bai asko, asko. Bai, harek flamenkuak, horrek gaztiorrek esaten (z)eskun: "flamenkua ikasi bihar dozue... " , ta "Bai, segiduan jun bihar gara ta....; hobe do(g)u fran(t)zesa, zeozertarako han balioko dosku fran(t)zesak". Ta ez giñuan... Da, hainbeste denpora e(g)on ta gero, esan genduan "Ba hasi e(g)ingo gara..."; ta hasi giñanian, etxera, etxera...
- (Juanita Arrieta) Ura juan ta presia e(g)in zenduen orduan?
- Bai, bai. Ta nik harekin euki dot, neuk be, korrespondentzia; ointxe, azkenengo, heldu jata azkena denpora gitxi dala.
- Belgikatik, e?

3.53. Euskaldunen laguntasuna exilioan

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

- **Laburpena:** Belgikan bizi ziren euskaldunen laguntza. Jaiak antolatzen zituzten ume exiliatuentzat dirua lortzeko. Gregorita Olañeta eta William margolaria.

Transkripzioa

- Esan ziñuan han asko lagundu zetzuela eibartar batek, ez?
- Bai, bai...Gregorita Olañetak.
- (Dolores Tolosa) A, Gregoritik?
- Bai...
- Eta zelan laguntzen zeban harek?
- E?
- Zelan laguntzan zeban edo?
- Ba, e(g)itten eben lantzian behin "kermes" esaten jakon; jaixak, euren jaixak, euren San Juanak zi(r)an kermesak. Ta e(g)itten eben ba, errifak eta dantzak eta bueno, gauza asko, ezta?. Ta errifetarako emoten zittuen kuadrak Williamek pintxautakuak eta Goyak e(g)indakuak; Gregoritik e(g)indako tetera batzuk, politxa(g)uak bai, hilandera jantzitxa, e?, teteria tapatzeko... politxak!; halakotxe gauzeekin, gauza askokin... Ta gero bazkaltzera eruan hara... sarri, sarri gu na(g)usixok. Esan netsuen; agertu zi(r)an Eibarko arkitektoa Manchovbas bere andriakin ta umiekin. Ta gero donostiar bat ta beste bilbotar bat eta...; na(g)usixok inbitauta juaten giñan euren etxera.
- Gaiñera bizi zirala e...
- En el palacio de Rubbens. Geu geundela han, hasi zi(r)an preparatzen museo bat e(g)itteko, museo bat. Orduan pasau zi(r)an Villa Willian, beste txalet-txo batera...
- Willian hori famosua zan han?
- Bai, bai... ta haren aitta, haren aitta izan bihar zan pintxore famosua ze(g)aittik ayuntamientuan e(g)uazen mural batzu harek pintxautakuak.

3.54. Exiliotik itzuli eta Eibarko egoera zein zen

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/018
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:34:12. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):** Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Belgikatik itzultakoan, Eibar haustuta topatu zuen. Ardantza ingurua; erreka. Amberesetik etorri eta dena "txatxarra" begitantzen zitzaion.

Transkripzioa

- Belgikatik bueltau ziñanian, zelan topau zenduan Eibar?
- (Dolores Tolosa) Haustuta, haustuta...
- Haustuta ba... Etxe aurria be, dana haustuta...
- (Dolores Tolosa) Rajao...
- (Juanita Arrieta) Zuen etxia, zuen etxia... Ez...
- Ez. Bueno baiña gure etxia, Ardantzan bizi giñan orduan ta... Bueno, Bilbon bizi giñan...
- Ardantzara alle(g)au barik, hantxe zubixian bizi izan ziñazien zuek...

- (Dolores Tolosa) Zubixa ez, ha zan topia. Haren behian e(g)uan errekoa.
 - Bai, bai...Zubixa...
 - (Juanita Arrieta)...eskillarak igotzeko...
 - (Dolores Tolosa) Ha plaza aurreko iturritik, zerian bizi zan, hau hantxe zerian...
 - (Juanita Arrieta) Kantoian?
 - Bai, nik Dos de Mayo holaxe nekan. Nere kuartotik holaxe zuzen e(g)uan dos de mayo...
 - (Dolores Tolosa) Dos de mayo lehen, oin dan erdixa zan. Erdixa..
 - Zuek be rekuerdo hori dakazue gerrakua?
 - Dana hautsa, dana eskonbrua, dana...
 - Baiña zure etxia zutiñik geldittu zan?
 - Ah! Horixe esatera nindoian. Guk genkan etxia ta gero albuan holan, taillarra. Ta taillarra zisko e(g)inda, baiña etxia osorik.
 - Eta taillarra be zeuena?
 - (Juanita Arrieta) Ez...
 - Bai, taillarra bai.
 - (Dolores Tolosa) Luis (...) terrenuetan taillarrak eta, tallartxo mordoskia e(g)uazen.
 - Etxian topian. Etxia zan hola ta haren behia ta hemen albua taillarra zan. Okamikatik e(g)itten eban...
 - (Juanita Arrieta) Bai Okamikanekuak. Han (...) akabatzailliak e(g)oten (j)ittunan han behian.
 - Betolazanekuan han ostian...
 - Gogoratzen zara lehenengo inpresio hori, justo gerria amaittu eta Belgikatik etorri eta lehenengo aldiz Eibarrera sartu ziñanian?
 - Dana be(g)ittantzen jatan txatxarra, dana txatxarra; txikixa ikusten neban dana.
 - Bai, bai...hain leku haunditik etorritakuan...
 - Bai ba...!

3.55. Euskararen egoera gerra zibilaren ostean

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-178/020
- **Iraupena**: 0:00:11. **Hasi**: 00:38:05. **Bukatu**: 00:38:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Euskararen aldeko mugimendu handia Bilbon. Gerra ostean euskaraz berba egiterik ez zegoen; umeei euskarazko izenik ipintzerik ere ez.

Transkripzioa

- Lehen aittatu dozu gerra aurretik eta, Bilbon eta, euskerian aldeko mobimientua nahiko inportantia egon zala ez? Gero gerriak hori guzti hori...
 - Ene...Hori ta gehixa(g)o... Dana behera. Izenik be ez eben lagatzen euskeraz.
 - (Dolores Tolosa) E?
 - Izenik be ez eben lagatzen; hitz e(g)itterik be ez ta...

3.56. Gerra Zibileko frontea 7 hilabeteen baserri ondoan

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/008
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra Zibila hasi zenean Euxebik 14 urte zituen. Gerra zibila nola bizi izan zuten baserrian. Milizianoak Gorostiatatik Usartzara eta handik Akondiara. Reketeak beste aldeko tontorrean. Frontea bertan egon zen 7 hilabeteen.

Transkripzioa

- Eta gerria etorri zanién, ha zan... Ene! Oin be... [Ha...] be bazan ba gauzia tristia! Etorri zan gerria, bueno, gerria hasitta e(g)uela baiña, hasitta e(g)uela baiña... Setienbrian... Horrek [uste dot]... urten eñ eban juliuan hamaseixan, hogeta hamaseixan, juliuan hamaseixan, Carmen Eguna [izaten da] ta orduantxe. Eta gu gari-ebaten edo... ni merienda eruetera edo ez dakit zer, neska koskorra nitzen, hamalau urte oindiok [baiño]... Ta [...] zelan esaten eskun [batzutan] "Bueno...! Ebagi! Ebagi! Jango dittugu guk eta!" [...] Hori holan pasau zan ta gero zan setienbria. Hor beste basarri zahar bat gure aitta zanak eta errentan hartuta, bedarrak ekarteko ta handitxik bagentozen ta Gorostixa aldien gora, sekula holako gizon pillarik...! "Ene ba! Zer da hori? Jesus, Maria eta Jose!" [Hirurehun bat lagun edo...] ta puf! Halako bildurgarririk! Ta, klaro, harek zien milizianuek ta hamentxe aurreratxuago e? Bertan, hasi die tiroka... Ene ba! Ointxe be hotzikaria [etorten jata]! Gaztie be bai ta... "Ene ba! Munduan azkena! Kitto! Munduan azkena!" pentsau genduen ta juen giñen besteko kortara, orduen bi etxe ta bestera, han hobetotxuago ete ge(g)uezen edo demontres! Ta horraittio, pixkaka, pixkaka, pixkaka igo eben Usartzaraiñok. Eta gero Usartzatik, Akondia mendixa jakingo dozu nun dagon... Akondia mendixan jarri zian milizianuak ta reketiak esaten jakozenak beste aldeko tontorrien. Ta ein zittuen zazpi hillebete! Ha zan zera e? Ta hona...

- Ta zuek?

- Gu hamentxe, ixilik eta "callando". Ta estu! Ta gero, gure ama, Arraten Muitza-barrikua, ez dakit dakizun Arraten... horrek Aldazabalok... bai, hangotxia. Eta, klaro, han ezin egon, ba, Arratetik... ta harek familixa guztia hona etorri zien, gurera.

3.57. Gerrako frontea; familiaren bizimodua erabat aldatuta

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/009
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:13:38. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena:** Ama, Arrateko Muritzaberri baserrikoa. Gerra zibila zelan bizi izan zuten baserrian. Taloa nola egiten zuten. Hegazkin asko pasatzen ziren eta hasieran beldur pixka bat. Hegazkin bati "Abuelo" esaten zioten egiten zuen zaratarengatik; bonbak jaurtitzen zituen.

Transkripzioa

- Ta gero, gure ama, Arraten Muitza-barrikua, ez dakit dakizun Arraten... horrek Aldazabalok... bai, hangotxia. Eta, klaro, han ezin egon, ba, Arratetik... ta harek familixa guztia hona etorri zien, gurera. Eta gu familixa bi egon giñan hementxe. Ta hau bentaniau [gendun] koltxoia ipiñitta, eske balak etortzen zien! Bai, ba, eske [hurrian] e(g)uan ta balak etortzen zien. Gu hamentxe, talua jan ta isi-isi-isilik!

- Larri, orduan?

- Bai, bai, bai, bai... larri! Enee!

- Baiña, larri... bildurra edo gosia edo...

- Lehelengo billurra, gero... Ez, goserik ez gendun euki Jainkuari eskerrak! Ez, ez... Garixek entregauta tokau zan. Nik ez dakit ba, [zela] sekula ez ta aiuntamentuak entregau eragin zittun garixak aurrerago e? Erun zien garixok eta kitto. Ta gero gerriorek urten, baiña artua bageunken e? Orduan... oiñ ez da hartzen, baiña orduen arto pillia hartzen zan! Askok! Ta hemen geunken beheko sua, geunken lehen, gero kendu genduan baiña... Ta gure tia, nere tia bat, soltera bat, oso talo-erretaille ona zan, e! Eitten zittun talo batzuk...!. Lehelengo, zuk ez dozu jakingo baiña, paria izeten da ta paran ipiñi [bueltan] ta gero treberia esaten jakon holan, [hau] treberan ta "sssss" holakotxe [... botillek?] lakotxiek e! Ba jan gendun talotan...! Maria santisima! Goixien, eguardixen ta gabien! Ta eguardixen ta gabien nik ondo, goixekuek emoten (z)ostan "ño!" atzerakadatxue baiña eguerdikue ta gabekue ondo. Goserik ez genduan euki e! Goixekue beti [kafetesne?...] ta "ño!" astuna begittantzen jatan! Baiña, bueno! Pasau zan ha be! Goserik ez e! Ez, ez, ez, ez... ez gendun euki goserik. Eta gero, badakizu, familixa haundixak eta hainbeste jente ta gure tio zanak, hemen... Aldazabalen ta aittittak, "Artua topau bihar juat, gastau ein bihar [jakuzak] eta!". Juen zan horra Bariñako etxe batera, eta ekarri zeban beste arto pillia bat, asieske, ondo... Bai, bai, bai... Ondo egon giñan, e?

- Bildurra pixkat, baiña...

- Bai. Gero etortzen zien abioiek be, "abuelo" esaten jakon bat... "Abuelo" esaten [notsan nik], ipiñitta izena aeroplano bati ta...

- Ta zegaittik?

- Ba, "raun, raun, raun... raun, raun, raun... raun, raun, raun... raun, raun, raun... !" [Horixe] martxiau ekartzen eban ta harek bonbak batien, bestien bestiak jo-ta botatzen zittuen ta... "ño!", kezkoa emoten eban e! Baiña...! Ta holan pasau gendun gerratia!. Ta gero etorri zan azkena ta [...] milizianuek [...] zien batzuk, e? Talua [jatera...] ta emoten jakuen talua ta esnia ta... batzuri ta... gero hemendik jun bihar zanian, haxe zan egun txarra.

3.58. Marcanotarren historia

- **Hizlaria(k):** Marcano Muguerza, Niceto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-284/003

- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Errepublikaldarrikatu eta urtebetera jaio zen; horregatik jarri zioten Niceto izena. Aita eta Marcanotar guztiak sozialistak ziren. 1934ko urriko iraultzan parte hartu zuten eta gerra garaian jazarpena ezagutu zuten. Valentziara ihes egin behar izan zuten aitak. Ondoren Frantziara.

Transkripzioa

- Zu noizkua zara? Noiz jaixua?
- Ba, esaktamente, Republikako eguna... urtebetera. Ta gaiñetikan Niceto izena, asike... Itxuria nere aittitan zera zan ipintzia Niceto. Klaro, Alcalá Zamora jeguan orduan ta... urtebetera jaixo nintzan ta, ba, "hau Niceto izan bihar da", ba, bueno... Niceto. Gero danak esaten deste /esateste/: "Hi republikanua izango haiz", ta "Ni? Zegaittik ba?", "Joe, 14 de abril ta Niceto ta zera... republikanua derrigor izan bihar", "Bueno, bueno, lagaidak bakian".
- Boleto guztiak zekazuzen baiña, ez?
- Bai, baiña ba... Nik uste dot lehelengo pertsonia izan bihar dala ta gero gero politikua ba zoyer, baiña lehenengo personia ta aurrekuari be errespetau.
- Familixia zer zan republikanua edo?
- Nere aitta sozialistia, bai bueno anai guztiak. Anai guztiak horregaittik, klaro, errerepublikako zerian urten ebenian be, oktubrian, hogeta hamalauan, ba, hor tartian ibili zian. Ta gero, ba, gerria urten ebanian, ba, pixkat persegiduta. Pixkat ez, asko. Ta aittan anaiak, Santi ta hau Angel, ba, afusillau ein zittuen. Ta nere aitta be persegiduta egon zan ta Valentziara ihes ein eben, ta gero handikan Toulouserara. Ta han egon zan, ba, berrogeta bat arte edo.
- Ta gero bueltau ein zan Eibarrera?
- Bai, Eibarrera bueltau zan. Ta Eibarren be leheneguetan gaizki ikusitta ta larri. En fin... ta horregaittik ez eben eukitzen gogorik berba eitteko, zelan izan zian gauzak gerrako gauzak eta ez... nahixau eben ez berba eittia. Horregaittik ba detaille asko ez dakigu bihar dan moduan, zelan diran, baiña...

3.59. Eibarren frontea zegoela, Valentziara bizitzera

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-022/004
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, Benignak 14 urte zituen. Gogoan du eskolatik atera eta Bilbora nola joan zen; handik Valentziara joan behar

izan zuten. Zortzi hilabetez egon zen frontea Eibarren. Aitak Bilbon lan egin zuen, eta gerora, handik alde egin behar izan zuten.

Transkripzioa

-Gerriak urten ebanian nik nekazen hamalau urte orduantxe kunpliduta. Ni San Pedro egunekua naiz eta dieziotxo de julion hasi zan eta nik hamalau urte justo orduantxe nekazen. Ta ez dakit zenbat...

-Eskolia amaittuta zuk ia?

-Orduantxe amaitzeko. Nik eskolatik urten neban. Eskolan neuan orduan, todabia, oindiok eskolan.

-Bai, e, julixuan?

-Bai, bai, eskolatik joan nintzan ni, eskolatik joan nintzan Bilboraiño eta gero bueltaka-bueltaka-bueltaka Valenziaraiñok.

-Akordatzen jatzu eguna zelan izan zan?

-Ez nai ba akordauko, gerria-ta ez nai ba akordauko? Ta gero, klaro, frentia honutz-honutz etorren da Eibartik joan bihar izan... Zortzi hillabetian egon zan gero frentia gero Eibarren, e! Ta gu ez, gu Bilbon.

-Zuek gerria hasi eta ia...

-Bilbora. Bai, bai, eske honutz etorren gerria ta. Bilbora joan giñan. Eta gero Bilbon zera euan, industria ipiñi eben Bilbon eta nere aitta-ta biharrian han eta hantxe egon giñan. Eta gero gerria aurrerao joan zanian industria joan zan Cabezón de la Sal, Asturiasera erua'eben; eta gero gerria gorutz doiala ipiñi eben. Frantziatik bueltia hartu, osea zerera urten, Frantziatik bueltia hartu eta Bartzelonatik Valenziara.

3.60. Alberic-en (Valentzia) lantegia gerra garaian

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-022/005
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:12:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena**: Erefuxiatuak kontzentrazio-esparrura joaten ziren, baina Benigna eta etxeokak Alberic-era (Valentzia) joan ziren, aitak bere industria jartzeko aukera izan baitzuen. Beraien lantegian, armak egiten zituzten, eta langile gehienak eibartarrak ziren. Orduko nagusiak izendatzen ditu.

Transkripzioa

--Eta Valenzian armau zan atzera, hiru industria armau zian, eta kasik danak eibartarrak zian.

-Zela zan?

-Alberique, Alginet eta Buñol zian.

-Eta han egon ziñazien zuek?

-Bai. Nere aitta, hiru, lau gizon, gu joan giñen zer espezialakin, osea, refujiauak Frantziara ailegatzen zianian "campo de consentrasion" edo hantxe zertzen eben, baiña guk lauk euki eban gure aittak zer espeziala zera, industria bestekaldian zertzeko hasteko, armerixa ipintzeko. Gu ez giñan geldittu Frantzian, bakarrik gau bat egin genduan, gero Frantzia

pasau dana ta Barzeloraiño joan eta gero Barzelonatik Valenziara.
 -Eta Buñolen?
 -Alberiquen. Lelengo egon giñan Alberiquen. Eibartarrak lelengo formau zian Alberiquen, eta gero Alberiquetik Alginet-era hogei bat kilometro-edo eozen, da nere aitta bialdu eben atzera Alberiquetik Alginetera atzera industria montatzera.
 -Orduan gerran inportantia zan armagiñak-eta.
 -Bai. Gure zerak eitte'eban pistolak, gure fabrikiak eitte'eban pistola. Ta Alberiquekuak eztakitt ze itte'eben, metralleta-edo, eta Buñolen ez dakitt ze itten zan, ez nai akordatzen Buñolen ze itten zan.
 -Eta hango bihargiñak asko ta asko eibartarrak?
 -Bai, danak, danak, maiorixia eibartarra. Eibartarra edo hamengotxia. Hamengotxia maiorixia.
 -Eskola Armerixako jentia?
 -Bai, bai, bai, bai. Iburguren izan zan Alberiqueko direktoria, Jose Iburguren izan zan Alberiqueko direktoria, eta guk ekagun direktoria Manuel Domec Alberich zan. Eibarren bizi zana, e. Eta bere aitta izan zan "el jefe de talleres" han ta...

3.61. Gerra garaian Valentziara ihesi

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-022/006
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:12:12. **Bukatu**: 00:15:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerra garaian Valentzian bizitzen egon zireneko bizimodua, etxejabea eta ingurua deskribatzen ditu. 15 urte zituen orduan eta lantegiko ofizinan egiten zuen lan. Nazionalek Valentzia hartu zutenean, gerra amaitu zen eta Eibarrera bueltatu ziren.

Transkripzioa

-Eta nun bizi ziñazien?
 -Ba etxe bat. Rekisau eben etxe... ekazen lekuan eta guri tokau jakun; ta andria bakarrik, alarguna zan eta seme bat bakarrik ekan eta edadekua zekan eta zerian euan...
 -Frentian?
 -Frentian ez, Prieton eskoltan. Ta zan jauntxua, herriko jauntxua zan. Baiña lekua ekan eta ba hantxe. Eta hantxe (...) bihar izan giñan, berakin.
 -(...).
 -Ez, danak. Bi be bai. "Treinta y seis"ian zertu zan eta "treinta y siete", pare bat urte Valentzian.
 -Eta zer moduzkoua zan hango bizimodua?
 -Guretako normala. Gu joan giñanian; badakizu, gerran gauza asko pasau zian, hamenguak eta hangiak eta hamen be eta han be joan zianian ba euren zerak... danak egon zian-ta. Horrek danak gauza guztiok pasauta euazen gu jua giñanian, eta osea zan kalma; bai, bakea. Eta gero pasau zan obretan, obrak eta gauzak-eta, jentia kolokau ein zan biharrian, kolokau zan fabrikan, eta herrixa jaso in zan, eta guri rarua pentsatzen jatzun, egunero plazan, elixian plazan aurrian obreruak joaten zian elixian

aurrian, ezta? eta zerak, ortuak eta gauzak ekezen zerak, haren enkargauak juaten zian plazara-ta, ta hau ta hau ta hau ta hau, eta egunero... Eta guk esaten genduan: “baiña ze-ze, hau jentiau ze, zelan dok?”, eta ba holaxe. Eta apartatzen zittuen eta ba ez ebena apartatzen ba bihar barik. Eta gero asko ba kolokau zan. Obrak barrixak in zian, nabe barrixak eta gauzak in zian fabrikan-ta, ba bihar asko euki eben. Ta gero han andrak pe bai, sekula ez eben andrak han biharrik eiñ, baiña taladruetan eta gauza askotan sartu zan andria be.

-Eta zuek umiok ze bizimodu zekazuen?

-Ni umia? Hamabost urte nekazen da ni ofiziñan neuan.

-Biharrian zenden?

-Ofiziñan. Ni ofiziñan neuan eta nere anai gaztia-ta ba eskolan-ta ba.

Normala, ustez e, ez zan ez genduan esturaik bape pasau. Estuasunik bape ez genduan.

- Umiendako ze zan, gerria zeuanik...?

-Ezebez, ezebez. Sirenia joten eban behiñ edo behiñ, baiña gure aldian ez zan ez bonbardeorik ez. Bilbon bai ikusi genduan, Bilbon ikusi genduan bonbardeuak eta refugixura joan biharra eta horrek bai, baiña Valenzian ez, bapez. Eta gero gerria akabau zanian be ez zan egon “Ba zuek kontrakuak zarie”-edo. Ez, ez. Han jendia konpletamente normala zela zan eta han herrixak, jaso ein zan herrixa, biharra eken-ta, biharra eken-ta. Ez, ez zan egon bape. Etxera etortzerako baiña ez detenziñorik-edo, ez ezebez, ezebez.

-Valenziatik zuzenian Eibarrera?

-Eibarrera.

-Valenzia hartu zebeñian nazionalak...

-Gerria akabau zan, akabau zan gerria.

-Beste batzuk Barzelonara-ta...

-Ez, Barzelonara... Teruel hartu ebenian, Barzelona ta Valenzia erdibittu eiñ eban, erdibittu eiñ zan, Valenzia eta Barzelona, baiña ia hartzen-hartzen bapez, bapez. Eta ia Valenzia eta Barzelona... Barzelonakuak Franzia jua zian baiña gu Valenziakuak ezin jua.

3.62. Aitak ipini zuen errepublikako lehen bandera

- **Hizlaria(k)**: Kareaga Guridi, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-041/008
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:14:30. **Bukatu**: 00:17:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Aitak jarri zuen estatu guztiko lehen bandera errepublikanoa. Ez zitzaion esatea gustatzen, beldurragatik. Aitak gerora kontatu zionez, epaiketa orduan epaileek jakin izan balute, fusilatu egingo ei zuten.

Transkripzioa

- Eta, gaiñera, republikako banderia ez zeban Mateo berak ipini edo zelan zan historixia?

- Bueno, hau geure artian, e? Hara, neuk esango deuat. Batak ipini ebala ta bestiak ipini ebala ta... gure aittari ez jakuan /etxakuan/ gustatzen hori

esaterik be. Itxuria oindiok karzelatik urten ta gerora be bildurra ekan, zegaittik eze berak ipini juan. Ta zelan ipini eban? Ba, alkate txikixak, Alejandro Telleriak esan ei jetsan: “Hara, Mateo, heu haiz bai konzejalik gaztena ta heuk ipini bihar dok banderia”. “Bueno, bueno”. Ta esaten eban gure aittak... Behin kontau estan, e, taillarretik etxera goiazela hara. Edo behin edo birritan gehixao ez. “Hara, banajekan bildur bat...!” Akusaziñuak, hamen denunziak eta Eibartik eta jentia... beti egoten dok. Ointxe be bai, eztakik? Chivatos y tal, ointxe be egongo dittuk. Egon leike tendenzia. Baiña orduan, ba, hau izan zala ta bestia harutzaokua ta, jode, hamen jeuan... Izenik be ez najoiak esatera, hilda jauaz eta, baiña denunziantiak txarrak. Ta esan ei etsan: “Heuk ipini bihar dok banderia” ta “Bueno”, ta ipini juan. Baiña hori juiziuori ein etsenian, iñori ez jakuan akordau hori denunziori sartzia, zeaittik esaten eban gure aittak: “Bateonbateri akordau bajakuan denunziazia Mateo Kareagak ipini ebalu bandera republikanua Espaiñian lehelena... afusilauko najinduen, baiña gehixao pentsau barik. Eztakik?” Ta ez juan /etxuan/ nahi izaten aittatzerik be. Neri be hori kontau esaten aittak gerora, e, gerora. Zeaittik eze, badakik, edozer gauza pasau leikian oindio. Joe, Frankismua [gaur egun]... Frankismua bigundu zuan, baiña bigundu zuan, hi, politikan sartzen dana, hareri... zera, hor joten jetsen, baiña ez bahintzan sartzen, bakian lagatzen zeben. Baiña badaezpada kontuz ibili bihar izaten zuan.

- Baiña, bueno, ez jakon gustatzen kontatzia, baiña historixako [...].
- Holaxen dok, holaxen dok.
- Eapaiñian lehelengo aldiz bandera republikanua...
- Eibarren.
- Eibarren ta zure aittak.
- Bai, ta ez juan kontatzen harrokerixa moduan, e! Neri behin kontau estan ta pixkaten gaiñera, holan... ño! detalle ta guzti, ezta? Zegaittik ipini eban ta zegaittik esan etsen ipintzeko ta bestia ta harutzaokua. Porke badakik halako zirkunstanziatan ze pasatzen dan, asko egoten dittuk “que dan el pecho”, eztakik? “De fotografía”, hantxe agertu bihar, ta primera linean.

3.63. Gerra hasi zeneko giroa

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-046/002
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:00:20. **Bukatu**: 00:02:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Elgoibarren zeuden gerra hasi zenean, lanean. Larunbata zen. Francon aldekoek, buru zirenek, besteek baino informazio gehiago zuten eta Lizarrako trena hartu eta alde egin zuten; bazekiten gerra zetorrela. Besteek ez zekiten zer ari zen gertatzen. Hasi zen gerra berotzen. Batailoiak geroago sortu ziren. San Andres Egunerako batailoiak eratu ziren. Beraien batailoia Mundakan zegoen eta Orduñara eraman zituzten geroago.

Transkripzioa

-Proklamaziñua, gerria, zela enterau ziñazien?

-Agustin: Elgoibarren genden gerria hasi zanian.
 -Biharrian egongo ziñaten?
 -A: Klaro.
 -Bartolo: Zapatua izan zuan. Zapatu bat izan zuan hori. Batzuek Eibartik gero nausi izan zienak Francon aldekuak Zapatu eguardixan trena hartu eta alde ein juen batzuek. Nik ezautu nittuan batzuek alabia zeken, Abalosen zeken alabia pleuresia pasau ta ondoezik. Haren gurasuak eguardiko trena hartu ta orduan Estellaraiño zeon ba trena hemendik, Eibartik, joan ein zian eta akabo, harek han geratu zian, librau ein zian. Bestela harek Mobimentoko organizadoriak zian ba eurak.
 -Eurak bazekixen orduan bazetorrela.
 -B: Harek bazekixen. Noiz ez baiña, eguna egunak ez, baiña bestela bai bai. Gertatzen zebitzen eurak eta.
 -Eta zeuek?
 -B: Gu etxian hementxe Eibarren. Zeoze pasatzen zala. Gauza garbirik ez ba iñok.
 -Eta enterau jentia esanda edo radixua edo?
 -B: Gero bai, gero mobimentua hasi zan. Bata ta bestia, aiutamentuak eta. Mobimentuan hasieria [...] ze pasau biha zan, iñok ez zekixen hasieran ze urtengo zaban. Horrek eukitzen dabe hasieria jakiña baiña azkena ezta jakitzen. Noiz izango dan be ez ta. Hasieria hola izan zan. Iñok ez zekixan ezer, eta hau ta bestia, militarrek han mobidu ein ziala eta bestian preso hartu zittuela ta, hasi zan gauzia berotzen. Gero akabo.
 -Eta batailloiak eta?
 -A: Batailloiak gero formau zian, gero formau zian, berandu formau zian batailloiak. Lelengo hamen ibilli zan jentia ahal dan moruan.
 -B: Agostua be pasauko zuan hurren baten.
 -A: Berandua. San Andres egunian...
 -B: San Andres egunerako ia urtenda euazen batailloiak.
 -A: Agosto, agosto... Setienbre inguruan formauko zuan Gernikan batailloia.
 -B: San Andresetan ni gogoratzen naiz, gu Mundakan geuazen, Mundakan gure batailloia, eta Durangora etorri giñazen, eta Durangotik beste batzuek pasau zian ba Billarreal hartzera. Billarreak militarrek militar [...]. Gure batailloia eruan juen Orduñara.

3.64. Villareal herrira 15.000 soldadu

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-046/003
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:02:42. **Bukatu**: 00:03:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Espainiako Villarrealera 15.000 soldadu bidali zituzten Euskal Herritik eta inguruetatik, baina ez zuen balio izan. Bertan zeuden Guardia Zibilak, lauzpabost, profesionalak ziren; eta, dorretxetik, metraileta batekin egin zieten eraso. Gainera, lautadak ziren bertan eta ez zuten aukerarik izan aurrera egiteko. Bertan gelditu zen frontea. Albertia mendian pasatu zituzten Gabon batzuk, mendi punta zuritu batean.

Transkripzioa

-Agustin: Hori Billarrealkuoi dok, bueno-bueno, desastre padre. Hamabost milla lagun ero joango giñan gu, eztakit zenbat batailloi, sei edo zortzi batailloi edo. Eta erek Billarrealen eren blokau baten lau bat guardia zibill egongo zian-da. Da torrian ametrallador bat soldau bikin, soldau bikin.

-Bartolo: Hainbeste jente bestekaldetik baiña alperrik.

-A: Hamar metro ez genduan luzetu, hartu ez herrixa, hartu ez.

-B: Harek han zeozenak ofiziokuak eta hor zoiazenak danak nobatuak esaten dana.

-A: Paraje laua zelan zan, gaiñera, ametrailladorak torretik tarrarraa ta.

-B: Otxandixo aldetik Billarreal alderakua lau dok.

-A: Gu barriz [tekun!] sekula tirua entzun bakuak eta jota...

-Hanka.

-A: Baiña gero hantxe egon giñan.

-B: Geldittu ein zan frentia bertan.

-A: Gabonak Albertia puntan pasau najittuan nik edurrakin, edur galantakin. Albertia daok mendi bat zeretik han Bitorixako punta baten.

-Zu Loiola Batailloian ibilli ziñan?

-A: Loiolan, bai.

3.65. Ertzain ordu batzuetan

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-046/004
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:03:58. **Bukatu**: 00:05:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Ordu batzuetan ertzainak izan ziren. Bilbon ziren eta hurrengo egunean lanera joateko deitu zieten. Momentu horretan Bilbo bonbardatu zuten Francoren batailloiek.

Transkripzioa

-Eta esan zestazun ordu batzuetan ertzaiña be izan ziñala, ezta?

-Agustin: Nik, ertzaiñara joan giñan esamiñatzera. Esamiñau giñan eta esan eskuen bueno, bixar etorri uniformia hartzera.

-Bartolo: Uniformia hartzera ia ontzat emonda.

-Bilbora?

-A: Bilbon, Bilbon genden. Hotel baten genden gu eta esan detsudana, zereko asaltua ikusi neban nik, Larrinagakua.

-B: Baiña horrek atrasku horrek hasieria badakak. Francon abioiak etorri eta Bilbo bonbardeau eben. Eta gero alde ein zebenian abioiak ba jentia karzeletara preso zeozenak e...

-A: Zera hil juen, pilotua hil juen. Pilotua hil juen, egun guztian, egun guztia erabili pilotua Bilbon bueltaka.

-Kalerik kale.

-A: Kalerik kale. Ta berotuta euan jentia, ta Larrinagako kartzelia, baiña joango zian, hamabost milla lagun joango zian, ha asaltau eben da danak hil zittuen.

-B: Barruan zeozen danak hil zittuen.

-A: Eta nik ha ikusi nebanian, ha kasua ikusi nebanian, esan netsan ze;

atzera frentera. Eta komandiak esan estan: "Hi zetara hator?", "Fari heu nahi bok han, nik ez juak nahi harek ikusterik, nahixo juat frentian ibiltzia". Eta gero frentian pasau genduan Limpiasera arte. Beti atzerutz baiña, e, aurrerutz sekula bez.

-B: Beti aurreruzka baiña atzerago. Atzera behin bez, beti aurreruzka.

3.66. Hamar lagun Isasiko komentua zaintzen

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-046/006
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:05:50. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Batailloiak sortu aurretik, Eibarrek normal iraun zuen. Hamar lagunek Isasiko komentua zaintzen zuten. Hiru moja erretiratu ziren baserri batera. Gertaera bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Batailloia formau baiño lehenago...

-Bartolo: Hau ibilli zan.

-Agustin: Esan netsun ba. Lelengo egon giñan hamen konbentuan. Eibar normala izan zan gerra denporan. Hamen ez eben elixarik atakau ta monjarik eta fraillerik eta abaderik eta iñobe ez eben atakau hamen. Hamen normala izan zan. Baiña konbentua zaintzen egoten giñan gu hamar lagun edo, lelenguan bost bat zerian da. Isasiko konbentua. Da akordatzen jatak gauza bat: hiru monja neuk erretirau nittuan zeera, Zeanurikua zan bat, monja bat, eta beste lagun bikin hiru haraxe [basarrira?] eruan nittuan. Eta hainbeste urte hartu dotenian akordatzen jatak, harek monjak esan esten: "Ya rezaremos por tí".

-B: Itxuria errezau juen eta balio...

3.67. Eguraldi lainotua hobe

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-046/008
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:08:28. **Bukatu**: 00:09:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Eguraldiari asko begiratzen zioten. Lainotuta zegoenean, ez ziren hegazkinak etortzen. "Vía trimotor" deitzen zitzaion zeruari eguraldia garbi ikusten zenean (hiru motor zituztelako etsaien hegazkinek). Eibar alemanek bonbardatzen zuten normalean. Hegazkin motak aipatzen ditu. Durango bonbardatu zutenak hegazkin italiarrak izan ziren.

Transkripzioa

-Eta egualdixari be begiratzan jakon, ez, egualdixa abioiak eta..?

-Agustin: Egualdixa frentian egon gendenian laiñotsua nahi izaten genduan egon zeñ, abioirik ez zeñ etorri. Laiño [antzian]. Egualdixa be onakin txarra.

-B: Harek gerrako lelengo urtiak ein zebana horixe izan zuan: laiñorik ez! Laiño gitxi. Edurra, honek esan dau, ezta, hasieran, baiña gero gehixao ez zeban eñ negu guztian. Beti beti garbi, beti garbi. Izena ipiñi jakon: "Día trimotor". Hiru motorrekuak zian ba orduan etortzen zianak botatzera. "Día trimotor" esaten jakuan garbi ikusten zanian egualdixa. Goiz-goizian akabo.

-Badatoz. Hamen Eibarren eta bonbardeatzen zebenak ze zian, italianuak ero alemanak ero?

-A: Alemana, alemanak.

-B: Bonbarderuak alemanak. Italianuak pe egon zittuan. Durango bonbardeau zebenak italianuak zittuan, Saboia zittuan. Alemanak, berriz, bixak, Stuck-ak eta Mezerrezmitak (Messerschmitt). Mezerrezmitak zian kazak, eta bestiak zian bonbarderuak

3.68. Eibar bonbardatu zuten

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-046/010
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:09:45. **Bukatu**: 00:12:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Eibar ere bonbardatu zuten. GAC lantegiak armak egiten zituen eta hura bonbardatzera joan ziren hegazkinak. Ondoko etxeke bateko alabak besoa galdu zuen. Untzaga ingurua beranduago bonbardatu zuten, ia gerra bukatzeaz zegoela. Ehunka eibartar hil zituzten. Kerizpe elkarte dagoen etxea egiten ari ziren, Untzaga plazan. Udaletxea ere bonbardatu zuten.

Transkripzioa

-Eibarren egon ziran, ezta, bonbardeo batzuk?

-Agustin: Bai. Lelenguo bonbardeau eben Eibar da hill ez zuan in iñor baiña.

-Bartolo: Bai, Ibarkurutzian hil zuan zerekua, loterixetako mutilla. Ruperto pelukeruak hankia kendu otsanian.

-A: Beste neska bati besua kendu etsan.

-B: Juaniton alabiari, gure lagun baten alabiari besua. Baiña hori zan oin Mendiguren y Zarraoa egondako taillarra Arraguetan. Han zera zeuan, taillarra zeuan orduan GACiana, eta GACiak itten zittuan armak, GACia bonbardeatzera joan zian, da GACen beste kalia zeon hori neska hori refujixua ekan etxeke sotantuan sartuta. Eta hango borbardeo zatixak besua kendu etsan. Erreka bittartetik.

-Arikittanian?

-B: Arikittaneko zubixan onduan. Oin etxia erdi inda badaok ba han,

hasitta, han etxe bat jeuan, hiru pisoko etxe bat jeuan, etxe zahar bat. Da sotanuan, igeltserua aitta neskiana, eta harek jekan beran lanerako, gordetzeko leku hori. Da hantxe lekuan daoze la bonbarderuari igesi, albotik etorri metraillia ta besua kendu etsan.

-Eta gero Untzaga inguruan edo Egogaiñ inguruan eta be...

-A: Berandu.

-B: Geruao

-B: Ixa gerria amaittu eñian daola. Hor asko hil zian orduan, e. Refujixua euan ba han errekan ifinita, ha erreka azpira ta joaten zuan jentia. Eta jentez beteta daola bonbiak apurtu juañ gaiña ta barrura sartu zuan. Eta ehun da [...] hil jittuan han eibartarrak. Ni bonbardeuan zerian egon nitzuan baten. Hor oin badaok pa soziedadia, zelan dok hori?

-Kerizpia?

-B: Kerizpian. Kerizpe onduan etxia eitten zeuan, armazoia dana einda zekan eta han sotanuan ipiñi zebeñ refujixua, ta hara sartzen giñazen eta geozela aiuntamentuari botatzen etsen bonbak. Aiuntamentuko plaza aurrian jotzen zittuanian bonbak pentsatzen genduan geure etxian gaiñera zetoze la han geuzenak, eta ha ez eben apurtu. Aiuntamentua dana zikindu zebeñ metraillaz. Gaur be holaxe dao aiuntamentua. Metrailliakin apurtuta. Han bertan jausi zian bonbak.

3.69. Gerrako babeslekuak Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-046/011
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:12:08. **Bukatu**: 00:13:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Eibarko Udalak babesleku asko eraiki zituen herrian: Urkuzuko iturri atzekoa etxe azpian, Ibarkurutzen...

Transkripzioa

-Aiuntamentuak Eibarren refujixuak ipiñi zittuan, ezta?

-Bartolo: Aiuntamentuak ez zeken refujixorik.

-Ez, baiña bestela, Eibarren hamar-hamabost toki zeren refujixuak.

-B: Refujixuak zeuzen bat, Beheko Parkia, han iturri badoa ba, ha etxia einda zeuzen harek, eta han erreka eskillarak jarri zittuen egurrezkuak, han behera joaten giñan, etxe azpira sartu. Ha zan bat. Bestia horixe. Eta bestia oiñ Ibarkurtzian badoa ba Gipuzkuanua Bankua, hori etxe hori eitten zeuan, horrek izan zien Eibarren zementoko etxe onak itten hasi zianekuak. Han be refujixua egon zan.

-Holako tokixak hartu zittuen orduan?

-B: Segun nun harrapatzen zeban honen kanpai jotiak nun harrapatzen zeban, ahal dan lekura.

-Zeuk abixau?

-Agustin: Guk abixau.

3.70. Karakate mendiko puntan, zaintza lanetan

- **Hizlaria(k):** Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-046/012
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Karakate mendian, hamabost bat lagun egoten ziren zaintza lanetan, txandaka. Karakatera egunean bi bider igotzen ziren orduan. Hegazkinak ikusten zituztenean, Karakatetik Telefonicara abisatzen zuten telefonoz, eta haiek dorrera pasatzen zuten abisua. Gero kanpaiak jotzen zituzten. Alarma izaten zen hori eta bakoitza ahal zen lekuan ezkutatzen zen gero. Tailerretako sirenak ere jotzen ziren.

Transkripzioa

-Zenbat lagun egon ziñazien Karakaten?

-Agustin: Han egongo giñan, hamabost bat lagun egongo giñan baiña relebua itten genduan, e. Bost bat lagun egoten giñan gabian. Gau ta egun egoten giñan, bai. Orduan, oiñ Eibartik, etxetik hona kosta eitten jatak etortzia, ta orduan Karakate puntara Maltzatic bi bidar igotzen neban nik.

-Bartolo: Igo in biha da hara!

-A: Fronton Astelenan eitten eben bazkarixa danendako, miliziano guztiendako, eta harek ekartzen eskuen Maltzara, eta Maltzan hartu nik lepuan da gora. Egunion bi bidar hori. Oiñ hona etorri ezinda.

-B: Ezin sinistu noberak horrek ein dittuana be, sinistu ezin oiñ.

-Eta zeuek abixatzen zenduen telefonoz Maltzara?

-A: Ez. Guk telefonoz telefonikara.

-Eta telefonikatik?

-A: Torrera. Torrian egoten zian mutillak.

-B: Honek telefonikara eta [...] torrera. Eta kanpaik jotzen zianian ahal dabenak ahal dabena.

-Ze zan, kanpai haundixa izaten zan, drauna jotzen zan?

-B: Kanpai haundixa, bueltaka, din-daun, din-daun!, dana alarmia, ardurakua, eta ahal dan lekura, bakoitzak bere burua zaintzera.

-Sutia zanian moduan?

-B: Bai. Gero sirenia be egoten zan leku batzuetan, sirenak pe bai fabri..., taillarretako sirenak pe jotzen jittuen.

-A: Bai, bai. Orbeak eta.

-Orbeanian?

-A: Bai. Orbeak eta Beiztegik eta bajakazen orduan.

-B: BHiak be bai.

3.71. Eibarko arma-lantegiak

- **Hizlaria(k):** Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-046/013
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin
harremana

- **Laburpena:** Eibarren egiten ziren armek ez zuten gerrarako balio. Arma motak aipatzen ditu. Eibartarren fusil-fabrika Deustura eraman zuten; eta, geroago, Valentziara. Izan ere, frontea hurbilegi zegoen hemen. Horregatik daude hainbeste bikote valentziarren eta eibartarren artean. Gertaera bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Hemen armak eta asko eitten zian eta gerria hasi eta berihala hasiko zian armak eitten frenterako?

-Agustin: Bai.

-Bartolo: Baiña Eibarko armak ez juen balio, berrogeta hamar metrora jaurtzen juen-ta.

-Pistolak-eta.

-B: Pistolak eta zerak pe bai, subfusillak be bai, Beiztegik be eitten jittuan. Winchesterran kopixia eitten jua GACiak. Riflori.

-A: Horixe izan zan eibartarrak Valenziara joan zan, motibu hori izan zan. Hamengo fabrikia, fusil-fabrikia, hara eruen eben. Hamen frentia zela urrian euan, hara eruen eben.

-B: Deuston ipini juen Salesianuetan.

-A: Deuston bai, baiña Deustotik hara eruen eben zera. Horretxeaittik Iburguren-da Emiliano Latorre-ta horrek han egon zian denpora askuan biharrian.

-Eibarko asko egon ziran, ezta?

-A: Bai, bai.

-B: Eibartar asko. Eibartarrak ezkondata be badauaz Valenziakuekin. Gizonak pe bai eta andrakumiak pe bai.

-Alberiquen edo zan?

-B: Buñol-ta Alberique-ta izan zian hemenguenak, hara joan zianak.

-Eibartarrak famia zeken orduan.

-A: Bai, bai.

-B: Iburguren izan zan hango fabrikako, fusilgintzako fabrikako nausi. Hangotxe kaso bat kontauko dot nik, entzundako ipuiña da hau baiña. Hartu zebenian Valenzia frankistak, hango fabrikako jefia, koronelen bat edo joan zan nausixarena, ia direktoria etorteko beragana. Iburguren zan direktoria. Eta Iburguren presentau zala. Ta Iburguren zan ba hogeta lau bat, hogeta bi-hogeta hiru urteko mutil gaztia, aittua biharrian. Aber-ta. Ez, berak ez dabela mutikorik bihar, direktoria bihar dabela-ta. Bera zan. Hori kontatzen dabe han ibilli zianak, horixe pasau zala.

-Republikako fabrikarik inportantiena.

-B: Jose Iburguren.

3.72. Abiazioa ikasitako soldaduak

- **Hizlaria(k):** Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-046/014
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Abiaziora jende asko joan zen Eibartik. Eskolako jendea nahi zuten eta Eibarko Armagintza eskolako ikasleak bidali zituzten. Bonbak kargatzen zituzten haiek.

Transkripzioa

-Eta abiaziñora be asko joan zien, ezta, Eibarko...?

-Bartolo: Abiaziñora be bai. Geure lagunak pe joan zittuan, Alberto ta Gonzalo ta. Horrek eskatu zittuen mutillak, biharrian dakixen mutillak, eta Eskuela Armerixako direktoriak ein zeban itxuria bertan kursuak indako mutillak berak apartau eta haretzek joan zian. Hemen lana eindakuak, ofiziala eindakuak. Horretzek bialdu zittuen horra.

-Armak eta konpontzera eta abioiak?

-B: Abioien armen asuntua arreglau ta.

-Agustin: Gure lagunak Sarasuak esaten jua bonbak kargau eitten ebela eurak. Kargau, abioiei zerian ipini. Haxe misiañua [...]

-Gonzalo Sarasua?

-B: Gonzalo Sarasua, bai, gure kuadrillakua.

3.73. Gerrara joateko gonbita

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/027
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:37:50. **Bukatu:** 00:39:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerrara joateko soldaduak eskatu zituzten, eta Migelek ere gerrara joateko "gonbita" jaso zuen. Amuategi batailoian sartu zen. Eibartarrak ziren gehienak. "Otsabina" eibartarra zen burua.

Transkripzioa

-Baiña etorri zan momentu bat soldauak eskatu ein bihar zittuela eta infanterixara joan bihar ziela soldauak. Batzuek zian komunistak, bestei batzuek nazionalistak, beste batzuek... "en fin". Nik [ez neban entenditzen]. Baina esan estan batek, tenientia zan, "Migel, onian esanda, e, neri pentsatzen jatak soldau etorri bihar eukiela, bestela eruan ingo habe ta". Hori esan estanian aittari ta amari esan eta "ba hori esan bok ba joan". Ta sartu nitzan Batallón Amuategi.

-Amuategixan sartu ziñan?

-Amuategin sartu nitzan eta zerera faten giñan Usartzara ta kamioiak jatekua eruatera soldaueri, milizianueri. Ta hantxe egoten giñan.

-Gehixenak eibartarrak.

-Eibartarrak, eibartarrak. Eibartarra zan, jefia zan, ointxe dala urtebete edo hil da bat. Urte bi edo hil da. Kartzelan egon da denpora askuan. [...]

Otsabiña! Ointxe urte bi hil da. Eta beste bat, lehenaokuan Prieto egon da, zeretik etorritta, Valenziatik etorritta. Egon nitzan fateko, e. Horrek Paseo San Andresen dendia eukan.

-Amuategixan eibartarrak?

-Bai, danok. Beste batzuk eozan Donostiakuak, majuak, gizon majuak.

3.74. Alejandro Telleria osaba, Timoteo Zubiate aitaginarreba

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/002
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:02:53. **Bukatu:** 00:04:34
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublikak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Eibartar peto-petoa da Adela. Ardantza kaleko 3. zenbakian jaio zen 1924. urtean. Gurasoak ere eibartarrak zituen. Alejandro Telleria (Eibarko "alkate txikixa" 1931-1934 urte bitartean) osaba zuen eta Timoteo Zubiate (1931. urtean, Primo de Riveraren diktadura garaian Eibarko alkate izan zen hilabete batzuetan) aldiz aitaginarreba. Nahiz eta kontrako alderdietako kide izan, ondo konpontzen zirela kontatzen du.

Transkripzioa

Ni eibartarra naiz, "Ardantza tres, tercero" jaixotakua. El 7 de Junio de 1924. 93 urte.

Nere aitta eta ama, bixak ziran eibartarrak. Nik euki neban tio, Alejandro Telleria, nere tio zan, "alkate txikixa", bai.

Ta, nere suegrua Timoteo Zubiate.

Bai, nere semiak daukez apelliduak alkate birenak, Zubiate Telleria.

Bai, errepublika garaixan. Ta nere suegrua izan zan erregiak. Laga eban Timoteok, eta nere suegruak hartu eban. Eta bixak bizi ziran "Dos de Mayon", hor badao ba bederatzi eurugaittik eta hor denda bat, hantxe bizi ziran. Bixak etxe batian.

Bat ezkerrekua eta bestia eskumakua.

Ondo eruatzen ziran.

3.75. Ikasketak Frantzian burutu zituen

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/012
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:19:07
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena:** Gerra Zibila hasi zenerako Irunen bizi ziren aita Hendaian lana aurkitu zuelako. Handik, amaren ahizparengandik hurbilago egotearren, Behobiara joan ziren bizitzera, eta ondorioz, Hendaia eskolara joateko, hiru kilometro egiten zituen egunero oinez Adelak. Gerra zibila hasi zenean, Frantziara bidali zutela kontatzen du. Goi-mailako merkataritza ikasketak Baionan burutu zituen.

Transkripzioa

Zortzi urte t´erdi neukazen Frantziara jua nintzarian eta etorri nintzan hamasei urte t´erdikin. Horregaittik ba, gerria eta dana pasau neban Frantzian. Aurretik jua giñan, “el año 33”. Han eguan nere aittan anai bat. Asko-asko tratatzen genduan. Eurok etortzen ziran San Juanetan eta gero gu sarri juaten giñazen eta zelan bizi giñazen Irunen, ta gerria eguan ta nere aittak eitten zeban bihar armekin ta Eibarrera etortzen zan; eta nere anaiak amaittu eban eskola armerixia eta errez topau bihar zebala biharra eta, en fin, bixen bittartian nere amak topau eban biharra hotel batian. Gero, gerria zelan agertu zan, ba nere aitta, de “maestro armero” boluntario jua zan eta zelan gabetan eta juaten zan harutz, eta han hobeto egongo nintzala eta horregaittik jua nintzan, “agosto del 36” hara. Baina aurretik juaten nintzan, Behobiatik eta Irundik juaten nintzan ni eskolara Hendaiera, bai.

Lehelengo hille batzuk pasa nittuan Baionan. Gero nere aittak topau eban biharra han, Hendaian, ta jua giñan Irunera bizitzera baina nere tia bat, aman ahiztia, bizi zan Hendaian eta haren onduan egotiarren jua nintzan ni Behobiara bizitzera. Baina nik egunero hiru kilometro eitten nittuan eskolara juateko. Eta udan gure ama etortzen zan bazkarixakin, eta hantxe, arbolara bat eguan Hendaian eta hantxe bazkaltzen genduan hirurok. Gero “Comercio” ikasi neban hantxe Baionan, “al lado de la catedral, una Escuela Superior”. Gaztia nintzan eta errez ikasi neban frantses, ta eskolara juaten nintzan, bueno Baionan ez, zan Anglet. Lehelengo bai, Baionan. Ta han segiduan ikasi neban frantsesa. Gero ba, gerria azaldu zan eta “el certificado de estudios” pasau neban Hendaian, ta zelan hau neukan ya ba preparatorixua ein neban para “la escuela superior”, jua nintzan gero Baionara. Ein nittuan hiru urte komertzio ikasten.

3.76. Gerraosteko Eibar

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/015
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:22:09
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** 1940. urteko San Tomas egunean itzuli ziren Eibarrera. Eibarren etxerik ez eta Ermuan bizi izan ziren hasiera batean; Txaltxazelaiko etxe batera etorriko ziren handik. "Regiones devastadas"-i esker, (Francoren diktadura garaian gerra zibilaren erruz sunsitutako eraikinak berreraikitzen laguntzeko sortutako erakundea. D.G.R.D.R.) Maria Angela kalean eta inguruan, batez ere, etxe asko eraiki zirela kontatzen du. 1941tik 1946ra bitartean "Aramberri hermanos" lantegian jardun zuen beharrean.

Transkripzioa

Egon nintzan “del 30 de Junio del 41 al 1 de julio del 46 donde Aranberri Hermanos”. Santo Tomas egunian, “el año 40” etorri nintzan eta orduan bizi giñan Ermuan. Eibarren ez eguan etxerik eta Ermuan bizitzera. Eta etortzen giñan Ermutik Eibarrera. Nere aman lehengusiña baten etxian bazkaltzen genduan laurok. Ordurako Maria Angela eta dana eguan einda,

elixia egon zan inguruan, ta elixa barrenian be bai. "Regiones devastadas"-ekin ein eben etxe guztiak hor, sobre todo Maria Angelatik eta tio Ramon bizi zan han, eta bai. Gu Ermura lehelengo ta gero etorri giñazen Txantxazelaira bizitzera. Gure aman lagun batek, bere gizonak ein eban han etxia ta gure ama ikusten eban zelan zestuakin ta etortzen zan eta "entresuelua" hangua esan etsan "hori Luzilandako" eta etorri giñazen.

3.77. Alejandro Telleriaren ihesa eta heriotza

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/017
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:22:19. **Bukatu:** 00:24:35
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gerra garaian, Alejandro Telleria ihesi ibili behar izan zela kontatzen du. Santanderretik Sestaora Adelaren aitak lagundu zion, baina, Frantziara pasatzera zihoazela, Donostian harrapatu eta kartzelara eraman zituzten biak. Aitak irtetea lortu zuen arren, Alejandro bertan zendu zen. Familiari ez zioten sekula esan zein egoeratan hil zen ez eta non lurperatu zuten ere. "Gerrako kontuak", dio Adelak.

Transkripzioa

Bai, gerran lehelengo juan zan Santanderrera eta han, Santanderren harrapau eben. Ez, Santanderren gelditu zan eta nere aitta juan zan, zeaittik asmatikua zan, ta juan zan billa ta gero egon ziran Sestaon euron arreba baten etxian. Ein zittuen papelak ya Frantziara pasatzeko, autobusa eguan Bilbotik urten eta Frantziara juateko, eta han eguazen mojak eta frailiak eta markes edo tituludunak eta nere aittak esan etzela "con estos habrá confianza de..." eta "sí, sí, sí" Donostian harrapau zittuen eta kartzelara. Nere aittak lehenau urten eban eta gure tio hantxe hil zan, kartzelan. Zelan diabetikua eta arritmia eta dana zeukan, sartu eben ospitalian. Txarrago. Ta gero, gure lehengusiña bat Burgosera de viaje de novios eta hantxe "como ha muerto como un perro, le hemos enterrado como un perro" esan esten. Iñok ez zekixan hil zala. Ezebe. Hantxe. Bueno... gerrako gauzak

4. Aisia

4.1. Juan San Martinen ikasteko grina

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/002
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Irakurtzea

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

- **Laburpena:** Gerra Zibila hasi zenean, berak 14 urte zituen. Errepublikara garaian Institutua ipini zuten Eibarren; horrek izan zuen garrantzia jende askoren hezkuntzan. Gerra garaian, gau eskolan ikasi zuen. Gaez, tornulari batengana joaten zen mekanika ikastera. Umetatik irakurtzeko zaletasun handia. Ikasketak teknikoak egin zituen eta, konturatu gabe, letren mundura pasatu zen.

Transkripzioa

- Lehen ikasketak Eibarren.

- Bai. Ikasketak, hori, gerrara arte. Gero gerran, ba, hamalau urtekin, kasik ez bukatu, baiña bueno, kasik bukatu egin nituan. Orduan preparatzen geunden... Ba, bueno, hasi ziran Eibarren, Republika dala-eta, Institutua jarri zuten eta gure gogoa... edo gogoa sartu ziguten, interesantia zela Institutuan batxillerra ikasi eta gero, ba, karrera ikasteko moduren bat eta. Eta hori zan gure buruan meta. Baiña gerrak eten zituan gauzak eta, gero, gerra ondoren eta gerratik hasita, ahal dan bezala ibili izan gera. Nik egin ditudan ikasketak, ba, izan dira, gerra denporan bertan, gau eskolak. Eta ez gaueko eskolak bakarrik, hori, ba, gutxienez lantegirako bihar ziran gauzak ikastia, baizik hortik aparte, baita ere, ikasketak, ba, antxiña egiten ziran bezala: ba, mekanika ikasteko ere ni tornero bategana juaten nintzen ta harek ematen zidan lekziñua gaez. Eta holan izan da. Baiña haurtzarotik nik izan dot irakurtzeko zaletasun ikaragarria. Literatura beti irakurri dut: ipuiak dirala, eleberriak dirala... Eta hori izan da, ba, bueno, irakurtzeko ohituratik, gero nere kaxara asko irakurtzia izan dut. Baiña nik tekniketarako ikasketak egin nituen. Eta hor ibili nintzen lantegi buru, proiektista eta zenbait gauza egiten. Egun gabe, igarri gabe, ba, konturatu gabe, beste mundu batera pasau nintzan: letretara.

- Ta hori ere gogorra.

4.2. Mendizaletasuna ume-umetatik

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/014
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:35:18. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Umetako ibilerak; kirolzalea. Mendizaletasuna ume-umetatik sentitu izan du; toki berriak ezagutzeko grina. Esploratzaile mentalitatea zuen.

Transkripzioa

- Mendizalia nintzen beti.

- Horra goaz. Zu gerra aurrean, mutiko zinela, oso kirolzale ere bazinen.

- Bai, mutikotan, ba, bueno, dana gustatzen zitzaidan. Pelotan txarra nintzen. Beharbada gero konturatu nintzen, ez nualako ikasi, lehelengo eskuak berotu bihar zirala. Ze ni zirti-zartaka hasten nintzen eta eskua haunditu. Eta horregaitik pelotan ez nuan asko egin: utzi egiten nion. Baiña gure zerak bi deporte zeuden: pelota eta fooballa.

- Baina zuk hirugarrena zenuen ordurako: mendia.

- Bai. Baiña fooballian be bastante. Momentu baten, infantil esaten dan horrek kanpeonatuak eta horretan... Ekipo baten nenguan, baiña gertatzen zena zan ekipo horretan faltatu egiten nuan asko: egualdi ona zala ta ni mendira juaten nintzen. Bilatzen nuan beti lagunen bat edo bateron bat eta mendira. Gustatzen zitzaidan halako parajiak ezagutu. Ze Eibarko zuluak zer egin bihar duzu? Nahi nuan panorama zabalago bat ikusi eta mendi gailurren batera igo eta han ikusi beste aldia eta gero parajiak ezagutu. Holako esploradore mentalidade bat neukan, parajiak ezagutzekua. Eta hortikan, ba, gero gelditu nintzan mendiarekin. Ta mendian praktikatu ditut egin diran deporte guztiak. Deporte bezala eta parajiak ezagutzera.

4.3. Juan San Martin umetatik mendizale

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/022
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 01:00:18. **Bukatu**: 01:03:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola
- **Laburpena**: Eibartarrak oso mendizaleak; ume-umetatik mendira joateko ohitura. Mendiak zer eskaini dion.

Transkripzioa

- Bueno, lehen ere aipatu dugu, bidenabar, eta sarri etorri da zeure gaztaroa aipatzean mendia. Mendira jo beharko dugu, Juan!

- Bueno, ni beti prest, oraindik ere.

- Noiz edo noiz! Mendia esaten denean, eta Juan San Martin eta mendia elkarrekin aipatzen direnean, gauza asko aipatzen direla uste dut. Alde batetik, mendia bera. Mendira joan, lehenengo gauza, hori da zurea, mendira joan, ume-umetatik. Lehen aipatu dugu. Baina gero zuretzako da ikusi, dastatu: gozamina. Nekea bai, baina horri ez diozu garrantzirik ematen.

- Hara, nik poeta bati irakurri nian -ez jakiat zein poeta ere- eta esaten zian-ni mendizalea- eta esaten zian: "Mendira juaten naiz bidean lorak darelako".

- Alpeetakoa izango zen.

- Bai. Eta neretzat hori izan da... "lorak" izan dira: herriak ezagutu; arte zalia izan naiz eta herrietako monumentuak... Ze herrietako monumentuak direla, parajiak direla, bizitza formak... Eta, egia esan, ba, horrek bultzatu nindun. Ta ni, ba, bueno...! Gipuzkuako edozein, pixkat, monumento bezala inportantia dana -elizak eta- ikusi izan ditut, ba, aprobetxatuaz. Juan eskursiñora, esate baterako, ba, bueno, ezagutzen dek Oñati. Eta Aizgorri aldera juaten giñanian, batez ere Urrexolako haitzak eta horrek... Hor beti aprobetxatzen nian, lehenago edo geruago, Juan eta konbinatzeko, ba, batian Unibersidadia ikusi, hurrengo parrokia San Migelgoa eta Ahaldun Nagusia. Baiña detailliak han be: partezka. Hurrenguan be sartu eta klaustroa, San Migelgo elizarena, ez dituk asko Gipuzkuan eta, klaustro gotikuak azken erakuak. Eta horrek. Baiña beti eruatzen nian, Juan aurretik, irakurrita zer dagon.

- Bidaia prestatua.

- Bai ba. Zer dagon eta ikusi eta begiekin ikusi. Eta, bueno, ezagutu

gauzak eta horrela. Gaztetxotan erosi nian -ba pentsaik, neretako orduan ikaragarriko esfuertzua huan- 'Geografía del País Vasco-Navarro', sei tomoak. Eta han, nora nindoian, irakurtzen nian dana, han herrian zertzuk zeuden. Eta ez bakarrik ez nian bisitatzen elizak, baita ere torretxeak, jauregiak ikusi kanpotik... Barrura sartu ezin bazan kanpotik ikusi. Eta hori... horretarako, ikaragarriko zera izan diat beti, jua naizen toki guztietara.

4.4. Eskaladarako zaletasuna

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/023
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 01:03:06. **Bukatu**: 01:07:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena**: Eskaladarako zaletasuna. Euskal Herriko lehenengo monitoretako bat izan zen Juan San Martin. Nola hasi zen; orduko kontuak.

Transkripzioa

- Edozein modutan, mendia eta eskalada, gainera, hori da zuen ametsa. Zuen diot, talde osoa zinetelako, eibartarrak.

- Bueno, bai. Eskaladak neretzat batetik bi faktore izan ditu garrantzizkoak: bat, noberan buruakin eskalatu bihar dala. Bueno gero ni monitore izan naiz -Euskal Herrian lehelengo seiretako bat; sei izendapen egon ziren eta ni nintzen bat-, baiña monitore bezala guk esaten gendun: "Buruakin eskalatu bihar da, ez eskuakin. Eta indarra, hankak; lehelengo burua eta gero hankak, ez eskuak; eskuak beherago euki eta eskuak dira ekilibriua zaintzeko" eta horrek detailiok holan hasita. Baiña nik beste faktore bat ikusten dut eskaladan: noberan superaziñua da. Noberak, ba... gorputzaren dominiua, ze exigitzen dizu zeu egotia kondiziñuetan. Eta enfrentatzen zara mendiarekin. Eta arrisgugarria da ez badituzu gauzak, maniobra guztiak, ondo egiten. Eta buru lana da asko. Eta, bestetik, hautatzen duzu lagunak: lotura ikaragarria sortzen da, baiña danak ez dira berdiñak. Han ikusten da nor zelakua den. Peligrua dagon mendietan ikusten da norek noraiñoko borondatia daukan solidarizaziño horretara, alkar hartu ondo eta ekipua lotzeko ondo. Hori inportantea da. Alde hortatik, ba, zertu nitzan. Egia esan, ba, nik lehelengo eskalada... ikustera jua lagunak...

- Etxeberria dago hor. Zure maixua eta laguna.

- Bai. Bai, laguna. Nere adiñekua, kuadrilla berekua. Baiña haiek eskalatzen hasi ziran batzuk, lau edo. Gu, ez. Kañamozko sokekin han, paretian gora eta behin begira eureri. Eta gu, talde bat. Begira geunden hamar bat lagun edo bai. Eta bestiak nola egiten eta... Gu esaten: "Horrek dake baloria". Nik nere burua bildurtitzat neukan. Ez nintzan ausarta nere ustez. Bueno, ez nintzan, ez nintzan ausarta. Kobarde samarra. Eta beti izaten duzu barruan... horrek ematen dizu pixkat... Kobardeago ikusten duzu... Pesimismo gisako, etsipenerako zer bat emoten dizu, tristura bat. Bestiak hara gora. Bueno. "Baina horrek nola arriesgatzen dute horretan?". Estu agertu ziran baten, gelditu zen ez gora, ez behera, paretian. Eta begira geudenetatik, ba, larritu giñen danok eta "joño! zeoze...". Ez

genekien zer egin. Nik, beste gabe, sartu paretera eta jua nintzuan berak zeuden tokiraiño eta lagundu egin nien.

- Zeure lehendabiziko eskalada?

- Hori da. Eta horrekin -Migel Etxeberria zan buruan zeguana, ta bestiak kontrolatu eziñik-, jarri nintzan harekin eta alkarri kolaboratuz, ba, gora igogendun, ze behera ezin zan. Batzuk nahi zuten, bik, behera bajatu, ze ikusten zuten goian txarragua zetorrela eta. Eta harek esaten zuan: "Sokarik ez dugu nahikua behera iristeko eta gora egin bihar dugu, ez dago beste erremediorik". Eta gora ez zuten nahi. Klaro, gorago eta altura haundiagua hartzen zuen eta inpresionatu. Orduan, azkenengo gorakoa bion artian egin gendun. Eta lortu gendun bestiak ataratzia eta zera. Orduan esan zidan Migelek: "Koño! Zelan egin dek hik hori?". "Ba, ez jakiat, baiña konturatu naizena... nik ez diat alturaren efektorik eta hori bertigua eta esaten dutena eta...

-Zorabioa eta.

-... ez diat... ez zidak efeturik [egin]. Ni emozionatu egin nau alturiak". "Gurekin eskalatu bihar dek". Hala ere, konbenzidu niñun, baiña kostata. Eta hasi nintzen, ba, hoiekin eskaladak egiten eta, bueno. Egin genduzen garai haretan ikaragarritzko abenturak! Naranjo de Bulnes egin nuan 1950ian.

- Naranjo de Bulnes.

- Eta gero beste bi aldiz!

4.5. Garai bateko mendi irteerak

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/024
- **Iraupena**: 0:05:13. **Hasi**: 01:07:11. **Bukatu**: 01:12:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena**: Mendira joateko zailtasun handiak garai hartan (autorik ez; material oso gutxi...).

Transkripzioa

- Baina horra baino lehenago: lehen aipatu duzu eta nere ustez hori inportantea da. Zenbaterainoko zailtasunak zenituzten parajeetara iristeko? Kotxerik apenas ez zen...

- Buenooo!

- Oporrak aurreratu behar, atzeratu behar...

- Zuk etaraizuz kontuak: Picos de Europara jua trenez Unqueraraiño eta Unqueratik autobusez Potesera eta Potestik zelan edo halan Espinamara eta gero, behetik gora mendixan.

- Orduak eta orduak ziren! Trenak orduan ez ziren...

- Bai, bai. Pirineora juateko guk bihar genduzen egun bat eta erdi, edo egun bi, konbinaziñua nola hartzen gendun... Eta segun nora, Pirineora ze partetara gindoiazen. Biajian, e! Eta berdin Picos de Europara: egun oso bat behar zenun gutxienez, baiña gehienetan ezin zenun. Eta Santanderren edo lo egin edo Bilbon eta egun eta erdian Picos de Europara. Baiña konbinaziño zerak eginda. Kondiziño bastante txarretan. Eta gero mendian, ba, ondo.

- Mendian hobeto.

- Eta karga haundiak erabiliaz, baiña bueno.

- Eta gero beste gauza bat. Hori ere: materiala. Guk gaur ikusten dugu, denak ere halaxe dira. Orain Everest kasik etxean daukagu: Iñurrategi anaiek eta Martin Zabaletak hurbildu digute eta beste hainbatek ia. Baina, tira, kasik mendirik altuenak etxean ditugu eta tresneria ikusten diezu eta ikusten dituzu zelako jantziak darabiltzaten.

- Orduan ez zan, esate baterako, bat: ez zan nylonik. Bestetik: ez zan akoltxaurik. Ezta lo egitteko zakurik be.

- Beraz, atera kontuak.

- Esate baterako, ni lo egitteko zakuakin jua nintzan 1950ian Picos de Europa. Baiña lau urte lehenago egon nintzan ni Picos de Europa lo egitteko zaku gabe. Bi lagun jua giñan mantarekin. Manta banakin. Eta Bilbon lagun batek utzi zion laguna zanari -mendizalia; zaku zeukan, ez dakit nundik ekarrita, estranjerotik- zaku utzi zion. Eskerrak hari zaku utzi ziona, ni bi mantakin hotzak...

- Akabatu beharrean.

- ... akabatuta. Elur artian -ekaina zen-, elur artian. Eta gauean esnatu hotzak edo presiño bat... "Zer da hau?", eta elurra egin gauean eta presiñua egiten gorputzari "tienda campaña"n. Irten kanpora, eskuekin kendu elurra, salto batzuk emon gorputza pixkat berotzeko eta berrido barrura. Era hortara.

- Beraz hori ere... Oinetakoak. Hori ere beste kontu bat zen.

- Oinetakoak, ba, eskalatzeko abarkak eramaten gendun gehienetan. Orduan gero urten zuten honek zapatilla altuok, Chiruca esaten zaienak, esaten genienak. Baiña eskalatzeko abarka erabiltzen genuen gomazkoa zelako. Ze botak ez ziran. Gero sortu zan. Blama laste etorri zen, blama edo goma prensaua. Eta guk erabiltzen genduzen trikunedun tatxuelak eta ertzetan, bueltan, gantxu bezelako trikuniak esaten genduan. Txapa batzuk, galtzairuzkuak. Ta horrekin ibiltzen giñan. Harrian ibiltzeko txarrak ziran. Eta elurrerako oso onak.

- Eta gero, gainera, bestelako materialak: iltzeak...

- Bai, bai. Iltzeak, geuk egindakoak. Danak burdiñazkoak. Eta mailluka ere... Bueno, mailluka beti behar da, galtzairuzkoa. Eta sokak kañamozkoak; pixua, ikaragarria. Gaiñera, bustitzen baziran sokak... puf! doblatu egiten zen.

- Peligrosoa.

- Ez, pixua doblatu.

- Klaro, bai, sokarena.

- Eta peligrosoa recuperatzeko ere bai, ze gelditzen zen gogortuta soka eta gogortuta gelditzen zenian, ba, ez zan korritzen bihar bezala. Eta, bueno, bai, bai, horrela ziran garai haretako zerak. Gero, boof! Hasi giñanian... Neretako bat, lo egitteko zaku, orduan zeguan sasoi harekin, lo egitteko zakuakin neri ez zidan gero inporta edozein tokitan... Gero, zenbat egin dudan Pirineuan gau pasa, lua, zakuakin bakarrik. Ze gero nik beste lagun bat izan nuan oso ona. Lehelengo euskaldunak Everestera jua ziranian, hango ekipoko zaharrena zen nere diszipulo bat: Pako Lusarreta. Pako Lusarretakin eskalada asko egin genduan, batez ere Pirineuan eta Picos de Europa ere bai. Eta Durango aldian. Eta orduan, ba, ha eta ni juaten giñan lo egitteko zaku bana eta, bueno, bera nylonezko sokiarekin eta ekipo hobiarekin. Gauak pasau ditugu, bueno! Goixian esnatu eta bera izotza kentzen zakuari gaiñetik eta sartu berriro morralian eta aurrera! Eta batera eta bestera ibili ikaragarriak egin ditugu. Hori bai, beti morralak, ba, 30 kilokoak.

4.6. Alpeetara joan zen lehen aldia

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/025
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 01:12:24. **Bukatu:** 01:16:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Alpeetara lehenengo aldiz trenez joan zen, bakarrik. Orduko ibilerak; anekdotak. Mont Blanc.

Transkripzioa

- Baina Alpeetara ere joana zara.

- Bai.

- Gaur badirudi hori guztiori etxe aurrean daukagula.

- A, baiña jo orduan! Autua nekanian gero, ba, errezago. Alpesetara be hurbilago. Baiña lehelengo aldiz, ba, trenez, bakarrik.

- Bakarrik gainera.

- Ni bai. Bai, bai. Etorri... Pentsatu, ba, Eibarren oporrak. "Eta nik zer egin bihar dot oiñ?". Ba! Hartu trena eta "banoa". Pentsatu, ba, Elgoibarko talde batekin gelditu nintzen. Eurak gia egiteko esan zidaten Anetora. Eta, bueno. "Orduan, Valle de Aranera juango naiz eta gero Valle de Arandik mendiz pasatuko naiz Reclusako refugiora halako egunetarako eta lagunduko diet haieri Anetora igotzen". Baiña bidian, Donostiara bidian, esaten nuan: "Baiña ni Valle de Aranera juaten banaiz, zenbat gehiago bihar dut? Beste horrenbestekin han nago ni zerian, Alpesetan".

- Chamonix aldian.

- "Alpesetara juango naiz". Juan nintzen, ba, Alpesetara. Bidian zertu. Horretarako, gelditu nintzan Donostian, lagun bati eskatu nion planua, han ibillitakua zen eta plano bat utzi zidan. Gero hamen bisitatu nuen beste bat Irunen. Ta Irunen esan nion: "Zu, nik han... bakarrik noa eta eguraldia txarra edo egiten badu? Ze neri ez zait inporta bakarrik Mont Blanc-era igotzia; ze nundik jentia doian, handik juango naiz". Eta berak esan: "Hobe ez!". Horrek gia baten rekomendaziñua eman zidan, gia batentzat. Eta hau zan Etxenike bat, Irungua. Eta eman zidan rekomendazioa. Baiña nik, ba, bueno, bakarrik igoko nuala eta horretara juan nintzen. Eta ez neukan nahikua diru. Baiña gero eguraldi txarrak. Egon bihar izan nintzan refujiuan urten ezinda, ez dakit, hiru edo lau egunian edo. Eta egunak aurrera. Eta argitu zuanian zerbait, "banoa". Eta tope egin nuan Legazpiko batekin.

- Hara!

- Aristi apellidoko bat. Begian defekto bat zeukan. Nik ezagutzen nuan menditik. Hura eta beste bat zerekoa, Urretxukua, Urretxuko bat, haren laguna, kalia Chamonixen. Eta egualdia halako txarra zalako, ba, orduan, ba, honek esan zidaten: "Zer?". Ta "Ba nik asmua dut horra juatekua". Eta: "Jo guk ere bai, baiña esaten dute gia gabe...". "A! Ba nik hitz egin dut eta erabagi dut zera. Eta gehiago: prueban ipini naute -esan nien-. Nator oin Croixetong-ko orratzetatik, Agujas de Croixetong esaten dana, Abil de Croixeton. Hoiek egin ditut hor: hiru halako haitz zorrotz dira, hiru eta gero gehiago, baiña bestiak suabiak, baiña hiru oso seriuak. Punta batetik bestera sokaz pasatuta egin bihar dira eta egin bihar dira rappelak eta eskaladak eta zerak. Eta, nik uste, apropos eruan nau, ze nik ekarri dut gomendio bat eta ikusirik eguraldi txarrak, gia bat kontratatzia pentsau dut. Eta esan didate, ba, bueno, hamen geldirik egoterik ez [dut] nahi eta zeozer egin eta Grepora, gia zertzeko, eta Greponera. Berak esan zidan

probatu moduan, ba, nahiko leukiala eta "guazen Greponera". Eta: "Ezta pentsatu ere. Nahi baduzu horra". Eta: "Bueno, bueno". Eta egin diat horrekin eta harek esan zio bestiari: "'Zu, konfiantza guztia euki honekin. Oso ondo eskalatzen du". "Bai?". "Bai, bai, eta gaiñera dabil mendian oso ondo. Eta horretan gelditu naiz. Eta batekin bihar Mont Blanc-era irtetzen gaituk. Halako refugio baten lo egin ta...". "Jo, ba, guri ez digute nahi, ez digute nahi, ba... Juan gaituk eta ez ditek nahi". "Bueno, ba nahi badok, hor egongo dek nerekin dagona eta esango diot ia zuek be. Eta hirurok juango gaituk". Eta esan nien: "Honek ondo dabiz eta lagunak dira eta alkarrekin eta". Bueno, azkenian konbenzidu nuan, baiña... [...] Konbenzidu nian, baina hoiek esan zidaten beste laguntzaile bat eruatekotan, "porteador" esaten zaiona. Atzian juango zana. Bueno. Atara genituen kontuak eta holan egin genian. Hirurok Juan giñuan, haiek bikin, ba, Mont Blanc-era. Gero bigarrenez nere emaztiakin bakarrik igo nauk. Bai.

4.7. Espeleologiaren inguruko hainbat kontu

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/026
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 01:16:56. **Bukatu**: 01:18:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena**: Espeleologia. Aranzadi zientzia elkarte. Gauza berriak aurkitzeko aukera ematen du espeleologiak, baina Juan San Martinek aire librea nahiago du; oso zaletasun gogorra da.

Transkripzioa

- Bueno, mendia, mendia, baiña mendiak zuloak ere baditu eta espeleologia ere egin duzu.

- Bueno. Bai, nik... Eskalada gustatu zait asko. Hori lehen esan dotenagaitik: noberan indarrak eta noberan pruebak egiteko oso interesantea. Baiña gertatu zitzaidan Aranzadi elkartia zientzietakua sortu zanian -mendizaliak egin zuten hura-, eta hango mendizale zirenak, ba, behin eskatu zidaten, holako... mendizale hoiek eskatu zidaten, ba, ia lagunduko nien edo, saketako teknikak ezagutzen nituanez, nahiko leukiela esploraziño bat egin Gesaltzan.

- 1956 ez zan?

- A, ez dakit.

- Oker ez banago.

- Ez, lehenago, lehenago.

- Lehenago zan?

- Berrogeta bat edo bi. E... hamar. Berrogeta hamaika... Bueno, dana dala, harek hasi zituan, baiña gero lezak agortu ziranian, 25 edo 30ekua, zuluak, ausartu ez. Eta esan nien: "Bueno, nik ez daukat horra jeitsi eziñik". Eta eskalak jarriko dituela eta zerak. Orduan hoiekin, hoiek eskatuta, hasi nituan eta egin diat espeleologia. Baiña espeleologiak peligro gehiago dik. Eta gero illuntasuna eta humedadia eta gogorra dek. Gogorra. Ez dek... Baditu bere alde onak. Hau da: iñor ibili ez dan leketan ze deskubriduko ote duan. Eta gertatu zaiguk, ba, hartz buruak eta gauza asko. Eta parajiak, jo eta ikaragarritzko...

- Marabillak.

- ... marabillak. Baiña nik, hala ere, aire libria nahiago.
- Gesaltzan...
- Hortik hasi eta gero egin dizkiat asko.

4.8. Espeleologiaren inguruko hainbat azalpen

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/027
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 01:18:48. **Bukatu:** 01:19:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Espeleologiako hainbat kontu. Lehenengo esplorazioa.

Transkripzioa

- Gesaltzan hasi bazinen, oker ez baldin banago, nahiko estualdi ere pasatu zenuten han, kolpetik ura agertu zela.
- Bai, behin, ba, galdetu han Gesaltzako basarrikeri: "Zu, euria eta euria egin du atzo eta gaur be euria egiten ari da eta ez da egongo arrisgurik hor -han presa bat dago gorago ta- gaiñezka egiteko edo?". Eta: "Ez! Bueno, ezta pentsau ere!". Sartu giñan eta barruan gaudela urak hartu! Eta gero korrontia gora urtetzen, gerriraiñoko uretan, bueno! Gaiñera jakin gabe nun zuloren baten sartuko ote giñen. Harri artian eta pausu txarra eta... jo! Larri. Basarrikuak eta han bokaraiñok edo ahoraiñok hurreratu ta bai, diarka eta. Guk ez gendun entzuten, han uran korrontearen zaratekin, saltuak eta uranak eta. Jo, haren estuasuna! Gu baiño larritasun gehiagokin. Lau lagun giñan.
- Bueno, hasteko ez dago gaizki. Lehenengo izateko!

4.9. Esplorazio baten azalpen zehatza

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/028
- **Iraupena:** 0:08:06. **Hasi:** 01:19:52. **Bukatu:** 01:27:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Espeleologia kontuak. Izugarrizko abenturak bizi izan ditu. San Martingo Mahaia izena hartzen duen kobaren esplorazioaren nondik-norakoak.

Transkripzioa

- Gero badaukazu bat San Martingo mahaia esaten zaion hortan. Zulo hori, Europako handiena edo.
- Orduan bai. Munduko...
- Munduko handiena izango zen hura.
- Goitik behera haundiena. Ez [estaziño]... goitik beherako haundiena.
- Goitik beherako "caída". Hor ere egun batzuk egin zenituen barruan, e!
- Bai. Gehien [egin nituena] zortzi egun, barruan. Sala Bernaraiñok eta

han, gaiñera, gero deskubrimentu bat egin gendun. Eta begia jo, baiña ezin. Eta gero beste baten jua giñen bost-sei egunerako: lau egin genituen, Barrian, lau egun, eta egin bihar izan gendun Berna horretan. Han bukatzen zen, han filtratzen ziren urak. Baiña nik geologiako kursilluak-eta egiña eta geologiako zeretan ikusten nuan han kaskadan bukatzen zela; eta gero urak filtratu egiten zirela behian, Bernako sala hortan. Eta sala hori ikaragarria da: baditt luzeran 250 metro. Zabaleran 200 pasau eta alturan 160 edo. Ikaragarritzua da. Bera bakarrik galtzekoa. Baiña nik... Foko batekin ibili giñen aztertzen, zegaitik produzitzen zen salto hura. Eta konturatzen nintzen pizarrak... pizarrak... franja bat zeguala estratuetan pizarrena. Eta, hain zuzen, pizarrak hausten zituania erosiñuak, mekanikuak, han sortu zala hori. Eta handik sortu zala sala haundi hori. Baiña, pizarrak jarraiturik, une baten ikusten nuan ilun-une bat. "Han zulua dago". "Bai zera". Gaiñera, esaten zidaten frantsesak: "Zulua balego be, nola igo hara?". "Eskalada". "Bueno, bueno, bueno!". Ixa erotzat hartzen ninduten. "Ha esploratu egin bihar da! Ni ez nago zera!". Beste baten frantsesekin, ba, akuerduan jarri eta jua giñan Santa Engraziatik. Lehelengo tunela egitera bisitatu giñuzen, inauguraziñora. Tunela egin zutenian. Egin gendun -konmemoratzen hango gu gure esploraziñuak- afari bat eta lo bertan eta hurrengo egunian jua giñan ikustera Sala Bernaraiño. Eta han foko potente batzuk jarri zituzten ikusteko sala ondo, punta batetik bestera. Eta nik esan nion frantses bati: "Jarraitu ezazu hori estratuori. Horrek pizarrok, hiru franja beltz". Rrrra! Eta: "Han, ha zulua da". Eta orduan esaten zidaten: "Bai, posible". "Ba lehen ura, erreka, hortik zihoan"

- Hor dago pasabidea.

- Hau hautsi duanian, pizarrak hautsi dituanian erosiñuak, e? harriak-eta zertzen, millak eta millak urtietan, ba, hau egin du. Eta hortik jarraitu egingo du. Eta horra igo bihar da". Eta esaten zidaten: "Zelan? Paret hori nola igo?". 90 metro ziran. Kalkulatzen gendun guk 80 bat edo. "80 metroko pareta igo eta gaiñera ura jausten da hor parte baten eta zera". "Nik eskalatu egingo nuke". Eta holan gelditu giñan. Eta hurrengo urtian jua giñen asmo horrekin frantses grupo bat eta gu. Gu hori pruebiori egitera, gure [...], baiña bestiak nahi zuten zeharkako zeren batetik jarraipenen bat bilatu beste zuloren batetik, eta horretan zebiltzen frantsesok. Eta gu jarri giñan hiru lagun eskalatzen. Eta lehelenguan bastante igo gendun eta hurrengo egunerako utzi gendun. Bigarren egunian, falta zan partia pin-pan klabijak sartu eta iritsi giñan hara eta, bueno, nere ilusiñua! Lehelengo begiratzen nuan halako terraza esaten zaiona, lurra eta harri biribilak, errekek utzitakoak. Eta hori zan muestra bat. Baiña zulorik ez. "Jo, hau da, orduan, nik ikusi [nuana]. Ez, hor aldamenetik egongo da". Holan. Eta, Arkautek igo zuanian nere ondora, esan nion: "Dana dala -esan zidan- errezoia zeukazun. Hamen ikusten da, zure teoria egiazkoa zan". "Baiña, joño, nik zulua nahi dut. Eta hamen nunbaitten ikusi bihar dogu". Eta hantxe bertan larogetak metruetakoa paretaren gaiñian dagon paret lurrezkoa, dana lurrezkoa, hori nola igo? Esaten zidan: "Hau ez egizu igo". Eta: "Bai. Hau, hartu maillukia eta hartu zera eta pazientziakin. Biguna da eta benga. Eskuetan". Eta esan netsan: "Zuk ondo aseguratu". Egin gendun seguridade on bat, baiña jausiko nintzan, bueno... nik kalkulatzen nuan hiru edo lau metro zirala. Baiña asko ziran. Gero, goian bazaude, lau metro zortzi metro egiten dira. Eta bi metro pasau inguruan aldatu egiten da, malda bezala. Eta han errezagua. Eta pentsaizu, dana lurrian. Lurrian zulo haundiak egin eta hantxe apoiatuta. Eta paretian. Eta erori, ez erori. Gaiña hartu nuanian, nun ikusten dot zulo bat, ni sartu ezindako moduko zulo bat. Baiña zulua. Behatu nuan hara argiarekin -linterna potentia [...] boltsilluan- iriki nuan eta "o, ikaragarritzko

zulua!”.

- Estu-estua?

- Bai. Baiña hasi nintzen, txakurrak bezala, aztertzen. Egin nuan, haunditu nuan. Esan nion: “Etorri zaite”. Bestiak igo zuan. Jo, golpera juan giñen -ez dakit- berrehun metruan edo, eta ikusten haura dana eta ikusi gendun beste bi zulo zeudela han gero goitik behera. Eta ha zala jarraipena. Eta gero, handik, ba, handik... Lehen haundiña izandakua haunditu egin gendun.

- Bai, bai.

- Handik beste ehun eta piku metro behera, bertikalian lortu da. Gu jetsi giñen larogeta piku metro, baiña ur barruan, e! Ikaragarritzko abenturak han be. Kaskada barruan.

- Hor badago zuen eskaladatan Aitz Beltz, beste bat.

- A, bai.

- Hirurehun metro edo zenbat dira hor?

- Bai, ixa hirurehun dira danera. Hori ba... Hortarako, politena zen, ba, nola jaso gendun... Frantsesak-eta lortzen zuten mediua han, ba, bueno, propaganda egiten zuten ‘Paris Match’-en eta halakuetan eta lortzen zituzten laguntasunak. Baiña hamen ez zan posible. Eta guk gure artian egin gendun, Aranzadikuen laguntasunaz eta, egin gendun torno bat pedalekin, bizikleten pedalekin: ipiñi hiru pedal, katiekin alkarri konbinaturik, hiruren indarra hiru personak egiteko eta hori jasotzeko. Ze beherutz manibela batekin, baiña gorutz, ba... Beherutz freno bat zeguan. Eta freno hori "diente de sierra" bat, klik-klik-klik egitten duana; uzten baduzu, trabatzeko bezala: ematen diozu engantxe bati eta trabatu egiten zuen, gelditzeko. Eta guk orduan, ba, hori, hori tornuori preparau, pruebak egin. Kablia kostatu zitzaigun bilatzia, Eibarren lortu gendun zera eta alkilatu egin gendun, gaiñera.

- Kablea?

- Kablia, alkilatu. Bai. Galtzairuzko kablia. Alkilatu, ze gero guk gero ez gendun bihar. Holan egin gendun hori esploraziñuori. Eta han, ba -ez dakit-, barruan gau bat uste dot bakarrik egin genduala. Ze, klaro, goitik behera jeitsi, esploratu, planua atara, datuak bihar ziranak hartu eta gora. Ez, gau bi egin gendun!

4.10. Juan San Martin eta "Pyrenaica" aldizkaria

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/029
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 01:27:58. **Bukatu**: 01:29:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena**: `Pyrenaica´ aldizkarian publikatzen zituen ibilaldi batzuk, ezagunak ez zirenak.

Transkripzioa

- Hor beste gauza bat zuekin ere aipatu behar da: kobetan bezala mendietan egin zenutena eta da planoak eta egin, bideak markatu.

- A, bai. Bai, ze hor bazeudeen bidiak. Bueno, egiten gendun ‘Pyrenaica’ aldizkarian, ba, zeoze... zagutzen ez zan toki asko zeguan lehenagotik publikaturik; komentarioak: denporak eta distantziak eta tokiak, nundik

juan, izenak. Eta guk be hori egiten gendun. Deskripziño bat egiten gendun, gure ibilera nundik egiten gendun. Eta Aitz Beltzekua, esate baterako, bertan 'Pyrenaica-n' publikatu zen. Baiña gero nik 'Pyrenaica-n' publikau ditut Alpesetako ibilaldiak ere bai, Gredosen, Picos de Europakuak eta Pirineokuak. Eta, bueno, baiña beti berezia, hain ezaguna ez zena. Egiten zenduan zerbait berezia. Ba bueno, Naranjo de Vulnes ezaguna zen, baiña heroismoa zen gure sasoian hara igotzea. Eta hiru aldiz igo dut eta bi, behintzat, printzipalenak, ifarraldeko aldetik egin gendunian eta, publikatu egin nuan, ba, beste batzuentzat zerbitzeko, zelako pasuak ziren eta ze neke edo ze aurkitzen zen.

4.11. Mendizaletasuna eta Eibarko Klub Deportiboa

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/002
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:01:12. **Bukatu:** 00:02:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena:** Mendizaletasuna. Mendiak zer eman dion. Eibarko Klub Deportiboko buletinean idazten hasi zen eta gero 'Pyrenaica' aldizkarian. Deportiboko buletin horren zuzendaria bera izan zen lau urtez.

Transkripzioa

- Mendiak, beraz, berarekin ekarri ditu bai zuretzako askatasun bat, esan nahi dut, autoafirmazio bat, indar bat, askatasuna, hori... Gero, gainera, zure ikusteko...

- Naturaleza ezagutzea. Zergaitik... geologiako kursilluak zergaitik egingo nituan ba? Gustatzen zitzaidalako.

- Eta horrek ekarri zizun, baita ere, idaztea.

- Bai, bai, bai. Ze sarri elkarrizketetan gertatzen zen, ba, elkarrizketak eukitzen nitun lagunekin eta : "Zegaitik ez dozu hori idazten?". Guk be zelan irakurtzen genduan beste batzuk egiña, ba, hortik hasi nintzen. Eibarko Club Deportivuan holako boletin bat egiten zen eta han. 'Pyrenaica-n' gero. Eta igarri gabe, ba, bueno, gero hasi nintzen baita ere euskeraz idazten. Eibarko Deportivoko zera -boletina esaten genion- rebistatxoa, lau urtian nik eramane nuan zuzendaritza eta giro berezi bat eman nion. Eta, bueno, han lan asko, ba, politikak ziren. Gaiñera, orokor... Era askotako lanak biltzen genituen eta bizitasun bat emon. Orduan egiten genduzen gauzak horrek ziren.

4.12. Indalecio Ojanguren argazkilaria

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/003
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:02:31. **Bukatu:** 00:06:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Indalecio Ojanguren argazkilari eta mendizale eibartarra. Oso lagunak ziren; mendian sarri elkarrekin ibilitakoak. Gerra aurreko Eibar.

Transkripzioa

- Mendiak, idaztea. Beste gauza bat ere bai: Ojanguren argazkigilea eta mendizalea.

- Bai. Ojanguren argazkigilea eta mendizalea. Harek... Lanetik irtetzen nintzanean, sarri juaten nintzen haren estudiora. Eta harek bazeukan bitrinak argazkiz beteta, ba, nunguak ziran. Eta esaten nion: "Bueno, hona mendira, nundik jua leike?". Gu hasi giñen urrutiko mendietara egun batian edo bizperatik juanda egiten, eta horrelan horrek konbinaziñuok. Eta esaten zidan: "Hau halako tokitatik". Eta: "Zenbat denpora?". Memoria ona zuan eta esaten zigun eta, bueno. Orientaziñua ematen zigun eta horrek asko lagundu zigun. Eta hortik aparte oso laguna. Gero berari sarri... Berak eskatzen zidan -idazten oso txarra zen eta argazkiak berak egiten zituanak, ba, orduan 'La voz de España-n' publikatzen zituan eta- 'La voz de España-n' argazkien azpia idazteko testotxo bat. Eta testuak egiten nizekion. Oso lagunak giñen eta sarri alkarrekin be asko ibiliak mendian. Eta Ojanguren fotografiuakin gero, ba, bueno, fotografia be hartzeko gogua eman zidan, ze berak esaten zuan: "Hara, Kodak gabeko oporrak, opor galduak. Danetik oroitzapen bat eraman bihar da. Eta oroitzapen hori, ba, argazkiaren bidez egiten da". Eta horrek konbenzidu ninduan: eta, bueno, berari erosi nion kamara bat. Eta hortik hasi nintzen gero, ba, argazkiak ere egiten. Baiña Ojangurenengan beste asko, beste anekdotak pillaka edo, bueno, idatzi egin ditut. Neretako, egia esan, ba, gizon bat oso... Kariño haundia hartu nion. Gehiago: berak ikusten zuan, ba, bere artxibua desegingo ote zan-edo bildurra. Eta esaten zidan: "Nahi badek, hiri emango diat". Ikusten zuan nigan halako zer bat. "Baiña ni ez naiz fotografiara dedikatuko". E? Eta holan. Eta gero Reyes Korkostegik eta biok egin gendun jestiñua Diputaziñuak hartzeko zera. Lehelengo eskeintza... Reyes be laguna eta ha be arduratuta zeguan. Eta nik esan nion: "Bueno, herritik irten baiño lehenago, lehelengo alkatiagana noa". Alkatiakin hitz egin nuan eta: "Bai, baiña guk hori zetako dogu ba...", ta holako... betikua, herrietan gertatzen dana. Gogo txarrakin eta. "Bueno, ba, orduan Diputaziñora". Ez galtzea zan, horren artxibua ez galtzea. Hala ere, gauza asko galdu dira, baiña, bueno, printzipalena edo gehiengoa behintzat salbatu da. Eskerrak horri. Eta artxibo ikaragarria zuan: millak eta millak. Asko klitxez egiñak, lehengo sistemarekin, eta hori. 1914tik, etara zazu, ba, mende erdi baiño gehiagoko lanak han zituan berak pillatuta. Ze berak egiten zuana zan reportajia bezela, gero ezkontzak zirala, hau zala... Hortikan bizi zan. Baiña ikaragarritzko afiziñua zeukan kolektiñuak egitera. Eta berak mendi guztiak, herri guztiak, zeozer inportantia zan guztia ateratzia. Eta eskuduak: basarriak eskudua bazeukan, enteratzen bazan basarri baten eskudo bat bazela, jua eta hari eskuduari etara behar zion. Torre zaharrak eta zera. Horretan ikaragarritzko artxibua egiña zeukan.

- Eta galdu diren hainbat gauza egongo dira hor!

- Bai, bai, bai. Galdu diranak. Bueno, Eibar. Eibar erdi baiño gehiago erre zan eta. Horren fotografietan han daude.

- Han dago.

- Han dago Eibar, lehengoa. Gerra aurreko Eibar, osorik, bere fotografietan

bakarrik dago.

- Hori ere, Juan, mendikoa da, menditik etorri zen.

- A, bai, bai.

4.13. Juan San Martin eta arkeologia lanak

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/004
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:06:33. **Bukatu:** 00:08:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Juan San Martin eta arkeologia lanak. Dolmenak aurkitu zituen Hernio mendian eta beste hainbat lekutan. Anekdotak. Aranzadi Zientzia Elkarteko kide.

Transkripzioa

- Eta horrekin batera beste gauza bat ere bai. Hori aipatu beharrekoa. Artzainak-eta zenituela lagun eta adiskide. Baina hor badago... jentil harriak. Horiek zenbat pasatu ote dituzun, begiratu...

- Bueno! Lehelengo asko, ba, igarri gabe... igarri gabe ere bai. Baiña beste batzuk, [exproceso] hortara juanda. Espreski jua horrek ikustera eta ezagutzera. Eta gero Aranzadi sortu zanian, ba, Aranzadin egon zan holako mobimientu zer bat. Bueno, ba, gero erreparto bat egin gendun. Toki batzuetan dolmenak egongo zirela eta esploratu egin bihar zirala. Eta nik hartu nuan hori Deba Arro goikaldeko partea eta aurkitu nituan zenbait dolmen [Sarai] aldian eta beste zenbait tokitan. Eta azkenetakuak, ba, Hernion. Hernion ez zan bat ere ezagutzen. Han Elozegi ibili zen eta bera harrituta zeguan. Esaten zidan: "Derrigor egon bihar dira eta ez dut ezer aurkitzen". Sarri dolmenak hautsi egin dituzte beste konstrukziño batzuk egiteko. Eta behin, kasualidadez, emaztiakin, gaiñera, emaztiakin nindoiala Herniora, egun baten, Iturrioztik gora, ba, Zelatungo bidia hartu eta gora, gero beherutzian, euria hasi zan eta txabola bat ikusi eta: "Guazen hara txabolara, hau zati baten botako du, bolada bat izango da, baiña gero pasatuko da". Eta txabolara juaterakoan, txabola onduan nun aurkitzen dudan Zeraingo ordekan...

- Dolmen bat?

- ... dolmen bat. Eta ha izan zan lehelengo pista, Herniokua. Gero beste bat be aurkitu nuan. Eta, bueno, holako... Dolmen kontuan horrek izan dira gauza berezienak.

4.14. Juan San Martin eta Jose Migel Barandiaran

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/005
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:08:21. **Bukatu:** 00:12:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Juan San Martin eta Jose Migel Barandiaran. Hartu-eman handia izan zuten; sarritan laguntzera joaten zitzaion. Barandiaranekin ibili zen Santimamiñe;eko kobazuloa aztertzen, eta beste toki batzuetan indusketa lanak egiten. Jose Migel Barandiaran zelakoa zen kontatzen du.

Transkripzioa

- Bueno. Oraindik mendia ezin utziko dugu. Eta oraingo honetan goazen leize batera, kobazulo batera: Santimamiñe.

- A, bai. Bueno, Santimamiñen, ba, pinturetatik aurrera oso gutxi ezagutzen zen. Oin han turismuarentzat preparatuta dago. Jentia juaten da halako parrilla batzuen gaiñetik, eskillarekin... Eta hori barrurutz nolan esploratu gabe zeguan, ba, gu hasi giñen esploratzen. Eta sartzen giñen. Paretak zelan estuak diran, ba, hankak eta eskuak... presiñua egin aldameneko paretetan eta holan juaten giñen. Eta gero goitik behera egin bihar zanian, sokekin barruraino. Oin ezagutzen dan zer guztia, ez eskillara ta ez parrillik ez zeguan garaian, guk egiñak dira esploraziño hoiek.

- Eta han izan izan zenuen aukera -lehendik ezagutzen zenuen, baiña, aukera- Jose Migel Barandiaranekin berarekin lan egiteko.

- Jose Migelekin nik izan nuan harremana lehelengo gutunezkua, bera exiliuan zeguala. Etorri eta belaxe bisitatu nuan. Eta gero berakin harreman haundia beti izan dut. Eta bere inkestekin eginda neukan ordurako, ba, zer batzuk, etnografiako estudixo batzuk, hain zuzen, Saraiako artzaiñena, artzaien bizitza eta lana nola egiten zuten, transhumantzia nolan. Hori izan zan nere lehelengo lana 'Anuario de Eusko Folklore' n. Eta Barandiaranek, ba, interes haundia zeukan eta, bueno, sarri bere etxera. Bere etxian, gaiñera... Bera desiatzen egoten zan, ze orduan jende gutxi zan Jose Migelegana hurbiltzen zena. Eta danok be lau katu giñen eta ni nintzan bat. Eta bera pozik, ba, bueno, batetik harremana eta beti izaten zan... gu... galderak zer partetan edo zer egin genezakeen edo, eta zertan kolaboratu. Eta hortan. Eta ni berakin ibili naiz, ba, bueno, Santimamiñen eta ibili naiz eskabaziñuak egiten ere Atxetako harpean, han, Foruan. Han berakin, ba, laguntzen berari, ze bestela bakarrik ibiltzen zan. Ematen [zion] subenziñotxo bat Diputaziñuak, baiña hor uzten zuan. Eta nik, ba, igual, batzuetan nere oporretako parte bat udaran egiten nuan berari laguntzen, eskabaziñuetan. Beraren onduan gauza asko ikasten zen. Neretako Don Jose Migel zan liburu iriki bat. Eta humanista bezala ezin dut ulertu ere: nik esaten nion, nere existenzialismuak ikututa, holan relijiño kontuko ze kezkatzuk nituan. Eta berak esaten zidan: "Ez arduratu. Kezka holan badakazu, hori interesantea da. Dudak neuk be baditut. Nik fedia daukat, baiña nere dudekin -berak-. Eta zu zeu ez zaite preokupatu horrekin". Nik berari esaten nion ze bide hartu nezakeen eta: "Ez, ez, inportantia da zu kezka horrekin bizitzia eta zaran modokua izatia". Eta eman zidan halako moral bat eta zer bat, konfiantza bat. Eta, egia esanda, beti-beti estimatu dut hori, bere kontseilu hoiek. Eta, bueno, hain zuzen, bere 'Obras Completas' egin zionian 'Gran Enciclopedia' k, berak esanda, ba, neri bialtzeko ale bat; eta nik orduan, behin, hartu nuan ale bat korreetik eta ireki [nuen] eta han, atarian, lehelengo argazkia nik berari Santimamiñeko pinturak ikusten egiña. Eta berak hori [zala] argazkirik maitiena. Eta hori kasualis bat izan zen: nik 'Yakin'en, atari baten, publikatu nuan. Ta han, nunbait, Elvira Zipitriak ikusi eta deitu egin zidan: "Zu, hori anpliatu eta zegaitik ez didazu ematen? Don Jose Migeli erregalo

bat egitea nahi dut". "A, ez. Hori bada, Zipitria, eskertzen zaitut. Holan bada, Elvira, nik erregalatuko diot". Eta anpliatu, ba, ez hain anpliaziño ona, baiña egin nion; markua be bai. Eta barruan dedikatoria bat dauka, ez da ikusten. Euskeraz dedikatoria bat dago. Eta egin nion marko eta guzti. Eta egun baten jua nintzan berari hori ematera. Eta gero hori nahi izan zuan berak 'Obras Completas' en lehelengo-lehelengo argazkia hori jartzia atarian bertan.

4.15. Espeleologia lanak

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-084/006
- **Iraupena**: 0:05:17. **Hasi**: 00:12:46. **Bukatu**: 00:18:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- **Laburpena**: Espeleologia lanak. Espeleologiarako materiala. Mapak egiten ibilitakoa. Eliza askotako planoak egin izan ditu.

Transkripzioa

- Beraz, hor dago arlo oso bat. Nik oraindik gehiago ikutuko nituzke zenbait espeleologo bezala, adibidez, zertzuk erabiltzen zenituzten. Gaur gauzak oso aurreratuta daude: pilak eta denak oso aurreratuta daude. Baina zuen garaian karburua zen.

- Bai, kuebetan, karburua. Bueno, guretako... Orain ere nik ez nuke utziko, ze karburuak segurantzaz bat du. Inkonbeniente batzuk be bai, baiña baita segurantzaz be. Karburuak argia zabaldu egiten du. Eta lurra be ikusi egiten dozu. Eta linternak foko bat ematen dizu. Gure garaian baziran! Nik erabili dut mendian eta badut mendian erabiltzeko. Guk illunian urten izan dugulako Alpesetan eta: gauean, ba, goizeko lau eta erdiak edo bostetan mendira eta illunian zoaz, baiña argi zerarekin. Eta han elurrak-eta ematen dizu zera, grietarik badago. Baiña harpeian ez. Harpian karburuak ematen dizu argi bat, zabala, lurra be ikusten zoazena eta tetxua ere bai. Eta asko hobia da. Linternak erabiltzen gendun, nik bestian esaten nizun bezala: mendirako erabiltzen nuan. Baiña, bestela, guk eramaten gendun karburua, bat. Gure prebisiñua... Ze harpietan arrisgua dakazu argi gabe... Argia da jana baiña lehenago.

- Bai, inportanteena argia.

- Argia. Orduan eramaten gendun karburua. Kantinplora bat urakin. Karburu gehiago ipiñi bihar bazan ere, ba, egin bihar zan zerbait, baiña karburua batetik. Bestetik, linterna. Bat gutxienez. Boltsilluan. Eta, bestetik, kandela eta pospoluak.

- Hori azken...

- Kandela eta pospoluak, ba, gomazko poltsa baten barruan sartuta - plastikua hasi baiña lehen-, humedaderik... ez bustitzeko. Hori izaten zan azken rekursorako, zeozer pasatuta ere. Eta hori dana. Horretan, gaiñera, oso estrikto edo oso zehatza zen Arkaute, esate baterako. Gu hasi eta gero Gesaltzan, handik urtebetera edo etorri zen handik, Belgikatik, eta hasi zan gurekin eta berak zera egiten zuan harek, rebista pasatu: "Aber, erakutsi linterna. Erakutsi kandela". Dana. Bestela ez zion uzten sartzen, oso gogorra zen horretan. Eta errezoia zeukan: seguridade guztia aurretik hartu. Hala ere, etorriko dira zerak, eragozpenak.

- Gero, lehen aipatu dugu: mapak. Egin zenituzten hainbeste mapa oraindik ere batek baino gehiagok erabiltzen dituenak.

- Bai, bai. Aranzadiko artxibuan, gaiñera, asko egongo da guk egindakua. Ni mapagintzan ibilli nintzen, bueno, Eibar eta inguruko harpiak, ezagunak zirenak, ba, horrek danok, mapak egin nituan. Ez zeuden mapak eta mapak egin nituan. Gero, mapak egiteko ere...

- Teknika behar zen.

- Bai, eta noberak egindako aparatuekin.

- Hori ere bazan?

- Bai, bai, bai. Nik erabiltzen nuan, ba, beste lagun batek eta nik egindakua: kartaboi bat. Kartaboia esaten dana, baiña metalian; mira batekin, disko erdi, graduauta, eta jartzen genion, ba, tripode baten gaiñian, argazkiak ateratzeko tripodiarren gaiñian, baiña egiten gendun tetxua hartzeko. Ematen zigun, batetik, edozein tokitan inklinazioa. Ematen zizun zenbat gradu inklinaziñoa. Eta, gero, distantziatik ataritzen zendun, ba, alturak. Eta horrelan ibiltzen giñen mapak egiten. Perfekto-perfektuak ez dira izango, baiña bai noziño printzipala... Ez noziño printzipala segurantzaz guztiarekin... korrekziño gutxi behar duten mapak. Eta mapa asko tokatu zaigu egitia. Eta gero hori polita zen: mapak egitia bera ere polita. Ni gero nere profesioan ohituta nenguan, proiektuak egiterakuan, dibujogintzan.

- Hori kasi esan liteke Euskal Herrian... Galdera bat egin behar dizut...

- Gero elizenak be egin ditut pilla bat, e! bobedak eta. Oin be egiten ari nauk. Nik egin ditut ezagutzen ez ziran eliza gotikuak, bueno, ba, platereskoa, gotiko itxura oindiok... Bobedak eta. Baiña, bueno, Angiozargua edo Usurbilgua -ez dana publikatu-, baita ere Oiartzungua. Horrek egiñak ditut. Hamengua. Hamenguak baditu hiru edo lau plano, ezagutzen ditut, baiña nik esaten dutena, hamen esan diet batzueri: karikaturak dira. Oso txarrak. Eta Usurbilguak ez zeukan eta eliza gotikua oso interesantea da. Eta nik bai dut, publikatu gabe, baiña... Publikatuta daukat, ba, Elgetakoa, Angiozargoa... monografia egin nuanian han. Eta besteren bat be egongo da 'Hoja del Lunes' en egin artikulua eta gero liburua pasatzerakuan hor egin nituan hiru liburu hango artikuluen bildumarekin. Eta hor publikatu ditut zenbait dibujo, ermitenak eta zerak.

4.16. Juan San Martin mendizale

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-084/007
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:18:03. **Bukatu**: 00:18:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola
- **Laburpena**: Juan San Martin mendizale. Hillary-k Everesteko tontorra zapaldu zuenean, emozioa.

Transkripzioa

- Baina bapatean galdetu nahi nizuna beste gauza bat zen: Hillary-k Everesteko tontorra jo zuenean, zer sentitu zenuten zuek?
- Jo, ba, emozioa! Guk haura pelikulia ekarri egin gendun alkilatuta eta eman, gaiñera. Igande baten. Ta jo! orduan, igande haetan, ez zeguan mendira juaterik. Haura ikusten. Eta exito ikaragarria: jentez beteta, sarrerak bukatu... Eibarren eman gendun haren zera.

4.17. Eibarko Klub Deportiboko Kultura atala sortu zuten

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-084/008
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:18:31. **Bukatu**: 00:22:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola
- **Laburpena**: Eibarko Klub Deportiboa eta Juan San Martin. Deportiboan hitzaldiak antolatzen zituzten. Fernando Zuloaga medikuak eta berak Kultura atala sortu zuten. Kulturarekin lotutako hitzaldiak ematen hasi ziren. Besteak beste, Barandiaran, Jesus Altuna eta Caro Baroja ekarri zituzten Eibarrera.

Transkripzioa

- Eta gero, hain zuzen, lehen esan dizut nere lagun medikua, Fernando Zuloaga, ba, medikua zen, nahiz ta beste milla gauzetarako afiziñuak euki. Eta oso liberala zen. Gizon liberala. Eta berakin oso ondo eramaten nintzen. Eta behin berak kontatu zidan, ba, atmosferan... falta dan tokian zer pasatzen dan eta nolan etortzen dan desidrataziñua ere, ze fenometzuk zertzen diran. "Hitzaldi bat eman bihar dozu". Ipiñi nuan mendizalieri hitzaldi bat ematen Deportibuan. Exito ikaragarria. Esplikatu zuan ikaragarritz, medizina aldetik ikusita. Gero, harek eta nik, bion artian, formau genun -ze mendizalian... Klub Deportibua mendizaliera zen eta-sekziño bat kulturakua. Eta hasi giñan hitzaldiak emoten, ez zutenak deportiakin zerikusirik, baiña kulturakoak. Eta kulturako hitzaldiak emoten hasi giñen, harek eta nik bultzaturik. Baita pinturako erakusketak ere. Eta hara nik eraman ditut garai haretan -pentsaizu, gero mundu guztiak esaten zuan- Don Jose Migel hitzaldia ematera eramanda nago.
- Eibarrera?

- Bai, bai. Jesus Altuna be bai. Gaztetzua zen orduan. Jesus Altuna ere bai, bere paleontologiako hitzaldia ematen eta prehistoriarekin. Eta baita Caro Baroja ere. Caro Baroja nik Eibarrera eraman dut hara hitzaldia ematera. Aprobretxatu... Bueno, eta beste asko. Aprobretxatu ditut: haraiñok eraman hitzaldia ematera eta, gaiñera, zer pentsatzen duzu ordaintzen geniola? Taxian etortzen baziran, taxia. Biajia ordaintzen genion. Eta gero: "Zer nahi duzu?". Eta gehienak orduan [ohitzen] zan bezala, ba, pozik; berakin atenziñua, konsideraziño hori eukitziarekin pozik. Eta: "Ez da ezer be". Eta egiten genun, ba, "Bueno, ba derrigor hartu bihar dozu zerbait". Eta gogorra iruditzen zitzaigun... Batzuk ez: ipintzen zuten: "hainbeste". Bueno, ordaintzen genion; baiña huskeria bat izaten zen eskatzen zuanak be: biajia eta bere kalkulo bat, ba, denporiagaitik edo zeragaitik, ba, ematen genion. Baiña modikuak izaten ziren. Eta kobratzen ez zigutenari ordaintzen genion biajia -eta batzuk, hurrekuak baziran, hori ere ez zuten

zertzen- eta orduan zeukagun urrutikuari gastu bat. Gero esan neban: "Hamen zeozer asmatu bihar da". Eta asmatu zitzaidan erregalo bat: Eibarko zer egingo zenioke erregalua? Bueno.

- Damaskinaduren bat edo?

- Damaskinauan eskola zeguan eta eskolan egiten zituzten ikaste alde gauzak eta merke saltzen zituzten. Ta hauxe (damaskinatuan egindako tinbre bat hartzen du eskuan, elkarrizketatzaileari erakusteko). Tortuga, tinbriakin. Buztana eta buruakin tinbria jotzen. Ikusten dozu? Klub Deportiboko eskudua be bai. Eskatzen genion: "Bueno, ba egin dezatela Klub Deportiboko eskuduarekin, eta, bestela, berak ohitzen zuten dibujua. Eta etortzen zanari hau emoten genion. Zuk bazeneki ze pozik juaten ziren! Ze honek, eskolan egindakuak zenez, ba, merke ziran. Guri kostatzen zaigun, ba, garai haretan -1950 erditik 1960 erdi pasaura edo-bostehun pezeta. Laurehun. Eta bostehuneraiñok igo zuten. Bostehun pezeta. Baiña komerziuan juaten bazara egitera, ez daukazu. Eta egitekotan hau, dakan denporiagaitik, ikasliak egiña da, baiña hau... millak pezeta balio ditu. Orduan honekin pozago juaten ziran beste edozer baiño. Eta honekin kunplitzen gendun gure hitzaldiak. Eta gero ni Caro Barojakin, ba, lagun. Hamen be nik bisitatu egin izan dot. Hamen beti udaran hamen egoten zan. Igaz bisitatu nuanian... Bueno, aurreko urtian, hil baiño aurreko urtian, ba, ikusten nuan burua juanda-eta zeukana, eta pena haundia eman zidan. Ze maixu ona izan da.

4.18. Juan San Martin eta artea

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-084/010
- **Iraupena**: 0:06:27. **Hasi**: 00:36:38. **Bukatu**: 00:43:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- **Laburpena**: Juan San Martin eta artea. Marrazteko zaletasun handia. Berak grabatua ikastea nahi zuen, baina aitzak armagin izatea nahiago. Artea. Arkeologia arloan egindako lanak; argitaratutako ikerketak; etab.

Transkripzioa

- Orain bai. Orain goazen beste arlo batera, menditik jaitsita. Baina -ez dakit- hemen menditik jaitsi ez dut uste sekula jaitsiko garenik. Artea. Artea da zure afizioetako bat. Ez dakit haundiena den. Haundienetakoa behintzat hori izandu da.

- Bueno, gertatzen da, ba, nik, gizurra badirudi ere, haurtzaroan dibujan lan asko egiten nuan. Eskolan dibujan nintzen -bueno, ba, ez dakit-, esaten zutenez, oso esku ona, dibujante trebea nintzen. Erakusketak egiten [...] nereren bat jartzen zuten han. Eta gero... nik hori pixkat... gehiago...

- Grabatua ere ikasi zenuen.

- Ez.

- Ikasten hasi zinen.

- Ez. Ez, ez, ez. Grabatua... Nik banian izeba bat hori egiten zuana eta ikusi bai, baiña... Eta teknika badakit, baiña ez dot egin, ez. Eta dibujua bai, dibujan asko. Eta dibujan, gaiñera, gertatu zitzaidan -badakizu gurasuak zer eukitzen duten-: nere anaia, ez zekialako dibujua ondo egiten,

partikularrera bialtzen zuten dibujua ikastera, eskolatik aparte. Eta nik nahi nuan eta esaten nion “nik be nahi dut ba”. Eta: “Ez, zuk ez. Zuk dibujua... hor orduak eta orduak gastatzen dituzu bai, beti dibujatzen zabilta eta zuk badakizu”. Eta neri ez zidaten erakutsi. O sea, bokaziñuan kontra. “Hor gehiago... denpora gehiegi galtzen duzu, beti dibujuan zabilta eta. Beti animaliak egiten eta lorak eta”. Eta nik ez dut dibujorik ikasi. Ikasi dut bestela, ikusita. Baiña zaletasuna, ikaragarria. Nahi nuan. Nik gogua... Ikusten nuan nere izebak zelan egiten zuan lana, ikaragarritzko ona zen eta... Aitaren arreba. Eta grabaua ikasi nahi nuan. Nere ofiziotzat hori markatzen nuan lehelengo zera, ez zera...

- Ez armagintza.

- Ez armagintza. Eta, orduan, neri esaten zidan, aitak berak esaten zidan: “Bai, hik bazekiat zetarako nahi duan dibujua ikasi: gero grabadore izatia nahi dek”. Baiña berak destinauta zeukan armeriarako. Horrek dira gerra aurreko kontuak. Gero, zer esango dizut? Nik asko galdu nuan gero dibujo kontuan, artistikuan behintzat, gerria etorri zanian, ba, guk hor zihar ez gendun... papelak falta [zitugun]! Lapiza be garestia zen. Eta gerra ostian berdin. Eta nik ez nuan recuperatu. Gero recuperatu dut ofiziuagaitik, ba, lineala. Egiten ikasi biharra. Horrekin zertu naiz, baiña ya eskua galdu nuan. Hala ere, egiten dut. Eta mendikuetan egin ditut dibujuak, krokisak eta...

- Baina hor artearena...

- Baiña horrekin mantenidu izan dut, eta beti ikustia gustau. Hori, esan dizutena: ‘Geografia vasco-navarra’ ikusten nuan eta bueno: koño Bergaran Montañesa esaten zutena -gero badakigu Mesarena dala- kristo ikaragarri bat dago, famatua. “Ikusi bihar dot”. Juan. Ikusi haura eta “Aiba! jo!”. Baiña neri ez zidan han kristua bakarrik... Ni kristua ikustera jua nintzan Bergaran San Pedroko eleizara. Erretaulak deitu zidan atenziño ikaragarria. Eta hori, tiratu egin izan nau arteak. Eta gero ikasi nuan. Ba, bueno, beti izan ditut manualak eta. Manual bat erosi nuan, artekua, identifikatzeko estiluak eta zerak. Eta gero hortik jua naiz, baita ere, identifikatzia nekeza den partietara, liburuetan ez dagonera, artian. Esate baterako, ez da nik esatiagaitik, baiña ni Don Manuelek in ibili naiz, noberaren iritziak jartzen, hemen bertan Hondarribian, urte asko dala. Bat behintzat. Baiña baita ama Arrazolakin. Ama Arrazolak deitu eta jua naiz ni nere iritzia ematera, zera. Eta gero gehiago, asko. Honek, esaten dana irudi exentak, soltiak direnak, ez daudenak toki baten kokaturik, nekezak dira igartzen transiziñuetakoak: erromanikotik gotikora edo gotikotik errenazimentura. Eta hor beti dudak daude eta horren iritzia edo aproximaziñua egitia kosta egiten da. Eta orduan, bataren, bestiaren ritxiak. Hortarako fijau bihar zara detalle askotan. Hasi ilia, begiak, pliegia, bolumena, tratamendua, posiziñua, nola dagon... horrek danok. Hori ikasteko egin ditut nik... Nik biajiak egin ditut gero kotxiakin, negu partian, holan mendian eta ibiltzeko, eskiko zer batzuk, eskapada batzuk aparte. Eta, gaiñera, bide batez hartuta, eta bide batez hartu gabe, sartu buruan eta “ikusi bihar dut Eunateko erromanikua”. [...] Sangesara zenbat aldiz? Baiña Sangesara zetara? Han irudi asko dago. Zertuta, dokumentatuta dago noizkua dan. Liburua erosi. “Noizkua?”. Eta orduan: “A! Irudi hori halako fetxatan egiña da, posiziño hau dauka, holan dago”. Eta obserbatu, begiratu. Argazkia atara be batzutan. Baiña obserbatu haren zerak, diferentziak. Eta gero hori aplikatu exentari; hori egin dut. Eta hori gero ibiliz automatikoki egiten duzu. Begia almendrau forman badago erromanikua da, baiña atxinadoa bezela bada gotikua da. Hori, ba elementalenak horrek dira. Baiña gero bitarteko zerak... Gero renazimentuan berdin. Renazimentuan ta hor barrokoa hasten darian diferentziak dira. A, baiña seillo ikaragarria dute renazimentokoak, ba,

hankak beti parian eukitzen dituzte, belaun bat aurreratuta. Baiña hankak... Eta ya barrokoan hasten da hankak aurrera edo atzera eta, gaiñera, gorputza biratuta. Ya berez zertzen zara, baiña ikusiaz, ikusiaz. Eta irakurriaz.

4.19. Juan San Martin idazle

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/012
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:53:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena:** Juan San Martin idazle. `Euskal artea` (1974), `Gogoz` eta `Bidez`; liburuak. Azkeneko hauek artikulua desberdinen bildumak dira. Beste artikulua ugari idatzi izan ditu.

Transkripzioa

- Zuk lehendik badaukazu liburu bat, 'Euskal Artea' deritzona, 1974ean kaleratua, halako hainbat gauza eta jasoz. Eta baita ere jaso dituzu 'Hoja del Lunes' en argitaratzen zenituen artikulua haien bildumetan, 'Gogoz' eta 'Bidez', 'Gure herriko gauzak' eta 'Landuz'.

- Bai, horrek ziran artikulua kultura zabalketarako. Horregaitik dira batzuk artiar buruz, beste batzuk etnografiari, beste batzuk historiari...

Diferenteak. Sail bakoitza hartuta eta, gaiñera, batzuetan oso kokatuak toki bati, neu aztertzen ibili naizen toki bati. Hurrengo, orokorki, eta hori izan da, ba, bueno, lanetariko bat. Artearena, orokorki egiña, nik uste, ba, ez du batere ondo urten eta pena dut. Hori. Egin bihar dut liburu bat. Ze liburu bat egin dut, hobeto esan. Baiña ez dago nerea dan bezala. 'Arte Vasquem' arteko zer guztia nerea da. Azkenian dago arte popularreko hiru orrialde eta jarri gaituzte autore bion artean dana eginda balego bazela. Baiña orrialde guztiak nereak dira, ehun folio makinaz idatzita. Eta gero hori, jakin gabe, hamen publikatu dute, 'Ser Vasco' itzulita, nerekin kontatu gabe, ez ezer ordaindu. Publikatu dute eta ez zait gustatzen. Esaten dute sarri polemista naizela, baiña ez naiz iskanbila zale. Eta hor gelditu da. Nik ez dut besterik egin: lana emon, dirua galdu eta ez didate ale bat ere eman. Eta, gaiñera, nere izena kendu dute. Eta horretan min hartuta nengoan horrekin. Eta nahi dut hori atara hortik, liburu bezela publikatu, gaiñera argazkiak be neriak dira. Eta liburu bezela publikatu, bere nortasuna izan dezan. Baiña arteko estudiorik haundiña hori da. Gaiñera, hor falta da bibliografia. Nik bibliografiakin bialdu nuan eta bibliografia sobrau egiten zan itxuria eta kendu egin dute.

4.20. Euskaltzaletasuna gerraostean: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa; Ikastolen mugimendua

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/016
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:17:53. **Bukatu:** 01:18:45

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Euskaltzaletasuna gerraostean. Gerra osteko Gipuzkoako Lehenengo Bertsolari Txapelketa ere egin zen. Ikastolen mugimenduaren hasiera. Euskaltzaletasuna Eibarren.

Transkripzioa

- Eta hortik pausu haundi bat eman genion. Gaiñera gero lotu genion programari baita ere lehendabiziko Gipuzkoako bertsolari txapelketa gerra onduan.
- Hori aipatu nahi nizun, ze 1959an izan zen hori. Bizkaian ari zen Alfonso Irigoien...
- Alfonso Irigoienek egin zuan urtebete lehenago Bizkaian.
- Eta ondoren...
- Eta guk egin genduan Eibarren. Eta hori antolatu eta horrek izan zuan inpakto bat, Eibarrek batera-batera "pap" golpia hartu zuan, halako shock bat: derrepente euskaltzale pilla bat agertu ziren, ordura arte nahikua ezkutauta zebiltzanak, ba, agertu ziren beren sentimentuak. Harrezkero bide bat egin da. Egoera onian ez zeguan eta ez gaude, baiña, bueno, harek ekarri zuan bide irikitze bat.

4.21. `Egan´ aldizkaria; `Euzko Gogoa´; `Anaitasuna´

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/017
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:18:45. **Bukatu:** 01:20:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Irakurtzea
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena:** Juan San Martin eta `Egan´. 1948an euskara eta erdarazko aldizkaria. Juan San Martin zuzendaria izan zen. 1949an euskaraz bakarrik. Dena dela, lehenengo lanak `Euzko Gogoa´n eta Bermeoko `Anaitasuna´n agertzen dira.

Transkripzioa

- Ze hor datuak kontrastatu egin behar dira. Bazegoen `Egan´ 1948an sortua, euskara eta erdarazko aldizkaria. Gerora zeu zuzendari izango zinen. 1949rako euskaraz bakarrik zetorren. Lehenengoan planta hori egin zuten, euskara eta erdara.
- `Egan´ aldizkariaren kasua: bilingue egin eta euskerak jan. Eske euskeraz idazten zebiltzan jenteak ez zeukan nun publikatu. Eta hori zen bide iriki bat eta orduan hor hasi zan jentea.
- Hor hasten zara zu idazten. Baita ere hor idatziko duzu.
- Lehelengo-lehelengo urtian ez, baiña, bueno, laster hasten naiz hor ere, ze nik `Euzko gogoa´n zelan idazten nuan aurrerago...
- Eske hori da problema...
- `Euzko gogoa´tik, ba, horra pasatzia edo bietan egitia... Ba holan hasi giñen.
- Azken batean `Egan´-ek jango zion `Euzko gogoa-ri´: barruan egiten zen

eta gainera finantziarioa bestelakoa zeukan eta... Beste bide batzuk. Baina hori esatera nindoan: 'Euzko gogoa'-n azaltzen dira, dagoeneko, zure lanak.

- Bai, bai. Lehelengokuak 'Euzko gogoa'n. 'Euzko gogoa'n eta Bermeoko 'Anaitasuna'n.

- Oraindik zeraren... Gipuzkoako 'Anaitasuna'ren suplementu edo gehigarri zen garaikoa...?

- Hori zan... Bai, Gipuzkuakuan izango zan, ez dakit, hori zerak, Aita Berriatuak, egiten zuan, eta han ditut nik lehelengo ipuin umoristikoak idatzita. Seudonimoren batekin, gaiñera. Formato txikian egiten zen.

- Bai, bai, bai. Hori frantziskotarren zera zen, hirugarrendarren aldizkaria.

- Hori da!

4.22. Juan San Martin idazle

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-084/018
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 01:20:26. **Bukatu**: 01:22:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena**: Juan San Martin idazle. “Zirikadak” eta “Eztenkadak”; eibarreraz idatzitakoak.

Transkripzioa

- Bueno, hor martxan. Eta martxa bizian. Hirurogeta... Goaz, kolpetik, liburu bat oso inportantea: 'Zirikadak'. Eibartarrentzat oso inportantea. Eta bere laguna: 'Eztenkadak'. Baina inportanteena 'Zirikadak'. Jo dezagun biak...

- Bai, lehelengo shock bat izan zen hori ere. Ze hori... Nik Eibarren Mogelena egin nuanian, bilduta nituan ipuin asko, ta anekdotak, bertakuak eta Plazentzia, Elgoibar ingurukuak, ezta? Eta ikusten nuan nere euskera... Bueno, orduango euskera batuan egin nuan Mogelena. Eta ha askorentzat ez zala berena eta halako zer bat. Eta hori zertzeko, bestia neukan preparatuta eta urtebetegarrenera publikatu nuan Eibarko euskeran, bertako jentiak ezagutu dezan bertakoa. Eta bertakotik, ba, aurrerago joteko. Intenziñua hori zen. Eta nik gauza bat daukat, ta hori batere ez dut dudarik: millakak pertsonak lehelen zutenak edo, lehelengo aldiz. Ze hori... Askok grazia egin eta gero, gaiñera, personaje batzuk -igual ez nittuan esan bihar-, batzuk esaten zidaten: "Zegaitik esaten dozu halako personajena? Eta bestiana? Eta hori. Minduko balira?". Eta: "Batzuk bai, baiña beste batzuk, ez". Hori arrisguori banekan, baiña gauza asko ahoz aho erabiltzen ziranak ziren. Eta hori egin nuan eta horrek, irakurri zuanak, bestiari esaten [zion]: "Zelako zera!" ta zera. Eta ahoz aho zabaldu zen hori eta belaxe agortu zen ediziñoa. Baiña golpea da: ediziño hori dena ez zan agortu, ba, bueno, salketa haundia egin zen, baiña dana ez zan agortu. Baiña horren izenagatik -handik lau urtera edo atera nuan 'Eztenkadak'-, 'Eztenkadak' belaxe agortu zen. 'Zirikadak' baiño lehenago, oindiok 'Zirikadak' saltzeko zeudela. Bi liburu hoiek izan zuten Eibarren ikaragarritzko inpaktua. Jentiak, ba, oindiok irakurtzen ditu!

4.23. Eibarko Artisten Elkartea

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/018
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:46:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- **Laburpena:** Artea, mundua ikusteko modu bat. Eibarko artisten elkarte, Cleto Unzueta sortu zuen.

Transkripzioa

- Lehen nik aipatzen nuen hasieran eskua, aipatzen nuen artea, artea eta eskuak lotuta daudela... Baina esan behar da artea munduaren ikuspegi bat ere badela, mundua ikusteko modu bat.

- Bai, bai. Toki askotatik gaiñera! Literatuak bezela, pintoriak be beren estilua eta hartu-emonak alkarrekin; batzuk hasarre, beste batzuk ez: "Hau holan dok...", hori danekua. Elix barruan be bai, eta artian be bai, lanian be bai, danian dago konpetenzia edo hartu-emon edo zer esana.

- Zer da Goruntz ?

- Goruntz? Goruntz, gure lagun batzuk sortu zebena. Ni ez nintzan sartu han! Ez, ez. Baten etorri zan Oteiza zerera, estudiora, eta han ikusi genduan Oteiza eta nik han neukan gauza raro bat eginda eta harek esan zeban: "¡Este es muy bueno!". Eskultura txiki bat zan eta: "Muy bueno, bai! Heure klasekua dalako!", nik isillik.

- Goruntz, azken batean zen artista kuadrilla bat, ezta?

- Bai, kuadrilla bat, bai. Baiña hori da izen bat geratu dana, izen bat. Baiña danak sakabanatuta: bata Deban bizi dala, bestia —ez dakit— Bilbon ala, Eibarren beste bat eta zera, eta... en fin!

- Baina zeu, Eibarko artisten elkartekoa bazara?

- Bai, bai, honbre! Urtietan! Urte batzuk, hogeta urtiak edo, izango giñan. Hori sortu zebana, Cleto Unzueta. Hori izan zan zera, idazten zeban pixkat, periodikuetarako artikulo koxkor bat edo beste, eta gizon argixa zan! Eta, en fin, artisten laguna eta ha sartu zan Eibarren aiuntamentuan eta, en fin, toki bat guretzat aukeratu zeban: eskolak. Beste eskola berri batzuk egin zittuen Eibarren eta hara pasau zittuen umiak. Guretzat lokal bat majua eta handik hasi giñan eta...

- Zenbat lagun juntatzen zineten?

- Lehenengo, ni maixo bezela egon nintzan han, eta orduan hamabi-hamalau bat lagun bai. Etortzen ziran gaztetxuak eta... Bai, eta hárek pare bat ordu egunian duan. Bai, ba! Sozidarian...

4.24. Giro politikoa; alderdi politikoen arteko liskarrak

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/004
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:08:16. **Bukatu:** 00:11:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika

- **Laburpena:** Alderdi politikoaren arteko borrokak. Gorrotorik ez zen egon Eibarren. Bide desberdinetatik joan arren ez ziren aurkakoak. Ideia guztietako lagunak izan ditu. Orfeoian bizi izandako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Candido, salto txiki bat egin behar dut, baiña uste dut segituan harrapatuko duzula: baina —diot nik—, baina Eibarren, sozialistak zirela, karlistak zirela, errepublikanoak zirela, nazionalistak zirela..., bazegoen guztien artean errespetu bat.

- Ni...

- Hau da —barkatu, hitz bat bota nahi nuen eta—, fanatismo gutxi zegoela: bakoitzak bereari eutsi bai, baina fanatismo, amorru hori gabe.

- Beste herri batzuetan ikusi dittugun bezelakorik ez da hamen egon!

- Bekaizkoa eta gorrotoa eta...

- Gorrotorik eta ez da hamen egon izan. Hasarriak, bai. Ikubilkada batzuek, bai. Baiña hori hasarriori nik neure onduan ez dot ikusi, ez nere famelixan, ez nere lagun artian. Eta, bertan Eibarren be, nik lagunak dittut alde guztietan. Ideia guztikuak dira eta nere lagunak: bai anarkistak, bai elizatarak, bai republikanoak, bai komunistak. En fin, danerakuak laguntzat hartzen dittut nik. Nik ez dot pentsatzen nere kontrarixuak diranik. Nik pentsatzen dot beste bide baten doiazela, bide apartekuan goiazela, baiña bixok nahi dogula ontasuna geuretako eta bestindako. Eta horregaitik Eibarren ez da ezagutu hori gorrotuori, beste herri batzuetan ezagutu dittugun moduan: “Zuek handik eta guk hamendik”. Hamen izan da... Lagunok izan gara ideia guztietakuak. Kuadrillak hamen egon diraz ideia guztietakuak. Lehengo egunian esan neutsun zelan behin, konkurso baten, Eibarko orfeoia hogeik konponitzen zebena, orfeoia Portugaletera jua zan. Eta han etara zeben ‘El Missouri’. Candido Bustelos, sozialista bat, zan hango alkatia. Eta permisua eruaterakuan Timoteo Zubiate konserbadoria, Eibarkua, ha zan representantia Eibarko koruaren alde. Bueno, orfeoia. Eta esan zetsan Candidok: “Bai ba, zuek koruan eta profesionalak zarie eta etarako ez dozue premixua?”. Eta esan zetsan: “Gu danok korukuak? Ez, mutil. Etorri hari”. Banaka-banaka erakutsi zetsen hogeit hamar pertsonak: bat alde batekua zan, bestia beste aldekoa, hurrengua beste aldekoa eta danak ziran diferentia; danak desberdiñak pentsatzen zebena. Eta orduan, Candido Bustelosek eskuak jaso zittuan korura eta “Mekatzis, hori ez dok pasatzen! Eibarren bakarrik! Ez dok hori iñun pasatzen. Hori Eibarren bakarrik pasatzen dok”.

- Bai. Koruan hogeit hamar lagun, bakoitzak bere aldetik...

- Bakotzak bere aldetik ideia diferentia! Baiña danak lagunak.

4.25. Musika; erromeriak

- **Hizlaria(k):** Sagastume Narbaiza, Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-091/002
- **Iraupena:** 0:05:59. **Hasi:** 00:09:59. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Musika. Lehiaketa asko egoten ziren. Solfeoa jakiteak gauzak asko errazten ditu. Kontserbatorioa, pianoarendako bakarrik.

Trikitiak izan dituen aldaketak. Berak trikitia asko jotzen du, baina soinu handiarekin. Erromeriak. Beste herri batzuetan ezin izaten zuten dantza-loturik jo.

Transkripzioa

- Hor... Zuk esan duzu —eta hori inportantea, gerorako izango da inportantea— solfeo irakurtzen eta jotzen ondo ikasi zenuela.
- Bueno, ondo... Ondo edo, bai.
- Irakurtzeko eta, bueno, manejatzeko moduan.
- Bai. Ikasi... ikasteko bentaja haundixak euki nittuan. Bai.
- Ze hor esan duzu... Lau urte edo zenbat egin zenuen?
- Lau, lau. Lau egin nittuan, bai.
- Lau urterekin karrera egin liteke, karrera bat, akordeoi karrera. Dexente aurreratu liteke.
- Bai, ya lo creo.
- Baiña gero dago beste problema: zer jo behar da? Ze, zuk oraintxe bertan esaten zenuen honetan, ba “zer joko dot ba?”. Orduan zer karrera modu egiten zenuten?
- Bien. Baiña orduan gauza bat zeguan ona: orduan egoten zan konkurso asko egoten zan zeretan...
- Herrietan eta.
- Portugaleten be bai, Eibarren bertan be egon zan. Baiña Eibarren gitxi. Baiña gogorak ziran Donostia, Victoria Eugenia, eta Portugaleten. Bilbon be bai. Egitten ziran zerak. Eta orduan gehixenak, hónek maestruok eta, erakusten zebeñ batian ‘Poeta y Aldeano’, bestian ‘La Boda de Luis Alonso’. Badakat nik obrak jotera aillegau nintzanak. Ondo edo gaizki, baiña jotera aillegau nintzan, visto buenua emonda maixuak, e!
- Bai, bai, bai.
- ‘Rapsodia Húngara nº 1’ de Liszt. Hónek: ‘Caserio’, ‘Preludio de El Caserio’.
- Klasikoa, musika klasikoa.
- Bai, eta zerak, zarzuelak. ‘Agua, azucarillos y aguardiente’, ‘Katuska’... Bueno, kantidadia! Kantidadia, e? Hórrek beste bentaja bat zeken, holako... pixkat astunago ikasten dozunak gero fazilla joteko, beste fazil... fazilidade bat daka.
- Vals bat jotzeko edo...
- Eta gero, orduan, ‘Princesa Napoleon’ josten zebeñ "Radio Andorra"tik. Eta guk errenterua genkagun, ba, radixo zahar bat, potiakin egindako radixo zahar bat, zekana. Gure aittak entzutzen zebeñ: hónek fransesok bizixak eta elegantiak, garbixak eta. Fransesak hori tokiori beti euki dabe, e?
- Bai, bai, bai.
- Eta esaten zetsan: “Kaguen! Hori nun jirau ete leike?” Eta hartu diskua eta honek, Bastidak, kopixau egin zestan; diskotik etara zestan.
- Musika.
- Bai. Musikia. Bai, partiturak jarri. Jolin! Haura zan... Orduan hori jotia eta... Hónek, zerak, ‘Zarras de Monti’ eta, ‘Sitios de Zaragoza’... ni juaten nintzan ‘Sitios de Zaragoza’ jo barik eta... Ointxe be bai, ointxe be juaten naiz... Atzo gabian be juan nintzan: “Hori jo barik ez haiz juango etxera”. Eta derrigor jo bihar ‘Sitios’-a. Eta batian hamen eta bestian eta holaxe.
- Beraz, horrek esan nahi du karrera egiten zela, baina kasik premien arabera.
- Bai. Orduan gure konserbatorixua hauxe zan! Orduan ez zeguan; egongo zan, baiña pianorako. Filarmonikarik ez zeguan. Oin, bai. Oin dakazuz konserbatorixuak eta oin dakazuz, gaiñera, filarmonikistak be danak; danian, e? Pentsaizu illara bikuak ze diferenzia egin daben ordutik hona.

Illarak, trikitixak. Oin, gehixena, estropeatzen doiaz: hónek trikitixaonek. Bai, bai! Formal esanda, ez nik zera egittiarren. Baiña trikitixa jo bihar badozu, trikitixa joizu. Oin, ipiñi trikitixa-rock, trikitixa "no se qué", trikitixa bestia...

- Zuretzako ez da.

- Ez. "No le pongas trikitixa rock! Pon rock. Y listo. No?" Hori degeneratzia da eta. Trikitixa da trikitixa. Dakazu txistukua, dakazu goitarra —por ejemplo Bizkaikua— eta dakazu behetarrena eta dakazuz Naparrak —sueltuak, fandanguak eta zerak—.

- Beraz, karrera horrela egin zenuen eta gauza esan egin behar da: zuena eta trikitia bi mundu diferente dira.

- Bai. Nik asko jotzen neban trikitixa.

- Nik ere bai.

- Bai, soñu haundixakin.

- Soinu handiarekin, gainera?

- Bai, bai. Nik, haundixakin, bai. Txikixa jotera ailegau nintzan: 'No me mates con tomate' eta aittakin. Barre egingo dozu, baiña egixa da hori, e? 'No me mates con tomate'! Baitta Habanarak be jotzen nittuan, aittak erakutsitta zerian. Baiña esaten zestan honek numeraziñorako eta, gero diatonikua zelan zan illara bikua, "que era malo para la"....

- Batak bestea.

- Bai, ba, kostunbre txarra zera... Ohitura txarrak zertzeko esan zestan: "Hik ez jok kasorik egin eta ba zera". Baiña trikitixa, ba, gero... erromerixak egoten ziran. Orduan, erromerixak. Eta badakizu, gure gazte denporan, erromerixetan! Pentsaizu: bandiak Azkoittixan dana sueltuan jotzen zeban orduan. Dana, geldur (sic) gero, baiña gero, e?

- Gero gertatuko ziren istillu...

- Bai, neri pasau jatan, neri pasau jatan: jua naiz erromerixara jotera jua Aizarnara —Aizarna, badakizu nun dagan, ezta?— , jua naiz eta orduan zeguan panderistia, Arruabarrena, eta nerekin ibiltzen zan. Eibarren igeltsero zeguan, baiña panderistia neuk ezagutu dotenik onena, panderua jotzen. Eruan gaittue bixok. Eta jua gara. Eta erromerixan zegozen gazte kuadrillia eta. Gero etorri giñazen Aiuntamientora. Eta: "Bueno, ekiñ egin bihar detsagu erromerixia", eta ekin gentsagun. Eta jo genduzen biña trikiti hasteko... badakizu orduan! Eta jo dot pasodoble bat. "Ene hor dator aguazilla" eta esaten desta: "Hi, txotxo, hori ez egik jo, e, hamen heldurik, hamen prohibiduta dago eta!". "Zer?", nik zenbat pixauko nittuan ba orduan, palilluaren modoko flako-flakua nintzan eta. Neuk baiño gehixago pixatzen zeban filarmonikiak. Eta esan netsan: "Zer? agarraurik ezin leikiala jo, ala?", "Ez, ez. Hamen prohibiduta dagok". Di-da itxi soñua eta "Guazen etxera". "E?". "Bai, bai, gu etxera goiaz", "Hori ez dozue egingo?", "Baietz ba! Ni ez najoiak honekin soñuonekin... bertan gelditzeko, ala? Ezta bat be ez". Hartu —motuan jua giñan— hartu motua eta etxera. Eta gero Iziarrera jua eta `Txankarta´ zeguan, ona: `Txankarta´, soñujolia, ona, ona, holan... baiña artistia, e? Eta haura eruan zeben. Gu behera eta bestia gora...

- Beste akordeonistaren bila...

- Bai. Bidian kruzau giñan.

- Bai, istoriak.

4.26. Erromeriak Maltzagan eta Trabakuan; soinujoleak

- **Hizlaria(k)**: Sagastume Narbaiza, Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi

- **Erref:** AB-091/003
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:19:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Erromeriak Maltzagan, Trabakuan... Orduko soinujole onenak.

Transkripzioa

- Hori galdetu nahi nizun. Ze hasieran ez dut alferrik esan infernuko hauspoa.
- Hauspua, bai. Orduan...
- Erromeri, boda... Hori danetara ailegatuko zen noizbait.
- Bai, bai, bai, bai. Eske orduan egitten ziran erromerixak Maltzagan, Usarsan, Eibarren... Bueno, danian egitten ziran erromerixak, baiña erromerixak, e? Bai, ba, ez zeguan orduan saloirik eta ezer be . Bandia zerian, plazan...
- Plazan, Untzaga plazan.
- Bai, Unzagako plazan bandia egoten zan bedratzirak arte. "Se acabó". Seiretatik edo egoten zan bandia eta bestietan erromerixia. Basarriko jentiak ez zekan ohitturarik...
- ... plazara jaisteko.
- Ez ba! Orduan abarkekin eta nora juango ziran erromerixara! Orduko gazterixia haixe. Eta han ibiltzen giñan. Gero bazegozen hamen erromerixak. Orduan kategorixak egoten ziran. Por ejemplo, zeguan... Ermutik Markiñara bittartian, zelan da? Trabakua! Trabakuara eruaten zittuen erromerixak. Bertako semia zan soiñujolia eta berak egitten zeban eta berak eruaten zittuan noixian behin... Orduan `Angiozarko Itsua´ zan el...
- Número uno.
- Bai, ha zan numero ona! E? Ointxe be, ojo, e! Ointxe be. Harekin. Oiñ ez, ya edadetu zan. Baiña harek joten zeban taillara ailegatzeko kapela kendu bihar zan. Ha eta Yaben eta hónek izan dira, e... zerak. Hórrek eruaten zittuen. Eta ni be bai, noixian behin. `Basarri´ eta `Uztapide´ bersuetara. Eta orduan durua kobratzen zeben entrada, hamabost pezeta kobratzen zeben. Jentia egoten zan! Ez bakarrik dantzara zoiazanak. Orduan Ermutik, Markiñatik, Eibartik juaten zan. Eta goixago egitten ziran erromerixak. Ya bedratzi eta erdietan akabau egitten zan.
- Bai, bai, "abemariatako" kanpaiak.
- Hori da. Haura edo gerotxuago behintzat eta "se acabó". Eta gero bertan afaldu eta pixkat joten zenduan afalostian, bertarako eta ez dakizu zer egitten zan pixkat? Baiña beti erretirada ona. Ona.
- Aizu, Migel, nik entzuna dakat zenbait lekutan taldeka banatzen zirela. Esan nahi dut: halako erromerietan akordeonista batek, akordeoijole batek, talde bat eramaten zuen eta sarrera kobratzen omen zuen, beste batek beste talde bat eta...
- Orduan? Grupuak egoten ziran. Grupuak. Arraten eta. Jaixetan. Urkiolan eta. Bai. Jolin! Egoten ziran, bata tronboiak eta zera... zaratia. Ez zeguan orduan mikrofonorik eta... "A pleno pulmón"! Filarmonikia entzun be ez. Esaten zan: "Figura el acordeonista". Zein? "Pues El Ciego de Angiozar" edo pelukerua eta ziran hórrek erromerixetan jauntxuak. Orduan ziran Baskaran eta hamen... ez dakizu? Hamen Bergaran be bai: Lazkano eta, holan, tipikuak. Onak, e? Onak, soiñujoliak. Hórrek ziran baiña! Tronboia eta tronpetia ipiñitta eta filarmonikia ez zan entzutzen, baiña haura "como figura". Hombre! Haura eta pelukerua. "Ene... hau, hau hobia dok!", eta

haregana korrua. Eta batari gustatzen bajakon neskia, han laugarrengo juaten zan: han be pagau egin bihar bi pezeta eta amigo! Orduan zenbat bi pezetako zegozen ba? Kontuak egoten ziran, e!

4.27. Kubara lan egitera

- **Hizlaria(k):** Sagastume Narbaiza, Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-091/004
- **Iraupena:** 0:17:23. **Hasi:** 00:19:06. **Bukatu:** 00:36:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Kubara joan zen lan egitera. Kubako abentura. Ama gaixotu eta Eibarrera itzuli ziren. Euskaldunak Kuban. Centro Vasco. Lagun onak egin zituen bertan. Cantinflas, Hemingway... Euskal Orfeoia. Saizarbitoria, Juaristitarrak...

Transkripzioa

- Bueno. Hemengoak egin zenituen. Fama ere hartu zenuen: `El Mago de Urki´...
- Bai, horixe. `El Mago de Urki´.
- Eta boda bat izan zen zeure bizitza erabaki zuena.
- Bai, nere zera, bai jauna, bai.
- Boda batera akordeoia jotzera joan...
- Bai, handitxik. Bueno. Zeguan Mendata, "barrio Mendata", badakizu Gernikan; han goratxuago... Ba hango gizon batek Orbeanian egitten zeban lana. Eta han boda bat zeguan eta neri esan zestan... Pixkat orduantxe... "Koño, Urkikua hamen dago, filarmonikistia, eta pixkat gaztia be bai eta..." Zera, gehixen illara bikua zelán zan eta soñu haundi gitxi, ba etorri jatan eta "etorriko haiz zerera [bodara]?" "Bai". Bueno. Orduan hogeta hamar duro kobratzen genduan. Hogeta hamar duro, e! Asko zan, e! Orduan.
- Bai, bai, hogeta hamar duro...
- Bueno, jana eta gero biajia eta... Berakin juan. Juan nintzan hara bodara. Bueno. Han bodan etorri zan, agertu zan gizon bat, kubanua zana . Eta beste bat zeguan, Alemaniako bat; bertan bai, euskalduna, baiña Alemanian zeguan bat, lanian. Soñu gorri bat zekan: soñu Honner bat zekan berak. Honner bat, gorri bat. Neuk probau neban gaiñera. Politta! Estu-estua eta zera. Baiña berak erosi zeban berandako, pixkat gustau eta berak ikasteko, baiña bere kastetan ikasitta, iñokin ibilli barik, ez dakizu?
- Bai bere afiziorako.
- Hareri igual zetsan ezkerrakin jo, eskumiakin jo. Igual ze... Bere kastetan zera egitteko. Gustau egitten jakon eta hantxe. Ekarri zeban eta "¿qué te parece este acordeón?". Eta zerian eta ra! Eta etorri zan beste Kubanuori eta esan zestan. "Oye, ¿te importaría venir a Cuba a tocar el acordeón?". Esan neban neuk "buah, hau adarra joten dabil", neuk, nere zerian. Ba normala!
- Bai, bai, ezezaguna eta...
- Ni mokoso bat eta bai ba. Zer? Eta holako lekuetan beti egoten da baten bat igual figuratziarren. Ez dakizu? Nik hori pentsatzen neban: "Honek hamen kubanua dala eta zerian..."
- Farola botatzen.

- Bai. Farolerixia... Ez, ez. Handik gerotxuagora eta berari esan netsan. "Pero tengo tal edad y, con los 19 años pronto tengo que ir a la mili". "No te preocupes. Eso ya me encargo yo de eso". Bueno, ez netsan kaso haundirik egin. Eta otra vez, berriro, insistidu eta insistidu eta a ver nun bizi nintzan eta esan zestan ni eruan ninduanak ekarriko ninduana [kubanuak Eibarrera], zelan seme bakarra nintzan, nik aittaren baimenik barik ba zer... Etorri zan eta aittari esan zetsan "mira, se trata de esto, yo tengo tal, tal, tal". Baiña nik ez nekixan kabareta zer zan...

- Bai, bai, bai.

- ... zer zan be ez.

- Eta bera azkenean zer zen? Tropicana-ko nagusia.

- Bai, ugezaba: Etxenagusia. Bai. Ardura... Etxenagusia, hórrek ziran Gernikako semiak... aittak ziran... Gurasuak hilda zegozen. Eta hórrek hiruren artian hartu zeben. Martin Foz zan... bueno, "ese era"... Horrek, gaiñera horrek dirua egin zeban. "Con el esto de la"... Orduan jokatu egitten zan han, "Terminales de la Lotería". Han "la bolita", "bolita", esaten zetsen. Entzunda eukiko dozu zuk, ezta?

- Bai, bai, bai.

- Ba hori famosua izan zan. Eta ez zeban pentsatzen Gobernuak, por ejemplo Castrok, ostera, alrebes...

- Batistak.

- Ez aurreragokua. Prío Socarrasek ez zeban pentsatzen hori... "¿Qué es ésto?". "Esto no es nada". Emon egin zetsen permisua. Eta egitten zan azkenengo numerua etara. "Ponías un peso o una peseta". Orduan pezetia "era de plata" han, badakizu. "Cuatro de"... Han zegozen "cinco de veinte centavos" eta Norte Amerikan zan "cuatro de veinticinco". Eta hortara ipiñi zeben eta hori emon zetsen. Dirutu egin zan! Eta ipiñi zeben hori Tropicana. Baiña hónek zeken... katiak zekezen: "cabaret de segunda", zerian, Mariana/on eta Pensilvania zan. Eta hara eruan ninduan .

- Beraz, hor, Gernikako horretan erabakitzen da.

- Bueno. Aittakin egon zan, ezta? Nere aittakin eta aitta konbenzidu zeban. Eta "bueno, pues si arreglas". Aitta be pozik, ez soldadu juatjarren batetik eta bestetik mundua ikusi... Orduan ama etorri zan nerekin.

- Kubara.

- Kubara, bai, ba. Seme bakarra eta zerian eta ama ama izaten da eta berak segidu zestan. Eta jua giñan harutz.

- Gero, gainera, bazenuen hor senitartekorik Kuban.

- Bai.

- Aitaren...

- Anaiak. Bai, han jaixuak. Baiña hárek zegozen Camagüey-n. Zentral baten egitten zeben. Eta bi anai: Mariano eta tio Felipe. Bueno oiñ hil ziran, baiña hórrek bizi ziran bastante urrin. Bueno ba. Han. Afinkau giñan eta hantxe. Eta gero han egon nintzanian, handik urtebetera, urte eta erdira, pasau ninduan... nahi zeben ipintzia Tropicanan... Han zeguan, Tropicanan zeguan saloi bat "bajo los arcos": arku kristalezkuekin arboladi bat, holan "bosque" bat kristalekin eta zera eginda eta itxitta. Eta gero nahi zeben ipintzia "bajo las estrellas". Kanpuan.

- Kanpokaldera.

- Bai, kanpokaldera. Eta ipiñi zeben han barruan ekin ziran emoten afarixak, afarixak eta zerak.

- Errestaurante bezala, jatetxe bezala.

- Bai, jatetxe... "Antes de empezar" zera... Espektakulua ekin baiño lehenago, afarixak eta emon eta... Aprobetxatjarren jentia. Kamareruak-eta aprobetxatjarren. Bueno. Ipiñi ginduezen. Han italiano bat zeguan, pianua jotzen zebana eta kantatzen zebana, eta beste soiñujole bat eta neu. Eta juntau giñazen hiru soiño —bueno, bi soiño— pianua eta kantantia —

bat—. Laurok. Eta ipiñi giñazen eta “ze izen ipiñiko detsagu?”. Eta: “Lau?”, “No me gusta Lau”, horrek orduan. “Vamos a poner Bost”, “¿Pero cómo? Nos va a pasar igual que a los Xei” —Xei ziran eta bost jotailliak—. Eta gu giñan Bost eta lau jotailliak. Bale. Frakasau egin zeban. Frakasau egin zeban. Ez zan juaten... eske karua zan eta. Karua. Hara juaen... Gero pixkat bihar dozu publikua be hortarako pixkat eginda dagona. Eta Tropicana urrin dago Habanatik. Eta gero zerian eta... Bueno. Horrek frakasau zeban. Italianuak eta zerak alde egin zeben eta ni geldittu nintzan. Orkestako zerak esan zetsan: “Oye me conviene que a uno, a este, le retengas. Para, de vez en cuando, cuando tocamos los tangos, para que nos acompañe y para algunas cosas”.

- Bai, bai.

- Hónek pieza amerikanoak eta zerak eta pixkat zera egitteko. Bale. Eta han. Orkestiakin geldittu nintzan. Bertako orkestiakin. Eta hantxe egin nittuan...

- Orkesta horren zuzendari zein zen?

- Orduan Armando Romero junior. Ona, e! [...] Eta gero Selen Suarez zan hónek mambuak eta zerak jotekua. Gero etortzen ziran astian behin jai egiten zebenian... zera, orkesta bat etortzen zan, River Side. Ona, e? Ona. Derrigor bihar zan. Guk genkan... 23 giñan orkestan, baiña espektakulo bat zera egitteko. Gero zeken musikuak doblatzen zebenak: tronboia jotzen zebanak bioliña doblatzen zeban eta, badakizu, saxofoia jotzen zebanak flautak eta zerak. Orduan zegoen instrumentuak doblatzen zittuenak. Bai. Espektakulua. Orkestia.

- Inportantea.

- Bai. Guk dana musika amerikanoa jotzen genduan. Bestia bazekan, lagundu, espektakulari lagundu... eta musika amerikanoa. Dana. Amerikanuendako.

- Norteamerikanoak. Horiek etortzen ziren bertatik bertara.

- Bai, "música del jazz", musika... antzera. "Música del jazz", estilo hortara. Eta bestia manbuak-eta joteko-eta ezer be ez. Eta gero ekartzen zittuen orkesta argentinua edo zera eta orkesta kanpokuak ekartzen zebenian beste bat etxekua ekarri bihar zan. Bixetan ipintzen zeben: "bajo los arcos y bajo las estrellas".

- Bai, bai, bai.

- Bixetan espektakuluak ipintzen zittuen. Zerian. Eta hantxe egon nintzan. Eta gero handik, amak zekan flebitisa, nere amak. Eta estu hartzen zeban beruak. Jolin! Eta operatzeko. Eta pixkat nagusixa zan. Ni hamalau urtera euki ninduen. Eta pixkat nagusixa eta medikuak esaten zetan: “Esta señora, ella mayor de edad y para operarle también aquí... si ésta iría allí! Al norte, al norte. Con el clima que teneis allí, sin operar puede vivir tranquilamente”. Eta amak esaten zeban: “Aspertuta nago!”. Eske gure amari... Orduan, zigarrua erretzen eta ikusten zittuan bai hónek —han, badakizu, kostunbre haundixa emakumiak eta frakekin— eta nere amandako danak fulanak ziran.

- Eskandalo bat.

- Bai, ba, harek ganau artian eta ikusitta, harek beti. Bai, bai. Egixa da hori.

- Bai, bai, sinisten dizut.

- Eta basarrittik urtenda harek ikusten dittu eta bueno! Eta ni hemeretzi-hogei urtekiñ! Ama egoten zan, “baten batek emongo detsa kaferen bat edo holakoren bat, engaiñauko juek” eta beti zeguan zerian. Beti esaten zeban: “Migel, etxera juaen bihar gaittuk. Atzera Eibarrera juaen bihar gaittuk. Eibarrera juaen bihar gaittuk”. Eta orduantxe kontratua atzera firmatzeko zerian. “Ez egik firmau. Etorri hari. Eta gero nahi badok etorri hari berrero, baiña etorri egin bihar gaittuk”. Eta gero aitta egon zan urtebetian. Han egon zan eta atzera egin zeban buelta etxera. Eta etorri

giñan hona eta "se acabó", hamentxe gelditu nintzan.

- Bai. Baina abentura oso azkar kontatu duzu guztia. Baina zuk han lagun haundiak eta asko egin zenituen.

- "Hombre! Ya lo creo". Lagun haundixak eta onak. Bai. Musikuak eta danerakuak. Danerakuak euki dittut nik, e? Boxeadoriak... Nik ezagutu dittut Rocky Marciano, Centro Vascotik... Haura zan, Centro Vasco zan restaurana. Ez zan zentrua. Centro Vasco haura ipiñi zan, baiña Centro Vascorik ez zeguan han. Horren aldiak euskaldunak kategorixa... Más... Danak han gehixenak dirudunak eta zera. Hori Zentro Gaillegua eta Zentro Asturianua hórrek bai zentruak, zentruak hórrek. Baitta hónek, aragonesak eta, zentro onak zekezen. Baiña Centro Vasco zan, ba, "un restaurant con el nombre, vaya". Hau jua zan zeretik, Mutrikutik, Juanito Saizarbitoria, hara. Franzian hanka egin zeban honek gerra denporan. Hortik jua zan Kubara eta Kuban sartu zan eta nora juango eta gehixena beti habixara juaten da, Centro Vascora. Eta euskaldunak eta zera ipiñi zeben "como conserje". Ipiñi zeben. Honek egitten zittuan arrautzak eta paellak hemengo estilora eta han ez zeben ezagutzen hori koziñori eta hara juaten ziranak: "Oye, ¿ya nos pondría a nosotros?". "Sí, hombre". Eta ipintzen zetsen gehixuago, pixkaka-pixkaka eta bera egin zan jabe eta berari emon zetsen: "Aiba, regentaik heuk: pagaik honenbeste zera y pon como un restaurant. Y así al mismo tiempo".

- Eta egin zen alde batetik taberna jatetxe...

- Jatetxia eta gero frontoia, bai. Frontoia. Frontoia zan. Frontoia zekan atzian eta...

- "El Palacio de los Gritos"? Famatu hori, ezta?

- Ez. "Palacio de los Gritos" zan zesta puntakua.

- Zesta puntakoa.

- Hombre! Hori zan e... Baiña horrek zekan frontoitxo bat eta haura errespetau bihar zan "para el Centro Vasco". Bueno, ez zan iñor juaten, baiña igual zan. Baiña, ostian, "como restaurant". Hona etortzen ziran Cantinflas... eta hónek danok. Orduan peso kubanua zeguan dolarrakin...
- Parean.

- Bai ba. Eta zerik ez zeban zerak, fiskorik eta ez zeban zerak pagau bihar, Kuban ez zeguan holakorik Norteamerikan moduan. Eta jentia egitten zeban horra etorri eta hortik saldu. Por ejemplo, Cantinflasek pelikulia edo zera hor saltzen zeban. "Le pagaban en pesos o en dolares, le daba lo mismo". Ez dozu aitzen? Pagatzen zetsen eta harek aprobetxatzen zeban, zelan ez zekan zerik, inpuetorik, dana aprobetxatzen zeben hortikan .

- Bai, bai, bai. Esan dezagun Monacon eta...

- Igual-igual-igual...

- Cantinflas oso lagun omen zenuen.

- Bai. Bueno! Salaua! Eta persona ona. Salaua. Pena dakat —fotografixak eukiko dittu baten batek ni harekin lana egitten— neuk ez eukitzia berakin. Berakiñ, ezta? Beste guztiekin... Beste bat, zera bestia, hau Arrusa torerua. Arrusa torerua. Han famelixia han euki zeban. Harek zerekua, sevilania zeban emakumia. Eta lehelengo semia hamen hill egin jakon. Eta bigarrena eukitzeko Mejikon nahi zeban, baiña Mejikon hasarratuta zeguan eta gelditu zan Kuban. Eta Kuban euki zeban bigarrena. Bai. Eta ha neurekin etortzen zan. Piston pelotarixakin intimo laguna zan eta bueno, bueno, alkarrekin ibiltzen giñan beti.

- Cantinflasena galdetu nahi nizun, ze esaten dute oso jatorra zela.

- Jatorra!

- Irekia, bromosoa...

- Bai. Baiña txisterik-eta ez. Serixua. Beti txaketa marroiakin. Tintan be hantxe ezagutu neban. Haura kaskajua dana konpleto haura; dana berde: zapatak, sonbrerua... holako luma bat ipiñi sonbreruaren atzian eta

zapatak... Eta trajia berdia eruaten bazeban sonbrerua eta dana eruaten zittuan. Bestia [Cantinflas], ez. Bestia serixua zan. Serixua. Baiña ona, e? Bai. Txisterik-eta ez, baiña konbersaziñuan eta... Ona. Eta bestia, zera, eskritoria, zera, Hemingway! Bueno! Hemingway! Bueno, bueno! Hórrekin han. Egunero. Hórrek egoten ziran. Kuadrillia. Han. Arango, beste bat, Arango, eskribitzen zebana.

- Arango?

- Bai. Arango be zan eskribitzen zebana. Bertako zer bat. Bueno, ba hórrekin bai. Han dakat... erakutsiko detsuraz fotografixak, hamen dakaraz. Eta gero, ba...

- Zertara joaten ziren horiek Kubara?

- Bizimodua han egitten zebeñ hórrek. Lehen esan detsutena: egitten bazeben... hantxe egin zeban, ni hantxe nenguala egin zeban 'El viejo y el mar' Hemingway-k eta handik saldu zeban. Handik saldu zeban. Eta han geldittu zan zera. Egitten zebeñ kontratuori eta han batzen zebeñ dirua. Cantinflasek eta, bentajia. Zera, orduan egongo zan, ez dakitt, "cinco pesos" uste dot zekazela orduan dolarrakin, zebizela mejikanuak. Orduan, e? Bai. Ni akordatzen naiz gu Venezuelara juañ giñanian orkestiak, zeguan kanbixua, dolarrakin, 2,50 —zeguan— Bolívares. Orduan. Bai. Eta hórrek pentsaizu dolarretan, peso kubanua zelan zeguan parrian. Ni han nenguala, igo zeban... Nik, pentsaizu, lehelengo dolarrak erosi nittuanian, Gernikan, estraperluan erosi nittuan. "A treinta y siete pesetas". Orduan, e? Marinero bateri, Gernikakua. Badakizu, hor gehixenak izaten ziran kapitanak eta marineruak eta horko alde... Bakixokuak, hor aldekuak ziran, Bermeo, Gernika...

- Gatican-eta ibiltzen ziren.

- Horkuak ziran. Hónek, Monti eta Monte Altube, Monte Unbe eta hónek barkuetan. Zeretan. Eta hortxe. Eta, bueno, horixe bentajiori eukitzen zebeñ hórrek. Han saldu eta dana libre. Ze lehen esan dozuna: hamen zerak egitten dabena, hónek, teniskuak eta, egitten dabena: bata juaten da Monacora eta bestia zera...

- Merkeago ateratzeko, dirua aurreratzeko.

- Bai. Hori zerian. Eta gero artistak egon dira, zerian, franziskanuak eta orfeoia.

- Euskal orfeoia.

- Euskal Orfeoia. Euskaldunen semiak eta euskaldunak. Haran zegozenak, Alkatena eta hónek... bueno! Bazegozen hamendik juandakuak. Eta onak.

- Zeuk guzti horietan parte hartzen zenuen, ezta?

- Bai, orduan zeguan direktore Sudupe, Padre Sudupe.

- Estanislao Sudupe.

- Estanislao Sudupe.

- Azkoitiarra.

- Azkoitiarra. Neuk ikusi dotenik organua joten hankekin... harek ehun metruan zenbat korridu ete leike! Hankekin, e! Organuan, e! Eta bestia oiñez ibillitta, bera uste dot lehenago aillegauko zala. Ez dot ezagutu nik hankekin jotet...

- ... hura bezalakorik.

- Ez, ez, ez. Nere aitta han egon zanian, beti juaten giñan mezetara —haxe gure aittari gustatzen jakon— eta beti begirik kendu barik, jarri koruan, korura juañ eta haretxeri begira. Hankak bat eta eskuak be onak. Organista ona, ona.

- Karreraduna zen eta.

- Organista ona zan. Ona. Eta haren moduan beste asko. Zerak.

- Hor, izan ere, euskaldunek, nolabait esateko, bazuten nortasun bat. Zuk lehen Saizarbitoria aipatu duzu, baina hori bezala aipa liteke beste hainbat jende.

- Asko! Ene! Ferreteruak eta bazekazuzen. Ferreteruak: San Juan, Lorenzo San Juan, horrek zekan zerian —zelan da? Matanzas eta gero hurrengo zera zelan da Camagüey-ra goiazela?—, bueno, han zekan. Baiña gero zekazuzen almazen haundixekiñ hónek azpeittarrak, Juaristittarrak. Bueno, hónek zekezen almazenak, han puertuan, Habanan, bueno, itzalak! Itzalak. Eta hórren moduan zerak zekezenak hónek, azukarraren kaña zerak. Bueno, bueno. Euskalduna beti izan da han —hori bada ba!— , en general... Gallegua izaten zan karbonerua edo zapaterua eta asturianuak erropa asuntuan eta holako zerian. Egoten da ba hori dibisiñuori! Eta euskaldunak edo almazenak... Eta dendak be bai! Tela dendak eta onak. Hamen bergararrak be bai: Gallastegittarrak eta, jolin, almazenak zekezen.

4.28. Eibar gerraostean; dantzaldiak, orkestrak...

- **Hizlaria(k):** Sagastume Narbaiza, Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-091/008
- **Iraupena:** 0:05:22. **Hasi:** 00:46:38. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena:** Jai giroa: orkestrak, dantzalekuak... Orkestina bat prestatzen hasi ziren. Bolera amerikarra jarri zuten. San Silvestre egunean, "cena cotillón" (angulak...) eta gero dantzaldia. Bi bikote bakarrik joan ziren. Handik hilabetera, bi hogەرlekoan ipini zuten dantzaldia. Jai Alai. "Orquesta Urki".

Transkripzioa

- Beraz, Migel Sagastume, Kuba bukatu zen eta amak esan bezala...
- Etorri giñan etxera. Etorri giñan Eibarrera. Eta "hombre, aillegau dok zera". Eta bodetara. Gero hamen bodetan filarmonikistia filarmonikiakin. Baiña lehen esan doguna: ya jua giñan orkestinak preparatzen. Saxofoi bat, tronpetia, baterixia eta filarmonikia.
- Estilo aberatsa.
- Bai, baiña "un poco más cargado de bombos". Ez dakizu? [...] Hortan ekin giñan.
- Amerikanoago.
- Hori da. Bai.
- Amerikanoago.
- Bai. Orduan zegozen etxiak hamen Barzelonan: bialtzen zetsuezen, "para conjuntos pequeños", zerak eginda, orkestaziñua eta. Bialtzen zeskuezen eta hortxe ekin giñan. Ekin netsan nik... Boleria ipiñi zebeu, Bolera Americano. Orduan Eibarren zeguan "la danza de los millones". Orduan Eibar, el año 54-55 zeguan... era... Espaiñian zeguanik...
- Herririk aberatsena.
- Bai. Aberatsena eta lana. Danetik egitten zan hor. Eta Eibar zan Eibar. Etortzen ziran biajantiak eta zerak eta ipiñi zebeu Bolera Amerikanua ipiñi zebeu. Baiña errial bi tiradia. Orduan, e? Pentsaizu. Errial bi, e? Tiradia. Ipiñi zebeu baiña errial bi eta bolia aguro juaten da eta bestia be bai. Eta, ño, zerian, eta miniori bajatu zan eta ipiñi zebeu barriakin eta zerakin. Eta horko ugezaba zan un tal Gallastegi, Paco Gallastegi. Eta zekan damaskinauen denda bat Bidebarrixetan, baiña gero zekan almazena: danera egitten zebeu. Sartzen zittuan harek, edozer. Txapelak saldu bihar

baziran, txapelak; ez burdiñia bakarrik, danetik. Bueno. Hortik. Eta okurridu jakon: "Kontxo, hamentxe bailia ipintzia, baile zerraua, zer pentsatzen jak?" Eta: "Ez dakit ba nik". "Ba ipiñi egin bihar juagu". Eta zekazen... lau zer zekazen, lau karril: bata atzian eta hiru sarrera onduan eta mostradora parian. Eta esan zestan: "Kontxo, gabon zaharretan egingo juagu".

- Prueba?

- Bai. "El día de San Silvestre cena".

- "Cotillón".

- "Eso es: cena de cotillón" ipiñi zeban. Han Iciartarra zeguan restaurana, Iciartarra, eta menua esango detsut. Ipiñi zittuan: "entremeses, angulas" —angulak, e? Orduan. Pentsaizu oin ze prezio daken, baiña orduan—, gero gaiñetik nahi zebanak un tournedo, postria txanpan botella batekin eta arda berezixakin: "400 pesetas", entrada eta guzti.

- Garesti!

- Klaro. Ba pentsaizu orduan, 400 pezeta! Baiña bi matrimonio jua ziran, euren andrekin. Bai. Ipiñi zeban eta iñor be ez. Bata zan Rekalde difuntua, okulistia, eta beste zer bat, Izagirre medikua. Bixak jua ziran. "Se acabó". Ene! Ikusi zeban haura eta, zelan zan negoziantia haura, jausi jakon bihotza hanketara. Eta zer egin zeban? Hartu eta jentia zain, han, bailia noiz ekingo eta zerian, kanpua... Hasi zan daneri sarrerria duruan ipintzen! Eta jentiarri sartzen laga. Jolin! Afaldu zebenak ikusi zebenian haura esan zeben: "Baah!". Urten, 400 pezeta pagauta; ez dakizu? Jente gehixago espero zan. Baiña bestia abariziosua zan eta duruaren billa, duruan ipiñi entrada eta bete zan jentez eta esan zeban: "Gehixago ez najoia ipintzera bailerik". Eta "se acabó". Hantxe akabau zan bailiori. Baiña ezin zan egon eta handik hillabetera edo bi hillabetera deittu zestan: "Hi! Pruebia egin bihar juagu. Duruan ipiñi eta jente mordua sartu zuan bai eta oiñ hamar pezeta ipiñitta, ipiñi egin bihar juagu bailia". Holaxe ipiñi zeban karril baten. Ekin zetsan jentia sartzen. Zu, triunfo, e! Haura karrilla bete egitten zan; kendu eta hamarretatik ordubatak arte, hamar eta erdietatik ordubatak arte.

- Gauean.

- Gabian. Ordu batetan fuera.

- Bai, bai. Baina garai haietarako berandu zen.

- Bai ba. Bai. Baiña ipiñi zeban. Ipiñi zeban. Ya, baiña, orduan ya, Eibarrek zekan kategorixa bat Donostiak baiño... Donostiak beste bai. Kapital batek beste: Bilboren eta taillan —ez dakizu?— hor asuntuan. Eta gero Durangotik eta etortzen zan... Durangon eta ez zeguan ezer be. Badakizu zelako bueltia zekan? Elgoibar, Durango, Bergara... ambientia eta danak hara. Jolin! "Dicho y hecho". Triunfau dau! Triunfau, e! Eta orduan haura ikusi zebenian hor zegozen kontratista batzuk zabaldu zeben Jai Alai "sala de fiestas". Baiña "sala de fiestas bien hecho", e! Atrakziñuekin eta danekiñ. Eta atrakziñuak zelakuak? Ekartzen zeben haura... Eta hara deittu zesten. Klaro, orkestia Bilbotik ekarri bihar zeben, konjuntua eta, bueno, neri deittu zestan eta ipiñi neban Orquesta Urki. Ipiñi neban como Orquesta Urki. Hara eta bodetara eta juaten giñan. Bueno. Aranzazun... Aranzazun eta Arraten eta danian ibiltzen giñan. Bueno, hortik. Eta gero hara juaten giñan eta hara jua nintzan. Gero Bergaran zabaldu zeben eta gero Bergarara etorri nintzan eta "ahí se acabó". Gero pastelero.

4.29. Baserritarren eta kaletarren arteko hartu-eman

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi

- **Erref:** AB-092/017
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:31:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Baserria eta kalea Eibarren. Baserritar asko egunero jaisten ziren plazara eta ezagunak ziren herrian. Kaletarrek ere mendira joateko joera handia izan dute beti.

Transkripzioa

- Beste gauza bat: Eibarren kalea badago —eta lehen aipaitu didazu kalea —, baina baserri oso urrunak daude. Horiek, baserritarrek, kalekoekin bat egiten zuten ala baserrikoa baserrian bizi zan?

- Bueno, basarritarrak asko etortzen ziran kalera! Sobre todo andrakumia. Ez dakizu? Esnia ekarri... ortuko gauzak ekartzen zittuen, eta relaziño haundixa eguan! Gero Eibarren zelan... izan dan beti afizionaua, urtetzia: mendira pasiora, Arraterutz edo Kalamuarutz edo...

- Bai, hemen mendira irten behar da! Beste inora ezin liteke hemen irten.

- Bai, ba! Ba, kaletarrak basarritarregaz relaziño haundixa eken. Zegaittik eze erreza zan, urtetzen ebanian, ba, edo Gisastura edo Zumaranera edo... ba, [hitzaldira] alkarregaz, zera, ezta?

4.30. Pilotarako zaletasuna Eibarren

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/019
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:33:17. **Bukatu:** 00:34:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Pilotarako zaletasun handia Eibarren. Pilotari ezagunak: `Txapasta´, Marino; Migel Gallastegi... Eibarko horma guztiak ziren frontoiak; "fueraka" egiten zuten. Umetan futbolean egiteko tokirik ez eta pilotan aritzen ziren.

Transkripzioa

- Beste gauza bat! Eibarren, garai hartan, denok batzen zintuztena: pelota. Pelotariak eta pelota. Hortan uste dut Eibarrek... Zuk lehen aipatu didazu Frontoi Zaharra, Astelena pelotalekua ere hor dago, eta pelotariak ere badituzue: zure edadetsukoa izango da Gallastegi...

- Bai, zeozer gaztiagua. Baiña aurrekuak: `Txapasta´ eta Marino eta, baziran pelotarixak! Baiña orduan, esan dozu: frontoia, Frontoi Zaharra. Bai, baiña kaleko... Eibarko horma guztiak ziran frontoiak, e? Zelan zirkulaziñorik ez zeguan!

- Bai, bai, bai. Kotxerik eta, ez zen izango. Bueno...

- Pelotan fueraka egitten genduan. Fueraka zan, danok batera ekintzen gentsagun, eta tantua galtzen ebanak, jun bihar izaten eban aguazilla zaintzera, amaittu arte. Ta pelotan beste... Foballerako tokirik ez zan, eta pelotan egitten genduan.

4.31. Pilotazalea umetatik

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/002
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 10-11 urterekin udaletxeko eskolara. Baserrian ere laguntzen zuen. Batzuetan eskolara joan gabe geratzen zen eta Isasi kalean zegoen "Kiputzanekua" frontoira joaten zen. 17 urterekin Astelenan debutatu zuen.

Transkripzioa

- Has gaitezen, Migel. Zuen etxean ez zen inolako pelota tradizioirik, ezta? Hiru anai-arreba zineten: Justo, Josepa eta zu zeu. Eta etxean beste inork ez zuen pelotan egin, ezta?

- Baiña, en fin, gu raza bat izan gara, bastante fuertiak eta indar asko euki dogunak. Eta ostian neuk bakarrik urten neban pelotarixa. Ostian iñork be ez eban jokatzeko pelotan. Eta nere anaia izan zan kargajasotzaillia bastante ona, orduan denporetan. Gaur ez dakit zer izango litzakian, baiña orduan denporetan bastante ona.

- Zer akordatzen zara zure gazte denbora horiez? Nola hasi zinen pelotan, Migel?

- Ba pelotan ni hasi nintzan... Lehelengotik aiuntamentura, eskolara edo, hamar urtekin edo, hamaika urtekin edo holan pixkat. Eta gero aittari eta amari soluan biharrian eta laguntzen netsen pixkat. Eta handik hanka egitten neban batzuetan frontoira. Han gure etxetik, bastante urrin eguan, Eskola Armerixatik aurrera fanda, frontoia, Kiputzanekua. Eta hantxe jokatzeko genduan lagunak eta pelotan. Eta beti, en fin, afiziñua neukan pelotarako haundixa.

- Eta jada hamazazpi urterekin, oker ez baldin banago, debut egiten duzu. Hamazazpi urterekin.

- Bai. Hamazazpi urtekin ekin netsan. Pelotazo haundixak jotzen nittuan; batzuek hutsak be haundixak eta beste batzuek esaten esten: "hik pelotarixa izan bihar badok, ni fraille izango nok". Orduan karrera izan zan fraille izatia eta. Eta beste batzuek, beste entendido batzuek esaten esten: "Hik dakaan formia pelotia joteko, hik dakaan itxuria, iñork be ez jakak. Hi zaindu hari eta segi pelotan jokatzeko". Eta nik... nere pentsamentua horixe zan: pelotarixa izatia. Eta nere aureola zan, aber, pelotari nahi urtetzia, nahi izatia. Eta debutatu neban.

- Eibarren.

- Eibarren. Astelenan. Fronton Astelenan. Eta Marinori jokatu netsan lehelengo partidua. Eta galdu egin netsan. Eta gero...

- Akordatzen zara zer moduz jokatu zenuen edo zuretzako zer izan zen partidua galtzea?

- Bai. Bastante estu hartu neban. Eta pelotazo haundixak jo nittuan eta hutsak be egitten nittuan asko. Eta hori Marino zan pelotari haundixa.

- Gernikakoa zen, ezta?

- Gernikakua. Eta, en general, haretxekin debutatzen eben honek pelotari... nere moduan gaztiak, haxe botatzen zetsen lehelengotik: "Aber honekin zer egitten duan eta aber honekin". Haxe zan nobilleruak...

- Alternatiba hartzeko...

- Alternatibia emon edo ez emon egittekua haxe zan. Bueno, jokatu genduan, baiña gero gerriak urten eban. Eta, klaro, gerriak urten ebanian, ba, ahal zebanak ahal zebana. Ni Eibarren geldittu nintzan eta batian gauza bat eta bestian beste gauza bat eta... ahal dabenak ahal dabena.

4.32. Gerra Zibilean milizianoak Astelena frontoian

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/004
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Gerra sasoiari, soldaduek Astelena frontoia hartu zuten; sukaldea ipini zuten bertan.

Transkripzioa

- Gerra aipatu duzu eta badakit garai hartan bai Karakate eta bai Kalamua inguruan frenteak bazirela eta Eibarko Astelena pilotalekuan soldaduek ere sartu zirela eta ez pelotan jokatzera, ezta?

- Ez, han koziñia ipiñi eban. Eta zer egitten genduan? Koziñiak zati bat okupatzen eban eta beste zati bat frontoia libre. Eta garbitzen genduan frontoia eta hantxe egitten genduan. Donostiako jentia-eta eguan, pelotan egitten ebanak batzuek. Eta hantxe jokatzeko genduan pelotan, frontoian, Astelena.

4.33. Gallastegi pilotaria; hasierako urteak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/005
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:06:47. **Bukatu:** 00:11:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Frontera joan beharra egokitu zitzaion. Gaixotu egin zen eta Gasteizen egon zen denbora batez. Pilotan jokatzeko zuen bertan. Enpresari batek ikusi eta kontratatu egin zuen. Partidak jokatzeko hasi eta jendea gustatu egin zitzaion.

Transkripzioa

- Eta gero Gasteizera, Vitoria, joan zinen. Eta han ere bazenuen nonbait tenienteren bat edo lagun bat pelotarako bidean jarri zizuna, ezta?

- Lagunak egin nittuan. Lehelengotik, bueno, Vitorixara fan baiño lehenagotik fan nintzan frentera. Frentetik etorri nintzan Vitorixara. Picos de Europa, Peñas Blancas... hori danori egin genduan frentetik. Eta gero Teruelera joan beharra euki genduan. Teruelera eruan ninduen. Eta handik gaixorik etorri nintzan Vitorixara. Eta Vitorixan elgorriza pasatu neban. Eta, bueno, hantxe ekin nintzan: lagunak euki nittuan onak eta, pixkaka-

pixkaka, gustau egitten jakuen nik pelotia joten neban modua. Jokutzen ikustia eureri be gustau egitten jakuen, itxuria. Eta beti... Bueno. Ba orduan eguaztenetan edo faten nintzan ensaiatzera. Eta afiziñua, Vitorixakuak: faten ziran, zain-zain. "Etorriko dok ba gaur jokatzera? Ez dok ba etorriko?". Eta hantxe. Eta igual biren kontra edo jokutzen genduan eta, en fin, baiña pelotari handixa. Eta akordatzen jata, egun baten, bertako enpresarixua, Efisio Alti, gizon ona...

- Gaur egungo Juan Carlosen aita.

- Aita.

-Juan Carlos Altiren aita.

- Hori da. Juan Carlosen aita. Eta esan estan: "¿De dónde eres, chaval?" esan estan. "Holako lekutakua nok" eta bestia ta: "Eta nun hago? Eta nun hago?". Eta: "Ospitalian". "Ospitalian?". Eta: "Bai. Ospitalian nagok". Eta: "Koño, ba pelotarixak falta jittuagu" eta bestia eta zerian eta esan netsan zein zan kapitana eta zein zan komandantia eta zein zan eta "bueno, bueno" aber beste egun baten aber berba egitten genduan. Beste... handik zortzi-hamar egunera-edo handik pelotan, handik ikusi zan eta deittu estan eta: "Oye, bixar etorri hari. Bixar etorri hari eta lagunduko deuat". Eta lagundu ein estan. Eta, bueno, lagunak, pixkaka-pixkaka, eta partidua ipiñi estan. Eta, karo, orduan zortzi duro kobratzia edo hamar duro kobratzia zan millonarixua zan, ez geunkaun dirurik eta. Eta, bueno. Jokatu neban partidua eta, bueno, ekin netsan lehelengotik sustauta zerian, baiña sartu nintzanian, berotu nintzanian frontoian, jo nittuan pelotazo batzuek, baiña terribliak! Hurrenguan gora be bai, galdu be bai mordua, e! Baiña jentiarri gustau egitten jakon. Nik ezkerrakin hartzen neban diaz jotzen neban zabalera eta antxitxiketean eta han egoten ziran pelotia hartu ezinda. Eta, bueno, kortadia jotzen neban besagain, ba, bueno harek estu ibiltzen ziran danak, pelotia jasotzeko.

- Noiz hasten zara pentsatzen, Migel Gallastegi, "ni pelotaria izango nauk, honexetara bakarrik dedikatuko nauk"? Noiz hasten zara pentsatzen? Noiz ikusten duzu jada zure burua, zure gorputza, pelotatik jarri behar duzula?

- Esaten detsut: soldadutzan. Soldadutzan. Vitorixan soldau nenguala. Eta nere buruari esan netsan... Orduan, pentsaizu, nik garbi esanda, nik orduan pitillo rubixua erretzen, ezta...? Pixkat pitillua emon egitten eskuen eta erre egitten genduan. Eta kuartelian kapitan bat zan Andaluza, baiña medikua zan. Eta egun baten kafian zertu giñan eta, klaro, saludau neban eta bestia. Eta partidua ikustera etortzen zan! Eta esan estan egun baten: "Hi, gauza bat: heurekin egon bihar juat egun baten. Deittuko deuat". Eta, en fin. Bueno, hori zan kuartelian, barruan. Esan estan eta: "Deitzen deuat atzo pitillo rubixua erretzen ikusi hinduaten . Eta horixe dok txarrena deporterako". Eta esan netsan: "Bueno, eskerrik asko hori esatiarren eta egingo dot ahalegiña kentzeko". Eta, efektibamente, suertia euki neban, ni artian ondo erretzen ikasi barik nenguan eta ez neban gehixago erre. Oin, gero, ba, erre dot, puruak erre dittut, afari on baten, Logroñora edo faten giñanian eta puru bat erretzen neban. Baiña pitillua be noixian behin, bateren batek emoten detsunian edo bestia. Baiña bat be ez, astian eta bat be ez.

- Pitilloak eta koartela aipatu dituzu baina badakit Migel -entxuferen bat edo zer izango zenuen-, baina koartelean bertan kalean baino ogi hobea jaten zenuela. Hori nolatan?

- Asko hobia. Asko hobia.

- Hori nolatan zan, ba?

- Hobia egitten eben kuartelian. Ogixa hobia egitten eben kalia baiño. Kuartelian ogixa hobia egitten eben. Eta txusko bi hartu biharrian sarri hiru hartzen nittuan. Eta emoten netsan bat lagun bateri.

- Zer zinen, apetito onekoa? Ehun kilotan jartzeko ez zinen apetito

makalekoa izango.

- Bai. Orduan apetito ona. Orduan apetito ona. Ona. Baiña beti zainduta, e!
Ez naiz izan hori asko jan eta betetzekua eta ez dot nahi izan. Ondo bai jan.
Eta ondo zaindu.

4.34. Besoa indartzeko, aizkoran egitea onena

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/006
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:11:31. **Bukatu:** 00:14:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Aizkorarekin 20 bat minutu egiten zituen, entrenatzen. Besoarendako ez dago ezer hoberik. Frontoian biren kontra ere jokatzen zuen.

Transkripzioa

- Eta atentzioa eman dit zure inguruko kronika batzuk elkarrizketa prestatzerakoan irakurtzen aritu naizenean. Ba ikusi dut zure entrenamenduetan ia egunero aizkora ere sartzen zela. Joaten zinela baserrira eta hogeit bat minutuz-edo beti aizkoran saioen bat egiten zenuela.

- Nik lagunak beti euki dittut panaderuak. Bueno, hau, nere zera, managerra izan zan, partiduetan laguntzen zestana, panaderua zan. Eta beste panadero bat be, Jesus Ugalde, zan panaderixia eukana. Eta orduan panaderixara egurrak ekartzen zittuen: bertan brinkatzeko eta laban sua egitteko. Eta ni han beti egoten nintzan. Eta nik egitten neban -baiña hori sarri, e- fan eta ordu laren bat edo hogeit miñutu aizkoran. Eta neretzako, besuetarako eta eskuetarako aizkora kertena baiño hoberik pelotarixandako ez dago. Batzuek barre egitten esten. Baiña nik nere zera egitten neban. Eta han etara bai izardi pixkat eta kotxia hartu eta frontoira, fronton Astelenara. Eta Fronton Astelenan igual biren kontra, entrenamentura. Baiña gogor gaiñera, e! Igual kilo bi kendu. Sarrittan kendu dittut nik kilo bi entrenamentuan, frontoira fanda. Kilo bi, e! Eta nere... orduan izan zan nere... nere pentsamentua orduan izaten zan: nik entrenamentuan ondo ez baneban jokatzen -biren kontra jokatu bihar nebanian edo hiruren kontra edo-, ez badozu ondo jokatzen entrenamentuan, partido bat ezin dozu ondo jokatu. Neretzako entrenamentuan jokatu bihar da ondo. Eta gero, ya partidua jokatzerazoaizenian, "honbre, hau dok erreztasuna dakatena pelotan jokatze!". Hori, ba, batzuek siñisten dabe; beste batzuek ez dabe siñisten. Orduan denporan be horixe: pelotari batzuk pentsatzen eben... Mano y mano jokatu bihar, eta juaten ziran frontoira ensaiatzera eta izardi pixkat etaratzen eben eta "bueno, nahikua egin juagu eta ondo daok". Eta ez. Ni ez naiz holan. Ni sarrittan fan naiz, partidua jokatuta baiño, kantsauago eginda entrenamentutik etxera.

- Zer errekuerto dauzkazu Gasteizko Hotel Fronton hartaz?

- Onak. Onak, bai. Neri Hotel Frontoian, Vitorixan, bentaja haundixa ein esten. Neuk be bai berari, e! Baiña bixok ondo. Jaten ondo emon, nahi nebana emoten esten jaten. Eta gitxi pagau. Orduan pagatzen neban nik hamahiru pezeta: pagatzen neban lo, jan... dana egittia.

- Eguneko?
- Eguneko. Nik orduan janordu baten jaten neban hamahiru pezeta -jaten netsen hareri-. Emon eitten esten eta jan. O sea ke, gauzarik onenak, gaiñera.

4.35. Migel Gallastegi pilotaria; txapelketak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/007
- **Iraupena:** 0:10:37. **Hasi:** 00:14:19. **Bukatu:** 00:24:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Lehenengo txapelketa 1942an jokatu zuen. Bolada onean sartu zen. Hiru partida irabazi baina azkena galdu egin zuen, `Atano VII.a`ren kontra. Bi eta hiru pilotariren kontra ere jokatu izan zuen. 1946an ez zuen txapelketarik jokatu, 1948an, ordea, bai. `Txikito` Iraetaen kontra izan zen lehenengo partida; gero Astelenan Akarregiren kontra. Hori izan zen partidarik gogorrena. Finala `Atano III.a`ren kontra. Esku hutsik jokatzen zuten orduan. Gaur egun, pilotariek ezin dute pilotarik gozatu. Eskua aske egon behar da eta pilota sentitu. Pilotaren oraina.

Transkripzioa

- Bueno, Migel, hasten zara pixkat zara profesional mailan jokatzen eta nik uste zure epoka berria hortxe, 1942an, hasten dela, eta ratxa haundia eginez gainera. Hasten zara Mallabiko `Txikito`ri irabazi, `Txikito` Iraetari irabazi, Ubillari irabazi... Eta `Atano VII.a`rekin jokatzen duzu eta hortxe galtzen duzu. Zer errekuerto daukazu zure lehenengo kanpeonato hartaz, Migel? Hiru partidu horietxek irabazi eta bestea galtzea, `Atano VII.a`ren kontra galtzea... Gainera, oker ez baldin banago, 15 eta 4 irabazten joan eta gero. Esaizkidazu nolako rekuertoak daukazun.

- Bueno, hori esango detsut gerotxuago. Lehelengotik beste gauza bat esan bihar detsut. Nere frakasorik haundiña izan zan: Feliperi Vitorixan jokatu netsan eta nintzan bi bidar gehixago orduan neu, neure ustez, eta galdu egin netsan. Eta, bueno, akabo: kendu egin ninduen kanpeonatotik, ya eliminata geldittu nintzan kanpeonatotik eta akabo. Gero bestia etorri zan, `Atano VII.a`na etorri zan Bilbon. Nik orduantxe urtian urten bihar neban: suerte pixkat edo nerbioso jarri ez edo zerian; orduantxe urtian urten bihar neban. Hori ez oker ez banago, 1944an zan, ezta?

- 1942an.

- Ez!

- Deportivokoa?

- Bai.

- Bai. `Atano VII.`aren kontra Deportivon galdu zenuen. Hemen daukat: maiatzaren 31an, 1942an.

- 1942xan? Bueno, bai. Izan leike 1942xan. Izan leike, bai. Eta, orduan, garbi esateko, egixa esateko, eta neuk sentitzen doten moduan, `Atano VII.a` ni baiño gehixago zan, mano y mano. Baiña partidua irabazitta euki neban, bera nerbioso ibilli zan eta. Gero atzenian neu jarri nintzan nerbioso eta berak irabazi estan. Kasualidadez irabazi estan, e? baiña galdu egin neban. Eta orduantxe kendu esten edo laga netsan kanpeonatuari. Gero

hortik aurrera, pasatzen zan, kanpeonatuak organitzatzen eben eta esaten eban: "Bueno, nik honenbeste diru nahi dot". Klaro, hortik aurrera pasatzen zan: hor kanpeoiak-eta eguazen eta pelotari onak mordua; baiña hareri zer pasatzen jakuen? Nik segundako batekin jokatu netsen bi oneneri. Eta, bueno, neu nintzan han pixkat... Mano y mano galdu neban hori, baiña harek bi-bixan... Nik esaten netsen -klaro, pelotarixak orduan alkarrekin eukitzen genduan txokia, eukitzen genduan- eta nik esaten: "Bai, nik galdu juat hori partiduori, baiña zuek ni lau lagun hartu eta zuek hiru be igual. Eta zuek nere kontra jokatu bihar", hori esaten netsen. Eta klaro. Hori eukitzen genduan pixkat txokia, eukitzen genduan. Eta gero, hortik aurrera, nik enpresarixuero diru gehixago eskatzen netsen, kanpeonatuan jokatzeko, eta enpresarixuak ez esten nahi pagatzerik.

- Zer zeneukan, Migel, diruzale fama orduan?

- E?

- Diruzale fama zeneukan orduan?

- Bueno, gustau egitten jatan irabaztia.

- Denei bezalaxe, noski.

- Daneri moduan. Enpresarixuari gustau eitten jako. Horretxegaittik ez esten nahi pagatzerik. Orduan pasau zan, bueno, akabo, nik ez nebala parte hartzen kanpeonatuan eta akabo. Baiña etorri ziran, 1944a, 1945a, 1946xa eta horrek etorri ziran eta danak... Nik jokutzen neban Ferminekin. Entzutzen badago... Partido asko jokatu neban Ferminekin, eta jokutzen gentsegun bi oneneri edo hiruri edo bixon artian. Eta, klaro, ba, Fermin... esaten estan sarri: "Hik demasa egitten destak. Pelota onak kendu eta txarrak laga neri!". Eta: "Ez. Ba hurrenguan joik heuk pelota ona eta nik joko juat txarra". Baiña, en fin, holaxen. Baiña orduan punta-punta egon bihar zan, e! Partiduak jokatzeko, astian partidu bi edo jokatzeko, punta-punta egon bihar zan. Eta bueno. Gero kanpeonatuero deitzen gagoz, ezta? Gero, ya 1948xan etorri zan, bueno...

- Bai ze 1944ean bakarria jokatu zenuen, Feliperen kontrakoa. Bestean bai semifinaletara ailegatu eta `Atano VII.a´rekin galdu egin zenuen eta 1946an ez zenuen jokatu.

- Ez. Ez neban jokatu. Ez.

- Zergatik, Migel?

- Ez eben nahi pagatzerik.

- Hori da.

- Gero, 1948xan diruari begittu barik parte hartu neban kanpeonatuan, diruari begittu barik. Orduan ez naiz akordatzen zenbat pagauko esten, baiña ez eben asko pagauko, gitxi pagauko eben. Eta parte hartu neban eta jokatu nittuan hiru partidu, mano y mano...

- Partez parte joango gara, Migel. Lehena, `Txikito´ Iraetaren kontra 22 eta 6 Grosen. Erraz irabazi zenuen hau, ezta?

- Bai, errez irabazi netsan, bai.

- Zer zen? Kontrario txikia izango zen orduan `Txikito´.

- Ez, bueno, nere arratsaldia eukiko neban. Arratsalde ona eukiko neban. Eta bueno.

- Eta Eibarren, han, etxean, Akarregiren kontra galtzen joan zinen 15 eta 5 eta irabazi egin zenuen 22 eta 20.

- Bai. Hori izan zan partidu gogorrena jokatu doguna. Baiña gogorra, e! Partidu gogorrena jokatu doguna. Ni orduan gaixorik egon nintzan astebete lehenago: zortzi bat egun edo hamar bat egun gaixorik egon nintzan eta dudan nenguan jokatu partidua, ez jokatu partidua. Baiña esan eben jokatu edo bestela kendu egin bihar ebela. "Bueno, ba, jokatzera noia, ba, partidua". Jokatu netsan, jokatu genduan, baiña partidurik eta mano y mano ikusi danik eta onena, polittena. Partidurik onena izan zan.

- Eta gero finala `Atano III.a´ren kontra. Lehenago programan hasi gara

zorionak emanaz `Atano III.a´ri. Alde handia zeneukaten urteetan. Marinok orduan jada 44 zeuzkan, zuk hamabost gutxiago -29-. Urteetan ere, jokoan ere bai, noski, baina urteetan alde handia zeneukaten, Migel. Errez irabazi 22 eta 6 berriro...

- Bai, errez irabazi netsan. Baiña ni orduan... `Atano´ri urtiak eta... hori nago "de acuerdo" danakin. Baiña egon nintzan sei hillebetian egon nintzan zain hori finala jokatzeko. Eta `Atano´tarrak beti izan dira pelota asuntuan listuak. Eta elejidu eben hil bat humedaderik-eta gehixen egoten dana frontoian, pixkat berua eta jentiakiñ eta humedade asko egoten dana frontoian. Nobienbria zan. Eta nobienbrian frontoian sarri egoten da humedadia. Eta, klaro, sake librian zelan zan partidua, ba, pentsaurik humedadia badago frontoian, ba, sakian tanto asko egingo estala. Baiña neri ez estan ardura. Nik segurantzia nekan nere gorputzak, bai? Eta, bueno, "salga lo que salga", hamen jokatu dogu, finala jokatzera. Horixe izan zan. Eta urten eban 22-6.

- Hori da.

- Hori da, 22-6, kasualidadia, ezta? Baiña, en fin, horixe izan zan.

- Migel, eta sei urte lehenago ere jokatu zenuen `Atano III.a´ren kontra. 1942an eta orduan Eibarren jokatu zenuen. 22 eta 16 irabazi zenuen. Zer zen zuretzat orduan eta zu bezalako pelotarientzat `Atano III.a´ren kontra jokatzera?

- `Atano III.a´ri artian iñork ez etsan jokatu. Ez eguan jokatura. Eta hori `Atano III.a´ri anuziau zanian jokatzia, ba, jente guztiak esaten eban: "Baiña hori partiduori jokatzera, Migel, zelan hoia? Horrek partiduorrek ez jakak kolorekik", esaten esten. Eta nik ensaiatzen neban biren kontra eta mano y mano eta danera ensaiatzen neban ta... Bueno, enpresiak pagau estan bastante ondo eta "bueno, jokatu egingo dogu. Jokatu egingo detsat". Eta efektibamente. Fan giñan eta diruak doblian urten eban nere kontra. Baiña neuk, klaro... Harek pentsau eban sakia... `Atano´k eukan sakia eta hurrengo pelotazua hartzen baneban entregauta, barriro zazpi kuadrora jotzen eban. Baiña harek pelotak! Harek ziran pelotak, gustoko pelotak! Hori sarri esan dot: nik jokatu dittut partidu guztiak `Atano´kin berak ekarritako pelotekin jokatu dittut. Eta pelota onak ziran, bai berandako eta bai neretzako. Gustokuak. Eta horixe bihar da pelotan. Sentidu egin bihar dozu pelotia. Ez badozu sentitzen pelotia alperrik da.

- Gainera, Migel, esan behar da orduan ia esku hutsik jokatzera zenutela. Esparadraro txiki batekin.

- Klaro. Bai. Horixe bazeukazun, hamen daukazun moduan ebagixa, hamen eta hamen ebagixa. Hori tapau egin bihar dozu pixkat. Baiña gaur ipintzen daben moduan trapua eskuetan, ezin leike pelotarixak gozau pelotarik. Hori sarri esan dot: ezin leike gozau. Gaiñera beste gauza bat hor pasauko da, seguramente. Eskua tapauta, lotuta esparatrapuekin, bai, eta izardixan gorputza eta eskua hotzak. Eta hori zegaittik da? Odolak ez dabelako korritzen. Eskua libre egon bihar dau. Eta pelotia sentidu egin bihar da eskuan, neretzako e! Eta pelotia eskuan sentitzen badozu, bota eitten dozu kortadia edo zabalera edo atzera, badakazu formia pelotia joteko. Baiña gaur, klaro, gaur... ni ez noia ezer zertzera, baiña gaur pelotan egittera igual detsa atzelarixari pelotia hiru kuadrutan hartu edo bost kuadrutan hartu. Atzera, atzera eta atzera. Klaro, hori konprenditzekua da: holan, eskua tapauta, harek ez dau sentidu be egitten pelotia. Atzera. Azpittik igual jotzen dau eta atzera pelotia. Akabo. Klaro, gaur ez da egoten kortada bat, ez da egoten. Zabalera ez da jotzen. Lehen pelotia zulotik etaratzen zanian, ezkerakiñ eta jotzen zan zabalera eta erdixan dagon jueza hanka egin ezinda ibiltzen zan. Eta kortadia, igual, zabalien hartzen zenduanian kortadia, hiru quadro inguruan jotzen zenduan kortadia txapa gaiñera eta boterik be ez igual. Eta aurrelarixa ibiltzen zan aurrera, ba, atzelarixa edo

hortxe manejan ezinda. Baiña gaur dakazuz partiduak kortada bat jo ez dabenak, zabalera ez dabena josten. Ni ez noia esatera gaurko pelotarixak txarrak diranik.

- Oso diferenteak direla behintzat bai.

- Oso diferente jokatzen dala...

- Migel, 1944ean esan dugu Feliperen kontra jokatu zenuela partidu bakarra, baina hor benetan atentzioa eman dit: `Mondragonés´en kontra jokatu zenuen eta `Mondragonés´ek orduan kanpoan utzi zituen `Txara´, Kortabitarte, Lazkano eta Ubilla. Eta zuek bion artean jokatu zenuten hemen, Grosen, Donostian, eta irabazi zenion 22 eta 0. Nolakoa zen `Zurdo´ hori?

- Bueno, hori da kasualidadia. Hori da kasualidade bat: ba nik ondo jokatu eta bera nerbio edo txarto egongo zan. Eta hori... Esatiak be -garbi esaten detsut-, esatiak be pena emoten desta. Gero jokatu genduan rebantxia Bergaran eta partidu ona egin genduan; neuk irabazi netsan Bergaran be, e!

- 22 eta 16.

- ... eta 16 irabazi netsan. Baiña, en fin, `Zurdua´, mutil gogorra zan. Hareri pelotan irabazteko jokatu egin bihar zan.

4.36. Migel Gallastegi eta Jose Luis Akarregi

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/008
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:24:56. **Bukatu:** 00:26:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Migel Gallastegi eta Jose Luis Akarregiren arteko finalak.

Transkripzioa

- Beste bi final komentatu behar ditugu. Bata Akarregiren kontra jokatu zenuena Eibarren. Eta hau irabazi 22 eta 15. 1950ean. Jada pasatu dira urte batzuk, noski, berrogeita hamar. Zer akordatzen zara final honetaz, Migel?
- Hori partidu ona izan zan hori be. Hori partidu ona. Akarregikin jokatu dittuten...
- Hura zer izan zen? Sake librean?
- Ez, hirutik sakatzen. Hirutik sakatzen.
- Sake libretik besteetara bentaja handia zegoen?
- Bai. Sake libria... Klaro, nik bentajia neukan sake librian. Sakia errez restatzen neban ezkerakin. Eta, klaro, `Atano III.a´ hori sake librian be, bai: jartzen zan boleo, baiña pelotia goittik pasatzen jakon eta ezin zertu. Eta, klaro, nik mano y mano jokatzeko bentaja haundixagua euki dot, bestiak baiño pixkat gehitxuago errestatzen neban sakia. Akarregi be aurrelarixa zan eta sakia errestatzen, ba, justu ibiltzen zan.
- Beraz, ondo akordatzen zara final hori hirutik atereaz irabazi zenuela. Eta zure azken finala, Bergaran jokaturikoa ere akordatuko zara, Akarregiri irabazitakoa 22 eta 14ko emaitzaz. Hori ere akordatzen zara, ezta, Migel?
- Bai, bai, bai. Partidu hori pixkat erreztxuago irabazi netsan. Ez zan Akarregi orduan partiduan halako ondo egon. Eta hortxe segitzen genduan, alkarren kontra. Akarregi eta ni ribal haundixak izaten giñan, baiña kanpuan lagun haundixak giñan.

4.37. Jokatu gabe utzi zuen buruz buruko finala

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/009
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:26:18. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Final eztabaidatua. Lehenbizi soldatarengatik eztabaidak. Adostasuna lortu zutenean, beste arazo bat: jendeak lau jaialditarako bonua erosi behar zuen pilota finala ikusteko eta Gallastegi ez zegoen erabaki horrekin konforme. Arazoak ez ziren konpondu eta jokatu gabe geratu zen. Gobernadoreak deitu zion. Isuna jarri zioten eta sasoi batean partidak jokatu ezinda geratu zen, baita Frantzian ere. Ez zen hartutako erabakiaz (finala ez jokatzeaz) damutu.

Transkripzioa

- Eta ailegatzen gara, seguruenik, zeure bizitzako -kirol bizitzako, batez ere- momenturik polemikoenera. Grosen jokatu behar zen finala Barberitoren kontra, 1943ko abuztuaren 23an eta final hori ez zen jokatu. Eta nik neure datuetan daukat ez zenuela jokatu zure enpresarekin diru akordio batera iritsi ez zinelako. Zer gertatu zen, Migel, final hori ez jokatzeko?
- Bueno. Pasau zan... Nik enpresarixuari diru gehixago eskatzen netsan. Eta enpresarixua...
- Jakiterik ba al dago garai hartan finala jokatzegatik zenbat kobratzen zen?
- Bai. Orduan, aurreko urtian kobrau nittuan "36.000 pesetas", 36.000

pezeta. Eta hurrengo finalian 38.000 pezeta nahi zestezen pagatzia. Eta nik gehiago nahi neban. Eta hor eukin genduan lutxa bat. Baiña atzenian autoridadiak eta danak hartu eben parte eta deittu esten Donostiara federaziñora. Eta bueno, fan giñan federaziñora eta, bueno, ba, azeptau bai baiña kondiziño bat ipiñi neban: zenbat kobrau bihar dan entradia. Eta esan esten: "Igez, fan dan urteko moduan. Entradia fan dan urteko moduan". Eta, bueno, zelan 2.000 pezeta igo esten neri, ba, ixildu egin bihar izan nintzan. Eurak entradia aurreko urtekuaren moduan eta ni 2.000 pezeta gehiagokin gelditu nintzan. Baiña pasau zan handik egun bat edo egun bira, periodikua hartu dot eta gure partidua ikusi bihar ebenak etara eben lau abono.

- Hori da. Eta uzten badidazu, Migel, gure entzuleei gogoratuko diet zer abonotako partidua ziren, guztiak ere abuztuan eta partidua nagusienetan ziren Garitaonaindia eta Lazkano Felipe eta Etxabe VI.aren kontra; larunbatean Soroa II.ak Mendietaren kontra eta gero Arrien Etxabe "Txikito Iraeta" Lazkanoren kontra; final egunean, lehenik finala, Gallastegi-Barberito, eta gero Bolinaga-Gallastegi II.a Arriaran III.-eta II.aren kontra eta gero, egun berean, arratsaldean, Ogeta-Irureta Akarregi-Kortabitarteren kontra; Txikuri-Leiaristi Ariño I.-Etxabe VI.aren kontra. Beraz, enpresak bazekien zer egin nahi zuen dirua ateratzeko. Jendea behartu, finala ikusteko aitzakiarekin, lau festibaletarako entradak hartzera, ezta?

- Hori da. Hori holaxen da. Hori holaxen da.

- Eta ez zineten konpondu.

- Ez. Neuk suspendidu egin neban. Pentsau eban enpresiak nik ez nebala eukiko balorerik partidua suspenditzeko. Eta deittu esten... Gobernadoriak deittu estan.

- Orduan ia "escándalo público" izango zen, ezta?

- Bai, bai. Gobernadoriak egon nintzan eta gobernadoriak deittu etsan pertsona bateri deittu etsan. "Hau Migel Gallastegi zelakua dok?". "Mutill ona da. Mutill ona da. Benetako mutilla eta mutill ona". Harek informe onak emon etsazen, Garikano Loidik. Eta orduantxe akabau zan dana. Baiña gero zer ein esten? Bat ein eben danak eta ni kastigau ninduen hiru hillebeterako. Eta orduan neukazen... Orduan Franzian jokutzen neban eta Franzian eginda neukazen partido batzuk eta Franziaquak be kendu egin estezen. Eta hamenguak be danak kendu egin estezen eta, bueno, etxian: mendira fan eta...

- Inoiz damutu al zinen, Migel, hartutako erabakiaz?

- Ez.

- Penatu al zinen?

- Ez, ez, ez, ez! Ez, ez, ez!

- Ez zinen iñoiz damutu?

- Ez, ez, ez! Ni... Zelan dana aprobetxatzia nahi eben eurak, ba, horixe ez jatan gustatzen.

- Hartutako erabakiarekin lagunik galdu al zenuen?

- Lagunak galdu?

- Lagunak. Esan nahi dizut... Enpresakoekin haserretu zinen. Jende asko haserretu zen zurekin hartutako erabakiarekin?

- Batzuek esan esten ez nebala ein ondo. Eta beste batzuek felizitau ein ninduen. O sea ke danerakuak egon ziran.

4.38. Pilota-enpresarekin eztabaidak; jokatutako partida bereziak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-093/011
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:32:06. **Bukatu**: 00:33:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Enpresarekin beti egoten ziren tira-birak. Pilotari on asko zeuden garai hartan. Jokatutako partida bereziak.

Transkripzioa

-Gero, ba, enpresiak... karo, beti eukitzen genduan txokia. Klaro. Nik orduan -ez da neuk esatiarren, baiña demostratzekuak dagoz nahi badira ikusi resultauak-, orduan jokutzen neban, en fin, segundako batekin bi onenen kontra edo... partiduetan. Neu eruatzen niñuen partidu guztietara, jai guztietara. Eta orduan -hauxe da egixa- pelotarixak onak mordua egozen: bata ona eta beste bat hobia. Eta orduan astian partidu bi jokatzeko egon bihar ziñan punta-punta. Entenditzen dozu? Klaro, daneri gustatzen jakuen pelotaririk onena Logroñora edo Vitorixara edo Harora edo danera fateko.

- Gainera hemen daukat zuk jokaturako partidu asko. Zu bakarrik bi lagunena kontra jokaturakoak izan ziren. Eta badauzkat Urzelai eta Urangaren kontra irabazitakoa, Arranbillete eta Agerreren kontra irabazitakoa, Zabala eta Artazoren kontra, Etxabe IV.a eta Arretxeren kontra, Ladutxe eta Arranbilleteren kontra. Zaila izango zen halako pelotari handien kontra batek bakarrik jokatzea, ezta? Ezkerka bakarrik jokaturako ere badauzkazu?

- Bai. Ezkerka jokatu netsan Zurduari. Haixe izan zan partidurik eta onenetaikua. Jente askok entzutzen badau, bateron bat, zaharren bat, nere edadekoren bat edo afiziñua izan zebana frontoirako eta hori ikusi baeban hori partiduari, akordauko da partidurik eta onenetaikua Eibarren ixa ikusi dana, ezkerka jokatu genduan bixok. Horixe zan. Orduan periodikuak eta danak ondo egon ziran. `Mondragones´a... `Mondragones´aren aitta etorri zan dirua jokatzera nere kontra. "Migelek ezkerka honi ezin leikixo irabazi". Baiña kontura jausi zan segiduan eta kanbixau ein eban dirua nere fabore jokaturako.

4.39. Ehizan, zozo eta birigarrotan

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-093/013
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:35:11. **Bukatu**: 00:35:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena**: Ehiza. Birigarro eta zozoen ondorean joatea oso gustoko.

Transkripzioa

- Txofertzan ez dakit baina badakit ehizan ona zinela. Eta afizio ikaragarria zenuela ehizarako.

- Bai. Ehizan zozotan eta birigarrotan gustatzen jata neri. Mendixan usutan eta geldi egotia ez jatan gustatzen. Gustatzen jatan ibiltzia mendixan. Birigarruen ondorian eta zozuen ondorian gustora ibiltzen nintzan.

4.40. Pilota Frantzian; Bartzelonako eta Madrilgo partidak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/014
- **Iraupena:** 0:06:20. **Hasi:** 00:35:31. **Bukatu:** 00:41:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Pilota Frantzian. Plazarik onena: Frantzia. Ondo ordaintzen zuten, lan-baldintzak onak ziren... Trinketea ere probatu zuen, baina "ridikuloa" egin zutela dio. Bartzelonan eta Madrilan ere jokatu zituen partidak. Pilotalekuetako baldintzak.

Transkripzioa

- Migel, lehen aipatu dugu... Ladutxe eta Arranbillete aipatu ditugu eta Iparraldean ere partidu asko jokatu zenituen, ezta?

- Bai.

- Eta han, hemen aldean, askoz ere gehiago irabazten omen zen dirua.

- Neretzako nik euki dotenik plazarik onena Frantzia izan da. Partidu gitxi jokatu eta bastante ondo dirua etara. Eta, gaiñera, herri guztietan garbittasuna, dutxia edo beti preparauta danak. Eta gero, partidua akabatzen genduanian be, afarixa edarra, txanpan frantsesak. Hori be emoten eskuen. Baiña ni... Oin, plaza batzuetan ño! tratu txarra hartzen genduan pelotan jokatzen, e! Han asko ibili bihar da: batian batera eta bestian bestera. Honek fransesok amor propixo haundixa [euken] honek, Agerrek eta Arranbilletek eta Ladutxek. Honek ziran gogorak, mutil gogorak eta ondo preparauta, e! Mutillak ondo preparauta. Horrek hona etortzen ziranian be nik ekartzen nittuan noixian behin, Españiara partiduak hona jokatzerara. Eta hamen be papel ona egitten eben. Papel ona eta estu hartzen ginduezen geu be danok.

- Zer moduzkoa da plaza librean jokatzea?

- Ikasi egin bihar da. Plaza librian jokatzeiko ikasi egin bihar da. Askok ikasi bihar da eta ni ensaiatzera faten nintzan astelehenian. Partidurik euki barik be San Juan de Luz-era eta faten nintzan ensaiatzera. Ikusten neban han dirua irabazteko...

- Zer kobratzen zen pezetatan ala frankotan?

- Batzuetan frankotan. Beste batzuetan pezetatan. Baiña en general nik pezetatan kobratzen neban.

- Eta badauzkat hemen ikaragarri kobratutako diruak ere bai. Sasoi hartarako, Migel, bat behintzat berrogeitik...

- Bai. Badago bat... Nik record, gehixen kobrau dotena partidu bat, gaiñera, fanda zerera, tanto porzientura fanda, a 33% fanda. Eta kobrau nittuan 57.500 pezeta.

- Orduan hori deklaratu egiten al zen? Orduan ez zen deklaraziorik egiten?

- Orduan deklarauta. Billetiak. Hamengo dirua.

- Ez, esan nahi dizut Haziendara eta... Dena poltsikorako?

- Orduan guretzako ez zeguan Haziendarik!

- Trinketea ere probatu zenuen, Migel.

- Bai. Baten fan giñan, jokatu gendun eta ridikuloa egin genduan. Gizajua hil zan... Arrienek eta bixok jokatu gentsagun Arranbilleteri eta egin genduan ridikulo bat, bueno, gehixago ez arrimatzeko modokua.

- Baina hor badakit azkoitiarrak, Atanotarrak, ondo moldatzen zirela trinketean.

- Hor Atano III.a eta Atano IV.a izan bihar ziran. Hor Salegi... Horrek izan bihar ziran fenomeno. Baiña horrek gazte-gaztetatik ekin etsen. Trinketian jokatzeko, neretzako, gaztetatik ekin bihar jako. Behiñ urte batzuk pasauta eta hamen akostunbrauta, ikastia gatxa. Bateron batek ikasiko dau. Ogetak pentsatzen jata papel ona egin ebal. Partidu bat edo partidu bi edo jokatu zittuan Ogetak eta papel ona egin ebal pentsatzen jata.

- Badauzkat beste datu batzuk ere. Bartzelonan ere ibili zinen, Recoletosen, Madrilen, ere bai. Eta oso gustuko partiduak izan zenituen.

- Nik hor, garbi esateko, diru asko etarutzen neban. Hamen oingo enpresarixuen aldian asko. Biren kontra jokatzin neban eta hamendik eruaten nittuan neuk...

- Eta badaukazu 22-0 irabazitakoa Ladutxe eta Arranbilleteren kontra...

- Ladutxe y Arranbillete. Fronton Madrid.

- 22 eta 0 irabazi zenuen?

- Bai. Bero bat egitten eban! Demasa.

- Jende asko joaten al zen orduan Madrilen ere frontoira?

- Kalian jentia geldittu zan. Eta Recoletosen-eta bueno! Ibiltzen zan... Jentia faten zan goixetik.

- Zer zen Madrilgo jendea ala hemendik joandakoak, han bizi zirenak?

- Orduan hamengo jentia Madrilen asko bizi zan. Eta hamengo jentia be asko juaten zan. Baiña beste bat -pentsatzen jata ez dakazula hor apuntauta- beste partidu bat jokatu neban: "El día de la pelota" egin zan Madrilen. Eta jokatu genduan Onaindia eta Kortabitarte, Atano III. eta ni. Eta jokatu genduan partidu bat! Egitten eban bero bat! Goixetik partidua, Recoletosen. Baiña jentia...! Jentia kalia, e! Eta orduan esaten eben: "Bueno, ez dakak kolorerik! Onaindia eta Kortabitarte Atano III.akin? Atano III.a bi-bixan ya pixkat gastauta dago". Bueno. Ba guk irabazi gentsegun: 22-18 edo 22-19. Baiña partidu gogorra jokatuta.

- Aizu, Migel, zuk nolatan daukazu holako buru freskoa, orain dela berrogei urteko kontuez hain ondo akordatzeko?

- Horrek partiduok, dudia badakazu, nik apuntauta...

- Ez, ez, ez, horixe hala da, honbre! Ni askotan harritzen naiz, urteak pasatu arren, gauza horiek ez zaizkizulako ahazten, Migel. Ez, zuri bakarrik, Migel, jende bat badela memoria onekoa.

- Gauza batzuetan be ekibokauko naiz ni be, ezta? Baiña horrek gauzok... Gauza batzuk neri buruan sartzen bajataz ondo, hor egongo dira.

- Eta ur hotza ez omen zitzaizun batere gustatzen dutxatzeko.

- Nik frontoian... Ez noia esatera. Nahi badozu esan egingo detsut, baiña frontoian dutxa hotza eguan lekuan, baten baiño gehixagotan suspendidu dot partidua, dutxa berorik ez daualako. Eta atzenian horrek frontoiorrek dutxa berua ipiñi egin bihar izaten estan partidua jokatzerateko.

- Baina ez zen zuretzat bakarrik izango, denentzako izango zen dutxa beroa, ezta?

- Ez.

- Zuretzat bakarrik?

- Ni aparte eruaten ninduen.

- Dutxa berora?

- Dutxa berora. Aparte eruan, piso batera.

- Eta zer esaten zuten beste pelotariek?

- Pixkat izaten zan "baiña zelan dok hau, hi horra zerera eta guk hamen dutxa hotzakin hartu bihar". Eta: "Ahal dabenak ahal dabena", kontestatzen neban. Eta holaxen.

- Garai hartan zer zen inportanteago: pelotari bat ala zineko aktore bat jendearentzat?

- Nik hori ezin neike...

- Badakit ordungo garai hartako neska askoren begiak zuri begira gehiago

egoten zirela zineko artistei eta baino.

- Baaa!
- Ondo kotizatuak zinetela.
- Bueno, pixkat egitten genduan. Saludau asko eta...
- Fans asko zeneukatela.
- Guk saludau asko: "Hola!" eta bestia. Baiña ez genkagun tranparik guk. Gu pixkat bastante formalak izan giñan.
- Baina idoloak zinetela.
- Bai, klaro, neri be neska gaztiak gustatzen jatazen eta neska gaztieri be neu euredako eta danerakuak. Danerakuak.

4.41. Frontoirik onena Eibarko Astelena

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:41:51. **Bukatu:** 00:43:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Frontoirik onena, Astelena. Goialdean kristala zuen. Frontisa eta ezkerreko horma oso onak.

Transkripzioa

- Gustukoen izan duzun frontoia, Migel? Eibarkoa?
- Eibarkua. Neretzat Eibarkua. Eta hau Donostiako frontoia, Gros-a, ona zan. Frontoi ona zan ha jokatzeko, onenetaikua.
- Zer zeukan orduango Astelenak gaurkoak ez daukana?
- Zan orduan... Dana goixan eta dana zan kristala, dana kristala. Dana kristala zan. Eta behian pixkat koskak baegozen, baiña frontisa ona. Eta ezkerreko pareta be onenetaikua. Pelotan jokatzeko, bai orduan eta bai gaur be frontoirik onena Eibarko Fronton Astelena da. Gaur nik ez dot jokatu, baiña ikusi egin dot pelotan eta zelan pelotia faten dan eta dana.
- Baina asko gastatzen da pelotan.
- Jokatu egin bihar da. Han jokutzen dabenak... Jokatu egin bihar da, Eibarren jokatu. Eta, hortik aparte, oindiokan be, fronton Astelenan dagan jenterik eta gehixen entenditzen dabena asko dago frontoian. Eta ez dot esaten hori ni Eibarkua naizenetik. Nik Eibarko jentiarri asko gura detsat. Eukiko dittut kontrarixuak, naturala dan moduan. Baiña neretzako gaur be Fronton Astelena Eibarkua da onena. Eta han triunfatzen dabenak daka plazia leku danian. Lehen behintzat. Lehen holan zan.

4.42. Omenaldiak pilota utzi ondoren

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-093/016
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:43:13. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena:** Azken partida. Ondoren omenaldiko partidak hasi ziren. Eibarko Udalak eta `Kerizpe´ Elkartek egindako omenaldiak izan dira bere usteen onenak.

Transkripzioa

– Migel, bukatzen joan behar dugu. Eta ya ailegatzen gara zure azkenengo urteetara. Eta gabon batzuk edo horrelakoren bat dira 1960an, orain dela 34 urte eta Bergaran jarritako partidua da Garcia Ariño eta zu Barberito eta Soroaren kontra. Elurra edo eguraldi txarra, ez dakit, eta Barberitok ez joatea erabaki du edo ezin joan; Soroa ere ez. Eta hantxe jokatzeko duzue partidua hiru lagunek, Zurdo, Larrañaga eta zuk Ariño anaien kontra. Partidua galdu, ridikulua egin, etxera eta “gehiago ez noa”.

– Akabo. “Gehiago ez noia”.

– Zer pasatu zen han?

– Neretzako orduan izan zan desengaiño bat. Nik hori partidua ez neban nahi.

– Horrela izan zen, ezta? Elurra...

– Edurra bai. Bueno, kuartuan periodikuari sua emoten eskua berotzeko eta, en fin, zeozer ipintzeko eta. Eta nik ez neban nahi jokatzetik. Baiña zelan han enpresariak “jokatu egin bihar da partidua, jokatu egin bihar da”, ba, bueno, jokatu genduan partidua. Nik garbi esateko, eta hori ez noia esatera zerian, ni berotu be ez nintzan egin partidu guztian. Eta pentsau neban. Etxian be ekinda eguazen “Migel, laga egin biharko zenduke” . Eta lagun batzuek be, lagun on batzuek: “Migel erretirau egin biharko hintzake”. Eta holan ekinda eguan etxeak be zerian. Eta esan neban: "Neri hau... Migel, sobratzen ekinda hao". Asi ke, pentsau neban ondo, ondo pentsau neban, egun bixan ondo pentsau neban. Eta esan neban: “Bueno, ez noia gehiago jokatzera”. Eta deittu esten, partidua ipiñitta deittu esten. Kontestau netsen: “Ez, ez noia gehiago jokatzera”. Bidartek deittu estan eta “ez najoiak gehiago. Ya ez najoiak gehiago. Ya suspenditzen juat. Profesional ya ez najoiak partidurik gehiago jokatzera”. Eta gero beste lagun bi edo etorri jatazen eta Vitorixatik be deittu estan horrek Efiisio Altik, baiña esan netsan: “Ez, ez. Hartu juat bai akordua eta ez najoiak gehiago jokatzera”. Eta hortxe izan zan nere atzenengo partidua.

– Inoiz damutu al zinen edo gero inbidiarik sentitu zenuen?

– Bai. Inbidixia asko. Bai, bai, bai. Egixa horixe da.

– Gogorra izan behar da, Migel: goi-goian egon, hiru titulu lortu eta esatea “ni ez noa gehiago jokatzera”.

– Bai. Kostau egitten da. Baiña gero gauza politta euki neban. Gero ekin netsan bati, bestiari... Orduan mordua egongo ziran pelotatik erretirauta, batzuek eta. Eta ekin gentsagun partiduak omenajekuak jokatzeko: o sea que, benefiziua, benefizioko partiduak jokatzeko. Partidu mordua jokatzeko genduan. Eta gustora jokatzeko genduan, ondo disfrutatzen genduan eta gero afarixa egitten genduan. Eta alkarrekiñ eziñ hobeto jokatzeko genduan. Eta atzenengo partidua, lagata pelotari, jokatu genduan Jesus Abreo, Arano II.a eta ez dakitt hirugarrena zein zan.

– Hoi en omenajekoa?

– Omenajia Donostian. Eta jokatu netsen Txikito Iraetari eta Artetxeri. Nik bakarrik. Nik neukazen 49 urte. Eta eruan estezen bigun-bigun-bigunak eta ezin pelotia jo. Ezin kendu eureri pelotia. Eta galdu egin neban. Eta tratu txarra hartu neban! Esfuerzo haundixa egin neban eta tratu txarra hartu neban. Baiña horixe izan zan atzenengo partidua.

– Badakit, Migel, erretiratzea beti tristea baldin bada, ba oraindik tristeagoa da urte asko enpresa bati eskaini eta omenajerik batek jasotzen

ez duenean. Horrekin pixka bat oraindik ere sentituta zaude.

- Bueno, hori, egixa esateko, bai. Hori danak sentitzen dabe. Eta nik be bai, ezta? Bueno, danak... nik ez dakitt daneri egin detsen omenajia, ez detsen egin daneri. Batzuek ikusi dittut nik hor omenajia eskatzen periodikotik eta periodikotik. Eta orduan izaten zan erretiratzen zan pelotarixak eskatzen eban omenajia eta omenajia eta kostau egitten jakon enpresarixuari omenajia egittia. Orduan enpresarixuak emoten etsan: "Bueno, emongo deuat tanto bat eta negoziua geuretzeko dana", izaten zan orduan. Eta neuk be jokutzen neban beste batzuekiko, erretiratzen ziran pelotarixendako jokatura nago. Duan jokutzen neban. Eta zuk esan destazuna, omenajerik ez estela egin: neri omenajia egin estan Aiuntamientuak Eibarkuak. Ona omenajia, e! Hori telebisiñuan be ikusi leike.

- Esan nahi dizut enpresaren aldetik.

- Bai, bai, enpresatik aparte zelako omenajia egin estan Aiuntamientuak Eibarkuak. Eta gero egin estan beste omenaje bat soziedade Kerizpek: beste omenaje bat, baiña onenetaikua. Oin enpresiak ez estala egin omenajia? Zer egingo detsagu ba? Nik sentidu dot asko, baiña ez hori disgusto haundixa hartzeko modukua e, e.

4.43. Pilotaririk onena Atano VII

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-093/018
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:50:00. **Bukatu**: 00:52:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Atano VII.a pilotaririk onena. J.L Akarregi.

Transkripzioa

- Aber, Migel, nik galdera batzuk egingo dizkizut eta ea bizkor-bizkor eta labur erantzuten didazun denbora gutxi daukagulako. Zuretzat kontrariorik zailena zein izan da?

- `Atano VII.a´. Neretzako sasoirik onenian nik `Atano VII.a´ hartu neban. Eta neu be sasoi onian. Eta neretzako estuen ekartzen ninduana `Atano VII.a´ zan.

- Pelotaririk konpletoena, zein?

- Neretzako `Atano VII.a´. Bai, bai, bai. `Atano VII.a´ neretzako izan da eta horrekiñ ez dot esaten... iñori ez nago kentzen kategorixia. Beste batek esango dau beste bat izango dala hobia. Eta beste bat: Akarregik be estu hartzen ninduan. Sakau egitten eban asko eta pelotazuak asko eta. Gero eguzen orduan Mondragoetarrak: Arriaran anaiak eta Bolinaga eta hórrek ziran! Bueno! Horrek ziran! Amor propixua, konturik ez.

- Labur-labur joateko, prentsa aipatu behar dugu. Nik bi izen esan behar dizkizut eta labur-labur erantzun egidazu. `Aitona´ eta `Pacorro´ orduko periodistekin zer moduz konpontzen zinen? Zer moduzkoak ziren orduko periodistak?

- Orduan horrek neretzako pelotan bastante entenditzen eben. Eta nahi ebenian pelotari bat fastidixatzia be abilidadia euken fastidixatzeko. Baiña abilidadia bazeukazun, hárek kontra egiñ arren, zeuk demostratzen bazenduan frontoian, haren kontra ezin zeikian egiñ. Baiña pelotan asko

entenditzen eban. Beste bat eguan hor pelotan bastante entenditzen ebana: don Juan Irigoien. Harek entenditzen eban asko. Harek esaten eban, partidua ikusten ebanian, pelotarixeri begitzen etsen estilua pelotia joteko, zelan josten eban besagaiña eta zelan josten eban kortadia. Eta horrek guztiok, o sea ke, beraren estilora egitten eban berba.

- Ondo konpontzen zinen haiekin, beraz, ezta?

- Bueno, batzuetan ondo ipintzen ginduezen eta beste batzuetan harek be txarto ipintzen ginduen. Akordatzen jata partidu bat Bilbon: `Txikito Iraeta´ren kontra zan. Ez dakit ze partidu zan baiña. Eta `Txikito Iraeta´ri bi eta erdittik ipiñi etsen tantua. Eta egiñ estazen hiru tanto, sakian. Eta Irigoienek ipiñi eban: "Otro fracaso de Migel Gallastegi restando saques". Eta hiru tanto egin estazen bi eta erdittik! Eta harekin pelotekin... pelotia faten zan pixuakin, bueno, juaten zan ixa errebotera.

4.44. Hasieran "pintxe" moduan osabaren gozotegian

- **Hizlaria(k):** Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-094/003
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- **Laburpena:** Hasieran "pintxe" moduan hasi zen osabaren gozotegian. Sua dominatzen ikasi behar lehenbizi. Hasieran labe handian egiten zituzten pastelak. Gero, gerra ostean etorri zen elektrikoa. Pastelak eta tartak egiten zituzten eta txokolatea ere bai. Txokolate asko saltzen zen.

Transkripzioa

- Beraz, Eibarrera. Denda batera, beraz.

- Bai.

- Dendari jarrita.

- Bai.

- Lehenengotan pastela egiten eta, nola izaten zen hori? Lehenengo egunean ez zintuen jarriko pastelgintzan.

- Oliva (emaztea): Hau perolak garbitzen egoten zan.

- Horixe! Ni, zera, pintxe! "Hau egin bihar dok", eta "bestia egin bihar dok", eta politto-politto. Holan juaten da! Urtian puruan.

- Eta, beste gauza bat: osabak debekatu al zizun pastelak jaten eta?

- Ez, sekula be ez. Sekula be ez.

- Hor esaten dute arrazoi bat badagoela, horrela, libre uzteko pastelak jaten.

- Bai, higuintzeko? Eta ni sekula higuindu ez!

- Eta nolatan?

- Baiña sekula ez dot abusau.

- Hori izango da orduan, zera, modua?

- Nik pentsau. Bai. Sekula be ez, jan eta jan. Ez, nik ez. Sekula be ez. Pixkat jaten badot, zeozter jaten badot bien; baiña ez askorik, sekula be ez.

- Ze bestela...

- Bai, bai. Betekadiakin... hombre!

- Bueno! Beste gauza bat: pastel egiten-eta ikasteko, dudarik gabe, sukaldea ere ikasi behar da. Sua dominatzen eta...

- Bai, klaro, dana, dana. Labia. Orduan egitten ziran, ez zeguan elektrikorik pioi sasoian, ez zeguan, laban egitten genduan. Laba haundixa eta egurrez... egurra ipini eta gero tamaiñua hartzen jakon, besua holan sartu eta: "Ointxe dagok ondo", eta sartu orduantxe. Gero elektrikua ipiñi genduan geuk. - O.: Guk elektrikua.

- Bai, bai, bai. Baina hori gerra ostean, eta geroago. Eta, zer labe klase zen hori?

- Basarrikua ikusi dozu sekula?

- Bai, bai, bai.

- Ba, halakua. Haundixagua izatia.

- Eta orduan palarekin sartu eta palarekin atera?

- Bai, bai.

- Baina, ez zen zikina?

- Ez, ez, ez. Ondo garbitzen zan! Lehelengo egitten zan: txinpartak eta hautsak eta danak kentzen jakon, eta gero trapu humedo, zera...

- Busti batekin?

- ... busti batekin, busti-bustixakin barik.

- O.: Bandejetan!

-..., ra! hartu, eta gero bandejetan sartzen zan hori, pastelak. Bandejak, ondo.

- Baina lan ederra ez zen izango hura! Suaren ondoan eta, bero amorratua egingo zuen.

- Bueno, ez hainbestekua, ez. Ez hainbestekua.

- Eta pastela. Zera baino gehiago, tarta-eta baino gehiago.

- Tartak be bai eta pastelak. Pastelak gehixago. Baiña tartak be bai! Danetik.

- O.: Txokolatia be bai.

- Eta txokolatea ere bai!

- Bai, ha be bai.

- Garai haietan, gainera, txokolatea estima handian egoten zen!

- Bai, guk asko saltzen genduan. Gero laga egin jakon, baiña!

- Zer?

- Gero ha egittiari laga egin gentsan, baiña!

4.45. Arrautza, irina eta azukrea, pastelak egiteko oinarri

- **Hizlaria(k)**: Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-094/005
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:09:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak
- **Laburpena**: Arrautza, irina eta azukrea osagai garrantzitsuenak. Hostorea ("hojaldrea"). Neurriak jakin behar, bakoitzari zer kopuru tokatzen zaion jakiteko.

Transkripzioa

- Zer erabiltzen da pastel bat egiteko?

- Ba, gauza naturalak: azukria, uruna eta arrautzak.

- Oliva (emaztea): Lebaduria be bai.

- Lebadurarik be ez.

- O.: Ez, e?

- Ez.
 - Arrautzak, uruna -irina- eta azukrea.
 - Besterik ez. Horretxeri dominau bihar. Euren neurrixetan, zeri zer egin bihar jakon.
 - Hortik aurrera...
 - ... akabo.
 - Eta hor dago sekreto guztia?
 - Bai. Hojaldria -hojaldriakin egitten dozu milla gauza- hojaldria egitten ikasi bihar ondo. Eta gero, bestiak dira bizkotxua egitteko: arrautzak eta uruna eta zera. Hor dago!
 - Eta hortik ateratzen dira hainbeste pastel klase eta!
 - Hortitxik, hortitxik etaratzen dira danak. Oin, gero... oin desberdinduta egongo da gauzia, e!
 - Bai, bai, bai.
 - Baiña, gu sanuak, haxe egitten genduan.
 - Eta neurriak ere?
 - Bai, bai, bai. Neurrixak, ba, egoten dira neurrixak: zeñeri zer tokatzen jakon, ze gauza egin bihar dozun, hainbeste ipiñi bihar da, hainbeste urun eta hainbeste azukre eta hainbeste arrautza, edo koipia, edo... .
 - O.: Pisauta izango ziran, ezta?
 - Honbre!
 - Pisatuta denak.
 - Klaro! Danak pisauta.

4.46. Irakurzaletasuna; garaiko egunkari eta aldizkariak

- **Hizlaria(k)**: Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-106/017
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:29:51. **Bukatu**: 00:31:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kultura » Irakurtzea
 Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena**: Gaztetan politika liburuak irakurtzen zituen. Horrez gain egunero-egunero `El Socialista` eta astero `La lucha de clases` ere irakurtzen zituen.

Transkripzioa

- Benigno Baskaranek, txikitan ez, baina gaztetxotan eta gaztetan, 'El socialista' eta 'La lucha de clases' irakurtzetik aparte, beste ze gauza irakurtzen zittuen?
 - Bueno, sasoian liburu batzuk Carlos Marxenak edo, nahi badozu Leninenak be bai, politikako liburuak beti euki dittut nere almuhada onduan.
 - Fonetikakoak?
 - Politikako liburuak.
 - Politikakoak!, a, a!
 - Nere almuhada onduan. Baiña neretako, formaziño bat eukitzeko batek, ba... klaro, hau ezin leike egon etxe guztietan ta edozein lekutan, baiña neretako, nere ideak aberasteko inportantiena izan zan, ba, irakorten ikasi nebanian -ez dakit, sei edo zazpi urtekin-, handik aurrera 'Sozialistia' egunero irakorri neban, irakortzen neban etxian, aittak erosten eban

'Sozialistia'. Ta 'Lucha de clases'a be, astian-astian irakortzen neban, ta horrek emoten daben aberastasuna idealistiari haundixa da.

- Idatzi, eskribitu ere egingo zenuen, ez?

- Bai.

- 'Socialista'n eta.

4.47. Lauaxeta eta 'Gudari' aldizkaria

- **Hizlaria(k):** Sarasua Gisasola, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-107/001
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Irakurtzea
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
 - Aisia » Kultura » Idaztea
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Lauaxetarekin jardun zuen lanean 'Gudari' aldizkarian. Gernikara joatekoak ziren biak elkarrekin, bonbardaketaren hurrengo egunotan, baina Julio azkenean Bilbon gelditu zen. Orduantxe harrapatu zuten Lauaxeta eta ondoren fusilatua izan zen. 'Gudari' aldizkariaren inguruko azalpenak; izan zituen aldaketak. 'Euzko Gudarostea' aldizkaria.

Transkripzioa

- Eta nik badakit -bueno, esan didate- Lauaxetarekin harreman berezia izan zenuela zuk, Julio.

- Bai. Ni izan nintzan berakin 'Gudari' rebista etara genduana. Eta berakin lana egin nun.

- 'Gudari' rebistan egin zenuen zuk berarekin lana...

- Berakin lana. Eta giñan Gernikara juteko alkarrekin, hamen Donostiako edo Franziaiko kazetari batekin. Eta atzenengo orduan ni Bilbon gelditu nintzan, bonbardeoko argazkixen zain. Eta jun ziran bixak. Eta han erori zan prisionero Lauaxeta eta gero halan fusilatu egin zuten. Eta nik jarraitu nun 'Gudari' ateratzen, klaro, bera gabe. Hantxe ezagutu nun nik Lauaxeta. Berakin lana egin nun, bai.

- 'Gudari' rebistan lana egin zenuenean, orduan, ezta?

- Bai. Eta gero ha erori zanian neuk bakarrik eraman neban, gaiñera, rebista guztia.

- Zeuk eraman zenuen gero, e?

- A, bai, gero bai. Nik... Badago... Gero kolekzio bat egin zan. Numero guztiak bildu ziran eta han ipintz... esaten dot... historia egitten det 'Gudari'kua eta nola Lauaxeta erori zan eta dana.

- Orduan zuek elkarrekin aritu zineten lanean.

- Bai, bai, bai, bai.

- 'Gudari' rebistan.

- Lehenbizi ni... 'Euzko Gudarostea'n giñan. 'Euzko Gudarostea'n lehelengo egunetik ekin netsan nik lanian. Eta bera be 'Euzko Gudarostea'n zeon. Eta 'Gudari' atera eta lehenbizi, ba, asteroko bezela, baiña periodiko bezela, moduan. Eta gero Lauaxetari etorri zaion burura rebista egin bihar zala, "revista gráfica" esaten dana erderaz. Eta ni orduan, ba, Azkueri baimena eskatu zaion, komandantiari, ta eraman [nion] ba Lauaxetakin berakin lana

egitera. Eta halan lana alkarrekin egin gendun. Bai.
- Eta zer eratako informazioa ematen zenuten egunkari hortan?
- Ez zan egunkaria, asterokua zan, e!
- Bueno, asterokua, asterokua.
- Zan "revista gráfica" erderaz esaten dana. Bai, bai, bai. Hor artikulua-
eta ziran eta gero argazkiak eta. Grafikua zan, gudarixendako. Ateratzen
zanian hori, ba, batailloi bakotxari zenbakiak bialtzen ziran. Eta gero,
sobratzen ziranak saldu egitten ziran Bilbon ta herrixetan, klaro.

4.48. Lauaxetaren izaera

- **Hizlaria(k)**: Sarasua Gisasola, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-107/002
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:02:22. **Bukatu**: 00:03:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Idaztea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Lauaxeta nolakoa zen kontatzen du. 19 urterekin ezagutu zuen; berarentzat maisu bat izan zen. Lauaxetaren izaera: gizon serioa; lanean isila... Gorabehera handiak izaten zituen; oso gizon sentimentala zen.

Transkripzioa

- Eta nolako gizona zen Lauaxeta, Julio?
- Aaaaa!
- Ze oroitzapen duzu zuk berea? Gogoan eukiko dezu, noski. Nahiz eta urte asko pasa. Ezta?
- Honbre! Pentsaizu: nik hemeretzi urte nekazen. Neretako izan zan anai nausi bat bezela izan zan. Ha izan zan danian, gaiñera. Gaiñera maixo bezela izan zan neretako. Serixua zan. Eta gero gorabehera haundixak eukitzen zittuan: neretako serixua, edo eritxi egitten jatan serixua zana. Eta beste batzuetan esaten estan: "Hi, Julio, guaziak Bilbotik pasio bat emotera". Eta orduan esaten estazen ba... beran gauzarik intimuenak be esaten estazen. Aitzen dozu?
- Bai, e?
- Gorabehera demasak ekazen. Lanian giñala, ba, ixilla zan beran arazuetan ta. Eta gero baterakuan esaten etsun: "Hi, Bilboko kalietan ibili bihar gaittuk!". Eta gero beran gaztetako gauzak eta. Oso sentimentala zan. Oso sentimentala. Sentimiento haundikua.
- Halako gauzak utzi dizkigu gero idatzita, ezta?
- Honbre, honbre! Zan... "Sensibilidad femenina" esaten dotena nik... Aitzen dozu?
- Bai.
- Bai, bai, bai.
- Hori zeukan, ezta?
- Bai, "sensibilidad -ez da ondo esatia- femenina", ezta? Maskulinuak be sentimentalak gera, ezta? Baiña delikaua zan.

4.49. Lauaxeta eta erlijioa

- **Hizlaria(k):** Sarasua Gisasola, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-107/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:08. **Bukatu:** 00:06:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Idaztea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Lauaxeta eta erlijioa. Apaiz ikasketak egiten hasi zen, baina utzi egin zuen bide hori. Hala ere, beti izan zuen erlijioarekiko sentimendu sakona. Julio berriz, eliza katolikoaren hierarkiarekin kritikoa izaten hasita zegoen. Abertzaletasun sendoko gizona zen Lauaxeta.

Transkripzioa

- Eta gero ekazen gauza asko: beran proiektuak, beran gauzak eta... Gero, erlijio asuntuan, sakona. Gu hasitta giñan pixkat eszeptikuak izaten. Ez dakizu? Kritikuak erlijioekin eta. Bera ez: berak ekan erlijioaren sentimendua gogorra [...]. E? Gogorra.

- Ya, baina bera hasi zen apaizetarako ikasten, ezta?

- Bai, bai, ibili zan. Bai, bai, bai.

- Eta gero utzi egin zion hari, ez?

- Utzi zion, baiña gelditu zaion... betirako gelditu zaion hori sustraixori. Eta gu gaztiak giñan, baiña gu hasitta giñan pixkat kritiko izaten jerarkiakin eta. Aitzen dozu? Gero etorri zan, gaiñera, jerarkia faxistekin jutia. Aitzen dozu?

- Bai, bai.

- Baiña, lehentxuago be, gu pixkat kritikuak giñan. Pixkat antiklerikalak. Izan leike eibartarra naizelako edo. Baiña...

- Baina bera ez, ezta?

- Berazan... Ekan "la foïe de Charbonier", fransesak esaten dabena. "La fe del carbonero", ez dakizu? Ekan...

- Oso sartua, ez?

- Sartua, sartua! Harek sinisten eban erlijioekin ta... Eta beran abertzaletasuna be halakotxia zan: sendua! E? Benetakua, benetakua.

4.50. Lauaxetaren atxiloketa eta fusilatzea

- **Hizlaria(k):** Sarasua Gisasola, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-107/005
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:06:28. **Bukatu:** 00:08:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Idaztea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra Zibila Euskal Herrian. Gernikan Lauaxeta preso nola hartu zuten azaltzen du Juliok. Egun hartako gorabeherak. Bruno Mendiguren. Frantziatik kazetari bat etorri zen Gernikako

bonbardaketaren inguruan artikulu bat egitera eta Lauaxetarekin joan zen egun hartan. Lauaxeta fusilatu zutela noiz jakin zuen.

Transkripzioa

- Eta gero, jakin zenuenean fusilatu egin zutela Lauaxeta, zer?
- Bueno. Lehenbizi, lehenbizi, gu... Ni nintzan eurokin juateko. Eta 'Gudari'ko redakziñotik esan esten... eskillarak Gran Vían genkaguzen. Gran Vía 41 zan redakziñua genkaguna. Eta eskillarak jeisten giñala esan estan: "Aizak, Julio, Gernikako argazkiak eta?". Esan netsan: "Ez -gure fotografua Garai zan-, ez dogu etara. Bildurtu egin zan eta ez dittugu etara". Orduan esan estan: "Bueno, juan hari Carlton-era, hotelera -han zeon Lehendakaritza- eta Bruno Mendigureni eskatixuaz argazkixak". "Relaciones Exteriores" zan Bruno Mendiguren. Eskatu niozen. Juan nintzan hara eta nik esan nion: "Aizu, baiña Gernikara ez noia zurekin?". Eta: "Ez, ni juango nok kazetari fransesak". 'La petite de Gironde' kua zan kazetarixa. Eta txoferra zan hamen Rigoitiakua, Rique. Eta gu zain eta zain eta zain arrasalde guztian. Eta halako baten, illuntzian, agertu zan Rique. Eta esan netsan: "Lauaxeta nun dagok?". Eta: "Prisionero jausi dittuk". Eta: "Zelan?". Berak esan eskun zelan izan zan: kotxiakin [heltzera] Gernikara eta dana apurtuta zelan zeon, ba, kotxia utzi zuten eta txoferra, ba, sarreran. Aitzen dozu? Eta Lauaxeta sartu zan kazetarixakin, ba, Gernikara, erakusteko Junten Etxia eta dana.
- Nola gelditu zen gerra ondoan, ez? Bonbardaketa ondoan. Ez?
- Hau zan handik bi egunera!
- Bi egunera?
- Etorri zan Franziatik hori kazetarixori, ba, reportajia egitteko, Gernika bonbardatuta. Eta Rique hori, txofer hori, egon zan zain ta zain ta zain ta zain Gernikako sarreran. Eta buelta Bilbora, Bilbora. Eta halan erori ziran Lauaxeta eta Franziaiko kazetarixa. Eta, klaro, hori zan apirillian. Eta gero, Bilbo hartu zutenian, gu jun giñan Santanderrera. Eta ni Lanestosan edo - hor inguruan genguazen gu-, edo Zallan, ez dakit, han enterau nintzan nolan fusillau zuten Lauaxeta.

4.51. Txirrindularitza munduarekin lehenengo kontaktua

- **Hizlaria(k)**: Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-108/003
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:02:26. **Bukatu**: 00:04:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Behin Hendaiatik Pauera joan zen bizikletan eta txirrindulari batzuekin elkartu zen. Txirrindulari ona zela eta lasterketan parte hartzera animatu zuten. Lehenengo lasterketan parte hartu eta irabazi egin zuen gainera. Etxean ez zitzaien gehiegi gustatzen Juanito lasterketetan aritzea eta ondorioz txirrindularitza uztea erabaki zuen. Garaiko beste kontu batzuk ere gogora ekartzen ditu.

Transkripzioa

- Eta han be bizikletia gustau egitten jatan. Eta behin, holaxen, jun giñan bizikletan, zerera juan giñan, a Pau. Eta bizikletan. Eta bueno, ba, juan. Neu be bai, konforme. Eta bizikletan goiazela, ba, han korredore bat juntau

zan gurekin eta ikusi estan harek... ikusi niñuan zelan ibiltzen nintzan [...]. Eta esaten desta: "Hi, hi", franses esan estan eta nik orduan pixkat aitzen neban. Esan estan: "Hi, hi. Parte hartu bihar dok karreretan". Eta badakizu: "Lagaidak bakian". "Bai, gizona, etorri hari eta etorri". Eta holaxen parte hartu neban. ETa gero [...] egin estezen jaramonak, egin estezen papelak eta gauzak arreglau esten eta hasi nintzan, ba... Lehelengo karreran egin eben, ba, bastante karrera luzetxua zan: ez dakit [nora zan], ba, 90 kilometrokua-edo zan, eta egin neban eta, nundik nora, nik karrera irabazi! Neuk ez neban sinisten nere buruakin.

- Eta zan korritzen zenuen lehenengo karrera, ezta?

- Lehelengo nere bizi guztian. Karrera moduan, lehelengua. Eta gero han egon zan "contrarreloj" Hendaia-San Juan de Luz, San Juan de Luz-Hendaia, eta han egin neban hirugarren. Eta gero beste karrera baten be bigarren egin neban eta beste baten lau ta... Eta etxian, ba, arrebia hasarre eta... ez zan gustatzen holan ibiltzia ta... Eta ez dakizu? Gaiñera, gu han refujiauak giñazen eta ez giñazen... eurak ez zeren itxuria pozik edo, nik ez dakit ze pasau zan. Nik, bueno, esan neban: "Ez noia gehixago parte hartzera". Gero handik kantuan hasi nintzan eta Franzian, Hendaian, egon nintzan hiru urtian eta pozik.

4.52. Espainiako Itzulia Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-108/009
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:15:03. **Bukatu**: 00:17:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Espainiako Itzuliaren etapa bat Eibarren amaitu zen behin. Ipuruan egurrezko belodromoa jarri zuten eta kontu horren inguruko hainbat azalpen ematen ditu.

Transkripzioa

- Aizu, Juanito, garai hartan "Vuelta a España"-ko etaparen bat, bat baiño gehiago ere, Eibarren bukatu zen. Eta horixe kontatu behar didazu. Eibarrek bere garaian, Ipuruan oker ez baldin banago, belodromoa bazuela. Egurrezko belodromoa montatzen zen. Kontaidazu, orduan, zer dela eta, nolatan eta nundik ekarritako belodromoa montatzen zenuten.

- Lehen esan doten moduan, Bergaretxek-eta "Vuelta a España" k zeken "velódromo portátil", zeken. Leku batzuetan haxe ipintzen eben, Ilegadia egitteko, dirua batzeko, kanpo fooballetan eta zerian. Behin San Mamesen be egin zan Ilegadia, "Vuelta a España" kua.

- Atotxan ere bai.

- Bai. Eta hamen Eibarren nik ikusten neban, koño, Eibarren be kanpo-fooballa eta nahi neban Eibarren etapa bat "Vuelta a España" kua etorri deixala. Eta halaxen berba egin netsan Bergaretxeri eta bestia Albenizi-eta egin netsen berba eta esan esten: "Bueno". Eta etapa bat ipiñi eben Eibarren, Eibarren. Eta, efektibamente, nik ha belodromua alkilau egin netsen "Vuelta a España" kueri. Neu barruan nenguan, baiña alkilau egin netsen. Eta ha belodromua pagau neban 125.000 pezeta. Alkilerra.

- Eta zer zen? Egun baterako?

- Egun baterako. Gaiñera etorri ziran aurreko egunian montatzera eta

ikusgarri. Preparau neban sartzeko lekua, egurrekin eta Aiuntamientuak lagundu estan brigad...

- Dena egurrezkoa, ezta? Peralteak eta guzti.

- Bai, bai, dana, dana. Dana egurrezkoa zan. Dana egurrezkoa. Eta holaxen egin zan Eibarren lehelengo zera, etorrixa, "Vuelta a España" kua.

- Zenbat urtez jarri zenuten belodromoa?

- Baten. Bueno, ez. Gero, "Subida a Arrate" egin eta arratsaldian belodromua ipintzen genduan. Bueno, belodromua eukitzen genduan kanpo-fooballian. Eta harek emoten eskun dirua korredorieri pagatzeko. Zegaittik eze "Subida a Arrate" n ni hasi nintzanian -aurrerago ez zan pagatzen-, baiña ni hasi nintzanian bene-benetan "Subida a Arrate" k indar haundixa hartu ebanian... Zegaittik eze ezin leike, jentia gaur egunian ezin leike sinistu be egin, ze indar zekan orduan denporan "Subida a Arrate" -k.

4.53. Juanito "Txoko" eta Frantziako Tourra

- **Hizlaria(k)**: Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-108/010
- **Iraupena**: 0:06:25. **Hasi**: 00:17:12. **Bukatu**: 00:23:37
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Frantziako Tourra. Juanito Espainiako Itzuliko antolakuntzarako datuak jasotzera joan zen Frantziara (antolakuntzaren inguruko zehaztasunak eta abar). Hasiera batean lasterketa 4 egunez jarraitzeko baimena eman zioten; gerora, Tour osoa jarraitzeko aukera eskaini zioten. Pare bat anekdota kontatzen ditu. Italiako Giro-an, Marokora Itzulian ere parte hartu izan zuen. Guztira 21 urte egin zituen moto gainean txirrindulari lasterketak jarraitzen.

Transkripzioa

- Geroxeago bueltatuko gara "Subida a Arrate" ra, Juanito. Baina nahi nuke buelta handiagoez hitz egin. Pixka bat hitz egin dugu Espainiako Vueltaz eta Tourrak ere egin dituzu, Frantziako Tourrak, hiru. Gaur egun askotan aipatzen da, ranking bat egiterakoan, aurrena Tourra dagoela, gero Giroa eta hirugarren tokian Espainiako Vuelta dagoela. Garai hartan zer diferentzia zegoen Tourraren eta Espainiako Vueltaren artean, Juanito?

- Bai, bai. Neretako bai.

- Organizazioan eta...

- A! Tourra?

- Kontaidazu zer diferentzia zegoen.

- Tourra asko. Neri "Vuelta a España" baten Bergaretxek esan estan - direktoriak, "Vuelta a España" kuak-: "Hi, "Vuelta a Francia" n hartiaz datuak zelan juaten diran abituallamentukuak, zelan juaten diran hónek mekanikuak, zelan juaten diran. Ekipajien trasladiak-eta zelan egitten dittuen". Eta ni jua nintzan notak hartzen. Pixkat alkahuete moduan jua nintzan, baiña...

- Ikasteko.

- Ikasteko eta ekartzeko hona hango jaramonak, hango zerak zelan egitten eben. Zegaittik ni... Lehelengo esango dot, gaiñera, ze indar zekan "Vuelta a Francia" k. "Vuelta a Francia" zan neretako... Lehelengo jun nintzanian

motuan, nik entzun neban, erderaz esaten dan moduan, "El primer español que viene a la vuelta Francia en moto".

- Zu zinen hori?

- Holan esaten eben. Nik ez dakitt, holan esan esten. Periodistak be esaten esten horixe, egixa zala. Lehelengo urtian, esango dot hau... Ze indar dakan ointxe konturatuko zarie entzutzen zagozienak, danok, radio-oyente guztiok. Jun nintzarian emon esten lehelengo egunian lau egunerako [baimena] bakarrik. Sekretarixua zan Garnault eta harek, horrek sekretarixuak, Garnault-ek, emon estan lau egunerako. Eta nik esan netsan: "Baiña lau egun, zelan baiña?". Eta etorri nintzan [...]. Kartak eta hartu zittuen, "Vuelta a España"ko zer guztiak eta federaziñotik eta nere esaerak eta informe guztiak emon zittuanak. Lau egunerako. Pasau ziran lau egun, laugarrengo egunian, laugarrenian, motuan nindoian, eta karreran eta. Baiña lehelengo egunian, esango dot daneri: hau da karreretara juaten dan personia, Kuidau haundixa euki dabela, bai motuan juden bada, bai kotxian juaten bada. Zegaittik ni han, hasi nintzarian lehelengo etapan "Vuelta Francia"n bildurretan juan nintzan. Hori. Asko ibillitta nenguan, baiña bildurretan, eurak gehixago ziralako. Baiña nik bigarrengo egunian esan neban: "Hónek ez dittuk ni baiño gehixago. Ni baiño gehixago ez dittuk hónek". Hasi nintzan barrura sartzen eta "ra" eta bestia eta pelotoia pasau eta bestia, eta esan neban: "Ene! Hónen beste banok ni".

- Bigarren egunerako jada etxean bezalaxe, ezta?

- Ya pentsau neban euren beste gizon nintzala. Eta holaxen. Egixa da hori. Laugarrengo etapan etorri jatan hori, sekretarixua, Garnault. Etorri jatan eta lepuan jo niñuan. Bera be motuan juaten zan. Etapa holan gatxak ziranian bera motuan juaten zan batzuetan. Etorri jatan eta esan estan: "Motard...". ["Motard"] ez, esan estan, franses esan estan -nik orduan franses pixkat egitten neban- eta esan estan: "Motard espagnol, [al finir l'étape vou allez a la permanent]". Esan estan: karrera akabatzen, etapia akabatzen zanian, pasatzeko "oficina permanente"tik. Ofizinatik pasatzeko. Eta, bueno. Orduan txofer juaten zan, 'Correo Español'eko txofer, juden zan Arrien, Gernikakua. Eta Arrienek lagundu estan. Eta... Dioni Arrien zan. Harek lagundu estan. Nik plakak kendu kotxiari, motuari eta negarrak urtetzen estan. Eta han Dionik esaten estan: "Benga, Juanito, trankil, trankill. Hórrek gauzok [...]. Vuelta a Francia hauxe dok", eta bestia. Eta, ene! Negarra. Egixa da hau e! Negarra, malkua, penaz. Jun nintzan hara ofizinara eta egon nintzan han zain eta zain eta zain, leluan moduan, eta halako baten ikusi niñuan horrek, Garnault-ek, sekretarixuak, eta: "Eee! Viens ici! -esan estan- Etorri hona, hona etorri hari, etorri hona. Pasau hona, pasau hor barrura". Eta pasau nintzan barrura eta esan estan -han zegozen lau gizon eta esan esten ia pozik nenguan "Vuelta Francia" segitzen eta bai, pozik nenguala. Eta ia pozik hartuko neban, karrera guztia akabatzia nahi neban. Ene! Zerua zabaldu jatan.

- Egundoko loteria tokatu orduan!

- Bueno. Neri orduan emon baesten esku baten 10.000 duro, 20.000 duro, eta ha plaka beste eskuan, nik plakak hartuko nittuan . Hori egixa, e! Eta esan estan: "Badakizu zegaittik emoten detsuguzen hónek?", franses esan estan. "Badakizu zegaittik emoten detsugun? Zu ez zara konturatu, zuri egon dira beste motorista bi zu zaintzen, ia zelan ibiltzen zaran, zer egitten dozun karreran. Eta hárek ekarri dabe zure informe onak. Eta horregaittik emoten detsuguz karrera segitzeko papel barrixak eta plaka barrixa". Ene. Urten neban handik... Zuek badakizue zer dan zerua edo... Zer esango detsuet zueri, entzutzen zagozien guztiori? Zuri notizia on bat emoten detsuenian poza hartzen dozu, ezta? Ba nik orduan hartu neban zuk hartzen dittuzun pozak hamar bidar gehixago. Eta egixa da. Hónek barru-

barrutik esaten ditudut gaiñera. Holaxen. Gero, hurrengo urtian jua nintzarian, nahi zesten ipiñi ezta ezer be. Eta gero, urtiak be aurrera, eta hirugarrena egin neban. Eta gero 62ra jua bihar nintzala eta ez dakizu? Urtiak. Eta motuan hainbeste... Gaiñera salidara motuan jua eta Parisen akabau eta Paristik etxera, Eibarrera, eta hainbeste egunian karreran eta beste buelta bat! Jua Algecirasera motuan, eta pasau estretxua eta Casablancara eta egin buelta, hoge egunian buelta, Marruecos eta Rabaten akabau eta Rabatetik berriz Ceutara eta Ceutatik puertua, estretxua, pasau eta Algeciraetik Eibarrera. Badakizu, motuan eta. Baiña ibili nintzan 21 urtian motuan.

4.54. Arrateko Igoeraren hastapenak

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Jua
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/013
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Arrateko Igoeraren inguruko azalpenak. Hasierako urteak nolakoak izan ziren: txirrindulariek zenbat irabazten zuten... Hasiera batean, Arrateko Igoeran parte hartzea librea zen, baina diru-sarrerak gehitu zirenean gero eta txirrindulari hobeak ekartzen hasi ziren. Klub Deportiboak egindako lana eta, batez ere, herriaren parte-hartzea eta laguntasuna goraiatzeko dituzte. Poliki-poliki indar handia hartu zuten lasterketak. Kazetari ugari etorri ziren Frantziatik, Madriletik... NO-DOa ere etorri zen... Loro eta Bahamontes txirrindularien arteko harremanak ere zeresan ugari eman zituen orduan.

Transkripzioa

- Gatozen hain gogoko eta hainbeste satisfakzio eman dizun karreraz hitz egitera, Juanito. "Subida a Arrate"-z hitz egitera. Esan duzu hasieran oso premio txikiak zirela, berrogeita hamar bat duro zirela irabazleentzat eta presupuestoak ere txikiak izango ziren. Zer akordatzen zera lehenengo zifra haietaz? Esan duzu etxe mordo batera, enpresa mordo batera ibiltzen zinetela ate joka, diru eske. Zenbat diru behar zen orduan karrera bat organitzatzeko zure garaian, 1944-45 urte haietan?

- Lehen, lehen esan dot ba. Orduan... Lehen esan dot ba: hárek korredore danok han ikusi eta berrogeta hamar duro... neretako gitxi zan. Eta nik esan neban: "Hau kanbixau egin bihar da". Hau, zegozer. Eta hasi nintzan, ba, batari eske, bestiari eske, bestiari eske, eta jua nintzan pixkaka-pixkaka. Ni ez. Nere komisiñuan hamalau lagun giñazen eta pixkaka-pixkaka. Baiña ni juten nintzan. Sekula ez neban bialtzen iñor. Neu juaten nintzan. Zelan ezagutzen naberen jentia eta fabrikantia [...], neu juaten nintzan. Eta juaten nintzan, esango detsut ba, 86-100 -hortxe ibiltzen zantailar bisittatzen nittuan nik oiñaz. Taka-taka-taka batari. Eta bata emoten zeban, hasi ziran, ba, milla pezeta emoten bestiak bostehun pezeta emoten, bestia... Holaxen, ez dakizu? "Pon y pon se hace un montón". Holaxen, pixkaka-pixkaka-pixkaka: dirua topau, topau, topau. Eta karrera gehitzen, gehitzen, gehitzen. Eta korredore hobiai ekarri. Eta, gaiñera - esango dot-, hasi zan "Subida Arrate" orduan libre zan parte hartzia. Korredoriai: independientia eta profesionalak eta libre. Baiña nik ikusi

neban ha galde... jentia ze indar hartu eban "Subida Arrate" k, neri emoten estan inbidixa haundixa –eta egixa esango dot–, orduan Franzian egitten zan "Subida al mont Varon" eta egitten zan beste bat "Subida al mont Ager". Eta hárek izen haundixa eken. Eta nik nere barruan esan neban: "Geu be llegau bihar gaittuk horra. Klub Deportibua Eibarkua honenbeste badok eta. Llegau bihar gaittuk eta". Holaxen, holaxen izan zan, graziak Arrateko Amabirjiñari, hari esker... hari emoten detsaraz eskerrak. Zegaittik gu hórrek lanokin llegau giñan indarra, hain indarra eta hartzera "Subida a Arrate" n, etortzen ziran esango detsuet: periodistak Franzia kuak; bat munduan dagonik periodikorik deportibo haundiña, 'L'equipe'; harek periodistia bialtzen eban. Beste bat: 'Tute Sport' Italiakua. Beste bat: 'Miguar Sprint' Franzia kuak. Italiatik, Barzelonatik. Barzelonatik etortzen ziran. Eta gero Madrirtik etortzen ziran 'Marca', 'Pueblo'... Dana, inguru guztietatik periodista guztiak. NO-DUa be etortzen zan. Oin telebisiñua dan moduan, orduan NO-DUa zan. Ha be etortzen zan. Eta egitten eskuen periodistak eta, propaganda haundixa egitten eskuen Eta Franzian be "Subida Arrate", "Subida Arrate: La Cotte d'Arrate" esaten eben, "La Cotte d'Arrate". Hartu eban indar haundixa. Eta holaxen hasi giñan ya korredore haundixak ekartzen. Nik esaten dot indarrak gehixen emon etsen orduan denporan Loroñok eta Bahamontesek edo Bahamontes eta Loroñok, igual da.

4.55. Txirrindularitzarako zaletasun handia Euskal Herrian

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/020
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:42:35. **Bukatu:** 00:43:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Txirrindulari ezagunak Arrateko Igoeran. Zaletasun handia zegoen eta jende ugari gerturatzen zen bertara, lasterketa ikustera.

Transkripzioa

– Zenbat autobus bezela joaten ziren orduan Arratera, Juanito, Anquetil ikustera eta besteak ikustera?
– Bai, nik esango detsut. Orduan denporan, zu be konturatu zaitte Charly Gaul be konsegidu neban eta Renato Longo, esan detsuten [Braamis] eta Charly Gaul eta Anquetil eta Bahamontes eta Loroño eta Sagardui eta, bueno, zer zan ha! Kotxiak, autobusetan jentia eta. Gaiñera, orduan denporan ez eguan hainbeste kotxe gaur dagon moduan! Baiña neri polizia trafikoko, o sea, Eibarko "jefe de policia" k emon estan neri galdera. Emon estan, esan estan zenbat kotxek igo eban, zenbat autobus igo ean eta motuak ez zittuala kontau. Baiña emon estan: 38-39 autobus, milla eta piku kotxe, eta motuak kontau barik.

4.56. Emakumezkoen Arrateko Igoera

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi

- **Erref:** AB-108/022
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:47:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Emakumezkoen lasterketa bat egin nahi izan zuten, baina debekatu egin zieten.

Transkripzioa

- Juanito, eta badakit nesken, emakumezkoen karrera bat egin nahi izan zenuela, baina Pilar Primo de Riverak, nonbait, ezetz esan zuen, emakumezkoak ez zituela nahi praka motzetan ikusi.

- Ez jata gustatzen gaizki esatia iñogaittik, baiña ez zan portau ezer be ondo.

- Baina orduan ba al zen emakumezko ziklistarik? Ibiltzen al zen?

- Bai, baeguazen. Franzian eta.

- Hemen ez, ezta?

- Bai, bai. Hamen be ibiltzen ziran. Baiña hamen hónek, zer "femeninas" - zelan zan hori?- "las FET y las JONS" eta ez dakit zer zan. Ha zan hango zer hori, jefiori. Harek esan eskun. Guk federaziñuan egin genduan eta ha sartu zan artian eta harek esan eskun ezetz. Ezetz, andrak ezin dabela bizikletan parte hartu eta. Guk nahi genduan zidarreko... bueno, "bodas de plata" "Subida a Arrate" kuan nahi genduan egittia jubenillak: egin genduzen. Afizionauak: egin genduzen. Beteranuak: egin genduzen. Profesionalak be egin genduzen. Eta nahi genduan bosgarrengo karrera andrena egittia. Eta ez zeskuen laga, ez gure gogua ez zekagulako, baiña ez gendun egin. Baiña egin ziran beste guztiak.

4.57. Eibarko Klub Deportiboa vs "Club Ciclista Eibarrés"

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/024
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:49:16. **Bukatu:** 00:51:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola
- **Laburpena:** Eibarko Klub Deportiboa eta "Club Ciclista Eibarrés"; batk Arrateko Igoera antolatzen zuen eta besteak "Bicicleta Eibarresa". Bi elkarteen arteko harremana ez zen batere ona; batzuek dirua irabazi eta besteak galdu egiten zutela esaten omen zuten. Deportibokoek dirua batzeko postulazioa ere egiten hasi ziren.

Transkripzioa

- Bueno, Juanito, oraintxe denbora erabat aurrera doakigu eta azken bi galderetan sartu behar naiz. Eibarren bi zineten, "Club Deportivo" Arrateko "Subida" antolatuz eta "Club Ciclista Eibarrés", zuek baino geroago sortu zena, hamaika urte geroago, eta Euskal Bizikleta -garai hartako "Bicicleta Eibarresa"- egiten zuena. Elkarren artean zer moduz konpontzen zineten Eibarko "Club Ciclista" eta Eibarko "Club Deportivo" kook? Ondo konpontzen zineten ala bazegoen zuen artean Bahamontes-Loroño antzeko pikerik ala nola funtzionatzen zenuten?

- Ez, ez zekan, ez zekan zerikusirik Bahamontes-Loroño. Pasatzen zan

eurak egitten eben "Bicicleta Eibarresa" eta guk egitten gendun "Subida Arrate". Eta eurak, nik ez dakitt zegaittik, baiña esaten eben dirua galtzen ebela eta guk "Subida a Arrate"-n dirua irabazten genduala. Eta nik, egixa esanda, hainbeste urtian egon gara eta, gaiñera, komisiño ziklistak eta hórrek egin dittugun zer guztiak, guk egin dittugunak, lan guztiak, eta batak emonda... Gaiñera, esango dot, orduan ez eguan "Gobierno Vasco"rik eta ez eguan telebisiñorik eta ez eguan ezer be. Zeguan... radixua eguan bakarrik. Eta akabo! Eta periodikuak. Eta guk dirua topatzen genduan, hórrek, jente guzti hori, ekartzeko. Eta hori, korredore famatuok ekartzeko egitten genduzen esaten dana bihotza eta estomagua eta dana bat. Egitten gendun "tripas corazón" esaten dan moduan horra llegatzeko. Gero postulaziñua hasten zan. Postulaziñuan nik... Nere alabiak hor daka pastelerixia, Barrenetxenekua, zerian, Donostian. Ha alabia eta beste alaba bat eta lagunak eta hárek egitten eskuezen banderitak. Orduantxe pentsau neban postulatzia karreteran eta harek postulaziñuak laguntasun haundixa emongo eskula. Eta orduan duro bat kobratzen zan, nahi dabenak emotia. Eta banderitak ipintzen genduzen: "Club Deportivo-Subida Arrate", ezta? Eta, gaiñera, esaten eskuen, orduan denporan esaten eskuen: "Kotxiak bandera nazionala eruan bihar zeban". Bandera nazionala? Aiba! Guk karrera egitten gendun eta guk ez genduan nahi. Guk... Guretako zan karrera eta akabo! Klub Deportibua eta Eibarkua. Eta akabo!

4.58. "Club Ciclista Eibarrés" eta "Bicicleta Eibarresa"

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/025
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:51:31. **Bukatu:** 00:53:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** "Club Ciclista Eibarresa" antolatu eta nazioarte mailan eskubide guztiak galdu zituen lasterketa hura berriz ere martxan jartzeko.

Transkripzioa

- "Club Ciclista Eibarrés" eta "Club Deportivo Eibar" biak bat egiteak eta Euskal Bizikleta sortzeak, Juanito, iruditzen zaizu Eibarko Bizikletari mesede egin diola?

- Bai! Askok, asko. Esan detsut lehen, baiña kanbixau egin dot konbersaziñua. Baiña esango detsut: orduan haxe pikia eguan. Eta ez zan gorrotua bata bestiari. Guk geure gauzia egitten genduan eta eurak egin zeixela eurena. Eta hárek galtzen baeben dirua guk ez genkagun kulparik. Eta gero laga egiñ eben. Eta laga ebenian, egon ziran hamabost urte egin barik. Eta gero nahi zeben barriz "Bicicleta Eibarresa" egittia eta ia zelan eta bestia eta ia batzarra egingo zan. Neri diagar egin esten eta Hotel Arraten, Eibarko Hotel Arraten, egin zan batzarra. Eta egin genduan batzarra Hotel Arraten eta han llegau giñan danok. Neri esplikau eta nik esan neban: "Ordua dok. Ordua dok!". Behin edo behin Eibarren "Club Ciclista" alde batetik eta gu beste aldetik, batak bestiari kontra egitten gendun. Hárek eskatzen eben euren dako eta guk eskatzen genduan guretako. Eta hori batzarrori egittia nik pentsau neban ona zala. Ona zala, batetik, Eibarko herrixandako. Eta, bestian, ziklismuagaittik. Eta holaxen

llegau zan bat egittia. Baiña "Club Ciclista" k hamabost urtian zelan ez zeban egin hori karreriori, "internacionalmente" deretxo guztiak galdu zittuan, zegaittik "Federación Internacional de Ciclismo"-k daka reglamentuan, karrera bat internazionala danian, hamar urtian ez badau egitten, kategorixia eta deretxo guztiak galtzen dittuala.

4.59. Serora lana Azitaingo ermitan

- **Hizlaria(k):** Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref:** AB-109/002
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:00:16. **Bukatu:** 00:01:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Seroraren lana: kanpaiak jo; hildakoa datorrenean dena antolatu, etab. 22 urtean lan hori egiten jardun izan du. Azitaingo taberna.

Transkripzioa

- Bueno, ba, zer kontauko dogu, ba, e? Neuk egitten dot elixako kargua: kanpaia jo, edo hildakua datorrenian hari atendidu, edo telefonuari edo... hango gauzia neuk egitten dot. Eta, ostian, ba...
- Zelan hasi ziñan, ba? Hor...
- E?
- Ba, hori, sakristau moduan zenbat urte zoziaz hor sakristau moduan?
- Ba, hogeta bi edo holan.
- Hogeta bi urte zoziaz ya?
- Hogeta bi urte. Eta gero, ba, Azittaiñen egoten naiz zerbitzen.
- Zer, tabernan edo?
- Tabernan, bai. Han loibak dare.
- Tabernia dakazue ala...?
- Ez, loibiak.
- A, loibian tabernia.
- Bai, eta han egoten naiz. Eta oin etorten naiz etxera, eta gero atzera zazpi eta erdiak arte, ba, jokuan ein atsaldian. Eta gero atzera, ba, behera, atzera zerbitzera. Eta, ba, honetxek gauzok.

4.60. 44 urtean Azitaingo jatetxean lanean

- **Hizlaria(k):** Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref:** AB-109/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Azitaingo taberna izeba eta osabarena zen. Haiei laguntzen hasi zen eta 44 urte daramatza bertan lanean. 77 urte izan arren, lanean jarraitzen du.

Transkripzioa

- Eta zenbat urtian zabiz hor lanian?
- 44 urtian.
- 44 urtian hamen Azitaiñen, ez?
- Azitaiñen, bai. Loiberi laguntzen. Lehen tio eta tia eren eta gero hil egin ziran. Nere aman anaia bizi zan hor.
- A, familixiana da, zeure familixiana da tabernia?
- Bai, bai, famelixiana, bai. Eta horretxegana, tiogana eta tiagana juan, eta... laguntzera juaten nintzan, eta 44 urtian nabil hortxe. Eta oin, ez dakit, honezkero asko ezingo dogu egin!
- Oin zenbat ba? Zenbat?
- Berrogeta... edo, "siete siete" dakaraz datorren hillian.
- "Siete siete"?
- "Siete siete" datorren hillian.
- Eta jarraitzen dozu lana egitten oindio? Jolin!
- Bai, baiña zerbitzen e! Erreza, baiña!
- Gaztia zaaz ondio!
- Bai!
- Sasoi ederra!
- Bai, mordo bat kendu ezker! Hirurogei bat kendu ezker, edarra! Bai. Holaxen.

4.61. Amak Arrazola baserrian taberna jarri zuen

- **Hizlaria(k):** Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref:** AB-109/020
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:19:02. **Bukatu:** 00:20:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Soraluzetik euren etxe ondora herrirako ura ekartzeko tunela egin zutela kontatzen du. 1955 ingurua izango zen. Jende asko etorri zen hura ikustera eta orduan pentsatu zuen amak etxean, Arrazolan, taberna jartzea. Bera eskolan zebilen orduan, baina ez zuen eskolarako zaletasun handirik eta pozik hartu zuen albistea.

Transkripzioa

- Gu Salbadorren onduan bizi giñan, Salbadortik beheratxuago. Eta gero tunela hasi zanian...
- Ze tunel, hau, Maltzagakua?
- Ez, tunela dago Plazentziatik eta gure etxe ondora. Ebai eben azpittik, baiña ez dakit zenbat kilometruan! Eta orduan, ba, dana jentia etortzen zan ikustera. Eta esan eskuen enee, ipintzeko tabernia eta ipintzeko tabernia. Eta, ba, gu, aizta bixok eskolan gebizen. Eta gure amak esan eban: "Bueno". Nik, gaiñera, afiziñorik be ez nekan, e? Bildurra emoten estan, edo... ez nekan ha fazilidadia, ez dakizu? eskolarako. Eta nik... Gure aitzia pozik juaten zan, baiña ni beti eskolara... penaz beti. Juan nahi ezta. Eta gero amak hori esan eskunian, ba, pozik. Eta gero tabernia ipini genduan eta hantxe segidu gentsan, tabernan.
- Ze tunel zeguan ba? Ze tunel pasatzen zan?

- Urana, urana. Eibarrerako ura. Plaentxiatik. Plaentxiatik ekarri eben, baiña ez dakit zenbat metruan, e! Metro askuan azpittik.

- Ura?

- Ura ekarri eben. Ba, oin zenbat urte? Berrogeta... cincuenta y cinco o seis edo...

- Ur korrientia, ezta?

- Bai, bai, bai. Ura, herrirako ura, herrirako. Eta gero hortik Iragorrira, eta gero Iragorritik deposituak dare oin, ba, ura zabaltzeko. Bai. Eta halaxen orduantxe geratu giñan, ba, hantxe. Eta kitto. Kitto gehixao.

- Eta jentia juaten jatzuen tabernara?

- Asko, asko juaten zan. Asko, asko.

- Salvador [...]?
- E?
- Salvador ondoko [...]?
- Ez, Salvador ez, Arrazola.
- Bai, bai, Arrazola.

4.62. Jai egunetan mendira eta dantzara

- **Hizlaria(k)**: Lopez Larrea, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-151/014
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:23:10. **Bukatu**: 00:24:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Urkira, Eztiagara, Arratera, Elgetara, Kalamura... Mendira asko joaten zen igandeetan. Ogia banatu ondoren, etxera joan lanak egin eta 3ak aldera Kalamua mendira joaten ziren. Gero, arratsalde-gau partean dantzara joaten ziren plazara; ostegun eta igandeetan.

Transkripzioa

- Ta kalia... mendira-ta juaten ziñazien?

- Bai! Onbre!

- Nora juaten ziñazien?

- Urki geuria, Estixara be bai, Elgetara be bai, Arratera be bai... Kalamura be bai e? Lehelengo ogixa partidu, domekan e?, ogixa partidu ta ordu bata arte ogi partitzen, ta gehitxuago be bai igual. Etxera jua, aintxixiketan, han be zeoze egongo zan eitteko, hartu merienda ta hiruretan Kalamuara. Gero bajau, ta kalera; ta gabian musikara. Eguenetan be musikara. "Jueves", eguenak eta barixakuak... o... domekak!

- Hori udan izaten zan?

- Bai, udan. "Primero de mayuan" domeketan, ta San Juanetan eguenian be bai.

4.63. Urki ingurua nolakoa zen

- **Hizlaria(k)**: Lopez Larrea, Faustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-151/020

- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:32:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Okindegira egurra ekartzen zuten mutil pare batek. Zer nolako lanak egiten zituzten eta idiak nondik nora eramaten zituzten kontatzen du. Mendaroko Ospaskoa zen bata eta emaztea Urkikoa zuen. Urki nolakoa zen kontatzen du. Ermita, mahaia. San Lorentzo egunean, danbolina.

Transkripzioa

- Harek mutilzaharrak etortzen zittuan ba, burdixakin laga, hustu egurrakin, pisauta laga ta erreziñua gero ha erateko, juaten zian ganauak eruatera, zu, etxera! Pauso bira, ezta? Aldaparia bajau, panaderixia hor Ermuarretakua, ba, aldapariori bajau ta atzera gero Elgeta kaletik gora eruaten jittuen behixak edo zerak... idixak... han sosiuz gero hartu deixen. Milla bidar gero berba [...] harekin e! Ospas bai, Ospas Mendarokua da, baiña ez da horkua. Andria zan horkua!
- Eta Urki zelakua zan orduan? Zelaixak zeren edo...?
- Mendixa bai, mendixa, baiña behian esplanadia be bai! Ta goixan gero ermittia! Ta han be ermittia ta mahaixak! Ta han San Lorenzo egunian karnazeruak txuletak eruan, erre, ta Viva la Pepa! Ta tanboliña egoten zan! Tanboliña.
- Jai polittak izaten ziran?
- Bai...
- Eta erromerixia-eta egoten zan?
- Beti... "Primero de mayuan" sozialistak batian Urkin, hurrengo Eztixan, ta bai... Gu erromerixia euan lekura.

4.64. Antzerkiak Teatro Kruzetan

- **Hizlaria(k):** Pascual Ucin, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-156/017
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:43:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Antzerkiak egiten zituzten Teatro Kruzetan, Astelena frontoian, etab. Agustin Zuloaga, Cleto Unzueta, Pakita Zabaleta... Antzerki taldekoak; "Eibar Club" izena zuten. Entseguak "Noche" tabernan egiten zituzten. Kanpotik ere antzerki-taldeak etortzen ziren. Felisak mutiko papera ere egin zuen behin edo behin.

Transkripzioa

- Felisa: Gero teatruak be eitten genduzen, Agustin Zuloaga, `Cielito´...
- Elkarrizketatzailea: Cleto Unzueta eta ez zan ibiltzen be bai?
- F: Cleto Unzueta, Agustin Zuloaga, Pepita...
- E: Mendiguren?
- F: Ez. Felisa Mendiguren bai, harek kantau eitten eban, gero aleman batekin ezkondu zan ta gazterik hil zan. Ta zera, Pakita Zabaleta, ta... zelan

zan beste bat ee...

- Senidea: Horrek ziñazien "del cuadro artístico"?

- F: Bai, ta...

- E: Ta ze ziñazien?

- F: Eee "Eibar club". Ta ni txikixa, neska koskor txikixa nitzan ni. Ta Agustín Zuloaga lagun haundixa neban nik, hori `Cielito´ etara ebanori, ta esaten netsan: Agustín aber noiz teatruori, ta bai, abixauko estala ta papela gero emoten esten, liburua, estudixatzeko. Ta estudixatzen neban, ta ensaiuak eitten genduzen hor Untzagan, "Noche"nian, oin Untzaga zinia dagon zerian, hantxe lelengo pisuan. Orduan Martina Kareaga zan hango...

Mercedes Kareagan-ta zera, tia zan hori, Martina. Ta hantxe ensaiuak eitten genduzen. Ta gero teatruak eitten genduzen, ein izan dou, zerian be bai, "Cine Cruceta"n be bai, Estaziño kalia. Gero frontoi Astelenan be bai ein genduzen. Ta gero, etorri zan kanpotik konpañia bat, "Pura Penamontes y Martín Valle", ta harek bihar ebela, zera, euren obriandako mutil txiki bat bihar ebela, baiña ez eben topau mutillik eta neri esan esten mutil jantzi bihar nitzala. Frakak neure... hantxe behealdeko jolasian ibiltzen giñan mutil baten erropak emon estezen. Ta jantzi ta harekin be ez dakit bi edo hiru obra ein genduzen. Ta ederto.

- Senidea: Aitta ez zan, gure aitta ez zan "del...", zuen... "del club, del cuadro artístico"?

- F: A, aquel también... bai, gero! Bertan nerekin batera ez zan, gero nausixauan ha egon zan, bai.

- E: Eta zenbat urtian egon ziñazien teatrua eitten? Urte asko?

- F: Ez, ez, neu gaztetxua nitzala, urte asko ez. Gero ya hazi nitzan ta jostera.

4.65. Herri-kirolak Eibarren: idi-probak

- **Hizlaria(k)**: Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-160/006
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Herri kirolak Eibarren. Zezen-plazaren erdian proba-harria zegoen eta han egiten ziren idi-probak. Astigarraga "Ibargain"en idiak. Apustuak egiten ziren eta diru asko jokatzeko zen. Apustu baten inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Hau zera, korrida plazako zera. Probaderua jeuan; bueno, erdixan, plaza de torosian, badakizu, harrixa, probaderua. Oin tapauta dao, baiña asko jokatzeko zan lehen proba idixena. Bai. Ta honek, "Ibargain"ek, Santiago Astigarraga "Ibargain", horrek idixak [ekazen]onenak. Haundixak eta onak. Ta... osea, zer haundixak egoten zittuan, apustuak; diru asko jokatzeko zuan. Eurak eitten juen tratua: "bueno, nere idixak...", Azpeittitik, Markiñatik eta... etortzen zittuan. Ta txikixauak-edo bazian, ba, kargau eitten etsen pisuan aldian, zera, harrixan gaiñian, zaku-haria. Zaku-haria, ba, bardintzeko indarra batzuen ta bestien. Osea, [jokua]. Gero hainbeste ultze esaten etsen, batetik... puntara [juaten zanian] ultzia esaten etsen. Hainbeste ultze baietz ta ezetz, ta bueno, zera. Ta egon zuan hor... ein juen

postura haundi bat edo diru asko jokatu juen. Bata, bestia... ta arreglau zittuan nunbaitteko herrikuak... tokixan eurak. Hori ez jakixat zan. Harri haundixa zuan bat, haundixa, ta bestia txikixaua, arrastrerakua. Ein juen postura bat, baiño gero damutu jakuen; "txarra ein juau posturia". Ta diru asko. Ta "oin ze ein bihar juau oin?", ta. Atzera eitten dabenak galdu eitten eban, deposittauta dirua. Ta hor argitzen da egun baten, goixe baten, harrixa apurtuta. Harrixa... Badakizue zelakuak dian harrixak, ezta? Ba, aurrian zulo bat eukitzen jok. Zulo bat daka han zertzeko, sartzeko katori ta zertzeko. Ba, haura apurtu etsen ta akabo.

- Sabotajia.

- Baiña... Gaizki jokatu ebanak-edo esango etsen: "Bueno, hi, zeoze asmau ein bihar juau". Ta holan, ba, dirua botatakua, ba, jaso. Ta esaten eben: "Ni konforme nao jokatzeko, baiña [horrekin harrixorrekin] ezin leike jokatu. Ta eurak igual einda, ezta? Klaro! Bueno, bat hori behintzat.

4.66. Herri-kirolak Eibarren: ahari-jokoak

- **Hizlaria(k)**: Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-160/008
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:13:45. **Bukatu**: 00:15:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Ahari-jokoa Eibarren. "Narru" baserriko ahariak, ezagunak. Herri kiroletarako zaletasun handia; jai egunetan egoten ziren horrelako ikuskizunak.

Transkripzioa

- Ni orduan gaztia nitzan artian. Gero, baita "Pelea de carneros. Había muchos encuentros no disputados en aquellos tiempos. El caporal era el carnero de Narru, del caserío de dicho nombre de Arrate-Balle". Osea, horrek kontatzen dittuan zer guztiok.

- [...] Narru?

- Bai. Asko egoten zan adari-jokua ta zera hor. Bueno, hau "plaza de toros".

- Eta hau, ze egoten zian jaixetan, ez? Harri-jasotzailliak eta...

- Bai, bai, jaixak... lantzian behin egoten zan, ezta?

- Ta jente asko juaten zan ikustera?

- Asko, basarritarra ta zera, jentia, asko. Ta dirua jokutzen zan, hor zeuan dirua be ta. Hor asko jokutzen eben.

- Ta ze izaten zan, San Juanetan, esate baterako? Edo San Andresetan ta San Juanetan edo...?

- Orduan baiño... osea ya... zera, San Juanetan-ta ya "más festejo", más... zera, baiña hau serixuaua izaten zuan. Diru asko daon lekuan-ta ez jok, bihar bailerik eta zerik. Ez dakik? Horrek egun espezialak. Edo "halako egunetarako?", "bai, halako egunetarako".

- Eta esan dozu hori zezen plazan, ezta, gehixenetan?

- Bai, bai, horrek danok adari-jokuak eta harri-jasotziak eta hori zerori, idixen zerori ta danak hor. Hor jokutzen zuan.

- Untzaga plazan ez zenduan zuk ezautu.

- Ez. Untzaga plazan be...

4.67. Astelena frontoian dantzaldiak Aratusteetan

- **Hizlaria(k):** Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-160/011
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena:** Alejandroren aita frontoiko txartel-saltzailea zen. Aratusteetan Alejandro egoten zen frontoiko tabernan garagardoa saltzen. Dantzaldia zegoenean, banderadun bezala ere egoten zen, makila batekin.

Transkripzioa

- Baiña aitta zuan horko takillerua, frontoikua. Takillerua. Ta, ba, egoten nitzuan baita zerian, aratostietan be igual, zerian, mostradorian, zerbezia partitzen. Dana zerbezia ta zera saltzen zuan karnabaletan ta. Ta gero, ba, gerotxuao, hamen ipintzen juat... egon zuan... A! "Pelea de gallos". "Baile. Bailes el abanderado". "Abanderado" badakik zer dan?

- Ez.

- Eitten genduan zerian, frontoian, dantzan, bailia. Baile publikua egoten zuan, ezta? Asko egoten zuan, jente asko egoten zuan. Ta, badakik, dantzan dabixak eta jentia, ba, [...] beti barru... ez dakik? estutzen, bat aurreratxuao eta bestia aurreratxuao... dantzan ez juen lagatzen. Ta abanderaua, ba —neuk eitten najuan—, makilla bat, holako makilla bat metro ingurukua ta gero han lazuak, lazuak mordua. E? Kolorietako moltzo bat. Ta hareaz, ba, juaten hitzan ta "benga!", "da!" ta atzeratzen. Ez dakik? Bai, ba, ta errespetau ein bihar izaten juen, bestelan autoridadia... Pillua han ta "benga! atzera!" ta jo makillia holan beti ta "e!", bueno, atzeratu ta atzera be zabaltzen zan ta atzera be batzen zuan. Baiña bueltan-bueltan ibili bihar. Abanderaua.

- Eta zuk eitten ziñuan bihar hori?

- Bai. Bueno, aittan partia igual ta... Esaten [eben] "Ipini hari hor!" ta. Segun zenbat jente euan be bai ta. Ezta? Holan, barru-girua ta jente pixkat zera zeuanian, ba, koño! neri bultza ein ta... Orduan, aitta-ta jartzen zian.

4.68. Pilota Eibarren: pilotari ezagunak; txapelketak

- **Hizlaria(k):** Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-160/014
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:31:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Pilotari ezagunak: Mondragonesa, Atano, Gallastegi, Urzelai, Arriola. Tantoak oso luzeak izaten ziren (10-15 min. behar izaten zituzten). Alde handia oraingo pilota partiduekin. Sake librean egiten zen normalean. Munduko Txapelketa: Atano-Aranbillet (bi partidutara, eskuz eta trinketean).

Transkripzioa

- Zuk frontoian, orduan, orduko pelotari guztiak-eta ezautuko ziñuaz, ez?
- Buenoo! Buenoo! Mondragonesa... Onbre, danak.
- Zeintzuk zian gerra aurretik holan ezaunenak, zure gazte-denporan?
- Ba, orduan, Atano, Gallastegi... Gazte-denporan. Bera be gaztia zuan Gallastegi. Gallastegik eukiko jittuk... larogeta pare bat eukiko jittuk Gallastegik, e! Bai. Ni baiño... Harek kinta... "trenta y nueve" edo izango dok. Bueno, Gallastegi gero atzenera, ezta? Baiña aurretik Urzelai be bai. Kantabr... honek zerok, Kantabria ta honek, Urzelai ta Arriola ta. Bueno, horrek antxiñakuak dittuk horrek. Horrek hamar miñutu ordu laurdenian egoten zuan tantua eitteko.
- A bai?
- Bai. "Pun" ta "pun" ta hantxe. Jugadore zerak, antxiñako zerak, ez dakizu? Oin pelotak be bizixak eta zerak, kanbixauta dao dana.
- Lehengo pelotia ta oingo pelotia, ze alde zeuan?
- Buenoo! Askok, asko, asko.
- Nik Gallastegiri berari entzunda telebisiñuan, lehengo partiduak askoz hobiak zirala.
- Hobiak? Luziauak bai behintzat!
- Gogorrauk eta... tantuak gogorrauk eta...
- Tantuak... Bai, ba, tantuak gogorrauk ez, luziauak! Esan deuat, ba. Bueno, bueno! Akordatzen nok, batek esan [...] "Hi! [...] atzera, honek oindio ez [jok amaittu] tantua ta". [...] difuntua. Ta "pun" ta "pun ta" pun" ta "pun" ta. Pelotak... lau-bostian erabiltzen juen. Oin rebotera-ta joten juek. Ta hori, sakia, enjeneral, libria izaten zuan orduan. Sakia. Sake librian. Ta hau, zerian... Hamen historixan bat zerian badaok, pelotako asuntuan. Hau hor zerian daok, ezta? Neri galdetu estan batek eta "bai, zertuko deuat". "Hau ez juat sinisten" esan estan [...ko] zerak, Juan Marik, lagunak, "Batek esan jestak zerak 7000 pezeta kobrau zittuala zerak, Atanok, orduan denporan, 7000 pezeta". Ta hortxe daok zerian. Esaten jok: "El año 28 se disputaron por primera vez el campeonato mundial. Atano, como titular español, se enfrentó al campeón de Francia Aranbillet, a dos partidos, de trinquete y frontón, eligiendo como escenario ciudad de Irún y de Biarriz. [...] Atano ganó ambos encuentros, extendiendo [...] insospechados su primacia. Este año, 1928, fue memorable para nuestro paisano, porque marca el nivel supremo de actuaciones brillantes. Había comenzado cobrando siete pesetas por partido y ahora cobra siete mil". Golpera, e! Baiña partidu gitxi jokatzen juan, ezin juan, eskua biguna ekan ta. Partidu gitxi. Bestiak... Oin ikusten dok Elkoro ta? Ixa egunero jokatzen jok. Bueno!
- Eta, gaiñera, eskua be ez jakue ikusten.
- Oin guante moduan.
- Lehen tako gitxiaokin jolasten zan? Edo ezer barik?
- Ezer barik. Laga be ez etsen ingo igual ipintzen! Bueno. Bueno. "Cobraba siete mil pesetas, cuando a aquellas figuras más famosas se le abonaban por partido treinta duros". Zazpi mila pezeta horrek ta Mondragonesak, ta bai Etxabek ta bai Onaindiak eta bai estok hogeta hamar... berrogeta hamar duro, ezta? Hogeta hamar. "Treinta duros. Ciento cincuenta pesetas"! Ta zazpi mila pezeta.

4.69. Atzerrian bizi ziren euskaldunen laguntza exiliatuei

- **Hizlaria(k):** Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-178/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:29:23. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Asia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- **Laburpena:** Gregorita Olañetak egunkarian irakurri zuen Belgikara ume euskaldunak heldu behar zirela eta bere laguntza eskaini zuen. Eibarren oso emakume ezaguna zen.

Transkripzioa

- Kasualidadia, e? Alde egin Bilbotik ta hara heldu eta eibartako batek e...
- ...Eibarko bat billatzia han e...haundixa; ta gaiñera ondo e(g)uana ta laguntzeko gertu ze(g)uana beti...
- (Juanita Arrieta) Ho(r)ixe, ho(r)ixe inportantia.
- Bai...
- Gaiñera ez zenduen zuek bera billau, ezta?. Bera agertu zan...
- Bera agertu zan. Irakurri zeban periodikuan zela(n) ume euskaldunak alle(g)atzen zi(r)an; ta bera jua(n) zan esatera pues: "Interprete bat nahi b(ad)ozue hemen na(g)o ni, nik badakitx euskeria ta". Ta esan etsen, hantxe esan etsen: "ba, eibatar bat be etorri(...)"; [Gregorita, Belgikan bizi arren] Eibarkua zala ta ba: "eibartar bat be hamentxe dator ba...!". Ta orduantxe deitxu ta alkarrekin ezagueria egin.
- Ez zenduen alkar eza(g)utzen lehena(g)otik?
- Eza(g)utu nik bera bai!; famosiak zi(r)an Eibarren ta berak esan estan nere ahiztia asko eza(g)utzen ebala na(g)usixa(g)ua...
- (Juanita) Dolores...
- Bai...baiña nerekin ez zala hainbeste akordutzen.
- (Dolores Tolosa) Gregoritak?
- Gregoritak.
- Zuk esan ziñuan Dolores [Dolores Tolosari egindako galdera]... guapisimia zala ezta [Gregorita Olañeta]?
- Politxa! Politxe(n)etarikua ta sinpatikia, e?; beti barrez-barrez e(g)uana.
- Ta asko balio ebana zan gaiñera.
- E?
- Asko balio ebana.
- Bai ezta?. Ta haren lagun intimak Filo...
- Bai...
- Filo ta Eugenia Egia.
- Hiru zi(r)an bai.
- Bai, las tres.
- Las tres, las Tres Gracias.

4.70. Aitak perretxiko asko ekartzen zituen

- **Hizlaria(k):** Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-201/003
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:10:22

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena:** Perretxiko asko ekartzen zituen aitak baina amak, haiek frijitzen olio asko gastatzen zela eta, ez zituen oso gustuko. Medikuentzat apartatzen zituen onenak eta, geratzen zirenak lagunartera eramaten zituen aitak. Elgoibarrera joaten zen perretxikoetara, Madarixa aldera. Kamamila batzeko Izarraitzera joaten zirenean goizeko 3:00-tan irteten zirela kontatzen du.

Transkripzioa

- Aittak perretxikuak ekartzen zittuan, kantidadia! Kantidadia, e! Amak bildurra eukitzen eban eitteko, prejitzeko edo zera egtteko, olixo asko gastatzen dala ta... "En aquellos tiempos" gaiñera... bueno! Olixuak, litruak, zenbat balioko eban, ba? Hamaika txakur haundi. Hamaika txakur haundi edo... Hamaika txakur haundi: pezetia ta hamar zentimo edo... Hamaika txakur haundi. Olixo asko txupatzen dabela ta bera ez doiala gastatzera olixua perretxikuekin. Perretxikuak duakuak, ba! Duakuak bai ,baiña... Amak esaten ebana: harutz juateko perretxikutara, Elgoibarrera, ta oiñaz, goizeko hirureta-ta urtenda, oiñaz, "taparra, taparra", egunsentirako pagadixan egoteko. Abarketekin, aste guztian taillarrera eruaten abarketekin. Aitzen dozue? Ta bueltarako barrixak, estreiñatzeko. Ta harek apurtu. Klaro, ensegida, espartzuzkuak eta ahua zabalike ta... Harek bota ta estreiñatzeko dakazenak jantzi ta "taparra, taparra", etorri ta. "Horrek abarketok nik pagau ein bihar izaten jittunat", amak esaten eban.

- ... lana ta denporia ta...

- Bai, ta aparte olixua. Ta gero aittak eitten eban, ba, kuadrillara eruan. Bueno, lehelengo, medikuandako. Apartatzen zittuan onenak, dozena bi edo, dozena t'erdi edo dozena bi, por ahí.

- Hori zegaittik?

- Lehen zan medikua, kabezerakua, ezta? Lehen ez euan gaurko moduan anbulatoriorik-eta ez euan. Medikua bihar bazenduan etxian, ba, abixau medikuari ta etortzen zan etxera medikua. Ta horri esaten jakon "médico de cabecera". Haretxendako ipintzen zittuan onenak, e! Ai! Baiña... hermosura bat...! Fuente baten amak ipintzen ta, ontzixak sikatzeko trapua lehen izaten zan metrokua, holan [farra orrixakin], halakotxe batekin, barrixakin e! Tapau. Ta ni izaten nitzan medikuana [...] Medikuak apreziatzen eban ha fuentekada perretxikua...! Nik pentsatzen dot gustorao ez ebala hartuko haxe erregalua baiño. Ta emoten zestan errial biko moneda zidarrezkua neri, eruatiarren. Ta ni be pozik! Ta bera be pozik! Fuentia emoten zestan hutsik eta errial biko txikixa zidarrezkuakin, etxera! Gero, gelditzen zianak lagunartera, kuadrillara. Ardantzan euan lehen, paso nibelian, guarda bat, ta harek ekan ortutxo bat txabola batekin, Ardantzan. Haraxe txabolara eruaten zittuen. Bertan prejidu, honguak zianian danak xehe-xehe-xehe einda ta kipulak eruaten zittuen ta eitten eben ta gure aittak, ba, duan eukitzen eban han afaltzia, eruaten ebalako perretxikuak. Beste batek kipulak eruingo [...], beste batek olixua, bestiak terrenua ipini ta gero gelditzen zianak, ba, ardaua, etaratzen ebena, pagatzeko. Ba! Halaxen izaten zan lehen.

- Aitta orduan Elgoibarrera juaten zan?

- Aitta Elgioibarrera. Elgoibartik San...

- San Lorenzo?

- San Lorenzo dao han? Elgoibarren dao San... Ez, Madarixara, Madarixa aldera, Elgoibartik, beste hainbeste bide ixa. Madarixa aldera juaten zan.

Ta juaten giñanian Izarraitzera manzanillatara be goixeko hiruretan urtetzen genduan, e! Aitta, ama ta alaba bixok. Goizeko hiruretan! Txokolatia ta ogixa hartu ta Elgoibarrera goiazela kamiñuan jateko, bidian jaten txokolatia ta ogixa, “taparra, taparra” Elgoibarrera. Gero, Elgoibartik Madarixaraiñok jua ein bihar da e! Beste tretxo bat. Gaur igual honutzao etorritta egongo da, etxiak edo igual ingo zittuen ta! Oin Elgoibarrekin bat einda igual egongo da!
- Autopistia ein dabe oin...

4.71. Karakolak noiz batu eta nola prestatu

- **Hizlaria(k)**: Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-201/010
- **Iraupena**: 0:07:22. **Hasi**: 00:23:51. **Bukatu**: 00:31:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Karakolak batzeko sasoia urritik abendura bitartean doa. Nola prestatzen diren azaltzen du eta baita zein egunetan jateko ohitura dagoen ere: Gabonetan, Urteberri-egunean, etab.

Transkripzioa

- Aittatu dozu aittak perretxikuak, manzanillak ta... karakoletara be juaten zala...

- “Caracoles”. Karakoletara izaten zan oktubrian. “Octubre, noviembre y diciembre”, karakolak. Eukitzen zittuan kaja baten, zahixa botata ta arto-adarrak ipinita, porkerixia botatzeko. Kaja haundixak, e! Egurrezkuak eukitzen zittuen. Hantxe, sikatzen. Ta Gabonetarako, edo hamabost egun lehenago edo, jateko, berak esaten eban, jateko moduan euazela, zikin guztia botata, berak esaten eban. Jaten genduan, ba, Gabonetan ta Gabon Zaharretan ta Erregietan ta... karakolak. Kuadrillara be eruatzen zittuan karakolak. Baiña karakolak etxian ipinita eruatzen zittuan, amak ipinita. Gure amak ekan esku bat karakolak ipintzeko... Ekan esku bat... Gozuak ipintzeko! Neuk be bai e! Neuk be bai ta neure aiztiak be bai. Ta oin loibak be bai, nere amari ikasitta.

-Zelan eitten dozuz?

-Askok eitten dabe... Benidorren, e? Eitten eben egosi ta gero tomatia edo saltsia ein ta haraxe bota ta ya esta. Nik ondo garbittu, binagriakin ta gatzakin ipiñi ura ta banan-banan, banan-banan begiratu ustelduta edo bateron bat badao, porsiakaso. Tokatzen bajatzu usteldutako bat... adios! Juan zan ha kazuelia! Emoten detsa tejillua, itxuria. Bueno, banan-banan apartau lehenengo ta gero gatzakin ta binagriakin garbittu. Lau bidar edo bost bidar edo... Zenbat eta gehixao garbitzen dan, ba, garbixao gelditzen da. Askok esaten dabe gustua kentzen jakola karakolari. Guk ipintzen douzen karakoleri ez behintzat. Garbittu ondo, ipiñi kipula asko kazuelan, kipula asko ipiñi kazuelan. Olixua be asko, asko e! Ta gero beste lapiko baten berakatz askokin ura, ta gatzakin, irakitzen euki. Osea, berakatz-saldia esaten dana, ezta? Ta karakolak bota kipulara, pixkat bigundutakuan kipulia, bota hara karakolak. Baiña uretatik etaratakuan eskurritzen euki pasador baten, ezta? Soltau deixen ahal dan ur guztia. Gero, bota hara ta tapau kazuelia. Ta berak emoten daben lurrunakin, bahu, ezta? Kazueliak emoten daben bahuakin, ba, esan leike, ura, ustez saltsiak urtetzen

detsala, baiña gitxi urtetzen dau, kazuela erdi edo urtetzen dau. Gero, txorizeruak sartu ta ogi-koskor bat sartu, ogi-koskor bat bizperakua edo sikuaua be igual, han biguntzen da ta. Egunekua ez, e? Biguneixa da egunekua. Ta ha ogi-koskorra desaparezidu eitten da, eitten, eitten, eitten karakolak. Euki egun baten eitten. Gero, bahuakin goratzen darian karakola ta akabauta, hilda gelditzen dianian, berakatz saldia, dakazuna, bota. Tapau, tapau deixazela, beti karakola tapauta egon deilla berakatz saldiakin. Ta lantzian behin, kutxararik-eta ez erabili, holan erain kazueliari. Hara bota leike txorizeruak, urdeixa... urdeixa... kipuliakin batera urdeixa, e? Bota urdeixa asko [...] jeneralmente izaten zan guk eitten dounian. Egun baten euki bihar dozuz hiru orduan irakitzen, baiña ez erdixan, sutan erdixan, albuana edo, oin butanuak zelan daozen, honek beste modako kristalezkuok? Ba, han ta bajuana, baiña beti egon deilla “pil, pil, pil, pil, pil, pil...”, ez fuertian. Hiru ordu lehelengo egunian; bigarrego egunian lau ordu; ta hirugarren egunian, trabia badakazu, beste jatekoren bat egin bihar badozu kendu, ezta? Baiña bestela, hirugarren egunian be euki hiru ordu edo, euki. Nik... gindillarik guk ez detsau eitten, baiña askok gindillia eitten detse karakolari. Gero, etara ta jan. Baiña, hiru egunian euki eitten, e! Urtetzen dabe... saltsia be... gusto bat eukitzen dau...! “¡Un gusto hasta allí!” Ez askok eitten daben moduan... goixian ipiñi karakolak ta gabian jan! Egosi, lapiko baten egosi ta eitten dan saltsara bota ta hartu ta jan! “Tz, tz, tz, tz...” Karakolak bere sustanzia bihar dau, ez tomatian gustua, karakol gustua euki... A! Ta beste gauza bat ez detsuet esan, horri eitten jakona, kopatxo bat coñac-a. “Coñac ¡eh! Anis y... no... ¡Coñac! Osborne o lo que sea...” Ta gindillia, askok eitten detsa gindillia be. Guri ez jaku gustatzen gindillia, ez jaku gustatzen. Eran be ez dou eitten ta! Gindilliak daka gero... soplete! Ta nik neuk ez dot probau ardaurik, nik alkoholik ez dot probau. Gaseosia bai, baiña ostian ez.

- Ta karakolak noiz jaten zian?
- Gabonetan. Urte barri eguna, Natibittate eguna, erregiak... Behin dizienbrera ezkerro, diciembre y enero... guk jaten genduzen. Baiña aittak batutakuak.

4.72. Gaztañerre egunaren ingurukoak

- **Hizlaria(k)**: Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-201/011
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:31:13. **Bukatu**: 00:32:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Gabonetan prestatu ohi ziren platerak ditu hizpide. Gaztañerre egunean baba zuriak, karakolak, gaztaina erreak...Gaztañerre eguna noiz den ez omen dago oso garbi. Etxean, azaroaren bigarren astelehenean ospatzen zutela kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta ze gehixao jaten zan?
 - Gabonetan? Gure aittari-ta emon zetsen han korridia bota ebenian edo korridara... enbolaura jua zianian, baba zurixa ta bakillaua saltsa berdian, afarixa. “Uuu!!” Afarixa edarra! Ta dirua? “U!” Dirua ta dirua? Zer zanik pez dirua! Pozik haretxekin afarixakin! Afari ona zala ta... ordurako, afari

ona!

- Eta Gaztañerre egunian?
- Gaztañerre egunian karakolak. Aurretik noberak nahi zebana ta gero karakolak. Baiña ostian ezebez, e! Ta gaztaiña erriak gero!
- Zuek zebratzen zenduen Gaztañerre etxian?
- Urte batzuk bai, urte batzuk zebratzen genduzen. Baba zurixa jaten genduan, baba zurixa ta karakolak.
- Ta noiz izaten zan Gaztañerre? Ze, hor diskusiñua egoten da, ez?
- Azertatzen dabena da, nobienbrian astelehen guztietan zebratzen dala. Haretzek azertatzen dau, e! Klaro, batzuk esaten dabe lehelengo astehelenian, beste batzuk esaten dabe bigarrenian, beste batzuk esaten dabe hirugarrenian be zebratzen dala... Nik, ba... nik neuk, ba... bigarren astehelenian zebratzen genduan geuk, ezta? Baiña beste batzuk lehelenguan be bai. Gero askok esaten eban: "Ene! Onena da, ba, astelehen guztietan zebratu ta azertau!" Dudan ibili barik...

4.73. Anbotora oinez; egiten zuten ibilbidea

- **Hizlaria(k)**: Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-202/002
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:01:04. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
 - Aisia » Kultura » Musika
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Mendira zelan joaten ziren gogoratzen dute. Zaldibarreraino oinez eta han mendirako bidea hartu. Anbotora, Urkiolara... oinez. Buzoian txartelak laga eta beste mendizale batzuk lagatakoak batu. Bidean, "Santu motzeko" ermitan txanponak osten zituzten, etxetik eramandako bazkaria jan ostean, kafesnea hartzeko. Arratsaldean, Durangora oinez jaitsi, bi pieza dantza egin eta trenera. Etxera itzultitakoan, kafesnea zopekin jan, pixka bat garbitu, arropak aldatu eta Untzagara dantzara.

Transkripzioa

- Zelan eitten zenduen?
- Hamendik goixian seiretan urten ta Zaldibarrera arte oiñaz. Zaldibarren ya hartzen genduan mendiko bidia ta euan ermittatxo bat "Santo-motz" esaten eben hareaittik. Lapurretan ein han! Bastoiari ipini galipota puntan ta rejetetatik sartu ta galipotera txakur haundixak orduan ta txikitak eta txakur haundixak eta... "Cinco céntimos y diez céntimos". Sartu bastoia han ta txakur haundixari... "Bat", berriro... "bi" ta kafiatesniak hainbeste balio dau ta hainbeste lagun garaz, hainbeste txakur haundi. Gero handik Anboto puntara; goixeko hamarretan Anboto puntan.
- Felisa: [...] behian, barrenian, ta [...].
- Eskribidu tarjetia, bota buzoian ta baeuan lehen tarjetaren bat hartu ta laga geuria. Ez baeuan ez genduan hartzen, ez daon lekutik ezin leike hartu. Gero handik Urkiolamendira oiñaz; Urkiolamendittik Urkiolara oiñaz. Eruaten genduan bazkarixa jan ta kafia hartzera gero iñon kontura,

lapurretan eindako txakur haundixekin! Kafietesnia guk orduan, ta kafietesnia hartzera. Gero, Urkiolatik Durangora oiñaz. Durangon pieza bi dantzan ein arratsaldian ta trenera, zazpi t´erdietako trenera. Gero, Ilegau etxera, kafietesnia zopekin jan, katillu haundi bat bete, nata morduakin, ta kendu errofia, freskatu bat hartu... Orduan baiñerarik be ez ta dutxarik be ez ta... ahal zan moduan baldiakin garbittu ta musikara gabian dantzan eittera.

- F.: Ez! Urten ez gabian!

- Udan bai! Musikara!

4.74. Klub Deportiboko kuota ordaintzeko trikimailuak

- **Hizlaria(k):** Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-202/014
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:17:58. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 - Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena:** 12-13 urte zituztenean elkarrekin apuntatu ziren Klub Deportiboan. Luziana aurretik aitarekin joaten zen mendira. Klub Deportiboan sartu aurretik ere buzoietako txartelak jasotzen zituzten. Bazkide kuota: 20 zentimo hilean. Eta hura ordaintzeko amari lapurretan egin behar. Plazara barazkiak eroatera joandako bakoitzean, xemeikoren bat edo beste poltsikora.

Transkripzioa

- Zuek ze apuntau ziñazien, batera Klub Deportibuan?

- Bai, batera.

- Noiz apuntau ziñazien Klub Deportibuan?

- Felisa: Jesusus! A saber! 12-13 urtekin.

- Ni oiñaz hasi nitzanetik mendixan, baiña Klub Deportibo barik e, beti aittakin.

- F.: Bai, aittakin.

- Aitta, "Guía de los montes" aitta. Gero, ba, urtiekin, espabillatzen-espabillatzen, oskoletik urtetzen, oskoletik urtetzen, ba, Klub Deportibora gero. Baiña Klub Deportibuan sartu baiño lehenao tarjeta mordua hartzen gendunan zerian, buzoietan. Ta geuk ipinita, gaiñera: "Recogida por..." ta izen-apeliduak geuriak. Ta Klub Deportibuan botatzen buzoian ta geu soziuak izan barik! Ta gero sartu... Zenbat zonan, ba, soziedadia be?

- F.: Gauza haundirik ez, errial bat edo...

- "¡Veinte céntimos! ¡Al mes!" Txakur haundi bi hillian. Hillian, e? Ta eurak txakur haundi bixak be amari lapurretan egn bihar. Plazakora-edo bialtzen ginduzenian, ba, patatak eta, kilo bi hartzera, xemeikua merkiao, ta ha xemeikua amari ostu ta poltsillora. Sagarrak, dozena bi hartzera, merkiao, ta beste txikita bat hantxe ta... Amari ostu etxera baiño lehenao ta. Azia, azia be... zer? Hiru xemeikokin edo txakur haundi birekin ha be plazan euanik haundiña! Akordauta be, e? Horrek gauzok...

4.75. Inauteriak Rialtoan, Kasinoan eta frontoian

- **Hizlaria(k):** Larreategui Arizaga, Luciana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-202/017
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:25:17. **Bukatu:** 00:29:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kultura » Dantza
 - Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
 - Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- **Laburpena:** Inauteriak Rialtoan, Kasinoan eta frontoian zelebratzen ziren eta hiruretan ibiltzen ziren. Rialtoan Felisak eta Luisak bigarren saria irabazi omen zuten. Kasinoan gizon nagusienetatik hasita, denak dantzara atera zituzten banan-banan. Gero pastel-jana. Eguenean koko-txiki eguna. Domekan frontoian, astelehenean Kasinoan eta martitzenean Rialtoan. Nola mozorrotzen ziren.

Transkripzioa

- Ta hori nun zan, frontoian? Orduan, Karnabaletan frontoian izaten zan?
- Baitta! Izaten zian Karnabaletan Rialtoan, Kasinuan ta frontoian. Ta gu danian ibiltzen giñan. Juan Rialtoa, premixua honek etara eben, honek eta Luisak. Ta holakotxe frasko txiki bat premixua, "segundo premio".
- Felisa: "Primero fue una sola, primero, creo que era una de fuera. Aquella primero. Luego nosotras. [...] trajes teníamos. Marineros."
- "Luego de allí fuimos al Casino, Casino Artista Eibarrés". Pareja bi jua gintzonazen. Ta han Kasinuan soziua zonan Luisan anaia. Harek organizauta bailia. Agure zahar guztiak han.
- Andrekin baiña! Andrekin.
- Bai. Ta guk jua ta etara gizonak dantzara!
- F.: "Mesedez?", "Ez, ez, ez", "Bai, bai, bai -andrak-, etara, etara". [...]
- Ala! Ta zaharrenetan etaratzen jua giñan, e? Akordatzen jatan neri, "Villavilla" etara najonan nik.
- Bai. Nik [Madarixan] semia, Inazio. "Mesedez?" ta "Bai, bai, pozik, pozik". [...]
- Ta dantzan zelan eitten jona...! Neuk baiño hobeto eitten jona dantzan harek agura zaharrak! Bueno, agura zaharra ez, baiña gure onduan zaharrak. Bertako Kasinoko soziuak, zaharrenak. Zaharrenetan begiratu ta haretxeana. Bueno, "ni haretxeana", "ni haretxeana", "ni haretxeana"... Ta gero pasatzeko, holakotxe estiloko lokal bat. Mahaixa erdixan, dana pastela! E? Ha zonan sakia, e? Ha zonan sakia ein pasteleri! Orduaintxe kendu kareta, haretkek jateko. Bai, haxe ein genduan.
- F.: Ta gero Inazio [...] estu ni zein nitzan. "Nungua zara?" ta [...]. Ezin ezautu zein nitzan. Ez etsan igarri zein nitzan. Ta handik [...] "Felisa, zu ziñan, e?" ta ni ixilik. [...] ixilik ni. [...]
- Orduan Karnabalak zelan izaten zian? Eguenian hasten zan ala zelan izaten zan?
- Eguenian koko-txiki eguna. Gero, domekia izaten zan; gero, astelehena ta martitzena. Domekan frontoian, jeneralian; astelehenian Kasinuan; martitzenian Rialtoan edo... Hiruretan pixkat ibili, ta komeni jakun lekuan geldittu. Baiña ha zonan pastela jatia, e!
- F.: Bai, gustora.
- Ta atia, iñor ez dein sartu gu geozen lekuen, giltza laga zeskuen ta geuk barrutik itxi, jarri ta beinga!
- F.: Aizta bi zian, bat Teresa [...] ta Kandidak...

- Kandida.
- Ta ezin ezautu zein zan arpegiz. "Zein haiz, ba?" ta "Kandida" ta "Ezin heike izan!", ta "Baietz ba". Ta [... atzaparra] ta hantxe ezautu zein zan aiztia.
- Ni ez, ni ez ninduen iñok ezautu! Ezta etxian be ez! Ni ezautu... etxian be ez!
- Aittan frakak jantzi, alkondaria ta kaikua.

4.76. Gerran parte hartzen zuten bi aldeekin hartu-emana

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/010
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Milizianoek behiak, oiloak, ardiak... eraman zizkieten. Euren behi bat Gernikan azaldu omen zen eta bueltan ekarri ahal izan zuten. Milizianoek alde egin ostean, reketeak etorri ziren. Aita eta Gorostiagako gizona bidea erakusteko eraman zituzten. Gogoan du garai hartan izeba bat ziza bila joan eta ziza pila bat ekarri zuela. Gerra sasoia beldurrez eta leihoetan koltxoiak jarrita pasa zuten.

Transkripzioa

- Ta gero etorri zan azkena ta han milizianuek etxeko ein zien batzuk, e? Taluek jatera, ba, ta emoten jakuen talua ta esnia ta... batzui ta... gero hemendik jun bihar zaniene, haxe zan egun txarra. Txarra gero e! Ba, etorri zien behixek eta oilluek eta danak hartuta aurrian eruatera.

- Milizianuak?

- Bai. Ta bertan, gaiñera, "Gernika" esaten gontsan... hildakuengaittik ez dago ondo esatia, baiña... txarrixa! Eske bertan egondakuak eta txarrenak, zu! hartu ta soltau ta eruen, e! Eruen oskuen behi bat, ardixek eta oilluek... bueno! Harrapau zittuenak, garbi esanda, eruen zittuen. Eta gero, handik ez dakit zenbat denporara Gernikan azaldu zan ha behixe. Ta atzera ekarri zan ta... zertuta, fastidixauta e(g)uen baiña...bueno. Baiña ha izen zan eguna... ño! Ta gero, gure aitta zana ezkutau zan [jo-ta eurekin eruango ete daben], ta ezkutau zan horra beheko, ez dakit nongo, larrarte [...] ta gabien etorri die reketiok! Bertan gabien. Ta, "Ene! Pobrecitas vosotras que no habéis comido en tanto tiempo", zera , "pan blanco", ez dakit zelako ta ogixa emoten guria be. Baiña eurek ez dakixela [bidia] zelan billau horra Iturretara jueteko ta derrigor aitta biher dabela. "Ene ba!" Aitta ezin topau, hor ziherr ezkutauta zan ta. Jesus, Maria ta Jose! Harek zien estuasunek! Ekarki genduen behintzet ta eruen eben. Ha ta Gorostixako gizona eruan (z)ittuen bidia eraskustera. Ta gero, bixamon goixian, goixien ez, hamarrak edo hamaikak igual, ta falta! Ta "Ene ba!" Gure ama zana estutu zan. "Jesus, Maria ta Jose! Ein detsela zeozer ! Eiñ detsela!" Harek zien estuasun garauek zu! Ta bueno, azaldu zien. Ta gure tia zana [...] nik ez dakit ba zelan zan... juen da zuzatara ta zestua, jakingo zu, horrek, zestuak, zestua bete zuza ekarki zoskun! Bai ba, klaro, iñok hartu barik eta... Sekula ez dot ikusi halako zuza pillarik etxien! Betiko, gehixago... orduaintxe desaparezidu zian harek... Asieske, holakotxe ipuiñek gerratekuek! Enee!

Ene, ene! Gerrateko ipuiñek... eskasak die e! Eskasak!
 - Rekuerdo txarra dakazu, ezta?
 - Rekuerdo txarra bai, baiña... bueno, pasau zien ta miñik... iñok ez (z)eban... ezebe ez jakon pasau iñori ta...
 - Bai, nahiz eta tiruak eta egon ...
 - Bai, baiña... ez, ez, iñori ez jakon ezebe pasau.
 - Ta hamentxe koltxoia e, orduan...
 - Koltxoia, porsiakaso! Bertan euki genduan zazpi hillabetien. Bildurra emoten oskun! Ta zerak zainttu eitten [eban], ezta? Ba, laniek. Ta, bueno, holan pasau genduen.

4.77. Eibarko futbol taldeak; zelaia; jokalariek internazionalak

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-212/006
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:05:12. **Bukatu**: 00:08:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Aisia » Kirola » Futbola
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Futbolaren inguruko kontuak. Eibarren ezagutu zuten lehenengo futbol zelaia: "El Campo de la casualidad". Abarketekin jokatzen zuten. Talde asko zeuden. Euren lehenengo taldea Montesinos; gerokoa Aberrixa. Eibarrek ez zuen futbol zelairik, baina bai jokalariek internazionalak.

Transkripzioa

- Agustin: Gero, pelotan ta foballian ta, ba... foballian ekipua-edo behin pixkat zertzen... distingitzen zanian, korrida plaza gaiñian euan zer bat, lau-una bat, buztinakin ta, dana buztinakin ta zera...

- Bartolo: Badakik ze pasau zan harekin, haren istorixia entzunda hao, harena...? [...] Eskola Armerixia proiektu zuan haintxe, hortxe Korrida plaza gaiñian, Korrida plazia daon[an] gaiñian. Ta ein jittuen, esplanadia ein juen: esplanada bat hola, ta beste bat hola, eskudran ein juen. Ta gero [ez jetsen iritzi] han ondo eittia, ha ez zala egokixa, ta gero Isasi gaiñian ein juen gero. Baiña Eskola Armerixiandako ein zuan ha. Ta badakik ze izen ipiñi zetsan hari...? Eibarren bajeuan... Argomániz-ek ipini jetsan izena hari: "Campo de la casualidad". Foballian eitteko beste lekuri ez jeuan ta haintxe. Ta horixe izenori ipini jetsen.

- Horretxeaittik?

- B.: Hoixeaaittik!

- Kasualidadia izan zalako.

- B.: Kasualidadez urten jua harek! Haintxe eitten gendua] foballian. Ta orduan, gaiñera, jaixegunian ta domeketan, aste guztian biharra eitten zuan ba, jaixegunian kanpua hartzeko goixeko seiretarako jua zuan jentia! Harrapataka danak! Behin hartzen zebanian batek sailla, beran ekipuandako! Harek amaittu arte, iñok ezin jokatu han. Kanpo haundixa ta kanpo txikixa esaten jakuen.

- Ta hor ze eitten zian, partidu pixkat serixuak edo...?

- B.: Ooo! Bertakuen artian! Bertako ekipuen artian!

- A.: Bai, bai, bai. [...] pixkat han ya... zerakin, esan gura dot... ekipua... jersixekin ta ya...

- Torneuak eta...?

- A.: Torneuak... ba. Torneuak be... ba! Egongo zittuan torneuak be, eztok?.

-B.: [Neri ez jatak] torneo konturik akordatzen...

- Jokatzen zenduen zuek?

- B.: Bai, ni jokatuta naok...

- A.: Nik ez juat jokatu...

- B.: Hik ez huan behin be jokatu, e?

- A.: Nik ez.

- B.: Ni [...] akordatzen nok han. Baten, gaiñera, abarketekin nebixan ta jo najuan... Ein bihar izaten zuan, gaiñera, ebagitta jeuan ba, ta kanpua, ba, kanpora ez zuan juaten baloirik! Oin izaten dan moduan, berriro eskuekin etara ta holakorik. Jo horman ta kitia ein ta bestekaldera juan ta aurrera! Jo najuan baten hor, zera, ostikuakin jaurti baloiori ta, jo najuan mendixori ta abarketia apurtu jatan ta hanka guztia geratu jatan baltz-baltz einda!

- Ta zein zan zure ekipua?

- B.: Ba, guk... guk euki genduan lehelengua, Montesinos ipini jakuan izena.

- A.: Montesinos lehelengo ta gero Aberrixa.

- B.: Gero Aberrixa.

- Ta beste ekipo batzuk be egongo ziran, ezta?

- B.: Ene! Mordua ekipuak Eibarren!

- A.: Bueno... Asko, asko.

- B.: Txiri-Birixa ta Altza-Praka ta Lagun-arte ta Izarra ta Estrella ta...

- A.: Gero azkenengo egon zana, azkenengo egon zana [Ibargaiñian], zera zuan ha ekipua...

- B.: 'Gallua'?

- A.: Ez, ez...

- B.: A! "Unión Deportiva Eibarresa"!

- A.: "Unión Deportiva Eibarresa".

- B.: Haxe, onena egon dana haxe! Honek, internazionalak be urten juen handikan: Ziriako-ta, internazionalak, Roberto ta Mugerza ta...

Internazional izan zianak. Kanpo foballik ez Eibarrek ta internazionalak! Ta oin kanpo fubola ta internazionalik bapez!

- Meritua orduan...

- B.: Meritua? Ziriako, Mugerza, Roberto... Gero Garate egon zuan gero, baiña Garate gerra ostekua dok Garate.

- A.: Bai, ta zera be... Gabilondo be bai.

- B.: Gabilondo! Baitta! Gabilondo be gerra aurrekua, kanpo fubolik ez euanekua!

4.78. Eibarko lehenengo futbol zelaiak; futboleko tranpak

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-212/007
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:08:29. **Bukatu**: 00:10:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Futbola
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eibarko lehenengo futbol zelaiak Otolardikoan egon omen zen, baina beraiek ez zuten ezagutu. "El campo de la casualidad" futbol

zelaia. Atezain bat estrata zulora bota zuteneko pasadizoa. Orduan tranpa asko egiten ei zen. Ortuzarren tranpak.

Transkripzioa

- Eta hori, zuek ez zenduen ezautuko, baiña "Campo de la casualidad" ein baiño lehenao, beste bat be egon zala... Ez?
- Bartolo: Bai, Otolardikua!
- Hori ez zenduen zuek ezautu...
- B.: Ez, nik ez najuan ezautu. Hik ezautuko huan igual...
- Agustin: Ezautu, ezautu... Bai, ezautu [...], baiña...
- B.: Otolardiko basarrixa badaok ba han? Basarritik oin badaok, ba, Tekniker-ta badaok, ba? Han solua zuan, haintxe zuan kanpo foballa. Handik Olarria alderutz, basarritikan harutz. Otolardikua.
- Ta gero hau, "Campo de la casualidad", noiz inaugurau...? Bueno, inaugurau...
- B.: Hori inaugurau be ez zuan ein! Hori...
- Bueno, noiz hasi zan edo...
- B.: Hori... Eskola Armerixia hamalauan inaugurau zuan, ba, Eskola Armerixia, einda. Ba, ha eitteko eindako sailla zuan ha, asike...
- Hor inguruan, hamarra edo...
- B.: Bai. Buztiña zuan ixa dana, e! Korrida plazia jeuan, korrida plazia holaxen ikusten genduan.
- Agustin: Gero, aldatzeko zerik eta... ezta ezebe, e! "Al aire libre" dana.
- B.: Bai, bai, bai.
- A.: "Al aire libre".
- B.: Hi akordatzen haiz, Sebastiani ze pasau jakon, Iraolagoitiari, horko librerixakuan aittari, Sebastianeri?
- A.: Ez. Prterua edo zuan...
- B.: Porterua zuan ha! Ta jeuan porterixia holan, ta porterixian azpittik jeuan, tutuluko estratia esaten jakuan, ba? Sakonian, ba, porterixatik holan jarri ta metro bi edo hiru beherao bidia, zerera urtetzen juan, oin Lanbreta daon lekurako bidia. Handik gora estratia. Ta orduan, porterua kargau eitten zuan, bota baloia [gora] ta dana, porterua ta portero ta guzti barrura! Orduan porteruak ez juan faltarik eitten, ta estratara bota juen porterua! Ta bizkarrazurrian ein etsen zeoze ta betiko geratu zuan oker. Bai.
- Lau metro behera bota baldin bazeben...
- B.: Lau metro ez zuan, baiña metro bi edo... bi egongo zittuan hara. Bota ein juen [karrilla] einda.
- A.: Orduan tranpa asko euan libre. [...gaittik] esaten juen. [...] zan hor beste bat "Unión Deportiva Eibarresa"ko...
- B.: Ortuzar jakuan apeldua.
- A.:Jugadoria. Ta harek, kornerrik baeuan, harek porteruari hankia zapaltzen etsan.
- B.: Hankia zapaldu porteruari harek! Harek beran misiña haxe! Porteruari [...] salto ein, ta gaiñera hankia zapaldu!

4.79. Lehen mendia gehiago zaintzen zen

- **Hizlaria(k)**: Albizuri Ormaetxea, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-289/014
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:31:23. **Bukatu**: 00:33:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Lehen mendia gehiago zaintzen zen.

Transkripzioa

- GALDERA: Urritxak eta urdiñak zer dare, klasiak?
- ERANTZUNA : Bai.
- Bai? Askot? Klase diferentiak urritxak-eta?
- Bai! Urdiña da berde-berde-berdia. Ikusteko onena, ta jateko fiñena. Fiñena ez, urritxa da fiñena, biuna. Urritxa pinpoilluori, zerori, neretzako onena. Gero urdiña edarra da. Urdiña da, ikusten dozu ipinita, berde-berde-berdia, pikotiakin, ha fenomenua da. Ta urritxa be, urritxa. Ikusiko dozu dana berdía [urdiña], ta urritxak ez daka berdía. Urritxak daka azula, bestia, diferentiak egongo da. Oin gibelurdiña esaten detse, baiña gibelurdiña ta urdiña diferentia da. Gibelurdiña da urritxa esaten detse.
- Zuk gibelurdiñari urritxa esaten detsazu.
- Bai. Ta urdiñari urdiña. Ta oin, zerian, jentia esaten detsa gibelurdiña danari, baiña urdiña ez da gibelurdiña. Berak esaten dau: « gibelurdiña ».
- Gibela trazia eukitzen dau urritxak leku batzuetan, baiña urdiñak ez. Urdiñak, bera, berdía da bakarrik. Berdía. Gibelurdiñak.
- Hamen dakaraz zuk aurreko aldiz esan zestazuzen izenak, ta begiratzen neguan ia urdiña zein zan, ta urritxa zein zan, ta..
- Bai. Urdiña da diferentia, berdía. Ha askotan juaten zara, ta igual hiru edo lau ikusi ta: "Ño!" Berari begira egoten gara. Oin, topatzeko, ta berari begira egoten gara, ha gauza ederra. Ta mangua eukitzen dau gorrixa ta zera.
- Eta urritxak, gero, klasiak dare? Ez dakit zer urritx klase edo urritx gorrixa...
- Bai, bai. Urritx gorrixa be badago. Eta urritx gorrixa, oin hasieran, oin jentia ekin detse hartzen. Lehen ez eben hartzen. Ta ona izaten da. Oin urritx gorrixa, mango gorrixa badaka ta pikatzen badabe ez da hartzen. Oin, hamen, Rioja partian-edo, hori urritx gorrixi hartzen dabe, pikatzen dabena, ta saltsiari botatzen detse.

4.80. Perretxikoen artean gozoenak

- **Hizlaria(k):** Albizuri Ormaetxea, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-289/021
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:48:55. **Bukatu:** 00:50:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena:** Perretxiko onenak berarentzat: kuletoa, urritxa eta urdina. Zizak ere bai, baina berak besteak nahiago. Zizak nola ipintzen diren ere aldea dago. Hartu berritan jan behar dira, bestela zaporea galtzen dute.

Transkripzioa

- Lehen hamen aittatu dozuzen zapu-perretxikuak eta sube-perretxikuak... Bardiña da?

- Bai, horrek ez detse emoten zera. Batek esaten detsu bat, bestiak bestia esaten detsu.

- Ta, piskat, esateko benenosuak dirala, orduan zapo-perretxikuak.

- Zapu-perretxikua! Lehen, esaten detsut ba, gerra aurrian, piñarixako, nahix eta onguak jositta, iñork ez eban hartzen. Ezta pentsau bez! Pagukua, haritxakuak... ta lanpernia be zera.

- Ta piñarikua zapu-perretxikua.

- Piñarixan sartu bez! Nahix eta onguak... dana jositta egon.

- Zapu-perretxikuak ziralako.

- Bai ba. Joe! Piñarixakuak desastria!

- Ezautu bez, ez? Orduan piñu gitxi-ta...

- Ezautu bez. Ta rebelloia-ta ezagutu bez. Pentsaizu zenbat robelloia-eta zenbat zerian. Elgetara pasatzen giñan gu ta dana rebolloia! Rebolloia horretxek bakarrik jaten eban Eibarren [Jimeno katalanak]. Iñork bez gehixago.

- Katalanak?

- Bai.

- Hamen, esne-perretxikua-edo badago bat?

- Bai. Hori ezautuko dozu zuk. Haundixak izaten dira, jeneralian haundixak, gogorak, zuri-zuri-zurixak. Hartu ta esnia daka harek.

- Ta horrek jatekuak dira?

- Ez. Esaten dabe liburuak, egosi, ta gero esnetan pasau, ta... Baiña ezer bez, hori ezer be ez da, iñork ez dau jaten hori. Hori ikusiko dozu kantidadia! Ta gogorak dira. Horrek, bueno, urte guztian resistitzen dau horrek! Iñork ez dau jaten hori, kokuak be . Ta beste bat dago ez dana ezagutzen, ona, ongua: Satan, guk esaten detsaguna. Goixa igual-igual onguana, ta behia (...satan ez; satan modokua; zera, satan txarra da) ta behia mangu gorrixa daka. Ba hori, onenetakua da. Iñork kokorik ez detsa atakatzen. Sanuena da, ta mangua gorrixa dakalako jentiak ez dau hartzen. Ta hori haritxetan-eta hartzen da. Ta azkenengo jua giñazentian gu bost edo sei hartu nittuan. Ikusi zestanian han lagunak, (32-edo matrimonio jan genduazen), batek esan estan "hori ez hartu gero!" "ez, honek ikusteko". Ta eruan nittuan, txikittu nittuan, ta harek esan estan, lagunak, "ta zer? ikusi hittuan? nun dakazak harek?" "nun? heuk jan dittuk!" [barreak].

- Orduan hasiko zan larritzen.

- Joe! Handik hiru egunera! Hori zerian pasau zan, [...] kuadrillakueri pasau jakuen hori. Zerian, Bariñan zeguazen jaten, kuadrillan. Hogei bat lagun-edo perretxikuak jaten. Jentiak, mordo batek, kezkie eukitzen dau, perretxikuetan. Ta hau egixa dok, e? Zerian jaten, tabernako gizonak kontau eskun. Jaten, ta batek hartu eban perretxikua, ta txakurra zeguan, ta bota etsan. Ez dakit jan zeban edo ez, ez zan fijau, ta handik bost miñutura etorri zan zera, granujia, ta esan eban: "aitxa, aitxa! txakurra hil da!". Jo ta bestiak entzun ebenian, danak komunera! Beste batzuek "ezin baiña, perretxiku onak eta!". Jo ta mordo bat komunera. Ta aitxak esan etsan, "Hi, baiña nun hil dok?" "kamioiak harrapau dau!". Karretera onduan zeguan ta... [barreak]. Hori egixa zan, e? Bariñako gizonak kontau eskun hori, euren tabernan zer pasau zan. Joe! Harek bota etsan; harek ikusi eban bakarrik perretxikua jan zebala ta hil egin zala. Jo ta botatzera!

4.81. Eibarko perretxiko lekuak

- **Hizlaria(k)**: Isasi Jayo, Roberto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** AB-292/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:04:46. **Bukatu:** 00:07:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena:** Perretxikotara nora joaten zen. "Lehen famosua zan San Romango pagadixa, danak haraxe; beti emoten. Oin ez dau emoten, kanbixau egin da, piñuak be tartian....trukauta dago". Basoak asko aldatu dira.

Transkripzioa

- Eta bestela, holan, ze pagadi edo ze inguru ziran onak?
- Lehen famosua zan San Romango pagadixa! Famosua! Joe... Danak haraxe. Bai. Baiña beti emoten, e! Juaten ziñan eguardixan igual, bazkaixakin ta andriakin ta be juaten ziñan, ta "ra!ra!ra!..." [batera] bazkaldu ta emon bueltia ta bi-hiru dozena! Ta zeu bezela beste batzuk juaten zian ta harek be bi-hiru dozena! Beti emoten! Beti emoten! Oin ez dau emoten, oin ya kanbixatu ein dok hori. Piñuak be bai tartian ta... Ziharo trukauta, trukauta dago! Trukauta. Baiña lehenao... joe... aberatsa...? Haundirik sekula be ez. Holakotxiak, koskortxuak, "txuk! txuk! txuk!", beti urtetzen. Beti urtetzen.
- Eta bestekaldian?
- Hamen? Bua! Hamen danian! Hamen lehen dana pagadixa zuan! Hamen Erdikozabalen ta hor danian, joe...! Perretxikua... Ez zuan juan bihar urrutira. Bertan!
- Erdikozabal esan dozu?
- Bai.
- Nun da hori?
- Hamendik... Ez jakixat hamendik ikusiko dan... Hortxe, deposittuan gainekaldian. Uran deposittua?
- Katalangua inguruan edo...?
- Ez, ez, harutzaokua! Gure kalia, gure kalia. Repetiziñua... repetidora-ta badaguaz ba han? Txontako repetidora? Haretxen gaiñekaldian. Haretxen gaiñekaldian [eguan] Erdikozabal. Erdikozabal ta Haitzbakar. Gero goraokua Haitzbakar. Hor bittartietan, hortxe perretxikuak.
- Haitzbakar?
- Haitzbakar.
- Ta han ze egoten zan?
- Perretxikua! Bueno...! Urritxa ta urdiña... gorao jun be ez! Zetako? Nahikua zan ta.
- Eta gero, orduan, urriñoa...
- Buo...! Zetako?
- Osteitta ta...
- Osteittara asko juaten giñuan! Ene! Ointxe akordau destak! Osteittara asko! Baiña haxe tope, e! Tope haxe! Baiña [Osteittan] pagadixa... ikusgarrixa! Ikusgarrixa! Emoten eban harek perretxikua... Bufo! Azkena haxe zuan tope, e! Tope! Handik iñora be ez gehixao! Tope!
- Ze botatzen zeban harek? Ze perretxiko?
- Urritxa ta urdiña. Asko, baiña asko! Jo! Pagadi edarra! Edarra pagadixa! Joe, edarra! Edarra! Pagadi haundixa, baiña perretxikurako ondo, oso ondo!
- Oseake, gehixao jotzen zenduen zuek harutz...
- Ba, hona. Oin, aittakin juten nitzanian, beti Karakatera. Jeneralian, Karakatera [...]. Jente gutxiao hara, urruti... Orduan ez euan pistarik eta... [orduan...].

4.82. "Perretxikotalari"en tranpak

- **Hizlaria(k):** Isasi Jayo, Roberto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-292/006
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:07:14. **Bukatu:** 00:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Perretxikoak beti leku berean irteten dira. "Perretxikotalari"en tranpak.

Transkripzioa

- Eta tokixan arabera kanbixau eitten da? Ba, ez dakit, iparraldian edo zuloren...

- Ez! Han emoten badau, hor be bai, e! Bai, bai, bai.

- Ez da... Tokirik ez dao, ba, honguak gehixago edo...?

- Bai, hori bai! Danian... Hamen hongua igual, ta hor batez. Ta hurrenguan jua ta hamentxe beti. Beti toki baten! Bai, bai, hori bai, e! Beti toki bat. Gaur hartu badok, hurrengo egunian be jua hara, hantxe urtengo jok eta. Hantxe. Hantxe bertan. Ez han. Han ez. Hor. Bai. Ta urritxa be berdiña, e! Urritxa be hartu gaur hamen, hurrenguan be jua hara! Haraxe! Hori... Ehizian be berdiña. Ehizian be oillagorra topatzen badok hamen, hurrengo be hara. Hara ez.

- Bai, ez? Tokixa...

- Bai, euren tokixa dake! Hil, e? Hurrengo, bestia be haraxe etorriko da. Euren gauzak dakez... Ez bertara, holan, puntara, baiña ondora! Honetxen barruan, bai. Hori bada... beti "tak!" euren gauzara. Bai, hori bada.

- Eta hor, perretxikotalarixen artian beti izaten da, ez? Lokalizau holako toki bat eta ez...

- Isildu! Epa! Jo...! Bai, ba... "Nun hartu dittuk?" eta "Salbadoren!". Baiña esaten detset: "Ermittan ez e! —esaten [detset...]— Ermittan ez e!". Jo...! "¡Por aquí!". Nik toki onak-eta darenian, jentiak alde ta gero! Ibili, zaindu ta gero [...]... orduaintxe. Noberanera! Zaintzen zaittue ta... jo...!

- Gaiñera, perretxikotalarixen artian be halako...

- Aldrebes be eitten dittuu, e! Aldrebes be... okerkerixak, e! Ez daon lekuan batu ta... Beittu, ta ikusten dozunian baten bat zaintzen, ta "Koño! Hau be zain dao". Joe... Juan...

- Plantia ein.

- Bai ba! Erabili bat eman, lehenengo erabili haundi bat eman...! Erabili gora ta behera ta gora ta behera erabili, ta "da!" itxain barriri ta izardi pixkat atera ta "ra!" itxain ta azaldu berriro ta "ra!". Edozein baztarretan "ra! ra!" ta poltsara. Ezebez. Baiña... Gustora! "Koño! Harrapau detsat horri!", "Harrapau detsat... ¡Por aquí!". Horrek eitten dittuu, bai.

- Bizixak zarie orduan...

- Aurten be ein dau semiak! Hortxe joian motorrian, euren tabernatik gora, ta kotxe bat atzian. Pasua emoten ei etsan, pasua... ta ezebez, bestiak kasorik be ez. [Ze karajo...] ta begiratu dau ta "Ene! Fulano!", basarritar bat, beran ondorian. Erabili eban hamen... Joe! Galdaramiñon gora, behera... erabili jua atzera ta aurrera, zoratu arte! Ta galdu be ei jakon. Ta [...] mendi gaiñera igo ta "E! Hamen nagok!". Ta atzera erabili eban ta harek be batu hamen ta... aspertu zanian alde! Baiña erabili eban, jo-ta

izardi baten bestia! Gizurretan! Gizurretan! Bestia hantxe. Arratoian bezela atzetik-atzetik. Ta nere semiak sasi artian zihar-ta erabili eban... batian gora, bestian behera...! Hantxe, benga! Benga hantxe! Ta ez daon lekuan. Erabili bakarrik.

- Oseake, semiak be afiziñua daka.

- Totala! Nik baiño gehixao!

- Bai, e?

- Joe! Ha beti lurrera begira dao! Jo! Beti lurrera begira! Sekula halakorikan...!

- Zerua ze koloretakua dan be ez...

- Jo! Beti... Gora, pentsatu be ez! Jo! Beti billa! Beti juan oillagorretan ta behera begira... Joe...! Pelma bat! Larregi! Jo! Larregi!

- Oseake, holako historixak perretxikotalarixen artian mordua, ez?

- Joe! Ba, jentia... Kanpora juaten garan lekuan ta dana dakixe! Gu nora goiazen ta dana dakixe! Baiña jun bihar danian, topatu ez guria! Jakin bai, euren ustez, tabernan ta, ez dakizu? "Jo... hara juaten nok, nik badakit [...] nora juaten dan..." ta... "No".

- Ingurura... ez? Baiña...

- Ingurura be ez! Ezta itxurarik be... Itxurarik be ez! Jo... Pentsatu be ez!

4.83. Perretxiko izenak

- **Hizlaria(k)**: Isasi Jayo, Roberto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-292/007
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:11:28. **Bukatu**: 00:14:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena**: Perretxiko kontuak. Zeintzuk diren onenak, lehen non aurkitzen zituen, etab.

Transkripzioa

- Hamen dakau perretxikuen liburu bat, ta nahi genduan jakitzia ia —lehen txorixena galdetu netsuan moduan, ba, perretxikuena— perretxikueri ze izen esaten detsezuen bakotxari ta...

- Ooo! Gero txarrerri kasorik be ez jetsau eitten guk, e! Txarrerri ta... albora. Uuu... kasorik be ez!

- Txarrerri izenik-edo emoten detsezue?

- Ezta ezerre!

- Holan...

- Ezerrez!

- Suba-perretxikuak edo...

- Buoo... "Honek..." ta "Txarrak!" ta ba! Ikuturik be ez! Ta bestiak... eta txarrak! Ta batu be ez! Han perretxiko asko dare gero jaten dianak, baiña guk biltzen ez dounak. Jatekuak, e! Baiña inportantzia baekuk. Ta, ba, bapez! Beste batzuek "Edarra! Ona! Ona eguan!", "Ba, nik ez jittuat ba batuko!" esaten detset, eta hor konpon. Nik ez. Nik emoten dotena ona!

- Zuek zeintzuk batzen dozue?

- E?

- Zuek ze klase batzen dozue?

- Urritxak, urdiñak, saltsa-perretxikuak ta horretxek! Azuliñak noizik behiñian, azulinarixo batzuk ta horretxek. Onguak eta... Horretxek. Neguko

susa batzuk... horretzek! Ba... askorik ez, baiña hartzen dana ona!
 - Ta gozuea zein da danetatik?
 - Ongua! Ongua ta urritxa ta urdiña onenak. Ta robilloia be asko gustatzen zait. Asko! Nik haxe jaten dot bakarrik, e! Nik besterik ez dot jaten!
 - Ongorik...
 - Ez! Nik ez! Batu, ahal dittuten danak, baiña jan ez! Pentsatu be ez! Useiñak be atzerakadia! Tabernan edo nun-nun, etxeren baten, ipiñi... jo, sentitzen dot eta... Ez dot nahi! Ez dot nahi! Ajji!
 - Kuriosua...
 - Ez dot nahi. Useiña. Igarri, berriz, zer dauen... bueno! Onguan useiña... Ez da, nere gustokua ez da! Larrei janda edo, larrei janda edo... aspertuta! Lehen jaten nittuan, baiña oin ez. Zetako danik be ez.
 - Eta kuletrua?
 - Kuletrua gitxi daok. Joe...! Hortxe, beste basarri bat daok hortxe, Sagarbitsa daok hortxe ta hantxe zelaixan [eitten dia] etxian aurrian. Eskola Armerixako maixu bat da sozidadekua, han sozidadekua, ta haretzek dakat erakutsitta: "Hortxe urtetzen juek". Ta basarrittarrari aittatu be ez, bestela, akabo! Jo...! Aittatu be ez! Ber-bertan, bere terrenua holaxe, ta... "¡Por aquí!".
 - Ta ez dia konturatzen eurak ala?
 - Igarri ez! Txartzat! Txartzat! Ezautu ez! Ez da hori, e! Ezautu ez! Bestela... hartuko luke, baiña... ezautu ez! Ez jok eitten, e, hiru-lau, bost... Daonian, "Hi, [...], han dauaz" esaten detsat.
 - Eta kuletrua bai da gozua edo...?
 - Nik ez juat jan! Sekula ez juat jan! Behin pasau jatan, halakotxe bi topau nittuan, honek, Arrate baillian zan, goittik behera, ta halakotxe edarrak. Ta nere lagun batek: "Hi! Han kuletruak bi!" ta "Joe...!". Handik egun batzuetara, egunero txikiteuan alkarrekin ta esan netsan: "Hi, kuletruak zer?" ta "Basurara bota najittuan!". Hori be neri tokau bihar! Mundua emon netsalakuan ta berak basurara gero! E? Joe...!
 - Bai, horretarako... Ez?
 - Hortarako...!

4.84. Perretxiko izenak, klaseak

- **Hizlaria(k)**: Isasi Jayo, Roberto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-292/008
- **Iraupena**: 0:05:54. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:20:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena**: Perretxiko izenak. Zeintzuk ditu gustokoen; onddoen artean ere klase desberdinak daude.

Transkripzioa

- Fotografixak erakutsiko detsuraz ta ia...
 - Nik honek liburuok danak dakaraz etxian, e! Danak! Bueno, hau berau igual ez, baiña... Ez! Hau ez... Nik Iberdrolakua dakat ta... Ta beste bat be bai, baiña...
 - Ez, gehixen bat izenak jakitziarren, ia...
 - Uuu! Nik ez [...] kasorik eitten honeri!
 - Honek ezebez, ez?

- Ez, honek gaiñera hemenguak be ez dittuk. Honek eta. Honek urtetzen juek zientuak! Joe... Bu! Jatekuak dittuk. Honek be jatekuak dia, e! Honek eta. Bai. Segun ta klasia...

- Onguen artian...

- Klase asko daok! Jatekuak danak, e.

- Eta izena daneri bardiña esaten detsezue? Ongua edo...?

- Uuu! Ongu likiña ta holako batzuk. Likiña... Honetxek daka trazia likiñana. Likiña... Hementxe dauana... Hau be likiñak izaten dittuk honek be, baiña... Likiña... holakotxe, honetxen antzerako [...].

- Ta zegaittik esaten detsazue likiña?

- Joe! Likin-likiña dalako! Baa! Mokuak bezela, likiña! Likiña! Jatekuak dia, e! Janda nao neu be! "¡Por capricho!". Neuk, "Aprobau bihar juat...!" Bale! Bai. Honek be urtetzen dia, honek eta. Hau be... kertena gogor-gogorra! Honek kertena... joe! Hau baiño gogorragua! Txapela jatekua da, baiña... Ba!

- Baiña, ezebez, ez?

- Uuu! Bee! Gogorra, perretxiko zaila, zaila. Oin honek be batzen jittuezak! Honek be jan! Nik honek ez jittuat hartzen, e!

- Honek ze izen dake? Honek be onguak dira?

- Bai, guk ongo gorrixa esaten detsau! Ongu gorrixak... guk hartu be ez dou eitten! Iguak, ikusgarririk, e, ikusgarririk! Ta beste batek... Aurten suertau jata: Juan nitzan kioskora periodikotara ta "Joe, fulano a traído unos hongos...". Ta, kasualidadia, tope! Ogittara bixok eta "Aber horrek onguok" eta ikusten detsaraz horrek gorrixok... "Benga, benga...! Horrek...!", "Jatekuak dittuk!" bestiak, "Bale, bale... Hor konpon!" .

- Holakotxiak?

- Bai, honek.

- Gorriskara...

- Bueno, bueno, bueno... Guk horrek batu be ez [...]. Beittu be ez, e! Beittu be ez! Honek bai! Honek bai! Honek...! Ongu beltza!

- Onguen artian ze dare...?

- Onena! Onena. Dotoria ta ona! Joe... Edarra!

- Ongu baltza?

- Ongu baltza.

- Zurixa baiño hobia?

- Zurixa be kategorixakua dok, e! Zurixa be... baiña hau dotoriaua. Hau dotoriaua! Ño! Hau be edarra da! Hau be ona, baiña hau dok dotoria...! Honen onduan... Ikusgarri... Hau be ikusgarrixa, baiña hau dok... Bua! Joe...

- Eta hau?

- Honek... Kasorik be ez. Beee... Jatekua danik be ez. Gehixena dok jatekua, e! Hiru edo lau kenduta, danak dia jatekuak, baiña... bua! Honek be... Honek... atzo be hartu najittuan honek!

- Honek zer dia?

- "¡Azulinas! Azulina, pie azul..." Horixe! Honek ondio poltsilluan dakaraz. Akordatu ez ta poltsilluan sartuta, ehizeko poltsilluan sartuta, hortxe! Ateratzia be ahaztu! [...] ze inportantzia emoten detsaten...! Kasorik be ez! Kasorik be ez!

- Gauzia gehixao da hartzia...

- Bai. Hartu ta "Edarra daok ba!" ta beti emoten detsat baton bati kalia, ez dakizu? Baton bati. Ta atzo ez jatan gogoratu ta poltsilluan!

- Euskeraz badaka izenik honek?

- Azulinak esaten detsau euskeraz guk! Guk halan esaten detsau! Eukiko jok honek izena nun edo nun...!

- Baiña zuek azulinak.

- Bai. Harri... Hankaurdiña! Ba... "¡Pie azul! Pie azul..." hankaurdiña!

Hankaurdiña. Erdi euskera erdi erdera eitten dou, baiña... hor azulinak esaten [...].

- Eta hau? Hamen ipintzen dau... pago-ziza, pardilla.

- A! Pardillak! Bai. Pardillak. Ointxe dauaz horrek.

- Honek dira?

- Bai! Neguko-susak esaten detsau guk!

- Honeri?

- Bai. Horretzek dittuk!

- Holako ongo...

- Ez! Hau perretxikua da, perretxiko normala, honetxen modukua dok hori. Hor emoten jok, ba, edarra emoten jok. Baiña... haxe dok, e! Nik horrek oin, oingo egunetan, egunero hartzen dittut. Bai. Egunero. Beste batzueri kasorik be ez, e! Segun...

- Segun eguna, ez?

- Noberak ze lan... ze... paketia edo ze daroiazun... "Ba! Hurrenguan hartuko jittuat" igual esan, ta jun ez gehixago ta... Inportantziarik ez! Honek ez dia seguru-seguruak. Batzueri gaitza eitten detse batzueri. Neri ez, e! Nik garai baten jaten nittuan horrek...ba gustora! Baiña gero enterau nitzuanian, "Batak [...] ta..." Gehixao probatu be ez nik! Ez... on eitten esten, e... baiña batzueri ez! Gonbittolarrixak eta medikua ta... bai. Batzueri. Ez da itxuria... Hau be urtetzen jok sarekadak! Horrek urtetzen jok... piñu tronkuetan. Buf! Noraki /nork daki/ zer dan hori... Noraki zer dan...! Honek urtetzen jok... Bueeno...!

- Ta jatekua da...?

- [...] Itxura batian onak dia, beittu batian, baiña... joe...!

- Eta ze dira, susa estilokuak edo... ongo estilokuak edo...?

- Ez, urritx estilua, urritx estilua! Joe... Honek piñu ipurdixan, usteldutako piñu ipurdixetan ta... "Brsbrsbrsibr!", bai.

4.85. Perretxiko klaseak: "Seta de Caballero"

- **Hizlaria(k)**: Isasi Jayo, Roberto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-292/009
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:20:44. **Bukatu**: 00:23:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena**: Perretxiko kontuak. "Seta de Caballero", oso ederra. Eibarren jendeak oraindik ez du ezagutzen.

Transkripzioa

- Beste perretxiko bat hamen, "seta de caballero" edo... Haxe dok edarra! Hori-horixa. Ointxe urtetzen jok, neguan. Baiña ikusgarrixa e...! Ha da... Harek neuk be jaten dittut! Jo, ikusgarrixa! Hori zan... Terrateniente bat egon zan, ta langilliak-eta zekazen ta bialtzen zittuan danak horren billa. Horren billa. Ta berak jaten zittuan. Bestieri... Berandako.

- Oseake, perretxiko batzuek, gaiñera, historixia be badake.

- Bai, historixia. Haxe. Edarra! Hau dok mundiala! Joe...

- Ta zer da suabia edo... zer da...?

- Gustua. Gusto edarra! Joe... Jo... Eibarren ondiok ez dabe ezautzen e? Gehixenak ez dabe ezautzen hau!

- Eta Eibarren urtetzen dabe?

- Bai, bai, bai, bai! Bai. Ikusgarri... Ointxe urtengo dau, datorren hillian urtengo dabe.

- Osea, neguan urtetzen dau.

- Negu-neguan! Bai. "Seta de caballero". Bi klase dauaz honek, bi egongo dittuk: bata hori-hori-hori-horixa! Alkarrekin egongo dittuk horrek. Ez, hor ez. Baiña beste liburu batzuetan bai. Bi klase.

- Eta bi klasiak dia jatekuak?

- Bai, jo...! Ikusgarrixak, e! Hau baiño polittaua da bestia. Bestia dok hori-hori... Honek be urtetzen jok, e! Baiña bestia da goittik be hori-hori... Halakotxe koloria! Behetik eta goittik, bixetatik! Bua! Ikusgarrixa! Jo, jateko be... "¡Madre mía!". Edarra! Bua... Oso edarra! Honek be bai: "negrillas". Joño! Atzo batek: "Hartu jittuat ba negrillak!" ta "Bueno, bueno... hori jatekua dok ala?" esaten netsan ta "Onak dittuk, onak dittuk...". Honek [urtetzen juek] sarekadak! Pillak! Buo...! [Nik ez dittut] batzen! Ez, baiña edarrak dia, e! Onak dia! Negrillak., Hor ipiniko dau... "negrilla" ipiniko dau.

- "Susa" ipintzen dau... euskeraz "susa"? Susa estilokua da?

- Hauxe! Hauxe. Susan koloria ez jaukak honek, e! Beltzak! Ta honek azpitan... Hau da bat. Ta beste bat, beren familixakua, baiña horixa: kertena be horixa ta hau be horixa. Gaiñetik honen bezelakua. Baiña daneri esaten detsau ba... Hauxe! Hauxe! Hau... honen antzerakua! Ez, hau ez da, e! Hau ezautzen det! [Ez jakixat] benenosua ez dan hau berau be!

- Hau?

- Ze ipintzen dau...? Irakurriik, aber. Honetxan antzerako bat daok bat, itxura bat ederraua... ta benenosuak dia!

4.86. Telleria kale-baserrian bolatokia eta sagardoa

- **Hizlaria(k)**: Idarraga Zulaica, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-325/026
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:23:18. **Bukatu**: 00:25:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Euren etxean bolatokia zuten eta gorago ere bazegoen beste bat. Jendeak boletarako zaletasun handia zuen orduan. Bere aitak behin "bost duroko urrea" jarri omen zuen saritzat. Gero sagardoa ere izaten zuten etxean; sagardo basoa txakur handian saltzen zuten.

Transkripzioa

- Eta hor, Txonta inguruan, bolatokirik-edo bazeuan?

- Bai.

- Nun zeuan?

- Gurian be egon zan eta zerian, Txontan, goixan. Eee... zelan esango detsut? Norma baiño gorao.

- Baiña barrenian, goixan?

- Goixan, goixan, goixan.

- Eta zuenian be bai?

- Gurian be egon zan.

- Eta ze zan? Jende asko ibiltzen zan?

- Bai.
 - Boletia ta...
 - Bai, bai, bai.
 - Afiziñua zeuan, orduan?
 - Bai, ya lo kreo! Enee! Haundixa! Daneko personak. Badakaraz gaiñera nik erretratuak be irabazi ebenak zerian... Ipini eban gure aittak zera, bost duroko urria zerantzako...
 - Irabazten zebanandako?
 - Bai.
 - Premixo moduan, e?
 - Bai. Eta erretratuak banekazen.
 - Jo, orduan, gaiñera, bost duroko urria premixo haundixa, ez?
 - E?
 - Premixo haundixa izango zan orduan.
 - Jo! Orduan e... diferentia zan oingo aldian.
 - Eta jende asko juaten zan zuenera boletan eittera?
 - Bai! Eta gero sardaua be eukitzen genduan.
 - Sardaua?
 - Bai.
 - Zeuek eindakua edo...?
 - E?
 - Zeuek eindakua?
 - Ez, ez, ez, ekarritta zeretikan, Markiñatik.
 - Eta ze izaten zan? Taberna moduan zekazuen orduan zuek? Boletia eta gero sardaua emon eta...
 - Sardaua emon. Gero sardaua. Txakur haundi bat izaten zan basokadia.
 - Eta zeuek ibiltzen ziñazien zerbitzen?
 - Bai, geu, basokadia emoten.

4.87. Musika-banda Untzagan; Rialto kasinoa

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/036
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:45:50. **Bukatu:** 00:49:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
 Aisia » Kultura » Musika
 Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Untzagako plazako kioskoan musika bandak jotzen zuen eguenetan eta domeketan, uda partean. Aratusteetan Astelena frontoian. Ibarkurutzeko Rialto kasinoan ere egoten zen dantza data zehatz batzuetan. Orkestrak egoten ziren. Nolakoa zen kasinoa. Jaten ere ematen zuten. Mutilak "mesedez" esanda etortzen ziren dantza eskatzera.

Transkripzioa

- Ta zelan izaten zan? Edo ze eguenetan egoten zan bailia hamen Untzagan?
 - Normalian karnabalak... Bueno, Untzagan, plazan, eguenian ta domeketan. Uda partian, e! Ta kanpuan. Osea, kioskuan bandia ta... eurixa eitten bazeban be, ba, guardasolekin dantzan. Ta gero itxitta, ba, frontoi Astelena, karnabaletan. Gero kasinuak zeuazen Ibarkurutzian, baiña

dantzan-ta izaten ziazten fetxa konkretuak, ba, San Juanak, karnabalak eta... ez dakit ze beste... fetxak.

- Hor Rialtua be egongo zan.
- Rialtua. Horixe zan kasinua, Rialtua. Baiña behetik ez...
- Ez, lbarkurutzian pentsau dot "Casino Artista" esan dozula.
- Ez.
- [...].
- Ez, ez, "Casino Artista" ez zan... Ez, dantzan "Casino Artista"n ez. Rialtua. Rialtua zan... bankua dao oin. Ze banko da?
- Bai, han goixan daona?
- Goittik, goittik. Goittik, goittik. Bai, kasinua zan. Kasinua zan.
- Kasino moduan...?
- Bai, "Casino", "Casino Rialto". Bai. Politta, gaiñera, e!
- Bai? Zelakua zan? Gogoratzen dozu?
- Bueno, ez dakit holan e... baiña oso politta zan. Eta jaixak eta dantzan ta... politta.
- Ambientia egoten zan.
- Bai, bai, politta zan. Eta emoten zebe bazkarixak eta gauzak be bai.
- Bertan, e?
- Bai, bertan. Bodak be bai. Momento batzuetan, e! Ez dakit ze urtetan, baiña bai, bodak be bai. Bai.
- Eta hor, gaiñera, egoten zian grupuak jotzen, ez?
- Bai, bai, bai, bai, orkestak.
- Orkestak?
- Orkestak, bai.
- Eta ze izaten zan beti orkesta bardiña edo...?
- Ez, berdiña ez zan izango usten dot, e! Ez naiz akordatzten, baiña ez, izango ziazten diferentia. Bueno, Untzagan ni akordatzten naiz gramofonuakin be bai. Baitta.
- Bai, e?
- Bai.
- Hori zer, uda partian?
- Bai. Altaboz batzuekin. Baiña normalian bandia. Bandiak jotzen zeban.
- Banda munizipala.
- Bai.
- Eta gero Astelenan-eta izaten zianian, ze...?
- Orkestak.
- Orkestak be bai?
- Bai, orkestak.
- Eta orduan afiziñua, ez?
- Onbre!
- Musikarako afiziñua ta gero dantzan eitteko be...
- Normala! Gaztia izanda, ez da egongo, ba? Normala!
- Ligatzeko aukeria be [orduan egongo zan]...
- Hori ba!
- Eta zelan izaten zian kontu horrek? Ze etortzen zian, mutillak...?
- "Mesedez" eskatzera. "Mesedez" esaten zan. Neska bi dantzan, ta bi mutil etortzen ziazten ta "mesedez". Bai ala ez... Dantzan eitteko. Segun.
- Ta kalabazak be emoten zian, ez?
- Askok! Holaxen zan.

4.88. Gerratik bueltan

- **Hizlaria(k):** Aldazabal Guridi, Ana Mari

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-023/013
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:28:05. **Bukatu**: 00:29:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: De Castro Arizmendiarieta, Beñat
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Gerratik bueltan, etxea hondatuta zegoen. Barakaldo kalera joan ziren bizitzera, euren etxea konpondu bitartean. Berreraikuntza. Zinema eta dantzaldia. Bilbora joan ziren ama eta bi ahizpa. Tiburzianeko denda.

Transkripzioa

- Ta gero gerriak hartu ginduzen eta gero handik etorritakuan gero Barakaldon bizi bihar izan gintzazen, hori etxiori jausitta euan bonbardeuakin-ta; ta gero han bizi gintzazen pare bat urtian edo, eta gero konpondu ebenian atzera gu geure etxera lbarkurutzera.

- Gerratik bueltau ziñazienian eta...

- Barakaldora.

- ...eta lbarkurtzia zelan zeuan orduan?

- Ene! jota! Ya jausitta dana, e, jausitta. Baiña ein ein zittuen; eurak etxiak, bota barik, ein ein zittuen.

- Gaiñian, orduan, zeuen etxe zaharran gaiñian?

- Bai, bai, bai. Gero Rialtua zan han oin Banko Exteriorra dauan lekuan, Rialtua, ta han euan zinia ta bailia. Bailia lehenengotik ta gero zinia. Bai, horrek nere denporan ein zittuen horrek.

- Eta gerratik bueltan, noiz bueltau ziñazien Eibarrera zuek gerratik?

- Ba gu jua gintzazen Bilboraiño bakarrik ama ta aizta bat eta neu, eta gero Barakaldora etorri gintzazen ta hantxe egon gintzazen. Gero banaka-banaka etorri zian anaiak eta gero, bueno, ba, hantxe, ahal dan moduan.

- Baiña etorri ziñazienian Eibar...

- Bueno! desastre! desastre! zegaittik lbarkurtzian ekan konfitterixia Tiburziak. Estaziño kalia euki eban pixkaten, Gaindiaganeko aurrian, han. Gero ya ha ipini ebenian martxan, atzera pasau zan... edo ez zan pasau? Ez, ez zan pasau, ez zan pasau. Gerra aurrekua da Tiburzianeko dendia. Gerra aurrekua, e! Gerra ostekua ez, gerra aurrekua.

4.89. Eibarko tabernak

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Atxotegi, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-024/007
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:10:31. **Bukatu**: 00:14:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Azpiri, Lore
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Badeteneko tabernako kontuak. Pipar kalean, ile-apaindegia eta Buruneko taberna. Ardoa, zahagikoa. Abesteko ohitura.

Kontzeju zaharra. Gerraostean, Telefonica eta beraien etxea bakarrik geratu ziren zutik.

Transkripzioa

-Eta lehen aittatu dozu Badeteneko tabernia.

-Tabernia, bai.

-Hori famaua zan Eibarren, ez?

-Bai, gaiñera esaten eben... Bueno, ni akordatzen naiz eurak, Badetesia ta danak akordatzen naiz. Elena zan bera. Gero ekazen alaba bi; bat ezkontuta. Ezautzen dozuz Jesus Trokaola ta Inazio Trokaola?

-Bai, izenez bai.

-Haretxen ama zan eren alaba bat, ta beste bat zan Faustina. Gero harek... ha separau ein zan gizonaandik ta gero [...] ipini eben tabernia Kalbetonen. Txistu badao ba? Hantxe euki eban tabernia harek, hil arte.

-Badetenekua orduan?

-Bai, bai, baiña hor ez zeuan jatekorik-eta, e, tabernia.

-Eta Elgeta kalian bai?

-Bai, Elgetan bai. Hor gaiñera esaten eben, ene... bazkari famoso... osea... jateko famosuak eta. Txomiñekua zelan zan? Ba Badetenekua.

-Ta kanpoko jendia-ta etortzen zan, ezta?

-Bai, bai, bai... Badetesia zan ha.

-Eta ha ze zan restaurana edo bestela tabernia be bai?

-Tabernia be bai. Ta Pipar kalian euan Telefonika aurrian euan etxe bat. Han beheian pelukerixia euan, ta gero hurrengo etxia zan Buruneko tabernia. Ez dozu entzun sekula?

-Sagardandegixa edo?

-Sagardandegixa zan Vista Alegren. Horren ostian zan. Eurena zan, e! Baiña ostian. Pipar kalian zan tabernia ta afarixak-eta emoten zittuen horrek be.

-Orduan Pipar kalian goixan?

-Ez, ez goixan ez, beheian. Osea, Bidebarrixetan etxe bat lehenengo ta hurrengo etxian tabernia. Ta hurrenguan be euan... saltzen zittuen... saltzen eben ardaa zaragikua. Eurok ez e, beste batzuk. Tantananekuak bizi zian han. Entzungo zenduan Tantananekuak. Juanito Tantana ta... Bai.

-Eta orduan honek taberna guztiok ezaunak zian Eibarren?

-Bai, bai... ezagunak zian danak, Burunekua ta Badetenekua ta famosuak zian.

-Badetenian entzun dot kantuan eitten zala asko, ezta?

-Bai, Kalbetonen be bai.

-Kalbetonen be bai?

-Bai. Hori Faustina, ene... kantu batzuk eitten zittuan! Ta hor [...] aitta ta harek eoten zian ta... zelan esaten etsen gaiñera.... eurak kantuari? Ez jata akordatzen izena. "La Escala" edo ez dakit zer esaten etsen.

-"La Escala", bai.

-Ezautzen dozu, ezta? "La Escala" esaten etsen. Baiña kantuak eitten zittuen, e! Oin, ba, zenbat urte dia, ba, oindiokan? Bai, osea, kantu demasak eitten zittuen. Bai.

-Eta, bestela, esan dozu behekalderutz, Elgeta kalian, beheian, eskumatarata Telefonikia.

-Elgeta kalian Caja de Ahorros-ia ta Pipar kalerutz Telefonikia.

-Eta Elgeta kaletik ezkerretara? Jeitsi eta ezkerretara? Han, konzeju zaharra edo...?

-Elgetatik igota gora?

-Ez, jeisten. Ertza eitten beheian parroixia parian edo, konzeju zaharra edo ez zeuan?

-Aurrian. Bai, Caja de Ahorros-ian aurrian. Elgeta kalia holan ta hamen Caja de Ahorros-a ta hamen konzeju zaharra.
-Eta ze zan, aiuntamiento modoko [...]?
-Edifizio haundi bat zan, harrizko modukua edo zan. Ta erre ein zan ha. Baiña gero ta be... bueno, han postiak ikusten zian... Jesus! Han dana eskonbro artian postiak [zian]. Ta gure etxia-ta geldittu ein zian. Osea, Telefonikia ta gure etxia geldittu ein zian.
-A bai? Ba bakarrenetakuak izango zian!
-Bakar-bakarrrik geldittu zian. Haretzek geldittu zian. Beste guztiak danak erre.

4.90. Eibarko frontoi zaharra eta raketistak

- **Hizlaria(k):** Agirre Berezibar, Mari Carmen; Arregi Etxeberria, Julita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-033/008
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:18:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Raketistak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
 - Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Eibarko frontoi zaharra deskribatzen dute. Gerra garaian frontoiari zatia kendu zioten etxe bat eraikitzeko. Eibarko raketista eta pilotari ugari joan zen kanpora bizitzera. Eibarko pilotarien maisua Fernando "Tximinua" izan zen. Beste pilotari batzuk izendatzen dituzte.

Transkripzioa

-Frontoi Zaharra aittatu dozue. Frontoi Zaharra be famosua zan.
-Bai.
-Zelakua zan inguru hori? Ze eitten zan han?
-Ba han, frontoi ederra zan, e, eder-eder-ederra. Eskolia ein eben harutzatxuao. Hori zan oso...
-Julita: Baiña eskolia onduan jeuanan ezta frontoia?
-Ez. Oso luzia zonan hori. Frontoi ederra. Hor jokutzen eben partiduak, nik baukat erretratua, Eibarko lau mutill, artietan nere anaia, gazte-gaztiak, zuri jantzitta, euren zestokin, zelan inagurau eben ta zelan ein eben han. Oso polit-politta zan. Partiduak eitten zian, lagunak ez dakizu, gu txikixak giñan-ta.
-Julita: Jente asko joan zan "de raquetistas y de pelotaris" ta. Bua, pillá bat.

-Eta gero gerria, sartu zienian honek jentiok, ba ein eben, hau da, ezta, frontoia, bere pareta ta dana, ta hamentxe ez eben ba ein etxe bat! "De la sindical" edo nik ez jakiñat zer ein jonen han. Etxe bat.
-Frontoi erdixan.
-Bai. Eta kendu etsen zati haundi bat. Estropeau ein zan frontoia. Gero ba jentia ez zan joaten eta estudixuak hau ta bestia...
-Julita: Lehen zenbat jente Eibarretikan, bai gizonak eta bai andrak, raketistak, zenbat! Sevillara, Madrillera, Barzelonara... "Pero" mordua. Gurekin jokuan eitten dau batek, Mari Karmen Ojanguren, hori be raketista Madridera joan zan eta hantxe ezkondu zan madrileiño batekin.
-Neuk be lehengusiña bi, hor bizi zana, labandaria-ta, gero Madrillen bizi

zan señora.

-Julita: Suertia eindakuak asko, e.

-"Eran gemelas", Aureli ta Emili. Eta jun zian Madridera; baiña antziñan, e. Ba treintaiunuan edo dosan edo jun zian Madridera. Eta oso pelotari ononak, ta fiñak, eta hantxe bizi zien gero Madriden.

-Ta zeifiek emuten jotsenen klasiak horrerri?

-Ba "Tximiñuak". Fernando Tximiñua. Neu be ibili nintzonan euron raketekin. Tximiñua motia jekanan baiña Fernando. Isasixan bizi zonan. Bai, gizon majo bat.

-Klasiak egoten ziran?

-Bai, mordua, mordua.

-Julita: Mediku batekin ezkondu zan haura be.

-Lehen esaten ipuiñak gerria baiño lehenao zerak, tranbiak darian Madriden, eta urtetzen eben jolasten ebenian hamabixak edo, gabeko hamabixak edo. Oin ba ordu bixak eta hirurak dia baiña hamabixak be ba berandu lehen. Ta tranbia hartu bihar. Ta jarri tranbian ta taka-taka-taka, ta beti ba jentia, ezta, ta. Eurak euskeraz eitten eben dana. Eta aurrekuari: "Hi, jo don!?", trinbia ba jo bihar tranbian, eta "Hi, jo don?", "Bai, jo jonat!".

4.91. Neska pilotariei gertatutako pasadizoa

- **Hizlaria(k)**: Agirre Berezibar, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-033/010
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:19:18. **Bukatu**: 00:20:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Neska pilotari batzuei trenean zihoazela gertatutako pasadizoa kontatzen du Carmenek.

Transkripzioa

Beste behin be tranbian, eta orduan ez ei zoian jente asko. Baiña eurak pa, bakizu, sei neska edo ta gaztiak, eta gero zelan gimnasia ba bere titixok eta majas, gaztiak, hamazortzi urte ta jarritta tranbian da. Beti egoten da majaderoren bat, mutillen bat latia emoten, ezta, ta, no se qué-ta zera-ta. Atzekuak: "Bialdin atzetik hartzera!". Eta beste bat aurrian: "Ai, ai!, halako neska polittak eta halan berbetan!". Geldittu ei zian... Creyendo que no le iban a... Beti dao baten bat... Eta zenbat kontu, zenbat kontu.

4.92. Kamioietan Arratera

- **Hizlaria(k)**: Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-043/007
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:10:08. **Bukatu**: 00:10:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

- **Laburpena:** Lagun asko igotzen zen Arratera jaietan. Hasieran oinez igotzen ziren. Gero, kamioiak ipini zituzten.

Transkripzioa

-Orduan jendia Eibartik bakaziñuetan agostuan eta...

-Bai, bai. Eta gero jaixetan be joaten zan jentia. Oiñez, lenengo oiñez dana joaten zan, egualdi onakin da hori, baiña gero hasi zien kamioiak joaten, lenengo kamioi batzuk, Larraza edo esaten zion bati. Bai Angel, Angel Larraza(s) uste dot zala.

-Orduan jentia igotzen zan jaixetan...

-Jaixetan bai, kamioiak ipintzen zittuen banku luze batzuk eta hantxe jentia joaten zan.

-Egun pasa?

-Egun pasa ta familixak bazkarixakin-da.

4.93. Arrateko ostatua barrutik, "Ospederixia"

- **Hizlaria(k):** Olarra Olazagirre, Maritxu

- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** EIB-043/011

- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:13:07. **Bukatu:** 00:15:45

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

- **Laburpena:** Arrateko "Ospederixako" lanak eta eraikuntza bera nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta Hospederixan egunero emoten zan jatordua?

-Egunero emoten zan udan etortzen zan guztiai. Gero neguan zela ez zan egoten, beraniantiak esaten giñuan guk honei, ezta, eta ez zan egoten jenterik bertan, ba orduan zatorrenai edo enkargua bazeuan-da. Jaixetan bai, jaixetan emoten zan bazkarixa. Honek Ereña-Gisasola ta joaten zien jaiero-jaiero, bai; horrek bixok joaten zien eta osabakin bazkaltzen zeben sukaldian, han koloniako sukaldian, akordatzen naiz.

-Eta Kolonixia barrutik eta zelakua zan, akordatzen jatzu?

-Bueno. Ba zan normala. Goixan ganbaria zeukan, oin "por ejemplo" kuartuak eta. Ez dot nik ikusi, pentsa eizu, hainbeste bider egon naiz Arraten da ez dot ikusi oin zela dauan. Behia bai baiña goixa ez. Eta behian zeuren horrek kuartuok. Bat bi hiru lau bost. Bost, bai. Eta kuartobaiño haundi bat zeuan, bi kuarto ondoren, ta hantxe arreglatzen zan jentia. Gaur beste lujo ez zeuan-ta; ez dakizu ba.

-Eta sukaldia-ta be dana...

-Bai. Sukaldia-ta honutza. Osea ke. Hori izango zan, bueno, honek kuartuok, ezta? Hamen barra, eta hau dana tabernia. Sarreran, bai. Atia badauka ba, hori dana zan tabernia. Eta klaro, erdittik holan mahixak eta gero bestia mostradorera; erdittik hara mostradora ta bakizu, jentia txikituak eta hartzen egoten zien. Eta hamen danian ipintzen zien mahixak jentiandako-ta. Ta gero iñoiz itten zan barruan, bankete haundixa edo

zanian, barruko kuartua desalojau eta han itten zeben beste komedore bat, ezta, barruko haundixan, lenenguan. Bai. Eta honek holaxen, hau porejenplo barra, ezta, eta hau kuarto haundixau libratzen zan bihar zanian eta gero ipintzen zan berriro porke neguan-ta be egoten zian banketiak eta. Eta horrek eitteko ta ba aurrez zakizun-ta kuartua libratzen zan. Ez dakit zela izaten zan, baiña jentia lo eitteko moduan berriro, baiña. Igual ez zan uda-udan, ostian neguan egoten zien banketiak gehixao ta. Astegunian neguan ez zan egoten, hola enkargun bat edo, ostian...

4.94. Etxeko hormak bere lehen pilotalekua

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-068/020
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:24:05. **Bukatu**: 00:25:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Pilotan hasi orduko etxeko kristalak apurtu zituen. Gerora, Markeskuan asko egiten zuen pilotan, Eusebio Zamakolarekin aritzen zen. Edozein horma ona zen pilotan jokatzeko.

Transkripzioa

-Ume-umetatik hasiko zifian pelotan?

-Bai, bai, nere zeroi haxe izan zan.

-Lelengo lelengo zure akorduko...

-Ba lelengo, hori goguan, etxian kristalak apurtu nittuan. Pelotia eruan neban, eskolatik edo nundik pelotia eruan eta paretia jo ta kristal bi apurtu nittuan sukaldian.

-Eta amak?

-Ama hasarratuta. Ta geo orduan ojalateruana joan bihar izeten zan.

Ojalateruana joan zan eta bueno, pagau... Haxe zan lelengo... Baiña gero paretetan eta. Hor Markeskuan eitten genduan kantidadia. Eta hor Markeskua eitte'eben pelotan, ni einda nao, Eusebio Zamakola, direktoria ero Alfan izan zan, nerekin eitten genduan eta ha Eskola Armeria faten zan ikastera. Eta guk pelotan eifñ han izardittan eta basarrira biharrera. Eta bata eskolara ta bestia basarrira biharrera.

-Orduan edozeifñ orma nahikua zan.

-Bai, pelotan eitteko, topau eitten zenduan lekua pelotan eitteko.

4.95. "Giputxanekoa" eta Astelena

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-068/021
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:25:15. **Bukatu**: 00:26:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena:** Pilotalekuetan aritzea gero etorri zen. Eibarko "Giputxanekoa" pilotalekua eta gero Astelena. Ordaindu egin behar izaten zen pilotalekuan jokatzeko.

Transkripzioa

-Frontoi preminarik ez.

-Frontoiak gero etorri zian. Esaetsut hori Kiputzanekua. Gero etorri zan Astelena. Astelena pagau bihar izaten genduan, e. Salome zan. Salome-José, matrimonixuak zaintzen eben fronton Astelena, da zu faten ziñan hamalau-hamabost urtekin, ba nahi zenduan Astelenara fatia ta pelotan zerian da. Baiña txandia, e. Eta txandia kobratzen eben ba errial bi edo errial ba, depende zenbat denpora eitten zenduan. Da igual galdu partidua ta "E, Migel!, errial bi destaz emoteko, e, errial bi destaz emoteko". Eta, bueno, "emongo'etsut, emongo detsut". Eta beste baten pezetia. "Bildotsa be ekarri biakostak hau pagatzeko, bildotsa ero". Ta amari fan eta hauxe esa'esta barateriak. Barateria esate-etsaun Salomeri ta. Hautsa pezetia ta pagau. Ta pagau netsanian. Baiña mundua..., orduan pagau bihar genduan guk Astelenan jokatzeko. Ta txandia ordubeterako edo ordu erdirako edo, ta pagau in bihar.

4.96. "Giputxanekoa"; frontoi, zinema eta jatetxe

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/022
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Eibarko "Giputxaneko" frontoia sei kuadroa zen eta bi pisu zituen. Trinkete estilokoa. Bertan entrenatzen zuen Migelek hasiera batean. Bospasei lagunek entrenatzen zuten bertan eta haien arteko kontuak gogoratzen ditu.

Transkripzioa

-Zu ume-umetan hasi gehixao Kiputzanian.

-Bai, Kiputzanian esan leike lelengotik hola frontoiko zerian ekin nintzana.

-Kontauko dostazu zelakua zan Kiputzaneko frontoia?

-Kiputzaneko frontoia, eukazen, pentsatzen jata eukazela sei kuadro. Ta eukan, osea frontoia hamen da, aurretik bigarren pisua zan, handik botatzen eban pelikulia. Baiña frontoi politta. Estilo trinkete zan, e. Eskuman, ezkerrian ez zeukan, ezkerria pareta ondo eukan, baiña eskuman eukan barrera sartzeko bentana bat, eta han sartzen bazenduan tanto zan. Baiña politta, frontoi politta; ikasteko frontoi ona. Ha orduan denporan euazen pelotarixak edo fubolistak asko jokatzeko eben, Robertok eta Mugerzak-eta haraxe faten zian. Pelotan baiña gogor jokatzeko zan.

-Ha zan gaiñera frontoia, zinia ta restaurana. Restaurana, zinia ta frontoia. Jose, bueno, zan...

-Jose zeukan izena?

-Jose, bai, Elorza.

-Eta hori zure gazte denporan ein zeban frontoia?

-Bai, nere gazte denporan ein eban, bai. Nik orduan eukiko nittuan zortzi

urte edo hola; Obria neuk ikusi neban. Ostian taberna luze bat zan, gero anpliau ein eben, anpliaziñua zan hori. Ta gaiñera ezkerrian eukan mahixak eta udarako, egoten zan jentia, jarritta egoten zan.

-Eta frontoia tapautakua ez?

-Bai, bai, bai. Frontoia tapautakua ta ondo. Ta barra, restaurana be ona, jaten da txuletia ta; restaurana aurrian, koziñia hor, da gero barra be baeukan eta. Neskak eta egoten zian.

-Eta han lagatzen zetsuen?

-Bai, lagunak ein giñan, pixkaka-pixkaka lagunak, eta formalak, zelan beti formal eitten genduan, ba lagunak azkenian.

-Esan dozu zeuek sillak ipini eta kendu eta?

-Bai. Ta garbittu ta. Ta gaiñera akabatzen genduanian emoten eskuen gaseosia ta, emoten eskuen. Osea ke...

-Zeintzuk joaten ziñazien, zeu eta besteren bat?

-Bai. Auzuan kriaue bat euan, Patxiko, ta beste bat Barrenengua, Barrenengua edo beste basarri bat. Hangua be bai. Bai, bost edo sei faten giñan. Batzuek nik ez nebala urtengo esaten eben eta beste batzuek bestiak urtengo ebala ta. "Hi pelotari urtetzen bok ni fraille ingo najuek" esaten estan.

-Zeinek, Barrenenguak?

-Barrenenguak eta, bueno, pixkat nausitxuauak. Urtebete edo. Urtebete edo igual gehixao. Baiña ia gaztetik gehixao nintzan. Osea ke jangoikuak emon estan suertia.

4.97. Club Deportiboarekin hasi zen

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/023
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Eibarko Club Deportiboarekin 15 urte zituenean hasi zen jokutzen. Astelena pilotalekuan jokatu zuen finala. Orduko pilotariak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Zenbat urtekin hasi zifian hola gustora jokatzen?
-Ba nik debutau neban gerriak urten baiño lenago hille bi.
-Baiña entrenatzen eta Kiputzanien eta lehenago?
-Bai, lehenao, ta Klub Deportibuakin hamabost urtekin. Jokatu genduan finala Astelenan. Astelenan, eta galdu ein genduan.
-Klub Deportibuakin hasi zifian orduan?
-Bai. Ondo portatzen zan, e!
-Orduan pelotarixak Eibarren...
-Orduan Eibarren pelotari mordua euan: Kirru, Balenziaga..., lau ero bost, onak, e, pelotan ondo eitten ebenak. Eta jokatzen zan kanpeonatua del Club Deportivo.
-Hantxe apuntau.
-Bai, apuntau. Eta orduan soziuak pagau ein bihar izate'eben Klub Deportibuan zeozer, eta guri ez [eskuen] kobratzen pelotan jokatzen gendualako.

4.98. Gerra aurreko pilotari profesionalak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/024
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:35:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublikak
- **Laburpena:** Gerra aurreko pilotari profesionalak aipatzen ditu eta Migelek 15 urte zitueneko pasarteak kontatzen ditu; pilotarien ingurukoak. Maleta eramale ibili zen Migel, frontoira doan sartzeko.

Transkripzioa

-Gerra aurrian zu hasi zifianian zeintzuk ziran hola pelotaririk onenak?
-Profesionalak?
-Profesionalak eta.
-Ba esangotsut. Nik neukazen hamalau urte, hamabost, hamalau urte, da Eibarren ein zan reunixo bat San Juanetarako, ta nik ordurako eitten neban, Estaziño Kalian euan Cafe Errasti, eta hara etortzen zien trenekin juntauta Bitorixatik, Azkoittittik, Gernikatik, eta pelotarixak han juntatzen zian pelotarixak kafia hartzera, bera Errasti be pelotarixa zan, gure lehengusu bat, da ni hamalau urtekin edo hamahiru urtekin faten nintzan hara ta maletia hartze'neban pelotari batena eta eruaten netsan frontoira. Frontoira eruaten netsan maletia eta entradia duan frontoian sartzeko. Eta klaro, pelotarixak ezautu eitten [nindduen], ni espabilaua pixkat edo eztakit zer, golfua edo, eztakit. Da egon zan reunixua san Juanetan Eibarren etorri zian pelotari guztiak, Atanuak ez. Baiña orduan eozen Mondragones, Etxabe IV, Rubio, Onaindia..., euan kuadrilla bat, bat ondo - hamen daoz danak- bat ona eta bestia hobiak. Etorri zian, berrogei bat pelotari etorri zian, danekuak, primera, lelenguak, bigarrengiak eta hirugarrengiak eta danak etorri zian. Eta ein ebenian reunixua orduan ikutzen euan barra, Bar Frontón, baiña kanpuan, barrukua ez, e, kanpuan, eta txuletia ta emuten eben. Da Bidartek aittak ba akabau zanian

reunixua, arreglau zian, zan diru gehixao eskatzia, ta arreglau zianian emon otsen ardao zurixa ta; ni be euren artian egon nitzan danekin. Osea ke ezautzen nittuan danak; baiña gero pasau zan, pasau zan urtebete baiña nik segitzen neban maletia eruaten, ez eruaten o lokesea, baiña gero pasau zan debutau nebanian nik eurakin batera eta danak, pelotan urten nebanian, “Hi, hau gure maletia eruaten..., oin geure kontra jokatu pelotan”. Da holaxen. Baiña askokin, askokin.

-Joaten ziñan estaziñora...

-Maletia hartzera, duan sartzeko frontoira. Duan sartzen giñan frontoian. Gaiñera aparte batzuek pagia, errial bat, errial bi ero propinia be bai. Eta orduan zian ba, lagunak zian Mondragonesa, Rubixua, Altuna, Ulazia, Etxabetarrak danak anaiak eta horrek danok zian; eta Azkoittikuak pe Urzelei..., Atanuak ez, Atanuak beti zian pixkat aparte; horrek zian guretik aparte.

-Eta Pasiegotarrak eta?

-Ez, Pasiegotarrak zian zesta puntakuak. Zestakuak. Baiña ezautzen nittuan eta etortzen zian frontoian pelotan jokatzera, ensaiatzera. Orduan eguestenetan ensaiatzen genduan, eta eguestenetan joaten zian pelotarixak pe ensaiatzera. Orduan Bidarte aitta be ikustera joaten zian zeñiek eukazen kondiziñuak pelotan jokatzeko, urtetzeko.

4.99. 1936. urtean egin zuen debuta

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/025
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:35:29. **Bukatu:** 00:36:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** 1936ko ekainaren 29an debutatu zuen, Marinoren aurka. Handik bi hilabetera, gerra hasi zen. Gerra sasoiari, Marinoren aurka jokatu zuen berriro. Gerora, partida gehiago izan zituen. Astelena pilotalekua gerrako soldaduen jantoki bihurtu zuten.

Transkripzioa

-Orduan egiten zian entrenamentu modukuak eta hantxe ikusten zan...

-Bai. Eta gero nik debutau neban el día veintinueve de junio. Zan del año treinta y seis.

-Gerria urten zan urtia.

-Bai, hille bixan urten eban, handik hille bira urten eban.

-Zuk hemezortzi urte.

-Bai. Nik Marinokin jokatu nintzan lelengotik, Marino zan. Da galdu ein [netsan]. Hogeira zan partidua. Da gero Eibarko frontoian, gerria etorri zan eta frontoia itxi ein eben frontoia eta Eibarko enpresiak Gernikan organizatzen zittuan partidua. Da Eibartik faten zan autobusa, Dos de Mayuan urtetze'eban autobusak.

-Gerra, e?

-Bai-bai, gerra denporan. Gerria artian etorri barik euan zerera, Plaentziara, etorri barik euan. Da nik, autobusa garbittu eitten netsan pixkat eta txoferrak eruaten ninduan. Eta egun baten han Gernikan neuala, ia

jokatuta neukan Marinokin, eta Bidartek ikusi nindduan. “Ene, nahi dok jokatzia hurrengo astelenian rebantxia?”. Bai. Jokatu... eta irabazi ein netsan. Gernikan. Da gero barriro jokatu nintzan Mungixan, beste hirugarrena, eta han be irabazi ein netsan.

4.100. Astelena, gerrako soldaduen jantoki

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/026
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:36:55. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Kirola » Pilota
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena:** Astelena frontoian sukaldia ipini zuten soldaduentzat. Bitartean, pilotan jokatzen jarraitu zuen. Bere lagunak aipatzen ditu eta txerriendako jatekoa nola lortzen zuen kontatzen du..

Transkripzioa

-Ta, klaro, gero [gerria] etorri zan, da gero frontoian ipiñi eben sukaldia soldauendako.

-Astelenan?

-Astelenan sukaldia zan dana, sukaldia ta. Da atian onduan euan sukaldia, da aurrian, bastante leku euan, bost edo sei kuadro artian libre euan frontoia. Eta ni joaten nintzan pelotan ensaiatzera ta basarritik zerera. Eta han ein nittuan lagunak. Nik eruatzen netsen basarritik porruak eta azak eta horrek, eta eurek ipintze'esten ondo ipiñitta zer baten, tubo baten zertuta txarrixendako jatekoa. Da karruakin eruatzen esten basarriarriño, ta txarrixak hazi genduzen bueno!, hobeto ezindako moruan.

4.101. Inguruko erromeriak

- **Hizlaria(k):** Urzuriaga Ugarteburu, Felisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane
- **Erref:** EIB-083/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabala, Jone
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Erromeriak aipatzen ditu. Behin Markinara joan zela kontatzen du, urrutiegi gelditzen zen Nebera baserrietik hala ere. Arrate eguna oso gogoko zuten. Don Pedro abadea aipatzen du. Gosaltzen ematen zieten baserrietatik mezara joaten ziren ume eta gazteei.

Transkripzioa

- Eibarrera baiño jokera haundixaua Bariña partera?

- Bai, gu erromerixara Usartzara juten giñan ta gero juten giñan, ba, San Pedrora, Arratera... Arraten ezer baeuen ez genduen /ezkenduen/ guk faltatzen. Bariñara be bai, Markiña Etxeberrira be juten giñan. Ta behin juen nitzen Karmen egunien Markiñara be. Behin. Behin bakarrik. Ta ez jatan gustau. Klaro, gure basarritik urten ta juten giñan Bariñara oiñez. Han egoten zan, ba, autobus bat edo zeozer. Bai, Txaxio edo. Bueno. Juten giñan Markiñara. Han fiestia hasi orduko edo ambientia hasi orduko ya berandu zan ta etxera etorri orduko badakizu ze ordu? Ta baten... Bai. Jun orduko hori, ta baten bakarrik juen nitzen, e!

- Arratera ez zenduela fallorik eitten...?

- Ez, Arratera falloik, ez hoixe, don Pedrokin kantuek ikesi ta...

- Zelakua izaten zan Arratera juaten ziñaneko eguna? Don Pedrokin kantuan ikasi? Mezia entzun edo...?

- Bai, mezia ez genduen /ezkenduen/ faltatzen e! Bueno...! Oingo moduen ez, oin ez dou entzuten mezaik baña basarritik gu juten giñen goizeko zortziretako mezetara, nere anaiek, aitzia ta zortziretako mezetara.

- Don Pedro zeuan orduan?

- Bai, don Pedro, "El encanto", "El encanto"!

- Zelako gizona zan ba?

- Oso ona! Neguen be juten giñen gu komuniora, osea, komuniua hartzera. Bizperan konfesatzen giñen ta hurrengo egunien mezetara ta armozua be berak emoten oskun. Bueno, don Pedron ama ta kriadia be beuan.

- Maritxu?

- Ez, keba, Maritxu baiño lehenakua, Brijida zan lehenau euki eban kriadia.

Armozue eurak emoten oskuen. Gu kutxauok juten giñen e, halako edurrekin.

- Orduan zapatak eta ez zian holakuak.

- Zapatak, bueno, bai, zeozer, zapata modukuek.

- Zelan juaten ziñazien? Ze, oin, klaro guk ezin dou... Zuentzako gauza normala da, baiña guri gatxa eitten jaku imajinatzia zelan jazten ziñazien edo zenbat juaten ziñazien.

- Zapatak eukitzen genduzen, baiña ez oingo moduko botak eta holakuek ez, e! Zapata korriente, sencillo, ta haretxekin.

- Haretxekin. Edurra ein, eurixa ein...

- Bai.

- Etxetik elixaraiño eurekin ala aldatzeko zeozekin?

- Keba, etxetik elixaraiño haretxekin ta mezia entzun ta...

- Busti zein siku haretxekin?

- Bai. Gero etxera.

4.102. Mutil falta Kezka Dantza Taldean

- **Hizlaria(k)**: Garate Suinaga, Josu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-647/011
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:18:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Dantza
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Beti egon izan da mutilen falta Kezka Dantza Taldean. Azken urteetan Mallabitik etorri zaizkie mutil gazteak taldera.

Azkenengo etorri izan diren mutilak, gainera, adin batetik aurrerakoak izan ei dira, kontzientziaz, dantza gustuko dutelako etorritakoak.

Transkripzioa

- Mutilen falta... gero dantzak, be-beste...
- [...] izango da, ez?
- E?
- Mutilen faltia ez da izango falta historikua?
- Bai... bai. Bai, bai, bai, bai bai. Hori, hori historikua da. Ni akordatze... ni akordatzan naiz, ni hasi ta handik urte gitxitara, lehenengo hamar urtian, ixa mutilen releborik ez dala izan Kezkan. Osea, azkenengua zeu, Ekhi, eta... Aiert.
- Ekhi: Aiert, gero... gu eta..., osea ni, gero Ander Fernandez...
- Eta Anderren kasua, bai... hoixe, pixkat... ba, ba kuriosua esan daigun, ze emoten eban ez ebalara jarraituko ta geratu zan eta... Eta....
- Eta gero ya Mallabi.
- Bai, eta azkenengo refuerzua, azkenengo... ointxe sei urte edo, ba...
- Estranjeruak fitxatzen dozuez?
- Bai, bai, estranjeruak, estranjeruak. Eta hori kuriosua izan da, ze azkenengo urtietako aportaziño... mutiletako aportaziño gehixenak, danak ez esatiarren -ba, bueno, ba Egoitz eta bi, bi dakaguz, hirugarrenak laga eban-, gehixenak izan dira behin edade batetik aurrerako gaztiak, hamazazpi-hamazortzi, hamazortzi urtetik aurrerako gaztiak. Mallabittarrak eta... eta nausixauak be bai, e! Bueno, gero igual laga ein izan dabe, ba behin edade batetik aurrera be bai, ba, bueno, gauza asko batzen dialako, baiña... Hementxe...
- Ekhi: Asier.
- [Biñaspe] eta honek etorri zian, Joseba Aranzabal eta... Eta... bai, bueno, bueno, gero zeretik, Harkaitz Urreta oin lagata dakagu, guregana behintzat aspaldixan ez da etorri; Arrate egunian etortzen jaku, baiña... Mutiletan relebuak behin edade batetik aurrera etorri dira, hau da, ya personiak konzienzia dakanian benetan nahi dabela, gustatzen jakolako, iñork agindu barik, eta... ba hori, hori... bueno, hori inportantia da, ikusten doulako benetan, ba, badaola hor zer bat, hazitxon bat edo. Eta, orduan, ba, atiak beti zabalik eukitzia eta jakitzia, gaiñera, hortxe atiak zabalik darella, ba hori, hori pozgarrixa da, gure partetik pozgarrixa da.

4.103. San Joan bezperako dantzaldia

- **Hizlaria(k)**: Lasa Aranburu, Miren Lorea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Altzibar, Maider
- **Erref**: EIB-677/008
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:07:48. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Loreari beti gustatu izan zaio dantzara joatea, Lorezori, aldiz, ez. San Joan bezperan Untzagan dantzatzen zuten, baina batera inoiz ez. Loreak Erreterian ikasi zuen dantza soltea eta Eibarrera itzuli zenean bere kuadrillakoei erakutsi zien.

Transkripzioa

- Gero, dantzara baiña, bai jungo ziñazien, ez?

- Miren Lorea: Dantzara?
- Bai.
- M.: Bai, ni bai, baiña hau... negao.
- Nun dantzatzzen zenduen?
- M.: Untzagan.
- Untzagan?
- M.: Bai ba, San Juan bezperatan ta, joe... Ze emoziño!
- Urtian zihar ez zan egoten dantzaldixa?
- M.: Bueno, ba, kalian... karo, neguan kalian ez zan egoten. Ta gero hasi zan jentia Casinora-ta juaten, Rialtora-ta juaten zeozer, baiña... bah, guretako zan pixkat... ez dakit zela esplikau, ez giñan juaten hara, nere kuadrillia ta... gu.
- Zuek San Juan bezperan.
- M.: Bai, gu San Juan... kalian itteko San Juanak. Ta uda guztian, "jueves y sábado"... Zelan izaten zan hori? "Jueves y domingo" izango zan joten ebena kanpuan Untzagako plazan.
- Lorenzo: Bandakua, bai.
- M.: E?
- L.: Bai, bai.
- Ta ze dantzatzzen zenduen?
- M.: Ze? Juan neska bi, neska bi dantzan, ta etortzen zian mutillak: "Mesedez? Mesedez?". Ta zu apartau ta etortzen zian mutillekin batakin ta bestiakin jua dantzara. Ta gero, amaittu...
- Ta zeu?
- M.: Hau? Hau ez zan juango, nere gizona ez zan juango dantzara. Ta gero, esaten genduan amaitzen zanian, "Bueno, adiós, eh" ta bata bestia nahi doun lekura jua. Ta berrido neskak dantzara, neska bi dantzara, ta "Mesedez?" mutillak etortzen ziran, ta igual ez dogunakin dantzan in, ba, "Ez" esaten genduan eta juaten giñan aidian.
- Ta zeu, orduan, ez ziñan juaten dantzara?
- L.: Torpia naiz ni dantzan.
- M.: Ene! Juaten ziñan dantzarau zu? Ez zekizun barren dantzan!
- L.: Torpia.
- Orduan, sekula ez zenduten dantzau batera?
- M.: Ez gu bixok ez ... ez dau jakin. Nik neuk bai, nik ondo nik dantzan, e! Buf... Ikasi neban Erreterixan, Donostian, Erreterixan dantzan itten sueltua eta danak eta bueno! Etorri nintzan Eibarrera, daneri erakusten, nere kuadrilla guztiari erakutsi netsen eitten. Bai, asko gustatzen jatan.
- Ta nun ikasi zenduan, orduan?
- M.: Nik, esaten netsun moduan, Erreterixan ikasi neban nere familixiakin. Ziran... bueno! Harekin ikasi neban. Ta euskerazko gauza guztiak han ikasi bihar ziran. Ta hantxe ikasi neban horixe eitten, "sueltua" esaten gentsan, dantzan. Ta gero Eibarren nere kuadrilliari -umiak giñan e, ez dakit zenbat urte, ta- harek daneri erakutsi netsen horixe dantziori eitten, ta buu! harruao ez dakit zer baiño! Erakusten ta Untzagan. Untzagan, ba, jotzen eben trikitixa. Jotzen eben, ezta? Zelan jotzen eben? Lehenengo "el agarrao", dantzan eittia, ta gero, noizian behin, "el suelto", ez dakizu? Lorenek ez dau jakingo, porke honek ez zeban dantzarik eitten eta. Ta gero "el suelto" zan pixkatxo baten. Ta, bueno, lehengo ipoiñak ziran...
- Kalabaza asko eman zenduazzen zeuk?
- M.: Zelan?
- Kalabaza asko eman? Zeuk. Ezetz asko esaten zenduan?
- M.: Zetan?
-Ezetz asko esaten zenduan mutilleri?

- M.: Ezetz asko mutilleri? Ba nahi dogun beste! Geuk nahi dogun beste; lotsa barik daneri, ez dogula nahi, ez.

4.104. San Rafael eguna

- **Hizlaria(k)**: Unzetabarrenetxea Lizarralde, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Erref**: EIB-697/005
- **Iraupena**: 0:04:04. **Hasi**: 00:08:35. **Bukatu**: 00:12:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena**: San Rafael jaiak ospatzen ziren Maltzagan. Erromeria egoten zen. Kantina eta taberna zeuden eta taberna kanpoan egiten zen dantzaldia. Tabernan jende asko biltzen zen egunero eta geralekua kendu zenean, zabalik iraun zuen urte batzuetan.

Transkripzioa

- Jaixak edo, eitten zien? Bazeukan jai egunik?
- Bai, San Rafael eguna. Oin, ez idazu esan noiz zan e? oktubrian San Rafel?
- Septienbrian hogeita bederatzixan izan leike?
- Leikiena, leikiena. San Rafael eguna, bai. Eitten zan erromerixia eitten zan, edo zeoze egoten zan. Klaro, baiña gu harrapau giñuzen, ba, umiak. Umiak. Eta gero, ba, ez dakit noiz lagako otsen /lagakotzen/ eittiai
- Bai, aja, erromerixia gogoratzen dozu, ez?
- Bai, bai, bai, ez dakitt ee gu.. esaten dotsut gu...
- Bai, ondiñok erromerixia...
- Hasi gabe, hasi gabe ondiokan. Ondiokan... bai, bai, bai, bai.
- Klaro. Ta horrek asko esan gura dau horrek gauzok...
- Bai, hoixe.
- ... akorduan eukitzeko.
- Bai.
- Klaro, bai, bai, bai.
- Eta Maltzagan egongo zan, ba, gogoratzeko gauzak Maltzagako kantuan salduko zittuen ba karameluak eta horrek gauzok. Ostian, tabernia be bazeuan Maltzagan, Plazentzia aldera. Oin be han dau etxia
- Esan dozu dendarik ez, baiña orduan tabernia...
- Tabernia bai, tabernia bazeuan. Tabernia bazeuan.
- Eta zera hori, ez? erromerixia dakazu, taberna... diñot han egun horrena, San Rafael egun horretan edo...
- Han tabernian aurrian dantzia itten zan eta hor ya igual eukiko nittuan hamasei bat urte edo? Baiña ezin detsut, ezin detsut esan, ezin detsut / ezitsut/ esan...
- Dantzia ta ikusten dozu zeozer, ezta?
- Egon zala, behin juan giñala ta egon zala musikia ta zera, baiña ez, ezin detsut esan ezer garbirik.
- Bai, lasai.
- Ezer garbirik.
- Bai, bai, bai, ondo, ondo, ondo. E ze? Hortik aparte edo, zera eitten baziren edo, joko edo... hurrengo astian zeozer, repetiziñorik.edo ete zan edo...?

- Ez dakit.

- Eguna bera bakarrik gogoratzen dozu.

- Eguna bera bakarrikan, ez naiz gogoratzen ostian ezekin. - Ez?

- Ez.

- Bai bai. Ondo, ondo. Jende asko gogoratzen dozu hor? Zer zan, holako ermitta-gunak eta jendetsuak izaten zian?

- Ez dotsut.. ezin dotsut esan ze... Goizian izango zan jaixan mezia eta gero, ba, taberna ingurura. Klaro, hori jua zanian galtzen, ferrobixuak gutxitzen jua zianian, kantinakuak be jubilau ein zian, nausixak zian, laga ein eben. Eta tabernakua geldittu zan. Baiña... ezin detsut, ezin detsut / ezitsut/ esan.

- Tabernia, orduan, beranduaura arte...

- Bai, azkenengua, bai, bai, azkenengua tabernia.

- Eta nora etortzen zan tabernara jentia horra? Eibartik...? Ze hor trenak geratu eitten ziran?

- Trena, bai, bai, bai. Trenak eitten eban.

- Geratu eitten zan zati baten?

- Bai, bai, geldittu zati baten geldittu eitten zan.

- Zati baten.

- Eitten eban kruzia eta itxeitzen eben danak zertu artian. Eta egongo zan ba denpora bat egongo zan zertzeko. Eta jentia ba...

- Tranbordo moduan edo...

- Bai, edo autobusa hartzera edo batenbatek billa juateko edo zera, ba, egon, tabernan.

- Klaro, neguan, endemas, ezta? Ordua hotz haundixa ingo zeban.

- Errekonduan neguan hotz.

- Klaro! Klaro baietz, bai, bai. Errekia brabo etorriko zan gaiñera neguan...

- Bai, bai, neguan bai.

- Hor zer haundixa. Gero hortxe harutzatxuao, goratxuao, batzen da Eibartik datorrenakin?

- Bai, hortxe bertan, hortxe bertan dao errekian zera.

- Bata...

- Bai, Eibartikan eta bestia Plazentziatik... hortxe bertan.

- Hortxe bertan ingo dau...

- Bai, ba, igual elixian pare inguruan. Ba! Hortxe. Kamiño azpizan, hortxe zertuko dia. Kamiñua pasau ta segiduan.

4.105. Eibarko futbol zelaiak

- **Hizlaria(k):** Anitua Astigarraga, Jose Francisco
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Erref:** EIB-706/017
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Eibarren, Ipuruako futbol zelaia eraiki aurretik, Otaola hiribideko Otaolaerdikoa baserriaren parean zegoen zelai batean jokatzeko futboleko. Ipuruako futbol zelaia nola eraiki zen kontatzen du Patxik.

Transkripzioa

- Ze, ze... nun jokatzeko eban edo? Ze zelaitan...

- Nik uste dot zeuala... -aber zelan esaten detsuten /esatetzuten/- Isasittik gora euan, Isasittik gora juanda, oin ze egon leike han inguruan? Gasolineria daona? Eibarko sarreran. Ez ezkerrekua, bertan sarreran etortzen dana, eskuman daona, hantxe, hantxe ingurua zan. Otaolaerdiko... Otaolaerdiko basarrixan par...

- Hor egon zan futbol zelai bat Otaolaerdikon.

- ... hantxe jokatzen ebela. Ha ta gero, ba, Elgoibarren ta... bueno, horrek nik uste dot eukitzen ebela leku gehixao edo hobiaua. Baiña horrek hor goixan jokatzen ebela.

- Elgoibarren be bai? Lerunen edo?

- Bai, hor Lerun lehengua, zaharrian, nik uste dot tokatzen jakuela / tokatzeakuela/.

- Bai. Eta Ipurua gerora ein zan?

- Ipurua bai, Ipurua bai, Ipurua... bai, ha zan barrankua betetzen juan zana. Ha eskonbruakin betetzen juan zan, nibela hartu arte. Ta jekan, erdi-erdixan ekan -hori kontau bihar detsuet- tximinixa moduan eken, betetzen zoiala, tubua sartzen [etsen], ba, urak-eta pixkat batzeko. Ta handitxik euan zulua ta handik erre kara juaten zan. Ba han goittik bajatuta erre kara behin-edo juan garaz. Herrixa azpittik pasau...

- Abentura.

- Abenturak, bai. Halakoren bat badakau kontatzeko.

- Ba kontau. Kontau eziñekuak ez doguz kontauko.

- Ez, bestela.,,

- Eta, orduan, hara eruten ziran eskonbruak.

- Bai, haratxe. Eta gero ya... "año cuarenta... cuarenta y..." ez dakit zenbat izango zan, baiña "cuarenta, cuarenta y tantos" a izango zan. Ointxe ein dittu /eitxu/ hirurogeta hamabost urte uste dot ein dittuala; ba, kontua ekarri: "cuarenta y cinco" edo holakoren bat izango zan. E? "Cuarenta y cinco"... bai, hortxe, "cuarenta y cinco" an inaugurauko eben Ipurua.

- Eta... bardintziori edo...

- Bardintzen, bai, bai, bai, betetzen.

- ... foballerako...

- Bueno, kanpua, kanpua eitteko kontua.

- Gero hara [...], ezta?

- Bai, bai. Ipurua munizipala izan da beti. Osea, nahi dot esatia... Munizipala izan da. Osea, hamen ein etsen obra guztiak Eibarrek herrixandako gelditzen dia, ez da, ez da euren propiedadia. Hori be nik uste dot horrek terrenuok... herrixari emon etsen -saldu ez dakit ingo eben- Anitua batek ein eban hori. Porke txaleta dao, Anituena, dao han - aittan lehengusu txikixak dia harek- ta horrek terrenuok eurenak zian, ta akzedidu eben, ba, betetzen juateko.

5. Ekonomia eta industria

5.1. Toribio Etxebarria eta kooperatibismoa Eibarren

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/007
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:15:29. **Bukatu**: 00:17:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »

Debabarreneko lantegiak

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak

- **Laburpena:** Toribio Etxebarria, Eibarko sozialismoaren lider intelektuala. Kooperatiba industrialen sorrera Eibarren: Danok-bat; Alfa; etab. Armagintzatik josteko makinara jauzia egin behar zela garbi ikusi zuen.

Transkripzioa

- Baina hor bazegoen jende inportantea Eibarren, momentu horretan. Bat, esaterako, Toribio Etxebarria. Gizon inportantea.

- Bai. Toribio Etxebarria izan da PSOEko liderretakua, lider intelektual bezala. Eta autodidakta zen. Harek grabadua ikasi zuan lehelengo eta gero plaza bat egon zen sekretaritzarako Udaletxean eta han konkursora presentatu eta irabazi zuen; eta han egiten zuan lana. Baiña izan zen baita ere... hango... Badakizu Eibarren kooperatiba industrialak sortu zirela. Lehelengoko "cooperativa industrial" izan zen eskopetaduna: Danok-bat: han sortzailietakua, hain zuzen, nere aita zan bat. Han lana egin zuan. Eta ondoren pistolagiñak sortu zuten Alfa. Gero hor ikusten da Toribiok zeukan "concepto ético-moral", esango neuke. Esaten zien eze armak egin gabe beste zeoze egitea. Orduan pentsatu zen josteko makiñak egitea.

- Tradizioa ere bazen armak egitekoa Eibarren.

- 1925ian, ba... Bai, tradiziñua XV. mendetik. Eta, orduan, Toribio Etxebarriak esan, baiña gero bera ez zan teknikoa. Eta holan hasi ziren: lehelengo Eskola Armerian sortu ziran promoziñuetatik -mekanika ondo ikasiak eta-, ba, hoiekin egin zuten josteko makiña.

- Josteko makina.

5.2. Gerra aurreko kooperatibismoa Eibarren

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/019
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:54:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** Solidaritate giroa. Kooperatibismoaren sorrera eta bilakaera Eibarren. Herri euskalduna, solidarioa. Kooperatibismoak indar handia izan zuen. Sindikatuen ekonomatuak: UGT eta ELA. Krisialdian, tailerretan kupoak ateratzen zituzten. Elkartasun handia. Gerra ondorengo urteetan gauzak asko aldatu ziren.

Transkripzioa

- Baiña horrek dauka beste gauza bat: ez bakarrik zeure bizitza pertsonala. Zeurea bezala, hainbat milaka pertsonen bihotzak ere urratu zituen. Eibar bestelakoa zen. Gerra bukatuta ez zen lehengo Eibar.

- Ez zan lehengo Eibar, ezta urrik eman ere.

- Lehen zuk esan duzun bezala, hiri nagusien artean, hiri haundien artean euskeraz...

- Batetik euskera zan. Baiña bestetik, baita ere, euskeratik aparte, bazen

holako solidarismo giro hori. Horregaitik egin ziran hainbeste kooperatiba. Ze kooperatibak lehelengo hasi ziren nunbait -ez dakit, mende hasieran edo-konsumokoak: janari eta gauzak.

- Ekonomatoak esaten zitzaizkienak.

- Hori da. Ekonomato gisa hasi ziren zerak. Eta bazeuden Eibarren sozialista edo UGT aldekuak batez ere. Hori sindikatuak gehiago erabiltzen zuten. Eta horrek bazuten bat. Eta abertzaliak, ELA aldekuak, beste bat zuten. Eta hor ere, ba, niri tokatu zitzaidan, ba, edo batera eta bestera, gauzak erostera. Gaiñera hor bazen beste bat, krisi garai bat edo bazen, zuk zertu biharrian... Ataratzen zituen kupo batzuk, txanpon gisako zer batzuk izaten ziran, medalla edo bezala, eta horrekin erosten zundun, ez diruarekin. Eta zuk orduan egiten zundun horrekin zor bat, baiña alde ona zetorrenian ordaintzekotan. Hori solidarismuori ikaragarria izan zen. Gero hori, egoismo ikaragarria sortu zen gerra onduan.

- Errezeloa ere.

- Batetik deskonfianziagaitik, errezeluagaitik. Gauza asko ekarri zituan. Eta bakoitza bere munduan itxita. Eta, bueno, ni kezkatia nintzen eta zeozer nahi nuan egin, baiña ez nuan euki aukera askorik, harik eta soldautzara juan arte.

5.3. Jesus Berezibar `Txopa´ eta Cayetano Kareaga

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:08:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Etxean dibujorako esku ona zuela ikusten zuten eta artista batengana eraman zuten, aprendiz bezala. Jesus Berezibar `Txopa´; Gero, Cayetano Kareagarekin ikasi zuen grabatzen. Beste lagun batekin batera beraien kontura hasi ziren lanean, baina gerra hasi eta kitto! Grabatua; damaskinatua. Jacinto Olaberekin ikasi zuen marrazten.

Transkripzioa

- Hamahiru urtekin ez da gaztetxo lantegi batean sartzeko? Bueno, orduan aprendiz ere bazegoen kategorian!

- Bai, ba! Aprendizajia izaten zan eta zerbait ikasi nahi eta etxian, ba, aittak eta amak eta bata eta bestia, eta: "Zuk tendenzia dozu dibujora. Dibujo erre egitten dozu..." eta hau eta bestia, eta: "Artista batengana..." Eta bueno! Jesus Berezibar hasi zan, ezta? Eta Jesus Berezibar tallista on bat izan zan. Bere ezizena `Txopa´ zan. Eta harek... lan barik geratu zan. Tallia modatik juaten; muebliak danak lisuak, eta en fin. Eta geratu zan lanik barik eta harek ikusten ninduan ni ba: "Ba, hau mutillau aurrera atartzeko, ba...". Amistadia eukan Kareagatarrekiñ eta hara sartu ninduan eta bueno, Kareagakin be egin nittuan beste urte batzuk eta en fin! Gero, nere kontura be hasi nintzan beste lagun batekin, baiña gerrira sartu zan, eta kitto!

- Hor, ikasi-ikasi, esaten duzu, zuk taila ikasi zenuen zerarekin...

- `Txopa´kiñ.

- `Txopa´rekin, Jesus Berezibarrekin.
 - Bai, Jesus Berezibar, bai.
 - Baina gero grabatzen ere ikasi zenuen!
 - Bai, grabatzen Kareagakiñ!
 - Cayetano Kareagarekin?
 - Bai, Cayetano Kareagakiñ.
 - Baina lanbide, lanbide... Lanerako grabatzea zen inportanteagoa, ezta?
 - Bai, bai, bai. Bueno, grabau... Zela aitzen dan grabau. Damaskinaua da, ba, gauza bat eta grabaua... Trokelak egitten genduzen, "matricería o troquelería artística": medaillak eta holako gauzak egitten. Bai, o sea ke trokelatan, edo kubiertuak zirala, edo medailloiak zirala, hárentzako trokelak egitten. O sea ke "era troquelería artística".
 - Horrek esan nahi du esku oso fina eduki behar zenuela!
 - Bai, bai. Lupakiñ eta en fin, gauzak.
 - Orduan, dibujo nola ikasi zenuen? Ze, horretarako dibujo ikasi egin behar da!
 - Bai, ba, `Txopa´kin batera, baiña neuk neukan horretarako erreztasun haundixa eta neuk bakarrik. Eta gero euki neban zera, Olabe be, Jazinto Olabe. Harekin be bai beste apur bat, eta akabo! Gaur arte!

5.4. Artistaren izatea

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-086/009
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:12:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Lan mundua artista batentzat. Aprendiz batek oso gutxi kobratzen zuen; batzuetan, ezer ere ez. 18 urtera arte, batean eta bestean ikasten.

Transkripzioa

- Zenbat denbora behar izaten zen grabadore izateko?
 - A, denporia?
 - Ikasteko, ikasteko diot, e?
 - Bueno, ikasteko, ba... ez dakit nik! Bueno, damaskinadore izateko... bueno! Nik ez dakit denporia! Nik, e... neu ez naiz izan!
 - Baina diot, zeurea, esaterako?
 - A, neuria? Gehituago bihar zan! Dibujua eta gero han ekiñaldixak, ba... gutxienez bai urte bi, hiru be igual! Depende, batzuk bost be igual!
 - Eta orain galdera: zenbat irabazten zuen aprendiz batek orduan?
 - Aprendiz batek batez igual, batez igual! Eta izan leike, ba, lau-bost-sei errial, holakoren bat! Bai!
 - Eta zure lehendabiziko soldata?
 - Nere lehendabiziko soldatia? Nik ez dakit soldatarik iñoiz euki dodan! Ke ba! Etxian jan ta hortxe ibili! Hamazortzi urtera arte, ba, ikasi bata eta ikasi bestia!

5.5. Peora (atari) bakoitzean lantegi bat

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/010
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:13:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria
- **Laburpena:** Lagun batek (Bonifacio Martínez) eta berak, tailerra ipini zuten, baina berehala gerra etorri zen. Eibarren peora (atari) bakoitzean tailer bat. "Mailua eta dinbi-danbia". Orain lantegi asko hutsik daude.

Transkripzioa

- Azkenean tailerrean jarri zinen.
- Bai.
- Zeurea zen tailerra jada.
- Bai. Lagun batekin, bai. Majua zan, Bonifacio Martínez. Bai, bere aitta zan beste artista bat damaskinauan. Eta bixok ekin genduan, baiña, ez dakitt, urtebete pasau eta tas!, gerria etorri zan eta bixok...
- Gerra. Ze, hor entzuna daukat nik, ez dakit egia den, ez den, ez dakit. Baina atari bakoitza —hemen pegoria esaten diozue—, Eibarko pegora bakoitza fabrika bat zela, lantegi txiki bat zela.
- Bai, hori Plazenzian-eta be bai! Hori... e... txoko baten, edozein tokittan ikusten zan taladro bat edo beste eta, en fin!
- Mailua, jungura...
- Maillua eta dinbi-danbia, hori bai. Akabo! Zela edo hala, jentiak lana egitten zeban. Bai, hori bai.
- Eta gaur, horrela lantegiak hutsik ikustea?
- Bai, horixe tristia! Lantegixak hutsik, eta guk zer gehixago bihar, toki gehixago bihar eta dirurik ez sartzeko!

5.6. Eibartarrak eta plazentziatarrak umore giroan

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/012
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:15:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena:** Umorea. Armagintza; Paulinoren aita kainoigina.

Transkripzioa

- Plaentxitik Eibarrera umorea izango da.
- Bai, haundixa gaiñera, haundixa!
- Eibartarrek plaentxiarren kontra, hangoek hemengoek kontra.
- Kontrarik ez, danak lagunak. Gure aittak be lana egitten zeban plaentxiatarrentzat eta eurak be, hárek be ekartzen zeben hona, eta, en fin! Armeruak asko ziran, ba, eta gure aitta kaiñoigiña zan eta holan pasatzen zan gauzia!

5.7. Sozialismoaren sorrera Eibarren

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/010
- **Iraupena:** 0:10:44. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:34:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena:** Sozialismoa Eibarren. "Quintana Hermanos" (1897-1898); grebak. Eibarko "Salón Teatro"an Pablo Iglesias eta Facundo Perezagua egon ziren hitzaldi bat ematen. Sozialismo gogorra. Sozialismoa eta baserritarrak: ebangelio berria. `El Manifiesto Comunista´; Miseria, gosea, etab. PSOE, PCE. Langileria.

Transkripzioa

- Lehen aipatu ditugu mugimenduak liberalak izan zirela sartu zutenak. Nahiko goiz dago hemen, Eibarren, sozialismorako mugimendua.

- Nik ezagutzen dotena, bueno irakurrixaz ezagutzen dotena, esan genduan lehengo egunian be... Huelga bat egon zan hamen: "Quintana Hermanos", hórrek ziran komertzianta batzuek mejikanuak eta hórrek akrom asko saltzen zittuen Eibarren . Eta pentsau zebeñ ipintzia fabrika bat. Eta ipiñi zebeñ, baiña ha zan —Toribio Etxebarriak esaten daben moduan— "la primera manufactura industrial" Eibarren izan zana. Makiñak eta bihar dibisiñua eta en fin. Gaur pentsatzen da munduan lana zelan egin bihar dan, ez artesanaua, e! Baiña askoren artian zelan egin bihar dan. Eta huelgia egon zan. Eta harek huelgiak... batzuk bazeguazen itxuria sozialismua pentsatzen zebeñak... eta hórrek juan ziran Bilbora lagun billa, laguntasunaren billa, zelan huelgia sostenidu, ze modutan huelgiaren kontra ibilli edo laguntasunaren billa. "Asesoramiento" esango neuke nahi zebela eta Bilbora juan ziran. O sea, bazeguan gruporen bat, zeozer pentsatzen zebana hor aldian, bihar asuntuan. Eta, zelan pentsatzen dot asko irakurtzen zala, eske eze gero ezagutu izan dittugu artesano mordo bat, izan ziranak pixkat intelektualak, biblioteca onak eta zeukezenak; langilliak izan arren, irakurtzen bastante ondo zeguazanak: gero ezagutu nittuan hórrek. Ba hor bidian, esango neuke nik, en fin, sozialismua bazeguala, batzuek irakurritta... baiña grupo moduan, ez.

- Antolatuta ez.

- Antolatuta ez. Eta hortxe huelgan etorri zan Pablo Iglesias eta Perezagua.

- Perezagua.

- Perezagua. Bilbotik etorri ziran hórrek. Bueno, Madrirttik eta bestia Bilbotik eta hárek hitz egin zebeñ. Nik pentsatzen neban Teatro Kruzetan zala eta ez, Salon Teatruan, orduan Untzagan zeguan Salon Teatruan izan zan hori zerori. Eta handik ekin zetsen komitiak formau taillarrian eta grupuak, UGTia... Bueno, UGTia ez oindiokan, "confederación obrera" modoko zer bat ekin zetsen eta háretxek eruan zebeñ huelgia [...]. Gero hortik grupotik, hori ekin zetsenetik, formau zan UGTia eta al mismo tiempo bertan egunian, jarri zan bai Partido Sozialistia. O sea ke, 1897-98, grupo moduan.

- Ehun urte oraintxe.

- Bai, ehun urte. Orduantxe ekin zetsen grupo moduan, sozialista moduan. Baiña ordurako, nik uste dot, aurretik be baten batzuek bazekixela zeozer.

- Zeozer bazela. Orduko sozialismoa... Bueno izenak aipatu ditugu eta geroago aipatuko ditugu beste batzuk, baina bueno...

- Bai, Beaskoetxea eta holako zer batzuk, Bilbotik etorri ziranak. Meabe, Madinabeitia, eta en fin...

- Madinabeitia, Indalecio Prieto bera, Toribio Etxebarria hemen, gero Baskaran, Perezagua... horiek aipatuko ditugu. Baina orduko sozialismoa oso gogorra zen. Hori esan egin behar da, ezkerrekoa zela.

- Bai, ezkerrekua. Baiña esango detsut: Toribio Etxebarriak beraren liburu baten idatzitta dauka zelan orduango basarritarak, kalera etorri ziranak, eta sozialismuan sartu ziranak, hartu zebe marxismua "como un nuevo evangelio", eta euren dako ez zala traumarik egon, ez eta bildurrik eta ezer be batetik bestera pasatzeko: o sea, bixak juntau egin zirala. O sea ke, "del paraíso del cielo al paraíso terreno".

- Bai, bai, munduan bertan egin behar zela.

- Bertan, bertan egin bihar da eta ez zebela traumarik eukiñ, ez zala egon hori ateismuori eta holakorik ez, ez ez. Siñisten, baiña sozialistia.

- Baina, diot, orduan oraindik kasik zuk esan duzuna: ebanjelio bezala hartzen zen 1848ko proklama: komunismoaren proklama hori zen.

- Eske eze batek irakurtzen dabenian 'Manifiesto komunistia', haixe da marxismuan poesia apur bat dakana; bestela ez da poetikua bat be marxismua. Pixkat gogorra da. Nik behiñ esan neban, irakurri nebanian, 'El Capital' irakurri nebanian Franzian esan neban: "Hau irakurri banajuan 18-20 urte gaz, ez jakixat izango nintzan reboluzionarixua". Hain gogorra da, hain sikua da...

- Aspergarria.

- Marxismuan agertzen da 'Manifiesto Komunistia' "como bandera poética", en fin, proklama bat bihotza pixkat biztutzen dabena.

- Gero, gainera, kontutan hartu behar da, mugimendu hauek batez ere miseriaren kontra altxatzen direla.

- Bai, hori... Toribio Etxebarriak badaukaz beraren liburuetan... hori... zer bat, zelako gosiak pasatzen ziran eta zelako miserixia zeguan. Ez zirala, gaur askok pentsatzen daben moduan, juan zaneko denporak hobiak. Ez, txarraguak. Hárek eta ekarri zebe... Ez eukitziak daka kontra eukitzia nahixa. Eta eukitzia nahixak billatzen dittu... billa zoiaz, hobetasunaren billa. Salarixu gehixago irabazi eta tratu hobia. Eske eze hamen egitten zebe patrono batzuek "en especies", salarixua dirutan emon biharrian, jatekotan emon. Eta ikusten ziran urtian azkenian zorretan zeguazela patronuagaz, zorrak pagau bihar oindiñok patronuari: urte guztian eginda lana! Eta gaizki bizi zan jentia. Gaizki. Gaurko bihargiñak orduango moduan balitzakez, egongo litzake pelotera bat, egingo litzake reboluziño bat, ez giñakez geldittuko. Kaiñonazoka! Ez, orduan gaizki bizi zan jentia. Eta gaizki bizi zan jentia ekarri dau "la forma de"... Hárek sozialismora edo zaiñek gehixago emoten zetsan, haraixe.

- Gero, gainera, gogoan hartu behar da Partidu Sozialista 1879an sortzen dela. Partidu Komunista eta biak bat dira.

- Partidu Komunistia geruago etorri zan.

- Geroago etorriko da. 1921ean etorriko da.

- Hogeta batian separaziñua.

- Biak batera doaz, bat da.

- Baiña hori naturala da. Nik esango neuke elixan be katolizismua eta protestantiak dirala beste kaldera. Eta alde guztietan, grupo bat egitten danian, gizonak segiduan dibiditzen dira: batzuk alde batera eta beste batzuetara. Ez dogu igual pentsatzen. Eta igual ez dogunetik pentsatzen, alkarri jardutzen dogu kontraka. "Ene, zer esan gura dok horregaz? Zer egin bihar dok horregaz? Hemen ikusi deigun". Eta juan barik holantxe estudixatzen gauzak: "Horrek A esaten dau; nik, B. Akabo". Eta batak alde

batera eta bestiak bestera. Eta komunismua be halantxen agertu zan. Komunistak diktaduria... zera, indarragaz ekarri bihar zala eta gero diktaduria eukin bihar zala Gobiernuan. Eta, en kanbio, sozialista demokratak: ez, demokrazia barruan, botuegaz eta ekarri bihar dala, pixkaka-pixkaka; eboluziñuaren bittartez ekarri bihar dala hori reboluziñuori.

- Biak dira, gainera, urbanoak. Kalekoak dira. Ez dira baserritarren artekoak.

- Ez, ez, ez. Urbanuak dira. Hórrek basarritarrak eta gero etortzia gerokua da. Beraren sustraixa —bai sozialismuak esan gura dot, bai anarkismuak be— zerian eukin dabe beheko herrixan.

- Herri apalean.

- Herri bakokuan, gosia eta nezesidadia zeguan lekuan. Aberastasun bittartian ez dau urtetzen holako idearik. Aberatsa ondo bizi da. Harek ez daka ixa [...rik]. Kanbixorik ez dau nahi beraren bizimoduan. Kanbixua nahi dabenak: ez daukanak nahi dau kanbixua. Eta ez daukana zein da?

- Behean dagoena.

- Eta gero esan dozuna: basarritarrak ez eta zera. Basarritarrak beraren bizimodu aparteko bat badau. Bera bakarrik bizi da: bera eta zerua eta lurra. Basarritarra. Baiña gizonak, bihargiñak, alkar ikusten ziran: bata fraka barik eta beste bat kaltzetin barik eta beste bat zapatarik barik edo txamarra barik. Danak falta zebeñ, zeozer nahi zebeñ gizonak ziran. Eta alkar... danak juntauta zeozer egiñ. Ezta? Hartzen dozu madal bat, hartzen dozu madal txiki bat, hartzen dozu eta ha bizkor apurtuko dozu. Baiña madal mordo bat juntatzen badittuzu egitten da forma bat ezin dozuna apurtu: danak juntauta gehixago gara bakarrik juanda baiño. Eta hori berezko bat da, zitudade baten, herri baten, jente asko juntatzen dan lekuan, izatia sozialismuak eta etortzia. Basarritarrak ez da eukiñ... gaizki bizi izan dira basarrixan eta mordo bat, e! Ez dira basarrixan danak ondo bizi... Baiña hárek bakarrik ziran, bakartadia zeuken. Eta, en kanbio, kaliañ, alkar ikusten gara: eta ez bakarrik bat eta bi, zientuak edo millaka.

- Eta gero, gainera, ordu gehiago ere bai eta liburuak manejatzeke modua ere eta keja ere: bai gosea eta dena.

- Gosia eta dana. Eske eze zuk ikusten badozuz basarritarrak, esaten dotena: zerua, lurra eta bera, beraren famelixia. Baiña kaletarrak aberatsak, pobriak, batzuk ondo bizi diranak, batzuk dirua gastatzen mara-mara esaten dana eta beste batzuek zentimo barik. Eta hórrek kontradiziñuok jente asko dagon lekuan, herri baten, agertzen dira, ez basarrixan.

5.8. Toribio Etxebarria eta sozialismoa

- **Hizlaria(k):** Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-088/013
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:43:05. **Bukatu:** 00:46:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Toribio Etxebarria eta sozialismoa. Toribio, idazlea. Alfa.

Transkripzioa

- Bai, lehen zuk esaten zenuena eta badu horrelako kutsu hori: zerua lurrean, ezta? Paradisua hemen. Baina bertako izenak aipatzerakoan, ez dut uste huts egin daitekeenik Toribio Etxebarria. Bertako sozialismoa aipatzean, uste dut Toribio Etxebarria norbait dela, pisu propioa daukan gizona da, eibartarra, kezkatua, asko irakurria, gero idazlea izango zena... Baina pisu espezifiko propioa daukan gizona.
- Ba esango detsut: ez larregirik. Ointxe hartu dau, esaterako, beste Eibar baten... neretako ez, e? Nik neuk gaztetatik ezagutzen neban eta gero kartzelan egon nintzan beragaz hille batzuetan beraren laguna. Eze beraren laguna zan Gorrotxa eta, harek libre zelan urten zeban, bakarrik geldittu zan eta neu arrimau nintzan. Eta han euki ginduzen: ordu mordo bat hizketan Toribio gaz. Toribio Etxebarria, esan dozun moduan, gizon ona eta jakintsua; memorixa enormia, "memoria de elefante". Halan zan.
- Bai, bai, bai. Pentsa, gauza bat. Datu bat emango dizut: Eibarko euskarari buruzko hiztegia egin zuen Venezuelen. Eta buruz egin zuen hori.
- Hori buruz egin zeban ! Baiña berak guregaz be beste euskera... Bueno, hobia! Guk baiño hobeto egitten zebana.
- Bai, baina diot memoria. Zelako memoria zeukan!
- Memorixia? Esan detsut: "memoria de elefante".
- Horregatik, datu bezala ematen dut Eibarko euskararen hiztegia buruz egin zuela.
- Buruz egin zebala. Eta harek zeukan sozialismuaren asuntuan fama bat. Baiña Alfa egin zanian, orduantxe, mordo bat kontra euki zittuan. Alfan burruka haundixak euki zittuan Toribiok: bihargin batzuk ez ziran kooperatibistak; ziran "obreros, lucha de clase"; eta lutxa haundixak euki zittuan. Eske eze Toribiok irakusten zetsen zer diru gitxi zeguan Alfan, zer modutan repartidu bihar zan, zer modutan egin bihar zan biharra eta en fin. Beraren zerak agertzen zittuan "desde el punto de vista administrativo". Ez "como burgués, sino desde el punto de vista administrativo". Eta kontrarixuak mordua zeukazen Toribio Etxebarriak, bertan Alfa barruan be. Laguntzailliak be bai; horregaittik egon zan aurrian, bestela kendu egingo zeben. Baiña kontrarixuak be euki zittuan. Eta hamen esan arren eibartar guztiak gizon jakintsua zala, politikamente mordo bat ez zeguazen beraren alde. Orduan. Baiña gero agertu da euskerako hiztegi hori agertu da eta orduantxe ikusi da zenbateraiño ailegau zeikian ha gizona. Hori lehelengotik agertu bazeban lan moduan, euskeriari beraren zerak emotia eta, biharbada gehixago emongo zebala, gehixago ikasiko zebala eta gehixago emongo zebala. Badakizu, lan mordo batzuek badittu hor zerian.
- 'Ibiltarixanak' eta...
- Toribiok euki dittu lagunak asko eta gehixago, uste dot. Baiña beraren kontrakuak be mordo batzuek izan dira.

5.9. Politika 1920ko hamarkadan

- **Hizlaria(k)**: Eguren Zabarte, Candido
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-088/019
- **Iraupena**: 0:08:05. **Hasi**: 01:11:24. **Bukatu**: 01:19:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-

mugimenduak

Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera

Politika » Gerra aurea » 1914-1923: Monarkia

Ekonomia eta industria » Krisi industrialak

- **Laburpena:** Politika 1920ko hamarkadan. Arazo ekonomikoak, sozialak. Erregeak eta militarrek. Afrikako gerra: Annual. Patronala vs. FAI; CNT. Parlamentuan, Expediente Picasso. Barzelonako matxinada. Diktadura. Primo de Rivera. Krisi ekonomikoa. 1929an, erregeak Primo de Rivera bota zuen. Primo de Rivera Eibarren. Armagintzaren aurkako legeak.

Transkripzioa

- Garaiak aldatzen doaz eta bada momentu bat historia azkartu bezala egiten dena: Primo de Riveraren diktadura dator, gero monarkiaren erorketa dator, Errepublikak hots egiten da, Largo Caballero eta Julian Besteiro datoz, altxamenduak datoz Asturiasen, Frente Popularra, Gerra Zibilla... Hasieratik hasteko, Candido Eguren: Primo de Rivera.

- Bai. Astiro-astiro ekingo detsat. Primo de Riveragandik ez, monarkiatik.

- Monarkiatik.

- 1920tik aurrera agertu ziran problema ekonomikoa eta problema sozialak eta Afrikako gudua.

- Gerra, bai.

- Hor bittartian, 1921-22 bittartian, Erregiak... Militarrek zeguazanak han, gerria egittia nahi zezenak moruen kontra uste dot bat Fernandez Silvestre zala, Silvestre hori akordatzen jata ondo; Fernandez beraren lehelengo abizena zan ez dakit, baiña uste dot Fernandez Silvestre zala, bialtzen zetsezen errekauek sartzeko: "Luchar contra ese toro, que es una mona". Eta holako hitz batzuek eta bialtzen zetsezen hórreri militarri. Eta hárek zelán eurak asko gehixago irabaztiarren eta euron premixuak hartziarren gerran, gora igotzekuok kategorixan, ba gerrara sartu ziran, baiña haixe emonda Erregiak. Eta hori agertu zan 1923 aurretik Parlamentuan eta herri guztian. Eske eze Annual-en egon zan katastrofian millakak gizonak hil ziran.

- Annual-eko hondamendi izugarria.

- Millaka gizonak hil ziran eta egon ziran manifestaziñuak Espaiña guztian eta Eibarren be bai. Hor dago oindiokan argazki bat Casa del puebluan orduango manifestaziñuak [erakusten dittuana]. Danak: herri guztia kontra zeguan horren asuntuorren gaiñian. Eta Parlamentuan agertu zan zelán responsabilidadiak zeukazen erregiak. Eta militarrek. Orduan momentuan Barzelonako hórrek lutzok, hórrek hiltziok, zeguazan: patronala FAIxa eta CNTiaren kontra. Alkar hiltzen. Mordo bat hil ziran. Mordo bat. Eta zeguan krisis mundiala. Oindiokan ekitzen, ezta? Goratzen. Baiña krisisa ekinda zeguan pixkat. Erregiak eta militarrek pentsau zezen —hor Parlamentuan formau zan Comision Picasso eta harek gauza asko etara nahi zittuan argittara: zelán Erregiak eta militarrek kulpia zeken Afrikako gerriana, Annualeko asuntuagaittik. Eta jentia jaikitta zeguan, "zelán izan leikian holan!". Eta Parlamentuan aurrera zoian hori, Expediente Picasso—, ikusi zezenian gaizki agertu bihar zirala bai militarrek eta bai Erregia, orduan asmau zezen: aprobeixau [zittuen] Barzelonako hiltziok, matxinada batzuek; ha aprobeixau; eta gero, gaiñera, aiuntamientuetan korrupziño haundixa zeguala eta hórrek garbitzeko diktadura bat bihar zala. Zelán urten leikian militarrek? Korrupziñorik haundiña prezisamente Afrikan zeguan, intendencia militarrian! Bueno. En fin. Halantxik izan zan. Eta jentia pixkat, etorri zanian Primo de Rivera, pixkat tontotuta geldittu giñazen [...]. Bueno egin zezen hiltze mordo bat: hil zittuen Arleguik eta beste general batek, hil zittuen obrero prinzipalenetakuak, gehixen

distingitzen ziranak, eta katastrofe haundixa egin zan Barzelonan. Eta emon zeben golpiori eta han amaittu zan; amaittu alde batera amaittu zan, ezta? Eta etorri zan Primo de Rivera hori. “Nik daukat pakia, nik daukat lana”. Efektibamente, lana emon zeban, eske eze diru fasia zeguan Haziendan Espaiñian, Estaduan. Eta ekin zetsan pantanuak eta bidiak — Carreteras Nacionales— mordo bat [egitten] eta lana egon zan. Pixkat jaikitze bat euki zeban Espaiñiak ekonomikamente. Eta bihargiñak be geldittu giñan, “ene, baiña lana dakagu barren honegaz”, “ondo goiazak”. Baiña urtiak pasau ziran eta ha geruago eta txarrago zoian. Nik hori ofiziñan ikusten neban. Eske eze guk estranjeruagaz egitten genduan lana eta dolarrak eta markuak eta frankuak erabiltzen genduzen gure kontuetan; eta zelan pezetia porrot egitten zoian. Eta agertu zan momentu bat krisisa agertu zana. 1929xan egon zan "el crack de Wall Street". Eta 1929xan Primo de Rivera bialdu zeban kalera Erregiak. Zegaittik? Diruak gastau ziranian lanik barik geldittu giñazen. Eta patrono askori entzutzen netsen nik han ofiziñan: “No, etorriko dok Republika bat edo beste zeozer, hau bota egin bihar dok, hau monarkiau bota egin bihar dok”. Hori patrono askori nik entzutzen netsen orduan Eibarren, nik ofiziñan. Ba egin zan: bota zeban. Primo de Riverak euki zeban lehelengo ekiera bat on txamarra, jentia pixkat engaiñau zebana, baiña agertu zan krisitori eta diru ez hori. Eta ostikokadia emon zetsan Primo de Riverari. Hori danori Eibarren asko sentitzen zan. Eske eze Eibarren beti ilusiño bat izan izan da fusillak egittekoa, gerrako fusillak egittekoa: Oviedok egitten zebana, parte bat ekarri hona Eibarrera. Oviedon, aurretik, egon ziran eibartar batzuk lanian e! Bueno. Haixe Eibarren, sobre todo Julian Etxeberriak, direktoria izan zanak, Eskola Armerixakuak, harek zerabixan bere buruan horixe lanori ekarri bihar zala . Eta Primo de Rivera etorri zan Eibarrera behiñ, eta esaten detsut plazia Untzagakua holantxe zeguala, jentez.

- Gainezka?

- Bete-beterik. Aber lan hori ekartzen deskuen Eibarrerako. Eta, ez zeban, hitz txiki bat be ez zeban egiñ hor asuntuaren gaiñian. Eta Eibarko jentia geldittu zan desilusionauta! “Ene, ezer be ez. Lehengo moduan edo txarrago gauaz hamen”. Hori bakarrik ez. Eskopeta asuntuan eta pistola asuntuan lege batzuek ipintzen jua zan Monarkixia, estorbatzeko hori saltziori, libre saltziori. Trabak ipintzen jardun zeban. Eta horregaittik be eibartarrak kontra zeguazen horrena. Hórregaittik ez da rarua ez Espaiña guztian, ez Eibarren, sobre todo, ha hillaren 12xan, 1931an ha mobimientua egotia, ha aupadia Republikiandako egotia.

5.10. Taberna giroa: txikiteoa; erruleta...

- **Hizlaria(k)**: Sagastume Narbaiza, Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-091/012
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 01:05:45. **Bukatu**: 01:08:42
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Taberna giroa. Nagusiek eta beharginek bizimodu berdina egiten zuten tailarretik irten eta gero. Txikiteora joaten ziren (orduan ardo zuria edaten zen). Tabernetan erruleta bat egoten zen, eta galtzen zuenak ordaindu egin behar izaten zuen. Kubako egoera.

Transkripzioa

- Nik... Bueno, bueno. Eta hamen ezagutzen zeben Tropicana. Han ez detse emoten inportanziarik. Ez da... Bueno, zuk entzutzia eukiko dozu: ez da hamengo moduan por ejemplo, "pues este es Patricio Etxeberria, si señor, es un don. Pero allí puede ser Patricio Etxeberria y es igual que otro". Nik Eibarren ikusten neban hori. Eibarren lehen asko zeguan. Nik lagunak euki dittut, nik, Balenziagatarrak eta zerak. Balenziagatarrak. Orduan txikiteua egitten zan, goixian zurixa eta zerian. Eta ni akordatzen naiz hónek Balenziagatarrak, fabrikantiak, obreruekin: urten taillarretik eta txikiteora. Orduan ruletia egoten zan tabernetan. Eta obreruak eta ugezabak, e! Eta danak buzuakiñ! Han ez zetsazun igartzen haura Balenziaga zan edo azkenengo zera zan, monigotia zan. Danak igual. Pagatzen zeban galtzen zebanak. "A pagar", rondia. Orduan errial bi kostatzen zan txikitua. Eta ruletan. Ra! Benga. Eta ezagutzen zebanak bai. "Koño, hau Jose Luis eta bestia...". Baiña Habanan zan "todos"...

- Bai, bai, igual.

- Igual, bai. Gero... Eta ointxe be bai. Hórretan beti egongo da hori. Hor eta Venezuelan, hónek danok, hónek zerok, hórretan... Pentsaizu, Habanan ni egon nintzanian, kañako zafra zerian, haitianuak eta jamaikanuak etortzen ziran kañia ebatera. Pentsaizu. Eurak lotsatu egitten ziran.

- Bai, bai, oso lan bajua da...

- Eta ezer be ez. Han jatekorik be ez dozu euki... Bai, ba, han egitten zeban beruakin janztekorik be ez. Eta frutia nahikua eta zera. Txokatzen jata, esaten dabe gosiak bizi dirala. Han ez dozu bihar jatekorikan fuerte, esnia euki ezkerro, esnia, eta ogixa. Eta zera, "viva la Pepa". Hango jentia alperra da, alperra, bai. Eta egunian bizi!

- Egunean egunekoa eta.

- Egunian. Ni akordatzen naiz, esan detsut, ba, juaten nintzan "a la fábrica" H.Upmann-era. Eta zegozen fabrika silla de ruedetara juaten nintzan eta dominuan, taillar barruan.

- Jolasean.

- Jolasian. Dominuan, e! Laurak: makinistia; zerak, kajak eruaten zittuana zigarruakin; bestia filtruetan goixan egoten zana —goixan? Ez, ez, bota hebria eta haura etortzen zan zerian—; eta bestia mekanikua. Laurak. Dominuan. Eta esaten zestan, neri ugezabak esaten zestan: "¿Ves ésto? Estos son los amos. Yo soy el pagador". Orduan eta sindikatuak. Sindikatuak gogor egitten zetsen. Gero Batista etorri zan, ipiñi zittuan makiñak eta etara zeban... Ya problemia euki zeban han, puruen zerekin. Puro de... "Tabaqueros de portal" esaten zetsen, "zapatero de portal" moduan. Kafia-eta be holantxe egitten zeben. Tinbriakiñ eta. Zelako kafiak eta. Puruak-eta edarrak, e! Edarrak.

- Beste mundu bat.

- Bai.

5.11. Alfa kooperatibaren sorrera

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-092/007
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:10:23. **Bukatu**: 00:13:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

- **Laburpena:** Alfa, sozialistek sortutako kooperatiba. Alfan lanean sartzeko araudia bete behar zen. Alfa nola sortu zen azaltzen du: Orbearenean greba gogorra egon zen eta langileek kooperatiba bat egiteko asmoa izan zuten.

Transkripzioa

- Alfa, Alfa. Hori beste historia bat da.

- Nik ez neban nahi Alfara juaterik.

- Ez?

- Ez. Zegaittik eze, Izarren ondo neguan. Bakarrik, amandako eta, arazo haundixa zan semia zapatuan etorri eta astelehenian juan eta... en fin! Baiña ni han lanian, ondo neguan, gustora! Eta banekixan Alfara "tornorevolver"era juan bihar nintzala biharrera. O sea, ya mekanikatik alde egitten neban, ezta?

- Bai, bai, bai, bai. Baina Alfa, bestalde, zuena zan. Sozialistena ez zan ba?

- Bai ba, akzionista! Sartzerakuan ez bazekazun akziñorik gurasuak edo... zeuk akziñuak hartu bihar zenduzen. Ez eben obligatzen zenbat, baiña akziñuak hartu bihar ziran, akzionistia izan bihar zan.

- Kapitalista, beraz.

- Bai.

- Sozialistak kapitalista eginda, hemen Eibarren.

- Ba... Reglamento batzuk, Alfan sartzeko, bihar ziran. Izan bihar ziñan: Alfako bihargiñaren semia edo akzionisten semia, zegaittik eze Alfatik fuera, akzionista asko zan Eibarren. Zela agertu zan Alfa? Ba, huelgia bat egon zan Eibarren Orbeanian, eskatu eben zera, laguntasuna "Casa del Pueblo"ari, "Casa del Pueblo"ak lagundu etsen, huelgia hiru hillabetekua edo izan zan...

- Gogorra, gainera! Abzututik abendura!

- Bai, ba!

- Luzea eta gogorra.

- Huelgia irabazi egin zan, irabazi egin zan. Baiña Orbeanian bihargin mordua ez ziran ondo geratu ugezabaz. Orduan, itxuria, pentsatzen eben Alfa kooperatibia egittia. Taillar bat eguan salgai, hamentxe! Hortxe eguan taillarra —Etxeberria Hermanos— eta Alfak erosi eban. Horretarako, ba, akziñuak. Eta akziñuak e... bihargiñak hasten ziran seilluekin; eta etxian eguan liburu... kuadernotxo bat, eta aittak zapatuetan ekartzen eban zera, seillua eta ni nintzan pegatzaillia. Gero, liburua betetzen zanian, hartzen ziran akziñuak eta ["visto" bat egitten jakon].

5.12. Lantegiko nagusien eta langileen arteko harremana

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose

- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi

- **Erref:** AB-092/009

- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:14:26. **Bukatu:** 00:16:17

- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

- **Laburpena:** Ugazaba eta langileen arteko harremana Eibarren. Aita Beistegirenean akabatzailea zen. Anekdota barregarri bat kontatzen du honen inguruan.

Transkripzioa

- Baiña Eibarren gauza bat eguan zera: Beste herrixetan —por ejemplo, Durangon eta— dirudunak —esango dogu— ez eban alternatzen bihargiñekin. Eibarren ez eguan hori, e! Eibarren gauza bat notabilia genduan. Nere aitta zan Beistegiñian akabatzaillie, bihargiña zan. Beistegi anaiak ziran ugezabak, baiña lagunak ziran.
- Bai, bai, bai, bai.
- Kuadrilla baten juntatzen ziran ugezabak eta bihargiñak: txikiteuan, bazkarixetan, kazara... Kazara be alkarrekin, peskara be alkarrekin... Nahiz eta taillarrian Cosme eta Juanito ugezabak izan, kalia ez ziran ugezabak.
- Bai, bai, bai. Horrek, beraz, esan nahi du, bestelako elkartasun bat edo bestelako giro bat bazala hor!
- Bai. Txiste bat kontauko detsut.
- Bota!
- Ipuña, ipuña behintzat. Eibarren zan famoso bat: Punteret. Dotoria. Akabatzaillia zan. Baiña iñok ez eban pentsatzen —ha hain zan kuriosua eta garbixa— akabatzaillia zanik. Klaro! Ugezaba eta bera lagunak ziran. Eta egun baten Punteret Untzagan tabernan eguan, mostradorian, eta sartu zan Cosme Beistegi, ugezaba. Punteret gastua egitten eguan: “Ze hartuko dok?”, “Booo!”. Ugezaba juan zan pagatzera eta esan etsan eze: “Ez, e? Ez. Hamen ez dok pagauko. Hamen neuk pagauko juat. Hik pagau egik ondo taillarrian! Taillarrian pagau egik bihar dan moduan, baiña hamen ez, e? Hau neuk pagauko juat”.
- Inbitazioa.
- Bai.

5.13. 1934ko urriko iraultza: eibartar asko preso; epaiketak

- **Hizlaria(k):** Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-106/011
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:20:34. **Bukatu:** 00:24:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
 - Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- **Laburpena:** UGT-ko sindikatuko buruetako bat izan zen Benigno, eta 1934ko urriko iraultzan ere parte-hartze zuzena izan zuen. Partidu Sozialistan iraultza hura prestatzen aritu ziren. Pertsona ugari preso hartu zituzten (300 inguru). 1936ko otsailean epaiketa egin zieten. Kartzelako bizimodua. Eibarko herriak laguntasun handia eskaini zien presoiei.

Transkripzioa

- Bueno, 34. urtean, 1934. urte haietan, sindikalista amorratua zen Benigno Baskaran. UGTko sindikatu metalurgikoko presidente ere bai, izan ziñen. Eta insurrekzio batean ere...

- Baitta, parte hartu gendun.

- Urriaren 5eko insurrekzioan parte hartu zenuen.

- Hillan bostekuan.

- Bai, nola izan zen hori?

- Oktubrian. Hori, Partido Sozialista barruan preparatzen egon giñan hori insurrekziñuori.

- Asturiasko insurrekzioarekin bat eginda.

- Asturiaskuakin batera; baterakua zan Asturiaskua ta Eibarkua ta Bilbokua ta... esan deigun, leku guztietakua. Guk Eibarren geure insurrekziñuori egin gendun ta preso mordo bat eruan giñuezen Pamplonako garzelara.

- Zenbat preso? Eibartik zenbat preso?

- Hirurehun bat egon giñan gehixen egon giñanian. Ta juzgau ginduezenian, juzgau ta gero libertad probisionalekin askok urten eben ta 36 geratu giñan.

- Kondenatuta? Zenbat urtetarako kondena?

- Neuk hogeta bostekua.

- Hogeita bost urte. Hori 34an zen, ez? Treinta y cuatroan.

- Bai, ta febreruan, treinta y seisian, juizua. Bai, bai!

- Bai, bai, bai, bai, bai... Urte t'erdi kartzelan pasa eta juizioa beraz?

- Bai. Urtebete ta hamazortzi hillebete edo, hamazortzi hillebete edo egin genduzen garzelan.

- Zer nolako bizimodu eramaten zenuten kartzelan garai haietan?

- Karzelia beti be ez da ona, ta rantxua ba... rantxua beti egun baten gauza bat jaten. Baiña hor aspektuan Eibarrek euren presueri... ondo alimentauta egon ziran. Baiña gauza bat kontauko detsuet: Aste Santua aillegau zan ointxe datorren moruan, ta guk pentsatzen gendun eguneroko harek garbanzuak okela pusketa batekin...

- Egunero okela pusketa batekin ematen al zizuen?

- Okelia... garbanzuak ta okelia sartzen eben, ta txorixo punta bat edo... emoten deskuena!. Ta: "Ba! Menuan kanbixua dakagu ba! Monjak dauaz zerian, sukaldian ta". Baiña ..., itxuria, obispuari eskatu etsen permisua, eurak segidu leikiela hori rantxuori egitten.

- Eta, Aste Santutan ere...

- Bai, bai, igual!

- Igual? Okela eta guzti? Zuek pozik, ez? Bi gauzogatik, ez? Bat, okela jateagatik, eta bestetik, neurri laiko bat mantendu zelako, ez?

- Bai.

- Eta horretaz aparte, eguneroko bizitzan kartzelan zer egitten zenuten? Asko irakurri, gimnasia... Nola, nola...ze, zuk orduan zenbat urte izango zenittuen, hogeit ta hiru, hogeita sei?

- Hogeta sei urte. Bueno! Hor bakotxa bere kastan egoten da zelan pasau leikian. Gaixo luze baten pasa... Neretako, desde luego, karzelian aldian gaixo luzia eskasagua izan da.

- Egur asko? Torturarik izaten al zan kartzelara sartu baino lehen? Hemendik eramandakoan eta, Eibartik eramandakoan eta?

- Bueno... Bertan kartzelan garela ez. O sea, Pamplonako kartzelara zuzen eruan giñuezen eta hori bentaja bat izan zan, gero ez eukitzeko kastigorik. Ostian, ba..., irakorrialdi batzuk egin ta..., ba, lagunekin edo, demandan be egin bihar bada, ta holan zertu giñan.

5.14. Maiatzaren 1a nola ospatzen zuten umetan

- **Hizlaria(k)**: Baskaran Guridi, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi

- **Erref:** AB-106/029
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:45:22. **Bukatu:** 00:47:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Umetan maiatzaren 1a nola ospatzen zuten gogoratzen du: bandera gorriak manifestazioetan, etab. 3 / 8 orduak.

Transkripzioa

- Beste ospakizun bat ere gaiñean daukagu. Apirillaren 14aren ondoren badakizu zer etortzen den: maiatza, eta maiatzaren lehenbiziko eguna. Maiatzaren lehenbiziko eguna ospatze horrek ba al du sentidurik gaur egun, ikusirik langille mugimenduak, sindikatuak, ba, ez dakit, orain dela urte batzuk baiño askoz ere hillago daudela?

- Guretako "primero de mayo"-a -ta neretako- beti izan da jairik nausiña. "Primero de mayo"-a da jai bat langilliak, bihargiñak, kontuan euki bihar dabena. Eta neri umetako gauzak akordatzen jataz "primero de mayo" aittatu ezkerik. Guk ume-umetatik, bandera txiki gorri batzuk hartu ta manifestaziñuaren atzetik juaten giñanian, zortzi urte edo hamar edo hamabi urte edo, en fin!. Ta gero, gaiñera, ba, horrek legiok defenditzen han; neri sekula be ez jata ahaztutzen, por ejemplo, "ocho horas de trabajo, ocho horas de ocio y ocho horas de diversión", o sea, harek zortzi orduak eskatzen ziranian, eskatzen ziranian... ta ume-umetatik manifestaziño guztietan, hori zortzi ordukuori etorri arte, beti ikusi izan dittut; ta neri ez jataz ahaztutzen sekula be "primero de mayo"-ko manifestaziñuak, ez umia izan naizenian ta ez nausixa izan naizenian. Neretako "primero de mayo"-a da jairik nausiña, danen gaiñetik daona. Neretako ez dao beste jairik.

5.15. Bizikletagintzaren garrantzia Eibarko ekonomian; txirrindulari eibartarrak

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/005
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria
- **Laburpena:** Txiki-txikitatik izan du txirrindularitzarako zaletasuna. Aitak berari eta anaiari GAC bizikleta erregalatu zien. Gerora etorriko ziren BH, Orbea... Eibarren, eskopetagintzak eta bizikletagintzak garrantzi handia izan dute beti. Eibarren bizikletak egin bai, baina txirrindulari gutxi atera direla dio. Gerra aurreko txirrindulari ezagunak Eibarren: Felix Gojenola, Mardaras...

Transkripzioa

- Hala ere, Juanito, ikusi dut txiki-txikitatik izan zenuela zuk bizikletarako afizioa. Ez?

- Asko. Nik beti.

- Eta hori zergatik zen? Eibarren halako giro berezia zegoen ala zuk eduki zenuen afizioa?

- Bai. Orduan ba... Ni... Gerra aurrian, ba, bizikletak egitten hasi zan - gaiñera nere aittak erosi estan- Bicycletas GAC. Haixe izan zan lehelengo fabrika Eibarren hasi zana. Eta aittak haixe erosi estan errege egun baten. Granuja nintzan. Neri eta nere anaiari, bizikleta bat bixondako. Baiña nik afiziño gehixago nekan anaiak baiño eta han ni ibiltzen nintzan. Bueno. Orduantxe hasi zan bizikleta egitten. Gero, gerra ostian, bueno, gerra ostian, etorri zan hau jokieriau: Orbea be hasi zan, BH hasi zan... Eta Eibarren egozen, ba, fabrika mordua. Bueno, fabrika mordua... Akzesorixo zelan esaten dan euskeraz ez dakitt, baiña bizikletiandako: batak pedalak egitten zittuan, bestiak erroberak, bestiak egitten zittuan kuadrak, bestiak... Eibarren zulo guztietan bateron batek, batak edo bestiak, zegozer egitten eben bizikletiandako.

- Eta jende guztiak ere izango zuen Eibarren bizikleta orduan.

- Baaai. Orduan, orduan izan zan, Eibarren mundu gehixena-gehixena bizi zan eskopetiakin eta bizikletiakin.

- Eta mutikoentzat, beraz, deporte egiteko aukera on bat. Eta ziklistak ere aterako ziren horrexegatik hemen.

- Ez, hamen ez da egon askorik. Orduan, gerra aurrian, gerra aurrian, nik ezagutzen nittuan -ni granujia nintzan eta-, nik gerra aurrian hemeretzi urte, hamasei urte, hamazazpi urte nekazen, baiña orduan ezagutzen nittuan Eibarren Felix Gojenola, Mardaras, `Basarri´ eta beste holakotxe... Baiña Eibartik ez dau urten ziklistarik. Bizikletak egin, bai. Egin artalen moduan, garixan moduan egitten ziran bizikletak. Baiña ziklistarik ez eban urten.

5.16. Eibarko Klub Deportiboa eta Arrateko Igoera

- **Hizlaria(k)**: Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-108/006
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:07:21. **Bukatu**: 00:10:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- **Laburpena**: 1943 inguruan "Club Deportivo" a Kalbetoi kalean zegoen. Txirringularitza sailerako norbait behar zutela esan zioten, eta bertan hasi zen. Arrateko Igoeraren hastapenak azaltzen ditu: bidea oraindik harrizkoa zen; sariak zenbatekoak ziren, etab. Garaiko txirringulari ezagunak zeintzuk ziren aipatzen du: Mancisidor, Langarika... Laster hasi zen diru-iturri berrien bila; gauza asko zeuden egiteko.

Transkripzioa

- Gerra bukatu eta handik gutxira hasten da Arrateko igoera. Zu tartean zaude, organizazioan. Nola hasten zara, Juanito, pixkanaka-pixkanaka bizikleta munduan eta karrera munduan sartzen?

- Ba esango detsut. Gaiñera, nahi dot jentia jakin deixan ze lan emoten daben gauzak egiteko. Orduan denporan ni anaian tabernan nenguan. Eta zan "el año..." 43 edo hortxe zan -1943-44, hortxe-. Eta etorri jatazen Klub Deportibo... Orduan Klub Deportibua eguan "calle Calbeton". Eta zan ezer be ez. Soziedadiak eukiko zittuan 50 metro kuadrak, altuena. Ez zekan gehixago. Eta handik diar egin esten esateko, ba, komis... ziklismuan gizon

bat falta jakuela eta lehen egon zanak alde egin dabela eta ia ni hasiko nintzan. Bueno, zelan nik beti euki doten barruan, bihotzian, zeozer egitteko gogua, geldirik egon ezin, umetatik be ez, ba bueno, baietz. Hasi nintzan eta holaxen: "Subida a Arrate" hartu nebanian, ikusi neban eta etorri ziran, ba, orduan nik orduan ezagutzen nittuan korredoriak: Mancisidor, Langarika, Langara, Trueba eta hórrek. Eta egin zebe subidia. Eta gaiñera subida, karretera, kamiñua, Arratera harrixa zan.

- Asfaltatu gabe.
- Bai, bai. Asfalto barik. Eta hárek ikusi, holan, gora igotzen...
- Ia ziklo-krossa baino okerrago!
- Bueno, eta zelan igo? Eta zelako burruka...? Burrukan. Sartu jatan barru-barruan eta esan neban: "Ene, hónek gizonok, hónek gizonok merezi juek hau baiño gehixago". Eta hasi nintzan, ba... Gaiñera -esango dot-, hárek egitten eben lana eta lehelengo premixua, 50 duro. Bigarrenak zekan 40 duro. Bestiak, 175 pezeta. Bestiak... Bueno. Esan neban: "Hónek gehixago merezi juek". Eta nik beti zelan euki doten, eta ez dakat lotsarik esateko, arpegixa euki doten, hasi nintzan diru billa: batari juan eta bestiari bestia eta zeozer gehixuago jaso neban. Eta karreteria, kamiñua be, pixkat arreglatzen neban: Diputaziñora juten nintzan eta egitten nittuan ahalegiñak ha kamiñua arreglatzeko. Eta bueno, pixkat urtero-urtero ezin dot kontau dana, bestela egongo nintzake hiru bat egunian hamentxe zueri hizketan. Baiña esaten detsuet: pozik egin dot egin dotena; egin dittuten gauzegaittik pozik nago.

5.17. Juanito "Txoko" Espainiako Itzulian

- **Hizlaria(k)**: Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-108/007
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:10:15. **Bukatu**: 00:12:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debabarreneko lantegiak
 Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- **Laburpena**: Espainiako Itzulian ("Vuelta a España") egindako lana zein izan zen azaltzen du. El Correo Español- El Pueblo Vasco arduratu behar zen lasterketaren jarraipena egiteaz eta Juanito Guisasola jarri zuten txirindularien eta antolakuntzaren arteko lotura lanak egiten; epaile-arbitro bezala, alegia. Harrezkero, 9 urtean zehar jardun zuen Espainiako Itzulian parte hartzen. Euskal Herrian txirindularitzak garrantzi handia izan du beti Juanitoren esanetan.

Transkripzioa

- Esango dugu, Juanito, Espainiako Vuelta asko egin dituzula. Juxtu, bederatzi. Gaur hasi da Espainiako Vuelta. Zein zen "Vuelta a España"-n zuk egiten zenuen lana? Zer lan egiten zenuen? Eta kontaiguzu zerbait orduko Vuelta haietaz.

- Bueno, hamen zerak orduan, Bilboko 'Correo Español'a, 'Correo Español-El Pueblo Vasco', horrek hartu eban jaramona "Vuelta a España" egitteko. Eta ni zelan motuan ibiltzen nintzan hamengo inguruetako karreretan, Luis Bergaretxe zan orduan hango, 'Correo Español'eko, direktore, bueno "Vuelta a España"-n... Ez! Lehelengo Aletxo Etxeberria izan zan, lehelengo

direktoria "Vuelta a España" kua, lehelengua. Alejandro Etxeberria, Aletxo Etxeberria. Gero harek egin eban urtebete eta gero Luis Bergaretxek hartu eban. Eta nik orduan... Alejandro Etxeberriak zelan entzunda ekan, ni ibiltzen nintzan batera eta bestera, eta diar egiñ esten. Jun nintzan eta esan estan: "Bueno, bai, hi!". Zelan esplikatzan nentsen zelan dan hau eta bestia, zegaittik nik reglamentuak ondo nekixazen eta . Esan estan: "Bueno, hi, nere enlaze jarriko haiz. Eta juez-arbitro nahi badok egittia San Romanekin batera...". "Bai, bai. Ni konforme. Ha juango da aurrian eta ni atzian. Eta biren artian hobeto egingo dogu". Eta holaxen. Eta holaxen hasi nintzan eta gero berak, Bergaretxek, konfianza haundixa hartu eban nerekiñ eta periodistak be bai, danak ezagutzen nittuan . Eta hango komisarixuak be bai. Gaiñera, errespetuaz hartu bihar zendun bestiak be egin eben lana egin zeixen. Ez zan, diziplina ez zan zera. Zan borondatia eta. Han juaten zanak ezer be: berrogei duro kobratzen zittuan barren! Ez zan ezer be. Baiña juaten zan jentia gustora. Hárek hasierak "Vuelta a España" kuak, gerra ostekuak, jentia pozik. Gaiñera, ziklismua sartuta eguan hamen. Ziklismua Euskal Herrixan asko sartuta eguan. Holaxen egin nittuan... Bedratzi urtian "Vuelta a España" n ibilli nintzan.

5.18. Bahamontes vs. Loroño; Bahamontes Eibarren

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/014
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- **Laburpena:** Loroño eta Bahamontes txirrindularien arteko gorabeherak. Bataren eta bestearen aldekoak. Eibarren txirrindularitzarako zaletasun handia egon izan da beti. Bahamontes lehenengoz Eibarrera etorri zeneko kontuak.

Transkripzioa

- Eta horretaz hitz egin behar dugu, Juanito. Loroño eta Bahamontes, Bahamontes eta Loroño. Eta Bahamontesek hemen urte mordoxka baten irabazi zuen: hasi 1958an eta bost urtez segidan irabazi zuen [...]. Esan beharra dago Bahamontista mordo bat zirela eta Loroñista asko ere bai, ezta? Nola zegoen orduan Eibarko bizikletako afizioa?

- Bu! Hamen egoten zan, zer esango detsut ba?

- Zer zen, Athletic eta Real bezala, Bahamontes eta Loroño orduan?

- Bai zera! Gehixago! Zegaittik Realak eta Athletic de Bilbaok ez dabe euki hain zerik: bastante lagun gehixago izan dira; lagun, gehixago dira Athletic de Bilbao eta Real. Jentia esango dau hau eta bestia, baiña neretako ez.

- Baina Bahamontesek beti esaten du Loroñorekin ondo konpontzen zela.

- Ez da egixa hori!

- Ez da egia hori?

- Neretako ez. Ez da egixa. Hori ez da egixa. Bixak be, bixak be, bixak be, hor ibiltzen ziran: batak "hi" eta bestiak "hi" eta bestiak "hi" eta. Baiña guri haixe komeni: hárek euki zeixen hori pikiori esaten dan moduan. Orduan jentia hamen... bata Loroñista zala eta bestia Bahamontista zala

eta bestia ta... Neri esaten esten Bahamontistia nintzala.

- Hala zinen?

- Bai, ha zan... Bahamontes etorri zanian hona, etorri zan Zumarragatik bizikletan. Eta etorri zan... Zelan esango detsut ba? Hónek ijittuok etortzen dira ba? Ba igual-igual etorri zan: ez diru... Eta etorri zan "Bicicleta Eibarresa"n parte hartzera Bahamontes. Eta etorri zan tarjeta batekin, Madrirttik etorri zan: "un tal Bermejo, presidente de la Federación castellana". Haren tarjeta bat ekarri estan, esaten ba...

- Rekomendazioa.

- Bai. Esan neban: "Bueno, hi. Han, bizikletia sartu han tabernan". Txokuan sartu eban eta esan netsan: "Bazkaldu dok?". Eta: "Ez". Bueno, ba, nere andriari esan netsan: "Emoixozu honi jaten edo". Nere andria, nere andria graziak jangoikuari eta daneri... Euki dot andra bat! Nik euki doten andria ez bazan izan izan dan modokua, nik ez neban organizauko ezer be. Ezer be! Ez nintzan juango iñora be. Zegaittik nik egin doten guztia, graziak nere andriari. Hori egi-egixa da. Nik sarri esaten detset eibartarrerri, askori esaten detset: "Ni ezkondu nintzanean, Gabonetako loterixia tokau jatan. Eta egixa da. Egixa da, eta ez dakat ardurarik esateko.

- Eta egun hartan, behintzat, Bahamontesi bazkari goxoa eman zenioten.

- Bazkarixa eta, gaiñera, lo nun egitteko Paseo San Andresen guk zekagun interina bat, harek interiniak galdera egiñ etsen nun lo egiñ. Eta esan netsanian ia dirurik zekan, eta ez zekala dirurik, eta emon netsazen hogei duro, emon netsazen. Eta gero portero baten andriak preparau etsan tortillia eta jamon de york eta preparatzen etsan. Entrenamentura urtetzen eban eta... Neri esaten esten ni Bahamontistia nintzala. Ni ez nintzan Bahamontistia. Bahamontes etorri egin zan neregana. Bueno, etorri edo, premiñia ekan orduan eta nik lagundu egin netsan.

5.19. Bahamontes Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-108/015
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:33:38. **Bukatu**: 00:34:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- **Laburpena**: Bahamontes Eibarren; "Bicicleta Eibarresa". Bahamontes txirrindulariaren inguruko kontuak.

Transkripzioa

Eta, gaiñera, hor, "Bicicleta Eibarresa"n, ni motuan noiala, hor karreran... Eta hori karrerori irabazi eban Jose Zarak. Eta bigarren egin eban Bahamontesek. Eta nik ha, Bahamontes, ikusten nebanian Kanpazar igotzen eta Urkiola igotzen-ta, "Bicicleta Eibarresa"ko karreran eta, han Bidania igotzen eta, esaten esten Eibarko "Bicicleta Eibarresa" egitten ebenak: "Hi, Juanito, hi, `Txoko´, hau korredoriau nundik ekarri dok hik?". Eta: "Nik ez juat ekarri. Bera etorri dok". Eta: "Zein dok hau?". Eta: "Bahamontes esaten jetsek ". Bahamontes eta. Etarazu kontua nora lilegau zan Bahamontes! Bahamontes. Eta nik orduan Bahamontes hárek gauzak egitten ikusi eta barruan sartu jatan. Hori edozein personari be. Ze

pasau da hamen Urtainekin? Ze pasau da aizkolarixekin? Ze pasau da harri-jasotzailliekin? Perurena... Zegaittik dake hori? Bahamontesek egin egitten eban eta ha egin eban orduan bigarren eta "Premio de la Montaña" irabazi. Eta etorri jatan Bahamontes dirua emotera. Esan netsan: "Ez, eruaixaz danak. Nik ikusi hautena egitten nahikua dok neretako".

5.20. Loroño vs. Bahamontes Arrateko Igoeran

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/017
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:36:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- **Laburpena:** Arrateko Igoerak izen handia hartu zuen Loroño eta Bahamontes txirrindularien arteko ika-mikak zirela eta. Hainbat datu ematen ditu.

Transkripzioa

- Bueno, gauza da, Juanito, "Subida Arrate"ri Bahamontesek eta Loroño izen handia eman ziotela, batez ere elkarren arteko borroka horrek, ezta?
- Bueno, normala! Baiña hori... Esango eben: "Bai... - periodistak esaten eben- Hórrek dabixaz ipoiñekiñ eta". Neretako ez zan ipoiña. Ez zan ipoiña. Ez. Hori...
- Eta, gainera, etorri, irabazi eta record-a ere egin zuen behin baino gehiagotan.
- Bai, bai. eE ke... ez ekan kontrarixorik igotzen. Hori egixa esan bihar da. Eta neri, esango dot ba, Charly Gaul be etorri zan eta ezin. Eta beste bat: Sagarduikin ekan kontrarixox pixkat, Sagardui bastante ondo ibili zan eta baten irabazi etsan. Zegaittik Bahamontesek zazpi bidar parte hartu eban "Subida Arrate"n. Bost irabazi eta bi bidar bigarren. Bat irabazi etsan Sagarduik eta bestia irabazi etsan -1965ian- Julio Jimenezek, irabazi etsan. Eta hórretxek galderok egin zittuan Bahamontesek. Eta Eibarren jentia ikusten eban Bahamontesek irabazi ebala, Bahamontesek irabazi ebala, Bahamontesek irabazi. Hor lehen esan dozun... zuk esan destazun preguntia: ba, Bahamontistak eta Loroñistak asko eguzen.

5.21. Arrateko Igoera nazioarteko mailako lasterketa

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/018
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:37:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

- **Laburpena:** Nazioarteko maila nola hartu zuen Arrateko Igoerak. Laguntasun handia jasotzen zuten herrian eta horri esker gero eta txirringulak hobekatu egin zituzten.

Transkripzioa

- Bueno, eta gero hasten zarete pixkat kategoria internazionalerako ziklistak ekarri, kanpotik ekarri. Eta ekartzen duzue Anquetil, Mastrotto, Agostinho, Mortensen, [Boxfol], Poulidor, Gimondi... Zuk esan duzuna: jende asko ekarri duzue. Juanito, kontaidazu pixka bat nola egiten zenituen kanpotik ekarritako jende horrekin kontratuak egiteko, nolatan konbentzitu zenuen jendea Eibarrera eta "Subida Arrate"ra etortzeko?

- Bueno, ba esango detsut: Klub Deportibuan atrebidu giñan hórrek ekartzera, zegaittik nik junta direktiban esaten neban "Subida a Arrate"k indar haundixa ekala. Eta "Subida a Arrate"k indar haundixa ekala ez geure lanagaittik, jentia laguntzen zeskulako, jentia asko laguntzen eskun. Fabrikak eta herrixak eta inguru guztiak asko laguntzen eskun. Eta jentia hartu eban "Subida Arrate", hartu eban uste berana dala zegozer. Zegozer berana dala. Eta hori egia da. Eta orduan jentia laguntzen eban. Eta graziak horritxi atrebidu giñan hórrek ekartzera.

5.22. Jacques Anquetil eta Arrateko Igoera

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/019
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:37:36. **Bukatu:** 00:42:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- **Laburpena:** Hainbat txirringulak ezagun etorri izan ziren Eibarrera; izenak ematen ditu. Jacques Anquetil Arratera ekartzeko ahaleginen nondik norakoak azaltzen ditu.

Transkripzioa

- Lehelengo korredoriak ekarri nittuanak izan ziran Jean Dotto eta Huot. Etorri ziran, hórretxek ziran lehelengo saltsa emon etsenak "Subida a Arrate"ri. Hórrek etorri ziran urte bixan.edo etorri ziran. Gero nere galdera, nere buruan nekana, zan ia Anquetil ekartzen neban. Bueno, Louison Bobet ekarri neban lehelengo. Hiru [galdetan] irabazi eban "Vuelta Francia" eta ha ekartzia zer haundixa zan. Eta egin nittun gestiñuak eta Louison Bobet-ek kobratzen estan 90.000 pezeta. 90.000 pezeta! Noventa mil pesetas! Etorri zan. Ha etorri zan eta belodromuan atsaldian jentia pozik: Bahamontes, Loroño eta Louison Bobet Eibarren ikustia zera zan. Gero ba gehixago eta gehixago eta. Esan neban: bueno, ba, etortzen ziran Oldenburg, eta Renato Longo eta Roger de Vlaeminck eta Mastrotto eta etortzen ziran batzuk. Baiña nik, neretako, Anquetil ekartzia nahi neban. Eta holaxen jun nintzan Parisera. Egon nintzan [Joset]-ekin. [Joset] zan "el manager", managerra, zera, munduko korredorerik famosuenena. Harekin. Eta harek esan estan: 125.000 pezeta. Eta hau asko zan eta esan netsan: "Koño bajatu...". Eta: "Nik ezin detsut. Ba egon zaitte Anquetil-ekin". Eta zer egin neban? Emon estan direkziñua eta berak diar egin etsan Anquetil-i

eta "a Ruen".

- Hori zer zan, Juanito, hirurogeita gutxian, ezta?

- Bai, 63 edo 64an pentsatzen dot zala. Eta ni zelan izan naizen beti bastante atrebidua zelan izan naizen, ba, han jua nintzan Anquetil-egana, beran etxera. Eta beran andriak urten estan. Jeanette, andra ona, Eibarrera etorri zan bi bidar edo. Eta: "Zer?". Anquetil-ekin egotia nahi nebala, Jaquesekin egotia nahi nebala. Eta ia nungua nintzan. Espaiñiakua nintzala, Euskal Herrikua, bueno, Donostia aldekoa nintzala. Eta bueno: "Pasa". Berakin Anquetil han eguan. Egin neban hizketan berakin nere franses zer horrekin. Esplikau netsan, esan netsan Anquetil-i gure organizaziñua zelan zan. Zelan... Ze bihar egitten genduan, zelan juaten giñan taillarrik taillar, zelan pasatzen genduzen sobriak tabernetara eta dendetara eta. Egitten genduzela... Berak esan estan: "Baiña holan egitten dozue?" Eta: "Bai. Gure galdera, gure organizaziñua holaxen da. Nik egi-egixa esaten detsut". Eta: "Hombre! Neuk egingo detsat diar. Egon zaitte pixkaten". Diar egin eban eta esan estan: "Eginda dago. Konforme zagoz 20.000 duro?". Eta: "Bai". "Jungo naiz?". "Bai", esan netsan, "hamen dakat kontratua". [Joset]-ek esan estan, kontratua. Eta oindiok akordatzen naiz. Hartu eban eta berak eskribidu eban, firmau eban eta esan estan: "Hor dakazu eta ni jungo naiz".

- Eta Eibarrera etorri zinenean jendeak ez zuen sinestuko.

- "Joe! -esan esten-, hi zoratuta hago!". Esan esten: "Tira, tira, tira". Nik periodisteri esan netsenian Anquetil datorrela eta kontratua zelan nekan ta... Klub Deportibuan esaten esten: "Hik dakaaz -hori guk esaten doguna- hik dakaaz onak, hik, hik! Hori zelan egin dok?" Eta: "A! Badatok. Eta etorriko dok eta bestia". Gero handik egun batzuetara telefonoz diar egiñ eban berak. Nik zelan laga netsan gure direktziñua eta zer guztiak, galdera guztiak Eibarkuak, Klub Deportiboko telefonua eta danak. Telefonotik diagar egin eban, badatorrela. Esan netsen: "Ikusten dok? Ikusten dok? Hor. Nik ez juat, nik, esatiarren egin, berak egin jok diar".

- Eta etorri zen egunean sekulako ambientea, ezta? Inoiz bildu den jenderik handiena.

- "Galerias Preciados"ek preparau eban "un lunch de señor y mía", Anquetil etorri zanian. Andriakin etorri zan. Jeanette, andria. Eta jun zan pozago! Pozago jua zan! Esan estan: "Datorren urtian be etorriko nok. Eta neuk egingo detsat berba [Joset]-i" esan estan. [Joset] zan "el manager", beraren managerra. "Neuk egingo detsat eta datorren urtian be etorriko nok". Hau ambientiau eta hau hamen dagon afiziñua, hamen dagon jente ona, hamen dagoz... Hik esan hestazen hizketak eta esan hestazen gauzak egixa dittuk. Hor".

5.23. Eddy Merckx ekarri nahi, baina ezin

- **Hizlaria(k)**: Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-108/021
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:43:32. **Bukatu**: 00:46:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

- **Laburpena:** Eddy Merckx txirrindularia ekarri nahi izan zuen, baina ez zuen lortu. Belgikako Fabiola erreginari idatzitako eskutitza. Garai hartan txirrindulariei zenbat ordaintzen zitzaien azaltzen du.

Transkripzioa

- Denbora aurrera doakigu, Juanito, eta bukatzen ere joan behar dugu oraindik ere gauza asko komentatzeko baldin baditugu ere. Ekarri zenuten Jaques Anquetil, baina honek ez zuen irabazi eta zuk badakit pena badaukazula Eddy Merckx ekarri nahi zenuen, baina ez zen posible izan, nahiz eta Fabiolari, Belgikako erreginari, karta bat ere idatzi zenion. Eta berak erantzun ere bai.

- Hori holan da. Hori holan da, bai.

- Zer zeneukan entxuferen bat Fabiolarekin ala?

- Ez. Ba guk eskribidu genduan enbajada[ra] eta Fabiolaren direkziñua... Fabiolan izenakin, erregiñaren... "reina de Bélgica", Fabiola. Enbajadara eskribidu gendun. Eta horrek, itxuria, bialdu egin eban. Eta, itxuria, gaiñera guk Eddy Merckx ekartzeko esan genduan: "Joño, Fabiola espaiñola dok eta igual lagunduko jeskuk". Eta nere galdera buruan. Eta jun nintzan eta telefonotik berba egin etsan Eddy Merckx-i. Eta Eddy Merckx konprometiduta eguan. Baiña konprometiduta eguan beste karrera baten. Eta esan eskun sentitzen dabela eta ezin izan dabela egin. Baiña Fabiolak kontestau eskun kartiari. Nik esango dot, gaiñera: badakizue zenbat eskindu jakon Eddy Merckx-i hona etortzeko? 250.000 pezeta.

- Garai hartan egundoko dirutza izango zen, ezta?

- Buf! Gaur izango zan bi milloi.

- Zuen garaiko ziklistarik garestiena zein zen? Anquetil izan al zen?

- Bai, eta Gimondi. Poulidor-ek be, Poulidor-ek kobratzen eban 90.000 pezeta. Gimondik 100.000 pezeta. Charly Gaulek 60.000 pezeta. Anquetilek, esan dot, 100.000 pezeta.

- Bahamontes lehenengo urtean debalde, baina gero ez, ezta?

- Ez! Bueno, Bahamontesi zegozer beti emoten jakon. Baiña nik esango dot galdera bat ona: "Subida a Arrate"n izan zan, "Subida Arrate" egitten zan baiña "por invitación". Ez zan nahi dabenak apuntatzerik. Ez. Guk eske holako igoera bat, igoera bat Arratekua, ipintzen badozuz hirurogei korredore, larregi da. Eta guk esaten gendun: "Bueno, guk hartuko dittugu 26-28 korredore altuena. Eta hori igoerori egitteko nahikua dira". Nik holan pentsatzen dot. Behin 28 korredore, 26 korredore, nahikua da igoera bat zortzi kilometrokua edo zazpi kilometro eta erdi egitteko. Nahikua da.

5.24. Arrateko Igoera; txirrindulari ezagunak

- **Hizlaria(k):** Guisasola Ariznabarreta, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-108/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:47:23. **Bukatu:** 00:49:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak
- **Laburpena:** Arrateko Igoeraren inguruko hainbat kontu. Txirrindulari ezagunak: Poulidor eta beste.

Transkripzioa

- Juanito, lehen esan duzu Marruecos aldean beti ere Gobernuak organizatzen zuen karrera hartan beti ere marroki batek irabazi behar zuela. Eta askotan pasatu da organizazio askori gehiago interesatzen zaiola izen haundiko batek irabaztea etxeko batek baino. Eta hemen dauzkat Eusebio Velezen deklarazio batzuk esaten zuena: "Aimarrekin batera ailegatu nintzen, Lucien Aimarrekin batera, hura ni baino geroago ailegatu zen gero, hamar minutura, eta harek irabazi zuen. Poulidor-ekin beste behin ere berdin pasatu zitzaidan". Egia al da zuei ere berdin pasatzen zitzaizuela? Nahiago zenutela kanpoko izen handi bat jarri izana palmaresean? Kasu honetan Eusebio Velez aipatu dugu, horrelakorik gertatu al zen?

- Bueno, badakizu. Hori nik pentsatzen dot batzuetan normal... Hor dakazu... Iñork ez etsan esan. Baiña neri Poulidor etorri zanian, Wolfshohl alemanakin etorri zan, bixak etorri ziran "Subida Arrate"ra. Eta bizperan igo eben bixak. Eta etorri zan Txokora, tabernara, etorri zan eta esan esten... Poulidor-ek esan estan, franses esan estan: "Bixar seguramente neuk irabaziko dot karrera". "Ene! -esan netsan- Ba irabazten badozu, pozik". Eta: "Ba egingo dittut ahalegiñak, baiña pentsatzen dot irabaziko dotela. Eta Wolfshohl-ek esan estan: "Nik lagunduko detsat. Batak edo bestiak irabaziko dogu". Eta Poulidor-ek irabazi eban. Eta beste urte baten etorri zan eta baitta barriz be, barriz irabazi eban Poulidor-ek.

- Baina badakizu esaten duena Eusebio Velezek, behin baino gehiagotan haserre joan zela, ezta?

- Bueno, baiña ez zekan motiborik. Nik Langarikari be esan netsan: "Ez dakazu motiborik holan jartzeko. Sprintian denpora igualian zertu dira. Eta esan estan Langarikak neri han sprintian segundo bat etara etsala. Ez da egixa. Nik hamen dakat klasifikaziñua eta hamen ipintzen dau "mismo tiempo". Eta oin segundo bat kendu detsa kontrarrelojian". Segundo bat edo bi, ez dakit zer kendu etsan.

5.25. Gerra zibila Eibarren: armak nondik lortu zituzten

- **Hizlaria(k)**: Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-160/019
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:46:50. **Bukatu**: 00:50:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: 1936ko Gerra zibila. Fabriketatik, probaderotik armak hartu zituzten. Txantoianean armak rekisatuta zeuden. Eibarko alkate, Alejandro Telleria. Nahaste handia egon zen; frontea Donostiatik gerturatzen. Errefuxiatuak.

Transkripzioa

- [...] armak ze zian, danak arma txikixak eta...?

- Bai, ba! Eskupeta ta pistola ta zera. Nik riflia banajekan, hamen zerian [...]. [...] rifle bat [...].

- Hori gero, baiña.

- Orduantxe.

- Ya lehelengo egunetik?

- Bai. Bueno, ahal zana ahal zana. [...] bateri kendu najetsan. Bajetuan Txaltxanian afal...

- [...]

- Bai, afaltzen geldittu zan. Ta beste boltsa bat baleaz ta zera, ta hartu ta...

- Ospa.

- Zera, kotxia edo zera euazen zerian, ta sartu ta “benga! guazen”, ta “guazen!” ta. Han geldittu zan bestiori.

- Hamen, hasiera-hasieran, armak repartidu ziranian eta, batzuk “Banco de Pruebas”-etik hartu ziran edo fabriketatik edo nundik etaratzen ziran?

- Bai, fabrika guztietara ekarri, ta... zera. Ta probaderuan zeuazena be bai. Probaderora juan, ta...

- Dana rekisau?

- Dana. Danak. Eta... osea, Txantioanian zeuazen almagazena eta zerak, almagazena, ba, hor partitzen juen. [...] balia edo zeoze [...], baiña jentia hartzen juan bat eta... Bizkeiko jentia etorri zuan asko. Ta gero...

- Alkatia zein zan orduan?

- Alkatia zera izango zuan, Telleria.

- Telleria? Eta alkatiak-eta zeoze... mobimiento guzti horretan zeoze esan zeban udaletxiak?

- E...

- Zeoze organizau zeben edo?

- Bueno, hori... alkatiak-ta ya orduan gelditzen dittuk zero. Osea, parte... honek... ze esaten dok? pixkat urtenak, urtenak. Jente urtena, zera... hartu juen parte ta “benga! hau ein bihar juau!” ta “hau ein bihar juau” ta ya [basia], ez dakik? Harek, ba, bai, [esango] juen “bueno, hau ein bihar juau” ta bestia, baiña [...] Donostiatik etorri zittuan [...] bat, zera, famosua, hau... horko... Gobierno Vasco-ko zerak, ezkerrekuak. Ta horra. Ta “Bueno, organizau ein bihar dok hamen” ta harek “Bueno, ba, hau ta bestia ein bihar dok, eta rekisau kotxiak eta hau ta bestia ta...” enfin, organizau. Un barullo, barullo bat, ez dakik? Barullo bat. Iñok ez jakik ze pasatzen zan. Igual juaten hitzan ta buu beste batzuk be bai ta... nahastia, ez dakik? Baiña kustiñua danok objetibo batera zuan. Ta beste batzuek, ba, igual, ba, pistolak hartu ta igual ez zittuan iñora juango. Ta, bueno, ba, Donostia zertu zanian, ba, atzerutz-atzerutz, hona etorri arte. Hortxe Deban edo geldittu giñuazena. Geldittu ta... Osea... Kamioiak-eta jetuazena, kamioiak asko, refujiauak. Baiña refujiauak fusillak-eta danak ezkutauta eukitzen juen. Ta gero, ba, beste batzuek, ba, rapiñakuak. Han e... gerrian, gerrian, ba, gerria euren. Osea, joierixak edo jente aberatsan lekua edo... e? Juan ta... Bai, ba, jentia orduan...

- Aprobetxau itxitta zerela.

- ... orduan pixkat salbatzia [nahiko zuan], ta “benga, esto...” ta “ra!” mordia. Mordia egon zan e... Gero hamen eitten genduan Estaziñuan be, trenak etortzen zittuan ta, zera, ba, maletak-eta errekestau ta “ra!” ta kurutzia ein ta “benga! paso”. Baiña hala ta guzti be jente asko pasau zuan. Osea... Bueno, gerra denporan rapiña zera... Normala.

5.26. Soldadutzako kontuak; armaginei errespetua

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-164/006
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena:** Soldadutzako kontuak, armagintzarekin lotutakoak. Melillako gerra. Euskal herriko jende asko hil zuten bertan.

Transkripzioa

- Orduan zuek, Eibartik Juan Zañazienak, tratu hobia?

- Bai, bai. Guk arma asuntuan ikututakuan... Nahi izaten juen gu ridikuluan lagatzia be, hango tenientiak eta, eurak zekixenak fusillan izenak eta. Esan gura dot, fusillan... dakazen... desarmau, ezta, fusil guztia ta harek dakazen piezen izenak eta. Gitxik jakitzen jittuen. Han inguruetakuak iñok be ez. Ta baten neri: "¿Y usted de dónde es?" ta..., teniente bat zuan, ta... "Yo de Eibar", "¿Armero?", "Sí, armero", "A ver, a ver, ¡Vamos a ver!". Hauxe mahaixau lakoxe edo txikitxuaua izango zuan, fusilla dana pieza guztiak desmontauta, dana! "A ver, a ver, a ver si me escoge usted ahí el percutor del fusil", "Ahí tiene usted", "A ver el disparador", "Ahí va", "A ver el cerrojo... o el seguro o...", berari okurritzen jakozen gauzak, ezta? "Da!". Hamar bat gauza-edo esandako moduan danak etaratzen najetsazen: "Da! Da!". Dana nahi [zeban harek gizonarek eta!]. Ta "Umm... Usted, de Eibar, ¿eh?", "Sí", "Y entiende de armería... Sí, ya se nota ya, usted ya se nota. A algunos no pero a usted se le nota" esan estan. "Bueno, bueno... ¡Retírese!" Ta holaxen. Leku batzuetan exitua eukitzen genduan, zekiulako arma barri ta horretan horixe besterik ez jaok, fusila ta amatralladora ta tirua ta alkar hiltzia besterikan, ta horixe dok zera. Ta han be ondo urten genduan, ondo. Gero, berriz, esan dotena, batzuk hiltzera, Melillara gerrara, ta gu aittak-eta hortxe salbau giñuezen. Jan ta eran ondo, tabernan, ta lo ta dana, ta erregiak moduan bizi. Ondo [joten] dou guk geure kintako zeroi, denporiori.

- Orduan, ordaindu ezkeren libre ta bestela Melillara?

- Bai, bai, Melillara. Orduan danak ez zittuan juango Melillara, baiña honenbestetik honenbestera edo, sortora edo ez jakixat zelan eitten eben. Behintzat hara eruaten jittuen ta mordua hil be ein zittuan. Gerrara han, han ez jeuan berriketarik! Han egon zuan epoka bat gerrira egon zana. Bertakuak sublebau ta jo ta di-da! ta...

- Eibarren ez zan egon manifestaziñorik-edo ez zan egon horren kontra? Jentia ez zan kejatzen?

- Orduan horren kontra ez euan halako organizaziñorik. Bai, jentia kejavu bai hara juatia, baiña... Eurak baekixen hori, hangua, ta harek nahi juen handik bialtzia gu, espagnolena ez zuan izan be ta errezoia eken harek be ta. Ha geuk hartutako zer bat zuan. Ta geur be halan segitzen jok Marrueko sek Españana. Baiña harek gu handik bialtzia nahi juen ta horrek beste geuzta bat, han be gehittu ahal bazan, bestieri han be terrenuak ostu. Orduan jente ignorantia ta zera jeuan ba, ez oingo moduan, ta ahal bazan ostu bakarrik eitten genduan hamendik espagnolak eta honek. Ta gero harek gerrira ta... Mordua hil jittuen, mordua, hamengua. Gu salbau giñuan holaxen ta akabo.

5.27. Damaskinatuaren beherakada

- **Hizlaria(k):** Basauri Arteaga, Serafin; Murua Sarasqueta, Dunixi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Basauri Arteaga, Serafin
- Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-269/007

- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
- **Laburpena:** Damaskinatuaeren beherakada. Dunisik 24 urterekin laga zuen damaskinatua; ordurako beherakada igartzen zen. "Grabado de metales" ikasten hasi zen orduan, Txomin Martinezek aholkatuta.

Transkripzioa

- Noiz hasi zan damaskinaua beherutz?
- Ba, nik naukazen hogeta bost urte-edo laga netsanian damaskinauari. Hogeta lau...? Hogeta lau. Ya ikusten zan ya beherutz zeuala, ta Txomiñek esan jestan: "Hi, lagaixok damaskinauari, porke hortik ez dakak ezer".
- Serafin: "Hortik ez dakak bizimodurik".
- "Ta hasi hari bestia ikasten", hau, "grabado de metales". Halaxek hasi nitzuan, berak esanda hasi nitzuan. Ta ona izan zuan esatia, porke harek eingo jua, ein leikian "Bueno, hau... Ni aprobetxau eingo nok honekin ta bestia ta... ein deixala berak nahi dabena", ezta? Baiña haxe esan jestan: "Lagaixok honi ta ekixok bestiari, bestela...".
- S.: Ikusten jua orduan gainbehera zoiala...
- Bai, ikusten jua beherutz zoiala. Bai, bai.
- S.: Gainbehera zetorrela.
- Hori zan gitxi gorabehera berrogeita hamabost inguruan?
- Bai. Bai...
- S.: Bai...
- Bai, egon nitzuan...
- Hirurogei...
- Bai.
- S.: 13-14 urtekin hasi bahitzan eskolan...
- "En el cincuenta y cuatro" edo... bai, hortxe.

5.28. Txomin Martinezekin damaskinatzen ikasten

- **Hizlaria(k):** Basauri Arteaga, Serafin; Murua Sarasqueta, Dunixi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Basauri Arteaga, Serafin
- Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-269/008
- **Iraupena:** 0:05:08. **Hasi:** 00:18:02. **Bukatu:** 00:23:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
- **Laburpena:** Placido Zuloaga. Beste damaskinatzaile ezagun batzuk: Martinez, Manchon, Iriondo, eta abar. Oso onak ziren. Txomin Martinezekin lanean hasi zenean, gizon nagusia zen, 70 urte inguru zituen. Artrosia zuen eta Dunisik atzamar lodian lotu behar izaten zion erreminta. Hala eta guztiz ere, bera baino hobea zela dio Dunisik.

Transkripzioa

- Ta Placidon... lehen taillarra aittatu dozuna, nun zeguan? Badakizu?

- Ez jakixat hori nun eguan.

- Baiña Eibarren?

- Hori interesantia izan leikek hori, horrek gauzok jakitzia.

- Serafin: Nik ez jakixat...

- Ez jakixat nok, nok edo...

- S.: Ramiro Larrañagaren liburuan Placidoz-ta bajiharduk horrek, eta Eibarko damaskinauan gaiñian ein zan liburuan be bai, Pedro Zelaiak-eta nahikua historixa jakak. Seguru asko Pedro Zelaiak eukiko jok hor aipamenen bat. Bai, ni seguru naok. Ez jakixat, nun zeguan taillarria ez jakixat esango daben, baiña Placido Zuloagan gaiñian luze ta zabal jardutzen jok Pedro Zelaiak. Ez juat nik irakurri, ze nik hartu najuan liburua ta erramintta bila ibiltzen nitzuan ni han! "Matiau", "sonbriau"... ta ez najuan halakorik ezebe ikusten! Historixia bakarrik. Ta kasorik be ez nik historixiari. Berba horrek...

- Ni be ez nok interesau sekula historixiakin, ta ointxe. Oin penia jaukat. Oin penia jaukat.

- S.: Politta dok. Politta dok.

- Ni juan nitzuan Pedro Zelaiakin Reusera, ikustera zelan zeuan...

- S.: A bai?

- Bai, bixok juan gintzuazen.

- S.: A! Ez eidak esan...! A, bai, e? Osea, Pedro Zelaiakin...

- Bai. Berak esan jestan: "Liburua idazten naok eta lagundidak hara!". Ta [holan] juan gintzuazen bixok, zelan zeuan ikusi ta beste ta... Bai.

- S.: Ba, Pedro Zelaiak, nik uste juat, hor, damaskinauan gaiñian idatzi eban liburuan, historixa aldetik-eta nahiko... itxura ona hartzen jetsat, itxura ona.

- Bai, Zumaixara be bixok juan gintzuazen.

- Hor onak... aittatu dozu Placido, ta gero, Martinez eta...

- Bueno, aurretik [...] Manchón ta honek... onak... Manchón zuan, Iriondo... Neuk ez jittuat ezautu, e! Neuk entzundakua [...].

- S.: Bai, Iriondo... Iriondoren lanak ikusi jittuat... Ikusi, ikusi... Iriondoren izena, bueno, egunotan hor ibili nok eta libururen baten ikusi juat Iriondoren biharren bat edo. Bai. Eta...

- Hango taillarreko jentia zuan...

- S.: Iriondo, Cayetano... Hau, zera, Sarasua, Pablo Sarasua hori, zer zuan? Damaskinadaria?

- Damaskinaua zuan, bai.

- S.: Baiña, ez jekan horrek Martinezen-ta maillarik...

- Ez, ez. Martinez ya zuan autoridadia.

- S.: Autoridadia. Ya, ya...

- Ha zuan...

- S.: Nik horixe jakat rekuerdia, honek... hirekin egon nitzanian, Martinez jartzen zuan, bueno...!

- Bai, bai, haxe zuan...

- S. : Ta oin be ikusi dok zelako berbak erabili dittuan, ezta ? Fantastikua, [... ikustia] ta espektakulua. Ni hori, bat biharrian ikustia espektakulua ta fantastikua bada, bueno...! Horrekin esanda daok dana! Bai.

- Bai, bai, bai. Penia zuan [ha...] ez ikustia, penia...

- Ordaintzeko modukua bera biharrian ikustia, ez?

- Joe...

- S.: Noiz hil zuan Martinez? Akordatzen haiz gutxi gorabehera? Urtiak izango dittuk...

- Urte asko dittuk... urte asko. Hau zerau, esan duana, mutiko txikixa zuan, txiki-txikixa zuan ta... urte asko...

- S.: Oin badakazak horrek... berrogeta... berrogeittik gora. Bai, berrogeittik gora eukiko jittuk. Hi biharrian horrekin hasi hitzanean, horrek zenbat urte

lez eukiko jittuan?

- Txomiñek?

- S.: Txomiñek.

- Ba, hirurogeta hamar bat edo...

- S.: Hirurogeta hamar beste bai?

- Bai, bai.

- S.: A bai, e?

- Bai, bai. Ta jekan, atzamar lodixa jekan artrosis-edo [...] ta ez juan erabiltzen, ta nik lotu eitten [najetsan] esparadrapuakia erraminttia, lana eitteko.

- S.: Ez eidak esan!

- Bai, holaxe ekan., ta "átame", ta ipini punzoia holaxek ta esparadrapuakin lotu eitten najetsan erraminttia. Halan ta guzti be ni baiño hobiaua zuan!

- S.: Ez eidak esan!

- Halan ta guzti be hobiaua zuan!

- S.: Hau detaille politta!

- Bai...

- S.: Erderaz eitten juan?

- Danera.

- S.: Danera, baiña "átame". E ? "Átame" esan dok.

- Bai, bai. Baiña danera eitten juan. Bera ta anaia, Ricardo be, hirurok eitten genduan. Ta...

- Zenbat pertsonak eitten zenduen biharra...?

- Txomiñenian hiruk, eurak bixak, anaiak, eta neuk. Ta aurretik zera be bai, Jose Luis Bengoa be ibili zuan.

- Zeuon taillarra nun zeuan?

- Hori, Txomiñen taillarra? Carralen txaletan onduan.

- S.: Bai, bai, esan jok lehen.

- Carralen onduan. Carralen txaleta ta hurrengo edifiziaua zuan hori.

5.29. Txomin Martinez, maisuen artean maisu

- **Hizlaria(k)**: Basauri Arteaga, Serafin; Murua Sarasqueta, Dunixi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Basauri Arteaga, Serafin
- Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-269/009
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:23:10. **Bukatu**: 00:27:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Txomin Martinezen lantegia gorengo mailakoa zen. Hara sartzea unibertsitatera sartzeko modukoa zen. Leziorik ez zuen ematen, ikusiaz ikasten zen. Eibartar peto-petoa zen, dotorea eta gizon fina.

Transkripzioa

- Orduan, taillar inportantienak edo, damaskinuanak eta, zeintzuk ziran Eibarren gerra ostian, zu hasi ziñanian eta?

- Taillar ona, kalidadez, ha zuan, Txomiñena. Bai. Bestiak ya [zeozen] "segunda división". Bai, "segunda y tercera". Txomin zuan... Hara sartzia zuan ya "como entrar...— ez jakixat nik— en una... nivel de honor" edo...

- Serafin: Unibersidadian sartzia moduan edo, ezta? izango litzake haren...

- Ni lehenengotik hasi nitzuan Laureano Arrietakin. Hori dok, Aurreran fundiziñuan aurrian jeuan hori.

- S.: A Arrieta! Bai. Luis Arrietan-ta aitta...

- Luis Arrietan-ta aitta zuan hori.

- S.: Joierixa txiki bat jekan han. Bai. Horren seme bat Mejikon daok ezkontuta.

- Hori dok. Hori dok.

- S.: Zelan jekan harek izena...

- Ez nok gogoratzen.

- S. : Galarragan alaba batekin ezkontu zuan ha.

- A, bai, bai.

- S.: Bai, Mejikon bizi dok.

- Bai. Ta gero, ba, nere amak ein etsan berba Txomiñeri, ezaunak zittuazen ta... [...], lana batera einda. Ta halaxe, berba ein etsan ta ni sartu nitzuan. Ta sartu nitzuanian Txomiñenera zuan ya... haixe, « la universidad ». Ya Txomiñen ikaslia izatia zuan...

- S. : Eta... Txomiñen ikaslia. T harek leziño onak emoten [zeuazen] zelan ein... ?

- Bata bez! Ezebez!

- S.: Ezebez.

- Ezebez. Ni lanian, ta bera, holaxe, albuan egoten zuan. Ta juaten nitzanian ikustera, laga eitten etsan [...] biharra, ta hasten zuan, berbetan hasten zuan.

- S.: A bai ? Eta berbetan, zetaz?

- Bueno...! Edozer gauza!

- S.: Edozer gauza. Baiña biharra zelan ein bihar dan ta...

- Ezebez, ezebez. Baiña ikustia nahikua zuan.

- S.: Ikustia nahikua?

- Bai, lantzian behin ta, ez dakik? Biharra eitten ta berari begiratu ta... Gero juaten zuan, zigarro bat erretzera juaten zuan, ta haxe, jaikitzen nitzuan ta haxe ikusi zelan eitten diharduan.

- S.: Ya, ya, ya... Orduan, maixua... leziñorik emon ez, harek eiñaz erakutsi. E?

- Bai, bai.

- S.: Eskuekin eindako lana, ba, haxe. Ahoz ezebez.

- Nik ez najuan sekula ikusi lanian! Ikusi bai, baiña eskuakin ez najuan ikusten [postura...] ta eskua harixakin [...] ta ez jakuan ikusten.

- S.: Ta gero, juaten bahitzan ondora, orduan laga eitten juan biharra. E?

- ... hasten zuan, "¿Qué tal el otro día y tal y cual...?" ta "Kauen la letxe...!". Ta juaten zanian bera, orduaintxe juaten nitzuan ni ikustera zelan zoian.

- S.: Orduan, "átame" baiña punzoia, e?

- "Átame".

- Bera zelakua zan pertsona moduan?

- Eibartarra! Oso-osokua.

- S.: Eibartar peto-petua izango zuan...

- Bai, elegantia zuan, e! Elegantia zuan!

- S.: Altua. "Txispas"en estilokua izango zuan... fiña...

- Fiña! Fiña! Ez zuan txikiterua-ta ez zuan, e! Fiña zuan, gizon fiña zuan!

- Semiak ez. Semiak... joe... [...]. Seme nausixa, zera, beti jaten, beti restaurantetan, seme nausixa, Jose Luis.

- S.: Semia zeñena, baiña?

- Txomiñena.

- S.: A! Txomiñen semia?

- Bai. "Kerido"kin ezkontutakua, "Kerido" modistiakin.

- S.: A! Orduan, hau mutillau...
 - "Txispas"en aitta zuan anai gaztiena.
 - S.: A! Ez zuan Txomin...
 - Bai!
 - S.: A bai?
 - Hiru seme jeukazen! Hiru seme ta alaba bat... zekan Txomiñek. Ta seme gaztian semia dok hau, "Txispas"
 - S.: A! Billobia dok hau orduan! Semian semia!
 - Bai, semian semia.
 - S.: A! Honen aittitta zuan orduan Txomin maixua!
 - Aittita, bai. Bai. Ta beste bat zuan Boni Martinez, Boni. Ta gero ipini juen taillarra Imigas, sukaldiak eta beste eitten zittuena.
 - S.: Boni be damaskinadoria zuan?
 - Ez, ez, baiña ikasi juan grabaua [...] ikasi juan ta Paulino ta bixak ipini juen taillarra gaztetan. Baiña bera hasi zuan gero taillarrakin ta beste ta... Baiña aitta fiña ta eurak... joe... edatarixak eta... Boni ta hau, Juan Mari.

5.30. Damaskinatutik grabatura

- **Hizlaria(k)**: Basauri Arteaga, Serafin; Murua Sarasqueta, Dunixi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Basauri Arteaga, Serafin
 - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-269/010
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:27:40. **Bukatu**: 00:31:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debabarreneko lantegiak
 Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
- **Laburpena**: Damaskinatutik grabatura pasatu zen, Paulino Larrañagarekin. Ez zitzaion batere kostatu bertara egitea. Bi langintzak oso desberdinak direla dio, nahiz eta marrazketan oinarritu.

Transkripzioa

- Eta zu gero damaskinutik grabaura juan ziñan?
 - Bai, grabaura, Paulinokin, Paulino Larrañagakin.
 - Eta asko kostau jatzun aldatzia edo...?
 - Ez, segiduan jarri nitzuan, segiduan.
 - Serafin: Hau dan artistikiakin...
 - Denpora gutxixan jarri nitzuan, bai. Ekarri juen grabadore bat Madrirttik ta ez jakuen gustau ta neri deittu jestan, "Hi, hasi hari [...]".
 - S.: Paulino ta Bidarte zittuan, ezta?
 - Paulino ta Bidarte zittuazen, bai. Ta halaxek hasi nitzuan ta segiduan jarri nitzuan, bai. - Oso diferentia da?
 - Diferentia konpletamente. Diferentia dok, baiña dibujua dok dana ta...
 - Orduan fitxajiak egoten ziran taillar batetik bestera ta Madrirttik bat ekarri ta...
 - S.: Madrirttik zela ekarri leike grabadore bat hemen hainbeste...?
 - Ez jeuan hamen...
 - S.: Ez jeuan?
 - Ez jeuan!
 - S.: Ez, e?
 - [...korik], Kareagan taillarra ta haxe, Paulinona, besterik ez jeuan. Ta gero

beste... Prieto...

- S.: Gubilistak...

- Bai, ta Prieto, taillarra jekan Alfa onduan.

- S.: Eta honek... zela zuan... ["Rubitas"] edo esaten etsen bat... zela zuan? Txiki-txiki bat, lehen Paseo San Andresen ekan honek...

- A! "Rubito"! Baiña hori [burilistia] zuan! Burilistia. Bai.

- S.: A! Ya, ya...

- Ta beste [...] grabauan eitten zebana, hau, Gregorio Mugerza nere maixu izandakuan semia. [...] eitten juan harek, baiña taillarra [esateko] zuan Kareagana ta Paulinona.

- Esan dozu gaiñera, taillar gehixenetan ez zala dana eitten, ez? Prozesoa osua damaskinauana ta grabauana ta, gehixenetan...

- Bueno, guk dana eitten genduan guk taillarrian. Dana. Beste batzuek ez; kanpuan pikau edo, zera, perleaua be kanpuan eitten juen. Baiña guk dana eitten genduan, dana eitten genduan. Ta eitten genduan, gaiñera, pieza guztiak eitten genduazen desberdiñak, e? Danak. Porke taillarretan eitten juen, ba, igual hamabost edo hamabi pieza bardiñak, ezta? Ta guk eitten genduazen danak... gaiñera, norberan kontura, e? Dibujua noberak etaratzen juan.

- Hori zelan eitten zan? Ez zekazuen iñungo modelorik edo dibujorik edo...?

- Ez, ez. Bueno, lehen ikasittako dibujetan ta, ez dakik?

- S.: Duniren dibujo batzuek badagozak hor libururen batian, Dunixio Muruaren... lagata edo... lagatako muestra batzuek. Halako...

- Gero batzuek eukitzen juen, holan, mahai onduan, papel bat dibujuekin. E? Momentuan, ba, igual ez zuan gogoratzen ezer ta ikusi ta haretxekin... Artxibo bezela, ba...

- S.: Artxibua. Artxiborik onena ganbaran egongo zuan, baiña!

- Ganbaria zuan. Txomiñena zuan ganbara bat... joe...! Ha zuan ona!

- Eta hor bazeren motibo exotikuak-eta askotan, ez? Ba egipziuak eta...

- Gutxi.

- Zuek ez?

- Bai, gehixena zuan renazimentua zuan gehixena, arabia edo renazimentua. Ta zeguazen espezialistak, arabia eitten nere tio zuan ona, arabian...

S.: Hire tio?

- Bai.

- S.: Sarasketa.

- Esaten juan Kareagak, berak ikusi zebanik onena zuan, dibujo arabian.

5.31. Urrea lantzeko teknika

- **Hizlaria(k)**: Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-270/011
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:20:46. **Bukatu**: 00:22:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Urrea nola lantzen zen: lingotea erosi (Donostian, Madrilan, Bilbon), laminatu, barrak egin eta ondoren trefiladorearekin, haria egiten zen (7,5 zentesima finena).

Transkripzioa

- Zelan lortzen zenduen materixala-edo? Zure aittak nun lortzen zeban urria? Edo zer prozesu zekan horrek?
- Hori, ba, erosten genduan... lingotiak izaten ziran. Eta zeguazten lingotiak, ba, 250 gramo, kilua, 500 gramokuak... Ta neri akordatzten jata gehixen erosten zebela Donostian. Eguan bat urria afinau eta lingotiak ein. Madrident be baeguan, Madrident, eta ondiok segitzen dau. Baiña jeneralian gure aittak, nere akorduz, hor erosten zeben, Donostian. Ni juaten nitzan. Eta gero, ya, pixkat martxan hasi gintzazentian Bilbon be bai. Bilbon be baeguan etxe bat, `Polispania´-edo zan orduan (gero `Indumetal´ek hartu eban). Hor jardutzen genduan; neu juaten nitzan erostera.
- Zelakuak ziran?
- Lingotiak. Ba, txokolatian ontzian tamañokuak batzuk eta beste batzuk luzetxuauak. Eta gero, ba, hasten gintzazen, ba, laminatzen. Laminatzen. Eta harixa eitteko fundidu eta barrak etaratzen genduzen: barrak etara eta, ba, trefiladorian pasau. Bai!
- Eta hor trefiladoran pasauta, zer lortzen zenduen, harixa?
- Harixa; trefiladoretan harixa. Harixa izaten zan damaskinaurako, mehiena, 7 zentesima t´erdi, 7 zentesima t´erdi. Ta txapia, esaten zebena, harek zentesima bat inguru eukitzen eban. Ta gero, ba, izaten zan, bihar hobia eittia nahi bazan, txapia lodixaua, harixa be loditxuaua... Bai ba, zenbat eta lodixaua sartu karestiau urtetzen eban gauziak, baiña hobia. Hobeto, hobeto!

5.32. Zelako urrea erabiltzen zuten

- **Hizlaria(k):** Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-270/012
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:22:34. **Bukatu:** 00:26:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Erabiltzen zuten urrearen kalitatea: 24 kilatekoa urre gorria zen; 18 kilatekoa urre berdea zen. Zilarrarekin ere lan egiten zuten. Erliebean ere lan egiten zuten. Damaskinatutako piezak Ameriketara bidaltzen hasi zirenean, itsasoan ugartu egiten ziren; ondorioz, barniza ematen hasi behar izan ziren.

Transkripzioa

- Eta urre klasiak zeren?
- 24 kilatekoa. 24 kilate, fin-fin-fiña. Gero zidarra be [izaten] zan. Zidarra merkiaua beti, askogaittik gaiñera. Baiña zidarrian perleaua-eta eitten eben. Eta zidar hau izaten zan ikasten, damaskinau-eskolan ikasteko, alumnuak urriakin ein barik, zidarrakin eitten eben dana. Zidarra be prozesu iguala.
- Eta zeuek be zidarrakin...
- Bai, bai. Zidarra ta urria. Bai. Ta gero, 18ko urria eitten genduan, txapak. Harek [izaten] ziran inzialak —“efia” eta— inzialak eitteko. Eta eskopeteri be sartzen zetsen, igual, eskopeta onari, ba, inzialak, edo kañoiari “uno” ta “dos” ta hori....

- Horretarako 18 kilateko urria.

- 18 kilatekoa hor asuntuan. Ostian, damaskinaurako dana fiña, 24kua.

- Hobia da?

- Maleabliaua, bigunaua, eta puru-puru-purua. Bai, puru-purua.

- Eurak damaskinadoriak esaten dabe, urre berdia eta urre gorrixa.

- A bai! Urre berdia ta gorrixa. Urre gorrixa zan, ba, fin-fiña, urria bakarrik. Eta urre berdiari zidarra nahastatzen zetsaun. Ahaztuta dakat oin ze...

- Proporziñua.

- Bai, proporziñua ez dakit zenbat zan; 20% edo ez dakit zenbat zan, zidarra sartu, eta urtetzen eban urre berdia. Distingitzeko.

- Zetarako erabiltzen zan hori?

- Ba, distingitzeko, damaskinauan, ba, distingitzeko. Pintturan [izaten] dan moduan pixkat gorrixa ta horixa, pixkat distingitzeko. Ba hor be eitten eban, ba, urre gorrixa eta urre berdia sartu, figurari zertzeko.

- Animalixian parteren bat edo...

- Bai, bai. Edo bertan zerian. Gero reliebia eguan. Reliebia izaten zan alanbria. Alanbria, ba, 7 dezima inguruko alanbria, milimetrua baiño mehiaua. Eta harekin eitten zittuen reliebian. Ha ya zan kategorixa haundixa. Animalixak, zuk esan dozuna, animalixeri korputza ta arpegixa ta honek zerak, reliebian. Ta eskopetan be askotan sartzen eban reliebia inzialak-eta eitteko, reliebiakin, urre fiñakin.

- Guzti hori eitteko prezisiño asko biharko zenduen, ez?

- Ez! Hilerak zian, diamantezko hilerak izaten dia. Eta hantxe pasau. Bai. Eta norberak nahi eban medidara. Ta baitta damaskinadoriak eurak eukitzen zittuen hilerak —oseake, terrajia esaten etsen eurak—, burdiñazkua. Ta, igual, eruaten eban, ba, horixe, “cero-ochenta”kua edo, alanbria. Ta gero eurak ipintzen eban eurak nahi eban medidara. Porke, por ejemplo, animalixiari hankak-eta mehiuak dia, ta eurak ipintzen eban, ba, “cuarenta”ra-edo jatsi, ta “cuarenta”kuakin ein. Ta korputza, ba, lodixaua, ta... bai.

- Zuek saldu beti...?

- “En bruto”. Bueno, einda. Zera, txapia ta harixa, holaxe. Beti hori.

- Baiña harixa beti klase bat.

- Eskatzen zebena; eskatzen zebena. Mehiena izaten zan 7 zentesima t’erdi. Hortik gora nahi ebena. Gero eguan, pixkat hori be loditxuaua, harixa. Ba, hobia nahi bazan eittia, harixa be lodixaua sartu. Gero hasi zian hamen damaskinadoriak zerera bialtzen, Ameriketara, damaskinaua. Ta azeptaziño ona euki eban. Gustau eitten zan ta joño. Baiña Ameriketan eitten jakuen, ba, hau, itsasuan pasatzeruzkuan, salitriak-eta, zelan plantillia burdiñazkua dan, uhartu eitten jakue. Ta gero ya hasi zian, ba, joño, ba, parnizakin, zertu ta gero, parnizau, ta gauzak ein. Ez dakizu? Durau deixan urriak. Ta horrek Toledon-ta, hori, ondo konsegidu dittue horrek gauzok.

5.33. Urre-txorta eta urre-haria salgai

- **Hizlaria(k)**: Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-270/015
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:32:53. **Bukatu**: 00:34:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak

- **Laburpena:** Urrea txortaka edo gramoka saltzen zuten. Haria karrean batzen zuten. Urre-haria egiteko makina Galdakaon egin zioten, enkarguz.

Transkripzioa

- Zuek urria zelan saltzen zenuen? Ze luzera zekan harixak?
- Harixak? Jeneralian txortia, "madejia" esaten zan. Txortia, gramo bat ingurukua, gramo bat. Ta txapia izaten zan, ba, eurak esaten eben. Batzuk esaten eben 30 zentimetro; beste batzuk, igual, ba, 10 gramo. Gramoka. Batzuk eskatzen eben gramo bat, beste batzuk 10. Segun.
- Eta beti holan...?
- Harixa, madejia, txortia. Ta eurak gero soltatzen eben, ta jeneralian batzen eben, orduan, harixa, karretia —egurrezko karretia, harixa, izaten zan— ta hantxe batzen eben eurak. Karretia ipini han ultzeren baten-edo sartuta, ta hantxe "tik-tik", harixa. Holaxek eitten eben.
- Zuek luziena ze etarutzen zenuen?
- Harixa?
- Nahi beste?
- Bai, porke karrete haundixak zian, ta igual eukitzen eben... 400 bat gramoko karretiak-edo izaten zian. Apurtu be eitten zan sarrittan, e? Hain mehia, "tik", ikutua bakarrik bihar eban, "tak" apurtzen zan. Geuk saldu gramo bat ingurukuak, madejak. Gramo bat inguruko madejak. Bai gorrixa ta bai berdia.
- Lan fiña zan zuena?
- Bai. Bistia be bihar! Porke han hileretan sartzeko... Lehelengo zorroztu puntia harixari, ta "tak" sartu hileran, eta pinziakin tiratu eta etara. Baiña 7 zentesimako harixan... Eta trefiladoran. Trefiladorak be txiki-txikixak. Danian trefiladora haundixak eguazen, danak haundixak. Ta Italian-eta ikusitta, danak haundixak. Ta batek ein eskun, trefilatoria ein eskun, enkarguz, Galdakaoko batek, gure lagun batek. Trefilaziñuan eitten eban biharra, ta "ya os haré yo una máquina".

5.34. Urre-lantegirako makinak nondik ekarri zituzten

- **Hizlaria(k):** Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-270/017
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:35:51. **Bukatu:** 00:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
- **Laburpena:** Makinen inguruko azalpenak. Behar zuten makina bat Frantziatik nola ekarri zuten kontatzen du. Beste makina batzuk Kataluniatik ekarri zituzten.

Transkripzioa

- Oindiok han dao, haxe laminatoria dao oindiok.
- Osea ke historixia daka.
- Motorra ipinita. Gero zilindruak be ya... rektifikau. Sarrittan eitten

genduzen, rektifikau. Sarrittan rektifikatzen genduzen, egon deitzen brillante ta ondo. Ta gero, ba, beste makiña bat nahi genduan, ta bagenkigun nun saltzen zittuen: Parisen. [Alfred Olliot] edo zan fabrikia. Baiña ekarri ezin; orduan ez eguan permisori! Ta hamengo industrial batek esan eskun, “joño, neuk kontrabandista batzuk ezautzen jittuat nik Hendaian, ta ekarri leikek”. “Bai?” ta “bai”. Pagau genduzen holaxek — Hendaikuari pagau gentsaun— ta makiña ta dana ekarri eben. Ta gero, ba, astuan pasau eben errekatik. Baiña pasatzen dagozela errekatik, kajaren bat jausi jakuen. Desmontauta makiña, e? Makiña desmontauta. Ta kajaren bat jausi ein jakuen, itxuria, erre kara. Ta guri ekarri zeskuen, ta ene! Makiña bai, baiña pieza mordua falta. Ta esan eskuen: “ba errekan jausi jakuk kajia!”, ta “jakin leikek zer piezatzu falta dian?”. Ta orduan be — badakit nik— afizionaua fotografixara, ta zer ein neban? Makiña guztia, osea, pieza guzti-guztiak ipini, izara zuri bat atzian, ta fotografixak etara! Bialdu genduzen horra fabrikara ta ekarri zebe falta ziran pieza danak. Ta montau genduan ta hor dao ha makiña be. Esan netsan Aitorri: “Honek historixia daka, honek makiñonek”. Bai. Gero beste makiña batzuk erosi genduzen Kataluñan. Harek ya barrixauak dia, baiña.

- Horrek makiñok ze zian, espezialak urria-ta lantzeko? Edo ez, beste gauza batzuetarako be erabiltzen zian ta...?

- Nik uste dot beste [batzuetarako] be erabiliko zittuela, baiña zian, ba, klaro, urriantzako haretzek zittuan. Haretzek eitten zittuan. Zilindruak, ba, txikixak dia, zilindro txikixak, baiña beti ondo egon bihar zian. Ta sarrittan rektifikatzen genduzen, porke, badakizu, galtzairuari be zikiña jausi jakola ta pixkat porua edo zuluak edo zikiña, ta beti leku batetik pasatzen be — beti denporiak, badakizu— desgastia eitten zan. Ta ya ez zebe ondo... pixkat zuluakin-ta etaratzen eban txapia. Ta txapia be bihar zan poro barik, ahal dala. Pororik bapez izan deixala. Ta hain mehia, ta pororik ezebe barik... Porke olixuakin pasatzen genduan. Olixua bota zertuta... ta olixuak berak be sarrittan inpurezia edo... Hori, gaiñera, garbitzen genduan, e, filtruekin-ta, baiña... beti. Hantxe dagoz horrek makiñok. Aitorrek dakaz. Ta lehengo baten be —azkenengo egon nitzanian— “makiñak?”, ta “han dakaraz”. Batzuk ez dake historixarik ezebez, ta esan eban: “honek igual neu geldittuko nok ta honek saldu be igual eingo jittuat ta arreglauko gaittuk” esan estan. Ta “bai, bai”. Baiña historixia dakenak hantxe dao beste batzuk. Ta hori trefiladoraori be espesamente geuretako einda afizionau batek.

- Bai, eske kuriosua da, dalako oso gauza espeziala.

- Bai ba! Makiñak, trefiladorak, eguazen haundixak, baiña hori da trefiladora txiki bat; trefiladora txiki bat. Haundi baten modukua; igual-iguala miniaturan.

- Zuen biharra eitteko...

- Guretako zan fenomenua! Ta ostian ez genduan topatzen, orduan behintzat. Oin akaso egongo dia. Ez dakit. Baiña gu, orduan...

5.35. Inguruan zegoen urre-lantegi bakarra, eurena

- **Hizlaria(k):** Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-270/018
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:39:09. **Bukatu:** 00:42:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarrenen lantegiak

- **Laburpena:** Urre-haria egiten zuen fabrika bakarra euren zen; beste inon ez zegoen horrelakorik. Paristik ere Eibarrena etortzen ziren urre bila. Sekretuetako bat pazientzia zela dio. Urrea suberatu egiten zen.

Transkripzioa

- Orduan zenbat fabrika zeren urre-harixa eitten zebeak?

- Iñor bez. Madrident eguan bat: "Sociedad Española de Metales Preciosos". Oin be badao. Ta hor fransesak zian. Baiña ez eben konsegitzen txapia eittia. Ez! Ta proponidu be ein zeskuen guri bertara jua, Madridera, ta eurori erakutsi ofiziua. Ta esan genduan: "eurori erakusten badou ofiziua, akabo!". Ostian zian poderosuak eta zera. Eta ezetz. Eta ibili zian, baiña, konsegitzen ein zittuen ahalegin guztiak. Ta hamen Eibarren be bai, damaskinadorieri-ta zertu, aber zelan eitten zan-ta, preguntatzen ibili zian. Bai. Aber zekixen zelan eitten zan, ta... Geuk be euki dou pixkat sekretu moduan, "de familia". Euki genduan geure tranpillia eta gauzak. Baiña oin ya eitten dabe, ta beste metodo batzuk eitten dittue oin. "Pan de oro" eitten dian moduan —"Pan de oro", zerakin jota, "bum-bum-bum"—, ba holaxe. Ta eitten dabe urria mehe-mehe-mehia. Gero damaskinaua be halakotxia dao.

- Lehen orduan zuek zekazuen patentia.

- Bai, geuk! Ta danera etortzen zian. Parisen be baeguazen damaskinadore bi-edo, baeguazen. Harek be etorten zian bakotxian eruatzen eben urria hara.

- Eta sekretua zein zan?

- Bat pazientzia! Bat pazientzia zan. Porke batzuk pentsatzen eben dana automatikua zala; bai, ba, makiña automatikua. Ta ez! Pazientzia. Ta gero, suberatu be urria eitten genduan guk, zerian, lanparilla alkoholezkuetan suberatu. Gero pasadia emoteko. Pasadia emoten gogortu eitten zan ba "krrrraaa", ta bigarrena ezin zeikian emon. Pasadatik pasadara suberatu; "recocer" esaten zana. Ta harixa be igual. Harixa be, ba, pare bat bidar-edo suberatu. Gero, zerian sartzeko be, damaskinaua eitteko be suberatu ta urria bigun-bigun-biguna bialdu bihar zan.

- A, eurak etxian...

- Bai, sartzeko. Baiña hori geuk suberatuta emoten gentsen. Ya dan moduan, amaittuta, bigun-bigun, sartu deizen. Bestela gogorra gelditzen zan. Ta berdian gogorra. Zidarra zelan zekan nahastautu, ha gogorra gelditzen zan, gogorra.

- Orduan, esaten dozu, Madrident zeuala hau, "Sociedad Española de Metales". Eta inguruan?

- Hamen, hamen eguan beste bat urria saltzen ebana, baiña harek be lingotian eta zerian. Ta baita laminau be eitten eben, baiña lodira. Osea ke, dentistentzako-ta, ba, eitten eben. Dentistentzako-ta eitten eben. Hamentxe. Beste bat eguan "Polispania"; gero "Indumetal" ek hartu eban. Oin ez dakit segiduko daben. Oin be segiduko dau.

- Baiña lodixagua.

- Bai, bai. Lodixa, lodixa. Harek, gaiñera, interesau be ez, e! Gaiñera, halako fabrikantientzako-ta ez zan.... Hamen eguan...

- Merkatua.

- Ez zan. Baiña horrek eken terkadadia. Itxuria hor injenierua eguan bat fransesa. Ta han esaten etsen: "¡Pero cómo! Si aquellos hacen, aquí podemos hacer". Ta ibili zian, baiña, bueno! Ta gero, gerra aurrian ipini eban beste batek, Ordoño. Ordoño. Zuek ez dozue ezautuko, baiña bertan, taillarra guk zekaun lekuan —hartu genduan lekuan azkenengo—, hantxe

azpitan. Bai. Larreategikin sozio. Larreategikin sozio ipini eben. Ta eitten eben. Baiña ez dakit nik ze... Ez eban resultau. Gero laga ein eben eta zeramikia ipini eben, ya zeramikiakin jardun eben.

- Ez zan izango bardin-bardiña, orduan.
- Ez. Ez dakit nik. Ta makiñak, makiña bi-edo ekazen ta geuk hartu gentsen, baiña makiñak be eskasak zian ta harek ya txatarretara-edo juan zian harek. Ez genduan zertu. Bai. Ordoño.

5.36. Urrea lantzeko makinak

- **Hizlaria(k)**: Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-270/019
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:42:40. **Bukatu**: 00:44:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
- **Laburpena**: Inoiz ez zuten jakin aitonak zelan eta zergaitik ikasi zuen ogibidea. Makinak eta laminadorak eskuz egindakoak ziren, egurrezkoak.

Transkripzioa

- Orduan ez dakizu, hain lan fiña eta espeziala izanda, aittittak zelan ikasi zeban?

- Ni idea! Horixe sekula, sekula ez dou zertu. Porke, gaiñera, orduan ez zeguan... Egurrezko makiñak ziana bai, harixa eitteko egurrezko makiña bat. "Brrrr" eskuakin pasau, banaka-banaka... Iguar, ba, orduan, gaiñera, asko [bihar] be ez zan izango ta. Eskuakin. Ta laminadorak be, laminadorak, hori bai. Eskuakin, motorrik, indarrrik ez eguan eta, zerakin. Ta laminadorak eitten zittuan Eibarren, Bollain? Zerian, Paseo San Andresen ekan taillarra. Harek guria kopixau, hori, Franzia... eitten zittuan. Baiña harek eitten eban gehixen be dentistentzako-ta. Dentistak be, badakizu, urria, zera eitteko ta. Ta harek asko saltzen eban; hor, gaiñera, hor, behe aldera, asko. Horrek laminadorok asko saltzen zittuan. Bai. Bollainek eitten zittuan. Baiña harek be ez eban etara guretako modukorik. Guk iñoiz esan berari "Oye, ¿por qué no nos haces unos cilindros, o esto y tal?" baiña ez zeban ha... Ta hasieran rektifikatzera be zerara bialtzen genduzen, Parisera, guk. Bai, holaxe. Bateron bat etortzen bazan fransesa-edo hona, emon berari, solte, zilindro bixak —zilindro bi zian—. Ta gero hona ekartzen zittuen. Ta oin azkenengo —ya Eibarrek be asko mekanikamente...—, azkenengo, beti hamen eitten zeskuen. "Ebec", Berrizen? Haretzek eitten zeskuen ta ondo, ondo. Rektifikau kanpuan baiño hobeto ixa. Gaiñera geuk nahi genduan moduan. Eurak esaten eskuen: "fiñaua nahi dozue? latzagua? bestia?". Ta hartu genduan tranpia, ta beti bardin-bardin.

5.37. Urre-haria egitearen sekretua

- **Hizlaria(k)**: Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** AB-270/020
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:44:19. **Bukatu:** 00:46:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Haria egitea ez zen zaila, baina sekretua urre-orri fina egitea zen. Gerra ostean kanpotik ekarri behar izaten zuten ahal zena.

Transkripzioa

- Hor, sekretua, harixa eittia baiño, orrixa eittia zan, ez?

- Bai, bai! Porke trefilaziñua, trefilaziñua, hori ya... Gure aldian onak eguzen, gaiñera. Hor Cordoba aldian-ta, hor, asko dao. Ta Cordoban trefilau kobria eitten eben, lanparen filamentuak-eta eitteko. Kobria trefilau. Baiña makiña haundixak zian danak. Ta hamen Praderak be eitten eban harixa, kobria ta gauzak. Praderak, Bizkaixan. Ta sarritan egon gintzazen gu. Baiña makiñak ixa honetxen mahaixonen tamaiñokuak. Ta hango injeniero batek esan eskun: "ya os voy a hacer yo la máquina". Ta ein eskun miniaturan makiña haundixa modukua. Ta ondo eitten eban harixa! Ondo! Apurtu be bai eitten zan, porke.... Baiña ondo eitten eban. Ta, gero, ba, hilerak be, diamantezkuak zian hilerak. Hileria be pixkat gastau, txarto, estropeauta egon edo ez, beti eguan rebarbia etara edo ez edo. Ta hilerak be onak bihar zian. Hilerak Suizatik ekartzen genduzen lehen, aittan-ta denporan. Hamen ez eguan. Baiña gero hamen ipini ziran. Barzelonan, hor, taillarrak bat baiño gehixago, hilerak eitten zittuenak. Ta gero, hamendik. Hamen gerra ostian ez zeguan industriarik. Ganorabakua dana! Bai. Horretxegaittik, ba, kanpotik. Baiña kanpotik be, ba, ekartzen genduan ahal zana.

- Hor izango zana zan, hasieran, ez? Zeuen aittitta hasi zanian. Orduan bai izango zala...

- Bai. Nik uste dot aittitari lagundu eingo zetsela orduan be; ba, Placidok damaskinaua ta... Placidok igual ikusiko eban Parisen zelan eitten zan, edo aittitta igual juango zan Parisera ikustera edo. Ez dakit zelan eitten zan, baiña... Makiña bai. Makiña, laminadora, handik ekarri eban, baiña harixa badakit eskuz eitten ebela. Eskuz, ta, zer bat, pasau eskua... Hori bai. Ta geuk be hasi gintzazen eskuz eitten, baiña esan neban "joe, halan ezin leikek". Ta kostau jakun topatzia, baiña horretxek ein eskun makiña.

5.38. Urre erosleak damaskinatzaileak izaten ziren

- **Hizlaria(k):** Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-270/021
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:46:16. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Urrea erostera damaskinatzaileak joaten ziren. Normalean liburu batean apuntatzen zen erositakoa eta hilaren azkenean

ordaintzen zuten. Hondarrak bueltan eramaten zituzten. Lantegiko giroa oso ona izaten zen; beti zegoen erosleren bat.

Transkripzioa

- Zeiñek erabiltzen zeban urria? Grabadoriak? Damaskinadorak?
- Bai.
- Baiña eurak etortzen zian?
- Eurak taillarrera juaten zian. Eurak etortzen ziran taillarrera, hamenguak. Hamenguak etortzen ziran taillarrera. Izaten zan, gaiñera, jeneralian: eruaten eben, ta pagau hillan azkenian. Edo beste batzuk, gure aittak-eta esaten eben: “zeuek nahi dozuenian”. Iñoiz —honek, Txomin Martinez-eta akordatzen jata neri— liburu txiki bat —liburua— eta hantxe apuntatzen zan: “día tal, tantos gramos, tantas pesetas”. Ta gero pagatzen eben hantxe liburuan; pagau, gero, eureri komeni jakuenian pagatzen eben. Holaxe zan paguori. Barriz, Toledokueri-ta, zerera, korriotik. “Objeto asegurado” bialtzen genduan dana, ta horrekin letria. Horreri bai, baiña horreri be erreztasunak bastante emonda. Erreztasunak bai. Beti suertatzen zan bat jaten zebana, baiña... Arriskuan beti dao gauzia ta.
- Baiña orduan normala izango zan hori.
- Harek ez, fiñak zian! Ez, baiña gero ya...
- Normala diñot hori, ba, fiatzia!
- A, ba-ba-bai. Ta hamengueri, hamengueri eurak nahi ebenian, jeneralian. Baiña jeneralian eitten eben hillan azkenian. Ta, kontua pagatzeko, eitten eben desperdiziuak ekartzen zittuen —desperdiziuak, sobrautakua—; haren baloria deskontau, ta bestia pagatzen eben zerian.
- Orduan sobrak zueri buelta.
- Sobrak deskontau fakturatik.
- Zuek urtu eitten zenduen ta...?
- Bai, garbittu, aziduekin eta gauzekin garbittu, inpureza guztiak kendu, dana aziduetan, urtu, ta gero, ba, barrido barria ein eta ala! Han juaten zan!
- Baiña, normalian, taillarretan-eta, ez zan izango taillarreko uezaba urre billa zoiana, ez?
- Batzuk bai.
- Granujia edo...
- Bai, granujia edo ikasten zeguana edo. Granujia. Uezaba be bai; uezaba be bai. Ta neri akordatzen jata, hamen euki genduan taillarra, Bidebarrixetan —azkenengo Bidebarrixetan, gerraostian—; han ez zeguan ez takilla eta ezebez. Han sartzen zian danak taillarrera, ta gure aittak-eta barriketan ein lehelengo, ta bestia, ta... Danak han egoten zian tertulixan. Konfianza-konfianzakuak danak. Ta hantxe, tertulixan ein, ta ipuiñak eta bestia ta. Ta gero ya ipini genduan takillia ta gauzak, porke ya martxan hasi [gintzarian] jentia be asko egoten zan. Bai. Ya takillan ta zerian.

5.39. Urre-lantegiak urteetan izandako aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-270/022
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:48:50. **Bukatu**: 00:52:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Grabatua

Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak

- **Laburpena:** Lantegia nolakoa zen azaltzen du. Julian Etxeberria kalera joan zirenean (1950), takila bat ipini zuten. Hilaren amaieran bulegoa jendez gainezka izaten zuten beti.

Transkripzioa

- Lokala zelakua zan? Hasieran, takilla barik zana.
- Lokala? Zelan esango detsut nik. Lagako orri bat? Hamengua akordatzen jata-ta, horkua. Hamen Bidebarrixetakua, gerra denporakua, ez, e?
- Bidebarrixeta 24kua.
- Bai, neu egon nitzana. Sartu, ta holako pasillo bat eguan hamen ta hau holaxe zan. Hamendik sartu ta pasillo moduko bat euan. Hau da Bidebarrixeta kalia, hau. Bidebarrieta. Hau zan ofiziñia ta hona taillarrera. Halako tailar bat. Ta hortxe ultziak eta dana bertan eitten genduzen. Hamen ofiziñia zan ta hamen taillarra. Ta hamen leihuak. Hori ezautuko dabe hamen egon dianak. Hau atiau txarto ipini dot. Porke lehelengua zan ezebez, bertara sartzen zan. Baiña atia hamentxe. Zabaldu atia ta dana bistan: ofiziñia ta taillarra. Gero hamen ein genduan pasillo mnoduko bat pixkat hau zertzeko. Jente asko hasi zanian ta zera, pixkat ezkutatzeko edo. Bai. Ta gero ya pasau gintzazenian Generalisimora, ya han baeuan, ba, han takilla batekin tahan ez zan ikusten ezebe.
- Zer zeuan, bentanillia jentiandako...
- Bentanillia jentiandako ta zera.
- Eta taillarra atzian.
- Bai, taillarra be zan: ofizinia hamen ta buelta guztia taillarra. Hamen urtze asuntuak eta aziduekin eta zera, eta Generalisimo aldera makiñak eta gauzak. Bai. Ta han be konfianzia ekanak —honek jente... damaskinau zaharrak eta— atia zabaldu ta “ala, barrura!” ta barrura sartzen zian. Oin, zelan gazte asko, jente asko euan gaztia ta zera, ba, harek ya takillatik.
- Gaiñera, orduan jende asko juango zan zuegana, ez?
- Jolin asko! Sobre todo hillan azkenian ta? Hillan azkenian izaten zan, bueno! Jentia barbaridadia! Danak hillan... Hillan azkena ta lehelengua izaten zan...! Tio be —harek eruatzen eban ofiziña asuntua gehixena orduan; gero arrebria sartu zan, baiña tio—, badakizu, pixkat edadian aurrera, ta ikusten ebanian jente asko zain, ya jenixua ta. Hori damaskinau zaharrak —ez dira bizi, baiña— esango eben, zenbat jenixo erabiltzen eban harek. Joe, buf! Ahopian harek “kauen...”, ahopian. Ta gero, ya, juan gintzazen Otaolara, ta han ya....
- Uste dot bateron batek kontau deskuala, hori, Generalisimon kolia!
- Kolia demasa! Bai, bai, kolia! Aste guztian, hille guztian, igual, banakia. Bat edo bi etorten zian, banakia. Baiña hillan azkenian? Kontuak eittera. Kanpotik be bai. Elorrixon be baeguazen batzuk, Azkargorta anaiak eta, Elorrixon be baeguazen onak. Bai. Elorrixon be bai. Ta hillan azkenian danak kontuak eittera. Euren faturekin edo kuadernuorrekien, ta urre-desperdiziua entregau, ta bestia, ta kontuak eittera. Danak batera! Danak batera! Baiña kolia demasa! Ta orduan, ba, esaten detsut, jente asko ebillen biharrian. Eibarren asko biharrian.

5.40. Emakumeak damaskinatuan lanean

- **Hizlaria(k):** Echebarría Unamuno, Fernando
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** AB-270/023
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:52:17. **Bukatu:** 00:52:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Eibarren emakume askok egiten zuten damaskinatuan lan. Lan garbia zen, etxean egin zitekeena.

Transkripzioa

- Askok eguazen. Beste bat "viuda de Ansola", etortzen zan Isasittik. Andrak, gehixenak andrak zian. Andrak gehixenak. Bai.

- Bihar garbixa zan euren dako...

- Bai ba. Eta eurentzako, etxian eitten eben. Zeozer etarutzen baeben... Ta etarutzen eben. Gero eguazen juaten zianak saltzera.... Jeneralian eitten eben, gaiñera, biharrek entregau, ta harek dirua hartzen eben biharrek. Ta gero gurera, pagatzera.

5.41. Intxaur-arbolak ekartzen zituzten, eskopeten kaxak egiteko

- **Hizlaria(k):** Basauri Arzuaga, Ladislao; Gisasola Berrio-otxo, Garbiñe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-272/008
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:07:43. **Bukatu:** 00:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena:** Berak "Victor Sarasqueta" lantegia eraikita ezagutu zuen. Eskopeten kaxak egiteko arbolak Bittorrek berak ekartzen omen zituen. Gero, zerra handian moztu eta urteetan gordetzen zuen egurra. Prozesua nola izaten zen. Behin aitaren bila joan zen Ladislao eta gizon mordoak zeuden kaxari begira, betak aurkitu nahian.

Transkripzioa

- Eta hau, Bittor Sarasketan fabrikia, noiz fundau zeben? Lehelengo basarrixan hasi zan biharrian? edo zelan izan zan basarritik hain taillar haundixa...?

- Nik taillarra inda ikusi neban. Taillar ona zekan, e!

- Horreaittik.

- Arbolak be berak ekartzen zittuan. Arbolak. Nere aitta be juaten zan berakin.

- Garbiñe: Kaxak eitteko?

- Kaxak eitteko. Ekarri —zerria be bazekan, zerra haundixa, hau baiño haundixaua—, ekarri ta tronkua ebagi ta gero tajadak ein: "rast, rast, rast". Ta gero, urtietan gorde.

- G.: Klaro, lehortzeko. Ondo lehortzeko, klaro.

- Ta gero kapritxoso bat darian, akabo!

- G.: Klaro, klaro.

- Haura, [zera, behin] bazkaitan, ta amak: "Aitta ez da etorri ta rarua da" ta "Hor egongo da taillarrian!", ta "Kauen, juari!". Atia itxitta, baiña bentanatik pasatzen nitzan ni zerian. Taillar guztia pasau ta "Ez daok, ba! Txakurrak daozen lekuan egongo dittuk zeozetan". Han zeuazen hamar lagun inguru. Lau biharrian, baiña beste guztiak begira. Zera, eskopetian

zera...

- G.: Bai, katxia.

- Kaxia, topatzen...

- G.: Onena.

- Zerak, erreixak, erreixak.

- G.: A! Bai, bai, betak, ezta?

- Betak. [Batak ikusi ta "hau ez" ta beste bat ta tronko batzutan ta "rrr..." hona, ta "ra-ra" ta]... Halakoren baten topau zeben. Baiña berandu etorri zan ta. Bitor Sarasketak esan [estan] "Zetara hator?", "Aitta hamen daon..." ta "Esaixok amari hamen daola!". Ostias, takarra!

- Ta nundik ekartzen zittuen arbolak?

- Enteratzen zian. Intxorrak topau ta ekarri. Erosi ta ekarri.

- Oseake intxaurra izan bihar zan.

- Ta gero honek zera zekan, makiña ipinitzen etsan makiñan holan ta "rrrrrr" tajadia, tajadia, tajadia. Ta gero zerak ein, kulatak ein. Makiña zeuan gero. Lehelengo ha zera eitten zan, limiakina forma guztia.

- G.: Bai, eskuz, bai.

- Gero etorri zian kopixadorak. Ta ipini hiru kopixadora ta "rrrrr". Bai, ba, gero, ba... Hasi zan, taillar guztiak hasi zian ipintzen, ta gero ipini zeban [honek], e... zein da zerian [...] zebana, Txontan? Zelan da bera? Harek danendako eitten zeban. Danak zertu.

- Ta egurra ze izan bihar zan, espeziala, orduan?

- Intxorra.

- G.: Klaro, ona.

- Ta gero, ba, betak. Ta horrek kapritxosuok, ba, batek ikusten zeban "He visto uno más bonito y no sé qué" ta zera ta... haxen billa.

5.42. Lehen lantegian bertan saltzen ziren eskopetak

- **Hizlaria(k)**: Basauri Arzuaga, Ladislao; Gisasola Berrio-otxo, Garbiñe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-272/009
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:10:25. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Lehen lantegietan bertan egoten ziren eskopetak, 100 edo gehiago, ilaran jarrita, eta bertatik saltzen zituzten. Gaur egun debekatuta dago lantegietan eskopetak saltzea. Eskopeta erosteko asmoz etorri zen katalan bati lagundu zion behin, baina dendan erosteko esan zioten. Segurtasun-neurriak ere gaur egun handiagoak dira, eta askok horregatik utzi diotela eskopetak egiteari dio.

Transkripzioa

- Ta eskopetak egoten zian han zerian, lehelengo pisuan, puf! Ehun edo berrehun eskopeta, txingiliska danak zerian, "ra-ra-ra-ra". Etoritzen zanak "¿Qué quieres? Aquí tienes las escopetas". Ta orduan, ba, jua ta pagau eitten zan, gaiñera, bertan. Ta ezebez. Oin ez detsue saldu be eitten oin. Ez dabe saltzen oin fabriketan! Oin zerera jua bihar zara, Betoñonera edo... Gero, papela han ta papela hemen ta... Ta tokau jatan behin, Estaziñuan naola, katalan bat kotxian. "Raa" etorri zan zerian, [...] barrittikan. Ta "Oiga, quisiera comprar una escopeta y ¿dónde hay escopetas?" ta "Aiba

dios! Honek armau jestak potajia!”. Betoño, Betoño, Betoño, baiña zerera eruan neban, Carreraseneko onduan zer zeuan hori...?

- Garbiñe: Carreras? Hemen... Otaola bide [...]?

- Bai, zelan da, hor... Grulla edo zer dan... Ez, Grulla edo beste bat. Holako bat.

- Laurona edo?

- Lauronara jua nitzan. Ta “Zu —neskiari, ofizinan zerian zeuanari—hau katalana da ta hau eskopetia erosteko asmuakin dator”, ta “Ez, ez, ez, ez, eskopetia erosteko jua bihar da Askasibarrenera edo zerera, Betoñonera”, ta “Esaixozu ba berari”. Ta esan etsan berari erderaz ta, bueno. Ta esan etsan berak “Para eso compro en Barcelona”.

- Bai ba.

- Holaxen esan etsan “Compro en Barcelona. Menos líos”.

- Baiña fabriketan oin prohibiduta dao.

- Soltauta egoten dia. Lehen eskaparatian egoten zian zerak, karabinak eta eskopetak eta kartutxuak. Oin ez. Danak gordeta. Ta gero zerak, bentanak be zertu ein bihar izan dittue oin saltzen dan lekuan, blindau. Horreaittik laga detse eskopetero mordua eskopetiari. Bentana guztiak eta atia be blindaua ta...

5.43. Ikazkintza Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/012
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:23:59. **Bukatu**: 00:27:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- **Laburpena**: Ikazkinak. Egur pila handiak botatzen ziren. Erdiko egurrik onena materialetarako erabiltzen zen eta gainontzekoa ikatza egiteko. Ikatza non egiten zen Eibarren. Txondorraren inguruko azalpenak. Paga zen ikatza egiteko egurrik onena. Ikatza lantegietara saltzen zen, sutegi edo labeetarako.

Transkripzioa

- Eta ikatza ze eitten zan, batzuk zeren ikatza eittera dedikatzen zianak edo...?

- Bai, bai, ikatza eittera dedikau! Dedikau eitten zian batzuek! Igual egurra hamendik botatzen eben, paga... orduan egurra asko zeguan, e? Paga oin baiño gehixau ez dakitt ez zeguan... Botatzen zittuen paguak ta, erdiko gerrixa, materixa ona, aprobetxau eitten etsen ba, tabletarako ta gauza... materixaletarako. Ta gero burua, adarrak... horrek ebaten zittuen zerriakin, eskuz ebagi be, ez zeguan oingo moduan motozerria! Eskuz ebagi ta gero ikatza “ta” ipintzen eben ta su emon ta gero tapau eitten eben. Tapatzen ez bazan ondo! Su hartzen eban ta erre eitten zan ta erretzeko ez daka indarrrik! Egosi ein bihar zan ha! Zortzi egunian edo, hamar edo hamabi egunian egongo zan igual. Edo gehixau, ez dakit nik zenbat egunian egoten zan. Ni neu ez naiz ibili sekula!

- Baiña ikusitta bai...

- Ikusi bai! Honbre! Baitta begira makiñatxo bat bidar! Gu gaztiak giñanian! Hementxe edozein lekutan eitten zan ikatza orduan!

- Nun eitten zan?

- Bai hor Tutulunguan ta han Arraotz-tik aurrera... Arraotz badakizu nun dagon basarrixa? Galdaramiñotik behera... Han ikatz asko eitten eben, lehen. Oin dana garbittuta dago, ez dake egurrik eta [ezerre].

- Eta beti pagua izaten zan edo...

- Ez, zeuk nahi dozuna, baiña pagua zan onena! Ikatza eitteko egurrik onena pagua! Ta gero ha erre ta baltz-baltz urtetzen dau harek! Badakizu... Ta gero ba lehenau, ba... labetan probatzen eben ha! Kañoiak pegatzen! Oin ez dakit, oin edozein modutan pegatzen dittue... Baiña eitten eben, labia eken, bustiñakin einda. Buztiña badakizu zer dan ezta? Erderaz ez dakit zelan esaten jakon... Bueno, igual da. Ta ikatzakin zuluia eitten etsen ta gero ipintzen etsen kaiñoi bi, holan kaiñoi bi zelan dakazen eskopetiak, badakizu, holan kañoi bi... Oin holakuak be badagoz baiña... Honek eitten detse listia ipiñi hamen. Ta gero ipintzen etsen latoia hamen, bueltan, danian, azpittik ta geiñetik, ta gero beste eraztun batzuk sartzen etsezen ta harek laban sartzen [...]. Ta latoia burdiñaia baiño lehenago urtzen da, asko lehenago, ta gero han ikatzetan berotzen zanian kañoiak, harek latoiak korridu eitten dau! Ta gero ikusten ebenian ya, "korriduta dago latoia; urtu da ondo!", atara eitten eben ta kanpuan hoztu arte laga. Gero pasatzen zan, ba, jentia... Gero eskopetiak kañoi bi. Holatxen eitten eben.

- Holan alkartzen ziran orduan, ezta?

- Holan alkartzen zian kañoi bixak, bai. Eske nik eskopetiakin ein dot biharrian nere denpora guztian; horrek ondo dakiraz.

- Eta ikatzana, esan dozu, zohixa erabiltzen zala? baiña zetako, gaiñetik tapatzeko?

- Tapatzeko! Tapau eitten zan dana! Ta gero gabian be bertan lo eitten eben porsiakaso. Zuloren bat eitten bazeban, igual garrak urtetzen eban. Ez? "Llama, ¿no?" Ta [...] zaindu ein bihar zan erre ez dein! Ta garra urtetzen badetsa tapau barriri be, ta barriri be zain! Hantxe gau guztian zain! Relebuak eitten diaz!

- Bihar gogorra izango zan hori, ezta?

- Gogorra biharra! Bueno! Bihar txarra! Harek egurak ipintzen lehenengo ta harek juntatzen...! Gero txondorra eitten eben, baiña txondorra esaten etsen harek... Haundixa baiña txondorra! Igual... "¡vete a saber!", igual eitten zittuen ehun zaku edo... "¡Vete a saber!" Ta gero ba ha erretzen zanian, kentzen eben ta zatixak ein, zakuak bete ta gero saltzen zeben, ba, taillarretan! Sutegirako! "Fragua" esaten jakon, ez dakizu? Sutegirako ikatza, ba, gauzak berotzeko ta herremintak eitteko ta ba... Taillarretara, ba, taillar batera igual zaku bi bialtzen etsen, beste bateri bat, beste batera hiru... Gero saldu! Hartu idixekin burdikadia ta kalerik kale saltzen! Ta ofiziñetara juan ta "Zu, ikatza dakat" ta "Ekarrizuz zaku bi!" Ta holaxek. Saldu!

5.44. Orbea lantegia eta Orbeatarrak

- **Hizlaria(k):** Idarraga Zulaica, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-325/018
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:13:45. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debarreneko lantegiak
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Orbea lantegia nolakoa zen. Euren ermita propioa zuten. Orbeatarrak ezagunak eta dotoreak ziren. Dotore janzten ziren. Etxe ingurua itxita zeukaten. Asko aldatu da ingurua.

Transkripzioa

- Eta ze juaten zian, inguruko taillarretatik?
- Bai, hamen Orbeana dana zan taillarra. Bai. Orbeanekua dana zan taillarra. Oin etxiak daozena, dana taillarra.
- Ondo ezautuko zenduan zuk hori, ez?
- Bai, erregular!
- Zelakua zan?
- Ederra. Pasialekua? Guk "Pasialekua" esaten detsau. Eken zerakin... zeriakin euren taillarra eken. Eta etxia be baeken... bueno, oin dauan tokixan pentsatzen dot. Elizia eon zan han.
- A! Ermittia... eurak euren elizia zeken?
- Bai, eurak ein eben. Ta... ze esango detsuet nik?
- Ta zelakuak zian Orbeatarrak?
- Ezaunak izango zian, ez, Orbeatarrak?
- Enee! Bai! Orduan elegantiak zian horrek!
- Bai?
- Bufaa! Elegantiak zian.
- Ze juaten zian, jantzitta ta...
- Jo! "Como caballeros" zian.
- A bai, e?
- Ez! Bufaa! Zerak zian, inportantiak zian.
- Eta andrazkuak be juango zian...
- Jo! Elegantiak. Josefina Orbea ta. Jo! Gaiñera, eken harek euren etxian zerian, zera, arbola eder bat ta [...], itxitta holaxek, Barakaldoko etxian, hartu ta gorutz itxitta eken. Dana diferentia oin. Jesuuus! Dana diferentia. Baiña orduan edarra zan.

5.45. Alfa; kategoria handiko tailerra

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/004
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:03:34. **Bukatu:** 00:04:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Alfa kategoria handiko tailerra zen bera sartu zenean. Han gehiago irabazten zela esaten zen eta jendeak bertan sartu nahi izaten zuen.

Transkripzioa

- Eta orduan, gaiñera, Alfa-n sartu ziñanian, ez dakit, Alfa-k kategorixia zekan, ez?
- Bai, asko! [...]
- [...] alfistak eta...
- Bai, han sartzeko izaten zan salbaziñua edo, ez dakizu?
- Bai?
- Bueno, taillarra, ba, zelan... Beti esaten zebe gehixao irabazten zebela,

ta horrek gauzok. Ta mundu guztiak nahi eban ba... Normala, ezta?
Horretxeaittik.

- Bai, bai. Taillar haundixa zan gaiñera.
- Bai, haundixa.
- Eibarren haundiñetarikua.
- Bai, askokin gaiñera! Diferenzia askokin!

5.46. Alfa lantegia nolakoa zen bera sartu zenean

- **Hizlaria(k)**: Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: AB-332/008
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:06:13. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarrenen lantegiak
- **Laburpena**: Alfa lantegia nolakoa zen bera sartu zenean. Tailerraren
gune desberdinak.

Transkripzioa

- Eta zelan zeuan pixkat banatuta?
- Ba, zan pabelloia ointxe bertan daona, fundiziñua ez ondiok, baiña beste aurrerao daon... Ezautzen dozu, ezta? Bueno, ba, haxe pabelloia. Ni ekin nitzanian ya pabelloi hori zeuan ya. Ofizinak gerotxuau in ziran; eskiña hau, San Andresko eskiñiau gerotxuau. Ez dakit ze fetxa izango zan. Baiña pabelloia bai. Nik hori txikitt... Eske lehelengo-lehelengo egon zan hamen Bista Alegren edo ez dakit nun, baiña nik hori ya... Hori gerra aurretik, eta ni hori ez naiz akordatzen. Ez.
- Gero, ofizina teknikua edo...
- Ofizinak zeuaz... Bai, "oficina técnica" ta gero ofizinan, ba, administratibuak, espediziñua, "compras"... dana repartiduta, bakotxa beren... Ta gero, ba, taillarrak mekanika eta... ba...
- Bai, montajia edo...
- Bai, hori, hori, horretzek gauzok.

5.47. Emakumezkoak Alfa-n; altzarien saila

- **Hizlaria(k)**: Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: AB-332/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:08:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarrenen lantegiak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena**: Alfa lantegian bazeuden emakumezkoak. Bulegoan lau inguru. Baina tailerlean ere baziren, batez ere "el mueble" deitzen zioten altzarien sailan. Altzariak Zarautzen egiten ziren eta gero Alfa-ra ekarri eta muntatu.

Transkripzioa

- Ta ofiziñan, orduan, andrazkuak egongo zian.
- Bai! Ofiziñan kajeria be andrazkua zan. Kajeria, Pilar. Ta gero, ni akordatzen... ba, lau bai behintzat.
- Beste gauzetan, ba, montajian-eta ez zian andrazkorik egongo, baiña...
- Bai!
- Baitta?
-Montajian bai, e! Bueno, montajian... "El Mueble", beste pabelloi bat zan "El Mueble" esaten zetsena ta han be andrazkuak bazeuzen, e! Ta montajian be bai.
- Ta "El Mueble" hori ze pabelloi zan?
- Bertan, e! Bertan. Ez dakit ze pisu zan.
- Ta halan deitzen zetsen?
- Bai, "El Mueble" esaten etsen. Ba, han... embalaj... no, ez dakit ze ingo zeuben. Ba, mueblia bai. Badakizu, mueblik eitten ziazan Zarauzen. Fabrikia mueblia zeuan Zarauzen. Ta gero, ba, ekarri hona ta montau makiñak. Ta "mueblia" esaten etsan... Ta han andrazkuak bazeuzen. Ta montajian be bai. Makiñetan-ta ez. Ez dot uste, e! Ez.

5.48. Alfa lantegiko buruak

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Fernando Mendoza donostiarra izan zen Alfa lantegiko gerentea, ia bera egon zen urte guztietan. Gero "konsejua" aldatzen joaten zen. Bere aita ere izan omen zen aholkulari. Bi lehendakari ezagutu zituen berak, biak donostiarrak: Maurizio Danborenea eta Pedro Zaragueta.

Transkripzioa

- Eta orduan, zu sartu ziñanian, gogoratzen dozu zeintzuk zian, ba, edo gerentia edo...?
- Gerentia bai, gerentia ni egon nitzan denpora guztian ixa don Fernando Mendoza zan. Donostiarra zan.
- Eta besterik?
- Gero Konsejua, ba... hori kanbixau eitten ziazan, Konsejua. Nere aitta be konsejerua izan zan. Ta asko, eibartarrak asko, asko. Hori, konsejeruak gero igual kanbixau eitten ziazan. Gero zeuzen kanpo... Presidentia... presidentia zan donostiarra. Nik ezautu neben bi —edo hiru?—, bi: don Maurizio Danborenea bat eta bestia zan Zaragueta, don Pedro Zaragueta usten dot zala bestia. Gero ziazan gehixao, baiña nere denporan horretzek bixok usten dot. Horretzek bixok.

5.49. Elgoibarko Sigma lantegia, Alfa-ren kompetentzia

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/033
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:42:35. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
- **Laburpena:** Elgoibarko Sigma lantegia zen Alfa-ren kompetentzia, baina berak uste dut Alfa-k indar handiagoa zuela. Singer-a, zaharragoa.

Transkripzioa

- Eta gero kompetentziarik eukitzen zenduen? Josteko makiña, ba...
- Sigma Elgoibarren.
- Eta kompetentzia haundixa zan?
- Onbre, Sigmak be salduko zeban. Nik ez dakit, baiña nik usten dot orduan momentuan Alfa gehixao zala. Usten dot, e! Ez dakit. Ez dakit. Hamen inguruan Sigma zan. Bestela, Singer ez dakit nungua zan. Singer-a zaharraua igual. Baiña nik uste dot hamen, hor urtietan, momentuan, Alfak zekazla boom gehixao. Usten dot, e! Ezin leike esan, baiña...
- Eta Sigma-k holan bordau eskolarik edo?
- Ez, ez zekan. Ez dot uste, e! Ez zekan. Ez dot uste, ez.

5.50. Boom industrialia; etorkin galiziarak; langileak kale betean

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/034
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- **Laburpena:** Boom industrialia egon zenean Galizia aldetik jende asko etorri zen, baina guztientzat zegoen lana. Gainera, ordu estrak sartzen ziren diru gehiago irabaztearren. Langileak lantegietatik irten edo sartzen zirenean, manifestazioa ematen zuen. Sirena. Langile guztiak mahoizko arropekin. Alfa-ko langile bakoitzak zenbaki bat zuen; bera 705a zen.

Transkripzioa

- Zu, gaiñera, orduan, sasoi hartan, hamen be boom industrialia, ez? Osea, aujia egon zan ekonomixan...
- Bai, zan urtiak... galleguak etorri ta etorri ta...
- Orduan, biharra...
- Asko. Danendako. Danendako. Ta orduan eitten ziazan, ba, ordu estrak-eta, eta mundu guztiak dirua, ba, fresko-freskua, gastatzeko eta danerako.
- Hori, ez? Hemen askori entzun detsau "la ciudad del dólar" eta...
- Bai, horretxeaittik zan. Bihar asko zeuan. Orduak ein, ta gero estrak. Ta

estarak, ba, irabazten zan asko. Irabazten badozu asko, ba, gastatzeko be gehixao dakazu. Hori normala. Holaxen zan. Bai. Ziazen... bueno! Hamabixetan ta ordu bat... Hamabixetan urten eitten zan taillarretik. Manifestaziño bat kalia. San Andresen? Badakizu zenbat persona?

- Zenbat bihargin zekazen orduan Alfak gitxi gorabehera?

- Ba milla edo eukiko zeban, edo ez dakit nik.

- Bueno, asko, ez?

- Bueno, milla igual ez, baiña asko. Zekaun numeruak. Ni nitzan 705.

- Goguan dakazu.

- Bai. Hori ez da ahazten. Hori ez da ahazten. Ta ordu bat eta erdietan berriro beste manifestaziño bat. Badakizu zenbat jente? Ta gero horretxeaittik kanbixau ein zebe geruao... orduak... ordu laren batzuek lehenao edo... Eske zan...

- Eta, gaiñera, sirenia joten zeban.

- Sirenia, sirenia, ta danak.

- Bai, gaiñera, hori, Alfa, bestetik GAC-a, eta...

- Alfatik gero atzerao La Star ta Valenciaga-ta zeuazen ta San Andres kalia zan prozesiño bat! Prozesiño bat, e! Jentia...!

- Ta, orduan, gaiñera, buzuekin, ez, gehixenak?

- Bai.

- Osea, mahoiz jantzitta...

- Danak. Danak mahon jantzitta, danak. Harek ziazen urtiak guretako onak.

5.51. Kanoigintzan onenak Bustinduitarrak eta Irustatarrak

- **Hizlaria(k):** Olabe Etxebarria, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-002/011
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- **Laburpena:** Kanoigintzan onenak Bustinduitarrak omen ziren eta haien atzetik Irustatarrak, euren senideak. Toribiok kontatzen omen du behin Madrilgo "Museo arqueológico"-an ikusi zituela Bustinduitarren kanoien muestrak. Bi kanoigin hauek euren zigilua zuten.

Transkripzioa

-Ha, holaxek eitten zittuela kañoiak, bai. Ta Eibarren, esaten dau, famarik haundiña ekenak kañoiak, kaiñoigintzak e, kaiñoigintzak, "fabricantes de cañones", ezta, zirala Bustindui, ta bestiok, euren e, bere aurrekuak, antepasauak horrek Irustatarrak bigarrenengo firmia zala. Lelengo firmia, Bustindui, esaten dau. Toribiok esaten dau liburu baten "los Bustindui hasta fama internacional" eukela, ta ikusi zittuala baten "en el museo arqueológico" Madrilguan ikusi zittuala muestra batzuk horrek kañoienak, bai. Ta bai Bustinduinak eta bai gure antepasauenak bere sellua eukela, bere sellua euken, bai. Ta gero laga ein etsen, ez dakitt zegaittik. Bueno, biharra be gogorra zan, biharra gogorra zan, biharra gogorra ta.

5.52. Errotak, presak eta zentralak

- **Hizlaria(k):** Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-034/005
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Maltzagatik hasita zentralak izendatzen ditu, Apalategiko errota eta torloju lantegia, Kortasonekoa, Barrenazarrekoa, Orbeanekoa, Zerrategia eta labaderoa eta abar.

Transkripzioa

-Ia behetik gora eitten doun hasi Maltza(ga)kuak.

-Banan-banan egingo douz goraiño?

-Bai, bai. Maltza(ga)kua badakik zelan zeuan. Maltza(ga)kuak emuten jua indarra. Gerra ostian hango indarrakin biharra einda naok neu be. Ta pasatzen zuan igual badiharduk biharrian da ra! geratu eitten zuan, indarra jua. Eta telefonotik deittu eta esaten jua han enkargau eitten zeban mutil gazte bat zuan. Udaazkena zanian esaten jua "orbela"; itxuria orbelak jan eitten jok, ura hartzen jok berak, eta ura gastatzen jakuen eta geldittu. Ta beste izen bat be esaten jua. Orbela esaten jua baiña "laiñua" be bai aitzakixia. Itxuria laiñua sartzen zanian laiñuak itxuria lapurtu eitten jua ura. Ur gitxi udan-ta. Horretxek esaten jittuan, eta azkenian hari zaintzailliari gatzizena ipiñi getsaun, Orbela esaten..., "Orbelak hauxe deittu jok", edo bestia.

-Eta orduan hori zan Kojonesena?

-Bai, hoixe zuan. Lelena. Eibarko... Bueno, beste bat be bajeuan. GACiak pe zentrala jekan Saturixon, baiña zereko urekin, Arrate ostetik zetozen urekin. Oiñ Elgoibarko mugia dok ba, ha etxakixat Eibarko terrenuan zeuan edo Elgoibarkua zan ha, hoixe etxakixat. Hau lagako juau dudan.

-Beste erreka bat baiña.

-Bai. Hango errekoa, Saturixoko errekoa sartzen zuan Egora, Eibarko errekoa, eta oin ha zentrala nun zeuan, Elgoibarko lurrian ala Eibarkuan etxakixat hori. Bueno, Maltza(ga)kua hasi, gero Apalategikua, errota. Apalategikua, bi.

-Han errota ezautu dozu?

-Bai, bai, bai. Han tornillerixia, tornilleruak eitten jua biharra. Bertakuak jekan tornillerixia. Nik etxakixat urakin eitten zeben biharrik harek. Harek pentsatzen jatak motorrekin eitten zebela biharra. Baiña errota han egon zuan, artua-ta jotzen jittuen, zehetzen jittuen han Apalategin. Gero bestia zuan, esan dotena, zerekua, Kojones famosuana, Apalategikua; gero Kortasonekua esaten jakona, hori be esan doten lekuan, hantxe inguruan zuan hori be.

-Matadero barrixan inguruan?

-Ez, matadero barrixa baiño beheara. Autopistako entradetan, beheara itten dok hori, hantxe inguruan zuan.

-Ermitta onduan?

-Ermittia baiño beheara, beheara. Beheratxua, bai. Hiru horrek. Gero laugarrena etorriko zuan Barrenazarreko hori. Hori ezezaun hori lehen esan doun hori, Barrenazarrian bazala errota. Ni akordatzen nok guk han potzua

eitten zala eta igari eitten genduala presa gaiñian. Lehen presa gaiñetan eitten zuan igari, hantxe egoten zuan ura ta.

-Han inguruan errotaren bat edo ez zenduan ezautu zuk?

-Etxakat nik goguan hangorikan. Gero esan dotena Orbeanekua, Urkuzuko itturri ondoko hori.

-Horrek emoten zotsan argixa Orbeari?

-Orbeari indarra, taillarra jeuan han, Orbeaneko taillarra lelengo hantxe fundau zuan. Karmelitetako aurrian bestekaldian. Bai.

-Ezautu zenduan zuk hangua?

-Nik ez najuan ezautu. Nik zarra bai, edifizua bai baiña bestera pasauta jeuzen nik ezautu nittuanerako. Leku barrira, oin torriak daozen lekura. Hori hangua. Gero handik gora etorri ta esan doun hori, Arotz Haundixaneko, zerrerixako hori labaderuakin, Arikixaneko zubi onduan.

-Handik hartzen zeban ura?

-Ura labaderuan pasatzen zuan eta gero joaten zuan horra zerera, zerrara.

-Zerria nun zeuan gutxi gorabehera, Pedromaneko etxietan edo?

-Beherao. Arotz Handixak berak indako etxiak zittuan. Arotz Haundixa esaten jakuan, Arregi, Arregitarrak zittuan, Nikolas Arregi zuan haren seme bat.

-Txontako sarrera inguruan edo?

-Ez, behe-rao, parkeko parian. Lehen esan duat ba Sagarbitsa tabernia ta, hantxe, harek etxiak. Oin badaok ba fruterixia Pilar edo, Pilarregandik honutz daozen pegora bi Arotz Haundixanak zittuan. Hantxe jeuan hori. Ta gero jeuan hortik gora hori presiori. Gero hor bajeuzen beste presa raro batzuek be, ura hartzen juen, Txomoneko forjarako ura hartzekua be bajeuan, baiña indar moduan ez zuan ha. Ura hartzeko presia. Forjarako ta ura bihar zuan ba errekatik.

-Txomonekua nun zeuan lehen fabrikia?

-Txomonekua zuan Laspiurreneco taillarran parian bestekaldian, haretxen etxian atzian. Oin badaok ba edifizio haundi bat einda han zerekua, hori Araneko etxiak, hantxe; hantxe zuan Txomoneko forjia.

-Harek be ura hartzen zeben orduan.

-Harek ura baiña indar moduan ez, ia harena dok ura biharrerako, ura bihar forjarako ta. Ta gero bestia jeuan, lehen esan douna, STAR-erako zeuana, oin Bolerako pare inguruan beste presia.

-Ariatzako hori?

-Ariatzako hori, bai.

-Eta eruaten zeban ura nora?

-Zereko parera, esan duat ba, pasatzen zuan hori, Errebaleko etxien azpittik joaten zuan hori ur hori, ta agertzen zuan, eskolak badauazak ba kuartela egondako parian, haren bestekaldian, errekan bestekaldian.

5.53. Arropa tindatzearen garrantzia

- **Hizlaria(k):** Aranberri Mendizabal, Luis Alberto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-074/021
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ekonomia eta industria » Lantegiak
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debabarreneko lantegiak

- **Laburpena:** Tindategian esku-lan handia zegoen. Amatiñok ezagutu zuenerako nahiko mekanizatuta zegoen, baina lehenago ez. Eta tindatze-prozesua beti izan zen oso artizanala. Garai hartan arropa tindatzea oso lan garrantzitsua zen; arropa asko tindatzen zen. Horrelaxe ezagutu ziren, esate baterako, Amatiñoren gurasoak. Aita tindategian lanean zegoela, 13 urte inguruko neskatila sartu zen lantegira eta aitak esan ei zion, "zer? aittan abriguaz zuri trajia ein bihar detsue, ala?". Lehen hori oso arrunta zen. Oihalak askoz hobekak ziren, material ona, kalitatezkoa... arropak asko irauten zuen eta konpondu/tindatu egiten zen.

Transkripzioa

- Bueno, neuk be horrela ikasi najuan gero, e? Nik ikasi najuan garbitzen, tintatzen ta plantxatzen. Nik e...
- Ta berak be dana eitten zeban?
- Berak be dana eitten zeban, ta ez bakarrik... Gaiñera, maixua zuan gaiñera: hau horrela in bihar da, hori ez daok ondo hori, hori eztakit zer... Eta, tira, nik ezautu neban garbittasun kontua nahiko -zelan esango neuke nik- mekanizauta jeuan, baina tintatzia, tintatzia beti izan zuan oso, zera... eskulana. Ze azken [batean] oso prozesu kimikua zuan: irakin, horrelako tenperaturan, horrelako tintia, ta horrelako proporziuan. Ta gero jakin bihar zan koloriak aldatz... nahasten, ba, horrelako kolore bat hartzeko. Ta etortzen jatzun klientia ta esaten zetsun: nik berde hau nahi dot, ta berde hori etara egiten zan; hau da, ba... ta, gaiñera, koloria, hik ondo dakian bezela, koloria lehorra izan ala edozein, hik daukan frakia edo nikixa, horri ur-tanta bat jausten bajako, koloria aldatu eitten dok. Orduan hik jakin bihar dok ze kolore hartu bihar daben sikatzen danian! Ze klientiak sikatuta ikusiko jok! Orduan, badao sistema bat oso kuriosua dana ta funzionatzen jok, da e... erropia holan busti-busti inda daola, ipintzen da mahai gaiñian, joten jako holako zera... eskukada zera... ukabilkada bat, ura lehertu... kendu eitten jok eta orduan koloria ikusten dok. Ta, karo, segundu bat dok e, pla! jo, ta, ez bazan illunegixa ero, ba, berriz beste koloria... Ta zuan... oso eskulan haundixa zuan.
- Sasoi haretan, gaiñera, tintatziak, oin tintau ez da ezer tintatzen, baiña lehen erropa zaharrak eta holako gauzak asko tintatzen ziran, ez?
- Holaxe ezautu juen alkar nere gurasuak. Hau da, nere aitta tintorerua zuan, ta dendan zeuala, zera, erropia hartzen, etorri jakon neskatilla bat bera baiño 13 urte gaztiaua. Ba berak eukiko zittuan orduan 27 urte edo, ta etorri jakon 14 urteko neskatua. Ta orduantxen alkar ezautu ta alkar gustau, itxura danez. Eta, gaiñera, amak ez zekan ahazteko, ze itxura danez esan zetsan: "ze? hau ze... -ekarri zeban tintatzeko, ta- zer? Aittan abriguaz zuri trajia in bihar detsue, ala?" Ta, jakiña, bestiari ez jakon bape gustau.
- Min.
- Lotsatu ein zan. Baiña hori orduan normala zan; batek telak haundixauak edo helduauak zittuan, senduauak zittuan, kalidade [...], gehixao irauten juen, lania zuan... Ta orain, oin, ba, produktuak dittuk kendu-ipinikuak. Orduan lehen erropiak iraun itten juan, ta itten zan lehelengo hainbat urte iraun; gero hareaz, askatu eta alabiaz edo alabiarentzat edo semiarentzat beste pieza bat egin; eta gero koloria galdutakuan, tintau. Orduan erropiak iraun itten juan. Oin, ostera... ez, ez... oin e...
- Ta tintorerixan gehixau, tintau eitten zan gehixau edo garbittu be bai? Ze garbitzia...

5.54. Makinen funtzionamendua

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Iñarrairaegi, Oswaldo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun
- **Erref:** EIB-658/037
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:03:01. **Bukatu:** 01:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** Argazkiei begira tornagailuak nola funtzionatzen zuen azaltzen digu Oswaldok pasarte honetan. Produkzioa ez etetea komenigarria bazen ere, makinak itzali egiten zituzten, ezinezkoa baitzen egun osoa makinak piztuta mantentzea.

Transkripzioa

- Aber, hau... hau da torneadora, e? Han daguana, e? Han. Handik urtetzen dau materixala. Urtetzen dau hona. Hamendik kate bateaz, hartzen dau barilliori ta, hartzen dau holan ta bajatzen dau hamendik. Hamen azpitan dare beste... kate bat; bueno, kate bat, baiña kate asko. Osea, holan katiak izatia beste. Ta honek itten dabena da: hamen hartu barrak ta hamen doian katiak gaiñian ipini. Ta hori zelan dauen konstantemente martxan, horrek jaso eitten du. Ta jasotakuan, hamendik hona botatzen dau. Ta hamendik ya automatikamente barrak datoz hona. Dana... dana ipini bihar holan.

- Eta hori konstantemente martxan esan dezu. Konstantemente, egunean 24 orduz nola egiten zen lan? Errelebotan edo...?

- Ez, 24 orduan ez gendun...

- Gelditu egiten ziran.

- Geratu, geratuta. Ez, porke jentia be ez zauan preparauta ta ez, ez, ez.

5.55. Lehenengo soldata "Aramberri Hermanos" lantegian

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/018
- **Iraupena:** 0:05:01. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:29:36
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Gerraostean premia zegoela eta, nahiz eta neska izan, lanera joan behar izan zuen Adela ere. Baina berak gustura ekin zion lanari. 1941-1946 bitartean "Aramberri Hermanos" lantegian jardun zuen. Ehizarako eskopetak eta banadiozko giltzak ekoizten zituzten han. Nominak, ordainketak, errenta aitorpena eta antzerako lanak egin behar izaten zituen Adela. 1943. urtean gizarte-segurantza abian jarri zen unea eta hark ekarri zuen aparteko lana gogoan dauka.

Transkripzioa

Anaia eta ni, neskia. Giñazen bi. Aittak eta amak esaten eben, ba, biharrera neskia, zela? baina ni aspertu ein nintzan eta esan netsan: "edo taillarrera edo ofiziñara, baina nik biharrera juatia nahi dot. Aspertu eitten

naiz bestela". Orduan ba, premiñia eguan eta danok biharrera jua bihar. Eta zelan lagunak ziran Aranberritarrak, ba zera, nere aitta jua zan haraxe eta bialtzeko. Ta hala jua nintzan haraxe. Hantxe ein nittuan bost urte, Aranberri Hermanos-en. Aguirre y Aranzabal?, ba aldamenian, halan, altu bat. Han eitten ziran eskopetak eta gero, eitten eben "una llave, que hacía esto, de vanadio. Y solían vender a no sé qué... de herramientas". Horrek eitten ziran "con tubo hexagonal" eta eukien "muchas estrías", neurri desberdinetan. Aranberrin, ba ondo. Harek nahi izaten eben "que no les cogiesen por ricos", ez dakizu? beti neurri baten, hala, ez eben nahi agertzerik... holan. Horrek ziran, bueno Kristobal zan ixa itsua, baina jefiak ziran Simon ta Gregorio. Gero Eduardo zan, ba gaztiena, ta gaiñera hari pasau jakon, jausi ein zan hortxe "Carretera de Elgetan" eta ixa kojo geldittu zan. Han ibiltzen zan, ba eskopetak garbittu, ta enfin, holakuak eitten. Eskopetak ez zittuen asko eitten baina horrek llabiak, danak saltzen ziran. Gregorio ta neu ofizinan. Kontabilidadia neuk ez, azkenian jarri nintzan eitten zeoze baina ostian, ba gauza guztiak eruan, nominak, deklaraziñua, paguak ein bihar ziran, trimestrian, ta hau ta bestia, "Caja de Ahorros"-en pagatzen ziran... horretzek gauza guztiak nik eitten nittuan. Eta gero agertu zan "En septiembre del 46, creo que fue" ein bihar zan hilero-hilero, toda la lista de obreros, ze irabazi eban... ta gero Caja de Ahorrosera eruan. Horrek danak be, inpuesto, fakturak... eta horrek danak nik eitten nittuen. Ta gero, eskopetiakin, jua bihar izaten zan kuartelera permisua eta firmatzera. Rekadistak eruaten zittuan baina nik papelak eitten neban.

5.56. "Aramberri Hermanos" lantegiaz: eraikina eta ekoizpena

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:33:53
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** "Aramberri Hermanos" lantegia nolakoa zen deskribatzen du. Bi pisuko eraikina zen: lehenengo pisuan tailerra zegoen eta goiko pisuan bulegoak eta biltegia. Eskopeten "pulimentua" (leunketa prozesua) kanpoan, Zamakolak egiten ziela kontatzen du. Fabrikazioan ezinbesteko diren beste hainbat pieza eta prozesu ere kanpora bidali edo kanpotik ekartzea oso ohikoa izaten zen orduan, eskopeta-kaxen "pikaduria eta txarola" esaterako.

Transkripzioa

Ba piso bi eukazen. Lehelengo piso bat ein eben ta han eguazen makinak eta... dana eitten zan han, eskopetia be bai. Ta gero beste piso bat ein eben ta goixan eguan eskopetia, ofizinia ta almazena. Ta gero pulimentua eguan aldamenian. Ha zan bera, eitten eban Aranberrindako lana baina beste batzuek be bai. Independentia zan. Gehixena eskuz eitten zan. Gaiñera kaiñoiak einda ekartzen ziran ta kulatak be bai ta gero han ba "el raspao aquél que había que hacer". Horrek danok erosi eitten ziran. Baskulia be, "en bruto" erosi ta gero ein. Kulatian pikaua andrak eitten eben generalian. Nere aman lehengusiña batzuek horixe eitten eben.

Txarola be bai, kulatiana. Batak txarola ta bestiak pikaduria. Generalian etxietan eitten eben. Gizonak be eitten eben baina, andrak asko.

5.57. Hogei duroko soldata eskasa hasieran

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/022
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:34:18. **Bukatu:** 00:36:20
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Hogei duro irabazi zituen bere lehenengo soldatarekin. Egindako negarraldia oso ondo gogoratzen du, behar handia zegoen etxean eta. Gerraostean guztia galdu zutela kontatzen du; aita Burgosen espetxeratuta, anaia Kordobako kontzentrazio-esparruan, ama Valentzian eta bera Frantzian zeudela Eibarren zituzten ondasunak galdu zituzten.

Transkripzioa

Ene, ein neban negar... Ni juan nintzen Aranberrinera ta hogeia duro emon esten lehelengo hillian. Baina, etxian premiñia eguan. Ez geunkagun ezer, dana galdu gendun, Behobian laga genduan ta gero etorri giñazen Eibarrera eta ez geunkan ezer. Hango alkatia edo alkate modukua eguana ba, lehelengotik esaten eban, "ez, etorriko dira ta laga" baina gero ya aillau zan papel hori, esaten ba entregatzeko dana, muebliak eta hori eta ordutik ezebez. Ta nere aitta kartzelan, Burgosen, ta nere anaia "en campo de concentración en Córdoba", ni Frantzian ta gure ama Valentzian lehelengo. Ta gero, etorri zan, ta hartu eban tifusa, edo ez dakit zer eta... en fin. Ta menos mal zeukazela, aitta, eta bere ama ta hoietxekin basarrira juaten zan ta, en fin. Ta gero ba etorri zanian nere aitta ta nere anaia, orduantxe neu be etorri nintzan. Nahi eben danok egotia juntü.

5.58. Soldaten ordainketei buruzko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/023
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:37:40
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Soldatak astero kobratzen ziren hasiera batean. Gero hamabost egunean behin eta azkenik hilabetero kobratzen hasi ziren, baina aurrerapen bat eskuratzeko eskubidea izaten zuten beharginek. Aurrera-n lanean hasi zenean ez zegokion Adelari nominak egitea baina, arduraduna gaixotu eta ugazabek Adela berak egin zitzaizkela ikusi zutenetik, bera arduratu zela kontatzen du.

Transkripzioa

Ofizinakuak hilian kobratzen gendun. Ostian, astero. Gero hasi zan hamabostian behin, ta gero hillero. Orduan be eitten zan Aurrera-n, ta beste leku askotan, antizipua emon ta gero hillan azkenian ba nominia. Baina lehelengo, Aurrera-n hasi nintzanian ni, "día 15 y día 30" pagatzen zan. Eitten genduan, Maria Jesus, zure aittitta ta nere artian nominak. Ta zure aittitta juan zan behin, oso sarri juaten zan, Orfeón Donostiarrakin Vigora edo ez dakit nora. Ta Juanitok esan estan "Adela, éste no va a venir para la nómina. ¿Ya podrá usted hacer la nómina?" eta nik, "sí, sí" ta ein neban. Zure aittittak esan estan, "Adela, ¿la nómina?", eta nik "ya está hecha". Ez zeban gehixago ein! Nik ein neban!

5.59. Ama izan bezperara arte lanean

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/025
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:41:55
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Lan baldintzei buruz ari da hizketan. Astelehenetik larunbatera bitartean egiten zen lan garai hartan. Adelaren kasuan, ama izan bezperaraino lanera joan zela kontatzen du: lantokiko atea zabaltzen ari zela erdiminak igarri eta itzuli zen etxera. Nahiz eta hiru hilabeteko amatasun-baja zegokion, etxean aspertu eta lanera denboraz aurretik itzuli zela kontatzen du.

Transkripzioa

Astelehenetik zaturaino. Denpora luzian. Pentsaizu, nik euki nittuanian bikixak, euki nittuan "el 8 de Enero", "día 6" izan zan "día de reyes", jaixa. Hurrengo egunian, zapatua, biharrera ta hurrengo egunian euki nittuan bikixak. Bestiakin be, nausixakin be, jaixo zan "el 26 de Febrero" ta "24 de Febrero" izaten zan Aurrera-n jaixa modukua, "consejo de administración" izaten zan ze ha zan "el día que se fundó" ta orduan, izaten ziran ba "reunión de todos los socios". Orduan ba, kunpliduta zela neguan ba, ez nintzan juan. Baina, hurrengo egunian banindoian, pretauta neguan ta banindoian. Amak esaten estan "ofizinan euki bihar dozu umia!". Banindoian, zabaldu neban atia ta sentidu neban zeoze, ta etxera. Hurrengo egunian euki neban umia. Orduan hiru hillabete emoten zittuen baina ni aspertu nintzan etxian ta gaiñera ez eban eitten egualdirik umiakin urtetzeko. Beti eurixa, edo hau edo bestia, hotza... ta ya, abrilleko lehelengo egunetan juan nintzan biharrera. Ta bestiekin be bai. Hiru hillabete egoten ziran; nahi bazenduan aurretik hilabete eta erdi hartu ta gero bestia. Orduan baeguan. Seguro de enfermedad zan. Eitten zanian likidaziñua, orduantxe etortzen zan.

5.60. "Segituan koloreak ateratzen zitzaizkidan"

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-661/027
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:43:00. **Bukatu**: 00:45:55
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Oso gustura jardun izan zuen Aurreran lanean, familia handi bat iruditzen zitzaion hango lantaldea. Zuzendaritzaren egitura eta lankideak izendatzen ditu. Gaztea eta xaloa zen Adela, hainbat anekdota kontatzen ditu honen inguruan.

Transkripzioa

Aurrera-n ofizinan behintzat ondo pagatzen zan. Ni pozik egon nintzan. Zelako ondo. Familixa bat giñan. Giñazen, lehelengotik Maria Jesus, Ramon, Juanito, Antonio ta ni. Lehelengotik honek. Gero, ya sartu zan Iñaki Iñarrairaegi baina ha sartu zan Juanito hil zanian ta zure aittitta jarri zan gerente. Mahai batian egoten ziran Juanito ta zure aittitta. Gero eguan nere mahaixa ta eskribitzeko makiñia eguan beste mahaixan ta gero zan Ramon. Gaiñera Ramon zan ule-hartzailia ta ni nintzan, “mika” bat ta segiduan koloriak urtetzen esten. Ramonek esaten zestan “Baños de sol, crema Nivea”. Gaiñera, lehelengo hillabetian juaten nintzen etxera eta “... ay, ... eta ay...” egoten nintzan suspiratzen ta nere aittak esaten zestan “ez bazare conforme, urten” ta nik “ez, ez, conforme nago”. Gure amak topau eban Ramonen suegria ta harek esan zetsan “¡están de contentos!” ta orduantxe hartu neban nik harnasia. Orduantxe ya neu izan nintzan, ez dakizu?. Gero ya, harek koloriak pixkaka-pixkaka juan jatezen ta orduan hasi nintzan kontestatzen, ta hau esaten ta bestia esaten... Bueno, 22 urte neukazen baina ez jatan gustatzen han aurrian ta egotia, badakizu? Nitzan, esaten detsut, koloriak segiduan, batek ez nebana ezagutzen zeoze esan, ta ya koloriak urtetzen zesten.

5.61. Aurrera galdategiko zuzendaritza eta urteurrenaren ospakizuna

- **Hizlaria(k)**: Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-661/029
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:46:16. **Bukatu**: 00:49:53
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: 1948. urteko zuzendaritzako kideen izenak dakartza gogora. urteurrena ospatzeko egindako bazkarian gertatutako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Han soziuak asko eguazen. Pako Anitua be bazan “del Consejo de Administración”, ta ha be andriaittik zan soziua ta... sozio mordua eguan. Baina gehixenak, ein ebenak hori ziran Iñarrairaegi. Baina, ni juan nintzarian ya Gregorio erretirauta eguan. Ta zan, Pako, tio Pako esaten etsen, ta Juanito. Ha zan el 48, “al año de morir mi padre”. Nere aitta hil

zan “el 10 de mayo del 47”. Ta ha zan el “4 edo 5 de mayo del 48”. Orduan zure aittitta [Antonio Sarasua], ez dakit, nombrau edo ein eben baina behintzat, gerente-gerente nombrau eben Pako, baina “vice-gerente” edo lo que sea zan zure aittitta. Ofizinako jefia zure aittitta. Ta gero sartu ziran Pedro Mari Iñarrairaegi eta Jose Mari Etxeberria. Jose Mari etxeberrria zan Heraclio Etxeberrian semia ta, Heraclio Etxeberria zan el presidente del consejo. Ein genduan, ez dakit ete zan 100 urte edo 75 baina ein genduan, sozio guztiak eta bazkarixa. Gu, ofizinakuak, eta zelan bihar dana ein genduan, juan ginan Txominenera. Baina zer! kobrau eban nahi ebana. Esan eban, “si sobra...” boda bat eguan, “si sobra ya traeremos, lo demás no hay” ta gero kobrau eban nahi ebana. Pakok gero hasarre ein eskun. “¿cómo? si hemos comido sobras” guk. Zelan euken... Pakok eitten etsan “los aros para la encimera” Aurrera-n eta kobratzen zan, ba... nahi ebana ta bestiak be... ba nahi ebana!

5.62. Eraikinari buruzko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-661/030
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:49:53. **Bukatu**: 00:53:40
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Aurrera galdategian lantzen ziren materialei eta prezio desberdinei buruz ari da: "colado" edo "maleable" izan zitezkeen galdategian ekoizitako produktuak. Eraikinen argazkiak ikusten dihardu. Eraikinera "Fundidores"-etik (Urtzaile kalea, egun) sartzen zela kontatzen du, bulegoetara aldiz, Bidebarrieta kaleko atetik. 1946. urteko ekainaren 3an inauguratu zituztela gogoratzen du.

Transkripzioa

- Beti izan da fundiziñua, “colado y maleable”. Fakturak eitten nittuan eta horregaittik dakit, “colado y maleable”, prezio diferentia eukan. Lehelengotik gaiñera eguan “precio estipulado por el Gobierno” ta gero pasatzen zan, “en una hojita”, diferentzia pasatzen zan ta kobratzen genduan.

- Beti leku berean egon da?

- Bai, lekua bera zan. Lehelengo hau zan, gerra aurrekoa horixe. Ez dakit ezautu neban hala, edo erretratua ikusi dotelako dakitten. Baina hau bai, hau ezautu neban. Oingua dagon aurretik hau izan zan. Ofizinak seguramente honek ziran eta, Pako ez dakit baina Gregorio seguramente hor bizi izan zan. Pakok eukan, oindio badago, etxe kuadrau bat, Aurrera-n onduan, Bidebarrixetan, barruan etxe bat eta ha zan Pakon andriana, Gomez. Pako behintzat gero hantxe bizi izan zan. Ta hamen, seguramente, Gregorio bizi izan zan. Alde hau Bidebarrieta, ta hau Fundidores. Ofizinara hemendik, atia badago ba? Ni sartzen nitzan handik, ta fabrikara fundidores-etik. Han garajiak eta badare ba, handik. Aurretik ez dakit baina ofizinak orduantxe, el 3 de junio del 46 inaugurau ziran. Akordatzen naiz gero, hamabixetan ekarri eben, “volovanes” eta holakuak. Sekula be jan barikua. Jatia asko gustatzen jatan ta Juanitok esan estan “Adela, no habla nada”, “Es que comiendo no se puede hablar”. Zan ofizina bat, “el cielo”. Dana barrixa zan.

5.63. Instalazio modernoak bulegoan

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/031
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:53:40. **Bukatu:** 00:56:45
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Bulegoen eraikinari buruzko azalpenak ematen ditu. Instalazio eta gela desberdinen antolamendua. Kontseilu gelan zeuden egurrezko mahai zoragarria eta kristalezko argi-armiarma gogoan ditu. Enpresa ixtean, desagertu egin zirela kontatzen du.

Transkripzioa

Gaiñera eguazen telefonuak, zuretik bestera deitzeak, ta handik kalera deitzeak, ta bueno! Dana “novedad” mahaixak be bai, ta lekua, kalefaziñua. Geunkagun giltza bat, bakarra ta ate guztiak zabaltzen zittuen. Behekua, sartzen zana, Bidebarrixetatik, ta gero ofizinakua, ha ez zan ixten. Ta gero eguan, takillia. Sartzen zan eta takillia. Han eguazen ate bi: batetik sartzen zan ofizinara, ta bestetik komonera. Han komonan aurrian, leku txikixa, eguazen lau ate. Bata zan “despacho del gerente, de Pako”; bestiak ziran, han parian eguazen komunak, ta bestia sartzen zan taillarrera. Ta bestia zan ofizinatik kanpora juatekua. Gero eguan “salón del consejo de administración”, mahai bat! azpixon dana taillautakua. Horrenbestekua! Eukan pixu bat harek. Sillak be, hainbestekua ziran, ondo adornauta. Ta gero eguan “una araña”, desaparezidu ein zan! Jaleua ta gero jua ginan ta bai mahaixa eta bai hori falta ziran, ez dakigu nundik atara zebeñ, ze ni akordatzen naiz sartzeko zelan ibili ziran! Hori mahaixa

ein eben Deban. Deban eguan, eibartarra zan ebanistia, ta haretzek. Baina zan, "maravilla".

5.64. Gainbeheraren arrazoia

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/033
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:57:21. **Bukatu:** 00:59:39
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Estatuko galdategirik onena zela esaten zen garai hartan. Lanak ondo eta txukun egiten zirela kontatzen du Adela. 1978. urtean ordea, gainbehera etorriko zen. Hobe beharrez, galdategia lekuz aldatzeko proiektua abiarazi zuten: makina berriak eta fabrika eraikitzeko terrenoa "Villarealen" (Legutio) erosi eta esku-dirutan ordaindu ziren. Hurrengo urtetik aurrera galerak edukitzen hasi ziren.

Transkripzioa

Nik Pakori entzunda, behin Bilbora jua zanian, batekin juntu zan eta harek esan estan Aurrera zala "una de las mejores" edo "casi la mejor fundición de España". Ondo eitten zan biharra, dana ondo-ondo, ta gero desperdizio asko. Ta hor pasau zan, neretako pasau zan, ipintzera zoiazan beste makina batzuek eta, Villarealera juatia ta han erosi, makinak erosi harako ta pagau ziran danak eskura, "takata". Ta hurrengo urtian, "tokoto". Empezaron las perdidas y se acabó. El 77, por ahí. 77-78, 78 emezaría. 77 a finales, ya 78n ikusten zan... ez dakizu? Villarealera jua zan baina han be urte bi edo ein zittuan. Zelan transporte ta hau ta bestia han hobeto izango zan, horregaittik jua ziran, ta makina batzuek barrixak, ta fundiziño hobia. Bat bakarrik geldittu zan hemen, fundiziña eruate ebana, haxe geldittu zan, baina harek be ganora gitxi eta neri particularmente no me gustaba.

5.65. Erretiroa hartzeko ordaindu egin behar

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/034
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:59:39. **Bukatu:** 01:00:48
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Galdategia Legutiora tokiz aldatu zenean, Adela lan egiteari utzi zion. Erretiroa hartzeko adinik ez zuenez, langabezia eta bajak konbinatu behar izan zituen. Hala ere, azken hilabeteak bere poltsikotik ordaindu behar izan zituela kontatzen du.

Transkripzioa

Ez neukan jubilatzeko sasoirik oindiño. Neukazen 55 urte t'ardi. "Ta dos

años de paro”, gero bajak hartzen nittuan baina, bost hilabete pagau ein bihar izan nittuan, “sesenta y cinco mil pesetas, que me dolieron”... dana batera kendu esten. Bakizu zer zan hori? zeozer hartu bihar zenduala ta hori ikusi... pentsaizu! ta ziran, con paro y todo, 46 años de cotización, ta pentsaizu, pagau ein bihar.

5.66. Emakumezkoak lan munduan

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/035
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:00:48. **Bukatu:** 01:03:01
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Soldata ona izan zuen eta konforme jardun zuen lanean. Gizonek, gizonezko izateagatik, zertxobait gehiago irabazten zutela dio hala ere. Garai hartan ezohikoa izan arren, ezkondu ostean ez zion lan egiteari utzi nahi izan Adelak. Ordainsaria ere ematen omen zieten emakumeei baina garbi zuen Adelak lanean jarraituko zuela.

Transkripzioa

Ni aillau nitzan kobratzera 1250 pezeta ta gizon batek igual ez zeban hori kobratzen. Ondo konsiderauta egon nintzan. Normalian gizonak pixkat gehixao pagatzen ziran, ta nik gaiñera esaten neban “bueno, nik gizona daukat irabazten eta...” ez dakizu? ez dot esango gitxiago irabazteaittik baina, horrek, gizonak dira ta... konformau eitten nitzan. Baina nik biharra eittia nahi neban beti, hori buruan nekan, Aranberrinian egon izan banintza be, nik biharra eittia nahi neban beti. Gero ama neukan, alarguna eta oindiok sasoiko eguana ta haretzek hazi estazen hiru umiak. Lehelengo euki nebat bata eta handik hiru urtera euki nittuan bikixak. Orduan biharra lagatziarren pagia emoten eben, “tantos años, tantos meses” baina ni ez. Euki banittuan umiak ta ez banittuan euki be bai.

5.67. Emakumeek ere jarduten zuten galdategiko lanetan

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/036
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:03:01. **Bukatu:** 01:04:12
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Galdategian ere bazeuden hamar emakume inguru lanean. Piezak garbitzeaz arduratzen ziren normalean.

Transkripzioa

Han biharrian taillarrian bai. Hamar edo emakume egongo ziran. Garbittasuna edo piezak garbittu. Ni gitxi jua nintzan , ze han hautsa ta

hori egoten zan ta ez nintzan jaisten. Ta andra batzuk ziran gaiñera, ta mihiña... hori, ta ez dakizu, esaten zittuen gauza batzuk... baina bai, hamar edo halakoren bat egongo ziran. Eibartarrak be bai, eibartarrak be egongo ziran. Lehelengotik eibartarrak, gero ya gallegak ta hau ta bestia. Fundiziñuan be, pentsatzen dot andraren bat edo bi egon zirala.

5.68. Josteko makinak egiteko piezak

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/038
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:04:50. **Bukatu:** 01:06:20
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Tailer mekanikoa ere egon zen Aurrera-n. Juan Andres Berraondo izan zen bertako arduraduna. ALFA, eta batez ere, SIGMA ziren galdategiko bezero nagusiak. Josteko makinaren hankak pieza zailak ziren eta asko akastunak ateratzen zirela kontatzen du.

Transkripzioa

Taillar mekanikua be baeguan. Andres Berraondo zan jefia. Ni sartu nintzanian bai ta han eguazen ta, lehendik be egongo zan. Lehelengo ALFarako eitten zittuan piezak. Gero ALFAK ipini eben beria ta ALFarako gitxi baina SIGMARako asko. Baina gero pasau zan ba, fundiziñuak hasi ziran zabaltzen, askoz merkiago Aurrera baino. Ta SIGMAk be ein eban, inork ez etsena eitten ba, hankak, hankak ziran txarrak eitteko ta horrek eitten ziran Aurreran. Baina, urtetzen eben askok defektuosos, ta asko galtzen zan. Pieza txar danak Aurrera-ra, baina. Bartzelona, Valentzia... ixa España guztirako eitten ziran!

5.69. Sukaldea eta jantoki zerbitzua langileentzat

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/041
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:07:45. **Bukatu:** 01:09:03
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Nahiz eta langile asko bertakoak edo ingurukoak ziren, egunero Areetatik (Bizkaia) etortzen zen gazte bat gogoan dauka. Sukalde eta jantokia ere jarri zuten aurrerago; bere amak jarduten zuten janaria prestatzen.

Transkripzioa

Bat etortzen zan, gaztia zan, Las Arenasetik, egunero-egunero biharrera Aurrera-ra. Ta beste bat, etortzen zan astero, Alsasuatik. Beste guztiak, Ermua, Zaldibar.. en fin. Baina hori, gaztia zan gaiñera, mutil majua, ta etortzen zan Las Arenasetik egunero-egunero-egunero bazkarixakin

Aurrera-ra. Gero, Aurreran jarri zittuen sukaldiak, bihargiñak han eitteko. Ta nere ama egon zan han bazkarixak eitten. Sukaldia ipini eben ta eurok ekartzen eben, batzuk berotzeko ta beste batzuk eitteko. Ehun da piko langile

5.70. Bizpahiru egunerako kontratuak

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/042
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:09:03. **Bukatu:** 01:10:00
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Herri batetik bestera, Galiziatik Bartzelonara iragaitzaz zebiltzan bidaiariak egun gutxi batzuetarako kontratatzen ziren Aurrera-n sarritan. "La casa de beneficencia" zela dio Adela, edonor laguntzeko prest agertzen zirela beti. Lan handia ematen zioten Adelari lanaldi partzialeko kontratu eta nomina haiek.

Transkripzioa

Baina zan "La casa de beneficencia" ze beti egoten zan biharra ta batzuk igual eskian edo zoiazen igual ba Galiziatik Bartzelonara edo, en fin, ta hemen de paso, eta etortzen ziran Aurrera-ra bihar eske. Biharran egoten ziran, hartzen eben antizipua ta jua eitten ziran. Lagatzen eben dirua kobratzeko, tontuak ziran! Hiru egun ein ta beste leku batera jua ta.. eukitzen neban nik bihar bat pertsonalana eitten! Baina ondo eitten neban.

5.71. Kategoria desberdinak eta soldatak

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/044
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:10:48. **Bukatu:** 01:12:40
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** 1946. urtean mutualitatea jarri zen abian eta honekin batera langileen kategoria eta oinarrizko soldatak finkatu ziren lehenbizikoz. Kategoria desberdinak eta bakoitzak kobratzen zuena zerrendatzen ditu Adela. Hilabetean bitan kobratzen zuten hasiera batean; aurrerakin bat eta soldata hilabete amaiera ondoren.

Transkripzioa

El año 46 ya jarri zan Mutualidad de Metalurgia, lo que es ahora ... esto. Ta orduan ba ya jarri zittuen basiak: peón 14 pesetas, especialista de segunda 15´40, horrek danakin akordatzen naiz, al especialista de primera 16 con 30, al oficial de tercera 17´50, y al oficial de primera 22. Ta gero ofizinuak, la que era un poco esto, ba... 650 edo, en fin, igo eitten zan. Lehelengo eitten zan hamabostian ta hogetamarrian, ta gero, ba, antizipua emon ostian, hillabetera. Pagatzen zan eskura, sobrian. Pentsaizu, mas de

un millón eskuan! pentsaizu, ta norberana ez! Banco Guipuzcoanokin eitten genduan biharra.

6. Euskara

6.1. Soldadutzan euskaltzaletasuna piztu

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/020
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:54:59. **Bukatu**: 00:58:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara
- **Laburpena**: Soldadutza Madrilen egin zuen. Erdaraz ez zekienari irainak; euskaraz egiten zuena salatu egiten zuten. Madriletik Burgosera eraman zuten. Han liburutegi ederra zuten eta euskaltzaletasuna piztu zitzaion bertan.

Transkripzioa

- Bueno, orduan, soldaduskara. Soldaduskara... Han lehen kontatu diguzu esperientzia. Kontatu duzu esperientzia hori, hain zuzen, euskaldunak nola tratatzen zituzten.

- Bai. Letratik neri tokatu zitzaidan "reserva general" batera juatia Madridera. Eta orduan nenguan ni nere ofizioz tornero bezala deklarauta. Baiña, itxuria, lantegietarako baiña jende gehiago zeguan jentia hortarako eta Madrilen egon giñan lehelengo eta gero handik gero destino bat, hainbeste: hiru hillebete egin genduzen. Eta ni, orduan, konturatzen nintzen karakterra konprom... diferentia giñala konportamentuz. Nik ez nuan ezagutu orduan, ba, bueno, halako... esan diran gauzak konportamentukuak. Baiña han ikusten nuan ezebezegaitik salatzen ziñutela erraz: euskeraz egiten bazenun, zigorra. Gaiñera, denunziatu egiten zuten beste soldadu batek euskeraz egitiagaitik. Eta hori guretzat sinistu eziña zen eta hórrek gauzok pasatzen ziren. Eta gero erderaz ez zekiena ataratzen zuten burla egiteko. Guk lagundu bihar izaten genion eta animau be bai. Nik nere besoetan euki ditut estututa, negarrez, ikaragarrizko mutikuak, basarrikuak, erderaz jakin gabe beraiengaitik egiten dituenagaitik bildurtuta eta lotsatuta, tontuak balira bezala. Eta tontuenik ez zuten ezer. Eta hor sufridu egiten nuan. Eta horrek konzienzia bat sortzen zidan. Gero handik Burgosera destinau giñuezen. Eta Burgosen biblioteca zeukan bastante interesantia kuartelian. Eta ni bibliotekara maiz juaten nintzen eta irakurtzen gauzak. Indizetik hartzen zenduan ze liburu nahi zenduan. Eta irakurtzen zendun. Gero, bibliotekario, gaiñera, bibliotekario Elorriokuak zeuden bi eta hoiekin ondo eramaten nintzen. Eta hoiek ez bakarrik ez zidaten uzten... han irakurri bihar zen eta han entregatu, eta eramateko uzten zidaten! Klaro, ba, bitartietan, neuk konpaiñian irakurtzeko. Eta irakurtze horretatik behin, egun baten, liburu bat erori zen... gehiago: 'Amaya y los vascos en el siglo VIII' han irakurri nuan. Pentsaizu nun zeguan, Burgosko kuarteleko bibliotekan. Gerra aurrekoak, gerra aurreko [pelikulak] zeuden! Baiña beste bat irakurri nuan han: 'Los cantones suizos'. Eta hasten zan, ba, konstituziñua zer zan esplikatzen eta han deskubridu nuan lau hizkuntzak ofizialak zirala. Retikua, txikiña, ere bai. Eta orduan esan neban: "Eta gu... ni... zertan hasi gara orduan? nik neuk euskerakin abandonatzen ari naiz. Eta ikusi ditut

ze... ze tragedia dan euskaldun askorentzat erderaz ez jakitia, zertzuk pasatzen diran. Ba, ez. Nik bi hizkuntzak jakin bihar ditut, baiña euskeria be ikasi egin bihar dut”. Eta lagun bati idatzi nion handik ia gramatika bat billauko zidan euskera ikasteko zerbeit. Euskeraz egiten nuan, baiña gramatika aldetik zerbeit ikasteko. Zabala-Aranaren gramatika bialdu zidan –oraindik gordeta daukat-. Eta hari eman nion errebasua. Baiña hain purista eta zera eta esan nuan: “Ez da posible”. Eta gero ere euskaltzale egin nintzan, baiña popular; eta gero ere ezin iruntsi euskerazko testo asko, oso nekezak zirelako.

6.2. Gerraosteko ibilerak: erresistentzia politikotik euskararen aldeko borrokara

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-083/021
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:58:33. **Bukatu:** 01:00:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara
- **Laburpena:** Gerraostean Euzko Gaztediko gazteekin, batera eta bestera joaten hasi zen. Abertzaleek lan handia egiten ziharduten erresistentzian. EKIN sortu zenean, politika kontuak alde batera laga zituen. Handik aurrera euskararen alde lan egitea erabaki zuen.

Transkripzioa

– Gerra onduan etorri nintzanean, ba, bueno, pasau zitzaidan, ba, neuk igarri gabe, sartu nintzen batian eta bestian. Baiña ikusten neban dinamika gehiago zutela abertzaleak, resistentziarako. Eta Euzko Gaztedikuak, ba, ikurriñak ipiñi jai bat heltzen zenian, eta komunistak be bai. Baiña komunismua, esan dizut, lehengo diktadura zeragaitik ezin nuan... Eta egin nuan, ba, abertzaliek. Euzko Gaztediko jentearekin hasi nintzen, ikurriña ipiñi eta beti nenguan dispuesto edozein, ahal dan tokitara...

– Tontorretako...

– Tontorretan edo etxeetan. Edifizietan. Eta holan hasi giñen. Eta egin gendun zerbeit. Baiña gero gauzak: egia esan, nik politikarako ez dut zera. Eta Gaztedian ETArekin... ETA aurretik, ez dakit zelan zen, Egin edo... Hori sortzerakuan, han etortzen zan propaganda ez nuan maite. Ikusten nuan eta nik beti esaten nian... Batetik biolenziarako bidia ikusten nuan eta esaten nian: “Hau bandolerismora juateko modua dek, batetik. Eta bestetik, aurrera egin nahi bada, humanismo gabe ezin dek. Eta humanismua izan bihar dek beti oiñarri edozein zeretan, ideatan eta zera”. Eta nik hor beste dibergentzia bat neukan eta alde nuan. Eta orduan hartu nuan zera: “Hamendik aurrera nik euskerarekin egingo dut lana eta kitt! Hori positibua da. Ze beti barruko burukatxuak asko zeuden. Eta ez nituan horrek... ez nuan ikusten lotura egokirik. Eta esan neban: “Pikutara danak! Hamendik aurrera hizkuntzagaitik egingo diat lana eta kito!”, holan hasi nintzen.

6.3. Euskara batuaren indarra eta garrantzia

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/001
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara
- **Laburpena:** Euskara batua. Euskal Herrian zehar ibiltzeko, “ez dago pasaporte hoberik euskara baino”. Hurbiltasuna.

Transkripzioa

- Eta euskera, pasaporte. Hor iparralde-hegoalde, alde guztietan.
- Bai, hori nere emaztiak esan zidan. Nere emaztia, erdelduna. Eta, ba, gutxienez nahi nuan Euskal Herriari kariñua erakusteko. Sarri kotxia neukan eta juaten giñen Euskal Herriko paraje batzuk ikustera. Eta neri beti gustatu zait, ba, Baxenabarre aldea eta Zuberoa ta. Eta hor aldietan jua eta, bueno, emaztiak esaten zidan: "Jo! Gasolinera baten gelditu, ostatu batera jua eta zuk euskeraz egiten duzun momentuan, bueno, ya diferentea da tratua. Frantses egin edo euskeraz egin konturatzen naiz... Zuretako ez dago pasaporte hoberik euskera baiño". Eta egia. Euskerak egiten du halako familia, zeure familiakua dan edo alkarte berekua zerala eta beti hurbiltasun bat. Eta, egia esan, ba, neretako inportantia izan da nere mendiko ibilera guztietan. Ta horregaitik ahalegindu nintzen, ba, euskera batura jotera. Bestiak behintzat... bestiak ni ulertzeko eran hitz egitea.

6.4. Juan San Martin eta euskara batua

- **Hizlaria(k):** San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-084/013
- **Iraupena:** 0:10:52. **Hasi:** 00:53:07. **Bukatu:** 01:03:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen historia
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena:** Juan San Martin eta euskara batua. Euskara batuaren arauak direla eta sortutako polemika. Denen artean hartutako erabakiak izan ziren. “H”-aren auzia; sinbolo bihurtu zen. Aldizkari gehienetan idatzi du.

Transkripzioa

- Juan San Martin alor askotan egin da ezagun, baina gure artean nahiko garbi dago, nahiko heldu garenon artean, esan nahi dut gure artean idazle bezala egin dela ezagun. Galderak era positiboan edo era negatiboan egin daitezke. Eta nik, Juan San Martin, hau era negatiboan egingo dizut: non ez duzu idatzi?
- Ba ez dakit. Egongo dira, egongo dira idatzi ez ditudan tokiak. Sarri... 'Agur' en esatera niñoian, baiña 'Agur' en be egin nuan zerbait, nerekin gogor sartu zan bat eta nere buruaren defentsan. Baiña ez dakit, ba, egongo da hor. 'Euskerazaintza'kuak-eta ez naute maite izan et abueno,

nik zer egingo diet ba! Ni oso pertsona ona nintzan Arantzazun batuaren normak eman arte. Danak maite ninduten. Orduan bide bat hartu bihar zen eta, bueno, han erabagitakua nik ez neban erabagi, denok erabagi genduan. Ni idazkari nintzan orduan eta gero nik defendidu dut han erabagia. Eta nik pena badut ezerena da han egon ziran euskaltzain oso guztiekin [...] han hartutako erabagia. Denak bat batian firmatu zuten. Baiña gero kanpotik nahastatzen hasi ziran eta batzuek baita politikarekin nahastau nahirik, politikakin nahasi nahirik. Eta hizkuntzak bere bidia egin bihar du, ba, euskera dakiten jentiarekin, idazliekin, maixuekin... Eta hortik jua bihar da. Eta batasuna beharrezko duguna hori ez dago zalantzarik. Zelakua beste gauza bat da, baiña bihar duguna, bai. Gauza bategaitik: batzuk esaten dute “herrietako balioak!”; “herrietako balioak”, nahugu beste bide bat hartu. Arantzazun hartu zan hori erabagiori, Azkueren-eta garaian hartu ezin [zelako] gauza bategaitik: ez zeguan eskolarik. Baiña Arantzazun, 1968rako ikastola asko zeuden martxan. Idazliak, iñoiz baiño gehiago. Eta danak Euskaltzaindiari eske norma fijo bat, gutxienez ortografian. Hori eskari... denengandiko eskaria zen. Orduan, ba, bide bat jokatu bihar zen. Eta bide hori, azken baten, konbentzionala da. Euskera batuak ez dauka lehen euskeran ez zeukanetik ezer. Ze "Oin asmau dute euskera arraro hori", esaten dute jente askok edo esaten zuten -nik uste hori superatu dela-. Eta ez: euskera batuak ez dauka lehen euskerazkua ez zenik; bakarrik euskalki batetik bestera daguen diferentziak eta hautatu beharrak eraman du horretara. Eta, orduan, burrukarik haundiña ‘h’-kin sortu zan. Ta ‘h’...

- Sinbolo bihurtu zen.

- Bai, sinbolo bihurtu zan, biharbada danentzat, alde guztietan, eta hori ez da ona. Baiña ‘h’-ren problema zen, ba, mugaz handikoak nahi eta nahi ez behar zutela. Hemengoak? Ba hemengoentzat gogorra zen. Horregaitik utzi zen zortzi edo hamar urteko epea nahi zuenak hartu praktikan ia zer erabagi edo zer bide jokatzen zen. Baiña erabiltziaren alde. Ahalegintzeko, errezoietatik: hori ere grafia euskalduna zela. Gaiñera, Martineten, linguistaren, esanetik, bere liburuan, fonetikako estudiuan, euskerak ezer bererik badu fonetismuan dala ‘h’ aspirada hori; ‘hor’ eta horrek gure-guriak direla, beste hizkuntzengandik asko bereizten duena. Eta horrek ikusi ondoren, teknikoki utzi leike, baiña bizi da. Eta bizi denez...! Bizkai aldekuok ‘z’ galduta genun, edo dugu. Baiña idazten erabiltzen dugu. ‘Tz’ erabiltzen dugu, baiña ‘ts’ ez dugu erabiltzen. ‘Ts’ be galduta dugu, baiña idazterakuan... Eta zegaitik? Batzuk erabiltzen dutelako. Eta errezoia du erabiltzen duanak. Orduan zuk ikasi bihar duzu, erabiltzen duanak bereizten badaki, ta hura da bidea. ‘H’-iaren gorabehera hori zen. Eta Mitxelena hortik abiatu zen. Hortik gonbidatu giñuzen eta hortik abiatu giñen. Gero, gaiñera, ortografia pixkat konbentzionala da. Letrak beste era batera be egin lezazke. Eta kobentzionalak, baiña bidia hautatu zen. Eta bidia hautatu ondoren, idazliak, maixu-maistrak, hasi ziren hortik. Eta posibilitade bat zeguan iñoiz baiño hobea, aukera hobea, hori aurrera jokatzeke. Eta gero, ba, bueno, handik hamar urtera, Bergarako batzarrian, estudio bat aurkeztu zen. Gaiñera, estudio horren arduraduna ni jarri ninduten, baiña, klaro, nik esaten nuan: “Estadistika bat egin zer erabilera izan duan idazlien artian. Eta publikatu diran liburu guztiak aztertutik, ba, ia norek zer joera hartu duan”. Eta nik, egia esan, hori ikusi nuanian, ba, bueno, gai hoietara dedikatzen dan edo halako antzerakuetan, soziologiako ikerketetan aritzen zen Siadeco-ri eskiñi nion egiteko berak; liburu guztiak hartu, esate baterako: hartu 20. orrialdia eta 20. orrialdian ze.. zelan darabil ortografia. Baiña atera diran liburu guztiak, banan-banan. Eta hori hamar urtitan ataratako liburuetatik ikusi zen ikaragarritzko zera, batuak onarpena izan zuala eta gu horren kontra ez giñan jua. Kontrarioak sortu

dirala? Bai. Baiña gero, esperientzia ikusi ondoren, hartu bagendu beste bide bat -Bergaran be iskanbillak egon ziren gutxi batzuegandik, ez modu onian. Nik uste, ba, bueno, danok izan ditugula hutsak-, baiña beste bidia hartu bagendu, iskanbillak askoz haundiaguak izango ziren, eta nahasketak asko haundiaguak.

- Eta oraindik arazoa konpondu gabe eta eskoletarako egin gabe.

- Bueno, nik uste hori superatuta dagola. Ni, hori, seguru nago. Nik gaur billatzen doten euskeraren txarra da, administraziñuan eta, testuak bi hizkuntzatan egin bihar dirala eta hartzen dute erdera eta itzulpena jarri. Eta itzultzailea ez bada bi hizkuntzak ondo ezagutzen dituana eta gaiñera gaia, arrisgua du beti morroipian sartzeko. Hizkuntza morroi bihurtzia beste hizkuntzarena. Hau da, esaldiak edo modismoak haren erara jarri. Beti esaten dudana: "Tomar el pelo" guk ezin dugu esan "ilia hartu". Esaten dute gazte askok, baiña hori ez da, ez da. Zer pentsatuko zenduke zuk gazteleraz batek esango balu "me ha tocado el cuerno"? Hori eziña da. "Adarra jo dit"? Esan nahi dut honekin, gauza guztietan badituztela beren formak hizkuntzak egiñak, eta hoieri eutsi bihar ziela, eta bide hortatik jarraitu behar dela eta, bueno, hizkuntza horrela dala. Esaldiak berdin. Hemen, kostaldian ikusten dut -hamendik hasi eta Zarautzeraiñok edo, hasi mugatik, Hondarribiatik-, askori entzutzen diot, eta idatzi dana be bai, "ez du pena merezi". Joño!

- Pena merezi duenak, negar.

- Klaro! Klaro! Pena? Pena? Klaro ba penak ez duana merezi! Hamen penak txarrak dira eta! Hamen alaitasuna behar da eta "pena merezi" ez da ezer. "Ez du merezi" eta kito! Erderako kalko bat. Erderan horrek zentzun bat duala? Baiña euskeran ez du zentzunik. Zentzungabekeria da. Eta halako detaillak ugari daude eta horrek dira gaurko gauza txarrak. Eta -zer esan nahi dizut?- ba, horrek dira begiratu beharrezkoak eta euskera ahalik jatorrena egin. Eta ahalik jatorrena egin arren ere, danok ditugu gure hutsuneak eta gure neurriak. Eta neurri hoietatik gora iñor ezin gara juan. Bakoitzak bere mugak ditu hizkuntziren erabileran.

- Bueno, hona etorri gara, zein aldizkaritan ez duzun idatzi. Eta 'Euskerazaintza' azaldu da. Baina nik hemen jarriko dizut, zerrendatxo bat egingo dizut, aber zure artikuluak nun azaldu diren: 'Eibar', 'Euzko Gogoá', 'Egan', 'Yakin', 'Karmel', 'Olerti', 'Zeruko Argia', 'Euskera', Eibarko Klubean, Eibarko Club Deportivoko boletinean, 'Boletín de amigos del país', 'Munibe', Buenos Airesko 'Euskalduna', Oviedoko 'Espeleo', 'Pyrenaica', 'Euskadiko Boletín Oficial', 'Diario Vasco', 'Hoja del Lunes'. Zerrenda luzea da. Bakoitzean artikulu bat emanda ere...

- Akabo! Ba bai, horretan bai eta besteren batzuk be egongo dira. Ez dakit nik. Sarri ez dot begiratu. Toki batetik garai haretan eskatzen ziguten eta "euskeraz bada" ba belaxe egiten genun, presentzia bat agertzeko. Eta beti ez euskeragaitik bakarrik, noberaren zaletasuneko beste gairen batekin ere bai.

- Hemen jarri gabe zegoen oraindik 'Anaitasuna', esaterako.

- A! 'Anaitasuna'n lan asko dut. Eta pena da 'Anaitasuna' ez dago bibliografietan sarturik eta iñoiz izan dut premiña nik han argitaratutako zenbait lan, ba, neuk ere bilatzeko problemak ditudala. Nik neukan 'Anaitasuna' Euskaltzaindikoko bibliotekara eraman nuan dana, kolekziñoa, ze nik ezin dut dana etxian euki! Ez zait kabitzen eta. Prinzipalena, nere ustez, bai, baiña. 'Anaitasuna'n gauza asko ditut interesantiak. 'Zeruko Argia'n be izango dira, baiña horrek ez ditut etxian.

6.5. Eibarko sozialismoa eta euskara

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:26:17. **Bukatu:** 00:27:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eibartar sozialistak, euskaldunak. Euskara. Anekdotak bat kontatzen du gai honen inguruan ("ikasi deixela!").

Transkripzioa

- Bai, hori da zeratako bat. Eibarko sozialisten ezaugarrietako bat: zuek, danok, euskaldunak zinetela. Eta zeuen artean bileretan ez dakit baina kalean behintzat euskaraz egiten zenutela.

- Danian euskeraz! Ademas, anekdota polit bat kontauko detsut. Eibarren Albistegi —Alfan biharrian egitten eban, gero semia Rusian-eta egondakuak ziran...— akabatzaillia zan. Jaixotzez Elgetakua zan. Baiña orduan inguruko mutillak etortzen ziran Eibarrera ofiziuia ikasi... Eta asko irakurtzen eban gizona zan. Eta baten, sindikatuan, "Casa del Pueblo"an, asanblea baten, euskeraz erantzun eban. Eta esan etsan e... Toyosek esan etsan eze: "¡Oye! Háblale castellano que no te entiende!", "¡Que aprenda!".

- Berak?

- Bai. Asi ke ez da oingua, "Ikasi deixela!". Oin dala berrogeta hamar urte edo hirurogei urte, "Casa del Pueblo"an Albistegi akabatzailliak esan eban estreñako hori: "Ikasi deixela!".

6.6. Euskararen erabilera gerra ostean; "Batallón de trabajadores"en

- **Hizlaria(k):** Echeverría Ayerbe, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-092/027
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:47:39. **Bukatu:** 00:51:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara
- **Laburpena:** Gerra ostean euskararen erabilerak beherakada handia izan zuen; arrazoiak. Madrident, "Batallón de Trabajadores"en zeudela, euskaraz euren artean. Orduko anekdota. "Hable en cristiano!".

Transkripzioa

- Baina hor, gerra ostean, 50a jo dezagun: etortzen da jende pila bat eta Eibar erdaldundu egiten da. Jendea hasten da, erderaz gehiago euskaraz baino.

- Bai. Bai, ba! Háreri zela egitten gentssegun erderaz, gero hasi giñan geure artian...

- "Hable en cristiano" eta guzti hori. Garai hori. Zuei ez al dizuete esan?

- Hori ez zan asko entzutzen, e! Baten, "curso de bersolaris" egon zan Untzagan. Eta, klaro! Bersolarixak euskeraz. Banko baten gaiñan bazan erdeldun kuadrilla bat: "¡Hable cristiano!, ¡Que hable cristiano!" Eta jentiak

esaten: “¿Eres borrego? ¿Cómo van a hacer de eso ‘bersos’!”. Ez zan horrenbeste entzutzen zera, e! Zegaittik eze —ez dakitt, e!— ez ziralako atrebitzen esaten. Es más, zelan diran gauzak, e? Guk trabajadorietan Madriden eibartar mordua eta... euskaldunak asko kuartelian guk alkarregaz euskeraz egitten genduan! Eta illuntzietan, dirurik bagenkagun, pixkat edaten genduanian, kantau egitten genduan. Eta gure ofizialak-eta entzutzen egoten ziran! Ez eskuen esaten zera... Egun baten, hamen, Lauzirika —lagun batek— eta bixok, urten genduan permisuaikin Madridera, eta bueltan [...] alkarri euskeraz egin gentsagun. “¡A ver si habláis cristiano!” Kapitan bat eguan han eta esan netsan eze: “Estamos hablando en cristiano”. “¡Que están ustedes hablando ‘uchouchou’!”. Esan eskun kapitanak eze: “Ala, venid.” Eruan ginduzen kuarto batera eta: “Ha dicho usted que... bueno, has dicho tú que hablabas cristiano”, “Pues sí, mi capitán, hablamos en cristiano. ¿Es que nosotros no somos cristianos?”, “Pues sí”, “Pues entonces, el que habla en cristiano es cristiano”, “¡Hombre!”. Aranjuezkua zan, baiña zan udan Zarautzen beraneatzen egoten zana. Eibarko neska Beistegitarrekin eta hola... —han egoten ziran — laguna zan. Eta esan netsan eze: “Y entonces ¿cómo tiene que hablar el cristiano?”, “¡El castellano!”, “¿Es que Cristo hablaba el castellano?”. Eta geratu zan e... [Orduan Josek:]“Pero... ¿Cómo hablaban los cristianos? Dígame usted, ¿Cómo hablaban?” , “¡En latín!”, “Jesucristo no oyó nunca hablar en latín”. Hasi zan eta esan netsan barrido be: “¿Usted ya sabe cómo hablaba Cristo?”, “ Sí, el judío” esan estan. “No, el arameo. Si era de la familia de los arameos... Era, de una tribu de allí... era hijo de arameo... pues Jesucristo hablaba el arameo.”. “Con vosotros, los vascos, no se puede. ¡Sabéis más que nosotros!”.

6.7. Lauaxeta eta euskara

- **Hizlaria(k)**: Sarasua Gisasola, Julio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-107/003
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:03:46. **Bukatu**: 00:05:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Kultura » Idaztea
- **Laburpena**: Eibarko euskara. Lauaxetarekin bizkaieraz egiten zuen. Lauaxetak olerki zoragarriak idatzi zituen. Gerra aurretik EAJko kideek hitzaldiak ematen zituzten herriz herri; gehienetan erdaraz. Lauaxetak oso euskara goxoa erabiltzen zuen.

Transkripzioa

– Neretako espillua bezela izan zan.
– Zuretzako?
– Neretako bai. [Gaiñera] nik nekan zorion txarra: nik erderaz idazten nun. Aitzen dozu? Eta herrixa pentsaizu: Eibarren euskeraz egitten genduan. Euskera morroillua, baiña euskeraz. Eta neretako izan zan, ba, ispillu bezelako bat haren euskera. Oin, berak eta nik bizkaieraz egitten genduan, e! Guk bizkaieraz egitten genduan. Nik berakin eta berak nerekin bizkaieraz egitten genduan. Baiña olerkixak-eta ekazen zoragarriak. Nik gerria baiño lehenago hari jarraitu netsan. Hitzaldixak egitten ziran

herritik herri, ezta? Eta alderdikuak, gehixenetan, erderaz egitten zittuen - lotsagarrixa da, e!-, alderdiko hitzaldixak erderaz! Eta hasieran euskeraz egitten ziran: olerkari bat edo, ezta? Baiña beste batzutan prosan egitten zan, euskeraz. Eta nik atzenengo-atzenengo, gerria baiño lehenago, Mallabixan entzun netsan, Mallabiko mitin baten, euskeraz berari. Euskera gozua ekan, gozo-gozua. Baiña alkarrizketetan, nerekin behintzat, beti bizkaieraz egitten eban, bizkaieraz egitten eban.

6.8. Euskararen egoera Eibarren trantsizio garaian

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Leceta, Juana; Murguizu Azurmendi, Margarita; Tolosa Lariz, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-178/021
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:38:16. **Bukatu**: 00:41:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Euskara
- **Laburpena**: Eibarren euskarazko klaseak ematen hasi ziren Klub Deportiboan. Margarita ere euskarazko klaseak ematen hasi zen neska talde bati. Euskaraz bazekiten, baina gehiago lantzea nahi zuten (gramatika...). Umandi-ren gramatika orduan irten zen.

Transkripzioa

- (Juanita Arrieta) Hamen gero hori e..., ekingo zotsenak zi(r)an Paulino ta, Jose Luis Ugarteburu ta, Deportibuan...
- A bai...
- (Juanita Arrieta) Horrek ekin etsen eskolak eta emoten.
- Ez dakit nun emoten eben, ez dakit.
- Deportibuan.
- Bai. Ta orduantxe zan...
- (Juanita Arrieta) Paulino ta...
- Don Rafaelek esan estan: "Margari, zu be hasi bihar zara neskekin"; ta "Nik, nik ez dakit hainbeste ta.." ; "Bai, bai, bai...hasi e(g)in bihar zara".
Kadrillia jirau zesten ta, Edurne Mujikan etxian.
- (Juanita Arrieta) Hombre..!
- Txirixo kalen.
- (Juanita Arrieta) Joakin Mujikan...
- (Dolores Tolosa) Joakiñen alabia.
- Eta zeintzuk hasi ziñazien? Zeu, Edurne eta..?
- Edurne eta gero...; a ver, Basauri, ahizta bi.
- (Juanita Arrieta) Bai, bai. Serafin Basaurin...
- Gisasolak, ahizta bi.
- (Juanita Arrieta) Eguzkiñe eta...
- Eguzkiñe eta Garbiñe.
- (Juanita Arrieta) Estanisenak, Estanisenak.
- Bai. Gero Garate, "Perderrenekuak", lehengusiña bi. Gero, Etxezarraga dendia (z)ekana Dos de Mayon...
- (Juanita Arrieta) Miren, Miren.
- Miren Etxezarraga. Gero, Elenita Etxeberria...Marcaide bat...Ez!, Marcano. Marcano bat, gero kanpora juan zan...
- Dolores Tolosa (...)
- Ez dakit zein...

- (Dolores Tolosa) Arkitektua edo e(g)itten ebana...
- (Juanita Arrieta) Marcano?
- (Dolores Tolosa) (.....)
- (Juanita Arrieta) Haretxen alabia izango zonan; Lekeittioko batekin ezkondata.
- (Dolores Tolosa) Lekeitxiokua. Politxa neskia...
- (Juanita Arrieta) Ez zonan gerra aurrian aiuntamientoko, Aiuntamientoko delineantia edo ez zan?
- (Dolores Tolosa) E?
- (Juanita Arrieta) Marcano gerra aurrian aiuntamientoko delineantia...?
- Bai, bai...
- Ta zer emoten zenduezen, klasiak?
- Bai. Ya euskeraz bazekixen horrek, e? baiña ba, landu pixkat....
- Eurek zer ziran baiña profesoriak, honek guztiok?
- Ez, ez honek alumnak. Baiña baekixen euskeria, baiña gramatikiakin ikastia gero; Umandin gramatika orduantxe urte(n) eban.

6.9. Eskola kontuak; euskara eta erdararen erabilera

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/003
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:02:35. **Bukatu**: 00:05:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Zortzi urte zituela, auzoko eskola egin zuten, 1930eko urriaren 9an. Zer ikasten zuten. Euskara-erdara: euskaraz egiten zuenari, zigorra, txakur txikia. Erdara ikastearen garrantzia.

Transkripzioa

- Ba, Agiñan ez zan egon eskolarik nik zortzi urte nittuen arte ta zortzi urtekin ein zan eskola bat. Bialdu eben hemengo seme batek Ameriketatik dirua. Ta ein zoskuen eskolia. Hasi giñan... ni hasi nitzan zortzi urtekin eskolara ta hortxe ikasi neban, ba, hamalau urte arte, ba, ikesi genduen.

- Ta ordura arte nora juaten ziran umiak?

- Hor, "Sakristaua" esaten jakona edo... ta ezebez! [Berak eztakixena], zurixa "blanco" ta baltza "negro", mahaixa "mesa" ta atia "puerta"... Horretxek ikestera. Ta kitto. Akabo! Horretxek, horretxek... Horra arte ez e(g)uen hemen eskolarik.

- Hemen inguruan ez zeguan besterik? Bariñan edo...

- Bueno, Bariñan egon zeikien, baiña hemengo umiak, ba, ez zien jueten. Ez, ez, ez, ez... Ta gu [...] egon giñan zortzi urterarte. Ta orduantxe hasi giñan eskolara.

- Estreiñau ein zenduen orduan?

- Bai, estreiñau ein genduan, bai. Zertu zan, urrixan hogeta bedratzixan inaugurau zan, ba... nik zortzi urte neukazen... oiñ hirurogeta hamabi urte. Eta, bueno, hantxe segidu genduan. Ta bueno, ba, zeoze ikesi genduan. Oso maistra jatorra etorri jakun, zeretik, Tolosatik, Purificación Iturrioz. Ointxe be... ta bueno, oso maistra jatorra ta ikesi genduen. Defenditzeko beste ikesi genduen behintzet. Ikesi genduzen lau zerak, lau reglak edo lau operaziñuak eta pixkat gehixago be bai, eta oin nahiz ta ahaztu, ba,

orduan, ba, gehixago [...] ta...

- Ta irakortzen ta be bai...

- Bai, bai, bai... Irakorten ta, hori bai. Irakorten laster hasi giñan, ensegida hasi giñen irakorten ikesten. Eske orduan izeten zan etxian, "katona". "Abeza" lehenengo, gero "katona", ezta? Oiñ horrek ipoiñak dira baiña... Ta etxien, gurien ama zanak eta, ba, abeza lehenengo. Abeza, ba, txikixagua izaten zan ta katona gehixago... Ta horrek etxien ikessita jun giñen e! garbi esanda. Bai, bai, bai... Horrek etxien ikessita e! Bai, bai, bai... Oiñ... Klaro, eske oin bi urtekin ta hiru urtekin ta hari ezin leikezue... Baiña orduan, ba, nik, pentseizu, zortzi urte ta ya zortzi urtera ezkerro... Bai, irakorten... dana ez, baiña bueno, pixkat ikessita jun giñan ta gero, ba, errezago sartu giñan. Eta gero, ba, erderarik ez guk! Erderarik bape ez genkixan eta ipiñi eskuen, ba - orduen txakur txikixa be dirua zan - ta txakur txikixa multia euskeraz eitten dabenari. Ta bata bestia zaintzen! Ño! Txakur txikixa zertzeko...! Ta [...] hasi giñan ta holaxe ikesi gendun, ba, erdera pixkat. Ta gero, ba, defenditzeko beste [...]

- Orduan, kastigua zekazuen...?

- Kastigua! Klaro! Iñork ez genkixan ta zeozer, ezta? Ta orduen erderaz jakittie zan oiñ ingles jakittia modukue, e! Basarrixetan ta bai behintzat e! Ba oiñ ingles, ba, derrigorrekua modukua, ezta? Ba, orduan, hemendik mutillak kriaue bialtzen zittuen Riojara ta horretara erderaz ikastiagaittik. Bialdu morroi, ezta? Urte baterako ta, ba, [hartu] deixan erdera pixkat. Eske, ez e(g)uan ta! Ez zekixan iñok eta! Eta, holan, holantxek defendidu giñen.

6.10. Eibarren euskara zen nagusi

- **Hizlaria(k)**: Olabe Etxebarria, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-002/003
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eibarren leku eta alor guztietan euskaraz egiten zen lehenago. Hala ere, bazeuden zenbait familia euren burua gorago ikusten zutenak eta gaztelaniaz hitz egiten zutenak.

Transkripzioa

-Ba, nik, lelengo esan gura dodana da, Eibarko euskerian gaiñian, gure epoketan, gure... euskeria, Toribiok esaten daben moduan, errezoia dauka, Eibar guztian eitten zan euskeria, ta danian, danian. Hori e, uste dot esaten dabela prologuan esaten dau hori, Eibarren danian eitten zan euskeria, ba... dendetan ta elizan ta aiuntamentuan ta juzgauan ta danian eitten zan euskeria orduan. Ta hori esan ebenetik galduta euan zeoze, baiña Eibarko euskeria, ba, familixa batzuk, euren burua pentsatzen ebenak, gehixao, pixkat handikixauak zirala, ez eben erabiltzen euskeria, kastellano eitten eben.

-Ta asko ziran halakuak?

-Ez, ez, ez Eibarren... zenbat egongo zian ba... dozena bat-edo dozena t`erdi-edo...ez euan e..., baiña bestian normala zan euskeraz eittia danak, danak euskeraz eittia.

-Baitta biharrian eta kalia eta...
-Bai, danian, biharrian ta kalia ta etxe barruan, "por supuesto" etxe barruan, bai, bai, bai.

6.11. Donostiako eta Eibarko euskara

- **Hizlaria(k):** Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-043/015
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:18:19. **Bukatu:** 00:19:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Donostiako euskara eta Eibarkoa oso ezberdinak ziren.

Transkripzioa

-Donostian euskeraz egingo zenduen etxian?
-Bai, gurasuekin euskeraz eitten genduan.
-Eta Donostiatik hona etorri ziñanian?
-Ba txapurria eitten naban. Eneee! Han "lehiua" esaten genduan "por ejemplo" eta hamen "bentania", eta bueno. Gero ez bata eta bestia ondo. Eta oin be.
-Problemarik eta ez zekazun aitzeko?
-Ez, keba! Ez nakan. Gero Arraten be osabak eta beti, don Pedrok-eta euskeraz. Arrebiakin gehixao eitten naban erderaz, bera be Madriden egonda ta. Gero errezaio edo ez dakit ba ze pasatzen dan, nahi barik joaten zara erderara, ezta. Baiña euskeraz ondo ikasi genduan, gure gurasuak ez zekixen erderaz, ez zekixen-da. Halaxen da. Gure amak ikasi zaban nietuekin erderaz. Euskeria beti, eta gero nietuak hasi zianian ba harekin ikasi zaban erderaz.
-Zuri esaten zetsuen euskera rarua ta zekazula?
-Bueno, nik, e..., kontatzen ei eben: han hauxe esaten da ta bestia ta ene! Ta barre eitten zebe. Eske hain zan diferentia!
-Eta lehen gehixao.
-Bai, bai.
-Oin telebisiñua ta...
-Baiña orduan, bueno. "Padera" "por ejemplo" guk esaten giñuan zartaiñiari "padera". Eta holan. Gauza danak diferentiak.

6.12. Euskararen erabilera

- **Hizlaria(k):** Garate Suinaga, Josu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-644/047
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 01:02:58. **Bukatu:** 01:06:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

- **Laburpena:** Umetan euskaraz bakarrik hitz egiten zuen. Nerabezaroan eta institutu garaian gaztelera jo zuen. Baina momentu batean buruari buelta batzuk eman zizkion eta, unibertsitatera salto egitean, euskarara itzuli zen. Lan munduan gaztelera jo behar izan du, nahiz eta jakin lankideak euskara bazekiela.

Transkripzioa

- Nik neuk neure inguru... hau da, egunero bizi... nere egunerokuan, zorionez izango da, baiña... euskeraz bizi dot egunerokua. Ointxe iñoiz baiño gehixau. Ba bai, bai, bueno, nik euskera, pixkat atzera jotzen badogu, nik be... hau da, nerabe institutu epokan-eta... Hau da, txikittan euskera bakarrik, erderia edo gaztelera txarto jakin be eta berba ein be txarto. Eta... eta instituan, institutorako pauso hori izan zan, ba, kuadrillan konfiantzazko zirkuluan eta, erderara jotia. Bff... ez dakitt, luze joango leuke zegaittik, arrazoiak eta, eta igual ba beste momentu baten ingo dou / ingou/, e? Baiña ta akordatzen nok orduan COU zala, ba, etorri jakula personajen bat, ba, halako... ez dot esaten bronkia bota eskunik, baiña bai, pixkat kontzientzia sortu nahixan eta. Ez dakit ze kanpaiña ibiliko eben martxan. Ez dakit Eusko Jurlaritzatik o nundik zan. Eta hantxe zeoze pasau jatan, edo behintzat konturatu nitzan "ostras...". Ez dakitt, ba, ze pasatzen zan edo zegaittik in bihar genduan edo zer dala-ta gurasuekin-eta beti, etxian eta, etxe-giruan euskeraz eta kuadrilla, lagunak eta... Bueno, behintzat bueltatxo bat, halako zerbait emoten hasi najakon hari. Eta, kuriosamente, unibersidadera salto ein, gaiñera Arkitektura erderaz ein bihar zan, gaztelera tokau jatan eittia, eta, ba, beti esaten da: "acción reacción". Igual izan leike, ezta? Oposiziñorik ondiok eta haundi axua eta, orduan, ez "ointxe bai", ezta? Esaten dabe, hamendik kanpora mobitzen garanian, euskera gehixau eitten dogula -edo eitten dabela euskaldunak-hamendik kanpo, ba, igarri deixen zelan euskaldunak garan, ba, etxian baiño. Eta, ez dakit, tokau jatan kuadrilla euskalduna inguruan. Eta nik uste dot danon... danok... danon esperientzia antzerakua izan zala. Nik... begittantzen jata danok gentozela igual normalian erderaz eittetik, gaztelera kuadrillan eta lagunekin eta geure artian sortu zan... sortu zan kodigua, komunikaziñorako, euskalduna izan. Eta, gaiñera, Arkitekturan konkretamente akordatzen naiz bastante potentia zala euskal komunidadia eta euskal girua eta... Eta handitxik sortu zan gero, ba, pixkanaka nere egunerokua eta... Eta bueno. Biharra ointxe arte Bilbon ein dot eta Bilbo, ba, bueno, beste mundu bat da. Lana be tokau jata eraikuntza eta arkitektura [...] oso erdalduna da. Eta kuriosua da euskaldunekin be topo eitten dozunian, relaziñua biharrerako eta segun ze asunto tratatzeko, ba, gaztelera pasatzen dala, erderara pasatzen dala. Nahiz eta jakin gero, ba, tragotxo bat edo ez dakit ze konfiantzazko zeoze, beste gauzatxo bat komentatzeko, ba, euskeraz, ezta? Baiña...

6.13. Eibarko euskara Eibartik kanpo

- **Hizlaria(k):** Garate Suinaga, Josu; Zugasti Uriguen, Ekhi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-645/007
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:11:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararekiko sentimendua

Euskara » Euskararen egoera

Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

- **Laburpena:** Josuk Eibarko euskara erabiltzen du gainontzeko herrietan ere. Ekhik arazoak izan zituen hasiera batean, neskalaguna iruindarra duelako, baina egun euskalkia erabiltzen du neskaekin ere.

Transkripzioa

- Josu: Ba bai, bai. Bai, bai, bai, bai. Iñoiz... izan be iñoiz brometan edo, batez be hamentxe inguruan eta igual Bizkaixa gehixau tokau jaku, eta, orduan, Gipuzkoa, ba, Donostia aldia-ta ikutzen izan dogun halakotan, ba, joko edo txiste pixkat... ez dakit danak, baten bat euki dogu haserretu jakun baten bat edo, baiña, ba bueno, broma-giruan, ez? Iñungo intenziño txarrik barik, baiña, bueno, ba, hartu-emon horretan, ba, euskerian gaiñian, ba, pixkat igual exajerau be berbeta, ezta? Gipuzkoako... ez dakit zelan exajeratzen dan edo ez neuke oin ez nitzake gai izango, baiña euskerian gaiñeko halako adar-jotze... pixkat, ezta? Ba geure bizkaiera edo Eibarko hau, ba, gehixau da Bizkaiko usaiñetik gehixau daka, ezta? Eta...eta bai. Baiña gure oiñarrizko jarduna eibartarreraz edo ointxe dihardugun moduko hauxe izaten da.

- Ta ez dozue arazorik euki edo zuek ez dozue hor zuen buruakin problemarik euki, edo erabakirik hartu bihar "holan in bihar dogu" edo... berez urten dan kontua da? edo kanpotik be iñok ez detzue esan...?

- Ekhi: Ez, ez, ez ez, hori berez urtzen dok eta holan izan dok. Neri ointxe pasau jatana izan dok nik neskia ointxe Iruñakua jaukat. Eta hasieran, berakin komunikatzeko, asko joten najuan euskera batura. Bai whatsapppez eta bai berbetan. Ze uste najuan ez zestala ulertuko. Eta, bueno, ba ya denporatxua batera ta azkenian ba... berak esaten jestak, gaiñera: "Baiña eidazu zuk itten dozun moduan, neri ez idazu ein..." eske, gaiñera, urtetzen jata... urtetzen jata super artifiziala. Osea, ez naiz ni, ez dakit zelan esplikau, ez? Eta, klaro, Iruñan be bai beste errealtate bat dao eta, bueno, ba, tabernetara juan eta zeoze eskatu eta ulertu ez eta, orduan, ba, batura joten dozu... baiña holako kasuetan, besterik ez. Nik nere buruakin eta kanpora juatiakin ez dakat holan txikitasuna, ez dot txikitasunik sentitzen eibarreraz berba eittiagaittik.

- Eta idatzi?

- Ekhi: Nere bloga irakurri dozu! Idatzi be gauza... ba lanerako-eta sekula ein dittutenian euskeraz, ba, efektibamente, euskera batuan. Baiña, bestela, holan, blogian edo whatsappian edo, ba hori, eibarreraz edo. Saiatzen gara Eibarko euskeria idazten, ez dakit korrektua dan edo ez dan korrektua. Eta... Baiña hori bai, idatzi... holan nahaste-borraste bat urtetzen jata neri. Ez dakit. Hasten naiz idazten eibarreraz, gero segitzen dot batuan, gero bueltatzen naiz... esaten dot: "zer nabil batuan idazten?" eta... Holako zeoze.

- Baiña lehentasuna euskalkixari emoten detsazu?

- Ekhi: Bai, bai, hasieran bai behintzat. Eta gero, ba, erreztasunagaittik: bizitza guztia be bai, ikastolan-eta, euskera batuan idatzi juau. Orduan, nahi barik pasatzen nok euskera batuan idaztera. Osea, buruan euskera batuan pentsatzera.

6.14. Euskalkia vs. euskara batua

- **Hizlaria(k):** Garate Suinaga, Josu; Zugasti Uriguén, Ekhi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** EIB-645/009
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararekiko sentimendua
Euskara » Euskararen egoera
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Ekheri euskalkiak gertutasuna ematen dio, baita hitanoak ere. Euskara batuarekin, aldiz, ez du inongo gertutasunik sentitzen, artifiziala egiten zaio. Josuk hasiera batean euskalkia baztertu eta batuari heldu bazion ere, beranduago alderantzizko bidea egin du eta euskalkia sartu du bere bizitzako alderdi gehienetan.

Transkripzioa

- Ekhi: Nik ute juat baietz, batek gertutasuna ematen jestak, eta bestiak ez, bestia zeoze artifisiala dan moduan. Eta hitanuakin berdiña pasatzen jatak, eee... hitanuan berba itten dotenian, gertutasun hori sentitzen juat beste pertsonarekiko, ez? Eta... ba, hori, ba, euskalkixakin moduan. Baiña, bueno, hitano batua, ez jakixat /etxakixat/, Goenkalen bakarrik edo Songokun bakarrik entzuten juat, osea ke...

- Josu: Bai, ez... nere... neri, bueno, lehen zeoze aurreratu juat ee... ba ikastolan euskera batua, dana... berbetia lagunekin-eta nik esango nuke eibartarreraz edo, ondiok ez dakak halako kontzientzia espezialik eta akordau be ez nok itten, baiña eibartarrera edo etxeko euskaria izango zuan. Gero ya kontzientzia pixkatekin eta... Bai akordatzen nok hoixe hamendik kanpora-eta euskeraz eta Zarautzen eta ez dakit zer, edo Donostian, edo ba... ba batua, gipuzkera... Bueno, guretako batua gipuzkera dok, orduan, ba, hoixe, ezta? aditzak be bai eta... Eta gero, ba, behin unibersidadia eta berriro... unibersidade epokan-eta be... bai, ze [...] zittuan Irun, Hondarribi, Errenteri inguruko, holan, kuadrillak batez be eta haretxekin be akordatzen nok euskera batua, gipuzkera... bueno, hoixe, hau da, neuria berezko ez neban euskaria. Eta gero, baiña ya berriro be neure inguruan lagunekin eta berriro pixkat, ba, euskaria berreskuratu edo naturaltasun batekin berbetan hasi nintzanian, ba, epoka batetik aurrera - eta, gaiñera, esango neuke igual ba, hoixe, era digital honekin-edo bat eitten dabela gutxi gorabehera-, ba, aldaketa ixa... osea, totala izan da, ze batueraz ez berba eta idatzi be gitxi apenas eitten dot eta bai idatzizko eta ahozko jarduna euskalkixan edo eibartarreraz-edo eitten dot. Eta batura jo bihar badot, ahozkotasunian ez hainbeste, baiña, idatziz, esfuertzia in bihar dot batuaz idazteko. Eta batuaz hasi eta ez banago kontzientziauta batuaz doiala hasi ta amaittu arte, bidian galtzen banaiz telefonua jo dabelako edo, "ostra!" derrepente ta gero leitzen hasi berriro goittik behera ta eta bixen nahasketa curioso bat sortzen da. Eta batez be, ba, batua ibiltzen dot oin, ba, bueno, neure biharrerako, ba, ointxe arte, oin dala gitxira arte, gaztelerazkua izan dalako. Gazteleraz, eta orduan ba hor... gazteleraz, bestela ez zeuan beste aukerarik. Eta oin berriro, ba, bueno lanez arkitektura mundua-eta aparkauta laga dotenetik eta web... dantzan.eus-en lanian nabilenetik, ba, hor berriro kolpe ein bihar izan dotsat euskera batuari eta, egixa esan, nekan bastante, konturatu naiz, ba, ,ueno, lehen gure aittak-eta esaten ebenian "nere epokan, hori, hango kapitala, ez dakit ze zan eta oin kanbixau in dabe", ba topau nok, euskera batua, gramatikari dagokixonez-eta, ba, gauza batzuek kanbixau dirala. [Esaten dotsat], Euskaltzaindian araei ez dotset kasorik ein azkenengo 20 urtian eta, bueno, ba, bai, gauzatxo batzuek kanbixatzen dira eta... ostras! Eta euskara batuaz ikasten nabil barriro be euskera batuaz idazten. Zelan

bestia, ba, euskerazkuak edo Eibarko, osea, esan nahi dot, eibartarrera-
edo, ba, bueno, badare halako kodigo batzuek edo, baiña ofizial zelan
idatzi bihar dan eta eta hainbeste pixkat... ez dot sekulan argi ikusi, ezta?
Enrikekin, gure Enrike, bueno, Enrike Izagirrekin -danok ezautzen dogu-,
ba, haretxekin pixkat, haretxi ikusten dotsat zelan eskribitzen daben eta,
ba, bueno, ba, erreferentzia moduan ibiltzen ahalegintzen naiz, ezta? Baiña
konturatzen naiz askotan ez dotela... ez natorrela bat berak be idazten
daben era horrekin, edo, edo bueno.

7. Baserria

7.1. Juan San Martin eta etnografia

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-083/030
- **Iraupena**: 0:05:05. **Hasi**: 01:29:21. **Bukatu**: 01:34:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Mendiak zer eskaini dion Juan San Martini. Baserritar, artzain eta abarrekin hartu-eman handia. Etnografia ikasteko aukera ezin hobea.

Transkripzioa

- Hor mendia. Lehen aipatu dugu, justu aipatu dugu momentu batean, mendiak baserrietan, etxeetan, artzai etxoletan eta ilorretan sartzeko aukera eman dizula zuri.

- A, bai.

- Horrek esan nahi duen guztiarekin.

- Klaro. Ze guk... Sarri premiñan agertzen giñen garai haietan, batetik, lo egiteko. Bestetik, ba, ura behar bagenduan. Beti eukin dugu... Eta, gaiñera, hor lehenago, gerra aurreko 'Pyrenaica-k' irakurtzen genituen eta esaten gendun, ba, artzaiñekin-ta beti hobe dala relaziño ona, edozer beharretan ere laguntzen dutela. Eta hori ikasitta [geunden], zaharragueandik ere bai. Eta oso harreman onak lortzen genituen eta adiskide miñak egiten genituen. Oso zera. Eta horrek... Halako hurbiltasun bat izan dugu eta, egia esan, atiak irikita izaten genituen gure harreman hoiei esker.

- Zuk irakurtzeko zaletasuna izan duzula dudarik ez dago, baina entzuteko ere bai. Eta hemen, baserrietan eta artzaien txaboletan etnografia zenbat ikasi duzu zuk? Esan nahi dut trabajo de campo esaten den hori?

- Bueno! Askok. Esate baterako, bazan zer bat, Gorbeian. Bi egin genituen adiskidiak: batak Arkotxa zeukan apellidua eta beste bat, Erramun 'Txikerra'. Erramun 'Txikerra' hori zan... Hasten zen sorgiñen kontuak-eta kontatzen eta gu pozik. Eta batzuk -bueno, iñoiz kuadrillan egoten giñanian- tonteria bezala edo sinistu ezindakoa. Baiña neretako interesantiak ziren. Ze horrek jartzen nindun, ba, bueno, lehengo siniskera batzuek ze eratakuak izan diran. Eta kontatzen zigun ikaragarritzko leiendak eta, klaro, pozik. Gaiñera, hori oso ona zen. Txabolan lo egin bihar zendun. Eramaten zenduan jatekua, zatitzen zendun artzaiñarekin eta, berak ipuiñak kontautu, bueno! izaten zan zer bat suaren ondun: ikaragarritzko rato ona. Gero, lo egin eta biharamonian, ba...

- Eta gero, gainera, beste gauza bat, inportantea: txakurrek euskeraz zekitela ikasi zenuen.

- Ni... Hori ez nuan... Ni neu ez nintzan konturatu. Baiña behin, Arkautek esan zidan: Aitzbeltzgo... ez Aitzbeltzgo lezatic, Aitzbelzgo kobatik planuak egin nitun eta han azkenian bazeguan zulo bat hogeta hamar metro pasauka, iñor jeitsi gabekoa eta ha esploratzera jua giñan; eta esploratzen, gaiñera, bilatu gendun zera: ikaragarria zen, hogeta hamar metro barruan, buztinian ikusi eroritako hartzak nolako zarpazuak jo zituan paretetan urten nahirik. Eta haren eskeletua han.

- Eta oraindik markak han zeuden?

- Markak ikaragarriak, buztinian egiñak. Larri, ba, urtetzen erori egin zen, nunbait. Eta, bueno, hori esploratu gendun. Atara krokisak eta, bueno, urten gendun. Eta guk pentsatzen gendun han jarraipenen bat egongo zala eta asmua geunkagun lo egin eta hurrengo egunian jarraitzeko, baiña egun berian bukatu gendun. Eta gero harpiaren ate aldera jo gendun eta: "Bueno, hamentxe egingo dogu lo. Ze, total, oin ya illuntzen dago, ya nahikua illundu du eta ez dago mobitzerik". Eta honek esan zidan: "E, hor dago baserri bat -Muxillo deitzen zioten baserri bat-. Hor Muxillo basarri horretara zegaitik ez? Hamendik ordu erdi inguru edo gitxitxuago eukingo dogu. Eta zegaitik ez gara juaten?". Eta: "Bueno, ba guazen. Han behintzat ohia ez badago, emango digute sabaia eta hobeto egongo gara". Eta abiatu giñen eta, baserrira iristean, Felix Arkautek esan zidan -hau belga zen, ba, erderaz oso zera, baiña oso obserbadoria zen eta lagun ona, lagun bezala ikaragarritzko kariñua geukagun; borondate haundia zeukan eta konpañerismo haundia- eta harek esan zidan: "Zu, Juan, zu jua zaite aurretik, basarria hor dago. Ba jua zaite aurretik, ze euskera, ba, hori... honek berak oberbatu zuan nunbait... Eta nik jentiarekin bai banekin: euskeraz egiten bazendun basarri baten, beste modu baten zan tratua, ze bestela deskonfiantza bat edo sortzen zan, gaiñera, edo eurak ez zekitelako ondo erdera edo estraiño batzuk giñalako, arrotzak. Eta euskeraz egiten bazendun, ya hurbilago agertzen ziñen. Baiña ni ordura arte ez nintzan konturatu txakurrak ere hori zekitela. Eta gero -gero obserbatu dut- basarri batetik pasatzerakuan igual, txakurra etorri zaunka eta euskeraz, ezta, zera? eta beste modu baten. Ya familiarra egiten zan txakurrekin erabiltzen diran hitzak esan eta familiarragua ikusten du eta beste modu bateko zera dutela txakurrak berak ere.

7.2. Donostia inguruko sagardotegiak

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-164/007
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:13:40. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Donostian soldadutzan zegoela ezagutu zituen sagardotegiak, bai Donostian bertan, baita Astigarragan ere. Sagardoa nola egiten zuten.

Transkripzioa

- Orduan hogeit urtekin jua ziñan zu?
- Bai, hogeit urtekin. Bederatzi hillabete ein najittuan.
- Donostian?
- Donostian. Beraneatzen. Beraneua! Primeran ein genduan. Jesus! Orduan

sardandeixa-ta baeuan han, Parte Zaharrian, kantidadia. Ta sidrerixarik sidrerixara jua ta sagardua nahikua eran ta... geuk, hamengo euskaldunok, erregiak moduan ibili giñuazen.

- Zelakua zan orduan girua han, sardandegixetan-eta, Donostian? Giro politta egongo zan.

- Ona. Oin ez dao lehengo moduan han sardandeirik. Bat edo bi ta egongo dittuk, ezta? Baiña... Ta ostiango, sardandeixa ez dan lekuetan be, sardaua ekarrittakua ta... oin be bai han bastante... beheko suterraneuetako sozidadietan ta geuzetan. Baiña orduan sardandeixak euazen benetakuak, onak.

- Onak ziran?

- Bai, onak edo... Bai. Han guk behintzat [etxauan] aitzen, baiña...

Sardandeixak ikusi najittuan nik gero handik fuera, benetakuak, Astigarragara jua ta. Astigarragakuak be baeuazen ba geure kintakuak, eta nik hango batzuk lagun ein najittuazen. Ta koño, holaxen diskutiru sardaua zelan eitten dan ta... "Etorri bihar dozu geure sardandeixa ikustera egun baten". Ta holaxen pentsau genduan egun baten ta jua nitzuan ta "ra!" urten jestan [...] ta "hau da ez dakit zer, hau da dolaria, hau dala ez dakit zer... Ta gero, sagarrak ekartzen douzenian hamentxe, hau dana..." montoi haundixak eruaten zittuen sagarrak ta gero zelan botatzen zittuen zerera halako... Esan jestan: "Hona bota, txikittu ta..." jo-ta beorreke zelan zertzen eban, ura zelan etaratzen [eban], aplastau ta "ran, ran, ran, ran". Ze esango deuat ba? Artua-ta molitzen dan moduan zerian, molinuetan, ba, igual-igual ha be. Jo-ta txikitzen juen ta gero pasau koladoretan ta gauzetan ta... "rrraaa!" dana barrika haundixetara. Ta gero han zelan urtetzen eban garbitzen euanian, bitsa ta zera gaiñezka ta... Erakutsi esten harek jo...! Ikusgarri! Ikusgarri! Sardaua zelan eitten zan ta ikasi najuan ofiziua, ikasi!

7.3. Aginaga bailarak urteetan zehar izan dituen aldaketak

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/015
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:28:06. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Ingurua zelakoa zen. Garbia, jende gehiago. Orduan 120 lagun inguru, orain 50. Baserrien izenak. Baserriak ez dira desagertu, baina asko hutsik daude (Arandoak). Gaztetan, mendiak garbi-garbi. Pagadiak. "Oingo aldian, ene...!".

Transkripzioa

- Eta zelakua zan Agiña orduan?

- Orduen garbixa ta... oingo aldien, bueno...! Orduen egongo giñen ehun ta hogeit lagun iguel ta oin zera! Berrogeta hamar edo bizi gara bakarrik; pentseizu! Ta orduen bertan be, Agiñan... zerian be e(g)uen Agiña Azpikua. E(g)uen Sakristaukua, e(g)uen Abadetxia. Abadetxia, hemen beti egoten zien zerak, Agiña Gaiñekuak. Bueno, Agiña Gaiñekua oin be badago baiña... "pff!", orduan jente pilla bat bizi zan bertan! Eta oin, ba, zuk ez dozu jakingo, Agiña Azpi, Mandiola... horren u(g)ezaba hori da, Mandiola,

tabernia euki dabena edo...? Txomin ta horrek ez [...] igual zuk... ez?
Bueno, horrena da oiñ. Oiñ ya jausten dago... Penia da, jausten! Gero, Sakristaukua be desaparezidu ein zan. Bota eiñ eben ta kitto!
Sakristaukuan be bizi zan pilla bat: sakristauk eta... bueno...! Elizan...
Gaiñera kantore onak eta... zu, [...] Harek? Haren piano-jotiek eta haren...
bueno...! Ta Abadetxian be, ba, abadia ta kriadia edo... Lehen kriadiakiñ egoten zien abadiak! Abadie ta kriadia-edo, ta eskolan be, lehen esan dotsutena, eskolan maistria ta maistrian ahiztan bat edo... Haren zeozer: tian bat o... bueno, zeozer! Ta gero Agiña Gaiñekuan be pilla bat bizi zan! Jente pilla bat!

- Eta basarrixak be desaparezidu ein dia batzuk, ezta?

- Bai. Bueno, desaparezidu... hemen... bueno, ze esango dotsut ba nik... desaparezidu, desaparezidu... Klaro, bizi ez. Hor bost Arando... Aranduek bost, baiña iñor ez da bizi. Danak bizi dia Ermuan ta bat Eibarren.

- Hamen gaiñian, aipatu dozu Albizuri...

- Hau, Albizuri? Bai, hori be kitto. Ya jausten dago. Jausitte edo... Jausten ez, jausitte egongo da.

- Eta beste batzuk be hor barrenian hutsik dare, ez?

- Bai, hutsik dagoz. Ta oin bat ei dago hor Agarre esaten jakona... Bueno, hori ni eskolara hasi orduko hutsik e(g)uan, hori saltzeko ei dago. Hor ipintzen ei dau... zera... esan eben lehenguan esan eban, letrero haundixak, papelak, ipiñitta daurela saltzeko e(g)uela ta, baiña... "pff!", harek dauka obra bat...! Bueno... "pufa"! Ha dana barriztau ein bihar dozu...! Han... aukeran... eukiko dau deretxua eitteko, baiña ostien ezebe ez dauka harek! Oiñ esaten dabe ez dauela deretxorik, ezta, lehengo lekua ez bada... Baiña hortarakotxe edo, ostien harek ez dau balio ezetarako. Ta gitxitzen doa jentia. Gero, lehen esan doguna, umiak be gitxiago jaixotzen ta...

7.4. Ira-batzea Urko mendiaren magalean

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/016
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:32:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Urko mendiaren magalean ira asko egiten zen. Gurdikadak ekartzen ziren; "zama ta burdikua" esaten zitzaion. Iratara joatea zelakoa izaten zen. Idien garrantzia.

Transkripzioa

- Eta mendixak eta be bai, polittaguak izango ziran, ezta?

- Bai ba, dana garbi-garbi. Bueno...! Iria ebaten zan orduan ta orduan ez ze(g)uen ez laharrik eta ez... dana zelaixa moduen! Baina!

- Eta arbolarik?

- Arbolak, ba... bai, pagadixak eta bae(g)uezen, baiña oingo piñurik-eta ez orduen. Hau piñuau oingua da, e? Orduan e(g)uezen pagadixak.

- Dana pagadixa?

- Ez, ez, ez, ez, dana ez baiña bakotxak pagadi zati bat... eta holan. Ba, oingo aldien... enee! Garbixek eta... [alde ederrekua zan]. Ta bidiek be,

orduen ibili eitten ziñen danetik ta oin nundik ibili bihar dozu ba? Zera, piñutarako pistia eitten ez badabe ez dago nundik ibili [...], hemendik ezin leike pasau! Kitto!

- Eta lehen, Arando ingurua eta Urko magala ta... zer zan hori, basua?

- Basua, bai. Iria eitten zan, iria, bai.

- Arbolarik ez, orduan...

- Ez, gitxi, gitxi. Iria eitten zan. Bai, iria eitten zan. Hor iratan nik...

bueno...! Zenbat! Geuk be Urkon badaukogu terrenua ta urtero burdikarak, pilla bat ekartzen zan! Zama ta burdikua esaten jakon, ba, burdixa ta gero atzian ipintzen zin egur luziek, zamia, ezta? Ta horixe, behetik gora zanian ezin, baiña goittik behera...ba...

- Ira billa juatia zelakua izaten zan?

- Iratara juetia? Bueno, ba, juen ein bihar izeten zan ta... Bertan be bazkalduta, eruan baba-lapikua eguardixan ta... Hemendik Urkora jun bihar zanian erun bihar dabena txarto, hartu lepuan ta, "je!", [... jatekua] ta dagozenak zain jateko!

- Burdixakin?

- Burdixakin ekarri bai. Ebaten zan, ba... segiakin, ta gero, batu iria ta gero burdixakin jun ta lehen esan dotena, eitten jakozen, sarbak edo zer luze... holan "rama" batzuk atzian ta... "Zama ta burdikua" esaten zan, ta iguel, ba, zer esango dotsut nik? Ba, zenbat metro... Ba, iguel sei metroko luzerakua ekartzen zan.

- Idixak, orduan, inportantiak?

- Bai, idixek bai. Enee...! Idixek inportantiek zien orduen!

7.5. Abereekin lotura zuzena duten zereginak; baserriaren ekonomia

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/017
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:32:33. **Bukatu**: 00:34:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Idiak eta astoa oso garrantzitsuak ziren baserriaren ekonomiarentzat. Neguan abereei zer ematen zitzaaien jateko. Ardiak ere izan dituzte beti eta onura handia ateratzen zitzaien: bildotsak saldu, ardi-esnea, gaztak... Txuti txakurra. Kanean ez zen jorialik irabazten eta zerbait egin behar.

Transkripzioa

- Idixek bai, oso inportantiek zien orduen!

- Ta ze zaintzen zan gehixago, idixak ala astuak?

- Gurien, egixa esateko, gure tia zana, enee... Astua zaintzen eban harek...

Jesus, Maria eta Jose! Beran burua baiño gehixago! Harek, kaletik etorri, eta astua gobernau barik, ez pentsau jaten ekingo zotsanik berak! Ez, ez... berezkua...? Ta idixek, ba, bai, idixeri be zeoze emoten... Oin beste pentsu ez e! Ene! Orduen, zela ekarriko zenduan ba? Nundik? Idixekin jun ta

ekarten zan burdikadatxo bat baiña...! Ha segiduen gastatzen zan ta... Bueno, beste gauza bat e(g)uen orduen, e? Etxien hartzen zan artua ta garixa, ta artua-ta emoten jakuen; zerien ta... neguen ta, arto pixkat emoten jakuen ganaueri. Biherko! Zeoze emon bihar zan ta... Esnie jzateko

ta horrek be bai.

- Ze zekazuen? Ganauak ala ardixak ala...

- Bixek! Ardixak be bai. Bai, ardixek be beti. Ardixek, hortxe Isu-mendi esaten jakona, Isutik gorutz, hortxe ibiltzen zien beti ardixek.

- Isutik norutz?

- Ba, honutz, hortxe...

- Altzerreka edo etxe barri hori daguan tokixan?

- Bueno, horrañok bez. Kamiñuan gaiñekaldian, hona... Hortxe ibiltzen zin gure ardixek be. Urkora juten zien behin edo behin baiña... gitxittan. Ta txakur bat euki genduen... ha zan txakurra zu! Izena Txuki ebena.

- Zelan?

- Txuki. Ta, "Txuki, ekarri ardixek!" ta, zu, etxeke ardixek apartauta ekartzen zittuan. Eñ ein biher zan hori e! Hori eñ ein biher zan e! Sekula halako animalixaik ! Enee...! Ha zan... ona zan! Bai, ardixek bai. Ardixek eta... Handittik bizi giñen ta! Zu, ez ze(g)uen orduen kaletik... xemeikorik ez zan etortzen e! Ta nunbaitetik bizi biher zan!

- Ta ardixekin ze eitten zenduen, bildotsak saldu edo...

- Billotsak saldu ta gero, ba... ardi-esnia ta gaztaia be eitten genduan etxian. Danok haxe.

- Gaztaia eitten zan orduan?

- Bai, bai, bai. Egixa esateko, ez dago noberak esatia ondo, baiña [...] bueno! Txandan zain eukitzen [nittuen] etxien eindako gaztaia hartzeko! Bueno, hori geruago, ni... ezkondu ta gero, ezta? Baiña... Bai, bai, danak zain eukitzen nittuen, txandan, gaztaia hartzeko. Ta, ba, zezer! Diru pixkat hartzen zan ta!

7.6. Abere-hiltzea: txorizoak, urdaia, zezina...

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/019
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:37:27. **Bukatu**: 00:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Urtero txerria hazten zuten baserrian. Txahala hiltzen zen auzokoekin erdibana eta gero zezina prestatu. Txerria hiltzen zenean txorizoa eta odolosteak, solomoa... egiten ziren. Azalpen zehatzak gai honen inguruan.

Transkripzioa

- Ta txarririk be ez zan faltako...

- Txarrixa bai, txarrixa etxerako beti. Hori bai. Gabon inguruen txarrixa hiltzen genduen. Hori beti e! Hori beti ikusi dot etxien. Ta gero zera be eitten zan, zezeña, orduan. Zezeña. Zezeña da, ba, txahala edo behixa, bi lagunek edo, bi [auzok] ... erdibana eitten zan, osorik ez, ezta? Baiña hori da okelia, gatz emon, ta gatzittutakua. Zezeña ez dozu sekula jan e? Ez, e? Ba, zezeña oiñ ya zera da, e? Pixkat famaua da... Bai. Nik ez dot nahi neuk, e! [...] janda ga(g)oz ta, baiña... Hori, gatza emon ta, ez dakit zenbat egunera, buelta emoten jakon, barriro gatza emon eta hartzen eban gatza ta gero hori, ba, urte guztian eukitzen zendun. Ta urdeixa

iguala e? Txarrixa hiltzen zanian be, ba, txarrixa hildakuan, barrukuek eta horrek bai, ezta? Baiña eitten zan txorixo, odolostiak, eta zerak... solomuak eta horrek. Baiña txarra izaten zan, ba, kalien be zerak, sendiek eta, danak partiziño demoniua eukitzen genduan! Erun ein bihar! Onenak eruan bihar sarritan! Ta txarrixek... zerak... urdaixek, “puetak” esaten jakon, ta harek be danak gatzez ein bihar izaten zian. Bi edo hiru egun euki, ta barriro buelta emon, ta gatz... barriro. Ta gero [ipiñi] harri haundi batzuk gaiñian, ta gatza hartzen eben, ta gero behin gatza hartutakuen, urte guztien harek kitto. Harek ez zien galtzen. Ta jateko gozuek. Bueno, klaro, pixkat gatza eukitzen eben ta, ba, pixkat beratu edo... hori ein bihar. Ta zezeñiak be horixe eukan e? Zezeñiak be, zelan gatza eukitzen eban, babak [...] orduan baiño.

- Zelan?

- Eske, zezeñiak gatza eukitzen eban, ta beratu ondo eitten ez badozu, babak gazixegi eitten zittuen. [Ta egosteko pixkat], baiña... Ha jaten zan orduan ta kitto.

- Ta esan dozu, aldamenekoren batekin eitten zala erdibana...?

- Bai, bai, bai, bai, erdibana eitten zan. Ta haundixe bazan, igual hiruk be. Klaro.

- Baiña ze eitten zan, behi osua zatittu ta dana gatzetan ipiñi?

- Bai, bai, bai, osua. Dana, bai. Zezeña horixe da. Eske orduan zelan konserbauko zendun? Orduan ez ze(g)uen konjeladorerik eta frigorifikorik e! Derrigor! Horrek ez dauke bueltarik. Ta oiñ ez dakit nun egoten dala esaten daben zezeñiori. Baiña ez dakit nik... Nik... zezeñiagaittik ez dosta inporta, nahixago dot nik freskua, garbi esanda. Ta oiñ, oingo kamarak eta... bueno...! Baiña orduen ez ze(g)uan, bai? Ta orduen biher zan gatza edo... zera, gatza emon ta... bai, gatza emon biher. Bestela [...] galduta e(g)uen.

7.7. Txerri-hiltzearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-205/020
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:40:10. **Bukatu**: 00:43:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Txerria hiltzea noiz eta zelan izaten zen.

Transkripzioa

- Ta txarrixa zelan hiltzen zan-ta, kontauko destazu?

- Kontauko dotsut bai! Jesus! Geiñera bi modutara kontauko dotsut ba. Ba gurien eitten zan: hor e(g)uen txarritokixa, ta gure aitta zanak hiltten eban, eta hementxe, hortxe kanpuan ipintzen zan mahai txiki bat eta baldiakin ta... odola hartzeko zaiñ egoten zan ta, prestauta egoten giñan. Ta biher zian eusteko, ba, hiru-lau bat lagun ta, ba, bestekuan orduen, baiña bestekuekin [beti etxeko moduan tratau izan genduan] ta horko gizonak etortzen zian ta etxequak ta txarritokittik urtendakuan, aittak “dza!” sartzen otsan gaintxua...! Ja-ta etxe guztia aidian dabela txarrixori! Ta ekarten eban tiraka, ta hona etortzen zan momentuen “dda!” kolpe eiñ hankak [...] gizonak eta jo-ta mahaira! Behin mahaira botatakuen, eutsi gaintxuakin ta “dza!” sartzen etsan kutxillua aittek eta eitten zittuen

urriska mordoska bat baiña...! Ta parien daguenak, odola ta gogortu ez dein, eitten eben bueltan-bueltan-bueltan odolori hartu ta holaxen eitten zan. Bai, horixe zan ba!

- Kutxillua eztarrittik...

- Eztarrittik... Ta beste baten, hori be txarragua zan ha, gerra ostekue zan ha, Dios! [...] Ha zan ona! Ha ez zan asko hobia izen! Ta gurien e(g)uen kriaue bat ta behintzat txarrixa hilttie ez ze(g)uela libre edo isilik hil biher zala... "Nik hori derrepente zertuko dot: joko dot mazuakin buruan ta ez dau txirristik be ingo!" "Bueno, bale..." Ta txarrixen be dezentia zan, e? Agindu etsa... [Ja-ta] ez dabela azertau...! Emedios! Ekin etsa ... ja-ta hemendiko [puntia], handiko musturra...! Ja-ta ni eskilleretan gora ihesi bildurtuta! Enee! [Jo-ta ...] Ta harek zien urriskak eta [...] Ta haintxe, eskerrak, orduen... "Ondio balientia dok ...!" Ja-ta sartu etsa gaintxua aittek... ta betiko moduan oratu ta ekarri. Ha zan ona!

- Mazuan metoduak ez zeban balio orduan...

- Ez. Beste klase bat be esango dotsut ba! Horrena... ha be ez zan politta baiña... Gero, gure semiek, ez dakit ezautzen [...], iguel ezautu be ingo dozu, kazari batzuk dia... [...] Bueno, zure onduen zaharrak die ta zuk ezin ezautu harek...! Beti euren eskupetia ta demoniua ta txarri hilttia behintzet, ta... "Hori geuk tiruakin past! hilko dogu ta kitto!" Agindu dotsagu ta "brast!". [Einde] bai, baiña ja-ta odol dana kanpora! Harek kitto! Orduaintxe gure odolostiok jun zien Tetuanera! Akabo! Orduen bai hil bizkor...! Baiña...! [Aittitta...] danok...! Enee! Onena! Baiña ha mazuana be ez zan ederra izan e? Jesus, Maria ta Jose! Ta gaiñera, gurien...

- Betiko modua orduan onena...

- Betikue bestekuen orduen mutil gaztie eta "Ene Maria ta Jose! Txarri hiltten [...]" "Ezetz!!" Aittak [...] Txarrixen sartu ezinda dabizela tokira, urten eiñ etsela ta... Harek asmau ezinda harek guzurra [...] esan ez deixen... Jesus! Demasak, demasak!

7.8. Karobiak eta karegintza I

- **Hizlaria(k):** Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-294/007
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- **Laburpena:** Karobiak non zeuden; karea nola egiten zen; karea zertarako erabiltzen zen. Ortuan ere botatzen zen, kokoak akabatzeke.

Transkripzioa

- Karia ein eitten zan?

- Ein, ein!

- Ezagutu zenduan zuk karabixak eta...?

- Honbre! Ezautuko ez nittuan ba? Ubitxan bazeguan bat!

- Nun zeguan?

- Ubitxa iturririxen baiño honutzatxuaguan... Oin badakik, desapareziduta dagoz horrek! Aintxiña eruan zittuan horrek aurrian eskabadorak! Baiña hori eitten eben, holan zulo bat harrixakin, bueltan-bueltan eitten eben. Ta gero, kareharrixen zeguan, ba, igual... kareharrixen, egon ein bihar da

harrixa, e! Eguarbitzan dago bat harrixa, kareharrixa. Oin be badago ta beste lekun bat be egongo zan! Ta hori [...] etara ta idixekin fan ta ekarri egitten eben! Ta gero, bota hara! Ta azpixan sua eitteko lekua lagatzen etsen ta otia badakizu zer dan? Otia badakizu zer dan, ezta? Erderaz ez dakit zelan esaten jakon otiari. Bueno, igual da.

- Bai, lora horixa dakan hori, ezta?

- Bai, lora horixa dakana, otia. Hori, lehen ota asko zeguan hamen, ta otia ebagi, sikatu, ta otia sartzen jakon azpixan. Ta harekin harrixa erre eitten eben. Erre, e? Ta gero ha eitten da, ba, masia eitten da ta ya, ba, ha aprobeztatzen eben solorako, soluandako ona zan ha botata.

- Ta ze eitten zeban?

- Kariak? Karia da... erre eitten eban lurra ta harek bitxo guztiak erre eitten zittun! Harrak, honek beste gauza guztiak, bitxo guztiak... Soluan bitxo asko urtetzen dau! Ta karia botatzen zetsen ta lurra harrotu eitten dau harek! Ta bitxuak danak akabau! Ta oiñ horregaittik da, basarrixetan pasatzen dana da, oin karerik ez detsa botatzen iñok ta oin solfatu dau espeziala, eztakizu? Baiña oin solfato hori ez badetsazu botatzen ezebe ez da hartzen! Bitxuak jaten dabe dana! Ez dago ortuan ezer hartzerik ez badetsak botatzen! Oin dagoz, likiduak dagoz, ta karuak e! Ta [haura] bota bihar detsazue nahi tomatieri, nahi piparreri, nahi lekiari... Bota ein bihar detsazu e! Bestela ez da hartzen bape! Lehenago bai, karia botatzen etsen ta lurra zelan egoten zan garbixa, ba, lurra garbixa zelan egoten zan, bitxorik ez zan egoten! Ta oin tomatia be palua ipintzen jako gora ta lotu, ezta? Hori ikusiko zenduen. Lehen tomatia sartu ta lurrian egoten zan tomatia! Ta ez zebe jaten!

- Ez zeuan bildurrik?

- Eske bitxorik ez zeguan ta! Zerak jaten zittuen... Horrek kariak eta danak... Garbixa zeguan lurra!

- Osake, onena karia zan?

- Karia oin be ona, baiña oin karia oin iñok ez detsa botatzen. Oiñ ez dago... Jentiak hori baiño... oin listuagua da gero!

7.9. Morokila nola egin

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/016
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:33:20. **Bukatu**: 00:35:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Artoa
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Morokila nola egiten zen: galdaran ura irakiten ipini, arto-irina bota kurioso-kurioso, eta eragin eta eragin. Normalean gauean jaten zen, afalorduan: berakatz-zopa, gaztainak eta morokila.

Transkripzioa

- Eta morokilla ze zan?

- Morokilla iguala baiña morokilla... urunakin... esniakin... urakin eindakua! Ura ta arto-uruna. Morokilla eitten da, galdaran ipini, ezta? Galdarakada haundi bat ura. Segun zenbat zaozen etxian, gitxi be bai ta asko be bai. Galdaran ipini ura irakitzen. Gero artiriña bota kurioso-kurioso ta ez bazaraz argi ibiltzen, hori [...] pelotillak eitten dia, uruna batu eitten da ta

harek... gero txarto geratzen da. Ta lantzian piskaka-piskaka bota ta hari makilla... egur bat eukitzen dau, holako egur bat, ta erain asko pelotarik ez deixon formau. "Dale! Dale! Dale!". Hori igual-iguala da, frituak eittia moduan, zera eittia moduan, e...

- Bexamela.

- Esa!

- Masia, bai.

- Zelan esaten da hori? Bueno... Ez bazabiz argi, ha uruna botatakuan, ba, pelotak eitten diaz. Ba iguala pasau jakon hari be. Ta hari erain ta erain ein bihar jako. Ta gero hasten zan "Plist! Plast! Plist! Plast!" morokilla ta erain! [...] eitten zanian, igartzen jakon, amak igartzen etsan "Ene! Erre useiña botatzen dao! Hori morokillori kendizue, erre bihar dau ta!". Ta atara kanpora ta hoztutzen laga pixkat ta gero batzuk jaten dabe morokilla berua ta esnia hotza; ta beste batzuk jaten dabe morokilla hotza ta esnia berua! Nik beti, esnia berua jaten genduan guk. Morokil hotzari esnia bero-berua bota. Ta morokillari zuluua ein ta esnia hara "prrrrr" ta gero esnia ta morokilla nahastauta. Gozua da!

- Beti esniaaz jaten zan?

- Esniakin! Bera morokilla hutsik zatarra da! Ez dozu sekula morokillik jan?

- Ez.

-Talorik be ez...

- Talua lantzian behin.

- Bai?

- Hori ze zan, armosatzeko, afaltzeko edo ze...?

- Hori, jeneralmente, afaittan jaten genduan guk. Ni gaztia nitzala.

Aurretik... Hori afaittan jaten da, jeneralmente afaittan. Aurretik gaztaiñak edo berakatz-zopia ta gero morokilla gaiñian.

- Hori zan menua?

- Bai, hori zan menuori. Morokilla jan, bete-bete ein ta ohera. Gero lo edarto ein! Han ez zeguan pattarrik, alkoholik eta kristorik! Gauza naturala! Puf!

7.10. Ama artoberoa saltzen kalerik kale

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/017
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:35:38. **Bukatu**: 00:39:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Artoa
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena**: Artoberoa egiten zuten etxean. Ez zutenez nahikoa arto, errotan erosten zuten arto irina. Artoberoa nola egiten zuten. Amak kalean saltzen zuen. Zer prezio izaten zuten.

Transkripzioa

- Eta artua be eitten zenduela kontau zenduan lehengunian...

- Bai, artua amak! Artua eitten zeban; amak bai, artua. Saldu eitten zeban artua! Gure amak arto mordua saltzen eban. Astian pare bat hiru bat bidar eitten eban. Batzuetan hiru bidar... bi bidar beti. Arto erria. Artua erosi

eitten eban. Gure etxian ez eguan hainbeste arto, baiña errotan erosi eitten gendun guk artua. Ta nik... asto txiki bat gekaun ta amak esaten estan: "Fan hari errotara ta ekarrizaz berrogei kilo urun!". Berrogei kilo urun ekartzen genduazen, ta amak ha pasau ein bihar zan galbahian. Zela esaten jako horri erderaz? Bueno, galbahia, badakizue zer dan, pasatzeko. Uruna pasatzen eban, gero ur berua bota, labaduria bota, ogixari moduan, labaduria bihar dau pixkat, labaduria botatzen etsan, harrotu deixan, ez? Eitten eban halako [...] haundi bat, gero zekan holako kazo haundi bat egur luziakin, labia... egurra sartzen zeban ta labia zuri-zuri eitten da asko berotzen danian labia, hain teillak bueltan ipinita, labia zuri-zuri eitten da. Ta harek egur zaharrak batu, danak garbittu ta ha kazua, artua, bete kazua ta sartu paran, ta "plast!" bota. Gero zabaldu pixkat, holako tamaño bat. Gero, beste gauza bat, [beti] ipini... Gero, atia, ez deixan hoztu, zerrau ondo, ta amak karrulauta eukitzen zeban, ba, igual ordu bi inguru-edo erretzen. Ta gero ikusten zeban, ta gaiñian baltzitzen hasittako, holan, ondo erreta dagozenak, gero beste para mehe bat zekan ta, mango luziakin, ta "dza!" sartu ta kanpora etara. Ta gero saldu. Goixian ein ta atsaldian kalera artua saltzera. Asto txiki bat kargauta, ba igual [...] gure amak, ba, igual, [saltzen] zittuan dozenerdi arto hartu asto gaiñian, ta saldu ta. Saltzen eban libria "treinta céntimos", ta kilua "cincuenta". Arto bero-berua. Ni baten akordatzen naiz, ni granujia nitzan ta, "Hi, Julian, etorri hari nerekin" ta, hamen, Bista Alegre. Etorri gintzazen ta astuakin ni. Astuak hanka eitten etsan igual harek, saltzen dabilela edo, ta [hona...] amak "Arto bero-berua!" ta nik hartu neban sustua nik! "Ama, zuk dakazu baloria! Artua [ekarri] ta deika zabiz?" Nik hartu neban sustua nik! " Arto bero-berua!" ta andrak bajatzen zian ta batek esaten eban "Ba, libra bat", bestiak kilo bat, bestiak igual holako zati bat... Eske artua epel-epela zan, gozua artua! Bero-berua, artua, ein barrixa gozua da, e! Ya behin ya, behin pasatzen dittuanian zortzi bat egun edo, zatartu eitten da artua e! Asko! Baiña barrittan... gaur ein ta bixar... ha epela dagon artian, artua oso gozua da, e! Bai, gu haretxekin hazitta gaoz!

- Asike, kalian saltzen zeban berak, ez?

- Kalian bai, dendetara ta, ba, [nahi...] batzuk dendarixak hartzen etsen osua igual ta beste batzuk bi igual! Hamen [bazkezzen dendak, bere...] bazekazen ta gero, ba, sobratzen jakona saldu! Bata libra bat, bestiak zati bat igual ta, ba, kobratzen zan igual txakur haundi bat edo.

7.11. Errotara asto gainean

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/019
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:41:54. **Bukatu**: 00:44:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Asto gainean errotara joaten zen sarri, Barrena Txikira, arto irin bila. Apalategi inguruan ere beste errota bat zegoen. Beste errota batzuk ere baziren: Eitzagan, Ezkaregin...

Transkripzioa

- Oin aittatu dozu, arto billa zu juaten ziñala, ez?

- E?

- Errotara arto billa zu juaten ziñala.

- Artuan billa, bai.

- Arturuna erosten zenduan?

- Arturuna erosi, ta panaderuari esaten [...]: "Oye, amak esan desta berrogei kilo arturuna emoteko". Ta harek errotia eukitzen zeben, zaku bat hartzen zeban ta "ra!" paliakin bete, pisau ta "aiba!". Astua eruaten neban nik, ta errotarixak eitten eban "da!" bota astuari, lotu sokiakin, "ala, etxera!". Ama bera [...] dirua eruatera. Ama ez dakit zelan arreglatzen zan, nik ez neban eruaten dirurik eta! Amak pagauko etsan!

- Eta nora juaten ziñan orduan erostera?

- Barrena Txikixa! Oin han, badao ba... gasoliñeria?

- Otolan?

- Bai. Hor gasolin... ha baiño honutzatxuago zan Barrena Txikixa, errotia zeguan han. Ta han ura etortzen zan zeretik, Bizkaittik, hor Ermua ondolik ura, presia [...] ta errotia zeuan hor. [Hortan] beste etxerik ez zeguan. Han etxe zahar bat... Ha etxe zaharra... oin be segidu eitten dau e! Gasolinerian albuan. Ha etxia, noraki noizko etxia dan haura, e! Ha baiño hori errotiori beherago zeguan, Eibar aldera! Bai.

- Eta beste errotarik bazeguan hamen inguruan?

- Beste errotia zerian... e... horra gutxi juaten giñan gu. Maltzaga baiño beherago, zein da hori?

- Apalategi edo?

- Bai, Apalategi. Apalategin beste errota bat, hara be fanda nao behin baiño gehixagotan. Han be errotia zeguan. Gero beste bat, Ezkaregi-Errotia edo hor basarrixan. [Hara ez giñan fango ...] baiña hor beste basarri bat egon bihar dau. Oin ez dakit segitzen daben, lehen bazeguan. Apalategin!

- Zeuek, baiña, bestera, normalian...

- Gu horra faten giñan enjeneral. Apalategira fanda nao behin baiño gehixagotan, e! Uruna ekartzera. Baiña horra faten giñazen. Gero Kondia Eitzan, harek be errotia, uruna ekan. Kondia entzungo zenduen... Ermuan, edo... Eitzan! Harek be errotia ekan. Lehen errota asko euan!

- Ta esan dozu egoten ziala kanalak edo erretena edo zelan esaten jako horri?

- Bai, uran kanala, bai.

7.12. Gaztaina kontuak: eskola, lakatza, klaseak...

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/020
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:44:12. **Bukatu**: 00:48:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Gaztaina kontuak. Gaztainak eskolarekin, lakatzarekin gorde behar dira, ez daitezen elkortu. Gaztaina sasoiaren jende asko joaten zen gaztainatara. "Mari-Katillu"renekoari gertatua. Gaztaina klase asko zeuden: goiz-gaztaina, abadino-gaztaina, txaparda... Bakoitza nolakoa zen.

Transkripzioa

- Eta gaztaiñena, beste galdera bat gelditu jatana hamen, gaztaiñena,

esan dozu, azala edo oskola edo... Horrek izenik badaka? Lakatza edo lokotza edo...?

- Bai, lakatza. Lakatza! Bai, lakatza esaten detse, euskeraz lakatza esaten jetsek horri. Bai, lakatza da hori! Ta horrek konserbau eitten dau gaztaiña! Bestela gaztaiña segiduan galtzen da! Gaztaiña, oskolik barik batizu, bai? ta handik hille bi edo igual lehenago, hillebete pasau, ez dau balio gaztaiñiak, alkortau egitten da, gogortu egitten da ya, ezin leike jan! Ezin leike jan! Hori baten akordatzen jata neri, "Mari-Katillu", oin Maixa badao ba? Maixa tabernia Kalbetoian? Han lehenago zeuan, Mari-Katilluneko tabernia zan ha. Mari-Katillu, haren semiak, ez dakit ba asko dan bat hil dala! Ze izango da... lau bat, bost bat urte edo. Harek, lehenago hemen Eibartik danak, ba, gaztaiña denporan, hamen dana gaztaiña zelan zeuan, goixian juan da danak gaztaiñatara! Gaztaiñatan danak. Ta gaztaiña ohostu eitten eben, [...] gaztaiña kantidadia ohostutzen zeuben, mordua egoten zan ta goixian jentia! Ta hartu, karro, zukadak bete ta kalera! Ta gero, ba, ostian lekuri ez ta kamapian bota, ohepian, "vamos". Ta gero ohepian, badakizu, gaztaiña asko batu [...] ta lehenengo barritxan ondo, ez dakizu? Baiña gero, ba, denporiak ez da... alperrik galdu eitten da haura! Alkortu eitten da ya, sikatu eitten da gaztaiña. Oskolik barik... Ta gero hasarre. Gure aitta juaten zan, ba, eratera, Eugenio, ta "Eugenio, hor ibili... -esan etsan- Eugenio, hor ibili nok gaztaiña lapurretan hainbeste denporan ta oin bota egin bihar jittuat, ez juek balio jateko". Sikatu eitten da gaztaiña oskolik barik. Baiña oskolian, eta zenbat eta montoi haundixaguan, hobeto. Konserbau egitten dau oskolak! Konserbau egitten dau, ez da sikatzen gaztaiña! Ya, guk oktubria pasauta gaztaiña ta Gabonetan be gaztaiña ona egoten zan, e! Behin ya Gabonak pasauta aurrera ya...

- Eta gaztaiñak ze zian, klase asko edo...

- Gaztaiñak klase asko! Bueno...!

- Izenik bazeken? klase bakotxak izenen bat edo...?

- Bai, batak zekan, ba, lehenengo esateko, gaztaiña onena zan goiz-gaztaiña.

- Goiz-gaztaiña?

- Guk esaten gentsan... Gero...

- Hori zein zan, goiz-gaztaiña?

- Goiz-gaztaiña... ba, gaztaiña iguala bestien modukua, baiña klase diferentiak gaztaiñak zeuazen! Goiz-gaztaiña. Beste bat abadiño-gaztaiña esaten jakon, ha pixkat flojuagua zan. Beste bat zan erreta, erreta jateko, txapardia esaten etsen.

- Txapardia?

- Bueno, horrek lehengo izenak diaz, e? Gure aittak holan esaten etsen. Ta beste bat txargaria esaten etsen, hari txargaria esaten etsen, lokotzak eukitzen zittuan igual, igual hamar ale, txikixak! "En general", hiru ale eukitzen dittu gaztaiñiak e! Baiña harek mordua eukitzen zittuan!

- Lokotz baten...

- Lokotz baten hamar ale! Bai, bai, txargaria esaten etsen. Ta ale txikixagua eukitzen eban harek, e!

- Eskasaua zan ala...?

- Eskasaua! Onena zan goiz-gaztaiña, hiru ale egitten jakozen, hiru ale edarrak. Haixe zan gaztaiñarik onena. Txapardia zan, ba, erreta jateko. Tanboliñian erre ta... ha bestia baiño hobia zan. Hori, txapardia, beranduago dator ta hori nobienbrian erdi ingurura-edo heltzen da gaztaiña hori.

- Eta abadiño-gaztaiña zelan...?

- Abadiño... ha eskasagua zan, baiña ha be... bai, ondo jaten zan gaztaiña. Abadiño-gaztaiña esaten etsen.

- Txikixagua edo haundixagua edo...?
- Zeoze txikitxuagua! Ta harruagua eukitzen eban geiñeko oskola be harruagua, ez dakizu? Onena goiz-gaztaiña, "por mucho", e!
- A, bai, e? Eta gaztaiñak-eta esan dozu, hor dana basuak eta...
- Dana gaztaiñak euazen hor! Dana gaztaiña zeuan hor!

7.13. Eibar inguruko basoak

- **Hizlaria(k):** Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-294/021
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:48:17. **Bukatu:** 00:52:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Urki inguruko basoak norenak. Inguruko baserriak. Baso handiak: pagadiak, gaztainadiak... Arrate inguruan pagadiak ugariagoak ziren. Kalamua-Akondia ingurua garbi-garbia zen, ez zegoen basorik; ardiak eta behorrak ibiltzen ziren bertan.

Transkripzioa

- Eta zaiñenak ziran basuak?
- Ba, basarri bakotxak bere zatixa ekan. Basarrixak Ospasek zati batzuek, guriak, Tutulukuak, Ipuruakuak, haretzek. Martin Amuategi be baekazen. Martin Amuategi entzungo zenduan zuk Urkin. Harek be bazekazen hor baso zati batzuek. Martin Amuategi elgoibartarra zan bera, baiña horra basarrira ezkondu egin zan haura, alaba bakarria ekan basarri baten ta harekin ezkondu zan ta...
- Basarrixa zeuan orduan, Amuategi basarrixa?
- Basarrixa zan! Txikixa, baiña basarrixa.
- Ta izena zelan zan basarrixa?
- Zera... Izenak be ixa ahaztu ein jataz neri, e! Gorranekea!
- Gorranekea? Ura nahi bozu...
- No. Gorranekea esaten etsen! Han zeuan zahar bat; ez zeban entzutzen, ta gero, ba, Gorranekea esaten etsen. [Gurian] nik hala entzutzen neban. Beti Gorranekea [entzutzen...], nik beste izenik ez dakit. Gero, goragokua zan Takillangua. Lukas Alberdi [ezautuko zendun], harek... hantxe bizi izan zan ointxe... hill arte! Bueno, gero kalia bizi zan, baiña hango alabiakin ezkondu zan ta gero han, bera bizi zan Takillanguan. Bestia zan Txatxingua, Kurutzekua ta Urki-guenengua. Urki-guenengua... Urki gorengua, ez dakizu?
- Ermittatik gora?
- Ermittatik gora. Gero Altamirak, oin be han daoz harek. Oin be hirurak daoz han, Altamirak oin be lehengo moduan daozela! Harek goixan daoz, ez jok kamiñuak eta ezek be harrapau!
- Eta ha inguru guztia, orduan, dana gaztaiña...
- Gaztaiña zeuan dana hor! Dana!
- Ta pagorik eta haretzik eta bazeguan Eibarren...?
- Pagua bazeuan, bai. Haritzak... gitxiago baiña, proporziñuan asko gitxiago baiña! Zatitxo batzuek bai!
- Eta haretzik?

- Bai, haritzak be bai, baeuazen haritzak, baiña gutxi, e? Haritz gutxi, e! Holan... baso-ezkiñetan igual lau edo bost edo... baiña... holan harizti haundirik ez zeuan hor. Hor zeuan gaztaiña asko.

- Eta beste inguruetan, Gorosta ta Mandiola ta ... zelakuak ziran?

- Hor... Hor beti danetik egon da, baiña hor arbola gutxiago egon da beti. Beti izan da parajia, hori... arbolak... Oin be badaoz hor uniak ... sekula baiño gehiago ointxe daola pentsatzen dot. Baiña hor arbolak... Ez da izan arbola-lekua hau, e! Arrate bai, Arrate, hori, San Pedro auzua... hori bai, arbola asko egon da hor.

- Han ze zeguan?

- Han... Pagua hor asko! Pagua, pagua zan asko hor. Ta Kalamua, berriz, Kalamua zeuan mendixa...! Nik, azkenengo egon nitzanian, izango diaz... ni azkenengo egon naizela izango dia hogeit urte, Kalamuan. Joe! Tristoria emoten estan. Gu gaztiak giñanian hara fanda ... harek mendixak! Ardixak eta kaballuak ibiltzen zian hor ta bedarra urtetzen zeban...! Ta alfonbria moduan e! [Ibiltzen ziñazien], alfonbria hori leun-leunori, alfonbria [...] bedarra leuna, garbi-garbi-garbi-garbi! Azkenengo egon nitzanian, "Enee!", esan neban. Aiba dios! Piñua, txarrikerixia , zikiña... "Bueno...!", esan neban, "Hau lehengo mendixak ikusitta...!"

- Ta lehen dana garbi-garbi?

- Dana honexen moduan! Dana! Bedarra, jo-ta garbi, ez ota bat eta ez arbola bat eta ez... Zoragarrixa zan hori parajiori! Zoragarrixa gero, e!

- Hori Kalamua?

- Kalamua. Kalamua zan mendi bat...! Ez zan hemen inguruan egongo horren moduko mendirik, e!

- Eta Akondia ta Urko ta... zelakuak zian?

- Horrek... igual samar daoz oin be. Akondia gaiña lehen, ba, garbi-garbixa, oin zikiñak harrapauta dao. Danak harrapau dittu zikiñak horrek! Urko be dana zikiñak harrapauta dao! Ta hau Galdaramiño aldiau be dana zikiña. Oin badakizu ze pasatzen dan? Ardirik ez dabil ba, ta ardixak, ganauak mendixa garbittu egitten dau! Ta harek beti jan egitten detsa puntia ta ez detsa lagatzen hazten! Beti jan eitten dau ta zelan mendirik... ez badozu ardirik eta ganaurik ez badabil, ez dau jaten ta hazi eitten da! Entenditzen dozue? Ta ardixak jan eitten dau beti, zikiñik ez dau urtetzen. Horixe da dana

7.14. Garia ereitetik ebakitzera bitarteko pausoak

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/023
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:54:30. **Bukatu**: 00:58:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Gariaren inguruko lanak pausoz pauso. Urrian, artoa kentzen zenean, arto zutarrak geratzen ziren eta lurra saratzen zen. Zemendian goldatu eta saratutako belarrak golda-zulora sartu. Garia erein. Ganaduekin eta harearekin lautu, berdindu. Udaberrian hortzik gabeko hesi bat pasatzen zen lurra gozatzeko eta gariak indarra hartzeko. Uztaile inguruan ebaki. Zenbat eta beherago, lehenago heltzen zen.

Transkripzioa

- Garixa be egoten zan.

- Garixa bai. Hemen danian garixa! Baitta geure etxian be! Garixa ereitten gendun geuk be!

- A, bai?

- Karo ereitten zana garixa! Ereingo ez genduan ba! Garixa ereitten da zerian, nobienbrian ereitten da garixa! Ta ointxe juliuan ebagi! Ta eskuz jo! Igitaixakin ebagi...

- Kontauko deskuzu pixkat prozesu guztia zelan dan, pauso guztiak zelan eitten diran?

- Garixanak? Bai.

- Lehenengo esan dozu erein?

- Garixa lehenengo... lehenago saratu... zera, artua ebaten da. Artua egoten da, ez? Oktubrian artua heldu ta kendu eitten da. Gero artozutarrak geratzen diaz ta zutarrak gero atxurrakin saratu esaten etsen lehenago, saratu, harek... garbittu bedarra. Gero etortzen zanian zemendixa edo nobienbria, goldia: ganauak ipini, ta golda bat sartzen zan, ta harek goldiak lurrari buelta emoten detsa. Goldia. Ikusiko zenduen goldan. Lurrari buelta emoten etsan. Ta lehenago ondo nahi ebanak biharra ein, ha saratutakua, beste lagun bi edo hiru, ha bedarra ha goldazulora sartzen. “¿Ya habéis entendido?” [Holan] zulu eitten dau, bai? Ta zelan saratuta zeguan, ha bedarra... Neguan ez da igartzen bedarra, udan bai. Ta ha zulu sartu. Ta gero, bigarren bueltan, ha bedarra tapau eitten dau goldiak ta gero geratzen da bedarrik barik garbi-garbi-garbi. Ta goldatutakuan, garixa ereitten da; enjeneral, aitta izaten da [...] manejatzen dabenori, garixa eraitten ta.

- Eskuz sartu ta...

- Eskuaz erain garixa ta gero ganauekin, aria esaten etsen, holan are bat, hortz askokin; igual ekazen hamasei hortz edo hogeie edo ez dakit zenbat ekazen. Holako hortzak. Ta ganauak lotu katiakin ta ganauak eta... gero harekin lautu, bardindu dana! Entenditzen dozu? Harekin bardindu, bardin bardin ipini ta gehixao [ikutu] be ez.

- Ta hori eitten zan, orduan...

- Hori... Hori nobienbrian. Ta gero, neguan ez jako gustatzen; neguan geldi egoten da garixa, geldi egoten da luzaro. Ernetzen da, baiña gero geldi egoten da; neguan ez dau irabazten. Ta gero marzuan, euzkixak berotutakuan, barriro hasten da gora mobitzen. Ta gero pasatzen zan, beste... marzu inguruan, egualdi ona zeguanian, ba, “hesi” bat esaten jakon: holan egurrekin ta eginda, ta ganaueri geiñian... Garixak, negu guztian zelan telia egitten jakon lurrari eurixekin ta izotzakin ta... ha udabarrizan pixkat apurtu ha, garixak hartu deixan indarra! Hesi bat pasatzen zan han ta lurra gozotu.

- Eta zelakua zan hori, pasatzen zana, arian antzerakua?

- Hortzik baekua! Zer esango detsut ba nik? Tabla bat gaiñian pasatzia moduan! Baiña egurrakin eindakua, espresamente zan, hesixa esaten etsen. Hola eukitzen zittuan lau tabla. Lau tabla ta gero egurra sartuta holan, ta gero harri bat gaiñian, ta ha “raa! raaaa!”, lurra haustu eitten eban harek! Ta zelan lurra hausten zeban, gero harek gozua... gozotu eitten zan lurra ta gero garixak, berotzen zanian, indarra hartzen eban behetik gora. Ta gero, ointxe, oktubrian ebagi.

- Julixuan.

- Ointxe, zerian... juliuan. Ointxe, San Juanetan, ba, leku batzuetan gorritzen hasitta ointxe egoten zan; Arrate baillian lehenago etortzen zan hor behealdian. Zenbat beherago, lehenago heldu goixan baiño. Akondia

basarrixan, Akondian, hamabost bat egun beranduago hemen behian
baño. Hotzaua goixan, freskuaua. Zenbat gorao, freskuao.

7.15. Gariaren inguruko azalpenak: ebaki, sikatu eta jo

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/024
- **Iraupena**: 0:05:08. **Hasi**: 00:58:25. **Bukatu**: 01:03:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Garia igitaiaarekin ebakitzen zen. Batek pilak egiten zituen eta beste batek lotu. Euri arriskua bazegoen, meta egiten zen. Gero, eguraldi ona zetorrenean, abuztuan, etxera ekartzen zen meta bateko garia eta etxe ondoan zabaldu, eguzkitan, sikatzeko. Gari-jotzea nola egiten zuten, garia harlauzan kolpatuz ("txanketian").

Transkripzioa

- Eta zelan batzen zan?

- E?

- Garixa. Gari-batzia zelan izaten zan?

- Igitaixakin ebaki, ta [zuk nahi zendun] pillak eitten zenduzen, holako pillatxuak, holakotxe pillatxuak, pillatxuak, pillatxuak. Ta beste bat atzetik etortzen zan lotzen gerrixan. Hartu lasto bi edo, berari hartu [behetik] lasto bi, ta holan eitten zan: "rraa!" batu, ta bueltia emon ta "dza!", buruak aurrera begira sartzen zan ta "ra!" lotu ta "ra!" laga. Lagatzen zian, bostekuak esaten etsen: hemen bost, bost, bost, bost... danak. Ta gero, ba, egun bat edo bixan euki ta, eurixa-edo baetorren, ba, dana... metatu eitten zian gero, edo tolostuta ipini danak, eurixa ez... Zelan garixa hartzen badau eurixak, garixa erre eitten da barriro segiduan!

- Baiña hor egun batzutan sikatzen nun lagatzen zian, lurrian?

- Bai, bai, lurrian. Gero eurixa edo egualdi txarra badator, metia eitten da. Metia... ze esango detsut... zuk ikusi dozu, ba... orduan gari-metarik zuek ez zenduen ikusiko. Bedar-metia izaten da, bedar-metak oin be egoten dia, garo-metak badagoz oin be... Halaxe eitten da! Ipintzen dia alkarri holan, lehelengo hiru, gero lau, gero sei... gero bueltan-bueltan, tente. Tente ipintzen da holan lurretik. Ta lehelengo hiru edo ipintzen diaz, alkarri, "da!". Gero bueltan-bueltan, ipini ta ipini ta ipini ta ipini ta ipini ta ipini ta ipini. Ta pentsatzen dozunian "Ba! Nahikua buelta jakak!", gero, buelta bat gorago, lurrian ipiñi biharrian, ba, kaso baterako, hemen dator ta gero, ba, goratxuago beste buelta bat. Gero goratxuago beste buelta bat, gero goratxuago beste bat, ta azkenian, akabau! Ta azkenian, puntia zorrotz-zorrotza! Politto eitten eben batzuek, e! [Hi, artistia] bihar da hortarako be! Jakin ein bihar da! Ta azkenian, ba, punta zorrotz-zorrotza! Ta gero ipintzen etsen, txorixak eta jan ez deixen, ipintzen etsen, ba, plastikua, zaku bat edo... [Plastikorik] ez eguan orduan! Plastiko... zakuakin edo, haixiak ez deixen eruan, soka batekin edo zeozekin lotu puntan ta eurixa ta... eusteko!

- Hori bakarrik eurixa zanian?

- Bueno, hori beti, baiña...

-A, beti?

- Beti hori! Ta gero, egualdi ona etorrenian, handik agostua... zenbat da,

igual... agostuan... en jeneral, eitten zan garixa jotia, ba, Andra Marixetan, "seis de agosto, dieciséis, diez de agosto, San Lorenzo... por ahí". Ta egualdi onak etozenen baten, orduan egualdixak oin baiño hobiaguak eitten zittuan, jua ganauekin ta etxera ekarri, meta bat. Zenbat...? Igual bazeguazzen dozenerdi meta, ba, danak batera ezin leikez jo ta, ba, "Gaur zenbat lagun gauaz biharrerako? Hiru edo lau edo... Bueno, gaur bi ekarriko jittuagu!". Etxe onduan zabaldu, holan ipintzen zian, buruak kanpora diala, alkarren gaiñian tolostu dana, euzkittan sikatzen. Ta gero jartzen zian, holan, egur bat botatzen zan, ta losak ipini, ta batek, en general gaztenak, karriua, en general, ni izaten nitzan beti. Ta sokia hartu ta harekin ein kargia, ta hartu bizkarrian ta ganbarara. Bestiak jo eitten eben losan, "Bin-bun! Bin-bun!". Ez da bihar edarra, e! Hautsa...! Ta bero...! Ta bero bihar da! Ez badago bero, ez dau balio, ezin leike jo! Garixa hezia badago, ezin leike jo!

- Behetik oratu ta...

- Bai, oratu zeretik eta losan jo. Bai, ta igarra badago segiduan juaten jako alia. Ta "raa!". Beste bat ganbarara altxatzen. Lagun mordua bihar! Batak... harek... azaua esaten jakon horri, azaua ganbarara eruaten, beste bat ekartzen, beste batzuk jotzen... Gero tomatia ardauekin jan ta...

- Tomatia ardauekin?

- Bai. Ta askok esaten dabe tomatia ez zala... "lehenago ez zuan jaten tomaterik" ta "Bai, gure etxian jaten zuan tomatia lehen be". Bueno, holakotxe egunetan bakarrik, e! Gari jotietan ta... Ostian tomaterik pentsau be ez!

- Eta holan jotiarri... eske, bateron batek esan zeskuan, txanketian edo...

- Txanketian!

- Zer zan txanketian?

- Txanketian horixe, losan jotia. Txanketian, bai ba, garixa esaten eben txanketian joteko. Txanketian da, hartu azaua ta losan jotia. Horixe esaten detse, txanketian, horixe da izena. Horren izena horixe da!

- A! Joteko modua...

- Joteko modua ba! Horixe da izena beria, txanketian. Bai, bai, txanketian, txanketian. Horixe da hori, holaxe jotzen zan. Ta hamen bakarrik ez... danian!

- Eta losa hori ze egoten zan, beti atai inguruan edo...?

- Ez, horrek losok preparau eitten zan garixa joteko! Egoten zan, holan, urkilla batzuk egoten zian, ta urkillen gaiñian egur bat botatzen zan. Ta gero, haren kontra losak, ta losiak hanka ez deixan eiñ, puntan ultza bat edo sartu, ta gero, ba, jo.

7.16. Garia garbitzeko makina

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/025
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 01:03:33. **Bukatu**: 01:05:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Garia jotzea amaitzen zenean, eskuzko haize-makina batekin garbitu egiten zen garia, alea eta ahotza bereiziz. Makina nolakoa zen eta nola funtzionatzen zuen.

Transkripzioa

- Amaitzen zianian danak, han gari pillua egoten zan, haundixa, ta, badakizu, lastua ta aroza ta... Ha ez da garbitzen, ha dana zikiña egoten da. Gero makiña bat zeguan, eskuko makiña, haizia ekan harek, eta ekazen, holan, manibela haundi bat... Ondio ez da denpora asko ikusi dotela, e? Ta harek dakazen txapazko lau bolante, txapak, ta [aria daukanak?] haizia botatzen dabenak atzera ta atzian zeguazen galbahiak. Ta, orduan, zuk manibelari eraitten etsazunian, ekan, manibeliak ekan beste koska batzuk edo... Holan ezin leike esplika... Ta zuk eraitten etsanian atziari, holan ibiltzen zan galbahia, batian goixan larrixagua, behian fiñagua ta behian fiñagua. Ta gero zekan min bat, miña, miña esaten jakon, atzian ta han danak garbixa urtetzen ebanian, garixak garbi-garbixa urtetzen eban aurrera. Ta harek zelan haize haundixa botatzen eban, zenbat azkarrago eraiñ, ba, gehixago haizia! Hori zikin danori jaurti eitten eban harek! Ta alia geratzen zan behera, ta alia haura da. Ta miña ibiltzen zan holan. Honi eraindakuan, danak mobitzen zian: atzeko galbahiak, miña ta danak. Miña holan ibiltzen zan. Ta granuak garbi-garbi-garbixa urtetzen eban, garixa.

- Hori, alia beherutz eta [arotza?]...

- Arotza ta zikiña... Arotza ariña izaten da, ba, ta bota eitten dau haiziak! Baiña alia izaten bada astunagua, ez dau botatzen.

- Ta arotza, zer da...

- Geiñeko... gari-alian telia.

- Azaltxua edo...

- Azala, bere azaltxua., garixan azala, geratzen jakona. Ta gero, ba, badakizu, joten igarra badago, lasto-puntia, bestia... dana jausten da han, ez dakizu? Dana botatzen dau haiziak! Ta granua bakarrik faten da behera!

7.17. Arrautzak gari-kutxan, ondo kontserbatzeko

- **Hizlaria(k):** Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-294/026
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:05:34. **Bukatu:** 01:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Garia
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Garia kutxetan gordetzen zen. Hozkailurik ez zegoenez, amak arrautzak gari artean sartzen zituen, fresko kontserbatzeko. Artoa ere kutxan gordetzen zen. Haien inguruan arratoi ugari ibiltzen zen baserrietan. Gari-klaseak.

Transkripzioa

- Gure amak... Gero, kutxan, danak amaitzen zianian, ba, kutxan sartu, garixak, kutxa bi edo hiru edo betetzen zian, ta han eukitzen zittuan gure amak arrautzak, [ez ze(g)uan orduan holakorik] ta arrautzak garitzan sartu ta konserbau eitten da! Garixa freskua da! Sartu eskua, bai? garitzan, ta fresko-freskua zu! Alperrik bero egongo da kanpuan, han barruan fresko-fresko egoten da. Ta hantxe eukitzen eban gure amak arrautzak! [...], badakizu, beruak galdu eitten dau arrautzia segiduan! Ta garitzan eukitzen zittuan gordeta! Artua be bai, ta ondo konserbatzen zan...!

- Kutxak zer izaten zian, batzuk espezialak artuandako ta beste batzuk

garixandako?

- Ez, gurian ez zeguan... Danak gordetzen zian gurian... Artuandako ta garixandako... danak be ez zian asko egoten ta! Gero handitxik, arratoiak ugari, [etxian]! Arratoia demoniua da gero e! Garixa [dagan...], artua, arratoia...? Sinistu be ezin leike eiñ! Jatekua dagon lekura artoia sartzen da...!

- Oseake, luzia zan garixan kontua...

- Buo! Zortzi hillabete!

- Eta garixak be bazeren klasiak?

- Bai, goiz-garixa bat eta berandukua be bai, bi klase eguazen! Bai, klasiak baeguazen bai.

- Goiz-garixa eta...

- Berandukua.

7.18. Garia tolesteko moduak: bostekoak, "mutxurixuak", metak

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/029
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 01:08:45. **Bukatu**: 01:10:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Gariaren inguruko lexikoa: alea, "mutxurixua". Garia ebaki ostean, bostekoetan jartzen zen eta gero "mutxurixuak" egin, burua goraka dutela. Garia lurraren kontra badago eta bustitzen bada, galdu egiten da. Meta.

Transkripzioa

- Garixana, alia esaten detsazue edo garaua edo...?

- Guk alia esaten dogu.

- Alia, gari-alia.

- Gari-alia esaten dou guk.

- Eta gero metak esan dozu...

- Oin eibartarrak esaten dabe gaizki eitten doula berba euskeraz, baiña... enfin! Ez dakit ba nik! Beste batzuk be...

- Ez dot uste...

- E?

- Ez dotela uste txarto eitten dozunik zuk. Eta mutxurixua entzunda dakazu?

- E?

- Mutxurixua. Batek esan zeskuan...

- A! Hori garixeri! Bai, garixa... Mutxurixua, bai, esaten da! Mutxurixuak diaz, garixa ebagi, ezta? Ta lotuta lagatzen dozu, bostekuak esaten jako, bostekuak eta bostekuak eta bostekuak eta laga. Dotore ipintzen diaz, basarrittarrak bere gustua eukitzen dau gauzak ipintzen! Ta gero, konparauta, igual, oin eurixa dator igual, ez dakizu? ta ez dake metia eitteko astirik, ez? Metia... denporia bihar da! Ez dake astirik ta eitten dittue mutxurixuak. Altxau, lurretik altxau, ta ipiñi alkarren hurrian, ba, lantzian ipiñi, ba, sei bat edo zortzi bat edo "ra!" tente. "Mutxurixuak ein bihar dittugu! Eurixa dator ta mutxurixuak ein bihar dittugu!" Ta "ra! ra!", tente-tente ipini. Orduan, eurixa eitten badau be, lurren kontra ez dago garixa. Lurren kontra garixa alperrik galdu eitten da! Lurren kontran

badago ta eurixa eitten badetsa, harek garixak asko galtzen dau, e? Ta, horregaittik, lurretik altzau. Mutxurixuak esaten jako horrerri. Ta gero mutxurixuak [egoten bada], gero, egualdi ona [eitteko], metau.

- Orduan, zan pixkat, egualdi txarra zetorrenian ta...
- Bai, bai. Mutxurixuak dia, ba, prisa dakenian.
- Eta burua, orduan, beti gorutz.
- Beti burua goixan, bestela, lurran kontra garixa alperrik galdu eitten da.

7.19. Txahalgintza

- **Hizlaria(k)**: Areta Lezeta, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-317/005
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:07:15. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Txahala jaiotzen denean lehenengo horitza ematen zaio. Txahala larri badago (arnasarik hartu ezinda-edo) ozpina botatzen zaio muturrera, esnatu dadin. Horitza oso garrantzitsua da; hartzen ez badu, txahala hil egiten da. Behia txahala egiterakoan hiltzen bada, beste behiren baten horitza eman behar zaio.

Transkripzioa

- Txahala jaiotzen danean, ze ein bihar jako? Zeoze ein bihar jako txahalari ala...

- (Vicente Areta): Txalari horitza emon, aman titixa lehelengo. Ha emoten ez bajako...

- Nerea Areta (alaba): Baiña lehenengo zikinkerixia kendu bihar jako ahotik...

- Bueno, bai, estu badago, ba... binagria edo bota ahora, espabillau deiñ.

- Metodo ona, ez?

- Ez, badago, ez dakizu, arnasia etorri bai-ez, ba, binagria edo gatza edo, ba, zertu eitten da, mobidu. Orduan, ba, lehelengo arnasia edo...

- Eta gero esan dozu horitza edo...

- Horitza emon bihar dok ! Horitzik barik txahalik ez dagok etaratzerik!

- Eta ze da hori?

- Amak daukan esnia! Ta ama akabatzen bada, beste batena! Bestela, txahalak ez jok balio!

- Ta esne-klase diferentia izaten da?

- Lehelengo beran esnia. Esnia barik... odol modoko... Ha eraten ez badau, txahala akabauta dau! Haxe eran bihar [jok] lehelengo, aunke sea Donostiatik ekarritta. Txahala jaixo ta ama akabauta badago, nunbaitten, auzuan edo han edo Elgoibarren edo, nunbaittetik. Nun dagan txahala, beste bat jaixota, jaixotakua bada, igual-igual da honena emon, zuria emon, neria emon...

- Horrek ze emoten detsa, indarra edo...

- Ez [dakit] nik! Horitzik barik txahalik ez dabela urtetzen esaten juek. Txahala jaixo ta emoten ez bajako, akabauta dago! Lehelengo-lehelengo... holan...egun baten edo... Etxekuak ez badauka, amak ez badauka, beste batena edo Elgoibartik edo auzotik edo...

- Tokau izan jatzu beste tokiren batetik ekartzia...?

- Bai! Baitta neuk emon be! Gurian jaixota igual, txahala, ezta, gaur? Ta

beste baten ama akabatzen bada, ba, “Koño! Badaukek?” eta “Bai!” Eruan litro bi edo... Iñarrara ez dakizu zelan eruan neban ointxe pare bat urte edo? Matian bizi da bera, ta hor, akabau-edo ein zan ama. Ta [...] gurien! Halaxen eruan zittuen bi litro edo. Ta gero, beterinariXuak, ba, behin jatordu bat edo eñ ezkeriok, gero, edozer. [Letxabia?] edo umiek emoteko moduan emon ta kitto.

- Eta zenbat denporan eukitzen dau behixak horitza?

- Batzuek gehixago, beste batzuk gutxiago, zelako... Batzueri ensegida garbitzen jakue erateko moduan, eta beste batzueri igual, hamar bat egun edo... Holan esnia garbitzeko, hamar bat egun edo... holan, erateko moduan.

- Ta ze esan dozu dala... pixkat, holan... koloria ta diferentia?

- Bai ba! Odol modokua!

- Nerea Areta: Holan rosa modokua...

- Vicente Areta: Nata modoko zer bat, gauza leun-leun...

- Nerea: Holan... rosa modokua izaten da.

- Vicente: Batzuek asko bizkorrago garbitzen dia, igual hiru egunera, ba, esne garbi-garbixa. Baiña honetxek pintionek be, zortzi egun-edo, ondio... txokolatia modoko sendua ta... Odola ta esnia nahaste modoko holako...

- Orduan txahalari horitza emon...

- Txahalari horitza emon bihar jako lehelengo jatordu bat edo bi.

- Nerea: Baiña lehengo behixari erun bihar jako txahala, mieztau deixan...

- Bueno, hori be ez da... Bai, jaixo ta, ba, ipiñi muturrian ta mieztau ta mieztau eitten jok.

- Ze eitten detsa?

- Ba, garbittu! Zikiñak kendu ta... Haxe!

- Orduan behixak garbitzen dau txahala...

- Bai! Ondora eruaten bajako bai! Bueno, danak ez, beste batzuk adarkadia igual, baiña... Bai, normalien, txahala ipiñi onduan ta mieztau ta mieztau ta mieztau eitten jok, ta garbittu ta garbittu.

7.20. Txahala errapera bota behar

- **Hizlaria(k):** Areta Lezeta, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-317/006
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Txahal jaioberria behiaren errapera eraman eta esnea hartzen erakutsi behar izaten zaio. Mendian dabilzanez ez, baina baserrian daudenei lagundu egiten zaie.

Transkripzioa

- Errapera bota bihar izaten da? Edo bera juaten da? edo...

- Bai, hori gero bai, baiña lehelenguan, lehelenguan norberak eruan bihar, ta kosta eitten dok! Bai, kanpuan jaixotzen dianak eta [...] dittuk eta, baiña momentuan ez, igual egun batera edo... Jaikitzen [...] gosiak “Ta! Ta! Ta!”

- Billa?

- Bai ba, billa. Baiña guk, ba, jeneralian, hartu ta erakutsi, ta norberak jatxi pixkat, ta ahora ipiñi ta hantxe! Edo, botillatik edo... Tonto samarra bada, jatxi ta gero botillatik sartu “dza! dza! dza!”.

- Egoten dia orduan tontuaguak eta...
- Bueno...! Egongo ez dittuk ba! Mendixan jaixotzen dianak han urtetzen juek! Noiz eraten daben? Igual egun batera, baiña...
- Laguntza barik?
- Laguntza barik! Laguntza barik! Bueno...! Hor Vitorixako mendixetan dagozenak... bueno...! Puf! Han ez jakixat nik zelan urtetzen daben, baiña ama juanda beragana, ta berak be noiz edo noiz gosia edo... gaur ez bada bixar... baiña...! Guk ez. Guk ordu bira edo... Berak ez badauka fundamenturik, ba, horixe, jatxi botilla batera, ta gero botillatxo bat [egin...] sartu pixkat eta gero gabian beste... barriro, ta gero goizian ta... holan.

7.21. Txahalgintza; lohia edo karena bota egin behar

- **Hizlaria(k)**: Areta Lezeta, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-317/008
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:14:45. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Behiak lohia bota behar izaten du, txahala egin eta 6 ordura. Botatzen ez badu infekzioa etortzen zaio. Eibarren "lohixa" esaten da; beste toki batzuetan "karena".

Transkripzioa

- Lehen aittatu dozu lohixa-edo bota bihar dabela. Zer da hori?
- Bai, karena. Karena edo lohixa edo... Ba, txahala egoten dan zera, txahala egoten dan kapa bat.
- Poltsia edo...
- Bai, boltsia. Hori normalian botatzen jok sei ordu baiño lehenago, sei ordura, txahala ein ta sei ordura. Ta eitten ez badau, ba, gero, oiñ etara eitten jotsek.
- Orduan hori bota ein bihar dau derrigor.
- Bai, bota ein bihar dau; bestela infeziñua dator.
- Ta karena ta lohixa bardiña da orduan?
- Bai, guk lohixa esaten detsagu ta beste batzuk karena ta beste batzuk beste... Karena.

7.22. Behien gaixotasunak: zuringa

- **Hizlaria(k)**: Areta Lezeta, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-317/009
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:18:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Behien gaixotasunak: "txuringia"; Ipurzulua kanporantz irtetzen zaio behiari.

Transkripzioa

- Galdera: Entzunda dakazu txuringia edo...
- Erantzuna: Urtetzen dabena? Hori ez dok baiña txahalgintziana, ostian gaixo bat dok hori. Gaixua edo... Ba zera, atzia edo txixa eitteko lekua batzuk zabalagua edo... ta gero, ba, hori bota: bolia, bolia bota.
- Nerea: A! Holako bola gorri bat...
- Bai ba, etzandakuan, ez dakik? Holan, goittik bera etzanda igual behixa ta urten, urten horrek boliorrek ta hori txarra dok hori! Gero ha bolia, igual, zikiñetan igual, ta infeziñua edo... Egon zan gurian, ha baltza-edo, beti botatzen ebana. Lotu eitten najuan nik! Holan ein zer bat, [forma] bat holan, goittik lotu soka batekin ta ha, haintxe ha, txixalekua daguan lekuan hantxe; ta ezin bota. Hemen hau trambia holan ta...
- Nerea: Eske, bolia izaten da holakua edo, ez? Holakotxe bat, gorri-gorri-gorrixa.
- Mamin bat, mamin bat izaten dok.
- Nerea: Eta hori baiño estuago ipiñi, ta ya ez dau urtetzen...
- Ta ezin dau urten. Bai, oin be laster eingo neuke nik hori! Oiñ aspaldi ez dogu euki hori kasuori, baiña lehen, kortak jeneralian izaten zittuan aldapan lehen, holan... aldapia, ta han behixa beti, ba, holan, behera begira. Ta gitxik, baiña behin ekin ezkeriok hori, edo indarka moduan edo... peligrasua dok hori. Zenbat eta behi zaharragua edo zabalaguak hazurrak edo, beti botatzeko tendentzia... Ta hori txarra, hori txarra dok.
- Orduan da hori... bolia...
- Guk bolia esaten gentsan .
- Orduan, bolia urtetzia edo... hori da txuringia?
- Txuringia, bai, horixe, horixe.
- Nerea: "Txuringia" ala "zuringia" esaten dozu?
- Bueno, igual da. Hori txarra da. Oiñ aspaldian ez jakagu, kortia be zelan daguan lau-laua... Aspaldixan ez juagu euki, baiña hau akordatzen dok... Lotuta ibiltzen zuan ha! Lotu sokiakin, errapetik hona, mokor-hazurretara ta gero mokorretik [samara] be bai, ta han ibiltzen zuan larrian behera! Ta soltatzen ebanian, atzera lotu! Baiña ez jua botatzen! Tapoia ipintzen jakuan han ta ezin! Ha etorri arren, barruan euki bihar! Ta kanpua badauka peligrasua dok. Igual, oilluak be igual hantxe pikuka, ta zikiña edo badago, ba, harek be hantxe, zikiñak pegauta. Oiñ ez jakagu hori problemiori.

7.23. Behien gaixotasunak: erroibea

- **Hizlaria(k):** Areta Lezeta, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-317/010
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Behien gaixotasunak: txixan odola irtetzea; "erroibia", errapea gogortzeari esaten zaio. Behiak errape bakarra du eta lau titi. Erroibeak normalian titi bakararra harrapatzen du, edo alde erdi bat (titi bi).

Transkripzioa

- Eta ze beste gaixotasun euki leikez behixak? Normalenak zeintzuk izaten

dira?

- Behixa... Txixan odola be bai, egon zuan gurian. Horixe be txarra! Txixan odola eitten juan ta, ba, txixan odola eiñ ezker be, peligrasua. Beti behera. Baiña oin badagozela medikamentuak pentsatzen juat, horrek kortatzekuak. [...] kortau.

- Eta errapietan eta...

- A! Mamitisa ta...

- Nerea: erroibia, ez?

- Erroibia ta mamitisa ta...

- Bardiñak dira horrek bixok?

- Bai, estilokuak horrek.

- Ta ze izaten da?

- Errapia gogortu ta esnia juan ta miñ errapian, ikuturik be eziñ ein ta...

- Nerea: Hori osatzeko ez zian eruten hortik holan... iketza edo...

- Berua. Iketzetan ipiñi gero harrixak, harri... hor, trenbidietan egoten dittuk ba, horrek harri bolok, horrek granuok, balastrua edo... Hara bota ta haren lurruna, berotasuna, berotasuna biguntzeko.

- Harek ipiñi errapian azpixon?

- Errapian azpixon ta gero hara botatakuan, brasatara botatakuan, harek, ba, lurruna botatzen juan, baha. Harek, ba, kalterik ez, bigundu beti.

Baiña oin sartu eitten jakozak titira bertara, barrura, "tak!", pomada batzuek, titixan zuluan "dzast!" sartu, holan "zat!" sakatuta, pomada bat.

- Hor... errua eta errapia eta titixa eta... danak dia bardiña edo... Zuek zelan esaten dozue?

- Errapia! Ta gero titixak edo errua.

- Errua da bat, errapia da dana eta...

- Baiña lau jakazak...e! Lau titi. Errapia bat, lau titi.

- Edo lau erro...

- Edo erro, baiña titixa ta errua bardiña dira.

- Zuek ze esaten dozue gehixago?

- Guk titixa! Baiña hor behe-aldian errua. Guk titixa beti! "Titi bat galdu jako" ta "titi bat ez dauka ondo" ta...

- NEREA: Eta errua nun esaten dabe ba?

- Errua hor behe-aldian ta... Hizketan ondo eitten [daben lekuan], errua. Ze hemendittik Elgoibarrera diferente eitten juagu berba ta, Asteasura ta juan hari, ta entendidu be ez dok eitten! Bueno...! Asteasu aldian ta juaten haiz ta han ez dok entendidu be eitten hemengo hizketia! Ta horra Lejona aldera juanda, berriz, guk baiño txartuago mordua! Hor, Bizkeixan? Bueno...! Bizkeixan ta Ondarru aldian ta... horrek. Desastre hor! Guk ondo ez, baiña hor txartuago milla bidar! Guk beti titixa. "Titixa galdu (j)ako!" Erroibia ta, ba, batzutan galdu eitten dok e! Erroibia gogortzen badok igual, kitto! Gero hiru titi bakarrik... Laugarrenian gehixago esnerik...

- A! Izan leike bat bakarrik erroibiakin...

- Bai, bai! Osorik ez jok harrapatzen! Titi bat, hurrengo, bixak edo... alda-erdixa. Errapia erdittik partitzen dok, "derecha-izquierda". Alda-erdi bata...

- Nerea: holan, bi eta bi...

- Eta alda-erdixak esaten detsazue bakoitzari?

- Bai. Baiña titixa galdu, igual, bat bakarrik eta bestiak igual normal beste hamar urtian be igual. Errobiak gogor hartzen badau, peligrasua da haura!

- Galdu ein leike?

- Galdu! Galdu! Galdu! Medikamentu bat emon, baiña zana kortau edo sikatu edo ez dakit ze eitten jakon...

Igual hurrengo txahala eitten

dabenian, igual, esnerik ez ta akabo! Igual emon ez! Ta hurrengo, gogor hartzen ez badau, ba, aurten emon ez dana, ba, hurrengo txahala eitten

dabenian, atzera lehengo moduan igual. Ez dakit nik zelan izaten dan hori...

7.24. Behia ume eske

- **Hizlaria(k)**: Areta Lezeta, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-317/022
- **Iraupena**: 0:05:30. **Hasi**: 00:47:15. **Bukatu**: 00:52:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Behia ume eske dagoenean, igarri egiten zaio. Normalean, urtean txahal bat egiten dute. Larre-behiak direnean, izkua inguruan eduki ezker "bera enkargatzen dok". Etxeko behietan, al baitariari deitu edo izkua etxean izan ezker, orduan txabolara eramaten dira izkua eta behia eta bertan lagatzen dira. Baserrian ez badago, auzoan dagoen izkoren bategana eramaten da. "Hi! botakotzak izkua?"

Transkripzioa

- Lehen txahala zelan jaixotzen dan komentau dogu. Gero, zelan jakitzen da noiz dagan berriz ume eske edo...?

- Eurak esaten juek! Marrusia edo... Marrusaz edo beste bati saltoka edo...
- Eta hori txahala ein ta zenbat denporara izaten da?
- Bueno, hori... pare bat hillabete edo... Urtian txahal bat korriente ein bihar jok behixak, urtian bat. Batzuetan zeoze aurreratxuago baiña... ba!
- Eta beti sasoi bardiñian izaten da edo ez daka...
- Horrek ez jaukak...
- Bardiñ izan leike neguan edo udan edo...
- Bai, bai, bai, bai. Txahala noiz eitten daben ta behixa zelan... gogor badago bizkortxuago igual edo... Batzuek bizkorrago, beste batzuek motelago...
- Eta orduan, zelan esaten dozue, ume eske dagola esaten dozue?
- Bai, edo izkuan eske edo... Isko eske edo ume eske. Beste batzuk... Isko eske edo ume eske, ta hor behe-aldian eta susa. Susa esaten juek hor.
- Nerea: Baiña hemen ez da esaten...
- Ez ba! Baiña hor behe-aldian behixa susa... Bai, susa uste dot dala...
- Eta orduan, ume eske dagonian ze eitten da?
- Ba, indeziñua ipiñi edo bestela [...] iskua dakagu, ta bera enkargatzen [da].
- Baiña zuek ez dozue eitten ezer. Bera enkargatzen da ala...
- Bai, bai, bai. Zelaixan dabizenian ezta kasorik be! Iskua han dago ta...
- Nerea: Baiña hori oiñ [...] gorrixak, porke lehen ez...
- Lehen, ba, beterinarixuari deittu bihar. Edo lehen-lehen iskua egoten zuan hemen. Iskua etxian! "Behixa iskuan eske dago ba" ta hartu behixa ta iskua txabolara edo ta [bere] lekura eruan, ta iskotu ta...
- Ta iskotu... Osea, iskua botatzen jako?
- Bai, lehen-lehen bai. Gero beterinarixuak ipintzen eutsen . Lehen-lehen iskua! Ez zeguan inseminaziñorik eta, lehen-lehen iskua!
- Nerea: Gaiñera, Erdikokuak eta Arikittakuak eta be hona etortzen zian!
- Koño! Iskua nun dagan...! Hik iskua... tokatzen bada hemen igual isko majua igual, ba, bueno...! Arikittatik be igual geurera. Hurrengo norberak iskorik ez ta "Hi!" Arikittan edo Barrundixan edo beste... "Banajatok!" ta

“Bai, ekarri!” Iskua nun tokatzen zan... Auzuetan, etxian ez baeguan ba...
 - Ta gaiñera isko ona topauko da, ez?
 - Bai, ba! Iskua, ba, koño! Itxurazkua, eskasa barik...
 - Eta ze eitten zan, iskua eruaten zan behixagana ala...
 - Ez, ez, ez. Behixa, behixa.
 - Beti behixa mobitzen da?
 - Beti behixa.
 - Eta iskua ze eukitzen zan, aparte?
 - Iskua... Lehenago bai, oiñ urte asko, hemen baille guztian bat egoten zuan, Erdikuan. Ta haraxe eruan. Baiña ni gaztia [niñala] . Hori urte asko, e? Baiña ni umia nitzanian, paradako iskua, bat.
 - Paradakua?
 - Paradako iskua, bai. Paradakua... Behixak iskotzeko, paradako iskua. Erdikuan akordatzen jata neri, baiña ni umia nitzala, e!
 - Eta iskua ekanak...
 - Bai, zeoze kobrau be eitten eban. Baiña baille guztirako, e!
 - Eta hori holan izaten zan baillara guztietan ala hamen kasualidadez...
 - Danian izango zuan hori igual. Baiña guk geure akorduan beti, ba, koño! “Mendigoittixan dago izkua! Gurian dago izkua!” Ba, Lezetakua ta... “Hi! Behixa [...] iskua!” “Ekarri!” Baiña hurrengo, ba, Barrundixan dagola isko on bat edo Erdikuan igual, han goixan edo... “[Iskua edarra dakagu ba!]” Ta haraxe eruan. Isko... [...] Ba, isko dezentia-edo daguan lekuan. Guk beti holaxen!
 - Eta lehen esan dozu Erdikuan edo zeguanian paradako iskua, kobrau eitten zala, baiña bestela, normalian, ez...
 - Ez! Guk alkarri ez! Ba, bueno... Kobrau, nik sekula ez juat kobrau! Horrengo igual atsalde bat biharrera etorri edo... hori bai. Edo norbera jua edo... baiña ez. Batak ez daukanian, ba, bestiagana jua. Beti ez dok iskua egoten toki bardiñian ta holan. Itxurazkua bez igual, ta hobia daguan lekura jua!
 - Eta iskua, orduan, normalian ez da eukitzen basarrixan?
 - Ez, ez! Oin gaiñera gitxiago, inseminaziña daguan ezkerro, oiñ iskorik bota bez!
 - Nerea: oin kanporako...
 - Iskua botatzen jako, ba, kanpua dagozelako ta harek ezin leikezelako ekarri ta... diabruak dialako. Horrek ez dia honen modokuak eta kitto. Ta ixa gehixenak dake iskua oiñ! Bost edo sei behi, ta iskua eurekin, ta kitto. “Allá cuidaos!”
 - Eurak konpontzen dira orduan?
 - Bai, bai.
 - Nerea: Arikittan be badago, ta etxian be bai...
 - Erdikok be ekarri dau... Baiña lehen, ba, etxian eguazentian, lehen, ba, danok etxian eukitzen genduzen, kortan behixak danak... Ba, orduan, ba... Horixe eitten genduan. Etxian isko ona baeguan, ba, haxe bota; ta beste leku baten badago hobia, “Hi! Botako detsak iskua?” ta “Bai, bai!” Ta hara eruan.

7.25. Nola jakin behia beteta dagoela?

- **Hizlaria(k):** Areta Lezeta, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-317/025
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:56:00. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Denbora batean ezin da jakin behia beteta dagoen ala ez. Hiru bat hila bete behar izaten dira ziur jakiteko. Geratzen ez bada, hiru astera berriz izko eske hasten da behia. 9 hilabete behar izaten ditu txahala egiteko. Txahala egin aurretik, behia antzutu egiten da, esne gabe gelditzen da. Txahala egiten duenean berriz etortzen zaio esnea: lehenengo horitza eta gero esnea. Txahalak, ahal duen bitartean esnea nahi izaten du, baina poliki-poliki bedarra eta pentsua jaten irakatsi behar zaio.

Transkripzioa

- Galdera: Eta zelan jakitzen da behia beteta dagan edo ez?

- A! Hori, hori igual pixkatian ez. Hori, hiru bat hila bete biharko jok igertzeko beterinarixuak eta be. Hiru bat hila bete.

- Nerea: Bueno, ba, da bueltatzen dan edo ez jakitzia...

- Hiru astera atzera bueltatzen dok bestela! Hiru astera! Behia geratuta ez bajaok, hiru astera, atzera iskuan eske. Geratzen ez bada... Orduan, hiru astera bueltatzen ez bada, ba, geratutakua. Baiña igual faillo egoten dok sarrittan! Ta gero, ba, eitten jako, ba, bueno, beterinarixo [bateri] erakutsi edo... Behin sei hila betera ezkeror norberak be bai, "tak!" tripan sakatu pixkat eskuakin holan ta "tak! tak!" ostikadia edo mobimentua edo... Edo esnia bajatu dala edo! Esnia behera bajatzen bada, ya seiña barrukua...

- Ta segiduan igartzen dozu mobimentua daguala barruan?

- Sei bat hila betekin bai! Ez, hara arte ez. Beterinarixuak, eskua sartzen detsa beterinarixuak eta... Eskua sartu ta... hiru bat hila betekiñ edo. Baiña, jeneralian holakorik ez dok eitten, ba, ze... azalduko dok!

- Ez dau prixarik...

- Ez, jeneralian ez da...

- Zenbat hila bete bihar izaten dittu umia jaixotzeko?

- Be(d)ratzi.

- Nerea: baiña lehenago antzutu eitten da...

- Bai ba! Txahala ein baiña lehenago antzutu eitten dok behia!

- Zer da antzutu?

- Esnia gastau! Esnia behera, behera, behera ta atzenian ya bapezera! Normalian! Txahala aurrera badoia, esnia bajatu ein bihar dok. Normala! Ta azkenian, ba, antzutu. Hiru bat hila betera antzututa komeni jakok behixari! Sei hila bete... jaitxi ta hiru hila bete txahala ein baiña lehenago antzututa hobe! Bestela...

- Nerea: Geruago ta gitxiago jaitxi, gabian bakarrik edo goixian bakarrik, ta holan gitxittu eitten jako ta... Ez?

- Vicente: Bai, egun bittik behin, ta gero hirutik behin-edo, ta gero laga ta kitto.

- Orduan, lagundu eitten detsazue antzutu deiñ?

- Bai, sarrittan bai. Nahiz ta askotan eurok antzutzen dittuk bihar baiña bizkorrago igual, uste baiña bizkorrago igual ta akabo.

- Osake, "antzutu" da esne barik geldittu.

- Esne barik geratu, bai.

- Eta gero noiz etortzen jako berriz?

- Ba txahala eindakuan!

- Bertan egunian...

- Bertan egunian hori horitzori-edo hasten dok; eta kontinuo emon bihar jok, gitxi edo asko. Batzuk gitxi eta beste batzuk asko ta beste batzuk gehixago; baiña txahala eiñ arte hari ezin leixok esnerik kendu.

- Eta beteta dagan behia antzutzen baldin bada, eta aurretik beste

txahal bat baldin badaka, jarraitzen dau esniakin edo kendu eitten detsazue txahala edo... Zelan izaten da?

- Zelan? Kanpuan dabillenari edo...

- Ba, ez dakit ba: txahal bat oiñ jaixo ta txahalari esnia emoten badago ta berriz betetzen bada...

- Bai, baiña antzutzen dok baiña! Antzutu eitten dok eta laga ein bihar harek be eratiari! Onduan badabil be...

- Dana dala, zenbat denporan hartzen dau txahalak esnia?

- Ez dakit ba. Kanpuan dabillena zenbat, noiz... sei bat hillebetera...

- Nerea: Batzuk holakotxe behiak egoten dia errapetik esnia eraten...

- Bai, kanpuan dabillena ba...

- Nerea: Kortan diferentia da. Kortan dagozenak, norberak nahi dabenian...

- Bai, kanpuan dabillena zelako behixa dan... Nekez antzutzen bada, ba, hantxe igual! Sei hillebetekin be eraten "Txu, txu, txu, txu!", kurioso-kurioso. Litro bi igual, edo tantan bi igual, baiña...! Ta hantxe.

- Baiña bedarra be jango dabe...

- Bai! Jango ez dabe ba bedarra...!

- Noiz hasten dira bedarra jaten?

- Bedarra jaten hillebete orduko horrek, kanpuan dabizenok. Puntatxua eta...

- Eta kortakuak?

- Kortakuak be... Hillebete orduko bedarrondo pixkat edo jaten... Zahixa-edo bota, ta hantxe...

7.26. Idiak eta gurdiak

- **Hizlaria(k)**: Areta Lezeta, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-317/027
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 01:03:30. **Bukatu**: 01:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Lehen garoa, bedarra, simaurra, zuhaitzak, e.a. gurdiekin garraiatzen ziren. Dena gurdiarekin eta idi-parearekin egiten zen. Idiak egun guztian lanean. Gurdi klase bakoitza, lan baterako erabiltzen zen.

Transkripzioa

- Eta lehen aittatu dozu, lehen askoz lan gehixago eitten zebela idixak eta...

- Bueno...! Bueno, lehen labrau eitten zian honek danok!

- Ze bihar eitten zeben? Zetako erabiltzen ziran idixak?

- Mekauen, idixak ba... Bedarra ta garua ta simorra ta... honek danak labrau eta... Ta mendittik be, oin kamioiak eta, baiña lehen idixekin bajatzen zittuen tronguak eta zerrara ta... Paguak eta danak! Tratora ta azaldu arte.

- Ta dana burdixakin?

- Ta burdixakin, horixe! Ta hartu Arraten... Arraten hartu elizaurrian igual, ta Maltzara trongua! Egunion biaje bi: goixian bat ta atsaldian bestia. Neu be ibilita nago mutil gaztia! Arratetik Saturixora, Elgoibarko Saturixora! Idixekin! Goixian biaje bat, eguardixan bazkaldu, idixak eta geuk, ta atsaldian beste biaje bat, ta illuntzian etxera. Horrengo goixian iguala, "idéntico". Ta hurrengo goixian beste bat.

- Arbolak-eta mobitzeko, baiña, ze erabiltzen zan, burdixa be bai, edo...
 - Burdi-motza.
 - Zelakua zan gitxi gorabehera?
 - Hor dago ganbaran gurian. Ikusiko dogu nahi badok.
 - Bestela, burdixak klasiak zeren?
 - Bai, burtetxia ta burkajia ta karakatxia ta...
 - Ze ziran bakotxa? Ze dake diferentia?
 - Burtetxia [dok] bedarretarako, holan errailekin ta ezpatak, kargatzeko edo... bedarra kargatzeko.
 - Nerea: Burdi normalena...
 - Gero, simorketarako, kajia. Oñ ez dagok gurian... simorretan ta eitteko, kajia. Burdixa iguala baiña kaja...
 - Hormekin...
 - Bai, hormekin, lurretarako kamioi baten moduan. Hori simorretarako. Gero karakatxia, beste bat txikixagua. Ha aria ta harrixa ta ibiltzeko, gauza astunaguak, zementua ta... Karakatxia.
 - Ta hori zelakua zan?
 - Iguala, baiña erdixa. Hori, burkajian erdixa. Txikixagua. Ez dakik? Ba, aria-ta simorra baiño astunaguak dittuk, eta karga haundixak erabiltzeko, gauza astuna erabiltzeko, harrixa edo aria edo lurra erabiltzeko, hori txikixori.
 - Lurrandako be bai karakatxia...
 - Bai, txikixa, txikixa. Ta gero, burdi-motza gero. Burdi-motza, ba, tronguak erabiltzeko.
 - Eta burkoltza edo burkoltzia edo...
 - Burkoltzia dok, horixe burkajia. Guk...
 - Burkajia da burkoltzia?
 - Bai. Burkoltzia, bai. Batzuk burkoltzia. Horixe kajiori dok... Bai, ba, kajia, simorra-ta kargatzeko kajia. Horretzek, lau burdixok horretzek guk erabilli dittugunok.
 - Eta burtetxia esaten detsazue burdixari?
 - Bai, burtetxia horixe dok...
 - Ez da burdixan parte bat...
 - Bai, burdixa. Horixe... bedarra ta ekartzeko. Ezpatak gora, ta kargatzen dana holan...

7.27. Plaza zaharra

- **Hizlaria(k)**: Osa Unamuno, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-025/010
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:17:45. **Bukatu**: 00:20:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Atristain, Ane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Plaza zaharra. Behean arrandegia zegoen, goian harategiak, berdura... Harategian behi eta txerri okela. Eibarren denetik zegoen. Oiloak bizirik saltzen ziren. Berak ere lumatzen zituen. Ez zen oilaskoa egunero jaten. Arrandegian, legatza, antxoak, sardinak; bera ere laguntzen egoten zen. Erreal bat platerak.

Transkripzioa

- Eta plazia, esan dozu, plazia, orduan, ondo ezautuko zenduan plaza zaharra.
- Ondo, ondo.
- Han ze saltzen zan han plazan?
- Danetik. Beheian arrandeixa ta eskillarak igota, ba, karnazerixak eta berduria ta dan-dan-danak. Plaza edarra zan ha.
- Eta karnazerixia ta, ze izaten zan orduan okelia...?
- Ona
- ...txarrixa edo bildotsa edo...?
- Ez, ez, ez. Terneria eta txarri... zera be bai okelia, baiña danetik egoten zan Eibarren e, Eibar aberatsa izan da. Edo behintzat saltzen zana.
- Eta, orduan, animalixak-eta, bueno, ba, ez dakit, oilluak eta...
- Oilluak-eta basarrixan egoten zian, eta arrautzak-eta plazara.
- Bizirik salduko ziran askotan ez?
- E?
- Bizirik salduko ziralta oilluak eta.
- Bai, bai, bizirik, bizirik. Ta gero etxera... Neri inpresiño bat emoten estan... Gure amak oratu zereri, oillaskua, hankak eta zera hartuta, eta nik samiarri oratu ta dzi-dza-dzi-dza kutxilluakin. Ai! Inpresiño bat eitten estan! Baiña ein ein bihar. Orduan gurasuak esaten ebena ein ein bihar zan.
- Bai, bai. Eta, gaiñera, oillaskua ez zan egunero jango.
- Ez, porzierto, "artículo de lujo" zan orduan oillaskua.
- Eta bizirik erosten zan.
- Bizirik erosten zan, ta gero etxian hil.
- Eta lumatu.
- Eta gero lumak kendu ta lapikora edo erre edo... Orduan "artículo de lujo" zan, e, oillua! Gaur, e...
- Eta arrandeixan ze saltzen zan orduan?
- Ba legatza, antxoak, sardiñak... Ene... Gurian goixan ekagun arraindun bat, ezta? Ta gu txikixak, gaztiak, eta beti esaten zeskuan: "Bueno! Saltzen badozue, gero zeoze emongo dotsuet". Bazkaittara juaten zan bera, ordubatian, por ejemplo, eta gu ordu bixak arte edo ordubetian saldu eitten genduzen antxoak. Eta gure ilusiñua...! Gero dirua gordetzen gentsan hantxe andriari ta... Errial baten flaterkaria. Errialian e, orduan! Erriala asko zan orduan!
- Eta, orduan, ez zan pixatzen? Flaterkadia?
- Flaterkadia. Pixauta be bai, baiña holan etortzen zianian eskera ta salgei, ba, saltzia komeni! Etxian gelditzen bajatzu, ba, estropeau. Eta ene! Hartu flatera ta... erriala. Ta erriala orduan asko zan!

7.28. Aitak alpargatak egin eta izebak josi

- **Hizlaria(k):** Agirre Berezibar, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-033/004
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:08:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lanbideak » Negoziok, dendak

- **Laburpena:** Alpargata denda deskribatzen du. Aitak egin eta izebak josten zituen alpargatak; nola egiten zituzten azaltzen du. Kanean jende gehienak soinean alpargatak eraman ohi zituen.

Transkripzioa

-Ta gero alpargaterixiana laga ein eben; klaro, ez euan gero astirik harek eitteko, danerako.

-Eta bestela alpargeterixia ze zekan, bertan pelukerixan edo albuan?

-Ez. Albuan, albuan, pelukerixia ba harutzao, ezta, ta gero mostradorra ta badake ba oin Saioanekuak, han partian ekan banko haundi bat, holakotxe moduko banko bat, hantxe jartzen zan eta "con el yute" ba zerak ein, abarketak ein. Tiak josi eitten etsan, bai.

-Eta badakizu zelan egiten zien abarketak eta?

-Nik ez, ezta, baiña nere amak eta bai. Tamaiñuak, ezta. [...]. Baiña lelengo eitteko yutia ta ekarri eitten etsen espartzua, ez dakizu. Trenzak modukua. Eta ipintzen ei eben hamen tamaiñuan numerua, [ultz] batzuekin sartzeko, ta hantxe hasi, hamen hasi eta buelta, bueltaka, bueltaka; bueltaka, bueltaka zera, la suela, suelia. Ta gero bestiak zer haundi batekin pasau halan zi-za eta ha gelditzen zan ba "la suela". Ta gero trapuak zertu, kolokau, josi ganoraz, honek esan daben moruan, gero abarketak, gero zinttak be sartu ta. Erreza, errezak zien eitteko.

-Julita: Danak ebaitta, atzekua ta aurrekua ta danak ebaitta ia, eta gero batek bazekixen [...].

-Zuen amak ze eittten eban, bakarrik josi?

-Julita: Josi eitten eban. Azkoittittik bialtzen etsen.

-Bialtzen eben hankia, hankia, "la suela, número seis, número siete, número ocho, y los trapos también allí". Zera. "Las telas rojas, verdes y azules".

-Ze kolore izaten ziran telak?

-Zurixa ta baltza, ta gorrixa be bai asko. Gehixena horixe, zurixa, baltza ta gorrixa. Porke danak erueten eben abarketak. Nausixak...

7.29. Alpargatak nola garbitu

- **Hizlaria(k):** Arregi Etxeberria, Julita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-033/005
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:08:52. **Bukatu:** 00:09:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena:** Alpargatak nola garbitzen ziren azaltzen du Julitak.

Transkripzioa

-Julita: Badakizu zelan garbitzen zian? Ba lelengo garbittu, ezta, jaboiaikin, ta gero pastilla batzuek euazen, eta haretxekin emon. Ta ederto garbitzen zian, zuri-zuri-zuri.

-Hagiñak garbitzeko zerakin be, zepilluakin, zaharrak, eta haretxekin. Ta gero untau, pinttau moduan, pinttau moduan. Euzkittan ipiñi sikatzeko.

7.30. Asoliartzako baserria eta ume kontuak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/001
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Migel Gallastegi Ariznabarreta Ordorika, 1918ko otsailaren 25ean jaio zen Asoliartza baserrian.

Transkripzioa

-Hasteko, izena eta bi apelliduak esango destazu?
-Migel Gallastegi Ariznabarreta. Ordorika, baiña bi esan destazu zuk.
-Hika eidazu zuk, e, lasai-lasai.
-Bai-bai.
-Noiz jaixo ziñan?
-Veinticinco de febrero mil novecientas dieciocho.
-Ointxe larogeta hamar einda.
-Jaixo nun jaixo ziñan?
-Basarrixan, Asoliartzan. Ta esnia amak emon, akordatzen jata gure aitta ta ama ta soluan biharrian, basarritik onduan, ta nik urtebete, urte bi, ta negarrez, negarrez, ta amak "etorri!, etorri, etorri hona!", ta jarri zerian, zelaixan zerian, ta altzuan hartu eta titixa eraten. Akordatzen naiz baiña ondo, e. Igual urte bi, urte bi'tterdi eukiko nittuan. Baiña eta gero beti esaten esten: amak titixa, emoten heuan titi sanua eta gero horregaittik indar asko ein jak. Eta bueno, holaxen zan orduan.

7.31. "Giputxaneko" frontoian lan egin eta entrenatu

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/003
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Eibarko "Giputxaneko" frontoira joaten zen pilotan jokatzera. Pilotalekua, zinea eta jatetxe berria egin ziren. Zinean lan egin eta trukean entrenatu egiten zuten berak eta bere lagunek.

Transkripzioa

-Kalera joaten nintzan Kiputzanera, Kiputzanian euan orduan frontoi bat, Isasixan beherao, eta han eitteeskuan frontoia..., ein eban frontoi barrixa eta restaurant barrixa ein zittuan, da gero, pelotiari bakarrik, ei'eban, orduan zinerik eta ez euan, leku gitxittan euan, da ipiñi eban, pisu bi eukazen frontoiak, behian da goixan eta hor euan pisua, da zerera frontisera pelikulia botatzera. Da ipiñi zittuan holakotxe sillak, ipiñi zittuan,

da sillak ipintzen zian eta pelikulia akabatzen zanian -seitterdian, zazpiretan izeten zan pelikulia-, da gero ba sillak erretirau ein bihar [zenduzen] pelotan jokatzeko, eta guk beste lagun batekin, beste lagun bikin sillak erretiratzen genduzen eta frontoia garbitzen genduan eta pelotan jokatzeko genduan; igual gabeko hamaikak artian edo. Akabau artian.

-Laga eitten zetsuen?

-Bai. Gero aittai nun ete dao, nun ete dao? Baiña gero etxeruzkuan bedarra preparautakua ganauendako eruan da. Baiña aittak eta amak eta galdarakaria talua ta esnia, fresko-freskua, ta jan talua ta esnia ta, aittak eta ezebe ez baeben esaten ohera (ohera) ixil-ixilik eta lo egin. Akabo. Holaxe zan.

-Baina bestela...

-Bestela bai. Iñoiz esaten oskuan: "-Nora joan haiz?", hara ta bestia ta. Pelotan jokatzera. Baiña ia ekin zanian nere izena, mutil gaztia ta, Deportibuak Eibarren gaztiak eruaten zittuen, eta ekin etsanian orduan fazilidade gehixao emoten estan aittak eta amak joateko.

7.32. Baserriak lursail zabalak zituen

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-068/005
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:06:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Eibarko Asoliarria baserriko lursailen inguruko ezaugarriak ematen ditu: 30 hektarea inguru, ereindakoak... Garia nola mozten zuten kontatzen du.

Transkripzioa

-Zuen basarriak terreno asko zekan?

-Bai, eukiko zittuan gure basarriak, zenbat hetarea eukiko zittuan; hogeta hamar bat hetarea. Bai basarri bastante ona zan.

-Orduan ze izaten zan, dana labrauta?

-Bai, bai. Dana soluan atxurrakin ta, garixa be eskuakin ebai bihar ta dana. Erregalua be bajakat nik gari ebaten eindakua, gari ebaten eindakua hamen.

-Igeteixakin?

-Igeteixakin, hori da. Igeteixakin. Aldaparia, eta jaurt, garixa ebateko tiratu holan, da huts eiñ ta hankia hamen ebai. Ta euan orduan don Cándido Muñoz botikia eukana, ta fan nintzan eta ipiñi estan espaatrapua, hamendik erre eta hamendik gora ez zabaltzeko. Bueno ba, hau osatu zan, gero behian etxian azpitan, bastante hurrian, biribilla euan, errekoa, Balenziaganeko taillarran ondolik errekoa zan hori; bero eitten eban da fan errekoa eta igari eiñ errekan eta osatu. Hamen dao. Akabo. Horretxekin osatu, horretxekin osatu zan.

-Eta hola garittan-ta askotan izaten zian holako akzidentiak?

-Ez. Ez zian asko izaten. Neu [mutikua], aldaparia zan ta laban ein neban eta tiratu ein netsan igeteixari.

7.33. Segan eta aizkoran baserrian

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/016
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Baserriko lanak nolakoak ziren aipatzen du. Segan eta aizkoran egitea gustatzen zitzaion eta entrenamenduarekin lotzen zituen baserriko lanak.

Transkripzioa

-Eta bestela basarrixan eta biharrak zeintzuk izaten zian?

-Honbre, neri gehixen gustatzen [jatana] zan basarrixan segan, segia, ebatia. Ta gero aixkoria be asko gustau jata. Eta pelotari onenian neuanian be nik egunian eitten nittuan ordulaun bat hogeitatu minutu aixkoran, eskuak gogortzeko; baiña oso ona zan. Eta neukazen lagunak panaderuak, Justo Larrañaga ta, aittan lagunak, Jesus Ugalde ta; ta harek panaderixia euken eta ekartzen eben egurra Azkoittitik, eta ni [...] nintzan laguna eta ipintzen zan trongua ta ra! Eta han izardixa etara ta kotxia hartu ta Astelenara. Astelenan entrenamentua edo. Igual kilo bi kendu entrenamentuan sarrittan.

-Baiña lehenengo aizkoran?

-Lenengotik aixkoran eskua gogortzeko eta besuetara indarra ekartzeko. Oso ona zan. Nik sarri esaten detset pelotarixeri baiña oin errezaio bizi dia, gu orduan tontuak izan giñan-da.

-Segaik eta holakoik ez.

-Keba! Oin ez dao holakorik ezelarokik, eta klaro.

7.34. Ama astoarekin plazara

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/017
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:18:35. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Esnea eta ortuko jakiak saltzera jaisten ziren Eibarko erdigunera, Dos de Mayo kalera (gaur Toribio Etxebarria). Astoarekin jasiten zen herrira ama. Beste batzuk, Esteban Agirre, esaterako, zaldian etortzen ziren.

Transkripzioa

-Bestela baserriko esnia saltzera ta joaten ziñazien?

-Esnia saltzera gure ama joaten zan astuakin. Eta eruaten jua esnia ta

porruak da azak da... Dos de Mayua zan puntua ta zerian, Alfa onduan hori kale guztia; eta orduan urtetzera noian pelotari; bueno, hamalau-hamabost urtekin zerian; lehen esan doten moruan, izena eta. Bidarte, aitta, ein zian lagunak, andriak gure amari erosten etsan azak eta porruak eta, falta zan guztia. Eta esaten etsan: igual semia pelotari urtengo dok semiak, igual pelotari urtengo jok semiak. [...]. Igual pelotari, tta. Dana emoten otsan hari, porruak eta tomatia, basarrixan hartzen genduan dana. Arrautzia ta esnia ta dana, danetik. Ze falta eitten eban gauza guztia.

-Eta nun saltzen zeban zure amak?

-Astuan, bertan astuan. Astuak ikasi eitten eben atian nun geldittu biha zan be. Gelditzen zan astua, ta ez bazan astua ona hankia lotu astuai ez ibiltzeko; geldirik egon bihar astua. Hori igual zan panaderuak karruan ekartzen ebenian ogixa Ermutik eta, danak kaballuak jakitzen eben nun geldittu biha zan ogixa emuteko.

-Baekixen, e?

-Bai, bai. Morduak. Esteban Agirre eta horrek danok kaballuan etortzen zian orduan, da harek baekixen nun geldittu be.

7.35. Lehenengo auto eta telefonoak bailaran

- **Hizlaria(k):** Azurmendi Agirre, Emilio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-079/018
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Lapeyra, Eneko
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Arrateko bidetik gora igotzen zuten belarra edo karga handiko produktuak eta gero gurdiekin andabideetatik behera. Lehenengo autoak Orbe eta Biriñao baserrietako jabeek ekarri zituztela uste du. Eta lehenengo telefonoak: Orbek eta Sagarbitzak. Pistak egin baino lehenago bazuten telefonoa. Telefonoa ipintzeko zer egin zuen kontatzen du. Herritik baserrira 9 minutuan egiten zuen bidea.

Transkripzioa

- Eta jendia orduan andabidietatik...

- Bai, bai, bai, bai, burdixak eta danak.

- Eta kotxerik?

- Kotxerik bape ez zeuan orduan. Orduan ez zeuan kotxerik. Ta, holan, lastua edo generua ganuentzako ekarri bihar bazan, pentsua ta hori zerori, Arrate kamiñotik altzau gora, hara, ta gero burdixakin behera ganauekin bajatzen genduan. Hor zihar igotzen eben kanbioiak —orduan kanbioi modukuak—, ta bozinoa jo, ta bozinoa [joten zian], ta jakiñian egoten giñan ta, ba, ganauakin urten ta... Holaxe izeten zan.

- Lehenengo Land Rover-a zeñiek ekarri zeban?

- Lehenengo Land Rover-a, lehenengo-lehenengua —igual azartauko neuke — Orbe ta Biriñao izango zian Eibarren.

- Klaro, horrek behekdian, ez? [...]

- Bai. Horrek izango zian lehenengo Land Rover-ak. Ta lehenengo telefonua, lehenenguetaikua, Orbe izango zan, ta bigarrena neu seguramente.

- Eta hona igotzeko telefonuan postia ta?

- Goitik bueltan.
 - Zuek, baiña?
 - Bai, ganauekin bajau. Ta hori, hori [bai behintzat] ta, zera, telefonua [...] nik dakittena, ba, guria bigarrena izango zan. Ta segadora, bedarra ebatekua, Eibarren hirugarrena izango nitzan ni.
 - Telefonua ze urtetan gitxi gorabehera?
 - Ez jata /etxata/ akordatzen. Bueno...! Askok, asko.
 - Pistia ein baiño lehenau?
 - Bai, bai, bai, asko lehenau, asko lehenau. Nik eskopetan eitten neban biharra ta gero, e... Klaro, taillarian beheian eitten neban ta gero nere kontura ipini neban —hementxe, gaiñera, ipini neban taillarra ta—, nere kontura ipini neban, bihar zala, eta halaxen. Gaiñera, telefonua kostau jakun asko orduan. Askok, e! disparatia. Ta, gaiñera, kontratua firmatzeko ordenia etorri zanian, bi edo hiru orduko ordenia emon eskun firmatzeko, bestela anulau eitten zala barriro. Ta akordatzen jata hemendik aintxixiketean jua Eibarrera, firmau ta gero [handik gero] zeoze papela falta ta atzera be etorri ta jua ta zela ibili zan akordatzen jata.
 - Sasoiko egongo ziñan orduan.
 - Orduan bai! Orduan nik bederatzi miñutu eitten nittuan Matxarira.
 - Bederatzi miñutu?
 - Bai, Matxarittik hona.
 - Igo?
 - Bederatzi-hamar minuto hortxe ibiltzen nintzan ni. Ni bazkaitara Alfan biharrian hasi nitzanian be etxera etortzen nitzan. Ta 12xetan urten ta ordu bat eta erdixetan sartu.

8. Iritziak

8.1. Politikaren inguruan hainbat gogoeta

- **Hizlaria(k)**: San Martin Ortiz de Zarate, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-085/008
- **Iraupena**: 0:12:32. **Hasi**: 00:46:55. **Bukatu**: 00:59:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Iritziak
 Politika » Jarrera politikoak
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 Aisia » Kultura » Idaztea
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Politika. Independentea izatea zaila da. Kultura aldetik hutsune handia. Bere gogoetak. Hurrengo ikerketak zeintzuk izango diren, etab. Elkarrizketa amaitu baino lehen anekdota bat kontatzen du hileta-elizkizunen maila desberdinak direla eta ez direla.

Transkripzioa

- Bai, galdetu nahi nizun ez ote den oso garesti ateratzen herri honetan independente izatea. Norberaren independentzia partiduetatik eta gorde nahi izatea.
 - Bueno, hori nik ikusten dot beste era baten, zela esango detsut, e... Mediokridade asko dago puesto inportantietan eta intelektualidade bat dago gure herrixan ez dagona iñungo puestotan. Horrekin dana esaten da!

Zergaittik? Ba, ez daukelako partido bateko afiliaturik. Afiliaturik barik dagozelako! Eta hori ez da ona! Gizonak bere balixuaren arabera jarri bihar dira jarri bihar diran lekuan. Eta hori falta da. Gero, beste bat nik ikusi dotena, ba, bueno! Politikuekiñ hitz egin dotenian, eta sarri [egiñ izan dot]. Bazkari bat edo zera; ba, bueno, hobeto edo gaizkixago konpontzen ziran, bueno, emoten zittuen zerak, baiña gero, kultura aldetik mentalidade hutsa, hutsik. Ziharo hutsak, e! Ezer be ez! Foballa eta... Eta nik foballa mutikotan egitten neban baiña oiñ, ba ez dot jarraitzen eta ez dakitt horren barri. Eta hor badago hutsuna ikaragarria, eta hori ikusi egitten da. Horren arabera gero ba... badago, baita be, planifikaziño batzuk ondo markau biharraren faltia. Nik egin doten azterketa hori ikusten dot hamengo elixiaren azterketia egitterakuan historikua eta ba, hemen artxibuan eta... bueno, bertan lagundu deste, baiña zenbat hustune eta zenbat —bueno, ni hau lanau egitten— dokumento emon detseran hórreri ez zeukenak. Pozik dagoz [...]. Oindio emongo detserazenak, e! Gauza asko azkenera arte reserbatzen dittut, bibliografian agertuko dira. Baiña ez zekixenak eta publikautu dagozenak! Ba, hamengo gauzeri buruz baiña beste leku baten. Eta emon detset materixal asko. Eta aberasgarri da, baiña ez dagolako planifikaziño bat edo laguntza egoki bat, ba bueno: “Herri honetan, zer?” Ba, esate baterako, ba, nik faltan ikusi dittutenen artian, ba, bueno, esate baterako, ez dakitt, han dago “archivo de protocolos”. Ez dau antolatu iñork. Protokolo artxibuan, Oñatin, ba, ez bertan zer bat eginda: “Egizuez hónek”, ez. Herri bakotxari esan: “Bueno zuen zerak hamen dagoz. Pertsona bat bekautu —zuek, herrixak— ekarri eta fitxaje bat egin deixala zer dan kontenidua espediente bakotxanien; zer dagon han. Dekubrimentu ikaragarriak egongo lirake!

- Bai, bai, bai. Dudarik barik.

- Ba ez dago egiña! Eta hórrek dira esperientzia txarrak ditturanak, edo ikusi ditturanak gaurko politikian. Berdin-berdin, ba bueno, ni Bellas Artes-eko arduradun izan nintzan Gipuzkuan eta pobreza bat ikaragarria! Eta hor lan bat egitteko dago. Hain zuzen, nik honen elixiaren estudixua egitten badot, arkitekturako estudixua eta... hor "Consejo General Vasco" zan sasoiaren egin neban plan bat. Hemen badago “Eskola arquitectos” bat. “Eskola de arquitectos”-ak "labor de campo" egin bihar dau, asko ikasten da eta. Eta historia. Eta "labor de campo" egitteko, ba, hartu... katalogaziño on bat egitteko probinzian bihar da elixarik hautatuenak, torretxiak, jauregiak, zenbait etxe tipiko dagozenak sasoi konkretuetak... Hórren estudixu bat egin, planuekin bihar bezela eta "labor de campo"! Azken baten ikasketako lana! Egin neban espediente bat, hori biharrezko zala. Ba ez da egitten. Nik egingo dot, eta ez dakitt! Ez dot erabiliko ejenplotzat baiña! Jente askori ez detsa ezer esango!

- Azken batean, ez dakit zure hitzetan ez ote den nabari edo ez duzun zuk hor huts bat nabari izan. Hau da, humanismoa. Hitz haundia da, baina gauza asko hartzen ditu.

- Bai, bueno, humanismuan garbi dago. Humanismua da gauza bat, ezta? Ideologixetan ez badago humanismo fondua ondo sakonduta, ondo planteautu, humanismo barruan gauzak ez badira planteatzen... humanismuakiñ izango giñake tolerantziak diferente pentsatzen dabenarekiñ, eta gehixago! Neri gustau izan jata beti tratatzia, ba, beste modu baten pentsatzen dabenarekin! Ze, ni bezela pentsatzen dabenarekin gitxi ikasten dot baiña diferente pentsatzen dabenarekin gauza asko ikasten dot, e! Gero noberak gogoetak egiñ eta hurbiltasun bat edo toleranzia bat lortzeko. Eta hori biharrezkoa da! Eta hor badago, badago hutsuna, ba gizarte guztian. Nik uste, baita be edukaziñuan, e? Edukaziñotik hasten da. Ze hamen aspaldi kendu eben eskoletatik, guk umetan gogoratzen [genduan] —haurrak giñala erakusten eskuen—

"Urbanidad y civismo". Urbanidad erakusten eskuen edukaziñua, konportamentua, azeran zelan ibilli, kamiñua pasatzerakuan zer egin bihar gendun, fruta azalik ez botatzia lurrian eta zela egin bihar gendun, nagusixak zela tratau bihar... hori danori ez da gaur eskoletan erakusten. Gero: "Alteración del orden público dago hamen!". Egongo ez da ba? Ez dago edukaziñorik eta!

- Bukatzeko gure berriketaldi hau: eta gaur lanean. Gaur oraindik, ararteko ofizioan sei urte lan eta lan, eta berriro zeure liburuetara, zeure ikerketetara.

- A, bai! Klaro, oiñ, esan detsut, elixiaren estudixo bat ba oiñ amaitzen dihardut, historia eta arkitekturaren estudixo bat.

- 'Arartekoaren gazi-gezak' martxan dago...

- Bai, bueno hori geruago egingo dot, ze hau behintzat egin bihar dot lehendabizi. Dibujuak bastante dittu, argazkixak be bai, eta emongo dau, ba ez dagon gauza bat gotiko asko ez dago Gipuzkuan hau bezelakua hiru pisuko gotiko bat da, eta oso interesgarria, eta horren ikerketia behintzat hor geldittuko da. Gero, buruan daukat, ba —ze eskariz hasi dira beste leku batzuetatik— eta egin neban nik lehen-lehenago, Durango hirixa sortu ebanaren biografia moduko lan bat, e... zera, Franzisko Ibarra. Eta materixal asko daukat jasota eta ordenatzera noia, e... euskaldunak Ameriketako... XVI.go mendian euskaldunak Ameriketako minerixan.

- Minerian?

- Minerixan. Hori oso ona da. Badakizu, "Amigos del País"-kuak egiñ eben oso interesantia, Mexikon, XVIII.ekua. Baiña bi mende lehenago askoz be inportantiagua izan zan eta ez da ezagutzen.

- Bai, bai, bai.

- Eta hor bastante materixal daukat bilduta, falta jataz datuak... Azkenengo Madrident egon nintzian aprobetxau neban eta pasau neban "Biblioteca Nacional"ian atara nahirik egun bat gehixago geldittuta apropos horretarako. "Biblioteca Nacional"ian ibilli nintzan gauza batzuen billa. Gauzatxo batzuk billau nittuan, dana —nahi neban guztia— ez. Ze hor badago ba hori da hamen ez dagoana biblioteketan, iñun osorik behintzat. Tomuak pilla bat dira "Catálogo de pasajeros de Indias" XVI. hasieratik hasitta, eta hor asko eta asko —[...] larena ez baiña urrutixago be ez, e!— euskaldunak dira hara janan ziranak! Ze ofiziokin janan ziran, nora janan ziran, ze misioño erorien, hor jartzen dittu. Eta hori ez da zertzen, eta gero, referentzia emoten detsu artxibo... indiasko artxibua Sevillan nun dagon! Eta hor ez da egin lanik! Euskal Herriko bibliotekan iñun ez dago katalogo hori konpleto, tomuak falta dira! Hemen hiru tomo dagoz, Gipuzkuako diputaziño Koldo Mitxelenan, Euskaltzaindiak dittu beste hiru ala —ez dakit— lau tomo, lehelengo bixak nik erositta. Ba, han eukitzen dittut. Baiña gero, batzuk falta dira eta hórrek danok bihar dittuzu ikusteko eta aztertzeke nun zertzen diran. Eta hor be, dan-danak igual ez dira egongo ze hamabostian hasi ziran, hamabosgarren mendian juaten, egongo dira noiz hasi zan katalogo hori egitten... Dana dala, hortik atara bihar dittugu gauza batzuk eta oiñ eske, beste aldera datoz eske. Juan zan astian deittu esten Tolosako artxibotik Eibarrera deittu ebela, badala Juan de Tolosa bat Ibarretarrekia ibilli zana Mexikon minerixako kontuetan eta hori... ia horren berririk nahi dabela ba, zerbait badakixe. Tolosa hori apellidutik euren eta dan berririk nahi dabela zera, Tolosakua dan ala ez, eta esan etsan: "Hori [jakitzeko] Juan San Martinengana jo biharko dozu", eta hárek emon etsen eta neri deika. Jo, ni ezin naiz egon danian, eta topau dittut, topau dittut datuak horrenak baiña klaro, ni janan nintzan zuzen, ba, hori egittera baiña zabaldu ezkerre beste batzuk dagoz, eta oso dato interesantia dagoz hor, hizkuntziakin zerikusixa daukenak: zela euskaldunak elkartzen ziran han juaten ziranian... Eta hori nahi dot, hori lanori nahi dot burutu eta gero

badittut beste lan batzuk, Ameriketakoak informaziño asko dittut, artikulo batzuk be bai idatzi eta publikau bakuak, eta biharbada liburutxo bat egingo dot dana batuta, 'Euskaldunak Ameriketan'.

- Eta azkenik, poesia? Berriro poesiara: 'Otsalar'.

- Ezik lehenago, igual e... hillerrira jua biharko naiz, eruango nabe.

- Baina presarik gabe, e!

- Edo igual jua! Ze bada holako, Eibarko gertakizun bat kontatzen dana Eibarren: ba, batek —txarto agertu zan— hilzorixan, eta medikuak ya etsipena emon etsan. Eta semiak kanpua bat eta deittu etsen alkarri eta: "Buena, zu, aitta hill egingo dala eta zer egingo dogu?". Eta: "Buena, ba hiltzen bada gauzak ondo egin bihar dittugu ze azken baten, ba, ondo portau da eta... Dirua be, buena, badaukagu zera baiña...", eta diru gehixen ekana zikoitzena, zekenena. Eta esaten etsan: "Ba, primerako entiarua egingo dogu", —orduan izaten ziran klasietaakuak— eta: "Primerakua? Tira-tira! Gure maillan, segundakua be nahikua dogu". "Buena, buena, ze segundako! Tercerakua eginda, behiñ hill ezkeru zer detsa? Tercerakua eta zera!". Eta bestia hilzorixan bai, baiña entzun ohetik eta esan etsen: "Hi, mutillak! Ekarrizueze nere abarketak, neu juango nok kanposantura".

- Edozein modutan, Jua, presarik gabe, e!

- A, ez, ez. Hori etorriko da, horrek ez dauka prixa hartu biharrik.

- Hara bitartean poesia batzuk irakurriko genituzke. Eta gero, beste zure poesia osoa Euskal Herriko Unibertsitateak, hori ere ia azaltzen den.

- Buena ba! Ia egitten dogun!

8.2. Gaztetan, iluntzerako etxera

- **Hizlaria(k)**: Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref**: AB-109/014
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:12:40. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Gaztetan, iluntzerako etxera bueltatu behar, bestela gurasoen errieta jaso behar. Hiru ahizpa dira, baina bi adinez oso gertukoak eta elkarrekin ibiltzen ziren. Bera oso beldurtia zen gauez baserrira bueltatzeko.

Transkripzioa

Gaztetan denporan, ba, illuntabarrerako etxera. Bestela aittak eta amak, buena! Ixe, illundu... illunakin batera. Aitzia eta ni eta beste aitzia bat neri segitzen destana. Hiru gara. Baiña bestia asko be gaztiagua. Eta gu bixok, ba, hutsan aldekuak eta beti alkarrekin ibiltzen giñan. Juaten giñan erromerixara eta bixak billurtixak, eta buena, billur batekin etxera! Mendira jua bihar, gaiñera! Eta, buena, ze bildur eruaten genduan guk bixok! Nik, hala be, buena, desastria, e!

8.3. Elgoibartik oinez zetozeela, bidean pasatako ezustekoa

- **Hizlaria(k)**: Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref**: AB-109/016
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:16:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Garai batean bideak lasaiagoak ziren. Behin Elgoibarko baserri batetik Eibarrera oinez zetozeela bidean pasa zuten ezustekoa.

Transkripzioa

- Orduan, ba, trankil-trankill ibiltzeko moduan eguan, baiña oin ezin leike lehengo moduan. Orduan ez eban iñok be urtetzen eta ezer be ezer be ez, e! Zenbat bider juaten giñan etxera eta sekula be ez eskuen iñok be urten. Baten zerian... nere gizona [ez zan juan] eta hori soiñujolia da, hor egon dana, oin lagata dao aspaldixan, baiña... Eta soiñuakin juan giñan. Eta urten eskuen, besteren bat giñalakuan. Ba, orduan automobillik be ez eguan eta hori zala badia igual, e, berrogei urte bai. Eta bagatoz bixok, eta horrek soiñua lepuan eta etxera Elgoibartik. Elgoibartik oindio goratxuagoko basarri batetik. Eta dza! urten eskuen. Txistua jo etsen alkarri eta, dza! urten eskuen Elgoibarko hor bidian. Ene! Guk pasau genduazen orduan estuasunak! Bixok!

- Lapurrak urten?

- Besteren bat giñalakuan itxuria.

- Beste...?

- Beste bat giñalakuan gu. Pentsauko eben, ba, eren bateron bat zala. Eta gu ikusi ginduzenian, dza, geratu ziran. Eta gure bildurra! Ha zan bildurra! Baiña zenbat holakotxe bildur pasau! Gero, gaiñera, illunduta eguan orduan. Bueno, berandu, gonbidau egon basarrixan ta! Eta etorri giñan etxera eta... Bueno, ez giñan atrebitzen bidetik be juaten. Eske atzian-atzian, atzian-atzian etortzen ziran eta. "Ai - nik esaten neban- Maaltzara juaten bagaittuk, ba, Garitano-ta han ezaunak eta haretxeri deittuko jetsegu". Baiña, illunduta, berandua, ta ez giñan atrebidu han be deitzen. Eta gero: "Azittaiñera juango gaittuk eta Azittaiñen deittuko juau". Baiña berandua zan eta ez giñan atrebidu hor be deitzen, molestatzia zala ta. "Oin juango gaittuk, ba, erreka-zulorik erreka-zulo". Baiña erreka-zulo batetik juan giñan gure etxera, basarria; bidian urten egingo eskuela bai, eta erreka-zulotik. Okerreko bidietatik. Bueno! Hori eta ni, ene!

- Semiakin?

- E?

- Semia?

- Bai! Zenbat holako estuasun pasauta! Desastria! Bai.

8.4. Goizean goiz hiletara zihoazela pasatako beldurra

- **Hizlaria(k)**: Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k)**: ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref**: AB-109/017
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:16:10. **Bukatu**: 00:18:14

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- **Laburpena:** Bera beti izan da beldurtia gaez ibiltzeko eta ahizpa ere bai. Gerra sasoiaren euren etxean egon zen gazte bat hil zen gerraostean Sorluzen. Goizeko zortzietan zen haren hileta eta farola hartuta abiatu ziren. Baina negua zen eta berehala ilunpean geratu ziren haizearekin eta euriarekin farola itzali ostean. Txakurrak atzetik ukitu zuen ahizpa eta bide osoa beldurtuta egin zuten, norbait zebilelakoan.

Transkripzioa

- Eta gero, ba, ni kobardia izan naiz beti ibiltzen ta, gabian eta, baiña kobardia! Eta gure aitzia be bai. Eta bi kobarde pentsaizu zelan ibiliko giñan!

- Edozein txorikin be ohiua, ezta?

- Bai, edozein... zarraparriak be pub!, ta jo ta geratu.

- Bai, eske hor daon isiltasunakin...

- Beste baten, Elgoibarko bat, edo.... Plaentxiako bat hil zan. Gerran gurian egondako... gazte-gazte hil zan, hogeta bost urtekua. Eta entiarrura jun bihar genduan, eta orduan... Gerra ostia ensegida zan eta orduan ez eguan ez automobilik, eta ezer be, ezer be, ezer be ez. Eta juan bihar genduan oiñez, eta eguan zortziretan entierrua, pentsaizu! Goixian. Eta esaten desku amak eze: "Hartuizue farola". Farola badakizue zer zan?

- Bai, bai.

- [...] farol bat. Eta eurixa zan. Eta zan cuatro de diciembre, eta amak esan eskun: " Hartuizue bai, farola eta juan zaittie farolakin". Aizta bixok, ni eta gaztena. Eta txakurra beti solte egoten zan gurian. Eta bagatoz eta hartu dogu farola eta haixiak eta eurixak, jo-ta segiduan, etxetik beheratxuago, illunian geratu giñan. Linbo, e! Eta: "Ene! Topauko ete jonau bidia?". Baiña hain eguan illun... baiña juan egin bihar genduan derrigor. Erropak alde batian jazteko kalia, zapatak... Eta bagoiaz goittik behera eta gure aiztiak esaten dau eze: "Ai! Atzetik oratzen jestene!" Eta: "Ba etorri deilla aurrera! -nik estuasunakin- Etorri deilla aurrera atzetik oratu barik". Eta txakur iñuzentia! Bajatu giñan honaxe behera, bai? Baiña bidian ze estuasuntzuk pasauta? Beti txakurrak, ba, karizia egittera koittauak, aiztiari atzetik oratu egitten etsan. Bueno, oratu edo zertu. Eta bateron bat zalakuan etorri giñan, Baiña sano, e! Guk pentsatzen genduan, ba...! Txakurrak horra behera lagundu eskunian eta txakurra ikusi genduanian, bueno, jo-ta zapatia jaurti gentsan amorrakin. Bai, holaxen. Gero, juan giñan oiñez atzera Plazentziara. Gero handik basarrira, eta gero handik zerera, atzera entiarrura behera.

8.5. Pilota Eibarren: binakako txapelketako finala

- **Hizlaria(k):** Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-160/012
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:21:35. **Bukatu:** 00:25:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena:** Pilota. Binakako Txapelketako finala, Eibarren. Sarrera lortu zuen baina aitari eman behar izan zion. Lehenagoko umeak 10 urterekin bizi-biziak ziren.

Transkripzioa

- Egon zuan kanpeonato zera, pelotan, “campeonato de pelota”; zerak, periodiko Excelsior-ak —Excelsior-a zuan orduan Bizkeikua— “campeonato de pelota de parejas”. Ta, ba, geldittu zan atzenengo partidua, ba, Eibarren jokatzeko. Atzenengo bi. Ez jata akordatzen... hor liburu bat badauke pelotakua ta zera ta akaso ekarri leikek. Begira egon nok, baiña ez juat uste zeñek... ez jakixat zeñek irabazi eban. Ezta? Hor jokatu juen. Baiña orduan zuan eguna...

- Haundixa?

- Hamen ipintzen juat [...], akordatzearren: “El espectáculo era muy esperado por la afición pelotazale. Era tanta la euforia que la venta de billetes por la mañana —“por la mañana”, goixian jokatu zuan— hubo unas colas enormes. Aquí tuve yo —y otros— ocasión para ganar algún...”

- “Dinerillo”.

- “Sí”. Bai. “... para ganar algunas perras. Dicho y hecho. Me puse a la cola para coger un billete que era el más caro. Diez pesetas”. Klaro, sillan, ezta? Hamar pezeta.

- Asko, ez?

- Bai. “Resulta que mi padre era taquillero y no sabéis la cara que puso cuando me vio en la taquilla”.

- “Zetan habil hamen?”

- Bai ba. “Zetan” baiña... hamar pezeta, “benga, billetia! butakia, zererako, sillia”, ta emon ein bihar. “Era taquillero y no sabéis qué cara puso cuando me vio, pero tuvo que darme el boleto, así que yo me dispuse a vender al mejor postor. Mientras tanto, la gente de Bizkaia venía mucho. En una de esas aparece mi padre...”. Jente asko etortzen zuan, ta “¿[...] un billete?”, “yo quiero dos” ta tal ta...

- Rebentia, ez?

- Hogei bat pezeta kobratzeko. Hamar pezetan afari bi edar euazen.

- Argixa, e?

- “En una de estas apareció mi padre reclamando el billete, pues tenía un compromiso más grande”. Bai, ba, billete guztiak, takillajia, saldu... dana saldu zuan. Klaro, hainbeste... jo-ta Isasi guztia goittik beherañok jeuan! Orduan kotxerik be ez zuan pasatzen ixa ta, ez dakik? “... pues tenía un compromiso muy grande. Así que mis negocios se esfumaron en un momento. No sé si cobré las diez pesetas”. Aber... Galdu hamar pezeta eingo nittuan seguramente! Bapez, berandako billetiak eta diruak.

- Zenbat urte...?

- E?

- Zenbat urte zekazuzen zuk orduan?

- Ba orduan eukiko nittuan 14-15 bat. Ya... ya bastante zera.

- Mutil koskorra ya.

- Koskorra baiño gogorraua. Koskorra... Behin hamabost urtera ezkeror orduan espabillatzen zuan jentia, e! Bai, goixao ekitzen etsaun! Esan doten moduan, hamar urtekin ya martxan, pezetiak zenbat balio eban... Ez oinguak... holaxen datok mundua ta, ez dakik? zerori. Baiña orduan pezetia baliokua zuan. Pezetia ta txakur haundixa ta...

8.6. Arrateko elizako arkupeetan kioskoa

- **Hizlaria(k):** Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-043/020
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Arrateko kioskoan egin zuen lan: kandelak, gozokiak... saltzen. Taberna itxi ondoren jarri zuten kioskoa. Orduko bizimodua kontatzen du; meza latinez, ordutegia, ortua...

Transkripzioa

-Baiña gero beti Arraten. Elizan. Han kioskuan egonda egongo zara zu erosten-ta, ezta?

-Bai.

-Ba han egoten nitzan ni, ez zara akordatzen? Bai, kandelak saltzen ta goxokiak umieri-ta, eskursiñuak eta.

-Konta eidazu hori. Noiz ipiñi zenduen kioskua?

-Kioskua ipiñi baiño lehen... bueno, ni Arraten nauela, bakizu, ez zeuan han bizimodurik. Bueno, itten genduan ba, kontauko dotsut, arrebria hil zanian ba ""se acabó la historia del bar", haura laga zeuben, eta don Pedrok ez zaukan koadjutorixarik, elizatik ez zaukan sueldorik. Ez. Gerora ipiñi zioen "media coadjutoría". Gero ba zeoze elizatik ematen zioen, don Migel zanak edo. Orduan don Migel Lasa egon zan, uste dot orduantxe ta, eta igual ez dot ondo esango dana baiña orduantxe inguruan ipiñi zioen zera ta. Bien bittartian ba basarriko bizimodua. Ortua geunkan; nik goizian, mezia emon baiño lehen, mezia beratzietan emoten zaban berak; eta iñor etortzen bazan ez bazan, mezia beratzietan. Eta nik kontestau eitten nion mezia, latiñez orduan zan. Eta ni joaten nintzan ortura lenengo, jaiki ta ortura lanera mezako ordura arte, porke ez zaban nahi izaten goiz emoten porke bateron bat etortzen bazan, baserrittaren bat edo, beti egoten zan difuntua egon dala halako lekuan ta gero mezak eta bakixu; orduan diferente zan. Eta etortzen (bihar) bazan, ez bazan da.

9. Lanbideak

9.1. Paulino Larrañaga artista eibartarra

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/001
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Artistak
- **Laburpena:** Paulino Larrañaga artistaren biografia. Pello Zabaletak egindako aurkezpena. Paulino Larrañaga, dibujo eta

pinturan jardundakoa eta momentuan batez ere eskultura lantzen duen artista (egurrezko eskulturak).

Transkripzioa

- Eskuak lanerako gehienok, arterako gutxi batzuk. Eskueta nekeak, nahikoa errez pasatzen diren nekeak; adimenekoak, burukoak, arimako nekeak, bizitza guztian lagun egiten digutenak; artistaren nekea, bere kezka. Paulino Larrañaga: artista. Zer dira eskuak artista batentzat?
- Eskuak dira gorputzian hankak bezela, ibilli egin bihar dirala eta eskuak erabilli egin bihar dirala. Hortik urtetzen dau esan nahi dot arte ederrak. Ni pasau naiz: dibujuak, pinturak, eta oiñ eskultura. Eskultura egurrian edo zurian zela esaten dan . Zurezko eskulturak egitten ditturaz; gero ikusiko dittuzu zerak.
- Beraz, eskuak lanabes dira, baina ez ote dira gehiago idearen bide? Idea eskuetara doa...
- A bai! Ideak mobitzen dittuez eskuak. Bai, hori da, gorputzak hankak bihar dittuzen bezela mobimientuetarako, eskuak dira gure ideak modelatzeko.
- Zilegi bekit bromatxo bat: zer lirateke italianoak eskurik gabe?
- Bo! Hori da.

9.2. Paulino Larrañaga eta artea

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:01:46. **Bukatu:** 00:03:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Artistak
- **Laburpena:** Paulino Larrañaga eta artea. 79 urterekin lanean jarraitzen du. Gizakia ez dago geldirik egoteko egina. Lana bedeinkazio bat da berarentzat.

Transkripzioa

- 79 urte, apirilaren 13an 80, eta oraindik lanean?
- Bai, bai. Hori itxi/laga ezkerro, ez dakit nik!
- Hain beharrezkoa al da ba lana?
- Ez dakit hogei urte edo hogei ordu biziko giñakezenik itxi/laga ezkerro.
- Baina horrek, Paulino, ez dakit esan nahi ote duen gizona lanerako egina dagoela.
- Bai, gizona ez da geldi egoteko egiña. Gizonak bere inketudiak beti dauzka; gizona normala danak! Eta batzuk golferixiari emoten jakuez eta hor konpon! Lanik ez, eta ahal daben bezela bizi lanik egin barik, eta hori ez da gizon izatia! Ez da!
- Baina gaur zer da lana? Horrela galdetzeko, zer da? Biblian datorren madarikazio hura, edo, azken batean, bedeinkazio bat da?
- Ni, nere ustez, nik sinismena be badaukat Jaungoikuari eskerrak, eta neretzat bedinkaziño bat da. Bedinkaziño bat! Ni gustora nabil neure zerekin, neure lanekin, beste batzueri erakutsi, eta horrek pozgarri haundi bat emoten desta niri. Horixe da.

9.3. Artistaren izatea; Euskal Herrian filosofo gutxi

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/003
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:03:11. **Bukatu:** 00:04:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Artistak
- **Laburpena:** Artistaren izatea. Baroja, Unamuno... Euskal Herrian gizon handiak izan ditugu, baina filosofo gutxi.

Transkripzioa

- Egia al da artista izateko ero xamarra izan behar dala?
- Nik baietz uste dot. Fama hori badaukagu eta nik uste dot bagarala, bai: beti masatik alde egindako edo... en fin!
- Zu, gainera, oso Frantzia zale zara...
- Bai, bai.
- ... eta han ero faltarik ez dago.
- Hombre!
- Artisten artean diot, e? Eskulturan eta pinturan eta...
- Bai, han idazliak-eta asko dagoz, ba! Ha kultura haundiko herri bat da, Frantzia. Ez da hamen bezela. Nik uste dot Euskal Herrixan badittugula eta izan dittugula gizon haundixak, ezta? Barandiaran eta hórrek beste... eta, en fin, Baroja eta Unamuno eta hórrek zerak izan dira. Baiña filosoforik gutxi; Carlos Santamaria sartu egin bihar dogu, ezta? Eta beste batzuk oin buruan ez ditturanak. Euskal Herrixa ondio dago, nik uste dot, berbia hartu netsana zerari, Julio Caro Barojari: "Somos un pueblo ignorante y orgulloso".
- Bueno, hori herri xehe guztiak. Igual dira, hemen eta Txinan.
- Danak izango dabe, ezta? Bueno, bueno, baiña nik nerriari begira: pena emotekua da, pena emotekua da.

9.4. Artea Paulino Larrañagaren ikuspegitik

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Longarte, Paulino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-086/020
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:52:12. **Bukatu:** 00:56:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Artistak
- **Laburpena:** Artea Paulinoren ikuspegitik. Artetik bizitzea oso zaila dela dio; zortea behar da. Erakusketa gutxi egin ditu.

Transkripzioa

- Artea... Orain ikusi zaitut sututa, berotuta, eta lehen esan dizut: "Artea askorentzat erlijio modukoa da". Eta sentitzen dut zure barnean ere, galgara bezela egiten duela, irakiten bezela.
- Bai, bai. Gustora dihardut nere lanak egiten eta beste batzueri bultza egiten aurrera urten daixen. Horixe da nerria! Eta hori da, ba, erlijioa bezela, baiña "es una vocación". "Vocación".
- Baina, ha hor. Gernikatik etorri zinen eta hau —ez dakit— lantegia da,

akademia da?

- Akademia ezin leike esan. Nik ez dot zentimo bat pagatzen ezer eta...

Hau da nere estudio bat eta hónek etortzen dira nere billa zerbaitt ikastera. Nik ezin neike! Gaiñera nik daukan soldatiakin! Sekula ez naiz diruakin sartu eta! Oindiok hamaika milla duro besterik ez dittut jasotzen nik hainbeste urtian lanian jardunda, pentsau be ez! Zera, eta hau eta bestia eta: "¿Qué categoría quiere usted?", berrogei urte nittuala. Eta: "A mí el más barato". Eta oin nago... edozein langillek nik baiño dobla irabazten, erretirauta, nere lagunak eta.

- Eske hori da galdetu nahi nizuna: artetik bizi al daiteke?

- Artetik bizi... Bueno, bai, lagunak euki ezkeru, baktzak hainbeste emoten detsuala... Baiña bestela, "con cincuenta y cinco mil pesetas"...

- Ez dago, ez dago, ez dago! Zulora, baina azkar asko gainera!

- Horixe ba! Horixe da!

- Eta garai haietan oraindik gutxiago seguruenera!

- Zela?

- Esan nahi dut, 60. urtean, esaterako. Orduan apenas errezago! Pintura eta... nork erosi behar ditu gauza hauek?

- Bueno, nik esposiziño gutxi egin dittut eta ondo urten! Ondo urten! Baiña, ez dago, ez dago. Artetik bizi izateko, suertia, batzuk badauke suertia ezta? Suerte haundixa dauke batzuk. Edozein kaxkarkerixa egiñ eta ta! Eta joño! Prensa eta... ti, ta, ta, eta: "Ene! Aurrera doia hi fulano!". Eta: "Ene, zela ba?". "Aurrera doia! Batian Donostian, hurrengo Madrillen, hurrengo Bilbon, esposiziñuak". "Zenbat saldu dittuk?". Eta: "Batian hamabi, bestian zera...". Eta: "Ene!" Aurrera, aurrera doiaz! Hortxe dago ba! Hori egitten eta... Iñor ez da atrebitzen holakorik egitten, e! Inportanziarik ez noberaren buruari! Klaro, hor hori, eta...

- Beethoven, musika?

- Bai, Beethoven. Hori arpegixori hartu zeretik erretratua honen... diskuen azaletik eta: "Egurrian egingo dot hau". Eta benga, egurra; gero, hórrek bestiok, norberak konposiziño bat egin: bioliña, arpia eta zera, eta holaxe!

- Artista ari ginen aipatzen, artista. Bizi ote daitekeen edo bizi ezin ote daitekeen bere lanetik, bere gauzetatik, saltzen den, ez ote den saltzen. Baina hasieran esan dugu eta ni sinistuta nago: ero samarra dela eta artistak irabazten duen dirurik gehiena bere arterako eramaten duela, benetakoak behintzat.

- Bai. Batzuk suertia dauke eta saldu egitten dabe, beste batzuk ez dabe... Ni neu zera naiz ba, nerekorra. O sea ke ez naiz... beti bultza eginda urten dot nik zera, esposiziño bat egittera. Eta beste batzuk dauke hori erreztasunori, zerbaitt egiñ eta hau eta bestia eta da!, agertu eta saldu eta aurrera. Baiña han bertatik bizi izateko gatxa da, gatxa.

9.5. Kubatik Eibarrera itzulera

- **Hizlaria(k)**: Sagastume Narbaiza, Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-091/006
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:42:14. **Bukatu**: 00:45:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Artistak

- **Laburpena:** Eibarrera itzulera. Iragakari baterako (Asturiar batzuek sortutako H.Upmann tabako marka) musika egin zuen. Sindikatuarekin beti arazoak: zenbat ordaintzen zuten, kuotak...

Transkripzioa

- Beraz, ia harekin, kasik esan liteke akordeoiarekin bizi zinen...
- Han, bai. Eta gero hamen be bai. Gero handik hona etorri nintzan ni: hombre, lehen `Mago de Urki´ nintzan eta gero be `Mago de Urki´.
- Baina salto izugarria da: hango libertatea, hango lagunak, hango mundu hori. Eta Eibarrera zatoz.
- Gero euki neban nik... anunzio bat egitten neban, fondo bat egitten neban H. Upmann-andako. Laguna egin nintzan ni, zerakin, H. Upmann-ekua... hórrek ziran asturiano batzuek, Ramon eta —Gonzalez ziran apelliduak—, eta hórrek zekezen koronak eta H. Upmann. Eta zekezen puru fabrikia alde batian eta zigarro fabrikia beste leku batian. Zeken. Eta fondua nahi izaten zebe zer batendako eta “hombre, pues con acordeón”. “Qué esto?”. Eta juaten nintzan CMQra —CMQ zeguan telebisiñua— eta hara juan bihar izaten nintzan zera egitteko, fonduori egitteko. “¿De qué tienes, de un minuto o minuto y medio?”. Zera eukitzen zebe ba, prezia. Orduan, gaiñera... karua izan da beti; ointxe be bai: telebisiñua beti izan da. Anunziua? Hortik karua. Bai juaten nintzan han zerian... Gero nik telebisiñora bastante lan egin neban. Egin neban, ez zeguan ba filarmonikarik. Eta askotan deitzen zesten. Txarra eukitzen neban, orkestan zelan jotzen neban, permisua eskatu bihar askotan. Guk geuk direktamente ezin geinkian egiñ ezer. Eskatzen zetsen eta honek, orfeoia, kantatzen zebanian eta, juaten zan Sudupe, juaten zan...
- Baimena eskatzera.
- ... baimena eskatzera, eta emon egitten zetsen. Esaten zetsen: “¿A qué hora es?”. “Pues a tal hora”. “Bueno, pues que vaya”. Permisua eskatu eta hortarako gustora eta gustora juaten... Zelan ez zeguan orduan txistularirik eta ezer be, berak ipiñi zetzazen polittak: goixan dakaraz partiturak berak ipiñitta, e? Eurak zer kantatzen zebe ba ni juaten nintzan direktuak eta zerak egitten. Bai, zer batzuek egitten.
- Beraz, lehen esan duguna. Euskaldunen artean bazegoen halako mugimendu handi bat eta zu bete-betean sartu zinen han.
- Bai, bai. Suertia. Bizimoduan suertia bihar dozu. Suertia euki neban. Gero pegak eukitzen genduzen sindikatuakin. Jo! Sindikatuak beti etortzen... erakutsiko detsuraz gero zer kobratzen zeskuen orduan, e! Hortxe dakat fotokopixa... Oiñ hurrenguan, diskusiño bat euki genduan: ez zebela hainbeste kobratzen, ezin zeikiala. “Ez —esan netsen—, diskusiñua akabauko juagu. Etarako deuat ba nik, neuk pagatzen neban kuotatik, etarako deuat bai fotokopixia eta nahi badok beridikua be bai. Ekarriko deuat eta ikusiko dok zer kobratzen zesten. Orduan, e?”. Bai, asko. Sozio egin bihar!
- Derrigor gainera.
- Bai ba. Eske ni egon nintzan han "como ciudadano". "Ciudadano" eta bost urtera renunziau neikian nik "ciudadanía española" eta orduan "ciudadano cubano". Ez, "residente"! Lehelengo esaten zebe han "residente". Ni egon nintzan "residente". Eta gero "ciudadano". Eta gero etorri egin nintzan eta "se acabó lo que se daba".

9.6. Sagastumek 16 urterekin diskoa grabatu zuen

- **Hizlaria(k):** Sagastume Narbaiza, Miguel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-091/010
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:58:06. **Bukatu:** 01:02:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Artistak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Migel Sagastume soinu-jole eibartarra. Aitaren afizioa, ofizio bihurtuta. Arrate Irratian grabatuta ditu pieza batzuk. 16 urte zituela, diskoa ere grabatu zuen Columbia etxearekin. Izbek lagunduzion panderoarekin. Gehienbat trikiti doinuak grabatu zituen, baina diskoa betetzeko lotuko batzuk ere jo zituen: `Amparito roca`acute;, `Silencioso`acute;... Arrakasta izan ei zuen diskoak.

Transkripzioa

- Baina horrela, labur esanda: bizitza labur kontatu duzu, ze zuk milagro asko daukazu hor tartean egindakoak. Kubako eta hemengo milagro asko. Baina, labur esateko, Migel, zure bizitzan zer izan da eskusoinua? Zer izan da akordeoia?

- Akordeoia neretako...

- Aitaren afizioa seme-ari pasatu... Eta, gero, seme-arentzat zer izan da?

- Bai. Gero gustau. Gustau egiten jatzu. Ya sartzen zaranian anbertian, "como un oficio", ez dakizu? "Y no tienes mas remedio", han, hor ez dakazu beste erremediorik. Aurrera eta bai, gustau egin bihar. Bestela bertan behera lagako neban eta beste zegozer topau, ezta? Baiña gero ikusten neban bizimodua etarutzen zala... ba, amigo! Eta pixkat zerian egotia nahi badozu, derrigor jo bihar dozu. Hor ezin leike laga. Nik ointxe be ordubete egunero jotzen dot, etxian. Beti. Bai, eta repertorio bat ipiñi: modernua aurten zer dago? `Macarena´, hau eta bestia eta `Sopa de Caracol´ eta...

- Baina rocka eta?

- Hórrek ezin leikez. Bai. Zerak jo zeinkiaz [boogie]-xak eta hónek jo zeinkez, beste ritmo bat. Baiña rock eta zerak, beste instrumento batzuk, beste zer bat, bihar dozu, beste akonpañamentu bat bihar dozu zererako. Hórretxek. Eta holakotxe gauzak. Vals musetak, eta pasodoble eta lehengo zaharrak eta badakizu gero lehengo hónek, lehengo pieza zaharrak onak dakazuz: boleruak eta zerak eta. Geuk orduko epokan jotzen genduzenak, zerak. Asko gustatzen da, e! Ointxe be. Ikaragarri.

- Zenbat pieza daukazu buruan?

- Ene! Ez dakit nik, baiña... Ez dakitt, ez dakit nik zenbat.

- Disparatea!

- Grabauta dakaraz Arraten...

- Irratian.

- Bai. Bernardo eta holaxen behiñ... (...). Eta diskoa grabatu neban nik! Bai, bai.

- Hori ez nekien.

- Bai, bai. Diskua grabauta dakit nik. `Amparito Roca´ eta `Silencioso´ eta. Orduan, e! Ameriketara Juan Aurretik: hamasei urtekin grabatu nittuan. Bai. Zeguan orduan representante bat, un tal Franco, Eibarren zekan musika etxia. Eta horrek zekan representaziñua Casa Columbia, zekan. Eta esan zestan: "Hi, trikiti batzuk grabatu bihar dituk!". Eta, bueno. Neuk esan netsan: "Trikitixa?". "Baitez". Eta tia, nerekin, tia oindiok bizi da, 98 urte

dakaz; oindiok bizi da, eta bixok juan giñan, basarrixan bizi giñala.

- Urkin bizi zinetela.

- Urkin. Donostiara. Eta egin genduan panderistia tia eta juan giñan Donostiara eta grabau genduan... Orfeon Donostiarrak Calle Prim-en han grabatzen dau, ba? Hantxe. Etorri zan Casa Columbiakua mahai haundixorrekin, zerorrekin, eta: "Bueno, jarri hor. Benga, jo trikitixa". Baiña diskua konpletatzeko trikitixak jo genduzen lau edo bost; edo bueltak eta zerak eta ez zeban kubritzen diskua zera egitteko. Eta esan zestan: "Ezin heinke jo pasodoble bat edo zegozer, ala?", "Bai", "Zer dakik jotzen, ba?", "Amparito Roca". Eta "Aber, joik... Bale. Hauxe". Bueno, eta bestia 'Silencioso', vals bat. Bandako direktore... musiko batek jo zestan. Politta, e! Oindiok... Zu, ba exitua euki zeban! Bai. Eta gero ni Kubara juan nintzan eta hortxe akabau zan. Bai, bai. Gero hamendik aittak deittu zestan zelan juan zan, exitua zelan euki zeban orduan. Bai ba! Gitxi entzutzen zan orduan trikitixa eta zera.

- Bai, bat ere ez.

- Ez zan entzutzen. Eta, gaiñera, soiñu haundixakin jota, gitxiago. Eta gero, Gelatxo eta orduan Kalzakorta eta be, hórretxek pixkat entzutzen ziran. Baiña, badakizu: orduko grabaziñuak be zer? Bueno [...]. Orduan Bernardo etorri jatan, laguna eta zerian. Don Pedro, beti. Don Pedro soziua zan zerian, emisoran. Harek ipiñi zeban emisoría, Arratekua.

- Bai, bai, bai.

- Eta gero, badakizu, politika asuntuan, ez zetsen lagatzen. Badakizu Francoren denporan eta zerian. Oin ya pixkat... Eta esan zestan: "Kontxo, gauza batzuk grabau bihar dittuzu, eibartarra zara zu eta zerian". Holaxe juan nintzan eta "zer nahi dok?". Eta: "Hauxe". Eta bueno: mejikanak? Mejikanak. Foxak? Foxak. Hau? Bestia. Sultua? Sultua. Vals fransesak? Vals fransesak. Pasodobliak? Pasodobliak. Igual eukiko dittut larogei, bai. Grabauta. "Entre pitos y flautas". Bai, bai.

- Askoda.

- Bai. Usten dot, e. Tango eta zerekin eta... Ez dakit seguru, baiña ez nai urriñ ibilliko. Oindiok beste biaje bat zor detsat. Aginduta dakat. Esan estan: "Hortxe dakazuz vals franses batzuk eta hórretxek jo bihar destazuz". Zerian. Pentsaizu zelako diskuak dakazen harek eta Yvette Hornerrenak eta zerak. Eta esaten detsat: "Ez, ez, ez, bai, zuk derrigor...". "Bale, egingo juagu" eta juan egin biharko dot.

9.7. Gerra ostean gosea eta estraperloa

- **Hizlaria(k)**: Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-094/011
- **Iraupena**: 0:06:37. **Hasi**: 00:33:28. **Bukatu**: 00:40:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak
- **Laburpena**: Gerra ostea, gosea, estraperloa... Denda bat ipintzea erabaki zuten; gero gozotegia. Estraperloan kafea, azukrea... Estazio inguruan zuten denda. Poliki-poliki egoera normaltzen joan zen.

Transkripzioa

- Orduan, ia, zuek martxan zaudete, zeuen osabaren etxean bizitzen, fabrikan lanean, eta noiz erabakitzen duzue: "Bueno, denda bat jarri behar

dugu”?

- Ba, denda bat jarri bihar genduan... Tioren lokala zan hori.

- Oliva (emaztea): Badakizu zenbat urte diren?

- Alkilauta zeukan. Alkilauta zeukan eta txarto zoian itxuria eta ez zeukan zerik...

- Etorkizun garbirik?

- ... etorkizunik garbirik. Eta traspasatzia nahi ebalan esan eban. “Bueno, ba, geuk hartuko dogu”. Eta pagau eskatu zebana, eta handik hasi zan. Gero, honek esan etsan: “Tio, geuk hartuko dogu”. Hau dezididu zan hartzera.

- O.: Nere aittak egin zoskun obria pixkat.

- Eta, bueno, ba, honen aittak obria egin eban pixkat, ha mostradora eta pixkat jirau eban, eta...

- Itxuratu pixkat.

- Itxuratu pixkat eta ekin! Baiña gaur egunerako ez, e!

- Gaur egunerako ez, baiño...

- Gaur egunerako ez. Baiña, tira!

- Baina zer saldu zitekeen orduan?

- Ba gauza asko ez.

- O.: Bai, saldu bai, e!

- Baiña, ez eguan baiña! Ba, ekarri giñutzen: Vitorixatik jaboia, ez dakit zertziek, danak jiratzen! Gero, politto-politto, almazena zeguan Eibarren - almazena, Muñoz- eta harek be pixkaka-pixkaka... Hasi giñan!

- O.: Gero Zumarragako edarixekin hasi ziñan.

- Bai, baiña geruago!

- Beraz, zuena "ultramarinos" bat zan.

- Bai, "ultramarinos".

- Bueno, baina esaten didazue...

- O.: "Ultramarinos y confitería".

- Bai, gerotxuago hori.

- Bai, eta nondik? Esaten duzue: “Almazenak bazeuden...” Eta, Gasteizko eta, Bilboko eta istoria horiek zer dira? Estraperloa zer da?

- Bilbokua ez.

- Bilbokoa ez. Gasteizkoa eta?

- Gasteizkoa, ba, etortzen ziran batzuek olixuakin, beste batzuek azukriakin... Tripia bete-bete eginda, holan, korsia moduan ipintzen eben, betetzen eben han azukria, eta hustutzen eben, eta guk saldu! Isilka-isilka, eta, ba, pezetia irabazi ahal dan moduan!

- O.: Kafia, tostau barik ekartzen oskuen.

- Kafea tostatu gabe!

- Bai, geuk tostutzen genduan. Han sakape baten, geuk tostau.

- Eta poliziak eta, sindikatuak eta, ez ziren enteratzen ala?

- Sindikatua ez zeguan horrenbeste, poliziakua zebillen asko. Baiña, suertia euki genduan. Behin etorri jakun! Eta preziak eta: “Ene! esan eskun hau prezio honetan saltzen dozue?”. Eta: “Bai”. Eta: “Ene! Hau merke saltzen dozue!”. Esan eskun: “Hau merke saltzen da, honeri tokatzen jako el 25% eta zuek gutxiago kargatzen dozue”. Bueno, holan pasau zan. Eta segi aurrera.

- Baina badakit oso prest zeundetela, oso preparatuta zeundetela edozein etorrita ere gauzak ezkutatzeko.

- Hombre ba, bueno...

- O.: Bai, ahalegindu behintzet!

- Ez da fazilla, suertia bihar da hemen.

- Bueno, eta, orduan, lehenengo momentuan...

- Zelan ez zan kantidade haundixa ekartzen... Txikixak ziran eta txikixa errezago zertzen da.

- O.: Pixkaka-pixkaka, holantxe...

- Bai, pixkaka-pixkaka, baina astearen buruan hura dexente da eta urtearen buruan...

- Guk pasatzen [gendun] larrixak! Trenetik etortzen, illaran etortzen ziran gure etxera zerak, estraperlistak. Gurera. Bazekixen gurera etorri eta salduta zeukena, eta gurian hustutzen eben eta juaten ziran.

- Orduan horrek esan nahi du, zeuk, saldu, asko saltzen zenutela.

- Bueno..

- O.: Askoi! Pixkat, baiña...

- Pixkat, baiña!

- Edo bestela, beste batzuk etortzen zirela hara, bila.

- Ez, ez, ez, ez.

- O.: Ez, beste dendakuek ez e! Horixe ez.

- Hori zen beti han. Zuek suertea ere bazenuten! Zuen denda ez zegoen Eibarren estaziotik urruti.

- Ez.

- Kaletxo bat pasa eta bertantxe.

- Kaletxo bat eta ya está.

- Sartzeko ere, atea irekita beti!

- Bai, horixe bai.

- Beraz, "ultramarios" denda hori daukazue, zegoenetik -eta hori azpimarratu egin behar da- saltzen zen, zer zegoen horixe saltzen zen... Gero erabakitzen duzue -zeu pastelero zinen eta- pastelak eta gozokiak saltzen hastea. Baina lehenengotan ez zenituen zeuk egiten.

- O.: Ez, Bergararik...

- Ez, ez. Ez geunkan kuporik. Eta kupua zela ez geunkan, ba, ezin giñuan ekin.

- Eta kupo hori zer da?

- Ba, kupua zan, azukria eta... Interbeniduta zeguaz horrek; hori estaduak zekan interbeniduta. Eta horixe da kupua! Kupua izaten da rasionamentuan emoteko, ez dakizu?

- Bai, bai.

- Eta guk zela ez geunkan, gero zelan ekin gentsan, gu ez genguaz hor, gu aparte genguaz hortik.

- O.: "Horrek gixajuok ez dabe urtengo aurrera!" esaten zoskuen.

- Jendeak hori esaten zuen, "Horiek gizajook ez dute aurrera egingo"? Azkenean behintzat, kupo horiek-eta arindu ziren eta zu hasten zera pastelak egiten.

- Bai, libertadia emon ebenian, hori interbenziñuori kendu ebenian, orduantxe hasi giñan gu.

- Eta, klaro, berriro...

- Ba, preparau egin bihar genduan, geure hornuak ipiñi eta gauzak ipiñi eta gero industriasera sartu genduan, eta ba...

- Zuk zeure bizitza hor eraman zenuen.

- Bai, normaldu, normaldu.

- O.: Hori, dala 44 años.

- 44 urte hori izan zela, 53an da hori. Beraz, hor historia luze bat dago eta harrezkero zuk ez diozu pastelari utzi.

- Ez, ez.

- Harik eta erretiratu ziñen arte.

- Gaur be egin ditturaz.

- Gaur ere egin dituzu!

- Bai, zuri emoteko batzuek.

- Hori ere bada!

- O.: Cumpleaños guztixetan egitten dau.

- Bai, baina hori afizioa da. Baina zuk dendan horri eutsi diozu.

- Bai, bai, bai. Ya urte mordua da egitten dodala.

- O.: 66 años.
- Hor, beste gauza bat da... 53a diozu, ordurako gauzak normaltzen hasita zeuden.
- Bai, bai.

9.8. Garai bateko Eibar euskalduna

- **Hizlaria(k):** Berasaluze Unamuno, Dolores
- **Elkarrizketatzailea(k):** ...eta kitto!, Euskara elkarte - Irazola, Idoia
- **Erref:** AB-109/024
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Polizia
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Lehen Eibarren denak ezagunak eta euskaldunak. Zorroztailleak, erdaldunak. Guardia zibilak baserrietara joaten ziren eta sinadura eskatzen zuten, handik pasa zirela ziurtatzeko. Baserritarrak guardia zibilei ulertu ezinda.

Transkripzioa

- Lehen trankillagua eta, Eibar zan... bueno! Dana ezauna eta dana euskalduna eta... Bueno, kastillanuk lehen ibiltzen ziran, zerak, lapikuen ipurdixak sartzen zittuen...

- Saltzen?

- Ez, sartu.

- Zelan sartu?

- Kazuelia apurtutakuan, lehenago, zerak ipintzen ziran, azpikua barrixa. Ba, paraguer...

- Paraguerua?

- Paragueruak. Horretzek bakarrik. Ostian, danak euskaldunak. Eta neri akordatzen jata baten, han, guretik gora pasata, preguntau ei etsan eze: "¿Ya podía usted firmar aquí?", "Nik ez juat entenditzen ezer! -Bai, guardia zibilleri- Nik ez juat ezer be entenditzen". "A ver si puede..."

- Zer esan etsan? "¿A ver si puede firmar?"

- Bai, ba, eta ez eban entenditzen "sí" ta "no" be ez . Ezer be ez eban entenditzen! "¿Ya me puede firmar, por favor?", lehen basarrietara juaten ziran guardia zibillak, firmia hartzera. Eta: "Zer esaten dozu? Nik ez dot ezer be entenditzen". Etara zera, [...] eta: "Nik ez dot entenditzen ta!". Eta gehixago... "Ni gehixago ez laga etxian bakarrik, porke guardia zibillak edo edozer etorten danian, nik ez dakit zer esaten daben, bai? Eta ni ez gero bakarrik laga!". Etorri zaitte hona! (umeari). Ba lehen? Baiña lehen dana euskeraz! Erderaz, baiña barbarik be ez, e! Lehen esan doguna, txorroztailiak, kutxilluak-eta zorrozten ibiltzen zianak, eta planto.

9.9. Karamelu eta txurro saltzaileak

- **Hizlaria(k):** Larreategui Arizaga, Luciana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-203/009
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:13:40. **Bukatu**: 00:15:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena**: Karamelu saltzaileak Untzagan egoten ziren karroekin. Zaporeak; karamelu klaseak. Bakoitzak "txikita" bat balio zuen eta handiena non zegoen begira ibiltzen ziren. San Juanetan txurro-saltzaileak etortzen ziren. "Txikita" batekin txurro bat.

Transkripzioa

- Ta karameluak be Untzagan saltzen zittuen, karameleruak, karro batekin. Ta "caramelos de malvabisco, caramelos de menta, caramelos de fruta, chupetes"... "Chupetes" zian luziak. Ta juaten giñan lehelengo orduan hara be, bagenkaun txikita bat, txupetia erostera. Ta "chupetes" zian, holan, kanelen forman, baiña karamelua. Kanelen forman, ezta?, holan, luzekiña, baiña karamelua. Ta han egoten giñan begira lodixenak zein huekotan daozen, lodixena hartzeko. Prezio igualian, lodixena. Holan ibiltzen giñan, aztarka, lodixauak urtetzen daben azpittik... eta "¡Que no se puede revolver tanto!" esten eskuen karameleruak. Danak kastillanauak karameleruak, e! "¡Que no se puede revolver tanto!" ta hori esaten ebanian, ba, egon holan pixkaten begira ta, ba, begixa zeñek betetzen daben, haxe hartu ta listo. Ta txikitia bakotxa.

- Eta karameleruak beti bardiñak ziran?

- Bai, bai, beti bardiñak.

- Baiña Eibarren bizi ziran ala kanpotik etortzen ziran?

- Ez dakit, hori ez dakit. Nik pentsatzen dot Eibarren biziko ziala harek. Ez dakit. Gero, San Juanetan txurruak. Harek kanpotik etortzen zian. Txurreruak. Txikitia txurro bakotxa. Gerra aurreko ipoiña nao ni esaten, e! Txikitia txurro bakotxa. Neri gustatzen jatazen txurruak...! Txikitiakin txurro bat. Ta "Ese no, ese es mas grande", beste bat ikusten baneban haundixaua, ta barre ein ta haundixaua. Papel pusketa batekin emoten etsun, ta txikitiakin...

9.10. Karea erabiltzen zen hormetako bitarteak ixteko

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/006
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:11:58. **Bukatu**: 00:13:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena**: Lehen ez zegoen zementurik. "Hiraulika" edo zementu azkarra. Etxeak harriarekin egiten ziren eta harea eta karea nahasten ziren hormetako bitarteak ixteko.

Transkripzioa

- Zementuak ondio zenbat urte dakaz ba? Zementuak igual eukiko dittu... nik ez dakit zenbat dakazen, baiña... hirurogeta hamar bat edo. Lehen ez zeuan zementorik!

- Ta dana harlosak?
 - Losia ta harrixa... [kin eitten zaben] paretak! Ez zeuan, zemento armaua ez zeuan. Hiraulikia esaten etsen. Ahora, oin deitzen detse "cemento rápido" esaten detse oin. Lehen hiraulikia esaten etsen. Baiña harek ez eban balio etxiak-eta eitteko. Harek... Busti ta segiduan gogortzen zan ha. Harek... rapido ibili bihar zan pinttatzen. Hau... oin ha eliminau, oin beste aparato gehixao dao. Buenoo...! Lehen zementorik ez euan. Ta eitten zittuen, ba, etxiak eitten zittuen harrixakin ta karia ta haria. Plaiatik haria ekarri bai? Haria, plaiako haria. Ta "cal", badakizu zer dan? Harekin nahastatzen eben ta bota ura ta masia ein. Paliakin. Ez makiñiak oingo moduan, paliakin, "ra!" bueltak emonda. Alde baten jarri bata, pioi bat, ta beste bat... [buelbaka] masia ein. Ta gero harrixa... ha izaten zan harrixan bittartia betetzeko. Ta karia gogortu eitten da denporiakin. Ta haria ta karia, bixak [beteta], gogortu eitten da ta gero paretak gogor geratzen da. Ointxe be egongo dia Eibarren paretak, kariakin eindako paretak. Asko ez, e! [...] gerran apurtu ein zan, baiña oindio egongo diaz.
 - Eta, orduan, hori erabiltzen zan. Zemento moduan, horixe.
 - Haria. Haria eta karia, nahastautu.

9.11. Karobiak eta karegintza II

- **Hizlaria(k):** Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-294/009
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:20:32. **Bukatu:** 00:21:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- **Laburpena:** Karobiak. Non zeuden, karea zelan egiten zen, zertarako erabiltzen zen...

Transkripzioa

- Eta oin aittatu dozuna, karia ta, karia ze eitten zeban, basarri bakotxak berana edo auzolanian?
 - Bakotxak berak eitten eben, bakotxak berak eitten eben! Ba, alkarri lagunduta ta, igual, batari edo bestiak lagundu eitten... ta gero partidu, ta holakuak eitten zittuen.
 - Zeuek, orduan, zeuen karabixa zekazuen?
 - Bai, karabixa. Ubitxan zeguan bat, han [...] honutzatxuago ta otiakin erretzen eben! Baiña otia montoi haundixak ekarri, bai, mendittik? Badakizu, otia laster erretzen da, su bizixak, otiak... egur gogorra... Ta beti hantxe, egun guztia sartu ta sartu ta sartu...
 - Orduan ze zan, tuberixa modoko bat eta behian zulotxo bat otia sartzeko?
 - Ba otia sartzeko ta ha garra, otian garrak, ba, harrixa erre eitten dau, bigun-bigun eitten da dana masia, masia eitten da! Harrixa izaten da hori! Baiña kareharrixa izan bihar dau e!
 - Eta zenbat orduan edo egunian euki bihar zan hori?
 - [Horixe...] nik...badakik, ni gaztia nitzuan orduan ta ez [...] akordatzen holan, zenbat egunian eitten zan, baiña igual egun bat edo bi edo hiru edo bai, pare bat egun bai behintzat.
 - Ta hantxe egon bihar pare bat egunian otia sartzen?
 - Bai. Bai ba.

9.12. Ikazkintza Ipurua inguruan

- **Hizlaria(k):** Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-294/010
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:21:33. **Bukatu:** 00:22:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- **Laburpena:** Ikatza zelan eta non egiten zen. Txondorra zelan egiten zen.

Transkripzioa

- Egurra eitten zan moduan, ikatza eitten zan moduan... Oin be eingo dabe baten batzuk ikatza. Txondorrak ein ta gero egurra sartu ta gero, ba, txondorra igual egoten da zortzi egunian erretzen.

- Eibarren be eitten zan?

- Eingo ez zan ba Eibarren ikatza? Ene! Baita hor be Ipuruako zerietan ta edozein lekutan eitten zan ikatza orduan! Eitten eben, ba, pagua bota, paguak eta egurrak, bota egur pillo haundixa, e? Ta eitten zebeu erdixan zulo bat ta gero, zohixa, badakizu zer dan? Zohixa, zerak... lurra, bedarrakin ebagi, atxurrakin, holan, zohixak ta gero eitten eben egur montoi haundixa: pago-adarrak, pago-buruak... Ta gero, eitten eben bueltan lurrakin tapau dana. Ondo tapau bihar da, e? Bestela su hartzen dau! Ta tapau ondo ta erdixan zulo bat lagatzen etsen ta gero eitten eben albuak brasa bat, brasa haundi bat. Brasia badakizu zer dan, erretako egurra, ez dakizu? Ta ha paliakin botatzen etsen erdi-erdira. Ta gero tapau ta gero denporiak hurek su hartzen dau ta hurek egurrak danak erretzen diaz. Erre ez, egosi! Erreko balitz ez dau balio... Ikatza horregaittik da, gasa daka ikatzak.

9.13. Pinuarekin egindako ikatza eskasa

- **Hizlaria(k):** Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-294/014
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:29:56. **Bukatu:** 00:30:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- **Laburpena:** Karobiak aspaldi galdu ziren, baina txondorrak beranduagora arte iraun dute. Gaur egun oraindik badagoela egur-ikatza eta nonbaiten egingo dela dio. Pinuarekin egindako ikatza eskasa.

Transkripzioa

- Gerra ostian oindiokan txondorrak-eta eitten ziran?

- Bai. Gerra ostian be bai!

- Ta noiz amaittu ziran karabixak eta txondorrak eta?

- Karabixak antxiña, e! Karabixak nik hamar urte nekazela desaparexiduta zeguazen ya. Jentiak laga ein etsan.

- Eta txondorra?

-Txondorrek ointxe arte. Ointxe be igual eingo da txondorra! Ointxe be eingo dia txondorrek, e? Oin be egur-ikatz badago, e? Hori berez ez da eitten! Hori ein ein bihar da! Egur-ikatz oin be eingo dabe puntu batzuetan! Hor... nik pentsatzen dot oin eitten dala, oin... Badakizu, arbolak be asko ez dago ta, piñua dago ta bakarrik... Piñua ikatz eskasa da! Ixa ez dau balio! Piñuakin eindako ikatz flojua da, ez dakit... txinpartia ugari ta ezebez, ez dau berotzen. Oin eingo da, nik pentsatzen dot, Naparrua aldian eingo dala ikatz asko. [Ipintzeko] hor mendi haundixak daoz ta. Zuk jakingo dozu nik baiño hobeto. Gaztiak hor asko ibiltzen dia ta. Hor... hor... egurra... egur asko dao hor. Hor uste dot eitten dittuela ikatzak oin, e!

- Baiña lehen hamen be egongo ziran, ezta?

- Hamen be egurrak... Klaro eitten zana!

9.14. Udaltzainak umeei haserreka

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/040
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:51:28. **Bukatu:** 00:52:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Udal langileak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Udaltzainek ez zieten lagatzen jolas batzuetan ibiltzen Untzaga inguruan. Iheska ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Hau, Untzaga plazia orduan, gaiñera, jolasteko-ta toki ederra izango zan, ez?

- Bai, baiña zeuazen aguazil batzuek... ezeixu pentsau, e! Oinguak ez dakit nik autoridadia daken, baiña lehenguak bazeken!

- Ze eitten zetsuen, ba?

- Mekatxis! Ba... ba, segun. Igual baloiakin-edo mutillak edo antxitxiketan, ba, asko, ez zetsen lagatzen. Zan bat... zelan zan? Jose... ez naiz akordatzen ze motia zekan. Baiña zan... bueno! Ikustia bakarrik eta... antxitxiketan!

9.15. Eibarko ile-apaindegiak

- **Hizlaria(k):** Agirre Berezibar, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-033/003
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:03:44. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Eibarko ile-apaindegiak izendatzen ditu, asko ziren gerra aurretik. Bakoitzak txapa doratu bat izaten zuen ile-apaindegia zela

jakiteko. Jende asko joaten zen ilea moztera eta lan asko zuela-eta aitak alpagata denda utzi egin zuen.

Transkripzioa

-Pelukero gitxi egongo zan orduan?

-Bai, baeuazen ba, baeuazen. Porke nik erretrato bat badaukat, porke eskursiñuak-eta eitten eben pelukeruak, e. Ta, bakizu, gero haunditu ein zan ezta Eibar be ta. Dakat nik erretrato bat Gernikako Arboliai da hantxe parian pelukero Eibarkuak, kuadrilla ederra, e, guapuak gizonak danak. Porke baeuan pelukerixia, hamen Calbetoian be bi euazen, gero Unzagan... Lelengo-lelengo ez baiña gero bai; Isasixan be bai, Estaziño Kalian be bai, Patxonekua edo, ta bastante pelukero euan. Gerria baiño lehenao, e.

-Julita: Ez zate akordatzen hola dorau txapa bat eukitzen eben. Barberixia euan tokixan ez eban ipintzen "Barberia" eta ezebez, plaka haundi bat dorau bat, hauraxe eukitzen eben.... pelukerixia Eibarren, eta danak eken horixe. Bola haundi bat dorauta.

-Plateltxo bi txintxilizka halan zer batekin, dorautxo batekin. Polittaua! Haxe ez genduan gorde, pena bat emon estan neri, pena bat, porke neri gustatzen jata gauza antiguak asko gustatzen jata.

-Julita: Dan-danak pelukeruak hauraxe jekanen, ha euan tokixan [bazekizun] pelukerixia zala.

-Bai ba, botikia, ez dakizu, oin ipintzen dau kurutzia; ba len haxe, pelukeria.

-Julita: Gero dorau bat, txapa eder bat biribil-biribilla.

-Pelukerixak zer zien, pelukerixia eta barberixia be bai?

-Bai, bai.

-Jentia zer joaten zan gehixago barberixiagaittik edo pelukerixia edo?

-Bixak. Askok bizarra etxian kentzen eben batzuek, ezta, baiña gero pelukerixara gehixao ebatera, ulia ebatera. Biña gero "Hi, kendu idak bizarra be". Ta bixak eitten eben. Eta gero kriaia hartu bihar, gero, e, gerria baiño lehenao, e. Eta eitten eban biharra nere anaiak eta zapatuetan hori gizonori, Baldo zekan izena, eta nere aittak. Hiru gizon, e, hiru silla beteta; porke, bakizu, Untzagan jente asko jutun zan, jente asko. Parrokixa asko ekan nere aittak.

-Ulia oin baiño gehixao moztuko zan, ez?

-Bai, bai, gehixao, ene! Lehen gehixao. Eta neskatxueri be bai ta mutikotxueri be bai ta daneri. Bihar asko ein eban.

9.16. Arrateko kioskoa

- **Hizlaria(k)**: Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-043/024
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:26:39. **Bukatu**: 00:28:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Arrateko bizimodua aipatzen du. Gozo-denda nolatan zabaldu zuten kontatzen du: irudiak, kandelak, gozokiak...

Transkripzioa

-Orduan bizimodua ataratzen zenduen hasiera baten behintzat ortutik eta zuen txarrixak.

-Bai, bai. Txarrixak bi izaten zien, bat saldu eitten genduen. Hori ez zan urte askuan izan, e, bost bat urte edo txarrixak.

-Eta orduan pentsau zenduen kioskua ipintzia?

-Gero umiak eta. Gero eskursiñuak eta hasi zien da lantzian behin etortzen zien igual ba ume batzuk eta: "En este pueblo no hay ni caramelos", nik entzun nion bati egun baten. Eta esan nion tiori: "zu don Pedro, hauxe ta hauxe entzun dioet umieri eta ez litzake gaizki egongo ezta, e...". Eske ez dauenian, ez dakizu, dana akordatzen jatzu ta. Ze begittantzen jatzu holan zeoze ipiñiko bagendu umiendako ta". "Ene! Idea ona da ba. Ikusiko dou ba, ikusiko dou". Ta bueno, holaxen geratu zan-da. Gero halako baten akordau jakon. "Bakizu ondo egongo litzakela -medaillak-eta bazeukazen berak han sakristixan batzuk, baiña- hori armarixuori atara elizpera domeketan-da, hortxe ipiñi leikez". "Bai baiña hor egoten dan haiziakin", ta holan da. Bai baiña haura itxi ezker eta ez dakit zer, eta bueno, holaxen. Lenengo hasieria hoixe zan, atara kanpora gauzak.

-Mahitxo bat edo.

Bai, mahixa ta gero holan paretian ipintzen gendun beste baldan moduko batzuk, eta han ba ia eskatzen zien, etortzen zien biajantiak be Zaragozatik imajiñak eta saltzen eta...

-Eta kandelak.

-Bai, gero kandelak bai, batera zian kandelak be. Eta gero han ipiñi han txintxilizka eta eskatzen otsuen, ta behian kajan edo ahal dan moduan-da. Gero urtietara akordau jakon ba ipintzia, dendatxo bat ein elizpian. Batzuei ondo begitantzzen jakuen, beste batzuei ez, baiña ondo etortzen zan santuarixuai laguntzeko, porke bakixu lehen hori zaharra zeuan eta gero ba berrittu zan pixkaka-pixkaka.

9.17. Gozokiak, kandelak eta opariak salgai

- **Hizlaria(k)**: Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-043/027
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:30:48. **Bukatu**: 00:31:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Arrateko kioskoan gozokiak, kandelak eta opariak saltzen zituen.

Transkripzioa

-Dendan eta zer saltzen zenduen gehixen-gehixen?

-Ba gehixen kandelak eta zera, santuarixoko gauzak. Medallak eta estanpak eta gero etxian eukitzeko adornuak eta hola. Bai, gero gozokixak asko umiak zoiazenerako ta. Gero mantekaua beste kamara bat edo bi; udan bi eukitzen genduzen. Eta eskursiñuak etortzen zienian hantxe laurak arte edo. Bazkaldu be ein barik benga. "Maritxu dame esto", ezautzen nabena eta bestiak "señora, señora!", ta holan, pozik, ai!, oso pozik. Umiak oso zerak dia, oso maitagarrixak.

10. Bestelako kontuak

10.1. Gozotegiko lana, gogorra

- **Hizlaria(k):** Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Euskadi
- **Erref:** AB-094/014
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:46:21. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- **Laburpena:** Pastelak gaur egun ez dira eskuz egiten, makinaz egiten dira. Berak egindako pastelak estimazio handia izan dute. Lan kontuak. Goizean goizetik iluntzera arte lanean. Lan gogorra.

Transkripzioa

- Bueno, pasteleritzan gaur hori erabat aldatu da.
- Hori konpletamente. Makiñarixak eta dana-dana. Oin ya, hojaldria eta -nik esaten doten moduan- ez da egitten. Hor makiñetan dana egitten da.
- Eta, gainera, industria bezala jarrita dago.
- Bai, bai, bai, bai. Oñ ez dago holan...
- Baina Gregorio, horrela kolpetik galdetuz gero: zuretzako -hor eskuak beti masa hortan, ore hortan erabili dituzu- hola gaurko industrian egindakoa ala...
- Bueno! Akaso harek hobiak izango dira.
- Akaso diozu. Horrek esan nahi du zeuk estima handia...
- Nik neuk, egindakua nahixago. Asike, badakizu!
- Bai, bai, bai.
- Nere pastelak estimaziñua euki dabe. Nere relanpaguak eta txutxuak eta kanutilluak estimaziñua euki dabe, horretxek izan dira nere zerak. Eta gero relleño honek, e, almendrazkuak. Harek euki dira... exitukuak izan diraz. Oin, beti izan dira karutxuaguak eta gutxitxuago saltzen ziran. Baiña nahi dabenak haxe nahi dau.
- Bai, bai, bai. Eta gero, helatuak eta?
- Ez, horretan ez gara sartu, ez gara sartu.
- Ze industriak gozotasun hori, samurtasun hori, igual, jan egingo dio, kendu egingo dio zerari.
- Bai! Bai, bai, bai. Jendia jarritta dago artifiziale jaten. Jarritta dago horretara, e! Hauraxe nahixago dabe. Ez dau gure moduan lanik iñork egitten oin, iñork ez.
- Labe horien ondoan bero egingo du, e!
- Bueno baiña artia hartzen jako horri be.
- Eta ordu asko!
- Orduak, ba, bai. Ordu asko! Goizian ekin eta illuntzira arte! Eta hurrenguan berdin!
- Atertu ere egin gabe.
- Bai, bai.
- Eta gero, gainera, pasteleri eta hauek, gozodenda, gozotegiak eta hauek, arazo bat daukate: iganderik ere libre ez daukatela.
- Hori da txarrena! Gurian ez dabe nahi iñok horretxegaittik.
- Igandea! Hori, hori zan e...
- Eskasa!
- Segi egin behar!
- Segi egin bihar!

10.2. San Blas opilen aitzindariak Eibarren

- **Hizlaria(k)**: Kortaberria, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Euskadi
- **Erref**: AB-094/017
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:53:24. **Bukatu**: 00:54:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- **Laburpena**: San Blas opilak. Gregorioren osaba eta beste bat (Oiarbide) hasi ziren Eibarren San Blas opilak egiten.

Transkripzioa

- Hala ere, bada ohitura bat Eibarren: sanblasak. Eta hortan ere, Gregorio, zuk zerikusirik baduzu.
- Bueno! Nik ez asko, baiña nere osabak bai. Nere osaba eta beste bat hasi ziran lehelengo, Eibarren, sanblasak egitten. Lehelenguak geu gara Eibarren. Hortxe amaitzen da.
- Eta zer dira San Blaseko opil edo horiek?
- Sanblasak, dira, ba, bizkotxo on bat eta gero gaiñetik egitten detsazu baiñu bat: arrautza zuringuakin eta azukriakin egitten da pasta bat eta harekin gero gaiña zuritzen jako. Oso onak!
- Eta anis apur bat.
- Anisa be bai, dana, dana. Arrautziakin, arrautza onakin eta uruna eta dana!
- Erroskila izan ordez opila dala.
- Bai, baiña erroskillia egitten da zertxuagua, merketxuagua edo ez dakitt... Hori hobia da.
- Orduan, inbentoreak zuek!
- Bai, nere osaba. Oiarbide edo, bestia izan bihar eban.
- Eta orduan, tradizioa zeuek egin duzue.
- Bai, geure... nere osabatik dator lehelengo-lehelengo sanblasa Eibarren.
- Baina tradizioa, gaur tradizioa da!
- Bai, bai, bai, gaur tradiziua.
- Eta San Blasik ez dago sanblas opilik gabe!
- Danak egitten dabe oin! Oin etxe guztietan be ikasitta dagoz, oin danak egitten dabe. Baiña ona, geurian!

11. Herria, azpiegitura

11.1. Eibarko efemerideak

- **Hizlaria(k)**: Lizarriturri Barrutia, Alejandro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-160/009
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:15:20. **Bukatu**: 00:16:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Eibarko efemeride batzuk: etxe esanguratsu batzuk noiz egindakoak diren; noiz bota diren beste batzuk. 1901ean, Udaletxea egin zen, esate baterako. Zumaran dorretxea 1952an bota zuten. Ez du gogoratzen nor zen garai hartan Eibarko alkatea. Guimón alkate zeneko anekdota polita.

Transkripzioa

- 1901 aiuntamentua zertu zuan. Aiuntamentua... osea, bota hori eta ein juen subasta batzuek eta zera eta inaugurau zuan. Eta zera, ospitala be bai ta. Danak [jakaraz]apuntauta; zera, hamengo zer guztiok, etxiak eta inportantiak eta. Hori bota ebana bai, 52ian, zera, Palacio Zumaran.
- A! Bai, Indianokua.
- Orduan ez jakixat zein zeuan alkate; ez jakixat, Anitua... Guimón ez, Guimón aurreraotxuau zuan. Guimón famosua operadoria?

- Bai.
- Haren aitta alkate egon zuan. Haretzek ein juan zera. Orduan zerak... astintzia zerok prohibiduta jeuan.
- A bai?
- Bai! Halako ordutan edo halako ordutatik edo, goixian goixao edo, ez dakik? Bihargiñak juan baiño lehenao edo kalia jentia ikusi baiño lehenao. Ta beran kriadia ikusi eban ta multia. Multia emon etsan zerari, neskiari. Gero... E? Etxetik urtetzerakuan ikusiko eban ta "Multia dakazu zuk. Ejenplua ein bihar da".

11.2. Lagun giroa langile eta ugazaben artean; elkarrekin txikiteoan

- **Hizlaria(k)**: Bolumburu Inza, Arnaldo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sangroniz, Mikel - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-168/021
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:47:50. **Bukatu**: 00:51:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena**: Taberna giroa gerraostean. Abesteko zaletasun handia zegoen. Badet taberna, oso ezaguna. Ugazabak eta langileak, elkarrekin txikiteoan. Eibarko alkateak ere (Esteban Orbea; Javier Eguren; Juanito Egia; Antxon Iraolagoitia) beste guztiekin batera txikiteoan.

Transkripzioa

- Girua esan dozu? Edarra! Danak kantuan! Hor, zerian... Badetenian... "La escala" deitzen etsaun. Badetanekeo taberniari? "La escala de Milán". Han illuntzietan ta zapatuetan ta... grupuak, ondo kantatzen ebenak, ta gaizki kantatzen genduanak be bai. Aitzen dozu? Pixkat zertu, txikito mordo bat eran, ta jo-ta oillarren moduan gero danok han! Baiña ondo kantatzen ebenak gehixenak hara azaltzen zian, Badetenera, ta han kantau ta... Beste zer batzuetan be bai, e? Beste taberna batzuetan be bai. Bueno...! Eibarren? Eibarren hori zan... bueno...! Ta gero, ba, giro ona. Gauza bat euan geiñera ona, bai direktoria, bai ugezaba, bai enkargaua edo bihargiña txikiteuan alkarrekin danak. Ez euan zerik. Ni jefia nitzanian GAC-n, ba, kafia, porejenplo, "cadena de montaje", orduan lehelengua Eibarren ipini zana, GAC-ak ipini eban, ta nere egunian danak inbitatzen nittuan kafia hartzera zerera, Agiñaspiñera. Baiña euren eguna [...] be, ixa egunero kafia hartzen Agiñaspiñian! Bueno, ni egunero juaten nitzan, porke nere kontura be, ba, gustatzen jatan... Neri bakarrik ez, Eibar guztiari! Ba, bazkalostian, "da!" taillarreruzkuan, kafiori ta zigarro-puruakin, fariasakin taillarrera! Joe...! Pufa...! Baiña gero biharrera, e! Ez gero jokuan eittera, e! Taillarrera juaten zanian, biharrera! Bai. Horrek, horrek danok... Bueno...! Ta hori sarritan komentau da, ta eskribidu be bai iñok iñoix, Eibarren horixe egoten dala, sekula ez dala distinziñorik egon bai ugezaba, jefia, enkargaua, bihargiña, akabatzaillia edo ingeñierua... danak nahastauta! Alkatia be igual... Alkatia be txikiteuan zerekin... "¡Con el populacho!".
- Francon sasoian be bai?

- Bai, bai! Esteban Orbea ta... gero, hau, Javier Eguren ta... txikiteuan, kuadrilliakin! Egon dia aletakuak ezetz be... Hernando ta ba... pixkat zerauak edo... Justo Oria ta. Baiña... honek... Egia, Esteban Orbea, hau zerau... Juanito Egia, Antxon Iraolagoitia ta horrek beti kuadrilliakin ta zerakin. Ta hori izaten zan, kanpoko jentiandako-ta... joño! atenziña deitzen eben. Ta ugezabak eta... Neri ugezabak, bueno...! Noraki zenbat denporan, nausixak, jerentiak, "director gerente", Paco Anitua zan, eguardixetan urtetzeruzkuan zain egoten zan, nerekin etortzen zan barriketan. Bera hamen bizi zan Zuloagasen ta ni Dos de Mayuan... Alkarrekin berbetan. Iñoix esan be bai batzuek: "Pelota!" ta holan, pixkat broman. Bai. Nerekin... sarri etortzen jatan mahaira be bai, ta komentarixuak eta bestia ta... Horixe da gauza ederra! E? Zera eukitzia... hori amistadiori.

11.3. Gaztetatik esnea saltzera Eibarrera

- **Hizlaria(k):** Gisasola Aldazabal, Euxebi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-205/013
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:27:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
 - Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Umetan ere baserriko lanetan lagundu behar. Antzinako bizimodua eta gaurkoa. Euxebi egunero jaisten zen astoarekin esnea saltzera Eibarrera. Plazan, asto-korta zegoen. Ixuarako bidea noiz egin zuten (1914an); bidea egin aurretik nondik joaten ziren.

Transkripzioa

- Baiña orduan basarriko umiak basarrixan lagundu ein biharko zeбен, ez?
- Baitta! Biherko, hori da! Hori da! Ni, ba, bastante ondo defendidu nitzen, porke neu bakarrik nitzen ni ta eragitten zosten [...] ta horretan, baiña ibilli nitzan denporan, jeneralmente, eskolara bialdu eitten niñuen. Baiña beste asko igual ez! Igual, "Bueno, gaur ez dao astirik eta bapez!" ta biharra ein bihar. Holaxen.
- Orduan gogorra izango zan basarriko bizimodua, ez?
- Puf! Enee! Oin nik esaten dotset semiari ta: "Oingo bizimodua? Isildu zaitte! Oin coser y cantar oin basarrikua, e? Lehengua ikusitta..." Egixa da hori, e? Bueno, bueno, bueno! Geuk egin doguna, e! Bueno! Ba, nere gizon difuntua, ba, ointxe zazpi urte, zortzi dator hil zala, ta, bueno, azkenian ez, e! Aurretik, ba, infarto bat emon zotsan ta azkenengo bi urtian edo holan ez, baiña... goixeko seiretan hankia kanpuan! Jangoikuak dakazen egun danetan! Urte Zahar egunian amaittu ta Urte Barri egunian hasi! Ta "¡sigue!" Kitto! Ta hemendik Eibarrera, badakizu, esniekin ta gero azken aldixan, ba, kotxiakiñ ibilli nitzan, baiña hemendik Eibarrera astuakin jun zaitte ba egunero! Ta etorri ta gustora ibiltzen giñan! Hori zan baltza! Zu, disfrutau eitten genduan, e? Ta ez genduan pentsatzen munduan hoberik e(g)uenik! Ba, juntatzen giñan iguel lau edo bost, astuek, pillak, eta jarri asto gaiñian. [...] oin zentrala daguen lekuan beti asto gaiñian. Ta jarri asto gaiñian ta ogixa edo, zeozer, mahatsa badago mahatsa edo, zeoze jan! Ogi

zati galantak eta kontuak esan ta barre galantak ein ta...

- Ta hori nun?

- Hori bidian! Kamiñuan! Eibar...

- Beheruzkuan?

- Eeez! Ez, ez... beheruzkuan oiñez jun bihar zan...! Gero, gero!

Etixerutzien! Beherutzien astua kargauta [...] ta gorutzien geu jarritta! Geu jarri asto gaiñian ta... asto gaiñian etortzen giñan! Ta, bueno, ba, zu! Guk geure erara disfrutau genduan! Ta gero, ba, urrin bai e? Ta neke haundixa ta horrek danok, baiña! Igual eiñ goixian kalera osteria ta, zeozer (patatia edo) e(g)uenien atsaldien, [...] atsaldien barrero igual, bigarren osterie ta... Pentseizu e!

- Ta asto gaiñian dana!

- Asto gaiñian [baiñe]... astuakiñ! Hori da! Astuakiñ! Bueno! Biherko astuakiñ!

- Astua zan basarritarren laguna lehen...

- Bai, bai, bai... [Hemendik horixe...] Astua zan dana!

- Oin dala gitxirarte gaiñera!

- Bai! Bai, bai, bai, bai...! Ointxe-ointxe azkeneko urtietan zertu da, baiña ointxe gitxi dan arte, danak ez baiña bastante bai! Ta gero, ba...

- Gaiñera astuak lotzeko ta lagatzeko tokiak egoten zian, ezta?

- Bai! Plazan e(g)uen asto-tokixa, asto-kortie esaten jakona. Asto-kortie e(g)uen ta ez dakit ze pagatzen zan... tzakur haundixa edo... xemeikua edo... ta haintxe bat zaintzeko ta haintxe sartzen zian!

- Hori plazan, baiña gero Eibarren beste hiru edo lau...?

- Bai, bai, bai, bai! Muzataixan, oiñ ez dakit zer daguan... Muzataixa badakizu zein dan... zera, Aldatz aldera edo... zera, hartzen dana! Han e(g)uan gizon zahar bat, ointxe be ikusten dot, "Patri Mustur" esaten zotsen gurian. Ta haren aurrian be bi edo hiru aston lekua, ta gure tia zanak-eta ha ezauna ei euken ta "Patri Musturri" emon ez dakit lantzian behin zeoze, txakur haundi bat edo, orduan txakur haundixa dirua ta, ba, zainttu eitten ebal! Ointxe be ikusi eitten dot ha gizona! [...] holakotxe zer bat zan! "Patri Mustur"! Ta halakotxe ipuiñak zu! Lehenagoko gauzak... enee!

- Ta toki batzuetan Eibarren badare, han Urkusu inguruan ta Arraguetan ta nunbaitten uztaixak orman...

- Bai, sartuta, lotzekuek! Baita Jardinetan be! Guk Jardinetan gure [...] bete ta Jardinetan be [...] zerak lotzeko... Ortu bat e(g)uen "Zegamanekua" esaten jakona ta [haren]... sartuta, zerak, esolak edo... ezta? Ta han lotzeko zera libre egoten zan ta hantxe lotu ta "¡sigue!" Bai, bai... Eske nunbaitten lotu bihar zien ta!

- Astuak inportantiak zian orduan!

- Bueno! Horixe ziera! Jesus, Maria eta Jose! Oin baiño traba gitxiago [...] kotxiek.

- Eta bidiak eta dana diferentiak izango zian lehen...

- Ni jaixo orduko eiñ eben zera... hori... Katorzien, ezta? Uste dot katorzien eiñ ebela, bai, kamiñua, Ixurakua, baiña ostien... ostien ez zeguan iñun kamiñurik!

- Hamendik Ixura nundik igotzen zan?

- Hemendik Ixura juten giñan hamenditxik, hamen... ez dakit hemendik oin zelan esplikaiko dotsuten... Erakutsiko dotsut gero bidia. Hortxe basarri bat da Albizuri, hortik Ixuko iturririxia be bazan, oin galduta egongo da igual, Ixuko iturrondotik gora. Bertara urtetzen gendun bai.

- Eta hau inguru guztiau, Agiña ingurua asko aldatuko zan, ezta?

- Bai ta hemen gure ataittik pasatzen zien Markiñakuek be bai, Bariñakuek be bai... iguel... hau zan bide... oin kamiñua izetia moduan, ba, bide zahar bat danak pasatzekua. Gora ta behera ta danera. Bai, bai. Danera

pasatzekua zan. Orduan hemen paso haundixa [egon zan], oin kamiñuan zertzia moduen.

11.4. Eibarko presak eta errotak; Orbea lantegia lehena argindarra erabiltzen

- **Hizlaria(k):** Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-212/003
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:02:09. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Eibarren ur asko zegoelako sortu zen industria. Eibarko presak eta errotak; Orbea lantegia lehenengoa argindarra erabiltzen.

Transkripzioa

- Bartolo: Eibarren industria ein dok, horretxeaittik ein dok Eibarren industria. Lehen elektrizidaderik ez euanian, urakin ein bihar zuan ba mobimentu guztia! Ta Eibarren ur asko jeuan, errota asko. Hangotxiaaittik ein zan industria, ta gero, bertan jentia lanian ikasi ta gero elektrizidadia etorri zanian, jarraitu bertan! Baiña uragaittik izan da. Eibarren presa... asko euazen presak! Asko, asko. Eibarren, hasi bai Olarriatik eta Maltzagara, estaziñuan ondora, hari Susaeta 'Cojones' esaten jakon [...] hara bajeuazen, baiña hamar bat, hamar edo hamaika presa jeuzen Eibar barruan zihar. Kontau be ein leikez harek. Hasi zerian, Olerrian euan lehenengua, Zamakolaneko zererako, panaderixarako errota bat. Gero euan Otolan-erdi onduan jeuan: gero Amañan jeuan beste bat: hiru. Bat, bi...

- Agustin: Ta hamen Ariatzan be baeuan beste bat.

- B.: Ariatzan be baeuan. Ta gero Bidebarrixetan jeuzen, zerekua, Txomonerakua. Ta gero hor beste bat jeuan Arotz-Haundixanerakua...

- A.: Arotz-Haundixanekua, errota...

- B.: Asike, herrixan erdira inguru edo, sei presa-edo euazen! Gero erditikan, Urkuzuko... oin, itturrixa badaok ba...?

- A.: Urkuzuko itturrixan onduan...

- B.: Botijerua ipini juek ba...? Han be presia jeuan! Hango ura juaten zuan...

- A.: Orbeanera.

- B.: Orbeanera! Orbeak lehelengo taillarra ipini zeban lekura! Oin zera daon lekuan dok hori, ez dok? Horrek etxe barrixok ein jittuek, ba, klinikia egondako lekuan? Han aurrian ein eben, ba, etxe barri bat, zera, Gonzalezenan albuana, azeitunerman albuana? Haintxe zuan Orbeaneko lehelengo taillarra. Ura juaten zuan hara ta haintxe euan [zerori...].

- A.: Lehelengo Eibarrera indarra emon ebana haxe izan zan.

- B.: Gero argixa hartu zebana.

- A.: Argixa lehelengo emon ebana.

- Lehelengo bonbillia han ikusi zan...

- A.: Bai, bai, bai. Elektrizidadia handitxik. Ordura arte danak kandeledin edo...

- B.: Kandillakin! Karburuakin! Karburuakin ta olixuakin be bai kandillak.

- Zuek ezautu zenduen holakorik?
- B.: Ez, nik ez.
- A.: Ez, neuk be ez.

11.5. Argindarra baserrietara heldu zen garaiko kontuak

- **Hizlaria(k):** Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-212/004
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Argindarra baserrietara heldu zen garaiko kontuak.

Transkripzioa

- Argixa bazeuan, baiña ondiokan tokiren batzuetan egongo ziran kandillak eta kandelak eta...

- Bartolo: Hori aintziñako ipuiña dok, baiña basarri baten ipiñi zebeñian zera —hori, entzunda, hori ipuiñori?—, basarri baten ein ei juen, ba, bonbillia, argixori... Izaten zuan bonbillia, eukitzen eban holakotxe filamento bat, holantxik arko bat, ta gero puntia eukitzen juan bonbilliak punta bat. Puntia apurtzen bajakon ez juan balio bonbilliak. Holakotxe txurten bat eukitzen juan. Ta basarri baten ipiñi ei juen, ba, [...ori] ta "Enee...!" danak pozik! Zaharrenak, hango zaharrenak, esan ei juan ezetz, atraso haundi bat zala. "Zegaittik baiña?" ta "Piparik be ezin ixotu oin!". Lehen juaten zuan sutara ta ixotu eitten juan ba pipia... ta atrasua harentzako!

11.6. Amañako igerilekua

- **Hizlaria(k):** Marcano Muguerza, Niceto
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-284/002
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:00:46. **Bukatu:** 00:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Amaña ingurua zelakoa zen. Gerra ostean birritan bete zuten Alfa osteko igerilekua. 1939-40 inguruan itxi zuten.

Transkripzioa

- Nik pentsatzen naban gerra aurrekua zala.

- Gerra aurrekua bai baiña gerra ostian be pare bat bidar edo bete eban. Bai.

- Hori ze eitten zan, gero? Frankismo denporan,ez?

- Eh?

- Frankismo denporan eitten zan pistinia?

- Bai.

- Bai, ez? Sanidade kontuak, ez?
- Ba itxiko eben ba berrogeixan edo hogeita hemeretxian o berrogeixan.
- Ta juaten ziñazian zuek?
- Gu txikinak giñan txikixak bai.
- Zu noizkua zara? Noiz jaixua?
- Ba exactamente republikako eguna, urtebetera.
- Ene...
- Ta gaiñetik Niceto izena.

11.7. Urki ingurua eta San Lorenzo ermita

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/005
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:10:58. **Bukatu**: 00:11:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Urki ingurua: San Lorenzo ermita eta ingurua zelakoa zen.

Transkripzioa

- Hauxe zan zuena orduan, ez?
- Hauxe, hauxe zan, bai. Ta hau zan Urkikua, autopistiak bota eban hau. Hau ermittia, San Lorenzo. El diez de agosto San Lorenzo da. Diez de agosto, bai. E?
- Eta hor jaixak eitten zian, ez? Erromerixak...
- Joe, jaixak... Ya lo creo! Erromerixa demasak eitten zian hor San Lorenzo egunian!
- Zelakua zan inguru hori?
- Onaa! Eibarren ez euan parkerik... Parkia, Eibarko parkia horixe zan! Oin ze esango detsut, ba, Arrate moduan? Orduan ez zeuan kamiñorik be Arratera! Ez zan juaten jenterik! Horra... Eskolatik be, gu gabeko eskolatik ta maixuak "Hoy tenemos fiesta. Ala! Todos los alumnos..." , aurrian hartu danok eta Urkira, horrax. Ta hor zeuan plazoleta bat ta gero zeuazen losazko mahaixak. Nahi zebanak... Arraten daozen moduan oin, ezta? Orduan zemento gitxi euan, gaztia! Zementua ondio... atzokua da, e?

11.8. Gasolinaren orde zkatza kamioientzat

- **Hizlaria(k)**: Echeverría Oruna, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-294/011
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:22:52. **Bukatu**: 00:23:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorak
- **Laburpena**: Ikatzak gasa duela azaltzen du. Gerra ostean gasolinarik ez eta kamioiak ikatzarekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Egurra... badakizu, ikatzak gatsa daka. Eske zuk [...], braseruan oin ez dago holakorik baiña braseruak, igual honek androk eta, braserua ipiñi ikatzakin ta igual gasa... itto! Hil dira mordua! Neguan ta hotz haundixakin! Gasa daka horrek e? Haundixa daka gasa e! Zuei ez jatzue akordauko baiña hamen ale banaketak, gerra denporan, gasolarik ez zeguanian, ikatzakin kamioiak ibiltzen ziran! Ez jatzue akordatzen hori? Ta entzun be ez dozue egin?

- Ta zelan zan kontu hori?

- Ikatza botatzen eben ta kamioiak albuak, gasolarik ez zeguan ba, ta ikatzak, holako zer bat, tubo haundi bat eken ta ikatza bota ta su emoten etsen ikatzari ta gero harek gasa zelan dakan, ha motorrera juaten zan ta harekin ibiltzen zan motorra! Hori sekula ez dozue entzun zuek? Ba hori "kuarentaiunuan", "kuarentaiunuan" ibili zan hori, oin dala berrogei urte. Baiña ez zekan indarrrik gasolinia moduan. Indar gutxiagokin., baiña ibili egitten zian kamioiak! Ikatzak!

11.9. Txontako lantegi eta baserriak gerra aurretik

- **Hizlaria(k):** Idarraga Zulaica, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-325/005
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:05:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
- **Laburpena:** Gerra aurretik ere baziren lantegiak Txontan. Adibidez, "Mutiloanekoa". Eskopetentzat kaxak egiten zituzten bertan. Telleria inguruan ez zegoen beste baserririk. Gorago, Mertzete, Areta eta Aretaabeletxe.

Transkripzioa

- Gerra aurretik Txontan zer zeuan? Basarrixa ta ez zeuan ezebez gehixao? Ez zeuan... taillarrik-eta ez zeuan?

- Bai!

- A bai? Gerra aurretik be bai?

- Bai, zera ta, Mutiloanekua ta. Zera... Mutiloanekua zekan zera, eskupetentzako eitten zittuan zerak... zelan esaten jako?

- Kaxak edo baskulak edo...?

- Ez, zera...

- Kainoia.

- Kainoia ez, atzian, kainoian atze-atzian egoten dana.

- Kaxia.

- Kaxia. Kaxak eitten zittuen.

- Eta basarri gehixao bazeuan han inguruan?

- Han inguruan ez, baiña zerian bai. Mertzete han goixan. Ta zera be bai... beste bi be bai Azurtzarako zerian, beherao.

- Areta edo?

- Areta, ta Aretaabeletxe ta Mertzete. Horretxek hirurok euazen.

11.10. Inguruko lantegi guztietakoak Urkizuko iturrira

- **Hizlaria(k):** Idarraga Zulaica, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-325/015
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:12:08. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena:** "Errastineko" forja non zegoen. Urkizuko iturria oso inportantea zen; lantegi guztietako "errekadistak" bertara joaten ziren ura hartzera.

Transkripzioa

- Hor Errastiñeko forjia be bazeuan hor Urkuzu aldian, ez?
- Bai, Urkuzuan baiña, Bidebarrixetan. Itturrixa badao ba oin? Hantxe aldamenian. Ha etxe haundixa einda dao oin. Han euan forjia.
- Eta itturrixa goguan dakazu?
- Bai, itturrixa bai. Itturrixa ez da... ez da zertu, kendu.
- Ta inportantia zan, ez, orduan, Urkuzuko itturrixa? Famosua.
- Eneee! Taillar guztiak etortzen zian hara, e! Zera hartzera, ura hartzera. Zerak, mutikuak, errekadistak hantxe egoten zian. Dana...

11.11. Telleria inguruan erreka eta iturria

- **Hizlaria(k):** Idarraga Zulaica, Tomasa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-325/020
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:18:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Euren etxe parean goitik behera erreka pasatzen zen. Inguruan zelaia eta lur-sail hutsak zeuden. Iturri bat ere bazegoen inguruan eta lantegi batzuetako "errekadistak" hara joaten ei ziren ur bila; beste batzuk Urkizuko iturrira.

Transkripzioa

- Orduan errekarik ez euan. Bueno, erreka baeuan, baiña itxi barikan. Ta gure parian euan zabalik erreka, hasi goitik eta beheraiño.
- Eta beste inguru guztia, Txonta inguru guztia, ze zan? Basuak edo zelaixak edo...?
- Ezebez, ezebez, zelaixak eta zerak. Ezebez. Ointxe daon moduan batzuk, ezebez. Ta goixan euan etxia... ze euan han? Ze taillar euan han? Han etxe haundixan zerian, parian, errekan parian, euan itturrixa.
- Itturri bat zeuan?
- Itturrixa. Ta haraxe juaten zian zerak, errekadistak, uretara batzuk. Beste batzuk zerera, hona, Urkuzura.

11.12. "El montón" parkea eta igerilekuak

- **Hizlaria(k):** Arriola Ormaechea, Amaya
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** AB-332/026
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Alfa lantegiko fundizioa egin zen inguruan parke txiki bat zegoen zuhaitzekin eta belarrarekin; "el montón" esaten zioten. Atzealdean igerilekuak; utzita, baina oraindik urarekin.

Transkripzioa

- Fundiziñuan, esan netsuen lehengunian, esan detsut, zan "El montón" esaten genduan. Zan, ba, parke bat edo nahi dozuna esatia, txiki bat. Txikixa. Ta zeuazen, ba, arbolak, bedarra eta banko batzuek. Ta han, ba, jentia juaten zan denporia pasatzera. Ta zan txikixa bai, baiña politta, e! Dana arbolez beteta, berde-berdia, banko batzuek ta... "El montón". Ez dakit zegaittik zan "El montón", baiña "El montón" esaten gendun! Ta han atzian zeuazen, ba, pizzinak. Pizzinak, baiña ya erdi ruinan. Baiña ondiok hantxe zeuan zulu ta ura ta... Bai.

- Hor agertzen da fundiziñua eitten ondiokan.

- Bai. Justu fundiziñua daon lekuan zan hori esaten [detsuten] lekuori. Baiña hori... hamen artxibuan ez da egongo fotografixak hori lekuori ta? Ez da egongo, e?

- Bai, batzuk badare. Hor ikusten dozu bat, pistinia ta...

- Bai, aurrian. Pizina... Hori zan atze...

- [...] solar hortako... ez.

- Ez, e? Ez dao? Solarra zan karreterian bordian. Osea, karreteria... Karreteria zan... trenbidia, karreteria ta gero errekoa. Baiña errekoa hor ya juango zan behetik. E? Klaro, pizinia beste aldian, ezkerretara zan pizinia.

11.13. Etxebarriatarren etxea "Txirixo" kalean

- **Hizlaria(k):** Olabe Etxebarria, Vicente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Areta Azpiri, Nerea - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-002/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:06:40. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Ariznabarreta, Gurutze
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ama Txirixo kalean jaio zen; zutik dago oraindik bere ama jaiotako eraikina. Bere birramonaren aitagin egin zuen eraikina alaba ezkondu behar zenerako. Bere ama anai-arrebatan zaharrena zen, eta lau anaia zituen ondoren. Eraikina nolakoa zen. Etxebarriatarren etxea zen, Toribio Etxebarria ere bertan jaio zen.

Transkripzioa

-Eta ama?

-Ama be, ama be, Eibarren. Ha jaixo zan "Txirixo" kalian. Nere ama jaixo zan etxia oindiok zutiñik dao. Urte asko daukaz, baiña e... "Txirixo" kalia badakizu nun dauan, ezta? Ha plaza barritik begiratzen badozu "Txirixo" kalera, eskuma aldeko etxiak, harek dira zarrak, danak. Ta gure etxia ba, ondiok bastante dexente dao, pixkat txikixa da, baiña, ha ein eban, ba, neure bisabuelaren aittak ein eban. Bisabuela-edo, bai, horrek e...

-Ta han harrizko etxia...

-Harrizko etxia da, harri landua, baiña, euskeraz ez dakitt zela dan, baiña, "piedra arenisca" esaten jakona, harian antzerako koloria eukitzen dau horrek etxiorrek, bai.

Ta hori etxiori, nere ama jaixo zana ta Toribio ta danak, zegaittik eze, nere ama zan nausixena, ta gero lau mutil. E? Bera emakumia eta bestiak mutillak ziran danak, ta bat Txilera jua zan, baiña bestiak hemen geratu ziran bestiak, ta Toribio zan, ba, nere aman ondorian, tio Rafael, tio Aurelio ta tio Toribio gero zan, ta gero beste bat, Feliciano [...].

Ta hangotxia, Eibar Eibarkua zan etxia. Ta, ha, etxia ein eban nere aman amandriandako ezkondu bihar zanian aittak. Etxe horrek, eskillara politta dauka. Eskillaria, oin ez da egoten ataixa zabalik, baiña, atia, baiña eskillara politta dauka, bai.

-Eta hori ze zan, etxe osua zan Etxebarriatarrena, dana?

-Etxe osua zan, bai; bai, bai dana zan.

-Hor Toribio be, bertan jaixo ta Blas...

-Ta Blas ta danak hantxe jaixuak ziran.

-"Urredunanequak" be...?

-"Urredunanequak" bai, bai. Bueno "Urredunanequak" be ba, ez e... esango dotsut. Nere aittan generaziñokuak; nere aman generaziñokuak, e! Harek jaixo ziran. "Urredunanequak" ziran ba, nere tio batzuk, nere aman lehengusuak, tio Hilario bat, "Urreduna" esaten zetsena, "Urreduna". Tio Hilario, haren ondorian tio Gregorio, harek ez eban euki umerik be, ha ez zenduan ezautuko.

11.14. 1922an Aldatze kalean jaioa

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-022/001
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1922an jaio zen Eibarko Aldatzeko mojen alboko etxean. Abizenen inguruan hitz egiten du. Bi urterekin Jardineta auzora joan zen bizitzera; bertako ingurua deskribatzen du.

Transkripzioa

-Izena eta apellidua esango dostazu?

-Benigna Sarasketa Maiztegi.

-Eta noiz jaixotakua?

-Veintinueve de junio del veintidos.

-San Pedro egunian.
 -Bai. Jaixa kendu eben eta oiñ ahaztuta ibiltzen gara.
 -Eibarren jaixotakua?
 -Bai-bai-bai.
 -Sarasketa apellidua be Eibarkua.
 -Bai. Eta Maiztegi plazentziatarra, nere aitxitxa Plazentziakua zan-ta.
 -Eta Unzetatarrak be hangiak, ezta?
 -Ez dakitt Unzetatarrak nunguak zian, nik hamentxe ezaututa.
 -Eta nun jaixo ziñan zu?
 -Ni Jardifñetan. Ez, Jardifñetan ez nintzan jaixo, Aldatzian euan etxe zahar bat. Gero gerra denporan erdixa jausi zan ta erdixakin bakarrik geldittu zan. Baiña goixan, goixan. Merzedarixak ez, Aldatzeko monjak daozen zerian han behian; zu ez zara akordatzen baiña han euan itxurria ta alberkia, alberkia, ta hantxe euan etxia, da gero gerran erdixa jausi zan eta erdixakin bakarrik egon zan. Baiña urte bikin joan nintzan Jardifñetara eta Jardifñetan bizi naiz.
 -Han bizi zara oindio?
 -Bai.
 -Orduan ondo ezautuko dozu inguru guzti hori.
 -Bai, ez dot ba ezautuko?
 -Zelakua zan? Jaixo ziñanian eta gerra aurrian Jardifñak zelakuak zian?
 -Ene ba. Pentsaizu, egongo zian, orduan numeruak diferentiak zian. “El uno” zan Bolunburuko etxiak “el uno”. Gero zian bat, bi, hiru, lau etxe. Lau etxe bakarrik. Eta gerra ostian in zian beste danak.
 -Ta etxiak ziran, han errebueltan daren etxiak zian?
 -Bai. (...). Eskuman dauan etxia erre ein zan. Ha zan zaharra, lelengua, lelengua, baiña erre in zan da gero barrixa ei(n) eben. Ta handik segiduan beste pegoria, bestia ta bestia. Ta ezkerrian beste bat. Eta ez euan besterik. Gero txaleta. Alemanak eken txaleta, oiñ Arrietanekuak daken lekuan, alemanak. Eta bestekaldian dao beste txalet bat; bueno, txaleta bibienda askokin, baiña hantxe dao zerian, eta besteik ez zan Jardifñetan, bestiak ortuak.
 -Ortuak, e?
 -Ortuak.
 -Eta Merzedarixak-eta daren tokixan-eta?
 -Monjak. Harek monjak zian harek.
 -Baiña ha bazeuan?
 -Ez, etxiak ez-ez-ez-ez. Ortuak, monjen ortuak. San Agustin, han euan monjen konbentua eta elixia ta monjek eken Musategittik tunel zer batekin, tunela ez, zubitxo batekin, eta beste alde guzti-guztia, oin Merzedarixak daozen lekuan dan-dana zan monjen ortua.
 -Hara goraiño heltzen zan orduan?
 -Bai, bai, haraiño.
 -Mariangelatik..
 -Haraiñok, haraiñok, goraiñok, goraiñok. Monjen ortuak zian haraiñotxek, Aldatzeraiñok.

11.15. Valentziatik Eibarrera bueltan

- **Hizlaria(k)**: Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-022/007
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:15:54. **Bukatu**: 00:17:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Eibarrera bueltatu zirenean eskoletan atxilotuta egon ziren gau batez. Tenez bueltatu ziren. Eibar apurtuta zegoen; beraien bizilekua aipatzen du.

Transkripzioa

-Eta Eibarrera bueltau ziñazienian zela topau zenduen?
 -Estaziñora aillegau giñanian zereko Jardíñetako eskoletara etxera joan barik, danak eskoletara. "Detenidos allí" joan giñan. Etxera etorri giñanian, ikusi genduanian: "ze pasatzen dok?" Kontrakuak hara.
 -Trenian etorri ziñazien guztiak zuzenian...
 -Ene, egun bi edo hiru edo ein genduzen trenian. "Mercancías de esos que...", ene, ene!
 -Eibarrera estaziñora heldu eta danok...
 -Danok han gora. Etxera barik gora. Gero ez dakit gau bat edo ze ein genduan eta gero ba batzuk... Guri, neri ez jatan tokau detenidurik eta ezer-ta. Gero etxera.
 -Eta Eibar zelan topau zenduen?
 -Buu, pentsa eizu, dana apurtuta, dana apurtuta.
 -Ezer ez zan geldittuko. Elixia ta beste zeoze inguruan, ez?
 -Jardiñetan dana. Jardiñetan dana.
 -Hemen behealdian?
 -Ezebez, ezebez. Horrek behekuok ezebez, horrek behekuak ezebez. "Así es que" horrek obra guztiok eta danok danok ikusi douz.
 -Berriz Eibar barrixa eitten.
 -Dana, barrixa eitten dana.
 -Eta Jardiñetan zeuen etxia ondo zeuan?
 -Bai, bai.
 -Ez zenduen problemarik euki?
 -Ez, ez. Baiña gure etxia, "por ejemplo" gu giñan inkilinuak zeranak, Bolunburunak, eta gure etxia euan alkilauta, euan, eta orduan nere tia bat, bere aman anai bat euan, bizi zan beste pegoran eta hantxe egon giñan denporada baten eta gero Bolunburuk jaso ein eban etxia, beste pisu bat jaso etsan eta emon eskun atzera goiko pisua. Eta atzera be beti hantxe egon giñan.

11.16. Zinera ordaindu gabe osabaren bitartez

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-022/009
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:25:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Zineko makinista Benignaren osaba zen eta harekin trikimailuan ordaindu gabe sartzen zen barrura. Igandeetan izaten zen zinea eta anaien lagunekin joaten zen. Zinea eta bertako arduraduna

deskribatzen ditu. Gerra-garaian auzoko batek soilik zuen irratia eta harengana joaten ziren entzutera. Pelikula guztiak negar egitekoak izaten ziren. Gerra aurrean baziren zinema gehiago ere eta haien aipamena egiten du.

Transkripzioa

-Eta bestela beste afiziño bat izango zan zinia, ez?

-Eneee! Ta nik gratis zela nekan.

-Bai, e?

-Bai ba. Nere tio zan makinistia, zeran, Kruzetan laguna, eta bera zan makinistia.

-Zine Kruzetana?

-Zine Kruzetana. Da porterua kanbixatze'ebenian esate'zan: "Bueno, hartiñ, autso"; tabako zer bat emoten estan da: "juaten haizenanian porterixara esaixon porteruari: 'tiori eruan bihar detsat paketia', eta orduan jakingo jon, hurrengorako ez deun esango ezer."

-Eta?

-Ba halaxe (egitten) genduan.

-Eta domekatan izango zan zinia, ala noiz zan?

-Domeka baiño gehixao izango zan, ez dakit seguru. Da nere anaia, nik nekan anaia haundixaua, nausixaua, eta ni gaztiaua, da nere anaian lagunekin joaten nitzan ni zinera. Ni txikixa, baiñan holan, bueno, zu ez zara akordauko, holan zan zinia, ezta? ta euan sillak, lelengo sillak, eta gero pixkat holan subida pixkatekin anfiteatrua. Holan bueltan ez, e, atzian, atzian pixkatekin. Eta gero holan mahaixa edo pixkat gehitxua zer bat, separaziño bat euan da gallinerua atzian. Eta nere anaia hartzen zan lagunekin gallineruan, da nik azkenengo filan zerakin, anfiteatruakin hantxe atzian.

-Eta nundik sartzen zan zinera?

-Oin pegoria dauan lekuan, handitxik.

-Estaziño Kaletik.

-Estaziño Kaletik. Hantxe pegoria. Ointxe be ikusten dot nik. Hantxe ezkerrian euan takillia eta holan eskuman euan zera entradia, entradia euan. Da, eneeee!, Kruzeta gaiztuaua zan! Koskorrekuak eta emuten zittuan. Bai ba, zaratia, armatzen genduan gaztiak eta igual koxkorrekua.

-Zelan zekan izena?

-Ez dakit zelan zan. Kruzeta... Izenak ahaztu itten jakuz eta ointxe... Periko! Periko zan.

-Eta gogorra?

-Gogorra gorrora zan, ene! Jaleua armatzen genduanian, ha agertzen zanian, bueno! Zuzen ibilli bihar.

-Eta, orduan zinera joatia izango zan sekulakua. Orduan telebisiñorik eta holakorik...

-Ez, ezebez, pentsau bez. Radixorik be ez. Radixuak be gerria urten ebanian etxe baten, gure bezindadian etxe baten euan radixua; da haraxe joaten giñan zerak entzutzera.

-Orduan zinia lujo bat izango zan.

-Neretako ez, libre nekan-ta.

-Baiña gustora.

-Honbre, klaro.

-Zelakuak izaten zian orduan (pelikulak)?

-Jose Mogicanak-eta. Zan kantore bat, famosua zan Jose Mogica ta. Bueno! Ziniak izaten zian danak negar ittekuak-eta.

-Dramoiak?

-Dramoiak.

- Lina Yedros eta José Mogica-ta. Enee! Danak negar eittekuak, danak, danak.

-Baiña gustora.

-Honbre, halaxe zian-ta, halaxe.

-Eta sartu sartzen zan Estaziño Kaletik.

-Estaziño Kaletik. Eta gero atzeko ate..., ez dakit zu fijatzen zaran.

-Garajiak?

-Garajiak-edo. Han euan ate bat urtetzeko. Osea ke, sartzen ziñan, eta azkenengo euazen "los servicios" ezkerretan, eta haren onduan euan ate bat eta urtetzen zan beste kalera, zerera Pageira. Bueno ha seguramente izango zan "como de socorro"-edo izango zan. Baiña handitxik pe urtetzen zan.

-Eta sartu eta pantaillia ze zeuan?

-Aurrian. Sartu ta dana pasau ta aurrian. Aurrian euan pantaillia.

-Eta goixan eta gallinerua esan dozu.

-Ez, ez, ez, goixan ez, atzian, atzian.

-Bazeren (...)

-Ez, ez, ez. Hori Rialtuak ekan. Kruzetak ez, ez ekan.

-Beste zine batzuk be bazeren Eibarren, ezta? Gerra aurrian bertan be Salon Teatrua.

-Salon Teatrua be bai, baiña gu Jardañetakuak giñan eta Jardañetan gu. Eta esaten ´tsut, ni umia nintzan zeran ba beti gerraostera arte Untzara Untzara plazara urten be ez igual. Urten be ez igual.

-Eta ezagutu zenduan Kiputxaneko zinia?

-Bueno ikusi, ez dakit sekula be egon naizen baiña badakit Isasi goixan euan Kiputxaneko zinia. Baiña keba!, guretako ez zan ha, ha zan beste herri bat. Pentsau be ez.

11.17. Eibarren "goikoak" eta "behekoak"

- **Hizlaria(k):** Sarasketa Maiztegi, Benigna
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-022/010
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Eibarren "goikoak" eta "behekoak" desberdintzen ziren. Amak eta neskameak Eibarko antzinako kontu ugari kontatzen zizkioten.

Transkripzioa

-Eibarren bazeren holan pixkat behekaldekuak eta...

-Bai, bai, Bi, goikuak eta behekuak, bai, bai, bai. Goitarrak eta behetarrak. Beti, beti. Goitarrak eta behetarrak.

-Nun erdibitzen zan Eibar?

-Elixan, elixan.

-Mariangelatik gorakuak eta...

-Berakuak. Eta nere ama, nere amak hartu zittuan ba larogeta hamabost urte. Osea ke, haren gauzak, Eibarko gauzak, antxiñako, antxiñako, antxiñakuak danak, danak, gure amak beti entzutzen. Ekagun etxian gero

Eibarko andra bat, alargun geldittu zan eta etortzen zan, interina etortzen zan gure etxera, da kontatzen zittuen euren gauzak, osea ke berez nere sasoiakuak eta euren sasoiakuak eta danak nekixezen nik. Oñ ahaztu jataz danak, baiña.

-Ze kontatzen zeuben?

-Ba danak. Fulanori..., a bai, harek suzedidutakua eukiko jonan-da.

11.18. Amaña auzoa eta erreka. Presan igerian ikasten.

- **Hizlaria(k)**: Basauri Arteaga, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-027/003
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:05:38. **Bukatu**: 00:07:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Amañan ez zegoen etxerik. Artegietan (Arteitta) eta Asolaigartza (Asoliartza) baserriak, besterik ez. Etxe bakarra, trenbide ondoko kapatazaren etxea zen. Amañan iturri gainean zegoen. Amañan ere hantxe zegoen eta han ibiltzen ziren jolasean, igerian... Bere garairako Ego erreka zikina zetorren. Alfako igerilekua ere ezagutu zuen (gerra aurrean egindakoa), baina bere garairako lehortuta zegoen.

Transkripzioa

-Kontauko destazu inguru hori zelakua zan. Hasi Mekolaetxebarri edo han basarriren bat edo bazeuan, ez?

-Bai, bai.

-Handik Legarretik Amañarakua gitxi gora behera ze zeuan?

-Legarretik Amañarako..., bueno, Amañan Asola-igartza. Han ez euan etxerik, basarrixa zuan.

-Arteitta (Artegietan) basarrixa?

-Hoixe. Arteitta ta. Ba horretxek bixok euazen. Eta gero nere akorduan Amaña onduan jeuan etxe bat. Nik uste juat ha trenbide-zaintzailliandako ero zala.

-Kapataza edo?

-Kapataza ero halako zeozer, bai. Eta haren semia ezautzen juat, gero Alfani ibili zuan biharrian da abar baiña. Amañako iturri gairian ero jeuan ha, hantxe inguruan jeuan.

-Eta lehen esandako presapia?

-Bai. Barrenengua. Barrenengo etxe inguruan jeuan, bai. Eta bueno, han igerian, baiñau eta gero erregatak be eitten genduazen, hartu holako zotz batzuek eta Orio ta Pedreña ta zittuan ordukuak eta bueno. Eta han errekiari jarraitu ta han ibiltzen giñuan errekan.

-Oinndiokan garbixa zeuan?

-Ez, ez, ia zikiña, bai, nahiko zikiña. Nik ezautu najuan beste piszinia, onduan zeuana, baiña siku, han ia ur barik, urik ez zuan sartzen hara.

-Gerra ostian hustu ein zeuben?

-Bai.

-[...]?

-Alfana, Alfana zeuan piszina. Makalarro baiño lehentxua edo. Barrenian jeuan. Gero handikan ba Isasira.

11.19. Amaña eta Legarreko baserriak

- **Hizlaria(k):** Basauri Arteaga, Serafin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-027/005
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:12:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Amaña inguruan gutxi ibiltzen ziren. Arregieta eta Asolaigartza baserriak zeuden goian, eta Torrekua eta Barrenengua erreka alboan. Legarren baserri bakarra zegoen, Mekola Etxebarri, "Valeriananekoa" (oraingo dorreen azpian zegoen, gutxi gorabehera). Legarren beste etxe eta tailer batzuk ere bazeuden, esate baterako, Ereñaren tailerra. Taberna bat ere bazegoen, Bar Gabiria.

Transkripzioa

-Hor basarriak eta aittatu dozuz, eta Amañan eta, basarri inguru guzti hori eta zelaixak eta bueno...

-Bai, bai, bai. Ez nintzuan hor zihar ibiltzen, nik etxakat holako idea garbi-garbirik ha zela zeuan. Etxakat idea garbirik, baiña basarri bi egozela bai, Artaitta eta Asolaigartza. Bai, hortxe zittuan.

-Parian Errekonduan hor Torrekua eta...

-Torrekua eta Barrenengua. Horrek behian.

-Oin anbulatorixua ta...

-Bai. Eta bestela ba. Eta Legarren Etxebarri, Valerianan basarrixa. Legarren bertan, bertan-bertan jeuan. Hi ez haiz akordauko, bueno, hik ikusi be ez, ikusi be ez. Bai, hori jeuan, zela esango duat ba nik...

-Oin garaje hori dauan tokixan, gutxi gorabehera?

-Ez. Hori jeuan, nola esango duat ba nik, horrek torre haundixok badauaz ba? Horrek baiño honutzatxua. Honutzatxua jeuan, basarrixa zeuan, basarrixa, kale-kalian, kale-basarrixa zuan. Eta horkua zuan Alfako Etxebarri, Arriola, Arriola ta horkuak zittuan. Etxakixat Valeriana ze izango zan etxe bardiña, tia edo, etxakixat, baiña zeoze harekin bajekan zerikusixa. Bajekan, bai.

-Eta Legarren beste etxerik ez euan? Basarri hori ta...?

-Etxiak bai. Eta zeran taillera, Ereñan taillerra. Ereña, ointsuan hil dok ba hau Beorlegi, horren suiñak jekan. Ereña y Gisasola. Gero horrek laga ein juen hori tailler hori eta joan zittuan, ein juen barrixa Otolan. Horren taillerra jeuan eta horren gaiñian bajeuazen etxe pare bat bai behintzat. Eta gero akordatzen jatak, tabernia jeuan, Bar Gabiria, eta akordatzen jatak halako dibujoren bat edo zer bat "Hau dek esnea!" edo ipintzen juan, porroittikan eraten edo, botatik edo halako zeoze, bai.

11.20. Arraindegi kalean jaioa

- **Hizlaria(k):** Unamuno Zamakola, Emilia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-030/002
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Arraindegi ("Arraindi") kalean jaio zen. Aita Soralezetik etorria zen. Bi urterekin Kalbetoi kalera joan ziren bizitzera, etxe handiago batera. Arraindegi kalea nolakoa zen. Iturria, okindegia, tailerrak, Kalixtoren arotzeria, bainuetxea... Potxotxaneko labaderoa eta beste okindegi bat. Taberna. Barrenkalean, sastreria. Parean, eliza eta parkea.

Transkripzioa

- Jaixo nitzan Arraindegi kalia.
- Familixia be bertakua zekazun?
- Familixia...
- Aitta eta ama be Arraindegi kalekuak?
- Bai, eeee... aitta txikittan -hain txikittan ez, e- Plaentxiatik etorritakua, baiña Eibarkotzat eken. Arraindegi kalia euki eban taillarra. Ta neuk urten neban handik, etara ninduen, urte bikin Kalbetoira. Etxia handixauagaittik, itxuria, Kalbetoira. Eta gero gerrara arte Kalbetoian.
- Orduan, jaixo Arraindegi kalia, baiña gero...
- Baiña nik neuk bost anai Arraindegi kalekuak ta neu be Arraindegi kalekua urte bira arte. Ta gero Kalbetoira jua giñan etxe handixauagaittik.
- Eta kontauko destazu pixkat zelakua zan Arraindegi kalia?
- Arraindegi kalia? Bai. Arraindegi kalia Kalbetoittik sartzen zan, Tanborreneko iturrixa esaten jakon, akaso ezagutuko zenduen zeuek be itturri bat, Otxandiano aurrian. Ezagutzen dozu?
- Ez, baiña entzunda bai.
- Tunelpe bat. Handik tunelpetik sartzen zan, ta panaderixa bat eguan, kunbo batekin.
- Hori Birjiñapian?
- Birjiñapian. Ta gero, taillarra. Etxe haundi bat eguan ta taillara. Bi eguazen taillarrak: [Españenekua] ta ez dakit bestia zein zan. Taillar bi. Gero, ya... "ya ibas al"... Arraindi kalera bazindoiazen, Paulomatxiñeneko tenplia eguan, eguan arotzerixia, Kalixtonekua, eguan beste panaderixa bat, gero Anituanekuak bizi ziran etxe bat, gero baiñuetxia. Gero eskillara batzuekin errekoa eta Ugaldeneko panaderixia. Eta gero gu bizi giñan etxia. Atzera eguan beste paso estutxu bat, Potxotxaneko labaderua esaten jakon.
- Errekara?
- Eta han zan Okatxikiñeko panaderixia. Han zan panaderixia. Gero Salgadonekuak.
- Dendia edo tabernia edo...?
- Tabernia. Ta urtetzen zan Barrenkalera.
- Barrenkaleko goikaldera?
- Barrenkalera urtetzen zan. Eta Barrenkalian... peoria ekan... sastrerixia eguan zerekua... "ese... corredor era pues el padre"?

- Bolunburu ez?
- "Peluquería también había, pero"... eguan... [Juventino] sastría.
Sastrerixia. Baiña peoria ekan etxiak Arraindegi kaletik, Arraindegi kaletik ekan. Ta "allí termina". "Luego, al otro, en frente, la iglesia", parke bat, parke bat zortzi bat arbolakin. Eta Arraindegi kalia horixen zan dana.

11.21. Bainuetxea

- **Hizlaria(k):** Unamuno Zamakola, Emilia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-030/004
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:08:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena:** Laua zen Arraindegi kalea. Bainuetxea zegoen. Ur beroa egongo zen... etxeetan ez. Errekan igeri egiten zuen jendeak. Bainuetxera ez ziren asko joango, ordaindu egin behar zen. Garbitasuna. Labaderoa.

Transkripzioa

- Bainuetxia esan dozu zeuala?
- Bai.
- Hori ze zeuan barrenian? Arraindegi kale...?
- Ez, laua zan Arraindi kale, laua zan.
- Lau-laua zan?
- Laua zan. Arraindegi kalia laua zan. Kentzen eban zati bat Barrenkaliari aldapia kentzen etsan, baiña laua zan, Arraindegi kalia laua zan.
- Eta bainuetxia zeuan...?
- Lauan.
- Baiña erreka onduan edo?
- Erreka onduan, erreka onduan.
- Eta zelakua zan bainuetxia edo zelan funtzionatzen zeban harek?
- Ni umia nitzan, ni txikixa nitzan, baiña jaboia ta ura ta labauak egongo zian ta... ur berua eta ur hotza ta. Ur berua orduan... ur berua egotia zan...
- Etxietan ez zeuan?
- Ez ba!
- Etxietan gero?
- Etxietan gero, gero, gero!
- Eta jendia, orduan, zapatu-domeketan dutxatzera...
- Jentia igerixan, danian erreka euan Eibarren, ta igerixan.
- Baiña garbitzera-eta baiñuetxera?
- Gitxi juango zian, e? Gitxi juango zian, ha be pagau in bihako zan ta. Ni txikixa nitzan orduan ,baiña... Ke ba, igerixan.
- Errekan garbitzen zan jendia?
- Eta , ostian, etxian, etxian. Oin beste... oin inpreszindiblia da baiñua, ta orduan ez.
- Garbittu bat emon ta...
- Bai, bai. Baiña jente jatorra ta jente anaitasun haundikua
- Esan dozu labadero batera be bazeualala, ezta?
- Labadero batera, bai, laua, laua, bai. Apellanizak eta horrek dia hantxe

jaixuak, hantxe labadero onduan. Apellanizak.
- Eta labaderua ze zeuan Ariatza parian edo?
- Ariatzara urtetzen zan, Ariatzara urtetzen zan.

11.22. Arragueta kalea

- **Hizlaria(k):** Arregi Etxeberria, Julita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-032/005
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Arragueta kalean neska-mutilek elkarrekin jolasten zuten; zirkua egiten zuten. Okindegia, patata saltzailea, dendak... "Tartakoneko" zapata denda, harategia. "Juanita Ondarru"ren taberna. Tunelpea. Ebanisteria. Balentziaganeko taberna.

Transkripzioa

- Orduan, Arragueta kalia ondo ezagutu dozu?
- Julita: Ederto!
- Zelakua zan?
- J.: E?
- Zelakua zan Arragueta kalia?
- J.: Uuuuu, haren modoko kalerik ez euan Eibar guztian, e! Ta, gaiñera, famosos. Ta jolasten neskak eta mutilak. Ta han ba mutilak ta neskak zirkua eitten eben. Nik ez, e? Ta orduan eruan bihar zan, ba, inperdible bat edo jostorratz bat edo. Ta Arraguetan dao, ta oin be badao han etxe zahar bi, ta eskillara batzuk ta errekoa. Ta hantxe itten eben zirkua. Ta zelako zirkuak! Demasak! uuu...!
- Errekan?
- J.: Errekan ez, errekoa beherao. Beherao.
- Bai.
- J.: Gorao esplanada bat.
- Mari Carmen.: Hantxe dao oin be.
- J.: Eta gero eskillara batzuk. Eta hantxe jarritta. Bueno, udan; neguan ezin zeike.
- Bai, bai. Han Arragueta jeisten, behealdian?
- J.: Bai, bai.
- Eskumatara.
- J.: Bai, bai, hantxe jolasten genduan.
- M.C.: Oin ipini dabe tapauta ta oin errekoa ezin zeike jua.
- J.: Bai. Baiña hantxe zirkua eta zelako zirkuak eitten zittuen, buenoo...! demasak!
- Eta, bestela, Arragueta kalia, dendarik eta tabernarik bazeuan?
- J.: Bai, bai! Euan Baskaranenekua. Baskaranenekua. Ta akordatzen naiz, nik ohetikan entzutzen neban kinia. Ta... kinia... numeruaz...
- Bingo moduan?
- J.: Ta etxetikan, ohetikan entzutzen neban. Ta gero...
- M.C.: Panaderixia beti, panaderixia beti.

- J.: Panaderixia oin be hantxe dau panaderixia. Tellerianekua. Tellerianekua. Haura panaderixia ta gero pataterua euan bat eta beste bat Eulalia... Eulalia zan, zera, Aranzeta.

- M.C.: Aranzetanekeua.

- J.: Aranzetanekeuak. Zuk ezautuko dittuzuz harek.

- M.C.: Aranzeta Sarasketa. [...]

- J.: Ta gero harek dendia euki eben.

- M.C.: "Ultramarinos".

- J.: "Ultramarinos" euki eben, bai.

- M.C.: Gaiñera, dotoria. Haundixa ta dotoria.

- Orduan danetik zeuan?

- J.: Baai ta beste bat patatero, "ultramarinos" ekan harek be.

- M.C.: Han beherao Joxemarin tabernia. Ta pixkat beheratxuau euan Tartakoneko zapaterixia. Tartako, Urzelai.

- J.: Bai, Urzelai.

- M.C.: Gero hemen egon da, hor, Bidebarrixetan. Urzelai. Tartakonekua zan ha.

- J.: Bai.

- M.C.: Ta beherao karnizerixa bat ta ha zan nere...

- J.: De la Juanita?

- M.C.: ... nere gizonan amama-ta.

- J.: Aaa...

- M.C.: Karnizerixia.

- J.: Han?

- M.C.: Bai, hantxe euki eben, Amutxastegi ta, hantxe euki eben. Ta gero beherao taberna famoso bat, "el puente cómo le llamaban"?

- J.: La de Juanita Ondarru euki eban han tabernia.

- M.C.: Ez, gorao. Gorao ha.

- J.: "Aquella... más.." beherao, Arraguetatik behera ezkererutz jekanan harek.

- M.C.: "Al lado del túnel tuvo aquella".

- J.: Ta gero han dau tunelpe bat.

- Bai.

- J.: Tunel bat. Ta han, ha, zera, zein zan? Korta... Kortazar edo... Kortazar ez... Ez dakit [...].

- M.C.: Kortatxonekua.

- J.: Kortasonekua. Ta harek ekazen eee...

- M.C.: Serrería.

- J.: ... zera... una ebanisteria.

- M.C.: Zerrerixia.

- J.: Ta eukitzen zittuen kanpuan tronkuak. Tronkuak eukitzen eben.

- M.C.: Oin be badao. Oin be dao hori, "tirando a" Plaentzia, errekoa ta "a mano izquierda son los de Arrillaga".

- Bai, bai.

- J.: Arrillaganekueak, bai.

- [...]

- Lehenau orduan zeuan Kortaxonekua...

- J.: Kortasonekua, bai, hantxe euan.

- Grabadoreserutz doian... hori

- J.: Hoori!

- M.C.: Horixe.

- J.: Hori, hantxe, hantxe tunelpian.

- Eta esan dozue Maria `Ondarru´ edo zelan zan?

- J.: Juanita `Ondarru´.

- Juanita `Ondarru´

- J.: Juanita `Ondarru´k euki eban tarbenia.

- Bertan?
 - J.: Bertan, bai, hantxe.
 - M.C.: Ez, goratxuau, goratxuau.
 - J.: Noo! bertan, "un poquito... allí mismo tuvo La Juanita Ondarru, sí, sí, sí".
 - M.C.: "¿En Arragueta mismo?"
 - J.: "Sí, sí, sí".
 - M.C.: "Por allí era".
 - J.: "Sí, yo me acuerdo bien de la Juanita Ondarru allí".
 - Eta esan dozu beste taberna bat esan dozu be bai...
 - J.: Bai, zerian... Baskaran... Baskaranenekua.
 - M.C.: Aquél qué era... el... Baskaranenekua
 - J.: E?
 - M.C.: Baskaranenekua. Ta han behe-behe-beheian?
 - J.: Behe-behian Balenziaganekua.
 - J.: Balenziaganekua.
 - Behe-behian eskumatarutz?
 - J.: Eskumara.
 - Oin Josemari edo han...?
 - J.: Ee.. oin han zer dao? oin barrixa einda dao han, eskuak...
 - Bai.
 - M.C.: Botikia... Etxa barrixak ta botikia ta...
 - Bai, [...].
 - J.: Hantxe Balenziaganekua.
 - M.C.: Gerran apurtu in zan ha. Ha puntia apurtu in zan gerran. Beste guztia ez, "pero se desapareció lo de Tartako".
 - J.: "Sí, luego allí hicieron los de Azpiri o"... hori etxiori.
 - Bai, bai.
 - J.: Baiña hantxe, hantxe; hantxe euan Balenziaganeko...

11.23. Eibarko putetxeak

- **Hizlaria(k)**: Agirre Berezibar, Mari Carmen; Arregi Etxeberria, Julita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-033/020
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:41:32. **Bukatu**: 00:45:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
 Aisia » Taberna giroa » Putetxeak
- **Laburpena**: Elgetara ez zegoen biderik. Eibarko kaleak; herriko bi putetxeen inguruko kontuak aipatzen dituzte.

Transkripzioa

- Mari Carmen: Ta kamiñorik be ez euan Elgetara, e? kamiñorik be ez. Gero in eben /ieben/.
 - Zeuek, orduan, Untzagatik, Zezenbidetik...?
 - M.C.: Gu Zezenbidetik... bueno, ha zan kallejoia, ta han ez ebillen karrorik be ez, autorik be ez ta... Ta han, han be ibiltzen giñan ume mordua jolasten, edo ontzixuekin ta kopintxuekin ta, ez dakizu? Ta gero han goixan, igo halan bueltan ta, ointxe daozen moduan, etxe bi. Han euan Casablancaneko etxia, putaetxia han.
 - Putaetxia?

- M.C.: Putaetxia. Ta ikutzen eskuen guri...
- Julita: Villaconcha y Villamarina [...].
- M.C.: Bai, Villaconcha bat, eta bestia, handikaldekua, "La casa del Campo de María", haundixaua. Bai. Hara ez giñan juaten asko, baiña hamenguari bai. Hamengura juaten giñan ta "Ey, guapitas, ¿nos traéis pasteles?" ta pastelen billa Pistonenera. Ta gero txakur haundixa-ta emoten eskuen ta gure pozaa! bueno...!
-Ta ze zian kanpotarrak zian?
- M.C.: Bai, dan-danak kanpotarrak, e! danak kanpotarrak. Gaiñera, "de carné" zian, e? ez oin dabizenak hor.
- J.: Ta, gaiñera, etortzen ziran barixakuan.
- A bai?
- M.C.: Bai, barrixak.
- J.: Ta Estaziño kalia dana gizonez jositta.
- M.C.: Bai, trenian, trenian.
- J.: Desfilia. Perfume bat eta... bueno...!
- M.C.: Bai, bai. bai.
- J.: Neska... majak, gaiñera, neskak be.
- Eibar guztia kruzau bihar, gaiñera.
- M.C.: Bai, dana, dana.
- J.: Dana! Hantxe, zain-zain.
- M.C.: Ta notatzen jakuen, porke zapata takoituakin ta pintauta, baiña exageradak ez zian etortzen. Oin dabiz gehixo, e! Bueno...! Harek bakarrik, ba, neska ederrak eta, ba, soñeko sedazkua igual ta zelan domeketan bakarrik jazten zan ondo, ba: "Eneee! Esas son aquellas, las putitas, las putitas". Ez dakizu? Ta euan ayuntamentoko atzian, oin arte be hantxe eon da, Kruz Roja modokua egon da -oin barriztu zelan ein eben, ba, oin ez dau; poliziakua bakarrik dare oin- ta hantxe...
- J.: Rebisinua, ezta?
- M.C.: ... rebisinora juten zian. Obligauta, e! Obligauta, rebisinora. Bajatzen zian Zezenbidetik eta rebisinora juten zien.
- J.: [Ez non] akordatzen, hori entzunda.
- M.C.: Bai. Ta gu, ba, zelan ez zekiun ezebe, ba, gu, ba, errekauek] ein ta... Bueno...! Behin bautizua euan euan umen batena, bautizua. Gu pozik euren atzetik. Kotxian jun zian bautizora. Ta gero, bueltan, Zezenbidian Gure-leku tokixa dauan denda bat zan ta hamen beti tabernia. Beste tabernia, jaten-ta emoten dabe ba oin? Gure-leku dau bat, ezta?
- J.: A bai! zelan don haura?
- M.C.: Gure-leku. Ta bestia hamen euan lehen era "Bar Unión" era antes, baiña oin beste izen bat dauka, gero aldemenian dau "el Xok".
- Gurbil.
- J.: Gurbil!
- M.C.: Gurbil! Gurbil. Ha beti izan da tabernia. "Bar Unión" antziñan, gero "Bar Luis" ta oin ba Gurbil. Ta hamen, Gure-lekun tokixa... Gure-leku euan tabernia, ha zan dendia, Baskaraneneko dendia. Famoso... alkatesia?
- Bai.
- M.C.: Haretxen aittittana ta. Baskaran...
- Marzelino ta...?
- M.C.: Marzelino Baskaran. Andria egoten zan dendan, Maria, andra guapa bat. Eurak tallartxua eken, ta semiakin ta alabiakin juten zan tallarrera Baskaran, Marzelino Baskaran. Semia gero, Baskaran, famosua zelan zan?
- Benigno.
- M.C.: Benigno.
- J.: Benigno Baskaran, gero alkatia izandakua?
- M.C.: Ez,ez.
- Ez, Auroran aitta.

- M.C.: Aurora, Aurora izan zan.
 - Auroran aitta Benigno.
 - M.C.: Aurora izan zonan alkatia!
 - J.: Baiá aitta...?
 - M.C.: Aitta Benigno.
 - J.: Benigno. Baiña zuk esan dozu...
 - M.C.: Aittitta Marzelino.
 - J.: Aa... Marzelino, bai.
 - M.C.: Marzelino Baskaran, famosua.
 - J.: Aitta Benigno.
 - M.C.: Marzelino Baskaran, gaiñera, zonan sozialista famosua.
 - J.: Bai, bai.
 - M.C.: Famosua. Ta gu bizi giñan... Bueno, hori akabatzero noia. Hantxe autotxuakin gorutz karameluak botatzen. Uuu... gure poza! karameluak, badakizu? jolin, txikitiakin bi emoten etsuen bakarrik eta han gratis!
 - J.: Txikitan bat eta perruan bi.
 - M.C.: Ta ez dakit zeñen bautizua izan zan, baiña gerra-denporia baiño lentxuau.

11.24. Eibarko presak

- **Hizlaria(k)**: Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-034/004
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:01:20. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Errasti lantegiak zentrala zuen eta indarra nora banatzen zuen azaltzen du. Amaña auzoko errota, presa batzuk eta lantegiak izendatzen ditu.

Transkripzioa

-Han jeuan Errastiñeko enpresa bat, enpresia zuan Eibarren orduan inportantia. Harek zentrala jekan eta indarra emuten jua harek Torrekotik. Eta gero beste presia jeuan, Amañan jeuan. Eta Amañakuak jeukan Kakalardoko errotara. Kakalardoko errotia jeuan oin Isasixan han Alfarako pasua badaok pa, haretxen akaberan jeuan ha errotia. Gero hurrengo presia jeuan zerekua, esan dotena, hotelekua. Hotelekuak emoten jetsan indarra honeri zerari, Katxonekuari. Gero jeuan Ariatzakua esaten etseu guk, oin badaok pa bozeria, Ariatza esaten jakuan hari parajari. Han urak rekodua itten jua haundixa ta zikiña lagatzen jua ba, ta ariatza esaten jakuan hari. Harek emuten jua indarra zerera, Ibar Behera; Ibar Behia zuan..., bestekaldetik esplikaiko duat. Han Starrak jekan taillarra. Bai. Oin badauz ba eskolak Guardia Zibillen kuartela egondako lekuan, haretxen parian errekan bestekaldian. Haraxe joaten zuan hango ura eta ha taillerra erabiltzekua. Gero beste bat jeuan, hortik beherao jeuan, beste bat jeuan zereko parian, Laspiurrek eta bajakek ba taillarra Bidebarrietan, Laspiur, Arikixaneko hantxe edifizio..., hantxe atzian jeuan beste presa bat, da handik eta Arikixaneko zubixa badakik nun daon, hantxe arrankatzen, han zubixan onduan labaderua jeuan han be. Harek ura labaderuan eitten jua biharra eta joaten zuan Arotz Haundixanera. Arotz Haundixanekua esaten

jakuan, Urkuzuko Parkian badauz ba harek tabernak eta, Zarbitta-ta, Arotz Haundixanekua zuan ha, han Harotz Haundixanekuak zerria eken, eta harekin urakin zerria erabiltzen juen. Gero beste bat jeuan, oin Urkuzuko iturrirxa badaok pa, hantxe jeuan beste presa bat. Eta ha zuan Orbeaneko lelengo zera, Karmelittetako elizia baiño puxkat beherako hantxe parian, hantxe zuan lelengo taillara Orbeanekua. Hangotxe urakin. Eta hurrengua egongo zuan handik behera... Barrena Zaharrian bajeuan, norako ete zuan ha? Matadero zaharra jeuan han beherago; Gabilondoneko Airadurexeko hasierian parian baiña bestekaldian eskuan, beste eskuan jeuan mataderua. Gero eruan juen Azittaiñera. Hori bota juen hori ta. Horko ura norako izango zuan?

-Han errota zaharren bat be egon zala entzun dot Barrena Zarran inguruan.

-Bai, hantxe zuan beste presa bat, horrekin, ezaguera gitxi jakat nik horrena. Nik hurrengo presiakin zerakin akordatzen nok. Horrek, e, Kortasonekua esaten jakuan, Azittaiñen jeuan bestia. Azittaiñen zuan hori, oin nun izangok hori? Autopistarako entradia badaok pa Azittaiñen? Hantxe inguruan, hantxe errekan zuan zentrala. Kortasonekua zuan ba oiñ Maruriñeko azpitan bajeuan ba zerria ta handik sartuta, haretxena zuan, Kortaso-Arrillaga zittuan horrek. Aitta kaporal ta famosuak izan dittuk Eibarren, haretxen aittana zuan. Gero jeuan Apalategiko errota, eta gero jeuan Maltzagako esan doten hori, Kaietano famosua.

-Kojonesena?

-Bai, Kojonesena.

-Horretxek danok jakat buruan, oin danak ez jitxuat biharbada ondo zeretuko baiña.

11.25. Lehenengo porlanezko lantegia

- **Hizlaria(k):** Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-034/006
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
- **Laburpena:** Eibarko lehenengo porlanezko lantegiaren aipamena egiten du eta Gaztañaga lantegia lekuz aldatu zutenekoa. Urtegi gehiago.

Transkripzioa

-Lelengo Ixidro Gaztañagak euki juan taillarra, eta erre ein zuan, eta han erre zanian ein juen taillar barrirxa, eta ha taillar barrirxa izan zuan lelengo zementozko taillarra Eibarren. Ta Starrak jekan, hementxe parian jekan erreka onduan; hara eruan juan dana.

-Birjiñapian zekan?

-Birjiñapetik eta Ariatzara bittartian. Erreka onduan jekan taillarra. Edifizio haundi bat zuan eta hantxe jekan taillarra. Beheko planta dana Starra zittuan. Goixak zittuazen beste batzuenak. Ha eruan juen haraxe barrirxa ein zebenian, ta Gaztañagak eruan juan Bidebarrixetara, parkeko parian ez hago ikusitta han taillar bat; hor fruterirxa esandako lekuan jeuan taillar

zahar bat, ez jakixat ezautu eban ha, haraxe eruan juen Gaztañaga taillarra, eta bestiak Starra juan zuan horra. Ariatzakuak Starra [mantentzen] juan, gero esan douna, gorao, Hotela daon lekukua [hartzen juen] Katxoneko ura, Katxonerakua, labaderotik pasauta.

-Presia oin Arrate Hotelan inguruan edo?

-Bai, hantxe inguruan zuan hori presiori. Hantxe urtetzen juan da presatik ura urten da belaxe labaderuan pasatzen zuan. Gero ba luze, Calbeton azpittik zihar etortzen zuan. Oin, nola [esango deuat] nik hori, oin farmazia ta badauzak ba Las Herasenak, hantxe ingurura, hantxe jeuan zerori.

-Katxoneko...

-Erreka aldetik jeuan taillarra, baiña handikan sartzen zuan ura, erreka aldera, handik errekatik urtetzen juan-ta.

-Eta beste kunbo bat hamentxe bertan zeuan, ez, Birjiñapian?

-Bai ba, haxe ura, Katxoneko kunbua zuan ha, Katxoneko ura depositatzen, sartzen zuan kunbora, gero kunbotik jausten zuan zeera, errotara. Errotia edo mobimentua ipintzen zeban makiñara. Hori hortikan. Gero hurrengo esan dotena, Otolá Erdiko parekua, Errastiñeko zentrala eraitten juan, Torrekua.

-Lehenago Amañakua.

-Ha, zerekua, Kakalardoneko errotia. Gero Alfak hartu juan ha dana be.

-Presia Amañan egongo zan, ez?

-Presia Amañan jeuan. Oin Amaña nun izango dok hori? Amañatik ingurua, haxe ingurua izango zuan ha. Oin surtidorera igotzen dok ba, kamiñua hartzen dok ba, hantxe inguruan zuan hori presiori.

-Eta bertan egin zan pizinia gero?

-Gero Kakalardonekua geratu ein zuan baiña han pizinia ein juen gero haura kanala aprobetxauta. Itto be ein zuan Eibarko mutiko bat, pentsa eik. Historixia laga juan harek piziniak. Haxe izan zuan, pizinia esaten jakuan, zeoze, potzu haundi bat. Eibarko gauzak orduan ez zittuan gaurko modukuak eta. Gero esan dotena, Torrekuori, Otolá Erdikuan jeuan presia, eta gorao esan doun hori, [Geg?] daon lekua panaderixarakua.

-Azaldeginerakua. Eta gero goren esan doun hori ba [Karloszabalen?] zerori, martxan daon hori.

-Olarriakua.

-Olarriakua. Horretxek danok dittuk.

-Haxe izango zan azkena Eibarko...

-Eibarko azkena haxe dok.

-Ha justu-justu Eibarren, ez?

-Gero oin nahi bok sartu lburren be badaok beste bat, beste zentral bat. Han zentrala jeuan han be ta, zentrala ta gero tornillerixia jeuan bertan han be. Baiña ha igual egongo zuen Zaldibarko partian.

-Eibarrek presa mordua zekazen eta gaiñera inportantia izango zan orduan.

-Txontakua ez deuat esan gaiñera. [...]. Zuan norixa haundi bat zuan burdiñazkua; harek eukiko jittuan diametruan bost bat metro, eukiko eingo jittuan harek. Aletak edo, ura jausi ahalian bueltaka erabiltzen juan harek, bueltaka, aletak klas-klas-klas!, urak jo ahalian, sosiuz-sosiuz baiña mobimentua. Ta guk ezautu genduan ha, ha geldi egoten zuan, martxan ez jeuan. Guk igari eitten genduan Txontako presan, eta ura hotzaua egoten zuan, gaiñera, mendiko ura! Ha hantxe euan ha geldi, ta gero ez jakixat, desaparezidu ein zuan ha. Ha, e, gerra ostian saldia eingo juen harekin seguru, burdiñia zuan dana ta.

11.26. Urtegiei esker lantegiak bizirik

- **Hizlaria(k):** Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-034/007
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Eibar urtegiei esker bizi zen garai hartan, lantegiak haiei esker bizi ziren. Zentralak sortu arte errotak izan ziren.

Transkripzioa

-Orduan Eibarren presak inportantzia haundixa.

-Horretxekin bizi zuan Eibar. Taillarra biharra ein bihar zuan, baiña mobimentua bihar zuan erreminttendako, eta horretxekin eitten zuan. Ta gero hori esan dotenori, hori Torrekuori, horrek indarra emuten juan baiña hor be errotia egondakua izan bihar zuan hori be. Gero indarra eitten ipiñi juen hori.

-Presa gehixenak hasieran errotak izango zian.

-Errotak danak, danak, danak. Gero ba motor elektrikua etorri zanian trasformaziñua egongo zuan, aldaketia egongo zuan.

-Esan destazu zure aittak ezautu zebala...

-Katxonian ba, aittari entzunda naok ni hori. Biharran bai akabatzaillia ta ura gastau ta ra-ra-ra!, ta ezin eiñ biharrik, ta laga in bihar biharrari. Ura berriro betetzen zanian pixkat ba emon ta ala benga! Bai, gauzak oin gaur begiratuta, hi bahabill estudixatzen eta ikusten hao zelan zian lehen gauzak, baiña mordo batek pentsatzen jok hau gaurko moduan izan dala beti gauzia. Booo! Hori baiño luziaua izan dok hamengo historia.

11.27. Eibarko kale eta dendak

- **Hizlaria(k):** Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-034/009
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena:** Eibarko "Katxoneko etxea" eta Birjinapeko pasabidea aipatzen ditu. "Tanborreneko denda", Solaguren; Birjinapean erretzen zen kafea. Birjinapea 10 metroko tunela zen. Kasinoa eta Gipuzkoano bankua.

Transkripzioa

-Kontauko destazu Birjiñapia zelakua zan?

-Birjiñapia zuan gaur Calbetonen farmazian pare inguruan, handik goittik behera pasatzen zuan Dos de Mayora. Hantxe amaitzen zuan errekia tapautakua. Handik aurrera Katxonekua jeuan hurrian, harek eskumako

aldiak bidian, Ardantzako bidian eskumako aldia Katxoneko etxia jeuan hortxe.

-Eta Katxoneko..., eta hor onduan zeuan Birjiñaperako zera?

-Ez. Katxoneko etxia baiño gorao jeuan hori. Birjiñape jeuan Calbetonetik gaur farmazia dauan ingurura urten bai, da handik sartze' hitzan goittik ezkerreko aldera hartu ta, lehen esan doten zerori, pasadizo estu hori taillarrera, erreka ondoko etxe illarian atzetik Barrenkalera urtetzeta' eban.

-Birjiñapera hasi jeisten eta zer zeuan hor inguruan, dendaren bat edo?

-Tanborreneko dendia esaten jakuan, Gabino Uriona zuan jabia. Gero euki juan zerak, lbarguren ez, baiña zela...

-Solaguren?

-Solagurenek gero euki juan, ha zuan lelengua. Da Gabinon andriak hor Birjiñapian, hor tunelpian kafia erretzen juan, kafetera haundixa botatzen juan han eta erretzen juan kafiori, gero etara zakuen gaiñera etaratzen juen kafia hoztutzeko, eta hantxe erretzen juen kafia. Gabinon andria, dendakuan andriak.

-Tanborrenekuak?

-Tanborrenak. Birjiñapian baña, aterpian e. Hantxe.

-Birjiñapia orduan aterpia zan, tunela zan.

-Bai ba, tunela zuan. Zenbat metro eukiko jittuan ba harek tunelak. Hamar metro?, hamabost? Motxa zuan. Goixan hasi..., zera jeuan, terraza bat jeuan inda jentia ta ibiltzeko. Da haren azpittik bestekaldera pasatzeko haren terraziakin aterpia ein juen han. Lehenao ez zuan izango hori be. Baiña gero han jeuan...

-Plaza Barrixa haundittuta...

-Haxe haunditzeko han ein juen terraziori eta haren azpittikan laga juen tunela.

-Eta terraza horretan tabernaren bat edo?

-Hor jeuan, banko bat jeuan, etxe haundi bat jeuan, eta han jeuan Casino Amistadia, eta Banco Guipuzcuanua lelengo hantxe egon zuan.

-Kasinuan bertan?

-Hantxe etxian, etxian behietan. Ha etxia ta desperezidu zittuan.

Hementxe bertan.

11.28. Birjinape kalea

- **Hizlaria(k)**: Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-034/010
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:18:55. **Bukatu**: 00:20:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Birjinape kalean Ama Birjinaren irudia zegoen. Denden kokapena eta kaleak izendatzen ditu. Bi okindegi zeuden Birjinapetik behera. Txantonekoen aipamena egiten du.

Transkripzioa

-Eta Birjiñapia esan destazu, Birjiñapia zala hor figuraren bat edo...

-Nitxo bat baekan eta Ama Birjiñaren bat jeuan han; ez jakixak, illun-illun

egoten zuan bertan-da. Ta Birjiñapia, birjiñai lehen itxuria ohittura leku askotan jeuazen, nitxuak ipintzen zittuazen. Ta gero figurak, elixako figurak. Han be hoixe jeuan, eta Birjiña Azpixa horretxeaittik esaten jakuan hari.

-Birjiñapia.

-Nere ustez behintzat.

-Eta Birjiñapera sartu eta Tanborreneko dendia ze zeuan, jeixten hasi ta ezkerretara, eskumatara?

- Bai, sartu aurretik jeuan Tanborreneko dendia. Ardantzarako aldaparian hasieran.

-Orduan jaisten hasi eta zuzen Ardantzara eta eskumatara Birjiñapia eta...

-Bai, hara hasi baiño lehen goittikan Birjiñapera, ta gero pixkat bajatzen hasi ta dendia; Katxoneko etxian kontra jeuan ha be.

-Eta gero handik zuzenian Ardantzara.

-Ardantzara. Gero pasatzen eban zerori erreka gaiñetik, eta hemen erreka amaittu eitten zuan hor. Gerra ostian hasi zuan, tapau zuan hau berutz.

-Eta esan dozu hor Birjiñapian, Txantoiaren lelengo fabrikia bertan egon zan?

-Birjiñapetik honutzao baiña bastante. Hor ikusten dok.

-Birjiñapetik Arraindei kalera.

-Bai, Arraindi kale alderutz, Arraindi kalerutz. Han jeuan, panaderiak pe baeuazen han bi. Baiña harek danok motor elektrikuakin eitten juen biharra. Urakin etxeuan hor ezebe, hi.

-Txantoiaren orduan, Star-ra, bertan hasi zan orduan.

-Hantxe. Hor ez jakixat hasi zanik, nik hortxe ezautu najuan. Baiña ha be hasiko zuan beste lekuren baten, seguru. Leku txikixauan, gero gehitzen, gehitzen.

-Ezauna zan bera Boni Txantoiaren Eibarren?

-Boni Txantoiaren semia zuan baiña aitta zera zuan. Zela zuan ha, aitta, Txantoi Zarra. Izena ezin [gogoratu].

-Ezautu zenduan zaharra?

-Bai, bai.

11.29. Fermin Kalbeton eta Untzaga plaza

- **Hizlaria(k):** Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-034/012
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Eskuadra zaharreko taldean elkartzen zirenak musikarekin Bilbora joaten ziren. Fermin Kalbeton Eibarko kalearen eta pertsonaia beraren aipamena. Untzaga plaza huntz landarean izenetik datorren izena da. Errepublikak.

Transkripzioa

-Zeintzuk alkatzen zian, Eskuadra Zaharra ta zer zan? Kuadrilla ezauna zan?

-Danak euren edadekuak. Dos de Mayuetan egoten zuan Bilbon desfilea liberalena, eta horrek musikiakin joaten zittuan tren espezialian Bilbora, horrek zaharrok.

-Fermin Calbeton [zein zan]?

-Fermin Calbeton zuan, Fermin Calbeton da beste historixa bat daok. Fermin Calbeton izan zuan monarkixako denporan Ministro de Fomento. De Obras Públicas izatia moduan. Ta horrek Eibarko obra askori lagundu bihar izan etsen. Deban be bajakak horrek kalia, e; plazia edo zera, pasialekua edo zeoze. Hori donostiarra zuan ba hori. Bai. Da lagundu ein bihar izan etsen asko eta Eibarren horretxeaittik ipiñi etsen zer horri, kaliari izena.

-Lehenago ze izen zekan kaliak?

-Hori... Nik hola ezautu juat.

-Unzaga edo?

-Untzaga zuan bera plazia zuan Untzaga. "Huntz hagia" jeuan ba han. Huntza zera dok, "hiedra". Egon bihar zuan, demasa egon bihar zuan, huntz-hagia, haretxen izenetik egon bihar dok hori. Huntza esaten jakok ba euskeraz, "hiedra", demasa egon bihar zuan. Hortitxik euki bihar jok Untzagiak bere jatorrixori. Horri izenak asko aldatu jakuan. Republika denporan Plaza de la República, Plaza de Alfonso Trece, gero be beste zeoze ipiñi etsen.

-Dieciocho de Julio.

-Dieciocho de Julio. Eta beti Untzaga. Eibartarrentzako Untzaga beti.

11.30. Ardantzako iturriaren ospe ona

- **Hizlaria(k)**: Barrutia Iriondo, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-038/005
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:08:33. **Bukatu**: 00:11:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Iriondo, Ander
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Eibarko iturriak non zeuden kontatzen du. Amañakua iturria galdu egin zen. Gertaera bat kontatzen du. Eibarko Ardantzako iturriaren ospe ona aipatzen du. Ur gutxi botatzen zuen.

Transkripzioa

- Eta hor inguruan iturrirak be baziran Ardantzaren pare bat...

-Ardantzaren zeuan ointxe daon lekuan, trenbidepian, hantxe bat eta bestia, iturri zaharra, ba... oin ez dakit ze pasau jakon hari. Karo, ez naiz pasau urtietan, baiña...

- Etxiak ein dittue, protekziñoko etxiak ein dittue.

- Bai harek bai, baiña berau... bueltia... Katxoneko etxia? Han bueltia hartzen zan, hartzen da, Aldatzerako, ba, bueltia hartu barik hantxe aurre-aurrian. Zegaittik han Mendizabalen-ta... horrek ein zebenian... Mendizabalek ein zebanian tallarra hondatu zan, lehen be ez zan, baiña, aberatsa. Harek galdu eitten eban ura. Ardantzakuak esaten eben Eibarren urik onena haixe zala. Honek Errekatzukua dala hamenguak; bestiak, ba, Urkuzukua. Bai, ta Amañakua be bai, Amañakua galdu da. Behin jua nitzan... hori bai esan leikiala galdu dala, iturri zaharra ez dakit, baiña Amañakua... jua nitzan. Laredon egoten naiz ta, zera ta, behin hango batekin berbetan ta akordau nitzan. "Hau dok herrixa" esan netsan, "Holan herri txikixa izateko, iturri bat ez juat /etxuat/ ikusi herrixan!". "Ez ze Laredo laua da, ta zera ta..." "Baiña hor mendixa badakak honek ta iturri bat ez daok hamen. Ze gauza rarua!", "Ta zeuek zenbat dakazuek ba?", "Ta

ba... ez jakixat /etxakixat/ nik baiña Amaña ta Aldatzekua ta itturri zaharra be sartu neban —ez dakit [holan] zan baiña—, ta Ubitxakua ta hau Errekatxukua ta Urkuzukua ta...

- Aurrera parekua...

- E?

- Aurrera parian be...

- Baita, baiña han ez dau emoten oin, ez dau [botatzen]. Baiña esan netsazen dozena erdi bat edo, edo gehixau, ta txokauta geratu zan. Ta esan neban: "Amañakua ikusi bihar juat". Banoia pasiuana ta sartzen naiz ta dana kakalekua dana, ta itxitta, ez dau urik, ez dau, ha galdu da. Hori bai, baiña itturri zaharra ez naiz akordatzen.

- Oin behintzat uste dot galdu dala. Eta harek famia zekan orduan?

-Ardantzakuak? Nik entzuna. Ta nere aitta horkua zan, hor inguruan...

Birjiñapian bizi izandakua zan. Gero Birjiñapia gerraostian, ba, batzuk bizi izan zian baiña bastante zera zeuan. Ta han tuneletik pasauta, oin diferente, oin ez da lehengo... baiña bueno han kunbua ta ezautu nittuan nik, ta hangua zan. Ta ba, harek be esaten eban "lehen itturri zaharra ona zan" ta itturri zaharra ez dakit zer ta... Nere aittak be esaten eban hango ura ona zala, baiña nik neuk, e... Han gitxi botatzen eban ta joe, badakizu, igual, "Felix! Ekarrizu ura!" ta joe, trenbidepera juaten nitzan, bueno, trenbidian kontrakora. Han hartu ta, "Bizkor ein dozu! Zelan, baiña?" ta "Jo, eske bestiak ez dau botatzen!". Ta, klaro, neretzat miñutu bat galtzia txarra zan! Joe, nik foballian edo pelotan edo [...] gustatzen jatan ta, joe, ez jatan gustatzen itturri zaharrera juatia. Baiña, bueno, iñoiz juaan ein bihar izaten giñan.

- Bai, umien biharra izaten zan ura ekartzia...

- "Ekarrizu ura!" ta "Joe, oin juari hara!". "Juari hara" ta hantxe pitxarra bete ezinda hantxe ordu erdi.

11.31. Arrateko ostatua beteta oporretan

- **Hizlaria(k)**: Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-043/006
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:08:57. **Bukatu**: 00:10:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena**: Gaur egungo Arrateko "koloniak" diren horretan zegoen "ospederixia". Kolonia nolakoa zen azaltzen du. Jendea oporrak pasatzera joaten zen bertara. Manolo Gisasola autoz joaten zen oporretan. Lehenengo autoa izan zuen Manolo Gisasolak eta nolakoa zen azaltzen du. Baita haien oporrak ere.

Transkripzioa

-Hospederixia bazeuan ni etorri nitzanian.

-Oin Kolonixak darena?

-Bai, bai. Ba hortxe bertan [...]. Goixan dao, habitaziuak pe egon biha dabe, baiña orduan ez, behia zan bakarrik. Ta egongo zien ba bost bat kuarto edo, haundi-haundixak. Osea zian haundixak kuartuak eta han familixia egoten zan, "por ejemplo"...

-Jentia joaten zan bakaziñuetan.

-Bai, bai. Bakaziñuetan joaten zien eta. Klaro, ez zeuan oingo moduan kotxerik eta. "Por ejemplo" honetxek zeukan kotxe bat, lenengo kotxia honena etortzen zan, Manolo Gisasola. Ta manibelakin emoten jakon holan. Akordatzen naiz joaten zienian, zapatuan etorri Arratera eta gero joaten zien domeka gabian Eibar aldera.

-Hori gizonak?

-Bai, gizonak. Eta osabak, tiok, jasotzen zaban hola sotania eta ematen zion manibelari, bera barruan dauala, bestela ezin zeiken arrankau kotxia. Hola eitten zan maniobria orduan. Eta hori zan lenengo kotxia Arratera joaten zana.

11.32. Arrateko ostatutik Eibarrera erosketetara

- **Hizlaria(k)**: Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-043/009
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:11:18. **Bukatu**: 00:12:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Arrateko ostatuaren eraikuntza Eibarko Udalarena zen. Bertan zerbitzatzen zuen Maritxu Olarrak eta bere lanak nolakoak ziren kontatzen du. Eibarrera erosketak egitera bajatzen zen egunero.

Transkripzioa

-Eta Hospederixia zeñena zan, aiuntamentuana?

-Aiuntamentuana. Tion arrebiak [zeukan] hartuta, baiña izatez aiuntamentuana da hori beti. Oin ez dakit, oin be aiuntamentuana izango da porke koloniak etortzen dia ta hori, ba hori aiuntamentuana orduan be.

-Zu han zerbitzen ibili ziñan?

-Ni han zerbitzen naban, bai. Lenengo etorri nintzan umiak zaintzera baiña eitten naban danetik porke ein in biha zan, ezta. Ta gero haunditxua, pare bat urte gehixao edo nakazenian ba Eibarrera astuakin-da gauzak eruateko, errekaak, dana astuakin eruan biha zan.

-Zu Eibarrera jaisten ziñan errekaak eittera, eroatera.

-Errekaak eittera, bai.

-Basarritarrak jaixten diran saltzera baiña zu eroatera.

-Bai. Ni eroatera joaten nintzan. Eta bueno, hor ibiltzen nintzan astuorrek in domiñau ezindda. Batian sartzen nion, hori egoten da ba hola zulo batekin, alkantarillakua edo ez dakit ze izaten dan, kuadrutxo bat, eta dendian aurrian sartzen nion han eta igual ataritzen zaban eta ai ama! Orduan ez zeuan hainbeste aguazil be ta, trafikoik be ez.

11.33. "Pausoen" bidea

- **Hizlaria(k)**: Olarra Olazagirre, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-043/010

- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:12:29. **Bukatu:** 00:13:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Arrateko "Pausoetatik" bajatzen eta igotzen zen Eibarrera erosketak egitera, astoan. Orbeko bidea ere aipatzen du.

Transkripzioa

-Nundik jaixten ziñan?

-Ni Azitaindik. Pasuak badaure ba? Pasuetatik. Aldapa haundixa dao, e, baiña handitxik. Gero badao beste bat Orbetik, beste bide bat, baiña beti hortik bajatzen giñan. [...] baten bajatuko giñen bestetik be baiña.

-Eta igo be bai?

-Eta Kantabrianekuak eta Zesteroko beste baserri bat eta. Bueno, juntatzen giñan hiru bat edo batzutan, bestetan bakar-bakarrik igual da. Igual astuak ezin eruan dana eta noberak lagundu bihar ta danetik. Baiña halaxe zalakuan. Hobeto besterik ez zeualakuan gaiñera, e. "Qué cosa".

11.34. Karakatera telefono haria igo zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-046/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Karakate mendira telefono haria igo zuten, horrela, hegazkinak noiz zetozen abisua eman ahal izateko. Eibarren Telefonica zegoen; indartsua zen, gainera. Gipuzkoa izan zen telefono-haria zabaldu zuen lehen lurraldea. Zuhaitz batetik bestera haria lotu eta Karakateraino igo zuten telefonoa. Gaua pasatzea tokatzen bazitzaien, goizaldeko ihintza aprobetxatu, eta garo artean hartzen zuten dutxa.

Transkripzioa

-Agustin: Gero Karakatera linea ipiñi genduan guk, argixa, zera, telefonua.

-Bartolo: [Maltzaga] gaiñian badaok pa Karakate.

-Agustin: Telefonua ipiñi genduan guk hara. Abioia entzutzen genduanian telefonua zentralera. Eta honek [...] kanpaiak jotzen zittuen.

-B: Kanpaiak jotzen zittuen orduan abioiak bazetozela aitzen emoteko.

-Drauna?

-A: Drauna ta.

-Telefonua zela igo zenduen? Harixa goraiño?

-A: Harixa goraiño. Orduan euan, Eibarren euan harixa eta telefonikako asuntua euan, almagazkan baiña terribliak eren. Orduan usten dot Gipuzkuan ipiñi zala lelengo telefonua.

-B: Telefonua Españako probintzia Gipuzkua izan zuan lelana bera.

Diputaziñuana zan telefonikia ta.

-Eta Eibarren be bazeuan telefonikia?

-A: Eibarren elemento asko euan telefonikakua eta lineia botatzeko. Baitta

hamar linea be botako genduzen hor [elementuekin].

-Harixa hartu eta...

-A: Bai ba, arboletan lotu ta goraiño.

-Eta? Han ze? Hiru-lau lagun alkartzen ziñazien?

-A: Bai, txabola ba ein genduan da han egoten giñan. Abioia etorrenian ba telefonoua jo ta akabo. Eta ez euanian ezer eta euri pixka edo nahiz ta egualdi ona egon, garua bakizu zer dan garua? Garua holako, gu baiño altuao izaten zan, da goixian ohetik jaikitzen giñanian hantxe hartzen genduan dutxia. Garo artian joan eta ri-ra-ri-ra! Hantxe hartzen genduan dutxia intzakin.

-Intza, intza.

11.35. Amaña aldea gerra aurretik

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/010
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:10:36. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Eibarko Amaña auzoa, Legarretik Asoliartzara bitartekoa, nolakoa zen kontaktzen du, gerra aurrean. Ospitalea, Amaña, Mandiola bailarako azkeneko baserria zen Asoliartzara.

Transkripzioa

-Gustauko jatan kontaktzia Amaña ingurua ta Legarretik zeuen basarri ingururainokua ta zelakua zan gerra aurrian.

-Ospittala eiñ ebenian be akordatzen naiz ni. Nere anaia joan zan igeltsero. Akordatzen jata, kontratistak zian bat Amorebietakua da beste bat Durangokua, zian kontratistak eiñ ebenak hori ospittala. Hor ezebe ez euan. Zian mendixak eta gero sartu pixkat goratxua Abontzakua euan, eta bestia Arrajola goraokua, baiña hor Abontzara joateko-ta soluak zian horrek danok, eta hori kantera-burua, ospittaletik aurrera doian kantera... horrek zian mendixak, mendixak bakarrik.

-Amaña dan guztia be mendixa?

-Mendixa, horrek danok mendixa zian danok. Gure basarritik aurrera arte. Eta gure basarrixa da atzenengo basarrixa Mandiola Ballekua. Hor daoz Arrate Balle, Ko(ro)sta Balle eta Mandiola Balle. Eta gure basarrixa da atzenengo basarrixa.

11.36. Amaña inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/012
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:13:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Amaña ingurua azaltzen du berriro. Inguruko baserriak aipatzen ditu. Baita markesak ere.

Transkripzioa

- Ta hori zuk esaten destazuna, ba hori danoi Olerriagatik, Olerria artian dana mendixa zan hori. Eta bestekaldetik be bai, Lambretta aldetik-eta; hori dana.
- Behekaldian basarri batzuk egongo zian, ezta? Otolata.
- Otolardikua; erreka onduan Otolata erdikua, da gero zerian Eskola Armerixan onduan Kantoikua. Ointxe kendu dabe zera. Ha zan basarrixa. Eta horrek zian markes [batenak]. [Gascón?] Gallastegi zan uezaba horrek; Madriden bizi zian. Markesak zian.
- Eta beheratxua Torrekua zeuan, ez?
- Torrekua ta Errotakua. Bai, basarri bi.

11.37. Txikitako lagun arteko jolasak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi Ariznabarreta, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-068/015
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:15:31. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Lagunak eta harremanak aipatzen ditu: Txaltxakoa, Otaola Erdikoa, Artagietakoa, Elorretan, Sosola... Manuel Iturricastillo. Errekara jolastera joaten ziren. "Biribila" deitzen zioten putzuari eta Valenciaga tailerretik hasi eta Alfaraino heltzen zen.

Transkripzioa

- Zuek Asoliartzan umetan zeuen hartuemonak eta lagunak inguru baserrietakuk?
- Bai, Txaltxakua da Otolata erdikua be bai eta Arteittakua be bai. Klaro, Arteittakua-eta ezkondu ein zian eta eruaten zittuen beren semiak eta harek zien gure lagunak, ondio bizi da, Manuel Iturrikastillo. Enfin, lagunak gero Elorretan, Zozolan, Zozola, Aitxulueta, Jose ta horrek danok. Danok giñan ezaunak, lagunak.
- Zeuen artian jolasian eta?
- Bai. Honbre, egoten zan... Nik holan eurekin hasarretuta gitxittan, ia nere pelotia ero hartzen nebanian, bueno, saludau ta [...] beti egoten giñan zerian, ezta.
- Eta errekarra baiñatzaera ta joaten ziñazien?
- Bai, errekarra; Biribilla; erakutsiko detsut zela euan erreka. Gure, udan gure zera zan hantxe igari eittia. Biribila esaten etsagun.
- Biribilla?
- Biribilla. Pozua haundixa zan eta amorraiñak eta egoten zian, e, amorraiñak eta. Jentia peskan goizian asko urtetzen eban. Ask.
- Gitxi gorabehera nun zan hori?
- Hori zan, Balenziagan tailerrak ekin bai ta Alfaraiñok, Alfa beheraiñok.
- Ze zan presaren bat, kunbua edo?

-Kunbua euan ezkerretik, baiña zerrau eitten eben kunbua betetzen zanian eta horra urtetzen eban. Baiña falta zanian kunbora faten zan ura errotarako. Errotia euan orduan. Biharra eitteko.

11.38. Auzolanean garitarako, bideak garbitzeko...

- **Hizlaria(k):** Azurmendi Agirre, Emilio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-079/009
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:12:38. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Arrillaga, Idoia
- **Gaia(k):**
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Auzolanean egiten zituzten hainbat lan: garia lantzea, idiak elkartzea... Bidegintza ere auzolanean egiten zuten. Zer-nolako lanak ziren haiek aipatzen du. Eskulana zen. Erretenak garbitzea garrantzitsua izaten zen eguraldi txarrari eta euriei aurre egiteko. Garoa jaisteko ere bideak prest utzi beharra egoten zen. Auzolanaren ondoren, urtean dozena bat bider garbitzen zituzten erretenak baserritarrek, bakoitzak bere zatia.

Transkripzioa

- Ta beste gauza batzuetarako-edo elkartzen zifazien auzolanetan?

- Gari ebatietan iñoiz, garixa ebaten. Bueno, orduan ohitturia izaten zan, ba, konparaziñuan, behixa alta dauanian, ba, nunbaitten izkua baldin badao, ba, juaten zan zerbiziuua eittera. Ta gero haren orde z jeneralian izaten zan, ba, gari-ebatia edo zeozelan lanian. Hori, ba, asko zertzen zan, ta hori... ni hor zerian izanda nao Akondian be bai ta leku askotan.

-Eta bidegintzia ze izaten zan? Lurra bera be bai garbitzen zan? Ertzak bakarrik edo zer izaten zan?

-Ertzak garbittu ta zulo-unak bete. Ta harrixa pikatxoiakin etara bihar bazan, harrin bat txarra badau be, etara ta gero handik ha bete ta holan, holako... zestuekin.

-A bai, e? Zestuekin?

-Bai, bai eskulana dana. Eskulana. Hori izeten zan... garua ekartzen zan gero, ta hartarakotxe izeten zan. Gero, gaiñera, beste gauza bat sangraderuak, erretena esaten jakon, sangraderuak, hori zan inportantia. Hori etaratzen zan garbi danian, ta alperrik [egon] tormenta haundixa etorri, ba, haundi-haundin bat etortzen bada bien, baiña bestela repartidu eitten [zian] ura eta ez zeban kalterik eitten. Oingo moduan, oin goixan hasi ta beheraiño etortzen dia.

-Erretenakin eitten zana zan bideratu, ez? Ura bideratu ta pixkat ,e...

-Bai, bai. Ta guk eitten genduana zan, ba, ni eindda nao hasi Naiorben ta Santa Kurutzeraiño askotan hartu atxurra ta erretena garbittu, trumoia entzutzen zanian, ta, jua ta garbittu. Ez baten ta bittan, e! urtian dozena bat bidar.

-Oseake erretenak einda egoten ziran ta eitten zenduena zan garbittu.

-Bai, garbittu.

- Atxurrakin edo...
- Bai, bai. Hori oso gauza zera zan, kritikua.
-Eta horren izena zan bidegintzia.
-Bidegintzia zan bidegintzia, baiña erretenak garbitzia, ba, ohitturia zan, ba, zonatik zonara holako basarrixak, e... tak.
-Norberak norberana...

11.39. Isasi ingurua; harraska erreka, korta eta etxeak

- **Hizlaria(k)**: Askasibar Lauzirika, Agustina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasketa, Ane
- **Erref**: EIB-084/003
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Isasi 10 zenbakian, atze aldean, harraska bat zegoen eta "kunbo" bat ere bazegoen bertan (upel moduko zerbeit). Gerra denboran, gordeleku moduan erabili zen. Ego Gainen zegoen "kunboa" eta hegazkinak zetozenean bertan ezkututzen ziren. Erreka gainean eraiki zen hotela gerora. Isasi 14 eta 16 zenbakien azpian korta batzuk zeuden. Zaldiak eta gurdizainak egoten ziren. "Katillunekoak" zeukaten korta. Gurdizainen ofizioa aipatzen du.

Transkripzioa

-Zuen etxe atzekaldian, Arrate hotela daon lekuan, zer zeuan han?
-Han eguan kunbo bat. Gure etxian ta beste etxe batian, guria zan hamarra ta bestian, hamabixan, tartian euan eskillarak. Ta handik juaten zan, han euan labadero bat, ta andrak ur hotzakin erropak garbitzera, harrixan gaiñian, ta hantxe danak abesten ibiltzen ziazan, umore onakin, pertsona zintzua baiña umore onakin. Beti kantu batian.
-Ta gero euan kunbo bat. Handik kunbotik, ta gero gerra denporan, [ha kunbua ta ekan pues] zera refujixo moduan. Han gerra epokan, bonbardeuak, han, Ego gain, bota eban harrixa, edo... bonbia. Ta han egon ziazan herido asko. Ta danok abioiak etortzen ziazenian... "Ene abioiak!.. Hiru datoz!" ta korrikan, ta hantxe ezkututzen giñazen.
-Nun zeuan kunbo hori? Hotel Arraten inguruan edo nun?
-Hotel Arraten azpitan, azpitan euan. Klaro, ez zeuan hotelikan. Orduan euan kunbua, ta gero erreka gaiñian dao einda hotela.
-Eta ez zeuan hor korta bat edo holako zeozer?
-Harutzago, hamalauan ta hamaseixan, azpitan, euan korta batzuek. Ta han eoten ziazan zaldixak. Eta gero karreteruak eken han... kaballuekin ta karruekin urtetzen eben. Han euan zera... karreteruak han eken... zerak, zaldixak.
-Zeinenak?
-Katillunekuak. Harek ekan, Katillunekuak han eken kortia. Katillu nausixak, oin bizi dirazen gurasuak, aitta, harek ibiltzen zan karretero.
-Zein zan karreteruan ofiziua? Zer eitten eben?
-Materixalak eruan ta... biharra. Oin furgonetak eitten zana orduan eitten eben karruekin.
- Lehen esan dozu labaderuan kantuan ibiltzen ziala...
- Bai, oso kantuk.

- Andrak bakarrik?
- Andrak, bai.

11.40. Ardantza kaleko Arizmendi txololategia

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:08:10
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Ardantza kalea nolakoa zen oso gogoan dauka. Bere jaiotetxea zegoen lehenengo, aurrerago zegoen "Dos de Mayo" kalera pasatzeko tunel moduko bat ere gogoan dauka eta, nola ez, Arizmendi txokolategia. Txokolatea egiteaz gain, azukre-koxkorak ere egiten zituzten bertan. Lehiotik begira ordu asko pasatzen zituztela kontatzen du.

Transkripzioa

Ardantza zan, ba, sartu eta gero aldaparatxo bat eguan, halantxe sartu ta aldaparatxo bat eta trenbidia. Ta han eguazen hemendikaldetik nere etxia lehelengo, ta gero eguan tunel modukua ta han gero eguan beste etxe bat. Bueno, han eguan piso bat. Ta gero eguan txokolaterixia, Arizmendi. Lehelengo Arizmendi. Txokolatia eitten eben eta azukarilluak. Ha etxia raruua zan. Handik sartzen zan peora batetik eta etxe bat eguan Ardantzara emoten ebana eta gero beste bat eguan Dos de Mayora, ostetik. Ostia esaten gentsan Dos de Mayoko behekoa, gero han etxe batzuek zelan eguazen, ba haxe ostia esaten gentsan. Ba, haraxe emoten eban horrek. Baina, lehelengo pisora sartzen zan, bai batera ta bai bestera, hortik, tuneletik edo hortxetik sartzen ziran.

Txokolaterixia, bai. Txokolatia itten zeban ta azukarilluak. Gu ikusten azukarilluak eitten. Ta zan gauza bat, papelak ipintzen zittuen halan, "esiak" eitten ta hantxe azukria edo ta saltoka ibiltzen zan ta gu bentanatik ikusten, neu behintzat, ze hara lehelengo pisora asko juaten nintzan. Ze nere etxera, hirugarrenera igo bihar neban ta ha lehelengoa. Ta halaxe eoten nintzan begira ta "han, badao hor!"

11.41. Ardantza kalea nolakoa zen

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/007
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:08:48. **Bukatu:** 00:10:59
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Aulestiarte etxearen aldamenean iturria zegoen, baina gaur egun dagoenarekiko desberdin kokatuta. Adelaren etxea, txokolategia, Aulestiarte, ortuak eta trenbidea zeuden Aldatze kalearen

alde batera, eta bestera, Urizarreneko etxea, Okamika eta Zubizarretatarren etxea zeudela gogoratzen du.

Transkripzioa

Ha zan etxia Aulestiarte. Ta gero eguan, itturrixa. Oñ dago itturrixa hala, ta orduan eguan hala, horko paretian eta han eguazen Elosuneko ortuak eta gero, trenbidia. Oñ dago aldamenian, orduan eguan parera. Ta gero han eguazen, paretan azpitan banko batzuek eta gero eguan errebueltan etxe bat. Han bizi izan ziran... bueno, asko. Ta gero Urizarreneko etxia. Gero eguan beste etxe bat, han bizi ziran txokolaterua ta beste batzuk pe bai. Ta gero beste bat, han bizi ziran, zelan ziran,... Okamikanekuak, bai. Paskual Okamika. Ta gero beste etxe bat; han bizi ziran behian Okamika ta goixan Zubizarreta. Ha beste etxia ein eben gerora, ha etxe barrixa zan, eta han bizi ziran Elosunekuak ta ya gero trenbidia zan. Ezkerretara eguazen, esan detsutenak: neria, txokolaterixia, Aulestiarte eta gero ortuak.

11.42. Ur "ona" ematen zuen iturria

- **Hizlaria(k):** Telleria Gallastegui, Adela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gaston Balerdi, Izaskun - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** EIB-661/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:13:08
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Trenbidearen parean, "ur ona" ematen zuen iturria zegoen. Ardantza kalean, etxetik gertuago, ur epelagoa ematen zuen iturri bat ere ba omen zegoen. Urrutiraino joan nahi ez eta handik ekarritako urari etxean segituan antzematen ziotela kontatzen du. Mojen etxearen aldamenean ba omen zegoen hirugarren iturri bat, baina hango ura are beroagoa irteten zela kontatzen du. Ubidea ez zegoen batere sakon lurperatuta antza.

Transkripzioa

Gero han eguan, kantoian eguan itturrixa. Trenbidian pare-parian, itturrixa ta ha zan ur ona. Haraxe juaten giñazen uretara. Bestia Ardantzakua, lehelengua, zan epelagua ta batzuetan pitxarrakin, ba entretenidu ta hantxe bete ta etxera. Segiduan igartzen zesten "hau ez da ura". Askoz freskuagua zan bestia. Gero beste iturri bat eguan monjen onduan baina ura berua, epel-epela zan. Kañerixia itxuria eguan "a flor de.. esto" horregaitxik ba, epela. Pentsatzen dot deitzen zala "Barrenkua", "Itturri barrixa" ta gero han onduan eguan erropak garbitzekua, labaderua. Han eguan labadero txiki bat, itturrixan aldamenian. Errekatxo txiki bat eguan eta handik juaten giñazen kamiñuetara, hara gora, Arrateko bidera.

12. Natura

12.1. Aitak erregalatutako eskopetarekin hasi zen ehizan

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** AB-164/028
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:04:45. **Bukatu:** 01:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Ehiza kontuak. Umetan hasi zen, aitak erregalatutako eskopetarekin. Hasieran denetik hiltzen zuten ("keixapean"); gerora ikasi zuen txoriak errespetatzen.

Transkripzioa

- Zu kazan ze hasi ziñan, oso gaztia ziñala?
 - Umia nitzala.
 - Bai?
 - Bai. Neri aittak, ez jakixat ba nik, dozena bat urterako eingo jestan behintzat eskopetia, hau hamabi milimetrokuau, txikixa, bere denporan. Ta orduan ezebe-ezebe ez [zuan] kontrolik kazarako. Ni Mendaron egoten nitzuan basarrixan, nere aman etxera juanda hara. Eruan eskopetia... keixapia... Geuzarik grabiena horixe da, keixian dauan umiekin-ta zozuak darella ta zozokumak be igual ta "Tapa! Tapa! Tapa!". Ze eitten nebanik be ez! Hil ta sei edo zortzi-hamar hil ta tiari: "Aiba! Ipiñi horrek!". Lumatu ta ipintzen jittuan harek! Ta harek be "como si no", holaxen dalakuan. Dakan inportanziakin, keixapian, umiekin ta arrautzekin txorixak eta! Orduan ezebe ez euan. Halaxe ekin najetsan. Gero... gero ez. Gero "¡A respetar todas las cosas!", beste edozeiñen moduan.
 - Orduan Eibarren jente asko izango zan kazarixa, ezta?
 - Asko, bai. Asko, bai. [...] Oin kazarixa izateko pixkat responsablia izan bihar dok eta gastua be ein ein bihar dok, zegaittik eze eskopetak be karuak dauaz. Eskopetak karuak, eta gero muniziñua be ez dao merkia. Ta gero hamen ez dok eingo kazerixa haundirik, baiña Burgosera edo... jolin! Juan ta gastua. Beti gastua eitten!

12.2. Ehizan nondik-nora ibili izan den

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** AB-164/029
- **Iraupena:** 0:07:00. **Hasi:** 01:06:35. **Bukatu:** 01:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Natura » Fauna
- **Laburpena:** Ehizan non ibili izan den: Kalamua, Elgeta, Oiz... Oizen oilagorretan.

Transkripzioa

- Zuek gaztetan Eibarren nun ibiltzen ziñazien kazan?
 - Hamen Eguarbitzatik, Elgetatik ixa Anboto barreneraiñok, horrek danok ta gero Kalamua aldera ta hau, zerok be... "lo mismo", beste... Oizera be bai. Oizen hilda nagok ni... Hasieria dok, e! Dominu santuak edo esaten dok, "el treinta de Octubre" edo "treinta y uno" edo. Pasia euan, "pase de palomas", ta Trabakuan-ta mordua kazarixak pasian. Ta ni erbittalarixekin juan nitzuan basarri batera lo eittera, hara, Oizko mendira. Ta txakurrakin ni oilagorretara, oilagorretara edo... "lo que sea!" Bai ba, haxe... Kustiñua dok eze, egun hartan, Dominu Santuetan, bost oilagor hil najittuan nik,

egun baten. Goiza, pasia egon zuan, ta oillagorrak topau nittuan baitta... Piñadi bat hor ta beste bat hamen ta hamen [bixen bittartian] garo-sailla. "Trin, trin, trin, trin, trin..." Hor garotzan, ta ni hamen bidian behetikan, ta txakurra hor zihar garotzan ta "krak!" ixilduta garotzan. Akabo! "Zer daok hor? Zer daok?" Ta berbetan txakurrari ta... "Bat! Zer? Zer daok?" eta zertzen najuan pixkat, [aztoratzen] najuan. Ta garotzan, "pro, pro, pro, pro, pro!"... "Danba!" ta behera, oillagorra. Garotzan, e? Holakotxe zera... Gabian etorri barrixak... Pasia ta pasia, ta behian, hamen herri bat dagok behian, Munittibar edo, ha aldian. Honek AYA, Agirre-Aranzabaleko horrek kazarixok ta bertan Trabaku ondoko basarri bateko bat, alkarrekin, oillagorretan begira han. Ez ei juen topatzen ta "Ta! Ta!" nere tiruak han goi-goixan. Sei! "Ta! Ta!" Oillagor bateri ein najetsazen sei tiro! Ez, bi, lau... bosgarrenian hil, bosgarrena. Baiña oillagor bat... Txakurra espabillaua zuan, txakurra arrastuan hamen [dabillen]... "Pra, pra, pra!" jaikitzen zuan. Aiba Dios! Hantxe gora doiala "Ta! Ta!" eitten [netsen] ta aurrera! Barriro beste leku baten be bai [...] ta "hor joiak jaikitza barriro be!" ta tiro txarrak e [...] "a la deriva". Bestiak ez, bestiak tiruak tiro ein najittuazen. Holaxen, bi tiro biko ein [netsezenian], etorri jatan hori Trabaku ondoko basarrikuori: "Zeri diharduzu?" ta "Zeri diharduten? Oillagorrari! Oin be bi tiro biko einda hamen daok ta honek hilddakuak", bi edo hildda najekazen. "Mekauen! Hor, sinistu ezinda gare han ." Behian ebillen AYAKo ugezabakin, [...], AYAKuekin ta "Oillagor bat ez dao hor behian!" Ez ba, harek zittuan gabian [...] eindako oillagorrak.

- Orduan heldu, ta ondiokan ezkutau barik...

- Bai ba! Ta esan najetsan: "Bueno, bi tiro [...] ein ta horraxe direziñua ein dau ta guazen!". Juan giñuazen ta... "raa!" ta han ikusten juat nere txakurra "da!" parauta, kieto. Kanpora begira euan, piñudixan amaieran zuan, gero kanpora libria euan. Baiña haraxe begira euan ta kanpora urten bihar juan ta, bueno. "Ikusten dozu ala?", "Bai!", "Joño! Juan ba!". Juan nitzuan ta bera begira neri atzetikan ta "bra, bra, bra!" urten juan zuzen-zuzen. "Dale!" ta bota najuan. "Joño! Ikusi ez baneu ez neban sinistuko!", esan estan. Kustiñua dok, handik beste... Apartau zuan ha, goittik behera edo hara gora edo... nunbaittera ta ze ein najuan? ta ni sartu ezindako moduko piñudi bat euan, zerratua ta sasixa ta geuzta asko ekazena. Ta goittikan bidia ekan, gaiñetik librian. Ni handik eta txakurra han jebixan sartuta "drnn, drnn" ta "trin, trin, trin, trin, trin..." azkenian nere ondoraiñok etorri zuan txakurra. "Nun hao?" Ta geldi! Ta, "zetan hao?" ta berba eitten najetsan nik, holaxen, harrikada batera. "Kauen diez! Oillagorrak daok, ba!" ta "Ia! Ia Bat!" ta haizau najuan pixkat eta "pra, pra, pra, pra, pra!" sentidu najuan hego-hotsori, nere buru gaiñetik zihar "rrraaa!" [Hor...] "danba!" ta "brrrrrr...". Euan erreka-zulo billurgarri bat, holan goittik "brnnnn..." mendi falda bixen zuluha, haundixa ta pago zahar haundixa jo-ta... haraxe behia jota! Ha urtietan-edo egongo zuan igual! Baiña pago demasa ta dana, erreka-zulo guztia, oillagorra jausi zan lekua, dana jo-ta tapauta berak! "Eneee! Hor ezin neike nik sartu behintzat bila be! Pentsau bez!". Ta "Txakurra!" esaten detsat: "Hortxe, bai, hortxe". Ta adar gaiñetatik eta "di-da! di-da!" juaten zuan, paguan adar gaiñetatik ta... Sentiru ez jok ba ein usaiña? Igarri najetsan, "Sentiru dok ba, e?" "Trak, trak, trak..." Beste arbola batera bajatu ta "tak!" handik beste batera ta, zuluha, gero ta behera ta... Sartu zuan sakoneraiñok eta... hor urtetzen jok oillagorrak! Ha zuan meritua! Nik hari emon netsan meritua! Etorri jatan ta... "Kauen diez! Hau...!" Bai. Halaxen, bost oillagorreaz bazkaldu. Ta banaok eta hau, famosua zuan kazan, izena ezin jatak akordau... Ha ohittuta euan hara basarrira juaten kazara, berak urtetzen ebanian. Ezaunak [jittuan] ta "ra!" etorri zuan guk bazkaldu ta gero. Sukaldian han euazen esegitta oillagorrok ta, "Ta Zozua, oillagorrak nun dauaz ba?" ta

“Oillagorrek nun daren? Begiratik hara gora!” ta “Ene ba! Heuk hil dittuk horrek?” ta “Ez, heuk!”. Halaxen etara genduan... [...]

12.3. Oilagorretan egitea ehizarik gogorrena

- **Hizlaria(k)**: Arrizabalaga Iriondo, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: AB-164/030
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 01:13:35. **Bukatu**: 01:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Natura » Fauna
- **Laburpena**: Ehizarik txarrena eta gogorrena, oilagorretan ibiltzea; gogorra eta txakur ona behar.

Transkripzioa

- Kazarik zaillena oillagorretan ibiltzia izango da, ezta?

- Bai, bai. Ibili asko ein bihar dok ta txakurra bihar dok, txakurra bihar dok ona. Txakurra? Txakurrak euki jittuat nik... Hiltzen dabenak erakutsi be ein eitten jetsak, hiltzen dabenak, ta nik hil be eitten najetsezen “taka, taka, taka..” bai batari ta bai bestiari, hiru edo lau txakur euki jittuat eta. Ta jode! Holaxen, txokauta geratu zuan ta... Hamen fabrikante bat zuan, geure etxian onduan taillarra ekan. Kauen... Ezin jatak akordau... Bueno, dana dala. Ha paselekuan euan, nik esan dotenori, kazarixa zuan bera, oillagorretalarixa gaiñera, baiña pasian euan Trabakuan. Ta hori esan dotenori, gurekin egon zanori, jua jakuan hari ta: “Fulano” ta “Zer?” ta “Gaur be oillagorrek ikusi douz ba txortia” ta “ze oillagorrek?”, “Bai, Zozuak hil dittu. Bost!”, “E? Bost? Ez juat sinisten!”, “Ez dozula sinisten? Laster etorriko dia hamen zihar, hamendik pasau bihar dabe”, hortxe gaiñeko bidetik pasau bihar genduan ta. Efitibamente, bagenden ta horrek deittu eiñ jestan: “Zozua!”, “Zer?”, “Etorri hari hona!”, deittu jestan. Ta jua nitzuan ta... “Aber, hamen daok sinisten ez dabena ta erakutsixuaz horri!”, “Aiba!”. Erakutsi najetsezen ta “Ene demoniuk!”, sinistu ezinda geratu zuan ha, “Bost oillagor gaur? Hamen usuak pasatzen ta!?”, “Bai baiña, hor, hortxe! Hantxe geratutakuak goixan!”, “Mekauen diez!”. Holaxen.

- Oillagortalarixan artian famia daka behintzat e, gezurrak eta be... ezta?

- Bai, bai. Oillagorretan txakurra bihar dok. Txakurra! Txakurra ona! Gero, tiratu be... jakin ein bihar dok e! Hutsak eitten badittuk akabo! Zenbaittek topatzen jittuk ta gero hil ezinda ibiltzen dittuk! Baiña... itxuran urtetzen daben oillagorra behintzat, ezta? Txakurra parau ta “bra!” bertara urtetzen dabena... Bai; esango deuat kaso bat...

13. Itsasoa

13.1. Arraindunak kalerik kale saltzen

- **Hizlaria(k)**: Arana Barinaga, Agustin; Arriola Garate, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: EIB-026/013
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:23:45. **Bukatu**: 00:27:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

• **Gaia(k):**

Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- **Laburpena:** Garai batean, arraindunak 11ak arte azokan egoten ziren, baina hortik aurrera baimena zeukaten kalerik kale saltzeko. Elizan 11ak jo orduko arraindunak orroka hasten ziren arraina saltzen. Baita angulak ere, Sasiolatik ekarrita. Antxoa sasoian merke-merke saltzen ziren. Izan ere, batzuetan ongarrri moduan ere erabiltzen ziren antxoak, larregi harrapatzen zelako. Orduan ez zegoen modurik janaria freskotan gordetzeko eta egunean jan behar zen.

Transkripzioa

-Bartolo: Arraindunak urtetzen juen, plazan egoten zittuan, ta hamaiketan urtetzen juen kalia saltzera.

-Agustin: Bai, bai, kalerik kale.

-B: Bai, hamaiketan. Ta ipintzen... jekezen zestuak, ba arrain zestuak.

Azalak izaten... hauxe altura inguruau eukitzen eben, baiña hamen kerten bat eta han kerten bat ta luzia. Bi arraindun izaten zittuan. Bai, bi arraindun urtetzen juen. Ta hamaiketan jeken ordenia, hamaikak arte ezin juan urten iñok be. Ta egoten zittuazen zestokariakin preparauta andra bixok han Ariatzako aurrian, ta torrian hasten zian hamaikak joten, ekitzen etsen orruaz, batzuk juaten zittuan Untzagarutz ta beste batzuek berutz. Arraiñak, saltzailliak.

-Kalerik kale?

-B: Bai, kalerik kale. Bai, bai.

-A: Guk ezautu juau angulia, kalia saltzen, etorrita zera. Ta probatzeko eskukaria, "probaizu, fresko-freskuak dia ta probaizu", juari oin.

-B: Ene! Muñoan suegria Sasiolakua zuan, gure lagun bat, Jesusen zera, Muñoana. Ta entzutia dakat nik. Harek angulekin etorri Eibarrera saltzera. Bost errial kilua, ta saldu barik eruan zittuala barriro etxera.

-Anguleruak-eta nundik etortzen zian? Mendaro ingurutik?

- B: Mendarotik Debara bittartian. Hor erreka aldera sartzen dok ba angulia.

-Eta esan dozue arraindunak-eta kalerik kale orduan?

-B: Kalerik kale, bai.

-Eta, orruka?

-A: Orruaz.

-A: "Sardiña freskuak", "sardiña freskuak".

-B: Ta beste gauza bat pasatzen zuan. Hori akordauko haiz heu horrekin. Orduan, antxoa sasoian, antxoak be asko hartzen jittuen igual, ta saldu ezin, ta orrua: "Errialian platerkaria!", ta juan ta errial bat emon ta platera bete-bete einda antxoaz etxera. Bestela harek bota ein bihar jittuen ba. Errialian platerkaria.

-A: Ezaututa gare gure denporan, hori antxobia, hainbeste hartzen juen eze, saldu ezin, ta simor moduan mendixan bota.

-B: Usteldu, bai, abonua, bai. Ongarri moduan lurrera.

-Basarritarrak?

-B: Joari oin. Orduan ez jeuan, konserbarik be ez jeuan, konserbatzekorik ez jeuan /etxeuan/ orduan. Orduan batzuek konserbatzen juen eurak etxian, zerakin, hori latetan ipintzen jittuen, garbittu, tripak eta dena kendu ta gero bota ta gatzakin tapau. Ta tapau, ta hiru edo lau tapa ipini ta gero haretzek bere sasoian etara ta, ba, olixua bota gaiñera, ta haretzek jan.

-Urte guztian?

-A: Orduan epokan frigorifikuan lekuan, zera izaten zuan, freskeria.

-B: Freskeria ekan izena.
-A: Kanpuan ipini ta...
-Leihuan?
- A: Bai, leihuan ipini ta...
-B: Ni ezkondu nitzuan berrogeta bostian. Ba ni ezkondu nitzan andrian etxian hantxe jeuan freskeria erreka aldera, Txisperuaneko... zubixa badaok ba? Arikixaneko zubixa esaten detsagu ba? Haretxen ondoko peoran bizi nitzuan ni, orduan andria ta han bizi zittuan ta. Haren ostakaldera jekaun. Kumuneko... kumun haundi bat zuan ta sartu kumunera, ta "rraa!" zabaldu freskerako atiori, ta hartu bihar dana ta... zeoze!
- Haxe zan. Konserbarako horixe.
- B: Bapez baiño gehixao, baiña asko gehixao be ez!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Nepaleko hizkuntzak (101-210/004)

Nepalera hizkuntza nazionala bada ere, etnia ugari daude Nepalen eta bakoitzak bere hizkuntza du. Adibidez, Shakti tamanga da eta tamang hizkuntza ere hitz egiten du. Nepalaren oso desberdina da.

2. Tamang hizkuntza irakasteko eskola bat zabaldu nahiko luke (101-210/009)

Tamang hizkuntza ez da ikastetxeetan irakasten, etxeko hizkuntza da. Shaktik eskola bat zabaldu nahi du Nepalen, tamang hizkuntza hurrei irakasteko. Bilbon badago nepalera irakasten duen elkarte bat.

3. Budismoa (101-210/014)

Erljio aniztasun handia dago Nepalen. Shaktiren familia budista da. Buda Nepalen jaio zela esaten da eta jende asko joan ohi da haren jaioterria omen den Lumbini herrira.

4. Nepaleko bandera (101-210/017)

Nepaleko banderaren esanahia azaltzen du. Kolore urdinak lasaitasuna esan nahi du; gorriak, aldiz, odola. Ilargi bat eta eguzki bat daude. Jainkoa irudikatzen dutela uste da. Berezitasun nabarmenena, banderak bi triangeluren forma duela da.

5. Nepaleko janzkera tradizionala (101-210/019)

Ospakizun nazionaletan tipikoa den janzkera erakusten du. Hala ere, etnia bakoitzak bere janzkera dauka.

6. Nepaleko ereserki nazionala (101-210/022)

Nepaleko ereserki nazionala irakurtzen du eta idazkera erakusten du.

7. Nepalerao alfabetoa (101-210/024)

Nepalerao alfabeto propioa du. Idatziz erakusten du. 36 hizki dira.

8. Everest, munduko mendirik altuena (101-210/026)

Everest, munduko mendirik altuena, Nepalen dago. Himalaiako mendikateko 8 zortzimilako mendi Nepalen kokatzen dira, tartean Everest.

9. Nepalen berezitasunak (101-210/028)

Hiru eremu geografiko bereizten dira Nepalen: alde batetik, Himalaiako mendi garaien eremua; bestetik, mendixken eremua, Pahad izenekoa (Euskal Herriaren antzekoena); eta azkenik, Terai lautada. Tenplu eta ibai asko daude Nepalen. Animalia aniztasun handia dago baita ere. Turistek hegazkinez ibilbideak egiten dituzte mendiak ikusteko eta baita ibaietan kayak jaitsierak ere.

10. Nepaleko plater tipikoa (101-210/030)

Nepalen ohikoa da plater bakarrean jaki desberdinak prestatzea: arroza, barazkiak, dilistak, okela curryarekin, entsalada eta jogurta. Bakoitza nola prestatzen den azaltzen du.

11. Nepaleko ospakizun bereziak: Dashain eta Tihar (101-210/032)

Nepalen komunitate ezberdin asko daude eta bakoitzak bere ospakizunak ditu. Baina bada ospakizun nazional bat, "Dashain" deiturikoa. 15 egun irauten du. Beste festa ezagun bat "Tihar" da. Bekokian "tika" bat ipini ohi diote anai-arrebek elkarri. "Tika"-ren koloreei buruz azalpenak ematen ditu. Bilbon nepaldar gehiago dagoenez, hara joan ohi dira urtero "Dashain" elkarrekin ospatzera.

12. "Dandi-biyo" jolasa (101-210/039)

Nepaleko jolas bat azaltzen du, "Dandi-biyo", euskal "Txirikiletan" jolasaren antzekoa.

13. Hitz batzuk nepalerao eta tamang hizkuntzan (101-210/041)

Hitz batzuk nepalerao eta tamang hizkuntzan.

14. Abesti bat nepalerao (101-210/042)

Abesti labur bat nepalerao kantatzen du.

15. Ghanako abesti bat, Ga hizkuntzan (101-211/014)

Ghanako abesti bat kantatzen du, amak erakutsitakoa.

16. Hurrek negar egiten dutenean abesten zaien kanta (101-211/026)

Hurrek negar egiten dutenean abesten zaien kanta, Ga hizkuntzan.

17. Kanika jolas bat (101-212/021)

Kanika jolas bat, etxean egina. Mexikoko barraketan ohikoak dira, baina tamaina handian.

18. Piñatak jotzerakoan abesten den kanta (101-212/024)

Piñatak jotzerakoan abesten den kanta.

19. Ingelesaren garrantziaz (101-216/003)

Irlandar jatorria duen arren, ez du irlandera ezagutzen. Ingeles eskolak ematen dituzenez hizkuntza honen garrantzia asko azpimarratzen die bere ikasleei. Frantsesa ere menperatzen du.

20. Ipar Irlandako egungo egoera (101-216/004)

Ipar Irlandako egungo egoera politikoari buruz hitz egiten du. Orokorrean, leku zoragarria deritzo. Turismoari dagokionean ere, aurrerabideak eman dira bisitariak erakartzeko.

21. Irlandarren izaera (101-216/006)

Abbieren ustez, pertsona irekiak dira irlandarrak.

22. Gaztelania hobetzera etorri zen lehenengoz (101-216/008)

Filologia ikasketak amaituta, Madrilera joan zen aurrena. Gaztelania hobetzeaz batera, irakasle izan nahi zuela kontatzen du. Handik etxera itzuli zenean, euskaldun talde bat ezagutu zuen Belfasten. Haien bitartez, Donostiako ikastola batetan lortu zuen irakasle lana. Lagun talde hartako kide bat bere senarra da gaur egun.

23. Kaleko giroa atsegin du batez ere (101-216/010)

Aldaketa handia nabaritu zuen Donostiara bizitzera etorri zenean baina, are nabariagoa izan zen Eibarren. Euskara ikasi nahi luke, batez ere, semeari ikasketetan laguntzeko.

24. Bikoteari esker errazago integratu (101-216/011)

Sorterriko jendea sumatzen du faltan batzuetan Abbiek. Integrazteko arazorik ez zuen izan: bikotearen familiak eta lagun taldeak primeran hartu zutela kontatzen du. Bakarrik etorri izan balitz ordea, zailagoa izango litzatekeela iruditzen zaio.

25. Euskaraz egiten dionari euskaraz erantzutea nahi luke (101-216/012)

Euskara ez zaio integratzeko ezinbestekoa iruditzen, hala ere, ikasi eta euskaraz erantzun ahal izatea asko gustatuko litzaiokeela aitortzen du.

26. "What's the time, Mr Wolf?" jolasa (101-216/014)

"What's the time, Mr Wolf" jolasari buruzko azalpenak ematen ditu.

27. Jai egunetako gosari tipikoa (101-216/015)

Jai egunetan egiten dituzte hain ezagunak zaizkigun gosari tipiko horiek: ogi mota desberdinak, hirugihar txigortua, saltxitxak, arrautzak, barrengorriak, etab. Ingalaterra, Irlanda eta Eskoziako gosariaren arteko desberdintasunei buruz dihardu.

28. St Patric's Day da gehien ospatzen den jai eguna (101-216/017)

Ez da Euskal Herrian bezain beste jai egunik izaten: Gabonak, Halloween eta, batez ere, St Patric's Day eguna ospatzen dituzte. Martxoan izaten da azken hau.

29. Hitz batzuk ingelesez (101-216/018)

Hitz batzuk ingelesez.

30. Atzamarrekin jolas bat (101-216/020)

Atzamarrekin jolas bat

31. Kubako gazteleraren berezitasunak (101-217/003)

Kubako gaztelerak baditu zenbait berezitasun. Espainiatik joandako galego, andaluziar, etab. en hizkeraren nahastetik datorrela iruditzen zaio.

32. Nolakoak dira Kuba eta kubatarrak (101-217/006)

Leku zoragarria deritzo. Ur garden eta epela kostaldean; barnealdea, oso berdea eta menditsua. Bi urtaro nagusi daude: uda eta negua. Apirila aldera, zikloiak jasaten ohituta daudela kontatzen du. Lagunkoi eta eskuzabalak dira kubatarrak.

33. Puru habanoak eta rona (101-217/007)

Puru habanoak eta rona dira Kubako irudia. Hala ere, geroz eta jende gutxiago ikusten da puruak erretzen. Dantzarako musika, dominoa eta ron botilak ezinbesteko dituzte lagunak elkartzen direnean.

34. Kubako eguraldi ona faltan botatzen du (101-217/009)

Familia eta lagunak ez ezik, Kubako giroa faltan botatzen du. Egun ilunak, hotza eta euria ez ditu gustoko nahiz eta ohitu dela aitortu. Kuban bi ordu baino ez du irauten eguraldi txarrak.

35. Txundituta geratu zen lehen aldiz etorri zenean (101-217/011)

Euskal Herrira etorri zenean (Soraluzera hasiera batean), landa eremua erdigunetik hain hurbil egoteak harritu zuen; mendiak kaletik hain gertu ikusteak eta, kostaldea ere, kilometro gutxira izateak. Jendea gainera oso lagungarria eta irekia iruditu zitzaion, zahar nahiz gazte. Ez zuen integratzeko arazorik izan.

36. Euskara ikasi nahi luke (101-217/012)

Gizartean eta kulturaren integratzea erraza izan zaio baina euskara ere ikasi nahi luke. Alaben bitartez ikasten du orain. Hala ere, ikasteko prozesu hori pixka bat azkarragoa eta hobea izatea gustatuko litzaioke.

37. Alaba eta lankideekin saiatzen da euskaraz egiten (101-217/013)

Hitz solteak ikasten ditu alabei esker. Mutrikuko lankide batek ere erakusten dizkio esamolde batzuk.

38. Integraziorako garrantzitsua da euskaraz jakitea (101-217/015)

Hitz batzuk euskaraz. Eibarko lagun taldearekin ez dauka euskaraz jarduteko aukerarik. Soraluzeko lagunekin zein lankideekin gehiago praktikatzen du. Integraziorako oso baliagarria deritzo euskara jakitea. Hizkuntza aberats eta baliotsua iruditzen zaio, bizirik mantendu beharrekoa.

39. "Yaquis"-ak eta bestelako jolasak (101-217/017)

"Yaquis" jolaserako izartxoan moduko 10 piezak eta pilota bat dira beharrezkoak. Azalpenak ematen ditu. Sokasaltoan edo txingoka ere aritzen dira haurrak, neskak gehienetan. Puxtarriekin jolasten dute mutilek. Futbola edo beisbola dira ezagunenak Kuban.

40. "Arroz congrí" plater tipikoa da baina "arroza Kubako eran" ez da existitzen (101-217/018)

"Arroz congrí" kubatar plater tipikoari buruzko azalpena. Platano mota asko dago eta modu desberdinetan presta daitezke gainera. Arroza kubatar erara, edo tomatearekin jatea hemen asmatutako platera dela dio: kubatar batentzat astakeria galanta omen da arroza tomatearekin jatea.

41. "Arroz congrí" nola egin eta noiz jan: jai egun bereziak (101-217/019)

"Arroz congrí" prestatzeko errezeta. Plater hau egun berezietan jaten da. Asko daude urtean zehar, esaterako urtarrilaren lehen egunean Iraultzaren Garaipenaren Eguna ospatzen da. Egund honetan, hainbat ekitaldi politiko eta kultural antolatzen dira. Abenduaren 24a "Día de las madres" bezala ezagutzen da, abenduaren 31 ere familiarekin egoteko egun berezia da. Martxoak 8ak ere, emakumeen nazioarteko egunak, berebiziko indarra du Kuban.

42. Iraultzaren ondorioz, gabonak ospatzeari utzi zioten Kuban (101-217/020)

Kubako iraultzaren garaipenak elizaren gainbehera eragin zuela kontatzen du. Gabonak ospatzeari utzi ziotela dio. 1994. urteko Juan Pablo II areen bisitaren ondoren, badirudi akordioaren bat egon zela eta berri ekin zitzaion gabonak ospatzeari. Hala ere, jai eguna den arren, ez da asko ospatzen eta ez dira opariak egiten, garai batean bezala. Eibarren bai ospatzen dituzte.

43. José Martí idazle kubatarraren poema bat (101-217/023)

José Martí idazle kubatarraren poema bat errezipitatu du. Kuban oso ezaguna da José Martí; Kubaren burujabetasunaren aldeko borrokari hasiera eman ziola esaten da. Haurrentzat asko idatzi zuen.

44. Ernesto "Che" Guevara (101-217/024)

1955ean Fidel Castro erbesteratu zutenean gerrillarekin batu zen Mexikon; tartean zen Che Guevara. Hegoaldetik sartu ziren Kubara, Sierra Maestrako mendietan barrena joan ziren eta gerrillen guda egiten hasi ziren, Castroren agindupean. Kubaren erdialdean dagoen Villa Clara probintzian Cheren estua handi bat dago. Honen zergatia azaltzen du.

45. Gaur egungo Kubari buruzko iritzia (101-217/026)

Reinerren ustez, alde batetik, Kubak irekiera bat behar du; bestetik, Estatu Batuen blokeoak kalte handia egiten die bertako biztanleei, nekazaritza aldetik, esaterako, Kuba ez baita berez oso emankorra. Barrutik nahiz kanpotik ahalegin bat egin beharra dagoela uste du.

46. Errusiera hitz egiten daki (101-217/031)

Errusiera hitz egiten du, gurasoak 1991n Errusiara joan zirelako lan egitera. 20 urteren ondoren, mantendu egin du. Dakizkien beste hizkuntzak. 60. hamarkadan, Kuba eta Errusiaren artean gazteak ikastera joateko hitzarmenak zeuden. Kubako eskoletan errusiera irakasten zen eta ohikoa zen garai hartan errusieraz zekiten kubatarrek aurkitzea. Oso hizkuntza zaila iruditzen zaio.

47. Egiptori buruz (101-218/012)

Egipto ezaguna da bere kulturagatik. Hondartza asko daude eta bertako areak ezaugarri sendagarriak ditu. Museoak ere oso famatuak dira. Ezagunena piramideak dira.

48. Familiarekin piramideetan (101-218/014)

Familiarekin piramideetan egondako argazkiak erakusten ditu.

49. Egiptoarrak, jende alaia (101-218/017)

Egiptoarrak jende alaia dira. Klean abestea eta dantzatzea gustatzen zaie. Gaur egun hemen bezala janzten dira. Batzuek buruko zapia eramaten dute baina beste batzuk ez. Jantzi tradizionala erakusten du argazki batean, baita faraoien garaikoa ere.

50. Buruko zapiarengatik arazoak (101-218/018)

Buruko zapiarekin arazoak izan ditu. Arabierako irakaslea da baina hemen ezin du lanik aurkitu. Aurreiritziak daudela uste du. Egipton ia jende guztiak eramaten duelako janzten du berak ere.

51. Euskal Herriko eguraldi zoroa (101-218/022)

Euskal Herrira iritsitakoan eguraldiarekin harrিতuta geratu zen, oso zoroa iruditu zitzaion. Egipton, negua datorrenean udako arropa gorde egiten du, baina hemen arropa mota guztiak eduki behar dira armairuan.

52. Lehen bi urteak, gogorrak (101-218/023)

7 urte daramatza Eibarren. Senarrarekin etorri zen, hark 15 urte daramatza hemen. Lehen bi urteak oso gogorrak izan ziren Neamarentzat. Astegunetan ez zen etxetik ateratzen, soilik asteburuan senarrarekin erosketak egitera. Ezin zen bakarrik kalera atera, hizkuntza ez zuelako ezagutzen. Orain oso gustura dago. Josten eta euskara ikasten ari da eta lagunak egin ditu.

53. Hitz egiten dituen hizkuntzak (101-218/028)

Hitz egiten dituen hizkuntzak: Arabiera, ingelesa, frantsesa, gaztelera eta euskara. Euskara ikasten ari da.

54. Seme-alabei ulertzeko euskara ikasten (101-218/031)

Bere etxean orain euskara oso garrantzitsua da. Seme-alabek euskaraz ikasten dute eta gurasoek ez zuten ulertzen. Ikastetxean aholkatu zieten euskara ikasteko talderen batean sartzea eta orain, horri esker, gehiago uler dezake.

55. Faraoiden garaiko mahai-jolas bat (101-218/036)

Faraoiden garaiko mahai-jolas bat azaltzen du.

56. Egiptoko plater tipikoak (101-218/038)

"Kunafa" deituriko postrea erakusten du. Aberatsek gosaltzen jaten omen dute. "Ful" barazkiekin egindako platera da. Egiptoko ogia ere erakusten du.

57. "Udaberriko festa", faraoien garaiko ospakizuna (101-218/040)

"Udaberriko festa" faraoien garaikoa da. Egiptoarrak parkeetara joaten dira egun pasa. Parkeetara sartzeko ordaindu egin behar da. Egundorretan, arrautzak margotzen dituzte eta kalean bazkaltzen dute. Egundorretako janari tipikoa arraina izaten da.

58. Hitz batzuk arabieraz (101-218/045)

Hitz batzuk arabieraz.

59. Abesti bat arabieraz (101-218/049)

Abesti bat arabieraz kantatzen du.

60. Alemana non hitz egiten den (101-219/003)

Alemana 83 milioi hiztun inguruk hitz egiten dute Alemanian. Gainera, Austria, Suitza eta beste herrialde batzuetan ere hitz egiten da.

61. Euskal Herria eta Eibar (101-219/008)

Euskal Herrian kalean bizitza asko egiten da. Alemanian, aldiz, etxean gehiago egoten dira. Eibar ez zaio euskal herri tipikoa iruditzen; aniztasun handia dago eta "hiri kosmopolita" bat da ia.

62. Alemaniako jaki tipikoak (101-219/016)

Alemaniako iparraldeko jaki tipikoak "currywurst" edo saltxitxak dira. Ketchup eta curry ipintzen zaie gainetik. Hegoaldean, berriz, "schweinshaxe" edo txerri-ukondoa. Eibarren ospatu ohi den "Oktoberfest" jaialdian aurki daitezke bi plater hauek.

63. Hitz batzuk euskaraz eta alemanez (101-219/021)

Hitz batzuk euskaraz eta alemanez.

64. Abesti bat alemanez (101-219/023)

Abesti bat kantatzen du alemanez Claudia alabarekin.

65. Abesti bat arabieraz (101-220/019)

Abesti bat arabieraz.

66. Amazigera eta arabiera hizkuntzak (101-221/005)

Berberera (edo amazigera) eta arabiera oso hizkuntza desberdinak dira. Ikastetxeetan arabiera irakasten da, beraz, berbere bat arabiera ulertzeko gai da, baina alderantziz ez. Amazigerako alfabeto idatzia erakusten du. Gaur egun eskoletan amazigera berreskuratzeko ahaleginak egiten ari dira.

67. Nolakoa da Maroko? (101-221/007)

Marokon, bizimodua desberdina da berbereen zonaldeetan ala hiri handiagoetan. Klase desberdintasunak nabarmenak dira Marokon. Paisaia aldetik denetarik dago: hondartzak, mendiak, basamortua... Klima oso lehorra da.

68. Marokoko klima (101-221/008)

Klima oso ezberdina da Eibarren ala Marokon.

69. Aisharen jaioterria, baserri girokoa (101-221/009)

Aisharen jaioterria ez da nomada. Baserri girokoa da eta lursailak dituzte. Datilak landatzeko oso leku aproposa da, ez dutelako hezetasun handirik behar. Granadak ere landatzen dituzte.

70. Erlijio musulmaneko otoitzak (101-221/011)

Erlijio musulmana praktikatzen du. Egunean 5 aldiz otoitz egin behar dute, Mecara begira. Gaur egun aplikazioak daude Meca non dagoen jakiteko.

71. Ramadana (101-221/012)

Ramadana zer den eta zertarako egiten den azaltzen du.

72. Etorkinei buruzko aurreiritziak (101-221/015)

Aishak ez du buruko zapia erabiltzen eta beraz ez du horrekin lotutako arazorik izan. Baina egia da marokoarrei buruzko aurreiritziak badaudela. Etorkinei buruzko komentarioak.

73. Lehenengo hilabeteak Eibarren (101-221/017)

Aishak 12 urte zituen Eibarrera iritsi zenean. Aldaketa oso handia izan zen: klima, hizkuntza... Baina ez zitzaion hain gogorra egin, berehala egin zituen lagunak. Gaztelera ikasi aurretik euskara ikasi zuen eta hasieran arazo batzuk izan zituen bertakoekin komunikatzeko.

74. Euskara ikastearen garrantzia (101-221/018)

Eibarrera iritsi zenean, ikastetxean euskara ikasteaz gain, euskaltegian ere hasi zen. Euskara ikastea integratzeko garrantzitsua iruditzen zaio. Denda bat dauka eta jende askori ilusioa egiten dio euskaraz egiten dienean. Anekdota bat kontatzen du. Semeek euskaraz ikasten dute eta haiekin egiteko ere beharrezkoa ikusten du euskara jakitea.

75. "Tajin", Marokoko plater tipikoa (101-221/025)

"Tajin" Marokoko plater tipiko bat da eta etxean prestatu ohi dute. Ontzi berezi batean egiten da eta Marokotik ekartzen dute. Barazkiak eta haragia dira osagai nagusiak. Nola prestatzen den azaltzen du.

76. Kuminoa, Marokon asko erabiltzen den espezia (101-221/026)

Kuminoa Marokon asko erabiltzen den espezia da. Jaterakoan bota behar da, bestela zaporea galtzen du.

77. Arkumearen eguna (101-221/027)

Marokoko ohiturak ez dituzte galdu, baina desberdin ospatzen dituzte. "Arkumearen eguna" zer den azaltzen du; Ramadanaren ondoren izaten da. "Halal" erara hil behar izaten da arkumea.

78. Euskaraz eta amazigeraz hitz batzuk (101-221/029)

Euskaraz eta amazigeraz hitz batzuk.

79. Senegaleko soinekoa (101-222/008)

Senegaleko soineko bat erakusten du. Egun berezietan janzen da.

80. Senegaleko plater tipiko bat (101-222/022)

Senegaleko plater tipiko bat erakusten du. Pikantea ez zaio gustatzen Sebindari.

81. Machu Picchu (101-223/022)

Machu Picchu gune arkeologikoaren argazki bat erakusten du Maitanek.

82. Ospakizunetarako jantzi berezia (101-223/024)

Ospakizunetan janzen duten arropa berezi bat erakusten du, eskuz egina.

83. Urte Berri txinatarra (101-224/010)

Urte Berri txinatarra nola ospatzen duten azaltzen du. Familia afari batean elkartzen da eta opariak egiten dizkiote elkarri.

84. Janari txinatarra (101-224/012)

Txinan normalean bakoitzak arroz plater bat izaten du eta beste janari guztia mahaiaren erdian partekatzen da. Pekinen ohikoa da ahatea jatea. Yu Shuanen etxean prestatzen dituzten platerak aipatzen ditu. Bere gustukoena zein diren esaten du. Txerria asko jaten da Txinan.

85. Soja saltsa sukaldean asko erabiltzen da (101-224/013)

Soja botila bat erakusten du, Bilboko txinatar jakien denda batetik ekarria. Zertarako erabiltzen den azaltzen du.

86. Txinatar goxokiak (101-224/015)

Txinatar goxoki batzuk erakusten ditu.

87. Hitz batzuk txineraz idatzita (101-224/023)

Astean behin txinerako klaseetara joaten da. Hitz batzuk txineraz idatzita erakusten ditu.

88. Zotz txinatarrak (101-224/025)

Zotz txinatarrak erakusten ditu. Egurrezkoak edo metalezkoak izan daitezke. Yu Shuanek egunero afaltzen du zotzekin.

89. Mahai-jolas txinatar bat (101-224/031)

Mahai-jolas txinatar bat azaltzen du.

90. Abesti bat txineraz (101-224/036)

Abesti bat txineraz.

91. Marokoko janari tipikoak (101-225/016)

Kuskusa Marokoko plater tipiko bat da. Osagaiak aipatzen ditu. Tajina ere ezaguna da.

92. Umetako abesti bat arabieraz (101-225/019)

Umetako abesti bat arabieraz.

93. Argentinako hizkuntzak (101-226/005)

Gaztelera, italiara pixka bat eta ingelesa hitz egiten ditu. Ingelesa oso sartuta dago Latinoamerikan. Argentinan hizkuntza indigena asko daude.

94. Argentinarrak, oso abertzaleak (101-226/007)

Argentinarrei buruz, oso abertzaleak direla azaltzen du; txikitatik eskolan bandera jasotzen dute eta himno nazionala kantatzen irakasten diete. Argazki batean erakusten du helduagoak direnean ospatzen duten banderari zin egiteko ekitaldia.

95. Argentinan asko dago ikusteko (101-226/009)

Turistek Argentinan egin ohi duten ibilbidea azaltzen du. Baina Deboraren ustez "beste Argentina" ezagutzeko, iparraldeko probintzietara joan beharra dago.

96. Probintzia bakoitzak bere identitatea du (101-226/011)

Argentinako probintzia bakoitza autonomoa da eta bere berezitasunak ditu.

97. Matea, Argentinako edari ezaguna (101-226/013)

Matea nola prestatzen den azaltzen du. Mikatza izan ohi da, baina gaur egun beste zapore batzuekin nahastuta ere saltzen da. Edateko erabiltzen diren ontziak material ezberdinetakoak izaten dira. Matea hotza ere edaten da, batez ere iparraldean, eta "tereré" deitzen zaio. Eguneko edozein momentutan hartzen da matea.

98. Jantzi tradizionalak (101-226/015)

Gizon eta emakumeen jantzi tradizionalak erakusten ditu. Ospakizun berezietan janzten dituzte.

99. Maiatzaren 25eko ospakizuna (101-226/017)

Maiatzak 25eko iraultzaren ospakizuna da Argentinako festarik garrantzitsuena. Nola janzten diren eta zer jaten duten aipatzen du.

100. "Locro", egun berezietako platera (101-226/018)

"Locro" zer den azaltzen du. Egun berezietan jan ohi da.

101. Alfajorea, gozoki tipikoa (101-226/020)

Alfajoreak Argentinako gozoki tipikoa dira. Mota askotakoak daude.

102. Argentinako iparraldean, bero handia eta euri gutxi (101-226/023)

Argentinako klima ezberdina da zonaldearen arabera. Iparraldean hezetasun eta bero handia dago. Gutxitan egiten du euria, baina egiten duenean asko egiten du eta arazoak izaten dituzte uholdeekin. Eibarrera etorri zenean hasieran gustuko zuen euria.

103. Eibartik gehien harritu zuena, hizkuntza (101-226/026)

Eibarrera iritsi zenean, hizkuntzak erabat harritu zuen. Orain zertxobait ulertzen du.

104. Hasierako hilabete gogorak (101-226/028)

Hasiera gogorra izan zen Deborarentzat. Gainera, euskaldunak eta argentinarrak oso desberdinak direla uste du. Barne gatazka bat ere sortzen da, norberaren izaera galtzeko arriskua baitago. Bestalde, euskaldunak irekiak direla uste du eta beti ondo hartu dute.

105. Argentinako gaztelerako hitz batzuk desberdinak dira (101-226/034)

Argentinan gazteleraz hitz egin arren, hitz batzuk desberdinak dira. Alaba txikia zenean, gauza batzuen izena bi modutara ikasi behar izan zuen.

106. Zer da Eibar Deborarentzat? (101-226/037)

Ama bezala, bere alaba herri lasai batean haztea asko baloratzen du. Hemen egin ditzakeen gauza batzuk Argentinan ezingo lituzke egin.

107. Pakistaneko objektu eta apaingarri batzuk (101-227/020)

Pakistaneko objektu batzuk erakusten ditu. Garraioak. Jantziak eta apaingarriak.

108. Senegaleko hizkuntzak (101-228/002)

Senegaleko hizkuntza nagusia wolofera da, nahiz eta beste dialekto batzuk dauden. Eskoletan frantsesa ere irakasten da.

109. Senegaleko aniztasuna (101-228/005)

Senegal Afrikako kostaldeko herrialde bat da. Aniztasun handia dago, bai kulturalki, bai janari edo janzkera aldetik ere. Gambia Senegal "barruan" kokatua dagoela esan daiteke. Senegalen erlijio musulmana da nagusi baina katolikoak ere badaude eta bi erlijioetako festak batera ospatzen dituzte, arazorik gabe.

110. Eibar eta Senegaleko kaleko giroa, antzerakoa (101-228/009)

Eibarren astebururo kalean festa dagoela ematen du. Senegalen ere bizitza asko egiten dute kalean.

111. Alabak euskara irakasten dio (101-228/013)

Euskal Herrira iritsi zenean, euskara ikasten ibili zen baina lana aurkitu zuen eta utzi egin behar izan zuen. Orain alabak erakusten dio. Hitz batzuk esaten ditu euskaraz. Alabak 8 urte ditu eta 3 urte zituela etorri zen Eibarrera. Ikastetxeko lehen urtean ikasi zuen euskara, oso erraz.

112. Senegaleko janari tipikoak (101-228/016)

"Thieboudienne" izeneko platera da Senegaleko ezagunena. Arroza, arraina eta barazkiak ditu. Kakahuete saltsa ere tipikoa da; "maafé" izeneko platera egiteko erabiltzen da.

113. Senegaleko ohiturak mantentzen saiatzen dira (101-228/017)

Senegaleko ospakizunak egiten jarraitzen dute hemen ere. Senegalen larunbatero emakumeak elkartu eta askaria egiten dute norbaiten etxean, festa giroan. Seme-alabei hango ohiturak helarazten saiatzen dira.

114. Ramadanaren zentzu solidarioa (101-228/019)

Erljio musulmanekoak dira eta etxean egiten dute otoitz. Ramadana egin ohi dute. Solidaritatezko ekintza moduan ulertzen dute.

115. Wolofera hitz batzuk (101-228/022)

Wolofera hitz batzuk.

116. Senegaleko musika tresna bat (101-228/029)

Senegaleko danbor txiki bat erakusten du. Festetan erabili ohi da.

117. Senegaleko jantziak (101-228/030)

Senegaleko soineko batzuk erakusten ditu. Ospakizun berezietan erabiltzen dira. Ostiralak bereziak izaten dira Senegalen.

118. Senegaleko jolas bat (101-228/034)

Senegaleko jolas bat erakusten dute ama-alabak.

119. Senegaleko abesti bat (101-228/036)

Senegaleko abesti bat kantatzen dute ama-alabak.

120. "Zorionak zuri" portugesez (101-230/016)

"Zorionak zuri" portugesez abesten du.

121. Katalan hizkuntzari buruz (101-235/006)

Katalan hizkuntzari buruzko datuak ematen ditu Quicok. Bitxikeria bezala, Sardinia Alghero herrian ere hitz egiten da katalana.

122. Kataluniako paisaia eta biztanleak (101-235/008)

Katalunian kontraste handia dago paisaiari dagokionez: Pirinio aldea eta Mediterraneo aldea bereizi daitezke. Jendearen izaera ere desberdina da zonaldearen arabera. Bestalde, Bartzelona hiriburua aniztasun handiko hiria da.

123. Quicoren jaioterria: Vic (101-235/009)

Historia askoko hiria da Vic, oso polita. Mendiz inguratuta dago eta askotan lainoz estalia egoten da. Agian horregatik jendea pixka bat itxia dela uste du Quicok. Vic-en pertsonak baino txerri gehiago dagoela esan ohi da; bertako hestebeteak oso famatuak dira

124. Katalanei buruzko aurreiritziak (101-235/011)

Beti esan ohi da katalanak zekenak direla. Baina hain justu orain giro politikoa nahasia denean, jendea oso eskuzabala da.

125. Kuadrillen antolamendua bitxia egin zitzaion hasieran (101-235/012)

Hasieran Quicori arraroa egiten zitzaion Euskal Herriko kuadrillen antolamendua, baina polita ere iruditzen zaio, familia baten modukoak direlako. Hala ere, kanpotik datorrenarentzat zaila izaten da sartzea.

126. Euskara ikastea (101-235/013)

Euskara hizkuntza zaila dela esatea topiko bat iruditzen zaio. Baina egia da ez duela harremanik beste hizkuntzekin eta hutsetik ikasten hasi behar zarela. Batzuetan jendeak esan izan dio "ze grazia", euskara ikasten aritzea denborapasa irudituko balitzaie bezala. Quicorentzat ordea, munduaren beste ikuspegi bat ezagutzea da.

127. Etxean, katalana eta euskara (101-235/017)

Emaztearekin katalanez egiten du normalean. Semearekin, emazteak euskaraz eta Quicok gehienbat katalanez.

128. Kataluniako txikitako jolasak (101-235/027)

"Harri, orri, ar" jolasa Katalunian ere egiten da; han "Pedra, paper, tisora" deitzen da. Txikitan jolasten zuten beste joko bat, "Arranca cebes" (tipulak atera) azaltzen du.

129. Kataluniako plater tipikoak (101-235/029)

Kataluniako plater tipikoak: "Pa amb tomàquet" (ogia tomatearekin) eta "Calçots" (tipulak).

130. Sant Jordi eguna (101-235/030)

Sant Jordi egunean (apirilak 23) tradizioa da arrosa eta liburuak oparitzea. Egun horretan ikastetxeetan literatur sariak ere ematen dira. Kataluniar kultura eta hizkuntza bultzatzen duen festa da.

131. "Castellers"-ak, aniztasunaren adibide (101-235/031)

"Castellers"-ek (gizaki dorreek) ezaugarri desberdinetako jendea elkartzen dute, eta aniztasunaren adibide polita dira.

132. Kataluniar jantzi tradizionalak (101-235/033)

"Barretina" kataluniar txapel tipikoaren historia azaltzen du. "Espardenya"-k (abarketak) espartzuzkoak izaten dira.

133. "Tió de nadal", gabonetako opariak ekartzen dituen enborra (101-235/034)

"Tió de nadal"-en tradizioa azaltzen du: gabonetan, "kaka egin" eta opariak ateratzen dituen enborra. Garai bateko Olentzerorekin antzekotasunak baditu.

134. "La lluna, la pruna" abestia (101-235/036)

"La lluna, la pruna" abestia kantatzen du.

135. "Tió de nadal"-ek opariak ateratzeko abesten den kanta (101-235/037)

"Tió de nadal"-i opariak "kaka egiteko" kantatzen zaion abestia.

136. Hitz batzuk katalanez (101-235/038)

Hitz batzuk katalanez.

137. Abestia bat Nigeriako edo hizkuntzan (101-240/008)

Abestia bat Nigeriako edo hizkuntzan.

138. Jacinto Olabek erakutsi zion marrazten eta grabatzen (AB-016/001)

Jacinto Olabe margolariarenera joaten zen egunero, eskola ostean, marrazten ikastera. Marrazketarako zuen gaitasuna ikusi eta grabatzen erakustea ere erabaki zuen Olabek. Etxeko jantokian zuen tailerra. Lau urtez egon zen ofizioa ikasten. Gandiagarekin jarraitu zuen gero, ezkondu eta etxean, bere kabuz, hasi zenera arte.

139. Ibartutxi, Pako eta Antonio Gisasola: grabatzaile ezagunak (AB-016/002)

Ibartutxik, Pako Gisasolarekin jarduten zuen grabatzen. Mexiko aldean grabatu asko saltzen ibilitakoa dela kontatzen du. Gisasola anaiek ere asko zabaldu zuten grabatua: Bartzelonan, Valentzian... dendak zituzten.

140. Ezkondu ostean, bere kabuz jarri zen etxetik lanean (AB-016/003)

Ezkondu zenean, bere kabuz hasi zen etxetik lanean. Ordurako hasita omen zeuden arazoak Gandiagaren tailerrean. Enkargu asko jasotzen zituen: bezero bat baino gehiagorentzat lana egiteko gomendioa jarraitu zuela kontatzen du. Toledorako ere egiten zituen damaskinatu lanak.

141. Toledotik jasotako enkarguak, hobeak (AB-016/004)

Toledon zeuden "plantilleroek" (grabatuak edo damaskinatuak egiten hasi aurretik, diseinua sortzen duten beharginak) herritik joandakoak izan ohi zirenez, enkargu asko bidaltzen zituzten Eibarrera. Toledoko enkarguak negozio onak izaten ziren prezioa jarri ahal izaten zietelako. Hemengoekin aldiz, ez zegoen negoziatzerik.

142. Tunika horiak jantzen zituzten grabatzaileek lanerako (AB-016/005)

Tunika horiak jantzita ibiltzen zirelako bereiz zitezkeen grabatzaileak gainerako tailerretako beharginetatik. Horiak, urrearen kolorea irudikatzen omen zuen.

143. Zilarra eta urrea material nagusi gisa (AB-016/006)

Bezeroak eskatutako kalitatearen arabera egiten zuten lan: urrezko hari purua erabiltzeko, eskatu egin behar izaten zen. Jacinto Olaberekin zilarra grabatzen ikasi zuen lehendabizi. Bastoi buruak, petakak, pistolak, etab. grabatzeaz gain, zilarrezko eta urrezko haria erabiliz damaskinatu egiten zituen (apainketarako beste teknika bat).

144. Emakumea armagintzan (AB-016/007)

Emakume grabatzaile asko zegoen. Eibar eta inguruan ohikoa zen arren, Ameriketatik etorritako gizonezkoentzat sinesgaitza zen emakumezkoek landutako pistolak ikustea. Erretratua ere atera zietela kontatzen du Herminiak. 14 urterekin hasi eta 65 urte bete zituenera arte egin zuen lan. Etenik gabe eta etxetik. Ez zitzaion sekula lanik falta izan nahiz eta emakumezkoa izan.

145. Grabatuaren gorabeherak Eibarren (AB-016/009)

Urrearen balioa eta irabaziei buruzko azalpenak. Grabatzaile onak zeuden Eibarren: Artamenditarrak, Larrañagatarrak, Pako Gisasola, Hilario Unzeta... 1914ko gerra hasi aurretik, asko saltzen zuten Frantziara. Gerrarekin batera ordea, Frantziara luxuzko produktuak saltzeko debekua etorri zen. Krisi handia eragin zuen honek eta, ondorioz, grabatzaile asko mugaz bestaldera lekualdatu behar izan zen garai hartan. I. Mundu Gerra amaitutakoan eskaerak berreskuratu zituztela kontatzen du; Gerra Zibila amaitutakoan ere berdin gertatu zen.

146. Txarolatzea: tailerrak eta prozesu desberdinak. (AB-016/016)

Untzaga plazako dantza saioetan ez ezik, grabatuarekin zerikusia zuen hainbat lekutan ere elkar topo egiten zutelako ezagutu zuen Herminiak bere senarra. Piezak txarolatzen zituzten hainbat tailer zegoen Eibarren (txarolatzea: amaieran ematen zaien iluntzeko prozesu kimikoa): Carral, Txapartegi, Urdanpilleta. Pistolei ematen zitzaaien beste txarolatze prozesu desberdin bat: susko txarolatzea.

147. Emakume grabatzaileak ez zeuden gaizki ikusiak (AB-016/018)

Herminiaren aitak ez zuen ondo hartu Jazinto Olabek alaba damaskinatu tailerrera erakarri izana. Tailerrean bi gizonetako baino ez zeuden eta, Olabek, konbentzitu zuen Herminiaren aita azkenen. Emakumezko grabatzaileak ez zeuden, beste emakume langile batzuekin alderatuta, gaizki ikusita garai hartan. Ofizioa ikasi bitartean, bi urtez egon behar izaten zuten soldatarik irabazi gabe.

148. Emakumeentzako lehen grabatzaile tailerra Eibarko Doña Feliparena (AB-016/019)

Doña Felipak sortu zuen emakumeentzako lehen grabatzaile tailerra. Oso gazte ikasi omen zuen grabatzen eta, ezkondu ostean, Barrenkaleko bere etxebizitzan jarri zuen tailerra. Erretiroa hartu ostean marrazketa eskolak eman omen zituen.

149. Noche tabernako sukaldean ikasi zuen sukaldaritzan (AB-016/023)

Eibarko "Noche" tabernako sukaldean sukaldaritza eskolak hartzen zituzten neskek apendiz moduan, binaka. Ez profesionalki jarduteko, etxerako ikasteko baizik. Bertako sukaldean ikasi zuen Herminiak ere.

150. Arizmendiarrietaren ogibidea gerra aurretik (AB-018/001)

11-12 urterekin akabatzaile ogibidea ikasi zuen Santi Arizmendiarrietak, Olgaren aitak, Urizarren tailerrean. Kooperatiba sozialistan eta institutuko bedel moduan ere jardun zuen lanean.

151. Santi Arizmendiarrietak gerra garaian (AB-018/002)

Hornidura komisario izendatu zuten gerra hasi zenean. Eibar hartu zuten egun berean Bilbora bidean zen. Hanka hautsi zuen egun hartan eta ondorioz denbora luzez ibili zen herren. Atxilotu zutenean Duesoko kartzelara eraman zuten. Langileen batailoian behartutako lanak egiten jardun zuen frontean geroago eta, azkenik, Ondarretako kartzelara eraman zuten.

152. Toribio Etxebarria, esperanto irakaslea (AB-018/004)

Toribio Etxebarria izan zen aitaren esperanto irakaslea. Gutun bidezko harreman estua izan zuten; esperantoz ere idatzi izan zizkioten gutunak elkarri. Juanito San Martinekin ere izan zuen harremana.

153. Esperantoa irakasten zen Klub Deportiboan (AB-018/006)

Gerraostean, Esperantoa irakasten hasi zen Eibarko Klub Deportiboan. Esperantoak indar handia hartu zuen sasoi hartan. 11-12 pertsonako taldea osatu zuen.

154. Alderdi politikoak eta elkarteak gerra aurretik (AB-018/010)

Kooperatiba Sozialista Ifarkalen egon zen. "Zirkulua" (Círculo Tradicionalista) baino lehenago Bide-Onera kooperatiba ere ezagutu zuen. Eraikin beraren goiko solairuetan, STV sindikatua, Batzokia eta, azken solairuan, Emakume Abertzale Batza.

155. Politika kontuez kezkatuta beti (AB-018/011)

Lagunartean ibiltzea gustuko zuen Santik. Garai hartan oraindik ez zegoen txikiteorako ohiturarik; ardoa eskatu eta tabernan eserita egon ohi ziren gizonezkoak. Gizon serioa zen Arizmendiarieta. Politika kontuez kezkatuta ageri zen beti.

156. Langileen batailoian pare bat urtez (AB-018/017)

Pare bat urtez igaro zituen Santik frontean, langileen batailoian, behartutako lanak egiten. Bilbora etortzeko baimena izan zutela eta zaintzarik gabe ere etortzeko aukera izan zutela kontatzen du haren alabak baina, itzuli ezean, lankideak fusilatzeke mehatxupean izan zela dio.

157. Pertsona beldurtia izan arren borrokaldian aktiboa zen (AB-018/019)

1934ko Iraultza. Oso gizon ausarta ez izan arren, gaztetasunak eman zion, Olgaren ustez, 1934ko iraultzan parte hartzeko kemena. Dendako erakusmahaiaren azpian gordetzen zuen lehergailuak sortzeko materiala.

158. Iraultzak hildakoak eragiteak sumintzen zuen (AB-018/022)

1934ko urriko iraultzan Urizar hil zuten. Aitari ez zitzaion batere gustatu hildakoak egotea. Kanean, basapiztien moduan ibiltzen zirela iruditzen zitzaion.

159. Gerraosteko Eibar: aisialdirako aukera desberdinak (AB-018/025)

Inguruko herrietako jende asko (mutilak batez ere) Eibarrera etortzen zen aisialdian. Bolatokia zabaldu zuteneko jende-ilara luzeak. Mutilak kunbura (ur presa) joaten ziren igerian egitera.

160. Soldadu alemanak Eibarren (AB-018/026)

Nahiz eta Gernika gorriek bonbardatu zutela esaten tematzen ziren garai hartan, soldadu alemanak Eibarren egon zirela baieztatu dezakeela dio Olgak. Haur guztiak ibiltzen ziren haien kamioien atzetik, banatzen zituzten txokolate-bonboiak lortzeko asmoz.

161. Santi Arizmendiarrietaren argitalpen bakarra (AB-018/027)

Santi Arizmendiarrietak liburu bakarra argitaratu zuen: "Mis tiempos en la guerra". Idazteko makinarekin jarduten zuen egunero. Juan de los Toyos-ek animatu zuen liburua idaztera. Gero, Toribio Etxeberriak eskatuta argitaratu zuen. Esperantoz idatzitako gutun asko gordetzen dira.

162. Gerraren miseriarekin jabetu ez (AB-018/028)

Santi Arizmendiarrietak gerrari buruz gordetzen zituen oroitzapenak ez ziren hain txarrak. Etxetik kanpora pasa zuen denbora gehien eta, behartutako lanak egiten nahiz preso zegoela jaten ematen ziotenez, egoera eskasarekin jabetu ere ez zela egin dio haren alabak. Jasandako hotza izango zen agian oroitzapenik latzena.

163. Goitarrak eta behetarrak Eibarren (AB-018/029)

Elizatik gorakoen eta elizatik beherako eibartarren arteko desberdintasunak. Goitarrak eta behetarrak Eibarren: gizarte banaketa.

164. Oso presente zegoen musika Eibarren gerra aurrean (AB-018/032)

Amari entzundako gerra aurreko ihauterien inguruko kontuak. Elkarrizketatzaileak, Kontxa Laspiurrek, "Kaldereruen" abestia kantatzen du (gaztelerez). Gerra aurrean musika ekitaldi asko antolatzen zen Eibarren: bi musika banda zeuden, koroa, orfeoia, otxoteak, zarzuelak... Juanito Gisasola, Ramon Sarasua, Mugerza. Areto desberdinak: "Pabelloia", Saloia.

165. Esperantisten Gipuzkoako ordezkaria (AB-018/034)

Santi Arizmendiarrietak esperantista taldearen Gipuzkoako ordezkaria zen. Bisita asko jasotzen zituen kargu hau zuela eta, atzerritarrenak sarri. Toribio Etxeberriarekin ikasi zuen esperantoa, Toribiok berak baino errazago.

166. Entsalada-tomatea gaztelarrena (AB-018/037)

Gerraostean goserik ez du pasa: neguko igandeetan babarrunak jan ohi zituzten. Entsalada-tomatea gaztelarren jakitzat zuten eta ez zegoen hura jateko ohiturarik. Uraza berriz, azukrearekin jaten zutela dio. Barraskiloak eta gaztaina erreak Gaztañerre egunerako

167. Gaztañerre eguna Eibarren (AB-018/038)

Eibarko Gaztañerre eguna noiz den zehazteko eztabaida betidanik egon dela diote. Egun, Domu Santu eguna igaro eta bigarren astelehenean ospatzen omen da. Afari berezia egoten zen etxean egun horretan eta frontoian, dantzaldia egoten zen.

168. Hamalau urterekin lanera (AB-019/001)

14 urtekin hasi zen aprendiz bezala lantegi txiki batean. Sarasketa zen herriko ganorazko eskopeta lantegia. Bere izena daraman lantegia zabaldu zuen. Eibarren langile espezialista asko egon da beti.

169. Eskopeta lantegiak Eibarren (AB-019/003)

Ofizioa ikasi zuenetik ez du inoiz lan faltarik izan. Artamendi eta Zulaikarekin ikasi zuen marrazten eta Albistegiren lantegian egin zuen lan soldaduskara joan zen arte. Beltxitarrak. Eibarren, ugazabak eta langileak lagunak ziren.

170. Untzagako dantzaldian ligatzen zen (AB-019/004)

Untzagako kiosko zaharrean musika egoten zen eta neska-laguna topatzeko leku aproposa zen. Trikitia asko gustatzen zaio eta dantzazale amorratua izan da.

171. "Emete Kojua"-rekin kantuan (AB-019/005)

Kantuan "Emete kojuakin" ikasi zuen. Gitarra jotzen ere ikasi zuten. Garai batean asko kantatzen zen. Lasarte eta Pello Errota bertsolarien kantak abesten zituzten.

172. Lagun artean bertsoan I (AB-019/006)

Elgoibarko jaietan bertako benta batera joaten ziren, txikiteoa egin eta bentan afaltzen zuten. Orduko istorio bat kontatzen du: 20 bat lagun ziren, kantuan nahiko onak. Bertsoan ere egin zuen baten batek.

173. Txirrita eta Pello Errotaren bertsoak (AB-019/008)

Txirrita eta Pello Errotaren arteko anekdota bat kontatzen du eta elkarri botatako bertsoak abesten ditu.

174. Lagun artean bertsoan II (AB-019/009)

"Zozua" deitzen diote Pedrori. Bere eta "Emete Kojua"-n arteko bertsoak.

175. Emaztea nola ezagutu zuen (AB-019/011)

Emaztea kasualitatez nola ezagutu zuen. Neskame bezala zegoen Estaziño kalean. Julita Solerak aurkeztu zituen Untzagako dantzaldi batean.

176. Gerra garaian Axpe-Arrazolara; ehiza (AB-019/013)

Gerra garaian frontera joan behar zuenez, Axpe-Arrazolako baserri batera ihes egin zuten eta ehizan ibiltzen zen asko. Ehiztari amorratua izan da, eibartar askoren bezala. Nondik ibiltzen zen: Trabakua, Arno, Oiz..

177. Gitarra ikasten "Crispulonian" (AB-019/016)

Gitarra jotzeko afizioa handia zegoen Eibarren. Gitarra "Crispulonian" ikasi zuen eta handik aurrera, bere kabuz.

178. 1934an Errebalen zeuden denda eta tabernak (AB-019/018)

1934ko iraultza hasi zenean, Trinkete taberna dagoen lekuan bizi zen. Gertuko taberna eta dendak aipatzen ditu: Café Europeo, Trinkete, La Ondarresa oinetako-denda... Iraultzan hildakoak eta zaurituak egon ziren.

179. Elgeta kaleko "Restaurant Badet" (AB-020/002)

Bonifazio Baskaranen pistolan zegoen Badet goitzenaren jatorria. Faustina ere "Badetesa" bezala zen ezaguna. Familiaren jatetxea ere "Restaurant Badet"

deitzen zen. Luxuzkoa zen negozio hura, Elgeta kalean kokatzen zen; ez zegoen edonoren esku: futbolariak, pilotariak... jende ospetsua joaten zen bertara. Amak jarduten zuen sukaldean. Oso sukaldari ona zen.

180. "Aita Jainkoak" (AB-020/017)

"Aita Jainkoak" kantua abesten du

181. Euskal kanta herrikoiak (AB-020/022)

Hainbat euskal abesti herrikoiaren estrofa desberdinetako lerroak abesten ditu (nahastuta).

182. Aita Periko, seme Juaniko (AB-020/024)

"Aita Periko, seme Juaniko" bertsoaren koplak abesten du

183. "Nagusi jauna, hauxen da lana" koplak (AB-020/026)

"Nagusi jauna, hauxen da lana" hitzekin hasten den koplak kantatzen ditu.

184. "La mimosa del Badet" meningitisaren ondorioz (AB-020/037)

Osasun eskasa izan zuen umetan. Meningitisa pasa zuen 6 urterekin. Larri egon zen; meza bat ere atera zioten auzokoek 5 zentimotan ("misa de pobreza"). Ondorio fisiko latzak eragin zizkion gaixotasunak, "La mimosa del Badet" deitzen zioten honen eraginez. Pubertaroan gairitu zituen gaitz guztiak. Emakume indartsu eta kementsua izan da.

185. "Markesaren alaba" (AB-020/040)

"Markesaren alaba" abesten du

186. Klub Deportiboaren hastapenak (AB-022/001)

Klub Deportiboaren egoitza desberdinak: Isasi kalean lehenengo; Untzagan geroago. Gerra ostean zabaldu zen Toribio Etxebarria kalean duten egoitza. Jose Laskurain lehendakari zela, lokala hura erosi ahal izateko batzorde bat antolatu zuten: Txopitea, Aranzeta, Eleuterio Murua, Basilio Markaide, Faustino Mujika, Andres Unzeta... ziren batzordekide. Musika bandak kalez-kale jo zuen eta rifak ere antolatu zituzten lokal hark balio zituen 500.000 pezetan zati bat ordaindu ahal izateko.

187. Mendizaletasuna eta mendi-txapelketak (AB-022/002)

Gurasoekin joaten ziren lehen haurrak mendira. Lehiaketak antolatzen zituzten Klub Deportiboan eta, denboraldi amaieran, dominak banatzen zituzten. Izugarri pozten ziren umeak dominak jasotzean; mendizaletasuna indartzeko modu bat zen. Gaur egungo ohiturak aldatuta daudela iruditzen zaio ordea. Alpinismoa eta eskalatzea hartzen dira aintzakotzat lehenengo balioak albo batera utziz. Egindako ibilbideari buruz idatzi egiten zuten, natura behatu, argazkiak atera...

188. Bizkaia aldean frontean 21 urterekin (AB-022/003)

21 urte zituen gerra hasi zenean. Iñaki Izagirre izan zen bere kapitaina. Bizkaian egon zen frontean: lehenengo Gabonak Elorrion pasa zituela kontatzen. Abuztuak 15ean Ebro ibaiaren iturburuan zeudela dauka gogoan (Fontibre, Kantabria). Santoña inguruan jausi ziren.

189. Mendi irteerak kanpin-dendarekin (AB-022/005)

San Juan jaietako zalapartatik ihesi, Urbiako zelaietan hainbat eibartarrekin egin izan zuten topo Gerardo Egurennek eta berak. Toribio Etxeberria eta haren bi alabekin egon ziren behin. Beste eibartar ezagun batzuk ere bazeuden hartan.

190. Eibarko aratusteetan konpartsak irteten ziren (AB-022/008)

Ez da oso festazalea izan; jai egunak mendirako aprobetxatzen zituen. Aratusteetan jai onak antolatzen zirela kontatzen du. Konpartsak irten ohi ziren Eibarren.

191. Eibarko musika bandak: "Romerala" eta "Los Rebeldes" (AB-022/010)

Gerraostean, dantzaldiak egoten ziren Rialto aretoan. Bi banda zeuden Eibarren: udal-banda edo "Romerala" eta "Los Rebeldes" banda pribatua. Berak nahiago izan du ordea, jai egunetan mendira joatea.

192. Garizuman, "Txirikilletan" jolasten zuten (AB-022/011)

"Txirikillian" nola jolasten zuten azaltzen du: metro inguruko makilarekin kolpatu behar ziren txirikillak. Garizuman jolasten zuten normalean. Zibarekin ere asko aritzen ziren umetan.

193. Garai bateko jolasak (AB-022/013)

Umetako hainbat jostailu eta jolas: kinkilimioka, pote-poteka, txirrinbolia, patina, goitibehera, sokasaltoa... Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren kalean jolasean.

194. Sebe Peñak "lau katedralak" mendi-ibilbidea burutu zueneko (AB-022/017)

Sebe Peñak lau egunetan Bilbo-Donostia-Iruña-Gasteiz ibilbidea burutu zueneko ("Lau Katedralak" deritzona). 8 orduz bakarrik egin omen zuen lo guztira. "3 handiak" mendi-ibilbideari buruzko azalpenak ere ematen ditu.

195. Mendi irteerak eta lehiaketak Klub Deportiboan (AB-022/019)

Jose Luis Ugartebururekin batera ezarri zituen "Eibarko itzulia" mendi ibilbidearen denborak eta sailkapena. Prozesua kontatzen du.

196. Mendi ibilbide desberdinak (AB-022/021)

Mendi tontor eta ibilbide desberdinei buruz dihardu. Arnasa sudurretik hartu eta ahotik bota behar dela dio; ahoa zabaltzeko beharra dagoenean, azkarregi zabiltzanaren seinale omen da. Hainbat mendi ibilbide desberdin: Eibartik Donostiara, Eibartik Ondarrura...

197. Lanera 17 urterekin (AB-023/001)

Armeria Eskolan ikasketak amaitu ostean, 17 urterekin, Izar lantegian sartu zen (Zornotzan). Oso gaztea zenez, ez zuten errespetatzen. Berarekin batera lanean zeuden beste eibartar batzuk: Ricardo Unanue, Rafael Ruiz, Bergaretxe... Lantegian asko sufritzen zenez, Galarraga nagusiak (Alfan

zegoenaren anaia) Alfa-ra lanera bidali zuen, lehenengo tornuetara eta gero mekanizaziora.

198. Amuategi Batailoian teniente eta kabo (AB-023/002)

Gerra Zibila hasi zenean, Amuategi Batailoian sartu zen baina ez zegoen batere koordinaziorik. Bera teniente intendente izendatu zuten, baina bere burua kabora jaitsi zuen. Diziplina gutxi zegoen baina harreman ona zuten. Santa Kurutzen egon zen frontean.

199. Abiazio-akademian instrukzioa (AB-023/003)

Abiaziora joateko aukera sortu zitzairen eta eibartar gazte asko "Los Alcazares" akademian instrukzioa egin zuen. Errusiarrek eibartarrei "injenieru" deitzen zieten, titulua lortu zuten eta gehienak, haien taldeko nagusiak izatera heldu ziren. Benigno Baskaran jenerala zen.

200. Garai batean luxu gutxiagorekin bizi ziren (AB-023/004)

Eibarko antzinako bizimodua errazagoa zen. Luxu gutxiarekin bizi ziren. Untzagan elkartzen ziren lagunak dantzarako eta neskekin ligatzen saiatzen ziren. Rialto ireki zutenean hara joaten ziren dantzara. Debara tren berezian joaten ziren.

201. Deban bainatzen (AB-023/005)

Igandetan Debara joaten ziren tren berezian. Abonuarekin 11 txakur handi (zentimo) balio zuen tiketak eta bestela, 18. Hondartzan bainatzen ziren, neska alde batetik eta mutilak bestetik. Nesken bainujantziak gorputz osokoak ziren eta gizonak kaleko prakekin bainatzen ziren.

202. Alderdi politikoak errepublika garaian (AB-023/006)

Errepublika aurretik denak ondo eramaten ziren baina ondoren, arazoak sortu ziren. Bera sozialista zenez eta neska-laguna abertzalea, azken honek familiari ez zitzairen Jose gustatzen alabarentzat. Mutilak tabernan mozkortu egiten ziren baina formalak ziren.

203. Hauteskundeak Errepublika garaian (AB-023/007)

1931ko hauteskundeen inguruko hainbat azalpen ematen ditu. Sozialistak eta errepublikanoak bat eginda aurkeztu ziren eta emaitzen arabera sortu zen gobernua: Alcalá Zamora presidente, Azaña gobernu buru, Prieto... Sozialisten artean borrokak egon ziren: Largo Caballeron aldekuak, Besteiristak, Prietistak...

204. 1934ko urriko iraultza (AB-023/008)

1934ko urriko iraultzaren aurrekariak. Sozialistek, legetik kanpo zegoen bilera bat egin zuten eta iraultza hasi zen.

205. Politika errepublika garaian; sozialistak (AB-023/009)

Gil Robles-i buruzko azalpenak ematen ditu. "A por los 300!" esaldi ospetsua. Orduan ezkerreko alderdiak elkartu egin ziren eta Frente Popularra osatu zuten. 1936an, José "Querido" baldintzapeko askatasuna lortu zuen. Ezkertiarren artean banaketak jarraitzen zuen eta ez zuten gobernuan parte hartu.

206. 1934ko iraultzan hildakoak (AB-023/010)

1934ko iraultzan Carlos Larrañaga zelan eta nork hil zuen kontatzen du. Beste hildako batzuk ere egon ziran: Sebastian Landa, Vázquez, Gerrikabeitia. Kartzelako bizimodua. Toribio Etxeberria...

207. 1934ko iraultzaren ondorioz espetxeratuak (AB-023/011)

1934ko iraultzaren ondorioz, 112 eibartar kartzelan elkarrekin egon ziren. Kartzelako bizimoduaz hitz egiten du. Kartzelan ondo jaten zuten. Tabakoa nola lortzen zuten.

208. Goitarren eta behetarren arteko banaketa (AB-023/012)

Goitarrak eta behetarrak Eibarren. Noiztik eta zergatik ematen zen banaketa hori.

209. Mendizaletasuna Eibarren (AB-023/013)

Mendira joateko zaletasuna, berezkoa da eibartarrontzat. Galdaramiño, Urko... Umetan gurasoekin joaten ziren mendira eta gero Klub Deportiboarekin, domina ateratzeko.

210. Mendira umetatik; kanpaia (drauna) (AB-023/014)

Umetan mendia zen beraien jolaslekua. Salbadorrera joaten ziren sarritan eta zuhaitz gainean txabolak egiten zituzten. Eibarren eguerdiko 12:00etan kanpaia (drauna) jotzen zen eta lehenengo kanpaia entzun orduko korrika jaisten ziren herrira. Mendian, sagarrak, gereziak, perretxikoak, gaztainak... hartzen zituzten.

211. Umetako kuadrilak kaleka biltzen ziren (AB-023/015)

Fraideak etorri arte, auzo desberdinetako umeek ez zuten elkarrekin jolasten; kale bakoitzak eta lagun-talde bakoitzak bere berezitasunak zituen: Txonta eta Barakaldoko mutilak arrantzan trebeak ziren; Estazio kalekoak, tren geltokian gaiztakeriak egiten; Errebalekoak, merkatu plazan; Untzagakoak berriz, dantzan beste guztiak baino askoz lehenago ikasten zuten. Isasikoak, Untzagakoak eta ingurukoak pikardia gehiago zuten eta putetxeak ("andraetxiak") non zeuden bazekiten.

212. Egunero dantzaldia Untzagan (AB-023/016)

Isasiko eta Untzagako mutilek bazekiten zer ziren putetxeak eta nortzuk ziren prostitutak, baina behealdekoek ez. Hamazazpi urterekin egin zuen dantzan lehenengoz Untzagan. Hiru korrotan dantza egiten zen: txikia, handia eta bikoteena. Neskek mutil helduagoekin dantza egin nahi izaten zuten. Neguan 16:30tan hasten zen dantzaldia eta azken pieza gustuko neskarekin dantzatzen saiatzen ziren eta gero neskarekin pasioan joaten ziren Estazio kalera. Garai batean nola ligatzen zen.

213. Eibarko Aratusteak Errepublika aurretik II (AB-023/024)

Jende askok gitarra jotzen zekien eta aratusteetako karrozetan ateratzen ziren jotzen. Don Poli abadeak karrozak ateratzen zituen aratusteetan ospitalerako dirua batzeko. Asteartea egun handia izaten zen; lagun-taldeak soziedadetan

bazkaldu eta gero dantzara joaten ziren Untzagara edo frontoira. Egun horretan ohitura izaten zen nesken etxera afaltzera joatea.

214. Aratusteetan, nesken etxean afaltzen zen (AB-023/025)

Arastusteetan ohitura zen dantzaldi ostean nesken etxera afaltzera joatera.

215. Ugazabak eta langileak (AB-023/026)

Eibarren ohitura izan zen fabriken nagusiak eta langileak kuadrilla berekoak izatea. Ez zegoen klase banaketarik kuadrilletan. Elkarrekin egiten zen txikiteoa, ehizara joaten ziren...

216. Fama txarra Eibarrek (AB-023/027)

Garai batean neska eibartarrek fama txarra zuten gorriak eta sozialistak zirelako. Abadeek eta Elizak eman zion fama hori Eibarri, sozialistak elizkoiak ezin zirelakoaren ustetan edo. Azpeititik Eibarrera neskame bezala etorritako bati, abadeak esan zion ez joateko Eibarrera, galdu egingo zelakoan edo. Amorebietan ere esaten zen.

217. Garai bateko guraso eta haurren arteko harremana (AB-023/028)

Garai batean gurasoen eta umeen arteko harremana ezberdina zen. Lehen haurrak ixilik gelditzen ziren nagusiak hitz egiten zutenean. Errespetu gehiago zegoen.

218. Maisu guztiak erdaldunak ziren (AB-023/030)

Maisuei errespetu handia izaten zitzairen. Guztiak kanpokoak eta erdaldunak ziren. Gehienek beste ikasketa batzuk ezin egin eta maisu sartzen ziren.

219. Maistrak Eibarren (AB-023/031)

Gerraostean neska askok maistra izateko ikasketak egin zituzten Aldatze ikastetxean, baina mutilek ez zuten magisteritza ikasten. Mutilak Armeria Eskolara joaten ziren. Maistra nafar asko egon zen Eibarko auzo-eskoletan lanean.

220. Maisu euskaldunik ez (AB-023/032)

Maisuak Espainiatik etorritakoak izaten ziren. Euskaldunak unibertsitatera joaten zirenean, arkitektu, mediku, injenieritza, e.a, ikasketak egiten zituzten.

221. Albaitariak (AB-023/033)

Oso jende gutxik ikasten zuen albaitaritza, ez zegoelako behar handirik. Agiñazpiko tabernaria eta Pedro okina, albaitariak ziren.

222. Abade eibartar oso gutxi (AB-023/034)

Alemanen semeak unibertsitatera joaten ziren eta beste guztiak Armeria Eskolara. Abade ikasketa oso gutxi egiten ziren Eibarren eta abadeak inguruko herrietakoak izaten ziren. Don Poli plaentxiarra zen. Moja batzuk bazeuden Eibarren.

223. Bokazio elijioa (AB-023/035)

Eibarren abade eta moja sartu zen bikote bati buruz hitz egiten du. Biek ikasketak amaituak zituzten baina bokazio erlijioa zutenez ez ziren elkarrekin ezkondu.

224. Desamortizazioan, aristokraziak elizaren lurak erosi zituenean (AB-023/039)

Isasiko mojen lurak noraino heltzen ziren. I. Karlistaldian bukatu zenean, Mendizabalen desamortizazioaren ondorioz, aristokraziak (Albako Dukea, Mutrikuko Kondeak...) elizako lurak erosi zituen oso merke eta jauregi asko eraiki ziren.

225. Estatuak Elizari dirua ematea (AB-023/040)

Mendizabalen legearen (desamortizazioa) ondorioz, Estatuak Elizari dirua ematearen arrazoa azaltzen du.

226. Eibarko ugazaben eta beharginen arteko harreman berezia (AB-024/001)

Txikiteorako ohitura nola eta noiz hasi zen Eibarren. Lantegietako ugazaben eta beharginen arteko harremana oso gertukoa izaten zen; ohikoa izaten zen txikiteoa garaian elkarrekin ikustea hauek.

227. Abarketak, "Maria Ospital"-enean (AB-024/003)

Abarketa pareta erosteko zailtasun ekonomikoak. Espartzuzkoak, eta gomarik gabeak izaten ziren hauek eta "Maria Ospital"-enean erosi ohi zituzten. Igande eta jai egunetarako abarketa zuriak gordetzen ziren.

228. Jaiak inguruko herrietan: Elgoibar, Bergara... (AB-024/004)

Inguruko herrietako jaietara joaten ziren: Elgoibar, Bergara... Errepidetik, oinez egiten zuten joan-etorria. Zazpiak aldera afaltzen zutenez, gau erdira bitartean, aprobeitzatzeko nahikoa denbora geratzen zitzaizela kontatzen dute.

229. Aratusteak Eibarren (AB-024/006)

Herriko soziedade desberdinak arduratzen ziren, txandaka, inauterietan dantzaldiak antolatzeaz. Astelena pilotalekuan oholza jartzen zuten eta herri guztia hurbiltzen zen bertara "koko-jantzita": trapu zaharrekin egindakoak batzuk, besterik gabe, jakari buelta emanda beste hainbat.

230. Serenoak eta haien egitekoak (AB-024/009)

Eibarko taberna guztietan egiten zen kantuan. 10etatik aurrera, serenoa (gauzaina) agertzen zen eta kantari zebiltzanak isilarazten saiatzen zen. 4-5 sereno zeuden Eibarren. "Patillas" gauzainari gertatutako anekdota.

231. Eibarko euskararen berezitasunak (AB-024/011)

Eibarko euskararen berezitasunei buruz dihardute, Amuategi Batailoiko norbaitek gerra garaian botatuko esaldi honen harira: "Aparato enemiguak aparezidu dittuk horizonte gañian Eibarko poblaziño zibilla bonbardeatzera. Ez daok deretxorik holako injustizia kometitzeko pueblo industrial bateri!". Eibarko euskararen eta inguruko herrietako euskararen inguruko azalpenak.

232. "Don Eusebio de Ardaule": gaztelerarekin komeriak eskolan (AB-024/013)

Gazteleraz ziren orduko eskolak eta, askorik ulertzen ez zutenez, ez zuten gehiegi ikasi. Don Eusebio irakasle erdaldunari gertatutako pasadizoa kontatzen du: "Ardi-ule" zuen gaitzizena baina, baten batek txistea harrapatu ez eta, irakaslearen abizena zelakoan, beste nolabait zuzendu omen zitzaion behin.

233. Gerra denboran ikasi zuten gazteleraz (AB-024/014)

Gazteleraz ez zuten ondo ikasi gerra etorri zenera arte. Oinarrizko ikasketak amaituta ere, ez zekiten ganoraz idazten. Frontean zegoela, etxera gutuna idaztea baino, guardia bat egitea nahiago zuela dio. Pasadizo bat kontatzen du honen frontetik idatzitako gutun baten harira: "Cómo está el perro? Mándame dinero" eta, etxekoek erantzun "Perro bien; dinero no hay".

234. Untzagako kioskoko dantzaldiak (AB-024/018)

Beasainera saldu zuten Untzaga plazan zegoen musika-kioskoa. Ostegunero eta igandero egoten zen dantzaldia bertan. Herri guztiak hartzen zuen parte. Neskatan/mutiletan nola egiten zuten azaltzen du.

235. Maltzagako geltokia (AB-025/004)

"Cayetano cojones", Pakitaren lehengusua, Maltzagako kantinako arduraduna zen (Cayetano Sustaeta). Tren aldaketa egiten zen Maltzagan eta ohitura handia zegoen trenetik jaitsi eta kantinara joatekoa. Geltokia eta ingurua nolakoa ziren. Trenbide-langileak bizi ziren bertan; erdaldunak guztiak.

236. Aldatze ikastetxea (AB-025/006)

Aldatze Ikastetxearen inguruko sorrera eta kokapenari buruzko azalpenak. Magisteritza ikasketak egin ahal izateko sarrera-proba ere presta zitekeen bertan. Ume-umetako eskola kontuak ere aipatzen ditu, irakasleak etab. (bertan egin zituen oinarrizko ikasketak). Aitak ez zuen Pakitak goi mailako ikasketak egiterik nahi baina aurrera egin ahal izan zuela kontatzen du. Barneko ikasleak ere bazeuden Aldatzen, tartean Asturiastik etorriak.

237. Gerra osteko debekuak hezkuntza arloan (AB-025/013)

Francoren garaipenarekin, abertzale izateagatik epaitua izan zela kontatzen du. Irakasle izatea debekatu zioten. Gonzalez Orbea zen Eibarko alkatea garai hartan. Eskola partikularrak ematea izan zen irtenbidea.

238. Politika eta erlijioa gerra ostean (AB-025/015)

Gerra ostean, politika eta erlijioaren arteko banaketa hutsaren hurrengoa zen. Prozesioetan, adibidez, eskua altxa beharra izaten zuten. Isunik ere jaso zuten arau haiek ez betetzearen ondorioz. Gerra aurretik ospatzen ziren jaiak oso bestelakoak zirela aipatzen dute. Gerra ostean, politika eta erlijioaren arteko banaketa hutsaren hurrengoa zen. Gerra garaian berriz, prozesioetan eskua altzatu behar izaten zen.

239. Eskola partikularrak etxean (AB-025/017)

Gerraosteko debekuak zirela eta, ezin izan zuen irakasle jardun. Etxean ematen zituen eskola partikularrak. Ikasle bikiekin gertatutako pasadizoa kontatzen du

240. Musika eta dantza Untzagan (AB-025/019)

Neguan izan ezik, ostegun eta igandetan musika egoten zen plazan. Hamabostean behin, kalejira egoten zen Estazio kaletik Untzagara, eta gero han kontzertua eskaintzen zen. Agustín "Txokolo" zen garai hartan musika bandako zuzendaria.

241. Zezenetarako zaletasun handia Eibarren (AB-025/021)

Zezenetarako zaletasun handia egon da Eibarren. Maiatzean, autobusak antolatzen omen ziren Bilbora korridak ikusteko. Pedrutxori buruzko aipamena. Jaietako karrozan, "Manolak" joan ohi ziren abaniko, mantila eta apain-orraziekin.

242. Lan-baldintzak; jende gutxi joaten zen oporretara (AB-025/022)

Abuztuan ere lan egiten zen; Andra Mari egunean bakarrik izaten zuten jai. Oso jende gutxi joaten zen oporretan kanpora, eta joaten zirenak (dirudunak), Debara joaten ziren uda pasatzera. Iriondoren ostatua zen oso ezaguna.

243. San Juanetan arropa berria estreinatzeko ohitura (AB-025/023)

Abarketa zuriak nola garbitzen zituzten azaltzen du. San Joanetan estreinatzen zen arropa berria, urte batean bai eta hurrengoan ez. Bakar batzuk berriz, urtero-urtero egiten zezaketen arropa berriren bat.

244. Eibarko maistrak (AB-025/026)

Eskola eta irakasleen inguruko hainbat informazio ematen du. Irakasle ezagunak: Doña Polonia Etxeberria, Doña Paka, Doña Petra (bi hauek Untzagako eskolan ematen zituzten klaseak).

245. Ile-apaintzaile eta orrazkerak (AB-025/030)

Emakumeen janzkera eta makillajea nolakoak ziren kontatzen du. Gizonezkoen ile-apaindegiak baino ez zeudenez, etxean moldatu behar izaten zuten emakumeek. Beranduago agertu ziren emakumeentzako ile-apaintzaileak eta haiekin modako orrazkerak. Adibidez: "Marcel" (ilean izurrak egitea). Orrazkera mantentzeko, koipe moduko bat botatzen zen. Aldaketa handia egon da garbitasun aldetik: burua oso gutxitan garbitzen zen baina zorriak kentzeko orrazi estua pasa, egunero.

246. Ibarkurutzeko iturria (AB-025/034)

Iturrira joan behar izaten zuten ur bila. Ibarkurutzeko iturria nolakoa izen (lehen zegoena, askoz politagoa). Txanda eskatzen zen eta, bitartean, "txingorrera" jolasten zuten. Pitxerrak kristalezkoak, lurrezkoak edo portzelanazkoak izaten ziren.

247. "Simonanekuak", Eibarko okinak (AB-027/002)

Okin izatea familiatik datorkio. Eibarko okindegia zaharrena, beraiena zen. Amandrea (Simona), okina eta errotaria zen. "Simonanekuak" deituak izan dira. Eibarren garai batean denak gaitzenez ezagutzen ziren. Emaztearen senideak "Gorostixanekuak" bezala ezagutzen ziren. Justoren aitak 54 urte zituen bera jaio zenean, eta amak 40 urte.

248. Okindegian lanean; malakatia edo errota-harria (AB-027/003)

Santanderrera joan zen ikastera eta bertako futbol taldean hartu zuten. 20 urterekin Eibarrera itzuli eta okindegian hasi zen lanean. Bizi guztia okindegian lan egin du. Justoren denboran ogia ez zen jadanik eskuz egiten; berak opilak egiteko makinak ezagutu zituen. Baina anaiek berriz, errota "malakatiakin" ezagutu zuten; hau da, abereen indarraz mugitutako errotarriekin. Garai bateko ogiak hobeagoak ziren.

249. Okindegiak Eibarren (AB-027/004)

Eibarren 5 okindegi egon ziren gerra aurreko urteetan. Orduan gainera ogi kantitate gutxiago egiten zen; ogi gehien egiten zuenak, 500-600 kg egiten zituen egunero; beraiek, 350 kg. egiten zituzten lagun biren artean.

250. Arraindegi kalea: okindegiak; bainuetxea (AB-027/005)

Arraindegi kalea, txikia izan arren hiru okindegi zeuzkan: Benitonekoa, Birjiñapekoa (Roman Larrañaga) eta beraiena, "Simonanekua". Arraindegi kalean bainuetxea ere zegoen eta orduan etxeetan dutxarik ez zegoenez, jendea lanetik irtendakoan bainuetxera joaten zen. Arraindegi kaleko etxeetan jarri zen lehenengo dutxa, Justoren etxekoa izan zen eta senideak eta bizilagunak bertara joaten ziren dutxatzera.

251. 1934ko iraultza: etxeratze-agindua (AB-027/006)

Lehenengo irratia berriz, 1934ko urriko iraultzarekin batera jarri zuten etxean. 1934ko iraultza gogoratzen dute. "Oka Txiki" (Candido Eguren) poliziatik ihesi saltoka zebilela gogoratzen du Justoren emazteak. Etxeratze-agindua arratsaldeko 18.00etan zen. Justok anekdota bat kontatzen du.

252. Gerra aurreko jai giroa Eibarren; San Juanetan "tiobibuak" (AB-027/007)

Jaiak Eibarren. Ostegunetan musika egoten zen plazan; mutilak marradun frakekin ("mil rayas") joaten ziren, abarketa zuriak eta krabelin gorria. Gaueko 22:00etan neska guztiak korrika joaten ziren etxera eta neska-laguntzea ere izaten zen. Herriko jaiek asko galdu dutela dio. Arraindegi kalean San Migel eguna ospatzen zen. San Juan bezperan Untzagara izozkia ("mantekaua") jatera. Zaldiko-maldikoak ("tiobibuak") egoten ziren. Txikitan uda pasatzera Santanderrera joaten zenean ere, horrelakoetan ibiltzen zen.

253. Korua ikustera aisialdian (AB-027/009)

Ohitura zahar batzuk galdu egin dira, baina zentzu askotan hobera egin dela uste dute. Garai batean elizan koru ederrak egoten zirela gogoratzen dute; jendea gustura joaten zen korura. Don Poli eta Don Félix Markiegi abadeak. Jendea entseguak ikustera joaten zen aisialdian.

254. Garai batean, elkar-konfiantza gehiago (AB-027/010)

Garai batean elkar-konfiantza gehiago zegoen herritarren artean. Harremanak oso etxekoak ziren. Bizilagunak. Etxea gabetan zabalik egoten zen beti.

255. II Errepublikan tiribira politiko asko (AB-027/011)

II Errepublikaren garaian tolerantziarik ez zegoela uste dute; alderdien arteko tiribirak ohikoak izaten ziren. Sozialistak kalerik-kale joaten ziren formazioan, marradun praka "mil-rayas"-ekin eta alkandora urdinarekin; anekdota batzuk kontatzen ditu honen harira. Orain politika arloan ere hobera egin dugula uste dute.

256. Gerra zulatzaile izatetik bulegoan lan egitera (AB-027/014)

Gudaria izan zen Justo Batallón Avellanedan eta Sarasketarekin ibili zen zulatzaile ("zapadore"). Preso hartu zuten, baina Teruelgo ofentsiba hasi zenean Francoren tropek langileak behar zituzten (okinak, txoferrak, mekanikoak, e.a.) eta besteak beste bera hartu zuten. Gerora, alferrez ezagun batek bulego batean sartu zuen eta futbolearen ere jokatzeko zuen.

257. Santanderren futbolearen jokatzeko (AB-027/015)

Santanderren jokatu zuen futbolearen profesional bezala. 3 pezeta ordaintzen zuten apopilo bezala.

258. "Ogie" kooperatiba (AB-027/016)

Garai batean familiako okindegia S.A bat zen; gerora, langileei laga zieten eta kooperatiba bat egin zuten: "Ogie".

259. "Euzko gudariak" (AB-027/018)

"Euzko gudariak" abesten dute.

260. Giza eskubideen hitzaldia antolatzeagatik poliziarekin arazoak (AB-027/020)

Diktadura garaian Karmelitetan giza eskubideen aldeko hitzaldi bateri buruz hitz egiten du. Setien zen abadea orduan. Felix Bergara zigortu nahi izan zuten hitzaldi iraultzaileak antolatzeagatik.

261. Propaganda politikoa okindegian ezkutatuta (AB-027/021)

Polizia Javier Bagliettoren bila joaten zenean, honek etxean zuen propaganda guztia Justoren okindegira eramaten zuen erretzeko.

262. Poliziari aurre egiteagatik epaituak (AB-027/022)

Txabi Etxebarrieta hil zutenean, hiletara joan ziren baina poliziari esan zioten Caritas-era joan behar zirela lanera. Javier Baglietto epaitu egin zuten Sarasketarekin batera. Justo, Ermuko abade batekin eta Karmelitateko beste batekin joan zen epaiketara, testigu gisa.

263. Murchantera gaztelania ikastera (AB-027/024)

Lehenago jende asko joaten zen Araba edo Nafarroa aldera lanera, erdaraz ikastearren.

264. Euskarazko meza 12etara aldatu zutenean (AB-027/027)

Meza bi hizkuntzetan ematen bazen ere, gaztelaniazko ordutegia askoz hobeagoa zen eta jende gehiago joaten zen. Caritas-eko zuzendaria zenez, askotan haserretzen zen Justo eta protesta egiten zuen karlisten aurrean. gaur egungo egoera.

265. Euskal Herririk ez euskara gabe (AB-027/028)

Euskal Herririk ez dago euskararik gabe. Euskal Herriaren nortasunaren ezaugarri nagusienetako bat, burugortasuna ("egos-gogorrak") da eta horregatik mantendu da euskara.

266. Errazionamenduko ogi gogorra (AB-027/036)

Euskaraz egiteagatik, errazionamenduarekin leku batzuetan ogi gehiago ematen zutela kontatzen dute. Justoren aitak ere ogi gehiago ematen zion euskaraz egiteagatik. Errazionamenduko ogia artoarekin egindakoa zen eta oso gogorra zen, umela zegoelako.

267. Pertsona hobeagoa ez da elizara joaten dena (AB-027/039)

Errepublika garaia, gerra zibila, diktadura... bizi izan dutenek politika barru-barrutik sentitzen dute. Garai batean elizara joateko derrigortasunaz hitz egiten dute. Ez da pertsona hobeagoa elizara joaten dena. Elizako kontuak.

268. Armagintza eta grabatugintza (AB-033/001)

Armagintzaren garrantzia grabatuaren eta damaskinatuaren sorreran.

269. Grabatugintza eta damaskinatua (AB-033/002)

Grabatua eta damaskinatuaren arteko desberdintasunak.

270. Damaskinatuaren historia (AB-033/003)

Damaskinatuaren jatorria, bilakaera.

271. Eibarko artistak: Plácido Zuloaga (AB-033/004)

Plácido Zuloaga (Ignacio Zuloagaren aita) izan zen damaskinatuari hasiera eman ziona eta indartu zuena. Erakusketak egin zituen Sevillan, Parisen, e.a.

272. Zuloagatarrak, artista ezagunak (AB-033/005)

Daniel Zuloaga (Ignacio Zuloagaren osaba), zeramista izandakoa Madriden.

273. Eibarko artistak: Carlos Elgezua (AB-033/006)

Carlos Elgezua, eskultorea.

274. Eibarko artistak: Jacinto Olabe (AB-033/007)

Jacinto Olabe, dibujoan eta argizarian maixua.

275. Eibarko artistak: Cayetano Kareaga (AB-033/008)

Cayetano Kareagak metalean grabatzen zuen.

276. Eibarko artistak: Agustín Larrañaga "Matxari" (AB-033/009)

Agustín Larrañaga "Matxari", damaskinadorea.

277. Eibarko artistak: Estanislao Artamendi (AB-033/010)

Estanislao Artamendi artista eibartarra.

278. Eibarko artistak: Txomin Martínez (AB-033/011)

Txomin Martínez grabadorea.

279. Eibarko artistak: "Txopa" (AB-033/012)

"Txopa", marrazkilari eta tallista oso ona.

280. Erlijioa; ohitura zaharrak: batailoak (AB-034/001)

Batailoak zelakoak izaten ziren. Batailoaren inguruko kontuak.

281. Familia giroa; jaiotzak (AB-034/002)

Familia giroa eta jaiotzak XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran. "Gobernatzailea", amari ume jaio berria zaintzen laguntzen zion emakumea zen.

282. Erlijioa; ohitura zaharrak: batailoak (AB-034/003)

Batailoak zelakoak izaten ziren; gai honen inguruko kontuak.

283. Familia giroa; jaiotzak (AB-034/004)

Familia giroa; jaiotzak. Umea jaiotzen zenean, bisitara joaten zirenak erregaloak eramaten zituzten.

284. Umetako jolasak (AB-034/005)

Umetako jolasak: tortolosak, kanikak, txirikila. Txingor-gaanean, harrapaketan, esku-pilotan, futboleko jolasten zuten. Goiti-beherak, txirrinboloa, bizikleta.

285. Lagun-arteak kontuak (AB-034/006)

Lagun-arteak pasadizoak, okerkeriak; pipa-zotzak, arto bizarrak erretzen zituzten.

286. Lanera gazterik; Armeria Eskolan gauez ikasteko aukera (AB-034/007)

Eskola amaitu eta lanean hasten ziren, aprendiz moduan. Armeria Eskolan gauez eskola ematen zuten.

287. Emakumeak lan munduan (AB-034/008)

Ikasketak amaitu ondoren neska gehienak etxean gelditzen ziren; gutxi batzuk ofizinan hasten ziren lanean eta beste asko grabadore moduan.

288. Emakumeak eta damaskinatua (AB-034/009)

Damaskinatuaren sorrera; emakumeen garrantzia grabatugintzan.

289. Eibarko eskola zaharrak; pertsonai ezagunak (AB-034/010)

Txirio kaleko eskola nolakoa zen; 1853.an beste eskola bat egin zuten. Ospital kalean, Godoi etxean hain zuzen ere, beste eskola txiki bat zegoen. Bertatik pasatu ziren Toribio Etxebarria, Aita Galdós, e.a.

290. Eibarko pertsonai ezagunak (AB-034/011)

Eibarko pertsonai ezagunak: Toribio Etxebarria, Aita Galdós...

291. Ikastetxeak Eibarren (AB-034/012)

Eibarko kaleak; ikastetxeak. Garai batean Ibarkurutzean egon zen kanposantua; gerora Alhondiga eta eskola jarri zituzten bertan. Oraingo Bidebarrieta kaleko San Andrés ikastetxean, Guardia Zibilen kuartela zegoen; orduan ere eraikuntzaren erdia eskola zen. Isasi kalean, La Salletarrak zeuden. Aldatzeko mojak; Armeria Eskola. 1933.an Institutoa jarri zen martxan.

292. Untzaga ingurua XX mende hasieran (AB-034/013)

Udaletxea Untzagan eraiki aurretik, ingurua bi zatitan banatzen zen: pasealekua eta plaza. Untzaga kalea; Fermín Calbetón. Errege etxea, armak probatzeko tokia zen (Bustinduitarren etxea izandakoa). Orain Casa del Pueblo-a dagoen tokian, kafe bat zegoen; arboladia; San Juan ermita. Udaletxea egin eta gero, dena aldatu zen. Lehenagoko pasealekua, dantzaleku bihurtu zen; kioskoa ere tokiz aldatu zuten.

293. Dantzaldiak uda garaian, Untzagan (AB-034/014)

Dantzak, ostegun eta igandetan egiten ziren; maiatzaren hasieratik, Arrate egunerarte.

294. Untzaga ingurua: kafeak; Salón Teatro (AB-034/015)

Kafeak Untzaga inguruan. Salón Teatro-a, hasieran dantzaleku bezala erabiltzen zen, neguan batez ere; gero zinea jarri zuten bertan. Ertzean, "Café Noche" zegoen.

295. Zineak Eibarren (AB-034/016)

"Pabelloi"ko zinea (Pabellón Alfonso XIII). Pelikulen inguruko azalpenak ematen, Nicanor de la Fuente "Txarlatana". Ibarkurutzean, Salón Cruceta.; bertan ere zinea, antzerkiak, e.a. egoten ziren. Isasi kalean, "Kiputza"neko zinea (Elorzarena).

296. Bolatoki zaharrak (AB-034/017)

Bolatokiak: frontoi Zaharrean, Azitainen eta Arraten.

297. Moda: erropa eta oinetakoak (AB-034/018)

Abarketa zuriak; ohikoa izaten zen zinta beltza zuten abarketak erabiltzea. San Juanak, uda garaiko erropa berria janzteko momentua izaten zen; beroki berriak berriz, San Andres-etan estreinatzen ziren.

298. Neskatan-mutiletan nola ibiltzen ziren (AB-034/019)

Neskatan-mutiletan nola egiten zuten.

299. Erljioa; ohitura zaharrak: ezkontzak (AB-034/020)

Neskak, gazte ezkontzen ziren; ohitura izaten zen gainera taldeka ezkontzea. Goizeko 6:00retan ezkondu, gosalduta eta gero trenez Bilbora edo Donostiara joaten ziren astebeterako.

300. Gaixotasunak; ohitura zaharrak: abadea eta sakristaua etxera (AB-034/021)

Gaixotutakoan, abadea etxera joaten zen; sakristaua aurretik txilinarekin eta jendea kalean belauniko.

301. Hileta-elizkizunak; ohitura zaharrak (AB-034/022)

Hildakoan, agoniako kanpaiak jotzen zituzten. Maila desberdinetako hileta-elizkizunak egoten ziren (Primerísima, 1^a, 2^a, 3^a...). Anekdotak bat kontatzen du gai honekin lotuta.

302. Hileta-elizkizunak; ohitura zaharrak (AB-034/023)

Hileta-elizkizunen inguruko ohitura zaharrak; "gaubelia". Hildakoentzat zerraldoak Txirio kalean egiten ziren.

303. San Blas eguna Eibarren; Santa Ines ermita (AB-034/024)

San Blas eguna; San Blas opilak Isasiko jauregiaren atzean, Santa Ines ermitan bedeinkatzen ziren. Plaza Berrian, dantzak egoten ziren ikusgai.

304. San Blas egunean dantzara dotore jantzita (AB-034/025)

Gizonezkoak fraka zuri eta gerriko gorriarekin joaten ziren dantzara San Blas egunean; emakumeak baserritar jantzita.

305. Aratusteeak: mozorroak; konparsak; dantzaldiak; e.a. (AB-034/026)

Aratusteeak, hauts-eguna baino zazpi egun lehenago ospatzen ziren. Eguen zuri, umeen eguna izaten zen. Koko jantzita joaten ziren etxez-etxe, lantegietara, e.a.; igandean dantzaldira ere mozorrotuta joaten ziren. Astelehenean, inguruko herrietatik etorritako konpartsak kalerik kale ibiltzen ziren (Plazentziatik, e.a.); asteartean, herriko konpartsak irtetzen ziren.

306. Arrateko Amaren eguna (AB-034/028)

Arrateko Ama; Arrate eguna. "Barrakerak" bezperatik etortzen ziren; Azitaindik, Matsaritik, e.a. gauzak eskuz, asto gainean igotzen zituzten.

307. Eibarko euskara eta eibartarron nortasuna (AB-035/001)

Eibarko euskararen geroa. Eibartarrak ezin du bere nortasuna ukatu.

308. Hizkuntza eta herriaren nortasuna (AB-035/002)

Herri baten nortasuna, hizkuntzaren bitartez eraikitzen da. Euskaldun izatea zer den; euskaldun kontzientzia. Hizkuntza etengabe aldatzen doa, nahiz eta sustraia berdina izan. Hizkuntzak gordetzen du herri baten kultura.

309. Eibarko euskara; euskararen geroa (AB-035/003)

Eibarko euskara. Eibartar peto-petoak diren berba asko baztertu eta erdarakadak erabiltzen dira; beste hizkuntza batzuetatik hartutako maileguak, e.a. Euskararen geroa, gaurko gazteen esku.

310. Eibarko euskararen ezaugarriak (AB-035/005)

Eibarko euskararen ezaugarri batzuk; entonazioa. Oraingo gazteek azentua ez dute ongi erabiltzen; Bergarako azentua.

311. Eibartarron nortasuna (AB-035/006)

Eibartarron nortasuna. Eibartarra zaratatsua da; berbeta oso ozenkia du.

312. Hizkuntza eta herriaren nortasuna (AB-035/013)

Hizkuntza eta herriaren nortasuna. Hizkuntzak nortasun eta indar handia ematen du. Bertako berbeta bizkaiera da, mendebaldekoa; Markinako azpieuskalkia. Gipuzkeratik sartutako forma batzuk ere baditu: aditz trinko bat (jardun).

313. Euskararen geroa (AB-035/017)

Eibarko euskara gero eta pobreagoa, Euskal Herri osoan bezala. Gauzak aldatzen ez badira, euskara ez da salbatuko.

314. Esaera jatorrak (AB-035/022)

Jatorri erabili izan diren esaera zaharren zerrenda txiki bat ematen du.

315. Eibarko herriaren sorrera; historia (AB-036/002)

Eibar, eliza baten inguruan sortu zen. XII. mendean jadanik eliza erromaniko txiki bat zegoen. San Andres elizak (1532-) izan dituen aldaketak. XVI. mendean, elizkizun handiak egiten ziren bertan. Errebal kalean ere ermitatxo bat egon zen; gerora XVII.mendean komentu bihurtu zena. Isasiko komentua. Arrateko ama (1442). Debozio handia Eibarren. Eibarko kristautasunak gorabehera handiak izan ditu.

316. Guda Karlistak; liberalak, karlistak (AB-036/010)

Guda karlistak (1833). Eibarren liberalak izan ziren nagusi. 1834an, karlistek ez zuten Eibar osoa bereganatzerik lortu. Emakumeek gogor jokatu zute; emakumeen batailoia eratzea nahi izan zen eta Espartero generalak baimena eman zuen. 1835.ean, Zumalakarregi Eibarren sartu eta udal berria osatu zuen. 1839an Bergarako besarkada.

317. Eibarko industriaren hastapenak: lehenengo epea (AB-038/004)

Eibarko industriaren hastapenak; epe desberdinak. Lehenengo epea, 1925erarte. Ordurarte Eibarren armagintzazen nagusi. Krisialdi ziklikoak egoten ziren. Egoera horri irteera bat aurkitu nahian Julián Etxebarriak, Toribio Etxebarriak, Valentín Orbeak eta Ignazio Anituak besteak beste, alkateari proposamen bat egin zioten: bizikletak, rodamientoak, josteko makinak, automobilak, e.a. egiten hasi beharra zegoen. "Bakelan" soziedadea. 1925ean bizikletagintzaren hasiera: GAC; Orbea eta Beistegi. Urte horretan Alfa, josteko makinak egiten hasi zen; hori izan zen Eibarko industriak egin zuen lehenengo eraldaketa handia.

318. Eibarko industriaren hastapenak: bigarren epea (AB-038/005)

Eibarko industriaren bigarren epea: 1925etik Gerra Zibilerarte. Produktu berriak dominatu eta produkzio berri batzuekin hasi beharra zegoen: erreminta-makinak eta burdindegia.

319. Giro kulturala Eibarren (AB-039/001)

Eibarko herriak kulturarekiko ardurak handia erakutsi izan du beti: liburutegiak, irakurzaletasuna, politika eta mugimendu sozialak, e.a.

320. Musikazaletasuna: orfeoia; koruak; e.a (AB-039/002)

Musikazaletasuna Eibarren; orfeoien garrantzia. Parrokia izan da musikaren inguruko egonezin guztiak batu izan dituen; korua, "Orfeón Eibarres", e.a.

321. Aldatzeko ikastetxea; mojak (AB-039/006)

Aldatzeko ikastetxearen inguruko azalpenak; mojak. Pianista oso onak irten dira bertatik.

322. "Eibarko herria" kanta ezaguna (AB-044/001)

"Eibarko herria" kanta ezaguna.

323. "Tallar honetan" kanta ezaguna (AB-044/002)

"Tallar honetan" kanta ezaguna.

324. "Arragueta kalia" kanta ezaguna (AB-044/003)

"Arragueta kalia" kanta ezaguna.

325. "Hiru gizon ilustre" kanta ezaguna (AB-044/004)

"Hiru gizon ilustre" kanta ezaguna.

326. "Ederrena zerala diñozu" kanta (AB-044/005)

"Ederrena zerala diñozu" kanta.

327. "Bart arratsian tabernatikan, berandu juanda" kanta (AB-044/006)

"Bart arratsian tabernatikan, berandu juanda" kanta.

328. "Untzi txiki batian, honenbeste lagun" kanta (AB-044/007)

"Untzi txiki batian, honen beste lagun" kanta.

329. Kanta zaharrak (AB-044/008)

"Ni naiz kapitan Pilotu" eta "Maria Marta coge la manta" kantak.

330. Kanta zaharra (AB-044/009)

"Mendiko umia naiz ta" kanta.

331. "Forjarixen kantua", abesti ezaguna (AB-044/010)

"Forjarixen kantua".

332. Euskal kantuak: 1925-1926 (AB-046/001)

Cayetano Kareagaren etxean zeudela, leihoak itxi zituzten "Gernikako Arbola" kantatzeko.

333. Eibarko lehenengo batzokia (AB-046/003)

Eibarko Batzoki zaharra. Antzerkiak egiten zituzten; zuzendaria D. Poli Larrañaga abadea izaten zen. Abertzale zaharrak: Genaro Boneta, Gregorio Iñarrairaegi, Peli Aldazabal, Julián Arana (gerra aurreko lehendakaria Eibarren), e.a. Liburutegia, pianoa, kontzertuak ematen zituzten, hitzaldiak, e.a.

334. 1934ko urriko iraultza Eibarren (AB-046/005)

Iraultza hasi baino lehenago Madriden gorabeherak izan ziren (Prieto-Largo Caballero). Egun garratza izan zen Eibarren, urriko lehenengo ostirala. Goizeko 7:00retan Carlos Larrañaga zauritu zuten Parrokia ondoan; arratsaldean hil zen.

335. Alderdi politikoen arteko liskarrak; Irujo eta Polixene Eibarren (AB-046/008)

Juventudes Socialistas Unificadas. Burrukak oso arruntak ziren garai hartan. "Furia Roja"koak oso gogorrak ziren. Alderdi Jeltzaleak hitzaldia egin zuen behin Astelena frontoian; Irujok eta Polixenek hitzegin zuten; sozialistaz beteta zegoen eta "Internazionala" kantatzen hasi ziren. Irujok hitza hartu eta denak ixilik utzi zituen; hitzaldia "Internazionalarekin" amaitu zen.

336. 1936an, presoak askatzeko ekimena (AB-046/011)

Gerra aurreko kontuak. 1936an, "presoak Kalera" aldarrikatu zen Eibarren. Eskumakoek botoa eman zieten ezkerrekoei presoak askatzeko eta Casa del Pueblo-an sekulako ongietorria egin zieten; Conrado Mugerzak hitzegin zuen orduan.

337. Gerra Zibila; klandestinitatea; euskara, ikastola (AB-046/015)

Gerra Zibila; klandestinitatea. Anaia (Julio Sarasua) etorri zenean (1950 inguruan) klandestinitatean sartu zen eta takian-potian preso hartzen zuten. Klandestinitatean alderdi jeltzaleak eta komunistak egin zuten lan gehien. Ikastolaren alde eta euskararen alde ere lan handia egin zuten eibartar askok (Andoni Idoiaga, Serafin Basauri, Imanol Laspiur, Ramón eta Julio Sarasua, e.a.); diru-bilketa asko egin zituzten.

338. Musika eta tanborrada (AB-050/011)

Tanborradaren historiaren laburpena (Elkarteak: Kerizpe, Alperrak, e.a.). Lehenengo San Andresetan egiten zen, baina eguraldi txarra zela eta San Juanetara aldatu zuten ohitura hau. Lehenengoa 1929an egin zen, Batzokiak antolatuta. "Urrezko tanborra" saria.

339. Eibarko Klub Deportiboaren historia; egoitzak (AB-050/012)

Lehenengo egoitza, "Tupi"an egon zen. Lokala nola erosi zuten azaltzen du; egindako ahaleginak. Esteban Orbea zen orduan Eibarko alkatea eta harek esan omen zien: "Zuek dakazue baloria!; 2.800 pezeta kajan eta 350.000-ko lokala erosi!".

340. Uztapideren bertsoak (AB-051/015)

Uztapidek Eibarren abestutako bertso bat gogoratzen dio Enrikek "Zozuari". Pedrok Uztapideren beste bertso bat gogora ekartzen du.

341. Baserriak jabe handien esku (AB-067/001)

Garai batean lur-sail asko elizaren esku zeuden; konbentuak, e.a. Karlistada ostean, Mendizabal Ministroak, "Ley de amortización" atera zuen eta honen eraginez Elizari lurrak eta propietateak kendu zitzaizkion. Inguruko baserriak, Bilboko industrial, kapitalistek erosi zituzten. Errenteroak baserrietan; lehenago gariarekin pagatzen ziren errentak.

342. Baserri izenak; presak (AB-067/002)

Amaña inguruan zeuden baserri batzuren izenak ematen ditu: "Barrenengua"; "Kantoikua"; "Torrekua"; e.a. Erraztineko indarra; errekan zeuden presak.

343. Kinarraga bailara: baserriak, errota... (AB-067/003)

Amañan inguruko toponimia aztertzen dihardu. Baserri izenak ematen ditu: "Kamioia"; "Otaola baserriak non zeuden azaltzen du (3 ziren guztira). Olarreaga ingurua nolakoa zen; baserria, errota, ortua eta okindegia. Eibar hegoaldeko bailara, beraientzat beti Kirola-arrate, Gorosta, Mandiola bailarak.

344. Kinarraga bailara: baserriak, ermita... (AB-067/004)

Baserri izenak ematen ditu; asko, Ipurua inguruan kokatutakoak: "Txaltxakua", Isasizarra (Santa Ines ermitaren bueltan zegoen). "Berlangua" baserria; "Tutulukuak"; "Kaxkarrein" baserria, Elgetarako bidean zegoen, autopista dagoen tokian. Hura baino gorago, Ipurua baserria.

345. Urki inguruan zeuden baserriak; toponimia (AB-067/005)

herrigunean, Abontza baserria zegoen. Izen bereko bi baserri zeuden, bata ospitale ostean ("Makazkua") eta bestea, Isasi kalean. Urki inguruan zeuden hainbat baserriren izenak ematen ditu: Txaltxa eta Txaltxakoa; "Txatxingua", Banco de Pruebas inguruan; Urkiko ermitaren bueltan 3 baserri zeuden, "Urkikuak". Unbe toponimoa, bertan dauden mendi eta erreka izendatzeko erabiltzen da.

346. Urki inguruan zeuden baserriak; toponimia (AB-067/006)

Altamira baserria eta Altamira-Palazio; bertakoa da Miguel Sagastume soinujole ezaguna. Urki inguruan "Katalangua" eta "Urki Kurutzekua" baserriak ere bazeuden; beste guztiak beraiendako "Urkixak" ziren.

347. Txonta inguruan zeuden baserriak (AB-067/007)

Unzeta baserria, kale-baserria zen; gertu, "Korriua"neko zentral elektrikoa zegoen. Unzeta baserri aurrean bolatokia zegoen; erreka garbia pasatzen zen bertatik eta arrantzan egiten zuten.

348. Txonta inguruan zeuden baserriak (AB-067/008)

Errekaren goiko aldean zegoen etxeari, "Txarridunanekua" esaten zitzaion. Bertan kainoiak egiteko tailarra zuten eta Txontako erreka indarra erabiltzen zuten lan horretarako. Gisastu baserria.

349. Kinarraga bailara: baserri izenak; kokapena (AB-067/009)

Txonta inguruko baserrien izenak ematen ditu: Iparragirre baserria, kale-baserria zen; autopista egin zenean galdu zen. Iparragirre eta Txopenguako baserrietan idiak egoten ziren; baserriarrek gurdizain lanak egiten zituzten. "Sautxixak" esaten zitzaion beste baserri multzo bati.

350. Kinarraga bailara: baserri izenak; kokapena (AB-067/010)

Iragorri, baserri garrantzitsua zen. Azitain aldera, Iparragirre baserria baino beherago, "Aixa" baserria zegoen. Txontan, kale aldera jarraitu ezker, Bustinzuri baserria. Baserri honen jabea López zen eta kaletar askorentzat "Lopezenekua" bilakatu zen. "Teillerixa", etxebizitza bikoia; gorago, "Teillerixa zaharra".

351. Txonta inguruan zeuden baserriak (AB-067/011)

Txonta kalean sartuta ezkerreko aldera, Zubiaurre baserria; Errastitarrena zen. Bustinzuri baserriaren lursailak non zeuden.

352. Urkizu inguruan zeuden baserriak (AB-067/012)

Karmeliten elizatik gertu, Etxebarri baserria; Orbeatarrena zen. Lantegia eta baserria elkarren ondoan zeuden. Barrena baserria, goitik behera goazela erreka ezkerreko aldean zegoen.

353. Azitain inguruan zeuden baserriak (AB-067/013)

Aldaketa handiak egon dira Eibarko kaleetan. Urkizu-Azitain inguruan zeuden hainbat baserriren izenak ematen ditu: "Barrenazarra"; presa bat zegoen bertan eta oso erreka aberatsa zen. Barrenaberri etxea. Azitainen zeuden baserriak, kale-baserriak ziren: Azitain; "Txopengua"; Arrazola baserriak. Ibarzabal baserria; Apalategi errota.

354. Azitain inguruan zeuden baserriak (AB-067/014)

Lazareto etxea, beraientzat "Nafarretxia". Gatzizenaren jatorria, nafarria gaixotasunetik dator; horren inguruko azalpenak. San Martin baserria, ermitaren aldamenean; Eltzartzaga.

355. Unzeta Jauregia (AB-067/015)

"Kapitantxuaneko etxia", Unzeta jauregikoak egin zuen.

356. Azitain inguruan zeuden baserriak (AB-067/016)

Txarakoa; Txara-gainekoa. Ondamendi etxea eta taberna.

357. Matsaria ingurua; bolatokiak Eibarren (AB-067/017)

Asua; Urkuzei. Matsaria baserria; erreka. Bolatokiak Eibarren.

358. Ibaregain, idi-probetan ezaguna (AB-067/018)

Ibaregain baserria; idietara dedikatzen zen batez ere.

359. Pagei izeneko baserriak (AB-067/019)

Pagei baserria, Muzategi buruan. Beste pare bat etxe zeuden Pagei izenarekin. "Pageixak": Matsarigain inguruan (transformadore aurrean); Isuan ere, Pagei-korta; Ibaregainen lur-sailetan ere Pagei izeneko etxe bat zegoen.

360. Baserri izenak; errotak (AB-067/020)

Pitxargain baserria; Aldatzeko jauregia; Mirafloresak. Urkizun, Etxebarri baserria. Ezagutzen ez dituen baserri izenak; errota.

361. Eibarren aurki zitezkeen presak (AB-067/021)

Olarreagan, Asaldeginoko okindegia eta errota. Eibarko presa batzuk: Torrekoa; Kakalardokoa; Cachonekoa. Arikixaneko zubia baino gorago, arotzeria. Urkizuko presa; okindegia eta errota ere bertan zeuden. Barrena; Azitain; Apalategi.

362. Baserrien bilakaera XX. mendean zehar (AB-067/022)

Aldaketa handiak gertatu dira XIX. mendetik aurrera. Gerra aurreko urteetan baserri asko kale-baserri bilakatu ziren eta gerraostean desagertu egin ziren.

363. Errebal kalean zeuden etxe garrantzitsuak: Ibarbe; "Kontadorekua"... (AB-067/023)

Ibarbe etxea; Angela kalean zegoen: etxe handia, dotorea zen. G&me;mez okulista, parrokoa... bertan bizi ziren; gerraostean desagertu zen. "Kontadorekua" etxearen armarrria.

364. Isasi inguruko toponimia (AB-067/024)

Makalarrokoa, Isasin zegoen baserria. Beraiek "Kakalardonekua" esaten zioten inguruari. "Marruko" gaitzizena zuen gizonaren inguruko pasartea. Loidi errota; Olabe-Soro...ez ditu gogoratzen.

365. Aldaketa handiak toponimia mailan azkenengo urteetan (AB-067/025)

Aldaketa handiak egon dira azkenengo mendean. 1885eko planotik 1912kora aldaketa asko egon dira.

366. Eibarko azpiegiturak: zubiak, latsarriak, e.a. (AB-068/003)

Errekaren ibilbidean zehar, latsarriak zeuden hainbat tokitan. Arikitzaneko zubia; Bidebarrieta kalean zehar zeuden zubiak.

367. Garai batean Eibarren egon ziren harrobiak (AB-068/006)

Harrobiak Eibarren: Amañan; Txontan; Elgetako bidean beste txiki bat; Asua errekan; Maltzagan.

368. Eibarko ermitak; Arrateko pausoak (AB-068/007)

Garai batean Eibarren ezagutu zituen ermitak: Untzagan; "Ferrol"-en (parrokia inguruan); Santa Ines; Urki; Azitain. Arrate bailaran: San Martin. Arrateko pausoak nondik-nora doazen. Ama Birjinaren inguruko istorioak; ermitaren kokapena...

369. Auzoetako ermitak; ohitura zaharrak (letaniak, pausoak, e.a.) (AB-068/008)

Beste ermita batzuk: Santa Kurutzeko ermita; Akondia baserriaren aldamenean San Adri´n; Salbador; San Roman. Mendingian dauden ermiten jabetza. Ohiturak galtzen doaz: letaniak; pausoak; e.a.

370. Arratera igotzeko bide zaharrak (AB-068/009)

Arratera igotzeko bideak nondik nora doazen: Orbekoa eta Arratekoa.

371. Bidebarrieta kalean zeuden zubiak (AB-068/011)

Trokaolaneko zubia; Trokaolaneko etxea, Iraolagoitianeko inprenta parean. Trokaolaneko zubia baino beherago, Otsoaneko zubia. Otsoanekoa tailarra, orain Txomoko etxeak dauden tokian. Mª Angelan, "Trinketia" izena zuen kafea. Merkatu plazaren eta Arikitzaneko zubiaren artean 3 zubi zeuden.

372. Urkizu inguruan zeuden zubiak (AB-068/012)

Orain Urkizuko parkea dagoen lekuan, Bartolomeko zubia. Zubiak: Bartolomekoa, Urkizukoa eta Barrenengoa. Urkizuko iturria, Erraztineko sutegiaren azpian zegoen (Iparragirrerako bidea dagoen tokian); gero urkizuko parkera aldatu zuten.

373. Gerra aurreko hiri-antolaketa: zubiak (AB-068/013)

Ardantzako zubia. Paseo San Andres aldera pasatzeko, udaletxe ingurutik beste zubi bat. Kakalardokoan beste zubi txiki bat eta Torrekoan, arkudun zubia.

374. Isasi inguruko toponimia; Isasi-Barrenengoa baserria (AB-069/001)

Lucio Gisasola Zubiaga, Isasi-Barrenengoa baserrian jaiotakoa. Isasi-Barrenengoa non zegoen, zelakoa zen. Toponimia; lur-sailen izenak. "Arteitxako sakona".

375. Isasi inguruko toponimia (AB-069/002)

Toponimia; baserriko lur-sailen izenak.

376. Toponimia: baso, zelai, lur-sailak (AB-069/003)

Toponimia. Baso, zelai eta lur-sailen izenak. Desagertutako baserrien izenak.

377. Isasi inguruan zeuden baserriak, ermita (AB-069/005)

Santa Iñes ermita eta baserria. Arrateko elizpea egin zeneko kontuak. Isasi inguruan desagertutako baserrien aipamenak: "Kantoikua"; "Kamiñokua"; "Torrekua".

378. Amaña, Isasi inguruko toponimia (AB-069/006)

Amañako zubia. Inguru hartan zeuden beste zubi batzuk. Makalarro, Isasin zegoen etxe zahar baten izena. Bertan errota bat egon zen, Arkaizpe.

379. Errekatxoak, iturriak Amaña inguruan (AB-069/007)

Amañatik behera datozen errekatxoen izenak. Iturriak.

380. Otaola-Kiñarra bailara; toponimia (AB-070/001)

Eibarren jaiotakoa, 1920an. 10 urterarte Arraguetan bizi izan zen, baina amandrea hil eta harrezkero Otaolara joan zen bizi izatera. Otaolabazterra baserrian bizi izan zen Unibertsitatea egin zen arte. Inguruan zeuden errota eta baserriak. Otaola bailara.

381. Amaña, Isasi inguruan zeuden baserriak; toponimia (AB-070/002)

Amaña inguruan garai batean egon ziren baserrien izenak. Markeskoa jauregiaren ondoan, bertako jardineraren etxea zegoen, Santa Ines baserria; aldamenean Santa Ines ermita. Inguruko baserrien izenak: "Kantoikua"; "Barrenengua". Amañako iturria, zubia. Otaola baserriaren parean; Mikeleteen etxeak.

382. Olarreaga, Amaña ingurua; toponimia (AB-070/003)

Katilluneko etxea. Errastineko harrobia zegoen bertan. Zubi eder bat zegoen. Harrobi gehiago: Otaolakoa; "Txaltxa-kanteria" (Otaola erdiko baserrikoak ziren jabeak); Amañakoa.

383. Isasi inguruan egondako baserriak (AB-070/004)

Isasi inguruan zeuden baserriak: Makazkoa; Ipurua; "Tutulukua", e.a.

384. Otaolabazterra baserria; inguruko toponimia (AB-070/005)

Otaolabazterra baserriaren lur-sailen izenak: zelaiak, soroak, ortuak, basoak, errekek, erroak.

385. Otaola ingurua: toponimia; baserri izenak, e.a (AB-070/006)

Otaola-torre baserriaren historia kontatzen du: lehenengo jabeak zeintzuk izan ziren (Marqueses de Usategi y Vizcondes de la Robla); eraikuntza zelakoa zen. Otaola-berri edo Otaolaetxebarri, beraien lur-sailetan egindako baserria. Otaolabarrena. Otaola bailara. Otaolako kantera-aldea.

386. Ipurua, Isasi inguruan zeuden baserriak; ermita. Toponimia (AB-070/007)

Txaltxakoa baserria. Autopista egin ahal izateko, "Kaxkarren" eta Otaolabazterra baserriak (besteak beste) bota zituzten. Markeskoa jauregiaren inguruan, Santa Ines ermita. Hasiera batean San Blas opilak bertan bedeinkatzen ziren. Burdinkurutz izeneko basoa. "Kiputzanekua".

387. Ibur, Olarreaga ingurua. Karlistada garaiko aztarnak (AB-070/008)

Barrenazarra, Iburren zegoen. Umetan bertan jolasten zuten. Gorago txabola bat zegoen eta Karlistada garaian egindako polborina zela esaten zen. Olarreagatik Bizkai aldera, Karlistadako trintxerak ere ezagutu ditu. Mikeleteak (Eibar aldean) eta "kateneruak" (Bizkai aldean). Mikeleteak oso dotoreak, fraka urdinak eta jaka gorriarekin.

388. Ipurua, Otaola inguruko toponimia (AB-070/009)

Erreten bat zegoen Otaolaerdikoa baserriaren ondoan. "Kataminga" erreka, Elgetako bidearen inguruan. Errekatxoa, sakona eta iturria.

389. Ibur; Otaolabazterra baserria eta inguruko toponimia (AB-070/010)

Iburren karobi ikusgarria, handia. Otaolabazterra baserriaren ingurua nolakoa zen; toponimia.

390. Ibur ingurua: harrobia; errota (AB-070/011)

Iburren zegoen harrobia. Azalpenak ematen ditu. Barrenatxikia errota.

391. Otaola ingurua: baserriak, toponimia (AB-070/012)

Familiaren inguruko azalpenak. Beraien baserriaren gaitzizena. Inguruko toponimia. Barrenatxikia errota.

392. Markeskoa jauregia; komentua. (AB-070/013)

Isasitorre, Markeskoa jauregiari esaten zitzaion. Komentua ere zegoen bertan. Kongragazioaren historia. Ingurua nolakoa zen. Santa Ines ermita.

393. Sendabelar desberdinak: bakoitzaren ezaugarriak. Diferentes plantas medicinales: las características de cada una (AB-121/001)

Sendabelarrak. "Bizixo-bedarra"; Manzanilla klase desberdinak. "Iodo-bedarra", ebagiak sendatzeko oso ona. M^a Asun nos habla de diferentes plantas medicinales y de sus características: la planta para las lombrices, los diferentes tipos de manzanilla y también de algunas plantas medicinales muy beneficiosas para curar los cortes.

394. Sendabelarren inguruko azalpenak. Anotaciones acerca de las plantas medicinales (AB-121/002)

Sendabelarren inguruko zaletasuna betidanik izan du. Norekin ikasi zuen. Limoiaren onurak. Menta; batana. Azken hau basoan egiten da. Melisa era antzerakoa da; lasaigarria. M^a Asun siempre ha tenido una gran afición por las plantas medicinales. Nos cuenta con quién aprendió las propiedades curativas de cada una. También habla de lo beneficioso que es el limón y de los efectos relajantes de la menta y la melisa.

395. Sendabelar desberdinak. Diferentes plantas medicinales (AB-121/003)

Lagun batek ere sendabelarren inguruko kontuatarako zaletasuna. "Mierua", Arrate bailaran ugaria. Artobizarrak; azeribuztana. M^aAsun Azpiri habla de una amiga suya que también es aficionada a las plantas medicinales. Habla de las siguientes plantas medicinales: el muérdago, que es abundante en el valle de Arrate; y también sobre la cola de caballo y las barbas del maíz.

396. Sendabelarrak; produktu ekologikoak nekazaritzan. Las plantas medicinales. Los productos ecológicos en la agricultura (AB-121/004)

Azeribuztana, ortuan erabiltzen da. Soroan eta ortuan produktu ekologikoak erabiltzen ditu, belarrekin egindakoak. Gariari harri-berdea (kobre) botatzen zitzaion kokorik ez izateko. M^aAsun Azpiri habla del uso de la cola de caballo en la huerta. En el campo y la huerta también se utilizan productos ecológicos hechos con hierbas. Nos cuenta por ejemplo, que al trigo se le echaba cobre para que no tuviera coco.

397. Produktu biologikoak nekazaritzan. Los productos biológicos en la agricultura (AB-121/005)

Garia erein aurretik, harri-berdea botatzen zitzaion gari-aleari. Produktu biologikoak. Antes de cultivar el trigo, al grano se le echaba cobre. M^aAsun hace referencia a los productos biológicos.

398. Medikuen bisitak baserrietara. Las visitas de los médicos a los caseríos (AB-121/006)

Familian sendabelarrak ezagutzen zuena, amandrea. Antzina baserrietara gutxitan joaten ziren medikuak. Tila; eukalipto. La madrina era la que mejor conocía las plantas medicinales en la familia. Debido a que se conocían los beneficios de las plantas medicinales, antiguamente los médicos hacían pocas visitas a los caseríos. M^a Asun hace referencia a la tila y el eucalipto.

399. Labeko sua eta intxusa bedarra. El horno y el saúco (AB-121/007)

Intxusa. Labea intxusarekin garbitzen zen. M^aAsun Azpiri habla de la utilidad del saúco. El horno se limpiaba con saúco.

400. Sendabelarrekin egindako pomada. La pomada echa con plantas medicinales (AB-121/008)

Ezagun batek egindako pomada. M^a Asunek egiten duen pomada. Zertarako diren egokiak. "Pasma-bedarra". M^aAsun Azpiri cuenta las pomadas que hacen una conocida suya y ella. También habla sobre para qué son beneficiosas las plantas medicinales. Murajes.

401. Sendabelarrak; zaletasuna. Las plantas medicinales, una afición (AB-121/010)

Sendabelarretarako zaletasuna. Karearen garrantzia. M^aAsun AZpiri habla de su afición a las plantas medicinales y de la importancia de la cal.

402. Karobiak; txondorrek. Caleras, carboneras (AB-121/011)

Kareraren garrantzia soroan, ortuan, e.a. Karobiak; txondorrek. Kalamuan ikazkina. Hace referencia a la importancia de la cal en los campos de cultivo, huertas, etc. Y también habla de las caleras, las carboneras y del carbonero de Kalamua.

403. Jatekoa baserrian. La comida en el caserío (AB-121/012)

Jatekoa baserrian: babak egunero; porru patatak; sasoian sasoiko frutak. El tipo de comidas de los caseríos. Comían alubias, puerros con patatas, frutas del tiempo todos los días.

404. Karearen erabilpena baratzean. La utilidad de la cal en la huerta (AB-121/015)

Karobia baserri inguruan. Karea saldu ere egiten zen. M^a Asunek karea erabiltzen hasi zenetik, ortuko produktuak hobetoagoak. Neke ugari barazki batzuk hartzeko. Las caleras solían estar alrededor de los caseríos. También cuenta que se vendía cal. M^aAsun, desde que empezó a utilizar cal, notó mejoría en los productos. Nos cuenta las dificultades que solían tener para recoger ciertas verduras.

405. Sendabelarrak; sasimedikoak. Plantas medicinales; los matasanos (AB-121/016)

Sendabelarren inguruko zaletasuna; nori ikasitakoa. Sasimedikoak. Gauzak ikasteko ardura noiz etorri zitzaion. M^aAsun Azpiri habla de cuándo y con quién empezó su afición por las plantas medicinales. También habla de los matasanos.

406. Sendabelarrak. Plantas medicinales (AB-121/018)

Bedarrekin konstantzia beharrezkoa da. M^a Asunek hartzen dituen sendabelarrak. Cuenta M^aAsun Azpiri que con las plantas medicinales es imprescindible la constancia y cuáles son las plantas medicinales que toma ella.

407. Sendabelarren ezaugarriak. Las características de las plantas medicinales (AB-121/020)

Sendabelar desberdinak; bakoitzaren onurak. Porrusalda; lekak; borraja. M^aAsun Azpiri habla de diferentes plantas medicinales y de sus características. También hace referencia a diferentes alimentos como la porrusalda, las vainas y las borrajas.

408. Sendabelarrak batzeko garai egokia. La época apropiada para recoger las plantas medicinales (AB-121/021)

Sendabelarrak hartzeko sasoia. Bedarrondoa. Sendabelarrak nola hartzen dira. M^aAsun Azpiri habla de cuál es la época más apropiada para recoger las plantas medicinales. También habla del heno y de cómo se toman las plantas medicinales.

409. Txerri-koipea. Manteca de cerdo (AB-121/022)

Txerri-koipea oso ona dela eta horren inguruko aipamenak. M^a Asun Azpiri habla de lo buena que es la manteca de cerdo y hace algunas aclaraciones respecto a eso.

410. "Tokian" jolasean (AB-124/003)

Umetan txanponekin "tokian" jolasean nola aritzen ziren kontatzen du. Udaletxeko paretetan markak omen daude gaur egun oraindik. Aguazila atzetik ibiltzen zitzaien.

411. 11 urterekin "rekadista" moduan hasi zen (AB-124/004)

11 urterekin etorri zen Eibarrera. Segituan hasi zen "rekadista" moduan lanean. Hala ere, adinagatik ezin zuenez legez lanean jardun, ikuskatzailearengandik ihesi ibiltzen zela kontatzen du. Lanerako baldintza eta soldatari buruzko kontuak.

412. Bolborarekin jolasten zuten umetan (AB-124/008)

Gallartan, leherkarien hondakinekin jolasten zuten umetan. Bolbora hondarrak bildu, metxa jarri eta eskuzko bonbak sortzen zituzten jolasteko. Eibarren ere, piper-potoekin "mortero" leherkariak egiten zituzten umeek jolaserako .

413. Arragueta kaleko "kunbua" (AB-124/009)

Arraguetan (Barakaldo kalea) bizi izan zen. Nolakoa zen deskribatzen du. Erreka eta "Kunbua" (presa) zeuden bertan.

414. Lau sagardotegi egon ziren Eibarren (AB-124/010)

Lau sagardotegi egon ziren Eibarren: "Buru" sagardotegia, Aranarena; Txontan; Barakaldon eta Maltzagan. Fundizioa ere bertan zegoen.

415. Gallartako meategiari buruzko azalpenak (AB-124/014)

Gallartako meategiaren funtzionamenduari buruzko azalpenak. 30eko hamarkadan ingelesek prozesua automatizatu zutela kontatzen du. Euria egiten zuen egunetan ez zen lanik egiten, ondorioz ez zen kobratzen.

416. "Furia roja" futbol txapelketetan epaile lanetan (AB-124/020)

Jolasean zein "rekadista" lanetan, kalean pasatzen zuen egun osoa umetan. Club Deportivok "Furia Roja" futbol txapelketak antolatzen zituen Txantxa-Zelain. Sporting, Eibarres, Aurrera, Hamaikagazte... (6 ekipo). Arbitro lanetan aritzen zen Gaspar futbol-arautegia eskuan zuela. Gerora udaletxeak antolatuko zituen kirol ekintzak.

417. 14 urte zituenetik politikan buru-belarri (AB-124/023)

Egunkariak eta propaganda banatzen ibiltzen ziren gaztetan. Garaiko hainbat egunkari/aldizkari aipatzen ditu: "La voz del trabajo", (UGT eta sozialistena); "Euskadi Roja" (komunistena); "FE" (Falange Española); "El Debate", (Gil Robles-ena). 14 urte zituenerako buru-belarri zebilen politikan anaiak eraginda ziurrenik.

418. Lan-baldintzak Errepublika garaian (AB-124/025)

16 urterekin UGT sindikatuko kide zen. Lan-baldintzak asko hobetu ziren Errepublika garaian: 7 opor egun, asteko 44 lanordu, etab. Andrazkoen botoa emateko eskubidea ere Errepublika garaian lortu zen.

419. Eskopetagintza; lanbidea ikasten (AB-124/026)

Prozesuari buruzko azalpen eta bitxikeriak. Zenbat irabazten zuen. Eskopetagileek egiten zuten lehenengo eskopeta, norberarentzat izaten zela kontatzen du.

420. Langileen baldintzak hobetzen (AB-125/001)

Gasparrek lan egiten zuen enpresan izandako lan-baldintza berriak eta hobekuntzei buruz hitz egiten du. Hala ere, oraindik zer hobetu asko zegoela dio. Eibarren, beste herri askotan ez bezala, "Socorros Mutuos de artesanos" elkarte zegoen, besteak beste, langileei osasun-zerbitzuak eskaintzeko .

421. Sindikatuak indarrean (AB-125/004)

UGT sindikatuko kideak ziren Gasparren lankide gehienak. Bestelako sindikatuak ere bazeuden Eibarren.

422. Sindikatuan gaztetatik (AB-125/006)

Hamabost urterekin apuntatu zen Gaspar UGT sindikatuan. Derrigorrezkoa zen sindikatuan apuntatuta egotea. Gipuzkoako sindikatu indartsuenetakoa omen zen hura. Alfako lantegian izandako esku-hartzea kontatzen du.

423. Gauz ikasten (AB-125/007)

Gau-eskolan hartu zituen eskolak, baina alde batera utzi zuen politikan sartu zenean. Armeria eskolara joaten zen eta marrazketa, matematika eta bestelakoak ikasten zituzten. Irakasle eta ikasgaiez hitz egiten du. Mutilak bakarrik ibiltzen ziren gau-eskolan eta gazteez gain ikasle zaharragoak ere egoten ziren.

424. Kalean denbora librean (AB-125/009)

Denbora librean politikan aritzen zen Gaspar. Bere alderdiko egunkariak saltzen ere denbora asko pasatzen zuen. Untzagan soka saltoan eta kioskoan erromerian ibiltzen ziren.

425. Kirol desberdinen jarraitzaile (AB-125/010)

Futboleko ibiltzen ziren koadrilan eta jaietan mendira joateko ohitura izaten zuten. Boxeorako afizio handia ere bazegoen Eibarren.

426. Gazteak futbol txapelketetan (AB-125/011)

Futbol txapelketak antolatzen ziren Txantxa Zelain eta Gaspar arbitro lanetan egoten zen. Talde desberdin asko zeuden Eibarren eta herritik kanpo ere jolasten zuten. "Furia Roja" taldea sozialista eta komunista gazteek osatutako taldea zen.

427. Gaztetatik politikan (AB-125/012)

Politikan familia guztia ibili izan zen eta anaia eta bera aitak sartu zituen. "Pioneros Rojos" taldeko sekretario lanetan hasi zen hamalau urterekin, nola hautatu zuten eta zertan aritzen ziren kontatzen du Gasparrek. Talde mistoak ziren, neskak ere baziren "Grupo infantil socialista" taldean.

428. Aholkulari lanetan gerra aurrean (AB-125/013)

Gazte sozialisten taldeen bateratzea izan zenean kargu berria hartu zuen alderdian Gasparrek. Aholkulari lanetan zituen egin beharrez ari da.

429. Nazionalistekin borrokan (AB-125/014)

Alderdi politiko desberdinetako gazteak beraien artean borrokan ibiltzen ziren Eibarren. Beste alderdietako egunkariak erretzen zituzten, adibidez; gehienetan, liskarrak sozialista eta nazionalisten artean izaten ziren.

430. Errepublika garaia (AB-125/015)

1931ko Errepublikan Gaspar gaztea zen eta ez zuen desberdintasun handirik sumatu hasieran. Aurrerago lege berri eta aldaketa gehiago ikusi ziren. 1934ko Errepublikan kartzelan egon zen; kartzelatzearen zergatiak eta bizi izandakoa kontatzen ditu.

431. Kartzelan konforme (AB-125/017)

Kartzelan egon zenean gipuzkoarrekin egon zen. Eibartar asko zeuden beraiekin. Kartzelan ongi jaten zuela eta gustura egoten zela kontatzen du Gasparrek.

432. Gerra hasieran arma bila (AB-125/019)

1936ko altxamendua bizi izan zuen Gasparrek. Gerra hasierako egoeraren inguruan hitz egiten du. Gerra hasi zenean Eibarren zegoen eta kalean zegoela Guardia Zibilekin izandako anekdota bat kontatzen du. Kuartelean egoten ziren armak; gerra hasi zenean jendea bertara joan zen arma bila eta Guardia Zibilekin izandako eztabaida azaltzen du.

433. Donostiako konkista (AB-125/020)

Gerra garaian Donostiatik atzera-egite agindua etorri zenean pistolak Eibarko udaletxean utzi eta desarma egin zela kontatzen du. Ondoren, armak Donostiara eraman zituzten berriro konkistatzeko. Donostian ikusi eta bizi izandakoez hitz egiten du Gasparrek. Komandante bat atxilotu eta gero errekan hilda agertu zela gogoratzen du, haren istorioa kontatzen du.

434. Larrañaga batailoia (AB-125/021)

Gerra hasieran Jesus Larrañaga Txurrukak antolatu zuen erresistentzia Eibarren. Batailoia bere izena jarri zitzaioela kontatzen du Gasparrek.

435. Gerra hasierako borrokak (AB-126/002)

Nahiz eta, Eibarren bazeuden milizia batzuk, Donostian antolatutako miliziak onenak zirela uste zuen Gasparrek. Erasoerako milizien berri Donostiako kartzelan zegoela izan zuen eta bertan ikusitakoaren inguruko istorioak kontatzen ditu.

436. Estraperlo hitzaren jatorria (AB-126/003)

Gaur egun Donostiako udaletxea bezala ezagutzen dugun eraikina "Gran Casino" zen gerra garaian. "Estraperlo" hitzaren jatorria bertan kokatzen du eta hari buruzko azalpenak ematen ditu Gasparrek.

437. Bonbardaketa Eibarren (AB-126/005)

Eibarko lehenengo bonbardaketa oso ondo gogoratzen du Gasparrek. Hamasei urte zituen orduan eta beldurrak eraginda, jateko gogoia ere galtzen zuela kontatzen du. Bonbardaketetako zaurituak ateratzeko laster antolatu zirela dio Gasparrek.

438. Babeslekuak Eibarren (AB-126/006)

Eibarren hainbat babesleku egin zituzten gerra hasi zenean. Gogoan dauka Gasparrek Debara joan era zakuak arearekin beteta ekartzen zituztela. Udaletxe azpian ezkutatzen ziren gehienak eta abisatzeko kanpaiez gain kotxe bat sirenarekin ere ibiltzen zen. Eibarren izandako kainoi bat nolakoa zen eta non zegoen azaltzen du.

439. Fusilak egiten (AB-126/007)

Eibarren kartutxo eta munizioak gerra hasi ondoren hasi ziren ekoizten. Eibartik Bilbora eraman zituzten fusilak egiteko makinak.

440. Fronterako instrukzioak (AB-126/008)

"Amategi batailoia" Eibarren sortu zen, sozialista eta komunistek sortutakoa izan zen eta Eibarko mendi desberdinetan egon ziren frontean. Soldadutzan ibilitako militarrek ematen zizkieten instrukzioak Astelehena frontoian.

441. Otxandioko frontera (AB-126/010)

Eibartik "Azaña" batailoira joan zen Otxandiora beldurrez eta Legutioko fronteko istorioa kontatzen du Gasparrek.

442. Eibarko Udala Bilbon (AB-126/011)

Frontea hurbildu zenean Eibarren jende gutxi geratu zen, baserrietan zegoen jende gehien eta Bilbora ere jende asko joan zen Gaspar bezala. Bilbon ezarri zuten Eibarko Udala, dokumentazioa lortzeko bertara joan behar izaten zen.

443. Emakume gutxi frontean (AB-126/012)

Frontean emakumerik egoten ez zela dio Gasparrek. Eibarren senarrarekin emakume bat egon izan zen eta Bilbon ere milizianoz jantzita ikusi zuen emakume bat, baina ez zen ohikoa emakumeak frontean ikustea. Erizain edo mediku lanetan ere ez ziren egoten.

444. Alderdi guztietako batailoiak (AB-126/013)

Alderdi politiko guztiak batera ibiltzen ziren frontean, baina batailoi desberdinak sortzen zituzten. Batailoi desberdinen izenak gogoratzen ditu Gasparrek. Hainbat politiko aipatzen ditu, frankistek hil zituztenak.

445. Hegazkinen bonbardaketekin beldurtuta (AB-126/014)

Bilboko bonbardaketaren ondoren, nahiz eta, irabazteko motibazioa izan kontrakoek armagintzan zuten nagusitasunak eta, batez ere, hegazkinekin asko beldurtu zuten Gaspar. Alemanen bonbardaketa eta hegazkinetako tiroketak oroitzen du. Bilboko kartzelan sartu eta bertan zeuden frankistak hil zituztela kontatzen du Gasparrek.

446. "Arana Goiri" batailoian azken egunak (AB-126/015)

Frontera joan zen Bilboko bonbardaketaren ondoren. Lanean hasi zen Deustun, hala ere, hegazkinak pasatzen ziren bakoitzean babeslekuan ezkutatu behar izaten zen Gaspar. "Arana Goiri" batailoira gehitu ziren azkenean. Frontean egindako azken egunak azaltzen ditu.

447. Eibartar armaginak (AB-126/016)

Armamentu ona izan arren, frankistak hegazkin Alemanekin gailendu egiten zitzaizkien. Ofizial eta armagin tekniko esperimantuei deitu eta ordaindu egiten zitzaie la kontatzen du Gasparrek. Eibartar asko joan ziren lanera.

448. Kartzelan gerraostean (AB-126/017)

Gerra bukatu eta kartzelan sartu zuten Gasparren batailoia. Komandantea hil zuten, baina beste guztiak bizirik irten ziren. Kargu altuko gizon asko kartzelatu zituzten.

449. Gerraosteko Eibar (AB-126/018)

Gerra bukatzean Eibarrera itzuli zen Gaspar. Karlisten boluntarioak zeuden herrian zehar eta konfiantza gutxi zuen haiekin, jende asko fusilatzen baitzuten. Eibarko Guardia Zibilekin bizi izandako anekdota bat kontatzen du. Sinatzera joan behar izaten zen eta hasieran kartzelara joatetik libratu zela kontatzen du.

450. Gerraostean kartzela zigorra (AB-126/019)

Gasparri hogei urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta azkenean bederatzi urte pasa zituen kartzelan. Emaztea gerraostean ezagutu eta ezkondu egin ziren Santanderren. Emaztearen bi anai gerran hil eta bat Frantzian erbestean egon zen.

451. Eibarrera atzerritarak lanera (AB-126/020)

Gerraostean lan handia zegoen Eibarren. Kanpoko jende asko etorri zen garai hartan penintsulatik eta udan autobusak beteta joaten omen ziren oporretan etxera.

452. Barakaldo kaleko bizimodua (AB-127/005)

Barakaldo kalean hazi zen eta gaztetako lagunak oraindik bizi dira. Barakaldo kalean sagardotegia zegoela gogoratzen du. Gazteek sagarra zapaltzen zuten. Barakaldo kalean asko aldatu ez zela azaltzen du Victorrek. Pelotara jolasten ziten Aginazpi tabernaren atzealdean.

453. Gaztetako ibilkerak (AB-127/006)

Gaztetan barakaldo kaleko eta errekan beste aldekoen artean borrokan ibiltzen zirela gogoratzen du Victorrek. Eskola desberdinetako ikasleen artean ere borrokan ibiltzen ziren eta gazte batek begi bat galdu zuela oroitzen du.

454. Eskolako ibilbidea (AB-127/008)

Eskolara gutxitan joaten zen eta etxean errieta egin arren eskolan ez zuten jo. Hala ere, gogoan du Victorrek ikaskideak behatz puntetan nola jotzen zituzten. Bidebarrietako Guardia Zibilen kuartelaren azpira joaten zen eta denak mutilak ziren.

455. Lagun erdaldunak (AB-127/009)

Auzora kanpoko familia bat etorri zenean bertako semeekin bizi izandako anekdotak kontatzen ditu Victorrek. Euskaraz bertakoak bezala ikasi zutela gogoratzen du.

456. Gaztetaik lanean (AB-127/011)

Hamahiru urterekin hasi zen lanean armekin. Ojanguren y Vidosa enpresan hasi zen lanean errebolberrekin. Gerrak eztanda egin arte egon zen bertan lanean.

457. Jateko ohiturak (AB-127/012)

Eguneroko jatekoez hitz egiten du Victorrek. Postrea egunero jaten zuela gogoratzen du, gaixo egon zenean hasitako ohitura mantendu izan baitzuten etxean.

458. Boxeoa Eibarren (AB-127/013)

Victor boxeoa ibili zen gaztetan baina gerra hasi zenean utzi egin zuen. Amateurretan ibili zen. Boxeolari famatuen borrokez eta Eibarren bizi izandako anekdotak kontatzen ditu.

459. Eibarren igerian (AB-127/015)

Umetan Barakaldo kalean zegoen kunboan edo Maltzagan egiten zuten igerian. Amarekin txikitatik ibili izan zen uretan igerian ikasten.

460. Eibarko itzulia (AB-127/018)

Eibarko itzulia egiten hasi zen garaian korrikalari handiak etortzen zirela oroitzen du Victorrek. Berak ere parte hartzen zuen eta maila altuan ibiltzen zela dio. Abarketekin ibiltzen zen hasieran baina gero zapatilak erabiltzen hasi zen.

461. Hondartzara oinez (AB-127/019)

Udan Ondarroara joateko ohitura zuten. Oinez joaten ziren Ondarroara eta handik Debara. Udako egun baten txalupa bat hondoratu eta Eibartar asko itota hil zirela oroitzen du.

462. Eibarko baile eta jaiak (AB-127/020)

Mutilak bakarrik ibiltzen ziren eta nesketan auzoko jaietan egiten zuten. Victorrek euskaraz egiten zien beti neskei eta udan ostegun eta igandetako bailera joaten zen. Aratusteetan ere baileak ugari izaten ziren Eibarren. San Juanak, korrida, txirindulariak etab. gogoratzen ditu Victorrek.

463. Eibar eta inguruko jaiak (AB-127/023)

San Andresak herriko jaiak izan arren San Juanak izaten ziren jai handienak. Inguruko herrietako jaietara joateko ohitura ere bazuen. Soraluzeko jaietako ahate harrapatzen ibiltzen zeneko anekdota kontatzen du.

464. Grabadores kalearen izen desberdinak (AB-128/002)

Non jaiotakoa den. Hasieran Grabadores izenarekin ezagutzen zen; gerora "Kale barrixa" izena jarri zitzaion eta azkenik Bittor Sarasketa kalea izatera pasatu zen duela urte asko. Amamak erosi zuen etxe osoa. Garai batean Correos, Estazioaren aurrean egon zen. 1921eko apirilaren 11an jaiotakoa da.

465. Gerra Zibila Eibarren: bonbardaketa; ihesa; eta abar. (AB-128/003)

Gerra Zibila Eibarren. Eibar, abuztuaren 29an bonbardatu zuten; ebakuazioa, irailak 21ean izan zen. Arrate bailarara joan ziren ama-alabak, bertako baserri batera. Irailak 24an, "gorriek" Maltzagako zubia bota zuten. Bera umea zen baina oso ongi gogoratzen ditu kontu horiek. Nazionalak nondik sartu ziren herrira.

466. Bitor Sarasketa kalea; umetako ibilerak (AB-128/010)

Bitor Sarasketa kalea nolakoa zen; "kale barrixa". Ortuak inguruan; umetan bertan jolasten zuten. Bizimodua asko aldatu da. Igandetan Lanbretta ingurura joaten ziren jolastera; txirikilarekin. Otaola-erdikoa baserriaren inguruan, bidean jolasten zuten; ez zegoen arriskurik.

467. Eskola kontuak; Jardinetako eskolak eta Alhondiga (AB-128/011)

Eskolara, Jardinetara joan zen. Ibarkurutzean, Alhondiga zegoen. Gerra garaian Eibar bonbardatu zutenean, jendea bertara joan zen babestera.

Jardinetako eskolako irakasleak: Dña Polonia eta Dña Maria. Ildefonso Irusta, Dña Poloniaren senarra, Musika Bandako zuzendaria zen.

468. Jardinetako eskolak eta irakasleak. (AB-128/013)

Eskola kontuak. 5 urterekin hasi zen; anekdota polita kontaktzen du. Jardinetako eskolak zein urtetan egin zituzten. Irakasleak zeintzuk izan ziren: Pilar Urizarbarrena; Ildefonsa Arrizabalaga; Peñagarikano. Oso ikasle ona zen; kontu asko gogoratzen ditu. Sasoirik onenean, gerra zibila hasi zen.

469. Kontseju zaharrearantz musika ikasketak (AB-128/014)

Piano ikasketak egin zituen. Solfeo non ikasi zuen. Kontseju zaharrearantz musika eskola zegoen. D. Aguztín Zuloagak, Musika Bandako zuzendariak ematen zituen klaseak.

470. Gaztetako ibilerak: Estazio kalea; Matxaria (AB-128/017)

Lehenengo Eibar, herri popularra zen. Estazio kaleko giroa; Kruzetaneko zinea, neskatan-mutiletan. Inguruko herrietara irteera gutxi egiten zituzten; Debara joatea gauza handia zen. Matxarira jolasean egitera; Matxariko iturria; laguntaldea, e.a.

471. Sagardotegia Matxarian (AB-128/018)

Matxarian sagardotegia zegoen; urte osoan egoten zen zabalik.

472. Estazio kalea: Hotelak; zinea; e.a. (AB-128/020)

Estazio kalea nolakoa zen: Hotel Comercio; Fonda "Bueno"; zinea; Albistegiren harategia; e.a. Munikolaneko tailerra. Estazio kalean egon diren aldaketak. Urkizuko iturria; Casino-a; Rialtoa. Ibarbe.

473. Errebal kaleko giroa; neskatan-mutiletan (AB-128/021)

Neskatan-mutiletan. Eibarko mutilak, lan-erropekin irtetzen ziren kalera afaldu aurretik eta denak Errebal kalera joaten ziren. Txikiteoa ez zegoen oraindik hain hedatua. Errebal kaleko ipoinak.

474. Club Deportiboa eta emakumeak (AB-128/023)

Club Deportiboa. Neska asko joaten ziren mendira. 100 mendiak.

475. Emakumea eta kirola gerra aurreko urteetan (AB-128/024)

Noiz eman zuen izena Club Deportiboan. Gerra aurretik mendira joaten ziren neskak gaizki ikusita zeuden. Gerra aurreko emakumeen egoera. Raketistak ere gaizki ikusita zeuden. Txirindularitza Eibarren.

476. Emakumeak eta kirola (AB-128/025)

Club Deportiboa. Gerra ostean hasi zen bera mendira irtetzen. Anaia ere mendizalea. Mendira joateko erabiltzen zuten erropa. Anaiaren inguruko kontuak (instrukzioa; gerra; kartzela; e.a.).

477. Mendi irteerak gaztetan (AB-128/026)

Mendi irteerak nolakoak izaten ziren. Mendi desberdinak.

478. Gaztetako ibilerak mendian (AB-128/027)

Mendi irteerak. Gaztetan, horrelako irteerak aprobetxatzen zituzten erretzeko. Abestiak. Lapurretan ere egiten zuten: gaztainak, sagarrak, e.a.

479. Umetako ibilerak: gurdiak, autoak; e.a. (AB-128/028)

Umetako ibilerak. Baserritarrak gurdiarekin jaisten zirenean, bertara igotzen ahalegintzen ziren. Estazio kalera Madridetik etortzen zen familia baten inguruko kontuak.

480. Lurrunezko trenak; Maltzaga (AB-128/029)

Tren elektrikoa agertu aurretik, lurrunezko trena ezagutu zuen. Estazioa nolakoa zen bera gaztea zenean. Beste garraiorik ez eta trena oso erabilia zen. Elgoibarrera futbola ikustera joateko ere, tren espezialak egoten ziren. Maltzagan tabernatxo bat zegoen; Maltzagaren garrantzia.

481. Pilotari ezagunak Eibarren (AB-128/031)

Pilotari ezagunak Eibarren.

482. Umetako jolasak (AB-128/033)

Emakumeak kartetan jolasean. Umetako jolasak: tortolosak; e.a.

483. Gregorio Santa Kruz maixuaren ikasle (AB-128/035)

Santa Kruz apaizarekin dantzari.

484. Santa Kruz apaiza eta dantza-taldeak (AB-128/037)

Santa Kruz apaizarekin dantzari. Inguruko herrietara joaten ziren dantzan egitera. Amalur. San Andres eta San Juan egunetan dantza egiten zuten. Batzokia, Muñoaneko etxean. D. Gabriel Manterolak eta aitak liburuak trukatzeko zituzten.

485. Abertzaletasuna Eibarren (AB-128/039)

Irakurzaletasuna etxean. Aita, Batzokiko buru. Etxean oso abertzaleak; Eibarko lehenengoetarikoak.

486. Giro politikoa Eibarren (AB-128/041)

Giro politikoa Eibarren. Sozialista eta abertzaleen arteko harra-marrak

487. Abertzale ezagunak Eibarren (AB-128/043)

Abertzale ezagunak Eibarren: Eduardo Iraeta; e.a.

488. Elgoibarko San Pedro bailara (AB-130/001)

San Pedro bailaran jaiotakoa, Irunaga Txiki baserrian, 1919ko otsailaren 9an. Gurasoen jatorria. Baserria Elgoibarko Arrillaga medikuarena zen.

489. Elgoibarko lantegiak; ogibidea ikasten (AB-130/002)

Eskolara Elgoibarrera; fraileetara. Berak kalea eta kaleko lana zituen gustoko. Arreba Alkortanera joan zen josten ikastera eta haren bitartez, Lázaro Kortazarren tailarrera joan zen lanera 3 urterako, inongo kontraturik gabe. Limatzen ikasten hasi zen. Noiz ikusi zuen bere kontura ekin behar ziola. Gerrako kontuak.

490. Elgoibarko Armeria Eskola (AB-130/003)

Armeria Eskolan sartu zen, Elgoibarren zuen egoitzan. Lázaro bera zen matematikako maixua.

491. Elgoibartik Eibarrera lanera (AB-130/005)

Neska-laguna Arrate bailarakoa. Lanez aldatu eta Eibarren ekin zion lanari.

492. Elgoibartik Eibarrera San Juanetan (AB-130/006)

Eibar kanpotarrentzat. San Juan jaietan José sarri etortzen zen arrebaren etxera. Frontoira joan, pilotariak ikusi, e.a.

493. Eibar kanpotarrentzat (AB-130/007)

Eibar kanpotarrentzat. Elgoibar vs. Eibar. Gaztetan Elgoibarren kaleko umeek adarra jotzen zioten (bera baserrikoa zelako). Eibarren ez zen horrelakorik gertatzen.

494. Trokelak egiten oso ona (AB-130/008)

Lizentziatu zenean Gabilondonera joan zen lanera. Iluntzietan bere kontura hasi zen batera eta bestera joaten, trokelak egitera. Askok ordaintzen zioten.

495. AGME lantegiaren lehen urratsak (AB-130/009)

Sozioa, Mendikute, nola ezagutu zuen. Biak zuten beraien kontura lanean jartzeko gogo. AGME ren hasiera, 1948an.

496. AGME lantegiaren bilakera (AB-130/012)

AGME lantegian makina txikiak egiten hasi ziren. José-ren etxe azpian hasi ziren bi lagunak behar. Lan asko egin eta bizkor hasi zen tailarra indartzen.

497. Gerra osteko urteak, oparoak industriarentzat (AB-130/013)

Urte oparoak industriarentzat. Boom industrialak Eibarren. Diru pixkat behar zen, baina laguntasun handia jaso zuten. 1948 inguruan, egiten zen guztia saltzen zen, "epoka zorua zan orduan". Lantegiaren hasierako urteak, e.a.

498. Gerra ostea baserrietan, kalean (AB-130/015)

Gerra ostea baserrietan. Ogi zuria nahikoa izaten zuten, artoa, esnea, e.a. Kalean berriz, ez zegoen ezer. Gose handia. Ogiaren, olioaren prezioa, e.a.

499. Eibarko industria gerra ostean (AB-130/018)

Industria gerra ostean. Tailar askok gerran egin zuten dirua. Gerra ostean denetarik falta zen, ez zegoen ezer. Zerbait egiten zuenak, egin orduko

salduta zuen. Industria Eibarren (GAC, Aurrera, Beistegi, Orbea, Alfa..). Sirenak lantokietatik irtetzeko; denak urdinez jantzita.

500. Umetan erre kara: presak; igerilekua (AB-130/019)

Star, Valenciaga inguruan, igerilekua. Kaminokoa baserrian, tiro al plato eta tiro pitxoia egoten ziren San Juanetan. Presara joaten ziren igeri egitera. Elgoibarren ez zegoen horrelakorik. Elgoibarko San Pedro bailaran, Irunagako erro tan presa handia.

501. San Juanetan Eibarrera etortzeko ohitura (AB-130/021)

San Juanetan senideak etxera gonbidatzeko ohitura. Arrebaren etxera etortzen zen Eibarrera 14-15 urte zituenean. Suak ikusi, frontoira joan, e.a. Elgoibartik Eibarrera etortzeko ohiturarik ez zuten lagunek.

502. Erromeriak; neskatan (AB-130/022)

Erromeriak. Emaztea, Zesterokoa baserrikoa. Nola ezagutu ziren. Kontu politikak esaten ditu. "Noiz bizarra urtengo!!". Dantza-lotua izaten zen gehiena.

503. Eibar kanpotarrentzat (AB-130/023)

Eibar kanpotarrentzat. Herri pekataria. Eibar eta Plazentzia herri "asmatzaileak".

504. Elgoibar vs. Eibar (AB-130/024)

Herrien arteko liskarrak. Elgoibar vs. Eibar. Futbolean, neska kontuetan aurkakoak.

505. Herri-kirolak; erromeriak (AB-130/025)

Kirola: futbola, pilota, herri kirolak, e.a. Herri kirolak gustatzen zitzaizkion: adari-jokoa. Arikitxa; Narru; Agiñaspi; adari-jokoan gogorrak. Oilar-burrukak, gutxi. Idi-probak, entzutetsuak izaten ziren. Usartzan erromeria ederrak.

506. Berrikuntzak: irratia, telebista (AB-131/003)

Berrikuntzak: irratia, telebista. 40 urte inguru zituenean erosi zuten lehenengo telebista.

507. Antzinako bizimodua (AB-131/005)

Antzinako bizimodua. Lehen jendeak lan gehiago egingo zuen, baina lasaiago bizi zen.

508. Arrillaga medikoa (AB-131/007)

Antonio Arrillaga medikua. Eibarkoak, bilobak ziren. Oso mediku onak.

509. Giro politikoa Eibar eta Elgoibarren (AB-131/008)

Giro politikoa. Eibar betidanik herri sozialista eta Elgoibar abertzalea. Jendea Elgoibarren oso elizatarra. Alde handia zegoen orduan herritik-herrira.

510. Lagun-artean euskaraz (AB-131/009)

Eibarko euskara. Elgoibarren joera gehiago erdaraz egiteko, dotoreagoa zelakoan. Lagun artean eta eskolan ere euskaraz egiteko joera gehiago.

Euskara gerra denboran. Gerra osteko egoera. Politika kontuak (EAJ...). Eibarko euskarak Elgoibarren ez zuen fama txarrik.

511. Herrien arteko ribalidatea (AB-131/010)

Herrien arteko ribalidatea. Eibar vs Plazentzia. Txispa handia herri bien artean.

512. Eibar umore giroan (AB-131/011)

Oraingo aldean, umore handia zegoen lehenagoko urteetan; kantatzeko zaletasun handia. Txikiteoa; tabernetan kantuan. Mendizaletasuna eta kantuak.

513. Bertsolaritza Eibarren (AB-131/014)

Bertsolaritza Eibarren. Eibarren bertsolariak, pertsonai ezagunak. Narbaiza, Gregorio Orbe, Arrilagatarrak, Usatorre, e.a. Polito egiten zuten bertsotan. Jaietan beti kanpoko bertsolariak etortzen ziren: Basarri, Uztapide...

514. Raketistak, pilotariak (AB-131/015)

Raketistak Eibarren. Arrateko Partxua baserriko alaba; Kantabria tabernako Jesusa; Pagoaga Abeletzeko alaba; Gorosta baserrikoa, e.a raketista oso onak. Onak zirenak berehala eramaten zituzten Madridera. Eibarren pilotari ezagunak: Gallastegi; Txapasta... Orduko pilotariak nolakoak ziren; aurrelariak behintzat, pilotari jo eta jo.

515. Nazionalistak vs. sozialistak (AB-134/002)

Nazionalista eta sozialisten arteko borrokak egoten omen ziren Eibarren. Hala ere, Bilbon liskar handiagoak egoten ziren, tiroak eta hildakoak ere egon izan ziren. Eibarren ordea, borrokak hauteskunde garaietan edo txikiteoaren ondoren gertaturiko liskarrak besterik ez ziren izaten. Candidok, lagun batzuek izandako borroka kontatzen du.

516. Goitarrak eta behetarrak (AB-134/003)

Goitarrak eta behetarrak desberdintzen ziren Eibarren errepublika aurretik. Desberdintasuna maila sozialarekin eta jarrera politikoekin lotuta zegoen. Behetarrak nazionalak eta erdi mailako familiak ziren eta goitarrak sozialista eta errepublikanoak omen zirela kontatzen du Candidok.

517. Langile eta nagusien arteko harreman handia (AB-134/004)

Candidoren ustez Eibar eta Bilboko liskarretan egondako desberdintasuna langile eta nagusien arteko harremana handia zelako ematen zen. Eibarren ohitura handia zegoelako txikiteo eta jatorduetan denak batera ibiltzeko. Fabriketako jabe asko udaletxean zinegotzi lanetan aritu izana horren adierazle dela dio Candidok.

518. Greba garaian "rantxoa" Eibarren (AB-134/005)

Garai zailenetan, langileen lau hilabeteko greba garaia izan zen eta sindikatu eta ugazaben indarkeria izan zen. Hala ere, ez ziren eskuetara iritsi. Greba garaian gose handia pasa izan zuten langileek. Candidok udalak "rantxoa" jarri zuela gogoratzen du.

519. Ideologia guztietakoak batera (AB-134/006)

Langile eta nagusien seme-alabak denak batera ibiltzen ziren eta ez zuten arazorik izaten. Ideologia desberdina zuten arren ez zuten eztabaidarik izaten. Orfeoian alderdi desberdinetako kideak zeuden eta horren inguruan gertaturiko anekdota bat kontatzen du Candidok.

520. Sozialistak euskaldunak (AB-134/007)

Kanpoko jende asko etorri izan zen Eibarrera, bertan gehiago irabazten baitzen inguruko herrietako fabriketan baino. Hala ere, hasieran ez zen Bilbon bezainbeste jende erdaldun etorri herrira eta horregatik sozialistak euskaldunak izaten zirela azaltzen du Candidok. Bilbon langile euskaldun eta erdaldunak banatuta bizi omen ziren eta horregatik ez ziren euskaldunekin nahastu.

521. Eibarko euskararen aldaketa (AB-134/008)

Eibarren kanpotik etorritako erdaldunak herrian bertakotu eta herrikoekin batera ikasi omen zuten hizkuntza. Hala ere, aurrerago kanpoko jende gehiago etorri eta euskararen aldaketa eman zela uste du Candidok. Euskaren galera hasi zela ikusten du, nahiz eta euskaraz hitz egin pertsona nagusien euskararekin desberdintasuna nabari omen zen.

522. Kongresu hirueleduna (AB-134/009)

Eibarren egindako "Casa del pueblo" inauguratu zenean hitzaldia hirueleduna izan zela kontatzen du Candidok. Hizlari desberdinak egon omen ziren eta gazteleraz, euskaraz eta frantsesez hitz egin zuten.

523. Eibar vs Bilbo (AB-134/010)

Eibar eta Bilboko langileen mugimenduan desberdintasun handia izan zen eta hizkuntza, politika edo langileen mugimenduan ere agerian geratu zela dio Candidok.

524. Eibarren fama txarra (AB-134/011)

Eibarren aurkako Gipuzkoako eliza eta ugazaben arteko konplot bat izan zela azaltzen du Candidok. Eibarri fama txarra eman izan zioten eta bertara lan egitera ez etortzeko izan zen. Bergararrek ere ez zieten sinisten Eibarren ez zutela denbora guztian borrokan eta elizatik kanpo pasatzen esaten zietenean, bertara joan eta herritarrak ezagutu arte.

525. Apaizak politikatik kanpo (AB-134/012)

Eibarko apaizen inguruan hitz egiten du Candidok. Politika gaien inguruan ez zutela hitz egiten dio. Nahiz eta, gehienak langileen aldekoa ez izan ez zieten kontra egiten. Mutrikuko apaiz bat politikan sartu eta kartzelan zegoela hil egin zutela kontatzen du.

526. Eibarko erromeriak (AB-135/002)

Eibarren gazteak erromerian, ehizan, errekan arrantzan eta perretxikotan ibiltzen ziren. Candidok ez zuen ohiturarik mendian ibiltzeko, liburu artu eta pasioan ibiltzen zela kontatzen du. Erromeria garaian Eibarren plazan dantza lotuak egiten ustean zutela azaltzen du. Horregatik, inguruko herrietako mutil asko etortzen ziren. Hala ere, Eibar gaizki ikusia zegoen, horrelako dantzak egitea debekatua egoten baitzen.

527. Gerrak eztanda (AB-135/004)

Gerra hasi zenean, lehenengo egunetan armak banatu ziren udaletxean. Fabriketako material guztia banatu zuten. Guardia Zibilekin gertaturiko anekdota bat kontatzen du Candidok.

528. Kanoi psikologikoa (AB-135/005)

Gerra hasi zenean, Candido lehenengo Eibarren egon zen. Soraluzen egindako kanoi bat kamioian ipinita ibili zen Gipuzkoako herri desberdinetan. Kanoi psikologikoa zela esaten zuten, fusil batek besteko lana egiten zuen soilik. Sekretario lanetan ibili zen Eibarren eta, aurrerago, kanoiarekin frontean egon zen Beasain inguruan.

529. Fronteen galera (AB-135/006)

Donostiatik erretiratu zirenean Eibarrera itzuli zen Candido. Eibarko frontea erori zenean Bilbora joan zen eta bertako komandante bati esker frontean laguntzen ibili zen. Bilbo erori zenean komisario izendatu zuten, miliziako komisarioa Errusiara joan baitzen. Santanderretik Asturiasera joan zen miliziarekin eta bertan gertaturiko anekdotak kontatzen ditu Candidok. Txostenetan Candidok beti egia idazten zuen, berari gezur asko esaten omen zizkioten frontean zen bitartean eta alferrikakoa iruditzen zitzaion.

530. Frontetik kartzelara (AB-135/007)

Santanderreko frontetik oinez itzuli zen eta herri batera jaitsi zirenean atxilotu eta Santanderreko kontzentrazio kartzela baten sartu zituzten. Bertan zegoela jo eta nolako tratua jaso zuen kontatzen du Candidok.

531. Kartzelan fusilatua (AB-135/008)

Kartzela desberdinetan egon izan zen. Candidorekin Santanderreko kartzelako sotoan sartu zituztenetatik denak hil egin zituzten Candido izan ezik. Eibartar asko Martinez Guardia Zibil sarjentuari esker salbatu izan zirela jakin izan zuen aurrerago. 34 hilabete eman zituen kartzelan; Santander, Hondarretan eta errekan lanean egon zen.

532. Fusilatua izateko beldurrez (AB-135/009)

Gerraostean artzelan zela, presoak gauez fusilatzen zituzten eta bertan pasatako beldur eta estutasunak kontatzen ditu Candidok.

533. Ezkongabe gerran (AB-135/010)

Candido ezkongabe egon zen gerra garaian eta ezkontuta egon balitz frontera joango ez zela dio. Familia izan da beretzako garrantzitsua eta horregatik ez zen ezkondu borroka alde batera utzi arte. Gerra garaian sekretario lanetan zela ezkontzen zituzten gazteen inguruko anekdotak kontatzen ditu.

534. Fusilatzeko prest (AB-135/012)

Kartzelan zegoela, batzuetan kideren bat fusilatu behar zutela jakiten zuten. Horregatik, aurreko egunean bizarra kendu eta ilea eta arrokek konpontzera animatzen zuten. Candidok bizarginarengana joan behar izan zueneko kontatzen du.

535. Euskara klaseak ematen (AB-138/002)

Concha euskara klaseak ematen hasi zen Kulturean eta egunean hamalau-hamabost ikasle izaten zituen. Klub Deportiboan, La Salle, Ikastolan, Udaletxean eta AEKn ere eman izan ditu euskara klaseak. Hasieran, Euskara Batua ere ez zegoen eta erabiltzen zuen materialaz hitz egiten du.

536. Barnetegiak (AB-138/003)

Udako barnetegietan egoten diren euskaltegiko ikasleek irailean maila hobea izaten dute. Euskaraz bizi dira bertan dauden bitartean. Etxe euskaldunetara joateko aukera ere izaten dutela azaltzen du Conchak.

537. Betidanik euskaraz (AB-138/004)

Eibarko ikasleek euskara maila ona izan arren, kalean ez dute euskaraz hitz egiten. Concha euskalduna da eta betidanik euskaraz egin izan du etxean. 25 urte eman zituen klaseak ematen eta omenaldi bat egin zioten grabaketa egin zen garaian.

538. Euskaltegiko eskolak (AB-138/006)

Eskolak kanpoan ematen dituzte askotan, ikasleekin klase praktikoak egiten dituzte. Ohiturak ezagutu eta nagusiekin hitz egitera bultzatzen ditu ikasleak Conchak.

539. Euskara eta nortasuna (AB-138/007)

Euskara ikastearen onurak eta aldeko argudioak ematen ditu Conchak. Gerra aurreko eta ondorengo euskararen egoeraz dihardu. Euskararen galeraren ardura edo errua euskaldunena izan dela azaltzen du. Nortasunarekin lotzen du Conchak euskara.

540. Euskara Batuaren beharra (AB-138/009)

Euskalkien eta herriko hizkeren garrantzia eta Euskara Batuaren beharra azaltzen du Conchak. Ikasleekin euskalkia ere lantzen dute, maila handia dutenekin.

541. Iparraldeko euskara (AB-138/010)

Iparraldera txangoak egiten dituzte urtero. Maskaradak ikustera joan ziren eta Maulen egon ziren. Iparraldean Hegoaldean gaztelarekin gertatzen den berdina gertatzen da Frantsesarekin. Bertako euskalkien arteko desberdintasunak eta euskararen egoeraz hitz egiten du Conchak.

542. Euskararen garrantzia (AB-138/011)

Euskararen irakaskuntzaz eta gobernuaren aldetik hizkuntza eskakizun maila jaitsi egin dela eta ikasle kopurua gutxitu egin dela uste du Conchak. Ikasleak euskara ikastera bultzatze dituenak ere kezkatzen du Concha, lan postu bat lortzeko ikasten baitute askok euskara.

543. Dendarian euskara ikasten (AB-138/019)

Herriko euskararen berrezkurapenerako dendariak eta zerbitzuak euskalduntzea beharrezko ikusten dute. Dendaria zen ikasle batekin bizi izandako anekdota kontatzen du Conchak.

544. Jaunartze txikia eta handia (AB-141/002)

Jaunartze txikia eta handia egiten zirela azaltzen du Rosariok. Lehenengoa, 7 urterekin. Handia, 11 urterekin. Orduan bai dotore jantzita, doktrina ere hobeto ikasita joaten ziren. Sakristiara joaten ziren doktrina ikastera, euskaraz eta erdaraz. Abadea, on Juan. Abizen euskalduna zuenari doktrina euskaraz ematen zion.

545. Eskolan erdaraz (AB-141/003)

Eskolan dena erdaraz ikasten zuten. Euskararen erabileraren inguruan hitz egiten du.

546. Muzategi kalea eta inguruak nolakoak ziren (AB-141/004)

Eibarko kaleak. Muzategi kalea zelakoa zen. Aldapatxo eta Muzategi. "Jardín de Convalecientes". Niceto Muguruzaren estatua. Pagei kalera eta Matsarira joaten zen bertatik.

547. Eibarko kaleak; bolatokiak (AB-141/006)

Eibarko kaleak. El Casco dagoen tokian etxe handi bat zegoen, baserri modukoa, arku handi batekin. Amama han bizi zen. Matsarian latsarri zoragarria zegoen. Etxe bat ere bazegoen. Matsarian eta Azitainen, bolatokiak. Gaur egun oso desberdin dago inguru hori. Alemanaren tailerra. Erreka.

548. Umetan, errekarra edo hondartzara (AB-141/007)

Umetan, errekarra edo hondartzara joaten ziren igeri egitera. Amañan eta Txontan presak zeuden, umeak igerian ikasteko. Mutilak gehienbat Amañako presara joaten ziren; neskak Debara, hondartzara (batzuetan meriendarekin, eguna pasatzera).

549. Hondartzara umetan (AB-141/008)

Hondartzara umetan. Debara trenez joaten ziren. Cacho-reneko autobus deskapotableak. Mutilek tranpa txikiak egiten zituzten treneko bidaia ez ordaintzeko.

550. Untzagan musika eta dantza (AB-141/009)

Untzagan dantzaldia egoten zen. 3 talde egoten ziren: umeena; handiena eta ezkonduena. Musika kioskoa. San Juanetan, gaueko 12:00ak arte dantzan. "Enbolauak" goizean izaten ziren. Zezenketa ondoren, musika. Udaletxe ostean erromeria; organotxoarekin musika egoten zen.

551. Neskatan-mutiletan nola egiten zuten (AB-141/010)

Neskatan-mutiletan. Bikoteak Estaziño kalean pasioan ibiltzen ziren negu sasoiari; udan Untzagan.

552. Musika, dantza Eibarren (AB-141/011)

Musika, dantza. Maiatza-ekainean hasi eta Arrateak arte egiten ziren dantzaldiak. Kontzertua, Untzagako plazan egiten zen. Rialtoan eta Astelena ere dantzaldiak egoten ziren. Aratusteetan, Astelena frontoian. Kanpotik jende asko etortzen zen Eibarrera.

553. Eibar kanpotarrentzat (AB-141/012)

Eibar kanpotarrentzat. Izen txarra zuen, baina etortzen ziren gehienak bertan gelditzen ziren bizi izaten. Bergara, Durango, etab. herri desberdinak ziren.

554. Hezkuntza Eibarren: eskolak; irakasleak (AB-141/013)

Hezkuntza Eibarren. Alhondigako eskola. Eraikuntza horretan umeen eskolak egoteaz gain, Telégrafo etxea ere bazegoen. Bertako eskoletan zeuden irakasleak: Doña Paca; Doña María eta Doña Polonia. Bidebarrietan, Guardia Zibilen koartela zegoen eraikuntzan, eskola bi zeuden beheko aldean. Udaletxean, Frontoi zaharrea ere eskolak zeuden. Askotan amari lagundu beharra zegoen eta eskolara joan ezinda geratzen ziren.

555. Mojak Eibarren (AB-141/014)

Mojak Eibarren. Aldatzeko mojak izan ziren Eibarrera etortzen lehenak. Mesedeetako mojak geroago etorritakoak dira. Ospitaleko mojak udaletxera joaten ziren ume txikiei klaseak ematera. Igande arratsaldetan, Aldatzera joaten ziren doktrinara.

556. Euskalkiak; euskararen erabilera: berorika, hitanoa (AB-141/018)

Euskalkiak. Euskal Herri guztian ez da euskaraz berdin egiten. Eibarko euskara, bere ustez ona. Rosariok abadeei berorika ezin egin. Berori abadeei eta medikuei egiten zitzaien. Lagunartean ez zuten hitanorik erabiltzen.

557. Umetako jolasak; neskak eta mutilak elkarrekin jolasean (AB-141/021)

Umetako jolasak: txingor-gainean, sokasaltoan, poteka, diabolarekin. Afariketean, tortoloretan, kaniketean ere egiten zuten. Asko aldatu dira gauzak Rosarioren ustez. Txirikilarekin zelan egiten zen. "Txirrinbola". Neskek eta mutilek askotan batera jolasten zuten (sokasaltoan, poteka...). Orduan, gaur baino gehiago jolasten zela dio.

558. Umetan mendira aitarekin; lagunartean (AB-141/024)

Umetan mendira joaten ziren aitarekin, Kalamuara. Orduan zelai ederrak zeuden. Oizera ere joaten ziren, Urkizutik irtenda. Pol-polera, mantzanilla batzera joaten ziren. Aita eta anaiak mendizale amorratuak ziren. Mantzanillatara bai, baina perretxikotara ez ziren joaten. Lagunei Eztiagara (Eztixara) joatea gustatzen zitzaien.

559. Lagunekin mendira, hondartzara (AB-141/026)

Lagunekin Eztiagara (Eztixara) joaten ziren meriendarekin. Debara joatea erabakitzen zutenean, bazkaria eramaten zuten. Egindako egun-pasa horien argazkiak ere baditu.

560. Arrate eguna: meza entzun eta erromerian dantza (AB-141/028)

Arrate eguna. Goizean Arratera joaten ziren oinaz; han meza entzun eta erromerian dantza egiten zuten. Azitaindik igotzen ziren, Ama Birjinaren pausoetatik. Kanpotik ere jende asko joaten zen.

561. Errebalgo komentua; pasealekua (AB-141/030)

Errebalgo komentua oso ederra zen. Ortuak; pasealeku ederra. Trinkete tabernakoek mahaia kanpora ateratzen zituzten eguraldi ona hasten zenean.

562. Hiletetako ohiturak (AB-141/033)

Hiletetan elizakoak etxera eramaten zirela azaltzen du Rosariok. Abadea etxera joaten zen eta ordaindu egin behar izaten zitzaion meza emateko. "Mauka daka" esaten zitzairen elizkizunetara kapa eleganteekin joaten zirenei, dirudunak zirelako.

563. Morokila eta gaztaina erreak Gaztainerre egunean (AB-141/034)

Gaztainerre eguna hasieran baserrietan ospatzen zen batez ere. Morokila eta gaztaina erreak jaten zituzten. Poliki-poliki, kalean ere ohitura hau zabaltzen hasi zela kontatzen du Rosariok.

564. Gabon-gaueko eta urteberri eguneko afari-bazkaria (AB-141/035)

Gabon-gauean jateko zer izaten zuten azaltzen du Rosariok: olio-aza, marraskiloak, baba zuriak, konpota eta batzuetan intxaur-saltsa jaten zuten. Urteberri egunean bildotsa jaten zuten. Amak gozoak ipintzen zituen marraskiloak, baina berak ez eta egiteari utzi dio.

565. Aratusteetan gaixoentzat diru-eske (AB-141/037)

Aratusteetan, Don Poli abadearekin dantzaldia egiten zuten ospitalerako dirua biltzeko.

566. Umetako jolasak (AB-141/039)

Umetako jolasak azaltzen ditu Rosariok: "Don don beledon" zenbatzeko abestia; afariketan; txingor-gauean nola jolasten zuten; zuhaitz gainetan (txitxirri-mitxirri....) jolasten.

567. Gabon kantak; eskean egiteko kantak; San Juan ereserkia (AB-141/040)

Gabonetako eta aratusteetako kantak abesten ditu Rosariok. Diru eskean joaten ziren umetan, koko-jantzita. San Juanetan ereserkia abesten zuten koroarekin eta bandarekin.

568. Aste Santuan ura eta sua bedeinkatu (AB-141/042)

Aste Santuan egiten ziren ohitura desberdinak azaltzen ditu Rosariok. Eguen Santu egunean, egurra eta ura bedeinkatzen ziren, "ixu eguna" izaten zen. Batzuek urte guztian gordetzen zuten ur-bedeinkatua.

569. Pregoilariak eta serenoak (AB-141/043)

Eibarko pregoilariak. Pregoian zer esaten edo kantatzen zen dio Rosariok: galdutako gauzak; udaletxeko erabakiak. Serenoak Rosario gaztea zenean izaten ziren.

570. Mikeleteak eta Guardia Zibilak (AB-141/044)

Mikeleteak, Guardia Zibilak eta alguazilak zertan lan egiten zuten kontatzen du Rosariok. Gehienak kanpotik etorritakoak izaten ziren. Berehala igartzen zen erregea Eibartik pasatu behar zenean, Guardia Zibilak egoten ziren bide bazterretan eta.

571. Eibarko kaleetan paseoan (AB-145/003)

Mariangela kaleko komentuari ingurua nolakoa zen azaltzen du Juanak. Arbolak eta pasealeku handia zegoela azaltzen dute. Barrenkalean ibiltzen zen jende gehiena.

572. San Juanetan korridan (AB-145/011)

Juanak zezen korridetan bizi izandakoa kontatzen du. Korridan sartzeko nagusiekin joan behar izaten ziren. Astelena frontoian ere emakumeak gizonekin dohainik sartzten zirela azaltzen du Doloresek.

573. Arrateko jaietan (AB-145/013)

Arrateko jaietan familian ibiltzen ziren. Familia osoa joaten zen jatekoa hartuta. Kanpotik ere jende asko joaten zen. Nagusiagotan lagunekin egoten ziren eta erroskillak jateko ohitura zuten.

574. Neguan beti lapikokoa; Gabonetako jakiak (AB-145/015)

Gaztetan neguan beti lapikokoa jaten zuten, garbantzuak, babak... Udan lekak. Gabonetan, berriz, barraskiloak, bisigua eta olio-aza jaten zuten. Konpota ere jaten zen. Marinak nola prestatzen zuen azaltzen du.

575. Sagar mota desberdinak (AB-145/016)

Sagar mota desberdinak ezagutu zituzten. Markinatik ekartzen zituzten eta Azpeitia aldetik ere bai. Arbolen tokian etxeak eraiki dituztelako desagertu direla sagarrak diote.

576. Hileta-elizkizunak; ohitura zaharrak (AB-145/020)

Hileta-elizkizunak, klase desberdinetakoak izaten zirela kontatzen du Juanak (1go, 2. eta 3. mailakoak). Mor-morreko elizkizunetan, kanpairik ere ez zen egoten. Bederatziurrenean zer egiten zen azaltzen du Marinak; elizakoak. Gaixoren bat zegoenean, abadea gaixoaren etxera joaten zen. Kanean topo eginez gero, jendea belaunikatu egiten zen abadearen aurrean.

577. Kanpai klaseak eta hiletak (AB-145/021)

Kanpai klase desberdinak egoten ziren. Albakoa nolakoa izaten zen. Hileta egunean, agoniakoa; tristeza izaten zen hori. Beste kanpai klase batzuk: "drauna", "keria", arimakoa... Egun guztian kanpaiak. Aingeruen elizkizunetan, umeen hiletetan, urte hartan jaunartzea egin zuten lau ume joaten ziren, zuriz jantzita, eta hil-kutxari jartzen zitzaizkion lau zintetako bati oratzen zion bakoitzak. Marina behin joan omen zen ahizpa bikiarekin batera. Hori egiteagatik, bi erreal eta zinta bera oparitu zizkieten. Helduen hiletetan ere jartzen ziren zintak.

578. Eibarko auzoetako jaiak (AB-145/023)

Antzinako Eibarko bizimodua kontatzen dute. Kale bakoitzeko jaiak azaltzen dituzte. Txirixo kalia, San Bartolome; eguna ospatzen zen. Errebalen, San Agust;n. Jardinetan, San Isidro ospatzen zen. Isasi kalean San Antonio. Ermura ere joaten ziren oinez, Santixau eguna ospatzera. Soraluzetik autobusa egon arren, oinez kantuan etortzen zirela kontatzen du Juanak.

579. Batxillergo ikasketak Aldatze ikastetxean (AB-146/002)

Aldatzeko Ikastetxean frantsesa, klase partikular bezala ematen zuten. Fraileetan berriz, mutil guztientzat izaten zen. Aldatzen, Bachiller Universitario ematen zen. Frankoren garaian, Batxiler tituloa zutenek ikasgai berri batzuk eman eta Magisterioko tituloa lortzen zuten.

580. Aldatzeko mojak gerra garaian Elorriora ihesi (AB-146/004)

Gerra garaian Aldatzeko mojak Elorriora joan ziren. Eibarren moja bat bakarrik gelditu zen, Sor Matilde. Nagusiena zen eta etxea zaintzen gelditu zen. Aldatzeko jauregia koartel bihurtu zuten. Frentea Eibarren egon zen denboran, Kalamuan zeuden soldaduak (errepublikarrak) Aldatzera jaisten ziren. Sor Matildek kontatutako anekdota pare bat gogora ekartzen ditu. Aldatzen egon ziren batailloiak.

581. Hezkuntza Aldatze Ikastetxean (AB-146/006)

Hezkuntza Errepublika garaian. Astegunetan ez zen mezarik egoten. Gelara sartzeko jarraitu behar zituzten urratsak. Mojak zelakoak ziren. Zertara jolasten zuten. Arratsaldean berriz eskolara, eskulanak egitera.

582. Aldatze Ikastetxea Errepublika garaian (AB-146/007)

Errepublika ezarri aurretik, nolako uniformea erabiltzen zuten Aldatzen. Errepublikarekin batera, mojak seglar jantzen hasi ziren eta umeak ere kaleko erropekin joaten ziren. Gerra ostean, umeek berriz jantzi zuten uniformea eta mojek abitua. Gerra ondorengo urteetan uniformea zelakoa zen: modernoagoa...

583. Eibarko abadeak; doktrina eta aitortza (AB-146/015)

Doktrina D Juan Ibargutxik ematen zuen; bere etxean erosten ziren katezismo-liburuak, e.a. Gabriel Manterola eta D. Juan Ibargutxi joaten ziren umeak konfesatzera. Umeak mantilarekin joaten ziren.

584. Eugenio Urroz abadea (AB-146/017)

Eibarko abadeak. On Eugenio Urroz ez zen doktrinara joaten. Doktrina euskaraz.

585. Erljioa Eibarren (AB-146/018)

Erljioa Eibarren. Emakume gehienak elizatarrak; gizon batzuk, sozialistak eta ateoak. Eibartar asko, nahiz eta sozialistak izan, mezarara joaten ziren.

586. Eibarko abadeak; kongregazioak (AB-146/019)

Isasiko kapilaua, On Gabriel Manterola. On Juan Ibargutxi abadea. Gabonetan eta Pazkoan, bisitan joaten ziren komentuetara. Agustinen komentuan, On Gabrielelek "La Tercera Orden de San Francisco" ezarri zuen. Orden hortako kideren bat hiltzen zenean, besteak eskapularioarekin joaten ziren elizkizunera. Horren inguruko anekdota bat kontatzen du.

587. Mercedes Kareaga (AB-147/003)

Mercedes Kareaga. Hitzaldiak ematen zituen eta gazte asko hurbiltzen ziren berak esandakoa entzutera.

588. Mercedes Kareaga eta Acción Católica (AB-147/004)

24 urterekin erabaki zuen moja sartzea. Mercedes Kareagak eragin handia izan zuen erabaki hartan. Acción Católica; Alianza de Jesús por María. Mercedes Kareagarekin ejerzizioak Loiolan. Mutilen inguruko kontuak, e.a. Frantziara nola joan zen. Madre Loiola.

589. Moja izateko eman behar ziren urratsak; Madre Loiola (AB-147/005)

Moja izateko eman behar ziren pausoak azaltzen ditu Juanak. Basaurin eskolatxo bat zuten eta berak haur hezkuntzako irakasle izateko ikasketak egin zituen. Gero Igorren zabaldu zen etxe bat. Ume txikiendako euskaldun bat behar zuten eta bera joan zen. Madre Loiola Eibartik Igorrera joan zen eta bere superiora izan zen. Madre Loiola irakasle izan zuen.

590. Jatorria; gaitzizenak (AB-148/002)

Aitak "Ermittanua" gaitzizena zuen (Sallabenteko ermita zaintzen zuelako) eta amak "Konbentukua" (hangotxea zelako).

591. Eibarko kaleak; dendak. Las calles de Eibar; las tiendas (AB-148/004)

Areatza parean korta bezalako bat zegoen, astoak bertan laga ahal izateko. Errebalean "El Madrileño" denda. En frente de Areatza había una especie de cuadra para poder dejar allí los burros. En Errebal la tienda "El Madrileño".

592. 1934ko urriko iraultza. .La revolución de octubre de 1934 (AB-148/005)

1934ko urriko iraultza; jendea eskopetekin. Mercedes cuenta cómo sucedió la revolución de octubre de 1934. La gente salía a la calle con escopetas.

593. Plaza Berria nolakoa zen: dendak, tabernak; e.a. Cómo era la Plaza Nueva; tiendas, bares; etc. (AB-148/007)

Plaza Berria nolakoa zen; bertan zeuden dendak: harategia; Maria "Ospittal"; sastreria; tabernak. Cmo era la Plaza Nueva; las tiendas que haba; la carnicer;a; Maria "Ospittal"; sastrer;a; bares.

594. Birjinapea nolakoa zen; bertan zegoen denda ezaguna. Cómo era Birjinapea; la tienda famosa que había allí (AB-148/009)

"Tanbor"ren denda: Non zegoen, zer saltzen zuen. Harrikatzaren inguruko aipamenak ere egiten ditu. La tienda de "Tanbor"; dende estaba, qué vendía. También habla sobre el carbón.

595. "Garaje Eibarrés", Ardantzán (AB-148/010)

Ardantzán, "Garaje Eibarrés"; zegoen. Autobus deskapoteak. Debara autobusez joaten ziren.

596. Amona, euskal elebakarra (AB-148/012)

Amonak euskaraz irakurtzen bazekien; baina erdaraz hitzegiten jakin ere ez zekien.

597. Baserriko bizimodua kaletarrentzat (AB-148/013)

Kaletik baserrira joaten zirenean, sagardoa eta ogia jaten zuten. Kalekoak izanda baserrian lo egitea gauza polita izaten zen. Lantzean behin pare bat aste pasatzera joaten ziren, oporretan.

598. D. Juan Ibargutxi abadea; euskara eta erdararen erabilera (AB-148/016)

Ibargutxi abadearekin doktrina euskaraz ikasi ahal izan zuten. Meza, latinez izaten zen. Eskolan dena erdaraz ikasten zuten, baina etxean euskaraz hitzegiten zen.

599. Eskola kontuak; Fermín Calbetón-i egindako omenaldia (AB-148/017)

Eskola kontuak. Euskaraz hitzegitearren ez zuten zigorrik izaten; guzti hori Francorekin etorri zen. "Viva, viva Don Fermin Calbetón" kanta. Calbetón-ek lana ekarri zuen herrira eta omenaldia egin zioten.

600. D. Eugenio Urroz abadea (AB-148/019)

Erljioa Eibarren. D. Eugenio Urroz.

601. Pabellón Alfonso XIII (AB-148/022)

Pabellón Alfonso XIII. Dantzaldiak egoten ziren. 1927-28 inguruan erre zela dío.

602. Eibarko gazteria; futbol jokalariek (AB-148/023)

Eibartar ezagunak. Futbol jokalariek Eibarren. Mutil, neska ederrak Eibarren.

603. Moda, edertasuna (AB-148/026)

Moda, edertasuna. Neska batzuk zapata txikiagoak erabiltzen zituzten, hanka politagoa egiteko.

604. Neskak modara; San Juanak (AB-148/027)

Moda. San Juanetan ohitura izaten zen erropa berria janztea. Orraztu ere dotore, modara joaten ziren; estilo “Marcel”. Ile-apaindegiak Eibarren. “Eibar era de lo m´s adelantado” .

605. Neskatxoak kopetekin (AB-148/029)

Umeak beti kopetekin. Umeak jantzi, orraztu nola egiten ziren. Eibarren jendea beti jantzi izan da ondo.

606. Umetako jolasak; umetako kantak (AB-148/031)

Umetako jolasak; umetako kantak. Kaniketan; diaboloa; tortolosak; txingor gainean; soka-saltoan; e.a. Txingor gainean: "Badet, ez det, badet orain...". Adari tortolosak; "Puts-asaje, puts-asaje". Txirikiletan ere asko jolasten zuten.

607. Eraul dentista. El dentista Eraul (AB-148/033)

Eraul dentista, Kalbetoi kalean. El dentista Eraul, en la calle Calbet´n.

608. Neskame Madridera. La madre de Mercedes fue de criada a Madrid (AB-148/036)

Ama Madridera joan zen neskame 17 urterekin (1890 inguruan). Egun batean mandarina bat eskatu omen zion etxeko andreak eta berak mandolina eraman zion. Pelotariekin joan zen bertara eta han aurkitu zuen lana. Madrident Teatrora joaten zen. Urte bi egin zituen bertan; dirua egin eta mutilarengana itzuli. La madre de Mercedes fue de criada a Madrid (en 1890 aproximadamente). Cuenta la anécdota de que un día la señora de la casa le debi´ de pedir una mandarina y ella le llev´ una mandolina. Fue a Madrid acompañando a los los pelotaris y allí encontr´ trabajo. En Madrid iba al Teatro. Pas´ dos años allí, hizo dinero y volvi´ a donde el novio.

609. Lan-baldintzak; larunbatak lan-eguna. Condiciones laborales. Los s´bados eran días laborables (AB-148/038)

Lan-baldintzak; larunbatetan ere lan egin behar. “Eguen arratsaldetan jai, baiña zapaturik ez zeguan!”. Mercedes Tellería cuenta cu´les condiciones laborales de aquella época, los s´bados también se trabajaba. “Los jueves por la tarde fiesta, pero !No había s´bados!”.

610. "Socorros Mutuos"; lan-banaketa etxean. "Socorros Mutuos", el reparto de los trabajos en casa (AB-148/039)

“Socorros Mutuos”. Lan gabe edo gaixorik egon ezkerro, ez zegoen segururik eta ezer. Umetatik etxean lagundu behar. Gizonek ez zuten batere laguntzen etxean. “Socorros Mutuos”. Mercedes Tellería cuenta que si no tenías trabajo o estabas enfermo no había seguros. Desde niña había que ayudar en casa. Los hombres no ayudaban nada en casa.

611. Somera kalea non zegoen (AB-149/001)

Somera kalea non zegoen; zelakoa zen eta Somera kalea zergatik itxi zen azaltzen du. Izenaren inguruan ere hitz egiten du.

612. 1931ko Errepublikako kanta ezaguna (AB-149/004)

1931ko Errepublikako "Floriente primavera" kanta abesten du eta bertan esaten denaren inguruan hitz egiten du.

613. 1934ko urriko iraultza; "Toque de queda" (AB-149/005)

1934ko urriko iraultza. Toribio Etxebarria bandera zuriarekin pasa zenean kalera irteten zirela kontatzen du Mercedesek. Asaltoko tropak. Hilabetetan zehar "Toque de queda" egon zen.

614. Gerra zibila: Errebaleko mojak ihesi; herria suntsiturik (AB-149/006)

Gerra zibila. Ermuan egon ziren lehenengo, "Oletxe"ko baserrian. Trenbideko tunelean ezkutatzen ziren. Errebaleko mojak Eibartik ihesi joan ziren Lekeitiora. Ciriaco Agirre medikuaren etxea erre egin zen, baina Kalbetoi guztia tente gelditu zela gogoratzen du Mercedesek. .

615. Gerraosteko zailtasunak: gosea; razionamentua... (AB-149/007)

Gerraostea; lehenengo urteak oso txarrak izan zirela kontatzen du Mercedesek. Gose handia; estraperloa; razionamientua. Jendea asko argaldu zen. Osasun kontuez hitz egiten du.

616. Emakumeak lan munduan (AB-149/009)

Eibar, herri langilea. Emakumeak lan-munduan bete-betean sartuta zeuden fabriketan zein josten. Beste herri batzuetan nesken egoera desberdina zen; ez zuten etxetik kanpo lanik egiten. Bergaran "El paseo de las señoritas".

617. Hizkuntzaren erabilera; D. Juan Ibagutxi, abade euskaltzalea (AB-149/012)

Eibartik Gasteizera joaten ziren erdaraz ikastera. Euskararen erabilera: Neskek, mutilek baino erdara gehiago egiten zuten kalean. Neska-mutilen artean euskaraz. D. Juan Ibagutxi, abade euskaltzalea; doktrina euskaraz irakasten zuen Parrokian.

618. Aberri Eguna; alderdien arteko eztabaidak (AB-149/013)

Sozialisten eta abertzaleen arteko borroka gogoratzen ditu Mercedesek. Aberri Eguna izan zenean gertaturiko anekdotak kontatzen ditu.

619. Hizkuntzaren egoera Francoren garaian (AB-149/015)

Euskararen egoera Francoren garaian. "Hable en Cristiano". Norbere nortasuna ezin da hain erraz ahaztu. Eibarko euskara, ona. Amandreak euskarazko liburuak zituen. Amaren inguruko kontakizunak (Madrilgo egonaldia...).

620. 1934ko urriko iraultza; diru-batzeak presoentzat (AB-149/016)

1934ko urriko iraultza. Gazte asko kartzelara eraman zituzten. Diru-batzeak egin izan omen ziren herrian presoentzat.

621. Militarren sublebazioa; jendea Eibartik ihesi (AB-149/017)

Militarren sublebazioa Afrikan. Gerra hasi eta berehala hasi zen jendea Eibartik irteten. Gerra hasi zenean emakumeen paperaren inguruan ere hitz egiten du.

622. Garbitasuna; tindategiak (AB-149/022)

Amamak lixiba egiten zuen. Ehunezko erropak. Erropak jabondu eta erramua botatzen zitzairen. Latsarrien inguruko kontuak. Tindategiak derrigorrezkoak, lutoa zegoenean erropa guztia beltzez tindatu behar izaten zelako.

623. San Juanak; San Pedroak Eibarren (AB-149/025)

San Juanak, jai ederrak. Kasinoan musika; zezenak... Arropa berriekin denak Untzagara dantzara joaten ziren. Dulzaineroak iristen zirenean hasten ziren jaiak. San Pedroetan "txarlotadia" egoten zen. Pedro Basauri "Atxita" edo "Pedrucho" zen Eibarko torero ezagunena.

624. Ohitura zaharrak: San Juanak; Gabonak (AB-149/027)

Ohitura zaharrak. San Juan sua; lore-sorta. Gabonetako lehenengo ogi zatia bedeinkatu eta urte osoan zehar gordetzen zen.

625. Ohitura zaharrak: su bedeinkatua; ur bedeinkatua (AB-149/028)

"Ixu eguna". Egur txatal batzuei sua ematen zitzairen eta etxez etxe banatzen ziren. Su bedeinkatu harekin piztu behar izaten zen etxeko sua. Ur bedeinkatua banatzen ere ibiltzen ziren umeak diru apur baten truke.

626. Jai egunak: San Andrés; Gaztainerre (AB-149/029)

San Andres eguna. Gaztainerre, ospakizun garrantzitsua. Ohitura honen historia. Gaztainak eta marraskiloak jateko ohitura zuten. Marraskiloen saltsa, oso ona. "Harrixak be onak saltsa horrekin".

627. Gabonak: jatekoaren inguruko ohiturak (AB-149/030)

Gabonetan zer jaten zen azaltzen du Mercedesek: oilaskoa, bisigua, bakailaoa, konpota.

628. San Blas eguna; opilak non bedeinkatzen ziren (AB-149/031)

San Blas eguna; oso egun berezia. San Blas opilak bedeinkatzera eramaten ziren Parrokiara. Antzina, Santa Inesen bedeinkatzen ziren.

629. Aste Santua; San Juanak; Maiatzeko loreak (AB-150/003)

Aste Santuan mezetara eta prozesioetara mantelinarekin joaten ziren. "Nobenia" eta maiatzeko loreak. San Juanetan estreinatzen zen arropa berria. Bizimodua asko aldatu da. "Lehen dana zan pekatua".

630. Bizimodu aldaketa: oraingo zapata parearen prezioan etxea (AB-150/005)

Bizimodua asko aldatu da. Orain zapata pare bategatik ordaintzen denarekin lehen etxea eros zitekeen. Bere gurasoek 7000 pezeta ordaindu zuten etxea

1918an. Jose Mari Atxa zen saltzailea. Jendeak beste jarrera bat zuen, anbiziorik gabekoa. Ogerlekoarekin joaten ziren plazara, erosketak egitera.

631. Merkatu Plaza eta inguruak zelakoak ziren (AB-150/006)

Merkatu Plazan egiten zituzten erosketak. Zelakoa zen. Aldapatxon, Indianoko palazioa. Baserritarrek astoak Bidebarrieta kalean uzten zituzten.

632. Negu gogorak (AB-150/007)

Neguan elur asko egiten zuen; neguko zapatak nolakoak ziren azaltzen du. Hotza; ohean adreiluarekin lo egiten zuten.

633. Santa Inesera, San Blas opilak bedeinkatzera (AB-150/008)

Anaia nagusiagoak esaten zuen Santa Inesera joaten zirela San Blas opilak bedeinkatzera. Bera Bidebarrieta kalean jaio zen. Anaiak Grabadores kalean (gaur Bittor Sarasketa). 1918an, bost urte zituela, aldatu ziren etxez.

634. Alhondigako eskola; bertako irakasleak (AB-150/009)

Anaia nagusia urte eta erdirekin eskolara eramaten zuten; etxe batean edukitzen zituzten ume txikiak. Alhondigako eskolara joan zen Mercedes; bertako irakasleak: Doña María eta Doña Polonia. 13-14 urtera arte ibili zen. Zer ikasten zuten. Arduradun batzuk izendatzen zituzten. Andereñoak matrailekoak ere ematen zizkieten.

635. Neska eta mutilen ezberdintasunak hezkuntzan (AB-150/010)

Aldatzeko ikastetxera joaten ziren domeketan, doktrina ikastera. Bera eskola publikoan ibili zen eta anaiak pribatuetan. Neska eta mutilen ezberdintasunak hezkuntzan. Neskak josten eta brodatzen ikastera ere joaten ziren.

636. Juan Ibargutxi eta Gabriel Manterola, abade euskaltzaleak (AB-150/011)

Abadeak. On Juan Ibargutxi euskaltzalea zen. Hura tokatu zitzaion jaunartzea prestatzeko eta euskaraz ikasi zuen harekin. On Gabriel Manterola Iasiko komentuan egoten zen; oso gizon argia zen. Mezak latinez izan arren, ahal zuen guztia euskaraz ematen zuen.

637. Gabon giroa etxean (AB-150/012)

Familia giroa Gabonetan; denak elkartzen ziren etxean. Afari ona prestatzen zuten (marraskiloak, konpota, turroiak...). Aita egizalea eta bakezalea zen eta gustuko zuen kantatzea. Gabonetako kantak. "Hator, hator..."; "Urte barri eguna...". Euren etxean ez zuten jokurako ohiturarik. Mezatara joaten ziren Gabonetan.

638. On Policarpo Larrañaga abadea; gaixoentzat diru-batzeak (AB-150/016)

On Policarpo Larrañaga. "Idorberri gaixoentzat estalpe bat egin nahia...". Diru-batzea egiten zuten tuberkulosoentzat. "Amets larria" antzerkia, zezen plazan egin zuten helburu berarekin. Lehenagoko Eibar hobea zen Mercedesen ustez.

639. Errepublika garaiko kantak; Untzaga toponimoa (AB-150/019)

Errepublika garaiko kantak: "Florecente primavera del año 31..."; "República española...". Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko oroitzapenak. "Plaza de la República" izena jarri zioten orduan Untzaga plazari (aurretik plaza de Alfonso XIII zeukan). Untzaga toponimoaren jatorria.

640. Ama Madrilera neskame I (AB-150/023)

Ama 17 urterekin Madrilera joan zen, neskame, injineru militar baten etxera, erdaraz jakin gabe. Pozuelora joaten ziren oporrak pasatzera. "Una morena y una rubia" zarzuela estreinatu berria ikusi omen zuen amak han.

641. Ama Madrilera neskame II (AB-150/026)

Ama 17 urterekin Madrilera joan zen, neskame, 5 ogerleko irabaztera. Emakume aurreratua eta gauzak egitekoa zen, ez atzera geratzekoa. Senargaiak itxaron egin zion, Madrilen egon zen denboran. "Hamlet" irakurri zuen euskaraz. Zenbat ekintza erlijiosotan parte hartzen zuen.

642. Elgeta kaleko dendak (AB-151/002)

Eibarko Elgeta kalean jaio zen 1908an. Ama Ermukoa baina Eibarren jaio zen eta aita nafarra baina 16 urterekin etorri zen Eibarrera. Elgeta kaleak aldapara ederra zuen baina ez gaur egun bestekoa. Gurdiak ibiltzen ziren sasoi batean. Eskailerak eta zuhaitzak ere bazeuden. Kanposantutik gora igotzen zen. Kale isila zen, garai batean ez zen inor pasatzen. "Badetesia", "Trifona", "Ramona Katre" tabernak eta dendak zeuden. Txerria hiltzen zuten denda edo txokoak zeuden.

643. Eibarko euskararen kalitateaz (AB-151/004)

Aititik ez zekien euskaraz, baina aitak ikasi egin zuen. Beraiek eskolan erdaraz egin behar izaten zuten, baina bestela euskaraz hitz egiten zuten. Eibarko euskara. Gai honen inguruko anekdota (Sopelan errefuxiatuta egon zirenekoa).

644. Lagunartean erdaraz egitearren zigorra (AB-151/005)

Lagun artean euskaraz egiten zuten, beti. Hala ere, erdararako joera ere bazuten. Lagunen artean gazteleraz egiteagatik zigorra jartzen zioten elkarri: eraztun bat jantzi beharra. Eskolan dena gazteleraz egiten zuten. Baserrikoek euskaraz egiten zuten gehienetan baina beste ikasleen joera nagusia erdararakoa zen. Hala ere, gehienak elebidunak ziren.

645. Alhondigako eskolako maistrak (AB-151/006)

Alhondigara joaten ziren eskolara; Pagei kaleko aldapan zegoen. Doña Paka, doñ´ Maria eta doña Polonia maistrak izan zituen. Nolakoak ziren kontatzen du. Adin desberdinetako ehundik gora ikasle egoten ziren gela berean.

646. Hamaika irakasgai eta liburu (AB-151/008)

Eskolan txikiendako gela bat zegoen, doña Pakak ematen zituen klaseak. Gero, Alhondigara joaten ziren eta dena buruz ikasi behar izaten zuten. Liburu bat baino gehiago zituela kontatzen du eta ikasgaiak aipatzen: fisika, geometria, gramatika, doktrina, higieena, "urbanidad"... Behin "martxando" egin zuten eta sokasaltoan jolastera joan ziren.

647. Aitaren lanbidea; kooperatiba sozialistak (AB-151/009)

Eskolara joan aurretik aitari gosaria eramaten zion lanera. Aita akabatzailea zen. Aita lehenengo bere kontura aritu zen eta ondoren Alfan sartu zen. Kooperatibak. Sozialisten kooperatibak non zeuden.

648. Eskola kontuak; umetako jolasak, okerkeriak (AB-151/012)

Eskola kontuak. Behin "martxando" egin zuen. Eskolako ordutegia. Neguan, etxera joaten ziren zuzenean. Bestela, jolasean gelditzen ziren: "Tres nav&iacut;os"ka, poteka, txirikiletan... Etxean lan egin beharra ere izaten zuten.

649. Neska eta mutilen heziketa: desberdintasunak (AB-151/013)

Matxismoa. Gizonezkoek etxean lan gutxi egiten zuten. "Obligaziño gehixago mutillak eskolara joateko andrak baiño". Neskak josten ikastera joaten ziren, baina bera ez zen joan. Amandreari lagundu behar izaten zion etxeko lanetan.

650. Ogia etxeetara banatzen (AB-151/021)

Toribio Etxebarriarengana ogiarekin joaten ziren. Trinkete gainean bizi zen. Arrieta `La Ondarresa&acut;koen etxera ere joaten ziren. Etxeraino igotzen zuten ogia.

651. Ogi klaseak; prezioa igo zenean manifestazioa (AB-151/022)

Ogi klase desberdinak; prezioak. Prezioa igo zenean emakumeek manifestazioa egin zuten.

652. Urkiko baserrien izenak (AB-151/024)

Urkiko "Txatxi" baserria aipatzen du. Gerraostean baserria bota eta etxeak egin zituzten bertan. Baserriak ura barra-barra zuen baina etxe barruan ez zuten urik. Gerraostean eraman zuten ura etxe barrura. Beste baserri batzuk aipatzen ditu: Amuateginekoa, Goenengoa, Altamira, Lekamendi, Bolingua, Errekatxu, Sansaburu...

653. Hotel Julian; gasolindegia (AB-151/025)

Barrenkalea; Zuloaga. Hotel Julian. Gasolina ere bertan saltzen zen. Txaltxanekoek izan zuten lehenengo autoa. Cachonekoak autobusak zituen. Autobus deskapotelea.

654. Urki inguruan ibiltzen ziren jolasean (AB-151/026)

Behin 16 urte ingurutik aurrera trenez hondartzara joaten ziren. Aurretik Urkitik irten gabe. Jolasean Urkin, Bista Alegren. ("Tres Navíos-ka", adibidez). Barrenkalea; Arraindegi kalea; etab.

655. Umetako jolasak (AB-151/028)

Umetako jolasak: "Tres Navíos". Jolasa nolakoa zen. Gaur egunean "peorak" (atariak) itxita egoten dira, baina garai batean zabalik egoten ziren. Zotz egiteko "Don don beledon...." kantatzen zuten.

656. Umetako jolasak eta okerkeriak (AB-151/030)

"Sokasaltoa" eta "Dos tocando" jolasa azaltzen ditu. Eskuak kafearekin zikindu eta beste norbait zikindu. "Txingor-gainean" jolasa azaltzen du. "Boteka", "Txirikila"... Txirikilean nola jokatzeko zuten kontatzen du.

657. Tortolosestarako bildotsaren hezurak behar (AB-151/031)

Tortolosestan nola jokatzeko zuten azaltzen du. Pieza bakoitzak bere izena zuen. Bildotsaren hezur zatitxoak ziren tortolosak. Erretako bildotsa bazen hobe jolaserako.

658. Eguneroko bizimodua; jatorduak nolakoak (AB-151/032)

Bildotsa oso-osorik egiten zuten, hamabi laguneko familiak jateko. Izekok egiten zituen erosketak. Oilarra ere jaten zuten. Orduko bazkari eta afariak nolakoak izaten ziren. Dilistak beti ezagutu ditu Faustinak. Letxuga entsaladan jaten zuten; tomatea entsaladan beranduagokoa zen.

659. Gabonetako jatorduak (AB-151/033)

Gabonetan aza, bakailaoa, bisigua, barraskiloak... jaten zituzten etxean; "bijilia" egin beharra zegoelako. Karramarroak ere egoten ziren, inguruetan harrapatuta. Ezkailutara joateko ohitura. "Mazapan" omen zen ona ezkailutan.

660. Afari-merienda egiteko ohitura; "Melitonen" taberna (AB-151/034)

Afari-merienda egiteko ohitura handia zegoen Eibarren. "Melitonen" taberna. "Mazapan"ek alhondigian ardoa dastatzen omen zuen Melitonenerako. Faustinarek ere egiten zuen noizean behin merienda Emakumeak ez ziren tabernara sartzeko, baina aita tabernan bazen, lehengusina eta biak sartzeko ziren izozki eske.

661. Erromerian "korro" bat baino gehiago (AB-151/035)

San Juanak aita eta amarekin igarotzen zituen. Gerora, Untzaga plazako erromeriara joaten ziren. "Korro" bat baino gehiago egoten zen: gatzetxoak, ezkonduak, erdian neska gazteak...

662. Ligatze kontuak; Bergaran eta Durangon aberatsak eta pobreak banatuta (AB-152/002)

Nobio bila ez litzatekeela Bergarara joango dio. Bergaran Espoloian aberatsak eta pobreak banatuta ibiltzen omen ziren. Baita Durangon ere. Eibarren,

berriz, denak batera. Durangokoengatik dio: "Kaixolia ona baiña txorixa txarra".

663. Durangokoekin eta Bergarakoekin harremana; "Badetesia"ren alabaren ezkontza (AB-152/004)

Durangokoak asko etortzen ziren Eibarrera. Eibarko neskek liberal fama. "Badetesia"ren alaba Faustina ezkondu zeneko kontuak. Senarra Durangokoa hartu zuen, baina banandu egin ziren. Durangokoengatik dio: "Kaixolia ona baiña txorixa txarra". Durangon eta Bergaran aberatsak eta pobreak banatuta ibiltzen ziren. Eibarren ugazabak eta langileak, denak elkarrekin.

664. Musika Banda Untzaga plazan; Estaziño kalera paseatzera (AB-152/005)

Untzaga plazan musika pieza bi jo orduko atsedaldia egiten zuen Musika Bandak. Estaziño kalera joaten ziren orduan paseatzera. Ez zen kotxerik ibiltzen. Gerra ostean hasi zen Musika Banda kontzertu guztia jarraian ematen.

665. Aratusteetako dantzaldiak (AB-152/006)

Saloietan ere egoten ziren dantzaldiak, baina beraiei ez zieten joaten uzten. Aratusteetan musika egoten zen toki desberdinetan: Casino de la Amistad; Fomento; Astelena frontoian. "Eguen zuri" egunean (osteguna), baita igande eta asteartean ere dantzaldiak egoten ziren. Rialtoa. Eurak dantzara baino gehiago zinera joaten ziren.

666. Zineak Eibarren: Pabellón Alfonso XIII; Untzaga; Kruzeta (AB-152/007)

Zinera joatea gustatzen zitzairen. Kruzeta zinera eta Untzaga antzokira joaten ziren gehien. Pabellón Alfonso XIII-n gutxitan egon zela dio. Txiki-txikia omen zen eta erraz betetzen zen. Jendeak ze tranpa egiten zuen sartzeko. Zine mutua zenean "txarlatana" ere egoten zen Pabellón Alfonso XIII-n, pelikularen nondik-norakoak azaltzen.

667. Untzaga antzokian orkestra (AB-152/008)

Untzaga antzokian orkestra ere egoten zen. Bost erreal ordaintzen zuten sarrera. Lekua hartzeko mutil batzuekin borrokan ibiltzen omen ziren. Zinema zen euren zaletasuna.

668. Garai bateko aktoreak eta pelikulak; nodoa (AB-152/009)

Orduko aktoreak. Ez zituela aktoreen izenak ikasten dio. Alemanen pelikulak ez ditu gogoko. Orduko pelikulen eta oraingoan arteko aldea; lehengoak erromantikoak izaten ziren. Nodoa botatzen zuten zinearen hasieran; sarritan pelikula baino hobea izaten zen.

669. Bikoteak Olarreagara paseatzera (AB-152/010)

Zinea astean zehar ere egoten zen, baina ez zuten dirurik izaten egunero joateko eta nobioarekin Olarreagara joaten zirela paseatzera dio. Gaur egungo bikoteak ez dira ezkututzen.

670. Antonia "Alkiler" raketista eta Salome, frontoiaren arduraduna (AB-152/013)

Pilotan ibiltzen ziren neska eibartarrak, raketistak. Antonia "Alkiler" raketista ezaguna; edozein lekutan hasten omen zen pilotan jokatzen. Ez omen zuten fama onik raketistek, kanpora joan zirelako. Gaizki ikastera joan zirela esaten omen zuten. Salomek, frontoiaren arduradunak, asko laguntzen omen zien.

671. Lagunekin eta anai-arrebekin hika; abadeari eta medikuari berori (AB-152/017)

Lagunekin eta anai-arrebekin hika. Abade eta medikuei berorika egiten zitzairen.

672. Eibarko mediku ezagunenak; gaixotasunak (AB-152/018)

Medikuak Eibarren: Don Ciriaco; Villar; Viteri. Don Ciriaco medikuaren izaera. Orduko gaixotasunak: tuberkulosia eta tifusa. Tuberkulosia oso gogorra zen; tifusarekin batzuk ateratzen ziren bizirik.

673. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren (AB-152/019)

Errepublikaren aldarrikapena Eibarren. Goizeko bostetarako kalerik kale berri ona ematen. Arratsaldeko bost eta erdietan jo zuten bandoa Mateo Kareagak eta beste hiru lagunek. Astigarraga, bandera kentzen; Pedro "Maria Ospital", bandoa irakurtzen. Kaleko giroa. "Danak hantxe bueltaka".

674. 1934ko urriko iraultza; asaltokoak tropak (AB-152/020)

1934ko urriko iraultza. Goizean tiroak egon ziren; hildakoak zeintzuk izan ziren. Eurak kalean ibili ziren goizean, baina ez ziren asko enteratu. Egun gogorra. Asaltokoak etorri ziren eta arratsaldeko seietarako denak etxera. Beldurra eragiten zuten. Eibartar asko kartzelan. "Frente Popular"ak irabazi zuenean itzuli ziren etxera. Egun handia izan zen.

675. Primo de Rivera eta Fermín Calbetón Eibarren (AB-152/022)

Eibarrera etorritako pertsonai ezagunak: Primo de Rivera; Calbetón; Eskolan Fermín Calbetón-en bisitarako ikasitako kanta.

676. Franco Eibarren (AB-152/023)

Franco Donostian. Eibarrera ere etorri zen, baina ez zuen denbora asko egin. Eibarko jendea etxean sartuta. Egun horretan Faustina Hendaia etorri zen trenez eta kanpoko jende asko etorri omen zen trenean. Armada izugarria ekarri omen zuen Francok. Orduko bizipenak.

677. Hauteskundeetako giroa (AB-152/024)

Eibarren normalean ondo konpontzen ziren alderdi desberdinetako kideak. Hala ere, hauteskundeen bueltan izaten ziren liskarrak alderdi desberdinen artean.

678. San Blas eguna; opilaren bedeinkapena (AB-152/025)

San Blas eguna. San Blas opilaren bedeinkapena. San Andres Parrokiara eramaten zituzten bere sasoiaren bedeinkatzera. Aurretik Santa Inesera eramaten omen ziren, baina berak ez zuen hori ezagutu. Baserria eta kapila omen zeuden han.

679. Urki ingurua; erromeria San Lorentzo egunean (AB-152/027)

"Txatxingua" Urki dela komentatzen dute. Urki ingurua nolakoa zen. Harako joera. Erromeria egoten zen San Lorentzo egunean eta baita Sallabenten ere. San Salvador eguna Salvadorren. Elgeta kalean ere San Lorentzo eguna ospatzen zen.

680. Aldatze Ikastetxeko mojak (AB-153/002)

Aldatze Ikastetxeko mojak Frantziatik zergatik etorri ziren: 1902-1905 artean, lege batek kongragazio guztiak itxi zituen Frantzian eta alde egin behar izan zuten. Kongragazioaren helburua hasiera-hasieratik (1817, Saintesen sortua), emakumeen heziketa bideratzea zen.

681. Aldatze Ikastetxea: mojak; hasierako urteak (AB-153/003)

Aldatze Ikastetxea. 1904an beraien helburuak betetzeko asmoz muga zeharkatzen dute. Moja bi etorri ziren kokapen berria ikustera. D. Agustin Enbil parrokoaren laguntzarekin Unzueta jauregia hartzea erabaki zuten. Zarautzera joateko asmoa zuten, baina Eibarren egiteko gehiago zegoela ikusi zuten.

682. Aldatze Ikastetxea: mojak; hasierako urteak (AB-153/004)

Aldatzeko mojak josten eta frantsesa erakusten hasi ziren: "alde praktikua eta humanistikua". Pagei kaleko lokaletara joan zirenerako (1906?) klaseak ematen hasita zeuden.

683. Aldatze Ikastetxea: mojak; Kongregazioa (AB-153/006)

Aldatzeko mojak. Kongregazioaren inguruko azalpenak. Saintesetik irten zirenean lehenengo Eibarrera joan ziren; ondoren Ingalaterra, India eta Ameriketara. Nati Azkarate eta Carmela Manso eibartarrak Perura joan ziren misiotara.

684. Aldatze Ikastetxea: mojak; hasierako urteak (AB-153/009)

Aldatzeko mojak Eibarren. Egoitza egoki baten bila hasierako urteetan. Aldatzeko jauregia nola ezagutu zuten; nolakoa zen; e.a. Urteetara, Bachillerato Universitario eta Magisterio erakusten hasi ziren, Eibarren zeuden beharrak asetzeko.

685. Aldatze Ikastetxea: hasierako urteak (AB-153/010)

Nati Bazterra izan zen 1927an Aldatzeko lehenengo moja eibartarra. Moja bilakatzeko prozesua oso desberdina zen duela urte batzuk. Beste kongregazioekin harremana zelakoa zen; Aldatzeko mojek beti izan dute herriarekin hartu-eman handiagoa. Errepublika garaian abitua kendu zuten; beraien erabakia izan zen. Gerra zibila hasi zenean ihes egin zuten baina 1937rako itzuli ziren.

686. Mojak eta euskara; Ikastolaren lehenengo urteetako arazoak (AB-153/011)

Mojak eta euskara. Francoren garaian badirudi abadeek euskararen alde egin zutela eta mojek erdararen alde. Bertako mojek baina Francorekin arazoak izan zituzten. Eibarko Ikastolaren lehenengo urteetan, Aldatzen izenpetzen ziren notak ofizial bilakatu ahal izateko.

687. Aldatzeko Ikastetxea (AB-153/014)

Aldatzeko Ikastetxea. Ikasketa esparru zabalagoa; titulazio berriak; e.a. Garai berrietara moldatzen jakin izan dute.

688. Moja sartzean izena aldatu behar (AB-154/002)

Lehen moja sartzerakoan izena aldatzen zen eta kategoria bi egoten zirela azaltzen du Rosak. Orain gauzak asko aldatu direla dio. Izena aldatzearen zergatia azaltzen du.

689. Aldatzeren fama ona (AB-154/003)

1957an etorri zen Eibarrera moja. Frantzia egon zen hasieran eta botoak eginda etorri zen. Eskola txikia zen Aldatze eta garapena zelakoa zen azaltzen du. Jende askok nahi izaten zuen Aldatzeko eskolan sartu zuen fama onagatik.

690. Aldatzeko mojak Perura misiotara (AB-154/005)

Peruko misioak gogoratzen ditu. Perutarrak zelakoak diren azaltzen du Rosak. Oso umilak eta bihotz onekoak, duten guztia banatzeko beti prest daude. Misioetan asko ikasi zuela dio.

691. Perura misiotara (AB-154/006)

Perura misiotara zelan eta zergatik joan ziren azaltzen du Rosak. 1963an joan zen Perura lehengo aldiz.

692. Peruko egonaldia (AB-154/007)

Misioeta goserik pasa izan ez zuela dio Rosak, fruta asko izaten zutelako. Hala ere, hemengo erosotasunik ez zutenez argaldu egin ziren. Bertakoen arrera oso ona izan zela gogoratzen du.

693. Peruko mundu berria (AB-154/010)

Euskal Herriko bizimoduarekin alderatuz Peruko bizimodua oso desberdina dela azaltzen du Rosak. Mundu berria zela eta bertako jendea bizkorra zela azaltzen du, pertsonen koloreak eta ileak arreta deitu zien hasieran.

694. San Juan del Oro (AB-154/013)

San Juan del Oro misioetan iritsi zirenean nolakoa zen azaltzen du Rosak. Jende gehiena kanpokoak zen, altiplanokoa. Bertara joaten da bizi modua ateratzera (laranjak, kafea...). Orain jendea bertakotu egin da. Uztarena bilketaren arabera mugitzen ziren hasieran.

695. Eskola martxan Perun (AB-154/015)

Aldatzeko Madre jeneralak (Madre Marie Lucie) misioei buruz pentsatzen zuena kontatzen du. Mojak Perura heldu eta eskolatxo bat jarri zuten. Emaitza onak izan zituzten eta gerora adin desberdin guztientzako eskola ere jarri zuten martxan.

696. Quechuera eskolan (AB-154/016)

Aldatzeko mojak Perura misiotara iristean bertako gehienak etnia desberdinetakoak ziren: Aimarak eta Quechuak. Quechuak dira etnia nagusia eta beraien kultura oso zapaldua dagoela azaltzen du. Rosak Quechuera ez ikasi izana akats handizat ikusten du. Berpizteko ahaleginetan dihardute, baina pobreen hizkuntza da.

697. Euskara vs. quechua (AB-154/017)

Bertako hizkuntza egoerarekin alderatzen du Rosak quechueraren egoera. Txikitan bizi izandakoa eta Ermuko egoerarekin alderatzen du quechuera. Unibertsitate mailara edatu nahi zuten, baina, hala ere, abizen quechua zuten pertsona gutxi zeuden kargu handiko lan-postuetan. Lotsatu egiten dira etxean quechuera egiteaz eta erdaraz erakusten diete gurasoek umeei. Gobernuaren aldetik ere ez zegoen laguntzarik. Desberdintasun sozial handia zegoela azaltzen du Rosak.

698. Fujimoriren fama (AB-154/018)

Fujimori agintariaren inguruko iritzia ematen du Rosak. Han ez zuen hain fama txarrik, terrorismoa kendu eta gauza dezente egin zituelako. Japongo enbaxadan gertatu zena kontatzen du. Hemendik asko kritikatu izan zen nola hil zituen bahitzaileak, baina bere ustez beste aukerarik ez zuen izan. Terrorismoak kalte handia egin du Peruko eskualdean.

699. Etnia desberdinak (AB-154/020)

Quechuak merkatariak eta Aimarak nomadak direla azaltzen du Rosak. Aimarak langileagoak omen dira eta etxe desberdinak egiten dituzte, adibidez. Aimarak altiplanokoak dira, Bolivia ingurukoak. Bi etnien artean ez dute sinpatia handirik. Kultura eta erlijioa zapaldua zegoen, ezagututako ohitura desberdinak azaltzen ditu Rosak.

700. Aldatzeko mojak Perura misiotara (AB-155/002)

Peruko misioak. San Juan del Oro-tik Limara joan zen. 6 moja egotera iritsi ziren; gerora kopurua gutxitzen joan zen. Bokaziorik ez.

701. Aldatzeko mojak Perura misiotara: kultura aniztasuna (AB-155/003)

Kultura aniztasuna; desoreka, desberdintasun handiak gizarte bietan. Misioetatik itzuli zenean ikusitako aldeaz hitz egiten du.

702. Peruko egoera ekonomikoa (AB-155/005)

Peruko egoera ekonomikoaz hitz egiten du Rosak. Perun aberastasuna badagoela dio, baina lan egin behar dela. Kanpo zorra. Poztasun handienak eta egoera gogorrenak ere bertan bizi izan ditu. Han bizi izandako anekdotak kontatzen ditu.

703. Gizakiaren bokazioa (AB-155/006)

Bokazioaz hitz egiten du Rosak. Gizakiaren alderdi gizatiarraz duen iritzia azaltzen du. Eskola emateaz gain doktrina irakasteaz ere arduratzen ziren. Herritarrekin izandako harreman eta esperientzien garrantzia ere azpimarratzen du.

704. Peruko misioak; San Juan del Oro (AB-155/008)

Peruko misioak. Hainbeste urtetan bertan lan egin eta gero, San Juan del Oro ia ez da aldatu. Bi gizarteen arteko distantzia gero eta handiagoa.

705. Peruko misioak; ekonomia eta komunitateak (AB-155/009)

Peruko ekonomia, garraio-sarearen bilakaera. Oihan ingurua zelakoa den azaltzen du Rosak. Amazonasko indigenak, nomadak.

706. Peruko egoera erlijiosoa (AB-155/010)

Peruko egoera erlijiosoa. Erlijio, sinesmen nahaste handia. Misiolarien jarrera bertako sinesmenen aurrean nolakoa izaten zen azaltzen du Rosak. Fenomeno naturalak eta sinesmenen lotura nola egiten den azaltzen du bai Liman zein Euskal Herrian.

707. Herriaren nortasuna; inguruko herrietan zuten iritzia (AB-156/001)

Eibarko herriak izen txarra zuen toki batzuetan. Ama, Azpeitikoa zen jaiotzez, baina eibartar bilakatutakoa. Azpeitikoentzat Eibar zelakoa zen azaltzen du Felisak.

708. Elkartasun handia XX. mende hasierako urteetan (AB-156/004)

XX. mende hasierako Eibar nolakoa zen; elkartasun handia. Etxeko ateak itxi ere ez ziren egiten. Anekdotak polita kontatzen du.

709. Urkizu ingurua nolakoa zen: Orbea lantegia, Urkizuko iturria... (AB-156/005)

Agiñaspineko etxean intxaur-arbola ederra zegoen; etxe berriak egin ziren bertan. Ama, Martin Errasti etxeginarengana joan zen etxe bat gordetzeko eskatuz. Horren inguruko kontuak. Urkizu aldea zelakoa zen azaltzen du. Errekan jolasean afariketan. Orbeaneko tailerrak; urtean behin (San Juanetan) Orbeako langileek lantegiko kristalak garbitzen zituzten errekan. Errastineko etxeak; Urkizuko iturria; Iparragirrerako bidea, etab.

710. Umetan errekan jolasean; afariketan (AB-156/007)

Urkizu inguruan jolasten zuten, erreka ondoan. Afariketan nola egiten zuten.

711. Azpeitira joateko egiten zituzten ibilerak (AB-156/009)

Azpeitira joateko egiten zuten ibilbidea: Elgoibarrera trenez; gero kotxea egoten zen, zaldiarekin. Azkenengo zatia, oinez egin behar izaten zen, Azkarate gaina hartu arte. Dilijentziak nolakoak ziren.

712. Jostun ezagunak Eibarren (AB-156/010)

Berak josi egiten zuen, eta San Juanetan lan asko egoten zen; gauez ere jostera joan behar izaten ziren. María jostuna; neska asko zituen jostundegian laguntzen. Gaztetako ibilerak.

713. Ezkontzak; lehenagoko ohiturak (AB-156/013)

Ezkontzak; lehenagoko ohiturak. Goizeko seiretan, lau bikote batera ezkondu ziren. Armozua hartu eta lehenengo trenean Donostiara joan ziren. Bertan 3 egun egin zituzten, eta handik Ordiziara (lehen Villafranca de Oria). Aratusteetan ezkontzeko ohitura zegoen. Etxe berriaren inguruko anekdota.

714. Aste Santuko ohiturak (AB-156/015)

Aste Santuko ohiturak: ur bedeinkatua; su bedeinkatua. "Ixu eguna". Matrakarekin ibiltzen ziren egun batean, zarata eginez. Etxerik-etxe dirua batzen. Umetako okerkeriak.

715. Gabonetako kantak; "El Liberal" aldizkariaren kanta (AB-156/016)

Gabonetako kantak. Aterik-ate joaten ziren abesten: "Gabon gabonete, errezezete,...". "Kris, kris, kris, San Vicente..."; "Aginaldo, aginaldo, bizkaitarrak Durango, zazpi gaztaiña eta zortzi intxaur"; "Aingeruak gera, zerutik gatoz, poltsia badegu-ta, eskian gatoz". Familia giroa Gabonetan. "El Liberal" aldizkariaren kanta: "Soy señores la chavala que vendo El Liberal....".

716. Jacinto Olabe margolaria (AB-156/018)

Jacinto Olaberekin marrazten ikasten. Olabek aitari egindako koadroaren inguruko kontuak. Felisari ere, marrazten erakutsiko ziola esan zion, baina etxean, josten ikastera joatea hobe zela esaten zioten. Antonia Olabe.

717. Antzerkiak Teatro Kruzetan (AB-156/020)

Nola hasi zen antzerkia egiten. Agustin Zuloagak animatu zuen antzerkia egitera. Kanta-papelak erosi beharrean, entzun eta ikasi egiten zituen. Felisa Mendiguren, kantuan oso ona. Antzerki gehienak Teatro Kruzetan egin zituzten. Behin Astelena frontoian egin zuten ekitaldi bat, "Para los huérfanos de la guerra". Pepe Orbearen emaztearen ama, pianoa jotzera joan zen egun hartan.

718. Gaztetako irteerak (AB-156/021)

Gazterik hasi zen josten ikasten, eta jolasteko denbora gutxi izaten zuen. Mendira, Salvadorera joaten ziren. Gaztainerre egunean, Mertzete baserrira. Urtean behin, San Roque egunean, Debara joaten ziren.

719. Servando Juez Rey argazkilaria (AB-156/023)

Urtean behin, San Roque egunean, Debara joateko ohitura. Servando Juez Rey, argazkilaria ezagunaren inguruko aipamena (Kantabria aldetik etorritakoa

zen gaztetan, eta soldadutzara joan behar zenean, eskertza-papelak atera zituen "en agradecimiento al pueblo de Eibar, por su calurosa despedida...").

720. Zineak Eibarren: Pabellón Alfonso XIII; Kruzeta (AB-156/024)

Pabellón Alfonso XIII. Musika eta txontxongiloak egoten ziren jendea zinera erakartzeko. Nolakoa zen zinea barrutik; jabea nor zen; pelikularen inguruko azalpenak ematen "Txarlatana" gaitzizena zuen gizona egoten zen. Kruzetaneke zinea. Zine mutua; pelikulak atalka ematen zituzten.

721. Alhondigako eskolak; irakasleak (AB-157/001)

Eskolak eta irakasleak nolakoak izan zituen kontatzen du Felisak. Alhondigan jaso zituen lehenengoko eskolak; handik, Pageira joan zen.

722. Eskola kontuak; irakasleak (AB-157/002)

Alhondigako eskolatik Pageiko eskolara joaten ziren. Untzaga plazan, kioskoaren inguruan dantzan ibiltzen zirela kontatzen du Felisak. Irakasleak: Dña Polonia; Dña Maria; Dña Paca. Irakasleen metodologia azaltzen du.

723. Euskararen erabilera etxean (AB-157/003)

Etxean errespetu handia zioten gurasoei. Aitak euskaraz ikasi zuen ezkondu aurretik. Euskara eta erdararen erabilera etxean nolakoa izaten zen kontatzen du Felisak.

724. Antzinako bizimodua: familia giroa; ingurukoekin elkartasuna (AB-157/004)

Antzinako bizimodua zelakoa zen kontatzen du Felisak. Lehenago jende asko egoten zen etxe bakar batean bizitzen. Konfidantza handia zuten ingurukoekin eta euskaraz hitzegiten zuten edonon.

725. Afrikako gerra (AB-157/005)

Felisaren anaiari soldadutza egitera joatea egokitu zitzaionean, amak kuota ordaindu zuela kontatzen du. Afrikako 1921eko gerrara joan behar izan zuten Felisaren anaiek; "mataderora moduan eruaten zittuen mutillak". Ogiaren prezioa igo zenean, etxeakoandreek manifestapena egin zuten; Guardia Zibilen emazteak ere joan ziren. Maiatzak 1-ean, mitinak gogoratzen ditu Felisak.

726. Gaztainerre eguna Mertzete baserrian (AB-157/007)

Gaztainerre egunean, Mertzete baserrira joaten ziren gaztainak jatera. Taloa, morokila eta gaztaina erreak jaten zituzten.

727. Lehenengo irratia Eibarren (AB-157/009)

Lehenengo irratia. Cándido Muñoz botikarioarena eta beraiena izan ziren Eibarren lehenengoetarikoak. Jendea etxera joaten zitzaien irratia entzutera. Gerrako notiziak entzuten zituzten.

728. Politika giroa Eibarren (AB-157/010)

Annual-go gerra du gogoan Felisak. Politika giroa Eibarren beti baketsua izan dela dio, politikari begirratu gabe elkartasunean bizi zirela. Toribio Etxebarria eta C´ndido Arrizabalaga "Apotxiano" gizon onak zirela dio. Aquilino Amuategi ezagutu eta berarekin bizi izandako anekdotak kontatzen ditu.

729. Osasun kontuak: medikuak, botikarioa, emagina (AB-157/012)

Osasun kontuak azaltzen ditu. Medikuen izenak gogoratzen ditu: Fernando Zuloaga; Isaac Viteri; D. Ciriaco Agirre; D. Ignacio Arrillaga. Partera lanak egiten, Ger´nima. Umeak etxean jaiotzen ziren. Botikarioa, C´ndido Muñoz.

730. Alabaren jaiotza (AB-157/013)

Felisak alabaren aurdunaldia eta jaiotza nolakoak izan ziren azaltzen ditu. Candido Muñoz botikarioa mediku bat beste izaten zela kontatzen du.

731. Neska-mutilen arteko desberdintasunak etxeko heziketan; egin beharreko zereginetan (AB-157/014)

Neska-mutilen arteko desberdintasunak etxeko heziketan; egin beharreko zereginetan. Neskek etxean lagundu behar izaten zuten eta etxeko lanak egiteaz gain, aitari eskopeta garbitu, txoriak garbitu eta prestatu, e.a egin behar izaten zituztela kontatzen du Felisak.

732. Garbitasuna: latsarriak, etxeko zereginak, e.a (AB-157/015)

Latsarria Txontan (Elgezuatarrena), Bidebarrieta kalean, e.a. Amaren jatorria eta lixiba nola egiten zuten azaltzen du Felisak; harizko izarak nola garbitzen zituen. Erropak ez garbitzearen auzoko batek tranpak nola egiten zituen azaltzen du.

733. Mekola baserrian jaiotakoa; Eibar nolakoa zen orduan (AB-158/002)

Mekola baserrian jaiotakoa. Tutulu, Ipurua, e.a. Zezen-plaza; Toribio Etxebarria kalea, e.a. Kuartela non jarri zuten gerra garaian.

734. Amuategi batailoia; frontea Eibar inguruan (AB-158/004)

Amuategi Batailoia. Eibartar gehienak batailoi honetan zeuden. Beste batailoi batzuk: UGT-koak; abertzaleak; CNT-koak. Frontea inguru honetan egon zenean, bertako jendearen bila hasi ziren, mendia ezagutzen zuten mutilen bila. Alejandrok, txofer lana egiten zuen.

735. Isasi ingurua nolakoa zen; Markeskua jauregia (AB-158/007)

Isasi ingurua zelakoa zen. Kiputzaneko frontoia, taberna. Gregorio Anituak egin zuen gerora bertan etxe berria. Markeskoako jauregia eta Urquijo-ko Markesa. Musean egiten zuen Asolaigartza eta Otaolaerdiko baserrikoekin.

736. Zineak Eibarren: kiputzanekoa; pabellón Alfonso XIII. (AB-158/008)

Kiputzanekoan zinea eta frontoia ere egon ziren. Untzagan "Pabelloia" zinea (Pabellón Alfonso XIII).

737. Lan-baldintzak: soldatak, ordutegiak,... (AB-158/009)

Soldatak nolakoak; lan-ordutegia. Igandetan ere lanera joaten zen. Basora egurretara.

738. Armagintzaren garrantzia herriko ekonomian; krisiak (AB-158/011)

Eibarren, armagintza zen industria nagusia. I Mundu Gerran urretan ordaintzen zuten. Gerra amaitu zenean, krisia. Herri-sukaldeak.

739. Danok-bat kooperatibaren hastapenak (AB-158/012)

Primo de Rivera diktadore zela, Danok-bat kooperatiba sortu zen. Josteko makinak egiten hasi ziren 1927 inguruan. Primo de Rivera Eibarrera etorri eta josteko makinen eskera handia egin zuen. Kooperatibaren handitzea.

740. Krisi ekonomikoa Eibarren; Ignacio Zuloaga eta elkartasuna. (AB-158/013)

Krisi garaian Ignacio Zuloagak koadro bat saldu eta irabazitakoa herriari eman zion. Herri-sukaldeak.

741. Jatorria: familia kontuak (AB-158/014)

Mekolan jaio baina berehala Zezenbidera joan ziren bizi izatera. Txaltxaneko taberna, korta bat zen. 4 anai-arreba; gazteena Durangoko bonbardaketan hil zen

742. Ume-umetatik lanean; eskolara joateari utzi behar (AB-158/015)

10 urte zituenean, rekadista bezala hasi zen lanean. Eskolara gutxi joan zen. Irakaslea nolakoa. Umeen okerkeriak.

743. Ogibidea nola ikasi zuen (AB-158/016)

Ogibidea non ikasi zuen. Aprestuz moduan egon zenean zeintzuk izaten ziren bere zereginak. Txantoiak.

744. Gurasoen jatorria; ezkondu eta Eibarrera bizi izatera (AB-158/017)

Aita Plazentziakoa, San Andres baserrikoa; Ama, Osintxuko Oregi baserrikoa. Ezkondu eta Eibarrera etorri ziren bizi izatera

745. Eibarko andraetxeak. (AB-158/018)

Zezenbide inguruan andraetxeak. Inguruko herrietatik jende asko etortzen zen. Umetan, andraetxeke neskekin harreman ona zuten.

746. Emakumearen egoera: etxea, familia, e.a (AB-158/019)

Eibarko emakumeek andraetxeei buruz zer pentsatzen zuten. Emakumearen egoera; ume asko, lan asko. Gaurko egoera; aldaketa handia.

747. Emakumearen egoera: etxea, familia,... (AB-158/020)

Emakumeen lana. Erropak garbitzera latsarrietara. Latsarriak Eibarren.

748. Urki inguruan zeuden baserriak (AB-158/021)

Zezenbide ingurua zelakoa zen. Txaltxaneko baserria. Petra eta Mariaren andraetxeak. Abontza baserria; bertan ere latsarria zegoen. Ipurua, Tutulu; Tutulu gainekoa; Ubitxa baserriak."Ospas"eneko baserria Urkin.

749. Harakinen lana bildots garaian (AB-158/027)

Bildots sasoia; harakinak Eibarren.

750. Bildots garaia (AB-158/028)

Bildotsaren zati guztiak aprobeztatzen ziren.

751. Lagunarteko giroa: jai egunetan afari-merienda egiteko ohitura (AB-158/029)

Jai egunetan afari-merienda Txaltxanean. Badet taberna. Bilbotik etortzen zen jendea Badetesanera. Jende ezagun asko joaten zen bertara.

752. Alfa, Eibarko ekonomiaren suspertzaile (AB-158/036)

Alfan lan egindakoa. Eibar guztia mugitzen zuen Alfak; urte batzuk oso onak izan zituen. Josteko makinak; fundizioa; e.a. Ekonomatoa; koloniak; dendak; e..a.

753. Lan giroa Eibarren: sirenak; langileak urdinez jantzita, e.a. (AB-158/038)

Lan-orduak; sirena. Langile guztiak batera irtetzen ziren.

754. Futbolaren hastapenak: jokalari internazionalak (AB-158/042)

Futbolaren hastapenak. Futbol zelaia. Jokalari internazionalak: Mugerza; Etxeberria; e.a.

755. Gerra zibilean auto-gidari eta korreo lanak (AB-160/021)

Gerra zibila; frenterako txoferrak behar ziren. Lehenengo Debatik harea ekartzen ibili zen; gero korreo bezala jardun zuen, gerrako parteak alde batetik bestera eramaten: Eskoriatza, Aretxabaleta; e.a..

756. Gerrara boluntario: nazioartearen laguntza eza (AB-160/022)

Gerrara, boluntario bezala joan zen. Frantziak ez zuen parte hartu Espainiako Gerra Zibilean. Alejandroren teoria gai honen inguruan. Alemania, Italia... Eibarko gazte gehienak joan ziren boluntario gerrara.

757. Gerrara joateko erabakia; idealismoa (AB-161/001)

Gerra zibilaren inguruko gogoetak; dena utzi (etxea, familia, e.a.) eta gazte asko gerrara joatea erabaki zuten. Hala ere, ez du uste bera ausarta izan zenik. Besteak beste Extremaduran egon zen, frentean, eta orduko hainbat pasadizo kontatzen ditu.

758. Ausardiaren inguruko gogoetak (AB-161/004)

Ez zuten uste horren luzea izango zenik gerra. Fusil gehiago izan bazituzten... Ausardiaren inguruan gogoeta egiten jarraitzen du; bera ez zela ausarta izan, bai ordea frentean lehenengo lerroan ipintzen ziren hainbat eta hainbat mutil.

759. Gaztetako idealismoa; gerran parte hartzeko nahia (AB-161/005)

Gerran parte hartzeko gogoia bai; idealak defenditzeko beharra sentitu zuten, baina oso arma gutxirekin. Alejandro izatez marinakoa zen; Zumaian eta Bilbon aurkeztu zen, baina "excedente de cupo" zela eta, ez zuten hartu. Ondarroa eta Bermeoko itsasgizonak, haiek bai izan ziren benetan ausartak Alejandroren ustetan.

760. Gerrako ibilerak; ausardiaren inguruko gogoetak (AB-161/008)

Ausarta izatea zer den azaltzen du. Méridan egindako egonaldia. Erljioaren garrantzia frentean; "confesar y comulgar". Villanueva de la Serena.

761. Gerra zibilaren inguruko gogoetak (AB-161/011)

Eibar soldaduz beteta egon zen frentea bertan egon zenean; orduko bizimodua nolakoa zen kontatzen du. Alejandro frentean zegoen eta gutxitan etortzen zen Eibarrera, baina behin baimena eman zioten eta gogoan du oraindik obusak nola bota zituzten. Hasierako hilabetetan lasai ibili ziren, Madrid aldean zebiltzan eta, hura hartu nahian; gerora inguru guzti hau hartzera etorri ziren.

762. Gerra zibila Espainian (AB-161/012)

Toki batzuetan borroka gogorrak egon ziren; etxez-etxeko borrokak: Brunete, Belchite, e.a. Gerra zibila Guadalajara inguruan. Gosea izugarria zen inguru hartan; mutil askok bizimodua nolabait aurrera ateratzeko soldadu egitea erabakitzen zuten. Tropa italiarren inguruko zenbait azalpen.

763. Gerrako frentea Eibarren (AB-161/013)

Frentea Eibarren egon zeneko zenbait aipamen. Hasieran Amuategi Batailoian ibili zen, lotura lanak egiten; posta eramaten zuen alde batetik bestera. Gerora blindatu batera pasa zuten, UGTaren 8. Batailoira. Eusebio Lafuente eibartarra ere bertan egon zen. Amuategi Batailoiak Isasin izan zuen egoitza; beraiek "rantxua" jatera, frontoira joaten ziren. Frentea bertan egon arren, geldirik zegoen eta tarteka nahiko lasai egoten ziren.

764. Frenteko bizipenak (AB-161/014)

Frenteko bizipenak; trintxeretan zeudenen egoera, e.a.

765. Gerran bizi izandako estuasunak (AB-161/015)

Gerra ostean, urte askoan lo egin ezinda. Estuasun handiak pasatu zituzten gerran eta beldurra ezin kenduta bizi izan zen urtetan.

766. Intxortako sarraskia (AB-161/016)

Gerran momentu txar asko bizi izan ditu; Intxortako sarraskiaren inguruan zenbait datu ematen ditu.

767. Bonbardaketak Eibarren (AB-161/017)

Eibarren ere bonbardaketak egon ziren; O'Donell kalean egon zen babeslekuan hainbat hildako egon ziren (70 inguru). Bonbardaketak izaten zirenean, kanpaiak, autoen sirenak, e.a. jotzen zituzten jendeari abisatzeko.

768. Gerra zibila Eibarren (AB-161/019)

Beste behin, nazionalak Eibarrera sartu eta gero, bonba bat bota zuten (hutsegitea izan zen) eta Udaletxean jo zuen.

769. Errepublikaren vs Francoren baliabideak (AB-161/026)

Eibartik irten zirenean, indarrak makalduta zituzten; ez zuten aurrerapenik egiten. Baliabide oso gutxi zituzten (hegazkin, itsasontzi, armak; e.a.). Arma txekoak heldu zirenean, pixkat animatu ziren. Nazionalak berriz, denetik zuten: abiazioa, armamentu ona, blindatuak, kainoiak... Francoren tropek Extremadura, Badajoz-en egin zituzten sarraskiak aipatzen ditu. "Gernika be, Banco de Pruebas bat izan zan".

770. Frontea Eibarren (AB-161/027)

Beraien dotazioa ona zen, eibartar asko zeuden; "Kalamua hartzia nahi juen". 14 miliziano inguru ziren guztira eta bi blindatu zituzten. Tenientea: Juan Sol Artolazabal. Frontea poliki-poliki atzera; beraiek izan ziren azkenak irtetzen.

771. Gaztetan perretxikotara Elgeta aldera (AB-162/003)

Gaztetan mendira sarri joaten ziren: Elgeta aldera, Karabietara, e.a. Orduan ez zen inor perretxikotara joaten. Onddo ugari hartzen zituen, baina etxean amak ez zituen nahi izaten, olio asko behar izaten zuten eta. Perretxikoak orduan ez ziren saldu ere egiten.

772. Karabieta ingurura perretxikotara; gerra garaian eta gerra ostean, gose handia (AB-162/005)

Karabieta inguruan perretxiko asko. Tailarreko mutil gazteena perretxikotara bidaltzen zuten; tabernaren batean prestatzeko esan eta gero denak jatera joaten ziren. Gerra garaian, urretan kobratzen zela esaten dute. Gose handia.

773. Futbol-taldeak, futbol-zelaia (AB-163/010)

1914an Otola-erdikoa futbol-zelaia zabaldu zen, 1919rarte. Eibarko futbol-taldeen izenak. Pilotan egiteko ere zaletasun handia.

774. Mezatara joateko ohitura gaztetatik (AB-164/002)

93 urte ditu eta dena asko aldatu dela uste du. Lehenago Eibarren jende asko joaten zen mezatara.

775. Errebal kalea nolakoa zen; dena aldatuta dago (AB-164/003)

Estazio kalean jaiotakoa; gerora Errebal kalera joan ziren bizi izatera. Gerra garaian suntsituta geratu zen. Nolakoa zen kalea: mojen komentua; "Kontadorekua", e.a. Ogibidea non ikasi zuen. Dena aldatuta, ezagutu ere ezin egin.

776. Baskulagintzan non ikasi zuen (AB-164/004)

Zein tailarretan ikasi zuen baskulagintzan. Urte pare bat egin zituen bertan soldadutzara joan arte.

777. Donostia inguruan ezagututako bertsolariak (AB-164/009)

Txirritaren anekdotak Donostian; Peio Errotarekin gertatutakoa. Txirrita ez zuen ezagutu, baina Donostian beste bertsolari batzuk bai.

778. Gitarra jotzen lagun artean (AB-164/011)

Gitarra jotzen ikasten. Berak, "Emete"k eta Bolunburuk ikasi zuten, azkenaren anai batekin. Pedrok sarri jotzen zuen, lagun-artean, jaietan, afarietan... Soldadutzan zegoela ere bai.

779. Baskulagintzan non ikasi zuen; ondo marrazten jakitearen garrantzia (AB-164/013)

Baskulagintza; ogibidea nola ikasi zuen. Zeleta eta Albisteginean hasi zen ikasten. Aprendizaren lana zein izaten zen. Artea duenak erraz ikasten du. Marrazten jakitea oso garrantzitsua; dibujo eskolan Zulaika eta Artamendirekin asko ikasi zuen. Lucas Alberdik ere bertan ikasi zuen.

780. Bere izena (Pedro Arrizabalaga) daraman tailerra noiz eta nola ireki zuen (AB-164/023)

Ugartetxea hil zenean "Zozua" bere kabuz hasi zen lanean; tailerra jarri zuen gerra ostean, Pedro Arrizabalaga izenarekin. Poliki-poliki hasi ziren, beste batzuekiko lanak egiten; denbora gutxira lan gehiegi.

781. Eskopeta asko kanpora saldu izan dituzte (AB-164/025)

Eskopeta asko saldu dituzte. Behin kanpotar batzuekin gertatutakoa.

782. Eskopeta fina egin izan dute beti; erosle garrantzitsuak (AB-164/026)

Beti eskopeta fina saldu izan dute. Jende ospetsuarentzat egindako lanak. Lan asko egin eta sekula kobratzen ikasi ez.

783. Dantzaldiak Rialtoan. Pertsonai ezagunak Eibarren. Diru-batzeak herriz-herri (AB-166/001)

Agustín Zuloaga "Txokolo", musikari oso ezaguna Eibarren. Dantzaldiak Rialtoan. Errepublikak proklamatu zenean, Alcalá Zamora eta Queipo de Llano Eibarrera etorri ziren. Kulixka itsasontzia urperatu zenean, eskean irten ziren herriz-herri.

784. Eibarko eta Elgoibarko futbol-taldeak; jokalariak (AB-166/003)

Futbol taldeak; jokalariak; e.a. "Gallo" futbol taldea. Casimiro Errasti; el "Che" (porterua). Gerra Zibileko kontuak: Santoñan entregatu ziren. Handik Gasteizera; Burgosera eraman zituzten. Eibar vs. Elgoibar partiduetan, lehia handia. Eibartarrak oso onak: Casimiro Errasti, Catalana, Melchor Garate, Justo Larrañaga... Tren espezialak irtetzen ziren Eibartik Elgoibarrera. "Eibarren kontra jokatu eta gibela botatzen genduan guk gero!". Elgoibarko futbol taldea ere, polita: Azpiazu; San Martin; Beristain (porterua); Ciriaco Quincoces; Oliveri... Gabilondo, Suarez. S.D. Eibar.

785. Futbola: lehia handia Eibar eta Elgoibarren artean (AB-166/006)

Futbola; Federación Guipuzcoana. Liga txiki bat jokatzen zuten. Lehia handia. Eibarren, irabazi egin behar zen. Eibarren ez zegoen futbol-zelairik eta Elgoibarrera joan behar izaten ziren, Lerunera.

786. Fomento Industrialean biolina jotzen (AB-166/007)

Umetan Musika Bandan jotzen zuen. Tangoa, modan jarri zen. Biolina jotzen noiz eta norekin hasi zen. Salón Teatroan orkesta bat zegoen, eta bertako biolin-joleekin ere zerbait ikasi zuen. Fomento Industrial (hasieran Kafea zen eta bere ustez bertatik hasi zen Eibarko industria indartzen) eta Casino Artistan dantzaldiak egoten ziren. Juanito Fomento Industrialean hasi zen biolina jotzen.

787. Dantzaldiak Rialtoan; Casino Artistan (AB-166/008)

Musika ikastera Elgoibartik bizikletaz etortzen zen Eibarrera asteen 3 egunetan. Casino Artistan noizean behin jotzen zuen, baina bestela Rialtoan jotzen zuen jai egunetan, arratsaldez eta gauez (1931-1936 bitartean). Aratusteetan, ostegunetan dantzaldia. Casino Artista non zegoen; 1931an egin zen. "Domingo de piñata". Garizuman, dantzan egitea pekatua zen. Pazkoan hasten ziren berriz dantzaldiak, uztaile arte. Udako hilabeteetan Debara joaten zen sarritan biolina jotzera.

788. Rialto dantzalekua: nolakoa zen; dantza-txapelketak (AB-166/009)

Rialtoa ireki zenetik (1931) bertan jotzen hasi zen. Lehenengo orkesta. Rialtoa zelakoa zen: dantza egiteko pista; pisu desberdinak; e.a. Bidebarrieta kalera ematen, "ambigú" bat zegoen. José Ramón Orozko tenorea. Agustín Zuloaga, musika bandako zuzendaria. Jendeak oso ongi egiten zuen dantzan; txapelketak ere egoten ziren. Kanpoko orkestak etortzen ziren batzuetan. Beraiek ere kanpora joaten ziren: Zumarragara Santa Luzietan, e.a.

789. Rialto dantzalekua: inguruko herrietatik jende asko joaten zen (AB-166/010)

Bikote asko Rialtoan ezagutu ziren. Inguruko herrietatik ere jende asko joaten zen bertara: Bergara, Bilbo, e.a. Igande guztietan dantzaldia egoten zen, arratsaldez eta gauez. Ezkontzetan ere sarri jotzen zuen bibolina beste musikari batzuekin batera (Billabona; Arriola;..), Arrraten, Loiolan...

790. Sal3n Teatro-an egoten ziren ikuskizunak (AB-166/011)

Sal3n Teatro-an, orkestinaren bat egoten zen. Zinea mutua izaten zenez, orkestinaren musika entzuten egoten ziren. Grajales-ek (Sal3n Teatroko jabe izan zana) sarritan ekartzen zituen ikuskizunak (varietes, kabaret-ak..). Villa Mar3a eta Villa Pepita.

791. Putetxeetako neskek trenez heltzen ziren Eibarrera (AB-166/012)

Putetxeetako neskei azterketa medikoa non egiten zitzairen. Lagun-taldeak Untzagan, neskei gauza politak esaten. Neskak trenez etortzen ziren Bilbotik, eguerdian. Inguruko herrietatik ere jendea etortzen zen.

792. Jaiegunetan dantzaldiak hainbat tokitan (AB-166/013)

Rialtoa. Igandetan, pilota partidua egoten zen Astelena frontoian eta ondoren dantzaldia "La Romeral" bandarekin. Jaiegunetan dantzaldiak antolatzen zituzten Sal3n Teatroan, Rialtoan, Astelena frontoian eta Untzagan (Banda Munizipalak jotzen zuen bertan). Neguan dantzaldiak ostegun arratsaldetan izaten ziren eta udan, gauetz. Inguruko tabernetan, mahaia kanpoan jartzen zituzten (Noche, Txoko, Kaiku, Mototx (Tupi ondoan).

793. Fomento Industrial; Errebal kalean zegoen kokatua (AB-166/014)

Fomento Industrial. Pistola eta eskopeta asko saltzen ziren atzerrira. Agustinen komentua.

794. Batzoki zaharra; Don Policarpo Larrañaga (AB-166/016)

Neskatan. Emaztea Rialtoan ezagutu zuen. Batzoki zaharra. Batzokia Muñoatarrenean zegoenean, berak orkestra batekin jotzen zuen bertan. Don Policarpo Larrañaga abadea.

795. Garraioak: trena; dilijentziak (AB-166/018)

Lehenengo trena tximiniarekin ezagutu zuen; ondoren etorri zen elektrikoa. Elgoibarren bi dilijentzia zeuden: Pedro "kotxerua" eta Baltasar pelotariarenak. Gogoan du oraindik Baltasarrek non gordetzen zituen zaldiak. Etxea, fonda bezala erabiltzen zuen. Markinara, Azkoitira, Azpeitira, e.a. joaten ziren.

796. 3ngel Garate "Beltxi", musika bandako zuzendari (AB-166/022)

3ngel Garate "Beltxi", amaren senidea zen. Musika Bandako zuzendaria izateaz gain, bibolina ere jotzen zuen. "Orquesta Bret3n"-en zuzendari lana ere egiten zuen. Preso egon zen Dueson. Han ere orfeoi polita egin zuen. Aratusteetan "estudiantina"ren bat; gaixoentzako diru-batzeak, e.a. antolatzen zituen. Carlos Larrañaga (azkoitiarra); 1934an hil zuten.

797. Parrokiako orfeoia (AB-166/024)

Elizako orfeoian ere jo izan zuen. 3ngel Garate "Beltxi"; "Tardini". Aita Donosti ez zuen ezagutu. Juanito Gisasola. Mezak latinez izaten ziren; meza ederrak. Eguren, tenore bikaina.

798. Dantza-lotua, pekatua abadeentzat; inguruko herrien nortasuna, izaera (AB-167/001)

Antzinako Eibar. Dantza-soltea. Azkoitikoak Eibarrera edo Elgoibarrera etortzen zirenean, orduan bai dena libre!. San Isidron (Azkoiti inguruan), ezin izaten zuten dantza-lotua egin, abadeak guztiz debekatua bait zuen. Eibar gorria. Elgoibar abertzalea; sozialista gutxi zeuden eta karlista bakar batzuk. Horregaitik gerra zibila hasi zenean, gazte guztiek alde egin zuten. Elgoibar herri baketsua; elizara joatekoak ziren gehienak. Eibarrera etortzeko jokera.

799. Musika taldeak eta musikoak (AB-167/002)

Isaac Irusta. "La Marcial" musika banda. "La Romeral", banda partikularra zen (Banda Munizipaleko musikoez osotua). Musika Banda Munizipalean zenbat kobratzen zen. Rialtoan, aratusteetan, bikoitza jotzen zuten eta bikoitza irabazi "...eta 40 pta 1931an asko zan!". Elgoibartik Eibarrera joanetorria trenez, 45 zentimo izaten ziren.

800. Musikaren inguruko azalpenak (AB-167/003)

Koruarekin ere sarritan jotzen zuen. Elizako organoa nola jo behar den. Inprobisazioak ez zaizkio gehiegi gustatzen. (bibolina joko balu bezala, besoak mugitzen ditu; irudi politak). Antonio Sarasuak eta berak, partitura jarraitzen zuten. Tangoa polita da bibolinarekin joteko. Elizako musika asko gustatzen zaio. Musika desberdinak; vals-ak... Barrainkuak arreglo oso onak egiten zizkion partituretan. Elizan, musika mota batzuk debekatuta. Musikoak. Gaur egunean oraindik ere, Loiolan esaterako, organistak oso espezialak dira jo beharreko partiturekin. Arraten sekula ez da arazorik egon.

801. Musikarako zaletasuna; Bilbo inguruko organistak (AB-167/005)

"Tardini". Gustoren norekin jo izan duen kontatzen du. Antonio Sarasuarekin ere oso gustora jotzen zuen, entsaiatu egiten zuten. Musikarako zaletasun handia izan du beti. Almazan bat eduki zuen Ermuan, "Hierros Arbetxa" (?). Lanetik irten, etxera joan eta bibolina jotzea gustatzen zitzaion. Ezin izaten zen bibolina jo gabe egon. (Bibolina joko balu bezala, besoak mugitzen ditu; irudi politak). Barrainkua, laguntzailerik onena. Bilbon ere jo izan du berarekin. Non jotzen zuen. Bilbo inguruko organistak.

802. Juanito Gisasola eta Albina Madinabeitia (AB-167/006)

Juanito Gisasola. Albina Madinabeitia-rekin Salón Teatroan jotzen zuen. Albinari omenaldia egin zitzaionean, Antonio Sarasua eta Juanito Etxaniz Arrasatera joan ziren. Albina, Orquesta Nacional-ean 1go bibolin bezala egon zan Madriden. Albina, San Andrés elizara etorri zen jotzera eta anekdota bat kontatzen du horren inguruan. (pieza bat gogoratzen du; irudi politak). Juanito Gisasola.

803. Soldaduska Irunen egin zuen; gerra garaiko kontuak (AB-167/007)

Irungo Kaputxinoen komentuan interno bezala egon zen ejerzitoarekin, Real Unioacuten futbol taldean sartzeko. Sukaldari laguntzaile bezala egon zen. Garai hartan, Real Unioacuten-lehendakaria militarra zen. Juanito, "entxufatuta" egon zen. Entrenamentuetara joan behar izaten zen astean 3 bider. Kartilla militarra. Donostiatik Elgoibarrera joateko, "salbokonduktua" behar izaten zen. 1938an libre gelditu zen. Francoren soldadua.

804. "Burilean" egiteko marrazten jakitea derrigorrezkoa (AB-168/001)

Aita "gubilista" zuen; Eibarren onenatarikoa. Marrazkilari oso ona, artista. Tailerrean ofizioa ikasi eta gauzez marrazten ikastera joaten zen. "Burilean" egiteko marrazten jakitea derrigorrezkoa. Jazinto Olaberekin ikasi zuen "Konseju Zaharrian".

805. Gerra Zibila ume baten ikuspegitik (AB-168/005)

Gerra Zibila. Frantziara ihes egin zuten; lehenengo Tolosara eta gero Donibane Lohizunera. Bertako txokolatinak gogoan ditu oraindik. Eibarrera etorri zenean (1940 inguruan), ogirik ere ez. Etxean egoera gogorra bizi zuten: ama egunero-egunero kuartelera joan behar izaten zen; osaba kanpoan zuten eta aita 7 urtez kartzelan egon zen. Aita Asturiasen harrapatu zuten (Aitak idatzitako bertso batzuk erakusten ditu). Bera gerra garaian umea zen eta ez zuen ezer ulertzen.

806. Urkizu inguruan bonbak kentzen (AB-168/007)

Gerra garaian, herrira itzuli zirenean, Urkizuko euren etxea zutik zegoen eta han bizi izan ziren. Amak kontatzen zuen euren aitona eta "Raku" Urkizu inguruan bonbak kentzen ibili zirela. Etxeetako "pegoretan" bonbak ipintzen zituzten eta beraiek atzetik joan eta bonbak errekarra botatzen zituzten.

807. Gerra ondorengo urteak: gosea; estraperloa (AB-168/008)

Gerra ondorengo urteak. Gosea. 1942-1943an hasi zen egoera hobetzen. Ordura arte estraperloa. Olioa zenbat ordaindu behar izaten zen. Amandrearekin Gasteizera joaten zen batzuetan, eta handik patatak ekartzen zituzten. Irina hartzera Bergarara joaten ziren; nola ekartzen zuten. Fideorik ere ez zen egoten.

808. Baserrira joaten ziren jatera gose garaian (AB-168/009)

Amona baten lehengusinak baserrira zuen Mekolalden. Hamabost egunean behin bertara joaten ziren jatera. Baba gorriak urdaiarekin, txorizoa, baserriko ogia... lehertu arte jaten zuten. Baserritarrek artoa, irina, eta abar entregatu egin behar izaten zituzten, baina betiere zatiren bat gordetzen zuten. Baserrietan ere estraperloa egiten zen. Baserrietakoek ez zuten goserik pasa, baina kalekoek bai.

809. Gerraostea: estraperloa; errazionamendua; salbokonduktoa (AB-168/010)

Gerra ondorengo urteak. Errazionamendua. Olioa, tabakoa, eta abar erosteko kartilla bat egoten zen. Kartillak seilu antzekoak zituen eta dendariak erosi ahala kentzen zituen. Seiluak amaitzen zirenean beste kartilla bat behar izaten zen eta haren zain egon behar. Salbokonduktoa. "Gerria gogorra da; gerria azkena da". Garbitasun eza; zorriak. Etxeak, tabernak errekiatuta. "Zinera jua eta Cara al Sol kantau bihar lehelengo!". Elizara ilaran joaten ziren igandeetan, bestela ez zegoen notarik.

810. Francok Eibarrera egindako bidaiak (AB-168/011)

Franco birritan etorri zen Eibarrera. Lehenengoz 1942 inguruan. Gero bera GAC-ean lanean zegoela, Armeria Eskolara joan zen. Arnaldo, GAC-ko stand-a ipintzen egon zen. Franco aldamenean izan zuen (1964-1965 inguruan). Lehenengoz etorri zenean, Carlos Larrañagaren etxeak inauguratzera etorri zen. Jendea etxeetan egon zen ezkutatuta, baina beraiek ez zuten beldurrik eta kalean pasatu ziren, grisak tiroka aritu arren.

811. GAC lantegiaren inguruko kontuak: kokapen desberdinak; produkzioa (AB-168/015)

GAC lantegia. Hasieran arduradun bezala egon zen; ondoren bulego teknikora pasatu zuten. Lantegiak izan dituen kokapen desberdinak. Gerra aurretik "Mendiguren y Zarraua" eraikinean egon zen, Arragueta kalean ("Korriuanian"). Gerra ostean Txontan, 1974ra arte. Bizikletak egin aurretik, pistolak eta errifleak egiten ziren GACan. Arnaldo 1957an sartu zen. "Ciclostatic" famatua berak diseinatutakoa da. 1985ean lantegian berrantolaketa egin behar zutela eta, hura utzi eta bere kontura hasi zen.

812. Boom industrialia Eibarren: lan-baldintzak; langileak; kaleko giroa (AB-168/016)

Boom industrialia. Guztientzat zegoen lana. 1958an krisia etorri zen. Hala ere, GAC lantegiak beti ordaindu zuen langileen soldata. Ordutegia. Langile guztiak buzoekin. Lanetik irten eta eguneroko ohiturak. Urkizu inguruari "barrio siren´ico" esaten zioten; Txontari, "el barrio patri´tico" (Txonta txon-ta....). Lantegietako sirenak. Kalean, tabernetan jendea sartu ezinda egoten zen. "S´bado ingl´s". Hasieran ez zen benetako "zapatu inglesa"; arratsaldera arte lan egin behar izaten zuten. Gerora, larunbat guztia jai eguna.

813. Eskola kontuak: Elvira, Isasiko fraideak; Armeria Eskola (AB-168/018)

Eskola kontuak. Señorita Elvira. Hasieran klase partikularrak ematen zituen. Gero fraideetara joan zen Isasira. Nahiko gogorrak ziren; euskaraz egiten zuenari zigorra jartzen zioten. 13 urterekin Armeria Eskolara joan zen. Umetan, "Cara al sol" abestu behar izaten zen eskolan. Armeria Eskolara joateko gogoia izaten zuten, fraka luzeak janzteko (orduan jada gizonak ziren; mezatara joateko obligaziorik ez...).

814. Lantegietako jabeak lanean behetik hasitakoak (AB-168/023)

GACko nagusiarekin (Anitua) harreman estua izan zuen. Gaur egun gauzak asko aldatu dira. Lehenago lantegietako jabeak ere behetik hasten ziren: eskuak zikindu, orduak egin, arazoak ikusi; etab.

815. Luis Bolunburu atleta (AB-168/025)

Luis Bolunburu. Oso gazte zela hil zen, 1921-1922 inguruan (23 urterekin). Afrikara eraman zuten gerrara. Handik tuberkuloso itzuli zen. Kirol munduan nola hasi zen; korrikalari ona. Mortero 45 (42?) taldea. Atletismorako zaletasun handia.

816. Futbolerako zaletasun handia Eibarren (AB-168/026)

Eibar eta futbola. Herrian, hiru futbolari "internazional" egon ziren batera: Roberto, Ziriako eta Mugerza. Beste inork ez omen du egin halakorik. Futbolerako zaletasun handia zegoen herrian. Elgoibarko zaletuekin harra-marra handiak izaten zituzten. 1947an ireki zen Ipuruako futbol-zelaia; eta gainera Elgoibarrek irabazi zuen.

817. Garai bateko putetxeak Eibarren (AB-168/028)

Arnaldok eta Juanito Lazpitak Eibarren garai batean egon ziren putetxeak aipatzen dituzte: Petra eta María. Casablanca; Villa Conchita; Villa Carmen. Izenak aldatzen joan ziren. Mutikotan pinaburuak batzen zituzten neskentzat eta trukean bularrak erakusten zizkieten. Gerra aurrean ogerlekoa kobratzen ei zuten. Gerraostean alde egin zuten. Non zuten etxea, Untzaga inguruan; aldamenean Juana 'Caballo'ren etxea. Eta ondoan AVELUX lantegia zabaldu zuten. Petra eta Mariak kanta ere bazuten.

818. Musikarako zaletasuna Eibarren (AB-168/029)

"Sal´n Teatro" a noiz jausi zen gogoan dute (1952-VII-3); egun hura nolakoa izan zen. Juanito Lazpita eta musika: "Ego", Trío Lazpita. Eibarren musikarako zaletasun handia egon da beti. Pepe Bolunburu; Lorenzo Sodupe ("Gelatxo"); Juan Lazpita; Alejandro Gisaola; Eusebio Orueta; etab. sarri jotzen zuten "Sal´n Teatro" an. "Sal´n Teatro" a nolakoa zen: galeria ("paraíso" esaten zioten); anfiteatroa... oso antzoki polita zen. Non jotzen zuten. 1941a, gose urtea izan zen eta anekdota bat kontatzen du horren inguruan.

819. Eibartik irteten ziren dilijentziak; bandoleroen inguruko ipuinak (AB-168/032)

Aitonak dilijentzia eramaten zuen Gasteizera. Hiru egun egiten zituen joaten eta beste hiru etortzen. Dilijentzia non lagatzen zuen; arkabuzak kargatzen zituen. "Bandoleroen" ipuinak. 'Turkua' ere Plazentziatik etortzen zen. 'Matacaballos', egunero Elgoibartik etortzen zen.

820. Armagin onak Eibartik Asturiasera eraman zituzten (AB-168/033)

Luis Bolunbururen aita (Arnaldoren aitona), oso armagin ona zen. Trubiara (Oviedora) eraman zuten arma lantegira. Artista bat zen.

821. Armaginak eta grabatzaileak Eibarren; artista handiak (AB-168/034)

Eibarren beti egon izan da artista asko. Plazentzian ere oso armagin onak egon dira. "Esku-biharrian fenomenuak!". Bere aita grabatzailea zen eta Balduino erregearentzat eskopetak egin izan zituen.

822. Eibartar batek asmatutako kanta (AB-169/014)

Eibartar batek asmatutako kanta bat.

823. Arraindegi kalea zelakoa zen (AB-169/017)

Antzinako Eibar. Arraindegi kalea zelakoa zen azaltzen du Asunek.

824. Arraindegi kalea, ingurua zelakoa zen (AB-169/019)

Antzinako Eibar. Arraindegi kalea; Birjiñapea zelakoa zen.

825. Eibar gerra sasoian. Lehenengo bonbardaketa (AB-169/021)

Eibar gerra sasoian. Lehenengo bonbardaketa. Elizako kanpaiak jotzen hasi eta O'Donell kalean zegoen refugiora joan ziren Asun eta etxeok. Hildakoak izan ziren bonbardaketa hartan.

826. Arraindegi kalea, Eibarko kale ezaguna (AB-169/022)

Arraindegi kalea, Eibarko kale ezaguna nolakoa zen azaltzen du Asunek. Umeak errekan bainatzen ziren.

827. Umetan errekarra joaten ziren bainatzera; Alfako igerilekua (AB-169/023)

José Sarasua eta lagunak Maltzagara joaten ziren igerian egitera. Txontatik gora, Ferrolen (horrela esaten zioten menditik zetorren errekatxo bati) beste kunbo bat egiten zen. Matxarian ere igerilekua egon zen, presa eta guzti umeak igerian egiteko. Dena dela igerileku ederrena, gerra ostean Alfan egindakoa izan zen.

828. Meza nagusia latinez; elizako korua (AB-169/046)

Meza nagusia goizeko 10:00etan izaten zen, latinez. Gutxienez 3 abade egoten ziren. José elizako koruan abesten zuen. Elizako koruko zuzendaria. Tenore lehenengoan artean: Jose Mari Eguren; Asporosa; Arriola; Iraolagoitia; Martiniano Larrañaga; José Sarasua.

829. Aratusteetako konparsak; lagun-taldeak jai giroan (AB-169/049)

Aratusteetako konpartsak. Lagun-taldean ohitura konparsaren batean parte hartzea izaten zen. Gazteen artean kanturako zaletasun handia. Jai bezperan ere lagun-talde guztiak jai giroan ibiltzen ziren.

830. Larunbat arratsaldetan jai giro handia kalean (AB-169/051)

Eibarren abesteko zaletasun handia egon da beti. Larunbatetan lan egiten zen eta arratsaldeko 17:30etan makinak geratu eta jendea Arraindegi kalera joaten zen, bainuetxera. Salgadoneko tabernan afari-merienda egiteko ohitura handia. Inguruko etxeetatik gitarra batzuk jaitsi eta kale osoan izugarritzko jai giroa egoten zela gogoratzen du Asunek.

831. Badet tabernara jende ospetsua joaten zen (AB-169/052)

Badet taberna. Asun Angeraren aita, tenore zoragarria zen. Asunek gogoan du Badetesanetik aitari deiadarka zelan egiten zioten. Jende oso ezaguna etortzen zen Badetesanera (pilotariak, Athletic-eko jokalaria, Sota eta Aznar untzigileak...).

832. Gerra sasoian Valenciara, arma-fabrikara lanera (AB-169/054)

José gerra garaian Valenciara joan zen. Eskola pixkat hartu bertan (lima erabiltzen ikasi) eta lanera. Zer jaten zuten kontatzen du.

833. Gerrako pasadizoa: hegazkinen zarata eta bonbardaketak (AB-169/056)

Gerrako pasadizo bat kontatzen du Josek. Alemanen hegazkinen zarata eta bonbardaketak Valentzian ere bizi izan zituen.

834. Gerra sasoian Armeria Eskolako mutilak Valenciako arma-fabrikara eraman zituzten (AB-169/057)

Valenciako arma-fabrikari langile gehienak eibartarrak ziren. Armeria Eskolatik mutil ugari eraman zituzten. Metraileta modelu berria egitea lortu zuteneko kontakizunak. Arma-lantegiko zuzendaria, Galarraga eibartarra.

835. Gerra sasoian Eibarko lantegietako makinak Deustora; Errusiara exiliora (AB-169/058)

Gerra garaian Eibarko lantegietako makinak Deustora eraman ziren. Umeak exiliora (Errusiara) eramango zituzten itsasontzietara sartzeko Armeria eskolan hilara handiak egoten zirela kontatzen du Josek.

836. Abadiñotik Eibarrera bizi izatera (AB-170/005)

Aita eta ama Abadiñokoak ziren baina aitak Eibarren egiten zuen lan. Imanolek 7 urte bete zituenean, Eibarrera etorri ziren bizi izatera, 1928an.

837. Abadiñotik Eibarrera bizi izatera (AB-170/006)

7 urterekin Abadiñoko baserri batetik Eibarrera etorri, eta hiriburura zetorrela iruditu zitzaion. Eibartik zer gustatu zitzaion gehien azaltzen du Imanolek.

838. Inguruko herritarrentzat Eibar nolakoa zen (AB-170/007)

Inguruko herritarrentzat Eibar nolakoa zen; iritziak (Elgoibar, Bergara, Durango aldean).

839. Boxeoa Eibarren (AB-170/015)

Soldautzatik etorri eta boxeatzeko ikasi zuen. Eibarren lehenengo, Donostian geroago (La Perla, Gros).

840. Boxeoa Eibarren: borrokak Astelenan (AB-170/016)

Astelenan egiten ziren boxeoko konbateak; San Juanetan zezen-plazan.

841. Boxeorako zaletasuna handia (AB-170/018)

Gipuzkoako Boxeoko Federazioak antolatzen zituen konbateak. Boxeolarien izenak. Gerra aurrean eta gerra ostean zaletasun handia.

842. Boxeoa Eibarren: borrokak Astelena frontoian; Juanito "Txoko" antolatzaile (AB-170/019)

Borrokak Astelena frontoian izaten ziren eta San Juanetan zezen-plazan. Juanito "Txoko" izaten zen antolatzaileetako bat.

843. Boxeoa Eibarren: entrenamenduak Batzokian (AB-170/021)

Batzokian entrenatzen ziren, frontoian. Korrika, soka-saltuan egiten zuten, baina inongo diziplinarik gabe.

844. Pilotarako zaletasun handia Eibarren (AB-170/027)

Pilotarako zaletasun handia. Club Deportiboko txapelketetan parte hartutakoa (Astelena frontoian izaten ziren partiduak). Desafio handiak umeen artean ere. Astelena frontoia goizean goizetik beteta egoten zen. Frontoi zaharrea edo udaletxeko arkupeetan ere egiten zen pilotan.

845. Bizikletarako eta pilotarako zaletasuna Eibarren (AB-170/028)

Bizikletarako zaletasun handia. Gojenola; Mahoma...txirrindulari ezagunak. Madrid-Eibar karrerak indar handia izan zuen urte batzuetan. BH eta Orbea bizikleta-lantegiak. Baina txirrindularitzarako baino, pilotarako zaletasun handiagoa egon da. Astelena frontoian partidak domeka gauean eta ostegun gauean izaten ziren. Pilotari onak aste barruko partidetan ere.

846. Gerra aurreko pilotari ezagunak (AB-170/029)

Gerra aurreko pilotari ezagunak: Atano III; "Mondragonés"; Romano Etxaburu "Txapasta"; Urzelai; Altuna; e.a. Eskua garbi, babes gabe jokutzen zen orduan.

847. Miguel Gallastegi pilotaria (AB-170/036)

Miguel Gallastegi, ondo prestatutako pilotaria.

848. Eibarko frontoiak (AB-170/041)

Eibarko frontoi zaharrea palaz eta zestaz egiten zen; Astelenan eskuz eta lantzean behin paletaz.

849. Errebaleko komentua eta San Agustin eguneko prozesioa (AB-173/002)

Errebal kaleko jaia: San Agustin (abuztuaren 28an). Gauean musika egoten zen. Behin, urteurren batean prozesioa egin zen San Agustinen estatua karroza baten gainean zihoala. Errebaleko komentua, kapera. Don Juan Ibargutxik San Agustin egunerako kanta bat egin zuen euskaraz eta zati bat abesten du. Kale izena aldatu zuten, erdaldunek ezin zutelako ahoskatu.

850. Errebal kaleko eliza eta gaztaina jana (AB-173/005)

"Maiatzeko lorak", beti Errebal kalean egiten ziren. Eliza barrutik nolakoa zen azaltzen du. Urrian gaztainak eramaten zituzten bazkalostean elizan entseatzeko elkartzan zirenean; egosiak eta erreak nolakoak izaten ziren diote. Lekei punta eskuz kendu behar zitzaizela esaten zuen bere aitak.

851. Isasiko eta Errabaleko komentuetako mojak (AB-173/006)

Komentuan entseguak egiten zituzten eta gero mojek merienda ematen zieten. Isasiko komentuan tornua zegoen eta ez ziren inoiz mojak ikusten. Errebalgo komentuan bederatziruena egiten zen; mojek zerrenda pasatu eta gonei buruzko iritzia ematen zieten. Moja batzuk eibartarrak ziren, oso ezagunak.

852. Errabaleko elizako aldareak (AB-173/008)

Aldarea nolakoa zen azaltzen du Marinak: Amabirjina, aingeruak eta San Agustin. Beherago beste aldare bi zeuden: Santa Rita batean eta bestean Pragako haurtxo Jesus. Beste aldare batzuk zeuden, San Jose batean eta San Antonio bestean.

853. "Hiru txiki" goxoki-saltzailea (AB-173/013)

"Hiru txiki" goxoki saltzaileaz berba egiten du. Karamelua nola egiten zuten begira egoten ziren umetan, Untzagan.

854. Kaleko argazkilariak (AB-173/014)

Kalean argazkilariak edo "erretratistak" ibiltzen ziren, batez ere uda garaian. Gero etxera joaten ziren kobratzera. Gregoria Olañeta argazkilari belgiar batekin ezkondu zen eta Belgikara gerratik ihesi joan ziren umeentzat interprete lanak egin zituela kontatzen dute.

855. Errebal kalea nolakoa zen (AB-173/015)

Errebaleko argazki bati begira dabilta. Bere etxea nolakoa zen azaltzen du Marinak. San Juantxoneko etxea, Artamendineko etxea, Kandido Muñozen farmazia, "Madrileñua" denda eta Asalgianeko taberna aipatzen dituzte.

856. Errebal kalea eta inguruak nolakoak ziren (AB-173/016)

Errebaleko argazki bati begira dabilta. "Hojalaterukua" etxea, Julian de la Torre zapataria, Jesus Calvo sastrearena, Pakita bazarra, Sabina "barkilleria", San Juantxoneko etxea, Areatza kalea, garbitokia eta Arraindegi kalea aipatzen dituzte. Leopoldo Treviñoren kontuak aipatzen dituzte: "Biba kanpotarrak eta fuera eibartarrak!" Aguazilak aipatzen dituzte, "Alfiler" eta "Tomates".

857. Florentino Bueno izotz lantegia (AB-173/017)

Florentino Bueno izeneko izotz lantegia non zegoen azaltzen du. Barra luze batzuk egiten zituzten. Tabernetan erabiltzen zuten. Arraindegi kalean labaderoa zegoen eta garbiketari aritzen ziren.

858. Sukaldeko lurra eta txapa nola garbitzen zituzten (AB-173/020)

Sukaldea egurrezkoa izaten zen. Bi neskazahar etortzen ziren harea-potea saltzera, sukaldea garbitzeko. Lurra espartzuarekin eta txapa-gaina abarketa zaharren batekin garbitzen zituzten. "Sidol" izeneko garbigarriarekin garbitzen zituzten txaparen gainontzeko zatiak.

859. Egurrari argizaria nola ematen zioten (AB-173/021)

Argizaria sukaldea ez beste guztiko lurrean ematen zuten, alanbrearekin. Prozesu guztia kontatzen du Luzia Larreategik.

860. Gripeak jota hil ziren zazpi eibartar (AB-173/022)

Luzia Larreategi. 1909. urtean jaio zen Ibarkurutze kalean. Ama gripeak jota hil zen 1918an; beste sei eibartar ere gripeak jota hil ziren.

861. Bilbon kriada (AB-173/023)

Luzia 15 urterekin joan zen kriada Bilbora. 26 urterekin ezkondu zen San Andreseko parrokian, gerra hasi zenean. Bilbo ezagutu nahi eta haraxe joan zen kriada. Familiako kideak eta ohiturak kontatzen ditu. Zaldunak ikusi zituenekoa kontatzen du, beldurra pasatu zuelako.

862. Kuotako soldadu zegoen eibartarrekin nobiotan (AB-173/024)

Bilbon nobioa topatu zuen, soldadu zegoen Juanito Ugarteburu eibartarra, baina Eibarrera etorrita haserretu egin ziren. "Garellano" erregimentuan egon zen soldadu Juanito. Kuotako soldadua zen: ordaindu egin zuen Bilbon bertan soldadutza egitearren.

863. Bilbon eibartarren bat ikusiz gero, poz handia (AB-173/025)

Kriada Bilbon bi urte egin zituen. Eibartarren bat ikusiz gero, poz handia hartzen zuten. Olinpiadetara joan nahi zuen ezkon bidaian Bartzelonara baina Bilbon geratu ziren.

864. Itsasoa lehenengoz ikusi zuenekoa (AB-173/027)

Juanita Arrietak kontatzen du bere ahizpa bat Donostiara ezkondu zela eta urtean bitan bakarrik etortzen zela Eibarrera. Orduan hori normala zen. Itsasoa lehenengoz zortzi urterekin ikusi zuen, Mutrikun, aitona hil zenean.

865. Durangotik etortzen zen txurro-saltzailea (AB-173/029)

Durangoko txurro-saltzaileak beraien etxean gosaltzen zuen eta domeketan txurroak saltzen zituen. Erropak batu eta Durangoko tindategira eramaten zituen hark eta hurrengo igandean ekarri. Txurro-saltzailearekin joaten zen Luzia Debara gaztetan. Trenaren eta pastelen prezioak esaten dituzte. Etxean pellak egiten zituzten.

866. Pastelak jatearren, gaiztakeria (AB-173/031)

Juanitak anaiari gertatutako pasarte barregarria kontatzen du, erosketa batzuetako soberakinekin pastelak erosi zituenekoa.

867. Kokoak jatearren, gaiztakeria (AB-173/033)

Arrateko maistrak koko bila bidaltzen zuen, eta behin, bere kabuz joan eta koko bat erosi zuenean, bertan konortea galduta geratu zen.

868. Paga amari eman behar (AB-173/035)

Marinak kontaktzen du bere lehengusina batek, Donostiatik etorrira, paga ematen zienean, amari eman behar izaten ziotela.

869. Pagak batuta zinemara joaten ziren (AB-173/037)

Bakoitzak jasotzen zituen pagak aipatzen ditu. Zinemara joaten ziren. Pirulia jaten zuten eta konforme geratzen ziren. Eibarren zeuden Kruzeta eta "Salón Teatro" zinemak aipatzen dituzte.

870. Eibarko zinemak eta zatikako filmak (AB-173/039)

Filmak zatika ematen zituzten. Beldurrezko eszenak izaten ziren. Film mutuak izaten ziren, azpitoluekin. "La novia número trece" zen filmetako bat. Nikanor Txarlatana Pabelloian egoten zen. Txartelak lortzeko modua izaten zuten. "Kiputzanekua" zinema geroagokoa zen.

871. Lagunekin afariketan (AB-173/040)

Domeketan lagun baten etxera joaten ziren edo haiek etortzen ziren etxera. Jolasean nola ibiltzen ziren kontaktzen du Marinak.

872. Umetako istripuak (AB-173/041)

Ortuan afariketan nola ibiltzen ziren kontaktzen du Marinak. Behin arbolatik jausi eta eskua apurtu zuen. Don Antonio Arrillaga medikuarengana joan zen Elgoibarrera. Astoka zebiltzala, Jose izeneko batek ukalondoa apurtu zuenekoak kontaktzen du.

873. Malleaneko etxea eta estankoa (AB-173/042)

Malleaneko estankoa non zegoen kontaktzen du Marinak. Malleaneko etxea zein zen, non zegoen eta nolakoa zen azaltzen dute.

874. Don Polirekin antzerkia egiten (AB-173/045)

Marinak kanta bat abesten du, ustez nederlanderaz, "Don Poli"rekin (Policarpo Larrañaga abadea) holandar jantzita egindako antzerkian ikasitakoa. Antzerki gehienak Estaziño kalean izaten ziren, Kruzeta zineman. "Obabatxua" kanta abesten du Doloresek. Anekdotak bat kontaktzen du.

875. "Gaztetasuna" kanta (AB-173/047)

"Don Poli"rekin (Policarpo Larrañaga abadea) gimnasia egiten zuten. Denek batera "Gaztetasuna" kanta abesten dute, osasunari buruzkoa. Omenaldiak eta diru-batzeak egiten zirenean abesten zuten.

876. Zekorketa dirua batzeko (AB-173/048)

"Jardin de Convalecientes" egoitza aipatzen dute. Lucia Larreategik aitonaren anekdotak bat kontaktzen du: aitonak, Errotatxok, 9 semerekin batera zekorketa bat egin zuen zezen-plazan ospitalerako dirua batzeko.

877. Doña Polonia eta Doña Maria maistrak (AB-173/049)

Lucia Alondigako eskolara joaten zen, Doña Polonia Etxebarria maistrarekin. Gogorra zela diote. Laurogei lagun inguru izaten ziren gelan. Doña Mariari eraztun bat oparitu zioten eta gero harekin bekokian jotzen zituen. Arratsaldeetan bordatzen ikasten zuten.

878. Berorika zeini egiten zioten (AB-173/052)

Medikuei, botikarioei eta abadeei berorika egin behar izaten zioten, baita Luciaren etxeko jabeari ere.

879. Hika, zuka eta erdaraz zeinekin egiten zuten (AB-173/054)

Luciak dio euskaraz zuka egiten zutela. Doloresen eta Juanitaren etxean hika egiten zuten, baina Juanitak ahizpekin erdaraz egiten zuen.

880. José Antonio Gisasola eibartar ospetsua (AB-174/026)

Isasiko fraileen eskola. José Antonio Gisasola eibartar ospetsua. Margarita Murgizuk gizon honen istoria kontatzen du. Aginagako auzoaren alde eta orokorrean Eibargaitik lan asko egin zuen. Abesti bat ere egin zen bere omenez eta oso ondo gogoratzen dute hitzunek: "Jose Antonio jauna, Eibarko seme...".

881. Kruzetaneko zinea (AB-175/002)

Kruzetaneko etxea: kafetegia; zinea. Periko Kruzeta; oso gizon zuzena. Zinea nolakoa zen azaltzen dute: ederra, pianoa ere zegoen. Mutilak alde batera eta neskak bestera eseri behar izaten ziren. Pelikula amerikarrak. Beste zine batzuk: "Pabelloia". Zineko "akomodadorea".

882. Grabatugintza Eibarren; gai honen inguruan azalpen zehatzak (AB-175/004)

Grabatugintza Eibarren. Emakume askok lan egiten zuten etxean piezak grabatzen. Grabadore ezagunak: Jacinto Olabe, Larrañaga, e.a. Pieza bat grabatzeko prozesuaren gorabeherak. Urreduna. Gerra ondorengo urteetan, rasionamendua zegoenean, okinek ogi berezia egin behar izaten zuten grabadoreentzat.

883. Dibujo klaseak Kontseju zaharrean (AB-175/006)

Kontseju zaharrean dibujo klaseak ematen zituzten irakasleak: Jacinto Olabe; Antonia Olabe; Mugerza. Klaseak noiz izaten ziren; zenbat ordaintzen zen.

884. Eibarko kale-izendegia (AB-175/008)

Dña Polonia Etxebarria; Ildefonso Irusta. Julián Etxebarria. Eibarko kale-izendegia.

885. Ibarkurutzeko eskola; irakasleak (AB-175/009)

Alhondigako eskola Ibarkurutzean. Irakasleak: Dña Paca, Dña María eta Dña Polonia. Arrateko eskolako irakaslea, Dña Gregoria. Dña Mariari opari bat egin zioten eta damutu egin zitzairen bekokian eraztunarekin jotzen zuelako beti.

886. Sendagile ezagunak Eibarren (AB-175/010)

Sendagile ezagunak: Viteri; Don Ciriaco; Don Vicente. Don Ciriaco 1933an hil zen istripu baten ondorioz. Istripuaren inguruan hitz egiten dute, zazpi Eibartar hil ziren. Errepublikara garaian, San Ignazio eguna lan-eguna izatera pasatu zen eta horren inguruko kontuak kontatzen dituzte.

887. Errebal ingurua: dendak; etxeak (AB-175/012)

Ibarkurutzea. Lucía, Zuloagaren etxean jaio zen. Etxe hartan bizi ziren eibartarrak aipatzen dituzte. Ibarbe etxea, Don Eugenio Urroz parrokoa bertan bizi zen. Café Europeo. Matildeneko denda (gauero kafea tostatzeko). Errebal inguruko denda guztiak gogoratzen ditu Luciak. Tren geltokia. Armarridun etxeak Eibarren.

888. "Indianokua" jauregia eta ingurua (AB-175/013)

Indianoko Jauregia. Ortu ikusgarriak zituen (mandarinak...). Pegora ederra baina oso iluna. Neskamea izaten zuten. Etxe iluna; umeen ikuspegitik "misteriozua". Etxe ingurua nolakoa zen: erreka; oilotegia; Areatzako presa. Familia bakarra bizi zen bertan. Goiko pisuan, Markesa bizi zen, beraien tia. Pantaleón izeneko gizonak Indianoko ortuak zaintzen zituen.

889. Eskola kontuak; Dña Polonia irakaslea (AB-175/016)

Dña Polonia Etxebarria irakaslea; nolakoa zen. Eskola kontuak; auzoaren arabera joaten ziren eskola desberdinetara.

890. Aldatzeko mojak Eibarren; lehenengo urteak (AB-175/017)

Aldatzeko monjak. Madre Loyola. Pageiko etxe batean hasi ziren klaseak ematen (gaur "El Casco" dagoen tokian). Natividad Bazterra, Eibarko lehenengo moja. Etxean nola hartu zuten gurasoek alaba moja sartzea.

891. Udaletxeko eskolak; irakasleak (AB-175/018)

Udaletxean eskolak ematen zituzten garai batean. Irakasleak: Dñe; Petra, Dñe; Aurora, Dñe; Clara, Srta. Nieves, Dñe; Consuelo, Dñe; Domitila.

892. Aldatzeko ikastetxearen inguruko kontuak (AB-175/019)

11 urterekin Aldatzera joan zan ikastera. Madre Loyola, oso maistra ona. Nola erabaki zuen irakasle ikasketak egitea. Berarekin batera beste batzuk ere jardun zuten magisteritza ikasten: Dolores Areta, Petrachueca, Lasa, Pakita Abendibar, María Aristondo, Arrizabalaga, Carmen Peñe; (Dñe; Auroraren alaba). 4 urtetan egon ziren Gasteizen ikasten. Aldatzeko mojek, pianoa jotzen irakasten zuten.

893. Maltzagako eskolaren inguruko azalpenak (AB-175/021)

Margarita Murgizu Maltzagako eskolan hasi zen klaseak ematen. Eskola munizipala zen eta 6-14 urte bitarteko umeak joaten ziren. Asko baserriak ziren; beste batzuk erdaldunak. Lehenengo Margaritaren ahizpa egon zen irakasle bertan. Klaseak erdaraz ematen zituzten. Eskolan beti erdaraz egin behar izaten zen.

894. Eibarko apaizak (AB-175/022)

Eibarko abadeak. Don Juan Ibargutxi. Don Poli. Don Gabriel Aldatzera joaten zan. Aitortza egiteko abade bigunena aukeratzen zuten. Don Gabriel Santa Iñes-eko konbentuan bizi zan. Don Gabriel, Don Mateo eta Don Juan Aldatzen.

895. Maistra lana eta ikastolen hasiera (AB-175/024)

Margarita eskolak ematen hasi zenean klase bakoitzean 25 ume inguru zituen. Lehenengo baserria eta gero taberna izandakoa. Kapila bat egin zuten, San Rafael. Eskola, mostradore eta guzti. Ikastoletan maistra izateko deialdia. (Oso ondo kontatzen du dana). Etxean telefonorik ez eta Tanborreneko dendara deitu zuten. Bilboko ikastolan hasi zan klaseak ematen.

896. Belgikara ihes umeekin (AB-175/025)

Gerra denboran, Belgikara joan zen Margarita umeekin. Gregorita Olañeta, Amberesen ezkondua. Laguntza asko. Eibartarrak zelan heldu ziran Amberesera. Bilbotik zelan egin zuten ihes, "La Havana" barkuan. Umeek abesten zuten kantu bat gogoratzen du.

897. Gerra osteko Eibar berreraikitzen (AB-176/005)

Gerra ostia Eibarren. Arnaldo delineante bakarra Udaletxian. Ekin bakarrik egin zioten lanari; gitxika-gitxika. Gauza asko zeuden egiteko. Plano batzuk egin zituen: Txirixo-kalia; Eliza aurria...dena eskonbrua zen eta etxeak egiten ekitzeko derrigorrezkoa zan parzelazioarekin hastea. Inguru horretako parzelazioa "gatxa...munduan gatxena!". Ugazaba asko eta parzelazioak egitea oso gatxa zen. Pare bat urte jardun zuten horretan. Elgeta-kalian, inguru guzti horretan etxeak dana pilatuta... Arraindegi kalia; Barrenkalia...nola lan egin zuten azaltzen du Arnaldok.

898. Gerra ostean erreka estaltzen (AB-176/006)

Gerra ostia Eibarren. Dos de Mayo kalia, "Ongi etorri" tabernako etxea bera sartu orduko egiten zeuden. Orduantxe lehentxeago tapatu zuten erreka. Erreka nondik nora: Ardantzaraiñok zen Dos de Mayo kalia; gero erreka libre zonan, Ariatzaraiñok libre. Buelta eman Ariatzan, eta merkatu plazan azpitik pasatzen zen erreka. Plaza pasatu eta Muñoaneko parean (Valentinaneko taberna), beheraxeago, berriz irteten zen kanpora, libre.

899. Gerra ostean erreka estaltzen (AB-176/007)

Erreka tapatzea. Dos de Mayoko zatia egin zen lehenengo (bera oraindik ez zegoen Udaletxean), 1947 inguruan. Gero etorri ziren besteak. Bere lana, terrenoen planoak egitea. Oraindik deseskonbroa amaitu barik. 2.000 preso inguru ekarri zituen Regiones Devastadas-ek, eskonbro guztiak garbitzeko. Askok bertan gelditu ziren gero. Unzueta jauregian eduki zituzten. Goizean goizago eta iluntzean ere, hilaran "raum, raum, raum...". Haiek deseskonbratu zuten Eibar guztia.

900. Ipuruako futbo zelaia Eibarko hondakinekin eraikia (AB-176/009)

Eskonbroak, Ipuruara eramaten ziren. Ipuruako kanpo-foballa eskonbroekin eginda dago. Gaztaiñadixa zegoen han; iturri txiki bat ere bai, tunel batetik sartuta bertara heltzen zela kontatzen du Arnaldok.

901. Esteban Orbea y Orbea alkate (AB-176/011)

Arnaldo Udaletxian delineante sartu zenean, Esteban Orbea y Orbea alkate. "Kategorixako alkatia!". Kobratzen zuen soldata, zuzen-zuzenean ospitalera bidaltzen zuen. Alkate ona, herriaren alde lan asko egin zuen, politika alde batera lagata...Kale bati bere izena ipini zitzaion baina gero kendu egin zioten.

Txikiteoan ibiltzen zen bere langileekin. Frontoia ere egin zuen. Urkuzuko zubian geratzen zen Arnaldoren zain, eta kotxean eramaten zuen. Ipuruako tribuna, Arrateko tiro-pitxoia egiten zeudenean, e.a... alkatea obrekin interesatuta. Arrateko tiro-pitxoia egiteko, desmontea egin behar izan zutela azaltzen du. Eliza aurrean, eskola zegoen. Eskola bota, desmontea egin eta tiro-pitxoia egin zen.

902. Eibarko frontoiak (AB-176/013)

Eibarko frontoiak. Frontoi Zaharra, zesta-puntako frontoia zen. Gero Frente Juventudes-ekoak etxe bat egin zuten. Eskola ere egin zen (1928), baina frontoi handia zen. Kiputzanekoa. Txikitxoagoa baina ederra. Astelehenara sarri joaten ziren. "Navarrito" Arana kantxeroa. "Baratua" pagatzen zuten, orduka hainbeste pelotan jolatearren. Pilotarako afizio handia, kanpo-foballik ez zegoen eta... foballian egiten zenean Txantxa-Zelain egiten zen. Ipuru egin zenean ekin zioten txapelketak egiteari, kuadrillen artean eta enpresen artean.

903. Soziedadeak Eibarren (AB-176/016)

Soziedadeak Eibarren. Gerra ostian hasi ziren. Lehelengoa, Kerizpia baino lehenago, "Kurdin-Club". Zezenbiden, beste bat egon zen. Ego-Gain; Tariña... Gero ta gehiago. 10 urtean perretxikoak moduan irten ziran. Boom bat izan zan.

904. Ikastolen sorrera; lehenengo urratsak (AB-178/002)

Lehenengo ikastolak Bilbon ipini ziren martxan eta Margarita Murgizuk bertan hasi zen klaseak ematen. Algortan eta inguruko herrietan ere interes handia jendearen artean. Ume asko, etxean dirurik ez eta ezin izaten ziren ikastolara joan, baina "protektoreak" egoten ziren, eta hauek umeei klaseak pagatzen zizkieten. Gai honekin lotuta ume baten historia kontatzen du.

905. Ikastolen sorrera: lehenengo urratsak; udalarekin arazoak (AB-178/003)

Gau eskolak. Eskola Munizipalak amaitu eta gero beste ordubeteko klaseak ematen zituzten, euskara ikastea nahi zuenarentzat. Urteko matrikula 1.000 pta-koa zen. Udaletxeak hasieran gestora batzuk ipini zituen, baina irakasleei ordaintzeko arazoak izan zituzten. Irakasleen artean batzarra egin eta handik aurrera kobratu gabe klaseak ematen jarraitzeko erabakia hartu zuten.

906. Eibarko Arma Probalekua (AB-178/036)

Juanitaren aita 1923an sartu zen probalekuan lanera. Eskopeten kainoiak aztertzen zituen, desajustea zegoen ala ez baieztatzeko. Eibar, Elgoibar, Plazentziako arma guztiak bertatik pasatzen ziren. Probalekuko arduradun nagusia, komandante bat zen; honekin batera kapitana "Kapitan txikixa" (Revilla) eta maixu armagin bi zeuden. Junta de Industriales. Juanita ofizinan egon zenean lanean, Komandante Arakama zen arduraduna.

907. Román Ortuoste argazkilaria (AB-179/001)

El padre de Adelina y la mujer de Feliciano Castrillo (Victoria Ortuoste), se hacían primos. Cree que Román durante algún tiempo fue grabador (?). Recuerda que cuando Ortuoste tuvo el estudio de fotografía en Aldatze (no sabe muy bien si era Aldatze, Muzategi...) solían ir ellos (los niños) a jugar con la tía Victoria. Incluso cuando sus hijos eran pequeños también solían ir allí

todos los días. (Habla de alguna fotografía que ha traído, sacada en alguna comida). En realidad no eran primos carnales, pero siempre se trataron como tales. (otra fotografía, sacada en un balcón, en la que aparecen Feliciano, Victoria, su hermano..).

908. Feliciano Castrillo Bilbotik Eibarrera etorri zen (AB-179/002)

Feliciano Castrillo vino desde Bilbao. Cuando llegó a Eibar, ya era fotógrafo. No recuerda en que año se casó con Victoria Ortuoste. Otra fotografía del estudio de Bidebarrieta. Allí tenían el estudio, laboratorio. Él era muy fino, más recto, estricto; Victoria era más "campechana".

909. Ortuostetarrak: Román; Victoria; Faustino (AB-179/004)

Recuerda Adelina que fueron Faustino y Victoria los que tomaron las riendas del negocio. Adelina conoció a Román cuando éste ya era muy mayor. Cree que Victoria, además de trabajar en el laboratorio, también solía hacer algunas fotos. (Tras dudar durante algunos segundos, dice que quizás Victoria sólo trabajase en el laboratorio). Ésto último sí que es seguro, puesto que recuerda como solía tener los dedos manchados con los productos que manejaba en el laboratorio.

910. Victoria Ortuoste, lehenengo emakume argazkilaria (AB-179/005)

Victoria Ortuoste. Tenían mucho trato con ella. Era muy agradable, y solían ir cada día a estar con ella. Victoria y Feliciano eran una pareja que contrastaba un poco: ella muy "campechana", y él un señor "de capital"; pero dice que se arreglaban de maravilla. Ella siempre con ganas de juerga...Faustino también era igual. (José le comenta que en una fotografía aparece Victoria con una guitarra...). Parece ser que se prestaba a todo (en fechas señaladas; Navidades...). Ella era la que organizaba las fiestas...

911. Castrillo-Ortuoste sendia gerra garaian Eibartik ihesi (AB-179/006)

Feliciano Castrillo. Recuerda a Feliciano cuando llegó de Bilbao; Feliciano en el estudio de fotografía...pero sobre todo recuerda que les ayudó mucho en la guerra. Cuando Adelina y su familia salieron de Eibar fueron a Bilbao, y allí no tenían a dónde ir. Por mediación de Feliciano (que había ido también a Bilbao y ocupaba algún puesto en la Asistencia Social ?!...) consiguieron una casa con ascensor, teléfono...en frente de la Alhóndiga. Eran viviendas requisadas... No recuerda el cargo que ocupaba Feliciano (Delegado de algo...). Había que ir a buscar la comida para los refugiados... Victoria y feliciano comían lo que preparaban especialmente para ellos (comida algo más especial). Adelina solía ir a buscar la comida tanto para los Castrillo-Ortuoste como para ellos. La gente protestaba porque no esperaba a la cola... Hasta que tuvieron que salir de Bilbao, se arreglaron muy bien. No recuerda cómo consiguió Castrillo ese puesto; era un hombre muy agradable, culto...y quizás en aquella época no había mucha gente capacitada para cubrir aquél puesto. A Adelina y su familia al final incluso les sobraba la comida y solían repartirla entre otros eibarreses que lo pasaban peor. Ellos ni siquiera tenían que pagar renta....

912. Victoria Ortuoste, lehenengo emakume argazkilaria (AB-179/009)

Victoria era una persona muy alegre. Cuando eran niños iban todas las tardes y siempre tenía algo para ellos. Recuerda que un año, celebraron el 1º de año sacaron fotos...

913. Victoria Ortuoste, lehenengo emakume argazkilaria (AB-179/013)

No era muy habitual ver en aquella época a una mujer en un laboratorio fotográfico. No recuerda los nombres de los fotógrafos de entonces; bueno, Ojanguren sí.

914. Victoria Ortuoste, lehenengo emakume argazkilaria (AB-179/015)

Los 3 hijos de Román continuaron el oficio del padre. Primero trabajaron juntos. Cuando Victoria se casó con Feliciano, no recuerda si los otros dos continuaron con el negocio. Victoria, una vez de casarse, continuó trabajando con su marido. No sabe cómo se conocieron.

915. Feliciano Castrillo eta Victoria Ortuoste senar-emazteak (AB-179/017)

Documentando algunas fotos. La boda de Feliciano y Victoria. El abuelo de Feliciano Castrillo. (José comenta otra vez el tema de los estudios fotográficos, en Bidebarrieta 62 y 54). Feliciano Castrillo-Ortuoste estuvo en Francia durante la guerra. Adelina recuerda que Victoria y Feliciano estuvieron primero en Bilbao.

916. Victoria Ortuoste argazki-estudioan lanean (AB-179/021)

Cuando eran niños solían ir casi todas las tardes al estudio a ver a la tía Victoria. Su padre era muy aficionado a la fotografía y también solía pasar allí mucho tiempo. (una foto de Victoria cuando era joven, en Deba, pero apenas la reconoce)

917. Román Ortuoste argazkilaria, gizon alaia (AB-179/022)

Documentando fotos. El padre de Adelina, Lucio Unanue. A Román le gustaba mucho la acordeón. Era una familia muy alegre. De vez en cuando organizaban alguna fiesta. Recuerda la celebración del 1º de mayo. El estudio de Bidebarrieta, estaba en un 1er piso.

918. Argazkiak ateratzeko ohitura handia (AB-179/023)

Costumbre de sacarse fotos en carnavales, comuniones, bautizos, despedidas...(Jose comenta que muchas fotos de refrescos solían hacerse fuera del Bar Loiola).

919. Bizikleten alkilerra; umetako ibilerak (AB-180/008)

Antoniaren aitak bizikleten alkilerra izan zuen. Umetako kontuak. Mutikoak sarritan ez zuten bizikleta garaiz itzultzen, eta Toni joaten zen haren bila.

920. Noiz eta nola hasi zen raketarekin jolasean (AB-180/009)

Antonia noiz eta nola hasi zen raketarekin jokatzeko. Madridetik etorri ziren batzuk raketarekin entrenatzera, eta orduan hasi zen bera ere. Mutrikuko batek egiten zituen Madrid eta beste hainbat tokitarako raketak, eta harek raketa bat erregalatu zion Toniri. Ordurarte beti eskuz egiten zuen pilotan. Espainiako hiri handietan (Madrid, Barcelona, Valencia, e.a.) raketista onak zeuden ordurako.

921. Eibarko lehenengo raketistak (AB-180/011)

Ama hil zenean, raketista izateko erabakia hartu zuen Tonik. Aberats batzuen etxera bidali zuten orduan, Madridera (eibartar ezagun batzuen senideak). 12-13 urte inguru zituen. Bera baino lehenago, Partxua baserriko alaba joan zen Madridera (Eugenia Iriondo). Pilotari ezagunak.

922. Raketistek fama txarra izan zuten garai batean (AB-180/014)

Raketisten bizimodua Madriden nolakoa zen. Gaizki ikusita zegoen emakume bat bakarrik ibiltzea, e.a. Gainera gizonez ingurututa egoten ziren eta garai hartan hori ez zen begi onez ikusten.

923. Gizonezkoen kontrako partidak (AB-180/015)

Gizonezkoen kontra ere jokatu izan zuen. Garai hartan "Pedrín" oso pilotari ona (tenista?) zen; haren kontra jokatu eta irabazi egin zuen Antoniak.

924. Gerra Zibila Euskal Herrian; Durangoko bonbardaketa (AB-183/002)

Gerra zibila. Euskal Herritik ihesi, 3 urte egin zituen Valentzian. Gerra hasi eta Durangora alde egin zuten lehenik. Durangoko bonbardaketa; kasualitatez ez zitzaion ezer gertatu. Bere begien aurrean soldaduek, kartzelan zeuden presoak kanposantura eramane eta fusilatu egin zituzten. "Gerra desastria da gero, e? ene... gerra da horrorosua!".

925. Eibartar asko Valentziako hainbat herritan lanean gerra garaian (AB-183/003)

Gerra Zibila. Durangotik, Castro Urdiales-era joan ziren. Bonbardaketa izugarria. Tunel batean egin zuten lo. Handik Valentziara joan behar zirela esan zieten. Han 3 herritan egon ziren: Alberique; Buñol eta Alginet. Bertan egiten zuen lana zein zen azaltzen du.

926. San Blas opilak egiteko ohitura (AB-183/016)

San Blasak. Beti berdinean ospatu izan dira. "Oin saldu egiten da asko, baiña egin gitxi". San Blas bezperan anis usaia egoten zen toki guztietan.

927. San Blas opilak parrokiara eramaten ditu bedeinkatzera (AB-183/020)

San Blas opilak San Andres Parrokiara eramane izan ditu beti bedeinkatzera. Bi meza egoten ziren, eta beti bete-bete eginda egoten zen eliza.

928. San Blas opilen inguruko hainbat kontu (AB-183/022)

San Blas opilak zapi zuri batean batuta eramán izan dira beti bedeinkatzera. Bedeinkatutako kordioak, katarrorik ez harrapatzeko. Ohitura zaharraren arabera, bedeinkatu gabeko San Blasik ezin da jan. Leonorrek gaixorik dagoen jendiari, lagunei... banatzen dizkie San Blas opilak.

929. San Blas opilen errezeta (AB-183/023)

San Blas opilen errezeta. Beharrezkoak diren osagaiak: gurina; irina; arrautzak; anisa eta azukrea. Gauzarik zailena, San Blas opilen gainekaldeko zuria egitea da; horrek du lan gehien.

930. Aldatze ikastetxea; arratsaldetan bordatzen ikasten (AB-183/027)

Aldatze ikastetxean ikasi zuen, baina ez zitzaion gehiegi gustatzen. Goizez klaseak izaten zituzten; arratsaldean esku-lanak. Josten oso esku ona izan du beti; 1go saria ere behin baino gehiagotan irabazi zuen.

931. Aldatze ikastetxeko uniformeak (AB-183/029)

Aldatze ikastetxea. Uniformeak erabiltzen zuten; urdina eta plisatua. Ume asko zeuden bertan ikasten; gosaltzeko garaian ere mahai oso bat betetzen zuten.

932. Jatorria; grabatzen ikasten (AB-186/004)

Concharen aita, Aquilino Martínez. Eibarren jaiotakoa, Aquilino grabadorea zen ogibidez. Bidebarrieta kalean bizi ziren eta seme-alabak hazi arte kanpoko bi mutil hartu zituen lanean laguntzeko. Gerora, Concha aitarekin hasi zen grabatzen; hasieran pikatzen ikasi zuen eta gero zilarrarekin grabatzen.

933. Concharen lehenengo urteak Uberako baserri batean (AB-186/006)

Conchak bere anaia nagusiagoarekin zuen adin-tartea oso txikia zen eta ume-umetan Uberara bidali zuten bularra hartzera. Orduan jende askok ezin izaten zuen semea edo alaba etxean hazi eta baserriren batera eramaten zuen.

934. Erromeriak Uberan; Baserriko bizimodua emakumearentzat (AB-186/007)

Erromeriak Uberan. Erromeria zelakoa zen. Jai handia egiten zen: aurrekua, filarmonika, danbolina... Aurrekua dantzatu ondoren ohitura zen txapela neska bati ematea; behin berari tokatu zitzaion. Conchak nahiago zuen kaleko bizimodua; errazagoa zen emakume batentzat.

935. Bilbora neskame urte batzuetan (AB-186/009)

Concha Uberatik itzuli eta aitarekin grabatzen ikasi zuen. Dibujo-eskolara joaten zen, "Kontsejura". Aita hil eta handik denbora batera Bilbora joan behar izan zen neskame. Beti izan du eskolara joan ez izanaren damua. Bilbora zelan joan zen kontatzen du: Uberako familiakoen bitartez, e.a. Eibarko neska gehiago zeuden Bilbon.

936. Benigno Baskaran: ikasketak eta lana (AB-186/010)

Benigno zelan eta noiz ezagutu zuen. Lehenengo Bilbon jardun zuen lanean; gero Madridera joan zen lanera. Argazki bat erakusten digute (Eskola

Armeriako promozioko lehena izan zen Benigno). Gerran abiazioko arduradun izendatu zuten.

937. Eibar herri liberala; Elgetatik jende asko Eibarrera lanera (AB-186/013)

Elgetatik jende asko etortzen zen Eibarrera lanera. Eibarrek fama txarra izan zuen garai batean, liberala zelako. Elizaren indarra gizartean.

938. Marcelino Baskaranen jatorria (AB-186/014)

Marcelino Baskaran nolakoa zen. Umetan meza-laguntzailea izan zen Arraten. Eskolara ere bertara joan zen. Maiorazgoa baserrian geratu zen eta Marcelinok Eibarrera jaistea nahiago izan zuen, ofizioa ikastera.

939. Eibarko sozialismoaren aurrekariak (AB-186/015)

Sozialismoaren sorrera Eibarren; aurrekariak. XIX-XX. mende hasieran, Eibarko gizartearen ezaugarriak zeintzuk ziren: langileria, desberdintasunak, lanorduak... Sozialismoa Bizkaian. Abertzaletasunaren sorrera. Bilboko egoeraren azalpena: oligarkia, boterea... Hainbat idazleren aipamena egiten du (Toribio Etxebarria, Meabe, Mario Onaindia, Ion Juaristi...).

940. Marcelino Baskaranen jardura politikoa (AB-186/016)

Eibarko egoera zehatza zein zen. Marcelino Baskaran 1897an sortutako lehenengo Agrupazio Sozialistako bokala izan zen. Udalbatzan ere parte hartu zuen (alkateorde bezala). UGT-ko kide hasiera-hasieratik. Aurorak Marcelino gerra ostean ezagutu zuen. Pablo Iglesiasen mitina. Marcelino Bergarako kartzelan egon zen.

941. Marcelino Baskaran eta Aquilino Amuategi (AB-186/017)

Marcelino eta Eibarko euskara. Inguruko herrietan, kostaldekoetan batez ere, eibartarrak ez zeuden ondo ikusita, "gorriak" ziren. Elizaren indarra Euskal Herrian. Mitinak Aquilino Amuategirekin batera ematen zituen. Aquilino eta abade baten arteko hika-mika ospitaleko junta udaletxearen mende zegoela eta.

942. Lehenengo sozialista eibartarren borrokak (AB-186/024)

Aquilino zelakoa zen. Lehenengo sozialisten burrukak-nahiak zeintzuk izan ziren: 3/8 orduak; kultur-zaletasuna zabaltzea, etab. "Centro Obrero"an lehenengo, "Casa del Pueblo"an geroago, lan asko egiten zuten. Internazionalistak ziren. Sozialismoaren banaketa; gerora etorri ziren kalteak.

943. Eibarko "Casa del Pueblo" a, kultura zabaltzeko gunea (AB-186/025)

Eibarko "Casa del Pueblo" a, kultura zabaltzeko tresna garrantzitsua izan zen. Liburutegia, hitzaldiak... Tertuliak oso ezagunak ziren garai hartan Eibarren. Gerra ostean Txaltxa tabernan elkartzen ziren Benigno eta lagun batzuk berba egiteko.

944. Eibartar sozialistak: Baskaran, Amuategi, Etxebarria... (AB-186/026)

Aquilino eta Marcelino izaten ziren mitinetako hizlariak. Izaera desberdinekoak ziren biak. Meabe, Madinabeitia, Toribio. Toribio Etxebarria zelakoa zen. Eibarko eta Bilboko sozialismoak, desberdinak ziren, egoerak ere desberdinak zirelako.

945. Sozialismoaren garapena XX. mendean zehar (AB-186/031)

Sozialismoaren aldaketa XX. mendean zehar. Gerra osteko egoera Auroraren ikuspuntutik.

946. Gerra osteko sozialismoaren aldaketak (AB-186/032)

Gerra aurreko eta gerra osteko sozialismoaren arteko aldaketak. Lehengo sozialismoa erradikalagoa zen. Eibartik kanpo zelan ikusten zituzten eibartar sozialistak.

947. Eibarko sozialismoa eta kooperatibak: Alfa lantegiaren sorrera (AB-186/034)

Marcelino Baskaran, Toribio Etxebarriarekin batera, Alfako sortzaileetako bat izan zen. Alfa: akzioak; ekonomatua. Alfaren lehenengo egoitza; hasierako produkzioa.

948. Alfa lantegiaren sorrera (AB-186/035)

Alfa lantegiaren sorrera. Kooperatibismoa.

949. Errepublika aldarrikatzen (AB-187/014)

Errepublika aldarrikatu aurreko egunak eta errepublikako ikurrina udaletxeko balkoian jarri zeneko anekdotak kontatzen ditu Aurorak. Herrian zegoen giroaz hitz egiten du batez ere.

950. Errepublika aldarrikatu eta bildurra (AB-187/016)

Errepublika aldarrikatu ondoren Eibarren bizi izandako egoera kontatzen du Aurorak; beste herrietan aldarrikatu baino zortzi edo hamabi ordu aurretik aldarrikatu baitzen Eibarren.

951. Bascaran aita semeak (AB-187/017)

Benigno Bascaran "Juventud socialista" eta UGTko kide zen baina ez zuen parte hartze politiko zuzena izan Errepublika aldarrikatu zenean. Aita ordea, udaletxeko zinegotzi eta garai batean alkate bezala ere egon zen. Benigna errekadistare anekdota kontatzen du Aurorak; Bilbora errepublikako ikurrinarekin joan baitzen errepublika Eibarren bakarrik aldarrikatuta zegoenean.

952. Errepublika garaiko aldaketak (AB-187/020)

Eskoletan aldaketak egitea izan zen alderdi garrantzitsuenetariko bat errepublika aldarrikatu zenean, baina egoera politikoa oso desegonkorra izan zen. 34ko iraultzan parte hartu zuen Auroraren aitak, ondorioz, Benigno Bascaran kartzelaratu egin zuten.

953. Irakurzaletasuna gerraostean (AB-187/022)

34ko iraultzan kartzelaraturiko eibartarrak kartzelan zeudela asko irakurtzeko ohitura zuten eta tertuliak egiten omen zituzten. Bertatik irten ondoren, zentsuraren ondorioz liburu asko ezin zitezkeen lortu baina Benignok lortu egiten zituen, eta alabari irakurtzeko uzten zizkion.

954. Kartzelako bizimodua (AB-187/024)

1934ko iraultzaren ondoren Benigno Baskaran kartzelan egon zen eta alabari kontaturikoa azaltzen du. Kartzelan eibartarren artean kooperatiba antzekoa sortu eta jatekoa denen artean banatzen omen zuten. Kartzelan lasai egon zirela eta lagunartean ongi bizi izan zirela esaten zuten eibartar askok. Benignoren inguruko pertsonaia garrantzitsuez hitz egiten du Aurorak; Toribio Etxebarria, Julian Etxebarria, Madinabeitia eta Lukas Alberdi, adibidez.

955. Kartzelatik bueltan (AB-187/025)

Benigno Bascaran eta Eibartar sozialistak kartzelatik irten zirenean herrian egindako ongi etorria kontatzen du Aurorak.

956. 34ko atxilotuen ongi etorria (AB-188/002)

Concepcioneek errepublikaren inguruko oroitzapen handirik ez du, Bilbon neskame lanetan ere aritu izan zen gaztetan eta agian Bilbon zegoen garai horretan. Hala ere, 34ko iraultzan Eibarren zegoen eta senarra kartzelan egon zen bertan parte-hartu zuelako. Concepcion eta Aurora ongi etorria egitera joan ziren Azitainera.

957. Eibarren fama txarra (AB-188/010)

Eibartarrek fama txarra izan zuten inguruko herrietan. Elizara joaten ez zirelako eta gorriak zirelako izaten zela azaltzen dute.

958. Umetan eskolan gutxi (AB-188/012)

Concepcion eskolan berandu hasi zen umetan, gainera aitak etxean laguntza behar izan zuen grabatuan eta goiz utzi zuen eskola. Aurrerago ez zuen ikasteko aukerarik izan eta horren pena izaten jarraitzen du.

959. Gerran gaixo (AB-188/014)

Gerra Zibila hasi ondoren, Bartzelonan zeudela Aurora elgorriaz gaixotu eta ospitalean egon behar izan zen bakarrik, kutsakorra zenez eta gerra garaia izanik Concepcion ere ezin zitekeen gaixoarekin egon.

960. Eibartik ihesi (AB-188/015)

Aiton-amonekin joan ziren Bilbora arte eta, Marcelino Bascaran atzean geratu arren, gerora elkartu ahal izan ziren Murtzian. Bartzelonatik Frantziarako bidean bonbak botatzen zizkietela kontatzen du. Oinez joan behar izan zuten mendiz mugaraino.

961. Murtziara ihes (AB-188/016)

Murtziara nola iritsi ziren azaltzen du Concepcioneek. Senarrarekin nola elkartu eta bidean izandako beldurraz hitz egiten du. Etxe baten bizitzen jarri ziren bertako ugazabarekin, hala ere, fronteak aurrera egin ahala gero eta gorago mugitzen joan ziren.

962. Frantzian kontzentrazio esparruan eta aterpean (AB-188/020)

Ihes eginda zeudela Poitierseko aterpean sukaldari lanetan egon zen Concepcion, aterpea Eusko Jaurlaritzarena zen eta ez ziren Toulousera joan Benignok lana aurkitu zuen arte. Marseillan hondartzako kontzentrazio esparruan egon zen Benigno aurretik.

963. Frantzian ihesi (AB-188/023)

Gerratik ihesi zeudela, Concepcion eta alaba Poitiersetik Toulousera joan ziren Benignok lana aurkitu zuelako. Toulusen zeudela, Alemanak ezarri zirenean Benigno atxilotu eta Concepcion eta Aurora aske utzi zituzten. Itsasontzian Mexikora joatekoak ziren baina Alemanek itsasontziak bonbardatzen zituzten eta ez ziren irten. Tuberkulosiarekin gaixotu zen Benigno gero eta etxean egon zen ezkutuan.

964. Eibarrera itzultzen gerraostean (AB-189/006)

Toni eta Alfonso Arrietaren etxean egon ziren Bascarandarrak Bartzelonan. Beraien laguntzari esker itzuli ziren Eibarrera. Trenean Bilbora arte joan zirela oroitzen du Aurorak. Bartzelonara iritsi ziren eibartar askori lagundu zieten Toni eta Alfonso senar-emazteek. Ihes egindako eibartar asko mediterraneo inguruan ibili baitziren.

965. Gerraosteko errepresioa (AB-189/009)

Sendatu eta lanean eta politikan sartu zen berriro Benigno Bascaran. 1950ean atxilotu egin zuten eta Martutenen zazpi hilabete pasa zituen. Irunera eraman zituzten lehenengo eta aitak bertan bizi izandako anekdota bat kontatzen du Aurorak.

966. Gerrasosteko industria Eibarren (AB-189/012)

Eibarko tailerrak martxan jarri ziren gerraostean eta boom industrialia eman zenean, herria oraindik berreraikitze prozesuan zegoen. Jende asko bildu zen Eibar inguruan eta Ermuan bizi ziren askok Eibarren egiten zuten bizimodua; horregatik, Aurorak "ciudad dormitorio" deitzen dio. Aurrerago enpresak herri desberdinetan edatzen joan ziren.

967. Eibarko ohituren aldaketa gerraostean (AB-189/019)

Eibarren fabriketako langileak etxetik buzoa jantzita joaten zirela gogoratzen du Aurorak, oinez joaten ziren denak beti eta sirenarekin batera irteten ziren. Hala ere, gerra ondoren ohiturak aldatu eta kanpokoak etorri zirenean aldatzeko arropa eramaten hasi ziren. Oporraldian etxera itzuli eta buelta jende gehiago etortzen zela azaltzen du Aurorak.

968. Eibarren gerraostean goseterik ez (AB-189/021)

Gerraostean Eibarren errazionamendurako kartilla ezarrita zegoen Aurora eta Concepcion itzuli zirenean, baina gosete handirik pasa ez zutela diote. Okindegia martxan zegoen eta baserriko jatekoak Elgetatik ekartzen zizkieten. Eibarren susperraldia eman zen industriari esker. Etxearen inguruko anekdota bat kontatzen dute.

969. Benigno Bascaran gerraostean klandestinitatean (AB-189/025)

Benigno Bascaran gerra bukatu eta sendatu zenean politikan hasi zen berriro ere. Eibarren sozialistak nazionalistekin klandestinitatean antolatuta zeudela azaltzen du Aurorak, 1950.urtean kartzelan sartu zuten arte. Aberrri egun baten irratia asaltatu eta askatasun oihuak elarazi zituztela kontatzen du. Greba politikoak ere egiten zituzten eta Benigno askotan eramaten zuten Guardia Zibilek.

970. Lehenengo auteskundeak gerraostean (AB-189/030)

Benigno Bascaranek disgustu handia artu zuen Eibarren gerraosteko lehenengo hauteskundeetan nazionalistek irabazi zutenean, Eibar herri sozialista izan baitzen beti.

971. Erregearekin hizketan (AB-189/033)

Concepcion senarrarekin batera erregearekin egon ziren Euskal Herrira egindako bisita batean eta eskopeta bat oparitu ziotela oroitzen du.

972. Aurora Bascaranen politikan hasiera (AB-189/036)

Aurora Bascaran sozialistak aita eta aitonaaren oinordekotzarekin jarraitu zuen. Politikan zelan sartu zen azaltzen du. Sozialista zaharrekin hitz egin ondoren alkatetzarako aurkeztea erabaki zuen. Alkatetzan zegoela bizi izandako gora behera desberdinez hitz egiten du.

973. Alkatetzan paktuak (AB-189/037)

Alkatetzan zegoela Aurorak paktua nolakoa izan zen eta izandako arazoez hitz egiten du; etxe batzuen inguruan eztabaida sortu baitzen udaletxean.

974. Legeladi polita (AB-189/038)

Aurora Bascaran alkatetzan izan zen bitartean hainbat gertakari alde batera utzita legealdi polita izan zela dio. Udaletxeko giro ona oroitzen du, batzarretako gora berak alde batera utziaz.

975. Gerra hasi zenean ihes (AB-190/004)

Gerra hasi zenean ihesi irten ziren; Asunek etxea utzi behar izan zuen eta Josek Bilbora, Santanderrera eta gero Frantziara ihes egin zuela gogoratzen du. Itsasontzian egindako bidaian bizi izandakoa kontatzen du. Valentziara joan zen azkenean gurasoengana.

976. Eibarko bonbardaketa (AB-190/005)

Gerra hasi zenean Asun oraindik Eibarren zegoen. Eibarko lehenengo bonbardaketako kanpaiak entzun zituztenean, ama eta anai-arrebak O’Donnell kaleko babeslekuan gorde ziren. Bonba gertu bota zuten eta beraiekin zeuden ama-alaba batzuk hil ziren. Getxora ihes egin zuten eta gero Matienara aldatu ziren. Soldaduekin bizi izandako anekdotak kontatzen ditu Asunek.

977. Durangoko bonbardaketak (AB-190/006)

Durangoko bonbardaketa izan zenean Asunen ama Durangon zegoen eta bizi izandako estutasunez hitz egiten du. Hurrengo bonbardaketa nola bizi izan

zuten azaltzen du. Nonbaitera zihoazela hegazkin batetik tiroka erreka beste aldean zeuden guztiak hil zituztela gogoratzen du. Etxera itzuli zenean Eibar nola zegoen azaltzen du.

978. Valentzian ikasi eta lan (AB-190/008)

Bi urte egon zen Jose Valentzian. Aita bertan lanean zegoen eta esku lana behar zenez hamalau urterekin lanean hasi zen ikastaro txiki bat egin ondoren. Oroitzapen ona du Valentzian egon zen garaikoa. Laranjak, tomatea, kafea eta batzuetan ogia jaten zituztela gogoratzen du. Bertan bizi izandako anekdotak eta oroitzapenak kontatzen ditu.

979. Eibarrera itzulera (AB-190/012)

Eibarrera itzuli zirenean Joseren etxea beste batzuek artua zuten eta senide batzuen etxera joan behar izan ziren. Eibarrerako bidaiak nolakoak izan zen kontatzen du Josek. Iritsi bezain laster aita eta osaba kartzelan sartu zituzten. Kuartelera ere joan behar izaten zuten egunero presentatzera kartzelatik edo kontzentrazio esparrutik etorritakoak.

980. Gerraostean Eibarrera itzulera (AB-190/013)

Gerraostean Eibarrera iritsi zenean Asunek bizi izandakoa kontatzen du. Izebaren etxera joan behar izan ziren beraien etxea sutan zegoelako.

981. Eibar berreraikitzen (AB-190/014)

Gerra bukatu eta Eibar suntsituta zegoen. Presoak egon ziren La Salle eskola dagoen tokian. Etxeak egiten egoten ziren eta desekonbroa ere egin zuten lpurua futbol zelaia dagoen tokian.

982. Eibar lehen eta orain (AB-190/015)

Eibar garai baten herri txikiagoa izanik lasaiagoa eta bestelako giroa izaten zela azpimarratzen dute Jose eta Asunek. Kanean jolasean ibiltzen ziren eta zinemara joateko ohitura handia izaten zuten.

983. Bizimodu aldaketa (AB-190/017)

Gerraostean hasieran bizimodua ez zen asko aldatu, goseteaz gain bizimodua antzera mantendu zen. Hala ere, gerra egun batetik bestera eztanda egin zuenez aldaketa bat batekoa izan zela azaltzen dute Jose eta Asunek.

984. Gerraostean urte txarrenak (AB-190/019)

Gerra bukatu zenean bizi izandako gose eta momentu txarrak gogoratzen dituzte. Gerra bukatu arren normaltasunera itzultzeko urte gehiago pasa behar izan ziren. Asun jateko lapurretak eta fabrika martxan jartzeko Jose makinen bila ibili behar izan ziren. Gosea zutenez edozer jaten zutela azaltzen dute.

985. Eibarko musika bandak (AB-191/002)

Musika zaletasuna. 1831-32 urteetan jadanik Eibarren musika banda bat zegoen. "La Marcial" musika bandako zuzendaria Ildefonso Irusta izan zen. "Cículo Conservador" zeritzonak "Santa Cecilia" izeneko banda zuen. Zuzendaria Crispulo Gisasola izan zen, "Crispulín". Eibarren publikatzen zen egunkariaren korresponsala ere izan zen Crispulo, "Eco de Eibar" hain zuzen ere.

986. Eibarko Udal Musika bandaren zuzendaria, Agustín Zuloaga (AB-191/003)

Ildefonso Irusta izan zen luzaroan Eibarko musika bandako zuzendaria. Jacinto Martinezek, Udal Musika Bandan eta "La Marcial" musika bandan jardun zuen bi sasoi desberdinetan: Agustín Zuloaga zuzendari izendatu aurretik lehenengo eta haren heriotzaren ostean ondoren. Eibarko Musika Banda, Agustín Zuloaga zuzendari izan zen garaian bakarrik izan zen udal-banda, 1924tik 1936ra bitartean hain zuzen ere. Udalarena izateko zuzendariak oposaketak atera behar zituela kontatzen du. Bost hautagairen artean gailendu zen Agustín Zuloaga. Musika bandako zuzendaria izateaz gain, kontulari postua ere berea zuen Udalean.

987. Eibarko Udal Musika banda: 1924tik 1936ra bitartean (AB-191/004)

"La Marcial" Musika Bandan bonbardinoa jotzen zuen Salvadorren aitona (Aquilino Amuategi). 1840-50 inguruan hasi eta 1922rarte izan zuen Eibarko musika bandak "La Marcial" izena. 1924-1936 urte bitartean bakarrik izan zen udal-banda. Ildefonso Irustak urte asko eman zituen bandako zuzendari bezala. Bere emaztea, Doña Polonia Etxeberria, eskolako irakaslea izan zen.

988. Aquilino Amuategi, musika bandako kide eta eibartar sozialista ezaguna (AB-191/005)

Aquilino Amuategi. Gerra garaian sortutako batailoi batek bere izena zeraman. Gizon jatorra, baserriko semea zen. Oso musiko ona izateaz gainera, sozialista sutsua ere bazen. Herriz-herri joaten zen hitzaldiak ematen. Jendea harrituta geratzen omen zen, sozialista izanik euskaraz berba egiten zuelako. Aquilinoaren esaera ezaguna: "mutillak, argi e!!, konfianza (puesto responsabilidadekuetan be) daneri emon bihar jako, baiña gero lapurreri moduan bijilau, e?".

989. Salvador Marzanaren jatorria (AB-191/006)

Salvadorren amandrearen aitona, Abua baserrikoa zen, "Errotatxokoa". Aitaren familia Elorriokoa, "Azkarreta" baserrikoa.

990. Amuategi Batailoiko musika banda gerra sasoi (AB-191/010)

Argazkian agertzen diren musikariak izendatzen ditu. Frontea Eibarren zegoela, Amuategi Batailoiko Martín Etxeberria "Querido" Komandanteari Musika Banda bat sortzea bururatu zitzaion. Beste batailoi batzuek ere bazuten musika banda (UGT...). Markeskoako Palazioa zen Amuategi Batailoiko kuartela. Palazioa zelakoa zen. Soldadu zeuden bitartean, Untzaga plazako kioskoan jotzen zuten.

991. Eibar gerra sasoi; frentean zeuden Batailoiak (AB-191/011)

Gerra zibila Eibarren: jende gehienak ihes egin zuen. Batailoi ugari egon ziren inguruan: Elgetatik hasita kostaraino zegoen frontea, eta batailoi asko elkartzan ziren puntu desberdinetan. Batailoietan erreleboak egiten ziren, eta momentu batzuetan kontzertuak ematen zituzten soldaduen entretenimendurako.

992. "La Lira" edo "Los Rebeldes" musika banda (AB-191/013)

Udal-banda utzi zuen musikari talde batek "La Banda de Espectáculos Públicos" zeritzona sortu zuen. Legalizatzeko, azterketa bat pasa behar izan zutela kontatzen du; profesional agiria duela dio barre artean. Behin legalizatuta, "Banda La Lira" izena jarri zioten nahiz eta "Los Rebeldes" bezala izan jende guztiarentzat ezagun. Kaleetako jaietan jotzen zuten. 1949tik, 1960-70 ingurura arte jotzen jarraitu zuten.

993. "Clave de Fa" vs. "Clave de Sol" futbol partidu historikoa (AB-191/015)

Futbol partidua ere jokatu zuten behin bandako kideen artean: Clave de Fa vs. Clave de Sol. Parte hartu zuten musikarien izenak aipatzen ditu. Zalantzazko penalti baten erruz partidua berdindu zirela kontatzen du.

994. Musika emanaldi desberdinak (AB-191/017)

Udal Musika Bandak udan Untzaga plazan ematen zuen kontzertua, ostegun eta igande gauetan, eta neguan arratsalde aritzen ziren Untzaga plazako kioskoan. Garai hartako kiosko zaharra Beasainen dago gaur egun. Romeralak ("La Romeral" Musika Banda) bestalde, Astelena frontoian jotzen zuen neguan; gaueko 24:00ak arte jarduten zutela kontatzen du. Astelena frontoira jende ugari joaten zen. Orkestrak, Rialton ere jotzen zuen.

995. "Bretón" orkestra (AB-191/018)

"Orquesta Bretón" zeritzona, Salvador jaio baino lehenagokoa zen. Lehenengo zuzendaria, Ángel Garate "Beltxi" izan zen. Gerora izena aldatu eta "Orquesta Rialto" bezala ezaguna egin zen. Casino Amistad-en jotzen zuen. Casino Amistad-i buruzko aipamenak.

996. Dantzaldiak aratusteetan. (AB-191/019)

Casino Artistak eta Casino Amistad-ek, aratusteetan dantzaldiak antolatzen zituzten. Jende ugari joaten zen musika entzun eta dantza egitera. Antonio Enbeita "Txapel" zen "La Romeral" musika bandako zuzendaria orduan. Banda zuzentzeaz gain, kantuan ere egiten zuen. Errepublika aurreko urteak. Eibartarrei buruzko esaera: "El Eibar es en si inmortal, el más feliz y el más jovial. Si le va bien o le va mal, El Eibar siempre igual".

997. Jaiegun berezietako kalejira eta kontzertuak. (AB-191/020)

Errepublika garaian, "La Romeral" musika bandak apirilaren 14ean eta maiatzak 1ean Diana jotzen zuten goizeko 7:00retan kalerik-kale. Gero beste bandak kalejira eta kontzertua eskaintzen zituen. Maiatz inguruan hasten ziren gauez kontzertuak ematen.

998. Kontzertua zegoela iragartzeko kalejira egiten zuten (AB-191/021)

Udal Musika Bandak 15 egunean behin, kalejira egiten zuen. Kontzertua zegoela jakinarazteko modua izaten zen. Kalejiraren ibilbidea zein izaten zen.

999. Aratusteetako konparsak (AB-191/022)

Aratusteetan konpartsak. Bandako musikoeekin osatzen ziren taldeak. Gainera, Eibarren gitarrista asko zegoen. Kalderero, kamarero, abiadoreen konpartsak, e.a.

1.000. Eibartarren izaera (AB-191/024)

Eibartarren izaera: jendea alaia zen; gauzak erraz antolatzen zituen; herri solidarioa...

1.001. Agustin Zuloagaren omenezko ekitaldia eta Errepublikaren aldarrikapenaren urteurrenak banaketa eragin zuen (AB-192/003)

1932. urtean, Musika Bandako zuzendari zen Agustin Zuloaga hil zen. Errepublikaren aldarrikapenaren urteurrenetik oso hurbil zeudenez, Zuloagaren omenezko kontzertuan uniformerik gabe jo zutela kontatzen du. Ospakizunak burutu edo bertan behera uztea erabaki beharrak, bandako kideen arteko desadostasuna ekarri zuen.

1.002. Agustin Zuloaga (AB-192/004)

Eibar eta inguruan egon den musikari onenetarikoak izan zela dio Salvadorrek. Durangon jaioa izan arren, klarinetea jotzeko gaitasun apartak Eibarrera ekarri zuen umetan. Soldadutza garaiko Bilboko egonaldia goi mailako musika ikasketak egiteko aprobetxatu zuen Zuloagak. Ildefonso Irustaren ordezkaria izan zen Udal Musika Bandaren zuzendaritzan.

1.003. Bandako soldata eta isunak (AB-192/005)

Musikarien soldata desberdinei buruz dihardu. Bakoitzaren kategoriaren arabera kobratzen zen. Entseguetara, kontzertuetara edo bestelako emanaldietara ez joatearren ordaindu beharreko isunei buruz ere hitz egiten du.

1.004. Ondarroako prozesioan "Internazionala" jo zutenekoa (AB-192/007)

Ondarroan gertatutako anekdota kontatzen du. Ohikoa zena baino pieza gehiago jo behar izan zituztenez, prozesio garaian "Internazionala" jotzeko erabakia hartu zuen zuzendariak. Poliki-poliki jo zutenez, ia inor ez zen ohartu ze pieza ari ziren jotzen.

1.005. "La Romeral" eta "Unión Musical" (AB-192/009)

"La Romeral" bandaren garai berean (Errepublika aurretik gerra hasierara bitartean, gutxi gorabehera), "Unión Musical" zeritzon banda ere egon zen. Udal Bandak "La Romeral" bandari kontra egiteko sortutako banda zela kontatzen du Salvadorrek. Nahiz eta garai hartan musikan oraindik ez zegoen politika kutsua zuen liskarrik, Franco garaian gauzak izugarri aldatu zirela dauka gogoan.

1.006. Arrateko Ama Birjina santutegitik kanpora (AB-193/003)

Frontea Eibarrera iritsi zenean, erreketek Hirukurutzetatik Arratera kanoikadak jaurtitzen hasi zirenez, Arrateko Ama Birjina Azitainera jaitsi zuten Amuategi batailoiko kideek, Salvador tartean zela. Horregatik dio Ama Birjina

Sozialisten salbatu zutela. Ez daki zenbat urte pasa zituen Ama Birjinak Arratetik kanpora; 1929. urteko azaroaren 3ko koroatze ekitaldian, (hamaika urte zituen Salvadorrek) Ama Birjina Arraten zegon eta, 1954. urteko jardunaldi eukaristikoetarako Arratetik jaitsi zutela dago jasota baina tartean ere, Santutegitik kanpora eman zuen denbora bat, antza.

1.007. Amuategi batailoien izena Salvadorren aitaren omenez (AB-193/005)

Nahiz eta gerra garaian Sozialistek elizaren aurkako ekintzak burutzen zituztela ezaguna zen, hemen kontrako fenomenoaren ematen zela kontatzen du Salvadorrek. "Juventudes Unificadas" batailoiko kide zen Salvador. Sozialistak eta Komunistak batzen zituen. Batailoia hari "Amuategi" izena Salvadorren aitonaengandik (Akilino Amuategi) zetorkion. Musikari eta politikoa aparta, mitinak euskaraz egiteagatik izan zen ezaguna.

1.008. Eibarko sozialismoa: "denok entenditzeko modukoa" (AB-193/006)

Eibarko sozialismoa desberdina zela iruditzen zaio. Hari buruzko iritzia.

1.009. Akilino Amuategi (AB-193/008)

Akilino Amuategiren jatorriari buruz. Orbeatarren senidea zen; laugarren abizena zuen Orbea. Orbea lantegian egin zuen lan, politika kontuak tarteko utzi behar izan zuenera arte. Nola gertatu zen kontatzen du. Handik irten eta Estazio kalean "Amuategi" tailerra ireki zuela kontatzen du. Hasi batean torlojugintzako fabrika izan zen, Akilino hil ostean, koipeztagailuak ekoitzi zituzten semearen gidaritzapean.

1.010. 12 urterekin Amuategi lantegian "granuja" (AB-193/009)

7 urte zituen ama alargundu zenean. 12 urterekin aitak abiatutako lantegian hasi zen lanean. Bere betebeharrak buruz dihardu. Laguntzaile bezala lanean jarduten zuten haur eta gaztetxoei "granuja" esaten zieten.

1.011. Umetako bihurrikeriak (AB-193/010)

Txikitik bihurrikeria asko egiten zituela kontatzen du. Lapurtutako kalabazak hustu eta kandelaz argizatuta, prozesioa zegoenean jartzen zituztela kontatzen du algara artean.

1.012. Gerra garaian, Eibarko langile gaituak estimatuak ziren oso (AB-193/011)

9 urterekin sartu zen "Grupo Infantil Socialista" taldean. Militante izatearen ondorioz dihardu. Frontean zeudela, Madrildik etorri zitzaizkien Valentzian ikastaroak egitera joateko agindua. 80 ikasleren artean, 32 ziren eibartarrak eta gainontzekoen aldean oinarritzako prestakuntza zuten bakarrak zirenez, lanposturik hoberenak eurentzako izan zirela kontatzen du. Ostera, Eibartik ebakutatutako jende ugari bildu zen Katalunia eta Valentzian lanean. Beste toki batzuetakoak baino nahiago izaten zituzten eibartarrak lanerako.

1.013. Hegazkinen metrailadoreak eta bonbak prest edukitzea zen euren betebeharra (AB-193/013)

Gerrak irain zuen artean, armaginen moduan batetik bestera ibiltzen zituztela kontatzen du, beharrezko arabera. Hegazkinen zeramatzen metrailadore eta

bonbak konpondu eta prest edukitzea zen euren betebeharra. Lan haiei buruzko azalpenak ematen ditu. Ehiza-hegazkin batek Albaceten metrailatu zitueneko anekdota dakar gogora.

1.014. Munizio desberdinari buruzko azalpenak (AB-193/014)

Munizio desberdinari buruzko azalpenak: "trazadoras", "rompedoras"... Goizeko lauretan jaikitzen ziren hegazkinak eraman behar zituzten munizioak prestatzeko.

1.015. "Comité de No Intervención" zelakoaren traizioa (AB-193/015)

Gerra zibilaren ia amaierara bitartean irabazle irtengo zirenen ustea zuten. Hala ere, Frantziako gobernuak Francoren alde agertu eta Txekiarrek eta Errusiarrek alde egin zutenean, babesik gabe geratu zirela kontatzen du. Francok aldiz, Italiar, Alemaniak etab. en babesarekin jarraitu zuen aurrera. "Comité de No intervención" zelakoaren traizioaren erruz galdu zutela dio Salvadorrek. 500 hegazkin zituzten Frantziako mugan erasoerako prest baina, pilotu eta mekanikoak konzentrazio-esparruan preso hartu zituztela kontatzen du haiek erabilgaitz utziz.

1.016. Komunisten altxamendua (AB-193/016)

Komunistak euren kontra altxa ziren Madrilen gerra amaitu baina egun bat lehenago. Señera-n (Valentzia) zegoen orduan Salvador. Handik hurbil zeuden Utiel, Buñol era Requena eskudrilak ere altxa zirela jakin zutenean, gaueko hamabietan, hegazkinetako metrailadoreak erabilezin bihurtu eta badaezpada ere hanka egin zutela kontatzen du. Bertan geratuz gero, erailak izango zirenen susmoa dauka. Señorako komunistak ez ziren altxa azkenean eta, gainontzekoek ere, amore eman zuten segituan.

1.017. Aire Ministerioaren aurrean aurkeztu baina libre irten zirenekoa (AB-193/017)

Garra amaitu zenean sukaldari-laguntzaile izandako baten etxean egon ziren ezkutatuta. Valentzian nola sartu ziren kontatzen du. Aire Ministerioaren aurrean deituak izan zirenean, euren alderdian jardundako teniente bat ikusi zuten falangearen uniformeak jantzita. Libre geratuko zirela aurreratu zien hark eta hala izan zela kontatzen du.

1.018. Gerra amaitu eta Eibarrera itzulera: Valentziatik Zaragozara (AB-193/018)

Aire Ministerioaren aurrera deituak izan ziren baina libre utzi zituzten. Dirudik ez eta libre izaten jarraitzeko konfiantza gutxi, herrira itzultzeko egin behar izan zituztenak kontatzen ditu. Bidaia luzea izan zen. Lehenengo trenak Zaragozaraino eraman zituen.

1.019. Gerra amaitu eta Eibarrera itzulera: Zaragozatik Eibarrera (AB-193/019)

Zaragozan Bilborako trenean igotzea lortu zuten. Erreketek eta falangista ugari zegoela dauka gogoan, beldurrik ez zuten izan ordea. Basaurin jaitsi eta mendiz Galdakaora iritsi ziren. Handik, Durangora zihon tren hartu zuten. Apaiz batekin gertatutako pasadizoa dakar gogora. Durangon Eibarrera telefonoz deitu eta taxian egin zuten azken zatia. Eibarren hiru egun

zeramatzatela ordea, Donostiako kontzentrazio-esparrura eraman zituzten preso.

1.020. Abiazioan zegoen bitartean ez zuen goserik pasa (AB-193/022)

Hegazkintzan jardun zuen bitartean goserik ez zuela sekula pasa kontatzen du. Frantzian erbesteratuta zeuden gurasoei ere bidaltzeko adina diru irabazten zuen gainera.

1.021. Eibarko raketista ezaguna laguntza emateko prest Bartzelonan (AB-193/024)

Tony, Eibarko raketista ezagunak, Eibartar ugariri laguntza eman zien Bartzelonan zegoen bitartean. Han jasotako anekdota bat dakar gogora.

1.022. 1934. urteko matxinada (AB-193/028)

Salvadorren ustez, 1934. urteko altxamenduak ez zuen eraginik izan koordinazio txarragatik. Altxamenduaren zergatiaz eta aurreko egunetako prestaketei buruz dihardu. Nahiz eta jende askorentzat ezezaguna izan, Salvadorren iritziz, Toribio Etxebarria izan zen altxamenduaren eragile nagusietako bat.

1.023. Estanislao Arriolak erakutsi zion klarinetea jotzen (AB-193/030)

6 urterekin hasi zen solfeo ikasketekin. Amaren ahizpa batek erakutsi zion. Piano irakaslea zen. Osabari zor dio ordea klarinetea jotzea; pasadizoa kontatzen du haren inguruan. Estanislao Arriolak erakutsi zion, hilean bi pezetaren truke, klarinetea jotzen. 10 urte bete zituenerako musika bandako kide zen.

1.024. Errepublika aldarrikatu aurreko hauteskunde gaua (AB-193/032)

Errepublika aldarrikatu aurreko hauteskunde gauean, apirilaren 12an, jaia antolatu zen Astelena pilotalekuan. Romeral Musika Bandarekin jotzen jardun zuen Salvadorrek. Hurrengo eguneko Errepublikaren aldarrikapenean Eibartarrak lehenak izateari buruzko komentarioak.

1.025. Umetan gaztainak lapurtzen (AB-194/002)

Umetako kontuak. Igandetan gaztainak lapurtzen ibiltzen zireneko anekdota.

1.026. "Tolosa capital foral y Eibar capital farol" (AB-194/005)

Oso berezia zen Eibar, inguruko herrieikin alderatuta ere. Futboleko eta pilotako hainbat kontu kontatzen ditu. Migel Gallastegi pilotari ezagunarekin batera joan zen eskolara umetan.

1.027. Salvadorrek zintzilikatu zuen Alcalá-Zamoraren koadroa eskolan (AB-194/006)

Eskolako oroitzapenak. Maisu-maistra desberdinei buruzko aipamenak. Frontoi zaharreko eskolan zegoela aldarrikatu zen Errepublika. Erregearen koadroa kendu eta Alcalá-Zamorarena berak zintzilikatu zuen pozarren.

1.028. Migel Gallastegi: pertsona bezain pilotari ona (AB-194/007)

Migel Gallastegi "mutikote" handi bat bezala gogoratzen du. Lagun ona zuen. Gaztetatik ikusten zen pilotari ona izango zela. Txapelketa jokatu aurretik kendu zioteneko pasadizoa dakar gogora.

1.029. Eibarko zinema-aretoak (AB-194/009)

Gerra aurretik hiru zinema-areto egon zirela irakurri zuen Eibarren argitaratzen den aldizkarian: Pabellón Alfonso XIII, Cruceta (gerra garaia, Salón Amuategi) eta Salón Teatro. Beste biren aipamena egiten du Salvadorrek: Frontón Elorza (Isasi kalean) eta Frontón Astelena. Astelenari buruzko aipamenak egiten ditu.

1.030. Orduko zine emanaldiak (AB-194/010)

Frontoietako zine emanaldiei buruz dihardu. Goxokien salmenta. Gramola baten musikaz girotzen zituzten pelikulak.

1.031. Salón Teatro eta Peña Taurina (AB-194/012)

"Salón Teatro" zen, Salvadorren ustetan Eibarko zinema-aretorik onena. Kafetegia ere bazegoen aldamenean. Gainean zegoen lokal txiki batean sortu zen Eibarren hain ezaguna izan zen "Peña Taurina". Lehendakariari buruzko aipamenak.

1.032. Eibarko ereserkiaren historia (AB-194/015)

Eibarko ereserkiari dagokion dokumentazioa dauka esku artean. 1915. urtean Fermin Calbetón-i egin zitzaion omenaldian jo omen zen azken aldiz. Niceto Muguruza medikuarenak ziren hitzak eta Oñatek jarri zion musika.

1.033. "Aurrera beti" Eibar futbol taldearen kanta (AB-194/017)

"Sociedad Deportiva Eibar"-en ereserkia dauka dokumentatuta. Abestu ohi izan den beste ereserki moduko bat abesten du.

1.034. Gerra hasi zenean, Arrateko Ama Birjina Eibarrera nola jaitsi zuten (AB-195/002)

Tropa frankistak Gipuzkoan barrena sartzen hasi ziren eta frontea Arrate inguruan ezarri baino lehen, miliziano talde batek Ama Birjinaren irudia Arratetik jaistea erabaki zuen. Nazionalak Irukurutzeta, Karakate ingurutik Arrateko Santutegia tirokatzen hasi zirenean 8 laguneko talde bat Arratera igo, Ama Birjina Azitainera jaitsi eta handik ospitaleko kaperara eraman zutela kontatzen du.

1.035. Arrateko Amak eibartarrentzat duen garrantzia (AB-195/003)

Arrateko Ama Birjinaren garrantzia eibartarrentzat. Sozialistak izan arren, Arrateko amak esanahi berezia izan du beti. Bera mutikoa zela, ama alargunak zituzten umeak Arrateko koloniarera eramaten zituzten egun batzuk pasatzera. Bera ere bertan egon zen eta Santutegiko kapilauari Ama Birjina garbitzen laguntzen zioten.

1.036. 1936ko irailean Arrateko ama Eibarrera jaitsi zuten (AB-195/005)

1936ko irailean jaitsi zuten Ama Birjina. Aurreko hilabetean Igeldorako bidea egiten jardun zuten. Orioko udalean prestatu zieten lo egiteko tokia. Nazionalak Gipuzkoan barrena sartu ahala, Eibarrera itzuli ziren. 8 laguneko talde bat igo zen Arratera (tartean Amuategi batailoiko gizonak, abertzaleak eta baita inguruko baserritar batzuk ere). Arrateko Santutegiaren egoerari buruz dihardu.

1.037. 1931ko hauteskunde eguna (AB-195/006)

1931ko hauteskundeak, apirilak 12an izan ziren. Egun hura nola gogoratzen duen kontatzen du. Bera orduan oso gaztea zen, eta "Juventudes Socialistas"-eko kide bezala, errepublikano eta sozialisten hautagai-zerrenda banatzen ibili zen Alhondigan. Harra-marra batzuk ere egon ziren, baina garrantzi gutxikoak.

1.038. 1931ko hauteskunde gaua eta hurrengo egunak (AB-195/007)

Hauteskunde gauean, dantzaldia egon zen Astelena pilotalekuan; Salvador bertan egon zan "La Romeral" bandarekin. Gau hartan ez zen ezer gertatu, baina hurrengo egunean, astelehena hilak 13, Danba lagun-taldekoak "Casa del Pueblo"-n egon ziren kantuan eta errepublikaren etorrera ospatzen "badatok republikia!". Hurrengo egunean (1931-04-14), goizeko 5:45etan jendea etorri zitzaien ate-joka etxera "benga, danok Untzagara, Republikia proklamau da-ta!". Salvador, San Andres pasealekuan bizi zen. Bizilagun gehienak orduan "gorrixak" ziren; horregatik jarri zitzaion Errepublika garaian Calle Pablo Iglesias izena.

1.039. 1931ko apirilaren 14ean, Eibarren beste inon baino lehenago aldarrikatu zen Errepublika (AB-195/010)

Hauteskunde egunean, 1931-04-12an, errepublikano eta sozialistek hauteskundeak irabazi zituztela eta, jendea pozik zegoen baina zarraparra handirik ere ez zen izan. Hurrengo egunean ere, "Danba" elkartekoak hauteskundearen emaitzak ospatzen ibili ziren, baina besterik gabe. 1931-04-14a izan zen egun handia.

1.040. Errepublika aldarrikatu zen eguneko giroa. El día en que se proclamó la República (AB-195/011)

Errepublikaren proklamazio eguna ongi gogoratzen du. Berak dioenez goizean ez zen inor lanera joan; gazteak kalerik-kale ibili ziren aldarrikapena ospatzen. Baina beste inondik ez zenez aldarrikapenaren berririk heltzen, arratsaldean momentu larriak pasa zituzten. Bilbon, Madrilen eta beste hainbat lekutan Errepublika aldarrikatu zenean iritsi zen azkenik lasaitasuna Eibarrera. Orduantxe hasi zen benetako jaia: Musika Bandaren kalejira, kontzertua, e.a.

1.041. Alcalá Zamora Eibarrera etorri zeneko eguna (AB-195/013)

Alcalá Zamora Errepublikako lehendakaria etorri zeneko eguna. Lerroux; Queipo de Llano; e.a. ere egon ziren Eibarren. Queipo de Llano gerra garaian eibartarren aurka esandakoak aipatzen ditu. Alcalá Zamora etorri zenean Salvador musika bandarekin ibili zen jotzen. 10 urterekin sartu zen Salvador musika bandan (1928an). Garai hartan, Bonifacio Gisasola "Txantoi", Eibarko errepublikanoen artean ezagunenetakoa zen. Bilbon egindako desfile baten

inguruko pasadizoak. "Somos liberales de este pueblo invicto y derramaremos nuestra sangre por la libertad..." kanta. Alcalá Zamora etorri zenean zer jo zuten dakar gogora.

1.042. Amamaren aita izan zen lehen "querido"-a (AB-196/002)

"Querido" gaitzizenaren jatorria Aranberri familian dago; amamaren aldetik datorkie (Manuela "Querido"). Etxeberria-k izatez "Ahuntz-buru" omen dira. Eulogio (aita), Martin (osaba) eta Jose (lehengusua) ere "Querido" bezala izan dira ezagunak Eibarren. Amamaren aita izan zen lehen "Querido"-a.

1.043. ALFAko igerilekua eta "montoia" (AB-196/004)

ALFA lantegia kokatzen zen lekuan zegoen igerilekuari buruzko aipamena. 1934. urte inguruan igerilekua eraikitzeke errota izandako baserria (Kakalardokua) eraitsi zutenean, "kunbua"-n (presa) antzinako armak aurkitu zituztela kontatzen du. Aldamenean zegoen arboladiari "montoia" esaten zioten eta ogitartekoa jatera joan ohi ziren bertara.

1.044. Igerilekuan harrapatu zituen lehen bonbardaketak (AB-196/005)

Igerilekuan zeuden lehen bonbardaketa gertatu zen momentuan. Zorionez ez zen bertara bonbarik erori.

1.045. Julian "Itsua"-ri igerilekuan gertatutako pasadizoa (AB-196/007)

Igerilekuak zituen hiru eskailera-mailak jauzi egiteko erabiltzen zituzten. Julian "Itsua"-ri gertatutako pasadizoa kontatzen du.

1.046. Ume-umetatik mendirako grina (AB-196/010)

Betidanik izan du mendirako zaletasuna. Lau urte baino ez zituela irabazi zuen haurrentzako mendi lehiaketa bat. Aitari ikasi zion zaletasun hura.

1.047. Simon Aldazabal aitak entrenatzen zuen (AB-196/011)

Simon Aldazabal, korrikalari ezaguna, Javierren aitak entrenatzen zuen. Harreman hura nola hasi zen kontatzen du.

1.048. Gerra aurretik, aitak Errugbian jokatu zuen Frantzian (AB-196/012)

Gerra aurretik, Javierren aita Frantzian aritu zen errugbian jokatzeko. Eibarren armak ekoiztea debekatuta egon zen sasoiaren Hendaiara lekualdatu zirenean armagin asko, tartean Javierren aita. Hondartzan futboleko jolasten ari zirela entzun zuten lehen aldiz errugbiari buruzko aipamena.

1.049. Atletismoko kirolari ezagunen entrenatzaile izan zen aita (AB-196/013)

Atletismoko kirolari ezagunen entrenatzaile izan zen Javierren aita: Ziriako Errasti, Pedro Mari Aldazabal, etab. Eibarko "Club Deportivo"-ko sortzaileetako bat ez zen arren, hasieratik jardun zuen bertan.

1.050. Gerra aurreko "Club Deportivo"a (AB-196/014)

Gerra aurreko "Club Deportivo"a "Tupi" taberna zegoen eraikineko lehenengo solairuan kokatzen zen, Untzaga zinema-aretoaren pare-parean.

1.051. 100 mendi gailur 5 urtetan (AB-196/017)

100 mendi igotzeko lehiaketan parte hartu zuen Javierrek. Mendi bakoitzeko, parte bat bete behar izaten zela kontatzen du. Bete beharreko araei buruzko informazioa. Urtean hogeitortor baino ezin zitzaketan egin.

1.052. Mendi batetik bestera ibiltzeko tren edo autobusa hartu behar (AB-196/019)

Garai hartan, kotxerik ez eta zailagoa zen mendi desberdinak igo ahal izatea. Trenez edo autobusez joaten ziren batetik bestera. Jateko zeramatzaten jakiek ere ez zeukaten gaur egungoekin zer ikusirik.

1.053. Simon Aldazabalen ekintza gogoangarriak (AB-196/020)

Simon Aldazabalek eginiko postura ezaguna dakar gogora: Arrateko santutegitik Eibarko parrokiara 10 minutuan jaitsi zela kontatzen du. ALFAko behargina zen; bazkaltzeko zuten denbora tartean, baserrira oinez joan-etorria egiten zuela kontatzen du. Beste korrikalari batzuen markak ere erraz hausten zituen Simonek.

1.054. Ahari-topeka eta oilar-jokoa (AB-196/022)

Ahari-topeka ikustera Soralezera joan ohi ziren. Postura egitea ohiko zen orduan. Eibarren ezagunagoa zen, hala ere, oilar-jokoa. Frontoiaren gainaldean egiten zela kontatzen du. 30 oilar inguru zituen "Txopa" aipatzen du.

1.055. Donostiaraino oinez (AB-196/024)

Aitarekin Donostiaraino oinez behin baino gehiagotan joana da. Ibilbideari buruzko azalpenak.

1.056. Iltzedun mendiko botak (AB-196/025)

Iltzeak erabiltzen ziren garai hartako oinetakoak josteko. Zarata itzela ateratzen zutela gogoan dauka.

1.057. Eibarko lehen eskiatzailea (AB-196/026)

Eibarko lehenengo eskiatzailea izan zen aitarekin batera. Non erosi ez zegoenez, Mutrikuko Zumalabe aroztegiaren egin zizkieten eskiak. Kalamuan egin zuten lehenengo frogara; Aizkorrira ere joan ohi ziren eskiatzera. Orduan erosi zizkion aita lehen aldiz neurrira egindako bota onak baina, gehiago ez erretzeko baldintza jarri ziola kontatzen du.

1.058. Amuarrainak sardexkarekin ateratzen zituzten Eibarko errekan (AB-196/032)

ALFA parean, amuarrainak sardexkarekin ateratzen zituzten gaztetan. Adreilu barruan karramarroak egoten ziren. Erreka aberatsagorik, ez omen zegoen inguruan. Gerra ostean ordea, zikinkeria baino ezin zitekeen aurkitu.

1.059. Martin "Querido", Amuategi batailoiko komandantea (AB-196/036)

Martin "Querido" aitaren anaia gazteena zen. Gerra garaian, Lemoan zegoela bala galdu batek hil zuen. Amuategi batailoiko komandantea zen hartan. Javierren ustez, ausardia handiko gizona zelako egin zuten komandante. Benetako izena Gabino zela kontatzen du.

1.060. Raketista ugari Eibarren (AB-196/041)

Raketista asko egon zen Eibarren nahiz eta ez zuten bertan jokatzeko; estatuan barnako hiriburuetan aritzen ziren eta baita atzerrian ere. Marino, pilotaria, zen raketisten entrenatzailea. Espektakuluetako izarrak bezala tratatzen zituztela dio eta sarritan haien kontura gaizki-esaka aritzen zen jendea nahiz eta arrazoirik ez egon.

1.061. Maria "karameleria" (AB-196/042)

Javierren amama, Maria Aldazabal, Maria "karameleria" bezala zen ezaguna Eibarren. Gerra aurretik fruta saltzen zuen plazan. Gerraostean ordea, alargunduta Eibarrera itzuli zenean, karameluak saltzen hasi zen. Kristalezko tapa zuen karrotxo bat zuela kontatzen du.

1.062. Aitita pregoilaria zen (AB-196/043)

Aitaren aldeko amama, arrain saltzailea izan zen. Aitita danbolin-jolea zen; pregoilari ibiltzen zen kalez-kale. Maria "ospital"-ek erosi zion lehen danbolina. Pregoei buruzko aipamenak.

1.063. Gerra garaian, 8 urterekin Belgikara (AB-196/046)

Gerra garaian, 8 urte zituela Belgikara bideratu zuten amarekin batera. Lieja aldamenean dagoen herri batean semetzat hartu zuten familia batekin egon zen. Oroitzapen onak gordetzen ditu. Amak familia aberats baten etxean zerbitzatzen eta sukaldari lanetan jardun behar izan zuela kontatzen du.

1.064. Emakume eta hurrez beteriko ikatz-ontzia (AB-196/048)

Belgikara itsasontziz eginiko bidaia dakar gogora. Cervera, nazionalen itsasontziak, gauez aurre egin ziela kontatzen du baina zorionez ez zen ezer gertatu. Umeak eta emakumezkoak ziren gehienak; beldurra zen nagusi bidai hartan.

1.065. Belgikako egonaldia eta itzulera (AB-196/050)

La Rochelle-ra (Frantzia) iritsi zirenean, zenbaki bat eta injekzioa jarri zizkietela dauka gogoan. Autobusez garraiatu zituzten gero Belgikako palazio ikusgarri bateraino. Alemaniarrak Belgikan indarrez sartzeraz zihoazela eta itzuli ziren Euskal Herrira bi urte inguru igaro ostean. Bilbon elkartu ziren aitarekin.

1.066. Orduko Bidebarrieta kalea (AB-197/003)

Bidebarrieta kalean Laspiur eta J.J. Sarasketa lantegiak zeuden eta, garai hartan, erreka bistan zegoela kontatzen dute. Kotxerik ez eta, trapuekin egindako edo gomazko baloiekin, futboleko jolasten egoten ziren kaminoan. Labaderotik irteten zen ura lantegietako makinak mugiarazteko erabiltzen zutela kontatzen dute. Egurrezkoak izaten ziren ardatz haiek erre egiten ziren sarritan; "txorixa erre dok" zergatik esaten zen argitzen dute.

1.067. Maria Marinen kioskoa (AB-197/006)

"Maria Marin" kioskoa zegoen Alhondiga aurrean. Eleberri eta aldizkariak alokatu egiten ziren edo, lagunen artean trukatu egiten zituztela kontatzen dute. Umetako jolasak.

1.068. Edozer gauzak balio zuen jolaserako (AB-197/007)

Kanika jolasa: araei buruzko azalpenak. Pospolo kaxekin, "Txirikila eta palua"-n, pelikula zatiekin... edozer gauza erabiltzen zuten jolasteko. Gaur egungo umeekin alderatuta, desberdinak zirela diote.

1.069. Salon Teatro eta Hotel Arraten gertatutako ezbeharrak (AB-197/010)

Arrate hotela eraikitzen ari zirela behera etorri zen (1968-10-12). Jai eguna zen zorionez eta ez zen heriotzarik gertatu. Untzagan zegoen Salon Teatro-ari ere teilatua erori zitzaioela kontatzen dute.

1.070. Tunika eta txapela (AB-197/011)

Umetan "tunika" erabiltzen zutela kontatzen dute. Txapela ere ohikoa zen. Txapelik ez zuenari "txuloa" esaten zioten. San Juanak edo Aste Santua bezalako jai egun handiak arropa berriak estreinatzeke izaten ziren. Jostundegian egiten ziren arropak. Astigarraga jostundegia dakarte gogora.

1.071. Dantzaldiak (AB-197/012)

San Juan jaietan orkestra eta dultzaineroan egoten ziren. "Rialto" dantzarako areto bat zen. Goiko solairuan kasinoa zegoen. Jimeno zeritzon dantzari ezagun bati buruzko aipamena; egun bat baino gehiagoz egon omen zen behin dantzan.

1.072. Astelenako dantzaldiak eta Badet-eko kantaldiak (AB-197/014)

Igande gauetan dantzaldia egoten zen Astelena pilotalekuan baina beti azken piezarako iristen zirela kontatzen du Josek. Badet tabernari buruzko aipamena; bertako Faustinak inguratutako guztiak kantuan jartzen zituela diote.

1.073. Gerraosteko pilotari ezagunak (AB-197/017)

Gerraosteko hainbat pilotari ezagun aipatzen dituzte. Nahiz eta beste herri batzuetakoak izan, pilotari asko Eibarren bizi zirela kontatzen dute.

1.074. II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren (AB-197/020)

II. Errepublikaren aldarrikapenaren egunean Untzaga plazan zegoen Gonzalo. Apirilak 12ko hauteskundeetako giroa eta aldarrikapenaren eguneko gertakariak ditu hizpide.

1.075. Giro politiko lasaia (AB-197/021)

Sozialistak ziren gehiengoa Eibarren. Karlitek ere bazuten ordezkaritza, "Círculo Carlista" zeritzone eta eliza aurrean kokatzen zen. Klase sozial nahiz alderdi politiko desberdinetako jendea aisialdian elkarrekin ibiltzen zela daukate gogoan.

1.076. Zubiategi Telleriari alkatetza (AB-197/023)

Timoteo Zubiategi zen Eibarko alkate II. Errepublikaren aldarrikapenaren unean; Alejandro Telleriari hartu zion erreleboa Errepublika garaian. Telleriarekin batera Errepublikaren alde jardun zuten hainbat pertsonen izenak aipatzen dituzte.

1.077. Emakume askorik ez politikan (AB-197/024)

Nahiz eta manifestaldi batzuetan emakumezkoak ikusten ziren, orokorrean ez zuten kargu esanguratsurik izaten.

1.078. Errepublika osteko bizimodua (AB-197/025)

Errepublikaren aldarrikapenak langileek eskatzen zituzten hainbat aldaketa gauzatzea ekarri zuen. Eguneroko bizimoduan ez zuten aldaketa handiegirik sumatu. Queipo de Llanok Eibar "muy ejemplar ciudad" deklaratu zueneko.

1.079. Eibartarren fama txarra (AB-197/026)

Eibartarrek ospe txarra zeukaten herritik kanpora. Eibarko sozialisten elizaren aurkako jarrerak ez zuen askorik laguntzen. Gai honen inguruko hainbat pasadizo kontatzen dituzte.

1.080. 1934ko altxamendua (AB-197/027)

1934ko urriko altxamenduaz dihardute. Kuarteletik 50 metrora bizi zirenez, tiro hotsak entzuten zituzten. Toribio Etxebarria altxamenduaren kontra zegoela uste duten arren, gertatutakoaren erantzule bera izan zela kontatzen dute.

1.081. Eibarko sozialistek euskaraz egiten zuten (AB-197/029)

Eibarko euskalkiaren inguruko aipamena. Eibarko sozialista gehienak euskaldunak ziren garai hartan; Toribio Etxebarriak, Benigno Baskaranek eta abarrek euskaraz egiten zuten euren artean.

1.082. Arraten bonbak kargatzen (AB-197/034)

Gerra zibilean, Arraten egon zen hasieran Gonzalo bonbak kargatzen. Bolbora gorriarekin egin zituzten froga batzuen erruz zauritu eta ospitalean egon behar izan zuen. Anaiarentzat tabako paketea zeraman Josek ospitalera lehenengo bonbardaketa gertatu zen unean.

1.083. Armeria eskolako ikasle ohiak dekretuz deituak (AB-197/037)

Gerra zibilak iraun zuen bitartean abiazioan egon zen Gonzalo. Armeria eskolako ikasle ohiak dekretu baten aginduz bertaratu behar izan zutela kontatzen du.

1.084. Katurako zaletasun handia Eibarren (AB-197/043)

Katurako zaletasun handia zegoen Eibarren. Kalez-kale kantuan ibiltzea ere oso ohikoa zen. Donostiako orfeoian kantatzen zuen aitak; trenez joaten zen astean behin.

1.085. "Casa del pueblo"-ko orfeoia (AB-197/044)

"Casa del Pueblo"-ko orfeoian kantatzen zuen Gonzalok. Zuzendariari buruzko aipamena. Gizonezkoek osatzen zuten. Hala ere, bazeuden herrian emakumezkoak ziren hainbat abeslari ezagun.

1.086. Eibarko Orfeoia (AB-197/046)

Eibarko Orfeoia. Partaide gehienak "Danba" kuadrillakoak zirela diote. Urtean behin, orfeoiaren eguna ospatzen zuten Elgetan. Juanito Gisasola musikari bikaina zela diote.

1.087. Marrazketa eskola (AB-197/051)

Ez dute aitaren ofizioa jarraitu nahiz eta biek marrazketa eskolak hartu zituzten. Artamendi maisuarekin jardun zuen Gonzalok. Eskolatik irten eta oso ohikoa zen marrazketa klaseak hartzea. Zergatik laga zuen kontatzen du Josek.

1.088. Ahaide grabatzaileak (AB-197/052)

Gonzalo eta Joserren aita, aitita eta beste senide batzuk grabadoreak izan ziren. Tornu-lanetan ere onenatarikoa izan zen euren aitita, Esteban Sarasua.

1.089. Ospitala eraikitzeke diru-batzea (AB-199/004)

Familiaren jatorria. 1910. urtean "Errotatxo" (bere aitona) egindako zezenketa. Aitona zaldi gainean, lau seme gazteenak asto gainean eta Luzianaren aita eta beste osaba guztiak torero jantzita. Zezenketa hura ospitalea eraikitzeke behar ziren lurrak erosteko egin zen.

1.090. San Juanak Eibarren (AB-199/005)

Aitak zezenetarako zaletasun handia zuen. San Juanetan urtero-urtero "enbolaura" joaten zen. San Juanetako ohitura, gurasoak kafea hartu eta ahizpa biek izozkia; ondoren dantzara. Lehenengo dantza Luzianak eta aitak egiten zuten beti. Dantzan oso ona omen zen "Errotatxo".

1.091. San Juanetan arropa berria estreinatzen zen (AB-199/006)

Aita oso pilotazalea zen eta egun batean, arropa berriak soinean zituela, pilotan jokatzen hasi zen Frontoi zaharrean. "Eskerrak ama ez zala enterau!". Garai hartan San Juanetan estreinatzen zen udako arropa berria. Raketistei erakusten ere jarduten zuen.

1.092. Alcalá Zamora Errepublikako lehendakariari oparitutako pistola grabatua (AB-199/008)

Grabatuan lan egin zuen urte askoan Luzianak. Alcalá Zamora-ri Eibarko Udalak erregalatu zion pistola Jacinto Olabe eta bien artean grabatu zuten (1931. urtean). [Luzianak udalaren erregalua zela dio; liburuetan "Agrupación Femeninak" egindako oparia zela agertzen da]. Pistola amaitzeko zeudela, Luzianaren ahizpa ezkondu behar zen. Bera zen amabitxia eta, hortaz, larunbat batean ez zen lanera joan. Ezkontzatik etxera itzuli zenean, Olabereren mezu bat zuen igande hartan lanera joan beharko zuela esanez. Igande hartan 10-12 ordu egin zituen lan, Jacinto Olabek gelditzeko esan zion arte.

1.093. Eibarko kaleei ateratzen zitzaizkien kantak eta esaerak (AB-199/010)

Ardantza kaleari eta Eibarko beste kale batzuei buruzko kontuak, esaera batzuk, kanta bat, etab.

1.094. Eibarko Ardantza kaleari buruz (AB-199/011)

Ardantza kalean zeuden tailerrak, iturriak, garbitokia, etab. Arropa denda bat ere bazegoen; lanerako arropak josten zituztela kontatzen du.

1.095. Jacinto Olaberenean grabatzen ikasten (AB-199/013)

11 urterekin hasi zen marrazki eskoletara joaten. Mugerzarekin hasi zen arren, Olabek bere etxean hartu zuen 13 urterekin, ikasteko, eta, bide batez, lanerako. Urte bi egin zituen aprendiz bezala, ezer irabazi gabe. Lehenengo soldata ("kinzenia"), zenbatekoa izan zen. 29 urterekin ezkondu zen arte egon zen Olaberekin lanean. "Grabadores" kalean zegoen lantegia.

1.096. Etxeko lanen antolaketa (AB-199/014)

Etxeko antolaketa: berak "arenau" (lurra garbitu) eta enkarguak egin; ahizpak "brotxiau" (lustrea eman); amak jatorduak eta arropa garbitu. Amari txanponen bat edo beste kentzen zion enkarguak egitera joaten zenean.

1.097. Jatekorik ez zen falta izaten (AB-199/015)

Zer jaten zuten: "babia, urdaixa, txorixua"... Askaltzeko fruta: sagarra eta ogia; zegoenean, txokolatea. Afaria seietan izaten zen.

1.098. Familia handia eta beti beltzez jantzita (AB-199/020)

Lutoaren inguruko kontuak. Familia handia zen eta, bakoitzaren heriotzak, lutoz jantzi beharra ekartzen zuen. Agustinen komentuko kaperan arrosarioa erreztatza joan behar izaten zuten derrigor; bederatziruena. Mendira ere beltzez jantzita joan behar izaten zen.

1.099. Eskolara joan ordez, gaztainatara (AB-199/023)

Eskola bazuten, doakoa, baina "afiziorik" ez ordea. Etxean ere ez zioten ezer esaten eta gaztainatara joaten zen eskolara joan ordez. Udaletxean kokatzen zen eskolara joan zen; Doña Clara izan zen bere irakaslea. Justu-justu ikasi zuen sinatzen. "Nere burua ez dago kantsauta estudixuekin" dio; dena erdaraz ikasi behar izaten zuten eta ez zuten ezertxo ere ulertzen.

1.100. Aitarekin mendira umetan (AB-199/024)

Aitarekin joaten zen beti mendira. Urkora joan zeneko pasadizo polita kontatzen du (haizea zegoela eta kobazulora sartu zirela; handik Ermura joan ziren...). Anboto, Galdaramiño, Arrate, Akondia, Urko... aitarekin igande goizero mendira joan zen umetan.

1.101. Lagunarteko mendi irteerak (AB-199/025)

Koskortu ostean, egun guztirako lagunekin ere joaten zen mendira: Mugarra, Izarraitz, Ondarroara... Hainbat pasadizo kontatzen ditu.

1.102. Sekulako kopetakoa Aizkorrin (AB-199/026)

Aizkorrira joan ziren batean erori eta kolpea hartu zuela kontatzen du. Kopetako handi hura sendatzen Antonio Dorado alpinista ezagunak lagundu zion.

1.103. Emakumeak eta mendia (AB-199/028)

Mendira gaztetan lagun-taldearekin: Teresa Etxeberria, Luisa Ugalde, Felisa Eriz eta Luciana (argazkietan identifikatzen ditu). Mendira joateko nola jantzen ziren. Carmen Iza zen Eibarko emakume mendizale garrantzitsuena, CDE-eko lehenengo neska. Zelakoa zen kontatzen du: "más maja, más salada...".

1.104. Epaitegian erabaki zuten bere izena (AB-200/004)

Beran izenaren inguruko kontuak: ez zaio sekula gustatu izan. Enriqueta, ama pontekoaren izena, ipini behar omen zioten baina epaitegian Luziana zergatik jarri zioten kontatzen du.

1.105. Eibarko lehengo euskaraz (AB-200/005)

Euskararen inguruko kontuak: Eibarren erdarazko berba asko erabiltzen zirela iruditzen zaio. Euskara aldatu egin da eta gaur egungoa ez du ondo ulertzen.

1.106. Dibortzio konturik ez zen entzuten (AB-200/009)

Banatze eta dibortzio konturik ez zen entzuten garai hartan. Ezkondu aurretik elkarrekin bizitzerik ere ez, noski.

1.107. Batutako kamamila oparitu edo saldu (AB-200/011)

Gizona eta bera sarri joaten ziren Legutio ingurura kamamila jasotzera. 8 kilo inguru batzen zituzten bidaia bakoitzeko. Hasieran oparitu egiten zuten; saltzen hasi ziren gero, Chalcha jatetxean (Eibar) batez ere. Gurasoekin joaten zen umetan.

1.108. Kamamila batzea (AB-200/012)

Gaztetan kamamila asko edaten zuela dio. Ama ordea, oso kafe zalea zen. Oheko burko-azalaren erdia betetzen zuten aldiko. Ekaina amaieratik eta abuztu hasierara bitarteko tartea zen aproposena. ALFAko langile batek erreminta txiki bat egin ziola kontatzen du baina ez zen batere eraginkorra.

1.109. Teila gainean erretako haragia jaten zuten mendian (AB-201/004)

Perretxikotara joaten zirenean amak eramaten zuen bazkariak dihardu. Teila gainean erretako haragia jaten zutela dauka gogoan.

1.110. Gaztetan Deportiboarekin joaten zen mendira (AB-201/005)

Durango inguruko mendi guztietan ibilia da. Lehiaketetan parte hartzen zuela kontatzen du. Anbotora joateko goizeko 6:00tan irteten ziren, arratsaldeko 7:30tan Durangon tren hartu eta etxera bueltatzeko. Gauetz, plazara musikara joateko sasoia izaten jarraitzen zuela dio.

1.111. Urteberri-egunean Urkora aitarekin (AB-201/006)

Urteberri-egunean, nahiz eta Deportibokoek ere igoera bat antolatzen zuten, aitarekin joaten zen Urko mendira. Handik, Ermua aldera jaisteko ohitura zuten; garai hartan kanposantua kokatzen zen lekura irteten zen bidea. Kobazulo bat ba omen da bidean.

1.112. Gerra garaian, Gurutze Gorrian boluntario (AB-201/013)

Gerra garaian, Gurutze gorriak boluntarioak eskatu zituen eta parte hartzea erabaki zuen Lucianak. Egoitzari buruz eta egiten zituzten lanen inguruan dihardu. Lanerako erraztasuna zuenez, gehiago ikas zezan Bilboko ospitalera bidali nahi izan zuen hango medikuak baina ez joatea erabaki zuela kontatzen du.

1.113. Gerra denboran amarekin Bilbon (AB-201/014)

Aita armagina zenez, milizianoen fusilak konpontzen jardun zuen gerra garaian. Luciana Bilbora joan zen amarekin eta handik Santanderrena nahiz eta bere nahia Espainiatik irtetea zela kontatzen duen.

1.114. Etxeko txakurra, Amuategi baitaloian egon zen (AB-201/015)

Familiako gizon ez gain, txakurra ere frontera eramán zutela kontatzen du. Amuategi batailoira eramán zuten; gauetz bidean laguntzeko eta zaintzarako erabiltzen zituzten. Santanderrera eramán omen zuten eta bertan desagertu egin zela dio.

1.115. Zergatik utzi behar izan zion grabatzaile lanari (AB-201/017)

Alfa lantegiko sukaldean jardun zuen lanean. Ordura arte grabatzaile bezala jardun zuen etxetik baina ereriko handi baten ondorioz lan hura utzi egin behar izan zuela kontatzen du. Vicente Olabe zen orduan zuzendari Alfan. Hari esker lortu zien lanpostu berria.

1.116. Luzianaren aita, "Errotatxo", gauza askotan abila (AB-202/004)

Luzianaren aita, "Errotatxo", denetik egiten zuen gizon abila: aurrekua eta dantza soltea primeran egiten zituen; "toke"ra ere onena; zezenetan; mendian bide-erakusle moduan ibiltzen zen... Aitak 40 urte bete zituen egunean "aitta, zelako zaharra zarazen" esan omen zion.

1.117. Gaztetako bihurrikeriak; mendirik mendi (AB-202/006)

Ezkondutik aurretik bihurrikeria asko egiten zituzten elkarrekin. Felisaren amak denda zeukan eta lapurretan egiten zioten. Euriarekin ere mendira joaten

ziren, aterkiak eta gabardinak hartuta. Durango inguruko mendi guztietan egondakoak dira. Eta baita Gipuzkoa alderakoetan ere: Izarraitz, Irukurutzeta... Karakateko iturriaren inaugurazioan eta Kalamuko hilarriaren inaugurazioan egon ziren. Bilbotar asko ibiltzen zen mendian. Bilbotarrak jatorrak; donostiarrak harroagoak.

1.118. Mendiko dominen banaketa eguneko bazkaria (AB-202/008)

Mendiko dominen banaketa eta bazkaria. Luzianaren kopa aldamenekoak edaten zuen. Berdin ordaintzen zutela eta, zigarro-purua hartzen zuen aitarendako.

1.119. Bilbotarren inguruko erdarazko kanta (AB-202/010)

Bilbotarrak ondo heziak omen ziren, ez eibartarrak bezain astakiloak. Bilbotarren inguruko erdarazko kanta bat abesten du Luzianak.

1.120. Bilbotarrekin elkartzen ziren Mugarra azpiko iturrian (AB-202/012)

Bilbotarrek Durango aldeko mendietara etortzeko joera zuten. Mugarra azpiko iturrian elkartzen ziren mendizale taldeak bazkaltzeko. Handik elkarrekin Durangora oinez, eta han bakoitzak alde banatarako trenua hartzen zuten. Oinez joaten ziren mendira; bueltatu trenez. Bilbotar asko ibiltzen zen mendian; donostiarrak ere bai, baina gutxiago.

1.121. Dantzan gehiegi estutzen zuten mutilei planto (AB-202/016)

Soltean polito dantza egiten zutela diote. Behin bilbotarrak joan omen ziren frontoira, dantzara, zapi gorriekin. Gogoan dute bi mutil etorri zitzaizkiela helduan dantza egitera eta biek dantza amaitu aurretik laga zutela mutila, gehiegi estutu nahi zituztelako.

1.122. Inauterietan aitaren arropak eta Bilbotik alokatutako maskarak (AB-202/019)

Sasoi bateko inauterietako argazkiak. Aitaren arropak janzen zituzten. Bilbotik ekarri zituzten maskarak, alokatuta, hiru txakur handi ordainduta. Abarketa zuriak zinta gorriekin, eta zintak plantxatuta, gainera. Buruan zapia. Etxean ez zituzten ikusten mozorrotuta.

1.123. Luzianari ez zitzaion makilajea gustatzen (AB-202/021)

Ez ziren makilatzen. Luzianak ezpainak margotu omen zituen bere despedida egunean, baina argazkia atera orduko garbitu ei zuen aurpegia, ez zuelako gogoko. Felisari, berriz, gustatzen zitzaion. Lagun batek emanda, pintura mordera omen zuen Luzianak etxean, baina amak denak bota zizkion.

1.124. Ile-apaindegira gutxitan; aita etxeko ile-apaintzailea (AB-202/022)

Permanentea egin behar zenean bakarrik joaten ziren ile-apaindegira. Luzianak "kopeta" luzeak (txirikordak) omen zituen, baina bata ahizpak ebaki zion eta bestea amak. Gero, hura konpontzera Kalbetoi kaleko "Fermineneko" ile-apaindegira. Ordutik atzera aitak; hura zen etxeko guztien ile-apaintzailea. Aitari Luzianak ebakitzen zion ilea. Ilea oso gutxitan garbitzen zen. Gorputza ere gutxitan. Zikinak, baina osasuntsuak.

1.125. Apurtutako abarketak josi (AB-202/025)

Abarketei "ahoa" egiten zitzaienean, lehenengo josi egiten zituzten, berriak erosi aurretik.

1.126. Aita abarketa zaharrekin domeketan mendira (AB-202/026)

Aita aste guztian zehar lantegian erabilitako abarketekin joaten zen domeketan mendira edo basora: perretxikotara, karakoletara... Estreinatzeako abarketak zorroan eramaten zituen eta bueltarako haiek jantzi.

1.127. "Tatxuela"dun botak mendirako (AB-202/027)

Eurak "tatxuela"dun botak zituzten mendirako. Haitzarteetan labain egiten zuten "tatxuelekin" eta harako abarketak. Luzianak osaba zapataria zuen eta hari erosten zizkion. Botarik ez bazuen, lokarridun zapatilak erosi eta hari "tatxuelak" ipini.

1.128. Indalecio Ojanguren "Kajoitxo" (AB-202/028)

Indalecio Ojanguren "Kajoitxo". Desberdina zen, bakarra. Beraiek ez zuten edukitzen baimenik urrutiko mendietara joan eta gaua han pasatzeko. "Kajoitxo" batzuetan 2-3 egunerako joaten zen, beti bere "kajoi"a hartuta, argazkiak ateratzen.

1.129. Bertso zahar bat (AB-202/031)

Bertso bat kantatzen du Luzianak: "Kanta berri batzuk ditugu etara...".

1.130. "Eibar aldetik urten genduan..." gerra sasoiko kanta (AB-202/032)

Gerra sasoiko Eibarko kanta bat (hainbat bertsoz osatua) abesten du Luzianak: "Eibar aldetik urten genduan estu ta larri Deustora...".

1.131. Eibarri buruzko kanta: "Eibarko herria guztiz da noblia..." (AB-202/033)

Eibarri buruzko kanta abeste du Luzianak: "Eibarko herria guztiz da noblia...".

1.132. Luziana orfeoiko soprano; Felisa beti beharrean (AB-202/034)

Luziana orfeoiko sopranoa izan zen. "Casa del Pueblo"an entsegatzen zuten. Felisak ez zuen abesten, astirik ez zuen eta. "Beti biharrian, kaka morralian, azkenian!". Gurasoek jateko denda zeukaten eta, horrez gain, erroskillak saltzen ibiltzen ziren jairik jai. Gaztetako ibilerak. Orduan bai sasoia! Dirurik ez izan arren, pozik bizi ziren.

1.133. Emakumezkoak mendian; Klub Deportiboa (AB-202/036)

Andrazko asko ibiltzen ziren mendian, baina Klub Deportiboan apuntatuta oso gutxi. Luzianaren aita ere ez zen bazkidea. Klub Deportiboko bazkideek gutxiago ordaintzen zuten txangoetan. Klub Deportiboa non zegoen.

1.134. "Pabellón" zinemara, tranpa eginda (AB-203/002)

"Pabellón" zinemara tranpa eginda sartzen ziren, koloretako paperei zinemako sarreraren forma emanda. Argiak itzali arte zain egoten ziren sartzeko. Atezainak ez zituen inoiz harrapatu. Ez zuten dirurik eta zerbait asmatu behar!

1.135. "Pabellón" zineman bankuak, aulkiak eta anfiteatroa (AB-203/004)

"Pabellón" zinemara tranpa eginda sartzen ziren; baina merkeenera, badaezpada. Zinemak zenbat balio zuen: "generalak" 20 zentimo; aulkiak 30 zentimo; eta anfiteatroak 50. "Generalak" bankuak izaten ziren. "Salón Teatro" a garestiagoa zen.

1.136. Astelehenetan "Kiputxaneko" zinemara (AB-203/005)

Astelehenetan "Kiputxaneko" zinemara joaten zen. Elorzatarrena zen eta, aitaren lehengusuak zirenez, berak ez zuen ordaintzen. Etxe barrutik pasatuta sartzen zen. Nolakoa zen; frontoiko horman botatzen zuten zinea eta, esertzeko, aulkiak jartzen zituzten. "Salón Teatro" ra, Kruzetanera edo Rialtora ordainduta sartzen ziren; "Pabellón" era tranpa eginda. Gero erre egin zen. Igandeetan paga jasotzen hasi zirenean sarrera ordaindu egiten zuten.

1.137. Barkilleroaren "zozketa" (AB-203/008)

Barkilleroa. Latorrizko ontzi bat edukitzen zuen eta taparen gainean birak ematen zituen gurpil bat, 1etik 30era arteko zenbakiekin. Dirua emandakoan, gurpila biratzen zuen, eta tokatzen zen zenbakiko kopurua eman. Barkilloak, kanelak eta gailetak.

1.138. San Juan egunean 20 txurro jan zituen (AB-203/011)

19 urterekin mutil-laguna topatu zuen. Mutilak bazekien Luzianari txurroak asko gustatzen zitzaizkiola, eta San Juan egun batez bi dozena ekarri zizkion. Ia denak jan omen zituen.

1.139. San Juanetako eta domeka arratsaldeetako dantzak (AB-203/012)

San Juanetan txurro-saltzaile asko etortzen zen. Udaletxe ostean egoten ziren. "Filarmonika" eta panderoa ere hantxe egoten ziren, dantza solterako. Musika banda, berriz, kioskoan. Gauean Lizarrako dultzaineroak. Domeka arratsalde guztietan "tanboliña" egoten zen udaletxe inguruan: bi txistulari eta atabala jotzen zuena. Beraiek ondo egiten zuten dantzan eta jendea begira egoten zen. Baziren dantzan ondo egiten zuten gehiago ere.

1.140. Ojanguren eta Ortuoste argazkilarien estudioak (AB-203/014)

Indalezio Ojanguren argazkilariak estudioa non zeukan. Ortuoste argazkilariak Aldapatxotik gora zeukan estudioa. Jendea Ojangurenengana joaten zen gehiago. Beti mendian ibiltzen zen.

1.141. Ojangurenek hildako umeari argazkiak atera zizkion (AB-203/016)

Luzianaren ahizpa gaztea 9 hilabeterekin hil zen. Salako mahai gainean eduki omen zuten kutxa batean. Indalezio Ojangurenek argazkiak atera zizkion eta gero eurei eman. Ez zien kobratu. Beste argazki batzuk ere dohainik edo merkeago ematen zizkien, amaren lehengusua zelako.

1.142. Isasiko fraideen eskola; Bizente Olabe, mutil argia (AB-203/018)

Isasiko fraideak, komentu ondoan. Mutilen eskola zen. Hantxe ibili ei zen Bizente Olabe, Jazintoren semea. Oso argia zela eta, aitari esan zioten ikasketak emateko semeari. Industria-ingeniaritza ikasi zuen Bilbon. Urte batean gaixotu egin omen zen eta hurrengo urtean bi ikasturteak batera egin ei zituen.

1.143. Eskolara joan beharrean, zotzak batzera (AB-203/020)

Eskolara joatea baino nahiago gaztainatara joatea. Gaztainadira joaten zen sua pizteko zotzak (adar meheak) batzera. Gutxi ikasi ei zuen eskolan. Etxean ere ez zuten interes handirik.

1.144. "Casa del Pueblo"ko orfeoia; maiatzaren 1a (AB-203/023)

Gaztetan "Casa del Pueblo"ko orfeoian kantatzen zuen. Entseguak. Maiatzaren 1ean umeendako banderak egiten eta banatzen egoten zen. Egun handia, beharginen eguna.”Beti biharrian, kaka morralian”. Manifestazioa egoten zen eguerdian.

1.145. San Blas opilak, bedeinkatu barik; ogizko opil berezia (AB-203/024)

San Blas opilak bedeinkatu barik jaten zituzten etxean. "Benitto panaderuak" egiten ziona: ogia, baina San Blasa, gainean karameluarekin. Oparitu egiten zion, bezeroa zelako.

1.146. Elizarako joerarik ez; jaunartzea; ezkontza elizaz (AB-203/025)

Etxean inor ez zen joaten mezetara. Ezkondu zenean hartu ei zuen jauna azkenekoz, 29 urterekin. Lehen bi jaunartze egiten ziren: handia eta txikia. Gero, pazkoakoa. Luzianak handia bakarrik egin zuen, eta pazkoakorik ez. Eibarren sozialista asko mezetara. Elizaren eta fededunen inguruko gogoetak. Elizaz ezkondu zen, nahiz eta bestela elizara joan ez, orduko ohitura hori zelako.

1.147. Goizeko seietan ezkondu; gero, gosaria ingurukoentzat (AB-203/026)

Ezkontzak goizeko seietan izaten ziren. Luzianak bere urtebetetze egunean ezkontzea erabaki zuen. Parrokoak lo hartu zuen eta azkenean zazpitan izan zen elizkizuna. Gero familiakoei eta lagunei "arrozua" (gosaria) emateko ohitura zegoen, baina berak ezin izan zuen, zortzietan trena hartu behar zuen eta. 11:30tan aberatsenak ezkontzen ziren.

1.148. Errepublikako kanta (AB-203/028)

"Alegre primavera del año 31..." Errepublikako kanta. Kanean abesten zuten, manifestazioak zeudenean.

1.149. Errepublikaren aldarrikapenean lehenengotakoa (AB-203/030)

Errepublika aldarrikatu zenean, berak egindako banderatzu txiki bat erabili zuen paparrean. Diskurtsoak balkoitik eta jendea behean, entzuten. Bera ere hantxe. Goizeko zortzietarako bandera ipinita zeukan, eta artean Errepublika aldarrikatu barik zegoen.

1.150. "Salón Teatro" zinema zelakoa zen (AB-203/032)

"Salón Teatro" zinema zelakoa zen, kanpotik eta barrutik. Dotorea. Anfiteatroan granate koloreko butakak; "general"ean, bankuak. Zinema bakarrik egoten zen.

1.151. Gerra aurretik inauterietan mozarrotuta (AB-203/034)

Rialto zinema gerra aurrekoa dela dio. Inauteri batzuetan bere bi lagunek saria irabazi zuten bertan. Gerra ostean ez ziren mozarrotzen.

1.152. Falangista baten etxean Santanderren (AB-203/036)

Gerrako kontuak. Lehenengo Bilbon, mediku baten etxean. Gero Santanderrera barkuan. Zinema batera eraman zituzten denak eta handik etxeetara banatu. Ama, ahizpa, haren hiru urteko umea eta bera falangista batek hartu zituen etxean. Lau seme zituen emakume alargun bat zen etxejabea. Semeetako batek Francoren argazkia zuen bandera ipini zuen balkoian, nazionalak sartu zirenean. Badaezpada lurtean etzanda egoteko esaten zien.

1.153. Gerra sasoiaren txokolatea eta baba nahikoa Santanderren (AB-203/037)

Gerra sasoiaren, Santanderren egon ziren emakume falangista baten etxean. Kalera irten zenean jendea ikusi zuen ilaran; txokolatea banatzen ari ziren doan. Ilaran jarri zen, baina eibartar batek txokolatez betetako kaxa bat ekarri zion, osorik eurentzat. Nonbaiten errequisatutakoa izango zen. Gero, jendea sartu-irtenean zebilen biltegi batera joan zen. Jendeak behar zuena hartzen zuen zakuetatik. Berak ere zakukada baba eraman zuen etxera.

1.154. Bilbon, mediku baten etxean (AB-203/038)

Gerra sasoiaren ez zuten ezer ordaindu beharrik izan, ez Santanderren, ezta Bilbon ere. Bilbon mediku baten etxean egon ziren. Medikuen kontsulta zegoen lekua prezintatu egin zieten. Etxe osoa beraientzat eduki zuten.

1.155. Babak Santanderko zezen plazako presoentzat (AB-203/039)

Santanderren preso asko zeuden, tartean baita eibartarrak ere. Ezagunik ote zegoen begiratzera joan zen zezen plazara eta leihotako baten bere koinatua ikusi zuen. Amak baba lapiko handi bat prestatu zuen presoentzat, baina ez zieten laga sartzen. Leihotik behera sokak bota, lapikoa lotu eta sokatik tiratuta jaso zuten.

1.156. Presoei ogitartekoak banatzen Santanderren (AB-203/040)

Santanderko zezen plazan zeuden presoak lekuz aldatu behar zituztela jakin zutenean, ogitartekoak prestatu zituzten txokolatearekin. Presoak ilaretan ateratzen zituzten zezen plazatik. Luzianak erdira sartu eta ogitartekoak banatzen zizkien. Presoak kartzeletara eraman zituzten.

1.157. Zaldibarko preso batek eman zion erlojua (AB-203/041)

Santanderko zezen plazako leihotik preso batek deitu zion. Ez daki nola, baina barrura joan zen. Zaldibarko preso batek poltsikoko erloju dotore bat eman zion gordetzeko. Etxera bidean bi soldadu etorri zitzaizkien eta erlojua eskatu zioten, fusilarekin mehatxatuta. Kapeladun gizon dotore bat etorri eta soldaduekin hitz egin zuenean, bakean laga zituzten. Urteak pasatu eta gero norbait etorri zitzaion erlojuaren bila.

1.158. Karmen "Txitxia" Eibarko lehenengotako emakume mendizalea (AB-204/002)

Karmen "Txitxia"rekin Txindokin ateratako argazki bati begira dago. Eibarko lehenengotako emakume mendizalea izango zela dio. Oinetakoetako tatxuelak erakusten azaltzen ei dira.

1.159. Olabe eta Mugerzaren marrazketa eskolak (AB-204/004)

Lucas Alberdi. Luziana baino sei bat urte nagusiagoa, gubilista oso ona. 13 urte zituen Luzianak Jazinto Olabek grabatzen ikastera eraman zuenean. Maisu moduan zelakoa zen. Lehenengo Olaberen arrebarekin ikasi zuen dibujoa Kontseju zaharrean. Segituan goiko pisura pasatu zuten. Gregorio Mugerza eta Jazinto Olabe zeuden han. Bakoitzak bere estiloa zeukan; azkenean Olabek bere kargu hartu zuen Luziana.

1.160. Jazinto Olaberekin grabatzen ikasten (AB-204/005)

Olaberen etxean grabatzen zelari hasi zen. Anekdotari polita. 17 urtean bertan beharrean. Grabatzea ez zitzaion batere gustatzen. Ezkondu zenean laga egin zuen.

1.161. Izerditutako eskuakin grabatuak ugertu (AB-204/006)

Ez zitzaion gustatzen grabatzea. Gainera, arazo bat zeukan: eskuak izerditzen zitzaizkion eta piezak ikutuz gero, ugertu egiten ziren. Jazinto Olabek errietan egiten zion eta berak negar egiten zuen. "Hoixe dakazu zuk, negar egin eta zeuria egin" esaten zion Olabek.

1.162. Ezkondu ostean etxean grabatzen (AB-204/008)

Grabatzailearen lanak ez du inoiz diru askorik eman. Etxean hasi zen grabatzen ezkondu eta gero. Lehenengo "pikatzen" hasi zen, baina aspergarria iruditzen zitzaion. Gero grabatzen, Jazinto Olaberi erremintak eskatuta.. Pieza txikiekin hasi zen.

1.163. Mugerza eta Olabe: marrazkilari eta grabatzaile (AB-204/010)

Mugerzaren eta Olaberen marrazketa eskolak. Mugerza aitaren kuadrilakoa zen. Olaberekin zelan hasi zen marrazketa ikasten. Mugerza grabatzailea. Olabe marrazkilaria, eskultorea eta grabatzailea. Marrazketa lineala Armeria Eskolan irakasten zuen Olabek.

1.164. Jazinto Olaberen marrazketa eskolako pasadizoak (AB-204/011)

Kontseju zaharreko marrazketa eskola zelakoa zen. Jende askok ikasten zuen marrazketa. Margotzen ikasi ez izanaren pena du. Olaberen estudioa. Marrazketa eskolako anekdota pare bat.

1.165. Grabatuaren prozesua I (AB-204/018)

Grabatuaren prozesua. Lehenengo ikasten zena: "kutxillia". Limekin egiten zen. Gero, "pikia" berotuta bigundu eta haren gainean txapa bat ipini. Hozten zenean, "kutxilla" harekin marrak egin, gurutzeak eginez. Marrazkia egiteko zilar haria, puntzoiak eta mailua. Urrea errazago sartzen zen zilarra baino.

1.166. Grabatuaren prozesua II (AB-204/020)

Grabatuaren prozesua. Urre gorria eta berdea. Hariaren "brillua"; "sonbria".

1.167. Grabatuaren prozesua III (AB-204/022)

Grabatuaren prozesua. Lehenengo pikatu; beti pikatu behar izaten zen. Urrearentzat edo zilarrarentzat desberdin. Marrazkia amaitutakoan "pabonau" (ilundu) egin behar izaten zen eta gero "sonbriau". Horixe izaten zen prozesuko zailena. Gero, pieza batzuk "doratzera" eramaten ziren".

1.168. Grabatuaren prozesua IV (AB-204/024)

Grabatuaren prozesua. Piezak "pabonatzera" (iluntzera) eta "doratzera" nora eramaten zituzten. Urdanpilleta Ibarkurutzean. Berak eramaten zituen pieza guztiak. "Perleatzia" zer zen.

1.169. Grabaturako urrea "urreduna"ri erosten zioten (AB-204/025)

Grabatuarentako urrea "urreduna"renean erosten zuten, Bidebarrieta kalean. Etxeberriatarrak ziren, Olaberen andrearen lehengusuak. Beraiek egiten zuten haria. Nola pisatzen zuten. Kontuak liburuxkan apuntatzen zituzten.

1.170. Eibarko urre saltzaileak; Etxeberriatarrak (AB-204/026)

Olarreaga inguruan zegoen beste urre saltzaile bat, baina eurak ez ziren inoiz hara joan. Eurak Etxeberriari erosten zioten beti urrea. Ez zuten erakusten nola egiten zuten. Haria edo txapa saltzen zituzten.

1.171. Bidebarrieta kaleko eraikinak I (AB-204/027)

Etxeberria "urreduna"ren etxea Bidebarrieta kaleko lehenengoa zen. Bidebarrieta kalean zeuden komertzioak, tabernak eta eraikinak banan-banan aipatzen ditu.

1.172. Bidebarrieta kaleko eraikinak II (AB-204/028)

Bidebarrieta kalean zeuden komertzioak, tabernak eta eraikinak banan-banan aipatzen ditu, goitik hasi eta behera. Etxeberrria "urreduna"ren etxea kaleko lehenengoa zen eta Urkizuko iturria azkena.

1.173. "Txirixo" kalea, Elgeta kalea eta "Piparkalia" (AB-204/030)

Txirixo kalea, Elgeta kalea eta "Piparkalia". Ze komertzio eta eraikin zeuden bertan.

1.174. Jazinto Olaberen estudioa eta margolanak (AB-204/031)

Jazinto Olaberen estudioa "Txirixo" kalean. Gehienbat enkarguz egiten zituen margolanak. Bestela etxeokak margotzen zituen edo baita bere burua ere. Bere autorretratua non egon zen.

1.175. Muguruza medikua istripuan hil zen (AB-204/034)

Inazio Anitua, Jazinto Olabe eta Nizeto Muguruza elkarrekin motoan zihoazela, istripua izan zuten eta Muguruza medikua hil egin zen. Motoaren aldameneko karroan zihoan Muguruza.

1.176. Ziriako Agirre medikua Deban hil zen eguna (AB-204/035)

Ziriako Agirre medikua Deban hil zen, itota. Jende gehiago ere ito zen. Zer gertatu zen. Hileta nolakoa izan zen. Luziana ere Deban zegoen eta ondo gogoratzen du egun hura. Amak pentsatu zuen Luziana ere hildakoen artean egongo zela.

1.177. Don Poli abadea; dirua batzeko ekintzak (AB-204/037)

Don Poli abadea. Doktrinaz gain, gimnasia ere egiten zuten berarekin. Luzianak zezen plazan egin izan zuen gimnasia eta baita zinta-dantza ere. Dirua batzeko izaten zen.

1.178. Txiri-biri futbol taldearen kanta (AB-204/038)

Txiri-biri futbol taldearen gaztelaniazko kanta.

1.179. Osabarekin argazkia Arrate egunean (AB-204/040)

Arrate egun batean bere osaba batekin argazkia atera zuteneko pasadizoa. "Mutilzarra" zela dio. Bera ere "neskazar" ezkondu omen zen, 29 urte zituen ordurako eta. Argazkian eurak kopetekin ageri dira. Horixe zen orduko neskatilen orrazkera.

1.180. Txerri-hiltzearen inguruko azalpenak (AB-205/023)

Urdaiazpikoak ere egiten ziren. Txerri-hiltzearen inguruko kontuak.

1.181. Auzolanean egiten ziren beharrak: garo-ebakitzea; lurketa... (AB-205/024)

Auzoak. Elkartasuna. Auzolanak: ira ebakitzea; lurketa; etab.

1.182. Sagardogintza; etxean egindako sagardoa (AB-205/025)

Etxean ur-sagardoa egiten zuten, baina besterik ez, dolarerik ez zuten eta. Antzinako bizimodua.

1.183. Emakumearen bizimodua baserrian (AB-205/026)

Baserrian guztientzat lan asko. Emakumearen eta gizakumearen arteko desberdintasunak lan kontuetan.

1.184. Domekero erromeria Usartzan; mutilek ordaindu egin behar (AB-205/027)

Domeketan mezara Aginagara. Lasto azaoekin argi eginda. Gero baserriko lanak egin behar. Eta arratsaldean erromeria Usartzan. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteko. Inguruetako soinujoleak. Inguruko auzo eta herrietako erromeriak : San Pedro egunean Barinagan, Carmen egunean Markinan, Santa Eufemia eta San Bartolomeetan Elgoibarren. Aginagan San Migelak ospatzen ziren.

1.185. Zapatekin orpoak urratuta (AB-205/028)

Gogoan du behin Elgoibarko San Bartolomeetan txarto pasatu zuela, zapatekin orpoak urratuta. Abarketekin joaten ziren Eibarrera eta gero han zapatak jantzi (eta alderantziz). Esnea saltzera joaten zirenean abarkekin, edo, eguraldi ona bazen, abarketekin.

1.186. Sasoi bateko arropak (AB-205/029)

Sasoi bateko arropak. Ez zegoen luxurik. Euxebi bi negutan josten ikasten ibili zen.

1.187. San Migel eguna Aginagan; Eibarko txistulariak (AB-205/030)

San Migel eguna Aginagan. Meza, taberna, herri-kirolak, erromeria. "Tanbolinteroak" ere joaten ziren Eibartik. Pedro "Maria ospital" txistulariaren inguruko kontuak; neska-laguntzera joanda gertatutakoa.

1.188. Andabideak: hildakoak eramateko bideak (AB-205/034)

Kanposantua. Andabidea. Oinez kanposantura Aginagara. Anderoen lana ez zen makala. Aspaldi, dirudunak Zenarruzan enterratzen ei zituzten (aitonari entzundako kontua). Bizimodua asko aldatu da.

1.189. Aitonak kontatzen zituen ipuinak: sorginak, Juaniko abade ehiztaria... (AB-205/035)

Sinesmenak. Lamien konturik ez du ezagutzen. Sorgin kontu batzuk entzun izan ditu, baina bertan gertatutakorik ez. Aitonak kontatzen zituen sorginen kontu batzuk: Maltzagan arropak jotzen egoten zirela. Juaniko abade ehiztariaren inguruko ipuina.

1.190. Aginagako euskara (AB-205/037)

Baserrian eta kalean euskaraz desberdin egiten dela dio. Aginaga auzokoek eta Mandiola auzokoek antzera. Barinagakoek desberdin. Bizkaia aldera diferentzia igartzen da.

1.191. Abadeei berorika; elizakoak (AB-205/038)

Abadeei berorika egiten zitzaaien. Elizakoak. Abadea eta akolitoa. Bidean txilina jotzen zuten eta ondotik pasatuz gero, gelditu eta belauniko jarri behar izaten zen, abadea pasatu arte. Berorika nori egiten zitzaion: medikuari, abadeari... Euren artean, zu edo hi.

1.192. Aginaga inguruko errotak; gariaren garrantzia (AB-205/040)

Gariaren garrantzia. Gariaren inguruko lanak: eskuz ebaki, azaoak egin, metak egin, jo, garbitu... Garia jotzeko makina auzokoen artean eduki zuten. Auzolana. Errotak. Errotara egiten ziren joan-etorriak eta beste kontu batzuk. Inguruko errotak.

1.193. Aginaga inguruko errotak; artoaren garrantzia (AB-205/041)

Artoaren inguruko lanak. Errotak: Zubia, Amutegi. Besterik ez du ezagutu. "Errotatxo", aspaldi desagertu zen. Errotarien irabazia, "lakia" izenez ezagutzen zen.

1.194. II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren (AB-206/003)

Errepublika. Eibarren monarkiko eta abertzale gutxi zegoen. Hauteskunde egunean jendea pozik zegoen, kalean eta baita "Casa del Pueblo"an ere. Apirilak 14an, jendea larri egon zen hasieran, baina gero Untzaga plaza guztia bete zen. Ondoren manifestazio handia egin zen.

1.195. Eibar eta Jaca, "Muy Ejemplar Ciudad" (AB-206/007)

"Muy Ejemplar Ciudad" izendatu zituzten Eibar eta Jaca. Indalecio Prieto; Unamuno; etab. Jacan egin zuten altxamendua azaltzen du (Gal´n eta García Hern´ndez) eta kanta bat ere gogoratzen du.

1.196. II. Errepublikaren aldarrikapenaren ondorengo ospakizunak (AB-206/010)

II. Errepublika aldarrikatu ondoren egin ziren ospakizunak. Pare bat egunean ez zen jendea lanera joan.

1.197. III. Errepublikaren inguruko gogoetak (AB-206/011)

III. Errepublika ere etorriko dela dio "Otxabiñak".

1.198. Ezkerreko alderdien indartzea Eibarren (AB-206/013)

Gazte-gaztetatik politikarako zaletasuna. Krisi ekonomikoa Eibarren; armagintza; etab. Julian Etxebarriaren asmoa, Eibarren fusila egiten hasi beharra zegoela. Primo de Rivera Eibarrera etorri zen, baina armaginen alde ez zuen ezer egin (eta eibartarrek laguntzaren bat espero zuten). Horregatik jendea monarkiaren aurka jarri zen Eibarren, eta ezkerrek goraka egin zuen.

1.199. Giro politikoa Eibarren (AB-206/015)

Eibarko giro politikoa garai hartan: errepublikanoak, sozialistak, federalistak, goitarrak-behetarrak... Orbeatarrak. Errepublikano federalak izan ziren indar gehien izan zutenak hasieran; gerora joango ziren sozialistak indartzen. Hauteskundeak. EAJ/PNV-k zinegotzi bat atera zuen, beste guztiak ezkerrekoak atera ziren. Malleaneko etxean elkartzen ziren kontserbadoreak ere aurkeztu ziren, baina ez zuten ordezkariarik atera.

1.200. 1931ko hauteskunde eguna (AB-206/016)

Ez zuen parte zuzenik hartu hauteskundeetan (politikoki), baina zuzenean bizi izan zuen guztia. Bozkatzeko papeletak banatu, distrito batetik bestera emaitzak ikusi; etab.

1.201. 1931ko hauteskunde gaua (AB-206/017)

Hauteskunde gaua. Errepublikaren aldeko botoak ikusi zituztenean, leku guztietan ordurako aldarrikatuta egongo zela pentsatu zuten. Astelena frontoira joan, hauteskundeen emaitzen berri eman eta "La Romeral" musika bandari errepublikako abestiak jotzeko eskatu zioten: Marsellesa, Internazionala, etab. Jende guztia saltoka eta txaloka.

1.202. Errepublikaren etorrera gazteen ikuspegitik (AB-206/018)

Eurak errepublika etorri behar zela sinistuta zeuden. Astelehenean ezer ez zela gertatu ikusi zutenean, harritu egin ziren. "Maquiavelismoa"ren teoria (eibartarren jarrerak, gerora Espainia osoan gertatuko zena bultzatu zuen eta beharbada hori aurretik pentsatua zegoela). Eibarko gazte gehienek Errepublikaren aldarrikapena etorriko zela barru-barrutik pentsatzen zuten. Ez zekiten Toribiok, Erkiagak zer pentsatzen zuten.

1.203. Errepublikaren aldarrikapenaren aurrekariak (AB-206/019)

Eibarren beste inon baino lehenago zergatik aldarrikatu zen Errepublika. Errekadistaren mezua. Toyosek gaizki aditu omen zuen, eta udaletxera joan zen. Zinegotzi guztiak abisatu zituzten eta Alejandro Telleria II Errepublika garaiko lehenengo alkate izendatu zuten. Timoteo Zubiate ere bertan agertu zen. Gipuzkoako Gobernadore Militarraren mehatxua.

1.204. II. Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko erabakia; batzarra udalean (AB-206/020)

II. Errepublika aldarrikatu zeneko kontuak. Udaletxean bildu zirenak zinegotzi aukeratu berriak izan ziren. Alejandro Telleria izendatu zuten orduan alkate. Timoteo Zubiate ere joan zen, aurreko alkatea. Telefono deiak egin zituzten alde guztietara eta inon ez zegoen aldarrikapenik eginda. Beldurra sartu zitzairen. Toribio Etxebarriak kanpora ihes egin beharko zutela esaten zuen. Abertzaleak ikurrina ipintzeko asmoarekin joan omen ziren udaletxera, baina ez zitzairen hori egiten utzi. "Pacto de San Sebastián".

1.205. 1931ko apirilaren 14a; urduritasuna nagusi goizaldean (AB-206/021)

Candidok zer egin zuen 1931ko hauteskundearen ondorengo orduetan; "harutz-da-honutz, Untzagan bueltaka, nerbiozo" ibili zen. Gobernadorearen mehatxuen beldur. Jendea ere larri.

1.206. II. Errepublikaren aldarrikapena 1931ko apirilaren 14an (AB-206/022)

Bandera errepublikanoa goizean ipini zen, baina proklamazio ofiziala eta plazari izena aldatzea arratsaldean izan zen (16:00-17:00 inguruan). Goizean goizetik egon ziren bandera errepublikanoa eta Eibarkoa udaletxeko balkoian zintzilik, baina inongo aldarrikapenik gabe.

1.207. II. Errepublikaren aldarrikapena; jendea pozez zoratzen (AB-206/023)

II. Errepublika aldarrikatu zenean, jendea pozez zoratzen. "Orduan danok txaloka; zoratuta geuzen, gure pozak ez zekan akaberarik". Eta horren ostean, manifestazioa egon zen, sekulakoa. Manifestazioaren ibilbidea, Eibar guztitik. Ez zen egun guztian ezer gertatu. Guardia Zibilen kuartel parean gelditu ziren momentu batean eta haiek ere bandera errepublikanoa ipini zuten. Gauean jendeak afariak egin zituen; dantzaldia egon zen Untzagan; etab.

1.208. II. Errepublikaren osteko lehenengo lan eguna (AB-206/025)

II. Errepublika aldarrikatu eta hurrengo egunean, apirilaren 15ean, denak joan ziren lanera, baina pozik.

1.209. Gerra zibilaren hasiera; milizianoen kemena (AB-206/026)

II Errepublikaren amaiera Gerra Zibilarekin batera etorri zen. Hasieran animo handiarekin irten ziren gerrara. Herri askotako jendea batu zen Untzagan frontera irten aurretik. "Gero izan ziran negarrak...".

1.210. Soralezeko arma lantegian gerra sasoian (AB-206/027)

Amuategi Batailoia. Gerra hasi zenean, Soralezera joan zen bertako arma lantegia zabaltzera. Kamioi blindatuak eta kainoi antiaereo bat egin zituzten. Orduko gorabeherak. Ondoren Eibarko epaitegiko idazkari izan zen, Eibar jausi zen arte.

1.211. Aquilino Amuategi eibartar jatorra (AB-207/003)

Aquilino Amuategiren inguruko kontakizunak, anekdotak.

1.212. Sozialistak eta euskara (AB-207/005)

Aquilino Amuategi: Sozialistak eta euskara. Amuategi Batalloia izena nola erabaki zen.

1.213. Alfa kooperatiba; Casa del Pueblo-a (AB-207/006)

ALFA kooperatibaren hastapenak. Casa del Puebloa nola egin zen.

1.214. Annual-eko gerraren aurkako manifestazioa (AB-207/008)

Annual-eko gerratearen kontra manifestazio handia egin zen.

1.215. D. Policarpo Larrañaga eta SOV-ELA sindikatuaren sorrera (AB-207/009)

Don Policarpo Larrañaga abadea nolakoa zen. Abade honek ezkontzen zituen bikote euskaldunak. SOV-ELA sindikatuaren sortzailea.

1.216. Aratusteak Eibarren; mutila neskaren etxera afaltzera (AB-211/002)

Nobio kontuak eta ezkontzak aratusteetan izaten ziren. Asteartean egiten ziren ospakizun handienak. Bazkariak egoten ziren eta ondoren jende guztia kalera irteten zen. Gizonak ere, nahiz eta amaren kamisoi bat jantzi behar... kalera irteten ziren! Don Ciriaco medikuaren lagun-taldea, koko-jantzita irteten zen beti. Aratusteetan ohitura izaten zen mutila neska-lagunaren etxera joatea afaltzera, eta mutilarekin batera bere lagun guztiak ere joaten ziren.

1.217. Armagintzaren krisialdiak; langabezia handia (AB-211/011)

"Casa del Pueblo"ko tertuliak; nortzuk hartzen zuten parte bertan: Toribio Etxebarria, Jose Gisasola; Galarraga; Erkiaga, Julian Etxeberria. Galarragaren semea izan zen josteko makina diseinatu zuena. Garai haietan armagintzak gora-behera handiak zituen; batez ere errebolberrak egiten ziren eta askotan "Untzagia bete gizon bihar barik" egoten zan.

1.218. Armagintzaren krisialdiak; herri-sukaldeak (AB-211/012)

Krisialdi ekonomiko handia zegoenean, udalak herri-sukaldeak antolatzen zituen: garbantzuak arrozarekin, etab. Garai batean udalak zapatak ere ematen zituen umeentzat. Jose Gisasola zinegotzi zen orduan eta alabari zer esaten zion. Arrateko bidea, jendeari lana emateko egin zen. Armagintzaren krisialdiak. Galarragaren semeak asmatu zuen josteko makina nola egin behar zen.

1.219. Umetako entretenimendua: sagar lapurreta (AB-212/009)

Umetako kontuak. Kuadrillak elkartzen ziren eta beti asmatzen zuten zerbait denbora pasatzeko. Sagasti asko zegoen orduan Eibarren eta sagar lapurretan ere ibiltzen ziren.

1.220. Eibarko sagardotegiak eta bolatokiak (AB-212/010)

Eibarko sagardotegiak eta bolatokiak. Orduko sagardotegiak nolakoak ziren. Edalontzia txakur handian.

1.221. Zezen plazan futbolean (AB-212/011)

Sasoi baten zezen plazan egiten zuten futbolean domeketan, euren lagun baten aita eta osaba (Retolaza) zirelako zezen plazako nagusiak. Galtzen zuenak baso bat sagardo ordaindu behar irabazleari. "Burunera" gero sagardotegira.

1.222. Garai bateko baloiak; eibartarrak Real Unión zaleak (AB-212/012)

Garai bateko baloiak larruzkoak izaten ziren eta ura hartzen zuten bustitakoan. Nolakoak izaten ziren. Putzezko baloiak. Bederatzi txakur handi balio izaten zituen. Jendea Real Unión taldearen aldekoa zen Eibarren; indarra zuen orduan eta Espainiako txapeldun ere izan ziren.

1.223. Umetako jolasak: txirikiletan, kaniketan eta intxaurrekin (AB-212/013)

Umetako jolasak. Txirikiletan nola jolasten zen. Kaniketan eta intxaurrekin "potxoloka". Kanikak nolakoak izaten ziren. Intxaurrekin "kontra-kontran" ere jolasten zuten, besteen intxaurrak apurtzera. Batzuek tranpak egiten zituzten.

1.224. Umetako kontuak; kardantxiloak harrapatzen (AB-212/015)

Umetako kontuak; kardantxiloak harrapatzen. Kaiolan edukitzen zuten kardantxilo kantari bat eta harekin joaten ziren txoriak harrapatzera. Harra bazen, kanturako eta emea bazen, jateko. Bartolok Urkoko kobazulora joan izan zela dio.

1.225. Loinak eta karramarroak harrapatzeko teknikak (AB-212/016)

"Agorrean" ezkailuak nola arrantzatzen zituzten. Gero sagardotegira joan eta jan. Batzuek "profesionalak" ziren. Loinak eta karramarroak harrapatzeko erabiltzen zituzten teknikak. Ze ingurutan egoten ziren arrainak edo karramarroak.

1.226. Arrantza debekatuta (AB-212/017)

Arrantza debekatuta zegoen eta mikeleteak zaintzen ibiltzen ziren. Bartolok Berriz aldean guardia zibil batekin gertatu zitzaiena kontatzen du.

1.227. Gerra sasoiko pasadizo umoretsuak (AB-212/019)

Gerra sasoiaren, preso zegoela, Laredotik Valladolid ingurura eraman zuten Bartolo. Han gertatutako pare bat pasadizo umoretsu kontatzen ditu. Lehenengoa, mendirik ez zegoelako azkoitiaren batek egindako komentarioa. Bigarrena, ardoa edaten zuten moduagatik nola "ezagutu" zuten.

1.228. Txikiteoa, kanpotarrek ekarritako ohitura (AB-212/021)

Garai baten ez zen txikiteorik egiten Eibarren. Kanpotik etorri ziren lanbide ezberdinetako beharginek ekarri zuten ohitura hori. "Guarnizionerua"ri "astuen sastría" esaten zioten. Aurretik tabernara joan eta, kontuak esanez, ardoa baso handi batetik edatea zen ohitura.

1.229. `Simontxo´ri "Noche" tabernan gertatutako pasadizoa (AB-212/023)

`Simontxo´ri gertatutako pasadizoa. "Noche" tabernara joan eta ardo zuri bat eskatu zuen. Zerbitzariak zer atera zion, nahastuta.

1.230. Gaitzizen moduan animalia izenak jartzeko ohitura (AB-212/024)

Euren kuadrillari `Erleak´ gaitzizena zergatik jarri zioten. Geroago `Kobardiak´ ere deitzen zieten. Bartolori berari ze gaitzizen jarri zioten. Gaitzizen moduan animalien izenak jartzeko ohitura handia zegoen: txepetxa, zozua, belia... Bartoloren andrea "Zozuanekua".

1.231. Eibar herri zaratatsua (AB-212/026)

Bartolo Armeria Eskolako gau-eskoletan ibili zen. Beti zarata artean lan egin izan duela dio. Horregatik hitz egiten omen du altutik.

1.232. Pilotan "fueraka" (AB-212/027)

Pilotan "fueraka" jokatzeko zuten. Horma bat zegoen lekuan, hantxe jokatzeko zuten. Gainera, leku askotan debekatuta egoten zen.

1.233. Pilota egin berriak biguntzen (AB-212/028)

Gaur egun pilotak bigundu egiten dituzte erabili aurretik, baina garai batean ez. Pilota egin berriak gogor-gogorak egoten ziren eta beraiei ematen zizkieten, biguntzeko, "neurrira ekartzeko". Gero, bigundutakoan, profesionali ematen zizkieten.

1.234. Aginazpireneko trinketa eta Batzokiko frontoia (AB-212/029)

Euren sasoiko pilotariak. "Aginazpi" tabernaren atzealdean trinketa zegoen. Astelenako atezaina, Salome. Batzokian ere bazegoen frontoia. Batzokien arteko txapelketak ere egiten ziren.

1.235. Migel Gallastegi "Kiputzaneko" aulkiak jasotzen, pilotan jokatzearren (AB-212/030)

Migel Gallastegui Kiputzaneko frontoian egin zela pilotari dio. Zinema emanaldiak egoten ziren eta hura amaitzean aulki guztiak jasotzen zituen Migelek, dohainik pilotan jokatzearren.

1.236. Eibarko zinemak (AB-212/031)

Eibarko zinemak: Kiputzanekoa, "Salón Teatro" eta "Salón Cruceta". Gero Rialtoa egin zen. Hasieran "salón de baile" izan omen zen. Dantza lehiaketak ere egon ei ziren. Ez zuen arrakastarik izan eta zinema egin zuten gero. Noiz egin zen.

1.237. Rialto dantza aretoa Donato Ojangurenegina (AB-212/032)

Indalecio Ojanguren argazkilariaren anaiak, Donato Ojangurenegina, eta haren bazkide batek egin zuten Rialtoa. Pixka bat bihurria omen zen eta Argentinara bidali zuten gaztetan. Aberastuta itzuli ei zen handik. Dantzan oso ona omen zen. Argentinako mentalitatearekin egin omen zuten Rialto dantza aretoa

1.238. Astelenako eta Untzagako dantzaldiak; "ertza" egitea (AB-212/033)

Astelena frontoiko dantzaldiak igande gauetan. Udan Untzagan ere egoten ziren dantzaldiak. Untzagako kioskoa. Bi korro egiten ziren, handia eta txikia.

Batzuek "ertza" egiten ei zuten: begira egon. Bartolo gutxitan joaten zen dantzaldietara.

1.239. Gerra sasoiko anekdota (AB-212/041)

Juanito igeltseroari gertatutako kasua kontatzen dute. Gerra hasi zenean, alokairuan zegoen etxe batean. Ezkontzekotan zebilen orduantxe, eta etxean altzariak eta ezkontzen zenerako gauzak zituen. Traste guztiak gela itsu batean sartu eta itxi egin zuen horma faltsu batekin. Gerra ostean dena errekuperatu ahal izan zuen.

1.240. Inguruetako "errekadistak"; trena (AB-212/047)

Inguruetako "errekadistak": Alonso (Elgoibar); Turkua (Plazentzia), Torre... karroan etortzen ziren, zaldiarekin. Jendea ere eramaten zuten. Plazentziara, Zumarragara... trenean joateko aukera zegoen lehen. Elgoibarrera oinez joateko ohitura.

1.241. Sebastian Orbearen inguruko anekdota (AB-213/004)

Marrazki bateko kideak identifikatzen ari dira. Cotiella, telak saltzen zituena. Sebastian Orbea igeltsero azkoitiarra. Ezaguna zen Eibarren. Haren inguruko anekdota bat kontatzen dute.

1.242. Eibarko garai bateko pertsonaiak; "Oxabia" kale-garbitzailea (AB-213/006)

Eibarko pertsonaiekin osatutako marrazki bateko kideak identifikatzen ari dira. Euren lagun baten aitagarreba azaltzen da. Ezaguna zen Eibarren perretxikotan ona zelako. Lehen perretxikotan ibiltzen zirenek ez zituzten perretxikoak saltzen, lagunartean jaten zituzten. "Oxabia" kale-garbitzailea ere azaltzen da argazkian. Kantua ere ba omen zuen. Haren inguruko anekdota.

1.243. Eibartarrak alkate beste herri batzuetan (AB-213/009)

Villabellatarrek lima lantegia izan zuten. Idiazabalgo Bellota lantegia eibartarrek jarri zutela dio. Eibartar asko egon ziren alkate beste herri batzuetan, Francoren sasoian: Idiazabalen, Elorrion, Pasaian... Eta Eibarren Burgosko alkatea zegoen: Palacios. "Azpiri, Aranceta y Palacios" lantegia. Eibartarrak lantegiekin joan zirela kanpora azaltzen du.

1.244. Kruzeta kafetegia; billarrak Eibarko taberna guztietan (AB-213/012)

Euren kuadrilla Kruzeta kafetegian egoten zen. "Salón Cruceta"; zineak. Kafetegia nolakoa zen; marmolezko mahaiak. Billarra ere bazegoen. Herriko taberna gehienetan egongo zen billarra. Askok jokatzen zen orduan; txapelketak ere egiten ziren.

1.245. Kafetegi eta tabernen arteko aldea (AB-213/013)

Orduko kafetegi eta tabernen arteko ezberdintasunak. Kafetegietan ere ematen zuten ardoa, baina normalean kafetegietan kafea hartu eta jokoan egiten zen. Orduko kafeterak. Gerora modernizatu ziren.

1.246. Kafea hartu eta zinemara (AB-213/014)

Iluntzeetan joaten ziren tabernara, lantegitik irten eta gero, baina hamaiketarako jende guztia erretiratu egiten zen. Zinemak ere ordurako bukatzen ziren. Kafea hartu eta gero zinemara, barruko atetik pasatuta. Kafea eta zinema zenbat kostatzen ziren. Zinema ez zen egunero egoten.

1.247. Zinemak Eibarren: Kruzeta eta Pabellón Alfonso XIII (AB-213/015)

Kruzeta lau eta erdietan egoten zen zinema domeketan. Ilara luzea egoten zen sarrera hartzeko. Untzagan Pabellón Alfonso XIII zinema zegoen. Nolakoa zen. 1927 inguruan erre egin omen zen.

1.248. "Kiputxanekoa" edo Elorza frontoia (AB-213/016)

Isasi kalean Elorza frontoia zegoen, "Kiputxanekoa". Trinkete antzeko frontoi txiki bat zen. Gero, aulkiak jarri eta zinea botatzen zuten horman. "Suiza" gaitzizena jarri omen zioten, hotza zelako. Kruzeta eta Pabellón Alfonso XIII zinema. Domeka arratsaldeetan zurrak izaten zen zinemara joatea.

1.249. Kruzeta zineman pianoa; "Salón Teatro"n orkestra (AB-213/017)

Kruzeta zineman pianoa eta piano-jotzailea egoten ziren hasieran. Hernandok jotzen zuen pianoa. Gero pianola automatikoa ekarri zuten. Untzagako "Salón Teatro"n, berriz, orkestra bat egoten zen. Horiek ziren zinema dotoreenak. "Kiputxanekoa" merkeagoa zen.

1.250. "Serietako" pelikulak; iragarki banatzaileak (AB-213/018)

"Serietako" pelikulak egoten zirela dio. Egoera txar batean amaitzen ziren beti, hurrengoan jendea jarraipena ikustera joan zedin. zatika izaten ziren pelikulak. Lehenbizi zati komikoa egoten zen eta gero etortzen zen drama. Kalean pelikularen inguruko iragarkiak banatzen zituzten "partitzailliak". Gero beraiek sarrera doan izaten zuten.

1.251. 'Mendaro Txirristaka' bertso-paper saltzailea (AB-213/019)

Eusebio Mugerza 'Mendaro Txirristaka' bertso-paper banatzailearen historia. Donostian bizi omen zen ezkondua. Emazteak Tabakalera lan egiten zuen. Emaztea eta umeak utzi eta Ameriketara alde egin omen zuen. Nagusitutakoan etxera itzuli zen, baina etxeko ateak itxi zizkioten. Orduan hasi omen zen bertsoak atera eta saltzen, bizimodua aurrera ateratzeko. 'Txirristaka' ren bertsoak; euskara eta erdara nahastuta. Bizkaiko beste gizon besamotz bat ere etortzen zen kanta-paperak saltzera.

1.252. 'Mendaro Txirristaka' k non saltzen zituen bertso-paperak (AB-213/020)

'Mendaro Txirristaka' ren bertsoa. Bertso-paperak non saltzen zituen Eibarren. Igandeetan saltzen zituen, jendea batzen zenean.

1.253. Pipar kalearen izena; eskola laikoa (AB-213/021)

Pipar kalean eskola laikoa egon omen zen, baina berak ez zuen ezagutu. Katalunian hasi omen ziren eskola horiek. Sozialistek jarri zuten martxan

Eibarren, baina ez omen zuen indarririk izan. Pipar kalearen izena berez "Pikar" omen zen, aldapa handia (pikea) zuelako jarritakoa. Eurak aldapa handiari "pikia" esaten omen zioten.

1.254. Irakasle guztiei gaitzizena ipintzen zieten (AB-213/022)

Bartolo Frontoi Zaharrean ibili zen eskolan lehenengo. Gero Udaletxean. Irakasle ona izan omen zuen. Denei gaitzizena jartzen zieten, "ardi-ule" jarri zioten maisuari. Beste irakasle batzuk eta haiei jarritako gaitzizena. Bartolok ez zekien tutik ere gaitzizena eskolan hasi zenean. Maisuak denak erdaldunak.

1.255. Frontoi Zaharra, zestaz jokatzeko egokia (AB-213/023)

Eibarko frontoi nagusia Frontoia Zaharra zen, baina Astelena egin zutenean, "Frontoi Zaharra" izena hartu zuen. 1925ean gero frontoi municipala egin zen Frontoi Zaharrean. Eibarko pilotari askok bertan ikasi zuten zestaz jokatzeko, horretarako egokia zen eta. Zestaz ibili ziren lagunak: Mujika, Alberdi. Frontoiaren gainetik alde egindako pilotak kunbora erortzen ziren eta haiek batzen ibiltzen ziren.

1.256. Eibarko raketistak: Elorza eta Antonia (AB-213/024)

Astelenako atezainaren emazteak, Salomek, irakasten zien neskei erraketaz jokatzeko. Raketista asko egon zen Eibarren. Raketistarik onena Arrate aldeko Elorza; hurrengo belaunaldian Antonia. Donostian zegoen erraketaz jokatzeko frontoia, Grosen. Kanpora joaten ziren jokatzera. Berak, soldadu zegoela, Salamancan jokatzeko ikusi zituen. "Txikita de Anoeta" ere famatua zen.

1.257. "Eibarrés II", Eibarko zestalari onena (AB-213/025)

Bilbon palaz asko jokatzeko garai batean. Zestaz, berriz, Markina inguruan jokatzeko gehien. Eibarren ere bazeuden zestaz jokatzeko zutenak; onena "Eibarrés II". Onaindia zen abizenez; hiru anai ibiltzen omen ziren zestaz.

1.258. Aitaren eta amaren jatorriak (AB-214/003)

Aitaren partetik eibartarra. 1760an hiru Kruzeta zeuden jada Eibarren. Nahasketa Kruzeta / Guruzeta. Errotariak. Aitita, Jose Mari `Errota´. Berak ere gaitzizena hori erabili izan du. 1820 inguruan, Jose Mari Kruzeta absolutisten teniente jenerala zen. San Luis-en 100.000 semeak sartu zirenean, Plazentziako armamentu fabrika hartu zuen. Jose Mari izena familian generazio batetik bestera. Aitaren ama, Arratetarra (eibartarra) zan. Amaren partetik Irurekoa. Iruretarren historia. Amandrea, Mikaela Ariznabarreta "Irure". Aitita Elosukoa, Egiaga baserrikoa. Baina ama eibartarra.

1.259. Aititak "Kruzetaneko etxea" egin zuen (AB-214/004)

Kruzetatarraren etxea, Estaziño kaleko lehenengoa. Aita Txontan jaiotakoa. Aititaren lantegia izan zena, gero Karmeliten komentua izan zen. Txontatik Arraguetara, eta handik Estaziño kalera. Hilerria, gaur Banco Guipuzcoano dagoen lekuan egon zen. Aititak "Kruzetaneko etxea" egin zuen Estaziño kalean, eta gerotxoago antzokia eta tailer bat atzean.

1.260. "Casino Artista" euren etxean egon zen hasieran (AB-214/005)

Aitita "Casino Artista"ko lehenengo atezaina izan zen. Kasinoa euren etxean egon zen hasieran. Etxearen banaketa kasinoan eta kafetegian pentsatuta egin zen (gela handiak, billarra jartzeko, adibidez). Aitita eta aita jenio bizikoak ziren. Itxura denez, aitita Kasinokoekin haserretu zen eta etxetik bidali zituen.

1.261. Kruzeta zinema eta inguruko lokalak (AB-214/006)

Kruzeta zinema. Zinema gainean galeria bat zegoen. Bertan azkenengoz eskopeta tailer bat egon zen. Alokatu egiten zituzten lokalak. Pagei kaleko Klinika egon zen lekuan ere tailerra egon zen. Antzokira nondik sartu eta irteten zen. Kafetegian, dantzaldiak egiten ziren batzuetan: aratusteetan, San Blasetan...

1.262. Aita antzokirako artista bila Bilbora (AB-214/007)

Aita grabatzailea zen lanbidez, baina gauzez kafetegian laguntzen zuen. Eta antzokia ere berak organizatzen zuen: artisten bila joan... Orduko artistarik onenak bertatik pasatu ziren: Raquel Meller, Bracamonte... Kupletistak eta teatro konpainiak. Bilbon kontaktatzen zuen artistekin. Aitak ipini zuen teatroa martxan. Etxeak 100 urte baino gehiago ditu. Etxea egin eta gerotxoago ipini zen antzokia martxan.

1.263. Kruzeta kafetegiko pianola historikoa (AB-214/009)

Garai bateko pianola erakusten du Jose Marik. Hasieran Kruzeta kafetegian erabiltzen zen eta gero zinema mutuan ere bai. Piano jotzailea: Isaias Hernando. Piano jotzailerik ez zegoenean zer egiten zen.

1.264. Kruzeta kafetegia; politikariak mahai-inguruan (AB-214/010)

Kafetegia non zegoen erakusten du Jose Marik. Kafetegiaren alde batean marmolezko mahai handi bat zegoen eta politikariak batzen ziren berriktarako: Inazio Anitua "Txistu", Gregorio Undabeitia, Justo Oria...

1.265. Kruzeta kafetegia; neskek moñoarekin dantza egin behar (AB-214/013)

Kruzeta kafetegian aita edo aitaren arrebak egoten ziren. Teatroa aitak eramaten zuen. Kafetegian neskek ezin zuten moño barik dantza egin eta komunean gantxoak egoten ziren ilea txukuntzeko. Dantzaldirik ez zegoenean, mahaiak eta billarra ipintzen ziren berriz.

1.266. Eibarko lehenengo bonbila Orbearenean (AB-214/014)

Jose Mariren aitaren sasoian, goizeko seietan hasten zen beharra uda partean eta zortzietan andreak armosuarekin joaten ziren gizonengana tailerrera. Eibarren orduan armagintza eta grabatua ziren nagusi. Jose Mariren aita umea zenean, Don Inazioren klinika aurrean zegoen errota ikusi zuen argindarra lehenengo aldiz. Herri guztia Azitain alderantz joan zen Orbearenean ipinitako lehenengo bonbila ikustera. Gertakari handia izan zen. Kafetegia kinkeekin argizatzen zuten.

1.267. Espainiako artistarik onenak Kruzeta antzokian (AB-214/017)

Aita Bilbora joaten zen teatro konpainiak edo artistak kontratatzerara. Eibarren Kruzeta Antzokia zen halako emanaldiak egiteko toki bakarra. Inguruko herrietatik jende asko etortzen zen. Espainiako artista onenak etortzen ziren. Emanaldiak noiz izaten ziren.

1.268. Maria Angela kalea (AB-215/001)

Maria Angela liberala zen eta merezi zuelako jarri zioten kale bati bere izena, ez batzuek esandako moduan, jatordu bategatik.

1.269. Dos de Mayo kalearen jatorria (AB-215/002)

Maiatzaren 2an Bilbo askatu zuten liberalek, karlistengandik inguratuta zegoelako. Egun hura gogoratzeko ekitaldiak egiten ziren urtero. "Dos de Mayo" izena horregatik jarri zioten kale bati. 1939an gerra irabazi zutenek, eskuindarrek, ez zieten izena aldatu, uste zutelako Madrilgo gertaeragatik zela egun hori. Pena dauka kale batzuen izenak demokrazia heldu zenean aldatu izanagatik, "Dos de Mayo", Odonel eta Maria Angela. Odonel jeneralak Eibarko krisiari mesede egin zioten hainbat agindu eman zituen Madrildik.

1.270. Esteban Orbea zein zen (AB-215/003)

Esteban Orbea monarkikoa zen, kontserbadorea, ez frankista. Alkatea izan zen, etxeak egin zituen eta soldata eramaten zuela ospitalera. Oso herrikoia zen. Kalea kendu zioten.

1.271. Frankismo garaiko alkateak (AB-215/004)

Frankismoko alkateak. Esteban Orbea, Jabier Eguren, Antton Iraolagoitia, Jose Mari Etxeberria, Hernando... alkate normalak izan ziren, frankoren aldekoak izan arren. Gerra garaian eta ondorenean izan zirenak aipatzen ditu.

1.272. Aitaren azalpena karlistei buruz (AB-215/006)

Aitak karlistak zer ziren azaldu zion; lehenengo karlistadan txapel zuria eta borla berdea erabiltzen zuten eta foroak defendatzen zituzten; bigarrenean, foroak galdu eta kontzertu ekonomikoa jarri zuten; hirugarrenean, karlistada irabazi arren, kontzertu ekonomikoa kendu zuten.

1.273. Etxekoak ez ziren elizkoiak (AB-215/007)

Aitak esaten zion apaizak esandakoa egiteko, baina ez haiek egiten zutena. Amama ez zen elizkoia baina astean behin alaba bat bidaltzen zuen kandela bat piztera. Amama hilurren zegoeneko pasarteak kontatzen du.

1.274. Beharginen bizimodua eta Astelehena frontoia (AB-215/012)

Aita grabadorea zen ofizioz. Marrazketa artistikoa asko egiten zen Eibarren. Bere aita umea zenean, goizeko seietan jaiki eta lanera joaten ziren. Zortziak aldera, gosaria eramaten zieten emazteek edo seme-alabek. Astelehen goizetan jai hartzen zen. Pilotazaleak ikustera joaten ziren frontoira. Hortik dator izena.

1.275. Afari-merienda egiteko ohitura (AB-215/013)

Lantegitik irtendakoan, kafera joaten ziren. Mahaian eserita afari-merienda jan eta berbetan egoten ziren. Politikaz ere jarduten zuten. Zortzi orduko lan-jardunarekin aldatu omen zen ohitura hori, txikiteoak ordezkatu zuena.

1.276. Errepublikako banderaren ondoan (AB-215/015)

Guardia Zibilek errepublikako bandera zabaldu zutenean, bertatik bertara ikusi zuen, bere amaordearen besoetan zegoela. Urtebete zeukan orduan. Toribio Etxebarria ere han zen.

1.277. Estaziño kalea garrantzitsua zen (AB-215/016)

Goitarren eta Behetarren artean lehia egon izan da. Gauzarik garrantzitsuenak herriko goikaldean daude. Estaziño kalea oso garrantzitsua izan da. Elgeta errekadistia eta Turkua aipatzen ditu. Banketxeak, bitxidenda, grabadoreak, posta, medikua, zinema... zeuden Estaziño kalean. Bertan egiten zuten pasieran; Gerra ostean Calbetoian. Calbetoia Untzaga kalea zen eta Bittor Sarasketa Kale Barrixa.

1.278. Eibarko arkitektura (AB-215/017)

Estaziño kalea hamabost urteren buruan eraiki zuten. Etxe baxuak eta kale zabala zen. Eibarko arkitekturari buruzko zehaztapenak ematen ditu. Mekolako etxeak oso baxuak ziren. Alemanian horrelakoak ikusi zituen.

1.279. Umetako oroitzapenak (AB-215/019)

Umetako oroitzapenak. Bere lagunak izendatzen ditu. Etxeko neskamea, Genara, ama balitz moduan sentitzen zuen. Iraultza gertatu zenean, urrian, aitak leihoetan koltxoak ipini zituen. Elgetako bidea egin zuteneko akordua dauka. Juan San Martinen laguna zen umetan. Iraultzaren garaiko pasarte bat kontatzen du.

1.280. Toledoko bizipenak gerra aurrean (AB-215/020)

Familiarekin Toledora joan zen 1935ean. Politika aldetik giro bortitza zegoen. Toledoko oroitzapenak. Falangista baten semearen lagun egin zen eta harekin gertatutakoa kontatzen du. Lehenengo zezenketa Toledon ikusi zuen.

1.281. Gerra garaian Toledon (AB-215/021)

Frente Popularrak hauteskundeak irabazi zituenean, Toledon ospakizun handia egin zen. Gerra hasi zenean, milizianoak Alcasarrean sartu ziren eta ondoren frankistak sartu ziren irailaren 28an. Oso gauza gogorrak ikusi zituen. Fusilamendu asko egin zituzten.

1.282. Eibar erretzen ari zenez, etxera (AB-215/022)

Osabak aitari telegrama bidali zion Eibar erretzen ari zela jakinarazteko. Erreketeen kamioian Toledotik Gasteizera etorri ziren eta handik Eibarrera. Maltzagako zubia apurtuta zegoen. Eibarko hondakinak ketan ikusi zituen.

1.283. Zinemaren bukaera (AB-215/023)

Zinemaren kontua Eibarko bonbardaketaren ondorioz bukatu egin zen. 1935ean osabaren esku utzi zuten zinema. Jose Antonio Agirreren laguna zen osaba. Bere aitak ez zuen jarraitu nahi izan. Bonbardaketaren ostean,

eszenatokian Amuategi batailoaren bandera ikusi zuen. Aitak ez zuen zinemarekin jarraitu nahi izan.

1.284. Falangea eta karlismoa bateratuta (AB-216/010)

Falangeak karlismoa jan zuen. Fraga Iribarne, Espainiako Barne Ministroa, izan zen karlismoarekin amaitzea lortu zuena.

1.285. Flechas y Pelayos, ekonomiaren susperraldia (AB-216/012)

Flechas y Pelayos, gerra garaian azaldu zen Eibarren. Gerra urteetan, fronteak aurrera egin zuenean, Eibarren lantegi batzuk martxan jartzen hasi ziren; Orbea lantegi horietako bat izan zen.

1.286. Umetako oroitzapenak: gerrako ekonomia (AB-216/013)

Umetako kontuak. Estazioan trenbide bat zegoen Orbea lantegira joateko. Orbeatik irteten ziren obusak gogoan ditu.

1.287. Gerra garaiko ekonomia (AB-216/014)

Gerra garaian bertan hasi ziren lantegi batzuk martxan; Orbea eta GAC, besteak beste. Pako Anituak berrantolatu zuen GAC lantegi guztia.

1.288. Eduardo Alberdi eta gerra zibila (AB-216/016)

Pacto de Santoña egin zutenerako Bilbo hartuta zegoen. Eduardo Alberdi, Ajuriagerrarekin eta beste hainbatekin batera, Euzkadi Buru Batzarreko (EBB) kideak ziren. EBB-ko kide guztiak preso egon ziren Dueson eta Euzko Jaurlaritza exilioan.

1.289. Abertzaletasunaren hastapenak Eibarren (AB-216/019)

Eibarren, gerra aurretik, familia abertzale gutxi batzuk zeuden. Don Policarpo Larrañagak ELAren lan asko egin zuen, baita poxpoliñekin.

1.290. Eibarko giro politikoa (AB-216/020)

Abertzaletasunaren sendotzea Eibarren. Eibarko giro politikoa.

1.291. Errepublikaren inguruko gogoetak (AB-216/021)

Aitaren gogoetak Errepublikaren inguruan.

1.292. Abertzaletasuna Eibarren (AB-216/022)

Abertzaletasunaren hastapenak Eibarren. Lehenengo abertzaleak herrian.

1.293. "Eibarko bihotza erreta zeguan" (AB-216/024)

Eibarrera itzuli zirenean, dena erreta zegoela ikusi zuten. Erdigune guztia erreta eta haustuta.

1.294. Regiones Desvastadas eta herriaren antolaketa berria (AB-216/028)

"Regiones Desvastadas"-ekoek erreka ibilbidea aldatu zuten.

1.295. Umeen jolasak gerra ostean (AB-216/029)

Gerra ostean hondakinen artean ibiltzen ziren jolasean. Umeek ere gerrara jolasten zuten. Kale bakoitzean kuadrilla bat zegoen eta kuadrillen arteko borrokak egoten ziren.

1.296. Garraioak gerra ostean (AB-216/030)

Garraioak gerra ostean. Kamioi, taxi oso gutxi. Merkantzien garraioa trenez egiten zen. Herrigunean, garraioa zaldi eta gurdiekin egiten zen.

1.297. Umetako jokoak (AB-216/031)

Umetako jolasak gerra ostean: kateka, ezkutaketan, txirikilarekin, tortolosekin eta kanikekin.

1.298. Umetako ibilerak (AB-216/032)

Neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren jolasean, kale bakoitzean sortzen ziren kuadrilletan arabera. Trapuzko pilota batekin aritzen ziren, baita esku-pilotan eta futboleant.

1.299. Lagun-taldeak eta umetako kontuak (AB-216/033)

Umetako ibilerak; jolasak. Zinearen eragina. Kaleen arabera, kuadrillak edo lagun-taldeak sortu ziren; gaitzizenak: Bomba, Bombita.

1.300. Umetako jolasak errekan (AB-216/035)

Erreketan presak zeuden eta horietako bat Matxariakoa zen. Bertan ibiltzen ziren jolasean.

1.301. Gaztetako ibilerak errekan (AB-216/036)

Sagar-lapurretan kaletik gertu zeuden baserrietan joaten ziren. Gainera Matxaria eta Mandiola erreketan bainatzen ziren.

1.302. Lagun taldeak eta futbola (AB-216/037)

Lagun-taldeak eta futbola. Txantxa-zelaian izaten ziren futbol partidak.

1.303. Razionamentua; estraperloa (AB-216/038)

Gerra ostean razionamentua, ia 1948rarte. Gosea. Estraperloa. Trenez ekartzen zituzten hainbat produktu, eta Olerriaga inguruan trenetik kanpo botatzen zituzten.

1.304. Gosea, razionamentua (AB-216/039)

Gerra osteko egoera. Gosea eta razionamentua.

1.305. Gosea eta razionamentua gerra ostean (AB-216/040)

Inguruko herrietatik baserritarrak Eibarko merkatu plazara etortzen zirenean kontrol handia izaten zuten. Delegación de Abastos.

1.306. Sagar-lapurretan Matxaria inguruan (AB-216/041)

Sagar-lapurretan kaletik gertu zeuden baserrietara joaten ziren, Matxaria ingurura. Gaztaina-batzea.

1.307. Gaztetako ibilerak: Arratetik gora (AB-217/002)

Jolastera eta ibiltzera ohikoa zen Arrate gainera joatea. Bertan iturri bat zen eta errekaen jaiotza.

1.308. Berunezko txalupatxoa egiten (AB-217/004)

Kuadrilako bati berunezko itsasontziak egitea otu zitzaioneko anekdota.

1.309. Txantxa-zelaia (AB-217/006)

Txantxa-zelai izenaren inguruan dihardu pasarte honetan.

1.310. Mendi ingurua asko aldatu da (AB-217/007)

Eguraren beharra handia zen ekonomika zuten etxeetan, eta horrek mendi ingurua asko aldatu zuen. Errekak ere oso garbi.

1.311. Labaderoa eta Amuarrain haztegia (AB-217/009)

Labaderoa eta Amuarrain haztegia non zeuden. Ingurua asko aldatu da.

1.312. Loinak harrapatzera eta erreka (AB-217/011)

Gerraosteko arrantzarako joera. Erreka joaten ziren bainatzera Debara beharrean, trenez joan behar baitzen. Bergarako estazioa.

1.313. Ferrocarriles Vasco-Navarros (AB-217/012)

Dena trenean egiten zen, leku jakin batera joateko denbora asko behar zen ordea. Gerraostean Bergaran oinetakoak erosteko ohitura.

1.314. Bergara: lehenik tren, gero autobusa (AB-217/014)

Bergarako tren geltokia oso garrantzitsua zen herrian. Komuikamide garrantzitsuenetakoa zen. Ondoren autobusak iristen hasi ziren.

1.315. Gasolina falta zenekoa (AB-217/015)

Autoak gasogenoaz ibiltzen ziren, gasolina faltaren aurrean.

1.316. Elgoibarren futbolearen eta dantzan (AB-217/017)

Futbolzaletasuna piztu zen herrian, eta Elgoibartik oinez joaten ziren oinez futbola ikustera. Ondoren Elgoibarko plazan dantzan gelditzen ziren. Lau eibartar joan ziren Espainiako Selekzioan jolastera.

1.317. "Sociedad Deportiva Eibarresa"ren sorrera (AB-217/018)

Industria garatzen hasi eta jendea dirua irabazten hasi zen. Horrela, "Sociedad Deportiva Eibarresa" sortu zen.

1.318. Pio Zulaikak lehen labe elektrikoa (AB-217/020)

Eibarko lehen labe elektrikoa asmatuz zuen Pio Zulaikak, etxean ogia egiteko.

1.319. Eibarko Kirol Elkarteko "Los Halcones de la Sierra" (AB-217/022)

Aitak gaitasun urritua zuen, eta horrek diru-arazoak eman zizkien. Osabak olio eta telak bidaltzen zizkien Toledotik. Eibarko Kirol Elkartean talde bat egin zuten "Los Halcones de la Sierra".

1.320. Kupoarekin estraperloan (AB-217/023)

Eibarren tailer txiki asko ireki zituzten, haien artean, Alfa, Orbea... dena saltzen omen zen, nahiz eta produktuak akatsdunak izan. Material kupoa izatea zen garrantzizkoena, eta tailerren artean kupoaren salerosketa ematen zen.

1.321. "Torloju okerra be saldu iten zan" (AB-217/024)

Gerraren ondorioz produktu okerrak ere saldu egiten ziren, dirua egiteko. Eibarren hamaika lantegi zeuden, bizikletak egiten zituztenak tartean. "La época de la bicicleta" deitu zitzaion garai honi.

1.322. Eibarko zenbait lantegi (AB-217/025)

Eibarko eskopeta lantegien inguruan dihardu. Eibarko beste lantegi batzuk.

1.323. Lotan ere makinaren zarataz (AB-217/026)

Errelebotan egiten zen lan, egunez zein gauez. Argindar falta. Zaratatsuak ziren lantegi asko gauez, batez ere forjak. Alfak itsaspeko baten motorra erosi zuen.

1.324. Armagintza batez ere gerraurrean (AB-217/027)

Gerra garaian armak fabrikatzea debekatu egin zuten denbora batez, eta gerraostean txirrindek hartu zuten indarra herrian.

1.325. Egun osorako ogi zati bat (AB-217/029)

Peronek tratua egin zuen Francorekin. Ondorioz, egun osorako ematen zitzaien ogia txiki-txikia izaten zen.

1.326. Estankoak gerrako alarguentzat (AB-217/030)

Gerrako alargunei estankoa eman zitzaien, Eibarren ere bai. Margaritaren denda izaten zen Eibarren kasu honetakoa.

1.327. Hilero 40 pezetako beka (AB-217/032)

1944. urtean Batxillegorko 3. urtea egin zuen. Ohikoa Gasteizen ikasten jarraitzea zen. Azterketa berezi bat egiten zen. Hilabeteko 40 pezetako beka lortu zuen.

1.328. Gerra garaiko manifestazioak (AB-217/034)

Gerra denboran Bilbo erori zenean, manifestazioak egiten ziren, presoak herrian zehar paseatuz. Desfile militarra ere izaten zen.

1.329. Prozesioak fusilekin eskoltatuta (AB-217/035)

Gerra garaian eta gerraostean prozesioak fusilekin eskoltatuta egiten ziren.

1.330. Francok hiri handiak hartzean, eskolan jai (AB-217/037)

Manifestazioak egiten ziren Francok hiri handiak hartzen zituenean, eta eskolan ere jai izaten zuten umeez. Maistra eta maisu nazional guztiak kendu egin zituzten eskoletatik. Hauek eskola partikularrak ematen hasi behar izan zuten askotan, dirua irabazi ahal izateko.

1.331. Eibarko umeak Errusiara (AB-217/038)

Gerra zela eta 3-4 urtez eskola gabe gelditu ziren ume asko eta asko. Eibartik ume asko joan omen ziren Errusiara. Salbokondukturik gabe ibiltzea ezinezkoa izan ohi zen. Hura lortzeko, ordea, falangista izan behar zen.

1.332. Euskararen inguruan idazteagatik poliziak atxilotu (AB-217/039)

Egunkari, liburu eta elikula guztiak zentsuratuta zeuden, eta oso kontrolaturik. Bi aldiz eraman zuten Jose Mari poliziarengana euskararen inguruan idazteagatik.

1.333. Sozialistak, zeharo beldurturik (AB-217/040)

Eibar herri sozialista bazen ere, gerra garaian Francoren garaipenak ospatzen zituzten, bandera eta manifestazio eta guzti. Oso beldurturik zeuden sozialistak, askok alde egin zuten atzerrira.

1.334. Atxilotuak ezin herrian sartu (AB-217/042)

Gerra garaian atxilotu eta ondoren libre geratutako sozialistek ezin zuten herrian sartu. Jose Mariren osabak berak Amorebietan bizi behar izan zuen.

1.335. Osaba atxilotu zutenekoa (AB-217/044)

Edorta alberdi senidea zigortu zutela konturatu ziren kontrabandoa eramaten zion emakume bati esker.

1.336. Meza nagusia latinez (AB-217/046)

Toledotik etorritakoan ez zekien euskaraz, ezta emazteak ere. Fraileetan meza nagusira eramaten zituzten. Dena latinez egiten zen meza nagusia.

1.337. Mezetan euskara ikasten (AB-217/048)

Amandrea haiekin bizi zen, eta mezetako liburu bat zuen honek euskaraz. Jose Marik liburua hartu eta mezetan ateratzen zuen, euskarazko eta latinezko bertsiok alderatuz. Hala hasi zen euskararekin kontaktua izaten.

1.338. Lehengusua erreketek sartu zenekoa (AB-217/049)

Toledon bizi zirenean Felipe osabak ez zuen euskaraz hitz egiten. Haren semeak, aldiz, Eibarren euskaraz ikasi zuen, udako oporretan. Erreketek sartu zen.

1.339. Lehengusuari "maketo" (AB-217/050)

Lehengusua udaletxean hasi zen lanean. "Maketo" deitu zioten euskalduna zela jakin gabe, itxuraz ez baitzuen hala ematen.

1.340. Karlistaldian abadea pistolarekin mezara (AB-217/051)

Aitaren eskola garaian eraztuna zegoen, euskaraz hitz egiteagatik zigor moduan erabiltzeko. Karlistadetan, aldiz, abadeak pistola eskuan eramaten zituen umeak elizara.

1.341. Fraileak, malguak (AB-217/052)

Patioan euskaraz egiteko aukera zuten, fraileek ez baitzituzten zigortzen. Errosarioa egunero errezatzen zuten.

1.342. Abadeak gogor zigortu zituenekoa (AB-217/053)

8 bat urte zituela, beste hiru lagunekin batera, Historia Sakratua ikasten jarri zituen abadeak. Rakel ondo esaten ez jakiteagatik zigortu kidea zigortu zuten, eta barrezka egoteagatik gainontzekoak.

1.343. Frantseseko lekzioan lo hartu (AB-217/055)

Jose Antonio Guisasolak frantseseko lekzioan lo hartu zueneko anekdota.

1.344. Armeria eskolako zuzendaria, tradizionalista (AB-218/002)

Eibarren Seccion Femeninarik ez zegoen, aldiz mutilak, 'Flechas y Pelayos', bai. Eskolan instrukzioa egiten zuten. Eskolako zuzendaria militarra zen. Jose Mari sartu zenean Juan Urizar zen zuzendaria.

1.345. Armeria eskolarako irakasle beharra (AB-218/003)

Armeria eskolan irakasle falta zegoen. 1945. urtean izan zen Francoren denborako lehen greba Eibarren, Armeria eskolarako maisuak eskatzeko. Hori ikusita, zuzendaritzak azterketa batzuk antolatu eta irakasle berriak sartu ziren eskolara, tartean Beltran, etorkizunean zuzendari izango zena.

1.346. Armeriako irakasleak (AB-218/004)

Beltran eta Martinez, biak, arabarrak ziren. Maisu onak. Matematikakoak plaza hartu eta alde egin zuen. Lana utzi baino egun bat lehenago makina bat problema eman zizkien etxean egiteko.

1.347. Armeria, estatu mailakoa (AB-218/005)

Armeria eskola izugarri aldatu zen irakasle berriak sartu zirenean, 1945. urtean. Eduki aldetik maila altuagoa zen. Urizar zuzendaria Beltranek ordezkatu, eta eskola handitu nahi izan zuen. Estatu mailako eskola bilakatu zen.

1.348. Armeria eskola, fundamentuzkoa (AB-218/007)

1944an sartu eta 48an atera zen Armeria eskolatik. Beka bati esker sartzea lortu zuen. Gerra denboran gelditu egin zen eskola, baina bukatu eta segituan jarri zen berriro martxan.

1.349. Lehen euskarazko peritu azterketa (AB-218/009)

Mekanika ikasi zuen Armeria eskolan, eta libre moduan peritu lanetan hasi zen. Peritu eskolako lehen euskarazko azterketa egin zuen Jose Marik, 1954. urtean.

1.350. Grebako zigorra barkatu zutenekoa (AB-218/010)

Armeria eskolarako irakasleak eskatzeko greba egin zuten Armerian, eta greba egin zutenak zigortu egin zituzten ondoren. Igandetan eskolara jaotea zen zigorra, baina grebalariek arrazoi zutenez, barkatu egin zituzten.

1.351. Eskolatik 'Formacion del espiritu Nacional' kendu zutenekoa (AB-218/011)

Eskolan 'Formacion del espiritu Nacional' emango zutela jakinaraztean, ikasleek ez zuten batere ondo hartu, eta eskolatik atera egin ziren ikasleak, kontra egiteko. Zuzendariak, polemikarik nahi ez eta gaia kendu egin zuen.

1.352. Eibarko ereserkia abestu behar (AB-218/012)

Esteban Bolumbururi buruzkoak. Eibarko ereserkia abestarazten zien.

1.353. Lehenengo Armeria eskola (AB-218/014)

Armeriako lehenengo tokia 'Museo de Armas' tokian zen. Erdia museoa eta beste erdia marrazketa klaseak emateko erabiltzen zen.

1.354. 'Eibar y la zona armera' (AB-218/016)

Eibarko industria ferreterea egiten hasi zen, eta gero bizikletak ere bai. Zenbait bizikleta lantegi. Armagintza ere indartsua zen herrian, batez ere eskopetetan. Tailer txiki asko zeuden. Star arma Gasteizera mugitu zen.

1.355. Armeria eskolara estatuko jendea (AB-218/018)

Inguruko jendea joaten zen Eibarrera Armeria eskolan ikastera. Fama handikoa zen Espainiar estatuan. Mekanikara bideratutako eskola zen, armagintza alde batera utzita.

1.356. Armerian sartzeko azterketa egin behar (AB-218/019)

Azterketa bat pasa behar izaten zen Armeria eskolan sartzeko. Horrek prestigio handia ematen zion eskolari eta ikasleei. Jose Mariren kasuan 65 ikasletik 18 bat ikaslek bukatu zituzten ikasketak.

1.357. Bankuek tailerrak irekitzen lagundu (AB-218/020)

Bankuak mailegua ematea erraza zen, ondorioz, asko ziren mailegu honi esker tailerrak ireki zituztenak.

1.358. Laneko tratuak kalean egiten ziren (AB-218/021)

Bizikletentzat errekanbioa eta ferreteria industria ere lantzen hasi ziren Eibarren. Egiten zituzten tratu guztiak kaleak egiten omen zituzten.

1.359. Konpresoreen sorrera, Eibarren (AB-218/022)

Konpresoreak Eibarren sortu omen ziren. Miguel Carrerasek sortakoa. ABC. Samur. Puska.

1.360. 'Patria' idazteko makinak (AB-218/023)

Idazteko makinen fabrika sortu zuten, Patria izenekoak. Imperial Española. Individualismoa nagusi.

1.361. Indibidualismoa Eibarren (AB-218/024)

Gerra bukatutakoan, demokrazia blokeaturik zegoenez, tailer asko sortu ziren Eibarren. Indibidualistak izan omen dira eibartarrak industrian, eta horregatik ez omen zitzaion Armeria eskolari lagundu.

1.362. Igerilekuen lurra Alfarentzat (AB-218/025)

Alfak 1944-48 urte bitartean garapen handia izan zuen. Lurrak behar zituela eta herriko igerilekuak erabili zituzten horretarako.

1.363. Industria dibertsifikatu (AB-218/027)

Alfak bezala, beste zenbait lantegik ere arrakasta izan zuten. Torloju lantegiak ere bazeuden. Berri Industriak. Eibarko industriaren dibertsifikazioa. Bizikletak, armak eta josteko makinak.

1.364. Eibarrek lanerako espiritua (AB-218/028)

1944-60 urte bitartean lanerako espiritu handia omen zuen Eibarrek. Armeria eskola oinarri garrantzitsua zen horretarako.

1.365. Bizikleten osagarriak Eibartik kanpo (AB-218/029)

Bizikletak eibarren, baina osagarriak Eibartik kanpo egiten ziren, edo bestela erosi. Torlojugintza ere asko zabaldu zen, tailer txikiek tailer handientzat lan egiten baitzuten.

1.366. Tailer indartsuak Eibarren (AB-218/030)

Lorenzo Zabalak egin zituen lehenengo motorrak. Kaskoak eta Laster konpasak. Star eta Victor Sarasketa.

1.367. Laguntzarik gabe, industriarik ez (AB-218/032)

Banku aldetik eta makinaria aldetik emandako maileguei esker sortu zen Eibarko industria eta garapena. Konfiantzazko tratua baitzen nagusi.

1.368. Makinak kontrabandoan (AB-218/033)

Blokeo ekonomikoa zela eta, ekoiztutako produktuen kopuru txiki bat bakarrik esportatzen zen. Jasotako dibisa ez zen nahikoa izaten makinak kanpoan erosteko, eta askotan kontrabandoan ekartzen zituzten makinak, zatika, ondoren Eibarren berriro montatzeko.

1.369. Madrilen atzerriko makinak (AB-218/034)

1954an Parisera joan zen Jose Mari lan kontuak zirela eta. Don Emilio Caprile ezagutu zuen bertan, bisitatu zuen lantegiko nagusia, gerratik ihesi joan zena.

1.370. VESPA (Villaverde Estraperlea Sin Pagar Aduanas) (AB-218/035)

Bizikletak egitetik motor-bizikletak egitera pasa ziren Eibarren. Vespa motorra egiten hasi zen Francoren suhia, Eibarren, aldiz, Lambrettak.

1.371. Kanpoko jendea eskulanean aritzera (AB-219/002)

1948-53 bitartean jendea Eibarrera joaten hasi zen. Baina ez zegoen lekurik etxe eta lantegientzat. Eskulanean lanean aritzera joaten zen batez ere jendea.

1.372. Sabotajea soldadutzan (AB-219/003)

Pegaso kamioiak jarri zituen Francok Madrilen. Garraioak garatzen joan ahala, garraioak egiteko kalitatezko materialaren eskaria igo zen. Jose Mari soldadutzan zela, alemaniarrek joan eta sabotaje baten ondorioz, hiru gizon hil ziren.

1.373. Blokeo ekonomikoaren ondoren tailerrak itxi (AB-219/004)

Sozialistak ere erresistentzia baziren ere, Francoren propaganda komunisten kontrakoa zen. 1941. urte inguruan 'Division Azul'. Blokeo ekonomikoa bukatu eta tailer txiki batzuk desagertu egin ziren.

1.374. Makinak erosteko dibisak behar (AB-219/005)

Makinak kanpotik ekartzeko dibisa falta zen. Gabilondo, Star, Alfa enpresek espotatu egiten zuten, eta dibisei esker bazuten kanpoan makinak erostea.

1.375. Armeria eskolatik tailerrera (AB-219/006)

Armeria eskolatik atera eta tailerra berehalakoan jartzen zutenak asko ziren, bankuek laguntza ematea erraza baitzen.

1.376. Gerra denboran etxerik ez (AB-219/007)

Zaila izaten zen gerra denboran etxea topatzeko, batez ere kanpotarrek. Eztabaida handia egon zen herrian etxe gehiago sortu edo lantegi gehiago. Ermua nola handitu zen.

1.377. Galziarrak Eibarren (AB-219/008)

Galiziatik jende asko joan zen Eibarrera. Lehenengo galziarra Dorado izan zen. Eskulana egiten zuten batez ere, baina poliki-poliki industriara pasa ziren. Gasik ez zen, eta sukaldean ekonomika. Gaztainondoak ebaki zituzten etorkinei egurra emateko.

1.378. Galziatik trenez (AB-219/010)

Trenez etortzen ziren etortzen ziren etorkinak Eibarrera.

1.379. 1953rako gurdirik ez (AB-219/011)

General Motorsen zabalkundea. Kamioiak hasi ziren, Vespak eta ondoren 600ak. Lambretta.

1.380. Ullastresen ekonomia plana (AB-219/012)

1958. urtean Opusekoak sartu ziren gobernuan, eta tailer txiki asko itxi ziren haien 'plan Ullastre' delakoaren ondorioz. Honek kalitatezko produkzioa ekarri zuen.

1.381. Orbea eta Gabilondo Eibartik kanpora (AB-219/014)

Eibartik atera ziren lehen enpresak Orbea eta Gabilondo izan ziren. Orbearen kartutxoak Gasteizera eta Gabilondoren pistolak. Elgoibarrera joan ziren. Sozialistak grebekin hasi eta beldurrez Eibartik kanpora egin zuten salto. CIL bizikletak.

1.382. Industriaren garapena Eibar inguruan (AB-219/015)

Eibarrera etorri, eta ondoren Eibar inguruko herrietara zabaltzen hasi zen industria eta industriako langileria. Etxeak eraiki zituten Armeria eskola ondoan, populazioa handitzearen ondorioz.

1.383. Imperial lantegieraren gainbehera (AB-219/016)

Patria idazteko makinak egiten zituen Imperial lantegia itxi zutenekoa, salmenta sarerik ez zuela eta.

1.384. Peli Egañaren ekarpena: Lanbide Unibertsitatea (AB-219/017)

Peli Egaña sindikatuan sartu eta, autoritateek gaizki ikusirik bazegoen ere, Lanbide Unibertsitatea sortzea lortu zuen.

1.385. Beltran eta Armeriaren handitzea (AB-219/019)

Beltran izan zen Armeria eskolako zuzendaria. Industriak ez omen zion industriari lagundu. Berak egin zuen eskolaren handitze diseinua. Maisuak ordaintzeko dirurik ez eta estatu mailako kudeaketara pasa zen eskola. Peritu lanetan aritzeko baliabideak jarri zizkien ikasleei Tarrasan.

1.386. Armeria eskolako garairik onena (AB-219/020)

Ormaetxeak mikromekanika eta elektronika sartu zuen Eibarren. Beltran eta Ormaetxearen artean eskolaren sasoirik onena lortu zuten, 1946-65 artean.

1.387. Demokrazian armeria eskolari laguntza kendu (AB-219/021)

Armeria eskolaren garairik onena 1946-65 bitartean izan zen. Estatu mailan demokrazia jarri zenean boterean, laguntzak kendu eta garai iluna hasi zen.

1.388. Armeria eskolaren eraikina (AB-219/023)

Eskolaren eraikina nola garatu zen kontatzen du.

1.389. Eibarren sorginik bai? (AB-219/027)

Eibarren igarleak eta sorginak zeudela esaten zen, ikatza botatzen omen zuten tximinietatik. Jose Mariren ama joan zen igarlearengana. Aita umea zeneko kontakizun bat.

1.390. Anbotoko dama eta arrano kumea (AB-219/029)

Nekazari batzuek arrano kumea hartu zuten baserritarrei adarra jotzeko. Arranoa handitu eta lastora lotu zuten. Anbotoko damak sua alde abtetik bestera eramaten zuela zabaldu zuten gazteek, eta arranoaren lastoari sua eman zioten. Horrela, gau osoa pasa zuen arranoak hegaka, eta denek Mari zela pentsatu zuten.

1.391. Ermuko lamiak (AB-219/031)

Lamiak urrezko orrazia omen zuten. Ermuko jendeak ikusi izana onartzen zuen. Eibarren ordea, lamiak baino sorginak zeudela esaten zen, kateak botatzen zituztela.

1.392. 1949. urtean Franco Eibarrera (AB-219/033)

Imperial lantegian zegoen Jose Mari lanean Franco Eibarrera etorri zenean. Karlistak Franco agurtzera jetsi ziren. Jose Mari atifranquista zen eta ez zen haren desfilea ikustera joan. Lantegian jai izan zuten bisitagatik.

1.393. Herria Francoren beldur (AB-219/034)

Beldurra zela eta Francori babesa ematen zioten herritar askok, nahiz eta haren alde ez egon. Francok Eibar bisitatu zuenean, jendea kalera jaitsi zen desfilea ikustera.

1.394. Erreferenduma egin zenekoa (AB-219/035)

Beharrezkoa zen erreferendumean parte hartzea. Mahaiburu izatea egokitu zitziaon Jose Mariri. Ez joateagatik dirua ordandu edo kartzelara joan beharko zuela esan zioten. Emaztearen aita karlista ezaguna zen, eta harengatik baimena eman zioten mahaiburu ez izateko.

1.395. Nazionalista izateagatik arazoak nobiotan (AB-219/037)

Nobiotan Ermura joaten zen. Emaztearen aita karlista ezaguna zen eta arazoak eman zizkion Jose Marirekin nobiotan hasteak.

1.396. Beldurra bai, baina demokrazian (AB-219/038)

Armeria eskolako greba lehenengoetarikoa izango zen, 1946 inguruan. Orokorrean Eibarren harreman ona mantendu zen hiritarren artean.

1.397. 1934ko urriko iraultza (AB-220/002)

Urriko iraultza hasi zenean bost bat urte zituen Jose Marik. Aitak leihoetan koltxoiak jarri zituen. Tiroteo hotsa entzun eta eskilaran jendea tiroka ari zela konturatu zen aita, eta kanpora bidali zituen. Autobusetan etortzen zen 'Guardia de asalto'. Bertatik lurrera salto egiten zuten.

1.398. Herriko antifrankistak (AB-220/004)

Herriko jendearekin zuen harremana, jaien artean Marcelino Benigno, Toyostarrak...

1.399. Julio Aldai 'txinua' (AB-220/005)

Julio Aldairi buruzkoak. Beste komunista batzuk.

1.400. Mendiko lehiaketak: buzoien kontuak (AB-221/002)

Jose Marik 3 lehiaketetan parte-hartu zuen. Beraientzako lehiaketa hauek sakratuak ziren. Mendian zegoan buzoian txartela lagatzen zen, esaten halako egunean halako mendira joan zarela...Ibilaldi ofizialetan pentsatzen du debekatuta zegoela beste mendiren batera joatea lehiaketa egitera. 30.000 edo 20.000 m. egitea izaten zen helburua. Mendi desberdinak igo eta bakoitzean altuera gehitzen joan behar zen. Umeendako ere, 15 mendiko lehiaketak zeuden. Lehiaketak amaitzean, domina bat ematen zuten.

1.401. Indalezio Ojanguren, "El fotógrafo águila"! (AB-221/004)

Ojanguren sarritan joaten zen mendira, eta argazki asko horregatik daudela esan daiteke. Penagarria da Eibarren bere argazki fondorik ez egotea. Indalezio, famatua zen, baina ez Eibarren bakarrik, Espainia osoan. Oso urduria zen. Txarteletarako argazkiak ateratzera joaten zenean, fokuak, Indalezio tapatua, argazkia kristalarekin ateratzen zen; orduan ez zegoan karreterik eta.

1.402. David Arriola eta Agapito Anitua Eibarko Klub Deportiboko pertsonaiak (AB-221/005)

Beste argazkilari bat mendian asko ibili zena, Dabid Arriola. Xakea; dantzak; mendigoizale amorratua; argazkiak... Pertsonaia bat Eibarko Klub Deportiboan. Bera eta Agapito Anitua, oso espezialak izan ziren Deportiboarentzako. Adarjotzaileak eta oso alaiak.

1.403. Familiak gaitzizenen bitartez ezagutu (AB-221/007)

Lehen Eibarren familiak gaitzizengatik ezagutzen ziren. Baina inor ez zen haserretzen. Indalezio Ojangureni medikuarekin pasatutako gaitzizenen inguruko anekdota bat kontatzen du. Jose Marik asko ezagutzen zuen Indalezio. Argazki guztiak berak atera zizkion. Geroago etorri ziren Plazaola eta Castrillo-Ortuoste. Castrillok eta Ortuostek, jaunartzetako argazkiak egiten zituzten, baina famosoena Indalezio zen; Marqués de Santa María del Villar-en parekoa.

1.404. Eibarko Klub Deportiboko elkartasuna (AB-221/008)

Eibarko Klub Deportiboan ez zen bereizketarik egiten gizarte klaseen artean. Nahiz eta dirua eduki, ibilaldiak kamioietan edo autobusetan egiten ziren, denak batera joaten ziren.

1.405. Indalezio Ojangurenen argazki denda (AB-221/009)

Indalezio Ojangurennek argazki denda bat zuen, berak eramaten zuena. Behealdean, "Ojanguren y Markaide" tailerra zegoen. Bertan arduradun moduan, Juanito San Martin. Goialdean Indalezioaren denda, bere gauzatxoak saltzeko eta argazkiak ateratzeko. Atzealdean, laborategia zeukan. Lokala, estua eta luzea zen. Gaur San Juan kalea doa bertatik. Postalak ere saltzen zituen. Barruan edukitzen zituen bitrinak argazkiak erakusteko. Bere lana zerbait jarraitu zuena, Benigno Plazaola izan zen. Indalezio nagusitu zenean, mendiko argazki gehienak Plazaolak egiten zituen.

1.406. Irratiaren inguruko kontuak (AB-221/012)

Etxe askotan ez zegoen nahikoa diru irratia erosteko. Gerra ostean, debekatuta zegoen Radio Londres entzutea. Poliziak harrapatuz gero, multa bat jasotzen zen. Eduardo (Edorta) Alberdi, Isidoro Trokaola, Gregorio Aranberri, Sixto López de Gereñu.. Genaro Bonetak zuen botikan batu, eta ezkutuan, irratia entzuten egoten ziren. Jose Marik etxean ez zuen irratirik eta gogoan dauka eskolako lagun baten etxera joan zenekoa, Espainia-Frantzia partidua entzutera (1946 inguruan).

1.407. Familiaren jatorria; Arraindegi kalea (AB-224/002)

Familiaren jatorria. Aita, Angiozarren jaiotakoa (orduan Elgeta zen, ez Bergara). Ama Elorrikoa. Cándido, Arraindegi kalean jaio zen 1906ko azaroan. Aita baserritarra zen baina soldadutzan okin lana ikasi zuen. Hasiera batean Simonaneko okindegian egon zen lanean.

1.408. Gerra Zibila hasi zenean Eibartik Bartzelona aldera ihesi (AB-224/003)

Gerra Zibila hasi zenean ihes egin zuten Eibartik. Lehenengo Ondarrura, eta handik Durangora, Eubara, Bilbora, Santanderrera, Gijonera eta Bartzelona aldera. Cándido kartzelan zegoenean heriotz-zigorrarekin, ama hil zitzaion.

1.409. Gaitzizenaren inguruko azalpenak (AB-224/005)

Gaitzizena nondik dator. Anaiari "Oka" esaten zioten. Anaiak Ciriako Errastikiren jolasten zuen futboleak. Oso azkarra eta bizia omen zen eta Oka txirindulariarekin parekatzen zuten. Anaiari "Oka" eta Cándidori "Oka Txiki". Orduan sasoiak jende gehienak gaitzizena izaten zuen. Anekdotak bat kontatzen du (gaitzizena ez zuen mutilarena).

1.410. Eibarko kalea; eliza ingurua (AB-224/006)

Arraindegi kalean jaiotakoa; Eibarko kalerik zaharretakoa. Eibarko kale zaharrak: Txirio-kale, Kalbetoi, Elgeta kalea, Ipar-kalea, Birjinape...

1.411. Arraindegi kale ingurua nolakoa zen (AB-224/007)

Etxe bakoitzean, ez zen familia bat bakarrik bizi izaten. Dena dela, ez zeuden lau pisutik gorako etxeak. Arraindegi kalea; Ospital kalea. Inguru hartan zeuden etxeak. Salgadoneko taberna. Casino Tradicionalista.

1.412. Arraindegi kaleko bainuetxea (AB-224/008)

Eibarren zegoen bainuetxe bakarra, Arraindegi kalekoa. Bainuetxeak, 10 gela inguru zituen bainua hartzeko. Larunbatetan langile ugari joaten zen bertara. Carraleneko paboia.

1.413. 1900-1912 bitartean egindako eraikuntza-azpiegiturak (AB-224/009)

1900-1912 bitartean Merkatu Plaza, Udaletxea, Jardín de Convalecientes... egin ziren. Ignacio Anitua alkate zela, Matzagarainok estoldak egin ziren.

1.414. Eibarko langile gehienak, artisauak (AB-224/010)

Eibarren lan ugari zegoen: eskopetagintza, grabatua... Ongi ordaindutako lana zen gainera. Gehienak ez ziren langile soilak, artisauak ziren. Gerra garaian, armagintzak lan ugari izaten zuen.

1.415. Eibar, herri liberala (AB-224/011)

Eibarrek zuen "Kondaira beltza" kontatzen du. Gerra Karlistak. Eibar herri menderakaitza zen. 400 boluntario elkartu ziren liberalen alde.

1.416. 1897ko greba Eibarren (AB-224/012)

1897an greba handia egin zen. Pablo Iglesias Eibarrera etorri zen. UGT, PSOE...sortu ziren urte haietan. Ugazabek, Eibarrek zuen "Kondaira beltz" hori aprobeixatu zuten langileak beldurtzeko, batez ere beraien herrietan gera zitezten. Ez da ahaztu behar Eibarren soldata handiagoak ordaintzen zirela eta askatasun gehiago zegoela.

1.417. Eskolara joan aurretik etxez etxe ogia banatzen (AB-224/020)

10 urte zituela, goizean goiz eskolara joan aurretik, "fotak" (gosaltzeko erabiltzen zen ogi klase bat) banatzera joaten zen.

1.418. Txanpon klase desberdinak (AB-225/003)

Candidok hainbat txanpon desberdin ezagutu ditu: txikitak,pezeta, durua...

1.419. Arraindegi kalea (AB-225/007)

Arraindegi kaleak "L" forma zeukan. Eskailera batzuk zeuden errekarra joateko, Ariatza baino gorago. Bainuetxe bat ere bazegoen. Birjiñaperutz bide luze batek Tanborreneko zubira eramaten zuen. Arboladia. Udan emakumeak jokoan egoten ziren zuhaztarian eta elizako pareta, beraien frontisa izaten zen.

1.420. Eibarko jakiak (AB-225/011)

Bere garaian gehien bat sopa jaten zen; lehenengo ogiarekin egindakoak eta gero pastarekin. Baita ere, baba gorriak, zuriak, garbantzuak... Eta lantzean behin arrautzak eta arraina (Ondarroatik ekartzen zuten gehien bat). Afaltzeko berakatz sopa, odolostea...

1.421. Beharginen arropak: tuniketarik amantaletara (AB-225/013)

1919rarte, beharginek tunika erabiltzen zuten. Gero traje mekanikoa edo amantala. 1919az geroztik, beharginen lan orduen baldintzak aldatu ziren eta, horregatik, lan ordu libre gehiago zituzten. Paseatzeko denbora gehiago zuten, eta jendea lanetik irtetean arropaz aldatzen zen. 1926-1927 inguruan, janzkera berdindu egin zen klase sozialen artean eta ezinezkoa izaten zen kalean beharginak eta ugazabak desberdintzea.

1.422. Astelehenetako afariak lagun artean (AB-225/015)

Astelehenetan afariak egiten ziren tabernetan, igandetan ehizatzen edo harrapatzen zutena jateko. Beharginak eta ugazabak batera egoten ziren banaketarik egin gabe.

1.423. Ugazaba izan aurretik, behargina (AB-225/017)

Eibarren ugazabak izan zirenak, lehenengo beharginak izan ziren. Sozialisten artean ugazaba handiak zeuden; baina, hauek ere, ugazaba izan aurretik beharginak izan ziren. Aquilino Amuategi, Erkiaga eta Mendiguren izan ziren ugazaba handienetakoak.

1.424. Candidoren ama, sukaldari ikusgarri (AB-225/020)

Candidon ama, sukaldari ikusgarria zen. "Ama de llaves" moduan egon zen Gasteizen, Madrilen eta Bartzelonan. Urtebetetzetan eta egun berezietan oso ondo jaten zutela dio eta oraindik ere amaren platerrez gogoratzen dela.

1.425. Kalera irteteko arropa aldaketak (AB-226/002)

Bizimodua asko aldatu zen 1920. urte inguruan. Denbora batean, beharginak tailerretatik berandu irteten ziren eta ez zen egoten kalera irteteko astirik. Lanorduak gutxitu zirenean, gazteak kalera irteteko arropak aldatzen hasi ziren. Paseoan ibiltzen ziren, Untzagatik Estazio kaleraino.

1.426. Nobio kontuak: neskatan (AB-226/003)

Estazio kalean neskekin batera, bueltaka ibiltzen ziren; 16-18 urte inguru zutenean. "Paseos amorosos" moduan ezagutzen ziren bertan egiten zituztenak. Gerra ostean Kalbetoi kalean ematen ziren paseoak ere gogoratzen ditu.

1.427. Ekainetik aurrera, Untzagara dantzara (AB-226/006)

Ekainetik aurrera, dantza gauetz izaten zen Untzagan. Ostegun eta jaiegunetan, 23:30ak arte. Inguruko herrietako jendea etortzen zen Eibarrera.

1.428. Lagunekin lehenengo aldiz mezatara (AB-226/007)

Eibartarrek fama txarra zuten. Karlistak ateoak zirela esaten hasi ziren, baina 10:00etako meza beti bete-beteta egoten zen. 7 urterekin joan zen mezatara lehenengoz, lagunekin. Gurasoak eliztarrak ziren eta pozik jarri ziren bertan ikustean; baina, inoiz ez zioten esan mezatara joateko edo ez joateko. Elizara ez ziren karlistak bakarrik joaten; sozialistak, errepublikanoak, abertzaleak, liberalak... ere joaten ziren.

1.429. Kuadrilla bakoitzean, orfeoi txikitxo bat (AB-226/010)

Kantuan egiteko afizio handia zegoen. Edozein egunetan entzuten zen kuadrillaren bat kantuan. Aurreko belaunaldikoek beraiek baino potentzia gehiago zuten. Euren lokala "Fomentua" zen. Irustan semeak pianoa jotzen zuen eta besteek kantuan egin. Candido, tenorea zela esaten zuten. Kuadrilla bakoitzean orfeoi txikitxo bat sortzen zen. Kuadrilen artean lehia handia egoten zen. Cándidok Donostia aldeko kantu bat ikasi zuen eta kantua nolakoa zen erakusteko kantatzen hasten da. Antzinako euskal kantuak kantatzen ziren: "Boga-boga", "Goizeko izarra", "Illunabarra"...

1.430. “Primero vivir, luego filosofar” (latiñez) (AB-226/011)

Juanito Gisasola koruko zuzendaria zen. Bera falta zenean, Antonio Sarasua izaten zen zuzendaria. Juanito Candidoren lagun handia zen eta elkarrekin egoten zirenean, Juanitok, esaera batzuk esaten zizkion: “Primero vivir, luego filosofar” (latiñez).

1.431. Gabonetan etxean: mitinak, dantzak, kantuak... (AB-226/012)

Etxean, Gabonetan asko kantatzen zen. Kantu asko aitari ikasitakoak ziren. Orfeoi txiki bat zuten etxean. Aitak gabon gauean jai edukitzen zuen eta parranda egiteko aprobetxatzen zuten. Ama nahiko moralista zen. Behin izebak eta amak esandako sermoia gogoratzen du: “Egizu apaizak esaten dabena, baiña ezeizu egin harek egitten dabena...”. Biak oso eliztarrak.

1.432. Eskolako zigorrak (AB-226/016)

Don Antonio irakasleak zigor gogorrak jartzen zituen. Euskaraz egitearren zigorrak jartzen zirela entzun zuen inoiz Candidok, baina berak sekula ez zuen ikusi halakorik. Lagunartean eskolan euskaraz aritzen ziren.

1.433. Eibarren irakurtzeko zaletasun handia (AB-226/019)

Eibarren egunkariak (“El noticiero”, “La Gaceta del Norte”, “La voz de Guipúzkoa”...) eta liburuak inon baino gehiago saltzen ziren. Etxean nobelak irakurtzen zituen. Candidoren etxean, bera zen irakurtzeko zaletasuna zuen bakarra. Koinatuak "Centro Republicano-tik" ekartzen zizkion liburuak.

1.434. Candido eta erlijioa (AB-226/023)

Umetan eta gaztetan elizara joaten zen, baina ez zen eliztarra sentitzen.

1.435. Oporretan Elorriora (AB-226/025)

Oporretan Elorriora joaten ziren 3 anaia eta arreba bat. Ama bertakoa zen eta bertan senideak zituen. Beti anai-arrebekin egoten zen; inoiz ez zuten bertako gazteekin harremanik izan.

1.436. Lagunekin Eibartik kanpora (AB-226/026)

Lagunekin Durangora, Bergarara, Elgoibarrera... Lehenengo Batzokira, gero Karlisten lokalera...joateko ohitura. Behin Bergaran arazoak izan zituzten.

1.437. Sozialisten eta nazionalisten arteko borroka (AB-226/027)

Eibarren politika arloan ez zen arazorik egoten. Hauteskundeetan bakarrik egoten ziren borroka batzuk. Errepublikaz geroztik borroka gehiago egon zen alderdien artean. Sozialistek, Satur “buruhaundixa” eta beste nazionalista batzuk, María kafeterianekoan jipoitu zituzten.

1.438. 1920an, lau hilabeteko lanuztea (AB-226/028)

1920an lau hilabeteko lanuztea egon zen. Garai hartan pentsatu zen Alfa enpresa sortzea. Jendea gosez zegoen, baina ez zen borrokarik egon. Herri sukaldeak jarri zituzten. Donostiako inspektore bat honen kontra agertu zen, baina Toribio Etxebarriak azkenean konbentzitu egin zuen.

1.439. Konferentziak politikoak (AB-226/031)

Salón Teatro eta Kruzetan konferentzia asko egiten ziren. Normalean politikaren inguruan izaten ziren. Konferentzia handi bat egiten zenean, frontoian izaten ziren eta bete-beteta egoten zen.

1.440. Monarkia kentzeko grina (AB-226/032)

Urteetan monarkiaren kontrako jendea batzen hasi zen. Aldaketa baten beharra zegoen eta hau alderdi guztiek ikusten zuten. Poliki-poliki errepublikak indarra hartu zuen.

1.441. Indalezio Prietoren egunkariko zutabeak irakurriz, politikan sartu (AB-226/033)

Indalezio Prietok sartu zuen politika munduan. Berak egunkarian idazten zituen zutabeak irakurtzea gustatzen zitzaion Candidori. Idatzi horietatik hasi zen politika munduan sartzen.

1.442. Politikaren inguruko hausnarketa (AB-226/034)

Candido politikan sartu zen, baina sekula ez zen politikari sentitu. Politikaren inguruko hausnarketa sakona.

1.443. Intxaurrekin "kontra-kontran" jolasa (AB-228/002)

Intxaurrekin egiten zen "Kontra-kontran" jolasa. Txapelketak egiten zituzten. Batzuek tranpa egiten zuten, irabaztearren. Txarako intxaurrak ziren famatuak, gogorak zirelako. 1934an kartzelan zeudela ere intxaur-jokoan aritu ziren eta Demetrio Txanbolin^{ak}ek irabazi zuen.

1.444. Intxaurretara, gaztainatara eta sagarretara (AB-228/003)

Intxaurretara eta gaztainatara joaten zirenean, lurrekoak batzeko asmoa izaten zuten, baina arbolakoak ere hartzen zituzten. Non zeuden intxaur eta gaztaina arbolak. Sagar lapurretan ere ibiltzen ziren Elgoibar eta Soraluze aldera joanda.

1.445. Intxaur lapurretan zebilela, sakristauak harrapatu (AB-228/004)

Miraflores inguruan Errebaleko mojek zuten sailean intxaur arbola pare bat zeuden eta hara joaten ziren lapurretara. 13 urterekin, besoa apurtuta zuela, haraxe joan zen intxaur bila. Sakristauak harrapatu zuen. Gezurtxo bat esan zion eta ondo atera zen. Baserritarrek orroak botatzen zizkieten, baina ez zituzten inoiz harrapatu.

1.446. Narrarekin egiten zuten jolasa (AB-228/005)

Narrarekin egiten zuten jolasaren inguruko azalpenak. Txara-punta esaten zioten parajera joaten ziren eta, belarra kenduta, bidetxoak egiten zuten lurrean (buztina bazen, hobe). Ura botatzen zuten gero. Narraren gainean makurtuta jarri eta atzetik bultza egin.

1.447. Kometak nola egiten zituzten (AB-228/006)

Mutikotan kometak nola egiten zituzten. Jardineta ingurura joaten ziren eta goitik behera korrika jaisten ziren, kometa hegan jartzeko.

1.448. Kaleko jaietarako batutako dirua beharra zuen familia batentzat (AB-228/008)

Kale bakoitzak bere eguna izaten zuten. Beraiek azkenak izaten ziren, San Migel eguna ospatzen zuten eta. Arraindi kalekoek, Ospitaleko kalekoek eta Areatzakoek bat egiten zuten. Kale horietan dirua batzen zen jaia antolatzeko. Urte batean jakin zuten hango etxe batean norbait hil zela eta familia diruz txarto zebilela. Orduan, jaietarako batutako dirua familia hari ematea erabaki zuten.

1.449. Hamar urterekin kaleko jaietako diruzaina (AB-228/009)

Arraindi kaleko jaiak antolatzen bertako gaztetxoak ibiltzen ziren. Dirua batu eta soinua, txapliguak... antolatzen zituzten gauerako. Inguruko soinujoleak ekartzen zituzten, baina ez du gogoan nor. Hamar urte besterik ez zituen jaietako diruzaina izan zenean.

1.450. Garbiketa pertsonalerako: igerilekuak, presak eta bainuetxea (AB-228/010)

Errepublika ondoren bi igerileku txiki egin zirela aipatzen du: bata Matsarikoa eta bestea Makalarrokoa (Kakalardokua esaten zitzaion). Igerian egiteko beste leku batzuk ere bazituzten: Areatzako "kunbua", Txontako presa, Olarreagakoa… Bertan garbitzen ziren. Horrez gain, bainuetxea ere bazegoen Eibarren. Udaberritik udazkenara egoten zen zabalik. Matsariko igerilekua ze ingurutan zegoen. Gero Alemanen biltegia egon ei zen han ("armas y municiones").

1.451. Eibarko garbitokiak; arropa handiak garbitzeko (AB-228/011)

Eibarko garbitokiak non zeuden: Matsarian, Barakaldon, Txomo aurrean... Izarak eta arropa handiak garbitzeko izaten ziren normalean. Nolakoak izaten ziren. Emakumeek nola garbitzen zituzten arropak. Bazeuden horretara dedikatzen ziren emakume profesionalak ere.

1.452. Eibarren estolderia noiz jarri zen (AB-228/012)

1910 inguruan estolderia jarri omen zuten Eibarren. Tolosan (Frantzian) egon zenean harreman ona izan zuen bere patroiarekin eta kontu-kontari ibiltzen ziren. Hari esan zionean Eibarren estolderia zegoela, ez zion sinisten. Bi zatitan ipini ei zen estolderia: lehenengo hiltegia zegoen lekuraino (1910 inguruan) eta gero handik Maltzagara (1927 inguruan).

1.453. Eibar higiene aldetik prest mende hasieratik (AB-228/013)

Bera Frantzian egon zenean etxeetan komun bat zegoen eraikin osorako. Eibarren iturriko ura Iturriozek ipini ei zuen, Candido jaio zen inguruan. 1910 ingururako dagoeneko bazegoen garbiketarako talde bat eta baita zaborrak batu eta herritik ateratzeko kamioia ere.

1.454. Eibarko merkatu plaza 1910ean eraikia; sagar-lapurretan (AB-228/014)

1910 inguruan lan handiak egin ziren Eibarren. Adibidez, merkatu plaza. Nolakoa zen. Mutikotan lagunek sagarrak harrapatzen zizkieten baserritarrei plazan. Berak ere parte hartu zuen behin.

1.455. Eibarko beharginen egoera eta sindikatuen indarra mende hasieran; sozialismoaren hasiera (AB-228/016)

Eibarren beharra zegoen eta ondo irabazten zen, krisiak ere egoten ziren arren. Ezagun batek esan zion bera Santandertik etorri zela 1914 inguruan Eibarren 7 pezetako soldata zegoela entzun zuelako. Inguruetakoa soldatarik onenak Eibarren zeuden. Baldintza on horiek 1897an langileek egin zuten grebaren eraginez lortu ziren. Berak aurrekoei entzundako kontuak eta irakurritako kontuak (Castells-en artikulu bat aipatzen du). Pablo Iglesias etorri zen hitzaldia ematera. Eibarko sozialismoaren hasiera izan zen. Bilboko eta Eibarko sindikatuen indarra. Eskuineko sindikatuak ere baziren (katolikoa eta "Solidaridad de Obreros vascos").

1.456. Kilkerretara urtero (AB-228/018)

Kilker bila joaten ziren gaztetxoak urtero. Kaiolak dendan erosten zituzten.

1.457. "Perrerrua", kalean txakurrak harrapatzen (AB-228/019)

Garai batean ehiztari asko zegoen Eibarren eta jende askok txakurra izaten zuen etxean. Batzuetan udalak debekatu egiten zuen txakurrak kalean erabiltzea. Orduan "perrerrua" ibiltzen zen kalean txakurrak harrapatu eta txakurtegira eramaten.

1.458. Gaitzizenak jartzeko ohitura handia (AB-228/020)

Gaitzizenak ipintzeko ohitura handia zegoen Eibarren. `Sinapodo´. Askotan animalia izenak izaten ziren: `Erlamiñua´, `Txakurra´... Edo baita baserri izenak ere.

1.459. Meabe eta Madinabeitiarekin sozialismo intelektualagoa; egunkari sozialistak (AB-228/022)

Eibarren sozialismoa hasi zenean denak "idazlari" bihurtu zirela dio. Jendeak erlijio berri baten antzera hartu zuen sozialismoa eta denek esan nahi zuten zerbait. Orduan, Tomas Meabe idazlea eta Jose Madinabeitia medikua etorri ziren eta `Adelante´ egunkaria sortu zuten. Sozialistei beste ikuspegi bat eman zien, intelektualagoa. "Sozialismo poetikoa". Biak poetak zirela dio. `Lucha de clases´ egunkariaren ale batzuk ere Eibarren editatu ei ziren, Hernandez zuzendaria Bilbotik Eibarrera alde eginda egon zen sasoiaren.

1.460. Eibartarrek espiritu intelektualago eta liberalagoa, kanpora asko bidaiatzen zutelako (AB-228/023)

Egunkari asko saltzen zen Eibarren. Jendeak bazuen irakurtzeko zaletasuna. Karlistaden sasoitik eibartarrek asko komertziatzen zutela eta asko bidaiatzen zutela dio, eta ziurrenik beste kultura batzuk ezagutzeak ekarriko zien jakin-nahi hori. Beste leku batzuetako ideiak entzuteak espiritu intelektualagoa eta liberalagoa ekarriko zien eibartarrei, ziurrenik. Horrez gain, Azkoitiko zalduntxoan, Oñatiko Unibertsitatearen eta Bergarako Seminarioaren eraginez Gipuzkoan bazegoela "Ilustrazio usaina" dio.

1.461. O´Donell kalea; izenaren zergatia (AB-228/024)

Elizarentzat "bekatu mortala" zela liberalismoa dio. O´Donelli zergatik eskaini zioten kale bat Eibarren: militarra zen, baina industria liberalizatu zuen lege bat atera zuen.

1.462. Amuategiren sozialismoa (AB-228/027)

Amuategi nolakoa zen: "animal político". Erraz barneratzen omen zituen kontzeptuak Ez zen Perezaguaren jarraitzailea; Madinabeitiaren laguna zen. Gerora berak ere lantegia ipini zuen.

1.463. Eibarko sozialista moderatuak (AB-228/028)

Eibarko sozialismoak patrioiak ere bazituen tartean: Amuategi, Mendiguren, Erkiaga... Sozialista moderatuak ziren eta desberdin ulertzen zuten sozialismoa. Gazteak errebeldeagoak ziren; Errusiako eredu jarraitu nahi zuten. 1934an zatiketa etorri zen.

1.464. 1934ko iraultza; Francoren errepresioa; jendearen erreakzioa 1936an (AB-228/029)

Franz Mehring-ek idatzitako Marxen biografia irakurri zuen 1934an, koinatuaren etxean ezkutatuta zegoenean. Gauzak lortzeko etsaiaren aurka batu beharra zegoela konturatu zen. Asturiasko errebolta-ri buruz egunkarietan hainbat kontu etorri ziren, baina Marxen liburuan irakurri zuen kontu berdinak esaten zirela 1870ean ere. Hilabete ezkutatuta egon eta gero, familiak presionatuta, bere burua entregatu zuen. 25 urteko kartzela zigorra eman zioten. Eibarren ia familia guztietan egongo zen presoren bat. Francoren errepresioaren ostean, buelta eman zuen pixkanaka egoerak eta jendeak errebolta-ri alde egin zuen 1936ko hauteskundeetan: `Frente Popular´ak irabazi zuen. "Acción, represión, reacción".

1.465. 1912an karlisten kontzentrazioa Astelenan; liskarrak (AB-228/031)

Alderdi politikoekin lehenengo kontaktua noiz izan zuen. 1912an karlistek politika berri bat martxan jarri nahi zutela-eta, euren ideiak aurkezteko kontzentrazio handi bat egin zuten Astelenan. Egun horretan borrokak egon ziren herrian. Barrenkalean gizon bat (Oregi) tiroz hil zuten. Guardia Zibilak Astelena kanpoan zain egon ziren eta, karlisten mitina amaitutakoan, Ermurantz bidali zituzten bertaratutakoak, han trena hartzeko. Oregiren hiletako oroitzapenak: Chopin-en martxa eta Isaac Irusta triangulua jotzen. Orduetik aurrera isiltasuna herrian.

1.466. 1914ko krisia; lan publikoak eta herri-sukaldea (AB-228/032)

1914an Frantziako muga itxi zuten eta krisi handia izan zen herrian. Sozialistek zioten aberatsek dirua jarri behar zutela jendeari laguntzeko. Timoteo Zubiategi Wenceslao Orbearekin kontsultatu zuen eta obra publikoak egitea planteatu zuten (Foru Aldundiak ere lagunduta). Eibartik Markinarako bidea egiteari ekin zioten orduan, baina Ixuraino egin zuten. Palarekin, pikotxarekin eta dinamitarekin egin zuten. Hildako bat egon zela ere gogoan du. 1914-15ean herri-sukaldea ere jarri zuten, beharra zutenentzat.

1.467. 1914-1915ean Frantziako muga ireki ostean, urrea herrian (AB-228/034)

1914-1915ean, Frantziako frontera ireki zenean, berriz lana sortu zen herrian. Lehenengo ordainketak urretan egin zituzten Frantziak eta Ingalaterrak eta gogoan du Eibarren urrea ikusten zela dendetan. Orbea lantegia izan omen zen dirutan ordaindu zuen bakarra hasieran. "Casa del Pueblo"an norbaitek ontzako errearekin ordaindu zuela kafea esaten zen.

1.468. 1914-1915 inguruko langile etorkinak eta euskara (AB-228/035)

1914-1915ean, Frantziako frontera ireki ostean, lan handia egon zen, bai Eibarren, bai Bilbon. Ordukoa da "Bilboko ura"ren esaera. Bilbon astelehenetan langile asko ikusten ziren "emakume etxe"en bueltan. Kanpotik jendea etorri zen. Eibarren gutxiago izan zirela eta herriak ondo "asimilatu" zituela dio. Euskaraz ikasi zuten etorkinek, baina orduan sortu omen zen "euskalgaitza".

1.469. Sozialistek eta abadeek gaztelaniako berbak "euskaratu" (AB-228/036)

Sozialistek eragina izan zutela euskara gaztelaniarekin nahasterakoan onartzen du. Orduan ez zuten hiztegirik eta gaztelaniako berbak zeuden moduan "euskaratzen" zituzten. Hala ere, abadeek gauza bera egin zutela latinetik berbak hartu zituztenean esaten zuen Toribio Etxebarriak.

1.470. Bilboko behargin etorkinen eta bertakoen arteko liskarrak I (AB-228/037)

Mende hasieran Bilboko sozialistek zuten euskararen kontrako jarrera ulertzeko azalpenak ematen ditu. Kanpotik etorritako beharginen nagusiak euskaldunak izan ohi ziren eta sarritan lan gehiago eginarazteko, elkarren kontra jartzen zituzten beharginak. Horrez gain, neskek kanpotarrekin dantza egiten zutelako borrokak egoten ziren. Konpetentzia kontua ere bazegoen dendarien edo tabernarien artean. Blasco Ibañez-ek eman omen zuen orduko egoeraren berri bere liburu batean. Jose Madinabeitiaren kasua.

1.471. Bilboko behargin etorkinen eta bertakoen arteko liskarrak II (AB-228/038)

Sindikatuak hasieran sindikatu sozialistaren aurka egiteko balio izan zutela azaltzen du. Sozialistek greba egiten zutenean sindikatu solidarioak lanera joaten ziren. Gerora asko aldatu da. Bilbora kanpotar asko etorri zen eta ezin izan zituzten "asimilatu". ondorioz, kanpotarren eta bertakoen arteko arramarrak egon ziren.

1.472. Etorkinen eta bertakoen arteko txokea (AB-228/039)

Hizkuntza arazoak eta arazo sozialak batera doaz bere ustez. Kanpotik etorritakoak beti errezeloz ikusten dira hasieran. "Maketo" eta "belarrimotxa" deitu izan zaie kanpotarrei. Herri bakoitzaren harrotasuna; elkarren kontra jarritakoan liskarra. Berari ere behin euskalduna zela irten zitzaion barru-barrutik.

1.473. Hizkuntzak, herrialde desberdinetako beharginak elkartzeko oztopo; esperantoa (AB-228/041)

Mende hasierako sozialismoarentzat garrantzitsua zen herrialde guztietako beharginak elkartzea eta horretarako hizkuntza desberdinak oztopo moduan ikusten ziren. Esperantoari eman zioten indarra. Kapitalismoari aurre egiteko, beharginen batasuna aldarrikatzen zuten maila guztietan, baita hizkuntzan ere. Horregatik zeuden nazionalismoaren aurka, hark zatiketa zekarrelako. Eibarren gutxi izan ziren kanpotik etorritakoak eta ondo hartu zituzten, bat egin zuten.

1.474. Unamunok euskararen kontrako jarrera (AB-228/046)

Bilboko sozialistek euskararen kontrako jarrera izan zuten. Miguel de Unamuno izan zen horietako bat. Jendeak esaten omen zion oposizioetan Azkuek postua kendu ziolako jokatzeko zuela horrela. Eibarren ere ba omen ziren euskararen kontrako jarrera zutenak.

1.475. Jouhoux, Amuategi eta Prieto, bakoitza bere hizkuntzan "Casa del Pueblo"an (AB-228/048)

1916an "Casa del Pueblo" a inauguratu zen. Jouhoux, Frantziako sindikatuko idazkaria (sindikatu bakarra zegoen orduan), Amuategi eta Prieto etorri ziren hitz egitera. Bakoitzak hizkuntza banatan hitz egin zuten eta batek baino gehiagok esan omen zuen hori zela internazionalismoa.

1.476. Internazionalismoa, hizkuntza bakarra ala asko jakitea? (AB-228/049)

Mende hasieran, Eibarren internazionalismoa hiru hizkuntza jakitea zen eta Bilbon, osterara, bestelako ikuspegia zuten. Han hizkuntza bakarra hobesten zuten, euskara ikastea gogorra zelako hango etorkinentzat. Orduko espainiarren izaera, entzun eta ikasi zutenarekin lotuta. Bakoitzaren harrotasuna kanpora irteten da nahi gabe ere.

1.477. Frantzian gertatutako kasua; nortasuna barru-barrutik irteten da (AB-228/050)

Herri bakoitzaren nortasuna barru-barrutik irteten dela erakusteko adibide gisa Frantzian gertatu zitzaion kasua kontatzen du. Biltegi bateko harreran ibili zen lanean. Nagusiari alaba ezkondu zitzaionean opari bat egitea erabaki zuten eta bera joan zen ordezkari gisa. Ezkontzan hizketan zebiltzala nagusiaren emazteak berari buruz hitz egitean "espainiarra" esan omen zuen eta nagusiak zuzendu egin, zion euskalduna zela esanez. Harrituta geratu zen Candido, baina gero jakin zuen nagusiak amandrea euskalduna zuela.

1.478. 1917: Errusiako iraultzaren eragina; 1918: gerraren amaiera eta krisia (AB-228/051)

1916an `Casa del Pueblo`a inauguratu zen. 1917an Errusiako iraultza. Mugimendu horrek inpresio handia egin zuen Eibarren; aldeko asko zituen ezkerrekoen artean (sozialistak, anarkistak..). 1918an, egun baten sekulako kanpai zarata egon zen. "Zer pasatzen dok?" eta "Bakia". Lana asko jaitsi zen eta orduan hasi ziren armak utzi eta beste pieza batzuk sortzen, baina arrakasta handirik gabe. Ez zen izan 1914koa bezain handia, baina krisia egon zen orduan ere.

1.479. 1919an zortzi orduko lan-jardunak ekarri zituen ohitura aldaketak (AB-228/052)

1919an lan-orduak murrizteko eskaerak eta protestak: "las tres ocho horas". Hamar ordutik zortzira aldaketa. Ez zen ezer gertatu, ohitura aldaketa bakarrik. Lehen langileak zuzenean joaten ziren tabernara lanetik irtendakoan; gero, berriz, etxera joan, apain jantzi eta paseatzera. Produktzioan ez zuen eraginik izan. Soldadak mantendu egin zirela uste du. Galdu zen beste ohitura bat: txakurrek armosua lanera eramatea.

1.480. 1920ko greba eta krisia (AB-228/054)

1920an lau hilabeteko greba egon zen Eibarren: abuztutik abendura. Elizak ere parte hartu zuen greba hori bukatzeko; Don Poli. Herri-sukaldea jarri zuten lau hilabete horietan eta greban zeuden beharginak hara joaten ziren. Familiak, aizkorak hartuta, Urko aldera joaten ziren egur bila krisi sasoian.

1.481. Alfa lantegiaren sorrera (AB-228/055)

1920ko grebaren eta krisiaren testuinguruan sortu zen ALFA lantegia. Batzuek kooperatiba sortu nahi zuten, baina denak ez zeuden ados. Iritzi desberdinak. "Kirikixuan" tailerra erosi zuten, Bista Alegre kalean. Bi miloi ordaindu zituzten. Bizkaiko metalurgia sindikatuak egin ei zien mailegu dezentea.

1.482. Danobat eta Alfaren hasierako urteak (AB-229/001)

1920an Danobat eta Alfa agertu ziren. Lehenengotik, pistolak egiten zituzten Alfaren. Ameriketara saltzen zituzten baina han ere trabak jartzen zizkieten. Hala, josteko makineri ekin zieten, pistolekin ateratako diruarekin. Urte batzuk pasata, alderantziz izan zen.

1.483. Alfako langileen greba (AB-229/002)

Alfako langileek greba egin zuten eta Udalak lagundu zien. Aldunditik norbait etorri zen eta ez zuen Udalaren laguntza ongi ikusi.

1.484. Eibartarrak Afrikan soldadu (AB-229/003)

Eibartar batzuk Afrikan zeuden eta beldur handia izan zuten hainbat familiak, 1921eko Anualeko hondamendiagatik. Soldaduen baldintza berdintasuna eskatuz manifestazio handia egin zuten. Indalecio Prietok idatzitakoaren berri ematen du.

1.485. Errepublikanoak eta sozialistak (AB-229/004)

1918ko sozialisten kongresua. Monarkiaren kontra azaldu ziren baina iraultzarik egin gabe. Pablo Igleziasek eta beste hainbatek ez zuen nahi izan errepublikanoekin bat egiterik baina ondoren, onartu egin zuten eta

hauteskundeak irabazi. Eibarren errepublikanoek eta sozialistek ez zuten elkar ondo ulertzen.

1.486. Datoren hilketagatik bi eibartar atxilotuta (AB-229/005)

Errepublikanoak eta sozialistak batzuetan elkarrekin aurkeztu ziren eta beste batzuetan ez. Espainiako politikan erregeak baino, nobleek gobernatzen zuten. Anarkistek Eduardo Dato Iradier hil zutenean, bi eibartar atxilotu zituzten, hilketan erabilitako Star pistola saltzeagatik, baina ez zuten ezer probatu.

1.487. Anarkistak atxilotuta eta fusilatuta (AB-229/006)

Politikan hasi zen Prietoren idatziak irakurtzeak motibatuta. 1923an diktadura hasi zen baina sozialistentzat ez zuen eragin handirik izan, baina anarkista asko atxilotu eta hil zituzten. Anarkista batek berari kontatutakoak aipatzen ditu.

1.488. Ondarretako kartzelan atxilotuta (AB-229/008)

Ondarretako kartzelan birritan sartu zuten. Canfranc-eko tunela inauguratu behar zutenean behin, eta Erregea zetorrelako beste batean. Arriskutsua omen zelako atxilotu zuten, Libertad izeneko aldizkariari animoak emateko idatzitako gutunengatik. Ez zen komunista izan baina bai zalea. Gerra ostean sartu zen komunisten alderdian.

1.489. Primo de Riveraren garaiko alkateak (AB-229/009)

Primo de Riveraren garaian izandako alkateak aipatzen ditu. Alkate batek lehenengo aldiz soldata jaso zuen lehenaldia izan zen. Anekdotak batzuk kontatzen ditu.

1.490. Inazio Anitua alkatea (AB-229/010)

Inazio Anitua, Candidoren ugazaba izandakoa, izan zen erreka ubidea egin zuena. Sorluzetik ur gehiago ekarri eta elektraetxea ipini zuen, Eibarko argiteriarako. Eibarko Udalak Aldundiak ipinitako betoa zeukan eta hura kentzea zela lortu zuen kontatzen du.

1.491. Itsasontzi istripuagatik, sei hildako (AB-230/003)

Itsasontziz Ondarroara ere joan zitekeen Debatik. Itsasontzi batekin istripua izan eta sei eibartar hil ziren 1933an. Elizkizun handia egin zen. Beranduago topatu zuten gorpuari beranduago egin zitzaion elizkizuna. Hildakoetako bat Don Ziriako zen eta Eibarren garrantzia handiko pertsona zen.

1.492. Don Ziriako eta bere aita, medikuak (AB-230/004)

Don Ziriako medikuen artean ezaguna zen. Pasadizo bat kontatzen du. Don Ziriakoren aita medikua zen eta esaera bat bazuen: "aires de Arrate y baños de Errotape". Eibar erdialdean errota zegoen. Don Ziriakoren umetako kontu bat aipatzen du.

1.493. Otxabiña teniente (AB-230/006)

Otxabiña tenientea. Irun eta Donostia galdutakoan hasi ziren gudarostea osatzen. Aurretik, sakabanatutako taldeak besterik ez ziren. Eibarren Gonzalez izeneko batek taldea osatu zuen eta izendapenak egin zituen.

1.494. Primo de Rivera Eibarren (AB-230/008)

Julian Etxeberriak ingurukoak konbentzitu zituen Eibarren fusilak egiteko. Arma erakusketa egin eta Primo de Rivera etorri zen Eibarrera. Fusila ekarriko zenaren itxaropenez, Untzaga plazan jendetza bete zen diktadorearen berbak entzuteko, baina hark ez zuen Eibarrerako lanaz ezer aipatu.

1.495. 20ko hamarkadako krisialdiaren eragina (AB-230/009)

Mundu mailako krisiagatik bukatu zen Primo de Riveraren diktadura, Candidoren ustez. Krisialdia zela nabaritu zuten kontaktzen du. Espainian zein Alemanian eta Ipar Amerikan oso gogorra izan zen. Diru publikoa erabili zuten Ipar Amerikan langabeziari aurre egiteko.

1.496. Lantegietako krisiak eta fusilak (AB-230/010)

Eibarren krisialdiak izaten ziren sarritan lantegietan. Lana falta zenean, beharginak lanik gabe geratzen ziren, inongo soldatarik gabe. Primo de Riverak eskaerak egin zituen Alfara, josteko makinak erosteko; armei lotutako eskaerarik ez zuen egin. Bati baino gehiago entzun zien errepublika etorriko zela. Gerra garaian, Julian Etxeberriari eskerrak, fusilak egiteari ekin zieten eibartarrek.

1.497. Primo de Riveraren garaian anarkistak jomugan (AB-230/011)

Primo de Riverak krisialdia konponduko zuela espero zuen jendeak. Anarkistak gogor jarraitu zituzten diktaduran; fusilatu eta atxilotu egin zituzten asko. Sozialistak eta errepublikanoak zainduta egon ziren baina lan politikoa egiteko baimena zeukaten.

1.498. Eibartar anarkista bat preso, Candido er (AB-230/013)

Eibartar anarkista bat preso hartu zuten Primo de Riveraren diktaduran, poliziek tranpa jarrita, beste hogeit bat lagunekin batera. Candido ere preso egon zen, komunistatzat hartu zutelako. Eibarren bazegoen mugimendua baina ez zegoen komunisten asanbladarik. Primo de Riveraren ondoren sortu zuten Eibarren alderdi komunistaren taldea, Candido tarteko, baina laga egin zuen, ez zegoelako armak hartzearen alde.

1.499. Eibarko alderdi komunista (AB-230/014)

Eibarko alderdi komunistan Jose Andres Aranguren idazkari izendatu zuten, Errepublika garaian. Aurretik, Eibarko ugazabek errepublikaren beharra zegoela esaten hasi ziren baina errepublika garaian aldaketak egiten hasi zirenean, kontra azaldu ziren.

1.500. Candido alderdi komunistan eta kartzela (AB-230/015)

1921ean Eibarren lehenengo aldiz komunistek irabazi zuten. Gazte sozialista gehienak komunismoaren alde agertu ziren. Liburuak irakurrita eta inguruko lagunengatik sartu zen politikan. Gutun batzuegatik arriskutsutzat hartu eta atxilotu zuten.

1.501. Gerrak animali bihurtarazten du (AB-230/020)

Gerrak animalia bihurtarazten du. Eibarren hitzaldiak, filmak eta zirkloak antolatzeke asmoa zeukan Candidok, gerra hasita zegoela, baina kulturarik ez zela behar erabaki zuten agintari militarrek. Gerran soldaduek, bereziki agintariek, dibertitu, ondo jan eta emakumez gozatzeko filosofia zabaldu zen.

1.502. Gerra garaian gutxierekin konpontzen zen (AB-230/021)

Candidok erabaki zuen gerra garaian ahalik eta gauza gutxienekin pasatzea, gerrak ahalegina eskatzen zuela uste zuelako. Etxekoek eskaerak egiten zizkioten komisarioa zelako eta bere aurrezkiak eman zizkien.

1.503. Eibartarrak monarkia bukatzeko gogotsu (AB-231/007)

Primo de Riveraren diktadura egindako akatsegatik bukatu zen. Eibarren monarkiari bukaera emateko gogo zegoen.

1.504. Errepublikarrek hauteskundeak irabazi zituzten (AB-231/008)

Primo de Riveraren diktadura bukatu eta errepublika baino lehen, Candidori esan zion helduago batek gazteek futbolarekin besterik ez zutela pentsatzen. Eibarren ondo ikusi zen sozialistak eta errepublikanoak batera joatea. Espainia guztiko botoak gehituta, monarkikoei irabazi zuten baina jauntxoek menpekoei botoak ez zituzten ontzat hartu, behartutakoak izatearren.

1.505. Errepublikanoak garaile (AB-231/009)

1931ko hauteskundeek egunean, Casa del Pueblon zegoen Candido lagunekin. Astelehena frontoian musika banda ari zen musika jotzen eta jendea errepublika goratzen hasi zen, jakinekoei baitzen Espainiako hiri nagusietan garaile izan zirela.

1.506. Errepublikaren proklamazioa zela gertatu zen (AB-231/010)

Astelehenean oraindik ez zegoen proklamaziorik baina eibartar gehienek uste zuten errepublika bazetorrela. Donostiatik enkargua etorri zen eta zinegotzi guztiak batu ziren udaletxean. Errepublika izendatu behar zela erabaki zuten. Donostiako gobernu militarretik mehatxuak egin zizkieten. Segundo Garcia izeneko batek ere proklamatu zuen errepublika, Ciudad Real inguruan. Kartel bat egin zuten "Plaza de la República" ipintzen zuena, Untzaga plazarako.

1.507. Ospakizun handia Eibarren, errepublikarengatik (AB-231/011)

Errepublika proklamatu zen egunean, arratsaldean, Bartzelonan eta Madrilan altxamenduak egon ziren eta erregeak alde egin zuen. Hala, manifestazio handia egin zuten Eibarko kaleetan. Ospakizun handia egin zuten Eibarren.

1.508. Errepublikaren proklamazioa zergatik egin zen Eibarren (AB-231/012)

Toyosek Donostiatik jaso zuen enkarguari buruz berba egiten du. Donostiatik Bilbora zihoan arrain saltzaile batek eman zion oharra. Toribio Etxebarriarekin hizketaldi luzeak egin zituen eta hark uste du ez zela errepublika

proklamatzeko agindurik etorri; interpretazioa izan zela uste zuen. Apaiz batek uste zuen pare bat eibartarren ideia izan zela, baina Candidok esan zion eibartarrek uste zutela ordurako errepublikan zeudela.

1.509. Abertzale errepublikazaleak Eibarren (AB-231/014)

Donostiako hitzarmenetik kanpo geratu izana akatsa izan zen EAJrentzat, Jose Antonio Agirrek aitortu zuenez. Abertzaleek ikurrina ipini nahi izan zuten Eibarko udaletxean baina sozialistek ez zieten onartu. Abertzale gehienak errepublikazaleak ziren Eibarren.

1.510. Estatutuari baietz (AB-231/017)

Estatutuari baietza emateko botoa eman zuen Candidok, nahiz eta komunistak alde ez agertu. Errepublika elizaren kontrako bidean zihoanez, Nafarroako abertzaleek erlijio kristaua babestu nahi zuten.

1.511. 1934ko iraultzan Toribio Etxebarria arduradun (AB-231/020)

Toribio Etxebarria ez zen iraultzailea; diziplinarengatik onartu zuen 1934ko iraultza. Alfan armak ezkutatu zituzten eta Toribio arduradun jarri zuten. Candidori berari gertatu zitzaiona kontatzen du. Iraultzaren aurreko hilabeteetan prestatu zuten. Ez zen jenderik prestatu iraultzarako, ez buruz eta ez fisikoz.

1.512. 1934ko iraultzako bizipenak Eibarren (AB-231/021)

Guardia Zibilak Eibarren sartu zirenean, 1934ko iraultzan, Matxariraino iritsi ziren, inorekin topo egin gabe. Mugimendua ez zegoen prestatuta. Candido "Casa del Pueblo"ra joan zen eta handik udaletxera. Han topatu zuen Toribio Etxebarria eserita, zain. Halako batean, zarata handia entzun zuen Untzagan eta hara hurbildu zen. Agintari zirenak ez zituen ikusi, ibilaldi luzea egin arren.

1.513. 1934ko iraultzako arduradunak Eibarren (AB-231/022)

Gasteiztik soldaduak etorri ziren eta tiroketak egon ziren. Etsitzeko prestatu zen Toribio Etxebarria, egoera ikusita. Iraultzako agintariak izendatzen ditu; ez zituen ikusi egun hartan, Toribio bakarrik egon zen udaletxean.

1.514. Zergatik ez zen Bilbon iraultzarik izan (AB-231/024)

1934an zortzi hildako egon ziren, Arrasaten ere hildakoak izan ziren baina Bilbon ez zen ezer gertatu. Touloussen jakin zuen Candidok zergatik, Bilbo inguruko bi mutilen kontakizuna entzunda.

1.515. 1934ko iraultzagatik zigortuta (AB-231/025)

Donostian ez zen askorik gertatu 1934ko iraultzan. Han ere tirabirak izan ziren, irten ez irten. Toribio egunean bertan joan zen Guardia Zibilengana, errendizioa ematera. Ondoren ere, tiroka ibili ziren, eta hildakoak eta zaurituak egon ziren. Hiru lagun heriotza zigorrera kondenatu zituzten eta Candidori hogeita bost urteko kartzela zigorra ezarri zioten.

1.516. 1934ko iraultzaren jarraipena (AB-231/026)

Iraultza bukatutzat eman zutenean, mendirantz alde egin zuen beste batzuekin. Hurrengo egunean iraultzarekin jarraitzea erabaki zuten. Kalamuan

armak hartu eta hamar lagun inguru ibili ziren mendian batetik bestera. Beste batzuk ere ibili ziren. Gau guztia guardia zibilengandik ihesi pasatu zuten, baita ondorengo egunak ere. Abisua eman zioten arren, etxeratu egin zen eta hilabete inguru ezkutatuta egon zen.

1.517. Candidok bere burua eman zuen (AB-231/027)

Candidok ihes egiteko asmoa zeukan baina familiaren eskaeragatik, bere burua eman zuen udaletxean. Kolpeka hartu zuten. Enterratzailea gogorrako hartu zuten, bonbak hilobietan ezkutatu zituen eta.

1.518. 1934ko iraultzako hildakoak eta zigorrak (AB-232/003)

1934ko iraultzaren ondorioz, bost hildako izan ziren Eibarren: Gonzalez, Lizarralde, Biteri, Landa eta Larrañaga. Armeria Eskolan izandako erresistentziagatik, hiru lagun heriotza zigorra eman zieten. Candido eta beste hamasei laguni hogeita bost urteko zigorra jarri zieten. Bakoitzaren heriotzaren berri ematen du.

1.519. 1934ko iraultzako hildakoen zehaztapenak (AB-232/004)

Beste bi hildako aipatzen omen ditu Querido izeneko batek: Vazquez eta Gerrickabeitia. Horietaz jarduten du. Bilboko guardia bat ere hil zuten egun hartan.

1.520. 1934ko iraultzaren arduradunak eta Toribioren errendizioa (AB-232/005)

Gasteiztik ejerzitokoak bidali zituzten eta Arrasaten altxatu zirenek, alde egin zuten mendira. Toribiok jakin zuenean ejerzitokoak etorri zirela Eibarrera, orduan, errenditzea erabaki zuen. Egun hartan Toribiorekin izandako elkarrizketak aipatzen ditu. Iraultzaren arduradunak izendatzen ditu; Telleria alkatea eta Toribio ez ziren arduradun izan.

1.521. 1934ko iraultzan prestakuntzarik gabe (AB-232/006)

Errepublika ondo zihoala ikusi zuenean, politika kontuak albora lagatzea erabaki zuen, baina 1934ko iraultzaren berri izan zuenean, izena eman zuen parte hartzeko. Berari ez zioten talderen baten sartzeko deitu baina bere lagun batzuei bai. Tiroren batzuk egin zituzten mendian, proba egiteko. Buruz eta armaz prestatu gabe zeuden.

1.522. 1934ko iraultzako tiroketak (AB-232/007)

Candidok uste du zorokeria izan zela 1934ko iraultza, ez zutela ondo prestatu. Tiroketa gogorra izan zen udaletxean ere. Calbeton kalean ere tiroketa gertatu zen.

1.523. 1934ko iraultzako borrokak eta heriotza zigorrak (AB-232/008)

Eibartik Iruñeara preso zeramatera, Asturiasen egon ziren bi lagunekin topo egin zuen eta bizipenak trukatu zituzten. Guardia Zibilek beren kuartel pareko Txantoi lantegia hartu zuten, zaildu egin zen egoera iraultzaileentzat. Armeria Eskolakoa izan zen borroka gogor bakarra; Marcano eta Arozena zauritu egin zituzten. Haren ondorioz, hiru heriotza zigor ezarri zizkieten Prietori, Intxaurreagari eta Ibarrari.

1.524. Candidoren egonaldia kartzelan eta akusazio faltsua (AB-232/009)

Caballero gobernadorearekin gertatu zitzaiona kontatzen du. Candido kartzelan zegoela, arreba Caballerorengana joan zen eta kartzelara bisita egin zion. 1934ko iraultzan zer egin zuen galdetu zion. Candidoren kontrako akusazioa faltsua zen.

1.525. 1934ko iraultzako errendizioa (AB-232/010)

1934ko iraultzako errendizioa zela izan zen kontatzen du. Bakoitzak bere armak bere etxean edo lanlekuan gordeta zituen, baina jende askok ez zeukan armarik. Anekdota bat kontatzen du.

1.526. Iraultza galduta, Errusiaraino joateko gogoz (AB-232/012)

1934ko iraultzan egin zuen ibilbidea zehazten du. Iluntzean Bergaretxe aldean batu ziren berrogei lagun inguru gaua pasatzeko. Galduz gero, Errusiaraino ihesi joango zirela aipatu zuten.

1.527. 1934ko iraultzan mendira ihesi (AB-232/014)

Martin Queridok aipatu zien bere anai batekin bilera egin behar zutela eta lehenengo harekin aipatu beharra zeukatela. Hark eman zien egoeraren berri. Asturiasen iraultzarekin jarraitzen zutenez, haiei lagundu behar zietela erabaki zuten. Mendian ihesi ibili ziren, zakur zaunken arabera batera edo bestera joanez. Koinatu baten etxean gordeta egon zen hilabetez. Bera nola entregatu zen kontatzen du.

1.528. Iraultzaren ondoren ihesi joandakoak (AB-232/015)

Arangurennek Errusiara alde egin zuen eta Toyos Frantziara joan zen. Beste asko harrapatu egin zituzten etxera agertu orduko.

1.529. Guardia zibilen tenienteari gertatutakoa (AB-232/017)

Guardia Zibilen tenienteak errepublikaren alde egin zuen, nahiz eta ideologiaz faxisten aldekoa izan. Preso hartu zuten Beasainen eta fusilatu egin zuten.

1.530. Egia iraultzako arduradun (AB-232/018)

1934ko iraultzako arduradunetako bat Egia zen eta Eibarko Guardia Zibilen kapitainari deitu zion, Madrilen zegoela esanez. Iruñeako epaiketara eraman zuten eta Toribio akusatu zuen. Traidoretzat hartu zuten ingurukoek; Candidok makalaldi moduan ikusi zuen haren jarrera. Ondoren, faxistekin batera atxilotu eta preso hartu zuten. Candido protestan joan zenean, berari mehatxu egin zioten. Candidoren aldeko hitzak esan zituela epaiketari uste du.

1.531. Iraultzaren ondoriozko presoak (AB-232/020)

Eibartik zuzenean Iruñeara eraman zituzten preso. Presoen alde dirua batzeagatik preso hartu zituzten eibartar batzuk eta Hondarribira eraman zituzten. Lehenengo presoak kamioietan eraman zituzten eta Candido trenez. Eibarko kuartelean kolpatu egin zuten.

1.532. Kartzelako bizimodua (AB-232/021)

Iruñeako kartzelako bizimoduaren berri ematen du. Otordua zelakoa zen kontatzen du. Arropak etxera bidaltzen zituzten garbitzeko eta jatekoa ere ekartzen zieten. Hamabi-hamalau lagun ziren zeldan eta jasotako janaria elkarbanatu egiten zuten.

1.533. Kartzelako bizimodua eta zigorrak (AB-232/023)

Kartzelan hiru aldiz egon zen Candido: Primo de Riveraren garaian, Errepublikaren garaian eta frankismoan. Kartzelako zaindarien ondo hartzen zituzten baina akatsen bat eginez gero, zigortu egiten zituzten. Kantatzea debekatuta zegoen eta abesteagatik zigorra jaso zuen. Ofizial batek adarra jo zionekoa kontatzen du.

1.534. Kartzelako zigorrak eta Toribioren kontakizuna (AB-232/026)

Greba eginez gero, jo egingo zituztela uste zuen. Berak ez zuen zaindarekin bizipen txarrik izan baina badaki beste batzuei gertatu zaiela. Ariztimuñorena kontatzen du. Lehenengo joandakoan, bakartuta egoten ziren. Toribiok kontatu zuen zigor-zeldako bizipenen berri baina Candidok dio ez zituztela zeldan zigortzen. Toribiok zelda batean bakarrik egotea eskatu zuen eta onartu egin zioten.

1.535. Presoen aldeko batzordea (AB-232/028)

Barrios izeneko eibartar batek kartzelara enkarguak eramaten zizkien. Hari buruzko zehaztasunak kontatzen ditu. 1934ko presoen aldeko batzordea sortu zen eta hango kide zen Barrios. 1934koa oso gogorra izan zen Eibarko herriarentzat.

1.536. Hauteskundeak irabazi eta libre (AB-232/030)

1936ko hauteskundeak irabazi eta Eibarko preso asko egunean bertan askatu zituzten. Ezustean hartu zuten erabakia. Informazio asko izaten zuten kartzelan.

1.537. Kartzelatik etxera (AB-232/031)

Kartzelatik irtendakoan, herrian harrera ikaragarria egin zitetela gogoan du Candidok. Zehaztasunak kontatzen ditu. Amak errieta egin zion etxeratutakoan, kartzelan oso ondo zegoela idazten ziolako beti Candidok. Debekatu egin zion etxekoei bisita egitea. Hurrengo egunean mendi ibilaldia egin zuen eta indartsu zegoela frogatu zion.

1.538. Kartzelatik idatzitakoak (AB-232/032)

Gerra garaian ere argaldu egin zen Candido eta pasarte barregarri bat kontatzen du. Kartzelan zegoela etxera idazteko baimena izaten zuen baina ezkutuan bidaltzen zituzten hainbat albiste eta kontu. Francoren garaian kartzelan zegoenean, ipuin txikiak idazten zizkien ilobei. Zuzendariak gorrotoa hartu zion horregatik.

1.539. Kartzelako zuzendariarekin harremana (AB-233/001)

Preso zegoela, kartzelako zuzendariak ez zuela begiko esan zioten. Bulegoan diruzain hartu zuten. Zuzendariaren seme-alaben lagun egin zen. Zuzendariak berak aitortu zion ondoren, gutunak irakurri ostean, inpresio txarra eman ziola

Candidok, ez zuelako ulertzen zergatik ez zegoen izorratuta eta gaizki kartzelan. Candidok ez zuen nahi etxeok bere egoera txarraren berri jakiterik, senideak sufrimendutik libratzeko.

1.540. Ihes egitea amets (AB-233/002)

Kartzelan ihes egiten zuela amesten zuen. Santanderren atxilotu zutenean, ihes egin nahi izan zuen baina ez zuen lortu; egurtu eta iraindu egin zuten.

1.541. Preso egon ostean, lanera (AB-233/003)

1934ko iraultzatik bueltan, lana berreskuratu zuen. Bazeukan, hala ere, alternatiba pentsatuta. Lana berreskuratu ez zuen bakarra du gogoan, alemaniarren gidaria zena, Ibañez. Matxarian biltegi handia zeukaten.

1.542. 1934ko iraultzako baloraziorik ez (AB-233/009)

1934ko iraultzan gertatutako koordinazio ezari buruz berba egiten du. Dolores Ibarruriri buruzko liburuan 1934ko iraultzaren balorazio bat egin zela aipatzen du baina gehiago ez.

1.543. "Salto al monton" jolasa (AB-234/002)

"Salto al montón" umetako jolasa azaltzen du.

1.544. Harrapatze jolasak (AB-234/003)

"Harrapatzen" umetako jolasak. Bi aldaera azaltzen ditu. Udaletxeko arkupeetan zela jolasten zuten azaltzen du.

1.545. Karrua joten jolasa (AB-234/004)

"Karrua joten" jolasa azaltzen du. Txapelekin jolasten zen.

1.546. Tokera zela jolasten zuten (AB-234/005)

"Tokera" jolasa azaltzen du. 10 zentimoko txanponekin jolasten zuten.

1.547. Zotz egiteko moduak (AB-234/006)

"Suertera" jolasa edo zotz egiteko era azaltzen du. Hainbat modu azaltzen ditu: txapelekin, kantuekin, oinekin...

1.548. Buztinarekin egiten zuten jolasa (AB-234/008)

"Ganar o perder" jolasa azaltzen du. Buztinarekin egiten zuten jolasean. Itzuli ere esaten dio.

1.549. Eibarko kooperatibak (AB-234/009)

Eibarren ze kooperatiba eta non zeuden azaltzen du. 1914tik 1918ra bitartean, kooperatiba sozialistak egon ziren, porrot egin zuten.

1.550. Abertzaleen kooperatiba eta batzokia (AB-234/010)

Nazionalistek ere kooperatiba ipini zuten, Bide Onera izenekoa, eta gerra etorritakoan bukatu zen. Eraikin hartan karlisten zirkulua eta jostailuen biltegia ere egon ziren. Batzokia non zegoen esaten du. Karlisten etxea erosi egin zuten nazionalistek. Zein etxe den azaltzen du. Karlistak Bidebarrietara aldatu ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

1.551. Sozialistek abertzaleenganako amorrua zuten (AB-234/013)

Sozialisten eta abertzaleen arteko istiluak aipatzen ditu. Bergaran eta Bilbon gertatutakoak kontatzen ditu. Abertzaleen kontrako amorrua handiagoa zen, indar berria zirelako.

1.552. Kartzelako entrenamendu politikoak (AB-234/014)

Kartzelan zegoela, entrenamendu politikoa egiten aritu zen presoekin. Garbi ikusten zuten abertzaleak izango zirela sozialisten aurkari politikoak.

1.553. Candido Muñoz botikaria (AB-234/021)

Apaiz botikariaren etxera joaten zen eta zurrumuru asko zabaltzen ziren Candido Muñozen etxetik. Hala, faxista fama hartu zuen eta harrika egiten zioten bere botikari. Botika non zegoen zehazten du.

1.554. Constantino Andres guardia zibila (AB-234/022)

Constantino Andres guardia zibila zen, Madrilgo gobernuaren aholkularia arma kontuetarako. Zelakoa zen kontatzen du.

1.555. "Pioneros rojos" ume taldea (AB-234/025)

"Pioneros rojos" izeneko ume taldea zegoen Eibarren, sozialisten seme-alabez osatuta. "Furia Roja" izeneko taldetxo bat ere bazegoen.

1.556. "Furia roja" gaztetxo taldea (AB-234/026)

"Furia Roja"koek kirol lehiaketak antolatzen zituzten. Candidok entrenatzaile jardun zuen haientzat. Galdakaon gerran hil ziren hainbat daude lurperatuta, Furia Roja-koak.

1.557. Astelenan mitin jendetsuak (AB-234/027)

Astelena frontoian mitinak astero egoten ziren eta mila lagun inguru batzen zen.

1.558. Eibarko zezenzaleak (AB-234/028)

Zezenketen aurkako talderen bat Eibarren egotea ez zaio harritzekoa egiten Candidori, sozialistei leporatzen baitzieten zezenketen kontra ez egitea. Orduko zezenzaleak aipatzen ditu.

1.559. Erretzen ikasi nahian (AB-234/030)

Gogoan dauka udaletxeko ertz batean lagunekin lehenengo zigarroa erretzen saiatu zenekoa. Gaztetan pipa zotzak erretzen saiatu zen baina ez zuen ikasi. Erretzeak kalte egiten zion.

1.560. Pipak, pipa zotzak eta artobizarrak (AB-234/031)

Neskek ez zuten jendaurrean erretzen baina ezkutuan bai. Bere amandreak pipa erretzen zuen. Aitarekin behin tabakoa zela eraman zion gogoratzen da. Igeltzuzko pipa zuria zeukan amamak. Artobizarrak zela erretzen ziren azaltzen du. Pipa zotzak zer diren azaltzen du.

1.561. Erretzaileei amorrua (AB-234/032)

Erretzaileek gerra sasoiari gauza desatseginak egiten zituzten tabakoa lortzeagatik eta amorrua hartu zuten Candidok. Santanderren eta Donostiako kartzelan gertatutako pasarte bi kontatzen ditu.

1.562. Gizartearen aldaketa harrigarriak (AB-234/033)

Gerra ostean, kartzelan sei urte eman eta gero, neska bat erretzen ikusi zuen eta puta zela pentsatu zuen. Moja bat bizikletan ikusi zuenean ere, harritu egin zela kontatzen du. Toulousen musika profanoa entzun zueneko kontatzen du.

1.563. Neskak erretzen eta tabernetan (AB-234/034)

Emakumeek ez zuten orokorrean jendaurrean erretzen. Bere guraso eta aurrekoen garaian, baserrietako nagusiek pipa erretzen zuten, emakumeek ere bai. Tabernetan ez ziren neskak sartzen; etxeetan batzen ziren. San Juanetan taldeko sartzen ziren batzuk.

1.564. Eibarko txikiteoa (AB-234/035)

Txikiteoan ardo zuria edaten zuten goizean eta arratsaldean beltza. Ardo beltzak fama hobea hartu zuen eta zuriari laga egin zioten. Lanegunetan arratsaldean egiten zen bereziki txikiteoa.

1.565. Txikiteorako ohitura eta lekuak (AB-234/036)

Txikiteorako ohitura beti ezagutu zuen eta uste du Bilbotik etorri zela. El Salgadoneko taberna zeukan bere kalean Candidok. Jabeak kanpotarrak ziren eta itxiak omen, baina janari ona izaten zutela dio. Anekdotak bat kontatzen du. Txikiteoan pasatzen zituzten tabernak aipatzen ditu. Txikiteoaren faseak azaltzen ditu.

1.566. Apaiza elizakoak ematera joaten zenekoa (AB-235/003)

Norbait hiltzerian zegoenean, apaiza joaten zitzaion etxera, laguntzailearekin, argitxo batekin eta kanpaitxo batekin. Batzuetan jendea joaten zen apaizaren atzetik, prozesioan moduan. Kanpai hotsagatik, umea ala heldua hil zen jakitzen zen.

1.567. Komunikazioa kanpaiekin (AB-235/004)

Eguraldia ere kanpaiekin iragartzen zuten. Donostiatik telefonoz iragarpena eman eta iluntzean kanpaien bidez jakinarazten zuten, kanpai kopuruaren arabera adieraziz. Kanpaien bitartez elizkizunaren iragarpenak eta hildakoen berri ere ematen zen. Hiletetan musika tristea jartzen zuten eta elizako ateak zabal-zabalik egoten ziren giro ona bazen.

1.568. Elizaren arau gogorrak (AB-235/006)

Elizak arau gogorrak zituen. Jantziak zaindu egin behar izaten ziren elizara joateko; andrek buruko zapia eraman behar izaten zuten. Mezetara jende asko joaten zen. Gizonak eta emakumeak banatuta egoten ziren, elizaren alde banatan. Pasarte bat kontatzen du.

1.569. Eibartarren eskuzabaltasuna (AB-235/009)

Eibarren neurritz kanpoko borrokarik ez zela egon dio Candidok; bai oster, eskuzabaltasuna. Bizkaian meatzariek greba egin zutenean, batzuen seme-alabak Eibarrera etorri ziren eta bertan bizi izan ziren, familietan, greba bukatu arte. Batzuk gero ere geratu egin ziren. Berdin egin zen Madrilgo greba handi batean ere.

1.570. Elkartasunezko diru-bilketak (AB-235/010)

Ondarroan ezbehar bat izan zen eta marinel asko hil ziren. Eibarko bandakoak diru-batzen ibili ziren ondarrutarrei laguntzeko. Ospitalerako dirua biltzen ere ibiltzen ziren, eta presoeri eta grebalariei laguntzeko ere bai.

1.571. Eibartarrei buruzko usteak, ustel (AB-235/011)

Eibartarrei buruzko usteak apurtzen dituzten hainbat gertaera kontatzen ditu, hizkerari eta kristautasunari lotutakoak.

1.572. Eibar aitzindari eta harro (AB-235/012)

Eibartarrak harroak direla esaten dute, eta izan ere badirela uste du Candidok. Eibarren eraikuntza garrantzitsuak egin izan direla dio, beste leku askotan baino lehenago.

1.573. Argindarra oso goiz (AB-235/013)

Argindarra bizi osoan ezagutu zuen. Eibarren beste leku askotan baino lehen jarri omen zuten argindarra. Candidori aitak esaten zion lehenengo motorra berea izan zela, 1890 urte inguruan.

1.574. Hileta zibilak (AB-235/015)

Mormorreko lurperatzeak ondasunik ez zeukatenentzat izaten ziren. Udala arduratzen zen. Lurperatze zibilentzat, bedeinkatu gabeko lur saila zegoen, hilerritik aparte. Errepublika sasoian, eremu guztia bateratu zen. Marzelino Baskaran izan zen lehen apaiz laikoa Eibarren.

1.575. Apaiz laikoaren ordezkari (AB-235/017)

Hileta zibil batean apaiz laikoaren funtzioa bete zuen Candidok. Dardara batean egon zen, urduri. Beste hileta zibil batean ere aritu zen, ezagutzen ez zuen arren.

1.576. Frankismoan hileta zibilak (AB-235/018)

Candidoren anai bat hil zenean, Frantziatik etorri zen egun batzuetarako. Prieto izeneko bat hil zenean, apaiza eta moja bat hileta zibilean egon ziren. Harrituta geratu zen Candido. Frankismoan hasi ziren Eibarren hileta zibilekin baina hasieran kosta egin zitzaizkien.

1.577. Marzelino eta Benigno Baskaran (AB-235/019)

Hileta zibil batean apaiz laikoarena egiten ari zela, argazki bat atera zioten Candidori. Marzelino eta Benigno Baskaran zelakoak ziren esaten du.

1.578. Elizako erregistroa (AB-235/021)

Eliza arduratzen zen erregistro zibila egiteaz. Batzuetan izen desberdinak izaten zituzten elizako erregistroan eta epaitegikoan.

1.579. Urroz, Arozena eta Don Poli (AB-235/024)

Eugenio Urroz apaizari buruzkoak kontatzen ditu. Aurretik Arozena izeneko bat egon zen Eibarren. Don Poliri buruzko kontuak esaten ditu. Euskarazko dantza taldea sortu zuen, umeena. Ez zen parrokoa. Sindikatuen kontuetan ibili zen. Abertzaleek ez zuten oso ondo hartzen. Juanito Gisasola organista ona izan zen.

1.580. Umetan mendira joateko ohitura (AB-239/003)

Umetan mendira joaten ziren sagarretara, intxaurrak batzera, masusta bila. Urrak batzera ere joaten ziren. Zelan jaten zituzten. Mixpilak eta urrak, oso urriak dira hemen inguruan.

1.581. Umetan egiten zituzten ibilerak; jolasak (AB-239/004)

Eztiagara (Eztixa), Kalamuara, Arratera, Galdaramiñora, Urkora...joaten ziren jai egunetan. Gaztetan, sarri joaten ziren mendira; beraien borrokatxoak egitera, txabolak egitera; indioetara ere jolasten zuten. Pelikuletatik ateratzen zituzten jolas mordo bat: "La moneda rota", "La máscara de los dientes blancos"...

1.582. O'Donell kalea (AB-239/008)

O'Donel kalearen izenaren zergatia.

1.583. San Juanetan andraetxeetara etortzen ziren neskak (AB-239/009)

Joakin alguazila Estazioaren kanpokaldean zain egoten zen, eta andretxeetako neskek zetozenean San Juanetan, berak eramaten zituen azterketa medikoa egitera.

1.584. Eibartarren nortasunaren inguruko kontuak (AB-239/013)

Candidok sasoi batean "dekalogo" bat egin zuen; eibartar batek, eibartar peto-petua izateko derrigorrezkoak dituen hainbat zaletasun. "Honexek badakixaz, eibartar peto-petua haiz".

1.585. Ehiztarako zaletasun handia Eibarren (AB-239/014)

Garai batean Eibarren ehiztari asko zeuden eta txakur ugari ibiltzen ziren kalean.

1.586. Neskatan-mutiletan Eibarren (AB-239/015)

Neskatan-mutiletan. Mutilak Eibarko nesken artean estimarik ez zutela eta horretaz kexatzen ziren. Neskak, kanpoko mutilen bila joaten ziren. Nesken erantzuna zein izaten zen: merezita zutela hainbat arrazoiengatik.

1.587. Antzerkirako zaletasuna (AB-239/016)

Eibarren antzerki talde bat egon zen; Cleto Unzeta zen zuzendaria. Casa del Puebloan beste talde bat ere bazegoen, eta koru txiki bat. Pagei-ko eskolan, abade batek ere antzerkiak prestatzen zituen. Dña Petra irakasleak ere neskatxoek talde bat zuzentzen zuen eta Teatro Kruzetan emanaldi batzuk eskaini zituzten. Felisa Mendiguren.

1.588. Antzerkiak, dantzaldiak (AB-239/018)

"Marina" antzerkia. Astelena frontoian antzerkiak, dantzaldiak eta beste gauza asko egiten ziren. Candidoren aurreko belaunaldia, oso ona kantuan.

1.589. Musikarako zaletasuna: koruak, orfeoiak, musika bandak (AB-239/019)

Casa del Puebloan, koru txiki bat zegoen eta sasoi batean orfeoi bat ere egon zen. Aurrerago, orfeoi bi eta musika banda bi ere egon ziren Eibarren (liberalak eta karlistak).

1.590. Goitarren eta behetarren arteko banaketa (AB-239/020)

Goitarren eta behetarren arteko banaketaren zergatia. Banaketa hori batez ere politikan eta erlijioan ematen zen. Askok uste zuten liberalak pekatariak zirela.

1.591. Orfeoiak Eibarren (AB-239/023)

Orfeoiari sari bat eman zioteneko anekdota. "Orduan denporetan bazeren harramarra, baiña ez ziran heltzen ikubilletaraiñok!".

1.592. Umetako kontuak: antzerkiak egiten zituzten kalean (AB-239/025)

Arraindegi kalean ere antzerkia egiten zuten umetan. Sarrera, orratza izaten zen.

1.593. Kiputzanekoa, frontoia eta zinea (AB-239/026)

Kiputzanekoa, frontoia eta zinea. Kafea ere bazegoen bertan. Eibarkon futbol taldeen izenak.

1.594. Zineak Eibarren; antzokiak (AB-239/027)

Ezagutu zuen lehenengo zinea, Teatro Kruzeta izan zen. "El día de los caballeros". Alfonso XIII pabiloia; Salón Teatro. Eibarko lehenengo antzokia zein izango zen. "Noche"-neko kafea.

1.595. Errepublika garaiko giro politikoa Eibarren (AB-240/001)

Eibarren jendea bero-bero zegoen; zerbait egiteko gogoarekin zeuden guztiak. Errepublika aurreratu bat ekartzearen aldekoak ziren. Orduantxe sortu zen "Pioneros Rojos" taldea. "Casa del Pueblo"n Salud y Cultura izeneko proiektu bat jarri zuten martxan. Abian jarri zituzten ekimenak, kulturaren zabalkundearen aldekoak ziren. Furia Roja-ko gazte batzuk "Olinpiada Obrera de Amberes"-era joateko entrenatzen hasi ziren. Idealismo handia. "Gero etorri zan etorri zana...".

1.596. Altxamendu militarra Afrikan; Gerra Zibilaren lehenengo orduak (AB-240/002)

Ejertzitoaren altxamendua Afrikan. Hemengo egoera zein zen. Gipuzkoako Gobernadoreak Gasteizen zer gertatzen zen ikustea nahi zuen eta Eibartik 3-4 mutil Gasteizera bidali zituen. Bilbo eta Donostiatik jende asko etorri zen; armak lortu (pistolak, karabinak) eta jendearen artean banatu zituzten.

Untzagako plaza jendez gainezka. Ejerzitoan egondako gizonezkoei, boluntario aurkezteko deia.

1.597. Gerra zibila Eibarren: giroa; erabakiak... (AB-240/003)

Berriz ere Toribiorekin batera udaleko bulegoetan lanean. Soraluzetik dei bat jaso zuten, Real Fábrica de Cañones lantegiarekin zer egin behar zuten jakiteko; eibartarren bat bertara bidaltzea nahi zuten. Toribiok bere liburuan aipatzen duen "Cañón antiaéreo, el arma psicológica" zeuden prestatzen. Kanoiak, beranduago jakin zuen bezala, ez zuen ezertarako balio.

1.598. Gerra zibila Euskal Herrian; hasierako mugimenduak (AB-240/004)

Militarren altxamendua Donostian. Eibartik eta inguruko herrietatik soldadu batzuk Gasteizera bidali zituzten eta beste guztiak Donostiara joan ziren. Kanoia ere irten zen; artilleroekin atera zuten eta herri guztietan jendea txaloka. Kanoiaren inguruko kontuak (zer falta zitzaion, ...).

1.599. Gerra garaian epaitegiko idazkari izendatu zuten (AB-240/005)

Udalean bulego-lanak egiten hasi zen, baina berehala epaitegiko idazkari izendatu zuten. Marcelino Baskaran, epaile lanak zituen bere gain. Marcelino eta Candido, ezkontzen aurkakoak ziren eta ezkontzera joaten zen bikote bakoitzari demaseko hitzaldia botatzen omen zioten. Ezkontza zibilak. Errepublika garaiko legeak; mugimendu kultural eta sozialak.

1.600. Gerra zibila Euskal Herrian (AB-240/006)

Errepublika garaiko mugimendu kultural, sozial eta politikoak. Orduko lorpen guztiak, bertan behera geratu ziren. Gerrako frontea Karakate eta Arrate inguruan gelditu zen irailean. Elgeta, Ondarroa, Akondia, Ilordo... Bilbotik armak iritsi ziren, fusilak. Candido eta lagun bat joan ziren fusilen bila Deustora. 40 fusil inguru jaso zituzten eta erdia Otxandioko frontean eta besteak Durangon utzi zituzten. Oso arma gutxi zeuden Eibarko frontean (3-4 fusil, karabina batzuk, pistolatxoak...). Ez zeuden gerrarako prestatuta. "Arma-psikologikoak". Kanoiaren inguruko kontuak; Beasainen egin zuten froga bat eta funtzionatzen zuela ikusi zuten. Amos Ruiz. Toribiorekin kontaktuan etengabe. Noiz ohartu zen gerrak luze joko zuela. "Hemen gogorra doa".

1.601. Soraluzen egindako kanoiaren inguruko azalpenak (AB-240/007)

Kanoiaren inguruko kontuak. Soraluzeko "Real Fábrica de Cañones"-eko ingeniaria, zein aldetakoa zen. Sabotaia egon zen?. Kanoia herriz-herri eraman zuten, jendeari animoak ematen.

1.602. Gerra zibila Euskal Herrian: jendearen jarrera; frentea (AB-240/008)

Gerra zibila. Lehenengo momentuetan jendearen animoa oso handia zen. Untzagako Plaza jendez gainezka. Bizkaitik jende ugari etorri zen, baita Donostia eta Asturias ingurutik. Armak banatu zituzten eta boluntarioek Gasteizerako bidea hartu zuten; ondoren Donostiarantz joan ziren. Candidok, Donostiara egin zuen bidaia nahiko "barregarria" izan zela kontatzen du: kanoia kamioian; plataforma beste kamioi batean; bera auto deskaptable

txiki batean, pistolarekin eta zutik. "Ez zekaun ezebez eta zeozer egin bihar. Halantxe juan giñazen Donostiara". Nazionalek Donostia hartu zuten. Orio eta Zumarraga inguruko mendietatik, atzeraka-atzeraka, Karakate ingurura, Arratera heldu ziren. "Ocupando mejores posiciones beti, e?".

1.603. Gerra zibila Euskal Herrian: Amuategi batailoia- lehen urratsak (AB-240/009)

Orduan hasi ziren Amuategi Batailoia formatzen. Bizkaian ere hasi ziren batailoiak sortzen. Eibarren jende mordo bat zen, bertakoak eta hartuta zeuden herrietatik zetozenak. Eibarren sortu zen Batailoian, ez zeuden eibartarrak bakarrik. Errenteri, Donostia, Deba, Mutriku, Mendara eta Soroluzetik etorritako jendea biltzen zuen. Plazentziatarak eta beraien Compañía Placentina. Amuategia, Juventudes Socialistas Unificadas-eko Batailoia zan. Batailoia-aren inguruko kontuak. Kuartela, Isasiko ikastetxean ipini zuten eta konbentuko zati batzuk ere hartu ziren.

1.604. Amuategi batailoia-aren sorrera, antolaketa... (AB-240/010)

Batailoien antolamendua. Udalak ez zuen indarrik. Frente Popularra etorri zen. Komisario desberdinak: garraio; hezkuntza... Komite Zentral bat zegoen eta harek ematen zituen aginduak. Arma banatzearen kontua, 1934ko iraultzan gertatu zen bezala, "espontaneua" izan zan. Jendea Banco de Pruebas-era joan, hango kajak hartu eta Untzagara eraman zituen. Arma-lantegietako almagazetan zeuden arma, Untzagara eraman zituzten. Arma banatu eta taldeak sortzen hasi ziren, gero Gasteizerako bidea hartuko zuen kolumna hori osatzeko. Ondorengo egunetan berrantolaketa ugari egon ziren; komandante, kapitana, tenienteen aukeraketa. Tirso Azanza.

1.605. Gerra zibila: I. Prietoren hitzak; kanpoko herrialdeen laguntza eza (AB-240/011)

Gerra hasi zenean, jendeak laster amaituko zela pentsatu zuen. Indalecio Prietok lehenengo egunetan idatzitakoa irakurri zuenean (trankil hartzeko; beharbada nazioarteko gerra bat etorriko zela...) Candidok garbi zuen ez zela egun gutxi kontua izango. Brigada Internacionalak. Kanpoko indarrak. Kanpotik ez zen beste laguntzarik etorri.

1.606. Amuategi batailoia-aren antolaketa; Eibarko kaleak hutsik (AB-240/012)

Amuategi batailoia ez zen gerrarako bakarrik antolatu. Zineak, konferentziak, musika banda bat ere antolatu zen (Millan Urkola zuzendari). Astero egoten zen kontzerturen bat Untzagan. Lan egiten zuenari, 10 pztako-ko jorrala ematen zitzaion. Rialtoan kafe bat ipini zuten frontetik zetorren jendearentzat. Ateneo moduko bat ipintzea ere nahi izan zuten, baina ez zieten utzi (gerrarako buru eta bihotz gogorak behar zirela...). Liburutegi on bat ere egin zen. Herrian ez zen bestelako mugimendurik ikusten, fabrikak itxita...

1.607. Gerra zibila: jendea ihesi, lantegietako makinak heritik atera... (AB-240/013)

Donostiatik soldaduak bueltan etorri zirenean, uniformeak jantzita, jendeak faszistak zirela pentsatu eta ihes egiten zuen: "Hegaztada tremendo bat egon zan hemen, e?". Frontea Arraten, Karakaten gelditu zenean, lantegietako makinak Deustora eramatea erabaki zen. Lan horren ardura eman zitzaion gizonari, "tragamaquinas" gaitzizena jarri zioten. Eibartik irtetzeko agindua

eman zen; eta irtetzen ez zirenak, etxeetan gorde beharra zuten. Klaseak hutsik; eskolarik ez...

1.608. Gerra zibila eta II Mundu Gerra (AB-240/015)

1938an Santanderren kartzelan zegoela zer idatzi zuen kontatzen du: Gerraren logika. II. Mundu Gerra iritsiko zela garbi ikusten zuen, baina hain gogorra izango zenik ez zuen uste. Hasieratik bazekien gerra zibila galduko zutela, baina gudariei ezin ezer esan. Anekdotak. Kanpoko herrialdeek laguntzarik eman nahi ez; erabaki horrek zirela eta sentitu zuten etsipena. Bizkaia; Otxandioko ofentsibak.

1.609. Gerra Zibila: kartzela, fusilamentuak... (AB-240/016)

Asturiasko frontean Candidok anaiari esandakoa. Candidoren burutapenak: kartzela; fusilamentua; beste herrialde batzuen parte-hartzea...

1.610. Nazioartearen parte-hartzearen inguruko gogoetak (AB-240/017)

Candido oso ezkorra bazen ere, jendea, orokorrean, oso baikorra zen gerraren amaieraren inguruan. Valencia; Vinaroz. Gerra zibilarekiko ezkorra izan arren, nazioarteko gerrarekin beraien garaipena etorriko zela uste zuen. Indalecio Prieto.

1.611. 1934ko iraultza, 1936ko gerra zibila: antolaketa eza (AB-240/018)

Herriko jendea ez zegoen batere antolatuta ez 1934ko iraultzarako ezta Gerra Zibilerako ere. Asturias; Eibar... Ez zuten diziplinarik; armamenturik, ezer. Militarrenganako konfidantzarik ez; baina batzuk Errepublikaren aldekoak ziren eta gogor defendatu zuten. Beasaingo kanposantuan gertatutako anekdota.

1.612. 1934ko iraultza, 1936ko gerra zibila: idealismo handiko jendea (AB-240/019)

Idealismo handiko jendea. 24 ordutan gazte asko gerrara joateko prest; batailoiak antolatu... Gazteek iraultza bat egitea posible zela uste zuten (Candido 1934ko iraultzaz dihardu hasieran). 1936an komunistak, sozialistak, errepublikarrak... Politikarekiko jarrera gazteengan. 1934ko iraultza nolakoa izan zen; oraindik ez du ulertzen nola irten ziren kalera amaitu gabe zeuden pistolekin, antolaketa gabe... Rusiako urriko iraultza.

1.613. Gizakiaren natura (AB-240/020)

Candidok teoria bat du gizakiaren naturaren inguruan. Guztiok dugu gure barruan alderdi ona eta txarra. Animaliak gara. Bizitzarekiko, gizakiarekiko ikuspegia. "...y sin embargo se mueve." (Galileoren esaera).

1.614. Gizakiaren natura eta moralak (AB-240/021)

Gizakiaren natura; bere ikuspegia. Morala guk sortutako zerbait da. Gerra bat sortzen denean, orduan konturatzen gara bene-benetan nolakoak garen. Asturiasko frentean bizi izandako pasarteak.

1.615. Heriotz zigorra eta Alderdi Komunista (AB-240/023)

Heriotz zigorrarekin egon zeneko kontakizunak. Gerra garaian sartu zen Partido Comunista-n. Partiduko jendeak zer esan zion bere bizitza salbatzeko. Candidok bere ideologia azkeneko momenturainok defenditzeko asmoa.

1.616. Futbolaren lehen urteak Eibarren: Otxola-erdikua (AB-241/001)

Futbol taldeak Eibarren: Izarra, Arin-sport, Eibar-Club, Los Trece, 42.. 1916an inauguratu zen Otxola-erdiko futbol-zelaia. Candido bertan egon zen egun hartan. "Los Bandidos" izeneko talde bat etorri zen Bilbotik: Ibarretxe portero ezaguna (kanta bat ere gogoratzen du), Solaun, Acedo, Belaustegigoitia (internazionala)... Arin-Sport eta Eibar-Club ziren talde indartsuenak. Izarra gelditu zen azkenean bakarrik maila altuenean.

1.617. Futbolaren lehen urteak Eibarren (AB-241/002)

Garai batean Eibarren 4 futbol jokalaria internazional egon ziren: Gabilondo, Ciriaco Errasti, Roberto Etxeberria eta Mugerza. Internazional egin ziren sasoiari, Eibarko herriak oraindik ez zuen futbol zelairik. Bergarara, Arrasatera edo Elgoibarrera joan behar izaten ziren jolastera. Otxola-erdiko zelaia 1916an inauguratu zen eta 1919 ingururako, ez zuten partidurik jokatzen bertan. 1921 inguruan, Unión Deportiva sortu zen.

1.618. Futbolaren lehen urteak Eibarren: Izarra, Sport-arin... (AB-241/003)

Sport-arin, Eibar-club, Izarra ziren talde garrantzitsuenak. Lehenengo laguntalde bat besterik ez ziren, baina gero jendea gehitzen joan zen, sozio gisa. Lokalak non zituzten.

1.619. Fraileak Eibarren; futbolaren lehen urteak Eibarren (AB-241/004)

Eibarrera etorri ziren lehenengo fraileak, frantsesak izan ziren (gerra aurretik etorritakoak). 1914an Frantziara joan ziren denak soldadu boluntario moduan. Futbolera Arraindegi kalean egiten zuten. "Untzagia zan danondako kanpofoballa!". Pedro Orbea, Félix Orbea, Zabala eta Olaizola.

1.620. Eskopeta egin, baina ehizan sekula ez (AB-241/006)

Candidok berarentzat eskopeta bat egin zuen, hamabiko txikia. Lizentzia lortu, munizioa erosi, baina tiro bakar bat ere ez zuen jaurti.

1.621. Urki inguruko baserriak, ermita, zelaiak... (AB-241/008)

Urki zelakoa zen kontatzen du. Zelai handi bat zegoen ermitaren ondoan. Autopista egiteko inguru guztia apurtu zuten, baserriak bota...

1.622. Zezenbide inguruko bolatokia eta taberna (AB-241/009)

Zezen-plaza inguruko bolatokia. Handik gertu Petra eta Mariaren andra-etxeak zeuden. Bolatokiak itxura luzekina zuen eta "submarinua" esaten zioten. Ardoa, gaseosak, "sisalkoa" (gaseosaren antzerakoa...) saltzen zituzten. Taberna eta bolatokia.

1.623. Oilar-borrokak Eibarren; Gabonetako kontuak: jatekoa (AB-241/010)

Bolatokian, oilar-borrokak egiten ziren jai egunetan. Garai batean zaletasun handia egon zen Eibarren. Diru asko jokatzeko zela uste du. Eibartar askok sail txikietan oilarrak hazten zituzten. Indi-oilarrak kanpotik ekartzen zituzten; Gabonetan etxe askotan jaten ziren. Gabonetan zer jaten zen: intxaurre-saltsa, bisigua; marraskiloak.

1.624. Ermuko baserriar batek taloa ekartzen zuen Eibarrera (AB-241/011)

Egunero Ermutik emakume bat etortzen zen Eibarrera taloak saltzen. Gurdi txiki batekin etortzen zen.

1.625. Hainbat talde kalerik kale ibiltzen ziren dirua batzen (AB-241/013)

Kanpotik ere etortzen ziren diru-batzen. Aragoi-tik etorritako taldeak oso ondo antolatuta zeuden. Dantzak, kantarik kalerik-kale. Eibarrek orduan izen handia zuen inguruan. Politika, ekonomia, industrian...herri "aitzindaria" zen. Alemaniatik ere kalerik kale dirua batzen etortzen ziren. Eibarko Musika Bandak ere kalejirak eta diru-batzeak egiten zituen ospitalerako.

1.626. Euskara eta erdara; erdaraz hitzegiten norekin ikasi zuen (AB-241/015)

Euskara-erdara. Bere garaian ez zegoen ohiturarik kanpora joateko erdara ikastera. Berak etxean ikasi zuen, amarekin. Ama Elorrikoa izan arren, urte askotan Madriden eta Gasteizen egon zen lanean eta oso ondo ikasi zuen erdaraz hitzegiten.

1.627. Irakurzaletasuna zela-eta, lagunek ia taldetik bota zuten (AB-241/016)

Irakurzaletasuna. Larunbat eta igandetan nobelak irakurtzen gelditzen zen.

1.628. Baserriko tresnak: gurdiak eta narrak (AB-241/018)

12 urte edo gutxiago zituenean, Arrajola inguruan baserriar bat ikusi zuen idi parearekin. Gurdi arrunta eraman beharrean, "narra" zeraman.

1.629. Casa del Pueblo-a 1916an ireki zen (AB-241/021)

1916an Casa del Puebloa egin zen. Inauguratu zenean, hitzaldiak egon ziren. Mitin internazionala izan zen: Aquilino Amuategik euskaraz, Indalecio Prietok erdaraz eta frantziako Sindikato Metalurgikoko idazkari nagusiak, frantsesez hitz egin zuten.

1.630. Eibarko sozialista zaharrak: Amuategi, Gisasola... (AB-241/022)

1917ko greban, Aquilino Amuategik ihes egin behar izan zuen. Gaixotu eta urte batzuetara hil egin zen. Zelakoa zen azaltzen du: indar handiko gizona, argia... "Txikillana" gaitzizena nondik zetorkion. José Gisasolak euskaraz egiten zituen bertsoak. Beste torero batzuk Eibarren (Pedrucho..). Lasturrera joaten ziren toreatzera. Zuloagaren kuadroa.

1.631. Akilino Amuategi sozialista; beste sozialista ezagun batzuk (AB-241/023)

Aquilino Amuategiren izaera. Meabe, Madinabeitiaren lagun handia.

1.632. Izarak garbitu eta Aldatzera eramaten zituzten lehortzera (AB-243/002)

Garbitasun kontuak. Arraindegi kaleko emakumeek izarak garbitu eta Aldatzera eramaten zituzten. Han tontor bezalako bat zegoen eta bertan izarak zabal-zabal egin eta eguzkitan sikatzen edukitzen zituzten. Ohe-erropak emakume batek garbitzen zituen.

1.633. Umetan okindegian lanean, fotak banatzen (AB-243/003)

Amak okindegian lan egiten zuen aitarekin. Cándido goizero-goizero fotak banatzera joaten zen. Etxeetan inor ez bazegoen, aldaban lagatzen zituen. Ez zegoen beste inork hartzeko arriskurik.

1.634. Futbolaren hastapenak Eibarren (AB-243/005)

Jaio zenetik eta 21 urterarte, futbolean jokatu zuen. Umetan, putzarekin. Arraindegi kalean jolasten zuten. "Untzagia, bai alde batian eta bai bestian, horrek ziran gure kanpo-foballok!". Zezen-plazaren gainekaldean zegoen zelai batean sarri jolasten zuten, eta "Campo de la Casualidad" izena eman zioten. Eibarko lehenengo futbol taldeak: Izarra, Sport-Arin... Unión Deportiva hasi zenean, tren espezialak bete-bete eginda joaten ziren animatzera. Real Unión-en kontra ere jokatu zuten.

1.635. Casino de la Amistad y Musical Bretón (AB-243/008)

Café Marcelo. Casino de la Amistad y Musical Bretón. Candido idazkari izan zen. "Eskuadra Zaharra" esaten zioten bertan egoten zen lagun-taldeari. Liberalak ziren (Txantoi, Alberdi "Mattin Zaharra"...). Marcelo Alberdi, konzejal errepublikarra eta kafearen jabea. Parean, Centro Republicano. Unamuno, Casa del Pueblo-ko lagun taldearekin egon zen.

1.636. Ideologia asko, baina denak lagun (AB-243/009)

Candidoren lagun taldean pentsakera guztietako jendea zegoen. Casino Amistadera joaten hasi zirenean, Candido marxismo iraultzailearen aldekoa zen. Primo de Riverak birritan sartu zuen preso. Komunisten ideiekin bat zetorren, baina ekintzetan ez zen komunista.

1.637. Candido Muñoz botikaria (AB-243/010)

Arraindegi kaleko botikaria, Candido Muñoz zen. Haren anai bat, erlojugilea izan zen eta eliza aurrean izan zuen denda. Botikaria, "Irunesia"rekin ezkondu zen. Emakume ikusgarria (eguzkia egiten zuenean, aterkinarekin irtetzen zen pasiora...). Tertuliak egiten zituzten: botikaria, abadea (D. Antonio Aranguren)...Errepublikara garaiko gertaerak; manifestazioak.

1.638. Toribio Etxebarriarekin Iruñan preso (1934an); Marcanok egindako marrazkiak (AB-243/012)

Kartzelan Toribio Etxebarria ongi ezagutu zuen, 1934ko iraultzaren ostean. Toribio, Benigno Baskaran, Jerónimo Más, eta besteren bat bakarkako zeldetan egon ziren preso. Marcanok egindako marrazkiak: batean, guztiak pasiatzen

agertzen dira; bestean, eibartar guztiak zelda barruan. Candidok lehenengoa ezagutzen du: lehenengo hilaran Toribio eta Gorrotxa liburuekin pasioan. Bigarrenengo hilaran, sozialista gazte batzuek: Benito Regil, Mendoza, Martin "Querido". Hirugarrenengo hilaran, komunista batzuk: José Pérez Peral, Ibáñez... Kartzelan, kooperatiba moduko bat egin zuten, baina beraien zeldan bakarrik.

1.639. Ostirala, "kaskajuen eguna" (AB-243/017)

"Arragueta kalia" eta "Urkuzuko iturrirra" kanta ezagunak. Ostiralero Candido eta lagunak eliza aurrera heltzen zirenean, frakak gora jaso, txamarrari buelta eman, txapela bestekaldera ipini...eta saltoka ibiltzen ziren "hoy es el día de los cascarines...!" esanaz, eta Urkuzuko iturrira joaten ziren ura edatera.

1.640. Lehenengo oporrak Mundakan (AB-244/009)

Lehenengo oporrak ondo gogoratzen ditu. Mundakara joan ziren eta gorputzean kolore ederrarekin itzuli ziren Eibarrera. Mundakara joan zirenean, herria banatu egin zen; harramarrak egon ziren: batzuentzat, kanpoko jendea joatea komeni zen, merkataritzari bizitasuna emateko. Beste batzuentzat bertako bizimodua garestitzen zuten kanpotik etorritakoek. "Dirua fasil, zaratia be fasil..".

1.641. Lehenengo kamioia Errastin U.S.-a (AB-245/003)

Lehenengo kamioia, Errastin U.S bat zen; 1914ko gerran Ameriketatik Europara ekarritako kamioietako bat. Gurpil trinkoak zituen eta zarata handia ateratzen zuten. Harrobitik harriak ekartzeko erabiltzen zuten. Harrobitik ekarritako harriak saskietan ipini, bizkarrean hartu eta obretara eramaten zituzten. Bertan, etxearen kanpoaldetik eskailera behin-behineko bat ipini, eta pisuak egin ahala harria igotzen zuten. Grabadoresetako tailerra egin zutenean, orduan ikusi zituzten lehenengo aldiz adreilu handiak. Gerotxoago, saskian eraman beharrian, polea batekin eta sokaz, harria edo adreilua jasotzen zuten. Poliki-poliki makinaria sartzan hasi zen: gurpil handi batekin... soka zilindro baten lotzen zen. Masa ere, palarekin eta arrasteluekin egiten zen, lurrean bueltaka-bueltaka. Baldeetan sartu eta gero polearekin, etxeetara igo.

1.642. Borrasca, motorrak konpontzen zituen alemana (AB-245/007)

Borrasca, gizon aleman bat zen, eta motorrak konpontzen ibiltzen zen tailerretan. Izen hori umeak beldurtzeko erabiltzen zuten. Edale handia zen. Mutiko gazte bat hartu zuen berari lanean laguntzeko, "Durango", eta oso elektrikari ona izatera heldu zen.

1.643. Pitxargaineko erro beroa (AB-245/009)

Pitxargainera joaten ziren erro beroa hartzera. Esaera bat zegoan, erro beroa ona zela umeendako. Pitxargainen, Isasin...hartzen zuten. Ahuntzarena izaten zen gehienetan. Ardantzan beste ahuntz bat zegoen, eta hara ere joaten ziren. Ume asko joaten ziren. Baina D. Ciriaco eta D. Niceto Mugaruzak, erro beroa hartzea ez zela ona esan zuten; gaixo batzuk ekartzen zituela eta irakin egin behar zela. Handik aurrera erro beroa edateari utzi zioten.

1.644. Umeak Arrateko santutegiko barkutik ekarriak (AB-245/010)

Umeak Arrateko santutegitik zetoze esaten zieten, han bertan dagoen barkutik. Umetan (8-10 urte) bertara joan zireneko egun bat gogoan dauka.

Arratera, Azitainditik joaten ziren. Bide-erdi inguruan, itsaso zati bat ikusten zen eta han ibiltzen ziren beraien jolasekin.

1.645. Kategoria handiko jendea: Indianokoak (AB-245/013)

Isolatuta bizi ziren. Candidok gogoratzen du umetan ez ziotela uzten atletik 3-4 metrotara ibiltzen. Poliki-poliki lortu zuten bertara joaten lagatzea. Bi gizon eta bi andre ezagutu zituen bertan. Bat, Heraclio Etxeberriakin ezkondu zen. Beste bat (Iraolagoitia), Orbeanequakin ezkondu zen. Indianokoak, Iraolagoitiarrak ziren. Palazioa, ortuak eta harrizko armarriz izugarri bat zuten.

1.646. Kategoria handiko jendea: Orbeatarrak (AB-245/014)

Orbeatarrak herriarekin erlazio gehiago zuten. Casino Conservadorera ere joaten ziren. Orbeatarren artean desberdintasunak zeuden: Pepe Orbea, txikiteoan ibiltzen zen herriko jendearekin; Gonzalez Orbea osterara, 3-4 lagunekin bakarrik erlazionatzen zen.

1.647. "Ondamendi" tabernako gibela (AB-245/018)

"Matadero" (hiltegi) ondoan taberna bat zegoan "Ondamendi" izenekoak. Gibelik onena bertan jaten zen; sukaldari oso ona zeukan, "Che" toreroan familiakoa.

1.648. Rementeria gramola tailerra (AB-245/025)

1914ko gerra ostean ezagutu zuen. Rementeriak, beste lagun batekin, tailer bat ipini zuen Berrizen, eta gramolak egiten hasi ziren. Marianeko kafean, disko asko zeuden. Gustura entzuten zuen bertako musika. Fomentoan ere bazegoen gramola bat. Nagusiei, eta euren ere bai, inpresio handia egin zien lehenengoetan musika entzuteak.

1.649. "La meca de la pelota" izan zen Eibar (AB-246/004)

Sasoi batean, Eibarren bakarrik egoten ziren pilota partiduak; San Joanetan, eguneko partidu bi. Gero Gernikan ere hasi ziren pilota partiduak; eta lantzean behin Bergaran. Pilota kontuan, Eibar zen zentroa. Garai horretan Atano eta Gallastegi ziren pilotari ezagunenak. Atanok indarrarekin, bizitasunarekin eta piloteo desberdin batekin jotzen zuen. Postura gogorak egiten ziren Eibarren. Durangotik, Bilbotik...etortzen zen jendea posturak egitera. Eibarren, pilota gauza serioa zen.

1.650. Gallastegi, baseritik Astelena frontoira (AB-246/005)

Gallastegi baseritik Astelena frontoira joaten zen. Frontoian, Onaindia egoten zen egunero (Gernikarra izatez; okina). Pilotari afizionatua zen. Gallastegiri hasieran asko lagundu zion. Pilotarien kasuan ez zen egon enpresarik.

1.651. Raketisten fama txarra (AB-246/006)

Bartzelona, Madrilera, Valentziara joaten ziren asko. Marino (pilotari izandakoa) izan zen laguntzen ibili zena. Raketista asko irten ziren. Ezagunenak, Toni Salaberria eta Partxua baserrikoa. Orokorrean raketistek ez zuten fama onik. Askoren ustez andreak ez ziren lan-munduan ibili beharko, baserrian nahi zutena; baserria aurrera ateratzea nahi bazuten ere, ondo; baina kalia, ez.

1.652. Emakumeak lan-munduan Eibarren (AB-246/007)

Poliki-poliki hasi ziren damaskinatuan lanean. Gero pieza txikiak egiten hasi ziren. Tailerretan ere hasi ziren lanean. Premia, gerra-ostean izan zen.

1.653. Baserria vs. Kalea (AB-246/014)

Joko-egunak heltzen zirenean, taberna guztiak bete-beteta egoten ziren. Bestela baserritarrak ez ziren herrira jaisten. Alejandro Arizmendiarrietarekin askotan komentatu zuen kontu hau. Berarentzat baserritarrak, kaletarrak baino pertsona hobek eta filosofikoagoak ziren. Baserritarrendako, kaletarrak kaskarinak. Kaletarrak ez dauka pentsatzeko denborarik, beragandik kanpora bizi da. Eta baserritarrak aldiz, pentsatzeko denbora gehiago dauka eta errealitatea den bezalakoa ikusten du. Azken finean, bizimodu eta pentsamendu desberdinak dituztelako.

1.654. Boxeoa: borrokalaririk ez, baina afizioa bai (AB-246/017)

Bruno, kategoria txikietan ibilitakoa. Juanito "kolorezkua", Martin "Querido" ere afizionatuak. Astelena frontoian gimnasio bat zegoen. Bertan lucha greco-romana egiten zuten, Abdón Alberdi "Mattin" eta Patxi "Bolante" ibiltzen ziren. Patxi "Bolante"-k behin otso baten kontra egin zuen borrokan zezen-plazan.

1.655. Eibarko "boy scout"-ak (AB-248/002)

Eibarren Boy Scoutak zeuden; Burgostik etorritako batek sortu zuen taldea. Jantzia zehatz deskribatzen du. Entrenamenduak egiten zituzten eta igande eta jai-egunetan mendira joaten ziren. Diziplina militarra zeukatela uste du.

1.656. Udako eta neguko denboraldiko aisialdia (AB-248/004)

Udako denboraldian, San Juanetatik Arrateetara bitartean, musika banda egoten zen Untzagan gauetz egunetan, domeketan eta jai-egunetan. Neguko denboraldian zinema ematen zuten. Azitainen eta Arraten soltean eta elkarri helduta dantza egiteko aukera izaten zen eta musikariari ordaindu egiten zieten. Udaletxetik gertu organotxoak jotzen zuten, elkarri helduta dantzatzeko.

1.657. Kale saltzaileak eta karameleroak (AB-248/005)

"Hiru txiki" izeneko saltzaileak goxokiak eta oihalak saltzen zituen. Eibarren zeuden karameleroak aipatzen ditu.

1.658. Kakahueteak eta barkilloak saltzen (AB-248/007)

Kakahueteak, barkilloak... denetarik saltzen zuten kalean. Lana eta dirua zegoen Eibarren eta jende asko etortzen zen gauzak saltzera.

1.659. Zirko ibiltaria Untzagan (AB-248/008)

Zirko ibiltaria egoten zen Untzagan. Pailazoen saioa, akrobaziak, animaliekin ikuskizunak... egiten zituzten.

1.660. Egoitza politikoen kokalekuak (AB-248/010)

Sozialisten, liberalen, kontserbadoreen, abertzaleen eta karlisten egoitzak zehazki non zeuden kontatzen du.

1.661. Sozialisten egoitza (AB-248/011)

Buruneko lokalera nondik sartzen zen azaltzen du. Sozialisten egoitza zein urtetan eta non zegoen azaltzen du. Anekdotak bat kontatzen du.

1.662. Eskola partikularrak sozialisten egoitzan (AB-248/012)

Mediavilla maisuak eskola partikularrak ematen zituen sozialisten egoitzan.

1.663. Errepublikarren eta katolikoek egoitzak (AB-248/013)

Errepublikarrak Txirixo kalean zeuden. Joera askotarikoak zeuden. Katolikoek Maria Angela kalean egoitza eduki zutela uste du.

1.664. Hiru kasinoak (AB-248/015)

Hiru kasino zeuden. Amistad izenekoak zen ezagunena baina denborarekin Artista izenekoak nagusitu zen.

1.665. Errusiara joateko dirua batzen (AB-248/020)

"Amigos de la URSS"-entzat dirua batzen ibili zen batean eta bestean. Pertsona bat Errusiara bidaltzeko zen dirua, ikus zezan zelakoa zen hango bizimodua.

1.666. Frantzian Eibarko berri (AB-249/003)

50eko hamarkadan Frantzian zegoen Candido eta izaten zuen Eibarko lan gorakadaren berri. Anekdotak batzuk kontatzen ditu.

1.667. Gerraostean, Eibarren lanak gora (AB-249/004)

1940 eta 1942 bitartean, Candido kartzelan zegoen. Pixkaka lana igotzen joan zen eta piezak bukatu gabe ere eramaten zituzten. Edozeinek lantegia ipintzeko aukera izaten zuen.

1.668. Kartzelatik irtenda, Guardia Zibilak segika (AB-249/005)

Kartzelatik irtendakoan, batera eta bestera joan zen, ez baitzegoen politikoki gustora. Guardia Zibilekin izandako pasarte bat kontatzen du.

1.669. Beste gerra baten zain (AB-249/006)

Kartzelatik irten eta berriz ere kartzelaratzeko arriskua sumatu zuenean, ihes egitea erabaki zuen eta Frantziara joan zen. Beste gerra bat etorriko zela espero zuen.

1.670. Gerraostean sozialistak antolatuta (AB-249/007)

Gerraostean sozialistak antolatu egin ziren batean eta bestean. Frantziatik kartzelara bisitan etorri zitzaion eibartar bat. Espainiako alderdi sozialistak Eibarko ahalegin ekonomikoaren onura jasotzen zuela dio. Arriskuagatik alde egin zuen Frantziara.

1.671. Kartzelako informazio sarea (AB-249/008)

Kartzelan antolatuta egon ziren; patioan batu eta elkarri albisteak ematen zizkieten. Gerrako parteak jasotzen zituztelakoan, emakume batek idatzitako oharra hartzen zituzten, presoek animoak eman nahian idatzitakoak.

1.672. Preso langile Eibarren (AB-249/009)

Kartzelan zegoela, Eibarrera lanera etortzea eskatu zuen, preso langile moduan. 1943ko maiatzean etorri zen Eibarrera. Zapatak konpontzen ere aritu ziren preso zela.

1.673. Ihes egiteko beharra (AB-249/010)

Atxiloketa batzuen ostean, lortu zuen Eibarrera lanera joatea, jakinik ihes egin beharko zuela. Espaniakoaren ostean, Europako gerra etorriko zela bazekien Candidok.

1.674. Preso langilea, erreka lanak egiten (AB-249/011)

Gerra garaian preso zegoela, Eibarrera etorri zen, berak hala eskatuta. Maiatzaren 10ean heldu zen. Errekan lanean aritu zen, zangak eta tunelak egiten.

1.675. Presoek estalitako erreka (AB-249/012)

Eibarko erreka presoek estalitakoa da, zati batean behintzat. Egurrezko euskarriak prestatzen, hormak egiten eta erreka garbitzen aritu ziren. Etxebarrieta inguruan aritu zen. Eibarren zeuden presoek ihes egin zuten eta berriz kartzelaratu zituzten.

1.676. Presoek lagundu nahi eta ezin (AB-249/013)

Eibarren zeuden presoek lagundu nahi izan ziren, ihesaldi on bat prestatzeko baina ez zuten itxaron eta harrapatu eta kartzelaratu egin zituzten.

1.677. Eibarko anarkistak (AB-249/014)

Gerra aurrean bazegoen CNT (confederación nacional del trabajo) taldea, anarkistena, Eibarren.

1.678. Preso langileen bizimodua egunerokoa (AB-249/015)

Eibarren preso langile moduan egon zenean, La Salleko eskola dagoen lekuan, jauregi hartan egiten zituzten jatorduak eta loaldiak. Lana ondo eginez gero, dirua ere ematen zieten. Kartzelatik zergatik joan zen Eibarrera azaltzen du. Dirua zeukanez, ospakizunetarako aukera izaten zuen.

1.679. Ego errekan eta Maltzagan igerian (AB-249/019)

Umetan igerian egiten zuten errekan. Leku zehatzak izendatzen ditu. Maltzagan ibiltzen ziren gustoren. Hiru leku zituzten salto egiteko. Zelakoak ziren lekuok azaltzen du zehaztasunez.

1.680. Maltzagako tren geltokia (AB-249/020)

Tren geltoki garrantzitsua zen Maltzaga. Jatetxe moduko bat zegoen.

1.681. "Txikito de Lekeitio" eta Onaindia pilotariak (AB-249/023)

"Txikito de Lekeitio" izeneko pilotaria eta zestan ibiltzen zen Onaindia aipatzen ditu. Frontoi zaharrea entrenatzen ikusten zituen pilotariak.

1.682. Pasieran, kartetan eta dominoan (AB-249/025)

Ez zen txikiteoan asko ibiltzen. Nahiago izaten zuen jaiegunetan irakurri eta pasieran ibili. Kartetan aritzen ziren julepera kafetegian, eta dominoan ere bai.

1.683. Organotxoarekin dantzan (AB-249/027)

San Juan bezperetan organotxoa jartzen zuten dantzarako. Elkarri helduta dantzatzeko izaten zen.

1.684. Musika aparatu berezia (AB-249/028)

Alfonso XIII pabiloian aparatu berezi bat zegoen, musika jotzen zuena. Zelakoa zen kontatzen du. Untzagara begira zegoen. Jendea zinemara erakartzeko erabiltzen zuten.

1.685. Zeruko gorriunearekin beldurtuta (AB-249/029)

Iluntze batean, borobil gorri handi bat ikusi zuten. Beldurtu egin ziren. Lainoetan labearaiko suaren islada zela konturatu ziren.

1.686. Elorriko izebaren ipuinak (AB-249/031)

Oporretan Elorriora joaten ziren, ama bertakoa zelako. Han, izeba batek sorginen eta lamien ipuinak kontatzen zizkien. Ipuin zatiak kontatzen ditu.

1.687. Garabia zaldiko-maldiko modura (AB-249/033)

Gazte talde handia batzen ziren. Anekdota bat kontatzen du. Estaziño kalean garabi bat zegoen eta kakoari helduta, bueltaka ibiltzen ziren. Istripu larria izan zuen batek eta orduan beldurtu ziren.

1.688. Trenaren gainetik eta azpitik (AB-249/034)

Trenak estaziotik irtendakoan, trenaren gainera igotzen ziren korrika eta tunelaren ondora heldutakoan, jeitsi egiten ziren. Beste norabidean ere egiten zuten. Tunelean zuloak eginda zeuden urarentzat, eta hantxe sartuta, trenaren gainetik pasatzen zitzairen.

1.689. XX. mende hasierako mugimenduak (AB-250/002)

1912an Eibarren ikusitakoaren ostean, begiak zabaldu zituen. 1936ra bitartean mugimendu eta aldaketa asko gertatu ziren. Uste zuten errepublikak gora egingo zuela, kontraktasunei aurre eginda. Errepublika garaian anarkisten eta komunisten altxamendu asko egon ziren, baina gero hainbati damutu egin zitzairen.

1.690. Gizartea ez zegoen errepublikarako prest (AB-250/003)

Erregimen aldaketa erraza izango zela uste zuten baina gerora ohartu ziren ezetz, gizartea ez zegoela prestatuta. Candidok uste du norbera barrutik aldatzen ez bada ez dagoela ingurua aldatzerik.

1.691. Sozialistak, komunistak eta anarkistak eztabaidan (AB-250/004)

Errepublika alderdi guztiek onartu balute eta pixkaka joan, hobe izango zela uste du Candidok. Sozialistek, komunistek eta anarkistek eztabaidak izaten zituzten, ez baitziren ados jartzen.

1.692. Errepublikazaleen azaleko eztabaida (AB-250/005)

1931ko udal agintariak moderatuak ziren. Candidoren moduan pentsatzen zutenak hogeit bat lagun ziren. Anarkistek dena berehala egin nahi zutela uste du. Eztabaidak izaten zituzten baina teoria handirik gabe.

1.693. Toribio Etxebarria, umetatik ezagun (AB-250/006)

Toribio Etxebarria umetatik ezagutzen zuen. Eskolara joandakoan, pasatzen ikusten zuen, baita Arratera bidean irakurtzen ere. Ezagutu kartzelan egin zuen; eskuz idatzitako liburua kartzelako patioan irakurtzen zien. Ordurako Eibarren oso ezaguna zen.

1.694. Toribio Etxebarria, jakin-min handiko gizona (AB-250/007)

Sarri eta leku askotan ikusten zuen Toribio Etxebarria irakurtzen. Txindurriak ikustea gustatzen omen zitzaion Toribiori; jakin-min handiko gizona zen. Eskuindarrekin Madrilen izandako harremanaren berri eman zion Toribiok.

1.695. Toribio eta Madrileko eskuindarrak (AB-250/008)

Indalecio Prietok Toribio aukeratu omen zuen konfiantzazkoa eta argia zelako. Toribiok Madrilgo harremanen berri eman zion, batez ere eskuindarrek zituzten jokabideen berri.

1.696. March kontrabandista famatuarenak (AB-250/010)

March kontrabandista famatuaren kontuak azaltzen ditu; dio, 400 milioi pezeta izango zituela Marchek uste zuela Toribiok. Diktadorek ere gauza onak egiten dituztela irizten dio. Primo de Riveraren aurrerapideak azaltzen ditu.

1.697. Faxismoaren zabalpena zela lortu zuten (AB-250/011)

Gobernu bat bota nahi dutenean, eskaintza handiak egiten dizkietela agintariei esaten du Candidok. Alemanian faxismoa hasterako, lau milioi langabetu zeudela dio. Langabetuak lanean jarriz, faxismoaren gorakada lortu zutela uste du.

1.698. Iraultzak noiz gertatzen diren (AB-250/012)

Gizarteak orokorrean politikari baino ekonomiari eta bizimoduari gehiago begiratzen diola dio. Herri aberatsetan langileak ez direla iraultza sortzeko beste asaldatzen uste du.

1.699. Hitlerren berri (AB-250/014)

1934-35 inguruan, Hitlerrek lantegi bati loreak ez jartzeagatik isuna jarri zionekoa kontatzen du. Eibarren entzuten omen zuten Hitlerren berri, baina ez omen zekiten hainbestearainokoa zenik.

1.700. 1914ko gerra zergatik sortu zen (AB-250/015)

Hitlerrek lortu omen zuen herri osoa biltzea bere gogoia bete zezaten. 1914ko gerra zergatik sortu zen azaltzen du.

1.701. Alemaniarrak Eibarren (AB-250/016)

Alemanak lanera eta gazteleraz ikastera etortzen ziren Eibarrera. 1914ko gerratik ihesi etorritako bi alemaniarrek arma lantegia jarri zuten. Gogor fama izan omen zuten.

1.702. Azaldia izeneko taberna (AB-250/018)

Azaldia izeneko tabernari buruzkoak aipatzen ditu. Accion Vasca egon zen lehenengo pisuan. Etxearen jabea zein zen kontatzen du. Azaldia esaten zioten baina Azaldegi omen zen.

1.703. ANV eta EAJren arteko aldeak (AB-250/019)

Accion Vascakoak ez ziren kopuruz asko baina ezagunak ziren. EAJrekiko desberdintasunak aipatzen ditu. ANVk errepublikarrekin harremanak onartzen zituen, baina ez hainbeste elizarekin.

1.704. Jendea bizi zen udaletxean (AB-251/003)

Udaletxeko eraikinean jendea bizi zen; irakaslea eta idazkaria.

1.705. Eskola udaletxean (AB-251/004)

Udaletxean zegoen eskola. Ezkerraldean lehenengo pisuan Don Antonio de la Torre eta bigarren pisuan Eusebio Barrios. Eskumako aldean zegoenari Aurora Peña esaten zioten (senarra zen Peña) eta bigarren pisuan Petra. Zortzitik hamalau urtera artekoa izaten zen. Hasieran gustora joaten zen baina gero sarri kale egiten zuen.

1.706. Nola ligatzen zuten (AB-251/006)

Mutil bati neskaren bat gustatzen bazitzaion, neska haren lagun bati jakinarazten zioten, berak esan ziezaion. Mutil batek sarri dantza eskatuz gero, gustuko zuen seinale zen. Neskei kostatu egiten zitzaaien mutil batekin harremana utziz gero beste bikote bat topatzea.

1.707. Nobiotan, bi neskarekin irten behar (AB-251/007)

Nobioarekin irtetzeko, beste neska bat lagun hartuta irteten ziren. Berak gonbitak jaso izan zituen, baita berak egin ere inoiz. Anekdotak bat kontatzen du.

1.708. Bikote hasiberrien ohiturak (AB-251/008)

Gertatzen zen neska bati esatera joan, mutil batek gustuko zuela eta azkenean, esana egitera joandakoa geratzea neskarekin. Bikotea osatutakoan zeuden ohiturak kontatzen ditu. Anekdotak batzuk kontatzen ditu.

1.709. Laztanka ezkutuan (AB-251/009)

Untzagako plaza erdian laztanka hasi ziren bi gazte behin eta eskandalua sortu zen. Gehienetan ezkutuka ibili behar izaten zuten. Neskei esaten zieten eibartarrekin ez zutela nahi eta haiek azalpena eman zieten, zergatik aukeratzen zituzten beste herri batzuetakoak.

1.710. Neska laguntzea (AB-251/011)

Erromerietan neska laguntzera joaten ziren. Gallastegi bertsolarien koadrillakoak erromeria guztietara joaten ziren eta ondoren neskei baserriraino laguntzen zieten. Klean Untzagatik etxeraino ere laguntzen zitzairen neskei.

1.711. San Juanetako kirol probak (AB-251/013)

San Juanetan lasterketak egiten ziren. Futbol zelaia egin aurretik, bertan egiten zituzten. Jokoak Untzaga plazan egiten ziren. Ehun metrokoa eta alturako saltoa ere egiten zituzten. Bizikleta lasterketak egiten zituzten eta uztaiekin zinta batzuk harrapatu behar izaten zituzten. San Andres eskola dagoen lekutik irteten zen bizikleta lasterketa. Untzagan jolas txikiak egiten zituzten: zaku lasterketak, lapiko apurketak...

1.712. Eibarko hiru hotelak (AB-251/015)

Comercio izeneko hotela Estaziño klean zegoen eta nork eraiki zuen eta nolakoa zen aipatzen du. Beste hotel txiki bat zegoen, Bueno izeneko batek jarritakoa. Muñoa hotela izeneko beste bat ere egon zen.

1.713. Muñoa hoteleko kontuak (AB-251/016)

Muñoa hotelekoek taxiak eta gidariak zituzten. Kafetegia, garajea eta denetarik zeukaten. Oso hotel ona zela dio. Eibartar batzuentzat akatsa zeukan: Guardia Zibilak hara joaten zirela kafea hartzera. Anekdotak bat kontatzen du.

1.714. Guardia zibilak eta eibartarrak (AB-251/017)

Gerra aurrean, harreman oso gutxi zeukaten Guardia Zibilek herritarrekin; errepublikaren garaian gehiago. Armeria Eskolara bidaltzen zituztenekin harremantzen ziren. Guardia Zibil izateari laga eta behargin izatera pasatu ziren batzuk.

1.715. Ehizarako zaletasuna Eibarren (AB-251/019)

Ehizarako zaletasun handia zegoen Eibarren. Abuztuan autobusak antolatzen zituzten eta Burgos aldera joaten ziren.

1.716. 1934an lehen aldiz oporrak (AB-251/021)

1934an lehenengo oporrak izan zituzten. Hamar egun ian zituztela gogoan du. Sei lagun Mundakara joan zirela akordatzen da. Denek ez bazen, askok oporrak hartu zituztela dio.

1.717. Mundakako oporrak (AB-251/022)

Mundakan lehenengo oporrak pasatu zituen lagunekin. Hondartzara joan, txikiteoa egin, bazkaldu, herririk herri ibili... Merkea eta ederra izan zela dio.

1.718. Mundakarrak eztabaidan udatiarrengatik (AB-251/023)

Mundakan oporretan zeudela, herria bereizi egin zen beraien erruz. Kanpotarrak onerako ziren ala ez, eztabaida sortu zen. Dotore jantzita joan ziren. Argazkiak ateratzen eta jolasean ibiltzen ziren hondartzara bidean eta hondartzan. Txikiteoan ere kantuz aritzen ziren.

1.719. Telefono zaharra eta automatikoa (AB-251/026)

Telefonoa lantegi handietan egoten zen. Primo de Riveraren garaian zabalpen handia izan zuen telefono automatikoak (aurretik zentralera deitu behar izaten zuten). Lantegi askotan eta hainbat etxetan zegoen gerra aurrean.

1.720. Telefono zentrala (AB-251/027)

Telefonoaren zentrala non zegoen zehazten du. Primo de Riveraren garaitik ohikoa zen telefonoz deitzea.

1.721. Armeria Eskolaren hasiera (AB-251/029)

Armeria Eskola Goenagak jarri zuen martxan. Pentsatu zuen eskola bat behar zuela Eibarrek armagintzaz ikasteko. Orduan zertzuk ikasten zituzten kontatzen du.

1.722. Eibarko beharginen ospe ona (AB-251/032)

Candidoren anaiak lanpostu ona lortu zuen hasieratik. Cacho izeneko bat Cadizera joan zen eta ondoren, Gerrako ministerioan kargu garrantzitsua izan zuen. Eibarko beharginan eskatu zituen Indalecio Prietok hegazkinetarako. Ospe ona zeukaten Eibarko langileek.

1.723. Indalecio Prietok deituta abiaziora (AB-251/034)

Indalecio Prietok deituta, abiaziora eibartar asko joan ziren. Batzuk izendatzen ditu.

1.724. Hileta zibilen hastapenak (AB-251/036)

Erregea birritan Eibarren izana dela gogoan dauka. Toribio Etxebarria eta Marzelino Baskaran ezagutu zituen gehien. Candido umea zela, dagoeneko hasita zeuden hileta zibilak. Bolada batean asko egin ziren.

1.725. Musika non eta nola ikasi zuen (AB-252/002)

Etxean hasi zen musika ikasten 6 urte besterik ez zituenean. Aita izan zen bere lehenengo irakaslea. 10 urte zituela, Doña Felisa Iturriozengana bidali zuen, saxoa eta pianoa ikastera.

1.726. Marrazten jakin ez, eta aitaren lanbidea laga (AB-252/003)

Eibarren, etxeko tradizioa jarraitzea gauzarik arruntena zen. Familian grabadoreak eta musikoak zeuden. Marrazten txarra zen eta Jacinto Olabek egun batean esan omen zion "Parece mentira que seas hijo de tu padre". Aitari kontatu zion eta harrezkero ez zen gehiago joan. Berak gustoko zuena musika zen, ez marrazketa.

1.727. Juanito Gisasolarekin musika ikasten (AB-252/004)

16 urterekin fraideetan ikasketak amaitu eta gero, etxean osaba Juanito Gisasolarekin ikasten jarraitu zuen. Juanitori ez zitzaion musika erakustea gustatzen; berari bakarrik erakutsi zion.

1.728. Laureano Gisasola "Organistia" (AB-252/005)

Juanitoren aita (Laureano) musika irakaslea zen. Abesbatzako tipleei erakusten zien. Mateo Bazterrak, Pablo Sarasuak eta Kareagak berarekin, organista zaharrarekin, ikasi zuten. Oso gogorra zela esaten zuten.

1.729. Julio eta Juanito Gisasola, "Organistia"nekoak (AB-252/006)

Ama pianojolea zen. "Organistia"nean denek jotzen zuten pianoa. Onenak Juanito eta Julio ziren. Julio Habanara joan zen korredore, eta Fidel eta Raul Castroren musika irakaslea izan zen; lehenengoa, ikasle ona omen zen eta bigarrena, bihurria. Julio oso bakarlari ona zen; Juanito berriz, laguntzaile bikaina.

1.730. Organistianeko familia (AB-252/007)

Organistianeko familia zelakoa zen azaltzen du. Hamar seme-alaba eta lehengusuaren bi semeak zeuden etxean. Etxeko soldata txikia zen.

1.731. Kubatik puruak ekarri zituztenekoa (AB-252/008)

Kubako tio Basiliok zigarro-puroak ekartzen zituen eta behin berak banatu zituen Eibarren. Bost dolarreko urrezko txanpona eman zion osabak.

1.732. Organistianeko etxea (AB-252/009)

Organistianeko etxea non zegoen eta zelakoa zen kontatzen du. Kontsejuaren aldamenean zegoen. Azpian farmazia bat (Etxeberria) eta ehun denda bat zituen. Hasieran bi solairu zituen eta gero hiru gehiago.

1.733. Felisa Iturrioz musika irakaslea (AB-252/012)

Berak ezagutu zuen musika irakasle bakarra Iturrioz izan zen. Barrenkalean zuen etxea, Fernandez inprentaren gainean eta Muñozeneko farmazia parean. Barrenkalea zelakoa zen; bertan zeuden dendak izendatzen ditu.

1.734. Trokaolaneko zubia (AB-252/013)

Trokaolaneko zubia non zegoen kontatzen du (San Agustin inguruan). Haien drogeria Maria Angelatik sartu eta Bidebarrietaraino heltzen zen. Bidebarrietara pasatzeko bide bakarra Trokaolaneko zubia zen. Txantoiaren lantegia Ibarben atzekaldean zegoan. Kontadorekua etxea Maria Angela kalearen erdian zegoen, Felipe Sarasketaren bulegotik gertu.

1.735. Musika liburuarekin ikasten (AB-252/015)

Musika liburu sendo batekin ikasten zuen etxean, aitarekin. Liburu zoragarriak egiten ziren. Teoriarekin ez zuten ikasten, kantuan eta konpasa eramaten bakarrik. Aitak pianoa jo eta Antoniok kantatu egiten zuen. Ramonek Felisa Iturriozekin ikasi zuen. Gero berak bere aldetik ikasi zuen.

1.736. Juanito Gisasola musikariarekin abesbatzan, orfeoian... (AB-252/016)

Felisa irakaslearekin ikasi zuen musika gehien. Juanito Gisasolaren eragin handia izan zuen. Abesbatza, orfeoia, eibartarrak abesbatza... denetan parte hartu zuen. Hamabost urte zituela Donostiara joan zen kontzertu batera osaba Juanitorekin. Donostiako Casinora joan eta lehenengo aldiz orkestra bat

entzutzea zoragarria izan zen. Bustinduy eibartarrak zuzendu zuen orkestra. Bethovenen lehenengo sinfonia entzun zuen.

1.737. Eibartarrak Ameriketara eta Antonio itsasontzira (AB-252/017)

Ameriketara zeuden pilotariak udan Eibarrera itzultzen ziren eta berriz joan behar zirenean, agur esateko meza egiten zen Arraten. 8 urte zituenean, Buick markako auto batean joan zen Bilbora, Rosendo Bildosola eta bere aitarekin. Ameriketara bidaltzeko kajak eraman zituzten, jatekoarekin. Bilbotik Las Arenasera joan ziren eta gero motora batean itsasontzi batera. Ez zuen horrelakorik inoiz ikusi; inpresio handia egin zion.

1.738. Juanito Gisasola musikariak (AB-252/018)

Juanito Gisasola bigarren aita izan zen berarentzat. Dotore jantzita joaten zen beti. Jende guztiak "Juanito" esaten zion. Kategoria handiko gizona zela dio.

1.739. Untzagako kiosko berria (1935) (AB-252/019)

Orfeoiak inauguratu zuen musika kioskoa 1935eko San Juan bezperan. Eskuinaldean taberna zegoen. Entseguak egiteko lokalari Txotxa esaten zioten eta sukaldea zeukatenez, oso ondo pasatzen zuten. Udalak Orfeoiari lagatuko lokala zen.

1.740. Juanito Gisasola musikaria (AB-252/020)

Juanito Gisasolak pianorekin laguntzen zuen. Abesbatzako zuzendaria ere bazen, baina ez organista. Aurrera Fundizioan lan egiten zuen.

1.741. Albina Madinabeitia, Juanito Gisasola eta Aita Donostia (AB-252/021)

Albina Madinabeitiarekin sarri jotzen zuen, biolinjole arrasatearrarekin. Albina ia eibartarra zen. Urtero etortzen zen Eibarrera San Ziriako egunean, abuztuaren 8an, Don Ziriako medikuaren urtebetetzean. Afaldu ondoren biek batera jotzen zuten medikuaren etxean. Leihoak zabaldu eta Plaza berria beteta egoten zen, jendea musikariei entzuten. Sanatorio Antituberculoso-an ere kontzertua ematen zuten gaixoentzat. Aita Donostiarekin ere harreman handia zuen.

1.742. "Atxia-Motxia" abestiaren historia (AB-252/022)

"Atxia Motxia" kantaren historia. Antonio osaba Juanitorekin ikastera joan zen batean, konturatu gabe entzun zuen Juanitok zelan konposatu zuen. Anjel Garate "Beltxi"rekin izandako eztabaida izaten zutelako sortu omen zuen. "Atxia-motxia perolipan, zure semia errotan, errotara nindoiala atera nion begi bat, atera nion begi bat, klin-klan, errota txikian, klin-klan". Lau-bost egunera konposaketa eginda zuen. Lehenengo gizonetzkoendako eta gero koruarentzat. "Suite eibarresa" kantu bat baino gehiagorekin osatu zuen, "Ai Anton", "Alperrik", "Bihar da urtebete", eta Antoniori eskaini zion. Zatika abesten du.

1.743. Arrateko Amararen koroatzerako dokumentuak eta musika (AB-252/024)

"Misa en Re"ren historia ez du gogoratzen. Arrateko Ama Birjinaren Koroatzearen inguruko istorioak. Eugenio Urroz abadea Ibarbe etxean bizi zen eta Antoniok bertan pasatu zuen makinaz Aita Santuari bidali zitzaion dokumentazio guztia (1928). 1929an izan zen koroatzea. Juanitok eta Urrozek idatzi zuten mezarako musika. Juanito oso euskaltzalea zen.

1.744. Parrokiaren ondoko eraikina (AB-252/025)

Plaza Berrian, parrokiaren ondoko eraikinean sakristia zegoen barreneko solairuan, eta lehenengo solairuan apaizaren bulegoa. Goragoko solairuan katekistak egoten ziren eta aurrezkietarako ordainketak egiten ziren. Solairu hartan ensaiatzen zuten Antoniok eta. Aldamenean Armoniuma zegoen.

1.745. Arrateko Ama Birjinaren koroatzea, 1929an (AB-252/026)

Arrateko Ama Birjinaren koroatzerako Pasaitik tripleak ekarri zituzten. Gizonen abesbatza handia zegoen Eibarren; izen batzuk esaten ditu. Euria gotik behera egin zuen egun horretan. Ama Birjina Eibartik zehar eraman zuten eta ondoren bazkaria egon zen. Orduan gertatutako ipuintxo bi kontatzen ditu: Diputatu batek torloju bat aurkitu zuen izozkian eta zera esan ei zuen: "en Eibar todo industria, hasta en el helado". "Txanbolin" eibartar ezagunak berriz, Gobernadore Militarri zera esan zion gidaria zelakoan: tripan ikutu eta "se ha comido bien".

1.746. Ama Birjina Arratera (AB-252/027)

Arrateko Ama Birjinaren koroatzea Eibarren egin zen. Maiatzaren 22an, igandean, Arratera jaso zuten ama birjina.

1.747. Parrokiako abesbatza (AB-252/028)

Parrokiako abesbatzan 16 urterekin sartu zen, Martiniano Larrañagarekin. Gizonezkoek bakarrik abesten zuten elizako abesbatzan.

1.748. Errepublika sasoiko orfeoiaren sorrera (AB-252/029)

Orfeoiaren inguruko kontuak. Hasieran 18 lagun besterik ez ziren. Errepublika sasoiaren Kontseju Zaharrean sortu zen, 1932an. Gero Kruzetara joaten hasi ziren entseguak egitera; hasieran gizonak bakarrik eta gerora neskek ere bai. Antoniok berak kantatzeaz gain, Juanito Gisasolaren ordezkoko ere egin zuen.

1.749. Abeslari onak (AB-252/030)

Adon Alberdi "Matxin", Jose Mari Eguren, Mariano Azpiazu, Federiko Artamendi... onentxoena haiek zirela dio.

1.750. Eibarko Orfeoiaren emanaldiak (AB-252/031)

Zarautzen gerraostean abestu zuten orfeoiarekin. Gerra aurretik batez ere Eibarren kantatzen zuten. Durangon 1.ºgo saria irabazi zuten. Orfeoian alderdi politiko guztietako jendea batzen zen arazo gabe.

1.751. Eibarko lehenengo orfeoiak, 1905 inguruan (AB-252/033)

1905 inguruan orfeoi bi zeuden Eibarren: Orfeón Vasco Fuerista eta Orfeón Eibarrés (goitarren eta behetarren arteko banaketaren ispilu). Antonioren aita eta osaba orfeoi banatakoak ziren.

1.752. Eibarko musika banda (AB-252/034)

Errepublikara garaian, orfeoiak gain banda ona zegoen. Musikan zuzendarien, egileen eta taldeen artean inbidiak egoten direla dio. Kioskoan bandak jotzen zuen.

1.753. Breton orkestina eta kasinoak (AB-252/035)

"Musical Breton" izeneko orkestina bat zegoen, Amistad kasinoan. Artista kasinoan, Republicano kasinoan, Amistad kasinoan eta Conservador kasinoan zeuden.

1.754. Eibarko tabernak (AB-252/036)

Txikiteoan kantuz ibiltzen ziren. Arratsaldean trinketera joaten ziren. Eguardian Txokoa, Gautxoria, Florida, Buenos Aires, Valentinarenean, Manuelenean, Bar Españan, Aginazpin... Denean ibiltzen ziren. Gerraostean elkarte gastronomikoan batzen ziren bereziki. Afarimerienda asko egiten zituzten. Orfeoiarekin beti zerbait bazuten. Kantatu asko egiten zuten.

1.755. Gizonezko abeslari esanguratsuak (AB-252/037)

Jose Ramon Orozko abeslaria. Ahots ederra zuen eta Erromara joan zen abesten ikastera. "El Trobador" opera prestatu zioten eta ez zuen batere ondo egin. Astigarraga zena, udaltzainburua, tenorea oso ona zela dio. Artamendi ere ona izan zen; "Mirentxu" abestu zuen, "Marina", "La Pasión según San Mateo"... Jose Mari Eguren, Mariano Azpiazu, Facundo Guruzeta... horiek ere "Marina" kantatzen zuten. Asti ezagutu zuen, "Moskatela", serenoen jefea zena.

1.756. Gerran pianoa eta argazkiak salbatu zituen (AB-252/038)

Gerran pianoa eta argazkiak salbatzea lortu zuen Antoniok. Kamioi batean sartu zituen eta Durangora eraman zituen; gero, handik Bilbora, Madina soroluzetarraren biltegi batera. Argazkiak, Gallartako alkatearen etxean gordeta utzi zituen. Gerraostean bila joan ziren.

1.757. Eibartarrak orfeoiak (AB-252/039)

Gerraostean (1942) Orfeoiak berriz elkartu eta "Eibartarrak" sortu zuten. Juanito zen zuzendaria. Ez zuten entsegurik egiten; gehienbat berriz elkartu eta ondo pasatzeko batu ziren. Toribio Etxebarria ere pare bat aldiz Elgetara joan zen beraiekin.

1.758. Eibarresa abesbatza (AB-252/040)

1957-1962an, Eibarresa abesbatza osatu zuten. José Antonio Ronek esan zion abesbatza bat osatu eta zuzentzeko. Horrela egin zen, Karmelitetako eta Parrokiako abesbatzetako kideekin. Antonio zen zuzendari. Pasarte bat kontatzen du.

1.759. Azken urteak Zarauzko abesbatzan (AB-252/041)

Karmelitetan organoa jotzen zuen. Gero Zarautzera bizi izatera joan zen eta hango abesbatzarekin hasi. 1971-1973 oraindik Eibarko abesbatza parrokiareko zuzendari jarraitu zuen.

1.760. 1936ko abuztuaren 29ko bonbardaketa (AB-253/001)

Ibarbe ingurua zelakoa zen. Farmazia, liburudenda, arropa denda... 1936ko abuztuaren 29an gerra zibileko bonbardaketa bizi izan zuen. Bere ondoan zegoenari, Antonia Muruari, bonbak besoa eraman zion. Eguaztena zela gogoratzen du, eta bere osaba Juanito Gisasolaren urtebetetzea.

1.761. Ibarbe eta Ibarburutze ingurua (AB-253/002)

Ibarbeia esaten zioten. Ibarbe ingurua zelakoa zen: Mujika, loteria, guarnizioneroa... Armarridun harrizko etxea zen, bi solairukoa. Etxean bizi ziren Larrañagatarrak, bi ahizpa (Doña Polonia eta beste bat), eta Don Eugenio Urroz Erro apopilo. Inguruko etxeetako bizilagunak aipatzen ditu.

1.762. Musika Eibarren: dantzaldiak Rialtoan, Untzagan... (AB-253/003)

Argazki bati begira, bertan ageri direnak izendatzen ditu. Rialtoa gerra aurretik inauguratu zuten. Bazkide zen baina ez zen dantzara joaten. Kasinoa zeukan gainekaldean eta azpian zineman. Dantzalekua zelakoa zen kontatzen du.

1.763. Juanito Etxanizekin musika jotzen (AB-253/005)

Udan eguenetan eta domeketan izaten zen musika Untzagan. Neguan Astelenan eta Rialtoan antolatzen zituzten. Ezkontzetako elizkizunetan musika jotzen zuen, Juanito Etxanizekin batera. Biolina eta organoa jotzen zituzten. Peña Pedruchorekin ere jotzen zuten, ospitaleko kapilana. Tabernetan musikia eta kantua oso normala zan, Badet

1.764. Eibartarren arteko elkartasuna, goraipatzekoa (AB-253/006)

Lokaletan ez zuen jo izan. Tabernetan kantuz aritzea egunerokoa zen. Eibarko herriak zuen gauzarik onena herritarren arteko harremana zen.

1.765. Juanito Gisasolaren heriotza (AB-253/007)

Kentzekoa.

1.766. Txantxa Zelaixan futboleant (AB-253/010)

Union Deportiva Eibarresan jokatzen zuen. 1926an finalen bat jokatu zuten eta bera hantxe egon zen.

1.767. Umetan futboleant, pilotan non egiten zuten (AB-253/011)

Ixiltasuna.

1.768. Elgoibar eta Eibarren artean lehia handia egoten zen (AB-253/012)

Mende hasierako futbol taldeen eta jokalarien izenak aipatzen ditu. 1915 inguruan Izarra eta Eibar Club futbol taldeak zeuden Eibarren. Gerora, Malos Tratos, Txiri-biri, Altza-praka, eta abar sortu ziren. 1926an Eibar Gipuzkoako Txapeldun izatera iritsi zen. Errepublikara garaian beste talde batzuk agertu ziren: Aberri eta beste. Bera Indarra taldekoa zen (1932an desegin zen); taldekoen izenak esaten ditu.

1.769. Antzinako baloiak nolakoak izaten ziren (AB-253/013)

Errepublikara garaian, Elgoibarren eta Durangon jokatzen zuten gehien bat. Entrenamendurik ez zuten egiten. Union Deportiva Eibarresa gelditu zen azkenean bakarrik, eta hortik Eibar FC sortu zen. Gerra ostean Eibar FC taldeari izena aldatu behar izan zioten: Sociedad Deportiva Eibar.

1.770. Athletic eta Real Union talde onenak eibartarrentzat (AB-253/014)

Gerraostean, futbol talde asko zeuden eta Txaltxa zelain jokatzen zuten. Harriz betetako zelaian jokatzen zuten. Ingurua zelakoa zen azaltzen du. Eibarren futboleant jokatzen izan denean, berba ingelesak erabili izan dira betidanik: foalla, kornerra, referia...

1.771. Futboleant putzarekin eta pilotan (AB-253/015)

Umetan Isasi gainean jokatzen zuten, fraideen parean. Markeskoa palazioaren horman pilotan egiten zuten. Baloiaren ordean, putza erabiltzen zuten, gomazkoa. Estazio kalean eta Errebalean jolasten zuten futbolera eta mojen konbentuko hormaren kontra, pilotan.

1.772. Inguruko herriekin lehiatzen futbolariek (AB-253/016)

Gerra aurrean, futbola baino pilota zen nagusi. Eibar eta Elgoibar futbol kontuetan beti haserre ibiltzen ziren; lehia handia izaten zuten. Tren bereziak egoten ziren Arrasatera, Debara, Bergarara eta Elgoibarrera joateko.

1.773. Lehenengo baloiak (AB-253/017)

Lehenengo baloiak zelakoak ziren. Zuloa izaten zuten putzeko eta gero uhalen batekin josi behar izaten zen. Min ematen zuen eta lurra bustia zegoenean, demaseko pisua hartzen zuen lokazturik.

1.774. Athletic eta Real Union taldeen zaleak (AB-253/018)

Athletic eta Real Union ziren ezagunak inguruan. Eibarren gehienak Athletic-eko zaleak ziren, Bilborekin harreman handiagoa zegoelako, baina Real Union taldeak ere zale asko zituen herrian. Anekdotak bat kontatzen du gaztelaraz. Athletic-eko zaletasuna eskola jolasorduko kontuengatik sortu zitzaion.

1.775. Pareta jatatzea eta inguruak (AB-253/020)

Elgeta kalean Pareta jatatzea zegoen. Athletic taldeak beti hantxe bazkaltzen zuen gerra aurrean. Kantuz aritzen ziren han. Aurretik eta inguruan zein denda zeuden kontatzen du.

1.776. Eibarko futbol jokalaria profesionalak (AB-253/021)

Eibarren izan ziren Espainiako selekzioan jokatu zutenak: Ziriako, Ramon Gabilondo, Mugerza, Roberto Etxeberria, Pepe Atxa... Zein taldetan jokatzen zuten kontatzen du. Gerra aurrean eta ondoren zeintzuk ibili ziren kontatzen du.

1.777. Athletic taldea ikustera (AB-253/023)

Athletic taldearen partidu bat lehenengo aldiz noiz ikusi zuen kontatzen du, XX. mendeko 20ko hamarkadan. Neskalaguna topatu zuenean, laga egin zion.

1.778. Eibar Kirol Elkartearen sorrera eta zelaiaren inaugurazioa (AB-254/002)

1940an sortu zen Eibar Kirol Elkartea. Elgoibarren jokatzen zituzten partidak. 1947an inauguratu zuten Eibarko futbol zelaia.

1.779. Eibarko futbol zelaia (AB-254/004)

Eibarko futbol zelaia inauguratu zuteneko eguna zelakoa izan zen kontatzen du. Futbol zelaiaren eraikuntza lanetako kontuak aipatzen ditu. Elgoibarren kontrako partida jendetsua.

1.780. Eibar futbol taldeko kargudun (AB-254/005)

Gerra ostean, Arrate eta Eibar futbol taldeak zeuden. Ondoren Eibar taldeak Urko sortu zuen. 1946tik 1948ra egon zen idazkari Eibar futbol taldean. 1954tik 1957ra bigarren mailako taldeko idazkari izendatu zuten. Tartean txirringularitzako taldean eta ondoren abesbatzan ibili zen.

1.781. Eibar futbol taldeko ordezkari (AB-254/006)

Bera delegatu zela, ez zuen Eibar futbol taldeak inoiz partidarik galdu. Anekdotak bat kontatzen du. Antolakuntza eta administrazio lanak tokatzen zitzaizkion.

1.782. Eibar futbol taldearen hastapenak (AB-254/007)

Eibar taldeko idazkariordea zen futbol zelaia inauguratu zutenean. Herriak eskatuta egin zela bereziki, dio. Atletico de Madridek Eibarren jokatu zuenekoak kontatzen du. Taldearen gorabeherak.

1.783. Eibar futbol taldeko lehendakari izan zenekoa (AB-254/008)

Futboleko bigarren mailan talde handiak zeuden. Diru gutxi zeukaten taldean baina moldatzen ziren. Fitxaketak zelan egiten zituzten kontatzen du.

1.784. Bilboko Orkestra abesbatzarekin (AB-254/011)

Bilboko Orkestrarekin bi aldiz abestu zuten. Orduko kontuak aipatzen ditu. Rafael Frühbeck eta Muñoz orkestra zuzendariak aipatzen ditu.

1.785. Atanozalea lehendabizi (AB-254/012)

Atano 1926an egin zen pilotako txapeldun eta 1948ra arte hala iraun zuen. Hura ikustera joaten zen batetik bestera. Ondoren agertu zen Migel Gallastegi. 1942an Atanori irabazi zion.

1.786. Migel Gallastegiren ibilbidea (AB-254/013)

Migel Gallastegik Atanori irabazi zionean, urteetan aldea zeukaten. Gallastegiren ibilbidearen zehaztasunak ematen ditu.

1.787. Eibarko pilotariak (AB-254/015)

Gallastegiren aurretik, Eibarren bizi ziren pilotariak aipatzen ditu: Romano Etxaburu "Txapastra", Gernikako Marino eta beste hainbat.

1.788. Atano eta Gallastegiren arteko partidaren kartela (AB-254/018)

Atano eta Gallastegiren arteko partidaren kartela erakusten du eta azalpen batzuk ematen ditu.

1.789. Lehengo eta oraingo pilotak (AB-254/020)

Lehengo eta oraingo pilotak oso desberdinak direla dio. Oraingoek goma daukatenez, bote gehiago ematen dutela dio.

1.790. Giputxaneko frontoia (AB-254/022)

Migel Gallastegiren hastapenak non izango ziren aipatzen du. Giputxaneko frontoia zelakoa zen kontatzen du. Berak ere jokatzen zuen lagunekin.

1.791. Eibarko txirrindulariak (AB-255/002)

Gerra aurreko txirrindularien izenak aipatzen ditu. Eibarren lasterketa asko egin izan direla dio. Umetan ez zeukaten aukerarik bizikletan ibiltzeko. Geroagoko txirrindularien izenak aipatzen ditu. Eibar oso zalea izan omen da.

1.792. Eibar-Madrid-Eibar lasterketa (AB-255/003)

Eibar-Madrid-Eibar bizikleta lasterketa egin zuten Errepublika garaian. Euskal Herriari Bira ere antolatu zen. Bizikletak egiten hasi zirenean, zaletasuna zabaldu egin zen.

1.793. Eibarko bizikletak eta Antonioren lehen bizikleta (AB-255/004)

Eibarren bizikletak egiten ziren arren, ez ziren asko ikusten kalean. Antonioren lehenengo bizikleta Iparraldetik ekarri zioten. Marka ezagunenak aipatzen ditu. Errepublika baino lehen hasi ziren Eibarren bizikletak egiten.

1.794. Kluben arteko liskarrak (AB-255/005)

Arratera igoera antolatu zen batean, Club Deportivo-ak eta Club Ciclista-k eztabaida gogorak izan zituzten. Club Ciclista-ko lehendakaria zen orduan Antonio.

1.795. Txirrindulari Elkartearen sorrera eta ibilbidea (AB-255/006)

Eibarko Txirrindulari Elkarteak 1927an sortu zen. Agustin Elorza, Castro Aristondo, Bizente Jauregiberria... Eibartik hiru hiriburutara etapak egin zituzten 1952an eta denak Eibarren bukatu ziren; klubaren 25. urteurrena zelako. Ramon Sarasua idazkari izendatu zuen eta lan handia egin zuen. 1953an lehendakari izateari laga zion.

1.796. Lehenengo Eibarko Bizikleta lasterketa (AB-255/007)

1952an antolatu zuten lehenengo Eibarko Bizikleta lasterketa. Diruz zenbat kostatu zen zehazten du.

1.797. Hamarkada emankorrenak txirrindularitzarentzat (AB-255/008)

1950-60 ingurua izan zen txirrindularitzarentzat garrantzitsuena, Antoniorentzat. Eibarko Bizikleta lasterketara kanpotar asko etorri ziren.

1.798. Kanpotarrak Eibarko Bizikletan (AB-255/010)

Eibarko Bizikleta lasterketara kanpotarrak etortzen ziren lehiara. Txirrindularien atzetik kotxez joatea ez zitzaion inoiz gustatu.

1.799. Kluben arteko harremana (AB-255/011)

Klub Deportiboaren eta Txirrindulari Elkartearen arteko tirabirak erraz konpondu zituzten. Juanito Txomorekin ondo konpontzen zen, Klub Deportibokoa zen.

1.800. Eibarko Bizikleta eta Arratera Igoera (AB-255/013)

Club Ciclista-k Eibarko Bizikleta antolatzen zuen eta Club Deportivo-ak Arratera igoera. Club Ciclista-ren bulegoa non egon zen azaltzen du. Lasterketak Untzagan hasten ziren. Non bukatzen ziren azaltzen du.

1.801. Eibarko Bizikletaren lehen etapak (AB-255/014)

Eibarko Bizikletaren lehen etapak azaltzen ditu. Eibarrek ikusiezina handia izan duela uste du.

1.802. Lehenengo bidaia kotxez (AB-255/016)

Jose Mari Urkirik bere autoa zeukan. Lehenengo automobila 1919 inguruan ezagutu zuen. Eibartik Bilbora joan zen Buick markako auto batean. Nondik nora ibili ziren kontatzen du. Abentura ikaragarria izan zela dio.

1.803. Komuna eta bainuontzia (AB-255/018)

1929an bere osaba Juan Kolonbiatik etorri zenean, komuna eta bainuontzia jarri zituzten etxean, hura ohituta zegoelako egunero bainatzen.

1.804. Areatzara garbitzera (AB-255/019)

Arraindegi kaleko bainueta ezagutu zuen baina ez ziren joaten. Areatzara joaten ziren garbitzera, xaboia hartuta.

1.805. Eibarko ile-apaindegiak (AB-255/020)

Gaztetan ile luzea zeukan Antoniok eta ile-apaindegira joaten zen. Orduko ile-apaindegiak aipatzen ditu, kaleka. Ilea txukundu eta bizarra egiten zuten. Atxurrak eta makinak erabili izan ditu bizarra kentzeko.

1.806. Telebista lehenengo aldiz ikusi zuenekoa (AB-255/021)

Aparatuak gustatu izan zaizkio. Lehenengo telebista noiz jarri zuen. Eibarko danborradarako erosi zuen. Lehenengo aldiz telebista bat ikusi zuenean, erabat lelotuta geratu omen zen.

1.807. Italiako irratsaioak entzuten (AB-255/023)

Etxeko irrati zaharraren marka aipatzen du. Italiako irratia entzuten zuten. Eibar ez zen leku ona irratia entzuteko, zuloan dago eta. Errepublika baino lehen entzuten zuten irratia.

1.808. Lehen argazki kamera eta aitaren zaletasuna (AB-255/025)

Argazki kamera 15-16 urterekin eskuratu zuen. Beti gauza modernoek zalea izan dela dio. William argazkilaria profesionala zen, Zarautzen ibiltzen zena. Indalecio Ojanguren ekarritako kamera izango zen bere lehenengoa. Antonioren aitak kamera zaharretakoa zeukan eta argazkiak errebelatzen zituen. Grabaketak egiteko kamera ere eduki zuen.

1.809. Eibarko argazkilariak (AB-255/026)

Eibarko argazkilariak izendatzen ditu eta zelakoak ziren azaltzen du: Ortuoste, Indalecio Ojanguren... Ojangureni eramaten zizkion argazkiak errebelatzeko.

1.810. Bizikleta bat protagonista duen pasarte barregarria (AB-255/028)

Agustin Larrañagari bizikleta bat ekarri zioten eta gora eta behera zebilela, dotore jantzitako batek eskatu, buelta batzuk eman eta bizikleta hartuta alde egin omen zuen. Osaba Kaietano Kareagak kontatzen omen zuen. Zelakoa zen kontatzen dute.

1.811. Lehenengo zinema kamera (AB-255/031)

Zinemako kamerak aldizkarietan ikusten zituen eta bere osaba bati eskatu zion New Yorketik ekartzeko, 60. hamarkadan. Kamera eta proiektorea ekarri zizkion. Prezioak gogoan ditu. Donostian eskuratzen zituen kamerarentzat pelikulak. Kamera gehiago izan zituen.

1.812. Jose Antonio Agirreren hiletako grabaketak (AB-255/032)

Aittittarekin eta amamarekin Jose Antonio Agirre lehendakariaren hiletara joan zen eta hileta kamerarekin grabatu zuen. Istiluak izan zituen. Gero ETBri eman zion grabaketa.

1.813. Jose Antonio Agirreren hiletara bezperatik (AB-255/033)

Jose Antonio Agirreren hiletara bezperatik joan ziren, debekatuta egongo zelakoan hurrengo egunean.

1.814. Eibarko txirrindulari onak (AB-255/034)

Txirrindulari onak izan ziren Eibarren: Apellaniz, Maltzaga, Mardaras, Gojenola...

1.815. Bizikletaz egiten ziren jolasak (AB-255/036)

"El Día del Pedal", zinta lasterketak...

1.816. Bizikletak alokatzeko dendak (AB-255/037)

Bizikletak alokatzeko dendak zeuden Eibarren. Antonioren emaztea igandero bizikletan ibiltzen zen Zarautzen.

1.817. Estropadetara deskapotablean (AB-255/039)

Donostiara Estropadetara deskapotablean joan ziren eta Ondarroak irabazi zuen, 1926 inguruan. Erraz konformatzen ziren lehen.

1.818. Natura zainduagoa eta gozagarriagoa (AB-255/040)

Natura ederragoa omen zen lehen. Eibar ingurua berdea zen, pinurik gabekoa. Orduan autorik ez zen ibiltzen eta bizikletan eta jolasean lasai ibiltzen ziren. Errekak garbiak egoten ziren. Sarbuak, loinak... jaten zituzten. Asko dibertitzen zirela gaztetan dio.

1.819. Bizikletak alokatzeko dendak non zeuden (AB-255/041)

Bizikletan Eibarren ez zen ibiltzen Antonio, baina bazeuden alokairuko dendak. Non zeuden azaltzen du.

1.820. Astigarraga tenorea, gerora Eibarko serenoen nagusi izan zen (AB-260/004)

Astigarraga tenorea, oso ezaguna herrian. Tenore izateari laga eta serenoen nagusi izan zen Eibarren. Maria Cristina erreginak ordaindu zizkion tenore ikasketak. Serenoen zeregina zein izaten zen (kaleak zaindu, portaletako giltzak ere izaten zituzten...).

1.821. Tomas Etxaluze eta Fermín Calbeton (AB-260/005)

Pertsonai ezagunak Eibarren. Tomas Etxaluze, eibartar kazetari ezaguna zen. Kanpoko pertsonai garrantzitsuekin harreman estua zuen. Herriaren alde lan asko egindakoa (langabezian zeuden eibartarrak Arrateko bidea egin zezaten ahalegin ugari egin zituen). Tomas Etxaluze eta Fermín Calbeton sarritan joaten ziren Olarreagara zarbo-ezkailoak jatera. Madrilera joan zeneko anekdota. Pentsaera liberalekoak ziren biak.

1.822. Etxaluzetarrak, ideia liberalekoak (AB-260/007)

Tomas Etxaluze, kazetari ezaguna Eibar eta inguruan. Oso telefono gutxi zeuden garaian, "Aquí yo" esanez hartzen zuen telefonoa. Gloriaren familian denak liberalak ziren, errepublikanoak. Ama Madrilera joan zen behin Azañaren hitzaldi bat entzutera. Aita Elgoibarko baserri batekoa; ideia liberalak zituen.

1.823. Giro politikoa Eibarren (AB-260/008)

Giro politikoa Eibarren. Sozialistak; errepublikanoak nagusi. Centro Republicano-a Kalbetoi kalean egon zen.

1.824. Kalamuako Tomas Meabe aterpetxea (AB-260/009)

Sozialistek Kalamuan "Tomas Meabe" aterpetxea eraiki zuten; nolakoa zen. Asteburu eta jai egunetan jende asko gerturatzen zen bertara. Fonografoa ere bazuten bertan. Gerra Zibilean suntsituta geratu zen aterpetxea. Gerraren inguruko aipamenak.

1.825. Eibarko zineak: Salón Teatro; Rialto eta Cine Kruzeta (AB-260/010)

Zineak Eibarren: Salón Teatro; Rialto eta Cine Cruceta. Noche-neko kafetegia. Untzaga plazan, kioskoa zegoen. Dantzaldiak egiten zituzten bertan. Rialtora ere dantzan egitera joaten ziren. Zinera noiz joaten ziren; pelikulak kapituloka botatzen zituzten. Kruzetaneke zinea nolakoa zen; azalpen sakonak.

1.826. Eibarko zineak: "Pabellón Alfonso XIII" (AB-260/011)

Untzagan zegoen Pabiloian ere zinea ematen zuten. Pelikula hasi artean jendea abesten egoten zen. Pabiloi hutsa zen, jarlekuak atzeraino eta kanpoan musika jotzen organotxo bat. Kruzetaneke zinea, oso polita.

1.827. Giro politikoa Eibarren (AB-260/013)

Goitarrak eta behetarrak. Politika giroa Eibarren. Kruzetaneke zinea. Dotorea; kategoria handikoa. Periko kruzeta oso gizon ezaguna; zorrotza, zuzena.

1.828. Alcala Zamora Eibarren (AB-260/014)

II Errepublika aldarrikatu zeneko eguna ondo gogoratzen du. Alcala Zamora Eibarrera etorri zenean Star pistola bat erregalatu zitzaion eta jai handia egin zen. Gloriak lepokoa galdu zuen Untzagan. Errepublika garaia oso laburra izan zen. Egun hartako anekdota polita kontatzen du.

1.829. Benigna Etxaluze, Eibarko lehenengo rekadista (AB-260/017)

Gloriaren ama (Benigna Victoria) izan zen lehenengo rekadista; gerora Gloria ere hasi zen lan horretan eta ezkondu ondoren senarra. Enkargu guztiak Bilbotik ekartzen zituzten: telak, zapatak, loteria... Trenez egiten zituzten Bilborako joan-etorri guztiak.

1.830. Errepublika aldarrikatu zeneko eguna (AB-260/022)

Ama Bilbotik arratsaldean iritsi zen, Errepublika aldarrikatu zela esanez. Oraindik konfirmazioarik ez zegoen. Plaza Alfonso XIII; izen-aldaketa.

1.831. Errepublikaren aldeko manifestapena (AB-260/023)

Errepublikaren aldeko manifestapena. Bandera errepublikarra, Centro Republikanotik atera zuten.

1.832. Errepublika garaiko pertsonai ezagunak Eibarren; giro politikoa (AB-260/026)

Errepublika garaiko pertsonai ezagunak Eibarren: Alejandro Telleria, Marcelino Baskaran... Eibarren sozialistak ziren nagusi sasoi hartan, errepublikanoak eta abertzaleak baino gehiago. Casa del Pueblo-a zelakoa zen. Alderdien arteko gatazkarik ez; alderdi guztietakoak lagunak ziren, ez zegoen beraien arteko borrokarik.

1.833. Amari zergatik ipini zioten "Benigna Victoria" izena (AB-260/031)

Amari zergatik ipini zioten "Benigna Victoria" izena. Vicente Billar zen orduko medikoa, eta harek ipini zion izena.

1.834. Alcala Zamora Eibarren (AB-260/032)

Alcala Zamora Eibarrera etorri zeneko eguna. Gloria, Alcala Zamoraren ondoan ibili zen pasioan. Gurasoak ideia liberalekoak.

1.835. Azañaren hitzaldi batera Madrilera (AB-260/034)

Ama Azañaren jarraitzailea zen, "azañista" eta Madrilera joan zen hitzaldi bat entzutera, aita etxean lagata.

1.836. Eibar, "demonixuen herrixa" (AB-260/035)

Eibarko herriak izen txarra zuen inguruko herrietan; "demonixuen herrixa" zela uste zuten. Erljioa eta Eibar (sozialismoa, eliza, hileta zibilak...). Oñatitik neskame etorritako neska batzuk kongregaziotik bota zituzten Eibarrera etortzeagatik.

1.837. Entierro zibilak Eibarren (AB-260/039)

Eibar eta erlijioa. Entierro zibilak ez zeuden oso ongi ikusita garai batean.

1.838. Erderaz hitz egitea jende aberatsen kontua (AB-260/040)

Eibarren euskaraz besterik ez zen egiten; erdaraz jakin ere ez. Bilbon ikasi zuten erdaraz; han dena erdaraz egiten zen. Gaztetan euskaraz egiten zuten lagunaren artean, baina erdaraz ikasi zutenean, erdarako joera gehiago.

1.839. Tomás Meabe aterpetxea (AB-265/002)

Tomas Meabe aterpetxea nolakoa zen azaltzen dute: frontoia; iturria. Inaugurazio egunean, "La Romeral" bandarekin joan zen Salvador Kalamuara. 1934ko irailaren 29an inauguratu zuten aterpetxea. Argazki zaharrak ikusten dihardute.

1.840. Krisialdi ekonomikoa; Arrateko bidea (AB-265/005)

Errepublika aurreko alkatea, Timoteo Zubiate izan zen. Eibarko industrian krisialdi handia egon zen eta Arrateko bidea egitea erabaki zuten, Santiago Astigarraga Ibergain alkate zela.

1.841. Salvador Marzana: gizon ekintzailea (AB-265/011)

Salvador Marzanak gaztetako urteen laburpena egiten du labur-labur: 12 urterekin aita hil, 13 urterekin lanean hasi (goizeko 6retatik arratsaldeko 5etara); lana bukatu ondoren Eskola Armeriara zerbait ikastera eta afal ostean Musika Bandaren entseguetara. 18 urterekin Gerra Zibila hasi zen eta 8 urtetan etxera itzuli gabe egon zen. 14 urterekin Alfan hasi zen lanean. Batallón de Trabajadores.

1.842. Tomás Meabe aterpetxearen aurrekaria (AB-265/015)

Tomas Meabe aterpetxea; benetako aterpetxea egin aurretik beste txabola bat izan zuten.

1.843. II. Errepublikaren aldarrikapena Eibarren (AB-265/020)

Secundino Loidi: Errepublikaren aldarrikapena; apirilaren 13an ez zen ezer gertatu. Aita udaletxeko konserjea zen eta familia osoa bizi zen udaletxean. Apirilaren 14ean, goizean goizago (oraindik eguna argitu gabe) jende asko hasi zen batzen udalean. Eguna argitu zenean Centro Republicano-ra joateko esan zioten banderaren bila. Udalean bildutako jendearen egoneza. Bandera errepublikarra aitak ipini zuen, 10:00ak inguruan. Untzaga plazaren izen aldaketa.

1.844. II. Errepublikaren aldarrikapena (AB-265/021)

Arratsaldeko 16:00ak aldera iritsi zen Errepublikaren aldarrikapenaren konfirmazioa. Bandera errepublikarra noiz, nor ipini zuen.

1.845. Apirilaren 14a Eibarren (AB-265/022)

Salvador Marzana: etxera etorri zitzaien "Polkesia", Errepublikaren aldarrikapenaren berri ematen. San Andres kaleari Errepublika garaian Pablo Iglesias izena ipini zitzaion. Untzagara zelan jua ziran. Hauteskunde gauean emaitzak nola ezagutu zituzten; orduan egindako jaia.

1.846. "Muy Ejemplar Ciudad" izendapena (AB-265/023)

Muy Ejemplar Ciudad izendatu zituzten Eibar eta Jaca. Hernandez y Galán militarren altxamendua nola gertatu zen azaltzen du; Eibarko Casa del Pueblo-an beraien argazkiak zeuden.

1.847. Altxamendu militarra Jacan (AB-265/025)

Jacan altxamendua egin zutenean, militarrek Eibarrera etorri ziren. Orduko kontuak.

1.848. Untzaga plazaren izen-aldaketa (AB-265/026)

Salvador: "Eltzartza" igo zen eskailerarekin Untzaga plazaren izena aldatzera; hiriburuetatik aldarrikapenaren berria iritsi zenean gertatu zen, arratsaldeko 17:00ak inguruan. Plaka zaharra kendu eta kartoizko probisional ipini zuen. "El eibarrés es inmortal," kanta.

1.849. Apirilaren 12ko hauteskundeen emaitzak (AB-265/028)

Secundino: Mateo Kareaga bidali zuten koartelera aldarrikapenaren berri ematera. Udaletxean 17 zinegotzitik 7 errepublikarrak ziren, 9 sozialistak eta Mateo guztietatik gazteena.

1.850. Niceto Alcalá Zamora Eibarren (AB-265/032)

Niceto Alcalá Zamora Eibarrera etorri zeneko kontuak. Queipo de Llano. Gerra garaiko kontuak.

1.851. Umetako okerkeriak (AB-266/002)

1917an jaio zen Ibarkurutzean. Umetan okerrak ziren; lapurreta mordoa egiten zituzten (mojetan, dendetan eta abar), eta harrapatutakoa saldu egiten zuten. Behin harrapatu egin zituzten eta epaitegira eraman.

1.852. Umetan egindako okerkeria (AB-266/004)

Umetan denda batean txorizoak lapurtu zituzten, baina moztu gabe zeuden eta txorta osoa eraman zuten kaletik arrastaka.

1.853. Eibarren gutxienez sei igerileku zeuden (AB-266/005)

Errekan jolasean ibiltzen ziren sarri; umeentzat jolasleku bikaina zen: Ariatza, esaterako. Igerian ere egiten zuten bertan. Guztira Eibarren 6-7 igerileku zeuden (presa edo kunboak zirenak). Izendatu eta deskribatu egiten ditu.

1.854. Gaztetan mendian txabolak egiten zituzten (AB-266/007)

"Estixa" inguruan (Eztiaga), txabolak egiten zituzten gazte denboran. Jende asko joaten zen bertara; umeak jolasean egitera eta nagusiak "kutxillora" jokatzera. Zela jokatzeko azaltzen du.

1.855. Tokea, kaniketako jolasa (AB-266/008)

Umetan sarri kaniketan egiten zuten. Tokean ere asko egiten zuten.

1.856. "Kiputzaneko" zinea (AB-266/009)

Kiputzaneko frontoia non zegoen esaten du. Bere osabarena zen. Zapatuetan filmak botatzen zituzten eta sarritan joaten ziren. Zer ikusten zuten kontatzen du. "Los ojos de Satanas" oso ezaguna izan zen eta euren jolasak pelikula horren arabera egiten zituzten.

1.857. Zineak Eibarren (AB-266/010)

Eibarko zinemak: Salon Teatro, "Kiputza" eta Kruzeta.

1.858. Dantzaldiak Salon Teatroan eta Rialtoan, e.a (AB-266/011)

Salon Teatroan dantzaldi asko egiten ziren. Gerra ostean dantzaleku garrantzitsuena Rialtoa zen. Deskribatu egiten du.

1.859. 1930ean Deban urperatu zen itsasontzia (AB-266/014)

1930 inguruan Deban itsasontzi bat urperatu zen. Besteak beste Don Ciriaco Agirre mediku ezaguna hil zen istripu hartan. Elizkizuna izugarria izan zen: Eibar guztia negarrez kalean.

1.860. Ibarbe eta Ibarkurutzeko ingurua (AB-266/015)

Ibarkurutzean zegoen Ibarbe etxea, parrokoaren etxea zen. Eugenio Urroz izan zen garai batean parrokoa; ona zen, baina gogorra.

1.861. Lapurretan Indianokoaren ortuetan (AB-266/016)

Lapurretan egiten zuten Indianokoaren ortuetan, Ardantza inguruan.

1.862. Matsari ingurua zelakoa zen (AB-266/017)

Matsarira jende asko joaten zen. Ingurua zelakoa zen. Orbeaneko tailerrak, galdategiak, latsarria, sagardotegiak, labaderoa...

1.863. Matsari ingurua ikusgarria zen (AB-266/018)

Matsari ingurua ikusgarria zen: erreka ederra, arrain mordoa... Agorrak egin eta zarbo-ezkailuak harrapatzen zituzten.

1.864. Eibarko eskolak (AB-266/019)

Garai batean eskolak non zeuden azaltzen du: Udaletxean, Frontoi zaharreen eta Jardinetan. Gaztaina sasoiari, eskolara eraman eta bertako berogailuan erreta jaten zituzten.

1.865. Juanito "Txoko" eta txirrindularitza (AB-266/022)

Txirrindularitzan nola hasi zen kontatzen du (profesionalerara jauzia, Frantzian 1937an). Hendaia inguruan pare bat lasterketa egin zuten eta biak irabazi. Gero Eibarrera itzuli eta Valenziagarenean hasi zen lanean.

1.866. Eibarko Klub Deportiboaren egoitza zaharra (AB-266/023)

Club Deportivo Eibar. Gerra aurreko lokala Kalbetoi kalean zegoen, Tupi taberna gainean. Gerra garaian itxi eta ondoren zabaldu egin zuten.

1.867. Bizikletan ibiltzen ikasten (AB-266/024)

7 urterekin hartu zuen lehenengo bizikleta. Bost lagun ibiltzen ziren bizikleta bakarraren gainean.

1.868. Aguazilekin izandako anekdota polita (AB-266/025)

Umetan "Cebollas" (edo "Mallabi") eta "Alfiler" aguazilekin gertatutako pasartea kontatzen du.

1.869. Eibarko lehenengo bizikletak (AB-266/028)

1925 inguruan Hermógenes Larrañagak (GAC-ko montadorea), bizikleta berezia egin zion. Garai hartan oraindik oso bizikleta gutxi zeuden Eibarren. Gero hasi ziren Beistegi eta Orbea lantegietan bizikletak egiten. Bizikleten prezioa.

1.870. Eibarko taberna giroa 1920 inguruan (AB-266/030)

Taberna giro ederra zegoen Eibarren. Arratsaldeko seietan tabernara joan eta "baso haundixa" eskatzen zen (ia litro batekoa). Afari-meriendak ere sarritan egiten ziren.

1.871. Asteburuetan Bilbotik emakumeak etortzen ziren Eibarrera (AB-266/031)

Zezenplaza inguruan putetxe bi zeuden. Larunbat eguerdian heltzen ziren Bilbotik neskak Eibarko tren geltokira. "Desfilea" egoten zen geltokitik

zezenplazara. Beraiek gazteak ziren eta neskei begira egoten ziren. Kanpotik jende asko etortzen zen.

1.872. Eibarko taberna giroa gerra ostean (AB-266/032)

Gerra aurrean txikiteoa klasikoa izaten zen, tabernarik taberna. Eguerdian ardo zuria eta iluntzean beltza edaten zuten.

1.873. Lehen erreka osoa zegoen bistan (AB-267/002)

Urkizu ingurua zelakoa zen: erreka, Bartoloneko zubia eta abar. Eibarren erreka osoa agerian zegoen. Udaletxea erreka gainean egin zen. Gerra osterarte Areatza inguru osoan erreka begien bistan zegoen. Errekaren ibilbide osoa azaltzen du.

1.874. Garai bateko Eibar ederra (AB-267/003)

Lehengo Eibar politagoa omen zen; denak ziren ezagunak gainera. Elkartasun handia zegoen, beti elkar laguntzeko prest izaten zen jendea: diru-batzeak ere sarritan egiten ziren, esaterako.

1.875. Lehenago, lana zen nagusi (AB-267/006)

Lehenago, lana sakratua zen; ez zen erraza izaten jai-egunak hartzea. Larunbatetan ere lana egin behar izaten zen. "Zapatu ingelesa" lantegi batzuetan bai eta beste batzuetan ez zen egiten.

1.876. Eskola publikoak eta praileak (AB-267/008)

Eskolatik sarritan mendira joaten ziren, ibilalditxoak egitera, maisu eta guzti. Eskolan ez zuten ezer ikasten; praileetan bai, beste maila bat omen zuten eta.

1.877. Arraindegi eta Birjiñape kaleak (AB-267/010)

Arraindegi kalea eta Birjinapea zelakoak ziren eta non zeuden kontaktzen du. Batetik bestera joateko tunela zegoen. Barrenkaleak sekulako aldapa zuen.

1.878. Urki ingurua, zoragarria (AB-267/011)

Urki ingurua zelakoa zen: zelaiak, baserriak eta ermita ederra, besterik ez. Polita omen zen. Jende asko bertara egunpasa joaten zen.

1.879. Umetako okerkeriak (AB-267/014)

Hamahiru urterekin okerra izan beharra dagoela dio, gaiztoa ez. Sagar lapurretan ibiltzen ziren.

1.880. Txoko eta Ezkerra gaitzizenak (AB-267/015)

"Txoko" gaitzizena zela ipini zioten kontaktzen du. Bera Juanito Ezkerra zen gerra aurrean, baina Txoko taberna ipini zuenean aldatu egin zioten. Ezkertiak zirenez, aita eta aitita, Ezkerra jarri zioten izena tabernari.

1.881. Oporretara baserrira (AB-267/016)

Udako oporretan, jendeak Deban "baineroa" hartzen omen zuen. Zer zeregin zituen kontaktzen du. Etxekoak Debara joaten ziren, baina bera San Juanetatik irailaren hasierararte baserrira joaten zen osabarekin; zoragarri ibiltzen zen.

1.882. Oporrak baserrian lanean (AB-267/018)

Behiek ere ezagutu egiten zuten. Osaba pozik egoten zen, lan handia egiten zuelako Juanek baserrian. Artoa etxera eramateko zela prestatzen zuen kontaktzen du. Oporrik onenak baserrian pasatzen zituen. Gerezi asko jaten zituen; bere lehengusinak azokan saltzen zituen. Arrautzak batzen abila omen zen, zaindu egiten zituen eta.

1.883. Garia batu eta ogia egiterainoko prozesua (AB-267/019)

Makinarekin garia jotzen aritzen zen. Igitaiarekin lastoa txiki-txiki eginda abereei ematen zieten. Garia zela ebatzen zuten kontaktzen du. Gariarekin errotara joaten zen, astoa hartuta. Errotariak ez zuen dirurik eskatzen, gariaren parte bat baino. Ogia baserrian bertan egiten zuten. Baserriko bizimodua gustoko zuen, baina udan zelako.

1.884. Bizikletak alokatzeko dendak (AB-267/020)

Gerra aurrean bizikletak alokatu egiten zituzten. Non zeuden kontaktzen du. Bizikletak zelakoak ziren azaltzen du. Garai hartan lantegietan erosten ziren (GAC, BH eta Orbea), ez dendetan.

1.885. Eibarko bizikleta-lantegiak: GAC, BH, Orbea, Norma, Abelux, Etxasa (AB-267/021)

Bizikleta lantegi garrantzitsuenak GAC, BH eta Orbea ziren. Gerora Norma eta Abelux ireki zituzten. Etxasa ere sortu zen (Pagei kalean). Lantegi askotan bizikletentzako piezak egiten zituzten. Emakumeen lana bizikletak eskuz margotzea eta gurpilak zentratzea izaten zen.

1.886. Arrateko igoera eta ziklokros txapelketak (AB-267/022)

1950-1965 urteetan egin ziren txirrindularitza-lasterketen inguruko istorioak kontaktzen ditu. Juanito Club Deportivo-an sartu zen eta Arrateko Igoerak antolatzen hasi zen. Txirrindulari ezagunek parte hartzen zuten: Langara, Barrutia, Langarika... Ziklokros txapelketak ere antolatu zituen, 6 urtetan jarraian. Diru-batzea egiten zuten. Diru bila ibili behar izaten zuen.

1.887. Lokal berria Club Deportivo-arentzat (AB-267/023)

Club Deportivo-aren lokal berria zabaldu zuten 1950 inguruan. Dirua eskuratzeko denetik egin zuten. Boxeo jaialdiak ere antolatu zituen.

1.888. Club Detortivo-aren sorrera eta Juanitoren karguak (AB-267/024)

1924an Club Deportivo-a sortu zen eta atletismoa, mendia, pilota eta txirrindularitza ziren arloak. 38 urtetan egon zen Juanito Txirrindularitza Batzordean (lehendakari 6 urtez). Euskal Herri eta Espainia mailan beste ardura batzuk ere eduki zituen.

1.889. Eibarren antolatutako txirrindularitza lasterketak (AB-267/026)

Arratera Igoerara txirrindulari oso ezagunak ekarri zituen. Eibar-Madril-Eibar gerra aurrean oso ezaguna zen, Club Ciclista-k antolatuta. Eibar-Deba-Eibar, "Vuelta a la Costa" eta Premio San Juan ere izaten ziren. Eibarren txirrindulari

onak gutxi zeudela dio: Bastida, Truebatarrak, Monterotarrak, Carretero... Mula, Carro eta Carretero omen ziren ezagunenak Eibarren.

1.890. Juana Caballo, garbitzaile nekaezina (AB-267/028)

Juana Caballo izeneko emakume batek Eibarko atariak eta etxe askotako arropak garbitzen zituen. Lanaren Domina eman zion Eibarko Udalak. Juanari gertatutako pasarte bat kontatzen du.

1.891. Damaskinatzaileen hiztegia eta tresnak: bruñidoria (AB-268/003)

"Bruñidoria" zer zen azaltzen dute; damaskinatuan, piezari distira emateko erabiltzen den erraminta.

1.892. Damaskinatzaileen hiztegia eta tresnak: gubilla (AB-268/004)

Burila edo gubila, ze erraminta multzo diren azaltzen Damaskinatu aditzaren eratorriak. Damaskinatuaren prozesuan egiten diren lanak zerrendatzen dituzte. Aditzen bukaerak zehazten dihardute. Hainbat tresnaren izenak: ebateko-gubilla, entanaderak...

1.893. Damaskinatzaileen hiztegia eta tresnak: epeltzea (AB-268/005)

Damaskinatuan epeldu zertarako egiten zen azaltzen dute; piezak bigundu egiten ziren sutan, pegatuta bazegoen, soltatzeko. Fijatzeko gehiago berotu behar da.

1.894. Damaskinatuaren prozesua (AB-268/006)

Damaskinatuko prozesuan: pikatua, sartu, sonbriatu, matiatu... Behe-erliebe damaskinatua zerekin eta zela egiten zen azaltzen dute. Errepujatu zer den azaltzen dute. Erroseta, eskuaidia, grabatu, grabatukua...

1.895. Damaskinatzaileen hiztegia eta tresnak: matea ematea (AB-268/008)

Damaskinatuaren inguruko azalpenak: matea ematea zer den azaltzen dute eta bertan egiten du Dunik. Erramintari matea ematen zaio, lastu egiten da, gero erramintak berak pieza lastu dezan.

1.896. Damaskinatze prozesuaren inguruko azalpen zehatzak (AB-268/009)

Damaskinatuaren prozesu guztia: Hasieran pikatu egin behar da: labanarekin marrak egin, goitik behera eta gero kurutzean; azkeneko marrak, leunagoak (labainarekin). Ondoren haria sartu egiten zen, pegatu, puntzoi egokiarekin; ondoren, matiatu edo haria txertatu (puntzoi zabalarekin) egiten zen. Gero pabonatura bidaltzen zen pieza (iluntzera), eta bueltan sonbriatu egiten zuten. Perliatzeko adituak egoten ziren, "perleadorak". Prozesua azaltzen du. Gehienetan emakumeak izaten ziren, eta etxean egiten zuten lana.

1.897. Marrazketako maisuak (AB-268/010)

Sobriatzaileak Gregorio Mugerza eta Olasolo izan zituen. Dunik orduan 13 urte inguru zituen. Udaletxean zegoen marrazketa eskolan ikasi zuen. Hiru ikasle zeuden. Beranduago hasi zen Lukas Alberdiren eskola martxan.

1.898. Damaskinatze lana (AB-268/011)

Damaskinatze-lanen inguruko lexikoa: "miru buztana", "mielaua" (hitzaren jatorria aipatzen dute), "papparreko orratza", "perlia"... Damaskinatze prozesua, pikatu, sartu, matiatu, pabonatu, sonbriatu eta ez beti, baina behar denean, perliatu.

1.899. Damaskinatze lana: iluntzea (AB-268/012)

Damaskinatze-lanen inguruko azalpenak ematen dituzte. Piezak "pabonatzera" , iluntzera, kanpora eramaten ziren, Urdanpilleta lantegira. Azidoen bitartez pieza ilundu egiten zuten.

1.900. Damaskinatze lana: pikatzea (AB-268/013)

Damaskinatze-lanen inguruko azalpenak ematen dituzte. "Pikia" zer den azaltzen dute. Pikatzea, damaskinatuaren lehenengo eragiketa da. Lexikoa: "hauts-gorrixa", urdin-illundu", "pika-zura"... Pieza bat damaskinatzearen inguruko azalpen ugari ematen ditu.

1.901. Damaskinatzaileen tresnak: puntzoiak (AB-268/014)

Damaskinatze-lanen inguruko azalpenak. Puntzoi motak izendatu eta deskribatzen dituzte. "Punzetia". Puntzoiak beraiek egiten zituzten. Erosi ere egin zitezkeen; Suitzan egiten zituzten erreminta onenak.

1.902. Damaskinatze erabiltzen zuten urrearen inguruko azalpenak (AB-268/015)

Damaskinatze-lanen inguruko azalpenak. "Sakaboakua" erraminta puntu negatiboa izaten zen. Urrezko haria "erreixetan sartu" behar izaten zen. Erabiltzen zuten urrea zein klasetakoa izaten zen aipatzen dute; urre gorria (24 kilate) eta urre berdea (zilarra eta urrea nahastatuta). Zilarra ilundu egiten denez, ikasteko bakarrik erabiltzen zuten.

1.903. Urredunak saltzen zuen urrea (AB-268/016)

Urredunaren inguruko azalpenak. Jende guztia bertara joaten zen. Urrea gramotan saltzen zuten. Haria ere kalibratu egiten zen.

1.904. Ogia piezak garbitzeko (AB-268/017)

Gerra ostean, irin zuri bereziarekin ogi-opilak egiten ziren, damaskinatzaileentzat. Ogiaren mamia piezak garbitzeko izaten zen; azala, jan egiten zuten. Azaltzen du nola garbitzen zituzten piezak ogiarekin.

1.905. Urredunaren inguruko azalpenak (AB-268/018)

Urredunaneakoak Bidebarrietan zeuden. Etxebarriatarrak izan dira.

1.906. Damaskinatzaileen hiztegia (AB-268/020)

Damaskinatze-lanen inguruko lexikoa jasotzen. "Zaburrak" zeri esaten zitzaion aipatzen dute. Urre zati txikiak denean zabaldua geratzen ziren. Zanak puntzoiak izaten ziren; zan-zuzena eta zan-okerra daude.

1.907. Zenbat urterekin hasi zen damaskinatzen (AB-269/002)

13 urterekin hasi zen damaskinatzen. Damaskinatu eskola ireki arte, tailerretan ikasten zen. 17 urterekin hasi zen lanean. Marrazketa eskola udaletxean zegoen: Jacinto Olabe (nesken irakaslea) eta Gregorio Mugerza. Honek damaskinatzen ere erakusten zuen. Garai batean gazte asko joaten zen marrazten ikastera; neskak gehiago, bordatzeko, damaskinaturako eta abar.

1.908. Ondo damaskinatzeko esku ona behar (AB-269/003)

Damaskinatzaile ona izateko, marrazten jakitea eta esku ona izatea oso garrantzitsua zen. Damaskinatu maisuak, "baltza zaindu..." esaten zien, hondoa zaintzeko esanez. Eskua ez izerditzea ere garrantzitsua zen. Erabiltzen zuten materiala burdina garbia izaten zen.

1.909. Txomin Martinez, damaskinatzaileen artean maisua (AB-269/004)

Txomin Martinez damaskinatzailea oso ona zen. Dunisik bere azkenengo sasoiaren ezagutu zuen, eta hala ere oso ona iruditu zitzaion: proportzioak gordetzeko maisutasuna, marrazkia, egindako lanen kalitatea, eta abar. Azkar lan egiten zuen, eta ondo. Cayetano Kareaga ez zuen lanean ezagutu. Dunisiren ama ere damaskinatzailea izan zen (Cayetanorekin batera lan egin zuen eta oso ona zela esaten zuen beti). Eibarren gauza arrunta zen emakumea damaskinatzailea izatea, baita lantegietan beste zeregin batzuetan aritzea ere. Frantzia asko saltzen zen damaskinatua.

1.910. Dunisik pertsona ospetsuendako egindako lanak (AB-269/005)

Dunisik Perrenendako grabatu zuen eskopeta bat (Txomin Martinezek alde bat eta berak bestea); baita Luis Marianorendako ere. Pistoletan firmak ere jende askorentzat egin izan ditu (ministroak, erregea, militarrak...).

1.911. Gerra ostean asko jaitsi zen kalitatea (AB-269/006)

Gerra aurretik eta gerra ostean damaskinatuak aldaketa handia izan zuen, kalitatean batez ere. Beraien aurrekoenak ongi egindako lanak izaten ziren; beraienak, arinagoak. Placido Zuloagaren lanak ikusgarriak zirela diote.

1.912. Jacinto Olabe margolaria (AB-269/016)

Jacinto Olabe margolari ona zen. Azkenean damaskinatua egiten zuen. Damaskinatzaile moduan ez zen ona, esku soltea zuen eta... Baina pinturarako ez zegoen hemen etorkizunik. Alicia Iturrioz eskolak eman zizkion.

1.913. Eibarko artistak (AB-269/020)

Serafinek loreak botatzen dizkio Dunisiri, baina ez dituela bere marrazkiak erakusten leporatzen dio. Eibarren artista asko izan dira: Iraegi, Joxe Kareaga, Paulino Larrañaga, Beorlegi, Iriondo... Garai batean lan asko saltzen ziren, baina gaur egun batere ez. Luis Marcano marrazkilari oso ona zen. Lucas Alberdi eskulturan eta modelatuan ona zen.

1.914. Eibarren pentsakera politiko desberdinetakoak elkarren lagun (AB-269/021)

Pentsakera guztietako lagunak izaten zituzten; ohikoa zen. Martiniano Larrañaga falangista zen. Euskararen alde egin izan zuen. Eguren alkatea.

1.915. Urre-lantegiaren kokapen desberdinak (AB-270/003)

Lantegiaren kokapen desberdinak. Txirixo kalean hasi zen lanean; gero Bidebarrietara pasatu zen. Gerra garaian lantegia erre eta Bidebarrieta 24ra aldatu ziren. Hasierako makinak egurrezkoak ziren. Fernandok Armeria Eskola amaitu zuenean, bertan hasi zen lanean. Gerora Julian Etxeberria kalera eta azkenik Otaola Hiribidera aldatu zuten lantegia.

1.916. Toledoko damaskinatuaren gorakada eta Eibarkoaren beherakada (AB-270/004)

Lan asko izan dute beti. Gutxika-gutxika Eibarko damaskinatuaren beherakada hasi zen eta Toledora bidaltzen hasi ziren urre gehiena. Toledon modernizatzen hasi zirenean, itxi egin behar izan zuten.

1.917. Eibarko eta Toledoko damaskinatuen ezberdintasunak (AB-270/005)

Toledoko eta Eibarko damaskinatuen arteko aldea. Eskopetagintzan ere damaskinatzen zuten. Eibarko damaskinatua hobea zen, eskuz egindakoak kalitatea hobea zeukalako. Toledon modernizatu egin ziren eta han lan gehiago egiten zuten bitartean, Eibarren behea jo zuen.

1.918. Urre-lantegiaren kokapena urtez urte (AB-270/007)

Lantegiaren kokapen aldaketak noiz izan ziren zehazten du.

1.919. Etxebarriarrak Eibarren, "Urredunanequak" (AB-270/008)

Urredunanequak nortzuk ziren: Hilarion (aita), Gregorio (osaba), Fernando, arreba. Etxebarriarrak (Blas, Toribio, Bonifazio...), guztiak Txirio kaleko 6. atarian jaiotakoak ziren.

1.920. Toribio Etxebarriarekin izandako harremana (AB-270/009)

Toribio Etxebarria senide zeukan. Venezuelatik Hendaiara etorri zen behin; gero Eibarrera. Fernandok argazkiak bidaltzen zizkion Santiago Arizmendiarraren bitartez. Toribio Eibarrera etorri zeneko hainbat anekdota; zelakoa zen. Erlijio kontuak; Toribio monagillo izandakoa zen. Toribioren izaera.

1.921. Blas Etxebarriak Eibarko ekonomian izandako garrantzia (AB-270/010)

Blas Etxebarria zuzendari izan zen Banco de San Sebastianen. Pertsonai garrantzitsua izan zen Eibarren. Bertako lantegi guztiak bultzatu zituen gerra ostean. Blasen zaletasunak aipatzen ditu.

1.922. Eibarko damaskinatzaile ezagunak (AB-270/013)

Damaskinatzaile onak izan dira Eibarren: Duni Murua, Txomin Martinez, Pablo Sarasua, Aristondotarrak, Agustin "Matxari" eta abar. Ramiro Larrañagak dauka jasota liburuetan damaskinatuari buruz. Eibar ala Toledo den aitzindaria, eztabaida izan omen da beti. Placido Zuloagari buruzkoak aipatzen ditu.

1.923. Eibarko damaskinatuaren urte goxoak (AB-270/014)

Beraientzat sasoi onena 1970 inguruan izan zen. Toledon gero eta lan gehiago; Eibarren, berriz, ordurako beherakada handia egina zuen. Gerra ostea garai ona izan zen; emakume ugari aritzen ziren lanean. Lan asko zegoen garai hartan Eibarren. Damaskinatzaileak zeuden Euskal herrian zehar ere.

1.924. Urrearen prezioa eta merkatuaren gora-beherak (AB-270/024)

Urrearen prezioa. Gramoa 100 pezetatik gora igo zenean, damaskinatzaileak arduratzen hasi ziren. Haria orria baino garestiagoa zen. Merkatuak gora-behera handiak izaten zituen.

1.925. Gerra osteko errearen kontrabandoa (AB-270/025)

Lehenengo Mundu Gerran, urreak balio gutxi zuen; jendeak nahiago zituen zilarrezko txanponak urrea baino. Urrearen inguruko tranpak azaltzen ditu, kontrabandoari lotutakoak.

1.926. Argazkilaritzarako zaletasuna eta Eibarko argazkilari ezagunak (AB-270/030)

1947 inguruan hasi zen argazkiak egiten, Frantziatik ekarritako makina batekin. Eibarko argazkilariak: Ojanguren, Castrillo eta Jauja ziren.

1.927. Ortuoste y Castrillo Eibarko argazkilaritza denda (AB-270/031)

Argazkilaritzaren inguruko azalpenak ematen ditu. Ortuoste y Castrillo argazki dendaren berri ematen du.

1.928. Indalecio Ojanguren argazkilari ezaguna (AB-270/032)

Indalecio Ojanguren argazkilariari buruzkoak kontatzen ditu. Mendizalea, berbetalaria eta gizon ona zela kontatzen du.

1.929. Feliciano Castrillo argazkilari ezaguna (AB-270/033)

Feliciano Castrillo argazkilaria zelakoa zen eta zertan aritzen zen kontatzen du.

1.930. Urea suberatzea zer den (AB-270/036)

Ure-lantegiko prozesu baten azalpena ematen du. Suberatzea zelan eta zertarako egiten zen.

1.931. Urea egiteko prozesuaren azalpena (AB-270/037)

Lingotea nola urtzen zuten kontatzen du, sutegian, egur-ikatzarekin.

1.932. Asua baserritik Matxariako lantegi batera lanera (AB-271/002)

Asua baserria garai batean bi etxebizitzakoa zen, zatika egindakoa. Ezkondu arte bertan bizi izan zen. Gaztea zela Matxarian hasi zen lanean, Thieme & Edeler lantegian. Asua Matxaritik nahiko gertu dago, baina baso asko zegoen eta euria egiten zuenean, lokatz asko.

1.933. Asua baserriaren ingurua aldatuta (AB-271/003)

Ingurua oso aldatuta dago. Pago ederrak zeuden bide ondoan eta jende asko joaten zen bertara, meriendatzera eta beste. Bariantegatik bota egin zituzten pagoak. Asko aldatu da dena: basoak, pistak... Asko sufritzen zuen lanera zapata zikinekin joan behar izaten zuenean; alemanak korbatarekin joaten ziren.

1.934. Bulegoetan lan egiteko ikastaroak (AB-271/004)

Gerra aurreko urteetan ez zen oso arrunta baserritik kalera lanera jaistea, emakumea izanda. Don Juan Ibargutxik amari esan zion alaba maistra izan behar zela. Juanita maistra izateko pazientziarik ez eta bulego batean lan egiteko prestatzen hasi zen. 17 urterako prest zegoen edonon lanean hasteko. Jostundegi batean zegoela, Don Juan Ibargutxik abisatu zion alemanen fabrikari (Thieme & Edeler) lanpostu bat zegoela.

1.935. Thieme & Edeler lantegiko bulegoan beharrea (AB-271/005)

Alfan eta Hispano-inglesan bulegari batzuk zeuden, baina bestela oso leku gutxitan ikusten ziren emakumeak. Thieme & Edeler-en, eskopetak erosten zituzten tailer desberdinetan, gero beraien marka ipini eta Espainia osora saltzen zituzten. Oso saltzaile onak ziren.

1.936. Eskolara gustora Doña Polonia Etxeberria (AB-271/006)

Doña Polonia Etxeberria izan zen bere irakaslea. Ikastea gustoko zuen; erraz ikasten zituen gauzak gainera. Doktrina euskaraz ikastea egokitu zitzaion. Eskolara joan aurretik erderarik ez zekien, batere ez; baina 10 urte izan zituenerako, inork baino hobeto. Doña Polonia jubilatuta zenean, Emiliana Elorza etorri zen. Irakurtzea beti gustatu izan zaio. 14 urtera arte eskolan ibili zen eta, ondoren, klase partikularrak hartu zituen.

1.937. Thieme & Edeler-en lehenengo lan eguna (AB-271/007)

Baserrian familia handia ziren eta etxekoren bat kalean lan egitea komeni zen. Gerentea nolakoa zen, "Führer" deitzen zioten. Haren idazkari izateko hartu zuten. Hasierako lanak zeintzuk izan ziren kontatzen du; nagusiarekin harremana zelakoa zen azaltzen du. Lehenengo soldata eta hurrengoak jaso zituenerako azaltzen du.

1.938. Baserritarren eta kaletarren arteko harremana (AB-271/009)

Baserritarren eta kaletarren arteko harremana, antzina handiagoa zela uste du. Umetan gutxitan jaisten zen kalera (banaka batzuetan), amak edo tiak ezin zutenean bakarrik. Berari, "la señorita de Asua" esaten zioten batzuek.

1.939. SOV sindikatuan izena emanda (AB-271/010)

Alemanen lantegian beharrean ibili zen. Urte haietan UGT bazegoen, baina bera SOV-ekoa zen. Greba batzuk egon ziren eta lan-baldintzak zerbait hobetu ziren.

1.940. Thieme & Edeler lantegiaren hastapenak (AB-271/012)

Thieme & Edeler lantegiaren sorrera. Alemaniak Lehen Mundu Gerra galdu zuenean enpresari batzuk Alemaniatik etorri ziren negozioa egitera. Lantegiaren hastapenak kontatzen ditu.

1.941. Thieme-Edeler lantegiko gerra garaiko kontuak (AB-271/014)

Thieme & Edeler lantegiko ugazabak zelakoak ziren kontatzen du, baita bere eginkizunak zeintzuk ziren ere. Gerra Zibila hasi zenean, Alemaniara joan ziren. Mundu Gerrako kontuak alemanekin komentatzen zituzten. Urte haietan itxi zen lantegia. Armak, bolbora eta beste inportatzen zituzten; Unión Española de Explosivos zen estatuan konpetentzia bakarra.

1.942. Euskal kultura Errepublika garaian (AB-271/018)

Euskal kultura Errepublika garaian. Umetan, Don Juan Ibargutxiren gidaritzapean, txapelketa batera joan ziren neska-mutil batzuk. Don Juanek euskararen alde lan asko egiten zuen. Juanita eta beste mutil bat Donostiara eraman zituzten irteera bat egitera (Aquariuma ikustera, Kursalera angulak jatera, ikastola batzuk bisitatzer...); idatzi bat eskatu zieten eta lehenengo saria atera zuen lehiaketan.

1.943. Errepublika garaiko Argia, idazleak, liburuak (AB-271/019)

Euskal kultura Errepublika garaian. Baserrian Argia aldizkaria hartzen zuten. Euskal idazleak ezagutzen zituen. Irakurzalea zen. "Garoa" asko gustatu zitzaion.

1.944. Don Juan Ibargutxi abadea (AB-271/021)

Don Juan Ibargutxi abadea berezia zela dio; bizkaitarra, oso intelektuala eta zuzena. Liburuak ere oparitzen zizkion. Gerra ostean ez zen Eibarrera itzuli. Don Policarpo Larrañaga kantuz eta dantzaz arduratzen zen.

1.945. Auzolana eta jaiak baserrietan (AB-271/022)

Lehenago gaztainadi ugari zegoen eta gaztainak batzeko auzolana egiten zuten, eta ondoren, jai. Garia behealdean goizago heltzen zen, eta beste leku batzuetatik gerturatzen ziren laguntzera beraienera. Jatekoa prestatzen zieten denei. Ondoren, beren etxeak joaten ziren besteenera.

1.946. Gariaren inguruko lanak (AB-271/023)

Gariaren inguruko lanak: gari-ebatea eta gari-batzea zela egiten ziren azaltzen du.

1.947. Gari-jotzea eta itulan ibiltzea (AB-271/024)

Gari-jotearen inguruko azalpenak ematen ditu. Harrietan jotzen zen garia. Lan gogorra izaten zen. Gari-garbitzeko makina. Itulan ibiltzea ez zitzaion batere gustatzen; baserriko lan eskasak ez zituen normalean egiten. Lurra lantzeko erabiltzen zituzten tresnak azaltzen ditu.

1.948. Baserriko lanak: laietan nola egiten zen (AB-271/025)

Laietan nola egiten zuten azaltzen du. Lan gogorra zen. Lau lagun behar izaten ziren laietan egiteko; zenbat eta lagun gehiago, lur-sail handiagoa hartu zitekeen.

1.949. Sukaldeko tresnak eta jakiak (AB-271/026)

Baserriko eta kaleko lana desberdinak ziren. Baserriko emakumeak kalekoak baino lan gehiago egiten zuen. Sukaldean zer egoten zen azaltzen du: beheko sua, lapikoa, galdara eta laratza. "Ekonomika" azaldu zenean, aurrerapen handia izan zela dio. Zer jaten zuten kontatzen du: morokila, taloa, ahia; nola egiten ziren azaltzen du. Aitaren garaiko kontuak.

1.950. Labeko sua noiz egiten zuten (AB-271/027)

Labeko sua astean behin egiten zuen amak. Ogi zuria, artoa, eta bildotsik bazegoen, hura ere erretzen zuten. Eskolara ogitartekoa eramaten zutenean, umeren batek aldatzea nahi izaten zuen beti. Artoa zela egiten zuten kontatzen du.

1.951. Baserrian zer jaten zuten (AB-271/028)

Baba gorriak, zuriak, azak, porruak... jaten zituzten. Frutarbolak zituzten etxean eta gerezi eta ginda handiak egiten ziren.

1.952. Aitaren birraitona, udaleko zinegotzi izandakoa (AB-271/031)

Juanitaren birraitonaren aita, Eibarko udalean zinegotzi izan omen zen eta baserrian gordeta zuten orduan erabili zituen kapa eta txapela.

1.953. Sorginak Kalamuarako bidean (AB-271/032)

Berak ez zituen sorginen ipuinak sinesten. Aitonaren inguruko kontu bat aipatzen du. Toponimia (Gorrotzia). Aitak osteria laminekin erabat sinesten zituen; "zer eingo, zer eingo?" esaten zutela. Aitak esaten zion gauza guzti horrek eskopetak desagerrarazi zituela.

1.954. San Juan sorbia, ogi bedeinkatua eta gabonetako ogia (AB-271/034)

"San Juan Sorbia" zer izaten zen sakon azaltzen du. Trumoiak zenean kandela bedeinkatua piztu eta sorbiari sua ematen zitzaion. Zer errezatzen zuten: "Santa Barbara, Santa Cruz, jauna balio jakiguz (...)". Gurutzeak ere urtean behin egiten ziren. San Juan goizean egiten zen ohitura zaharra zen. Ogia bedeinkatzea ere ezagutu zuen, eta gabon gauean ogi muturra gordetzen zen, hurrengo urtera arte. Pazkoa egunean amamak ogi biribil bat bidaltzen zion.

1.955. Eskopeta lantegi inportanteenak; Sarasketa eta Ugartetxea (AB-272/010)

Eibarko eskopeta lantegi inportanteena "Victor Sarasqueta" zen, Errege Etxearen hornitzaile ere bazen eta. Ugartetxea ere inportantea. Non zegoen.

1.956. "Kale barrixa" nolakoa zen (AB-272/014)

"Kale barrixa" nolakoa zen. "Ibargain"ek bertan probatzen omen zituen idiak, harrizko zoruan, aldapa gora. Ze denda eta eraikin zeuden: ile-apaindegia, estankoa, inprenta... bakoitzaren inguruko azalpenak ere ematen ditu.

1.957. "Kale barrixa"n zeuden eraikinak (AB-272/015)

"Kale barrixa"n zer zegoen: taberna, Juan Jose Sarasketaren lantegia, Lasaren torloju-lantegia. Goitik behera, errebuelta hartuta, "kobradoriana" eta etxegina. Lamarianotarrak. Eta beherago Etxezarraga; eskopetak eta pistolak saltzen zituen.

1.958. Koadrilen arteko pikeak (AB-272/016)

"Kale barrixa"n koadrila bat zuen goian eta beste bat behean. Borrokak izaten ziren. Jardinetara joateko ia baimena eskatu behar; han bazen Julian izeneko morrosko bat. Pikeak. Eurak fraideetakoak ziren eta besteak Eskola publikokoak.

1.959. Fraideek zigorrik ez euskaraz hitz egitearren (AB-272/019)

Mutilak bakarrik ibili ziren fraideekin. Eskolan erdaraz egiten zuten; jolas orduan euskaraz egin arren, ez zieten ezer esaten. Binan-binan jaisten ziren eskolatik, fraide bakoitza bere ikasleekin. "Mandarinia" esaten zioten fraidea. Ez zen kotxe askorik ibiltzen, baina mutil gazte bat kotxeak harrapatuta hil zen.

1.960. La Salleko zuzendaria: Luis fraidea (AB-272/020)

La Salleko fraideak ("korazonistak"); "babero" antzekoa zuten jantzian. Batxilerra ere irakasten zuten. Luis fraidea zen zuzendaria, frantsesa. Meritu handia zuela esaten zuten. Fraideetatik Armeria Eskolara pasatzen ziren denak.

1.961. La Salleko fraideen eskola; markesaren lur-sailak (AB-272/021)

La Salleko fraideen ikastetxea Isasi kalean zegoen. Ingurua nolakoa zen. Handik markesaren etxerainoko (Markeskoa) lur-sail guztiak markesarenak ziren. Eliza handia, eskolak eta kapilaua, don Gabriel. Lur-sailen administratzailea. Elgetako bide alderantz, lorategiak. Zuhaitz handiak omen zeuden. Hango zuhaitz bat Itziarren dagoela uste du.

1.962. Isasiko markesaren inguruko kontuak (AB-272/022)

Isasiko markesa Madrildik trenez etortzen zen eta txoferra kotxez bidaltzen zuen. Debara edo Donostiara ere trenez joaten omen ziren. Orduko trenak: pullman-a. Markesaren lur-sailak; baserriak ere bazituen.

1.963. Mojen eraikinak (AB-272/026)

Mesedeetako mojak gerraostean etorri ziren, baina eraikina lehen ere mojena zen. Errepidearen gainetik zubia zeukaten. Ingurua nolakoa zen.

1.964. Batzokiaren eraikina gerra aurretik; bizitako aldaketak (AB-272/028)

Batzokia zegoen eraikina nolakoa zen gerra aurretik eta nortzuk bizi ziren. Rafael Arizmendi, tailer jabea. Lehenengo pisuan, Olano eta Zubiate, alkate izandakoa. EAJk hartu eta obra egin ostean Emakumeen saila eta kafetegia non jarri zituzten. Karlistena zen eraikina eta akzioekin erosi omen zuten. Gero, errekiatuta ere egon zen gerra garaian. Sarreran farmazia (Larrañaga) ere egon zen garai batean.

1.965. Lehenengo Batzokia Trinketean (AB-272/029)

Lehenengo Batzokia ez zuten ezagutu, baina Trinketean egon ei zen, bigarren pisuan. Trinkete hori non zegoen. "Trokaolaneko" zubia. Inguruetan zeuden eraikinak eta bertan bizi zen jendea. Trinketea nolakoa zen; eraikin estua eta luzea. "Fomento". Sarasketaren denda. "Bar Moderno"; Javier Castañón zen jabea. Batzokia gero "Muñoanera" pasa zen. Afiliatu gutxi zeuden orduan, gehienak sozialistak ziren Eibarren eta. Gero beste Batzokia akzioekin erosi zuten.

1.966. Batzokiaren eraikina EAJk hartu zuen sasoia (AB-272/032)

Batzokiaren eraikina nolakoa zen EAJk erosi zuenean. Behean denda. Lehenengo solairuan bulegoak. ELA. Bigarren solairuan kafetegia. Atzealdean frontoia. Hirugarren solairuan Emakumeen saila. Batzokiko frontoia nolakoa zen. Antzokia ere bazuen. Palkoetatik gora atezainaren gelak.

1.967. Estazio kalea: pasialekua, dendak, fonda, bankuak... (AB-274/002)

Estazio kalea. Eibarko pasialekua zen; autorik ez eta bikoteak pasioan. Kale hartan zeuden dendak, hotela, fonda, bankuak... gogoan ditu. Kale desberdinetako jaiak zeintzuk ziren.

1.968. Arraindegi kaleari "Ferrol kalia" (AB-274/003)

Arraindegi kaleari "Ferrol kalia" esaten zioten. Kale guztiek zuten beraien gaitzizena edo santua. Kale bakoitzeko jaiak zeintzuk izaten ziren. Diru-batzen irteten ziren umeak, jai egunean musika ekarri ahal izateko. Bizimodua zeharo aldatu da.

1.969. Futbolista Racing de Santanderren (AB-274/004)

Bi urtetan Racing de Santander-ean jokatu zuen, Errepublikan urteetan. Eibarko jokalaririk ezagunak: Mugerza, Roberto, Gabilondo...

1.970. Matxaria jolasleku ederra (AB-274/006)

Matxaria zen beraien jolas-lekua. Errekara bainatzera, jolasean egitera joaten ziren. Baina mutilak bakarrik joaten ziren, neskarik ez.

1.971. Arraindegi eta Birjiñape kaleak (AB-274/007)

Arraindegi kalea txikia izan arren, hiru okindegi zeuden bertan. Ingurua zelakoa zen: Birjiñapea, tunela eta kunboa, arboladia eta parrokia.

1.972. Arraindegi kaleko bainu-etxea (AB-274/008)

Arraindegi kalean bainu-etxea ere bazegoen. Jendea lanetik irtendakoan joaten zen bertara. Garai hartako Eibar oso desberdina zen.

1.973. Justo Larrañagaren okindegian pilotan (AB-274/010)

Eguraldi txarra zegoenean lagun talde guztia bertara joaten zen. Atzealdean pilotan egin eta jolasean ibiltzen ziren. Candido Eguren ezagutzen du. Gaztetako kontuak.

1.974. Simonaneko okindegia (AB-274/012)

Racing de Santander futbol taldea utzi eta okindegian hasi zen lanean. Okindegia eta errota, Justoren amonarenak ziren; gerora Justoren amarenak eta azkenik beranak. Lan gogorra zen.

1.975. Ogi klaseak: lehengoak eta oraingoak (AB-274/014)

Ogia egiteko prozesua asko aldatu da. Oraingo ogia lehengoa baino hobea dela uste du. Orain dena mekanizatuta dago eta lehen eskuz egin behar zenez dena, ogia askoz ere txikiagoa zen.

1.976. Ogi klaseak: fotak. Grabadoreentzat ogi berezia (AB-274/015)

Fotak banatu behar izaten ziren goizetan. Grabadoreek ogiaren mamia erabiltzen zuten piezei distira ateratzeko. Gerra ostean gose handia egon zen. Horren inguruko kontu batzuk aipatzen ditu.

1.977. Estazio kaleak sekulako garrantzia; Blas Etxeberria eta Eibarko industria (AB-274/019)

Estazio kaleari "Israel" deitzen zioten, Eibarko igandetako pasealekua zelako. Kale honetan bi banku zeuden: Banco de Vizcaya eta Banco San Sebastian. Blas Etxeberria, Eibarren zegoan gizonik garrantzitsuenetakoa (Banco San Sebastianeko zuzendaria). Neurri handi batean berak jaso zuen Eibarko industria.

1.978. Umetako jolasak: neska eta mutilen jolasak (AB-274/022)

Umetan txapelarekin, txirrinbolarekin... jolasten zuten. Neska eta mutilen jolasak. Matxarian, esploratzaileak izango balira bezala ere jolasten zuten, plano eta guzti.

1.979. Nagusiak "tokera" (AB-274/024)

Nagusien denbora-pasak; "tokera" egiteko zaletasun handia. Inguruko onena Gumersindo Dorado zen. Zilarrezko txanpona botatzen zen eta aurkariak huraxe jotzen ahalegindu behar zen, edo ia zein gehiago hurreratu.

1.980. Eibarko iturriak: Ardantza, Ibarkurutze, Amaña... (AB-274/026)

Iturri ederrak zeuden Eibarren: Ardantzakoak, Urkizukoa, Loidinekoa, Untzagakoa, Plaza Berrikoa... Ibarkurutzekoa ere izen handikoa zen (urarentzat bi irteera zituen eta aldamenean lau zuhaitz). Lurrezko pitxarrekin joaten ziren uretara eta txanda eskatu behar izaten zen. Armeria Eskolatik Amañako iturrira jaisten ziren eta han tailerretako errekadistekin elkartu eta tokera jolasten zuten.

1.981. Eibarren langile eta ugazabak elkarrekin lagun artean (AB-274/029)

Eibarren langileak eta ugazabak elkarrekin egoten ziren lagun artean. Gai honen inguruan anekdota batzuk kontatzen dituzte.

1.982. Eibarko "soziedadeen" sorrera (AB-274/031)

Elkarte kultural, gastronomikoen sorrera Eibarren. Kerizpea izan zen lehenengoa.

1.983. Juanito Beistegi, gizon aparta (AB-274/032)

Juanito Beistegi. Gizon jatorra, langilea, abertzalea... Loiola Bataloiko komandantea izan zen gerran 25 urte ingururekin. Kategoria handiko pertsona zen.

1.984. Jose Mari tabernako kafea (AB-276/002)

Jose Mari taberna bere aitak jarri zuen. Urteak aurrera joan ahala, aspertzen joan ziren eta eskualdatzea erabaki zuten. Tabernan ez zegoen orain bezainbeste luxu. Bere aita kafeak egiten trebea zen. Urte askotan oso ezaguna izan zen.

1.985. Astelena frontoitik Jose Mari tabernara (AB-276/005)

Jose Mari tabernara jende asko joaten zen. Kuadrillak txikiteoan ibiltzen ziren. Astelena frontoian partidua edo dantza egoten zenean, jende asko joaten zen gero beraien tabernara. Bere ama oso sukaldari ona zen, Iruñeko hotel garrantzitsuenetako batean ere sukaldari lanetan aritu zen.

1.986. Solaresera laguntza eske (AB-276/006)

Eibarren egondako bonbardaketak oso ongi gogoratzen ditu, baita Durango bonbardatu zuteneko eguna ere. Elizara joaten ziren babestera. Kanpaiekin abisatzen ziren bonbardaketak. Bere amak oso gaizki pasatu zuen. Egun batean trenez Bilbora joan ziren, baina bueltatzeko garaian trenik ez zegoela esan eta Solaresera joan ziren lagun batzuegana. Bertan 5 hilabetez egon ziren.

1.987. Tabernan emakumerik ez (AB-276/016)

Tabernara ez zen emakumerik joaten, eta joaten bazen, gutxi. Zinera bai joaten ziren.

**1.988. Zinea: Salon Teatro, Kruzeta eta Rialtoa
(AB-276/017)**

Asunek oso ondo ezagutzen zuen Salon Teatroya. Pelikula asko ikusitakoa da. Gero Kruzeta eta Rialtoa ere bazeuden, baina Salon Teatroya dotoreagoa zen.

**1.989. Eguedian baso txikia eta gauean baso handia
(AB-276/019)**

Eguedian egiten zen txikiteoan ardo beltza edaten zen. Olibak beti izaten zituzten. Txikiteoa merkea zen. Gauean baso handiagoa jartzen zuten. Denetik prestatzen zuten jateko. Jaietan bete-beteta egoten zen taberna.

**1.990. Ignacio Pagoaga Arratera kotxearekin igotako
lehenengo gizona (AB-277/003)**

Ignacio Pagoaga Arratera lehenengo aldiz kotxearekin igo zen gizona izan zen. Etxe oneko gizona. Kotxe bat erosi zuen eta Arratera igo nahi, baina bidea osorik eginda ez zegoenez, Akondia Baserriko baserriarraren laguntzarekin lortu zuen bere nahia betetzea. Hiru egun eta idien laguntza behar izan zuen. Arratera igo eta gero, gurutzeari buelta eman nahi zion. Honetarako, idiak lotu behar izan zizkion kotxeari.

1.991. Baserriarrak oinez Eibarrera (AB-277/007)

Baserriarrak Eibarrera oinez etortzen ziren astoa ondoan hartuta; gehien bat emakumeak. Agiña, Markina, Mallabi, Elgeta, Zaldibar... inguruetako baserriarrak. Goizetan astoak goraino kargatuta etortzen ziren, merkatu plazan beraien produktuak saltzeko. Lehenengo lana esnea banatzea izaten zen. Batzuetan dena saltzen zuten eta bestetan ez, baina kasu horietan norbaiti ematen zioten soberan gelditutakoa.

1.992. Astoa eta pipermina (AB-277/008)

Juan eta beste bi lagunek, egun batean asto bati ipurditik pipermin bat sartzea pentsatu zuten. Astoari erreakzioa egin zioenean korrika batean irten behar izan zirela kontatzen du.

**1.993. Gizon baserritarra ferietara eta emakumea kalera
(AB-277/010)**

Gizon baserriarrak Eibarrera ez ziren asko etortzen. Durangoko San Antonio eta Elgoibarko Urte Zaharreko feria egunean etortzen ziren gehien bat. Emakumea izan da kalera gehien bajatu dena.

**1.994. 100 kilo arto eraman eta 75 kilo irin itzuli
(AB-277/011)**

Lehen baserritar gehiago zeuden. Arrate inguruko baserrietan gari asko egiten zen. Juanek baserritik behin edo behin jaitsi zuen garia errotara. 100 kiloko zakua jartzen zioten astoari. Errotatik pasa eta gero 75 kiloko irin-zakua itzultzen zizuten. Ez zen lan hau ordaintzen; ordaintzeko modua errotaria gari kilo batzuekin gelditzea zen. Baserriarren artean laguntasun handia zegoen. Baten batek zerbait behar bazuen, ondoko baserrikoak laguntzen zion.

1.995. Lapikotik ahora (AB-277/012)

Garai batean ez zuten platerik erabiltzen; denek leku berdinetik jaten zuten. Lapiko handi bat jarri eta denek hortik jaten zuten. Hasieran Juani ez zitzaion asko gustatu jateko modu hau, baina berehala ohitu behar izan zen.

1.996. Usartzako erromerian neskalaguntzen (AB-277/017)

Baserritarren eta kaletarren artean beti egon da harreman ona. Usartza, Azitain, Maltzagan.. erromeriak egoten ziren eta erromeria hauetara baserrietako neska guztiak joaten ziren. Usartzako erromeria hauetako batean, Juan Markina alderantz joan zen neska batekin, eta bat-batean euri zaparrada bat hasi zen eta neska korrika irten zen, Juan bertan bakarrik utzita. Gau guztia galduta ibili zen. Goizaldean Mallabi ondoan zegoela konturatu zen. Ez zen berriro neska-laguntzen ibili baserritarrekin.

1.997. "Orduan takoi barik be, neskak polittak zian" (AB-277/019)

Juanek oso ondo gogoratzen du garai batean, abarketak bakarrik erabiltzen zituztela; zapatak oso garestiak baitziren. Neguan ezin zituzten abarketak jantzi, baina baserritarrek kotxeen gurpilen zati bat jartzen zioten eta horrela abarketa ez zen bustitzen. Beltzak, zuriak edo urdinak izaten ziren.

1.998. Eibarko udaletxearen sorrera eta inaugurazioa (AB-277/020)

Eibarren dena erreka zen; Olarrean hasi eta Azitain arte erreka bistan zegoen. 1890 inguruan Iturrioz jarri zen alkate eta bera izan zen erreka estaltzearen arduradun. Arrate Hoteletik, Dos de Mayo arte estali zuten erreka. Erreka estali eta gero, udaletxea eraiki zuten gainean. Primerako udaletxe bat, 300.000 pezetarekin. 1901. urtean inauguratu zuten.

1.999. Eibarko erreka obrak (AB-277/022)

Juanek udaletxeak egindako obra bat komentatzen du. Garai batean errekan harriak zeuden eta horien ondorioz Eibarren uholdeak egoten ziren. Erreka estaltzeko obrarekin hasi zirenean, harri horiek kendu eta erreka ingurua txukundu zuten. Horri esker Eibarren ez da uholde gehiago egon.

2.000. Otolá-Erdi baserriko lautadan futboleán (AB-277/023)

Juan umea zenean, Txantxa-Zeláin jolasten zuten futboleán. Gerra aurretik Txantxa-Zeláin lima fabrika bat zegoen. Txantxa-Zelaiz gain, Otolá-Erdiko baserriaren eta haren ondoko okindegiaren artean lautada bat zegoen. Union Deportiva Eibarresak Otolá-Erdiko baserrikoei lautada hori erabiltzearren alokairu bat ordaintzen zien.

2.001. "Vuelta a la Costa" txirrindularitza karrera kamioi batean (AB-277/025)

Eibarren ez da txirrindulari ezagunik egon, nahiz eta batzuk onak izan: Mardaras, Iturriaga... Gerra ostean txirrindulari gehiago irten ziren. Garai horietan tranpa asko egiten ziren. "Vuelta a la Costa" egin zen urte batean, Mardaras eta Iturriaga kamioi batean sartu ziren karrera aurrera egiteko. Hala eta guztiz ere, ez zuten irabazi.

2.002. Bittor Sarasketa eta Alfontso XIII.aren arteko harremana (AB-277/030)

Bittor Sarasketa kalea, lehen Grabadores deitzen zen. Grabadores deitzen zen garai horretan Bittor Sarasketak (aitak) adiskidetasun handia egin zuen erregearekin, Alfontso XIII.arekin. Ehizara joaten ziren biak batera. Bien arteko harremana oso ona zen. Harreman honen ondorioz jarri zioten Grabadores kaleari Bittor Sarasketa izena. Inaugurazio eguna, egun handia izan zen.

2.003. Gerra aurreko futbol zaletasuna (AB-278/004)

Eibarren, gerra aurretik, futboleko jolasteko ohitura handia zegoen. Otolá-Erdiko baserriaren ondoko zelaian jolasten zen. Bertatik irten zen Ziriako Errasti. Alavesera joan zen futboleko jolastera, baita Madrilera ere. Honez gain, gerra aurrean Athletic Kluben bi eibartar egon ziren; Mugerza eta Roberto. Bi hauek selekzioarekin jolastera joan ziren. Beste jokalaririk ezagun bat Ramon Gabilondo izan zen. Ramon berez medikua zen baina "Athletic Aviación" taldean ibili zen futbolari.

2.004. Eibarko txirrindularitza lasterketak (AB-278/006)

Eibarren txirrindularitza lasterketa asko egiten ziren: Eibar-Deba-Eibar, Eibar-Madril-Eibar, "Gran Premio de San Juan", "Vuelta a la Costa". Errepublikara garaian: "Gran Premio de la Republica". Gerra ostean hasi zen "Bicicleta Eibarresa" eta "Subida a Arrate". Lehenengo "Subida a Arrate" 1943an izan zen, irabazlea Pedro Zugasti.

2.005. "Subida a Arrate" lasterketaren hastapenak (AB-278/007)

1943an izan zen lehenengo "Subida a Arrate". Pedro Zugastik irabazi zuen. Lasterketa hau Eibarko Club Deportiboak mendiko irteeren sari banaketa antolatzen zuenean izaten zen. Sari banaketa hau Arraten izaten zen. Oraingo ibilbide bera zen.

2.006. "Subida a Arratera"-ra gonbidapen bidez (AB-278/008)

1943an antolatu zuen lehenengo "Subida a Arrate". Sariak hobetu zituzten, baita txirrindulariak ere. Garai batean lasterketa hau egiten zenean, zerrenda bat jartzen zen eta edonor apuntatu zitekeen. Baina Juan antolatzaile moduan jarri zenean, gonbidapen bidez joaten ziren txirrindulariak. Horrela, txirrindularirik onenak joaten ziren. Gonbidatuta joaten ziren txirrindulari guztiei ordaintzen zieten.

2.007. Tailerrez tailer diru-eskean (AB-278/009)

Juan "Subida a Arrate" antolatzeko tailerrez tailer joaten zen diru eske. Orbeak urte batean 30.000 pezeta eman zizkion. Juanek hori paper batean jartzeko esan eta Beistegirengana joan zen. Beistegik beste 30.000 pezeta eman behar izan zizkion eta Juanek, Orbeari bezala, hori paper batean idazteko eskatu zion. Bi paperekin G.A.C.-ra joan zen. Garai haietan tailerrek oso jarrera ona zuten.

2.008. "Vuelta de España" motorrean (AB-278/014)

Bederatzi aldiz joan zen motorrean "Vuelta de España" lasterketan. Juanek hainbat lan izan zituen txirrindularitzaren inguruan: "Jefe de Comisarios",

"Enlace Director", "Juez de Arbitro", "Comisario Internacional". Marokoko lasterketa batera ere joan zen hiru aldiz.

2.009. Juan de los Toyos: el socialista que quiso ser cura (AB-279/003)

Juan de los Toyos: el socialista que quiso ser cura.

2.010. Juan de los Toyos, amigo de Prieto y muchos otros socialistas (AB-279/006)

Juan de los Toyos, amigo de Prieto y muchos otros socialistas.

2.011. Juan de los Toyos: los años anteriores a la guerra (AB-279/008)

El marido de Ofelia comenta que Juan de los Toyos fue muy perseguido por la monarquía. Tuvo que ir varias veces a Francia. Fue ministro del Gobierno Vasco.

2.012. Juan de los Toyos: un hombre recto (AB-279/011)

Juan de los Toyos: un hombre recto

2.013. Recuerdos de la guerra: la familia de un lado para otro (AB-279/013)

Recuerdos de la guerra. Estuvieron en Francia. Estaban en Paris cuando entraron los Alemanes. Su padre lo pasó mal, porque andaba escapando continuamente de los alemanes.

2.014. Juan de los Toyos tuvo que emigrar muchas veces (AB-279/017)

Juan de los Toyos emigró muchas veces: en la Huelga del 17, en la Revolución de Octubre...

2.015. Juan de los Toyos recorrió 360 kilómetros huyendo de los alemanes (AB-279/030)

Estaban en Paris cuando entraron los alemanes. Su padre fue donde Julian Zugazagoitia a decirle que tenían que huir. Julian le dijo que el no se movería de casa y le mataron. Juan escapó a pie y recorrió 360 kilómetros, escapando de los alemanes. Se enteró de que habían dividido Francia en dos zonas y entonces se fue a Tolouse. Cuando lo encontraron allí tenía los pies ensangrentados. Estuvieron un tiempo en tolouse. Luego dijeron que el Gobierno se iba a México. A su padre le denegaron el permiso para salir de Francia y estuvieron 2 años en Marsella. Luego se fueron a México.

2.016. Juan de los Toyos: con el Gobierno a Barcelona (AB-279/033)

Juan de los Toyos: con el Gobierno a Barcelona, la familia en Bayona.

2.017. Los refugiados vascos en México (AB-279/037)

En México los refugiados vascos se unieron. Se reunían en el Centro Republicano y hacían bailes. Allí conoció a su marido.

2.018. Juan de los Toyos: un gran lector (AB-279/039)

Juan de los Toyos: un gran lector

2.019. De Marsella a Méxiko: Juan de los Toyos haciendo listas y organizando la huida (AB-279/041)

De Marsella a Méxiko: Juan de los Toyos haciendo listas y organizando la huida.

2.020. Juan de los Toyos: deja el cargo en 1942 (AB-279/046)

Juan de los Toyos: deja el cargo en 1942 .

2.021. Juan de los Toyos y Pablo Iglesias (AB-279/049)

La relación de Juan de los Toyos y Pablo Iglesias.

2.022. Recuerdos del día de la proclamación de la República (AB-279/052)

Recuerdos del día de la proclamación de la República .

2.023. Juan de los Toyos: mítines (AB-279/056)

Juan de los Toyos: mítines. Cuando ya pudieron entrar en España, le hacían pronunciar un discurso en cada pueblo. Improvisaba los discursos.

2.024. La primera visita de Ofelia a Eibar tras la muerte de Franco (AB-279/066)

La primera visita de Ofelia a Eibar tras la muerte de Franco .

2.025. Juan de los Toyos y la Revolución del 34 (AB-279/068)

Juan de los Toyos y la Revolución del 34. Tomó parte en la Revolución y luego tuvo que huir a Hendaya. Volvieron después de las elecciones. Al volver, en cada pueblo le hacían pronunciar un discurso. Los improvisaba.

2.026. 1957an GAC-ko lan antolaketa zelakoa zen (AB-280/004)

1957ko otsailaren 11an sartu zen Arnaldo GACean lanean. 1955ean Mobylettea egiten hasi ziren. Hasieran kontrol sailean hasi zen lanean eta handik gutxira montajeko buru jarri zuten. Bera sartu baino pixkat lehenago hasi zen piezen muntaia katean egiten; ordurarte bizikletak banan-banan egiten zituzten.

2.027. GAC lantegiaren sorrera; Eulogio Garateren sorkuntza lana (AB-280/005)

GAC-aren sorrera. Eulogio Garatek Espainiako lehenengo bizikleta egin zuen. Inglaterrara joan ei zen fabrika batera eta buruan ekarri zituen plano eta ideia guztiak. 1960ko hamarkadan makina berriak sartu ziren lantegian, baina hainbat urtetan, Eulogiok asmatutakoa erabili zen.

2.028. GAC eta Orbea bizikleta lantegien arteko harrema (AB-280/006)

Orbea eta GAC-ren arteko harremana zelakoa zen. Konpetentzia izan arren, elkar laguntzen ziren. Paco Anitua, GAC-ko zuzendari izan zen urte askotan.

2.029. GAC-ko forja (AB-280/007)

GAC-an forja ere bazegoen eta pieza asko bertan egiten ziren.

2.030. GAC lantegiaren historia (AB-280/008)

Gerra aurretik Arragueta kalean zuen egoitza; gerora Mendiguren y Zarrua ezarri zen tokianarra. "Korriuanekoa" esaten zioten. Garate, Anitua eta gerra ostean Bildosolak ere parte hartu zuen. Gerra denboran, lantegitik makina batzuk ateratzea lortu eta Isasiko lokal batean laga zituzten. Garai hartako eibartar askoren antzera, ekintzaileak ziren, eta horren adibide garbia Anituaren esaera ezagun bat. GAC-aren lehenengo urteetan armak egiten ziren: karabinak, eskopetak...

2.031. GACko arduradun eta ugazabak (AB-280/011)

GAC-ko ugazabak: Eulogio Garate, Pako Anitua, Felipe Anitua... Andrés Aldazabal ere gizon garrantzitsua izan zen GAC-an. Eulogio Garate zelakoa zen. Ignacio Bildosola

2.032. GAC eta Anituatarrak (AB-280/013)

Paco Anitua gizon serioa eta langilea, argia zen. Gerra aurretik, Pacoren aitak zuzentzen zuen lantegia.

2.033. GAC-ak zuen langile kopurua (AB-280/014)

300 langile inguru izango zituen GAC-ak Arnaldo bertan hasi zenean lanean. Arnaldoren gidaritzapean 75 langile inguru egon ziren, tartean 18 emakume.

2.034. Gerra ostean, hutsetik hasi beharra (AB-280/015)

Gerra ostean hutsetik hasi behar izan ziren. Isasi kalean zuten lantegi txiki batean ekin zioten, gerra garaian gordetako makinekin. Txontan lantegi handiagoa jarri zuten martxan eta poliki-poliki goraka egin zuten. Lantegia txiki geratu zitzairenean, Abadiñora joan ziren (1974ko abuztuaren 26an).

2.035. Lantegiaren kokapena, banaketa (AB-280/016)

Txontako lantegiaren kokapena, sailen banaketa zelakoa zen.

2.036. GAC, lantegi handia eta izen onekoa Eibarren (AB-280/017)

GAC-a lantegi handia zen eta izen ona zuen herri mailan.

2.037. Lan-ordutegia (AB-280/018)

Lan-ordutegia. Urte askotan larunbat arratsaldetan ere lan egin behar. Gerora, "sábado inglés" jarri zuten.

2.038. Urkizu inguruan lantegi handi asko eta langile mugimendu handia (AB-280/019)

Urkizu inguruari, "el barrio sirenático" esaten zioten. Orbea, GAC eta Beisteginekoak sirena ordu berdinean jotzen zuten. Gerora, minutu batzuren tartearekin jotzen hasi ziren. Arratsaldean lanetik irten eta txikiteora joaten ziren.

2.039. Urkizu inguruko lantegiak: GAC, Orbea, Errastineko forja... (AB-280/020)

GAC-an baino lehenago, Amuateginean lan egin zuen. Gaztetan Orbea lantegiaren parean bizi zen Arnaldo, Errastineko forjaren aldameneko etxean.

2.040. Boom industrialia Eibarren (AB-280/021)

Urte oparoak Eibarren. Elgoibartarrendako, dolarraren herria zen Eibar.

2.041. Boom industrialia Eibarren (AB-280/022)

Sasoi horretan lantegi asko sortu ziren Eibarren. Urteetara heldu zen beherakada.

2.042. Bizikletagintzaren urte oparoak (AB-280/023)

Konpetentzia handia zegoen Orbea eta GAC-aren artean. Lehenengo bizikleta lantegiak izan ziren horiek. Beistegui, Cil...geroagokoak dira. Pieza eskaera handiari erantzuna eman ahal izateko lantegi txiki asko sortu ziren.

2.043. GAC lantegiko produkzio sistema zelakoa zen (AB-280/024)

Arnaldoren eginkizunak GAC-an. Hasierako urteetan banan-banan egiten ziren bizikletak; gerora katean lan egiten hasi ziren Prozesuaren garapena.

2.044. Emakumeen lana bizikletagintzan (AB-280/025)

Bizikletaren azkeneko margolanak fileteadorak egiten zituzten; zentradorak ere beti andrak izaten ziren eta makinetan eta enbalatzen ere jarduten zuten.

2.045. Salmentak nora bideratuak zeuden (AB-280/026)

Non saltzen ziren bizikletak eta motorrak. Batzuetan, GAC-ak egindako bizikletak beste lantegi baten izenarekin bidaltzen zituzten (Ciclos Bahamontes, esaterako). Bahamontes txirrindularia.

2.046. Eibar: bizikletagintza eta bizikletarako zaletasuna eskutik doaz (AB-280/027)

Eibar, bizikletagintza munduan garrantzi berezia izan duen herria. Batetik, bizikletagintza eta bestetik bizikletarako zaletasuna.

2.047. Ziklomotorren gorakada (AB-280/029)

Bizikleta, ziklomotor batek zenbat balio zuen 1957. urte inguruan. Diruaren balioa zenbat aldatu den.

2.048. Bizikleten prezioak lantegi guztien artean adosten (AB-280/033)

Beistegui Hnos (BH). Batzarrak egiten zituzten lantegi desberdinen artean bizikleten prezioak erabakitzeko.

2.049. Motorren gorakada: Lanbretta eta GAC aurrez aurre (AB-280/034)

GAC eta Lanbrettako motorren arteko konpetentzia. Mobylette motorra ere, goitik behera beraiek egiten zuten.

2.050. Eibartarren zaletasunak (AB-280/038)

Eibarren gauza askotarako zaletasuna: ahari-jokoak, mendizaletasuna...

2.051. GAC lantegiak konpetentzia gutxi inguruan (AB-280/039)

Eibartik kanpora, konpetentzia gutxi. Estatu Batuetara asko saldu zen; Frantziara ere. Patentearen inguruko konturen bat.

2.052. Karrerretarako bizikletak egiten zituzten lantegiak (AB-280/041)

GAC-ak ez zituen karrerretarako bizikletak egiten. Zeus-ek bai (José Luis Eibar..). Bizikletarekin lotura zuten beste lantegi batzuk: Avelux, CIL.

2.053. GAC-ko ekoizpena: bizikletak eta motorrak (AB-280/042)

GAC-an bi lan-kate zeuden: bata bizikletak egiteko eta bestea motorretarako.

2.054. Motorren gorakada eta bizikleten gainbehera (AB-280/045)

Urteekin, motorren garrantzia gehitu eta bizikletek indarra galdu zuten. Lehenengo bizikleta estatikoa, Cyclostatic-a, Arnaldok diseinatu zuen.

2.055. Armagintza Eibarren (AB-280/053)

Armagintza. Peora bakoitzean lantegi txiki bat. Víctor Sarasketa; AYA garrantzitsuenak.

2.056. Urkizu ingurua zelakoa zen (AB-280/055)

Arrilagaren Klinikaren aurrean, errota zaharra, eskola txikia. Fraileak eta konbentua ere bertan. Retenagaren tailarra eta ondoan Bar Loiola. Urkizuko okindegia. Félix González-en fabrika.

2.057. Casino Amistad (AB-280/056)

Arnaldoren aita, Casino Amistadeko zuzendaria izan zen gerra ostean. Orfeoian ere parte hartzen zuen. Casino Amistad zelakoa zen.

2.058. Alfako igerilekua eta Kakalardokoa baserria (AB-280/057)

Kakalardokoa, baserri zahar bat zen. Haren ondoan, Alfako igerilekua.

2.059. Vicente Garitaonaindia, "Berdengillo" (AB-280/059)

Vicente Garitaonaindia, "Berdengillo". Gerra ostean, etxe ugari egin zituen.

2.060. Toribio Etxebarria eta San Juan kaleetako etxeginak (AB-280/061)

´Berdengillo´ gaitzizena nondik zetorkion Vicenteri. Dos de Mayo kale osoa (gaur Toribio Etxebarria kalea), San Juan kalea... berak egin zituen.

2.061. Eibarko etxegin ezagunak (AB-280/062)

Etxeginak: Félix Ormaetxea; Martín eta Fermín Txurruka

2.062. Abertzaletasunaren sorrera eta Eibarko Batzokiak (AB-281/003)

Abertzaleak Eibarren. Alderdi egunean gertatutako kontu batzuk aipatzen dituzte. Ikurrinaren inguruan haserreak. Lehelengo Batzokia Eibarren, beraien etxean. Abertzaleak, hasieran Trinketean elkartzen ziren. Ez zela toki egokia eta Muñoatarrei lokal txikiren bat eskatu zieten. Julián Muñoak, Hotel Muñoako jantokiari zati bat kendu zion eta bertan jarri zuten Batzokia. Lokala zelakoa zen.

2.063. Gerra aurreko Aberri Egunetan liskarrak (AB-281/004)

Bilbotik autobusak, Donostiako Aberri Egunera joateko. Eibarren jendeak autobusari zikinkeriak botatzen, kristalak apurtu...Anekdotak (beldurra eta batzuk ikurrina kentzea nahi...). Beste behin tiroak...

2.064. Eibarko Batzoki zaharra (AB-281/006)

Republika aurretik, EAJ-ak indarra zuen. Sindikatoak. Casa del Puebloa zerlakoa zen. Muñoaneko etxean zegoen Batzokia.

2.065. Hotel Julian nola jaio zen (AB-281/008)

Amaren anaia nagusia Eibarrera etorri zen eta ostatu bat ipini zuen. Baserrian gelditu ziren arrebak ekarri zituen bertan lan egitera. Ostatua zelakoa zen azaltzen du. Bete-bete eginda egoten zen beti.

2.066. Hotel Julián eta Hotel Comercio (AB-281/011)

Hotel Julián, 1907an sortu zen gutxi gorabehera. Gerora Fonda Bueno ere zabaldu zen Eibarren. Bi hotel zeuden Eibar osoan, beraiena eta Hotel Comercio. Estazioan bezeroen bila nola ibiltzen ziren gogoratzen du. Julián-ek ekarri zuen taxi bezala funtzionatuko zuen lehenengo autoa. Gerra etorri zenerako, 5 taxi zituen. Eibarren industria asko, lantegi asko zeuden.

2.067. Eibarko bertso zaharrak; Petra ta Maria Emeren burua (AB-281/012)

Bertsolari gogorrak Eibarren. "Petra eta María" kanta nork asmatu zuen. Eibarren oso giro alaia; hainbat anekdota kontatzen ditu.

2.068. Muñoatarrak; gurdiekin hasi eta azkenean taxiak ipini (AB-281/013)

Gerra aurretik auto gutxi zeuden Eibarren; beraiek 7 zituzten baina gerra garaian batzuk konfiskatu, beste batzuk bonbardaketarekin erre ziren... Autoekin hasi baino lehenago, zaldiekin ibili zen aita. Familia kontuak. Aita, Elorriotik etorri zenean, gurdizain lana egiten zuen. Zaldi eta gurdi asko Eibarren.

2.069. Eibarko lehenengo autoak eta garajeak (AB-281/014)

Lehenengo autoa erosi zuenean, garrantzi handiko gertaera. Julián Muñoa zelakoa zen (gaztetako kontuak). Ekintzailea: gurdia eta zaldia izatetik autoa eroatera pasatu zen; geroago, gasolina saltzen ere hasi zen.

2.070. "Txalekos" kamioi-gidaria (AB-282/002)

"Txalekos" txoferra zen. Lehenengo Mundu Gerrako kamioiak gidatzen ohitua zegoen. Elgetako esnedunak lana eskaini zion txofer moduan. Beti ibili behar izaten zen kamioia konpontzen; Elgetatik Bergarara joaten zen eta, bertako aldaparen ondorioz, kotxearen frenoak gastatu egiten ziren. Egun batean hau konponduko zion norbait aurkeztu zioten: Bermeoko gizon bat. Beraien arteko harremana eta negozioak nolakoak izan ziren kontatzen du, baita, "Txalekos"-ek tailerra nola jarri zuen.

2.071. Gidabaimena ateratzeko, mekanika ikasi behar (AB-282/005)

Hotel Julianen jende askok egiten zuen lan. Pepe ere han ibiltzen zen mekanika kontuak ikasten, eskolatik irten eta gero. Mutil asko joaten ziren mekanika ikastera; kotxeko gidabaimena ateratzen ere laguntzen zieten. Anai-arreba guztiak aritu ziren bertan ikasten edo lanean.

2.072. Hotel Julianeko kotxeak: Opel, Citroen eta "Maldito" (AB-282/007)

Hasieran kotxeak Opel markakoak ziren. Baina azkenean Citroen-ekin egin zuten tratua; bost urtetik, bost urtera Citroen berria. Gero "Maldito"-ak ekarri zituzten. Aurreko trakzioa zeukaten; horregatik, deitzen ziren "Maldito"-ak. Honen ondoren, berriro etorri ziren Citroen-ak.

2.073. Udan, Debara, autobusean (AB-282/008)

Katxonekoak autobusak zituen. Udan Debara joaten ziren; hilabete guztirako erosten zuten autobuseko txartela. Azken egunean, kostatik buelta bat ematen zuten. Katxonekoak garaje bat zuen; "Garaje Eibarres" deitzen zen.

2.074. Soraluzetik Eibarrera, Petra eta Mariarengana (AB-282/010)

Ez zuten inoiz garraiolari lanik egin, baina beraien Hotelean egoten ziren. Bazegoen Soraluzeko garraiolari ezagun bat; Turkua, hain zuzen. Egunez bere lanak egiten zituen eta larunbat gauetan bidaia espezial bat egiten zuen Eibarrera. Soraluzeko taberna batean egoten zen bidaia horretan apuntatzeko zerrenda. Petra eta Mariarengana joaten ziren denak. Bilbotik etortzen ziren neskak. Azterketa medikoak pasa behar izan zituzten. Medikuen hauen ziurtagiriak eskura izaten zituzten ongi zeudela baieztatzeko.

2.075. Garraiolariak kamioietan (AB-282/011)

Garraiolariak gehitzen joan ziren. Turkua eta Torrenekuak kamioiak erabiltzen hasi ziren. Trenean zebiltzan errekadistei konpetentzia egiten hasi ziren.

2.076. "Batallón Larrañaga" Hotel Julianen (AB-283/004)

Jesus Larrañaga jesuita zen, baina hori utzi eta komunista izatera pasa zen. "Batallón Larrañaga" sortu zuen berak. Nafarren bila joan ziren lehenengo. Oso jende gogorrez osatuta zegoen batailoia. Hotel Julianen Eibarko komunistak zeuden, kargua zuten komunistak eta Peperen aitari jangela txikia beraiei uzteko eskatu zioten; baita irratia ere. Irrati bidez jakiten zituzten kontu asko. Batailoiko batzuk fusilatu egin zituzten, Ermuko alkatea hil zutelako.

2.077. Bi Larrañaga, fusilatu bat (AB-283/005)

Komunistak aparte ibiltzen ziren; indarra zuten. Jesus Larrañaga kategoria handiko gizona zen. Eibarren Larrañaga abizena zuen beste gizon bat zegoen. Beste batailoi batek gizon hau hartu eta fusilatu egin zuen, Jesus Larrañaga zela pentsaturik.

2.078. Ume-umetatik merkatu plazara (AB-283/009)

Ume-umetatik, Pepe askotan joaten zen Merkatu Plazara. Baserritarrak ezagunak ziren eta askotan ematen zizkioten sagarrak opari.

2.079. Gerran, kanoiak eliza ingururantz zuzendurik (AB-283/010)

Merkatu Plazan jaten ematen zuten eta garai batean jende asko joaten zen sukaldaria ona zelako. Baina denborarekin konturatu ziren leku arriskutsua zela bertan egoteko, gerran, kanoiak eliza ingururantz zuzendurik egoten zirelako. Don Ziriakoren txaleta elizaren ondoan zegoen eta hura ere kanoiaz jo zuten.

2.080. Hotel Julianera sukaldatzen ikastera (AB-283/014)

Hotel Julianen sukaldaritza ikastaroak egiten ziren doan. Emakume ezkonberri asko joaten ziren bertara ikastera. Peperen amak zioen hilabete batean jakin beharreko guztia ikasiko zutela. Talde txikitik joaten ziren ikastera. Errezeta guztiak koaderno batean apuntatzen zituzten.

2.081. Hotel Julianen saltzaile asko (AB-283/015)

Hotel Julianen jende asko egoten zen; saltzaile asko. Saltzaileak trenean ibiltzen ziren; joan eta etorri. Batzuetan bi edo hiru egun egiten zituzten Eibarren eta hotelean gelditzen ziren. Gehienak gazteak ziren, nahiz eta zaharrak ere bazeuden.

2.082. Hotelean jaio eta bizi (AB-283/016)

Hotel batean jaiotzea eta bizitzea polita zen, baina bere alde txarrak ere bazituen. Hotelean beti zegoen lanen bat egiteko eta, nahiz eta lagunekin irteteko gogoia izan, ezin. Beti zegoen egitekoren bat. Ezkontzera zihoazen emakume asko bertara joaten ziren lagunekin "errefreskua" hartzera. "Errefreskua" afari-merienda berezi bat izaten zen, despedida moduko bat.

2.083. Hotel Julianeko Soraluzeko sukaldaria (AB-283/017)

Hotel Julianen sukaldaritza ikastaroak ematen ziren, baina ez zen leku bakarra; Ibarburutze kalean ere bazegoen lekuren bat sukaldatzen ikasteko. Beraien hotelean, Peperen amak ematen zituen klaseak eta gero Soraluzeko sukaldari bat hartu zutenean, hark ere bai. Denbora luzez egon zen lanean. Azken egunean, bonba bat bota zuten ondoko tailerrera eta Soraluzeko sukaldari hau harrapatu zuen.

2.084. Eraikina babeslekuaren gainean (AB-283/018)

Eusebio La Fuente Eibarko obretan aritzen zen lanean. Egun batean Peperengana joan zen eta berak egindako babeslekuan etxe bat eraiki behar zutela esan zion. Bi kamiokada harri eta zementu sartu behar izan zituzten. Lana, zuloa egiten baino, kentzen zuen lurra non sartu asmatzea zela esaten du.

2.085. Orbeatarren kontaktuak (AB-283/020)

Gutxi gora behera bazekiten noiz izango ziren bonbardaketak. Orbeatarrek kontaktua zutela esaten du Pepek; izan ere, Orbea tailerraren inguruan bonbak bota ziren, baina inoiz ez zioten tailerrari eman. Estazio kaleko "Cine Cruceta"-n ere sekula ez zuten bota bonbarik. Eta aldiz, inguru guztian etengabe bota zituzten.

2.086. 24 orduko lanaldiak (AB-283/021)

Hotel Julianezen gain, gasolindegia bat ere bazuten. Hotelak, gasolinerak eta taxiak beti zituzten erabilgarri, 24 orduz. Txoferrek lana bukatzen zutenean, Peperen anaiak jartzen ziren gidari moduan.

2.087. Muñoatarren gasolindegia (AB-283/022)

Beraien gasolindegiaz gain, Eibarren beste gasolindegia batzuk zeuden: Untzaga Plazan, "Gallo" tabernaren parean eta Jose Mari tabernaren ondoan. Peperen aitak gasolindegia jarri zituen Eibarren, Elgoibarren, Bergaran eta Markinan. Errepublika ezartzean, Nazionalek kendu egin zituzten hauek. Eibarkoak bakarrik gelditu ziren, baina horiek beranduago kendu zituzten.

2.088. Hotela utzi eta kotxeen mundura pasa (AB-283/023)

Gasolindegia kendu egin zizkieten, eta hotela poliki-poliki uzten joan ziren. Ez zuen inork jarraitzeko asmorik. Hotela alde batera utzi zuten, baina kotxeen inguruan hasi ziren lanean. Zuloagatarren kalean kotxeak konpontzeko garaje bat zeukaten eta baita kotxeen piezak saltzen zituzten denda bat ere.

2.089. Hotel Julianeko ispiluak eta Jose Mari "Maleterua" (AB-283/024)

Hotel Julianen ispilu handi batzuk zeukaten. Saltzaile asko jokoan aritzen ziren bertan. Horietako bat Jose Mari "Maleterua" izaten zen. Jose Mari hoteleko kristal horiek erabiltzen zituen besteen kartak ikusteko. Batzuek bazekiten tranpa hau egiten zuela, baina beste askok ez; gizon argia zen.

2.090. Ángel Marcanoren kanta (AB-284/004)

Marcanotarrak. Aitona Santander aldetik etorri zen Eibarrera. Ángel Marcanoren kanta nondik datorren. Egilea ezezaguna da.

2.091. Marcanotarrak marrazkilari onak izan dira beti (AB-284/006)

Familian marrazkigintzarako esku ona izan dute beti. Santik, Eibarko eliza aurrean kokatzen zen "Kontseju Zaharrean" marrazten erakusten zuen. Aitak bere kontura ikasi zuen. Aerografoaz tailerretarako marrazkiak egiten jardun zuen aitak gerraostean. Marrazketa industrialeko eskolak ematen laguntzen zion Nicetok aldatze kalean aitak zuen marrazki eskolan.

2.092. Luis Marcano marrazkilaria (AB-284/007)

1934ko urriko iraultzaren ondorioz kartzela zigorra izan zuen aitak. Kartzelan zegoela, bertan zeuden eibartar bakoitzaren aurpegia marraztu zuen irudi bakar batean. Kartzelatik irtetea egokitu zitzaionean, aurpegi bakarra geratzen zitzaion marrazteko. Ia metro bateko marrazkia zela kontatzen du.

2.093. Alfaren hastapena eta bilakaera (AB-284/010)

1952an hasi zen Niceto Alfaren lanean. Gerra aurreko urteetan pistolak ekoizten ziren Alfaren baina, gerra ostean, josteko makinak egiten hasi ziren pistolak egiteko baimenik gabe geratu zirelako. 1920an sortu zen lantegia. Blas Etxeberria eta Toribio Etxeberria izan ziren promotore. Produkzioaren dibertsifikatzea etorri zen gerraostean: fundizioa eta mikrofusioa sortu ziren hartan. Josteko makinaz gain, produktu-mota desberdin ugari ekoitzi zituela kontatzen du. Lambretta-ren %41aren jabe zen Alfa. Amaieran, osorik bereganatu zuela kontatzen du. Blas Etxeberriak, "Banco San Sebastian"-eko zuzendaria zenak, ekonomikoki laguntzen zuen Alfa.

2.094. Alfaren egoitza eta antolaketa (AB-284/011)

Alfa lantegiaren egoitzari buruzko azalpenak. Igerilekua egon zen tokian, galdategia egin zen. Beste lokalaren ondoan zeuden etxeak erre egin ziren, eta lokal horren gainean beste 3 pisu jaso ziren. Galdategia; bulegoak. 1700 langile izan zituen garai batean.

2.095. Alfaren filosofia; gerra ondorengo egoera (AB-284/012)

Eibartarrei lana ematea zen helburua. Lana lortzeko baldintza akzioak izatea eskatzen zen: gutxienez 100.000 pezeta akziotan. Gerra aurreko urteetan kooperatiba moduan funtzionatzen zuen; S.A moduan ondoren. Gerra ostean nahiko arin hasi ziren berriz lanean: 1940. urte ingururako hasiak ziren josteko makinak egiten. Hala ere, gerraostean izan zen arazorik.

2.096. Alfaren hazkundera 1950etik aurrera (AB-284/014)

Alfaren handitzeari buruz dihardu. Galdategia martxan jartzearekin batera sartu zen Niceto Alfaren. Felipe Elkororekin batera egiten zituen Nicetok galdategirako proiektu berriak. 1953ko maiatzean inauguratu zuten galdategia. Urte amaierarako, mikrofusioa. 1985ean, aluminio-mikrofusioa jarri zen martxan. Bulego berriak, 1959an egin ziren. Transferra, 1953aren bukaeran jarri zen. Transferraren funtzionamenduari buruzko azalpenak.

2.097. Alfaren ekoizpena eta nora saltzen zen (AB-284/015)

Transferraren funtzionamenduari buruzko azalpenak. Sekulako aurrerapena zen sasoirako. Renault etxeak egin zien espresuki eta ikusmin handia pizten zuela dauka gogoan. Urtean 25.000 josteko makina inguru egiten zituzten.

1952. urtean, 800 langile inguru zeuden. Urteetara, 1.700 izatera iritsi ziren (1968-70 urteetan). 1973an krisia hasi zen. Sasoirik onena, 1960-73 bitartekoa izan zen. Gerraostean ere diru asko irabazi zen. Produkzioaren %80a Espainian saltzen zen; gainontzekoa, Portugal, Italia, etab.

2.098. Alfaren itxura eta antolaketa (AB-284/017)

Lantegiaren produkzio garrantzitsuena, josteko makina; ondoren galtzairutegia. Azkenengo urteetan mekanizazioak ere indarra hartu zuen: pieza galdatu eta gero mekanizatu.

2.099. Alfako lanik gogorrena fundiziokoa (AB-284/020)

Lan gogorrena galdategikoa zen: hautsa, zarata... Lan hau gehienetan baserritarrek egiten zuten.

2.100. Alfak izen handia zuen (AB-284/021)

Inguruko herrietatik (Berriz, Durango, Markina, e.a.) etortzen zen jendea peoi lana egitera. Alfak, gerra aurretik eta gerra ostean ere izen handia zuen (Alfistak..). Enpresa handia izateaz gain filosofia berezia ere bazuen. Gerora beste kooperatiba batzuk sortu ziren (Arrasatekoa, e.a.) baina planteamendua desberdina zen.

2.101. Alfa lantegiaren organigrama (AB-284/022)

Alfaren organigrama.

2.102. Alfaren lan soziala: denda, eskola, udalekuak... (AB-284/023)

Eskola, ekonomatoa. Ondarroan, "Harrigorri" udalekua (Alfako langileen umeendako). Ekonomatoa non zegoen; nola funtzionatzen zuen.

2.103. Eibarko lantegi handienak (AB-284/025)

Eibarko lantegi garrantzitsuenak: Alfa; GAC, BH, CIL, Orbea... Eskopetagintzan: Ugartetxea, Laurona... Sirena entzutearekin batera, langile guztiak lanetik irtetzen ziren. Ohitura izaten zen lanetik irten ondoren txikiteoa egitea; bazkaldu ondoren, "kafe konpletoa" hartzen zuten askok.

2.104. Lan-ordutegia; egutegia (AB-284/026)

Lantegiko ordutegia: 8:00-12:00 eta 14:00-18:30. "Sábado inglés"; ordutegi berria Alfan ipini zen lehenengoz. Beste lantegietan, 4-5 urtera. Urte batzutara, larunbat osoa jai. Oporrak.

2.105. Lehenago diru gutxiago eduki arren, giro hobea izaten zuten (AB-284/027)

Txikiteoa egiteko ohitura. "Usteze, domekia zala egun guztietan!". Giro polita egoten zen, guztiak elkarrekin, banaketarik gabe. Diru-kontuak. Urteak aurrera joan ahala, gauzak asko aldatu dira.

2.106. Alfa: zinema, liburutegia... (AB-284/029)

Alfa lantegiko eraikuntza berrian zinea eta liburutegia jarri zituzten.

2.107. Aitona, Amañako trenbideko "katapaza" (AB-285/002)

Aitona, Jose Mugerza; izatez, mendarotarra. 1928-1930 inguruan etorri zen Eibarrera. Ermutik hasita Maltzagara arteko trenbidearen arduraduna zen. Amañan garai batean egon zen etxetxea berarentzat egindakoa zen. Niceto etxe hartan jaio zen. Trenaren inguruko azalpen interesgarriak eta umetako oroitzapenak. Amaren ama Alfa aurrean zegoen baserrikoa zen. Familiako kontuak.

2.108. Trenaren ibilbidea eta geltokiak (AB-285/003)

Trenaren ibilbidea eta geltokiak. Maltzaga inportantea izan zen, hantxe elkartzen zirelako tren guztiak. Kantina ere bazegoen. Mekolalden, Bergara baino lehentxoago, Zumarragarako gurutzatzea egiten zuen trenak. Bergarako geltokiak.

2.109. Trenbideko etxea eta inguruko baserriak (AB-285/005)

Trenbideko etxea 1971-1972 inguruan bota zuten. Ordura arte jendea bizi izan zen bertan. Bere aitona ostean, Eusebio Gorrotxategik izan zuen trenbidearen kargua. Amaña inguruan zeuden baserriak: "Kakalardokua" eta "Barrenengua" (argazkian identifikatzen ditu).

2.110. Amaña-Barrenengua ingurua; "tiro-pitxoia" (AB-285/007)

Amañako ingurua zelakoa zen. Amañatik Isasiraino ortuak. Baserriak: "Kakalardokua"; "Barrenengua"; "Torrekua"; "Kamitxoia"; "Otola-erdikua". Ingurua zelakoa zen. "Kamitxoia" baserriaren aldamenen futbol zelaia egon zen eta aurrean "tiro-pitxoia" (uso-tiroa). Gogoan ditu eskopeta-egileek antolatutako txapelketak. Nortzuk izaten ziren onenak. Arrateko "tiro-pitxoia" geroago egin zen.

2.111. Amaña ingurua eta igerilekua (AB-285/008)

Amañako igerilekuaren aldamenen parke txiki bat zegoen. Igerilekua zelakoa zen. Gogoan du harea ere ekarri zutela trenez, hondartza antzekoa egiteko. Itxi zutenean, belar antzekoa geratu zen eta futbolearen aritzen ziren. Inguruko herrietan ez zegoen horrelakorik. Eibarrek beti izan du gauzak egiteko gogo. Ospitala.

2.112. Gerra ondorengo egoera: euskararen erabilera; gosea (AB-285/010)

Euskaraz-erdaraz hitz egitearen inguruko azalpenak. Kanpotik etorritako jendea. Gerra ostean, euskararen kontrako jarrerak. Errazionamendua. "Regiones Devastadas". Erreka.

2.113. Umetako jolasak eta bihurrikeriak (AB-285/012)

Umetan egindako bihurrikeriak: mendira sagar-lapurretara. Lindarira joaten ziren sarri. Jolasak: goitibeherak; futbola; kateka. Haizezkoarekin txoritan ere egiten zuten batzuetan.

2.114. Frontoi Zaharreko eskola; Armeria Eskolara praka luzeekin (AB-285/013)

Frontoi Zaharreko eskolara joaten zen, sarritan gogoz kontra. Orduko maisuak gogorak ziren. Jesusa Arregirekin klase partikularrak hartu zituen, Armeria Eskolarako prestatzeko. 13 urterekin Armeria Eskolara praka luzeekin eta "gizon" eginda. 15-16 urtera arte ez zen janzten praka luzerik; ordura arte erdibidekoak janzten ziren: "bonbatxuak".

2.115. Eibarko industria eta Armeria Eskola (AB-285/014)

Armeria Eskola. Jendea ondo prestatuta irten izan da bertatik. Tailerrak sortzeko ilusioa. Eibarko tailer gehienak hutsetik hasitakoak. Industria Eibarren gerra osteko urteetan. Industriarako eta armagintzarako sasoi ona. Denak balio zuen, dena saltzen zen. Asmatzaileak ere baziren, lbacetatarrak, adibidez. Helmholtz markako organoak asmatu zituzten. Telebistak ere egiten zituzten.

2.116. Enpresa asko kanpora, leku faltagatik (AB-285/015)

Eibarren handitzeko lekurik ez eta enpresa asko kanpora joan ziren: Gasteizera, Durangora, Berrizera... Kanpora joandako enpresak. Krisi sasoa 1973 inguruan. Orduan hasi zen industriaren beherakada.

2.117. Alfa: armagintzatik josteko makinara (AB-286/006)

Alfa lantegia, armagintzatik josteko makinara. Gerra ondorengo urteetan, Alfari ez zioten baimenik eman pistolak egiteko. Bulego tekniko bat martxan jarri zen, josteko makinak diseinatzeko, hobetzeko, modelo berriak ateratzeko... "Oficina Técnica de Ensayos". Hasieran modelo bi zeuden bakarrik. Gero modelo industrial bat ere egiten hasi ziren. Armagintzatik josteko makinara pasatzeko, makinak berritu egin behar izan ziren.

2.118. Alfako mekanizatuaren prozesua (AB-286/007)

Denborarekin gauzak automatizatzen joan ziren Alfa lantegian. "Unidades de Mecanizado". Transferrarekin buruari eta plakari 36 operazio inguru egiteko aukera zegoen. Lehen 36 langilek egiten zutena, gero, bik egiten zuten. Produkzioa gehitu zen. Lantegian erabiltzen ziren makina asko bertan diseinatutakoak ziren.

2.119. Alfak aspaldi jarri zuen martxan I+D (AB-286/009)

I+D eta kontu horiek guztiak Alfak aspaldi jarri zituela martxan dio. Gauzak asmatzeko gaitasuna.

2.120. Alfaren egitura 1950 inguruan; galdategiaren inaugurazioa (AB-286/011)

Alfako galdategia 1953an ireki zen. Alfa hiru zati handitan banatzen zen: josteko makina, galdategia eta mikrofusioa. Galdategia egin aurretik Elorrioko "La industrial cerrajera"tik eta Bidebarrieta kalean zegoen Irustatarren "Fundiciones Estrella"tik ekartzen ziren piezak. Galdategiaren inauguraziora (maiatzaren 30ean) Andreu obispoa joan zen. Hasieran josteko makinentzako piezak egiten zituzten, baina gerora kanporako ere egiten zituzten, batez ere kotxeentzat. Zer pieza gehiago egiten zituzten.

2.121. Alfako galdategia; kubilotea eta labeak (AB-286/013)

Alfa lantegiko galdategian, hasieran, burdina bakarrik laminatzen zen (burdinurtua). Gero dibertsifikatzen joan zen. Kubilotea; zelakoa den esplikatzeko du. Labe elektrikoak etorri ziren geroxeago, Lambretta lantegirako piezak egiteko (aleazio desberdina behar izaten zuten). Labe elektrikoaren eta kubilotearen arteko desberdintasuna; kubilotea, fundizio normalerako erabiltzen da; "fundición laminar"; labeetan aleazioak egiten dira. Labeko burdina, garestiagoa. Kubiloterako lingote arrunta, txatarra, kokea eta kareharria. Harria "eskorixia" (zepa) batzeko erabiltzen zen. Burdina Bilboko Labe Garaietatik ekartzen zuten.

2.122. Galdategiko prozesua I (AB-286/015)

Galdategiko prozesua azaltzen du, Alfako galdategiko argazki zaharren laguntzaz. Moldatzeko plaka eta kaxa. Nola prentsatzeko zen. Harea; sobratzen zen harea berrerabili egiten zen. Bi "karrusel" zeuden, bat kaxa txikientzat eta bestea handientzat. Bakoitzean zer pieza egiten zen. Kubilotetik burdina urtua koilara handi batzuetara ateratzen zen eta moldeetara bota ("kolau").

2.123. Alfako galdategia (AB-286/016)

Alfako galdategian 80-100 molde egiten zituzten orduan. 30 tonatik gora funditzen zituzten. Nahastean egiten zituzten josteko makinentzat piezak eta kanporakoak (kotxeentzakoak, adibidez). Baina, horretarako, une horretan zerabilten burdinak denentzat balio behar. Esaterako, disko-balaztak egiteko, burdina arruntak ez zuen balio. Halakoetarako, aleazio berezietarako, labeak ekarri ziren. Galdategiaren inguruko azalpenak. Akatsak non sor zitezkeen. Harea berezia izaten zen eta Lemoa ingurutik ekartzen zuten.

2.124. Galdategiko prozesua II (AB-286/017)

Galdategiko prozesua azaltzen du, Alfako galdategiko argazki zaharren laguntzaz. Moldeatu; kaxak lotu; funditu; kaxak bueltan etortzen ziren, eta beste aldean "desmoldeua" egiten zen. Bibragailu bat zegoen; piezak parrila gainean laga eta harea azpiko zintara botatzen zuen. Piezak alde batetik eta harea bestetik, "tolbetara". Funditu eta gero, oraindik ezin da desmuntatu, baina bueltan bai (burdina gogortutakoan). Piezak garbitu egiten ziren (harea gelditzen da) "granalladora" batzuekin. Handik "rebarbaura" (bizar-kentzera) pasatzen ziren. Eskuz egiten zen. Handik kontrolera pasatzen ziren piezak. Gaizki irteten zirenak berriz kubiloterara.

2.125. Alfako galdategia; bi kubilote txandaka lanean (AB-286/018)

Alfako galdategiaren inguruko azalpenak. Kubilotean lau behargin gutxienez. Bi kubilote zeuden, txandaka lanean: egun batean bata eta hurrengoan bestea. Bero handiarekin burdina dilatatu egiten zen eta, hozterakoan, kubilotea zartatu. Hurrengo egunerako prest jartzeko, behargin bat barrura sartzen zen kubilotea "partxeatzera". Kubiloteak buelta guztian harri erregogorra ("refraktarixua") edukitzen zuen. Indukziozko labeetan (elektrikoetan) ez zen halakorik gertatzen, gau eta egun martxan egoten ziren eta. Labe bien funtzionamendua.

2.126. Alfako galdategia; kubilotearen inguruko azalpenak (AB-286/019)

Alfako galdategiaren inguruko azalpenak. Kubilotea kokearekin berotzen zen eta gero pixkanaka botatzen ziren burdina lingoteak eta txarto irtendako piezak. Lingoteak 4-5 kilokoak. Eskuz betetzen zen kubilotea; dena goitik botatzen zen (burdina, kareharria...). Irteera bat zeukan zeparentzat ("eskorixiandako"). Nola ateratzen zen. Kubilotetik burdina urtua 200 kiloko koilara handietara; handik moldaketa kaxetara. Koilarak materia erregogorrarekin babestuta egoten ziren, burdinurtua ez hozteko. Kaxekin arazoren bat bazegoen, koilaratik bazter batera botatzen zen burdina. Bestela, lingote-ontzietara.

2.127. Galdategian hiru lan mota; arropa eta babesgarriak; arriskuak (AB-286/020)

Alfako galdategiaren inguruko azalpenak. Behar oso gogorra zen. Hiru behargin mota: "moldeadoriak", "koladoriak" eta "desmoldeokuak". Desmoldekatze lana zen txarrenetakoa (zarata, hautsa...). Lanerako eskularruak, amantala, polainak (larruzko bereziak) eta botak erabiltzen zituzten. Belarriak babestekoekin eztabaida handia egon zen, zarata handiarekin lan egiten zuten eta. Kubilotearen arriskua: lantzean behin leherketa txikiren bat. Zepa ("eskorixia") nola ateratzen zen kubilotetik eta labe elektrikoetatik. Labe elektrikoetan askoz gutxiago egiten zen. Harria botatzen zen kubiloterara, zepa batzeko.

2.128. Plaken diseinua; zailena "matxuak" (arrak) diseinatzea (AB-286/021)

Felipe Elkorok eta Nicetok berak egin zituzten josteko makinaren plaken diseinuak. Erantzukizun handiko beharra. Plaka gaizki diseinatuta bazegoen, piezak ez zuen ezertarako balio. Zelan hasi ziren. Gaitzena "cajas de macho" diseinatzea (margotzen hasten da, azalpenak hobeto ulertu ahal izateko). "Cajas de macho" arrak ("matxuak") egiteko negatibo bat dira. Alderantziz begiratu behar da. Arrak piezak erdian zuloa eduki dezan beharrezkoak ziren; bestela, pieza osoa burdinaz betetzen da.

2.129. "Matxuen" (arren) diseinua I (AB-286/022)

Alfako piezen diseinua egiten zuen. Marrazkiak eginez, "matxo" edo arren diseinuaren inguruko azalpenak ematen ditu. Portadak egiten ziren, arrak moldean asentatzeko. "Caja de machos" diseinatzea zen zailena, arra behar bezala irteteko, marrazkia alderantziz egin behar zelako (negatiboa).

2.130. "Matxuen" (arren) diseinua II (AB-286/023)

Alfako piezen diseinua egiten zuen. Marrazkiak eginez, "matxo" edo arren diseinuaren inguruko azalpenak ematen ditu. Dena ondo neurtuta diseinatu behar zen. "Kontrakziñuak" ipini behar izaten ziren "caja de machos" diseinatzerakoan, burdina, hozten denean, uzkurto egiten dela kontuan izanda. Piezaren erdiko arra kendu egiten zen gero. Ar hori hareazkoa izaten zen, baina harea berezia, gogorragoa.

2.131. Piezen diseinua; arrak; galdatzea (AB-286/024)

Marrazki bidez, piezen diseinuaren eta galdategiko lanen inguruko azalpenak ematen ditu. Pieza galdatzeko, inbutua; kanal batzuetatik pieza burdinaz betetzen zen. Pieza handia zenean, burdina 2-3 lekutatik. Arra desmoldekatzean kentzen da. Pieza bakoitzerako ar bat.

2.132. Alfa; handitzeko ilusioa (AB-286/025)

Zelan hasi ziren Alfako galdategiko diseinuak egiten. Handitzeko ilusioa. Gehiena bertan egiten zuten. Fundizioko beharginak. Gero errelebo bi sartu ziren, eta labeetan hiru errelebo (indukzioko labeetan).

2.133. Alfa: burdina eta harearen probetak (AB-287/002)

Argazki zahar bati begira azalpen batzuk ematen ditu. Burdinaren eta harearen probetak egiten zituzten laborategian, ezaugarriak zehazteko.

2.134. Alfa: mikrofusioa zer den (AB-287/003)

Mikrofusioa zer den eta non egiten zuten azaltzen du.

2.135. Alfa: moldea zelan egiten zen (AB-287/005)

Mekanizatu eta gero, muntatu egiten zituzten. Marrazki bat egiten du, moldea zelan egiten zen azaltzeko.

2.136. Alfa: sukaldeetako parrilak (AB-287/006)

Sukaldeetako parrilak egiten hasi ziren, josteko makina mekanikoetatik elektrikoak egitera pasatu zirenean.

2.137. Alfa: galdaketa motak (AB-287/008)

Galdaketa motei buruzko azalpenak ematen ditu, liburu bat eskuetan duela.

2.138. Alfa: prentsaketa prozesua (AB-287/009)

Prensaketa zelan egiten zuten azaltzen du, marrazten duen bitartean.

2.139. Alfa lantegiaren atalak (AB-287/012)

Alfan zeuden lan-prozesuak eta eremuak izendatu eta kokatzen ditu.

2.140. Perretxikotan aitarekin ikasi (AB-289/002)

Perretxikotan zelan hasi zen. Zortzi urte inguru zituela, aitarekin hasi zen, zeintzuk ziren perretxiko onak eta zeintzuk txarrak ikasten. Txorikumeak ere hartzen zituen. Andra Mari martiko egunaren bueltako esaera. Gehienetan Buztingorri ingurura joaten ziren. Han etortzen zen lehenengo perretxikoa.

2.141. Esnegorriak ("robilloiak") noiz agertu ziren Eibarren (AB-289/003)

Garai batean ez ziren pinudira sartzen perretxikotara; hangoak pozoitsuak zirela esaten zen. Katalan batek esnegorriak ("robilloiak") batu eta jan egin zituen. Jendea zain egon omen zen ea bizirik ateratzen ote zen. Gerraostean hasi zen jendea esnegorriak jaten, katalan hura ikusita. Jendea erraz beldurtzen zen perretxikoekin. Lehen ugariak ziren, orain gero eta gutxiago ikusten dira. Bera umea zenean, Elgetako pinudietara. Don Ziriako medikuak jendea hara bidaltzen zuen, pinua osasunarentzat ona zela eta.

2.142. Perretxikoak: "pardillak" (AB-289/004)

Bi "pardilla" (ilarraka) klase daude, bata txarra eta bestea ona. Oso antzekoak dira eta erraza da nahastea. Behin lagun batengana joan zen Bergarara eta "pardilla" txarrak janda gaixorik egon zirela kontatu zion. Perretxiko txarrak eta onak otarre berean nahastuz gero, esporen bitartez pozoia batetik bestera pasa daiteke.

2.143. Zozo-birigarrotan "keixapian" (AB-289/006)

Goizaldean gereziondo azpian ipini eta zozo-birigarrotan egiten zuten. Orduan ere debekatuta zegoen, eta gaur egun astakeria iruditzen zaio, baina garai hartan oso arrunta zen. Mikeleteak eta Guardia Zibilak atzetik izaten zituzten. Mikeleteak baserriko semeak ziren eta gogorrak ziren, mendian ibiltzen zekitenak.

2.144. Amak perretxikorik nahi ez (AB-289/008)

Aita astegunetan ere perretxikotara joaten zen. Amari ez zitzaion larregi gustatzen, perretxikoek olio asko behar izaten zuten eta. Lagunei emateko esaten zion.

2.145. Beraiek harrapatu eta tabernariak prestatu (AB-289/010)

Batzuek ez zuten nahi izaten perretxikorik, olio asko behar zutelako. Gerra aurretik bai perretxikoak eta bai ehiza tabernara eramaten ziren eta bertan prestatzen zituzten. Gerraostean ez zuten nahi izaten prestatzerik.

2.146. Eibarko perretxiko lekuak (AB-289/012)

Perretxiko lekuak Eibarren. Perretxikoak lehen irtendako lekuan berriz irteten dira.

2.147. Perretxikoekin kontuz (AB-289/015)

Nafarroako perretxikoak gogorrakoak dira; hemengoak hobeak eta bigunagoak. Perretxikoak ondo egin behar dira, eta hobeto eguerdian jatea, eta ez gauean. Bere lagun bati pasatutakoa: perretxiko "arraroak" jan zituen; gauean beldurtuta jaiki eta litro bat esne edan zuen, badaezpada. Perretxikoekin kontuz ibili behar da.

2.148. Perretxiko lekuri onenak (AB-289/018)

Perretxiko lekuak. Zainduta zeuden basoetan basatietan baino perretxiko gehiago eta hobeak irteten ziren. Toki hezeetan irteten dira. Etumeta inguruan eta Urrakin ibiltzen ziren. Onddo-lekuri onenak San Migel eta Oiz inguruak.

2.149. Perretxiko izenak: urdina, gibelurdina, urritxa... (AB-289/019)

Urritxak eta urdinak. Zenbat klase dauden, zelakoak diren, zein onena...

2.150. Kuletoa, amanita mota bat (AB-289/020)

Kuletoak. Jendeak badaezpada ez ditu hartzen, gorri kolorekoak izanda, kaltegarriak direla uste dutelako. Amanita muskariaren antzekoa da; zer desberdintasun duten. Gazte batzuk muskariak batzen ikusi zitueneko kontuak. Amanitei "lanpernak" esaten zieten.

2.151. "Negrillak", onddoen pareko (AB-289/023)

Azaro aldean "negrillak" hasten dira. Urritxaren antzekoak dira. Nolakoak izaten diren eta non hartu izan dituen. Behin onddoak zirela esanda, lagunei ipini zizkien tortillan. Asko gutxitu omen da.

2.152. Perretxiko onak gutxitu egin dira (AB-289/024)

Perretxikoak gero eta urriagoak. "Senderuela" nolakoa izaten den. Tortillan onddoaren inbidiarik ez du. Asko gutxitu da. Kuletoa ere bai: "Kuletruari permisua eskatu bihar jako hartzeko!". Zelaiko txanpiñoia ere gutxitu egin da. Lehen zelaia zuri-zuri.

2.153. Perretxiko kaltegarriak: zapo-perretxikoak (AB-289/026)

Perretxiko kaltegarriei zelan deitzen zieten.

2.154. Perretxikotalariak, beti ezkutuan (AB-289/027)

Onddoen artean onena onddo zuria. Perretxikotalariak asko gorde dituzte euren tokiak. Eta alderantziz ere bai, beste batzuen atzetik joan, leku onak topatzeko. Anekdotak batzuk kontatzen ditu horren inguruan. Burgos aldetik ekarritako onddoek itxura ederra, baina hondarrez beteta.

2.155. Perretxiko kaltegarriak: zapo-perretxikoak (AB-289/028)

Perretxiko kaltegarriei "suge-perretxikoak" edo "zapo-perretxikoak" esaten zitzairen. Gerra aurretik ez ziren pinudietan sartzen, hango perretxikoak kaltegarriak zirelakoan. Esnegorria edo "robilloia" ez zuten ezagutzen; katalan batek barrik jaten zituen.

2.156. Esne-perretxikoa; onddo mota ezezaguna (AB-289/029)

Esne-perretxikoak nolakoak izaten diren. Jangarriak direla esaten dute, baina jendeak ez ditu jaten. Ongi ezagutzen ez den onddo klase bat. Satan onddoaren antzekoa da, baina satan kaltegarria da eta bestea onenetakoa. Jendeak ez du hartzen, kirtena gorria duelako. Lagun bati egin zion tranpa.

2.157. Barinagan perretxikoekin gertatutako anekdota (AB-289/030)

Barinagan perretxikoekin gertatutako anekdota.

2.158. Perretxikoak hilabetez hilabete (AB-289/031)

Hilabetez hilabete zer perretxiko hartzen den. Eguraldiak duen eragina. Zer animaliak jaten dituzten perretxikoak.

2.159. Perretxikotalariak Eibarren (AB-289/032)

Perretxikotalariak Eibarren. Asko zeuden, baina "tabernetan gehixago". Aitak Orbea lantegian lan egiten zuen. Behin bulegoko hiru lagun eraman zituen perretxikotara eta ibili ezinda geratu ziren, hankazpiak minduta.

2.160. Berrizen karramarrotan ibili zirenekoa (AB-289/033)

Berrizen karramarrotan ibili zireneko anekdota: basozaina zetorrela pentsatuta karramarroak ezkutatu eta gero aurkitu ezin.

2.161. Zarboak, loinak, barboak eta ezkailuak Eibarren (AB-289/034)

Eibarren karramarro gutxi zegoen, baina zarboak, loinak, barboak eta ezkailuak ugari. Amuarrainak. Zianuroarekin gertatu zitzaiena. Eskuz harrapatzen zituzten, normalean. Eibarren, Maltzagan, Deban... arrantza asko zegoen, eta arrantzaleak ere bai.

2.162. Eibarren ehizarako sekulako zaletasuna (AB-289/035)

Ehiza ugaria zen garai batean. Galeperretara "Txaltxak" ipinitako kamionetan joaten ziren. Eibarren ez zegoen eskopeta gabeko etxerik. Industria-gizon batzuei eperrekin gertatutako anekdota. Egoarbitza inguruan "keixapian" nola egiten zuten. Durdulak, katamixarrak, zozoak, birigarroak...

2.163. Txori asko desagertu egin dira (AB-289/036)

Azken aldiandurdula galduta dago. "Kalandresak" (kalandriak) ere ugariak ziren, eta orain ez da alerik ikusten. Hegaberak ere desagertu egin dira.

2.164. Gaztetan txoritan: hormatxoriak, kardantxiloak... (AB-289/037)

Umetan tiragomarekin ibiltzen ziren txoriak harrapatzen. Nola egiten zituzten. Gehienetan hormatxoriak harrapatzen zituzten. Kardantxilotan ere jarduten zuten, likarekin.

2.165. Oilar-jokoak Astelena frontoian (AB-289/038)

Oilar-jokoak. Afizio handia zegoen Eibarren eta inguruan. Astelena frontoian egiten zen igande goizetan. Oilar gogorak ziren, bereziak. Oilar baten inguruko kontuak.

2.166. Eibar inguruko hegazti handiak (AB-289/039)

Egoarbitzan arrano asko zegoen. Hegazti handiak ugariak ziren.

2.167. Eibarren ehiztari ugari (AB-289/041)

Ehiztari asko Eibarren: eperrak, erbiak, galeperrak... Aititik kontatutakoak. "Eperrak kantatzen du Arrate baillian"; gerra aurretik eper asko omen zegoen. Ehizako kontuak. Erbitan jarduten zutenak: "erbittalarixak". Ehiza-txakurrak. "Kirikixotan" (kirikinotan) ere egiten zuten txakur batzuek. Txakurrei irakastea.

2.168. 14 urterekin Orbearenean sartzea gauza handia (AB-290/002)

14 urterekin sartu zen Orbearenean, ogibidea ikastera. 1936an Orbearenean eta orokorrean lantegi handi batean sartzea gauza handia zen. Limarekin esku guztia minduta. Ohikoa zen semeak aitaren ogibidea jarraitzea.

2.169. 1934ko urriko iraultza; Errusiara ihesa (AB-290/004)

1934ko urriko iraultza. Komunista batzuek Errusiara ihes egin zuten. Hilabete batzuk pasata, itzuli egin ziren, "usarixua hemengua hobia" zelako.

2.170. Gerra aurreko soldatak (AB-290/005)

Lantegietan 10 pezetako jorjala izaten zen arruntena. Emakumeek 8 pezeta inguru irabazten zuten; "granujak" pezeta 2 irabazten zituen.

2.171. Eskola kontuak: fraideak eta azterketak (AB-290/006)

Eskolara fraideetara. Herrian lehenengo mailako hileta-elizkizun bat zegoenean, abade guztiak joaten ziren. 12 urterekin lehenengo lana lortu zuen: geltokira joan eta jendearen maletak karriatzen zituen. Batzuetan eskolara joan ez arren, etxean ez zieten ezer esaten. Azterketak zelakoak izaten ziren.

2.172. Hamalau urterako denak lanean (AB-290/007)

Garai hartan, 14 urterako gehienak lanean hasita zeuden "ez zeguan kulturarik...". Lehenengo soldata irabazi ondoren tabernara joan, zigarro paketea erosi...

2.173. Frantsesa ikasteko fraideetan (AB-290/008)

Frantsesa jende gutxik zekien. Frantsesa eta ingelesa zekiena bulegora sartzan zen. Isasiko fraideetan ikasten zen.

2.174. Gaueko eskolak (AB-290/009)

Lanetik irten eta gaueko eskoletara joaten ziren

2.175. Aratusteetan dantzak Rialtoan eta Casino Amistadean (AB-290/010)

Aratusteetan dantzaldiak antolatzen zituzten Rialtoan eta Casino Amistadean, eta neska-mutilak txartelak aldatzen egoten ziren, elkarrekin dantza egiteko. "Jendia sanuagua zan orduan; ez zekan aspiraziñorik!". Futbola ikustera Elgoibarrera joaten ziren.

2.176. Orbeareneko lantegia; lantegiaren inguruak; jabeen kontuak (AB-290/012)

Lantegi handi batean lanean hastea (Orbea, GAC...) gauza handia zen. Orbearenean, dezberdintasun handia zegoen nagusien eta langileen artean. Orbeako lantegia, ingurua, jabeak eta abar zelakoak ziren.

2.177. González Orbearen inguruko kontuak (AB-290/014)

González Orbearen inguruko kontuak.

2.178. Gizarte Segurantzarako dirua bota (AB-290/016)

"Kinzenia" lehelengo astean eta gero 15 egunean behin kobratzen zen. Mutualitate moduko bat ere bazegoen (astean zerbait bota behar zen); "Socorros Mutuos" egon zen moduan, baina gauza gutxirako balio zuen.

2.179. Laneko lehenengo eguna eta lagun-giroa (AB-290/018)

Taberna giroa, txikiteoa. Lanean hasi eta lagunekin tabernara joan, txikiteoa egin, zigarroa erre... "hamen gauaz!".

2.180. Lehengo umeak biziagoak ziren (AB-290/019)

Garai hartako umeak, oso biziak; geltokira joaten ziren "biajantien" bila; Eibarko lantegiak erakusten zizkieten bi ogerlekorengaitik.

2.181. Orbea lantegian sartzea (AB-290/021)

Orbearenean sartu zenean, ama pozik. Bizikletak eta pistolak egiten zituzten. Astelehena egun gogorra izaten zen, ajearekin egoten ziren denak.

2.182. I. Mundu Gerrako kontuak frantsesekin (AB-290/023)

I. Mundu Gerran pistolak bidali zituzten Frantziara. Frantsesen kontuak eta mugan gertatzen ziren anekdotak kontatzen ditu.

2.183. Orbeanean, bizikletaren produkzioaren hasiera (AB-290/024)

Armagintzatik bizikletagintzara jauzia I. Mundu Gerra amaieran. GAC hasi zen bizikletak egiten.

2.184. Txirrindularitza Eibarren (AB-290/025)

Bizikleta-karrerak; taldeak tallerrak ziren, sariak, liskarrak taldeen artean, etab.

2.185. Debara bizikletan (AB-290/026)

Bere bizikleta berak montatu zuen; Debara joaten ziren.

2.186. Txikiteoa eta "kopeua" Eibarren (AB-290/028)

Txikiteo handiak; "kopeua" ere egoten zen (gerra aurretik eta gero 60. hamarkadan ere bai). Lan asko oso gogorak ziren, derrigorrez behar izaten zuten zerbait edatea.

2.187. Orbea lantegiko lanak (AB-290/029)

Orbea lantegiko poleako langileen kontuak.

2.188. Orbea lantegia eta langileak (AB-290/032)

Francoren tropak sartu zirenean, obusak egiten hasi ziren Orbea lantegian. Hiru errelebotan lan egiten zuten. Militarizatzea nahi zuten; jorjala ez zitzaien ardura.

2.189. Orbea lantegiko nagusiak eta jornalaren igoerak (AB-290/034)

Orbea lantegiko nagusiak Manolo eta Pepe Orbea ziren lehenengo; gero Esteban sartu zen. Jornala geroz eta gorago. Oraindik ez du ulertzen lantegi hark nola jo zuen behea.

2.190. Orbeako krisialdiaren hasiera (AB-290/035)

Lanik ez bazegoen, kalera joaten ziren. Orbeako krisiaren hasiera 70-80 urteetan. Esteban Orbea zen nagusia. Velosolex-a.

2.191. Gerra ostean, Orbeanean armak egiteari utzi zioten (AB-290/036)

Gerra Zibila amaitu zenean, Orbeak oso langile gutxi zituen. Bizikletaren gorakada hasi zenean, berriz handitu zen. Lantegi garrantzitsu guztiak armagintzatik bizikletagintzara pasatu ziren: Orbea; GAC; Beistegi... Star-ak bakarrik jarraitu zuen armak egiten.

2.192. Orbea lantegia (AB-290/037)

Gerra ostean lantegietan aldaketa gutxi egin ziren. Autoak agertu zirenean (Seat 600), Orbean ere autoak egiteko ahalmena zegoela pentsatzen zen: dirua zegoen, lantegiak handitzeko tokia, esperientzia... Matsariko lur-sail asko beraienak ziren.

2.193. Orbea lantegia eta familia (AB-290/038)

Orbeatarren lur-sailak. Orbeatarrak: nolakoak ziren, euren arteko harremana. Lantegia eta ingurua zelakoak ziren.

2.194. Orbeareneko lehenengo lantegia I (AB-290/039)

Orbeareneko lantegi zaharra. 1918an I. Mundu Gerra amaitu zenean, langileek soldata igoera eskatu zuten eta, nagusiaren ezezkoari erantzunez, greba egin zuten. Lantegia itxi eta Gasteizera eraman zuten eta beste senideetako batek lantegi zaharrean errebolberrak egiteari ekin zion. Greba berdinetik Alfa ere sortu zen.

2.195. Orbeareneko lehenengo lantegia II (AB-290/040)

Orbeareneko lantegi zaharra nolakoa zen. Argindarrak ez. Bere aitona bertan egiten zuen lan.

2.196. Armagintzaren krisialdiak (AB-290/041)

Krisi ekonomikoa. Gerra aurretik armagintza zen nagusi Eibarren. Lana sartzen zenean, gelditu gabe ekiten zioten, baina, krisia zetorreanean, langile ugari etxera joan behar izaten ziren.

2.197. Argindarra lortzeko indar-etxeak ipini ziren (AB-290/042)

Argindarra izan zuen lehenengo lantegia Orbea izan zen. Soraluze inguruan ur-saltoa jarri zuten argindarra lortzeko. Ondoren GACak gauza bera egin zuen.

2.198. Ugazaben eta langileen arteko erlazioa Eibarko lantegietan (AB-290/044)

Langileen eta nagusien arteko harremana ona zen Eibarko lantegi guztietan, Orbearenean izan ezik; han ez zegoen horrenbesteko konfiantzarik. Besteak, ia denak, Armeria Eskolatik irtendakoak ziren.

2.199. Gerra aurreko Eibarko lantegi handienak (AB-290/046)

Gerra aurreko urteetan, Eibarko lantegi garrantzitsuenak zeintzuk ziren: Orbea, Beistegi, Star, Víctor Sarasketa, Ugartetxea, etab. Ugartetxea oso gizon argia ei zen eta haren inguruko kontuak aipatzen ditu. Ugartetxea, Etxezarraga, etab. egoera zailtan ere oso gizon ekintzaileak.

2.200. Ugartetxea lantegiaren kontuak (AB-290/047)

Ugartetxea fabrikaren kontuak, 1934 inguruan. , Propaganda botatzen zuen Debako hondartzan, Donostian alokatzen zuen abioneta batekin. 1936an Albacetera joan zen eskopetaz betetako deskaportable batekin, han labanekin trukea egiteko.

2.201. Etxezarraga lantegiko kontuak I (AB-290/050)

Etxezarraga lantegiko kontuak. Turkiarrek ez zioten ordaindu bidalketa bat eta, bere kabuz ingelesa ikasi ostean, Turkiara joan zen diru horren bila. Epaiketa irabazi zuen.

2.202. Etxezarraga lantegiko kontuak II (AB-290/051)

Etxezarraga lantegiko nagusiaren gerra osteko kontu batzuk; kalitatea asko zaintzen zuen

2.203. "Kale Barrixa" edo Bittor Sarasketa kalea (AB-290/053)

Gerra aurreko urteetan "Kale Barrixa" zelakoa zen. "Ointxe modukua, igual-iguala". Errastineko kontuak kontatzen ditu.

2.204. San Andres egunean jai (AB-290/054)

San Andres egunean jai Orbea lantegiko batzuek, eibartarrak zirela aldarrikatuz.

2.205. Orbea lantegia nolakoa zen (AB-290/056)

Orbea lantegia zelakoa zen. Argazki zahar baten laguntzaz zehatz azaltzen du lantegiko banaketa, txaleta, lorategiak...

2.206. Orbearenean tren geltokia (AB-290/057)

Trena Orbea tailerreraino heltzen zitzaien, bizikletak kargatzeko.

2.207. Orbearenean emakumeak lanean (AB-290/059)

Orbea lantegian 20 emakume inguru zeuden lanean. Emakumeen zeregina zein zen.

2.208. Perretxikoak lehen kale ondoan ere aurkitzen ziren (AB-292/001)

Lehenago, herri inguruan ere perretxikoak egoten ziren: Gisastu inguruan, Txontan. Handik gora, toki guztietan, ardurarik gabe. Basoak zelakoak ziren.

2.209. Ume-umetatik perretxikotan, ehizan eta arrantzan (AB-292/003)

Non jaio zen. Perretxikotan ume-umetatik. Bizi guztian perretxikotan, ehizan, arrantzan, etab. Oraindik umea zela, nagusiekin arrantzan ibiltzen zen. Saturio erreka. Nola hasi zen ehizan eta arrantzan.

2.210. Perretxikoak ezagutzen nola ikasi (AB-292/010)

Zelan ikasi duen perretxikoak ezagutzen. Aitarekin perretxiko ezagunenak desberdintzen ikasi zuen; gero norberak ikasi behar. Profesionala? Iñor bada, bera.

2.211. Perretxiko kontuak: kuletroak eta urretxak (AB-292/011)

Perretxiko onenak, kuletroak. Lehen non batzen zituen; orain basoak asko aldatu dira eta azkenengo urteetan ia ez ditu hartu.

2.212. Perretxiko klaseak: onddoak, lanpernak, galanpernak... (AB-292/012)

Onddoak irten aurretik "txibatuak" irteten dira. Handik 10 bat egunera, onddo takada. Lanpernak. Galanpernak; nola prestatzen dituen jendeak.

2.213. Perretxiko klaseak: gibelurdinak, urdinak eta urritxak (AB-292/013)

Perretxiko izenak. Askotan herri batetik bestera izenak ere aldatu egiten dira. Russula familiakoak. Gibelurdinak, urdinak eta urritxak bereizi egiten dira Eibarren; beste leku batzuetan denei "gibelurdin" esaten diete.

2.214. Perretxiko klaseak: saltsa-perretxikoak, astaputzak... (AB-292/014)

Perretxiko izenak; berak zeintzuk dituen gustukoen. Ziza-horiei "saltsa-perretxiko" esaten zaie Eibarren. Haragiren bat saltsan prestatzen duenean, hara botatzen ditu zapore gozoa emateko. Perretxiko mota desberdinak, bakoitzaren ezaugarriak, etab. Astaputzak. Onddoen "txibatoak" ("molinera") gozoak omen dira jateko.

2.215. Perretxikoak urtean zehar (AB-292/015)

Perretxikoak batzeko egutegia. Hilabetez hilabete perretxiko bakoitzaren sasoia zein izaten den. Perretxiko mota bakoitzaren ezaugarriak, jatekoak onak diren ala ez; azalpen ugari ematen ditu.

2.216. Perretxiko klaseak; ilargiaren eragina? (AB-292/016)

Perretxiko klaseak. Non batzen zituen sasoi batean asko. Egun batetik bestera perretxiko asko daudenean, "botadia" esaten zaio. "Botadia daok!". Dena den hau konfiantzazko lagunen artean bakarrik esaten dute. ez du sinisten ilargiak eraginik duenik perretxikoak irteteko garaian, izan ere, batzuetan hemen ez da egoten perretxikorik eta beharbada Galizian edo Castillan bai.

2.217. Perretxiko klaseak; ohitura aldaketa (AB-292/018)

Perretxiko erneak. Perretxiko txiki-txikiak direnean. "Poxpolo kajan ekarri dittuk!" Adarra jotzen jendeak. Tokiak beharbada ez dira aldatu, perretxikoak ere ez, baina orain perretxiko gehiago jaten da. Lehen jaten ziren perretxikoak zeintzuk izaten ziren; gainera udaberri-uda partean jaten ziren bakarrik. Arrate egunetik aurrera ez zen ezer jaten. Ohiturak aldatu egin dira.

2.218. Perretxikoak nola egin eta jan (AB-292/019)

Perretxikoak zelan jaten dituen; prestatzeko era desberdinak. Lehen ogitartekoan jaten ziren asko. Orain izozkailuan sartzen ditu askotan, gero saltsak edo jaki desberdinak egiteko erabiltzen ditu. Lehengo zaharrek, ohitura desberdinak zituzten. Perretxikoen inguruko kontu asko aipatzen ditu.

2.219. Gaztetatik ehizan (AB-292/020)

Ehiza kontuak. Lehenengotik aitarekin; haizezkoarekin. Umetan txori bila nola, nora joaten zen. Txori asko galdu egin dira; lehen ugariak zirenak orain ikusi ere ez dira egiten. Umetan habia bila ere ibiltzen ziren.

2.220. Ehizatzeko modu desberdinak (AB-292/021)

Ehiza kontuak. Txori desberdinak; ehizatzeko modu desberdinak. Oilagorretan; zozo-birigarrotan, pasean, etab.

2.221. Zozo-birigarrotan zelan egiten den (AB-292/022)

Zozo-birigarrotan nola egiten den azaltzen du. Bi lagun behar izaten dira. Erabiltzen duten teknika zein den. Eskilasoa, birigarroa, durdura... Ehiztari ona izateko beharrezkoak direnak: txakur-ona, hanka onak, tiratzaile ona izatea, etab.

2.222. Eskopeta eta kanoi klaseak (AB-293/002)

Ehiza kontuak. Eskopeten, ehiza txakurren inguruko azalpenak, e.a.

2.223. Oilagorretaren ezaugarriak (AB-293/003)

Oilagorretan normalean txakur batekin egiten da, baina birekin joan ezker, hobe. Txakurra gelditu den edo ez jakiteko, zintzarriak ipintzen zaizkie (normalak edo elektronikoak).

2.224. "Tanganillua" (AB-293/004)

Ehiza denbora ez denean, txakurrei "tanganillua" ipini behar izaten zaie. Makila bat da, eta traba handia izaten da txakurrentzat. Lehen gogor egiten zuten basozainek. Legez sasoi horretan ezin da txakurrik atera. Ehiztaria izateko lizentzia.

2.225. Ehiztari amorratua; ehizaren inguruko azalpenak (AB-293/005)

Ehizarako afizioa. Gazteek afizio gutxi. Sasoi batean ehizan egiten zituen ibilbideak. Oilagor-tokiak inguruan.

2.226. Ehiza-txakur klaseak (AB-293/006)

Ehiza txakurrak. Inguru honetarako, Setterra da onena. Ehiza txakurren arteko desberdintasunak, bakoitzaren ezaugarriak. Ehizaren arabera, txakur mota bat beste bat baino egokiagoa.

2.227. Eibar inguruko hegaztiak: zapelaitza, gabiraia... (AB-293/007)

Eibar inguruko hegaztiak: zapelaitza, gabiraia... Inguru aberatsenak zeintzuk dira.

2.228. Txori txiki nagusiak (AB-293/008)

Txori txikien artean gehien ikusten direnak: txepetxak, horma-txoriak, e.a. Lehen ugariak ziren, baina aspaldian oso gutxi ikusten dira. Txori izenak; bakoitzaren ezaugarriak; e.a.

2.229. Txori txikiak: okil-txoriak... (AB-293/009)

Txorien inguruko hainbat ipoin. Txori-izenak: Okil-txoria; Fruitubatzailea; gardantxiloak; tarinak; e.a. Bakoitzaren inguruko azalpenak. Eibar inguruan toki aberatsak zeintzuk izaten ziren.

2.230. Txori txikiak: txirriskilak, gardantxiloak... (AB-293/010)

Txori izenak: txirriskilak; berdeloiak, buztanikara, ur-makinistak, ur-zozoak, e.a. Bakoitzaren inguruko azalpenak. Batzuk beti izan dira urriak, baina azken urte hauetan guztiak ere asko gutxitu dira. Hemengoak ez diren espezie batzuk.

2.231. Txori txikiak: hormatxoriak, txitxiak (AB-293/011)

Txori txikiak: horma-txoriak, txitxiak, e.a.

2.232. Animaliak eta piztiak (AB-293/015)

Animalia izenak. Satandera; basakatua; azkonarra; e.a. Basurdeak asko ugaritu dira, basoak zikinak daude eta.

2.233. Animaliak eta piztiak (AB-293/016)

Animali izen ugari. Eibar inguruan erabiltzen diren izenak.

2.234. Amoarrainak Eibarren (AB-293/018)

Arrantzan egiteko zaletasuna. Eibarko erreka-izenak. Amoarrainak, zarboeskailoak, karramarroak, e.a.

2.235. Eibarko errekek eta errekatxoak (AB-293/019)

Eibarko erreka eta errekatxoen izenak.

2.236. Umetatik arrantzan (AB-293/020)

Arrantzarako zaletasuna ume-umetatik. Umetan makilatxo batekin eta soka zati batekin egiten zuten arrantzan; nagusiek, sarea erabiltzen zuten. Zarbo-
eskailotan nola egiten zuten azaltzen du.

2.237. Maltzagan erromeria igandero (AB-293/021)

Maltzagan erromeria igandero. Elgoibar, Plazentzia eta Eibartik jende ugari
etortzen zen. Asko aldatu da dena. Maltzagako taberna. Tren geltokia.
Inguruan baserririk ez; Cayetano Sustaetaren baserria bestekaldean.
Cayetanoren inguruko kontuak. "Ha gogorra zuan!".

2.238. Maltzaga ingurua (AB-293/022)

Maltzagako eskola, ermita dagoan lekuan egon zen. Orain ermitarik ere ez
dago.

2.239. Ubitxa baserrian errentero (AB-294/002)

Ubitxa baserriaren jabea Madrilen bizi zen. Baserria "Probadero" ondoan
zegoenez, balak iristen zitzaizkien etxeraino eta kexatu egin ziren. Orduan,
"Probaderoak" etxea erostea pentsatu zuen. Aitak baserria erosi nahi izan
zuen, baina 30.000 pezeta balio zituen eta diru gehiegi zen. Aurretik 40
ogerleko eta kapoi pareta ematen zizkioten urtean etxejabeari, errenta
ordaintzeko. Orduan ez zegoen dirurik.

2.240. Aitak Ubitxa baserria erosi nahi izan zuen (AB-294/003)

Berak 12 urte zituela, 1925 inguruan, aitak Ubitxa baserria erosi nahi izan
zuen 20.000 pezetaren truk, baina 30.000 balio zituela eta azkenean
"Probaderoak" erosi zuen. Baserria 1958 inguruan bota zuten.

2.241. Lehengo baserritarrek lan asko eta diru gutxi (AB-294/008)

Lehengo baserriko bizimodua, lan asko eta diru gutxi. Orduan ere baserririk
onena baino hobea zela jonal txiki bat dio. Kaletarrak/baserritarrak,
sozialistak/baserritarrak.

2.242. Gerra aurreko txanponak (AB-294/018)

Diru kontuak; gerra aurreko txanponak eta billeteak. Zenbateko diruak zeuden
eta zer materialetakoak ziren. Soldata zenbatekoa.

2.243. Txerriak kalean erosi eta etxean hazi (AB-294/032)

Ganadua eta txerriak izaten zituzten etxean. Txerrikumeak kalean erosten
zituzten eta etxean hazi arto zahiarekin. Bizente `Txarriduna`. Udaberrian
erosten ziren txerriak eta neguan, ondo loditutakoan, hil.

2.244. Txarriboda (AB-294/034)

Txarriboda: txerria nola hil; moztu; hesteak zelan garbitu; odolosteak nola
egiten zituzten; etab.

2.245. Lantegietan lehen kalitatea helburu; orain, berriz, kopurua (AB-294/035)

Behar kontuak asko aldatu direla eta "erlojuan kontra" beharra egitea gogorra dela dio. Nagusiek gero eta gehiago estutzen dituzte langileak eta asko itota ibiltzen dira. Lehen kontrol gutxiago zegoen lantegietan. Helburua gauzak ondo egitea zen lehen; orain kopuru jakin batera iristea.

2.246. Bizimoduaren aldaketa (AB-294/036)

Bizimodua asko erraztu dela dio. Lehengoekin konparatuta, orain denok aberatsak. Lehen zaharrei edo gai ez zirenei "xemeikorik be" ez zitzaien ematen. Gaixoen aurrean ere lehen medikuek ez zuten baliabiderik izaten.

2.247. Gaztetako parranda-leku eta erromeriak (AB-294/038)

Lehenago lana besterik ez zegoen. Ondarroako jaietan giro ona egoten zen eta hantxe egin zituen parranda handienak. Amak errieta 12etan etxera joanda. Inoiz edo behin Bilbora zezenketara. Mallabiko erromeria.

2.248. Soroak bedeinkatzearen inguruko azalpenak (AB-295/002)

Garai batean, abadeak gari-soroak bedeinkatzen zituen. Udaberrian, landarea loratzen hasten zenean, orduan egiten zen bedeinkapena. Erramu egunean, bedeinkatutako erramuarekin egindako gurutzeak ipintzen ziren soroetan eta baserriko ateetan. Aste Santuan ipini eta urte guztian edukitzen ziren.

2.249. Sorginak eta elizaren indarra (AB-295/003)

Baserrietako ateetan gurutzeak zintzilikatzen ziren, sorginak aldentzeko. Aitak sorginen ipuin handiak kontatzen zituen. "Jendiari fedia emon deixon, abadiak... ipintzen zittuen sorgiñak". Baina gero pistolak etorri ziren, eta orduan amaitu ziren sorgin-kontuak. Anbotoko sorginak, Anbotoko Mari, etab. Jendeak eskolarik ez eta dena sinesten zuen. Abadeek ez zuten nahi jendea eskolara joaterik eta gurasoei esaten zieten beraiek heziko zituztela haurrak.

2.250. Mezetara ez joatea bekatua zen; herriko pertsonaia garrantzitsuak (AB-295/004)

Igandeetan mezetara ez joatea bekatu handia zen. Arratsaldeetan bezperak izaten ziren eta emakumeak joaten ziren. "Lehengo jentia tontua ez, baiña atrasauak..". Aitaren eta amaren inguruko kontuak. Alkatea, abadea eta udaleko idazkaria ziren herrian agintzen zutenak.

2.251. Eibarko garbitokiak; lixiba; "linua" (lihoa) (AB-295/005)

"Labaderuak" (garbitokiak) Bidebarrietan, Matxarian, Untzagan eta Ubitxan zeuden. Aurretik erreketan garbitzen zuten arropa emakumeek. Antzinako arropak "linuzkoak" (lihozkoak) izaten ziren. Lixiba nola egiten zen kontatzen du. "Linua" (lihoa) zelakoa zen. Emakumeek gorua egiten zuten eta lortutako hariekin, izarak, alkandorak... Lihok zituen lanak.

2.252. Etxea babesteko gurutzeak (AB-295/006)

Soroak eta etxea babesteko, gurutzeak jartzen ziren Aste Santuan. Gurutzeak nola egiten ziren. Normalean lizarra erabiltzen zen.

2.253. Kanpai motak; Garizuma (AB-295/007)

Kanpai mota ezberdinak: trumoi-kanpaiak, hodei-kanpaiak, su-kanpaiak, e.a. Garizuman, kanpairik ere ez. Garizuma pasatutakoan, kanpai handiak. Garizuman ez zen kanpairik jotzen.

2.254. Garizuman eta Aste Santuan konfesatzea derrigorrezkoa; arrosarioa; garizuma osteko kanpaiak (AB-295/008)

Garizuman ez zegoen erromeriarik eta denak konfesatzera joan behar ziren. Txartela hartu behar zuten konfesatu aurretik eta gero txartela sakristian aurkeztu, abadeak jakin zezan konfesatuta zeudela. Aste Santuan ez zen kanpairik jotzen. Pazkoa bezperako goizean kanpai alaiak jotzen ziren, Garizuma bukatu zela abisatzeko.

2.255. Pazkoako igandean "Ixu-eguna" ospatzen zen (AB-295/009)

Pazkoako igandean "Ixu-eguna" ospatzen zuten. Ixua zer den eta igande horretan zer egiten zen azaltzen du. Abadeak bedeinkatutako sua eta ura banatzen zituen etxerik etxe. Ixua nondik lortzen zen.

2.256. Ordularirik ez; serenoak ordua eta eguraldiaren berri ematen zuen orduro (AB-295/010)

Aste Santuan kanpairik jotzen ez zenez eta erlojurik ez zegoenez, eguzkiarekin batera bizi ziren. Oilarraren zarata eta kanpaiak ziren beraien erlojua. Serenoek gauetz ordua eta eguraldiaren berri ematen zuten. Euskeraz aritzen ziren. "Goixeko laurak dira eta ateri dago...".

2.257. Ama inude-lanetan urtebetez Madrilen (AB-295/011)

Bera gaztea zenean, denek euskaraz hitz egiten zuten. Ama, ezkondu eta lehenengo semea izan zuenean, inude joan zen Madrilerara urtebeterako, dirua irabaztera. Aberatsek euskaldunak nahi izaten zituzten inude lanetarako. Amak hazitako umearekin kontaktua mantendu zuten eta Afrikako gerran hil zen. Ama, baserrikoa izateko, erdaraz ondo konpontzen zen.

2.258. Eibarren beti euskaraz (AB-295/013)

Julianen gazte denboran, neskek erdaraz egiten zuten harrokeriz. Eibarren orokorrean euskaraz beti. Durangon aberatsek eta "señorietuek" gaztelera. Durangoko nesken artean, "Hijas de María" zirela esaten zuten, mutilekin ezin zutela dantza egin esateko. Eibarren beti euskaraz eta hika. Neskei noka, baina Ermuko neskei hika. Abadeei "Don" eta berorika. Abadeen gurutzeari kalean mun egiten zioten.

2.259. Elizakoak eramaten abadea eta akolitoa (AB-295/014)

Gaixoen oliodura edo "elizakoak eramatea" egitera joaten zirenean, kaletik abadea eta akolitoa joaten ziren eta kalean denak belaunikatu egiten ziren.

2.260. Kanpai klaseak eta izenak (AB-295/015)

Kanpaien izenak: goizean albakoa; eguerdian drauna eta iluntzean "aramaittakua". "Albakuakin esnatu eta aramaittakuakin erretirau".

2.261. Gabon-gaueko menua (AB-295/016)

Gosaria, taloa eta esnea ohikoa zen. Ardoa, Gabon-gauean bakarrik edaten zen etxeetan. Gabon-gaueko afaria: olio-asa, bakailaua eta intxaur-saltsa.

2.262. Intxaur, gaztaina eta sagar klaseak; erretxina-batzea (AB-295/017)

Intxaur klase desberdinak daude. Gaztaina, sagar, madari eta gerezi klase desberdinen izenak aipatzen ditu. Fruta-arbolak nola mentatzen diren. Umetan, pinuari zuloa egiten zioten eta erretxina batzen zuten; gero saldu egiten zen.

2.263. Eibarko basoen izenak (AB-295/018)

Baserriko kontuak. Gauzak asko aldatu dira: bideak, basoak, errekek, soroak... Basoen izenak aipatzen ditu. Aspaldi, Unbeko depositotik heltzen zen herri guztirako ura.

2.264. Urkin autopista eraikitzeke eraitsitako San Lorentzo ermita eta baserriak; erromeria (AB-295/019)

Urki ingurua zelakoa zen. San Lorenzo ermita zegoen bertan eta autopistak dena aldatu zuen. Desagertutako baserrien izenak aipatzen ditu. Urkiko gurutzeari buruz hitz egiten du.

2.265. Urkiko San Lorentzo ermitako erromeria (AB-295/020)

San Lorenzo egunean, jai handia egiten zen Urkin. Afaria, erromeria eta gero neska laguntzea. Erromerietan soinua eta panderoa. Garai bateko eta gaur egungo musikaren arteko ezberdintasunaz hitz egiten du.

2.266. Eibarko erromeriak (AB-295/021)

Eibarren erromeriak non egiten ziren: Maltzagan, Usartzan, Azitainen, Untzagan, San Salbadorren, Azurtzan.

2.267. Baserritarren arteko auzolana (AB-295/022)

Auzoko baserritarren artean laguntasun handia; auzolana. Lehen baserrian maiz erretzen ziren eta auzokoak joaten ziren etxe-erre batzeak egitera. Egotxeagako pago handia, haize bortitzak bota zuen.

2.268. Perretxikotan: onddoak eta kuletroak (AB-295/023)

Perretxiko kontuak. Onddoak, kuletroak...

2.269. Baskulagintzako ofizioa ikasten; soldatak (AB-296/002)

20 urterekin Víctor Sarasketanean hasi zen lanean. 14 urterekin Fernando Eizagaren tailer txikian sartu zen baskulaginaren ofizioa 3 urtez ikasteko. Lehenengo urtean ez zuen soldatarik jasp. Víctor Sarasketanean 12 pezeta irabazten zituen (1934an).

2.270. Baserri-kalekoak ziren, oso kaletarrak (AB-296/003)

Zelan ikasten zen ofizioa. Baserrikoa izan arren, kale alboan bizi ziren eta beraientzat normala zen kalean lan egitea ere. Lehelengo limia erabiltzen ikasi zuen eta gero kainoiak ajustatzen.

2.271. Armagintza: kanoigenen lana (AB-296/004)

Baskulagintza ikasteko, lehenengo burdina limatzen eta gero kanoia ajustatzen ikasten zen. Baskulaginen lana zein zen azaltzen du. Kainoiak nola egiten zituzten azaltzen du. Arma probalekura eramaten ziren probatzeko.

2.272. Armagintza: baskulaginak (AB-296/005)

Baskulaginaren lana: Galdategitik baskula ekarri, mekanizatu eta limarekin beharrezko neurrietara egokitzen zen.

2.273. Armagintza: kaxaginak (AB-296/006)

Kaxaginen lana, baskula egurrean txertatzea da. Prozesu guztia eskuz egiten zen garai batean.

2.274. Armagin onena "Zozua" (AB-296/007)

Eibarko eskopetagin onenetariko "Zozua" izan zen. Baskulagin oso on eta fina zen.

2.275. Armagintza: Eskopeta egitearen prozesua (AB-296/008)

Kaxak egiteko, intxaurrondoaren egurra erabiltzen zen. Egurrak behar zuen tratamendua azaltzen du. Eskopeta bat egiteko denbora behar zen. Egunean 30 eskopeta montatzen zituzten. Baskulagin eta kaxaginen ostean, barrenariaren lana zegoen. Eta amaitutakoan, armen probalekura eramaten ziren eskopetak. Ez zeudenak ondo, berriz lantegira itzultzen ziren berriz fundu eta estutzeko.

2.276. Armagintza: txispaginak (AB-296/009)

Txispaginaren lana zein zen azaltzen du. Lana bukatutakoan, baskulaginari eramaten zitzaion txispa.

2.277. Víctor Sarasketaren lantegia; barrenariak (AB-296/011)

Víctor Sarasketaren arma-lantegiak probalekua zuen. Barrenarien lana azaltzen du. Kainoia probatu eta tiroa konpontzen zuten. Ehizatu behar denaren arabera, tiroa modu batekoa edo bestekoa izatea komeni da.

2.278. Sarasketak erregearentzat eskopetak egiten zituen (AB-296/012)

Víctor Sarasketak erregearentzat eta jende ospetsu askorentzat egin zituen arma desberdinak.

2.279. Eskopetak eta ehiza (AB-296/014)

Eskopetaren kainoia ehizaren araberkoa izan behar da. Oilagorretarako eta galeperretarako, kainoi motza; paserako kainoi luzeak. Txori txikiak ehizatzen armak, Gaspar Areizagak egiten zituen.

2.280. Lan-ordutegia gerra aurretik eta gerra ostean (AB-296/016)

Eskopeta asko egiten ziren Eibarren egunero. Lan-ordutegia: Errepublikara garaian 8 ordukoa eta Francoren garaian 10-11 ordu eguneko.

2.281. Armagintza: prozesua eta lan-banaketa (AB-296/017)

Lehenengotan ez, baina gerora lan banaketa etorri zen: batak baskula egin, besteak montatu, e.a.

2.282. Víctor Sarasketanean lantegiaren izen ona (AB-296/019)

Víctor Sarasketanean lanean hasia gauza handia zen, geroago ALFAn sartzea bezala.

2.283. Victor Sarasketa lantegia (AB-296/020)

Lehenengo lan-eguna ilusioz eta urduri gogoratzen du. Lantegia Grabadores kalean zegoen. Gerra aurretik guztira 110 langile inguru zituen. Lantegiaren banaketa; zenbat pisu; lan desberdinak; e.a. Eskopeta guztiak grabatzen ziren, irudi ezberdinekin.

2.284. Eskopeten prezioa; eskaera bereziak (AB-296/021)

Eskopeta on baten prezioa: gerra aurretik 30-40 duro. Merkeak ere bazeuden, 5-10 durokoak. Eskopeta asko neurria eta kapritxoak egindakoak ziren eta hoienez prezioa askoz ere altuagoa zen.

2.285. Emakumeentzako eskopetak (AB-296/022)

Emakumeentzako eskopetak ere egiten zituzten. Pisu gutxiago zeukaten. Ehizarako erabiltzen zituzten emakumeek eskopetak. Lambretta dagoen lekuan zegoen "tiro-pitxoia".

2.286. Tiro pitxoi zaharra (AB-296/023)

Tiro-pitxoian apostuak nola egiten ziren azaltzen du. "Txarlatania" izaten zen apostuak esaten zituenak.

2.287. Eibarko zine zaharrak eta "txarlatanak" (AB-296/024)

Aspaldi, zinea mutua zen eta "txarlatanak" filma azaltzen zuen eta Víctor Sarasketako komertziala "biajantia" ere bazen. Pabellona non zegoen azaltzen du eta nola su hartu zuen. Beste zinema eta antzerki batzuk ere bazeuden: Salón Teatro Untzagan, Kruzeta Estaziño kalia, Amaia...

2.288. Víctor Sarasketaren historia (AB-296/025)

Victor Sarasketaren aita, Arrate bailarako Azpiri baserrian jaio zen. Ezaguna zen Espainia eta mundu guztian. Nolakoa zen deskribatzen du: "Antiguara", lehenengo gizon gogorren modukoa. Baskulagin fina. Bittor Sarasketa (semea), beste era batekoa zen. Lantegiaren antolaketa aldatu zuen eta azkenean lantegiaren gainbehera gertatu zen.

2.289. Eskopeten salmenta (AB-296/026)

Victor Sarasketaren lantegia piskat handitu zen baina beti berdin mantendu zen, eraitsia izan zen arte. Eskopeten produkzioa eta salmenta askoz handiagoa izan zen gerra ostean. Matxarian zegoen alemaniar batek erosi eta nazioartean saltzen zituen.

2.290. Lantegi barruko giroa; ugazabak eta langileak (AB-296/028)

Lantegietako giroa nolakoa zen. Sindikatuen lana. Sozialismoaren lorpenak. Langileak eta jabeen elkarrekin ibiltzen ziren.

2.291. Emakumeak Víctor Sarasketanean lanean (AB-296/029)

Gerra aurretik, ez zegoen emakumerik lanean Victor Sarasketanean. Gerra ostean, errodamenduak egiten zituzten askok. Lantegiaren inguruko azalpenak.

2.292. Victor Sarasketako errodamenduen patentea (AB-296/031)

Victor Sarasketan errodamenduak gerra ostean hasi ziren egiten (1944). Emakumeek egiten zituzten, 4 errelebotan. Errodamenduen patentea saldu egin zuten.

2.293. Sarasketatarrak (AB-296/032)

Sarasketa familiaren inguruko kontuak

2.294. Andrazkoak damaskinatuan eta gizonezkoak gubilean (AB-296/034)

Gerra aurreko urteetan gizonezkoak aritzen ziren eskopetak grabatzen eta gubilean. Emakumeak damaskinatuan lan asko egiten zuten, baina gubilean ez. Gubilean lan egiten zuten bi emakume aipatzen ditu.

2.295. Eibarko lantegi ezagunenak (AB-296/035)

Lantegi ezagunenak: Sarasketa; AYA; Orbea; GAC; Beistegi... Tailer txiki asko zeuden. Alfak ere lehenengo urteetan eskopetak egiten zituen. Eibarren denetik egiten zen: armak, eskopetak, bizikletak, josteko-makinak, pistolak... Txantoiaren lantegia non zegoen. Eskopetak beti izan du pistolak baino maila altuagoa.

2.296. Gerra aurretik etorkinek euskeraz ikasten zuten (AB-296/036)

Gerra aurretik inguruko herrietatik jende asko etortzen zen lanera: Zaldibar, Berriz, Elgoibar, Markina... Kanpotik etortzen ziren erdaldunek azkar ikasten zuten euskaraz, herrian leku guztietan horrela egiten zelako. Gerra ostean dena aldatu zen.

2.297. Berorika alkateari, abadeari eta medikuari (AB-296/037)

Alkateari, abadeari eta medikuari berori egiten zitzairen. "Kategorixako gizonei" ere.

2.298. Elizakoak ematera eta "agonixako kanpaiak" (AB-296/038)

Abadea oliadura edo elizakoa ematera joaten zenean gaixoaren etxera, "agonixako kanpaiak" jotzen ziren eta kalean zegoen jendea belaunikatu egiten zen abadea pasatzen zenean. Akolitoa aurretik joaten zen gurutzeareakin.

2.299. Eibarko abadeak (AB-296/039)

Abadeak: Don Policarpo Larrañaga, Don Juan Ibargutxi.

2.300. Konfesatzea oso kontrolatuta zegoen (AB-296/040)

Aitortza egiteko, sakristian txartel bat eskatu behar zen eta konfesatutakoan, abadeari txartela entregatu.

2.301. Ramiro Larrañaga Eibarren gaztetan bizi izandakoa (AB-297/002)

Ramirok Eibarko kaleak nolakoak ziren azaltzen du, bera bizi zen etxe ingurua zelakoa zen kontatzen du. Gaztetan gerra garaian bizi izandakoak kontatzen ditu.

2.302. Soroluzetarren inguruko herrikoekin pikea (AB-297/003)

Soroluzeko herritarrek inguruko herrikoekin izandako adar jotzeak azaltzen ditu. Elgoibartarrekin duten harremana eta bandoen garaitik datorrela azaltzen du.

2.303. Astelena frontoiaren izenaren jatorria (AB-297/004)

Ramirok Astelena frontoiaren izenaren jatorria azaltzen du.

2.304. Fabriketako anekdotak (AB-297/006)

Ramirok langileen patroien inguruko ohiturak eta pasadizoak azaltzen ditu. Tolosako fabrikekin Soroluzek izandako harremanaz hitz egiten du Ramirok. Soroluzeko herriaz gain, bere inguruko herriak ere kontuan izaten ziren.

2.305. "Kolarraren" jatorria (AB-297/007)

Soroluzek dituen irteeren inguruko aipamena egiten dute. Soroluzeko errege etxe zaharraren aurreran, errebalean dagoena, "kolarra" izeneko harri bat zegoela azaltzen du. Izenaren jatorriaren inguruan hitz egiten dute. "Kolarra" izena erabiltzen dute, baina etimologikoki ez dakite zein den jatorria.

2.306. Ibaia vs. erreka (AB-297/008)

Ibaia eta errekaen desberdintasuna azaltzen dute.

2.307. Armagintzarako toki aproposa (AB-297/009)

Armagintza Elgoibar, Soroluze eta Eibarren zergatik garatu zen azaltzen du Ramirok. Inguruko erreka eta mendiek ingurune babestu eta egoki bat sortzen zutela dio. Kontratuetan nongo burdinak izan behar zuten zehazten zela azaltzen du, jatorriaren garrantzia kontutan izaten zutela.

2.308. "Tenple jaspeatua" egiten (AB-297/014)

Jose Zuloagaren etxe aurrean zegoen lantegian "tenpleak" egiteko giza hezurak erabiltzen zituztela azaltzen du. Soraluzen, Ramirok kalean hezurak lurretik bildu eta eramaten zizkion. "Tenple jaspeau" egiteko erabiltzen ziren.

2.309. Igerian Eibar eta inguruan (AB-297/015)

Ego-gainetik Isasi kalera dagoen pasadizoan zegoen labaderoko kunboan igerian ibiltzen zirela kontatzen dute. Padre Galdosen pasadizo bat kontatzen du Ramirok. Gaztetan igerian Soraluzen eta amañan ikasi zutela kontatzen dute. Errekan arrantzan ibilitako pasadizoak ere kontatzen dituzte.

2.310. Arrantzan Guardia Zibila kontrolatzen (AB-297/016)

"Haizpietara" peskara joaten ziren Maltzagara. "Estampa" aldizkariko kazetariak argazkia atera eta bertan Guardi Zibila bijilatzen zuena bizikletarekin ageri dela kontatzen du Ramirok.

2.311. Arrantzako pasadizoak Guardia Zibilarekin (AB-297/017)

Guardia Zibilarekin eta herritarrek arrantzan bizi izandako pasadizoak kontatzen dituzte.

2.312. Soraluze eta inguruko herrikoen pikeak eta anekdotak (AB-297/018)

Soraluze, Eibar eta inguruko herrietako pikeen pasadizoak kontatzen ditu Jose Kareagak. Biteri medikua eta "pika limasen" harteko anekdotak ere kontatzen ditu Jose Zuloagak.

2.313. Ijitoen pasadizoak (AB-297/019)

Ijitoen pasadizoak eta motxaia moztalea hitzetik datorrela ondorioztatzen dute.

2.314. Inguruko herrietan jauntxoak (AB-297/021)

Inguruko beste herrien izaeraz hitz egiten dute. Bergara, Oñati eta Durangoko herritarrek jauntxoagoak zirela diote. Eibarren langile eta jabeak batera txikiteoan ibiltzea arraro ikusten zutela.

2.315. Kanpokoan harridura (AB-297/022)

Ramirok gaztetan Sevillatik etorritako gazte batek Eibar inguruko enpresak ikusita izandako harridura kontatzen du.

2.316. Juan Esperanza langile ona (AB-297/023)

Juan Esperanzaren bizitzaz hitz egiten dute. Eibarren artzai lan egin eta gero lehengo kainoia zultzeko makina bat egin zuela. Gabilondotarrekin lan egin izan zuen eta fabrikan gertatutako pasadizoak kontatzen ditu Ramirok.

2.317. `Txiki´ azpeitiarraren pasadizoak (AB-297/024)

Sarasketa fabrikan lan egin zuen `Txiki´ azpeitiarra pelotari izanaren pasadizoak kontatzen ditu Jose Zuloagak.

2.318. Galdos txikiren gaiztakeriak (AB-297/026)

Galdos Txikiren inguruko pasadizoak kontatzen dituzte Ramirok eta Jose Zuloagak.

2.319. Carralen gaiztakeriak (AB-297/027)

Carralek Elgoibarren, San Ferminetan eta frontoian egindako broma eta istorioak kontatzen dituzte.

2.320. Gaiastegiren pelotako pasadizoak (AB-297/028)

Miguel Gaiastegik pelota partidu baten gertaturiko pasadizoak kontatzen dituzte.

2.321. Colonen jatorriaz (AB-297/029)

Ramirok Colonen jatorriaren inguruko hipotesiak kontatzen ditu.

2.322. Ignazio Zuloagaren Soraluzeko kuadroa (AB-297/031)

Ramirok akuarela batzuen jatorriaren inguruko istorioa kontatzen du. Zuloagaren kuadro baten Soraluzeko eraikin bat ezagutu zuen.

2.323. Eibarren eta Soraluzen ordu desberdina (AB-298/002)

Pasarte barregarria, Eibartik Soraluzera bizikletan ibiltzen zirenekoa.

2.324. "Tanbolintxeroaren" anekdota (AB-298/003)

Gazte garaian Elgoibarko "tanbolintxeroarekin" izandako pasarte barregarria kontatzen du.

2.325. Arando baserriak (AB-300/004)

Arando baserriak lau dira: Arandobarrena, Arandoaurtena eta Arandoguena hilara batean, eta gero Arando Etxebarri; Arando Iturralde beheratxoago dago. Orain zainduta daude baina ez da inor bizi.

2.326. Gazta zelan egiten zuen (AB-300/006)

Ehun ardi inguru izaten zituen aitak. Gazta nola egiten zuen ondo azaltzen du. Legarra eta gaztanontzia zer izaten diren kontatzen du. Keak kolorea ematen dio gaztari. Kerizpetan eduki behar izaten da gazta, ez zartatzeko.

2.327. Ikatz lanak; Arandoguena erre zenekoa (AB-300/008)

Ikatza egiten zuen. Azkenengo txondorra egin zuenean, laurogei zaku bete ikatz jaso zuen. Eibarren gurdiekin eramanda saldu eta Abadiñoko feriara joan zen. Gurdia apurtu zitzaionekoa kontatzen du. Aita zenarekin ikasi zuen ikatza egiten. Agiñagan ikatza egiten zuen aitak, ugazabarentzako erdia eta etxerako beste erdia hartuta. Arandon, etxerako egiten zuen. Basoan egiten zuen txondorra. Arandogueneko etxea erre zenekoa kontatzen du, abeletxean erabat hoztu gabeko ikatza gordetzearren.

2.328. Baserriak sarri erretzen ziren; ermandadea (AB-300/009)

Arando Iturralde ere suak hartu zuela kontatzen du. Kortara kandelarekin joan behar izaten zuten eta zerbaitek su hartzea erraza izaten zen. Bera jaio zen etxea, Agiñagakoa, erabat erre zen. Erretako etxea kontratista baten esku lagatzen zen eta zor handiak egin behar izaten ziren. Ermandadea egoten zen laguntzeko.

2.329. Ikatza zelan egiten zuen (AB-300/010)

Ikatza zelan egiten zuten ondo azaltzen du. Hamabost egun inguru behar izaten zuten egurrek egosten. Pagoa izaten zen onena; artea biziegia izaten zen fundiziorako. Lantzean behin betegarria sartu egin behar izaten zitzaion. Txondorraren barrura ez hondoratzeko, ohol baten gainean jartzen zen. Txosnatxo bat egin eta bertan ematen zituen egunak.

2.330. Oinaztarriak jota (AB-300/011)

Ikatza egiten zuten lekuan, oinaztarriak gizona hil zuenekoa kontatzen du. Beste behin etxeko horma bat oinaztarriak jo zuenekoa kontatzen du.

2.331. Oinaztarria, tximista eta haize motak (AB-300/012)

Oinaztarria eta tximista zertan bereizten dituen azaltzen du. Haize motak azaltzen ditu: "ifarra", "nordia", "itsas-haizie", "mendebala", "hegoia"...

2.332. Ama zenaren taloak (AB-300/014)

Artoa eta garia etxe denetan egiten zen. Ama zenak taloak erretzen zituen, buelta emateko gora jaurtita.

2.333. Orduko errotak eta ogi motak (AB-300/015)

Agiñagan bertan zegoen errota, Zubia izenekoa. Legea etorri eta errota txikiak kendu zituztenean, Markinara joan behar izaten zuten errotara. Eibarren Apalategikoa gelditu zen, luzaro. Errotatxo, Agiñagako Orbe baserriaren ondoan zegoen. Faustino sarritan joan behar izan zen errotara, asto gainean. Errotariari bost libra lagatzen zizkieten; "lakia" esaten zitzaion. Artoa eta ogia egiten zituzten labeen, baita tremes izeneko ogiak ere. Irina galbahetik pasatzen zuten, ogia egin aurretik.

2.334. Berrizen linuetxea (AB-300/017)

Gariak zituen lanak azaltzen ditu. Lihoa ikusita dagoela dio. Berrizen "Linuetxea" zegoela dio: jendeak lihoa eramaten zuen hara eta izarak-eta egiten zizkieten.

2.335. Narruzko abarkak zelan josten diren (AB-300/019)

Lehenago narruzko abarkak ere etxean josten ziren: behi-narrua luze ipini, sikatzen laga, narru zatia ebagi, zuloak egin eta jostuhalarekin abarkak josi. Agiñagako sakristauak ere josten zituen abarkak.

2.336. Palankaria (AB-300/021)

"Palankarixa"ri buruzkoak aipatzen ditu; bost kiloko palanka jaurtitzen omen zuen baina ez zuen jokatu nahi izaten. Haren aita omen zen jokalaria hobea.

2.337. Ardoa, baba gorriak, esnea, taloa eta artoa egunerokoan (AB-300/025)

Lehen ardo beltza edaten zen asko, zahagiak etxera eramanda. Baserrian egindako sagardoa maskala zela lanerako dio. Bera jaio zen etxean sagardoa egiten zuten Agiñagan. Baba gorria asko jaten zuten; esnea zopekin, taloa edo arto-errea esnearekin ere bai. Zezeina ere izaten zuten eta txerria urtero hiltzen zuten. Esaera zaharra botatzen du:" txarrixa hiltteko astie eta ezkontzeko astie, onenak".

2.338. Eskolan abarkak josi eta pilotan; beste askorik ez (AB-300/026)

Eskolara Agiñagara joaten zen, "Sakristau zaharra" maisu zutela. Gero eskola egin zuten eta maistrak joaten ziren. Abarkak josi eta pilotan aritzen ziren. Irakurtzen eta idazten ikasi zuten baina erdaraz ez zuten ikasi; Barinagakoek erdaraz ikasi zutela dio.

2.339. Aste Santuan sua eta ura bedeinkatzen ziren (AB-300/028)

Aste Santuko egunak egun handiak izaten ziren. Eguen Santu eguna garrantzitsua izaten zen Agiñagan. Ura eta sua bedeinkatzen ziren.

2.340. Lehengo zaharren bizimodua (AB-300/031)

Sorgin kontuak aipatzen ditu; lapurrak bertan egoten zirela dio. Lehengo zaharrek ardoa edan eta elkarrekin borrokan ere egiten zutela dio, baita elkarri probak ipini ere, diru pixkaren bat jokatuta. Oinutsik ibiltzen ziren mendian haiek.

2.341. Arando inguruko erreka eta iturriak (AB-300/034)

Arando inguruko erreka eta iturriak aipatzen ditu: "Goiko iturririxia" (bidea egin zutenean apurtu zuten), "Beheko iturririxia", Arando erreka (beraiek egindakoa), Urko erreka, Agiña erreka.... Zubixa errota inguruan egiten dute bat Urko errekek eta Arando errekek.

2.342. Urko mendian dauden leku izenak (AB-300/035)

Urko mendiaren ondoan dauden leku-izenak aipatzen ditu: Zabaleta, Kantera, Azuntza (Maillabiko gorengo etxea), Urkoko etxea (Ermuko gorengo etxea)...

2.343. Perretxikotan sarri; urritxa, urdina, saltsak, susak... (AB-300/036)

Makina bat perretxiko batutakoa dela dio. Urritxa eta Urdina batzen zituen. Lehen onddoa zer zen ez zekiten. Saltsak, susak... aipatzen ditu. Susak saldu ere egiten zituen. Etxe inguruan ere irtetzen ziren susak, karea zabaltzen zuten lekuan.

2.344. Karea zelan egiten zuten (AB-300/037)

Karobia zeukaten etxaburuan. Astoarekin ekartzen zuen kareharria Urkotik. Arandoko etxaburuan karobi-zulo bi zeuden. Karea zelan egiten zen kontatzen du. Arte egurra ona da karea erretzeko. Gau eta egun zaindu behar izaten da. Lurra garbitzeko erabiltzen zen karea, kokoak hiltzeko. Gariarentzat ardi simaurra ona izaten zela dio.

2.345. Grabatua: maisuak eta hasiberriak (AB-301/003)

Lantegietako maisuak langileak izaten ziren. Hasiberriek enkarguak egiten zituzten. Marrazkilari nagusienek egun argitan lan egiten zuten, ez zuten bonbillarik erabiltzen.

2.346. Grabatua: marrazkien ereduak (AB-301/004)

Enrike Bidarteren lantegian marrazkiak egiten zituzten, gehien bat, eskopetenak. Marrazkien hainbat eredu erakusten ditu. Bost-sei lagun aritzen ziren lantegi horretan, eskopetaginenzat lanean.

2.347. Eskopetaren marrazkien kalitateak behera (AB-301/005)

Eskopetetako marrazkiak kalitatea galduz joan zirenekoa kontatzen du. 1950-1960 inguruan gertatu zela dio.

2.348. Eskopeta lantegiek lan batzuk beste batzuei eskatzen zizkieten (AB-301/008)

Eskopeta lantegiek grabatzailea izaten zuten baina lan batzuk beste lantegi batzuei eskatzen zizkieten. Prezioaren arabera, kalitate txikiko edo handiko lanak egiten zituzten.

2.349. Grabatua: maisu handiak eta eskuzko lana (AB-301/009)

Mateo Kareaga, Juanito... grabatzaile ezin hobeak zirela dio. Grabatu eta tenplatu egiten zituzten hainbat trokel altzairuan. Horiek baino lehen, hizki guztiak eskuz grabatzen zituzten.

2.350. Gubilistak: zilarrezko txanponean Arrateko amabirjina (AB-301/010)

Trokelarekin eta gubilarekin lan egiten zutenak bereizi egiten zituzten. Lan bereziak egiten zituzten gubilarekin; esaterako, zilarrezko txanponean Arrateko amabirjina marraztea.

2.351. Grabatua: erliebea teknika zer den (AB-301/011)

Erliebea zer den azaltzen du. Adibidea jartzen du: lau zakurrek basurdea harrapatzen zutenekoa.

2.352. Grabatzaile, marrazkilari, gubilista, damaskinatzaile (AB-301/013)

Grabatzailea zeini esaten zitzaion azaltzen du. Marrazkilariak, gubilistak, damaskinatzaileak... aipatzen ditu. Batzuk aipatzen ditu.

2.353. Lanerako erremintak norberak egindakoak (AB-301/014)

Gerra aurreko grabatzaileak aipatzen ditu. Kareagatarrak, Bidartetarrak, Paulino Larrañaga... aipatzen ditu. Erremintak egiten zituzten.

2.354. Nork bere erremintak egiteko prozesua (AB-301/016)

Lanerako behar zituzten erremintak beraiek egiten zituzten. Zelan egiten ziren kontatzen du eta kameraren aurrean zati batzuk erakutsi ere bai.

2.355. Beruneko barailak eta beste tresna batzuk (AB-301/018)

Beruneko barailak zelan egiten ziren eta zertarako erabiltzen ziren azaltzen du. Lanerako erremintak norberak egitea ohikoa zen, baita teknika berriak asmatzea ere.

2.356. Eskopetaren prozesuan parte hartzen dutenak (AB-301/019)

Eskopetaren prozesua zelan izaten zen kontatzen du. Forjatutako pieza batetik ateratako totxoa janez egiten zuten lan lehenagokoek. Ondoren, mekanizatuarekin hasi ziren lanean. Baskulak egiten zituztenak, kanoiginak... zeuden.

2.357. Eskopetari distira eman, marraztu, tenplea eman eta muntatu (AB-301/020)

Eskopeta egiten zutenean, akabatzailearengana bidaltzen zuten, distira ateratzeko. Ondoren, beraiei ekartzen zieten marrazkia egiteko. Azkenik, tenplea ematen zitzaien eta muntatu egiten zuten. Kanoiari buruzko zehaztapenak ematen ditu.

2.358. Baskula eta kanoia marrazten zituzten (AB-301/021)

Baskula eta kanoia zelan marrazten zituzten azaltzen du.

2.359. Kaxaren prozesua: egin, lixatu, txarolatu eta pikadura jo (AB-301/022)

Eskopeten kaxak kaxaginak egiten zituen; ondoren, libratzaileak lixatu egiten zuen; gero, "txarolau" (ilundu) egiten zuten eta, azkenik, pikadura jotzen zioten.

2.360. Eskopeta egiteko prozesua etxeetan (AB-301/024)

Pikatzen zutenak andreak izaten ziren eta etxeetan egiten zuten lan. Etxeetan eskopetaren lan-prozesuaren atal asko egiten ziren, batean eta bestean. Gerra ostean eskopeta finak egiten ziren eta gutxi. 1950-1960an asko egiten zituzten, kalitatea galduz, eta, berriz ere, gutxitu egin zen lana gerora.

2.361. Eibarko kaleetan grabatzaileen lanaren soinua (AB-301/025)

Leku askotatik ekartzen zizkieten kanoiak, pikatzeko. Eibarko kaleetan grabatzaileen lanaren soinua entzuten zen. Erakutsi egiten ditu soinua.

2.362. Marra zuzenak egiten ikastea, lehenengo lana (AB-301/026)

Lehenengo ikasten zena marra zuzenak egitea izaten zen. Beti zutik lan egiten zuten.

2.363. Eskaera handietarako plantilak (AB-301/028)

Eskopeta mota bat bestetik bereizteko eta kopiak egin ahal izateko erabiltzen zuten teknika azaltzen du.

2.364. Pezeta bateko jorna lehenengo astean (AB-301/030)

Bera gaztea zela, kontuak kontatzen ibiltzen ziren lanean. Pezeta bat irabazi zuen lehenengo astean; gero gehixeago.

2.365. Grabatzailearen erremintak (AB-301/032)

Erremintak erakusten ditu: "roldanak", gubia, gubila, "atzaparduna", horzbikoa, "matia"... Egiten ari den lana erakusten du, azalpenak emanez.

2.366. SILCA enpresakoak. Empresa SILCA (AB-302/001)

SILCA enpresakoak. Empresa SILCA

2.367. SILCA enpresa, lana eta lanlekua. SILCA: la empresa y el trabajo (AB-302/002)

SILCA enpresa, lana eta lanlekua. SILCA: la empresa y el trabajo

2.368. SILCA enpresa Bartzelonako azokan. SILCA en la Feria de Barcelona (AB-302/003)

SILCA enpresa Bartzelonako azokan. SILCA en la Feria de Barcelona

2.369. SILCAkoen pasadizoak. SILCA (AB-302/004)

SILCAkoen pasadizoak. SILCA

2.370. P. Larrañaga eta "Congregación de jóvenes de Arrate" taldearen Armarría. P. Larrañaga y el escudo de la "Congregación de jóvenes de Arrate" (AB-303/001)

Paulino Larrañaga eta "Congregación de jóvenes de Nuestra Señora de Arrate" taldearen Armarría. Paulino Larrañaga y el escudo de la "Congregación de jóvenes de Nuestra Señora de Arrate"

2.371. "Congregación de jóvenes de Arrate" taldeak egiten zituen gauzak. Actividades de la "Congregación de jóvenes de Arrate" (AB-303/002)

"Congregación de jóvenes de Nuestra Señora de Arrate" taldeak egiten zituen gauzak. Actividades de la "Congregación de jóvenes de Nuestra Señora de Arrate"

2.372. Salon Teatroa Benedicto Dominguezen ahotan. El Salón Teatro (AB-303/004)

Salon Teatroa Benedicto Dominguezen ahotan. El Salón Teatro

2.373. Castrillo argazkilariaren Bilduma (AB-313/002)

Estudio Castrillo. Lo tuvo que dejar porque la fotografía de estudio se fue perdiendo a partir de 1978 y ya no era rentable. El 31 diciembre de 1994, cerró el estudio. Vendió el piso y en breve plazo sacó todo lo que tenía en el

estudio. El 24 de agosto del 97 preguntó al Ayuntamiento si estaba interesado en hacerse cargo del archivo fotográfico y la respuesta fue afirmativa. En el plazo de una semana se trasladó lo que se consideró oportuno.

2.374. Castrillo argazkilariaren Bilduma (AB-313/003)

Consideró factible la donación al Ayuntamiento. En aquel momento estaba de presidenta de la Comisión Ego Ibarra Mertxe Garate. 26 sept. 1997 el Pleno del Ayuntamiento asumió la donación. Le dieron una placa (su mujer Mari Paz confirma este dato; ramo de flores y placa). Ninguno de los hijos ha mostrado interés por continuar con la tradición familiar a pesar de que ha insistido bastante en enseñarles el trabajo en el laboratorio, etc.

2.375. Ortuoste argazkilariaren hasierako urteak (AB-313/004)

Fin de una saga de tres generaciones de fotógrafos. El abuelo comenzó a finales del siglo XIX, 188... Comenzó con el fotograbado. Comenta que él no tenía constancia de que hubiese sido grabador; lo que sí sabía era que comenzó sacando fotos a los grabados. Luego montó el estudio y ya se dedicó a la fotografía de estudio y al reportaje. El comienzo lo sitúa en la reproducción de grabados damasquinados de Eibar. El lugar era la subida a Aldatze. Había una huerta (allí estaba el estudio), y adosado al Palacio de Indianokua estaba la vivienda y el laboratorio. A la derecha tenía el estudio, hecho a base de cristalerías, con fondos preparados. Ese es el inicio, según recuerda, pero matiza que él tiene pocos datos porque la familia murió pronto (el abuelo murió en 1941, Feliciano entonces tenía 5 años). Su madre conoció en Bilbao a Feliciano Castrillo padre, y cree que se casaron en 1919, pero tampoco tiene constancia de ello. De ahí comenzaron Ortuoste y Castrillo (el abuelo y su padre).

2.376. Ortuoste-Castrillo sendia (AB-313/005)

Su padre nació en el barrio La Peña de Bilbao y su madre era eibarresa. Aprendió en varios estudios. Su madre iba con asiduidad a Bilbao, a retocar los negativos, y fue así como se conocieron. Espiga y no recuerda el nombre del otro estudio. Se casaron en 1919 y desde entonces Ortuoste y Castrillo. El trabajo de aficionados lo llevaba su madre. Ella hacía el tiraje de copias y revelaba los rollos. Su padre llevaba el tema de estudio y retoques. Incluso también trabajó en el estudio, sobre todo a partir de la muerte del padre en 1947. Entonces cogió a uno de sus hermanos (Luciano) y estuvieron los dos a cargo del estudio hasta 1954 (murieron los dos en poco tiempo). Luciano se encargaba de las salidas, estudio, laboratorio... el único de los cinco hermanos al que le interesó el tema de la fotografía. Los hijos de Ortuoste: Mercedes, Victoria, Faustino, Luciano y Gregorio.

2.377. Ortuoste-Castrillo familia (AB-313/006)

De Faustino hay bastantes fotografías con la moto. Cree que fue una de las primeras motos que hubo en Eibar, una Harley con sidecar. Anécdotas. También era un mecánico muy bueno.

2.378. Román Ortuoste (AB-313/007)

No recuerda el nombre de la abuela. El abuelo, Román. De origen, eran de Elorrio pero cree que Román ya nació aquí. Su madre (Victoria) desde luego era eibarresa. Los apellidos son de aquí. Ortuoste, Cengotita, Etxaluze, Garate. Román debía de ser un juergista, se apuntaba a todo. Tocaba la guitarra y le llamaban para todo.

2.379. Feliciano Castrillo eta argazkilaritza (AB-313/009)

Empezó a aprender fotografía desde que vino de la guerra. Él se metía en el laboratorio, revelaba las fotos que hacía con sus amigos. Cuando volvió de Madrid, en 1953, acompañaba a su tío en los reportajes. Ellos todavía no tenían flashes y utilizaban el magnesio. Cuenta alguna anécdota (una vez su tío se quemó la cara y Feliciano las manos. La mezcla de magnesio y potasa la hizo su tío pero no en las proporciones adecuadas; hizo una explosión dentro de la iglesia...en una boda).

2.380. Juan San Martín eta argazkilaritza (AB-313/010)

Juanito San Martín utilizaba el magnesio para sacar fotos dentro de las cuevas. Magnesio sin mezcla con potasa, para que la luminosidad fuese lenta y no hiciese instantánea.

2.381. Ortuoste-Castrillo familia gerra ostean (AB-313/011)

Feliciano al terminar la guerra tenía tres años. Estuvieron exiliados en Francia y volvieron su madre y él en 1940. Entre tanto, su padre tuvo que marcharse de Eibar y montó una especie de chabola en Deba y durante la guerra estuvo haciendo fotografías. Terminó la guerra y su padre no pudo establecerse en Eibar. El Ayuntamiento no se lo permitía por antecedentes políticos. Tardó más de un año en lograr los permisos necesarios. Finalmente logró establecerse en la calle Bidebarrieta nº 62. Murió en 1947. En 1946 pasaron a Bidebarrieta nº 21.

2.382. Ortuoste-Castrillo familia gerra garaian (AB-313/012)

Durante la guerra fueron a Francia. De Eibar a Bilbao, luego Santander y de allí a Francia. De allí entraron a Cataluña. Y luego volvieron a Iparralde y ya hacia aquí. Antes de volver a Eibar, estuvo dos años en Zaldibar. Su madre iba y venía todos los días a Eibar a ayudar a su padre. Feliciano completó sus primeros años de escuela en Zaldibar. Su padre vivía en Eibar. No tenía piso y vivía en casa de Lucio Unanue hasta que compró el piso de Bidebarrieta nº 21. En realidad piso sí que tenían, en Errekatzu, pero estaba alquilado. Se hacían primos (con la familia Unanue) por parte de su madre.

2.383. Ortuoste-Castrillo familia (AB-313/013)

Su hermano mayor Lucas cayó en Peña Lemona. Tenía 17 años. En Eibar era de la cuadrilla de Furia Roja. Según un amigo debía de ser un buen futbolista... y por lo que comenta Feliciano, era muy buen dibujante. Antes de la guerra estuvo detenido porque era algo revolucionario. Parece ser que en la cárcel hizo algún dibujo de alguien en la pared, muy bueno. Otro hermano, Juanito, falleció en una operación de apendicitis, en 1934.

2.384. Feliciano Castrillo eta argazkilaritza (AB-313/014)

Sus inicios fueron desde chaval. Cuando iba al monte con los amigos sacaba la foto con una máquina de fuelle. Cuenta cómo sacaba las fotos de forma automática. Un alfiler atado con un hilo... Estuvo aprendiendo dibujo artístico con Luis Marcano. Posterior, fue a Madrid, a una Escuela de Artes y Oficios. 1952 volvió de Madrid y empezó a ir a Bilbao a aprender a retocar con Rubio. Para ser un buen fotógrafo es interesante saber algo de dibujo artístico en general, para saber modelar a la hora del retoque... Rubio era muy buen retocador. Su padre también debía de ser un fenómeno retocando. Empezó a estudiar dibujo artístico en el Ayuntamiento, estaba allí Lucas Alberdi, y luego pasó a dibujar con Luis Marcano, dibujo artístico de lámina. En 1954 fallecieron su madre y su tío y tuvo que hacerse cargo del negocio. Empezó sólo, puso un anuncio, y a través del retocador de Bilbao, le vino un ayudante, José Huidobro. Una bella persona; cuando Feliciano tuvo que ir a la mili, se quedó él al cargo del negocio. Fue entonces cuando tuvo que coger a un ayudante para el oficial, que luego pasaría a ser la mujer de Feliciano. Se licenció en 1959, y hasta el 31 de dic. de 1994 estuvo trabajando como fotógrafo.

2.385. Feliciano Castrillo eta argazkilaritza (AB-313/015)

A que se ha dedicado. A todo, excepto al reportaje rural. Algunas cosas se hacían pero muy poco. El estudio les absorbía el tiempo: el estudio, lo industrial, las bodas (todavía se hacían en blanco y negro y había mucho trabajo de laboratorio). Luego empezó el color y se mandaban los trabajos fuera, a revelar a laboratorios industriales. El retoque. Anécdotas (a los que venían sin afeitarse, les mandaba a afeitarse). Retoque de los negativos de color, positivos... Entonces las fotos se sacaban mayormente los sábados y domingos por la mañana. Colas muy largas. La gente se vestía de domingo sólo los fines de semana. Se hacían mucho fotos de cuerpo entero (gente que venía de fuera a trabajar y cuando se compraban el primer traje se sacaban una foto para enseñar a la familia); fotos de medio cuerpo pero enseñando el brazo para que se viera el reloj, (según su mujer algunos con música, pensando que el sonido también salía en la foto...). Algunos clientes eran muy pesados (les sentaba, enfocaba y se levantaban a mirarse al espejo, y todo ello varias veces...).

2.386. Feliciano Castrillo eta argazkilaritza (AB-313/016)

Amestoy escribió una crónica sobre Eibar. Le llamó "la ciudad del dólar". En Eibar es verdad que se ganaba, pero se trabajaba. El que menos trabajaba, lo hacía al menos 12 horas al día. Había trabajo para todo el mundo; se ganaba bien. Fotografía industrial se hacía bastante: GAC, construcción de la fundición de Alfa, Agra; y luego fotografía industrial se hacía también mucho en el estudio: escopeta, pistola...incluso bicicletas. Damasquinado. Recuerda que las primeras fotocopias se hacían a partir de reproducciones (permisos de exportaciones...). Los trabajos de Azpiri, Aranzeta y Palacios, que hacían faroles...y cosas pulidas, sacaban mucho reflejos, efectos de espejo y para matear las piezas utilizaba patata. Daba muy buen resultado, casi mejor que el filtro polarizado. Reproducciones de escopetas; menudo arsenal que solía tener allí. Las últimas veces las traía directamente la Guardia Civil; pero muchas veces le trajeron directamente de AYA escopetas (hasta 40)...y se las dejaban allí 4/ 5 días. Cuando cerraba el estudio por la noche, aprovechaba para trabajar ese tema. Pero ya en la última época siempre venía la Guardia Civil custodiando las armas y solía tener que hacer las reproducciones al instante.

2.387. Román Ortuoste argazkilari ezaguna (AB-313/017)

Euskeraz. Aitxitzan lehelengo lokala, Aldatzekua. Gerra aurretik bere aitxak Barrenkalen zabaldu zeban beste estudixo bat. Gerra ostian Bidebarrixetan zabaldu zeben estudixua (62 eta 21 zenbakixetan). Bidebarrixetan lehena 1941 inguruan eta bigarrena 1946 inguruan. Azkena 1949xan, Avda. Generalisimon. Berak lehelengo estudixua ez zeban ezagutu, baiña ideia bat badaka (dana dala, komentatzen dau euskeraz gatxa egitten jakola hori esplikatzia eta erderara pasatzen da berriz).

2.388. Roman Ortuosteren argazki-estudioa (AB-313/018)

El estudio de Román Ortuoste era una galería, con cristal traslúcido, de forma que aprovechaba toda la luz. No existían focos...; utilizaba cortinas (para tapar un poco cuando entraban los rayos de sol y difuminarlos); tenía ya fondos preparados. Los flashes sólo los ha utilizado él. Sus padres no los utilizaron. Tenían instalación eléctrica, cristal esmerilado para difuminar las luces, lámparas de 500 y 1.000 watt. Fue Feliciano el que comenzó a trabajar con el flash. Hasta entonces los reportajes se hacían con magnesio y potasa, y las fotos de estudio con luz eléctrica.

2.389. Roman Ortuosteren argazki-estudioa (AB-313/019)

El laboratorio, el estudio siempre los han tenido en el mismo local. Se trabajaba por contacto hasta el formato 13x18 (su padre parece ser que llegó a trabajar así hasta el 18x24). Las copias se hacían por contacto directo. Virajes químicos pocos, pero alguna sepia sí. ¿El sulfuro? huele que apesta. Durante una temporada, entregó en sepia. A la gente le gustaba. El reparto de trabajo entre Feliciano y el oficial: cuando el oficial tenía trabajo de laboratorio, Feliciano hacía retoque y estudio. Según el trabajo que tuviesen, el reparto era diferente.

2.390. Roman Ortuosteren argazki-estudioa (AB-313/020)

Román Ortuosten estudixua Maria Angelan zeguan eta famelixia be bertan bizizan. Aldapatxon onduan laboratorixua eta etxia, eta bestekaldian, estudixua. En relación al número de la vivienda, las cosas no quedan muy claras, Indianokua tenía el nº 1, pero parece ser que el estudio de Román era el nº 1 de Aldapatxo. Según Castrillo había que subir un buen trecho de escaleras para llegar al estudio, y la vivienda cree que estaba pegada a la parte trasera de el Palacio.

2.391. Feliciano Castrilloren argazki-estudioa (AB-313/022)

Empezó a trabajar con Feliciano con 12 años y medio, cuando Feliciano se fue a la mili. Es de Vitoria. Al principio se solía poner muy nerviosa. No le gustaba nada la fotografía. Ella cortaba las fotos de carnet... Le tenía mucho respeto. Cuando ella tenía 20 años comenzaron a salir como novios; así estuvieron 2 años y luego se casaron. Ella continuó trabajando hasta que se quedó embarazada. Luego cogió a otra chica y ella solía bajar a las tardes a ayudarle, pero nada más. Antes de empezar a trabajar con él, ella ya vivía en Eibar. A través de un conocido, encontró ese trabajo. Empezó cobrando 600 pts. Ayudaba en el estudio sujetando a los niños pequeños; en algunas reproducciones para un catálogo de Sigma en las que había que poner las manos; para la GAC... Le encantaba que le pusiesen en el escaparate. Pero en cambio de sacar fotos, nada.

2.392. Feliciano Castrilloren argazki-estudioa (AB-314/001)

En la imagen, Feliciano Castrillo y su mujer. (Habla sobre todo Mari Paz) Fotos de cuadrillas, generalmente en Carnavales. No tanto gente mayor, sino jóvenes. Los disfraces que más se veían eran de gitana, zíngara... En las Fiestas Vascas se hacían muchas fotos de niño... Fotos de bodas y despedidas en el Bar Loiola. Castrillo las recuerda perfectamente. Ocupaban toda la carretera y paraban la circulación; sacaban las sillas del Bar y se situaban debajo de un sauce llorón que tenía la Clínica de Ignacio Arrillaga. Entonces no se hacían más que 3 ó 4 placas. También se hacían despedidas en Zulaika, Chalcha.. También iban a otros pueblos e incluso venían los clientes a Eibar de Ondarroa, Markina, Deba, Bergara... sobre todo comuniones venían a sacarse fotos al estudio.

2.393. Feliciano Castrilloren argazki-estudioa (AB-314/003)

Cómo organizaba el material. Por lo que comenta, archivaba generalmente por fechas, por meses. Se iban archivando los negativos por tamaños; se iban metiendo en cajas (se coloca el micrófono a Castrillo y en la imagen vuelve a aparecer sólo él). El material de estudio se iba archivando en cajas por meses. Todos los negativos hasta el formato 13x18 se archivaban por grupos (en función del tamaño) mensualmente. En las primeras bodas que hizo con su tío, se utilizaba todavía la placa de vidrio (13x18) con la cámara de campaña; incluso también llegó a hacer carnets con placa de vidrio. El celuloide ya estaba; su padre también había hecho algo con celuloide en el estudio pero él trabajó con placa de vidrio hasta que empezó con la cámara pequeña, la manual. Primero compró una Retina de 35 mm, pero no le gustaba porque al hacer las ampliaciones daba mucho grano. Posteriormente adquirió una Rollei flex. A partir de entonces los reportajes se hacían con rollo. Al principio hacían ellos toda la tirada (también el trabajo de laboratorio) hasta que empezó el color (entonces había que mandar el rollo al laboratorio y venía ya cortado).

2.394. Feliciano Castrillo argazkilari ezaguna (AB-314/004)

Placas de vidrio. Era lo que él había visto y él siguió con ese ritmo. Quizás ya existía el celuloide, pero él continuó trabajando con lo que ya tenía, con lo que conocía. Luego comenzaron con el celuloide; además el celuloide ofrecía una gran ventaja, y era que se podía retocar por las dos caras (por el soporte y la emulsión). Por el grosor del cristal, esto era imposible en las placas de vidrio. Valca y Agfa eran las marcas de las placas de vidrio.

2.395. Feliciano Castrilloren argazki-estudioa (AB-314/005)

El archivo. Tuvieron problemas de humedad, y muchas placas del padre se estropearon. Luego se pusieron en baldas y ya no volvió a haber problemas de ese tipo. En los traslados también se rompieron muchas placas. Recuerda que en el año 1946, en el traslado desde Bidebarrieta 62 al nº 21 se rompieron bastantes placas de vidrio; eran muy frágiles... Él tenía 10 años y ayudó en el traslado. En el traslado a la Avda. del Generalísimo, sucedió otro tanto. Además, él también destruyó bastantes placas (foto de estudio). Lo otro ya veía que podía tener un valor en el futuro (reportajes...). El cristal era fenomenal, muy limpio, pero muy frágil. Se aprovechaban las propias cajas de las placas para irlas archivando. El celuloide permitía archivar mucho más en un mismo espacio. Por mes y año localizaba el negativo para hacer copias. Las dificultades surgían cuando ya había sido realizada una copia. Había clientes que se sacaban 3 /4 veces al año fotos de medio cuerpo.

2.396. Feliciano Castrilloren argazki-estudioa (AB-314/006)

Años 40/50. Había muy pocas cámaras. Rollos 6x9. Hacía 16 copias de 4,5x6. Se hacían bastantes copias de fotos. Incluso algunos clientes le decían que les pusiera en el escaparate.

2.397. Eibarko argazkilariak (AB-314/007)

Se reunían los fotógrafos eibarreses. Ojanguren no asistía a esas reuniones. Al principio él también trabajó el estudio a nivel familiar y por lo que cree tenía un estudio muy similar al de su abuelo; posteriormente eran más bien fotos para carnet y reportaje. No retocaba. Tenía un carácter fuerte. En la época de su abuelo, estaban Ojanguren y también había un tal Alonso en Calbetón.

2.398. Argazkilaritza Eibarren (AB-314/008)

Años 40 / 50. Fotógrafos en Eibar. Cuando empezó él, estaban Plazaola (carnets, aficionado algo). Aguirresarobe, Javier Fernández y Romarate trabajaron para Plazaola. Jauja en Bidebarrieta, al lado de Muñoa. Pasaron varios por Jauja. Buenacasa vino de Zaragoza. Cree que la casa Jauja vino también de Zaragoza. Cortijo, a finales de los 50, principios de los 60. Posterior aparecieron Ares, Lacuesta (trabajos de aficionado). Como estudio, Garay, Cortijo, Aguirresarobe, Jauja y Castrillo. Había muchos fotógrafos. Para reportaje, Ares... Para reportajes de boda... estaban Díez, Fernández (abrió estudio con Anabel). Fotos minuto, Servando Juez. En Sanjuanés montaba fondos para sacar instantáneas. A partir del 60 hay un boom de fotógrafos para hacer reportajes...

2.399. Eibarko argazkilariak (AB-314/009)

Se reunían los fotógrafos de estudio, para determinar los precios... En el estudio de Aguirresarobe, en el suyo... Una vez acudió al sindicato vertical. Los precios se establecían en función de la capital, pero era muy distinto la capital y esto.

2.400. Argazkilaritza Eibarren (AB-314/014)

Fotos de reuniones familiares. En Eibar era una tradición hacer reuniones familiares en San Juanes; venían familiares de pueblos de alrededor y aprovechaban la ocasión para sacarse una foto de estudio de la familia. Niños desnudos, con faldón... Él aconsejaba llevar a los bebés a partir de los 6 meses; antes no salían demasiado bien (no sujetaban bien la cabeza, y salía una foto fea). fotos de velatorios. Era una costumbre de fuera: se reunía la familia en casa del fallecido y con el difunto en el féretro se sacaba una foto.

2.401. Feliciano Castrilloren argazki-estudioa (AB-314/016)

Siempre han tenido los locales en un primer piso. Sin embargo, antiguamente se solían ubicar en el último piso; cuando no había luz eléctrica y se hacían falta luceros. Luego se pasaron a los primeros pisos. En Barrenkale, Bidebarrieta...siempre en un 1er piso. Paneles de luz; lámparas de 1.000 y 500 wattios.

2.402. Feliciano Castrilloren argazki-estudioa (AB-314/019)

Nervioso hasta que no veía las fotos; sobre todo las fotos de bodas. Cuando se trataba del blanco y negro no, pero a partir del color, los rollos se dejaban en otras manos, no sabía qué trato se les iba a dar... Los rollos se mandaban a un

laboratorio industrial. Una vez si tuvo un problema, pero por lo demás ha tenido mucha suerte.

2.403. Eztenbedar edo trintxa motak (AB-315/001)

"Formoi"ari eztenbedarra esaten zitzaien Eibarren; Bizkaian, berriz, trintxa. Zertarako erabiltzen den azaltzen du eta mota desberdinak aipatzen ditu.

2.404. Lehenengo arotz lanak, baserrirako tresnak (AB-315/003)

Bere kasa ikasi zuen arotz lana. Baserriko lanak egiteko behar ziren tresnak egiten zituen. Eztenbedarra tresna eskuetan duela, azalpenak ematen ditu.

2.405. Astoari jartzen zaizkion txalmak (AB-315/004)

Txalmak eta arbaldak zer diren eta zelan jartzen diren azaltzen du.

2.406. Eztenbedar motak (AB-315/005)

Eztenbedarrak erakusten ditu: estua, zabala, gubia...

2.407. Gurdi motak (AB-315/006)

Baserritarako gurdi asko egiten ziren, hiru motatakoak. Izendatu egiten ditu eta bakoitza zertarako erabiltzen zen azaltzen du. Zaletasunagatik eta besteei begira ikasi zuen. Tresna gutxiarekin hasi zen lanean.

2.408. Aizkora motak (AB-315/007)

Aizkora erabiltzen zuen lanerako. Napar-aizkora egurra mozteko, arotz-aizkora egurra lantzeko eta arotz-aizkora txikia, egur txikiagoak lantzeko.

2.409. Baserrirako tresnak, etxean bertan eginak (AB-315/008)

Eskuareak, aitzur-kirtenak, aizkora-kirtenak eta beste egiteko gai izaten ziren etxeakoak baserri gehienetan.

2.410. Eztenbedar motak (AB-315/010)

Eztenbedar motak erakusten ditu eta zertarako erabiltzen diren azaltzen du. Mailuarekin jota erabiltzen dira.

2.411. Artea, lizarra, makala eta pagoaren erabilpena (AB-315/011)

Artearekin egiten zitzairen kirtena eztenbedarrei, gogorrena delako. Gurdiarentzat gehien lizarra erabiltzen zen. Kaxa egiteko, makala erabiltzen zuten batez ere. Lizarrarekin altzariak egiten zituzten. Kirtenak egiteko lizarra eta pagoa erabiltzen dira. Pagoaren berezitasunak aipatzen ditu.

2.412. Egurra mozteko garaia (AB-315/012)

Lizarra eta pagoa noiz moztu eta zelan zaindu aipatzen du. Irailetik otsailaren azkenera komeni da zuhaitzak botatzea, eta ilbeheran, ura behean daukalako.

2.413. Egurra zelan lehortu (AB-315/013)

Zaharrei entzunez eta gogoan hartuta ikasi ditu dakizkienak. Egurra lehortzen lagatzen da, tolestuta.

2.414. Alfer-hesia eta alfer-harria (AB-315/014)

Gurdia, area, alfer-hesia... egiten zituen lizarrarekin. Alfer-hesia eta alfer-harria noiz erabiltzen ziren kontatzen du.

2.415. Uztarriak zelan eta zeinek egiten zituen (AB-315/015)

Uztarriak pagoarekin egiten ziren normalean. Bere anaiak egiten zituen etxerako. Bergarako Zabalak egiten zituen, egun bakarrean. Araban uztarriak kalean egiten zituzten, lekua bazeukaten eta.

2.416. Hurritzaren egurra zertarako erabiltzen den (AB-315/016)

Gurdiaren kutxa hesi moduan egiten zuten batzuek, hurritzarekin. Hurritzarekin zesto batzuk egiten zituzten, baina ez zen oso preziatua.

2.417. Zumitza zelan egiten den (AB-315/017)

Gaztainondoarekin zumitza zelan egiten den azaltzen du. Arasarekin lantzen zen zumitza. Gaztaina gaztea ez bada, barruan kipula sortzen zaiola dio. Egur zaharrei sortzen zaie kipula izeneko bihurritua.

2.418. Gaztainondoa zertarako erabiltzen den (AB-315/018)

Gaztainondoa gauza askotarako erabiltzen zen: lurreko oholak egiteko, tinkoak eta langak egiteko, altzaritarako...

2.419. Gaztainondoa egur ona eta dotorea (AB-315/019)

Gereziondoa altzariak egiteko erabiltzen zen baina gehien bat gaztainondoa. Egur ona eta dotorea da. Gaztainondoaren egurrarekin baserrietako mahai borobilak egiten ziren.

2.420. Haritzaren egurra zertarako erabiltzen den (AB-315/020)

Haritza lantzeko gogorragoa zen gaztainondoa baino. Egiturak egiteko eta leihoen markoetarako haritza erabiltzen zen, baita habeak eta gapirioak egiteko ere.

2.421. Egurrezko etxearen atalak (AB-315/022)

Egurrezko etxea zelan egiten den azaltzen du pausoz pauso. Zutabeak, frontalak, kuartoiak, oholak, gapirioak, goihabea, gailurra, zapata... zer diren azaltzen du.

2.422. Frontalak, kinbela eta hagina (AB-315/023)

Teilatuan dauden frontalei habeak esaten zaie. Esaera zaharra aipatzen du. Zutabeen gainean, frontala jartzeko, kinbela ipintzen da. Hagina ere egiten da, bata besteari lotzeko.

2.423. Zutabearen azpiko harria, ziria, taloa eta txoria (AB-315/024)

Zutabeen azpiko harria egurra ez usteltzeko ipintzen zen. Ziria, taloa eta txoria zer diren azaltzen du.

2.424. Arotzarekin batera, auzolanean (AB-315/025)

Baserrietako teilatuak egiteko auzoko jendea batzen zen, arotz bakarraren bueltan. Askoz merkeagoa zen horrela. Etxea egiteko ere berdin izaten zen.

2.425. Suaroa zer den (AB-315/026)

Etxe bat erretzen zenerako, auzokoek dirua batzen zuten eta bakoitzak betebeharrak batzuk zituen, besteei laguntzeko. Errege egunean egiten zuten suaroaren batzarra.

2.426. Etxe-erre batzea (AB-315/027)

Etxe-erre batzea zelan egiten zuten kontatzen du. Dirua batzen zuten etxerik etxe, erretako baserrikoentzat.

2.427. Lehengo elkartasunik ez orain (AB-315/028)

Orain ez dela lehen bezala elkar laguntzarik esaten du. Adibideak jartzen ditu.

2.428. Montxorra edo teilatu-afaria (AB-315/029)

Teilatuak egiterakoan auzolana egiten zutenean, afari ona izaten zuten ordainetan. Teilatua amaitzen den egunean, erramu adar bat josten zaio gailurrari; afaria egingo dela adierazten du. Montxorra edo teilatu-afaria esaten zitzaion.

2.429. Gari-jotzearen inguruko elkarlana (AB-315/030)

Gari-jotzerako makina partekatu egiten zuten eta gari-jotze afaria egiten zuten lana bukatutakoan. Baziren makina erosi eta baserri baserri ibiltzen zirenak, saio bakoitzagatik dirua kobratuz. Garia garbitu norberak egiten zuen.

2.430. Etxe inguruetan harrobiak (AB-315/031)

Etxeak egiteko harriak etxe ingurutik ekartzen ziren. Dinamitarekin ateratzen zituzten harriak eta gero borrararekin jo behar izaten ziren.

2.431. Arpana eta trontza zertarako erabiltzen ziren (AB-315/032)

Haritzak eta gaztainak etxe ingurutik ekartzen ziren, aizkorarekin landuta. Arpana eta trontza zertarako erabiltzen ziren azaltzen du.

2.432. Egurraren barruko kipula (AB-315/034)

Auzoan zeuden arotzak izendatzen ditu. Egurrari barruan egiten zaion kipulaz edo bihurriaz berba egiten du.

2.433. Zartatzen den egurra (AB-315/035)

Egur batzuk beste batzuk baino errazago zartatzen dira. Izendatu egiten ditu.

2.434. Egurraren atalak (AB-315/036)

Egur ona egur zaharra izaten da, gazteak azala izaten duelako asko. Egurraren atalak, kanpotik barrurakoak, izendatzen ditu: azaleko gizona, giharra eta "huna" (guna). Egurrari egiten zaion kipulari buruzko azalpenak ematen ditu.

2.435. Egurra jaten duten kokoak edo zomorroak (AB-315/037)

Azaleko gizona kokoak, zomorroak, jaten du. Koko hori erle baten antzekoa dela dio, hego eta guztikoa. Sasoi zaharrearantz moztutako egurrari koko beltza egiten zaiola esaten du.

2.436. Hirututako egurra (AB-315/038)

Hirua, kolorea galdutako egurra izaten da. Hirututa dagoela esaten da.

2.437. Gurdiaren pertikari punta, torlojua edo ziria (AB-315/039)

Gurdiaren "partikari" (pertikari) punta egiten zitzaion. Batzuetan torloju batekin edo ziri batekin lotzen zuten.

2.438. Buztin zuriarekin egindako teilak (AB-315/040)

Teileriak leku askotan egoten ziren. Eguraldi txarrarekin auzolanearantz ere egiten zituzten. Buztin zuriarekin egiten zituzten. Prozesua azaltzen du.

2.439. Landare izenak I (AB-316/003)

Alpapa ("Alpapia") abereei jaten emoteko erabiltzen da. Altza, erreka ertzean egoten den zuhaitza da. Landare eta zuhaitz izenak aipatzen dituzte: alkasia, anis-belarra ("sartain-ipurdia"), "millua", "apiua", "araotia" (Araba-otia)...

2.440. Landare izenak II (AB-316/005)

Larra eta sasiaren arteko ezberdintasuna. Sastraka ("sastrakia"), zuhaixkak dira eta larraren familiakoak. Artaburuari "artaputza" edo "ustela" esaten diote.

2.441. Landare izenak III (AB-316/007)

Artearen ezkurra. Artalia eta artaburuua. Arto-lorea "Artoloria". Arto-berdea "artoberdia", ohiko artoa baino beranduago ereiten da eta abereentzako izaten da. Astaputzak hauts beltz bat botatzen du eta ez du balio jateko. Astakarduari, "Kardulatza" esaten diote.

2.442. Landare izenak: "lekitto-bedarra" (AB-316/010)

"Leketto-bedarra" edo iraka belar txarra da eta hazten den lekuan ez da beste ezer ereiten. Hazia lurrean sakon izaten du. Lurrari su ematen hil daiteke belar hau.

2.443. Landare izenak IV (AB-316/012)

"Bedar-latza", arropan itsatsita geratzen da; "Bedar-mina" edo pasmo-belarra; berbena-belarra "berbenia".

2.444. Landare izenak V (AB-316/014)

"Bizixo-bedarra", bat baino gehiago daude; Erramua edo "erauntza", "erromerua".

2.445. Sendabelarrak I (AB-316/015)

"Arantza-zurixak", tentsioa kontrolatzeko eta bihotzeko gaitzentzat balio du; "Arantza baltzari" batzuek elor-arantzia (?) deitzen diote; "errosarixo-bedarra" edo "muitza"; "erremolatxia", "eskarolia", "eskarolia"; "flota", intsusaren enatzerakoa da baina txikiagoa. Usain berdina daukate biek.

2.446. Landare izenak VI (AB-316/016)

"Eztul-bedarrak" estula emoten dau, hats bat botatzen duelako. Gari mota ezberdinak aipatzen dituzte: bizarduna eta bizarrrik gabekoa, motzagoa edo luzeagoa... "Garua" edo "iria"; "friskua";

2.447. Sendabelarrak II (AB-316/018)

Garai batean, inguru guztia gaztainadiz beteta zegoen ("goiz-gaztaña", "iñurriñua", "abadiñua", "indixa gaztaiña"...Gaztaina ezberdinei buruz hitz egiten dute. "Irustarbixa", ilea errezago ateratzeko erabiltzen zen. "Iodo-bedarra", zauri bat egin ezkeru hau sendatzeko balio zuen. "Ebagi-bedarra" ere zauriak eta granoak sendatzeko erabiltzen zen. Nola prestatzen zen kontatzen dute. "Belarri-bedarra", kaktusaren antzekoa da eta belarriko mina kentzeko erabiltzen zen, goilaratxo batez landarea estututz eta ateratzen ziren tantanak, belarrira botaz.

2.448. Landare izenak VII (AB-316/020)

"Jangoikuan hatzaparrak"; "Kiñarria" landarearen inguruan erle asko ibiltzen dira. Eibarko Kiñarra-Otaola-bailariari buruz hitzegiten dute. "Gorostixa"; "Itxuskixa" edo "kirua" berdinak diren edo ez eztabaidatzen dute. "Kukufrakia".

2.449. Perretxikoak (AB-316/021)

Kuletrua, dagoen perretxikorik onena da baina zaila da aurkitzea. Umeak zirenean, batzen zituzten baina aspaldi ez dituzte ikusi. Harizti eta pagadietan ateratzen zen. Perretxikorik onenak jateko: onguak, robelloiak, úrritxak, urdinak, kuletruak. Nola prestatu: Plantxan, frijituta, tortillan...

2.450. Landare izenak VIII (AB-316/024)

Madari motak: "ur-madarixa", "negu-madarixa", "makatza goixaukua"...; "Manzanillia"; Intsusia; "Matxin-garratza", belarra mozten zebiltzenean, egarria kentzeko edaten zuten; mizpira edo "mixpiria"; "mimosia"; menda-belarra ereindakoa bada, "bendia" edo "benfa-fiña" esaten zaio eta bakarrik ateratzen bada, "batana".

2.451. Landare izenak IX (AB-316/025)

Oloari buruz hitz egiten duten "Olo-gaiztua" edo bakarrik ateratzen zena, gari artean ateratzen zen eta kendu egin behar zen. Ongo-beltza. Goroldio edo "odolgixa". Pagatxa edo "pagotxa", abereentzako janari bezala erabiltzen da eta erein egiten da. Otea.

2.452. Sendabelarrak III (AB-316/027)

Pasmo-belarra edo "sinusitis-bedarra". Enplastuak egiteko oso ona zen. Enplastuak zelan egiten diren azaltzen dute

2.453. Landare izenak X (AB-316/029)

Patata, pikua, perrexila. "Pipar-bedarra", belar txarra da. Liburuan agertzen diren landareak identifikatzen dituzte: Margarita, pipar-txorizerua, "pipar-haundixa", porruak, sahatza, "sapedarra" (lurrean zabaltzen da eta asko zabaltzen da), sagarra, "zartain-ipurdixa", "sekula-bedarra", zapo-kipula.

2.454. Landare izenak XI (AB-316/031)

Saltsak, txanpiñoia, tomatea, "txarri-bedarra". "Txidarra"-ri buruz hitz egiten dute eta sasoiari sasoikoa ereiten zen. Pagotxa segakin mozten zen. "Negu-bedarra", gariaren antzera ateratzen da. "Txori-kardua".

2.455. Gerra garaian zer jaten zen (AB-316/032)

Umetan eta gaztetak ez zituzten dilista edo "lentejak" jaten. Gerra garaian, batata edo "boniatua" jaten zuten patataren ordez. Baba beltzak, zuriak eta gorriak jaten zituzten. Baserrietan kalean baino gose gutxiago pasatu zen. Kaleko jendia, ogia eta babarrunak jatera joaten ziren baserrietara.

2.456. Landare izenak XII (AB-316/033)

Untza, "urra-arbolia", urkia edo "urkixa". Urrari, "urritxa" esaten diote. Zandarra, abereek gustora jaten dute. Zumia. Azeri-buztana.

2.457. Behiak txahala nola egiten duen (AB-317/002)

Behiak txahala nola egiten duen azaltzen du. Behiak zutinik egotea nahi izaten du; baserritarrentzat hobe izaten da behia etzatea. Behiari igarri egiten zaio txahala noiz izan behar duen: urduri egoten da, lohia botatzen du, indarka hasten da; e.a. Batzuetan berez jaiotzen da; beste batzuetan, lagundu egin behar izaten zaio.

2.458. Behien gaixotasunak (AB-317/007)

Behia zaindu egin behar izaten da. Orain medikamentuak daude, baina lehen sarritan ardoa ematen zitzaien berotzeko, lepoa igurtzi eta tapatu, hoztu ez zedin.

2.459. Behien gaixotasunak: lanparoaia (AB-317/011)

Lanparoaia: tuberkulosia. Lehen abere asko hiltzen ziren horrela. Orain egon ere ez dago gaixotasun hau; oso larria da.

2.460. Behien gaixotasunak (AB-317/013)

Behien gaixotasunak: Behatz-bitartekoa, behatz bien arteko infekzioa da. Baina ez da gaixo larria: harri berdearekin igurtzi, edo lotu, eta joan egiten da.

2.461. Behien gaixotasunak: hanketako mina (AB-317/014)

Hanketako mina: fiebre aftosa. Ez da oso gaixo txarra, baina erraz zabaltzen da; auzoan ezagutu izan du, gaztetan, baina zaindu ezkerro, 40 egunetan osatu egiten da.

2.462. Behien gaixotasunak: erasana eta etena (AB-317/015)

Erasana, bihurrituari esaten dio; handitua, kolpeari; etena, hernia-ri.

2.463. Behien gaixotasunak (AB-317/016)

Behien gaixotasunak. "Haixau", behia airez betetzen da, pustu egiten da eta larria izan daiteke. Zergatik etortzen den gaixotasun hau; nola konpondu daitekeen.

2.464. Behiak eta hausnarketa (AB-317/017)

Behiak urdail bat baino gehiago du. Behiak lehenengo dena jaten du, eta gero hausnarrean ibiltzen da, behin eta berriz ahora eramaten jandakoa; egunez jan eta gau guztian "rau-rau-rau", hausnarrean.

2.465. Behien gaixotasunak: beherakoa (AB-317/018)

Behien gaixotasunak: beherakoa edo "ziriña". Hori ere urdaileko gaixotasuna, batzuetan larregi jatearen ondorioz etortzen dena. Behia gaixorik dagoenean igarri egiten zaio aurpegian, aurpegi tristeza izaten du.

2.466. Abereen gaixotasunak: legena (AB-317/019)

Abereen gaixotasunak: legena. Behia ile gabe geratzen da. Udaberrian agertzen da normalean. Ez da gaixotasun arriskutsua.

2.467. Akainak eta kaparrak (AB-317/020)

Akainak eta kaparrak, udazkenean agertzen dira beti. Adarrondoetan ipintzen dira, eta odola hartzen dute. Txakurrak ere izaten ditu, eta hil egin daitezke. Behiak ez dira honegaitik hiltzen, baina minbera da.

2.468. Mandaehuliak eta ezpatak (AB-317/021)

Zaldi, asto, mandoek, e.a. ez dute akainik izaten, baina mandaehuliak edukitzen dituzte. Ezpatak ere badaude; hauek min egiten dute.

2.469. Hilda jaiotzen diren txahalak (AB-317/026)

Txahal-hila arriskutsua izaten da. Behiak txahal-hila botatzen duenean, zaila izaten da txahala berriro egitea.

2.470. Gurdiaren zatiak (AB-317/028)

Gurdien zatien azalpena; zati bakoitzari ematen dion izena. Ildiak; uztarriak; e.a.

2.471. Uztarriak eta uztarginak Eibarren: Berretxiña (AB-318/001)

Uztarriak eta uztarginak. Eibarren, José Andres "Berretxiña" zen uztargina. Pagoarekin egiten ziren uztarriak. Uztargina baserrira joan eta bertan egunean egiten zuen lana.

2.472. Pago egurrak luzaro irauten du uretan (AB-318/002)

Pago egurra uretan laga ezkerro, ez da alperrik galtzen, ez 10 urtean ez 100 urtean. Kanpoan, buzti-lehorrean lagata, urtebete ere ez du irauten, egurrik

makalena da; baina uretan ez da alperrik galtzen, berde-berde jarraitzen du, botatakoan moduan. Pagoa neguan bota behar da, pinu zuria moduan. Pinu beltza berdina da; baina pagoa, haritza eta beste zuhaitz batzuk beti neguan bota izan dira. Etxeak egiteko, gehienbat, haritza erabiltzen zen.

2.473. Lehengo basoak (AB-318/003)

Lehenagoko basoak nolakoak ziren. Orain pinua dagoen tokietan, lehen haritza eta pagoa zegoen. Haritza eta gaztaina ugariak ziren. Arrate-bailaran, orain pinua den guztia lehen pagoa, haritza eta gaztaina zen.

2.474. Egur klaserik onenak (AB-318/004)

Egur klaseak: gaztaina-egurra; pagoa; haltza; lizarra. Egur bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren; bakoitza zertarako den egokia (tresnak egiteko; etxegintzarako; e.a.).

2.475. Auzoan arotzak: Agarrazpi, Berretxiña... (AB-318/005)

Arotzek egiten zituzten gurdiak. Eibarko arotz ezagunak: "Agarrazpi", "Uztarri". Uztarriak nola egiten zituzten.

2.476. Baserriko lanak eta idiak (AB-318/006)

Idiak oso garrantzitsuak ziren baserriko lanerako. Egun guztia uztarria ipinita izaten zuten. Garai batean lur-sail asko lantzen ziren: garia, artoa, e.a. Lurra lantzeko idiak guztiz beharrezkoak; baina simaurketan, garo-batzen, eta beste hainbat lanerako ere erabiltzen ziren. Orduan baserrian zeuden guztiek lan egiten zuten sorotan, basoan, ortuan, e.a.

2.477. Lurra labratzen: golda, area, bostortza... (AB-318/007)

Lurra lantzeko erabiltzen ziren tresnak; izenak eta bakoitzaren erabilera. Goldatu eta erein ondoren, area pasatzen zen. Laietan egiteko, jende asko behar izaten zen. Neguan egiten zen laietan, lur-sail txikietan, bitarteetan, ganadurik sartzen ez zen tokietan. Erein aurretik edo erein ostean (garia edo artoa bada desberdin izaten da), simaurtu egiten da.

2.478. Laboreak txandaka: garia, artoa eta arbia (AB-318/008)

Garia eta artoa txandaka ereiten dira lur-sail berdinean, urte bitik behin. Garia batu eta gero arbia ereiten da. Bakoitzaren berezitasunak: lurra nola landu behar den, noiz ereiten diren, noiz batu, zelan zaindu behar izaten diren...

2.479. Ganajatekorako sekula-belarra (AB-318/009)

Ganajatekorako, lehen, sekula-bedarra erabiltzen zen gehienbat. Alpapa eta pagotxa ere asko. Azkar hazten dira, eta urtean 5-6 aldiz moztzen dira. Noiz ereiten ziren, nola, e.a. Artoa da ganaduaren oinarria. Arbia, kalabaza, erremolatxa ere ematen zitzaizkien lehen, baina ez horrenbeste.

2.480. Askak eta ganbelak behiei jaten emateko (AB-318/010)

Abereei non ematen zitzaien jaten; nola. Beti barruan ematen zitzaien jaten, asketan. "Ganbelia"rekin ere ematen zitzaien jaten. Behi gehienak esnetarako izaten ziren, eta egun ia osoa kortan ematen zuten.

2.481. Behi klaseak (AB-318/011)

Behi klase asko daude. Batzuk esne-behiak dira, beste batzuk larre-behiak. "Herri-ganaua".

2.482. Askak, askagaina eta karrajua (AB-318/012)

Askak lehen egurrezkoak izaten ziren, eta albo batera zabaltzen ziren tapekin. Askak, askotan, sukalde ondoan egoten ziren. Askaren gainean "aska-burua" egoten zen, eta "ganbela"k han lagatzen ziren. Asken aurreko inguruari "aska-aurria" esaten zitzaion; ganajatekoa bertan lagatzen zen, eta handik, sardarekin-edo, askara bota.

2.483. Azpiak egitea eguneroko lana (AB-318/013)

Ganaduaren azpiak nola egiten ziren; zenbatero aldatzen zitzaien behelaldea; e.a.

2.484. Hiltegiak (AB-318/014)

Berak gogoan duenez, behiak beti hiltegian hil izan dira, bai Eibarren baita inguruko herrietan ere. Baserritik oinez jeisten zituzten Azitaingo hiltegitara. Behiak ez ziren ia inoiz kortatik irtetzen, eta hiltegitara eraman baino egun batzuk lehenago, erakutsi egin behar izaten zitzaien mendian ibiltzen.

2.485. Antzinako pisu-neurriak (AB-318/015)

Abereak pisatzeko erabiltzen ziren neurriak: kilotan eta erraldetan (5 Kg.). Txerriak pisatzeko arroba erabiltzen zen. Garia, artoa, babak, e.a. pisatzeko anega (45 kg inguru); anega-erdia eta iminia erabiltzen ziren.

2.486. Jatekoa nola gorde (AB-318/016)

Jatekoa gordetzeko ez zegoen frigorifikorik. Kontserbatzeko, gatza ematen zitzaion gauza askori; gari-artean eta oliotan ere ondo mantentzen ziren beste jateko batzuk.

2.487. Hare-putzuak bide ertzetan (AB-318/018)

"Aria-pozuak" edo hare-putzuak. Lehen bideetara lurra botatzen zen, bideak gozatzeko, biguntzeko, bestela gurdiak ez ziren ondo joaten. Lur hori urak behera eramaten du, eta galdu ez zedin, hare-putzuak egiten ziren bide ertzetan. Urtean behin edo birritan hustu egiten ziren.

2.488. Aita eta aitita udaletxeko atezain (AB-319/002)

Udaletxean jaio zen. Aitita mikeletea izan zenez, atezain aukeratu zuten Eibarko udaletxerako eta ondoren aitak ordezkatu zuen. Aita Santanderren hil zuten gerran.

2.489. 1936ko altxamendu militarren eguna (AB-319/003)

1932an Armeria Eskolan hasi eta 1936ko uztailean bukatu zituen han ikasketak. Uztailearen 18an ikasleen afaria egin zuten eta hantxe izan zuten altxamendu militarren berri.

2.490. Udaletxean bizi zirenak (AB-319/005)

Udaletxean bizi zirenak izendatzen ditu. Azkenerako beraiek bakarrik bizi izan ziren han. Logela bat zeukan berak ikasketetarako, eraikineko erlojuaren aldamenean.

2.491. Gerra garaian, Deustura fusilak egitera (AB-319/006)

Gerra hasi zenean, Deustura joan zen lanera, fusilak egitera. Zein lan egiten zituzten azaltzen du.

2.492. Armeria Eskolan ikasitakoa (AB-319/007)

Armeria Eskolako zuzendaria, Julian Etxeberria, aipatzen du. Eskolako oroitzapen ona dauka; ikasketak zelakoak ziren kontatzen du.

2.493. Armeria Eskolako irakasleak (AB-319/008)

Armeria Eskolako irakasleak izendatzen ditu.

2.494. Gerran fusilak egin, kartzelara eta soldadutzara (AB-319/010)

Deustun fusilak egiten aritu ziren gerra garaian eta handik pixkaka ia Galiziaraino iritsi ziren. "Eibartikan urten genduan" kantuaren estrofa bat abesten du. Kartzelatu egin zituzten. Ondoren, soldadutzara joan behar izan zen frankistekin eta sei urte egin zituen.

2.495. Udaletxean eskola, institutua, musika banda (AB-319/011)

Udaletxean pilotan egiten zuten eta debekatuta zegoenez, aitzak kendu egiten zizkien pilotak. Eskolara bertara joaten zen, udaletxera. Handik frontoi zaharraren ondoan egin zutenera joan zen. Udaletxean institutua jarri zuten, lehenengo solairuan. Musika bandarentzat entsegurako lokala bigarren solairuan zegoen.

2.496. Udaletxearen ingurua (AB-319/014)

Udaletxearen ingurua deskribatzen du. Sozialisten egoitza, kioskoa, futbolearen egiteko lekua, O´Donell kalea...

2.497. `Panpo´ ezizena nondik datorkien (AB-319/015)

Aitari `Panpo´ esaten zioten. Umetan "kanpora" esan beharrean, "panpora" esaten zuen bere amandreak.

2.498. Mikeleteen eraikina eta zeregina (AB-319/016)

Aitita mikeletea zen eta probintziako mugak zaintzen lan egiten zuen. Mikeleteen eraikina non zegoen azaltzen du. Ijitoak etortzen zirenean, mikeleteek bidali egiten zituzten.

2.499. Telleria alkatea (AB-319/017)

Errepublikanoek irabazi zutenean, Telleria izendatu zuten alkate. Udaletxeko kargudunak zein alderditakoak ziren esaten du. Bere aitak Telleria alkateari jarraitu zion gerra garaian ere.

2.500. GAC, Orbea eta Beistegi txirrindulari taldeak (AB-319/020)

Gerra aurretik, bizikleta lasterketak egiten zituzten. GAC taldea zegoen. Geroago, Orbeak eta Beistegik ere bazeukaten. Hiru lantegi haiek mantentzen zuten "Bicicleta Eibarresa" lasterketa.

2.501. Luis Urzelai txirrindularia (AB-319/022)

Eibarko txirrindulari onen artean, Luis Urzelai `Tartako´ dauka gogoan.

2.502. Eibarko bizikletaren antolakuntza (AB-319/023)

Eibarko Bizikletako ordainsariak zelakoak ziren aipatzen du. Antolakuntzan zelan sartu zen kontatzen du. Bera hasi zenean, Aristondo zen lehendakaria.

2.503. Eibarrera etortzen ziren txirrindulariak (AB-319/024)

Txirrindulariek bizkortzeko zerbait hartzen zutela kontatzen du. Gero eta txirrindulari gehiago etortzen hasi ziren, hasierako edizioetan; ondoren, taldeak etortzen ziren eta ez zuten buruhausterik sortzen. Estazio kaleko hotelean eta Altzolan egoten ziren. Korrespontsal asko etortzen ziren. Txirrindulariak norbanakoen etxeetan ere geratzen ziren, ostatu hartuta.

2.504. Txirrindulari lasterketen antolakuntza eta dirua (AB-319/025)

Urtean bi lasterketa antolatzen zituzten: San Juanetan bat eta Eibarko Bizikleta. Antolakuntzarako dirua udaletxetik eta bizikleta lantegietatik lortzen zuten.

2.505. Izeba Margaritak josten erakusten zuen etxean (AB-320/003)

Amaren aldeko familia. Ahizpa gehienak kanpora irten ziren lanera, baina Margarita, ahizpa ezkongabea, etxean geratu zen eta josten irakasten zuen. Inguruko baserrietako andre guztiak joaten zitzaizkion etxera eta kontu asko jakiten zituen. Amaren ahizpa zaharrena, Jesusa, Solac lantegiko arduradunetako bat izan zen.

2.506. Lutoan zeudelako, jaunartzea berokiarekin (AB-320/006)

Berak jaunartzea egin zuen sasoi inguruan hil zen amama. Lutoan zeudenez, etxean ez zioten utzi besteek bezalako arropa eramaten eta beroki zuri arruntago batekin egin behar izan zuen jaunartzea.

2.507. Gabonetan euskarazko kantak kantatzera (AB-320/008)

Berak 14 urte zitueneko argazki baten inguruko azalpenak. Gabonetan baserritarrez jantzita irten ziren Gisasola andereñoarekin, euskarazko kantak abestera. Orduan hori ez zen ohikoa; lehenengo urteak izan ziren.

2.508. Aitita Ibarkurutzekoa eta amama Txopengoa (AB-320/012)

Aitita, Martin Arana, eibartarra zen, Ibarkurutzekoa. Amama, berriz, Txopen baserrikoa. Aititak etxea erosi zuen Bidebarrieta kalean eta bertan bizi izan dira. Etxea orduan egin berria izango zela uste du.

2.509. Kareagatarren lantegian familia giroa (AB-320/023)

Pepe Muñoa aitaren lagunak harremana zuen Mateo Kareagarekin eta haren bitartez hasi zen SIMESen lanean, bulegoan. Errekatxun zegoen lantegia eta bulegorako materiala egiten zuten bertan. Mateo Kareagak aldamenean zuen bere tailerra. Giro oso ona zuten lantegian eta handik Solac-era joan zenean aldaketa handia izan zen.

2.510. Aldatzen "Secretariado" ikasi eta 14 urterekin lanera (AB-320/024)

14-15 urterekin hasi zen bera lanean SIMESen. Aldatzen "Secretariado" ikasi zuen. Oinarrizko gauzak ikasita, berehala hasten ziren lanean orduan, lana zegoelako. Lana gutxitu zenean, gehiago prestatzen zen jendea. Aldatze ikastetxean zer ikasten zuten. Lau urte egin zituen berak han.

2.511. Emakume askok lana lagatzen zuten ezkonduetakoan (AB-320/025)

Emakume askok ezkonduetakoan laga egiten zuten lana. Batez ere tailerrean lan egiten zutenek. Berak jarraitu egin zuen, etxean ere hori ikusi zuelako. Solac-en bulegoan lan egiten zuen emakume batek ez omen zuen inoiz tailerra zapaldu. Bera bai, tailerrean ere lasai ibiltzen zen.

2.512. Umeak izan eta berehala berriz bulegora lanera (AB-320/026)

Bere etxean ohikoa zen emakumeak lantegira joatea lanera, eta hori transmititu zioten berari ere. Umeak eduki zituenean ere, berehala hasi zen berriz lanean. Lanari garrantzia handia ematen zioten etxeok. Bajarik ere ez zuten hartzen.

2.513. Familiako kide asko Solac-en (AB-320/027)

Bere izeba, Jesusa Arana, Solac-eko arduradunetako bat izan zen. Mertxe Beitia lehengusina ere erretiroa hartu arte bertan lan egin zuen. Aita akabatzaileen arduraduna zen. Eta gero bera sartu zen, lantegia Matsarian zegoen garaian.

2.514. Hasieran Solac-en bertan egiten ziren pieza guztiak (AB-320/028)

Matsariako Solac lantegia nolakoa zen. Hasiera batean bertan egiten ziren tresnen pieza guztiak. Bukaerarako piezak eginda ekarri eta muntatzea besterik ez zen izaten. Matsariatik Txontara pasa zirenean 300 langile inguru ziren. Gero, lana aldatu zen heinean, gutxitzen joan ziren.

2.515. Solac lantegiaren sorrera gerra aurrean (AB-320/030)

Solac lantegiaren sorrera. Bere izeba Jesusa Arana lehengusu batekin hasi omen zen lantegian lanean, gerra aurretik. Lantegi hura gero Solaunek eta

Ormaetxeak erosi zuten, eta izebak bertan jarraitu zuen. Gerra sasoian izebak zaintzen omen zuen lantegia. Gerra aurreko lantegiaren izena "Solaun, Rubio y Ormaechea" omen zen. Gero, beste bazkideek utzi egin zuten eta Ormaetxea bakarrik geratu zen. ABC lantegiko Garate etorri omen zen orduan.

2.516. Gerra aurretik egiten ziren gailuak; kafeterak (AB-320/031)

Gerra aurretik dagoeneko plantxak, kafeterak, su txikiak... egiten omen ziren "Solaun, Rubio y Ormaechea" lantegian. Nolako kafeterak egiten ziren. Gailuen diseinuak atzerriko tresnetatik kopiatzen omen zituzten. Tabernetarako kafetera handiak ere egiten zituzten. Gero konpontzeko zerbitzua ere bazuten. Baporetzko plantxa irten zenean boom-a izan zen.

2.517. Garai onenetan 300 langiletik gora Solac-en (AB-320/032)

SOLAC lantegiaren garai onenetan 300 langiletik gora ibili ziren, Txontako erakinean. Oporren ostean, jende asko etortzen zen lanerako bere burua eskaintzera. Gero urte gutxian asko aldatu zen kontua eta jendea gutxituz joan zen.

2.518. Langile eta nagusien arteko harremana "hi"tik "don"era (AB-320/034)

Bera Solac lantegiko harreran egoten zen, jendeaz arduratzen. Lantegiko nagusiekin harreman ona zuen. Krispin Garate. Bulegoko Jesus Alberdi eta Atxa-Orbearekin ere harremana ona zen bere garaian, baina, antza denez, bera sartu aurreko urteetan zorrotzagoak izan ohi ziren. Eibarren langile eta nagusien arteko harremana ona izan ohi zen; elkarrekin joaten ziren txikiteora eta hika hitz egiten zuten. Baina kanpotarrak etorri zirenean "don" esaten zieten nagusiei, eta kontua aldatzen joan zen.

2.519. Langile gehienak emakumezkoak Solac-en (AB-320/035)

Solac lantegian gehienak emakumezkoak ziren. Hasiera batean pieza guztiak bertan egiten ziren eta trokeletan gizonezkoak egoten ziren. Gerora, makina handiak kendu ziren eta muntaketa-lana izaten zen batez ere. Orduan, gehiago ziren emakumeak. Hasieran soldata baxuagoa zuten arren, gerora berdindu ziren soldatak. Zeintzuk izaten ziren emakumezkoen lanak. Berak telefono nahiko modernoa omen zuen hasi zenean, baina aurrekoak antzinako telefonoekin ibiltzen ziren.

2.520. Emakumezko eta gizonezkoen arteko ezberdintasunak lantegian (AB-320/036)

Hasieran soldata desberdina zuten emakumezkoek eta gizonezkoek, baina lanak ere ezberdinak izaten ziren. Gerora berdindu ziren soldatak. Elkarrekin lan egiten zuten eta ondo konpontzen ziren. Emakumezkoek bata urdina erabiltzen zuten eta gizonek buzoa.

2.521. Solac lantegiaren deskribapena (AB-320/037)

Solac lantegiaren Matsariako eraikina nolakoa zen. Lantegiaren gunek desberdinak.

2.522. Solac lantegia Txontara (AB-320/039)

GAC lantegia Matienara joan zenean Solac lantegia pasa zen eraikin hartara, Matsariakoa baino handiagoa zelako. Baina berehala txiki geratu zen lantegia. Kamioi handiek arazoak zituzten Txontara sartzeko. Lantegi ugari zeuden orduan Txontan eta zarata handia egoten zen (batez ere forjena). Behean lantegiak eta goian etxeak.

2.523. Txonta auzoa lantegiz beteta (AB-320/042)

Umetan Txontako erreka joaten ziren. Tailer azpitik erreka pasatzen zen eta bertatik ura edan zitekeen. Lantegiz beteta zegoenez, zatarra zen auzo moduan. Behean tailerrak eta gainean etxeak egiten ziren. Gero horrek arazoak ekarri zituen eta lantegiak joaten hasi ziren.

2.524. Bulegoko lanak eta hasierako telefonoak (AB-321/003)

Bulegoan egiten zuen lanaz berba egiten du. Hamar lagun inguru ziren bulegoan. Hasierako urteetan, helduagoek haserre egiten zieten. Gero, telefonozko eskaerak jasotzen zituen. Orduko telefonoa zelakoa zen kontaktzen du.

2.525. Telexa eta faxa (AB-321/004)

Telexa zer zen azaltzen du. Oso harrigarria egin zitzaion hasieran. Ondoren, faxarekin hasi ziren.

2.526. Laneko ordutegia (AB-321/005)

Hasierako lanak gogorrak baino luzeak izaten ziren. Lan asko zegoenean, edozein egun eta ordutan aritzen ziren. Zein ordutegi zeukaten kontaktzen du.

2.527. Sirenak lantegietan (AB-321/006)

Sirena zeukaten SOLAC lantegian. Lantegi askok zeukaten sirena eta baziren haiek desberdintzen zituzten herritarrak ere.

2.528. Oporrak eta lan-egunak (AB-321/008)

Hasierako urteetan hamabost eguneko oporrak izaten zituzten. Zapatu goizetan lan egiten zuen hasieran baina handik gutxira asteburu osoa jai hartzen hasi ziren.

2.529. SOLAC lantegiko lehen egunak (AB-321/010)

SOLAC lantegian egin zuen lehenengo eguneko bizipenak kontaktzen ditu. Oso gaizki pasatu zuela dio. Anekdotak kontaktzen ditu.

2.530. Lehenengo soldata (AB-321/011)

SIMES lantegian bost mila pezeta irabazten zituen hilabetean; SOLAC-en gehixeago. Soldata guztia amari ematen zion, ezkondu eta gero ere.

2.531. Lantegian lanean ezkondu eta gero ere (AB-321/012)

Bere lagunak ere lanean aritzen ziren. Bakarren batek ezkontzearren laga zion lanari. Berak bizi guztian lanean jardun izana zelan bizi izan zuen kontaktzen du.

2.532. "Eibar industrial" dokumentalaren filmaketa (AB-321/013)

"Eibar industrial" dokumentalean agertu ziren. Zelakoa izan zen filmaketa kontaktzen du. Amaya zineman ikusi zuten filma gero.

2.533. Emakumeak lantegietan aspalditik (AB-321/014)

SOLAC lantegian emakume asko ziren lanean, baita ALFA-n, Orbea-n eta beste hainbatean ere. Aspalditik lan egin izan dute Eibarren emakumeek lantegietan.

2.534. Hirurogeigarren hamarkadako industria arloak Eibarren (AB-321/015)

1960. hamarkadan Eibarren zeuden industria arloak izendatzen ditu.

2.535. Plantxak egiteko prozesua (AB-321/018)

"Eibar industrial" dokumentalari begira, bere lantegiko kontuak azaltzen ditu. Plantxak egiteko prozesua ikusten da.

2.536. Solac lantegiko plantxak (AB-321/019)

Solac lantegiko plantxei buruzko azalpenak ematen ditu.

2.537. Amama arrain saltzailea (AB-322/003)

Bere amama arraina saltzen ibiltzen zen, baita ogiak banatzen eta etxeak garbitzen ere.

2.538. Otolá baserria (AB-322/006)

Otolá baserria non zegoen eta zelakoa zen kontaktzen du.

2.539. Akilino Amuategi, lantegiko ugazaba (AB-322/008)

Akilino Amuategiren bizimoduaz jarduten du, bere aitita baitzen. Politikan hasi zenenean, Orbea lantegia utzi behar izan zuen eta bere kontura lantegia zabaldu. Uste du beharginen eta ugazaben arteko harreman ona izan dela gehienetan Eibarren.

2.540. Akilino Amuategiren lantegiaren izenak (AB-322/009)

Akilino Amuategi hil zenean, semeak jarraitu zuen lantegiarekin. Gerra ostean, lantegiari Manuel Gorosabel izena ipini zioten, Amuategi abizena ezkutatzeagatik, eta ondoren, Tomas Amuategi izena hartu zuen.

2.541. Akilino Amuategiren lantegiaren jarduna (AB-322/011)

Akilino Amuategiren lantegian, lehenengo, pistolentzako danborrak egiten zituzten. Gerra aurrean, bizikletarentzat piezak egiten hasi ziren eta beranduago, motorrentzakoak. Eibarko industriaren ibilbidea izan du. Zaldiekin garraiatzen zituzten burdin-barrak. Ingurua deskribatzen du.

2.542. Amuategitarren familia musikaria (AB-322/016)

Familia guztiak musikariak izan dira. Beretzat musika dela hizkuntza unibertsala dio. Akilino Amuategik (bere aititak) bonbardinoa jotzen zuen bandan. Pianoa jotzen ikasi zuen pixka bat, amak ondo ikasi zuen eta.

2.543. Akilino Amuategiren ihesa eta heriotza (AB-322/017)

Akilino Amuategi (bere aitita) ihes eginda ibili zen 1917ko iraultzaren ondorioz. Muga pasatu zuen eta Donibane Lohizunen hil zen. Ernestoren amak, umea zela, kontzertuak eskaintzen zizkien aita ikustera etortzen ziren politikari sozialistei.

2.544. Ama pianojolea (AB-322/018)

Ernestoren amak piano irakasle moduan jardun zuen gerra ostean. "Casa del Pueblo"ko orfeoian parte hartzen zuen, pianoa joz.

2.545. Toribio Etxeberria zelakoa zen (AB-322/022)

Toribio Etxeberriarekin harreman handia zeukan bere osabak. Ernestoren bizilagunaren lagun handia zen Toribio. Bere ustez zelakoa zen kontatzen du.

2.546. Ibarkurutze-Bidebarrieta ingurua nolakoa zen (AB-323/002)

Ibarkurutze ingurua nolakoa zen. Bidebarrieta; Errebal. Zubi bat batetik bestera pasatzeko. San Agustin-eko trabesia, lehenago Trokaolaneko zubia zen. Errebaleko komentua. Muzategia; Indianoko palazioa.

2.547. Roman Ortuosteren argazki-estudioa (AB-323/003)

Román Ortuosteren argazki-estudioa, Indianoko Palazioaren ostean. Ortuoste familiaren inguruko kontuak. Indalecio Ojanguren argazkilariak estudioa Untzagan zuen. Castrillo argazkilariaren berri.

2.548. Ibarkurutzea eta Ibarbea (AB-323/004)

Ibarkurutzea. Ibarbeko etxea nolakoa zen; zein bizi zen bertan; inguruko dendak. Alhondiga. Lehenengo gurdiak zaldiekin zebiltzan, salgaiak alde batetik bestera garraiatzen: Atxa-Orbea eta Txaltxa (Apellaniz). Katillu beranduago hasi zen garraio lanak egiten. Iturriak: Ibarkurutzekoa; Urkizukoa.

2.549. Estazio kalea (AB-323/005)

Estazio kalea ez da larregi aldatu. Hotel Comercio; Fonda Bueno. Errebalean, Merkatu Plaza. Nolakoa zen azaltzen du. Baserritarren inguruko kontuak. Guimón alkateak gogor egiten zien.

2.550. Kruzetaneke zinea (AB-323/006)

Estazio kalean, Kruzetaneke etxe barruan zinea. Zinea nolakoa zen, zenbat ordaintzen zutuen. Haren inguruko istorioak.

2.551. Astelena frontoian dantzari (AB-323/007)

Astelena frontoiko dantzaldiak. Giro handia; ordutegia; antolaketa. Udan, dantzaldia Untzagan egiten zen. Rialtoan ere egiten ziren.

2.552. Tanbolinteroak eta erromeriak: Azitain, Arrate.. (AB-323/008)

Tanbolinteroak. Azitaingo erromeria. Pregoilaria, Pedro "Maria Ospital". Plazara arraina heltzen zenean, pregoia ematen zuen.

2.553. Bidebarrietako labaderoa (AB-323/009)

Erropa garbitzera nora joaten ziren. Bidebarrieta kalean 4/5 harri zeuden errekan ipinita erropa jabontzeko. Afaldu eta gero gazteria ugari elkartzen zen bertan.

2.554. Txontako dutxak eta Arraindegiko bainu-etxea (AB-323/010)

Txontan, dutxa bat ipini zuen baten batek eta xemeikoa kobratzen zuen. Arraindegi kaleko bainu-etxea. Diru pixkat zutenean joaten ziren dutxatzera; ez zen orain bezala. Bestela, baldearekin etxean.

2.555. Etxeko bizimodua (AB-323/011)

"Korriuaneko etxia". Gerra garaian bonba bat jausi zen beraien etxera.

2.556. Pegora bakoitzeko lantegi bana (AB-323/012)

Bera umea zenean bazter guztietan zeuden tailerrak, ia pegora guztietan. Arragueta; Arikixaneko zubia; ingurua ondo gogoratzen du.

2.557. Gerra sasoiko bonbardaketak (AB-323/013)

Bonbardaketa Eibarren. Lehenengo bonba, Bolingora jausi zen. Oso ondo gogoratzen du egun hura. Ignacio Arrillagaren klinika. Badirudi Ignacio Arrillagaren klinikan eta Orbeaneko lantegiaren teilatuan seinaleren bat ipinita zegoela bertara bonbarik ez jaurtitzeko (?!). Bolinguan, Untzagan, e.a. jausitako bonbak. Aterpeak egin ziren: non, nolakoak. Eibarren ebakuazioa irailean egin zen; exilioa. Bonbardaketa zetorrela abisatzeko, kanpai hotsak.

2.558. Eskolan doña Poloniarekin (AB-323/014)

Pagei eta Alhondigako eskolak. Maistrak: Dña María; Dña Petra; Dña Polonia. Dña Polonia maistra zelakoa zen. Eskola kontuak: zer ikasi zuen; liburuak. Erdaraz ikasten zuten baina beraien artean euskaraz hitzegiten zuten. Eskola amaitu eta josten ikastera joan zen.

2.559. SOLAC lantegian lanean (AB-324/001)

1929an SOLAC lantegian hasi zen lanean, hemeretzi urterekin. Plantxak, kafeterak, berogailuak, txigorgailuak... egiten zituzten.

2.560. SOLAC lantegiko lanak eta antolamendua (AB-324/003)

SOLAC lantegia zelakoa zen kontaktzen du. Bera denetariko lanetan aritzen zen. Andres Ruiz `Karamelerua´ zen arduraduna. Emakumeak eta gizonezkoak bereizita egoten ziren.

2.561. SOLAC lantegia zeinek sortu zuen (AB-324/006)

SOLAC lantegiaren sortzailea Zanucci izan zela dio. Ondoren, Larreategik hartu zuela eta azkenik Ormaetxea, Solagun eta Rubiok hartu zutela dio. Bakoitzaren zereginak aipatzen ditu.

2.562. SOLAC lantegiko egutegia eta soldatak (AB-324/008)

SOLAC lantegian lan asko egiten zuten, oporrik ere hartu gabe. AEG lantegiarentzat lan asko egiten zuten gerra aurrean. Igandetan ere lan egiten zuten, lantegiak berak elizari baimena eskatuta. Bi pezeta eguneko irabazten zituen 1929an. Zilarretan ordaintzen zioten, zapatueta.

2.563. Soldata igoera (AB-324/010)

Hasieran bi pezeta irabazten zituen eguneko. Sindikatuei esker, egunean bost pezeta irabazten hasi ziren. Gizonezkoek gehiago kobratzen zuten.

2.564. SOLAC lantegiko materiala bertan egina (AB-324/011)

SOLAC lantegian den-dena bertan egiten zuten. Berogailuentzako lurrezko tutuak non egiten zizkieten kontaktzen du. Norberak hasi eta bukatu egiten zuten muntaia.

2.565. Kafetera txikiak etxeetan (AB-324/012)

Kafetera txikiak egiten zituzten. Madril eta Bartzelonara saltzen zuten asko. Eibarren jende askok izaten zituen. Akasduak merkeago saltzen zituztenez, haiek eskuratzen zituzten.

2.566. Matxariako eraikina (AB-324/014)

SOLAC lantegiaren Matxariako eraikina zelakoa zen kontaktzen du, solairuz solairu.

2.567. Markinara oporretan (AB-324/017)

Oporrik ez zuten izaten, ez baziren norberak hartutakoak. Aita markinarra zeukan eta hango jaietara joaten zen oporretan. Orduan Markina Eibar baino aristokratagoa zela dio eta jai dotoreagoak izaten zirela kontaktzen du.

2.568. Txontako Telleria kale-baserriaren ingurua (AB-325/031)

Euren etxeak Telleria izena zuen arren, beraiek etxe moduan ezagutu zuten. Ondoan "Lopezeneke" etxea zegoen. Txontan gurrpil handi bat omen zegoen bera umea zenean, baina etxeak egin zituztenean kendu ei zuten. Presa eta iturria ere bazeuden.

2.569. "Estanpetan" jolasten zuten Agiñazpi taberna izkinan (AB-325/032)

Umetan "estanpetan" jolasten zuten. Estanpak erosi egiten zituzten eta Agiñazpi tabernaren izkinan ibiltzen ziren jolasean.

2.570. Tortolosestan nola jolasten zuten (AB-325/033)

Tortolosestan jolasten zuten umetan. Ahariaren tortolosak izaten ziren ederrenak. Jolasa nola izaten zen. "Estanpetan" ere asko jolasten zuten, lurrean eserita. Lehen lasaiago ibiltzen ziren.

2.571. "Tres navíos en el mar..." jolasa (AB-325/035)

"Tres navíos en el mar..." jolasaren inguruko azalpenak.

2.572. Untzagako dantzaldia; Estaziño kalera paseatzera (AB-325/039)

Untzagan musika egoten zen ostegunetan eta igandetan. Dantza lotua egiten zen Eibarren, nahiz eta Azkoitia-Azpeitia aldean debekatuta egon. Mutilek "mesedez" eskatzen zieten dantzan zebiltzan neskei, eurekin dantza egiteko. Gero, paseatuz, Estaziño kaleraino joaten ziren.

2.573. "El Casco" lantegian hasi zen beharrean (AB-325/041)

Bera gaztea zela ez zen hain ohikoa emakumeak lantegietan lanean hastea, baina geroago bai. Bera "El Casco" lantegian hasi zen lanean, grapak egiten.

2.574. "El Casco" lantegian, grapak prestatzen (AB-325/043)

"El Casco" lantegian grapak prestatzen lan egiten zuen berak. Gero kaxetan sartu eta biltegira eramaten zituzten. Tresna asko egiten ei ziren "El Casco"n.

2.575. Emakumeak "El Casco" lantegiko grapen sailean (AB-325/045)

"El Casco" lantegiko grapen sailean emakumeak bakarrik zeuden lanean. Sail berezia omen zen eurena.

2.576. Oiloak eta arrautzak (AB-326/001)

Oiloak; arrautzak. Oiloa lokatzearen inguruko azalpenak.

2.577. Oiloak eta habiagintza (AB-326/002)

Oiloak oilategian egoten ziren. Oiloa habira joan zedin arrautza egitera, "abixondokua" jartzen zitzaion.

2.578. Oiloen hazkuntza (AB-326/003)

Oiloen inguruko kontuak. Olarreagan oilo-granja egon zen.

2.579. Oiloak, oilaskoak eta eta txitak (AB-326/004)

Oiloak, oilaskoak eta txitak. Txikienak txitak izaten dira; handiak oilandak (emeak) edo oilaskoak (arrak).

2.580. Baserriko oilaskoak (AB-326/005)

Baserriko oilaskoak orduan estimazio handia izaten zuen. Lehenago artoa, oloa, arto-irina ematen zitzaien jateko; orain berriz, pentsua.

2.581. Garagar klaseak (AB-326/006)

Garagar klaseak. Beraiek ereiten zutena abereentzako izaten zen.

2.582. Gari klase desberdinak gerra aurreko urteetan eta gerra ostean (AB-326/007)

Gerra ostean gari klase berri bat agertu zen, goizago heltzen zena; segituan desagertu zen. Gerra aurretik eta gerra ostean ereiten ziren gariak, desberdinak; zertan desberdintzen ziren: urkultzerako orduan; lastoaren neurria; etab.

2.583. Arto klaseak (AB-326/008)

Arto klaseak. Lehenagoko arto-klasea ia galduta dago. Oraingoari, "hibridua" esaten diote. Hau erraz egiten da, baina lehenagokoaren aldean, lakarragoa da. Arto-klaseen arteko desberdintasunak.

2.584. Garia ereitearen prozesua (AB-326/009)

Garia ereitearen prozesua. San Andres bueltan ereiten zen, martxo inguruan arearekin pasatu, apirilean jorratu eta Aste Santuan simaurra zabaldu. San Pedro inguruan ebagi eta metak egin. Gari-jotea noiz izaten zen. Garia kutxak.

2.585. Hazitarako aukeratutako aleak (AB-326/010)

Hazitarako aukeratutako aleak: nola aukeratu, gorde, tratatu, etab. Lur zuria eta lur beltza, txandaka erabiltzen ziren.

2.586. Patata klaseak: beltza, gorria eta zuria (AB-326/011)

Patata klaseak: gorria, beltza, zuria.

2.587. Kokoak, zomorroak... (AB-326/012)

Kokoak, zomorroak. Orain lehen baino zomorro gehiago eta kaltegarriagoak daude.

2.588. Fruta-arbolen zaintza (AB-326/013)

Fruta-arbolak. Lehen hazia gorde, poltsa batean sikatzen laga eta gero sail bat ereiten zen. Komeni zen lekuan sartzen zen gero eta sasoi egokia zenean, mentatu. Zelan mentatzen zituzten fruta-arbolak. Edozein arbola mentatu daiteke.

2.589. Sagar klaseak; sagardoa (AB-326/014)

Sagar klase ugari egon izan da beti. Izenak ematen ditu, bakoitzaren berezitasunak. Sagardoa egiteko sagar egokienak. Lehen egiten zen sagardoa eta orain egiten dena, oso desberdinak.

2.590. Sagardoa nola egiten den (AB-326/015)

Sagardoa nola egiten zuten. Prozesua azaltzen du.

2.591. Txakolina eta ur-sagardoa (AB-326/016)

Txakolina. Sagardoa egiteko sistemaren oso berdintsua. Hemengo baserrietan txakolina ez zen hainbeste egiten. Gehiago egiten ziren sagardoa ta ur-sagardoa.

2.592. Sagardoa egiten zuten baserriak (AB-326/017)

Sagardoa egiten zuten baserriak: Azpiri, Lezeta, Mendigoiti, Arimendi, Maltzagako Garitanonean, Agiñagaginekoan, etab. Eibarren sagardotegiak ere egon ziren: bata Barakaldo kalean eta bestea Bidebarrietan.

2.593. Sagardotegiak (AB-326/018)

Donostiara sagardotegietara.

2.594. Fruta-arbolen inausketa (AB-326/019)

Orain zuhaitzak inausi egiten dira, baina lehen ez. Batzuk baina inausi behar izaten dira (intxaurra, gaztaina...) indar gehiago hartu dezaten.

2.595. Gari-jotea auzolanean (AB-326/020)

Gari-jotea auzolanean egiten zen. Antzina, "txanketian" jotzen zen, gerora makinarekin. Gari-jotearekin amaitu eta gero afaria egiten zuten, "galafarixa".

2.596. Garoa ekartzeko herri-bideak konpontzen auzolanean (AB-327/001)

Menditik garoa ekarri ahal izateko, auzotarrek elkarrekin herri-bideak konpontzen zituzten. Zein bide konpontzen zituzten azaltzen du. Udaletxeak ardoa ematen zien ordainetan.

2.597. "Hariapotzua" (AB-327/002)

"Hariapotzua" zelakoa izaten zen azaltzen du. Euriak ekarritako lurra batzeko izaten ziren eta lur hura soro goienetan zabaltzen zen. Lur emankorra izaten zela dio.

2.598. Inguruko karobiak (AB-327/003)

Karobiak ezagutu zituen, baina martxan ez. Non zeuden kontatzen du. Lurra biguntzeko eta zomorroak hiltzeko karea ona dela dio. Kareharria urrutitik ekartzen zuten trenean.

2.599. Artoa zergatik ez zen auzolanean egiten (AB-327/004)

Artoa ez zen auzolanean egiten gariaren moduan, zatika batzen delako. Zuritu eta buruak ganbaran gordetzen zituzten. Kirtena zuzenean abereei ematen zioten.

2.600. Ganbara, sabaia, mandioa eta karrajua (AB-327/005)

Ganbara eta sabaiaren arteko aldea azaltzen du. Mandioa gurdiaarekin sartu daitekeen ganbarari esaten zaio. Karrajua zer den aipatzen du.

2.601. Garo-ardatzak eta belar-ardatzak zelan egin (AB-327/006)

Garautegirik ez du ezagutu inguruan. Garo-metak eta belar-metak zelan egiten diren azaltzen du. Meta baino ardatza esaten omen zaio bere inguruan. "Ardazila" erdiko makila izaten zen, gehienetan gaztainondoarekin egindakoa.

2.602. Belar onduaren lanak (AB-327/007)

Belar onduak eskatzen zituen lanak azaltzen ditu. Uda izaten da sasoirik onena. Egunsentirako lanean hasten ziren. Belar-sendorra aipatzen du.

2.603. Laino-motak (AB-327/008)

Laino-motak izendatzen ditu.

2.604. Uraren partilekua (AB-327/009)

Upartiño non dagoen azaltzen du. Uraren partilekua zer den azaltzen du. Aitzurrarekin egindako erretenetan joaten zen ura etxe edo harrasketaraino.

2.605. Gariaren zahia eta birrina (AB-327/010)

Garia errotara eramaten zenean, lehenengo zahia kentzen zaio eta gero birrina, azal zeheagoa.

2.606. "Urrusa", "biaia", idiskoa, txekorra (AB-327/011)

"Urrusa" behi gazte emeari esaten zaio; bere inguruan "biai" esaten diote. Ar gazteari, berriz, idiskoa.

2.607. Korta-aitzurra, lau-hortza, sardeak (AB-327/012)

Korta-aitzurra, lau-hortza, sarde motak... zelakoak diren eta zertarako erabiltzen diren azaltzen du.

2.608. Zarba, mastra, zila, garatzea (AB-327/013)

Zarba eta mastra zer diren azaltzen du. Landarearen zila eta ziltzea zer diren kontatzen du, eta garatzearekin daukan aldea zehazten du.

2.609. Haize mota batzuk (AB-327/017)

Haize motak izendatzen ditu.

2.610. Golda-zuloa, zotaska, saratu, "zopizarra" (AB-327/018)

Golda-zuloa, zotaska, "golda-arraixia", saratu, "zopizarra"... zer diren azaltzen du.

2.611. Laian egitea (AB-327/019)

Laian egin izan duela dio. Zelan egiten zen azaltzen du.

2.612. Gerrako ibilerak (AB-331/002)

1925ean jaiotakoa, gerra hasi zenean 10 urte zituen. Umea izan arren orduko kontuak ongi gogoratzen ditu: lehenengo Lekeitiora eraman zituzten komentu batera; handik Magunazelaia herrira (Oiz-en magalan dago). Anaia soldadu joan zen gudariekin. Gerora Valentziara joan ziren.

2.613. Eibartik ihesi gerra garaian (AB-331/003)

Gerra garaian egindako ibilbidea: Magunazelaiatik ("Mauma") Orominora. Durango eta Gernikako bonbardaketak. Eubatik Algortara joan ziren. Solares herrira heldu ziren azkenean. Aita bitartean, Deuston lanean. Handik Valentziara joan zen lanera eta beraiek ere harunzko bidea hartu zuten.

2.614. Frantziatik Valentziara; aita Valentzian lanean (AB-331/004)

Frantziara joan ziren lehenengo; hango egoera. Gerora lekuz aldatu eta ia Canal de la Mancha-rarte eramane zituzten. Amaren esaera. Francok Frantzian zeuden errefuxiatuak eskatu zituen eta nazionalen edo gorrien aldera pasatzera behartu zituen. Beraiek Valentziarako bidea hartu zuten orduan. Hango egonaldia nolakoa izan zen. Aitak lan egiten zuen baina ez zuen soldatarik irabazten. Trukean egiten zuten.

2.615. Gerrako ibilerak; Valentzian egonaldi luzea (AB-331/005)

Gerra hasi zenean familiaren lantegiko makinak Eibartik Deustora eramane zituzten lehenengo, ondoren Gijonera eta handik Valentziara. Aitak, makinene atzetik egin zuen ibilbide osoa. Ama-alabak Frantziatik Valentziarako bidea nondik-nora egin zuten. Valentzian Bunyol (Buñol) herrian egon ziren; oso oroitzapen onak ditu eta bertan egindako lagunekin hartu-eman hestua du oraindik; laguntasun handia jaso zuten beraiengandik. Euskaldunak nola ikusiak garen.

2.616. Eibartar asko Valentzian errefuxiatuta (AB-331/006)

Bunyol-en eguneroko bizimodua nolakoa zen. Eskolara joaten ziren; e.a. Ilandetan jantoki bat prestatzen zuten herrian, lantegietako langile eta familientzat. Eibartar asko egon ziren Bunyol-en. Toribio etxebarria; Cándido Arrizabalaga; Alberto Mendiguren; Galarraga; e.a.

2.617. Bunyol-eko jendearen harrera (AB-331/008)

Eibartar asko egon ziren Bunyol-en eta baita inguruko herrietan ere. Bertako jendearen harrera, zoragarria. Ez zuten bonbardaketarik ezagutu bertan, baina bai Frantziatik Tarragonarako bidean.

2.618. Eibarrera itzulera: beldurra (AB-331/009)

Gerra zibila hasi eta berehala irten ziren Eibartik. Pagei kalean bizi ziren, eta dirudienez obus batek etxe osoa txikitu zuen; baina itzuli zirenerako, berriz jasota zegoen. Blas Etxebarriaren laguntza. Itzuli zireneko kontuak: beldurra; senideen laguntza; e.a. Herrira bueltatzen zen jende gehiena kartzelara sartzen zuten. Jardinetako eskoletan kartzela ipini zuten. Aita nola kartzelaratu zuten. gerra osteko egoera: gosea; e.a.

2.619. Eibarrera itzulera: lantegiaren berrantolaketa (AB-331/010)

Eibarrera itzulera. Beldurra, gosea, e.a. Aitaren gorabeherak: makinak berreskuratu; lantegia martxan ipini; e.a. Lantegian ehizarako gauzak egiten zituzten; poliki-poliki beherakada etorri zen. Gerra aurretik ere ehizarako artikuloak egiten zituzten.

2.620. Mendaroko aitona, trenbideko (AB-331/011)

Ama, Mendarokoa. Aitona, trenbideko kapataza. Eibarrera bizi izatera nola etorri ziren. Non bizi izan ziren. Gerra garaian Santanderrera joan ziren ihesi, baina berriz ere Eibarrera itzuli ziren. Ordurako, etxea beste batek hartua zuen. Gaitzizena. Alfa ingurua nolakoa zen; erreka.

2.621. Amaña ingurua nolakoa zen (AB-331/012)

Amaña ingurua nola gogoratzen duen. Umetan errekan jolasean. Argazki zaharrak ikusten dituen bitartean, hainbat kontu aipatzen ditu: Asolaigartza; trenbideko langilearen zereginak; trenbideko etxea nolakoa zen; e.a.

2.622. Amaña inguruan zeuden baserriak (AB-331/014)

Amaña inguruan zeuden baserriak: Torrekua; Barrenengua; e.a. Errekan jolasean. Amañako igerilekua.

2.623. Pagei kalea nolakoa zen (AB-331/016)

Pagei ingurua nolakoa zen. Gerra garaiko kontuak. "El Casco".

2.624. Estazio kalea (AB-331/017)

Estazio kalea nolakoa zen. Kalbetoi kalea. Eibarko pasialekuak bi kale horiek ziren.

2.625. Eskolako kontuak: irakasleak, e.a. (AB-331/018)

Eskolan Jardinetan ibilitakoa. Irakasleak zeintzuk izan ziren. Petra Chueca, irakasle gogorra. Eskola amaitu eta ofizinan lanean hasteko hainbat gauza ikasi behar izan zituen akademia batean: mekanografia; idazteko makinan nola idatzi; e.a.

2.626. Eibarrera itzulera; jende asko kartzelara (AB-331/019)

Gerra ostean, Eibarrera itzulera. Jende asko kartzelara sartu zuten orduan, baita gerora bere senarra izango zena ere. Armeria Eskola amaituta zuen eta Prietok ongi prestatutako mutilak eskatu zizkion Julián Etxebarriari abiaziorako. Gerra ostean, Ondarretako kartzelara eraman zuten eta handik Batallón de Trabajadoresera; e.a.

2.627. Zezenetarako zaletasuna (AB-331/020)

Senarra, zezen-zalea. Urtero, Zumarragara joaten ziren, Sta Luzia egunean. Peña Taurinako kidea.

2.628. San Juanak Eibarren; zezenketak (AB-331/021)

Eibarren zezenetarako zaletasun handia egon izan da beti. San Juanak, jai garrantzitsuak izaten ziren garai batean. Jendea kanpotik etortzen zen bertara jaietara. Torero garrantzitsuak.

2.629. San Juanak Eibarren; "Manolak" (AB-331/022)

Zezenetarako zaletasun handia Eibarren. "Manolak", peineta eta guzti. San Juanak, jai handiak. Dultzaineroak, e.a.

2.630. Debara hondartzara (AB-331/024)

Debara hondartzara; "baiñerua" egoten zen. Soka bat egoten zen bainatzeko; "baiñerua" zer egiten zuen. Bainujantziak alkilatze aukera egoten zen. Lehenengo bainujantziak nolakoak ziren.

2.631. Gaztetako ibilerak (AB-331/025)

Gaztetako ibilerak. Saturraranera kamioian joaten ziren. Arrate, Kalamua. Abesteko zaletasun handia gaztetan; edonon hasten ziren kantuan.

2.632. Antzinako Eibar nolakoa zen (AB-331/026)

Abesteko zaletasun handia Eibarren. Lehenagoko Eibar nolakoa zen. Elkartasun handia jendearen artean.

2.633. Jardín de Convalecientes (AB-331/027)

Jardín de Convalecientes: non zegoen; nor joaten zen bertara, nolakoa zen, e.a.

2.634. Esteban Sarasua, eibartar ezaguna (AB-331/028)

Jardín de Convalecientes. Ospitaleko Batzordean Esteban Sarasua zegoen (Carmenen aitona). Argazki zahar bat dokumentatzen du.

2.635. Otaola baserria, inguruko lursailak, unibertsitatea eta autopistaren etorrera (AB-353/001)

Otaola baserria, inguruko lursailak, unibertsitatea eta autopistaren etorrera

2.636. Eskola kontuak; Aldatze (AB-353/002)

Eskola kontuak; Aldatze

2.637. Eibar gerra aurretik; Arragueta kalea gerra aurretik, kotxerik ez eta Turkuaren autoa (AB-353/003)

Eibar gerra aurretik; Arragueta kalea gerra aurretik, kotxerik ez eta Turkuaren autoa

2.638. Eibar gerra aurretik; Ibarkurutzea gerra aurretik, Alhondiga, iturria...Eibar gerra aurretik; Palazioak (AB-353/004)

Eibar gerra aurretik; Ibarkurutzea gerra aurretik, Alhondiga, iturria...

2.639. Eibar gerra aurretik; Palazioak (AB-353/005)

Eibar gerra aurretik; Palazioak

2.640. Isasiko komentua; Don Gabriel, kapillaua eta elizaren deskribapena (AB-353/006)

Isasiko komentua; Don Gabriel, kapillaua eta elizaren deskribapena

2.641. Maria Luisa Maître Jean; monjekin erlazio handia zuen (AB-353/007)

Maria Luisa Maître Jean; monjekin erlazio handia zuen

2.642. Markeskuatarrak; Inguruko baserri asko beraien erreteroak ziren (AB-353/008)

Markeskuatarrak; Inguruko baserri asko beraien erreteroak ziren

2.643. Otaola baserria, baserriaren aurretik dorretxea zegoen, 1782an erre zen arte (AB-353/009)

Otaola baserria, baserriaren aurretik dorretxea zegoen, 1782an erre zen arte

2.644. Otaola dorreko familiaren bisita (AB-353/010)

Otaola dorreko familiaren bisita

2.645. Markeskua; palazioaren oroitzapenak (AB-353/011)

Markeskua; palazioaren oroitzapenak

2.646. Isasiko Markesa eta erromeriak palazio aurrean (AB-353/012)

Isasiko Markesa eta erromeriak palazio aurrean

2.647. Isasiko konbentua Villamarcialeko Markesarentzat (AB-353/013)

Isasiko konbentua Villamarcialeko Markesarentzat

2.648. Santa Ines elizan San Blasak bedeinkatzeko ohitura (AB-353/014)

Santa Ines elizan San Blasak bedeinkatzeko ohitura

2.649. Abade katalanak Eibarren (AB-353/015)

Abade katalanak Eibarren

2.650. Markeskuako palazioan Albizuri familiako alabarekin josten (AB-353/016)

Markeskuako palazioan Albizuri familiako alabarekin josten

2.651. Errenta laboreekin ordaintzen (AB-353/017)

Errenta laboreekin ordaintzen

2.652. Isasiko fraileak eta geroko La Salle (AB-353/018)

Isasiko fraileak eta geroko La Salle

2.653. Eibarko auzoak eta bailarak (AB-353/019)

Eibarko auzoak eta bailarak

2.654. Otaola baserria, bitan banatu: Maître Jean familia eta Zamakolanekuak (AB-353/020)

Otaola baserria, bitan banatu: Maître Jean familia eta Zamakolanekuak

2.655. Iburrerrika inguruak, errekan sargu-eskailu bila (AB-353/021)

Iburrerrika inguruak, errekan sargu-eskailu bila

2.656. Olarra; mikeleteak eta zeladoreak (AB-353/022)

Olarra; mikeleteak eta zeladoreak

2.657. Maiatzeko lorak (AB-353/023)

Maiatzeko lorak

2.658. Sallabene aldeko gazteak Untzagako baileak eta etxerako buelta (AB-353/024)

Sallabene aldeko gazteak Untzagako baileak eta etxerako buelta

2.659. Mikeleteak: Eibarren sartzen ziren automobilak kontrolatzen (AB-353/025)

Mikeleteak: Eibarren sartzen ziren automobilak kontrolatzen

2.660. Mikeleteen uniformearen deskripzioa (AB-353/026)

Mikeleteen uniformearen deskripzioa

2.661. Lau mikelete (AB-353/027)

Lau mikelete

2.662. Kantera Zamakolanekua eta Errasti& Cia-k ustiatzen (AB-353/028)

Kantera Zamakolanekua eta Errasti& Cia-k ustiatzen

2.663. Dorretxea erre zenekoa, baserria nola geratu zen (AB-353/029)

Dorretxea erre zenekoa, baserria nola geratu zen

2.664. Maître Jean abizenaren jatorria: Belgak Eibarren (AB-353/030)

Maître Jean abizenaren jatorria: Belgak Eibarren

2.665. Karlistadetan Maître Jean familiak bandera belga erakusten zuen (AB-354/001)

Karlistadetan Maître Jean familiak bandera belga erakusten zuen

2.666. Iburerrekako trintxeren oroitzapenak (AB-354/002)

Iburerrekako trintxeren oroitzapenak

2.667. Maria Luisaren aita Toribio Etxebarriaren laguna (AB-354/003)

Maria Luisaren aita Toribio Etxebarriaren laguna.

2.668. Toribio eta Aputxianoren oroitzapenak (AB-354/004)

Toribio eta Aputxianoren oroitzapenak

2.669. Antzinako Eibar galdu egin da egun (AB-354/005)

Antzinako Eibar galdu egin da egun

2.670. Errepublika Eguneko Oroitzapenak (AB-354/006)

Errepublika Eguneko Oroitzapenak

2.671. Errepublikaren eragina Aldatzen: mojak habitoa kenduta (AB-354/007)

Errepublikaren eragina Aldatzen: mojak habitoa kenduta

2.672. Gerrako oroitzapenak: bonbardaketan errefugioetara (AB-354/008)

Gerrako oroitzapenak: bonbardaketan errefugioetara

2.673. Gerra: Tropak Eibarren, oroitzapenak (AB-354/009)

Gerra: Tropak Eibarren, oroitzapenak

2.674. Gerra: Durango eta Gernikako bonbardaketak (AB-354/010)

Gerra: Durango eta Gernikako bonbardaketak

2.675. Gerra: Frontea Eibarren (AB-354/011)

Gerra: Frontea Eibarren

2.676. Gerra: Eibar erretzen (AB-354/012)

Gerra: Eibar erretzen

2.677. Gerra: Kanpaiak jo bonbardaketez abisatzeko (AB-354/013)

Gerra: Kanpaiak jo bonbardaketez abisatzeko

2.678. Maître Jeanen aita gizon liberala (AB-354/014)

Maître Jeanen aita gizon liberala

2.679. Gerra ostea: etorkinak ardi txaboletan bizitzen (AB-354/015)

Gerra ostea: etorkinak ardi txaboletan bizitzen

2.680. Eibar gaur egun: asko aldatu da (AB-354/016)

Eibar gaur egun: asko aldatu da

2.681. Eibartarren izateko eraz (AB-354/017)

Eibartarren izateko eraz

2.682. Eibartarra:errespetu handiko jendea (AB-354/018)

Eibartarra:errespetu handiko jendea

2.683. Hileta zibilak (AB-354/019)

Hileta zibilak

2.684. Abioi batek lurra jo zueneko oroitzapenak (AB-354/021)

Abioi batek lurra jo zueneko oroitzapenak

2.685. A. Yraolagoitia zinegotzi (1958-1964); Merkatu plaza eta beste hainbat proiektu. A. Yraolagoitia concejal; La Plaza de Mercado y otros proyectos (AB-358/001)

A. Yraolagoitia zinegotzi (1958-1964); Merkatu plaza eta beste hainbat proiektu. A. Yraolagoitia concejal (1958-1964); La Plaza de Mercado y otros proyectos

2.686. A. Yraolagoitia zinegotzi (1958-1964); San Andres Egoitzaren proiektua. A. Yraolagoitia concejal (1958-1964); Proyecto de la Residencia San Andrés (AB-358/002)

A. Yraolagoitia zinegotzi (1958-1964); San Andres Egoitzaren proiektua. A. Yraolagoitia concejal (1958-1964); Proyecto de la Residencia San Andrés

2.687. A. Yraolagoitia zinegotzi (1958-1964); Aixolako presa. A. Yraolagoitia concejal (1958-1964); aprobación del proyecto de la presa de Aixola (AB-358/003)

A. Yraolagoitia zinegotzi (1958-1964); Aixolako presaren proiektuari emandako onarpena. A. Yraolagoitia concejal (1958-1964); Problemas en el abastecimiento de agua de Eibar; aprobación del proyecto de la presa de Aixola

2.688. A. Yraolagoitia zinegotzi (1958-1964); Tuberkulosiari aurre egiteko sanatorioa. A. Yraolagoitia concejal (1958-1964); Sanatorio Antituberculoso (AB-358/004)

A. Yraolagoitia zinegotzi (1958-1964); Tuberkulosiari aurre egiteko sanatorioa. A. Yraolagoitia concejal (1958-1964); Sanatorio Antituberculoso

2.689. A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Unbeko terrenoen erosketa. A. Yraolagoitia alcalde (1973-1978); compra de los terrenos de Unbe (AB-358/005)

A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Unbeko terrenoen erosketa. A. Yraolagoitia alcalde (1973-1978); compra de los terrenos de Unbe

2.690. A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Zezen plaza. A. Yraolagoitia alcalde (1973-1978); Plaza de toros; de propiedad privada a propiedad pública (AB-358/006)

A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Zezen plaza esku pribatuetatik publikoetara pasatzea. A. Yraolagoitia alcalde (1973-1978); Plaza de toros; de propiedad privada a propiedad pública

2.691. A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Prentsa oharrak. A. Yraolagoitia alcalde (1973-1978); notas de prensa (AB-358/007)

A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Prentsa oharrak. A. Yraolagoitia alcalde (1973-1978); notas de prensa

2.692. A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Kiroldegiaren proiektua eta garapena. A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Proyecto y desarrollo del Polideportivo (AB-358/008)

A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Kiroldegiaren proiektua eta garapena. A. Yraolagoitia alkate (1973-1978); Proyecto y desarrollo del Polideportivo

2.693. Arrate; Arrateko udalekua edo kolonia. Arrate; la colonia de Arrate (AB-358/009)

Arrate; Arrateko udalekua edo kolonia. Arrate; la colonia de Arrate

2.694. Arrate; Paskuakua egitera Arratera. Arrate; La Pascua de Pentecostés en Arrate (AB-358/010)

Arrate; Paskuakua egitera Arratera. Arrate; La Pascua de Pentecostés en Arrate

2.695. Arrate; Tiro pitxoia. Arrate; El Tiro Pichón (AB-358/011)

Arrate; Tiro pitxoia. Arrate; El Tiro Pichón

2.696. Eibar eta zezenketa; manolak eta zezenketen inguruko beste hainbat kontu. Eibar, las corridas, las manolas y temas relacionados (AB-358/012)

Eibar eta zezenketa; manolak eta zezenketen inguruko beste hainbat kontu. Eibar, las corridas que se celebraban, las manolas y temas relacionados con el mundo taurino

2.697. Eibar eta zezenketa; afizio handiko herria. Eibar, un pueblo de gran afición taurina (AB-358/013)

Eibar eta zezenketa; afizio handiko herria. Eibar, un pueblo de gran afición taurina

2.698. Markeskua Jauregia; Felipe IV.aren semea ikasle bezala egon zeneko kontuak. El Palacio de Markeskua; las estancias del hijo de Felipe IV (AB-358/014)

Markeskua Jauregia; Felipe IV.aren semea ikasle bezala egon zeneko kontuak. El Palacio de Markesku; historias del Palacio, las estancias del hijo de Felipe IV

2.699. Eibar gerra aurretik; erreka eta zubiak (AB-359/001)

Eibar gerra aurretik; erreka eta zubiak

2.700. Eibar gerra aurretik; etxeetako aldabak. Eibar antes de la guerra; las aldabas de las casas (AB-359/002)

Eibar gerra aurretik; etxeetako aldabak. Eibar antes de la guerra; las aldabas de las casas

2.701. Eibar gerra aurretik; goitarrak eta behetarrak (AB-359/003)

Eibar gerra aurretik; goitarrak eta behetarrak

2.702. Eibarko garai txarrak; txartelekin erosten zen garaiko kontuak. Eibar y sus épocas de crisis: cartillas de racionamiento (AB-359/004)

Eibarko garai txarrak; txartelekin erosten zen garaiko kontuak. Eibar y sus épocas de crisis: cartillas de racionamiento

2.703. Godoi etxearen kontuak. Historias de la Casa Godoi (AB-359/005)

Godoi etxearen kontuak. Historias de la Casa Godoi

2.704. Indianokua; etxearen jabetza eta terrenoak (AB-359/006)

Indianokua; etxearen jabetza eta terrenoak

2.705. Indianokua; Sebastian Zumaran; etxearen deskribapena. Indianokua; Sebastián de Zumaran; descripción del palacio (AB-359/007)

Indianokua; Sebastian Zumaran; etxearen deskribapena. Indianokua; Sebastián de Zumaran; descripción del palacio

2.706. Armeria eskola; garrantzia handiko eskola (AB-359/008)

Armeria eskola; garrantzia handiko eskola

2.707. Estazio kalea; “pasantien kalia” bezala ere ezaguna. La Calle Estación, calle conocida como la “de los paseantes” (AB-359/009)

Estazio kalea; “pasantien kalia” bezala ere ezaguna. La Calle Estación, calle conocida como la “de los paseantes”

2.708. Urkizu auzoa; “el barrio sirenaico” . Urkizu; conocido como “el barrio sirenaico” por las sirenas de los talleres (AB-359/010)

Urkizu auzoa; “el barrio sirenaico” . Urkizu; conocido como “el barrio sirenaico” por las sirenas de los talleres

2.709. Eibarko udaletxean 60-70 hamarkadetan alkatea aukeratzeko erabiltzen zen sistema (AB-359/011)

Eibarko udaletxean 60-70 hamarkadetan alkatea aukeratzeko erabiltzen zen sistema

2.710. Eibar gerra ostean; Antonio Yraolagoitia etxera bueltatu zen eguneko oroitzapenak (AB-359/012)

Eibar gerra ostean; Antonio Yraolagoitia etxera bueltatu zen eguneko oroitzapenak

2.711. Eibar gerra ostean; “Regiones Devastadas” plana; Errebaleko etxeak eta parrokiako lokalak (AB-359/013)

Eibar gerra ostean; “Regiones Devastadas” plana; Errebaleko etxeak eta parrokiako lokalak

2.712. Eibar gerra ostean; “Batallón de trabajadores” erreka berregiten (AB-359/014)

Eibar gerra ostean; “Batallón de trabajadores” erreka berregiten

2.713. Estraperloa eta kupoak; Bilbora material bila. El estraperlo y los cupones; a Bilbao a por material (AB-359/015)

Estraperloa eta kupoak; Bilbora material bila. El estraperlo y los cupones; a Bilbao a por material

2.714. Txirrindularitza, Eibar- Madrid- Eibar karreran Orbea enpresakoak laguntzen. Ciclismo; el apoyo de los Orbea en la carrera Eibar- Madrid- Eibar (AB-359/016)

Txirrindularitza, Eibar- Madrid- Eibar karreran Orbea enpresakoak laguntzen. Ciclismo; el apoyo de los Orbea en la carrera Eibar- Madrid- Eibar

2.715. Industria; Orbea tailerrean egiten ziren lanak. Industria; la fábrica Orbea y su producción (AB-359/017)

Industria; Orbea tailerrean egiten ziren lanak. Industria; la fábrica Orbea y su producción

2.716. Industria; Orbea tailerrak zituen lokalen deskribapena. Industria; descripción de los locales de la fábrica Orbea (AB-359/018)

Industria; Orbea tailerrak zituen lokalen deskribapena. Industria; descripción de los locales de la fábrica Orbea

2.717. XXI.mendeko Eibarko gazteak eta herriaren etorkizuna A. Yraolagoitiaren hitzetan. Los jóvenes del s. XXI. ; el futuro de la ciudad de Eibar (AB-359/019)

XXI.mendeko Eibarko gazteak eta herriaren etorkizuna A. Yraolagoitiaren hitzetan. Los jóvenes del s. XXI. ; el futuro de la ciudad de Eibar

2.718. 16 07 1936; alzamiento de las tropas sublevadas (AB-850/001)

16 07 1936; alzamiento de las tropas sublevadas

2.719. 1936, El frente en Eibar (AB-850/002)

1936, El frente en Eibar

2.720. 1936, de Vitoria a San Sebastian (AB-850/003)

1936, de Vitoria a San Sebastian

2.721. Febrero de 1937, ruptura del Cinturón de Hierro (AB-850/004)

Febrero de 1937, ruptura del Cinturón de Hierro

2.722. Recuerdos de la proclamación de la República en Eibar (AB-850/005)

Recuerdos de la proclamación de la República en Eibar

2.723. Andrés Prieto; de la cárcel al exilio en Francia (AB-850/006)

Andrés Prieto; de la cárcel al exilio en Francia

2.724. Prieto dice que no a la participación en el valle de Aran (AB-850/007)

Prieto dice que no a la participación en el valle de Aran

2.725. Julio 1936; San Sebastian; el asalto al Casino (AB-850/008)

Julio 1936; San Sebastian; el asalto al Casino

2.726. José Ocamica; de vivir en Italia a Eibar (AB-851/001)

José Ocamica; de vivir en Italia a Eibar

2.727. Recuerdos de infancia; clases de dibujo en la escuela de Marcano y Michelena (AB-851/002)

Recuerdos de infancia; clases de dibujo en la escuela de Marcano y Michelena

2.728. Recuerdos de infancia; la escuela del Frontón viejo (AB-851/003)

Recuerdos de infancia; la escuela del Frontón viejo

2.729. Recuerdos de infancia; Ardanza, un barrio sucio y con muchos gatos (AB-851/005)

Recuerdos de infancia; Ardanza, un barrio sucio y con muchos gatos

2.730. Recuerdos de infancia; jugando en Dos de Mayo y pescando en Birjiñape (AB-851/006)

Recuerdos de infancia; jugando en Dos de Mayo y pescando en Birjiñape

2.731. Recuerdos de infancia; la doctrina en La Salle (AB-851/007)

Recuerdos de infancia; la doctrina en La Salle

2.732. La guerra; de Eibar a Bilbao y de Bilbao a Munitibar. Recuerdos del día del bombardeo de Gernika (AB-851/008)

La guerra; de Eibar a Bilbao y de Bilbao a Munitibar. Recuerdos del día del bombardeo de Gernika

2.733. La guerra; de Eibar a Bilbao; viviendo y trabajando en los Salesianos (AB-851/009)

La guerra; de Eibar a Bilbao; viviendo y trabajando en los Salesianos

2.734. La guerra; preparando los papeles para ir al exilio en Rusia (AB-851/010)

La guerra; preparando los papeles para ir al exilio en Rusia

2.735. La guerra; el viaje a Santurce junto con otros eibarreses para embarcar con destino a Rusia (AB-851/011)

La guerra; el viaje a Santurce junto con otros eibarreses para embarcar con destino a Rusia

2.736. La guerra; el viaje; al barco con 20 pesetas (AB-851/012)

La guerra; el viaje; al barco con 20 pesetas

2.737. La guerra; el exilio; los niños iban para quedarse un año (AB-851/013)

La guerra; el exilio; los niños iban para quedarse un año

2.738. La guerra; el exilio; los barcos en los que hicieron el viaje:El HABANA y El SONTAI (AB-851/014)

La guerra; el exilio; los barcos en los que hicieron el viaje:El HABANA y El SONTAI

2.739. La guerra; el exilio; educadores y médicos que acompañaban a los niños (AB-851/015)

La guerra; el exilio; educadores y médicos que acompañaban a los niños

2.740. La guerra; el exilio; el viaje; la llegada al puerto de Burdeos (AB-851/016)

La guerra; el exilio; el viaje; la llegada al puerto de Burdeos

2.741. La guerra; el exilio; el viaje; de Burdeos a Leningrado (AB-851/017)

La guerra; el exilio; el viaje; de Burdeos a Leningrado

2.742. El exilio; el día de la llegada a Leningrado (AB-851/018)

El exilio; el día de la llegada a Leningrado

2.743. La vida en el exilio; los españoles muy bien acogidos por los rusos (AB-851/019)

La vida en el exilio; los españoles muy bien acogidos por los rusos

2.744. La vida en el exilio; la casa de niños de Odessa (AB-851/020)

La vida en el exilio; la casa de niños de Odessa

2.745. La vida en el exilio; de Odessa a Krasnodar (AB-851/021)

La vida en el exilio; de Odessa a Krasnodar

2.746. La vida en el exilio; la educación (AB-851/022)

La vida en el exilio; la educación

2.747. La vida en el exilio; el primer trabajo de Ocamica en Saratov (AB-851/023)

La vida en el exilio; el primer trabajo de Ocamica en Saratov

2.748. La vida en el exilio; rivalidad entre Stalin y L.Beria en Tiflis (AB-851/024)

La vida en el exilio; rivalidad entre Stalin y L.Veria en Tiflis

2.749. La vida en el exilio; se acerca la Segunda Guerra Mundial (AB-851/025)

La vida en el exilio; se acerca la Segunda Guerra Mundial

2.750. Reflexiones sobre Rusia (AB-851/026)

Reflexiones sobre de Rusia

2.751. La vida en el exilio; recibían información sobre la situación en España (AB-852/001)

La vida en el exilio; recibían información sobre la situación en España

2.752. La vida en el exilio; J. Ocamica decide ir a Moscú pero el empadronamiento estaba prohibido (AB-852/002)

La vida en el exilio; J. Ocamica decide ir a Moscú pero el empadronamiento estaba prohibido

2.753. La vida en el exilio; de Moscú a Niepopetrov (AB-852/003)

La vida en el exilio; de Moscú a Niepopetrov

2.754. La vida en el exilio; Ocamica se casa por el rito ortodoxo (AB-852/004)

La vida en el exilio; Ocamica se casa por el rito ortodoxo

2.755. La vida en el exilio; 1956 comienza la repatriación (AB-852/005)

La vida en el exilio; 1956 comienza la repatriación

2.756. Del exilio a Eibar; las primeras impresiones a la vuelta (AB-852/006)

Del exilio a Eibar; las primeras impresiones a la vuelta

2.757. Del exilio a Eibar; trabajando en el taller de Kareaga (AB-852/007)

Del exilio a Eibar; trabajando en el taller de Kareaga

2.758. Del exilio a Eibar; Kareaga; excelente persona y trabajador (AB-852/008)

Del exilio a Eibar; Kareaga; excelente persona y trabajador

2.759. Del exilio a Eibar; la industrialización; época de mucho trabajo (AB-852/009)

Del exilio a Eibar; la industrialización; época de mucho trabajo

2.760. La guerra; el exilio; el viaje; detalles del barco HABANA (AB-852/010)

La guerra; el exilio; el viaje; detalles del barco HABANA

2.761. Del exilio a Eibar; la cuadrilla de los RUSOS (AB-852/011)

Del exilio a Eibar; la cuadrilla de los RUSOS

2.762. Del exilio a Eibar; Ocamica traductor de ruso para muchas empresas (AB-852/012)

Del exilio a Eibar; Ocamica traductor de ruso para muchas empresas

2.763. Del exilio a Eibar; clases de pintura con Kareaga y Paulino Larrañaga (AB-852/013)

Del exilio a Eibar; clases de pintura con Kareaga y Paulino Larrañaga

2.764. Del exilio a Eibar; para ir a Deba tenía que enseñar el pasaporte (AB-852/014)

Del exilio a Eibar; para ir a Deba tenía que enseñar el pasaporte

2.765. Gaztetako kontuak; udaletxeko eskolara eta baserrian laguntzen (AB-853/001)

Gaztetako kontuak; udaletxeko eskolara eta baserrian laguntzen

2.766. Astelena gerra sasoian; frontoian sukaldea eta Miguel bertan pilotan jokatzen (AB-853/002)

Astelena gerra sasoian; frontoian sukaldea eta Miguel bertan pilotan jokatzen

2.767. Asolaigartza eta inguruko beste baserriak (AB-853/003)

Asolaigartza eta inguruko beste baserriak

2.768. Astelena gerra sasoian; Gallasteguitarrak negozioa egiten: porruen truke soldaduen sobrak etxera (AB-853/004)

Astelena gerra sasoian; Gallasteguitarrak negozioa egiten: porruen truke soldaduen sobrak etxera

2.769. Gerra: Gallastegi, Amuategi Batalloiko kide (AB-853/005)

Gerra: Gallastegi, Amuategi Batalloiko kide

2.770. Amaya; sorrera eta sozioak (AB-853/006)

Amaya; sorrera eta sozioak

2.771. Amaya; garai onenak eta emanaldi entzutetsuenak edo ospetsuenak (AB-853/007)

Amaya; garai onenak eta emanaldi entzutetsuenak edo ospetsuenak

2.772. Gallastegui negozio gizon; Amayaz gain beste negozio batzuk (AB-853/008)

Gallastegui negozio gizon; Amayaz gain beste negozio batzuk

2.773. Eibartarrak; Gallasteguiaren ustez giro ona ugazaben eta beharginen artean (AB-853/009)

Eibartarrak; Gallasteguiaren ustez giro ona ugazaben eta beharginen artean

2.774. Amaya; garai txarrak, emanaldien kalitateak eta publikoak behera (AB-853/010)

Amaya; garai txarrak, emanaldien kalitateak eta publikoak behera

2.775. Amaya; 1960ko bertso ekitaldia (AB-853/011)

Amaya; 1960ko bertso ekitaldia

2.776. Amaya; Gallasteguiaren ustez, Paco Martinez Soriaren ekitaldia onena (AB-853/012)

Amaya; Gallasteguiaren ustez, Paco Martinez Soriaren ekitaldia onena

2.777. Amaya; kontratu guztiak Gallasteguiaren eskutik pasatzen ziren (AB-853/013)

Amaya; kontratu guztiak Gallasteguiaren eskutik pasatzen ziren

2.778. Amaya; Eibartarrak gauza berriak ikusteko joaten ziren aretora (AB-853/014)

Amaya; Eibartarrak gauza berriak ikusteko joaten ziren aretora

2.779. Amaya; itxiera (AB-853/015)

Amaya; itxiera

2.780. Eibarko kaleak gerra aurretik (AB-853/016)

Eibarko kaleak gerra aurretik

2.781. Eibar gerra aurretik; ogia etxez etxe banatzen zenean (AB-853/017)

Eibar gerra aurretik; ogia etxez etxe banatzen zenean

2.782. Eibar gerra aurretik; frontoiak; Kiputzanekoa, Astelena eta Frontoi Zaharra (AB-853/018)

Eibar gerra aurretik; frontoiak; Kiputzanekoa, Astelena eta Frontoi Zaharra

2.783. Kiputzaneko frontoia; zine emanaldien ostean aulkiak erretiratu eta pilotan jokatu (AB-853/019)

Kiputzaneko frontoia; zine emanaldien ostean aulkiak erretiratu eta pilotan jokatu

2.784. Miguel eta Gisasolaren arteko apustua; duro baten truke harriak jasotzen (AB-853/020)

Miguel eta Gisasolaren arteko apustua; duro baten truke harriak jasotzen

2.785. Gallastegui, pilotari profesionalen artean lehena entrenatzen (AB-853/021)

Gallastegui, pilotari profesionalen artean lehena entrenatzen

2.786. Beste pilotari eibartar batzuk; Carral, ... (AB-853/022)

Beste pilotari eibartar batzuk; Carral, ...

2.787. Eibarko aizkolariak; Luxia (AB-853/023)

Eibarko aizkolariak; Luxia

2.788. Club Deportiboko txapelketak; Trebiñorekin binaka jokatzeko (AB-853/024)

Club Deportiboko txapelketak; Trebiñorekin binaka jokatzeko

2.789. Pilotak; Eugenio Atano II pelota egile onena (AB-853/025)

Pilotak; Eugenio Atano II pelota egile onena

2.790. Eibarko afizioa; entendidua eta exigentea (AB-853/026)

Eibarko afizioa; entendidua eta exigentea

2.791. Astelena frontoia; 2,5-3 bitartean zegoen "koxka"z (AB-853/027)

Astelena frontoia; 2,5-3 bitartean zegoen "koxka"z

2.792. Gerra garaia; Gallasteguik Gasteizen ospitalean zegoela ekiten dio berriz pilotari (AB-853/028)

Gerra garaia; Gallasteguik Gasteizen ospitalean zegoela ekiten dio berriz pilotari

2.793. 1948ko txapelketa; Akarregi irabazi ostean Atano III irabazi eta Gallastegui txapeldun (AB-853/029)

1948ko txapelketa; Akarregi irabazi ostean Atano III irabazi eta Gallastegui txapeldun

2.794. Eibarko giroa partida egunetan; jatetxeak beteta (AB-853/030)

Eibarko giroa partida egunetan; jatetxeak beteta

2.795. Miguelentzat partidarik onena; Haroko jaietan Txikito de Iraeta eta Kortabitarten aurka (AB-854/001)

Miguelentzat partidarik onena; Haroko jaietan Txikito de Iraeta eta Kortabitarten aurka

2.796. Gaur egungo pelota; ez da “mano a mano” eta ezin da jakin onena nor den (AB-854/002)

Gaur egungo pelota; ez da “mano a mano” eta ezin da jakin onena nor den

2.797. Gaur egungo pelota; Miguelentzat eskuzko pelota amaitu egin da (AB-854/003)

Gaur egungo pelota; Miguelentzat eskuzko pelota amaitu egin da

2.798. Gallasteguiaren haurtzaroa; Udaletxean eskolan Don Julián Atxarekin (AB-854/004)

Gallasteguiaren haurtzaroa; Udaletxean eskolan Don Julián Atxarekin

2.799. Frontoiko enpresario izateko balio izan behar da; bere sasoiaren ofizio handia zen (AB-854/005)

Frontoiko enpresario izateko balio izan behar da; bere sasoiaren ofizio handia zen

2.800. Gallasteguiaren garaiko kazetariak; egungoak baino gogorragoak ziren pelotariekin (AB-854/006)

Gallasteguiaren garaiko kazetariak; egungoak baino gogorragoak ziren pelotariekin

2.801. 50 hamarkadako txapelketak, Bizkaia-Gipuzkoa ziren, probintzia bakoitzeko pilotari onenekin (AB-854/007)

50 hamarkadako txapelketak, Bizkaia-Gipuzkoa ziren, probintzia bakoitzeko pilotari onenekin

2.802. 1953an Miguelek ukatu egin zuen Barberitoren aurkako partida jokatzea (AB-854/008)

1953an Miguelek ukatu egin zuen Barberitoren aurkako partida jokatzea

2.803. Astelena; Gallasteguiarentzat gaur egun ere frontoirik onena izaten jarraitzen du (AB-854/009)

Astelena; Gallasteguiarentzat gaur egun ere frontoirik onena izaten jarraitzen du

2.804. Eibarko kaleak gerra ostean (AB-859/001)

Eibarko kaleak gerra ostean

2.805. Eibartarren eta plaentziatarren arteko erlazioa (AB-859/002)

Eibartarren eta plaentziatarren arteko erlazioa

2.806. Astelena frontoia; izenaren jatorria (AB-859/003)

Astelena frontoia; izenaren jatorria

2.807. Eibarko langileen zaindaria; Santa Barbara eta beste (AB-859/004)

Eibarko langileen zaindaria; Santa Barbara eta beste

2.808. Eibar armagintzarentzat toki estrategikoa (AB-859/005)

Eibar armagintzarentzat toki estrategikoa

2.809. Arrasateko Altzairua (AB-859/006)

Arrasateko Altzairua

2.810. Tenplearen nondik norakoak (AB-859/009)

Tenplearen nondik norakoak

2.811. Tenplea; egur ikatzarekin egiten zuten (AB-859/010)

Tenplea; egur ikatzarekin egiten zuten

2.812. Maltzaga: arrantza eta igerian egiteko leku aproposa (AB-859/011)

Maltzaga: arrantza eta igerian egiteko leku aproposa

2.813. Viteriren kontakizuna (AB-859/012)

Viteriren kontakizuna

2.814. Durango, Bergara... "señoritoen" herriak ziren beraientzat. Eibar ezberdina zen (AB-859/013)

Durango, Bergara... "señoritoen" herriak ziren beraientzat. Eibar ezberdina zen

2.815. Gallastegi-Lazkano pilota partidua. Botileroaren pasadizoa (AB-859/015)

Gallastegi-Lazkano pilota partidua. Botileroaren pasadizoa

2.816. Eusebio Zuloaga: Erregearen Armagina (AB-859/016)

Eusebio Zuloaga: Erregearen Armagina

2.817. José Zuloaga eta Antonio María Yraolagoitia Sebastian Mirandaren etxean; euskaldunak hitza emateri dioten garrantzia (AB-859/018)

José Zuloaga eta Antonio María Yraolagoitia Sebastian Mirandaren etxean; euskaldunak hitza emateri dioten garrantzia

2.818. Eibar errespetu askoko herria. Prozesio egunetan errespetu handia egoten zen (AB-859/019)

Eibar errespetu askoko herria. Prozesio egunetan errespetu handia egoten zen

2.819. Don Emilio, apaiz ezaguna (AB-859/020)

Don Emilio, apaiz ezaguna

2.820. Lixatzearen nondik norakoak (AB-862/001)

Lixatzearen nondik norakoak

2.821. Mordazak; baskula heltzeko erabiltzen ziren (AB-862/002)

Mordazak; baskula heltzeko erabiltzen ziren

2.822. Atzaparduna; itzalak egiteko erabiltzen zen (AB-862/003)

Atzaparduna; itzalak egiteko erabiltzen zen

2.823. Eskopetagintza: baskulaginak baskulak egin, kanoiginangana eraman,... (AB-862/004)

Eskopetagintza: baskulaginak baskulak egin, kanoiginangana eraman, barrenadoriagana, akabatzaileagana, dibujantiagana, tenplia egin eta azkenik montajea

2.824. kainoia dibujatzen (AB-862/005)

kainoia dibujatzen

2.825. Kainoiak pikatzeko lana andrazkoek egiten zuten (AB-862/007)

Kainoiak pikatzeko lana andrazkoek egiten zuten

2.826. Eskopetaren produkzioa: gutxi eta kalitate onekoak izatetik asko eta kalitate txarrekoak egitera (AB-862/008)

Eskopetaren produkzioa: gutxi eta kalitate onekoak izatetik asko eta kalitate txarrekoak egitera

2.827. Eibarko kaleetan zarata edonon (AB-862/009)

Eibarko kaleetan zarata edonon

2.828. Eskaera handiak zeudenean plantilak erabiltzen ziren (AB-862/010)

Eskaera handiak zeudenean plantilak erabiltzen ziren

2.829. Lehen soldata: asteko pezeta bat (AB-862/011)

Lehen soldata: asteko pezeta bat

2.830. Gazte kontuak; La Salletik Txoparengana eta Txopanetik Cayetano Careaganera (AB-865/001)

Gazte kontuak; La Salletik Txoparengana eta Txopanetik Cayetano Careaganera

2.831. Txoparen eskola; oroitzapenak (AB-865/002)

Txoparen eskola; oroitzapenak

2.832. Asociación de Artistas Eibarresesen sorrera (AB-865/003)

Asociación de Artistas Eibarresesen sorrera

2.833. Taila modan egotetik ez egotera pasatu zenean “Txopa” lan gabe geratu eta Paulinok Careagarengana eramaten du (AB-865/004)

Taila modan egotetik ez egotera pasatu zenean “Txopa” lan gabe geratu eta Paulinok Careagarengana eramaten du

2.834. Lan asko beste material batzuekin (AB-865/005)

Lan asko beste material batzuekin

2.835. Cayetano Careagaren lana (AB-865/006)

Cayetano Careagaren lana

2.836. Gerra garaia; San Andrés batailoia (AB-865/007)

Gerra garaia; San Andrés batailoia

2.837. Juanito Mitxelena; artista handia (AB-865/008)

Juanito Mitxelena; artista handia

2.838. Gerra garaia; Santoñan preso, “Batallón de Trabajadores” (AB-865/009)

Gerra garaia; Santoñan preso, “Batallón de Trabajadores”

2.839. Gobernu Militarrean ingeniarietzat eta arkitektoentzat lanean (AB-865/010)

Gobernu Militarrean ingeniarietzat eta arkitektoentzat lanean

2.840. Bartzelonako portuan jendeak Frantziatik Argeliara egiten zuen bidea ikusten (AB-865/011)

Bartzelonako portuan jendeak Frantziatik Argeliara egiten zuen bidea ikusten

2.841. Gerra garaia; Espainiako Itzuliko ziklistak mugara (AB-865/012)

Gerra garaia; Espainiako Itzuliko ziklistak mugara

2.842. Bartzelonako frontoi txikian Eibarko raketistak jokatzeko zuten (AB-865/013)

Bartzelonako frontoi txikian Eibarko raketistak jokatzeko zuten

2.843. Eibartarrak langile finak (AB-865/014)

Eibartarrak langile finak

2.844. Olabe: artista fenomenoa (AB-865/015)

Olabe: artista fenomenoa

2.845. "Matxari" eta León Sarasketa Parisera joan zireneko kontuak (AB-865/016)

"Matxari" eta León Sarasketa Parisera joan zireneko kontuak

2.846. Juan San Martin: gizon abila (AB-865/017)

Juan San Martin: gizon abila

2.847. Txomin Martinezek Paulinori bere tailerrea toki bat egiten dio (AB-865/018)

Txomin Martinezek Paulinori bere tailerrea toki bat egiten dio

2.848. Damaskinadoreak Eibarren; Matxari, Careaga eta beste batzuk (AB-865/019)

Damaskinadoreak Eibarren; Matxari, Careaga eta beste batzuk

2.849. Grabatugintza; emakumeek etxeetan grabatzen (AB-865/020)

Grabatugintza; emakumeek etxeetan grabatzen

2.850. Asociación de Artistas Eibarreses: Careaga buru (AB-866/002)

Asociación de Artistas Eibarreses: Careaga buru

2.851. Marino Plaza eta beste eibartar asko (AB-866/003)

Marino Plaza eta beste eibartar asko

2.852. Asociación de Artistas Eibarreses. Cleto UnzuetaK lokal bat eskatzen dio udaletxeari (AB-866/004)

Asociación de Artistas Eibarreses. Cleto UnzuetaK lokal bat eskatzen dio udaletxeari

2.853. Paulinoren lehenengo erakusketa Eibarren Klub Deportiboan (AB-866/005)

Paulinoren lehenengo erakusketa Eibarren Klub Deportiboan

2.854. Beorlegui, Eibarko artistarik onena Paulinorentzat (AB-866/006)

Beorlegui, Eibarko artistarik onena Paulinorentzat

2.855. Txopitea, artista ona (AB-866/007)

Txopitea, artista ona

2.856. Macarrón artista eta lagun handia. Erakusketa baterako Eibarrera ekarri zuten (AB-866/008)

Macarrón artista eta lagun handia. Erakusketa baterako Eibarrera ekarri zuten

2.857. Erakusketak antolatzen (AB-866/009)

Erakusketak antolatzen

2.858. Eskola kontuak: Doña Paka, Doña Petra eta Pagei kaleko eskolaz (AB-867/001)

Doña Paka, Doña Petra eta Pagei kaleko eskolaz

2.859. "Kontzeju zaharrea" zer zegoen (AB-867/002)

San Andres elizaren parean kokatzen zen "Kontzeju zaharra". Eraikineko pisu bakoitzean zer zegoen kontatzen du.

2.860. Kontzeju zaharrera azterketak egitera (AB-867/003)

Eskola kontuak; Kontzeju zaharra; azterketak egitera udaletxetik joaten zen jendea

2.861. Doña Petrarekin ikasitakoak (AB-867/004)

Eskola kontuak; Doña Petrarekin irakurtzen idazten eta kontuetan ikasten

2.862. Eibar gerra aurretik; beste eskola batzuk; Jardinetan, udaletxean, kontzeju zaharrea, kuartelean... (AB-867/005)

Eibar gerra aurretik; beste eskola batzuk; Jardinetan, udaletxean, kontzeju zaharrea, kuartelean...

2.863. Lehenengo hartzaindegia (AB-867/006)

Patronato de Beneficiencia; lehenengo hartzaindegia Jardinetako eskoletan. Frontoi zaharreko eskolak

2.864. Cayetano Careaga eta GUREA tailerrez (AB-867/007)

Cayetano Careaga eta GUREA tailerrez

2.865. Don Juan eta Don Felix-ekin dotrinak (AB-867/008)

Mercedes Careaga, Don Juan eta Don Felix; Euskara erakusteko jokoak

2.866. Don Enrique Laborda igande batzuetan euskarazko kantuak erakustera etortzen zen (AB-867/009)

Don Enrique Laborda igande batzuetan euskarazko kantuak erakustera etortzen zen

2.867. Acción Católica; Don Rafael Artola, Mercedesen konferentziak eta Felisaren sukalde klaseak (AB-867/010)

Acción Católica; Don Rafael Artola, Mercedesen konferentziak eta Felisaren sukalde klaseak

2.868. Zergatik deitzen den Goi Argi (AB-867/011)

Goi Argi; izena nola bururatu zitzaien

2.869. Goi Argi; sorrera; Sociedad Femenina Eibarresa bezala sortu behar izan zen (AB-867/012)

Goi Argi; sorrera; Sociedad Femenina Eibarresa bezala sortu behar izan zen

2.870. Lan sozialak: jendeari laguntzeko esne-hautsa labadoretan urarekin nahasten (AB-867/013)

Lan sozialak: jendeari laguntzeko esne-hautsa labadoretan urarekin nahasten

2.871. Mercedes Kareagarekin eta Don Jose Luis Ansorenarekin erretiroak sakristian (AB-867/014)

Mercedes Kareagarekin eta Don Jose Luis Ansorenarekin erretiroak sakristian

2.872. Goi Argi; lehenengo junta (AB-867/015)

Goi Argi; lehenengo junta

2.873. Goi Argi; emakumezkoen lehenengo soziedadea. Gizonezkoak karnabaletan bakarrik sartu ahal ziren (AB-867/016)

Goi Argi; emakumezkoen lehenengo soziedadea. Gizonezkoak karnabaletan bakarrik sartu ahal ziren

2.874. Goi Argi; nola eta zergati sortu zen (AB-867/017)

Goi Argi; nola eta zergati sortu zen

2.875. Goi Argi; atezaina eta familia bertan bizi ziren (AB-867/018)

Goi Argi; atezaina eta familia bertan bizi ziren

2.876. Tere Ganchegui eta Gregorio Santrakruz, Indianoko Palazioan dantzan erakusten (AB-867/019)

Tere Ganchegui eta Gregorio Santrakruz, Indianoko Palazioan dantzan erakusten

2.877. Seminarista eguna; Koliseoan (AB-867/021)

Seminarista eguna; Koliseoan

2.878. Tonbola benefikoak; ezagunenak Arrate egunekoak (AB-867/022)

Tonbola benefikoak; ezagunenak Arrate egunekoak

2.879. Errehabilitazio zentroa; historia; 1964sortu zenetik 1971an Tere buru den arte (AB-867/023)

Errehabilitazio zentroa; historia; 1964sortu zenetik 1971an Tere buru den arte

2.880. Sarasketarenean jardun zuen aurretik (AB-867/024)

Zentroran lanera pasa aurretik Victor Sarasketa lantegian aritu zen. Lan hura lagatzea asko kostatzen du.

2.881. Martina Muruaren etxean sekretaria ikasten (AB-868/001)

Martina Muruaren etxean sekretaria ikasten

2.882. Patronatuko bestelako lanak; abiadore izandakoen pentsioak lortzen (AB-868/002)

Patronatuko bestelako lanak; abiadore izandakoen pentsioak lortzen

2.883. Eibarko alkateak; Kortazar eta Telleria (AB-868/003)

Eibarko alkateak; Kortazar eta Telleria

2.884. Peli Egaña: lagun handia, Eibarren herriaren alde lan asko egindakoa (AB-868/004)

Peli Egaña: lagun handia, Eibarren herriaren alde lan asko egindakoa

2.885. Eibartarren izateko moduz (AB-869/001)

Eibartarren izateko moduz

2.886. Manchobas arkitektuaren ametsa: San Andres elizatik tren geltokira kale zuzen bat egitea (AB-869/002)

Manchobas arkitektuaren ametsa: San Andres elizatik tren geltokira kale zuzen bat egitea

2.887. Alejandro Telleria alkateari egindako kanta (AB-869/003)

Alejandro Telleria alkateari egindako kanta

2.888. Arraindegi Kalea (AB-869/004)

Arraindegi Kalea

2.889. Danelen ama kriada udaletxean (AB-869/005)

Danelen ama kriada udaletxean

2.890. Industrias DEJen sorrera: ekintzaileendako garai ona Eibarren (AB-869/006)

Industrias DEJen sorrera: ekintzaileendako garai ona Eibarren

2.891. Alfán sartzea loteria tokatzea bezala (AB-869/007)

Alfán sartzea loteria tokatzea bezala

2.892. Industrias DEJ: lagun artean sortzetik 70 langile izan arte (AB-869/008)

Industrias DEJ: lagun artean sortzetik 70 langile izan arte

2.893. Lan asko zegoen garaietan frontoia jendez betetzen zen (AB-869/009)

Lan asko zegoen garaietan frontoia jendez betetzen zen

2.894. Eibarko frontoia (AB-869/010)

Eibarko frontoia

2.895. Pilota kontuak, Barberito eta Ogeta (AB-869/011)

Pilota kontuak, Barberito eta Ogeta

2.896. Roberto Txurruka, IDESA eta Chueca sozioa (AB-869/012)

Roberto Txurruka, IDESA eta Chueca sozioa

2.897. DEJekin batera enpresa asko sortu ziren Eibarren (AB-869/013)

DEJekin batera enpresa asko sortu ziren Eibarren

2.898. Kooperatibak, lan asko ekarri zuten (AB-869/014)

Kooperatibak, lan asko ekarri zuten

2.899. Krisialdi, sindikatu eta greba garaiak; sufrimendu askoko garaia (AB-869/015)

Krisialdi, sindikatu eta greba garaiak; sufrimendu askoko garaia

2.900. Krisialdiarekin DEJ enpresa saltzea erabakitzen dute (AB-869/016)

Krisialdiarekin DEJ enpresa saltzea erabakitzen dute

2.901. Enpresa askok behar baino langile gehiago zituzten (grebetan arazo) (AB-869/017)

Enpresa askok behar baino langile gehiago zituzten (grebetan arazo)

2.902. Alfa kooperatiba, gerra aurretik eta gerra ostean, sozio eta akziodunetz (AB-869/018)

Alfa kooperatiba, gerra aurretik eta gerra ostean, sozio eta akziodunetz

2.903. Eibarko sozialistak gerra aurrean: Danelen iritzia (AB-869/019)

Eibarko sozialistak gerra aurrean: Danelen iritzia

2.904. Toribio Etxebarria eta Edorta Alberdi, Parisera Eusko Jaurlaritzarentzat armak erostera (AB-869/020)

Toribio Etxebarria eta Edorta Alberdi, Parisera Eusko Jaurlaritzarentzat armak erostera.

2.905. Batzoki zaharra rekisatu eta Zirkulu karlista jarri bertan (AB-870/001)

Batzoki zaharra rekisatu eta Zirkulu karlista jarri bertan

2.906. “Flechas y Pelayos”, Armeria eskolan derrigorrezkoa zen (AB-870/002)

“Flechas y Pelayos”, Armeria eskolan derrigorrezkoa zen

2.907. Lehen ikurrina Eibarren, Ubitxan. Juanito Beistegi hitzaldiak ematen eta Danel batzokiko lehendakari (AB-870/003)

Lehen ikurrina Eibarren, Ubitxan. Juanito Beistegi hitzaldiak ematen eta Danel batzokiko lehendakari

2.908. Mikel Larrañaga alkate, Garaikoetxearen postura eta EAren sorrera (AB-870/004)

Mikel Larrañaga alkate, Garaikoetxearen postura eta EAren sorrera

2.909. PNV-EA arteko banaketa: Batzokiko giltza aldatu zuten eguna (AB-870/005)

PNV-EA arteko banaketa: Batzokiko giltza aldatu zuten eguna

2.910. PNVtik aldendu eta EAren lehendakari Eibarren (AB-870/006)

PNVtik aldendu eta EAren lehendakari Eibarren

2.911. Eibarko ikastolari buruz (AB-870/007)

Eibarko ikastolari buruz

2.912. Edorta Alberdi, asko irakurtzen zuen gizona (AB-870/008)

Edorta Alberdi, asko irakurtzen zuen gizona

2.913. Edorta Alberdi, Don Fernando, Eusebio Lafuente, Careaga (AB-870/009)

Edorta Alberdi, Don Fernando, Eusebio Lafuente, Careaga

2.914. Juan San Martin, biajantea eta mendizalea (AB-870/010)

Juan San Martin, biajantea eta mendizalea

2.915. Llegada a Eibar después de ganar el concurso para la plaza de arquitecto municipal (AB-872/001)

Llegada a Eibar después de ganar el concurso para la plaza de arquitecto municipal

2.916. Años 50; época de muchos inmigrantes en Eibar (AB-872/002)

Años 50; época de muchos inmigrantes en Eibar

2.917. Eibar y la industria armera; muchas de las casas eran también talleres (AB-872/003)

Eibar y la industria armera; muchas de las casas eran también talleres

2.918. Alfa, Lambreta y otras empresas en Eibar (AB-872/004)

Alfa, Lambreta y otras empresas en Eibar

2.919. Recuerdo de la gente (AB-872/005)

Recuerdo de la gente

2.920. La llegada al ayuntamiento: una oficina muy bien organizada (AB-872/006)

La llegada al ayuntamiento: una oficina muy bien organizada

2.921. Javier Eguren alcalde (AB-872/007)

Javier Eguren alcalde

2.922. Planes municipales de la época (AB-872/009)

Planes municipales de la época

2.923. Torres de Romualdo Galdos; proyección de 8 torres (AB-872/010)

Torres de Romualdo Galdos; proyección de 8 torres

2.924. Reforma de la plaza de toros (AB-872/011)

Reforma de la plaza de toros

2.925. Los bomberos situados al lado de la plaza del mercado (AB-872/012)

Los bomberos situados al lado de la plaza del mercado

2.926. Plan para la Universidad Laboral (AB-872/013)

Plan para la Universidad Laboral

2.927. Amaña: proyecto de escuelas aplazado por una bomba (AB-872/014)

Amaña: proyecto de escuelas aplazado por una bomba

2.928. 1959, recuerdo de las inundaciones (AB-872/015)

1959, recuerdo de las inundaciones

2.929. Campo de fútbol de Ipurua: construcción y origen (AB-872/016)

Campo de fútbol de Ipurua: construcción y origen

2.930. Empresas de Eibar (AB-872/017)

Empresas de Eibar

2.931. Viviendas municipales de Eibarreses S.A; viviendas de protección oficial (AB-872/018)

Viviendas municipales de Eibarreses S.A; viviendas de protección oficial

2.932. Previsiones del plan general (AB-872/019)

Previsiones del plan general

2.933. Recuerdos de los funerales civiles (AB-872/020)

Recuerdos de los funerales civiles

2.934. Recuerdos del Plan General (AB-872/021)

Recuerdos del Plan General

2.935. PeriKo 15 urterekin aitaren ofizioa ikasten (AB-880/001)

PeriKo 15 urterekin aitaren ofizioa ikasten

2.936. Arrizabalaga lantegiaren fundatzaileak eta sorrera (AB-880/002)

Arrizabalaga lantegiaren fundatzaileak eta sorrera

2.937. Arrizabalaga lantegiaren lehen urteak; beste lantegi batzuentzat beharrea (AB-880/003)

Arrizabalaga lantegiaren lehen urteak; beste lantegi batzuentzat beharrea

2.938. 50 hamarkada; lan askoko garaia (AB-880/004)

50 hamarkada; lan askoko garaia

2.939. Kareagatarrak; eskopetetako urraren eta zilarraren arduradunak (AB-880/005)

Kareagatarrak; eskopetetako urraren eta zilarraren arduradunak

2.940. Periko: kaxaurrea egiten ikasten (AB-880/006)

Periko: kaxaurrea egiten ikasten

2.941. Lan tresnak; hasiera batean norberak bere tresnak egiten zituen (AB-880/007)

Lan tresnak; hasiera batean norberak bere tresnak egiten zituen

2.942. Salmentak; hasieran herrian, gaur egun mundu osoan (AB-880/008)

Salmentak; hasieran herrian, gaur egun mundu osoan

2.943. Erosle ezagunak; Principe de Prusia etabar (AB-880/009)

Erosle ezagunak; Principe de Prusia etabar

2.944. Erosle ezagunak; Conde de Teva (AB-880/010)

Erosle ezagunak; Conde de Teva

2.945. 11 kaxagin Perikoren familian (AB-880/011)

11 kaxagin Perikoren familian

2.946. Mendaro, kaxagin askoko herria; Eibarrerako lan egiten zuten (AB-880/012)

Mendaro, kaxagin askoko herria; Eibarrerako lan egiten zuten

2.947. 90. hamarkada, saltzeko urte txarrak (AB-880/013)

90. hamarkada, saltzeko urte txarrak

2.948. Kaxagintza; intxaur egurrarekin lan egiten (AB-880/014)

Kaxagintza; intxaur egurrarekin lan egiten

2.949. Baserritar asko armagintzan lanean (AB-880/015)

Baserritar asko armagintzan lanean

2.950. Arrizabalaga tailerra (AB-880/016)

Arrizabalaga tailerra

2.951. 50 hamarkada; Madrileko finketatik enkarguak egiten ziren (AB-880/017)

50 hamarkada; Madrileko finketatik enkarguak egiten ziren

2.952. Kaxaginaren lan tresnak: Gubia (AB-880/018)

Kaxaginaren lan tresnak: Gubia

2.953. Kaxaginaren lan tresnak: Gubi okerra (AB-880/019)

Kaxaginaren lan tresnak: Gubi okerra

2.954. Kaxaginaren lan tresnak: Txispak ateratzeko gubia (AB-880/020)

Kaxaginaren lan tresnak: Txispak ateratzeko gubia

2.955. Kaxaginaren lan tresnak: Makurra (AB-880/021)

Kaxaginaren lan tresnak: Makurra

2.956. Kaxaginaren lan tresnak: Trintxak (AB-880/022)

Kaxaginaren lan tresnak: Trintxak

2.957. Kaxaginaren lan tresnak: Markadorea (AB-880/023)

Kaxaginaren lan tresnak: Markadorea

2.958. Kaxaginaren lan tresnak: Plantillak (AB-880/024)

Kaxaginaren lan tresnak: Plantillak

2.959. Kaxaurrea eta kaxak probadorerako prestatzen (AB-880/025)

Kaxaurrea eta kaxak probadorerako prestatzen

2.960. Kaxaginaren lan tresnak: Plantila mota ezberdinak (AB-880/026)

Kaxaginaren lan tresnak: Plantila mota ezberdinak

2.961. "Montecarlo": garai batean "modan" zegoen kaxa-mota (AB-880/027)

"Montecarlo": garai batean "modan" zegoen kaxa-mota

2.962. Kaxaginaren lan tresnak: Txapelak (AB-880/028)

Kaxaginaren lan tresnak: Txapelak

2.963. Kaxaginaren lan tresnak: Kaxaurrea lotzeko prentsa (AB-880/029)

Kaxaginaren lan tresnak: Kaxaurrea lotzeko prentsa

2.964. Kaxaginaren lan tresnak: Tresnak zorrozteko harriak (AB-880/030)

Kaxaginaren lan tresnak: Tresnak zorrozteko harriak

2.965. Kaxaginaren lan tresnak: Kortxozko mordazak (AB-880/031)

Kaxaginaren lan tresnak: Kortxozko mordazak

2.966. Kaxaginaren lan tresnak: Txispak (AB-880/032)

Kaxaginaren lan tresnak: Txispak

2.967. Kaxaginaren lan tresnak: Zepilloa (AB-880/033)

Kaxaginaren lan tresnak: Zepilloa

2.968. Toribiori Frantzian egon ostean areagotu zitzaion euskararekiko grina (EIB-002/013)

Toribio Etxebarriak euskara maite zuelako hasi omen zuen hiztegiko lana. Gerra-ostean kanpora alde egin behar izan zuen eta Frantziara joan zen. Han harrituta geratu zen Burdeoson euskarazko katedra zegoela ikusita. Orduetik aurrera euskararekiko interesa areagotu zitzaion eta denbora luzea eskaintzen zion euskarari.

2.969. 1918ko alderdi sozialistaren kongresuan esandakoak (EIB-002/014)

Gerra aurretik euskararen inguruko lanik ez zuen egin Toribiok, interes handiagoa zuen politikarekiko. 1918an alderdi sozialistak kongresu bat egin zuen eta berak bertan adierazi zuen Euskal Herriak autonomia gehiago behar zuela. Hala ere, gaztelania ez omen zuen baztertzen urrezko aroko espainiar idazle klasikoen lank asko gustatzen zitzaizkion eta.

2.970. Venezuelen atzerriratuta eta Eibar gogoan (EIB-002/015)

Toribiok Eibarrekin asko gogoratzen zelako egin zuen "Lexicón" lana. Venezuelen zegoen atzerriratuta, baina batzuetan Hendaiara etortzen zen.

Han zegoen batean bisitan joan zitzaion bera familiarekin. 1966 inguruan itzuli zen Eibarrera eta senideek kontatu zioten Eibarren sartzeaz bat negarrez hasi zela.

2.971. 1966an Alfa lantegia berri-berri (EIB-002/017)

Berak lagundu zion Toribio Etxebarriari Alfa lantegia bisitatzen, Eibarrera etorri zen garaian, eta harrituta geratu zen enpresak izan zuen aldaketarekin, asko modernotuta zegoelako. Handik 15 egunera Salinas Argentinan errefuxiatuta egondako altsasuarrarekin berriz joan ziren Alfa ikustera. Alfa berri-berri zegoen 1966 inguruan, Blas Etxebarriaren laguntzaz, "Banco de Guipúzcoa"-ren diru-laguntzak jaso zituen eta.

2.972. Olabetarren izakera; Jacinto Olabe dibujo eskolako zuzendari (EIB-002/018)

Blas Etxeberria oso gizon ona omen zen. Bere aitak zioen Etxeberriatarrak pertsona onak zirela; Olabetarrak, ostera, zitalak ziren. Bere aita, Jacinto Olabe, Eibarko dibujo eskola munizipaleko irakasle eta zuzendari izan zen. Ikasle mutilak nahi izaten omen zituen; hala ere, emakumezko asko ibiltzen zen.

2.973. Jacinto Olabe Argentinan hasi zen marrazketa ikasten (EIB-002/019)

Aitaren osaba batek almatzen bat zabaldu zuen Argentinan eta harengana joan ziren senideak, aitak 9 urte zituela. Han hasi zen marrazketa ikasten irakasle hungariar batekin. Bere aita zen zaharrena eta Argentinan zeudela beste 3 anai-arreba jaio ziren. Aita hil zitzaientean Eibarrera itzuli ziren. Marrazketarekin jarraitzeko gogoaz, Madrilera joan zen ikastera aita. Han ahal bezala ibiltzen zen dirurik ez zuen eta. Hala ere, Isasiko markesak laguntza eman zion.

2.974. Madrilen marrazketa ikasten zuten euskaldunak; Aurelio Artetarekin harremana (EIB-002/021)

Aitak 4-5 urte egin zituen Madrilen marrazketa ikasten. Orduan ez zen ohikoa hori. Eibartik joandako bakarra zen, baina euskaldun gehiago aurkitu omen zituen han: Bizkaiko Arruetarrak, Lezoko Elias Salaberria, Bilboko Aurelio Arteta... Aurelio Artetaren inguruko kontuak. Behin gerra-aurrean aitarekin Bilbon zebilela Artetarekin topo egin zuten. Artetak zioen Olabe izan zela bere lehen maisua, haren lanari begira egoten zelako klaseetan.

2.975. Damaskinatu lantegia zabaldu arren, marrazketa ez zuen baztertu Jacinto Olabek (EIB-002/023)

Aitak ez zuen etorkizunik ikusten marrazketarekin eta Eibarrera itzuli zenean Agustin Larrañaga lehengusuaren lantegian hasi zen lanean. Estazio kalean zegoen lantegia eta bertan ikasi zuen ofizioa: grabatua, damaskinatua. Lan hori ikasitakoan bere tailer propioa jarri zuen. Kritikoak nahiko zorrotzak izaten ziren bere aitaren lanarekin ez zelako marrazketara bakarrik dedikatzen. Marrazketa pixka bat utzi arren, enkargu guztiak hartzen zituen eta inoiz ez zuen guztiz utzi. Aitak tailerra zuelako joan ahal izan zen bera ingeniaritza ikastera.

2.976. Ingenieritza industrialala ikasi zuen hirugarren eibartarra (EIB-002/024)

Aitak tailerra zuelako joan ahal izan zen bera ingenieritza ikastera. Orduan ez zegoen gaur egungo erraztasunik eta "Patrona"-n bizi izan zen Bilbon ikasten zegoen denboran. Eibarren beste bi ezagutzen ditu bera baino nagusiagoak ingeniarietza industrialala ikasitakoak. Bi horiek euren tailerra zuten, baina berak ikasketak bukatu zituenean krisi gogorra egon zen eta ez zuen lanik aurkitu, egoera zaila zegoen eta.

2.977. Eibartik Bilbora ikastera joatea gogorra (EIB-002/025)

Eibartik Bilbora joatea ikastera gogorra izan zen berarentzat, asko gogoratzen zelako bere jaioterriarekin. Gaur egun Bilbora ikastera etortzen diren gazteak nola ikusten dituen kontatzen du.

2.978. Fraideak Eibarrera etorri zirenean haraxe eskolara (EIB-002/026)

Eskola municipalak non zeuden Eibarren. Umea zela amak etxean irakasten zizkion alfabeto eta silabak. Sei urterekin haur eskolan hasi zen eta Paka Mendia irakaslearekin eta zortzi urte ingururekin eskola munizipalera pasatu zen. Berak 10 urte inguru zituela fraideak etorri ziren Eibarrera eta eskola publikotik aterata han sartu zituen aitak bera eta anaia. Frantsesak zirenez fraideak, frantsesa ikasi zuten.

2.979. Fraideek galderak egin zizkieten taldeak osatzeko (EIB-002/028)

Fraideak Eibarrera etorri zirenean, ikasle asko zituzten sartzeko prest eta galderak egin zizkieten aukeraketa egin eta taldeka jartzeko. Berak nagusiago batzuk baino gehiago zekien eta nagusien gelan jarri zuten. Fraideak etortzean herria aztoratu zen. Aurretik ere beste fraide batzuk izanak ziren Eibarren.

2.980. Aitona, ehiztaria (EIB-020/005)

Erbiak hartzen zituen aitonak, larrua kendu eta oparitu egiten zuten. Anaiak, Juan eta Raimundo. Amandrea ere etxean bizi zen.

2.981. Eskolara ordu erdi oinez (EIB-020/007)

Eskolara zazpi-zortzi urterekin hasi zen joaten, ordu erdiko bidea zegoelako baserritik Elgetara. Bazkaria eramaten zuten, Martintxonekoan jateko, tabernan.

2.982. Elgetako eskolako oroitzenak (EIB-020/009)

Eskolan zatiketak egiten ikasi zuen, eta problemetara iristean utzi zuen. Elgetan zegoen eskola.

2.983. Mutilek ikastetxea, neskek eskola (EIB-020/011)

Elgetako umeentzat, mutikoentzat, "amerikanoak" jarri zuen eskola. Fraideek. Beste herrietan ez zegoen artean halakorik. Neskek bi maistra zituzten, ama-alabak.

2.984. Bilbora, erdara ikastera (EIB-020/013)

Mutilek beraien ikastetxea zuten, eta neskek eskola bakarrik. Euskaraz egiten zuten dena, irakasleek ere bai. Elgetan inork ez zekien erdaraz. Bilbora eraman zuten erdaraz ikastera; Bilboko batzuek Elgetan "beraneatzen" zuten, eta urtebeterako joan zen haiekin. Baina bi urte egin zituen han. Etxeko lanak egiten zituen.

2.985. Ardizain (EIB-020/015)

Baserrian, etxeko lanak egiteaz aparte, ardizain ere ibiltzen zen. Aitak eguzkiari begira ordua nola jakin esaten zion. Merienda poltsatxoan. Etxean, lapikotxo batean izaten zuen bazkaria. 100 ardi ere izaten zituzten batzuetan.

2.986. Ganadua eta ardiak (EIB-020/016)

Familia txikia ziren, eta kortan behiak zituzten. Anaia gazteenak ebanista ofizioa ikasi zuen, eta Bilbon egiten zuen lana. Bestea baserrian geratu zen, ganadua gobernatzen, eta bera ardiak zaintzen ibiltzen zen.

2.987. Tratuarekin Eibarrera (EIB-020/019)

Elgetan igandetan erromeria egiten zen, eta hara joaten ziren. Larunbatetan Eibarrera joaten ziren tratuarekin, etxeko gauzak saltzera, plazara. Ama joaten zen normalean. Plaza non zegoen. Plazara 16-17 urterekin joaten zen. Larunbatetan jende asko egoten zen, baina egunero ez. Astoarekin joaten zen Eibarrera.

2.988. Oinez eta astoarekin (EIB-020/022)

Elgetatik baserriar asko joaten zen Eibarrera, batzuk esnearekin egunero ere bai. Nor bere aldetik. Autobusa jarri zutenean ere astoarekin joaten jarraitu zuten. San Juanetan ere oinez, eta baita Arrate Egunean ere. Gaez buelta; ilargia eta farolak zituzten argi egiten. Lagunekin. Bi bizitzako baserria zen.

2.989. Plazako erromeria (EIB-020/025)

Danbolina, filarmonika, panderoa... jotzen zituzten, eta erromeria egiten zen Elgetako plazan.

2.990. Beti ematen (EIB-020/027)

Jende guztiarekin ona izan dela dio, horregatik iritsi dela 100 urtera. Hozkailurik ez zegoen. Beti zerbait ematen zebilen, eta zerua irabazita zuela esaten zion senarrak.

2.991. Senarra nola ezagutu zuen (EIB-020/029)

Senarra nola ezagutu zuen, Bergarako Pazkoetan. Nobia zeukan hark, eta berak ere bai. Esperantzarik ez zion eman, baina berriro elkartu ziren, bera libre zegoela. Familia zuen Eibarren, eta josten ikastera joan zen izebaren etxera; aurretik, Elgetan ibilia zen josten. Modista batekin ibili zen Eibarren. Etxetik egiten zuen lana. Astebeterako joan zen Eibarrera, arropak egitera. Sukaldean ere ikasi zuen Hotel Julianen. Lagunak zituen Eibarren, eta inauterietan frontoira joan ziren. Hantxe ikusi zuen senarra izango zena. Abrigoak nola utzi zituzten, dantza egiteko. Etxera lagundu zion eta hala hasi ziren.

2.992. Eibarren, harategian lanean (EIB-020/030)

Josten ikasi zuen, eta bere kontu jarri nahi zuen. Senarrak harategia hartu eta berriztu egin zuen. Txerri hiltzen zutenean, nola egiten zuen ihes, eta ez zuela harategirako balioko uste zuela. Proba egin zuen, eta horretan ibili da.

2.993. Harategiko lana (EIB-020/032)

40 urte egin zituen harategian lanean. Ganadua baserrietatik ekartzen zuten, zuzenean. Senarrak ondo ezagutzen zituen inguruak; ona zen tratuan, baina ez harategian egoteko. Mutil bat eta neska bat egon ziren, lanean. Odolosteak nola egiten zituzten, oreganoarekin. Elizatik ere hartzen zen usaina. Baserrian ikasi zuen.

2.994. Gabonetan, txerri-hiltzea (EIB-020/033)

Gabonetan, txerria hiltzen zuten etxean. Odolosteak eta txorizoak egiten zituzten.

2.995. Gabonetako bazkaria (EIB-020/035)

Bakailaoa jartzen zuen amandreak Gabonetan; gero, amak. Aitak txerria hiltzen zuen, eta txerri-txuletak ebakitzen zituen. Entremesik ez zen jartzen. Olio-azak aurretik. Eta ondoren intxaur-saltsa eta konponta, eta kafea.

2.996. Etxean eta lagunartean hika (EIB-022/011)

Amarekin, anaiekin eta baita lagunartean ere euskaraz eta hika hitz egiten zuen. Neskek erdararako joera handiagoa zuten.

2.997. San Pedro eta San Juan jaiak (EIB-022/012)

Eibarko gerra ondorengo bere auzoko San Pedro jaiak aipatzen ditu. Euskal giroa egoten zen: bertsolariak, azoka, etab. San Juanetan Untzaga plazako kioskoan jendeak kantuan egiten zuen. San Juan kantua abesten du. San Juan surik ez zen behin ere egiten. San Juan egunean dantza eta "tiobiboak" izaten ziren.

2.998. Neska izatearren, etxeko lanetan lagundu behar (EIB-022/013)

Bi anaia zituen eta euretako bat Realean ibili zen futboleant. Etxeko lanak Benignari tokatzen zitzaizkion. Eskolara joan aurretik plazara joaten zen.

2.999. Lurra garbitzen, espartzuz eta belauniko (EIB-022/014)

Lurra belauniko garbitzen zuten harearekin. Lejiarekin espartzuz igurtzitzen zuten eta ondoren argizariz distira ateratzen zioten. Sukaldeko lurra egurrezkoa izaten zen.

3.000. Ibarkurutzeko iturria (EIB-023/003)

Ibarkurutzean jaio zen, eta han bizi izan da 40 urtean. Izeba batena zen etxe osoa; gehiena saldu egin zuten. Zortzi senide ziren, eta bat moja joan zen. Kale oso polita zen lehen. Iturria, bi kanoikoa. Iturri berria egin zenean, ardoa eman zuten. Zaldiek ura edaten zuten han. Nolakoa zen iturria. Oraingo iturria jarri zutela 60 urte izango dira.

3.001. Iturrian, ura eta hitzaldiak (EIB-023/004)

Iturri berria inauguratu zutenekoa. Lehengo iturria politagoa zela dio. Ura hartzeko ere hobea. Mozkortzen zirenean, hantxe egiten zituzten diskurtsoak askok: "Juanpalabras" eta "prinpranprun". Estazio kalean paseatzen zuten. Bariantea.

3.002. Lehengo Eibar (EIB-023/005)

Parrokiara joateko, aldapa igo behar zuten. Markeskua etxea, Indianokoa. Han aldatzen ziren, dotrinara joateko. Gauza polit guztiak kendu egin dituzte. Nolakoa zen lehen Eibar. Indianokoan zein bizi zen. Markeseneko etxea. Erreginaren etxea, Arrate bidean. Moja komentua zegoen plaza dagoen tokian. Kale polita zen. Tuneltxotik bide berrietara pasatzen ziren. Zubia.

3.003. Ateak zabalik (EIB-023/006)

Bizimodua nola aldatu den. Zortzi anai-arreba ziren, eta lau bizitza zituen etxeak. Ate guztiak zabalik egoten ziren. Tiburzianeko gozo-denda famatua zen; denda ere bazen. Anparo errekadista Donostiara joaten zen.

3.004. Aita Mandiologoikoa baserrikoa (EIB-023/007)

Gurasoak eibartarrak ziren, aita Mandiologoikoa baserrikoa. Osaba-izebek ez zuten umerik, eta haiengana joaten ziren. 11 urterako denak joan ziren lanera, bera izan ezik. Gazteena zelako libratu zen: josten ikasi zuen. Etxera ezkondu zen. Mutiloa eskopeta tailerreko anaia gazteenarekin ezkondu zen.

3.005. Umetako jolasak eta Matsaria (EIB-023/009)

Umetako jolasak: tortoloxak, sokasaltoa, diaboloa... Euskarazko dotrina ez zutenean, jolasean. Egunean pare bat abarketa apurtzen zituen. Konpontzera eraman behar. Ibarkurutzea kale bikoitza zen, eta han jolasten zuten. Izebaren oihal denda. Uretan ibiltzen ziren Matsarian. Igerilekua ere egin zuten. Neskak bakarrik, normalean. Bainatu ez ziren egiten, errekan; mutilak bai. Ur asko zegoen lehen. Matsaria nolakoa zen. Etxetxoak zeuden. Meriendarekin joaten ziren.

3.006. Labaderoa I (EIB-023/010)

Etxe ingurua nolakoa zen, eta erreka. Labaderoa eta parkea. Ahizpa eta ama askotan joaten ziren labaderrora. Etxean baino gehiago garbitzen zen labaderoan. Giroa. Ur beroa eramaten zuten, hotz zegoenean. Zamakolaneko etxea. Presan bainatzen ziren mutilak.

3.007. Labaderoa II (EIB-023/011)

Labaderoan xaboia eman eta akklaratu. "Prexiosa" lejia. Losak. Kanporako garbitzen zuten arropa emakume askok, beste etxeetarako. Maindireak, mantak... Amaren lanak. Facunda eta Antonio Urreta. Diru eske joaten zen amarengana.

3.008. Eskola alondegian (EIB-023/012)

Eskolan alondegian ibili zen lehenengo. Gero, jardinetako eskoletan. Elurrarekin ezin iritsi ibiltzen ziren. Kontxa Lazpiurrekin ibili zen. Doña Maria, doña Katalina eta doña Petra ziren maistrak. Armeria eskolan ibili ziren anaiak, baina lana egin ondoren. Alondegia ahal zen modukoa zen; denak neskak ziren. Eskola mistoak gerraostekoak dira. Gerrarekin, dena akabo.

3.009. GAC bizikleta lantegia (EIB-023/014)

GAC bizikleta lantegia. Osabak eta anai-arrebek han egiten zuten lana. Jatekorik ez zitzaien falta. Sei urterako bizikleta zeukan, osabak oparitutakoa; gutxik zeukaten. Automobila ere bazeukan osabak. Gauza handia zen orduan. Tiburziak karameloak eta txupeteak egiten zituen. Urdaiazpikoa eta txorizoa ere ebakitzen zituen. Seme-alabarik ez zuen Tiburziak. Gregorio pasteleroa, gerraostean. Udan, pastelak sobratzen zirenean merkeago jartzen zituzten. Kasinoa ere famosoa zen.

3.010. Elgeta kalean jaioa (EIB-024/003)

Eibarko Elgeta kalean jaio zen. Telefonica zegoen han, Muruaneko harategia, okindegia, taberna... Italianoak mantekatuekin joaten ziren udan, izozkiekin. Pipar kalea (Ifar kalea). Tindategia. Tunelean korta zuten okindegikoek, zaldiak. Portalea plaza, arbolekin eta iturriarekin.

3.011. Herriko jolastokiak (EIB-024/004)

Elgeta kalea ezaguna zen. Zeintzuk bizi ziren han. Iturritxoa. Portalean jolasten zuten, eta udan Urkira arratsalde pasa. Zelaia eta San Lorenzo ermita. Jokoa egoten ziren andreak, kartetan, eta umeak jolasean. Kantina ere bazegoen. Afariak, meriendak, udan eta neguan. Afariketean jolasten zuten.

3.012. Esneduna etxeraino (EIB-024/005)

Kurutzeko baserritik esnea ekartzen zieten etxera. Askan zapaburuak hartzen zituzten. Lekamendi.

3.013. Gerra garaian, Amorebietara (EIB-024/008)

Gerra garaian, Amorebietara joan ziren, eta bueltan etxea ondo zegoen. Kontzeju zaharraren ondoan farmazia zegoen eta denda. Pipar kalea. Kanposantuko etxeak, Urkitxiki.

3.014. Hil kanpaiak (EIB-024/009)

Hiletak nolakoak izaten ziren. Hil kanpaiak 11, 9 edo 7, hildakoaren kategoriaren arabera. Meza entierroaren hurrengo egunean izaten zen batzuetan, beti goizean. Ezkontzak ere goizean. Hildakoa apaizgaia zenean, abesti gehiago. Txalet txiki bat zegoen, sakristia ondoan. Plaza Berria, iturria eta tanborreneko janari denda. Birjinapetik Areatzara jaisten zen.

3.015. Barrenkale eta Plazabarría (EIB-024/010)

Pixalekua zegoen orain Zuloagaren eskultura dagoen tokian. Balkonada, bi zuhaitz handi eta esertzeko lekua. Barrenkalerako jaitsiera. Casino Conservador zegoen. Arraindegi kaletik Birjinapera. Plaza Berriko kasinoa. Tanborreneko denda. Fernandez auto garajea.

3.016. Gozoki saltzaileak (EIB-024/011)

Barrenkalen, eskailera zegoen. Txutxulereko denda, Jose Marirena. Barkileroa kalean egoten zen. Erruberari eragin, eta sariak; gehiena, 30 barkilo. Txutxuleroak txokolatea, azukariloak... egiten zituen. Katukale. Gozokiak.

3.017. Birjinapea (EIB-024/012)

Birjinapea izena nondik datorren ez daki. Etxe handi bat zegoen, eta okindegia. Tunelaren gainean Casino Artista zegoen, eta gabilondotarrak bizi ziren gerra aurretik. Tailer txikiak.

3.018. Eskolara Untzagara (EIB-024/015)

Eskolara Untzagara joan zen lehenengo, udaletxe azpira, eta gero Jardinetara. Mutilak frontoi zaharrera joaten ziren. Gerra ostean mojek eskola ematen zuten. Eskolako orotzapen onak ditu. Liburuak bazituzten. Ahizpak batxilergoa egin zuen, Oñatin. Jardinetako eskola. Aldatzeko mojak ere bazeuden. Fraideak, lehenengo La Sallekoak eta gero korazonistak.

3.019. Tortoloxak (EIB-024/017)

Jolasak: tortoloxekin eta txirikiletan nola jolasten zuten. Diaboloa, kanikak. Jendea joaten zen Matsariara, baina bera ez.

3.020. Sinforen denda (EIB-024/019)

Sinforen denda non zegoen. Amamak jarri zuen denda. Bordatuak, oihalak... Hainbat sari jaso zituen, eta erakutsi ere egiten zuen. Arreoak. Albenizeneko fruta denda. Muñoaneko hotela. Merkatu plaza. Txerriak kalean hiltzen zituztenik ez du gogoratzen.

3.021. Dendari lana gustatu ez (EIB-024/021)

Sinforen denda non zegoen. Ama egoten zen dendan, eta bordatzen ere bai. Dendan egotea ez zitzaion gustatzen berari. Okindegia ere bazuten.

3.022. Gurasoak, biak baserrikoak (EIB-025/002)

Areatzan jaio zen. Aita Goimendikoa zen; Bergara zen, baina Eibarrera joaten ziren handik. Ama, Arrazola baserrikoa. Baserria non zegoen. Taberna egoten zen, soinu-jotzaileak... Ingurukoak han batzen ziren.

3.023. Gerra denboran, baserrira (EIB-025/003)

Arrazolan egon ziren gerra denboran ere. Aita Bilbora joan zen. Arratetik balak botatzen zituzten.

3.024. Arrazola baserria (EIB-025/004)

Arrazola baserria nolakoa zen. Porlanezko patioan egiten ziren erromeriak. Irigorri baserria. Ur saltoan ura neurtzen zuten, eta telefonotik berri eman. Gerra hasi zenean, 15 urte zituen. Bolatokia zegoen Arrazolan. Gereziak nola batzen zituzten.

3.025. Neskame eta morroi (EIB-025/005)

Ama neskame egon zen, eta aita ere Bilboko baserri batera joan zen umetan. Aita Bergarara joaten zen eskolara, eta erloju bat irabazi zuen doktrinan. Ikasteko gogoz egoten zen. Elizaren indarra. Bilbon ikasi zuen.

3.026. Arrazolako erromeriak (EIB-025/006)

Arrazolako erromeria: soinu-jotzaileak. Bergaretxeko Eugenio, Benito serenoa. Aixa baserria, zentral elektrikitik gora igota. Aixakoa ere soinu-jotzailea zen. Patioan egiten zen dantza. Arkuak. Behorrekarekin joaten zen izeba kalera. Bildotsak partitzen egoten zen lehengusina. Arrazolatik Elorrioraino oinez nola joan ziren.

3.027. Tabernako giroa (EIB-025/007)

Taberna ere bazen. Igandetan jaten ematen zuten. Haragi gisatua, gazta, gaztainak... Exijentzia gabe. Burduntzian erretzen zituzten gaztainak. Gerra garaian goserik ez. Ardoa. Lizarraldekoak joaten ziren, eta gero neska-laguntza. Migel Gallastegi pilotaria sarri joaten ei zen, gerra ostean.

3.028. Areatza ingurua (EIB-025/008)

Baserriko lanik egitea ez zitzaion tokatu. "Sanjuantxoneko" etxean jaio zen, Areatzan. Non zegoen. Casa Nicolas oihal denda. Barrenkale. Ferreteria, Kakatzeneko denda. Zuloaga kalea, Muñoaneko etxetik behera. Plaza, etxe aurrean, eskailerekin. Eskolara joan aurretik plazara joaten zen.

3.029. Gurasoak Alfán lanean (EIB-025/009)

Amak txarolean egiten zuen, aitari laguntzeko. Alfa fundizioa. Eskopetak txarolatzen. Bikiak ziren, bi senide. Baserritar jantzita nola joan ziren behin, aitaren tailerrera.

3.030. Kaleko saltzaileak (EIB-025/011)

Estazio kalean paseatu egiten zuten. Andre bat egoten zen, bost zentimoren truke kakahueteak saltzen. Jose Mari karameleroa ere kalean saltzen. Plaza aurrean, gozoki postu finkoa. Errebalean, Txinboneko estankoa ere kakahueteak saltzen zituzten.

3.031. Bainulekuak (EIB-025/012)

Angulak eta bisigua kategoriako jakiak ziren, atuna eta sardinak ez. Errekara ez ziren joaten. Alfa ondoan igerilekua zegoen, eta joaten ziren. Debara joaten ziren. Amaña ondoan igerilekua egon zen. Bainujantziak.

3.032. Areatza eta Barrenkale (EIB-025/013)

Areatza nolakoa zen. Indianokoa etxea ederra zen. Gerra denboran bota zuten. Barrenkalen karlisten zentroa egon zen, eta behean denda. Errebalean egon zen gerra ostean. Astoak lotzen zituzten plazara etorritako baserritarrek, barandan. Autorik ez. Aldatxokoko tabernan biltzen ziren tailerretako langileak.

3.033. Errepublika eta gerraostea (EIB-025/015)

Gerra garaian, Arrazolan bala zarata. Arrateko frontea. Sartu zirenean, bandera zuria eta Cara al Sol kantatu behar. Errazionamendua, Estazio kalean.

Errepublikara garaiko abestiak gogoan ditu, 10 urterekin ikasitakoa. Abestu egiten du. Eskola non zegoen.

3.034. Errepublika aldarrikatu zenean (EIB-025/016)

Errepublika aldarrikatzea pozgarria izan zen. Untzagan zegoen bera. Plaza de la Republica jarri zioten izena, eskailera batera igota. Sozialista asko eta nazionalista asko zegoen.

3.035. Umetako jolasak, Jardinetan (EIB-025/018)

Bost urterekin Jardinetara joan ziren bizitzera. Buhardila batean bizi ziren, eta leku gutxi. Ezkondu hantxe egin zen, eta hiru seme-alaba izan zituen. Tortolosak, estanpak, piper poteak... Diaboloa gora bota eta hartu. Potearen jolasa: "Potea pote, neri pipar eta neri tomate". Ezkutatzea. Estanpekin nola jolasten zen.

3.036. 'Zatixa' elkartearen erreka ondoan dago eraikita (EIB-026/001)

Eibarko errekaaren zatirik gehiena estalita dago. Erreka gainean eraikitako lehenengo etxea udaletxea izan zen, Untzaga plazan. Ondoren "Dos de Mayo" (Toribio Etxebarria) kalearen zati bat egin zuten eta gerraostean beste zati bat. Bartoloren eta Agustinen elkartearen zenean, zuloa egin behar izan zuten erreka-zulora.

3.037. Eibarko igerilekuak: Matsaria, Barrenazarra, Maltzaga, Areatza... (EIB-026/005)

Eibarren hainbat tokitan zegoen igeri egiteko aukera: Matsarian, Maltzagan, Barrenazarrean,... Kakalardokuan (Alfa alboan) igerilekua ere egin zuten 1930 inguruan. Horixe izan zen Eibarko lehenengo igerilekua. Bartolok eta Agustinek ez zuten erabili, ordurako nagusi samarrak zirelako. Bartolo gehienbat Maltzagara eta Barrenazarrera joaten zen (gaur egungo Barrena kalean). Areatzan ere bai (Indianokua jauregi ondoan).

3.038. Indianokoa jauregia eta Pantaleon zaintzailea (EIB-026/006)

Indianokoa jauregian Iraolagoitia familia bizi izan da. Gaur egun Aldapatxo dagoen tokian. Etxe ederra zen, armarrak eta guzti. Barrutik ere oso ederra zen. Atzeko aldean, Ardantza alderantz, ortu zabalak zituen. Ortuen zaintzailea Pantaleon zen, Debatik etorritako gizon bat. Bera zen jauregiaren baratz eta lurren zaintzailea. Pantaleonen etxea trenbide ondoan zegoen, Ardantzan.

3.039. Trenbidea eraiki zeneko (EIB-026/007)

Trenbidea 1905 inguruan heldu zen Eibarrera. Donostiatik Bilborako trenbidearen inguruko anekdotak kontatzen ditu. Trena Ermura nola iritsi zen ere aipatzen dute.

3.040. Maltzagan igerian eta trenbidetik jauzi egiten (EIB-026/008)

Igeri egiteko lekurik onena Maltzaga zen. Ausartenek trenbidetik egiten zuten salto, hango baranda gaineratik. Ibaiak sakonera handia zeukan han, trenbide azpian.

3.041. Debako hondartza, baineroak eta bainujantziak (EIB-026/009)

Bartolo Mendaron jaio zen eta hantxe bizi izan zen zazpi urte bete arte. Handik Debara joaten ziren hondartzara; Arrate egunean joaten ziren, eibartarrik ez zelako egoten. Hondartza guztietan baineroak egoten ziren, itsasoan bainua hartzen laguntzen zutenak. Hondartzan egurrezko kaxetak ere egoten ziren, arropak aldatzeko. Gurpildunak izaten ziren, udan atera eta neguan gordetzeko. Hondartzara joateko "taparroiak" erabiltzen zituzten, bainujantzi modukoak. Eta andrakumeak goitik behera jantzita.

3.042. Barrenkaleko merkatu zaharra eta arraindunak (EIB-026/011)

Udaletxea 1900 inguruan eraiki zen. Ordura arte erreka osoa libre zegoen. Orduan hasi ziren estaltzen; besteak beste, Barrenkale ondoko merkatu plaza ere erreka gainean eraiki zen. Azoka ederra zen, handia. Behean arraindunak egoten ziren eta goian baserritarrak.

3.043. Bidebarrietako zubiak: Trokaola, Otxoa, Norbertotxo, Arikitxa, Pedroman eta Urkizu (EIB-026/014)

Bidebarrietako zubiak: lehenengo Trokaolanekoa, oinezkoa (gaur egun San Agustin ingurua); ondoren Otxoaneko zubia, lantegi baterako sarrera; gero Norbertotxonekua, hori ere oinezkoena; eta amaitzeko Arikitxaneko zubia. Azken hori zen benetako zubi bakarra. Eta beherago Pedromaneko zubia, hori ere oinezkoa (Urkizu hasieran) eta gero Urkuzuko zubia (Agiñaspi parean). Azken hori zen denetan handiena. Arikitxaneko zubi ondoan labaderoa ere bazegoen, arropa garbitzeko harlauzak. "Arotz-haundixaneko" presatik hartzen zuen ura.

3.044. Eibarko lantegiek urari zor diote dena (EIB-026/015)

Eibarren ur asko egon da beti eta horregatik egon dira lantegi asko. Lehen ez zegoen argindarrak eta ura behar zen makinak mugiarazteko. Gero, argindarra agertu zenean, lantegiak edozein tokitan jartzeko aukera etorri zen, baina langilerik onenak Eibarren zeudenez, bertan jarraitu zuten. Eibarko industriaren zuztarra errekan dago. Lantegiak jartzeko leku hobeak ere bazeuden, Durangon esate baterako, baina Eibarko "gatza" falta!

3.045. Armeria Eskolak izen handia zuen eta inguruko herri guztietako ikasleak biltzen zituen (EIB-027/009)

Fraideetako ikasketak amaitu ondoren, 12-13 urterekin Armeria Eskolara joan zen. Ordurako, 12 urteko umeak erdi-gizonak ziren; asko eta asko lanean hasita, ordurako. Bere ikaskideen artean, Jose Etxeberria, Pedro Laka... Ikastetxeak izen handia zeukan eta inguruko herri guztietako ikasleak etortzen ziren: Durango, Mallabia, Ermua, Elgoibar, Elgeta... baita urrunagotik ere (Deba, Zarautz...). Mekanikako eskola zen eta tailerreko kontuak ikasten zituzten. Erljio-eskolak ere izaten ziren Armeria Eskolan. Don Jose eta Don Anas ziren irakasleak. Zigorrak igandeetan izaten ziren.

3.046. Armeria eskolako ikasketak: kalkulua, fisika, matematika... eta batez ere, dibujoa eta eskulana (EIB-027/010)

Armeria eskolan denetik ikasten zen: matematika, fisika, kimika, kalkulua... batez ere kalkulua. Eta denen gainera, egun erdi, tailerra eta marrazketa.

Tailerrean lehenengo ikasten zena lima zen. Eskulan asko eta politik egiten ziren. Limak laguntzen zuen eskua hartzen. Lan gehiena eskuz egiten zen, eta eskua behar zen denerako. Makinak erabiltzen ere ikasten zen, tornuak, fresadorak... Garai hartan ez zegoen arazorik lana aurkitzeko. Armeria Eskolako guztiak hasten ziren lanean.

3.047. Armeria Eskolan ere erregimeneko giroa (EIB-027/011)

Armeria Eskolan ere erregimeneko giroa zegoen, giro frankista. Formatu, firme jarri, besoa altxatu... Orduan garaian ez zioten garrantzirik ematen, baina gerora konturatu da horretaz.

3.048. 17 urterekin GAC lantegian lanean (EIB-027/012)

Armeria Eskolako ikasketak bukatuta, 17 urterekin, GAC lantegian hasi zen lanean. Eulogio Garate zen burua, sasoi hartan. Oso pertsona handia zen, izaeraz, heziketaz...

3.049. Frontoizarreko frontoia (EIB-027/013)

Eibarko frontoi nagusia Frontoizarra zen. Hantxe jokatzeko zuten umerik gehienek. Eta futboleko egiteko, Txantxazelaian. Zazpi umeko taldeak egiten zituzten, ez zegoen gehiagorako tokirik. Ipurua gero egin zuten. Frontoizarra frontoi handia zen; puntistek ere bertan entrenatzen zuten. Eibarren batez ere eskuz jokatzeko zen.

3.050. Migel Gallastegiren sasoi (EIB-027/014)

Gazte denboran, Gallastegiren sasoi onena bizi izan zuten, 1945-1955 bitartean. Eibartarrek asko miresten zuten Migel Gallastegi. Atanistak eta Akarregizaleak ere baziren, baina Eibarren Gallastegizaleak ziren gehienak. Gallastegi oso profesionala izan zen, asko zaintzen zen, bere garaiko beste guztiak baino askoz gehiago. Gizon jatorra eta dotorea, gainera; oso pilotari maitea izan zen Eibarren. Frontoira joateko dirurik ez zuten, gehienetan, baina asko jarraitzen zituzten Gallastegiren partiduetan. Gallastegiren besagaina izugarria zen, eta ebaki ere indar handiz egiten zuen. Gallastegiren entrenamendurik handiena mendia zen, mendian ibiltzea.

3.051. Gaztetan pilotan eta futboleko (EIB-027/015)

Gazte denboran futbola eta pilota ziren zaletasun handienak. Pilotan "fueraka" (barruka) eta "argi-ibilika" (pilota elkarri botatz) jarduten zuten. Fraideen jolastokian ibiltzen ziren futboleko. Eta Eskola Armerian ere egiten zuten. Lagunen artean onena Eneko Arieta izan zen, durangarra. Futboletan, pilotan, igerian... onena zen denean. Athleticen jokatu zuen, aurrelari.

3.052. Eibarko futbolari ezagunak: Errasti, Mugerza, Sarasketa... (EIB-027/016)

Eibarren izan dira futbolari profesionalak. Gerra aurrean, Ziriako Errasti, Etxeberria eta Mugerza.... Gerraosteko lehenengoa Jose Sarasketa izan zen, profesional izandako lehenengoa. Ondoren, Enrike Sarasketa, bere anaia. Gerotxoago Adolfo Sarasketa, Realean ibilitakoa, eta Alberto Albistegi. Jokalari onak; Beti Gazte kuadrillakoak ziren.

3.053. Eibarren Athleticzaleak nagusi (EIB-027/017)

Orduan sasoiari, 1940-1950 inguruan, Eibarren Athleticzaleak ziren gehienak. Reala gero etorri zen (Adolfo Sarasketa joan zenean). Gainera, Athletic puntapuntan zebilen kopak irabazten, eta Reala beherago, eta Athleticcek jarraitzaile gehiago zituen. Donostiara egin zuen lehenengo bisitaldia, 15 urte ingururekin, Realaren partidu bat ikusteko izan zen.

3.054. Ipurua futbol zelaia, S.D. Eibar eta Elgoibar (EIB-027/018)

Ipuruako futbol zelaia inauguratu zuten egunean hantxe egon zen, Ipuruan. Eibar-Elgoibar izan zen. Herri bien artean muturka ibiltzen ziren. Benetako borroka izaten ziren zaleen artean. Elgoibarrera tren espezialetan joaten ziren. Beste herri batzuetara ere joaten ziren kamioietan. Denborak aurrera egin ahala, Eibarrek gora egin zuen eta Elgoibarrek behera. Aitak ez zion lagatzen zinera joaten, tuberkulosiaren beldur, eta futbolera bidaltzen zuen, "aire librian" zelako.

3.055. Ipuruako zelaia gerrako hondarren gainean eraikia (EIB-027/019)

Ipuruako futbol zelaia gerrako hondarren gainean eraiki zen. Gerran Eibarren jausitako etxe guztien hondarrak eraman ziren bertara.

3.056. Franco Eibarrera etorri zenekoa (EIB-027/020)

Franco Eibarrera etorri zeneko eguna ondo gogoan dauka. Eibarko frankistak pozik. Umeak kalean, jai-giroan.

3.057. Umeak auzoka banatzen ziren: Legarrekoak, Untzagakoak, Urkizukoak... (EIB-027/021)

Birjiñape ingurua ez du gogoratzen. Orduko umeak auzoka ibiltzen ziren: Untzagakoak, Legarrekoak, Estazio ingurukoak, Urkizukoak... Estazio kalekoak erdaldunagoak ziren; Urkizu ingurukoak euskaldunagoak; Legarrekoak "baserritarragoak". Laguntalde bakoitza bere inguruan ibiltzen zen, eta besteekin hartu-emanik izan gabe. Borroka ere izaten ziren, ordua eta lekua ipini, eta umeen arteko borroka.

3.058. Gerran Eibar txiki-txiki eginda geratu zen (EIB-027/023)

Eibarko erdi inguru guztia apurtuta geratu zen gerran. Aita Bilbora joan zen lanera, armamentuan, eta Serafin Apatamonasteriora joan zen amarekin eta senideekin. Eibarrera itzultzean, Eibar guztia txiki-txiki eginda zegoen: Errebal, Barrenkale... Ondo gogoratzen ditu eskonbro artean egiten ziren prozesioak. Umeak obra-hondakin artean ibiltzen ziren. Urteak pasa zituen Eibarrek horrela. Serafinen jaiotetxea eta auzoa, Legarre, hobeto zeuden; gerrak ez zuen eragin zuzenik izan.

3.059. Mario "Sopletista" eta "Legarre" (EIB-027/024)

Legarren bazen beste etxe txiki bat, Mario "Sopletista"rena. Trenbide ondoan zegoen, Untzagatik trenbidea pasa eta lehenengo etxea ezkerretara. Maria "Legarre" zen bertakoa. Beharbada, horixe zen antzinako Legarre baserria.

3.060. Legarreko ospitalea eta Amañako antituberkulosoia (EIB-027/026)

Legarren ospitalea zegoen, kapera txiki batekin, eta Amañara bidean, Antituberkulosoia. Legarreko ospitale gainean beste etxetxo txiki bat ere bazegoen, baina bere sasoirako erdi-hutsik zegoen. Legarreko ospitaleko kaperan mezak ematen ziren. Ospitale izena izan arren, ez zen benetako ospitalea, erresidentzia baizik, berez moldatu ezin zitekeen jendea zaintzeko egoitza bat. Benetako ospitalea Amañakoa zen, Antituberkulosoia. Gerra garaian eta ostean epidemia larria zegoen. Baita aurretik ere. Izan ere, gerra aurrean eraikitako egoitza zen.

3.061. Giro politikoa, sozialismoa, mantendu egin zen sasoiari (EIB-028/001)

Bere etxean ere giro politikoa ezagutu zuen. Aita eta lagunak berrikerian ibiltzen ziren. Legarre inguruan denak ziren gorriak. Bere aita ez zegoen afiliatuta, baina UGTkoa zen eta sozialista. Aitak egun guztia pasatzen zuen irratia entzuten, belarria pegatuta. Radio Moscú eta Radio París; entzuten zuten. Lehenengo urteetan beldurra zen nagusi, baina beti ari ziren pentsatzen "bueltia etorriko dok". Batez ere, uste zen gerra mundiala bukatzean, aliatuek Franco bota egingo zutela. Gerrak eta frankismoak ez zuten erabat ito Eibarko mugimendu politikoa.

3.062. Gerraostean greba politikoa (EIB-028/002)

Gerraostean greba politiko handi bat ere izan zen. ELA, UGT eta denek hartu zuten parte. Frankismoak ez zuen erabat ito langile mugimendua. Klandestinitatean, baina lanean jarraitu zuten, neurri txiki-txikian bazen ere. Gerra mundiala amaitu zenean, etsipen sentimendua nagusitu zen. Ordura arte bazegoen esperantza txiki bat, baina handik aurrera gutxi. 1950eko hamarkadan ez zen egon mugimendurik. Julio Sarasua izan zen bakarretakoa, hainbat aldiz kartzelaratu zutena.

3.063. 50 hamarkada erresistentzia txikiko garaia (EIB-028/004)

1950 hamarkadan oso erresistentzia txikia izan zen. 1960 inguruan hasi zen zer edo zer. Etsipen garai handia egon zen. Euskara aldetik ere, beherakada handia izan zen.. Transmisioa eten egin zen, baita familia abertzaleetan ere. Hori ere kritikatu egin behar da. Francok eta erregimenak kalte handiak egin zuten, baina etxe barruan ere erabilera eta transmisioa eten egin zen.

3.064. Familiako eta lagunaren arteko giro euskaltzalea (EIB-028/005)

Etxean ere giro politiko eta euskaltzalea ezagutu zuen. Aita sozialista zen eta euskalduna; ama abertzaleagoa eta euskaltzaleagoa. Etxean euskarazko liburu bat zeukan ama, eta liburu horrek eragin handi handia izan zuen Serafinengan. Batez ere Arrese Beitiaren "Ama euskerearen azken agurrak" olerkiak hunkitu zuen, eta horrek piztu zuen euskaltzaleatasuna bere barruan. Lagunen artean giro euskalduna zegoen eta euskaraz egiten zuten. Eskolan arazoak izaten zituzten, baina ez katean, ez lanean, ez zegoen arazorik euskaraz aritzeko.

3.065. Sabino Aranaren berri (EIB-028/006)

Amarengandik euskaltzaletasuna jaso zuen. Aitak, berriz, beste "heroi" batzuk zituen: Vesteiro, De los Ríos, Prieto... Jose Antonio Agirre ere gizon ona zela esaten zuen aitak. Amak Sabino Aranaren berri eman zion, baina Serafin ez da sekula sabinozalea izan. Onartzen du euskarari emandako kutsu politikoa, baina ez zaio gustatu bere izaera.

3.066. Juanito San Martin izan zuen gidari. EKIN sortu zuten. (EIB-028/007)

Euskararen munduan, batez ere, Juanito San Martinen eskutik sartu zen. Klub Deportiboan taldetxo bat sortu zuen San Martinek, mendirako zaletasuna ardatz hartuta. Mendia eta politika oso lotuta zeuden garai hartan. Mugimendu horretan sartu zen Serafin Basauri 1953 inguruan, hemezortzi urte ingururekin. Gerora, Klub Deportiboan euskarazko klaseak ematen hasi zen, Serafin bera, Imanol Laspiurrekin batera, baina oraindik ere politikan sartu barik. Ondoren, EKIN sortu zen, elkarte politiko-kultural bat. Juan San Martinek ere izan zuen harremanen bat eurekin eta euskal kultura bultzatzeko eta zabaltzeko zerbait egiten hasi behar zela pentsatu zuten. EKINeko buruen artean Alfontso Irigoien zegoen, eta sarritan elkartzen ziren Eibarren. Batez ere gai kulturalak lantzen zituzten: historia, fueroak,... Hori Klub Deportibotik kanpo egiten zuten, erdi-ezkutuan, Itziartarrak tabernan. Hantxe elkartu ziren Eibarko mugimendu euskaltzaleko sustatzaile nagusiak: Juan San Martin, Imanol Laspiur, Javier Zubiaurre, Izagirre eta Serafin bera (denetan gazteena).

3.067. EGI lehenengo, ETA ondoren (EIB-028/008)

Une batetik aurrera, konpromiso politiko handiagoa hartzeko ordua heldu zen eta klandestinitatean lanean hasi ziren, Juan San Martin, Imanol Laspiur eta Serafin Basauri. Ordurako, EKIN eta EGI elkartuta zeuden eta EGI zen talde berria (EAJ-PNV azpian). Taldeko kide batzuk, baina, EAJrekin zituzten arazoak eta konponezinak tarteko, banatu egin ziren eta ETA sortu zuten, 1958. urtean; Txillardegia eta Madariaga ziren buru nabarmenenak. ETAREN inguruan klandestinitateko arau estuak sortu ziren. Bakoitzak bere talde txikia zeukan, baina ez zen sekula izenik aipatzen, eta dena oso ixilpean gordetzen zen. Juan San Martinek nahiko azkar baztertu zuen bide hori.

3.068. Tertuliak Eibarko Klub Deportiboan (EIB-028/009)

Igande goiz guztietan ikastaroak ematen zituen Deban, Arrasaten... beti politikako kontuak. Larunbat arratsaldeetan, berriz, Klub Deportiboko tertuliak izaten ziren: Imanol Laspiur, Juan San Martin, Santi Arizmendiarieta, Paulino Larrañaga, Bittor Kapanaga... Bakoitzak bere paperak eta kontuak eramaten zituen eta ordu txikiak arte egoten ziren berriketan. Santi Arizmendiarietak, esate baterako, Toribio Etxebarriaren gorabeherak kontatzen zituen. Juan San Martinek ere beti zuen zer kontatu. 1955-1960 bitartean izan zen, batez ere.

3.069. Euskara eta euskal mundua hobetu, klandestinitatean (EIB-028/010)

Klandestinitatean sartu zirenean oso zail ikusten zuten orduko egoera aldatzea, baina bai uste zuten euren borrokarekin euskara eta euskal mundua hobetzeko aukera egongo zela. Talde hartako hiru pertsonaia nagusien artean (Basauri, Laspiur eta San Martin), euskarak eta hizkuntzak toki handia bete izan du beti, horixe zen giltza. "Zer lortuko juagu? Burrukan egin, behintzat!"

3.070. 1968. urtea, aldaketa sasoia (EIB-028/011)

1968. urtean sekulako aldaketa gertatu zen. Dena zegoen irakiten: Parisko iraultza, Pragakoa... Euskara batua ere orduan jaio zen. 1968. urtean dena zegoen irakiten. Ermuan ere kongresu handi bat izan zen eta Serafin egon zen antolatzaile. Torrealdei, Aresti eta beste hainbat etorri ziren. Aresti oso pertsona apasionatua zen. Laspiurrek ere ponentzia bat aurkeztu zuen. Laspiur klasikoa zen irizpideei zegokionez; San Martin aurrerakoiagoa. Euskara batuaren mugimendurekin batera hasi zen Rikardo Arregi bere alfabetatzen ideiekin. Rikardo Arregi benetako liderra zen. Haren heriotza sekulako galera izan zen denentzat. Pertsona karismaduna, argia, praktikoa... jendea "eraman" egiten zuen.

3.071. ETAko kide egin zen (EIB-028/013)

1950. hamarkada amaieran ikastaroak ematen ibili zen klandestinitatean; ikastaro politikoak. Hitzaldien ostean, fitxajeak egiteko ordua heltzen zen, konpromisoa eskatzekoa: ETA barruan sartu eta Euskal Herriaren alde zerbait egitekoa. Garai hartan Zabalkunde adarraren arduradun jarri zuten (propaganda kontuak); berak nahiago zuen kultura alorreko lana. Donostian paperak jaso eta Eibar inguruan banatzen zuen.

3.072. Euskaltzaindiaren biltzarra Eibarren (EIB-028/014)

1959. urtean Euskal Kongresua egin zen Eibarren. Oso ekitaldi ederra izan zen, euskara kalera ateratzeko urrats handia izan zelako: antzerkiak, olerkiak,... Udaletxean Euskaltzaindiaren biltzarra egin zen eta San Martinek ponentzia bat aurkeztu zuen Juan Antonio Mogelen inguruan. Laspiur, San Martin, Zubiaurre eta Basauri izan ziren ekitaldia antolatzen ibili zirenak, beste lagun batzuekin batera. Udalaren jarrera ere ona izan zen. Esteban Eguren zen alkate eta euskaraz egin zuen hitzaldia. Aurreko alkateak baino askoz herrikoia eta euskaldunagoa zen. Gipuzkoako bertsolari txapelketa ere antolatu zen, Manuel Olaizola Uztapidek irabazi zuena. Francoren sasoi horrelako ekitaldi bat antolatzea sekulako arrakasta izan zen eta mugarri izan zen Eibarko eta Euskal Herriko mugimendu euskaltzalean.

3.073. ETA 60ko hamarkadan (EIB-028/015)

1960. urtean ezkondu egin zen, eta urtebete geroago kartzelan sartu zuten. 1961eko uztailaren 18an ekitaldi handia antolatu zuten agintariek altxamenduaren 25. urteurrena ospatzeko. ETAk erabaki zuen ekintzaren bat egin behar zuela Donostian: banderak erretzea eta Donostiara zihoan tren berezi bat (falangistekin) bere bidetik ateratzea. Horren erantzun modura, ETAko kide mordoa atxilotu zituzten. Serafinek alde egin zuen Logroñeko emaztearekin batera (haurdun zegoela), baina hantxe harrapatu zuten. Martutenera eraman zuten. Martutenen irudi gogorrak ikusi zituen, batez ere Imanol Laspiur jipoituta eraman zutenean. Ondoren Carabanchelera eraman zuten, sei hilabetez. Kartzelan zegoela jaio zen bere lehenengo semea. ETAko kide gehienak zeuden bertan: Madariaga, Iriarte, Albizu... Kartzelatik irten eta ALFAra itzuli zen lanera, arazorik gabe.

3.074. 60ko hamarkada itxaropen garaia (EIB-028/016)

1962. urtetik aurrera itxaropenerako tarte bat sortzen hasten da. La era de Trujillo liburuak ere eragin handia izan zuen garai batean (Galindezek idatzitakoa). Euskal arazoa mundu mailan ezagutzen hasi zela konturatu ziren. Aita Santu berriak ere mundua beste begi batzuekin ikusteko aukera ireki zuen (Eliza Katolikoa berriztu zuen). Hortik aurrera, 1960ko hamarkada guztian, itxaropena eta mundua aldatzeko gogo nagusitu zen guztien artean.

3.075. Lehenengo Euskal Jaiak (EIB-028/017)

1960. hamarkadan Euskal Jaiak ere hasi ziren. Oso egun ederrak izaten ziren, emozioz betetako egunak: euskal mundua eta euskara kalera ateratzeko aukera zen. Eibarko euskal jaiak Kulturalak antolatu zuen: Julio Sarasua, Garate "Koronel Txikixa", Luis Alberto Aranberri "Amatiño"... Ezkertiarren aldetik kritika egin zitzaion (folklore hutsa zela), baina oso ederrak izan ziren, batez ere euskal mundua kalera ateratzeko. Herri guztietako jendea biltzen zen; ehunka dantzari etortzen ziren Eibarrera. Serafin bera ez zen ibili antolatzaileen artean.

3.076. Laspiurren eta beste kide batzuen lana euskalgintzan (EIB-028/019)

Euskarazko klaseekin hainbat urtez jardun zuten. Imanol Laspiur izan zen lan gehien egin zuena; lan gehien, luzeen eta metodologia zehatzena erabili zuena. Beste hainbat ere ibili ziren: Joxe Antonio Izagirre, Jose Luis Ugarteburu, Bittor Kapanaga, Kontxa Laspiur... Klaseen sorburua 1960 urte inguruan izan zen, Gorrotxategitarren etxean. Bertan biltzen ziren Don Rafael abadea, Juan San Martin, Imanol Laspiur... Umandiren gramatika hartu zuten eta argitaratu egin zuten. Inork ez zuen gramatkarik finantziatzen garai hartan eta eurek argitaratu zuten, dirua handik eta hemendik lortuta. Banaketa ere euren esku egon zen. Umandiren gramatikak garrantzi handia izan zuen garai hartan. Laspiurrek Umandiren gramatika euskaratu zuen eta horixe erabiltzen zuen klaseak emateko. Lehenengo euskarazko klaseak Klub Deportiboan izan ziren. Horretan garrantzi handia izan zuen Juan San Martinek. Berak sortu zuen Euskal Kulturaren Batzordea, eta berak ireki zituen Deportiboko ateak klaseak bertan emateko. Batez ere jende nagusia biltzen zen klaseetan; 6 lagun inguruko taldeak izaten ziren.

3.077. Juan San Martin garaiko eragile nagusia (EIB-028/020)

Euskarazko klaseak baino, gehiago gustatzen zitzaizkion alfabetatzeko programak. Euskaraz idazten erakusten zuten, testuak landu, hitzaldiak antolatu, eta abar. Juan San Martin izan zen eragile nagusia, baina Serafin Basauri jarri zuten arduradun. Garai hartan euskaltzain urgazle ere egin zuten Serafin. alfabetatze-kanpainak lantzean behin izaten ziren. Toribio Etxebarria kalean izaten ziren alfabetatzeko klaseak, Aurrezki Kutxaren lokaletan. Serafinekin batera Maite Aranberri eta Amatiño ere ibili ziren. Euskal aditzaren taulen inguruko ikastaroa ere eman zuten. Serafinek berak sortu zituen taulak eta kopia guztiak, etxean, makina txiki batekin.

3.078. 1960. hamarkada amaieran euskalgintzarekin gozatu zuen (EIB-029/001)

Eibarren alfabetatzeko kanpainak egiten zituzten, tartean hitzaldiak ere antolatzen zituzten. Garaiko jende esanguratsua ekartzen zuten Eibarrera, esate baterako, Villasante, Euskaltzainburu izango zena. Garai hori izan zen

Serafinek kulturgintzan gehien disfrutatu zuena. 1960ko hamarkada itxaropen sasoia izan zen. Batez ere, jende eskertzalea eta euskaltzalea izan zen mugimendu horretan murgildu zena.

3.079. Eibarko ikastolako arduradun 1966-1972 bitartean (EIB-029/002)

Eibarko Ikastola 1960. hamarkada hasieran sortu zen. Serafin Basaurik 1966. urtean (elkarrizketan 1967 dio) hartu zituen ikastolako ardurak (diruzain, idazkari...). Garai hartan oraindik ere lokaletan ematen zituzten eskolak (Zezenbiden), baina indartzen ari zen (1967. urtean pasa zen ikastola guraso elkartearen eskuetara). Garai hartan bi irakasle besterik ez zeuden: Mari Tere Munduate eta Marisol Aranzeta. Serafin Ikastolako arduradun zegoela, Margarita Murgizu kontratatzea lortu zuten. Imanol Larrañaga ere orduan sartu zen ikastolan, eta baita Amaia Aseginolaza ere (eta, ondoren, beste batzuk). Ikastolarako dirua lortzeko hainbat ekitaldi antolatzen zituzten. Hasiera batean, ume txikienezako klaseak bakarrik zeuden; gero ikasketa guztiak egiteko aukera jarri zuten.

3.080. Euskalgintzak sortutako nekeak (1971. urtea) (EIB-029/003)

Garai gogorra izan zen Serafinentzat. ALFAn lanean, Ikastolako ardurak ere berak zituen (idazkari, diruzain), eta gainera alfabetatzeko kanpainak antolatzen ere murgilduta zegoen. Ikastolarako diruak lortzeko, ikastola legezatzeko lanak gogorrak izan ziren. Elizak asko lagundu zuen Ikastolaren lehenengo urteetan, bai lokalak lagatzen, bai legezatzeko-prozesuan. 1971. urtean oso nekatuta zegoen hainbeste lanekin eta erabaki zuen alderdi profesionalean murgiltzea, euskalgintzako kontuak alde batera lagata. ALFAn beste lanpostu bat eskaini zioten, prozesu informatikoez arduratzeko, eta bere bizitzako beste fase bat hasi zen, 1972. urtean, lan arloarekin askoz lotuagoa.

3.081. Kaleko ospakizuna (EIB-030/003)

Arraindegi kalea desagertu egin zen, baina ospatu egiten dute. Batasuna zegoen, anaitasuna.

3.082. Labaderoak (EIB-030/005)

Labaderoa. "Mekanikoak" ere garbitzen ziren. Aste ingelesik ez zegoen. Jostetik bueltan, arropak etxean beratzen jarri eta buru gainean garbitzera. Gero, pasiatzera. Gutxirekin konformatzen ziren. Arrate hotelean zegoen labaderoa. Asko ziren labadero publikoak. Mahai modukoak zeuden, harrian jo. Beharrezkoa zen. Tintoreria.

3.083. Mendizaletasuna (EIB-030/007)

Mendira asko joaten ziren. Club Deportiboko txangoak, Aizkorrira eta. Kalamuako refujioa. Santakruzeko idazkuna.

3.084. Errepublika etorri zenean (EIB-030/008)

Apirilaren 4an gauean hasi zen zalaparta, Guardia Zibilaren kuartelean. Zabalburutik etorri ziren, hura bonbardatzera. Batek izan zuen istripua. Iraultza. Apirilaren 14an Untzagan zegoen, Errepublika aldarrikatu zutenean. Goizean goiz. Letreroa eta erregearen koadroa nola kendu zituzten. Egun bat lehenago, Eibarren. Kalejira egin zuten denek. Sozialistak eta nazionalistak.

3.085. Urriko iraultzako presoak (EIB-030/010)

1934ko urriko matxinada zela eta, Eibarko gizon asko sartu zituzten preso, Iruñean. Askatu zituztenekoa. Indalecio Prieto zegoen zain. Sozialistak. Balkoitik ikusten zituen ospakizun denak.

3.086. Matxinada garaian hildakoak (EIB-030/012)

Matxinadan, asaltoko guardiak bi mutil hil zituzten, Armeria eskolan borrokan ari zirela, teilatutik. Larrañaga nola hil zuten, ezin-ikusiren batengatik.

3.087. Eskola (EIB-030/013)

Eskolan doña Petrarekin ibili zen, udaletxean. Frontoi zaharrean (mutilena) eta alhondigan ere eskolak. Doña Klara, doña Consuelo. Ez zitzaion gustatzen ikastea.

3.088. Herritarrak eta politika (EIB-030/016)

Politikan parte hartzen zuten herritarrek. Arabara joaten ziren erdara ikastera, ez zekitelako, soldadu joan aurretik. Gerra garaian espabilatu ziren pixka bat. Musutruk zebilen jendea politikan.

3.089. Urriko matxinada (EIB-030/018)

Urriko matxinadako kontuak. Kalbetoira zuten balkoia, baina atzean berriketan egoten ziren. Bonba bat bota zuten Kalbetoian. Guardia zibil mordoa joan ziren ganbara begiratzerara. Armak zeuden ezkutatuta, eta estutasuna.

3.090. Gerra hasi zenean (EIB-030/020)

Gerrako lehen bonbardaketak. Donostiatik zetorren jendea, babes bila. Anaiak Plaentxin (Soraluze) egiten zuen urte erdi. Barakaldora joan ziren, bizilagunarekin; anaiak urrian kartzelan egon zenean egindako lagun baten etxera joan ziren. Villaverde de Turciosera gero. 103 batailoia zegoen han. Senarraren berriak.

3.091. Senarra preso (EIB-030/022)

Villaverde de Turciosetik Santanderrera joan ziren. Koinatak egunkarian bila ari zirela jarrita, senarraren berri jakin zuten. Torrelavegan zegoen preso; astean hirutan joaten zen bisitan.

3.092. Santander erori zenean (EIB-030/023)

Hegazkinak, kanoikadak, tankeak... Santanderren, erori zenean. Itsasontzirako ilara egiten egon ziren, Donostiara joateko. Zilarrezko sei hogeituroko zituzten. Aitak duro bat eman zion Eibarko gizon bati, eta handik 4-5 urtera bueltatu zion hark.

3.093. Buelta Eibarrera (EIB-030/024)

Santanderren eroritakoei zer kenduko zebilen jendea. Inazio Anaitua aitaren laguna zen. Eibarrera sartzeko sinadura behar zen. Trenean joan ziren. Donostiako geltokian igaro zuten gau osoa.

3.094. Bueltan, etxerik ez (EIB-030/025)

Eibarrera bueltan, etxerik ez zuten: Kalbetoi kaleko etxea, errekiatuta. Familia baten etxera joan ziren. Lana topatu zuen; ez zen zaila, gizonik ez zegoelako.

3.095. Barrenkale, laua? (EIB-030/027)

Bi lagun Santa Agedan elkartu ziren, eroetxean. Gerraren ondorioz, Barrenkale laua geratu zela esan zion batak, eta besteak sinestu ez.

3.096. Santander erori zenean II (EIB-030/029)

Oroitzapen tristeena, Santander erori zenekoa.

3.097. Gerra garaian ihesi (EIB-032/004)

Arragueta kalean jaio zen Julita. Gerra garaian, Santanderrera eta handik Bartzelonara joan ziren. Ama lanean egon zen han, eta ahizpa bi neskame; eskolara joaten zen bera, eta katalanez ere ikasi zuen. Zazpi hilabete egin zituzten han. Bueltan, etxea errekiatuta zeukaten.

3.098. Pedromaneko zubia eta tailerrak (EIB-032/006)

Zubi bat zegoen Arragueta bukaeran. Bartoloneko edo Pedromaneko zubia. Tailerrak: "Beistegi". Bertan egin zuen lana Julitak. Orbearen tailerrak. Tunela. Etxea eta kapila ere bazuten orbeatarrek.

3.099. Mari Karmenen aita, pelukeroa (EIB-032/009)

Gaztetan, euskaraz egiten zuten biek. Beraien aitek ez zekiten erdaraz. Mari Karmenen aita ile-apaintzailea eta alpargatagilea zen; Durangon ikasi zuen lanbidea. Tripatruke Gasteizera bidali zuten aita, erdaraz ikasteko. Eugenio Agirre, "Elorriko". Kanpazartik Eibarrera eraman zuen aitak ama, eta pozik Untzaga kalean. Zezenbide eta putetxeak. Erregea etorri zenekoa; Bittor Sarasketak esan ziona.

3.100. Ama pozik Eibarrera (EIB-032/010)

Kanpazarko bentakoa zen Mari Karmenen ama. Udalaitz aldera alpinista asko joaten zen Eibartik. Pozik joan zen Eibarrera bizitzera. Untzaga, leku ona. Pabiloia nola erre zen. Sukaldean egiten zen bizimodua.

3.101. Gurasoak elgoibartarrak (EIB-032/012)

Zortzi senide ziren, baina bost irten ziren aurrera. Amak abarketak josten zituen, titara handi batekin. Galtzak ere egiten zituen. Aitak aparte bazkaltzen zuen, beti ordu berean. Lanen banaketa. Elgoibartarrak ziren biak. Urruzunori buruzko esaera. Matute itsuari egin zioten tranpa, zilarrezko duroa lurrean.

3.102. BH lantegian soplelista (EIB-032/013)

Ahizpa bat "akabatzailea" zen eta bestea soplelista. Koadroak egiten zituzten. Destajora egiten zuten lana. 1941ean soldata zein zen erakusten duen papera du esku artean.

3.103. Tailerretan, emakume mordoia (EIB-032/015)

"Beisteginean" (BH bizikletak) 15-16 urterekin hasi zen. Hortxe eta Orbeanean emakume gehiago zegoen lanean gizonak baino. Koadroak egiten. Eskuz margotzen ziren. Gizonak kartzelan zeuden. Moisesen tailerrean, Matsarian, dena emakumeak ziren. Gasteizera eraman zuten lantegia, gero.

3.104. Polborinean, bonbak egiten (EIB-032/017)

Ugazabekin ez zegoen harremanik. Mari Karmen polborinean egon zen lanean, bolbora artean. Aranberri egoten zen zaintzen, eta beraiek kantuan. Egunean duroa irabazten zuten. Kartutxoak. Eskuzko bonbak. Teodora Egia nola hil zen, su hartuta.

3.105. Gerra garaiko lanak (EIB-032/018)

"Tragamakinas", Egurrola: gerra garaian, baimena zeukan tailerrez tailer ibiltzeko, makinak hartzen, Bilbora eramateko. Deustun egin zuen lana Julitaren aitak sasoi hartan. Gerra ostean, Estazio kalean bitxi-dendan egon zen lanean Mari Karmen; gero, harategian. Makinak nola kopiatzen zituen bere senitarteko batek, "Txapel"ek; musikaria zen. Hark loteria partizipazioekin izan zituen komeriak.

3.106. Bizikleta koadroak egiten (EIB-032/019)

Ezkondur ostean lanean jarraitu zuen Julitak. 3-4 urtean ibili zen. Sopletean koadroak egiten zituen. Limakoak zeuden. Hondar-txorroa. Bizikleta asko egiten ziren. Eibarko bizikleta tailerrak.

3.107. Etxean lanean (EIB-032/020)

Eibarren, gerra aurretik etxeetan egiten zen lana: txarolatzen, grabatzen, pikatzen... Arragueta kalean pilotak ere egiten zituen gizon batek. Egurra nola pikatzen zuen emakume batek. Eskopetak. Errekadista ibili zen Julita, etxez etxe. Paboa, eskopeta kañoiak. Perleatua nola egiten zen, damaskinatuan.

3.108. Damaskinatua (EIB-032/022)

Damaskinatua. Urredunanez joaten ziren, urrezko haria erostera. Urre gorria eta berdea. Punzoia. Grabatua askok egiten zuten etxeetan. Bitxi-dendan saldu egiten zituzten, gero, Mari Karmenek-eta. Petakak. Pikadora asko zegoen. Etxe guztietan egiten zen zerbait. Julitaren amak, abarketak.

3.109. Garbitokiaren inguruko kontuak (EIB-032/023)

Garbitokia non zegoen. Mahaiak. Ura nola kentzen zuten. Terreinak (barreñoak) buruan hartuta. Jabondu eta astindu. Mari Karmenen izeba "labandera" zen. Sei bat "labandera" zeuden garbitokian. Bainua hartzera joaten ziren bertara. Izebarekin lotutako pasadizoa.

3.110. Gerra garaian, Busturialdera (EIB-033/013)

Gerra denborako bonbardaketak zirela-eta, Carmen eta etxeokak Busturialdera joan ziren zortzi egunetarako. Matxitxakora bonbak botatzen zituztenekoa kontatzen du. Anaiak gerrara joan ziren eta haien kontuak kontatzen ditu.

3.111. Anaia Madrilera pilotara (EIB-033/014)

Anaia, Fernando Agirre, pilotari ezaguna Madrilera joan zeneko kontuak eta handik bueltan gaixotu eta hil zenekoa. Julitaren senarraren inguruko pasadizo bat.

3.112. Untzaga ingurua (EIB-033/015)

Eibarko Untzaga ingurua lehenago nolakoa zen azaltzen dute. "Probadero militarra", zezen plaza, lima lantegia, etab.

3.113. Errepublika garaiko eskolako kontuak (EIB-033/016)

Eskolara udaletxera joaten zirenean hondartzako hondarra eramaten zuten eraikuntzako langileek eta hari ura botata jolasean aritzen ziren. Eskolan errege-erreginarenean koadroak zituzten eta errepublika garaian gizon batzuek eraman zituzten.

3.114. "Errepublika plaza" (EIB-033/017)

Errepublika atera zen egunean aita eta amarekin plazan egon zen plazari izena nola aldatzen zioten ikusten: "Errepublika plaza" izena eman zioten. Eibarko emakume baten pasadizoa kontatzen du Julitak.

3.115. Erreboluzio garaia (EIB-033/018)

Erreboluzioa egin zeneko kontuak kontatzen dituzte, militarrekin pasatakoak eta kantu bat.

3.116. Txirikiletan jolasean (EIB-033/019)

Plazako arkupeetan ibiltzen ziren jolasean eta eguraldi onarekin Untzagan. Txirikiletan jolasten zuten; jolasaren nondik norakoa azaltzen dute. Mendira joan eta gaztainen hostoekin kapelak egiten zituzten.

3.117. Tanborreneko denda eta Birjinapeko okindegia (EIB-033/022)

"Tanborreneko" denda eta Birjinapeko okindegiaren aipamena. Kaleen aipamena eta kokalekua.

3.118. Amaña auzoa (EIB-033/023)

Amaña auzoa deskribatzen du Mari Carmenek. Ahateak ikustera joaten ziren bertara. Amañan igerilekua egin zutenekoa.

3.119. Ubitxa eta ingurua umetan (EIB-033/024)

Ubitxara joaten zirenekoa eta bertako garbitokia aipatzen ditu Carmenek. Errekan zapaburuak biltzen aritzen ziren. Ubitxa eta Urki baserriak eta ingurua.

3.120. Matarifearen autobusa (EIB-033/026)

Matarifearen autobusa eta haren inguruko kontuak.

3.121. 48 urtez plazan haragia saltzen (EIB-033/027)

48 urtez egon da Carmen Eibarko plazan haragia saltzen. Eibarko gizon ezagun baten kantua abesten du Julitak.

3.122. Eibarko Frontoizarra, Txantxazelaian (EIB-035/001)

Frontoizarra non zegoen azaltzen du. Frontoizarra Untzaga gainean zegoen, frontoi ederra zen. Alboan Villabellanekeo lima-fabrika zegoen eta pilotak askotan bere kunbora jausten ziren (Ubitxa erreka ura batzen zuten bertan,

indarra lortzeko). Palaz gutxi egiten zen orduan, baina zestaz asko, Eibarren zaletasun handia zegoelako. Frontoi ondoan Eibarko herri eskola zaharra zegoen. Pilotari onak irten ziren handik. Frontoi alboan, hormaren beste aldean, bolatokia zegoen, Nocheneko taberna gainean. Eibarren zaletasun handia zegoen pilotan egiteko, eskuz eta zestaz. Onaindiatar anaiak onak izan ziren, anaia bi, bata Mexikora joandakoa.

3.123. Astelena frontoiko pilotak umeez "biguntzen" zituzten partiduen aurretik (EIB-035/002)

Umeez edonon egiten zuten pilotan. Edozein kaletan. Astelena frontoira ere joaten ziren pilotan egitera. Partiduen aurretik, pilotak biguntzeko, ume eta gazteei uzten zizkieten pilotak, eurek bigundu zituzten, partiduetan erabili ahal izateko. Horrela, doan jokatzeko aukera izaten zuten. Eibarren eskuz eta zestaz jokatzeko; palaz ez zegoen afiziorik. Eta emakumeez raketaz. Pilotari onak, gainera, denetara jokatzeko zuten, eskuz, palaz, zestaz... Eibarko Txikito pilotari ezagunak ere horrela egiten zuten, baita botila batekin ere. Astelena frontoian jokatzeko alkilatuta egin behar izaten zen. Kantxeroa egoten zen eta berari ordaindu behar izaten zitzaion.

3.124. Eibarko raketistak (EIB-035/005)

Raketista gehienak Eibar ingurukoak ziren. "Chiquita de Irura" ere ona izan zen. Eibarren neska asko ibili zen raketan; batzuk ez hain onak, beste batzuk bai. Gehienak Donostiako Urumea frontoian hasten ziren. Raketisten frontoiak ez ziren handiegiak; ez zuten behar zestalariek bezalako frontoi luzerik. Raketisten kontua kanpotik etorritakoa zen.

3.125. Garai bateko pilotari eta gazteek, eskuak ondo gogortuta izaten zituzten (EIB-035/006)

Eibarren zestaz eta palaz ere jokatzeko zuten, baina bertakoa eskuz jokatzeko. Eta eskuz ondo jokatzeko zutenak, beste modalitateetan ere ondo aritzen ziren. Zestaz ere ondo. Garai hartan eskuak ondo gogortuta izaten zituzten denek, lan asko eginda; takorik eta babesik ez zen ezagutzen. Eskuetako minari "ultzekua" esaten zitzaion (esku erdian mina izatea). Ultzekoarekin ez zuten jokatzeko, mina osatu arte. Pilotak ere ezberdinak ziren. Pilotarien entrenamendua eta zainketa ere ez zen ezagutzen. Txikitori gertatutakoa kontatzen du, partidua jokatu aurretik mozketuta aurkitu zutela, eta hala ere irabazi egin zuela.

3.126. Atano eta Gallastegi, bata artista, bestea indartsua (EIB-035/008)

Atanoren eta Migel Gallastegiren partidak ere ezagutu eta ikusi zituen. Gallastegik askotan jokatzeko zuten biren aurka (eta irabazi). Eta beste batekin hirukotearen aurka ere bai. Migel Gallastegi atzelaria zen; Atano aurrelaria. Orduan sakea librea izaten zen, 3 t'erdia pasatuz. Atano artista bat zen, baina Migel indartsuagoa. Gainera, Migel asko eta ondo zaintzen zen. Beti mendian zebilen, entrenatzen. Atano, osterata, artistagoa zen, baina ahulagoa eta eskuz ere askotan arazoak zituen. Atanoren eta Gallastegiren gorabeherak kontatzen ditu.

3.127. Migel Gallastegik Kiputxaneko zineko aulkiak jasotzen zituenekoa (EIB-035/009)

Migel Gallastegi pilotaria asko zaintzen zen. Gaztea zela, Isasi kaleko Kiputxaneko zineko aulki guztiak jasotzen zituen gauez, behin pelikula

amaituta. Horren ordez, bertako frontoian (zinea frontoia ere bazelako) doan egitea lortzen zuen. Horrela entrenatzen zuen.

3.128. Garai bateko pilotarien arropak (EIB-035/010)

Atanok oso ile gutxi zeukan eta horregatik ez zuen sekula txapelik kentzen. Pilotan ere txapelarekin jokatzeko zuten. Atanotarrak asko izan ziren, anai mordoa. Pilotariek, garai hartan, arropak frontis ondoan uzten zituzten. Pilotariek, orduan ere, fraka zuriz jokatzeko zuten, gaur bezala. Eta gerrikoarekin, urdina edo gorria. "Fraka zurixa jantzitakua da" esaten zen, afizionatuetatik profesionalek pasatutakoa zela adierazteko.

3.129. Eibarko lehenengo trinketea eta taberna (EIB-035/011)

Bartolok ez zuen ezagutu Eibarko Trinkete zaharra, baina bai Trinkete izeneko taberna. Taberna hori tailer baten ondoan zegoen eta hantxe egon ei zen Eibarko lehenengo trinketea, Errebal eta Bidebarrieta kaleen artean, gaur egungo San Agustin kale inguruan, gutxi gorabehera. Lehenengo solairuan kafetegia zegoen eta goian jantokia. Baina Bartoloren sasoirako atzeko aldeko frontoia kenduta zeukan eta tailerra zegoen. Tailerrerako sarrera Bidebarrieta kaleko zubi txiki batetik egiten zen.

3.130. Bartolo Mendaron jaio zen (Mendaro, artean, Mutriku zela) (EIB-036/002)

Bartolo Mendaron jaio zen. Garai hartan Mendaro ez zen herria. Bi auzo ziren, Azpilgoeta (Mutrikuko partea) eta Garagartza (Elgoibarkoa). Bartolo Mutriku jaioa zen, beraz. Hala ere, "bere herrian", Mutriku, 65 urterekin izan zen lehenbizikoz (jubilatutako ondoren agiri batzuk jasotzera). Bestela, beste gauza guztiak Mendaron bertan egiten ziren, bertako parrokiaren bitartez. Jaiotza agiriekin ere arazoren bat izan zuen, epaitegian ez baitzen azaltzen Bartolo. Behin nagusituta "jaio zen" ofizialki.

3.131. Arriolatarrak Mendarotik etorri ziren Eibarrera 1920 inguruan (EIB-036/003)

Bartolo gaztetan etorri zen Eibarrera bizi izatera, gurasoekin batera. Hala ere, sarritan joaten zen Mendarora. Mendaron ez zegoen ezer: irin-fabrika txiki bat besterik ez. Lehenengo aita etorri zen Eibarrera eta Bartolo zazpi urterekin.

3.132. Saint Gerons txokolateak (Mendaro) (EIB-036/004)

Mendaron ez zegoen lantegirik 1920 inguruan. Irin-fabrika txiki bat eta txokolate-fabrika bat: Saint Gerons ezaguna. Senide frantsesak zituzten, baina eurak Mendaron jaiotakoak. Orain ezagun egin da, baina garai hartan txokolate fabrika txiki-txiki bat besterik ez zen.

3.133. Eskusoinua kanpotik ekarri zuen trenbidea (EIB-036/005)

Trenbidea egin zenean kanpotar asko etorri omen ziren kanpotik: frantsesak eta italiarrek, esate baterako. Eskusoinua ere italiarrek ekarri omen zuten. Abadeek "inpernuko hauspoa" izena jarri zioten, soinuaren musikak dantza baitzekarren eta, ondorioz, lizunkerietarako aukera.

3.134. Arraindegi kaleko eta Barrenkaleko dendak eta komertzioak (I) (EIB-036/006)

Bartolo eta bere gurasoak Mendarotik etorri ziren lanera. Eibarrera etorri zirenean, Barrenkalera joan ziren. Gaur egun ez dago kale hori. Errebal kaletik elizara igotzen zen, zuzen-zuzenean. Barrenkale ondoan Arraindegi kalea zegoen. Antza, garai batean, arraina hantxe saltzen omen zen. Arraindegi kalean denetarik zegoen: tenpleak, bainu-etxea, okindegiak (Larrañaga eta Eguren)... Barrenkalean ere gauza asko zegoen: Bazar Paquita arropa-denda, farmazia bat, tapizero bat (kanpotarra), oihal-denda bat, sastre bat... (hori guztia, igotzen eskuinetara).

3.135. Arraindegi kaleko okindegiak: Kontxanekua eta Benitonekua (EIB-036/007)

Arraindegi kalean bi okindegi zeuden. Bata "Kontxanekoa" Ugalde eta Larrañaga (gerraostean Grabadores kalera eramán zuten). Bertako semea, Justo Larrañaga, ezaguna izan zen. Eta horren alboan "Benitoneko" okindegia zegoen, Candido Eguren "Oka Txiki" ezagunaren gurasoen okindegia.

3.136. Barrenkaleko dendak eta komertzioak (II) (EIB-036/008)

Barrenkaleko ezkerreko kaleko dendak. Behe-behean liburu-denda bat zegoen, goierritar batena; euskarazko liburuak ere saltzen zituzten. Alboan inprenta bat (haren gainean bizi ziren Bartolo eta bere senideak). Ondoren Charolaneko arropa-denda zegoen. Gero, goraxeago, "Serenuaneko" taberna ezaguna. Ondoren "Umaixoneko" etxea eta Arroita jauregitarren zapata-denda (Eibarko apaiz izandako senideena). Gorago, janari denda bat eta goi-goian "La dulce eibarresa", gozo-denda, txokolateria eta antzeko kontuak saltzen zituztenak (Bermeo ingurutik etorritakoak ziren).

3.137. Eibarko "meaderoak", Barrenkalean eta parrokiari (EIB-036/010)

Barrenkaleko goiko partean "meaderua" zegoen. Gizonezkoentzako txixalekua. Gaur egun Bidebarrieta kalea hasten den lekuan, gutxi gorabehera. Beste meadero bat parrokiaren kontra ere bazegoen (baina hori kendu egin zuten). Eibarko kale gehienak harrizkoak ziren, galtzada: Barrenkalea, Untzaga ingurua, eta abar.

3.138. Arraindegi kaleko bainuetxea (EIB-036/011)

Arraindegi kaleko bainuetxea ere ezagutu zuen Bartolok. Barruan ez zen inoiz sartu. Etxean ez zen izaten ez dutxarik eta ez antzekorik. Orduan garbitasunari ez zitzaion gaur egungo garrantzirik ematen. Barreño batean garbitzen ziren, ondo xaboituta. Bestela, errekan.

3.139. Eibarko igerilekuak eta Maltzagako betekoak (EIB-036/012)

Eibarren presa asko zeuden eta igeri egiteko leku aproposak ziren: Otolerdikuan, Olarreagan, Barrenazarrian,... Bestela, igeri ondo egiten zekitenak Maltzagara joaten ziren. Maltzagan denendako lekua zegoen (igerian jakin edo ez jakin). Betekoak ere baziren, handiak. Trenbideko zubitik bertara salto egiteko aukera ere bazegoen. Batzuek zutabetik egiten zuten salto; ausartenek, trenbideko baranda gainetik.

3.140. Mendaron ez zegoen ez argirik eta ez urik (EIB-037/001)

Bartolo ume-umetan etorri zen Eibarrera Mendarotik. Garai hartan sekulako aldea zegoen Mendaro eta Eibarren artean. Mendaroko etxeetan urik ere ez zegoen (ezta komunik ere). Bartoloren etxean, esate baterako, bi etxebizitza zeuden eta komunzulo moduko bat denentzat. Argirik ere ia ez zuten (bonbilla bakarra etxe osoan). Kandlekin ibiltzen ziren. Janaria prestatzeko ere ez zuten ekonomikarik, baserrietako beheko sua baizik, laratz eta guzti. Etxeek zenbakirik ere ez zuten; etxearen izena besterik ez. Bartoloren etxea "Errementarinekoa" zen, etxe barruan errementaria bizi zelako (aizkorak, laiak eta igitaiak egiten zituen). Beste etxeak: Franzisnankua (taberna zen), Simonenakua, Zesterokua, Kotxerokua, Txalkorkua (Linazasororena, irin-fabrika zuena)... Kale-izenik ere ez zegoen, bi auzo besterik ez: Azpilgoeta (Mutriku) eta Garagartza (Elgoibar). Farmaziarik ere ez zegoen eta medikua ere ez beti.

3.141. Gerrateek dirua ekarri dute Eibarrera (EIB-037/002)

1914ko gerran krisialdi eta gorabehera handiak izan ziren Eibarko lantegietan. Armen salmentak gorabehera handiak izan zituen. Eibarko armaginek urretan kobratzen zuten, dirutan kobratu beharrean. Dena dela, gerrak dirua ekarri dio Eibarri: jendea elkar hiltzen eta eibartarrak aberasten. Espainiako gerran ere berdina gertatu zen (gerraostean, Eibarko lantegi batzuk ere aberastu egin ziren armak saltzen).

3.142. Eibarko grebak eta "cocinas populares" (EIB-037/003)

Eibarren, batez ere, armak egiten ziren. 1918-1920 inguruan arma-salmenta gutxitu egin zen eta krisialdia etorri zen. Eibarko hainbat tailer greban egon ziren 3 hilabetean. Eibartar gehienek ez zuten ez dirurik ez jatekorik eta Eibarko udalak "rantxoa" jarri zuen, "cocinas populares" izenekoak. Eibarko etxe bakoitzari zenbaki bat ematen zitzaion eta anoa kopurua. Bartolok 10 urte zituela, 1922an, egunero joaten zen bere familia osoarentzat janari bila. Gehienetan, bazkaltzeko, babak izaten ziren; afaria ere ematen zuten.

3.143. Primo de Riveraren garaiko alkateak (EIB-037/004)

Eibarren sozialistek agindu dute ia beti. 1923an Primo de Riveraren diktadura hasi zen eta udalak desegin zituen. Garai hartan (1923-1930 bitartean) diktadurak jartzen zituen alkateak. Alkate barregarriak izan omen ziren.

3.144. Eibarko arma-lantegiak eta pistolak (EIB-037/005)

Bartolok ez du lan handirik egin armagintzan. Lanean hasi zenean, pistolarentzat piezak egiten hasi zen, dena dela. Pistolak hainbat lantegiren artean egiten zituzten; bakoitzak zati bat. Bartolok, gehienbat, beste pieza batzuk egin izan ditu: armairuetarako, oheetarako... Eibarren errebolber asko egiten zen. Garai batean STAR zen handiena, Estatuarentzat ere egiten zituelako. Eibarren, beste guztiek errebolberrak egiten zituzten; Starrak baita pistolak ere.

3.145. 11 urterekin hasi zen lanean: errekauiak, iturrira uretara... (EIB-037/006)

Bartoloren sasoiari ume-umetan hasten ziren lanean. 10-12 urterako errekadista lanetan hasten ziren "granuja" lanetan. Hori izaten zen mailarik

baxuena, astean 8 pezeta inguru. Bartolo Bidebarrieta kaleko lantegi batean hasi zen lanean: errekaduak egin, uretara joan iturrira, barautsak eta beste pieza batzuk erosi... Urkuzuko iturrira joaten ziren uretara.

3.146. Ardantza, Dos de Mayo eta inguruak (EIB-038/002)

Eibarko Ardantza auzoa ezagutu zuen batik bat. Ardantza kalearen zati handi bat galdu, eraldatu, egin zen. Garaiko Ardantza eta Dos de Mayo (Toribio Etxebarria gaur) kaleak eta inguruak nolakoak ziren azaltzen du.

3.147. Erreka inguruak (EIB-038/004)

Eibarren, Ardantza inguruko erreka eta zubia non zeuden kontaktzen du. Zubia ortuetara heltzeko bidea zen.

3.148. "Piszina"ren neurria eta itxura (EIB-038/010)

Eibarko erreka nondik nora zihoan kontaktzen du. Jendeak bertan igeri egiten zuen, Amañ˜akoan batik bat. "Piszina" deitzen dio eta nolakoa zen kontaktzen du; neurriak.

3.149. Julian "Itsua"ren gertaerak (EIB-038/011)

Julian "Itsua"ren gertaerak; erreka salto egin eta belartzara jausi zenekoa.

3.150. Maltzagako erreka bainatzera (EIB-038/014)

"Piszinia" polita zela dio, baina erreka zikina zegoela. Gero, gerraostean, Maltzagara joaten ziren putzua egiten zelako bertan.

3.151. "Kateka" jolasten zuten (EIB-038/020)

Gaztaroko jolasak aipatzen ditu. "Kateka" jolasa nola jolasten zuten.

3.152. Gaztetako jolasak (EIB-038/021)

Neskek "Txingorgainean" egiten zuten eta "Txirikilean" mutilek. "Txirrinbola", "Txapa-karrerak", "Kanikak", "Perlak" (neskak)... Helduagoak zirenean "A la garza", diruarekin jolasten zuten.

3.153. Club Deportiboko domina eta beste omenaldi bat. (EIB-038/023)

Aitarekin zein mendi egiten zituen kontaktzen du. Aita Club Deportiboko presidente izan zen. Club Deportiboko domina jaso zuen Felixek. Baita Donostiako "Hamaika Bat" mendi taldekoek egindako omenaldia ere. Bere zaletasunaren inguruko kontuak batzen ditu.

3.154. Eibarko Club Deportiboko mendi lehiaketa (EIB-038/026)

Eibarko Club Deportiboko mendi lehiaketa edo domina jasotzeko egin beharrekoak kontaktzen ditu.

3.155. "Ehun mendi" lehiaketa (EIB-038/029)

"Ehun mendi" lehiaketaz ari da. Club Deportiboko lehiaketan parte hartzeko funtzionamendua kontaktzen du.

3.156. Eibartarrekin mendira: San Martin, Basauri eta Ojanguren (EIB-038/035)

Jose Mari Kruzeta eta Serafin Basaurirekin ere joandakoa da mendira. Baita Indalecio Ojangurenekin ere. Indalecio Ojangurenek argazkiak ateratzen zituen eta gero galerian jartzen zituen salgai.

3.157. "Mallabi motza" pertsonaia ezaguna (EIB-038/037)

"Coloniales Muñoz" biltegia non zegoen kontaktzen du eta bertan lan egiten zuela "Mallabi motza" k.

3.158. Ojanguren gizon bizia (EIB-038/038)

Indalecio Ojangurenen izaeraz aritzen da: urduria, bizia...

3.159. Mendian lo, kanpin-denda eta txaboletan (EIB-038/039)

Kanpin denda eramaten zuten mendira. Bestela txaboletan egiten zuten lo. Gorbeia aldeko gertaera bat aipatzen du. "Inaxio artzaia" aipatzen du eta "euri langarra" hitza. Kanpin dendak Club Deportiboak uzten zizkien. Nolakoak ziren orduko kanpin dendak kontaktzen du.

3.160. Mendiko bazkariak nola antolatu (EIB-038/041)

Mendira joaten zirenean guztion artean antolatzen ziren: zer erosi, zenbat... Etxera gosez bueltatzen ziren. "Infernilloa" lehenengo, gero gasolinadun sua erabili zuten.

3.161. Mendiko lagunak (EIB-038/043)

Lau lagun ibiltzen ziren gehienetan: Eustakio Narbaiza, Juan Mari Kortazar, "Boti" eta bera. Mendira nola joaten ziren eta zer zuten aipatzen du. "Petrus"ekin ere joaten zen Aralarrera.

3.162. Eibartarrak Kalamua aldera gehiago (EIB-038/048)

Eibarko jendeak Arrate, Kalamua aldera jotzen zuela dio. Galdaramiño aldera gutxiagok. Perretxikotara joaten zirela gehiago kontaktzen du.

3.163. Perretxikotan "kolpea" eman zuenekoak (EIB-038/049)

Perretxikotan "kolpe ona" jo zuen. Pagei Kortatik-Ixuara-Aginaga-Ermura. Urritxak eta urdinak hartu zituzten, dozena bana etxerako. Beste hainbeste dozena han laga zituzten.

3.164. Perretxiko-guneak (EIB-038/051)

Perretxiko-gune onak zeintzuk ziren dio: Oiz aldea, Trabakua... Felix ez zen perretxikolari ona izan. Gasteiz aldeko Landa ere gune emankorra zen. Beizuko zabal aipatzen du.

3.165. Gaztetako futbol partidak eta bere taldeak (EIB-038/053)

Umetan futboleant asko jokatzen zuen. Eibarko "Moska" taldean jokatzen zuen Jardinetan. Urko taldean eta Arratean ere jokatu zuen gerora. Eibarko Ipuruako zelaian jokatzen zuen. Kuadrilla arteko lehiaketak Txaltxa-zelaian izaten ziren.

Zazpi zazpiren aurka jokatzeko zuten. Bere sasoiaren lagun-taldeak lagun-taldeekin kontra jokatzeko zuten eta dirua jokatzeko zuten.

3.166. Arrate Futbol Taldea (EIB-039/001)

Felixek Urko futbol taldean jokatu zuen 1952an eta handik Arrate taldera joan zen, elizak sortutako talde bat. Gerora, Arratek eskubaloira jo zuen gehiago. Garai batean talde polita izan zen Arrate. Eibarrek ezin izaten zion Elgoibarri irabazi eta Arratek, ostera, Ipuruan Elgoibarri irabaztea lortu zuen.

3.167. Ipurua futbol zelaia eta "Rancho Grande" (EIB-039/002)

Ipurua futbol zelaiaren ostean "Rancho Grande" izeneko txabola eta ingurunea zeuden, Arruabarrenatarrena. Eibarrek jokatu behar izan zuen partida batzuk gogoratzen ditu. Ipurua egin zenean zelaia besterik ez zegoen, ez harmailarik eta ez ezer. Eta atzeko aldean "Rancho Grande".

3.168. Umetan pilotan egiten zuten edozein hormatan (EIB-039/003)

Ume guztiak pilotan eta futbolekin aritzen ziren egun osoan. Felixek batez ere pilotan egiten zuen, bai Jardinetan, bai Alhondigako hormetan, bai parrokiaren aurka... Etxeatik bizilagunak haserretu egiten ziren pilotakadengatik.

3.169. Eskuz egindako pilotak eta putsezko baloiak (EIB-039/005)

Pilotak harizkoak izaten ziren, etxean egindakoak. Erdi-erdian kortxoak (botila bati kendutakoak) edo goma zati bat jartzen zitzairen eta inguruan haria. Eta, amaitzeko, josi. Norberak egiten zituen. Erositakoak ere bazen, Maria Ospitaleneko dendan erositako larruzkoak. Lehenengo baloiak "putsak" izaten ziren, gomazkoak. Errazegi zulatzen ziren. Larruzko bat ere izan zuen Felixek, baina puztera eramane eta lehertu egin zitzaion. Behin adin batera heldu zirenean, 12-13 urtetik aurrera, kuadrillan diru pixka bat jartzen hasi ziren materiala erosteko.

3.170. Maomaren bizikleta denda (EIB-039/006)

Bizikletan ez zen ia inoiz ibiltzen; etxean ez zioten lagatzen. Ezkutuan ibiltzen zen, lagun baten utzita. Bizikletak alokatzen zituen denda bat ere bazegoen Isasi kalean, "Maoma" ezagunarena (Magunazelaia).

3.171. Txanponak: txakur txikia, erreala, pezeta... (EIB-039/007)

Gazte denborako txanponak: txakur txikia, txakur handia, erreala, erreal bikoia eta pezeta. Pezetatik gorakoak papera ziren: pezeta bat, bi, bost, hogeita bost... Hortik gorakoak handiak ziren. Bere gurasoen garaian xemeikoak ere baziren (zentimo bat). Txakur txikia eta handia kobrezkoak ziren; errealak nikel itxurakoak eta zulodunak.

3.172. Lambretta lantegian urtebetez (EIB-039/008)

Behin Armeria Eskolako ikasketak amaituta, Ayra Durex lantegira joan zen. Eskolak amaitu eta egun gutxira hasi zen lanean; 17 urte zituen. Handik urtebetera Alfara joan zen. 1962 inguruan Lambrettatik deitu zioten: enpresa ez zihoan batera ondo eta enpresa salbatzeko ahalegina eskatu zioten Felixi. Urtebete ondoren Alfara itzuli zen. Lambretta enpresa oso ondo hasi zen, indar

handiz eta irabazi askorekin. Baina enpresa sortu eta gutxira beherakada hasi zen: batetik, automobilen gorakada etorri zelako eta bestetik, Lambretta motor baten kostua handia zelako.

3.173. Margarita Murgizu eta Jesusa Arregi irakasleak (EIB-039/010)

Eskolara Alhondigara joan zen eta gero Jardinetara. Urtebetez Margarita Murgizu irakaslearekin ere ibili zen, partikularrean. Handik Jesusa Arreginera ere joan zen. Murgizu eta Agirre bezala, beste hainbat irakasle eta akademia ere izan ziren. Ezagunena, Academia Urtiola (Urtiaga eta Olano). Horrelako akademia eta eskoletan, gehienbat, kontabilitate kontuak irakasten zituzten. Murgizuk ume talde ederra izaten zuen.

3.174. Ixu Eguna eta ur bedeinkatua (EIB-040/002)

Aste Santuan "Ixu Eguna" izaten zen. Su eta ur bedeinkatua hartzen zen elizan eta etxerik etxe banatzen zen. Ixua egur ihartua da. Umeak ixu zati batekin joaten ziren elizara, su berri bedeinkatua hartu eta etxerik etxe banatzen zen. Eta ur bedeinkatua ere banatzen zen. Ur bedeinkatu hori gero etxeetan gordetzen zen eta gaixoei erabiltzen zen. Sua eta ura parrokia barruan bedeinkatzen ziren.

3.175. San Blas eguneko bedeinkapenak parrokian (EIB-040/003)

San Blas etako tipikoa opilak eta hariak dira. Eztarran jartzen diren hariak. Haria astebetean erabiltzen zen eta gero sutara bidali. San Blas egunean meza izaten zen parrokian. Hariak, opilak eta frutak bedeinkatzen ziren. Bartolok eta Agustinek San Andres parrokian ezagutu dute beti, baina lehenago Santa Ines elizan izaten ziren mezak eta bedeinkapenak. Sanblas opilak bi motatakoak ziren, bata oraingo opilen estilokoak, eta besteak ogiz egindakoak, gainean ezitia, arrautzak eta frutak zituztela.

3.176. San Andres Eguna ez zen jai izaten (EIB-040/004)

San Andres Egunak gorabehera handiak izan ditu. Garai batzuetan jai egin izan da, baina beste batzuetan laneguna zen. EAJk jai nahi izaten zuen, eta, azken urteotan, azoka handia ere badago. Baina Bartoloren gazte denboran, ez zen ezer izaten. Eibarko patroia zela, baina ez zen ezer berezirik ospatzen.

3.177. Eibarko lehenengo abertzaleak eta batzokiak (EIB-040/005)

Eibarko lehenengo batzokian, Errebal kalekoan, frontoia eta antzokia zeuden. Baita lehenagoko batzokian ere, Bidebarrieta kalean. Garai hartan abertzaleei "bizkaitarrak" esaten zitzairen.

3.178. Eibarren sozialistak eta errepublikazaleak nagusi; abertzale bakarria udaletxean (EIB-040/006)

1920-1930 inguruan oso abertzale gutxi zegoen Eibarren; gehienak sozialistak eta errepublikazaleak ziren (19 zinegotzitik 18). Abertzale bakarria zegoen udaletxean, Joakin Elorza. Sozialistak ziren nagusi eta errepublikazaleak ere asko ziren (Eulogio Garate, Mateo Kareaga, Bustinduitarrak...). Errepublikazaleen lokala Txiriokaleko lehenengo etxean zegoen (gaur egun Dardai soziedadea).

3.179. Billar mahaiaik Eibarko taberna gehienetan (EIB-040/007)

Garai hartan elkarte eta egoitza guztietan billarra izaten zen: Casinoan, Modernoan, Salon Crucetan, alderdien egoitzetan (Errepublikazalean, Casa del Pueblon...), Rialtoan,... Hori bai, beti hiru bolako billarra; zulodunik ez. Txapelketak ere izaten ziren.

3.180. Lehenengo Aberri Eguna eta alderdien arteko liskarrak (EIB-040/008)

Bidebarrietako batzokia txikia zen. Etxe bateko lehenengo solairua. Bartolok lehenengo Aberri Eguna gogoratzen du. Egun horretan sozialistak batzokira sartu eta ikurrina Untzagan erre egin zuten. Abertzaleen eta sozialisten arten sarri izaten ziren liskarrak. Abertzaleak askoz gutxiago ziren eta "hartzea" egokitzen zitzairen. Abertzaleen artean Satur Olariaga zen ezagunena. Bere arreba Matea ere ezaguna zen, taberna zeukalako.

3.181. "Perderreneko" sutea izan zenekoa (EIB-040/009)

Ibarkurutzeko "Perderrenian" sutea izan zen egun batean (Garatetarren etxea). Kartutxoak saltzen zituzten bertan. Zigarro baten erruz su hartu omen zuen bai dendak eta bai etxe osoak. Azkenengo solairuan Matea Olariaga bizi zen; bosgarren solairutik salto egin behar izan zuen eta bizirik irten. Orduetik aurrera, bizitzako kontu guztiak lasaitasun osoz hartzen omen zituen. Beste batzuek aizkora batekin zuloa egin eta teilatura irten zuten.

3.182. Eibarren 4-5 etxe bakarrik ziren porlanezkoak (EIB-040/010)

Etixerik gehienak egurrezkoak ziren. Gerra aurretik 2-3 etxe bakarrik ziren zementozkoak: Banco Guipuzcoano, Gautxorineko etxeak Untzagan, Ciriaco Agirre medikuaren etxea parrokiaren aurka eta besteren bat. Udaletxea ere zementuzkoa zen (Eibarko lehenengoa).

3.183. Eibarko suhiltzaileak (EIB-040/011)

Etixerik gehienak egurrezkoak ziren eta suteak sarri gertatzen ziren. Tximinia inguruak larregi berotu eta suteak berehala hasten ziren. Suhiltzaileak ere baziren garai hartan. Hainbat lan egiten zituzten, baita hildakoen gorpuak eramane ere (seniderik ez zenean). Suhiltzaileen egoitza Kontsejuzarrean zegoen, parrokia parean. Beheko solairuan, sartu eta eskuinera. Hasiera-hasieran ez zeukaten ezta materialik ere. Eskailera berria ekarri zutenean aurrerakada handia izan zen, Magirus frantses bat.

3.184. Kontsejuzarra: suhiltzaileak, aguazilak eta dibujoeskola (EIB-040/012)

Kontsejuzarrean hainbat kontu biltzen ziren: suhiltzaileak, marrazki-eskola, aguazilen egokitza... Sarreran arkupe bat zeukan eta Eibarko kalabozoa ere bertan zegoen, aguazilen alboan. Goiko solairuan dibujo-eskola zegoen (hainbat irakasle zeuden, Olabe, Artamendi, Zulaika... Eibarren ume askok ikasten zuten dibujoa, armagintzarako eta grabaturako garrantzitsua zelako.

3.185. Eibarko umeak arma artean lanean (EIB-040/013)

Bartolo 11 urterekin hasi zen lanean. Garai hartan arrunta zen hori, umeak gazte-gazterik lanean hastea. Umerik gehienek arma-lantegietan egiten zuten

lan eta anekdota deigarriak gertatzen ziren, sarri ikusten zirelako ume txikiak armaz josita Eibarko kaleetan.

3.186. Unamuno pentsalariak Bergara aldeko jatorria (EIB-041/002)

Ama Eibarren jaio, baina Arrasate aldeko jatorrikoa. Unamuno zuen abizena aitona batek, eta Miguel de Unamunoren senidea izango ei zen, Unamuno eta Aranzadi lehengusuak zirelako, eta azken hau bergararra zelako.

3.187. "Organistakoak", aitaren familiaren gatzizena (EIB-041/003)

Jaiotetxearen kokapena. Aitaren familiari "Organistakoak" esaten zitzairen, senide bat parrokiako organista izan zelako. Musikari ona ei zen.

3.188. Fidel Castro, osabaren musika-ikaslea izan zen (EIB-041/004)

Laureano Gisasolaren semea Kubara joan zen, eta han frontoiko intendente egin zuen lan. Bi semeak Eibarrera bidali zituen aitarekin heztera. Bietako bat Kubara itzuli zen, hango ikastetxe onenetako batean eman zituen klaseak, eta Fidel Castroren irakaslea izan zen.

3.189. Gisasolatarrak eta Sarasuatarrak musikazale (EIB-041/005)

Juan Bautista Gisasola, osaba, oso musikari ona izan zen. Organista izateaz gain, orfeoiko zuzendari ere bazen eta asko maite zuten kantariak. Gaztetan aitak Salamancara bidali zuen abade izateko, baina ez zuen bokaziorik. Konpositorea ere izan zen. "Atxia motxia" egin zuen, esaterako, Sarasuarekin batera. Sarasatuarren familiako kontuak. Askok zuten musika zaletasuna. Antoniok Carlos Mungia tenorea Eibarrera etorri zenean pianoan lagundu zion. Belarri ona eta sentsibilitatea izan du kanturako, baina ahotsik ez.

3.190. Aita, errepublizale federalista (EIB-041/006)

Gaztetatik hasi zen ofizioa ikasten. Aita errepublikazale federalista zen, Pi i Margall-en jarraitzailea. Zinegotzia izan zen errepublika denboran. Gero kartzelan egon zen, 12 urteko kondena eskatu zioten, besteak beste Asturiasko Concejo-rako dirua grabatzeagatik.

3.191. Errepublika denborako Eibarko Udala (EIB-041/007)

Sozialistak irabazi zituzten 31ko udal-hauteskundeak eta errepublikazaleak geratu ziren bigarren. EAjk bakarra atera zuen. Sozialistek alkatetza eskaini zieten baina ez zuten onartu. Alejandro Telleria "Alkate Txikixa" jarri zen.

3.192. Eibarren Errepublika aldarrikatu denbora baino lehen (EIB-041/010)

Irungo bi gizon etorri ei ziren Eibarrera errepublika aldarrikatuta zegoela esanez. Bandera ipini eta gero galdezka hasi ziren han eta hemen, eta inork ez zekien ezer. Beldurra. Alfonso XIII.ak alde egin zuen eta odolik isuri gabe heldu zen errepublika.

3.193. 34ko Iraultza (EIB-041/011)

Lau urte zituen bakarrik, baina badu "34 Iraultzaren" oroimen txikiren bat. Aita zuri-zuri etorri ei zen etxera. Zenbait sozialista, Toribio Etxebarria esaterako, ez ziren "iraultza" haren aldekoak izan.

3.194. Aita eta aitona grabadore onak (EIB-041/012)

Aita grabatzaile ona zen eta aitaita Kaietano ere bai. Behin aitaita Gernikara eraman zuten, erregea zetorrela-eta, erakustaldi bat egitera. Orduko anekdota.

3.195. Osaba Periko arma askoren asmatzaile (EIB-041/013)

Bartzelonako Museoko kide baten bidez jakin zuten beren osaba Perikok arma askoren patentea zuela, asmatzailea zelako. Gernikako Astra fabrian egin zuen lan. Diru asko egin zuen royaltiekin. Lau seme izan zituen baina batek ere ez zuen haren bidea jarraitu.

3.196. Aitaitak 11 urterako batxilerra eginda (EIB-041/014)

Hartu-emon handia zegoen armagileen artean. Eibartar batek sortu zuen Gernikako Astra fabrika. Aitaitak esaten ei zuen 11 urterako eginda zuela batxilerra. Estudio barik, grabatzaile bikaina izan zen.

3.197. Placido Zuloaga, damaskinatuaren aita (EIB-041/015)

Placido Zuloaga izan ei zen damaskinatuaren aita. Irandar batek egindako haren bilduma bat ikusi zuen Bilbon eta zoragarria iruditu zitzaion. Aitaita ere haren belaunaldikoa zen. Sarri joaten zen haren etxera umetan.

3.198. Kaietano Kareaga, gizon maitea Eibarren (EIB-041/016)

Gizon estimatua izan zen aitaita Kaietano. Umore eta filosofia handiko gizona. Gabonetan giro aparta egoten zen etxean. Berriketa, broma eta umorea nagusi.

3.199. Eibarko kalean euskara biziagoa eta hobea (EIB-041/017)

Aitaitak hika egiten zien denei, emazteari izan ezik. Euskaraz erraz eta aberats egiten zuten. Kalean baserrian baino azkarrago eta hobeto egiten ei zen.

3.200. Eibarren guardia zibilen semeak ere euskaraz (EIB-041/018)

Eibarren dena euskaraz egiten zen. Guardia zibilen semeek ere berehala ikasten zuten. Tailerrean ere euskaraz; erreminten izenak ere bai. Unibertsitate onenetan ikasi ei du euskaraz: etxean, kalean eta lantegian. Jendeak euskaraz egiten zuen, baina ez ideologiatik. Amamak ondo egiten zuen erdaraz, gaztetan inude egon zelako Araban, baina aitaita Kaietano gaizki konpontzen zen. Zahartzarora hobetu zuen bere erdara.

3.201. Eibarren pistolak eta ehiza eskopetak lehenengo, bizikletak eta josteko makinak gero (EIB-041/020)

Aitaitaren eta aitaren tailerrei buruzkoak. Lehenago peoretan (ataria) egoten ziren tailer gehienak. Estriak atera, damaskinatua eta abar etxeetan egiten ziren. Antzina pistolak egiten ziren batez ere Eibarren, baina krisia etorri zen eta armagileak ehiza eskopetak, bizikletak eta josteko makinak egiten hasi ziren.

3.202. Aitaren tailerra (EIB-041/021)

Tailerra nolakoa zen. Miradorera begira egiten zen lan, argi naturalarekin ahal zela. Paulino Larrañagak beti eguzki-argiarekin egiten ei zuen lan.

3.203. Ofizioa nola ikasi zuen (EIB-041/022)

Aita hiru urtez kartzelan. Akademian marrazkigintzan ikasi zuen, eta gero aitaren tailerrean ikasi zuen ofizioa. Gero Armeria Eskolan ibili zen. Marrazkigintza artistikoa ikasten zen, kopiatzen gehienbat, eta gero gubilean dakienaren ondoan jarrita.

3.204. Damaskinatzaile asko Eibarren (EIB-041/023)

150 bat damaskinatzaile izango ziren Eibarren. Pikatzaileak, pabonadua... Honetaz aparte, gauza asko egiten zen Eibarren: bizikletak, josteko makinak...

3.205. Ofizioaren sekretuak ikasten (EIB-041/024)

13 urterekin aitaitak lanera eraman zuen eta marrazten ipini zuen. Gero gubilean. Gero "reliebian", baina horretarako, modelauan ikasi behar, argizariarekin edo buztinarekin. Berak ez zuen damaskinatua ikasi.

3.206. Apaindura-langintza ezberdinak (EIB-041/025)

Damaskinatzaileek eskopetan egiten zuten lan. Aita-eta "industrializatu" egin ziren, trokelak egiten hasi ziren: domina, xaboi, gailleta eta horrelakoentzat. Sarrailagintzarako ere bai. Barietate handia zegoen. Horregatik ez zen lanik falta.

3.207. Damaskinatua (EIB-041/026)

Lehenengo altzairua pikatu egiten da, zulatu, eta gero urrezko edo zilarrezko hari mehea sartzen da. Gero hori pabonatu egiten da: altzairua belztu. Hor dago kontrastea: urrea gorri-gorri eta fondo beltza. Gero "sonbriau" puntzoiaz.

3.208. Gubila (EIB-041/027)

Eskopeta-baskulak gubilaz apaintzen ziren. Seriean egiten ziren. Lan finak ere egiten ziren errielebean gubilaz. Gubilista on bati buruzkoak.

3.209. Grabadoreen lana (EIB-041/028)

Errielebearen prozesua azaltzen du. Grabadoreek normalean gubilaz eta zintzelaz egiten zuten. Damaskinatzaileek damaskinatua soilik, normalean. Marrazkigintzan estilo ezberdinak zeuden: errenazimendua, modernismoa...

3.210. Aitaitak damaskinatu zuen erlojua (EIB-041/029)

Gaitzena, bere ustez, reliebea, zintzelatua ei da. Aitaitak damaskinatutako erloju baten apaindura berezia, berak lortu ezin zuena. Aitaren esanak.

3.211. "Repujaua" (EIB-041/030)

Aitaita izango ei zen damaskinatzaile onenetarikoa. "Repujaua" zer den. Garai hartan diziplina bat zegoen baina galtzen joan da hori.

3.212. "Grabaua" (EIB-041/031)

Behin bakarrik grabatu du eskopeta bat. Kapritxoso batek onenetan onena nahi zuen eta berari ekarri zion grabatzeko. Kijote-aren eszenak egin zizkion eta oso pozik utzi zuen. Eskopeten baskulak grabatzen ziren batik bat. Lantegian zein kanpoan egiten zen lan hori. Baserrietan ere egiten ziren.

3.213. Ortua eta txerriotokia bizi irauteko (EIB-043/028)

Arrateko abade-etxe ondoan ortua eta txerriotokia jarri zuten bizitzeko; ostatua itxi ostean bizi iraun egin behar zelako. Nolakoak ziren Arrateko inguruak kontatzen du.

3.214. Abade-etxe inguruak (EIB-043/029)

Arrateko abade-etxe lorategia eta Arrateko eskola non zeuden eta nolakoak ziren aipatzen du. Baita bertako eskola eta maistra ere.

3.215. "Tiro pitxoia" (EIB-043/033)

Arrateko eskola bota eta "tiro-pitxoia" eraiki zuten, 50 hamarkadan.

3.216. Kamioiak Arratera (EIB-043/034)

Gizartearekin batera Arrateko bizimodua ere aldatu egin zen. Kamioiak igotzen ziren Arratera jendea igotzeko eta kamioi-gidariak ditu ahotan. Baita Arratera igotzeko ipini zituzten autobusak ere.

3.217. Don Pedro gidari lanetan (EIB-043/036)

Gidatzen ikasi behar zuela erabaki zuen Maritxuk. Ordura arte Don Pedro abadea aritzen zen Arratetik jendea igo eta bajatzen.

3.218. Arrateko zelaiko konponketak (EIB-043/038)

"Txirloia" gaitzizena zuen abeslariak eta koruak aritzen da. Arrateko zelaian egindako konponketak aipatzen ditu.

3.219. "Partxua" baserria (EIB-043/040)

Arrateko "Partxua" baserriko argazkiak erakusten ditu . Oso baserri hotza zen eta gertaera txikiak aipatzen ditu. "Partxua" baserria ez zela bizitoki egokia iritzi eta bota egin zuten.

3.220. "Partxua" baserria bota ostekoak (EIB-043/042)

Arrateko "Partxua" baserria kendu eta bertako bizilagunak Amañara joan ziren. Baserria bota egin zuten.

3.221. Ostatua elizak erosi zuen (EIB-043/043)

Arrateko ostatua egin zuen Maria "itziartarrak". Gero, elizak erosi zuen. Don Pedro abadeak dirua batu zuen eta ostatua nola jarri zuen martxan kontatzen du.

3.222. Kantabria gerra ostean (EIB-043/046)

Gerra ostean, Arrateko Kantabria baserria Maria Iraegirena zen. Gerora, saldu egin zuten. Etxearen kontra-kontra bazuen galeria handi bat: jantokia. Dominga zen bertako jabea eta Kantabria baserriaren izena nondik datorren azaltzen du. Ganadua eta ortua zituen.

3.223. Arrate eguneko mezak (EIB-043/048)

Arrate Egunean meza asko egiten ziren, lehenengoa goizeko 7etan.

3.224. Arrate Irratia 1959an sortu zuen Don Pedro abadeak (EIB-044/006)

Arrate Irratia Don Pedro abadeak jarri zuen. Lehenengo-lehenengo etxean bertan ipini zuen. Arrantzaleentzat eta baserritarrentzat irrati bat sortu nahi zuen, haiei laguntzeko. 1959 inguruan sortu zuten Arrate Irratia. Hasieratik euskara hutsean izan zen. Horrek arazoak ekarri zizkion eta bi aldiz itxi zioten. Irratiaren inguruko kontu teknikoak gerratean ikasi omen zituen Don Pedro Gorostidik.

3.225. Tiro Pichon ingurua 1950 inguruan (EIB-044/008)

Bere argazki zaharrei begira Tiro Pichon inguruko terrenoko obrak azaltzen ditu.

3.226. Gerraostean preso egon zen hainbat hilabetez (EIB-045/001)

Gerra osoa igaro zuen. Gero, kartzelan, kontzentrazio-esparruan. Ondoren, Toledoko lantegi batean lanean jardun zuen eta handik Mirandara bidali zuten. 2-3 egun Mirandan egin ondoren, trintxerak egitera bidali zuten Elizondo ingurura. Han zegoela, ofizial batek arma bat eman zion konpontzeko eta Eibarrera itzuli zen egun batzuetarako (hainbat hilabetez Eibartik kanpo egon ondoren). Deustun beste 6 hilabete egin zituen, hango kartzelan. Hori guztiori igaro ondoren, duela urte batzuk kalte-ordainak jasotzeko ordua iritsi zenean, Agustini ez zioten kalte-ordainik eman nahi izan.

3.227. Gerra denuntzia asko herritarren artean (EIB-045/002)

Gerra garaian, denuntzia asko egon ziren herritarren artean. Gaizki-ikusiak eta zorrak tarteko, denuntzia asko izan ziren, gehienetan oinarririk gabeak.

3.228. Batallón de Trabajadores (EIB-045/004)

Eibarren ere izan ziren "trabajadoreak" (Batallón de trabajadoresekoak). Azitaingo jauregian bizi ziren. Agustín Irunen izan zen trintxerak egiten. Bidebarrieta-Errebal inguruko etxe guztiak trabajadoreek egin zuten.

3.229. Isasiko mojan zaindu zituen gerran (EIB-045/005)

Gerra hasi zenean egun batzuk Isasiko komentuan igaro zituen, hango mojak zaintzen (badaezpada). Mojak ebakutzeko orduan ere, Agustinek eraman zituen Zeanurira.

3.230. Loiola batailoia (EIB-045/006)

Loiola batailoiaaren lehenengo erasoak San Andres egun batean izan zen, Legution. Handik aurrera, "beti atzerutz!". Loiola batailoian eibartar asko zegoen; burua ere eibartarra zen, Beistegi.

3.231. Mirandako kontzentrazio-esparruan sei hilabete (EIB-046/016)

Sei hilabete egin zituzten kontzentrazio-esparru batean. Laredotik Mirandara bidali zituzten kontzentrazio-esparrura. Ume batek esandakoak gogoratzen ditu.

3.232. Mirandako kontzentrazio-esparrua eraikitzen (EIB-046/017)

Mirandako kontzentrazio-esparruan sartu eta abade batek diskurtsoa egin zien. Eliza eta guzti zegoen han barruan. Euskaldunak ziren elizako abesbatza kantatzen zutenak. Txabolak haiek sortu zituzten. Manta eta koilara ziren bakoitzaren jabetza bakarrak, ondo zaindu beharrekoak. Italiarrek ekonomatoa bertan zuten eta preso zeudenek deskargatzen zituzten haien trenak; beti harrapatzen zuten jateko edo erretzeko zerbeit.

3.233. Jateko bila (EIB-046/018)

Hasieran ondo ematen zieten jaten Mirandako kontzentrazio-esparruan. Gero gosea pasatu zuten. Sukaldera laguntzaile moduan joan zen eta soberan gelditutako janaria leihotik behera botatzen zien presoek. Segituan bidali zuten sukaldetik.

3.234. "Saltaparapetos" edari alkoholoduna (EIB-046/019)

Irunera bidali zituzten lubakiak egitera. Gertaera bat kontatzen du: "Saltaparapetos" izeneko alkohola zertarako erabiltzen zuten. Kantinplorak beteta edukitzen zituzten. "Casivino" ardoa ere egiten zuten "saltaparapetosa"rekin.

3.235. Astoa akabatu eta jan (EIB-046/020)

Astoa hil eta jan egin zuten. Lagunarena zen astoa.

3.236. 1923an jaio zen (EIB-052/002)

1923an jaio zen. Herritarrei asistentzian eta bestelakoetan laguntzen lan egiten du.

3.237. 1964an gaixo ezinduentzako elkarte (EIB-052/004)

1964an umeen buruko paralisiaren brote bat egon zen eta guraso talde bati esker zabaldu zen patronatua. Hasieran fisioterapia ematen zen eta gerora helduak ere bertaratzen zirenez, gizarte segurantzakoekin elkartu eta 1975ean zahar nahiz gazteentzako jarri zuten lokala.

3.238. Elkarteko medikuak (EIB-052/005)

Urteetan bertatik pasa diren medikuak izendatzen ditu.

3.239. Mercedes, doktrinako andereño (EIB-052/011)

Zazpi urte zituela Mercedes Kareaga eibartarrak hartu zuen Mari Tere; doktrinaren bitartez ezagutu zuen. Anekdotak bat aipatzen du. Mercedes doktrinako andereñoa zen, eta Mari Tereren ahizpa eta beste lagun batzuk lehiaketa batera eraman zituenekoa kontatzen du.

3.240. Euskaldunek doktrina euskaraz (EIB-052/012)

Guraso euskaldunak zituztenak doktrina euskaraz ikasten zuten. Mari Tereren aitak ez zekien erdaraz, anekdotak bat kontatzen du.

3.241. Igande arratsetan ebangelioa (EIB-052/013)

Doktrina euskaraz ikasi zuen, Eibarko parrokiako sakristian erakutsi ohi zieten. Mercedes zen denen buru eta katekistak zituzten. Don Felis Martiegi aipatzen du, doktrinako irakaslea hau ere. Arratsaldeetan joaten ziren doktrinara eta igande arratsaldeetan ebangelioa euskaraz idatzita eraman behar izaten zioten Don Felisi.

3.242. Batzokiko antzerkiak (EIB-052/014)

Igandeetan sakristiatik ateratakoan antzerkia edukitzen zuten Eibarko batzokian; irakasleak izendatzen ditu.

3.243. 1951ean Goi Argi elkarteak sortu zen (EIB-052/015)

Eibartarrak euskaldunak ziren, Mari Tereren etxean ez zen erdararik entzuten. Gerratik bueltatzean neskak ezkontzeko prestatzen zituen Mercedesek, Goi Argi izeneko elkarteak sortu zen 1951ean.

3.244. Emakumeen elkarteak ez zen ohikoa (EIB-052/016)

Eibarko Goi Argi elkarterako diru bila kutxara joan eta gertatutako anekdotak bat kontatzen du. Garai hartan ez zen normala emakumeen elkarteak ikustea, emakumeak gizon eta senargaiekin joaten ziren eta "bolauak" eta txokolata hartzen zituzten bertan.

3.245. Emakumeak tabernara sartzea gaizki ikusia (EIB-052/017)

Emakumeak tabernara sartzea gaizki ikusia zegoen eta Eibarko Goi Argi elkartera joaten ziren arratsaldea pasatzera. Elkarteak sortu zutenak izendatzen ditu.

3.246. Sukaldaritza eta josten ikastaroak Goi Argin (EIB-052/018)

Neskentzat eguneroko otorduak prestatzeko sukaldaritza eta josten ikasteko ikastaroak ematen ziren Eibarko Goi Argi elkarteetan. Kanpotik medikuak eramaten zituzten hitzaldiak ematera.

3.247. Victor Sarasketa eta printzipea (EIB-052/021)

Bitor Sarasketa kalean bizi izan zen, ezaguna zen Victor eta berari Erregearekin gertatu izan zitzaizkion anekdotak kontatzen ditu. Mari Tere printzipearekin egon zenekoa.

3.248. Sarasketa lantegia eta sendia (EIB-052/022)

1941ean 17 urte zituela hasi zen Eibarko Victor Sarasketa lantegian lanean. Takigrafia eta bestelakoak ikasten hasi zen han lan egiteko. Sarasketa lantegiaren aipamena eta sendi hartakoak izendatzen ditu.

3.249. Garia ebaten egindako zauriak (EIB-068/006)

Garia nola ebakitzen zuten kontatzen du eta egindako zauriak nola sendatu zituen. Don Candido Mujika botikariak garbitu zion zauria.

3.250. Eguarbitzan tropak sartu ziren (EIB-068/030)

Eibarren Eguarbitzatik sartu ziren tropak; Migel Lindarin zegoen momentu hartan. Bandera ipintzen ikusi zituen eta gero etxera bueltatu zen. Beraien baserrian ezkutatuta zeuden Pastoranekoak. Frontea Eibarren egon zenean Eibarren egon zen. Gernikako bonbardaketak Amorebietan harrapatu zuen, Gernikako bidean.

3.251. Astelena frontoia adituen bilgune (EIB-068/031)

Eibarko Club Deportiboko taldearekin 14 urterekin hasi zen pilotan. Frontoi Zaharrean jokatzen zuten batik bat. Eibarko Frontoi Zaharrean ere "baratoa" jarri zuten. Eibarko Astelena pilotalekua berezia zen. Bertan irabaziz gero Euskal Herriko beste pilotalekuak zabalik izango zituen pilotari horrek. Adituak bertan egoten ziren.

3.252. Gaixoarena egiten, frontera ez bueltatzeko (EIB-068/036)

Gasteizko ospitalean aurkeztu zen Terueldik ekarritako kartarekin. "Hospital militar"ean egon zen, eta gaixoarena egiten jardun zuen, horrela, tarte batean frontera ez bueltatzeko.

3.253. Partida garrantzitsuak jokatzen hasi zen (EIB-068/037)

Ez zen frontera bueltatu. Kuartelera bueltatu behar izan zuen eta partiden munduan hasi zen. Baimenak emanda jokatzen zituen partidak. Hirugarren partidatik aurrera, laster egin zuen salto Migelek. Hiru urte egin zituen frontean eta kuartelean.

3.254. Ibilbide profesionalean aurrera (EIB-068/038)

Gerra bukatu zenean pilotan jokatzeari serio ekin zion. 20 urte zituela Gros pilotalekuan jokatu zuen. Bere lehenengo partiden berri ematen du: Mundaraz, Lazkano... izan zituen aurkari.

3.255. 1942ko pilota mundua (EIB-069/001)

1942ko pilota partidak. Berarekin pilotan ibili zirenen aipamena egiten du.

3.256. Aurrelariak soldata hobea (EIB-069/002)

Pilotan, aurrelariak diru gehiago kobratzen zuten atzelariak baino. Onaindia, Txikito Iraeta etab. aipatzen ditu; Bidarte zuen aurkari gogorra. Enpresatik kanpo jokatzeko zuten partidak kanpoan eta hemen 3 hilabete baino gehiago irabazten zuten han. Enpresakoei aurrelari gisa jokatzeko zuela proposatu zuten eta denek irabazi zuten. Partida bakoitzeko kobratzen zuten. 1947 inguruan hasi ziren kontratuak egiten.

3.257. Migelen aurka jokatzeko diru gehiago (EIB-069/003)

1945ean, 10 hilabete baino gehiago 105 partida jokatu zituen. Migelen aurka jokatzeko diru gehiago eskatzen zuten pilotariak.

3.258. 1948an txapelketa (EIB-069/004)

Lehenengo txapelketa 1942an jokatu zuen Feliperen aurka. Bi urtean behin jokatzeko txapelketa; ondorengo urteetako emaitzak ematen ditu. 1948an txapelketa izan zen, 4 partidatik 4 irabazita.

3.259. Atano pilotan lehenbiziko ikusi zueneko (EIB-069/005)

Atano pilotaria; lehenbiziko aldiz pilotan jokatzeko ikusi zueneko kontatzen du. Pilotari gustukoak izendatzen ditu.

3.260. 1948ko txapelketako kontuak (EIB-069/006)

1948an finalera iristeko, finalerdietan 4 partida jokatu zituen, Txikito de Iraeta eta Akarregirekin. Otsailean frontoiak hezetasun handia izaten zuten, baina hala ere irabazi egin zuten finala.

3.261. Pilota lehen eta orain (EIB-069/008)

San Juanetan Eibarren bost egunez egoten ziren partiduak, eta pilotaririk onenak eramaten zituzten. Pilota garai batetik hona nola aldatu den azaltzen du. Garai bateko pilotek ez zuten gaurkoek duten boterik eta kirolarien arteko errespetua gaur baino handiagoa zen.

3.262. Takorik gabe jokatzeko diru gehiago (EIB-069/011)

Garai hartan ez zuten eskuetan takorik jartzen, esparatrapua bakarrik. Pilota gozatzeko ez bada berak nahi duen tokira joaten da Migelen ustetan. Gaurko pilotak erdia trinketekoak eta beste erdia zesta puntakoak direla iruditzen zaio.

3.263. Entrenamendu aurretik etxean aikorak (EIB-069/012)

Lehenengo pilotak Atano anaiek egiten zituzten. Migelengana joaten ziren beste pilotari batzuk entrenatzera. Frontoira entrenatzera sartu aurretik, baserrian aikorak egiten zuten beti. Berdura, oilaskoa eta arraina ere jaten zituen, baina tamainan.

3.264. Sakea librea txapelketetan (EIB-069/014)

Sakearen inguruko azalpenak: 3 koadro eta 3 koadro eta erditik egin ohi zuten normalean, baina txapelketetan librea. Madrilgo partidu batean pasatako

anekdota bat kontatzen du. Txaketa eramateko ohitura egon zen 1944ra arte. Zuriz jantzita joaten zen eta harizko gerriko gorria eramaten zuen.

3.265. Pilotari gustukoenak (EIB-069/015)

Pilotari gustukoenak: Atano VII, Onaindia, Etxabetarrak...

3.266. Hainbat partidaren inguruko kontuak (EIB-069/016)

Iruñeko frontoi bat inauguratu zutenekoa kontatzen du. Hainbat partiduren inguruko azalpenak.

3.267. Munduko pilotari onenekin Madrilen (EIB-069/017)

1945ean Madrilen munduko pilotari onenekin jokatu zen jaialdi bat aipatzen du; Onaindia-Kortabitarte, Atano III-Gallastegik jokatu zuten eta Migelek eta Atano III-ak irabazi zuten.

3.268. Bere ondorengo belaunaldiko pilotariak (EIB-069/018)

Hurrengo belaunaldiko pilotariak izendatzen ditu; Soroa, Arriaran, Akarregi, Ogeta, etab. Zurdorekin jokatu zuen partidu onena Eibarren izan zen 1949an ezkerka.

3.269. 1952an Barberitorekin jokatzeko zuena (EIB-069/019)

1950-1951an Akarregiren kontra jokatu zituen hainbat partidu eta irabazi egin zituen. 1952an Barberitori jokatu behar eta 40.000 pezeta agintzen zizkieten eta berak bi mila gehiago eskatzen zituen. Partidua bertan behera nola geratu zen eta zer gertatu zitzaion azaltzen du.

3.270. Eibarko Amaia antzokia egin zuen (EIB-069/021)

Koinatuak Donostian zineen ardura zuen. Harekin eta jende gehiagorekin elkartuta, Amaia antzokia sortu zuten Eibarren eta ondoren baita toki gehiagotan ere. Eibarko Amaia antzokia 1966 inguruan egina da; aurretik soroak zeuden hura egin zen tokian.

3.271. Amaia antzokian telenobela (EIB-069/022)

Enrike Balenciagarekin elkartu eta Amaia antzokian telenobela bat egin zutenekoa aipatzen du. Zineen beherakada eta saldu zituztenekoa azaltzen du.

3.272. 42 urterekin Bergaran erretiratu zen (EIB-069/026)

42 urterekin erretiratu zen Bergaran. Hotz egiten zuen eta aldageletan sua eginda berotu behar izan zuten.

3.273. Amatiño eta bere izenak (Luisal, Amatiño...) (EIB-074/001)

Amatiñok bere burua aurkezten du eta bere izenaren inguruko argibideak ematen ditu. Batzuentzat Luis, beste batzuentzat Alberto, lagunentzat Luisal, idazten hasi zenean Amatiño eta Miel Otxin... Hainbat izen erabili izan ditu.

3.274. Bidebarrietan jaio baina Untzagan bizi izan zuen ume garaia, Mototxeneko etxean (EIB-074/002)

Bidebarrieta kalean jaio zen, Muñoatarren etxean (Hotela izandako eraikinean). Dena dela, 3-4 urte zituela Mototxeneko etxera joan ziren, Untzagara (Guridi taberna gaineko etxera). Horixe izan zen bere umezaroko etxea, ondo gogoratzen du.

3.275. Ume garaiko sukaldea: arropa lehortzeko tramankulua eta ekonomika (EIB-074/003)

Bere etxeko sukaldea nolakoa zen. Amak arropa lehortzeko tramankulu bat izan zuen. Sua, berriz, ekonomika izan zuten 14-15 urtera arte, gutxienez.

3.276. Ciriaco Mendizabal, bere aitxitxa. Amortiguadores Record sortu zuen baserritarra (EIB-074/004)

Bere aitxitxa, Ciriaco Mendizabal, Bergarakoa zen, Amatiño baserrikoa. Egunero baserritik jaitsi eta oinez joaten zen lanera, Eibarrera. Gerora, Eibarren geratu zen bizi izaten. Baserritarra izan arren, hainbat enpresa jarri zituen. Lehenengoa, gaseosa-fabrika izan zen. Ondoren, amortiguadore lantegia ipini zuen (Industrias Mendizabal). Oso gizon langilea izan zen, oso gutxi ikasitakoa baina argia eta langilea.

3.277. Etxea lantegi gainean, Aldatze kalean (EIB-074/005)

Ciriaco Mendizabal, bere aitxitxak, lantegia jarri zuen Aldatze kalean, eta gainean etxea eraiki zuen familia osoarentzat. Baserritarra zenez, etxe gainean ia-ia baserri osoa jarri zuen: oilategia, baratzea, fruitarbolak, txakurrak, katuak... Luis Alberto bera ere hantxe bizi izan zen zenbait urtez.

3.278. Aitaren eraginez, euskara zen nagusi etxean (EIB-074/007)

Bere aitxitxa Ciriaco Mendizabalek lantegia sortu zuen Aldatze kalean eta gainean 3 pisuko etxea sortu zuen, 3 seme-alabendako. Amatiño eta bere familia lehenengo pisuan bizi izan ziren, aitxitxa-amamarekin. Goiko pisuetan ez zen euskararik ez ikasi eta ez egin. Lehenengo pisuan, ostera, euskaraz egiten zuten. Batez ere, Amatiñoaren aitaren eraginari esker, erabat euskaltzalea baitzen. Lehengusuek erdaldun hutsak izan ziren (horixe zen arruntena Eibarren), baina Amatiñoaren etxean euskaraz egiten zuten.

3.279. Gerra ostean oso giro erdalduna Eibarren (EIB-074/008)

Bere gaztaroko giroa erabat erdalduna zen Eibarren. 18 urte izan zituen arte, esate baterako, ez zuen jakin bere ikaskideen artean zein ote zen euskalduna. Ermuko mutil batekin bakarrik egiten zuen euskaraz. Nagusitan jakin zuen, jakin askok zekitela euskaraz, baina egin inork ere ez. Eta mutilen artean zeozer; baina neska-mutilen artean, sekula ere ez.

3.280. Aldatze kaleko etxea, baserri kutsuarekin eraikia (EIB-074/009)

Aldatzeko etxea oso ederra zen. Aitxitxak berak egin zuen, bere modura. Umetan bizi izateko oso egokia zen. Mendia bertan zuen, frontoi txiki bat ere bazuen, urtegi txiki bat ere bai (tailerrerako erabiltzen zena),... eta umeentzat oso leku erakargarria zen. Aitxitxak ortua ere bazuen (porruak, tomate...),

oilategia... Aitxitxa baserritarra zen eta lantegi gainean ia-ia baserria sortu zuen. Janariari, gainera, garrantzi berezia ematen zion (sasoi hartan ez zen batere arrunta).

3.281. Aitxitxa Ciriack ukendua egiten zuen etxean (EIB-074/010)

Aitxitxa baserritarra zuen eta ukendu eta sendabelarrak asko erabiltzen zituen. Pasmobelarrarekin oso ukendu ona egiten zuen eta auzotarrei banatzen zien. Beheko sua ere bazuten etxean (baserrikoaren antzekoa) eta su gainean Kefir estiloko onddo moduko bat izaten zuten. Onddo horrek sortzen zuen likidoa ere hartzen zuen aitxitxak. Lotara joan aurretik, eukaliptoa jartzen zuen ur beroarekin, bere lurrunarekin lo egiteko. Enpresa gizona zen, baina baserritar petoa zen. Bere afizio bakarra bere emaztea, familia eta etxea izan ziren. Gizon langilea eta on hutsa.

3.282. Ciriaco eta Segunda, aitxitxa-amamak, Bergara-Antzuolatik Eibarrera etorriak (EIB-074/011)

Ciriaco Mendizabal, bere aitxitxa, Bergaran jaio zen, Amatiño baserrian (1888. urtean). Gazte-gazte etorri zen Eibarrera eta Segunda Lete ezagutu zuen. Segunda Lete, amama, Antzuolan jaiotakoa zen. Gaztetan Donostiara bidali zuten erdara ikastera eta harrezkero garrantzi berezia ematen zion erdaraz jakiteari.

3.283. Abuztuan Donostiara urtero (EIB-074/013)

Aitxitxak eta amamak astebete igarotzen zuten urtero Donostian, abuztuan, Iriondo pentsioan. Abuztuaren 8an aitxitxaren urtebetetzea zen eta familia guztia bertara joaten zen: Igeldora joan, hondartzara... egun berezia izaten zen.

3.284. Familia euskalduna izan arren, osaba-izebek erdaraz hitz egiten zuten (EIB-074/014)

Bere amamaren izena Segunda Lete zen, Olazabal baserrikoa, antzuolarra. Aitxitxa-amamak baserritarrak eta euskaldunak izan arren, 3 seme-alabetatik bakarrak egiten zuen euskaraz etxean, gazteenak, Amatiñoren amak, alegia (senarraren eraginarengatik).

3.285. Aitaren familian, 18 anai-arreba (EIB-074/015)

Aitaren aldeko beste aitxitxa-amamak ez zituen ezagutu, bera jaio ordurako hilda baitzeuden. Beste belaunaldi batekoak ziren. Izan ere, 18 seme-alaba izan zituzten eta Amatiñoren aita gazteena izan zen. Horregatik, Amatiño jaio orduko, aitxitxa-amamak hilda zeuden. Bere izeba bat, Venancia, izan zen amamaren lekua hartu zuena.

3.286. Argentinako senideak euskaldunak eta Eibarkoak erdaldunak (EIB-074/016)

Aranberritarren artean ere, Amatiñoren osaba eta izeben etxeetan, gehienbat erdaraz egiten zuten, ez ziren euskaltzaleak. 1960. urte inguruan, bere lehengusina bat (Maritxu Aranberri) Argentinatik itzuli zen Eibarrera (gerran ihes egin ondoren). Han jaiotako seme-alabak euskaldunak ziren, eta Eibarren jaiotako lehengusuak, osterak, ez.

3.287. Aita, Luis Aranberri; 18. semea izatearen gorabeherak (EIB-074/017)

Amatiñoren aita, Luis "Koldo" Aranberri, erradikala zen euskara kontuetan. Hizkuntza kontuetan probokatzaille hutsa zen. Aita Elgoibarko Andikao baserrikoa zuen (eta ama Mallabikoa). 18 anai-arreba izan ziren eta Koldo denetan gazteena. Umetan seminariora bidali zuten eta gero Argentinara joan zen lanera, 1925 inguruan, beste pare bat anairekin.

3.288. Margola tindategiaren sorrera (EIB-074/018)

Bere aita, Luis Aranberri, Argentinan egon zen pare bat urtez, eta handik itzultzean tindategia jarri zuen. Garai hartarako oso lanbide bereziak egin zituen (armaginaren semea izan arren): dependiente Argentinako denda batean, kosmetiko fabrika bat ere jarri zuen, eta azkenean tindategia izan zuen, Tintorería Margola. Tindategia anaiak sortu zuen, Gumer Aranberrik, gerra aurrean, baina gutxira Koldok hartu zuen tindategiaren ardura. Tindategiaren izenean (Margola) eta logotipoan (berde-gorri-zuria) nabarmen erakutsi zuen bere jarrera euskaltzale eta abertzalea.

3.289. Eibarko Margola tindategia, Espainiako handiena (EIB-074/019)

Margola tindategia Bista Alegre kalean zegoen. Gerra aurrean eraikitakoa zen (1950 urte ingurura arte horrela jarraitu zuen). Sarrera Urki aldetik zen, gaur egun Mutiola kalea dagoen ingurutik. Urteak igaro ahala, handitzen joan zen. Aita bakar-bakarrik hasi zen lanean, baina urteekin Espainiako tindategi handiena bilakatu zen. 70 langile izatera iritsi zen. Izan ere, horixe izan zen tindategiaren galbidea; handiegia zen eta 1980. hamarkadako krisialdiak harrapatu zuen.

3.290. Tindategiko lanak egiteko, isocarroa (EIB-074/020)

Tindategiak "servicio a domicilio" ere bazuen. Isocarroa zen, 3 gurpildun ibilgailua, eta etxerik etxe ibiltzen zen arropa zikina jaso eta garbia banatzen. Amatiño ere sarri ibiltzen zen isocarroan, askotan ezkutuan.

3.291. "Sikuan" garbitzea zer den (ura beharrear, kimikagaiak erabiliz) (EIB-074/022)

Tindatzeaz gainera, garbitu ere egiten zen arropa. Lehengo arropa desberdina zen (kotoizko asko), etxeetan ez zegoen laboraririk, uretan garbitu ezin daitekeen arropa... Horregatik, diru gutxiago egon arren, lehen arropa asko eramaten zen tindategietara. Batez ere, uretan garbitu ezin zitekeena, "lehorrean" garbitzen dena, petrolioaren eratorriak diren produktuekin. Disolbenteak erabiltzen ziren arropa garbitzeko. Lehen jende guzti-guztiak zituen artilezko berokiak edo gabardinak, eta tindategietan garbitu behar izaten ziren, etxean ezin ziren garbitu. Urtaro aldaketa iristen zenean, milaka-milaka gabardina biltzen ziren Margolan. Mendikadak. Udan, berriz, milrayas frakak eta udako arropak, eta abar.

3.292. Lutoaren eraginez, arropa asko tindatzen zen (EIB-074/023)

Lutoa ere oso garrantzitsua zen tindategietan. Familiakoren bat hiltzen zenean, senide guztiek arropa tindatu egiten zuten. Askotan, etxe batean norbait hilzorian bazegoen, Margolara joaten ziren abixatzera, senidea hil orduko arropa guztia beltz tindatu ahal izateko.

3.293. Familiaren tindategian lanean 16 urtez (EIB-074/024)

Amatiñok 15-16 urtez egin zuen lan aitaren lantegian, Margola tindategian. 18 urte bete berri hasi zen lanean eta 34 urtera arte, gutxi gorabehera (1979. urtera arte). Ofizioa ikastera ere joan zen kanpora (plantxatzen ikastera, eta abar), baina batez ere kudeaketa eta diru-kontuetaz arduratu zen.

3.294. Margolak 17 denda Euskal Herri osoan (EIB-074/025)

Tindategiko beste lanetako bat "arropa ateratzea" zen. Hau da, dendara sartu den arropa ea ondo markatu ote zen ziurtatzea. Arropa zikina zakuetan iristen zen Eibarrera, inguruko herrietatik, eta zaku horretan arroparen zerrenda eta albaranak ere iristen ziren. Eibarrera heldu ahala, jasotako guztia ondo zegoela ziurtatu behar zen. Margolak 17 denda izan zituen, Euskal Herrian barrena: Bergara, Plazentzia, Arrasate, Bilbo, Gasteiz, Donostia...

3.295. 1963an Zeruko Argian berriemaile, 1976an Deian (EIB-075/002)

1963an hasi zen Zeruko Argiarentzat Eibarko berri-emaile. Lantegian ordu asko egiten zituen orduan. 1976an, Deia sortu zenean, lana eskaini zioten eta onartu egin zuen. Aitari esan zionean, oso momentu txarra pasatu zuen.

3.296. Untzagako eskolan eta Jardinetako institutuan (EIB-075/003)

Untzagan, udaletxean, ume txikien eskola zegoen, mojak maistra zituena. Corazonistetan lekurik ez, eta Jardinetako institutura joan zen, eskola nazionalera.

3.297. Bere abizenak irakasleak erdaraz, amak euskaraz (EIB-075/005)

Bederatzi urterekin, Corazonistetara joan zen. Giro espainola topatu zuen baina ez frankista. Abizenak gazteleraz idazten zizkioten eskolan, baina amak euskarazkoak zela beharko lukeen esaten zion. Orduan hasi zen nabaritzen jokaera bat baino gehiago zegoela.

3.298. Euskaraz argitaratzen zen guztia etxean (EIB-075/006)

Etxean politikaz entzun zuen lehen aldia, gurasoak Jose Antonio Agirrerren hiletara joan zirenean izan zen. Aitak Etxezarretaren dendara bidaltzen zituen diskoak erostera eta Iraolagoitiarenera euskarazko liburuak erostera.

3.299. Aitak abertzaletasuna, amak irakurzaletasuna (EIB-075/007)

Etxean arbela zeukaten eta han berbak idazten zituzten. Arantzazuko egutegiaren orria irakurtzen zuten egunero. Aitak abertzaletasuna eta amak irakurzaletasuna transmititu dizkie. Anekdotak bat kontatzen du.

3.300. Aitak euskalgintzari dirua (EIB-075/008)

Aitak dirua ematen zien ekintza edo argitalpen euskaltzaleei.

3.301. Barnetegitik aitari gutunak euskaraz (EIB-075/009)

Bilbon merkataritza-peritu ikasketak egitera joan zen baina ez zuen ezer egin. Handik barnetegira bidali zuten hamazazpi urterekin. Aitarekin gutun-trukea euskaraz egiten zuen eta amarekin erdaraz. Ez dauka gutunik gordeta.

3.302. Hamabi urterekin kontzientzia abertzalea (EIB-075/011)

Gogoan du hamaika-hamabi urterekin Euskal Herriko mapa marraztu zuela. Ordurako kontzientzia abertzalea bazeukala dio. Euskaraz argitaratzen zen guztia zegoen etxean.

3.303. Euskal burgesiaren defentsa (EIB-075/012)

Aitak, jakin arren aberatsen mundua erdalduna zela eta euskaldunena baserriarekin eta atzerakoia izatearekin lotzen zela, banaketa hori ez zuela onartzen azaltzen du; euskal burgesiaren defentsa egin zuen.

3.304. Burgesia euskaltzalea eta erdalzalea (EIB-075/013)

Aitaren antzeko jokabidea eta ikuspegia (euskal burgesiaren defentsa) izan zuten batzuk aipatzen ditu. Bergarako burgesia ez zela euskaltzalea esaten du.

3.305. Lehenengo artikulua erdaraz hamabost urterekin (EIB-075/017)

Argitaratu zioten lehenengo artikulua erdaraz egin zuen, hamabost urte ingururekin. Idazteko zaletasuna betidanik izan du.

3.306. Kultureleko euskara batzordea (EIB-075/018)

Kulturelean hasi zenean kide zituenak izendatzen ditu. Euskara batzordea zen elkartearen euskaraz funtzionatzen zuen bakarra. Antzerki talde euskalduna sortzeko izan zituzten gorabeherak kontatzen ditu.

3.307. Euskara ikasle izatetik, irakasle izatera (EIB-075/019)

Kulturelean idazkari lanetan aritu zen, gustuko zuelako idaztea. Imanol Lazpiurrekin euskararen gramatika ikasten hasi ziren baina berehala irakasle lanetan.

3.308. Zeruko Argiako berriemaile (EIB-075/020)

Zeruko Argian berriemailea behar zutela eta animatu egin zen. Gero, kronikak idaztetik, informazio orokorra idazteko proposamena egin zioten eta asteburuetan joaten zen erredakziora idaztera. Han ibiltzen zen dirudun bakarra zen.

3.309. "Hoja del lunes"-en euskaraz artikulua idazten (EIB-075/021)

"Hoja del lunes de San Sebastian" (egunkarian) artikulua idazten hasi zen, euskaraz, erdarazko laburpen batekin. Gerrarik egiteko interesik ez zuelako deitu zutela uste du.

3.310. 70. hamarkadan informazioaren erreferentea (EIB-075/022)

Euskaraz informazioa bere hutsean eman zuen lehenengo idazlea izan zela dio. Idazle eta pentsalariak izaten ziren aldizkarietan idazten zutenak. 1972tik 1975era bitartean informazioaren erreferentea izan zela dio.

3.311. Zeruko Argia eta garaiko beste aldizkari batzuk (EIB-075/023)

Anaitasuna, ideologizatuagoa, Principe de Viana eta Herria ziren orduan Zeruko Argiaren antzekoenak. Oronozen zegoela, barnetegian, erdaraz egin arren euskaldunak ziren talde bat baziren, eta inguru hartan euskaraz egiten zela ohartzen ziren. Hango sukaldariari entzun zion lehenengo aldiz 1962an Zeruko Argia irten zela.

3.312. "Gazte naiz" saileko idazleak (EIB-075/024)

1964an idazleen belaunaldia egon zen. "Gazte naiz" sailean idazten zuten, Zeruko Argian. Batzuk aipatzen ditu.

3.313. Zeruko Argian bere borondatez (EIB-075/025)

Zeruko Argiara lehenengo artikulua bere kabuz bidali zuen eta hala egin zuen hurrengo urteetan ere. Kobratu barik, dirua ipini behar izan zuen aldizkaria atera zedin.

3.314. Zeruko Argiako erredakzio taldea (EIB-075/026)

Zeruko Argian erredakzio taldea zegoen. Izenak ematen ditu. Agintean zeudenak euskaltzaleak, moderatuak eta eliztarrak zirela dio.

3.315. Kazetari zela, politikarekin topo egin zueneko (EIB-075/027)

ELA sindikatuak bere kongresua 1977 inguruan Eibarren antolatu zuenean, lehenengo aldiz ukatu zioten berriemaile izatea; ELAkoek jakinarazi zioten beste bat ekarri zutela kazetari lana egiteko.

3.316. "Amatiño" eta beste gaitzizenak (EIB-076/001)

"Mielotxin" gaitzizena Branka aldizkari klandestinoan erabili zuen. Zeruko Argian elkarrizketak "Koldo Olazabal" izenarekin sinatzen zituen, informazioa "Amatiño" moduan eta bestelakoak "Andikao" izenarekin.

3.317. Artikuluak idazmakinan idatzi eta errekadistarekin bidali (EIB-076/002)

"Olivetti" idazmakina zeukan eta kopia egiteko papera jartzen zion, idatzitakoa gordetzeko. Errekadista bati ematen zion bidal zezan. Eztabaidak izaten zituzten luzeraren kontura.

3.318. Euskara batuaren arauak, 60. hamarkadan (EIB-076/003)

Euskara batuaren sorreraren bueltan hasi zen idazten. Bera idazten hasi zenerako, beraz, bazekien gutxi gorabehera arauak zein ziren. Harro dago hasieratik erabili izan duen euskararekin.

3.319. Euskara batuaren inguruko eztabaidak (EIB-076/004)

Euskara batuaren inguruan sortutako eztabaidak ideologikoak izan zirela dio.

3.320. Klandestinitatea bizi (EIB-076/005)

Klandestinitatea hurretik ezagutu zuten, bai kultura eta bai politikari dagokionez. Azalpenak ematen ditu.

3.321. Anaiaren ihesa, ETAn sartzeko gonbidapena eta beste (EIB-076/007)

Anaiak ihes egin zuen hemezortzi urterekin, 1965ean, eta tarteka agertu egiten zen. Normaltasunez bizi zuen egoera hori. ETAn sartzeko gonbidapena jaso zueneko kontakatu du. Burgosko epailetaren harira, telegrama bidali zion Francori indultua eskatuz, beste askok bezala.

3.322. Euskalgintzan aritzearen, poliziarekin izandako arazoak (EIB-076/008)

Poliziarekin behin izandako arazoa kontakatu du: Axularren testuen kopiak kendu zizkieten. Rikardo Arregik prestatzen zituen alfabetatze klaseak emateko. Beste behin etxera etorri zitzaizkion poliziak Euskal Jailetako diru-kontuengatik.

3.323. Kulturalaren eta Club Deportiboaren arteko aldea (EIB-076/011)

Kulturala euskaltzaleen bilgunea zen. Azaltzen du Deportiboa euskaldunagoa zela kulturala baino, baina ez kulturala baino ekintzaileagoak euskalgintzan.

3.324. Eibarren euskal kontzientzia piztea (EIB-076/012)

Kulturaleko Euskara Batzordearen helburuak aipatzen ditu; nagusiki, Eibarren euskal kontzientzia piztea. Deportiboarekiko aldeak azaltzen ditu.

3.325. Enpresariengana diru eske euskalgintzarako (EIB-076/013)

Enpresariengana dirua eskatzera joaten ziren Kulturaleko Euskara Batzordetik. Berari osabarengana joatea tokatzen zitzaion.

3.326. Euskal jaia, antzerkiak, hitzaldiak eta jaialdiak (EIB-076/014)

Euskal Jaia zen ekimen nagusia baina hari esker txistulari taldea zeukaten eta antzerki emanaldiak, hitzaldiak eta jaialdiak ere antolatzen zituzten. (Ramon) Saizarbitoria etorri zenekoa kontakatu du.

3.327. Mutikotako planak (EIB-076/017)

Mutikotan, futboleko egitera Arratera joaten ziren, baita Eztiagara edo Urkira ere. Zaldibarko Sallobentera joaten ziren bainatzera. Debara bizikletaz ere joaten ziren. Mutilak bakarrik ibiltzen ziren, hamabost urte ingurura arte.

3.328. Ermuko zinemara (EIB-076/018)

Ermura zinemara joaten ziren. Filmen sailkapena azaltzen du; bost mota zeuden. Zinema non zegoen esaten du.

3.329. Eibarko eskubaloit taldean (EIB-076/019)

Oronozko barnetegian egon zenean, eskubaloian hasi zen eta Eibarrera etorritakoan, jarraitu egin zuen. Aldagelak eta dutxak non zeuden azaltzen du. Eskubaloiko taldeko gehienak kanpoan ikasitakoak ziren.

3.330. Bere belaunaldiari tokatutako berritasunak (EIB-076/020)

Bere belaunaldiari tokatu zitzaizkion berritasunak azaltzen ditu: herria egitea, modernitatea (dantzalekuak eta beste), kafetegiak... Dirua zegoen, denerako (kirolerako zein kulturarako). Gizartea mobilizatzea, demokrazia ekartzea... tokatu zitzaiera dio. Olatuaren gainean joatearen sentsazioa izan zuten. Zortekoa izan dela dio.

3.331. Dena egiteko zegoen, baina aurrekoak ahaztu zituzten (EIB-076/021)

Euskararen, politikaren zein gizarte arloan gora egiten jarraitzea zaila ikusten du. Bere garaian dena erraza izan zela dio, dena zegoelako egiteko. Horren ifrentzua azaltzen du: aurreko belaunaldikoak aintzat hartu ez izana.

3.332. Sagarbitza ondoko andabidea (EIB-079/003)

Sagarbitza (Sagarbieta) baserritik igarotzen den bidea andabide garrantzitsua zen. Gorosta bailara eta Mandiola bailara banatzen zituen, bariante berria egin zen arte. Matxaria zaharretik hasi, Urkizuegibekoa, Urkizuegigoikoa (desagertuta), Naiorbeabeletxe, Naiorbe eta Sagarbitzaraino. Handik gora Santa Kurutzko eskolara-Santa Kurutz ermitara-Akondia ataritik-Kalamuara. Andabide publikoa zen.

3.333. Upartiñotik irteten ziren mendibideak (EIB-079/004)

Beste bide txiki batzuk ere baziren. Esaterako, Upartiño izeneko puntuak bide gehiago batzen zituen. Asolagainekotik Azpirira zegoen beste bide bat. Upartiño gainean Asolatik zetorren bidea, Eluts aldera beste bat irteten zen Upartiñotik. Hirugarrena Zezeil aldera. Laugarrena, Nebera aldera eta Berretxinagara eta bertatik Akondiako bidegurutzera, Arrate aldera joaten zen.

3.334. Andabideak, bide garrantzitsuenak (EIB-079/005)

Andabideak andak pasatzen ziren bideak ziren. Bi garrantzitsu aipatzen ditu baina nagusia Sagarbitza baserritik behera igarotzen zen; Berretxinaga baserritik hasi, Nebera eta Sagarbitzatik behera. Sagarbitza atari ondotik pasatzen zen bidea.

3.335. Santakuruzko ermita eta eskola ondoko bidea (EIB-079/006)

Santakuruzko ermitako bidea aldatuta dago. Ermita Gorosta bailaran zegoen eta iturria Mandiola bailaran. Ermita eta iturri bitartetik pasatzen zen bidea eta gero mugitu egin zuten. Eskola ere Gorosta bailaran gelditzen da. Baina jatorrizko bidea eskola erditik pasatzen zen eta eskola egin ondoren aldatu zen bidea lekuz. Egun eskolaren erdia baino gehiago hartuko luke Mandiola aldeak.

3.336. Barakaldo auzotik Arratera (EIB-079/007)

Azitain auzotik hasi eta Biriñao baserri ondotik Arratera beste andabide bat zegoen. Hura Arratera zihoan zuzenean. Andabideetatik gurdiak ibiltzen ziren. Beste andabide batek Urkizuegi gurutzetik Aasura bidea egiten zuen eta bertatik Barakaldo auzora. Bide aldapatsua zen. Gurdiekin ibiltzen ziren hala ere.

3.337. Bidegintza: bide garbiketa (EIB-079/008)

Bide horiek garbitzeko auzolana egiten zen, iraileko lehenengo domekan: bidegintzia. Upartiñotik Usartzara egiten zuten Sagarbitzatik gorako baserriek. Orduan, Udalak edaria, ardoa ematen zuen. Normalean egun batean egiten zuten. Normalean etxe bakoitzeko bat. Zein baserritako kideak elkartzen ziren kontaktzen du.

3.338. Mendibideak Kalamua aldean (EIB-079/010)

Andabideak ziren garrantzitsuak baina mendi-bideak ere baziren. Kalamua eta Akondia mendi inguruak aipatzen ditu, garotarako garaian oso erabilia. Garoa jasotzetik gurdi ilarak bajatzen ziren. Bide txiki asko galdua daude egun.

3.339. Sagarbitzatik Agarrera eta Agarretik herrira (EIB-079/012)

Sagarbitza baserritik Agarrera ere jende-bidea zen. Agarretik-Txarakora-Aasura eta Azitain aldera zihoan bidea. Azaldegitik Aasura ere bajatzen zen beste bat. Bi bide horiek gurutzatu egiten ziren. Urkizuegi gurutzea ere aipatzen du, lau bide elkartzen zituen gurutzeak garai batean.

3.340. Mandiola auzotik Aginaga auzora bidea (EIB-079/016)

Aginaga auzorako bidea aipatzen du. Gaur egungo pista zati bat eta Azpiri baserri gainetik- Santa Kurutz bide azpitik- Mandiolagainekoa baserriaren ondotik- Iturrao ("Itturua") gainetik gora igotzen zen.

3.341. Baserrian lan egin ondoren tailerrera (EIB-079/019)

Garai bateko bizimodua nolakoa zen kontaktzen du. Belarretan egin eta gero tailerrera. Baserritarrak tailerretan aspaldi hasi zirela dio. Bitor Sarasketa Azpiri baserriko semea aipatzen du.

3.342. Armagintzan lanean (EIB-079/020)

Eskopeta ikasketak hasi zituen eta gero bere kabuz tailerra jarri zuen baserrian. Beranduago, Alfa lantegian sartu zen, baina kaxa eginean jarraitzen zuen, etxean. Vasco-armera, Ugartetxea... lantegientzat egiten zuen lan. Orduko enpresarik garrantzitsuenak izendatzen ditu, eskopeta alorrean.

3.343. Kaxak nola egiten zituzten (EIB-079/021)

Kaxa nola egiten zuten kontaktzen du. Eskulana nola egiten zuten eta tresnak aipatzen ditu. Hiru eredu egiten zituen. Partikularrei egindakoak bereziagoak izaten ziren. Kaxa pabonerako prest uzten zuten, baina ez tiro egiteko moduan.

3.344. Armak egiteko pertsonak eta erremintak (EIB-079/022)

Arma egileak zeintzuk ziren aipatzen du: baskuleroa, txispa-ipintzailea, kanoian lan egiten zuena, ajustatzailea... bakoitzak bere lana egiten zuen. Erabiltzen ziren erremintak aipatzen ditu.

3.345. Lantegi batetik bestera bere tailerra zabaldu arte (EIB-079/023)

Emilio 60ko hamarkadan hasi zen lanean armagintzan, baina armagintzaren beherakada beranduago hasi zen. "Viuda de Sarasketa" lantegiarentzat hasi zen beharrean Bidebarrieta kalean. Gerora, Lauronan egin zuen lan. "Vasco-armeran" egin zituen azken urteak eta gero bere tailerra zabaldu zuen, baserrian bertan.

3.346. Usartza eta inguruko erromeriak (EIB-079/025)

Erromeria Usartzan egiten zen jaiero. Aste barruan ere egiten zirela dio: Pazko erdiko astelehenean ere egiten zen. San Esteban egunean ere bai. Usartzan, San Migelen egiten ziren. Jende asko hurbiltzen zen Usartzara. Maltzagako erromeria ere garrantzitsua zela dio. 18 urte izan arte ez zen jendea erromerietara joaten eta gaueko 10etarako etxera. Uda eta negu izaten ziren erromeriak. Trikitilariak haien plaza izaten zuten. Usartzan "Ermere" soinujoleak jotzen zuen. Azitaindik oinez igotzen zen Usartzara. Gerora, Benito Baskaran egon zen. Mutilek ordaintzen zuten erromeria. Arrateko erromeria ere aipatzen du eta lau talde ere egon izan ziren bertan.

3.347. Goizeko mezara joateko lastargia (EIB-079/027)

Goizean goiz 6etako mezara joaten ziren lastargia hartuta. Lastargia nola egiten zuten kontatzen du.

3.348. Lastoaren erabilera (EIB-079/028)

Lastoa zertarako erabiltzen zen eta nola garbitzen zuten kontatzen du. Azpiak egiteko garoa erabiltzen zen.

3.349. Garo sasoia (EIB-079/029)

Garoa noiz mozten zuten eta nolakoa zen prozesua kontatzen du: moztu, lehortu, batu, gurdietan baserrietara bajatu... "Zamia" eta "leria" aipatzen ditu, gurdieii atze aldean jartzen zitzaien karga eramateko. "Ama Birjina Garotakoa" deitzen zitzaion garoa jasotzeko egunik garrantzitsuenari. Sailka mozten zuten garoa haizeak eraman ez zezan. Prozesua kontatzen du.

3.350. Urtean ereindakoak (EIB-079/030)

Urtean zehar zer ereiten zuten kontatzen du: patata-artoa-belarra batzeagaria moztu eta jo- garo denbora. Garoa Kalamua aldean egoten zen gehienetan. Baserri guztiek zuten sailen bat bertan.

3.351. Garoari ira esaten zaio Eibarren (EIB-079/031)

Eibarren ira esaten zaio garoari. "Goazen iretara", "iria ebaterra"... Garo klase bakarra dago baina heldu ahala izen ezberdinak hartzen ditu: "ira-berdia", "ira-gorrixa".

3.352. Ardatzak nola egiten ziren (EIB-079/032)

Garoa ganaduari azpia egiteko erabiltzen zen batik bat. Gero simaurra jasotzen zen. Ardatzak ere egiten ziren (metak). Belar-metak nola egiten zituzten kontatzen du, etxe ondoan gehienetan. Kentzeko ardatzaren goi aldetik hasten ziren.

3.353. Garoa azpitarako (EIB-079/033)

Azpiak zerez egiten zituzten kontatzen du. Garoa edo orbela erabiltzen zuten baina orbela eskasa izaten zen. Pagadietatik ekartzen zuten. Pagoen orbela izaten zen txarrena. Ortuan nahasteko ona dela dio.

3.354. Azpiak eta azpigarriak hitzak eta kontzeptuak (EIB-080/002)

"Azpixa", "azpigarria" hitzak azaltzen ditu. Nola, noiz egiten ziren azalpenak ematen ditu.

3.355. "Azpixon atara" hitza, zer da eta nola egiten da? (EIB-080/003)

Nola egiten diren azpiak aipatzen du. Gero "azpixon ataratzia" hitza aipatzen du. Bere azalpena ere ematen du.

3.356. Azpiak garbitzeko aldaketak (EIB-080/004)

Baserrian azpiak garbitzeko ura erabiltzen hasi ziren. Txizan deposituak ere egiten ziren. Azalpenak ematen ditu. Kortak aldatuta daudela aipatzen du.

3.357. Simaurra noiz eta zertarako? (EIB-080/006)

Simaurra nola erabiltzen zuten aipatzen du. Noiz eta zertarako erabiltzen zen.

3.358. Simaurra soroetan (EIB-080/007)

Simaurra denbora batez gorde behar da erabili aurretik. Soroan piloetan jartzen zituzten zabaldu aurretik.

3.359. Eskola eraiki zutenekoa (EIB-080/009)

Eskola egiten auzotarrak auzolanean aritu ziren, Emilio bera ez baina. 1933-1934 urte inguruan eraiki zuten. Aldundiak eta Udalak eman arren dirua, bertako baserritarrek ere eman zuten. Auzotar batek lurra ere eman behar izan zituen eta lur horien truke "Poza negro" egin zuten, ura izateko. Baserritar guztiek ez zuten berdin parte hartu, batzuek lan egin zuten eta beste batzuek diruz lagundu zuten (baserri-izen batzuk aipatzen ditu).

3.360. Irakasleak baserrietan bizi ziren. Gau-eskoletara ere joaten ziren (EIB-080/010)

Eskolako irakasleak bertako baserrietan bizi ziren, baserri horiek aipatzen ditu. Irakasleak erdaldunak ziren, bakar bat zen euskalduna, eibartar bat. Baserritar askok ez zekien euskaraz ondo eta irakasleek osterara euskararik ez. Auzotar batzuk gauz partikularretara joaten ziren, linternaren laguntzaz bueltatzen ziren gaueko bederatzia aldera etxera.

3.361. Auzo-eskola gerra garaian eta gerraostean; eskolako armarría (EIB-080/011)

Eskolan nagusiak zein txikiak batera egoten ziren. Eskolara gutxi joan zen, seme bakarria izanik, etxean lagundu behar baitzuen; gau-eskolatara gehiago joan zen. Gerra sasoiari, eskola apurtu egin zen eta ermitan jasotzen zituzten eskolak. Gerraostean, berriro berriztu zuten eskola: orduko horretan Udalak eta Aldundiak konpondu zuten. Bertako armarría "Diputación de Guipuzcoa y La Ciudad de Eibar" jartzen zuen, urte luzez ez zuten jakin non zegoen armarría; gaur egun Txantxazelaian dago.

3.362. Eskolaren deskripzioa. Eskolako liburuak berak jasotzen. (EIB-080/012)

Eskola martxan egon zen 60, hamarkadara arte-edo. Ostean eskolara herrira bajatu behar izan dira bertakoak. Eskola eta bere ingurua nolakoa zen deskribatzen du. Udazken batean mendira buelta ematen irteterakoan liburu pila bat aurkitu zituen botata, astoaren laguntzaz guztiak jaso eta etxean dituz gordeta.

3.363. Santa Kruz eguneko meza (EIB-080/015)

Ermitan irailera Santa Kruzen (irailak 14) hurrengo domekan egoten zen meza eta gero maiatzeko Santa Kurtzetan, Santa Kruz iluntzean eta hurrengo domekan. Don Pedro Arrateko abadea etortzen zen.

3.364. Ermitaren zaintzailea (EIB-080/016)

Ermitaren zaintzaile kargua urtez urte baserriz baserri (aipatzen dituz zeintzuk diren) aldatzen zen, maiatzeko Santa Kruzetan izendatzen zuten urtebetez arduraduna. Gaur egun ezberdin antolatzen dute.

3.365. Frontea Santa Kurutz inguruan (EIB-080/017)

Gerra sasoiari frontea izan zuten bertan. Etxera joaten zitzaizkien janari bila-eta. Kanoia zegoen zementuzko koadro bat zegoen baina jada kenduta dago. Bertan errepublika zaleak egon ziren, eta nazionalak Arraten. Gurasoek kontatutako; zenbait bizipen kontatzen ditu. Baserriaren kokapena frontierako aproposa zen.

3.366. Argazkiak egoeraren lekuko (EIB-080/018)

Milizianoak jana-eta eskatzera joaten ziren, zazpi hilabete bat pasa zituzten bertan. Garai hartako biltegia zena, gaur egun, oraindik hor dago. Argazki batzuk erakusten ditu garaiko egoera azaltzen dutena, bertakoa zein Arratekoa.

3.367. Eskolaren eta frontoiaren deskribapena (EIB-080/020)

Eskola deskribatzen du: gelak. Komunak, sukaldea... Armarría azpiko atea oso ederra zen. Gerra ostean atea aldatu zuten, haizeak alde hartan asko jotzen zuelako. Gero frontoi aldera jarri zuten sarrera nagusia. Frontoia eta iturria ere bazeuden.

3.368. Desagertutako baserriak (EIB-080/024)

Auzoan desagertu diren baserrien izenak aipatzen ditu. Aipatzen dituen asko berriztuta edo itxuraldatuta daude. Badaude pare bat txabola baserri izandakoak ere.

3.369. Batzokia, frontoia, kooperatiba eta euskal jaiak (EIB-081/003)

Lehenengo batzokia non zegoen kontatzen du. Gerra aurrean, beste batzoki berri bat egin zuten egungo Banco Vizcaya dagoen lekuan. Eraikuntza osoa beraiena zen. Kooperatiba propioa ere bazuten. Lehenengo solairuan emakumeak zeuden. Hurrengo solairuan batzokia eta atze aldean frontoia zegoen. Euskal Jaiak egiten ziren bertan.

3.370. Batzokiaren lekuan 'Círculo Carlista' (EIB-081/004)

Gerra sasoiari batzokia erreklisatu egin zuten. Círculo Carlista ipini zen orduan bertan. Orduko batzokira 20 eskailera egon ziren.

3.371. Urkiola akademia. Ermua, 1.000 biztanleko herri karlista (EIB-081/006)

Batzokiaren ondoan Urkiola akademia zegoen. "Círculo Carlista" agertzen zen idatzi bat gogoratzen du (gazteleraz da). Ermuan bizi izan zen. Ermua herri Karlista zela kontatzen du, baina Ermua asko estimatzen du, bereziki maite du herri hori. Gerra sasoiako kontuak aipatzen ditu.

3.372. Eusko Jaurlaritzaren izenean armak erostera (EIB-081/010)

Bere emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du. Abertzalea zela ere kontatzen du. Bere emaztearen aita Eduardo Alberdi izan zen. Eusko Jaurlaritzaren izenean armak erostera bidali zituen Eduardo Alberdi eta Toribio Etxebarria. Eduardo Alberdi Euskadi Buru Batzarrean egongo zela orduan uste du.

3.373. Mercedes Kareaga mitinlari abertzalea eta bere anaia Mateo errepublikazalea (EIB-081/011)

Bere emaztea politika giroan gogorra zen. Emakumeen lokala zegoen batzokian. Eibarko emakume ezaguna bat, Mercedes Kareaga izan zen, Eusko Alderdi Jeltzaleko mitinlaria, Danelek ez zuen pertsonalki ezagutu umea baitzen. Bere neba, Mateo, bai ezagutu zuen, Mateo aldiz errepublikazalea zen.

3.374. Gerraosteko emakumeak politikan (EIB-081/012)

Gerraostean emakumeek pisu berezia zuten, mugimendu berri bat izan zela uste du berak. Bazeuden Mercedes Kareagaz gain emakume gehiago ere, izenak aipatzen ditu: Garatetarra, Maria Parder… Hala ere Mercedes Kareaga izan zen alderdi barruan burukidea.

3.375. Gerra aurreko kaleak, dendak... Erreka eta Ardantzako iturria (EIB-081/013)

Untzaga Arraindi kaletik hurbil zegoen. Kale, taberna zein denda askotako aipamenak zein azalpenak ematen ditu. Erreka eta Ardantzako iturria ere aipatzen ditu.

3.376. Indianoko palazioa (EIB-081/014)

Errekatik jarraituta, gaur egun Telefonica-ko eraikina dagoen lekuan, hareatza zegoen, presatxo bat moduan, igerian egiteko aproposa. Urkizuko parkea ere erreka zen. Gaur egun Bolera dagoen lekuan Indianoko palazioa zegoen; Aldapatxon zeukan sarrera, eta tren-geltokia dagoen lekuan ortuak zituen Ardantzara arte. Bere ustez gaur egun monumentu historikoa izango litzateke. Palazioaren ugazabak Eibarko Iraolagoitiatarak zirela entzunda du. Gisasolak, "Txomingillu" gaitzizendun Eibarko bitxigileak, erosi zuen gerora eraikina.

3.377. Pantaleon, Indianokua palazioko ortuko arduraduna. Gaztetako bihurrikeriak. (EIB-081/015)

Indianeko ortuko arduradunak, Pantaleonek, etxetxo bat zeukan Mekolan, ertz-ertzean. Pantaleonrn iloba bat, Zuazua, ere aipatzen du. Beraiek hormatik igo eta fruta lapurtzen zuten jolas modura. Eibarko kaletarrak beti oso batuta egon direla aipatzen du, gaztetako lagun batzuen, beste kaletar batzuen izenak aipatzen ditu.

3.378. Carral familia (EIB-081/016)

Arraindi kalean Carraldarrak bizi zen. Haietako anaia bat, [Kanpolo], boxeolari ospetsua izan zena. Beste anaia bat pilotari ezaguna izan zen, Alejandro. Carraldarrek eskopeten tailer bat zuten. Jardinetatik saihebidera zoazela dagoen txalet bat Carraldarren aitak eraiki zuen gerra aurretik. Familia horretako anai-arrebak aipatzen ditu.

3.379. Prokuradorea Arraindin (EIB-081/017)

Arraindi kalean bizi izan zen gero "Procurador en Cortes" izango zena, Ignacio Anitua. Haren semeak aipatzen ditu. Zentzudun asko bizi zirela Arraindi kalean dio.

3.380. Bonbardaketa ostean sei hilabetez Elgoibarko San Lorentzon (EIB-081/019)

Ardantzako iturrian harrapatu zuen bonbardaketak, handik kalerik kale egin zuen alde (kale-izenak aipatzen ditu). Beraien aitak, bere anaia Imanol eta bera ama zenaren etxera eraman zituen Elgoibarko San Lorentzora. Sei hilabetez egon ziren han, aita, beste anaia eta izeko Eibarren zeudela. Elgoibarren faxistak zeuden eta Eibarren gobernukoak. Bitartean Elgoibarko San Lorentzoko eskolara joan zen. Apirilaren 26an Eibarko "liberazioa"n bueltatu ziren Eibarrera, eta Arraindi kalea ez zegoenez jada, Ermura joan ziren bost urtez, hamar urtetatik hamabost urtetara arte.

3.381. Ermuko "Rancho" etxearen nondik norakoak (EIB-081/020)

Ermutik Eibarrera bueltatzerakoan Txantxazelaira. Armeria eskolan aritu ostean "Olabe Solozabal y Compañía"n, Kaskon, hasi zen lanean. Aitonagandik datorkio familiari "Pepitxua" gaitzizena. Ermuko etxean bizi zen bere aitonaren arreba, eta etxeari "Rancho" deitzen zioten, bertako alabaren senarra Pancho Villarekin egon zelako Mexikon, eta lortutako diruarekin egin zuen etxea.

3.382. Soldadutzara boluntario; tailerra sortu zutenekoa (EIB-081/022)

"Olabe Solozabal y Compañía", Kaskon, bost-sei urtez aritu zen lanean. 1948an boluntario joan zen soldadu, lehenago bukatzeko. Abiazioan ibili zen. Sasoi hartan ez zegoen lan bila ibili beharrik, bazegoen nahikoa lan eta. Beraiek hiru lagunen artean sortu zuten euren tailerra. Norbere negozioa sortzeko sasoi ona izan zen.

3.383. Industrias Dej-en sorrera (EIB-081/023)

"Industrias Dej" hasiera batean Errekatxun jarri zuten tailerra. Zazpi eta erdietan "Kasko"tik irten eta hara joaten ziren hamaikak arte-edo. Gero Karmen kalean zabaldu zuten berria. Trokelak egiten zituzten hasieran eta gero piezak ere bai, motorrentzat-eta. Eskaera asko izaten zituzten eta arrakasta asko. Norbere negozioa sortzeko sasoi ona zela dio.

3.384. Frontoian diru asko jokatzeko (EIB-081/024)

Frontoia beti egoten zen beteta pilota partiduetan. Industrial asko zegoen Eibarren eta jendeak dirua zeukan eta zer edo zer jokatu egin behar izaten zen. Apustua nola egiten zuten kontatzen du. Gaur egun aldiz frontoira joatea oso garestia dela deritzo. Lehengo eta gaur egungo garaian konparatzen ditu.

3.385. Lehenagoko pilotariak (EIB-081/025)

Lehenagoko pilotariak aipatzen ditu: Arriaran II, Barberizo, Soroa... beranduago Tapia anaiak, Ogeta, Garzia Ariño...

3.386. Industrias Dej asko handitu zen (EIB-081/026)

Tailerra zabaldu zuenean bi-hiru makinekin moldatzen ziren. Sasoi hartan sortutako beste enpresa batzuk aipatzen ditu, haienezako egin baitzuten lan. Ia laurogei beharginetara ere heldu ziren. Bertan bizitakoak momentu txarrak aipatzen ditu: krisia, grebak...

3.387. Krisi eta greba garaiak (EIB-081/027)

Krisi eta greba garaiak ugazabentzat sasoi eskasa izan zen. Sindikatuekin grebak-eta hasi ziren, komiteak ugazabekin batzen hasi ziren desadostasunak konpontzeko. Metal arloko "Convenio provincial" aipatzen du, patronalak eta sindikatuak akordio batera heldu behar zirenekoa zein pertsonak mailan egiten ziren eskaerak. Sasoi hartako grebak oso mingarriak izaten zirela dio. Trantsizio garaiko garaiak ere aipatzen ditu.

3.388. Izeko "Pantaloneria" (EIB-081/030)

Bere izeko Eleuteria, amaren papera bete zuena, "Pantaloneria" zen, prakak egiten zituen. Etxean egiten zuen lan. Josteko makinaz eta eskuz egiten zuen dana. Jendea etxera joaten zitzaion.

3.389. Ermuko kale-baserrien izen batzuk (EIB-082/002)

Ermuko kale-baserriak aipatzen ditu.

3.390. Arraindi kalea erreta (EIB-082/005)

Gerratik bueltatu zenean, Eibar nola aurkitu zuten kontatzen du Danelek. Arraindi kalea guztiz erre zuten eta komentua ere aipatzen du.

3.391. Urbano Manchobas arkitektuaren ametsa (EIB-082/006)

Urbano Manchobas arkitektoa zegoen Eibarren, ermuarra zen. Urbano Manchobas arkitektoak Eibarren egiten zuen lan, hirigintzan. Gerratean Venezuelara joan zen eta bertan hil zen. Danelek aitonari entzundako gertaerak ekartzen ditu gogora. Urbano Manchobasen ametsa zein zen kontatzen du: Eibarko San Andres elizaren atzeko ateetatik tren geltokiko erlojua ikusi zedila nahi zuen. Zuzen-zuzenean, parez pare daudela ateoek eta tren-geltokiko erlojua. Inguru guzti hori nolakoa zen kontatzen du.

3.392. EAJko lehendakari (EIB-082/009)

Eibarren EAJ alderdiko lehendakaria izateko Andoni Garmendiak konbentzitu zuen.

3.393. Letania egunean Aginagatik Arratera (EIB-083/006)

Bezperan konfesatzera joaten ziren Arratera eta hurrengo egunean mezara joaten ziren. Domeka arratsaldetan, berriz, arrosarioa errezatzera joaten ziren. Letania egunean Aginagatik etortzen ziren Arratera baserritarrak.

3.394. Aginagatik Arratera letanian (EIB-083/007)

Aginaga auzoko abadea joaten zen letania buru eta Arratera arte joaten ziren; bidean, baserritarrak batu egiten zitzaizkien. San Isidro egunean letania egunean baino jai giro hobea egoten zen Arraten.

3.395. Dionisia maistra Santakuruzko eskolan (EIB-083/010)

Santakuruzko eskola nolakoa zen kontatzen du. Aita ere ibili zen eskola eraikitzen. Dionisia maistra aipatzen du eta nola zigortzen zituen mutil gazteak. Beste maistra batzuk ere aipatzen ditu eta eskolako kontuak.

3.396. Gerra garaian, sei hilabete etxetik kanpora (EIB-083/011)

Gerra sasoia bizi izan bazuen ere, gaztetxoa zen. Gogoratzen dituen apurrak kontatzen ditu. Santa Kurutzen kanoia zegoen, elizatik albora. Gerra sasoiaren etxetik ez ziren irteten, tiroak gogoratzen ditu. Gerora, etxetik atera zituzten eta Iturrao ("Itturrua") baserrira joan ziren. Sei hilabete egin zituzten "Itturruazpikoan". Felisaren aita, berriz, Azpiri baserrian egon zen ganaduak bertara eraman zituztelako.

3.397. Gerra ondoren eskolara berriro (EIB-083/014)

Gerra ostean, etxera bueltatu zirenean, eskolan hasi ziren berriro. Tarte batean Santa Kurutzko elizan eman zituzten eskolak. Maistrak non bizi ziren kontatzen du.

3.398. Harraskan kantuan (EIB-084/004)

Harraskara emakumezkoak joaten ziren, eguerdi partean. Kantuan egoten ziren, umore onez.

3.399. Dendan denetik saldu (EIB-084/006)

Agustinak dendan egin zuen lan txikitatik erretiratu zen arte. Denda ederra zela eta denetik zutela kontatzen du. Nola egiten zuten lan eta nolako pisu eta makinatxoak zituzten aipatzen du. Janari guztia zakueta etortzen zen. Jakiak zituzten, arropak, oinetakoak, xaboiak... Isasi kalean denda asko zeuden, gehienak jateko dendak.

3.400. Umetan dendako lanetan laguntzen (EIB-084/008)

Umetan, udaletxera joan zen eskolara eta helduagoa izan zenean partikularrera, Jesusa Arregirengana; etorkizunean bulegoren batean lan egiteko asmotan. Baina dendan egin zuen lan. Margolaren sukurtsal moduan ere egiten zuten lan dendan. Jendearen enkarguak Margolara eramaten zituzten eta bueltan ekarri, askotan etxeko atera arte.

3.401. Isasitik hasi eta Santa Ines baserrira (EIB-084/012)

Isasi kalean San Antonio komentua zegoen, gaur egungo Eroski inguruan. Eliza ederra zuen komentuak. Santa Inesen, berriz, izen bereko baserri bat zegoen eta esne freskoa ematen zieten bertaratzen zirenean. Gorago Kaskarregoko baserria zegoen. Baserri aberatsa zen hura. Jende dotorea bizi zen bertan. Astelena pilotalekua gaur egungoa bezalakoa zen. Abontza baserria ere aipatzen du. Giputxaneko pilotalekuan jatetxea zegoen eta San Juan Egunean izozkia jatera joaten ziren. Markeskua jauregia ere aipagai du.

3.402. Gerra sasoiari Mallabira ihesi (EIB-084/016)

Gerra sasoiari, Mallabira ihesi egin behar izan zuten. Otaolaerdikoa baserrikoek eraman zizkieten altzariak. Aita eta anaia Jose Maria etxea zaintzen gelditu ziren Eibarren. Anaia zauritu zuten eta orduan Mallabira joan ziren bai aita bai anaia. Ez zuela goserik pasa dio eta errazionamendua nola bizi zuten kontatzen du. Dendan gelditutakoekin trukeak egiten zituzten.

3.403. Eibar erreta (EIB-084/019)

Gerra bukatzerakoan Eibarrera bueltatzerakoan dena erreta aurkitu zuten, Isasi inguruan beraien etxea geratu zen tente. Plaza merkatuan zegoen "Convento de Las Agustinas", Barrenkaleko eliza... dena ere erre zuten.

3.404. Eskolako irteerak. Untzagan dantzan (EIB-084/021)

Eskolatik Elgetara eta San Asentsiora egiten zituzten irteerak, oinez joaten ziren. Untzaga plazan egiten zuten dantza gaztetan, gazteenak alde batean eta nagusiagoak bestean. Plaza erdian kiosko bat zegoen musikarientzat. Eibarko bandak jotzen zuen musika. Mutilak ibiltzen ziren neskak dantzarako gonbidatzen, sarritan kalabazak ere ematen zituzten.

3.405. Gaztetako jolasak (EIB-084/022)

Gaztetako jolasak aipatzen ditu: sokasaltoan, txingor gainean, tabetan, harrapaketan, "aceitero vinagrero"... Hainbat jolas aipatzen ditu, batzuk kantu eta guzti.

3.406. Mandiola bailarako inguruak (EIB-093/004)

Eibarrera heldu zenean Eibar, Mandiola bailara ingurua, nola gogoratzen duen kontatzen du. Astobidea pasatzen zen Mandiolaazpikoa baserriaren ondotik. Azpiritik Asola bidera beste bide bat zegoen. Bideak aipatzen ditu. Beraien etxe ondotik pasatzen zen andabide bat.

3.407. Santakuruzko eskolako maistrak (EIB-093/006)

Santakuruzko baserri-eskola ezagutu zuen. Berak garbitzen zuen hilean behin. Maistrak ere ezagutu zituen. Haien etxean egon zen maistretako bat bizi izaten: Ana Mari zuen izena. Mandiolaazpikoa baserrian bi etxe zeuden, eta ondoko etxean ere egon zen beste maistrarik. Eskolak etxea zuen, baina maistrek ez zuten bertan gelditzerik nahi, beldurrez edo. Eskola nolakoa zen kontatzen du. Maistretako batek helduentzako gau-eskolak ematen zituen Mandiolagainekoa baserrian. Eskola eginda zegoen bera etorri zenerako. Nola egin zuten entzuna zuen, eta entzundakoa kontatu du.

3.408. Ogia zortzi egunetik behin egiten zuten (EIB-093/009)

Antzina, baserrian denetik ekoizten zen: ogia, sagardoa... Etxean zegoenarekin bizitzen ziren familiako guztiak. Ogia nola egiten zuten kontatzen du: Ezkaregiko errotara eramaten zuten irina. Zortzi egunetik behin egiten zen ogia, aste guztirako. Labea nolakoa zen kontatzen du. Ogi masari zati txiki bat kentzen zitzaion eta irin artean gorde astebetetz, legami bihurtu arte. Hurrengo astean erabiltzen zen.

3.409. Garo sailak Kalamua mendian (EIB-093/010)

Mandiolaazpikoa baserriko sailetan zer eta nola ereiten zuten kontatzen du. Baba, garia, garoa... Garo sailak Kalamua mendian egoten zirela dio, goi aldean.

3.410. Garia nola ereiten zuten (EIB-093/011)

Garia azaroan ereiten zuten eta prozesua kontatzen du. Gari-jotzeko makina zazpi edo zortzi etxetan zela kontatzen du: nolakoa zen kontatzen du. Zazpi edo zortzi baserrik osatzen zuten soziedadea: Hiru "Itturruagak" (Iturrao), bi Mandiolak, Azpirik, Asolagainekoak...

3.411. Salmentarako neurriak eta orduko merkatu plaza (EIB-093/012)

"Imiñia" (imina) eta anegaerdi neurriak eta haien balioak aipatzen ditu. Imilauna baba neurtzeko izaten zen. Garirik ez zen saltzen. Plazara bajatzen zen Dominga. Orduko plaza nolakoa zen kontatzen du. Esnea ere saltzen zuten. Ontzietan. Asto bat edo bi eramaten zituen karga lanetarako. "Plazeroa" k plazako ardura izaten zuen eta hark jasotzen zituen ordainketak. Plaza beteta egoten zen. Ermutik ere joaten ziren erostera. Saltzaileak urrutiagotik etortzen ziren: Berriztik, Zaldibartik... trenean etortzen ziren. Tren geltokian, Mallabiko bi anaia egoten ziren eta baserritarrei karga eramaten egiten zuten lana.

3.412. Erromeriara Usartzara (EIB-093/017)

Eibarrera heldu zenean ezberdina iruditu zitzaion. Herrira apenas bajatzen zen. Erromeriara ere Usartza auzo-gunera igotzen ziren. Herrira San Juan

jaietan soilik bajatzen ziren. Usartzako erromerian Ermere trikitilaria gogoratzen du. Baita Benito Baskaran ere. Erromeriara Mallabitik ere etortzen zen jendea. Oinez egiten zuten dena. Ordaindu mutilek egiten zuten, neskek ez. Korro bakarra ezagutu zuen. Jantzi ere dotore jantzen ziren. Abarketak eta abarkak Usartzako erromeriara eta herrira, San Juanetan, zapatak. Gurasoak ez ziren gehienetan joaten. Baserria ezin zen hutsik utzi.

3.413. Anai-arrebekin okerkerietan (EIB-093/019)

Gaztetan anai-arrebekin jolasten zuen Domingak batik bat. Siestara joaten zirenean jolasteko tartea hartzen zuten. Anai-arrebak oker asko egindakoak direla dio. Errekara alde egiten zuten. Behin oiloa lumatu zuten bizirik. Kontatu egiten du gertaera.

3.414. Jolasak eta aisialdia (EIB-093/020)

Igandeetan Santumotzen elkartzen ziren bailarako gazte guztiak. Kantatu, dantzan egin, panderoa jo... haien artean antolatzen ziren eta igandea pasatzen zuten. Kaskara batzea egiten zuten, korrika egiten zuten..."Harrixa ondo-ondo gordeta" jolasean nola jolasten zuten kontatzen du. Kaleko umeekin sekula ez zutela jolasten dio. Bailaren arteko norgehiagokak izaten zituzten. Beti demandan.

3.415. Eskolatik ibilaldia Loiolara autobusez; ez ziren heldu (EIB-093/021)

Urtean behin egiten zuten ibilaldia eskolatik. Behin Sallobente-Ermuaran eta Idotorbe (San Pedro) auzoetako umeak Loiolara joatekoak ziren autobusean, baina ez ziren heldu. Gertaera kontatzen du. Elgoibarko baserri-auzoetan zenbat eskola zeuden kontatzen du. Eskola nolakoa zen azaltzen du. Liburu batekin txandaka ibiltzen ziren.

3.416. Artzaintza; udan Kalamuan eta neguan etxean (EIB-093/022)

Ardiak udan Kalamua mendira eramaten zituzten eta han zaindu beharrik ez zen egoten. Neguan, berriz, etxe inguruan egiten zen artzaintza. Inoiz ez zuten arazorik izan otsoekin, azeriekin edo txakurrekin.

3.417. Mandiola auzoko lehen kotxea, 4L markakoa (EIB-093/023)

Mandiolagainekoa baserrikoek ekarri zuten lehen aldiz kotxea, 4L bat. Orduan egin zuten bidea. Berandutxoago Land Rover kotxea ekarri zuten Mandiolaazpikoa baserrira. 1971. urte inguruan egin zuten baserria. Bigarren eskuko Land Roverra erosi zuten eta orduan hasi ziren irteten.

3.418. Mezara Eibarrera (EIB-093/024)

Mezara Eibarrera jaisten ziren. Lastoz egindako zuziak erabiltzen zituzten: lastargiak. Nolakoa zen kontatzen du. Arratera ere igotzen ziren baina jaietan, San Isidro egunetan... halako egun berezietan. Arrate egunean jendea erruz igotzen zen. Hiru edo lau korro egoten ziren erromerian.

3.419. Urkiolara oinez San Antonioetan (EIB-093/026)

Urkiolara oinez joaten ziren Eibarko Mandiola bailaratik eta, bueltan, karga-belarra jasotzen zuten San Antonio izeneko mugatik. Nola egiten zuten eta muga non dagoen kontatzen du. Eibartik trena jarri zutenean Durangora

trenez joaten hasi ziren. Gertaera bat kontaktzen du; berritasunen aurrean nola erantzuten zuten kontaktzen du.

3.420. Santa Eufemiara kamioian (EIB-093/028)

Santa Eufemiara kamioian igotzen ziren, banku luzeetan jarrita.

3.421. "Don Kortxo" Idotorbe (San Pedro) auzoko abadea (EIB-093/030)

Elgoibarko Idotorbe (San Pedro) auzoko mezen berri ematen du. "Don Kortxo" abadea; sermoi oso gogorak egiten zituen. Arantzazuko fraideak eskean ibiltzen ziren baserriz baserri. Urtean pare bat bider joaten ziren baserrietara, baba sasoian, udazkenean.

3.422. Mahai inguruko ohiturak (EIB-093/033)

Familia handiak izaten ziren. Bazkaldu, denek plater beretik egiten zuten, mahaiaren erdian jartzen zen plateretik. Sagardoa ere etxean egiten zuten. Egunero baba jaten zuten. Okela ere gatzetan gordetzen zuten. Gosarik pasatu zutenik ez du gogoratzen.

3.423. Sagardoa egiten zuten etxean (EIB-093/034)

Etxean dolarea zuten. Sagar motak aipatzen ditu. Sagardoa nola egiten zuten kontaktzen du; baita non gordetzen zuten ere. Urtean behin egiten zuten sagardoa, neguan. Txiki-txikitatik edaten zuten sagardoa. Behin mozkortu zela kontaktzen du.

3.424. Okela gatzatu (EIB-093/035)

Okelak gatzetan gordetzen zituzten; zezinatu egiten zuten. Nola prestatzen zuten kontaktzen du. Gatz-kutxan gordetzen zuten. Gatza Elgoibarren erosten zuten. Gatz larria izaten zen. Klean arraina (bakailaoa, olio...) erosten zuten. Ez gaur egun beste ordea. Gosariak eta afariak nolakoak ziren kontaktzen du.

3.425. Gerratik bueltan etxea okupatuta (EIB-094/003)

Amarekin alde egin zuen Eibartik gerra denboran. Xixoneraino hasieran, eta barkuz Bartzelonara handik. Han egon ziren gerra amaitu arte. Eibarrera itzuli zirenean beste familia batek zuen beren etxea hartuta. Ermura joan behar izan zuten bizitzera.

3.426. Eibarko etxeko ganbarara bisita (EIB-094/004)

Eibarko etxearen oroitzapen bakarra du: behin amarekin ganbarara igo zen. Han ikusi zituen aitak txori txikiak hazteko erabilitako kaiolak. Urte batzuk geroago, Eibarrera itzuli ziren bizitzera.

3.427. Aita Madrildik Arboledara eta Eibarrera (EIB-094/005)

Aita Madrilgoa zen. Arboledara etorri zen lehendabizi meatzetara, eta handik Eibarrera. Burdina meatzei buruzko azalpenak.

3.428. Ama arma probalekuan lanean (EIB-094/007)

Amak "Banco de Pruebas"en egin zuen lan aita gaixotuz gero. Probalekuko lana nolakoa den azaltzen du. Andrazkoek paper-kontuak eramaten zituzten batez ere.

3.429. Eskua emanda egindako tratuak baliorik ez (EIB-094/008)

Etxea hartuta zegoen erbestetik itzuli zirenean. Orduan askotan ez zegoen jabetza-paperik, eskua ematea aski tratua egiteko. Ezin jakin nola eskuratu zuten besteek etxea, saltzailea hilda zegoelako.

3.430. Mojekin hazi eta 11 urterekin lanera (EIB-094/009)

Ama alarguna zenez, hiru anai-arrebak leku ezberdinetan hazi ziren: bera, Eibarko ospitalean mojekin. 11 urterekin hasi zen tailerrean lanean.

3.431. Armeria eskolako ikasleen kantua (EIB-094/010)

Instrukzioa erakusten zuten Armeria Eskolan soldadu joan aurretik. Ikasleek eskola hartako maisuez ateratako erdarazko kantua kantatzen digu.

3.432. 11 urterekin lanera (EIB-094/013)

Koinatua trokelista zuen eta eskola gehiegi gustatzen ez zitzaionez, lanean hasi zen harekin 11 urte zituela. Hasieran pintxe lanetan. Erraztasun handia zuen mekanikarako. 19 urterekin arma probalekua lanean hasi eta 46 urte egin zituen. Fabrikako txofer, gehienbat.

3.433. Baserrian laguntzen (EIB-094/014)

Lanetik irten eta gero, baserri batera joaten zen laguntzera. Asko gustatzen zitzaion baserriko lana. Etxeko egin zen baserrian. Baserritarra hartu zuen andrea.

3.434. Ermua, herri txikia (EIB-094/016)

Ermuko kalean 12 baserri zeuden. Oso txikia zen herria. 3-4 kale. Ego erreka, erreka garbia, ezkailuak eta denetik zegoen.

3.435. Ermu kaleko baserrien izenak (EIB-094/017)

Baserri-izen denak gogoratzen ditu: Santukua, Trake, Karabixa. Erdirago: Antonatxa. Motxu, Otxua, Arrako, Sinko, Txantxikua, Orozko eta Torreta. Pixka bat aparteago: Abeletxe, Elorreta. Eibar eta Ermuaren mugan dago Elorreta. Baserri horren bitxikeria. Beste batzuk: Ongarai, Betiondo, Ureta, Josio.

3.436. Ermua eta Benidorm, gehien hazi ziren herriak (EIB-094/018)

Baserriek beren lurra saldu zituzten etxeak egiteko. Baserriko gizonak tailerretan hasi ziren lanean. 1.000 biztanle inguru zituen gerra ostean. Benidorm baino gehiago hasi zen sasoi batean Ermua.

3.437. Pikatxoi eta palaz lurra kentzen (EIB-094/020)

Orduan (1950 ingurua) ez zegoen hondeamakinarik. Gailegoek pikatxoi eta palaz lur kentzen. Istripuak sarri. Horrela egindakoak dira Eibarko eta Ermuko auzo asko.

3.438. Ermuko lantegiak (EIB-094/021)

Bizikletentzat pinoiak-eta egiten zituzten Urreta lantegian. Iriondo, Salaberria... beste tailer batzuk. Gerra aurretik armagintza ere bazegoen baina gero bizikleta-piezak batez ere. Plantxak ere bai, Ufesa Ermuan sortu zen.

3.439. Txiskero fabrika (EIB-094/023)

Txiskeroak egiteko baimen berezia behar zen. Kupoa zegoen eta ezin izendatutakoak baino gehiago egin. Pospoloekin ere antzekoa gertatzen eiz zen, estatuaren gauzak zirelako.

3.440. Star fabrika (EIB-094/024)

Star arma fabrikan ibili zen gaztetan. 300 bat langile. Pistolak, subfusilak eta horrelakoak egiten zituzten. Eskuz, lima erabiliz, egiten zen lan asko.

3.441. Armen probalekua (EIB-094/025)

Espainia osoko armak probatzeko leku ofiziala zegoen Eibarren. Atzerrian egindako armak ere Eibarren probatzen dira. Arma asko probatzen zen egunero.

3.442. Armen probalekuko lanak (EIB-094/026)

Armari sarrera eman lehendabizi, zenbakia hartu, eta gero hiru lagunek ikuskatzen zuten. Ajusteak, kanoiaeren lodiera eta abar.

3.443. Emakumeen lanak (EIB-094/027)

Kartutxoak bertan egiten zituzten, eta emakumeen lana zen muntatzea. Emakumeek ez zuten armarik probatzen.

3.444. Nolakoa zen arma probalekua (EIB-094/028)

17 urterekin sartu zen. Hiru etxe ziren lantegian. Argazkia erakusten du. Zeharo aldatuta dago orain ingurua. 53. langilea zen bera sartu zenean.

3.445. Militarrek zuzendari (EIB-094/029)

Militarrek ziren agintariak. Haiak kontrolatzen zuten. Baina izatez probalekua armagile guztiena zen. Nola sortu zen probalekua egiteko ideia. Espainian bakarra.

3.446. Harreman ona militarren eta zibilen artean (EIB-094/030)

Harreman ona zuten agintari militarrekin. Beti armagilearen alde egiten eiz zuten. Errespetua. Santa Barbara egunean ospatzen zuten armagileen eguna. Militarrek eta guardia zibilak galoiekin ibiltzen ziren.

3.447. Autoritateak eta beharginak elkarrekin bazkaltzen (EIB-094/031)

Autoritateek eta beharginek elkarrekin bazkaltzen zuten inoiz Santa Barbara egunean. Berari oso ugazaba onak egokitu zitzaizkion.

3.448. Armagintzako zuzendariak (EIB-094/033)

Zuzendaria eta zuzendari ordea ingeniariak ziren. "Maestro Armeroa" eta abar ere trebakuntza handikoak ziren. Zuzendarien izenak.

3.449. Ameslaria eta baikorra (EIB-636/002)

Berrogeitamargarren hamarkadan izan zuen Serafinek Bitorrekin harremana, 1952-59 epean, gutxi gorabehera, Kapanaga Eibarren bizi zenean. Gero

Otxandiora itzuli zen. Ameslaria eta baikorra topera. Euskararen gainean ideia eta intuizioa harrigarriak zituen. Euskara sakon-sakonetik ezagutzen zuen. Euskarazko klaseak ere eman zituen Klub Deportiboan. Baina klaseak ematea ez zitzaion hainbeste gustatzen.

3.450. Garaiko euskal intelektualekin harremana (EIB-636/003)

Politika aldetik, kristau-demokrata europeista giroko mentalitatea zuen orduan, oso ohikoa garai hartan. Mauriac, Mounier eta Serafinek ezagutzen ez zituen beste autore batzuk erabiltzen zituen ahotan. 1956an Parisen egin zen Congreso Mundial Vasco-n izan zela uste du, baina ez dago ziur. Behintzat asko aipatzen zuen. Zaitegi, Ibinagabeitia eta garaiko intelektual euskalzaleekin harremanak zituen. Berak idatzi ez zuen asko egiten baina pentsatu bai. Euskaldunen erlijioa, antropologia, Erro eta Gara... arlo horretan eman ditu batez ere frutuak. Baikorra oso. Soldadutzara joan aurretik zera esan zion: "hi lizentziatu orduko Franco joan dok". Ondo informatuta zegoen politikaz eta abar. Radio Paris-eta entzuten zituen, eta irakurri ere asko.

3.451. Klub Deportiboko solasaldiak (EIB-636/004)

Santi Arizmendiarieta Eibarko esperantistarekin eta beste batzuekin astero solasaldia izaten zuten klub deportiboan. Bitorrek nazioarteko politika gaiak ekartzen zituen sarri; diasporakoak ere bai. 1958 inguruan alde egin zuen Otxandiora. Elorriko Funcor kooperatibakoekin izan zuen harremana.

3.452. Egunez lantegira eta gauzez eskolara (EIB-636/005)

Eskola Armeriara joaten zen gauzez ikastera. Egunez, Mateo Kareagaren lantegian egiten zuen. Isasi kalean bizi zen, Atxatarren etxean. Lagunak, Eibarko euskalzale jendea: San Martin, Laspiur, Zubiaurre... Anaiak ere, Santik, Eibarren egiten zuen beharra, baina hura beste mundu baten bizi zen.

3.453. Otxandion jaio eta Bilbon bizi (EIB-639/002)

Begoña Zaldibar Oianguren Otxandion jaio zen 1926eko uztailaren 14an. Aitak Gregorio zuen izena eta amak Zoila, biak Otxandiokoak. Txikitan Bilbon bizi ziren, aita bertan egiten baitzuen biharra, baina bera jaio zedin Otxandiora joan ziren. Han, amandarearen etxean, udak bakarrik pasatzen zituzten (3-4 hilabete).

3.454. Eskola eta komunioa euskaraz (EIB-639/004)

Aita oso abertzalea zen, PNVkoa. Eskolara Bilboko Bihotz Sainduan zegoen lehenengoko ikastolara joan ziren, anaia eta biak. Ikasketak euskaraz egin zituzten; baita komunioa ere.

3.455. Ingalaterrara "txangoa" (EIB-639/007)

11 urte egiteko zituen Ingalaterra bidali zutenean, bere anaiarekin eta bi lehengusurekin. Aita eta amarekin joan zen baina ez du gogoratzen nola. Gerrarengatik bidaltzen zituztela esan zioten etxean. Beraiek txango bat izango balitz bezala hartu zuten, gerra segituan bukatuko zela uste baitzuten.

3.456. Uztailak 18, Santa Marina (EIB-639/008)

Otxandioko jaiak ziren eta amandarearen etxean zeuden gerra hasi zenean. Bilboko lagun bat ere beraiekin zegoen. Santa Marina egunean ama eta Bilboko laguna plazara joan ziren; Begoña, anaia txikia eta amandrea, berriz,

etxean. Bonbardaketa hasi zenean, altzoan anaia hartu eta baratzak zeharkatuz beste baserri bateko kortan babestu ziren. Bitartean ama plazan, eta amandrea falta.

3.457. Kanpamentuan ez zitzaien ezer falta (EIB-639/015)

Southamptonera iritsi zirenerako kanpamentua prest zegoen. Harrera ona egin zieten, ogi zuri eta guzti. Heldu bezain goiti-behera garbitu zituzten. Kanpindendetan egiten zuten lo, baina ez zitzaien ezer falta: garbitasuna, medikuak...

3.458. Bera Londresera eta anaia Liverpoolera (EIB-639/016)

Southamptoneko kanpamentura iritsi zirenean anaia eta lehengusu bat ez zituzten berriro ikusi. Southamptonetik kolegio batera eraman zuten. Begoña Londresera eraman zuten eta anaia eta lehengusua Liverpoolera. Noizbehinka lehengusuaren eskutitz bat jasotzen zuen. Gurasoek elkarrekin zeudela uste zuten.

3.459. Etxean euskaraz, kalean gaztelaniaz eta ingelesa ezer gutxi (EIB-639/020)

Ingalaterran eskolara joan zen. Moja italiarren ordenakoa zen kolegioa eta gaztelaniaz ondo zekien moja bat ekarri zieten klaseak emateko. Begoñak gaztelaniaz ikasteko arazorik ez zuen izan. Bilbon ikastolan ibili arren, kaleko bizitza gaztelaniaz egiten zen. Hori bai, etxean derrigortuta euskaraz. Ez zuten uste denbora asko egongo zirenik Londresen eta ez zuten ingelesa ikasi, ezta nahi ere.

3.460. 9 hilabete bakarrik (EIB-639/021)

Ingalaterran 9 hilabete bakarrik egon ziren. Gerra Zibila amaitu barik zegoen, baina gurasoak beraien eske zeuden. Etxean gertatzen ari zenaren berri bazuen, baina ez zuen eskutitz asko jaso, bat edo bi.

3.461. Jateko lehenengo "Cara al Sol" (EIB-639/022)

Etxera ere itsasontziz itzuli ziren, Hendaiara. Hendaian lo egin, eta hurrengo egunean autobusez Durangora joan ziren. Heldu zirenean "Cara al Sol" abesten bazekiten galdetu zieten. Bazekiten, baina ezetz esan zuten. Ez zuten abestu eta jan gabe geratu ziren. Durangorik Bilbora eraman zituzten eta han ama zegoen zain. Aita ordurako oso gaixo zegoen.

3.462. Poza, baina egoera zaila (EIB-639/023)

Etxera itzultzerakoan, alde batetik poz handia sentitu zuen, baina bestaldetik ez zuten ezer. Aita bihar barik zegoen eta egoera oso zaila zen. Karitatetik bizitzen egon ziren.

3.463. Eibarrera lanera (EIB-639/024)

Aita, abertzalea izatearren, lan gabe geratu zen. Eibarren lanean zegoen osaba baten bitartez aita eta anaiak lana aurkitu zuten. Handik gutxira ama, eta denborarekin, 48an, Begoña ere Eibarrera joan zen bizitzera.

3.464. Antonio edo Andoni (EIB-639/026)

Anaia Andonik, eskolan, Jose Antonio Zaldibar deitzen ziotenean ez zuen kasurik egiten. Horregatik zigorrak jasotzen zituen.

3.465. Neskato bizkaitarrak kolegioan (EIB-639/037)

Ingaterrako argazki bat erakusten du. Beste hiru neska daude berarekin, Bilboko 2 eta Zeanuriko 1. Ez zituen berriz ikusi.

3.466. Kolegioko neskatoak (EIB-639/038)

Kolegioko beste argazki bat. Kolegioko neska guztiak daude, bera eta lehengusua barne.

3.467. Liburua opari (EIB-639/040)

"Premio a la señorita Begoña Zaldibar por su buena conducta durante su permanencia en el colegio de las Misioneras del Sagrado Corazón de Jesús. Honor Oak- London SE 23- junio de 1937/ enero 1938"

3.468. Aitaren partiduko hileko kuota (EIB-639/041)

"Euzko- Alderdi Jeltzalia (Partido Nacionalista Vasco). Abando'ko Uri-Buru-Batzara. 215 Zaldibar tar Gergori, Autonomia, 50-5º. Goian ataturiko alderdikidiak bi laurleko ordaindu dauz ila onetako saritzat. 1937- Epala (Marzo). Lendakarija, JORALA, Txindizaña."

3.469. Aitaren txartela (EIB-639/042)

"EUZKO- ALDERDI JELTZALIA/ PARTIDO NACIONALISTA VASCO. Zaldibar 'tar Gergori/ Abando 13 Dic. 1930"

3.470. Amaren identifikazio zedula (EIB-639/044)

1940ko amaren identifikazio zedula. "Zoila Oyanguren Zaldibar. Natural de Ochandiano (...)"

3.471. Lehen Jaunartzeko oroigarria (EIB-639/045)

"Joralaren 15'kn Begoña'ko amaren txadonan lenengoz jaunartu eben. Zaldibar eta Oyanguren tar Miren Begoñe. Ikasliak 1934'gko Euzko Ikastola Batza'ren". Beste aldean: "Emoguzu gaur be geuretzako ogia(…). Ni naz gotik jatsi nazan og; bixija: ogi au jango dauna betiko bixiko da(Joann VI, 51, 52)".

3.472. Biografia (EIB-640/002)

Roberto Altuna Iriondo, 1930. urteko azaroaren 9an jaio zen Eibarko Isasi kalean. Arreba gazteagoa izan zuen. Aita Elgoibartarra zen, ama Eibarkoa.

3.473. Aita grabadorea, ama neskame (EIB-640/004)

Gurasoen ofizioa: aita grabadorea zen Victor Sarasquetarenean, amak neskame egon behar izan zuen aita kartzelaratu zutelako. Errepublikanoa zen.

3.474. Errusiara ez, Frantziara (EIB-640/005)

Aitak Errusiara bidali nahi izan zuen semea, baina Frantziara bidali zuten. Familiak Errusian zegoela pentsatzen zuen eta han ibili ziren bere bila. Iritsi eta gutxira familia aberats batek hartu zuen.

3.475. Nor zen Fouache familia? (EIB-640/008)

50. urteurrenean Frantziatik jasotako gutun bat erakusten du. Argazki bat bidali zioten baina familia hura ez du gogoratzen. Agiri bat erakusten du, Fouache familiarekin egon zela agertzen da bertan baina berak ez ditu gogoratzen.

3.476. Frantziako ama eta hemengo ama (EIB-640/009)

Jaso zuen familiarekin karta harremana mantendu izan du beti. Han zegoen bitartean ere izan zuen Eibarko berri. Frantziako amak ez zuen Roberto bueltatzea nahi. Bakarrik bueltatu zen Frantziatik, hiru urtez egon zen. Aurretik itzuliko ziren gainontzeko umeak. Ez du oso argi zer sentitu zuen.

3.477. Toribio Etxebarria etxean apopilo (EIB-640/010)

Etxean ez zen politikaz hitzik egiten. Nagusiagoa zela, Toribio Etxebarria euren etxean apopilo egon zen eta hark ematen zizkion azalpen batzuk politikaz. Aitaren oso laguna izan zen Toribio.

3.478. Amandrearen etxean hamalau lagun (EIB-640/011)

Frantziatik itzultzean Eibar guztiz suntsituta zegoela goratzen du. Amandrearen etxera hamalau lagun joan behar izan ziren bizitzera.

3.479. Argazkiak ikusten (EIB-640/019)

Argazkiak erakusten dizkigu.

3.480. Mekaniko lanetan hasi (EIB-641/002)

15-16 urte zituela mekaniko lanetan hasi zen, pintxe moduan. Ofizioa ikasteko aukera eman ziotela dio. Zer lan egiten zituzten aipatzen du. Mekanikaria oñatiarra zen, eta errementaria, berriz, Orotz-Betelukoa. Tarteetan, aitari laguntzen zion basoan.

3.481. 25 urterekin, Eibarrera (EIB-641/004)

25 urte zituela, Eibarrera joan zen. Ordurako, ondo ezagutzen zuen mekaniko lana. Benjaminen anaia bat Eibarko bulego batean hasi zen lanean, eta hark esanda joan zen Eibarrera, lan bila. Marpen hasi zen lanean.

3.482. Marpe lantegia (EIB-641/005)

Eibarren, bere lehenengo lana Marpe lantegian izan zen. Urte eta erdi inguruan aritu zen bertan lanean, iturgintza eta kirurgia tresnak egiten. Ugazabei buruzko azalpenak ematen ditu. Marpe utzi eta Irazola lantegian hasi zen lanean.

3.483. Marpe utzi, eta Irazolan hasi (EIB-641/006)

Marpe utzi eta Irazola lantegian hasi zen lanean. Irazola lantegia non zegoen azaltzen du. Marpen bezala, Irazolan ere dornuan aritzen zen lanean. Ugazaba, Bitoriano Irazola. Laneko kontuak aipatzen ditu.

3.484. Irazola lantegitik Alfara (EIB-641/007)

Amaginarrebak Alfara lanean hasteko "girak" egin zizkion, eta Irazola lantegia utzi eta Alfara hasi zen lanean. Alfara lan egitea "kategoria" edukitzea zen. Lanean hasi, eta berehala jarri zuten dornuan.

3.485. Dornuko lanak (EIB-641/008)

Alfa lantegian zer lan egiten zituen kontaktzen du. Dornuko lanei buruzko azalpenak. Plano txiki bat jarraitzen zuten egin beharreko piezen neurriak-eta zein ziren jakiteko. Laneko erremintak: kijalak, tapoiak...

3.486. Dornutik, "Transfer" makinara (EIB-641/009)

Alfa lantegian zer lan egiten zituen kontaktzen du. Dornuan lanean hasi bazen ere, "Transfer" makinan jarraitu zuen lanean. "Transfer" makina Frantzian egina zen, Renault etxean. Alfan, bi "Transfer" makina zeuden.

3.487. Laneko tresnak, euskaraz (EIB-641/011)

Alfa lantegiko kontuak. Laneko erremintak euskaraz izendatzen zituzten: barautza, otxaua...

3.488. Alfako produkzio lana (EIB-641/012)

Alfa lantegiko produkzio lana nola izaten zen kontaktzen du.

3.489. Mekanikari konpontzailea (EIB-641/013)

Alfa lantegiko kontuak. Mekanikari konpontzaile lanetan aritzen zen Benjamin; gehien bat "Transfer" makinan.

3.490. 1955ean, Alfan sartu (EIB-641/015)

1955ean sartu zen Alfa lantegian. Ordurako, urteak zeramatzan martxan "Transfer" makinak. Lehenengo mekanikariak Parisen ibili ziren makinaren funtzionamendua ikasten.

3.491. "Transferra", makina famatua Eibarren (EIB-641/016)

Aita bisitan etorri zitzaion batean, Alfa lantegiko "Transfer" makina ikustera joan ziren. "Transferra" makina ezaguna zen Eibarren. Handik urte batzuetara, bertan arituko zen Benjamin lanean.

3.492. Alfistak (EIB-641/017)

Alfa lantegiko kontuak. Alfisten arteko harremanak. Langileen arteko errezeloak aipatzen ditu.

3.493. Mekanikari lana (EIB-641/018)

Alfa lantegiko kontuak. Mekanikari lanari buruzko azalpenak. Hasieran, hiru eta, gerora, bi mekanikari ibiltzen ziren "Transferrean". Bi eta hiru lanalditan ere aritu izan ziren lanean.

3.494. "Transferrak", hogeita hamarren lana egin (EIB-641/019)

Alfa lantegiko kontuak. "Transfer" makinak hogeita hamarren lana egiten omen zuen. Lehenengotik lau eta, gero, bi langile eta mekanikaria aritzen ziren makina horretan.

3.495. Alfako lan prozedurak I (EIB-641/020)

Alfa lantegiko kontuak. Lan prozedurak zein ziren azaltzen du. "Transferrak" operazio asko egiten zituen: zulatu, fresatu...

3.496. Aberiak konpondu behar (EIB-641/021)

Alfa lantegiko kontuak. Mekanikariei zegokien "Transferraren" aberiak konpontzea. Makina geldirik edukitzea dirua zen. Txanda (relebo) bakoitzean 700 josteko makina egiten zituzten.

3.497. "Transferraren" funtzionamendua (EIB-641/023)

Alfa lantegiko kontuak. "Transfer" makinaren funtzionamendua azaltzen du. (Azalpena makinaren argazki batekin ematen du, baina ez da makina ikusten).

3.498. Bi "Transfer" (EIB-641/025)

Alfa lantegiko kontuak. Bi "Transfer" makina zeuden, bata bestearen paraleloan. Makina bat bestea baino luzeagoa zen. Benjaminen sekzioan josteko makinaren burua eta plaka egiten ziren. "Transferra" makina handia zen: 15 metro inguru neurtzen zituen.

3.499. "Tranferraren" kokalekua (EIB-641/026)

Alfa lantegiko kontuak. "Transfer" makinak lantegiko zer tokitan zeuden azaltzen du. Montajea bigarren eta hirugarren solairuan egiten zen.

3.500. Alfako lan prozedurak II (EIB-641/027)

Alfa lantegiko kontuak. Lan prozedurak zein ziren aipatzen ditu: fundizioa, akabatze-lanak, pintura-lanak (bero bidezkoa...).

3.501. Beste mekanikariak (EIB-641/028)

Alfa lantegiko kontuak. Julio Etxeberria 'Karabiñas' mekanikariarekin hasi zen lanean. Gero, German Milikuarekin aritu zen. Milikua Mexikoko lantegira joan zen denbora batez.

3.502. "Transferra" kendu (EIB-641/029)

Alfa lantegiko kontuak. Benjamin jubilatu eta urte gutxira (1980 urte inguruan), "Transfer" makinak kendu egin zituzten. "Transferrak" ia berrogei urte egin zituen Alfan beharrean.

3.503. "Transferraren" aplikazioak (EIB-641/030)

Alfa lantegiko kontuak. "Transfer" makinaren aplikazioei buruzko azalpenak. Lanbidearekin loturiko lexikoa: barautza, otxaua, fresa...

3.504. Lanpostu aldaketa eta soldata (EIB-641/031)

Alfa lantegiko kontuak. Produkzio lanetik, dornutik, mekanikari izatera nola pasatu zen kontatzen du. Lan kategoria, soldata eta primei buruzkoak.

3.505. Soldata eta isil-poltsa (EIB-641/032)

Alfa lantegiko kontuak. Soldatari buruzko azalpenak. Astean behin, zapatuetan, 200 pezeta jasotzen zituzten sobre txiki batean. Gero, hilaren azkenean, likidazioa. Isil-poltsa.

3.506. "Sábado inglés" eta ordu extrak (EIB-641/033)

Alfa lantegiko kontuak. "Sábado inglés": zapatuetan eguerdira arte egiten zuten lan. Zortzi orduko lanaldia zuten. Ordu extrak kobratu egiten zituzten.

3.507. 1.600 langiletik gora (EIB-641/034)

Alfa lantegiko kontuak. Benjaminen garaian, 1.600 langiletik gora izan omen ziren Alfan.

3.508. Lanetik irten eta txikiteora (EIB-641/035)

Lanetik atera, eta txikiteora joateko ohitura handia zuten Alfako langile askok. Txikitero amorratuak zirenak lantegitik gertuen zegoen tabernara joaten omen ziren. Hainbat taberna aipatzen ditu: Margon, Ezkerra, Txomin, Irimo... Eguerdian eta iluntzean izaten zen txikiteoa.

3.509. Laneko ordutegia (EIB-641/037)

Alfa lantegiko kontuak. Lanaldia: goizean, zortziretatik hamabiak arte, eta arratsaldean, berriz, ordu bata eta erdietatik sei eta erdiak arte.

3.510. Josteko makinaren salmenta (EIB-641/040)

Alfa lantegiko kontuak. Josteko makinaren salmentari buruzko kontuak. Espainiako hiriburu denetan denda bat baino gehiago omen zegoen. Saltzaileen furgoneta ilarak.

3.511. Orbaizetako bizimodua (EIB-641/042)

Orbaizetako bizimoduari buruzko azalpenak. Mendiko, baserriko bizimodua. Benjaminen aita "monteroa" zen, eta Orbaizeta inguruko basoak kudeatzen zituen. Herrian bi eskola zeuden: mutilena eta neskena. Auzo-eskola bat ere bazen.

3.512. Euskara Orbaizetan (EIB-641/043)

Orbaizetako bizimodurari buruzko azalpenak. Amagandik jaso zuen euskara. Orbaizetan euskara hitz egiten zen, eta bazen euskaraz abesteko ohitura. Larruzko danbor batzuekin etxez etxe joaten ziren abesten.

3.513. Orbaizetatik Eibarrera (EIB-641/044)

Orbaizetatik Eibarrera bizitzera joan zenean, Eibarren euskaraz egiten zuen. Orbaizetako esaerak ateratzen omen zitzaizkion. Euskara Orbaizetan eta Eibarren.

3.514. Andregai bilatu (EIB-641/047)

Orbaizetatik Eibarrera bizitzera joan, eta hilabete batzuetara bilatu zuen andregai Benjaminek. Kalbetoian ibiltzen ziren gazteak paseoan. Gaztetako ibilerak. Andregai nola ezagutu zuen kontatzen du.

3.515. "Transferraren" aberiak (EIB-641/050)

Alfa lantegiko kontuak. "Transferraren" aberiak. Ibilian joan ziren "Transferraren" funtzionamendua ikasten.

3.516. Danobat lantegiko lana eta bidaiak (EIB-642/002)

Elgoibarko Danobat lantegian dabil lanean, muntatzaile moduan. Atzerrira bidaia batzuk egitea tokatu izan zaio. Ze lan egiten duen.

3.517. Gazterik hasi zen lanean (EIB-642/004)

Bere aitak mantentze-lanetan egin izan du lan eta berari ere hori gustatzen zitzaion. Hasieran lan horretan jardun zuen arren, gerora makinaren muntaian lan egiteko aukera sortu zitzaion, eta gustura ei dabil. Gazterik hasi zen lanean; 17 urterekin udaran Mendaroko lantegi batean jardun zuen.

3.518. Kuadrilla kaletarra; gazterik lanean (EIB-642/006)

Bera baserrian bizi arren, kuadrillako lagunak kaletarrak dauzka. Bera izango zen lehenengotakoa lanean hasten, 20 urterekin. Ikasketetan ez ei zen oso abila eta gustuko modulua egin zuenez, berehala hasi zen lanean.

3.519. Kaleko lagunekin zuka; baserrikoekin hika (EIB-642/008)

Bera baserrikoa izan arren, kuadrillakoak kaletarrak dira. Baserri-giroan ohikoagoa da euskaraz egitea eta baita hika egitea ere. Lagunen artean, batzuekin euskaraz egiten ei du beti, beste batzuekin gaztelaniaz. Garrantzitsua izaten da lehenengo harremana ze hizkuntzatan egiten den. Kaleko lagunekin zuka; baserrikoekin hika. Emakumezkoei beti zuka. Eta gurasoekin ere bai.

3.520. Eibar Rugby Taldeari lotuta (EIB-642/009)

14-15 urterekin errugbian jokatzeko hasi zen. Gerora, lesio baten eraginez, jokatzeari utzi behar izan zion. Hala ere, errugbiari lotuta jarraitzen du: Eibar Rugby Taldeko delegatu moduan ari da oraindik ere, zuzendaritzako kide ere izan da, nesken taldeari laguntzen ere ibili da... Errespetu handiko kirola da. Bera jenio bizikoa da, baina errugbian errespetuz jokatzeko ikasi beharra dago. Errugbiak lagun asko eman dizkio.

3.521. Errugbi partiduetako "hirugarren denbora" (EIB-642/010)

Errugbian partiduetako "hirugarren denbora" izaten da ezagunena. Partiduan zehar elkarrekin borrokan ibili arren, harremanak estutzeko aukera ematen du. Honen inguruko azalpenak. Errugbiko jokalariek parrandazale fama ei dute.

3.522. Errugbia, kontaktu handiko kirola (EIB-642/011)

Askok exijitzen duen kirola da errugbia, kontaktu handikoa delako. Berak ez omen du haustura handirik izan. Jendeak uste du errugbia oso kirol bortitza dela, baina ez da hala.

3.523. Motorzalea eta rallyzalea (EIB-642/012)

Motorzalea da, orokorrean. Baditu rallyetan korritzen duten lagunak eta haiei laguntzen ere ibili izan da. Eibarren ba omen dago zaletasuna, baina azken urteetan ezer antolatzeke dirurik ez. Adin desberdinetako jendea elkartzen omen dira zaletasuna beraren bueltan. Markinan zaletasuna oso handia da, bertako zenbait pilotu goi-goian dabiltzalako.

3.524. Herri kiroletan, txingak eramaten (EIB-642/013)

Parrandaren batean egindako apusturen baten ondorioz herri-kiroletan ere murgildu zen. Txingak eramaten entrenatzen jardun zuen pare bat urtez. Juanjo Agirregabiria osaba izan da Euskal Herriko txapelduna urte askoan eta hark laguntzen zion. Kirol oso gogorra, eta dirurik ez.

3.525. Txinga apustua Mutrikuko Kalbario jaietan (EIB-642/014)

Lagunartean zenbait apustu egin izan ditu. Nahikoa izaten da norbaitek "ez dago potrorik" esatea parrandaren batean. Azkenengo apustua Mutrikun jokatu zuten, Kalbario jaietan. Lagun bat eta biak 50 kiloko txingekin aritu ziren, nork denbora gehiago iraun.

3.526. Elurrarekin auzokoak garraiatzen (EIB-642/018)

14-15 urterekin anaiaren motoan ibiltzen hasi zen. 18 urte bete orduko kotxeko gida-baimena atera zuen eta kotxearekin hasi zen. Bi-hiru kotxe eta hiru moto izan ditu. Elurrarekin kotxeari gurpilak aldatu eta auzoko bizilagunak garraiatzen ibili izan omen da. Lehenago "tronpoak" egiten ere ibiltzen omen zen elurrarekin, baina orain zailagoa dela dio.

3.527. Umetatik bihurrikerietan (EIB-642/020)

Umetatik amari disgustu handiak eman izan dizkiola dio, istripu txiki asko izaten zituelako. Baserri inguruan aldapa handiak dituzte eta bizikletarekin edo korrika gora eta behera ibiltzen ziren. Eskolako irakasleek ere gogoan omen dute Iraitz, bihurrikeriak egiten zituelako.

3.528. Ikastolan andereñori sugandilak; txangoan jarritako zigorra (EIB-642/022)

Ikastolan behin jolas-ordu osoa sugandilak batzen pasa omen zuten, gero andereñoaren "kajoian" sartzeko. Institutu garairako pixka bat zintzotuta omen zegoen. Hala ere, gogoan du Nafarroara txangoan joan ziren batean gauzez futbol zelaian korrika jarri zituztela, zigor moduan.

3.529. Kafea hartzera irten eta goizean etxeratu (EIB-642/023)

Ez du kalean egindako erokeria handirik gogoratzen. Kafea hartzera irten eta gaupasak egin izan dituela dio. Gazteek, gazte izateko, halakoak egin beharra dutela dio.

3.530. Baserrian bizitzearen onurak eta arazoak (EIB-642/025)

Gustura bizi da baserrian. Baserrian bizitzearen alde txarrak: gidabaimena atera arte norbaiten mendean egon beharra, parrandetan edariarekin kontuz ibili beharra... Eta gero, horretaz gain, baserrian beti egoten da lana. Hala ere, alde onak ere baditu: lasaitasuna, zaratarik ez, mendia bertan...

3.531. Baserritik etorkizunik ez; animalien lotura (EIB-642/026)

Orain animalia gutxi dute baserrian. Amak beti esan izan omen die ikasteko, baserritik ez dagoelako etorkizunik. Gainera, animaliak izanez gero, baserrian ez dagoela jai-egunik dio. Berak 10-11 urte inguru zituen arte esne-behiak izan zituzten, baina lan handia ematen zuten eta lotura eskatzen zuten, gainera. Lehen inguruko baserrietan ere bazeuden esne-behiak, baina sasoi baten beherakada handia egon omen zen.

3.532. Pinudiekin irabazirik ez (EIB-642/027)

Baserritarrek pinudiekin dirua ateratzen dutela pentsatzen du jendeak, baina ez da horrela. Garai batean pinudia bota eta etxea konpontzeko edo beste etxe bat erosteko dirua izaten zen. Baina gaur egun asko jaitsi da pinuaren balioa eta ez dago irabazirik. Gainera, lan handia eskatzen du. Zenbait gaztek baserritik bizitzeko ahalegina egin izan dutela dio, baina zaila da.

3.533. Amama Eibarko plazara saltzera (EIB-642/028)

Amak baserrian lan egin izan du beti. Amama plazara jaitsi izan da beti, barazkiak saltzera eta ama esnea partitzera ere jaisten zen. Berak eta anaiak ahal duten neurrian lagundu izan dute. Plazara ere joaten zen batzuetan mutikotan.

3.534. Baserritarrak, baserrikoak eta baserrira bizitzera joandakoak (EIB-642/029)

Kuadrillako lagun bat baserri batean bizitzen egon zen, baina berriz kalera jaitsi omen zen gero. Badaudela baserrira bizitzera joaten diren gazteak dio. Auzora ere etorri ei da jende gaztea. Ez da gauza bera baserrira edo txaletera joan bizitzera. Baserri zaharrean beti daude gauzak konpontzeko. Eta ez da gauza bera baserritarra, baserrikoa edo baserrira bizitzera joandakoa izatea.

3.535. Oporretara, bizimodu lasaia egitera (EIB-642/030)

Bidaiatzea asko gustatzen zaio. Askotan rallyak erabiltzen ditu bidaiatzeko aitzakia moduan. Kanarietara asko joaten da lagun bat duelako bertan. Baita Galizian ere. Oporretara bizimodu lasaia egitera joaten da, urtean zehar nahikoa presarekin ibiltzen gara eta. Pirinioetara edo mendi aldera ere askotan joan izan da, bai gurasoekin eta baita lagunekin ere.

3.536. Kanarietan bizimodu lasaia (EIB-642/031)

Kanarietan estresik eza eta ordutegirik ez edukitzea eskertzen du, urte osoan presaka-antzean ibili ostean. Hango jendearen izaera ere lasaia goa dela dio.

3.537. Portugalera bidaiak; Tenerifeko esperientzia (EIB-642/032)

Erasmusetik joanda Portugalen hiru hilabete pasatu zituen eta gerora ere bi alditan egon izan da kotxeen munduko lasterketa ikusten. Baina markatuta geratu zitzaion bidaietako bat Tenerifera egin zuen lehena izan zen. Bakarrik joan zen eta hotelean gehienak ingelesak ziren. Berak orduan ez omen zekien askorik ingelesez eta nola-hala moldatu zen.

3.538. Ingelesa ikasten; Txinako esperientzia (EIB-642/033)

Lan-kontuengatik ingelesa ikasten dihardu. Asko kostatu izan zaio. Ingelesa alferrrikakoa dela zenbait lekutan dio. Txinan gutxik omen dakite ingelesez. Estatu Batuetan ez da egon inoiz, baina gustura joango litzateke. Leku bakoitzeko mitoak egiazkoak diren ala ez jakiteko, bertara joan eta ikustea gustatzen zaio.

3.539. Saudi Arabian egon zeneko esperientzia (EIB-642/034)

Saudi Arabian Real Madril eta Bartzelona taldeak bakarrik ezagutzen omen zituzten. Europatik kanpora ez garela ezer dio. Han egon zenean gogorra egin

zitzaion hasiera, 50 gradu zeudelako eta bizitza sozialik ez dagoelako bertan. Emakumeak estalita ibiltzeak ere inpresioa egin omen zion. Mekatik gertu egon zen eta bertakoak oso itxiak zirela dio. Turkian edo Dubain mendebaldekoagoak dira.

3.540. Umeak izandakoan, euskaraz; euskararen egoera Eibarren (EIB-642/036)

Baserri-giroko lagunekin beti egin izan du euskaraz. Kanean lehen gutxiago entzuten zela euskara uste du. Lehen gaztelaniaz hitz egiten zutenak orain umekin euskaraz sumatzen dituela dio. Askok euskaraz ikasi arren gero ez dutela erabiltzen dio. Hala ere, egoera hobera doala uste du. Danobat lantegian ere euskararen alde lanean dihardute. Administrazioan edo tabernetan lehen hitza euskaraz egiteko jarrera ikusten duela azken urteetan dio.

3.541. Inguruko herrietakoekin euskara desberdina (EIB-642/037)

Ez du uste kaleko lagunekin euskara ezberdina erabiltzen duenik. Baina beste herri batzuetakoekin bai; haienera moldatzen ahalegintzen da. Euskara batua ikastolan bakarrik, eta derrigorrean. Euskara ikastolan ikasi eta erraztasunik ez dutenek batua erabiltzen dutela dio.

3.542. Eibarren euskara nahasia (EIB-642/038)

Gurasoen aldean euskara txarra darabilela uste du; euskara nahasiagoa eta erdarakada gehiagorekin. Amamak, adibidez, gaztelaniaz justuan omen daki eta euskarazko hitzak erabiltzen ditu. Auzoan baditu lagunak euskara itxiagoa edo zuzenagoa darabiltenak. Eibarren erabiltzen den euskara nahasia dela uste du eta berak ere nahaste handia omen dauka.

3.543. Ezkongaiak traktorean (EIB-642/040)

Lagun baten ezkontzan zerbait berezia egin nahi zuten eta Iraitzek traktorea erabil zitekeela proposatu zuen. Traktorea forratu, globoz bete eta, ezkongaiak traktorean hartuta, Arrateko elizari buelta eman zioten azkenean ezkontza egunean.

3.544. Auzoko astoarekin Zaharren egoitzara (EIB-642/041)

Mutikotan pare bat urtez Eibarko eliza bateko prozesioan parte hartu zuen auzoko astoarekin. Zaharren egoitzara joan ziren eta astoa barruraino sartzeko esan zieten. Jangela erdian izugarrizko kaka-pila egin omen zuen. Hurrengo urtean prestatuta zeuden zain.

3.545. Umetatik hizkuntzak ikastea garrantzitsua (EIB-642/044)

Egunen batean umeak izaten baditu, umetatik ahalik eta hizkuntza gehien ikas ditzaten saiatuko da. Ingelesa garrantzitsua dela dio, bai edozein lanetarako eta baita atzerrira joateko ere. Euskara ere etxean irakatsi behar dela uste du, ikastolan ikasitakoa, erabiltzen ez bada, ahaztu egiten delako. Gaztelania ikasteko arazorik ez da egoten, kanean ikasten da eta. Bera berandu hasi zela ingelesa ikasten uste du eta gero kostatu egin zaio.

3.546. Gazteak Santa Kurutz jaiak antolatzen (EIB-642/045)

Auzoko Santa Kurutz jaietako batzordeko kidea da. Nagusiak aspertzen hasita zeudela-eta, gazteek erreleboa hartu dute azken urteetan eta jaiei bizitasuna eman diete, egitarauan gauza ezberdinak sartuta. Auzoko zein baserritakoak ibiltzen diren jaien antolaketan. Giro ona dute; pike sana.

3.547. Auzoko gazteak jaietako kirol edo jolasetan lehian (EIB-642/046)

Auzoko Santa Kurutz jaietara herri-kirolari profesionalak ekartzeak kostu handia zuela-eta, eurak hasi ziren kirol edo jolasetan parte hartzen. Arrakasta izan zuela ikusirik, horrekin jarraitu dute azken urteetan. Entrenatu ere egin izan dira.

3.548. Goenkale zale amorratua (EIB-642/047)

Goenkale zale amorratua izan da, 20 urtez ikusi izan duelako, hasi zenetik, hain zuzen. Besteak beste, euskarazko produktua delako eta bertatik euskal antzezle asko pasatu direlako gustatzen zaio. Pena du bukatu egiten delako eta ez duelako bertatik bertara ezagutu.

3.549. "eMePebo5t" taldearen sorrera (EIB-644/002)

Erdi kasualitatez sortu zen "eMePebo5t" taldea. Gauza on eta goxo gehienak sortzen diren bezala. Kataluniara dantza egitera joan ziren bidaiaria batean hainbat instrumentu eraman zituzten, zerbait jotzeko asmoz. Katalanek dantza bukatu eta gero kontzertu bat eskaini zuten beraientzat. Inauteri batzuetan katalanak hona etorri zirenean, dantza taldeko norbaitek afalostean zerbait jotzea proposatu zien.

3.550. Erromeria giroko abestiak (EIB-644/004)

Erromeria giroko abestiak jo zituen lehenengo saioan "eMePebo5t" taldeak. Gainera, afalosteko saio horretan jo zuten euren lehenengo bertsioa: euren kantu enblematikoa bihurtu den "Bizikletia kandau"; Europe taldearen 'The final countdown' kantaren bertsioa, hain zuzen ere.

3.551. "eMePebo5t" taldeko kideak (EIB-644/006)

Josu abeslaria da eta ukelelea jotzen du. Unaik soinua eta teklatua, Lukenek gitarra, Aiartek bateria eta Ekhik saxofoia eta haizezko hainbat instrumentu. Baxua taldekide guztien eskuetatik pasatzen den instrumentua da.

3.552. Taldearen "bautizo ofiziala" (EIB-644/008)

Arrate eskubaloi taldeak kontaktatu zuen "eMePebo5t" taldearekin, prestatzen ari ziren ekimen batzuetan parte hartu eta kontzertu bat emateko. Hasieran ez zekiten zer esan, baina, azkenean, erronka onartu zuten.

3.553. Kontzertuetan ondo pasatzea helburu (EIB-644/010)

Ondo pasatzea da "eMePebo5t" taldekoen helburu nagusia kontzertu bat ematen dutenean; gainera, jendea disfrutatzen dagoela ikustean, asko pozten dira.

3.554. Herri txikia vs. herri handia (EIB-644/014)

"eMePebo5t" taldekoek bai herri txikietan eta bai herri handietan jaso dute gertutasuna. Baina, orduaren arabera, giroa desberdina izaten da.

3.555. "Petroliua ateratzen dou haria edo ezer ez zeguan lekutik" (EIB-644/016)

Publikoan giroa jartzea batzuetan ez da hain erraza izaten. Giroa lortzen ez denean, "eMePebo5t" taldekoak euren artean jolasten hasten dira, ondo pasatzeko helburuarekin.

3.556. Belaunaldi saltoak "eMePebo5t" taldean (EIB-644/018)

"eMePebo5t"-eko taldekideen artean belaunaldi saltoak daude eta hau igarri egiten dute; izan ere, jakintzak eta taldean egiten dituzten proposamenak ez dira berdinak izaten.

3.557. Kantu tradizionalak dutxan (EIB-644/020)

Dantzako entseguak bukatu eta gero, dutxetan, beti kantatu izan dituzte 'Hiru gizon ilustre' eta beste milaka kantu. Horregatik, kantu horiek omentzeko asmoz, kontzertuetan kantatzen dituzte.

3.558. Errepertorio tradiziozional eta modernoa (EIB-644/022)

Errepertorioa osatzeko orduan, taldean duten belaunaldi saltoek eragina dute. Beraiek ondo pasatzeko entzungo luketen musika jotzen dute.

3.559. Dantza egiteko dagoen joera (EIB-644/025)

Parrandan, lehenengo kantuetan, jendeari asko kostatzen zaio mugitzea. Dantzarako joera handiagoa zen orain dela urte batzuk; jendea igandea heltzeko zain egoten zen dantzara joateko eta gaur egun ez da horrela.

3.560. Erromeria eta tabernak (EIB-644/028)

Parranda giroa asko aldatu da. Erromerietan eta tabernetan sortzen den giroa desberdina da. Erromeriara dantzan dakien jendea joaten da.

3.561. Erromerietatik tabernetara (EIB-644/030)

Umetan gurasoekin joaten zen erromeriak ikustera eta irteteko garaia iritsi zenean ere, bizi izan zituen erromeria horiek. Nagusitu ahala, jai giroa aldatu eta tabernetara joaten hasi ziren.

3.562. "Klarimostoa" eta garagardoa (EIB-644/032)

Elgoibarrera 17-18rekin joaten hasi ziren. "Klarimostoa" eta garagardoak edaten zituzten. Gainera Txuri Beltz tabernara joaten ziren patata minak jatera. Momentu batean, bueltako trenean, lekuz kanpo sentitu eta Elgoibarko etaparekin bukatzeko unea iritsi zela sumatu zuen.

3.563. "Patxanga" (EIB-644/033)

Elgoibarko gaztetxean euskal musika edo euskal punka zegoen, Iratxo tabernan rock edo metal musika eta beste taberna guztietan "patxanga". Helburu bakarra mozkortzea zen. Hasieran arratsaldean joaten ziren eta gero gauetz.

3.564. Parranda garaiak (EIB-644/035)

Kuadrillakoak kalera ateratzen hasi zirenean, joko geletara joaten ziren. Gero Elgoibarrera joaten ziren garaia etorri zen. Gauetz irteteko sasoiak iritsi zenean, Eibarren. Momentu batean Ermua modan jarri zen arren, batzuk Eibarri eusten gelditu ziren.

3.565. Lehengo eta oraingo parrandak (EIB-644/037)

Lehengo parranda eta oraingoaren artean desberdintasunak daude. Oraingo parrandak gauetz egiten diren poteoak dira.

3.566. Jai-giroan ere dantzazalea (EIB-644/039)

Jai giroan ere dantzazalea izan dela dio Josuk; baina edozein tabernatan ezin dantza egin, leku guztietan ez zutelako dantza egiteko musika jartzen. Taberna-giroko bi ibilbide desberdin aipatzen ditu.

3.567. Euskararen erabilera kuadrillan (EIB-644/044)

Nerabezaroan euskaraz gutxi hitz egiten zuten eta parrandan gehiena gazteleraz. Baina nagusitzen joan diren heinean euskararen erabilera handitu egin da.

3.568. Lanean gazteleraz (EIB-644/048)

Nahiz eta lanean denak euskaldunak izan, gauza teknikoak egiteko gaztelerara jo izan du. Hala ere, lankideekin sozialki dena euskaraz.

3.569. "Euskañoletik" Eibarko euskarara (EIB-645/002)

Pasarte honetan Ekhik bere euskara aldatzeko prozesua nolakoa izan zen kontatzen du, hasiera batean hitz egiten zuen "euskañola" alde batera utzi eta Eibarko euskarara hurbilduz. Gaur egun kuadrillan giro euskalduna dute, eta oso pozik dago horrekin.

3.570. Eibarko euskara aldatu al da? (EIB-645/003)

Ekhiren iritziz garai bateko Eibarko euskara eta egun hitz egiten dena ezberdinak dira. Josu azentua aldatu dela konturatu da, eskolan euskara batuan ikasteak eta telebista ere euskara batuan kontsumitu izanagatik beharbada.

3.571. Eibartik kanpo, zein euskara? (EIB-645/005)

Ekhik kontatzen du garai batean tolosar zenbaitekin batera joaten zirela eskiatzera, eta Eibarko euskarari egindako kritikak gogoratzen ditu.

3.572. Euskalkian idaztean, eroso? (EIB-645/011)

Ekhik bi hizkerak, bai batua bai euskalkia, nahastu egiten dituela dio idazteko garaian. Josuk naturaltasunez jaso du euskalkian idaztearen tradizioa, eta hortaz, ez zaio kosta egiten hala idaztea.

3.573. Ekhiri egindako elkarrizketa (EIB-645/012)

Ekhik kontatzen du behin elkarrizketa baterako galdera batzuk idatziz erantzun, eta bere erantzunak Eibarko euskarara ekarri zituztela.

3.574. Hitanoarekin zein harreman duzue? (EIB-645/014)

Ekhi duela gutxi hasi zen hitanoa erabiltzen. Bere inguruan ez du jende askok hitanoa erabiltzen, baina dantzako lagunekin eta mallabiatarrekin.

3.575. Hitanoa berreskuratu nahi izan duzue? I (EIB-645/016)

Bere amona eta amonaren ahizpak hitanoz entzuten zituen Ekhik.

3.576. Hitanoa berreskuratu nahi izan duzue? II (EIB-645/018)

Josuk etxean entzun izan du hitanoa, batez ere ama eta izeben artean. Ondoren, lagunaren artean hiketa erabiltzen hasi ziren, naturaltasunez jardutera iritsi arte.

3.577. "Erregistro baten falta dugu" (EIB-645/019)

Josuren iritziz erregistroa galdu da, hiztunen arabera erregistroa moldatzeko ohiturarik ez dagoela dio, esaterako, hitanoaren erabileran.

3.578. Eibarko hitanoa berreskuratuko al da? (EIB-645/021)

Hitanoa berreskuratzea nahi du bikoteak, ematen duen gertutasuna dela eta. Josuren iritziz, belaunaldien artean aldaketa bat eman da euskararen erabilerari dagokionez.

3.579. "Euskara gehiago erabiltzen da Eibarren" (EIB-645/023)

Ekhik inguruan euskara gehiago egiten dela nabaritu du.

3.580. Dantza taldeko ikasleen hizkuntza: gaztelania (EIB-645/025)

Ekhik dio ikasleek erabiltzen duten hizkuntza nagusia gaztelania dela, batez ere mutilen artean. Josuk, aldiz, ez du nesken eta mutilen artean bereizketarik ikusten hizkuntzari dagokionez. Ikasleek irakasleei gaztelaniaz erantzuteak kezkatzen du Josu.

3.581. Ikasleak irakasleari gaztelaniaz (EIB-645/026)

Josu kezkatuta dago ikasle zenbaitek irakasleari gaztelaniaz hitz egiteko ohitura hartu dutelako, euskaraz jakin arren.

3.582. Doktoretza bukatu eta munduari bira ematera (EIB-646/003)

28 urterekin, doktoretza bukatu zuenean, munduari bira ematera joatea erabaki zuen. Zeelanda Berritik abiatu zen. Hamar hilabeteren ostean itzuli zen, Gabonetarako, dirua agortu zitzaionean.

3.583. Bidaiatzera bakarrik joanda, jendearekin hartu-eman gehiago (EIB-646/004)

Munduari bira ematera joan zeneko esperientzia. Uztaila eta abuztua neska-lagunarekin egin zituen, baina hortik aurrera bakarrik. Bakarrik joanda jendearekin harreman gehiago izaten duzula dio. Bizitako esperientzia. Jende ona topatu omen du bidean.

3.584. Munduan zehar bidaiatzen; nondik nora (EIB-646/005)

Munduari bira ematera joan zeneko esperientzia. Nondik nora ibili zen: Zeelanda Berria, Australia, Indonesia, Myanmar, Tailandia, Vietnam, Kanbodia, Hego Korea, Txina, Nepal. Nepalen azken hilabetea mendietan egin ostean, Istanbulen geldialditxo bat egin eta etxera itzuli zen.

3.585. Munduan zehar bidaiatzen; planifikazioa (EIB-646/006)

Munduari bira ematera joan zeneko esperientzia. Bidaiaren zati bat planifikatuta zuen aurrez, Myanmarreko zatia lagun batzuekin egin zuelako eta Tailandia eta Vietnamekoa, berriz, neska-lagunarekin. Baina beste bidaiak unean bertan erabakitzen zituen. Eta egunetik egunerakoak ere bai. Normalean jendeari galdetzen zion leku bakoitzean zer ikusi edo nora joan. Zeelanda Berrian, bidaiaren hasieraren emozioarekin asko ibili zen batera eta bestera. Baina gero konturatu zen lasaiago hartu behar zuela, eta turista izatetik bidaiari izatera pasatu zen.

3.586. Munduan zehar bidaiatzen; jendearekin harremana (EIB-646/007)

Munduari bira ematera joan zeneko esperientzia. Bidaian, une batzuetan ez da egoten jendearekin harremana izateko gogorik, baina halakoetan ere beti inguratzen omen da norbait. Batzuetan aspertu egin zaitezke beti elkarrizketa bera izaten eta horregatik bidaiaren bukaera aldera bakarrik ibili zen gehiago.

3.587. Bidaiatik atera dituen alderdi positiboak (EIB-646/008)

Munduari bira ematera joan zeneko esperientzia. Bidaiatik atera zituen gauza onenak. Jende ona eta irekia topatu duela dio. Hemen askotan ez dela erraza izaten kuadrilla baten sartzea uste du. Asian gutxi duten lekuan asko izaten dute eskaintzeko. Korean, esaterako, oso erraza ei da bertakoengana gerturatzea. Bidaian ezagututako beste bidaiari batzuekin ere harremanetan jarraitzen omen du. Horretaz gain, bere barnean izan dituen aldaketak (zituen zenbait aurreiritzi baztertzea, adibidez) positibotzat jotzen ditu.

3.588. Alemaniako gazte ugari Zeelanda Berrira (EIB-646/009)

Beste herrialde batzuetan bidaiatzeko joera handiagoa dago. Ezagutu dituen bidaiari gehienak alemaniarrek, australiarrek eta holandarrak izan ei dira. Zeelanda Berria 18 urteko alemaniarrez beteta dagoela dio. Berak ere bere seme edo alaba lasai bidaliko lukeela bertara dio, oso leku segurua delako. Holandar edo frantziar gehien bertako kolonia izan ziren herrialdeetan aurkitu ditu.

3.589. Munduan zehar bidaiatzen; euskaldunekin harremana (EIB-646/010)

Munduari bira ematera joan zeneko esperientzia. Euskaldunekin izandako esperientziak. Normalean herrialdean bertan bizi zirenak izaten ziren. Sydneyn Euskal Etxean egon zen eta, horretaz gain, kasualitatez Arratiako neska bat eta Irungo mutil bat ezagutu omen zituen. Shanghain bertan bizi den lagun baten etxean egon zen. Bestela, bidaiarien artean euskaldun eta espainiar gutxi topatu ditu.

3.590. Txinan ekialde eta mendebaldearen artean dagoen aldea (EIB-646/011)

Txinak harritu omen zuen asko; ekialdearen eta mendebaldearen artean dagoen aldeak, batez ere.

3.591. Korearrak beti euren buruei begira; "Gangnam style" kanta (EIB-646/012)

Koreak ere harritu egin zuela dio. Ez zuen lortu bisarik Ipar Korean sartzeko. Hego Korea herrialde oso kontsumista dela dio. Eta harritu egiten du korearrek euren buruei zenbat begiratzen dieten. Sekula ez omen ditu hainbeste ispilu ikusi. Neskak 16 urterekin hasten omen dira euren gorputzak "apaintzen", etorkizunean gizon ona bat izateko ustean. "Gangnam style" kantaren inguruko azalpenak; ironikoki eta kritikarako sortutakoa omen da.

3.592. Kezka Dantza Taldearekin lehenengo harremanak (EIB-647/001)

Umetan hasi zen Kezka Dantza Taldean. Eibarko ume gehienak ibiltzen ziren bertan. Urtetxo batzuk egin zituen, baina Kezka lokal barik geratu zenean, etenaldia egon zen eta laga egin zuen. 15 urtetik aurrera gustuko zituen zaletasunak probatzen hasi zen, eta 20 urte ingururekin Kezka Dantza Taldera itzuli zen.

3.593. Kezka Dantza Taldean eta proiektu gehiagotan, gogotsu (EIB-647/002)

20 urte ingururekin gogotsu sartu zen Kezka Dantza Taldean, eta bertakoek ere etxeko bezala hartu omen zuten. Hasieran Eibarren, baina berehala Elgoibarko Haritz Dantza Taldearekin ere harremanetan hasi zen eta baita Debako Taldearekin ere. Eta geroago baita Donostiako proiektu batean ere, Urbeltzekin.

3.594. Dantza lanbide bihurtu du (EIB-647/003)

Lehen arkitektoa zen ofizioz eta dantzaria afizioz. Baina ia 20 urteren buruan, buelta eman dio horri eta dantza bihurtu du lanbide. Alde batetik, Dantzan.eus proiektuan lan egiten du eta, bestetik, Aiko Taldearekin ere badihardu lanean, dantzan eta irakasten. Dantza tradizionalari eskaintzen diote denbora gehien.

3.595. Dantzari duintasuna emateko bidean (EIB-647/005)

Jendeari bitxia egin izan zaio arkitektoa eta dantzaria izatea. Dantzari, eta batez ere "tradizional" adjektiboa jarrita, ez zaio balorerik eman izan eta oraindik ere zaila izaten da folklorismotik bereiztea. Adibide gisa, bertsolaritzari eman zaiola duintasuna dio, baina dantzari oraindik ez. Lehenengo norberak sinistu behar du egiten duenean, eta berak bide hori egin du.

3.596. Duintasuna lortzeko bidean, aldamenekoei begira (EIB-647/007)

Dantzari duintasuna emateko bidean, dantzaren inguruko hausnarketak beharrezko ikusten ditu: gizartean ze funtzio duen, jendearen harrera, herri batean edo bestean nola ikusten den... Azken urteetan kanpoko herrialdeetan egiten denari inbidiaz begiratu izan diotela dio. Ezpalak jaialdiari esker izaten da kanpoko berri jakiteko aukera. Bertsolaritzak lortu duen duintasunari ere inbidiaz begiratzen diotela dio.

3.597. Dantzarekiko ikuspegi aldaketa Eibarren (EIB-647/008)

Eibarren dantzarekiko ikuspegia aldatu egin da azken urteetan. Batzuek faltan botatzen ei dute garai bateko Euskal Jaiko giroa, baina ordukoa garai hartako girora egokitutakoa zela uste du, eta aldaketa beharra zegoela. Tradizionalki jasotakoa gaur egun nola plazaratu pentsatu behar da.

3.598. Neskek eta mutilek ibilbide desberdina Kezka Dantza Taldean (EIB-647/012)

Dantza taldean nesken eta mutilen ibilbidea desberdina izan ohi da. Neskak dantza eskolatik igotzen dira nagusien taldera 15 urte ingururekin eta askok urte gutxiren buruan laga egiten dute. Mutilak, berriz, nagusiagotan sartzen dira, kontzientziaz, eta denbora gehiago irauten dute normalean. Dantza laga dutenekin harremanetan segitzen ahalegintzen dira eta ekitaldi zehatz batzuetara gonbidatzen dituzte.

3.599. Aititaren tailerra Ardantza kalean (EIB-658/003)

Oswaldoren aitona tailerra 1945.urtera arte Eibarko Ardantza auzoan kokaturik egon zen. Gero, handik Karmen kalera aldatu zuten.

3.600. Ikasketak eta negozio familiarra (EIB-658/004)

Ikasketei dagokienez, armagintza eskolara joan aurretik, aparteko klaseak hartu zituen Gerboles akademian. Bertan denetik ikas zitekeen. 1950. urtean armagintza eskolan hasi zen eta han lau urte egin ondoren, aitona tailerrean hasi zen lanean. Haurra zenean, taileraren gainean bizi zen eta, ondorioz, ohituta zegoen bertan lan egitera.

3.601. Aititaren tailerrean armak eta hodiak (EIB-658/006)

Oswaldoren aitona armak egiten zituen, errebolberrak eta pistolak. Armez gain, pertsiana eta oheak egiteko hodiak ere egiten zituzten.

3.602. Negozio familiarraren aldaketa (EIB-658/007)

Oswaldoren aitona eta osabek pertsianak egiteko beharrezkoak ziren hainbat burdinezko pieza egiten zituzten. Gero, burdinezko piezak egitetik kalibratuak

egitera pasa ziren. Prozesu hori Maltzagako fabrika berriaren egiten hasi ziren. Fabrika hura 1956an hasi ziren eraikitzen.

3.603. Maltzagako fabrika berriaren eraikuntza (EIB-658/008)

Maltzagako fabrika eraikitzeko lanen inguruko zailtasunez dihardu. Azken batean, eremu aldapatsua zen eta, ondorioz, pixkanaka eraiki behar izan zuten fabrika.

3.604. Zer eta nola egiten zen fabrikan? I (EIB-658/010)

Fabrika berriaren pertsiak jasotzeko bilgailuak egiten hasi ziren.

3.605. Zer eta nola egiten zen fabrikan? II (EIB-658/012)

Pertsiantzat bilgailu horiek nola egiten ziren azaltzen du. Euren fabrikan bilgailu horiek bakarrik egiten zituzten, gainontzeko materiala kanpotik ekartzen baitzuten. Lan gehiena eskuz egiten zuten gainera.

3.606. Fabrikaren hastapenak (EIB-658/013)

Fabrika irekitzean senideen artean lan egin zutela kontatzen du eta baita fabrikako produkzio lana nola aldatu zen ere.

3.607. Kalibratua (EIB-658/014)

Kalibratua zer den kontatzen du.

3.608. Fabrika berriaren eraikuntza (EIB-658/016)

Argazkiak erakusten ditu Oswaldok pasarte honetan, eta bertan agertzen denari buruzko azalpenak ematen ditu, hala nola, fabrika berria nola eta non eraiki zuten, kalibrazioa nola egiten zen...

3.609. Makinek ekarritako aurrerapenak (EIB-658/018)

Kalibratu aurretik, materiala garbitu egin behar zen, eta horretarako, "granelladora" izeneko makina bat erosi zuten. Garai batean azidoarekin egin behar zen prozesua errazten zuen makina hark.

3.610. Langileak (EIB-658/019)

Oswaldoren fabrikan langile gehienak peoiak ziren, ikasketa berezirik gabekoak. Hamabost urte inguru zituztela hasten ziren lanean.

3.611. Lantegiko eguneroko jarduna (EIB-658/020)

Fabrikan erabiltzen zituzten makinei buruzko azalpenak ematen ditu Oswaldok. Erosi zuten azken makinaren inguruko anekdota bat ere kontatzen du.

3.612. Altzairu torneatuzko bobinak: berrikuntza sonatua (EIB-658/021)

Altzairu torneatuzko bobina izan zen beraien lantegiak Espainia mailan aurkeztu zuen berrikuntza nabarienetako bat. Produktuak egin aurretik, azterketak egiteko laborategia ere bazuten fabrikan.

3.613. 1988ko uholdeak I (EIB-658/023)

1988an Eibarren izandako uholdeek Oswaldoren fabrika kaltetu zuten. Uholdeen ondorioz, luizi bat egon zen eta mendia erori zen.

3.614. Nondik ekartzen zenituzten makinak? (EIB-658/025)

Fabrikako makina asko alemaniarrek ziren. Garestiak ziren hauek, eta urte asko behar ziren haien kostua amortizatzeko.

3.615. 1988ko uholdeak II (EIB-658/027)

Oswaldok 1988ko uholdeen inguruan dihardu. Eibarren eta inguruko herrietan zer gertatu zen kontatzen du. Beraien fabrikaren galera ekonomikorik ez zen izan.

3.616. Produkziorako beharrak (EIB-658/029)

Makina automatikoen beharra azpimarratzen du, makinak mugitzeko beste makina batzuk behar zirela, lana azkarrago egiteko.

3.617. Oswaldoren ardurak fabrikaren (EIB-658/031)

Oswaldok denetik egiten zuen fabrikaren. Anaia zen fabrikako kontabilitatea eta kudeaketa eramaten zuena. Langile fina zen. Oswaldok fabrikaren antolaketaz arduratzen zen, zer, non eta nola jarri.

3.618. Makinen muntaia eta antolaketa (EIB-658/033)

Makinen muntaiaren inguruan dihardu Oswaldok: nola jartzen zituzten eta makinaren zati bakoitza zertarako zen, hortik nola ateratzen ziren kalibratuak zein beste materialak... Lehen eta orain, materialen akatsak nola hautematen ziren ere esaten du. Lehen eskuz egiten zena, egun makinak egiten du.

3.619. Atzerriko makinak erosteko gorabeherak (EIB-658/035)

Hizkuntzari dagokionez, fabrikarako makinak erosteko erraz moldatzen zirela dio, Oswaldok ingelesez jakin ez arren, saldu nahi zuenak saltzeko modua topatzen zuela. Makinak nola erosten zituzten kontatzen du.

3.620. Aitonaren garaiko makinak (EIB-658/039)

Bere aitonaren tailerreko makinaren inguruan ari da Oswaldok pasarte honetan, euren makinaren oso bestelakoak baitziren, arruntagoak.

3.621. Familia eta arbasoak (EIB-658/042)

Oswaldok familiakoen berri ematen du. Anaiak Arnaldo zuen izena. Argentinarra zuen ama, eta horregatik ipini zizkien gisa horretako izenak Oswaldori eta anaiari. Hala ere, amaren aldeko aitona-amonak eibartarrak ziren.

3.622. Erronka bategatik errugbiko jokalaria bihurtu (EIB-663/003)

Mariak errugbiarekin izan zuen lehen kontaktua azaltzen digu.

3.623. Errugbia, gustuko kirola (EIB-663/005)

Nahiak errugbia nola ezagutu zuen azaltzen digu.

3.624. Hobby berrien bila: errugbia vs aquabike (EIB-663/006)

Denbora faltagatik Nahiak hobby berriak bilatu behar izan ditu. Hala ere, oso gustura dabil esperientzia berri hauetan.

3.625. Futbola beti irabazle (EIB-663/008)

Arauen xehetasunengatik edota barneratzeko errazagoa den kirola izateagatik, Mariak nahiago du futbola errugbia baino.

3.626. Konpromisoa eta arrakasta eskutik doaz (EIB-663/009)

Taldeak izan dituen aldaketak oso nabariak izan dira azken urteetan zehar. Hamar partidutik bat irabaztetik ligako bigarrenak izatera pasa dira.

3.627. Harremanen garrantzia (EIB-663/010)

Errugbiarekin lotura izatera bultzatu duen arrazoi nagusia haien arteko harremana izan dela azaltzen du Nahiak.

3.628. Errugbia, gozatzeko kirola (EIB-663/011)

Freskotasuna izateak, taldera jende berria etortzeak, nolabait, seriotasun eta konpromiso handiagoa ekarri du; taldeen arteko lehiakortasuna.

3.629. Emakume kirol taldeen gorabeherak (EIB-663/013)

Emakumeen kirol taldeek hainbat gorabehera izan ohi dituztela diosku Nahiak. Jende faltagatik edota beste taldeetan lehiakortasun handiagoa dagoelako.

3.630. Errugbiko hirugarren denbora (EIB-663/014)

Errugbiko hirugarren denbora taldeen arteko harremana estutzeko erabiltzen dute. Jokatzan dutenen artean, "etxe" taldeak bestea gonbidatzean datza.

3.631. Errugbizaleak gutxi dira Eibarren (EIB-663/015)

Eibarren errugbizaleak gutxi direla dirudi; partidak ikustera joaten diren gehienak etxeakoak izan ohi dira. Hernanin, berriz, bestelakoa da afizioa.

3.632. Errugbia, kirol ezezaguna (EIB-663/017)

Gaur egun, errugbiak kirol ezezaguna izaten jarraitzen du, batez ere nesken errugbiak. Horren erakusle da Nahiak kontaktzen duen gertakaria.

3.633. Hamabi izatetik hamazazpi izatera pasa dira taldean. (EIB-663/019)

Jokalariak erakartzeko kanpaina egin behar izan zuten.

3.634. Multikirolaren bitartez, errugbia ezagutarazi (EIB-663/021)

Multikirola programari esker gehiago ezagutzera eman den kirola izan daiteke errugbia.

3.635. Hain arriskutsua ote da errugbia? (EIB-663/022)

Errugbia arriskutsua den aurreiritzia du gehiengoak.

3.636. Errugbia, kontaktuzko kirola (EIB-663/024)

Kontaktuzko kirola da errugbia, eta horrek batzuetan ubeldurak, urratuak etab dakarzkie jokalariei.

3.637. Aulkirik ez nesken taldean (EIB-663/028)

Errugbian hasiz gero, denbora gutxi igarotzen da aulkian nesken taldean.

3.638. Lehiakortasun osasuntsua (EIB-663/030)

Bakoitzak bere buruarekin lehiakorra izan behar duela diosku Nahiak, baina talde-joko bat dela kontuan hartuz. Lehiakortasun osasuntsua izan behar du errugbiak.

3.639. Errugbia, afizio edo ofizio? (EIB-663/032)

Errugbia afizioa izan da Nahia eta Mariarentzat betidanik, nahiz eta Mariak orain entrenatzaile papera duen umeen taldean. Hala ere, oso zaila da Euskal Herri mailan zein Estatu mailan honetatik bizitzea.

3.640. Errugbiak handicap bat duela esan daiteke (EIB-663/034)

Errugbia kirol ezezaguna izateak nolanhiko handicap bat dakarrela dirudi. Batez ere, kirola bera ezagutzerakoan eta baita ere, emakume taldeak sortzerakoan.

3.641. Klubaren alderdi feminista (EIB-663/036)

Klubak berdintasunaren alde eginiko lana azaltzen digu Nahiak.

3.642. Errugbiko partida, ezkontza baten ostean (EIB-663/038)

Errugbiarekin zerikusia duten anekdotak.

3.643. Errugbiak emandako bizipenak (EIB-663/039)

Unibertsitate garaian sortutako taldearekin izandako anekdotak, bizipenak. Orokorrean errugbiak emandako alderdi onak azaltzen dizkigu Nahiak.

3.644. Estatutik kanpo jokatzeko aukera (EIB-663/040)

Euskal selekzioarekin Parisera joateko gutxira gelditu zen Nahia.

3.645. Irakasle izateko grina (EIB-664/002)

Oso txikitatik gustatu izan zaio andereino rola imitatzea. Familian, gainera, irakasle batzuk ditu. Honekin guztiarekin, irakasle izateko grina sartu zitzaion.

3.646. Donostian egindako ikasketak (EIB-664/004)

Donostian ikasi zuen Majisteritza eskolan. Lehenengo urtea gogotsu hasi bazuen ere, nekeza egin zitzaizkion unibertsitateko lau urteak. Teorian gehiegi oinarritutako ikasketak.

3.647. Madrilgo unibertsitateko ikasle (EIB-664/005)

Internet bidez ikasi du lehen hezkuntzari dagokiona, madrilgo unibertsitatean izena emanda. Praktikaldia izan da aberasgarria beretzat.

3.648. Elgoibarren irakasle lanetan (EIB-664/006)

Ingelesa irakasten dihardu Nahiak, akademia batean. Gehiago jasotzen duela iruditzen zaio, ematen duena baino. Lan aberasgarria.

3.649. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (EIB-664/008)

Bi lan-eremu hauen arteko ezberdintasunak aipatzen ditu Nahiak. Esperietzia pertsonalak.

3.650. Umeen inozentzia, lanaren xarma (EIB-664/010)

Irakasle izatearen alde on eta txarrak aipatzen ditu Nahiak pasarte honetan. Hauen inozentzia horrek irakatsi diona.

3.651. Umeen rolaren garrantzia (EIB-664/018)

Garrantzitsua da ume bakoitzak bere rola aukeratzea. Onartua ez denean, barre egiten diotenean etab. da arriskutsua umearentzat, rola inposatua delako.

3.652. Hezitzailea izatea helburu (EIB-664/020)

Eskolaz kanpoko jardueretan irakasle bada ere, hezitzailea izatea gustatuko litzioake Nahiari. Zaila da ordea hezkuntzan sartzea gaur egun.

3.653. Inazio Ugartechea Ugarteburu (EIB-666/002)

Inazio Ugartechea Ugarteburu, Inazioren aita, 35 urterekin hil zen, gaixorik. Armagina zen aita. Gerra garaian, Italiatik armak erakustetik zetorrela, Alcoy-n atxilotu zutela kontatzen du. Alicante eta Frantzia ibili ostean, Eibarrera itzuli zen eta arma-denda bat zabaldu zuen baina handik gutxira zendu zen. [Gaztelera kontatzen du]

3.654. Jardinetako eskolatik "Maestro Industrial" izatera bitarteko ikasketa garaia (EIB-666/004)

Lehen eskola urteak Jardinetako ikastetxean igaro zituen; handik Isasi kaleko Sagrado Corazón ikastetxera pasako da eta goi-mailako ikasketak Armeria Eskolan burutu zituen. "Maestro industrial" titulua lortu zuen lau urteren buruan. Aitaren fabrikan hasiko da lanean, eskopeta baskulak egiten.

3.655. Bittor Sarasketarekin ikasi zuen aitak ofizioa (EIB-666/005)

"Armas Ugartechea" Inazioren aitak (Inazio Ugartechea Ugarteburu, 1899-1937) sortu zuen 1922. urtean. Bittor Sarasketa armagin ezagunarekin ikasi zuen ofizioa. Garai hartan, apendizak armaginen etxeetan apopilo egoten zirela kontatzen du Inaziok. Hiru urteren buruan ikasi zuen ofizioa eta "2 de Mayo" kalean ireki zuen lehenengo tailerra.

3.656. "Armas Ugartechea" lantegiaren hastapenak (EIB-666/006)

Inazio Ugartechea Ugarteburuk, hiztunaren aitak, Madrilen egin zuen soldadutza eta han zegoen bitartean arma-denda bat zabaldu zuen koronel batekin batera. Eibarrera itzuli zenean, "2 de Mayo" kalean ireki zuen arma fabrika 2 behargin zituelarik: Markos Amutxastegi izan zen lehenengoa, bizitza osoan tailerrean enkargatu moduan jardun zuen behargina, alegia. Bidebarrieta kalean kokatu zen lantegia geroago; kokapenaz hitz egiten du.

3.657. Bidebarrieta kaleko eraikinaren deskribapena (EIB-666/007)

Hiru pisuko eraikina zen. Beheko solairuan, piezak iluntzeko tratamendua (pabonua edo paboia) eta tenplea zeuden. Lehenengo solairuan bulegoa zegoen eta, Bidebarrieta kalera begiratzen zuen aldean, 15 langile inguruk jarduten zutela kontatzen du.

3.658. Aitak erregistratu zuen Espainiako lehenengo eskopeta gainjarria (EIB-666/008)

Bidebarrieta kaleko tailerra San Agustin kalera lekualdatu zuten urteetara. Julio Anituarekin batera sortutako lan-sozietatea abiaraziko dute bertan. Eskopeta baskula eta kanoia mekanizatzen hasi ziren lehenengoz. Garai hartakoa da Espainia osoa lehenengoz ekoitzi zen eskopeta gainjarriaren sorrera

3.659. Armak saltzera autoz atzerrira (EIB-666/010)

Alemaniatik ekarri zuen aitak eskopeta gainjarria ekoizteko ideia. Eskopetak saltzeko helburuarekin, sarri bidaiatzen zuen aitak atzerrira. Auto amerikarra zuela kontatzen du.

3.660. Modelo desberdinak kopiatzeko eragozpenik ez (EIB-666/011)

Armak kopiatzeko eragozpenik ez zen egoten. Atzerrian ikusten zituen modelo desberdinak ekoiztea librea zen. Izena zen patente batek babesten zuena, kopia ezin zitekeen gauza bakarra, alegia.

3.661. "Banco de pruebas" eko ziurtagiria nahitaezkoa (EIB-666/012)

"Banco de pruebas"-era (saiakuntza-bankua) eraman behar izaten zituzten ekoizten ziren arma guztiak. Ekoizpenaren kalitatea bermatzeko, froga desberdinak pasa ostean, ziurtagiri bat jasotzen zuten arma bakoitzeko. Ziurtagiririk gabe, ezin zitekeen arma hura saldu.

3.662. Ikasketak amaitu eta aitaren lantegira lanera (EIB-666/014)

Aitaren heriotzaren ostean, Inazioren osaba batek hartu zuen tailerraren gidaritzza. Armeria Eskolan goi mailako ikasketak amaituta hasi zen Inazio aitak sortutako tailerrean lanean. Baskulak egiten zituen hasieran, gainontzeko beharginek bezala.

3.663. Baskula bat ekoizteko prozesua (EIB-666/015)

Baskula bat ekoizteko prozesuari buruzko azalpenak ematen ditu. 100 operazio desberdin baino gehiago daramatza baskula bakoitzak.

3.664. Txontara lekualdaketa (EIB-666/017)

Grabatua ez beste lan guztiak probatu zituen aitak sortutako arma-fabrikan. 1957. urtean Txontara (Eibarko auzoa) lekualdatu zen lantegia. 100 behargin inguru zituen orduan. Armaren elementu guztiak ekoizten zituzten bertan, beste lantegi batzuen partaidetza beharrik gabe. Alderantziz, beste tailer batzuei saltzeko piezak ere ekoizten zituzten.

3.665. 200.000 eskopeta urtean Amerika eta Europa osoan zehar saltzeko (EIB-666/019)

200.000 eskopeta inguru ekoizten zituzten urtean. 90. hamarkadatik aurrera zenbakitzea aldatu egin zen eta ekoiztiko eskopeta kopurua jakitea zailagoa dela kontatzen du Maritxuk (lantegiko administratzailea gaur egun). Estatuan saltzeaz gainera, EE.BB. eta Erresuma Batua izan ziren bezero garrantzitsuenak. Europa osoan zehar saldu dituzte Ugartechea markako eskopetak.

3.666. Kalitateari lehentasuna (EIB-666/020)

Sarasqueta, AYA eta Ugartecheak lehentasuna kalitateari ematen zioten bezala, bazegoen lehentasuna prezioari ematen zion beste armaginik ere. Desberdintasun nagusia piezen arteko ahokaduran egongo da, eskuz egiten den lanean azken batean.

3.667. Neurrira egindako eskopetak (EIB-666/023)

Eskopeta modelo desberdin bat aukeratzeaz gain, bezeroaren ezaugarri fisikoak hartu behar izaten ziren kontutan. Neurrira egindako eskopetak izaten ziren asko

3.668. Eskopeta kaxen ekoizpenari buruzko azalpenak (EIB-666/025)

Kaxak egiteko intxaurrondoa erabiltzen zen normalean; gogorra eta ona da egur mota hau. Pagoa erabiltzen duenik ere badago nahiz eta bakar batzuk izan. Hemen inguruko intxaurrak erabiltzen zituzten; hala ere, egurrik onena Esmirnatik (Turkia) ekarritakoa zela kontatzen du.

3.669. Emakumeek kaxak "pikatzen" jarduten zuten lantegian (EIB-666/028)

Emakume gutxi zegoen lantegian. Eskopeta kaxak "pikatzen" (apaingarri gisa egiten diren gurutzatutako arrastoak) jarduten zuten normalean. Zer eta zertarako den azaltzen du.

3.670. Ehiztari bikaina izan zen (EIB-666/032)

Ehiztari bikaina izan da Inazio, sari garrantzitsu asko irabazi izan ditu. Munduko txapeldunari irabazi ziola kontatzen du.

3.671. Bezero ezagun asko (EIB-666/034)

Bezero ezagun asko izan dituzte. Horien artea, Franco. Haren eskopeta guztiak Ugartechea markakoak ziren, esku artean lehertu zitzaiona izan ezik. Anekdota hura kontatzen du.

3.672. Amaña creció de forma radical (EIB-667/003)

Aunque en la década de los 60 no era fácil encontrar vivienda en Eibar, los padres pudieron comprar casa en Amañe. Los caseríos que había en Amañe fueron desapareciendo poco a poco a medida que iban construyendo más y más casas.

3.673. Ardantza kaleko txokolategia (EIB-668/002)

Ardantza kalean kokatzen zen Arizmendiarieta familiaren txokolategiaz dihardu. Txokolateaz gain, azukre-kokorrak egiten zituztela dio.

3.674. Goi mailako ikasketak Baionan (EIB-668/003)

1933. urtean Frantziara lekualdatu zen Adelaren familia. Irun eta Behobian ere bizi izan zirela kontatzen du. Gerra Zibila hasi zenean, Baionan bizi zen osabaren etxera bidali zuten. Goi-mailako merkataritza ikasketak burutzeko aukera izan zuen bertan. Aise ikasi zuen frantsesa.

3.675. Itzuleran suntsituta aurkitu zuen Eibar (EIB-668/004)

1940. urteko uztailan amaitu zituen merkataritza ikasketak. Ordurako, gerra zibilaren ondorioz sakabanatuta egon ziren senideak, elkarrekin zeuden berriz eta Adelak ere Eibarrera bueltatzeko aukera izan zuen. Etxerik ez Eibarren eta Ermuan bizi izan ziren lehenengo hilabeteetan zehar. Eibarko etxe eta kaleen egoera txarraz dihardu. Suntsituta zegoen, dena harria zen.

3.676. Emakumezkoa izan arren lantegira nahi zuen (EIB-668/005)

1942. urtean Eibarko Txantxa zelaian lortu zuten etxea. Ordurako, Aranberri Hermanos lantegian ziharduen Adelak. Nahiz eta gurasoei ondo iruditu ez, garbi zuen Adelak lan egin nahi zuela. Garai hartan ez zen oso ohikoa emakumezkoak lantegietan ikustea. Egoera horri buruz hitz egiten du.

3.677. Aranberri Hermanos lantegian izan zuen lehen aukera (EIB-668/006)

Eskopetak eta banadiozko giltza hexagonalak ekoizten ziren Eibarko Aranberri Hermanos lantegian. Bista Alegre kalean kokatzen zen bi pisuko eraikina. Administrazio lanak egiteaz gain, piezak garbitzen ere jarduten zuela kontatzen du.

3.678. Lantegia eta bulegoari buruzko azalpenak (EIB-668/007)

Aranberritarrak jende apala zirela dio Adelak. Bulegoa eta lantegia nolakoak ziren kontatzen du. Gregorio Aranberriekin egoten zen bulegoan; estimu handitan zuen Adela. Bost urtez jardun zuen lantegi hartan beharrean.

3.679. Aurrera galdategia (EIB-668/008)

1946. urtean hasi zen Eibarko Aurrera galdategian lanean. Nola sartu zen kontatzen du. Nahiz eta irekiera urtearekin ez den oroitzen, Eibarko lantegi zaharrenetarikoa zela dio. Bulego berrien inaugurazioarekin batera hasi zen Adela Aurrera galdategian lanean. Bulegoari buruzko deskribapen zehatza ematen du. Juan Bautista Gisasola eta Pako Iñárraegi ziren gerenteak orduan. Gainontzeko langileak ere izendatzen ditu.

3.680. Ezkondu ostean lanean jarraitu zuen (EIB-668/009)

Nahiz eta ezkondu ostean lana lagatzea zen ohikoena, Adelak ez zuen gainerako emakumeek bezala egin. Lanean jarraitu nahi zuela oso garbi zuen.

3.681. Aurrera fundizioko bulegoen inaugurazioa (EIB-668/011)

1946. urtean bulegoak gehitu zizkioten eraikinari. Lehenengo solairuan kokatzen zirela kontatzen du; beste bi solairu zeuden gainean: biltegia eta sukaldea. Inguruko herrietatik langile asko etortzen zen lanera.

3.682. Lana soberan zegoen Aurrera fundizioan (EIB-668/012)

Lana soberan zegoen Aurrera fundizioan. Kanpotik etorritako beharginak bertan topatzen zuten lana nahiz eta, egun gutxi batzuen buruan, lana utzi eta beste lantegi "garbiago" batzuetara joaten ziren. Langile mugimendu honek administrazio lan ugari zekarkion Adelari. 100 langiletik gora zegoen fundizioan garai hartan; bulegoan bost pertsona aritzen ziren.

3.683. Fundizioko lan mota eta produkzioari buruzko azalpenak (EIB-668/013)

Aurrera fundizioan lan mota desberdinak zeuden: "moldadoreak", "pulidoreak" esmerilean jarduten zutenak, etab. Pieza desberdinak ekoizten zituzten baina batez ere, SIGMA lantegirako josteko-makinen hankak egiten ziren. Lan zaila izanik, gainontzeko galdategiek uko egiten omen zioten pieza hura ekoizteko proposamenari. Aurrera-z gain, La Estrella eta Lasa y Azkoaga fundizioak zeuden Eibarren.

3.684. Otsailak 24, akziodunen eguna (EIB-668/015)

Otsailaren 24an ospatzen zen akziodunen eguna. Irabaziak banatzen ziren meza ostean. 40 akziodun inguru zeudela kontatzen du. Nahiz eta sozietate anonimoa (SA) izan, familiako negozio kutsua izan zuen betidanik.

3.685. Administrariaren eginbeharrak (EIB-668/018)

Bere eginbeharren artean, fundizioarenak ziren etxebizitzetan bizi zirenei alokairua kobratzea zegoen. Nominak egiteari buruz, Antonioren lana izatetik Adelaren ardura izatera nola pasa zen kontatzen du.

3.686. Kategoriaren arabeko soldatak (EIB-668/020)

Langile bakoitzari, kategoriaren arabera zegokion soldata: peoia, espezialistak, ofizialak, etab. Hasiera batean hilabete bakoitzaren erdian eta amaieran kobratzen zen; gerora, hilabete bukaeran. Garai hartan, soldataren aurrerakinak eskatzea oso ohikoa zela dauka gogoan.

3.687. Gerraosteko premia (EIB-668/021)

Behobian zituzten ondasun guztiak galdu zituzten gerraren ondorioz. Gerraostean, aita espetxeratu egin zuten eta amak gaixotasun larria izan zuen. Premia handia bizi izan zuten garai hartan.

3.688. Iragaitzazko langileak Aurreran (EIB-668/022)

Gerraostean kartzelan egon izanak ez zion aitari lana aurkitzeko garaian trabarik eragin. Guztientzat adina lan zegoela kontatzen du Adelak. Askotan, iragaitzaz zeuden pertsonak hartzen ziren fundizioan beharrerako. Pare bat edo hiru egunez lana egin eta, soldata aurreratzeko eskatu ostean, lana utzita bideari jarraitzen zioten.

3.689. Estatuko fundiziorik hoberena (EIB-668/023)

Estatu mailan fundizio onena izatearen ospea zuen Aurrerak (Eibar). Hala ere, garestia zen eta konpetentziak kalte handia egin ziola kontatzen du.

3.690. Fundizioaren gainbehera (EIB-668/024)

Eraikinaren lehen berritze lana (40. hamarkadan) eskura ordaindu zela gogoan dauka. 1979. urtean Legutiora lekualdatu zenerako egoera nahiko kaskarra zen. Zorrek itota, handik bi urtera itxi zen Aurrera fundizioa.

3.691. Sasoi hartako Ardantza kalea (EIB-669/003)

Ardantza kaleari buruzko azalpenak ematen ditu. "Dos de Mayo" kaletik trenbidera bitartean zazpi pegora zeuden. Trenbidetik aurrera zegoen zatiari "Ardanza vieja" deitzen ziotela dio. Etxeak baino tailer gehiago zegoen. Erreka pasatzen zen bertatik eta iturriak eta arropak garbitzeko harraska ere gogoan ditu. Orduko tailer eta lantegi txikiak izendatzen ditu.

3.692. 14 urtera bitarteko ikasketak (EIB-669/005)

Lau senidetan gazteena eta mutil bakarra zen Jose Antonio. Semea jaio zenean, ikusi zuen oro gonbidatu omen zuen aita pozaren pozez. Frontoi zaharrea egin zituen lehenengo ikasketak eta ondoren Isasi kaleko "Corazonistas" ikastetxean. Marrazketa eskolak Lucas Alberdirekin hartu zituen batez ere. 14 urterekin hasi zen aprendiz moduan "Aguirre y Aranzabal" (AYA. Eibar) lantegian grabatzaile lanetan.

3.693. Grabatzaile-mutil AYAn (EIB-669/006)

14 urterekin AYAn hasi zen, galtza motzekin, aprendiz bezala grabatzaile lanetan. Jose Rodriguez Alday "Errekalde" zen bere arduraduna. Jenio biziko gizona baina grabatzaile bikaina. Lanetik irten eta Urtiaga maisuaren akademian ikasketekin jarraitzen zuela kontatzen du.

3.694. "Rubito" grabatzaileari begira ematen zituen orduak (EIB-669/007)

Marrazkigintzan iaioa zen arren grabatzen hutsetik ikasten hasi behar izan zuen AYAn. Umetan, San Andres pasealekuan jarduten zuen "Rubito" grabatzaile ezagunari begira orduak ematen zituela kontatzen du. Garai hartan ez zegoen grabatu eskolarik; gerora zabaldu zuen Lucas Alberdik.

3.695. Lanerako erremintak (EIB-669/008)

Lanerako behar zituen lanabesak fabrikan eman zizkieten arren, hasiera batean norberak egin behar izaten zituela kontatzen du. Materiala erosi eta Villabellaren forjara eramaten zuten, forma emanez behar zituzten erremintak fabrikatzeko. Hogei urte beranduago eros zitezkeen erremintak erakusten ditu, hala ere, ez omen ziren antzinakoak bezain onak.

3.696. Aprendiz garaian hogei duroko ordainsaria (EIB-669/009)

Aprendiz egon zen bitartean ez zuen soldatarik jasotzen. Hala ere, lehen eskopetak grabatzen hasi zenean, bere ardura zuen grabatzaileak hogei duroko ordainsaria ematen ziola kontatzen du. Garai hartan, dirutza zen ume batentzat.

3.697. Lan baldintzak: soldata, ordutegia eta jai egunak (EIB-669/010)

Nahiz eta lantegiko beharginak izan, piezako kobratzen zuten grabatzaileek. Lan bakoitzaren kalitate eta zailtasunaren arabera ordaintzen zieten. Hamar ordu jarduten zuten egunean, astelehenetik larunbatera. 1958. urteko maiatzaren lehena izan zen bere lehen lan eguna. "San José artesano" izendatu zuen egun hori Francok 60 hamarkada inguruan eta ordutik aurrera jai egun bihurtu zen. Ostegun eta Ostiral Santua jai egunak izaten ziren eta udako oporretan hiru egun baino ez zituzten izaten hasiera batean. Gero, aste batera pasa zen eta hurrengo aldaketak 15 egun ekarri zituen baina askoz beranduago izan zen hau.

3.698. Oporretara, lau joan eta bost itzuli (EIB-669/011)

Opor sasoiari lantegiak itxi egiten zirela kontatzen du eta, kanpotar asko euren herrietara itzultzen zenez, Eibar hutsik geratzen zela dio. Oporretatik bueltan gainera, joaten zirenak baino gehiago itzuli ohi ziren. Lana sobera zegoenez, senitartekoak etortzen ziren oporretan joaten ziren haiekin. Kanpotarrek bertakoek adina lan egin dutela kontatzen du.

3.699. Kanpotar ugari Eibarren (EIB-669/012)

Kanpotarrak ondo hartzen ziren. Apopilo egoten ziren asko hasieran edo, abandonatuta hutsik zeuden inguruko baserrietan sartzen zirela dio.

3.700. Euskaraz jarduten zuten kalean nahiz lantokian (EIB-669/013)

Garai hartako Eibar euskalduna zela kontatzen du. Helduek gehiago egiten zuten orduan euskaraz, baita gazteak ere. Lantegian ere euskaraz egiten zutela dio. Kanpotar batzuk ere ikasi zuten euskaraz.

3.701. Eraikinaren banaketari buruzko azalpenak (EIB-669/014)

Jose Antonio AYAn lanean hasi zenean (1954. urtean) 170 langile inguru egongo ziren lantegian. Eraikinari buruz dihardu. Solairu bakoitzean zer zegoen kontatzen du.

3.702. Eskopetak apaintzeko modu desberdinak (EIB-669/015)

Eskopeta bat amaitzeko modu desberdinak zeuden. Grabatuak egin ostean, tratamendu desberdinak eman ziezazkion eskopetari, bezeroak eskatu ahala. Eskopeta arruntenei ere grabatu erraz bat egiten zieten.

3.703. Eskopetak "akabatzeko" pausoak (EIB-669/016)

Eskopeta probaderotik pasa ondoren jasotzen zuten grabatzaileek. Probaderoan, erresistentzia neurtzeko frogak egiten zitzaizkion armari, besteak beste. "Akabatzzaileak" hartzen zuen orduan, grabatu beharreko piezaren gainazala leun lagatzeko. Gainazal leun horretan egiten zuten grabatua eta handik "tenplerako" prestatzera eramaten zuten. Tenplatu ostean "muntatzaileak" piezak muntatzen zituen. Azken urratsa, armaren kalitatea egiaztatzea izango da.

3.704. Grabatuari buruzko azalpenak (EIB-669/017)

Berunezko barailekin lotzen zituzten piezak tornuzilean. Irudiak normalean ez ziren pieza gainera kalkatzen; eredu desberdinetako neurriak konpasarekin hartzen zituzten. Apaindura desberdinei buruzko azalpenak: "dibujo purdi" (Purdey). Berak asmatutako marrazkiak ere grabatu izan ditu baina, merkaturatzerako orduan garestiegiak izango lirakeela iruditzen zaio.

3.705. Purdey, Merkel, Holland... grabatu modelo desberdinak (EIB-669/018)

Bezeroak aukeratzen zuen zer nolako marrazkia nahi zuen bere eskopetan. Hainbat izen aipatzen ditu: Purdey, Merkel, Holland, San Sebastian... Eredu desberdinak erakusten ditu.

3.706. Grabatzeko erreminta desberdinei buruzko azalpenak (EIB-669/019)

Grabatua egiteko beharrezko erremintak erakutsi eta izendatzen ditu: mailua, "markadorea" (piezak burdinazko gainazalean markatzeko), "eskuaiderako" gubila, gubil estandarra, atzapardunak, etab.

3.707. "Eskuaide" deritzon teknika (EIB-669/020)

"Eskuaide"-a grabaturako teknika bat da, mailurik gabe egiten dena baina Jose Antoniok ez zuen ia erabili. Italian ospe handiko teknika bat dela kontatzen du.

3.708. Konplexutasunaren arabera lanordua (EIB-669/021)

Egin beharreko lanaren arabera, lanordu gehiago edo gutxiago beharko dira. Arruntenak 5 ordutan amai zitezkeen, lan konplexuenek 100 ordutik gora eskatzen zuten. Amaitutako lan bakoitzagatik kobratzen zuten, lanak azkar eta ondo egitea komeni zitzaieला dio.

3.709. Eskuz egindako grabatua versus gaur egungo teknologia (EIB-669/023)

Eskuz egiten den grabatua ez da urteetan zehar aldatu. Teknika ordea bai: pantografoak, laserra, "roldana" (gurpil bidezko grabatua), eta beste batzuk erabiltzen dira gaur egun. Lanak azkartu eta merkatzeko erabiltzen dira baina kalitateari dagokionean, eskuz egindako grabatuarekin ezin direla alderatu

iruditzen zaio. Begiratu azkar batean bereiziko lituzke berak, baina ez dakien batek erraz nahas ditzake.

3.710. Emakumezko gutxi AYAn; bulegoan edo kaxak "pikatzen" baino ez (EIB-669/025)

Nahiz eta bazeuden emakumezko batzuk AYA-n lanean, bulegoan edo eskopeta kaxen "pikatzailer" moduan bakarrik jarduten zutela kontatzen du. Emakumezkoen ez zegoen grabatzaileen artean, adibidez; garai hartan ez omen ziren horrelako ofizioetara sartzen. Gaur egun ordea denetik dagoela dio eta, lan bat zein bestea, berdin-berdin edonork egin dezakeela iruditzen zaio gainera.

3.711. Armagintzari dagokionean lantegirik handiena (EIB-669/028)

Armagintzari dagokionean, Eibarko lantegi handiena izan zen AYA. Euren konpetentzia ziren tailerrak izendatzen ditu. 470 behargin izatera iritsi ziren 60. hamarkadan. 1985. urtean itxi zen AYA. Gora-behera asko jasaten zituztela kontatzen du. 1992. urtean armagintzak jasan zuen krisi izugarria dakar gogora.

3.712. 1980. urtetik aurrerako gainbehera (EIB-669/029)

1980. urtetik aurrera lantegiaren egoera okertzen hasi zela kontatzen du. Soldata kobratu ezinik ibili ziren, greba egunak egon ziren... gainbehera nabarmena izan zen. Tailer handi eta ertainek jasan zuten egoerarik makurrena.

3.713. SORESKOren sorrera Itziarren (EIB-669/030)

Egoera hari aurre egiteko, Jaurlaritzaren babesarekin, SORESKO (aurrerago DIARM "Desarrollo de industrias Armeras, S.A" bezala ezagutuko dena.) jaioko da Itziarren. 15 armagin inguru elkartu ziren marka berri horren babesean baina proiektuak ez zuten luzerik aurrera egiterik izan. Enpresa berri haren parte ez izatea zergatik erabaki zuen kontatzen du Jose Antoniok.

3.714. Damaskinatuari buruz (EIB-669/035)

AYAn bazegoen lantegiaren ikurra eskopetetan damaskinatzen zuen behargin bat. Prozedura oso sinplea dela kontatzen du, edonork egiteko modukoa. Nola egiten den azaltzen du.

3.715. Ama eta arreba damaskinatzaileak ziren (EIB-669/036)

Ama eta arreba damaskinatugintzan aritzen ziren. Artisautza denda batean egiten zuen amak lan. Arrebak Lucas Alberdirekin ikasi zuen damaskinatzen eta etxean jarduten zuela kontatzen du.

3.716. AYArengatik inguruan zeuden bestelako lantegiak (EIB-669/040)

AYA lantegia kokatzen zen (Bista Eder kalea, Eibar) inguruan zeuden tailerrak izendatzen ditu: Aranberri Hermanos, Pedro Arrizabalaga, Suar, TTT (Timoteo Sarasketa) eta Lorenzo Telleria.

3.717. Grabatzaileek ez zuten zaindariaren egunik (EIB-669/043)

Armagineen zaindaria Santa Barbara zen eta "akabatzaileen" eguna hausterre egunez ospatzen zen. Grabatzaileek ez zuten zaindaririk

3.718. Aita donostiarra eta ama atxondoarra (EIB-675/002)

Enrique Franco Albizuri Eibarren jaio zen 1925eko azaroaren 4an. Aita donostiarra eta ama atxondoarra. Aita grabadorea izan zen eta gero tela denda bat izan zuen. Amak etxeko lanak egiten zituen.

3.719. Eibar, Untzagan hasi eta Urkizun bukatu (EIB-675/004)

Enrique umea zenean, Eibar askoz ere txikiagoa zen; Untzagan hasi eta Urkizun bukatu.

3.720. Eibarko tailer nagusienak (EIB-675/005)

Enrique umea zenean tailer asko zeuden: Beistegi, Orbea, Mendiguren... Tailer hauetan gauza asko egiten ziren; Alfan josteko makinak, Beistegi eta Orbeak bizikletak, eta beste askok "industria auxiliarra". Denetik egiten zen Eibarren.

3.721. 1940an jendea falta lanerako (EIB-675/006)

1940 inguruan jende asko etortzen zen Eibarrera; lan asko zegoen eta langileak behar ziren. Orain Eibarrek 27.000 biztanle ditu baina garai haietan 54.000 biztanle izatera iritsi ziren.

3.722. Lan asko eta denbora libre gutxi (EIB-675/009)

Lana bukatu ostean lagunekin gelditzen zen buelta bat emateko. Laneko ordutegiak zirela eta ez zuten denbora askorik beste ezer gehiago egiteko; larunbatetan ere lana egiten zuten. Poliki-poliki "sabado ingles" ipintzen joan zen.

3.723. Alfan lanean egon eta DEJ tailerra sortu (EIB-675/011)

Bere lehen lana Hijos de Artamendin izan zen. Bertan bi urtetan aritu zen eta gero idazteko makinak egiten zituzten enpresa batera joan zen, eta handik Alfara. Alfan zegoela sortu zuten DEJ tailerra.

3.724. Lau lagun arteko tailer bat (EIB-675/012)

Danel Zenarruzabeitia, Javier Sologaitua, Javier Zuloaga eta Enrique izan ziren DEJ tailerraren sortzaileak. DEJ izena beraien izenetatik sortu zuten: Danel, Enrique eta Javier. Bertan trokelak egiten zituzten. Hasieran beraiek ziren langile bakarrak, baina poliki-poliki lan taldea handitzen joan zen.

3.725. DEJ tailerrean beti makina berriak eta ahalik eta onenak (EIB-675/014)

DEJ tailerrean erabiltzen zituzten makinak Eibar ingurukoak eta Logroño-koak ziren. Beti makina berriak eta ahalik eta onenak erosten zituzten. Nahiz eta makina garestiak izan, kredituak ez eskatzen saiatzen ziren. Beraien bezerorik onenak Bartzelonan eta Madrilen zeuden. Lau lagunek sortutako tailer hau, laurogei langile izatera iritsi ziren.

3.726. DEJ tailerrean kanpoko eta bertako jendea elkarrekin lanean (EIB-675/018)

DEJ tailerrean jendea kontratatzerako orduan, mekanika kontuetarako Armeria Eskolako jendea hartzen zuten eta bestela, bertara joaten zen jendea; kanpokoak edo bertakoak, berdin zion. Kanpokoan eta bertakoan artean harreman ona zegoen, ez zuten arazo handirik izaten lan egiteko. Tailerrean maila desberdinak zeuden; aprendizak eta peoiak. Langile ona zenak, aukera izaten zuten gora egiteko.

3.727. DEJ tailerrean bakoitzak bere eremuan lanean (EIB-675/019)

Javierrek mekanikako kontuetan aritzen zen, Danel produkzioan eta Enrique eta Javier bulegoan. Langileekin zuten harremana ona izaten zen.

3.728. DEJ tailerrean bizitako krisiak (EIB-675/020)

DEJ tailerrean hainbat krisi izan zituzten, lehenengo biak nahiko ongi pasa zituzten. Baina 1980 inguruan krisi gogor bat izan zuten; Bartzelonako tailer baten eta hemengo tailer baten porrotaren ondorioz, milioi asko gelditu ziren zorretan.

3.729. Lehenengo lanean, 16 pezeta egunean (EIB-675/022)

Enriquek bere lehenengo lanean 16 pezeta irabazten zituen egunean. Garai horretarako soldata ona zen. Hilabete bukaeran jasotzen zuen soldata. Lanean lortzen zuen dirua amari ematen zion, ezkondu arte.

3.730. Denbora librean, Untzaga Plazara (EIB-675/023)

Astegunean Untzaga Plazara joaten ziren lagunekin berba egitera; piku-ogia jaten zuten. Bestela jolasean aritzen ziren. Frontoi zaharrea jolasten zuten pilotan. Putzezko baloiekin ibiltzen ziren eta gazteagoak zirenean egunkariekin egindakoak.

3.731. Kaleen arteko lehiakortasuna (EIB-675/026)

Gaztetan izaten ziren lagunak kale horretan bizi zirenak izaten ziren. Gero eskolan hastean eta Armeria Eskolara joatean lagun taldea handitzen zen. Txantxa-Zelain futboleko jolasten zuten eta kuadrilla bakoitzak bere taldea osatzen zuen.

3.732. Dantzaldian neskatan (EIB-675/028)

Gazte garaian nagusiagoak zirenean igandetan dantzaldia egoten zen. Neskak pastelak jatera gonbidatzen zituzten.

3.733. Aita grabatzaile izatetik, tela denda baten buru izatera (EIB-675/031)

Enriquek umetatik oroitzen du bere aitaren oihal-denda. Bere aita grabatzailea zen baina une batean dirurik ematen ez zuenez, denda ireki zuen. Gerra garaian dena Bilbora eraman zuten, baina gerraostean berriro ireki zuten denda Bidebarrieta kalean.

3.734. Gerraren ondorioz Eibar hankaz gora (EIB-675/032)

Gerra Eibarrera iritsi zenean, beraiek Aspen egon ziren. Aspetik Busturira mugitu behar izan ziren eta gero berriro Eibarrera. Eibarrera itzultzean, dena hankazgora zegoen eta beraien etxea erreta. Egoera horretan gurasoek meritu handia izan zutela uste du.

3.735. Aitaren oihal-denda: Tejidos Franco (EIB-675/033)

Gerra bukatu aurretik aita hil zitzaion, beraz tela dendan amari laguntzen ibiltzen zen. Telak Bartzelonatik ekartzen ziren, dendara joaten ziren saltzaileei erostera. Garai horretan negozio nahiko ona zen; izan ere, ohikoa zen arropa eskuz jostea.

3.736. DEJ tailerraren salmenta (EIB-675/034)

Danel eta Javierren seme-alabek ez zeukaten gogorik tailerrarekin jarraitzeko eta Enriquek familiarik eduki ez zuenez, saltzeko garaia iritsi zela erabaki zuten. Logroñoko talde bati saldu zioten tailerra.

3.737. Lehen DEJ tailerra 12 m²-tan (EIB-675/038)

DEJ tailerra lehenengo Errekatxu kalean egon zen, gero Bar Donostiren ondoan zegoen eraikin industrial batera joan ziren eta handik Otaola Hiribidera joan ziren. Errekatxun egon zirenean, 12 m²-tan egiten zuten lan. Eraikin industrialean egon zirenean 300 m² zituzten eta, aldi berean, Txontan lokal osagarri bat zuten Otaola Hiribideko lokala prestatzen ari ziren bitartean. Hasieran irabazten zuten dirua tailerrean inbertitzen zuten.

3.738. 1960. hamarkada lan askoko garaia (EIB-675/042)

1960. hamarkadan lan asko zegoen egiteko eta jende asko etorri zen Eibarrera lanera. Kanean hau igarri egiten zen.

3.739. Igande gauetan zinera (EIB-675/043)

Eibarren zine asko zeuden: Coliseoa, Rialtoa, Amaia... Igandetan gauetan joaten ziren zinera eta gehienetan sarrera lehenago erosi behar zenuen, sarrerarik gabe ez gelditzeko. Lehen dena iganderako uzten zen, meza ere igandean izaten zen.

3.740. Doktrinak: eskolaren ondoren eta euskaraz (EIB-675/044)

Jaunartze luzea egin arte joaten zen doktrinara. Jaunartze txikia 8-9 urterekin egiten zena zen eta 11 urte inguruan luzea egiten zen. Eskolaren ondoren izaten ziren eta euskaraz.

3.741. Eskolan erderaz eta kanean euskaraz (EIB-675/045)

Enrique umea zenean euskaraz egiteko ohitura gehiago zegoen baina eskolan erderaz egiten zuten. Kanean, ordea, beti euskaraz. Eskolan Doña Paka eta Doña Petra zeuden, eskola publikoko irakasleak. Enrique nahiko formala zela dio.

3.742. Kanpoko jendea Eibarrera lanera (EIB-675/048)

Eibarrera jende asko etortzen kanpotik lanera; galiziar asko, santandertarrak eta baita Burgosekoak ere. Baina galziarrak gehienak. Hemengoan artean bezala kanpotarren artean langile finak zeuden.

3.743. Eibarren lanerako premia asko (EIB-675/049)

Kanpotik galiziar asko etorri ziren dirua aurreztera gero Ameriketara joateko. Baina konturatu ziren ez zela Ameriketaraino joan behar dirua irabazteko. Tailerrez tailer joaten ziren lan bila. Lehen oso erraza zen lana aurkitzea, premia handia zegoelako.

3.744. Armeria Eskolan lau urtez (EIB-675/050)

Enriquek Armeria Eskolan ikasi zuen. Bertan ikasgaiak jasotzen zituzten eta tailerretako lana zein zen erakutsi. Lau urte egin zituen guztira. Lehenengo bi urteak liman eta hiru eta laugarrenak makinetan. Doako eskola bat zen, baina sartzeko azterketak egiten ziren.

3.745. DEJ tailerrean emakumeak lanean (EIB-675/053)

DEJ tailerrean emakumeak ere lanean aritu ziren; 8-10 bat emakume. Gizonen antzeko lana egiten zuten baina gutxiago kobratzen zuten.

3.746. DEJ tailerrean bezero bilaketan (EIB-675/054)

Bezeroak aurkitzeko askotan beraiek etortzen ziren eta besteetan beraiek bilatu. Bartzelonan eta Madrilan agente komertzialak zeuden eta askotan tailerra bisitatzera etortzen ziren. Mexiko eta Frantziara esportatzen zuten.

3.747. DEJ tailerreko lan-istripuak (EIB-675/055)

DEJ tailerrean eskuetako istripuak izaten ziren. Egunero erizain bat joaten zen; hala ere, mediku batzuekin akordio bat zuten zerbait pasaz gero.

3.748. Gerraostea: Eibarrera itzulera (EIB-675/059)

1937an itzuli ziren Eibarrera. Dena apurtuta aurkitu zuten. Oraindik bere gurasoek egin behar izan zuten lanean pentsatzen du. Gerra bukatu aurretik aita hil zitzaion eta bere ama bakarrik geratu zen lau seme-alabekin.

3.749. Eibar gerraren ondorioz suntsituta (EIB-675/060)

Gerran Eibar suntsituta gelditu zen. Gerra bukatu eta gero bost-sei urtetan Eibarren obrak egin ziren. Poliki-poliki hazten joan zen.

3.750. Kuadrillan alderdi politiko asko (EIB-675/064)

Enriquek bere kuadrillan jarrera politiko desberdin asko zituen, denetik zegoen; baina, inoiz ez zen liskarrik egon.

3.751. "Ahal danian, dana; eta ezin danian, ahal dana" (EIB-675/065)

"Ahal danian, dana eta ezin danian, ahal dana" Eibarko esaera zahar bat da. Enriqueren ustez esaera oso aproposa da eibartarrentzat.

3.752. Ibarkurutze eta Jardiñeta kalekoak (EIB-677/003)

Lorea Ibarkurutze kalean bizi zen eta Lorenzo Jardiñeta kalean. Ibarkurutze eta Jardiñeta kalea nahiz eta oso gertu egon, umetan ez ziren elkarrekin jolasean ibiltzen. Bakoitzak bere kaleko kuadrilla zeukan.

3.753. Kalean Miren Lorea eta eskolan Maria Flor (EIB-677/005)

Lorenzo eta Lorea umeak zirenean, eskolan erderaz hitz egin behar zuten, euskaraz egitea debekatuta zegoelako. Loreak, esaterako, bere izena aldatu behar izaten zuen; Miren Lorea idatzi beharrean, Maria Flor. Kalean lagunekin ibiltzen zirenean, neskek erdarara jotzen zuten eta mutilek euskarara.

3.754. Arrateko Ama Birjinari kandelak jarri (EIB-677/011)

Lorenzok 17-18 urterekin sortu zuen lehenengo motorra. Lorearekin batera motorrean joaten ziren Deba eta Ondarroako inguruetara eta beti azkarrago joateko eskatzen zion. Lorearen amak etxean Arrateko Ama Birjinari kandelak jartzen zizkion, istripurik ez izateko.

3.755. Normako langileen argazkian (EIB-677/012)

Lorearen osaba batek, Pakok, bizikleten enpresa bat zeukan Norma izenekoa. 14-15 urte inguru zituenean bulegora joaten zen lan batzuk egitera. Egun batean argazki bat ateratzeko eskatu zioten; Normako langileen argazkia. Nahiz eta Normara gutxitan joan argazkia atera zuen beste lau neskekin (argazki hori elkarrizketatuaren atzean dagoena da).

3.756. Apirilaren 26a Eibarko liberazioa (EIB-677/016)

Gerra Eibarren zegoen bitartean Busturian egon ziren. Bere osaba batek abisatu zien Eibar liberatuta zegoela eta etxera itzuli ahal zirela. Lorearen familiak zorte handia izan zuen etxea osorik aurkitu zutelako. Lorearen familia Eibarren zegoela, aitak ihes egin behar izan zuen nazionalisten taldeko presidentea zelako.

3.757. Aita Teruelgo bonbardaketan hila (EIB-677/018)

Lorearen aita Laredoko kartzelan egon zen egoera eskas batean. Bederatzi hilabetez, egunero, karteroari itxaroten zioten berririk ote zegoen ikusteko. Halako batean, eibartar bat hileta batera joatean bertan nazionalista bat lurperatu behar zutela esan zioten. Hau gorpua ikustera joan eta nor zen ikustean, familiari abisatu zion.

3.758. Ibarkurutzeko Zubizarreta zapata-denda (EIB-677/019)

Lorearen familiak Ibarkurutze kalean zuen zapata-dendak Zubizarreta zuen izena; aitonaren baserriaren izena, hain zuzen. Neurrira egiten zituzten zapatak. Lorea zapatak entregatzen ibiltzen zen hasieran eta gerora zapatak saltzera pasa zen.

3.759. 200 kantutik gorako kantu-sorta (EIB-677/020)

Lorenzok Loreak kantatzen dituen kantak eskuz idatzirik ditu, 200 bat kantu gutxi gora behera. Bere osaba Pakok Eibarri buruzko kanta bat erakutsi zion eta hori abesten du.

3.760. Goi-Argi: Sociedad Femenina Eibarresa (EIB-677/021)

Goi-Argi Emakumeen Elkarteko lehenengo bazkideetako bat izan zen Lorea. Kartetan jolasten zuten, tonbola antolatu eta beste hainbat ekintza burutzen zituzten. Mercedes Kareaga izan zen elkarteko burua. Emakume oso inplikaturia Eibarko kontuetan eta baita emakumearen aldeko ahalduntzean.

3.761. Gerra ostean goserik ez (EIB-677/026)

Gerra ostean gosea zegoen baina Lorearen etxean zapata-denda zutenek, ez zuten goserik pasa. Lorezoren kasuan, amak baserria zuen eta bertatik ekartzen zuten jatekoa.

3.762. Eibarko lehenengo bonbardaketan igerilekuan (EIB-677/027)

Eibarko lehenengo bonbardaketan Lorenzo Elgetan zegoen eta Lorea Eibarko igerilekuan. Bere ama korrika joan zitzaion bila eta Ibarkurutzeko babeslekura joan ziren.

3.763. Frankoren aldeko kantzak eta keinuak egin beharra (EIB-677/030)

Loreak eskolan abesten zituzten Frankoren aldeko kantzak eta banderaren agurrak gogoratzen ditu. Lorezok Eskola Armeriako hirugarren kurtsora arte egin behar izan zituen Frankoren aldeko keinuak. Eibarren ez ziren liskar eta mendeku asko egon.

3.764. "Zenbat ziran, hamar ziran, zenbat ziran, ikusi" kanta (EIB-677/033)

Euskarazko kanta asko dakizki Loreak. Bere birramonak erakutsitako kanta bat abesten du eta baita batzokian ikasitako bat.

3.765. Ardantza kalean jaioa (EIB-679/002)

Jardineta kaleko 6. zenbakian jaio zen. 6 solairu zituen egurrezko etxea zela dauka gogoan. Alde batetik begiratuta, 2. solairua zen beraiena; bestetik begiratuta ordea, etxabea.

3.766. Jardinetako eskolan euskaraz ikasia (EIB-679/004)

Jardinetako eskolara joan zen umetan. Gerra aurretik, eskolak euskaraz izaten zituztela dauka gogoan. Debehatuta egon zen gero. Gerra hasi zenera bitartean egon zen eskola hartan.

3.767. Gerra denboran kaleak jolas-leku (EIB-679/006)

Gerrak iraun zuen bitartean ez zuten eskolarik izan. Dena apurtuta zegoela gogoratzen du baina, umeak zirenez, gertatzen zenarekin jabetu gabe, eraitsitako etxeen artean jolasean ibiltzen zirela kontatzen du.

3.768. Armeria eskolako irakasle (EIB-679/008)

Armeria eskolako ikasketak amaituta, irakasle lanetan geratu zen bertan. Bi urte igaro zirenean, Burgosera bidali zuten tailerreko eskolak ematera. Beste urte bete egin zuen Burgosen irakasle bezala.

3.769. Piezaz pieza, lehen bi motorrak nola sortu zituen (EIB-679/010)

Hemezortzi urterekin itzuli zen Burgostik. Motorra egiteko ideia nondik jaio zen kontatzen du. Bi moto egin zituen, hasieratik amaierara, piezaz pieza. Beretzako bat, Jose Ormaetxea lagunarentzat bestea. Istripu bat izan zuen lagun batek bere motorrarekin. Horrela galdu zen Eibarren egon zen lehen motorra.

3.770. Piezak lortzeko zailtasuna (EIB-679/012)

Pieza eta materialak lortzeko zailtasunak izaten zituela kontatzen du. Hala ere, Eibarko lantegi askoren laguntasuna izan zuen. Motorra martxan jartzea lortu zuenean, ateratzen zuen zarata zela eta, bizilagunen protestak etorri ziren.

3.771. Motobic lantegiaren hastapena eta kokapena (EIB-679/016)

Lehenengo lantegia Aranen (Eibar) egon zen. "Moto-bicicleta"-tik dator kio Motobic izena. Han ekoiztu ziren lehen motorrak. Haiei buruzko azalpenak ematen ditu. Leku faltak eragin zuen tailer hura Txontara lekualdatzea eta handik, 60. hamarkadan, Abadiñora egin zen behin betiko leku aldaketa. Eibarko tailerrean 50-60 langile egon izan ziren.

3.772. Motobic lantegiaren ekoizpena (EIB-679/017)

1.000 motor inguru ekoizten ziren urtean. Karelez kanpoko motorrak ere ekoizten ziren Lorenzoren lantegian. Motor berriei errodajea nola egiten zitzaizen kontatzen du.

3.773. Motor-modelo guztiak diseinatu zituen (EIB-679/019)

Motor-modelo desberdin asko egon ziren eta guztiak Lorenzok berak diseinatutakoak dira. "Motor Ilo" modeloaren nondik norakoak kontatzen ditu.

3.774. Lantokiaren funtzionamendua eta langileak (EIB-679/021)

Nahiz eta Eibarren egon ziren bitartean ez zen emakumezkorik egon, Abadiñoko lantegian jardun zuten gutxi batzuk lanean. Kanpotik etorritako langile ugari ere egon zen. Lantokian bertan arduratzen ziren berrien prestakuntzaz non ikasi ez baitzegoen.

3.775. Erabilpen anitzetarako motorrak ekoitzi zituzten (EIB-679/025)

Nekazaritzarako lanabes desberdinetarako motorrak ere ekoitzi zituzten. Dieselak zirela azpimarratzen du. Erabilpen anitzetarako motorrak egin zituzten Abadiñora lekualdatu zirenean batez ere.

3.776. Eroritako hegazkin baten piezak aprobetxatu zituenekoa (EIB-679/027)

Eibarren eroritako hegazkin baten piezak jaso eta motorrak ekoizteko aprobetxatu zituela kontatzen du. Lantegiaren hastapenetan, material eta erreminta falta oso nabaria zen.

3.777. Betebeharrei erantzuteko sortu zen Precicontrol lantegia (EIB-679/030)

Motorren ekoizpenerako doitasun-erreminta gabeziak eragin zuen "Precicontrol" enpresaren sorrera. Kalitate-kontrolerako piezak eta makinak egiten zituzten han. Garai hartan, oso ohikoa omen zen Eibarren norberak bere lantegi edo tailerra abiaraztea.

3.778. Sute baten ondorioz etxea galdu zutenekoa (EIB-680/003)

Eibarko Maria Angela kalean kokatzen zen kartutxo denda baten gainean jaiotzen zen. Dendariaren deskuidu baten erruz, su hartu zuen eraikin hark eta etxea galdu zuten. Sukaldeko paretan zuloa egin eta aldameneko eraikineko teilatutik irtetea lortu zutela kontatzen du. Bost urte inguru zituen ezbehar hura gertatu zenean.

3.779. Ibarkurutze eta Jardiñetako eskolan ibilia (EIB-680/007)

Ibarkurutzeko eskolan egin zituen lehen eskola urteak. Jardiñetako eskolan osatu zituen ikasketak. Gerra hasi zen urte berean amaitu zituen ikasketak, hamabost urte zituela. Irakasleen izenak gogoan dauzka oraindik. Eskolak gazteleraz izaten ziren nahiz eta lagunekin euskaraz jardun. Ikasle ona zen eta oroitzen politak dauzka. Ikasgaiei buruz dihardu: joskintza, bordatzea, marrazketa, etab.

3.780. Mugerzaren marrazki eskola (EIB-680/008)

Eskolaz aparteko ikasketak. Ohikoa zen Eibarren marrazketa eskolak hartzea. Eskolatik irten ostean, Mugerzaren eskolara joaten zen Miren. Eliza aurrean zegoen "Kontzeju zaharra" zeritzon eraikinean ematen zituen eskolak Mugerzak.

3.781. "Txikitia, txinoentzako" (EIB-680/010)

Aste-sariaren erdia, misioetan laguntza emateko itsulapikoetan botatzen zutela kontatzen du. Aldatzera joaten ziren igandero, dotrinara. Don Felix Markiegik ematen zizkien ebanjelioari buruzko azalpenak eta bide batez, euskaraz idazten irakasten ziela kontatzen du.

3.782. Dotrina ostean, kalean jolasean (EIB-680/012)

Igande arratsaldeetan, dotrinatik irten ostean, lagun artean geratzen ziren kalean jolasean. Uda sasoian, Matxariako erreka joaten ziren Alfa inguruko igerilekua urrun geratzen zitzaielako.

3.783. Haurtzaroko Ibarkurutze kalea (EIB-680/013)

Ibarkurutze kalea nolakoa zen deskribatzen du. Nahiz eta lantegi handirik ez zegoen, makina bat tailer txiki zegoela dauka gogoan: pegora bakoitzean gutxienez bat. Saltokiak ere bazeuden: zapata-denda, gozo-denda, "Matildenekua", botika, etab.

3.784. Orbeako langilea zen aita (EIB-680/015)

Aitak Orbea-n (Eibar) egiten zuen lan. Aitaren ordutegiaz dihardu. Lantegi handien sirena-hotsek markatzen zuten eibartarren bizimodua. Liman jarduten zuen aitak; bere kontura jardun zuen gerora.

3.785. Gerra zibilak ez zien, zorionez, ezbehar handiegirik eragin (EIB-680/016)

Udako oporrak pasatzera, Ispasterko baserrira bidean zegoen gerrari buruzko lehen aipamenak entzun zituztenean. Hamabost urte zituen orduan eta ondo gogoratzen du egun hura. Ispaster eta Ereñon egon zen Miren gerrak iraun zuen bitartean. Gerra garaian, G.A.C. lantegian egon zen aita hura bonbardatu zutenera bitartean; handik, Sestaora bidali zuten, armak prestatzen jarduten zuten lantegi batera. Zorionez, ez zitzaien ezer txarrik gertatu.

3.786. Gerraostea: etxea konfiskatuta eta errazionamendu garaia (EIB-680/018)

Gerra amaitu eta Eibarrera itzuli zirenean, altzariak gordeta zituzten arren, etxebizitza konfiskatuta zuten eta haiek alde egin arte ezin izan ziren euren etxera bueltatu. Nahiz eta errazionamendu garaia izan, senitarteko batek zuen dendari esker, ondo bizi ahal zan zirela kontatzen du. Ea eta Ereñoko errazionamenduez baliatzeko trikimailuez dihardu.

3.787. Gernikara ihes egin bonbardaketaren biharamuna ikusteko (EIB-680/019)

Ereñon zegoen Gernika bonbardatu zuten egunean. Hegazkinek, hiruak, Ereño parean hartzen zuten buelta. Gauez, argitasun handia ikus zitekeen Ereñotik Gernika parean. Sutan zegoen. Hurrengo egunean, inori ezer esan gabe, Gernikaraino joan zen lagun batekin zer gertatu zen ikusteko. Nahiz eta berak aitortu ez, lagunak etxean esan zuen egindako bihurrikeria eta ondorioz, Mireni ere sekulako errieta egin ziotela kontatzen du barre algaraka. 17 urte inguru izango zituen hartan.

3.788. 1934. urteko urriko matxinada Eibarren (EIB-680/020)

1934. urteko urriko langileen altxamenduaz dihardu. Eibarko kaleetan gertatutako liskar, tiroketa, erailketak eta manifestazioak ondo gogoratzen ditu. Aitarekin Berrizera trenez joan zen igande batez etxeratze-aginduari kasu egin gabe; nahiz eta espetxe-zigorra izan, ez zitzaien ezer gertatu.

3.789. Consuelorekin ikasi zuen bordatzen (EIB-680/021)

Gerraostean, Eibarrera itzuli zenean, bordatzen ikastera joan zen. Bizpahiru urtez egon zen Consuelorekin ikasten; etxerako zein kanporako, diru truke, bordatzen jardun zuen gero. Irabazitako dirua amari ematen ziola kontatzen du.

3.790. Administrazio ikasketak akademian eta El Reno-ko "ofizinista" (EIB-680/022)

Josteari utzi eta, Berrizko Angel eta Felixen Eibarko akademian, bulegari ikasketak burutu zituen hiru urtez. Ikaskide baten bitartez sartu zen El Reno eskopeta lantegian administrazio lanak egiteko. 23 urte zituen. Etxean ondo hartu zuten Mirenen erabakia; beste leku batzuetan ez bezala, emakumezkoek etxetik kanpora lanean jardutea Eibarren ondo ikusia zegoela kontatzen du.

3.791. El Reno lantegiaren kokapena eta ekoizpena (EIB-680/023)

Eibarko Urkizu kaleko 2. zenbakian zegoen lantegia Bidebarrieta kaleko 56. zenbakira lekualdatu aurretik. 4-5 langile zituen Jose Uriguen-en lantegiak. Ehizarako eskopetak baino ez zituzten ekoizten bertan.

3.792. Bulegoko lana eta lan-baldintzak (EIB-680/024)

Bulegoan zituen lan eta ardura eta lan-baldintzei buruz dihardu. Astelehenetik zapatara egiten zuten lan; igandeak eta elizak agindutako jai egunak baino ez zituzten libre izaten. "Sábado inglés" zeritzona, beranduago etorri zela kontatzen du. Nominen ordainketari buruzko azalpenak.

3.793. Eskopeta bat ekoizteko prozesuari buruzko azalpenak (EIB-680/025)

Eskopeta baten fabrikazioari buruzko azalpenak ematen ditu. Prozesu osoa ez zen lantegi bakarrean egiten: kanoiak erosi egiten zituzten, "pabonatzera" edo kaxak "pikatzera" kanpora eramaten zituzten, adibidez. Eskopeta bakoitzarekin egin beharreko izapide ofizial guztiei buruzko azalpenak ematen ditu.

3.794. El Reno eskopeta fabrika (EIB-680/026)

Leku faltagatik aldatu zen El Reno Bidebarrieta kalera, hala ere, 15 langile baino gehiagoko lantokia ez da inoiz izan. Jose Uriguen izan zen fundatzailea, Zelestino Etxeberria zuen bazkide. Angel Mazorriagak hartu zion erreleboa geroago. Estatuan zein atzerrian saltzen zituzten eskopetak, Erresuma Batuan, batez ere.

3.795. Kotizatze sistema berriari mesfidati erantzun zioten langileek (EIB-680/029)

Kotizatze sistema abian jarritz zenean, jende nagusiak mesfidati hartu zuela gogoan dauka. Soldataren zati bat jarri nahi ez eta pentsiorik gabe geratu ziren asko.

3.796. Armagina: umetatik ikasitako ofizioa (EIB-680/031)

60. hamarkadan kanpotar asko etorri zen Eibarrera. Armagintzan ofizioa ezagutzea ezinbestekoa zen ordea; umetan aprendiz bezala hasten ziren armagin baten babesean ofizioa ikasteko, horregatik, ez zen estatuko beste herri batzuetako langile asko egoten arma lantegietan.

3.797. "Sociedad Femenina Eibarresa" edo Goi-Argi Elkarte (EIB-680/033)

1951. urtean sortu ze Goi-Argi Elkarte. Euskarazko izenak jartzea debekatuta zegoenez, "Sociedad Femenina Eibarresa" izena hartu behar izan zuen (1975. urtera bitartean, hain zuzen ere). Elkarte sortu aurretik ere antolatzen zituzten ekintza batzuk baina, emakumeentzat bakarrik izango zen elkarerik ez egoteak bultzatu zituen Mercedes Kareaga eta Tere Gantxegi, besteak beste, Goi-Argi elkarte sortzera. Estatu mailan emakumezkoentzat bakarrik izango den lehen elkarte izan zen Eibarkoa.

3.798. Goi-Argi elkartean antolatzen zituzten ekintzak eta finantzaketa (EIB-680/035)

Goi-Argi elkarteak antolatzen zituen ekitaldiei buruz dihardu: ikastaroak, hitzaldiak (erizainen azalpenak, meza-liburuari buruzkoak, etab.) 500 bazkide inguru ziren, andrazkoak guztiak. Gizonezkoek ez zuten sarrera debekatua baina, euren intereseko ezer antolatzen ez zutenez, ez zirela joaten kontatzen du.

3.799. "Tonbolia" (EIB-680/037)

Esteban Orbea alkateak, tonbolalako erosketak egiteko autoa laga izan ziela kontatzen du. Arroparik gabe erosten zituen Mercedesek panpinak eta bazkideen artean egiten zituzten arropatxoak gero. Ikusmin handia sortzen zuen herrian tonbolak. Sari garrantzitsuak zeuden; guztiak "Sinforenean" erakusten ziren. Pezeta batean, Arrate egunean (irailak 8) saltzen ziren txartel guztiak. Tonbolan ateratzen zuten dirua Eibarko elkarte desberdinei laguntzeko erabiltzen zen. Sekula ez zuten Goi-Argi emakume elkartearen finantzaketarako erabili.

3.800. Mercedes Kareagaren "Día del seminarista Eibarrés" (EIB-680/040)

Oso emakume on eta eskuzabala zen Mercedes Kareaga. "Día del Seminarista Eibarrés" berak asmatu zuen: urtean zehar itsulapikoetan etxez etxe jasotako dirua, errege egunean Coliseoan apaizgaiei banatzen zitzaien.

3.801. Goi-Argiko neska taldearen irteerak (EIB-680/042)

Irteera ugari egiten zituzten Goi-Argi elkarteko kideek. Loiolara joaten hasi ziren, baina Hondarribira eta Donostiara ere joan izan ziren. Hamabost egun inguru pasatzen zituzten gogoetaldian elkarrekin, baina festetara, hondartzara, zezenketak ikustera, etab. joateko ere aprobetxatzen zutela kontatzen digu Mirenek. Garai hartan, ez zen batere ohikoa neska talde bat zezenketa batean ikustea edota kalean zein kafetegi batean gizonezkoak gabe aurkitzea. Gutxi axola zitzaien haiei.

3.802. Gerraurreko Eibar oso txikia zen (EIB-681/004)

Eibarko "Dos de Mayo" kalea (Toribio Etxebarria kalea gaur egun) errekek zeharkatzen zuela gogoan dauka. Garai bateko "Generalísimo" kalea, Berdura plaza eta Elgeta bidea ditu hizpide. Txikia zen Eibar gerra aurretik; gerraosteko berreraiketa garaian hazi zela kontatzen du. Beistegui Hermanos, Aurrera, Orbea, Star eta ALFA bezalako lantegi handiak izendatzen ditu.

3.803. Beste jornaltxo bat ateratzeko, tailer batetik bestera ibiltzen ziren (EIB-681/005)

Gerraostean etxe ugari eraiki eta lantegi txiki asko sortu zela dio. Langile pila etorri zen kanpotik lanera. Aparteko orduak sartzea eta tailer batean baino gehiagotan jardutea ohikoena zela kontatzen du. Lana soberan zegoen hazten ari zen herrian.

3.804. Langile etorkin guztientzako zegoen lana (EIB-681/007)

60. hamarkadako boom industrialaz eta langile etorkinen jatorriaz hitz egiten du. Galiziatik etortzen ziren batez ere baina, baita Burgos, Valentzia eta Extremaduratik ere. Udako oporren ostean, joandako langile kopuruaren bikoitza bueltatzen zela kontatzen du eta, hala ere, guztiek topatzen omen zuten lana. Haien bizimoduaz eta bertakotzeaz dihardu.

3.805. Eibarko lantegietako ekoizpena (EIB-681/009)

Arma fabrika asko zegoen Eibarren. Handienak izendatzen ditu. 1000 eskopetatik gora frogatzen zen eguneko Eibarko saiakuntza-banku ofizialean (probaderoa). Galdategi eta forjak ere baziren eta baita automobilgintzarako piezak ekoizten zituzten lantegiak ere.

3.806. Renault-i muzin egin zion ALFAk (EIB-681/010)

Valladolidetik zetorren ingeniari baten txofer zebilela, ALFA eta Lambretta lantegiek galdu zuten aukera paregabearen lekuko izan zen. Izan ere, Renault markarako motorrak ekoizteko aukerari ez zioten jaramonik egin. Ingeniaria joaten zen lantegi guztietara sartzten zela kontatzen du. Gustukoa zuen haiek barrutik ikustea.

3.807. Eibarko bizikletagintza (EIB-681/011)

Bizikleta ekoizpen handia zegoen Eibarren. Marka desberdin ugari izendatzen ditu: Orbea, Luis Iriondo, BH, Cil, Etxasa, Abelux... GAC markak "Mobylette" motor-bizikleta ekoizti zuen eta "Electrociclos" zeritzon lantegian auto elektrikoak egiten zituztela kontatzen du (1940-1953). Nahiz eta gaur egungo asmakaria iruditzen zaigun, 50. hamarkadan Eibarren auto elektrikoak egiten zirela dio.

3.808. "El Casco" markako arkatz-zorrozkailua (EIB-681/012)

Torlojugintzako fabrikak nonahi aurki zitezkeen Eibarren. "El Casco" lantegiak ekoiztutako arkatz-zorrozkailu baten funtzionamenduaz dihardu.

3.809. "Eibarren ez dena egin, ez dago" (EIB-681/014)

Ilea mozteko besaulkiak, organoak edo telebistak. Eibarren egin ez denik ez dagoela dio Albertok. "Los claveles" markako ilea mozteko tresna dauka esku artean. Kalibreak, "Imperial" idazmakinak, "ABC" konpresoreak, "IMIGAS" berogailuak, "JATA" eta "SOLAC" etxetresna elektrikoak, etab.

3.810. Ume-umetatik probaderoan (EIB-681/015)

Eibarko saiakuntza-banku ofizialeko txoferra izan zen Alberto 47 urtez. 17 urte zituela hasi zen lanean baina, umea zenetik ezagutzen du. Gazte alargundu zen ama. Hark ere probaderoan lan egiten zuen eta bertara eramaten zioten Alberto, jaio berria zela, titia har zezan. Begia zabaldu zuenetik ezagutzen duela kontatzen du. Gerora, eskolatik irteten zenean ere, probaderoan itxaroten zion amari lanaldia amaitu bitartean. Umetako oroitzapen politikak ditu.

3.811. Probaderoko beharrari buruz: proba desberdinen prozesua (EIB-681/016)

Langile asko zeudela kontatzen du: gizona eta emakumezkoen eginbeharrak desberdinak izaten ziren. Argazki bat eskuetan, pertsona bakoitzaren egitekoaz dihardu. Zer eta zertarako egiten zen. Kalibre desberdinak izendatzen ditu, munizio mota desberdinak eta bakoitza zertarako erabili ohi zen.

3.812. Erabilezin bihurtze ziurtagiriari buruzko azalpenak (EIB-681/017)

Aurrekargako eskopeta eta honen erabilezin bihurtze ziurtagiriari buruzko azalpenak ematen ditu. Ziurtagiri hori Eibarko saiakuntza-banku ofizialean bakarrik lor zitekeen.

3.813. Probaderoko kartutxoak bereziak izaten ziren (EIB-681/018)

Kartutxoak kargatzea emakumezkoek egiten zuten lana izaten zen. Kartutxoak egiteko prozesuari buruz dihardu: bolbora, takoa, perdigoia... Ehizarako egiten ziren kartutxo arruntek eta probaderoan, armak probatzeko egiten zirenek, zerikusirik ez zutela kontatzen du. Kartutxo berezi haiek eragindako kalte posibleak neurtu behar zituzten saiakuntza-bankuko frogetan, horregatik izaten zuten ohikoa baino karga handiagoa.

3.814. Eskopetei egiten zizkieten proba desberdinak (EIB-681/019)

Eskopeta bakoitza berriz aztertzen zen tiro probak egin ostean. Azterketa horretan eskopetan eragindako kalte posibleak bilatzen zituzten. Kalterik bazegoen, atzera botatzen zuten eta fabrikatzaileari itzultzen zitzaion eskopeta konpon zezan.

3.815. Igeldorako informazio meteorologikoa ere jasotzen zuten probaderoko laborategian (EIB-681/021)

Probaderoko laborategian lehertutako kanoiak aztertzen zituztela kontatzen du. Horrez gain, Eibarko euri kopurua, tenperatura, hezetasuna eta antzerako datuak jasotzen ziren eta egunero bidaltzen ziren Igeldoko meteorologia-estaziora.

3.816. "Andres Unceta" burdindegian edozer aurki zitekeen (EIB-681/023)

Probaderoko txoferra zen Alberto. Kaleko mandatu guztiak egiteaz bera arduratzen zen. Eibarko "Andres Unceta" burdindegira joanez gero, denetik aurki zitekeela kontatzen du.

3.817. Probaderoko seilua estatuan ekoiztako arma guztietan (EIB-681/024)

Zuzendaritzan militarrek zeuden. Haien karguei eta zereginei buruz dihardu. Estatuan ekoizten ziren arma guztiek Eibarko probaderoko seilua izan behar zuten.

3.818. "Asociación Armera" (EIB-681/025)

"Asociación Armera" delakoak armagin guztiak batzen zituen. Elkarte honetako hainbat kidek batzorde bat osatzen zuten eta probaderoan ordezkari izaten zuten. Batzorde horretako kideak izandakoak izendatzen ditu: Loren Gabilondo, Agustin Aranzabal, Bittor Sarasketa, Irusta, Ugartechea, etab. Armaginen eta militarren artean adostu behar izaten zituzten prezioak.

3.819. Lau ordainsari jasotzen zituzten (EIB-681/026)

Lanerako baldintza onak zeuden probaderoan. Naiz eta soldatak ez ziren oso altuak, aparteko lau soldatak zituztela kontatzen du: uztailak 18an, San Joanetan, urrian eta Santa Barbara egunean. Horiekin konpentsatzen zuten soldata.

3.820. Tiro-galeria (EIB-681/030)

Bost metro inguruko zabalera eta berrogeita hamar metroko luzera zuen tiro-galeriak. Galeriaren amaieran, hondartzako harearekin egindako tontorra zegoen eta bertan kokatzen zen itua. Galeria hura ez zen frogak egiteko erabiltzen; kalitate goreneko eskopetei mira jartzeko erabiltzen zuten armaginek. Probaderoko langileek probarako kartutxoaren presioa neurtzeko ere erabiltzen zutela kontatzen du.

3.821. Istripuak ohikoak ziren probaderoan (EIB-681/032)

Istripuak gertatzen ziren probaderoan. Bolbora beltza erabiltzen zen kanoiei egiten zitzaie lehenengo proban. Froga bortitzena zen, kanoiak ia landu gabe egiten zen lehen saio hura. Bolbora beltzak su hartu eta hildako bat eragin zuen istripua gogoan dauka.

3.822. Bizimodua ateratzeko, apopiloak etxean (EIB-683/003)

Ama gazterik alargundu zen. Lantegian lan egiteko aukera izan zuen, baina ez zuen nahi izan. Bizimodua aurrera ateratzeko, apopiloak hartzen zituen etxean.

3.823. Lantegira bai, baina ezkondu arte (EIB-683/004)

18 urte bete arte ezin izaten zenez lantegian lan egin, 15 urterekin bankuko zuzendari baten etxean hasi zen neskame lanean. 18 urterekin lantegira. Berak garbi zeukan hara joan nahi zuela. Hori bai, senargaiari argi utzi zion ezkondu eta gero gehiago ez zela lantegira joango.

3.824. Senargaia dantzaldian ezagutu zuen (EIB-683/010)

Eibarko garai bateko zinemak: Amaia, Koliseoa eta Rialto. Arratsaldeko seiak aldean paseatzera irteteko ohitura; non ibiltzen ziren. Berak senargaia dantzaldian ezagutu zuen. Dantza lotua egiten zuten. Gustuko laguna bazetorren, zenbat eta estuago, hobe. Kalabazarik ez zen izaten, jakiten zuten norengana joan eta.

3.825. Cil lantegian, bizikletak paketatzen (EIB-683/017)

Cil bizikleta lantegian 2-3 gizonen lan egiten zuten limatzen. Ez zen lantegi handia. Felisak bizikletak paketatzen egiten zuen lan. Lan gutxi zuenean, lantegian beste lan batzuetan lagundu behar.

3.826. Eibarren egindako bizikletak lasterketetan (EIB-683/019)

Cil lantegian egindako bizikletak Valentziara, Gijonera... hainbat lekutara bidaltzen ziren. Guztiak salduta egoten ziren. Orduan bizikletek arrakasta handia zuten. Lantegi gehiago ere bazeuden: GAC, BH, Orbea... Txirrindulari lasterketak zeudenean, Eibarren egindako bizikletak erabiltzen zituzten. Gero lantegi guztiak kanpora joan ziren. "Vuelta España" azken urteetan ez dela hemendik pasatu dio. Garai batean lantegiek dirua jartzen zuten.

3.827. Lantegiko komertziala (EIB-683/022)

Cil bizikleta lantegiak "biajante" (komertziala) ei zeukan berezia. Langile bat erosketez arduratzen zen eta beste bat salmentez Saltzaileak kanpora irten beharra izaten zuen saltzera. Nagusiaren propinatxoa ere jasoko zuela agian dio.

3.828. Soldata amari entregatzeko ohitura (EIB-683/024)

18 urterekin irabazi zuen lehenengo soldata amari entregatu zion. Eta gerokoak ere berdin. Garai hartan hori zen ohikoa.

3.829. Lantegitik irtendakoan, josten ikastera (EIB-683/036)

Amak pixkanaka-pixkanaka arrea prestatzen zuen. Gaur egun ez da horrelakorik egiten. Brodatzaileek beti izaten zuten lana. Bera, lantegitik irtendakoan, arratsaldeko seietan, Arragueta kaleko jostundegira joaten zen, josten ikastera. Denetik ikasi zuen.

3.830. Kontu intimoak nork bere kolkorako (EIB-683/041)

Lagunen arteko harremana. Mutilen bat gustuko zutenean, elkarrekin komentatzen zuten. Ezkondu ostean, ordea, ez zituen inorekin komentatzen gizonaren inguruko kontuak. Abadeek esandakoarekin ibiltzen ziren: Aste Santuan ezin senargaiarekin egon, maiatzeko loreetan ere ez...

3.831. Orbea lantegiaren inguruan ibiltzen zen bizikletan (EIB-683/045)

Ikasi zuen bizikletan ibiltzen. Bere lehengusina bat Orbea lantegiko sukaldaria zen. Felisa hara joaten zen eta hango batzuen bizikletarekin lantegi inguruetan ibiltzen zen. Izan ere, Orbea lantegiak sekulako lur-sailak zeuzkan.

3.832. Ama eta arreba damaskinatzaileak (EIB-689/002)

Ama damaskinatzailea zen, eta arreba ere laguntzaile aritzen zen. Etxean lan egiten zuten. Marrazkilari ona omen zen ama. Bera errekadista ibiltzen zen.

3.833. Marrazki irakasleak (EIB-689/003)

Moda handia zegoen eta horregatik zegoen Eibarren hainbeste damaskinatzaile. Jacinto Olabereren eskolara joan zen ama marrazten ikastera. Bere anaia Jose Antoniok Lukas Alberdirekin ikasi zuen.

3.834. Garai bateko Eibarko giroa (EIB-689/004)

Errekatxun bizi izan da beti. Gaztea zeneko Eibar zelakoa zen kontaktzen du; industria handia zegoenez, kalean mugimendu asko izaten zela dio. Etxebizitzek gehienetan azpian lantegiak izaten zituztela dio.

3.835. Armeria Eskola, asmakizun bikaina (EIB-689/005)

Armeria Eskola asmakizun bikaina izan zela dio; langileak prestatzen zituztelako eta ekintzaileak sortzen zituelako.

3.836. Armeria Eskolako bizipenak eta haren garrantzia (EIB-689/006)

Armeria Eskolako irakasle izan da beti. Ikasle zela ikasi zituenak azaltzen ditu. Armeria Eskolak Euskal Herri osoari ekarpena egin diola uste du.

3.837. Armeria Eskola, mekanikari lotua (EIB-689/007)

Armeria Eskolan ez dela inoiz armarik egin izan azaltzen du, mekanika landu izan dela.

3.838. Marrazketa teknikoaren balioa (EIB-689/009)

Marrazketa teknikoko irakasle izan da Armeria Eskolan. Marrazketa teknikoa zertarako den baliagarri azaltzen du.

3.839. Helmholtz markako organogileak (EIB-689/013)

Gazte zela, Helmholtz markako organogileak zelan ezagutu zituen azaltzen du. Maila handiko langileak zirela dio, ekintzaileak.

3.840. Helmholtz markako organoak (EIB-689/014)

Helmholtz markako organo lantegiko kontuak aipatzen ditu. Organo elektromagnetikoen funtzionamendu teknikoa azaltzen du. Markaren izena fisikari alemaniar baten omenezkoa dela kontaktzen du. Lehenengo organoa San Lorentzon dagoela dio.

3.841. Helmholtz organoen hobekuntza (EIB-689/015)

Helmholtz organoen kalitatea hobetuz joan zela dio. Hobekuntza zelan lortu zuten azaltzen du. Hammond organoen inguruko azalpen teknikoak ere ematen ditu.

3.842. Hammond organoa Ermuan (EIB-689/016)

Don Teodoro Zuazua Ermuko parrokoak Hammond organoa lortu zuen Santiago elizarako eta hura aztertzeke aukera izan zuten Helmholtzeko arduradunek.

3.843. Aretoko dantzak organoarekin Astelenan (EIB-689/017)

60. hamarkadan kontzertu bat antolatu zuten Astelena frontoian, aretoko dantzak organoarekin joz. Juan Urriaga izan zen organo-jotzailea eta Ermuko organoa jo zuen. Organo hura Helmholtz lantegira eraman zuten aztertzeke eta berdina egiteko.

3.844. Hammond organoa barrutik (EIB-689/018)

Helmholtz lantegikoek Hammond organoa barrutik zelan aztertu zuten eta zelan kopia zuten kontatzen du.

3.845. Helmholtz eta Hammond organo lantegiak harremanetan (EIB-689/019)

Helmholtz lantegikoek Hammond lantegira, Estatu Batuetara, idatzi zuten lortu zutena azalduz. Isilpeko langile bat bidali zuten Eibarrera eta ondoren Hammond lantegiko zuzendaria bera etorri zen.

3.846. Helmholtz markako berrogeita hamar organo (EIB-689/020)

Hammond lantegiko ordezkari bat, Herbert Meinema, Helmholtz lantegira joan zen kopiatutako organoa ikustera, erostera eta elkarlan proposamena egitera. Elkarlanik ez baina berrogeita hamar ale egin zituzten.

3.847. Helmholtz organoekin antolatutako ekimen bereziak (EIB-689/021)

Helmholtz organo batekin kontzertu handi bat eman zuen Zaragozako Orkestra Sinfonikoak eta Maria Josefa Valcarcel izan zen organo-jotzailea. Beste hainbat anekdota kontatzen ditu.

3.848. Helmholtz organoak non dauden (EIB-689/022)

Helmholtz organoak non dauden esaten du. Eibarren ez da egon izan elizetan.

3.849. Organoen funtzionamendua ikasten (EIB-689/023)

Jose Ibazeta eta biak organo zaleak izan dira. Hark organo baten piezak eman zizkion eta lortu zuen organoen egitura eta funtzionamendua ikastea.

3.850. Berak konpondutako organoarekin kontzertuak (EIB-689/024)

Jose Ibazetarekin batera, beraiek konpondutako organoarekin, kontzertuak ematen hasi ziren. Lehenengoa Amañako elizan eman zuten. Bere anaia Juan Luis izan zen organo-jotzailea.

3.851. Helmholtz organoak egiteko materiala (EIB-689/025)

Helmholtz organoak egiteko materiala nondik lortzen zuten kontatzen du.

3.852. Helmholtz lantegiaren bilakaera (EIB-689/026)

Helmholtz markako organoak egiteari laga zioten 1964an. Harrezkero, 1973ra arte, telebistak egiten hasi ziren, baita beste hainbat gailu ere. Helmholtz lantegia itxi eta jabeak banatu egin ziren.

3.853. Aita, Eibarko Klub Deportiboko sortzaile (EIB-691/001)

Jose Antonioren aita kirolzalea zen; Bitor Sarasketa lantegian akabatzaile lanetan aritu izan zen. Eibarko Klub Deportiboko sortzaileetako izan zen.

3.854. Klub Deportiboa eta futbol taldea (EIB-691/003)

Eibarko Klub Deportiboaren hasierako urteetan atletismoa, txirrindularitza, xakea... lantzen ziren; futbola ez beste guztia. Bi elkarre sortu ziren: futbolekoa eta bestea. Bazkide kopuru antzekoa izaten zuten.

3.855. Klub Deportiboaren egoitzak (EIB-691/004)

Klub Deportiboak Isasi kalean izan zuen lehenengo egoitza. Harrezkero, beste hainbat lekutan egon zen. 1954an Toribio Etxeberria kaleko lokala inauguratu zuten.

3.856. Eibarren errepublika aldarrikatu zutenekoa (EIB-691/007)

Eibarren errepublika aldarrikatu zutenekoa kontatzen du.

3.857. Goitarrak eta behetarrak, sirenadunak eta sevillarrak (EIB-691/008)

Orbea lantegia hemeretzigarren mendean sortu zuten. Jabeak aspaldiko jauntxoaren modukoak zirela dio. Behetarrak esaten zieten Eibarren, kontserbadoreagoak zirelako. Goitarrak eta behetarrak desberdintzen zituzten. Auzo sirenaduna eta auzo sevillarra ere esaten zieten, hurrenez hurren.

3.858. Lantegiz betetako herria (EIB-691/009)

Eibarren atari guztietan lantegiak egoten ziren. Herriaren orografiarengatik, lantegi askorik gabe geratu zen Eibar, ez zegoelako lantegi handiak eraikitzeko lekurik. Jende asko hartu zuen Eibarrek 60. hamarkadan.

3.859. Gerrarengatik, familia banatuta (EIB-691/012)

Bere amama Eskoriatzan harrapatu zuen 1936ko altxamendu militarren. Bere amarekin Frantziara joan zen eta handik Eibarrera etorri ziren.

3.860. Aseguru agentzian kotxeak aseguratzen (EIB-691/017)

Eibarren zeuden aseguru agentziak izendatzen ditu. Gehien bat kotxeak aseguratzen zituzten Jose Antoniok eta aitak.

3.861. Arrate igoera kotxe lasterketako antolatzaile (EIB-691/018)

Arratera igoera kotxe lasterketa antolatzen zuen, lagun batzuekin batera. Bere aitak lehenago Arratera igoera txirrindularitza proba antolatu izan zuen.

3.862. Lehenengo kotxeen jabeak (EIB-691/024)

Lehenengo kotxeak industria jabeek eta eskopetagileek ekartzen zituzten.

3.863. Aita "Banco Vizcaya"ko zuzendari, ama "Bazar Martina"n (EIB-693/002)

Eibarko lehenengo banketxea "Banco Vizcaya" izan zen eta hango zuzendaria izan zen euren aita. Amak "Bazar Martina"n lan egiten zuen, amamarekin, eta hantxe ezagutu zuten elkar aitak eta amak. Oso denda berezia omen zen.

3.864. "Electrociclos" lantegia (EIB-693/004)

"Electrociclos" lantegiaren hasiera eta garapena. 1946an aitak sortu zuen lantegia. Lantegiaren kokapena.

3.865. Furgoneta elektrikoak egiten (EIB-693/006)

Furgoneta elektrikoa asmatu zuen aitak, ingeniaria zen lankide batekin batera. Orbearen oso laguna zen eta batu egin ziren, trizikloak eta motor elektrikoak egiteko.

3.866. Elektrozikloak eta tresnak (EIB-693/008)

Elektrozikloekin batera, ze tresna egiten ziren kontatzen dute.

3.867. Elektrozikloaren ezaugarriak eta salmenta (EIB-693/009)

Elektrozikloak inguruan eta estatuan saltzen zituzten. Ehun kilometroko ibilbidea egin zezakeen eta 45 km/orduko abiadura hartu. Prezioa esaten dute.

3.868. Elektrozikloarekin oporretan Mutrikun (EIB-693/010)

Uda garaian, Mutrikura joaten ziren oporretan eta elektrozikloarekin ibiltzen ziren. Anekdotak bat kontatzen dute.

3.869. Elektrozikloaren deskribapena (EIB-693/011)

Elektrozikloa deskribatzen dute.

3.870. Garraio elektrikoan aitzindari (EIB-693/014)

Estatu osoan lehenengoak izan ziren garraio elektrikoak sortzen eta merkaturatzen. Eibarko izaera ekintzailea aipatzen dute.

3.871. Aita hil ostean, amak lantegiaren ardura (EIB-693/018)

Aita hil ostean, amak "Electrociclos" lantegiaren ardura hartu zuen. Zuzendariaren azpikoez ohartu zen ama eta egoera konpondu zuen.

3.872. Ehun elektroziklo, urteko produkzioa (EIB-693/023)

Seihun elektroziklo saldu zituzten denera. Ikerketa egin dute lantegiari buruz. Dirudunen seme-alabak ziren gaztetxotan.

3.873. Lantegia legez kanpo kendu zieten (EIB-693/026)

Lantegiaren bereganatzea legez kanpokoa eta zentzurik gabekoa izan zela salatzen dute. Injustizia handia jasan dutela diote.

3.874. Gerra garaian Bolibarren (EIB-695/002)

Gerrarengatik bi urte egin zituen Ziortza-Bolibarren bizi izaten, familiakoekin. Gerraostean, aita hil zitzaion. Orduan, gosea eta miseria zegoela dio.

3.875. Gipuzkoako lehenengo garabiak (EIB-695/003)

Zaldiekin lantegiz lantegi kargak eramaten hasi zen. 50. hamarkadan industria haztearekin batera, kamioiak eta garabiak erosi zituzten. Gipuzkoako lehenengo garabiak eskuratu zituzten.

3.876. Industria gorakadak ekarritako gogoia (EIB-695/005)

Industriaren gorakada 50. hamarkadatik 1975 aldera arte izan zela kontatzen du. Sirenek jotzen zuten eta langile asko buzoa jantzita joaten ziren lanera. Lantegi handiak izendatzen ditu.

3.877. `Katilu´ gaitzizenaren jatorria (EIB-695/007)

Bere aita, Pedro Zabaleta `Katilu´ zen. Gaitzizena nondik datorren azaltzen du.

3.878. Aitaren ikaztegia (EIB-695/009)

Aitak ikaztegia zeukan. Trenez ekartzen zuten ikatza (harri-ikatza), aurrez itsasontziz ekarritakoa. Ikaztegia non zegoen zehazten du. Aitak ikatza banatzen zuen etxerik etxe. Baserrietan egindako egur-ikatza ere saltzen zuen.

3.879. Gerraosteko ordaintzeko moduak (EIB-695/013)

Gerraostean, dirua zeukanak ordaindu egiten zuten eta ez zeukanak, apuntatuta lagatzen zuten. Gogoan du zinemara joan zela diruaren orde ziguiluekin ordainduta.

3.880. Materiala errazionamenduan (EIB-695/017)

Zaldien eta garabien lana aitarengandik jaso zuen. Piezak, materialak, produktuak lantegi batetik bestera eramaten zituen. Materiala ere errazionamenduari banatzen zuten, eta estraperloan ere saltzen zuten batzuek.

3.881. Gerraosteko debekuak (EIB-695/019)

Gerraostean, dantzaldiak soltean egiten ziren, helduta dantzatzea galarazita zegoelako. Neska bat haurdun geratzen bazen, herritik kanpora joan behar izaten zuela dio.

3.882. "Katillu" garabiak (EIB-695/020)

"Katillu" garabien enpresarekin lau bazkide hasi ziren, 60. hamarkadan. Bulegoak eta garajea non zituzten kontatzen du. Argazkia erakusten du, garabietako batena.

3.883. Miranda de Ebrotik zaldiz etorri zenekoa (EIB-695/022)

Hemezortzi urterekin Miranda de Ebrora joan zen feriara, zaldia erostera. Trenean lekurik ez eta zaldiz etorri zen handik Eibarrera.

3.884. Garabiekin lantegiak lekualdatzen (EIB-695/023)

Garabiak Gasteizen erosi zituzten hasieran; ondoren, Alemaniatik. Lantegietako makinak pabiloi batetik bestera eramaten zituzten.

3.885. Istripuetan garabiekin (EIB-695/025)

Istripu larriak asko izaten ziren eta garabiekin joaten ziren bertara lanera.

3.886. "Pezetiari hiru errial janda" esaera (EIB-695/030)

Anekdotak bat kontatzen du, zahartzaroaz.

3.887. Hijos de Valenciaga tailerrean jaio zen (EIB-696/002)

Hijos de Valenciaga tailerreko teilatuan zegoen etxean bere osaba bizi zen eta bertan jaio zen Joxe Mari, ama ezin izan zelako ospitalera heldu.

3.888. Aginaga auzoko baserriak (EIB-696/004)

San Roman baserrian bizi izan da beti. Amarena zen. Aita, Arandotik (Aginaga) etorria zen.

3.889. San Roman ermitaren bilakaera eta izena (EIB-696/005)

San Romango ermita 1500. urte ingurukoa omen da. Joxe Marik ermitaren arkitekturaz hitz egiten du. Aginagako eliza obretan egon zenean, San Romanen ematen zen meza. Aspaldi, bertan ehorzketak egiten ziren. San Roman de Zelaarte izena nondik datorren kontatzen du. Bere familiako batek honi buruz egindako bertsoa buruz esaten du.

3.890. Mezetara, Aginagako elizara (EIB-696/007)

Aginaga auzoko baserriak. Mezetara, Aginagara joaten dira. Lehen, baserri guztietatik joaten ziren.

3.891. San Roman ermitaren jabea apezpikutza da (EIB-696/008)

San Roman ermita apezpikutzarena da. Ermitaren inguruan, mugarriak daude.

3.892. San Romango erromeria, Santa Ageda egunean (EIB-696/009)

San Romango jaiak Santa Agedan ospatzen dira. Erromeria egunean, lehiaketak egoten ziren. Santuen inguruko gauzak kontatzen ditu. Emakumeak joaten ziren erditze-onak erregutuz.

3.893. Haurrak Arratetik etortzen ziren (EIB-696/011)

Haurrak Arratetik etortzen zireneko kondaira kontatzen du. Fedea aldatu egin dela dio Joxe Marik.

3.894. San Roman eta inguruko erromeriak (EIB-696/012)

Meza eta erromeria egunetan, taberna jartzen zuten baserriko atarian. Aginagara, Eibarko txistularien banda joaten zen eta ardoa dohainik zen. San Romanera inguruko bailarako neska-mutilak joaten ziren, elurra bazegoen ere. Erromerietan, baserritar gazteek elkar ezagutzen zuten.

3.895. San Roman ermitako jaien programazioa (EIB-696/013)

San Romango jaietan, meza, erromeria, taberna, harri-jasotzaileak eta dantza-lehiaketak egoten ziren. Aginagan, pilota partiduak ere.

3.896. San Romango ermitara heltzeko bideak (EIB-696/014)

San Roman ermitara heltzeko bideak. Markiñara, gertuko Ildefonso Santutxotik behera; Andabidea, Ziarrotzaraino (Ziortza?) heltzen zen. Burdin-bidea.

3.897. San Romango ermitan letaniak (EIB-696/015)

Igokunde-egunaren aurreko asteartean, Aginagatik San Romanera letanian joaten zen jendea. Asteazkenean, San Pedro Akondiara eta igandean, Arratera.

3.898. Aginagako elizan akolito (EIB-696/017)

Aginagako akolito izan zen Joxe Mari umetan. Eskolara joan aurretik joaten zen elizara. Bere umetako egun bat nolakoa zen azaltzen du.

3.899. Soinujoleak San Romango erromerian (EIB-696/018)

San Romango erromerira soinujole bezala, Benito Mandiola, GAC-ko akabatzaileen arduraduna, eta Jesus Aretxabaleta ileapaintzailea joaten ziren. Beste soinujole batzuk aipatzen ditu.

3.900. San Romaneko soinujolea izan da (EIB-696/019)

Joxe Marik. "Txara Azpiko" baserriko Demetrio Agirregomezkortarekin ikasi zuen soinua jotzen eta San Romaneko erromeriaren azken urteetan bera izan da soinujolea. Denetik jo du: pasodobleak, tangoak, "txa-txa-txa"...

3.901. Demetrio Agirregomezkorta soinujolea eta maisua (EIB-696/020)

Demetrio Agirregomezkorta "Txara Azpikua" baserriko soinujoleari buruz hitz egiten du. Garaiko kantu batzuk aipatzen ditu.

3.902. Euskeraz jarduteagatik, eskolan zigorrak (EIB-696/021)

Gazteleraz lehengusuekin egiten zuen eta eskolan ere derrigorrezkoa zen. Irakasleak, zigortu egiten zituen euskeraz hitz egiteagatik. Elgoibarko San Pedro auzoan ordea, irakasle euskalduna zegoen.

3.903. San Ildefondosoko santutxua (EIB-696/022)

San Romaneko erromeria egunean, hiru santu daude ermitan: San Roman, Santa Ageda eta gertuko santutxuko San Ildefonsoren irudia. San Ildefonsoren benetako irudia berriztu eta Agiñako elizara eraman zen eta santutxuan dagoena, porlanezko kopia bat da. Santutxua deskribatzen du.

3.904. San Roman ermita, milizianoen kuartela (EIB-696/023)

Gerran, San Romaneko ermita kuartel bezala erabili zuten milizianoek. Egurrezko erretaula, pulpitu eta koroa desagertu ziren. Bonbardeaketetan, gertuko pago baten barruan babesten ziren milizianoak. Frentea ermitatik 300 metrotara zegoen eta gaur egun ere trintxerak ikusi daitezke.

3.905. San Roman ermita, 1954an berriztua (EIB-696/024)

Joxe Mari haurra zela, Azkoitiko enpresa batek San Romaneko ermitako gerrako kalteak konpondu zituen. 1954an, Agiñako abadea Don Jose Juan zelarik, ermita berriztu zen: lurra eta paretak zarpiatu, korua egin... Orain dela urte batzuk, auzolanean etorritako gazte talde batek, lurraren zarpiatua hondatu zuen.

3.906. San Roman ermitako koroa (EIB-696/025)

XVII. mendean, San Roman ermitaren kanposantua kendu eta espazio horretan ermita handitu zen, bertan koroa eraikiz. Gerran, erre egin zuten eta gaur egun gapirioak ("kuartoi" deitzen die Joxe Marik) sartzen ziren zuloak ikus daitezke. Ermitako eraikuntzako elementu ezberdinak azaltzen ditu: gapirioa, "kaporixua", "latia"...

3.907. San Romaneko kanpaia; hil-kanpaiak eta txilina (EIB-696/026)

Lehen San Roman egunean bakarrik ateratzen zen kanpaia eta urtean zehar baserriko ganbaran gordetzen zen. Don Jose Juan eta Don Pablo abadeen kontuak kontaktzen ditu. Letanietan kanpaiak jotzen ziren. Hil-kanpaiak nola jotzen ziren azaltzen du. Suteak zeudenean ere jotzen zen kanpaia. San Roman baserrikoek jo izan dituzte kanpaiak beti. Txilina Agiñan nola eta noiz jotzen zen.

3.908. Aginagako elizako gari-kokoaren kontrako erritua (EIB-696/027)

Agiñako elizan egiten zen gari-kokoaren kontrako erritua nolakoa zen azaltzen du.

3.909. San Roman ermitako ur-bedeinkatu ontzia (EIB-696/028)

San Romaneko ermitaren ur-bedeinkatuaren ontzia porlanezkoa da, 1954ean egindakoa. Gerra aurretik, ontzia harri-gorritz egina zegoen baina milizianoek apurtu zuten. Ur-bedeinkatua, abadeak ekartzen zuten.

3.910. San Romaneko "harriaren kontrako" erritua (EIB-696/029)

Gorpuzti eguneko aurreko ostegunean, San Romaneko ermitan "harriaren kontrako" erritua ospatzen zen. Harria zer den azaltzen du. Abadeak ura nola bedeinkatzen zuten azaltzen du. Baserritar bakoitzak, ur-bedeinkatu botila bat eramaten zuten bere baserrira eta, Erramu eguneko erramuarekin batera, bere lurretan ipintzen zuten, baserria eta uztak babesteko. Aspaldi txingorretik libratu zireneko "mirari" bat kontaktzen du.

3.911. San Romanen, erditze onak eskatzeko kandelak pizten ziren (EIB-696/030)

San Romanera emakume ugari joaten ziren kandelak piztera eta erditze onak eskatzera. Mendarotik oinez etorritako izebaren istorioa kontaktzen du.

3.912. Aginagan eta San Romanen, emakumeak mantelinarekin eta meza latinez (EIB-696/034)

San Romanen eta Agiñan emakumeak mantelinarekin joaten ziren. Meza, latinez izaten zen eta abadeak bizkarra ematen zien eliztarrei.

3.913. San Romaneko ermita, batzar-leku (EIB-696/036)

San Romaneko ermitan, hiru edo lau ezkontza ezagutu ditu Joxe Marik. Batailorik eta hileta-elizkizunik ez. Batzar asko egin dira ermitan, gehienbat Ixuatik Agiñara doan bidea eraikitzen egon ziren urteetan (1966-1969). Ixuako taberna 1969an ireki zen.

3.914. San Roman ermitako abadeak I (EIB-696/037)

San Roman eta Agiñako abadeak: Don Felipe Aierbe bergararra, Don Pablo Barrena arrasatearra, Don Jose Juan Zubizarreta eskoriatzarra, Don Ignacio Ramirez Intxausti zumaiarra, Don Rafael Aizpurua Egaña antzuolarra, Don Juan Garmendia zumaiarra, Don Jesus... Denak 23-24 urterekin joaten ziren Agiñara, ikasketak amaituta.

3.915. Aginagan hileta-elizkizunak (EIB-696/038)

Agiñan hileta-elizkizunetarako hiru abade joaten ziren meza ematera. Meza luzeak izaten ziren. Hileta-elizkizun osoak 1000 pezeta inguru balio zuen.

3.916. San Roman ermitako abadeak eta akolituak (EIB-696/039)

San Romanen meza zegoenean, abadeei eta akolituiei beti jaten ematen zitzairen (oilaskoak, hamarretakoa, kafea eta gailetak...). Joxe Mari 5 urtez izan zen akolito, 8 urtetik 13 urtera. Don Jesus abadearekin solfeoa ikasi zuen.

3.917. San Romaneko ermitan, garia bedeinkatzeko erritua (EIB-696/040)

Garia bedeinkatzeko erritua nolakoa zen azaltzen du Joxe Marik. Letaniak buruz aipatzen ditu.

3.918. San Roman ermitako sakristau eta serora-lanak (EIB-696/041)

Santa Ageda egunerako prestaketa-lanak beraiek egiten dituzte. Doloresek, Joxe Mariren emazteak, serora-lanak egiten ditu: ermita garbitu, mantelak garbitu eta lisatu, loreak ipini... Joxe Marik, sakristau bezala, kanpaia jotzen du. Dena dohainik egiten dute.

3.919. Apezpikua San Roman ermitan (EIB-696/044)

Apezpikua behin agertu zen San Romanen. Agiñako elizako lanak bedeinkatzera joan zen eta San Romanera ere hurbildu zen.

3.920. On Jose Juan abadearekin Saturraranera egunpasa (EIB-696/047)

Akolito ibili zenean, ondo abestu behar izaten zuten. Don Jose Juanek behin Joxe Mari eta beste bi akolito Saturrarango seminarioara eraman zituen egunpasa. Egun ederra izan zen. Lekeitiora ere joaten ziren kamioietan.

3.921. "Kinkilleruak" eta "konponarrak" baserriz-baserri (EIB-696/049)

San Romaneko erromerian ez zen egoten saltzailerik, baina urtean bitan denetarik saltzen zuten "kinkilleruak" eta aterkin-konpontzaileak ("konponarrak") joaten ziren.

3.922. San Romaneko erromeriako taberna-giroa eta borrokak (EIB-696/050)

San Romaneko erromerian, Joxe Mariren aitak baserriko atarian taberna jartzen zuen. Ardoa eta garagardoa saltzen zen. Erromerian, borrokak egoten

ziren maiz. Ospatu zen azkenengo erromerian, borroka egon zen eta Joxe Marik erromeriarik gehiago ospatuko ez zela erabaki zuen.

3.923. San Rafael ermitan jaunartzea (EIB-697/002)

Maltzagako San Rafael ermitan egin zuen jaunartzea eta igandetan bertara joaten ziren mezara. Bidezidorrak eta guridibideak erabiltzen zituzten.

3.924. San Rafael ermitako abadeak eta eliz-barrutiko baserriak (EIB-697/006)

San Rafael ermitako abadea Azitainetik etortzen zen: Jon Etxabe, Felix Bergara... Ez zioten abadeari ezer ordaintzen. Maltzagako eskolara eta San Rafaelera joaten ziren baserriak aipatzen ditu.

3.925. San Rafael ermitako elizkizunak gazteleraz eta latinez (EIB-697/007)

Igandero meza egoten zen San Rafaelgo ermitan. Sei urterekin egin zuen bertan Mari Josek jaunartzea. Doktrina gazteleraz eta elizkizunak latinez. Kantuak, gazteleraz.

3.926. San Rafael ermitan jaunartzea (EIB-697/009)

San Rafaelen egin zuen jaunartzea. Oinez joan ziren baserritik eta Maltzagan jantzi zuen soinekoa. Oroigarriak egin zituzten, Castrillok ateratako argazkiekin. Bazkaria baserriko ganbaran egin zuten.

3.927. Azitaingo ermitako kanpaiak (EIB-697/010)

Maltzagako San Rafael ermitako kanpaiak ez ziren entzuten Barrundi baserritik, mendiak oztopo egiten zuelako. Azitaingo ermitako kanpaiak entzuten dituzte.

3.928. Maltzagako eskola, autopista eraikitzeke eraitsia (EIB-697/012)

Hamalau urterekin eskola utzi zuen Mari Josek eta handik gutxira itxi eta bota egin zuten, autobidea eraikitzeke.

3.929. Igandero, San Rafaelera mezetara (EIB-697/014)

Mari Joserentzat mezetara joatea txango bat egitea bezalakoa zen eta gustura joaten zen auzoko lagunekin. Neskak eta mutilak, mezan banatuta egoten ziren. Eserleku luzeak zeuden. Ama mantelina beltzarekin joaten zen.

3.930. Maltzagan jende asko bizi zen (EIB-697/016)

San Rafaelgo ermita elizkizunetarako bakarrik erabiltzen zen. Maltzagan zer zegoen azaltzen du: baserriak, txaleta, eskola, ermita, trenbideko langileen etxe handia... Jende asko bizi zen.

3.931. Arrate Balleko gurdibidea eta andabidea (EIB-697/017)

Maltzagara eta Eibarrera jaisteko gurdibidea nolakoa zen. Maltzagan, Delteco dagoen lekuan, almazena zegoen eta bertara joaten ziren pentsu eta lasto bila. Gurdibidea maiz konpontzen zen auzolanean. Andabidea ("andia"), baserri albotik pasatzen zen.

3.932. Gaubeilak baserrietan (EIB-697/018)

Auzoko norbait hiltzen zenean, baserrian egiten zen gaubeila. Emakumeak hildakoa zaintzen eta gizonezkoak ardoa edaten. Bederatziurrena baserrian egiten zen.

3.933. Lanerako eta jai-egunetarako jantzi ezberdinak (EIB-697/019)

Lehen distantziak handiagoak ziren eta dena oinez egin behar zen. Botak eta katiuskak erabiltzen zituzten. Igandetarako eta jai-egunetarako soineko dotoreak zituzten. Baserrian arropa zaharrena erabiltzen zuten. Nolako orrazkerak izan zituen azaltzen du.

3.934. Jaunartzeko oroigarriak (EIB-697/020)

Jaunartzeko oroigarri bezala, katilu eta platertxo batzuk dauzka. Haiei buruz hitz egiten du.

3.935. Trumoi eta oinaztuen kontrako sinesmenak (EIB-697/021)

Euria egiteko errogatibak ez ziren egiten San Rafaelen. Baserritar gutxi joaten zen bertara. Trumoi zegoenean, amamak kandelak piztu eta santuei erreztatzen zien. Aitak leiho eta ate guztiak itxiarazten zituen, oinaztua etxean ez sartzeko. Urak eta aire-korronteek oinaztuak erakartzen zituztela sinesten zen / sinesten zuen jendeak. Elgoibarko San Pedro auzoko bati tximista belarritik nola sartu zitzaion kontatzen du.

3.936. Mutilak akolito eta neskek garbiketetan (EIB-697/023)

Mutilak akolito lanetan ibiltzen ziren San Rafael ermitan. Neskek eta emakumeek eliza garbitzen eta apaintzen zuten. Mari Josek, beste emakume batzuekin batera, Azitaingo ermita garbitu eta atondu zuen bere seme-alaben jaunartzeetarako.

3.937. Maiatzeko loreak San Rafael ermitan (EIB-697/026)

Eskolara eta elizara loreak eramaten zituzten maiatzean. Eskolan, abestu egiten zuten. Maiatzeko loren kanta kantatzen du. Egunero kantatzen zuten hilabete guztian zehar.

3.938. San Rafaelen igandero erromeria (EIB-697/029)

Baserritarrek San Rafael ermitari "Maltzako elizia" esaten zioten. Bere gurasoek Maltzagako erromerian ezagutu zuten elkar. Igandero egoten zen erromeria eta bere aita zen soinujolea. Gero, neska-laguntzera joaten zen Soraluzeaino.

3.939. Maltzagako eskola (EIB-697/030)

Arrate bailarako baserri guztietako seme-alabak Maltzagako eskolara joaten ziren. Baserriak aipatzen ditu. Eskolan ondo ikasi zuten. Irakaslea zorrotza zen.

3.940. Maltzagako irakaslea, emakume ahalduna (EIB-697/031)

Maltzagako irakaslea Galiziatik etorria zen eta senarrarengandik bereizita zegoen. Emakumeen ahalduntzearen garrantzia transmititu eta irakatsi zien. Eskolan "Television Escolar" eta liburutegi bat jartzea lortu zuen, nesken formakuntza osatzeko. "Television Escolar" zer zen azaltzen du. Gai ezberdinak jorratzen ziren.

3.941. Maltzagako eskolara, kuadrillan (EIB-697/032)

Maltzagako eskolan sukaldea zegoen. Eguraldi txarra egiten zuenean, bertan bazkaltzen zuten irakaslearekin. Etxeko zapatilekin egoten ziren eskolan eta mendiko botak su ondoan lehortzen uzten zituzten. Kuadrillan joaten ziren eskolara 5 urte zituztenetik.

3.942. Osabaren heriotza: betiko lo (EIB-697/034)

Etxean ez dira oso elizkoiak izan, baina ama eta amama elizara joaten ziren. Luto-jantziak eraman zituen amamak urte askotan, lehenengo anaiaren heriotzagatik eta gero senarragatik. Mari Josek bere osabaren heriotzaz hitz egiten du. Betiko lo zegoela esan zioten.

3.943. Santa Kurutz ermita, auzotarren artean oso maitatua (EIB-698/002)

Mandiolaazpikoa baserrian bizi da. Santa Kurutz ermita auzotarren artean oso estimatua da. Marixabelek beretzat ermita zergatik den berezia azaltzen digu: umetako oroitzapenak, eskola, erromeriak...

3.944. Mandiola bailara (EIB-698/003)

Mandiola bailarako baserriak. Auzo handia da. Mugak.

3.945. Santa Kurutz ermitaren historia; berriztapenak (EIB-698/004)

Santa Kurutz ermita barrutik: gurutze handi bat, San Jose txiki bat eta Ama Birjinaren irudia. 1862. urtetik aurrera azaltzen da dokumentuetan. Mandiolaazpikoa baserriko arbaso batek lur-saila eman zuen ermita egiteko. Orain dela urte batzuk, Udalak inguruko pinudiak erosi zizkieten eta bertan parke bat egin zuten. Gerran frontea bertan egon zen. Ermita hondatuta geratu zen, baina bi urtera konpondu zen, berriztapenak eginez.

3.946. Santa Kurutz ermita, Gorosta eta Mandiola bailaretako auzotarrena (EIB-698/005)

Santa Kurutz ermita, Gorosta eta Mandiola bailaretako auzotarrena da, nahiz eta jabea eliza izan. Urtero, ermitaren ardura baserri batek hartzen du.

3.947. Santa Kurutzeko jaiak I: noiz ospatzen diren (EIB-698/006)

Santa Kurutz ermitaren inguruko jaiak eta elizkizunek oinordetza auzoko gazteengan daukate. Jaiak maiatzaren 3an eta hurrengo igandean ospatzen dira. Irailaren 14an ere meza egoten da. Maiatzekoak jai handiak dira.

3.948. Santa Kurutzeko jaiak II: egitaraua (EIB-698/007)

Gazte eta helduez osatutako jai-batzorde bat dago auzoan. Hiru egunetan zehar, auzotarren arteko herri-kirolak, bertso-afaria, bazkaria... egoten dira. Kezka Dantza Taldea urtero igotzen da sokadantza dantzatzera. Jende asko biltzen da jai hauetan.

3.949. Santa Kurutzeko parkea (EIB-698/009)

Santa Kurutz ermitaren inguruko parkea nolakoa den. Bertatik Udalaiz, Egoarbitza edota Anboto mendiak ikus daitezke. Oso leku lasaia da.

3.950. Santa Kurutzeko harrian dagoen bertsoa (EIB-698/010)

Santa Kurutz ermitaren kanpoaldean monolito bat dago eta haren gainean bertso bat grabatua duen harri bat. Lehen omenaldiak egiten ziren. Juan Mari Narbaizak idatzitako bertsoa irakurtzen du.

3.951. Santa Kurutzeko jaietako musikariak (EIB-698/011)

Aspaldi, Santa Kurutzeko erromeriak eskola inguruan eta Nebera baserrian egiten ziren. Marixabelek erromeriak Santa Kurutzen bertan, Ixuan eta Usartzan ezagutu ditu. Gaur egun, auzoko musikariak eta trikitilariak joaten dira.

3.952. Santa Kurutzeko jai-batzordea (EIB-698/012)

Santa Kurutzeko jaiak antolatzeko, auzoko gazteez eta helduez osatutako jai-batzorde bat dago. Lan ezberdinak daude: Udalari baimenak eskatu, herri-probetarako entrenatu, txorizoa eta salda prestatu, ermita garbitu, loreak ipini...

3.953. Santa Kurutz ermitako kanpaia (EIB-698/013)

Santa Kurutzeko ermitan, Aste Santua baino lehen gogo-jardunak egiten ziren. Lehen, hil-kanpaiak jotzen ziren, auzoko norbait hiltzen zenean. Maiordomoaren funtzioetako bat izaten zen. Jaietan ere kanpaia jotzen da, baina modu alaietan. Kanpaia nolakoa den azaltzen digu.

3.954. Santa Kurutzeko elizkizunak, euskaraz (EIB-698/014)

Marixabelek Santa Kurutz ermitako elizkizunak beti euskaraz ezagutu ditu. Maiatzeko jaietan jende asko joaten da mezetara. Iraileko mezan, auzokoak bakarrik. Jaietara inguruko herrietako jendea ere joaten da (Elgoibar, Markina...)

3.955. Santa Kurutzeko eskola; irakasleak (EIB-698/017)

Santa Kurutzeko eskola 70. hamarkada inguruan itxi zen eta guztiz suntsituta dago. Eskolako irakasleak estatu guztitik joaten ziren eta baserrietan lo egiten zuten. Euskaraz egiteagatik asko zigortzen zituzten. Marixabeli eta auzotarrei pena handia ematen die eskolaren gaur egungo egoera nolakoa den ikusteak. Bolatokia eta frontoia zeuzkan.

3.956. Gerra garaian, frontea Santa Kurutzen (EIB-698/018)

Gerra Zibilean, frontea egon zen Santa Kurutzen. Aztarnak non aurkitu daitezkeen azaltzen du Marixabelek. Ermita suntsituta gelditu zen.

3.957. Ezkontzak Santa Kurutzeko ermitan (EIB-698/020)

Auzotarrentzat Santa Kurutzeko ermitak balio sentimental handia dauka. Ezkontzak ospatzen dira bertan. Behin euskal ezkontza bat ospatu zen. Nolakoa izan zen azaltzen du. Egun handia eta polita.

3.958. Lapurretak Santa Kurutz ermitan (EIB-698/022)

Santa Kurutzeko ermitak ur-bedeinkatu ontzia eta sakristia txiki bat ditu. Garai batean balio handiko eserleku luzeak eta aitorlekua zeuden, baina lapurtu egin zituzten. Eserlekuak orain sinpleagoak dira. Aldarea marmolezkoa da. Elizkizunetan, emakumeak eta gizonak beti elkarrekin egon dira eserita.

3.959. Santa Kurutz eskolan, bihurrikeria asko (EIB-698/023)

Santa Kurutzeko eskolan neskak eta mutilak beti elkarrekin zeuden, bai gelan baita jolasetan ere (pilotan, "harria botatzen", sokasaltoa, ezkutaketetan...). Txabolak egiten zituzten eta nahiko bihurriak ziren.

3.960. Aldaketa handia Santa Kurutzetik Komertzio Eskolara (EIB-698/025)

Euskaraz egiteagatik zigortu egiten zituzten Santa Kurutzeko eskolan. Amorrua eta ezintasun handia sentitzen zuten. 6 urtetik 13 urtera arte ikasi zuen han eta gero Eibarren jarraitu zituen ikasketak, Komertzio Eskolan ("Academia Comercial"). Aldaketa handia izan zen. Mendingo libre sentitzen zen.

3.961. Santa Kurutzeko ermitan, beti abesten da "Arrateko Ama" (EIB-698/028)

Santa Kurutzeko ermitara mantelinarekin eta meza-liburuarekin joaten ziren. Elizako kantak abesten dituzte gaur egun ere. "Arrateko Ama" kanta beti abesten da.

3.962. Santa Kurutz ermitako maiordomoak (EIB-698/031)

Santa Kurutzeko ermitaren maiordomoaren kargua urtero aldatzen da eta zazpi baserrik hartzen dute parte. Noizean behin ermita eta inguruak gainbegiratzen ditu eta meza edo jaiak egongo direnean, ermita garbitu eta atontzen dute. Ermitaren giltzaren ardura ere, etxezainak dauka.

3.963. Santa Kurutz ermitako abadeak (EIB-698/033)

On Pedro Gorostidik, Arrateko abade izan zenak, urte askoan eman zuen meza Santa Kurutzeko ermitan. Hark ezin zuenean, karmeldarrak ere ezagutu izan ditu. Gaur egun, Xabier Zubizarreta Eibarko abadeak ematen du meza, edo, haren partez, Jose Ramon apaiz laikoak ere bai. Garai batean, abadeei ordaindu egiten zien urte horretan maiordomo funtzioa zuen baserriak. Gaur egun ez. Atabakan jasotako dirua ermitaren konponketa edo beharretarako gordetzen da.

3.964. Santa Kurutzeko maiordomoak gordetzen ditu elizkizunetarako elementuak (EIB-698/034)

Santa Kurutzeko urteko maiordomoak bere baserrian gordetzen ditu elizkizunetarako eta jaietarako erabiltzen diren materialak (argimutilla, aldarearen mahai-zapia...). Eibarko Udalak mahaiak, eserlekuak, suak, butanobotilak... uzten ditu.

3.965. Santa Kurutzen, hildako auzotarrei omenaldia (EIB-698/036)

Santa Kurutzeko maiatzeko jaietan, urtean zehar hil diren auzotarren izenak irakurtzen dira, omenaldi gisa.

3.966. Santa Kurutzeko ermitan, ezkontzak bai, baina besterik ez (EIB-698/039)

Santa Kurutzen inoiz ez da lurperatzerik edo hileta-elizkizunik ("enterrarixua") egon, baina norbait hiltzen zenean, bederatziurrena errezatzen zen bertan. Bataiorik eta jaunartzerik ere ez da ospatzen. Ezkontzak bakarrik.

3.967. Santa Kurutzeko eskolako irakasleentzat aldaketa handia (EIB-698/040)

Mandiolaazpikoa baseritik Santa Kurutzera 20 minutuan heltzen ziren, eguraldiaren arabera. Eguerdian baserrira bueltatzen ziren bazkaltzera. Irakasleek eskolan zegoen sukaldean bazkaltzen zuten. Irakasleentzat oso gogorra zen Santa Kurutzen lan egitea, gehienak hirietakoak ziren eta. Lantoki hark puntuak ematen zizkien gerora.

3.968. Aginaga auzoan, Eibarko euskara (EIB-699/003)

Aginaga auzoko Larrañeta baserrikoa da Mariasun. Nahiz eta Bizkaiarekin mugan egon, ez dute harreman haundirik izan Markinarekin. Euskara ere ezberdina da. Beraien amonak euskara batuan hitz egiten zuen.

3.969. Maiatzean letaniak, Aginagatik Arrateraino (EIB-699/005)

Bizentek eta Mariasunek Usartzako erromerian ezagutu zuten elkar. Asentsioetan letaniak egoten ziren, Aginagako Oregizar baseritik hasi eta Arrateraino. Lagunartean joaten zen Mariasun.

3.970. San Martin ermita, Arrate bailaran (EIB-699/006)

San Martin ermita Arrate bailaran dago. Inguruko baserriak aipatzen dituzte.

3.971. Mendigoitxi baserrikoen hilobia San Andres parrokiari (EIB-699/007)

San Andres parrokiari, Mendigoitxi baserriko hilobia zegoen. Igandeko mezan, hilobia mahai-zapi batekin estali eta bertan kandela edo argizaria pizten zen eta bertatik entzuten zen meza.

3.972. Agapita, San Andres parrokiako serora (EIB-699/008)

Aspaldi, Pazko-astean ogia bedeinkatu eta serorari ("sakristana") oparitzen zitzaion, ume asko izaten zituelako bere gain. Agapita "sakristana"ri buruz hitz egiten dute.

3.973. Arrateko Amaren estandarte prozesioetan (EIB-699/009)

Arrateko Ama Birjinaren prozesioetan, estandarte zeintzuk eramaten zuten aipatzen du Mariasunek.

3.974. Azitain parrokiako abadeak eta abuztuko jaiak (EIB-699/010)

Azitaingo parrokiako Felix Bergara abadearen sermoiak. Meza ostean musika egoten zen. Andramarietako jaietan, meza, herri-kirolak, umeentzako jolasak... egoten ziren.

3.975. San Martin ermitan elizkizunik ez (EIB-699/012)

San Martin ermitan ez dute erromeriarik eta mezarik ezagutu. Aspaldi meza egoten zen eta Mendigoitxi baserrian bazkaltzen zuten herriko pertsona garrantzitsuek (alkateak, zinegotziak, abadeak...)

3.976. Mendigoitxi baserria, San Martin ermitaren jabea (EIB-699/013)

Mendigoitxi baserrikoak dira San Martin ermitaren eta alboko San Martin baserriaren jabeak.

3.977. Herriko zorrak, baserriarren eskuetan (EIB-699/015)

XIX. mendearen azken laurdenean Eibarko Udalak zituen diru zorrak baserriarren menpe geratu ziren eta batzuek baserriak saldu behar izan zituzten. Bizenteren amonak, zorra kitatzeko, ikatza saltzen zuen. Umetan ikasi zuen inguruko ikazkinekin. Ikazkinaren lana oso gogorra zen.

3.978. San Martin ermitaren berriztatzeak (EIB-699/017)

San Martin ermitak harrizko arkuzko atea dauka. Gerra garaian pareta bat zulatu zen eta bloke batzuekin estali zuten. Teilatua ere berritu zioten. Ermita kalitate oneko materialez eginda dago eta paretak oso lodiak dira.

3.979. Gerratean, Mendigoitxi ospitalea izan zen (EIB-699/021)

Gerra garaiko bonbetatik babesteko kobazulo bat dago San Martin ermitan. Mendigoitxi baserria berritu eta gerra hasi zen eta milizianoek hartu zuten baserria, ospitale bezala erabiltzeko. Inguruko baserri guztietatik hartu zituzten koltxoak, oihalak, izarak... Asturiasko miliziano talde bat zegoen ganbaran eta baserriko eskailera suntsitu zuten, inor bertara ez igotzeko.

3.980. San Martin ermitan lurperatzerik ez (EIB-699/022)

San Martin ermitan eta inguruetan ez dago lurperatzerik. Felix Bergara abadea ibili zen bila.

3.981. Aginagako elizan, aldare azpian hildakoen errautsak (EIB-699/024)

Aginaga auzoan, norbait hiltzen denean, aldarearen azpian errauts pixka bat botatzen da eta beste dena kanposantuan lurperatzen da. Aspaldiko ohitura da.

3.982. Mendigoitxi baserriaren berriztapenak (EIB-699/028)

San Martin ermitan meza egoten zenean, alkateak, abadeak eta bestelako pertsonaiek Mendigoitxi baserrian bazkaltzen zuten. Baserria 1934an berriztatu zen, sute batek suntsitu zuelako. Gerra ostean, berriz ere berriztu behar izan zuten, milizianoak bertan egon zirelako.

3.983. Arrateko pausoen ibilbideko santutxuen kondaira (EIB-699/031)

Arrateko Pausoen kondaira kontatzen du Mariasunek. Ama Birjinak atsedean hartu zuen lekuetan eraikitakoak omen dira. Santutxuen kokalekuak zeintzuk diren eta nola apainduta dauden azaltzen dute.

3.984. Maalako ermita (EIB-699/034)

Maalako ermita, ez dute ermita bezala ezagutu. Jausita zegoen eta orain etxe bat dago ermitaren plano berdinean eraikia.

3.985. Donejakue bidea Azitaingo parrokiatik pasatzen zen. (EIB-700/003)

Azitaingo ermitaren izena: Nuestra Señora de la Asunción. Ez dakite noizkoa izan daitekeen, baina Santiago Bidea bertatik pasatzen omen zen. San Martin ermitari buruz eta serora etxeari buruz hitz egiten dute.

3.986. Azitaingo parrokia itxita egon zen gerraostean (EIB-700/005)

Doroteo umea zenean, Azitaingo parrokia itxita zegoen. Gerraostean, Untzuetako jauregian zeuden presoak igandero jaisten zituzten Azitainera, meza entzutera. Ondoren, itxita egon zen urteetan.

3.987. Azitaingo parrokiako abadeak gaur egun (EIB-700/007)

Gaur egun, apaiz bakarra dago Azitaingo, Karmengo eta San Agustineko elizetarako. Apaiz gabe geratzeko beldurra daukate, gero eta fede gutxiago dagoela uste dute.

3.988. Fedea; Azitaingo parrokiako abadeak (EIB-700/008)

Ezkondu aurretik, Maria Luisa anaiekin joaten zen goizeko zazpietako meza entzutera egunero. Anaiak gero ehizara joaten ziren. Sinismenari eta fedeari buruz hitz egiten du. Karmeldar Jose Luis eta Felix Bergara ekartzen ditu gogora: euskaldunak, beti laguntzeko prest eta sermoiak oso ondo azaltzen zituztenak.

3.989. Azitaingo eliztarren borondatezko diru-laguntza (EIB-700/009)

Azitaingo parrokiaren jabea apezpikutzat da. Eliza mantentzeko, bertako eliztarrek borondatezko kuota bat jartzen dute eta urtean behin balantzea bidaltzen da.

3.990. Azitain parrokiako berriztapenen ordainketa (EIB-700/011)

Teilatua orain dela urte batzuk berritu zen. Eliztarren artean ordaindu zuten eta gero apezpikutzari eskatu zioten dirulaguntza bat.

3.991. Azitaingo parrokian lurperatzerik ez (EIB-700/013)

Azitaingo parrokiak ez du aparteko lursailik. Felix Bergara abadeak antzina lurperatzeak egon zirela uste zuen, baina Doroteok ez du hori uste.

3.992. Azitaingo parrokian, San Anton egunean animaliak bedeinkatzen ziren (EIB-700/014)

Azitaingo abuztuko jaiak baserritarrek antolatzen dituzte: meza, herri-kirolak... 2013. urtera arte, San Anton eguna ospatzen zen urtarrilean. Animalien patroia denez, baserritarrek animaliak eta landareak eramaten zituzten eta, meza ostean, abadeak bedeinkatu egiten zituen. Meza ostean hamaiketakoa egoten zen.

3.993. Andramariaren jaiak Azitainen abuztuan eta irailean (EIB-700/016)

Andramariaren jaiak ospatzen dira abuztuan Azitainen urtero. Auzoan Espainiatik Eibarrera lanera etorritako jende asko bizi zen eta abuztuan herrira bueltatzen zirenez oporretan, jaiak irailean berriz ospatzeko eskaera egin zuten eta horrela mantendu da gaur egunera arte. Iraileko jaiak izan dira urteetan auzoko jai garrantzitsuenak. Txosnak, helduei omenaldiak, kontzertu handiak (Su Ta Gar), erromeriak, herri-bazkariak, lehiaketak... Jaiak Barrena kaleko parkera pasatu ziren, jende asko hurbiltzen zelako. 80. hamarkadan izan zuten jaiak garrantzi handiena, oso kontzertu jendetsuekin.

3.994. Erromeriak asteburuetan, Maltzaga eta Azitainen (EIB-700/017)

Beraiek gazteak zirenean, ez zen erromeriarik egoten Azitaingo parrokian. Jai handirik ez zegoen, baina meza bai. Erromeria Maltzagan egiten zen igandero eta geroago Azitainen larunbatetan.

3.995. Azitaingo "Behetarrak" elkartea (EIB-700/018)

80. hamarkadan, Azitain auzoko gazteek "Behetarrak" elkartea sortu zuten, Udalari jaiari inguruko eskaerak egiteko.

3.996. Azitaingo parrokian meza beti euskeraz (EIB-700/019)

Azitaingo parrokian meza euskaraz ematen da gehienetan. Afrikatik etorritako apaiza dago orain eta berak ere euskaraz ematen du meza. Oso pozik daude.

3.997. Azitain parrokiako serorak (EIB-700/020)

Urte askoan Dolores "Txopengua" izan da Azitaingo parrokiako serora. Azken urteetan Maria Luisak beste bi emakumerekin egiten ditu lan horiek: elizan lagundu, loreak ipini, garbiketak...

3.998. Azitaingo parrokia eta Felix Bergara abadea (EIB-700/021)

Jose Luis abadearen sermoiak oso gustuko zituzten, errealitateari buruz hitz egiten zutelako. Gero, Felix Bergara heldu zen, Beistegi Hermanos lantegiko bere lana utzi eta seminariora sartutakoa. BH-n izandako arazoak kontatzen ditu Doroteok, eta nola piztu zitzaion Felixi injustiziei aurre egiteko nahia. Felixek berritu eta biziberritu zuen Azitaingo parrokia.

3.999. Azitaingo parrokiaren itxura kanpotik (EIB-700/022)

Azitaingo parrokia harrizkoa da eta aspaldi karearekin zuritzen zen. Gerora, harria bistan utzi zuten. Burdinezko hesi handi bat dauka elizak eta ur-bedeinkatu ontzia dago.

4.000. Azitaingo parrokiako irudi eta elementuak (EIB-700/024)

Azitaingo parrokia barruan dauden irudi eta elementuei buruz hitz egiten dute: Jesukristoa, San Juanen erliebe bat, Ama birjina, aldarea eta bataio-ontzia. San Antonen irudiak duen luma apurtuta zegoenez, Doroteok aldatu egin zuen. Istorioa kontatzen du.

4.001. Azitain parrokiako bizar bariko kristoaren irudia (EIB-700/025)

Azitaingo parrokian dago munduan ezagutzen diren hiru bizar gabeko kristoren irudietako bat. Bere egilea ezezaguna da. Irudia beti egon da aldarean kokatuta, egurrezko gurutze batean. Doroteok eta bere semeak handik kendu eta gaur egun dagoen lekuan jarri zuten, gurutzerik gabe. Zergatia kontatzen du.

4.002. Mirariak eta sinesmenak (EIB-700/026)

Maria Luisak Jesusen gurutziltzaketaren istorioa kontatzen du eta mirariak zer diren eta zer ez diren eztabaidatzen dute. Maria Luisak istorio polit bat kontatzen du.

4.003. Azitaingo parrokian sakramentuak eta hiletak (EIB-700/028)

Azitaingo parrokian gaur egun ez da ez bataiorik ezta jaunartzerik ospatzen. Orain dela ez asko arte egiten ziren. Ezkontzak eta hileta-elizkizunak ospatzen dira, ordea.

4.004. Azitaingo parrokiako kanpaia; San Andres parrokiako hil kanpaiak (EIB-700/029)

Azitaingo parrokiako kanpaia elektrikoa da. Elizkizunetatik kanpo, ez dira gogoratzen hil-kanpaiak edo suteei buruz abisatzeko kanpaiak jotzen ote ziren. San Andres parrokiako hil-kanpaiak nolakoak ziren azaltzen dute. Ezberdinak ziren helduenak eta haurrenak.

4.005. San Andres parrokiara, mantelina eta misalarekin (EIB-700/030)

Mantelina eta misala erabiltzen zituen Maria Luisak San Andres parrokian. Azitainen ez.

4.006. Azitaingo parrokian, hildakoen memoria omentzeko lauza bat dago (EIB-700/032)

Azitaingo parrokian, aldarearen aurrean, hildakoen memoriaren omenezko lauza bat dago eta meza orduetan, kandela bat pizten da gainean. Elizkizunetarako materialak sakristian gordetzen dira. Aitorlekua dago. Aste Santuan komunitate-aitortza ("Confesión Comunitaria") egiten da. On Felix Bergara abadeak jarri zuen hura martxan eta oso kritikatu izan zen.

4.007. San Juanetan baserrian abesten den kantua (EIB-700/035)

San Juan sua baserrietan pizten denean abesten den kantua kantatzen dute. Kantaren bertsio ezberdinak daude, bailararen arabera. San Juan sutan, aurreko urtean bedeinkatutako erramua erretzen zen.

4.008. Azitaingo abadeak (EIB-700/037)

Azitaingo parrokian ezagutu dituzten abadeen izenak aipatzen dituzte: Jon Etxabe, Felix Bergara, On Martin... On Martin, Maltzagako San Rafael ermitako abadea zen, baina batzuetan Azitainen ere ematen zuen meza. Maltzagan jende asko bizi zen. Abadeek euren soldata dute. Eliztarrek borondatez ematen duten dirua ez da abadeentzat.

4.009. Azitaingo parrokiako loreak (EIB-700/038)

Azitaingo parrokiako loreak plastikozkoak izaten dira normalean, ez baita egunero zabaltzen. Hileta eta meza berezietan, ordea, benetako loreekin apaintzen da eliza.

4.010. Eibarren elizan dirua biltzeko atabakari "argitxakua" (EIB-700/039)

Elizan, meza garaian, dirua biltzeko pasatzen den atabakari "argitxakua" deitzen diote.

4.011. Azitaingo parrokian abadearen orde z emandako meza (EIB-700/041)

Dororeok eta Maria Luisak behin Azitainen elkarrekin emandako mezaren istorioa kontatzen dute. Bedeinkatutako ogiaren orde z, ogi zatiak banatu zituzten.

4.012. Maltzagako San Rafael ermita eta erromeriak (EIB-700/042)

Maltzagako San Rafael ermita "Ferrocarriles Vasconavarros" elkarteak eraiki zuen. Ermita trenbideko langileena zen. Dorroteok San Rafaelen irudia nola ekarri zuten gogoratzen du. Erromerietan beti borrokak egoten ziren.

4.013. Maltzagako eta Azitaingo erromeriak eta barkillo-saltzaileak (EIB-700/044)

Maltzagako San Rafael ermitako erromerietan jende asko biltzen zen. Gaur egun ez dago ia gazterik baserrietan. Aspaldi Azitainen ere erromeria egoten zen igandeetan. Maltzagan beti zegoen barkillo-saltzailea. Nolakoa zen azaltzen du Dorroteok. Jai guztietan erroskillak saltzen ziren.

4.014. San Rafaeleko erromerietan bikote ugari sortu ziren (EIB-700/045)

Erromerietan asko ligatzen zen. Barrundi baserrikoak eta beste hainbat San Rafaeleko erromerian ezagutu ziren. Mutilek neskak haien baserrira laguntzen zituzten.

4.015. Erromerietan nola ligatzen zen (EIB-700/046)

Maltzagan igandero egoten zen erromeria. Meza goizeko 7etan izaten zen. Doroteo umea zenean, ez zen mezarik ematen Azitainen. Doroteok neskei dantza nola eskatzen zitzaien azaltzen du eta Maria Luisak ezetza nola ematen zen.

4.016. Maltzagako San Rafael ermita nolakoa zen (EIB-700/047)

Maltzagako San Rafael ermita oso polita zen, zuriz eta urdinez margotuta zegoen barrutik eta santuaren irudiak arrain bat zeukan.

4.017. Maltzagako San Rafael ermitari su eman zioten (EIB-700/048)

Maltzagako San Rafael ermitari su eman zioten. Ermita non zegoen azaltzen du Doroteok. Burdinazko hesi bat zeukan sarreran.

4.018. Maltzagako eskola (EIB-700/049)

Maltzagako eskolan ikasi zuen Doroteok ia 14 urte bete zituen arte. Ume asko ziren: inguruko baserriar guztiak eta trenbideko langileen seme-alabak. Hogeita hamar familia baino gehiago bizi ziren Maltzagan.

4.019. Aspaldiko ezkonsari bateko oihala gordeta (EIB-700/052)

Maria Luisak San Blas opilak amaren arreoko oihal batean batuta eramaten ditu bedeinkatzera. Oihala erakusten du. Umetan euren etxean ez zen San Blasik egiten eta gerora ikasi zuen jatekoa prestatzen eta San Blasak egiten. Oso sukaldari ona da.

4.020. San Migel Txiki santutxoa Aginaga auzoan (EIB-701/002)

Oregizar baserria Eibarren dago, nahiz eta lursail gehiago dituen Gipuzkoan. Santutxo bat daukate baserri parean, "San Migel Txiki" izenekoa. "San Migel Haundi", Aginagako auzoko elizari deitzen diote.

4.021. San Migel Txiki santutxoaren kokapena (EIB-701/003)

Garai batean Oregizar baserria pixka bat beherago zegoen baina santutxoa beti leku berdinean egon da. Jende asko hurbiltzen da San Migelen irudia ikustera.

4.022. San Migel Txikiren jabea Oregizar baserria da I (EIB-701/004)

Eibarko Udalak museora eraman nahi izan zuen San Migelen irudia, baina Jesusaren aita kontra agertu zen. 1941ean haizeak santutxoaren teilatua

eraman zuen eta konponketetarako ez zuten laguntzarik jaso. Aginaga auzoan estimazio handia diote San Migeli. Gerratean ez zen hildakorik egon auzoan.

4.023. Prozesioen hasiera San Migel Txiki santutxotik (EIB-701/005)

San Migel Txiki santutuxoa izan da letania eta prozesioen hasiera lekua Aginaga auzoan. Aste Santuan prozesioak nolakoak ziren azaltzen dute. Asko aldatu da fedea.

4.024. Elizaren indarra eta auzotarren fedea (EIB-701/007)

Abadeek sermoi gogorak egiten zituzten eta jendeak beldurrez negar egiten zuen. Aste Santuan kanpotik etorritako abade batek ematen zuen sermoia. Elizara joatea bizimoduaren parte zen. "Ariketa espiritual" deiturikoak egoten ziren Arraten.

4.025. San Migel Txikiren jabea Oregizar baserria da II (EIB-701/008)

Santutxoaren jabeak Jesusa eta Juan dira. Egin dizkioten berriztatzeak aipatzen dituzte.

4.026. San Migel Txiki santutxoaren irudia (EIB-701/009)

San Migel Txikiren santutxoak San Migelen eta deabruaren irudi bat dauzka marraztuta. Letra batzuk ere baditu. Koloreak mantentzen ditu baina ez da inoiz berritu. Aspaldi umee deabruaren irudia puskatu zuten.

4.027. Oregizar baserria, Bizkaia eta Gipuzkoa arteko mugan (EIB-701/010)

Oregizar baserri originala gaur egungoa baino pixka bat beherago zegoen. Baserria Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko mugan dago. Korta Bizkaian dago.

4.028. Andabidea "Santutxu" izeneko zelaitik igarotzen zen (EIB-701/012)

Andabidea "Santutxu" izeneko zelaitik pasatzen zen, Ziortzan hildakoak lurperatzeko. Orduan ez zegoen Aginaga auzoan kanposanturik. Errepideak egin zirenean, andabideek euren funtzioa galdu zuten

4.029. Andabideak errespetatu egiten ziren (EIB-701/014)

Auzoko norbait hiltzen zenean, lau lagun artean bizkarrean ("andan") eramaten zuten baserrietik Ziortzako kanposantura. Orain dela hamarkada batzuk arte, andabidea errespetatu egiten zen eta hildakoak eramateko bakarrik erabiltzen ziren.

4.030. San Migel Txikiren gaineko zerga ordaintzen dute (EIB-701/016)

Orain dela urte asko, San Migel Txiki santutxoko teilatua luzatu zuten, egurra gordetzeko txoko bat eraikitzeko. Santutxoaren gaineko zerga ordaintzen dute.

4.031. Auzotar guztiak Oregizarreko prozesioetara (EIB-701/018)

Urtean hiru prozesio egiten ziren Oregizar baserrietik. Jesusak nolakoak ziren kontatzen du. Auzotar guztiak biltzen ziren.

4.032. Ezkontza osteko etxe-aldaketa, gurdian (EIB-701/021)

Garai batean, ezkontza bat eta gero, baserri batetik bestera etxez aldatzen zena gurdian joaten zen soinu-jotzaileekin. Juanek horrela egin zuela kontatzen du. Gurdian logela janzteko altzari berriak zeramatzan.

4.033. Aginaga auzoan abade gazteak (EIB-701/023)

Prozesioez gain, ez da beste ezer ospatu Oregizarren. Abadeak urtebete edo bi urtetik behin aldatzen ziren eta oso gazteak ziren beti. Juanek abade gazte batek auzoko neska batekin izandako amodio-harremana kontatzen du.

4.034. Aginagan abadeari hamarrekoa eman behar zitzaion (EIB-701/025)

Aginagako abadea ondoko baserrian egoten zen apopilo bezala bizitzen. Abadeari ez zitzaion ordaintzen, baina aspaldi, hamarrena ("hamarretik batekoa") ematen zitzaion. Istorio barregarri bat kontatzen du Juanek horren inguruan.

4.035. Bedeinkazioak, uzta onak izateko eta oinaztuetatik babesteko (EIB-701/026)

Urtean behin, abadeak lurzorua bedeinkatzen zuen baserri baserri eta, ordainetan, oilaskoak ematen zizkioten Oregizar baserrian. Bedeinkazioa nolakoa izaten zen kontatzen du Jesusak. San Juanetan, ordea, oinaztuetatik babesteko bedeinkazioa egiten zuen abadeak.

4.036. Garai batean fede handia zegoen (EIB-701/027)

Garai batean fede handia zegoen. Beldur handia zegoen. Juanek igandero laguntzen zion arrebari Ermuko goizeko seietako mezara, faroltxo edo lastargi bat eskuetan.

4.037. Dolu-aldian, mantelina beltzarekin elizara (EIB-701/029)

Mezetan eta prozesioetan mantelina edo oihal bat eraman behar izaten zuten emakumeek. Dolu-aldirako mantelina beltz berezi bat erabiltzen zen, askoz oihal lodiagoa zuena.

4.038. Hileta ezberdinak, hildakoaren aberastasunaren arabera (EIB-701/030)

Hildakoaren baserrian gaubeilak egiten ziren eta jatekoa ematen zen eta ondrak egiten ziren hildakoaren alde. Hiletak ezberdinak izaten ziren baserriak dirua bazeukan edo ez. Hileta aberatsetan apaiz gehiago egoten ziren elizkizunean eta abestiak ere ezberdinak izaten ziren.

4.039. Hildakoaren omenezko gaubeila baserrietan (EIB-701/031)

Norbait hiltzen zenean, gaubeila egiten zen haren baserrian. Auzotarrak joaten ziren errezatzerara eta jan-edanera. Jesusak bere aitonaren eta amonaren gaubeilak gogoratzen ditu.

4.040. Hiletak ordaindu ezean, lurperatzerik ez (EIB-701/033)

Hiletetan, nahiz eta batzuk diruz larri ibili, abadeak ez zuen inoiz kobratzerik barkatzen eta mehatxu ere egiten zuen, hildakoa ez zuela lurperatuko esanez. Abadeek indar handia izaten zuten.

4.041. Aginagan alkateak zeuden (EIB-701/034)

Garai batean alkatearen irudia zegoen Aginagan. Jesusa eta Juan auzoko alkate izandakoak dira. Garrantzitsua zen auzoko interesak bermatzeko.

4.042. Lurperatzeak Aginagako elizan (EIB-701/035)

Aspaldi Aginaga auzoko kanposantuaren lekuan eliza zegoen. Gaur egungo elizaren aldarearen azpian lurperatzeak daude. Aldundiak bertan utzi zituen aztarnak.

4.043. Igandeetan ezin baratzean lan egin (EIB-701/036)

Garai batean fedea oso handia zen eta mezara nahitaez joan behar zen. Sasoi batean debekatuta izaten zuten igandeetan baratzean lan egitea.

4.044. Oinaztuak baserri barruraino (EIB-701/039)

Nahiz eta oinaztuak eta txingorra egon, beraiek errogatiba eta bedeinkazioetan sinesten zuten. Baserri barrura askotan sartu zaie oinaztua entxufetik edo askatik. Askotan erre zaie irratia. Orain tximistorratza daukate.

4.045. Nola hasi zen ermitei argazkiak ateratzen (EIB-702/002)

Ermitei argazkiak ateratzen zergatik hasi zen kontatzen du. Lehenengo argazkia Markinako San Hiazinto Krakoviakoren ermitan atera zuen. Gero, Bizkaiko ermitei buruzko informazioa bilatzen hasi zen.

4.046. Ermitak bilatzeko informazio-iturriak (EIB-702/003)

Ermitei argazkiak ateratzen hasi zenean, hauei buruzko informazioa non lortzen zuen aipatzen du: Gurutze Arregiren "Ermitas de Vizcaya", udaletxeak, beste idazle batzuk, zonaldeko adituak, toponimiako liburuak, mapa zaharrak...

4.047. Ahozko ondarearen garrantzia (EIB-702/004)

Ermitei buruzko ahozko ondarea jasotzea garrantzitsua dela uste du Juanek. Askotan ez ditu dokumentu zaharrak ulertzen.

4.048. Ermitei argazkiak ateratzeko metodologia orokorra (EIB-702/005)

Juanek bere lan-metodologia orokorra azaltzen du: lekura joan, argazkia atera, ingurukoei galdetu...

4.049. Abadeak ermitei buruzko informazio-iturri (EIB-702/006)

Abadeek informazio ugari eman izan diote. Eibarko Xabier Zubizarreta abadeak eman zion Aginaga auzoko Oregizar baserriko San Migel Txikiren berri, adibidez.

4.050. Hasieratik ermitak geolokalizatzen (EIB-702/008)

Ez daki ziur zenbat ermita egon daitezkeen Bizkaian. Askotan ermitak lekuz aldatzen ziren eta kokapen bakar moduan jasotzen zen, nahiz eta aztarnak egon. Hasieratik hasi zen ermitak geolokalizatzen .

4.051. Ermitak aspaldiko leku paganoetan kokatuta (EIB-702/010)

Ermitak kokatzen diren lekuak aspaldi leku paganoak zirela uste du Juanek. Askotan ermiten ondoan zuhaitz eder eta zaharrak egoten dira, aspaldiko santutegiak izango balira bezala.

4.052. Web-orrian daude bere lanak erakusgai (EIB-702/012)

Bizkaiko Aldundiak inoiz ez dio arazorik jarri informazioa eskatzeko orduan. Ermitasdevizcaya.com web-orrian dago bere lana erakusgai. Behin, ermiten argazkiekin erakusketa bat egin zuen.

4.053. Ermitak babesteko interesa dago (EIB-702/013)

Ermitak berriztatzearen inguruan auzolana nahiko zabaldua dago. Dirulaguntzak daude ermitak babesteko. Adibide batzuk aipatzen ditu.

4.054. Bizkaiko ermitak: etorkizuneko erronkak (EIB-702/015)

Juanen asmoa Bizkaiko ermitei argazkiak ateratzen jarraitzea eta bere web-orrian zabaltzea da. Lan asko falta da eta nahi duenak lagundu dezake.

4.055. Jendearen beldurra eta ermiten sorrera (EIB-702/017)

Ermitak zergatik sortu ziren azaltzeko teoria bat du Juanek eta San Migel santuarekin azaltzen du. Ermiten sorrera eta orduko biztanleriaren beldurrak oso lotuta daude.

4.056. Pentsaera "kristianofobia" (EIB-702/019)

Juanek bere pentsaera "kristianofobia" azaltzen du. Santuei zaien gurtza zergatik izan daitekeen azaltzen du.

4.057. Ermitak modu desegokian erabiltzearen ondorioak (EIB-702/021)

Calahorrako Apezpikutzak ermitak bota egiten zituen bertan "modu desegokian" jokatzeko bazen. Eibarko ermita batean hau gertatu omen zela kontatzen du Juanek.

4.058. Aginagako San Migel Txikiren kokapena (EIB-702/023)

Antxon Agirreren "Eibarko ermitak" liburuan, ez da Aginaga auzoko San Migel Txikiren santutxoa agertzen. Gurutze Arregiren liburuan, berriz, Bizkaia dela esaten da. Jabeek diote Gipuzkoan dagoela.

4.059. Ermitetan sakramenturik ez (EIB-702/026)

Eibarren dauden santutxoei buruz hitz egiten du Juanek. Ermitetan ezin da sakramenturik eman, baina jaunartzeak eta ezkontzak egiten dira.

4.060. Hainbeste ermita egotearen zergatia (EIB-702/028)

Euskal Herrian hainbeste ermita egotearen zergatia azaltzen du. Beldur handia zegoen eta elizak kontrola ezarri zuen.

4.061. Digitalizazio-lanaren garrantzia artxiboetan (EIB-702/030)

Dokumentuen digitalizazio-lana oso garrantzitsua dela uste du Juanek. Dokumentazio asko dago oraindik digitalizatu gabe eta, askotan, horrek ikerketak oztopatzen ditu. Jendea formatzearen aldekoa da.

4.062. Azitaingo auzotarra (EIB-703/003)

Harreman zuzena izan dute berak eta bere familiak Azitaingo parrokiarekin eta Felix Bergara abadearekin. Azitain auzoan pasatu du Joseanek ume eta gazte denbora.

4.063. Azitaingo jaiak I: San Anton, Andramariak eta irailekoak (EIB-703/004)

Gaztea zelarik hasi zen Josean Azitaingo jaien antolakuntzan. Hiru jai ospatzen ziren urtean zehar. Urtarrilean San Anton eguna ospatzen zen. Gerra aurretik ospatzen zen eta, nahiz eta gero galdu, Felix Bergara abadeak ohitura berreskuratu zuen. Abuztuan Andramariaren jaiak ospatzen dira. Irailean, Andramariaren errepikapena egiten da. Auzoan bizi ziren kanpotarrek eskatuta hasi ziren iraileko jaiak, abuztuan euren herrietara joaten zirelako. Oso jai indartsuak bilakatu ziren.

4.064. San Anton jaia Azitainen (EIB-703/005)

San Anton jaia egun bakarrean ospatzen zen. Meza ostean, abadeak jendeak eramandako animaliak eta landareak bedeinkatzen zituen. Animalia baten bat eta baserritarrek eramandako saski bat zozketatzen zuten. Aspaldi, auzoko lantegiek eguerdira arte bakarrik lan egiten zuten eta ugazabek Azitaingo langileak bazkaltzera gonbidatzen zituzten.

4.065. San Anton jaia eta Azitaingo lantegiak (EIB-703/007)

San Anton egunean auzoko lantegietako ugazabek langileak bixigua jatera gonbidatzen zituzten. Auzoko tabernetan poteoa egiten zen (Bar Donosti, Gure Kaiola...) eta hurrengo egunean ere jai izaten zuten langileek.

4.066. Azitaingo parrokiako batzordeak (EIB-703/008)

Azitaingo parrokiak batzorde ezberdinak izan ditu: jai-batzordea, diruzaintza, obra edo lanen batzordea, akolito taldea... Jai-batzordean, kide ez zirenek ere parte hartzen zuten. San Anton jaia antolatzea errazagoa zen, betikoak biltzen zirelako.

4.067. Azitaingo jaiak II: elizarekin lotura (EIB-703/009)

Azitaingo iraileko jaietan elizak ez zuen parterik hartzen. Francoren heriotza eta gero sortu ziren jaiak. San Anton eta Andramariaren jaiak, elizarekin lotura

zuzena daukate. Eibarko auzo guztietan egiten ziren jaiak: Azitainen, Amañan, Estaziño kalean, Urkin, San Kristobalen, Ipuruan...

4.068. Azitaingo jaiak III: Diru-bilketa (EIB-703/010)

Jai guztietan dirua biltzen zen eta horrekin zer egiten zuten kontatzen du Joseanek. San Anton jaietan, txapela pasatuz borondatea jaso eta diru hori elizako gauzetarako uzten zen. Andramarietan jasotakoaren parte bat elizarako geratzen zen eta bestea hurrengo jaiak antolatzeko. Irailekoetan diru asko mugitzen zen eta diru-laguntza jasotzen zuten Udaletik. Eguraldiaren arabera diru gehiago edo gutxiago batzen zuten. Festen amaieran, jai-batzordeak bazkari herrikoi bat antolatzen zuten Azitaingo jatetxean.

4.069. Azitaingo jaiak antolatzeko diru-bilketa (EIB-703/011)

Etixerik etxe eta baserriz baserri joaten ziren diru-laguntza eske Azitaingo irailleko jaiak antolatzeko. Bakoitzak ahal zuena ematen zuten.

4.070. Eliza, jaiak eta politika (EIB-703/012)

Azitaingo auzotar batzuek ez zuten begi onez ikusten, jaietan, garaiko egoera politikoa salatzen zuten kartelak jartzea. Felix Bergara abadearen sermoiak politikoak eta errealitatearekin lotutakoak izaten ziren.

4.071. Kontzertuak, erromeriak eta ligoteoa (EIB-703/013)

Iraileko jaietan ligoteo eta haserreak egoten ziren. Garai batean Arrazola baserrian erromeria egoten zen. Taberna eta bolatokia jartzen zituzten eta jende asko biltzen omen zen.

4.072. Azitaingo jaiak antolatzeko jende asko mugitzen zen (EIB-703/014)

Azitaingo auzotarrak ez ziren eibartarrak ere inplikatzeko ziren irailleko jaien antolaketa. Behin, auto batekin Eibartik bueltaka ibili ziren, bozgorailu bidez jaien berri ematen.

4.073. San Anton egunean tonbola eta Andramarietan dantza-txapelketa (EIB-703/015)

San Anton eguna baino egun batzuk lehenagotik "rifak" saltzen zituzten eta jai egunean tonbola egoten zen. Saria: animalia bat eta barazkiak. Andramarietan dantza-txapelketa antolatzen zen eta aurreko urteetako txapeldunak deitzen zituzten.

4.074. Azitain parrokiako Ion Etxabe abadea (EIB-703/016)

Ion Etxabe abadea kartzelan egon zen politika kontuak zirela eta. Aske geratzean, omenaldia egin zitzaion auzoan.

4.075. Felix Bergara abadea (EIB-703/017)

1969an Felix Bergara izendatu zuten Azitaingo abade. BH lantegiko langile-ohia izanda, bokazio erlijiosoa nola heldu zitzaion kontatzen du Joseanek. 2009an omenaldia egin zitzaion Arrateko Kantabria jatetxean. Felix Bergara 2013an hil zen eta geroztik Azitaingo parrokiako ekimen asko galdu dira.

4.076. Felix Bergara abadea ez zen denen gustukoa (EIB-703/018)

Azitaingo parrokiako eliztar batzuek ez zuten begi onez ikusten Felix Bergarak bere sermoietan erlijioa eta politika uztartzea. Bere sermoiak beti uneko egoerarekin lotzen zituen (politika, gatazka, miseria...). Dirudunen aberastasunarekin oso kritikoa zen. Espetxean egon zen eta bere autoari su eman zioten behin.

4.077. Azitaingo eta Mendaroko gazteak elkarrekin (EIB-703/020)

Mendaroko Don Angel Barrenetxea "Donal" eta Felix Bergara abadeek harreman oso zuzena zutenez, bi herrietako gazteentzat ekintzak antolatzen zituzten: egunpasak, diskoteka eliza barruan, futbol txapelketak, manifestazioetarako autobusak...

4.078. Felix Bergara abadearen eskuzabaltasuna (EIB-703/021)

Nahiz eta Santa Ageda eguneko eskea ohitura paganoa izan, Felix Bergara abadea ere inplikatzan zen. Dirua, Azitain auzoko txiroenei ematen zitzaien. Joseanen ustetan, Felix Bergara jendeari laguntzeko sartu zen abadetzara.

4.079. Azitaingo Behetarrak Auzo Elkartea (EIB-703/022)

Azitaingo gazteek eta Felix Bergara abadeak "Behetarrak Auzo Elkartea" sortu zuten, Udalari eta bestelako erakunde publikoei eskaera formalak egiteko. Denetarikoa eskaerak egiten zituzten eta Felix Bergara zen alde batetik bestera mugitzen zena.

4.080. Joseanek Azitaingo parrokian meza eman zueneko (EIB-703/023)

San Fermin egun batean, Joseanek meza eman zuen Azitaingo parrokian. Lagunak, lankideak eta auzoko jende asko batu zen. Umetan akolitu bezala ibili zen.

4.081. Felix Bergara abadearengandik ikasitakoa (EIB-703/024)

Joseanek Felix Bergara abadearengandik ikasitakoak kontatzen ditu: ekimena eta inplikazioa, elkartasuna, zuzena izatea baina batzuetan barkamenik ez ematea...

4.082. Azitain parrokiako bizar gabeko kristoaren irudia (EIB-703/026)

Azitaingo parrokiako bizar gabeko kristoaren irudia nola aurkitu eta berreskuratu zuten azaltzen du Joseanek.

4.083. Hitz bereziak Felix Bergara abadearen omenez (EIB-703/027)

Joseanek hitz polit batzuk irakurtzen ditu Felix Bergara abadearen omenez. Euskal Herriarekiko enpatia handia zuen Felixek eta historiaz asko transmititu zien Azitaingo eliztar guztiei.

4.084. Felix Bergara abadea, "Herria 2000"ko kide (EIB-703/028)

Felix Bergara abadea "Herria 2000" plataformako kide izan zen. Joseanek horren inguruko bere ikuspegia ematen du.

4.085. Umetan, Azitaingo parrokiari lapurreta txikiak egiten (EIB-703/030)

Umetan, Azitaingo parrokiako mezetarako ostia ("gure jainkoa") handiak lapurtzen zituzten, bata bestearen gainera igota.

4.086. Felix Bergararen heriotza (EIB-703/032)

Felix Bergara abadearen errauntsak Iparraldean bota zituzten, Felixek horrela idatzita utzi zuelako. Felixen hileta nolakoa izan zen gogoratzen du Joseanek.

4.087. Eibar gerraostean: gosea eta txikizioa (EIB-704/002)

Ama etxeoandrea zen eta aitak ALFAko arduradun bezala lan egiten zuen. Umetako Eibar guztiz txikituta gogoratzen du. Harriak eta hartxintxarrak edonon, miseria, gosea...

4.088. Umetan etxean gaixorik (EIB-704/003)

Umetan alergia bat zela eta, denbora asko pasatzen zuen etxean eta Zuloaga doktoreak gauza asko irakatsi zizkion: artea, marrazten... Etxeko-lanak jartzen zizkion eta espiritu artistikoa berak sortu zion.

4.089. Armeria eskolatik Bartzelonara ikastera (EIB-704/005)

ALFAko liburutegian denbora asko pasatzen zuen. Peritu-ikasketak egiteko izena eman zuen egunean, aitak esan zion aparejadore-ikasketak egingo zituela, ALFAko kimiko eta ingeniari batek horrela esan ziotelako. Bartzelonan egin zituen aparejadore eta arkitektura ikasketak. 24 urterekin bueltatu zen.

4.090. Eibartik Bartzelonara, aldaketa handia (EIB-704/007)

Eibartik Bartzelonarako aldaketa oso handia izan zen. Bartzelona oso irekia zen, harreman oso estuak egin zituen, kultur-mundua itzela zen...

4.091. Gasteizen oso ondo hartua beste arkitektoen aldetik (EIB-704/009)

Ikasten zegoen bitartean eta Eibarrera oporretara bueltatzen zenean, bertako lantegiarekin lan egiten zuen. Gasteizen oso ondo hartua izan zen gainerako arkitektoen artean eta hiru urtez Gasteizko udal-arkitektoa izan zen, hain zuzen ere Eibarko industria-exodoa eman zen garaian.

4.092. Oso euskaldun sentitu da beti (EIB-704/010)

Ohikoena Armeria Eskolatik, peritu-ikasketak egitera eta handik ingeniari izatera egitea zen. Bartzelonan, bilbotarre euskarazko klaseak ematen zizkien.

4.093. Eibartik Gasteizera aldaketa handia zegoen (EIB-704/011)

Eibartik Bartzelonarako aldaketa handia izan bazen, Eibartik Gasteizerakoa askoz handiagoa izan zen. Garai hartan, pentsaeraz oso itxia zen Gasteiz.

Zortea izan zuela kontaktzen du, gainerako arkitektoek oso ongi hartu zutelako. Azkar moldatu zen Gasteizeko bizimodura, lan asko egiten zuelako. Estudio propioa sortu zuen.

4.094. ALFAko beka baten bitartez ikasi zuen Bartzelonan (EIB-704/012)

Bartzelonan ikasi zuen ALFAk ematen zituen beketako batekin. Eibarko familia batekin bizi zen. Unibertsitatean bekarekin gertatutako istorio bat kontaktzen du. Bekak, ALFAko langileen seme-alabei ematen zitzairen. ALFAn oso eroso sentitu da beti eta gerora, lan asko egin du beraiekin.

4.095. ALFAko liburutegia (EIB-704/013)

ALFAk liburutegi oso eta handia zeukan. Liburuzain bat ere bazegoen eta berak erosten zituen liburuak. Miguel Angelek denbora asko pasatu zuen liburutegian umea zenean. Liburutegian literatura orokorreko liburuak zeuden baina geroago eta berak eskatuta, liburu teknikoagoak erosten hasi zen liburuzaina. ALFAren urrezko garaian, ekonomatua, eskolak, udalekuak... zeuden.

4.096. Gipuzkoako industria, Gasteizera (EIB-704/015)

Gasteizera heldu zenean, etxebizitza asko eraikitzen ari ziren, baina industria bost urte geroago hazten hasi zen. Gasteiz oso tradizionala zen eta ez zegoen langile-mugimendurik baina momentu batean, Gipuzkoako lantegi asko Gasteizera mugitu ziren (Orbea, Gabilondo, BH...). Miguel Angel Gasteizera heldu eta 4-5 urtetara hasi zen mugimendu hau.

4.097. Eibarren produktu onak, baina saltzen txarrak (EIB-704/016)

Gasteizera mugitu ziren Eibarko eta inguruko industria-enpresak: BH, Gabilondo, Orbea, Forjas Areitio... Eibarren, produktu oso ona egiten zen baina ez zekiten saltzen. Bere etxebizitza dena ALFAk eraiki zuen, beheko aldean denda baitzegoen. Oso etxe handiak dira. Paco Gorosabelekin produktuaren diseinuari buruzko istorio polit bat kontaktzen du. Jose Ormaetxearekin izandako elkarrizketa bat ere kontaktzen du.

4.098. Eibarko San Pio X eta El Salvador elizak (EIB-704/018)

On Pedro Zelaiak deitu zion Eibarren San Pio X eliza eraikitzeke. Istorioa kontaktzen du. Garai hartan Gasteizko El Pilar eliza ere eraiki zuen eta bertako ideia batzuk ekarri zituen, batez ere elizaren azpian aparkalekuak egitea.

4.099. Armeria Eskolaren handitze-lanak (EIB-704/019)

Armeria Eskolako egitura guztia sendotu behar izan zuen, makina oso pisutsuak zeudelako eraikin barruan. 1968an hasi ziren lanak eta sei-zazpi urte iraun zuten. Isasiko komentua botatzeak min handia eman zion, umetan han asko ibiltzen zelako eta orokorrean hondakinak gustatzen zaizkiolako. Armeria Eskolako handitze-lanak nolakoak izan ziren kontaktzen du.

4.100. Armeria Eskolaren izen ona (EIB-704/020)

Madrilera joaten zen Armeria Eskolako Jose Ormaetxea bertako zuzendariarekin, handitze-lanetarako diru-laguntza eske. Eskolari izena aldatzen saiatu ziren Madrilen, baina ez zuten lortu. Eskopeta fabrikatzetik bizikletak egitera emandako aldaketa kontaktzen du.

4.101. Eibarko kiroldegiaren eraikuntza (EIB-704/021)

Kiroldegiaren proiektua egin eta aurrekontua prestatu zuen. Madrileran joan ziren diru-laguntza eskatzera. Felipe Gonzalezekin bildu behar zuten baina Alfonso Guerra agertu zitzaien. Eibartik zetozela esatean, oso ondo tratatu zituzten eta dirua lortu zuten. Kiroldegiko lursaila oso ezegonkorra da. Obra zaila izan zen eta ia egunero Eibarrera joaten zen. Eraikinaren irisgarritasun-arazoak kontaktzen ditu.

4.102. ALFAko Mikrofusioaren arkitektoa (EIB-704/023)

ALFAk mikrofusioa eraikitzeko behar zuen diru guztia bere esku jarri zion. Europako mikrofusioetan egin ez zitekeena egiteko eraiki zuten ALFAko Mikrofusioa. ALFAren beherakada hasi zenean, Mikrofusioa mantendu egin zen eta negozio ona da gaur egun ere. ALFAk zerbait berezia nahi zuen. Miguel Angelek kasu honetan garrantzi gehiago eman zion eraikinari, eraikin barruan egongo zenari baino. Erabilitako materialei buruz hitz egiten du.

4.103. ALFAko Mikrofusioa, maitasun handiarekin diseinatua (EIB-704/024)

ALFAko Mikrofusioaren lorategiaren diseinua egiteko asteak pasa zituzten. Bertan dauden lore batzuk babes-berezia daukate. Zehatz-mehatz eta maitasun handiarekin egin zen.

4.104. Arkitektoen lana (EIB-704/025)

Arkitektoaren eguneroko-lanei buruz hitz egiten du. Bere estilo arkitektonikoari buruz galdetzen zaio, baina ez du guztiz finkatzen, nahiz eta modernista ere baden.

4.105. Bakoitzaren herria bihotzez sentitzea (EIB-704/029)

Miguel Angelentzat ez dugu daukaguna estimatzen eta Eibarren berdina pasatzen da herriarekin. Eibarko iturriei buruz hitz egiten du. Zure herriarekiko eta bertan dauden elementuekiko harro sentitu behar garela dio, gure herriko historiarekin lotuta dagoelako. San Andres Parrokiak sentimen handia pizten du Miguel Angelengan.

4.106. Armeria Eskola asko estimatzen du (EIB-704/033)

Eibarren egindako lanetatik, Armeria Eskolako lanak dira gehien estimatzen dituenak.

4.107. Eibar itsusia dela esaten dutenentzat erantzuna (EIB-704/034)

Unibertsitatean, Eibar itsusia zela edo urbanistikoko gaizki eraikia zegoela esan zuen behin irakasle batek. Miguel Angelek erantzun ziona.

4.108. Gasteizera mugitu ziren Eibarko lantegien ikerketa (EIB-704/036)

Eibarrekin duen harremana. Gasteizen Eibarko futbol taldearen lagun-talde bat sortu zuten eta astero elkarte gastronomikoan biltzen dira. Futbolaz gain, beste interes batzuk dituzte. Gasteizera mugitu ziren lantegi eibartarren zerrenda bat egin nahi dute eta jakin orain zein den haien egoera. Lantegiek birlokalizatzeko arrazoi nagusiak.

4.109. Eibarren zarata gau eta egun (EIB-704/038)

Umetan Errekatxu kalean bizi ziren, Montecasino tabernaren gainean eta bere bizilagunek etxean zeukaten lantegia. Gau eta egun zarata zegoen.

4.110. Jose Ormaetxea: Armeria Eskolako zuzendaria (EIB-704/039)

Jose Ormaetxea gogoratzen du. Gizon gogorra zen, lagun gutxirekin. Miguel Angelen irakaslea izan zen Armeria Eskolan eta berak asko miretsi izan du, etorkizunerako ikuspegia zuen norbait zuelako, gizon jakintsua... Armeria Eskolako teknologia berri guztiak Jose Ormaetxeak sartu zituen. Eskolagatik bizitza eman zuen.

4.111. ALFAk Gasteizen egin zituen etxebizitza dotoreak (EIB-704/042)

ALFAk Gasteizko erdialdean denda bat zabaldu nahi zuen. Denda irekiko zen etxebizitza-eraikin guztia erosi zuen eta dendaz gain, aberatsentzako 250 metro karratuko etxebizitza dotoreak egin zituen. Hiru eibartar bizi izan dira bertan. ALFAk etxea ordaintzen lagundu zion.

4.112. ALFAko dendak hiriburuetan (EIB-704/044)

Bartzelonan ikasten zuenean eta ALFAko bekaduna zenez, bertako dendara askotan joaten zen. ALFAk denda dotoreak zituen hiriburu guztietan.

4.113. Ezarritako arauetatik ateratzea gustuko izan du (EIB-704/046)

Miguel Angelek egin dituen eraikinetatik Gasteizen dagoen batek polemika sortu zuen, modernoegia zelako. Beti gustatu zaio ezarritako arauetatik ateratzea. Etxebizitzak eraikitzea beti gustatu zaio.

4.114. Eibartar nortasuna eta harrotasuna (EIB-704/048)

Eibartar sentitzen da eta eibartarrez harro dago.

4.115. Gerra ostean, postetxea Estaziño kalean (EIB-705/002)

Ama Estaziño kaleko lbargain tabernakoa zen. Gerraostean eta 60. hamarkada hasierara arte, taberna konfiskatu eta bertan postetxea ipintzera behartu zituzten. Beraientzat zer suposatzen zuen kontatzen du Patxik.

4.116. Gerra garaian jaioa (EIB-705/003)

Gerra garaian jaio zen Patxi, Munitibarren. Aita kapitain bezala zebilen Gernika inguruan, bonbardaketen garaian. Hilabete eskas zuela bueltatu ziren Eibarrera, Estaziño kalera.

4.117. Zortzi urterekin Tuterara ikastera (EIB-705/005)

Zortzi urterekin Tuterara joan zen ikastera Patxi, osasun kontuak zirela eta. Handik, 17 urte zituela, Bilbora joan zen ingeniarietza industrialeko ikasketak egitera. Oporretan bueltatzen zen Eibarrera.

4.118. Ingeniaritza industrialeko ikasketak 50. hamarkadan (EIB-705/006)

Ingeniaritza industrialak ikasi zuen Bilbon. 1942ko ikasketak plana nolakoa zen kontatzen du. Irakasgaiak.

4.119. Lantegi industrial baten eraikuntza (EIB-705/008)

Ingeniari industrialaren papera eraikin industrial edo lantegi bat eraikitzeko orduan.

4.120. G.A.C.: kokapen ezberdinak (EIB-705/009)

G.A.C. lantegiak gerra aurretik armak eta bizikletak egiten zituen, Arikixaneko zubiaren alboan. Eibarren bota zuten lehenengo bonba G.A.C lantegian erori zen. Lantegi guztia txikituta geratu zen. Gerraostean, Eibarren sakabanatuta zeuden lantegi txikiak egiten zituzten lanak: Matxarian, Arraguetan... Bere aitak, Felipe Anituak, forja txiki bat eraiki zuen Txontan eta lehenengo pabiloiak eraikitzen hasi ziren, herrian sakabanatuta zeuden produkzio guztiak bertan batzeko asmoz. Bizikletak egiten zituzten eta 50. hamarkadatik aurrera, "mobylette" a. Txontan ez zeukaten leku askorik hedapenerako eta Abadiñora joan ziren. Lursaila neurtzera joan zireneko pasadizo bat kontatzen du.

4.121. G.A.C.: sorrera eta sortzaileak (EIB-705/011)

Patxiren aitona, Jose Francisco Garate, G.A.C lantegiko sortzaileetako bat izan zen. Garatetarrak nortzuk ziren kontatzen du. 1847an sortu zuten Garate, Anitua y Compañía lantegia.

4.122. G.A.C.: produkzio ezberdinak; ziklomotorra (EIB-705/012)

G.A.C lantegiaren produkzio ezberdinak: armak, bizikletak, zikloestatika, ziklomotorrak... "Mobylette" izena beraiek jarri zioten ziklomotorrari eta Espainia guztian hedatu zen. 600 bat langile izatera heldu ziren. Egunean 1000 bizikleta inguru, 210 ziklomotor... egiten ziren.

4.123. G.A.C.: ziklomotorra (EIB-705/013)

Ziklomotorra zer den azaltzen du. Patentea frantziarra zen arren, G.A.C. lantegiak eskubidea zuen hura produzitzeko. Urte batzuen buruan Honda-k erosi zuen patentea eta G.A.C-ak Kanowey ziklomotorra atera zuen, arrakasta handirik gabe. Orduan hasi zen lantegiaren gainbehera.

4.124. G.A.C.: lan mota ezberdinak (EIB-705/015)

Familian geratu ziren ziklomotorrak Eibarko Armagintza Museoa daude. Ziklomotor modelo ezberdinak aipatzen ditu. Lantegian zeuzkan funtzioak aipatzen ditu.

4.125. G.A.C.: emakumeak lantegian (EIB-705/016)

G.A.C. lantegian lan egiten zuten emakume batzuei buruz hitz egiten du Patxik. Batzuk oso azkarrak ziren eta lan fina egiten zuten. Eskuzko-muntaketetan, margotu osteko "fileteuan", nikeleztatzean... oso onak ziren emakumezkoak.

4.126. G.A.C.: soldatak eta hobariak (EIB-705/017)

Emakumezkoek soldata baxuagoa zuten hasieran G.A.C. lantegian, baina urteak pasatzean berdindu egin zituzten. Emakumeek zer hobari zituzten azaltzen du Patxik. Gizonezko asko hobari horrekin geratzen ziren.

4.127. G.A.C.: "Sábado Inglés" eta aparteko orduak (EIB-705/018)

"Sabado Ingles" a zer zen eta horrek ekarri zituen aldaketak kontatzen ditu Patxik. Aparteko orduak egiteko aukera handia zegoen. Txontako hedapenak egin zirenean, lantegiko langileak ibiltzen ziren lurra ateratzen.

4.128. Sindikatu bertikalak (EIB-705/019)

Sindikatu bertikala politikoek izendatutako pertsonen osatuta zegoen. Gehienbat soldata eta orduengatik lan egiten zuten.

4.129. G.A.C.: lehenengo grebak (EIB-705/020)

G.A.C. lantegian grebak hasi zirenean hasi zen lantegiaren beherakada, 80. hamarkadan. Greba jantokiko gorabehera batzuegatik izan zen.

4.130. G.A.C.: lantegiaren gainbehera (EIB-705/022)

G.A.C. lantegiaren beherakadaren arrazoietakoa batzuk kontatzen ditu Patxik. Lantegiak finantziarioa eskatuta zeukan eta interes altuak ordaintzen zituzten. Bezeroek ez zuten epeetan ordaintzen eta finantziario hori ordaintzeko arazo larriak izaten zituzten.

4.131. Eibar, ekintzailetasunetik deslokalizaziora (EIB-705/023)

Eibarren horrenbeste lantegi egotearen arrazoi nagusiak bi dira: Armeria Eskola eta jendearen ekintzailetasuna. Orografia dela eta, edozein leku aprobetxatzen zen lan egiteko. Lur falta zela eta, Eibarko lantegi asko kanpora joan ziren: G.A.C, Orbea, BH...

4.132. G.A.C.: non saltzen zuten; kamioilariak (EIB-705/024)

Espainiar estatuan saltzen zuen G.A.C lantegiak gehienbat. Oraindik ere G.A.C.-ko ziklomotorrak ikusten dira. Oso erraza zen beraien ziklomotorra konpontzea. Lambretta-ko ziklomotorra konpontzea zailagoa zen. Gehienbat Nafarroan, Balear Uharteetan, Galizian, Andaluzian eta Levante aldean saltzen ziren. Kamioiekin eramaten zituzten.

4.133. Felipe Anituaren biografia (EIB-705/025)

Patxik bere aita zen Felipe Anituari buruz hitz egiten du: gurasoak, bizilekua, guraso eta familiaren lanbideak... Okindegi bat zeukaten Bittor Sarasketa kaleko goiko aldean, Ibagain tabernaren azpian. Bertako garbitokia erabiltzen zuten. Garai batean, Felipe Anitua mendiko ura baserrietara eta herrira bideratzen ibili zen.

4.134. Felipe Anitua: ikasketak eta lana (EIB-705/026)

Bere aitak, Felipe Anituak, non ikasi zuen eta zertan lan egin zuen kontatzen du. Bulego tekniko bat zuen Eusebio Lafuente aparejadorearekin eta Aurelio Villamor delineatzailearekin. Baserrietara ura bideratzen hasi ziren eta, ondoren, lantegiak diseinatzen eta eraikitzen hasi ziren.

4.135. Felipe Anitua, G.A.C lantegiko ingeniari industrialak (EIB-705/027)

Eibarren bi ingeniari industrial zeuden: Felipe Anitua G.A.C-koa eta Vicente Olabe ALFA-koa. Garai batean, lantegi bat eraikitzeko, ingeniari industrialaren sinadura behar zen. Feliperi obrak asko gustatzen zitzaizkion: nola hobetu, nola zabaldu...

4.136. Felipe Anitua eta Ipuruako komentuko priorea (EIB-705/028)

Felipe Anituaren lehengusina, Ipuruako komentuko priorea zen eta bertako obra batzuk enkargatu zizkion Feliperi. Istorioa kontatzen du Patxik.

4.137. Anituatarrak Eibarren (EIB-706/002)

Patxiren aita, Felipe Anitua, G.A.C. lantegiko ingeniari industrialak izan zen. Aitaren eta osaba-izeben inguruan hitz egiten du: non ikasi zuten, nora ezkondu ziren...

4.138. Felipe Anitua eta Vicente Olabe ingeniari industrialak (EIB-706/003)

Eibarren ohikoena Armeria Eskolan ikastea zen. Garai hartan Felipe Anitua eta Vicente Olabe ziren Eibarko ingeniari industrial bakarrak eta bien artean Eibarko lantegi askoren diseinu eta eraikuntzak sinatu zituzten. Gerraostean, Felipek bulego tekniko bat zabaldu zuen. Lantegiak berritu, hornitu eta zabaltzeaz gain, baserrietara ura bideratzeko lanetan ere ibili ziren. Eusebio Lafuente eta Aurelio Villamorrekin (ALFAko langilea) zeukan Felipe Anituak bulego teknikoa Arragueta kalean.

4.139. G.A.C lantegiaren kokapenak gerra aurretik eta ostean (EIB-706/004)

G.A.C. lantegiaren lehenengo kokapena, Arikixaneko zubiaren ondoan zegoen eta, gerra sasoiaren lehenengo bonba bertara bota zuten, armak egiten zituztelako. Gerraostean, produkzioa Eibarren sakabanatuta izan zuten eta 1945 inguruan Txontako lantegia sortu zuten.

4.140. G.A.C. lantegia Txontan (EIB-706/006)

G.A.C. lantegiaren Txontako eraikina poliki-poliki joan zen handitzen. Hasiera batean etekin guztiak lantegia handitzeko erabili ziren. Patxik umetako istorio bat kontatzen du.

4.141. Felipe Anituari beti gustatu zitzaizkion obrak (EIB-706/007)

Bere aita, Felipe Anitua, zerk bultzatu zuen ingeniarietza industrialak ikastera. Beti gustatu izan zitzaizkion obrak.

4.142. Ingeniaritza industrialeko ikasketak gerra aurretik eta ostean (EIB-706/008)

Patxi ere, aitak bezala, ingeniarietza industrialak ikasi zuen. Aita eta bere ikasketak planak aipatzen ditu. Aitak Bartzelonan ikasi zuen.

4.143. Igandeetan ehizara; zozo zuria (EIB-706/010)

Igandeetan ehizara joaten ziren Patxi, aita eta haren bi lagun min. G.A.C. lantegiko kotxearekin joaten ziren Getaria aldera, Zegamara, Zumaiara... Behin zozo zuri bat ehizatu zuten eta diseinatu egin zuten.

4.144. G.A.C.: Arikixaneko zubitik Txontara (EIB-706/011)

Aitak, Felipe Anituak, bulego teknikoa soldada-osagarri bezala zabaldu zuela kontatzen du Patxi. Gerra aurreko G.A.C. lantegia handitzea nahi izan zuten, baina gerra ondoren, ez zieten baimenik eman eta Txontara joan ziren. Han hedapenerako aukera gehiago zegoen.

4.145. Ingeniari industrialak, industriak eraikitzeke baimenak sinatzen (EIB-706/012)

Felipe Anituak ingeniari industrial bezala zer egiten zuen kontatzen du Patxi. Eraikin industrial bat eraikitzeke, arkitektoak ingeniariaren baimena eta sinadura behar zuen.

4.146. Garai batean, kanpora ikastera joateko aukerarik ez (EIB-706/014)

Garai batean ez zegoen aukerarik kanpora ikastera joateko. Armeria Eskolan egiten ziren industriarekin zerikusia zeukaten ikasketak gehienak. Patxi maisu bezala egon zen garai batean.

4.147. Felipe Anitua futbolaria (EIB-706/016)

Aita, Felipe Anitua, futbolaria izan zen. Defentsa postuan "back" jolasten zuen. Eibarren eta Erandion jokatu zuen. Athletic-ek fitxatu nahi zuen, baina gaixotu egin zen eta futbola utzi zuen.

4.148. Futbolaria bai, baina ikasketak ere bai (EIB-706/019)

Patxi uste du bere aitak ikasketak bukatu eta gero ere futbolekin jokatzen jarraituko lukeela, gaixorik egon ez balitz. Askok kostatu zitzaion osasuna berreskuratzea. Patxi ere ona zen futbolekin eta aitak aukeratzeko esan zion.

4.149. Felipe Anituaren nortasuna (EIB-706/021)

Patxi bere aita Felipe Anitua deskribatzen du: nortasuna, lagunak, ikasketak, ezkontza... Gurasoen argazkiak erakusten ditu Patxi. Felipe Anituak "Mister Eibar" lehiaketa bat irabazi zuen behin.

4.150. Nicolas Aranzabalen biografia (EIB-707/001)

Nicolas Aranzabal, AYA lantegiaren sortzailea, Elgetakoa zen, baina Eibarrera ezkondu zen. Alargun geratu eta bigarren aldiz ezkondu zen, Maria Luisaren amonarekin. Aitona, bere aitarekin hasi zen lantegian 14 urterekin. Maria Luisak dio lantegia izan zela bere aitonaren pasio handia. AYA-ren lehenengo kokalekua ez du gogoratzen.

4.151. AYA lantegiaren kokalekua gerra aurretik (EIB-707/002)

Migel Agirre AYA lantegiaren sortzailearen familia. Gerra garaian, gaur egun "Leder" denda dagoen lekuan zegoen AYA, baina bonbardaketetan suntsitu zen.

4.152. Gerra garaian, AYA lantegia Bilbon (EIB-707/004)

Gerra garaian AYA lantegia Bilbora eraman zuten, "Gerrako Industria" bezala, frontierako armak egiteko. AYA-n ehizarako eskopetak egin izan dira beti, baina gerra garaian denetarik egin zuten.

4.153. Ingalaterrara ingelesa ikastera 1952an (EIB-707/006)

Gerra ostean Eibarrera itzuli ziren eta Maria Luisaren aitak lantegia berriz martxan jartzeari ekin zion, hasieran lokal ezberdinetan eta gero Bista Ederren. Maria Luisa gazte zelarik, AYA-k Ingalaterrara esportatzen zituen armak eta hara bidali zuten ingelesa ikastera urtebetez. Aitak dirua bidaltzen zion, garaiko Ingalaterran zegoen Eusko Jaurlaritzaren bitartez, bezeroen bidez... Ingalaterratik bueltatu zenean, Eibarko lantegi asko esportatzen hasi ziren eta itzulpen-lanak egiteko premia zegoen.

4.154. AYA lantegiaren sorrera (EIB-707/008)

AYA lantegia 1915. urtean sortu zuten Nikolas Aranzabalek eta Migel Agirrek. Eskopetak egin izan dituzte beti. Maria Luisak Agustin Aranzabal bere aitari buruz hitz egiten du.

4.155. AYA: Agustin Aranzabal (EIB-707/009)

Maria Luisak aitari buruz hitz egiten du: familiartekoa, maitekorra, hitzuna... Bere bizitza lantegiaren inguruan zegoen. Agustin Aranzabal 1902an jaio eta 1988an hil zen.

4.156. Agustin Aranzabal eta Felipe Anitua: lagunak eta aitaginarrebak (EIB-707/010)

Felipe Anitua, Maria Luisaren senarraren aita zen. Agustin Aranzabal eta Felipe oso lagunak ziren. Maria Luisak pasadizo ezberdinak kontatzen ditu.

4.157. AYA lantegiaren jabeak eta bazkideak (EIB-707/012)

Agustin Aranzabal 20 urte besterik ez zituenean jarri zen AYA lantegiaren karguan, Migel Agirre sortzailearen semea oraindik gazteegia zelako. Lantegiak beste bazkide batzuk izan arren, jabetza beti izan zen Migel Agirre (semea) eta Agustin Aranzabalena.

4.158. AYA lantegian ingeleseko itzulpenak egiten (EIB-707/014)

Maria Luisa Ingalaterrara joan zenean, bere lehengusu Imanol Aranzabal han zegoen. Elkarrekin egon ziren hiru hilabetez. Eibarrera bueltatu zirenean, Imanolek AYA-ko ingeleseko itzulpenak egiten zituen eta, soldadutzara joan zenean, Maria Luisak egin zuen lan hori.

4.159. AYA eta King anaiak (EIB-707/017)

King anaiak, AYA lantegiaren agente komertzialak izan ziren Ingalaterran. Familiarekin harreman handia zuten. Ingalaterrako bi arma eredu ekarri zituzten eta AYA-k, patroï hori erabiliz, arrakasta handiko armak egin zituen.

4.160. AYA lantegia eta uso-tiro txapelketak (EIB-707/020)

Eskopetagintzako lantegi handienetarikoa zen AYA. Maria Luisak bertan lan egin zuenean, 500 langile baino gehiago zituen lantegiak. Eskopetak ezagutzera emateko eta saltzeko, "tiro-pitxoi" (uso-tiro) txapelketak bultzatu zituzten. Bere aita eta osabak txapelketa askotan ibiltzen ziren. Juan Olaberï buruz hitz egiten du.

4.161. AYA-n beti kalitateari begira (EIB-707/022)

AYA lantegian kalitatea kantitatea baino garrantzitsuagoa zen beti. Langileen esku-lana oso garestia zen, dena artisaua zelako. Gaur egun bere lehengusu Imanolen seme-alabek eramaten dute eskopetaren marka.

4.162. AYA: enkarguz egindako eskopetak (EIB-707/023)

AYA lantegian egiten ziren eskopeta gehienak enkarguz egiten ziren. Eskopeta erabiliko zuenaren neurriak hartzen ziren. Bezero batzuek eskatzen zituzten lanak azaltzen ditu Maria Luisak.

4.163. AYA-ko eskopetak egiteko materialak (EIB-707/024)

AYA lantegiko eskopetak egiteko haritza erabiltzen zen. Baserrietatik egurra xafletan eramaten zen lantegira. Ondoren, lan egiteko eredu eta patroï ezberdinak zeuden.

4.164. Baskulatzailleak Eibarren (EIB-707/027)

Eibarren baskulatzailleak fama handia zuten eta lantegiek elkarri "lapurtu" egiten zizkioten langileak, diru gehiago edo lan-baldintza hobek eskainiz. Garai batean armagintzako lantegi asko zeuden Eibarren. AYA lantegiko produktuen katalogoak Eibarko Armagintza Museoan daude.

4.165. AYA: zigilua eta eskopeta motak (EIB-707/029)

AYA lantegiaren zigilua nolakoa den azaltzen du. Egiten ziren eskopeta motak gainjarriak ("superpuesta") eta "paralelak" deitzen ziren.

4.166. AYA lantegian beti egin izan dira eskopetak (EIB-707/030)

Eibarko armagintzak birmoldaketa bat izan zuen, baina AYA lantegiak beti eskopetak produzitzen jarraitu zuen, Gerra Zibilean izan ezik. Orduan bai, gerrarako armak egin zituzten Bilbon.

4.167. AYA: emakumeak bulegoan (EIB-707/032)

Emakume gutxi batzuek egiten zuten lan AYA lantegian , bulegoan.

4.168. "Kinzenia"; aparteko orduak; Gabonetako saskia (EIB-707/034)

Hamabost egunetik behin soldata jasotzen zuten. "Kinzenia" deitzen zitzaion. Aparteko orduak egiteko aukera zegoen. Gabonetan, bezeroei saski bat oparitzen zitzaien.

4.169. AYA: bezeroak; eskopeta motak (EIB-707/035)

AYA lantegiaren bezero nagusienak: Ingalaterra, Frantzia, Portugal... Australian ere saldu dira. Eskopeta modelo ezberdinak zeuden, baina Maria Luisak ez dakizki buruz. Ingalaterrara ikastera joan zenean, aitak katalogo bat eramateko eskatu zion.

4.170. Eskopeten zainketa (EIB-707/036)

Maria Luisak neurritik egindako eskopeta bat dauka, baina ez zaio ehiza gustatzen. Eskopeta asko dituzte familian. Urtean behin Guardia Zibiletara eraman behar izaten dituzte, kontrolak egiteko.

4.171. AYA: krisia eta lantegiaren salmenta (EIB-707/037)

80. hamarkadan krisia heldu zenean, Agustin Aranzabalek lantegia galtzen zuela ikusten zuen eta gaizki pasatu zuen. Bere senarrak ere gaizki pasatu zuen, G.A.C. lantegiko familiatik datorrelako. Eibarko Udalak lantegia erosi zuen eta kultur-etxea bertan egotearekin oso harro dago Maria Luisa.

4.172. AYA-PORTALEA: industriatik kulturara (EIB-707/038)

Maria Luisa oso harro dago AYA lantegiaren birmoldaketaz. Familia datorrenean, beti eramaten dituzte hara.

4.173. BOJ lantegiaren ikuspegi orokorra (EIB-710/002)

BOJ enpresari buruzko ikuspegi orokor bat ematen du Santik. Nondik hasi zen BOJ, zer egiten zuten, nola garatu ziren, krisiak, merkatuaren aldaketa... Merkatu ezberdinei eta hauetara moldatzeko gaitasunaren garrantziaz hitz egiten du.

4.174. BOJ: sorrera, sortzaileak, produktuak (EIB-710/003)

1905ean, Manuel Barrenetxeak Pagei kalean zuen lantegi txikian hasi ziren Bernardo Olañeta eta Vicente Juaristi lanean. Bi hilabetetara Barrenetxearen sozio bihurtu ziren, "M. Barrenetxea, Olañeta y Juaristi" lantegia sortuz. Damaskinatzaileentzat plantillak edo trokelak egiten hasi ziren hasieran eta denbora gutxira, damaskinatuak izango ziren produktueta: krisketak, gerrikoetako hebillak, kreimailerak, kooperatiben txanponak, txapak... La Marcial Eibarko musika bandak txapelan zeraman txapa BOJ-en sortua da.

4.175. BOJ: leku aldaketa eta produktu berriak (EIB-710/005)

1939. urtean, BOJ lantegia Matsarian kokatu zen. Eraikina, ondare industrial bezala izendatuta dago. Produktu berriak diseinatzen eta ekoizten hasi ziren: hontz-itxurako kortxo-kentzekoa, zerrailak, kraskagailuak, zamau-babesak, poto-irekigailuak…

4.176. BOJ: Langileak, emakumeak lantegian (EIB-710/006)

80. hamarkadako krisi ekonomikoaz gain, inportazioko produktu ugariaren etorrerak produkzioa jeitsi zuen BOJ-en eta langile batzuk kaleratuak izan ziren. Orduan, 65 langile zeuden, 60-a emakumezkoak. Horrela mantendu da urteetan, baina gaur egun emakumeen portzentaia %30-ekoa da. Soldata, berdina da denentzat.

4.177. BOJ Global: erronka berria (EIB-710/007)

BOJ Global zergatik eta nola sortu zen kontatzen du Santik. Daukaten marka sendoaz baliatzen dira produktuak merkatu zehatzetara bideratzeko. Fagor eta Jata lantegien beherakaren ondorioz sortutako proiektua da. Kubarekin harreman oso estua dauka BOJ-ek.

4.178. BOJ: David Olañeta; Armeria Eskola (EIB-710/008)

Nahiz eta BOJ hiru gizonen sortu zuten, Santi da orain jabe bakarra. David Olañeta, bere aitari buruz hitz egiten du: non ikasi zuen, nola marrazten zuen, nolakoa zen... Santik, Armeria Eskolan ikasitakoa BOJ-en nola aplikatu duen kontatzen du.

4.179. BOJ: produktuen salmenta (EIB-710/009)

Santiri BOJ-eko produktuak pertsonalki saltzea gustatuko litzaioke. Izan dituen esperientzia batzuk kontatzen ditu.

4.180. BOJ: lan-prozeduren aldaketa denboran zehar (EIB-710/011)

Garai batean, lehengaitik amaierako produkturako prozesu guztiak egiten ziren BOJ-en. Gaur egun, ia prozesu guztiak azpikontratatuta daude baina muntaia, kalitatearen azterketa, enbalajea eta salmenta Eibarren egiten dute. Merkatu ezberdinetara heltzeko lanak egiten dituzte.

4.181. BOJ: internalizazioa eta dibertsifikazioa (EIB-710/012)

BOJ lantegiak dituen erronkak kontatzen ditu Santik. India edota Afrikako herrialde batzuetan... hedatzeko lanetan dabilta eta merkatu hoiek ezagutzea ezinbestekoa da.

4.182. BOJ: etorkizuna, ilusioz (EIB-710/013)

Produktuen zikloan, salmenta da zailena Santiren ustez. Egoera eta teknologia berrietara egokitzea ezinbestekoa da. Pozik dago Eibarren eta ilusioz ikusten du etorkizuna.

4.183. BOJ: David Olañetaren diseinuak (EIB-710/016)

David Olañetak, munduan zehar zituen familia eta lagunei sukaldeko tresneriak bidaltzeko eskatzen zizkien eta hoiak hobetzeko asmoz sortu ziren bere diseinu eta produktu famatuenak. Pareteko kotxo-kentzekoaren ideia Suitzako produktu bateti lortu zuen.

4.184. BOJ: hontz-itxurako kortxo-kentzekoa (EIB-710/017)

Hontz-itxurako kortxo-kentzekoa, Nueva York-eko MOMA museoan saltzen da, diseinuko produktu bat bezala. Oraindik ere asko saltzen da, nahiz eta antzeko produktu asko dauden merkatuan. Produktuaren atal guztietatik, erdiko mihia da BOJ-en ekoizten den pieza bakarra. Ez dute inoiz teknika saldu izan nahi.

4.185. BOJ Eibarren jarraitzeko esperantza (EIB-710/018)

Santik, etorkizunean BOJ Eibarren geratzea nahiko luke. Industria-lurra falta dela uste du eta dagoena oso garestia dela. Gustatuko litzaioke garai batean bezala, guztia Eibarren produzitzea eta inguruko langileak izatea.

4.186. Eibartar nortasuna (EIB-710/021)

Eibartar nortasunari buruz hitz egiten du: amore ez ematea, aurrera egitea, gauzak gogoz egitea, garapen pertsonala...

4.187. BOJ: etxetresna elektrikoak (EIB-710/023)

Asiako eta Ekialde Hurbileko herrialde batzuetan, BOJ-ek ekoiztutako etxetresnak saltzen dira. Marka europear sendo batekin jokatzeko dute han, baina Europan ez dituzte produktu hoiak saltzen, merkatua oso asetuta dagoelako.

4.188. DEJ: kokapen ezberdinak (EIB-711/002)

DEJ lantegia Otaola Hiribidean egon aurretik, Karmen kaleko etxebizitza-tailer eraikin batean zegoen. Beheko pisuan Carbureibar, bigarrenean DEJ eta 3. eta 4. solairuetan, etxebizitzak. Otaolako eraikinaren lurzoruan zer zegoen kontatzen du,

4.189. DEJ: enkarguak egiteko motorra (EIB-711/004)

DEJ-eko Otaolako eraikinaren inguruak. Lantegiko jabeek Lambretta motorra eta ondoren auto bat erosi zioten, enkarguak egiteko.

4.190. DEJ: Jabeekin harreman bikaina (EIB-711/005)

DEJ-eko jabeekin harreman bikaina izan zuen Kontxik beti. Pare bat pasadizo kontatzen ditu.

4.191. DEJ: Estanpazio metalikoak (EIB-711/006)

DEJ-en beti estanpazio metalikoak egiten ziren. Berez, egiten ziren produktuak ez ziren salgai jartzekoak, baizik eta beste makina batzuen parte ziren. Saltzeko egiten zuten pieza bakarra, josteko makinak garbitzeko eskuilatxo metaliko txiki bat zen. Egiten zituzten estanpazio batzuez hitz egiten du Kontxik.

4.192. DEJ: Produktuak eta bezeroak (EIB-711/007)

DEJ-en Carbureibarrentzat lan asko egiten zuen. Denbora batera, AYA Durex-ekin lanean hasi ziren. Automoziorako eta etxetresna elektrikoentzat piezak egiten zituzten gehienbat.

4.193. DEJ: Fagorrentzat piezak egiten (EIB-711/009)

Fagorreko sukaldeentzat pieza txiki batzuk egiten hasi ziren eta horrek, beste etxetresna elektrikoentzat piezak egiteko aukera zabaldu zion DEJ-eri. Lantegiko produkzioaren %35-a Fagorrentzat zen.

4.194. DEJ: AYA Durexentzat transmizio piezak (EIB-711/010)

AYA Durex-entzat transmisioko pieza egiten zituzten. Piezen kalitate-kontrola laborategian neurtzen zuten AYA Durex-en.

4.195. DEJ: Materialak (EIB-711/011)

DEJ-eri eltzeen piezak egiteko milaka pieza egiten zituzten. Beraiek lan egiteko eskatuta zuten materiala ez bazen iristen, lantegi askotan produkzioa gelditzen zen. Behin, Lesakako lantegi batean gertatutakoa kontatzen du. Burdina zen gehien erabiltzen zutena.

4.196. DEJ: Pieza margotuak (EIB-711/013)

Pieza batzuk margotuak bidaltzen ziren, adibidez "bomba vespa" delakoa, txalupa eta bateletan erabiltzen zena. Itsulapikoentzat pieza batzuk ere egiten zituzten.

4.197. DEJ: Burdinbideen balaztak eta trabesak (EIB-711/014)

Kontxi DEJ-en lanean hasi zenean, trenbideetako balaztak egiten ziren, Pirelli enpresarentzat. Astero 12 tona txapa metaliko bidaltzen ziren. Trenbide-trabesak ere egiten ziren DEJ-en, urtean 2.000.000 inguru.

4.198. DEJ: lantegiaren handitze-lanak (EIB-711/015)

Gero eta pieza handiagoak egiten zituztenez, leku eta makina handiagoak behar zituzten. Lantegia handitzeko lurak nola lortu ziren kontatzen du.

4.199. DEJ: Prentsak eta estanpazioa (EIB-711/016)

DEJ-eko handitze lanak eginda, prentsa eta makina handiak erosi ziren. 800 tonako bi prentsa erosi zirenean, lantegi kanpoan zegoen zuhaitz bat bota behar izan zuten. Prentsa horiekin egiten ziren produktuak azaltzen ditu. Estanpazioa kolpeekin bitartez nola egiten den kontatzen du Kontxik.

4.200. DEJ: Estanpazioaren prozesua (EIB-711/017)

Kontxik, estanpazioaren prozesua hasieratik amaierara nolakoa den kontatzen du. Prentsan dauden langileak ondo koordinatzea eta antolatzea ezinbestekoa da.

4.201. DEJ: Lan-pizgarriak, prentsekin istripuak (EIB-711/018)

DEJ-en lan-pizgarriekin lan egiten zen. Prentsetan istripu asko gertatu dira. Emakume batek esku erdia nola galdu zuen kontaktzen du.

4.202. DEJ: Lan-pizgarriak I (EIB-711/020)

Lan-istripuak ekiditeko neurriak. Lan-pizgarriak zer eta nolakoak ziren kontaktzen du Kontxik.

4.203. DEJ: Langileen koordinazioa prentsetan (EIB-711/021)

Ezinbestekoa zen prentsa berean lan egiten zuten langileek ondo koordinatzea. Nola lortzen zuten kontaktzen du.

4.204. DEJ: Lan-pizgarriak II (EIB-711/022)

Lan-pizgarriei buruz hitz egiten du. Langile gehienak lortzen zituzten pizgarriak eta diru askoz ere gehiago irabazteko aukera zegoen. Langile bakoitzak bere erritmoa zuen.

4.205. DEJ: Kronometratzaile-lana (EIB-711/023)

DEJ-en, Kontxik kronometratzaile lanak egin zituen eta bere burua justutzat dauka. SOLAC lantegiko kronometratzaileekin izan zuen afera bati buruz hitz egiten du. Kronometratzaileen formakuntza nolakoa den kontaktzen du.

4.206. DEJ: Langileak (EIB-711/025)

Sindikatu Bertikalak ikuskapenak egiten zituen. Jatorrizko jabeek DEJ saldu aurretik, lantegiak 56 langile izatera iritsi zen. Jabe berriarekin aldaketa asko egon ziren lantegian. Gureak Batuak lantegiko langile batzuk ere egiten zuten lan DEJ-en.

4.207. DEJ: Bezero eibartar asko (EIB-711/027)

DEJ-en lan izanaz oso harro dago Kontxi. Produktuak kalitate oso onekoak ziren. Bezero batzuk aipatzen ditu: El Casco, Lambretta, Ossa motorrak, Jata, Solac, ABC... Haietako asko gaur egun desagertuta daude.

4.208. DEJ: Sortzaileak (EIB-711/029)

DEJ-eko lau sortzaileei buruz hitz egiten du. Denek Eibarko beste lantegi batzuetan lan egiten zuten, baina gero beraiena zen lantegitxo baten trokelak egiten zituzten. Enkarguak geroz eta altuagoak zirenez, beraien kabuz jartzea erabaki zuten. Bakoitzak, lantegiko gai ezberdin bat eramaten zuen.

4.209. DEJ: Javier Sologaitua (EIB-711/030)

DEJ-en lanean hasi zenean, jabeetako bat zen Javier Sologaituak asko irakatsi zion. Javier nolakoa zen kontaktzen du.

4.210. DEJ: Danel Zenarruzabeitia eta Enrique Franco (EIB-711/031)

Danel Zenarruzabeitia eta Enrique Franco DEJ-eko sortzaileei buruz hitz egiten du.

4.211. DEJ: Administrari-lanak (EIB-711/034)

Administrari lanetan hasi zen Kontxi DEJ-en lanean. Soldatak nola ordaintzen ziren kontatzen du

4.212. DEJ: Produkzioaren antolatze-lanak (EIB-711/035)

Urtebete administrari lanetan egon ondoren, produkziara pasatu zen Kontxi. Bertan, makina bakoitzak egin behar zituen lanen egutegiak egiten zituen, eskarien eta materialen arabera.

4.213. DEJ: Bulegoa (EIB-711/036)

DEJ-eko bulegoa nolakoa zen eta bertan zeintzuk lan egiten zuten kontatzen du. Oso harreman zuten bulegoaren artean.

4.214. DEJ: Orduetgia, oporrak, erreleboak... (EIB-711/037)

DEJ-en langileek zuten urteko lanordu, ordutegi, oporraldi, eta abarri buruz hitz egiten du Kontxik. Metaleko greba bakoitzeko, urteko lanorduak jaisten ziren. Aldaketa handia izan zen orduen gutxitzea

4.215. DEJ: Aparteko orduak eta kontagailuak makinetan (EIB-711/038)

Hasieran, aparteko ordu asko egiten ziren baina produkzioa jaitsi egiten zela ikusita, produkzioa zenbateko kontagailuak jarri zituzten.

4.216. JAZ-Zubiaurre: lantegiaren sorrera (EIB-712/002)

JAZ-Zubiaurre lantegiaren izena, bere aitaren izen-abizenen akronimoetatik dator: Javier Zubiaurre. Aurretik, "Zubiaurre Argiñao" bezala ezagutzen zen. 1924. urtean sortu zuen Eduardoren aitona, Domingo Zubiaurre Argiñao. Armagintzarentzat produktu osagarriak egiten hasi ziren.

4.217. JAZ-Zubiaurre eta Unceta (EIB-712/003)

JAZ-Zubiaurre eta Unceta banatzailearen arteko harremana zein izan zen kontatzen du. Uncetak saltzen zituen JAZ-eko produktuak.

4.218. JAZ-Zubiaurre: Javier Zubiaurre (EIB-712/004)

Gerran eta gerraostean, lantegiaren egoeran zein izan zen kontatzen du. Javier Zubiaurrek hartu zuen lantegia aurrera eramateko ardura 1950 aldera, lantegiaren benetako bultzada emanez.

4.219. JAZ-Zubiaurre: Merkatuak zabaltzen (EIB-712/005)

1958. urtean, "Plan de Ullastres" ekonomiaren egonkortze-plana sortu zuen Francoren erregimenak eta horren ondorioz, Uncetak ezin zuen JAZ-ek produzitutako dena saldu. Egoerari aurre egiteko, bezero, saltzaile, banatzaile... berriak bilatzen hasi ziren lantegian. Nazioartean saltzen hasi ziren.

4.220. JAZ-Zubiaurre: kokapen ezberdinak (EIB-712/006)

JAZ-Zubiaurrek kokapen ezberdinak izan ditu Eibarren: Arragueta kalean gerra aurretik, Legarren, Muzategin, Asua

4.221. JAZ-Zubiaurre: metalezko haridun eskuilak (EIB-712/007)

Domingo Zubiaurre, metalezko hariarekin egindako eskuilak egiten hasi zen. Azalera metalikoak garbitzeko lanabesak dira eta makina baten osagarriak izaten dira. Gaur egun, berdina produzitzen duten, nahiz eta berrikuntzak egin diren.

4.222. JAZ-Zubiaurre: altzairua, material nagusia (EIB-712/008)

Altzairuarekin egiten dituzte eskuilen haritxoak. Mota ezberdinei buruz hitz egiten du Eduardok.

4.223. JAZ-Zubiaurre: Domingo Zubiaurre Argiñoa (EIB-712/009)

Domingo Zubiaurre bere aitonari buruz hitz egiten du Eduardok. Akabatzailea zen eta kontabilitate-ikasketa batzuk zituen. Gerra garaian Eibartik ihes egin zuten eta ondoren, aitona kartzelan egon zen, errepublikanoa zelako.

4.224. JAZ-Zubiaurre: artisautzatik industriara (EIB-712/010)

Gerraostean, familiak utzitako diru batekin jarri zuen berriz ere martxan lantegia Domingo Zubiaurrek. Artisautza-lana egiten zuenez, ez zituen makina handiak behar. Javier Zubiaurrek eman zion lantegiari bultzada, artisauletik industria jarduerara pasatuz.

4.225. JAZ-Zubiaurre: Lan.prozesuak (EIB-712/014)

Garai batean, eskuilen produkzio osoa egiten zuten lantegian. Gaur egun, piezak margotzea, dekoletajea, estanpazioa... kanpoan egiten dute eta diseinua, kalitatearen kontrola, azkenengo muntaketa, salmenta... bertan.

4.226. Unceta burdindegia (EIB-712/015)

Garai batean, industriarako produktuak Uncetari saltzea Espainia osoan zehar saltzea suposatzen zuen. Uncetak, Alemaniatik ekartzen zituen metalezko haridun eskuilatxoak eta Domingo Zubiaurre, haiek sortzen hasi zen, Uncetari produktua salduz.

4.227. JAZ-Zubiaurre: Langileak; EEBBetan filiala (EIB-712/016)

Gaur egun 70 langile inguru daude lantegian. Askoz gehiago ez dira izan, nahiz eta garai batean produkzioaren fase gehiago egiten ziren Eibarren. Estatu Batuak da beraien bezero nagusia eta %40-aren esportazioak bertara bideratzen dira. Orain dela 20 urte filial bat sortu zuten.

4.228. JAZ-Zubiaurre: Emakumezkoak lantegian (EIB-712/017)

JAZ-Zubiaurren beti egon dira emakumezkoak lanean. Material finak erabiltzen zirenez, emakumeek trebezia izaten zuten. Gaur egun, produkzioan gutxiago daude eta bulego eta arlo teknikoan berdintasuna dago. Emakumezko eta gizonezkoen soldatak berdinak dira.

4.229. JAZ-Zubiaurre: Krisi ekonomikoak; Bezeroak (EIB-712/018)

Krisi ekonomiko ezberdinak gainditu dituzte, salmentak merkatu ezberdinekin sakabanatuta dituztelako. Bezero gehienak EEBB-etan dituzte eta enpresa txikiak dira. JAZ-eko produktua zein sektoretan erabiltzen den aipatzen du.

4.230. JAZ-Zubiaurre: Globalizazioaren aukerak eta mehatxuak (EIB-712/019)

JAZ-Zubiaurrerentzat globalizazioak suposatzen dituen alde on eta txarrei buruz hitz egiten du Eduardok. Produktu heldu bat saltzen dutenez, berritzen saiatzen dira. Merkatu txiki batean mugitzen dira.

4.231. JAZ-Zubiaurre: Etorkizuneko erronkak (EIB-712/020)

Enpresa txikia dira, baina hurrengo urteetan beraien merkatua haztea da JAZ-Zubiaurreren erronka nagusia.

4.232. JAZ-Zubiaurre: Langileen perfila (EIB-712/022)

Lantegian dauden langileen profil ezberdinak aipatzen ditu: ingeniariak, komertzialak, administrariak eta Lanbide Heziketako profilak (mekanika, elektronikak, mekatronika...). Armeria Eskolarekin harreman handia daukate

4.233. Eibarko industriagintzaren erronkak (EIB-712/023)

Eibarko industriagintzaren gakoak berrikuntza da. Kokapena dela eta, zabalkunderako aukera oso eskasa da baina inguru guztia industrialia denez, horri lotu beharko litzatekeela uste du Eduardok. Hirigunean dauden lantegi hutsak erabiltzea da beste erronketako bat.

4.234. JAZ-Zubiaurre: Asua Errekatik Azitainera (EIB-712/025)

JAZ-Zubiaurre, Muzategin egotetik Asua-Errekan egotera pasatu zen eta bertan 27 urtez egon ziren. Azitaingo poligonora 1997. urtean mugitu ziren eta bertan kokatu zen lehenengo enpresa izan zen. Asua-Errekako kokapenaren baldintzak oso zailak ziren, nahiz eta 4.000 metro karratutako eraikina izan. Gutxinaka handitzen joan ziren.

4.235. JAZ-Zubiaurre: Asua Errekako lantegia hutsik (EIB-712/026)

Asua Errekako eraikinak hutsik jarraitzen du. Eduardok ez dio erabilera industrialik ikusten, kokapena ez delako ona ezta eroso ere.

4.236. Gerran jaioa Geronan (EIB-713/002)

Geronan jaio zen, bere aita erresistentziako talde antiaereoaren kapitaina zelako bertan. Carmen jaio egun egun gitxira aita hil eta Bartzelonan bizitzen egon ziren Toribio Etxeberriak Frantziara ihes egiteko baimen bat lortu zien arte. Bost urterekin Eibarrera bueltatu ziren.

4.237. Thieme & Edeler-en hazia (EIB-713/003)

Gerra ostean Eibarrera bueltatu ziren eta Carmenen ama Thieme & Edeler lantegian hasi zen lanean eta denbora asko pasatzen zuen hor.

4.238. Gerra ostean Eibarrera buelta (EIB-713/004)

Gerratik bueltan Eibar nola zegoen gogoratzen du. O'Donell kaleko bonbak utzitako zuloa, Elgeta kalea... Ama etxean triste egoten zela gogoratzen du.

4.239. Zazpi urterekin enkarguak egiten (EIB-713/005)

Lehenengo panpina, Ignacio Anituak oparitu zion. Caritas-era joaten ziren janari bila. Zazpi urterekin enkarguak egiten zituen eta ordainetan 2 pezeta eta igandetako bazkaria lortzen zuen.

4.240. ALFAn lanean hasi aurretik oporrak eskatu zituen (EIB-713/006)

Hamaika urterekin jostundegi batean lanean hasi zen baina lana utzi eta bere kabuz jozten hasi zen. 18 urte betetzear zegoela ALFA lantegitik deitu zioten. Lanean hasi aurretik oporrak eskatu zituela kontatzen du.

4.241. Falangeko ikastaroa egin behar pasaportea lortzeko (EIB-713/010)

Untzagan zegoen "Frente de Juventudes" falangeko taldeak antolatzen zituen ikastaro batzuetara joan behar izaten zuten emakume ezkongabeek, pasaporte eta bestelako eskubide batzuk lortzeko. Bertan bizitako istorio batzuk kontatzen du.

4.242. Ideologia ezberdinak herrian (EIB-713/011)

Franko hil aurretik denak elkartuta zeuden eta ostean, denak urrunduta eta borrokan.

4.243. Klandestinitatean lanean txikiteoan (EIB-713/016)

Franko hil aurretik, alderdi politiko ezberdinak klandestinitatean ibili behar ziren. "Txikiteo"-an elkartzen ziren, normaltasunez jokatzuz.

4.244. Sozialismoa etxean jaso (EIB-713/018)

Sozialismoa etxean jaso du beti Carmenek. Izeba bat, Jose Antonio Agirrereren etxezaina zen eta Carmenen lehengusuak errepublikaren alde aldarrikatzen zuen bere aurrean. Dena etxe barruan zen.

4.245. Klandestinitatean informazioa pasatzen (EIB-713/019)

Tabernetan txikiteo orduan pasatzen ziren informazioa bata besteari. Gero, baserri batzuetan biltzen ziren. Zertaz hitz egiten zen: diru-bilketak, manifestazioak, mitinak...

4.246. Polizia, ihes egindako osabaren bila I (EIB-713/020)

Carmenen osaba bat errefuxiatua zen Frantzian eta etxean esana zioten berari buruz galdezka etortzen baziren, hilda zegoela esan behar zuela. Behin, gizon bat osabagatik galdetzen joan zitzairen etxera eta gero jakin zuen polizia zela. Istorioa kontatzen du.

4.247. Polizia, ihes egindako osabaren bila II (EIB-713/022)

Etxean kontatu zuenean poliziaren aurrean esan zuela osaba ez zegoela hilda eta errefuxiatua zela, amak izugarrizko errieta bota zion. Ama beldur zen, beraien atzetik ibiliko zirelako.

4.248. ALFA-ko sindikatuen artean tirabirak (EIB-713/023)

ALFA-n egiten zituzten aldarrikapen politiko eta ekonomikoez hitz egiten du. Carmen UGT-ko kidea zen. Sindikatuen artean tirabirak egoten ziren.

4.249. "La Churrera", propaganda politikoa egiteko makina (EIB-713/025)

Carmenen senarrak, lantegian kopiatzeko makina bat zuen eta herriko ideologia ezberdinentzat propaganda kopiatzen zuen. "La Churrera" deitzen zioten. 1981ko Otsailaren 23an suntsitu zuten, errepresalia posibleen beldurrez.

4.250. Paskinetako lemak (EIB-713/026)

Paskinetan eta propagandetan jartzen zuena kontaktzen du. Inoiz ez dira beraien bila joan.

4.251. Felipe Gonzalez beraien etxean (EIB-713/027)

Felipe Gonzalez Eibarrera lehenengo aldiz joan zenekoa kontaktzen du Carmenek. Beraien etxean egon zen, telefono dei bat egiten eta bazkaltzen.

4.252. Sozialismoa Eibarko lantegietan (EIB-713/028)

Sozialismoa beti egon da Eibarren. Garai batean, lantegietan ere langileek beraien soldatatik zati bat kentzen zuten beste norbaitek noizbat behar bazuen erabiltzeko (gaixotasunak, heriotzak...).

4.253. Goi Argi emakume elkartean laguntzen (EIB-713/029)

Hamaika urterekin lanean hasi zenean, Goi Argi elkarteko elikagaiak ez zituela gehiago jasoko esan zion Mercedes Kareagari. Hark, ordainetan, Goi Argiko ekintza batzuetan laguntzeko eskatu zion. Mercedes Kareagak egin zuen lana goraiatzen du.

4.254. Franco hiltzen denean, lasaitasuna (EIB-713/030)

Franco hil zenean, herrian lasaitasuna somatzen zen. Franco zegoenean, beti zegoen norbait denei kontrolatzen. Errepublika eguna ospatzeko mendira joaten ziren.

4.255. Trantsizioa, gerra eta liberazio garaia (EIB-713/032)

Carmenentzat, trantsizioa gerra eta liberazio garaia izan zen. Dena zegoen egiteko politika arloan.

4.256. Ihes egiten zutenei laguntza ematen (EIB-713/033)

"El Socialista" aldizkaria irakurtzen zuen. Autore ezberdinak irakurri ditu: Pablo Iglesias, Ramon Jauregi, Enrique Mujika... Carmenen osaba errefuxiatua zen eta etxean ihes egiten zutenei laguntza ematen zieten etxean.

4.257. Jendea etxean ezkutatzeagatik beldurrik ez (EIB-713/034)

Ez du inoiz beldurrik izan informazioa pasatzeagatik edo jendea ezkutatzeagatik.

4.258. Haurtzaroa Eibarren (EIB-714/003)

Aita garraiolaria zen eta ama etxeko-andrea. Sei anai-arreba dira. Gerra hasi zenean, amaren familiaren baserria joan ziren Elgoibarrera. Gerratik bueltan, Bidebarrietara joan ziren bizitzera.

4.259. Mercedes Kareaga eta "Acción Católica" (EIB-714/005)

Aldatzeko ikastetxean egin ditu ikasketa guztiak eta 18 urtean lanean hasi zen. "Acción Católica"-n sartu zen. Elikagaiak banatzen zituzten baina kanpotik Eibarrera lanera heldutako jendea joaten zen elikagai bila. Eibartarrek lotsa sentitzen zuten, nahiz eta beharra izan.

4.260. Goi Argi emakumeen elkarte: sorrera (EIB-714/006)

Mercedes Kareagak emakumeentzat elkarte bat sortu nahi zuen, ez zutelako nora joan. Garai batean, igandetan, meza ostean, gizonezkoak elkarretara joaten ziren, baina emakumeek ez zuten nora joan. Mercedesek, orduan, emakumeentzat bakarrik izango zen elkarte bat sortu zuen. Hasieran, igandetako mezaren jarraipena egiten zuten.

4.261. Mercedes Kareaga eta Tere Gantxegi (EIB-714/007)

Goi Argiko burua eta ideologoa Mercedes Kareaga izan arren, Tere Gantxegi zen bere gertuko laguntzailea: bankura joan, merkataritza-lanak egin... Mercedesek ere lan asko egiten zuela kontatzen du Carmenek.

4.262. Goi Argi emakumeen elkarte: bazkideak, finantziaketa eta egoitza (EIB-714/008)

600-700 bazkide ziren hasieran Goi Argi elkartean. Sartzeko, 250 pezeta ordaintzen ziren mailegu bezala. Diru horrekin elkarterako erosi zuen etxebizitza egokitu zuen Mercedes Kareagak. Bazkideek sartzekoan ordaintzen zuten maileguekin, industrialari batzuek (Remigio Etxebarriak, Sarasketak...) emandako diruarekin eta aurrezki kutxaren maileguarekin eraman ziren aurrera lokalaren erosketa eta egokitzapenak.

4.263. Goi Argi emakumeen elkarte: bazkide gazteak gaur egun (EIB-714/009)

Elkarte sortu zuteneko emakumeak zahartzen joan direla kontatzen du Carmenek. 2018an bera zen sorrerako emakumeen artean batzordean zegoen bakarra eta emakume gazte batzuk sartu zirenean, batzordea utzi zuen. 200 bazkide baino gehiago dira gaur egun, nahiz eta hogeitaz inguru biltzen diren egunerokotasunean.

4.264. Goi Argi, kultura eta olgetarako elkarte da (EIB-714/010)

Goi Argi elkartean ez dituzte bazkariak egiten, baina bai askariak. Ez dira elkarte gastronomiko bat, kultura eta olgetarako elkarte baizik.

4.265. Emakumeak elkartean egotea, begi onez ikusia (EIB-714/011)

Goi Argi emakume elkartea zabaldu zenean, bazkideen senarrek begi onez ikusten zuten beraien emazteak elkartean egotea. Herrian denak ezagutzen zuten elkar eta Mercedes Kareagaren lana ere oso ezaguna zen.

4.266. "Operación Ladrillo", Eibarko zaharren-egoitza sortzeko (EIB-714/012)

Mercedes Kareagak "Operación Ladrillo" delakoa jarri zuen martxan Eibarren, San Andres zaharren-egoitza sortzeko. Etxe etxe joaten ziren 1000 pezeta eskatzen eta, diru asko izan arren, herritarrek eman egiten zuten, egoitza gero eibartarrentzat izango zelako.

4.267. Cayetano Careaga-Gureak tailerraren sorrera Eibarren (EIB-714/014)

Mercedes Kareagak, Eibarren adimen urritasuneko pertsonentzat tailer bat sortu nahi zuen. Donostian bazegoen eta haiei eskatu zien arren, ezezkoa jaso zuen eta berea zen tailer batean hasi zuen proiektua.

4.268. Emakumeentzat ikastaroak Goi Argi elkartean (EIB-714/015)

Goi Argi emakume elkartean ikastaroak ematen ziren. Sukaldaritza ikasteko, Bar Loiolako Felisa Loiolak ematen zituen ikastaroak. Errezetak elkartean gordeta dauzkate. Lixatzen ikasteko ikastaroak Maria Luisa Zubiaurrek ematen zituen, Margola tindategiko lixatzaileak.

4.269. Goi Argi elkartean tonbolak antolatzen; sariak (EIB-714/016)

"Eibarko Bizikleta"ri eta herrian aurkitzen zituzten bestelako beharrei laguntzeko, "tonbola" deitzen zieten diru-bilketak egiten zituzten Goi Argi emakume elkartekoek. Tonbolako sari nagusia bizikleta izaten zen. Panpinak ere oso bereziak izaten ziren, haien arropak herriko emakumeek josten zituztelako. Sari txikiagoak Bilbon erosten zituzten; lapikoak Eskoriatzan. Sari guztiak udaletxeko arkupeetan erakusten ziren eta han egoten ziren tonbolaren egunera arte. Udalaren laguntza handia izan zuten.

4.270. Goi Argi izen euskaldunarekin ezin zabaldu elkartea (EIB-714/017)

"Acción Católica"n sartu aurretik, Mercedes Kareaga politikan sartuta ibili zen. Debekatu egin zitzaion elkarteari "Goi Argi" izen euskalduna ipintzea eta ofizialki "Sociedad Femenina Eibarresa" bezala sortu behar izan zen. Oraindik ere frankismo garaian, Goi Argi izena jartzea lortu zuten, baina ez du gogoratzen nola izan zen prozesua. Pons gotzainaren laguntza izan zuten elkartea zabaltzeko.

4.271. Emakume eibartarrak, beti ezberdinak eta aurrerakoia (EIB-714/018)

Gerra aurretik Mercedes Kareaga kartzelan egon zen. Gerraostean politika utzi eta emakume eibartarraren alde lanean jardun zuen. Karrantzatik etorri zen lagun batek esan zion Carmeni, leku askotan ibili arren, emakume eibartarrak baino prestatuagoak ez zeudela inon. Emakume eibartarrak kanpoan lan egin du eta aurrerakoia izan da.

4.272. Frankismo garaian, Goi Argin ez zen politikaz hitz egiten (EIB-714/019)

Goi Argi elkartean ez ziren eztabaida politikoetan sartzen. Ideologia ezberdineko emakumeak zeuden. Herrian gertatzen ziren beste egoera batzuei buruz bai, ordea.

4.273. Garbigailuaren barruan egiten zuten esnea, herrian banatzeko (EIB-714/020)

Emakumeek laguntza eskatzen zioten Mercedes Kareagari. Caritasen esnea egin eta banatzen zuten eta, kalitate onekoa izateko, Otsein garbigailu bat erabiltzen zuten ura eta esne-hautsa nahasteko. Jendeak gero botilak edo pitxerrak eramaten zituen eta beraiek esnea banatzen zuten.

4.274. Gaur egun jokoan ibiltzen dira elkartean (EIB-714/022)

Urteekin, Goi Argi emakume elkartean egiten ziren ekimen ugari eskuz aldatzen joan dira eta gaur egun, erakunde ezberdinek egiten dituztenez, beraiek jokoan aritzen dira. Aratusteetako asteartean askari handi bat egiten dute.

4.275. Etxeko ekonomiari eta espiritualtasunari buruzko hitzaldiak Goi Argin (EIB-714/024)

Emakumeen sexualitateari buruzko ikastaro oso gutxi eman zituzten Goi Argi emakume elkartean. Gehienak etxeko ekonomiari eta espiritualtasunari buruzko formakuntzak ziren. Setien gotzainak hitzaldi batzuk eman zituen.

4.276. Mercedes Kareaga, emakume bikaina (EIB-714/025)

Mercedes Kareaga emakume aurrerakoia zen. Carmenek asko miresten du Mercedes, elkarteko gainerako emakumeek bezala. Formakuntzak erlijio katolikotik ematen bazituen ere, Mercedesi berdin zitzaion bakoitzaren sinismena. Pertsonak ikusten zituen.

4.277. Drogaren arazoa Eibarren (EIB-714/026)

Goi Argin bazeuden drogan sartu ziren pertsonen amak, baina ez ziren hiru haizetara kontatzen. Modu baten edo bestela, denek drogaren arazoa pairatu zutela dio Carmenek.

4.278. Goi Argi elkartean urtean behin sartzen dira gizonezkoak (EIB-714/027)

Carmenentzat Goi Argi emakume elkarteak "bizimodu zuzena" nola eraman eskaini zion herriari. Etxe askotara elkarteak bizipoza eraman zuen, emakumeentzat ez zegoelako aisialdirako ezer garai batean. Bazkideen bikoteak urtean behin bakarrik sar zitezkeen elkartera. Pasadizo bat kontatzen du Carmenek, behin maniki bat eraman zuen emakume bat gogoratuz.

4.279. Goi Argi, estatuko lehenengo emakume-elkartea (EIB-714/028)

Goi Argi emakume elkartearen egoitza izango zena etxebizitza eraikitzen zegoenean erosi zuten eta Mercedes Kareagaren gustura moldatu zen, espazio guztia zabalik izateko. Espainiako estatuan sortu zen eta oraindik irauten duen lehenengo emakume-elkartea da Goi Argi. Carmen oso harro sentitzen da.

4.280. Goi Argi elkarteko kanta, Carmen Irustak sortua (EIB-714/029)

Carmen Irusta eibartar artista Goi Argi emakume elkarteko bazkidea zen. Kanta bat asmatu zuen elkartearen inguruan eta Carmenek abestu egiten du. Emakumeak beti pozik joaten ziren elkartera.

4.281. Goi Argi elkartea, emakumeek lagunak egiteko espazioa (EIB-714/030)

Emakume askori lagunak egiteko aukera eman zion Goi Argi elkarteak. Carmenen amak aitarekin kalera atera nahi izaten zuen eta, Goi Argira joaten hasi zenean, lagunak egin zituen eta jada ez zuen nahi izaten beti.

4.282. Herrikoei laguntzen euren poltsikoetatik (EIB-714/031)

Antzerkiak egiten zituzten Goi Argi emakume elkartean. Batzuetan kanpotik etortzen zen talderen bat, baina gehienetan beraiek antolatzen eta antzezten zituzten. Caritas hasi zenean, beraiek ziren jendearekin egoten zirenak. Behar izan denean, euren poltsikotik jarri izan dute dirua.

4.283. Mercedes Kareaga, herrian maitatua (EIB-714/032)

Mercedes Kareagak bere familiaren babesa izan zuen beti. Mercedes gai garrantzitsuetan sartzen zen eta emakume izanda kritika gehiago jasotzen zituen arren, oso onartuta zegoen herrian.

4.284. Errazionamendu txartelak gerraostean (EIB-717/002)

Gerra bukatu zenean jaio zen Felix. Etxean ez zuten goserik pasa, aita frankista zelako eta errazionamenduko txartel gehiago zituztelako.

4.285. Umetako jolasak; kanposantua eliza barruan (EIB-717/004)

Umetan, Txirio kalekuek elkarrekin jolasten zuten, gehienbat pilotan elizako paretaren kontra. San Andres elizako kanposantuan zeuden hezurak nola atera zituzten gogoratzen du. Harrika ere ibiltzen ziren, Elgeta kalekoen kontra. Elizako arkupeetan ere korrika ibiltzen ziren.

4.286. Sindikatu bertikaleko ALFAko bitartekaria (EIB-717/005)

Hamalau urterekin hasi zen lanean Felix, BH lantegiko biltegian. Handik ALFAra aldatu zen eta hamabi urtez egin zuen bertan lan. Sindikatu bertikaleko bitartekaria zen. Bilerak, Untzagako sindikatuko egoitzan egiten zituzten arren, mendian ere bilera batzuk egiten zituzten, klandestinoki.

4.287. TEFISO ikaskuntza taldea; sorrera (EIB-717/009)

TEFISO elkarte ("Teología, Filosofía y Sociología"): larunbatero biltzen ziren eta bakoitzean pertsona batek zerbaitekin prestatzen zuen. Hortik tailer txiki bat sortu zuten, Armas Mendi, eta Felix gerentea izan zen. Gero, kooperatiba baten bihurtu zen eta langile bakoitzak bere beharren arabera kobratzen zuen. TEFISO sortzeko ideia, behin jesuitekin izandako batzar batetik ateratako ideia izan zen.

4.288. Eroski-ren sorrera (EIB-717/011)

Juan XXIII kontsumo- kooperatiba sortu zuten Eibarren. Eroski, Juan XXIII eta beste 5 kooperatiben elkarketarekin sortu zen eta Caja Laboralaren laguntzarekin sortu zen. TEFISO-k bidali zuen Felix Eroskira lanera.

4.289. TEFISO-ren eskuhartzea (EIB-717/012)

TEFISOk esaten zien non behar zen beraien lana: ekintza kulturaletan, Eroskin, Arrate Kultur Elkartearen, irakurketak egiten elizan... Taldeak ez zuen zer ikusirik elizarekin.

4.290. Eroskiri boikota Espainiako estatuan (EIB-717/016)

Eroski handitzen hasi zen baina arazo asko aurkitu zituen Espainiako estatuan zabaltzeko, kooperatiba euskalduna izateagatik eta arrazoi politikoengatik. Burgosen, ETAK bahituta gizon baten etxe inguruan zuten denda eta boikota egin zieten.

4.291. Gaztetan Mundo Obrero irakurtzen zuen (EIB-717/019)

Etxean ondo gordeta Mundo Obrero aldizkariak izaten zituen Felixek eta bere aitari ez zitzaion gustatzen, frankista zelako. Felixek ez zituen aitaren aurrean irakurtzen.

4.292. Euskarazko lehenengo zinekluba Eibarren (EIB-717/022)

TEFISOren barruan egonik, saltsa guztietan sartzen ziren beraien ideologia eta pentsaerak zabaltzeko: zinean, Arrate Kultur Elkartearen, elizan... Eibarren egin zen lehenengo euskarazko zinekluba antolatu zuten.

4.293. Zinekluba Eibarko Arrate Kultur Elkartearen I (EIB-717/023)

Astero egiten zuten zinekluba Arrate Kultur Elkartearen. Zinekluba nola antolatzen zen kontatzen du: nondik lortzen zituzten, filma motak, hizlari ezagunak, filmaren osteko tertulia...

4.294. Zineklubeko filmek zentsura pasa behar zuten (EIB-717/024)

Zineklubean ipintzen zituzten filmak zentsuratik pasatu behar ziren. Eibarren zentsuraren arduraduna Muguruza zen eta hark bere etxean filma ikusten zuen eta ondoren filma botatzeko baimena ematen zuen edo ez.

4.295. Zinekluba Eibarko Arrate Kultur Elkartean II (EIB-717/025)

Filmak Madriletik heltzen ziren. Aretoan 100 bat pertsonentzat lekua zegoen. Sarrera dohainik zen Arrate Kultur Elkarteko kideentzat. Ostegunero botatzen ziren filmak. Zineklubaren arrakasta, filmaren osteko eztabaidetan zegoela uste du Felixek.

4.296. Helmholtz pantaila Arrate Kultureko zinean; Tomas Alba (EIB-717/027)

Zineklubean, Eibarren egindako Helmholtz pantaila zegoen. Tomas Albak musika sesio batzuk aurkeztu zituen Eibarren bizi izan zenean. Nor zen eta Triple A-k nola hil zuen kontatzen du.

4.297. Zinekluba Eibarko Arrate Kultur Elkartean III (EIB-717/028)

"Calle Mayor" filma izan zen euskaraz lehenengo aldiz aurkeztu zen filma Arrate Kultur Elkartean. Aurkezpena euskaraz izateak alde eta kotrako jarrerak izan zituen ikusleen artean.

4.298. Frankismoaren azken garaiko aldizkariak (EIB-717/029)

Frankismoaren azken urteetan, gizarteak aldatzeko nahia zuen eta garaiko aldizkarietan nabaria zen: Cambio 16, Diario SP, Triunfo...

4.299. Arrate Kultur Elkartean kontzertuak (EIB-717/033)

Arrate Kultur Elkartean antolatu ziren kontzertu batzuez hitz egiten du: Nicanor Zabaleta harpa jotzen, Narciso Yepes 11 sokako kitarrarrekin...

4.300. Juan San Martin, lagun handia (EIB-717/035)

Klub Deportiboko diruzaina izan zen Felix. Orduan Juan San Martin zen klubaren zuzendaria zen gizon jakintsua zela kontatzen du Felixek. Denetarik zekien: arteaz, geologiaz, mendiaz... Lehenengo Arartekoa izan zen.

4.301. Francoren heriotza; Carrero Blanco (EIB-717/039)

Francoren heriotzaz nola jakin zuen kontatzen du. Lanean, bazkaltzen zeundela telebistan ikusi zuten. Lasaitasuna sentitu zuen. Carrero Blancoren atentatuak ordea beldurra eragin zion, egon zitezkeen ondorioengatik.

4.302. Lorenzo Zabalaren bahiketa (EIB-717/040)

Felix, Lorenzo Zabalaren (ETAk bahitua) alboan bizi zen. Bahiketaren baldintzen gutuna nola jaso zuen eta bertan zer jartzen zuen kontatzen du.

4.303. Aita, alkate frankista (EIB-717/046)

Felixen aita, Eibarko alkatea izan zen bera jaio eta gutxira. Baina sei seme-alaba zirenez eta alkateak ez zuenez soldatarik, tailerrera bueltatu zen. Aita frankista zen eta Carlos VII.-aren irudi bat zegoen. etxean. Bere beste bi osabei buruz hitz egiten du: bata ELA-koa eta bestea "Adoración Nocturna"-ko kidea.

4.304. Osaba, "Gaueko Gurtzako"-ko kidea (EIB-717/047)

Felixen osaba Periko, Gaueko Gurtzako-ko("Adoración Nocturna") kidea zen. Larunbatero biltzen ziren eta nolakoa zen kontatzen du.

4.305. Lehenengo soldata (EIB-717/048)

Akolitua izan zen eta lehenengo soldatarekin sandalia batzuk erosi zituen.

4.306. Hitzaldi politikoak elizan (EIB-717/052)

Behin, Eibarko Karmeldar elizan egin behar zuten hitzaldi politiko batera guardia zibila agertu zen eta Felixek esan zien ezin zirela bertan sartu. Guardia Zibiletako bati "El Gamuzas" deitzen zioten. Setien gotzaiak beste batean nazionalismoari buruzko hitzaldi bat eman zuen.

4.307. Familiako denda (EIB-718/002)

San Andres Pasealekuan jaio zen eta etxean elikagaien denda bat zuten. Umetatik berak eta anaiak lan egin dute dendan, enkarguak egiten...

4.308. Amagandik ikasi zuen emakume independentea izaten / (EIB-718/003)

Etxean asko irakurri dute beti. Aitonak politikoki oso ezberdinak ziren. Arrateren amak beti irakatsi dio bere bizitza bakarrik ateratzeko gai izan behar zela, gizonen menpe egon gabe. En casa siempre se ha leído mucho. Sus abuelos tenían ideologías políticas diferentes. Su madre siempre le inculcó que tenía que sacar su vida por sí misma, sin un hombre.

4.309. Etxean eta kalean, egoera politiko ezberdinak (EIB-718/004)

Umetan ipuinak eta komikiak irakurtzen zituen arren, etxean politikari buruzko liburu asko zeuden. Eskolan eta etxean esaten ziren gauzak oso ezberdinak zirela konturatzen zen arren, ez zekien arrazoia zein zen. De niña leía cuentos y cómics, aunque en casa entraban muchos libros sobre política. Ella se daba cuenta que lo que se contaba en la escuela y lo que se vivía en casa era diferente, pero no sabía exactamente qué era.

4.310. Frantzia adierazpen askatasuna; hemen, ez / En Francia había libertad de expresión; aquí no (EIB-718/005)

Aldatzen ikasi zuen eta udan Frantziara joaten ziren. Bertan adierazpen askatasuna zegoela konturatzen zen Arrate eta bueltan aitonari galdetzen zionean ea hori zergatik zen, honek erantzuten zion hemen kontuz ibili behar zirela esaten zutenarekin. Arrate estudió en Aldatze y todos veranos iban a Francia. Allí ella veía que había libertad de expresión y cuando volvía y hablaba sobre el tema con su abuelo, este le decía que aquí las cosas eran diferentes y que había que tener mucho cuidado con lo que se decía en la calle.

4.311. Euskaraz ez jakitea bere puntu ahula / No saber euskara, su punto débil (EIB-718/006)

Bere gurasoek etxean beraien artean euskaraz egiten bazuten ere, dendan beti gazteleraz egiten zuten eta seme-alabei ez zieten horrenbeste egiten. Euskaraz ez jakitea bere puntu ahultzat hartzen du, gerora beste hizkuntza batzuk ikasi zituelako. Aunque sus padres hablaban euskara entre ellos en casa, los temas de la tienda siempre las hablaban en castellano y Arrate cree que no les inculcaron el euskara lo suficiente. No saber euskara es su punto débil.

4.312. Ingalaterran "au-pair" / En Ingalaterran de "au-pair" (EIB-718/007)

Ez zuen familiako dendan lan egin nahi eta bi urtez Ingalaterran "au-pair" bezala lan egin zuen. Bueltan, Eibarko ekimen kulturaletan parte hartzen hasi zen baina gehienak erlijioarekin lotura zuten eta ez zetozten Arraterekin bat. Se fue a Inglaterra de "au-pair" porque no quería trabajar en la tienda familiar. Al volver empezó a tomar parte en los iniciativas locales como el cine fórum de la Asociación Cultural Arrate, pero la mayoría de actividades estaban ligadas a la religión y Arrate no se sentía del todo a gusto.

4.313. TEFISO eta Juan XXIII kooperatiba / TEFISO y la cooperativa Juan XXIII (EIB-718/008)

Familia erlijiosoa ez izan arren, Arratek Aldatzen ikasi zuen. Berak ez du erlijioarekin loturarik baina amarengandik ikasi zuen jendea laguntzeak zuen garrantziaz. Herritar talde bat elkartu ziren TEFISO ("Teología, Filosofía y Sociología") sortuz . Bertatik Juan XXIII kooperatiba. Taldean orduko egoera sozialaz hitz egiten zen. Aunque de familia no religiosa, Arrate estudió en Aldatze. Aprendió de su madre que había que ayudar a los demás. Entre un grupo de personas de Eibar, crearon el grupo TEFISO ("Teología, Filosofía y Sociología") y después la cooperativa Juan XXIII. Debatían sobre la situación social de entonces.

4.314. CCOO sindikatuan eta militantzia komunistan / Sindicalista de CCOO y militante comunista (EIB-718/009)

Enpresan, Comisiones Obreras-eko sindikatuan egon zen Arrate. Beti klandestinitatean biltzen ziren, askotan mendian. Lan-baldintza hobetoak lortzea zen beti helburua. Alderdi politiko ezberdinetan militatu du, azkena Euskadiko Mugimendu Komunistan. Ha sido parte de Comisiones Obreras y se reunian clandestinamente, muchas veces en el monte. El objetivo era siempre mejorar las condiciones laborales. Ha militado en diferentes partidos políticos, la última vez en el Movimiento Comunista de Euskadi.

4.315. Ezkertiarra baina ez abertzalea / De izquierdas pero no nacionalista (EIB-718/010)

Arrate ez da abertzalea eta garai batean espainiarren aldekotzat hartzen zituzten. Ezkertiarra izan da beti. ETArekin kontra egon zen ia hasieratik baina uste du ez zutela balorerik izan horri aurre egiteko. Yoyes-en hilketak ezberdintasun bat markatu zuela uste du. Arrate no es nacionalista y fue tachada de "españolista". Es de izquierdas. Estuvo en contra de ETA casi desde el principio y cuenta que el asesinato de Yoyes marcó un antes y un después.

4.316. Eibar, Burgos-ko prozesuaren aurka borrokan / Eibar se volcó contra el Proceso de Burgos (EIB-718/011)

1971an, Burgoseko prozesuaren ondoren, Frantziara exiliatu zen. Eibartar guztiak Burgoseko prozesuaren aurka zeuden, jarrera politikoak kontuan izan gabe. Arrate eta Mario Onaindiaren arteko harreman ona. Eibarren Burgos-ko prozesuaren aurkako borrokaren zergatiak azaltzen ditu. En 1971, tras el proceso de Burgos, se exilió en Francia. Todo Eibar se volcó contra el proceso, independientemente de la ideología política. Arrate y Mario Onaindia siempre han sido muy amigos. Arrate cuenta las razones que llevó a Eibar a volcarse contra el Proceso.

4.317. Roberto Perez Jauregiren hilketak; amarekin kode bidez hitz egiten / Asesinato de Roberto Perez Jauregi; hablando con su madre mediante código (EIB-718/012)

Burgos-ko prozesuaren kontrako manifestazio batean Roberto Perez Jauregi heriotzerarte tirokatu zuten egunaz hitz egiten du. Robertok, Arraterekin eta bere senarrarekin militatzen zuten Nazioarteko Alderdi Komunistan. Arratek etxera deitu zuenean eta amak adostuta zuten kode baten bidez hitz egin zionean, jakin zuten guardia zibila bere atzetik zebilela eta ihes egin behar zuela. Arrate habla sobre lo ocurrido en manifestación contra el Proceso de Burgos en el que hirieron de muerte a Roberto Pérez Jauregi. Roberto militaba con ella y su marido en el Partido Comunista Internacional. Cuando Arrate llamó a su casa, su madre le habló en un código ya preestablecido entre ellas y así supo que la guardia civil le estaba buscando y que tenía que huir.

4.318. Jipoiak kalabozoan / Palizas en el calabozo (EIB-718/013)

Maiatzak 1eko manifestazio batean, Mario Onaindia eta Arrate atxilotu zituzten. Berari bi zaplazteko eman zizkioten baina Mario jipoitu egin zuten eta egun batzuk eman zituen kalabozoan. Mario Onaindia y Arrate fueron detenidos en la manifestación de un 1 de Mayo. A Arrate le dieron dos tortazos pero a Mario le dieron una paliza y le tuvieron detenido unos días.

4.319. Emigrazioaren drama / El drama de la emigración (EIB-718/017)

Parisen bizi izan zirenean, espainiar emigratu asko ezagutu zituen eta orduan konturatu zen emigrazioaren dramaz, seme-alabak Espainian uzten zituzten gurasoenak edota Parisen hazi eta sorterrira bueltatu nahi ez zuten semearena... Guzti horrek Arraterengan kontzientzia garatu zuen eta gaur egun errefuxiatuekin lan egiten du ere. En París conoció de primera mano el drama de la emigración: familias que volvían de vacaciones de España a Francia y dejaban a los hijos en el pueblo con los abuelos, hijos e hijas mayores que ya no querían volver a España... A raíz de esto Arrate ha intentado siempre trabajar con los refugiados.

4.320. Exiliotik bueltan, Euskadiko Mugimendu Komunistan militatzen / Militando en el Movimiento Comunista de Euskadi tras el exilio (EIB-718/018)

Eibarren, polizia beraien atzetik zebilen eta Parisen exiliatu ziren errefuxiatu politiko bezala. Francoren heriotzaren garaian bueltatu ziren eta Euskadiko Mugimendu Komunistan militatzen hasi ziren Arrate eta bere bikotea. Partidua legalizatu zenean hauteskundeetara aurkestu ziren. LKI-rekin lan egiten zuten ere En Eibar eran perseguidos por la policía y se exiliaron en París como

refugiados políticos. Cuando volvieron Franco ya había muerto y siguieron su lucha en el Movimiento Comunista de Euskadi (EMK). Cuando se legalizó el partido, se presentaron a las elecciones.

4.321. Lehenengo aldarrikapen feministak / Primeras reivindicaciones feministas (EIB-718/019)

Frantzia feminismoarekin topatu ziren eta ideia horrek ekarri zituzten bueltan. 1978. urte inguruan, Liga Komunista Iraultzaileko (LKI) eta EMK-ko emakumeen artean ekimenak egiten hasi ziren. Eibarko Emakumeen Asanblada sortu zuten. En Francia comenzaron a desarrollar ideas feministas y ya en Eibar, se empezaron a juntar mujeres del EMK (Movimiento Comunista Vasco) y de la Liga Comunista Revolucionaria (LCR) para llevar a cabo reivindicaciones a favor de los derechos de la mujer. Crearon la Asamblea de Mujeres de Eibar.

4.322. Eibarko Emakumeen Asanblada: karrozak / Asamblea de Mujeres de Eibar: carrozas (EIB-718/020)

Eibarko Emakumeen Asanbladak antolatzen zituzten karroza kritiko eta ironikoei buruz hitz egiten du Arratel. Bertan, emakumeen eskubideak eta berdintasuna aldarrikatzen zituzten. Karroza batzuk oso polemikoak izan ziren Eibarren, "No somos reinas solo por un día" esaterako. Tratu txarren aurkako manifestazioak ere egin zituzten. La Asamblea de Mujeres de Eibar organizaba carrozas críticas e irónicas, a favor de la igualdad y de los derechos de la mujer. La carroza "No somos reinas por un día" fue muy polémico en Eibar.

4.323. Eibarko Emakumeen Asanblada: tratu txarrak salatzen/ Asamblea de Mujeres de Eibar: denunciando malos tratos (EIB-718/021)

Eibarko Emakumeen Asanbladak, tratu txarren aurkako kanpaina oso indartsu bat hasi zuen herrian. Emakume asko hurbildu zitzaizen laguntza eske. Jendearen iritziez eta kasu batzuetaz hitz egiten du. La Asamblea de Mujeres de Eibar llevó a cabo una campaña muy importante contra los malos tratos y muchas mujeres de Eibar fueron a pedir ayuda. Habla sobre algunos casos, sobre lo que pensaban otros...

4.324. ETA-ri beldur eta Yoyesen hilketa / Miedo a ETA y asesinato de Yoyes (EIB-718/022)

ETA-ri aurre egiteko beldurra zegoela kontatzen du Arratek. Yoyes hil zutenean, Emakumeen Asanbladako batzuek kontra agertu nahi ziren baina beste batzuk ez. Liskarrak izan zituzten. Arrate cuenta que había miedo de criticar o denunciar a ETA. Cuando asesinaron a Yoyes, parte de la Asamblea de Mujeres quiso condenarlo pero otra parte no.

4.325. Emakume eibartar aurrerakoia irudia / Figura de la mujer eibarresa progresista (EIB-718/024)

Emakume eibartarra irekia eta aurrerakoia izan dela kontatzen du Arratek: lagunekin egoten, tabernetan, jokoan, etxetik kanpo lanean... Arrate habla sobre el carácter abierto y emprendedor de la mujer eibarresa, de no quedarse en casa, de estar con sus amigos, de ir de bares, de trabajar fuera de casa...

4.326. Emakumeak etxean lanean / Mujeres trabajando en casa (EIB-718/025)

Etxean lan egiten zuten emakumeen lan-motak: eskopetagintza, jostunak, zaintza... Gaizki ordainduta beti. Emakumeen arteko laguntasuna. Mujeres que trabajan en casa: fabricación de escopetas, costureras, cuidadoras... Siempre mal pagado. Solidaridad entre las vecinas.

4.327. Emakume eibartarra libreagoa izan da / La mujer eibarresa siempre ha sido más libre (EIB-718/026)

Eibarren, gaztetan ezkondu eta familia izatearen patroia errepikatzen zen arren, emakumea libreagoa izan dela uste du Arratek. Bidaiak ere egiten zituzten beraien kabuz. Alargunak ere euren artean biltzen ziren edota laguntza handia zuten ingurukoengandik. En Eibar, a pesar de repetirse el patrón de casarse joven y tener familia, Arrate cree que la eibarresa siempre ha sido más libre. Cuenta cómo se hacían viajes donde sólo iban mujeres. Las viudas también solían tener mucho apoyo o se juntaban entre ellas.

4.328. Aita edo senarraren baimena behar zuten emakumeek / Las mujeres necesitaban el permiso del padre o del marido (EIB-718/027)

Arratek kontatzen du, emakumeek haien aita edo senarren baimena behar zutela gauza batzuk egiteko: pasaporte atera, kontu korrante bat irekin... Ezkondu bikote batek etxea erostean, senarraren izenean jartzen zen. Arrate cuenta que las mujeres necesitaban el permiso del padre o del marido para ciertas cosas: sacarse el pasaporte, para abrirse una cuenta bancaria... Cuando la pareja se compraba un piso, se ponía a nombre del marido.

4.329. Irabazpidezko edo ondasunen banantzean ezkontzea / Casarse en gananciales y separación de bienes (EIB-718/028)

Arratek, ondasunen banantzean ezkontzeaz, irabazpidezko ezkontzez eta alargunen pentsioez hitz egiten du. Arrate habla sobre la separación de bienes, el régimen de gananciales, la pensión de viudedad...

4.330. Eraso matxistei aurka borrokatzen / Luchando contra las agresiones machistas (EIB-718/029)

Eraso matxistei aurka borrokatu ziren Eibarko Emakumeen Asanbladatik. Manifestazioak egin zituzten, herritarrak sentsibilizatu, salatzera animatu, udaletxean mozioak egin... La Asamblea de Mujeres de Eibar siempre trabajó contra las agresiones sexuales a las mujeres: hacían manifestaciones, sensibilizaban a la población, animaban a denunciar, hacían mociones en el ayuntamiento...

4.331. Eibarko Emakumeen Asanblada: Planning-a eta emakumeen sexualitatea / Asamblea de Mujeres de Eibar: el Planning y la sexualidad femenina (EIB-718/030)

Eibarko Planning-a zer zen eta nola sortu zen kontatzen du Arratek. Emakumeen sexualitaterako zentru bat nahi zuten, emakume ginekologoekin. Asanbladatik, hitzaldiak ere antolatzen zituzten gai honen inguruan. Arrate cuenta qué es y cómo se creó el Planning en Eibar. Querían un centro de sexualidad para mujeres, con ginecólogas mujeres que abordara la sexualidad de la mujer. Desde la asamblea organizaban charlas.

4.332. Abortatu nahi zuten emakumeei klandestinoki laguntzen / Ayudando a mujeres que querían abortar de forma clandestina (EIB-718/031)

Abortatu nahi zuten emakume gazteak. Londres, Donibane Lohitzune edo Hendaiaiko kontaktuak ematen zizkieten eta batzuetan hara lagundu ere. Guztiz klandestinoki egin zuten lan hori eta inoiz ez dituzte izenak eman. Asesoraban y a veces acompañaban a mujeres que querían abortar. Solían ir a Londres, Donibane Lohitzune o Hendaia. Siempre lo hicieron de forma clandestina y nunca han dado ningún nombre.

4.333. Eibarko Emakumeen Asanblada eta Eibarko Udala / Asamblea de Mujeres de Eibar y Ayuntamiento de Eibar (EIB-718/032)

Eibarko Emakumeen Asanbladako emakumeek mozioak egiten zituzten udaletxean. Udalbatzarretara pankartekin sartzen ziren eta aldarrikapenak egiten zituzten. Andretxearen sorrera Eibarren beraiengatik izan zen. Mujeres de la Asamblea de Mujeres de Eibar realizaban mociones en el Ayuntamiento. Accedían a las corporaciones municipales con pancartas y lanzaban proclamas.

4.334. Jardunaldi feministak / Jornadas feministas (EIB-718/035)

Herri ezberdinetako Emakumeen Asanbladak hilean behin elkartzen ziren. Liburuak elkatrkatzen zituzten, jardunaldi feministak antolatu (Granadan, Leioan...), manifestazioak... Soldata-arraila eta lan-berdintasuna. Las Asambleas de Mujeres de diferentes pueblos se reunían una vez al mes. Se repartían libros entre ellas, organizaban jornadas feministas (Granada, Leioa...), manifestaciones... Brecha salarial e igualdad laboral.

4.335. Tratu-berdintasunaren legea / Ley de igualdad de trato (EIB-718/036)

2020an onartu zen Tratu-berdintasunaren legea. Arratek legea zertan datza kontatzen du. Orain gutxi arte egon den soldata-arrailarekin bukatzeko legea da. Ley de igualdad de trato aprobada en 2020. Arrate explica que es una ley para acabar con la brecha salarial que ha existido hasta hace poco.

4.336. Dibortzioa, abortua eta eraso matxistak / Divorcio, aborto y agresiones machistas (EIB-718/037)

Emakumeen Asanbladak sortu zirenean, aldarrikapen nagusiak dibortzioaren eta abortuaren aldekoak eta eraso matxisten kontrakoak ziren. Eibarren manifestazio eta hitzaldi asko egiten zituzten. Cuando se crearon las Asambleas de Mujeres, las principales reivindicaciones eran a favor del divorcio y el aborto y en contra de las agresiones machistas. En Eibar realizaban muchas manifestaciones y charlas.

4.337. Abokatu feministak / Abogadas feministas (EIB-718/038)

Emakumeei dibortzioetan laguntzeko abokatu feministak zituzten. Abortu kasuren batean ere lagundu zuten, harrapatu zituzten neskei laguntzen. Tenían abogadas feministas para ayudar a las mujeres en sus divorcios. También ayudaron a chicas que fueron a abortar y fueron descubiertas.

4.338. Adulterioa eta prostituzioa / Adulterio y prostitución (EIB-718/039)

Emakumeen Asanbladatik, ezkontzaz kanpoko harremanen inguruan zegoen matxismoa kritikatu eta azaleratu zuten. "Ni ere puta naiz" kanpainaz eta prostituzioaz hitz egiten du. Desde la Asamblea de Mujeres, criticaron el machismo que había en torno a las infidelidades por parte de las mujeres. Habla sobre la campaña "Yo también soy puta" y la prostitución.

4.339. Maria la Comunista (EIB-718/040)

Eibarko Maria "La comunista"-ri buruz hitz egiten du. Bista Eder-en bizi zen. Eibarko Emakumeen Asanbladako bileretara joaten zen, manifestazioetara... Beti beltzez janzten zen. Oso emakume borrokalaria, irekia eta enpatikoa zen, ideologia ezberdineko jendearekin ondo eramaten zen eta preso politikoek aldeko kanpainetan ere parte hartu zuen. ETari buruz itz egiten du. Habla de María "La comunista". Vivía en Bista Eder y asistía a las reuniones de la Asamblea de Mujeres de Eibar, a manifestaciones... Siempre vestía de negro. Era una mujer muy luchadora, abierta y empática, que se llevaba bien con gente de diferentes ideologías y que también participó en campañas a favor de los presos políticos. Habla de ETA.

4.340. Trantsizioa: tranpa izan zuen irekiera prozesua / La transición: un proceso de apertura con trampa (EIB-718/042)

Trantsizioak amnistia, eskubide zibilak, adierazpen askatasuna... ekarri zituen baina frankismoaren ardatz nagusiak mantendu egin ziren eta mantentzen dira. La transición trajo consigo la amnistía, los derechos civiles, la libertad de expresión... pero los grandes ejes del franquismo se mantuvieron y se mantienen.

4.341. Trantsizioa, frankismoaren oinarriekin sortu zen / La transición se cimentó con las bases del franquismo (EIB-718/043)

Trantsizioaren oinarriak frankismotik mantendu ziren. Alderdi politiko txikiak desagerpenaz hitz egiten du. Arratek militantzia politiko eta sindikalari utzi zion, ez zelako eroso sentitzen eta bere ideien kontra joaten zirelako. Geroztik, ekimen sozialetan parte hartzen du aktiboki. Los cimientos de la Transición se mantuvieron desde el franquismo. Habla de la desaparición de los pequeños partidos políticos. Arrate lo dejó a la militancia política y sindical porque no se sentía cómodo y porque iban en contra de sus ideas. Desde entonces participa activamente en iniciativas sociales.

4.342. Lesbianismoa / Lesbianismo (EIB-718/045)

Garai batean, ez zen lesbianeiei buruz hitz egiten eta ez zen planteatu ere egiten bi emakumek elkar maite ahal zutela, sexua zutela... Eibarko Emakumeen Asanbladatik, lesbianeiei buruz eta emakumeen sexualitateari buruz aldarrikatzen hasi ziren eta iritzi kontrajarri asko sortu ziren herritarren artean. Hubo un tiempo en que no se hablaba de lesbianas ni se planteaba que dos mujeres se quisiesen, tuviesen sexo, etc. Desde la Asamblea de Mujeres de Eibar se reivindicó este tema a la igual que la sexualidad femenina y surgieron muchas opiniones encontradas entre la ciudadanía.

4.343. Bere akatsetatik ikasten / Aprendiendo de sus errores (EIB-718/047)

Txinako Iraultza Kulturalari buruz hitz egiten du. Orduan bera alde zegoen baina gerora konturatu zen erratuta zegoela. Damutu egin zen Txinako komunismoa hainbeste defendatzeagatik baina hortik ikasi zuen akatsetatik ikasten. Habla de la Revolución Cultural China. Entonces él estaba a favor, pero más tarde se dio cuenta de que estaba equivocada. Se arrepintió de defender tanto el comunismo en China y aprendió a reconocer sus errores.

4.344. Eibarrera nola iritsi zen (EIB-720/002)

Bere borondatez, familia utzi zuen eta Aldundiaren bitartez Azpeitiko familia batekin bizi behar izan zuen 25 urte bete arte. 19 urte zituela familia hori Eibarrera joan zen bizitzera eta Maria Luisa haiekin batera.

4.345. Mercedes Kareagaren bidez kuadrila aurkitu zuen; Eibar, liberala (EIB-720/003)

Eibarrera heldu zenean gozotegi batean lanean hasi zen. Mercedes Kareaga, Carmen Apellaniz eta beste batzuen bitartez, Maria Luisak lagunak egin zituen Eibarren. Donostia, Azpeitia eta Eibarren arteko ezberdintasunak. Eibar oso liberala zen, oso gustura zegoen.

4.346. Eibarko Caritas-eko arduraduna 22 urterekin (EIB-720/004)

Gozotegian lan egitetik, Jardinetan zegoen Alka lantegira pasatu zen. Akademian ere bazebilen ikasten eta, hura bukatzean, Pedro Zelaiaren bitartez, Caritaseko bulegoko ardura hartu zuen. Oso lan erakargarria zen.

4.347. Caritas-eko funtzionamendua (EIB-720/005)

Caritas-en nola lan egiten zuen kontatzen du: pertsonekin hitz egin, fitxa egin, batzarrean kasua azaldu... Lana asko gustatzen zitzaion baina gerora konturatu da oso gaztea zela bere gain zuen ardura horretarako.

4.348. Pilatuta bizi ziren familia asko Eibarren (EIB-720/006)

Jende asko heltzen zen Eibarrera bizitzera eta askotan familia asko pilatuta. Caritas-etik laguntza ematen zitzaion familia hauei.

4.349. Accion Católica-ko zentroa Txirio Kalen (EIB-720/007)

Garai batean oso erlijiosoak zen Maria Luisa. "Acción Católica"-ko lehendakaria izan zen. Eibarren, Mercedes Kareagak sortutako Goi Argi emakumeen elkarteak zegoen baina ez zegoen elizarekin lotuta eta "Acción Católica"-tik bat zabaldu zen, Txirio Kaleko lehenengo zenbakian. Neskek ordaintzen zuten kuotekin ordaindu zen. Maria Luisa bertan bizi zen eta liburutegiaren ardura ere bazuen.

4.350. Acción Católica-ko liburutegia (EIB-720/009)

Maria Luisa "Acción Católica"-ko zentroan bizi zen eta bertan zegoen liburutegiaren ardura zuen. Eibarko orduan ez zegoen beste liburutegirik.

4.351. Eibarren lan egitea, Ameriketara joatea bezala (EIB-720/010)

Elizan hilean behin Caritas-erako biltzen zen dirua ez zen nahikoa zeuden beharrak asetzeko. Boom industrialaren garaian, Eibarrek jende gehiago nola jasotzen zuen. Eibarrera lanera joatean, Ameriketara joatea bezala zen.

4.352. Caritas-en boluntario asko (EIB-720/011)

Caritas-eko boluntarioek laguntza ezberdina ematen zuten: diru-eskaerak egiten ziren urtean behin, Ameriketatik zetorren laguntza (esne-hautsa eta gazta) banatzen zuten eta Caritas-eko arropategia kudeatzen zuten, besteak beste.

4.353. Herritarren laguntzarekin, Caritas ekonomikoki ondo zegoen (EIB-720/012)

Caritas-eko lana ondo ikusia zegoen Eibarren eta eliztarrak ez zirenek ere laguntzen zuten, justizia sozialtzat bezala ikusten zelako. Aberatsek ere ematen zuten dirua.

4.354. Eibarko Caritas ezberdina zen (EIB-720/013)

Caritas elizakoa zen eta estatu osoan zegoen, herri handi eta hiri guztietan. Arau eta baldintza batzuk zeuden nori lagundu eta zertarako lagundu zehazteko baina Eibarren ez ziren betetzen eta errepublika aske bat zelan zioten. Maria Luisak ez zuen jendea kontrolatu nahi.

4.355. Tratu txarrak jasaten zituzten emakumeak laguntza eske (EIB-720/014)

Tratu txarrak jasaten zituzten emakumeak ere hurbiltzen ziren Caritas-era. Kasu bat kontatzen du, non emakumeak senarraz banatu nahi zuen eta azkenean atzera bota zen. Kasu asko zeuden baina ez ziren kontatzen.

4.356. Eibarko Caritas-eko kasu ezberdinak (EIB-720/015)

Caritas-en eraman zuen kasu bat gogoratzen du. Eibarrera, bikote bat heldu zen, non bakoitzak aurreko ezkontzan izandako haurrak zituen. Haiak erregistratzeko egin behar izan zutena kotatzen du. Eibarren, kasuistika ezberdinak ematen ziren.

4.357. Erlijiositatetik militantzia politikora (EIB-720/016)

Caritas-en lan eginda, krisi politiko-erlijioso bat izan zuen. ETA erakundetik laguntza eskatu zioten pertsona bat etxean gordetzeko.

4.358. ETAko kolaboratzailea izan da, ez kidea (EIB-720/018)

TEFISO taldean parte hartzen zuen Maria Luisak, Ion Etxabe, Felix Arroitagaregi eta Mario Onaindiarekin batera. Marioren bitartez, etxean ETAko kide batzuk ezkututzen hasi zen. Txabi Etxebarrietari buruz hitz egiten du. Burgosko prozesuan Maria Luisa sartu zuten eta ihes egin zuen.

4.359. Parisera ihesi, ETAkideak etxean gordetzeagatik (EIB-720/019)

1968an, Burgosko prozesuan bere izena zegoenez, "opor" batzuk hartu eta ihes egin zuen. Bandres abokatuari galdetu zion bere kasuaz eta ETAkideak gordetzeak 32 urteko kartzela zigorra suposatzen zuela esan zionean, Parisera ihes egin zuen.

4.360. ETAn kolaboratzaile-lanak (EIB-720/020)

ETAk kolaboratzaile izatera nola heldu zen azaltzen du. Orduan ETA ez zen talde armatu bat eta helburua jendea kulturalki formatzea zen, euskal problematika azaltzea... baina oso jazarriak zeuden. Armak zituzten baina bakoitzaren segurtasunerako, ez inor hiltzeko. Dokumentazioen faltsutzea. Maria Luisa ETArekin ados zegoen eta horregatik laguntzen zuen.

4.361. ETArekin apurketa: politikoa, militarra eta politiko-militarra (EIB-720/021)

Meliton Manzanases-en hilketa izan zen ETArekin lehena eta horrek erakundearentzat apurketa bat suposatu zuen. Aurretik zetorren eztabaida, batzuk politikoagoak zirelako, beste batzuk militaragoak eta hirugarren batzuk politiko-militarrak.

4.362. Meliton Manzanases hilketaren ondorioz, poliziatik ihesi (EIB-720/022)

Meliton Manzanases-en hilketan, Jon Etxabe Azitaineko abadearen autoa poliziarren eskuetan gelditu zen. Maria Luisa San Andres elizan ezkutatu zen eta gauean atera eta Jon Etxaberekin eta beste mutil batekin ihes egin zuen.

4.363. Ihes egin aurretik dena lotuta utzi zuen Caritas-en (EIB-720/023)

1968tik 1976ra erbesteratuta egon zen Parisen. Bazekien mementuren batean ihes egin beharko zuela eta Karmeldar elizan zegoen neskari (Arrate) eskaini zion lanpostua, bera noizbait faltako balitz. Dena lotuta utzi zuen.

4.364. Parisen, Euskadiko Mugimendu Komunistan militatzen (EIB-720/024)

1976an erbestetik bueltatu zenean, egoera politikoa guztiz aldatuta zegoen. Argi zeukan alderdi komunista batean militatuko zuela eta Euskadiko Mugimendu Komunistan (EMK) sartu zen. Parisen Eibarri buruzko berriak heltzen zitzaizkion.

4.365. Franco hil aurretik, denak bere kontra; hil ostean, denak denek kontra (EIB-720/026)

1976an zegoen egoera politikoa hitz egiten du. Giro txarra zegoen alderdi politikoa ezberdinen artean eta denek nahi zituzten herritarrak bereganatu. Franco hil aurretik, denak zeuden bere kontra; hil ostean aldiz, denak denek kontra zeuden.

4.366. Accion Catolica-ko lehendakaria, ETAk kolaboratzaile, EMK-ko militante... (EIB-720/028)

Maria Luisa oso ezaguna zen Eibarren. Erbestetik bueltatu zenean, oso ondo hartua izan zen, nahiz eta salto handiak egin dituen: Acción Católica, ETAk

kolaboratzaile, mugimendu komunistan militante... Herrian EMK-ko kide bezala egin zuen lehen agerraldia kontaktzen du.

4.367. Ezkertiarra izan da beti; justizia soziala (EIB-720/030)

Gerra garaian aita kartzelan zegoen eta ihesi zebiltzala ama hil zen. Aita anarkista zen. Nahiz eta ezkertiarra izan, Maria Luisa beti izan da ezkertiarra. Justizia sozialari buruz.

4.368. Ideologia ezkertiarra eta justizia soziala beti batera (EIB-720/032)

Pentsamoldea finkatzea zaila dela dio Maria Luisak, baina ideologia ezkertiarrek justizia sozialarekin sentsibilizazio berezi bat dagoela uste du

4.369. TEFISO (EIB-720/033)

TEFISO-ri ("Teología, Filosofía eta Sociología") buruz hitz egiten du: zertaz hitz egiten zuten. Non biltzen ziren. Eibarren elkarte eta mugimendu asko zeuden, jendea ez zegoelako konforme.

4.370. Elizaren mantupean garatutako pentsamoldea (EIB-720/034)

Francoren heriotza Parisen ospatu zuten xanpainarekin. Franco garaian ez zegoen adierazpen askatasunik, klandestinitatean ibili behar ziren polizia beti atzetik... Garai batean mugimendu guztiak elizaren mantupetik atera ziren eta jendea bertan garatu zela uste du Maria Luisak. Handik ideologia eta pentsamolde oso ezberdinak sortu ziren. JOC-a ere abade batzuek sortu zuten

4.371. Eibarko ikastolako idazkari lanpostua lortzeko, ideologia politikoa izkutuan (EIB-720/036)

Erbestetik bueltan Eibarren hasten zegoen ikastolako idazkari bezala nola hasi zen lanean. Ikastolan lanean hasi zenean, batzordeko inork ez zekien EMK-ko militantea zela eta jakin zenean, batzordekide batek esan zion lehenago jakin izan balu ez zela sartu izango idazkari bezala lan egitera.

4.372. Iturburuko kokapenak eztabaida handiak sortu zituen (EIB-720/037)

Erbestetik bueltatu zenean, Iturburu eraikitzen zeuden. Ikastola barruan eztabaida zegoen, eraikina hain urruti egoteagatik.

4.373. Ostiraletan jai, bikotea bisitatzeko (EIB-720/038)

Ikastolan lanean oso gustura aritu da. Bere bikote Jon Etxabe orduan abadea zen eta kartzelako azkenengo urtea Kataluniako abade-etxean egin zuen eta ostiralero joaten zen bera bisitatzera. Ikastolako bulegoa Markeskuan zegoen.

4.374. Epaiketa militarrean kargu penalak kendu zizkioten (EIB-720/039)

Burgosko prozesuan epaitua ez izateko ihes egin eta auzi-iheslari deklaratu ziotenez, Maria Luisak kontaktzen du ezin izan zuela pasaporte atera. Epaiketa militar bat egin ziotela eta hortik aurrera kargu penalak kendu zizkiotela kontaktzen du.

4.375. Abade izandako gizon batekin ezkondua (EIB-720/040)

Bere pentsamoldearen aldaketei buruzko hausnarketa. Eibar oso herri liberala eta oso ondo hartua izan da, nahiz eta kristautasuna utzi zuen, ETAn lagundu, abade batekin bikote egin... Nahiz eta Eibarren ez jaio, eibartarra sentitzen da.

4.376. Zamoratik Eibarrera zortzi urterekin / De Zamora a Eibar con ocho años (EIB-721/002)

Vicente Zamoran jaio zen 19445ean eta 8 urterekin Eibarrera joan zen bizitzera familiarekin, ilusio handiarekin.

4.377. 1954ko Eibar nolakoa zen / Eibar en 1954 (EIB-721/003)

1954an Eibarrera iritsi zen. Dena pil-pilean zegoela gogoratzen : etxebizitzan eraikuntza, tailerrak, lana... Kanpotik jende asko heltzen zen Eibarrera. Legarren bizi ziren.

4.378. Irene Erostarben musika-eskola / Academia de música de Irene Erostarbe (EIB-721/004)

Hamalau urtera arte ikasi eta lanean hasi zen, laguntzaile eta mandatari ("errekadista") bezala. Musika izan da beti Vicenteren pasioa eta Irene Erostarben musika-eskolan hasi zen ikasten. Bertan, solfeoa, gitarra, akordeoia... ikasten zuten.

4.379. Walters taldearen sorrera / Comienzos de la banda Walters (EIB-721/005)

Irene Erostarben musika-eskolatik Walters taldea sortu zuten Luciano Ruiz, Jose Antonio Riego, Ignacio Vicente, Jose Luis Zubia eta Jorge Alicio Delgadok. Geroago 3 taldekide geratu ziren. Vicente haiekin ibiltzen zen kontzertuetan laguntzen eta azkenean taldearen bateri-jotzailea bilakatu zen.

4.380. Walters taldea musika lehiaketetan / Walters en los concursos de música (EIB-721/006)

Musika taldeen lehiaketetan parte hartzen zuten. Jose Luis Bidegain, abeslari bezala sartu zen taldean. Musika modernoa jotzen zuten. 1965ean Donostiako Arte Ederren musika-lehiaketa irabazi zuten "Tu serás mi baby" abestiarekin. Abestu egiten du. Eibarren Goro Bazarrak eta "Radio Juventud de Eibar"-ek ere lehiaketa bat antolatu zuten eta irabazi egin zuten.

4.381. Walters taldea, ezagunago bihurtzen da / Walters se hace famoso (EIB-721/007)

Musika-lehiaketak irabazteagatik ez zuten dirurik irabazten baina ezagunagoak izateko balio zien. Dantzalekuetan jotzen zuten.

4.382. Walter taldearen taldekideak / Los integrantes de Walters (EIB-721/008)

Walter taldean egon ziren taldekideez hitz egiten du. Abeslari bakarra izatetik, denak abestera pasatu ziren. Bertsioak jotzen zituzten.

4.383. Walters taldearen bira eta amaiera / La gira de Walters y la disolución del grupo (EIB-721/009)

1966an, Walter taldekoek bira bat egin zuten. Lana utzi eta Galiziara joan ziren lehenengo. Gero Madril, Segovia... Biratik bueltatu zirenean, Eibar inguruko herrietan jotzen egon ziren eta Vicente soldaduskara joan zenean banatu zen taldea. Taldea 1963tik 1966 egon zen jardunean.

4.384. Walter taldeak astero "Bolera"-n jotzen zuen / Walters tocaba en la Bolera (EIB-721/010)

Ongintzako kontzertuak egiten zituzten herri ezberdinetan. Eibarko "Bolera"-n jotzen zuten astero. Arropa bereziak eramaten zituzten ikuskizunetarako. Taldekide batzuek asko ligatzen zuten.

4.385. "Los Doblones" talde eta Debako dantzalekua / La banda "Los Doblones" y la sala de fiestas de Deba (EIB-721/011)

Walter-sen ondoren, "Los Doblones" taldea sortu zuten, dantzalekuetan orduko musika modernoa jotzeko. Debako dantzaleku batean jotzen zuten asteburuero eta Vicente ezkondu eta aita izan zenean, taldea uztea erabaki zuen. Hala ere, dantzalekua errentan hartu zuten Vicentek eta bere lagun eta taldekide Ignaciok eta musikari izatetik enpresari izatera pasatu ziren, nahiz eta batzuetan beraiek ere jotzen zuten.

4.386. Egurtza dantzalekua eta hot-dog postua Deban / Sala de fiestas Egurtza y el puesto de hot-dog en Deba (EIB-721/012)

Debako Egurtza dantzalekuaren negozioa hartu zutenekoa kontaktzen du. Handik aurrera, negozioak irekitzen hasi ziren Vicente eta Ignacio. "Hot dog"-en negozio bat ireki zuten ere eta lantegia utzi zuten.

4.387. Jazzman taberna eta disko-denda / Bar y tienda de discos Jazzman (EIB-721/013)

1976an Jazzman taberna zabaldu zuen. Lokal txiki bat nahi zuen eta izena nondik datorren kontaktzen du. Tabernaren parean, izen bereko denda zabaldu zuen, diskoak saltzeko. Gerora, telebistak, musika entzuteko aparatuak, bideoak... saltzen zituzten.

4.388. Jazzman, Pintxo, Gurbil eta Bossa tabernak / Los bares Jazzman, Gurbil y Bossa (EIB-721/014)

1980an, Pintxo eta Gurbil tabernak hartu zituen eta Jazzman-arekin batera, sozietate bat sortu zuten 4 lagunen artean. 1990ean Bossa taberna ireki zuen berak bakarrik eta 2001. urtean saldu egin zuen.

4.389. Jazzman tabernan "hot dog"-ak nagusi / El "hot-dog" del Jazzman (EIB-721/016)

Negozio bat itxi eta beste bat irekitzea ez zaio kostatzen. Jazzmanen "hot-dog"-ak eta hanburgesak saltzearen ideia kanpotik eta bezeroengandik lortu zituzten. Lehenengo aldiz hanburgesa jan zuenekoak kontaktzen du.

4.390. Jazzman tabernan hanburgesak saltzen / El Jazzman y las hamburguesas (EIB-721/017)

Bezero batek galdetu zien ea ez zituzten hanburgesak prestatzen. Ez zekiten zer zen eta Torremolinos-era joan ziren hura probatzera. Asko gustatu zitzaizkion eta Jazzman-en prestatzen eta saltzen hasi zen.

4.391. Bossa, pizzak egiten; mikrouhin labea / Pizzas en el Bossa; primer microondas (EIB-721/018)

Bossa tabernan pizzaren ideia saltzearen istorioa kontatzen du. Lehenengo mikrouhin labea ere Bossan jarri zuten.

4.392. Jazzman disko-denda: diskoak kontrabandoz / Discos del Jazzman traídos por contrabando (EIB-721/019)

Jazzman disko-dendan zer saltzen zen. Bezero askok enkarguak egiten zituzten. Denda zabaldu aurretik, "Radio Juventud de Eibar" irratsaioko Jesus Egialde bidali zuen Londresera diskoak erostera. Kanon bat ordaindu behar zen eta lehenengo aldiz kontrabandoz ekarri zituen.

4.393. O'Hays taberna eta Iruki Sagardotegi / Bar O'Hays y sidrería Iruki (EIB-721/021)

2005ean O'Hays taberna zabaldu zuen, gero etxe-agentzia bat eta ondoren Iruki sagardotegia 2010ean. 2014an utzi zuen ostaralitzaren mundua.

4.394. Eibarko jubilatuen abesbatzan gitarra jotzen / Toca la guitarra en el coro de los jubilados de Eibar (EIB-721/023)

Bossa zabaldu zuenean, Eibarko musika-taldeen argazkiak biltzen hasi zen tabernan zituen. Orain, lokalean ditu. Orain, Eibarko jubilatuen abesbatzan gitarra jotzen du.

4.395. Musikariek jotzeko baimen bat behar zuten / Los músicos necesitaban un carnet para tocar (EIB-721/024)

Musikariek jotzeko baimen bat behar zuten. Antzetzeko beharrezkoa zen eta nola atera behar zen kontatzen du.

4.396. Eibarko dantza eta musika aretoak / Salas de fiesta y de baile de Eibar (EIB-721/025)

Eibarko dantza-aretoak. Sarrera bat ordaintzen zen. Orkestra batek jotzen zuen musika. Eibarren Jai-Alai eta Boleran egoten zen dantza.

4.397. Musika irakasleak; Irene Erostarbe / Irene Erostarbe, profesora de música (EIB-721/026)

Vicentek izan dituen musika irakasleei buruz hitz egiten du. Irene Erostarberen musika-akademia bere etxean zen eta han 30 bat lagun elkartzten ziren.

4.398. "Rondaiak" erabiltzen zituzten ligatzeko / Las "rondaias" para ligar (EIB-721/027)

"Rondaiak" zer ziren eta non egiten zituzten kontatzen du

4.399. Dantzalekuan ligatzen / Ligando en las salas de baile (EIB-721/028)

Nola ligatzen zuten eta neskekin kontaktua nola egiten zuten kontatzen du. Denbora librean zer egiten zuten: kafe bat hartu, zinera joan, musika jo...

4.400. Eskolan irakasleek jipoituak (EIB-722/002)

Umetako Eibar gogoratzen du. Dena gerrako harriz beteta. Frontoi Zaharreko eskolan ikasi zuen. Irakasleak erregimenekoak ziren eta jipoiak ematen zizkieten ikasleei. Eskola utzi zuen eta Olano Akademian jarraitu zituen ikasketak. Frankismoak asko eragiten zuen umetako bizitzan, nahiz eta jolasean ibiltzen ziren.

4.401. Eskolan "Cara al Sol" (EIB-722/003)

Eskolara sartzean "Cara al Sol" eta bestelakoak abestera behartzen zituzten. Etxean debekatua zuen kantu hauek abestea eta zortzi urterekin Emik ez zuek ulertzen zer gertatzen zen.

4.402. Untzagan manifestazio motz eta azkarrak frankismoan (EIB-722/004)

Hamalau urterekin hasi zen lanean Mendiguren y Zarrauan. Klase kontzientziaz jabetzen hasi zen. Untzagan elkartzen ziren txanoa jantzita askatasuna aldarrikatzeko eta manifestazio oso motzak egiten zituzten, guardia zibila agertzen zelako.

4.403. Urkoko pinadi batean bilera klandestinoak (EIB-722/005)

Langileen artean elkartasun handia zegoen, nahiz eta herrikoak ez izan. Greba handiak egiten zirenean, lantegietan dirua batzen zen grebalariak laguntzeko. "Elkartasun-kaxak". Bilera jendetsuak klandestinoki egiten ziren mendian eta deialdiak ahoz-ahozkoak ziren. Alderdi ezberdinen arteko bilera txikiak ("Interfuerzas") deitzen ziren eta elizako arkupean egiten zituzten.

4.404. Gauean guardia zibilak hartu eta "buelta" bat ematera joan (EIB-722/006)

Zer ziren "Barne-indarrak". Zeintzuk elkartzen ziren. Langile Abertzale Komiteak. Guardia zibilak bilduta harrapatu ezker, fitxatu egiten zintuzten eta zure etxera edozein momentutan joan zitezkeen. Beldurra sortzen zuten.

4.405. Manifestazioak, kontzentrazioak, grebak... egitea debekatuta (EIB-722/008)

Alfan lanean hasi zenean, greba egon zen eta debekatuta zegoenez greba egitea, guardia zibila joaten zen. Gero kanpoan biltzen ziren nahiz eta debekatuta egon. Sindikatuek oraindik ez zuten indar askorik.

4.406. Langile Mugimenduen Komitea (EIB-722/009)

Fabriketan, asanbleak zeuden eta Emilio LAK-eko (Langile Abertzaleen Komitea) kidea zen. Ez zen sindikatu bat, langile-mugimendu bat baizik.

4.407. 1968an, Burgosera deportatua fitxatuta egoteagatik (EIB-722/010)

1968. urteari buruz hitz egiten du. Urte gogorra izan zen, ETAk Meliton Manzanas hil ostean eman zen errepresio gogorragatik. Emilio eta beste 100 bat gipuzkoar (hamar bat eibartar) Martutenera eraman zituzten eta handik Espainiako herrietara deportatu zituzten. Bost hilabetez Medinacelin egon zen lanean deportatuta. Ez zuen ulertzen zergatik zigortzen zuten, ez zelako ETAkoa.

4.408. Guardia zibila amari mehatxuka (EIB-722/011)

Etxean gurasoek semearen atxiloketak, fitxaketak, deportazioa... nola bizi zuten kontatzen du Emiliok. Amak oso gaizki pasatzen zuen. Guardia zibil bat egunero joaten zen bere etxera, amari mehatxatzen. Emilioren aita Amuategi Batailoian aritu zen. Sozialista zen.

4.409. Manifestazioetan polizia tiroka (EIB-722/013)

Francoren erregimenak errepresioa ezartzeko moduak. Manifestazio guztiak erreprimitzen zituzten. Maiatzak 1eko manifestazioez hitz egiten du. Roberto Perez Jauregiren hilketaz hitz egiten du.

4.410. Manifestazioetan autodefentsa (EIB-722/014)

Manifestazioetan guardia zibilak beti kargatzen zuen. Batzuetan korrika ateratzen ziren ihesi eta beste batzuetan autodefentsa egiten zuten.

4.411. Alderdi politikoak gazteak bereganatzen (EIB-722/015)

Jeltzaleek eta sozialistek, gazteak haien aldera bereganatzeko hitzaldiak egiten zituzten baserrietan, tabernetan... Formakuntza-eskolak bezalakoak ziren eta eztabaidak sortzen ziren.

4.412. Hamasei urtez HBko zinegotzi (EIB-722/017)

HBko zinegotzia izan zen demokraziaren 2. legegaldian. Emilio komite antinuklearreko militantea zen eta haiekin hitz egin zuen lehenengo, HBko listan sartu aurretik. Lehenengo legegaldian Ingurumeneko buru izan zen eta hainbat ekimen eraman zituzten aurrera.

4.413. Eibarko hirigintzari buruz; interes pribatuak (EIB-722/018)

Udal-gobernuaren barruan, hirigintzan sartuta ibili zen Emilio. Eibarren gauzak gaizki egin direla uste du. Eibarko hirigintza plan eta proiektuei buruz hitz egiten du. Administrazioek gutxi egiten dutela uste du.

4.414. Txaltxa-zelaiko proiektua (EIB-722/019)

Txaltxa-zelain, 14 solairuko etxebizitzak eta eraikuntzak diseinatuta zeuden baina herri-mugimenduari esker gaur egun dagoen zona berde eta irekia egitea lortu zen.

4.415. Zinegotziek ez zuten soldatarik (EIB-722/020)

1983an zinegotziek herriarengatik lan egiteko gogo asko zuten eta ez zuten ezer kobratzen.

4.416. Pagei kaleko amategia (EIB-722/023)

Zinegotzi izan zeneko gatazka handienak hirigintza arlokoak, euskal gatazkatik zetozenak eta Pagei kaleko amategitik sortzen ziren. Ospitalea Mendaron edo Eibarren egitearen auzia

4.417. Komite antinuklearreko kidea; Lemoiz (EIB-722/024)

1973-1977 urte inguruetan ibili zen komite antinuklearrean militatzen. Lehenengo Eibarko bileran 120 bat pertsona bildu ziren. Lemoizeko zentral nuklearra beste plan handiago baten parte bat bakarrik zen. Hitzaldiak egiten zituzten, jendea kontzientziatzeko.

4.418. Lemoizeko zentral nuklearraren eragin-esparrua (EIB-722/025)

Mota ezberdinetako indarkeria egon zen Lemoizeko zentral nuklearraren inguruan: ETA, guardia zibila, administrazioa... Lemoizen eragin-esparrua oso handia zen arazo bat egon izango balitz.

4.419. Komite antinuklearraren ekimenak (EIB-722/026)

Komite antinuklearrak egiten zituen ekintzak: manifestazioak, elkarriketak, karrozak, hitzaldiak... Informazio-iturriak. Hondakin nuklearrak.

4.420. Lemoizeko zentral nuklearraren amaiera (EIB-722/027)

Lemoizeko zentral nuklearraren aurkako manifestaldietan esaten ziren leloak: "Lemoiz gelditu", "Lemoiz apurtu", "Lemoiz goma 2"... ETAk Lemoizeko ingeniari bat bahitu zuen Iberduerok lanak gelditu zitzaizkion, baina lanok aurrera egin zuten, ingeniaria hil zuten.

4.421. Klub Deportiboko filmea grabatu zuen (EIB-722/028)

Eibarko Klub Deportiboko argazkilaritza saileko zuzendaria izan da. Film bat grabatu zuen, urte osoan zehar klubean egiten ziren ekintza eta kirolez gain, herrian gertatzen ziren gauzak grabatuz.

4.422. Kontzientzia izatea da garrantzitsua (EIB-722/030)

Herritarrengan kontzientzia piztea oso garrantzitsua da. Gaztetan haiek lortutakoa pixkanaka galtzen ari dela uste du Emiliok.

4.423. Medinacelin deportatua eta oroitza onak (EIB-722/032)

Fitxatuta egoteagatik Martutenetik Medinacelira eraman zuten deportatuta. Heldu zenean, haur batek esan zion aitak esan ziola kamioilari bat hil zuela. Emiliok haur haren aitarekin hitz egin zuen eta hark esan zion guardia zibilak hori esaten zuela. ALFA-ko josteko makina bat zuen familia hark eta Emiliok konpondu egin zien. Lagun handiak egin zituen.

4.424. Franco hil ostean, udal-kudeatzaileak udaletxeetan (EIB-724/001)

Franco hil zenean, kongresuko eta senatuko hauteskundeak egin ziren eta hurrengo pausoa herrietan hauteskundeak egitea zen. UCD eta PSOEek, Espainiako herri eta hiri guztietan kudeatzaileak jarri zituzten, gero hauteskundeetan abantaila gehiago izateko

4.425. Eibarren, udal-kudeatzaileak ez frankismo ostean (EIB-724/002)

Franco hil ostean, Gipuzkoan PSOE eta EAJ-ren artean banatu zituzten herrien udal-kudeaketak. Eibarren sozialistak ipini nahi zituzten baina Eibarko EAJ-koak kontra agertu ziren. Garaiko alkate zen Antonio Landak alderdi guztiak deitu zituen eta hor adostu zen, ez zela udal-kudeatzaileak jarriko.

4.426. Demokraziako lehenengo udal-hauteskundeak irabazi (EIB-724/003)

Demokraziako lehenengo udal-hauteskundeak prestatzen. Ez zegoen kultura demokratikorik eta dena zerotik egin behar izan zuten. Eibarren EAJ-k irabazi zuen, 8 zinegotzirekin. Sorpresa handia eraman zuten, Eibarren 1979an Espainiatik etorritako etorkin asko zeudelako.

4.427. Alkatetzaren aurrean, beldurra (EIB-724/005)

Hauteskundeak irabazi eta udaleko kargua hartu arteko denboran, EAJ-ko eta HB-ko zinegotziak 4 aldiz elkartu ziren, erdi izkutuan, etorriko zenaz hitz egiteko. Horrela jakin zuten HB abstenitu egingo zela eta EAJ-k lortuko zuela alkatetza. Mikelek kontatzen du 40 urteko diktadura baten ostean, beldur handia zutela ez zegoelako kultura demokratikorik eta ez zekitelako ondo nola lan egin behar zuten.

4.428. Zinegotzien arteko tentsio handia baina harreman onan oso ona (EIB-724/006)

Demokraziako lehenengo legealdia (1979-1983) oso gogorra izan bazen ere, batez ere ETaren ekintzengatik, udalbatzarren ondoren 21 zinegotziak afaltzera joaten ziren (Batzokira, Pecera-ra, Casa del Pueblo-ra, elkarte gastronomikora...). Gaur egun, urtero bazkaltzeko elkartzen dira zinegotzi guztiak.

4.429. Demokrazioako lehenengo legealdietan, liberatu bakarria alkatea zen (EIB-724/007)

Demokraziako lehenengo legealdietan, liberatu bakarria Mikel zen, alkatea. Gainerako zinegotziek, udalean denbora librean lan egiten zuten eta soldatarik izan gabe.

4.430. 50.000 pezetako soldata alkatearentzat (EIB-724/009)

Ez zeukaten tresnarik udal-gobernantzarako. Alkatea liberatzea onartu zen eta 50.000 pezetako soldata zuen, udal-garbitzaile baten erdia.

4.431. Eibarko Udaletxea 1979an (EIB-724/010)

Lehenengo demokrasiako legegaldia hasi zenean, Eibarko Udaletxea nolakoa zen kontatzen du Mikelek. Alkatetzan biltzen ziren zinegotziak eguerditan lanerako.

4.432. Jendea zuzenean alkatearengana joaten zen (EIB-724/011)

1979an, alkatetzaren atea norik zaintzen zuten. Herritar asko alkatearengana joaten ziren edozein auzi konpontzeko.

4.433. Demokrazioako lehenengo legegaldian, udala gastuak ordaindu ezinik (EIB-724/012)

1981ean, Carmen Celedón hasi zen gizarte laguntzaile bezala Eibarko Udalean. Udaletxean oso diru gutxi zegoen baina zorrak zituzten farmazeutikoarekin, Iberduerorekin...

4.434. Helburu nagusia, kultura demokratiko bat sortzea (EIB-724/013)

Kontzertu ekonomikoarekin, 1981ean, udaleko arazo ekonomikoak amaitu ziren eta gastuak ordaintzeko ez zuten gehiago arazorik izan. Orduan, udal proiektu batzuk diseinatzen, adosten eta martxan jartzen hasi ziren, hurrengo legegaldietan gauzatuko zirenak. Udalean zegoen langileria ere asko berriztu zuten.

4.435. Udal-idazkariaren figura (EIB-724/014)

Lehenengo legegaldiko udal-idazkari nagusiak alkateak baino gehiago agintzen zuten. Ofizioz abokatuak izaten ziren. Alkateari Mikel eta idazkariari "Don César". Idazkariaren lana. Tentsioak. Ondoren Arantxa Etxaniz jarri zen idazkari moduan eta lana asko erraztu zitzairen Udalean.

4.436. Alkatearen figura, oso gertukoa (EIB-724/015)

Mikelek uste du, alkatearen figura naturaltasun eta gertutasun osoz ikusten zela. Bi istorio kontatzen ditu, udaletxe ondoan dagoen erreserbatutako aparkalekuaren kontura.

4.437. Ur gabezia Eibarren eta Aixolako presa (EIB-724/016)

Udalera heldu zirenean 1979. hainbat premia zeuden herrian. Gauetan bakarrik erabil zitekeen ura. Oraindik inbestidura-ekitaldia egin gabe zegoenean, Gipuzkoako Foru Aldundira joan ziren presa bat eskatzeko eta 1991 inguruan zabaldu zen.

4.438. ETako erasoen aurrean, udalbatzarrak bertan behera (EIB-724/017)

ETak egin zituen ekintzak Udalean oihartzun handiak izaten zituzten eta momentu gogorak pasa zituzten. Alderdien artean tentsioak sortzen ziren udalbatzarretan. Lau udalbatzar bertan behera utzi ziren ETaren ekintzen ondorioz.

4.439. Guardia zibila laguntza eskeintzen baina alkateak ezetz (EIB-724/018)

ETAren erasoen ostean, jendetza biltzen zen udaletxean eta plazan. Eibarko guardia zibilen kuarteleko kapitainak, Mikeli segurtasun berezi bat eskaini zion baina honek ezetz erantzun zion.

4.440. Udalean, garrantzitsuena errespetua (EIB-724/019)

Mikelek azpimarratu nahi du, Udalean ETAren kontura zinegotzien artean liskar eta momentu latzak egon arren, gaur egun duten harreman ona. Errespetuz dena lortu daitekeela uste du Mikelek.

4.441. 80ko krisi industrialak Eibarren (EIB-724/020)

1979-1983 legealdian, krisi ekonomikoak gogor jo zuen Eibarren. Enpresariak hurbiltzen ziren udaletxera, baina beraiek ez zuten eskumenik.

4.442. Udala, frankismo osteko aldaketak gauzatzeko tresna izan nahi zuen (EIB-724/022)

Berrogei urteko diktadura baten ondoren, udaletxe berri bat, ikurrina erabiltzea, euskaraz hitz egitea... lorpen haundi bat izan zen denentzat. Kirola, txapelketak... jendeak gogo asko zeukan dena egiteko eta Udalak hoiek gauzatzeko tresnak eman nahi zituen.

4.443. Jose Luis Perez Sarasketa, jai eta kultura zinegotzia (EIB-724/023)

Hasieran, Mikel joaten zen sari-banaketa eta irekiera-ekitaldi guztietara. Baina gehiegi zen eta lana banatu zuten. Kultura eta Jaien zinegotzia, Jose Luis Perez Sarasketa zen.

4.444. Kultur eztanda Francoren diktadura eta gero (EIB-724/024)

Franco hiltzean, kultura mailan eztanda bat egon zen musikan, kulturean, kirolan...

4.445. Drogak Eibarren 80. hamarkadan (EIB-724/025)

Eibarren drogen arazoa oso larria izan zen. Alkatetzan, droga beharrak jota egoten ziren gazteak izan zituen behin baino gehiagotan. Istorio bat kontatzen du. Denak alkatearengana jotzen zuten. Kontzertu ekonomikoaren ostean hartu zuten lehenengo erabakietako bat, gizarte langile bat kontratatzea izan zen.

4.446. Indarkeria poliziala (EIB-724/026)

Alkate bezala, egun osoan arazoak konpontzen pasatzen zuen. Poliziaren partetik indarkeria asko zegoela kontatzen du.

4.447. ETAr buruz: "mina, mina da" denetan (EIB-724/027)

ETAko kide batek lehegailu bat manipulatzeko hil zen eta Mikelek kontatzen du nola joan zen haren etxera, bere ama ikustera. Bi aldeekin egon da Mikel: "mina, mina da".

4.448. Udaletxeko kudeaketa. 1979-1983 (EIB-724/028)

Udaletxeko kudeaketa nola eraman zuen.

4.449. Eibarko Euskararen Bandoa (EIB-724/030)

Eibarko Euskararen Bandoa nola sortu kontatzen du: diseinua, kartelak, difusioa... Ez zen denen gustokua izan (kartel batzuk apurtu zituzten).

4.450. Eibarko Euskararen Bandoa, Udalaren izenean (EIB-724/031)

Euskararen Bandoa Korrikan ere erabili zen. Mikelek zeukan bandoaren jabetza intelektuala, orduan alkatea zelako. Udalaren izenera aldatu zuen.

4.451. ETaren sendotzea 60ko hamarkada amaieran (EIB-725/001)

Eibarko kuadrilla guztietan, ilunpeko giro politikoa zegoen. Manifestaldiak oso prestatuak zeuden eta klandestinitate handia zegoen. Frankismoaren gainbehera sumatzen zuten. Aberri egunak. Urbiako kontzentrazioa. ETaren sendotzea (manifestaldiak, pintadak, sabotaje txikiak...)

4.452. 60ko hamarkada amaierako aldaketa nahia (EIB-725/002)

Plazaratzen hasi zen frankismoaren kontrako isilpeko mugimendua: mugimendu sindikala, langileria, abertzaletasuna, kantuak, kultura... Iraultza kulturalak nazioartean ere.

4.453. Pintadak egiteko sistema asmatu zuten; lemak (EIB-725/003)

Edozein lekutan egiten zituzten panfletoen kopiak. Pintadak egiteko, brotxak erabiltzen zituzten hasieran, baina gero beste sistema bat asmatu zuten, beirazko poteekin. Pintaden lemak: "Gora ETA", "Euskadi ta Askatasuna", "Elkartasuna eta Indarra", "Euskadi librea behar dugu", "Viva Euskadi"...

4.454. Multikopistarekin panfletoak egiten (EIB-725/004)

Panfleto politikoak egiteko multikopistak erabiltzen zituzten. "Klitxe" edo eredu bat sartzen zuten makinan eta kopiak ateratzen zituzten. Sistema nolakoa zen kontatzen du.

4.455. Manifestaldi antolatuak; Guardia Zibila (EIB-725/005)

Manifestazioak antolatuak izaten ziren: enpresa bateko grebagatik, norbait atxilotu zutelako... Batzuetan grisak edo guardia zibilak agertzen ziren.

4.456. Ideologia politiko ezberdinak, baina helburu bera (EIB-725/006)

Kuadrillan edo lagunartean politikari buruz asko eztabaidatzen zen. Ideiak partekatzen zituzten. Ideologia politiko ezberdinak zituzten arren, denen helburua frankismoarekin bukatzea zen. Aldarrikapen nagusia politikoa zen, baina alde sozialetik joan behar zela ere konturatzen hasi ziren

4.457. 1967tik aurrera, eztabaida ideologikoa ETAn (EIB-725/007)

ETAren barruan, 1967tik aurrera gai ezberdinei buruz eztabaidatzen eta hitz egiten hasi ziren: langileria, kapitalismoa, komunismoa... Ordura arte ideia bakarra, Euskadiren askatasuna lortzea zen.

4.458. Bilera klandestinoak etxeetan (EIB-725/008)

Bilera klandestinoak tabernetan eta etxeetan egiten zituzten. Erregimenak gogor zigortzen zituen etxe horien jabeak. Bertan materiala ere uzten zuten: ikurrinak, propagandak, panfletoak...

4.459. Poliziaren errepresioa kaleetan; atxiloketak (EIB-725/009)

Beti izaten zen poliziaren errepresioa manifestaldietan. Herritarrak defendatu egiten ziren, harriak botata. Guardia Zibila nola jaisten zen Elgeta kaletik behera. Atxilotuz gero, kuartelean egoten ziren egun batzuetan. Manifestaldietan, etxeetan ere ezkutatzen ziren.

4.460. Burgosko prozesua, erregimen frankistaren porrot izugarria (EIB-725/011)

Historikoki Trantsizioaren garaia ez zuen zuzenean ezagutu, kartzelan egon zelako. Trantsizioa Burgosko prozesuaren ondoren hasi zela uste du Josuk. Porrot izugarria izan zen frankismoarentzat. Erregimenaren barruan ere aldaketak eman ziren 1971-1972 urteetan.

4.461. Olatu antifrankista gora Estatu guztian; Willy Brandt (EIB-725/012)

Estatuan, mobilizazio sozial asko ematen hasi ziren (Andaluzian, Ferrolen, Erandion, Granadan...) eta poliziaren indarkeria oso handia izan zen. Olatu antifrankista gora joan zen Estatu guztian eta nazioartean ere gauzak mugitzen hasi ziren.

4.462. Erregimen frankistaren kontrako jarrera Europan (EIB-725/013)

Willy Brandt egon zen Burgosko prozesuari buruz informatzen. Nazioartean erregimen frankistaren aurkako jarrera handitu zen. Europak ez zuen nahi Portugaleko Iraultza Espainian errepikatzea.

4.463. Kartzelatik erregimenaren aurka ere lanean (EIB-725/014)

Frankismoaren azken urteak kartzelan pasa zituen. ETAk klandestinoki informazioa pasatzen zien, baina ez ziren zuzeneko eragileak gatazkan. Hala ere, amnistia eta euskal presoek aldeko mugimendua beraiekin hasi zen (gose-grebak, ihesak...).

4.464. Segoviako ihesa: lehenengo saiakera; "El Lobo" infiltratua (EIB-725/017)

Segoviako kartzelatik bi ihesaldi saiakera egin zituzten. Lehenengoa nola izan zen kontatzen du Josuk. 54 lagunek egin behar zuten ihes eta nahiko ondo prestatua egon arren, ez zen aurrera atera. "El Lobo", ETA-pm-ko zuzendaritzan zegoen eta berak eraitsi zuen operatiboa.

4.465. Gose greban, bigarren ihesaldi baterako ideia prestatzen (EIB-725/018)

Segoviako lehenengo ihesaldiaren ondorioz, preso asko sakabanatu zituzten eta kartzela barruko erregimena gogortu egin zitzairen. 25 eguneko gose-greba egin zuten eta bigarren ihesaldi saiakera bat egiteko ideia hazten hasi zen.

4.466. Segoviako ihesaren bigarren saiakera I (EIB-725/019)

Segoviako kartzelatik bigarren ihesaldia pentsatzen hasi zirenean, aurreko saiakerako estoldak begiratzera joan eta zuloa beraiek utzi zuten moduan zegoela ikusi zuten. ETA-pm-ko kideak hasi ziren lanak egiten.

4.467. Segoviako ihesaren bigarren saiakera II (EIB-725/020)

Kartzelatik ihes egiteko bigarren saiakerako lanetan hasi ziren ETA-pm-koak. Denek laguntzen zuten. Behin, hormak apurtzen zihardutela, presoekin batek zaratak antzeman eta zenbaketa deitu zuen. Ez zituzten harrapatu, baina tentsio handiko momentuak izan ziren.

4.468. Segoviako ihesaren bigarren saiakera III: lanen zaratak nola tapatu (EIB-725/021)

Kartzelatik ihes egiteko zuloa eta bidea prestatzeko, hormak apurtu behar zituzten. Zarata atera behar zuten lanak egitean eta hau nola tapatzen zuten kontatzen du Josuk.

4.469. Segoviako ihesaren bigarren saiakeran arrakastatsua (EIB-725/022)

Segoviako kartzelatik ihes egiteko bigarren saiakera oso ondo atera zen. 4-5 orduz, presoekin ez ziren konturatu 29 pertsona falta zirenik. Arrakasta izateko aurrera eraman zuten estrategia kontatzen du. Gainontzeko presoek parte hartu ez bazuten ere, bazekiten besteek ihes egingo zutela eta lankidetzaren oso handia izan zen. Arratsaldeko 18.00etan konturatu ziren kartzelan, 70 presotatik 29 falta zirela.

4.470. Presoen arteko laguntasuna (EIB-725/023)

Segoviako kartzelatik ihes egin ez zutenek gaizki pasatu zuten. Bazekiten besteek ihes egin zutela, baina isilik geratu ziren. Preso guztien lankidetzari esker heldu ziren Josu eta gainontzeko iheslariak mugara.

4.471. Mugatik 15 minutura harrapatu zituzten (EIB-725/024)

Segoviako kartzelatik ihes egin zutenean, kamioi baten joan ziren Erroraino. Urepelera pasatzeko mugalaria ez zen agertu eta euren kabuz muga pasatzea pentsatu zuten. Guardia zibilak konturatu eta tiroka hasi ziren. Bakoitzak ahal izan zuen bezala ihes egin zuen. Josu goizeko 9etan harrapatu zuten beste kide batekin batera.

4.472. Burgeteko koartelean (EIB-725/025)

Atxilotu eta Burgeteko koartelera eraman zuten Josu. Guardia Zibilak haietaz errukitu zirela uste du. Jaten eman zieten eta manta bat ere eman zioten.

4.473. Herri-mugimenduagatik atera ziren espetxetik, ez amnistiagatik (EIB-725/026)

Segoviako ihesaldiaren ostean, urtebete gehiago egin zuen kartzelan. Herri-mugimenduagatik atera ziren espetxetik, eta ez amnistiagatik. Burgosko prozesuko presoek kasuan ezberdina izan zen.

4.474. Espetxetik atera eta prozesioak Eibarrera; jendearen harrera (EIB-725/027)

Eibarko herriari oso eskertuta dago Josu. Espetxetik atera zenean, herrian izan zuen harrera kontatzen du. Bilbon harrera egin zieten 4000 pertsona inguruk.

4.475. Ikaragarrizko harrera Eibarren (EIB-725/028)

Anaiak abisatu zion Eibarren jendetza zegoela Untzagan bere zain. Kotxe gainean ikurrina bat ipini zuten eta jendea gainera botatzen zen, pozez lehertuta. Txoko tabernara heldu, kotxetik atera eta lepoan eraman zuten Untzaga plazaren erdiraino. Etxera bidean ere jendea bere atzetik joan zen. Espetxetik bueltan, ama leihoan zegoen Josuren zain. Besarkada hura ez du inoiz ahaztuko. Xabier Arzalluz Astelena frontoian zegoen, mitin bat ematen, eta Untzagara joatea eskatu zuen, presoek ongiatorria egiteko.

4.476. Espetxetik bueltan, ikaragarrizko babesak izan zuten (EIB-725/029)

Bederatzi urtean espetxean egon ondoren, Eibarko egoera politikoa oso aldatuta aurkitu zuen. Mugimendu sindikal handiak zeuden, jendearen arteko laguntasuna... Lehenengo asteetan beti kuadrillarekin, familiarekin... ibiltzen zen. Bi lagunek beti etxera laguntzen zuten Josu, bizkartzain bezala. Babes handia zeukan.

4.477. Familiak eramandako janaria beste presoekin banatzen (EIB-725/030)

Herriko jende askok Josuren familiarentzat dirua, arropa, janaria... biltzen zuten. Europatik ere laguntzak heldu zitzaizkien. Espetxera janari asko heltzen zen euskal presoentzat eta preso guztiekin banatzen zuten: legatza, piper-beteak, bakailaoa... Lo egiteko kalitatezko zaku onak ere bazituzten.

4.478. Espetxera bisitak; irakurketak (EIB-725/031)

Laguntasun ikaragarria jaso zuten bai Josuk eta baita bere familiak ere Eibarren. Liburuak eskatzen zituenean, etxera zerrenda bat bidaltzen zuten eta bere lagunek berehala lortzen zituzten. Bisitan askotan joaten ziren. Zer irakurtzen zuten.

4.479. Trantsizioan, gazte gehienak mugimenduetan zeuden (EIB-725/032)

Trantsizioa orduko Eibarko gazteriarentzat garairik garrantzitsuena izan zen. Gazte gehienak mugitzen hasi ziren, mugimenduetan sartzen... Helburua, frankismoarekin bukatzea zen eta denak bat zeuden horretan. Burgosko prozesuak eragin handia izan zuen Eibarren.

4.480. Espetxeak heldutasuna ematen du (EIB-725/033)

Espetxeak heldutasun handia eman zion Josuri. Lagun handiak egin zituen barruan eta elkarrekin bizitakoak betirako dira.

**4.481. Berriak Eibartik Donostiara nola bidaltzen ziren /
Cómo enviaban las noticias de Eibar a Donostia
(EIB-726/001)**

Frankismo garaian, prentsa erregimenaren kontrolpean zegoen. Mateok El Diario Vascon laguntzaile-lanak egiten zituen. Egunero bere idatzia autobusez bidaltzen zuen Donostiara, hurrengo egunean argitaratzeko.

**4.482. "Radio Nacional"-arentzat berriak telefonoz ematen /
Dando las noticias a "Radio Nacional" por teléfono
(EIB-726/002)**

"Radio Nacional"-etik deitu zioten bertan kolaborazioak egiteko. Etxean telefonoa izan aurretik, beste nonbaitetik deitu behar izaten zuen eta Telefonikako zentraletik pasatzen ziren deiak. Etxean telefonoa jarri zuenean, asko erraztu zitzaion lana.

**4.483. Eibar nolakoa zen 50. hamarkadan / Eibar en la
década de los 50 (EIB-726/004)**

Eibarrera bizitzera joan zenean herria nolakoa zen kontaktzen du. Urki, Amaña eta San Kristobal auzoak ez zeuden. Jendea oso langilea zen eta lanerako mantal urdinarekin ibiltzen ziren kaletik. Dena fabrikaz beteta zegoen.

**4.484. San Juan bezperan, Lizarrako dultzaineroei harrera
egitearen ohituraren jatorria / Origen de la tradición del
recibimiento de los dulzaineros de Estella en Eibar
(EIB-726/005)**

San Juan bezperan, dultzaineroak Lizarratik etortzen ziren trenez. Beraiekin batera, Gasteizetik prostitutak heltzen ziren eta gizonak haiek ikustera joaten ziren Estaziño kalera. Gaur egun dultzaineroei harrera egitera joatearen ohitura bertatik datorrela kontaktzen du Mateok.

**4.485. Jai-Alai dantzalekua / Sala de fiestas Jai-alai
(EIB-726/007)**

Jai-Alai dantzalekuari buruz hitz egiten du. Mateok, bertara jotzera heltzen ziren musikariak aurkezten zituen. Ostegunetan dantzaldia eta pilota egoten zen eta bikotearekin irteteko eguna izaten zen.

**4.486. Igandetan, musika-banda Untzagan / Cada domingo,
actuación de la banda de música en Untzaga (EIB-726/008)**

Udal musika-bandarekin 9 pieza jotzen zituen igandero. Udan, ostegunetan ere. Ezkontzetan ere jotzen zuten. Ezkontza batean, elurra hasi zen eta denak joan egin ziren beraiek pare bat kanta bakarrik joaz.

**4.487. Ezkontza batean, musikariak emakumeekin dantzan
/ Los músicos bailaban con las invitadas de la boda
(EIB-726/010)**

Ezkontza batean jotzera joan zirenean, dantzaldia heldu zenean gizon guztiak kartetan jolastera joan ziren. Beraiek, musika jotzen zuten bitartean emakumeekin dantza egin zuten.

4.488. Eibar, "dolarraren hiria" / Eibar, "la ciudad del dólar" (EIB-726/011)

Eibar, "dolarraren hiria" bezala ezagutzen zen. Jende guztiak lan egiten zuen, emakume eta gizon. Diru asko zegoen herrian baina Mateoren ustez itxurakeria ere bazegoen.

4.489. Larunbatero, soldataren aurrerapena / Adelanto del sueldo cada sábado (EIB-726/012)

ALFAn, larunbatero soldataren aurrerapen txiki bat ematen zuten eta hilean bukaeran gainerakoa.

4.490. Aste Santuan trajea estreinatzen zen / En Semana Santa, se estrenaba traje (EIB-726/014)

Aste Santuetan traje berria estreinatzen zen, nahiz eta gero urtean zehar gutxi erabili.

4.491. Eibarko berriei buruz ematen I / Dando las noticias de Eibar I (EIB-726/016)

Garai batean, "El Diario Vasco"-ko orrialde bat bete behar zuen Eibarko berriez. Ezkontzez, heriotzez, urtebetetzez...informatzen zen. Gerora, futbolaz asko informatu du eta Ipuruara sarrera zuzena izaten du.

4.492. Hotel Arrate behera etorri zeneko eguna / El día que se derrumbó el hotel Arrate (EIB-726/017)

Hotel Arrate behera etorri zeneko egunean, urriak 12an, musika-bandarekin jotzen zuen. Bat-batean sirenak jo zuen

4.493. Jai-egunetan lan egiteko baimena apaizak ematen zuen / En festivo, el cura daba permiso para trabajar (EIB-726/018)

Hotel Arrate behera etorri zeneko egunean jaieguna zenez, hotela egiten zuen enpresak elizari lan egiteko baimena eskatu behar izan zion.

4.494. Tailerrak Eibartik kanpora / La marcha de los talleres de Eibar (EIB-726/021)

Etxebizitza guztietan tailerrak zeuden eta urteetara enpresa asko Eibartik joan egin ziren.

4.495. Eibarko berriei buruz ematen II / Dando las noticias de Eibar II (EIB-726/024)

Eibarrerri buruzko berriak bakarrik idazten zituen El Diario Vasco-n. Gaur egun egiten dituen gauzetaz hitz egiten du.

4.496. Koronabirusa etxean / Coronavirus (EIB-726/025)

Emazteak koronabirusa harrapatu zuen eta etxean nola konpondu ziren kontatzen du.

4.497. Eibarko kirolen berriemailea / Cronista deportivo de Eibar (EIB-726/026)

Pilotako berriak berak ematen zituen arren, pilota asko gustatzen zitzaion lagun batek pasatzen zion parte. Eskubaloitari buruzko berriak ere ematen zituen.

4.498. "Astelehenetako orria" idazten zuen / "La hoja del lunes" (EIB-726/028)

Irratian hasi zenean, mekanografia ikasi behar izan zuen. Kronikak nola egiten zituen azaltzen du. "Astelehenetako orria" egiten zuen, gehiena futbolari buruzko berriekin. Inoiz ez zuen kobratu.

4.499. "Radio Nacional" ez kentzeko borrokatzen I / Luchando por mantener "Radio Nacional" I (EIB-726/029)

Espainiako Irrati-Telebistako garaiko zuzendariak erabaki zuen 30.000 biztanletik beherako herri eta hirietan "Radio Nacional" irratsaioa kentzea. Eibarren arazo hau nola konpondu zuten kontatzen du Mateok.

4.500. "Radio Nacional" ez kentzeko borrokatzen II / Luchando por mantener "Radio Nacional" II (EIB-726/030)

Espainiako Irrati-Telebistako garaiko zuzendariak Eibarko irratsaioa kentzeko erabakia hartu zuenean, Mateok borrokatu zuena kontatzen du. Eibarko politikari bati laguntza eskatu zion eta bere laguntzaz lortu zuten irratsaioa ez ixtea.

4.501. Gustora irratian eta egunkarian / A gusto en la radio y en la prensa (EIB-726/032)

Kazetari lanak egin ditu baina ez ditu kazetari-ikasketak. Mateo gustora egon da bai irratian baita egunkarian ere.

4.502. Quintanilla de San Garciatik Eibarrera / De Quintanilla de San García a Eibar (EIB-727/002)

Quintanilla de San García jaioa. Gurasoak nekazariak. Eibarrera bizitzera joatearen zergaita. Txontako auzoan bizi zen. Udan, herrira bueltatzen zen.

4.503. Txontan denak erdaldunak ziren; hazinamendua / En Txonta, todos eran castellanos; el hacinamiento (EIB-727/003)

Txontan bizi zen eta bertan denak kanpotarrak ziren. Oso arraroa zen familia euskaldun bat egotea. Hazinamenduz hitz egiten du. Etxe askotan apopiloak zeuden.

4.504. Klase-kontzientzia pizten / Despertar de la conciencia de clase (EIB-727/004)

Eibarren, Burgosko herrian baino egoera hobegoan bizi ziren. Lanean hasi behar zuen etxean laguntzeko, baina amak alaba biak ikasketak izatea nahi zuenez, 17 urtera arte egon zen ikasten Begoña. Etxeko eta auzoko egoera ikusita, klase-kontzientzia bat pizten hasi zen Begoñaren barruan. Nahiz eta kanpotarra izan, beti oso integratuta sentitu da.

4.505. Etxean ez zen politikaz hitz egiten / En casa no se hablaba de política (EIB-727/005)

Etxean ez zen politikaz hitz egiten. Burgosko herrian gerrak ez zuen jo, ez zelako erresistentziarik egon. Beldurra zegoen politikaz hitz egiteko. Gurasoei ez zitzaien gustatu Begoña politikan eta mugimendu ezberdinetan sartzea.

4.506. Kultuko zineforuma, mugimendu sozial eta politiko askoren gunea / Cinefórum de la Kultu, centro de numerosos movimientos sociales y políticos (EIB-727/006)

Eibarren eta orokorrean, frankismoaren azken urteetan gauza asko aldatzen ari ziren. Jendea oso nekatuta zegoen, errepresio asko zegoelako eta erreza zen mugimendu sozial eta politikoetan sartzea. Iñaki Sarasketa eibartarraren heriotza zigorra. Kultu-ko zineforuma, mugimendu sozial eta politiko askoren gunea izan zen. Bertan denataz hitz egiten zen.

4.507. Roberto Perez Jauregiren hilketa / Asesinato de Roberto Pérez Jauregi (EIB-727/007)

PCI-n sartu zen. Maoismoa. Burgosko prozesua eta Roberto Perez Jauregiren hilketa.

4.508. Roberto Perez Jauregiren hilketaren ondorioak / Consecuencias del asesinato de Roberto Pérez Jauregi (EIB-727/008)

Roberto Perez Jauregiren hilketak asko kolpatu zuen Begoña. Nazioartean oso entzuna izan zen eta erregimenaren aurkako jarrerak areagotu egin ziren. Salbuespen-egoera. Panfletoak banatzen zegoela atxilotu zuten Begoña.

4.509. Roberto Perez Jauregiren hilketaren ondoren, beldurra / Miedo tras el asesinato de Roberto Pérez Jauregi (EIB-727/010)

Roberto Perez Jauregiren heriotzean inoiz ez zen onartu indarkeria poliziala egon zenik. Beldurra zeukaten.

4.510. Roberto Perez Jauregiren hileta zibila / Funeral civil de Roberto Pérez Jauregi (EIB-727/011)

Roberto Perez Jauregiren familiak hileta zibila antolatu nahi zuen. Orduko alkateak, eguneroko batean jaso zuen egun haietan egin behar izan zituen bilera, dei eta hitzordu guztiak. Dokumentuaz hitz egiten du Begoñak. Hileta zibila izan zen eta Benigno Baskaran izan zen "apaiz-laikoa". Jendetza bildu zen hiletan eta isiltasun osoa zegoen.

4.511. Roberto Perez Jauregiren heriotzaren kausa izkutuan mantendua / Ocultación de la causa de la muerte de Roberto Pérez Jauregi (EIB-727/012)

2010ean aitortu zen Roberto Perez Jauregiren hilketa indarkeria polizialaren ondorio eta erregimen frankistaren ardura izan zela. Familiak urte guzti horietan ez du inolako laguntza ofizialik izan, baina bai jendearena.

4.512. Segurtasun-kodeak propaganda banatzean / Los códigos de seguridad que seguían cuando repartían propaganda (EIB-727/014)

Kuadrillak askotan laguntzen zion propaganda banatzen. Halako batean, guardia zibilak harrapatu egin zituen Begoña eta beste bi lagun. Harrapatzen bazituzten, bazekiten zer esan eta zer nolako alibia izan.

4.513. Propaganda banatzeagatik atxilotua / Detenida por repartir propaganda (EIB-727/015)

Begoña atxilotu eta guardia zibila bere gurasoen etxera joan zen, miaketa egitera. Gurasoek ez zekiten atxilotua izan zela. Etxetik zer eraman zuten kontatzen du. Martutenen egon zen hilabete eta erdiz.

4.514. Eibarren, klase-kontzientzia handia / En Eibar había mucha conciencia de clase (EIB-727/016)

Militatzen zebilenean irakurtzen zuena: Maoren Liburu Gorria, Marx, Lenin... Klandestinoki liburuak lortzeko sarea. Klase-kontzientzia handia zegoen Eibarren. Edozein lan-hitzarmen asko eztabaidatzen zen, grebak egiten ziren, manifestaldiak...

4.515. Ezkertiarren artean bi joera antifrankista nagusi / Entre la gente de izquierdas había dos inclinaciones antifranquistas principales (EIB-727/017)

Ezkertiarren artean bi joera antifrankista nagusi zeuden: bata herri-nortasunaren zapalketarekin lotutakoa eta bestea klase-kontzientzia eta ezberdintasun sozialekin lotutakoa.

4.516. Militanteak erakartzea / Captación de militantes (EIB-727/018)

Mugimendu politiko eta sozialek, ideologikoki antzekoak ziren pertsonak erakartzen zituzten. Begoñaren kasuan, Arrate Berasalucek PCI-ra erakarri bazuen ere, lasai asko ETA barruan sartzeko aukerak ere zituela kontatzen du Begoñak.

4.517. Asanblada klandestinoak mendian / Asambleas clandestinas en el monte (EIB-727/019)

Asanbladak mendiak egiten zituzten ia igandero. Lau oihu botatzeko ere balio zuen. PCE-koak "españolista"-tzat hartzen zituzten. Pertsona batzuk ez zeuden antolatuta baina besteei laguntzen ibiltzen ziren. Alderdi guztiak ziren klandestinoak.

4.518. Klandestinitatean zeuden alderdien barne-egiturak / La estructura interna de los partidos clandestinos (EIB-727/020)

Klandestinitatean zeuden alderdien barne-egituretz hitz egiten du. PCI-ko egitura zurrunagoa eta itxiagoak zen, maoista. PCE-n ordea, antolaketa askoz ere handiagoa zen eta lider asko zeuden.

4.519. Propaganda klandestinatorako kopiagailua / La copiadora clandestina para hacer propaganda (EIB-727/021)

PCE-ko kide zenean, Ermuan erabiltzen zuten kopiagailuari buruz hitz egiten du. Kopiagailua, etxe bateko pareta bikoitz baten atzean zegoen gordeta. Kopiagailua nola erabili kontatzen du. Mundo Obrero aldizkariaren kopiak egiten zituzten. Makinaren arduradunak ezin zuten atentzioa deitu.

4.520. "Gerrako izena" Lola zuen / Lola, su nombre de guerra (EIB-727/022)

Propaganda klandestinatorako kopiagailuarekin egiten zituzten panfletoak nola eta non banatzen zituzten. Sare antolatua zeukaten. Batzuetan lehenagotik ezagutzen ez zuten kide batekin geratu behar zen informazioa pasatzeko eta ez zuten bere benetazko izena erabiltzen.

4.521. Francoren heriotzaren inguruko sentipenak / Sentimientos en torno a la muerte de Franco (EIB-727/023)

Franco ohean hiltzea frustrazio handia izan zen. Pozik zeuden Franco hil zelako baina beraien borrokaren ondorioz frankismoarekin bukatu ez zutenaren frustrazioa zuten.

4.522. PCE-k gauza gehiegi onartu zituen trantsizioan / El PCE aceptó por buenas demasiadas cosas durante la transición (EIB-727/024)

Atzera beiratzean, Franco hil ostean PCE-k gauza asko onartu zituela uste du Begoñak: bandera, konstituzioa... alderdiaren barruan tentsioak sortu ziren.

4.523. 1977ko Amnistiaren Legea / Ley de Amnistía de 1977 (EIB-727/025)

1977ko Amnistiaren Legea-z hitz egiten du.

4.524. Comisiones Obrerako kide / Miembro de Comisiones Obreras (EIB-727/026)

Comisiones Obreras-eko delegatu sindikala izan zen. Orduan sindikatu bertikala bakarrik zegoen eta bera ideia iraultzaileak sartzan saiatzen zen. Garai batean langile guztiak ziren CCOO-ekoak.

4.525. CCOOeko bilerak etxean (EIB-727/027)

Iparaldeko CCOO-eko bilera asko Begoñaren etxean egin dira, Ermuan.

4.526. Eibarko Pecera taberna / La Pecera de Eibar (EIB-727/028)

Eibarko PCE-ko lehenengo sedea Bittor Sarasketa kalean zegoen. Gero Pecera-ra pasatu ziren eta taberna ere zuten.

4.527. Emakumeen eskubideen borroka / Lucha por los derechos de la mujer (EIB-727/031)

Emakumeen eskubideen borrokan gauza asko lortu dira.

4.528. Emakumeak politikan / Mujeres en política (EIB-727/032)

Politikan eta militantzian emakume asko ezagutu ditu baina lidergoak beti gizonezkoak ziren. PCE barruan emakumeen beste talde bat sortu zen.

4.529. Emakumeen manifestazio antimilitarista / Manifestación antimilitarista de mujeres (EIB-727/033)

Eibarko Emakumeen Asanbladako kidea izan zen Ermuara bizitzera joan zen arte. Eibarko STAR lantegian egin zen emakumeen manifestazio handi bati buruz hitz egiten du.

4.530. Eibarko planning-a / El planning de Eibar (EIB-727/034)

Ermuan sortu zen lehenengo planning-a Errekaldeko baten eredia jarraituz. Eibarkoa geroago sortu zen. Zertan lan egiten zuten kontatzen du.

4.531. Trantsizioak, demokrazia kaltetu bat sortu zuen / La transición creó una democracia dañada (EIB-727/035)

Begoñarentzat trantsizioak zer suposatu duen. Garapena egon zen arren, trantsiziotik atera zen demokrazia hura onartzeaz damutzen da. Dena onartu zutela eta gero hauteskundeetan emaitza txarrak atera zituztela uste du.

4.532. Aita pilotaria eta ama raketista (EIB-728/001)

Izen-abizenak. Jaio eta Madrilera doaz bizitzera eta handik Bartzelonara. Aita pelotaria zen eta ama raketista.

4.533. Durangotik Eibarrera (EIB-728/002)

1946an Durangora doaz bizitzera. Hamabi urterekin neguak amonarekin Eibarren pasatzen ditu eta bertan doa eskolara. Hamabost urterekin Lambrettan hasten da lanean.

4.534. Lambrettan lanean eta gero klase partikularrak (EIB-728/003)

Lanean hasi zenean, 1955ean, ez zegoen hainbesteko langile-mugimendurik. Bera oso gaztea zen eta lanetik ateratzen klase partikularrak jasotzen zituen. Lagunekin kalean egoten zen.

4.535. Franco hil eta gero piztu zitzaion kontzientzia politikoa (EIB-728/004)

Franco hil zen arte ez zitzaion kontzientzia politikoa piztu. Hezkuntza arloan zeuden ezberdintasunak ikusita erabaki zuen 1976an PSOE-ra afiliatzea Libe Betolazak bultzatua.

4.536. Sozialismoa eta katolizismoa (EIB-728/005)

Asko kostatu zitzaion sozialismoaren ideak bereganatzea, bera erlijiosoa delako eta tradizioz sozialistak, ez. Toribio Etxeberriaren "El hijo del hombre" obrak, sozialismoaren eta katolizismoaren ideiak uztartzeko asko balio izan zion.

4.537. Txikitatik sozialismoa inguruan (EIB-728/007)

Amonaren etxean sozialismoaz hitz egiten entzuten zuen. Libe Betolazaren oso lagun zen eta haien familia ere sozialista zen.

4.538. Frankismo garaiko manifestazioa (EIB-728/008)

Frankismo garaiko manifestazio asko preso politiko eta atxilotuen inguruan izaten ziren. Poliziaren errepresioa handia zen. Badaki Franco aurretik alderdiak klandestinitatean biltzen zirela baina berak ez du hori bizi.

4.539. Umetan, frankismoa normaltasunez (EIB-728/010)

Elenaren ama frankista zen eta etxean ez du frankismoa modu txarrean bizi izan. Gerora konturatu zen egoeraz.

4.540. Sozialisten mitinak Eibarren (EIB-728/011)

Eibar Casa del Pueblora joaten ziren estatuko sozialisten hitzaldiak entzutera. Mitin handiak (Felipe Gonzalez, Alfonso Guerra...) Astelena frontoian ziren. Besteak, formakutzakoak izaten ziren.

4.541. Hezkuntzaren berdintasunaren alde (EIB-728/013)

Franco hil ondoren, hezkuntzaren berdintasunaren alde borrokatu nahi zuen Elenak.

4.542. Lehenengo udal demokratikoaren talde sozialista (EIB-728/014)

Eibarko lehenengo udal demokratikoan zinegotzia izan zen Elena. Gainontzeko bere alderdikideak: Julio Lapeyra, Javier Lopez Gereñu, Jose Fernandez, Alvaro Esteban eta Roberto Errasti. Bera zen emakume bakarra.

4.543. Ilusio handiz sartu ziren udalean (EIB-728/016)

Udal demokratiko berrian dena zegoen egiteko. Ilusio handiarekin hasi ziren. Alkateak (Mikel Larrañahak) bakarrik zuen soldata eta ez zen oso altua ere ez. Mikeli buruz hitz egiten du. Komisioak sortu ziren.

4.544. Gazteriaren Komisioko lehendakaria Eibarko Udalean (EIB-728/017)

Elena, Hezkuntza Saileko komisioko kide eta Gazteriako komisioko lehendakaria izan zen. Gazteriako sailean ez zekien zer egin eta boletin ofizialeko deialdiak egunero begiratzen hasi zen: bekak, oposaketak, ikastaroak, auzolandegiak... Lan nola egiten zuten kontaktatzen du.

4.545. Hezkuntza publikoan gauzak aldatu nahian (EIB-728/018)

Elenak uste dut Gazteria Saileko zuzendaritza eman ziotela, politikaz gutxi zekielako. Berak Hezkuntza Sailean lan egin nahi zuen, eskola publikoetan ikastolak eta eskola pribatuek zituzten ezaugarriak ezartzeko.

4.546. Eskola publiko eta pribatuaren arteko ezberdintasunak (EIB-728/019)

Ikastolako lehenengo promozioa atera zenean, euskarak balio asko hartu zuen. Eskola publikoetakoez ez zuten aukerarik izan euskarazko hezkuntza jasotzeko. Bere semeak eskolaz kanpo ikasi zuten euskaraz.

4.547. Udal-gobernuak, denak lagunak naiz eta eztabaidak izan (EIB-728/021)

Udalbatzarretan eztabaidak bazituzten ere, udal-gobernu guztiaren arteko harremana oso ona zen. Denak ilusio handiz sartu ziren. Laguntasun handia zuten.

4.548. Drogen arazoa Eibarren; udalbatzarrak (EIB-728/023)

Udalbatzarretara, etxean drogen arazoak zituzten familia eta gurasoak joaten ziren. Udalak ez zekien nola lagundu eta nola kudeatu. Gazte askoren arazoa izan zen.

4.549. Eibarko trafikoa 80. hamarkadan (EIB-728/025)

Eibartarrentzat trafikoaren arazoa handia zen 80. hamarkada hasieran. Eraikuntza eta auzoetako irisgarritasuna ere arazo bat izan zen.

4.550. Trantsizioa, esnatze bat izan zen (EIB-728/028)

Trantsizioa, esnatze bat izan zen Elenarentzat. Adierazpen askatasunak ikusiarazi zion beste errealitate bat zegoela. Pozik dago PSOEn militatu izanagatik.

4.551. Amatasuna eta politika (EIB-728/029)

Amatasuna eta politika uztartzea zaila egin zitzaion. Politikan sartzeko erabakia hartu zuenean, inguruko batzuk ez zeuden ados.

4.552. Amatasuna eta politika: kritikak I (EIB-728/030)

Kritikak ama eta politikaria izateagatik. Bere inguruan entzuten zituenak.

4.553. Amatasuna eta politika: zaintzaren arazoa (EIB-728/032)

Demokraziako lehenengo udal hauteskundeetako zerrendan nola joan zen azaltzen du. Alderditik kanpokoek ez zuten ulertzen nola sartzen zen politikari izatera, bi seme izanda. Lagunek lagundu zioten semeen zaintzan. Bigarren legealdian ere aurkeztu zen baina hilabete gutxi batzuentzat bakarrik. Amaia Egañak hartu zuen bere kargua gero.

4.554. Imanol Laspiurren atxiloketa kolpe gogorra izan zen Udalean (EIB-728/033)

Udalbatzar batzuen ondoren manifestaldiak egoten ziren eta Elenaren alderdikideek, ez joateko esaten zioten, babestu nahian. Asier Laspiurren atxiloketaz hitz egiten du.

4.555. San Andres kalean jolasean (EIB-729/002)

Izen-abizenak, jaiotze data. San Andres kalia bizi zen. Kalean jolasean ibiltzen ziren, alde batetik neskak eta bestetik mutilak.

4.556. Familia antifrankista eta anaia PCEI-ko militantea (EIB-729/003)

Aitona Arrasatekoa zen eta errepublikanoa. Gurasoak, antifrankistak. Etxean ez zuen sumatzen jarrera politikorik eta anaia hil baino piskat lehenago hasi zen konturatzen hau politikan sartua zegoela.

4.557. Burgosko prozesua nola bizi izan zen Eibarren (EIB-729/005)

Eibarren Burgosko prozesua nola bizi izan zen. Hiru eibartar zeuden prozesuan: Mario Onaindia, Enrique Gesalaga eta Jon Etxabe. Bi manifestaldi handi egon ziren.

4.558. Roberto Perez Jauregiren kontrako indarkeria poliziala (EIB-729/006)

Burgosko prozesuaren aurkako bi manifestaldi egin ziren Eibarren. Lehenengoan Jorge ez zen egon baina 2.enean bai. Manuel Gil tiroz zauritu zuten eta Jorgeren anaia, Roberto hil zuten. Manifestaldiaren bere gogoetak eta eta anaia zauritu zutela nola jakin zuen kontatzen du.

4.559. Roberto Perez Jauregi: lau egun ospitalean hil zen arte (EIB-729/007)

Roberto P. Jauregi zauritu zutenean, Elgoibarren zegoen klinika batera eraman zuten eta handik Donostiara. Giltzurrun-transplante bat behar zuen baina berandu heldu zen. Tiroa oso gertutik jo zioten eta hori gero Robertok zeraman erropan ikusi zuten. Anaia agurtzeko aukera izan zuen.

4.560. Roberto Perez Jauregiren hileta zibila (EIB-729/008)

Roberto P. Jauregi hil zenean, gurasoek gorpua Eibarrera ekarri nahi zuten eta hilketa zibila egin. Arazoak izan zituzten honekin baina azkenean lortu zen. Hileta eguna nolakoa izan zen kontatzen du. Hileta zibilak. Benigno Baskaran.

4.561. Roberto Perez Jauregiren heriotza nola bizi izan zen familian (EIB-729/009)

Anaiare hilketak familian izan zuen eragina kontatzen du. Administrazioaren aldetik guztiz baztertuak izan ziren.

4.562. Roberto Perez Jauregiren hilketa inoiz ez zen ikertu (EIB-729/011)

Bere anaiari gertatukoa edozeini pasa ahal zitzaion baina polizia hiltzera joan zela argi dauka Jorgek. Inoiz ez da ikertu zer gertatu zen eta familiari ez diote inoiz erantzunik eman. Askok kostatu zitzairen hilarrarian eta Robertoren omenez egin zituzten oroigarri batzuetan, indarkeria polizialaren biktima izan zela jartzea.

4.563. Roberto Perez Jauregiren hilketa eta orduko alkatea (EIB-729/012)

1970. urteko Eibarko alkatearen txosten batean, Roberto Perez Jauregiren hilketaren hurrengo egunak azaltzen dira. Bertan, herriaren irudia eta segurtasuna bermatu nahi zuela azaltzen da baina ez da Robertotaz ezta familiaz arduratzen. Ez du erantzunik eskatzen.

4.564. 1970eko salbuespen-egoerak suposatzen zuena (EIB-729/013)

Jorgeren gurasoak abokatuekin kontaktuan jarri ziren Robertoren hilketaren ondoren. Esan zieten ezin zutela ezer egin, salbuespen-egoeran zeudelako.

4.565. Anaia zein poliziak hil zuen ez dute inoiz jakin (EIB-729/014)

Urte askoren burura eta Memoria Historikoaren legearekin, Roberto Perez Jauregiren hilketa aitortua izan zen. Hala ere, inoiz ez dute jakin nork egin zuen tiro eta ez da inor epaitu.

4.566. Frankismoa bukatuta, goi-kargu berdinek jarraitu zuten boterean (EIB-729/015)

Amarentzat eta familia osoarentzat oso frustragarria izan da inoiz epaiketarik egin ez izana, ardurak depuratu ez izana, frankismoa bukatzean garaiko militar eta epaileak karguetan jarraitu izana...

4.567. Roberto Perez Jauregi, estatutuko terrorismoaren biktima (EIB-729/016)

Eibarko herriangantik babes handia jaso dute beti, baina Udaletik ez. Eibarko Udalak biktimei omenaldi bat egin zien eta Roberto aintzat ez hartzeak min asko eragin zuen familian.

4.568. Ahaztuak 1936-1977 (EIB-729/017)

2010ean, Roberto Perez Jauregi estatuko terrorismoaren biktima bezala aitortu zuten. Ahaztuak 1936-1977 elkarteak plaka bat jarri zuen eta Udalak ez zuen parte hartu.

4.569. Glen Cree ekimena (EIB-729/018)

Glen Cree ekimenaren parte da Jorge. Bertan, estatutuko terrorismoaren eta ETAko biktimen arteko "bi bandoen" testigantzak entzuten dira. Zer den kontatzen du.

4.570. Anaiaren hilketaren aitortza eza (EIB-729/019)

Gogora Institutuak Roberto Perez Jauregi egindako omenaldia Coliseoan. Jorgek, Udalarai aitortza eskatu zion.

4.571. Gaur egungo gazteek ez dakite frankismoaz eta euskal gatazkaz (EIB-729/020)

Gaur egungo gazteek ez dakite zer gertatu zen frankismoan eta trantsizio osteko urte haiez. Oso garrantzitsua da historia jakitea, errepikatu ez dadin.

4.572. Poliziaren inpunitatea (EIB-729/021)

Euskal gatazkan gertatuko gogoeta egiten du. Bi aldeetatik gauzak gaizki egin dira, baina estatuko terrorismoa egon denean kasuak ez dira ikertu eta poliziak inpunitate osoz jarduten du. Alemanian guztiz kontrakoa gertatzen da.

4.573. 1977ko Amnistiaren Legea (EIB-729/023)

1977ko amnistiaren legeaz hitz egiten du. Amarru bat izan zen, gero gauzak ez direlako ondo egin. Ez da arduren depuraziorik egin poliziaren eta agintarien artean. Argentina eta Txileko kasuak aipatzen ditu.

4.574. Roberto Perez Jauregi hil zuen polizia (EIB-729/025)

2010ean interneten irakurri zuen bere anaiaren hiltzailearen izena. Guardia Zibilaren barruan mailaz igo zuten. Inoiz ez da ikertu eta inoiz ez dira proba ofizialak bilatu

4.575. Robertoren hilketaren ondoren, poliziak lasai utzi zieten (EIB-729/027)

Robertoren hiletan, amak zin egin zuen askatasunaren alde borrokatuko zuela. Ondoren, bai gurasoak eta bai Jorge militantzian hasi ziren. Robertoren hilketaren ondoren, poliziak nahiko lasai utzi ziela kontatzen du. Sekretak zeintzuk ziren bazekiten.

4.576. Propaganda banatzeagatik espetxean 2 hilabete (EIB-729/028)

Propaganda banatzeagatik atxilotua izan zen eta bi hilabetez egon zen espetxean.

4.577. Eibarko ikastolaren sorrera Bidebarrietako pisu batean (EIB-730/002)

1974. urtetik aurrera ikastolako irakaslea izan da. Eibarko ikastola 1960. urtean sortu zen, Lehenengo egunean 10 ikasle ziren eta taldea handitzen joan zen. Bidebarrietako etxebizitza batean ematen zituen klaseak Mari Tere Munduate andereñoak. Urtebetean ikasle kopurua bikoiztu eta Zezenbideko lokaletara pasatu ziren, Lokal horiek ikastolarenak izaten jarraitu dute.

4.578. Eibarko ikastolako sorrera: 10 urtez eskolaratze-txartelik gabe (EIB-730/003)

Ikastola, erdi-klandestino zen eta ez zuen aitorten ofizialik. 1971-1972. urtera arte, ikasleek ez zuten eskolaratze-txartelik eta ofizialki neskak monjetan eta mutilak fraideetan matrikulatuta zeuden.

4.579. Eibarko ikastolako sorrera: klandestinitatetik ofizialtasunera (EIB-730/004)

Eibarko ikastolak, 1972-1973. urtean lortu zuen ofizialtasuna. Orduan, ikasturtero 200 ikasle baino gehiago matrikulatzen ziren. Guraso eta irakasle-talde oso indartsu bat zegoen.

4.580. Eibarko ikastolako lehenengo irakasleak (EIB-730/005)

Lehenengo Eibarko ikastolako irakaslea, Mari Tere Munduate izan zen eta bigarrena, Marisa Arizaga. Matrikulazioak igotzen joan ziren heinean, irakasleria handitzen joan zen. Izenak esaten ditu.

4.581. 1979an Eibarko Ikastolak 1784 ikasle (EIB-730/007)

Hasieran kurtso bakoitzeko gela bat zegoen arren, heldu zen momentu bat non 6 edo 7 gela zeuden kurtso bakoitzeko. Zuzendaritza batzordean egon zenean, 1784 ikasle eta 80 irakasle zeuden.

4.582. Ikasle gutxiko gelak endogamikoak bihurtzen dira (EIB-730/008)

Izan duen ikastolako gelako ratio handiena 36 ikaslekoa izan zen baina ez zen ohikoa. Normalean 25-27koak izan dira. Maria Elenaren iritziz, talde txikiak endogamikoak dira.

4.583. Eibarko ikastolaren sorrera: gurasoen nahia eta lana (EIB-730/010)

Ikastolara eraman zituzten lehenengo gurasoen ausardia aipatzen du Maria Elenak. Behar zuten guztia lortu zuten: lokalak, irakasleak, garraioak, kudeaketa... Hasierako ikastola, Mari Tere irakaslearen etxebizitzan bertan ematen ziren.

4.584. Irakaskuntzaren ikuspegiaren baloreen aldaketa (EIB-730/011)

Garai bateko eta gaur egungo irakaslearen irudiaz hitz egiten du Maria Elenak. Garai batean ez zen dudan jartzen irakaslearen lana eta gaur egun bai.

4.585. Ikastolaren helburua: "Ikastola, euskaraz eta herrikoia" (EIB-730/012)

Ikastolaren sorreran parte hartu zuten gurasoek, profil euskalduna eta abertzalea zuten. Ikastolaren helburu nagusia, herriko eskola publikoa baina euskalduna izatea zen. Ikastolaren lema, "Ikastola, euskaraz eta herrikoia" zen.

4.586. Eibarko Ikastola, herritik sakabanatuta (EIB-730/014)

Klaseak edozein tokitan ematen zituzten: Urkiko sakristian, Karmeldarretan, Markeskuan, Zezenbiden, Iturburun, Alfan...

4.587. Etxez-etxeko diru-bilketa Iturburuko ikastola eraikitzeko (EIB-730/015)

Eibarren, ikastola ondo ikusia zegoen. Dirua biltzeko hainbat ekintza egiten ziren baina garrantzitsuenak jaietako tabernak izaten ziren. Iturburuko ikastola egiteko etxez-etxeko diru-bilketa jarri zen martxan.

4.588. Elizak lokalak uzten zizkion ikastolari (EIB-730/016)

Elizak asko lagundu zuen Eibarko ikastolako sorreran eta garapenean, lokalak uzten. Apaizen bat ere laguntzen ibili zen. Falangisten lokal zaharrea ere egon ziren klaseak ematen.

4.589. Eibarko ikastolaren sorrera: testu-liburuak (EIB-730/017)

Ikastolaren lehenengo urteetan, Mari Tere Munduate irakasleak Xabierto eta Martin Txilibitu liburuak erabiltzen zituen baina gehiena irakaslearen lana zen. Elbira Zipitriaren metodologia erabiltzen zuen. Maria Elena ikastolan sartu zenean, testuliburuak zeuden.

4.590. Ikastolan haurrak matrikulatzea modan jarri zen (EIB-730/018)

Momentu batzuetan ikastolan haurrak matrikulatzea modan ipini zela uste du Maria Elenak. Ahoz-ahozkoaren bidez mezua zabaltzen zen.

4.591. Ikastolako ikasle batzuk drogen arazoan sartuta (EIB-730/019)

Politikaz ez du inoiz hitz egin ikasleekin. Hori etxetik jaso behar zuten zerbait dela uste du Maria Elenak. Drogen arazoaz hitz egiten du. Ikastolako ikasle batzuk drogarengatik hil zirenak gogoratzen ditu. Inpotentzia handia zuten. Bazekiten non saltzen zen droga, non drogatzen ziren... Ikastolako azkenengo urteetan drogen sartu berri zenaren ikasleren bat ere gogoratzen du.

4.592. Euskerazko ikasketak egiteagatik arduratuta (EIB-730/022)

Euskarazko formakuntza jasotzeagatik ikasleen maila baxuagoa izango ote zen beldurra zuten ikastolako irakasleek. Institutuan euskarazko hezkuntzarekin jarraitzeko aukera zabaldu zenean, errazagoa izan zen hau kudeatzea.

4.593. Ikastolako irakasleen formakuntza etengabea (EIB-730/023)

Irakasleak etengabe formatzen ziren. Uztailetan formakuntzak ez ezik, hurrengo ikasturteak antolatuta uzten zituzten. Irakaskuntzako formakuntzak, eskolaz kanpoko orduetan izaten ziren (arratsaldetan, asteburuetan...).

4.594. Ikastola eta gero ikasleez arduratu ere (EIB-730/024)

Ikastolatik Eibarko Institutura joaten ziren ikasleen notak eskatu zituzten, beraien garapena nolakoa zen ikusteko., Horrek lasaitasun bat eman zien ikastolako irakasleei.

4.595. Guardia Zibilaren erregistroa ikastolan (EIB-730/026)

Irakasle lanetan hasi zen lehenengo urtean, Urkiko sakristian zegoela, bi guardia zibil agertu ziren erregistro bat egiteko.

4.596. Eibarko ikastolako zuzendari nagusia (EIB-730/027)

Eibarko ikastolak ikasle gehien izan zituen garaian, zuzendaritza batzordeko burua izan zen Maria Elena. 1784 ikasle. Inork ez zuen zuzendari izan nahi eta berari suertatu zitzaion. Arlo ekonomikoa ez zuen eramaten baina antolakuntza gainerakoa bai.

4.597. Eibarko ikastolako publikazioa (EIB-730/029)

Ikastolen publikazioak ez zuen eragin handirik egin Eibarren. Ikastolak ezin zion eutsi pribatua izaten jarraitzeari, Iturburu sortzeko lanek izugarritzko zorra utzi zutelako. Bilera batzuk egin ziren gurasoak informatzeko.

4.598. Ikastolako irakasle izateagatik zorte handia izan du (EIB-730/033)

Ikastola Maria Elenaren bizitzaren parte oso garrantzitsua izan da. Zorte handia izan duela sentitzen du.

4.599. Prozesioak, gerrako harrien eta etxe txikituen artean (EIB-731/003)

Eibar bonbardeaketengatik txikituta gogoratzen du: eliza ingurua, Maria Angela kalea. Aste Santuako prozesioak gerrako harrien artean gogoratzen ditu

4.600. Regiones Devastadas eta Langileen Batailoiak (EIB-731/004)

Gerraostean, Regiones Devastadas-ek Eibarr berreraiki zuen. Langileen Batailoiek egin zuten lan guztia. 1950-1960ko tartean, Eibarrera jende asko joan zen lanera.

4.601. Frontoi Zaharrean instrukzioa; Cara al Sol (EIB-731/005)

Frontoi Zaharrera joan zen eskolara. instrukzioa egiten zuten, baina ez zitzaion gustatzen. Eibarko erdialdeko umeak joaten ziren Frontoi Zaharreko eskolara. "Cara al Sol" abesten zuten.

4.602. Tertulia politikoak etxean (EIB-731/008)

Eskolan gazteleraz egin behar zuten, baina lagun artean dena euskaraz. Haien etxean, Prietotarrak bizi ziren eta politikako tertuliak egiten zituzten. Behin, salaketa bat jaso zuten eta Jose alguazila joan zitzaien.

4.603. Radio Paris eta Radio Mosku entzuten zituzten (EIB-731/009)

Etxean politikaz libre hitz egiten zen. Radio Paris eta Radio Mosku entzuten zituzten. Etxean beti euskaldunak izan dira.

4.604. Euskaltzetasuna umetatik piztu zitzaion (EIB-731/011)

Arrese Beitiaren ipuinak irakurtzen zituzten etxean. Handik piztu zen Serafinen euskaltzetasuna eta euskararen aldeko borroka.

4.605. 60. hamarkada arte, frankismoaren kontrako mugimendurik ez (EIB-731/013)

60. hamarkadan, frankismoaren kontrako mugimendua piztu zen, baina aurretik, jendeak nahikoa zuen bizirautearekin.

4.606. Grebak sustatzeagatik preso eramanda (EIB-731/014)

Gerraostean, Eibarko alkate izan zen Jesus Egia preso eramaten ikusi zuen, greba orokorrak sustatzeagatik. Guardia Zibilak, sistemaren menpe zeuden.

4.607. Behetarrak eta Goitarrak (EIB-731/016)

Frontoi Zaharretik Isasiko fraideetara pasatu zen Serafin. Politikaz ez zuten hitz egiten, baina ideologia antzekoa zutenen artean elkartu ziren. San Andres Pasealekuko eta Legarreko biztanleak, gorriak ziren. Goitarrak gorriak ziren eta behetarrak eskumakoak.

4.608. Behetarrak eta Goitarrak: ezberdintasunak (EIB-731/017)

Goitarren artean langileak ziren nagusi. Jazteko orduan pobregoak. Hezkuntza, denentzat berdina zen; fraideetatik Armeria Eskolara.

4.609. Frankismo hasieran manifestaziorik ez (EIB-731/019)

Frankismo hasierako grebek kutsu politikoa zuten, klandestinitatean zeuden alderdi politiko eta sindikatuen eskutik. Grebetan parte-hartzea altua zen, baina ez ziren manifestazioak egiten oraindik, errepresaliak handiegiak izango zirelako.

4.610. Meliton Manzanas (EIB-731/023)

Meliton Manzanasek adierazpena hartu zion eta espetxean sartu zuen. Ondoren, Xabi Etxebarrietak Manzanas hil zuen. Meliton Manzanas nor zen.

4.611. ETA-ren hasierako kidea (EIB-731/024)

Imanol Laspiurrek jasotako jipoi eta torturak. Garai hartan, ETAREN hasiera da eta bertako kideak ziren. Urtebete egon zen Martutenen preso.

4.612. ETA-ren sorrera; helburu nagusia (EIB-731/025)

ETA-ren sorrera, garaiko errepresioaren ondorioz sortu zen. Jende gaztea eta ekintzailea. Hasieran Eusko Gaztedi sortu zen, baina banatu eta ETA sortu zen. Helburua batez ere, astintze-kulturala bultzatzea zen. Herriz-herri ibiltzen zen formakuntza politikoa ematen.

4.613. ETA-ren formakuntza politikoa (EIB-731/026)

Alfonso Irigoien euskaltzain urgazleak ematen zuen formakuntza politikoa. San Agustin kaleko Itziarrenekua tabernan biltzen ziren. Jose Mari Benito del Valleren bidez sartu ziren ETA "zaharrea".

4.614. ETA-ko hasierak: ekintzak (EIB-731/027)

ETA-ko kide bezela, propaaganda banatzea eta kide berriak lortzea ziren bere funtzio nagusiak. ETA-ren lehen ekimena, Donostiara trenean zihoazen falangisten kontrakoa izan zen, 1961eko uztailaren 18an. Orduan atxilotu zuten Serafin.

4.615. Frankismo garaian debekatutako liburuak (EIB-731/031)

Frankismo garaian debekatuta zeuden liburuak lortzea nahiko erreza zen. Iparraldean liburuak lortzea errezagoa zen.

4.616. Arrate Kultur Elkartean hitzaldi-zikloak eta Euskal Jaia (EIB-731/032)

Arrate Kultur Elkarteko bazkidea izan zen. Hitzaldi zikloak antolatzen ziren. Ramon Saizarbitoria, Amuriza. Euskal Jaia Eibarren ekimen interesgarria zen, politikatik kanpo.

4.617. Koinatua Sevillan deserritua (EIB-731/034)

Txabi Etxebarrieta eta Azurmendi, koinuataren etxean egon ziren ezkutatuta. Meliton Manzanas hil zutenean, koinatua Sevillara deserritu zuten.

4.618. Euskaltzaindiaren kongresua Eibarren (EIB-731/035)

Euskaltzaindiaren kongresua antolatzen ibili zen Eibarren. Orduan, ETA-ko alderdi kulturalerako kidea zen. Eibarko Udaletxean, giro nahiko euskalduna zegoen eta ez zuten arazorik izan, nahiz eta oraindik frankismoan bizi. Udaletxean egin zituzten hitzaldi asko eta orduko alkatea zen Eguren-ek, euskaraz eman zuen agurra. Euskaltzaindiaren kongresuarentzat, Amaia Antzokian jai bat egin zen.

4.619. Gau-eskolak Klub Deportiboan (EIB-731/038)

Eibarko Klub Deportiboan euskarazko gau-eskolan eman zituen Imanol Laspiur eta Jose Antonio Eizagirrerekin batera.

4.620. Frankismoaren amaieran zabalkunde bat egon zen (EIB-731/039)

Frankismoaren azkenengo urteetan, gauzak nahiko libreki egiten ziren.

4.621. Eibarko Ikastolaren hastapenak (EIB-731/042)

Eibarko Ikastolaren hasieretan egon zen lanean, guraso bezala. Ikastolaren kokaleku ezberdinak.

4.622. Falangisten jantziak (EIB-731/044)

Zentsura literatura eta musikan. Umea zenean, jendea falangistaz jantzita joaten zen kaletik baina frankismoaren amaierako urteetan ez. Batzuk, falangista izatera sartzen ziren, uda Orion pasatzeko.

4.623. Juan San Martinen bidez piztu zitzaion euskaltzaletasuna (EIB-731/047)

Euskaltzaletasuna nola piztu zitzaion. Juan San Martinekin harremana. Liburutegi eder bat zeukan eta etxe guztia liburuz beteta. Imanol Laspiur.

4.624. Toribio Etxeberria (EIB-731/048)

Euskarta irakasten ibili bazen ere, berak ez zuen ezer sortu. Toribio Etxeberriari buruz. Lexikoia.

4.625. Familia eredu desberdinak hezkuntzan (EIB-732/005)

Nahiz eta seme-alabak oraindik txikiak diren eta ez duen arazorik izan, hezkuntzan, aldaketak eman behar dirrela uste du, eredu normalizatua aita eta amaren familia-eredua delako.

4.626. Kontziliazioa ama bakarra izanda (EIB-732/006)

Kontziliazioa ama bakarra izanda nolakoa den. Batzuetan deseroso sentitzen da laguntza eskatzen eta modu naturalago batean egin beharko liratekeela uste du. Lanarekin nola kontziliatzen duen amatasuna. Naturaltasunez hitz egiten du ama bakarra izatearen erabakiaz

4.627. Haurrei naturaltasunez galderak erantzutea (EIB-732/007)

Seme-alabek modu naturalean eramaten dute familia-unitatean guraso bakarra egotea. Naturaltasuna ezinbestekoa da haurren galderei erantzuteko orduan.

4.628. Familia-eredu ezberdinei buruzko ipuinak (EIB-732/008)

Geroz eta liburu eta ipuin gehiago daude familia-eredu ezberdinei buruzkoak eta asko eskertzen den zerbait da.

4.629. Eibarren euskaraz bizi daiteke (EIB-732/012)

Zer den euskara berarentzat: sentimendu bat, komunikatzeko era bat, bizitzako ikuspegi bat... Eibarren, oraindik lan handia egin behar bada ere euskararen inguruan, euskaraz bizitzeko aukera handiak daude

4.630. Familia-eredu ideala (EIB-732/014)

Familia-eredu ideala

4.631. Familia-eredu ezberdinei buruzko komentarioak (EIB-732/016)

Ezjakintasunetik jendeak komentario asko egiten ditu familia-eredu ezberdinei buruz. Beraientzat naturala izan da dena, baina familia-eredu oinarritzkoa oraindik oso sustraituta dago.

4.632. Kristautasuna, familia-eredu tradizionala, haurren sexua... (EIB-732/017)

Kristautasuna eta familia-eredu tradizionala. Maitasun erromantikoa. Haurren sexuari buruz galdetzea.

4.633. Pertsona adina familia-eredu daude (EIB-732/018)

Familia-eredu ezberdinak daude. Oso errotuta dago familia bat izateko seme-alabak egon behar direnaren ustea.

4.634. Familia-eredua oso zurruna da instituzioetan (EIB-732/020)

Familia-eredua oso zurruna da instituzioetan. Igone haurdun zegoenean, ez zioten uzten ekografia bikotea ez zen norbaitekin joaten. Instituzioen aldetik, familia-eredu tradizionala oso errotuta dago eta aldatu beharreko zerbait da. Covid-aren konfinamenduaren ostean kalera ateratzeko edo elkartzeko erabili zen "familia-eredu" kontzeptuari buruz.

4.635. Familia-eredu ezberdinak pandemian (EIB-732/021)

Pandemiak, zentzurik ez duten arau asko agerian utzi ditu, adibidez familia-unitatearen kontzeptuan. Osakidetzak ez ditu aurreikusten guraso bakarreko familia unitateak.

4.636. Amatasun eta aitatasun sena (EIB-732/022)

Pertsonaren arabera da haurrak zaintzeko izan dezakeen gaitasuna. Oraindik errotuta dago gizonezkoak ez direla gai haurrak zaintzeko. Amatasuna eta aitatasuna ulertzeko modu ezberdinak daude.

4.637. Emakumeak haurrak izateko presioa; komentarioak (EIB-732/023)

Emakumeek, haurrak izateko presio handiagoa dute. Gizonezkoek ez dute jasaten presio hori. Komentarioak, estereotipoak, aurreiritziak.

4.638. Amatasunaren idealizazioa (EIB-732/024)

Amatasuna idealizatua zuen aspalditik eta ondo joan zaio.

4.639. Jabetzaren ikuspegia eta amatasuna (EIB-732/027)

Jabetzaren ikuspegia eta amatasunaren arteko erlazioa.

4.640. Aitatasuna harrerako hurrekin (EIB-732/028)

Anderrek bi haur ditu harreran. Aitaren papera bete arren, ez da haien aita. Hurrek badakite aita bat badutela eta naturaltasunez bizi due harrerako familia batean bizi direla.

4.641. Zaintzaren erronka; aiton-amonak (EIB-732/030)

Aiton-amonen rola. Demografiaren aldaketak. Zaintza era ezberdinak.

4.642. Familiako kideak (EIB-733/002)

Nerabe batekin eta sei urteko umearekin bizi da etxean. Familia zabalagoa dauka: gurasoak, arreba eta bere seme-alabak, bikotea eta berarekin bizi diren umeen familiak.

4.643. Harrera familia izateko erabakia (EIB-733/003)

Umezalea izan da beti. Harrera ereduari buruzko informazioa jaso zuen han eta hemen eta animatu egin zen. Prozesua abiatu eta bederatzi hilabetera ume batek bere moduko familia bat behar zuela esan zioten.

4.644. Umea harreraren hartzea, aldaketa emozional handia (EIB-733/004)

Aldaketa emozional handia izan zen harrerako umea etxera etortzea. Bigarrena etorri zenean, aldaketa handiago izan zen; hamalau hilabeterekin hartu zuen etxean.

4.645. Harrerako umeen harremana familia biologikoarekin (EIB-733/005)

Ume batek harrera familiara heltzeraino egiten duen bidea azaltzen du. Familia biologikoarekin harremana mantentzen dute bisiten bidez. Bisiten garrantzia azpimarratzen du.

4.646. Bolada baterako harrera edo iraunkorra (EIB-733/006)

Harreraren hartutako umea bere familia biologikoarengana itzultzea helburua da baina ez da askotan lortzen. Beraz, bolada baterako harrerak edo iraunkorrak izan daitezke. Hemezortzi urterekin, haiek erabakitzen dute zer egin.

4.647. Umeak ez dira inorenak (EIB-733/007)

Umeak ez direla inorenak dio. Helduak umeak zaintzeko eta babesteko daudela dio. Familia biologikoarekin itzultzen bada, harremanak jarraitu egiten du.

4.648. Umea harreraren hartzearen zentzua (EIB-733/009)

Umeak erabaki zuen Ander deitzea berari eta ez aita. Horrela harrera hobeto ulertu zuen berak.

4.649. Umea harreraren hartzea aitatasuna da? (EIB-733/010)

Ume batekin edo gehiagorekin bizitzeko gogoia izan du, baina ez du argi aitatasuna denik hori. Harreraren aukera izan zen bere nahia betetzeko modurik egokiena.

4.650. Umeek natural bizi dute harrera familiarena (EIB-733/011)

Inguru anitza duenez, berarekin bizi diren umeek normaltasunez bizi dute Anderrekin bizitzea. Eskolan irakasle jatorrak topatu ditu eta nahiko natural hartu dute. Umeak hiztunak dira eta beren egoera argi azaldu izan dute lagunartean.

4.651. Kuadrillan familia eredu asko (EIB-733/013)

Kuadrillan familia eredu asko dituzte. Hainbat azaltzen ditu. Hasieran umeari eskemak apurtu zitzaizkion Anderrengana iristean.

4.652. Harrera familia izatea, ingurukoek babestuta (EIB-733/014)

Umeak harreraren hartzea erabaki zuenean, amak asko animatu zuen eta aita beldurtu egin zen. Bere gurasoei aittita eta amama esaten diete. Inguru hurbilean oso ondo hartu zuten albistea eta denek lagundu zieten.

4.653. Harrera familia batera umeak dakarren karga (EIB-733/015)

Umeak dakarren kargarekiko beldurra sentitzeaz eta gainditzeaz hitz egiten du. Zauriak sendatzen laguntzea eta pazientzia izatea direla garrantzitsuenak dio.

4.654. Familia eredu guztientzat sostengua (EIB-733/017)

Familia eredu ezberdinak sortzen eta aldatzen ari direla dio eta sostengua eman behar zaiela, lekua izan behar dutela denean. Adibideak ematen ditu.

4.655. Zaintza errazteko neurrien falta (EIB-733/020)

Lana eta umeen zaintza bateratzeko jardun murrizketa eskatu ahal izan du. Familiei zaintza errazteko neurriak behar direla dio.

4.656. Guraso edo harrera familia izateko nahia, sentimendua (EIB-733/023)

Guraso izatea edo norbait harreran hartzea askotan sentimenduetatik eratoritzen da. Datorren umea den bezela hartzea dela garrantzitsua dio.

4.657. Etiketen ginetik harremana (EIB-733/024)

Etiketak baino harremanak eta bitzta konpartitzea dira garrantzitsuak umekin.

4.658. Euskara, mundua ikusteko eta erakusteko (EIB-733/026)

Euskara mundua ikusteko eta erakusteko daukan modua dela dio.

4.659. Gaztetatik herri-mugimenduetan lanean (EIB-736/003)

Bost urte zituenean, aita ALFAn lanean hasi zen eta Eibarrera bizitzera joan ziren. 16-17 urte zituenean hasi zen herri-mugimenduetan parte hartzen, Eibarko Klub Deportiboan eta Arrate Kultur Elkarteko jendearekin.

4.660. Krisia Arrate Kultur Elkartean (EIB-736/005)

1968an, Mikelen anai nagusiak ihes egin behar izan zuen eta berak lagundu egin zion. Ondorioz, herri mailan eta gizartea aldatzeko grina piztu zitzaion eta Arrate Kultur Elkartean sartu zen. 1969-1970an, elkartean krisi bat egon zen.

4.661. Eibarko lehenengo Euskal Jaia I (EIB-736/006)

Arrate Kultur Elkarteko zuzendaritza nola hartu zuten eta nola lan egiten zuten. Eibarren ospatu zen lehenengo Euskal Jaia antolatu zuten 1972an. Folklorismotik atera nahi izan zuten eta "españolistatzat" jo zituzten.

4.662. Eibarko lehenengo Euskal Jaia II: eztabaidak (EIB-736/007)

Lehenengo Euskal Jaiaren egunaren aurretik, hitzaldiak antolatu zituzten. Bilboko Santutxu auzoko Karmelo ikastolaren harremana.

4.663. Españolistatzat jo zituzten (EIB-736/008)

Arrate Kultur Elkarteak Oskorriren kontzertu bat antolatu zuen lehenengo Euskal Jaiaren egitarauan. Hurrengo urtean, Mikel Laboarengana jo zuten eta hark ezezkoa eman zien, españolistatzat joaz.

4.664. Arrate Kultur Elkarteko zuzendaritza utzi (EIB-736/009)

Oskorriren kontzerturako, Ibarroralen margoak ekarri zituzten. Kontzertuak oso harrera eskasa izan zuen eta orduan erabaki zuen Mikelek Arrate Kultur Elkarteko zuzendaritza uzten joatea.

4.665. Eibarko auzo-elkarteen sorrera (EIB-736/010)

1973-1974an, auzo-elkarteen beharra zegoela ikusi zuten. Nahiz eta Franco oraindik bizirik egon, Eibarko Udala nahiko irekia zen eta Amañako auzo-elkartea sortu zuten. Astero 10 bat lagun elkartzeko ziren, Pedro Zelaia abadeak utzitako elizako lokal batean. Zuzendaria, Fernando Beorlegi zen. Amañako elkartearen ondorioz, beste auzoetakoak sortu ziren: Ipuruan, Urkin, Erdialdean, Legarren... mugimendu handia zegoen.

4.666. Amañako auzo-elkarteko eskakizunak (EIB-736/011)

Amañako auzo-elkartea sortu zenean, lehenengo eskakizunetako bat udal-autobusa Amañako dorreetaraino heltzea izan zen. Otaola amaierako gasolindegia egiteko proiektuaren kontra asko borrokatu ziren.

4.667. Gure Herria elkarteko zuzendaria (EIB-736/012)

Asanblada luze baten ondoren, Gure Herria-ko hurrengo zuzendaria Mikel izango zela erabaki zen.

4.668. Gure Herria elkarteko lorpenak I (EIB-736/013)

Gure Herria elkarteak Amañan egindako lorpen esanguratsuenak: trenbidea garbitu eta Udalbusa sortu. Musika-bandarekin ospatu zuten.

4.669. Gure Herria elkarteko lorpenak II: eskola-bidea Amañan (EIB-736/014)

Amañako dorreetatik eskolara joateko, bideak oso txarrak zirenez, eskola-bidea egiteko eskaera egin zuten Udalean. Maite Celaya udal-arkitektoarekin lanean hasi ziren eta Udalak utzitako tresnekin, auzolanez eraiki zuten eskola-bidea.

4.670. Gure Herria elkarteko lorpenak II: bideak (EIB-736/015)

Amaña kalearen goiko aldean etxe asko zeuden eta bertara heltzeko bideak oso txarrak zirenez, bide bat ireki zuten.

4.671. Eibarko arau subsidiarioetan lanean (EIB-736/017)

Eibarko arau-subsidiarioak sortu zirenean, Gure Herriak elkarteak bertan parte hartu zuen, herriak zer pentsatzen zuten kontuan hartzeko.

4.672. LKI-ko alkategaia Eibarren (EIB-736/022)

Lehenengo hauteskunde demokratikoak izan zirenean, LKI-n militatzen zuen. Ubitxan zeukaten lokal bat. Jende asko zegoen politikako militantzian sartuta eta manifestazioak gogorrak izaten ziren. Hauteskundeetara aurkezteko, Gure Herria-ko zuzendaritza uztea erabaki zuen.

4.673. Gure Herria elkartearen jarraipena, hauteskunde demokratikoen ondoren (EIB-736/023)

Lehenengo udal demokratikoa sortu zenean, Gure Herria elkarte poliki-poliki indarra galtzen hasi. Hala ere, udala ondo finkatu egon arte jarraituko zutela erabaki zuten.

4.674. Gure Herria elkartearen eta Eibarko Udalaren arteko harremana (EIB-736/024)

Gure Herria-k harreman oso ona zuen Eibarko Udalarekin, nahiz eta oso gogorrak ziren haiekin.

4.675. "Gure Herria" auzo-elkarteko aldizkaria (EIB-736/026)

Gure Herria auzo-elkarte sortu zutenean, aldizkari bat kaleratzea erabaki zuten, "Gure Herria" izenarekin ere. Amañan gainera, auzorako beste aldizkari bat zuten. Felix Bergararen multikopistarekin egiten zituzten kopiak. Dena eskuz egiten zuten.

4.676. "Gure Herria" aldizkaria (EIB-736/027)

Gure Herria aldizkariaren helburua. Eskaintzen zen informazioa: editoriala, artikuluak, txisteak, esaerak... Amañako aldizkariak 4-5 orri zeuzkan. Herriko aldizkari orokorra, luzeagoa zen eta inprentara bidaltzen zen. Fernando Retolaza izan zen diruzaina.

4.677. Guardia Zibilen sekretak nonnahi (EIB-736/028)

Gure Herria aldizkaria ez zen inoiz zentsuratua izan, baina Guardia Zibilak asko kontrolatzen zieten. Behin, etxera joan ziren Guardia Zibil batzuk Mikelekin hitz egitera. Asanbladetara eta zineklubera sekretak joaten ziren maiz.

4.678. Untzeta txaletean lehenengo hartzaindegia (EIB-736/035)

Gure Herria elkarteko hastapenetan, Bar Noche-n elkartzen hasi ziren, hartzaindegi bat sortzeko. Arrate Bide-ko Untzetaren txaleta hutsik zegoen eta bertan lehenengo hartzaindegia sortu zuten.

4.679. Ikastolaren publikazioa (EIB-736/037)

Eibarko ikastola publiko bihurtzeko asanbladak oso luzeak eta gogorrak izan ziren.

4.680. Klase-kontzientzia pizten (EIB-737/003)

Haurtzaroa Urkizuko parke inguruan pasatu zuen. Fraideetan ikasi zuen. Aita gubilista zen eta 14 urterekin aitarekin hasi zen laguntzaile bezala lanean. Orduan hasi zen langileen bizimodua ikusten eta langileria-kontzientzia piztu zitzaion. 18 urterekin lantegiz aldatu zen eta UGT-ra afiliatu zen.

4.681. UGT-ko sindikatuko kidea (EIB-737/004)

Sindikatuak klandestinoki elkartzen ziren mendian, ganbaretan, lokaletan... 1968ko apirilean Parisera joan zen sindikatuen jardunaldi batzuetara.

4.682. Sindikatuen funtzioak eta manifestazioen lemak (EIB-737/006)

Sindikatuaren funtzio nagusienak: hitzarmenak defendatzea, grebak egitea, maiatzaren 1eko manifestazioak antolatzea...

4.683. Sindikatuen lana ezberdina zen lantegi txiki edo handietan (EIB-737/007)

Langile eta lantegiko nagusien arteko harremana Eibarren ona izaten zen, baina lantegi handiagoetan arazo gehiago sortzen ziren. Lantegi handietan, hainbat sindikatuk elkarrekin lan egiten zuten.

4.684. Ekintza batzuetan, sindikatu denak elkarrekin (EIB-737/008)

1970ean, Burgosko prozesuaren inguruan egin ziren manifestazio eta grebetan sindikatuak parte hartu zuten ere. Roberto Perez Jauregi. Manifestazio batzuk oso gogorrak izaten ziren eta poliziaren jazarpena handia zen.

4.685. Francoren heriotzaren aurretik, sindikatuak elkarrekin (EIB-737/010)

UGT-koak, Comisiones Obreras sindikatuarekin biltzen zen gehienbat. Sindikatu guztiak gutxi gorabehera ildo berdinetan lan egiten zuten baina Francoren heriotzaren ondoren, harremanak aldatu ziren.

4.686. Manifestazioen panfletoak; multikopistak (EIB-737/013)

Manifestazioetara deitzeko erabiltzen zituzten bideak: buzoietan informazioa banatzea, lantegietan, ahoz... Multikopistak erabiltzen zituzten paskinak banatzeko.

4.687. Erregimenaren errepresioa, manifestazioak (EIB-737/015)

Poliziaren errepresio moduak: atxiloketak, espetxean sartzea, sekreten bisitak...

4.688. Poliziak jendea fitxatuta zuen (EIB-737/017)

Anaia, ELA-koa zen eta Martutenen egon zen espetxeratua. Poliziak jende asko fitxatuta zuen eta edozein gauzagarik atxilotzen zituzten: klandestinitatean biltzeagarik, propaganda banatzeagarik... Polizia sekretuak nola fitxatzen zituzten herritarrak.

4.689. Parisen 1968ko maiatzaren aurretik (EIB-737/018)

1968ko maiatzaren aurretik Parisen egon zen sindikatuen jardunaldi batzuetan. Bertan ideiak eta lan egiteko moduak elkarbanatzen zituzten. Giro politikoa eta soziala pil-pilean zegoen.

4.690. Hitzarmenak ondo ateratzea zen garrantzitsuenak (EIB-737/019)

Sindikatuaren barruan ematen ziren lorpenik handienak hitzarmenak aurrera ondo ateratzea ziren, langileentzat baldintza onenak lortzea.

4.691. Lehenengo udal demokratikoko zinegotzia (EIB-737/020)

Franco hil aurretik askatasun pixka bat gehiago nabaritzen hasi zen. Eibarko lehenengo udal demokratikoko zinegotzia izan zen PSOE-rekin.

4.692. Eibarko lehenengo udal demokratikoa (EIB-737/023)

Lehenengo udal demokratikoak nola funtzionatzen zuen. Auzoka biltzen ziren, zinegotzi bakoitzak bere lanak zituen... Alkatea zen gehien mugitzen zena.

4.693. Ospitalearekin buruhaustea (EIB-737/025)

Gizartearen behar ezberdinetara moldatzen ziren. Garaiko Udaleko buruhaustetako bat Ospitalearena izan zen. EAJ-k Eibarren izatea nahi zuen, baina Mendaron eraiki zuten.

4.694. Zinemak eta antzokiak Eibarren (EIB-737/027)

80. hamarkadako krisiaren aurretik, denek lan egiten zuten, beste batzuek ikasi (Eskola Armerian). Denbora librean antzerkia, zinema, futbola... zeuden. 4-5 zinema zeuden Eibarren.

4.695. Poteo orduan beti kantuan (EIB-737/028)

Kuadrilan beti kantuan ibiltzen ziren poteo orduan. "Badetesa" taberna. Rantxerak kantatzen zituzten gehienbat.

4.696. Udal demokratikoak herritarren partaidetza bultzatu zuen (EIB-737/029)

Udal demokratikoak, herritarrei parte hartzeko aukera eman zien. Udalbatzetan parte hartzen zuen jendeak, auzoetako bileretan... Frankismoko udal-gobernuetan ez zegoen parte hartzeko modurik.

4.697. Eibarko lehenengo udal demokratikoa: zinegotzien arteko harremana (EIB-737/030)

Eibarko lehenengo udal demokratikoko alderdi politikoak. Zinegotzi guztien artean harreman oso ona zegoen. Urtero elkartzen dira bazkaldu edo afaltzeko.

4.698. Ideologia sozialista gaztetatik (EIB-737/034)

Ideologia sozialista lantegian lan egiten hasi zenean piztu zitzaion.

4.699. 1983ko otsaileko estatu-kolpea (EIB-737/036)

1983ko estatu-kolpean, alderdi guztiak elkarrekin egon ziren. Hasieran ezustekoa eta beldurra izan bazuten ere, Madriletik berriak azkar heltzen ziren eta gauzak apaltzen zihoazela ikustean, lasaitu egin ziren.

4.700. Trantsizioaren helburua, atzera ez bueltatzea (EIB-737/037)

Trantsizio garaian, atzera ezin zirela bueltatu argi zeukaten. Bakoitzak bere pentsaerarekin aurrera jarraitu zuen bilerekin, hitzaldiekin, ekimenekin...

4.701. Armak eta munizioa mendian gordetzen / Escondían las armas y la munición en el monte (EIB-738/004)

4.702. Eibarko Klub Deportiboa / Club Deportivo de Eibar (EIB-738/028)

4.703. Juan XXIII kooperatibaren lokalaren erosketa / Compra del local de la cooperativa Juan XXIII (EIB-739/019)

4.704. Lagunei ihes egiten laguntzen / Ayudando a sus amigos a escapar (EIB-739/031)

4.705. ETA-ren jomugan / Objetivo de ETA (EIB-739/032)

4.706. "Urredunak", Etxebarria sendiaren jatorria (EIB-740/002)

Blas Etxebarriaren aitona-amonak Markina-Etxebarritik etorri ziren Eibarrera. Urrea lantzen zutenez (trefilatu egiten zuten) "urredunak" bezala ziren ezagunak. 7 seme-alaba izan zituzten; Hilarion eta Gregorio, seme zaharrenek eta, honen semeek ondoren, jarraitu zioten familia negozioari damaskinatuaren gainbeherara arte. Txirio-kaleko 7.ean bizi ziren eta bertan jaio zen Blas Etxebarria. Atari berean bizi zen Toribio Etxebarria ezaguna ere. Lehengusu izateaz gain, lagunak ere bazirela dio Ignaciok.

4.707. Bizitza osoa Donostiako Bankuaren zuzendari gisa (EIB-740/003)

Merkataritza ikasketak egin zituen Blas Etxebarriak. Haiek amaituta, Orbean hasi zen lanean. 1920. urtean ordea, "Banco de San Sebastián" -ek Eibarren sukurtsala ireki nahi zuela eta, Orbeatarrekin harremanetan jarri ziren pertsona apropos baten bila. 1951. urtean hil zenera arte jardun zuen Blas Etxebarriak banketxean lanean. Garai hartako zuzendariak, erabakiak hartzeko garaian gaur egun dutena baino ahalmen handiagoa zutela kontatzen du.

4.708. Pablo Aranzabal armagina (EIB-740/007)

1931n ezkondu ondoren, San Agustin kalean bizi izan ziren, aitona-amonen etxean. Pablo Aranzabal aitona bertan zuen lantegia. Eskopetak egiten zituen baina, aurretik, errebolberrak egin zituen, batez ere I. Mundu Gerran. 1937ko apirilko bonbardaketan desagertu zen etxe hura. Ibarkurutze kalera joan ziren gero, Ignacio jaio zen etxera.

4.709. Blas Etxebarriaren hiletan herri osoa irten zen kalera (EIB-740/010)

Blas Etxebarriaren hileta oso jendetsua izan zela dio. Lehen, hilkutxa sorbaldetara eramaten zen eta, kasu honetan, El Cascotik elizaraino eta handik hilerrira eraman zuten herria atzetik zuela. Irudietan koroa asko ikusten dira. Chopinen piezak ere jo zituen musika bandak.

4.710. Nolakoa zen Blas Etxebarria (EIB-740/011)

Hiztuna zen Blas Etxebarria, jendartean ibili ohi zen beti; izan ere, bankuan egindako lanagatik, pertsonen eta enpresen egunerokotasunetik hurbil egotea egokitu zitzaion. Pilota zuen futbola baino nahiago. Gallastegi pilotari ezagunaren lagun handia izan zen. Pertsona on bat zen.

4.711. Maria Aranzabal, emakume aktiboa hainbat ekimenetan (EIB-740/012)

Ignazioren ama 95 urterekin hil zen. Gazte alargundu zen arren, familia aurrera atera ahal izan zuen Blas Etxebarriak El Cascon zuen parte-hartzeari esker. Oso aktiboa izan zen, eta Blas Etxebarriak bezala, elkarte eta ekimen askotan hartu zuen parte.

4.712. Erlijioa eta pentsamendu politikoa (EIB-740/013)

Oso erlijiosoak ziren Etxebarria -Aranzabal senar-emazteak. Bere lehengusu Toribio Etxebarria, Eibarko sozialista ezaguna baino eskuindarragoa zen Blas. Garai hartan, erlijioak eragin handia zuen ideologia politikoari zegokionean.

4.713. Toribio Etxebarriaren ihesaldia gerra zibilaren ondorioz (EIB-740/014)

Gerra Zibila hasi zenean, Toribio Etxebarria Madrilera eraman zuten Campsako zuzendari gisa. Madril frankisten eskuetan erori aurretik, Valentziara egin zuen ihes. Errepublikanoek Pradoko artelan garrantzitsuak eurekin Valentziara eraman zituztela kontatzen du Ignaciok. Valentziatik, Frantziara (Bartzelonatik igaro ote zen zalantza dauka) eta Frantziatik, Venezuelan erbesteratu zen azkenik Toribio. Urte asko behar izan zituen itzultzeko.

4.714. Eibarko Armeria Eskolaren aukera izateko zortea (EIB-740/015)

Unibertsitatea goi-klaseko familien esku bakarrik zegoela dio. Euskadin ez zegoen unibertsitaterik, eta Valladolideko unibertsitate-barrutiaren mende zeuden gainera. Ingeniari bikainak ezagutzen zituen, goi-mailako ikasketak egiteko gaitasun handia zutenak. Eibarrek Armeria Eskola izateko zortea izan zuen behintzat; mundu mailan oso enpresa lehiakorak sortu dituzten pertsonak pasa dira bertatik.

4.715. Gerra-garaian ere, bankuak bere jarduerarekin jarraitu zuen (EIB-740/017)

Gerra garaian, gurasoak Ermua, Mallabia eta Elgeta artean egon ziren. Bai Errepublikari eta bai Nazionaleri, Donostiako Bankuak bere jarduerarekin jarraitzea interesatzen zitzaion; beraz, Blas Etxebarriak lanean jarraitu zuen Eibar hartuta egon zen bitartean. Cadillac batean eramaten zuten batetik bestera.

4.716. Donostiako Bankuan nola hasi zen (EIB-740/020)

Blas Etxebarria Orbea familiak gomendatuta hasi zen Donostiako Bankuan lanean. 1920tik 1951. urtera arte egon zen bertan. 25. urteurrenean, zilarrezko pieza bat oparitu zioten langile guztien sinadurekin. Estazio kalean egon zen lehen sukurtsala; 40ko hamarkadaren hasieran, San Agustin kalera lekualdatu zen.

4.717. Eibarko sukurtsalaren antolaketa (EIB-740/023)

Bankuak 10 langile inguru izango zituela dauka gogoan. Uste du gizonezkoak izango zirela guztiak. Blasen bulego goialdean zegoen; harreman ona zuen langileekin.

4.718. Zergatik zen Blas Etxebarria hain ezaguna eta estimatua (EIB-740/024)

Blas Etxebarria pertsonaia ezaguna eta maitatua izan zen Eibarren, batez ere gerraostean, partikularrek eta enpresek behar zuten finantziario ekonomiko eman zielako, askotan erabaki arriskutsuak hartzera ere iritsi iritsi zelarik. Pertsona langile eta zintzoengan sinesten zuen. Hartutako erabakien erantzule bakarra izateak, momentu txarrak ere pasa arazi zizkiola kontatzen du Ignaciok. ALFAren une zailetan ere egon zen, are gehiago Toribio Venezuelara joan zenetik .

4.719. El Cascoren sorrera eta hastapenak armagintzak (EIB-740/026)

Olabe eta Solozabal, Orbeako bi langile ohik ekingo diote, 1920an, errebolberrak ekoiztuz El Casco aktibitateari. Nahiz eta izen ofiziala Olabe, Solozabal eta Cía. izan, El Casco bezala izan da ezaguna markaren irudiagatik. 1922an, bazkide kopurua handitu eta Blas Etxebarria sartu zen beste birekin batera. Garai hartakoa da lege-aldaketa garrantzitsua eta haren ondorioz, armagintzak krisi sakona izan zuen. Fabrikazio-prozesuan antzekotasunak zeudenez, El Cascon grapagailuak eta, ondoren, datagailuak egiten hasi ziren aurrera irteteko.

4.720. Dibertsifikazioa: grapagailuak eta bestelako tresnak (EIB-740/027)

Grapagailu eta datagailuez gain, beste gailu batzuk ere egin zituzten. Hainbat grapagailu modelo desberdin fabrikatu ziren eta estilografikoak egiteko hitzarmenak ere egin zituzten beste enpresa batzuekin.

4.721. El Cascoren etxea eta lantegiaren eraikinez (EIB-740/028)

Ez du gogoratzen non kokatzen zen lehen fabrika. Egungo El Casco etxea, fabrikarekin batera, 1946. urtean inauguratu zela dio. Bonbardaketaren eraginez eraitsitako komentu baten gainean eraiki zen, Merkatu plazatik hurbil. El Casco etxea enpresaren jabeentzat eraiki zen; familia bakoitza zein solairutan. bizi zen kontatzen du.

4.722. Juanito Olaberen Arrateko zelaia (EIB-740/029)

El Cascoren sortzaileetako bat izan zen Juanito Olabek eman zuen Arrate alboan dagoen zelaia eraikitze behar zen guztia. Arrate egunean autoen aparkatzea errazteko egin zuen. Haren izena darama zelaia.

4.723. El Cascoko etxebizitzak eta bertako familiez (EIB-740/030)

El Cascoko etxebizitzak oso handiak ziren, kalitatezko materialekin eginak. Trastelekuez gain, terraza handi bat ere bazuen non, igerileku moduko bat ere bazuten. Bost familiek oso harreman ona zuten.

4.724. El Cascoren ibilera: argi-ilunak (EIB-740/031)

El Casco osatu zuten bost familien arteko harremana oso ona izan zen. Jose Mari Etxebarria, Ignazioren anaia, 1950eko hamarkadaren amaieran sartu zen lantegian ingeniari itza ikasketak bukatuta. Europako eta Afrikako hainbat herrialdetara egindako bidaiak buruzko pasadizoak kontatzen ditu. Krisi desberdinei irtenbidea emateko helburuarekin, merkatu berrien bila joaten zen atzerrira. Kartzelan estutasunen bat edo beste igaro zuen baina onik ateratzen zen dirua tarteko. Urterik oparoenak 50eko eta 60ko hamarkadetan bizi izan ziren, eskaera guztiak zerbitzatu ezinda ere ibili zirelarik.

4.725. Errebal 50eko hamarkadan (EIB-740/032)

Errebal, 50eko hamarkadan. Merkatu plazaren atzealdean astoak lotu eta karrozeriak aparkatzen ziren. Nafarrek hiru zaldi zituzten eta ukuiluak Aldatze aldean zeudela kontatzen du. Umetako oroitzenak. Eguerdiko hamabietan, sirenak jotzen zuenean, langile guztiak lanetik ateratzen ziren. Arratsaldean berriz lanean hasi arte, ordu eta erdian egiten zutena kontatzen du. Gantxileroen (potina eramaten dutenen) garrantzia.

4.726. Haurtzaroko udak Elgetan (EIB-740/035)

Elgetako Ikatzerre baserrikoa zen Ignacioren aitona. Umetan, udak Elgetako Martintxo pentsioan pasatzen zituzten. Nolakoak izaten ziren kontatzen du. Sasoi hartan, uda urriaren 2an amaitzen zela dio, hilaren 1a diktaduraren hasiera aldarrikatzeko eguna zenez, eskolak hurrengo egunean hasten zirelako.

4.727. ALFArekin izan zuen konpromiso handia (EIB-740/037)

Blas Etxebarria ALFAko aholkulari ere izan zen. Toribio Etxebarria falta zela (Gerra Zibilean Madrilera joan behar izan zuen), lehendakariorde izatera iritsi zen. Bankuko lanarekin uztartzen zuen. ALFA estatuko lehen kooperatiba izan zen, mila langile baino gehiago zituen, pisu handikoa Eibarren; Blas Etxebarria oso arduradun eta inplikatu sentitzen zen bere funtzionamendu egokian.

4.728. Elgezua eskultoreak egindako Blas Etxebarriaren bi bustoak (EIB-740/039)

1950eko hamarkadaren erdialdean Blas Etxebarriaren bi busto egin ziren. Aurkezpen-egunean 9-10 urte zituela gogoan dauka Ignaciok. ALFAren bulegoetako sarreran, Toribioren bustoa zegoen eta, langileen sarreran, Blas Etxebarriarena. Bigarren bustoa familia gorde zuen etxean ama hil eta San Telmo museoari eman zion arte. Karlos Elgezua Eibarko eskultorearen lana ziren. ALFAren itxieraren ostean, bustoa familiara itzuli da eta honek Eibarko Udalarari eman dio dohaintzan.

4.729. Ikastun gisa hastetik enpresaburu izatera (EIB-741/002)

Pablo Aranzabal (1869-1959) Elgetatik 10-12 urterekin iritsi zen Eibarrera. Ikastea eta bere kontura informatzea gustatzen zitzaion. Armaginarean lanbidea ikasi zuen. Hasieran errebolberrak egin zituen, eskopetak geroago. Eibarko enpresaburu oso aktiboa izan zen.

4.730. Gizon jantzia, langilea eta parte-hartzailea (EIB-741/004)

Pablo Aranzabalek Eibarko Lore Jokoen antolaketan (1908) eta Eibarko Arte eta Industrien Erakusketan (1927) parte hartu zuen. Egunkariarekin, irratiarekin, Espasarekin... informazioa izatea eta ikastea gustatzen zitzaion.

4.731. San Agustin kaleko lantegiaz (EIB-741/005)

Pablo Aranzabalen tailerra Eibarko San Agustin kalean zegoen (argazki bat erakusten du). Gerra zibilean gogor bonbardatu zuten eta eremu osoa deseginda geratu zen, lantegia barne. Armak egiteko makineriaren zati bat Bilbon zegoen ordurako osaba Julio Anituarekin batera. Makinak zaindu eta berreskuratzeko joan zela dio.

4.732. Blas Etxebarria, aitari buruz (EIB-742/003)

Eibarko Txirio-kalen jaio zen Blas Etxebarria. Orbea lantegikoa izan zen bere lehen lana. Handik, Donostiako Bankura pasa zen. Bera izan zen lehenengo zuzendaria.

4.733. Kuarteletan errenkan janariaren zain (GU-001/003)

Familia osoa Bartzelonara (Vic-era) joan zen; aita-ama eta anai-arrebak. Bartzelonan zeudela, anaia zaharrena kuarteletara joan behar izaten zen janari bila.

4.734. Belgikako familia baten erregina bezala (GU-001/004)

Belgikara iritsi zirenean lehenengo Belgikara eraman zituzten. Han leku guztietako umeak zeuden. Jesusa Belgikako familia batek hartu zuen. Han erregina bat bezala egon zen, oso gustura baina ile motza eta itsasontzian hartutako hazteria ditu gogoan.

4.735. 12 urte zituenera bitartean Belgikan (GU-001/005)

Bruselasen familia belga batek hartu zuen eta beraiekin egon zen gerra bukatutakoan gurasoak erreklamatu zuten arte. 5 bat urterekin joan zen eta 12 urte zituela bueltatu zen Eibarrera.

4.736. Anaia txikia herri berdinean (GU-001/006)

Anaia gazteena ere berarekin joan zen Belgikara. Zaharrena soldadu zegoen kapitain baten etxean. Anaia txikia ere beste bikote belga batekin eraman zuten, herri berdinerara.

4.737. Penarekin bueltatu zen Eibarrera. (GU-001/007)

Belgikako familiarena errepikatzen du berriro. Eskolara joan zen eta gurasoan berririk ez zuen jaso han zegoen bitartean. 12 urte zituela gurasoak bizi zirela

jakinarazi zioten eta bueltatu egin behar izan ziren. Penarekin bueltatu zen, han oso ondo zaindu baitzuten.

4.738. Eibarrera gosea pasatzera (GU-001/008)

Donostiara heldu zirenean ama zain zuten eta handik Eibarrera etorri ziren, "gosea pasatzera". Anaia zaharrena Bartzelonan geratu zen.

4.739. Belgikako familiak ere pena hartu zuen bueltatu zenean. (GU-001/012)

Belgikan zegoela inoiz ez zuen pentsatu Eibarrera bueltatuko zenik. Bertako familiak ere pena handia hartu zuen.

4.740. Belgikako familia diruduna eta katolikoa zen. (GU-001/017)

Belgikako familia diruduna eta katolikoa zen eta egunero joaten zen elizara eta eskolara. Bera eta bere gizona ere beti izan dira oso katolikoak. Bere familiakoak ordea, sozialistak zirenez, elizara ere ez ziren joaten.

4.741. Arropa dotoreekin bueltatu zen Eibarrera. (GU-001/020)

Eibarrera heldu zenean ekarri zituen soinekoak eta oinetakoak atentzio deitu zuten. Arropa eta soineko politak ekarri zituen. Belgikako familiarekin kontaktua mantendu zuen baina laguntza gehiagorik ez zuen jaso.

4.742. Arratetik jauzitako bonba batek bere etxea apurtu zuen. (GU-001/024)

Eibarko bonbardaketan Arratetik jauzitako bonba batek beraien etxea apurtu zuen eta babeslekuan babestu behar izan ziren. Orduan "Pescadería" kalean bizi ziren, merkatu ondoan. Babeslekua gaur egun "2 de mayo" kalea den ibaiaren ondoan zegoen.

4.743. Familia ingurua (GU-002/002)

Bere burua eta familia aurkezten du. Gurasoak Valentina Landa eta Felix Oiarzabal ziren. Aita Orbea eta A.Y.A-ko langilea izan zen, tornularia. Bere ustez aitaita aberatsa zen, pastelgilea zen eta erroskilak egiten zituen Arrateko jaietan saltzeko. Ingalaterran bizi den beste arreba bat du .

4.744. Amak Habanan joan zitekeela uste zuen. (GU-002/005)

Gerra hasi zenean Lamiakon zeuden. Anai-arrebak Habana itsasontzira amarekin joan ziren. Amak beraiekin joan zitekeela uste zuen, baina ez zioten pasatzen utzi. Bere arrebak orduan 11 urte zituen.

4.745. Autobusean Carlislera. (GU-002/009)

Ingalaterran zorte handia izan zuela uste dut. Autobusean Carlisle-ra eraman zuten, Ingalaterrako iparraldera. Arreba emakume frantses batekin joan zen neskame moduan eta Jose Mari ere beraiekin eraman zuten, bertako umezurtz-etxe batera.

4.746. Aitaren argazkia (GU-003/002)

Aitaren argazki bat erakusten du, Amuategi batailoian zegoenekoa. Behean boligrafoz idatzita "Angel Marcano Arregui. Fusilado por los fascistas el 27 de abril de 1938, a los 36 años de edad en Santoña". Argazkian, aitak, 34-35 urte inguru izango zituen.

4.747. Eladio Marcano patriarka eta familia. (GU-003/003)

Marcano familiaren argazkia; patriarka, Eladio, erdialdean eserita dagoen biboteduna da. Bere aita, Angel, goian tente, ezkerretik hasita bigarrena. Familia, jatorriz, Kantabriakoa zen, baina amona Maria Luisa, eibartarra.

4.748. Etorkizuna eta iragana. (GU-003/005)

Bruno ilobaren argazkia, Marcano familiaren azpian. Ondoan, bere familiaren argazkia, ama, emaztea, lau seme-alabak eta txakurrarekin. "Amatxo" aurean, eta atzean ezkerretik hasita, Roberto, Susana, Angel, Juanita emaztea, Tania, Rober eta Leal txakurra.

4.749. Berak margotutako irudiak (GU-003/006)

Berak margotutako irudiak: aitona (amaren aita) eta ama. Amarena Errusian zegoela margotu zuen. Bien erdian, Eduardo osabak, Iruñako kartzelan zegoenean, egindako izar bat, erdian Robertoren argazkiarekin. Atzean "Hecho por mi tío Eduardo en la cárcel de Pamplona. 1935".

4.750. Ama "Guardia Zibila". (GU-003/007)

Aita eta ama "nobotan". Ama Guardia Zibilaren arropak jantzita.

4.751. Crimeako udak. (GU-003/008)

Crimean pasatu zuten bigarren uda, berriz Kiev-era bueltatu baino lehenago (1938ko edo 1939ko uda?). Goitik eta ezkerretik hasita: Alberto Santo Tomás (Donostia), Desiderio González (Barakaldo), Fidel Alonso, Amilibia (Donostia), Pilar Escalera (Barakaldo).Erdian: Antonio Lekunberri (Eibar), Feliz Ormaetxea (Eibar), Jose Luis Larrañaga (Eibar), Jose Muguruza (Eibar). Behean: Alejandro Barrera (Bilbo), Roberto Marcano (Eibar), Ignacio Ormaetxea, Ricardo Canteli (Bilbo), Vasilisa Albarran (Bilbo).

4.752. Neska taldea Krimeako erietxean. (GU-003/009)

Kiev-en egon ziren ume eta gazte taldea Krimeako erietxean. Argazki honetan gehienak neskak dira baina goian Alberto Santo Tomas eta Jose Luis Larrañaga ere badaude. León Oleski, itzultzaile argentinar bat erdialdean. Roberto atzealdean dagoen umetako bat omen da. 1938 edo 1939ko argazki bat.

4.753. Isaias Albistegi, lagun ona. (GU-003/012)

Isaias Albistegi pilotuaren argazki bat.Prieto eta Lekunberrirekin, beste batzuen artean, II Munduko Gerran parte hartu zuen, nazien aurka. Behean Isaiasen domina batzuk: "Guardiaren domina", "II Mundu Gerrako domina" eta "Gerrillariaren domina".

4.754. Seme-alaben marrazkiak. (GU-003/014)

Robertok egindako seme-alaben marrazkiak: Tania, Angel, Rober eta Susana. Eta Jose Luis Morók egindako marrazki bat: Tete, Chiquitín eta Cantinflas.

4.755. "Acrosport" Kieven. (GU-003/016)

Kieven ikasitako ikasgai batzuk aipatzen ditu. Errusiarra ondo ikasi zuten, heldu zirenean erdararaz ikasten bazuten ere.

4.756. Umetako oroitzapenak argazkitan (I). (GU-003/018)

Ama eta aitaren argazkiak,kirol txapelketetan irabazitako sariekin. Beste argazki baten, Roberto umea zenean Ojangurenek hartutako argazki bat. Familiako beste argazki bat.

4.757. Aita Markanoren "abioia" (GU-003/019)

"Eibar 1930. Se construyó este 'avión' para los carnavales de ese año, en el garaje de la calle Isasi nº 23, donde yo vivía. El señor que está como piloto es mi padre, Angel Marcano Arregui. En la guerra 'incivil' del año 1936, mi padre era enlace del Batallón Amoátegui. En 1938 fue copado por los fascistas en Santander y fusilado ese año, a la edad de 36 años".

4.758. Oroitzapenen albuma. (GU-003/020)

"10- julio- 1947. Décimo aniversario de la estancia de los niños españoles en la Unión Soviética". Bertan oparitutako albuma erakusten du. Bertan gordetzen ditu amak Sobietar Batasunera bidalitako eskutitzak.

4.759. Amaren eskutitza. (GU-003/021)

Amak bidalitako eskutitz bat, seguruenik lehenetarikoa, 1946ko apirilaren 20an idatzitakoa. Familiaren berri ematen dio: osaba Eduardok bi seme eduki zituela, Eduardito eta Robertito; aita Santanderren fusilatu zutela 1938ko martxoaren 28an; ama bera ere 1941eko apirilaren 19an berriro ezkondu zela, Barakaldoko alargun batekin.

4.760. Umetako oroitzapenak argazkitan (II). (GU-003/022)

Roberto, 5 urte inguru, bere amarekin. Aitaren erretratu bat. Amaren Argazki bat Lambretta batekin (Osaba Eusibiok Lambrettan egiten zuen lana).

4.761. Umetako oroitzapenak argazkitan (III). (GU-003/023)

Aita eta ama korrikan eta txirrindularitzan irabazitako sariekin. Ondoan amak Errusiara bidali zion argazkia, gero berak margotu zuena,eta amaren beste argazki batzuk.

4.762. Eibarrera bueltan. (GU-003/024)

Eibarrera bueltatu zeneko argazkiak, ama eta Visirekin; eta Tibilisin (Georgian) ateratako argazki batzuk.

4.763. Tibilisi. Jose Muguruza eta Nieves Acha. (GU-003/026)

Bakú eta Tibiliseko argazki gehiago; tartean Nieves Acharekin ateratakoa. Beste aldean, Elgoibarko Jose Muguruzaren argazki bat.

4.764. Roberto, Isasi kaleko umea. (GU-004/002)

Roberto Marcano Magunacelaya Arregui Loroño. Eibarko Isasi kalean jaio zen, 13. zenbakian. Bere umetako lagun bat ere, Jose Luis Iparragirre, eraikin berdinean bizi zen. Gero 21 (edo 23). zenbakira joan ziren bizitzera, 5. pisura.

Balkoitik Ipuruako baserria ikusten zuen eta marrazkiren bat ere egin omen zuen.1928ko otsailaren 24an jaio zen.

4.765. 1934ko Urriko Iraultzan osabak balkoitik tiroka. (GU-004/003)

1934ko Urriko Iraultza. Eibarren ere istiluak egon ziren. Egun batean, Isasi kalean, behean, barrkada ipini zuten. Etxeko miradoretik, osabek, Armeria Eskolara tiro egin zuten, bertan baitzeuden Guardia Zibilak. Bitartean, Roberto, tina baten barruan ezkutatuta zuten. Gauez, Guardia Zibilak etxeko atea jo eta bi osabengatik galdetu zuten. Eusebiok lana ez galtzearren, bestea izan zela esan zuten eta Eduardo Iruñeako kartzelara eraman zuten.

4.766. Osabaren zaldiaren zain. (GU-004/004)

Amarekin joaten zen osaba bisitatzera Iruñako kartzelara. Behin, osabak, zaldi bat hazten zegoela esan zion eta belarra jasotzea eskatu zion, zaldia etxera eramaten zuenerako. Gezurra esan zion eta 36ko hauteskundeetan Frente Popularrek irabazi eta preso guztiak askatu zituztenean eta osaba zaldi gabe etxera heldu zenean sekulako pena hartu zuen.

4.767. Gernikako bonbardaketa Zugaztietatik ikusi zuen. (GU-004/005)

Roberto, ama eta bi osabak Isasi kalean bizi ziren 36ko gerra hasi arte. Aita orduan non zegoen ez du gogoratzen. Gerra hasi ondoren Zugaztietako familiako baserri batera joan ziren.1937ko apirilaren 27an (26an izan zen) Gernika bonbardatu zutenean mendian zegoen eta han goitik ikusi zuen nola bonbardatu zuten herria.

4.768. Amuategi Batailoiaaren kamioian Sestaora. (GU-004/006)

Zugaztietara Eibar bonbardatu zutenean joan ziren. Eibar bonbardatu zutenean, nazionalak 3 kilometrotara zeuden. Amuategi batailoia kamioi bat antolatu eta Sestaora joan ziren (Zugaztietatik pasatu ondoren?). Sestaon zeudela bidali zion amak Errusiara.

4.769. Bilboko bonbardaketak tunelpean erregaliza murtxikatzen. (GU-004/008)

Gerra baino lehenago ama Matxariako ehiza eta arrantza tresnak zituen lantegi batean egiten zuen lan. Lantegi hura aleman batzuen zen. Sestaora joan zirenean ere ama Deustuko fabrika baten egin zuen lan. Bera ekainaren 13an ontziratu zen (amak lagundu zion Santurtzira) eta 6 egun beranduago faxistak sartu ziren Bilbora. Bilbon bonbardatzen zutenean tunel baten babesten ziren. Behin, bonba bat tuneletik 10 metrora jausi zen. Bonba lehertu ez zelako salbatu ziren. Umeei erregaliz makilatxo bat ematen zieten leherketetan murtxikatu zezaten eta tinpanoak babesteko.

4.770. Eskolara udaletxe azpira. (GU-004/009)

Udaletxeko eskoletan ikasi zuen. Maisuetako bat Don Bernardo zen, txikia eta lodia. Bestea luzeagoa zen. Amak oso bokadilo gozoak egiten zizkion eskolara joateko, eta eskolara iristean beste mutiko batzuek beste "bokadilo pobreago" batengatik aldatzen zioten.

4.771. Errusian euskara ahaztu eta gaztelera ikasi. (GU-004/010)

Errusiara joan baino lehenago euskaraz bazekien. Ondo hitz egiten zituen bai eibartarra, baita Zugaztietako euskara ere. Bertan ahaztu zitzaion eta gaztelera ikasi zuen. Oso irakasle onak izan zituen; Isaias Alvarez Etxaniz, Bilboko zinegotzi izan zena, besteak beste.

4.772. Habana itsasontzian Burdeosera. (GU-004/012)

Habana itsasontzian Burdeoseraino eramán zituzten umeak. Han Frantziara zihoazenak geratu ziren. Robertoren txartelean "Expedición a Rusia" ipintzen zuen, bakoitza bere zenbakiarekin (Robertorena: 1735). Errusiako umeak, Frantzian geratzen zirenei jaten ematen ziela ikusterakoan, itsasontzitik jaitsi nahi izan ziren.

4.773. Habanatik Sontay-ra. (GU-004/013)

Sobietar Batasunera zihoazen umeak ere Habanatik jaitsi eta Sontay izeneko eta besoa besteko arratoiak zituen ikatz kargaontzi frantses baten sartu zituzten. Kargaontzi hartako tripulazioaren gehiengoa vietnamita zen (Vietnam-Indochina- Frantziako kolonia izan zen), Gehien gogoratzen duena aluminiozko plater batzuetan ematen zieten arroz itsaskorra da. Umeek, arroza sabaira bota eta erantsita geratzen zen. Bidaiak 13 egun iraun zuen eta ez du gogoratzen zerbaít jan zuen edo ez.

4.774. Bidaia oso kubiartan. (GU-004/014)

Bidaia oso txarra izan zela gogoratzen du eta umeen artean iskanbila galantak sortzen ziren. Bera beti kubiartan, oso txikia baizen: 1,16 metro neurtzen zuen eta 21 kilo zituen orduan.

4.775. Etxean bakarrik ikaztegián ezkutatuta. (GU-004/016)

Habana itsasontzira amarekin joan zen. Oso elegante jantzita zihoan, txarolezko zapata eta guzti. Gerra aurretik familiaren ekonomia ona zen; ama eta osaba biak lanean zeuden eta soldata onekin. Helduak lanean zeudela askotan geratzen zen etxean bakarrik, eta batzuetan, beldurtuta, labezomorroz jositako ikaztegián ezkutatzen zen.

4.776. Eibar handia; Eibar txikia. (GU-004/018)

Eibar hiri zoragarria iruditzen zitzaíen. Errusiara joan ziren ume eibartarrek Eibar munduaren zilborra zela esaten zuten. Umetan Isasi kalea, kale zabal eta luze bat zela iruditzen zitzaíen. Itzuli zenean, berriz, txikia zela. Ama lehenengo aldiz ikusi zuenean ere txiki-txikia iruditu zitzaíen.

4.777. Amatxo txirrindularia. (GU-004/022)

Amak Matxariako lantegi batean egiten zuen lan bere garairako oso emakume aurreratua izan zen. Bizikletan, motorrean, etab., ibiltzean zen. 1929an Bizkaiko txirrindulari lasterketa irabazi zuen. Profesionala zela ez luke esango, baina zalea zela bai. Agian bi anaiek GAC-en lanean egoteak zerikusia izan zuen. Robertok ordea, ez daki bizikletan ibiltzen.

4.778. Errepublikarrak eta ateoak. (GU-004/023)

Etxean guztiak errerepublikarrak eta ateoak ziren. Behin, eskolatik elizara joan ziren. Osaba Eduardok jakin zuenean ez zitzaíen gehiegi gustatu.

4.779. Gerra Zibilaren hasiera. (GU-004/025)

Etxekoak Errepublikaren aldekoak ziren. Eibarren II Errepublika ipini zenean, bera bertan zegoen, baina lau urte bakarrik zituen eta ez du ondo gogoratzen. Gerra hasi zenean bai, gogoratzen du.

4.780. Amonarekin Ipuruara oiloei jaten ematera. (GU-004/027)

Aitona Marcanok Eibarko zezen plaza eraiki zuen. Pare bat aldiz joan zela gogoratzen du. Behin, emakume toreatzaile koadrila bat etorri zen. Ipurua inguruan ere baratza zuten eta gerra garaian oiloei jaten ematera joan behar izaten zen amonarekin, atso eta ume bati ez zielako tiro egingo.

4.781. Ogia gurinarekin nahiago kabierra baino. (GU-004/030)

Ekainaren 25ean heldu ziren Leningradora (gaur egungo San Petersburgo). Izan zuten harrera ikaragarria izan zen, musika banda eta guzti. Bi emakumeren artean ontzian zetozen umeak garbitu eta zorriak kendu zizkieten. Handik jatera eraman zituzten; ogia gurinarekin eta kabierrarekin jatera. Beraiek ez zekiten kabierra zer zen. Kendu eta ogia gurinarekin bakarrik jan zuten.

4.782. Leningradetik Kiev-eko umeen etxera. (GU-004/031)

Uniformea jantzi zioten, beste ume guztiei bezala. Leningradon egun batzuk pasa eta handik Sobietar Batasunean banatuta zeuden 13 etxetara eraman zituzten umeak. Berari hamahirugarrena tokatu zitzaion, Kiev-ekoa. Errusiera ez zekiten, beraz bertako umeek esaten ziena ez zuten ulertzen.

4.783. Ikasgaiak gaztelaniaz errusiera ikasi arte. (GU-004/032)

Umeen etxea Kiev kanpoaldean zegoen. 105 ume euskaldun zeuden bertan, eta horietako asko eibartarrak ziren. Gogoratzen duen lehenengo gauza ikasturteetan banatu zituztela da. Bera hirugarren mailan hasi zen. Errusiako hezkuntza liburu guztiak espainolera itzuli zituzten, beraiek ikasi zezaten. Bost urte egon ziren gazteleraz ikasten, errusiera ondo ikasi arte.

4.784. Sobietar hezkuntza sistema ondo antolatuta. (GU-004/034)

Sobietar Batasuneko hezkuntza sistema oso ondo antolatuta zegoela pentsatzen du. Ikasgela guztietan ikasturte osoan gai berdinak aldi berean ematen ziren. Horrela, herri batetik bestera joan behar ziren umeek ez zuten ikasturteko haria galtzen. Liburuak ere beti ziren berdinak. Hezkuntza doan zen. Klaseak, bizi ziren etxetik kanpo zegoen eskola batean izaten ziren. Harrera etxea oso handia zen, eta lursail zabalak eta pinudiak zituen.

4.785. I Mundu Gerrako armamentuarekin jolasten. (GU-004/037)

Beraiekin Ignacio Ormaetxea donostiarra zegoen. "El bizco" deitzen zioten, begi okerrak zituelako. Hau, errusiar koadrila baten laguna zen eta beste koadrila baten aurka borroka egitera eraman zituen guztiak. Sari modura, I Mundu Gerrako armamentua gordetzen zen biltegi batera eraman zituzten eta han zegoen edozer hartzeko aukera eman zieten. Robertok alemanen pintxodun kasko bat hartu zuen.

4.786. Kiev-en harrapatu zien II Mundu Gerrak. (GU-004/038)

Kiev-eko harrera etxean, gutxi gora behera, 10 urte egon zen. II Mundu Gerra hasi zenean bertan zegoen oraindik. Han ere bonbardaketak jasan behar izan zuten. Isaias Alverezen laguntzarekin babesleku bat egin behar izan zuten.

4.787. Kiev-etik Satlingradora eta Stalingradetik Uraletara. (GU-004/039)

II Mundu Gerra zela eta Kiev-etik Stalingradora eraman zituzten. Bertan urte bat baino gehiago egin zuten eta handik Ufá-ra, Baskidiara joan ziren, Uraletatik gertu. Ordurako gaztetxoak zirenak ere nazien aurka borrokatzera joan ziren. Stalingradon beste harrera etxetako umeekin batu ziren. Baskidian 1944arte egon ziren.

4.788. Animazio ikasketak Moskun. (GU-004/040)

Baskidiatik Moskura eta handik Bolshevora eraman zuten. Bolshevon eskolako azken urtea egin zuen. 1947an Moskuko Goi-mailako Zinematografia Eskolan sartu zen, marrazki bizidunen fakultatean. Berak pilotu izateko ikasi nahi zuen, baina marraztea gustatzen zitzaionez animazioa ikastera bultzatu zuten.

4.789. Eibartarrak Kiev-en. (GU-004/042)

Berarekin Kiev-en egon ziren eibartar batzuk: Antonio Lekunberri, Jose Luis Larrañaga, Isaias Albistegi, Jose Muguruza, Ignacio Agirregoikoa. Neskak ere bazeuden, baina izenak ez ditu gogoratzen.

4.790. Eibarko pilotuak II Mundu Gerran. (GU-004/043)

Jose Luis Larrañaga eta Ignacio Agirregoikoa pilotuak II Mundu Gerran hil ziren; bata Stalingradoko batailan eta bestea Kuban-ekoan. Isaias ere pilotua zen, baina planeatzeko hegazkinekin ibiltzen zen. .

4.791. Amaxoren eskutitzak (GU-005/003)

Errusian egon zen lehenengo urteetan ez zuen etxeko berririk jaso. II Mundu Gerra bukatzean jaso zuen amaren lehenengo eskutitza (eskutitz guztiak album baten gordeta ditu). Eskutitz hartan bi alaba zituen alargun batekin ezkondu zela, aita fusilatu zutela, osabak bi seme izan zituela eta beste hainbat kontu esaten dizkio. Amak eskutitzak Frantziatik bidaltzen zizkion, ahizpa biki batzuen bitartez.

4.792. Roberto Marcano Magunacelaya/ Montes Urales/ Rusia (GU-005/004)

Lehenengo eskutitza 45 edo 46an jaso zuen, II Mundu Gerra bukatu bezain laster. Orduan amak non zegoen ere ez zekien eta gutun-azal hartan ipintzen

zuen gauza bakarra zen: Roberto Marcano Magunacelaya/ Montes Urales/ Rusia, eta hala ere, heldu egin zitzaion. Antza denez, Sobietar Batasuneko gobernuak gerrako ume guztien datuak zituzten eta horregatik heldu zitzaion eskutitza.

4.793. 8 urte amarekin harremanetan jartzeko (GU-005/005)

Bigarren eskutitza xehetasun gehiagorekin iritsi zitzaion. Berak ere argazkiak bidaltzen zizkion amari, Frantziako bikien bitartez. Kontaktua berreskuratu zuenean Robertok 15 urte zituen eta amari bere neurriak eta pisua bidali zizkion. Ordutik aurrera eskutitz asko jaso zituen eta guztiak ditu gordeta.

4.794. Itzuli nahi baina ezin (GU-005/007)

Amarekin kontaktua berreskuratu arren ezin zitekeen etxera bueltatu. Molotov ministroak Castiella ministroaren gutun bat jaso zuen Errusian zeuden Espainiako umeen itzulera eskatzen. Ume errepublikar haien arduradunak zirela eta Espainian Errepublika jartzen zenean bueltatuko zituztela erantzun zion Molotov-ek. Hala ere, 56an, Gurutze Gorria artekari zela, nahi zuenari itzultzeko baimena eman zitzaion.

4.795. Amaxorengatik etxera bueltan (GU-005/008)

Roberto lehenengo bidaian apuntatu zen eta 56an amaxorengatik itzuli zen.

4.796. Hitlerren ontzian Balentziara (GU-005/010)

"Krimea" ontzian bueltatu ziren; itxura denez, lehenago, Hitlerren ontzia izan zena. Bidaia Odesatik Balentziara izan zen. Balentzian ama zain zuen.

4.797. Balentziatik Zaragozara autobusean (GU-005/011)

Errusiatik 400 pertsona baino gehiago itzuli ziren. Denak ez ziren erbesteratutako umeak, haien emazteak eta seme-alabak ere tartean zeuden. Errusiarrekin ezkonduko emakumeak ezin izan ziren itzuli. Balentziatik Zaragozara joan ziren 18 autobusetan. Zaragozan, amarekin, pentsio baten egon zen pare bat egunetan.

4.798. Miranda de Ebron berriz bananduta (GU-005/012)

Ama eta biak Zaragozatik Eibarrera bidaia trenez egin zuten, baina Miranda de Ebron, konturatu gabe, banandu egin ziren. Ama Donostiara heldu zen eta Robertok Bilbora jarraitu zuen. Ez zeraman ez dirurik, ezta dokumenturik ere. Trenean ezagututako batzuen etxean pasatu zuen gaua eta hurrengo egunean Eibarrera tren hartzeko dirua eman zioten. Azkenean bere ama baino lehenago iritsi zen Eibarrera.

4.799. Estudios Moró (GU-005/015)

Eibarren zegoela Madrileko "Estudios Moró"ri buruz jakin zuen, Antonio Álvarez eta Carlos de los Llanos-eri esker.

4.800. "Familia Telerin" ohera errezatu gabe (GU-005/017)

Estudios Moró-n pare bat urte egon zen eta Familia Telerin marrazkien (Vamos a la cama) animazioa egin zuen. Marrazki haien musika konposatu zutenak arabarrak ziren. Marrazki bizidunak sortzeko prozesua kontatzen du. http://www.youtube.com/watch?v=O-P_fjZSOFA

4.801. Alderdi komunista (GU-005/025)

Espainiako alderdi komunistako ("pro-soviético") kidea izan zen.

4.802. Poliziaren galdeketak (GU-005/026)

Ez zituen arazo gehiegirik eduki Sobietar Batasunetik etortzeagatik eta ideia komunistak edukitzeagatik. Baina poliziak askotan galdekatu zuen.

4.803. Galdeketara ez joatearren ondorioak (GU-005/027)

Hurrengo egunean beste galdeketa batera joatea eskatu zioten baina ez zen joan eta poliziak mehatxatu egin zuen. Ondorioak ezkondu zenean heldu ziren. Estudios Moró-k Parisera eztei-bidaia ordaintzen zion, baina poliziak ez zion utzi Espainiatik irteten. Poliziak Portugalera joatea proposatu zion baina berak diktadura batetik beste batera ez zuen joan nahi eta azkenean Mallorcara joan ziren. Familia eduki zutenean ere Mallorcara joaten jarraitu zuten.

4.804. Lagun batek jasandako errepresioa (GU-005/029)

Hala ere, Robertok ez zuen errepresiorik jasan. Lagun batzuk ordea, bai. Adibidez, Agustin Gomez donostiarrak. Epaiketa batetik ihes egitea lortu zuen eta Pragan agertu zen.

4.805. Georgian animazioan lanean (GU-005/030)

Espainiara itzuli baino lehenago Georgian lanean egon zen. Bizitzeko leku bat lortu zuelako erabaki zuen Tibilisira joatea, eta animazioan aritu zen. Handik Moskura bidali zuten. Han lanean ezagutu zuen neska errusiarra.

4.806. Luis Marcanok erosi zion lehenengo margoa Eibarren (GU-005/033)

Luis Marcano osabari buruz ari da. Osabak erosi zion bere lehenengo margoa, Errusiako neguko paisaia bat zen. Orduko 1.000 pezeta eman zizkion. Alfán publizitatea sailean sartzeko aukera ere izan zuen. Ikasketak bikain batekin bukatzearren, Errusian, hilero besteak baino 100 errublo gehiago kobratzen zituen.

4.807. Otxandion jaio eta Bilbon bizi (GU-006/002)

Begoña Zaldibar Oianguren Otxandion jaio zen 1926eko uztailaren 14an. Aitak Gregorio zuen izena eta amak Zoila, biak Otxandiokoak. Txikitan Bilbon bizi ziren, aita bertan egiten baitzuen biharra, baina bera jaio zedin Otxandiora joan ziren. Han, amandrearen etxean, udak bakarrik pasatzen zituzten (3-4 hilabete).

4.808. Eskola eta komunioa euskaraz (GU-006/004)

Aita oso abertzalea zen, PNVkoa. Eskolara Bilboko Bihotz Sainduan zegoen lehenengoko ikastolara joan ziren, anaia eta biak. Ikasketak euskaraz egin zituzten; baita komunioa ere.

4.809. Ingalaterrara "txangoa" (GU-006/007)

11 urte egiteko zituen Ingalaterra bidali zutenean, bere anaiarekin eta bi lehengusurekin. Aita eta amarekin joan zen baina ez du gogoratzen nola. Gerrarengatik bidaltzen zituztela esan zioten etxean. Beraiek txango bat izango balitz bezala hartu zuten, gerra segituen bukatuko zela uste baitzuten.

4.810. Uztailak 18, Santa Marina (GU-006/008)

Otxandioko jaiak ziren eta amandrearen etxean zeuden gerra hasi zenean. Bilboko lagun bat ere beraiekin zegoen. Santa Marina egunean ama eta Bilboko laguna plazara joan ziren; Begoña, anaia txikia eta amandrea, berriz, etxean. Bonbardaketa hasi zenean, altzoan anaia hartu eta baratzak zeharkatuz beste baserri bateko kortan babestu ziren. Bitartean ama plazan, eta amandrea falta.

4.811. "Otxandio osoa" plazan (GU-006/009)

Baserriko andreak izara zuria atera zuen baina milizianoak ez zeuden bake kontuetarako. Orduan entzun zuen plazan "Otxandio osoa" hil zela. Aitak Bilbon lanean zegoela jakin zuen Otxandio bonbardatu zutela. Durangora trenea hartu eta Durangotik Urkiolara oinez joan zen familiaren bila. Zorionez, denak ondo zeuden.

4.812. 40 hildako Otxandion (GU-006/010)

Otxandioko bonbardaketa eta gero Bilbora joan ziren, eta han berriz beste bonbardaketa bat. Egoera ikusita, Ingalaterrara joatea ez zitzaien hain zentzugabea iruditzen. Otxandion 40 pertsona hil zuten; asko 1000 pertsona inguru bizi zirela kontutan hartzen badugu.

4.813. Herritarrak bonben biktima (GU-006/011)

Bonbardaketa baino lehenago, Otxandion giroa nahastuta zegoen. Dirudienez milizianoek dinamitaz betetako kamioi bat zuten eta alemanek bazuten horren berri. Bonbek milizianoak eta herriko jende asko hil zuten. Bere lehengusu batek gizona eta bost haur galdu zituen.

4.814. Kanpamentuan ez zitzaien ezer falta (GU-006/015)

Southamptonera iritsi zirenerako kanpamentua prest zegoen. Harrera ona egin zieten, ogi zuri eta guzti. Heldu bezain goiti-behera garbitu zituzten. Kanpindendetan egiten zuten lo, baina ez zitzaien ezer falta: garbitasuna, medikuak...

4.815. Bera Londresera eta anaia Liverpoolera (GU-006/016)

Southamptoneko kanpamentura iritsi zirenean anaia eta lehengusu bat ez zituzten berriro ikusi. Southamptonetik kolegio batera eraman zuten. Begoña Londresera eraman zuten eta anaia eta lehengusua Liverpoolera. Noizbehinka lehengusuaren eskutiz bat jasotzen zuen. Gurasoek elkarrekin zeudela uste zuten.

4.816. Etxean euskaraz, kalean gaztelaniaz eta ingelesa ezer gutxi (GU-006/020)

Ingalaterran eskolara joan zen. Moja italiarren ordenakoa zen kolegioa eta gaztelaniaz ondo zekien moja bat ekarri zieten klaseak emateko. Begoñak gaztelaniaz ikasteko arazorik ez zuen izan. Bilbon ikastolan ibili arren, kaleko

bizitza gaztelaniaz egiten zen. Hori bai, etxean derrigortuta euskaraz. Ez zuten uste denbora asko egongo zirenik Londresen eta ez zuten ingelesa ikasi, ezta nahi ere.

4.817. 9 hilabete bakarrik (GU-006/021)

Ingalaterran 9 hilabete bakarrik egon ziren. Gerra Zibila amaitu barik zegoen, baina gurasoak beraien eske zeuden. Etxean gertatzen ari zenaren berri bazuen, baina ez zuen eskutitz asko jaso, bat edo bi.

4.818. Jateko lehenengo "Cara al Sol" (GU-006/022)

Etxera ere itsasontziz itzuli ziren, Hendaiara. Hendaian lo egin, eta hurrengo egunean autobusez Durangora joan ziren. Heldu zirenean "Cara al Sol" abesten bazekiten galdetu zieten. Bazekiten, baina ezetz esan zuten. Ez zuten abestu eta jan gabe geratu ziren. Durangorik Bilbora eraman zituzten eta han ama zegoen zain. Aita ordurako oso gaixo zegoen.

4.819. Poza, baina egoera zaila (GU-006/023)

Etxera itzultzerakoan, alde batetik poz handia sentitu zuen, baina bestaldetik ez zuten ezer. Aita bihar barik zegoen eta egoera oso zaila zen. Karitatetik bizitzen egon ziren.

4.820. Eibarrera lanera (GU-006/024)

Aita, abertzalea izatearren, lan gabe geratu zen. Eibarren lanean zegoen osaba baten bitartez aitak eta anaiak lana aurkitu zuten. Handik gutxira ama, eta denborarekin, 48an, Begoña ere Eibarrera joan zen bizitzera.

4.821. Eskolara txapel gorriekin (GU-006/025)

Bilbora itzultzerakoan aitak ez zituen eskolara bidali nahi, falangista jantzita joan behar baitziren. Lehenengo diru falta ipini zuten aitzaki modura, baina azkenean amak gona beltza eta alkandora bat lortu eta Indautxuko eskolan ibili zen 13 urte egin zituen arte.

4.822. Antonio edo Andoni (GU-006/026)

Anaia Andonik, eskolan, Jose Antonio Zaldibar deitzen ziotenean ez zuen kasurik egiten. Horregatik zigorrak jasotzen zituen.

4.823. Lanean ezkondu arte (GU-006/027)

Bilboko "Artes y Oficios" eskolan administrazioa ikasi zuen. Gero Eibarrera joan zen. Bastante denbora bihar barik egon arren, azkenean almatzen batzuetan hasi zen. 7 urte egin zituen bertan, ezkondu arte.

4.824. Eibarren etxebizitzak faltan (GU-006/029)

Hasieran Eibarrera heldu zirenean, etxea aurkitzeko arazoak eduki zituzten. Lehenengo, Isasin bizi izan ziren, alokairuan. Errenta 400 pezeta ordaintzen zuten. Han urtebete ere ez zuten egin eta beherago zegoen etxe batera joan ziren. Handik ere segituan joan behar izan ziren. Azkenean Ipurua inguruan (Carlos Larrañaga/ Antonio Mogel kalean) egiten zeuden etxe bat lortu zuten, Begoñari gehiegi gustatu ez arren.

4.825. Xurgagailua lehenengo aldiz ikusi zuenekoa (GU-006/032)

Irlandako bi moja zeuden eta euskaldunak asko maite zituzten. Ingalaterrara heldu zenean atentzioa gehien deitu ziona xurgagailua izan zen. Holako bat ikusten zuen lehenengo aldia zen. Mojari uzteko utzi eta zorabiatu egin zen.

4.826. Batzuetan gozokiak edo jostailuak eramaten zizkieten (GU-006/033)

Ostiralero babarrun zuri handiak eta zaporegabeko arraina jaten zuten. Gosaria batez ere oso ondo. Batzuetan gozokiak edo jostailuren bat eramaten zieten.

4.827. Neskato bizkaitarrak kolegioan (GU-006/037)

Ingalaterrako argazki bat erakusten du. Beste hiru neska daude berarekin, Bilboko 2 eta Zeanuriko 1. Ez zituen berriz ikusi.

4.828. Kolegioko neskatoak (GU-006/038)

Kolegioko beste argazki bat. Kolegioko neska guztiak daude, bera eta lehengusua barne.

4.829. Liburua opari (GU-006/040)

"Premio a la señorita Begoña Zaldibar por su buena conducta durante su permanencia en el colegio de las Misioneras del Sagrado Corazón de Jesús. Honor Oak- London SE 23- junio de 1937/ enero 1938"

4.830. Aitaren partiduko hileko kuota (GU-006/041)

"Euzko- Alderdi Jeltzalia (Partido Nacionalista Vasco). Abando'ko Uri-Buru-Batzara. 215 Zaldibar tar Gergori, Autonomia, 50-5º. Goian ataturiko alderdikidiak bi laurleko ordaindu dauz ila onetako saritzat. 1937- Epala (Marzo). Lendakarija, JORALA, Txindizaña."

4.831. Aitaren txartela (GU-006/042)

"EUZKO- ALDERDI JELTZALIA/ PARTIDO NACIONALISTA VASCO. Zaldibar 'tar Gergori/ Abando 13 Dic. 1930"

4.832. Amaren identifikazio zedula (GU-006/043)

1940ko amaren identifikazio zedula. "Zoila Oyanguren Zaldibar. Natural de Ochandiano (...)"

4.833. Lehen Jaurnatzeko oroigarria (GU-006/044)

"JORALAREN 15'KN BEGOÑA'KO AMAREN TXADONAN LENENGOZ JAUNARTU EBEN. Zaldibar eta Oyanguren tar Miren Begoñe. IKASLIAK 1934'GKO EUZKO IKASTOLA BATZA'REN". Bestaldean: "EMOGUZU GAUR BE GEURETZAKO OGIA (...). NI NAZ GOTIK JATSI NAZAN OGI BIXIJA: OGI AU JANGO DAUNA BETIKO BIXIKO DA (Joann VI, 51, 52)"

4.834. Juanita Unzueta, aurkezpena eta familia (GU-007/002)

Juana Unzueta Garcia. Eibarreko Fermin Calbeton kalean jaio zen 1924. urteko ekainaren 16an. Garai bateko Mugika ehortzetxearen gainean. Izeba-osaben etxean bizi izan zen, lehengusina batekin.

4.835. Jardinetako Doña Petra (GU-007/004)

Anai bat zuen. Sobietar batasunean ingeniari ikasketak burutu zituen honek. . Eibarren udaleko eskolan ikasi zuten, Jardinetan. Doña Petra irakaslea du gogoan asko zigortzen zuelako.

4.836. Jai giroa II Errepublikarekin (GU-007/006)

Bigarren Errepublika aldarrikatu zen egunean Eibarren zegoen Juanita. Izebak eraman zuen gertatzen zena ikustera baina ez du oroitzapen asko. Hala ere Eibar herri alaia zela dio eta gauza guztiak ospatzen zirela du gogoan.

4.837. Aitarekin harremanik ez (GU-007/007)

Errusiara 1938. urtean joan zela dio (1937an izan zen hala ere). Amak eta izeba-osabak lagundu zioten barkua hartzera. Cleto Unzueta, bere aita, Santurtziko alkatea zen Errepublika garaian. Aita ia ez zuten ezagutu anaiak eta berak. Errusiara joateko unean Santurtziko etxe handi batean bizi ziren

4.838. Anaia txikiarekin Errusiara (GU-007/008)

Anaiarekin joan zen Errusiara, Armando Unzueta. Hamalau urte bete gabe joan zen Juanita, anaiak lau urte zituen. Han jatekorik faltako ez zutela agindu zieten joan aurretik. Errusiar Batasunera iristean ongietorri itzela egin zieten.

4.839. Errusian erdaraz (GU-007/009)

Erdaraz ikasten zuten. Irakasle espainiarrak zituzten eta astean behin baino ez zuten errusiera ikasten. Erdaraz aritzen omen ziren beti, kalean eta eskolan. Hala ere ikasi zuen errusiera, anaiak hobe hitz egiten zuela dio.

4.840. Pravdako umeen pabilioia (GU-007/011)

Pravdan egon ziren biak. Anaia umeen pabilioian eta Juanita beste batean. Hurrek bakoitzaren platera eta mahai tresnak nola identifikatzen zituzten kontatzen du. Egoitza nolakoa zen deskribatzen du eta eguneroko errutina. Jakia ez zitzaien falta izan. Israelgo laranjak ditu gogoan.

4.841. Bi gizon garrantzitsu biziizan (GU-007/013)

Dantza irakaslea erakusten du argazki batean, Vladimir Biely. Umeen etxeko zuzendaria ere erakusten du, zuzena baina pertsona ona. Asturiasko neska baten inguruko pasadizoak kontatzen ditu.

4.842. Vladimir Bielyrekin dantzan (GU-007/014)

Dantzan nola hasi zen kontatzen du Vladimir irakaslearekin. Euskal dantzak ere egiten zituzten, "Gran Teatro"-n arrakasta handia izaten zuten emanaldi batean. Stalin ere han zen. Igandero fabrika batera eramaten zituzten dantzara .

4.843. Zorteko neskatila (GU-007/015)

Kirov herrira aste betez joateko hautatu zuten behin. Bertako familia baten etxean egin zuen egonaldia. Oso ondo tratatu omen zituzten, oroitzapen ona dauka.

4.844. Andaluziarra Errusian topatu zuenekoa (GU-007/017)

Kuartelera egindako bisita batean ezagutu zuen bere senarra eta hor hasi zuten harremana. Hasiera batetan umeen etxeko zuzendaria ez zegoen harremanarekin ados, baina gerora utzi zion. Errusiar batek ere ezkondu nahi izan zuen Juanitarekin, zuzendariak ez zion utzi. Manuel Ruiz andaluziarra izan zen bere senarra. Ukrainan egon zen gerrillarekin.

4.845. Ezkontza zibila, nola ez. (GU-007/021)

Ezkontza zibila egin zuten. Sozialista artean hazi eta hezi dela dio. Izeba ere sozialista zela kontatzen du eta 1934. urtean gertatutako pasadizoa etortzen zaio gogora: Guardia Zibil bati Pablo Iglesias bere aitona zela esan zionekoa.

4.846. Amaren gutunak (GU-007/022)

Errusian egon zen bitartean amaren gutunak jasotzen zituen. Amak gutuna idatzi eta mugara eramaten zion gizon bati (ez du gogoan nor zen) eta honek amari Juanita eta anaiak idatzitako gutunak ematen zizkion era berean.

4.847. Amaren ondoan berriro (GU-007/026)

Bizitza oso desberdina zen Eibarren. 1956. urtean itzuli ziren, Crimea ontzian Valentziako portura lehenengo. Ama zuten Valentzian zain, anaiak ere ezagutu zuen nahiz eta oso txiki joan zen Errusiara.

4.848. Zaurituei bizkarra garbitzen (GU-007/028)

Gerra garaian Moskuko ospitale batetan lan egin zuenekoa etortzen zaio burura. Oso oroitzapen latzak ditu. Zaurituak garbitzen (baina bizkarra bakarrik, dio berak) eta haiek dantza eta kantuekin entretenitzen ibiltzen ziren. Zauritu baten pasadizoa kontatzen du.

4.849. Rotako auzitegitik pasa behar (GU-007/030)

Errusiatik bueltan seme-alabarik ekarri ez zutelako ez zuen arazorik izan. Errusian ezkontza zibila egin zuten asko eta asko elizaz ezkondu behar izan ziren itzultzean. Ez dago ados. Rotako auzitegira joan behar izan zirenekoa kontatzen du.

4.850. Familia destacada en política (GU-008/001)

Juan de los Toyos perteneció a una familia destacada en política. Su tío, Juan de los Toyos Gonzalez, fue miembro del primer Gobierno Vasco constituido en 1936.

4.851. Salvados de milagro (GU-008/002)

Su padre también era socialista. Durante la Revolución de Octubre de 1934 les acusaron de disparar desde su casa de Miraflores. La Guardia de Asalto detuvo a todos los hombres y se salvaron de ser fusilados de milagro.

4.852. Telleria, Etxeberria y de los Toyos huídos en Francia (GU-008/003)

A todos los vecinos de la casa de Miraflores los llevaron al Ayuntamiento de Eibar para tomarles declaración. Mientras tanto el alcalde Telleria, Toribio Etxeberria y su tío habían escapado a Francia hasta que se normalizara la situación.

4.853. Su padre 3 meses en la cárcel de Pamplona (GU-008/004)

Aquellos hechos le costaron la cárcel al padre de Juan. Permaneció 3 meses en la cárcel de Pamplona.

4.854. La vida imposible a la República (GU-008/005)

Del año 34 al 36 la situación en España era imposible por los enemigos de la República. La vida política era imposible, había crisis y los militares ya estaban conspirando, hasta que estalló la guerra el 18 de julio de 1936.

4.855. La traición de Queipo de Llanos (GU-008/006)

También hubo militares que apoyaban la república y estaban en contra del golpe de Estado. El general Queipo de Llanos, Unamuno y el alcalde Tellería habían jurado fidelidad a la bandera republicana en el balcón del ayuntamiento. Posteriormente, el general traicionó a la República.

4.856. Disparos fallidos desde el antiaéreo (GU-008/007)

Juan nació el 4 de febrero de 1923 y tenía 13 años cuando empezó la Guerra Civil. Pensaban que iba a durar pocos días. Vió el primer bombardeo de Eibar; estaba en el antiaéreo de la plaza de toros, desde donde fallaban todos los disparos.

4.857. De Eibar a Deusto (GU-008/008)

Después del bombardeo se marcharon a Bilbao. Su padre se quedó en Eibar porque tenía que trabajar. Tanto su padre como su tío Juan trabajaban en las oficinas de Alfa. Ellos estuvieron en una casa en Deusto. Desde allí oían los disparos de Artxanda.

4.858. La guerra perdida por la traición y la aviación (GU-008/009)

Al padre de Juan le gustaba mucho el monte y los domingos solían ir a la ladera de Artxanda. Un domingo se les acercó un gudari herido y les dijo que no había nada que hacer, que la guerra estaba perdida por culpa de la aviación y el armamento alemán. El cinturón de hierro cayó por la traición de un tal Goikoetxea.

4.859. Un mes en Castro Urdiales (GU-008/010)

De noche y en el automóvil de su tío llegaron a Castro Urdiales, donde permanecieron alrededor de un mes, el mes de junio. Mientras comían una paella en una campa vieron aparecer dos cazas. Se refugiaron debajo de un puente. Según Juan, los alemanes e italianos utilizaron la Guerra Civil para probar el armamento que iban a utilizar en la guerra europea.

4.860. Un orinal para cocinar (GU-008/011)

De Castro fueron a Santander donde perdieron contacto con su tío. No encontraron pucheros y su padre tuvo que comprar un orinal para cocinar. Allí estuvieron un par de meses hasta que embarcó en el carbonero Molton. Su padre se quedó trabajando en Santander.

4.861. Rumbo a Francia (GU-008/012)

Tanto Francia como Inglaterra no intervinieron en la Guerra Civil, pero tuvieron el gesto de auxiliar a las familias. En el Molton fueron rumbo a Francia.

4.862. Recibidos con pan blanco (GU-008/013)

Desembarcaron a 14 kilómetros de Burdeos. Del barco fueron trasladados en tren y después en autobús a un campamento. Los franceses les recibieron con barras de pan blanco.

4.863. Viaje frustrado a Bélgica (GU-008/016)

A través de una orden les anunciaron que en el campamento solo podían quedarse ancianos y niños. Los adultos, tanto hombres como mujeres, tenían que volver a España. Los niños que se quedaran iban a ser acogidos por familias belgas. A Jose Luis, Felipe y a él mismo los metieron en un autobús rumbo a Bélgica. A unos pocos kilómetros recibieron una contraorden y se suspendió el viaje.

4.864. Responsabilidades del hermano mayor (GU-008/017)

Tras unos días en el campamento los padres tuvieron que marcharse a Barcelona. A ellos los trasladaron a otra colonia a 14 kilómetros de Burdeos. Allí se tuvo que ocupar de sus hermanos pequeños.

4.865. Emilio de los Toyos, presidente de las cooperativas españolas (GU-008/020)

Estando en la colonia oyó por la radio que a su padre, Emilio de los Toyos, lo habían nombrado presidente de las cooperativas españolas. Poco a poco se fue normalizando la vida en la colonia. Incluso llegaron maestras de Bizkaia que les empezaron a dar lecciones en euskera.

4.866. Con el tiempo llegaron la madre y el padre (GU-008/021)

Su madre (Leonor Palacios) llegó a la colonia con su hermano más joven, y de ahí a un mes llegó su padre. Poco a poco se fueron juntando personas de diferentes sensibilidades ideológicas

4.867. Primer trabajo en un hotel de Burdeos (GU-008/022)

Juan encontró trabajo en un hotel de Burdeos. Allí trabajó bastante tiempo y le querían mucho, pero con el inicio de la II Guerra Mundial cerraron el hotel y tuvo que volver a la colonia.

4.868. En Baiona con los cuáqueros (GU-008/023)

Encontró otro trabajo en un pueblo cercano a la colonia, pero lo tuvo que dejar porque llegó la hora de que cada uno hiciera su vida fuera de la colonia. Los cuáqueros acogieron algunas familias en Baiona, siendo la suya una de ellas.

4.869. Viaje fallido a México (GU-008/024)

Estuvieron alrededor de 6 meses con los cuáqueros. De Baiona debían de marchar a Marsella para embarcar a México, pero no pudieron llegar a Marsella. A su padre lo detuvieron los gendarmes en Baiona y le obligaban a encontrar trabajo en Francia o al volver a España.

4.870. Viviendo en la Casa del Pueblo (GU-008/026)

Al final, tuvieron que volver a Eibar, donde no tenía ni casa. Estuvieron acogidos en el Txaltxa hasta que pudieron meterse en la Casa del Pueblo.

4.871. Sin trabajo por el apellido (GU-008/027)

Pasaron en la Casa del Pueblo alrededor de 6 meses, hasta que construyeron Villa Marina en Legarre. A su padre tampoco le dejaban volver a Alfa, por lo que le tocó a él trabajar para mantener a toda la familia. Trabajo no faltaba en Eibar, pero tenían miedo por el apellido Toyos. Al final su padre también consiguió volver a Alfa.

4.872. El txistulari Alberdi y la Ezpata-dantza (GU-008/029)

La colonia en la que estuvieron se llamaba "Colonia Henry". En esa colonia había un txistulari de Zarautz que les enseñó la Ezpata-dantza, tanto a él como a sus hermanos Felipe y Jose Luis. Celebraban todas las fiestas y recorrían los pueblos de alrededor bailando.

4.873. Hermanos de leche en Bargundia (GU-008/032)

Juan nació en Bilbao. Su madre, de Alonsotegi, murió al dar a luz. Se crió en un caserío de Dima (barrio de Bargundia) con una nodriza, y su padre lo visitaba todas las semanas. Tuvo una gran amistad con aquella familia.

4.874. Hablaba vasco y su padre no le entendía (GU-008/033)

Su padre tenía miedo de que si permanecía tanto tiempo en el caserío le perdiera el cariño y se lo llevó a Bilbao. Pero Juan, al criarse en vasco, no se entendía con su padre. Volvió al caserío, cogió a uno de los hijos y también se lo llevó para que le tradujera lo que Juan le decía.

4.875. De hijo único a familia numerosa (GU-008/034)

En San Sebastián, su padre estuvo de pupilo en una casa con una madre y sus 4 hijas. Allí conoció a su segunda mujer, Leonor. Se casó con ella en Eibar y aquí nacieron Jose Luis y Felipe. Los dos hermanos más jóvenes nacieron en Barcelona y en Francia.

4.876. La cooperativa de consumo (GU-008/035)

Vinieron a Eibar el año 31. Su padre entró a trabajar en Alfa, donde había una cooperativa de consumo del que se hizo cargo.

4.877. Su padre: naturista, socialista y cooperativista (GU-008/036)

Su padre era naturista, socialista y cooperativista. No tenía la presencia pública de Juan pero éste siempre le pedía consejo. Según Toribio Etxeberria, entonces gerente de Alfa, Emilio gestionaba muy bien la cooperativa.

4.878. El tío Juan exiliado en México (GU-008/037)

Su tío Juan, exiliado en México, siempre decía que él "había entrado en México, pero que México no había entrado en él". Murió allí.

4.879. Una familia dedicada al socialismo (GU-008/038)

Su padre fue socialista 100%. Tuvo cargos de gran responsabilidad, pero no tuvo el protagonismo de su tío Juan. Él nunca se ha dedicado a la política. Cuando llegó a Eibar ya tenía 19 años, tuvo que ponerse a trabajar y no pudo estudiar. Jose Luis en cambio, tenía unos conocimientos políticos muy avanzados.

4.880. Un padre habilidoso (GU-008/039)

Su padre se amoldaba fácilmente a cualquier situación y pensaba que en la vida había que hacer de todo: en Deusto cortaba el pelo a todos; en Baiona hizo dos baúles y dos maletas de madera; en la colonia hizo más de 20 pelotas de cuero, etc. Era muy habilidoso.

4.881. Problemas para encontrar trabajo en Eibar (GU-008/042)

Sufrieron represalias al volver a Eibar. Su apellido era muy conocido y tanto a él como a su padre les costó mucho encontrar trabajo. A su padre tampoco le permitían salir de Eibar y le tomaban declaración todas las semanas, hasta que la situación se fue normalizando.

4.882. La proclamación de la II República en Eibar (GU-008/043)

La proclamación de la II República fue una cosa increíble. Recuerda que estaban Indalecio Prieto, su tío Juan y su familia de Bilbao y la banda tocaba música (La Internacional) por todas las calles. Hay que tener en cuenta que la mayoría de la juventud de Eibar era socialista, había muy pocos nacionalistas y carlistas.

4.883. La República: una ilusión que se truncó (GU-008/044)

La República fue una ilusión que se truncó. Querían una España mejor, más culta.

4.884. Gerra hasi eta familia banandu (GU-009/002)

Jose Antonio Gonzalez Acha Eibarren jaio zen, Isasi kalean, 1931eko otsailaren 16an. Anaia bat eta arreba bat ditu. Gerra hasi zenean denak banandu ziren: arreba eta bera Frantziara; ama, amona eta urte bateko anaia txikia hemen geratu ziren.

4.885. Santurtzin Habanan ontziratatu (GU-009/003)

5 urte zituen Frantziara bidali zutenean. Ez du gogoratzen zer esan zioten, baina bai Santurtzin Habana itsasontzian ontziratatu zirela. Amarekin joan ziren. Bidaia ere gogoratzen du.

4.886. Kanoikadak zezen plazatik (GU-009/004)

Eibarko zezen-plaza gainean kanoi handi bat zegoela gogoratzen du. Handik Arrate edo Kalamua aldera tiro egiten zuten. Beraiek Isasitik ikusten zuten.

4.887. Familia ona tokatu zitzaion (GU-009/006)

Frantzian lehenengo kolegio batera eraman zituzten. Gero familiatan banatu zituzten, bera familia batera eta arreba haien koinatuen etxera. Bere familia diruduna zen. Oso ondo bizi izan zen han. Eskolara ere bidali zuten eta gaztelera guztiz ahaztu zitzaion.

4.888. Ume baten bizitza normala (GU-009/007)

Frantzian eskolan 3 urte ibili zen; Eibarren batez. Hango eguneroko bizitza ume baten bizitza normala zen: eskolara joan, lagunekin jolastu

4.889. Maisuak baino frantses hobea (GU-009/008)

Frantziatik itzuli zenean, eskolan berak zekien frantsesez gehien, maisuak baino gehiago.

4.890. Pena handia itzuli behar izan zenean (GU-009/010)

Frantzian "tio" eta "tia"-rekin eta haien alabarekin bizi zen. Semea soldadutza egiten zegoen. Han zegoen bitartean ez zuen hemengo familiarekin kontakturik eduki, Eusko Jaurlaritzak erreklamatu zituzten arte. Negar mordoa egin zuten orduan, familiako kide bat gehiago zelako. Etxera itzuli eta ez zekien ez euskaraz eta ez gaztelaniaz, amarekin ulertzeko ere arazoak.

4.891. Habana itsasontzia umez beteta (GU-009/011)

Habana itsasontzian zeudela urpeko bat agertu zen eta kubiartan zeuden umei makurtzeko eskatu zien. Azkenean ez zen ezer gertatu. Itsasontzia haurrez josita zegoen.

4.892. Txokolatez betetako maleta desagertuta (GU-009/012)

Frantziara arrebarekin joan zen. Bidaiari buruz ez du gauza gehiegirik gogoratzen. Buelta trenean egin zuten. Frantziako "osaba-izebak" maleta bat prestatu zioten zapata dotoreekin, txokolatearekin, etab. Ez zuen berarekin ekarri eta ez du berriro ikusi.

4.893. Aitaren azken musua (GU-009/014)

Eibar guztiz suntsituta aurkitu zuen. Gerra aurreko oroitzapenik handiena aitak, tuberkulosiarekin ospitalean zegoela, eman zion musua da. Itzuli zenean aita hilda zegoen. Ama, amona eta anaia txikia zeuden Eibarren zain.

4.894. Eibarren etxe gabe (GU-009/015)

Ama handik eta hemendik ibili zen bonbardaketetatik ihesik. Osaba batek, guztiak hilda zeudela pentsatu eta Isasiko etxea saldu zuen. Itzuli zirenean ez zuten etxerik Eibarren eta Ermura joan ziren.

4.895. 1408 identifikazio zenbakia (GU-009/020)

Itsasontzian zeraman zenbakia ez zuen gogoratzen. Elkarrizketatzaileak 1408 zela esaten dio.

4.896. Itzulera gogorra (GU-009/023)

Gogorra izan zen etxera itzultzea baina azken finean ama eta anaia txikia hemen zeuden.

4.897. Politikaz ez zen hitz egiten etxean (GU-009/025)

Familia fededuna zela uste du, ama behintzat bai. Baina osaba bat fusilatu egin zuten eta hura seguruenik sozialista izango zen, eibartar asko bezala. Ez du gogoratzen ama politika buruz hizketan. Ermuan bizi zirenean auzoko irriatiak entzutea gustatzen zitzaion amari.

4.898. Osabak salbokonduktoak ematen zituen (GU-009/026)

Osaba Eugenio Amuategi batailoiko kidea eta udaletxeko idazkaria izan zen. Herritik irteteko salbokonduktoak ematen zituen.

4.899. Familia osoa probalekuan lanean (GU-009/029)

Eibarko probalekuan Espainiako su-arma guztiak probatzen ziren. Probalekua gobernuak (militarrek) kontrolatzen zuen. Gaur egun Matxarian dago eta oraindik ere militarrek (Guardia Zibilak) kontrolatzen dute. Ama, anaia eta arrebak ere bertan egin zuten lan. Ama 40 urte inguru egon zen bertan.

4.900. Umetako argazkiak (GU-009/032)

Umetako bi argazki. Bat, bonbatxoekin, Frantzian ateratakoa; bestea, lehenengo jaunartzeko argazkia.

4.901. Alicia Gonzalez, aurkezpena eta familia (GU-010/002)

Alicia Gonzalez Acha, Isasi kalean jaio zen 1927ko abuztuaren 1ean. Hiru senide ziren: Jose Antonio, Alberto eta Alicia.

4.902. Jose Antoniorekin Frantziara (GU-010/003)

Gerra hasterako aita ospitalean zegoen tuberkulosiak jota. Ama, Jose Antonio (anaia) eta Aliciarekin Bilbora joan zen seme-alabak Frantziara eramango zituen itsasontzia hartzera. Aliciaren ama, amona eta anaia txikia Alberto Espainian zehar ibili ziren gerra garaian Barcelona, Sitges, etab. Gerra amaituta amak seme-alabak erreklamatu zituen. Anaia ez zioten bueltatu nahi izan semetzat hartu baitzuten Frantzian. Anaiak bueltakoan maleta galdu zueneko kontakatu du.

4.903. Armeria eskolatik tiroak (GU-010/006)

1934. urteko iraultza gogoan du. Armeria eskolatik San Andres pasealekura tiroak botatzen zituztela esaten du. Bizilagun bat Urko mendira zer pasatzen zen ikustera igo zeneko pasarteak kontatzen du.

4.904. Amarekin probalekuan lanean (GU-010/008)

Amak probalekuan egiten zuen lan ezkondu aurretik. Eibarrera itzuli zirenean ere bertan jarraitu zuen lanean. Amama hil zenean, Alicia ere probalekuan hasi zen lanean anaia eskolara joaten zen bitartean. Anaia txikia ospitalean jaso zuten zaintzarako.

4.905. Erdara ahaztu eta amari keinuka (GU-010/011)

Frantsesa ikasi zuten. Itzuli zirenean erdara ahaztuta zuten eta keinuak erabiltzen zituzten amarekin komunikatzeko. Gaur egun ia ez du gogoratzen. Frantziako familiarekin ere ez du harremanik izan.

4.906. Etxeko berririk ez (GU-010/012)

Etxeko berririk ez zuen Frantzia egon zen bitartean amak erreklamatu arte. Anaia ere ez zuen ikusten nahiz eta herri berean egon.

4.907. Eskolara joan nahi ez eta lanera (GU-010/013)

Itzulitakoan amak klase partikularretara bidali zuen baina bera ez zen joaten. 14 urterekin probalekuan hasi zen lanean baina istripu bat izan zuen eta 20 urtez egon zen ohean mugitu ezinda. Ez bajarik, ez medikurik ez zegoen garai hartan. Bizitza gogorra tokatu zaiola dio behin eta berriz.

4.908. Probalekuko istripua (GU-010/014)

Probalekuan egiten zuen lana deskribatzen du. Txikia zeneko oroitzapenak ere Baditu, amak probalekura eramaten zuen. Garaian ez zen ohikoa baina senarra gaixorik zegoelako egiten zuen lana amak. Hala ere, aitonaaren patenteari esker familia aberatsa zirela kontatzen du.

4.909. Nieves Acha, aurkezpena eta familia (GU-011/002)

Nieves Acha Garmendia, 1926. urteko martxoaren 18an jaio zen naiz eta Errusian paperak egiterakoan 1927koa dela jarri zuten. Bidebarrieta kalean jaio zen, etxea eta kalea nolakoak ziren deskribatzen ditu. Lau senide ziren, hala ere 12 pertsona bizi ziren etxean.

4.910. Tutuak jotzen zuenean langileak kalera (GU-011/003)

Eibarko lantegietako tutuak jotzen zutenean kaleko bizia deskribatzen du. Lan bila Eibarrera jende asko etortzen zela kontatzen du.

4.911. Eskolan ez zioten ezer erakutsi (GU-011/004)

Ez zen eskolara joan dirurik ez zutelako. Udalak antolatutako eskoletara joaten zen baina zigortuta pasatzen zuen denbora gehiago. Eskolako egunak nolakoak ziren kontatzen du. Eskolan bakarrik geratu zeneko pasarteak.

4.912. Errepublika egunean jai giroa (GU-011/009)

Aitak plazara eraman zuen eta kalean poza nabari zela dio.

4.913. Hegazkinak zeruan (GU-011/010)

Gerra Zibila hasi zenean Zengotitako baserri handi batetan zeuden Eibarko beste familia batzuekin. Durango eta Gernikako bonbardaketak bizi zituen eta oso ondo deskribatzen ditu.

4.914. Amamarekin Gernikara (GU-011/011)

Soldaduak etortzen hasi ziren egunsenti batetan amak Nieves, Clara (ahizpa txikia) eta hauen amama Gernikara bidali zituen. Han itxaroteko eskatu zien. Bigarren egunean heldu zen ama anaia txikiarekin eta beranduago beste anaia etorri zen.

4.915. Gernikatik ihesi (GU-011/012)

Gernikan ez geratzeko esan zieten. Bonbardaketa hasi zenean Nieves autobusean sartuta zegoen. Bere ama autobuseko traste guztiak atera eta ahalik eta jende gehiena sartzen saiatu zen. Miraria izan zen Bilbora bizirik irtetea.

4.916. Errusiara epe luzeegirako (GU-011/013)

Nievesen amak amamaren kargura utzi zituen seme-alabak Bilbon. Gerrak gauza txarrak baino ez zituela ekarriko esaten zieten eta haurrak ateratzea erabaki zen. Asko eta asko gerra amaitu bezain pronto itzuli zirela dio, bera berrogeita hamazazpi urte pasata etorri da.

4.917. Bat zenbakia paparrean (GU-011/014)

Bat zenbakia paparrean zuela igo zen Habana barkura bere anaiarekin. Identifikazio txartelaren kolorearen arabera bakoitza nora zihoan erabakitzen zen. Arrosa Errusiarako zen. Sontay itsasontzian hiru mila haur inguru igo ziren. Bidaia latza deskribatzen du.

4.918. Soineko handiegia (GU-011/019)

Leningradoko jantziez eta janariaz hitz egiten du. Bertako janaria ematen zieten eta inork ez zuela hura jan nahi. "Pioneroak" nortzuk ziren azaltzen du.

4.919. Odesako etxea (GU-011/020)

Odesan bi ume-etxe zeuden: Simasko eta Kirov. Hitz egiteko beldurra dauka eta ez du ezer esan nahi. Etxea deskribatzen du. Bigarren Mundu Gerrako hegazkinek helmuga bezala erabiltzen zutela kontatzen du.

4.920. "¡Sopas de ajo!" (GU-011/021)

Uharte batean kokatutako bainuetxe batean egon ziren hasieran bi hilabetez. Handik osasuntsu atera ziren ume guztiak. Hango janaria nolakoa zen azaltzen du baina hura ere ez omen zuten jaten (janari asko baina gustukorik ez). Beraien ume-etxeko zuzendariak sukaldari espainiarra ekarri zuenerarte; baratxuri-zoparen pasartea kontatzen du.

4.921. Erdaraz ikasten zuten (GU-011/023)

Hezkuntzari buruz ari da: liburutegi handia omen zuten, liburuak erdaraz. Errusiera atzerriko hizkuntza bezala ikasten zuten. Irakasle onak zituzten, espainiarrak. Mundu Gerra hasi zen arte oso ondo bizi zirela dio.

4.922. Zauriak lotzea jolasten (GU-011/024)

Gerra hasi aurretik jolas moduan zauriak lotzen eta zaintzen irakatsi zieten. Gerrarako gasaren aurkako maskarak beraiekin probatzen zituztela kontatzen du. Orduan jolas bat izango balitz bezala hartzen zuten. Benetakoa gerra

4.923. Beste bi barkuak hondoratu zituzten (GU-011/025)

Gerra hasi zenean Odesatik oinez atera zituzten. Lanbideak irakasten zituzten eskola bat aipatzen du. Nievesek gerrarako ofizioa baino ez zuela ikasi dio. Azken hiru barkuetan atera zituzten. Lehenengo zaurituak sartu zituzten eta azkenik espainiar umeak kubiartan. Beste bi itsasontziak urperatu egin zituzten. Khersonera heldu ziren eta hango ume-etxeko haurrak jaso zituzten.

4.924. Fronteraino akats baten erruz (GU-011/026)

Merkantzia tren batean alde batetik bestera ia urte bete pasa zuten. Akats baten erruz fronteraino eraman zituzten behin, hango zaurituak igo zituzten beraien trenera, leku gabe ia Stalingadoraino eraman zituzten.

4.925. "limoi txikiak" gerrarako (GU-011/028)

Saratovera heldu ziren, Volga ibaiaren ertzean dagoen Engel's hirira. Bonbardaketak zeuden arren ondo zeuden. Txikiak eskolara joan ziren, helduagoak lanera. Granadak egiten erakutsi zioten "limoi txiki" dio berak. Fabrikako kartelak aipatzen ditu.

4.926. 1926. urtean jaioa berriz ere (GU-011/030)

1927. urtekoa zenez, ume-etxean geratzea tokatzen zitzaion. Anaiak berarekin joan behar zela esan eta 1926. urtean jaio zela jarri zioten berriz. Fabrika batetara eraman zituzten. Errusiar artean egiten zuten ordurako bizimodua. Bi urtez egon ziren bertan, 1942. urte-arte, Tbilisira eraman zituzten gero.

4.927. Odesan metrailatuak (GU-011/032)

Odesan zeudeneko hegazkin kontuak etortzen zaizkio berriz ere burura, hegazkin batek ia tiro egin zieneko pasarte. Odesatik irten zireneko momentua berriz hartzen du. Bere taldea baino lehenago atera zen taldetik bi pertsona baino ez ziren salbatu (500 ingurutik), metrailatu egin zituzten.

4.928. Volga ibaian barrera poliki-poliki (GU-011/033)

Tbilisira iristeko Astrahanetik pasa behar izan zuten. Garraio ezak bidea zaildu egin zuela kontatzen du baina gazteak zirela eta ondo konpontzen zirela dio. Itsasontziz abiatu ziren, adarrekin nola kamuflatuta zegoen deskribatzen du eta Volga ibaian barrena bidaia nola egin zuten kontatzen du.

4.929. Lagun bati esker etxera bidean (GU-011/034)

Hiru seme alaba izan zituen. Lagun min batek Nazioarteko Gurutze Gorrira idatzitako gutun batzuei esker 1966. urtean Espainiara itzuli zen lehen aldiz. Frantziar Errusiako egoerari buruz informazio okerra zutela dio, pasarte bat kontatzen du.

4.930. Berrito Eibarren (GU-011/035)

Eibarrera 1966. urtean iritsi lehen aldiz bere lagun min horrek lagunduta. Ordutik urtero etortzen zen. 1970. urtean alabak ekarri zituen. Semea 1973. urtean ekarri ahal izan zuen. Paperak lortzeko pasatakoa kontatzen du.

4.931. "Eusko gudariak" gogoan (GU-011/036)

Euskara ez du gogoratzen. Hitz solte batzuk gogoan ditu. Abestiak bai ordea, "Eusko Gudariak" abesten amaitzen du.

4.932. Roberto Altuna, aurkezpena eta familia (GU-012/002)

Roberto Altuna Iriondo, 1930. urteko azaroaren 9an jaio zen Eibarko Isasi kalean. Arreba gazteagoa izan zuen. Aita Elgoibartarra zen, ama Eibarkoa.

4.933. Aita grabadorea, ama neskame (GU-012/004)

Gurasoen ofizioa: aita grabadorea zen Victor Sarasquetarenean, amak neskame egon behar izan zuen aita kartzelaratu zutelako. Errepublikanoa zen.

4.934. Errusiara ez, Frantziara. (GU-012/005)

Aitak Errusiara bidali izan nahi zuen semea baina Frantziara bidali zuten. Familiak Errusian zegoela pentsatzen zuen eta han ibili ziren bere bila. Iritsi eta gutxira familia aberats batek hartu zuen.

4.935. Nor zen Fouache familia? (GU-012/008)

50. urteurrenean Frantziatik jasotako gutun bat erakusten du. Argazki bat bidali zioten baina familia hura ez du gogoratzen. Agiri bat erakusten du, Fouache familiarekin egon zela agertzen da bertan baina berak ez ditu gogoratzen.

4.936. Frantziako ama eta hemengo ama (GU-012/009)

Jaso zuen familiarekin karta harremana mantendu izan du beti. Han zegoen bitartean ere izan zuen Eibarko berri. Frantziako amak ez zuen Roberto bueltatzea nahi. Bakarrik bueltatu zen Frantziatik, hiru urtez egon zen. Aurretik itzuliko ziren gainontzeko umeak. Ez du oso argi zer sentitu zuen.

4.937. Toribio Etxeberria etxean apopilo (GU-012/010)

Etxean ez zen politikaz hitzik egiten. Nagusiagoa zela, Toribio Etxeberria beraien etxean apopilo egon zen eta hark ematen zizkion azalpen batzuk politikaz. Aitaren oso laguna izan zen hau.

4.938. Amandrearen etxean hamalau lagun (GU-012/011)

Frantziatik itzultzean Eibar guztiz suntsituta zegoela goratzen du. Amandrearen etxera hamalau lagun joan behar izan ziren bizitzera.

4.939. Nos recogieron en Fuenterrabía (GU-014/001)

De Francia llegaron a Fuenterrabía. Recuerda una especie de palacio con una gran verja. Fue su madre a recogerlos. Entre los hermanos hablaban en francés pero como era del agrado de sus tios, se lo prohibieron y al final olvidaron el idioma.

4.940. Con catorce años, de botones para la falange (GU-014/007)

Cuando cumpli&osacute; los catorce años. Lo colocaron en el Sindicato Nacional de la Piel de Falange Española. Trabajaba de botones y cuenta una anécdota sobre una chica llamada Angelita y de cuando le robaron la cartera volviendo de Correos.

4.941. La huída con su padre del campamento falangista (GU-014/008)

Paso dos veranos en un campamento de Falange en la Sierra de Madrid. El segundo año le mandaron al campamento junto al Hospital para tuberculosos de Plencia. Allí le fue a visitar su padre y planearon la fuga del campamento. De Plencia a Lekeitio a pie, de allí a Ondarroa y posteriormente a Mutriku.

4.942. Cada vez que venía Franco, se llevaban a mi padre a Martutene (GU-014/012)

Cuando Franco venía a San Sebastián, a su padre lo metían preso en Martutene. También cuenta que su padre perdi&osacute; un brazo en Arrate probando bombas de mano.

4.943. Prefería la radio (GU-014/013)

Él trabajo junto con su padre en varias tiendas de Santa Lucía. Pero como a Armando no le gustaba aquello, empez&osacute; a estudiar para sacar el título de radio técnico. Estuvo durante dos años echando películas de cine en Ondarroa. Estando allí, conoci&osacute; un radio-técnico que le enseñ&osacute; el oficio y con quien comparti&osacute; un taller en Mutriku.

4.944. Gracias a un invento suyo, casi dobla la producción (GU-014/015)

Comenz&osacute; trabajando en la secci&osacute;n de termos. Se le ocurri&osacute; un ingenio para mejorar la producci&osacute;n y gracias a aquello logr&osacute; ascender. Prácticamente era el único que tenía conocimientos de electricidad por lo que se encargaba de hacer las revisiones de los termos que se vendían en distintas localidades.

4.945. Soy lo que soy por haber estudiado tanto (GU-014/017)

Cuenta que gracias a que tenía estudios sobresali&osacute; de entre los electricistas que había entonces. Comenz&osacute; como trabajador en la categoría más inferior y termino como encargado durante más de treinta años.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-04-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com